



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la
Actividad Física y del Deporte



UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saila

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea

EMAKUME PILOTARIAK: IZAERA, BIZIPEN ETA SENTIPENAK

Doktorego tesiaren aurkezlea:

Uxue Fernandez Lasa

Doktorego tesiaren zuzendariak:

Oidui Usabiaga Arruabarrena Dr. Jn.

Julen Castellano Paulis Dr. Jn.

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Vitoria-Gasteizen, 2014an

Bihotza eskuan

“Gogorra da, lasai hartu” esan zidaten ezertan hasterako. Nik, neure baitan, “ez da hainbesterainokoa izango!” pentsatu nuen, baina bai, arrazoi zuen aholkulari hark, bazekien zertaz ari zen. Gorabeheratsu eta nekagarria izan da nire bidea ere. Luzea, gogorra eta ziurgabetasunez betea egin zait lau urte eskas iraun duen bidaia hau, errusiar mendian ia oharkabeen hasi eta nahi ordurako amaitzea majo kosta zaidana. Abentura eta kalentura asko ekarri dizkit bizi esperientzia berezi honek. Nire kapritxoa izan da, ezohikoa eta arraro samarra askoren ustean, senari eta egoskorkeriari tiraka eutsi eta gauzatutakoa une asko eta askotan. Ez naiz bakarrik aritu, ordea. Benetan pertsona multzo bikaina, zoragarritik haratagokoa, izan dut bidelagun lehen segundotik azken egunera arte. Pribilegiatua izan naiz. Oso. Beraz, denak aipatzea ezinezkoa dela jakitun, eta bidean bakarren bat ahazteko arriskua hartuta, badut nor goraiatua. Lan hau gurea da. Hemen nire hitzezko aitortza eta esker ona, hatzetatik bihotzetara.

Lehenik eta behin, hunkidurazko hitzak ibilbide honetan lehen urratsa ematerako euren eskutik helduta aritzeko aukera eman zidaten bi gidariei. Izan dituzuen pazientzia, eskuzabaltasun eta zorrotzasunaz gain zuzendaritzan eginiko lan eskergarengatik. Batek daki zenbat bilera, dei, mezu eta animo hitz elkartrukatu ditugun. Hau zuena da nirea bezainbeste (edo gehiago). Ni ez nintzen lanean hainbeste tematuko zuek hain laguntzaile finak izan ez bazinete. Oidui, ez daukat hitzik. 24 orduan hor, esku-eskura, eguna joan eta eguna etorri. Aitabitxi paregabea izan zara, emakumeen pilota mundura hurbiltzeko zubi lanak egin zenizkidan hasieran eta ondoren, berriz, urteotan izan nezakeen bide-erakuslerik onena zarela berretsi dut. Zure etxekoei ere, Amaia eta Aratzi, nire eskerrik beroena, ordu batzuk lapurtu dizkiedalako nire ikerketa, bilera eta abarrak medio. Julen, zu ere ez zauzkat saltzeko. Gaiarekin lotura zuzenik izan ez arren lehen unetik baiezkota eman eta eskainitako arretaz gain zure lanerako grina, diziplina eta ahalmena benetan da aipagarria. Eutsi horri! Amaitzeko, konfiantzari tiraka, zuen lan taldean lekutxo bat egingo ote didazue hurrengo okasioren batean? Ohore handia eta plazer erraldoia izan(go) da! Bejondeizuela!

Ibon, zuri ere badut zer eskertua, ikerlari moduan elkarrekin hasi ginelako batez ere. Bulego berean “tupust” egin genuen asko espero ez genuela. Ordutik askotan topo egin dugu, sarean nahiz bertatik bertara, ikerlari (sasi-ikerlari ote egokiagoa?) buzoa soinean. Ikerketa masterreko saio eta orduetan norbere lanari ekin genionetik, orpoz orpo aritu ez bagara ere, elkarrekin penak eta pozak partekatuz prozesu hau eramangarri eta arinagoa izan da.

Argia, zurekin ere zorretan nago, datu baseetan kateatuta ibili nintzenean jasotako aholku, gomendio eta azalpenak benetan lagungarri izan zitzaizkidan eta baita ikerketa prozesuan zehar zerbait behar izanez gero nori laguntza eskatua baneukala jakitea ere. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Aipamen berezia egin nahi nieke Valentzia eta Bartzelonako Unibertsitateetan diharduten bi pertsonari: Daniel Martos eta Susanna Soler. Hasiera xamarrean ginela eta datu pila hari nondik eta nola heldu erabaki ezinda genbiltzala eskainitako aditu eta arituen ukitua nabarmena izan da nire lanean. Mila esker!

Unibertsitateko esparruarekin amaitzeko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko hainbat irakasleri ere eskerrak, ezer behar nuenean bulegoetako atea irekita izango nituela helaraztearren.

Ikerketa lan hau gauzatzeko, ordea, multzo handi bat izan dut ezinbesteko eta erdigune, parte hartzaileona. Zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango nukeen azterlan hau burutzea. Asko eta asko izan zarete nire galderak, deiak eta bisitak jasotzea onartu duzuenak. Atea jotako denak, egia esan. Horrek bai ez daukala preziorik. Asko zor dizuet. Hasteko, Hernaniko sorgin, Zizurkilgo artista eta Usurbilgo fenomenoei muxu handi bana, astero pilotalekuetan ordu eta erdian pilotakada artean informazio bila aritu nintzenean kezka alboratzen lagundu eta irribarreak lapurtzearren. Ainhoa eta Garaziri bereziki natzaizue esker oneko, behin baino gehiagotan “xaxatu” zaituztedalako informazioa jaso eta ikerlana bideratzeko zereginetan. Ildo beretik, grabagailua lagun elkarrizketatutako guztioi ere maitasun keinu bat, ezinbestekoak izan zaretelako, bakoitza zeuen hondar aletxo dotore jarritz. Eztabaida-taldeko kideoi ere goraipamena eta esker zakutxo bana, kapituluaren irakurle eta kritikarioi bezalaxe, zuen iritzi eta ekarpenei esker lanaren nondik norakoak zehaztu eta lotzen laguntzearren. Zuek guztiok emandako erraztasun, babes eta bultzadak bihotza beratu dit. Jarraitu emakume eta pilotari izaten!

Lagunik minenen leihoa irekitzera noa orain. Nire hiru makulu nagusienoi gorazarre, distira bereziko harribitxiak zaretelako. Leire, zure adeitasuna benetan da goxoa. Behin sator-zuloan hasiriko harremana hortik kanpo ere sakondu dugu. Halako “idazkari” batekin munduaren amaieraraino joango nintzateke! Josune, edonon, edonoiz eta edonola leku bat egin, beso zabalik hartu eta etxean bezala sentiaraztearren. Nere, Usurbilgo frontoiaz gain beste hainbat txokotan ere ederki ibil litekeela erakutsi, etxeko atea ireki eta zuen egonaldiak partekatzearren. Hiruroi, nire umore erretxina, ezina, itomen eta abarrak jasan, penak arindu, pozak partekatu eta neurrigabeki emaniko aupada, babes eta mimoengatik muxu maitagarri bana. Nirekin izan dituzuen borondate, pazientzia eta ulermen mugagabeagatik, berriz, nire begirune osoa.

Miren, Urola errekan behera badaukat beste pausaleku bat. Eskerrik asko zuri ere, dudarik ez egitearren ni mamuz inguratuta ibili naizenetan eta pilotan aritzeko elkartzan ez bagara ere gozamen handia delako zuekin egoteko aukera izatea.

Pilotaren bidetik eginiko lagunak ere oso gogoan dauzkat. Kantxan elkarri bekoz beko begiratu arren 30era iritsi ondoren eginiko egun pasa, otordu eta abarreatatik, bejondeizuela! Nire beste familia bat osatu dut mundutxo honetan zuei eskerrak. Ildo berean azpimarratu nahi dut GEPFen eginiko nire sartu-irtena eta utzi zidan arrastoa. Lanean gogor aritzen zarete emakumeek eta pilotak elkarrekin uztartuta fruituak eman ditzaten. Hiru urtez lankide moduan hasi eta lagun eran amaitu zenutenoi, mila esker! Aupa ekipo, eutsi gogor!

Bidenabar, batean zein bestean nire lanarekiko interesa eta jakin-mina agertu eta ekarpenak egin dizkidazuen guztioi ere mila esker, estimatzen da!

Amaitzeko, baina ez azken postuan zauzkatedalako, letra larriz, ETXEKOAK ekarri nahi ditut bertara; nire hiru zutabeak. Antton, egia da aspaldian gutxiagotan elkartu ohi garela, baina konexio berezia daukagu elkarrekin. Ohore handia da zure arreba izatea. Aita, pilotarako harra piztearren, ni oroitzen ez banaiz ere. Ziurrenik zuk eskuz egiten zenizkigun pilota horiek izango zuten eraginik. Baita akaso hitzez agertu ez arren edozer behar izanda zuregana jotzeko aukera daukadalako ere. Ama, zuri zer esan. Ni ez nengokeen hemen zu izan ez bazina. Beharrezko izan ditut zure zenbait esaldi eta hitz-jario gauzak erlatibizatzen eta neure barrua baretzen laguntzeko, nahiz eta unean bertan grazia handirik ez egin, egia esan. Baina arrazoi duzu, “gauza bakarra da erremediorik ez duena”. Milioi bat esker!

Tesia neuk hasi nuen eta neuri dagokit azken puntua jartzea ere. Ondo ala gaizki ez dakit, baina neure eran egin nahi nuke hori ere, bihotza kantuan jarriz.

3 urte ta sei hilabete
saltsan murgildu nintzela,
ikerketa ta tesi bat zer den
arrastorik ez nuela.
Egun laburra, amaiezina,
gau motza edo gau-bela,
irriz ta malkoz, malkoz ta irriz,
arrazoia zena zela.
Zenbat lanaldi, zenbat bidaia,
nolako jende tropela,
zenbat bizipen, zenbat bulkada,
esperientzia, itzela!
Nahiz tximeletaz ta korapiloz
gainezka izan sabela,
badakit zuek lagun izanda
berriz egingo nukeela.

Zorioneko, oso zortedun eta zorretan sentitzen naiz denok. Mila-mila esker eta muxu goxo bana, bihotz-bihotzez! MAITE ZAITUZTET!

Laburpena

Euskal pilota gizonzkoen eremu lez ikusi eta izendatu izan da askotan, baina badira euskal pilotan diharduten emakumeak ere. Ikerketa lan honen helburua euskal pilotan dabilzan Euskal Herriko emakumeen errealitatea ezagutzea da. Aisialdian zein lehiaketan diharduten emakume pilotari nagusien egungo errealitatera hurbiltzeko metodologia kualitatiboa erabili da, etnografia ardatz hartuta, behaketa parte-hartzailea, sakontzeko galdeketak, dokumentuen azterketak eta eztabaida-taldea burutuz, testuingurua bertatik bertara ezagutu eta ikertuz. Datuen analisisian zehar baturiko informaziotik hiru gako gai nagusi azalarazi eta xehatu dira: emakume pilotarien identitateak eta hauen sorrera nahiz garapena, harreman sareen eta komunitatearen indarra eta ardura zein eginbeharrek pilotariengan duten eragina, amatasuna ere aintzat hartuz. Emakume pilotariekin eginiko azterlan honetan ondorioztatu da euskal pilotako eredia androzentrikoa dela, emakume pilotariak identitate propioa eraikitzen dutela, identitate kolektibo partekatu bat, pilotako jarduna askatasun unea dela emakumeentzat, euren momentua, eta emakume pilotariak ikusezinak direla, ez baitira bultzatu, babestu eta nabarmentzen.

Gako hitzak

Emakumeak, euskal pilota, feminismoa, identitatea, komunitatea, aisialdia, ardurak.

Aurkibidea

Sarrera	1
1. kapitulua. Joko eremua: ikerketaren kokapena.....	7
1. Aitzindariak: erraketistak	7
2. Emakume pilotarien itzulera: 90eko hamarkada	10
2.1. Lehen urratsak	10
2.2. 90eko hamarkadaren amaierako gainbehera	12
3. Emakumea Pilotari egitasmoa: eraberritu ala “hil”	13
3.1. Sorrera eta lehen fasea	13
3.1.1. Eskola kirola	13
3.1.2. Kirol federatua	14
3.1.3. Partaidetza edo aisialdiko kirola	15
3.1.4. Lehen faseko kronogramak.....	16
3.2. 2007/2008tik gaur egunera artekoa	17
3.2.1. Balantzea	17
3.2.2. Egitasmoaren garapena: kopuru eta zenbakien dantza... 18	
3.2.2.1. Eskola kirola	18
3.2.2.2. Kirol federatua	19
3.2.2.3. Aisialdiko kirola	21
4. Gu gara zazpi probintzi. Gipuzkoatik haratago	22
4.1. Euskadiko Euskal Pilota Federazioa (EPPF).....	22
4.2. Bizkaia	23
4.3. Araba	23
4.4. Nafarroa	24
4.5. Iparraldea	24
5. Ikerlan honen inguru soziokulturala	26
5.1. Arlo federatua.....	26
5.1.1. Instalazioak eta materiala	27
5.1.2. Lehiaketa egutegia	29
5.2. Aisialdiko arloa	32
5.2.1. Aisialdiko ikastaroen antolaketa	32
5.2.2. Emakumea Pilotari eguna	34
6. Erreferentziak	36

2. kapitulua. Metodologia.....	37
1. Sarrera	37
2. Ikerketaren diseinua	38
2.1. Gidalerroak.....	38
2.1.1. Elkarrekintza sinbolikoa	38
2.1.2. Feminismoak.....	39
2.2. Helburuak.....	40
3. Datu bilketa	42
3.1. Behaketa parte-hartzailea.....	42
3.1.1. Atariko lanak. Hurbilketa aldia	44
3.1.1.1. Eskenatokien hautaketa	45
3.1.1.2. Sarreraren negoziazioa	48
3.1.1.3. Atezain eta informatzaileen aukeraketa	51
3.1.2. Behaketa parte-hartzaile aldia. Landa lana	54
3.1.2.1. Ikertzailearen rola	57
3.1.2.2. Eskenatokietarako sarrera.....	58
3.1.2.3. <i>Rapporta</i> lortzea.....	65
3.1.2.4. Informazio bilketa. Landa oharrak.....	68
3.1.2.5. Elkarrizketa etnografikoak	76
3.1.2.6. Landa egunerokoa.....	80
3.1.2.7. Eskenatokiak uztea.....	82
3.2. Sakontzeko galdeketak	85
3.2.1. Elkarrizketa.....	86
3.2.1.1. Elkarrizketa mota	87
3.2.1.2. Sakontzeko galdeketaren definizioa.....	88
3.2.2. Parte hartzaileak	89
3.2.2.1. Elkarrizketatuak hautatzeko irizpideak	89
3.2.2.2. Elkarrizketatuengana iristeko modua.....	90
3.2.2.3. Elkarrizketatuen zerrenda eta datuak	91
3.2.3. Elkarrizketen edukia.....	93
3.2.3.1. Gidoiaren elaborazioa	93
3.2.3.2. Bestelako baliabideen erabilera	94
3.2.4. Elkarrizketen dinamika.....	95
3.2.4.1. Elkarrizketak burutzeko lekuak hautatzea.....	95
3.2.4.2. Elkarrizketetako estrategia	96
3.2.4.2.1. Ikerketaren aurkezpena eta	
elkarrizketatzailearen asmoa	96
3.2.4.2.2. Elkarrizketaren erritmoa.....	97
3.2.4.3. Elkarrizketatzailea	97
3.2.4.4. Datuen erregistroa	99
3.3. Dokumentuak	99
3.4. Eztabaida-taldea	101
3.4.1. Parte hartzaileak	102

3.4.1.1. Taldearen osaketa eta sarreraren negoziazioa	102
3.4.2. Eztabaida-taldeko edukia	105
3.4.2.1. Bileren diseinua	105
3.4.2.2. Armiarma-diagramak	106
3.4.2.3. Egoera-adibideak	107
3.4.2.4. Gidoia	108
3.4.3. Talde dinamika	109
3.4.3.1. Bilera lekuaren hautaketa	109
3.4.3.2. Eztabaida-taldeko estrategia	110
3.4.4. Moderatzailea	112
4. Datuen analisia	113
4.1. Analisi prozesua	114
4.1.1. Hasierako analisia: deskubritzea	115
4.1.2. Kategorizazioa	115
4.1.3. Interpretazioa: loturak eta kontzeptuak sortzea	118
4.2. Datu kualitatiboen analisirako softwarea: ATLAS.ti	121
4.3. Emakumeak Euskal Pilotan (EMEP) proiektua	124
4.3.1. Ohartu edo deskubritu	124
4.3.2. Kodifikazioa	124
4.3.3. Loturak bilatzen. Interpretazioa	129
5. Idazketa prozesua	132
6. Zorroztasun irizpideak eta etika	138
6.1. Zorroztasun irizpideak	138
6.2. Etika	141
7. Ikerketa prozesuko ekintzen laburpena	144
8. Erreferentziak	146
3. kapitulua. Nor gara gu, zer gara gu? Pilotariak gara gu!	149
1. Generoaren eta desberdintasunaren gizarte-eraikuntza	149
2. Kirola eta jarduera fisikoa: jendartearen ispilu	151
3. Gu ere bagara nor: emakume pilotariak	153
3.1. Identitatea: nor naiz, nor gara	155
3.2. Estereotipoak	156
3.2.1. Gizon/emakumeen kirola	157
3.2.2. “Marimutila”	162
3.2.3. Pilotan, kolokan eta borrokan	164
3.2.4. Neska – mutilak, neskak eta mutilak ala neskak vs. mutilak?	173
3.2.5. Balantzan, zalantzen dantzan	181
3.3. Profilak	186
3.3.1. Pilotari federatuak: astebururoko joan-etorriak	186
3.3.2. Aisialdiko pilotariak: sekula ez da berandu	193
3.3.3. Federatuak eta aisialdiko pilotariak bekoz beko	202
3.3.3.1. Zertara nator, zergatik nator?	202

3.3.3.2. Helduak eta gazteak	206
4. Pilotaria naiz... eta harro nago!.....	210
5. Erreferentziak	213
4.kapitulua. Harremanen habia	219
1. Saio edo pilotako ekintzan zeharreko harremanak	221
1.1. Kideen arteko hartu-emanak.	221
1.1.1. Lehen urratsak.....	221
1.1.2. Ezagunak lagun	225
1.2. Kideen eta entrenatzailearen arteko hartu-emanak	230
1.2.1. Entrenatzaileak eta pilotariak: hain urrun eta hain gertu.	231
1.2.2. Entrenatzaile-pilotari loturaren ezaugarriak	236
1.2.3. Adinak dantzan	237
1.2.4. Azaletik mamira	238
1.3. Talde izaera	239
1.3.1. Talde giroa	239
1.3.2. Talde sentimendua	241
1.3.3. Talde integrazioa.....	244
1.3.4. Talde kohesioa	247
1.3.5. Taldearen magala	250
2. Saio edo pilotako ekintzaz kanpoko harremanak.....	253
2.1. Pilotalekuan, pilotako lagunartean	254
2.2. Kantxako mugetatik haratago	258
2.3. Loturak estuagotzen.....	262
3. Gu: hau, hori, hura eta ni	265
4. Erreferentziak.....	274
5.kapitulua. Ardurak, aingurak; amak, (p)lanak	279
1. Ardurak: gazta banatzen	279
1.1. Etxeko lanak.....	280
1.2. Lanaldi bikoitza.....	281
1.3. Emakume euskalduna	282
1.4. Zaintza lana	283
2. Amatasuna: emakumetasunaren berezko ezaugarria?	284
2.1. Ama ardurak eta familia ardurak.....	285
3. Aisialdiaren antolaketa: kosta ahala kosta, ozta-ozta	288
3.1. Bizitzako etapak eta familia egiturak	289
3.2. Bikotea edo senarra	290
3.3. Emakumeak, ardurak eta aisialdiko jarduera fisikoa.....	291
4. Emakume ardurat(s)u pilotaria: gauza ederra al da?	292
4.1. Pilota, puzzleko pieza bat gehiago	293
4.1.1. Kulturaren atzaparrak: eginbeharren marrak	294
4.2. Onura eta zailtasunak nahas-mahasean	300
4.2.1. Emakumeen momentua	300

4.2.2. Lana, familia eta aisia: rolen uztarketa.....	303
4.3. Denboraren (ber)antolaketa: “ama naiz”	303
4.3.1. Bat eta bat, bi? Bikotean al dihardugu?.....	305
4.3.2. Haurrak: buru bat, agenda andana.....	308
4.3.3. Errudun sentimendua.....	311
4.3.4. Ama eta haurren arteko zilborrestea.....	312
4.3.5. Egitarau antolatuak ala gidatu gabeko saioak?	314
4.3.6. Jardueren etenaldia edo eraldaketa.....	316
4.4. Pilotari amak ala ama pilotariak?	317
5. Ardurak eta pilota zurrunbiloan jira-biraka.....	322
6. Erreferentziak	327
6.kapitulua. Ondorioak, mugak eta etorkizunerako proposamenak	331
1. Ondorioak.....	331
1.1. Proposamenetarako oinarrizko jardun-lerroak.....	335
1.2. Sustapenerako giltzarriak.....	336
1.3. Hedapenerako giltzarriak	338
2. Ikerketaren mugak	339
3. Etorkizunerako proposamenak	340
Eranskinak	
I. Kontakizun bilduma	
II. Aisialdiko en elkarrizketa bilduma	
III. Federatuen elkarrizketa bilduma	
IV. Eztabaida taldeko bileren transkripzioa	
V. Armiarma diagramen bilduma	
VI. Galdeketa soziodemografiko eredu	
VII. UPV/EHUko Irakaskuntzaren eta Ikerketen Etikarako Unibertsitate Batzordearen onesp en ziurtagiria	
VIII. Parte hartzaileen baimen informatu eredu	

Sarrera

1. Nondik norakoa

Nire bizitzaren errepassoa eginez gero kirolak badu bere espazioa. Nabarmena, gainera. Kontzientea ala inkontzientea izan ote zen hautua ez dakit, baina betidanik oroitzen dut neure burua mugimenduan eta era horretako saltsetan. Hautzaroko lehen urteetan akaso aitak eragingo zuen gehiena, diotenez lau urterekin pilotan aritzen nintzelako berekin, espresuki neurrira egindako eskupilotekin, gainera. Ondoren anaia zaharragoak ere zerikusia izango zuen agian, haren itzalean ekin bainion korrika egiteko afizioa gorpuzteari, eta ama bera etxean geldi ez egoteak ere badu zeresanik. Gogoan dut nola begiratzen nion hortzak zorrotuta bere Razesa zahar eta kutun hari, eskulekuan freno bereziak zituen bizikleta desiratuari, nik han ibiltzeko baimena eta ahalmena noiz izango zain. Bai. Eta ibili nintzen hara eta hona Legazpi eta Urretxu artean, amaren baiezkorekin (eta noiz edo noiz gabe). Berak dio, erdi brometan eta erdi serio nire ustez, ni jaio aurretik kirol zaletu nintzela, sabelean nindukala bera ohean izan baitzen haurdunaldiko azken hiru hilabeteetan eta parean tokatu zitzaizkion Los Angeleseko 84ko Joko Olinpikoak. Ni ez naiz oso zuzen, garbi eta zehatz oroitzen aztura hauen eragileez eta korrontearen baitako gorabeheren arrazoiez, aztarrenik ere ez daukat, egia esan, baina betidanik aritu izan naiz han edo hemen pilota, baloi, bizikleta edo zapatila pare bat lagun hartuta aurrera eta atzera. Berdin zitzaidan non, norekin, noiz eta nola, gainera. Ez naiz geldi egoteko jaioa, antza!

Nire mugitzeko beharrak, jakin-min aseeginak eta izaera ipurtarinak eragina dute horretan eta beste mila kontutan. Baita ibilbide orri honen diseinu eta garapenean ere. Noski. Ziur nago. Erabat. Hortaz, zergatik erabaki nuen era honetako anabasa batean murgildu eta goitik behera, behetik gora, ezker-eskuin eta aurre-atze lokaztea? Zer dela eta apustu ero hau? Izan ere, inork esan beharrik gabe dakit neronek, gauza bat kirolzale

eta kirolaria izatea da eta beste bat hari mutur horri tiraka hasi, jakiteko grinari gogor lotu eta honainoko jauzia emateko erabakia hartu, erronkari heldu eta egunez egun temati aritzea. Kuriositateak, barne-harrak eta zerbait egiteko gogo zein betebeharrak moralak bultzatuta hasi nintzen, arrazoi sendo bakarra osatzeko arrazoi txikiagoak elkarren gainean pilatu eta uztartuz, zalantzarik gabe.

Pilotazalea haur garaitik izan banaiz ere lehenengo mugarritxoan ni neu pilotari izateko deliberamenduak ezarri zuen. Moldatu nola edo hala, hobeto ala okerrago, beti moldatu izan naiz pilota bat eskuan harturiko bakoitzean, baina burutik pasa ere ez zitzaidan egin aurrez sekula nik zuriz jantzita pilotalekuegan aritzeko aukerarik izan nezakeenik. Zazpi-zortzi urterekin herriko binakako txapelketa batean aritu nintzen lehenengorekin, bikote mistoa osatuz, eta 13 urterekin Ikaspilotako Gipuzkoako finala jokatu nuen eskuz binaka nesketan, baina horiek izan ziren nire pilotari “ofizial” agerraldi bakarrak urte luzeetan. 2005ean izan zen oker ez banaiz, orduan jakin nuen neskek lehiatzen zutela pilotan, bazutela denboraldiko egutegia eta txapelketa sorta bat, fakultateko pilotako irakasleak, geroztik nire aitabitxi ere badenak, alegia, Oidui, zerbait esan eta xaxatzeari ekin zionean. Ni, ordea, beste hainbat eremutan ere aritu izan naiz lardaskan eta bitan edo hirutan zatitu ezean ezinezkoa zitzaidala erabaki nuen, ni ezin nintzela pilotan hasi, egunak eta asteak ez zituela beharko nituzkeen adina ordu fundamentuz hasiko banintzen. Hurrengo udan, ordea, grina geroz eta biziago nerabilen neure baitan eta ez nion gogoari eutsi. Alabaina, niretzat ezezaguna zitzaidan mundu batean hasteko urratsa eman eta hanka erdia sartzerako oinarriaraino iritsi nintzen irudipena dut. 2006ko iraila-urrian hasi banintzen paleta bat eskuan jo eta fuego, nire bizitzan lehenengoz, abendu edo urtarrilerako ia bizitza guztia bertan neramala iruditzen zitzaidan, erabat “etxeko” nintzela. Nire txoko kutunetako bat bihurtzeko bidean zen pilotakoa ere. Pilotari ibilbidean eginiko bost urteetan alorrak zinez zoko liluragarriak dituela ohartu nintzen, ez hain borobilen bat edo beste ere bai, noski, eta bizipen, sentipen, lagun eta ezagun ugariarekin egin nuen topo herriz herri eta frontoirik frontoi eginiko bidaia eta egonaldietan.

Bigarren zedarriak bidaia bat dauka bere jatorrian, Gasteizko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko Donostiako Kirol Etxera eginikoa, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa. Pilotari soil izatetik pilota federazio bateko teknikari izateko aukera eman eta atak parez pare ireki zizkidaten, ikasle izateari utzi eta nire bizitzan lehenengoz eskubide eta betebeharrak osoko langile bihurtuz. Hileroko soldatapeko langilea, alegia. 2007ko udan abiatu zen etapa hau. Emakumea Pilotari egitasmoa ardatz hartuta teknikari lanean aritu nintzen hiru urtean Gipuzkoan zehar, batek daki zenbat bidaia eta ordu egin nituen bertako hamaika herri eta pilotalekutan, haur zein helduekin entrenatzaile, aholku-emaile eta gidari betebeharrak burutuz, nik nekien bezala eta ahal nuen modurik onenean, nire akats eta nire bertute eta guzti. Zaila da bertan pilaturiko hartu-eman, bizipen eta sentimenduen berri hitzez agertzea, hainbeste eta hain bereziak izanda, baina nire bularraldearen ezkerrean iltzatuta geratu zitzaizkidan hainbat aurpegi, irribarre, hizketaldi eta une. Betirako. Hasten den orok amaiera izaten du bizitzan honetan, ordea, eta Donostiako zilborrestea eten eta berriro ere Gasteizera

itzultzeko ordua heldu zitzaidala erabaki nuen. Hiru urtean zehar pilotutako galderak nire sabel eta garunean artxibatuta nituen, kezka eta zalantzak pil-pilean, eta hauei erantzuteko nahia edo gogoari tiraka berriro ere langile izatetik ikasle izatera igarotzeko bihozkadari jaramon egin nion. Teilapea ez zen berria eta ezezaguna, ordea, nire beste “etxera”, fakultatera, itzuli bainintzen. Ez nekien zehazki zertara, zenbat denborarako, nondik nora aritzeko eta halakorik, baina emakumez eta pilotaz azterketa lan bat egiteko premiak agindu zidan ziaboga hura. Senari jarraitu nion.

Ikerketarako hautua eginda zehazki zeren inguruan aritu erabakitzea izan zen hirugarren urratsa. Erraldoia, gainera. Genero ikuspegiari, emakume bezala ditudan sentimendu, iritzi, bizipen zein ideiei tiraka hasi eta niri haurretan gertaturiko hainbat kontu etorri zaizkit berriz ere erretinara, irudikapen lauso bezain indartsuak aldi berean. Bere garaian ez zidaten askotan kezka edo odol txartzerik eragin, ohikoak edo normalak zirela pentsatu eta aurrera, baina ez da alferrik igaro denbora eta ni ere emakume eta kritikiko bihurtuta nago dagoeneko. Betaurreko moreak erabiltzen hasi naiz eta angelu honetatik hainbat sentimendu, gertaera eta bizipenek aurrez sekula imajinatuko ez nuen adinako indarra eta eragina izan dute nigan. Kirolean zer esanik ez, eta euskal pilotan are nabarmenagoa da bazterketa, gutxiespen eta diskriminazioaren ardatza. Zorrotza bezain luzea. Neure larruan bizi izan dut (eta dugu).

Lehenik eta behin euskal pilotan emakumeok bizi dugun egoera aztertu eta ondoren aldaketarako beharrezko neurriak hartzen saiatzeko desioak bidegurutzean kokatu ninduen, burutazio eta gainerakoei jarraituz lanari ekiteko pronto, gogoz eta ilusioz gainezka. Esperientzia eta erronka berriak ez zeukan albora uzteko inolako aukerarik, beldurra eta urduritasun zantzuak ere inguruan izan arren, erabakia neure-neurea, eta neurea bakarrik, izan baitzen. Emakume eta pilotariei buruzko ikerketa hasteko lehen urratsak, eta baita ondorengo zenbait, emanak nituen.

Gaia edo ildo nagusia erabaki ondoren lan moldea, ikuspegia eta ibilbide orria zehaztea izaten da hurrengo egin beharrekoa. Gertutasunak errespetatua ere eman lezake, baina nire pilota munduko esperientzian oinarrituz angelu berri batean kokatu nahi nuen emakumeek pilotan zer bizipen, sentipen eta helburu izaten dituzten aztertzen ahalegintzeko. Nire lan esperientzia lagungarri izango zen horretarako, baina ez nuen Uxue irakasle edo entrenatzaile lez aritu nahi, Uxue besteen maila bereko lez baizik, Uxue pilotari soila, euren munduko beste bat, etiketa gehigarririk gabea. Batez ere helduaroan daudenak aztertu nahi nituen, bai aisialdian ikastaroetan hain murgilduta eta txertatuta ikusirikoak, eta baita lehiaketa esparruan barruraino sartuta dabiltzanak ere, niregandik gertuen daudenak hauek direlako. Nire arreta eta barne-harra eremu hauek erakartzen zuten gehienbat. Horrez gain, zenbaki hotz eta hutsetan geratzeak ez nau sekula gehiegi erakarri izan, beraz, nolakotasunaren lorratzari jarraitzea erabaki nuen, zenbatekotasuna soilik ez zelako nire nahiak eta helburuak bideratzeko nahikoa izango. Zenbat pilotari dauden? Zenbat lekutan? Noiztik? Non? Bai, informazio aberasgarria da, behar-beharrezkoa ere bai, baina ez nahikoa nire barne-harra erabat baretu eta konformatzeko. Hainbesteko lana hartu eta bide horretan hasiz gero erabat asebate gabe

geratuko nintzela aurrez jakinda, muinerago egitea erabaki nuen. Hori zela eta, modu kualitatiboaren aldeko hautua egin genuen ia hasieratik eta horren baitan aisialdian diharduten pilotarien bizipen, sentimendu, atxikimendu maila eta motak, euren gozamen iturriak eta asmoak barru-barrutik ezagutu nitzan etnografo mozorroa jantzita jardutea egokia izan zitekeela erabaki genuen, aldi berean gogotsu eta errezelo zein izu puntutxo batekin, erabat berria baitzen niretzat eta guretzat. Ezagutu nuen hiru urtean mundu hori, baina ez pilotari soil izanik eta talaia horretan kokatu eta behatzeko benetako grina, bizi-bizia, nabari nuen neure barruan. Federatuen arloa, berriz, oso nirea izan zen bost urtez, beraz, ez neukan ustez barruko gorabeherak ezagutzeko hain sakon murgildu beharrik, nire mundua baitzen ordurako.

Gogoeta hau amaitzeko azken hausnarketa bat plazaratzeko ere probestu nahi dut lan honek eskainiriko abagunea. Ez da kapritxo bat emakumeak ere pilotalekuetan aritzea, ez da atzo goizeko kontua, eta hori ozen aldarrikatu eta egiaztatzeke asmo irmoa du lan honek bere baitan, emakumezko pilotariak ez garela sudurraren puntan jarri eta gizonezkoei traba egiteko aritzen pilotalekuan. Hori behin baino gehiagotan entzun edo heldu da nire belarrietara eta kopeta erabat zimurtu eta bihotza mintzen zait aldiro. Nire kalterako izaten da, baina haserrealdia igaro eta hurrengora arte, listo. Hemen inor ere ez da inor baino gutxiago eta gehiago, denok (eta esparru guztietan) ditugu eskubide eta betebeharrak berdinak, ala? Ez al dugu berdintasuna nahi emakumezko eta gizonezkoen artean? Ala diskurtso kontua soilik da errealitatean hori? Zurikeria eta zuzentasun politikoa? Ni erabat ziur eta harro nago naizena izateaz eta badakit emakume pilotariok merezi dugula gure aitortza eta jendartearen onespina. Gu ez bagara horretan hasten ez da beste inor ere etorriko guri alfonbra gorria jarri, txalo jo eta arrosa koloreko bidea sortzera, beraz, norbere burutik eta pausoz pauso hondar aleak jarriz hastea onena.

2. Atalen aurkezpena

Ikerlan hau sei kapituluk osatzen dute, ondoren adierazi moduan banatuta: ikerketaren kokapena eta testuinguru soziokulturala, metodologia, emaitzak eta eztabaidak atalari dagozkion identitatearen inguruko kapitulua, sozializazio eta hartu-emanen munduari buruzkoa eta ardurak eta amatasuna bere baitan hartzen dituena, eta azkenik, ondorioak.

Lehenengo kapituluan, *joko eremua: ikerketaren kokapena* izenburupean, luze eta zabal agertzen da zein testuinguru soziokulturaletan dagoen kokatua ikerlan hau. Emakume pilotari aitzindarietatik gaur egunera arte egindako bide-orriaren azalpen txiki batetik abiatuz, bertan deskribatzen da zeri egiten diodan erreferentzia emakume pilotariez ari naizenean, nola dagoen antolatuta euskal pilotaren esparru hau, lurraldez lurralde zein herrialde mailan, eta baita egitura horren baitan nik batez ere zer aztertuko dudana ere.

Bigarren kapitulua azterlana burutzeko erabilitako *metodologiaren* azalpenak osatzen du. Bertan sei atal nagusi ezberdin ditut: sarrera, ikerketaren diseinua, datu biltzea, datuen analisisa, idazketa prozesua eta zorrotasun irizpideak eta etika. Etnografia lanaren baitan datuak jasotzeko behaketa parte-hartzaile, sakontzeko galdeketa,

dokumentuen azterketa eta eztabaida-taldean jarraituriko ikerketako pausoen berri zehatz-mehatz ematen da, datuak bildu aurretik egindako lanarekin hasi, informazioa jasotzean eginikoak agertu, analisi prozesua ere pausoz pauso deskribatu eta idazketa kontuak azalduz azken txostenaren osaketara arte.

Hirugarren kapituluan emakume pilotarien gaineko lehenengo emaitzak eta eztabaida plazaratu ditut, pilotari identitate eta nortasunaren ingurukoak: *nor gara gu, zer gara gu? Pilotariak gara gu!* Atal honek hainbat zati ditu. Lehenengoan generoaren eta desberdintasunaren gizarte-eraikuntzaren nondik norakoa agertu dut. Bigarrean, generoak baldintzatutako kirola eta jarduera fisikoaren antolaketa eta egituraketa. Hirugarren zatian emakume pilotarien identitatearen sorrera eta bertan eragiten duten estereotipo, korrante eta eratorritako joerak daude. Laugarrenean, berriz, pilotarien profilak azaldu ditut, multzoka federatu zein aisialdiko ezberdintasunak agertzean eta bateratuta jarduteko asmoen arabera. Bosgarrenean, eztabaida kritiko bat garatu dut emakume pilotarien nortasunari loturiko emaitzetako informazioa sakonago aztertu eta gogoetan murgilduta. Amaitzeko, aldiz, kapitulu honetan erabilitako erreferentzia bibliografikoak jarri ditut.

Laugarren kapituluan, *harremanen habia*, pilotarien artean ematen diren erlazioen inguruan jasoriko emaitzak eta eztabaida kaleratu ditut, puntu ezberdinetan banatuta. Lehen atalean saio edo pilotako ekintzan zehar emandako harremanak, kideen artekoak, kide eta entrenatzaile eta talde izaera, giro, babes zein sentimendua jorratu ditut. Ondoren, saio edo pilota ekintzaz kanpoko harremanak izan ditut aztergai eta azken puntuan, berriz, gai honen inguruko informaziotik sorturiko nire gogoeta eta hausnarketak. Amaitzeko erreferentziak agertzen dira kapitulu honen hondarrean ere.

Bosgarren kapitulua da hirugarren gako gaia aurkezteko baliatu dudana: *ardurak, aingurak; amak, (p)lanak*. Kasu honetan ardurek, eginkizunek eta amatasunak emakume pilotariengan zer eragin, garrantzia eta presentzia duten agertuko dut, hainbat ataletan banatuta. Lehen zatian arduren banaketaren nondik norakoak azaldu ditut, etxeko lanak, lanaldi bikoitza, emakume euskaldunen ezaugarriak eta zaintza lanetan barneratuz. Bigarren puntuan amatasuna aztertu dut, ama ardurak eta familia ardurak azalduz. Hirugarrenean, berriz, aisialdiaren antolaketan emakumeengan ardurek duten eragin eta itzala, besteak beste, bizitzako etapen eta bikote edo senarraren laguntzaren eraginak aztertu eta aisialdiko jarduera fisikoarekin loturiko informazioarekin amaitu dut. Laugarrenean, sakonki analizatu dut emakume pilotariei ardura eta eginbeharrek nola eragiten dieten, nola uztartzen dituzten alor guztiak eta zer oztopo, zailtasun eta onura aurkitzen dituzten, ama diren pilotarien multzoari eskainiriko atalxo batekin amaituz. Bosgarren eta azken puntuan, berriz, arduren gaineko emaitza eta eztabaidatik garrantzitsuenak diren puntuen gaineko gogoeta plazaratu dut eginbeharrak eta pilota zurrunbiloan jira-biraka elkarrekin jarrita. Kapitulu honetako azken atala ere erreferentziei dagokie.

Seigarren eta azken kapituluan, berriz, aurrez bilduriko gaiak abiapuntu hartuta, pilotari identitate eta nortasunaren auzia, harremanen gorabeherak eta ardura zein amatasunaren gaiak bateratu eta ondorio nagusiak plazaratu ditut, guztiak ikerlanaren osotasunean uztartuta agertuz. Ondorioen ondoren emakume pilotarientzat sorturiko proposamenetarako oinarrizko jardun-lerroak eta sustapen eta hedapenerako giltzarriak ere agertu ditut. Kapitulu honen amaieran, berriz, ikerketaren mugak eta etorkizunerako proposamenak kokatu ditut.

On dagizuela!

1. kapitulua

Joko eremua: ikerketaren kokapena

Ikerketa lan hau burutzeko erreferentziazko testuinguru soziokulturala zein izan den agertuko dut kapitulu honetan, hau da, zein testuinguru eta sistemaren baitan egin dudan azterketa lan hau. Sistemaren egitura zein izan den eta den agertzeko lehenengo emakume pilotarien inguruko aurrekarien gaineko aipamen labur bat egingo dut eta hortik aurrera gaur egungo emakumeen pilotaren antolaketan murgilduko naiz betebetan. Amaitzeko, testuinguru horren baitan nik zehazki zein testuingurutan jardun dudan azalduko dut, emakumeen pilota zeri deritzodan, zeri buruz ari naizen lan honetan eta zein modutan jorratu dudan ikerlan honen garapenean.

1. Aitzindariak: erraketistak

Emakumeak pilota-espezialitate desberdinetan aritu dira historian zehar. Hala ere, XIX. mende amaierakoa da profesional gisa jokatzeko hasi zirela dioen lehen erreferentzia, 1897. urtekoa. Ordura arte ez dut aurkitu modu antolatuan zihardutela dioen informaziorik. Bartzelonako Condal pilotalekuan ekin zioten egitura antolatu bateko jardunari, zesta-punta partidak lehiatuz, hurrengo argazkian (ikus 1.1. irudia) ikus litekeen moduan. Garai hartako egunkariek adierazten dutenez andere pilotari katalanek parte hartu zuten. Gertaera horrek, ordea, ez zuen izan jarraipenik (Urrutia eta Sagastizabal, 2009).



1.1. irudia. 1897ko Bartzelonako Condal pilotalekuko andre pilotariak

Emakumeak pilota munduan modu antolatuan finkatzen urte batzuk beranduago hasi ziren, erraketisten eskutik. Gaur egun desagertutako jokamoldea da erraketistena eta, gainera, ahanzturan galduak daude, XX. mendearen hasieratik hirurogei urte pasatxoan Espainian zein Ameriketara frontoirik frontoi arrakastaz aritu baziren ere.

Kirol profesional 1917ko urtarrilaren 1ean bihurtu zen, Madrilen Cedaceros pilotalekua inauguratu baitzen, erraketisten lehenengo frontoia. Hamasei emakumezko aritu ziren teniseko pilotarekin erraketan. Denbora gutxian sona lortu eta azkar hedatu zen itsasoz bestalde ere, Ameriketara (Bombín eta Bozas-Urrutia, 1976).

Neskak aitzindariak izan ziren kirolean garai hartan eta oso gazte ekiten zioten ibilbideari, sarri hamabost urterekin etxetik ateraz. Erraketalari asko Euskal Herrikoak ziren, baina pilotalekuak ireki ahala kanpotar gehiago hasi ziren. Jokatzeko, aldiz, oso pilotaleku gutxi zeuden Euskal Herrian bertan. Horren adibide izan liteke Habanako erraketalarien azpiko argazkia (ikus 1.2. irudia).



1.2. irudia. Emakume erraketistak Habanako La Habana-Madrid frontoian. 1920 inguruan.

Erraketako jokamoldea martxan jarri eta denbora gutxira materiala aldatu eta erraketa gogor eta luzeagoak eta larruzko pilotekin jokatzeari ekin zioten erraketariek, pilotaleku luzeagoetan. Ildefonso Anabitarte enpresaburuak zerikusi zuzena izan zuen aldaketa hauetan eta jokamolde honen sustapenean (Bombín eta Bozas-Urrutia, 1976).

Lehenengo emakumezko federatuak izan ziren erraketistak Espainian. Gainera, Habanan, Miamin eta Mexikon ere aritu ziren estatuko hainbat hiritan jarduteaz gain: Madril (3-4 pilotaleku), Bartzelona (3-4 pilotaleku), Logroño, Sabadell, Castello, Valentzia, Tenerife, Salamanca, Valladolid, Vigo, Santander, Sevilla, Bilbo, Donostia... XX. mendeko 40, 50 eta 60ko hamarkadetan izan zituen jokamolde honek loraldi handienetakoak, enpresariek egunean bi jaialdi antolatzen zituzten, eta “Frontón Madrid” izan zen jokamolde honetako katedrala, bertan lehiatu zirelako garaian garaiko profesionalik onenak (Urrutia eta Sagastizabal, 2009). Azpian duzue bertan aritutako erraketisten irudi adierazgarri bat.



1.3. irudia. Frontón Madrid pilotalekuko erraketistak 1934/35 urteetan (Jose Maria Urrutia)

Gerra Zibilaren ostean murrizketa eta oztupoak izan zituzten, agintarien arabera ez zelako emakumeentzat lanbide egokia, besteak beste hainbat pilotaleku ixtea sustatu zuten, eraberritzeak debekatu, apustuak galarazi eta pilotarien janzkeran aldaketak ezarri, jokamolde hau ahuldu eta desagerrarazteko zorian utziz Moscardó jeneralaren ekimenez. Mugak jarri zizkion emakumeen jardunari, lizentzia berriak ateratzeari ere muzin eginda. Horren ondorioz, martxan zeuden hainbat eskola itxi egin zituzten, espezialitatearen gainbehera hasi zen, erakargarritasuna eta oihartzuna galduz. 1957an mugak kendu egin zituzten, Pilotako Espainiako Federazioko buruzagitza eta Kirolaren Nazio Ordezkaritzan agintariak aldatzean. Hala ere, aurreko urteetako murrizketen eraginez ahultzen segi zuen espezialitate honek, 60ko hamarkadaren amaieran erraketaren mundua Madril eta Bartzelonan baino ez baitzen bizirik, bestelako espezialitateekin batera. Azkenean, Mexikoko pilotalekuak itxi egin ziren 1972an. 1975ean Bartzelonakoa eta Madrilen ere 80. urterako azken frontoia itxia zegoen: “Frontón Madrid”. Azken partida 1980ko uztailaren 17an jokatu zen, 63 urtean jokamoldea indarrean egon eta ehunka emakume jokatzen aritu ondoren. Zoritzarrez,

erraketista profesionalen jarduna etetean galdu zen jokamoldea bera ere, sekula ez zutelako amateur mailako txapelketarik antolatu kirol modalitate horretan (Urrutia eta Sagastizabal, 2009).

2. Emakume pilotarien itzulera: 90eko hamarkada

Erraketistak desagertu zirenetik berriro ere emakume pilotarien jardun antolatura arte, pilota federazio edo erakunde batek gidaturikoa bederen, ia hamarkada bat igaro zen, nahiz eta tartean auzoz auzo eta herriz herri aisialdian eta lagunartean asko ziren euren kabuz pilotan ibilitakoak eta zihardutenak.

2.1. Lehen urratsak

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) emakumeentzat antolaturiko lehen txapelketa 1990ean jokatu zen. Pilotarien lehen bilkura 1990eko maiatzaren 18an egin zuten Intxaurrendoko pilotalekuan herri ezberdinetako pilotariek federazioak neskei zuzendurik eginiko deialdi bat zela-eta. Egunkarian iragarki bat kaleratu zuten emakume pilotariei deialdia irekiz. Bertara hainbat herritan euren kabuz jarduten ziren pilotariak bildu ziren: Altzo, Aia, Goizueta, Hernani, Aizarna eta Donostia. Pilotari hauek guztiak 18 urtetik gorakoak ziren, aurrez eskola garaian eta euren herrietan pilotarako zaletasuna zutenak. Lehen txapelketa handik astebetera hasi zuten gomazko pilota trinkoarekin lauzpabost bikotek. Orduan hasi eta urtero antolatu da Gipuzkoako Ezker Hormako Emakumezkoen Txapelketa, gomazko paletako jokamoldean. Hurrengo urtean jada trinketeko lehiaketa ere antolatu zuten. Ordura arte bakoitza bere inguruko lagun taldearekin aritu izan zen jokatzeko herriko eta inguruko pilotalekuetan, euren kabuz, ez baitzuten modu ofizialean pilotan parte hartzeko aukerarik izan.

Hasierako urte haietan txapelketarik gehienak herriz herri tokian tokiko elkarteek antolatzen zituzten txapelketa pribatuak izan ziren. Denak gomazko paletan. Hainbat lekutan ospatu ziren: Orereta, Oiartzun, Altza, Intxaurrendoa, Lesaka, Hernani... Lehiaketa ofizialen artean bakarrak Gipuzkoako Txapelketak ziren, baina denboraldia ez zen lehiaketa bakar horretara mugatu ohi, lehiaketa egutegia zabala baitzen, irailetik uztaile artekoa, Oiartzungo txapelketarekin hasi eta Lesakakoarekin amaituz. Uda garaian, gainera, hainbat herritako festetan erakustaldi partidak ere jokatzeko zituzten pilotariek han-hemenka: Altzo, Legaria, Oiartzun...



1.4. irudia. 90eko hamarkada hasierako paletarien talde argazkia. 1992, Intxaurreondo (Garbiñe Tijero)

Entrenatzeko Intxaurreondo eta Altzan biltzen ziren emakumezko ia denak, astean bitan, astelehen eta asteazken iluntzeetan, federazioak jarritako entrenatzaile baten gidaritzapean hasiera hartan. Justu gainean duzue (ikus 1.4. irudia) hasieran aritu ziren emakumezkoen argazki bat ikusgai. Lehenengo urteak igaro ondoren, berriz, norbere elkartearen ardurapean eta norbere herrietako pilotalekuetan, edo ingurukoetan, entrenatu ohi ziren, zuzenean federazioarekin entrenamendu kontuekiko lotura gutxituz eta ardura pilota elkartearen eta pilotarien euren esku geratuz. Hasierako urte horietan partida eta txapelketetarako bikoteak osatzeko federazioko batzorde batek ardura hartu eta oreka helburu hartuta pilotariak ranking baten arabera antolatzen bazituzten ere, azkenean, gorabehera batzuk tarteko, elkarteen izenean jokatzerara igaro ziren guztiak, elkarte berekoak elkarte berekoekin.

Nafarroan ere 90. hamarkadaren hasieran ekin zioten paletariak partidetan jokatzeari. Emakumezkoen lehen bikotea osatu zuten Lizarra inguruko pilotariak, 1992an, hasieran gizonetzkoen aurka entrenatu zein jokatzen zuten txapelketa pribatuetan Nafarroako jardunari zegokionez. Urte hartan Nafarroako emakumezkoen txapelketa bat antolatu zen, baina ez zuen jarraipenik izan. Beraz, ondoren Gipuzkoako herri ezberdinetako lehiaketetan parte hartzen hasi ziren, emakumezkoen artean aritzeko aukera izateko modu bakarra baitzuten. Hala ere, Nafarroan gizonetzkoekin aritzeari ez zioten muzin egin, zaildu eta hobetzeko bidea izan baitzen eurentzat.

Gainerako lurraldeetako urte horietako emakumezko pilotarien jardunaren inguruko erreferentzia eta informaziorik ez dugu eskuratu ahal izan.

Nazioarte mailako txapelketetan emakume pilotarien bilakaerari buruzko aipamen laburtu bat eginez, lehen agerpena 1988koa da. Biarritzen ospatu zen 22 urtez azpiko txapelketan erakustaldiak egin zituzten emakumezkoen bi espezialitatetan: frontenisa eta pala zabala trinketean. Lehen aldiz emakumezkoek modu ofizialean 1990eko La Habanako XI. Munduko Txapelketan jardun zuten. Kasu honetan, ordea, ez ziren paletan aritu, frontenisean baino ez. 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoetan pilota izan zen gonbidatu zuten kiroleetako bat. Bertan ez zen emakumezkoen paletako partidarik izan, frontenisa bakarrik. 1993ko 22 urtez azpiko Argentinako Munduko Pilota Txapelketan, Buenos Airesen, ordea, trinketean aritu ziren emakumezkoak pala zabalean. Hori da txapelketa ofizialetako mundu mailako emakumezkoen parte hartzearen gainean lorturiko informazioak dioena. Ordutik aurrera etenik gabea izan da nazioarte mailako txapelketa eta lehiaketetan emakumeen presentzia, bai 22 urtez azpiko txapelketetan eta baita nagusi mailakoetan ere. Bai Munduko Txapelketa zein Munduko Kopetan. 1994an izan zen nagusi mailako aurreneko txapelketa mundu mailan, Donibane Lohizuneko Munduko Txapelketan. Goren mailako lehiaketa hauek lau urtez behin, bi urtero bata bestearekin txandatu, antolatzen dira, bigarrean lehenengoan lehen hiru postuetan sailkaturiko herrialdeek eta herrialde antolatzaileak parte hartuz jokamolde bakoitzeko azken Munduko Txapelketako sailkapenaren arabera.

2.2. 90eko hamarkadaren amaierako gainbehera

90eko hamarkadan abian jarritako emakume pilotarien ibilbide emankor hura 1999rako ahuldu eta gaiztotua zegoen. Pilotarien arteko giro ona eta jokatu nahia, lehia erdigunean jartzearen poderioz hein batean, apaldu eta garraztu egin ziren, interes kontrajarriak eta gaizkiulertuak medio.

Gipuzkoako Txapelketetako parte hartzeak behera egin zuen, ez zen pilotari berririk hurbiltzen lehiaketetara eta jokamoldearen garapenak geldialdia jasan zuen. Gainbehera hasi zen, lau denboralditan emakumezkoen 81 federatu-lizentzia izatetik (1999/2000) 43 izatera igaro ziren (2002/2003). Oraindik ere emakumezkoentzako eskaintzan zerbait egonagatik, urtero antolatzen ziren Gipuzkoako txapelketak eta hainbat lehiaketa pribatu, ez zuten arduradunek pilota elkarrekin dinamika handirik ikusten eta atzetik ere ez zirudien harrobian ezer sortzeko aukera handirik zegoenik, Hernaniko pilotari gutxi batzuk izan ezik. Etorkizunera begira sostengu eta aurrerabide handirik ez zitzaion nabari egoerari eta era hartan mantenduz gero emakume pilotarien alorrari. Horren ondorioz, GEPFek neurriak hartu eta zerbait egiteko beharra sentitu zuen, egitasmo berri, berritzaile eta indartsu baten hasierako harria jartzeko erabakia hartuz: Emakumea Pilotari.

3. Emakumea Pilotari egitasmoa: eraberritu ala “hil”

GEPFek Gipuzkoan emakumeen pilotak zeraman norabidea ikusita, pilotari federatuen lizentzien gainbehera nabarmena XX. mende amaierako azken eta XXI.aren hasierako urteetan, konponbide bat aurkitzeari ekin zion. Hortik sortu zuten Emakumea Pilotari egitasmoa.

3.1. Sorrera eta lehen fasea

Emakumea Pilotari egitasmoa publikoki 2004ko abenduan aurkeztu zuten sustatzaileek (ikus 1.5. irudia) eta martxan 2005ean jarri zen. Antolatzaile nagusia GEPF izan bazen ere erakunde gehiagoren babesean jaio zen: Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasate, Ataun, Azpeitia, Bergara, Donostia, Hernani, Hondarribia, Irun, Tolosa eta Zestoako udalak eta Ikaspilota/Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak.



1.5. irudia. Emakumea Pilotari egitasmoaren aurkezpeneko ordezkaritza (GEPF).

Egitasmo honen xede nagusia euskal pilotan emakumeen parte hartzea sustatzea da. Horretarako kirolaren hiru arlo ditu ardatz: eskola kirola, kirol federatua eta partaidetza edo aisialdiko kirola (GEPF, 2004). Ondoren zehatzago adierazi dut puntuz puntu hasiera hartan arlo bakoitzean ezarritako helburu nagusi eta ekintzen berri.

3.1.1. Eskola kirola

Helburuak: arlo honen helburu nagusia eskola adineko nesken artean kirol honen praktika sustatzea da. Gainera, etorkizunean praktika honek jarraipena izatea ere lortu nahi da, esparrua edozein dela ere.

Ekintzak: helburu hau lortzeko hiru ekintza mota landu dira bereziki: sustapen jarduerak, lehiaketa saioak eta ekintza bereziak.

- a) Sustapen jarduerak: Foru Aldundia, Udalak eta GEPFen arteko elkarlanaren ondorioa. Honelako ezaugarriak dituzte:
 - Alebin, infantil eta kadete kategoriako neskontzat, bakoitza bere aldetik.
 - Gipuzkoa sei eskualdetan banatu eta eskualde bakoitzeko bi herri ezberdinetan egin ziren. Herri hauek hautatzeko emakumeekin lanean aritzen ziren elkarteetako herriak zeintzuk ziren baloratu zen.
 - Eskua eta pala landu ohi dira.
 - Jarduera bakoitza 2 orduko 4 saioz osatua zegoen. Saio bakoitzean 16 ikasle egon ohi dira gehienez.

- b) Lehiaketa saioak: sustapen jarduerak amaitu eta bi-hiru astera antolatuak. Parte hartzaileak eskuz eta palaz lehiatuko ziren. Lehenengo fasea eskualde mailakoa izango zen. Honetarako eskualde bereko bi herrietako sustapen jarduerak denbora epe berean egin behar ziren. Eskualde guztietako txapelketak amaituta Gipuzkoa mailako fasea ospatuko zen.

- c) Ekintza bereziak: eskola adinekoei zuzendutako pilota tailerrak, festak, erakusketak... antolatzea aurreikusten da.

3.1.2. Kirol federatua

Helburuak: arlo honek helburu ezberdinak ditu. Batetik, emakume pilotarien kolektiboa proiektuan inplikatzeko, egitasmoak bultzada berezia izan dezan. Bestetik, azken denboraldietan emakumeekin nolabaiteko dinamika daramaten pilota elkarteak partaide izatea eta, azkenik, diskriminazio positiboa ezartzea GEPFeko Batzar Orokorrean eta Zuzendaritza Batzordean emakumeen parte hartzea sustatzeko asmoz.

Ekintzak: erabakiguneetan emakumezkoen parte-hartzea areagotu nahi izan da. Gainera, federatuen eremuko pilotariei eskainitako baliabideak hobetzea ere bada jomuga. Horretarako burutu dira ondoren agertuko ditudan hainbat jarduera.

- a) Emakumearen Batzordea: arlo honen helburuak betetzeko urrats bat GEPFen Emakumearen Batzordea (EB) sortzea izan da. Batzorde hau emakumeen lizentziak dituzten elkarteetako bi ordezkari, emakume pilotarien bi ordezkari eta GEPFen Zuzendari Teknikoak osatu dute.

Batzorde honen ardurak proiektuaren garapena bermatzea, fase berrien diseinua egitea eta GEPFen barruan emakumearen arloan sor daitezkeen gaiei erantzuna ematea dira.

- b) Ordezkari eta boluntarioen hautaketa: emakume pilotarien kolektiboa inplikatu nahian, federatu-lizentzia duten neska guztiak elkartu eta egitasmoaren berri ematea. Ondoren, hala badagokio, GEPFen Batzar Orokorra eta Zuzendaritza

Batzorderako ordezkariak hautatuko ziren. Era berean, proiektuaren jarduera ezberdinetarako boluntarioak lortzen saiatu da.

- c) Erabakiguneetan emakumeen partaidetza areagotu: helburu hauen osagarri, eta diskriminazio positiboaren ildoan, 2005/06 denboralditik aurrera GEPFen Batzar Orokorreko pilotarien estamentuko ordezkarien %30a gutxienez emakumeak izatea (egun %13koa da portzentajea) eta Zuzendaritza Batzordean gutxienez emakume bat egotea bermatu nahi zen.

Arlo honetarako aurreikusiriko beste helburu eta ekintza batzuk:

- Lehiaketa egutegi aproposa egokitu: denboraldi erdialdera lehiaketa instalazioa ezker hormatik trinketera aldatzen denez, arazoak sortu ohi ziren Gipuzkoako lehiaketa egutegia eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren (EEPF) lehiaketa egutegiaren artean. Hau honela, EBn denentzako egokia den lehiaketa egutegia landu eta ondoren EEPFri gaia aztertzeke proposamena egitea.
- Beste jokamolde batzuetarako ari den bezala, Emakumearen Batzordean EEPFri nesken goi mailako txapelketa bat antolatzeko eskakizuna egitea aztertu da.
- Teknikifikazio guneak sortu: Gipuzkoan neskentzako hiru entrenamendu gune sortzea aurreikusi zen. Hauetan astero entrenamendu saio bat antolatu da federazioko teknikari baten eskutik eta bertara inguruko neskak gonbidatu dira. Ezker hormarako Hernani, Anoeta eta Azpeitia (Zestoa) proposatu ziren. Lehiaketa egutegian jokalekua aldatzearekin batera guneak ezker hormatik trinketera aldatu dira. Azken honetarako Donostia eta Irura proposatu dira.

3.1.3. Partaidetza edo aisialdiko kirola

Helburuak: arlo honen helburu nagusia ezaugarri hauetako jardueretan emakumearen parte hartzea sustatzea da. Era berean, eskola kiroleko pilota jardueretan parte hartu, kirol praktika honekin jarraitu nahi eta federatuen ildoari atxiki nahi ez dion kolektiboari erantzuna eman nahi zaio.

Ekintzak: hiru ekintza mota landu nahi ziren bereziki. Batetik, 18 urtetik gorako emakumei egokituriko paletan aritzeko eskaintza, bestetik, berriz, Gipuzkoako txapelketa herrikoia sustatzea eta, hirugarrenik, emakumei zuzendutako pilota jarduerak herriko festetan.

- a) Partaidetza guneak edo 18 urtetik gorako emakumei zuzendutako aisialdiko ikastaroak antolatzea. Ondorengo ezaugarriak dituzte:
- Partaideak 18 urtetik gorako emakumeak izango dira.
 - Astean behin eskaini ohi zaie paleta saio bat, teknikari kualifikatuen gidaritza eta material egokia ahalbidetuz.
 - Tokian tokiko udal eta kirol erakundeekin dagozkien lankidetzak hartu-emanak burutu dira.

- b) Gipuzkoako txapelketa herrikoa: ondorengo ezaugarriak ditu:
- Parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak izango dira.
 - Bi fase bereiziko dira, lehenengoa toki mailakoa eta bigarrena Gipuzkoa mailakoa.
- c) Herriko festetan emakumeei zuzendutako pilota jarduerak: txapelketa herrikoien antolatzaileekin elkarlanean herriko festen egitarauetan neskentzako “barrene” herrikoiak, pilota tailerrak, neska federatuen norgehiagokak eta abar antolatzea sustatu da.

3.1.4. Lehen faseko kronogramak

Proiektuari 2004ko abenduan eman zitzaion hasiera, aurkezpen publikoa eginez. Honen ondoren, jarraian azaltzen den kronograma jarraitu zen (ikus 1.1. taula):

1.1. taula.

1. faseko kronograma.

Arloa	Denboraldia	Ekintzak
Eskola kirola	2004/05	- Proiektuan aurre ikusitako sustapen jarduerak antolatu. - Proiektuan aurre ikusitako lehiaketa jarduerak antolatu.
	2005/06	- Proiektuan aurre ikusitako sustapen jarduerak antolatu. - Proiektuan aurre ikusitako lehiaketa jarduerak antolatu.
		- Ekintza bereziak antolatu: pilota tailerrak, erakusketak, topaketak...
	2006/07	- Proiektuan aurre ikusitako sustapen jarduerak antolatu. - Proiektuan aurre ikusitako lehiaketa jarduerak antolatu.
		- Ekintza bereziak antolatu: pilota tailerrak, erakusketak, topaketak...
	Kirol federatua	2004/05
2005/06		- Teknifikazio guneen proiektua garatu. - Emakumearen Batzordean hurrengo faseen diseinua landu.
2006/07		- Teknifikazio guneen proiektuari jarraipena eman. - Emakumearen Batzordean ezarritako balizko helburuak garatu.
Aisialdiko kirola	2005	- Gipuzkoan ospatzen diren jardueren datu bilketa egin. - Jai Batzordei GEPFen proiektua aurkeztu eta esperientzia piloturen bat ospatu. - Emakumezkoen paleta ikastaro pilotu bat abian jarri.
		- Gipuzkoako Txapelketa Herrikoiairen esperientzia pilotua ospatu. - Herriko festetan emakumeei zuzendutako jarduera bereziak ospatuko dituzten udalen kopurua handitu.
	2006	- Emakumezkoen paleta ikastaro kopurua handitu eta taldeak finkatu. - Gipuzkoako Txapelketa Herrikoian frontenisa gehitzeko aukera aztertu.
		- Gipuzkoako Txapelketa Herrikoia ospatu. - Herriko festetan emakumeei zuzendutako jarduera bereziak ospatuko dituzten udalen kopurua handitu.
	2007	- Emakumezkoen paleta ikastaro kopurua handitu eta taldeak finkatu. - Gipuzkoako Txapelketa Herrikoian frontenisa gehitzeko aukera aztertu.

Lehen fase hau 2007/2008 denboraldia hasi aurretik eman zuten amaitutzat partaide izan ziren erakunde guztiek, hiru urteren ostean, hortik aurrera ekintzak eta sustapen lana doitu eta egokitzeko erabakia hartuz.

3.2. 2007/2008tik gaur egunera artekoa

Lehen hiru denboraldietako esperientzia eta lorturiko emaitzak aintzat hartuta GEPFek egitasmoaren bigarren fasea jarri zuen abian. Horretarako udalekin zuzenean akordioak egiteari utzi eta interesa izan zezaketen herri zehatzetara jo edo/eta elkarteen eskaerei erantzuteko erabakia hartu zen. Udalekin sinaturiko akordio orokorrek ez zuten kasu guztietan nahi bezain fruitu onik eman eta testuinguruko eragileekiko gertutasuna eta euren beharrei ahal izanez gero zuzenago erantzuteko asmoa ere bazen.

Beharrezko egokitzapen eta moldaketak egin dituzte antolatzaileek tokian tokiko eta unean uneko beharrei erantzunez. Etapa honetako helburu, ekintza eta aurreikuspenak jarraian agertuko ditut.

3.2.1. Balantzea

Emakumea Pilotari egitasmoko alorretan proiektua abian jarri zenetik gaur arteko ibilbidearen inguruko nondik norako eta datuak dira atal honetan plazaratuko ditudanak (Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, 2012). Emakumea Pilotari egitasmoa GEPFen plangintza estrategikoan txertatuta dago. Plangintzak zortzi ildo estrategiko ditu eta emakumea horietako bat da.

- Eskola adinerako helburu nagusia 10-18 urte bitarteko nesken paleta eskolak sortzea izan da, eskolarteko txapelketa hobetzeaz gain.
- Partaidetzako kirolaren helburu nagusia partaidetza guneak edo 18 urtetik gorako emakumeei zuzendutako aisialdiko ikastaroak antolatzea izan da.
- Kirol federatua helburu nagusiak lehiaketa ofizialak hobetzea eta pilotarien maila teknikoa hobetzea izan dira.
- Neska Federatuen Topagunea sortu da, lizentzia federatua duten emakume guztiak elkartzen dituen batzarra. Urtean bi aldiz deitzen da egitasmoaren nondik norakoak azaldu, balantzea egin, ekarpenak jaso eta asebetetze inkestak pasatzeko, besteak beste.
- Kirol arloko helburuez gain, gobernu organoetan emakumeen presentzia areagotu nahi izan da, zuzendaritza batzordean emakumeen parte hartzea sustatuz eta emakumeen gaietarako zuzendaritzaren aholkulari izango den organoa sortuz: Emakumearen Batzordea, nesken lizentziak dituzten elkarteen, neska pilotarien, GEPFeko batzorde teknikoaren eta zuzendaritza batzordearen bina ordezkari biltzen dituen.
- 2008an ekimen berri bat jarri zen abian: [www.blogak.com/emakumeapilotari] bloga. Proiektuaren oihartzuna handitu eta emakume pilotariei egitasmoari buruzko informazio eguneratua eta komunikaziorako tresna bat eskaintzeko

tresna izan da. Honez gain, komunikazio arduradun bat izendatu da proiektuaren ekintza ezberdinen informazioa hedabideei ezagutarazteko.

- Hasieran lau teknikari aritu ziren jardunaldi osoan lanean, laurak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatuak eta euskal pilotan espezializatuak eta emakumeak. Batek koordinazio orokorraren ardura izan zuen eta gainontzekoek teknikari lana burutu zuten talde ezberdinen arduradun bihurtuz. 2010/11 denboraldiaz geroztik, finantzazio arazoak medio, bi teknikari aritu dira koordinatzaileaz gain. Hala ere, GEPFen langileetatik aparte beste teknikari batzuk aritu dira hainbat herritako taldeen arduradun gisa, elkarlanean.
- 2005etik gaur arte egitasmoa, orokorrean, indartu eta asko hedatu da. Jarduerak Gipuzkoako herri askotan antolatu dira: Aia, Alegia, Altzo, Andoain, Anoeta, Arrasate, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Bidania, Bergara, Donostia, Getaria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Irura, Lasarte-Oria, Legazpi, Lezo, Lizartza, Oiartzun, Orio, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zarautz, Zaldibia, Zestoa, Zizurkil eta Zumarraga. Besteak beste, zenbaitetan jarduerak egonkortu eta nesken/emakumeen talde iraunkorrak sortu dira.

3.2.2. Egitasmoaren garapena: kopuru eta zenbakien dantza

Emakumea Pilotari proiektuak dituen ildo eta asmo zein helburuen nondik norakoak agertu ostean zenbaki bidezko garapena eta kopuruen berri ematea ere garrantzizkoa dela uste dut, modu honetan errazagoa baita egitasmoak izan duen bilakaeraren inguruko informazioa barneratzea. Ondorioz, jarraian Gipuzkoan abian den ekimeneko alor bakoitzeko datuak plazaratuko ditut taula eta zenbaki bidez.

3.2.2.1. Eskola kirola

Eskola adineko pilotariei eskainitako jarduerak, 10-16 urte bitartekoei zuzendutakoek, bereziki Nesken Paleta Eskolak eta Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketak dituzte ardatz. Hori dela eta, bakoitzeko datuak ondorengo bi tauletan dituzue ikusgai. Lehenengoan (ikus 1.2. taula) eskolarteko mailako txapelketetan parte harturiko talde kopurua dago zehaztuta eta bigarreanean, berriz, Nesken Paleta Eskoletako urtez urteko datuak (ikus 1.3. taula).

1.2. taula.

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketetako neska taldeen parte-hartzea.

Denboraldia	Eskupilota			Paleta			GUZTIRA
	A	I	K	A	I	K	
2004-05	26	10	0	6	0	0	42
2005-06	18	5	2	25	9	8	67
2006-07	17	7	0	24	17	0	65
2007-08	15	5	0	23	13	7	63
2008-09	16	6	0	19	14	6	61
2009-10	24	4	0	22	11	5	66

2010-11	12	4	0	15	12	0	43
2011-12	19	0	0	16	13	3	51

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketetan desoreka nabarmena ikus liteke eskola kirolean parte hartutako talde kopuruan eskupilota eta paletako jokamoldeen artean, kasik erabat desagertuz eskuzko txapelketetako jarduna urteek aurrera egin ahala. Paleta erabat nagusitu zaio eskupilotako atalari. Gainera, kategorian zenbat eta gorago joan, kopuruek alderantzizko joera izan dute, nabarmen jaitsiz. Honek zerikusia du kadete mailan ia federatuta aritzeko aukerarekin, zenbait elkarte eta herritan zuzenean federatuak izatera pasaz, eskola kiroleko ibilbideari jarraipena emanez kirol federatuaren atalean.

1.3. taula.

Nesken Paleta Eskoletako parte-hartzearen bilakaera.

Denboraldia	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12
TALDEAK	2	7	8	6	9	8	10	13
NESKAK	40	120	130	101	97	97	112	134

Neska pilotarien kopuruak gora egin du hasierako urteetatik nabarmen, hirukoizteraino, behera ere egin arren tarteko hainbat urtetan, 2007tik 2011ra arte. Gainera, taldeak ere ugaritu dira eta 2011/12koa da kopururik handiena, paleta eskolak gehitzeak nesken jarduteko aukera edo eskaintza zabaltzea ere eraginez hauen zabalkunde eta ugaltzeari esker. Benetan azpimarragarria 134 neska aritzea 13 taldetan banatuta, hedapena zein garapena eta etorkizunera begira itxaropentsu izateko arrazoiaren seinale direlako zenbaki horiek.

3.2.2.2. Kirol federatua

Kirol federatuko eskaintza pilota elkarten bidez egiten da batez ere, nahiz eta GEPFek zuzenean pilotariekin ere komunikazio-ildoan mantendu eta elkarrekintza estua izan. Arlo honetan batez ere lehiaketa eta txapelketen gurpilean txertatzen dira pilotariak kadete kategoriatik aurrera, hau da, 14-15 urtetik gorakoei zuzenduriko eskaintza da.

Neska pilotarien kopuruak bilakaera baikorra izan du egitasmoa martxan jarri zenetik gaur egunera arte, hurrengo taulan agertu moduan (ikus 1.4. taula):

1.4. taula.

Gipuzkoako federatu-lizentzia izan duten neska pilotarien kopurua.

	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13
Kadeteak	3	8	12	12	12	10	14	21	15	25
Jubenilak	3	11	15	5	8	10	18	21	10	16
22 urtez azpikoak	2	8	6	4	7	7	10	8	17	15
Nagusiak	17	23	20	31	36	39	34	32	37	30
Guztira neskak	25	50	53	52	63	66	76	82	79	86
GEPF guztira	1274	1222	1198	1229	1258	1308	1288	1234	1238	1204
Nesken lizentziak %	1,96%	4,09%	4,42%	4,23%	5,01%	5,05%	5,90%	6,65%	6,38%	7,14%

Egitasmoa abian jarri arteko bilakaera negatiboa izan zela nabari da, 27tik 25era murriztuz, eta behin abian jarri ostean azkar egin zuela gora parte hartzaile kopuruak, urte bakarrean kopurua bikoiztuz, 2003/2004ko 25eko kopurutik 2004/2005eko 50era igaroz. Hortik aurrera ere ia denboraldi guztietan gora egin du pilotari kopuruak, nahiz eta hazkuntza lasaiagoa izan den oro har, ez hain pikoa. Gainera, Gipuzkoako lizentzia orokorreko alderaketan ere gaur egungoa da ehunekorik altuena (%7,14), oraindik gizonezkoekiko urrun dagoen arren.

Azken denboraldikoa, 2012/2013koa, da pilotari kopururik altuena, nahiz eta kategorien arteko ezberdintasunak nabarmenak diren: gazteak igo egin dira eta nagusiak gutxitu. Harrobi lanak emaitzak ematen dituela dirudi, mailaz maila goraka doazela haurtzaroan hasita asko, nahiz eta helduaroko kopurua jaisteak zenbaitek utzi ote duten susmoa zabaltzen duen. Hor faktore askok eragin lezakete ordea: ardurak, adina, lanbidea eta lanaldiak... Hala ere, orokorrean, nabarmena da egitasmoak arlo honetan izan duen arrakasta eta bultzadarako gaitasuna.

3.2.2.3. Aisialdiko kirola

10-16 urtetik gora izan eta lehiaketa eremuan murgildu nahi ez duten emakumeentzako sorturiko arlo hau da proiektuko arrakastatsu eta entzutetsuenetako bat. Izan ere, ezer ere ez zegoen alorra zen egitasmoa martxan jarri aurretik, federazioaren pean existitu gabekoa, jendea euren kabuz aritzen zen, egitura antolatu baten baitan aritzeko aukerarik ez baitzen eskaintzen. Lehen urratsen ondoren, ordea, beren lekua eta esparrua eskaintzen zaie emakumeei eta lortu du egonkortasun bat esparru honek ere (ikus 1.5. taula).

1.5. taula.

Aisialdiko paleta ikastaroetako emakumeen parte-hartzearen bilakaera.

Denboraldia	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12
TALDEAK	0	1	6	11	17	17	17	19
NESKAK	0	9	65	84	161	152	140	141

Aisialdiko paleta ikastaroen arrakasta eta gorakada oso nabarmena izan da, ia-ia abian jarri zen lehen taldetik. Hortik aurrera ziztu bizian egin zuen gora emakume kopuruak 2008/2009 ikasturtera arte, non 164rekin kopururik altuena bildu zen. Ordutik, ordea, gutxi asko, talde kopuruak gora egin du, emakumeenak apur bat behera, baina ugariena bera da arlo guztien artean. Arrakastaren eta modan egotearen seinale da ia ehun eta berrogeita hamar emakumezko mantentzea azken urteetan zehar eta Gipuzkoako hainbat herritan hogeik ikastaro inguru antolatzea.

4. Gu gara zazpi probintzi. Gipuzkoatik haratago

Gipuzkoan erakundeen aldetik, eta bereziki bertako euskal pilota federazioaren gidaritzapean, emakumezkoen pilotaren alde apustu irmoa egin zen bezala, Emakumea Pilotari egitasmoa sortu eta hedatuz, beste euskal lurraldeetan, pilotari federazioen egitasmoetan ez da zehazki maila horretako neurri edo proiekturik sustatu pilotako atal honi bultzada eta babesa eskaintzeko. Hala ere, ezberdina da lurraldez lurralde errealtatea pilotari kopuruari eta erakunde hauen joera eta antolaketari dagokionean. Hori dela eta, jarraian Euskal Herriko gainerako lurraldeetako eboluzioaren berri emango dut tokian tokiko pilota federazioek emaniko datuetan oinarrituz.

4.1. Euskadiko Euskal Pilota Federazioa (EPPF)

Pilota Federazio honek herrialde mailako antolaketaren ardura du, EAeko lurraldekako federazioak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) barne hartzen baititu. Bertan azken bost denboraldietako emakumeen lizentzien gaineko datua eskuratu ahal izan dut eta federatu-lizentzien kopuru totalak ere bai (ikus 1.6. taula).

1.6. taula.

Euskadiko Euskal Pilota Federazioko emakumezkoen federatu-lizentzien bilakaera.

Denboraldia	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13
NESKAK	108	113	158	167	165
EPPF GUZTIRA	3273	2693	3089	3124	3057
NESKEN LIZENTZIAK %	%3,29	%4,19	%5,11	%5,34	%5,39

Azken bost denboraldietan gora egin du nabarmen federaturiko pilotarien kopuruak, bai zenbakitan eta baita ehunekoei erreparatuta ere. Gainera, aldaketarik nabarmenena 2009/2010etik 2010/2011ra artean emanikoa dela esan nezake, kopurua heren bat hazi zelako. Gizonezkoekin batera datuak bateratuta, ordea, ez da %6ra iristen emakumezkoen kopurua, nahiz eta ia bikoiztu egin den ehuneko hori 2008/2009 denboralditik. Datu hauei erreparatuta, beraz, esan liteke oso motel bada ere haziz doala emakumezko federatuen multzoa, baina oraindik ere oso multzo txikia dela eta gutxiengoan daudela gizonezkoekiko.

Txapelketei dagokienez¹, honakoak dira denboraldian zehar emakume federatuentzat antolatzen dituen lehiaketak, urtarrilean hasi eta maiatzera bitartean: Euskal Herriko klubun arteko txapelketa ezker horman eta trinketean, Euskal Herriko nesken gomazko paleta txapelketa eta Federazioen arteko GRAVN txapelketa.

¹ EPPFk antolaturiko txapelketen gaineko informazio eguneratua: www.euskalpilota.com

4.2. Bizkaia

Bizkaiko lurraldean eskuragarri dauden datuak oso berriak dira, aurretik izanikoak artxibatze arazo bat medio ez baitituzte eskura. Beraz, hemen 2010etik aurrerako datuak bakarrik jaso ahal izan ditut (ikus 1.7. taula).

1.7. taula.

Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzako emakumezkoen federatu-lizentzien eboluzioa.

Denboraldia	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14
Lizentzia kopurua	57	64	55	52

Bizkaiko pilotarien kopuruari erreparatuta ikus liteke azken lau denboraldietan goranzko joeratzat bat izan arren ez dela pilotarien kantitatean gora egin. Gainera, badirudi azken denboraldia dela kopururik txikiena baturikoa.

Ezker Hormako Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketa da bertako federazioak espresuki emakumezkoen eskaintza antolatzen duen lehiaketa bakarra². Bertan lauzpabost elkartetako bospasei taldek parte hartzen dute maila bakoitzean, lehenengoa eta bigarrena bereiziz joko-mailaren arabera. Hortik aurrera Euskadiko Federazioak antolatutakoetan parte hartu beharra daukate denboraldia nolabait jokatuz osatu nahi izanez gero.

4.3. Araba

Arabako lurraldean azken hamarkadan emakumezko pilotariek oro har hazkundera izan dute, biztanlez lurralde txikiena bada ere pilotari kopuruak gutxika-gutxika gora egin baitu urtez urte (ikus 1.8. taula).

1.8. taula.

Arabako Euskal Pilota Elkarteko emakumezkoen federatu-lizentzien eboluzioa.

Denboraldia	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Lizentzia kopurua	16	18	18	20	16	18	14	25	24	27

Taulako denboraldiz denboraldiko kopuruei erreparatuta, nabaria da hamarkada batean ia bikoiztu egin dela federatu-lizentzia duten emakumezkoen kopurua Araban. Gainera, igoera izan ostean badirudi azken hiru denboraldietan egonkortu egin dela kopurua eta mantendu behintzat egiten da, goranzko joera txiki bat izatearekin batera.

Emakume pilotariek denboraldian zehar lurralde mailan dituzten jarduera eta txapelketei dagokionez³, Arabako Lurraldeko Txapelketak dira emakumeen bertan jokatzeke parte hartzeke eskaintza dauden lehiaketak, bai ezker hormako pilotalekuan jokaturikoa eta

² Informazio gehiagorako: www.bizkaiapilota.com

³ Txapelketen inguruko xehetasun gehiagorako: www.pilotaraba.com

baita trinketeko ere. Horrez gain, beste bi aukera ere badira: Banakako 30 m-ko ezker paretako txapelketa (2008tik) eta Andra Mari Zuriko Txapelketa (2012tik). Azken hau teniseko pilotarekin jokatzen da federatuentzat izan arren.

4.4. Nafarroa

Nafarroan beste lurraldeetan baino adin goiztiarragoetan hasten dira neskek federatuz lizentzia eskuratu eta lehian, bederatzi urtetik aurrera posible da, benjamin kategoriatik hasita. Hori dela eta, bederatzi urtetik aurrerakoak daude bertako federazioak emaniko datuetan, azken lau denboraldikoetan:

1.9. taula.

Nafarroako Pilota Federazioko emakumezkoen federatu-lizentzien eboluzioa.

Denboraldia	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14
Lizentzia kopurua	98	132	120	107

Pilotari nafarren datuei erreparatuz antzematen da azken bi denboraldietan beherakada izan duela kopuruak eta aurtengoan are nabarmenagoa, gainera. Badirudi garairik loriatsuenak ihes egin zuela lurraldetik.

Lehiaketa egutegiari dagokionez⁴, “Ni ere pilotari” txapelketa antolatu da bi alditan, 2012 eta 2013an, bereziki bertako pilotari baten ekimen, lan eta izerdiarengatik, ez federazioaren iniziatibaz. Antolaketa ere pilotarien euren esku egon izan da, federazioa amaieran sariak jartzera mugatuz. Bertan haurretatik hasiz nagusi mailara artean diharduten pilotariak aritu izan dira jokatzen, neska zein emakumeak pilotan jardutea bultzatu eta jarduera ikusezintasun eta ez-ezagutzatik ateratzeko. Hirugarren ekinaldian, ordea, ardura federazioaren esku utzi eta ez zuten ezer ere antolatu. Antzeko zerbait gertatu zitekeen goi mailako Napar Palarekin ere, lehen edizioa bertako pilotarien lan eta izerdiari esker antolatu zelako, baina bigarreanean, 2013/14 denboraldian, federazioak esku hartu zuen antolaketa eta ez da desagertu.

Nafarroako Elkarteen arteko Txapelketak, ezker horman eta trinketean, dira federazio mailan emakumeei eskaintzen zaizkien txapelketa bakarrak egungo egutegian. Hortik aurrera bestelako leku batzuetan aurkitu behar izaten dituzte pilotariek jokatzeo aukerak.

4.5. Iparraldea

Tradizio handiagoa eta antolaketa egituratua dute orain urte askotatik Iparraldeko Pilota Ligan. Bertako jokamoldeak ezberdinak dira hein batean hegoaldekoetatik, urte guztian trinketean baitihardute. Denboraldi erdia gomazko pilota trinkoarekin eta beste erdia,

⁴ Txapelketen berri zabalago web gune honetan: www.fnpelota.com

berriz, gomazko pilota argentinarrean edo pala zabalean osatzen dute, iraila-urrian hasi eta uda ingurura arte⁵.

Parte-hartzerik handiena, kopuruz, bertakoa da nabarmen Euskal Herriko emakumezkoei dagokienez, adinean ere gazteago direnean hasteko aukera izanik federazioaren egituretan, 10 urtetik aitzina. Jarraian dituzue datuak taulan (ikus 1.10. taula).

1.10. taula.

Euskal Herriko Pilota Liga. Emakumezkoen parte-hartze datuak.

Espezialitatea	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13
GP* 1.maila	12	14	14	11	11	10	14	12	14	14
GP 2.maila	33	32	32	44	45	36	45	52	21	28
GP 3.maila	0	0	0	0	0	0	0	0	31	26
GP juniorrak	28	28	26	27	35	26	29	25	21	21
GP kadeteak	23	28	31	29	26	25	22	17	19	21
GP minimak	34	29	32	27	24	24	27	31	26	29
GP benjaminak	22	20	12	23	17	22	18	20	25	28
GP Guztira	152	151	147	161	158	143	155	157	157	167
PZ** 1.maila	8	8	15	11	10	12	17	11	11	14
PZ 2.maila	19	23	16	21	18	21	25	32	16	21
PZ 3.maila	0	0	0	0	0	0	0	0	11	13
PZ juniorrak	19	19	15	13	15	12	21	13	14	14
PZ kadeteak	12	11	17	14	20	15	12	8	11	9
PZ minimak	9	11	13	12	0	13	15	13	8	17
PZ Guztira	67	72	76	71	63	73	90	77	71	88

* GP: gomazko paleta

** PZ: pala zabala

Taulan ikus liteke azken hamarkadan parte hartzeak gora egin duela eta bi espezialitateetan gorenean aurkitzen dela uneotan, 167 eta 88 pilotarirekin, hurrenez hurren. Datu horietan nabarmentzen da gehiengo nagusia gomazko paletan aritzen dela, pala zabalean dihardutenen kopurua bikoiztuz. Kategoriakako azterketa bat egiten hasiz gero, nagusi mailan dabilzanen eta behetik datozenen arteko oreka aipatuko nuke, gazte mailetan ere kopuru sendoak ikusten baitira oro har, ia goiko kategorian bestekoak. Gomazko paletan 68 nagusietan eta 99 beheko mailetan eta pala zabalean, berriz, alderantzizkoa da joera: 48 nagusietan eta 40 gazteetan.

Iparraldeko egoera indartsua eta osasuntsua dela esan liteke, pilotariak badaudelako eta atzetik ere badatozelako jarduerari jarraipena eman diezaioketen kimu berriak.

Euskal Herrian zehar pilota federazioek antolaturiko txapelketetatik aparte, asko dira hainbat herritan bertako festak aitzakia hartuta edo bestela antolatzen diren txapelketa

⁵ Denboraldiko lehiaketen gaineko xehetasunak: www.ligue-pelote-basque.com eta www.lppb.fr

pribatuak ere, besteak beste honako herri hauetan: Irurita, Etxarri-Aranatz eta Oiartzun. Herriz herri zenbait egunetan, askotan bertako festen baitan, erakustaldi partidak ere jokatu izan dituzte emakumezko pilotariek han-hemenka: Gernika, Villabona, Tolosa, Igantzi eta Hernani, besteak beste.

5. Ikerlan honen inguru soziokulturala

Aurrez agerturiko testuingurua abiapuntu hartuta emakumezko pilotarien errealitatea ezagutzeko pilotari federatuen eta aisialdiko emakumeen ikastaroen alorrak hautatu nituen ikerketa lan hau garatzeko. Testuinguru geografiko, soziologiko eta kultural honen hautaketak oinarri finkoak ditu eta ikergaia zehazteko ezinbestekoa izan da, gainera. Batetik, aintzat hartu behar da nik, pilotari izanik, bost urtean zehar (2006-2011) federatuen eremua zokorik zoko ezagutzeko beta izan nuela, lehen pertsonan. Bestetik, berriz, aisialdiko esparruan hiru urtez teknikari lanetan aritzeak (2007-2010) esparru honen ezagutza ahalbidetu zidan. Eskola kiroleko talde ezberdinetan ere aritu nintzen entrenatzaile lanetan (2007-2010) eta baita eskolarteko eskupilota eta paletako txapelketetako koordinatzaile gisan ere, antolaketa eta kudeaketa ardurak betez. Emakumea Pilotari egitasmoa bertatik bertara ezagutu dut, beraz, bere hiru arloetan buru-belarri aritu bainintzen lanean nire pilota-teknikari aroan.

Puntu honetan zehatzago azalduko dut bi ataletako bakoitzak eta bertako partaideek zein ezaugarri izan dituzten eta baita nik eremu bakoitzerako ezarritako ardatzen berri ere, elkarrekiko ezberdintasunak nabarmenak baitira antolaketa, egitura eta taldeen funtzionamenduari dagozkienean bederen.

5.1. Arlo federatua



1.6. irudia. Pilota partida bat hasi aurreko aurkezpena (GEPF).

Kirol honetan federatuta diharduten pilotariek, besteak beste goiko argazkian agertzen diren laurak (ikus 1.6. irudia), federazioek emaniko pilotari lizentziak izaten dituzte, ezinbestean pilota elkarte baten pean, haren izenean, aritzen baitira. Derrigorrean bete beharreko baldintza da hori alor honetan parte hartu ahal izateko. Pilota elkarteak izaten da bere pilotariek eta hauen barne-antolaketaz arduratzen dena, besteak beste, entrenamendu ordu eta lekuak banatu, pilotariak txapelketetan apuntatu, partida egun eta orduak zehaztu eta antzeko zereginak.

Federatuta jokatzeko, pilotari federatu izateko, 15 urtetik gorako edonork eman dezake izena, kadete kategoriatik gora hasten baitira federatuentzako txapelketak nesken kasuan. Aurrez eskolarteko txapelketak izaten dituzte. Beste lurraldeei dagokienean, ordea, Nafarroako eta Iparraldeko txapelketetan gazteagoak direnek ere parte har dezakete, adin goiztiarragoetan hasteko aukera baitute egitura hauen barnean.

Euskal Herri mailako antolaketak lurralde bakoitzean ezaugarri bereizgarriak baditu ere, orokorrean, egitura oso antzekoak eta sistema berdintsuak erabiltzen dira Euskal Herrian. Jarraian jorraturiko puntuetan horien gaineko xehetasun gehiago emango ditut.

5.1.1. Instalazioak eta materiala

Pilotan federatu mailan emakumezkoentzako jokamolde ofizialak bi dira joko araudiaren arabera, bakoitza instalakuntza mota batean egiten dena. Biak ere erreminta bat erabiliz burutzen dira, paleta bat. Euskal pilotako gainerako jokamoldeetan ez da emakumezkoentzako txapelketa ofizialik ospatzen. Ondoren xehetasun nabarmenagoak atal bakoitzaren barruan aurkeztuko ditut.

- Ezker hormako pilotalekua – gomazko paleta:

Frontoi hau hiru hormek osatzen dute, aurrekoak edo frontisak, ezker paretak eta atzekoak edo errebotak. Horrez gain, eskuinean marra batek bereizten ditu joko-eremua, kantxa deiturikoa, eta kontrakantxa, harmailen eta joko-eremuaren arteko eremua. Txapa deiturikoen mugatzen dituzte gainerako eremuak ezker horman, frontisean eta errebotean. Ondorengo irudian (ikus 1.7.) Lizartzako ezker hormako pilotalekuaren ezaugarriak ikus daitezke.



1.7. irudia. Lizartzako ezker hormako pilotalekua (GEPF).

Bertan erreminta lez gomazko paleta erabiltzen da, zeharkako sei errefortzuduna pilota-kolpeak eragindako talkari eusteko, eta gomazko pilota trinkoa. Pilota honek barrua ere betea du, gomazkoa. Hauek ere argazkian ikusgai daude (ikus 1.8. irudia).



1.8. irudia: gomazko paleta eta pilota trinkoa.

- Trinketa – pala zabala:

Instalazio hau ezberdina da ezker hormako pilotalekuarekiko. Honek lau horma ditu: frontisa edo aurrekoa, ezker eta eskuineko paretak eta errebotea edo atzekoa. Horrez gain beste bi elementu bereizgarri ere baditu. Batetik, frailea, zeina eskuin horma eta frontisaren arteko angeluan kokaturiko ertz hil bat den, eta, bigarrenik, ezker hormaren behealdean teilatua (ikus 1.9. irudia).



1.9. irudia. Irungo Ramuntxo Berri trinketeko partida baten hasiera (GEPF).

Instalazio berezi honetan pala zabala eta gomazko pilota hutsa (ikus 1.10. irudia) dira jokorako tresna. Gomazko pilota honek barruan gasa dauka eta ez da gomaz betea, ezker horman erabiltzen denarekiko ezberdintasun hori nabarmenduz.



1.10. irudia. Pala zabala eta gomazko pilota hutsa.

5.1.2. Lehiaketa egutegia

Pilota denboraldia irailetik ekainera bitartean jokatzen da, udako bi hilabete nagusiak libratuz. Orduan herri batzuetako festetan erakustaldi partidak jokatzen dituzte pilotariek tarteka-marteka, baina hauek ez dira antolaketa edo egitura sistematizatuaren baitan kokatzen.

Jokatzen diren txapelketa motak joko-mailaren eta bertako parte-hartzeko baldintzen arabera sailkatuta jarraian multzokatu ditut:

- Lurraldekoak: Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparralde mailakoak, non federazio horretan federatuta dauden pilotariek soilik joka dezaketen.
 - o Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Arabako Elkartearen Arteko Txapelketak
 - o Emakumea Pilotari txapelketak (Gipuzkoan)
 - o Jubenilen Udaberri Saria (Gipuzkoan)
- Herrialde mailakoak: Euskadiko Euskal Pilota Federazioak antolatuak izaten dira batez ere, bai elkartearen arteko txapelketa moduan edo baita Euskal Pilota Federazioan lizentzia daukatenei zuzenduak.
 - o Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa
 - o Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Txapelketa
 - o Iparraldeko Pilota Liga
- Estatu mailakoak: Espainiako eta Frantziako Pilota Federazioek antolatuak.
 - o Espainiako Opena
 - o Frantziako Txapelketak
- Nazioartekoak: Euskal Pilotaren Nazioarteko Federakuntzak edo Munduko Pilota Batzarrak antolatuak. Herrialdeka jokatzeko dira, selekzioen baitan pilotariak hautatuta.
 - o Munduko Pilota Txapelketa
 - o Munduko Kopa
 - o Nazioarteko Pilota Txapelketa
- Goi-mailako txapelketa pribatuak:
 - o Kutxa Sariak
 - o Napar Pala, Pelotadenda eta Su-Berri Sariak

Jarrain denboraldi bateko lehiaketa egutegi baten irudia (ikus 1.11.irudia).

		Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
		2 9 16 23 30	7 14 21 28	4 11 18 25	2 9 16 23 30	6 13 20 27	3 10 17 24	3 10 17 24 31	7 14 21 28	5 12 19 26	2 9 16 23 30
Ezker-horria		Gipuzkoako Txapelketa Nagusiak				Euskal Herriko Kluben Txapelketa					
		Gipuzkoako Txapelketa Jubenilak					Jubenilen Udaberri Saria				
							Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Txapelketa				
				Emakumea Pilotari 1.-2. mailak				Kutxa Saria			
								GRAVN			
Trink.							Gipuzkoako Txapelketa Jubenilak			Euskal Herriko Kluben Txapelketa	
							Gipuzkoako Txapelketa Nagusiak		Emakumea Pilotari 2. maila		
								Emakumea Pilotari 1. maila	Kutxa Saria		

1.11. irudia. 2012-2013 denboraldirako GEPFek atunduriko egutegia.

Aurreko irudian (1.11. irudia) ikus litekeen bezala pilota-denboraldia bi zatitan banatzen da, irailetik ekainera bitartean, ezker hormako eta trinketeko txapelketak bereiziz egutegian, lehenekin hasi eta bigarrenekin amaituz denboraldia. Irailetik otsailaren erdialdera arte, gutxi gorabehera, ezker hormako txapelketak jokutzen dira eta otsaila-martxotik ekainera, aldiz, trinketekoak batez ere.

Horrez gain, bertako antolaketa eta joko-mailaz ere ezberdinak dira txapelketa asko, lurralde mailakoak (Gipuzkoakoak eta Emakumea Pilotari), herrialde mailakoak (Euskal Herriko Kluben Txapelketa, Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Txapelketa eta GRAVN) eta goi-mailakoak bereiziz (Kutxa Sariak). Baita kategorien arabera ere: kadete – jubenilenak eta nagusi mailan dihardutenenak.

5.2. Aisialdiko arloa

Modu antolatuan pilotariak aisialdian Gipuzkoan soilik ari direnez, kasu honetan Gipuzkoa mailako azterketa da agertuko dudana, sistema bera eta egituraketa azaltzeko aprobetxatuz zati honetan.

5.2.1. Aisialdiko ikastaroen antolaketa

Aurreko puntu batean agertu bezala, 18 urtetik gorako edozein emakumeri zuzenduriko ikastaroak dira partaidetzako kirolaren baitan burutzen direnak. Pilota federazioa, herriko pilota elkarteak eta udalak izaten dira antolatzaile eta sustatzaile lanetan aritzen direnak oro har. Hortik aurrera, ordea, entrenatzailea izaten da gehienetan zuzenean antolaketa zehatzagoaren kudeaketaz arduratzen dena: taldeen osaketa, entrenamenduak prestatzea, etab. Kasu honetan Pilotari Herrikoien Txartela izaten dute parte hartzaileek, mediku-asegurua eta babesak eskaintzen diena. Hauek zuzenean izapidetzen ditu GEPFek berak, emakumeek ikastaroan izena ematean jasoz.

Ikastaro hauetan arloan aditua den teknikari baten gidaritzapean aritzen dira emakumeak pilotan, ariketak eta materiala bera ere euren ezaugarrietara egokituz ahal den heinean. Hori dela eta, ohi baino paleta arinagoak eta teniseko pilotak erabiltzen dituzte jokorako (ikus 1.12. irudia). Ikastaro hauek ezker hormako pilotalekuetan antolatzen dira beti.



1.12. irudia. Jokorako materiala: paleta arina eta teniseko pilota.

Ikastaro hauen ezaugarri nabarmenena eskaintza bertan parte hartzen duten emakumeen ezaugarrietara egokitzea da, bai burutzen diren ariketen zein jardueren izaera eta baita antolaketa atalari dagokionean ere (ikus 1.13. irudia).



1.13. Emakume talde bat paleta saioan (GEPF).

Ikasturtea, berriz, urritik ekainera bitartean osatzen da, astean behin ordu eta erdiko paleta saioa egiteko batuz emakumeak herriko pilotalekuan. Orotara hogeita hamar saioen bueltan osatzen dituzte talde bakoitzean. Azken datuen arabera 2012-2013an Gipuzkoan 16 ikastaro burutu ziren zortzi herritan eta guztira 134 emakumek hartu zuten parte (ikus 1.11. taula).

1.11. taula.

2012-2013 ikasturteko paleta ikastaroetako emakumeen parte-hartzea.

Herria	Talde kopurua	Emakume kopurua
HERNANI	3	24
DONOSTIA	3	24
AZKOITIA	2	19
ZARAUTZ	2	15
USURBIL	3	22
TOLOSA	1	11
OIARTZUN	1	11
ZIZURKIL	1	8
GUZTIRA	16	134

Aisialdiko emakumeen paleta ikastaroetako datuei erreparatuz gero, esan liteke herri gehienetan talde bat baino gehiago daudela, azken urteetako joera mantenduz. Gainera, batez beste talde bakoitzean zazpi-zortzi pilotari biltzen dira saioetan astez aste ikasturte osoan zehar.

5.2.2. Emakumea Pilotari eguna

Ohiko asteroko paleta saioez gain urtean zehar beste hitzordu berezi bat ere izaten dute arlo honetako pilotariek: Emakumea Pilotari Eguna.

Ikasturtearen amaiera aldera antolatzen den festa eguna izaten da, kurtsoaren azken hondarrean antolatu ohi dena. Bertan elkartzen dira ikasturtean zehar Gipuzkoako herri ezberdinetako pilotalekuetan ikastaroetan aritu diren emakumezkoak eta amaierako jaieguna ospatzen dute. Egitaraua ere oparoa izaten da. Tartean izaten dira Emakumezkoen Gipuzkoako Txapelketa Herrikoiko azken fasea, ariketen arabera txoko ezberdinetan antolaturiko paleta saioak (ikus 1.14. irudia), familia argazkia (ikus 1.15. irudia), bazkaria, teknikarien arteko paleta partidatxoa, musika eta bazkalosteko dantzaldi eta hizketaldiak.



1.14. irudia. 2012ko saioko une bat.

Egitasmoa abian jarri zenetik, eta 2007an egun hau antolatzen hasi zirenetik, jadanik festa honen zazpi edizio antolatu dira, zazpigarrena 2013an, eta emakume pilotariek zein federazioko teknikariek bereziki estimatu eta gozatzen duten eguna da. Askok dira, gehienak esan nezake, behin joanez gero hurrengoetan ere ahal izanez gero joateko eta bertan egun pasa ederra egiteko hautua egiten dutenak urteak joan eta urteak etorri. Hirurogeita hamar lagun inguru biltzen dira guztira pilotalekuaren eta lagunen babesean. Egutegietan ikasturtearen hasieratik gorriz markaturiko ospakizuna izaten da Emakumea Pilotari egunekoa, beraz.



1.15. irudia: 2012ko Emakumea Pilotari eguneko taldea (GEPF).

6. Erreferentziak

- Bombín, L. eta Bozas-Urrutia, R. (1976). *El gran libro de la pelota*. Madril: FIPV.
- EEPF (2010). *Pilota. Joko araudia. Gure kirolak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Euskal Pilotaren Nazioarteko Federakuntza (FIPV). Historikoa. (<http://www.fipv.net/es/resultados/historico>, 2013ko uztailaren 17an kontsultatua)
- GEPF (2005-2013). Emakumearen Batzordeko aktak. Donostia: argitaratu gabeak.
- GEPF (2012). Emakumea Pilotari egitasmoa. Balantzea. Donostia: argitaratu gabea.
- GEPF (2004). Emakumea Pilotari egitasmoa. Sorrera dokumentua. Donostia: argitaratu gabea.
- GEPF (2013). Neska pilotarien datu historikoak. Donostia: argitaratu gabea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2011). Lanbide Tradizionalak.: xare-artistauak. Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua. (<http://www.aintzinakolanbideak.net/eu/deporte/raquetistas/notas.asp>, 2013ko maiatzaren 27an kontsultatua)
- Urrutia, J. M. eta Sagastizabal, J. (2009). *Erraketistak – Las raquetistas*. Durango: Durangoko Arte eta Historia Museoa.

2. kapitulua

Metodologia

1. Sarrera

Ikerketa lan hau metodologia kualitatiboa erabiliz burutu dut, lan honen xedea esanahiak jaso eta berreraikitzea baita. Beraz, informazioa biltzeko modua ez da erabat egituratua izan, malgua baizik, prozedura induktiboa hobetsiz deduktiboaren aurrean, arreta fenomenoetan eta hauen arteko elkarrekintzan jarriz, hauek abiapuntu hartuta garatuz kontzeptuak. Lan honen azken helburu edo norabidea ez da orokortzekoa, holistiko eta konpreziaragoa baizik (Ruiz-Olabuénaga, 2003, 23 or.). Izan ere, testuingurua eta honen nolakotasuna ezagutzeko ahalegin sakon bat da, subjektibotasunaren bila eginiko bidaia bat, zenbatekotasunean oinarritu eta geratu ordez eskenatokia bera eta honen izaera eta muina aztertze eginiko saiakera bat. Ez dut begi hutsez ikusi eta belarriz entzun eta aztertu litezkeenetan geratu nahi izan, hor lerro artean, zokorik ezkutuenetan eta hondorago aurkitzen diren barrunbeetara iristen ahalegindu baizik, irakurle orok nire begietatik aztertutako eskenatokia irudikatu eta berregiteko aukera izan dezan.

Emakumeak ardatz dituen euskal pilotaren esparruaren inguruko informazio ahalik eta zehatzen eta esanguratsuen eskuratzeko aktore eta eskenatoki ezberdinetara jo dut, bertako esan, bizipen, jokabide, jarduera eta iritzien bitartez informazioa bilduz parte-hartzaileen errealitatea eraikitzen amaitzeko. Zeregin horretan, datuak eskuratzeko ahaleginean, hainbat teknika eta baliabide erabili ditut, nagusiki lau ataletan banatuta, nahiz eta elkarren osagarri eta uztargarri diren arloka azalduko ditudanak: etnografia,

sakontzeko galdeketak, dokumentuen azterketa eta eztabaida taldea. Etnografia, bere baitan behaketa parte hartzailea eta elkarrizketa formal zein ez formalak dituena, aisialdian diharduten emakume pilotariak aztertzeko erabili nuen, nik atal hau bertatik bertara ezagutzeko modurik zuzen eta aberatsena hori zela iritzita. Sakontzeko galdeketak, aldiz, federatuen arloan dihardutenen mundutxoa aztertzeko, neroni bertako kide izana naizelako bost urtean zehar eta oso gertukoa, ia etxekoa ere esan nezake, zaidan eremua delako, hain barneratze sakonik eskatzen ez zidana azken hegira heltzeko bidean. Etnografia lanean eta sakontzeko galdeketetatik bilduriko datuen osagarri emakume pilotariekin loturiko dokumentuak ere eskuratu genituen. Eztabaida-taldea, berriz, datuen analisi eta idazketa aurreratua nuela, kapitulu zehatz bateko edukiak sakonago aztertu eta mamitzeko osatu nuen, beharrak horretara bultzatuta. Datuen azterketarako, aldiz, edukien analisia burutu nuen, prozesuan zehar dagozkion urrats eta zeregin guztiak tentu handiz betez. Hau guztia burutzeko, gainera, ezinbestekoa da lanaren zuzentasunari atxikiriko ezaugarriak ere aintzat hartu eta garatzea.

Ondorengo azpi-puntuetan ikerketa lan honen diseinua, informazioa eskuratzeko erabilitako teknika ezberdinak eta hauen ezaugarrien gaineko xehetasunak zehaztu ditut. Horrez gain, datuen analisia burutzeko prozedura eta datuak erregistratzean zein berauen analisiak burutzerakoan kontuan hartu diren zorrotasun zein etika irizpideak ere zehaztu ditut, idazketa prozesuaren baitako pauso eta ezaugarrien berri ere erantsiz, betiere, jasoriko informazioaren eta buruturiko urrats bakoitzaren baitako kalitatea bermatu asmoz.

2. Ikerketaren diseinua

Ikerlan hau garatzeko hautaturiko diseinua nolakoa izan den argitu nahiko nuke atal honetan, abiapuntu lez erabiliriko funtsezko joera eta ikuspegiak zein izan diren agertuko baitut. Alde batetik iparrorratz lez harturiko joera teorikoen gaineko puntu bat agertuko dut eta bestetik, berriz, oinarriak agertu ondoren zein helburu eta xede lortzeko asmotan eginiko lana den ere bai.

2.1. Gidalerroak

Emakumezkoek euskal pilotako esparruan zer nolako bizipenak izaten dituzten, zer erraztasun eta muga hautematen dituzten zein nolako testuinguruak dituzten aztertzeko, bi ardatz nagusi hartu ditut bidelagun: elkarrekintza sinbolikoa eta feminismoa.

2.1.1. Elkarrekintza sinbolikoa

Korrante honetan pertsonak eta hauek burutzen dituzten ekintzen esanahiak daude erdigunean, eta baita hauen artean sortzen diren elkarrekintzak ere, bertan gertatzen diren jokabideak baitira ardatz nagusi, aldi berean aktore sozialok hauei ematen diegun zentzuan oinarritzen direnak. Izan ere, pertsonok interpretatu egiten dugu gure inguruko

errealitatea, ez robotak bagina lez erantzun (Atkinson, Coffey, Delamont, Lofland eta Lofland, 2011, 28-29 or.).

Elkarrekintza sinbolikoan (*symbolic interactionism*) zenbait ikusmolde, esanahi eta definizio sozial bilatzen dira, ondorengo antzeko galderak baitira interesgarri (Taylor eta Bogdan, 2000):

- Nola definitzen dituzte pertsonak euren buruak eta besteak, eskenatokiak eta jarduerak?
- Nola garatu eta aldatzen dira jendearen definizio eta perspektibak?
- Nola doitzen dira pertsona ezberdinen perspektiba ezberdinak?
- Zein da jendearen perspektiben eta euren jardueren arteko ditzea?
- Nola jorratzen dituzte pertsonak euren perspektiba eta jardueren arteko desadostasunak?

Blumerrek (1982, Latorre, Del Rincón eta Arnal, 2003an aipatua), ildo berean, dio giza jarduera interpretazioaren bitartez gauzatzen dela, elkarrekintzaren printzipioak eta gizabanakook gauzen gainean geuretzat duten esanahiaren arabera jardun ohi dugula. Horregatik, elkarrekintza sinbolikoan oinarritzen direnek interpretazio prozesua dute giza jarduera ulertzeko funtsezko tresna. Oinarrizko garrantzia dute pertsonak inguruan dituzten objektuei sinbolo bidez emaniko esanahi sozialek. Autore beraren arabera funtsezko hiru premisa ditu elkarrekintza sinboliko honek:

- Gauzen gaineko pertsonen portaera, baita pertsonen gainekoa ere, eurentzat duten esanahiaren arabera da.
- Esanahiak elkarrekintzaren ondorio dira.
- Interpretazioak sortu eta eraldatzen ditu esanahiak.

2.1.2. Feminismoak

Feminismoa bakarrik ez dela abiapuntu hartuta, joera, korrante eta ildo ezberdinak eta anitzak daudela jakitun banaiz ere, oinarri-oinarrian mugimendu feminista emakumezkoen (zein gizonezkoen) askatasuna xede duen pentsamoldea da, horretarako gizarte-harremanak eraldatzea beharrezkoa dela azpimarratuz, sexuaren arabera hierarkia eta ezberdintasunekin amaitzeko. Ikerlan hau garatzeko generoaren ikuspegia aintzat hartu dut, berdintasunaren paradigmaren erreparatuz eta zehazki, feminismoaren paradigmaren. Amorósek (1998, 22 or.) dioen moduan “feminismoaren teoriak paradigma bat sortu du, interpretatzeko markoa”. Beste paradigmekek ez dute aukerarik eskaintzen errealitateko dimentsio batzuk identifikatzeko, feminismoaren paradigmatik aztertuta berriz, errealitate horiek ulertzera iritsi gaitezke, horretarako generoa moduko kategoriak proposatuz (Cobo, 2007). Ezberdintasun sexualaren korronteari (Irigaray, 1992; Sendón, 2002) ere erreparatu diot era berean, ez baitira elkarren kontrajarriak bi korrontek, elkarren osagarri ere izan litezke kontzeptualki (López, 2010).

Laburbilduz, beraz, teoria feministak hartu ditut aintzat lan hau burutzeko, bertan ildo kritikoa zehazten den norabide nagusienetako bati jarraitu eta generoa eraikuntza

soziala dela nabarmenduz eta jendartean ematen diren harremanak baldintzatzen dituela kontuan hartuta, generoa gizarteko botere-egituren kausa eta efektua baita aldi berean. Ildo horretan, teoria feministek jendarteko esparru ezberdinetan jazotzen diren diskriminazio edo bazterketa egitura eta mekanismo ideologikoak azalarazten dituzte, errealitatea interpretatzeko marko honek nabarmen uzten baitu gizonezkoek nagusi(tza) jarrera mantentzen dutela bizi dugun gizarte-egituran (Cobo, 2007).

2.2. Helburuak

Ikerkuntzaren helburu nagusia **euskal pilotan diharduten Euskal Herriko emakumeen errealitatea ezagutzea da**, egoeraren gaineko hausnarketa bultzatuz. Helburu hau gauzatzeko ezinbestekoa da emakumezko pilotarien eskenatokitara hurreratu eta testuingurua zein aktore sozialak bertatik bertara ezagutzea, eurekin orpoz orpoko lana eginez elkarrekintzaren bidez, euren eta nire arteko lankidetzeta eta elkar laguntza muinean harturik. Gainera, ez dut aurkitu literatura zientifikoan aurrez emakume pilotarien gainean eginiko antzerako ikerlanik. Hortaz, beharrezkoa da oinarritzko diagnosi hau egitea gaia sakondu ahal izateko abiapuntu lez.

Emakumezkoek euskal pilotako esparruan duten errealitatea aztertzeak bertako egunerokotasunean ematen diren egoera ezberdinak ezagutu eta partekatzea dakar, mundu hau osatzen duten atal ezberdinen arteko elkarrekintzaz jabetu, indar-guneak antzeman eta gabeziak plazaratuz. Bertan aurkituriko errealitatea deskribatuzetik abiatuz hobetzeko proposamenak eta gakoak agertzen amaitu nahi nuke.

Ikerlan honen xedea ondoren formulaturiko galderari erantzuna ematen saiatzea izan da, errealitatea zenbait atal edo galderaren erantzunen arabera aztertzen saiatuz:

- Nola definitzen dituzte pilotan diharduten emakumeek euren buruak? Eta besteak?

Pilotari izateak zer esanahi duen emakumeentzat eta zein bereizgarri dituen ez direnekiko, zerk ezberdintzen eta berdintzen dituen pilotariak eta ez-pilotariak. Gainera, pilotariak ere multzo ezberdinetan sailka daitezke jardun ildo aintzat hartuz gero: aisialdikoak eta federatuak. Talde bakoitzaren bereizgarri eta ezaugarri komunak zein diren deskribatzeko ahalegina egingo dut.

- Nola definitzen dituzte pilotan diharduten emakumeek eskenatokiak?

Zer zentzu ematen dieten pilotariak diharduten gune ezberdinei: pilotalekuko kantxa, kontra-kantxa (kantxaren eta harmailen arteko alboko eremua), harmaila, aldagela, solasaldietako plaza eta tabernak, entrenamenduetako pilotalekuak, partida-lekuak, Emakumea Pilotari eguneko eskenatokia, etab.

- Nola definitzen dituzte pilotan diharduten emakumeek jarduerak?

Zer zentzu ematen dieten pilotariak burutzen dituzten entrenamendu saioei, pilota partidei, egun pasei, festa egunei, elkarrekin eginiko otorduei, partidak ikusteari, etab.

- Nola garatu eta egokitzen dituzte pilotariak euren definizio eta ikuspuntuak?

Non duten sorburua pilotari izaerak eta nortasun honen garapen zein eraldaketa prozesuek. Testuinguruko faktore eta baldintza anitzen arabera nola gertatzen diren denboraren eta ikuspegi aldaketan arabera moldaketak.

- Nola kudeatzen dituzte pilotariak euren ikuspegi eta jardueren arteko desorekak?

Emakume pilotarien ikusmoldea eta euren jarduerari emaniko esanahiak bat ez datozen kasuetan nola moldatzen diren pilotariak egoera horiei aurre egin eta auziak komeni zaien edo ahal duten bidetik ebazteko.

- Nola egokitu eta uztartzen dituzte ikuspuntu ezberdinak pilotariak?

Pilotari komunitatea osatzen duten emakume guztien asmo, nahi, iritzi eta joerak ez datoz bat, berdintasun eta ezberdintasunak baitituzte. Hori dela eta, halako egoeretan nola moldatzen diren aztertu nahi dut, zer erabaki hartu eta nola bateratzen dituzten lekuan lekuko eta unean uneko gorabeherak.

- Nola deskribatzen ditu jendarteak emakume pilotariak?

Jendarteak emakume pilotariak nola ikusi eta deskribatzen dituen aztertzea funtsezkoa da, elkarrekintza zuzena eta etengabea gertatzen delako pilotari eta testuinguruko gainerako pertsonen artean, aldebikoa da hartu-eman, gainera, joan eta etorrikoa.

- Zein da jendarteko ikuspegiaren eta pilotarien jardueraren arteko moldaketa?

Ikuspegi bat baino gehiago egon daitezke jendartean emakume pilotariakiko. Hori dela eta, bat datozenean eta ez datozenean pilotariak egoera horiek nola kudeatzen dituzten eta aurre nola egiten dieten deskribatzea esanguratsua da.

3. Datu bilketa

Ikerketa lan honetan lorturiko informazioa bide eta modu ezberdinetara batua izan da, batetik teknika etnografikoen bidez, behaketa parte hartzailea erdigune bihurtuta, elkarriketa formal zein informalak ahaztu gabe, eta bestetik, berriz, sakontzeko galdeketei esker. Hirugarren informazio iturri bat ere erabili nuen, dokumentuen bilketa hain justu ere. Informazioa eskuratzeko laugarren eta azken bidea eztabaida-talde bat antolatzearen poderioz egin nuen. Teknika ezberdinei esker jasorikoa elkarren osagarri erabili dut. Jarraian duzue zehatz-mehatz datuak biltzeko erabilitako moduen eta jarraituriko prozeduren berri.

3.1. Behaketa parte-hartzailea

Etnografia terminoak antropologia du sorburu eta literalki *arraza baten edo gizabanakoen talde baten bizimoduaren deskripzioa* esan nahi du (Woods, 1989, 18-19 or.). Jendeak egiten duenarekiko interesa agertzen da bertan, nola jokatzen duten eta elkarri nola eragiten dioten aztertzen da. Sinesmenak, baloreak, ikuspegiak, motibazioak eta hauen denboraren baitako edo egoera batetik besterako garapena edo aldaketa deskubritzea ditu xede. Hau guztia taldearen *barrutik* egiten saiatzen da etnografoa, taldeko kideen perspektibatik. Izan ere, *euren* esanahiak eta interpretazioak dira garrantzitsuak. Beraz, euren lengoaia eta ohiturak barneratzea ezinbestekoa da, zertzelada guztiak aintzat hartuz. Ildo berean, talde bakoitzak bere errealitate kulturalak eraiki ohi ditu besteekiko bereizgarriak, hortaz, ulertzeko ezinbestekoa da euren mugak igaro eta barrutik behatzea. Hau errazagoa ala zailagoa izan daiteke ikergai den taldearekiko norberak duen distantzia kulturalaren arabera. Edozein modutan ere, beharrezkoa izango da taldearen barruan egonaldi luze samarra osatzea, lehenengo mugak hautsi eta onartua izateko eta ondoren kultura horren gaineko ikasketarako.

Hammersley eta Atkinsonek ere (2007, 15 or.) ezaugarri nagusi bezala etnografoak denbora epe batean zehar aztergai diren pertsonen eguneroko bizitzan parte hartu beharra azpimarratu dute, zer gertatzen den behatuz, zer esaten den adituz eta galderak eginez. Alegia, ikergaiaren baitan edozein argi printza sor lezakeen datu oro pilatzea funtsezkoa dela.

Hortaz, etnografoak ikergai duen errealitatea dituen esanahi sozial ezberdinak eta hauen aberastasun osoa aintzat hartuz irudikatze joera izan behar du, talde berezi bati bereizgarri zaizkion elementu guztien arteko harremana era zorrotzean deskribatzera jo behar du, hala ez bada irudikatzea desitxuratua izango bailitzateke (Woods, 1989, 19 or.). Ondorioz, etnografia tipikoak detaile askokoak eta aberatsak izan ohi dira, kultura guztia biltzen duen esanahien oskola zeharkatzea lortzen baitute.

Etnografia kontzeptu zabalagoa denez, behaketa parte-hartzailea teknika apur bat sakonago zer den azaldu nahi nuke puntu honetan, hau izan baita erabilitako teknika etnografikorik esanguratsuena ikerlan honen atal zabal batean. Giza taldeen bizitza

soziala aztertzeke teknikarik erabiliena da behaketa mota hau, aktoreen ikuspegitik jorratzen duelako aztergaia, arreta-gune nagusia eurengan jarrita. Hori dela eta, ikerketa honen garapenerako ere baliabide metodologiko aproposa izan dut, tresna oso lagungarria baita.

Behaketa da ikerketa etnografikoetako bizkarrezurra (Taylor eta Bogdan, 2000), objektibo angelu-handi bidez jasoriko buru-irudiak lortzen baitira berari esker. Behaketaren bitartez ikertzaileak deskribapen zabalak lortzeko bidea du eta jende-talde baten joerak ulertzea ere bideratzen du tresna honen erabilerak (Krane eta Baird, 2005).

Behaketan aritzeak une zehatz batean gertatzen diren ekintza ugari erreparatzea dakar, entzute zolia eta galderak egitea (Taylor eta Bogdan, 2000). Ikertzaileak kontzienteki behatzen ditu giza elkarrekintzak, elkarrizketak, ekintzak eta testuinguru jakin horri atxikita gertatzen diren jarduera guztiak. Oso garrantzitsua da eskenatokiaren gainean ahalik eta xehetasun gehien jaso eta miaztea. Hasieran oso zaila da informazio garrantzitsu eta esanguratsua zein izan litekeen antzematea. Horregatik, lehen urratsetan aztergai duen kulturaren gainean zokomiran ibili ohi da ikertzailea, alderdi deskribatzaileei erreparatuz ikuspegi nasai bat abiapuntu hartuta (Krane eta Baird, 2005). Ikerketa garatu ahala, berriz, ikuspegia estutuz joango da eta ikerketa galdera espezifikoetara bideratu, zeinak hasierako behaketetatik sortuak izango diren (Taylor eta Bogdan, 2000).

Hortaz, ikertzailea azterketaren muina duen errealitate sozialean txertatu eta bertakotzean datza eginbeharririk nagusienak, behatu, lagundu, partekatu eta ahal duen heinean aktoreekin euren ohiko jardueretan parte hartuz, hala giza esperientzia eraikiz. Horregatik, aztergai den multzoaren ohiko bizimodua da ikerketa burutzeko berezko bitartekoa (Guasch, 1997, 35 or.). Horri eutsiz, beraz, kasu honetan ere ahalik eta intrusiorik eta eraginik txikiena izaten saiatu naiz, aldi berean, ordea, ikertzailearen eskenatokitako parte-hartze mota antolatzea ezinbestekoa dela jakitun izanik.

Behatzailearen parte hartze mailaren eta moduaren arabera behaketa hutsetik parte hartze hutsera arteko tartean koka daiteke ikertzailea bere lanerako. Hori dela eta, garrantzitsua da kontzeptu hau argi izatea landa lana egituratzeari ekin aurretik. Lau aukera ezberdindu ohi dira continuum batean, Junkerrek 1960an proposaturikoari jarraituz (Hammersley eta Atkinson, 2007an aipatua):

- Erabateko parte hartzea: talde sozialeko parte hartzaile bat gehiago da ikerlea eta ez die bere rola berri emango beste kideei.
- Parte-hartzailea behatzaile: taldeko ohiko jardueretan partaide, behaketak burutu bitartean.
- Behatzailea parte hartzaile: batez ere behaketara bideratua, baina jarduera gutxi batzuetan parte hartuz.
- Erabateko behaketa: ikuspegi objektiboa, behaketa hutsera bideratutako jarduna. Ez du kontakturik behatzen ari denarekin.

uste eta abarrak alboratzen saiatzeko ahalegin betean (Woods, 1989, 33 or.). Alderdi horri berari garrantzia eman dio Guaschek ere (1997, 36 or.), aztertzaileak aurretiaz iritzi eta ideiak izan ditzakeela ukatu gabe, eta bere egoera sozialaren ezaugarriek behatzeko ikuspegiaren eragiten dutela nabarmenduz. Autore honen arabera ere landa eremuan bertan jasoriko informazioa da aztergai den arazo soziala definituko duena. Horregatik, ezin da ahaztu litekeena dela behaketa parte-hartzailearen joanean aktore sozialen ikuspegiak pisua hartu ahala hasierako diseinuak eraldaketak izatea, bai hasierako urratsetan, orduan ohikoagoa izan ohi da, baina baita aurrerago ere.

Kontuak kontu, ordea, lehenik eta behin ezinbestekoa da aztergaia identifikatu eta hautatzea. Honen ondoren, autore askok diotenari jarraituz, xehetasun handiz hausnartu behar da gaiaren ikergarritasuna, batzuk beste batzuk baino errazago burutu bailitezke. Hori dela eta, kasu honetan ere garrantzitsua izango da zenbait galderaren formulazioa (Woods, 1989, 34-35 or.): zer da benetan jokoan dagoena? Derrigorak al dira kontrola eta dokumentazioaren, behaketen edo/eta elkarrizketen bidez aztertzea? Zein neurritan dira eskuragarriak materiala eta tartean sarturiko jendea? Zein da beharrezko laginaren izaera eta neurria? Lanak zein heinetan sor ditzake arazo eta kontrakotasunak?

Galdera hauek erantzuteko norbere baliabideetara jo behar da, ez gaitasun eta ezaugarri pertsonalen gisako bertuteetara soilik, baizik eta baita egoeraren beraren ezaugarrietara ere, besteak beste norbanakoak, zenbat eskenatoki eta non aurki litezkeen aztertuz (Woods, 1989, 35-36 or.). Hemen faktorerik garrantzitsuenetako bat akaso denbora da. Izan ere, baliabideen ahalik eta aprobezkoen erabilera handiena lortu behar da, gaiaren ezagutzan edo aztergai den esparruarekin ere beste hainbeste egiten saiatuz. Ezagutza hau zentzu ugarian zabaltzea posible da eta baita doitzea ere lan enpirikoari heldu aurretik.

Beraz, aurreko gomendioak barneratu, gaiaren gainean ikuspegi ezberdinetatik gogoetatu eta galdera eta duda-muda zein kezka zerrendei ahalik eta zintzotasun, prestutasun eta zehaztasun handienez erantzun ostean, hurrengo eskailera mailara igarotzeko unea heldu zitzaidan, emakumeen pilotaren inguruan ikerketa garatzeko landa lanaren ateetan kokatuko ninduten zereginak egiten ahalegindu eta xehetasunak lotzera igaroz.

3.1.1.1. Eskenatokien hautaketa

Behaketa parte hartzailean eman daitekeen aholkurik onena *besoak garbaltzea* dela diote (Taylor eta Bogdan, 2000, 34 or.), ikerketa eremuan murgildu eta eskenatoki baten ezagutzatik abiatzea, ondoren erabakiz eskenatoki gehiago aztertzearen inguruan, ikerketa lan orotan baitaude miaketa bide gehiago garatzeko aukerak, ia mugagabeak, gainera. Hala ere, sartu aurretik nahitaezkoa da non murgildu erabakitzea. Gainera, horretarako urrats bat baino gehiago dira kontuz eta tentuz egin beharrekoak, faktore asko hartu behar baitira aintzat prozesu honetan zehar ere.

Ikerketarako eskenatoki ideala behatzaileak sarrera erraza duena, informatzaileekin hartu-eman ona berehala ezarriko duena eta zuzenean ikerketarekin loturik dauden datuak jasoko lituzkeena da. Horrelakoak bakanak izaten dira, ordea. Eskenatoki batean txertatzea zaila izaten da orokorrean. Beharrezkoak dira prestutasuna eta pazientzia. Ikertzaileak sarrera negoziatu behar izaten du, konfiantza pixkanaka-pixkanaka lortzen du eta datuak ere motel lortu ohi ditu, eta ez dira, gainera, beti bere interesetara egokiturikoak izango. Ohikoa izan da ikertzaileek “airean pedalei eragitea” asteetan zehar, baita hilabeteetan ere, eskenatoki batean txertatzea lortu nahian. Beraz, Guaschen (1997, 38 or.) esanei helduz, hasierako eskenatokiak hautatzeko garaian egokiena desiragarria eta posible dena modurik egokienean nahastea da, zuzen bateratzea teoria eta praktika. Beharrezkoa da lortu nahi den informazioa kalitatezkoa izatea bermatuko diguten eskenatokien aldeko hautua egitea.

Eskenatokien hautaketan jarraitu beharreko prozedurei dagokienez, berriz, mota bat baino gehiagotako iritziak aurkitu ditut ikerlariaren parte-hartzearen izaerari dagokionez, neurri batean kontrajarriak ere izan litezkeenak.

Taylor eta Bogdanek (2000) argi eta garbi azaldu dute ez zaiela gomendagarria iruditzen ikertzaile bat parte-hartze pertsonal edo profesionala duen eskenatokiak ikertzen hastea, eskenatoki batean zuzenean sartuta egoteak egoera ikuspegi bakarretik aztertzea eragin dezakeela iradokiz. Horren harira azpimarratzen dute eguneroko bizimoduan ere pertsonok zenbait gauza ikusteko moduan esan beharrik ez dagoen ustea izaten dugula eta ikusirikoa errealtate objektiboarekin parekatzen dugula. Ikerketaren arloan, ordea, euren arabera, ikertzaileak nahitaez ikasi behar du berak errealtateaz duen ikuspuntua mundua ikusteko dauden aukera anitzen artean beste bat baino ez dela eta balitekeela alor batean gehiegi konprometituta egoteak onurarik ez sortu eta ikusmena mugatzea. Hala ere, aholku orokor moduan nabarmentzen dute ikerketa sekula ere ez dela izan balorerik gabea eta ikertzaileek beti garatzen dutela begikotasuna aztergai diren pertsonetikiko.

Julianok (2000), berriz, egite feministari erreferentzia eginez, azpimarratu du, Kum-Kum Bhavnaniaren esanetan oinarrituta, oso garrantzitsua dela talde jakin baten gaineko ikerketa bertatik datozen ikerlariak garatzea. Hori dela eta, emakumeen kasuan, argi eta garbi dio eurak izan behar direla euren arazoan gaineko ikertzaile nagusiak, egitura sozialaren baitako euren kokapenak beste hainbat azterlarik ezingo luketen lekuan kokatzeko ahalmena aitortuz.

Woodsek (1989, 49-50 or.) hezkuntzako ikerketetan etnografia erabiltzearen gainean eginiko hausnarketaren arabera ere, kasu zehatz horretan irakasleak egoera bikainean daude lan horretarako autorearen esanetan, testuinguru horretan aurretik egiten dutelako lan. Hala ere, berak argi dio horrek abantaila zein desabantailak sortzen dituela. Konponbide edo gomendioren batzuk ere gehitzen ditu, ordea, ahal den heinean norbere pentsamendu prozesuak garbitu eta taldea norberarentzat antropologikoki arrotza bihurtzea. Era horretan besteen iritziekiko jarrera irekiagoa izango dugu. Parte-hartzea

lagungarri da balorazioetarako eta, modu berean, ikertzailea hausnarketa eta parekotasun portaera bidez jardungo da kide bihurtzeari esker, bere erreakzio, intentzio eta motibazioak ere aztertuz, eta baita parte hartzen ari den prozesuaren baitan non eta noiz gertatzen diren ere. Hala ere, *bertako* (natibo) bilakatzea ekidin behar da, hori landa oharren bidez eta gogoeten bidez norbere ikuspegi eta iritzi aldaketak aztertuz egin daitekeela erantsiz.

Azken bi autoreen esan, gogoeta, iritzi eta gomendioak neure eginik, beraz, nahiz eta oso gertuko eremua izan zitekeen zentzu batean emakumeak eta pilota lotzen dituen niretzat, eta baita bertako zenbait eskenatoki ere, bertan hainbat urtean sakontasun maila batekin jarduna izaki, ikertzailearen talaiara igo eta eskenatokiak kokapen horretatik hautatzeko apustua egin nuen, hainbat alderdi, faktore eta aukera aintzat hartu eta hauen gaineko eragozpen eta ondorioak zein izan zitezkeen ere majo pentsatuta, balantzan ideia, kezka, uste, aukera eta ilusio asko jarriz platertxoak orekan mantentzen ahalegintzeko.

Emakumeen aisialdiko paleta ikastaroetan behatzaile lanetan aritzea erabaki ondoren hasi nintzen non, norekin, noiz, nola, zergatik eta gainerako galderei erantzunak aurkitu nahian, hautaketarako irizpideen definizio eta ezarpenean, Goetz eta LeCompteren testuan (1988, 103 or.) irakurri bezala. Izan ere, hau bezalako azterlanetan, eskenatokiak hautatzeko eta ahalik eta modurik eraginkorrean gauzatzeko erarik egokiena da aukeraketa oinarrizko ezaugarriak ezarriz eta betez hastea.

Horretarako, lehenik eta behin Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) Emakumea Pilotari egitasmoaren baitan Gipuzkoako herri ezberdinetako eskaintzan zituen, zuzenean berak kudeatuta edo udalen batzuekin kolaborazio moduko tratua eginda, taldeen zerrenda bat eskuratu nuen. Zerrenda mardula zen hura, ia dozena eta erdi talde nituelako aukeran, hamar/hamabi herritan banatuta. Hortaz, lehenengo momentutik oso presente izan nuen emakumeen pilotaren esparruan eginahalean buru-belarri ari direnen, hots, komunitatearen, iritziak eta interesak aintzat hartu, aztertu eta hauei modu zuzenean erantzuteko bidea hautaketatik bertatik jorratzen hasi behar nuela, lankidetzaren harremana sortuz federazioaren eta nire artean.

Lehen zerrenda hartan ordutegiak eta entrenatzaileak zein ziren aztertzea izan zen hurrengo irizpidea, izenemateak oraindik itxi gabe zeudelako 2011ko iraileko bigarren eta hirugarren asteetan, eta baita ni aurrez bertakoekin zuzenean entrenatzaile lanetan aritua nintzen ala ez egiaztatzea ere. Ordutegi bera zeukaten ikastaroen artean egin nuen lehen bazterketa eta ondoren egun berean eskenatoki bakarra nahikoa zela iritziak aukerak murrizten eta inbutua estutzen joan nintzen. Azkenean, irizpide ezberdinak ezarri eta lau-pabost aukera baino ez zitzaizkidan geratu. Irizpideak hauek izan ziren:

- Eskenatoki bat baino gehiago hautatzea, ondorengo ezaugarriak aintzat hartuz.
 - o Bat nik zuzenean jardun nuen taldea izatea (nire ikasle ohiak, beraz).
 - Beste bat aurrez elkarrekin ikastaroan aritutakoena izatea, ikasturte bat baino gehiagoan ikastaroetan zihardutenena, baina ni bertan aritu gabea.

- Hirugarrena eta azkena talde berria izatea, ikastaroaren eskaintza martxan jarriko zuten lehen aldia izanik parte-hartzaile guztiontzat.
- Biztanle kopuru ezberdinetako herriak izatea, handiak (>10000 biztanle), ertainak (5000-10000 biztanle) eta txikiak (<5000 biztanle) bereiziz. Herri edo hiri izaeran tamainak eragin ote zezakeen ustea neukan.
 - Entrenatzaileak eta biok elkar ezagutzea eta ondo konpontzeko bermea izatea, gure artean gaizkiulerturik ez izatea aurrez eta elkarrekiko konfiantza maila bat mantentzea.
 - Erakunde ezberdinek eragozpenik jarriko ez ziguten testuinguruen aldeko hautua egitea, bai sarrerari eta baita lanaren garapen aldiari zegokionean ere.

Eskenatokiak hautatzeko prozesu honetan laguntzaile izan nuen ikerlaneko zuzendariez gain Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko zuzendari teknikoa. Eskura eman zidaten bertan eskaturiko informazio guztia, unean uneko aldaketen gaineko xehetasunak ere jaso nituen, eta elkarrekin bizpahiru bilkura ere antolatu genituen iritziak elkartrukatu eta antolaketa lanak arindu asmoz. Azkenean, honako hauen aldeko hautua egin genuen.

2.1. taula

Behaketa parte hartzailea burutzeko hautaturiko eskenatokiak.

Herria	Ikasle mota	Biztanle kopurua	Egun eta orduak
Hernani	Ikasle ohiak	19260 biztanle	Astelehenak, 9:30-11:00
Zizurkil	Ikasturte batetik gora	2854 biztanle	Astearteak, 19:30-21:00
Usurbil	Talde berria	6070 bizilagun	Asteazkenak, 19:30-21:00

Hiru eskenatoki hauek aukeratu ondoren, baina, eta aintzat hartuz bat dezente gertukoa nuela, hiru ikasturtetan bertako entrenatzaile eta arduradun lanetan aritu nintzelako, hemen ere beste bi eskenatokietan bezala behatzaile rolean hasi, baina taldean txertatu eta ikertzaile rolean nire distantzia mantentzeko gaitasunaren arabera, zeinak kezka eta zalantza batzuk eragiten zizkidan, bertan lorturiko informazioa ez erabiltzeko aukera jarri nuen mahai gainean. Hau zen hasieran Hernaniko egoeraren berezitasuna. Beraz, hiru eskenatokitan hasia badaezpadako neurria izan zen hein batean, ondoren bitan jarraitzeko aukera presente izanik, batez ere denbora eta desplazamenduak ere aintzat hartu beharrekoak zirelako. Hala ere, hirurekin hasi eta hirurekin amaitu nuen, bakar bat ere alboratu gabe eta guztietako informazioa elkarren osagarri bihurtuz.

3.1.1.2. Sarreraren negoziazioa

Eskenatokiak aukeratu ondorengo urratsa, eta aurrekoa bezain neketsua edo are neketsu eta katramilatsuagoa behin baino gehiagotan, bertan sartu ahal izateko sarrera negoziatzeari dagokiona da. Horretarako hainbat autoreren esanak eta esperientziak aztertu nituen eta ondoren nire azalean antzekoak eta/edo ezberdinak bizi, lerrootan agertuko dudana moduan.

Eskenatokietarako sarrera eta onarpena arazo lez aurkeztu ohi da etnografia lan askotan. Hortaz, literaturan asko idatzi da horri buruz eta balio handiko gomendioak aurki litezke ikertzaileen onarpen eta sarreraren gainean, bai janzkerari erreparatzen diotenak, bai jokabideari, bai hitz egiteko moduari eta baita beste hainbat xehetasuni dagokienez ere. Izan ere, sakon-sakonean norbere burua sinesgarritasuna merezi duen pertsona lez saltzean datza, garrantzia handiko proiektu bat garatzen ari den norbaiten eran (Woods, 1989, 37 or.). Ildo berean, Hammersley eta Atkinsonek (2007, 71 or.) nabarmentzen dute arazo hau larriagoa izan ohi dela eskenatokietarako lehenengo negoziazioetan eta eremuan emandako lehen egunetan. Hala ere, beste hainbatetan adierazi izan duten eta aintzat hartu izan dudak eran, ezinbestekoa da informazioa biltzeko garaian ere gai honekiko arretatsu aritzea, askotan iraun egin baitezake era batera edo bestera. Izan ere, ikerketa prozesuan zehar sarrera zein onarpena lortzea eta informazioa biltzea ez dira etapa ezberdin eta bereziak, aldi berean eman ohi direnak baizik, modu esanguratsuan, gainera (Hammersley eta Atkinson, 2007, 72 or.).

Lehenik eta behin, gainera, azpimarratu beharra dago nabarmena dela sarrera landa lanerako aukeratutako eremuaren ezaugarrien baitakoa izan ohi dela (Guasch, 1997, 39 or.). Era guztietara, ordea, kasu guztietan izaten da beharrezkoa hartu-emanetan norekin jarri, nola egin eta harremanari nola heldu zehaztea, egokitzapena eta malgutasuna eskutik direla kasu honetan ere, prozesu osoan bezala, errealitate ezberdinak topa baititzakegu egoera eta une ezberdinetan (Woods, 1989, 37 or.).

Hortaz, sarreraren eta onarpenaren negoziazioa ez dagokio erakunde edo talde batean sartzea lortze hutsari, hau da, ez da kanpoko eta barruko munduak bereizten dituen atea zeharkatzea soilik, eskenatoki hori osatzen duten geruza ezberdinetara heldu eta hauek zeharkatuz muineraino heltzea baizik. Woodsek (1989, 39 or.) hezkuntza ardatz hartuz etnografia aipatzen duen obrara itzuliz, dio irakasleak beti daudela barruan, baina irakasle rolean eta ikertzaile rolerak egin beharreko jauziak aldi ezberdinak izango dituela hauen kasuan ere, hautatutako ikerketa gaiaren arabera. Hala ere, hezkuntza eta etnografiaren artean gertatzen den kidetasuna aipatuz adierazten du beste edozein metodoren erabilerarekin baino errazagoa dela kontu hau testuinguru horretan, irakasleek badutelako ikasgeletarako sarrera eta onarpena eta baita bertan gertatzen diren egoerekiko ikuspegi bat ere, nahiz eta enegarrenez pentsamendu irekia eta malgutasunaren premiazkotasuna ere plazaratzen duen, aktoreen lengoaia, uste, sinesmen, balore, ohitura eta abarrak ezagutzeko beharrenekin batera. Horretarako jarrerarik lagungarriena behatu eta entzutearekin lotutakoa da, kideekin hitz egin eta eztabaidatzeari ere garrantzia emanez, lagungarria baita egoera hauetan.

Hala ere, zenbait autoreren arabera zentzu batean kontu erabat praktikoa da hau, bizitzan zehar norbanakook jorratu ohi ditugun estrategia eta baliabide pertsonal batzuen garapena. Hala ere, jarrera lagungarria izatea eta teorikoki egoera ulertu eta bertakoen kodea azaltzea ez da nahiko izango, oztopoek eta hauek gaintzeko moduek ere aztergai den eremuko antolaketa sozialaren gaineko informazio esanguratsua eman ohi ditugulako (Hammersley eta Atkinson, 2007, 71-72 or.).

Sarrera arrakastatsua izateko erabili beharreko metodoei dagokienez, negoziatutako sarrerarekin erkatzen du Woodsek (1989, 43-44 or.). Modu honetan, azpimarratzen du desegokia dela hasierako unetik ikuspegi sakontasunera eta barrunberik ezkutuenetara jo nahi izatea. Oharrak hartzea ere ez zaio gomendagarria iruditzen hasierako hartu-emanetan, betebeharrak nagusiena erlazio bat sortu eta konfiantza lortzea dela arrazoituz. Beraz, konfiantza lortzea da lehen etapa hauetan garrantzitsua, ikertzailea pertsona zintzo eta baliotsua dela ziurtatzea, konfiantza delako informazioa lortzeko iturri nagusienetakoa sarri asko eta ezaugarri zein jokabide horiekin ziurta baitaiteke. Proiektuaren izaerak ere eragin ohi du konfiantza mailan, egitasmoa zintzoa bada, ezagutza hobetzeko nahiarekin egina eta norbere zein besteen baldintzak hobetzeko xedea duena askoz ere errazagoa izanik norbere zilberrari begira eginikoa bada ere. Horregatik, garrantzitsua da ikertzaileak bere burua pertsona diskretu lez aurkeztea, besteen ikuspegiak baloratzen dituen eta onargarria dena eta ez dena bereizten dakiena izanik.

Erakundeetan sartzeko baimena lortzeko ohikoena behatzaile parte-hartzaileak zuzenean arduradunengana jo eta hauen onarpena lortzen saiatzea da (Taylor eta Bogdan, 2000, 37-39 or.). Pertsona hauek *atezain* izendapena jasotzen dute eta garrantzikoena ikertzailea erakundearen kaltetan ez dela ari erakustea da, ez dela inongo mehatxua. Horregatik, gehienetan zuzenean joan eta hitz egitea izaten da ohikoena eta erakunde gehienak, sarri askotan, sartzeko uste baino errazagoak izaten dira. Zenbaitetan baliteke onarpena lortzeko eta behaketak egiteko aukera izateko tartea laburra ez izatea edo baita ahaleginak eta bi eginda ere baimenik ez eskuratzea. Hala ere, saiatzea lagungarria izaten da.

Amaitze aldera, beraz, aintzat hartu behar da sarreraren negoziazioa, bizitzan ia guztia bezala, oreka kontu bat dela, lor litezkeen onura eta onarpen bila egiten diren emateen artean. Era berean bilatu behar da oreka ardura etiko eta estrategikoekin ere, ikerketa helburuen eta egoeraren arabera epaituz (Hammersley eta Atkinson, 2007, 90 or.).

Irakurritakoaren ildoari segituta, beraz, eta sarrera negoziatzeko prozesuan bete-betean murgildu aurretik, pentsa zitekeen neuk ere, emakumeen pilota mundu honetan aurrez jarduna izaki, eta nahiko muinean, gainera, sarrera erraztuko zidaten pertsona eta erakunde laguntza izan nezakeela. Hala izan zen hein handi batean, gainera, erakundeetara jo eta bertako koordinatzaile, arduradun, zuzendari tekniko edo elkarteetako arduradun ia guztien kasuan. Izan ere, hauek aukeratzeko unean gogoan izan nuen nor izan zitekeen laguntzaile abil eta fidela eta nork erraz ziezadakeen gehien eskenatokitarako sarrera.

Lehen eskenatokian, Hernanin, kirol patronatukoei abisatu nien asmoaren eta jardueraren ildoaren berri badaezpada ere, kiroldegirako sarrera-irteerako tornua medio, eta ez zidaten eragozpenik jarri. GEPFen ere, bera da Hernaniko eta Zizurkilgo ikastaroen antolatzaile eta kudeatzaile zuzena, Emakumea Pilotariko lankide ohiek zein zuzendari

teknikoak, beso zabalik hartu ninduten, munduan eman litezkeen erraztasunik handienak eta euren hainbat informazio eta baliabide neure eskura jarritz. Hirugarren hautuan, ordea, Usurbilgo emakumeen paleta ikastaroko taldean jarduteko baimena eta onarpena lortzea dezente katramilatu zitzaidan. Kasu honetan erabat pertsona ezezaguna nintzen bertako berdintasun teknikariarentzat eta ikerlan honen zuzendarietako bat bertakoa izanagatik eta unibertsitatearekin lotura zuzena nuela esan arren, hasiera batean ukatu egin zidan bertan aritzeko aukera. Haren arabera ikastaroan aritzeko ikasle kopurua betea zegoen eta ezin zidan lekurik egin, ezarritako kopurua gaindituz gero arazoak sor zitezkeela argudiatuta. Hori ikusita, beraz, etsitzear izan ginen, beste norabait abiatzear, baina ondoren pertsona bera izan zen nire/gure berri apur bat jaso eta atzetik etorri zitzaiguna, parte hartzeko atea parez pare zabaldu zizkiguna. Hori zela eta, gure antolaketan berriro ere aldaketa bat egiteko atarian jartzea eragin zigun azken orduko proposamen eta gonbidapen errepikatu eta temati honek. Azkenean, nire antolaketan moldatzeko modua banuela eta taldearen profila egokia zela iritzita aurrera egitea erabaki genuen eta ez nuen bestelako trazarik izan sartzeko baimena eskuratzeko.

Zuzen-zuzenean kantzako elkartrukeetarako kideekin sarrera eta onarpena lortzeko bidean, berriz, sarrera eta onarpena nabarmen erraztu zidaten hainbat faktore nituen alde: aurretik emakumeek nire erreferentzia izatea pilotari lotuta, Hernanikoen entrenatzaile lanak egin nituen, besteak beste, eta entrenatzaileek nire berri izateaz gain eurekin konfiantza maila bat aurrez garatuta izatea. Alegia, ni aurrez mundu honetan aritzeak bidea asko lautu zidala, nahiz eta beste neurri batean nik kideekiko mantendu beharreko distantziaren kudeaketan galdera ikur berriak eta kezka zein beldur bat baino gehiago sorrarazi horrek berak. Hala ere, saioek aurrera eta elkarrekiko tratua gerturatzeko bidean urratsez urrats gora egin ahala onarpena ia erabatekoa izatera iritsi nintzen eta beste kide bat gehiago izatera ere bai, nahiz eta ez izan bere osotasunean hala, neure rola ez zelako paletari soilarena eta oso kontziente nintzelako horretaz.

Hurrengo puntuan xehatuko ditut gehiago, eta askoz ere doitasun handiagoz, informatzaile eta atezain lanetan aritutakoen hautaketa prozesua eta eurekin izaniko lehen hartu-emanak eta ondorengo gorabeherak ere. Izan ere, hau sarreraren onarpenarekin ia aldi berean eginiko urratsa izan zen, apur bat beranduxeago hasia, baina denboran nahikoa batera egokiturikoa.

3.1.1.3. Atezain eta informatzaileen aukeraketa

Puntu honek lotura zuzena du goikoarekin, izan ere, aurrez aipatu moduan, aldi berean egin behar izaten dira behin baino gehiagotan, atalen mugak eta zereginen izaera malguak direlako ikerketa molde honetan. Sarrera eta onarpena lortzeko aldiarekin harreman estu eta erabatekoa du horretarako lagungarri izango diren pertsona zehatzak eta bideak hautatu eta jorratzeak, aurrera egitea erraztu ala oztopatu baitezake aukeraketa honek.

Garrantzitsua da atezain eta informatzaileen hautua egiteko orduan aintzat hartzea benetan dela garrantzitsua lan honetarako laguntza morala eman diezagukeen norbait izatea, zertan ari garen, zergatik eta antzekoak jakingo dituen. Areagoa, ordea, baliabide garrantzitsu bezain nahitaezkoa da, Woodsen arabera (1989, 34-37 or.), informazioa emateko borondatez dauden eta gaiaren gainean egia arituko diren aktoreak identifikatzea, lehen unetik ikertzailea onartu eta lana errazten saiatuko direnak, etnografia lanetako baliabiderik onenak izan baitaitezke berauek.

Izan ere, testuinguru arrotzean aritzeak tentsio eta estutasuna eragiten dute eta bi faktore hauek behatzailearen lanean zeresana izan dezakete, ondorio lez ikerlanean bertan ere itxuraldatzeak eraginez zenbait kasutan. Horregatik da hain garrantzitsua eskenatokietako aktore sozialekin konfiantza eta lankidetzaren harremana sortzea, informazioaren kalitate eta kantitatea hobezinak izango bailirateke ikertzailearekiko hartu-eman soziala ona balitz. Izan ere, informatzaileak dira behatuen jokabidea ulertzeko giltza, eurak direlako testuinguru sozialean nondik nora mugitu erakutsi eta zehaztu ohi duten gidariak. Horretarako da nahitaezkoa ikertzailearekiko harremana elkarlan, konfiantza eta elkarrekiko errespetuan oinarritzea. Bide honetan, informatzailearen jardueretikiko interesak eta enpatiak errespetua lortzen laguntzen dute, nahiz eta konfiantza eta laguntza lortzeko lanean eskenatokiaren izaerak ere eragiten duen. Hori dela eta, ezinbestekoa da eskenatokiko gainerako aktoreen onarpena ere izatea ikertzaileak bertan egoteko. Helburu hori lortzeko modurik egoki eta eraginkorrena, egonaldiaren gaineko arrazoi guztiak plazaratzea beharrezkoa ez izan arren, aktoreen galderei beti erantzutea da eta erantzun horiek koherenteak eta guztientzako berdinak izatea. Pertsona batek ikerlanean lankidetzan jardutea nahi bada, bere lankidetzaren borondatezkoa eta informazioa anonimoa eta konfidentziala dela ziurtatzeaz gain, oinarritzakoa da une oro honek ikertzailearen zintzotasuna egiaztatu ahal izatea (Guasch, 1997, 42-44 or.).

Orokorrean, ikertzaileek landa lanerako, ikerketako lehen ataletan, ezagun eta errespetatuak diren pertsona pare batekin lantzen dituzte hartu-eman estuak. *Informatzaile klabe* hauek dira eskenatokian ikertzailea babestu eta lagunduko dutenak, lehen mailako informazio iturri izateaz gain. Batez ere hasieran, lehen egunean bereziki, eskenatokian babestuko dituzten pertsonak aurkitu nahi izaten dituzte behatzaileek, euren aurkezpena egingo dutenak, agertuko dituztenak, euren partez erantzun dezaketenak, nola jokatu esango dietenak eta besteen ikuskeran berri emango dietenak. Hala ere, informatzaileak onak izatea funtsezkoa bada ere, orokorrean, zentzuzkoa da eskenatokiarekiko sentikortasun egokia lortu arte harreman estuegiak izaten ez saiatzea. Horregatik, garrantzitsua da pertsona bakarrean edo multzo txiki batean soilik ez kontzentratzea ere, parte hartzaile denak ez direlako ikuspegi berekoak izan ohi (Taylor eta Bogdan, 2000, 61-63 or.).

Taylor eta Bogdanek (2000, 42-45 or.) atezain zein informatzaileei eman beharreko azalpenei erreparatzean, oinarri etiko eta praktikoak argudiatuz, *gure ikuspegia egia baina zehaztugabea izan behar da, ez da zentzuzkoa ikerketako xehetasunak eta*

oharrak nola hartuko diren zehaztea diote. Izan ere, ikertzaileak emandako argibideen araberrako erantzuna agertuko dute aktoreek eta hori gehiegi zehazteak behatuek jarrera urrunagoa izatea eragin dezake. Horregatik da garrantzitsua parte hartzaileei adieraztea ez direla pertsona espezifikokoak eta talde hori bera bakarrik jomugan ditugunak, eskenatoki horretatik haratagokoa dela gure ikuspegia eta nahia. Horretarako erantzunak prestatuta izan eta eragozpenei aurrea hartzea da gomendio nagusia eta zenbait kasutan baita atezainekin berme batzuen gaineko ituna adostea ere, eskenatokian eragiteko inongo interesik ez dugula agertuz, jarduera nahastea ez dela gure xedea garbi utziz, baizik eta atezaintzat bezain garrantzitsua dela behatzaileontzat ere aztoramen eta errezelarik ez sortzea. Amaitzeko, pertsonen konfidentzialtasunari eta pribatutasuna babesteari ere arreta jartzen diote autore hauek eta beste zenbaitek (Hammersley eta Atkinson, 2007, 89 or.), parte hartzaileei anonimotasuna bermatzea ere lanean aritzeko lagungarria dela argudiatuz. Horregatik, ikertzaileak ezinbestean, kontsekuenteki, bere identitatea bere gain hartu beharko du bolada batean.

Eskenatokietan elkartruke estuak garatzea behar-beharrezkoa da nolana, informatzaile klabeak egokiak eta onak izateak ikerketa bera bultzatu edo deuseztatu baitezake (Taylor eta Bogdan, 2000, 61-63 or.). Haatik, ikerketa baten hasierako aldietan ezarririko erlazioak aldatu eta atzera egiteko prestutasuna behar du ikertzaileak egoerak hala eskatuko balio.

Informatzaile eta atezainekiko sortu eta lortu beharreko harremanaren ezaugarriak ezagutu eta nolako jokabidea garatzea komeni zitzaidan erabaki ostean, berriz, hurrengo urratsa nire eskenatokietan gomendioak praktikan jarri eta urratsak ematen hastea izan nuen. Horretarako GEPFeko zuzendari teknikoa lehenengo hartu-emanetarako lagun eta emakumeen paleta ikastaroetako saioetako bi entrenatzaileak *atezain* izendatu nituen, eurekin aurretiaz bilera bat ere eginez nire asmoen eta jarduera ildoaren gainean, gainetik izan bazen ere ikerketa helburuak eta nire saioetan zeharreko jardueraren berri ahalik eta argien azaltzen saiatuz. Hauek lehen unetik abegitsu eta lankidetzarako pronto hartu ninduten eta asko erraztu zidaten eskenatokietan sartu eta onar nintzaten bidea. Elkarren ezagutza izatea, aurrez ere konfiantzazko erlazio baten jabe izatea eta bata besteari laguntzeko denon prestutasuna, elkartrukerako borondatea, izan nituen ardatz nagusi hautaketa hau egitean. Gainera, harreman zuzena nuen hiru lagun hauekin, lehendik zetorrena, beraz, eragozpenik ez nekusan arlo horretan.

Informatzaileak, berriz, nire kasuan, atezainak eurak izan ziren hein handi batean, bai saioetako lehenengo aldietan eta estualdietan behintzat, baina pixkanaka lortu nuen hiru eskenatokietan zenbait kiderengana gerturatu eta konfiantzazko harremana eraikitzea ere, hauek ere informazioa emateko eskuzabal eta laguntzeko erabateko prestutasuna agertuz. Horri esker, eskenatokietako aktore guztien onarpena izatera heldu nintzen eta behaketa aldirako prest kokatu ikertzailearen talaiaren goialdean.

Aurreko paragrafo eta orrietan agerturiko hurbilketa aldiko urratsik garrantzitsuenen gaineko xehetasunak ematen amaitzeko, honenbestez, eta prozesu osoan zehar bezala,

aintzat hartu behar da hasierako etapetan garrantzitsuena ez geratzea dela, ez etsitzea. Izan ere, Woodsek (1989, 37 or.) nabarmendu du etnografo guztiak aritu ohi direla itsumustuka denboraldi batean zehar, berezko ezaugarria duela ikuspegi honek, baina hortik aurrera, bat-batean begiak iluntasunera ohitu eta itzalek formak hartzen dituztela eta gutxika-gutxika bereizmenak gora egiten duela. Ildo honekin bat dator Guasch (1997, 45-46 or.) ere eta berak dio sentimendu asko izan ohi dituela ikertzaileak, euforiatik depresiora arteko sorta zabala izanik. Ohiko sentipenak izan ohi dira antsietatea, desilusioa eta ikerketa garatzea ezinezkoa izango dela autore honen arabera. Horri aurre egiteko, minak leundu eta antsietatea kontrolatzeko, landa egunerokoa eta hurkoekin eginiko hizketaldiak nabarmendu ditu.

Landa lanari heltzeko unea iritsi ohi da aurretiaz egin beharreko zereginak bideratu ostean, denboran aurrekoa baino epealdi luzeagoari dagokiona sarri askotan, gainera. Hurrengo puntuan garatu dut etapa honen berezko xehetasunak zein diren, eta baita bizitako eta sentiturikoen berri ere.

3.1.2. Behaketa parte-hartzaile aldia. Landa lana

Berez ez dirudi informazioa biltzeko beharrezko gerturatzea eman ondoren ingurumarian parte-hartzea eta behaketa lanetan hastea arazo teoriko handiegia denik, baina benetan garrantzi handiko buruhauste praktikoa da. Eragozpenik handiena bere inespezifikotasuna da, errezetarik ez izatea. Aldi honetan zehar ikertzailearen rol soziala testuinguruan progresiboki definitzea beharrezkoa da prozesu luze batean zehar. Behin baino gehiagotan gertatu ohi da parte-hartze rol bikaina erdiestean lana idazteko behar beste datu eskuratuta izatea. Horregatik, parte hartzearen auziak lotura izan dezake, neurri batean, esperientziarekin gertatu ohi denarekin: *ez daukagunean beharrezkoa da eta badaukagunean ia ez da beharrezkoa* (Guasch, 1997, 46 or.).

Malinowskik (1995, 23 or.) landa lana eraginkorra izan dadin eta, beraz, emaitzak zuzenak eta egokiak, sen onak dituen berezko hainbat arau modu sistematikoan eta pazientziaz erabiltzearen garrantzia azpimarratu du eta baita printzipio zientifikoak erabili beharra ere. Bere arabera hiru multzo nagusitan bereiz litezke oinarri metodologikoak:

- Helburu zientifiko zorrotzak izatea eta etnografiaren arau eta irizpideak ezagutzea.
- Lanerako baldintza egokiak aurkitzea, bertakoen artean kokatuz.
- Metodo zehatzak erabiltzea datuak jaso, kudeatu eta frogak ezartzeko.

Izan ere, Malinowskiren hitzetan landa lan etnografikoaren funtsa aztergai den egitura sozialaren eskema argi eta koherentea lortzea da eta aztergai den esparruan izaten diren gertaera guztietatik fenomeno kultural orok bere baitan dituen arau eta legeak nabarmentzea.

Taylor eta Bogdanek (2000) landa lanaren baitan hiru ekintza eta/edo arlo nagusi bereizi dituzte. Lehena gizarte-elkarrekintza ez ofentsiboarekin loturik dago, informatzaileak eroso sentitu eta hauen onarpena lortzearekin. Bigarrena datuak lortzeko moduari dagokio: estrategiak eta taktikak. Azkena, aldiz, datuak idatzitako landa-oharrak lez erregistratzearekin.

Guaschen, Malinowskiren eta Taylor eta Bogdanen hitzak sarrera, girotzeko lanerako makulu eta etapa honetako ibilbideko suzi moduan harturik, beraz, eskenatokietako beharrari ekiteko unea heldu zitzaidan. Jarraian agertzen den taulan (ikus 2.2. taula) gehiago zehaztu dut nire behaketa aldi izandako jardunbidearen eta bereiziriko aldi eta bakoitzeko saio kopuruaren berri.

2.2. taula

Behaketaaldiak eta jardun motak.

Denbora tartea	Eskenatokiko jardun mota
2011/10/03-2012/01/30	Behaketa parte hartzailea. Astean hiru egun, astelehenetik asteazkenera, erabateko parte hartzea
2012/01/31-2012/02/26	Etxean, min hartuta. Paleta saioetara bertaratu ere ez
2012/02/27-2012/03/25	Behaketa ez parte hartzailea. Astean hiru egun, astelehenetik asteazkenera, parte hartze pasiboa
2012/03/26-2012/06/19	Behaketa parte hartzailea Astean hiru egun, astelehenetik asteazkenera, erabateko parte hartzea

Eskenatokien hautaketa puntuan lehenago azaldu bezala, nire behaketa lanak hiru gune ezberdinetan burutu nituen, Hernani, Zizurkil eta Usurbilgo pilotalekuetan antolaturiko emakumeen aisialdiko paleta ikastaroetan. Astelehen goizetan eta astearte eta asteazken iluntzeetan paletako ordu eta erdiko saioetako jarduna zuten muinean nire behaketek. Saioaren hasiera eta amaieretako aurretiazko eta osteko minutuak kontuan hartuz gero, ordea, ordu pare baten bueltakoak ziren nire eskenatokietako lanaldiak.

2011ko urriko lehenengo astelehen goizean, urriaren 3ko 9:30ean, Hernaniko kiroldegi atarian ekin nien ofizialki nire pilotalekuetako behaketei. Ez zen nahi ordurako heldu eguna, urduritasunak irentsita eta kezka, zalantza zein mamu ugari ere ibili nituelako (eta oraindik ere dantzan nerabiltzalako) inguruan eta baita neure baitan ere. Egutegi ofizialeko jaiegun batzuk gorabehera, asteko lehen hiru egunetan burutzen nituen behatzaile lanak kantxan eta hurrengo egunean edo biharamunean, ostegun eta ostirala bitartean, behaturikoak antolatu eta hurrengo asteko jardunari ekiteko prest uzten nuen material guztia. Asteburuetan girotik apur bat urrunduta eta pilotalekuko betebeharrak uxatzen saiatu ohi nintzen, nahiz eta ez zitzaidan batere erraza egiten zenbaitetan etnografia lanetik nahi eta komeni beste urrunduta eta distantzia ezartzea. Pilotalekuetako

saioetan, berriz, beste pilotari bat gehiago izan ohi nintzen, emakumeekin nahasian proposaturiko ariketa guztiak txintxo-txintxo eta esana betez egin ohi zituena.

Asmoa ikasturte guztia, urritik ekainera artekoa, etenaldi bakar bat izan gabe, behatzaile parte hartzaile lanetan egitea baldin bazen ere, zorte txarra lagun (edo etsai), urtarrilaren 30eko paleta saioa min harturik amaitu nuen, oineko arazo bat medio hasierako antolaketa, aurreikuspen eta asmoetan aldaketa txiki pare bat egin beharrean amaitzeko azkenean (ikus 2.2. taula). Horregatik, hurrengo lau asteetako saioetan ez nuen parterik hartu, lesionaturiko beste edozein kidek ere pilotalekura ez joatea erabakiko zukeela iritzi eta adostuta tesi-zuzendari, taldeetako entrenatzaile eta ni neronen artean. Data horietan ez nintzen Hernani, Zizurkil eta Usurbilera hurreratu ere egin eta ez nuen kideekin bestelako hartu-emanik mantendu. Horregatik, urtarrilaren 31tik otsailaren 26ra arteko aldia ia amaiezina egin zitzaidan, buru-jana bitarte egonezinak gora egin zidan lehenaz gain eta nire ikerlanean gorabehera hark izan zezakeen eraginak benetako kezka eta etsipena eragin zizkidan. Ondorioz, lehengo beldur eta mamu izuti asko berpiztu edo esnatu zitzaizkidan, tarte horretan eskenatokitian eta aktoreekin elkartrukerik ez izateak nire ziurgabetasunean negatiboki eragin baitzidan. Lesio bat izan zen, beraz, lanean behaketa aldia eteteko arrazoi nagusi eta bakarra, pilotalekuekiko lotura erabat eten bainuen tarte horretan.

Lau aste gorabeheratsu horiek igaro ostean, otsailaren amaiera aldera, nire aldartea eta behaketaren martxa zela eta, berriro ere zuzendari eta entrenatzaileekin egoera eta aukera ezberdinak aztertu eta denon artean erabaki genuen berriz ere eskenatokitara itzuliko nintzela, nahiz eta oineko lesioak hor zerraien eta nire parte hartzea ez zen zuzeneko parte hartzearen bidez garatuko. Otsailaren 27tik martxoaren 25era, beraz, saioetan izan nintzen, baina kirol arropa etxeko armairuan jasota utzi eta paleta ere jostailuen kutxatzarrean utzita, erabat gustagarri eta erakargarria ez bazitzaidan ere kantxan beharrean kontrakantxan aurkituz nire kokapena. Aldi hau ere ez zitzaidan oso eroso eta samurra egin, inbidia izugarria pasatzen nuen albotik emakumeei beha jartzean eta, gainera, zalantzak sortzen zizkidan behaketa ez parte hartzailearen bidez nire informazioa biltzeko gaitasunak izan zezakeen galera eta atzerakadak.

Azken behaketa parte hartzaile tarte martxoaren 26tik ekainaren 19ra artekoa izan zen, berriro ere nire parte hartzea erabatekoa eta aktiboa bihurtuz udaberriaren hasieratik ia udaren ateetara, ikasturtea amaitu zen arte.

Behaketa aldian, 2011ko urriaren 3tik ekainaren 19ra bitartean, guztira 32 aste igaro nituen pilotalekuetako bueltan, guztira 38 asteko etapa bat izan arren Gabon eta Aste Santuko oporraldietako geldialdiak egin genituelako, ikastaroak ikastetxeetako egutegien arabera antolatzen direlako neurri handi batean. Lesioak, oinean eta bihotzean, eragozpen edo kezka gehigarri bat eragin bazidan ere 83 paleta saiotan hartu nituen oharrak, kantxan bertan eginikoak 81 izan arren, bi bertan behera geratu zirelako Zizurkilen saioei ekiteko ordua baino ordu eta erdi edo pare bat ordu lehenago. Zumarragan oinarrizko kanpamenduan irten eta Gipuzkoako errepideetan atzera-aurrera

eginiko kilometro eta ordu kopurua ere ez zen nolana hikoia izan, neketsu eta asegarria ere bai, egia esan, eta behaketa lanean adina denbora egingo nuen oharrak idazteko lanean Hernaniko liburutegian ere.

Ondorengo ataletan landa lanean zehar jarraituriko ildoak, lan estrategia, bere gorabehera eta xehetasunik ñimiñoenak barne, eta etapa honen ezaugarriak kontatzen saiatu naiz, lehenengo unean emaniko urratsen kontaketatik hasi eta datu guztiak bildu ostean sorturiko txostenaren gaineko azalpenekin amaituz. Beraz, prozesu luzea, sakona eta lan zama handikoa da ondorengo lerrootan puntuz puntu garatuko dudana. Denboran ere fase hau izan da, aurrez azaldu bezala, egutegiari erreparatuz gero ere, iraupenik luzeenekoena.

3.1.2.1. Ikertzailearen rola

Etnografiaz hitz egitean, neurri batean, kultura batean txertatzen diren arrotzak direla diote Goetz eta LeComptek (1988, 115-116 or.). Euren lanean eskenatokietan rol eta estatus ezberdinak izaten dituztela adierazi dute. Hori dela eta, hasierako urratsek eta aurkikuntzek eragindako emozio eta une gozoak alboratu eta ohiko ohar, elkarrizketa eta behaketetako monotonian murgiltzen direla dio, zaila izanik interes eta harmen maila altuak mantentzea ikertzaileari aspermena nagusitzean. Horregatik, eta are zailagoa ere izan litekeelako, laguntasun sentimenduen eta behaketa inpartzialaren arteko oreka ezarri eta eustea garrantzitsua izan ohi da, arrotza lagun eta eskenatokiko familiako kide bihurtzean bere gorabehera eta sentimenduak partekatzea ere espero ohi duelako komunitateak. Hori dela eta, elkarrekiko ulermena gehitu ahala ikuspegia aldatzeko arriskua hazi ohi zaie ikertzaileei, parte hartzaileekin erabateko identifikazioa lortuz eta kideen bizitzetako hainbat alderdiren inguruko informazioa biltzeari uko eginez, bai ezohikoak izan litezkeelako edo/eta baita zentsuragarriak ere.

Mota honetako ikerketarik gehienetan ikertzailea bera da taldeko kate-begirik funtsezkoena, berau delako instrumenturik malguena, teoriarik inguruarekin nahasteko gaitasuna duena, materiala bereizteko ahalmena duena, eta baita erabakiak hartu eta hautuak egiteko ahalmena duena ere, interpretatzeko gauza dena (Woods, 1989, 58 or.). Behatzaileak ikusi, entzun eta bizitakoak ez du ordezko errealik eta, gainera, geure begiradan edo entzumenean jasoriko oro egokia da berez. Hemen sartu behar da alderantzizko kasuan hutsala dela deituko litzaiokeena ere, pertsona batentzat xumea dena beste batentzat esanahiz bete egon bailiteke.

Beraz, ikertzaileak rol espezifiko bat betetzen du behatzaile lanetan hastean, datu biltzailea bera baita, *behatzaile*, *narratzaile* eta *idazlea*, hautemandako fenomeno oro ahalik eta fideltasunik handienarekin erregistratuko duen giza-kamera (Goetz eta LeCompte, 1988, 120 or.). Hainbat instrumentu eta gailuz baliatuta badaitezke ere, argazki kamerak, grabagailuak, etab., gailu hauek ez dituzten abstrakzio eta analisi gaitasuna dute etnografoek. Izan ere, haratago iristeko aukera dute ñabardurak erantsiz, ideiak aztertuz eta uste zein gaien azterketa sakontzeko ahalmenari esker. Horregatik, datuak

biltzeko garaian oso garrantzizkoa da ikertzaileak bere rol guztien arteko bitartekotza lana egitea. Ikerketa bakoitzaren helburuen arabera rolak, hein batean, aldakorrak badira ere, kasu bakoitzean ez da hain esanguratsua rol horien ezberdintasuna, rol ezberdinak eskuratzea eta horietako bakoitzak duen garrantziaz jabetu eta horretaz baliatzea baizik.

Ikertzaileak eremuan betetzen dituen rolen eta hauen ezaugarrien gainean Hammersley eta Atkinsonek ere (2007, 117-127 or.) diote leku zehatz bateko egitura sozialaren berri jaso eta kultura horren gaineko ulermena lortzeko ez dagoela begiratu, entzun, galdetu, hipotesiak eraiki eta akatsak egitea beste biderik. Horregatik, eskenatoki bat zenbat eta gertuagokoa izan, orduan eta zailagoa izan ohi da aurreiritziak alboratu eta urruntzea. Hala ere, parte-hartze eta behaketaren arteko kontinuumean momentu bakoitzean dagokigun rola egoki geureganatuz gero ez dago inolako eragozpenik. Rolan gaineko erabakiak hartzeko ikerketako xedea eta testuinguruaren ezaugarriak uztartu beharko dira, nahiz eta aurrez pentsatu eta ezarritakoa moldatu eta rol aldaketak egitera behartu gaitzakeen egoerak eskenatoki batean. Laburbilduz, baina, garrantzitsua da rol ezberdinak eskuratzeko ahalmena garatzea askotariko informazioa lortzeko eta bakoitzaren profil ezberdinen berri jasotzeko.

Behatzaileak bere baitan duen ahalmena eta behar lukeen garrantzia eta esanguraz jabeturik, eta hori muin-muinean kokatuz, beraz, neure paleta saioetako parte hartze ildoan ere rol ezberdinak bete nituen. Unean uneko egoeretara moldatzen saiatu eta horietako bakoitzaren gaineko hausnarketa, analisi eta sakontze lanari behar duen sendotasuna eskaintzeko ahalegin betean murgildu nintzen behin eta berriz. Izan ere, nik bizi eta jasoriko informazioa da lan honen guztiaren oinarri eta informazio iturri ia agortezina, ondoren aztergai bihurtutakoaren funtsa nire bizipenek, behatzaile izaerak eta rol ezberdinak erdietsi eta kudeatzeko ahalmenak baldintzatu baitzuten bete-betean. Ikerlana burutu bitartean landa lanean nik beteriko rolak zerrendatu eta agerpen uneak zein ezaugarri orokorrak zehaztu nahiko nituzke jarraian:

- Behatzaile rola
- Ikasle rola
- Aholkulari/entrenatzaile rola

Aipatu berri ditudan rol hauek betetzea ezinbestekoa izan nuen eskenatoki eta aktore guztiekin, nahiz eta egia den hasiera-hasierako saioetan aholkulari rolik ez nuela bete Usurbilen, nire *rapporta* lortzeko ahaleginari kalte egin ote ziezaiokeen izuak eraginda. Behin konfiantza maila bat lortuta, ordea, elkarrekin konbinatuta bete nituen rolak askotan (behatzaile eta ikasle edo aholkulari eta behatzaile, adibidez), egokieraren eta zegokidanaren arabera betiere.

3.1.2.2. Eskenatokietarako sarrera

Landa lanari ekiteko oinarririk funtsezkoenen gaineko azalpenak eman ondoren, behatzaile lanen hasieraren eta eskenatokietarako sarreraren txanda heldu zait. Horretarako ere, ordea, gomendio, adierazpen eta esan asko izan dira aintzat hartu

beharrekoak, ibilbidea malkartsu eta neketsua izango zela jakin arren jarduteko bidean lagungarri eta babesgarri baita zenbait kontu eta kontzepturen gainean janztea.

Lehen-lehenik, norbere behatzeko ahalmenari erreparatzea behar-beharrezkoa da, posible den heinean eskenatokiarekin bat egitea eta bertan jazorikoak ahalik eta gutxien asaldatzea gu bertan bagaude ere (Woods, 1989, 56 or.). Bertan egotea eta gure lekuak ez lukete inolaz ere nabarmenak izan behar. Horregatik, behaketarako betebeharrak nagusienak begirada ernea, entzumen fina eta memoria ona dira.

Behatzaile parte-hartzaileak eskenatokian informatzaileekin harreman irekiak ezartzeko asmoz sartu ohi dira. Eskenatokian ez dira intrusio sortzaile bilakatzen euren jokabideari esker eta parte hartzaileentzat ere bistakoa da euren lekua. Ideala informatzaileek behatzaileak ikertzeko xedea duela ahaztea da. Horregatik, behaketa parte-hartzailean erabilitako teknika asko elkarrekintza sozialetako ohiko arauetara atxikita daude, beraz, arlo horretako gaitasunak izatea beharrezkoa izaten da. Taylor eta Bogdanek (2000, 50-55 or.) gomendio eta azalpen bat baino gehiago eman dituzte behatzailearen jarreraren gainean, batez ere hasierako etapan zeharreko jardunari dagokionean:

- *Lehen egunetan batez ere behatzaileek jarrera pasibo samarra izan ohi dute.* Parte hartzaileak eroso senti daitezten intrusioaren mamua uxatzen saiatu behar da hasierako egunetan, esaneko pertsonak direla erakutsi eta jarrera egokia agertuz eskenatokian.
- *Hasierako aldiak datuak biltzea ez da lehentasuna, eskenatokia eta pertsonak ezagutzeko baizik.* Galderak elkarrengana hurreratzeko tresna dira eta norberaren berri guztiei ematen saiatu behar da, pertsona ezberdinek ziur asko harmen maila ezberdinak izango dituztelako.
- *Landa laneko lehen egunetan deseroso sentitzen dira ikertzaileak.* Egoera nahasgarriak bizi ohi dituzte eskenatokian, rol zehatzik gabe ari baitira. Gainera, behaketa aldiak zalantza, zurgabetasuna eta frustrazioa berezkoak ditu. Ikerketak aurrera egin ahala testuinguruan erosoago sentituko garela pentsatuz konformatu behar da.
- *Lehen aldiz eremuan sartzean behatzaileak gainezka egin lezake jasotzen duen informazio kopuruarekin.* Hori dela eta, komeni da eskenatokian igaroko den denbora mugatzea. Ordu bete nahikoa izan ohi da orokorrean, nahiz eta behatzeko trebetasun mailan gora egin eta eskenatokira ohitu ahala tarteak luza litezkeen.
- Behaketak baliagarri dira oroitu eta erregistratzeko probetxugarriak diren heinean. *Ez geratu eskenatokian datu asko galdu edo oharrak jasotzeko astirik ez bada izango ondoren.*
- Ikerketako landa laneko baldintzen gaineko negoziaketa prozesua, zer, noiz eta nor behatu, etengabea izan behar da. Horregatik, *oreka lortu behar da ikerketa norberak egoki iruditzen zaion eran burutu eta informatzaileei laguntzearen artean, rapportaren mesedetan.*

- *Informatzaileek ikerketa kontrolatzeko izan dezaketen joerari aurre egiten saiatu behar da.* Ikertzaileak eurak dira behaketako une eta guneak erabaki beharko lituzketenak.

Hammersley eta Atkinsonek (2007, 97-100 or.) ere erreparatu diete eskenatokian izan ohi diren gorabeherei eta azpimarratu dute eskenatokietako aktoreek ere, informatzaile klabe zein atezainek bezala, hasierako uneetan errezero eta susmoak garatzen dituztela ikertzailearekiko, etnografia euren esperientziaren baitan kokatzen diharduten heinean, desadostasunak sor baitaitezke euren ikerketaren inguruko usteen eta ikertzailearen asmoen artean. Hori dela eta, ikerketaren gaineko jakin-mina eta kezka baino handiagoa izan ohi da sarri askotan ikertzailearen gainean sortu ohi zaiena, zer eratako pertsona den jakiteko grina sortu ohi baitaie aktoreei euren baitan. Ondorioz, irudia edo norberak eragin dezakeen inpresioa zaintzea garrantzitsua da, batez ere sarrera oztopa dezaketen joerak alboratu eta erraztu dezaketenak hartuz, nolana ere etika kontuei arreta jarrita.

Janzkerari bezain garrantzizkoa da sarrera lortzeko aktoreengana hurreratu eta beraien konfiantza lortzeko irekitasunari erreparatzea. Gainera, ikertzailearen rolean aipatu bezala, Hammersley eta Atkinsonentzat ere (2007, 104-106 or.) funtsezkoa da ikertzaileak testuingurura egokitzeke dituen estrategiak erabili eta lanak dituen eskarietara egokituriko identitate bat eraikitzea. Horretarako, konfiantza lortzeko bidean, berez jendetasunak berak duen balioaz baliatzea komeni da, hori lagungarri baita eremu neutral bat aurkitu eta parte hartzaileekin ohikotasunez hitz egiteko modua egiteko. Ikertzailearen berezko ezaugarriei dagokienean, berriz, nabarmendu beharreko batzuk generoa, adina eta identifikazio etnikoa direla adierazi dute autore berdinek eta horiek aktoreekiko erlazioetan eragina izan dezaketela. Generoaren gaian gehiago sakonduz diote ikertzailea emakumea izateak muga zein onurak dakartzala, estereotipo kulturek eragina baitute (Hammersley eta Atkinson, 2007, 110 or.). Hala ere, eskenatokian ikertzaile eta aktore sozialen hartu-emanek gora egin ahala kezka gehienak desagertu ohi dira egoerarik gehienetan eta testuinguruan txertatzea lortu ohi du ikertzaileak.

Informatzaileekin *rapporta* ezarri eta mantentzea landa lana garatu bitartean etengabe garatu beharreko jardura da, baina lehen egunak igaro ahala, behatzaileek eskenatoki eta informatzaileen gaineko ezagutza zabaltzera bideratuko dute arreta. Horretarako lagungarri dira teknika hauek Taylor eta Bogdanen (2000, 65-69 or.) esanetan:

- Sineskor jokatzeko.
- Behar den lekuan egotea une egokian.
- Informatzaileek ez dute zehatz-mehatz jakin behar ikergaiaren berri.
- Eskenatokia ulertu ondoren posible da landa-taktika erasokorrak erabiltzea. Adibidez, landa lanaren amaierako fasean askotan egin ohi dira elkarrizketa egituratuak.

Eskenatokietan murgildu eta behaketa lanari ekiteko urratsa ematearen eta lehenengo etaparen inguruan aintzat hartu beharreko beste aholkurik ere bada, ordea. Goetz eta LeComptek (1988, 115 or.) ohartarazten dute lehen egunak estimulagarriak izan ohi direla, ikergai oro berria delako. Hala ere, gogorarazten dute frustrazioz beteak ere izan litezkeela, prestaketa aldiak eta beharrezko konponketak geldotasun sumingarriarekin garatu daitezkeelako kultura espezifiko horretako kanal eta prozeduren bidean, zenbaitetan antropologoarentzat berarentzat ulergaitza izanik. Autore hauek diote ohikoena ikertzaileak kontrako jarrerak sortzea izan litekeela, eta aldi berean zaila dela zenbait rol baztertu eta laguntasun harremanak garatzea bere izaera berezi edo estigmatizatutako zenbait alderdi direla eta, zeinak bere hautematea eta ondorengo informazio iturri garrantzitsuetarako sarrera oztopa dezaketen.

Autore ezberdinen aipu eta esperientzietan sakondu eta ideiarik nagusi eta zertzeladarik ñimiñoenetatik edan eta denak pilatu eta antolatuta jarri ondoren neuretzako baliagarri izan zitekeen oinarria eskuratuta, niri ere iritsi zitzaizkidan eskenatokietan sartzeko lehenengo egun eta asteak, benetako landa lanaren etapari ekiteko abagunea. Aisialdiko saioetako emakume pilotariekin izan nituen lehen hartu-emanak bereziak eta elkarrekiko ezberdinak izan ziren eskenatoki bakoitzean, nire eurekiko ezagutza eta hurbiltasuna ere ezberdina zelako horietako bakoitzean. Hala ere, lehen egunerako, eta bereziki nire eta ikerlanaren zein gure asmoen aurkezpena egiteko, ideia edo protokolo antzeko bat garatu nuen. Bertan nire helburuaren berri eta ni han egotearen gaineko azalpen labur bat prestatu nuen, ikerketaren nondik norakoak agertu azaletik eta baita saioaren hasierako nire kokapena zehaztu ere, beti entrenatzailearen ondoan eta hizketarako azken postuan egongo nintzela ziurtatzeko.

Jarraian lehendabizi talde eta eskenatoki bakoitzeko jardunaren gaineko ezberdintasun edo xehetasun bereizleen gaineko aipua egingo dut hasieran eta ondoren, berriz, eskenatoki guztietan eta hartu-emana izandako aktore sozial guztiekin, orokorrean, sarrera garaian garatu eta landuriko estrategia eta rolen berri agertuko dut.

Hernaniko kiroldegian izan nuen guztietan lehenengo paleta saioa. Hantxe jaurti nuen behaketa aldiko hasierako txaplogua. Bertako entrenatzailea, ezaguna izateaz gain, sarrerarako atezain zein informatzaile nagusi nuela baliatuz, bere babesean eman nien paleta ikastaroko emakumeei ni han izatearen arrazoi nagusien berri, lehen saioko kantxa barruko ekinean murgildu aurretik, borobilean den-denak adi-adi eta begira-begira nituela. Parte hartzaile hauetako gehienek, pare batek izan ezik, nire berri aurretik ere bazuten, ordea, neure gorabehera zein ibileren gaineko informazioa jaso eta elkarrena elkartrukatua genuen beste zenbait egoeratan ere, talde beraren arduradun izan bainintzen ni neu 2007ko abendutik 2010eko ekainera bitartean. Gainera, bertako kide askok aurreko urteetako erlazioa bazuten euren artean eta elkarren berri ere bai bestelako zenbait loturari esker ere, izan lagunak zirelako, ezagunak edo familia bereko loturak medio, besteak beste. Beraz, pilotariak ez ziren gehiegi ere harritu ni han ikusita, beso zabalik hartu ninduten ia lehen elkartruketik bertatik eta ez nuen informazio

sakonagorik emateko beharrik sentitu nik ere. Sarrerako lehen pausoa batere eragozpen eta zamarik gabe egiteko ohorea izan nuen aktore sozialei esker.

Hurrengo egunekoak, bigarren pilotalekuari zegokionak, Zizurkilgo sarrerak, baina, buru lan eta buru jan askoz ere gehiago eragiten zidan neure baitan. Izua ere bai, egia esan. Niretzat erabat eskenatoki berria zen, bertako emakume ia denak ere ezezagunak zitzaizkidan oso, behin edo behin ikusiak bai baina hartu-emanik batere izan gabeak, urruneko sentitzen nuen udalerrira bera ere... Hori dela eta, hemen ere entrenatzailea bihurtu nuen makulu, konplize eta lagun bakar lehen saioaren atarian. Ustez behintzat, nire aurrentipen eta kalkuluen arabera, hala izateko probabilitatea nabarmena zen. Beraz, beldurra zein mamuak uxatu ezinda eta eskuak izerdi hotzez blai nituela heldu nintzen lehen zitara, kopetilun samar eta kezkatu, ilusio dardaratia hezurretaraino sartuta. Oraindik ere ondo asko iltzatuta daukat gogoan, ordea, nire aurreikuspen eta usteak nola desagertu eta eraldatu zitzaizkidan lehen parte hartzailea agertzean, ni entrenatzailearen aldamenean ikusita nor nintzen tankera eman baitzidan hark, eta baita ondoren etorririko beste guztiek ere. Antza denez nire egitasmoko azken lan-urteko Emakumea Pilotari festan egin zidaten agur ekitalditxoarekin oroitzen ziren eta pilotako testuinguruan kokatu zuten nire irudia lehen unetik. Berrero ere pilota federaziora itzuli ote nintzen galdetu zidaten eta nik ezetz erantzun nien, ikertzaile rolean bertaratu nintzela eta ikasturte osoan eurekin jolaslekuan aritzeko asmoa nuela. Hasieran harridura pittin bat eragin eta bakarren batek nire joko mailari erreparatuta errespetua hitza aipatu bazuen ere, hemen ere ez ziren nire aurreikuspenik beltzenak bete eta lehen urratsa emateko oztoporik ez nuen izan.

Hirugarren eta azken eskenatokian, Usurbilen, era honetako paleta ikastaro bat martxan jarriko zen lehen aldia zen, lehen eguna bertako emakumeentzat, estreinakoa entrenatzailearentzat eta baita niretzat ere. Beraz, hiru eskenatokietan hau zen niretzat deserosoena eta arrotzena ere, herrian bertan ere ia ez bainintzen sekula egona. Ez pilotarekin loturiko jardunean eta ezta bestela ere, asko jota pare bat okasiotan bertaratua nintzen eta pilotalekua eta plaza non zeuden ere ez nekien zehaztasun osoz. Beraz, tenturik handiena bertan izan beharko nuela barneratua nuen aurreko egunetako hausnarketetan. Kasu honetan ere entrenatzailea izan nuen laguntza emaile eskenatokian sartzeko bidea egiteko. Saioari ekin eta emakumeen gaineko bizpahiru xehetasun eskatu zituen entrenatzaileak aurrena, izena eta beste zer edo zer. Nire aurkezpena eta bertan izatearen arrazoien gaineko azalpena emateko unea heldu zenean, baina, entrenatzailearen ezkerrean kokatuta nengoien propio eta emakume guztiek euren izena eta beste gauza pare bat erantsi ondoren eman nien ni han izatearen berri, entrenatzailea eta biok elkarren babesean kokatu baikinaren hasierako borobilean, estrategikoki. Askok kezkatzen ninduen une hartan paleta ikastaroko emakumeek izan zezaketen erreakzioak, nik ez bainuen inoren berririk aurrez. Dena zitzaidan berria, giroa, lekua, eskenatokia eta kokatzen edo sartzen saiatzen ari nintzen ikertzailearen talaia ere bai. Haur batek ikastolara lehen aldiz joatean izan dezakeen bezainbesteko kirio dantza nerabilen eztarrian gora eta behera, korapiloa sabelean eta kezka ziztadak buruan bueltaka. Nik nire izena eta paletari ohia nintzela esan eta ondoren ez nuen aurregierra arraro eta

kopeta belzturik ikusi, ordea, neuregan aurrez irudikatua nuenaren aurka. Inork ez zidan talde hartan parte hartzeko eragozpen txikienik ere azaldu, ezta broma giroan ere.

Lehen egunetan, aurrez esan bezala, aisialdiko paletari bakoitzak norbere buruaren aurkezpenak egiteko unean lehenengo hitzak entrenatzaileek egin zituzten hiru guneetan. Guk, aurrez, elkarrekin, nire helburu, ikertzaile izaera eta jardunaren gaineko informazioa elkartrukatu eta sarrerak prestatzeko aukera baliatua genuen ikastaroak hasi baino lehenagoko bilera, elkartruke eta hitz aspertuetan zehar. Beraz, sarrera erraztu edo uneko bizipenak leuntzeko modu bat banuen, niretzat makulu garrantzitsua, oso neurri txikian izan bazen ere, ahal nuen heinean nire barne lasaitasuna eta oreka mantentzeko lagungarri, gainera. Paleta saioetan kolpeak elkartrukatzeari ekin genionean ere nire joko mailaren gaineko aipamen bat edo beste iritsi bazitzaizkidan ere ez nuen parte hartzaile bakar baten arbuiorik ezagutu eta ia oharkabean sar nendin lortu nuen neurri batean.

Hasiera-hasierako harrera bero, goxo eta onberari esker bigarren egunean, eta ondorengo guztietan, askoz ere errazagoa egin zitzaidan elkartrukeko jarduna. Egia esan, zenbaitetan ia etxeko bihurtzen hasi ote nintzen ere beldurtzen hasi nintzen, aurrez uste nuen alderantzizko egoerak kezkatu, ia euretako bat bezala ikusten baininduten. Pixkanaka ni gertuagokoa nintzaien informatzaileei eta eurak niri ere bai. Alfonbra gorrian zehar ote nenbilen ere pentsatu nuen euren prestutasun eta adeitasunak erdi txunditu eta hunkiturik paleta saioak joan eta etorri nenbilen bitartean.

Parte hartzailea bere zentzu osoan izan nintzen behaketa aldian, jardunean saio guztietan zehar buru-belarri arituz, gainerako aktore sozialekin multzo berean eta modu berean, paleta eta pilota eskuan eta kirol arropa eta oinetakoak soinean.

Ikertzaile rola eta informazioa eskuratzeko nire gaitasuna ardua eragile izan nituen lehen segundotik bertatik, oster, nire entzumen, ikusmen eta oroitzeko gaitasuna funtsezko tresna zela jakitun bainintzen. Jakitunegi, akaso? Eremu honetan, ikerketaren esparruan neukan esperientzia ezak, jakituria mugatu samarrak eta behatzaile lanean berria izateak eragindako kezka arrapaladan eta trumilka etorri ohi zitzaizkidan ate joka, ezinbestean, baita nahi eta komeni ez zitzaizkidanean ere. Behatzeko gaitasuna kezka iturri handia izan nuen, urduritasuna eta burua itzaltzeko gaitasunik eza etsai, denarekin oroitu ez nintzen etengabeko galdera ikurra gogoan ibili ohi nintzen eta. Halaber, hausnarketa iturri etengabea nuen han gertatzen zen guztia garrantzizkoa ote zen ere, nola ote nuen posible informazioari galdu gabe txertatu eta konfiantza eskuratzeko esker bakoitzeko aktore sozialen artean, baina badaezpada ere, eta "idatzia ez dagoena ez da existitzen" leloa gogotik urundu ezinik, ahal nituenak idatzeko ohitura garatu nuen. Hau ez nuen saioetan eta pilotalekuetan egiten, ordea, pilotariak inguruan ez nituenean baizik, saioen aurretik eta ordu eta erdiko frontoiko jarduna igaro berritan, ez bainuen inori errezelo eta susmo txarrik sor zekion desio. Nire jarduna ikerketarekin lotu zezaketen gailuak ez nituen esku artean erabiltzen edo keinu arrarorik ez egiteko erabaki irmoa ere hartu nuen, ondoren zuzenean grabatuz

informazioa ikertzaile koadernoan, liburutegian edo/eta audio grabagailuan, etxerako itzuleran.

Nik kontzienteki, zenbait unetan kosta ahala kosta, jarrera pasiboa hartu arren, ahalik diskretuena, eskenatokiko gainerako aktoreek ikerketa aipagai izan ohi zuten behin baino gehiagotan hasierako aldian zehar eta oso deseroso eta estutasunak harrapatuta jarri ohi nintzen, nabarmendu nahi ez nuen uneetan eurek agertzen zutelako nik nahi ez nuena, zenbaitetan beste rol bat nuela gogoraraziz inguruko edonori. Arazoa nik egin edo esandakoren bat ote zen pentsatzera ere heldu nintzen egoeraren batean. Banekien jakin, ordea, saioetako giro onean eta asmo txarrrik gabe eginiko aipuak zirela horiek, eurentzat ere pentsatzen baitut ez zela erabat egoera erraza izango “arrotz” batekin aritzea.

Konfiantza eskuratzeko asmoz, beraz, aktore orok eginiko galderei erantzuten nien, informazio erabat sakona eman gabe, baina emakumeen jakin nahia asebetez eta zalantza edo izan zitzaketen egonezinei erantzuteko ahalegin betean. Gainera, denei antzeko erantzunak eta antzerako moduetan eman ohi nizekien. Kontuz jarduteko saiakera betean aritu ohi nintzen, emakumeak deseroso senti ez zitezen eta nire zintzotasun eta zuzentasuna lasaigarri eta atsegin gerta zekien. Ez nuen kontrako jarrerarik hauteman zorionez, inor ez zen nire eremuan barruntatzen saiatu eta distantzia eta errespetuan oinarriturik ez nuen inorekiko errezelarik sortu beharrik izan tentu handiagoz aritzeko, badaezpada ere. Emakumea eta pilotan aritua izatea lagungarri izan nituen hastapenean ziur aski saioetako emakume pilotariak neurekiko ikuspegia garatzeko unean ere.

Sarrerako nire jardunarekin amaitzeko, baina, nabarmentzeko modukoa iruditzen zait lehen egunetako emozioa beldur eta egonezin iturri izan zela behin baino gehiagotan niretzat, neke maila psikologikoa esponenzialki haziz eta burua abiadura ezin bizkorragoan, bizkorregian, funtzionatzera bultzatuz. Estres eragile egin zitzaidan sarrera lortu beharra, informazioa non eta nola jaso erabakitzea, denekin hasieratik ongi konpontzen saiatzea, neure izaera zurikeriarik gabe plazaratzea eta abar luze bat.

Sarrera lortu ondoren eta lanean sakontzen jarraitu asmoz, ilusioaren gurdia eta lan zamaren zakuari tiraka segi behar du ikertzaileak eta halaxe egin nuen nik ere parte hartzaileekiko *rapport* edo harrera ona lortu nahian. Izan ere, sartzea lortzea pozgarri eta beharrezko da, neketsua zenbaiten arabera, baina prozesuaren hasiera-hasierako pausotxo baina ez da baimena eskuratu eta bermatzeko ahalegin hori, eraikinaren lehen harria jartzetik haratago ez doana. Hurrengo puntuan zehaztuago ageri da zertan datzan eta zenbateraino den oinarritzkoa mota honetako lanetan informazioa erdiesteko eskenatokietan konfiantza lortu eta aktoreekiko tratu eta loturetan aurrerapausoak ematea.

3.1.2.3. *Rapporta* lortzea

Taylor eta Bogdanek (2000, 55-58 or.) berebiziko garrantzia ematen diote *rapportari*. Eurek adierazi dutenez informatzaileekin *rapporta* ezartzea da landa-ikertzaile ororen jomuga. Ikergai diren pertsonekin *rapporta* eskuratzen hastean errealizazio eta estimulu sentipenak nabaritu ohi dira. *Rapportak* ezaugarri hauek ditu:

- Informatzaileekiko sinpatiaren berri ematea eta eurek zintzotasunez onar dezaten lortzea.
- Aktoreak “ireki” daitezen eta eskenatoki zein beste pertsonetikiko sentimenduak adieraz ditzaten lortzea.
- Esanekoa den pertsona lez ikusia izatea.
- Pertsonak eguneroko bizitzan ipiniriko “fatxadak” igarotzea.
- Informatzaileen mundu sinbolikoa, hizkuntza eta ikuspegiak partekatzea.

Landa-ikerketarik gehienetan mantso-mantso agertu ohi da *rapporta*. Honek eta konfiantzak gora eta behera egin dezakete landa lanean zehar, gainera. Zenbait informatzailearekin sekula ere ez da lortzen benetako *rapporta* ezartzea. *Rapporta* eskuratzeko eraren gainean arau zehatz eta zurrunik ez badago ere, gomendio orokor batzuk eskaintzen dituzte autore berdinek (Taylor eta Bogdan, 2000, 55-58 or.):

- Beraien errutinekiko begirunea izatea.
- Jendearekin komunean denaz ohartu eta partekatzea. Informazio elkartrukea, izotzaldia urtzeko.
- Jendeari laguntzea. Mesedeak eginez konfiantza irabaztea.
- Umila izatea.
- Interesa agertzea. Interesa agertu behar da jendeak esateko duenarekiko.

Landa-lana arrakastatsua izateko *rapporta* lortzea ezinbestekoa dela diote beste zenbait autorek ere. Ikertzaileak talde sozial batean txertatu eta kide ororekin erosotasunez jarduteko gai izatea oso da garrantzitsua. *Rapporta* eskuratzeko hartu-emanak positiboak izan behar direla diote, ikertzailearentzat informazioa jasotzeko lagungarri bihurtuz aktore oro. Izan ere, *rapporta* eskasa bada datuak ere ahulak izango dira. Horregatik, benetako hartu-emanik lortu ezean oso zaila izango da parte hartzaileek euren bizitzako ateak zabaltzea ikertzaileari. Ondorioz, *rapporta* ezartzeko ikertzaileak egitiak, enpatia handikoak, komunikazio mugak gaintzeko gai eta, gorago ageri bezala, kideen laguntzaile, umil eta egokitze gaitasuna dutenak izatea oinarri-oinarrizkoa da (Krane eta Baird, 2005).

Aurreko atal batean sakonago agertu bezala, ikertzaile batek landa-lanean jarduteak eragina izaten du, nahi ala nahi ez, parte hartzaileen ohiko jarduera eta jokabideetan. Parte hartzaileek askotan euren jarrera egokitu nahiko dute ikertzailearen beharrei aurrea hartu edo honi mesede egin asmoz. Ikertzaileak ez badu behar besteko konfiantzarik eskuratu, ordea, sarrera oztopatu diezaiokete, taldearen ohiko jarduerak behatzea ezinezko bihurtuz. Horregatik, *rapporta* erdietsi ahala ikertzailearen presentzia ikusezintasunera bideratuko da parte hartzaileentzat, kezka iturri eta eragile izateari

utziko dio ia bere osotasunean, eta hauek naturalki jokatzeko hautua egingo dute. Prozesu honetan gardentasuna lagungarri izan ohi da, ikertzaileak zuzentasunez diharduela ziurtatuz. Horretarako taldeko arau sozialak, ohiko jokabideak eta talde-ohiturak bereganatzea ezinbestekoa da ikerlariarentzat. Ikertzailea parte hartze maila horretara iritsiz gero, kideekin hartu-emanak normaltasunez izatea posible da, elkarriketak sortu eta taldearen gaineko ezagutzan sakontzea bezalaxe, haustura arriskua murriztuz eta parte hartzaile zein ikertzailearen erosotasun mailan gora eginez (Krane eta Baird, 2005). Eskenatokitian eta aktore sozialekin gertutasun erlazioa garatu eta bertakotzeak lotura estu bezain zuzena du *rapportarekin* eta honen garapen neurriarekin ere.

Emakume pilotariekin izaniko elkartruke aberats, sakon bezain neure-neuretan ere eurenganako gertutasuna jorratu, sustatu, indartu eta, hondar alez hondar ale, elkartrukeak berezko, natural, ohiko, bihurtzeko eginahal betean aritzen saiatu naiz neroni ere behaketa parte hartzaile aldiaren zehar. Uneoro, eta batez ere hasierako etapa eta pausoetan, oso presente izan nuen kideekiko loturaren garrantzia eta berau eskuratu beharra lana niri komeni zitzaidan norabidean eta erritmoan burutu ahal izateko, eskenatoki zein aktore sozialekiko errespetua eta zuzentasuna ardatz harturik, noski. Beraz, kideen eragina eta hauen interesak ere gogoan izan eta denon artean eraiki beharreko prozesua zela ez nuen momentu bakar batean ere ahaztu, baina ezta ni eskenatokian zertarako nengoen eta nire rol eta funtziorik nagusienak zeintzuk ziren ere.

Autoreek esanikoa neure eginda, aurrez ere bizi-logikak halako zerbait izan beharko zatekeela susmarazi zidala eta eskenatokitako parte hartzaileekiko hartu-emanetan gizalagea izan nuen iparorratz, modu eta jokabide ezberdinen bidez landuz erlazioen baitan elkarrenganako konfiantza garatzeko asmo betean, *rapporta* begiz jota.

Nire jokabideen ezaugarri nagusienetakoa jatorritasuna izan zen, da eta izango da, antzerkirik eza, neure tasun eta keria guztiarekin aritu eta agertu bainintzen lehen unetik parte hartzaileekiko hartu-emanetan. Egia da denak ez ditudala azaldu ohi eta ezta egoera jakinetan ere, baina uste, sentimendu zein jokabide ezkutaketan eta gordean ibiltzeko inolako intentziorik ez dut izaten, eta, hortaz, ez nuen izan. Ohiko gizatasuna arlo honetarako ere lagungarri dela uste dut, behar-beharrezko tresna, umiltasuna neuregan aspaldi txertatu baitzen. Gainera, bizitzako edozein arlotan ere garbi eta zintzo jokatzeko dut gustuko, maskara eta mozorroak antzokitian dabilzanentzat baitira nire uste apalean.

Harrera goxo bezain prestuak eta *rapport* mailak gora egiteko, halaber, paleta eta pilotak eskuetan genituenean, kantxan, talde txikiagoetan aritzea zegokigunean, binaka, adibidez, hizketaldiak sortu ohi genituen edozein gairi buruz, lasaitasuna lortu eta transmititzea helburu. Elkarren berri jaso eta ematea mintzagai hau, hori ala hura izan, informazioa partekatzerantz iristea ez baita nolana hiko urratsa. Ingurumari honetan, hala ere, isilik egotea deserosoa zitzaidan hasieran, baina inor hizketan hastera behartzea ere bai. Egoera ahalik egokien kudeatu nahian taktika edo estrategiatxo bat ezarri eta, beraz,

ia beti galdera berdinak egin ohi nituen beste hizketa-gairik ez banuen topatzen, emakumeen pilotako jardunarekin lotuak hasierako saio eta uneetan. Izotzaldia urtu ahala askoz ere lasaiago aurkitzen ginen bai ni eta bai kideak ere. Modu honetan, hitzak hitzei josiz solasaldi mamitsuagoetara iritsi ginen eta elkar ezagutzan ere murgildu nintzen zenbait kiderekin.

Solasaldien bidez nabarmena zen elkarrekiko elkartrukea estutu eta interesa agertzeko nahi eta joera hori ere. Kezka-gai zitzaien ororen gainean jarduteko prestutasuna izan ohi nuen nik, solasaldietan beste batek bezala jarduten nintzen, nire rolaren gaineko ardurari muzin egin gabe, babesa eta laguntasuna eskaintzeko asmo irmoa oinarri bihurtuta. Era honetan ere zenbait kiderekiko loturak sendotzea lortu nuen, *rapporta* indartu eta lanean aritzeko motibazioa hauspotuz aldi berean. Eskenatokietan erosoago sentitzen nintzen ni eta baita nire inguruko gainerakoak ere elkarlan horri esker.

Rapporta lortu eta parte hartzaileekiko adiskidetasun harremana sustatzeko prozesuan, ordea, ez zitzaidan dena nahi ordurako eta nahi bezain borobil atera. Izan ere, kide batzuekiko berehala lortu nuen elkarren arteko ildo ireki eta elkarrekiko gertutasun tratua, baina, tartean bizi eta ezagutu nuen egoera gordin edo deserosoren bat ere. Gorabehera bat izan nuen Usurbilgo paleta ikastaroko bizpahirugarren saioan, pilotarietako batek nire jardunarekiko edo pilota jotzeko modu edo estiloarekiko errezeloa agertu eta entrenatzailearengana jo zuenean. Aurrez ni saiatu nintzen bere zalantzak argitu eta jotzeko moduaren gaineko azalpenak ematen, baina hark bere baitan susmo edo irudipenen bat bazuen eta beste kideongandik apur bat aldendu eta entrenatzailearengana joan zen argibideak eskatu eta nire jotzeko moduaren gaineko kexa azaltzera. Une horietan benetan deseroso sentitu nintzen, ingurukoengandik behatua, kritikatu eta ez-ulertua eta garrantzirik ez zuen egoera bat baino ez zela jakin arren, ezeren kulparik izan gabe, errudun sentipena izatera iritsi nintzen. Beste emakumeak ulerkorrago eta lasaiago zeuden askoz eta entrenatzaileak ere ez zuen inolako eragozpen eta gorabeherarik ikusten nik pilota jotzeko eginiko mugimenduetan, baina kideak ez zirudien erabat lasaituta eta sinetsarazita. Hori ikusita hurrengo saioetarako beldurra, kezka eta ziurgabetasuna ere eragin zizkidan egoera horrek, nire behaketako jardunean eta informazioa biltzeko bidean kontrolatzaile izan nahi ote zuen pentsatzeraino, oztopo jartzaile izan ote nezakeen. Saio hartakoa bere horretan geratu zen, ordea, eta hurrengo saioetan nire jarrera abegikorraz baliatuz lortu nuen laguntza eta nire babesa eskainiz giroa goxatu eta arrotasunak uxatzea, irudipenak okerrak zirela ikusarazi eta distantzia erabat murriztu ezta ere adeitasun eta errespetua eskainiz amaitu baikenuen elkarri. Saioak igaro ahala, gainera, gertutasuna apur bat gehitu genuen gure artean, nahiz eta beste emakume batzuekiko izan nezakeen gerturatzeko joera eta hizketarako erraztasunik ez nuen izan harekiko.

Beraz, saioek eta elkarrekin izaniko erlazio eta elkarrekin igarotako orduak gora egin ahala parte hartzaileekin elkartruke zuzen, goxo eta abegitsua izatera iritsi nintzen, hein batean uste baino erraztasun handiagoak eman baikenizkion elkarri konfiantza sortu eta mantentzeko bidean. Horregatik, eskenatokietan sartu eta aktoreekiko zein

aktoreenganako fidagarritasuna eskuratu ostean behatzaile rolean erabat murgildu eta datu bilketari ekiteko prestatua nengoen erabat, ikertzaile lanean ilusioa lagun urratsez urrats nire lorratzak utziz bidezidor berriak irekitzeko pronto. Ondorioz, datuak biltzeko unea iritsi zitzaidan, informazioa pilatu eta adi-adi bilatzekoa, ondorengo atalean sakon eta xeheago azalduko dudan eran.

3.1.2.4. Informazio bilketa. Landa oharrak

Ikerketa etnografikoaren bereizgarrietako bat bere garapen prozesuaren izaera arin eta irekia da. Modu horri esker hautatu eta eraikitzen dira datuak biltzeko metodoak. Beste zenbait ikerketa eredutan bezala zenbait estrategiarekin lotura du etnografiak ere, hauen bidez lortzen baita informazio garrantzitsua. Estrategia hauetan, gainera, eragin zuzena du etnografoek datuak definitzeko duten moduak eta baita egiazko ikerketaz duten ideiak ere. Datuak testuingurutik jaso eta potentzialki egiaztagarri diren informazioa dira. Beraz, datu bilketan gakoa edo auzia datu esanguratsuak zehaztu eta lortzeko estrategiak garatzea da (Goetz eta LeCompte, 1988, 124 or.).

Informazio iturriak identifikatu ondorengo urratsa landa eremuan sartzea da, informazio bilketari heltzea eta atariko analisisiei ekitea, planak berrikusteko. Izan ere, hasierako hautaketa egokitu, hedatu, moldatu edo mugatu egiten da jasoriko datuen oinarriaren arabera. Datu etnografikoak eskuratzeko metodoen hautaketa prozesuan etengabe hausnartu behar da eskuragarri diren aukeren gainean eta une bakoitzean harturiko erabakiak berraztertu eta aldatzen dira (1988, 125 or.). Horrez gain, behatzaile parte hartzaileek eskenatokian egonaldi luzeak egin ohi dituzte datu esanguratsuak lortu eta erregistratzeko, eta baita euren erregistroetan zer sartzen duten eta zer ez kontzienteki barneratzeko ere (1988, 128 or.).

Ikerlan honetarako adierazgarria zen informazioa biltzeko erabilitako baliabide eta estrategiak, hau da, landa oharrak, elkarrizketa etnografikoak eta landa egunerokoa, zehaztasun eta sakontasun maila handiagoz agertuko ditut hurrengo puntuen baitan, ondoren nire arlo horretako jardun ildoaren gaineko azalpen ahalik eta argienak ematen ere saiatuz.

Behaketan jasoriko datuak erregistratzeko sistema tradizionala etnografian landa oharren bidezkoa da. Landa oharrak, zehaztasun handiagoz ala txikiagoz, prozesu sozialen eta beraien testuinguruaren gaineko deskribapenak dira. Asmoa prozesu horiek eta testuingurua bera osotasunean atzematea da, mekanismo eta ezaugarri ezberdinak jasoz, nahiz eta erregistratzen dena, hein batean, ikerketa asmoen hasieran ezarritako aztergaiarekin loturik dagoen. Beraz, ezinezkoa da deskribapenak egitea hautaketa irizpideren bat edo beste izan gabe, hau da, zer den eta zer ez garrantzizkoa. Ikuspegi zabala izateak onurak (eta eragozpenak) ditu, baina batez ere datu bilketaren hasierako etapetan oso erabilgarria da, oraindik ere ez baita behaturikoa sistematikoki kodifikatzeko asmorik izaten. Aldi honetan helburu nagusia behaturikoa ahalik eta kategoriarik egokienetan identifikatu eta garatzea da (Hammersley eta Atkinson, 2007,

193 or.). Krane eta Bairden (2005) hitzetan landa oharren bidez eskenatokiaren idatzizko argazkia lortu ohi da.

Taylor eta Bogdanen (2000, 74-75 or.) hitzetan behaketa parte hartzailea landa ohar osoen bezain zehatzen arabera da. Ezinbestekoa da behaketa bakoitzaren ondoren, eta baita informatzaileekin izandako noizbehinkako elkartrukeen ondoren ere, adibidez, ezusteko egonaldi eta hizketaldiak eduki ostean, landa oharrak hartzea. Landa lanari ekin aurreko etapan ere garrantzitsua da oharrak biltzea. Behaketa parte hartzaileko lehengai dira ohar hauek, beraz, ezinbestekoa da ahalik eta oharririk osoen eta hedatuenak idaztea. Honetarako beharrezkoa da diziplina izatea, ez konpulsibitatea. Behatzailearen buru-egitura eskenatokian gertatzen den oro datu-iturri garrantzitsu lez jorrazteko antolatu behar da. Izan ere, ezinezkoa da eskenatokian denbora jakin bat igaro arte garrantzia zerk duen jakitea. Hala ere, eskenatokia eta pertsonak ezagutu ahala, eta bere ikerketaren interesak fokatzeko doan heinean, hautakorragoa izan daiteke erregistratzen duenarekin.

Landa oharren idazketa ez da (edo ez luke behar) misterioz beteriko ezer. Hala ere, ikerketaren baitan jardura nagusia da eta ahalik eta konturik eta kontzientziarik handienarekin garatu behar da. Ez da erraza oharrak jasotzea, oharrak modu egokian eta zuzen biltzeak lan handia eskatzen du, ezinbestekoak baitira xehetasunen gaineko arreta eta kontuz jardutea (Hammersley eta Atkinson, 2007, 193 or.).

Hammersley eta Atkinsonen (2007, 194 or.) diotenez, landa oharren gaineko pribatutasuna dela eta, eredu asko ez ditu izaten eskura hasiberri den batek, literaturan oso gutxi direlako benetako balioa duten gomendioak. Hala ere, Taylor eta Bogdanen (2000, 74-75 or.) euren lanean diotenaren arabera landa oharrek pertsona, gertaera eta elkarrizketen inguruko deskribapenak jaso behar dituzte, ekintza, sentimendu, intuizio eta behatzailearen lan-hipotesien inguruan sortuak bezalaxe. Gertaeren sekuentzia eta iraupena ahalik eta zehatzen jasotzea ere garrantzitsua da. Eskenatokiaren egitura ere detaile guztiekin deskribatu behar da. Laburbilduz, hortaz, landa oharren bidez behaketaren gainean oroitu daitekeen dena paperean jasoko da. Arau ona da *idatzi ez bada ez zen sekula ere gertatu esaldia*.

Goetz eta LeComptek (1988, 128-129 or.) diote oharrak idazteko behaketarako interes arlo nagusi batzuen gaineko eskema bat erabil daitekeela. Hauek adierazi dute ikertzaile partaide batek norbanakoen jardura aztertu, hauen solasaldiak entzun eta eurekin elkarreragina izaten duela, ikergai duen taldean sozializa dadin. Horretarako zer behatu, aditu eta hauek nola antolatu zehaztu behar da: *zeintzuk, zer, non, noiz, nola* eta *zergatik* galderei erantzun behar zaie.

Behatzaile parte hartzaileentzat ezinbestekoa da kontzentrazio maila bat lortzea eskenatokian dauden bitartean ikusi, entzun, sentitu, usaindu eta pentsaturiko gehienak gogoratzeko. Hainbat eskenatokitan jazoriko zehaztasunak oroitzeko baliagarriak dira ondorengo teknikak (Taylor eta Bogdan, 2000, 75-79 or.):

- *Arreta jarri.* Behatu, entzun eta kontzentratu.
- *Objektiboaren lentea aldatu:* 'ikuspegi zabaletik' 'angelu txikira' igaro. Ezinezkoa da gertatzen den guztia behatzea, ikuspegia pertsona, elkartruke edo ekintza espezifiko baten gain ezarri, mentalki beste guztiak blokeatuz.
- *Jendea behatzean 'gako hitzak' bilatu.* Ez da beharrezkoa hitz guztiak gogoratzea, *esanahiak* dira axola beharrekoak.
- *Solasaldi bakoitzeko lehenengo eta azkeneko behaketetan jarri arreta.* Hizketaldiak sekuentzia batean garatu ohi dira. Elkarrizketa bat nola hasi den gogora badaiteke, sarri amaierara arte gogoan osorik gorde daiteke. Bakarrizketa luzeen mamia, orokorrean behatzaile hasiberria nahastu ohi dutenena, errekuera daiteke.
- *Behaketa eta eszenak buruan errepikatu.* Zerbait ikusi edo entzun ostean buruan errepikatu. Irudikatzen saiatu.
- *Behatu duzuketik oroitzeko moduan zauden guztia daukazunean eskenatokia utzi.*
- *Behaketa amaitzean ahalik eta azkarren idatzi landa oharrak.*
- *Eskenatokiaren irudi bat marraztu eta zure mugimenduak irudikatu bertan.* Zure esperientziaren baitako bidaia egin. Gertaera eta pertsonak gogoratzeko lagungarri da hau egitea.
- *Behaketa eta landa oharren erregistroaren artean atzerapena badago behatutakoaren laburpen edo zirriborro bat egin.*
- *Landa oharrak idatzi ostean galduriko datuen atala bildu.* Behatzaileek maiz zenbait gauza gertatu eta handik egun edo asteetara oroitzen dituzte. Zati hauek landa oharretan erantsi behar dira.

Grabaketa eta landa oharrak jasotzeko erabiliriko tresnen gainean, informatzaileen aurrean oharrak idatzi edo grabatzea ez da komeni, gutxienez, behatzaileak eskenatokiaren gaineko ideia bat garatu eta honek parte hartzaileengan izan dezakeen eragina ulertu aurretik (Taylor eta Bogdan, 2000, 79-81 or.). Interakzio sinbolikoa ardatz duten ikerketarik gehienetan ez da beharrezkoa datu garrantzitsuak eskuratzeko ikertzaileek gailu mekanikoen laguntza izatea. Behatzailea gai da gertakizun eta solasaldien inguruko behar beste oroitzapen lortzeko eta jendearen hauen gaineko esanahi, ikuspegi eta definizioak ulertzeko entrenamendu eta esperientziari esker.

Ildo berean, landa oharrak idazteko norberak bere modua izaten badu ere, beti da funtsezkoa oharren bidez datuak erraz berreskuratu eta gaiak kodifikatu (eta zatikatzea). Aholku hauek lagungarri izan daitezke landa oharren idazketa prozesuan (Taylor eta Bogdan, 2000, 81-82 or.):

- *Landa ohar multzo bakoitza izenburudun karatula batekin hastea.* Karatula honetan data, behaketa une eta lekua eta idatzizko erregistroaren egun eta unea erantsi behar dira.
- *Oharren hasieran eskenatokiaren diagrama jarri.*

- *Norbere eta gainontzekoen iruzkinetarako behar bezain marjin zabalak utzi.* Marjin zabalek idazketaren ondorengo une batean ahazturiko puntuak gehitzea ahalbidetzen dute eta ikerketako analisi aldian oharrak kodifikatzea ere bai.
- *Puntu eta aparteak maiztasunez erabili.*
- *Behaketen erregistroan komatxoak erabili.* Komatxo bikoitza oroitzapen zehatzetan, bakarra zehaztasun gutxiagoko gogorapenetan eta komatxorik ez arazoizko gerturatze bat adieraztean.
- *Goitizena erabili pertsona eta leku izenetarako.*
- *Oharrak hirukoiztuta gorde gutxienez.* Eskura izan bat, beste bat ondo gorde eta hirugarrena balizko irakurleekin erabili.

Eskenatokian gertatzen denaren gaineko informazioaz gain, ordea, landa oharretan sentimendu, interpretazio, intuizio, ikertzailearen aurre-kontzeptu eta etorkizunean sakontzeko arloen berri ere jaso behar da (Taylor eta Bogdan, 2000, 82-84 or.). Hala ere, iruzkin subjektibo hauek nabarmen bereizi behar dira datu deskribatzaileetatik. Ikertzaileak sentiturikoa informatzaileek sentiturikoaren berdina izan liteke edo hauek iraganean bizitakoaren parekoa. Horregatik, garrantzitsua da norbere sentimendu, sinesmen, aurre-kontzeptu eta usteak besteen ikuspegiaren gaineko ulermen potentziala garatzeko erabiltzea.

Taylor eta Bogdanek (2000, 84-86 or.) ikergai diren eskenatoki eta pertsonen jarduerak deskribatzeari arreta jartzearen garrantzia azpimarratu dute, hau lagungarria baita parte hartzaileen jarduera, elkarrekintza jarraibide, ikuspegi eta besteen aurrean aurkezteko erak behar bezala geureganatzeko. Gainera, landa oharren idazketan erabili beharreko hizkuntzaren nolakotasunari erreparatuz gero diote behar beste xehetasun agertu behar direla lekuko buru-irudiaren eta bertan gertatzen denaren gainean. Horretarako erabiliriko *terminoak deskribatzaileak* izan behar direla diote, *ez ebaluatzaileak*.

Pertsonen deskribapenak aipatuz, autore berdinek diote (Taylor eta Bogdan, 2000, 86-88 or.) parte hartzaileak ere arretaz deskribatu behar direla, hauetako bakoitzak norberaren inguruko informazio garrantzitsua ematen duelako eta bakoitzaren janzkera, orrazkera, bitxi, osagarri, jarrera eta itxura orokorra oinarri hartuta zenbait uste sorrarazten dituelako. Jendearen ezaugarri horiek hautematea lagungarri da norbere irudia eta besteek nola ikustea nahi duten ezagutzeko. Hauek ere ez dira ebaluazio-hitzen bidez idatzi behar, deskribapenerako erabiltzen direnetan baizik.

Eskenatoki eta pertsonen gain, hizketaldiak ere informazio iturri aberatsa dira (Taylor eta Bogdan, 2000, 89 or.). Sarri esaldi edo solasaldien batean zerbait bere osotasunean ez delako ulertu, iruzkin hauek zehaztasunez gogoratzea zaila denez, landa oharretan ez agertzearen aldeko hautua egiteko joera bat egon daiteke. Hala ere, ulergaitzenak diren komentarioek ere zentzua har dezakete ondorengo solasaldi eta gertaerei esker. Irudipen bera sor liteke behatzaileak nahi gabe edo ezustean entzun eta desegokiak edo testuingurutik kanpokoak diruditen azalpenekin. Datu hauek ere entzun bezala idatzi behar dira. Ez da posible entzunikoa berreraikitzen saiatzea hobeto irakur dadin.

Landa oharren berariazko ezaugarri eta hauen idazketan lagungarri izan daitezkeen aholku eta azalpenez gain, ordea, hauen izaera eta idatzi ostean oharrak sakondu eta osatzeko behararen gainean ere aipamen bat baino gehiago egin dira literatura zientifikoan. Woodsek (1989, 60 or.) dio landa oharrak egunean zehar ikusitakoaren gainean egiten direla eta memoria freskatzeko helburuarekin. Horregatik, beranduago, denbora dagoenean, hasierako oharrak zabaltzeko beharra azpimarratzen du. Horretarako etnografoek norbere amarruak izaten dituzte, noizbehinkako ohartxoak hartzeko bezala. Izan ere, zenbaitetan ez da komenigarria oharrak modu irekian hartzea, batez ere behatzailearen parte hartzaile izaera erabatekoa denean eta elkarrekintzan interferentziak eragiteko arriskua dagoenean. Gainera, beste zenbait egoeratan, parte hartzaileek egiten ari direnaren gainean inor oharrak idazten ari dela ikustea kikilgarria izan liteke, aktoreak espiatu, juzkatu eta ebaluatuak senti baitaitezke.

Zenbaitetan nahitaezkoa da oharrak biltzeko orduan memoria hutsean oinarritzea, arriskua izan badezake ere (Woods, 1989, 61 or.). Hala ere, etnografoak hizketaldi eta eszenak gogoratzeko erraztasuna lortu ohi du, aurrez beste zenbait autorek esan bezala, eskenatokian behaturikoa buruan irudikatuz eta solasaldiak berreraikiz, berriro ere ekintzaren alderdi esanguratsua bizitzera iritsiz.

Landa oharrak *a posteriori* landu, hedatu eta garatu beharra aipatzen dute Hammersley eta Atkinsonek (2007, 196-197 or.) ere, baita landa oharrak eskenatokian bertan hartu balitezke ere. Hauen arabera, beraz, beti da beharrezkoa oharrak idatzi eta antolatzeari behar besteko arreta eta denbora eskaintzea, baita idazteko denbora erreserbatzea ere, epe luzean behatzen jarraitzeak ez duelako zentzurik bestela. Landa oharrak garatu eta zabaltzeko unea zein izan daitekeen pentsatzen jarrita, osotasunean hurrengo eskenatoki edo/eta eguneko gertaerak jazo aurretik lantzearen garrantziaz dihardute gehienek. Modu honetan egin ezean, izan ere, aurretiko oroitzapenak eta berriak pilatu daitezke, gaizkiulertu eta nahasteak sortu eta datu garrantzitsuak galduz. Etxeko bake eta isiltasunean osa daitezke modu egokian adierazle nagusien gaineko xehetasunak. Hala ere, ez da oso lan erraza, zehaztasun eta kontzentrazio handia behar direlako. Etnografoarentzat une oso nekagarriak izan litezke, baina ez dauka ihesbiderik (Woods, 1989, 61 or.).

Krane eta Bairdek (2005) gai beraren inguruan diote landa oharrak detaileekin lantzeko beharra nabaria dela eta lan hau lehenbailehen egitea ere funtsezkoa dela memoriako hutsuneei aurre egiteko. Behaketa bat egin eta lan horren zehaztasunetan sakontzerako 24 ordu baino gehiagoko tarterik ez lukeela igaro behar diote, gainera, eta ez litzatekeela beste behaketarik egin behar aurrekoaren gaineko oharren eginbeharrak amaituta utzi aurretik. Horrez gain, hauen arabera ez da oso gomendagarria ikertzaileak behaketaren gaineko hizketaldiak izatea oharrak idatzi aurretik, bestela euren interpretazioa eta datu zehatzak nahasteko arriskua garatzen baita. Aldi berean, ordea, datu deskribatzaileak idatzi ostean ikertzailearen aurreikuspen eta interpretazioa

txertatzearen garrantzia ere islatu nahi dute, nahiz eta hau garbi bereizi eta ezberdinu beharko den benetan behatutakotik, adibidez, zutabe edo letra mota ezberdinak erabiliz.

Aurrez aipaturiko aholku, ezaugarri, azalpen eta abarrak idaztea ez da lan batere erraza, ordea. Izan ere, ahal bezain landa ohar zehatz eta deskriptiboak biltzeak gastu bat eragiten du. Orokorrean, idealetik zenbat eta gertuago egon, mugatuagoa izan ohi da oharren zabalera. Horregatik, zenbait zehaztasun eta konkrezio alboratu egin beharko dira hedapenaren mesedetan. Landa oharren konkrezio maila dena dela ere, garrantzitsua da bertan jasoriko ahotsen arteko anbiguotasunik ez izatea, argi ezberdintzea ikertzailearen laburpen, arrakala eta ziurgabetasunik eta zuzenean hartutako oharrak (Hammersley eta Atkinson, 2007, 202 or.).

Datu bilketa hau kitzikagarri eta atsegina izan liteke, baina baita aspergarri eta etsigarria ere (Woods, 1989, 62-63 or.). Hala ere, autore honek dioenez ikertzaileak parte hartzaileekin benetako enpatia lortuz gero, aspertzea bera ere interesgarri gerta daiteke. Ildo honetan, etnografoen artean oso ezaguna da benetan garrantzizkoa dena beste nonbait gertatzen den sentipena. Ikertzaileak gune egokiaren bila lekuz aldatuz gero, baina, badirudi gune hau ere mugitu egiten dela. Urrezko araua fikziorik ez asmatzea da eta zalantzarik sortuz gero ahaztea. Gainera, aintzat hartu behar da mota honetako ikerketen mugak ez datozela datuetatik, beti mugagabeak izan ohi diren arren, ikertzailearen ezaugarri pertsonaletatik baizik. Hortaz, ez da komeni hauek proban jartzea. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da desordena, ulergaitasuna eta datuen eraldaketa ikertzailearen gaitasunik ezarekin ez nahastea. Etnografoak bolada batean zehar topeka aritu ohi dira datuekin eta askotan lorpen nahiko narratsak izaten dituzte. Deskubritu nahi diren arauak eta lortu nahi diren azalpenak eskuratzea ezinezkoa da bitzita errealeko zatietan murgildu ezean.

Honenbestez, gehienek datuen artean igeri egin ohi dute, deserosotasunak deserosotasun, kategoriak loratu eta sistematizazioa gidatzen hasi arte (Woods, 1989, 64 or.). Dena dela, honek bere ordaina izango du, ondorengo analisi eta aurkezpenak lasaitasun handiagoz egingo baitira. Hala ere, datuak bildu osteko atal hauen kalitatea beti egongo da datuen menpe.

Landa oharrak sortu, idatzi, antolatu eta gainerako beharrezko eginbeharrak egin ondoren garrantzitsua da une batean hauek irakurriko dituen aholkulari edo lagun bat aurkitzea (Taylor eta Bogdan, 2000, 75 or.). Izan ere, eskenatokiarekiko beren distantziari esker, irakurle hauek behatzaileari ihes eginiko gako eta gaien gaineko laguntza eskaintzen dute.

Landa oharren gaineko aholku, azalpen, irizpide eta era honetako gaien inguruan irakurri ostean, neure ikerlari senari jarraiki nik zer nolako prozesua izan nuen azaltzeko bidea egingo dut ondoren datozen esaldi eta paragrafoetan. Landa oharren harira bizi eta egindakoa ahalik eta xeheen agertzeko tartea dut, beraz. Hala ere, ez du bat-bateko edo/eta ezusteko handirik nik erabilitako lan modu honek ere, ohikoena den lez.

Emakumeen paleta ikastaroetako saioetan behaturikoa orrietan zirriboratu, gorde eta antolatzen kantxako jarduna amaitu eta ahalik eta lasterren hasten saiatzen nintzen. Komenigarria da hala egitea, behin baino gehiagotan entzun eta irakurri dut hori bera, gainera. Beraz, nik ere ahalegina egin ohi nuen informazioa ahalik eta aratzen, berrien eta kutsatu gabeen neukanean gertaera, sentipen, ekintza eta gainerakoak txukun-txukun jasotzeko.

Ahalik eta azkarren lanean jarri eta informazioa erregistratu behar horrek, ordea, modu eta estrategia ezberdinak erabiltzera bultzatu ninduen lan lekuei dagokienez, adibidez. Hiru eskenatokietan nuen ordutegia ez zen berdina eta eskura izan nitzakeen baliabideak ere ez. Ondorioz, astelehen goizetan Hernaniko pilotalekutik zuzenean kiroldegi aldameneko eskailerak igo eta Biteri kultur etxera, udal liburutegira, jo ohi nuen, etxerako itzulerako bidaia landa oharrak ahal bezain ordenatuen nituenerako utziz. Bertan bi ordu eta bi ordu eta erdi artean egin eta oharrak idatzita egiten nuen Hernanitik Zumarragarako bidea, idazketa lanak amaituta gehienetan, baina ez beti.

Zizurkil eta Usurbilgo saioak, ordea, iluntzeetan izaten ziren eta gaueko bederatzietan amaitu ondoren ezinezkoa zen bertatik liburutegi edo lanerako egokia izan zitekeen beste edozein gunetarako bidea zuzenean egitea. Ordu horretarako liburutegiak eta antzeko egoitzak itxita izan ohi dira. Hortaz, mila eta bat buelta eman ostean, niretzat formularik egoki eta erosoena zena otu zitzaidan, nituen aukeren artean informazio ahalik eta gutxien galtzeko irtenbide bat: etxerako kotxeko itzulerako bidaiari audio-grabagailua piztu eta hizketan joatea paleta saioan ikusi eta eginikoak kontatuz gailuari. Beraz, etxera gaueko hamarrak inguruan iristean grabazioa hartu eta gorde ohi nuen ordenagailuan, hurrengo goizean, asteazkena Zizurkilgo kasuan eta osteguna Usurbilgoan, orrian idatziz bezperako saioko gorabehera eta gertakariak.

Hasierako landa oharren zirriborroa, paperean eta boligrafoz jaso ohi nuena, ordea, beti zabaldu eta egokitzen nuen etxean, bertako kontzentrazio eta lasaitasunaren babesean, ordenagailuaren aurrean jarri eta behatzak teklen gainean mugitzearekin batera buruko makina ere martxan jarriz. Beraz, euskarri digitalean, Wordeko dokumentuetan, jaso dut oharren multzoa.

Oharretan jasoriko datuei dagokienez, berriz, oroitzen nuen oro idatzi ohi nuen, garrantzirik ba ote zuen zalantza egiten nuena ere bai, jaso ezean ondoren bila hastea alferrik izango zela ederki asko neureganatu nuelako lehen irakurralditik. Oharren hasieran, identifikazio datuak jaso ditut: data, lekua, ordua eta izenburua. Izan ere, ohar multzo bakoitzari izenburu bat eman ohi nion, niri saioan gertaturikoa gogoratzen lagunduko zidan hitz edo esaldi labur bat, landa oharren dokumentu bakoitzari berea eta besteekiko bereizgarria. Landa oharretan jasota ditut keinu, hitz, erreakzio, solasaldi, ekintza, jarduera, hizketa-gai eta beste aipagarri guztiak ere, niretzat balioa zutenak eta gordetzeko modukoak zirenak, interesgarri gerta zekizkidakeen ahalik eta pasarte eta gorabehera gehien. Gainera, B.K. (“behatzailearen komentarioa”) inzialen itzalean

egoera horiek neure baitan sorturiko sentimendu, pentsakizun eta geroago jorratzeko ikergaiak ere bildu nituen. Hori bai, nabarmen ezberdindu eta bereizita, autore erreferenteen aholkuei jaramon eginez.

Landa oharrak, ordea, osatu beharra dago informazioa batu, itxuratu eta erabat osatzen amaitzeko, autoreen adierazpenetan lehenago behin baino gehiagotan nabarmendu bezala. Hori dela eta, landa ohar horiek ondoren beste dokumentu batean batu ohi nituen. *Kontakizunak* deituriko dokumentu hauetan asteroko hiru eskenatokietako paleta saioak bildu ditut, astero, ezohiko gorabehera edo jaiegunik izan ezean, asteleheneko oharrekin hasi eta asteazken iluntzekoekin amaituz. Modu honetan, ordena logiko honen bidez, nire aste guztiko pilotalekuetako jarduna dokumentu bakarrean biltzea lortu nahi nuen, aste osoko oharren batuketa eginda, behaketa zikloa zazpi eguneko tarte hauen arabera egituratuz. Kontakizun hauetan dokumentu bakoitzeko hiru paleta saioetako bakoitzari atxikiriko izenburuaz gain, izenburu orokorrago bat ere sortu nuen, identifikazio datuekin batera: data, lekua eta erregistraturiko ordua. Gainera, elkarren segidan jarriko oharren bildumak lotu eta koherentzia emateko hasiera eta amaierako sarrera-bukaera zatitxoak ere badituzte testu hauek, testuinguruan ahalik zehatzen kokatzeko bertan idatzita jasorikoa. Guztira hogeita hamabi kontakizun erreal bildu nituen behaketa parte hartzaile fasean, aste bakoitzeko bat.

Landa oharrekin amaitzeko, Taylor eta Bogdanek (2000, 75 or.) esanikoari jarraitu asmoz, nire kontakizun hauen irakurketa kanpoko bi irakurleri helarazi ohi nien maiztasun batez. Hasieran astero hasi nintzen, baina gehitxo zela eta bi astean behin utzi genuen tartea finkatuta hasi eta denbora apur batera, irakurketa sakonak denbora eta arreta eskaera handia zuelako kideentzat. Bat nire zuzendarietako bat zen eta bigarrena, berriz, kanpoko lagun bat, emakumeen paleta ikastaroetan ariturikoa lehenago eta testuinguru orokorreko xehetasunik gehienak ezagun zituena. Modu honetan, gaiarekin ni bezain kutsaturik ez zeuden konfiantzazko pertsonekin iritziak trukatu ahal izan nituen eta ondoren eta unean bertan jorratu beharreko eta murgiltzea komenigarri zatekeen ildoak zehazteko ezinbesteko laguntza eskaini zidaten bi irakurle hauek.

Landa oharren bidez informazio ugari, benetan esanguratsua, aberasgarria eta oso anitza jaso nuen, paleta saioak joan eta etorri, emakume pilotarien gainean, baina egia da une batetik aurrera ez nituela hasieran bezainbeste berritasun, argi-izpi eta aztergai topatzen, ohikotasunean zenbat eta gehiago murgildu, ikasturteak aurrera egin ahala, zenbait gauza errepikatu edo oso gutxi aldatzen zitzaizkidalako. Saturazioaren adibide garbia da kontatu berri dudana, informazio berririk jaso ez eta lehengoak baieztatzeko bidea eman zidana.

Atal honi amaiera emateko, landa oharrak bildu, idatzi eta kudeatzean izaniko bizipen eta sentimenduei dagokienez, era guztietako gorabehera eta atzera-aurrerak izan nituen bederatzi hilabeteetan zehar, hasi ezjakintasun, ziurgabetasun eta mamu izutietatik eta, tarteka-marteka izan bazen ere, sentipen alai eta goxagarrietaraino, informazioa lortzen ari nintzela pentsatzeraino. Bitarteko koloreak ia kontaezinak dira, egoera guztiak

zehatz-mehatz irudika ezinak, eta ez dakit landa oharrak jasotzen ari nintzela berdin-berdin askotan errepikatuko ote ziren sentipen eta iritziak ere, nire aldarreak eragin baitzuen, besteak beste, testuinguruko beste hainbat faktoreekin elkarlanean, datuen artean nahas-mahasean eginiko lan hau.

3.1.2.5. Elkarrizketa etnografikoak

Elkarrizketak datuak eskuratzeko oso iturri garrantzitsua dira, besteak beste, beste edozein modutan ia ezinezkoa gerta daitekeen edo lor ezin daitekeen informazioa jasotzea ahalbidetzen dutelako, bai deskribaturiko gertaerei dagokienean eta baita esanikoen ikuspegi eta estrategien inguruan ere. Horregatik, ikerketa kualitatiboa darabilten lan askotan erabiltzen dira elkarrizketak informazio iturri bezala (Hammersley eta Atkinson, 2007, 148-149 or.). Gainera, behaketa parte hartzailea eta elkarrizketak uztartzeak hainbat abantaila ditu, bakoitzean eskuraturiko informazioak bestean lorturikoa argitzen eta osatzen lagun dezakeelako. Horrez gain, behaketa parte hartzailean eskuraturiko esperientziak eragin garrantzitsua izan dezake aktoreek elkarrizketetan esandakoen gaineko interpretazio lanean.

Elkarrizketak erabili ala ez erabakitzeko ezinbestekoa da ikerketaren jomuga den testuinguruaren eta honen baldintzen baitan kokatzea (Hammersley eta Atkinson, 2007, 150 or.). Beste edozein gairen inguruan bezala, beraz, hemen ere ez dago erabaki on edo txarririk, hobeak eta okerragoak baizik. Zenbaitetan atzera begirakoa da bidea ezagutzeko modu bakarra. Horregatik, ezin da ahaztu ikerketan estrategia ezberdinak erabiltzen direla eta hauetako bakoitzak informazio ezberdina sor dezakeela, hortaz, baita ondorio ezberdinak ere.

Woodsen (1989, 77 or.) arabera ere elkarrizketak beste zenbait metodorekin uztartuta egin behar dira eta elkarrizketa etnografikoek berez ezaugarri bereizleak dituzte, behaketa parte hartzailearekin bat datorren zerbaite izanik hau.

Krane eta Baird (2005) autoreek ere adierazi dute ezinbestekoa dela etnografiaren baitan elkarrizketak egitea ikerlariek kulturaren gaineko ulermena garatu eta zenbait alderdiren inguruko ildoetan sakondu eta espezifikoki aztertu nahi dutenean, hasierako behaketak osatu eta aberasteko balio baitute. Hauen arabera etnografiaren bihotza dira elkarrizketak, ikergai diren aktoreen hitzak jasotzeak euren egoerak eta euren inguruko mundua argitasun handiagoz ulertzen laguntzen baitu.

Taylor eta Bogdanek (2000, 91-94 or.) diote behatzaile parte hartzaile guztiek egiten dituztela elkarrizketak euren eskenatokietako lanaldian zehar edo baita amaiera aldera ere. Izan ere, ikerlanaren amaiera aldera aberasgarri eta baliagarria da jende berria elkarrizketatzea ikerlaneko helburuen arabera eta aurrekariak eta giroa egokiak badira. Modu honetan aurrez aurre jar litezke pertsona ezberdinen ikuspegiak edo kontrolpean izan.

Aktoreen ikuspegiaren gaineko ondorioak ateratzeko garaian garrantzizkoa da elkarrizketa hauek formalegiak ez izatea, elkarrizketak informatzailearengan eragin ditzakeen erreakzioek pisua izan dezaketelako esanikoetan. Horregatik, etnografoen artean nagusitzen den joera elkarrizketa informal edo ez-zuzenak egitea da, elkarrizketatuak nahi beste eta nahi eran hitz egiteko askatasuna izaten baitu. Mota honetako egoeretan helburua, ahal den neurrian, ikerlariak izan dezakeen eragina murriztea da, errealitatea modu irekian eta bertakoek bizi duten bezala ezagutzera iristeko (Hammersley eta Atkinson, 2007, 146 or.). Gertaera eta ekintzak jazo ahala sorturiko hizketaldien sinesgarritasuna handia dela dio Woodsek (1989, 83 or.) ere, naturaltasunean oinarritzen baita, datuak diren bezala biltzeko modua eskainiz.

Elkarrizketa informalean ezaugarri eta izaeraren gainean Krane eta Bairdek (2005) diote eskenatokian bertan egin ohi direla, behatzaile parte hartzaileak ekiten diela okasio apropos bat iristean eta gehienetan argibideak lortzeko eta solasaldi labur samarrak izan ohi direla, parte hartzaileen testuinguruaren gaineko ulermena irabazten laguntzen dutenak. Galdera soil bat edo elkarrizketa mamitsuagoak izan daitezke, azken hauek maizago sortuz behaketa unearen amaieran, adibidez, paleta saioen akaberetan edo ondorengo tabernetako egonaldietan. Elkarrizketa informal hauek oso lagungarriak dira une zehatzetan jasoriko informazioa aberastu eta kideekiko *rapporta* eskuratzeko ere.

Zeharkako elkarrizketetan ezinbestekoa da elkarrizketa egileak modu aktiboan entzutea, esaten denari arreta jarri eta ikerlanarekin nolako lotura izan dezakeen pentsatzen saiatuz, bertan jasorikoa nolako baldintzetan adieraz dezakeen hausnartuz (Hammersley eta Atkinson, 2007, 171 or.). Hau elkarrizketaren garapen eta forma alboratu gabe egin behar da, gainera. Elkarrizketatua izan arren erdigunean, elkarrizketak beregan izan dezakeen eragina gutxitzen saiatuta ere, beti da beharrezkoa elkarrekintza honek ere egituratze maila bat izatea garrantzia zerk duen eta zerk ez zehazteko.

Haatik, elkarrizketak ez dira beti izango zeharkakoak etnografian. Hipotesiak baieztatu nahi badira, adibidez, galdera zuzen eta espezifikokoak erabili beharko dira (Hammersley eta Atkinson, 2007, 172 or.). Kasu hauetan ere, ordea, hipotesiak baieztatu eta ikerketa ildo berriak sortzeko benetan formula praktikoa diren arren, ikerlariari ahal duten neurrian erantzunaraztera bideraturiko galderak baztertzea gomendatzen zaie, dituzten arriskuez ohartzea elkarrizketa burutzean eta galderak zein norabidetako joera eragin lezakeen gogoan izatea. Zuzenduriko eta zeharkako galderek datu mota ezberdinak sortzen dituzte eta, beraz, ikerketa etapa ezberdinetan erabilgarriak izan daitezke. Modu guztietan, dena dela, etnografoek euren galderek informatzaileek esanikoetan, edo ez esandakoetan, dituzten eraginak aintzat hartu behar dituzte.

Elkarrizketa formalak edo egituratuak ere erabili daitezke. Mota honetakoak aurrez programatu eta antolatzen dira eta parte hartzaileak zuzenean gonbidatzen dira ikerlariarekin batzeko (Krane eta Baird, 2005). Hartu-eman hauek erdi egituratuak izan ohi dira gehienetan eta elkarrizketa garatzeko gidoi baten laguntza izaten du

ikertzaileak, galdera zerrenda bat. Hala ere, malgutasuna eta zehaztasunaren (*focus*) arteko konbinazioan oinarritzen dira, elkarrizketa irekia sortuz, norabide anitzetakoak, aurrez ikerlariak atzeman ez duen informazioa eskuratzea ahalbidetuz.

Goiko paragrafoan aipatu dudanarekin loturik, elkarrizketak gertakari sozial lez ulertu beharra azpimarratzen dute Hammersley eta Atkinsonek (2007), non elkarrizketa egilea (eta modu berean baita elkarrizketatua ere) behatzaile parte hartzailea den. Hala ere, elkarrizketetan ikertzaileak ohi baino rol menperatzaileagoa har dezake, bera delako galdera mota, elkarrizketa lekua, eguna eta halakoetan eragiten duena (Hammersley eta Atkinson, 2007, 173 or.).

Elkarrizketetarako beharrezko ezaugarriak ikerlaneko beste hainbat alorretan behar direnen berdinak direla diote adituek: konfiantza, kuriositatea eta naturaltasuna. Inork ez dio arrazoirik gabe beste bati hitz egiten. Beraz, behaketetan bezala, sarrera eskuratzeko, errespetua lortzeko eta elkarrizketen garapenerako eztabaidagai inplizituek eragiten dute (Woods, 1989, 77-80 or.). Garrantzitsuenak, baina, konfiantza eta elkartrukea ezartzea, besteen iritzi, sentimendu eta ezagutzekiko jakin-mina garatzea eta bat-batekotasuna eta naturaltasun izaera dira. Helburua elkarrizketatuaren barruan dagoena ezagutzea denez, informatzaileak ezarriko du hein handi batean egitura, zertaz diharduen deskribatzeko.

Elkarrizketatuak hautatzeko, berriz, informatzaileenganako irisgarritasuna eta eskuragarritasuna izan liteke zein elkarrizketatu erabakia mugatuko duena. Normalean, baina, elkarrizketatu potentzial bat baino gehiago izan ohi dira eta halakoetan zenbat eta zeintzuk elkarrizketatu erabaki behar izaten da. Erabaki hauek ez dira une batean hartu behar, ordea, modu atzerakarian (*recurrente*) baizik, lan etnografikoak berezkoa duen eran (Hammersley eta Atkinson, 2007, 153-155 or.). Erabaki hau hartzean ezinbestekoa da ikerlariak eskura zenbat denbora eta baliabide dituen gogoan hartzea eta baita erabaki ezberdinek eragin ditzaketen gastuen gainean hausnartzea ere. Etnografoek elkarrizketatuak hautatzeko irizpideak oso anitzak izan litezke, baita ikerketa proiektu bakar baten baitan ere. Zein, noiz eta nola elkarrizketatu ikerlana garatzen doan heinean erabakitzen da, etnografoaren ezagutza mailaren eta lanaren etorkizuneko ildorik nagusien gaineko usteak lagun.

Ikerlan honen joanean elkarrizketa etnografiko informalak eta formalak burutu nituen. Hauetako batzuk, nabarmen gehienak, ez formalak edo zeharkako elkarrizketa lez sailkatu ditut, kantzako ingurumarian, pilotalekuetan bertan, saioetako jardunean zehar eta kantzako paletakada eta pilotakada artean burutuak izan ziren. Mota honetako hizketaldiak lehen une eta egunetatik hasi eta azkenera arte izan genituen kideek eta nik. Gainera, ia taldekide guztiekin, *rapporta* eskuratzeko gai izan nintzen denekin, hiru eskenatokietan eta saio batean bai eta hurrengoan ere bai izan nuen elkarren artean iritziak, bizipenak eta elkarren datuak trukatu eta euren mundu ikuskeraren gaineko informazioa eskuratzeko aukera, bai zuzen pilotarekin loturiko gaien inguruan eta baita bestelako gorabehera eta kontuen inguruan ere. Zenbaitetan galderarik egin beharrik

gabe sortu ohi genituen solasaldiak, berez zetoze la zirudien, eta beste zenbait egoeratan, berriz, neuk hartzen nuen ekimena eta neu izaten nintzen lehen galdera egin edo hasierako hitzak esaten zituen.

Behaketa parte hartzaile aldiaren azken aldera, ordea, ikasturteko azken bi hilabeteetan, elkarrizketa formalagoak, erdi egituratuak, egiteko hautua ere egin nuen. Ordurako kideen artean oniritzia eta begirunea ongi lortuak nituen eta landa lanari utzi aurretik momenturik egokiena huraxe zela erabaki nuen. Solasaldi hauetako asmorik nagusiena ikastaroetan ikusi eta garrantzizkoak zirela iritzita hainbat gai zehatzen inguruko uste eta iritziak biltzea zen batez ere, hipotesiak baieztatzen baino gertuago aurreko hilabeteetako aurre-analisietan oinarrituz, klabeak ziren aztergaien gaineko esanahietan sakontzeko sorturiko beharretik eratorriak.

Elkarrizketa hauetarako informatzaile esanguratsuak lortu asmotan ikasturtean zehar nirekin taldeetan aritu ziren aktore sozial guztiak euren jardunari loturiko ezaugarri batzuen arabera sailkatzen saiatu nintzen, ondoren zerrendaturiko irizpideak aintzat hartuta:

- Ikastaroarekiko lotura (hasiberriak/lehendik dihardutenak).
- Lehiakortasuna (lehiakorrak/ez lehiakorrak).
- Pilotako jardunaren maiztasuna (ikastaroan bakarrik/ikastaroan eta tarteka kanpoan/ikastaroan eta kanpoan).
- Lehiaketetako ohiturak (lehiaketetan dabilzanak/ez dabilzanak).
- Nongoak ziren (hernaniarrak/zizurkildarrak/usurbildarrak).

Aurretik ezarritako irizpide guztien arteko konbinazio posible ia denak kalkulatu eta multzo bakoitzetik pertsona bana hartzen saiatu nintzen, beraz, profil ezberdinetakoak izatea ziurtatuz informatzaile hauen artean. Aisialdiko pilotarien artean, guztira, bederatzi kide izan ziren elkarrizketatu nituenak. Gainera, proposamena luzatu nien guztiek eman zidaten baieztoko erantzuna eta beste parte hartzaileek ere ez zidaten eragozpen edo trabarik erantsi atal hau burutzeko arrazoen eta hautaketarako argudioen berri eman nienean.

Aisialdiko pilotariez gain, ordea, funtsezkoa iruditzen zitzaidan entrenatzaile lanetan aritutakoen talaiara ere heltzea, hauek ere informazio esanguratsu, aberats eta mamitsua zeukatela jakitun bainintzen. Gainera, euren ikuspegia zenbait arlotan besteekiko ezberdina izan zitekeen ustea nuen, nirea ere zenbait arlotan ezberdina zen moduan. Horrenbestez, aurrez aipaturiko bederatzi emakumeei nire paleta ikastaroetako taldeetan entrenatzaile bezala aritu ziren bi kideak ere gehitu nizkien. Beraz, guztira hamaika dira, bi multzotan banatuta, etnografia lan honen baitan erdi egituratutako elkarrizketetan arituriko parte hartzaileak. Jarraian zehaztu ditut euren inguruko datu zehatzago eta guzti (ikus 2.3. taula).

2.3. taula.

Elkarrizketatuen datu soziodemografikoak.

Izengoitia	Adina	Bizilekua	Pilotarekiko lotura
Zuriñe	57 urte	Hernani	Aisialdiko pilotaria
Irati	39 urte	Hernani	Aisialdiko pilotaria
Ainara	43 urte	Hernani	Aisialdiko pilotaria
Ines	60 urte	Hernani	Aisialdiko pilotaria
Gurutze	46 urte	Zizurkil	Aisialdiko pilotaria
Itsaso	30 urte	Asteasu	Aisialdiko pilotaria
Karmele	45 urte	Usurbil	Aisialdiko pilotaria
Jaione	38 urte	Usurbil	Aisialdiko pilotaria
Eli	40 urte	Zizurkil	Aisialdiko pilotaria
Haizea	22 urte	Zubieta	Entrenatzailea eta pilotari federatua
Saioa	24 urte	Alegia	Entrenatzailea, teknikaria eta pilotari federatua

Elkarrizketa hauen iraupenak azaltzen hasita, aisialdiko pilotarienak ez ziren hogeit hamar minutu eta ordu erditik igaro. Entrenatzaileenak, aldiz, luze eta mamitsuagoak izan ziren, ordubeteren bueltakoak, aurrekoen aztergaiei entrenamendu prozesu eta entrenatzaileen jardunari zuzenean zegozkien kontuak ere erantsi nizkielako gai zerrendan, badaezpada ere idatziriko gidoian. Gainera, lehendabizi pilotariei egin nizkien elkarrizketak, 2012ko maiatzaren erdialdetik ekainaren erdira bitartean, eta ekainaren amaiera aldera elkartu nintzen entrenatzaileekin, ikasturteak amaitu eta oso denbora gutxira, aurreko informatzaileen esanen gaineko irakurketa orokorrak eginda eta bertatik datu gehigarriren bat erdiesteko aterik zabaltzea posible izan ote zitekeen hausnartu ondoren.

Elkarrizketak egin ondoren elkarrizketatu bakoitzari izandako solasaldiaren transkripzioa helarazi nion, bertan jasotakoaren gaineko iritzia eskatu eta horien gaineko erantzun eta zuzenketak proposatzeko aukera eskainiz. Modu honetan egiaztapen lanak egitea bermatu nuen, euren iritziaren bidez lorturiko informazioak *feedbacka* ere emanaz.

Elkarrizketa etnografikoak, beraz, behaketa parte hartzaile aldiaren behatzaile rolean jasoriko informazioan sakondu eta nituen uste edo zalantza batzuen gaineko iritzi zehatz eta sakonagoak lortzeko baliagarri izan dira ikerlan honetan, behatze lanaren osagarri eta honekiko bereizgarri, aldi berean.

3.1.2.6. Landa egunerokoa

Etnografoak idazten dituen testuen artean landa egunerokoa izan ohi da subjektiboena. Bertan frustrazio, beldur, irrika eta plazerak agertzen dira. Pertsonalak dira egunerokoak (Guasch, 1997, 47 or.).

Landa ohar eta elkarrizketekiko bereizten duten ezaugarria dokumentu honetan ikerlariaren beraren inplikazioa, zintzotasun osoz, bertute eta akats guztiekin, eta beste

inori erakusteko asmorik gabe islatzen dela da (Woods, 1989, 127-129 or.). Hortaz, ikerketara iristeko aurretiazko xehetasunak, zer harreman duen lan jardunak norbere eboluzio pertsonalarekin, ikerketarekin hasteko saiakerak, sarrera negoziatzean bizitako gorabeherak, akats eta huts egite nabarmenak, lorpen eta sariak, iritzi aldaketak, duda, beldur eta kezka, ikerketak ikertzailearen gainerako bizitzarekin duen erlazioa, etab. ager daitezke landa egunerokoan. Zehaztasun hauek, lehenik eta behin, lagungarri zaizkio norberari eta baita lanaren emaitzak aztertzeke orduan gainerakoei ere, ikerketa, neurri batean, miaketa pertsonal bat baita. Gainera, etnografian, parte hartzean jartzen den enfasia medio, pertsona beste edozein ikerketa moldetan baino modu intentsuagoan barneratu ohi da. Beraz, ezaugarri pertsonalak identifikatzeko lagungarri dira ikerketa eguneroko hauek eta balioeste funtzio bat izan dezakete horrenbestez. Datuak biltzeko eszenen atzean dagoena jasotzen dute egunerokoek, bai parte hartzaileen hautaketan, bai analisi garaian, bai teorizatzean, eta ezaugarri bereizleak dituzte. Lagungarriak dira ikerketa testuinguruan txertatu eta “gorputza” emateko ere.

Bestalde, beste erabilera bat ere izan ohi dute egunerokoek. Etnografia bilaketa lan bakartia ere izan daiteke. Zenbaitetan etnografoak bere pentsamendu berdinak dituen norbaiten laguntza eta konfiantza nahi izaten ditu, bizitzen ari den arazokiko ezagutza eta hautemate ulergarria dituen, baina zenbaitetan ez da posible izaten pertsona hauekin batzea. Aldi bakarti hauetan egunerokoa konfidente bat bihurtu ohi da (Woods, 1989, 127-129 or.). Pentsamenduak orrian idaztea terapia bat izan ohi da, hauek norberaren niaren gainean deskargatu eta zenbaitetan ondoren gertatzen den elkarriketatik pentsamendu berriak sortzen dira, soluzio, hobekuntza eta alternatiba berrien iturburu izan litezkeenak.

Hammersley eta Atkinsonek (2007, 210 or.) ere ildo berean adierazi dute landa egunerokoa ikertzailearen jokabidearen inguruko etengabeko kontakizuna dela, ez landa laneko erregistro aldikoa soilik, baizik eta baita etnografoaren zailtasun eta sentimenduen txokoa ere. Ongizate, herxura, sorpresa, *shock* eta gaitzespen sentimenduak adierazle analitikoak dira. Batetik, sentimenduak kaleratzeak landa lanean zehar garaturiko hartu-emanen berri ematen du. Bestetik, erreakzio pertsonal eta subjektibo hauek eragin zuzena dute onargarritzat hartzen denean, arazotsu edo arrarotzat jotzen denean eta mundutar edo nabarmentzat izendatzen denean ere. Ohikoa da sentimenduetan babesa hartzea eta, beraz, euren agerpena eta eragina aintzat hartzea funtsezkoa da; ahal dela, gainera, idatziz. Etengabekoa da pertsonala eta emoziozkoa denaren arteko elkartrukea, batetik, eta intelektuala denarena, bestetik. Beraz, norbanakoaren erreakzioa eraldatzen doa norberaren ezagutza izan daitekeenaren analisia egin ahal. Eraldaketa honetarako tresna landa egunerokoa da. Zentzu nabariago batean, kontu handiz idatziriko landa egunerokoa etnografo arduratsu batentzat lagungarri da ikerketa diseinua erreparatu eta azaltzeko, gai analitikoaren agerpenerako eta informazioa sistematikoki jasotzeko. Ikerketaren era honetako *historia naturala* erabakigarria da edozein etnografia lanetan (Hammersley eta Atkinson, 2007, 210 or.).

Krane eta Bairdek (2005) aipatzen dute ikerketa lanean zeharreko norbere esperientziaren gaineko kontakizun asko, konfesiozko istorio izendatuak, aurki daitezkeela kirol zientzietako literaturan. Narrazio hauek landa egunerokoetan dute jatorria, ikerlariek euren jardunaren baitako rola eta esperientziak azaldu ohi baitituzte.

Eskenatokietan eta aktoreekin hartu-eman zuzenean hasi baino lehenago egin eta sentitutakoak, behaketa aldian niharduen bitartekoak eta ondoren, datuen analisi, idazketa prozesu eta lanaren amaieraraino bizitakoak jasotzeko baliagarri egin zaidan tresna izan da niretzat ere landa egunerokoa. Gainera, aurrez esan bezala, egindako landa lanaren gaineko zuzeneko informazioa gordetzeko erabiltzeaz gain, barne hustuketarako ere gertu-gertuko tresna izan dut. Izan ere, lasaigarri bezain ernegagarri egin zait nire prozesuko argi-ilunak jaso eta irakurtzea, lanaldi luze bezain amaigabeetako eta kantxako zein bertatik kanpoko egonaldietako inpresio, uste, irudipen eta abarrak bildu baititut “kaxa beltzean”. Gainera, hau neure testua, eta neuretzako bakarrik idatzia zela jakiteak, ez duela nik utzi ezean beste inork honako sarrerarik izango jakiteak, beste inon modu honetara idazten ausartuko ez nintzatekeen kontuak plazaratzeko ahalbidea eman dit, erraietatik orrirako bidea egiten utziz hainbat bizipeni, besteak beste, birao, ezin eta penak (baita tartean pozen bat ere) modu lasaigoan agertzeko aukerari zukua ateratzen saiatuz.

3.1.2.7. Eskenatokiak uztea

Datu bilketaren azken fasea ere iritsi ohi da uneren batean, lehenago edo beranduago eta modu batetara zein bestera, hasiera orok duelako amaiera bat gure bizitzan. Hori dela eta, ikerketa orotan iristen da landa lana amaitzeko ordua. Amaiera hori, ordea, modu ezberdinetan eta arrazoi ezberdinengatik iritsi daiteke. Askotan iturri berrietara iristeko ezina izan daiteke arrazoia edo azken txostenak idazteko muga-data hurreratzea. Zergatia edozein dela ere landa lana amaitzeak eskenatokiak uztea esan nahi du (Hammersley eta Atkinson, 2007, 138 or.).

Taylor eta Bogdanek (2000, 90-91 or.) diotenez ere behatzaile parte hartzaileak ez dira ia sekula ere iristen euren lana amaitu duten sentipenera. Beti geratzen da elkarrizketatzeko pertsona bat gehiago, lotu gabeko hari muturren bat, jorrazteko arloren bat gehiago. Hala ere, ikerlarien gehiengoa iritsi ohi da eskenatokietan ordu asko igaro arren emaitzak gutxitzen doazen puntu batetara. Egoera honi saturazio teorikoa deitu ohi zaio, datuak errepikakor bihurtzen hasten dira eta ez dira ulertze berri garrantzitsuak sortzen. Hori da landa lanari uzteko unea. Garrantzitsuena, ikertutako eskenatoki kopurua bazter utzita, lehen ulergaitza zen zerbait ulertzera iristea da.

Eskenatokietako jardunaren iraupenaren zehaztasunari erreparatuz gero, autore berdinek (Taylor eta Bogdan, 2000, 90-91 or.) adierazi dute landa-ikerketek hilabete gutxiko iraupena edo urtebetetik gorakoa izan dezaketela. Kasurik gehienetan ikertzaileek hilabete batzuk pasa ohi dituzte eskenatoki batean, euren bisita maiztasuna dena dela ere. Ohikoa da eskenatokia sakontasun handiagoz ulertu eta lan-hipotesiak baztertu edo

berraztertzea hasierako hainbat hilabete igaro ostean. Dena lotzeko baliagarri den hari muturrik ez da topatu ohi eremuan denboraldi luzea igaro arte. Zenbaitetan nahikoa da unetxo bat informatzaileek behatzailearekiko zaintza lana apaldu dezaten.

Eskenatokietatik erretiratzeko unearen izaera eta sortu daitezkeen sentimendu nahaspila eta gorabeheren gainean ere leku bat baino gehiagotan idatzi izan da. Behatzaile parte hartzailearentzat pertsonalki momentu zaila izan daitekeela diote. Horregatik, zenbaitetan eskenatokian ikerketa helburuetarako beharrezkoa dena baino denbora gehiagoan geratzen dira behatzaileak.

Landa-eremua uzteko ohiko modua era onean aldentzea da edo banantzen joatea. Hau da, gutxika-gutxika bisita maiztasuna murrizten joatea eta jendeari ikerlana amaierara heltzen ari dela jakinaraztea (Taylor eta Bogdan, 2000, 90-91 or.). Garrantzitsua bezain ideia ona da informatzaileekiko loturak zakartasunez ez moztea, baita hau erraz edo erosoagoa balitz ere. Ikerlana informatzaileekin modu egokian eta etorkizuneko hartu-emanetarako aterik itxi gabe bukatu dadin pisuzko arrazoi ugari daude.

Beste autore batzuentzat (Hammersley eta Atkinson, 2007, 139-140 or.), berriz, eskenatokietatik erretiratzea ez da hain zaila. Orokorrean erlazioa eraturikoak agurtzea dela diote, etorkizunerako hartu-emanetarako aukera zabalik uztea (adibidez, aurrerago datuak eta ondorioak agertzeko), eta, orokorrean, irteera ahalik eta gehien leuntzea. Hauentzat ere eskenatokitik erretiratzeak ez du zertan lanaldian zehar ezarritako hartu-emanekin haustea esan nahi. Etnograforik gehienek euren landa laneko garaitik laguntasun eta ezagutza loturak mantendu ohi dituzte. Zenbaitetan, gainera, denboraldi luzean. Samurtasunez egiten jakinez gero, emozioz beteriko esperientzia izan daiteke irteera. Zenbaitetan eskenatokiko jendearentzat arraroa izango da etnografoa euren munduan ohikoa izango ez dela ulertzea, eta etnografoarentzat ere hala izan daiteke. Maiz gertatu ohi zaio etnografoari eremutik sentimenduak nahas-mahasean alde egitea, baina baita beste zenbaitetan lasaitasun puntu batekin ere.

Goetz eta LeCompteren (1988, 117 or.) esanetan ere ez da beti erraza izaten eskenatokietatik urrundu eta agurtzea. Izan ere, etnografoak kultura batean murgilduta denbora bat igaro duenean, bere rolek eta sorturiko laguntasun harremanek parte hartzaileen eta bere artean menpekotasun sare bat sor dezakete. Horregatik, funtsezkoa da erlazio mota hau kontu handiz gidatzea amaitu beharra dagoenean. Etnografoa bertan egoteak parte hartzaileei aurrez sekula ere ezagutu gabeko erlazio bat ekar diezaieke, estimulagarria, eta irabazi handikoa ere izatera irits daitekeena. Beraz, bere galera tristagarriagoa izan daiteke parte hartzaileentzat ikerlariarentzat baino. Azken hau berriro ere bere kulturara itzuli ohi da, sarri lasaitasun sentimendua lagun eta, noizbehinka, lana amaitu izanak asebeteta. Ondorioz, etnografoak, beste edozein ikerlarik baino kontu handiagoz, eskenatokia eta bere landa lana nola utzi hausnartu beharra dauka, parte hartzaileentzat ez dadin kaltegarri izan.

Nire behaketa aldiaren amaiera, eskenatokietatik erretiratzeko prozesua, ez zen literaturan eskuragarri dauden ildo edo jarraibide batzuekiko oso ezberdina izan, baina beste zenbait adibiderekiko halako hurbiltasunik izan zuenik ere ez nuke esango. Erdibidean kokatzera ausartuko naiz, beraz.

Nire kantzako jardunak “iraungitze-data” ofiziala hasi aurretik zehaztua zeukan, aisialdiko paleta ikastaroen iraupena urrian hasi eta maiatza edo ekainera arte, herri bakoitzeko arduradunek azken erabakia bertako testuingurura egokitzen dute, hala ezarri ohi dute antolatzaileek ikasturte hasieran banaturiko egutegietan. Beraz, nik banekien, eta baita nirekin hartu-emanetan izaniko gainerako kide guztiek ere, udaren atarian amaituko zela udazkenarekin batera ekin nion kantxa eta pilotalekuetan zeharreko abentura. Hori hala izanik ere, ordea, datuen eta bilduriko informazioaren saturazio-maila irizpidea ere erabili nuen lagungarri, justu garai horretarako ez zelako berritasun handiegirik nabari nik behatu eta jasorikoetan. Aurrezarritako eta aurreikusitako datak eta informazioaren asetze-maila elkarren makulu eta osagarri izan nituen eskenatokiak uzteko unean, hortaz.

Eskenatokietako nire jarduna bere amaierara iristen ari zen heinean ni kontziente nintzen ikasturtean zehar alboan izan nituen parte hartzaileak, horietako batzuk ia ezagun izatetik nire laguntasun marraren oinarritik gora igotzen hasiak zirenak, eskertu beharra nuela, behin ere ez zidatelako inolako eragozpenik jarri, saioz saio benetan goxo tratatu nindutelako eta kantzako elkartrukeak gustagarri egin zizkidatelako ni aldarte alaiagoan edo goibelagoan, gorabeheratsuagoan, bertaratu nintzen egunetan ere. Gainera, barruak ere hala eskatzen zidan. Zer egin, non, noiz eta nola egin erabakitzea ez zitzaidan hain erraza egin, ez nuelako aparteko ezer egiterik nahi, baina esker ona adierazteko moduren bat bilatu beharra neukala adierazten zidalako bihotzak, modu xume bezain maitekorrean. Nire sabeleko tximeletak eta pena edo tristezia izpiak ere baziren zerbaiten seinale. Ondorioz, paleta ikastaroetako azken saioetan nik espresuki okasiorako idatziriko bertsoak banatu nizkien kideei, herri bakoitzerako bereziki idatzitako bana, nire esker ona adierazi eta igaro berri ziren bederatzi hilabeteetako elkarren arteko hartu-eman maitasun dosi bat eskainiz amaitu asmoz. Ez naiz sentimenduak erraz azaleratzen ditudan horietakoa, baina idatziz errazagoa zait aurrez aurre eta ahoz baino. Gainera, hiru bertso hauek guztion artean kantatu genituen kontrakantxetan, ondoren elkarrekin tabernara joan eta ikasturteari amaiera mahaiaren bueltan, trago bat hartuz eta mingainak dantzan jarrita emateko. Agur benetan hunkigarriak bizi izan nituen berez hiru horma hotz baino ez daudela diruditen eskenatokietan, oso sentitu eta bereziak. Ez nik bakarrik, ordea, baita parte hartzaile gehienek ere, izan pilotari ala entrenatzaile. Bakarren bat ikusi nuen emoziozko malkoak xukatzen eta nik agerturiko esker ona bueltan ere iritsi zitzaidan, behar eta merezi baino neurri dezente handiagoan, gainera, kasuren batean ni zer eta nola esan ez nekiela uzteraino.

Azken paleta saioetako gorabeheren gaineko xehetasunak eman ondoren, baina, kideekiko hartu-emanaren berri ere eman beharrekoa dela uste dut. Izan ere,

eskenatokitatik uda aurretik erretiratu banintzen ere, horrek ez du esan nahi ordutik aurrera sekula ere Hernani, Zizurkil edo Usurbilgo pilotalekuetan izan ez naizenik edo hernaniar, zizurkildar zein usurbildarrekin inolako elkartrakerik mantendu ez dudarik. Ez da hala izan inondik inora, gainera. Amaieran ateak parez pare irekita utzi eta edozertarako elkarri laguntzeko erabateko prestutasuna mahai gaineratu genituen ikastaroetako emakumeek eta nik, nire datuen azterketa lanean ari nintzela itzultzea beharrezkoa bazitzaidan arazorik gabe egiteko era bermatuz. Horren erakusle, oso noizbehinka, maizago edo bolada luzeagoak igarota, baina eskenatokitara hurrengo ikasturtean zehar bizpahiru bidaia egin nituela, lan kontuak tarteko, baimen informatuak eta etikako txostenerako betebeharrak ardatz harturik, lehenak, 2012ko azaroaren erdi aldean, eta 2013an ere beste inoiz bisitan bertaratu nintzen. Ondorioz, fisikoki pilotalekuetan jarraitzen ez badut ere, ez naiz emakume pilotarien testuingurutik erabat kanpoan sentitzen, hanka eta erdi kanpoan eta oraindik ere erdi bat bertan mantentzen baitut. Saiatzen naiz laguntasuna eta kontaktua mantentzeko irrika elikatzen eta tarteka lagun paletarien partidak ikusi eta animatzera hurreratzen naiz frontoiren batetara.

Gainera, zenbait kide eta informatzailereren bidez, bertan gertatzen denaren eta egiten dutenaren gaineko informazioa jaso ohi dut nolabait, birtualki presentzian baino maizago, zehaztasun eta sakontasun maila ezberdina izan arren, kide batzuekin laguntasun harremana izatearen poderioz. Saiatzen naiz euren berri izaten eta eurak ere arduratzen dira neure jardunaz, jakin-mina agertzen dute ikerketa prozesuaren norabidearekiko ere eta baita nik euren bestelako alorreko ere.

Beraz, behaketako parte hartze aldiari zegokion zuzeneko datu bilketa amaitu eta berez nire eskenatokitako jarduna urrun utzi banuen ere, elkar agurtu ordez “gero arte” bat izan zen eta erretiroa ez da %100ean gertatu, nik nahi ez dudalako eta zenbait informatzailek ere erlazioari eutsi nahi diotelako. Hau, gainera, ez dut uste ikerketa lanerako ere kaltegarria denik, bada ez bada ere informazioa jasotzeko kanalak irekita eta begi zein belarriak zoli jarraitu dudalako.

3.2. Sakontzeko galdeketak

Ikerketa lan honetan erabili dudan beste teknika kualitatibo baten, hau da, elkarriketaren, orokortasunak abiapuntu harturik, bere ezaugarriak eta baliagarritasuna zein diren, kasu honetan zein motatakoaren aldeko hautua egin nuen, sakontzeko galdeketa, eta honek dituen berariazko ezaugarrien aipamena egingo dut atal honetan, lehenengo eta behin elkarrizketa batek zertan datzan definitzetik hasita.

3.2.1. Elkarrizketa

Elkarrizketak definizio ezberdinak jaso izan ditu urteen joanean. Hona hemen hautatu ditudan bi adibide:

“Elkarrizketa bi pertsonaren arteko hitzezko elkartzea da, hitzezko zein ez hitzezko elkarrekintza dituena. Ez da bi pertsona berdinen artean gertatzen, bien arteko rol ezberdintasunean oinarritzen baita. Elkarrizketa gidatzeko ardura nagusia duenari elkarrizketatzaile deritzo eta besteari elkarrizketatu” (Pope, 1979, 64 or.; Rubio eta Varasen aipatua, 1997, 407 or.).

“Elkarrizketa aurrez aurreko hizketaldia da, elkarrizketatu eta ikertzailearen artekoa, zuzena eta bat-batekoa, intentsitate eta kontzentrazio maila jakinekoa, zeinak hizketaldian zeharreko diskurtso logiko eta eraginkorra (efektiboa) ezarritako helburuaren baitara bideratzen duen” (Ortí, 1986, 178 or.; Rubio eta Varasen aipatua, 1997, 407 or.).

Pope eta Ortíren aipuak aztertuz, bertan parte hartzen duten bi pertsonen artean gertatzen den elkarrekintzari eginiko aipamena eta emaniko garrantzia esanguratsua eta aintzat hartu beharrekoa dela uste dut. Izan ere, aurrez aurreko solasaldia izaki, bertan parte hartzen dugunok, elkarrizketatuak zein elkarrizketatzaile edo ikertzaileak, zein rol ditugun ezagutu eta bakoitzaren betebeharrak zehaztea erabat funtsezkoa da teknika hau modu eraginkorrean baliatuko bada. Horretarako garrantzitsua da, beraz, oinarrizko ezaugarriak aztertzea.

Oinarrizko ezaugarri hauek ditu elkarrizketak (Rubio eta Varas, 1997, 408 or.):

- Aurrez aurreko egoeran ematen da, non ikertzailea eta elkarrizketatua soilik dauden.
- Ikertzaileak plazaraturiko asmo batean (ikerketa-helburuak) sostengatzen da hizketaldia.
- Elkarrizketatzaile-elkarrizketatu harremana asimetrikoa da. Lehena da gidari eta agintari, neurri batean ala bestean, elkarrizketan zehar.
- Informazioaren oinarrizko euskarria hitza da, baina ez bakarra.
- Komunikazio-elkarrekintzan finkatzen da elkarrizketaren dinamika. Honen dimentsioak ezagutu eta erabili behar ditu elkarrizketatzaileak.

Rubio eta Varasek elkarrizketari atxikitzen dizkieten ezaugarriak ere oso aintzat hartu nituen lan honen garapenean, aurreko autoreek diotenaren ildo berekoak eta osagarriak baitira aldi berean. Modu honetan, ikerketa helburuetan oinarrituriko informazioa biltzeko banakako edo aurrez aurreko egoerak izan ziren guztiak, hitzetan oinarrituak.

Elkarrizketetan zehar, gainera, elkarrizketatzailearen, nire, xedea informazioa eskuratzea izan zen. Edozein eratako eragin edo balorazioak egiteari muzin egin nion (Scheuch, 1973; Rubio eta Varasen aipatua, 1997, 408 or.). Beraz, hau gidaritzarekin konbinatuz, ikertzaile roletik solasaldiak zuzendu eta bideratu nituen, baina, ez nuen hauetan nire iritzi eta usteen berri eman, komunikazio eta informazioa jasotzeko prozesuari kalte egin baitiezaioke jarrera honek, aurrerago adieraziko dudan bezala.

Elkarrizketa, ordea, ez da bat eta bakarra, oinarria eta irizpide orokorrak berdinak badira ere, dituzten bereizgarrien arabera mota bat baino gehiago baitaude.

3.2.1.1. Elkarrizketa mota

Elkarrizketak sailkatzeko irizpide asko erabiltzen badira ere, helburuaren araberako eta egituraketa mailaren araberako sailkapenari erreparatu eta jarraitu nion azterlan honen garapenean.

Helburuaren arabera hiru motatakoak bereizten dira: elkarrizketa kliniko, orientazio-elkarrizketa geta ikerketa-elkarrizketa (Rubio eta Varas, 1997, 408-412 or.).

Ikerketako elkarrizketa da lan honetan erabilitakoa, elkarrizketatua parte hartzaile edo jakitun den gaiaren edo egoeraren informazio igorlea izaki. Errealitatea aztertzeak talde-egoera edo fenomenoak deskribapen eta azalpena ditu helburu, eta ez zuzenki norbanakoarenak (Rubio eta Varas, 1997, 410-411 or.). Hau hala izanik, elkarrizketatu bakoitzak ezagutu nahi nuen populazio multzoaren ohizko ordezkari lanak burutu zituen.

Elkarrizketa mota honek izaera deskribatzaile eta interpretatzailea du, gai baten inguruko jokabideez gain (egiten dena), honen inguruko balorazio edo pentsamenduak (esaten dena) ere aintzat hartuz. Egiten denaren gaineko esanak biltzean datza (Rubio eta Varas, 1997, 411 or.).

Egiturari dagokionez, berriz, elkarrizketa egituratu edo zuzendua eta irekia edo er-egituratua bereizten dira (Rubio eta Varas, 1997, 414-415 or.). Ikerlan honetan erabili nuena *elkarrizketa irekia* edo *erdi-egituratua* da. Elkarrizketatua bera izan zen protagonista nagusia eta askatasun handiagoa izan zuen bere usteak plazaratzeko, elkarrizketatzaile lez ez nuelako hainbeste zuzendu beren jarduera, ahal nuen heinean ahalik eta gutxien parte hartuz, elkarrizketatua hitz egiten jarraitzera animatuz. Elkarrizketatua askatasunez eta zintzoki jokatzera motibatuz informazio sakon eta arina bildu nuen. Ildo beretik, gaien ordena elkarrizketatuak berak edo elkarrizketan zehar sortutako egoera jakinek ezarri zuten. Ondorioz, elkarrizketa bat baino gehiago burutu nituen eta ez zen derrigorra izan ordena eta galdera berak mantentzea, eta ez nuen hala egin eskenatoki eta aktore ezberdinekin. Egoerak eraginda beharrezkoa izan zenean soilik aurkeztu nituen aurrez prestatutako gaiak, elkarrizketan zehar agertzen ez zirenean edo elkarrizketa moztu edo gairen bat agortzen zenean berriz ere mahairatzeko.

Ez nuen galdera zerrenda itxi bat eduki, baizik eta lagungarri izan nuen gidoi bat, bertan aztergaiak zehatzuz, baina, beti ere eta elkarrizketatuaren arabera, malgutasunez jokatzeko aukerarekin.

Elkarrizketetan arrazionaltasuna eta objektibotasuna alboratuz elkarrizketatuaren ikuspegia, subjektibotasuna, ezagutu eta horretan sakondu nuen, askotan emozio eta usteetan oinarrituriko erantzunak jaso. Izan ere, emakumeen pilotak eurentzat duen esanahia eta egoera euren begietatik ikusteko ahalegin zintzo eta erabatekoa izan zen hau. Horretarako, sakontzeko galdeketak erabili nituen.

3.2.1.2. Sakontzeko galdeketaren definizioa

Ikerlan honetan erabiliriko teknika sakontzeko galdeketarena izan zen, informazioa modurik eraginkor eta zuzenenean eskuratu eta bizipenen ikuskera bertatik bertara jaso asmoz. Hori dela eta, oinarritzkoa iruditu zait bere definizioa eta dituen ezaugarriak zein diren azaltzea lehen-lehenik.

“Ikerketa lan analitiko baterako edo diagnostiko eta tratamendu sozialei laguntzeko burutzen den hizketaldi profesionala da. Komunikazio prozesu bat da eta bertan elkarrengan eragiten dute elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuak. Solasaldi honetan zehar, funtsean, galderak egin eta erantzunak entzuten dira.

Elkarrizketan ikertzaileak informatzailearentzat esanguratsu eta garrantzitsua dena aurkitzea du helburu, bere esanahi, perspektiba eta interpretazioak, euren mundua nola ikusi, sailkatu eta nabari duten”.

(Ruiz-Olabuénaga, 2003, 166 or.)

Ikerlanaren gidari izanik, zerbait jazo ondoren gertaera jakin horien edo egoera zehatz baten baitako kontakizunen bidez jaso nuen informazioa, beraz. Bizipenak kontatu zizkidaten elkarrizketatuek, eta kontakizun hauek, hain justu ere, sakontzeko galdeketaren testuinguruan kokatu dira. Horregatik, eta Ruiz-Olabuénagari jarraituz, esanahi eta interpretazioak azaleratu eta adieraztera bideratu nuen informazioa jasotzeko prozesu guztia galdeketa hauetan zehar.

Banakako izaera, holistikoa eta ez zuzendua ditu sakontzeko galdeketak. Hau da, hizketaldia banaka burutzen da, elkarrizketatuaren esanahien mundua aztertzen da, eta, elkarrizketatzaileak kontrola bere gain badu ere, hau ez da zurruna eduki eta hizketaldiaren garapenari dagokionean.

Laburbilduz, banan-banan egin nituen sakontzeko galdeketak, hitzordu bakoitzean ikertzaile-elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua elkartuz. Bertan, komunikazio-elkarrekintzaren bidez elkarrizketatuen bizipenak jaso eta ezagutzea izan nuen helburu, ikuspegi eta bizipenetan oinarrituriko informazioa jaso, subjektibotasunean oinarrituz,

elkarrizketatua izanik protagonista nagusi, nahiz eta malgutasunez bazen ere gidaritzatua eta kontrol lana nire esku egon uneoro.

3.2.2. Parte hartzaileak

Atal honetan, guztira, hamaika lagun izan ziren elkarrizketatuak. Hautaketa prozesuan xehetasun asko hartu nituen aintzat, bai aukeratuak zein izango ziren erabakitze irizpideak, bai informatzaile kopurua zehaztu eta mugatzeko irizpideak ere. Horrez gain, puntu honetan bertan jorratu ditut hauengana iristeko erabili nituen bideak eta lan jardunean garatutako prozedura ere, elkarrizketatuen ezaugarriak biltzen dituen datu taularekin amaituz.

3.2.2.1. Elkarrizketatuak hautatzeko irizpideak

Elkarrizketatuak gaiarekin lotura zuzen-zuzena dutenak izan ziren, emakumeen pilota gertutik jorratuak eta oraindik ere mundu horretan, modu batera zein bestera, lanean dihardutenak. Hautaketa ahalik eta modurik egokienean egiteko, besteak beste, Vallesen (1997) irizpide hauek hartu nituen aintzat:

- *Nortzuk daukate informaziorik aipagarriena?*
- *Zein dira eskuragarrienak fisikoki eta sozialki?*
- *Zein daude informatzeko prest?*
- *Zein dira informazioa zehaztasunez emateko gai?*

Informatzaileak euren esanguragarritasunean oinarrituz hautatu nituen, beraz, ez irizpide estatistikoen arabera. Nahitako laginketa (*purposive sampling*) egin nuen, betiere informatzaile aipagarri, eskuragarri, prestatu eta zehatzak izanik hautatuak.

Elkarrizketatuen kopuru osoa ezin izan nuen aurrez eta hasiera-hasieratik zehaztu, informazioaren dibertsifikazioa eta saturazioa izan baitziren guztira zenbat pertsona elkarrizketatu mugatzeko adierazleak. Hortaz, elkarrizketak burutzen joan ahala erabaki nuen unean-unean hurrengo norengana jo. Hala ere, partaideen hautaketan aztergai nuen egoeraren baitako aniztasuna aintzat hartu nuen, ikuspegi ezberdinetakoak elkarrizketatuz, hautaketa orekatu baten bidez, ordezkapen sozioestruturala lortuz. Lehengo eta oraingo pilotariak, Emakumea Pilotari egitasmoa abian jarri aurretik (2005ean) 5 urtetik gorako esperientzia pilotutako pilotariak edo euren ibilbide ia osoa Emakumea Pilotari egitasmoa hasi ondoren egindakoak bereizi nituen. Elkarrizketatu guztiak lehiaketa federatuetan aritutakoak edo ari direnak ziren. Herrialdeetasunari dagokionez, berriz, Euskal Herriko lau probintziatakoak ziren: Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Lapurdi, testuinguru eta egitura ezberdinak daudelako tokian tokian erakundeen emakume federatuekiko kudeaketa modua aintzat hartuta. Amaitzeko, informazioaren saturazioari dagokionez, eskuraturiko informazio berriak ikerketako helburuei ekarpenik egiten ez zienean, puntu gorena lortu zela erabaki nuen, sakontzeko galdeketa kopurua bere mugara heldu zela erabaki eta elkarrizketak amaitutzat emanaz.

Elkarrizketatuak hiru multzo ezberdinetan sailkatu nituen, euskal pilotarekiko eta, zehatzago esanda, nesken pilotarekiko izan duten harremana ardatz hartuta:

- Pilotariak: egun oraindik federatuta dihardutenak.
- Pilotari ohiak: noizbait federatuta jokatu zutenak baina jarraitzen ez dutenak.
- Teknikariak: GEPFeko langileak. Emakumeen pilotaren ezagutza daukate.

Pilotari eta pilotari ohiak, gainera, beste irizpide baten arabera ere antolatu genituen:

- Lehengoak: Emakumea Pilotari egitasmoa martxan jarri aurreko aldikoak.
- Oraingoak: Emakumea Pilotari egitasmoa martxan jarri osteko aldikoak.

Banaketa modu honen xedea une historiko ezberdinetan emakumeen pilotaren testuinguruan, eskenatoki eta aktore sozial anitzen babesean, aritutakoen esanak bildu eta aztertzea izan zen, pentsatuz akaso kontaturikoak ezberdinak izan zitezkeela elkarrizketatuaren ezaugarrien arabera.

Honenbestez, guztira bederatzi pilotarik, bost lehengo eta lau oraingo, pilotari ohi batek eta federazioko bi arduradun-teknikarik hartu zuten parte (ikus 2.4. taula 3.2.2.3 atalean).

3.2.2.2. Elkarrizketatuengana iristeko modua

Ikerketa lan honetako parte-hartzaileak lotzeko zuzenean eurekin harremanetan jarri nintzen, ikertzaile moduan, lehenengo unetik bertatik ikerketaren xede eta helburuen inguruko informazioa emanaz. Modu berean, hautatu izanaren arrazoia ere jakinarazi nien, euren informazioak zuen garrantzia azpimarratuz eta erdigunean hori izango genuela adieraziz. Norbanako bakoitzaren esanen konfidentzialtasuna ere hasiera-hasieratik ziurtatu nien.

Parte hartzaileengana heltzeko bideak, nagusiki, bi izan nituen: pilota federazioak eta lotura zuzeneko pertsonak (ezagunak). *Kontaktu pertsona* bidez egin nuen lehen hartu-eman, lehen elkarrizketaz baliatuz, eta bertatik abiatuz “elur-bolaren teknika” edo “katean edo sare bidez egindako laginketa” (Hernández Sampieri, Fernández Collado eta Baptista Lucio, 2006) erabiliz atera nituen ondorengo elkarrizketatuak, beheko irudian adierazi moduan.

Mikel → Eneko → Ibone eta Eider → Itxaro

2.2. irudia. Elkarrizketatuengana iristeko kontaktu pertsonak eta ordena.

Mikel Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Falkultatean irakasle da, GEPFeko presidenteorde ohia eta pilotaria. Bera izan zen Enekorengana iristeko bidea erraztu zuena. Bigarren hau GEPFeko zuzendari teknikoa da 1999tik, Emakumea Pilotari egitasmoaren diseinatzaile eta bultzatzaile nagusia eta egun federazioko gerentea ere bai. Hori dela eta, lehen elkarrizketa batetik ikerlan

honetan parte hartzeko profila betetzen zuten pertsonen zerrenda bat atera genuen, elur-bolaren teknika erabiliz eurengana iristeko modua eginaz. Zerrenda horretan agertzen zirenak aurrez 3.2.2.1. puntuan zehazturiko Vallesen irizpideetan eta euren esanguragarritasunean oinarrituta sailkatu eta hautatu nituen, azken aukeraketa baten bidez.

Telefono edo/eta e-posta bidez egin nituen elkarrizketetarako proposamen eta gonbidapenak behin elkarrizketatuen hautaketa egin ondoren, zuzenean elkarrizketatuengana joz. Elkarrizketaren gutxi gorabeherako iraupenaren berri eman nien, egun, ordu eta lekuak adostearekin bat. Baldintza guztiak betetze aldera, elkarrizketatuen lehentasunekiko erabateko malgutasuna izan nuen, beraien lasaitasun eta pribatutasun maila ahal genuen ahala mantenduz, euren testuinguruan eta eroso zeuden inguruan elkarrizketatuz. Era honetan, gainera, askotan elkarrizketatuentzat traba eta neke iturri bihurtzen diren desplazamenduak ekidin nituen.

3.2.2.3. Elkarrizketatuen zerrenda eta datuak

Elkarrizketatuak izan ziren hamaika aktoreen datu soziodemografikoen berri ematen da ondorengo taulan (ikus 2.4. taula), eta baita emakumeen pilotarekin daukaten harremanaren berri ere.

2.4. taula

Elkarrizketatuen datu soziodemografikoak.

Izengoitia	Adina	Bizilekua	Ikasketak	Lanbidea	Pilotarekiko lotura
Eneko	47	Hernani	Gorputz Hezkuntzan lizentziatua	GEPFeko zuzendari teknikoa eta gerentea	Teknikaria
Itxaro	42	Hernani	Administrarritza	Kirol dendaria	Pilotari ohia
Ibone	45	Hernani	Informatikan lizentziatua	Irakaslea	Pilotaria eta entrenatzailea
Eider	33	Anoeta	Gorputz Hezkuntzan lizentziatua	GEPFeko teknikaria	Pilotaria, entrenatzailea eta elkarteko ordezkaria. Teknikaria
Olaia	30	Azkoitia	Informatikan lizentziatua	Informatikaria	Pilotaria eta elkarteko ordezkaria
Haizea	21	Zubieta	Gizarte Hezkuntza	Antropologia Ikaslea	Pilotaria eta entrenatzailea
Itziar	33	Soraluze	Heziketa Bereziko magisteritza	Irakaslea	Pilotaria
Nekane	38	Sarriguren	Osasun teknikaria	Osasun teknikaria	Pilotaria, entrenatzailea eta elkarteko ordezkaria
Janire	25	Mallabia	Gorputz Hezkuntzako goi mailako modulua	Kirol begiralea	Pilotaria eta entrenatzailea
Nora	22	Iruñea	Gorputz Hezkuntzako goi mailako modulua	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikaslea	Pilotaria eta entrenatzaile ohia
Ekiñe	31	Donibane Lohitzune	Irakaskuntza	Irakaslea	Pilotaria eta entrenatzailea

Hamaika elkarrizketatuen profilek badituzte antzekotasun batzuk, aurrez zehaztu bezala. Adinetik hasita, ordea, ezberdintasunak eta aniztasuna nabariak dira: 21 eta 47 urte bitartekoak dira. Bizilekuei erreparatuz, aldiz, ikus liteke Hernani ingurukoak direla gipuzkoarren bi herenak eta hori ez da kasualitatea, bertan baitago errotuen emakumeen pilota. Herrialdeei dagokienez, zazpi gipuzkoarrak dira, bi nafarrak, bat bizkaitarra eta beste bat lapurtarra. Gorputz Hezkuntzan lizentziatura dutenak pilota munduan ari dira lanean, teknikari, eta gainerakoek, aldiz, euren aisialdiko jarduera lez daukate harremana pilotarekin, oso estua den arren kasu bat baino gehiagotan, ordu asko eta asko eskaintzen diotena. Izan ere, euren eguneroko ogibidetik aparte, izan dendari, informatikari, irakasle, teknikari edo ikasle, adibidez, aniztasun horren baitan emakumezkoen pilotarekiko berdintasuna ere aipatu beharrekoa dela uste dut, aztergaiari benetako arreta eta dedikazioa diotelako guztiek ere.

3.2.3. Elkarrizketen edukia

Elkarrizketak egin ahal izateko, elkarrizketatuak hautatu eta hauekin hitzorduak lotzarekin batera, eta lan horretan hasi aurretik ere, elkarrizketaren nondik norakoak ere zehaztu genituen, bai jorratuko ziren arloak definituz eta baita bertan erabiliko ziren baliabideak zein izango ziren ere. Izan ere, egindako sakontzeko galdeketetan gidoi bat erabili nuen hizketa-gaiak, neurri batean, gidatu eta bideratzeko, horretarako beharra zegoen kasuetan. Horrez gain, behin elkarrizketak amaitzean landa-eguneroko bat ere osatu nuen hitzordu bakoitzean jaso eta jazotakoaren bilketarako, hitzeko esanen osagarri.

3.2.3.1. Gidoiaren elaborazioa

Sakontzeko galdeketa bat burutu eta bertan ahalik eta informaziorik baliagarri eta esanguratsuen jaso ahal izateko funtsezkoa da jorratuko diren arloak eta hizketa-gaiak zerrendatzea. Helburu horrekin gidoi bat eratu nuen elkarrizketetarako.

Gidoia sortzeko honako irizpideak aipatu izan dituzte (Rubio eta Varas, 1997, 425 or.):

- *Orokortasunetik zehaztasunera.*
- *Gutxien konprometituenetik konfidentzialenera.*
- *Inpertsionalenetik singularrenera.*
- *Gai ez esanguratsuenetik garrantzitsuenetara.*
- *Jokaeren deskripziotik interpretaziora.*

Aurrez aipaturiko bost irizpideak oso garrantzitsuak direla jakitun ere, kasu honetan, batzuk hautatu eta hobetsi nituen, testuinguruaren ezaugarriak aintzat hartuz. Izan ere, sakontzeko galdeketei gidoiaren hasierako atalean jasoriko datu soziodemografikoekin eta hurbilketa moduan eginiko galdera orokor pare batekin sarrera eman banien ere, zuzenean gai esanguratsuen eta informatzaileen sentipen eta interpretazioetara bideratu ohi genituen elkarrizketak, eta elkarrizketa osoan zehar mantendu zen joera hori.

Gainera, galderak zehatzak, konfidentzialak eta singularrak izan ziren ia hasieratik, hain justu ere elkarrizketatuen subjektibotasuna jasotzera bideratutako ikerlan bat baita hau.

Hori hala izanik ere, ordea, gidoiaren sorreran oso kontuan izan behar da nola eta nondik hasi eta baita galderak zein ordenatan eta nola antolatu ere, gero elkarrizketaren garapenean eragin zuzena izango baitute. Gainera, erabiliko den hizkuntza eta galderen formulazioa zaintzea ere oso garrantzitsua da, elkarrizketatuaren ezaugarrietara egokitua eta ulermen arazorik eragingo ez duena izanik.

Gidoi honen ordena ez da zehatz-mehatz eta nahi eta nahi ez errespetatu beharko, ordea, elkarrizketatuarena izango baita ekimena eta protagonismoa, elkarrizketatuak ahalik eta gidari lan gutxiena eginez, informazio ahalik eta aberatsena eskuratzeko.

Azterlan honetarako bi gidoi ezberdin osatu eta erabili nituen, elkarrizketatuaren profilaren arabera. Lehena teknikariei zuzendurikoa (antolaketara bideratua, kanpoko ikuspegia jasotzeko) eta bigarrena, aldiz, pilotari zein pilotari ohientzako (bizipenak eta euren esperientzia jasotzera bideratua).

Gidoiek, kategorizazio bidez, multzokatuta zituzten galderak, jorratzen zen alorraren arabera hain justu ere. Horretarako honako atal hauek zeuden ezberdinduta:

- Elkarrizketatuaren datu pertsonalak.
- Galdera orokorrak (hurbilketa).
- Dimentsio soziala.
- Dimentsio kulturala.
- Entrenamendua-lehiaketa.

Dimentsio sozialean gizarte ikuspegiarekin, testuinguruarekin eta harremanekin loturiko galderak ziren nagusi, dimentsio kulturean kultura alderdiarekin erlazionatutakoak eta entrenamendua-lehiaketan, berriz, izenak berak adierazten duen moduan, entrenamendu eta lehiaketarekin loturikoak. Atal hauetako bakoitzean beste azpi-atal batzuk ere banatu nituen (ikus III. eranskina).

3.2.3.2. Bestelako baliabideen erabilera

Gidoiaz gain, landa-eguneroko bat ere osatu nuen, elkarrizketatu bakoitzarekin bana. Bertan, elkarrizketetan zehar nik ikertzaile rolean bizi izandako eta jasotako inpresioak agertzen ditut, betiere egoerari berari eta elkarrizketatuaren egoerari erreparatuz idatziak. Lan hau elkarrizketa amaitu ondoren, bakarrik nengoela, egiten nuen, oraindik ere sentipenak eta bizipenak berriak nituenean, ahalik eta detailerik gehienak aintzat izateko asmoz. Eguneroko honek inpresio eta burutazioak jasotzen ditu eta hitzez jasoriko esanen osagarri oso interesgarri eta baliagarria izan zait, grabagailu batean jaso ezin dena jasotzen baita bertan, azaletik barruragoko sentipen eta bizipenak.

Landa-eguneroko horretan 1. elkarrizketan eta 2. elkarrizketan edo berrikustean jasorikoak bereiz daitezke, unean uneko inpresio eta balorazioak, testuinguruaren berri jasotzeko lagungarriak eta ezinbestekoak.

3.2.4. Elkarrizketen dinamika

Behin sakontzeko galdeketa bat abian jartzeko xehetasun guztiak zehaztu ostean, bai lagina nork osatuko duen eta bai nolako egitura izango duen galdeketak, bertan jarraituko den dinamikaren inguruko zehaztapenak ematea lagungarri izango da ikerketa lan hau ulertzeko. Horregatik, elkarrizketetan baliaturiko estrategia eta elkarrizketatzaileak zein ezaugarri izan behar lituzkeen eta zein dituen zehaztuko dut puntu honetan.

3.2.4.1. Elkarrizketak burutzeko lekuak hautatzea

Elkarrizketa egingo den lekuak, bai non, bai nola eta baita zein egoeratan ere, garrantzia handia du eta eragin zuzena izan lezake azken emaitzan, hau da, ikerketa-helburuen betetze mailan. Hori dela eta, tentu handiz burutu behar da aukeraketa hau.

Giro erlaxatu eta atsegina izan behar du elkarrizketa-lekuak, informatzaileari eragingo ez dion toki bat hautatuz, eroso (hotsik gabea, argitasun egokia, beharrezko altzariak, etab.) eta lasaia (jendearen etengabeko sartu-irtenik gabea edo telefono deiek oztopatuko ez dutena). Garrantzia berezia du, aldi berean, beste inor entzuten edo begira ez egoteak, elkarrizketan eragina izan baitezake (Rubio eta Varas, 1997, 426-427 or.).

Beraz, aurrez aipaturikoa aintzat hartuz, eta elkarrizketatu bakoitzaren testuinguruari eta mugikortasunari ere erreparatuz, ondorengo taulan (ikus 2.5. taula) zehaztu ditut erabilitako lekuak:

2.5. taula.

Elkarrizketa lekuen zerrenda.

Izengoitia	1. elkarrizketa-lekua	2. elkarrizketa-lekua
Eneko	Donostiako Kirol Etxea	Donostiako Kirol Etxea
Itxaro	Plaza Berri (Hernani)	Plaza Berri (Hernani)
Ibone	Gunea taberna (Hernani)	Oski taberna (Hernani)
Eider	Bere etxea	Bere etxea
Olaia	Bere etxea	Bere etxea
Haizea	Zubietako errebote plaza	Zubietako errebote plaza
Itziar	Urretxuko Kultur Etxea	Bere etxea
Nekane	Bere etxea	Urbasako txabola
Janire	Mallabiko pilotalekua (bulegoa)	Mallabiko pilotalekua (bulegoa)
Nora	Fakultatea (Gasteiz)	Zarautz
Ekiñe	Donostiako Kirol Etxea	E-postaz

Elkarrizketa-leku guztien izaera berdina izan ez arren, guztietan bete ziren lasaitasun, erosotasun eta egokitasun baldintzak, elkarrizketatu zein elkarrizketatzailearen arreta desbideratuko zuten traba edo oztoporik ez baitzen izan. Tokia, beraz, ez zen eragozpen izan eta ez zuen inongo trabarik eragin hautatutako gune bakar bateko testuinguruak ere.

3.2.4.2. Elkarrizketetako estrategia

Elkarrizketetan zehar erabili nuen strategiaren baitan ikerketa aurkezteko modua, elkarrizketatzailearen asmoa eta elkarrizketaren erritmoaren gainean jardungo naiz atal honetan. Izan ere, hauek ere eragin zuzena dute jasotako informazioan, ondorioz, azken emaitzan eta, hori dela eta, irizpideak zehaztu eta aintzat hartzea benetan garrantzia handikoa da.

3.2.4.2.1. Ikerketaren aurkezpena eta elkarrizketatzailearen asmoa

Elkarrizketaren hasieran ohiko edozein gairen inguruan hitz egin ohi genuen, une horretara zein testuingurura egokitua eta egokia betiere, ondoren elkarrizketatuari elkarrizketaren zergatiak agertu eta galdera orokorrak eginaz. Izan ere, hasierako uneetan oso garrantzitsua da informatzailea lasai egotea, konfiantza, zintzotasun eta konfidentzialtasun giroa sortuz. Solasaldiak pilotaren inguruko euren gorabeheraren baten inguruan edo euren uneko ibiliaren inguruan hasi ohi genituen. Gai hauek, ordea, normaltasunez plazaratzen ziren, elkarrizketatuak eta elkarrizketatzaileak, nik neuk, aurrez elkar ezagutzen genuelako eta konfiantza maila batetik abiatzen ginelako, alde bateko zein besteko esanen zein jokabideen zintzotasuna eta naturaltasuna agerian utziz.

Elkarrizketatzaileak jokatzeko duen rola funtsezkoa da eta elkarrizketatuarengan zuzeneko eragina du. Horrenbestez, entzuteko gaitasuna eta adeitasuna izan nituen, elkarrekintzan kideak esandakoen inguruan nire interesa agertuz, hitzezko zein ez hitzezko komunikazioaz baliatuz. Elkarrizketatuak sentimenduak edo arazoren baten berri agertzean ere komenigarria da ikertzaileak elkartasuna adieraztea, ulermen keinu zein hitzen bidez. Horretan ere egin nuen nire ahalegintxo solasaldien baitan.

Elkarrizketetan zehar harreman pertsonala ezarri nuen solaskideekin, hasieran lasai-lasai, galdera ez zuzenduen bidez, elkarrizketatuak garrantzia zeri ematen zion aztertuz hizketaldia ikerketa helburuetara erabat bideratu aurretik. Aurrera egin ahala esanahiei gertaerei baino garrantzia handiagoa eman ohi nien, sentimenduei ezagutzei baino handiagoa, interpretazioei deskripzioei baino handiagoa, eta elkarrizketatua pertsona grinatsu, partidista eta konprometitutzat hartu nuen, objektibotasun eta neutraltasunetik urrun (Ruiz-Olabuénaga, 2003).

3.2.4.2.2. Elkarrizketaren erritmoa

Elkarrizketak eta ikertzaileak izandako asmoak zehaztu ondoren, eta honekin harreman estua duenez, elkarrizketak zer nolako erritmoa izan behar duen erabaki eta ahalik eta modurik onenean kudeatzea ere komeni da. Sakontzeko galdeketetan zehar elkarrizketatuak izan ziren erritmoa ezarri zutenak eta elkarrizketatzaileari hau errespetatzea egokitu zitzaion, beharrezkoa izan zen kasuetan soilik bizkortu edo motelduz.

Elkarrizketaren hasieran azaleko galderak, orokorrak eta irekiak egin nituen. Geroago, inbutuaren sistema erabiliz, galdera pertsonal, barru-barruko (*íntimo*), zehatz eta konprometituagoak plazaratu nituen. Horretarako, elkarrizketatzaileak sentiberatasuna eta oldarkortasun gehigarria izan behar ditu. Lehena mezu guztiak bildu eta esanguratsuenak hautatzeko. Bigarrena, aldiz, esanahien erdigunera heldu eta bertara heltzea eragozten duten oztopoak gainditzeko da lagungarri. Honekin batera, ordea, ezinbestekoa da harmena (*receptividad*) ere gehitzea, jasotzen ari den informazioaren, egindako interpretazioen eta egoerari emandako zentzuaren berri agertuz (Ruiz-Olabuénaga, 2003, 181-182 or.).

3.2.4.3. Elkarrizketatzailea

Elkarrizketatua ondo hautatzea bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da elkarrizketatzailea ere ezaugarri eta dohain jakin batzuk dituen izatea, ikerlana azken geltokira errailen gainean helduko bada.

Hori hala izanik, emakumeen pilotarekin harreman zuzen-zuzena izan dut elkarrizketatzaile eta ikertzaile lanetan, azterlan honetan nik bete baititut bi zereginak. GEPFeko teknikari ohia naiz, hiru urtean Emakumea Pilotari egitasmoan buru-belarri lanean ariturikoa, 2010eko irailera arte, eta oraindik ere pilotarekin harreman estua mantentzen dudana. Izan ere, pilotari federatua ere izan naiz bost denboraldiz eta Emakumea Pilotari egitasmoko komunikazio arduraduna ere bai 2012ko uda arte, federazioarekin modu estuan kolaboratuz. Nire ezaugarriak aintzat harturik, hortaz, gaur egun emakumeen pilotaren inguruan, bai Gipuzkoan eta baita Euskal Herri mailan ere, gertatzen den guztiaren berri bertatik bertara eta modu zuzenean jasotzen dudala nabari da, “nirea” ere badela aztergai ditudan eskenatoki eta aktoreen txokoa, eta ikerlan honetarako lagungarri suertatu zait, ez dudalako ahalegin berezirik egin behar izan informazio gehigarriaren bila, oso gertuko mundua baita niretzat, nire izaeraren zati ere bai baita hein batean emakume pilotariarena.

Elkarrizketatzaileak izan beharreko ezaugarriak dagokienez, komunikazioa errazteko zeregina izan behar duenez, sor litezkeen zailtasunak baztertu eta estrategia mesedegarriak indartzea dagokio. Horretarako, komunikazio-trebetasun ezberdinez baliatu nintzen (Rubio eta Varas, 1997, 422-425 or.):

- Enpatia: elkarrizketatuarekiko interesa eta errespetua agertuz, ulermen keinuekin batera.
- Mintzaera eta ez-hitzezko komunikazioa: hizkuntza eta posturak zaindu eta elkarrizketatuen ezaugarrietara egokitu. Elkarrizketatuari aurpegira begiratu.
- Isiltasuna, animatzeko estimuluak, azalpenak, laburbiltzeak, oihartzuna, kateatzea, hautaketa, lapsusa eta era honetako trebetasunak ere behar bezala erabili beharko ditu, betiere elkarrizketari laguntzeko asmoz.

Horrez gain, ikerketaren esparruko puntu batetik besterako trantsizioa egiteko garaian, gai aldaketa bultzatzea beharrezkoa bazen, arazoak ekiditeko eta ez bazen elkarrizketatua gai batetik bestera bere kabuz igaro, garrantzitsua izaten da elkarrizketatuak aurrez esandako zerbaiti heldzea, funtsezko hiru elementurekiko sor daitezkeen arazoei konponbide tekniko bat eskainiz: ikerketa nahiak osatu eta gaia fokalizatzea, *rapporta* zaintzea eta ez-zuzendua izatea (Valles, 2002, 124-125 or.).

Malgua izan behar da oso jokabidea, elkarrizketatuaren ezaugarrietara egokituz. Kontuan izan behar da, hala eta guztiz ere, elkarrizketatzailearena dela kontrolatzeko ardura, elkarrizketako hainbat alderdiren baliagarritasuna frogatzea berari baitagokio: “aipu eta datu deskriptiboak, inkontzientzia eta anbiguotasuna, idealizazio eta ihesak, interesa eta nekea eta sen ona” (Ruiz-Olabuénaga, 2003, 186-187 or.).

Ikertzaileak bere baitan zenbait ezaugarri berezi eta dohain izatea ere beharrezkoa da helburuak ahalik eta modurik eraginkor eta argienean lortzeko (Kvale, 1996, Vallesen aipatua, 2002, 97 or.):

- 1) *Gaiarekiko ezagutza*
- 2) *Izaera egituratzailea (hasieran, elkarrizketa aurkeztean eta elkarrizketaren dinamikan)*
- 3) *Argia izatea*
- 4) *Adeitasuna*
- 5) *Sentibera izatea*
- 6) *Irekia izatea*
- 7) *Gidaritza*
- 8) *Ikuspegi kritikoa*
- 9) *Memorizatzailea izatea*
- 10) *Interpretatzeko gaitasuna*

Horrez gain, une jakin batean gidoia alboratu eta bertatik kanpora irteteko ahalmena ere izan behar dira, elkarrizketatuari jarraituz, baina betiere berriz ere aurreko puntura itzultzeko adinako asertibitatea edukiz eta elkarrizketaren kontrola ziurtatuz. Honetaz ere baliatu nintzen uneren batean, berriro ere aztergaietara itzultzen amaituz, inolako asaldurarik gabe utziz solasaldiari bere bidea egiteko modua.

Elkarrizketa bat, ordea, ez da azken galdera egin eta erantzuna jasotzean amaitzen. Izan ere, behin elkarrizketa amaitzean sortzen den “post-elkarrizketa informala” baliagarria

izaten zitzaidan oso elkarrizketatuek zituzten inpresioen inguruan hitz egin eta beren iritziak ezagutzeko, behin mikrofonoa itxi eta grabagailua itzali ostean. Modu honetan, elkarrizketatuek aurrez izan zitzaizketen errezeloak uxatzeko ere bidea irekitzen nuen (Valles, 2002, 125-126 or.) eta testuinguru egokia sortzen nuen oso elkarrizketatuarentzat, etxeak eta lagunkoia.

3.2.4.4. Datuen erregistroa

Pilotari federatuekin izaniko hizketaldietako informazioa jaso eta gordetzeko, audio grabagailu digital baten bidez burutu nuen datuen erregistroa. Beraz, elkarrizketatuarengan errezelarik piztu ez zedin hasieratik baimena eskatu eta mahai gainean, bistan, egon ohi zen gailua denbora guztian zehar. Gainera, elkarrizketa formala hasi aurretik baimena eskatu ohi nion informatzaileari, jakinaren gainean egon zedin, eta ea eragozpenik bazuen galdetu. Azterlan honetan parte hartu duten guztiek abegitsu jokatu zuten eta ez zuten oztopo edo trabarik izan *REC* botoi gorria zapaltzeko baimena emateko.

Elkarrizketako galderez gain, datazio (data, lekua eta baldintzak), testuinguru (pertsona eta egoera) eta datuak interpretatzeko lagungarri izan ziren gainerako gai aberasgarri guztiak ere bildu nituen grabaketetan.

Elkarrizketen grabaketa lanetarako Olympus VN-2100PC grabagailu digitala erabili nuen eta transkripzioetarako Express Scribe 5.14 – NCH softwarea eta Word testu prozesatzailea.

3.3. Dokumentuak

Esperientzia zuzena neureganatu eta eskenatokiaren bertan bilduriko informazioa izan arren behaketa parte hartzaile eta sakontzeko galdeketetarako oinarri-oinarrizko lehengaia, beste zenbait metodo eta ikuspegi lagungarriak izan daitezke informazio honekin batzean. Triangulazioa ikertzailearen joeretatik babestu eta informatzaile ezberdinengandik jasoriko informazioa erkatu eta kontrolatzeko modu bat da. Beste era bateko datu mota eta informazio iturrietatik edatearen poderioz, behatzaileek eskenatoki eta ikergai diren pertsonen inguruko ulermen sakon eta argiagoa eskura dezakete. Horregatik, ikerlariak dokumentu historiko eta publikoak ere aztertu ohi dituzte eskenatokiaren gaineko ikuspegi zabalagoa lortzeko (Taylor eta Bogdan, 2000, 91-94 or.).

Dokumentu ezberdinen azterketak duen garrantziaz ohartu eta hauek eskuratu eta aztertzeko beharra zein grina lagun, ikerlan honetarako ere erabili nituen erakundeetako hainbat dokumentu. Hauek batez ere gaur egungo egoeraren berri ematera bideratuta daude, besteak beste Emakumea Pilotari egitasmoko sorrerako txostenak, bileretako aktak, hedabideetako albisten bilduma txostenak, egitasmoren gainean GEPFen

eskuragarri dagoen dokumentazioa (kartelak, aurkezpenak, bideoak, aktak, etab.), Gipuzkoako emakume pilotarien parte hartzearen gaineko zifrak eta gisa horretako agiriak arretatsu aztertuz. Izan ere, testuinguru askotan ekoizten dute erakunde eta taldeetako kideek informazio idatzia. Ikerlariarentzat aipagarriak diren dokumentazio materialaren aniztasuna izugarria da. Dokumentu hauek informaletatik hasi eta formal edo ofizialenatarainokoak izan daitezke (Hammersley eta Atkinson, 2007, 177 or.). Krane eta Bairdek (2005) dokumentu hauen izaeraren inguruan diote, azterlanaren testuinguruaren arabera, talde batentzat, talde baten gainean edo talde batek idatziak izan daitezkeela testu hauek. Izan ere, talde sozial horien gaineko gai eta gertakari garrantzitsuak azpimarra ditzakete, talde horren inguruko ulermena indartzea lagunduz aldi berean.

Dokumentuen neurrizko erabilera ikerlanerako babesgarri dela dio Woodsek (1989, 105 or.) ere. Bere arabera egokiena ia-behaketa (*cuasi-observacional*) tresnatzat hartzea da, ikerlariaren ordezkotzat izanik honentzat fisikoki iristea zaila edo ezinezkoa den gune eta momentuetarako. Erabiliriko metodo posibleen aukera egitean ere zenbaiten ondorio eta beste zenbaiten bide-erakusle izaera ere ematen die. Horri lotuta dio, halaber, ikuspegi kualitatiboa oso berezia dela, informazioa baliagarria den kasuetan ere beti izango delako beharrezkoa sorrera-baldintzen arabera ezartzea testuinguruan.

Bizimoduen inguruko ikuspegi soziologikoak aipatuz, gainera, Hammersley eta Atkinsonek (2007, 179 or.) adierazi dute dokumentu iturri hauek ikuspegi feministaren araberrako konpromisoak azaltzeko balio dutela. Izan ere, emakumeen eta beste zenbait zapaldutako taldeen isilduak diren ahotsak errekuperatzeko tresna baliagarriak dira. Horregatik, hainbat ikerlari feminista pertsonala eta soziala dena batzen diren elkargunean oinarritzen dira.

Aurrez esanikoaren ildotik, ondorioz, jarduera sozialak idatzizko esanahi soziala jasotzen duten inguruetan daudela ondorioztatu daiteke. Ez da derrigorra hausnarketa sakonegiak egitea idatzizko dokumentuak idaztea eta irakurtzea zein sarkorra den oroitzeko. Askotan material idatzi pila bat izaten da eskura eta hau ikerlanerako balio neurtezineko iturria izan daiteke. Beraz, dokumentuek etnografoari informazio iturri eta aztergai sorta handia jartzen diote eskura.

Nire ikerlan honetarako lagungarri, argigarri eta aberasgarri izan diren dokumentuak batez ere Gipuzkoako Euskal Pilota Federaziotik jasotakoak izan dira. Guztiak ere gaur egungo testuinguruaren berri ematen duten dokumentuak dira, ikerketa eremua ere gaurkotasunera bideratu dudalako kasu honetan. Baliabide hauek eskuratzeko prozesua federazioko teknikariek bideratu zidaten, niretzat funtsezko izan zitezkeen dokumentuak bilduz. Horretarako, alde batetik, Emakumea Pilotari egitasmoaren sorrera, eboluzio eta egungo egoeraren berri ematen dutenak, bertako Emakumearen Batzordeko bileretako aktak eta baita eskaintzen dituzten ikastaroetako kartel, eskuorri, egutegi eta deialdien berri jasotzen dutenak ere jaso eta aztertu nituen. Bestalde, emakumeak eta pilotarekin, eta baita kasuren batean kirolarekin ere, loturik zeuden beste iturri batzuetako argibide

eta txostenak ere erabili nituen esku artean, prentsan kaleraturiko albisteen txostenak, besteak beste.

3.4. Eztabaida-taldea

Teknika honen erabilera ez zen nire hasierako lan-egitasmoaren baitan agertzen, baina arian-arian ikerketako ildo bat, ardurez eta amatasunaz diharduena (ikus 5. kapitulua), parte hartzaileekin zuzenean bildu eta sakonago, zehaztasun handiagoz, aztertu beharra sentitu nuenez, hutsune eta ahultasunak zituela iritzita, horrek hala egitera bultzatu ninduen. Eztabaida-taldea sortzea ustez informazio zehaztasunik ezaren ondorio izan zen, beraz. Teknika honen aldeko hautua egin nuen kontzienteki, berau hobetsiz sakontzeko galdeketen aurrean, iritzi kontrajarriak eta elkarren osagarriak ere banituelako aurrez jasoriko datuetan. Horregatik, mahai beraren bueltan ezaugarri ezberdinak dituzten emakumezkoak solasean aritzeak informazio aberatsagoa jasotzea ahalbidetuko zidala erabaki nuen. Gainera, eztabaida-taldearen bidez kideen esanek elkarri eragitea ere izan zen nire asmoetako bat eta ez bakarkako sakontasuna. Jarraian puntuz puntu jarraituriko urrats eta prozedura guztien gaineko informazio xehatuagoa agertuko dut, taldean eginiko elkarrizketa honen izaera agertzetik hasita.

Eztabaida taldeak “*interes-arlo zehatz baten gaineko informazioa eskuratzeko burutu eta arreta handiz prestatzen diren berbaldiak dira*” (Krueger, 1988, 24 or.). Gainera, autore berak dio “*eztabaida-taldearen helburua parte hartzaileen euren aitortpenak lortzea dela*” (Krueger, 1988, 28 or.), taldea osatzen duten kideen artean elkarrengina bultzatuz eta modu honetan bestela akaso zailagoak izango zitezkeen ideia eta datuak lortzeko aukera sortuz. Eztabaida-solasaldia du ardatz ikerketa teknika honek, ez liskarra edo ika-mika bultzatzea, berezko esanguradun solasaldia sortuz eta ez mugatuz informazioa biltze hutsera (Domínguez eta Dávila, 2008). Taldean egindako berbaldi hauen ezaugarriak zehaztean, Morgane (1988, 32 or.) abantaila batzuk aipatzen ditu, gidatzeko errazak izatea, baliabide askorik gabe burutzeko aukera eta gaiak miatzeko eskaintzen duten aukera, besteak beste. Canales eta Peinadok, berriz, honako ezaugarriak zerrendatu dituzte (1998, 295 or.):

- 1) *Taldea ez da talde eztabaidaren aurretik eta ondoren.*
- 2) *Izaera artifiziala du.*
- 3) *Ikertzaileak bildu duelako izan da.*
- 4) *Garrantzitsua da partaideek elkar gehiegi ez ezagutzea hizketarakoan interferentziak ekiditeko.*
- 5) *Eztabaida-taldeak lan bat burutzen du.*
- 6) *Helburu bat lortzeko sortu da.*
- 7) *Bi poloren arteko tentsioak osatzen du: lana eta hitz egiteko plazera.*
- 8) *Partaideek hitz egiteko eskubidea erabiltzen dute eta eskubide hori taldeko elkartrukeak arautzen du.*

Diskusio-taldeak bizi dugun errealitate sozialaren ispilu izaten dira, taldearen berezkotasuna interesgarri izanik. Bertan emandako aukeratik sortuko da talde solasaldiaren prozesua eta honek eragingo du ondoren emango den edukiaren analisisa ere. Hizlariak, euren ideiak agertu eta euren artean jardunda, hizketagaiaren inguruko beraien bizipen, pentsamendu, sentipen eta jarrerak agertuko dituzte, abiapuntu euren esperientzia hartuz eta informazio baliotsu eta garrantzitsua sortu. Horregatik, hizketaldi hauek irekiak eta gutxi samar egituratuak izan ohi dira.

3.4.1. Parte hartzaileak

Eztabaida-taldeak osatuz egindako ikerketa baten diseinuari dagokionez, Rubio eta Varasek ohartarazi dute (2004, 391 or.) ez dagoela arau edo lege zehatzik, batez ere subjektibotasuna eta ikertzailearen beraren egiten jakitea delako baliatzen dena. Hala ere, diseinuan eta parte hartzaileen zehaztapenean hainbat aholku badira: taldearen osaketa eta hautaketa irizpideak eta sarreraren negoziazioa.

3.4.1.1. Taldearen osaketa eta sarreraren negoziazioa

Eztabaida-taldea osatzeko parte hartzaileak eta hauen ezaugarriak zehazteko, irizpide ezberdinak ezarri eta jarraitu nituen, euren arteko ezberdintasun eta berdintasuna adierazten dutenak, hots, gutxieneko heterogeneotasun eta homogeneotasunari dagozkionak (Rubio eta Varas, 2004). Aurrez erabilitako teknikan egin bezala, kasu honetan ere irizpidea ez zen estatistikoa izan, neure arabera aukeratua baizik, nahitako laginketa bidez.

Talderako hautaturiko kideek komunean zituzten gutxieneko ezaugarri soziodemografiko eta esperientzia batzuk, besteak beste, emakume eta pilotariak izatea edo hizketarako trebezia. Gainera, emakumezkoen pilotarekin jardule bezala hartu-eman zuzena izan behar zuten. Aldi berean, ordea, bazituzten elkarrekiko bereizgarri diren ezaugarriak ere, hizketaldian askotariko iritziak trukatzeko abagunea sortu asmoz. Azken kasu honekin lotuta aipa nitzake adina, taldeko partaideak ama izan ala ez, haur kopurua eta hauen adin eta sexuak, bizilekua eta pilotarekiko atxikimendu mota. Heterogeneotasun inklusiboaren baitan kokatu behar dira azken ezaugarri horiek, era honetan eztabaida-kideen arteko elkartrukea bermatzeko (Ibáñez, 1986) adierazle garrantzitsuak izan baitziren. Izan ere, dibertsifikazioaren bidez ikergaiaren gaineko iritzi, ikuspegi eta perspektiba ezberdinak jorratzea ahalbidetzen da.

Elkarrizketatuak multzo ezberdinetan sailkatu nituen, nagusiki, irizpide orokor hauek abiapuntu lez erabiliz, amatasunari dagokionez:

- Ama direnak: gutxienez seme edo alaba bat duten pilotariak.
 - Haur txikiak: 10 urtetik beherakoak.
 - Haur koxkortuak: 10 urtetik gorakoak.
- Ama ez direnak: seme-alabarik gabeko emakumeak.

Pilotarekiko erlazioaren arabera, berriz, beste bi talde osatu nituen:

- Aisialdiko pilotariak: paleta ikastaroetako pilotariak.
- Pilotari federatuak: federatu lizentziarekin txapelen lehian dabilen pilotariak.

Taldea osatzeko erabilitako estrategian taldekideen arteko hitzezko eragin-trukeak zer aukera sortzen dituen aztertzea komenigarria da. Ildo honetan, Ibáñezek (1986, 67 or.) esan bezala “*taldea batzeko gunea da [...], baina taldearen topaketa, mikro-egoera, euren hitzezko elkarrekintza, makro-egoeran (jendarte orokorra), baztertua ez dagoen biztanle klaseen artean soilik sortuko da*”. Izan ere, hitzezko elkartrukea bi eratakoa izan daiteke: hartu-eman baztertzaileak eta hartu-eman bateratzaileak (Rubio eta Varas, 2004, 392 or.). Nire ikerlanean taldea osatzerakoan kideen hartu-emanak komunikazioa sortzeko modukoak izatea aintzat hartu dut, kideen artean erabateko elkartrukea baimenduz, non bakoitzak bere azalpenak eman eta eralda ditzakeen besteek esandakoen arabera, kontuan hartuz irizpide aniztasuna ez dela iritzien arteko liskarraren berdina.

Taldea osatzeko kopuruari dagokionez, Ibáñezek (1986) dio kopuru orokorra zazpi eta zortzi kideren artean ibili ohi dela, gutxienez bost eta gehienez bederatzi izanik. Autore honen arabera ez da posible bost kidetik behera izanda eztabaida-talde bat eratzea. Kopuru horretatik gora lortzen da hizketarako komunikazio kanalak ekoizpen diskurtsiboa sortzeko bestekoak izatea. Gainera, parte hartzaile kopuruaz gain kontuan izan behar da mota bakoitzeko kide kopurua zenbatekoa den, parte hartze txikiagoa izan dezaketen “klaseak” kuantitatiboki gehitzeko joera edukiz. Aurreko irizpideetan oinarrituz bost emakumek osatu zuten eztabaida-taldea. Kopuru horretatik gora bilera batean, leku eta ordutegi berean, emakumeak bateratzeak antolaketa zailtasunak areagotuko zizkidala banekien, gainera, ardura anitz eta oso ezberdinak dituzten pertsonak direlako eztabaida-taldean bat egindakoak. Azken batean, beraz, talde hau pertsona esanguratsuek, euren jakintza, bizipen eta esperientziak medio, eta gaiaren gaineko iritziak emateko prest zeudenek osatu zuten, ikerketa gaia sakontzeko prestutasun eta borondate osoa erakutsi zutenak, gainera. Irisgarritasuna erabatekoa izan zen kasu honetan, irizpide bakoitzeko ezaugarriak modu ezberdinetan konbinatuz osatuz eztabaida-taldea. Bertan jardun zuten kideen inguruko ezaugarri orokorrak ondorengo taulan (ikus 2.6. taula) dituzue ikusgai.

2.6. taula

Eztabaida-taldeko partaideen ezaugarri orokorrak.

Izengoitia	Adina	Bizilekua	Pilotarekiko lotura	Haurrak	Alaba / semeak
Ibone*	48	Hernani	Federatua, entrenatzailea, gurasoa eta elkarteko arduraduna	2	Alaba-semeak; Koxkortuak
Haizea	24	Zubieta	Federatua eta entrenatzailea	0	-
Argia	37	Usurbil	Aisialdiko pilotaria	2	Alabak; Txikiak
Aitziber*	44	Usurbil	Aisialdiko pilotaria	3	Semeak; Txikiak
Martxeli	49	Hernani	Aisialdiko pilotaria eta gurasoa	2	Seme-alabak; Koxkortuak

* Bilera banatan ez ziren egon, azken orduko lan-bilera eta osasun arazoak medio

Taldea osaturiko bost emakumeen ezaugarri orokorreari erreparatuta, ikus liteke euren profilek badituztela antzekotasun eta alde batzuk. Ezberdintasunei dagokionez, adinetik hasita, aniztasuna nabaria da: 24 eta 49 urte bitartekoak dira. Amatasunari dagokionez, berriz, bakarra da ama ez dena eta besteen artean hiruren kopuruak berdinak dira, bina haur dituzte. Bosgarrenak, berriz, hirukotea du etxean. Alaba eta seme kopurua eta hauen adinak, berriz, ezberdinak dira. Bik haur koxkortuak dituzte eta beste biek, berriz, txikiak. Bizilekuei erreparatuz, aldiz, ikus liteke Hernanikoak direla bi, Usurbilgoak beste bi eta Zubietakoa bosgarrena. Datu hori ez da kasualitatea, bilera antolatzeke aintzat izan bainuen bakoitzaren bizilekua, ahalik eta desplazamendurik txikiena eskatu eta antolaketa arazo gehigarriak ekidin asmoz. Amaitzeko, pilotarekiko erlazioan ere badaude parekotasun eta diferentzia batzuk, aisialdiko pilotari soil izatetik, pilotari federatu, guraso, entrenatzaile eta pilota elkarteko ordezkari lanak betetzera artekoa baita abanikoa.

Sarreraren negoziatioari dagokionez, eztabaida-taldeko kideengana hurbiltzeko pausoa e-posta bidez eta telefono deiak zuzenean ikertzaile nagusiak, neronek, eginez burutu nuen proposamen eta gonbidapenak nori luzatu erabaki ondoren. Nire asmoen berri eman nien modu orokorrean eta lasai pentsatu eta erabakitzeko eskatu. Guztiek uste baino lehen eta positiboki erantzun zidaten nire zorionerako, gainera. Aurrez ezagunak nituen bostak, nire paletako ikasle, federatutako paleta-kide eta aisialdiko taldeko kide izanak guztiak, besteak beste. Beraz, ikerlana egiten ari nintzela bazekiten eta lanarekiko nolabaiteko sentiberatasun eta konpromiso maila bat ere agertu izan zuten aurrez ere, eurengana hurbiltzea erraztu eta taldea osatzeko libre egoteko ahalegina eginez.

3.4.2. Eztabaida-taldeko edukia

Eztabaida-taldearen nondik norakoa eta ibilbide-orria zehazten hasteko, hizketagaiak zehaztasunez definitu eta bileretan aztertu beharreko edukien gaineko hausnarketa egin eta gauzatzeko estrategia bat erabaki nuen. Alde batetik, zer eta nola landu eta bestetik, berriz, zein formatu eta baliabide erabili erabaki behar izan nuen lehendabizi. Izan ere, modu ezberdinak daude batzarretan edukiak mahai gaineratu eta lantzeko.

3.4.2.1. Bileren diseinua

Eztabaida-taldearen bilera kopurua ezin izan nuen aldeaz aurretik eta modu finkoan zehaztu, informazioaren dibertsifikazioa eta saturazioa izan baitziren guztira zenbat batzar egin erabakitzeke baldintzatzaileak (Callejo, 2001). Hala eta guztiz ere, eta denbora eta batzeko zailtasunak banituen arren, emakumeekin aurrez aurreko bilkura bat egitea hobetsi nuen hasierako egitasmoan eta bigarrena, aldiz, lehenengoaren baitan utzi nuen, parte hartzaileekin eztabaida-taldeko lehen hitzorduan ateratako gaiak eta ondorioak aztertu eta berresteko, jorratu gabeko puntu pare bat ere mahai gaineratuz. Beraz, esan nezake lehena aurrez programatua izan zela eta bigarrena lehenak ekarria.

Bileren egituraketa eta bertan jorratu beharreko gaiak erabakitzeke, aldiz, aurrez iturri ezberdinetatik arduren eta amatasunaren inguruan bilduriko informazioa aztertu nuen, etnografia lanetik eratorriak, sakontzeko galdeketetan jasotakoak eta dokumentu formal zein informaletan pilatutakoak, literatura zientifikoko azterlanez gain. Hortik abiatuta ohartu nintzen punturen batzuetan pilotarien esan eta iritzien gaineko zehaztasun edo sakontasun handiagoa behar nukeela, zerbait falta zitzaizela esaldi eta azalpen haiei, atzean zer kontatua eta arrazoibide sakonagoak zituztela ohartu bainintzen. Barruan hala sentitu nuen, senak hala zioetan. Ondorioz, zein hutsune ikusi edo sentitu nituen aztertu eta sortu zitzaizkidan informazio egarri hori asetzera bideratu nuen eztabaida-taldearen ildo eta antolaketa.

Lehen bileran egin beharreko lana lau ataletan egituratu nuen: sarrera eta aurkezpenak, armiarma-diagramen azterketa, egoera-adibideen bidez sortutako solasaldia eta amaiera. Sarrera eta aurkezpenen atalean eztabaida-taldearen zergatia, taldearen lan-dinamika azaldu eta parte hartzaile bakoitzak euren buruaren berri eman zuen, aurkezpen labur-labur bat eginez. Armiarma-diagramen txandan aurrez etxean “ama pilotaria” kontzeptutik hasita osatzeko eskatu nizkien sareak aztertu genituen denon artean (ikus 3.4.2.2. puntua). Hirugarren zatian, berriz, pilotariak bizitako egoera ezberdinak aurkeztu nizkien (ikus 3.4.2.3. puntua), gidoi baten laguntzaz, pilotariengandik zuzenean jasotako iritziak abiapuntu hartuta euren iritzi, azalpen, iradokizun eta sentimenduak ager zitzaten. Amaiera eta agurrera bideraturiko azken zatitxoan, berriz, bileran zehar taldean esanikoak laburbildu, eskerrak eman eta transkripzioak burutu osterako antolaketa moldearen berri eman nien, euren iritziak eskatzearekin batera.

Bigarren talde bileran, aldiz, eztabaida-taldea osatu eta handik hiru aste ingurura, honako antolaketa izan genuen, hiru ataltxotan zatitua: aurkezpena eta aurreko saioko transkripzioaren inguruko ekarpen eta iritziak, gai berriak zein sakondu beharrekoak eta ondorio nagusienak. Aurreko bileran jorratu gabe geraturiko bizpahiru gai aztertzerat bideratua izan zen batzar hau batez ere. Kasu honetan ere gidaritza lanerako gidoi bat erabili nuen nondik norakoak bideratzen laguntzeko. Bilkuraren amaieran bertan landutakoaren gaineko laburpen eta ondoriorik nagusienak mahai gaineratzen amaitu genuen, esker ona agertuz borobiltzeko nire eskariz emakumeek eginiko lanagatik.

Bi bilera egin genituen azkenean, informazioaren saturazioa ardatz harturik. Bertan landu eta jasotako iritzien transkripzio zuzenak helarazi nizkien emakumeei eta azken iritzi eta iradokizunak ere eskuratu nituen eztabaida-taldearen jarduna amaitutzat eman aurretik, gainera.

3.4.2.2. Armiarma-diagramak

Lehenengo eztabaida-taldeko aurrez aurreko hitzordua baino lehen burututako lana izan zen armiarma-diagrama bidezkoa ikerketa honen kasuan. Izan ere, diagrama edo kontzeptu mapen bidez ezagutza grafikoki antolatu eta irudikatzen da (Novak eta Cañas, 2008). Era honetan posible da ikertzaile eta parte hartzaileen arteko ondorengo elkarrizketa eta elkartrukeetarako oinarria ezartzea (Bagnoli, 2009). Datuen bilketarako, gaiak aztertzeko edo/eta emaitzak plazaratzeko kontzeptu mapak erabiltzeko ikerlanetako parte hartzaileei lagundu egiten diete euren esperientziak lantzen eta, gainera, mapen erabilerak datuak eta teoriak hurbildu egiten ditu elkarrengana, ulermen eta ezagutza sustatzeko lagungarri baitira mapa batean erlazionatzen eta lotzen diren kontzeptu multzo hauek (Wheeldon eta Faubert, 2009). Gainera, autore berdinaren arabera, parte hartzaileek sortutako mapek euren esperientziatik abiatutako kode eta kontzeptuak dituzte oinarrian, funtsezkoa izanik hauen ikuspegia ikerlana garatzeko, abiapuntu kode eta kontzeptu horiek baitira.

Dilley eta Scratonek (2010) eskalatzaileekin egin bezala, erdiko kontzeptua (*focus question*) bakarrik eman nien nik jarrita pilotariei: “ama pilotaria”. Hortik aurrera emakumeek euren gogora etorritako edozer idazteko aukera izan zuten, kontzeptu eta loturak modu askean eta ez-zuzenean eginez, aurrez ezarritako egitura jakinik jarraitu beharrik gabe (Bagnoli, 2009).

Lan-tresna hau eztabaida-taldearen lehenengo atalean erabili genuen ondoren, gaiarekiko ikuspegi gogoetatsua sortuz eta armiarma-diagrametan agertutako gai eta erlazioak aztertuz. Horretarako nik emakumeek aurrez ezarritako epean helarazi zizkidaten bost kontzeptu-mapak jaso eta banatu nituen, bakoitzeko kontzeptu eta banaketak aintzat hartuz eta emakume bakoitzak berea agertuz besteoi, ondoren iritziak trukatzeko aukera sortuz (ikus V. eranskina), eztabaida hasteko abiapuntua izan zena.

Ariketa hau oso modu produktiboa izan zen emakumeentzat garrantzitsuak ziren eztabaidagaien berri jasotzeko, izan sakon eta konplexuak edo izan simple eta laburragoak. Horrela jakin ahal izan nuen zein leku daukan pilotak emakumeen eta bereziki ama direnen egunerokoan eta nola moldatzen diren ardura eta eginkizun denak uztartzeko, nola antolatzen, nola sentitzen eta nola aurkitzen betebeharez josiriko jendarte honetan.

3.4.2.3. Egoera-adibideak

Eztabaida taldeko lehenengo bileran erabili nuen parte-hartzaileei informazioa plazaratzeko modu hau, aurreko datu bilketa moduetan (etnografia, sakontzeko galdeketak eta dokumentuak) lorturiko informazioa abiapuntu hartuta emakumeei gai ezberdinen inguruko iritzi eta gogoetak egitea sustatuz. Horretarako pilotariak euren hitzetan azaleraturiko hainbat esaldi eta gogoeta hartu nituen funtsean eta hauek irakurri nizkien emakumeei hortik aurrera gaia abiapuntu hartu eta horren inguruan solas egin zezaten. Ondorengo taulan duzue egoera-adibideak zein eta nola aurkeztuak izan ziren:

2.7. taula.

Eztabaida-taldean erabilitako egoera-adibideak.

Zkia	Aztergaia (kodea)	Egoera – adibidea
1	Jarduera antolatua	“Paleta ikastaroan ordu eta talde bat daukazu. Horrela errazagoa da zerbait egitea zu bakarrik zure kabuz irtetea baino”.
2	Aisia antolaketa eredu	“Nire gizona beste garai batekoa zen. Ni nintzen hurrez arduratzen zena. Garaiak aldatu egin dira” “Guk ez daukagu gure senarrez kexatzerik”.
3	Errudun sentimendua	“Ni ez naiz palara joango haurrak amonarekin utzita gizona lanetik iritsi ez delako edo haurra gaixotzen bazait”.
4	Arduretatik ihesbidea	Otordu bat egin beharko dugu zuen familietakoak ezagutzeko eta “ez, ez, gu bakarrik hobeto, lasaiago”.
5	Jendarteko antolaketa. Bizitzako etapak	“Pilota uzteko edadeak iristen dira. Gizarteak zenbait garaitan ikasketei heltzea, bikotea izatea, lanean hastea, ama izatea e.a. eskatzen dizkizu. Gero emakumeak ez dauka hori zertan eginik, baina...”.
6	Emakumeen momentua	“Gu ez gara super-emakumeak. Haurrak, lana, etxeko ardurak, gurasoak,... Guretzako ere behar dugu denbora”.
7	Ama ilusioa	“Nire umea paleta eta pilota hartu eta saiatzen da. Gaur ere galdetu dit zer egin dudan partiduan. Ama palan ikusi eta pozik jartzen da, berak ere nahi du”.
8	Geroari begira	“Etorkizunari begira zer aurrerabide ikusten diozue arlo honi? Nola erraztuko zenioke pilotan aritu nahi duenari, zuen egoera berean balego, aritzeko aukera eskaintzea?”

Aurreko taulan (ikus 2.7. taula) agertzen diren adibide guztiek lotura daukate arduren gaiarekin eta, gainera, emakumeei ere gertuko egiteko aukera oso handia da, euren kideek esanak edo haien hitzetatik abiatuz sortu nituelako goian agertzen diren esaldiak. Gainera, ahalik eta eremurik zabalena aztertzerako bideraturiko egoerak hautatu nituen, zehazki zein puntu jorratzeko aukera eskaintzen zuten jaso, ni esaldien artean gal ez

nendin. Hala ere, gaia zein zen ez nien emakumeei adierazi, baizik eta abiapuntu horretatik euren iritziak eta sentimenduak modu erabat askean plazaratzeko tresna izan ziren, gogoeta bultzatzeko aipuak, azken batean. Goian jarritako zortzietan gain, erreserbarako beste adibide batzuk ere eraman nituen prest, badaezpada ere, baina azkenean ez nituen erabili, bilerako denbora mugatua zelako eta hainbat aurrez ere agertu zirelako solasaldietan zehar.

3.4.2.4. Gidoia

Eztabaida-taldean pilotariekin jorratu beharreko gaiak eta hauen egituraketa errazteko oso lagungarria izaten da gidoi bat prestatzea. Era honetan, hizpideak, hein batean bada ere, zein izango diren eta nola jorratu nahi diren zehazteko aukera sortzen da. Gainera, gidoi honi jarraitzea lagungarria da parte hartzaileen esku-hartzea zentratzen laguntzeko. Hala ere, eskema moduan erabiltzeko balio du gidoiak, ez du zehaztu ohi aurre ezarritako ordenarik eta ezinbesteko kontzepturik; kideak hitz egitera bultzatu eta iritziak ematea eragiteko helburua du lan-tresna honek, ardura eta amatasunaren gaineko hitzaldiak sortu eta sustatzera bideratuz kasu jakin honetan.

Gidoiaren osaerari dagokionez, bertan jasotakoak jarraituz zuzenean gai esanguratsuen inguruko hausnarketak egin genituen eztabaida-taldeko sarrera eta armiarma-diagramekin amaitu ondoren. Sakontasunera eta informatzaileen sentipen eta interpretazioetara zuzendutako urratsa egin nahi nuen, muinera sartzen saiatu. Izan ere, pilotarien bizipenak, esperientziak, iradokizunak eta usteak, hots, euren subjektibotasuna, jasotzera bideratutako ikerketa da hau, azaletik mamirako bidea egin asmo duena.

Eztabaida-talde honekin erabilitako gidoiak hizketaldirako garrantzitsuak izan zitezkeen gai eta azpi-gaiak zeuzkan bere baitan jasota. Gainera, gairen bat atera ezean horren gaineko hizketaldia sortzeko estimuluak ere bazeuden bertan, edo elkarrizketa asko desbideratuz gero berriro ere gidatzeko erak, nahiz eta inoiz ere ez mugatu solaskideen hitzaldia ikergaiarekin lotuta egonez gero. Hala ere, hasierako gidoiak ez da zehatz-mehatz jarraitu behar eta erabat eralda daiteke eztabaida-taldeko kideen proposamenen eta hauen solasaldiek harturiko ildoan arabera, betiere gaiaren baitan kokatuak eta aberasgarriak badira. Bertan jorratutako alderdiak lau arlo nagusitan bana nitzake:

- Arduren banaketa.
- Aisialdiaren antolaketa orokorra.
- Ardurak eta pilotaren uztarketa.
- Amatasuna eta pilota.

3.4.3. Talde dinamika

Eztabaida-taldeetan jarraituriko dinamikari dagokionez, Kruegerrek (1991) dio ezinezkoa dela errezeta zehatz bat ematea, galdera dikotomikoak edo zergatiak saihestu eta hizketaldiak moztu ez daitezen bideratzen diren argibide orokorrak ez badira. Hala Callejok (2001) aipaturiko talde dinamikaren ezaugarriak erreferentzia lez hartuta, ikerlan honetan honako dinamika jarraitu dut:

- Bileraren hasiera. Moderatzaileak, neronek, egin nituen sarrera eta aurkezpen lanak, ondoren armiarma-diagramak erakutsiz bilerako gaien lanketari hasiera emanez.
- Bileran zehar partaideak izan ziren norabidea eta erritmoa markatu zutenak, nahiz eta gidaritza eta gainbegiratze lanak nire gain izan, noiz edo noiz galderaren bat zuzenduz pilotariak esanikoen arabera.
- Adostasuna, desadostasuna eta bat ez etortzean bat-etortzea. Eztabaida-taldean zehar pilotariak bat etorri ziren eta ez ziren uneak izan ziren, baina esaten zenarekiko erabateko errespetu eta onespena agertuz diferentziak diferentzia.
- Bilera amaiera. Landutako gaien eta esanikoen laburpen bat eta lehenengo elkartrukearen ondoren bigarreneko eskatu nien eginkizunaren berri helarazi nien pilotariei, eskerrak ematearekin batera.

3.4.3.1. Bilera lekuaren hautaketa

Aurrez sakontzeko galdeketen puntuan garatu dudana bezala (ikus 3.2.4.1. puntua), eztabaida-talde baten bilera egiteko gunea aukeratzea ere oso garrantzitsua da, eragin zuzena duelako horrek ere lor litekeen informazioan eta sorturiko elkartrukearen joanean. Beraz, ikerketaren ildoak eta xedeak lortzea bera ere baldintza ditzake hautu ez oso egoki batek. Hori dela eta, eztabaida-taldea batzeko leku gisan aukera ezberdinak aztertu ondoren aukeratu nuen: Usurbilgo Potxoenea Kultur Etxea.

Bilera-guneak egokitasun, erosotasun eta irismen baldintza guztiak betetzen zituen, taldeak gune publikoa pribatu bihurtzeko urratsa emanez. Izan ere, herriaren erdigunean aurkitzen da eta bertan neurriko areto goxo eta eroso bat lortzeko abagunea izan genuen. Bilera-gelara joan aurretik, gainera, ordu laurden lehenago hitzordua jarritz, harrera gunea herriko plaza izatea deliberatu nuen, leku ireki eta ezberdinean batuz, kultur etxetik hogeit metro dagoena, bertatik oinez abiatuz lan esparrura, eremu itxira. Gainera, parte hartzaile guztientzat ezaguna zen harrera-lekua eta neutrala batzar-aretoa, denak egoera berean aurkituz espazioari zegokionean. Izan ere, izan nuen beste proposamenen bat ere, borondate eta eskuzabaltasunez betea, eztabaida-taldeko kideren baten etxean elkartzekoa, baina kasu horretan ez zen egoera neutroa izango, erosotasun mailan aldeak izango ziren pilotarien artean, eta ez zatekeen zilegi izango elkargunea hura izatea. Beraz, eskerrak eman eta berehala baztertu nuen proposamen hura.

3.4.3.2. Eztabaida-taldeko estrategia

Pertsona kopuru jakin baten artean sortzen den elkarrizketak informazioa eta esanahiak sortzen ditu ez zuzendua izateari esker. Hori dela eta, funtsezkoa da estrategia egokia hautatzea kasuan kasu, oinarrizko hiru arlotan banatutako ohiko gidoi baten laguntzaz ekinez lanari: aurkezpena, hasierako zirikatzea eta eztabaida-elkarrizketa (Domínguez eta Dávila, 2008). Ildo horri tiraka, honako alderdiak hartu dira kontuan eztabaida-talde hau garatzeko estrategiaren pean:

- Lehen bilera saioaren aurretik moderatzaileak partaideen oinarrizko datuak jaso zituen.
- Ikertzaileak partaideak animatu zituen euren ideia eta bizipenak agertzera. Taldekideak motibatuzko erabilitako taktiken artean dago informaltasun puntu bat duen ingurua sortzea, era honetako esaldiak erabiliz, adibidez, “badakit esandakoak baino gauza gehiago daudela”. Entzungorren taktika ere erabili ohi da zerbait azpimarratu edo indartu dezaten, ez entzunarena eginez partaide batek esandakoari berriz ere indar dezan, eta baita “baten batek esan du” bezalako esaldiak ere ikergaia norabide batean bideratu nahi denean.
- Moderatzaileak abegitsu, arrazionalki eta kritikoki baloratu zituen pilotarien esanak.
- Solasaldian zehar esanikoak ez galtzeko audio grabagailu bat erabili zen. Hori dela eta, partaideei erabiltzeko baimena eskatu zitzaientz hasi aurretik, eragozpenik ba ote zuten galdetuz. Martxan jarri aurretik dena ongi zegoela konprobatzeaz gain, bileran zehar eta ondoren solasaldia aberats zezaketen hainbat datu jaso ziren oharren bidez.

Estrategiarekin loturiko alderdi hauetaz gain, Callejok (2001) esan bezala badira erabilgarri izan daitezkeen beste zenbait tresna ere, talde dinamika sustatu eta partaideen erantzunen bat-batekotasuna areagotu dezaketenak (arbelak, orriak, boligrafoak, dokumentuak, irudiak...). Nire kasuan honako baliabide materialak erabili nituen:

- Dokumentuak. Armiarma-diagrama guztiak dokumentu batean bilduta eman nizkien pilotariei, taldean aztertzeko eskura izan eta euren jarduna erosoagoa egin zekien.
- Orri zuriak eta boligrafoak. Solaskide bakoitzak egoki iruditzen zitzaizkion oharra hartu eta ildoari jarraitzea laguntzeko.
- Ura eta pasta kaxa bat. Inork gose eta egarriz egon beharrik izan ez zezan eta giroa lasaiagoa eta etxekoagoa izan zedin.

Bileretan zehar jarraitutako prozedura zehatzago agertuz, talde-bileran gaiaren aurkezpenak, helburu bati jarraiki, noski, galdera eta zirikatze egoera bat eragin behar du, bertan bildutakoak hitz egitera bultzatuz (Callejo, 2001). Izan ere hizketarako gonbiteaz gain erreakzio bat eragin behar da planteamenduaren bidez. Horregatik, lehenengo aztertu beharreko gaia erdibidean kokatu behar da izan ditzakeen ondorioen arabera, maila baxu eta altuaren artean, inplikazio maila altuegia eskatuz gero defentsa-

estrategiak sorraraz daitezkeelako parte hartzaileengan. Ikerketa-zirikatzeko proposamen horren gainean, autore berak, honako elementuen garrantzia azpimarratzen du:


- Parte-hartzaileei ematen zaien deskribapen-azalpen laburra bi baieztapenetan oinarritzea: hitza euren da eta moderatzailea nagusiki entzutera etorri da.
- Gaiaren aurkezpena. Hizketagaita zuzenean eta galdera irekien bidez mahai gaineratu.

Aurrez aipaturikoa aintzat hartuz, beraz, eztabaida-taldea abian jartzean plazaratutako lehen galderak orokortasunetik hurrerago zeuden, kideak eroso sentiarazi eta ahalik informazio gehien biltzeko asmotan (Callejo, 2001). Horretarako sarrerarako elementu egokia izan zen armiarma-sareen azterketa bateratua egitea. Bigarren bileran, aldiz, lagungarria izan zen kokatzeko aurretik eginikoaren laburpen bat egitea. Hortik aurrera gai zehatz eta espezifikokoak azaldu zitzaizkien egoera-adibide konkretuen bidez edo hizketa-gaiak eta heldulekuak plazaratuz. Bilkurak amaitzeko, aldiz, laburpen eta ondorioetan bat-etortze saio bat burutu genuen aztergaita eta honen inguruko hari muturrak ixteko.

Denboraren antolaketa ere oso aldagai garrantzitsua da eztabaida-talde baten martxa egokia eta emaitzak esperotakoak izatera bideratzeko. Honen gainean hainbat autorek (Ibáñez, 1986; Krueger, 1998) ordu eta erdi eta bi ordu arteko iraupena hobetsi izan dute, hortik aurrera nekea agertzen has baitaiteke. Beraz, nire kasuan ere bilerak denbora tarte horretan hasi eta amaitzea aurreikusi genuen, adituen gomendioa jarraitzeaz gain pilotariek dituzten ardurek eta amatasunak berak ere euren antolaketan eragina duelako. Ezarririko beste epea lehen eztabaida-taldetik bigarrenera artekoa izan zen, hiru astekoa. Bitarte horretan taldean esanikoak jaso eta hitzez hitz transkribatzeaz gain emakumeei helarazi nizkien euren aztertu eta zerbait erantsi edo aldatzerik nahi ote zuten begira zezaten dokumentuan, ondorengo bileran beharrezko moldaketa eta onepenak burutuz.

Puntu honekin amaitzeko, taldekideen espazioko banaketa ere bilerarako estrategiaren baitan zehaztu nuen. Izan ere, autore askok diote (Carey, 1994; Goldman eta McDonald, 1987) garrantzitsua dela eztabaida-taldeko kideen kokapenak zehaztea eta ez dela zorizko banaketa bat egitea komeni, horrek bilerako kideen jokabideetan eragina izan dezakeelako. Hori dela eta, moderatzaileari dagokio honen gaineko erabakiak hartzea, taldearen kokapenean eraginez beharrezkoa iruditzen bazaio. Irizpide honi tiraka, beraz, neronek esan nien bilera hasi aurretik zein izango zen kide bakoitza eseriko zen aulkia, elkar gehien ezagutzen zutenak bereiziz, elkarren ondoan eseri eta hizketaldiak sortzea ekiditeko, eta aldi berean emakumeak eroso noren alboan senti zitezkeen aintzat hartuz (ikus 2.3. irudia). Horrez gain, mahaiaren inguruan osatutako borobilaren neurria eta kideen erosotasuna ere aintzat hartu nituen, elkarri entzutea errazteko distantziak mantenduz, baina aldi berean inor bata bestearen gainean sentitzea ekiditen saiaturaz. Moderatzailea ere euren maila berean kokatu zen espazioaren banaketan, inolako mailakatze eta bereizketarik sortu gabe (Rubio eta Varas, 2004). Grabagailua ere mahaiaren erdian jarri nuen erabilera adostu eta parte hartzaileen onepena jaso ostean,

denek ikus zezaten eta ez zezan inolako errezelarik eragin pilotariengan. Gailu honek hasierako uneetan sor lezake arreta, baina hori gainditu ondoren ez du eraginik izaten elkarriketatuengan.



2.3. irudia. Etxabaida-taldeko partaideen kokapenak.

3.4.4. Moderatzailea

Etxabaida-taldeko kideak egoki hautatzea soilik ez da nahikoa bilkurak arrakastatsuak izan daitezen, moderatzailearen rola jokatzen duenak ere bai baitu zeresana, moderatzailea delako bileran bideratu eta xedeak aurkeztu behar dituela (Callejo, 2001). Aurrez elkarriketatzaileraren gainean esanikoeak (ikus 3.2.4.3. puntua) balio dute irizpide orokor lez moderatzaileen ezaugarri eta gaitasunak zeintzuk izan behar diren zehazteko. Adibidez, Callejok berak dio komeni dela moderatzailearen eta taldekideen artean, posible den heinean, homogeneous maila bat mantentzea (generoa, adina, hizkuntza, etab.).

Gidaritza lanari dagokionez, moderatzailearen eginkizun nagusia egitura hierarkikoei aurre egitea da eta hori lortzeko oso garrantzitsua da ez egitea ez inoren alde eta ezta inoren aurka ere, kideak ez baieatea eta ez onestea, denak berdin tratatuz. Horretarako lagungarria da etengabe kideak hizketara bultzatzea ez badira euren kabuz ausartzen edo hierarkiak egitura ditzaketen hitzei interesa eta garrantzia kentzea, adibidez. Ibáñez arabera (1986) bi dira nagusiki bileran zehar moderatzailearen eginbeharrak: etxabaidagaia aurkezte eta mintzaldia sustatzea. Horrez gain, Kruegerrek (1998) esanari jarraituz, oso egokia izan zen taldeko moderatzaile rola bete zuenaren profila, nire ezaugarri nagusienak honakoak izanik, labur-labur:

- Emakumeen pilota munduaren ezagutza zabala.
- Etxabaida-taldean jorratu beharreko edukien ezagutza.
- Taldeko partaideen ezaugarrien ezagutza.
- Hizkuntza eta pilota munduko terminoak barneratuta izatea.

Autoreek esanikoetan oinarrituz, mintzaldiak sustatu eta mantentzeko teknika ezberdinak erabili nituen etxabaida-taldeko bileran haria mantentzeko, elkarren hitzak errespetatu eta entzuteko, elkarriketa bizitzeko eta beste hainbat unetan zegokigun gaiaren indarra itzal ez zedin. Hori guztia, hala ere, jarrera malgu eta parte hartze maila

baxukoa betez une oro, protagonistak eta ildoak markatu behar zutenak emakume pilotariak zirela jakitun eta oso kontziente nintzelako.

4. Datuen analisia

Landa lanean zehar, eskenatoki ezberdinetan, erdietsiriko informazio guztia aprobetxatzea ezinezkoa da ziurrenik, baina horrek ez du esan nahi datuak erregistratzeko beharrezko ahalegin guztiak egin behar ez direnik. Izan ere, memoria ez da oinarri egokia analisietarako. Ikerketa etnografikoetako beste zenbait alderdi bezala, informazioa bildu, artxibatu eta aztertzea erreflexioaren baitan antolaturiko prozesuaren zati bat gehiago baino ez da. Horregatik, erabakiak hartu, zuzendu eta, beharrezkoa bada, ezinbestekoa da gogoeta metodologiko, praktiko eta etikoen arabera berreraikitzea. Aldi berean, alabaina, teknika hauek eragin handia dute ikerketa etnografikoaren kalitatean. Hitz gutxitan, analisi prozesua errazten dute (Hammersley eta Atkinson, 2007, 221-222 or.).

Beraz, lan etnografikoaren, sakontzeko galdeketen, dokumentuen eta eztabaidataldearen bidez lorturiko informazio guztia, datuz gainezka nituen ia mila orrialde, esku artean hartu, fin-fin aztertu eta ahalik analisi sakon, zorrotz eta zehatzenak egiteko aldia iritsi zitzaidan niri ere, jasoriko datu guztiei zukua atera, azala erauzi eta mamia dastatuz amaitzeko etapa. Puntu honetan jarraitu eta jorraturiko xehetasun guztiak plazaratu ditut.

Ikerketa kualitatibo guztietan datu deskribatzaile aberatsak lortzen dira: jendeak esan edo idatzitako hitzak eta ekintza behagarriak. Behaketa parte hartzaileetan ikertzaileen helburua *bertan egotea* sentipena transmititzea izaten da eta zuzeneko parte hartzea izaten da eskenatokietan (Taylor eta Bogdan, 2000, 152-157 or.). Era berean, sakontzeko galdeketetan oinarrituriko azterlanetan irakurleak informatzaileen “larruan” sentitu eta gauzak euren angelutik ikustea da jomuga. Beraz, ikerketa kualitatiboak bizitza sozialaren *barru-barruko deskribapena* egiten du, parte hartzaileen testuingurua eta gertaeren esanahia aurkeztuz. Hori dela eta, ikerketa deskriptiboak interpretazio eta kontzeptualizazio mugatuak ezaugarritzen ditu. Irakurleei euren ondorio eta orokortasunak egiteko modua uzten zaie, datuak abiapuntu izanik.

Etnografia lanen xedea ikergai diren fenomenoak islatzea denez, hortaz, datuen analisirako ezinbestekoa da ikertzaileek aktoreen jokabide eta sinesmenen gainean dituzten esanahi enpirikoak eta parte hartzaile zuzenek fenomeno berdinekiko dituztenak bereiztea (Goetz eta LeCompte, 1988, 195-196 or.). Izan ere, errealitatea ezberdin interpreta dezakete ikerleak eraikitako deskribapenek eta parte hartzaileen esanahi subjektibo edo sentiberek. Ezberdintasun hauek plazaratzea garrantzitsua da. Bestalde, ikertzaileak bere alderdi subjektiboak eragindako edozein joera edo orientazio filosofiko ere identifikatu behar ditu. Hau guztia aintzat hartu behar da, beraz, ikerketa lanaren analisi atalari hasiera eman ahal izateko.

Datuen analisi prozesua ez da datu bilketarekiko bereizita gertatzen (Dey, 1993, 38 or.). Etapa horretan zehar ere, behatzean, elkarrizketatzean, landa oharrak idaztean eta ikerketa-egunerokoan idaztean, ez da “erregistroa” soilik etnografoaren lana. Gogoetaren bidez erabakitzen da hurrengo datuen gainean. Teknika eta ikerketako aldi hauen arteko jolas hau maila guztietan ematen da, gainera (Woods, 1989, 135 or.). Datuen azterketa landa lanari heldu aurretik hasten da, ikerketa xedea zehaztean zein diseinuan ere beharrezkoa da eta testuaren idazketa garaian ere badirau. Formalki ohar analitiko bidez hasten da definitzen; informalki etnografoaren ideia, intuizio eta kontzeptuen sorreran ere badago. Horregatik, prozesu elkarreragile hau funtsezkoa da datuen analisia abiapuntu harturik sorturiko teorietarako, datu bilketa estrategikoki sortzen ari den teoria horrek bideratuko baitu kasu horretan. Beste era bateko ikerketa etnografikoetan, teoriaren sorrerara bideraturik ez daudenetan ere, deskribapen eta azalpenetara bideratutakoetan, elkarrekintza dialektiko bera ematen da. Ez da erraza, ordea, informazio biltze eta datuen analisiaren arteko konpromisoa mantentzea praktikan. Besteak beste, mugak sortzen dira analisi, ikerketaren diseinu eta datu bilketan zehar sorturiko elkartruke ezberdinetan. Landa lana jarduera zorrotza da eta informazio prozesuak ere denbora gastu handia du. Hala ere, zailtasunak zailtasun, komeni da hausnarketa maila bati eustea, baita landa lana amaitu aurretik formalki informazio asko analizatzea zaila bada ere, sortzen ari denarekiko funtsezkoa baita (Hammersley eta Atkinson, 2007, 223 or.). Ildo berean, sortzen ari diren gaiak abiapuntu harturik kontzeptu eta proposamenak garatu eta datuei zentzua ematen saiatzen dira ikertzaileak, euren ikerketa interesak fokatu eta intuizioari jarraituz lana bideratuz. Hala ere, ikerketaren amaiera aldera zentratzen da ikertzailea sakonki eta muturreraino datuen analisi eta interpretazioan. Komenigarria da analisi intentsibo hau ahalik azkarren hastea, datu bilketatik zenbat eta beranduago hasi, besteak beste, zailagoa izango baita informatzaileekiko lotura egitea ere. Zenbait ikertzailek analisi aldiari zehar eta ondoren ere tartekako hartu-emanak mantentzen dute parte hartzaileekin (Taylor eta Bogdan, 2000, 158 or.).

4.1. Analisi prozesua

Analisi prozesuan zehar urrats eta etapa ezberdinak ematen dira, literaturan izen ezberdinak ematen zaizkie zenbait kasutan, baina funtsean hiru atal edo etapa nagusitan bana daiteke eginbeharra: fenomenoaren deskribapena edo deskubrimendua, datuen sailkapena edo kodifikazioa eta loturak aurkitzea edo kontzeptuen sorrera eta baieztapena. Analisi honen funtsezko helburua aztergaiaren gaineko azalpen ulergarri, koherente eta baliagarri bat lortzea da, datuak jasoriko testuinguruan ulertu ahal izatea (Dey, 1993; Taylor eta Bogdan, 2000).

Gordo eta Serranoren arabera (2008, 141 or.), datu bilketa burutu ostean bertan jasotako informazioa bildu eta edukien analisia egin behar da, bertan esanikoak antolatu eta hortik ikerlan honetarako esanguratsua eta adierazgarria dena atera. Aztertzekeo garaian,

azterketaren helburu nagusia esanahi multzoak eta hauen artean ezartzen diren loturak identifikatzea da. Horretarako, bi etapatan egiten dira analisiak:

- Transkripzioen azterketa eta aztergaien azterketa.
- Erreflexioa.

Puntu honetako hurrengo azpi-ataletan analisiak egiteko prozesuko pausoak xeheago eta bata bestearen jarraian, fase edo aldiak denboran eman ohi diren segidan, agertu ditut. Hala ere, ezin da ahaztu etengabea dela azterketan zeharreko gurpil honen joan-etorria eta atzera-elikadura aldi guztien artean, datu bilketa fasearekiko lotura ere bazter utzi gabe.

4.1.1. Hasierako analisisa: deskubritzea

Lehen fase honetan gaiak identifikatu eta kontzeptu eta proposamenak sortzen dira pixkanaka. Lehen urratsa fenomenoaren deskribapen ulergarri, sakon eta integralak garatzea da. Denzinek (Dey, 1993, 32 or.) deskribapen mamitsua (*thick description*) deritzo honi. Izan ere, deskubrimendu aldian ikerleek, intuizio eta zolitasuna lagun, datuekin trebatzen eta etxekotzen dihardute, eurekin harreman mamitsua lortu arte. Bertan testuinguruaren gaineko informazioa, ekintzen intentzio eta esanahia eta ondorengo eboluzioa hartu behar dira aintzat. Deskribapen hauek elementu hauek guztiak hartzen dituzte kontuan, ekintza sozialaren azalpen eta interpretaziorako oinarri egoki bat sortuz. Deskribapen mota honen bereizgarria bere integrazio-funtzioa da.

Datuetan gaiak bilatzeko modu posible guztietan jardutea komeni da (Taylor eta Bogdan, 2000): datuak behin eta berriro irakurriz, gai, intuizio, interpretazio eta ideien arrastoa jarraituz eta suspertzen ari diren gaiak bilatuz.

Woodsek (1989, 136-139 or.) fase honi “espekulazio-analisi” izendapena eman dio. Datu bilketatik eratorritako hausnarketa burutzen da bertan, ulertze mailarik garrantzitsuenak eragiten dituena. Hasierako gogoeta *ad hoc* hau ez da oso egituratua, desorden maila bat ere izan dezake, baina analisiko lehen urratsak bertan ematen dira, analisirako ildoak iradokitzen dituztenak, beste datuekiko zein literaturarekiko loturak, etorkizuneko azterlanen noranzkoa zehaztuko dutenak. Helburua ez da emaitza garbi eta itxiak lortzea aldi honetan.

4.1.2. Kategorizazioa

Bigarren fasean datuen kodifikazioa eta ikergaiarekiko ulermena fintzea dira helburu nagusiak (Taylor eta Bogdan, 2000). Helburua ekintzak ulergarri bihurtuko dituen marko kontzeptual bat garatzea da, sailkapena burutuz. Datuak sailkatzeari esker interpretazio eta azalpenen oinarriko funtsezko kontzeptuak garatzea ahalbidetzen da (Dey, 1993, 41 or.). Woodsek (1989, 139-141 or.) datu nahas-mahasa sistematikotasun batekin ordenatu beharreko aldia dela dio, datuak modu koherente, oso, logiko eta motzean ordenatzen amaituz.

Fase honetan kategorizazio prozedura erabiliz datuek euren izaera originala galduko dute, antolaketa berri horri esker analisirako erabilgarriago bihurtuz aldi berean, kategoria esanguratsuak lortuko baitira (Dey, 1993, 43 or.).

Informazioa kategoriaka sailkatzea etnografian, ordea, ezberdina da ikerlan kuantitatibo zein kualitatibo batzuetako ohiko kodeak ezartzearekiko. Izan ere, ez da beharrezkoa datuak kategoria bakarrean egokitzea, ezta ageriko araurik ezartzea ere esleipen honetarako (Hammersley eta Atkinson, 2007, 212 or.). Orokorrean, etnografoak informazio “desegituratua” deritzonarekin lotu ohi dira, hots, informazioa ez dago ikertzaileak zehazturiko kategoria analitiko mugatuetan erabat egituratuta. Are gehiago, landa oharren hitzezko deskribapenak izan ohi dira sarri, bideo edo audio grabazioenak, dokumentuetatik eratorriak, etab. Hortaz, analisi prozesuaren ondorio da informazio horretako alderdi esanguratsuak kategoria analitikoetan multzokatzea eta kategoria horiek konkretuki esleitzea (Hammersley eta Atkinson, 2007, 227 or.).

Kategoriarik garrantzitsuenak, aldi berean multzo txikiagoetan zatitu daitezkeenak, identifikatzea da lehen pausoa. Horretarako, hala ere, ikerketa mota eta bertako interesak eduki beharko dira gogoan (Woods, 1989, 139-141 or.).

Kategoriak ezartzen hasteko nahitaezkoa da, halaber, bildutako informazioan gaiak identifikatzea, testuaren azterketa sakona eginez. Ryan eta Bairdek (2003) proiektuan garrantzitsuak zein gai eta azpi-gai diren zehazteko modu bat proposatu dute. Hauen arabera, datuetatik eratorriak izan daitezke gaiak (modu induktiboan) edo aurretiazko hurbilketa teoriko batetik (deduktiboki). Hala ere, literaturako errebisio hutsak ez badira, gaiak datu enpirikoetatik sortzen direla diote, testu, irudi eta soinetatik. Izan ere, aurretiaz ezarritako galdera zerrenda batekin ere ezinezkoa da aurretiaz agertuko diren gai guztiak ezagutzea. Horregatik, gaiak identifikatzea lotuago dago “*grounded theory*”-n aipatzen duten kodifikazio irekiarekin (*open coding*).

Testuak kodifikatzeko metodo ezberdinak daude, teknika ezberdinak, testuinguruko baldintzen arabera egokiagoak izan ohi direnak. Hauek bost dimentsiotan banatzen dituzte Ryan eta Bernardek (2003):

- Datu motaren arabera.
- Beharrezko trebetasuna (*expertise*).
- Beharrezko lana.
- Sorturiko gai kopurua eta mota.
- Fidagarritasun eta baliagarritasun auziak.

Kategorizazioa antolatu eta berrantolatzeko moduen gainean Hammersley eta Atkinsonek (2007, 213 or.) egiteko era bat baino gehiago daudela diote. Hala ere, errazena erregistroa kodifikatzea da, informazioa kategoria bat esleituz kodetzea, hain zuzen ere.

Datuak antolatzeke kategoriak sortu ahala irizpideak ezartzen dira, behaketak antzekoak edo elkarrekiko lotura dutenak diren ala ez erabaki eta ezartzeko. Horretarako, kategoria bakoitzak irizpide bat edo batzuk izaten ditu atxikita eta informazioa ezarriko baldintzen arabera antolatzen da. Gainera, beharrezkoa bada ezberdintze sakonagoa ere egin liteke azpi-kategoriak sortuz (Dey, 1993, 102 or.). Prozesu hau era jarraituan burutzen da ikertzailea asebeste arte eta behaketak modu eraginkorrean aldatzeko kategoria sistema bat ezartzen den arte. Gainera, datuak kategorizatzea ez da informazioan antzekotasun edo erlazioak ezartzea soilik, alderaketa ere erabiltzen baita kategoria jakin bat esleitu behar den bakoitzean, datuak txertatuz edo baztertuz kategoria eta irizpide ezberdinen arabera. Horretarako ezinbestekoa da kategoriak testuinguruan modu analitikoan egoki kokatzea eta erroak material enpiriko esanguratsuan izatea.

Kategorizazio prozesuan kategoria eta datuen arteko dialektika bat garatu behar da, bien artean aurrera eta atzera joz etengabe. Ezinbestekoa da elkartruke hau kategoria sistema egoki bat sortzeko. Datuak hautatzeko ikerketa prozesuak berak eragiten du elkarriketa, dokumentuen analisi zein behaketa lanetan (Dey, 1993, 105 or.). Hautaketa ikerleak berak egingo du esanguratsu, misterioitsu edo problematiko iruditzen zaizkion kontuen arabera eta irizpide horiek aberasgarri izan daitezke kategoria sistema bat garatzeko ideia lez. Kategoria zerrenda bat osatzean funtsezkoa da hiru galdera hauei erantzutea (1993, 108 or.):

- Zer esan nahi dute?
- Behar beste finduta al daude?
- Zer harreman dago kategorien artean?

Oinarrizko baldintzak dira honako hauek kategorien sorrerarako (1993, 118 or.):

- Datuekin ondo etxekotu.
- Testuinguruarekiko sentibera izan beti.
- Malguak izan, kategoriak eraldatu eta baztertu.
- Loturak kontuan hartu eta behar ez diren gainjartzeak ekidin.
- Zehaztu kategorien gaineko irizpideak.
- Aztertu informazioa kategorizatu eta interpretatzeko modu alternatiboak.

Kategoriak esleitzeko garaian, orokorrean, modu sistematikoan egitea funtsezkoa da, zein datu zati eta nola kategorizatu erabakiz (Dey, 1993, 126 or.). Horretarako ezinbestekoa da kontzentratzea, prozesu luze eta zorrotza delako analisisgilearentzat, alderdi mekanikoan ordenagailua lagungarri bada ere.

Informazioa kategorizatzeke hasierako etapetan erritmoa motela izan ohi da eta gehiago daukate saiakera izaeratik. Hein batean korrika egin aurretik oinez ikastearen parekoa izan liteke. Kategorien esleipenean aurrera egin ahala, ordea, gure erabakiak konfiantza gehiagokoak eta sendoagoak dira eta kategoriak argiagoak, anbiguotasuna alboratu eta datu artean sorpresa eta anomalien kopurua murriztuz. Honi esker kategorizazio abiadura eta eraginkortasuna ere hobetzen dira (Dey, 1993, 132 or.). Kategorizazioa oso

da garrantzitsua eta prozesu edo aldi honetako produkturik garrantzizkoena kategoriaz zerrenda bat dela esan liteke, kontzeptuak eta enpirikoki informazioan oinarriturikoa. Horregatik, kategoriak sortu, moldatu, zatitu edo zabaldu egingo dira datuekin alderatu ahala, modu horretan hasierako kategoriaz zerrenda zorrotzuz analisirako. Informazioa sailkatuta izatea egoera egokiagoa da kategorien arteko muga eta erlazioak aztertzeko, esleituriko kategorietako bakoitzeko datu zatiaren konparaketa sistematikoaren bitartez. Loturak egitea izango da hurrengo urratsa, datuak, kategoriatan sailkatu ditugunak, elkarren artean erlazionatzea. Hala ere, lan hau kategorizazioaren aurretik, bitartean eta ondoren egin beharrezkoa da (Dey, 1993).

Laburbilduz, hortaz, datuen analisiaren atal honetan hasieran ideia edo intuizio huts zirenak findu, hedatu, baztertu edo erabat garatuko dira. Taylor eta Bogdanek (2000) urrats hauek bereizten dituzte:

- Kategoriak garatzea.
- Datu guztiak kodifikatzea.
- Kategoriaz bakoitzeko datuak bereizita jartzea.
- Soberan dauden datuak begiratzea.
- Analisia fintzea.

4.1.3. Interpretazioa: loturak eta kontzeptuak sortzea

Analisi kualitatiboaren azken zatiak datuak erlatibizatzea eta jasoriko testuinguruan interpretatzea eskatzen du. Horretarako zenbait gauza hartu behar dira aintzat (Taylor eta Bogdan, 2000):

- Eskaturiko datuak eta eskatu gabeak.
- Behatzailearen eragina eskenatokietan.
- Zein zegoen han?
- Datu zuzen eta ez-zuzenak.
- Iturriak.
- Norbere usteak.

Kontzeptuak sortzea da aldi honetako betebeharririk garrantzitsuenetako bat, datuen antolaketa sistematiko eta literaturaren azterketa sakon baten ostean. Aldi honetan garrantzia handiagoa hartzen dute beste ikerlan eta ikertzaile batzuk. Izan ere, ikerleak aurretiazko irakurketak egin beharko ditu ikerketa-esparruaren ikuspegi bat garatu eta aurrez jorraturiko arloak aztertzeko. Horretarako bere esparruarekiko antzekoak diren lanak hartuko ditu aintzat ikerketan zehar. Ideien arteko jolas honetan, kontzeptuak modelatu, ahultasunak aurkitu, alternatibak aurkeztu eta datu gehiagoz hornitzeko, garrantzitsua da kideen laguntza, batez ere analisisan zehar, ikuspegi kritiko neurri bat beti baita beharrezkoa (Woods, 1989, 145-146 or.).

Kontzeptuak garatzeko detektibe usaimena beharrezkoa da Woodsentzat (1989, 148 or.), hor zerbait dagoela konturatzea baitagokio ikertzaileari. Lagungarri izan daitezke bide horretan behatutako irregulartasunak, gertakari arraroak, jendearen zenbait esan eta

esateko moduak, jendea kitzikatzeko duten gauzak, haserretzen dutenak edo harritzen dutenak. Hauek adierazle lez baliagarri dira.

Analitikoki jardutea oso garrantzitsua da aztergai dugun fenomenoaren gaineko ikuspegi berriak lortzeko. Horregatik, lehenengo urratsen ondoren, irakurketa eta sailkatzea bideratuta, eredu interesgarrien eta kontzeptuen sorreran murgiltzeko unea heldu ohi da. Ezaugarri edo eredu horietako zenbait landa oharretan edo bestelako oharretan jasota izan ditzakegu, edo baita akaso aktoreek euren gainean emaniko ideia eta azalpenetan ere. Beraz, zein ereduren bila ari garen jakiteko garrantzitsua da norabide teorikoa eta ikerketaren erdigunea aintzat hartzea. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan kontzeptu analitikoak bat-batean agertzen dira, batez ere ohiko erabilerakoak direnean aktoreen artean. Horregatik da garrantzitsua “natiboen kontzeptuak” adi jarraitzea. Era berean, ordea, behatzaileak identifikatuak ere izan daitezke kontzeptuak, etnografoak berak kategorietan ezarriak aktoreek beraiek beharrez. Fenomeno ezberdin hauek erlazionatzeko garaian analistak irizpide zehatzen arabera lotu ditzake elkarrekin, ezagutza orokorrean, sen onean edo bere esperientzian oinarrituta. Ikergaiaren gainean literaturan dauden kontzeptuak mailegatu edo egokituta ere sor daitezke kontzeptu hauek (Hammersley eta Atkinson, 2007, 227-229 or.).

Kontzeptuen sorrera prozesuan hasierakoak *kontzeptu sentikorrak* izan ohi dira, teoria baten bidez ongi definitu gabeak. Helburua, ostera, Blumerrek *kontzeptu definitibo* izendaturikoetan bilakatzea da (Hammersley eta Atkinson, 2007, 230 or.). Azken hauek ezaugarri eta erreferentzia-markak finkatuta eta zehatz definiturik izaten dituzte. Hasierako kontzeptuak ez dira hain espezifikoak eta erreferentzia lez balio dute, hurbiltze lanetarako, begirada nora zuzendu iradokitzeke. Hala ere, oso abiapuntu garrantzitsua dira.

Datuak kategoria analitiko zehatzetan antolatu ostean, beraz, hurrengo eginbeharra analisirako funtsezkoak diruditenak lantzea da, esanahiak erabat argitu eta beste kategoriekin erlazioak ezartzeko. Horretarako estrategia aproposa da Glaser eta Straussek *etengabeko konparazio-metodoa* deiturikoa (Hammersley eta Atkinson, 2007, 231-232). Lanketa honetan informazio zati ezberdinak hartu eta zein kategoriarekin erlazioa daitezkeen aztertzen da, ondoren aurrez kategorizaturiko beste informazio zati batzuekin alderatzeko. Hori lagungarria da nekez ulertzen diren kategoriak garbi definituriko bilakatzeko. Modu honetan kategoria baten aldaketa eta espektroa informazioan proiektatzea ahalbidetu eta beste zenbait kategoriarekin sorturiko erlazioak baieztatu daitezke. Gainera, azterketa sistematikoa garatu eta konparaketa inguruak definitu ahala interpretazio eredu definitu bat sortzen da. Bertan argiago agertuko dira kategorien arteko elkarrekiko hartu-eman eta barne egiturak.

Kontzeptuak sortu ondorengo pausoa eredu edo modeloak eraikitzea da. Eredu hauek prozesuen oinarritzko osagaiak adierazteko balio beharko lukete. Hala ere, ez da erraza eraikitzea. Oinarrian gure datuak izan behar dituzte. Zenbaitetan atalen arteko loturak argiak dira, baina beste zenbaitetan ez, ezkutuan daude. Horregatik, datuak aztertzean

partzialki eraiki (edo eraitsitako) ereduak sortuko dira, buru-hausgarri lez berreraiki beharrekoak. Modelo fisikoak perfektuak ez badira, are gutxiago bizitza sozialari dagozkionak, euren konplikazio, inkoherentzia eta kontraesanekin. Horregatik, konplexutasunak medio, nekez gertatuko da eredu oso, indartsu eta original bat sortzea ikerlan bakar batetik. Horretarako ikerlan ezberdinek xede bera izatea beharrezkoa da, norbere eredu aurretik zeuden beste eredu bat edo batzuekin erlazionatuz (Woods, 1989, 150-151 or.).

Modeloen antzeko funtzioa dute tipologiek ere (Woods, 1989). Hauek ere lagungarri dira ikuspegia hobetu eta moldatzeko, ageriko zehaztasunak antolaturiko egitura bakar batean biltzeari esker. Eraikuntza eta kontzeptualizazio jarduera honen orokortasun eta abstrakzio mailak ere gora egiten dute mailan, eredu eta tipologiak baliokide badira ere. Erlazio eta elkarrekiko loturak azaltzen dituzte eta alderaketa eta eraikuntza teorikorako oinarri bat ezartzen dute. Gainera, hauek ere maila ezberdinetan aplikatu daitezke.

Eredu eta tipologiak deskribatzeko moduak dira, jarduera sozialeko eremu baten ulermenerako lagungarri. Izan ere, deskribatzeko modu berezia dira, beharrezkoa baita informazio kopuru handi bat orraztu, aztertu eta norbere baitara biltzea (Woods, 1989, 160 or.). Hammersley eta Atkinsonek (2007), hala ere, tipologia sistematikoagoak dituzte aipagai. Hauen bidez zenbait kategoria edo aktore multzoren estrategiak zehazten dira, arazoari aurre egiteko ohikoa duten modua azalduz. Hala ere, ez da zentzuzkoa tipologia eta eredu oso sistematizatuak garatzea hauek gure datuetara egokitzen ez badira. Izan ere, tipologia bat sortzeko ezinbestekoa da etengabe landa-informaziora jotzea, analisisian zehar kategorien arteko erlazioak, kontzeptuen loturak eta adierazleak ere findu eta espezifikago bihurtuz. Modu honetan lortuko da *kontzeptu sentikorrek kontzeptu definitibo* bilakatzea. Bide horretan funtsezkoa da sortzen ari den teoriaren hari muturrak soilik ez, beste erlazio aukera batzuk ere jorratzea. Ez da posible adierazle eta kontzeptuen arteko harremanen gaineko suposizio guztiak ezagutaraztea, baina komeni da aztertu eta azalaraztea, gai garrantzitsuak adierazi ditzaketelako. Interpretazio alternatibo hauen izaera ezberdina izango da ikerketa batetik besteetara, baina lan horretarako garrantzitsua da hiru alderdi hauek aintzat hartzea:

- Testuinguru soziala.
- Denbora.
- Testuinguru pertsonala.

Eredu eta tipologiak garatu osteko hurrengo azterketa pausoa teoriaren gainekoa da. Hala ere, etnografian ikerleak mesfidatiak izan ohi dira kausazko ereduaren sorrerarekin. Nolanahi ere, eredu hauek, ez oso agerian eta ez oso garatuta bada ere, agertzen dira kontakizunetan. Ondorioz, garrantzitsua da modelo hauen esanahia eta agerpena adieraztea eta esplikatzea posible den heinean, sistematikoki garatu eta baieztatuz. Kausazko harremanak frogatzeko metodo orokor bakarra dago: konparazio metodoa. Erabiltzeko modu ezberdinak badaude ere, baldintza ezberdinetan ezartzen dira gertaera sozialak teoria batek proposaturiko euren erlazioen irismen eta indarra neurtzeko (Hammersley eta Atkinson, 2007, 252 or.).

Zenbait lan etnografikotan teorien baieztapen auziari aurre egin diote. Kasu hauetan, ordea, indukzio analitikoak erabili izan dute. Urrats hauetan datza (Hammersley eta Atkinson, 2007, 253 or.):

- Fenomenoaren formulazio ez oso zehatza egitea.
- Fenomenoaren gaineko kasu batzuen azterketa, ezaugarrien azalpen potentzialen gaineko informazioa bilduz.
- Informazioaren analisisian oinarritutako azalpen hipotetikoak ezartzea. Honek kasu ezberdinetako faktore komunak identifikatzen laguntzen du..
- Hipotesia baieztatzeke beste kasu batzuk aztertzea.
- Hipotesia gertaerekin bat ez badator, birformulatu edo fenomenoak birdefinituko da, kasua alboratu utziz.
- Kasuak aztertzeke prozedura jarraituko da, fenomenoak birdefinitu eta hipotesia birformulatuz erlazio unibertsala lortu arte. Kasu negatibo bakoitzeko beharrezkoa da definizio edo formulazio berri bat.

Indukzio analitikoak, hala ere, fenomeno sozialak lege determinista eta baldintzapekoen arabera jorratzea proposatzen du. Joera honekiko norabide ezberdinetako kontrako arrazoiak daude. Etnografoek sarritan lege deterministak baztertu egiten dituzte, jendeak nola jokatu erabakitzeke duen gaitasuna alboratzen dela eta. Ildo honetan, Matzak (Hammersley eta Atkinson, 2007an aipatua, 255 or.) itzal handiko argudioa darabil, azalduz jendearen jokabidea legeen bidez hein batean aurre esan litekeen arren, giza bizitzak baldintza determinista hauen gainean garrantzi handia duela.

Ez dira etnografia guztietan ematen datuen analisisian agerturiko aldi eta pauso guztiak, hasierako analisisian bukatu daitezkeelako lanak baliabide, denbora, ikerketaren izaera eta datuen arabera (Woods, 1989, 136 or.).

4.2. Datu kualitatiboaren analisisirako softwarea: ATLAS.ti

CAQDAS (Computer Assisted Qualitative Data Analysis Software) deritzen tresnen erabilera gero eta ohikoagoa da ikerketa kualitatiboetako datuen analisi prozesuetan. Izan ere, datu kualitatiboak ordenagailu bidez aztertzeke aukera ematen dute, era sistematizatuagoan, eraginkorragoan eta betiere ikerketa helburuak lortzeke babesa emanez. Software ezberdinak daude merkatuan, euren ezaugarri tekniko, abantaila eta mugengatik bereiziak.

Ikerlan honetan ATLAS.ti erreminta erabili dugu, 6.2. bertsioa. Software honek datuak era sistematikoan antolatu, taldeetan bildu eta kudeatzen laguntzen du. Testu formatuan dauden artxibo handiez gain soinu, irudi eta bideoak ere onartzen ditu. Baita PDF artxiboak eta georreferentziatutako datuak ere (ATLAS.ti Scientific Software Development GmbH, 2012, 5 or.).


Jarraian agertuko dut lan hau burutzeko zein modutan erabili genituen softwareak eskaintzen dituen baliabide eta tresnak.

Friesek (2012) “NCT (*notice, collect, think*) eredu” agertzen du ATLAS.ti-rekin egin beharreko lanetarako (ikus 2.4. irudia), analisi prozedura hau ordenagailuz lagundutako azterketarako baliagarria eta funtsezkoa dela argudiatuz. Ereduaren oinarritzko hiru osagaiak ohartu (*notice*), bildu (*collect*) eta pentsatu (*think*) dira. Hona hemen bakoitzari atxikiriko ezaugarriak nagusienak:

- Ohartu: datuetan kontu interesgarriak bilatzea du funtsean, oharrak idatzi, zatiak markatu eta aurretiazko kodeak erantsiz. Garrantzitsua da gauzak markatu eta izendatzea aldi honetan.
- Bildu: antzeko datu zatiak batzean datza, kodetze bidez egiten dena. Kodeak ezartzeko ez dago modu zehatzik, baina ikerketa galderek, xedek eta erabilitako metodologiak eragina dute.
- Pentsatu: datuen artean patroi eta erlazioak lotzeko fasea da. Aurkikuntzetako alderdi asko integratu behar dira ikergai den fenomenoaren irudi ulerkor bat garatzeko.

Analisian zehar hiruren artean joan-etorrian ibili beharra azpimarratzen du, izaera ziklikoa duelako prozesuak. Hastapenean ohartzean jarriko da arretarik nagusia, etiketa bat sortzeko ideia bat izan orduko berehala kodetzeari ekiteko, hau bidean zehar behin baino gehiago berraztertu eta egokituz aurkiturikoen arabera. Kode sistema arrakastatsua osatu ostean informazio guztia kodifikatu beharko da eta hau egin ondoren galderak mahai gainera daitezke. Prozesu hau ez da amaituko testuinguruko datuak elkarrekin lotzen hasi eta mapa eta irudi bidez bildu arte aurkikuntzak. Ohartu, bildu eta pentsatzeaz gain, beharrezkoa da idazketari heltzea ere, pentsamendu gehiago loratzen direlako idatzi ahala (Friese, 2012, 228-229 or.). Analisi prozesu honetan, beraz, bi maila bereizten dira nagusiki:

- Deskriptiboa: ohartu eta lehen mailako kodifikazioarekin hasiko da, lehenengo ideietan oinarrituz. Kodeak garatu egingo dira datuetan jasoriko guztia deskribatzeko asmoz, kode zerrenda egituratu batekin amaituz.
- Kontzeptuala: angelu ezberdinetatik kodetutako informazioa ikerketa ildoarekin lotzea da xedea, galderak egin eta miaketa bidez erlazioak aztertzeke.



2.4 irudia. Software bidezko analisisa (Friese, 2012, 238 or.).

4.3. Emakumeak Euskal Pilotan (EMEP) proiektua

Ikerketa lan honetan aurrez aipatu berri dudan NCT eredu kontuan izanik, zeina aurrez beste autoreek izendaturiko hiru faseekin (deskubritu, kodifikatu eta kontzeptuak sortu) bat datorren, erabili nuen datu kualitatiboen analisirako softwarea. Izan ere, nire urratsak emateko Friese (2012) ATLAS.ti softwarea erabiltzeko emaniko aholku eta gomendioak baliaigarri eta lagungarri izan nituen oso. Ondorengo azpi-ataletan aldi bakoitzean emaniko urratsen berri eta softwarea zein modutan erabili nuen agertuko dut.

4.3.1. Ohartu edo deskubritu

Aurrez aipatu bezala lehen fase edo etapa honetan, deskubrimendua xede nagusitzat duenean, gaiak identifikatu eta kontzeptu eta proposamenak sortu behar dira pixkanaka, aztergaiaren gaineko deskribapen zabalari heldu eta ulermenari arreta handia eskaintzen saiatuz. Horretarako, datuak bildu ahala zein bilketa lanarekin amaitu ondoren, jasoriko informazioa behin eta berriro irakurri ohi nuen, kontakizun, ohar, elkarrizketa eta egunerokoak zehatz-mehatz eta zokorik zoko miatu. Modu horretan gai zehatzak azpimarratu eta nabarmentzen nituen intuizioa lagun hartu eta informazioaren errepikakortasuna ardatz hartuta, besteak beste. Ildo berean, interpretazio eta ideien arrastoari jarraituz azaleratzen ari ziren gaiak bilatzera jo nuen, ondorengo analisi prozesurako bideak eta mugarriak aurkitzen saiatuz gogoeta aldi honetan. Ikasturtean zehar gairik nagusi eta esanguratsuenen zerrenda bat osatu nuen saio eta asteek aurrera egin ahala testuingurua ulertzeko modua eginez.

Aldi honetan, aurrez esan bezala, jasoriko datu guztiak aztertzeko urratsak ematen hastea da helburua. Beraz, horretarako ATLAS.ti softwarean zein arxibo-formatu erabili, nola izendatu eta non gorde pentsatzetik abiatu nintzen. Lehenik eta behin proiektu berri bat sortu behar da (Friese, 2012). Hori dela eta, datu bilketa prozesuan jasoriko informazioa zuten Word dokumentuak, sakontzeko galdeketetakoak, elkarrizketetakoak zein saioetako kontakizunez jositakoak, atxiki nizkion sortu nuen “EMEP proiektua” unitate hermeneutikoari. Izan ere, unitate hermeneutikoa da analisiarekin loturiko informazio guztia biltzen duen fitxategia. Bertan jasotzen dira lehen mailako dokumentuak (*primary documents*), aipuak (*quotes*), kodeak (*codes*) eta oharrak (*memos*), besteak beste.

Beraz, behin proiektuaren bizkarrezurraren nondik norakoak ezagutu, fitxategia osatu eta antolaturik, datuen benetako azterketa lanari ekiteko unea iritsi zitzaidan, bigarren etapara jauzi egitekoa, kategorizazio zein kodifikazioari ekiteko unea.

4.3.2. Kodifikazioa

Bigarren fase honetan datuak kodifikatzearen poderioz ikergaiarekiko ulermena areagotu eta zehaztea da helburu nagusienetakoa. Izan ere, informazioa kategoria ezberdinetan sailkatzeari esker interpretazio eta azalpenen oinarriko funtsezko

kontzeptuak garatzea ahalbidetzen da. Horregatik, oso garrantzitsua da datuak sistematikotasun batekin ordenatu eta kategoriatan zerrenda bat sortzea.

Datu kualitatiboen analisi fasean kodetzeari heldu behar zaio. Gainera, ordenagailuz lagunduriko azterketan beharrezkoa da piezak edo zatitxoak sortzea. ATLAS.ti-n aipua (*quotations*) deritze hauei. Aipu hauen ezaugarria da testuingururik gabe ere euren esanahia ulertzeko bezain luzeak izan behar direla. Adibidez, hiru hitz adierazgarri nahikoa izan litezke datuetan zer daukagun jakiteko. Hala ere, koderik gehienak aurretiazkoak izan ohi dira. Garrantzitsuagoa da hasieran ideiak bildu eta hauek kontzeptu eta kategoriatan egokietan denbora pasa ahala kokatzea (Friese, 2012, 96-97 or.).

Ikerlan honetan erabilitako kodifikazio estrategia induktiboa izan zen, *bottom-up* (Morley, 2001, Blázquez eta Tagle, 2010ean aipatua; Navarro, 2007) moduan egin bainuen. Era honetan datuak irakurri eta aztertu ahala joan nintzen testua atalka zatitu eta kode zerrenda bat sortzen, analisiaren bideari segika. Ez nuen aurretiazko kode zerrendarik erabili, baizik eta aztergai nituen datuak izan ziren abiapuntu eta kode-iturri unean-unean.

Nire datuekin osaturiko lehenengo kode zerrenda oso luzea, hein batean zehaztugabea eta ildoetarako hurbilketan zetzana izan zen. Bertan datuz betetako ia mila orriak hartu eta atal ezberdinak antolatzen eta sailkatzen joan nintzen analisi bidez kodeak ezarri. Hamabi orritan zerrendatu nituen bururaturiko guztiak lehenengo kode zirriborroan, kategoriatan ugari eta anitzetan sailkatuz:

- Nire inpresio/sentimenduak.
- Metodologia.
- Gako-gaiak.

Kategoria eta azpi-kategoria hauek, ordea, oso orokorrak ziren. Gainera, askotan barneko zenbait kode oso antzekoak eta elkarren baitan kokatzeko modua zutenak, multzokatzeko aukera eskaintzen zidatenak, izan ohi ziren. Beraz, hortik kategoriatan zehatzagoak ezarri eta kodetze sistematikoagorako urratsa eman nuen ondoren pixkanaka, landa lanean gauza gehiago zehaztu ahala eta datuak zehatuta analizatzeari esker.

Kodeak definitu, zehaztu, ezarri eta datuak sistematikoki antolatzea gai nagusi bakoitzarekin banan-banan egin nuen, honako ordena jarraituz: sozializazioa, identitatea eta ardurak eta amatasuna. Gainera, kategoriatan hauetako bakoitzaren azpian azpi-kategoriak ere zehaztu nituen, kode eta azpi-kodeak bezalaxe. Amaierako zerrenda definitiboa, gako-gai guztiak agertzen direna, jarraian (ikus 2.8. taula).

2. kapitulua


2.8. taula

Datuetatik eratorritako kode eta azpi-kodeak.

Gaia	Kodea	Azpikodea		
Sozializazioa	Kantxa/saio barruko kideen arteko harremanak	Kideen artean		
		Kide/entrenatzaile tandemak		
Sozializazioa	Kantxatik/saiotik kanpoko lotura/egonaldiak	Talde izaera/sentimendua		
		Pilota ardatz dutenak		
Identitatea	Genero-identitatea	Bestelakoak		
		“Gizonen/emakumeen kirola”		
		(Ez)berdintasunak		
	Pilotari-identitatea	Estereotipoak	“Marimutilla”	
		Euskal izaera		
	Emakume pilotari identitatea		Neska pilotaria vs. mutil pilotaria	
			Hautzaroko pilotaria / helduaro pilotaria	
			Pilotari betidanik / pilotari “berantiarra”	
			Neska vs. emakumea (bizi aroa/jarrera, jardun xede ≠ nerabeak/helduak)	
			Profilak: federatua / aisialdia	
“Plaza-andre” izaera				
Borroka egitea				
Jendarteko antolaketa		Gizon/emakumeen eginkizunak		
		Bizitzako etapak		
		Lanaldi bikoitza		
		Etxeko ardurak (erosketak, otorduak, garbiketak, ...)		
		Laneko ardurak		
		Familia		Familia ardurak/rolak
				Familia joerak
				Familiakoak bisitari
				Zaintza lana: gurasoak
		Amatasuna		Ama muga eta loturak
Ama izan aurretik / ondoren				
Ama izan osteko joerak				
Errudun sentimendua				
Bikotea				
Seme-alabak				
Ama sena eta ilusioa (umeen poza)				
Ama pilotariak/pilotari amak				
Ardurak eta amatasuna	Zailtasunak eta oztopoak	Denboraren antolaketa		
		Lana-aisia (pilota) uztarketa		
		Konpromisoa		
		Aukera mugatua		
		Nekea		
	Aisialdiaren antolaketa	Onurak	Pilota etenaldia	
			Emakumeen momentua	
			Arduretatik ihesbide	
			Sozializazioa	
			Pilota eguneroko antolaketan txertatu	
			Konpentsazioa	
			Ondo pasatzea	
			Eredua ematea	
			Osasuna	
			Denboraren banaketa	
		Lehentasunen ezarpena		
		Jarduera antolatuak vs. ez-gidatuak		

Lehenengo datuak kategoria handietan txertatu nituen, irizpide ezberdinen arabera erabakiz zein zaku zegokien. Kategoria hauek zehazteko ordena logiko bat ezarri nuen, aintzat hartuz atal hauetako bakoitzak nahiko informazio eta gorputz behar zuela berak bakarrik, ez zela huts edo mehar samarrik geratuko. Horrela, antolaketa honi esker posible da informazioa murriztu eta azterketa nahi den norabidean fokatzen joatea ere, errealitatearen gaineko ulermena eta ezagutzan geroz eta argitasun eta sakontasun handiagoa eskuratuz.

Softwarean kodifikatzeko prozedura nahiko mekaniko eta ez oso gorabeheratsua da behin kodeak argi edukiz gero. Hala ere, ezinbestekoa da analisi-unitatea zehaztea, aldioro beharrezkoa den tamainako testu zatia hautatu eta kodifikatuz. Horretarako ATLAS.ti-ko kode kudeatzailea (“Code Manager”) da funtsezko tresna, kodeak atxikitze aipuak hautatu eta “open coding” bidez eginez (ikus 2.5. irudia).



2.5. irudia. ATLAS.ti-ko kode kudeatzailea eta aipuen kodifikazio adibidea.

Kodifikazio prozesua burutu bitarteko jardunari erreparatuz gero, berriz, hasieran kitzikagarri bezain erakargarria izan liteke sailkapen ekintza hau, gauza berri asko deskubritzen direlako. Lehenengo emozio horrek, ordea, egun gogor eta lan katramilatsu eta ilunagoa egitea dakar ondoren, datu pila aurrerabidea aurkitzea bera ere zailduz. Zenbait unetan kodetzea gogaikarria izaten da, neketsua (Friese, 2012). Prozesu oso luzea da. Nire kasuan ere bete zen printzipio hau, hasierako egunetako berritasun, ilusio eta irrika kodetzean barneratu eta sakondu ahala monotonia, ekintzaren errepikakortasun eta neke pilaketan bihurtuz. Hala ere, kodetze lan hau gaika antolaturiko aldietan egin izana, hein batean, eginiko dena itogarri ez iruditze onuragarri izan zen niretzat, arnasa hartzen nuelako lan hau beste arlo batzuetako zereginekin konbinatzean.

Ongi antolatu eta egituratutako kode zerrendak lortzea lagungarri eta mesedegarri da hurrengo analisi faseko kontzeptu, erlazio eta patroien eraketarako. Ongi eginiko kodifikazio batek ideia interesgarriak eratzen ditu azterketa sakonetan. Izan ere, datuen azken helburua aurkikuntzak integratu eta istorio koherente bat osatzea da (Friese, 2012).

4.3.3. Loturak bilatzen. Interpretazioa


Datuen analisisiko hirugarren eta azken arloa deskubritu eta kodifikatu ondorengo da, loturak bilatu eta interpretazioari dagokiona. Hemengo helbururik nagusiena errealitateko elementuei esanahia ematea da. Atal honetan ezinbestekoa da garunak erabili eta are gehiago pentsatzea bildu eta sailkaturiko datuen arteko erlazio eta kontzeptuen bila. Aldi honetan, gainera, ikergai den fenomenoaren argazki ulergarria lortzeko beharrezkoa da aurkikuntzetako alderdi ezberdinak integratzea (Friese, 2012).

Analisi maila hau kontzeptuala da eta esanahiak aztertzerantz bideratzen da bertan eginikoa, kontzeptuak bilduz, elkarrekiko loturak ezarriz eta erlazioen irudikapen grafikoak erabiliz. Adibidez, lagungarriak izan daitezke sareak edo kode-familia eta super-kodeak. Horretarako etengabeko konparazio metodoa hartu nuen bidelagun. Horrela egin nituen kontzeptuen arteko loturak eta baita, oinarritzko maila batean bada ere, lan honetako teorizazioa edo teoriatxoaren sorrera ere, eredu edo modeloak sortzearen ondorio direnak.

Interpretazioaldi honetan literaturaren azterketa sakon bat uztartu behar da lorturiko datu sistematikoekin loturak bilatzeko, norbere gaiarekiko esanguratsuak diren ikerlanak jorratu eta bertan esan eta plazaraturikoak tentu eta arreta handiz lantzea komeni baita. Hori hala izanik, beraz, nik eskuraturiko kontzeptuak hainbat autorek eginiko lanekin batera aztertu eta jorratu nituen, atal bakoitzean egoki iritziriko liburu, artikulua, txosten eta abarrak adi-adi aztertu eta bertako gai eta kontzeptuetan muineraino murgiltzen saiatuz.

Horregatik, hasieran sortutako kontzeptuetatik azken aldera egindako kontzeptuetara bilakaera bat ikus liteke. Horrez gain, gaien arteko loturak eta interpretazioak ere zehaztu eta mamituz joaten dira prozesuan aurrera egiten den neurrian, benetako esanahiak lortu arte, errealitatea modu egoki eta zuzenean ulertzera bideratuko gaituztenak, aztergaia azaltzea ahalbidetuko digutenak.

ATLAS.ti softwarean, aldi honetan, bizpahiru analisi mota izan ziren bereziki buruturikoak. Batetik, familiak eta sareak (“networks”) sortzea eta bestetik, aldiz, memoen erabilera. Prozedura hauei esker aztergaiaren atalak nola elkarlotzen diren eta zein diren gako-gaiak oso modu erraz, ulergarri eta adierazgarrian ikustea posible da (ikus 2.6. irudia).



2.6. irudia. Identitatea familiako sarea.

Datuen analisia ez da erabat amaituko kontzeptu esanguratsuak eta hauen arteko erlazio definitiboak zein eredu ala modeloak esku artean izan ezean. Behin hori lortuta, ordea, hauek modu egokian aurkeztera bideratu behar dira energia eta indarrak, txostenean azken emaitzak egoki eta txukun aurkezteko. Horretarako idaztea funtsezkoa da, hurrengo atalean agertuko dudan moduan.

5. Idazketa prozesua

Datu bilketa eta datuen analisiarekin amaitu ondoren, irakurleei azaldu behar zaie nola jaso eta interpretatu diren datuak. Horretarako ikerlanaren garapenaren gainean behar bezainbeste informazio eman behar zaie, euren aurkikuntzak erlatibizatu eta dagozkien testuinguruan uler ditzaten. Puntu ezberdinak azaldu behar dira, uneoro irakurleek jakin behar duten guztia azaldu ote den galdera eginez (Taylor eta Bogdan, 2000, 180-183 or.):

- Metodologia.
- Ikerketa aldia eta hedapen denbora.
- Eskenatoki eta informatzaileen izaera eta kopurua.
- Ikerketaren diseinua.
- Ikerlariaren buru-enkoadraketa.
- Informatzaileekin izaniko harremanak.
- Datuen kontrola.

Ez da batere erraza analisia amaitu eta idazteko urratsa ematea, ordea, ez baita erraza paperean nahi den hori agertzea. Hala ere, eginbehar hau errazagoa izan daiteke behar beste datu izanez gero eta analisi egoki bat egin bada, zeinak zentzuzko esaldiak azaleratzea dakarren. Dena dela ere, analisiaren luzapen moduan aurkez liteke idazketa, idaztea, azken finean, gogoetatzea baita (Wolcott, 1990; Woods, 1998).

Idazle bihurtzearen zailtasuna nabarmenduz Taylor eta Bogdanek (2000, 183-185 or.) iradokizun batzuk egiten dituzte ikerlariari azken txostena idazteko baliagarriak izan dakizkiokeela esanez:

- *Idazten hasi aurretik ideiak paperean zirriborratu.* Idatziaren egitura ikerketak berak ezarriko du eta kontakizunerako aintzat hartu behar da puntu nagusia.
- *Erabaki zein jenderengana iritsi nahi den eta estiloa eta edukia irakurleei egokitu.* Irakurlearen lekuan jartzen saiatu.
- *Irakurleek noranzkoaren berri izan behar dute.* Helburua hasieran plazaratu eta gai bakoitza nola lotzen den horrekin ere bai hala dagokionean.
- *Labur eta zuzena izan.*
- *Idatzia adibide espezifikoeekin elikatu.*
- *Zerbait idatzi.* Blokeo kasuan edozer dela ere idatzi. Ideiak azaltzen kontzentratu.
- *Idatzia lagun edo lankideei eman irakurri eta iruzkinak egin ditzaten.*

Gure istorioa modu ordenatu eta sistematikoan aurkeztu beharra ere aipatzen da, istorioak kontatzea artea egiteko modu bat dela baieztatzearekin batera. Deyk (1993) dioenez kontakizunak oinarrizko hiru osagai ditu: eskenatoki bat, aktoreak eta gidoi bat. Osagai hauek guztiak agertzen dira ikerketa kualitatibo bidez sorturiko kontakizun batean. Eskenatokia datuak bildu ditugun gunea da, bai elkarrizketa eta behaketen testuinguru sozial orokorra eta baita landa lana egin dugun gunea(k) ere. Aktoreak gure informatzaileak dira, edo behatutako norbanakoak. Eta gidoia azterturiko ekintza sozialari dagokio, bakoitzaren bizi-historiak zein testuinguru sozial ezberdinetako euren arteko elkartrukea. Beraz, zeregin nagusia kontakizun egoki eta eskuragarri bat sortzea da, urrats hauekin lor daitekeena (Dey, 1993, 255 or.):

- Interesa mantendu deskribapen eta dramatizazioan.
- Kontakizunaren eboluzioa antolatu.
- Guztiaren artean koherentzia garatu.
- Gako-gaiak hautatu.
- Hizkuntza erraza erabili.
- Kontzeptu eta loturak ageriko egin.

Woodsek (1989) ere badu idazteari buruzko kapitulu bat. Bertan dio datuetatik aurkezpenerako jauziak ez dirudiela oso handia denik. Hala ere, idazten gozaten dela jabetzearen gainean dio saria edo gozamen intelektuala gero datorrela eta ez hasieran. Izan ere, ikerketa bat idaztea, idazkera akademikoa, jarduera hertsiki diziplinatua da eta honi ekiteko prestatu beharra dago. Horregatik, hasierako aldietan *prestaketa psikikoa* egin beharraz dihardu, idazketari ekin aurretik. Prozesu hau nahaste puntu batekin eta deserosotasunarekin lotzen du, gainera. Bigarrenik, materiala aurkezteko moduan jartzeko etapak gainditzea ere ezinbestekoa da. *Biraderari eragitea* edo *erreboluzioetan sartzea* neurri batean sistematikoa eta sendoa da eta beste hein batean desordenatu eta gora-behera askokoa, konfigurazio berriak bilatzen direlako landa oharrak, transkripzioak, laburpenak eta kategoriak irakurri eta berrirakurriz eta bidean zehar idatziriko iruzkinak aztertuz. Ideia batzuk gehiago frogatzen dira eta idatzitakoek zer tankera duten konprobatzen da. Behin biraderari eragin ostean, motorra funtzionamenduan jarrita, ostera, bidean oztopoak agertzen dira. Hala ere, hau idazle orori gertatzen zaio. Une hauei aurre egiteko garrantzitsua da lagun onen, tutoreen zein konfiantzazko kideen aholku on eta babes moral bila jotzea, kritika eraikitzailea baztertu gabe. Aldi berean, idazle bakoitzak bere estimulu psikologikoak sortzen ditu, izaeraren oinarrizko elementuetara joz: norbere gaitasunetan konfiantza izatea, pazientzia izatea fruituak azkarregi ez espero eta zailtasunei aurre egiteko, eta lanean jarraitu eta bide guztiak aztertu zein baliabide pertsonal guztiak behar bezala erabiltzeko erabakia. Izan ere, zenbait estrategiak blokeo egoerak sor ditzakete. Hala ere, arazoa zein den aztertu eta garrantzitsuena aurrera egitea da, blokeoaren kide bihurtzea, ez uztea geure gain jartzen, hainbat trikimailuz baliatuz uxatu arte.

Woodsek (1989, 193-194 or.) idazketa aldia antolatzeko plana lau ataletan banatzen du, oinarri ona izatea ezinbestekoa dela ere nabarmenduz. Lau aldi nagusi hauek bereizten ditu:

- Aurretiazko eskema espekulatibo bat.
- Behin behineko lanerako plan bat.
- Berregindako plan bat, lehen zirriborro egoeran. Ondoren zirriborro gehiago izan ditzake.
- Amaierako plan bat, orden bat ezartzen duena.

Hala ere, aldi bakoitzeko planifikazio irizpidearen alboan jartzen du malgutasuna mantentzeko beharra autore berak, planifikazio eraikitzailea eta askatasun anarkikoa, baina potentzialki konstruktiboa, uztartuz aldi berean (Woods, 1989, 196 or.). Amaitzeko, etnografoak dio datuen aberastasuna, analisiaren zorrotasuna eta ideien plazaratzea idazketa hertsiarekin uztartzea dela ikerketa kualitatiboetako atal gatazkatsuenetako bat, hiru arazoirengatik (Woods, 1989, 200-201 or.):

- Ikerketarako funtsezko tresna da ikertzailea eta horretan jartzen den enfasia.
- Ikerketak prozesu bezala duen izaera.
- Idazketa prozesua ideiak sortzeko tresna garrantzitsu lez kontuan hartzea, ez komunikatzeko bide soilik.

Idazketarekin uztartu beharra dago irakurketa ere, etnografia lana gehiago burutzen delako idazteko moduaren arabera informazioaren bilketa edo analisiaren arabera baino. Aldi berean, nola idazten dugun eta nola irakurtzen elkarrekin loturik daude (Hammersley eta Atkinson, 2007). Idazketa lan etnografikoaren erdian kokatzen da eta, beraz, ezinbestekoa da idazketaren gaineko ideia kritiko bat izatea idazterakoan, orientazio kritiko eta teoriko bat lantzea beharrezkoa baita. Horretarako beharrezkoa da testu etnografikoetan erabilitako mekanismo erretorikoak ezagutzea, zer hitzaldi mota dauden eta nola erabiltzen diren hauek aktore, ekintza eta testuinguruak modu egingarrian berreraikitzeko.

Etnografian idazteko erabilitako modua, berriz, narratiboa izatea erabakigarria da, eguneroko bizimodua era horretan antolatzen delako. Etnografoak narrazioak erabiltzen ditu informazio lez eta idazkera akademikoko narrazio soziologiko eta antropologikoak berregituratzen ditu. Hala ere, kontua ez da etnografia-estiloen mapa bat sortu edo etnografia bakoitza zein generotan kokatu behar den iradokitzea. Garrantzizkoena era batean edo bestean idazteak zuzenean idatzitako horretan eragiten duela igartzea da (Hammersley eta Atkinson, 2007). Izan ere, testu etnografikoa gogoeta prozesu orokorraren atal bat da eta hau lagungarri da kontagai diren mundu sozialak eraikitzeko. Horregatik, funtsezkoa da etnografoak darabiltzan testu-arauak ezagutu eta ulertzea eta hauek irakurlearengan zer harrera izango duten jakitea.

Wolcott (1990) ere ikerketa kualitatiboetako idazkeraren gainean zeregin hau burutzeko lana aldi ezberdinetan banatzen du, bakoitzaren gaineko aholku eta gomendioak erantsiz. Atal hauek bereizten ditu eta bakoitzaren ezaugarrietan sakondu:

- Martxan jartzea (*getting going*).
- Aurrera jarraitzea (*keeping going*).
- Estutzea (*tightening u*”).

- Amaitzea (*finishing up*).
- Publikatzea (*getting published*).

Martxan jartzeko unean aintzat hartu behar dira datuak sailkatu eta antolatzea, ikuspegia, eta non, noiz eta nola hasi erabakitzea (Wolcott, 1990). Fase honetan garrantzitsua eta oinarrizkoa da leku eta une egokiak hautatzea. Gainera, antolatzeko planaren baitan hiru ekintza-gako aurkezten ditu: helburuak agertzea, sekuentzia ezartzea eta narrazio estiloa definitzea. Behin gai horiek zehaztu eta oinarrizko ideia eta lan-ildoaren orria prestatutakoan hasteko unea helduko da.

Aurrera jarraitzeko bidean, berriz, martxan jarritakoan esateko zerbait eduki eta nola esan zehazteko plan bat edukiz gero arrakastatsua izan liteke idazketa bidea. Hala ere, ohikoa da sentimendu hori izanik ere zenbaitetan animo eta feedbackik gabe lan egitea edo jasoriko atsegina ez izatea igarotako denbora eta konpromisoarekiko nahi bestekoa. Beraz, aurrerapenaren neurgailu bakarra idatzi beharreko gaiak gutxitzea eta orriak pilatzen joatea da, hemen ere amaierak bitartekoak bidezko bihurtzen baititu. Horretarako alboan mantentzea (*stay with it*) eta xehetasunei (aipuak, erreferentziak, orri-oinak, etab.) dagokienean erreparatzea, hasieratik ahal bada hobeto, amaierarako hori eginda izango litzatekeelako, lagungarri da. Aurrera egiteko orduan feedbacka jasotzea ere oso garrantzitsua da, eginikoa aztertzeke, nahiz eta ez den erraza guztiari buruz jardutea, bereizgarri asko dituelako idazkerak berak. Ideia nagusia, laburbilduz, ikuspegia ez galdu eta idatzitakoan aurrera egitea da. Estutze edo egokitze etapan, berriz, atal guztiak behar duten tokian daudela ziurtatu behar da. Horretarako funtsezkoa da atal bakoitzeko segida bideragarri bat izatea. Hori lortzeko edukia eta estiloa erreparatzea komeni da. Aldi honen amaieran ikerketa kualitatibo bat nola amaitu behar den hausnartzen du Wolcottek (1990) eta bertan dio amaiera formala emateko aukera eskaintzen dutela laburpenek, gomendioek edo ondorioek, eta baita norbere gogoeten aitorpenak ere. Idazketa aldiari amaiera eman eta azken puntua idazterako, berriz, uste ez diren hainbat idazketa osagarri eta aurrez zehaztu ezin diren hainbat erabaki hartu behar dira, nahiz eta askotan erabaki garrantzitsu batzuk aurre ezarriak diren. Hala ere, izenburua, eskaintza, hitzaurrea, sarrera, eskerrak, eduki taulak, orri-oin eta goiburua, erreferentziak eta bibliografia, eranskinak, aurkibidea eta gako-hitzak, laburpena eta era horretako puntuak zehaztu beharko dira bukaerarako. Hori egin ostean azken irakurketa bat egin behar zaio zirriborroari amaitutzat eman aurretik, beharrezkoa bada aldaketaren bat egitea komeni baita (Wolcott, 1990).

Txosten honen idazketa ez da aurrez autoreek esan eta aipaturiko ezaugarrietatik ezberdina izan, ordenagailu aurrean aurrera eta atzera, ezker eta eskuinera, gora eta behera, batetik bestera aritu bainintzen neu ere, lan honetan diharduten beste guztiak bezalatsu. Aldi guztietatik igaro nintzen eta baita aldarte bat baino gehiagotatik ere. Gainera, nire kasuan idazkia sortzea ez zen jardunaren amaierarako utzitako zeregin bat izan. Datuen analisisa arloka egin nuen, gairik garrantzitsuenak banaka jorratuz sakonean, eta arlo bakoitzeko informazioaren gaineko azterketak egin bitartean zein bukaera aldera osatu nituen idazketa dokumentuak, hitzak hitzei josiz. Gaika

idaztearena, gainera, aurrez erabaki eta diseinaturiko prozesua izan zen, irakurketa sakonak eta hitzezko ideiak uztartuz idatzien baitan aldi berean.

Idazteko erabilitako prozedurari erreparatuz gero, hasieran gaiaren gaineko antolaketa eskema edo gidoi baten bidez zehaztu nituen arlo horretako ideiarik nagusienak, puntu ezberdinak nabarmenduz eta bertan txertatu beharreko edukia kokatuz. Modu horretan, zirriborroa idazten hasteko moduan nintzen uneoro, oinarri eta gairik mamitsuenak orrian izateak eman dezakeen babes edo laguntza hori abiaburu izanik. Hortik aurrerako prozesuan gozamen izpi bat ezagutu nuen tarteka-marteka, baina ez zen ibilbidea autopistan eginikoa izan lehen unetik, bidezidor oztopoz beterikoetatik hurbilagokoa baizik. Orri zuriaren aurrean jarri eta aurrerapenik ez nuen izaten zenbaitetan denbora askoan, egunak hurrenkera dezente azkarrean “ihesi” joanez. Beste kasuren batzuetan, ordea, ordenagailuaren aurrean jarri eta laster ia orria bete hitz izango nuen, berebiziko ahalegina egin izanaren sentipenik gabe. Ideiak antolatu eta osatzen denbora igaro arren ondoren pantailaren aurrean kokatu eta idaztea modu nahiko errazean ateratzen zitzaidan halakoetan. Ez da berez beldur edo izurik eragiten didan jardun bat idazketarena, gustukoa dudana baizik eta nik uste neurri txiki batean bada ere horrek lagun ziezadakeela botila erabat hutsik ez ikusten. Dena den, nik ere izan nituen blokeo unek, ez bat eta ez bi, gainera. Hala ere, zailtasun edo etsipen unek heldzean blokeo horiei aurre egiteko nire modua ere jorratu nuen. Horretarako atalkako antolaketa erabili nuen lan estrategia moduan, ezinak irenstean zati katramilatsu hori utzi eta beste lanekin konbinatuz geldialdi edo blokeo uneetan, lan zehatz hori utziz eta beranduago helduz. Bestela, beste zenbaitetan dokumentuan iruzkinak erantsi edo atalen bat edo beste nabarmentzeari esker jarrai nezakeen paragrafoetan aurrera, gune hori beste momentu batean heldzeko gordez. Modu honetan buruari ere lasaitzeko tartea ematen zaio eta nik, behintzat, beharrezkoa dut kea jariatzen jartzen naizenean nola edo hala egoera horretatik aldentzen saiatzea, bestela itomenak bere atzaparretan harrapatzeko arriskua izaten baitut. Ingurukoan aholku, babes, iritzi eta bultzadak ere eskatu eta eskuratu nituen halako uneetan, testuak irakurtzeko utzi eta kritikak jasotzea bezalaxe. Lanaldia eten eta jarduera fisikoa egitera joandako momentuak ere izan nituen halako egoeretan, entrenamendu fisikoa burua arindu, gorputza astintzearen truk, eta laneko kontuetarako ihesbide aparta baita nire kasuan. Aurrera egiteko funtsezkoak izan nituen hauek ere, produktuaren kalitatea bermatzeko sostengu garrantzitsuak baitira.

Horrez gain, kapituluka idatzi nuen ikerketa honetako amaierako txostena, ahal nuen neurrian gaiak elkarrekin ez nahasten ahaleginduz, idazketa unean gai bakoitzari eskainiz arreta guztia horretan ari nintzen unean, muineraino sakondu eta aztertuz esparru bakoitzaren baitan, baina, adibidez, idazketa mekanikoagoarekin konbinazioak eginez monotoniari eta zailtasunei aurre egin nahian. Besteak beste metodologia eta sozializazioari dagozkien kapituluak konbinazio modu hori erabiliz garatu nituen, nahiz eta batetik besterako jauziak ez ziren edozein unetan ematen eta oinarri eta arrazonamendu bat zuten modu horretan jokatzeko: lana eraginkorragoa eta erakargarriagoa bihurtzea niretzat, baina ez nolnahi eta idazteagatik idatziz.

Idazketa estiloari dagokionez, nik idatzitako kontakizunak narratiboak eta errealistak dira. Ez dut fikziozko istoriorik osatu. Hala ere, dokumentuak neutralak ez dira, ezta objektiboak ere, ikertzailearen garrantzia oinarrian hartuz lehenengo pertsonan idatzi baintuen (Wolcott, 1990), nire iritzi eta hausnarketak ere plazaratuz datuen aurkezpenean, gaien gainean. Honetarako aintzat hartu nuen irakurlearen profila zein izan ote daitekeen eta nola egokitu ahalik eta modurik zuzenenean euren behar eta nahietara. Kasu honetan emakumeen pilotarekin loturiko norbanakoak izango dira alde batetik, pilota federazioen gisako erakundeetako teknikariak kasu, bakarren bat euskal pilotaren ingurukoa, emakumeen atalarekin hain lotura zuzenik gabea, eta beste batzuk, aldiz, mundu akademikokoak. Halaber, nire idazkera helburuetan nabarmendu eta bete beharrekoak izan ditut idatzien zuzentasuna, egokitasuna, koherentzia, loturen argitasuna, interes maila eta irakurteraztasuna lortu eta bakoitza gainerakoekin modu egokian uztartzea.

Idazteko leku eta uneak ere garrantzia izugarria dute prozesu honetan zehar, “inspirazioak” bat lanean eta lanerako prest harrapatu behar baitu. Horretarako pronto jarri gabe eta edonon ez dela etortzen ideia miragarririk eta ez dagoela bat batean sortzen den emari handiko iturririk, alegia. Hori hala izanik, nik Zumarragako liburutegian, goizeko lehen orduetatik eguerdian ixteko ordua heldu arte, burutu nituen nire idatzien zatirik handienak. Hala ere, bazkalostean etxeko lanerako txokoa izan nuen izkiriatzeko gunea. Beraz, esan nezake nire idazle jardunak bi oinarritzko kanpamendu izan zituela nagusiki. Tartean fakultatean ere eman nuen egunen bat, baina oso gutxi izan ziren halako kasuak, bakanak eta oso noizbehinkakoak. Denboraren antolaketari dagokionez, berriz, goizak eta arratsaldeko lehen orduak baliatu nituen batez ere idazteko, nire burua argien eta lanean buru-belarri murgiltzeko arretarik handienez, energia eta pazientzia maila altuagoan bezalaxe, orduan egoten baitzen. Horregatik, arratsaldean erdialdetik aurrera eta iluntzeetan, afalordua baino lehen amaituz gehienetan lanaldiak, energia eta ahalegin gutxiago eskatzen zidaten gauzetan murgildu ohi nintzen, hainbeste buru eta tripa jate ez zekarzkidatenetan: irakurketetan, zuzenketa lanetan, artikuluen bilaketa eta antolaketetan, aldizkarien azterketetan eta antzerako eginbeharretan.

Idazkeraren inguruko puntu honekin amaitzeko, euskaraz idaztearen inguruko kontu pare bat aipatu nahiko nituzke, nire ustez behintzat azpimarragarri eta adierazgarriak direlako. Baita, nire ustez behintzat, hausnarketarako bide luzea sortzen didatenak ere. Batetik, erabilitako informazio iturririk gehienak, hau da aldizkariak, bilatzaileak, liburuak eta antzerakoak ez daude euskaraz. Ez dakit bakarren batetik gora izan ote ziren nire ama hizkuntzan baliatu ahal izan nituen tresnak, gainera. Atzerriko hizkuntzetatik jasoak, batez ere ingelesa eta gaztelera nonahi eta noiznahi izan nituen parez pare, itzulpen lan eskerga egin nuen erreferentziazko autoreen, artikuluen zein gainerako dokumentu eta txostenetan azalduko kontzeptu eta gainerakoak barneratu eta mahai gaineratu ahal izateko. Bigarrenik, horrek idazketa prozesua bera moteldu egiten du, zenbait ataletan eta gaitan ia lan bikoitza egin behar izan nuelako, euskaraz zenbait termino ez daudelako oraindik hiztegian finkaturik eta adiera horien bila ere

aritu nintzelako. Laburbilduz, beraz, euskara lan tresna gisan erabiltzea niretzat ezinbestekoa eta erraza bada ere, ni hala bizi naizelako eta hizkuntzarekiko gertutasun eta miresmena baditudalako, erronka bat izan da hein batean eta zailtasun apur bat gehiago ere ezarri zidan hautu horrek. Hala ere, hala behar zuela oso garbi daukat, euskal pilotaz euskaraz idatzi ezean “euskal” nortasun hori ez baitakit zenbateraino mantentzen ote daitekeen.

6. Zorroztasun irizpideak eta etika

Ikerketa lan orotan kalitatea bermatu eta buruturiko urrats guztiak tentuz eman beharrekoak direla gauza jakina da. Hasieratik amaierarainoko prozesu osoan hartu behar dira aintzat hainbat alderdi eta irizpide, gainera. Horregatik, puntu honetan ikerketa jardunak zilegitasun eta onespenez hori lortzeko eginikoen gaineko azalpenak emango ditut. Batetik, zorroztasun irizpideak azalduko ditut eta bukaera aldera, berriz, etikaren auziaren berri agertuko dut.

6.1. Zorroztasun irizpideak

Burututako ikerketa lanak derrigorrez egiazkotasuna izan dezan, funtsezkoa da irizpide batzuk jarraitzea. Hori dela eta, ondorengo lerrootan azaltzen da urratsak zein modu eta norabidetan eman ditugun lan honen kalitatea bermatzeko.

Oraindik ere ugari dira etnografia lanetako emaitzak ez fidagarri eta baliozkotasunik gabeak jotzen dituztenak. Hala ere, kritika hauei entzungor egin eta emaitza etnografikoen sinesgarritasunarekiko mehatxuei aurre egiteko estrategiak garatu dituzte hainbat etnografok (Goetz eta LeCompte, 1988, 212 or.). Ildo honetan, behaketa parte hartzaile bidez lorturikoak ere inpresionista, subjektibo, desitxuratutako eta idiosinkrasikoak izaten direla salatzen dute zenbaitek. Elkarrekintzaren ikuspegitik, ordea, interesgarria da datu “gogor” deiturikoak izatea susmopean jarri ohi direnak. Izan ere, estatistikako txosten ugari datu lez onartzen dira biltzeko unean jarraituriko barne prozesu eta irizpideak ezagutzeko batera esfortzurik egin gabe (Cicourel, 1968; Douglas, 1970; Woodsen aipatua, 1989, 64-65 or.). Hori dela eta, informazio absoluturik ez dugula ohartarazi behar da: ezagutza ez da erabat objektiboa eta ezta guztiz subjektiboa ere. Ez gara “egiak” aurkitzen eta “probak” burutzen ari. Helburua aztergai den testuinguruko ekintza soziala hobeto ulertzea da. Horregatik, etnografoaren deskribapenak ederki asko egon daitezke detailez, estiloz eta modeloz beteta. Guzti hauen ezaugarriak ezin dira erraztasunez neurtu (Woods, 1989, 66 or.).

Zorroztasuna eta egiazkotasuna bermatzeko irizpide ezberdinak aipatzen dituzte autore ezberdinek. Hala ere, guztiak aipatu, sailkatu eta laburbildu daitezke multzo batean, antzeko kontzeptuen gainean dihardutelako. Honenbestez, bi dira batez ere aipagai errepikatu eta nabarmenenak (Dey, 1993; Goetz eta LeCompte, 1988; Woods, 1989):

- Baliozkotasuna: benetan aztertu nahi duguna aztertu dugun eta proposamenak bizimoduko baldintzetara egokitzen diren.
- Fidagarritasuna: ikerketa bera beste edonork egitean ondorioak berdinak izango diren, errepikakortasuna.

Etnografia lan baten zorrozatasuna, fidagarritasuna eta baliozkotasuna bermatzeko ezinbestekoa da erabilitako analisi prozesuak sakontasunez azaltzea eta datuen azterketa eta sintesiaren gaineko atzera begirako informazioa ematea. Fidagarritasuna jatorrizko analisi estrategiak ezartzeko aukerari dagokio, beraz, txostenetan prozedura oro zehatz-mehatz azaldu ezean ezinezkoa izango da etnografiak xehetasun berdinekin errepikatzea (Goetz eta LeCompte, 1988, 220-221 or.). Horrez gain, garrantzitsua da azalpenen barne koherentzian, esanahi kontzeptual eta praktikotan ere arreta jartzea, hauek ere sinesgarritasuna indartzeko funtsezko elementuak baitira (Dey, 1993).

Era honetako lan batetako egiaren balioa eta datuen konfiantzaren gaineko kontrolari dagokionez, etnografia lan batean *rappor*taiz gain beste hainbat joera ere aintzat hartu behar direla azpimarratzen dute Martos-García, Devís-Devís eta Sparkesek (2009):

- Jokabide etikoa izatea. Elkarrizketa eta behaketetan hitz emandakoa bete, iturriak babestu eta inor ez salatuz edo epaituz.
- Ikerketa eremuan egonaldi luzea egiteak sinesgarritasuna ematen dio ikerketa lanari.
- Parte hartzaileekin ikerketa prozesuan zeharreko informazioa egiaztatzea.
- Triangulazioa. Tresna, ikertalde, eskenatoki edo/eta ikuspegi teoriko ezberdinei esker burutu daiteke informazioaren triangulazio hau.

Laburpen bezala, aurrez esanikoak berresteko, 2.9. taula zorroztasun zientifikorako irizpideak aurkezteko lagungarri eta argigarria dela iruditzen zait (Latorre, Del Rincón eta Arnal, 2003, 90-91 or.).

2.9. taula.

Zorroztasun zientifikoko irizpideak.

Termino kualitatiboak	Metodologia kualitatiboa
Sinesgarritasuna	-Etengabeko behaketa, egonaldi luzea -Triangulazioa: denborak, espazioak, teoriak, ikerleak, metodoak, era askotakoa -Kideen iritzi kritikoa -Egokitzapen erreferentzialeko materiala biltzea -Egiaztapenak parte hartzaileekin
Transferigarritasuna	-Laginketa teorikoa -Deskribapen mamitsuak -Informazio ugari biltzea
Menpekotasuna	-Berraztertze aztarnak ezarri -Menpekotasun ikuskapena -Ihardespena (“réplica”) urratsez urrats -Gainjarritako metodoak
Berrespena	-Egiaztagarritasun ikuskapena -Inferentzia baxuko deskribapenak -Hausnarketa jarduera

Nik ikerlan honetan buruturiko lanetan, atal etnografikoan, besteak beste aintzat hartu nituen sinesgarritasunari dagozkionean:

- Etengabeko behaketa eta egonaldiaren iraupena ikasturte osokoa izatea. Bederatzi hilabeteko epealdiko behaketa intentsitatean aldaketaren bat izan zen tartean, aurrez adierazi bezala.
- Espazioen triangulazioa: hiru eskenatokietan aritu nintzen aldi berean.
- Metodoen triangulazioa: behaketa parte hartzailea, elkarriketak, sakontzeko galdeketak, dokumentuak eta eztabaida-taldea erabili nituen informazio iturri lez datuak biltzean.
- Kideen iritzi kritikoa: zuzendariak eta beste kide batzuen ekarpenak ibilbidean.
- Parte hartzaileekin egiaztapenak: informatzaile izan nituenekin nire dokumentuetan idatzirikoak kontrajarri eta aztertzea, hiruzpalau kideri emanez testuak irakur zitzen. Kapitulu bakoitza hainbat irakurleri ematen nien eta ondoren beraiekin bildu iritziak trukatzeko.

Transferigarritasunean bi puntu bete nituen:

- Deskribapen mamitsuak. Ia 600 orri dira behaketetako informazioz beterikoak, non parte hartzaile, pilotaleku zein testuingurua luze eta zabal deskribatzen den.
- Informazio ugari biltzea.

Hirugarren eta azken irizpide lez berrespena ere burutu behar izan nuen lan jardueraren baitan, bereziki eta batez ere hausnarketa eta gogoetari etengabe eta aldioro bidea emanez.

Sakontzeko galdeketen baliagarritasunari dagokionez, besteak beste, elkarrizketatu bakoitzarekin aurrez aurreko bi hitzordu/topaketa egin nituen. Lehena, elkarrizketa burutzeko eta bigarrena aurrekoan esanak jakinarazi eta hauen sinesgarritasun zein adostasuna lortzeko, egiaztatzeko. Aurrez elkarrizketaren transkripzioa bidali nien, dokumentua aztertuta izan zezaten bigarren hitzordurako. Modu honetan, datuak informatzaile zuzenekin eurekin konprobatu nituen. Gainera, zorrotasun irizpidea (*rigurosidad*) ere aintzat hartu nuen hemen ere, datuak zuzenean azterketa-eremutik bertatik jasoz, ahalik eta xehetasun edo deskribapen maila sakonena lortu asmoz.

Elkarrizketen kalitatearen ebaluazio-irizpideak ere aintzat hartu nituen (Erlandson et al., 1993; Vallesen aipatua, 2002, 82 or.):

- Fidagarritasun irizpideak (sinesgarritasuna, transferigarritasuna eta menpekotasuna).
- Egiazkotasun irizpideak.
- Irizpide etikoak.

Zorrotasun irizpideak garatzerakoan aintzat hartu nuen elkarrizketatzaileak, neronek, jasoriko informazioa nire eskemen arabera interpretatuko nuela eta, beraz, egiaztatu beharra neukala benetan jasotakoa elkarrizketatuak helarazi nahi zidana zela. Hau zuzenki lotuta dago elkarrizketatzaileak elkarrizketan zehar mantendu beharreko arreta jarrera eta egin beharreko segimenduarekin, betiere informazioaren beraren izaera mantenduz, bai bat-batekotasunari dagokionean eta baita esanguragarritasunari dagokionean ere. Gainera, garrantzitsua eta funtsezkoa izan zen ahal izan nuen heinean elkarrizketatuari erantzunetan nahi beste luzatzen uztea eta ikertzailearen parte-hartzea erabat zuzendua ez izatea, kasu honetan egin den bezala, kalitatea bermatzeko.

Laburbilduz, beraz, ikerketa diseinatzerako unean, datuak biltzean, analisisian zehar eta baita aurkezteko unean ere egiazkotasuna eta sinesgarritasuna bermatzen duten irizpideak aintzat hartu eta garatu nituen nire ikerlari lanean, uneoro eta behar izan nuen era guztietan, gainera.

6.2. Etika

Printzipio eta arau moralak portaeraren funtsezko osagaiak dira eta baita ikerketa lanenak ere, balio, betebeharrak eta eskubideen arteko balantza orekan mantentzen dadin. Horregatik, azken atal honetan etikoki nolako jokabidea izan dudana azalduko dut, zer urrats eman ditudan arlo honetan ikerketa hasi zen lehen unetik aurrera.

Taylor eta Bogdanek (2000) auzi honen inguruan diote eskenatoki batean sartzeak itun antzeko bat dakarrela ondorio orokorrean: informatzaileen pribatutasun eta konfidentziasuna urratuko ez den ziurtasun inplizitu eta esplizitua, aurreiritziak ez azaltzea eta euren jardueretan muturrik ez sartzea bezalaxe. Horregatik, landa lanari ekitean oso garrantzitsua da *rapporta* lortzea, konfiantza maila bat eta jarrera irekia. Honek pertsona zentzudunak eta mehatxagarriak ez garela azaldu eta onartzeko balio

du. Beraz, ezinbestekoa da informatzaileekiko eta ikerketa xedeen ondorioekiko leialak izan eta ikerketa bera edo aktoreekin lorturiko ituna zalantzan jar lezakeen konpromiso oro ekiditea. Hala ere, ikerketa bat burutze hutsagatik ez da posible bertan gauzaturiko ekintzengatik ardura moral eta etiko oro barkatzea. Era batera edo bestera jokatzeko etikoki eta politikoki hautu bat egitea da. Hau da, ikerketaren xedeak eta informatzaileekiko atxikimendua beste zenbait konturi gailenduko zaizkie. Horrenbestez, azterlan batean larriegi geratu aurretik, informatzaileekin estuki loturik, hauen ikuspegiak gogokoegi izan aurretik, zentzuzkoa da mugak non ezarri jakitea.

Hammersley eta Atkinsonek (2007, 284-296 or.), berriz, etnografiarekin zuzenean loturik aintzat hartu beharreko bost irizpide jakin eta bereizle agertzen dituzte, nahiz eta batez ere ikerketa sozialekin lotzen direla onartu:

- Baimen informatua. Partaideak informatuta mantendu behar dira eta euren baimena lortzea ezinbestekoa da. Hala ere, badira emaniko informazioa osoa izan ez dadin arrazoiak.
- Pribatutasuna. Etnografia lanetan zenbaitetan pribatua esan eta eginikoak publikoki agertzeko beharra izaten da. Honek zenbaitetan eragina izaten du ikuspegiak epe luzera izan dezakeen ondorioetan.
- Kalteak. Ikerlanean zehar lorturiko ezagutza zentzu osoz eta sen onez erabiliko dela ziurtatzearen garrantzia, eta ez ezer txarrik egiteko.
- Esplotazioa. Zenbaitetan ikerketa etnografikoak ustiatzean ikerleek zerbait eskaini behar dute trukean; partaideak ikerketa prozesuan botere apur bat izatea; ikerketa boteretsuak ikertzera zuzentzea eta ez batere aginterik ez dutenak.
- Etorkizuneko ikerlan baterako ondorioak.

Ikerlari eta ikerketen kontsumitzaile lez, beraz, kontuan izan behar da zer den bidezkoa eta zer ez kasu zehatz bakoitzean. Gainera, beharrezkoa izanez gero komeni da norbere iritzi eta usteak argudiatzeko prest egotea (Hammersley eta Atkinson, 2007, 305 or.). Izan ere, arazo eta auzi etikoak oso antzekoak dira beste edozein giza-jardueretan eta ikerketa etnografikoan. Besteak beste, batek dakiena, sinesmenak, sentimenduak, etab. zein neurritan eta nola erakutsi jakitea oso gai garrantzitsua da edozein aktorearentzat eta edozein unetan (Hammersley eta Atkinson, 2007, 306 or.).

Jokabide etikoekin harreman zuzenean, partaideen pribatutasunarekin lotura hertsian, anonimizazioa ere puri-purian dagoen auzia da gaur gaurkoz. Nesporrek (2000) gaitzizenen erabileraz hausnartu du. Bertan, batez ere leku izenen izenak ez mantendu eta eraldatzeaz egin du gogoeta. Hala ere, anonimizatzeko modurik ohikoena dela dio goitizena erabiltzea eta partaideak babesteko modu bat ere badela. Jarduera honekin ikuspegi kritiko bat agertzen du, oro har, bere ustez horrek ez duelako bermatzen problemarik eza, zenbaitetan testuinguruko deskribapenen bidez posible baita bertako leku eta pertsonak identifikatzera iristea kanpoko norbait. Era berean, ordea, parte hartzaileen berezko izenen ordean gaitzizena erabiltzearen gainean nabarmendu du partaideak babestu ez ezik, identifikatzea zaildu eta horrek eragin ditzakeen mina eta lotsari aurre egiten lagun dezakeela anonimizazio estrategia honek. Beste alde batetik,

eskualde, hiri edo erkidego baten benetako izenaren ordeztu goitizena erabiltzeko arrazoi onik ez duela aurkitzen dio, jendea identifikatzeko lana zailago jarri arren toki izenaren ordeztu lantokiaren edo kalearen izena emateak, adibidez, erraztu egin dezakeelako ezezagunek aurkitu eta jazartzea. Ildo berean dio ez dela frogatu estrategia horrek emaitza hobetik ematen duenik. Gainera, bere lanean dio herri guneetan eta erkidegoetako eremuetan eginiko landa lanetan, adibidez, ohikoena herri eta hiriak euren izenak erabiliz identifikatzea dela.

Ikerlan honen joanean, beraz, etika formala eta informala uztartu nituela esan nezake. Batetik, gidetan azpimarraturiko urratsak eman nituen, baina partaideekiko hartu-emanetan ere ezinbestekoa da etikoki zuzen eta zintzo aritzea. Etika formalari zegokionez, elkarrizketa guztietan informatzaileei grabatzeko baimena eskatzea eta ikerketaren asmoak argi adieraztea oso garrantzitsuak izan ziren, elkarrizketatuak kaltetuak ez zirela ziurtatu eta betebeharrak etikoki zuzentasunez betetz. Hau da, esana zuzentzeko aukera ematea eta grabagailuaren erabileraren inguruko muga jartzeko aukera ematea etikoki esanguratsu bezain garrantzitsuak dira. Ildo honetan elkarrizketetako lehen uneetan euren onospena jaso eta audio grabagailuan jasotzen nuen, berme lez. Hitzeko onospena lehen unetik jaso arren, behaketa parte hartzailearen kasuan oharretan idatzita, badaezpada ere, ordea, eta arau zein kode etikoei segituz, baimen informatuak ere egin eta jaso nituen hala zegokidanean. Parte harturiko kide guztien berme idatzia ere esku artean dut, honenbestez. Dokumentu hauetan ikerketaren gaineko xehetasunak, xedeak, arduradunak eta zertarako erabiliko den, Datuen Babeserako Legearen SZEA eskubideak, anonimotasun eta konfidentzialtasuna ziurtatu eta galdera edo zalantzaren bat izanez gero nora jo ere agertzen zen, interesatuen, parte hartzaile zein informatzaileen, sinadura, eta erakundearen kasuan zigilua ere bai, erantsiz amaieran. Landa lana amaitu ondoren ikastaroetako emakume zein pilotari federatuengana jo nuen idatzi hauek biltzeko, nik neuk baldintzak azaldu, zalantzak argitu eta ongi betetzeko beharrezko pausoak emanek elkarrekin. Modu berean, parte hartzaile guztien izenak, nireak eta pertsonaia publikoenak salbu, aldatu nituen lanerako anonimizazio prozesuaren bidez, badaezpada ere eta euren ziurtasuna eta izaera anonimoa bermatu eta indartzeko. Hori ez zen batere lan erraza izan, 200 izenetik gora aldatu nituelako, izengoitien kontrolerako datu-base bat sortu eta dokumentuz dokumentu, orrialdez orrialde, paragrafoz paragrafo, esaldiz esaldi eta hitzez hitz hauek zehatz-mehatz aztertu eta eskuz beharrezko aldaketa guztiak egiten amaitzeko. Arlo honekin amaitzeko, azkenik, aipatu beharra daukat ikerketa proiektu honek UPV/EHUko Irakaskuntzaren eta Ikerketen Etikarako Unibertsitate Batzordearen onospena eta ziurtagiria jaso zituela. Batzorde hau da jarraipena egin ziona ere, etikoki irizpideak bete zirela frogatu eta berme oro emanek.


Etika informala deiturikoari dagokionez, hau da, arau eta erregela idatzi eta ageriko lege idatzirik ez dagoen arloan, aktore sozialen eta nire arteko errespetua, begirunea, zintzotasuna eta hitzeko leialtasuna ezinbestekoak izan ziren elkarrekin prozesu osoan zehar. Paper batek baino balio etiko handiagoa ematen diot nik elkartruke eta elkarrekin igarotako tartean lorturiko konfiantza horri, oinarrikoa baita ikerketa helburuak lortu

eta informazio esanguratsua eskuratu ahal izateko. Horregatik, gardentasuna izan nuen aldioro ikerketa honetan emaniko urrats guztietan, bai partaideekin jardutean eta baita testuinguruko beste eragileekin ere. Horri esker *rapporta* lortu eta indartu genuen, gainera, elkarrekintzaren ardatz bihurtuz. Kontu handiz zaindu nuen aktoreekiko elkartrukea eta elkarri emaniko informazioa zein honen pribatutasun eta publikotasun izaera bereizi eta zer idatzi edo esan jakitea ere funtsezkoa izan zen, marra gorriak ez igaroz, baina, aldi berean, beharrezkoa eta aberasgarria zela iritzitako datu eta emaitza guztiak plazaratzeari ukorik egin gabe. Laburbilduz, beraz, nire betekizunak batez ere kideak ez salatu, ez epaitu, lasaitasuna helarazi eta begirune zein adeitasunez jokatzeari oinarriturikoak izan ziren. Konpromisoa, eskuragarritasuna eta edozertarako prestutasun osoa begi bistakoak izan ziren euren zein nire aldetik egunak joan eta egunak etorri, han eta hemen izaniko hartu-emanetan.

7. Ikerketa prozesuko ekintzen laburpena

Atal honetan ikerketa prozesu osoa laburbildu asmoz, irudi moduan (ikus 2.7. irudia) agertu ditut emaniko urratsak, aldi bakoitzean egindako lana grafikoki laburbiltzeko asmoz.

Irudian (ikus 2.7. irudia) agertzen dudan moduan azterlan honetan erabilitako metodologia pauso edo aldi ezberdinetan bereizi dut. Hasteko, datuak biltzeko lau teknika erabili ditut ikerketa prozesuan zehar: behaketa parte-hartzailea, sakontzeko galdeketak, dokumentuen bilketa eta eztabaida-taldea. Hortik lorturiko datuak eta informazioa aztertzeko, berriz, hiru urratsetan banatu dut analisi fasea: deskubritzea, kodifikazio eta kategorizazioa eta, amaitzeko, interpretazioa. Idazketa prozesua izan da hurrengo emaniko urratsa, idatzitakoa azken txostenean jaso ostean ikerlanaren ondorioei helduz lana borobildu asmoz. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da faseak edoaldiak ez ditudala bata bestearengandik bereizita garatu, beti baliatu dudalako batetik besterako atzeraelikadura xehetasunak gehitu eta urrats bakoitza zuzen emateko.



2.7. irudia. Ikerketa prozesuaren irudikapena.

8. Erreferentziak

- Amorós, C. (1998). El punto de vista feminista como crítica. In C. Bernabé (Zuz.), *Cambio de paradigma, género y eclesiología* (21-35 or.). Nafarroa: Verbo Divino.
- Atkinson, P., Coffey, A., Delamont, S., Lofland, J. eta Lofland, L. H. (Ed.) (2011). *Handbook of ethnography*. (4. ed.). Londres: Sage Publications Ltd.
- ATLAS.ti Scientific Software Development GmbH (2012). *ATLAS.ti 6 Guía Rápida*. Berlin: ATLAS.ti Scientific Software Development GmbH.
- Bagnoli, A. (2009). Beyond the Standard Interview: The Use of Graphic Elicitation and Arts-based Methods, *Qualitative Research, special issue*, 9(5), 547-570.
- Blázquez, F. eta Tagle, T. (2010). Formación docente: un estudio de las creencias de alumnos y profesores sobre el proceso de enseñanza y aprendizaje del inglés. *Revista Iberoamericana de Educación*, 54(4), 1–12.
- Callejo, J. (2001). *El grupo de discusión: Introducción a una práctica de investigación*. Bartzelona: Ariel S.A.
- Canales, M. eta Peinado, A. (1998). Grupos de discusión. In M. Delgado eta J. Gutiérrez *Métodos y técnicas cualitativas de investigación en ciencias sociales* (287-310 or.). Madril: Síntesis.
- Carey, M. A. (1994). The Group Effect in Focus Group: Planning. Interpreting and Implementing. Focus Group Research. In Morse (Ed.). *Critical Issues in qualitative research methods*. Thousand Oaks: Sage Publications.
- Cobo, R. (2007, urria). *Sociología crítica y teoría feminista*. Máster en Estudios de las Mujeres y de Género. Granada: Granadako Unibertsitatea. (<http://masteres.ugr.es/gemma-es/pages/actividades/20072008>, 2011ko martxoaren 20an kontsultatua)
- Dey, I. (1993). *Qualitative data analysis: A user-friendly guide for social scientists*. Londres: Routledge.
- Dilley, R. E. eta Scraton, S. J. (2010). Women, climbing and serious leisure. *Leisure Studies*, 29(2), 125–141.
- Domínguez, M. eta Davila, A. (2008). La práctica conversacional del grupo de discusión: jóvenes, ciudadanías y nuevos derechos. In L. A. Gordo eta A. Serrano Pascual, *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social*. Madril: Pearson-Prentice Hall.
- Friese, S. (2012). *Qualitative Data Analysis with ATLAS.ti*. Londres: SAGE Publications Ltd.
- Goetz, J. P. eta LeCompte, M. D. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madril: Morata.
- Goldman, A. E. eta McDonald, S. S. (1987). *The group depth interview. Principles and practice*. Englewood Cliffs (N. J.): Prentice-Hall.
- Gordo, A eta Serrano, A (Koord.) (2008). *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación de investigación social*. Madril: Pearson-Prentice Hall.
- Guasch, Ó. (1997). *Cuadernos Metodológicos nº20. Observación participante* (1. ed.). Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.

- Hammersley, M. eta Atkinson, P. (2007). *Etnografía. Métodos de investigación*. (J. L. Trejo Álvarez eta M. Aramburu Otazu, Itzul.) (2. ed.). Bartzelona: Paidós Ibérica.
- Hernandez, R., Fernández, C. eta Baptista, P. (2006). *Metodología de la Investigación*. (4. ed.). Mexiko: Mc.GrawHill/ Interamericana Editores S.A.
- Ibáñez, J. (1986). Lenguaje, espacio, segregación social. In A. García Ballesteros (Bil.), *El uso del espacio en la vida cotidiana* (29-57 or.). Universidad Autónoma de Madrid, Seminario de Estudios de la Mujer.
- Irigaray, L. (1992). *Yo, tú, nosotras*. Madril: Cátedra.
- Juliano, D. (2000). Elaboraciones feministas y subcultura de las mujeres. In M. T. Del Valle Murga (Ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social* (25–44or.). Bartzelona: Ariel.
- Krane, V. eta Baird, S. M. (2005). Using Ethnography in Applied Sport Psychology. *Journal of Applied Sport Psychology*, 17(2), 87–107.
- Krueger, R. A. (1988). *Focus groups. A practical guide for applied research*. Newbury Park, CA: Sage Publications.
- Krueger, R. A. (1991). *El grupo de discusión. Guías práctica para la investigación aplicada*. Madril: Pirámide.
- Krueger, R. A. (1998). Involving community members in focus groups. In D. L. Morgan eta R. A. Krueger, *The focus group kit*. Thousand Oaks CA: Sage Publications.
- Latorre, A., Del Rincón, D. eta Arnal, J. (2003). *Bases metodológicas de la investigación educativa*. Bartzelona: Ediciones Experiencia.
- López Jorge, M. (2010). Variaciones feministas en torno a la inmanencia y la trascendencia. Simone de Beauvoir, Luce Irigaray y la “política de lo simbólico.” *Feminismo/s*, 15, 137–164.
- Malinowski, B. (1995). *Los argonautas del Pacífico occidental: un estudio sobre comercio y aventura entre los indígenas de los archipiélagos de la Nueva Guinea melanésica* (4. ed.). Bartzelona: Ediciones Península.
- Martos-García, D., Devís-Devís, J. eta Sparkes, A. C. (2009). Deporte entre rejas ¿Algo más que control social? *Revista Internacional de Sociología*, 67(2), 391–412.
- Morgan D. (1988). *Groups as Qualitative Research*. Newbury Park: Sage.
- Navarro, J. A. (2007). Críticas y apoyos hacia la responsabilidad social de la empresa: una aproximación etnográfica desde la vivencia del trabajador y una propuesta metodológica cualitativa. *Universitas Psychologica Bogotá (Colombia)*, 6(1), 59–68.
- Nespor, J. (2000). Anonymity and Place in Qualitative Inquiry. *Qualitative Inquiry*, 6(4), 546–569.
- Novak, J. D. eta Cañas, A. J. (2008). The Theory Underlying Concept Maps and How to Construct Them, Technical Report IHMC CmapTools. Florida Institute for Human and Machine Cognition.
(<http://cmap.ihmc.us/Publications/ResearchPapers/TheoryUnderlyingConceptMaps.pdf>, 2013ko irailaren 13an kontsultatua)
- Rubio, M. J. eta Varas, J. (1997). *El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril: Editorial CCS.

- Rubio, M. J. eta Varas, J. (2004). *El análisis de la realidad en la intervención social/métodos y técnicas de investigación*. Madril: Editorial CCS.
- Ruiz-Olabuénaga, J. I. (2003). *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Ryan, G. W. eta Bernard, H. R. (2003). Techniques to Identify Themes. *Field Methods*, 15(1), 89–105.
- Sendón, V. (2002). La quiebra del feminismo. *Debats*, 76, 50-55.
- Taylor, S. J. eta Bogdan, R. (2000). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación* (3. ed.). Bartzelona: Paidós.
- Valles, M. S. (2002). *Entrevistas cualitativas*. Colección “Cuadernos Metodológicos”, 32. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Valles, M. S. (1997). *Técnicas cualitativas de investigación social: Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madril: Síntesis.
- Wheeldon, J. eta Faubert, J. (2009). Framing experience: Concept maps, mind maps, and data collection in qualitative research. *International Journal of Qualitative Methods*, 8(3), 68-83.
- Wolcott, H. F. (1990). *Writing Up Qualitative Research*. Newbury Park: Sage Publications, Inc.
- Woods, P. (1989). *La escuela por dentro. La etnografía en la investigación educativa* (1. berrargitalpena.). Bartzelona: Paidós-M.E.C.

3. kapitulua

Nor gara gu, zer gara gu? Pilotariak gara gu!

Emakume pilotariak eta hauen testuingurua, bizipenak, esanak, jokabideak eta gainontzeko guztiak behar besteko sakontasun eta ñabardurekin aztertzeke ezinbestekoa da nortasun hori, hau da, emakume eta pilotari izaera bikoitz hori, nola jaso, eraiki eta bizi duten hausnartu eta aztertzea. Izan ere, jendarteak berak baldintza ugari ezartzen dizkigu jaiotzen garen unetik eta genero ikuspegia aintzat hartuz, etengabe mutil/neska dikotomiari aurre egin beharra ohikoa izaten da, sarri askotan egitura edo antolaketa eredu nagusi horren arabera antolatzen ditugulako gure ekintza eta jokabideak ere, nahita ala nahi gabe. Horregatik, kapitulu honetan emakume pilotarien identitatea izango dut aipagai, oinarriak finkatzeko asmotan hurbilketa teoriko labur batekin hasi eta kirol zein jarduera fisikoaren munduko egitura eta antolaketa norabidea ezartzeko zubi lanerako bidelagun harturik euskal pilotaren esparruan diharduten emakumeen identitatearen gaineko gogoeta mamitsu, sustraitu eta aberatsak egin eta arreta eta *zoom* nagusia azken atal honetan jarriz, izaera eta nortasun berezi eta bereizgarri horren ezaugarriak eta zertzeladak zein diren plazaratuz amaitzeko.

1. Generoaren eta desberdintasunaren gizarte-eraikuntza

Gizarte zientzietan, emakumezkoak ardatz dituzten lanetan egin izan den bezalaxe, genero ikuspegia aintzat hartu eta lantzea funtsezkoa da ikerketa-analisi honetan, ezin baitut baztertu eta ezkutatu gu bizi garen giroan eta ingurumarian ere, bai jendartean

orokorrean eta zer esanik ez euskal pilotaren eremuan, “gendered” kultura daukagula eta, beraz, generoa dela egungo antolaketa zein egituraketaren muinean dagoen gako-kontzeptuetako bat. Genero-sistema baten aurrean gaude, hain justu ere. Izan ere, gaur egun eraikitako jendarte botere harreman asimetrikoetan oinarritzen da eta horrek iturburu eta ardatz mende luzeetako sistema patriarkalaren eragina eta itzal luzea ditu, gizonak menderatzaile izendatu eta rol horretara bultzatu eta emakumeak azpiratuta eta besteen menera mantendu dituen eta hori “natural” lez aurkezten duena, gainera (Cockburn eta Clarke, 2002; Connel, 1987; Deutsch, 2007; Maharaj, 1995; Rocha-Sánchez, 2009). Horregatik, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harreman pertsonal eta sozialetan garrantzitsua da oreka bilatzea eta parekidetasunerako urratsak ematea, ezberdintasunaren sorrera non dagoen aztertzeetik hasita. Horretarako genero kontzeptuaren inguruko azterketa txiki bat eta gogoeta egitea ezinbestekoa dela deritzot.

Sexua biologiak ezarrita jasotzen dugu, eta biologikoki neska edo mutil jaio ohi gara, baina generoa, aldiz, alderdi sozial, psikologiko, biologiko eta kulturei atxikirik dago (Rocha-Sánchez, 2009). Generoa eraikuntza soziokultural bat da. Izan ere, genero kontzeptuaren bidez jendarte antolatzeko printzipio dinamiko bati egiten zaio erreferentzia, zeina aldakorra eta oso boteretsua den, pertsonak geure sorrera unetik bere baitan hartzen gaituena eta aurrezarrizko kanonei segituz gorputzak, sentimenduak, emozioak, zaletasunak edo lanerako aukerak, besteak beste, hau da, bizitza proiektuak baldintzatzen dituen harreman dinamiko eta sarri askotan gatazkatsuen bidez, jarduera, ezarpen kultural eta legeei esker. Hori dela eta, maskulinitasuna eta feminitasuna ahotan hartzean ez gara kategoria finko eta unibertsalei buruz arituko, baizik eta bizitza soziala den prozesu dinamikoaren baitan eraiki, elkarlotu eta aldatzen diren kontzeptu eta ideien gainean. Kulturak eta gizarteak dira maskulinoak eta feminoak zer den definitu eta zehazten dutenak. *Emakumezko* eta *gizonezko* kategoriak osotasun bat ez badira ere, badaude hauek definitzen dituzten generoari atxikiriko ezaugarri kulturalak. Ondorioz, emakume eta gizonezkoak elkarrekin kulturari jarraiki erlazionatu eta ezberdintzen dira, eta sexuen arteko harreman/ezberdintasuna ez da berezkoa, baizik eta etengabe eraiki eta birmoldatutako elkarrekintza sozialaren ondorio. Hortaz, harreman historiko, aldakor eta dinamikoak da (Blasco, 2003, 181 or.; Connell, 1987; Del Valle, 2001, 83 or.; Deutsch, 2007; Díez, 2003, 159-160 or.; Hargreaves, 1994; Hargreaves, 2000, 133 or.; Hovden, 2012; Maharaj, 1995; Pfister, 2012; Rocha-Sánchez, 2009).

Ildo beretik, dominazio maskulinoaren gainean eginiko gogoetaren bidez (Bourdieu, 2000, 59-60 or.; Cockburn eta Clarke, 2002), elkarrekintza sinbolikoen bitartez sistemak berretsitako emakumezkoen gutxiagotasuna eta bazterkeria egoera nabarmentzen dira, eraikuntza sozialean ere hala garatuz harremanen bidez, gizonezkoen kapital sinbolikoa errepikatuz bideratuz eta era honetan maskulinitasunaren nagusitasuna aitortuz. Gainera, eliza, eskola, estatua eta familia bezalako erakundeek harreman hauek mantentzea bultzatzen dute euren ekintza politikoen bitartez, izan ageriko zein ezkutukoak, ofizial edo ofiziosoak (Bourdieu, 2000, 140 or.; Maharaj, 1995).

Hori dela eta, jendartearentzat naturalak diren estereotipoak gainditzea erronka bat da emakumeontzat, estereotipo hauetan zehazten baita nolakoak (izan behar) garen emakumeak. Emakumezkoek emakumezkoei dagozkien portaerak izan behar dituzte eta beste hainbeste espero da gizonezkoengandik ere (Deutsch, 2007), bakoitzari izaera eta jokabide multzo jakin bat esleitzen zaielako. Gainera, emakumezkoak zenbait jardueratatik at uzteko arrazoi estrategiko izaten dira joera horiek eta emakumeak baztertzea bermatzen dute behin baino gehiagotan. Generoaren gaineko estereotipoek duten indarra ez da psikologikoa soilik, zenbaitetan euren baitako baldintza sozial eta ekonomikoak bermatzeko tresna lez ere erabiltzen baitira (Juliano, 2000, 39 or.).

Ildo honetan, euren ahaleginari esker emakumeek oztopoak gainditu eta gutxiengoa diren espazio sozialetara jauzi egitean, eta euren arteko ezberdintasun objektiboak baztertera utzi gabe, badute denak berdintzen dituen ezaugarri bat: etengabe balio dutela eta gai direla demostratu beharra (Del Valle et al., 2001, 231 or.). Horregatik, emakumea gutxiengoa den esparruetan aintzat hartu behar da ezaugarri hau hertsatzailea dela eta sarri askotan erabateko parte-hartzea lortzeko desabantaila izaten dela, aurkako testuinguruetan aurkituz bizitza sozialean zehar (Del Valle et al., 2001, 234 or.). Horregatik, parte-hartze hori askotan ez zaio aintzat hartzen. Ondorioz, erakundeen laguntza, diskriminazio positiboa, beren arazoak identifikatzea eta laguntzea, nahitaezkoak dira. Bestela, aldaketak bere erritmoan egingo dira, baina ezingo dute politika eta portaera androzentrikoek duten pisuaren parean jarraitu. Erritmo horri jarraituz, parekotasunera iritsiko dela sinestarazi nahiak askoz ere neurri zorrotzagoak sustatzera bultzatzen gaitu, aldaketa horiek bizkortzeko, beste batzuei hasiera emateko, hasten ari dena babesteko eta sormenezko helburu berri ausartagoei ekiteko (Del Valle, 2001).

2. Kirola eta jarduera fisikoa: jendartearen ispilu

Kirola bera ere, oinarritzko jarduera soziala den neurrian, generoaren inguruan egituratua dago, zibilizazioa izanik gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat kirol egokiak zein diren zehazten diguna (Blasco, 2003). Hari mutur honi heldu eta kirolaren eta jarduera fisikoaren arloan genero ikuspegia txertaturiko lan gehienetan oinarrituz, beraz, oraindik ere oso nabarmena da kirola nagusiki esparru maskulinoa dela. Hein batean onartu beharra dago emakumeak tartean sartu garenetik kultura hori oso mantso bada ere aldatze bidean murgildu dela, baina argi utzi behar dugu maskulinitasunaren laborategia izan dela kirola historikoki. Patriarkatua ageri da egituretan esparru honetan ere, gizonezkoak emakumeen gaindik kokatuz eta hauek baztertuz (Azzarito, Solmon eta Harrison, 2006; Baird, 2010; Deutsch, 2007; Dorken eta Giles, 2011; Elling eta Knoppers, 2005; Fasting, 2003; Hannon et al., 2009; Hargreaves, 1985, 90 or.; Hovden, 2012; Macías, 1999; Matteucci, 2012; Pfister, 2010 eta 2012; Puig, 2001, 70-71 or.; Soler, 2009; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009; Wright, 1995). Horri esker, gainera, eredu maskulino tradizional eta hegemonikoa ezarri eta errepikarazi da, emakumezkoen parte hartzeko aukerak menpeko postuetara mugatuz. Modu honetan,

tradizionalki gizonak burututako kirolatan emakumeen parte hartzea bi modutan ikusi izan da: erabateko utzikeria edo dibertsio helburua zein besteen nahietara moldatzen den umorearen iturburu, gizonezkoek barre egin diezaieten (Hargreaves, 1985, 67 or.; Norman, 2010).

Horregatik, genero femeninoarentzat ez da xamura izan aldaketa prozesua, aurreiritzi sexistak gainditu behar izan dituelako emakume orok bere kirol bizitzan, etengabeko tentsioan biziz egite eta murrizketen artean (Hargreaves, 2000, 39 or.; Norman, 2010; Soler, 2009). Izan ere, tradizionalki gizonak lotu dira lehiakortasuna, suhertasuna, anbizioa, indarra, bortizkeria eta antzeko ezaugarriak dituzten jardura fisikoekin, eta emakumeak, aldiz, leuntasuna, dotorezia, estetika, samurtasuna eta antzekoekin. Hori dela eta, futbola, errugbia, eskubaloia, halterofilia, arte martzialak, boxeoa, kulturismoa, zaldi lasterketak eta beste hainbat kirol gizonezkoei esleitu izan zaizkie eta gimnastika erritmikoa, dantza, gorputz adierazpena eta gisakoak emakumezkooi (Baird, 2010; Dorken eta Giles, 2011; Fasting, 2003; González, Ruiz eta Carrasco, 2007; Harris, 2007; Jeanes, 2011; Knapp, 2008; Macías, 1999; Matteucci, 2012; Mennesson, 2004; Pfister, 2010 eta 2012; Roussel et al., 2010; Soler, 2009; Trangbaek, 1997; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009; With-Nielsen eta Pfister, 2011; Wright, 1995). Gainera, kirolaren eta generoaren arteko agerpen hau jendartearen antolaketa ereduari jarraituz egin da, gizonezkoei rol aktiboa eta emakumezkooi pasiboa ezarri, diskriminazio sexualaren iturri bihurtuz esparru hau ere. Hau hala izanik, emakumezkoek, beste zenbait gizarte jardueratan bezala, honi aurre egin nahi diote eta iraganeko mugak gaindituz kirol eta kultur identitate berriak sortu. Hala egiten dute egunerokoan. Hori lortzeko asmotan euren egiteko modu eta esanahiak sortuko dituzte. Hala ere, nabarmena da eredu tradizional patriarkalak eragina duela eurengan ere, nahiz eta eurek taldea sortzeko gogoaz azaldu eta orain gutxi arte eurentzat ezinezkoa zen zirkulu batean txertatzea lortu poliki-poliki. Bide honetan, berdintasuna eta onarpena dituzte ardatz euren borrokan, gizonezkoekiko ezberdin tratatzen baitira oraindik ere (Baird, 2010; Blasco, 2003; Puig, 2001, 70 or.; Hargreaves, 2000, 3 or.; Dorken eta Giles, 2011; Engh, 2011; Ezzel, 2009; Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008; Harris, 2007; Knapp, 2008; Macías, 1999; Mennesson, 2004; Norman, 2010; Pfister, 2010 eta 2012; Trangbaek, 1997; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009; With-Nielsen eta Pfister, 2011; Wright, 1995). Del Valle (2001, 56-57 or.) ere ildo berean mintzo da. Autore honen arabera zenbait kirolatan (saskibaloian, eskubaloian, igeriketan, tenisean...) emakumeek beren lekua dute, baina, beste zenbaitetan, ordea, ez. Horregatik dio kirolaren inguruan gizartearen irudipenezko unibertso osoa dagoela eraikita eta bertan, besteak beste, futbolarak, pilotak eta boxeolarak leku nagusia dutela, emakumea argi eta garbi kanpoan utziz. Ezberdintasun sexualaren teorian oinarriturik, generoaren dikotomian (maskulino/femenino) oinarritu ordez, hori hautsi eta modu alternatiboa proposatzen dutenak ere badira, ordea. Gizonezkoak eta emakumezkoak aurrez aurre kokatu beharrean independenteki emakumezkoak aztertzea proposatzen dute, arau maskulinoak ahuldu eta baieztapenaren politikaren ildoari segituz hierarkiei aurre egiten saiatu eta zelai barruko maskulinitasun hegemonikoaren nagusitza eta kanpoko femininitasunaren berrespena gizonezkoen definizioetan oinarritzen direla

argudiatuz. Emakumezkoek osatzen dute aztergaiaren objektua eta subjektua aldi berean korrante honetako pentsalarientzat eta irudi femenino baikorra osatu (Martín, 2006 eta 2012).

Gizonezkoen nagusitasuna argi utzi arren, ez da erabatekoa sekula izan hegemonia hori, beti egon direlako nabarmendutako emakumezko atletak, euren buruak azaldu eta femeninotasunaren ohiko irudiei aurre egin dietenak (Hargreaves, 1994, 116 or.). Izan ere, genero estereotipoak mugatzaile eta arriskugarri dira aldi berean, besteak beste, tradizionalki gizonezkoen kirolak burutzen dituzten emakumeentzat zein eredu maskulinoko kirolak begiko ez dituzten gizonezkoentzat. Hala ere, geroz eta hedatuagoa da kirol hauetako parte hartzea emakumezkoen artean, nahiz eta badirudien emakumezkoentzat egoki lez estereotipututako kirolean mutilekin ez dela halakorik gertatzen eta mugatuago dutela euren jardura mota hau (Hargreaves, 1994, 154-155 or.; Pfister, 2010; Soler, 2009; Tagg, 2008). Horrez gain, ohizko maskulinitasun eta femeninotasuna eta gizonezko zein emakumezkoentzat egoki joriko kirolak tradizio heterosexistak defendatuak dira, tradizionalki gizonezkoenak izandako kirolean diharduten emakumeak bihurtuz kritika zorrotzenen muin eta barregarri uzteko arriskuan daudenak, ez direlako “femeninotasunaren jolasean” ari eta estigmatizatuak direlako, maskulinitasun hegemoniko heterosexuala baita beste denak azpiratzen dituenak (Dorken eta Giles, 2011; Hargreaves, 1994, 171 or.; Hargreaves, 2000, 143 or.; Scraton et al., 1999; Wellard, 2006). Izan ere, gizonezkoen kirolean diharduten emakumezkoak (eta alderantziz) dira etengabe euren kokapena testuinguru kulturetan negoziatzen aritzera behartuta daudenak, non gizonezkoek atxikitzen zaizkien boterea eta pribilegioa patriarkatuan eta heterosexualitatean oinarritzen den alor ideologiko orokorrean (Engl, 2011; Ezzel, 2009; Hargreaves, 1994, 276 or.; Harris, 2007; Macías, 1999; Scraton et al., 1999; Tagg, 2008). Amaitzeko, ordea, Hargreavesek (1994, 289 or.) eta Pfisterrek (2012) azpimarratzen dute kirolak nagusi den kultura errepikarazteko duen joera sendoa izanagatik ere, baduela berau aldatzeko behar besteko ahala ere. Hortaz, emakumezkoak zein egoera berean, kultura hegemonikoak baztertuta, dauden gizonezkoak gatazka kulturean txertatzen badira ere, aldi berean manipulatuak eta erresistentzia iturri bihurtzen dira, baldintzek eragin arren agente aktiboak direlako kultura horren eraldaketa prozesuan. Hortaz, kirolak ere, beste kulturako esparru asko bezala, sakonean oso kontraesankorrak dira: zenbait kirolari atzera begira egongo dira, beste batzuk balio eta esanahien sistema nagusian kokatuko dira (Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008; Norman, 2010; Velija eta Flynn, 2010) eta beste zenbaitek, aldiz, balio eta esanahi kultural berrien aldeko hautua egingo dute (Macro, Viveiros eta Cipriano, 2009; Sisjord, 2012; Soler, 2009; Tischler eta McCaughtry, 2011; Trangbaek, 1997; With-Nielsen eta Pfister, 2011).

3. Gu ere bagara nor: emakume pilotariak

Aurreko orrialdeetan plazaraturiko ideia nagusien bidez osatu nahi izan dut euskal pilota kokatzeko koadroaren kanpoko markoa, sistemaren izaera nolakoa den zertzelada orokorrak eman eta abiapuntua non dudan agertuz hitz gutxitan, nondik burutuko dudan

nortasunaren gaineko hausnarketa. Izan ere, euskal pilotako mundua ez da mundu horretatik, sistema nagusitik eta kulturaren eraginetik, aske dagoen alor bat, bertan oso oso barnean errotua eta tradizioari indar handiz loturik dagoena baizik. Izan ere, tradizionalki instituzionalizaturiko kirola da hemen aztergai dudana hau (Etxebeste, 2012; Usabiaga, 2005).

Berrero ere maskulino/femenino sistema dikotomikora itzulita, gure testuinguruan murgilduz, euskal haurren jokoen eta jolasen gainean eginiko ikerlan mardul bat hartu nahi nuke ardatz (Etxebeste, 2012). Bertan ondorioztatu da joko maskulinoa dela, jolasa femeninoa eta badaudela mistoak diren jarduerak ere, joko-jolasak. Gainera, jokoen artean aipagai da euskal pilota bera, beraz, gizonaekoei esleitzen zaie hasiera batean bederen berez jarduerak hau.

Euskal pilotaren gainean eginiko ikerketa batean Zulaikak (González, 2005, 98an aipatua) esana da erabat mundu maskulinoa dela hau eta emakumeen parte-hartzerik apenas ematen dela. Hau da, plazan lagun zein anaiekin ibiltzeko aukera betidanik izan dutela, baina ezinezkoa dela emakumeak erdigunean kokatzea pilota profesionalean, eta are gutxiago kantxan protagonista lez, izaera femeninoaren inguruan alde aurretik jasotako ideia kulturekin emakumea borrokalaria eta jokalaria izatea ez baitator bat. Urte batzuk dituen aipua da, bakarren batek zaharkitua ere baietz pentsa lezake, baina ez, ez, gaur gaurkoz gure artean bizi-bizirik darraiena ere bada, batere zalantzarik gabe, gainera (Fernandez-Lasa, Usabiaga eta Castellano, 2012). Hau hala izanik ere, ordea, azpi-kultura bat bada gaur egun euskal pilotako esparruaren baitan, zeina emakumezko pilotariok osatzen dugun, maskulino/femenino dikotomiak, uste okerrak eta aurreiritzi erabat estereotipatuak hautsiz. Izan ere, kaleko skateboard-aren inguruko azterlan batean azpimarratu da, besteak beste, azpi-kulturak sortzea izan litekeela irtenbidea emakumezkoentzat ukatu edo sarbidea zailtzen zaien eremuetan txertatzeko, genero patroiei aurre egiten saiatzeko (Atencio, Beal eta Wilson, 2009).

Kasu honetan, orokorrean, multzo berean identifikatu ditut emakumeak euskal pilotako esparruan, zentzu batean esanahi bera ematen diotelako egiten duten horri, baina, aldi berean, norberak bere nortasuna eta ezaugarri bereizleak ere garatu eta mantendu ohi dituela ezin dut alboratu, norbanakoaren identitatea eta identitate kolektiboa orpo orpo agertuz jendartean, eta bereziki kirolaren eta jarduerak fisikoaren esparruan nagusi den kulturaren aurrean (Cockburn, 2002). Heterogeneoa eta homogeneoa da emakume pilotarion izaera aldi berean, honenbestez. Honen gaineko azterketa eta hausnarketa da kapitulu honetan zehar egingo dudana, emakume pilotarien nortasunaren sorrera, garapena eta/edo eraldaketa, estereotipoen itzal luzea, jardule profila ezberdinen bidezko antolaketa eta identitatearen zein generoaren jiran ateratako ondorioak plazaratu eta gogoetari ateak parez pare irekitzeko asmotan, testuinguruko erreferentzietatik abiatuta.

3.1. Identitatea: nor naiz, nor gara

Identitateak, norbanako oro ezaugarritzen duen oinarrizko ezaugarri-multzoa izaki, berdintasuna eta ezberdintasuna irudikatzen ditu aldi berean, besteez bereizteko ezaugarriak eta modu berean talde batean txertatzekoei egiten baitie erreferentzia. Argi adierazi izan da, gainera, ezberdintasunen eta identitatearen garapenak anitzak eta aldakorak direla, zuzenean eragiten baitiete aldaketa zein baldintza politiko, sozial eta kulturalak. Nortasun hauek etengabe daude aldaketa eta bilakaera prozesu baten baitan, malgu eta aldagarriak baitira testuinguru, norbere bizitzako aldi eta beste hainbat faktoreen arabera (Cockburn, 2002; Hargreaves, 2000, 7 or.; Rocha-Sánchez, 2009; Thorpe, 2009). Identitatea norberari ematen zaion esanahia da, hortaz, eta identitatea sortu eta baieztatzerakoan ezberdintasunak berresten dira (Ezzel, 2009; Rocha-Sánchez, 2009). Genero identitatearen gaineko kontzeptuek ere, beraz, sakon-sakonean zuzenean eragiten dute gu zein garen, zein izan gaitezkeen eta baita zein ez garen zehazteko ere (Azzarito eta Katzew, 2010; Rocha-Sánchez, 2009).

Neskek generoa/sexua kanonaren arabera eraikitzen dute euren gorputza ere, kulturaren eta bertako korrante zein arauen arabera estatus bat emanez, zeinak esanahi politiko eta kulturala dituen. Mugaz eta oztopoz betea izan ohi da nesken fisikotasuna eta femeninitasun idealarekiko alderaketaren bidez sortzen da, zeina testuinguruko eragileek eta hedabideek, merkatu ikuspegiaren baitan, sortu eta sustatzen duten (Azzarito, 2010). Familiak eta lagunek eragin oso nabaria dute identitate honen eraikuntzan, jarrera baikorra ala ezkorra adierazteak itzal luzea izan baitezake hautaketa egitean, komunitateak eragin zuzena baitu (Chimot eta Louveau, 2010; Paechter eta Clark, 2007).

Nerabezaroa garai kritikoa da genero identitatearen eraikuntzan, ezberdintasunak asko nabarmentzen direlako eta sexualitatea garatzen doalako garai hau heldzean. Mutila izateak eta neska izateak zer dakarren hor finkatzen da hein handi batean (Chimot eta Louveau, 2010; Cockburn eta Clarke, 2002; Paechter eta Clark, 2007; Warriner eta Lavalley, 2008). Horregatik, garai honetan testuinguruak duen indarra eta eragina izugarria izaten da, baita kiroletan nesken etorkizuneko ibilbidean azarnak uzteko ere, euren izaera, joera eta bizipenen baitan, noski, pubertarotik aurrera neskei fisikoki mugitzeko daukaten baimena edo ahala gutxitzen dielako testuinguruak (Paechter eta Clark, 2007).

Prozesu hau berbera da emakume eta pilotariak garenon kasuan ematen dena ere, aldi berean pilotari izatea bereizgarri izanik jendarteko beste zenbaitekiko eta batzeko arrazoi azpi-kultura horretakoekiko, bere muga, oztopo, ahalbide eta gainerakoekin batera. Izan ere, pilotari izatea eta nortasun hori eskuratzea pertsona beste hainbat gunetatik bereizteko berezitasun bat da, besteak beste, pilotaria zer den, nor den eta nor ez argi uzten saiatuz esleituriko ezaugarri multzoaren arabera. Pilotari identitatearen garapena, gainera, pertsonaren nortasuna eraikitzen den une berean ematen da, bizitzako aldi bakoitzeko sentimendu, esperientzia eta bizipenekin igurtzimenduan. Horregatik,

nerabearoa aldi oso sentibera eta kritikoa da pilotari identitate hori osatzeko garaian, genero identitatearen eraikuntza finkatzen den aro honetan neska izatea zer den ere definitu ohi delako, testuinguruak eragin nabarmen eta indartsua izanik, adibidez, fisikotasunaren mugak zehaztean. Hori dela eta, neska pilotari izateko prozesuan ere oso kontuan hartu behar da testuingurua haurtzaro eta helduaroa bereizten dituen garai horretan. Izan ere, aintzat hartu behar da une batean pilotari izateak ez duela bizitza guztirako hala izatea bermatzen, testuinguruaren arabera aldaketa prozesua etengabea delako, esanahi kultural handiko esparrua baita pilotako ingurumarikoa. Adibidez, gerta liteke haurretan pilota munduan ez zebilen bat helduaroan pilotari izatea, eta alderantziz, eragile ezberdinek bultzatuta. Goian aipaturiko identitatearen eraikuntza prozesuaren izaerak eta adierazleek zuzenean eragiten dute neska zein emakume batek pilotari izaera eskuratzean bereganaturiko ezaugarri multzoan.

3.2. Estereotipoak

Genero identitatearen garapen eta bilakaerarekin lotura hertsian estereotipoak eta arau sozialak barneratuta ditugu geure testuinguruetan, sozializazio prozesuen bidez, eta iritzi-multzo hauek gidatzen dituzte jarduera asko eta asko (Macro, Viveiros eta Cipriano, 2009; Roster, 2007). Estereotipoak aldatzen doaz denboran zehar eta jendartea garatu ahala berdintasunerako urratsak handiagoak direla uste da geroz eta nabarmenago (Garcia-Retamero, Müller eta López-Zafra, 2011). Hala ere, oraindik ere bada zer egina benetan hala izateko. Honako atal honetan kirol munduan oraindik ere erroturik dauden hainbat joera eta etiketa zein laido (Dorken eta Giles, 2011; Matteucci, 2012; Mennesson, 2004; Roster, 2007; Tagg, 2008; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009) plazaratuko ditut, euskal pilotako errealitatek abiatu eta ardatz hau harturik, baina unean-unean literatura zientifikoa jorraturikoekin uztartu, alderatu eta indartuz.

Euskal pilota eta emakumeekin loturik anitza bezain zabala da testuinguruan entzun, nabari eta esan ohi diren etiketa, estigma, estereotipo, aurreiritzi, uste eta gisakoen zerrenda, beste hainbat eremutan bezala. Izan ere, neska eta emakumezkoek, gehienbat, baina baita kirolzaleak ez diren mutil eta gizonek ere, hainbat estigma, etiketa eta estereotipo, ia mota guztietakoak, jasan behar izaten dituzte, aurreiritzi eta uste okerretan oinarritzen direnak askotan, gainera (Macías, 1999; Taylor, 2003; Tischler eta McCaughtry, 2011; Velija eta Malcolm, 2009; Walseth, 2006; Wellard, 2006). Berezko eta naturalak balira lez agertzen dira estereotipo hauetako asko, gainera, zalantzan jarri ere egin gabe. Hori dela eta, kasu askotan emakumezko eta neskek talka egiten dute zenbait kirol eta jarduera fisikotarako parte hartzea ukatzearekin eta parte-hartzea erabakiz gero bai ala bai estereotipatuak izatearekin (Dorken eta Giles, 2011; Wright, 1995). Euskal pilotan ere bai, ez da salbuespenik gure mundutxo honetan, futboleko, errugbian, izotz hockeyan, futbol amerikarrean, borrokan, boxeokoan, motoziklismoan, cricketean eta zaldi lasterketetan aritutako emakumeek agertu duten bezalaxe.

Euskal pilotako esparruan emakumeen ingurumariarekin loturiko estereotipoak bost azpi-multzotan aurkeztuko ditut, nagusi eta nabarmenenak plazaratu eta aztertzeko hautua egin baitut: gizonezko edo/eta emakumezkoen kirola, “marimutila”, kanpoko erresistentziak eta borroka egin beharra, neska/mutilen arteko bereizketa eta ezberdintasunak eta pilotari izateak dakarren arazo eta tentsio gatazka.

3.2.1. Gizon/emakumeen kirola

Euskal pilota askotan erlazionatu izan da gizontasunarekin eta honi erantsiriko ezaugarriekin literatura zientifikoan (Etxebeste, 2012; González, 2005). Beste zenbait kirolari ere aldamenean gizonezko zein emakumezkoentzat onargarri edo ez-onargarri izaera eranstean zaie generoaren arabera egokitasunaren arabera, lehiakortasuna, oldarkortasuna, indarra, arriskua eta halako faktoreak jo puntuan hartuta (Baird, 2010; Hannon et al., 2009; Harris, 2007; Macías, 1999; Mennesson, 2004; Roster, 2007; Tagg, 2008).

Pilotako esparruan diharduten emakumezko guztiek, ia salbuespenik gabe, hartu dute ahotan noiz edo noiz gai hau. Iritzi ugari bildu, entzun eta azertu ditut lan honen joanean eta multzo ezberdinetan koka banitzake ere, ezin uka presentzia eta pisu nabarmena duen gaia denik euskal pilotari ematen zaion zentzua eta atxikitzen zaizkion ezaugarriena. Badira gizonezkoen kirol lez ikusi eta bizi dutenak, badira gizon zein emakumezkoentzat egokia bezain aproposa iruditzen zaienak eta badira tartean eskupilota eta paletaren artean sexuaren arabera banaketa egiten dutenak ere. Ildo berean, urteak, bizipenak, esperientziak eta ikuspegiak pilatu eta norbere burua eta identitatea helduaroan finkatu ahala iritziek nola eboluzionatzen duten ikusteko aukera ere izan dut lan honetan zehar.

Euskal pilota gizonentzako kirola dela diotenak bat baino gehiago dira eremu honetan, edo bai halako bizipenak barneratu izan dituztenak behintzat. Batez ere, nagusiki, pilota munduan haurtzaro/gaztarotik dabilzanak dira ikuskera hau zutenak edo/eta dutenak, euren identitatea sortu bitartean diskriminazioa pairatu zutenak.

“Ni ona izango naiz, ‘neska zara, ondo moldatuko zara, baina, uf, alferrik zabilta, alferrik zabilta! Bai, bai, ona zara eta denek egingo dizute ooh’, baina iritsiko da egun bat ez dudana jolastuko ez neskekin eta ez mutilekin eta ez inorekin ere”. Saioa

“Ez da igual matxakatu zaituztela, baina, igual ez dizute aintzat hartzen edo, como ‘ez da hain serioa edo zer egingo du honek’, edo, ez dakizu? Ez dizute horrela esaten, baina, adierazten dizute beste era batera, ez? Eta orain ere, askotan, ikusten da hori”. Janire

Helduaroan hasi eta batez ere aisialdian diharduten pilotarien artean ere bada iritzi hau duenik, hala ere. Pilotan jarduten dutenak batez ere gizonezkoak direla eta hori gizonen kirola izendatzeko duda aurkeztu du Itsasok, adibidez:

“Beno, baina gizonen kirola ez dakit, baina, maila... Adibidez, fronteniseko txapelketa dagoela eta ez dakit zer eta badakizu mutil pila bat joango direla eta neskak ez dakizula joango diren. Orduan, horrelako batean apuntatuz gero igual esaten duzu ‘jo, bakarra naiz’. Ez daukat asmorik eta ez da horregatik, bestela ere ez dakit apuntatuko nintzen, baina bai antzematen dela hori”. Itsaso

Bazterketa honen ondorioz sorturiko gizonetzkoen kirola den aurreiritzi hedatu hori, gainera, ez-ezagutzari atxikitzen diote batez ere ikertuek, emakumezkoen pilotako jardueren jarraipenik ezak usteak aldatzea asko zailtzen duela agertuz. Izan ere, Ibone eta Olaiak adierazten dute ez dela jendartean ezaguna emakume pilotariak badirenik eta horrek jendearen iritzien osaketan eta ikuspegietan eragin baikor eta iritzi positiborik ez duela sortzen, emakume pilotarien izaera barneratzea zailduz:

“Beno, oraindik ere, zuk jakingo duzu, jendeak ez du ikusi, jendeak partidu onak ez ditu ikusi. Orduan, txarrak ikusten dituenak esaten du, ‘ba, neskak...’. Ikusi egin beharra dago, orain Kutxa Sarian, adibidez, zer esaten du jendeak? ‘Joe, neska hauek jokatzten dute’. Zuk badakizu hori, ezta? Orduan, jendea harritu egiten da neskak ere jolasten dutela”. Ibone

“Nik ez dakit jendeak zenbateraino dakien emakumeak pilotan aritzen direla. Nik ez dakit zenbateraino dagoen barneratuta gizartean emakume pilotariak daudela. Niri askotan galdetzen didate lanean eta: ‘zenbateko nibela dago?’. Beno, nik ez diet esango nik maila ona daukat, baina, batzuk mundialetara joaten dira eta orduan... ‘hori nibela bada!’. Harrituta geratzen zaizkit, baina ez dakite benetan zer nibel dagoen, zenbat jokatzten dugun. Gizarteak oraindik ez dauka hartuta kontzeptu hori, emakumeak nola bagabiltzan”. Olaia

Denentzako kirola dela, gizon zein emakumeek egiteko modukoa, aldarrikatzen dute gehienek, ordea. Gainera, batez ere helduaroan pilotan hasitakoak dira, aisialdiko paletariak, haurtzaroko sexismo aztarnarik ez dutenak, esan hau baieztatzeko eragozpenik ez dutenak, euren jardueraren zuzentasuna zalantzan jartzeko burutaziorik txikiena ere ez dutela diote hauek.

“Niri iruditzen zait ni aritzeko moduko eremu batean nagoela. Nire mailan, noski. Garbi daukat segun ze gizonetzkoen kontra igual irabaziko niokeela, baina garbi daukat ni nire eremu propioan nabilela eta nik ez dut ikusten hori gizonetzkoen eremua denik, nahiz eta gero egia den gizartean daukan zabalkundea eta, ba, daukan itxura, ez dakit, gizonetzkoarena den, zeren eta emakumeak desagertuta gaude kirolean, oro har, baina, beno, ez zait iruditzen niri”. Gurutze

“Ni hasi naiz kirola egiten umeak izan eta gero gehienbat eta helburu bat da erakustea, nik bi mutil dauzkat, erakustea emakumeok ere kirola egiten dugula. Hori da helburu bat eta oso garbi daukat, gainera, zeren bestela kirola beti bihurtzen da gizonen mundua eta ez dut nahi. Nahi dut berdintasun kontu horrekin beraien aitak kirola egiten du, baina amak ere bai. Oso garbi daukat hori”. Eli

“Ez, gainera, ez zait burutik pasa ere egin. Ez, ez. (...) Egia esan, hemen, beti ibili izan dira taldeak eta horrela. Emakumeak ikusi izan dira frontoian palan jolasten”. Karmele

Federatutako pilotarien artean ere, zeinak nerabegarorako pilotarekin harremanetan zeuden, ageri da iritzi hau, neska eta pilotari izateak arazorik eta eragozpenik ez diela eragin adieraziz:

“Arazoa neska izateagatik ez. Agian beste batek 40 urterekin bai, baina, nik behintzat ez”. Nora

“Ez, ez. Ni, gainera, hastapen batean mutilekin hasi naiz eta luzaz eta, uf. Ba, garaian, mutiko bat eskas zelarik, txapelketan ere xuriz jantzi eta hirugarrena egiten nuen eta. Ba nire inguruan gauza ere sinplea zen eta ez zuen inork apuntatzen ‘jo, neska bat mutikoekin’ edo zerbait. Eta gero neskekin hasi nintzen eta orain ere, ba ez. Ez, ez, eta torneo pribatuak egiten ditugu txapelketatik kanpo eta batzuetan, ba, bi neska ateratzen gara mutilen aurka, edo batzuetan nahasita neska-mutil, eta ... Iparraldean, gutxienez, orain aukera dugu jokatzera bai mutilekin torneo pribatuetan eta ez du nehork bizi”. Ekiñe

Gizonezkoak eskupilotarekin eta emakumezkoak paletarekin lotzen dituzten pilotariak ere aurkitu ditut tartean, euren inguruan jokamoldeen banaketa hala egin izan dela baieztatu eta pilota guztientzako moduko jarduera lez aurkeztuz.

“Gizonak gehiago daude eskupilotarekin lotuta, niri iruditzen zait, e, eta neskak palarekin gehiago. Nik horrela ikusi izan dut beti. Gizonak ere ibiltzen dira palan, baina nik gehiago ikusi izan dut beti neskak palan eta mutilak eskuz”. Ainara

Gizon eta emakume edo neska zein mutilentzako pilotaren egokitasunaren ikuspegiaren aldaketan adibide bat baino gehiago aurkitu ditut. Asko dira federatutako pilotarienak, baina bada aisialdiko pilotaririk ere iritzi hau agerturikoen artean. Batez ere haurtzaro eta nerabegaroko zalantza egoeratik, helduaroko, hau da, batez ere jarduera emakumeen artean burutzen den unera, eginiko jauzia da perspektiba aldaketa honen eragileetako bat.

“Palan? Uf! Orain ez dut sentitu mutilen mundu batean nagoela. Sentitu? Nik neskak dauzkat, neskak dauzkat jolasten”. Saioa

“Eskua utzi nuen eta nola pasa nintzen palan jokatzera eta palan denak neskak diren, hor ia pilotariekin harreman normala, denak neskak dira eta beste neska bat naiz, eta nik uste dut garai haietan jokatzeko genituen txapelketarik gehienak pribatuak zirela, Altzako txapelketa, Oiartzungo txapelketa, Intxaurrendokoa... Orduan, errespetatzen gintuzten eta ez ginen betegarri, nik ez nuen sinesten betegarri bat ginenik. Nik uste dut normal, dezente normalizatuta zegoela, bada, orain bezala”. Eider

Ildo berean, adibide argia da Zuriñeren ondorengo aipua haurtzaroko iritziak, identitatea sortzen eta garatzen ari den aldikoak, eta helduarokoak testuinguruko baldintzak aldatu ahala zer eboluzio izan duten ikusteko, berak haurtzaroan mutil artean jolasteari askotan muzin egin izana eta helduaroan, gaur egun, kirol neutrotzat hartzen duelako pilota:

“(…) no sé, como en aquella época era como salirte de, como un deporte así, sí, yo femenino ahí, le dabas cuatro palazos y ya está, pero, ejem. Quiero decirte que no era, parecía como que te salías de... (…) No sé cómo decirte, ya era como meterme en camisa de once varas”.

Galdera (G). Has dicho que antes te decían que era un juego de chicos. ¿Ahora te parece que estás jugando en un deporte de chicos o no?

“No, pienso que no tiene nada que ver. No sé cómo decirte, eso es como con la bicicleta o no sé, ése es un deporte mixto, ahí no hace falta ser... hay que ser habilidoso y nada más, o sea, no pienso que demuestres que seas más hombre o más mujer”. Zuriñe

Beste hainbat ikerlanetan ere frogatu da egokitasunaren gaineko bereizketa hau jarduleek eurek egiten dutela sarri askotan, zenbait kirolkirola bat eta beste beste batean emanez, nahiz eta “ezohiko” egoeran aurkitzen direnak, kirol maskulino/femenino batean ari direnak, diren horri garrantzirik txikiena ematen diotenak (Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009; With-Nielsen eta Pfister, 2011; Wright, 1995). Borrokalariekin eginiko ikerketa batean eta baita errugbilariak ardatz dituen beste batean ere, ordea, euren kirola guztientzako egokitzat zuten jarduleek (Baird, 2010; Macro, Viveiros eta Cipriano, 2009). Gure ingurumarian, gaur egun, aisialdiko pilotari gehienek eta baita federatuetakoen gehiengoak ere, euren haurtzaroko bizipenek identitatearen eraikuntzan bere garaian eragin bazieta ere, hala berretsi didate, nahiz eta hori hala izanik ere, komeni den ohartaraztea kirol batean parte hartzeko aukera izate hutsa ez dela nahikoa ezberdintasunak desagertu direla baieztatzeko (Pfister, 2010).

Gizonezko edo emakumezkoentzako kirola izendatzeak, gainera, eragin zuzena izan lezake hautua egitean edo jokatzeari uztera behartzean. Hori dela eta, pilotariak ere kontziente dira hel daitekeela une bat euren generoari atxikiriko mundura igaroko badira pilotan aritzeari utzi beharrean aurkituko liratekeena, horrek benetako tamala eta haserrea eragingo balie ere. Gimnastika erritmikoan diharduten mutilekin eginiko ikerlan batean ondorioztaturikoa (Chimot eta Louveau, 2010) berretsi baino ez du egiten Nekane egindako aipu honek:

“Eso es lo triste, mientras era como más niña parece que lo puedes hacer, luego no. ‘Ya tú a la cazuela y a la escoba’. No, pues eso no es así. Entonces, lo que también me jode de todo eso... A mí, en esa edad, que me lo hicieran. Lo que me parece tristísimo es que hoy en día se haga. Porque yo tengo niñas ahora con 12 años que con 8 o con 10, más con 10, le han invitado a que se vaya, y eso es lo que no, a mí no me entra en la cabeza. ‘Joder, pues déjale y que juegue hasta lo que quiera’”.
Nekane

Ildo honetan, emakumezko gihartsuak arbuia egiten dira, euren femininotasuna zalantzakor bihurtzen baitute eta heteronormatibitatea urratzeko arriskuan jarri. Hala ere, hori jokoan aritu bitartean, adibidez futbolari emakumezkoen kasuan, onartzen zaie,

baina epe muga zehatz batekin, partidua amaitzean amaitu behar delako izaera hori ere, genero arauak hori diotelako eta botere harremanetan hala ezarrita dagoelako (Engh, 2011; Roster, 2007).

Gizonezkoen pilotari izaera da legitimatu eta indartzen dena testuinguruan batik bat, euren kirola dela eta. Horregatik, pilotaz aritzean oro har ulertzen da gizonezkoen egiten zaiela erreferentzia eta emakumezkoenaren gainean ari bagara, aldiz, “emakumezkoena” izendapena gehitu beharko diogu aurrean.

“Nik hitz egiten dudanean lagunekin-eta pilotan eta palan eta beti ikusten dute pilota bakarrik dela eskupilota eta, orduan, klaro, neska hor sartzea eskupilotan, ba, ez dute... Neskek uste dute pilota mutilen kirola dela, hori da bizi dutena, baina, azkenean da ikusten duzuna. Ez da ikusten palan. Larruzkoan bakarrik ibiltzen dira mutilak, telebistan bakarrik mutilak daude, leku guztietan agertzen dira”. Nora

Beraz, neskenaz ari garela espezifikatu beharra dago legitimatzen denarekin nahasterik nahi ez badugu behintzat, beste hainbatek berretsi moduan (Dorken eta Giles, 2011). Gainera, askotan halako kirol batean jardute hutsagatik emakumezkoek azalpenak eman behar izaten dituzte, euren feminotasuna eta ordena soziala mehatxatzen dituztelako eta ez omen delako “naturala” (Engh, 2011). Berez kirol bati ezaugarri horiek esleitzeak ez du esan nahi emakumezkoek berezkoa ez dugunik pilotarako gogo, grina eta ahala, ordea:

“Etxean eta ingurumenean gauza aski naturala da pilota. Familian, azken finean, ba jokutzen dugu eta denak, bakoitzak bere mailan, edo nire aitak orain 68 urte ditu eta segitzen du lagunekin astean behin, anaiak txapelketetan, gero badira torneoak. Beraz, gauza naturala da. Ez dugu hainbeste pentsatzen pilota gauza berezi bat bezala, ez?” Ekiñe

Oso erroturik dago oraindik ere pilotan batez ere gizonezkoek diharduten ustea jendartean. Horren erakusle da behin baino gehiagotan gizonak erronkan hastea emakumezko pilotariei, gehiago diren ustea barneratuta dutelako eta gailentzeko beharrari helduta hasten direlako nesken aurrean. Gainera, izaeraren arabera erantzun oso ezberdinak ematen dituzte hauek ere, zenbaitek apustuari helduz, Inesen aipuan ikus litekeen moduan, eta beste zenbaitek euren deserosotasuna eta amorrua plazaratuz, Haizeak lez.

“Bai, gizon bat baino gehiago badira esaten didatenak jokatu egin behar didatela. Bai, bai, erronkan hasten zaizkit. Hemen kalean bat hankan min hartuta egon zen eta esan zidan ‘hanka ondo jartzean zuri partidu bat egin behar dizut’ eta bai. Astigarragan ere bada beste bat esaten didana ‘jokatu egin behar dizut’ eta ‘nahi duzunean’”. Ines

“Beno, beti dago, hori apuntatu, eh, parrandan ateratzen zarenean beti esaten dizute ‘benga, zu palan ibiltzen zara? Apustua egingo dizut, ni mutila naizela eta irabazi egingo dizudala’. Ematen dit nazka bat! Ez? ‘Zu palista? Nik irabaziko dizut ezkerrekin’, eta, ‘hi, txikito!’. Nazka ematen dit! Inoiz ez naiz sartzen apustuatan,

ematen dit halako nazka bat, 'ni mutila naiz eta, neska palista? Irabazi egingo dizut'. Aizu, gero igual bai, baina". Haizea

Orain artekoa aintzat hartuz, beraz, pilotari identitatea sortu, garatu, eraldatu eta berresteko prozesua ez da joko zelai berdindu eta orekatuan ematen, ez da generoarekiko neutrala, “zuk ezin duzu jokatu, zu neska zara”, “guk ez dugu neskekin jokatu” edo “neskek ez dute pilotan jokatzen” bezalakoak presente daudelako atmosfera honetan, neskekin futboleant gertatzen den modu berean (Harris, 2007). Zeelanda Berrian gizonezkoen “netball”a aztertzen duen artikulu batean ondorio bera ateratu dute, erabat jarduera estereotipatua dela eta testuinguruko erresistentzia, zailtasun eta aurreiritzi ugari aurre egin behar dietela jarduleek, ez baita ustez gizonezkoentzat kirol egokia (Tagg, 2008). Beste horrenbeste gertatzen da gizonezkoak maskulinitasun hegemonikoarekin bat ez datozen jardueretan ari direnean ere, adibidez, tenisean diharduten homosexualekin (Wellard, 2006). Gure testuinguruarekin harreman estuan, emakume sokatiralariekin eginiko ikerlan batean ere erabat jarduera estereotipatua dela berretsi dute Egibar eta Garaik (2009).

3.2.2. “Marimutila”

Zenbait jokaera edo kiroletako parte-hartzeak ez badatoz bat femininitasunaren kanonak eta rolek markaturikoekin, etiketatuta egiten dira hainbat portaera eta gorputz irudi, bai familiakoengandik eta baita lagun zein testuinguruko gainerako eragileengandik ere, hedabideak ere bai tartean, muga onargarriak gainditzeko arriskuan daudelako eta horrek ez duelako jendartean begirunerik sortzen. Ohizko genero arauak hausteak ordaina dakar, “marimutila” etiketa jartzea, adibidez (Baird, 2010; Egibar eta Garai, 2009; Ezzel, 2009; Scraton et al., 1999; With-Nielsen eta Pfister, 2011).

Ikerlan honetako aktore sozialek eskenatoki ia guztietan egin dituzte “marimutil” izaera eta honen inguruko bizipenen aipu eta gogoeta benetan interesgarriak. Izan ere, jendartearen aburuz gizonezkoena den eremu batean aritzeak gainzama bat erantsi die une jakin batzuetan zenbait pilotariri, euren inguruko neska gehienekiko ezberdin eta arraro sentiarazi zituen kasu bat baino gehiagotan, maskulinitasun eta femininitasunari atxikiriko ezaugarriekiko kinka bat sor zekiekeelako mutilak lez jardutean (Clark eta Paetchter, 2007). Horien gaineko hausnarketa mamitsu bezain sakona beharrezkoa da, ohiko genero roletatik eta arauetatik apur bat desbideratuz gero ordaina jasotzeko arriskua handia izan baitaiteke.

Hurtzarroan eta nerabezaroan kokatzen dituzte emakumezko pilotari ia guztiek ezberdin izate eta arrarotasun honen gaineko adibide eta bizipenik gehienak, identitatearen eraikuntza prozesuarekin batera. Zenbait aktorek badute kutsu negatibo eta erabat osatu gabeko min hondarren baten zantzurik, ezberdin sentitzeak arrastoa utzi izanaren erakusgarri.

“Ni ordura arte sentitzen nintzen irla bateko neska bakarra eta ez zegoela inor neskarik pilotan jolasten zuenik eta niri arraroa egiten zitzaidan, esaten nuen, hain arraroa ere ez naiz ni”. Eider

“Astigarragakoek esaten didate ‘nik uste zu mutila zentozela, baina neska atera zinen’”. Ines

“Niri esan didate aurpegira ‘hau mutila izan bazen ona aterako zen’. Honbre, zeren beti mutilen tartean ibili naiz eskuz. Gero ya palan ia sartu nintzen proiektu batean eta nesken artean, baina eskuz nenbilela beti sentitu izan dut ez dela nire kirola, niretzat egindako kirol bat”. Saioa

“Jendea batzuetan poztu egiten da ‘ah, bai? Neskak palan? Ah, bada begira’. Gu hasi ginenean ez zen hain komuna hori. (...) Bada, ondo dago gero jendea sartzen joatea, baina, iruditzen zait hasieran zera falta dugula pixka bat, ez dela oraindik oso normal ikusten 6 urteko neska bat pala batekin”. Haizea

“Marimutil” izendapenak arazoak dakartza berekin normalean, goiko Eider, Ines, Saioa eta Haizearen aipamenetan agertu bezala, ez da ongi ikusi eta onartua oro har jendartean, ez da pozgarria ere, zenbaitetan, faktore askoren kabuz, nesken mugimenduzko jarduera aktiboak mugatzea eraginez, “marimutil” deritzolako ezaugarri maskulino asko atxikitzen zaizkion neska edo emakume izateko moduari (Clark eta Paetchter, 2007; Paetchter eta Clark, 2007), adibidez gorputz gihartsuak izatea edo historikoki gizonezkoenak izan diren jardueretan aritzea (Engh, 2011). Ezohiko irudi hau izatea, jarduera mutilekiko eta nesken jendarteko ohiko irudiarekiko desbideratzea, gertatu ohi da halako esparruetan. Kirol horretan aritze soila nahikoa da genero ordena desafiatu eta kolokan jartzeko (Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008). Emakume sokatiralariek bizipen berdinak izan dituzte (Egibar eta Garai, 2009).

Badira izendapenari garrantzia eta eragiteko aukera izugarririk ematen ez diotenak ere, ordea, gainerakoek esandakoak eurengan eragingo ez balu lez, eurenari eutsi eta testuinguruko eraginari esku hartzeko zirrikiturik utzi gabe.

“Ni gogoratzen naiz ikastolan beti, eta futbolean ere, neska bakarra izaten nintzen han beste mutil guztiekin batera ibiltzen nintzen. Gogoratzen naiz, anekdota bat ikastolan, Gabon batzuetan, Gabonen ondoren, bada, andereñoak, ‘zer, eta zer oparitu dizute?’, eta, ‘bada, niri larruzko baloi bat’ eta denak barrezka hasi ziren. Eta nik, ‘barre egingo duzue baina ez dakizue niri zer ilusio egin zidan barruan baloi hark’. Eta, zer izango nituen, bada, 10-11 bat urte edo horrela? Eta, bai, beti izan nuen hori eta gainera inongo, besteak bezala onartzen ninduten, ez neska delako ez duzu jokatu eta, ez, ez, hantxe ibiltzen nintzen ni ere besteekin baloiaren atzetik”. Itxaro

“Ez dakit, ni beti izan naiz ‘marimutil’ bat eta orduan beste kirol bat gehiago zen, pilota bada pilota eta punto. Inork ez zidan esaten ‘pilotan jokatzen al duzu?’, bada, ‘bai’. Ni Anoetan ezaguna nintzen, guk Anoetan herriko taberna geneukan, eta horregatik bakarrik ezaguna nintzen. Gainera, gero, ‘marimutil’ bat nintzen eta beti mutilekin jolasten nuen. Nola egun guztia jolasten aritzen ginen, bada, orduan, ni

konsideratzen naiz pertsona bat bastanteko abilezia daukana, eta nola bastante ona nintzen, bada, segun zeinekin konparatuta. Pilotan jokatzen nuen, baina, lagunek-eta horiek inork ere ez zidan ezer esaten, egia esan, baina, ezta neskek ere. Neskak euren ‘rolloetan’ bizi ziren”. Eider

Badirudi haurtzaroan genero rolekiko malgutasuna handiagoa izan litekeela eta “marimutil” izaera identitate onargarria dela denbora epe jakin eta mugatu batean, baldin eta hazten joan ahala “marimutil” izateari muzin eta iskin eginez gero. Hala egin ezean gorabeherak sor litezke pilotariaren inguruan eta genero arauak haustea saihesteko estrategia ezberdinak gara ditzakete testuinguruko eragileek, Nekane bere garapenarekin eta nerabazaroko auziarekin loturik iradoki bezala:

G. Has dicho que luego dejaste. A los 14 años dejaste.

“Sí, a los 14, para 15. Sí, ya le empezaron a mi padre, ‘bueno, es que Nekane, ahora, que ya se está desarrollando, o ya se ha desarrollado o, que es una mujer y no va a poder darle a la pelota, que se va a lesionar la mano, ...’”. Nekane

Emakumezko futbolariekin eginiko azterlan batean berretsi dute neskak hazten zein heltzen joan ahala ezberdintasunak baztertu eta arraro izateari uztera bideratzen dituela inguruak, genero ordenari muzin egiteko epea amaitu balitzaie lez (Engh, 2011).

Beste hainbat autorek diote neska zein emakumezkoen sexu-joera zalantzan jartzen dela honen antzeko hainbat eremu eta egoeratan, batez ere diharduten kirola maskulinitasun hegemonikoarekiko harreman hertsian dagoenean (Baird, 2010; Engh, 2011; Harris, 2007; Macías, 1999). Hala ere, emakume kirolari gehienek aurre egiten diote egoera honi, euren erresistentzia erakutsiz (Roster, 2007).

3.2.3. Pilotan, kolokan eta borrokan

Emakumezko pilotarien beste ezaugarri bereizle bat kanpoko erresistentziarekin bizikide izan beharra da, euren baitatik eta eskumenetik at dauden hainbat eragile, eskenatoki, egoera eta abarrekin harmonian egotea ez baita batere zeregin xamurra. Horrek borrokalari sena lantzea eskatzen du eta aurrera egiteko nahi sendoa are gehiago nabarmendu eta azpimarratzen du emakume pilotariengan. Gorabehera hauen gaineko azalpen, bizipen eta hausnarketak dira puntu honetan plazaratuko ditudanak.

Gaia kokatzeko, futbol amerikarrean, esate baterako, testuinguruko jendeak estigmatizatu egiten ditu hainbat jarrera, kirolari emakumezko hauen estatusa ez delako ohikoa eta genero ordena hegemonikoa ez jarraitzeak eragin egiten die kirolariei zelaitik kanpoko egoeratan, bai zurrumurruak sortuz eta baita eurekin jarrera iraintzailea izanez ere (Baird, 2010; Packard, 2009; Velija eta Malcolm, 2009). Zenbaitetan emakumezkoek erresistentzia gehiago jasaten dute euren azpi-kulturatik kanpo, jendarte orokorraren partetik (Roussel et al., 2010; Flynn eta Malcolm, 2009).

Gizonezko pilotariak sarritan eragozpenak jarri ohi dituzte hainbat esparrutan emakumezkoen jarduera oztopatu edo zaildu asmoz, euren abantaila eta onurak murriztuko ote diren beldur izaten direlako, emakumezkoek euren esparruan zerbait irabaztea gizonezkoen “eskubideen” murrizketatzat jotzen baitute (Clark eta Paechter, 2007). Ibonek jarraian eginiko aipu hau mutilek neskei jarririko zailtasun eta mugen adibidea da:

“Kirola egiteagatik? Presiorik ez, baina, neska izateagatik bai. Tilosetan, mutilek, beti, ‘fuera neskak, fuera!’ beti horrela zen. Futbolearen ere ibiltzen ginen eta ‘ez, ez, fuera neskak!’ Hori bai, horregatik ibiltzen ginen bizikleta hartu eta martxa beste toki batetara. Bai, mutil asko ziren, gure adinean asko zegoen, eta, bai, bai, bai, bidali egiten gintuzten”. Ibone

Txapelketetan gizonezko eta emakumezkoak aldi berean, kantxan elkarren aurkako lehia, aritutakoan sortzen diren errezelo eta aurreiritziak ere makina bat dira. Beti hala ez bada ere, askotan, gainera, gizonezkoek ez dute onartu nahi izaten emakumezkoek ere ongi jokatzeko dutela eta euren ezinegona areagotu dakieke emaitza euren aldekoa izan ezean, suposatzen zaien nagusitzak balantza egiten dielako eta egoak dar-dar:

“Hemos tenido gente maravillosa y estupenda que para nada han estado mirando si chico o chica, si no el jugar a pelota, que es lo que tenía que ser, y otros, que, vamos, o sea, ‘¿con una chavala? Bien, hombre’ como diciendo, ‘si, además si no van a jugar nada’. Vamos, ya menospreciándote porque eres chica y, luego, poniendo excusas porque les has ganado. O te ponían allí, ibas al partido y decía, ‘o sea, a esos con más rabia. Pues, te voy a dar porque aunque me muera en el frontón voy a dar todo lo que tengo’. Igual, empezabas a calentar o lo que sea, que ya te ponían cara como de ‘tú mucho más inferior’ y nos echaba la pelotica en el uno, plas, plas. Y, yo, paciencia tengo toda, yo creo, y yo hacía como ellos. Pero Rebeca no, ya se le inflaban las narices y pa, pa, le pegaba de primero un ostión y ya estaba, la pelota al 8. Y, ‘ostia, le pegan’ y, entonces, ya empezaban a calentar como tiene que calentar todo el mundo. Y, bueno, eran, pues, comentarios. Entonces, primero te hacían como ‘pero, ¿cómo os han traído aquí, no?’, como un poco ‘¿a quién se le ocurre poner aquí a dos chavalas a jugar con nosotros, hombrachones?’, y, luego, ‘ay, es que me operaron del hombro, es que tengo no sé lo qué, es que he comido tarde y se me ha parado la digestión, etc.’. Y, yo, decía, ‘o sea, ¿si tendréis morro!’” Nekane

“Nik uste dut gure adinekoak-eta ia horrelako gauzetan ez direla sartzen, baina bai egia dela aurten Nafarroako Txapelketan mutilekin jolastu dugu Nekane eta biok Munduko Kopa prestatzeko eta bai egia dela kostatzen zaiela mutilei, beno, batzuei ez, e, nesken kontra galtzea, baina, batzuk begirada eta suertea daukagula beti, tanto egiten dugun bakoitzean, eta... Aitzakiak. Ez dakit, betikoa. Azkenean edade bat daukate eta neskek irabaztea kostatzen zaie”. Nora

Borroka gizonezko pilotariekin bakarrik ez, ordea. Pilotaleku orduak lortzeko udalarekin, pilota elkartearekin eta testuinguruko beste hainbatekin tupust egitea ez da hain arrotza emakumezko pilotarientzat. Hernanin nesken artean paleta sustatzen

hasitakoan pilotalekuarekin bizi izandako pasarteak eta euren espazioa nola aldarrikatu zuten benetan da esanguratsua:

“Hasi nintzen larunbatetan entrenatzen, beno, larunbatetan libre zegoenean, ez ziguten ezer ere esaten, eta ailegatu larunbata eta ‘gaur pailazoak, fuera entrenamendua, gaur bazkari bat...’ eta azkeneko talde honek esan zuen, ‘joe, Ibone, zerbait egin beharko dugu!’ Kronikara idatzi bat beraien sinadurekin, eta orduz geroztik, ‘aizu, larunbatean okupatua dagoela’, abisua. Nik esaten nien, bada, abisatu. Eta, orduan, ez zegoela libre? Bada, nora joaten ginen, Floridako frontoira jaisten ginen neskekin, ‘bada, goazen zerbait egitera’, eta Floridara, pilotak galtzera, edo Tilosetara. Tilosetara lehenengo, baina, beti okupatua. Hernanin tilos hor zentroan dago eta beti okupatua dago”. Ibone

“Gero, igual, kondizioak entrenatzeko eta horrela, igual hori bai izan zela atzerapauso bat guretzako. Ni gogoratzen naiz guk mobida eduki genuela. Larunbatetan genuen entrenamendua eta jartzen ziguten tablatua eta guk ez genekien ezer eta, ‘bua’, Kronikan idatzi genuenetik mundu guztiak, ‘ah, pala talde bat? Ahhh’. Izan zen Kronika ‘la revelión’”. Haizea

Zizurkilgo udalarekin eta pilota elkartearekin ere ohikoak izaten dira ordutegiaren gaineko tirabirak hango aisialdiko ikastaroa mantentzeko, batez ere, ikasturte amaiera aldera hurrengo ikasturtea antolatzeko garaia iristearekin bat azaleratzen direnak.

“Arazo gehienak frontoi edo instalazioekin. Bai, herriren batean. Kontatu egingo al dut? Zizurkilen frontoiko orduak eta kendu egin nahi dizkigute (...) Arazoa da frontoi ordua zintzilik dagoela eta lehenengoak garela edozein arazoren aurrean frontoi orduak kentzeko. ‘Frontoia behar da? A, beno, emakumeak kenduko ditugu’ eta hori horrela da. Pena bat da, zeren udaletxeak babes eman digu, bertako klubaren aurrean irabazi egin dugu, esan digute ‘hauek hor daude eta ez dituzue kenduko’ eta orain udaletxea bera dator esanez ‘beno, Reala badator eta joan egin beharko duzue’. Joe, nola?! Gauza batzuk zentzurik gabekoak”. Saioa

Emakumea eta bere espazioa borrokatu beharra agerian geratu da gaurko saioan, taldeak datorren ikasturterako ordua mantentzeko arazoren bat izan dezakeela dirudielako. Esan dutenez, gainera, urtero igaro dira egoera honetatik. Gauza bera egingo ote liokete gizonezko talde bati? Ez dut gaizki pentsatu nahi, baina zerbaitek ezetz diost barruan.

(Kontakizunak eranskina: 567)

Kanpoko kontrola, norbere buruarena zein ingurukoena, etengabe burutzen da gorputz irudia aztertu eta identitatearekiko egokitasunik baduen hausnartuz (Jeanes, 2011), betiere gorputz eta izaera femenino idealekiko eta nagusi diren arrazoibideen arabera. Euskal pilotan ere bada irudi femeninoarekin bat ez etortzeko mamuaren itzala:

“Gainera, iristen da adin bat, neskei iruditzen zaiena bizkarra handituko zaiela, bola aterako zaiela, bai, badago, eta, orduan, mentalitatea ere bada. Mutilen ikuspuntua da, ‘ez, ez, neska fina nahi dut izan’. Hori ere badago, batzuk bai, aditu ditut nik”. Ibone

“No, no, tú, por chica, quédate aquí o quédate allá’. No, no. Las niñas, desde que quieran y les dan la pelota, pues, que tengan el camino muchísimo más llano que lo que hemos tenido nosotras. Que vayan y que haya unos campeonatos para poder jugar, como los chicos, y sean bien vistas, y nadie tenga que comentar si eres una marichico o dejas de serlo. No, porque eres una chica, y tan femenina o más que cualquier otra. ¿No? Pues, unas seremos de una manera y otras de otra, que no tiene por qué. Yo, hay algunos que opinan, en vez de dejar opinar a las chicas opinan ellos de su parte, ‘no, no, pero cómo van a jugar a pala, si es que se les van a desarrollar mucho los hombros’. Pero, ¿qué tonterías habla la gente, no? O sea, ¿las de balonmano qué hacen, no desarrollan los hombros? ¿Las nadadoras qué hacen? ¿Quieres hacer deporte o no quieres hacer? Entonces, lo que tendrían que dejar es elegir a las chicas, que hagan el deporte que quieran, y que esté bien visto”. Nekane

Guraso zein lagunen borondate eza eta ezezkoak jasotzea zenbait kiroletako parte hartzearen inguruan ere nahiko ohikoa da norbere baitatik kanpoko erresistentzia neurrien artean (Baird, 2010; Engh, 2011; Roster, 2007). Neskek pilotan izaniko bizipenak ere ez dira salbuespen kasu honetan, nahiz eta gehienek etxekoen zein gertukoenen partetik laguntza izan dutela dioten badirelako eragozpen mota honi aurre egin beharrean aurkitu direnak, etxeko norbaitek babesik eman ez ziela diotenak, nahiz eta denborarekin ikuspegia aldatu zaiela ere argi utzi.

“Bada, etxetik dator, eta, gainera, ez bakarrik pilotan, kirolean. Zergatik uzten duen neskak kirola? Etxean ez zaie laguntzen neskei, ‘zu ikastera, kiroleatik ez zara biziko’, kultura hori dagoelako oraindik ere, nik ikusten dut oraindik”. Ibone

“Ez, guztiz kontrakoa, zeren aitak, neska bat eta hori... Aitak oraindik ez du onartzen hori esaten zuela, baina, beno, nik argi daukat, e, ba esaten zuela ‘ba, beno, ba hor dago denbora pasatzen, dagoen moduan parkean edo dagoen moduan ez dakit zerekin jolasten’, baina, beno, baina ez ‘hartuko dut, lagunduko diot eta entrenatuko dut’. Ez. Esaten zuen ‘hori neska batek ezin du sekula, ba, eskuengatik eta ez dakit zer’. Eta, ez, sekula. Honbre, gero, igual, eraman behar baninduen ... Ez, eskupilotako partidu askotarako ez nau eraman, amak eramaten ninduen gehiago, beti amak eraman nau. Amak, ez bai, ez ez. Gustuko banuen jarraitu eta puntu. Eta, orain, aitak, bai, ba gero eraman nau eta trinketea hasi nintzenean Abadiñora berarekin hasi nintzen joaten entrenatzera. Nik uste dut neska gehiago ikusten zituela eta normalagoa zen, ez, ‘ez da hain mutilen kirola, ez?’ Baina, bestea, eskupilotakoa, ez ninduen asko lagundu”. Janire

Kirol federazioak ere ezinbestekoak dira kirol baten sustapena eta hedapenari bultzada emateko. Horregatik, pentsa liteke euskal pilotako federazioek ez dutela eragozpen edo erresistentziarik jarriko emakumezko pilotariei laguntzeko, alderantziz, baizik. Hori da adibidez Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren Emakumea Pilotari egitasmoaren kasua.

“Eta, federazioa iruditzen zait, ba, noski, federazioak ez baldin badu lanik egiten, ba, ‘agur!’, ez? Bai, federazioa, Gipuzkoakoa, azkenaldian espabilitua dabil. Eta, beno, Euskadikoa edo hori, ba... Nik uste dut baietz, Gipuzkoakoak aldaketa handiak eman dituela”. Haizea

Beste zenbait lurraldetan, ordea, Nafarroan, adibidez, esperientzia oso bestelakoa dela dio bertan, bere grina eta borondateari tiraka, lan handia egindako Nekane. Nafarroako pilota federazioari erakunde bezala dagokion arren, bertan emakumeen pilotaren alde ez dutela ahaleginik egiten dio, zenbaitetan gaizki esanak ere izan dituztela emakumeen aurka, diru-laguntzak beste eremu batzuetara bideratu izan dituztela iradokitzen du, aurrera egiteko erreferente bere konpromiso eta inplikazioa bihurtuz herrialdeko emakume pilotariak aukerak izan ditzaten, gauetik goizera txapelketa oso bat antolatuz, besteak beste, eta ez erakundearen jardun eta suspertze egitasmoak.

“Yo, de lo que te puedo hablar de aquí, de Navarra, yo pienso que ahí hay un dinero, con el tema de la mujer, que eso sale adelante, que hay ayudas y que hay de todo. Lo que pasa que no nos ha llegado. Sí, pero no nos llega a nosotras, se queda en el camino o en el bolsillo de quién, no sé de quién. Yo, si he conseguido sacar el torneo éste ‘Ni ere pilotari’, que fue de promoción, yo es la manera en que yo lo hice, pero fue porque fui a una reunión con el presidente de la Navarra, que desde la española me mandaron un escrito diciendo que en Navarra decían que estaban hartos de tirar de las mujeres porque no queremos hacer nada. Bueno, y me puso la sangre a 200, o sea, porque si alguien tira de la pelota soy yo, no la Federación Navarra. Entonces, le cogí, le llamé al presidente, le dije ‘quiero estar contigo, pero no mañana, hoy’ y ‘ah, pues no, pues, mira, igual esta tarde’ y ahí me fui con él. Entonces, me llevé el escrito en fosforito, se lo giré y se lo puse así. Y digo ‘¿qué me dices de eso?’ y ‘uy, uy, uy, no, yo no sé nada’, y el otro, el secretario, ‘uy, es que eso no sé de dónde ha salido’. Y le digo ‘pues no’, y me dice ‘si eso es todo lo contrario’ y ‘ya, pero resulta que lo decís en Navarra. Entonces, ¿de dónde os lo estáis inventando? Porque si alguien tira ya sabéis que estoy aquí al pie de cañón’ y ‘sí, Nekane, esto y lo otro’, como echándose para atrás. Entonces, en seguida ya vino a enseñarme y ‘no, mira’. Eso era noviembre, e, hace dos años, y que tenían un dinero que les había dado el Gobierno de Navarra, dos mil y pico euros, para promocionar a la mujer... Digo ‘ah, en noviembre, ¿qué vais a hacer con eso?’ y ‘no, ahí se quedará, como no se ha hecho nada’ y ‘¡cómo! Mira, ¿qué hay que hacer?’ y ‘no, es que, claro para eso se necesita un proyecto’ y ‘mira, en mi jodida vida he hecho un proyecto, porque para sanitarias no he necesitado, pero para mañana lo tienes, o sea, que ideas me vienen”. Y, para mañana lo tuvo. Nos inventamos con Rebeke y Natalia el nombre ‘Ni ere pilotari’ y arranqué a hacerles todo, ‘pues, esto, quiero que haya sedes por toda Navarra, si va a durar 5 jornadas siempre con la final en el Labrit y los otros cuatro que nos repartamos por toda Navarra y darlo a conocer. Quiero que jueguen todas las chicas, me da igual que vengan con una sartén, con algo que le peguen y con una pelota, que la lleven y que cada una que juegue a lo que quiera’. Fliparon en colores. Decían, ‘aiba, ahora vamos a tener que emplear el dinero, ya no nos lo vamos a quedar’. Entonces, si yo he visto ese dinero de esa manera, así, ¡cuánto no habrá por ahí! Eso me reconcome. Entonces, sé que hay, que hay ayudas y se puede hacer un montonazo, pero que no lo hacen y se lo aprovechan para otra cosa mariposa. Entonces, yo, lo poquico que voy viendo y haciendo lo seguiré, y ojalá algún día se hagan las cosas mejor, pero, que hay, ya te digo yo que desde el Gobierno de Navarra y ayuntamientos y todo. Hoy en día hay para la mujer muchísimo, pero no nos llega, se queda para el hombre”. Nekane

Bizkaiko testuinguruan, berriz, federazioak erresistentziarik ez duela jartzen dirudi, ez duela aurkako jarrerarik agertzen, baina ahalegin nabarmenik ez du egiten emakumezkoentzat pilota sustatzeko. Janireren hitzetan ez diote mutilenaren garrantzirik ematen eta seriotasun maila ezberdinak daudela dio batzuen eta besteentzako antolaketa zereginetan.

“Uf. Nik uste dut berdintasun batekin jokatu beharko zela eta seriotasun gehiago eman federazio mailetan. Nik hemen, Bizkaian, ikusitakoarekin. Nik uste dut egiten dela dena afizionatu mailara bideratu, gero eskolartekoan ere, ya uste dut mutilenean ere, edo eskupilotan, asko galdu dela. Eta, ia neskak, ba, atzerago oraindik. Uste dut hori, seriotasun maila berdinean hartu beharko litzatekeela dena, dena, eta hortik abiatuz, ba, ia asko soluzionatuko zirela arazoak, ez?” Janire

Literatura zientifikoan badira antolaketa egituretan antzeko kasuak. Futbolean zein boxeoa aurrerapausoak emateko, adibidez, Frantzia borroka asko egin behar izan zuten aitzindariak eta oraindik ere hala ari dira, tartean garai batean federazioetan txertatzeko ere agintean zeudenen artean aurkakoak izan zituztelako (Menesson, 2004). Antolaketa egitura eta sistema bera oztopo iturri da emakumezkoentzat askotan (Norman, 2010; Pfister eta Radtke, 2009; Sisjord, 2012).

Lan gehigarri bezain neketsua da emakumezko pilotarientzat etengabe gai direla demostratu beharra eta onarpena irabazteko ahalegina (Engh, 2011; Norman, 2010). Testuinguruko zein urrunagokoen errespetua eta begirunea irabazteko ahalegin hirukoitza egin behar izaten dute emakumezkoek kirol munduan han eta hemen, abilezia, jakituria eta gainerako ezaugarri guztiak beren baitan dituztela agertu beharrean aurkitzen direlako, emakumei berez ez zaielako autoritaterik atxikitzen eta bai maskulinitasunari.

“Oraindik jende asko dago ez gaituena ezagutzen, ez dakiena neskak gaudenik pilotan jokatzeko dugunak, eta, orduan, alde horretatik, bada, nik uste dut batzuentzako oraindik sorpresa dela. Bat, jakitea neskak pilotan dabiltzala, eta, bi, ikusten dutenean nola jokatzeko dugun, nik uste dut sorpresak hartuko dituztela, ez dakit. Ez dakit, ez dakit zeinek jokatzeko duenean, ‘ez dute ezer ere jokatzeko’, eta, ‘bai, noski, mutilek ere ez, segun zein mailatakoak’. Beno, ez dakit, nik uste dut, beti bezala, nola falta zaigun pixka bat plazaratze hori, bada, orduan jendeak, bada. Nik uste dut ezagutzen gaituenak badakiela zer maila dagoen, eta ez gaituenak ezagutzen, bada, esango du ‘hauek zer egiten dute pilotan jokatzeko?’ Ez dakit”.
Eider

“Nik uste dut ez dela oso ezaguna oraindik, zoritxarrez, jende asko ez dela enteratzen, eta esaten baduzu pilotaria eta palista zarela uste dutela, ba, hori, ba joaten zarela frontoira eta jotzen duzula laugarren botean oraindik, ez dakizu? Modu batera esateko, ez, ba, hori, joaten dena jolastera bere neska lagunarekin, e, aspertuta daudela domeka batean eta pin-pan edozelan jolastera, eta ez dute ikusten zer seriotasun edo zelako gaitasuna daukagun jolasteko. Nik uste dut jende askok oraindik ere uste duela horrela eta oraindik ez dela hartzen seriotasun batekin”.
Janire

Beste hainbat autorek berretsi dute sarritan zalantza eta susmopean jarri dituztela lorpen eta eginahalak emakume izate hutsagatik, ustez generoarekiko neutralak behar luketen testuinguru eta egoeretan (Baird, 2010; Norman, 2010; Pfister eta Radtke, 2009; Thorpe, 2009; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009). Kirol kazetaritzan ere emakumeek oztopo asko gainditu behar izaten dituzte, gizonaen eremu horretan maskulinitasuna sustatzen delako eta horregatik oso jarraipen zorrotza egiten zaio euren lanari. Adibidez, askotan irudi hutsa izateari aurre egin behar izaten diote, testuinguruko hainbaten jazarpenari bezalaxe, benetan mundu estereotipatua baita. Nabarmendu izan da emakumezkoentzat kristalezko sabai bat ere badagoela, gorago egiten uzten ez diena (Grubb eta Billiot, 2010; Whiteside eta Hardin, 2011).

Euskal pilota bere luze-zabalean estereotipo, aurreiritzi, uste oker eta estigmatizazioaren eremua da. Bada bertan izugarritzko lana egin eta emaitza gorenetara iritsi arren, tartean munduko txapelketa bat baino gehiago erdietsitakoa, jendarteko erresistentziak medio aitoren hori lortzea ezinezkoa zela dioen emakumezko pilotaririk, alegia, kristalezko sabaiari zeharkako aipamena egiten dionik. Azpimarratu eta aztertze modukoa da Nekaneren ondorengo esana, berak ia erdi-onartuta zeukalako merezi arren, bere pilotari ibilbideko lorpen zerrenda agortezina izateaz gain egindako eginahala izugarria izan delako, goragoko izendapenik lortuko ez zuen ustea.

“Yo decir un poco eso, pues, que, al final, nosotras, las chicas, tampoco no lo hemos tenido nada fácil. Hemos conseguido un montón de cosas y tampoco está tan reconocido como los chicos. Yo por eso te digo. Yo, personalmente, yo creo que lo he conseguido todo, hasta más de lo que me esperaba, ¿no? Yo, por ejemplo, este año, que me dieron, en diciembre, aquí en Navarra me han elegido como mejor deportista femenina de Navarra, o sea, flipé, porque yo me pensaba que ese galardón jamás me llegaría a mí. Pues, ¿por qué? Porque la pelota no tiene ni esa repercusión mediática ni está vista. Si hoy día todavía me preguntan si yo juego a pelota y me dan el galardón a la mejor deportista navarra, digo, ¿cómo es esto? Algo no funciona, ¿no? ¿Quién no se ha enterado o cómo va? Entonces, cuando me llamó a mí la consejera es que me dejó helada en la silla. Digo, ‘pero, ¿en serio, no te has confundido?’ y me decía ‘que sí, que me apetecía’. Hombre, yo creo que sí, todo lo que hemos ganado, los resultados ahí están, pero pensaba que no lo valorarían jamás. Me duele al final por mi tierra. Yo digo que soy de doble nacionalidad, guipuzcoana y navarra, pero, aquí, siempre jugando y dándolo todo en la pelota y que no te digan nada... Pues, mira, ya ha llegado. Luego, en Estella también me dieron la estrella del deporte, lo mismo, o sea, que van llegando al final esas cosas que te piensas que nunca vas a estar. El año pasado se lo dieron a Javi Martínez, joe, pues dices ‘ahora a mí en la pelota’. Hemos conseguido Eider y yo que nos dieran la medalla de bronce al mérito nacional allí. Dices ‘ostras, pues, ¿una pachanga? Pero, no va todo el mundo, ¿no?’ Ahí tienes unas cosas que puf, yo qué sé. Y todo el mundo no las conoce tampoco y se piensan que estarán ahí. Pues, mira, dos de la pelota, y chicas. Pues que lo valoren y que apoyen y que nos echen una mano ahí”. Nekane

Kanpotik ezarritako baldintza eta mugak, entrenamenduen antolaketari dagozkionak kasu zehatz honetan, onartu eta gutxi-gehiago erresistentzia handirik ezarri gabe aurrera

egin edo benetan euren aldarrikatu behar luketen ala ez iritzi ezberdinak daude. Aldi berean, gainera, elkarren osagarriak dira elkarte bereko bi kideren ondorengo hitzak:

“Neska batzuk esaten dute oraindik ere neskak diskriminatuak gaudela hemen, gazte batzuk esaten dute hori, mutilek daukatela, baina, ea, nik aspalditik ezagutzen dut eta neskekin konparatuta mutilak askoz ere gehiago dira, ordu gehiago behar dituzte... Nik uste dut orain hobetzen ari garela, guk lehenago ez genituen hainbeste ordu, orain ari gara pixkanaka, txapelketei esker eta ondo dabilzanari esker, pixka bat elkarteak ere esan du, ‘neskei eman behar diegu ordubete’. Lehenago, igual, sartzen ginen ordubeteen zortzi edo hamar, orain gaude 4-6, ondo. Ni ez naiz kexatzen horrekin”. Ibone

“Elkarteek iruditzen zait egin dutela lana, baina, orain, jakin behar da elkarte horren barruan mugitzen eta gauzak lortzen. Guri, elkarteak, noski, ez duzu pentsatuko, nolabait ere guk egin behar dugula gure bidea, ‘ah, tori, hau nahi duzu?’, ez, inork ez dizu emango. Ez, guk joan behar dugu eta ‘eh!’, baina, insisituta, ba, lortzen dela. Ez dakit hori beraien jarrera den edo guk lortutako zerbait. Nire zalantzak dauzkat.

Nik uste dut, Ibonek, gure inguruan, lana egiten duela. Zer nahi duzu esatea? Ea bada, pixka bat dela zu zoaz eta ‘bai, bai, sartu elkartean’, baina, hortik aurrera ez espero askoz ere gehiago laguntzea. Hori uste dut pasatzen dela, Hernanin hasi ginenean, ‘bai, bai, tori eta zuek nahi duzuen egin ezazue’. (...) Nolabait ere nik uste dut ez dugula espero ‘un camino de rosas’. Zuk nahi baldin baduzu, azkenean, borrokatu egin behar duzu.

Hor badaude pertsona batzuk, klabeak, esango nituzkeenak. Gure klubean, onerako edo txarrerako Ibone izan da hor aurrera atera duena. Eta, bere umearekin etortzen zen, eta bere umeari palarekin batzuetan jo egiten genion, eta pilotarekin, eta... pasatzen ez zitzaiguna guri. Ulertzen didazu? Baina izan da ‘por amor al arte’, ez esan digulako gure klubeko arduradunak, ‘ah, goazen neskak gonbidatzera’. Ez, ez, ‘gu neskak gara eta jolastu egingo dugu eta ordu bat emango diguzu merezi dugulako’. Baina, borrokatuta, inork ere ez digu ezer oparitu. Nik uste dut, egia da orain errazago daukatela, askoz ere errazago daukate, baina, gero, aldi berean, fitxak edo txapelketak, edo, nolabait ere, ez dakit, bai baino ez esango nuke”.

Haizea

Hala ere, pilotariak ere, beste hainbat emakumek beste hainbat kiroletan egin bezala (Baird, 2010; McGinnis, McQuillan eta Chapple, 2005; Roster, 2007; Whiteside eta Hardin, 2011), kirolean jardutea ahalduntzeko tresna lez ikusten dute, ez dira besoak gurutzatuta geratu izan oztopo eta eragozpenak besterik gabe onartu, belarriak jaitsi eta etsipena hartuta. Ahalduntze horri esker balioak eta egoerak aldatzeko grina piztu eta euren jarduera emakumearen lekua aldarrikatzeko tresna lez agertu izan dute pilotariak. Adibideetan irakur litekeen moduan, Nekane ondorengoak izan daitezela lan egiteko borondatea agertzen du, Elik eta Onintzak emakumeek euren paleta saioetako ordutegia mantentzeko daukaten borroka eta ezarri asmo dieten aldatetarekiko ezinegona eta Haizeak, berriz, emakume pilotariak ezagutarazteko batuta aritzearen beharra azpimarratzen du, oinarriko lanetik hasiz multzoa finkatzeko.

“Quién tenía un nivel? Rebeca y yo, que éramos las que llevábamos siempre en Navarra. Entonces, las demás no conocían ni el trinquete, cómo van a tener un

nivel. 'Ah, no, no, no, pero ésas no pueden entrar', y yo decía, 'pues, bueno, van a entrar. O sea, porque yo no voy a entrenar, pero esa hora o esas dos horas que vamos a tener son para ellas'. Entonces, nosotras les dábamos las horas a éstas y entraban, y aún, 'pero, ¿cómo van a entrar ésas?' y 'pues, van a jugar ésas, es que a mí me la sopla que perdamos'. A ellos les interesa el resultado, pero a mí lo que me interesa es que haya chavalillas, que haya gente joven y que arranquen a jugar, y que se motiven y se enganchen aquí, que ya hemos estado tiempo solas. Yo quiero que haya grupo. Entonces, de esa manera lo hemos ido haciendo y ha salido y punto". Nekane

Eliri ordutegi aldaketarena esaten aritu dira kideak eta honek "gure ordutegiarekin plaka bat jarri beharko dugu, inork ken ez dezan" esan du. Ondoren "emakumea pilotari ez dakit, baina borrokalari behintzat bai" erantsi du.

(Kontakizunak eranskina: 567)

Kantxara jaitsi garenean oraindik ere mintzagai bera darabilgu gure aho eta buruetan. Izan ere, Onintza iritsi berria da eta hari esan diotenean "ni ez nago batere ados, ez sinbolikoki eta ez praktikoki. Emakumearen espazioak gutxi badira eta dauzkagunak kentzen badizkigute" esan du. Oihanek esan du "aukera asko ez daukagu, mantenu gimnasia bakarrik". Ordua eurena dela ondorioztatu dute, joan behar bada joan behar den lekura joango direla protesta egitera eta ez litzaikeela bidezkoa irudituko eurei ordua kentzea argudio horiekin. Oihaneri "marroia zuretzat" esanez amaitu dute, beraien argudiaketa eta arrazoiak zein diren agertuz. Gaurko gaiak soka luzea du.

(Kontakizunak eranskina: 563)

"Helburua baldin bada izatea super-lehiakorrak eta super-txapelketa, eta, ateratzea maila bat denak edukitzeko maila mundialetakoa, bada, jendea nahastea eta klubak nahastea ez dakit oso efektiboa izango litzakeen, baina, nik uste dut pala egoera honetan, orain une honetan ez dagoela. Orain, agian, azpitik datorren generazioarekin, akaso, asko maila pixka bat altuxeagoa daukatelako eta beste gauza bat exijitu behar delako, akaso bai. Orain, momentu honetan, nik uste dut ezagutzera eman behar baldin baduzu, bada, goazen zerbait ateratzera, egitura bat osatzera eta ezin duzuna horretara mugatu". Haizea

Pilotan jokatzeko segitzea eta horretarako ahalegin betean aritzea ohiko hierarkiekin erresistentzia egiteko modua da eta taldekide zein beste kideekin elkarlanean aurre egiten diete halako pasarte, bizipen eta aurreiritziei emakumezko pilotariek ere, elkarrenganako babes egiturak sortu eta sustatuz (Packard, 2009; Roster, 2007).

"Lehenengo lortu behar dugu pilotara engantxatzea behar den bezala eta gero pixka bat esango diegu, 'lagundu guri ere'. Nik uste dut jendea engantxatzea lortzen badugu, horrek, nahi gabe, lagundu egingo digula. Zeren eta hori joango da kontatzen pilotan jolasten duela, eta, 'animatu', eta, azkenean, hori da lortu behar duguna, jendea animatzea eta apuntatzea". Eider

"Pixka bat ezagunagoa baldin bada, eta uste dut hori badela, orduan, arrazoiaketa bat jotzen dut egotea, edo taldetxo bat egotea. Lehen esan dudana, Altzon, bada, Altzoko neskatilek orain errazago hautatuko dute pala lehen baino. Zergatik? Bada, badagoelako ya, talde bat dago, martxan dagoelako, ikusten dituelako, ikusten duelako ondo pasatzen dutela, haren lehengusua da eta lehengusua kontatzen dio,

‘izugarri ondo pasatzen dut palan’ eta, orduan, bada, eragingo du. Baina, aukeratzeko arrazoiak berdinak izango dira, ez dakit nola esan, izango da talde bat dagoelako, ondo pasatzen dutelako...’. Eider

Emakumezkoek bere garaian lekua egiteko hasiriko borroka hori jendarteratu izana abantaila dela dioenik ere bada elkarrizketatuen artean, horrek euskal pilotaren esparruan sor zitezkeen kanpo erresistentzia batzuk oztopatu eta gainditzeko lagun dezakeela aitortuz.

“Zorionez, gaur egun, lortzen ari da borroka hori, etekinak ematen ari da, emakumearen presentzia gizartean behar duen lekua lortzeko bidean da, eta hori jendeak asumituta dauka, horri ezin zaiola ezetz eman, oso gaizki gelditzen zarelako. Nahiz eta ez sinetsi ezin duzu publikoa, erdi-publikoa, baldin bazara ezin diozu ezetz esan, beraz, bueno. Gutxienez ez digute trabarik egiten eta, batzuk, kolaboratzen dute, ni pozik nago”. Eneko

Aldi berean, ordea, ikuspegi aldaketa edo egokitzapen horrek, geroz eta nabarmenagoa dela baztertu gabe, muinean beste interesen bat izan lezakeela ere baieztatu dit elkarrizketatuen batek, zuzentasun etikoaz hausnarketa aberatsa plazaratuz:

“Gaur egun, etikoki hain edukatuak gara, ba, ez? Niri iruditzen zait, ba, jendeak esango du, ‘ah, bai, bai, emakumeak ere gai dira’, edo, baina, iruditzen zait hori pixka bat irreal dela. Nik uste dut jendeak nahiko ondo hartzen duela, baina, ikuspuntu horretatik, pixka bat bai nabaritzen dudala, ‘ah, emakumea, baina, orain bai’. Orain badago joera hori, ‘ah, emakumeak ere egin dezakete’. Ez dakit, etikoki mutilek hainbeste ordu, bada, neskek hainbeste, baina, etikoa delako, ez? Ez igual sinesten dutelako guk ahal dugula. Ez dakit oso ondo nola den, nik ere zalantzak dauzkat nire buruarekin”. Haizea

Puntu honetan jorratu bezala, euskal pilotan emakumeei ezarritako kanpoko erresistentzia, oztopo eta etiketak ugari eta anitzak dira eta hauek emakumeengan duten eragina eta arrastoa ere nabarmena. Era guztietara, ordea, pilotan jardutea erresistentzia horiei aurre egiteko modutzat hartu ohi dute emakume pilotariek, bai federatuek eta baita aisialdikoek ere.

3.2.4. Neska-mutilak, neskak eta mutilak ala neskak vs. mutilak?

Euskal pilotari zuzenean eragiten dioten estereotipoen artean pisu handia duen beste bat neska eta mutilen jardunak bereiztera jotzeko joera da. Izan ere, esparru honetan jarduteko orduan ezberdintasunak nabariak dira, erraztasun eta zailtasunak eguneroko ogi eta emakumezkoek pairatzen duten gutxiespenaren itzala ere luzea. Hori dela eta, gai honen gaineko argudioak plazaratu eta aztertuko ditut puntu honen baitan, gure errealitatekoa azpi-izenburuko hiru aukerak, bakarra ala guztien arteko nahasketa bat ote dugun aztertzeko.

Kirol askotan mutilen jokoak legitimatu ohi da behin eta berriz eta besteek egindakoa identifikatzeko izena jarri, “emakumeena”. Hauek gutxietsiz eta azpiko mailan kokatuz

jokatzen da askotan (Egibar eta Garai, 2009; Harris, 2007; Velija eta Flynn, 2010). Beste horrenbeste gertatzen da euskal pilotan ere.

“Nik uste dut, orokorrean, beti ikusten delako 2. mailako zerbait bezala, ezta? ‘Ah, begira, neskek ere badakite egiten pilotan’. Pixka bat hortik, ezta? Nik uste dut jendeak eskertzen duela zerbait ezberdina ikustea ere, baina, bai, beti 2. mailako bezala edo, ez, ikusten dela”. Itziar

“Hor zer pasatzen da? Bada, Euskal Herrian oraindik emakumeen pilota gutxi ezagutzen bada, eskuzkoa dago beste nibel batean eta ematen du denek eskuz atera behar dutela, palan inor ere ez dela irtengo. Beno, Azpeitia mailan behintzat bai, agian beste herri batzuetan eskuzkoa ez da hainbeste egongo. Eskuzko hori dago lehenengo mailan eta pala da ba bigarren mailan, ez, bigarrenean ez, ez dakit zenbatgarren mailan dagoena. Gaur egun, Azpeitian pilotaz hitz egiten denean eskuzkoaz bakarrik hitz egiten da, ez da pala aipatzen. Alderdi horretatik agian...”
Olaia

Azpiratzea oinarrian hartuz, beraz, aukera ezberdintasuna nabarmentzen eta salatzen dute pilotariek mutil zein nesken artean euskal pilotan aritzeko garaian, baina oroz gaindik jendartean bertan eta edozein kirolean ere hala gertatzen dela nabarmenduz.

“Aukerak, hasteko, ez dira berdinak, ez? Nik uste dut gu hasi ginela pixka bat, ah, futbolean ere ibiltzen ginen, futbitoan, neska koadrilatxo bat. Gelako ikasleak-eta ibili ginen urte dezente. Nik uste dut aukerak txikitatik ez direla berdinak mutilentzako edo neskentzako, ez? Mutila bazara segituan dauzkazu, ‘daukazu futbola, daukazu pilota ...’ eta zu neska izanda, bada, pixka bat nahi baduzu kirola egitea zu mugitu behar zara. Azkenean, ez dauzkazu hainbeste aukera, edo ez dira aurkezten, behintzat. Adibidez, guk, futbitoan ibiltzen ginen eta, gero, pixka bat nahi izan genuen, lagun baten aita zen entrenatzailea eta horrela futbolean, eta pixka bat harekin eta saiatu ginen herriko taldea ateratzen, herriko futbol zelaian entrenatu ahal izateko, eta, beno, ba, ezetza jaso genuen. Orduan, aukerak sekula ez dira berdinak, ez, neska izanda edo mutila izanda”. Itziar

“Mutilak gehiago bultzatzen dira kirola egitera, gainera, hemen ematen du mutilak derrigorrez egin behar duela kirola, neskek ez. Eta, nik, seme bat daukat eta ikusita semea eta alaba, semeak aukera gehiago izan ditu beti, txikiagotatik. Ya 4-5 urterekin futbolera joan zitekeen, errugbira joan zitekeen... eta, neska ez, beranduago hasten da eta aukera gutxiago ditu, gainera. Esaten dute baietz, aukera dagoela, baina, ez dut uste, ez zait iruditzen”. Ibone

Ezberdintasunak mota askotakoak eta anitzak dira. Esate baterako, gutxiestearen eta diskriminazioaren adibide garbia da, besteak beste, profesionalki pilotan jarduteko aukerarik ez izatea.

“Nik hau probatu dut, beste helburu batzuk nituen, ea profesional mailara pasatzen naizen’, neskek horretan jai daukagu gaur egun”. Itxaro

“Bai? Ya, bai, uff, neskek profesionalak izatetik bizitzera nik uste dut gutxi helduko direla. Nik uste dut gurasoek, igual, kirol aldetik, mutila bazara gehiago bideratzen dituztela neskek baino, eta aspirazio gehiago dituzte, ‘ea nire semea ateratzen den

futbolari'. Baina, bai, neskekin normalean ez dute edukitzen horrelakorik eta palan gutxiago, nik uste, 'ea palatik bideratzen dudan nire etorkizuna'". Itziar

"A mí me hubiera encantado poder vivir de ese deporte, como son profesionales los chicos haber podido ser yo, no tener que estar currando y luego ir a eso". Nekane

Emakumezkoek hainbat herrialdetan eta hainbat kiroletan profesional izatera iritsi ezina, edo lortuz gero oso baldintza ezberdinetan aritu beharra, ikerketa bat baino gehiagotan ondorioztatu da (Engh, 2011; McGinnis, McQuillan eta Chapple, 2005; Packard, 2009). Gauza bera gertatzen da, kirolariek baino askoz ere larriago sarri, entrenatzaile lanetan aritutako emakumezkoen eremuan, benetan gutxiengoa osatzen dutelako eta botere-gune zein erabakiguneetan daudenak gizonezkoak direlako nagusiki (Norman, 2010). Euskal pilotako errealitatean gizonezkoen botere guneetako parte hartzearen gaineko aipamenik ere aurkitu dut. Izan ere, aginte gune eta erabakiak hartzen diren biltzar eta antzeko lekuetan gizonezkoek dute erabakimena eta azken hitza. Hori hala ez izateko egindako ahaleginaren berri ematen du Itxarok, berriz, adieraziz izugarri zaila dela pilotak emakumeen kutsua izateko lanean jardutea, bera GEPFen zuzendaritza taldean aritu zeneko zailtasun eta lanaren berri emanez, azkenean utzi egin zuena beretzat eskaera handiegia zela iritzita.

"Pilota elkarte gehienak mutilek eramaten dituzte, orduan, neskek sartu behar dute neskei pixka bat kasu egiteko, iruditzen zait, edo, bestela mutilen bat, berdin du. Nik ikusten dut hori falta dela, norbaitek neskak eramatea". Ibone

"Gipuzkoako Federazio mailan emakumeen atalaz arduratuko zen norbaiten bila zebiltzala etorri zitzaizkidan eta ardura hori hartu nuen bi urte eta erdiz. Lehenengo zuzendaritzako emakume bezala. Orduan, txapelketa ofizialetako bikoteen antolakuntza eta ardura horiek, bada, beno, gure esku egon ziren denbora horretan. Pixka bat saiatu ginen oreka bilatzen bikoteen artean. Batzorde moduko bat egiten zen eta entrenatzailea eta biok biltzen ginen. (...) Gero, hortik kanpo planteatzen genituen, begira, txapelketa hau horrela egingo da eta bikoteak hauek izango dira eta beti izaten izan ziren ika-mikak, hau zergatik, bestea ez dakit zer, eta badakigu ez zela erraza. Azkenean, horrek pixka bat erretzen du, ikusiz Gasteiztik propio arratsaldeetan hona etorri bilera izateko eta gero ikusten zen nola zuk zure aldetik eginahal guztiak egiten zenituela eta ez zegoela zera handirik. Baina, beno, gogoarekin eta horrela, baina, gogorra zen, zeren eta azkenean ez dituzu gauzak egiten eskertzeagatik, baizik eta gauzak egiten dituzu ondo funtziona dezaten, zeren eta ikusten duzu hutsune bat badagoela eta ea zein dagoen prest gauzak utzi eta horretara dedikatzeke". Ez da hemen aipamena egiteagatik ni izan nintzela lehenengoa, ez, ez, baizik eta niri planteatu zidaten, nik baietz esan nuen eta esan nuen, Jesus, Maria eta Jose. Ferminek ere esan zidan, 'zuk ba al dakizu non sartu zaren?' Bai, otsoaren ahoan zuzen-zuzenean, baina, beno. Kar, kar, kar. Gerora jakiten dira horiek, baina, behintzat, zerbait egin genuen eta saiatu ginen, eta, beno. Eta, gero, gogoratzen naiz, askok esaten didate, orain direktiba eta ezer ere gabe, eh, 'joe'. (...) Ahal zena pixka bat mugitu eta zerbait lortzeko aukera baldin bazegoen, bada, alde horretatik, ez? Ikusten zenean gauzak egin beharra zegoela, bada, saiatuz. Gero jada ikusi nuen eta esan nuen 'hau gehitxo da niretzako, erreleboa har dezala beste norbaitek' eta orain Anparo joan den arte beste 18 urtean ez da sartu inor direktiban. Orduan, animatu, behintzat, emakume kutsua izan dezan. Gainera, ikusita mundu hau nola den hain itxia... Bai, bai". Itxaro

Gainera, gizonezkoek botere guneetan emakumezkoekiko iritzi ezberdina izateak kalte ere egin zien emakume pilotariei garai batean, txapelketetako antolaketa eredu aldatu zutelako, egoera irauli eta gaiztotuz. Hori jarri dute Eider eta Ibonek Gipuzkoako egoera okertu eta emakumeen parte-hartzea izugarri jaitsi zen denboraldietako arazoaren muinean, gizonezkoen irabazteko behar itsua, elkarteak eta, beraz, horietako pilotariak, horretara soilik bideratuz:

“Eta, horrekin, klub bakoitza bere bikoteak ateratzen hasi ginen eta bi urtetan gu hasi ginen irabazten eta kito. Urteren batean, agian, guk ez genuen irabazi eta Hernanik irabazi zuen, eta orduan ez dakit zer, eta hor hasi zen gainbehera, hasi zirenean ‘kluba, kluba, kluba eta kluba’, bada, bi onenek jokatzeko zuten, besteek ez zuten lekurik eta hor lortu zena izan zen pike pila bat egotea, jendeak uztea, jende berria ez zen sartzen inondik inora ere eta nik uste dut, nik bilera guztietan esaten nuen, gaizki ari ginela, horrela ez zela lortuko jende berria hastea. Gero, halako batean, Urrietako neskak apuntatu ziren eta galtzen zituzten partidu guztiak 30-5, 30-8... Horrela zein hasiko da? Hasi bai, baina, lehenengo urtean, zeren eta gero utzi egiten dute. Ni astinduak jasotzeko ez noa. Horretarako, geldituko gara, palan jokatu dugu astean behin eta listo. Orduan, nik hor bai ikusten nuela hanka sartzen ari ginela eta gero etorri zen proiektua. Baina, proiektua etorri baino lehen nik ia esaten nuen lehengora bueltatu behar genuela”. Eider

“Elkarteak (mutilen lehiakortasun ikuspuntutik) sartzen hasi ziren, 1997 inguruan, eta bikote oso oso onak eta ez hain onak egotea lortu zuten. Horren ondorioz urte batzuk horrela pasata neska askok pala uztea erabaki zuten, kopurua gutxitzen hasi zen, lehiakortasun gehiegi sortuta eta sartuta zegoen. Nire ustez elkarteetako arduradunak gizonezkoak zirelako eta dena irabazteko mentalitatea daukatelako, Gipuzkoako elkarterik onena zein izango, Euskal Herriko onena zein... Horrela hasierako giro on hori galtzen joan zen Emakumea Pilotari proiektua sortu arte, ez zen inor animatzen eta ikusten zen modu horretan segita ez zegoela ezer egiterik”. Ibone

Gizonezkoek gehiengoa eta boterea izateko aukera hori, gainera, hainbatetan naturalizat eta berezkotzat hartzen da, jardueren euren baitan balego lez (Dorcken eta Giles, 2011; Engh, 2011; Garrett, 2004; Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008; Hall, 2003; Harris, 2007; Macías, 1999; Matteucci, 2012).

Neska eta mutil edo gizon eta emakumeen arteko desoreka horren harira, euskal pilotan lehiatzean, federatuta jokatzeko diharduten emakumeetan, adibidez, ezker hormako gomazko paletako espezialitatean jokorako materiala ezberdina da, gizonezkoena pisutsuagoa, eta sakea egiteko ere koadro bateko ezberdintasuna dago ezarrita araudiz gizonezko eta emakumezkoen artean, lehenek koadro bat atzeragotik atera behar baitute. Beste zenbait kiroletan ere araudiak aldatu eta egokitzen dira, adibidez gorputz kontaktua mugatu edo ekidinez futbol amerikarrean, boxeoa eta izotz hockeyan. Honek gizonezkoen jardueraren benetakotasuna indartzen du, gizonezkoen izendapena sustatzearekin batera (Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008; Hargreaves, 1994, 21-24 or.; Matteucci, 2012; Mennesson, 2004). Modu honetan, askotan emakumezkoak beraiek dira gizonezkoak benetako kirolaritzat izendatzen dituztenak euren eremuan,

gainditzeko beste erronka bat gehiago sortuz eurentzat (Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008).

Euskal pilotan aritzeko topaturiko erraztasun eta zailtasunez hitz egitean pilotan hasteko aukerari eta garaiari ere arreta jarri diote emakumezkoek. Izan ere, euren iritzian mutilek abantailak dituzte horretan ere neskekiko. Aukera ezberdintasuna nabaria da haurretatik neska-mutiletan, bai eskaintzan eta bai adinari dagokionean ere, mutilei askotan sei-zazpi urtetarako heltzen zaizkielako pilota elkarteetan parte hartzen hasteko aukerak. Neskei, berriz, ez.

“Mutilak eskupilotan segituan hasten dira, guk badauzkagu ume mukizu batzuk bueltaka aritzen direnak frontoian, eta neskek, adibidez, ez dira hasten garai horretan. (...) Niri iruditzen zait ez daukagula oraindik aukera hori umetatik edo gaztetatik hastekoa”. Haizea

“Gipuzkoako edozein herrixkatan suertatzen bazara, bada, seguraski, han mutilekin eskuz ibiliko zara eta koxkortzen zarenean ea zein etortzen zaizun edo zeinek esaten dizun nora joan edo zer. Oraindik ere, pentsatzen dut zuek ikusiko duzuela, baina, herri batzuetan zailagoa egiten zaie, bakarrik daude, igual klub batean sartu eta federatzeko zailago egiten zaie”. Itxaro

Pilotan jokatzeko neskek dauzkaten aukerak ere mutilenak baino murriztago eta mugatuagoak dira. Izan ere, adin batetik aurrera eskupilotan jarraitzeko bidea amaitu egiten da neskentzat eta ez daukate paletan aritzea beste aukerarik pilotari nortasunari eutsiko badiote. Hau da, txapelketa bat antolatzeke gutxieneke kopuruak lortzea zaildu egiten da eskupilotan diharduten neskentzat hamahiru edo hamalau urtetik aurrera, askok utzi egiten baitute. Hori dela eta, erakundeek gutxieneke kopurua mantentzen duten jokamoldeetako txapelketak bakarrik antolatzen dituzte. Neska eta emakumezkoen kasuan gomazko paleta da horretarako bidea ematen duena.

“Eta, nesken kasuan, bada, pilota gustatzen zaielako, eta nola beraien erreminta pala den, bada, palan hasi behar dutelako. Zeren eta eskuz hasten direnek ere, lehengoan etorri zitzaizkidan hemen batzuk Zizurkildik eta esan zidaten ‘jo, bada badago neska bat Zizurkilen mutilek baino hobeto jokatzen duena, maila oso onarekin’, eta, hango elkartekoak etorri zitzaizkidan eta esan nien, eta, ‘lau badauzkagu, baina, laster mailaz pasako dira eta hor erabaki behar dute pala edo uztea’. Orduan, bada, beno, pilotarako afizioa baldin baduzu eta neska baldin bazara erreminta badakizu zein den”. Itxaro

“Txapelketa ereduak ere ez dakit oso ondo dauden, zeren eta neska bakarra baldin badago edo bi neska baldin badaude, nola egin behar da horiekin? Klaro, oraindik txikiak dira eta denek ‘ah, bai’, baina, handitzen direnean, zer soluzio eman behar dio horri federazioak? Mobida bat da nesken asuntua”. Haizea

“Eta, bestela, beste herrietan badaude neska pilotari asko eskuz aritzen direnak mutilekin eta nahiko luketenak gehiagora joatea, baina, ia 12-13 urterekin badakite hartu beharko dutela pala”. Ibone

Autore gehiagok ere berretsi dute genero ordenaren arabera bai kirol batean sartzeko, bai emandako zentzuan eta bai diskurtsoak ematen dizkien baliabideetan ere mutilen abantailen berri (Gorely, Holroyd eta Kirk, 2003; Soler, 2009). Justu goian aipaturiko aukera ezberdintasunaren berri badute federazioetako arduradunek ere. Neskentzat pilotako eremua askoz ere mugatuagoa da, jokamolde bakarrera bideratzen direlako pilotari guztiak, gomazko paletan aritzea onartu ala ez dago beste aukerarik federazio mailako lehiaketetan jarduteko. Enekoren, pilota federazio bateko zuzendari teknikoaren, aipuan irakur liteke hori bera:

“Gure proiektua palara mugatzen da, nahiz eta eskola adinean lehiaketa batzuk eskuz egiten diren, proiektua palara mugatzen da eta leku askotan, edo batzuetan, behintzat, esaten da, ‘zergatik ez eskua?’ Azkena izan zen zesta punta, ‘zergatik ez zesta punta? Guk zesta puntan hasi nahi dugu neskekin’. ‘Eta, beno, bada, bale’. Hori esanguratsua da nire ustez”. Eneko

Zailtasun eta mugak beste atal batzuetan ere nabarmentzen dituzte emakumezko pilotariek, besteak beste, pilotalekuak erabiltzeko ordutegietan. Ez dituzte ordutegirik eroso eta egokituena izaten entrenatu eta txapelketetan aritzean:

“Guri pasatzen zitzaigun lehen entrenatzera joan eta agian aurretik mutilak ibiltzen ziren pilotan eta ordutegia ez zuten kontuan hartzen. Orain, nik ez dakidana da hori nola izango litzatekeen mutilak izanez gero palan entrenatzera doazenak. Nik uste geu neska garelako agian pittin bat maila baxuagokoak hartzen gaituztela, baina, mutilak izanez gero agian esango zieten: ‘hi, egon zaitezte 15 minutu gehiago zain’. Ez dakit zer pasatuko litzatekeen. Alde horretatik, batzuetan errespetu falta iruditzen zait ordutegi bat zehaztuta badago...” Olaia

“Adibidez, ni nenbilenean Tenisean Jamón Txapelketan, izaten zen neskek beti lehenengoa, gero 2. mailakoa eta gero 1. mailakoa, han egoten dela jende guztia. Eta batzuk esan zuten nahiago zutela nesken pala mutilena baino, edo 2.a bai behintzat, uste dut dela 2. mailakoa. Egia da gurea dela lehenengoa, baina gehienak ez dira joaten. Orduan, alde horretatik, esaten duzu ‘joe, nesken partiduetan beti ordu txarrena, ba joaten baldin badira gero ia geratuko dira besteak ikusten’”. Nora

Hedabideen jarraipenean ere ia zuritik beltzerako aldea suma liteke gizon-emakumezkoen jarduerari dagokionez. Izan ere, emakumezko pilotariak ez dira ia inoiz aipatu eta agertzen eta agertzen direnean ez albiste nagusi lez eta ezta nabarmenduta ere. Larri-larri, ia ez ohartzeko moduan. Ez zaie emakume pilotariei bultzada eta babesik ematen komunikabideetan. Mutilak, aldiz, esku-pilotariak batez ere, nonahi eta noiznahi agertu ohi dira, baita albistea benetan garrantzitsua ez bada ere:

“Hedabideek, beno, isladatzen dute nahi dutena eta interesatzen zaiena. Egia da, egia da, pilota asko garatu dela mutilen pilotarekin, esan nahi dizut, mutilen pilota garai batean ez zen hainbeste ikusten telebistan. Igual ez zeudelako apustuak edo ez zelako hain txapelketa joerakoa, nolabait ere bai hartu duela futbolaren tankera hori, ez? Txapelketak, orain frontoiak margotzen hasi dira ez dakit zerekin, beti dago partiduren bat ikusteko, ... eta nik uste horrek eragin digula. Eragin diola

pilotari. Baina, beno, neskei ematen dioten trataera da, denean bezala, lotsagarria, lotsagarria". Haizea

"Telebistan bakarrik mutilak daude, leku guztietan agertzen dira". Nora

Baldintza ezberdinak beste hainbat alorretara ere hedatzen dira, ikerketa lan gehiagotan ondorioztatu duten moduan. Besteren artean, mutilek pribilegio gehiago eta aukera hobeak izan ohi dituzte bai materialean, bai orduetan, babesleen laguntzan, baliabide ekonomikoetan, hedabideen jarraipenean, familia ardurekiko ezberdintasunetan eta beste zenbait arlotan, boterearen banaketa desorekatua delako eta egiturazko ezberdintasunak ere badaudelako (Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008; Harris, 2007; Matteucci, 2012; Pfister eta Radtke, 2009; Scraton et al., 1999; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009).

"Y, jugar con los hombres, la velocidad, la fuerza que esto, etc., luego, para jugar con las chicas, también nos venía mejor. Entonces, pues, bueno, esos comentarios, pues, sí. Hay una gran diferencia en todo, yo, cuando empecé a jugar, había diferencia hasta en los premios. En Ezcaroz, nosotras fuimos y los chavales tenían, no sé si eran 100.000 ptas. entonces, y a nosotras no sé si nos daban un queso. ¡De churro! Pues, bueno, el año siguiente ya cambiaron. No sé, me parece que ya no había dinero para nadie, pero nos daban pacharán, queso, la txapela, la copa, ... Y, a nivel de con la española, lo mismo. El primer Open de España que jugamos, a los chicos les daban 100.000 y a nosotras 50.000. Y, yo decía 'pues, ¿sudaremos distinto? ¿No damos la talla? Pues, para nuestro nivel lo estaremos dando, ¿no? Y tendría que ser todos igual, y el premio, pues lo que tengas, porque es aficionados'. No es que tú cobres 100.000 y el otro cobre 50.000, no. Eso, pues, bueno, el primer año pasó así, pero, luego ya lo igualaron para todos. Entonces, ahora, chico o chica, todo el mundo cobra lo mismo. Y, la diferencia, pues, bueno, eso también. Puf. En entrenamientos, todo, es que no tenías. Nadie se preocupaba de unas chicas. Para ir a Arnedo como íbamos a entrenar a trinquete, que íbamos a las 9 de noche, hasta las 11. Cuando salía Rebea de trabajar, y yo de estudiar, me bajaba allí y cogíamos el coche y vuelta. Cenar, cuando llegabas a casa, un vaso de leche con azúcar, y a dormir, más contenta que nada. Puf, yo qué sé". Nekane

Neskek eta mutilek oso adin goiztiarretatik hasita elkarrekin oso gutxitan jarduten dute jolasean eta jokatzeko euskal pilotan, orokorrean. Bai era antolatuan behintzat, lehenago agertu moduan. Hori dela eta, pentsa liteke elkarrekin aritzea tokatzean ez lukeela zertan ezberdintasunik egon behar, talde bereko kide direlako. Hori da gurpil aulkiko pilotarien kasua, non neska bakarra dabilen beste hamar bat gizonezkorekin batera. Itziarrek oso argi adierazi du, ordea, ezberdintasunak igartzeko direla eta ez alor fisikoan soilik:

"Ba nik uste dut nesken artean, ba, maila ere berdina izango zela, antzerakoagoa. Hor ere egongo ziren gero batzuk hobeak eta beste batzuk txarragoak, baina, behintzat, ya fisikoki igartzeko den indarra eta zer batzuk ezberdindu ziren, ezberdina izango zela. Bai, zeren eta, azkenean, hor mutilekin jolastean igarri egiten da. Nahi eta nahi ez. Eta gero, igual, ba, tratuan ere bai, ez? Hori, komentatzen genuena, azkenean, hauek askotan ez dira konturatzen, baina, bota eta bota eta... Baina nik uste dut gehienbat hori, fisikoan. Bai. Teknika azkenean eduki ahal duzu iguala edo hobe, baina, indarrean gehienbat nik uste dut

ezberdinduko zela". Itziar

Ildo honetan, neskak arrotz sentitzen dira, adibidez, zaldi lasterketen eremuan, non berez aukera duten gizonetzko zein emakumezkoek elkarrekin maila berean lehiatzeko, ustez parekidetasunerako garrantzitsua eta ezohikoa den egoera. Gauza bera gertatzen da cricketean emakumezko eta gizonetzkoek talde berean dihardutenean. Hori dela eta, emakumezkoek gatazka ugari izaten dituzte, gizonetzkoek eta gizonetzkoentzat antolaturiko eremua baita eta "emakumezkoentzat okerra". Askotan, gainera, berez hala dela onartzen dute eta erresistentziarik ez ezarri testuinguruko ezberdintasunei (Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009).

Jardun ildo eta helburu ezberdinak ere aipatzen dira neska eta mutilen arteko ezberdintasunak gogoeta iturri direnean. Badirudi lehiatu eta partekatu edo gozatzearen arteko aldea ematen dela gizonetzko eta emakumezko zein mutil eta neska pilotarien artean. Emakumezkoak eurak dira sarri bereizketa egiten dutenak:

"Mutilen espazioa ez da, baina nik, adibidez, atletismoan entrenamenduak ezberdinak ziren, mutilei beti eskatzen diete gehiago. Ez dakit, nire ikuspuntutik eta hemen, beno, ba, ez dakit". Irati

"Honbre, ez dut inoiz planteatu mutilak entrenatzea. (...) Uf, ez dakit, ez dakit hartuko nukeen. Akojonatu egiten nau, akojonatu egiten nau. Badakizu zergatik akojonutzen nauen? Ni egon naizelako hamabost urteko neskekin eta beraiek etortzen dira klasera eta bai, ondo, baina nik ikusi ditut hamabost urtekoak ia federatuta daudenak eta horiek ia oso serioak dira eta nik ez dakit nola, ez dakit". Saioa

Mutilek lehiarekin eta irabaztearekin harreman handiagoa eta emakumezkoek partekatu, babesa eman eta taldeari berari garrantzia bera edo handiagoa ematen diete, adibidez, futboleko eginiko ikerlan batean ondorioztatu dutenez (Scraton et al., 1999). Zenbait autoreren arabera ezberdin bizi dute kirola neska eta mutilek, ez dute hain serio hartzen neskek (With-Nielsen eta Pfister, 2011).

Erabat garbi ez duenik ere bada, ordea, lehiakortasuna hasiera batean mutilei esleitu arren neskak ere halakoak izan litezkeela esanez amaitu baitu Haizeak, taldearen ezaugarriari lotuz izaera eta ez hainbeste pilotaria sexu batekoa edo bestekoa izateari:

"Bai, baina ez ditugu preparatu txapelketarako, ulertzen didazu? Nire ustez filosofia ere ezberdina da hor ere. Klaro, partidu bat jokatzean normala da norbaitek irabazi nahi izatea, baina ez ditugu preparatu fisikoki, e, estrategikoki, txapelketa bat irabazteko. Niri planteatzen badidazu mutilen talde bat hartu gazteena eta planteatzen duzu gazteen talde bat den heinean txapelketarako preparatzea. Horretan esan nahi dut eta neska talde bat, esaten badidate Hernanin neska talde bat hartu behar dut, bai preparatuko nituzkeela, segun taldea nolakoa den, baina bai zoaz mentalitate horrekin 'txapelketarako preparatzea noa'. Hemen tokatu zait etorri txapelketarako preparatzea eta ez ateratzea ez dutelako nahi. Ulertzen didazu?" Haizea

Nesken lehiakortasunik ezaz beste gogoeta interesgarri bat da Ibonek egindako hau, bertan aipatzen baitu lehiakortasun eza horrek ez duela bera konbentzitzen. Bere arabera lehiatu nahi ez dutenek, entrenatu bai baina txapelketetan aritu ez, entrenatzeko diziplina eta gogoan ez dute halako asmorik agertzen:

“Jarri daiteke federatuko ez direnentzat txapelketatxo bat, edo ikastaroa, edo esaten dena pala ikastaroa, eta kitto. Eta, gero, animatuak baldin badaude, ‘orain, animatu zaretela, animatuko zinatekete...’, zeren eta jende askok ez du lehiatu nahi, hori ikusi dut nesketan. ‘Ez, ez, nik entrenatu bakarrik, partidurik ez dut nahi’, eta, ‘zergatik?’. Nik, adibidez, entrenatu entrenatzeagatik, helbururik gabe, helburua da partiduan ondo ibiltzea, ez irabaztea, ondo ibiltzea, galduta ez ibili eta gozatzea partiduan, galdu edo irabazi berdin du. Baina, esaten dutenak ‘nik ez dut nahi partidua’, bada, ez diet ikusten motibaziorik. ‘Zertarako etortzen zara, bada?’, eta, ‘ibiltzeko pixka bat’. Ez dakit, partiduari begira entrenatzen duen jendeak, igual, gogo gehiago jartzen du gauzak ikasteko eta ez badaukate partidurik joateagatik joaten dira, zerbait egiteagatik”. Ibone

Mutilei motibazio, abilezia eta erraztasun gehiago ikusi eta suposatzen zaie, beste era bateko guneetan ere parte hartzeko aukera izanik, taldez aldatuz edo giroz (Gilenstam, Karp eta Henriksson-Larsen, 2008). Autore berberen arabera baldintza ezberdinetan aritzea bera da jarrera, motibazio eta errendimenduan ezberdintasunak eragitearen arrazoi nagusia.

Pilota munduan sexuen artean jazotako era askotako ezberdintasunak agertu ditudan atal honetan neska-mutilak, neskak eta mutilak edo neskak versus mutilak ote den eta zer behar lukeen galderei erantzuna emateko ahalegina egin nahi nuen. Hala ere, oraindik ere egoera definitu gabea dela iruditzen zait, hainbat alorretan bereizita agertzen badira ere batuta ere aurki genitzakeelako eta, gainera, hala behar lukeelako zenbaitetan. Hori dela eta, ez naiz hasierako galderari erantzun zehatz bat emateko gai. Norberak egin dezala bere hausnarketa eta saia dadila erantzuten: neska-mutilak, neskak eta mutilak ala neskak vs. mutilak?

3.2.5. Balantzan, zalantzen dantzan

Aurreko lau azpi-puntuetan agertu dut zer nolako estereotipoak aurki litezkeen euskal pilotako munduan eta emakume pilotariak zeri aurre egin behar dioten hainbat unetan. Hori horrela izanik, zenbaitetan kinka larrian aurki litezke pilotariak, etengabe euren genero identitatea negoziatu eta kudeatu behar dutelako. Horrek arazo eta tentsioak eragiten dizkie pilotariei, kezka eta zalantza bezelako zenbait momentu eta egoeratan. Auzi horien ingurukoa da atal honetako azterketa.

Genero negoziazioa, batez ere gaur egungo kulturaren, gertatzen da kasu asko eta askotan neskak gizonezkoentzako jotako jardueretan dabiltzanean (Jeanes, 2011). Genero identitatea eraikitzea prozesu soziala da, kontraesan, tentsio eta bortizkeria iturri ere bai zenbait kasutan (Krane, 2009). Adibidez, gizonezkoek ustez izaera femeninoa duen

kirol batean jardutean, genero arauen haustura edo urratzea ematen da (Chimot eta Louveau, 2010). Hau da hain justu ere emakume pilotarien kasua ere, genero ordena delako ezbaian jartzen dena.

Genero identitatea kudeatzeko aukera eta modu ezberdinak daude. Hala eta guztiz ere, hainbatetan jazarpen fisikoa eta psikikoa jasan dezakete euren generoari atxikitzen ez zaien kirol baten hautua egiten dutenek euren identitate maskulino edo femeninoa garatu ahala, iraingarriak eta estigmatizatuak direlako balio edo jarrera horiek (Chimot eta Louveau, 2010; Flyn eta Malcolm 2009). Emakumezko askok aipatu dute ikerlan gehiagotan ezberdinak direla edo ohiko genero arauetatik at aurkitzen direla uneren batean (Baird, 2010; Dilley eta Scraton, 2010; Jeanes, 2011; Krane, 2009; Scraton et al., 1999; Walseth, 2006; With-Nielsen eta Pfister, 2011).

Identitatea eskuratzean, askotan, ezberdintasunak eman litezke inguruko agente eta norbanakoaren barne identitatea bereganatzeko moduaren artean. Horrenbestez, estrategia bat sortu behar izaten da eraikuntza prozesu horretarako, kontzienteago izan ala ez, bidegurutzean orpoz orpo aurkitzen direlako bakoitzaren ibilbide biografikoa, norbanakoak ingurukoekin duen erlazioa, norbere iragana eta etorkizuneko asmoak. Askotan familiako eta kideen presioari aurre egin behar diete tradizionalki euren generoari atxikiriko rolak betetzen ez dituztelako. Hortik hiru jarrera edo joera sortu ohi dira (Chimot eta Louveau, 2010):

- Presioari eta bortizkeriari eustea.
- Kirol hori utzi eta rolarekin egoki datorren batean hastea.
- Norbere burua nahi duen kirol horretan azaltzea.

Beraz, garbi dago identitate desberdinak daudela eta modu desberdinetan eraiki daitezkeela testuinguruaren eta besteekiko harremanen arabera. Hori dela eta, zenbait neska eta emakume behin baino gehiagotan jarrera apologetikoa hartzen dute, jarduera eginez baina gero “desorekari” aurre egin nahian barkamena eskatzeko moduko jarrera agertuko balute lez, euren femeninitasuna azpimarratuz beste arlo batzuetan, makilatuz, soinekoak jantziz, ile luzea utziz eta antzerako moduak nabarmenduz jarduera fisiko eta kirol esparrutik at, testuinguruko genero arauak arriskuan jartzearen ondorioz, eta badakitelako zer den jendarteak eurengandik espero duena eta eurek barneratuta duten femeninitasun heterosexuala (Ezzel, 2009; Gill, 2007; Jeanes, 2011; Macías, 1999; Macro, Viveiros eta Cipriano, 2009; Packard, 2009; Roussel et al., 2010; Thorpe, 2009; With-Nielsen eta Pfister, 2011). Alderantziz, ordea, badira euren jarduerarekin erabat gustura daudenak eta jarrera hau agertzen ez dutenak ere, ahalduntzea lortuz kirol praktiken bidez eta boteretsuago sentituz eta femeninitasuna desorekatuta edo urratuta hauteman gabe (Baird, 2010; Neverson eta White, 2002; Whiteside eta Hardin, 2011).

Gatazka sortzen zaie emakume askori aldi berean emakumeak eta futbolariak, motorzaleak edo borrokalariak izatean, horregatik da ezinbestekoa identitatearen kudeaketa. Hala ere, asmatuz gero askatasuna eta ahalduntzea lortzen dituzte emakumezkoek kiroletan arituz (Baird, 2010; Dilley eta Scraton, 2010; Harris, 2007;

Macro, Viveiros eta Cipriano, 2009; Roster, 2007). Horretarako, ordea, askotan euren irudiak bat etorri behar du jendartean hobesten denarekin, ez delako arriskuan jarriko euren izaera femeninoa eta orduan jarduera ez-femeninoetan aritzea ez da kezka edo izu iturri izango testuinguruan gertu daudenentzat (Jeanes, 2011).

Beti ez dira bizitako esperientziak negatiboak izaten, ordea. Batzuetan emakumeak gustura sentitzen dira, balioetsiak eta onartuak euren kirol esparru horretan (Velija eta Malcolm, 2009). Ahalduz honek emakumezkoak genero rol eta betebeharretatik askatzen ditu, erronka sozialei ere aurre eginez, besteak beste, tradizionalki gizonetzkoena ikusten den mundu batean arituz eta euren burua baieztatu eta berretsiz (Roster, 2007).

Genero identitatearen negoziazioak dituen aukera ezberdinak aurkeztu ondoren, garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zait gogoeta hori gure esparrura ekarri eta emakume pilotarien artean zalantza horien artean hautaturiko bide ezberdinak agertzea. Izan ere, geure esparruan izan da pilotari jarduna etetera edo uztera behartu eta gonbidatu dutenik, adibidez, aukerarik eman gabe akordeoia eta pilota trukatzera derrigortu zuten Nekane.

“A mí me obligaron. ‘No, tú como eres chica, fuera. Tú a tocar el acordeón’. ¡Pues, míralos qué majos!” Nekane

Aita izan zen erabaki horren sustatzaile, amak ere alabak bezala uztearen aurkako jarrera argia agertu zuela baitio:

“Es la única que se enfadó con todos. Lo mismo que me mosqueaba yo, que yo no entendía por qué lo tenía que dejar, mi madre era la que les decía ‘pero, es que, ¿por qué? O sea, a un chico ya le dejáis. Pues si se va a romper las manos ya verá ella, pero es que todavía no es el caso. Pues, dejarle y cuando ella se dé cuenta de que no puede, pues, porque es mujer, o por lo sea, pues, ya lo dejará’. Pero, no, entonces, como me quitaron no tuvo más remedio que aguantar, como yo”. Nekane

Begi bistakoa da pilotariak berak ez zuela erabakia gogo onez hartu eta helduarora iristear zela berriro ere pilotara itzultzeko aukera iristean ez zuen zalantzarik txikiena ere egin proposamena egin ziotenean, ordurako gurasoek ez zutelako erabakimenik 18 urteko gazte haren bidean. Benetan mamitsua da itzuleraren pasartea. Zirrara handiz kontatzen du nola jaso zuen telefono dei bat eta, amaren babesean oraingoan ere, probatxo bat egin ondoren paletari bideari ekin ziola, bere bila aritu zirelako inguruan beste pilotari batek bakarrik ziharduela eta:

“Entonces, pues, nada, a los 15 lo dejo y a los 18 es cuando volvieron a llamar a casa, que yo estaba estudiando en Pamplona, y le llamaron a mi madre. Entonces, Jaime, que estaba en Estella, y él me conocía de cuando yo jugaba a mano. Y, ése, le tenía a Rebeka. Y Rebeka, de toda la vida, pues, sales de su casa en Legaria y tiene un frontón allí. Entonces, ella siempre ha jugado a pala. Y Jaime le veía y decía, ‘pero esta cría, ¿cómo va a estar aquí sola?’, pues, una mujer mayor, su

mujer también, pero decía, '¿cómo va a estar jugando con Olga? No, pues hay que buscarle una chavala', y se acordó de mí. Dice, 'jo, pues si en Eulate había una chica que jugaba a mano, pues, vamos a llamar a ver si está'. Y, entonces, llamaron a casa, y, vamos, mi madre no se lo preguntó a nadie y les dijo, '¿cuándo venís, el sábado? Aquí va a estar como un clavo', y me llamó a mí a Pamplona y me dijo, 'Nekane, que me han llamado de Estella que van a venir para hacerte una prueba para ver si puedes jugar a pala'. Bueno, yo, ¡unos nervios! Ja, ja Y allí que estaba el sábado, vamos, deseando que llegaran y a jugar. Y me hicieron la prueba y perfecto. Y, me dijeron, 'ala, pues ya vas a empezar a entrenar con Rebeka'. Rebeka jugaba una pasada, e, porque yo, a Rebeka con 13 o 14 años coincidí de las escuelas, de cómo se hacía el intercambio ése, coincidí con ella. Entonces, yo había jugado a mano y, bueno, pues, a pala me defendía. Del valle no tenía nada que hacer, o sea, les ganaba fácil, pero resulta que llegó Rebeka y yo digo, '¿pero esta mujer de dónde ha salido?' Y me dio para el pelo. Me ganó muy bien, además, y es que le pegaba perfecto. Porque tú al final siempre haces kales, no empalas o lo que sea, pero, Rebeka, le metía unos viajetones... y, muy bien. Entonces, ya empecé con ésta. Yo, todavía, ahí no tenía el carné y, Rebeka a veces subía a Eulate y me buscaba. Otras veces me bajaba mi hermana. Bueno, sí, andaba unos cristos, pero, ahí empecé y sin parar. Ha sido desde entonces hasta hoy, 18, 28, 38... Ja, ja".
Nekane

Uztera behartu ez bazuten ere, Ibonek ere amaren aurkako jarrera nabarmentzen du:

"Nire etxean, amaren partetik, amak ez zuen nahi nik kirola egitea". Ibone

Nekane eta Iboneren kasuan amen esanak alderatuko bagenitu, lehenengoaren ama jarrera alaba babestekoa da eta bigarrenaren kasuan, berriz, hegemoniari men egiteko joerakoa. Hortaz, gurasoen artean ere ikuskera ezberdinetako iritzi eta usteak zeuden, pentsamolde ezberdinekoak, estereotipoekiko eta genero-rolakiko jarrera ezberdinekoak. Sokatiran ziharduten emakumeen kasuan ere amak ziren batez ere alaben jardunarekiko kezka agertzen zutenak, mesederik ez ziela egingo agertuz bat baino gehiagok (Egibar eta Garai, 2009).

Bestalde, estereotipoei zegokienean neurri batean antzeko bizipenak izan arren, inguruko presioa ezberdina izan zutelako, etxekoek ez zituztelako uztera behartu eta bai animatu eta lagundu jarrai zezaten, mantendu egin dute euren pilotari izaera beste zenbaitek, tartean etenik sortu gabe, zailtasunen bat izan arren lehengoan tinko segituz. Eiderrek amak izandako laguntzeko jarrera eta elkarteko arduradunarena nabarmentzen ditu:

"Ni aritu naiz urte askoan areto futbolearen eta pilotan lehiatzen eta, adibidez, bai nire amak pila bat lagundu didala, zeren eta nire amaren laguntzarik gabe ezinezkoa egingo zitzaidan, ez nintzen inora ere iritsiko. Hara eta hona ibili nintzen ni, eroa bezala, beno, nire ama ibiltzen zen eroa bezala. Ni, partidu bat jokatu eta bidean aldatzen nintzen arropaz eta beste partidura joaten nintzen, hori, nire amak lagundu zidalako". Eider

Lehiaketen esparrua utzi arren euren kabuz pilotan aritzeari muzin egin gabe ere pilotari batzuk aritu izan ziren eta izan dira, adibidez, Saioa eta Itxaro paletara heldu aurretik. Euren testuinguruan pilotalekuetarako bisitak ez ziren arrotzak.

G. Esan duzu, adibidez, hamahirutik hogeita baterako tartea, zortzi urtekoa. Hor tarte horretan zuk zure kabuz eta zuen kabuz segitzen zenuen, ezta?

“Bai, bai. Nik bai negu partean askoz zailagoa zela, baina udara guztia frontoian pasatzen genuen, frontenisean jolasten. Pala bai izan zela orduan”. Saioa

“Bai, segitzen genuen, bai, bai, bai, bai. Bai, bai, lagunekin ibiltzen ginen, Hernanikoa naiz ni, baina, auzo batekoa, Oialumekoa, orduan, 2 kilometrotara dago eta Astigarragatik ia gertuago geratzen zaigu Hernani baino eta, orduan, Astigarragara joaten ginen asteburuetan bizikletak eta palak hartu eta hantxe saioak egitera”. Itxaro

Haurtzaroan jokatzetik helduaroan berriro ere itzuli arte euren kabuz jarraiturikoak ere bat baino gehiago dira, tartean, adibidez, Ainara. Haur garaiko eskolako txapelketako parte hartzearen ondoren paletan era antolatuan aritzeari utzi eta berriro ere paleta ikastaroetara heldu arte euren kabuz aritutakoa da, aisialdian.

“Hasi, hasi ikastolan hasi nintzen, hemen, Tilosetan, gainera. Ez dakit zenbat urterekin, hamarrekin edo horrela hasiko nintzen, pentsatzen dut. Egiten zen ikastola mailan txapelketa, oraindik egiten dutela, Urumeakoek, eta San Joanetako txapelketa bezala hor egiten genuen. (...) Tenisekoarekin, horrela ibiltzen ginen, entrenatu gabe e, ibiltzen ginen partiduetara bakarrik etortzen ginen eta hor hasi ginen. Hor zortzigarren mailara arte edo horrela eta gero ya utzi nuen”.

G. Gero, utzi zenuenean, erabat utzi zenuen edo zuen kabuz joaten zineten jolastera?

“Bai, hemen ez, baina Nafarroan bai, Nafarroan beti ibili izan gara. Udaran-eta joaten garenean han beti, beno, beti, igual egongo ziren garai batzuk jolastu gabe, baina normalean bai. Hemen ez, e, Hernanin ez, baina han, Nafarroan bai”. Ainara

Lerro hauen gaineko aipuetan argi ikusten den moduan, genero estereotipoekiko erresistentzia ezartzen dute zenbait neska eta emakumek eta beste zenbaitek ez, nahiz eta denek argi izan neska eta mutilen arteko ezberdintasunik ez litzatekeela beharko parekidetasuna ardatz hartuta (Azzarito, Solmon eta Harrison, 2006). Zenbaitek aurre egiten diote errealitate horri eta beste zenbaitek, aldiz, utzi egiten dute jarduera, edo jarduteko modua eraldatu (Baird, 2010; Chimot eta Louveau, 2010; Cockburn eta Clarke, 2002; Engh, 2011; Pfister eta Radtke, 2009; Roster, 2007; Velija eta Flynn, 2010). Horixe bera agertu nahi izan dut Nekane, Ibone, Eider, Saioa, Itxaro eta Ainararen aipuen bitartez, rol gatazka batean murgiltzen direla emakume pilotari asko eta modu ezberdinetan kudeatzen dutela egoera testuinguruaren eta aldiaren arabera.

3.3. Profilak

Emakume pilotariak orokortasun batzuetan ezaugarri berdinak dituztela ikusi arren, besteak beste identitatea sortzeko eta kudeatzeko prozesuaren izaeran eta estereotipoekiko elkarbizitzan, ezin da ukatu ezinezkoa dela guztiak zaku berean sartzea, ezin baitira molde, interes, ezaugarri eta jarduteko era bakarrean sailkatu. Hori dela eta, ezaugarri multzo adierazgarrienak azaldu eta profil ezberdinak aurkeztuko ditut zati honetan.

Profilak sortzeko orduan pilotako eskaintzak berak muga batzuk ezartzen dizkio hautatutako alorraren arabera emakume pilotari orori. Ez da berdina txapelketen eta lehiaketan gurpilean murgiltzea edo astean behingo ikastaroetako partaide izatea erabakitzea. Sistemak berak baditu bere baitan aurrezarrirako adierazle batzuk (ikus 1. kapituluan bi ereduez 5. puntuaren agerturiko ezaugarri multzoak), bertan parte hartze hutsak onarrarazten dituenak. Hori dela eta, banaketarik erraz eta ikusgarriena, eta lehenengo-lehenengo egin beharrekoa, federatutako pilotarien eta aisialdiko pilotarien artekoa da. Lehenak lehiaketa egituretan murgiltzen dira, txapelketen zurrunbiloan, eta bigarren multzokoak, berriz, astean behingo paleta ikastaro antolatuen zakuan. Hala ere, gogoan izan behar da multzoen artean ez dagoela zangarik eta bata bestetik bereizten dituzten muga zein marrak aldakor eta malguak direla, jardun ildoak ia bateratzeraino. Ondorioz, pilotari federatuen profilak azaltzen hasiko naiz, aisialdikoekin jarraitu eta amaitzeko.

3.3.1. Pilotari federatuak: astebururoko joan-etorriak

Federatuta jarduteko erabakia hartzen duten emakumeek pilota federazioen lehiaketa ataletara egiten dute jauzia, hau da, normalean asteburuetan jokatu dituzten txapelketak, ofizialak zein pribatuak, izango dituzte pilotan aritzeko jomuga eta erakarpen nagusi. Beraz, euren entrenamenduak ere, gutxi edo gehiago, lehiaketa horietan aritzeko prestakuntzara bideratuko dituzte. Errendimendura, mailarik apalenetik goi-errendimendura arteko abaniko zabalean, bideraturiko pilotariek ari naiz multzo honetan, beraz. Irudi bidezko azalpen batekin laguntzearen, zuriz jantzitako pilotariak dira multzo honetakoak, markagailu eta epailedun partidetan aritzen direnak. Izan ere, janzkera ofiziala galtza zuriak eta elkarte edo antolatzaileak banaturiko poloek osatzen dute, araudiak zehatz-mehatz zehaztuta. Gainera, ia gehienak haurtzaro edo/eta nerabezarorako pilotari sena piztu eta lehiaketarekin harremanen bat izanak dira.

“Desde pequeña. O sea, sí, de siempre. En casa ya me dice mi madre que casi antes de aprender a andar que ya estaba con mi pelota a rastras, y siempre pim-pam-pim-pam, venga a darle. Y, luego, con el abuelo, es que yo me acuerdo desde pequeña. En cuanto pudiese andar ya estaba con el abuelo jugando, él ya me llevaba siempre al frontón y en casa también lo han vivido. El aita, pues, el abuelo, también jugaba un poco, y mis hermanos. Somos seis, yo soy la cuarta, y mis hermanos siempre habían jugado. Entonces, pues, bueno. (...) Y, yo, para mí era, un, puf. ‘¿Dónde estaba Nekane?’ En el frontón, pues, a todas horas allá metida. Y

con 8 años, como jugaba bien, ya me sacaron la ficha en Estella". Nekane

"Ez. Ni hamabi urtera arte hasi nintzen xixteran, Joko Garbian, nire aitarekin. Gero utzi behar izan nuen, beraz, epe motz batez tenisean ibili nintzen eta nola ez nuen gustukoa gero ia palan hasi nintzen. Horrela". Ekiñe

Asteburuetako partiduetarako bidaien eta konpromisoaren berri ere argi agertzen dute euren hitzetan:

"(...) gero iristen da urtarrila eta hasten naiz padel eta palako txapelketekin. Oso ondo, Nafarroa, GRAVN, dena elkartu eta asteburuan ostiral, larunbat eta igande partidua". Nora

"Askotan eskolarretan jokatu edo federatu bezala jokatu ez da berdina, zeren eta eskolarretan jokatzen duzunean ez daukazu hainbeste erantzukizun, baina, jada federatuta hasten zarenean, partiduak kanpoan, etxean, kanpoan, etxean..." Itxaro

Ezaugarri komun horiek izateaz gain, ordea, pilotari hauen artean ere posible da talde ezberdinak osatzea, atxikimendu mailak oso ezberdinak izaten direlako kirol jardueren eta jarduleen interes, arrazoi eta testuinguruen arabera (Walseth, 2006).

Pilotarekiko duten lotura mailaren eta norbere inplikazioaren arabera hiru azpi-multzo bereiziko ditut, nire ustea indartzeko beste pilotari baten, Haizearen, aipuan oinarrituz:

"Nik uste dut badaudela pilotari batzuk, adibidez, Eider, erdiko generaziokoa da. Eider eta Ibone, ezagutu dute aurreko pilota, beraiek sartzan dira eta gero hurrengo pilota. Pertsona horiek nolabait ere beste ardura bat edo beste zerbait espero da beraiengandik. Baina, gero, badaude beste batzuk, bada, beno, dedikatzen direnak, ez dakit, ez dutela presente edukitzen, ez dira denak igualak. Alde guztietan ez gara denak igualak, batzuk ardura batzuk hartzen dituzte, besteek ez dakit zer, batzuk dedikatzen dira larunbatetan joatera, besteek nahiago dute beste gauza bat lortu eta horretarako martxan jartzen dute ez dakit zer proiektu... Iruditzen zait denetik dagoela eta egon behar duela denetik". Haizea

Pilotari mota bakoitzaren gaineko zertzelada eta xehetasunik nagusienak agertzeaz gain pilotariak euren nola definitzen dituzten azaltzea ere ezinbestekoa iruditzen zait, mundu honetan barru-barruan daudenek ikuspegi garatu eta landua izaten dutelako euren errealitateaz.

- Pilotari soilak: euren jokoari eta emaitzei soilik erreparatzen dietenak dira. Ez dute pilotako euren dagozkien partidak jokatu eta entrenamenduetara joateaz kanpoko loturarik pilota munduarekin.

G. Esan duzu pilotarien artean ere batzuk zu bezala elkarteko gazteekin lan egin eta beste batzuk, ba, nik asteburuan partida jokatu eta puntu.

"Beste batzuk nire ustez ez, beste askok, beste gehienak eta hori da nire momentuko penarik handiena. Ezagutzen ditugu eta nire elkarte barnean badira pilotari biziki

onak eta famatuak eta internazional mailan goi-mailako jokalaria, bai, modalitate askotan, eta ez direnak agertzen. Ez direnak agertzen ez bilkuretan baina ez eta ere gazteak entrenatzeko eta hori pena handia da. Haiiek ez ematea euren denboratik pixka bat, zeren eta niri bezala, ba, elkarteak ditu ordaintzen haien entrenamenduak, haien ordutegiak, materiala, eta, beraz, atzematen dut hori dela kontzientzia pertsonala, edukazio pixka bat ere, ez dakit horretan sartzen den. Hartu, hartu, hartu, hartzen dute asko eta momentu batean, ba, gutxiengo bat eman behar da eta hori da falta handiena”. Ekiñe

- Pilotari eta arduradunak: entrenatzaile, elkarteko arduradun, zuzendaritza-kide eta antzerako rolak dituzte eurak jokatzear gain. Pilotari izateaz gain ardurak ere hartzen dituzte sustapen eta antolaketa alorretan. Pilota munduarekin lotura sakonagoa dute. Snowboard munduan ere badira jarduteaz gain entrenatzaile, antolatzaile eta era horretako rolak betetzen dituzten emakumeak, neskei laguntzeko asmo betean (Sisjord, 2012).

“Nik entrenatzen ez nuen jarraitu, baina nik entrenatu arazten bai, eta ez dizut esan arrazoia. Ni joan nintzen Oiartzunera bizitzera eta, orduan, 92an hasi nintzen neskak entrenatzen. Handik etortzen nintzen eta larunbatero-larunbatero hemen egiten nuen, urte pila bat egin nituen horrela, eta umeak jaio zirenean utzi egin behar izaten nuen. Gogoratzen naiz urte batez utzi nuen neskarekin, eta talde hori galdu egin nuen. Eta, esan nuen ‘jarraitu zuek’, baina, ez neukan zeinekin utzi, gazte xamarrek ziren. Semearekin, ordea, ia hemen bizi nintzen eta ez nuen utzi, entrenatzen jarraitu nuen eta mantendu egin zen”. Ibone

“Ni nire mailan saiatzen naiz pilotari hartu dudana guzia, ba, pixka bat ematea. Pentsatzen dut lehen urratsa dela elkarre mailan. Guk izan ditugu entrenatzaileak eta trinketak edo ezker parteak ordaindu behar dira, beraz, elkarteak badu dirua atera, animazioak egin eta pentsatzen dut lehen urratsa horretan dela. Ni bulegoan sartu naiz, diruzain-orde izanez, asteazkenetan neska gazteetat arduratuz eta pentsatzen dut gero bakoitzak bere aldetik indar ttipi bat egiten badu, ba, denen artean zerbait lortzen ahal dela. Momentuko ikusten dut emakumeen artean ere, gure artean, neska guztiek ez dutela urrats hori eman edo agian egun batez emanen dute, baina gutxi gara hor heldu mailan ari garenak eta ere elkarre mailan, ba, ari garenak gazteekin. Lehen urratsa hori da”. Ekiñe

- Goitik beherako pilotariak: euren bizitzaren ardatz nagusienetakoa da pilota, arduradun eta jokalaria izateaz gain euren inplikazio eta lotura maila oso sakona da. Pilotako lagunartea dute, ordu izugarri eskaintzen dizkiote arlo honi eta ez legoke euren bizitza ulertzerik pilotarik gabe. Emakumezkoen futboleko azken bi kasu hauen antzeko pare bat aurkitu ditut Frantzian, bizitza ia osoa futbolari eskainiak, gaztarotik hasi eta jokatzeari utzi ondoren ere bertan beste funtzio batzuetan atxikimenduari jarraituz (Mennesson, 2004).

“Elkarre guztietan ezin da egon ni bezalako bat, zeren eta ni horretan bakarra naiz eta ez dago egongo ni bezalako bai, ez onerako eta ez txarrerako. Esan nahi dut, iruditzen zait, ni izan naiz pilotaria, ordezkaria, entrenatzailea... denetik, eta hori ere ezin da”. Eider

G. Has dicho que ya han pasado 20 años. ¿Por qué sigues jugando a pelota?

“Porque me encanta. Es que es, puf, es que me llena. Es que, puf, lo es todo. A veces yo digo ‘es que la pelota me ha dado todo’. Ummm, no sé. Yo lo he dado todo por la pelota, pues, es que me compensa porque es un deporte que me gusta. Me hubiera encantado jugar a balonmano, pero, pues, bueno, arranqué en la pelota porque había empezado desde pequeña y es que me llena. Me encanta. No sé, disfruto muchísimo, y, al final, es, no, es porque el disfrute de ese deporte de lo que estoy haciendo y lo que conlleva también alrededor. Al final, pues, son esas amistades, esa gente que conoces, el grupo que se hace, pues, al final, es casi otra familia. Yo, para mí, digo ‘joder, es que tengo la familia de la pelota’. Es una pasada y hacer muy buena amistad. Pues, otros son más enemigos o, pero en la cancha. Luego, o sea, perfecto. A mí me gusta muchísimo”. Nekane

Lehiakortasun mailaren arabera ere, berez guztiei lehiarako gogo eta grina neurri bat igarri arren, ezberdintasun nabariak daude, lehiatzeak bakoitzarentzat duen garrantzia eta pisuaren arabera sailkapen bat egitera naramatenak:

- Lehiakorrak: irabaztea gustatzen zaie, irabazle sena dute eta galtzeak ez die graziarik egiten. Jendaurrean hazi egiten dira, ikusleak motibagarri zaizkie eta ez dute ia tanto bakar batean ere lasaitzeko tarterik hartzen.

“Espektatibak? Bada, hasiera batean, orduan bazeuden Eba eta Aiora eta hauek, ondo jokatzen zuten, batez ere Ebak, eta nik ikusi nuenean zer jende zegoen, bada, orduan, nire helburua zen hor goian zeuden horiei irabaztea. Hasieran ez neukan indarririk, teknikoki moldatzen nintzen, baina, indarra zero, eta, beno, Aiora eta hauen kontra jokatzen nuenean zen ‘nik zuk baino bat gehiago bueltatuko dut’, eta haiei kontra egitea. Gero, ia, nafarrak sartu ziren eta beti mugak izan dira hor onenak ziren horiei irabaztea, hori eduki dut muga. Ia mundialetan, mundu horretan sartu naizenean, bada, lehenengo mundialera joan eta gero ahal bada irabazi, nik uste dut maila bageneukala. Hasieran ez, bada, trinketean gutxi ibilita geundelako, baina, beno, horixe. (...) Bada, txapelketetan parte hartu eta ahal badut irabazi. Eta, ez badut irabazten bada, horixe”. Eider

“Orokorrean, pilota modalitate guztiak politak dira eta jolasterakoan ere dibertigarria da, iristen zara, jolasten duzu eta egiten duzu kirola eta gero, mundialetan parte hartzeko aukera hori ere, ba, ez dakit, iruditzen zait pizgarria. Ez dakit, ni motibatzen nau. Behintzat, ez dakit, gustatzen zait txapelketetan parte hartzea eta nik uste horregatik dela. Ez dakit. (...) Ni, hasi nintzenean, 15 urterekin, hasieran zen jolastu eta ondo pasa, azkenean. Ez neukan beste helbururik. Gero, trinketean hasi nintzen txapelketan parte hartzen eta hor pentsatzen nuen ba, lehenengo irabaztea eta, klaro, nire helburua zen Nafarroako Txapelketa irabaztea eta Jamón. Nik banekien mundialak zeudela, baina, keba, keba, ez nuen buruan eta pentsatzen nuen ‘nola jokatuko dut mundial bat? Keba, keba’. Justu izan zen orain zortzi edo bederatzi urte, justu ni hasi nintzen urtean. Esan zidaten ‘entrenatzen baduzu eta egon nahi baduzu selekzioan, saiatu behintzat entrenatzen’ eta ‘keba, keba’. Hasi nintzen entrenatzen eta... Orain bai, ya behin sartuta, ba, helburua, ba bai, Iruñean denez Munduko Kopa behintzat gustatuko litzaidake selekzioan egotea. Hor egon eta joaten banaiz ondo, baina, lehenengo selekzioan egon. Hori da pauso bat gehiago. Eta behin egonda, ba, orduan, irabaztea, baina... Eta ni egon gabe ere

haiek irabaztea. Ahal bada egon eta irabazi eta ez banago ba haiek irabaz dezatela. Bi gauzak". Nora

- Lehiakortasun neurtu eta egokitua: lehia bai, baina bigarren mailan. Lehiak duen garrantzia erlatibizatzen dute, jardutea bera ardura zaie gehiago. Hala ere, irabazteko grina adierazten dute partidako unean, baina ez hortik kanpora.

"Nik uste dut orain, gure adinean arribatuta, ba, hogeita hamar urte pasa, lehiaketak egin ditugu, segitzen dugu, beti plazer dugu entrenatzea eta lehiaketetan parte hartzeko, baina gutxienez, niretzat, eta pentsatzen dut beste batzuk ere, atxikiak gara giro ona sartzen baita eta partiduak bukatu ondoren lagun batzuk hurbiltzen dira eta hor egonen gara momentu goxo baten pasatzera eta pentsatzen dut horrek duela ere pilota atxikitzen jokatzeke. Hori gabe, lehiaketa arrunta edo hutsean egonez, ba, pentsatzen dut jokalaria ere murriztuko zirela. (...) Bai, bai. Hori bai, puntualki hor apuntatzen garenean txapelketa batean, ba, bistan dena, bistan da, bai, motibazioa hor da, ahal bezain onena eta emaitza onena atera, baina pentsatzen dut ere hori dela bakoitzak bere buruan gauza pertsonala, baina pentsatzen dut emakumeen pilota bultzatzeko lan gehiena hor kantxatik kanpo ateratzen dela guretzat eta guri dela ere, gure adineko neskei, gauzak, e, eskuetan hartzea eta gauzak bultzatzea. Zeren eta orain ia emaitzak, txapelketa bat gehiago irabazi edo galdu, gure bizian, gure adinean, ulertzen dugu ere ez duela eragin handirik, salbu hor momentuko amorrazioa eta ematea gehiena. Bai". Ekiñe

- Ez lehiakorrak: lehiatzen aritzea kasik alboratuta duten pilotariak, irabaztea ala galtzea ez zaie gehiegi ardura. Nahiago dute entrenatu eta lagunartean jokatzen aritzea partidetan norgehiagokan aritzea baino. Lehiak urduritu egiten ditu, zenbaitetan nahiago dute ordezeko izatea mota honetako pilotariak.

"Ez naiz pertsona bat esaten dudana 'aurten hau edo bestea'. Ez, ni joan eta, hori bai, helburu bat meioratzea igual, txukunxeago ematea, baina, ez ez dakit zer txapelketa irabaztea, keba, keba. Ni egunerokoan azkenean, joan jokatu eta, 'hara? Bada, bengal, goazen'. (...) Baina, ni ez nago hemen joateko ez dakit zer mundialetara, edo nire helburua ez da izatea, ez dakit, edo iristea Kutxara edo. Ez, ez daukat horrelako konpetitibitatekerik, lehiakortasun helbururik. Joaten naiz, ondo pasatzen dut, eta momenturen batean giro txarra sortzen bada, giro sortzen den momentuan, ba, giro txarra edo zerbait pasatzen den momentuan, bada, utzi egingo dut, nik uste dut. Espektatibak, nik uste dut, ez naiz pertsona bat, horrela, ez ditut espektatiba asko jartzen". Haizea

"Lehiaketetan eta ez nintzen ibiltzen. Gainera, ez zait gustatzen. Nahiago dut nire bolara ibiltzea kirola egiten. (...) Orduan, horregatik esaten dizut nire helburua ez dela lehia. Orain, ez dut gaizki ikusten jendeak bide hori hartzea, baina, ni ez naiz". Itziar


Pilotariak lehiakortasun mailaren arabera hiru multzotan banatu arren, ordea, lehiatzea oroz gairik ez dago pilotari federatuen artean. Batzuk besteek baino grina handiagoa erakusten dute garaipenak lortzeko, baina nik uste dut guztiek neurri baten barruan kokatzen dutela lehia kutsu hori.

Federatuen taldeko pilotarien soslaiekin amaitzeko, ikerlan honetan parte harturiko pilotarien artean bada gurpil aulkian jokatzeko ari den bat: Itziar. Besteengandik ezberdintasuna, batetik, jokamoldean bertan dago eta bestetik, berriz, gizonezko eta emakumezkoak elkarrekin lehiatzean. Berak ezberdintzen du bere jarduna bi alderdi horiek aintzat hartuta:

“Bai, bada oraindik ere 3. mailan igual edo 4.a, ez? Bai, ba, hori, kirola egiteko beste modu bat da, baina, bai, azkenean lehenengo maila edo maila zerean jarriko genituzke mutilak igual, gero igual neskak atzetik eta, gu, oraindik ere, ba, beste 3.maila batean. Eta, adibidez, Iñigok edo uste dut, gainera, komentatzen zuela elkarrizketa batean, ‘beno, zer, zuek kirol egokitu eta zer moduz?’, justu galdera berdina, eta ‘gu gara emakumeak bezala’ esaten zuen, eta esan nuen nik ‘bai, eta, ni, emakumea eta, gainera, elbarritua, ez?’. Azkenean, beste diskriminazio puntu bat bezala da”. Itziar

Hargreavesek (2000, 191 or.) dio ezintasunen bat duten emakumeak direla diskriminaziorik handiena pairatzen dutenak, bikoitza, bat generoan oinarritua eta bestea gutxitasun horretan, erabat ikusezinak bihurtuz.

Ondorengo mapa kontzeptualaren (ikus 3.1. irudia) bidez laburtuko ditut pilotari federatuen ezaugarriak zeintzuk diren.



3.1. irudia. Pilotari federatuen identitatearen baitako berdintasun eta ezberdintasunak.

3.3.2. Aisialdiko pilotariak: sekula ez da berandu

Aisialdian antolaturiko ikastaroetan hasitakoak, berriz, oro har ez lehiakorrek dira, hemen ere salbuespenak badauden arren, txapelketak ez dira multzo honetako berariazko ezaugarri, jarduteko gune egonkor eta nagusiak paleta ikastaroetako saioak dituzte, ez asteburuetako partiduak eta horietara bideratutako entrenamenduak, eta helduaroan hasi dira gehienak pilotan modu antolatuan. Hau da, pilotarekiko atxikimendu maila bat mantendu dute erdiek baino gehiagok aurretik ere, gustuko kirol lez deskribatzen dute, baina pilotari izateko urratsa helduaroan eman dute emakume hauetako gehienek.

“Siempre me ha gustado y es lo mejor que he hecho en mi madurez”. Zuriñe

“Betidanik gustatu izan zait niri pala mundua eta hori. Ez dakit. Izan da kirol bat ez praktikatu dudana, ez dut praktikatu inoiz, beno, umeekin bai, umeekin beti frontoian edo horrela, baina behin ere ez naiz hasi horrela afizio moduan eta jolasten eta ez. Beti gehiago jo dut txirringaren mundura”. Karmele

Joanari galdetu diot ea aurrez ibili izan den paletan eta berak erantzun dit lagun batekin baietz, ibiltzen dela, orain hasi direla astearteetan ere euren kabuz geratzen eta gaineratu “askotan hobea da jakin gabe jotzea, bestela, hainbeste gauza pentsatzen nahasi egiten naiz azkenerako”. Ni animatzen eta lasai egoteko esaten jardun naiz, ikastaroan eta pilotalekuan orduak sartu ahala hobetuko duela eta. “Ea hala den” edo horrelakoren bat bota du. Esan dit 37 urterekin izena eman duela, aurrez ikastolan aritzen zirela, haurretan, baina, orain, bi seme izanda, haiek ikastolan utzi eta ondoren etortzen dela.

(Kontakizunak eranskina: 141)

Pilotari federatuetan gertatzen den modu berean, aisialdiko pilotariek ere atxikimendu maila ezberdina dute pilotarekiko, batez ere loturaren sakontasunaren arabera eta jarduteko maiztasunarekin deskribatuko dudana.

- Ikastaroko saioak baino ez: astean behin paletan aritzen direnak, asteroko ikastaroko orduan. Hortik aparte ez dute jarduten pilotan.

G. Asetzen zaitu asteazkenetako jardunak?

“Bai, bai. Beno, akaso ez didatelako proposatu ere egin, e, noizbait igual esaten badidate ‘beno, palan jolastera joango gara?’, ba, agian joango nintzateke, e, ez dut ezetzik esaten, baina ez da kasua eman. Pala hor poltsan txukun-txukun jasotzen dut eta astebate barrura arte”. Karmele

- Saioetan eta euren kabuz jarduten direnak: ikastarotik kanpo ere paleta saioak egiten dituzten pilotariak.
 - o Jarraitasunez: maiztasunak nahiko zehaztuta dituzte eta ia astero egiten dute ikastarokoaz gain beste paleta saioen bat.

“Oraintxe ibili gara, bai, normalean asteazkenetan. Normalean astean bitan, ikastaroa eta beste bat. Batzuetan ostiralen ere bai, norbait aurkitzen badugu, eta orain Tilosetako txapelketa horrekin larunbat goizetan ere batzuetan ibiltzen gara, zeren batzuk ezin dute astegunear, orduan larunbatean, eta ni denetan, kar, kar, kar. (...). Pasatzen naiz gabe, baina bai, bai, baina ibiltzen naizenean gustura ibiltzen naiz”. Ainara

Ama eta biek alde egin dute lehenengo, beste inork baino lehen. Hala ere, “asteazkenerako bai?” galdetu du eta “bai” erantzun diote gainerakoek (B.K. Astean bi saio egiten dituztenak fin aritzen dira horretan, antza).

(Kontakizunak eranskina: 117)

- Tarteka-marteka: okasioren bat sortzen bazaie paletan dihardutenak. Maiztasuna bakanagoa da eta ez dute asteroko jarraipenik.

Idoiarekin pilotatzen ari naizela galdetu diot ea ikastaroan hasiz geroztik joan den paletan aritzera haurrekin eta berak erantzun dit baietz, erraketan eta paletan aritu dela.

(Kontakizunak eranskina: 128)

“Ahora, por ejemplo, en este momento soy amona y este año se me ha interrumpido la, este año he fallado bastante. A los cursillos no fallo, eso es sagrado, y luego los miércoles solíamos quedar las del grupo o con la hija, con Jone, también suelo ir los sábados a jugar, pero ahora de momento estoy un poco ahí. Pero, bueno, con ganas sí y si tengo tiempo me apunto”. Zuriñe

“Palan aritzen gara orain batzuetan. Aurreko igandean aritu ginen eta hor goiko toldoan geratu zitzaigun pilota” esan du.

(Kontakizunak eranskina: 214)

- Ikastaroko saioak, euren kasako jarduna eta lehiaketetako ikusle: pilotari izateaz gain pilotazale izan eta emakumeen partidak ikustera joaten direnak. Txapelketa herrikoietan ere aritzen dira multzo honetako asko.

Azken pasabide estuan aurrera pilotalekuan sartu orduko trasteak harmailetan utzi eta ohartzeko elkarren inguruan bilduta hizketan ari ginen berriro ere, ohiko moduan. Bezperan jokatu omen zituzten haurren Hernaniko txapelketako finalak pilotaleku honetan bertan eta kide batzuen seme-alabak aritu omen ziren finaletan. Ainararen alabak irabazi egin omen zuen teniseko pilotarekin paletaz eta semeak, berriz, galdu. Hiruzpalau kide izan omen ziren goiz pasa jaialdia ikusten.

(Kontakizunak eranskina: 570)

Autoa kiroldegi atzeko aparkalekuan utzi eta kiroldegi aurrera hurbiltzean Malen sarreran dago jadanik. Bezperan Tolosan finalak ikusten izan zen, Ainara, Gemma eta Zuriñe ere bai.

(Kontakizunak eranskina: 243)

Lehiakortasuna erlatiboa bada ere, hemen ere irabazteko grina eta nahia agertzen duten pilotariak aurkitu ditut, ez dutenak bezalaxe. Izan ere, nahiz eta antolaketa sistemak ez duen berezkoa lehiaketa kutsua, aisialdiko hainbat pilotarik lehiatzeko gogoaz azalatu dute saioetan, kideen aurka garaitzeko nahia. Oinarrian, ordea, multzo hau ez dut lehiakor lez izendatuko, askotan markagailuak ez duelako garrantzirik eta tanto kopurua gogoan ia inork ere ez duelako hartzen unetxo jakin batean ez bada.

Hala hasi eta txandaka leku denetatik pasa gara. Aurreko eta atzeko guneetan bi partida jarraian eta erdikoan bakarra. Guztira 7 jokatu ditugu. Guri ez zaigu tokatu Malen eta Rakelekin. Beste denekin bai. Tantoak kontatzen dira, baina, inor ez da markagailuarekin obsesionatzen. 1:1 egoeran askotan pilotatzen amaitu dira partidak, eta atzean ere askotan ez da markagailua aintzat hartu sakea nori zegokion erabakitzeko ere.

(Kontakizunak eranskina: 5)

Partidak 6ra jokatu dira eta egia esan markagailua ez da inportanteena izan, tarteka kontua galduta ere ibili gara.

(Kontakizunak eranskina: 10)

- Ez lehiakorrak: euren burua ez dute lehiaren esparruan kokatzen. Ez diote lehiari tarterik uzten, txapelketan arituz gero helburua aritzea baino ez dute, eta jardutea da euren nahia funtsean.

“Me acuerdo que aquella estaba suelta y yo le dije ‘tú yo si quieres me apunto, pero a mí no me chilles’, porque aquella tenía muy mala gaita. Bueno, mala gaita no, tenía un pronto. Yo la verdad creo que no soy competitiva, tengo ahí un esto. Yo voy a disfrutar. Hombre, a veces te picas, joe, es normal, dices ‘si le podía haber dado a ésta’ y voy a disfrutar. Me acuerdo que me apunté y la verdad que lo pasé bien. Ya sabía que no íbamos a hacer nada, pero yo disfruté. Además, me encanta, me encanta no, pero me llama la atención lo competitiva que es la gente, o sea, yo que siempre he sido un poco pasota, no sé, y ves y yo allí alucino”. Zuriñe

“Pilotan nik ez dut nire burua ikusten lehiatzen aritzeko. Orduan, ez dakit, iruditzen zait dela ariketa egin, ondo pasa eta nik lehiatik kanpo ikusten dut. Lehengo eguneko emakumeena ere lehia zen, noski, inori ez zaio gustatzen galtzea, tantoak egin nahi genituen, baina, beno, esaten duzu ‘saiatzen zara ahal duzuna egiten’. Nik ez nuen kristoren disgustua hartu eliminatu nindutelako, beno, eta nire kide bat joan izan balitz nire orde, beno, lasai asko, animatuko nuen eta berdina egin izan balu, ba, beno, saiatu da eta kito. Ez nioke, ez dakit, ez diot lehia horri garrantzirik ematen momentu honetan. Ulertzen dut beste garai batean balitz, agian beste adin batekin, igual maila hobea hartzeko garaian harrapatu izan banindu, ba, igual beste modu batera joateko nukeen, baina, orain, ia urte hauekin ez daukat inolako zerarik beste modu batera hartzeko gauzak”. Gurutze

- Lehiakortasun neurtua: lehiakorrak dira, baina neurrian, egoeraren arabera euren jokatzeko modua nabarmen egokitzeko gaitasuna dute. Lehiatzeko grina azaltzen dute, baina ez dira itsutzen irabaztearekin.

Erdiko eremuan Ainara eta Rakel hasi dira eta lehenak ez du zailtasun handiegirik

izan irabazi eta aurreko eremura pasatzeko aukera lortzeko. Hala ere, bere jokatzeko modua egokitzen du tokatzen zaion taldekidearen maila eta ahalmenetara, ahal duen heinean, noski. Saioari esan diot hori bera eta ados agertu da nirekin, bera dela guztien artean egokitzeko joerarik handiena duena, lehia eta parte hartzearen artean oreka ederki aurkitzen duelako.

(Kontakizunak eranskina: 296)

Saioak eta Onintzak lehenengoz egin dute jokatzeko elkarrekin topo saio honetan eta beste kasuetan pasatutakoaren antzekoa pasa da, nahi bezala aritu dela lehenengoa. Hala ere, jokoa egokitzen du eta pilota emakumeek iristeko moduan botatzen du bai abiadurari eta bai noranzkoari dagokionean ia beti.

(Kontakizunak eranskina: 303)

- **Lehiakorrak:** lehiarako sena nabarmentzen zaie, tantoa egiteko grina nagusitzen zaie eta askotan irabaztea gailentzen zaio paletan gustura jarduteari.

Korrika saioaren ondoren berriz ere korro batean jarri gara guztiok eta asteleheneko finalerdiaz aritu gara, bat baino gehiago izan baikinena ikusten. Jakin dugu ostegunean jokatu dutela 3-4.posturako partida eta ostiral iluntzean finala. Finalerdiaren gainean esan dute “bagenekien guk atzean zegoela zuloa, zuk aurrean gaina hartuko zenigula, esan dezagun garbi” esan du Mirenek eta Ainara eta Gemmak hori bazekitela esan dute. Ondoren esan dute zalantza egin zutela partidaren zehar kokapenak aldatu ala ez eta horren gainean hasi gara. Nik esan diet “niri ez zait gehiegi gustatzen erdian aldatzen hastea, ez dago jakiterik” eta norbere usteak agertu ditugu modu horretako aldaketen gainean. Gaur Malen falta dela eta lehiakorra dela esaten ere aritu dira une batean.

(Kontakizunak eranskina: 541)

Irati aurretik atletismoan aritua da eta taldean beste asko baino lehiakorra izatearen itxura hartzen diot, saioz saio hala dela ia konfirmatzeraino, bere ezinegona eta tantoak galtzean esaniko “mierda” edo “joe” horiei tiraka.

(Kontakizunak eranskina: 141)

“Gero segun zeinekin haserre bukatzen dut, ze ni konpetitiboa naiz baino bera konpetitiboagoa eta...” Ines

Lehiakortasunak berak, multzoen bereizgarri lez, aisialdiko talde bakoitzean intentsitate eta ezaugarri ezberdinak izan zituela esango nuke, Hernaniko lehiakorrenetatik hasi eta Zizurkilgo ez lehiakorrenekin amaituz, tartean kokatuz Usurbilgo taldea. Ondorengo hiru aipuetan Hernani, Usurbil eta Zizurkilgo kasuak dira aipagai hurrenez hurren.

Banakako txapelketaren gainean emakumeei ez diet zuzenki galdetu zer iritzi duten, baina, ez dakit benetan erakartzen ote dituen emakumeen ikasturte amaierako festan euren taldearen ordezkari lez parte hartzeak. Iruditzen zait zentzu horretan Hernanikoak nabarmen direla lehiakorrak, bezperako saioak partidak ikusi besterik ez dago. Agian joko-maila ere egon daiteke honekin harremanetan.

(Kontakizunak eranskina: 328)

Partidetan ikusitakoak, eta bereziki berdinketa hausteko sortu diren gorabeherak, aintzat hartu eta azpimarratzeko modukoak iruditzen zaizkit. Nahiko argi geratu zait

niri geurean ere lehiakortasuna agertzen dela batzuetan, baina galtzeko arazo handirik ez diet ikusten nire taldekideei, entrenatzaileari bezalaxe. Hala ere, astelehen goizetakoei min handiagoa eman die emaitzak, akaso uste handiagoarekin eta asmo ezberdinekin bertaratu direlako.

(Kontakizunak eranskina: 497)

“Banakako partidak bukatuta al daude hemen?” galdetu dut nik une horretan eta entrenatzaileak “ez, baina, gutxi falta dira eta ez dago presarik” erantzun dit. Ondoren esan digu “Hernanin ia datorren astean amaituko ditut, Tolosan hiru eremutan ari naiz eta oraindik ez ditut bukatu” eta partidaren harira nola dabilen adierazi digu entrenatzaileak. Orduan Gurutzeri halaxe atera zaio Tolosako berri jakitean “lehiakorrak dira”, eta “ez al zarete denok, gehiago edo gutxiago?” bota dut nik, informazioa atera asmoz. Entrenatzaileak hartu du hitza beste inork baino lehen, “hemen? Hemen ez. Ni etorri nintzen lehen egunean jotzera mugatzen ziren”, baina, nik ziria sartzen jarraitu dut eta partidetan ez al diren serioago aritzen galdetuta “beno, agian pixka bat bai” erantzun dit Gurutzek.

(Kontakizunak eranskina: 424)

Beste esparru batzuetan ondorioztatu dute, Kanadako futbolearen adibidez, jarduera oso lehiara bideratzean hainbat emakumek utzi egin ziotela jarduteari, ez zutelako txapelketa soiletan aritu nahi, eurek aisialdi eta gozamen iturri lez ulertzen zutelako euren jarduna (Hall, 2003). Modu berean, zenbait emakumek arrakastaz gozatu eta lehiatzearen zirrara gustagarri izan arren, asko dira lehiakortasunak eta errenditu beharraren presioak mugatzen dituen neskak (Hills, 2007). Heziketa fisikoko saioak aztertuta Solerrek (2009) ondorioztatu zuen neska zenbaitek emaitzari ez ziotela garrantzirik ematen. Beraz, bat dator emakume pilotarien jarduna ere lehiakortasunaren gaineko ikuspegi honekin oro har.

Lehiakortasunarekin erlazionatuta dago txapelketetako parte hartzea normalean. Atal honetan ere ezberdintasunak nabarmenak dira aisialdiko pilotarien artean, bai baitira txapelketan aritzea gustatzen zaienak, sekula aritu ez direnak eta arituko ez direla diotenak, noiz edo behin bakarren batean parte hartutakoak eta baita txapelketan aritzeari lehia kutsua eman beharrean beste zentzu edo esanahi bat ematen diotenak ere. Ondorioz, ezaugarri honen gaineko banaketa ere egingo dut pilotarien arabera:

- Txapelketetan aritzen ez direnak.
 - o Gustatzen ez zaielako eta nahi ez dutelako.

“Ez, eta badakizu ez zaidala gustatzen, gainera. Kar, kar, kar! (...) Jende aurreko gauzak ez zaitzkit gustatzen. Batik bat bakarrik hor, ez, ez”.

G. Beno, binaka izango litzateke, ez?

“Bai, baina hor jende guztia begira. Baina, ez da palan bakarrik, e. Beste gauzetan ere ez zait gustatzen, ez nuke esango nabarmentzea, baina, hor, horrela, ni jende artean eta disimuluan. Bai eta pala justu asko begiratzekoa da. Baldin balitz mendi martxa bat igual zait jendea begira egotea, azkenean denak

zoazte horrela, baina justu pala izaten da bi pertsona jolasten eta ez, hori ez”.
Itsaso

○ Mailarik ez dutelako.

“Ba, nire mugengatik. Nik badakit, ba, beno, aurreratzen ari naizela, noizbehinka ematen diot, baina nik ez daukat mailarik txapelketara joateko. Orduan, ba, beno, garbi daukat.”

G. Eta maila edukiko bazenu igual probatuko zenuke?

“Bai, igual bai, zeren ni lehiakorra naiz, baina horretarako ere ikusi behar duzu lehiatzeko gaitasuna daukazula. Joateko eguna pasatzera ez naiz joango. Nahiago dut norbait animatzea. Nik uste gehiago laguntzen dudala nire animoekin edo. Bai, nik uste baietz”. Eli

“Erridikulu sentsazio bat. Gero ikusiko banu ondo jolasten dudala edo segurtasuna daukadala ezberdina izango litzateke. (...) Uf, ez dakit. Nik ez daukat segurtasun hori. Adibidez, pala askotan mugitzen zait eta ez daukat segurtasun hori. Datorren urtean igual”. Karmele

○ Adina igaro zitzaielako: beste adin batekin aukera honen aldeko hautua egin zezaketela sentitzen dutenak.

“Txapelketa, azkenean, ia gure adinarekin, ba, ondo dago gure artean pike hori, baina pike pertsonala, hori gustatzen zait, beste edozeinekin, ba, beno. Igual gertatzen zaigu topaketan jendea ezagutzen duzula eta, beno, hor pikea sortzen baldin bada bai, baina bestela ez”. Eli

“Hainbeste jenderekin eta adin honekin ez nuke hemen parte hartuko nik”. Ines

Aisialdira bideratua izanagatik jardun gehiena, ordea, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere, geroz eta gehiago dira adinekoen artean lehiarako grina piztu zaien emakumeak, errendimendura begira hasi direnak, genero arauak eraitsiz (Pfister, 2012). Nire kasuan, berriz, alderantziz izan da, adina aipatu dutelako pilotariak justu ez lehiatzeko arrazoiak bat bezala.

- Tarteka-marteka, bai eta ez, baldintzen arabera parte hartzen dutenak. Txapelketa zehazketan parte hartzen dute, gogoaren arabera eta lehiatzeko duten uneko grinaren arabera.

“Bueno, lo del polideportivo. Sí, se hace como ‘bueno, pues vamos a jugar, a ver qué pasa’. La verdad que la primera vez me apunté porque había una compañera que no tenía pareja y entonces le dije ‘si no te enfada conmigo yo me apunto contigo’. (...) La verdad que yo me apunté a ese campeonato y disfruté”. Zuriñe

“Beno, kiroldegikoan berriz parte hartuko nuke, nahiz esaten ari nintzen aurten ezetz, baina bai, kiroldegikoan bai, baina han goian eta pilota txikiarekin ez, ez. Gero, txikia zaintzen dut arratsaldeetan ere, bi urte eta erdi dauzka, eta nik pentsatzen dut ezetz, han ez. (...) Ni bakarrik ez nintzatekeela apuntatuko txapelketa batean eta Tilosetakoan ez”. Ines

- Inguruko txapelketetan aritzen direnak. Herri mailan antolatzen diren txapelketa herrikoietan parte hartzen dutenak dira, baina ez hortik kanpoko lehiaketetan.

G. Hurrengoa da ea txapelketetan parte hartzen al duzun.

“Ba bai, batzuetan bai”.

G. Zergatik, non, nolakoetan?

“Ba, hemen, Tilosetan orain atera da 7 Pasako hori, gomazkoarekin, orain hasi garela, eta bai, gustua hartu diogu eta, ba, ondo. Gero, San Joanetako-edo zena, txapelketan kiroldegian teniseko pilotarekin ere bai, baina gehiagotan ez, herrikoetan”. Ainara

- Herritik kanpoko txapelketetan aritzen direnak: Zarautz eta Getaria inguruan bereziki, Tolosaldean eta Oiartzun inguruan ere bai bakarren bat, badaude euren kabuz aisialdian paletan aritzeaz gain herri ezberdinetako txapelketa herrikoietan jarduteko joera duten pilotariak. Hauetako batzuk Getarian eta Zarautzen uda inguruan antolatzen diren txapelketa herrikoietan jarduten dira lehiatzen. Nire ikerketa taldeetan, ordea, ez dut halako kasurik izan eta garbi daukat kasuen gutxiengoa dela izaera honetakoa aisialdiko paletarien artean.

Txapelketekin amaitzeko, berriz, lehia eta txapelketa zuzenean lotuta ote dauden edo pilotari hauen kasuan txapelketa eta lehiaren arteko harremana hain estu eta matematikoa ez ote den iruditzen zait. Ez dut uste txapelketa oposizioaren sinonimo denik errealitate honetan. Neure zalantzak ditut. Izan ere, txapelketen berezko ezaugarri bat nor gehiagoka aritzea, elkarri gaina hartzeko grina, da. Emakume pilotari hauen kasuan, ordea, ikastaroen amaiera aldera jokaturiko banakako barne txapelketetan eta Emakumea Pilotari egunean bertan antolaturiko Gipuzkoako Txapelketa Herrikoiko azken fasean ere lehia muturreraino eramanez azken emaitza ez zait iruditzen, jardutea bera eta norbere buruarekin konforme geratzea nabarmenduz, azken emaitza eta garaipen edo porrotaren gaindik gehienbat.

“Emakumea Pilotari egunean egon ginenean ere nik uste baino askoz ere hobeto. Esan nuen ‘beno, marabilarik ez dugu egingo, baina ondo’. Azkenean ni nire buruarekin, behintzat, gustura gelditu nintzen eta horrek balio du, ez? Bai, bai. Eta, beno, atzoko partidua ere ondo. Beste erronka bat zen, zeren herrian zen eta ematen zuen jende guztiak bazekiela, baina ez, ondo”. Jaione


G. Esan duzu aurten ez zarela apuntatu txapelketan. Zergatik, gainera, esan didazu. Hurrengo galdera justu hori zen, baina ez diozu aterik ixten.

“Ez, ez, ez”.

G. Probatuko zenuke igual. Erakartzen zaitu zerbaitek txapelketatik, edo?

“Ez, jarduteak bakarrik. Bai, bai. Bai, bai”. Karmele

Multzo honetako ezaugarriak dituzten pilotarien berdintasun eta ezberdintasunak laburbildu eta argi geratzeko ondorengo mapa osatu dut (ikus 3.2. irudia):



3.2. irudia. Aisialdiko pilotarien identitatearen baitako berdintasun eta ezberdintasunak.

3.3.3. Federatuak eta aisialdiko pilotariak bekoz beko

Federatutako pilotariak eta aisialdiko pilotariak aurreko bi puntuetan bereizita aztertu badituzte ere, multzo bakoitzaren gaineko xehetasunak sakon azaltzeko asmotan, jardun helburuak aztertzean askotan bat datoz euren interesak berriro ere. Ondorioz, pilotan aritzeari zer esanahi ematen dioten eta euren xedeak zein diren azaltzeko puntu honetan berriro ere multzo bakar batean sartuko dituzte pilotari guztiak, berdintasunak ezberdintasunak baino ugariago eta nabarmenagoak dituztela iruditzen baitzait helburuei dagokienez.

3.3.3.1. Zertara nator, zergatik nator?

Anitza, betea bezain ugaria da pilotan aritzeak pilotariei eskaintzen dien aukeren eta bertan aurkitu nahi dutenaren inguruko zerrenda. Pilotan aritzeko arrazoi ezberdinak agertu izan dituzte emakume pilotariek, baina egia da, era berean, askotan bat datozela pilotari askoren iritziak, testuinguru horretan antzeko nahiak partekatzen dituztela agerian utziz. Horrez gain, oso bakanak dira pilotan aritzea helburu bakarrarekin lotzen duten pilotariak, jardun ildo bat baino gehiago agertzen duten seinale.

“Egia esan helburu ezberdinak betetzen ditu palak. Bai, bai, egia da”. Eli

Ondoren puntuz puntu deskribatuko dituzte helbururik nagusienak eta hauen gainean jasoriko gogoeta eta iritziak.

- Ikasi eta hobetzea. Norbere maila aurreratu eta gauza berriak ikasteko nahia agertzen dute pilotariek, maila hobetu eta aurreratzeko asmoa.

“Bai, segitzen dut palan aritzea gustatzen zaidalako, iruditzen zaidalako gure ‘xarpoxokerian’, ze oso-oso saiatuak ere ez gara, gure ordu eta erdi hori ez dugu topera aprobetxatzen, baina, beno, ba hobekuntzak badauzkagula eta gauza batzuk hobetzen ari garela, gauza batzuk hobetzen ari garela”. Gurutze

“Ikusten dut, gainera, zer edo zer aurreratu dudala urte honetan. Bai”. Karmele

“Oso gustura pasa dut eta gero, ba, ikasi dudala. Ikasi dudala bai”. Irati

“Nire burua nik, eh... Nire helburua izan liteke, beno, ba, ezkerrez ez dut ezer ere jokutzen eta igual egunen batean ezkerreko hobetzea, baina, helburu finkorik... Nik badakit ez naizela ez dakit nora ailegatuko eta ez naizela inora helduko. Orain, bada, nire helburua izan liteke zerbait mehoratzea gauza batzuetan, baina, bestela, horrela, urrutira begira ez daukat helbururik ezarrita”. Olaia

- Gozatu eta ondo pasatzea. Paletan aritzea gozagarri zaie pilotari guztiei, dibertsioa jarduera egiteko eta gustagarri izateko ardatzetako bat bihurtuz.

“Ondo pasatzea, zeren eta azkenean, ez baduzu ondo pasatzen ez duzu jarraituko. Niretzat inportantea da ondo pasatzea eta hortik aurrera bakoitzak ipini dezala bere helburua”. Nora

“(…) eta emakumeekin nahi dut ondo pasatzea. Nik bai emango dizkiet aholkuak ‘ba, horrela jarriko bazina hobeto joko zenuke, mugitu’, gauzak esan bai, baina, begira jolastu eta ondo pasa. Ez aspertu. Etorri hona ordubete edo ordu eta erdi, izerdia bota eta zu ondo sentitzea”. Saioa

“Ba gustatzen zaidalako pala. Ez, horiek ez zaizkit gustatzen. Apuntatu nintzen gustatu egiten zaidalako pala”. Ainara

“En este cursillo disfruto”. Zuriñe

“Eta, gero, batez ere oso ondo pasatzen dudalako”. Gurutze

“Ez, besterik gabe. Lehendabiziko helburua gozatzea eta disfrutatzea, dudarik gabe”. Itxaro

Beste zenbait jardueratan ere aritzea bera gozamen iturri dela ondorioztatu dute, benetako atxikimendua sortuz emakumeengan, adibidez, motorzaleen eta futbolarien artean (Mateucci, 2012; Roster, 2007).

- Ihesbidea. Ohiko jardueretarako arnasbide da paleta, lasaitzeko estrategia.

“Pilota betidanik gustatu izan zait eta ni ondo ikusten naiz pilotan, desahogatzeko-eta, behar nuen, ez dakit, ohitura puskatzea, zeren eta beti betikoa egiten dut eta aldatzeko edo lasaitzeko, behar nuen aldatzea”. Irati

“Egiten dudan kirola astean zehar aerobic eta pala da eta aerobicean asko pentsatu behar da edo kontzentratuta egon behar da eta tesiarekin ia nahikoa agobio izaten nuen, deskonektatzeko errazagoa delako pala”. Itsaso

Elik “ni ere hasi nintzen orain urte batzuk baina buruari bueltaka aritzen nintzen eta uztea erabaki nuen. Hemen ez dizkiet gauzei bueltak ematen” (B.K. Ihesbide edo lasaitzeko terapia garrantzitsua da emakumeen hitzetan saioa, beraz).

(Kontakizunak eranskina: 325)

Jarduera fisikoa eta kirola egitea ohikotasunetik aldendu eta lasaitzeko edo baretzeko tresna lez beste hainbat ikerlanetan ere aipatu izan dute (Pfister, 2012; Roster, 2007; Walseth, 2006).

- Osasuna zaintzea. Norbere osasuna hobetzeko tresna lez erabiltzen dute pilota.

“Bai, bai, besoko minik eta ez daukat, ez belauneko minik, ... Ez daukat, ez, ez, ez hankak handitu eta korri ere pilotak harrapatzen ditut. Ez, ez, pilotan oso gustura nabil, bai, bai eta ikusten dut ibiltzeko ere ... Atzo ere mendira joan nintzen, San Markosera, dena da gora, ordubete da gora-gora eta nik gaur goizean ez neukan agujetarik, ez neukan ezer eta hori uste dut pilotarena dela. Ez neukan agujetarik

eta ez ezer ere". Ines

"Nik uste, gainera, behin berrogei urtetik aurrera guri komeni zaigula kirola egitea, bestela ni ikusten naiz, beno, askoz ere kilo gehiagorekin, egia da, kirola ez banu egingo eta saiatzen naiz beti kirola egiten eta kirola ez baldin bada behintzat ibiltzera joan eta gustatzen zait". Karmele

Osasun ikuspegitik jarduera fisikoa eta kirola egiten dutenak beste hainbat ikerlanetan ere aurkitu ditut, aktibo mantentzea eta biziberritzea onuragarri zaiela aitortzen baitute emakume horiek ere (Pfister, 2012; Roster, 2007).

- Lehiatzea. Lehiakortasunaren gaineko gogoeta mamitsuagoak egin ditut profil bakoitzaren barnean, baina begi bistakoa da zenbait pilotariri lehiatzea bera ere gustatzen zaiela eta hori ere badela pilotari izateko arrazoi bat eurentzat.

"Bai, gustatzen zait. Batzuetan urduri ere jartzen naiz, baina bai, ondo pasatzen dut. Ondo pasatzen dugu azkenean eta bai, gustatzen zait lehia puntu hori". Ainara

"Eta helburua, ba, zentratzea trinketean, trinketean leku bat topatzea eta eroso jolastea. Hori zen helburua. Eta, gero, ba, txapelketak jolastu eta ahal zirenak irabazi eta horrela". Janire

Beste ikerlanen batean ere lehiatzeko gogo eta asmoa jarduteko ildoen artean aipatua izan da (Pfister, 2012).

- Sozializazioa eta jendearekin hartu-emanak izatea. Harremanek ere garrantzia handia dute paletan jarduteko asmoa izateko.

"Azkenean, helburua da jendearekin harremana, e, ba, beno, hitz egin, e ..." Eli

"Azkenean, jendearekin egoteko modu bat da". Haizea

"Ez dakit, niri pilota gustatzen zait eta gustura ibiltzen naiz. Gero, pilota munduan dagoen jendea, orokorrean, jatorra da eta beraiekin ondo pasatzen dut, 'kutxipanda' ederrak egiten ditugu. Esan nahi dut, txapelketa egiten duzu, baina, gero bazkaria edo juerga batzuk, eta alde horretatik ondo dago". Eider

"Eta, gero, nik uste izaten dela, halakoetan, beste arrazoi bat, pixka bat, jendea ezagutzearen ere bai. Nire kasuan, behintzat, zure moduko egoeran dagoen jendearekin egon pixka bat eta hori". Itziar

"Al final, es, no, es porque el disfrute de ese deporte de lo que estoy haciendo y lo que conlleva también alrededor. Al final, pues, son esas amistades, esa gente que conoces, el grupo que se hace, pues, al final, es casi otra familia. Yo, para mí, digo 'joder, es que tengo la familia de la pelota'. Es una pasada y hacer muy buena amistad". Nekane

Kasu honetan ere autore bat baino gehiago dira kirolean eta jarduera fisikoetan aritzea emakumeentzat harremanak izan, jende berria ezagutu eta sozializatzeko bide lez ere baliagarria dela diotenak (Egibar eta Garai, 2009; Pfister, 2012; Roster, 2007; Walseth, 2006).

- Ahalduntzea eta mugak gainditzea. Badira pilotarien artean euren asmoen artean pilotaren alde bidegile lana egitea dutenak eta euren ondorengoei egokiera hobea uzteko aritu zirenak eta direnak ere.

“El ver que las chicas no tengan que tener esas pegas y el tener que estar peleando. ‘No, no, tú, por chica, quédate aquí o quédate allá’. No, no. Las niñas, desde que quieran y les dan la pelota, pues, que tengan el camino muchísimo más llano que lo que hemos tenido nosotras. Que vayan y que haya unos campeonatos para poder jugar, como los chicos, y sean bien vistas, y nadie tenga que comentar si eres una marichico o dejás de serlo. No, porque eres una chica, y tan femenina o más que cualquier otra. ¿No? Pues, unas seremos de una manera y otras de otra, que no tiene por qué”. Nekane

“Era berean, ulertzen nuen egin beharra geneukala, bestela hemengoa bertan behera geldituko zen, galdu egingo zen eta, orduan, nik beti sentitu dut gu hor gabiltzala, urte gehiago daramatzagunak, eta tira ere egin behar dugula jende berria etorri arte. Beno, gaur egun badaude pixka batzuk, eta, beno, beti zubi lan hori egiten. Ez dakit, ni gustura ibiltzen naiz”. Eider

“Nire helburua zen, beno, nola urtero antolatzen zen pilota txapelketa, ez zegoen ez azpiegiturarik, ez zegoen ezer ere eta prestatzea neska batzuk. Gainera, ikusi egiten nituen neskak. Ez banuen ikusi frontoian inor ere, bada, esango nuen, ‘bada ezer ere ez’, baina, ikusi egiten nituen eta esaten nuen, ‘ea, norbaitek...’ Eskubaloian hori pasa baitzen, taldea desagertu egin zen, eta nik historia ikusi egin bainuen. Zergatik desagertzen dira taldeak? Ez dagoelako inor hori eramateko. Sakrifikatua da? Bai, baina, gero, esker on asko jaso ditut, orduan, ni konpentsatzen nau horrek”. Ibone

Kirola jendartean ezarrita eta errotuta dauden genero ezberdintasunei aurre egiteko tresna lez ikusten dute zenbaitek, jarduteko arrazoi potoloa izanik hori, horrek esfortzu eta lan handia eragiten duela jakin arren, ildo honetako aldaketak motel eta kostata ematen baitira (Packard, 2009).

Hala ere, guztiak ez daude prest eta prestatuta aldaketa prozesu horietaz jabetu eta sustatzeko, sexismoaz jabetzeak ez baitu zuzenean, era automatikoan, emakumezkoen egoera hobetzeko nahia bideratzeko jarduerarekin loturarik izan (Thorpe, 2009). Emakume pilotarien artean ere denetik dago, mugez ohartu eta gainditzea nahi duenik eta bere egoerari erreparatu eta ongizate horrekin konformatzen direnak. Jarrera hau kritika iturri da bat baino gehiagorentzat:

“Nik pentsatzen dut aski. Lehiaketa mailan gauzak ongi antolatuak eta ongi finkatuak direla. Ba hori, zure elkarteko lehiaketa maila, gero hor pentsatzen dut,

ba, guri dela izpiritua ematea, adibidez. Batzuk egiten dutena da elkartetik atera eta maila duen beste neska batekin, ondoko elkarteko batekin, jokatzea. Nik hori pena atzematen dut. Nik atzematen dut, ba, justuki behar dugula atxiki hori, ba egin elkarteko txapelketa eta egin elkartean den bikotearekin, ya zerbait lortu edo ez lortu, eta gero ya hortik atera eta aukera badugu beste maila bateko lehiaketa horietan parte hartzeko. Nik hori pena atzematen dut, ba, neska batzuk ez jokatzea izpiritu horretan. Orain ia gure adinean arribatuta, erran dugun bezala, txapelketa bat irabazi edo galdu, gure adinean horrek ez du aldatuko, baina interesgarriagoa atzematen dut zure elkartean egon, gazte batekin jokatu eta egitea jakinez, ba, elkarteko lehiaketatik kanpo badugula aukera egiteko mailako txapelketa bat. Beraz, ez, nik hori gustura eta behar dugula horrela gauzak lotuak atxiki behar direla. Aldiz, ba, gehiago, ba, neskek izpiritua aldatzea eta ez bakarrik beren interes garbia ikustea horretan, ba, lehiaketa eta elkartzea bi maila oneko neska lehiaketa irabazteko. Egon bakoitza bere etxean eta parte harrarazi ondo neskei". Ekiñe

"El año pasado Nora y Edit me ayudaron, y Nora porque está en Vitoria, pero sé que si estuviese aquí me ayudaría también. Edit anda con el tema de trabajo. Sin embargo, pues, lo que yo veo, en la zona de Estella. Yo vengo de aquella zona, de Urbasa, que está a 30 kilómetros de Estella, y no trabajan absolutamente nada la pelota por las chicas. Y, a mí, Rebeka, con todo lo que sabe, le digo "venga, puñetera" y me dice "tú estás enferma". '¿Qué yo estoy enferma? Lo que tú tienes es unos huevos de kilo'. Porque no, 'sí, bastante hago con trabajar', sé que tiene un trabajo, pero yo también trabajo y, mira ayer, todo el día sin dormir, terminar y venga, a trabajar de noche, y hoy, otra vez aquí estoy, pero hay que hacerlo. Todo el mundo no quiere y tampoco le puedes exigir. Yo a Rebeka no le puedo exigir, pero me da pena. Digo 'con un poquito de esfuerzo tuyo, que luego hay otras chavalas también allá, podrías sacar y podríais tener chavalitas. Otra vez, empezar'. Porque, aquellas, o sea, la más joven creo que es Rebeka, bueno, no, Iraia, pero ya tienen sus treinta y muchos años todas. Entonces, eso se va a terminar. Pues, tendrían que preocuparse. Yo no quiero que se me termine aquí conmigo, en el Oberena. Yo quiero que sigan todas las demás y, al final, pues cubrir y tener de todas las edades. Pero, puf, hay quien se involucra y quien no pega ni chapa". Nekane

3.3.3.2. Helduak eta gazteak

Pilotarien profilekin amaitzeko, eta jardun helburuekin loturatxo bat eginez, aipatu beharrekoa iruditzen zait hainbatek neska eta emakumeen artean egiten duten bereizketa. Izan ere, batez ere entrenatzaile moduan aritzen direnen esanetan oinarrituz, badirudi neska eta emakumeen jarrera eta helburuak ez datozela bat. Adinak pilotarien ezaugarri eta asmoetan zuzeneko eragina duela diote, besteak beste, Haizea eta Saioak.

"Ez, ba diferentea da, e! Hauekin, uf, korrika egin eta 'uf, korri zertarako? Nik ez dut korri egin nahi. Ni ez naiz etorri korri egitera, ni palan jolastera etorri naiz' eta ... Diferentea da adina. Adibidez, hau zaharrekin pasa zuten Idurrek eta Elaiak. Rebelde Way eta horrelako mobidekin eta iguala. Nik uste dut edadea dela. Orain zaharrekin super ondo, ondo. Harremana daukat. (...) Gero aurten hasi naiz emakumeekin eta da justu kontrakoa dena bai, bai, bai. Inork ere ez dauka kexarik". Haizea

“Ondoen emakumeekin. Niri errazagoa egiten zait eta uste dut, ez dakit, askoz hobeto. Neskekin gehiago kostatzen da, euren adina eta, uf! Gogo askotan denbora pasatzera etortzen dira eta zuk egun txarrak dauzkazu eta ‘aizu’, ez dira, ordubete askotan bi ordu baino luzeagoa egiten da”. Saioa

Emakumezkoak gozamen eta ongi pasatzearekin lotzen dituzte entrenatzaileek eurek, aisialdiko ikuspegia ematen diete ikastaroetako saioei eta bertan burutzen dituzten proposamenei. Nesken kasuan, berriz, batez ere ikastea, hobetzea eta txapelketetara bideraturiko ikuspegia nagusitzen zaie:


“Nahiko antzekoak dira saioak, baina igual ariketetan esplikazio gehiago. Nik diferentzia gehiena hori, neskekin hitz egiten denbora gehiago neskekin. Beno, emakumeekin hitz egiten denbora pasatzen dugu, kar, kar, baina igual ez dugu hitz egiten pilotaz. Baina neskekin bai denbora gehiago esplikatzen ariketak eta ‘hau zergatik egiten duzu gaizki, horregatik, horregatik’ eta zuzenketak-eta askoz gehiago”. Saioa

Paletan aritzeko jarreraren ere alde nabarmentzen dute, heldutasunean ezberdintasunak daudela azpimarratuz:

“Eta emakumeak beste jarrera batekin joaten dira. Emakumeak joaten dira palara eta da justu, hau antropologikoki oso esanguratsua izan liteke. Ez ba da igual momentu bakarra beraien familietatik kanpora daudena eta ez daudena beraien seme-alabekin edo senarrarekin edo ez daukatena lotura hori. Orduan beste predisposizio batekin datoz. Egia da kitorra batzuk direla, pila bat hitz egiten dutela, ez dakit zer, badakit zer, baina beraiantzako da liberazio momentu bat eta orduan horrela bizitzen dute. Zuk proposatzen duzun gauza oro ondo hartzen dute, ondo atera nahiz gaizki, zeren egon dira ariketak gaizki ateratzen direnak eta oso ondo pasa dugunak barre egiten horren kontura. Orduan hori super positiboa eta, jo, txarra hauekin ez dakit txarrik badagoen. Ez, horiekin orokorrean ondo. Ba bai, inprobisatzen ikasi dudala eta horrelakoak, orokorrean. Alde horretatik bai nabaritzen nuela. Ba igual gazteekin inprobisatuta edo gaizki aterata ere, ba, edo ez edukita pentsatuta ere, ba, ez ziotela hainbesteko zerarik ematen, baina igual hauekin bai eduki behar nuela gehiago landuta zer egingo genuen edo. Eta gazteekin konplikatuen da aurre egitea. Nik gogo gutxi baldin badaukat eta beraiek gutxiago, beraien atzetik ibili behar izatea. Bai, baina beno. Kosta hori. Gazteekin eduki ditut mobida batzuk. (...) Uf! Aurten edo lehengo urtean egon nintzen esatekotan ‘hau utzi egingo dut’. Nik uste dut edadea dela, baina momentu batzuetan errespetu falta eta dena dago. Hor ya gogorra. Bai eta ni askotan sentitzen nintzen beraien irakasle bat bezala edo beraien ama bat, horrela hartzen zaituzte, eta ni ez naiz beraien irakasle bat. Daukate kontzeptu hori ‘hau oraindik ikastola da’ eta ‘hau ez da ikastola, zu zatoz hona nahi duzulako’”. Haizea

Alderaketa hauek egitean ezinbestean aintzat hartu behar da, antolaketa sistematik hasita, eskaintza bera dela bereizgarri. Batzuk, neska gazteek, derrigorrez lehiatzea beste eredurik ez daukate eta besteek, emakumezkoek, aldiz, hautu libreagoa egin dezakete, bi eredu badituztelako: federatua eta aisialdikoa. Hori dela eta, ezinbestekoa zait galdera bat egitea: aisialdiko eskaintzarik balute nerabeen jarrera halakoa ote litzateke?

Jarduleen profilen gaineko zertzelada nagusienekin laburpen bat eginez, pilotari profilen gaineko ezaugarriak nabarmenenak hautatu eta irudi bidez aurkeztea erabaki dut, federatuen eta aisialdikoek ezaugarriak bertan bilduz (ikus 3.3. irudia). Ikuspegi honen bidez ezaugarri bereizleak eta bi taldeen arteko ezberdintasunak nabarmentzeko hautua egin dut, zerk ezberdintzen dituen nabarmendu asmoz.



3.3. irudia. Pilotari federatu eta aisialdikoek irudikapen grafikoa.

4. Pilotaria naiz... eta harro nago!

Kapitulu honetan zehar genero ikuspegiaren arabera identitatearen eta pilotari nortasunaren sorrera, eraikuntza, mantenua eta moldaketetan oinarrituz plazaratutako ideiak abiapuntu hartu eta emakume pilotariez osaturiko irudia agertu eta mamitu ostean, amaitzeko, ezinbestekoa zait horiek duten eraginaren gaineko hausnarketa sakon eta zorrotza egitea. Izan ere, pilotariengandik jasotakoa, literatura zientifikoan irakurritakoa eta nire bizipen, iragazki eta esperientziak uztartuta, betaurreko moreak jantzi eta errealtatearen irakurketa kritiko-interpretatiboa egitea oinarritzkoa eta behar-beharrezkoa dela deritzot. Hala egin ezean aurrerapausoak ematea askoz nekezago eta zailagoa litzateke, aldaketaren bat gertatzea ia ezinezkoa nire ustez, lehengoan, gurpil zoroan, bueltaka aritzeak onura baino kalte gehiago egingo ligukeela ohartaraziz.

Gaur egungo sistema politiko, kultural eta sozialak eta honen izaera zein antolaketa ezaugarriek bete-betean eragiten diote euskal pilotaren ereduari eta, hortaz, baita emakume pilotarien errealtateari ere. Eredu patriarkalak (Cockburn eta Clarke, 2002; Connel, 1987; Deutsch, 2007; Maharaj, 1995; Rocha-Sánchez, 2009) gidatzen du gure mundua eta, beraz, horixe bera da euskal pilotako ingurumarian ere jaun eta jabe gaur gaurkoz. Nahikoa da azaleko begirada azkar bat ematea testuinguruko desoreka, sexismo, diskriminazio eta oztopo, muga zein zailtasunak antzemateko. Guztiek eragiten diete emakume pilotari orori une batean ez bada bestean, eskenatoki batean ez bada hurrengoan eta giro batean ez bada bestean.

Lehen ondorio nagusi bezala nabarmendu beharrekoa iruditzen zait euskal pilotak ere egiturazko ezberdintasunak sortu, mantendu eta sustatzen dituela azpimarratzea, jendarteko, eta bereziki jarduera fisiko eta kirolarekin lotuta dauden beste hainbat esparrutan gertatzen den lez. Maskulinitasun hegemonikoak ezarritako arau, balio eta baldintzek majo zipriztindutako ingurumaria da kirolarena (Azzarito, Solmon eta Harrison, 2006; Baird, 2010; Deutsch, 2007; Dorken eta Giles, 2011; Elling eta Knoppers, 2005; Fasting, 2003; Hannon et al., 2009; Hargreaves, 1985, 90 or.; Hovden, 2012; Macías, 1999; Matteucci, 2012; Pfister, 2010 eta 2012; Puig, 2001, 70-71 or.; Soler, 2009; Velija eta Flynn, 2010; Velija eta Malcolm, 2009; Wright, 1995). Gaur egungo jendarteko egitura eta antolaketak pisu izugarria du euskal pilotan eta aldaketa, gaurkotze eta berrikuntzetarako galga sistema bat ezartzen du horrek. Salagarria iruditzen zait eta berandu baino lehen aldatu beharrekoa, urratsez urrats eta behar besteko patxadaz eta kontu handiz bada ere.

Emakume pilotariek, hala ere, korrontearen eta haizearen aurkako borroka gogorren bada ere, euren azpi-kultura osatu dute, pilotari izaera berezi eta bereizgarria sortuz testuinguruko beste hainbatekiko. Gainera, aintzat hartu behar da, Cockburnek dioen moduan (2002) identitate kolektibo bat osatu dutela, zeina norbanakoaren identitatearekin uztartzen duten. Hortaz, aldi berean antzekotasun eta ezberdintasunek batzen dituzte pilotari hauek, taldea heterogeneo bezain homogenea izan baitaiteke begiratzen zaion angeluaren arabera. Ildo horretan, aisialdiko pilotariak eta pilotari

federatuak elkarrengandik bereizteko ezaugarri multzo bat badagoen arren, neska gazte zein helduekin egin litekeen lez, antolaketa ereduak bereizle garbiak direlako, modu berean, badituzte elkarrengana bildu eta elkarlanean jorratu eta agertzeko adina ikur.

Oraindik ere gizonezkoen kirol lez etiketatu eta estereotipatutako kirola da euskal pilota (Del Valle, 2001; Etxebeste, 2012; González, 2005). Emakume pilotariengan zuzenean eragiten dute jendartean oso errotu eta hedaturik dauden hainbat aurreiritzi, uste eta irainek. Hori dela eta, identitatearen sorreran ere orpoz orpo agertuko dira esan hauen eragina eta pilotariak hori kudeatzeko beharra. Horregatik, ezberdina da pilotari nortasuna garatzerakoan bizitzako aldiaren indarra. Sistemara haurretan, nerabazarorako, edo helduaroan iritsiz gero, genero-identitatea finkatu gabe edo finkatuta dagoenean, hain zuzen ere, oso bizipen, uste eta sentimendu ezberdinak sor litezke, aurretiko bizipenek gure motxila bete eta gainzamatzen dutelako. Gainera, haurtzaro edo nerabezaroko bizipenek uzten duten arrastoa antzematen zaie pilotari askori helduaroan garai bateko ibileraz eta *handicapez* hizketan hastean. Beraz, haurtzaro eta nerabezaroko pilotan hasten direnekin tentu are handiagoa izan beharko litzatekeela uste dut, uneko egoeraren eta pertsona bakoitzaren ezaugarri eta nortasunaren arabera, hastapeneko erresistentzia eta oztopoek etorkizuneko pilotariak izatea bera ere baldintza eta oztopa dezaketelako. Hau oso aintzat hartu behar dute eragile guztiek eta bereziki hurrekin lanean ari direnek, euren jarrera eta joerak ez direlako oharkabean igaro ohi.


Genero identitateari helduta, maskulino eta femenino dikotomiak zeresana eta zer pentsatua eragiten du oraindik ere, antolaketa eredu askotan bi izaera hauek direlako sailkatzeko irizpide nagusi eta bakarrak. Hala ere, badirudi maskulinitasun eta femeninitasun hegemonikoen eraldaketa eragin litekeela kirolaren bidez (Dilley eta Scraton, 2010). Horretarako beharrezkoa izango litzateke balio femenino eta maskulinoak balioztatzea gizonezko zein emakumezkoetan. Alabaina, euskal pilotak maskulinitasun hegemonikoa sustatu eta errepikarazten jarraituko du ezaugarri femeninoei garrantzirik eman ezean.

Pilotarien nortasunaren sorrerak eta identitatea kudeatzeak dakartzan ajeak handiak badira ere, zailak, nekosoak eta mugatzaileak ere bai zenbaitetan, asko dira egungo errealitatea bizi eta besoak gurutzaturik geratu ez diren pilotariak. Bide horretatik euren ahalegina, askotan onartu eta aitortu gabea, ezinbesteko eta lagungarri da egoera irauli eta borroka fruituak eman ditzan. Ildo honetan, emakume asko ari dira munduan zehar gatazkan euren identitatearen alde. Kirola euren bizitzari esanahia emateko geroz eta esanguratsuagoa da. Horregatik, emakumezkoen kirola oso garrantzitsua da kiroleko gizonezkoen nagusitasunari aurre egin eta emakumeak askeagoak eta ahalduntze handiagoa dutenak bihurtzeko, euren jatorria dena dela ere. Izan ere, aniztasuna indargarri eta aberasgarri da emakume kirolarientzat (Baird, 2010; Hargreaves, 2000, 232 or.).

Laburbilduz, nabarmendu nahi dut eremu aldakorra dela pilotarien nortasun eta identitatearena, gaurkoak ez daukala zertan antziz txikiena ere izan behar atzokoarekin, eta ezta biharkoarekin ere. Kultura eta testuinguru sozialak zuzenean eragiten du, beraz. Bizipenak eta jarrerak ere aldatzen joan ohi dira denborak aurrera egin ahala, genero identitatea ere aldakorra delako (Krane, 2009; Thorpe, 2009 eta 2010).

Amaitzeko, argi utzi beharra daukat parekidetasuna, berdintasuna eta antzeko hitzak diskurtsoetan moda-modan dauden honetan, hitzetatik ekintzetara igarotzeko garaia heldu dela euskal pilotan ere. Izan ere, sistemak egituraz badu zer aldatu, mantendu eta ezabatu, oinarri-oinarritik hasita, hitzak hitz izateari utzi eta errealitate bihurtuko baditugu. Berdintasunerako urrats asko eta noranzko denetan emateko beharra premiazkoa bezain garrantzitsua da hemen eta orain. Izan ere, zentzurik ba ote du eskaintzak eta sistemaren egiturak? Zer du sostengu, zertan oinarritzen da? Bidezkoa al da? Komenigarria, gustagarria eta erakargarria al da emakume pilotarientzat?

Kapitulu hau ez nuke amaitu nahi, atrebentzia apur bat lagun, pilotarien izaera edo nortasuna eta genero-identitatearen gaineko ideiak uztartzen dituen proposamen bat plazaratu gabe. Aurrez eginiko gogoeta, kritika eta azterketetan oinarrituz, azpimarratu dut, Jeanesekin (2011) bat etorritz, femeninotasun berriak, genero identitate hegemonikotik ezberdintasunak dituztenak, sortzen direla eta asko nagusi den honen kontra agertu, gainera. Ondorioz, dikotomia hautsi beharra dago, aukerak ez direlako femenino eta maskulinoak soilik, bien artean aukera zabala dagoelako norbere nortasuna eta genero identitatea garatzeko (Thorpe, 2009 eta 2010). Beraz, pilotariak euren pilotari nortasunaren zein genero-identitateen arabera kokatzeko marko bat proposatuko dut, izaera neutrotik, pilotari denak multzo berean egotetik, bakoitza lerro horretan modu singularrangoan kokatzeko bidea eginez. Honetarako Jeanesek (2011) nesken portaera nagusien arabera mahaigaineratutakoa hartu dut abiapuntu. Autore honek femeninotasuna aldarrikatu eta adierazteko moduen arabera osatu zuen sailkapena.



3.4. irudia. Pilotarien femeninotasunak. Jeanesek (2011) proposatuaren moldaketa.

Norbanako adina singularitasun daude pilotan ere, pertsona bakoitzak bere izena duen era berean garatzen duelako bere-berea duen nortasun eta identitatea ere. Goiko lerro horretan nonahi koka lezake pilotari bakoitzak bere burua eta, gainera, izaera malgua izaki, noiznahi eman liteke ezkerrean edo eskuinean urratsen bat. Hala ere, bertan *Drag king* eta *Drag queen*en artean aurkeztutako lau aukera nagusiak xehatzen saiatuko naiz ondoren, bakoitzari atxikiriko ezaugarri garrantzitsuenak aipatuz:

- “Marimutilak”: joko aktiboekin gozaten dute, oso grinatsuak dira eta sutsuki jarduten dute kantxa barruan. Tentsioz bizi dute jokia eta zenbaitetan altu hitz egiteko, maldizioak botatzeko, keinuak egiteko eta desafioka aritzeko joera dute. Hala ere, ez dute nahi mutil baten antzik izatea edo mutil sinboliko lez izendatzea, askotan litekeena delako kanpotik hala egitea.
- “Kirolariak”: kirolean parte hartzen dute eta gainera gaitasun handikoak dira. Estatus handia lortzen dute kirolerako abileziari esker. Izaeraz apalak dira, nahiz eta irabazle sena izan.
- “Arruntak”: neska kirolarien eta femeninoen arteko nahasketa bat dira. Fisikoki erakargarriak dira eta gorputz argal gihartuak dituzte. Kirolean gaitasun handikoak dira, baina beste ezaugarri femenino batzuk ere badituzte: makilatzea eta pitxiak erabiltzea.
- “Femeninoak”: femeninotasun idealarekin bat datoz. Emakumezkoen kanona erabat betetzen dute, kirola euren gorputz irudia eraldatu gabe egiten dutenak dira, ez gihartuak eta ez dira gaitasun fisiko eta abilezia nabarmeneko kirolariak.

5. Erreferentziak

- Atencio, M., Beal, B. eta Wilson, C. (2009). The distinction of risk: urban skateboarding, street habitus and the construction of hierarchical gender relations. *Qualitative Research in Sport & Exercise*, 1(1), 3–20.
- Azzarito, L. (2010). Future Girls, transcendent femininities and new pedagogies: toward girls’ hybrid bodies? *Sport, Education and Society*, 15(3), 261–275.
- Azzarito, L. eta Katzew, A. (2010). Performing Identities in Physical Education: (En)gendering Fluid Selves. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 81(1), 25–37.
- Azzarito, L., Solmon, M. A. eta Harrison, L. (2006). “...If I Had a Choice, I Would...” A Feminist Poststructuralist Perspective on Girls in Physical Education. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 77(2), 222–239.
- Baird, S. M. (2010). *Who do you think you are? Constructing self/identity in women’s rugby through aggression, control and unacceptable behavior*. (Doktorego Tesia). University of Iowa.
- Blasco, D. (2003). Género y deporte. La educación física en la enseñanza pública. In X. Medina eta R. Sánchez (Ed.), *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España* (181–206 or.). Bartzelona: Icaria.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina* (1. ed.). Bartzelona: Anagrama.
- Chimot, C. eta Louveau, C. (2010). Becoming a man while playing a female sport: The construction of masculine identity in boys doing rhythmic gymnastics. *International Review for the Sociology of Sport*, 45(4), 436–456.
- Clark, S., eta Paechter, C. (2007). “Why can’t girls play football?” Gender dynamics and the playground. *Sport, Education and Society*, 12(3), 261–276.

- Cockburn, C. (2002). Identidades y subculturas en relación con el deporte: un análisis de algunas revistas para chicas adolescentes en Gran Bretaña. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 67, 98–109.
- Cockburn, C. eta Clarke, G. (2002). “Everybody’s looking at you!”: Girls negotiating the “femininity deficit” they incur in physical education. *Women’s Studies International Forum*, 25(6), 651–665.
- Connell, R.W. (1987). *Gender and power*. Cambridge: Polity Press.
- Del Valle, T. (2001). *Emakumeak Euskal Herrian: (erresistentziak eta hausturak)*. Donostia: Gaiak argitaldaria.
- Del Valle, T., Apaolaza, J. M., Arbe, F., Cucó, J., Díez, M. C., Esteban, M. L., Etxeberria, F. eta Maquieira, V. (2001). *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madril: Narcea.
- Díez, C. (2003). Deporte, socialización y género. In X. Medina eta R. Sánchez (Ed.), *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España* (159–180 or.). Bartzelona: Icaria.
- Dilley, R. E. eta Scraton, S. J. (2010). Women, climbing and serious leisure. *Leisure Studies*, 29(2), 125–141.
- Dorken, S. eta Giles, A. (2011). From Ribbon to Wrist Shot: An Autoethnography of (A)typical Feminine Sport Development. *Women in Sport and Physical Activity Journal*, 20(1), 13–22.
- Egibar, M. eta Garai, B. (2009). Emakume sokatiratzailleekin elkarrizketan: kirol sozializazioa. In O. Usabiaga, J. Castellano eta J. Etxebeste (Ed.) *Investigando para innovar en la actividad física y el deporte* (385–402 or.). Vitoria-Gasteiz: gidekit.com.
- Elling, A. eta Knoppers, A. (2005). Sport, Gender and Ethnicity: Practises of Symbolic Inclusion/Exclusion. *Journal of Youth and Adolescence*, 34(3), 257–268.
- Engh, M. H. (2011). Tackling femininity: The heterosexual paradigm and women’s soccer in South Africa. *The International Journal of the History of Sport*, 28(1), 127–152.
- Etxebeste, J. (2012). *Á Cloche-Pied. Les Jeux Sportifs Traditionnels et la socialisation des Enfants Basques*. Sarrebruck: Editions Universitaires Européennes.
- Ezzell, M. B. (2009). “Barbie dolls” on the pitch: Identity work, defensive othering, and inequality in women’s rugby. *Social Problems*, 56(1), 111–131.
- Fasting, K. (2003). Small country – big results: Women’s football in Norway. *Soccer & Society*, 4(2-3), 149–161.
- Fernandez-Lasa, U., Usabiaga, O. eta Castellano, J. (2012). Gu ere bagara: emakumeak eta pilota. *AEISAD XII. Biltzarra. Erantzukizun Soziala. Etika eta kirola*. Donostia, 2012ko urriak 25–27.
- Garcia-Retamero, R., Müller, S. M. eta López-Zafra, E. (2011). The Malleability of Gender Stereotypes: Influence of Population Size on Perceptions of Men and Women in the Past, Present, and Future. *The Journal of Social Psychology*, 151(5), 635–656.
- Garrett, R. (2004). Negotiating a physical identity: girls, bodies and physical education. *Sport, Education and Society*, 9(2), 223–237.

- Gilenstam, K., Karp, S. eta Henriksson-Larsen, K. (2008). Gender in ice hockey: women in a male territory. *Scandinavian Journal of Medicine and Science in Sports*, 18(2), 235–249.
- Gill, F. (2007). “Violent” femininity: Women rugby players and gender negotiation. *Women’s Studies International Forum*, 30(5), 416–426.
- González, O. (2005). *Pelota vasca: un ritual, una estética*. Bilbo: Muelle de Uribitarte Editores.
- González, J. M., Ruiz, L. M. eta Carrasco, M. (2007). The social construction of gender in Spanish physical education students. *Sport, Education and Society*, 12(2), 141–158.
- Gorely, T., Holroyd, R. eta Kirk, D. (2003). Muscularity, the Habitus and the Social Construction of Gender: Towards a gender-relevant physical education. *British Journal of Sociology of Education*, 24(4), 429–448.
- Grubb, M. V. eta Billiot, T. (2010). Women sportscasters: navigating a masculine domain. *Journal of Gender Studies*, 19(1), 87–93.
- Hall, M. A. (2003). The game of choice: Girls’ and women’s soccer in Canada. *Soccer & Society*, 4(2-3), 30–46.
- Hannon, J., Soohoo, S., Reel, J. eta Ratliffe, T. (2009). Gender Stereotyping and the Influence of Race in Sport Among Adolescents. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 80(3), 676–684.
- Hargreaves, J. (Ed.). (1985). *Sport, culture and ideology* (2. ed.). Londres: Routledge & Kegan Paul.
- Hargreaves, J. (1994). *Sporting females: critical issues in the history and sociology of women’s sports*. Londres: Routledge.
- Hargreaves, J. (2000). *Heroines of sport: the politics of difference and identity*. Londres: Routledge.
- Harris, J. (2007). Doing Gender on and off the Pitch: the World of Female Football Players. *Sociological Research Online*, 12(1).
- Hills, L. (2007). Friendship, physicality, and physical education: an exploration of the social and embodied dynamics of girls’ physical education experiences. *Sport, Education and Society*, 12(3), 317–336.
- Hovden, J. (2012). Discourses and strategies for the inclusion of women in sport – the case of Norway. *Sport in Society*, 15(3), 287–301.
- Jeanes, R. (2011). ‘I’m into high heles and make up but I still love football’: exploring gender identity and football participation with preadolescent girls. *Soccer & Society*, 12(3), 402–420.
- Juliano, D. (2000). Elaboraciones feministas y subcultura de las mujeres. In M. T. Del Valle (Ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social* (25-44 or.). Bartzelona: Ariel.
- Knapp, B. A. (2008). *Smash mouth football: an interpretive study of identities constructed and performed on a women’s football team*. (Doktorego Tesia). The University of Iowa.
- Krane, V. (2009). A sport odyssey. *Qualitative Research in Sport and Exercise*, 1(3), 221–238.

- Macías, V. (1999). *Estereotipos y deporte femenino. La influencia del estereotipo en la práctica deportiva de niñas y adolescentes*. (Doktorego Tesia). Universidad de Granada.
- Macro, E., Viveiros, J. eta Cipriano, N. (2009). Wrestling with Identity: An Exploration of Female Wreslers' Perceptions. *Women in Sport and Physical Activity Journal*, 18(1), 42–53.
- Maharaj, Z. (1995). A social theory of gender: Connell's Gender and Power. *Feminist Review*, 49, 50–65.
- Martín, M. (2006). Contribución del feminismo de la diferencia sexual a los análisis de género en el deporte. *Revista Internacional de Sociología*, 64(44), 111–131.
- Martín, M. (2012). The (im)possible sexual difference: Representations from a rugby union setting. *International Review for the Sociology of Sport*, 47(2), 183–199.
- Matteucci, I. (2012). Sport as a Cultural Model: Italian Women's Soccer over the Past Ten Years. *The International Journal of the History of Sport*, 29(2), 353–373.
- McGinnis, L., McQuillan, J. eta Chapple, C. L. (2005). I Just Want to Play. Women, Sexism, and Persistence in Golf. *Journal of Sport & Social Issues*, 29(3), 313–337.
- Neveson, N. eta White, P. (2002). Muscular, bruised, and sweaty bodies: this is not Barbie territory. *Canadian Woman Studies*, 21(3), 44–49.
- Norman, L. (2010). Bearing the Burden of Doubt: Female Coaches' Experiences of Gender Relations. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 81(4), 506–517.
- Packard, J. (2009). Running Off-tackle Through the Last Bastion: Women, Resistance, and Professional Football. *Sociological Spectrum: Mid-South Sociological Association*, 29(3), 321–345.
- Paechter, C. eta Clark, S. (2007). Who are tomboys and how do we recognise them? *Women's Studies International Forum*, 30(4), 342–354.
- Pfister, G. (2010). Women in sport – gender relations and future perspectives. *Sport in Society*, 13(2), 234–248.
- Pfister, G. (2012). It is never too late to win - sporting activities and performances of ageing women. *Sport in Society*, 15(3), 369–384.
- Pfister, G. eta Radtke, S. (2009). Sport, women, and leadership: Results of a project on executives in German sports organizations. *European Journal of Sport Science*, 9(4), 229–243.
- Puig, N. (2001). La situación de la mujer en el deporte al iniciarse el siglo XXI. In M. Latiesa, P. Martos eta J. L. Paniza (Ed.), *Deporte y cambio social en el umbral del siglo XXI* (1-2 bol., II. bol., 67–80 or.). Madril: AEISAD-Librerías Deportivas Esteban Sanz, S.L.
- Rocha-Sánchez, T. E. (2009). Desarrollo de la Identidad de Género desde una Perspectiva Psico-Socio-Cultural: Un Recorrido Conceptual. *Revista Interamericana de Psicología/Interamerican Journal of Psychology*, 43(2), 250–259.
- Roster, C. A. (2007). “Girl Power” and Participation in Macho Recreation: The Case of Female Harley Riders. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 29, 443–461.

- Roussel, P., Monaghan, L. F., Javerlhiac, S. eta Le Yondre, F. (2010). The metamorphosis of female bodybuilders: Judging a paroxysmal body? *International Review for the Sociology of Sport*, 45(1), 103–109.
- Scraton, S., Fasting, K., Pfister, G. eta Buñuel, A. (1999). It's still a man's game? The Experiences of Top-Level European Women Footballers. *International Review for the Sociology of Sport*, 34(2), 99–111.
- Sisjord, M. K. (2012). Networking among women snowboarders: a study of participants at an International Woman Snowboard Camp. *Scandinavian Journal of Medicine & Science in Sports*, 22(1), 73–84.
- Soler, S. (2009). Los procesos de reproducción, resistencia y cambio de las relaciones tradicionales de género en la Educación Física: el caso del fútbol. *Cultura y Educación*, 21(1), 31–42.
- Tagg, B. (2008). “Imagine, a Man Playing Netball!”. Masculinities and Sport in New Zealand. *International Review for the Sociology of Sport*, 43(4), 409–430.
- Taylor, J. (2003). Women's leisure activities, their social stereotypes and some implications for identity. *The British Journal of Occupational Therapy*, 66(4), 151–158.
- Thorpe, H. (2009). Bourdieu, Feminism and Female Physical Culture: Gender Reflexivity and the Habitus-Field Complex. *Sociology of Sport Journal*, 26, 491–516.
- Thorpe, H. (2010). Bourdieu, Gender Reflexivity, and Physical Culture: A Case of Masculinities in the Snowboarding Field. *Journal of Sport & Social Issues*, 34(2), 176–214.
- Tischler, A. eta McCaughtry, N. (2011). PE Is Not for Me: When Boys' Masculinities Are Threatened. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 82(1), 37–48.
- Trangbaek, E. (1997). Gender in modern society: femininity, gymnastics and sport. *International Journal of the History of Sport*, 14(3), 136–156.
- Usabiaga, O. (2005). *Euskal pilotako joko-ekintzaren ebaluazioa: aplikazioa frontoi motzeko eskuz binakakoan*. (Doktorego Tesia). Universidad del País Vasco UPV/EHU.
- Velija, P. eta Flynn, L. (2010). “Their Bottoms Are the Wrong Shape” Female Jockeys and the Theory of Established Outsider Relations. *Sociology of Sport Journal*, 27(3), 301–315.
- Velija, P. eta Malcolm, D. (2009). “Look, it's a girl’: cricket and gender relations in the UK. *Sport in Society: Cultures, Commerce, Media, Politics*, 12(4-5), 629–642.
- Walseth, K. (2006). Sport and Belonging. *International Review for the Sociology of Sport*, 41(3-4), 447–464.
- Warriner, K. eta Lavalley, D. (2008). The Retirement Experiences of Elite Female Gymnasts: Self Identity and the Physical Self. *Journal of Applied Sport Psychology*, 20, 301–317.
- Wellard, I. (2006). Able bodies and sport participation: social constructions of physical ability for gendered and sexually identified bodies. *Sport, Education and Society*, 11(2), 105–119.

- Whiteside, E. eta Hardin, M. (2011). "I Don't Feel Like I'm Up Against a Wall of Men": Negotiating Difference, Identity and the Glass Ceiling in Sports Information. *Journal of Intercollegiate Sport*, 4(2), 210–226.
- With-Nielsen, N. eta Pfister, G. (2011). Gender constructions and negotiations in physical education: case studies. *Sport, Education and Society*, 16(5), 645–664.
- Wright, J. (1995). A Feminist Poststructuralist Methodology for the Study of Gender Construction in Physical Education: Description of a Study. *Journal of Teaching in Physical Education*, 15(1), 1–24.

4. kapitulua

Harremanen habia

Aktoreak eskenatoki eta talde batera, kasu honetan emakume pilotariak osatutakora, txertatu edo barneratzeko prozesutzat hartu dut sozializazioa, harreman sare eta kideen arteko elkartrukeari zuzenean erreferentzia egiten diona. Gainera, izaera ezberdinetako harremanak ezagutu, bizi eta behatzeko aukera aparta izan dut ibilbide honetan zehar, sakontasun maila oso ezberdinetakoak eta baita izaeraz elkarrekin lotuta aurkez litezkeenak zein ez litezkeenak ere. Batzuk lagunartea osatzerainoko urratsa eman dute batez ere denboraren joanean, elkarrekin tratuan behin eta berriro aritzeak ere eragin zuzena leukake horretan, noski. Beste batzuk, aldiz, mugatu edo motzagoak dira, kantxatik aparteko hartu-emanik ez dute lortu elkarren artean. Mundu bat ikusi dut esparru honen luze-zabalean.

Deigarria egin zait ia bazter guztietan nabaritu dudala harremanen munduak baduela bere esanahia eta garrantzia ikerketa prozesu honetan zehar, bai emakume artean kantxan sorturiko saltsetatik ateratako inpresioetan, bai federatutakoen multzokoekin eginiko sakontzeko galdeketetan eta baita aisialdiko ikastaroetan jardun dutenekin egindako elkarrizketa informal zein formaletan ere. Ez da bakar bat ere egon gai hau plazaratu ez duenik. Hori bada azpimarratzeko bestekoa, ezta? Azpian pilotak harremanetarako bide bezala balio duela adierazten duen aipu nabarmen bat:

“Egia esan, niretzat ere bada sozializatzeko bide bat, zeren eta umeeekin plan batzuk aldatu egiten dira, ezin zara lehen bezala irten agian eta jendearekin egoteko aukera ona da”. Jaione

Gainera, neure esperientzian ere garbi asko esan dezaket, eta harro ere bai, zergatik ez, niri pilota munduak eta bereziki, emakumeen pilotarekin hertsiki loturik dagoenak, urteotan une oso onak eman dizkidala, benetan sorpresa atseginak, eta horietako asko bertan parte hartzen duten lagun eta ezagunekiko tratutik sortuak izan direla, zalantzarik gabe.

Askok dira honen gainean norabide berean eginiko aipamen eta gogoetak literatura zientifikoko erreferentzietan ere. Besteak beste kirol bat hautatzeko arrazioen artean asko azpimarra badaitezke ere, Garcíak (Moreno, Martínez eta Alonso, 2006) jarduera fisikoa egitea, dibertsioa eta denbora pasa, kirol zaletasuna, osasuna hobetu edo mantentzea eta lagunekin egotea azpimarratu izan ditu gizonezko zein emakumezkoen kasuan.

Emakumeek kiroletan parte hartzeko harremanak nahitaezko faktore direla dio Frakek (2008), eta hartu-eman taldekideen artean, kirolarien, entrenatzaileen zein beste zenbaiten artean sor daitekeela. Herbehereak, AEB eta Korean eginiko ikerlan batean ere aipatzen dute jende berria ezagutzeko era dela, norbanakoen arrazoietako bat dela kirolean parte hartzea jarduera berriak ikasi eta dibertsio eta osasun alderdiez gain. Heldu aroan, gainera, hasteko hautua egiteko garrantzia ematen zaio elkarrekintza edo beste emakumeekin izan litekeen tratu horri, bertako partaide sentitzeak dakarren erakarpena medio. Alderdi sozialak garrantzi eta pisu nabarmena du, beraz, emakumeen parte-hartzean (Lim, Warner, Dixon, Berg, Kim eta Newhouse-Bailey, 2011).

Horien gaineko hausnarketa da jarraian aurkeztera noana, testuinguru honetan sortu eta antzemandako harremanen joerak nolakoak izan diren, non emanak, noiz, zergatik eta abar luze bati erantzuten saiatuz. Esanak argiago ulertu asmoz jasoriko informazioa puntuz puntu antolatu dut eta iruzkin zein aipu zuzenak ere badauzka testuak bere baitan, adibide eta erakusgarririk onenak horiek direla uste baitut, nire esanak baietsi eta indartzen dituztenak. Hala ere, hemen zenbait momentutan ezberdinduta ageri badira ere, kasu bat baino gehiagotan atal batekoak zein bestekoak bateratzera iritsi naiz, batez ere aisialdiko paleta ikastaroetako saioen harira, ikasturteak aurrera eta elkarrekin emaniko orduak gora egiten zuten neurri berean ohartu bainaiz, adibidez, kide zein entrenatzaileen artean hasieran modu nahiko isolatuan ematen ziren hizketaldiak azkenean talde giroaren ispilu izatera iritsi direla, ikasturte amaieran benetan guztiak zaku horretan batuz, talde izaera eta talde giroaren erakusgarri bihurtu baitzaizkit ia kasu guztietan sorturiko erlazioak. Amaierako atalean, gainera, sintesi moduan hartu-emanen munduan aztertu eta aurkituriko alderdirik nagusi eta deigarrienak nabarmendu eta indartzen saiatu naiz neure gogoetak sakontasunez plazaratuta.

1. Saio edo pilotako ekintzan zeharreko harremanak

Bai aisialdiko saioetan zein federatuta ari direnen entrenamendu edo pilota jardueraren beraren baitan ematen diren egoerak dira atal honetan gaineratu ditudanak, lotura zuzena dutenak saioetan, kantzako testuinguruan kideen artean ematen diren egoerekin. Paletakada eta pilotakadak elkarren inguruan dabilzanen arteko loturak sortzeko bide direla ikusi dut, tartekatu egiten direla hitzak eta pilota hotsak, elkar ezagutzara helduz azken batean.

Hala ere, eremu zabala da oso hau, mailaketa bat ere egiten saiatuz hori dela eta, azpi-kategoriak izendatzerainokoa: kideen artekoak, kide-entrenatzaileen artekoa eta talde giroan oinarritua. Hala ere, goraxeago adierazi bezala, garbi daukat mugak ez direla batere zurrunik eta batetik besterako urrats eta joan-etorriak izan direla eta izango direla hemendik aurrera ere, malgutasuna bere-berea baitute harremanen berezko izaera eta aldagarritasunak ere.

1.1. Kideen arteko hartu-emanak

Kantzako jardueran zehar edo saio/entrenamenduetako unean bertan berdinen artean gertatzen diren elkartruke hauen baitan izaera ezberdineko hartu-emanak hauteman ditut, une ezberdinetan ematen direnak eta, era berean, baita modu ezberdinetan ere.

1.1.1. Lehen urratsak

Ikasturte hasieran, eta, bereziki, hasierako saioetan, zenbaiten arteko harremana nahiko formaltzat izendatuko nuke, distantzia pixka batekin emanikoa, distantziak gorde eta errespetua oinarri izanik. Hortik aurrerakoetan ere hala izan da, noski, kideekiko begirune eta adeitasunean finkatuak izaki. Hau batez ere kide berri edo ezezagunen artean gertatzen da, lehen aldiz testuinguru honetan bat egiten dutenen artean, interesa edo jakin-mina piztearen poderioz sortuak baitira. Elkar ezagutza aldi honetan elkarri adeitasuna agertzeko solasaldi eta ekintzak izan dira nagusi, norbere berri besteei eman eta haien ingurukoak jasotzeko, batik bat.

Pilotak banatu eta binaka piloteatzera. Ni Iratirekin, alboan Zuriñe eta Miren, etab. Kirolaz aritu gara, bera ere korrikan ibilitakoa dela, asko gustatzen zaiola, pala ikastaroan izena eman ala ez zalantzan ibili zela 3 urtez eta aurten erabaki duela azken aukera zuela eta izena ematea. Ni ere kirolzalea naizela eta hala aritu gara, hitzak eta pilotakadak elkartrukatu.

(Kontakizunak eranskina: 115)

Kasu asko izan dira aurretiaz elkarren berri inondik inora ez zeukatenenak, lehenengoz pilota saioei esker elkarrekin topo egin dutenak. Gauzak hala, hizketaldi eta elkartrukeen sakontasunean ere aldeak nabaritu ditut, nahiz eta

garapena ere eman den zenbaiten arteko hartu-emanetan, euren hitzetan ere plazaratuz elkartrukeen eboluzioaren berri. Topatu eta ezagutu ditut abiapuntua bera izan arren elkartrukean haratago egin dutenak, beraz.

Galdera (G). Jendearekin tratutxo bat lortu duzu orduan ikastaroari eskerrak. Ez dakit hori esan litekeen.

“Bai, bai, bai. Nik lehen ez nituen asko ezagutzen, kalean agian, baina orain daukaten harremana ez, keba, keba. Orain daukadan harremana ez. Orain kalean ikusten baditut hizketan gelditzen naiz eta bromak eta denak. Behin Ainarak esan zidan ezkerrekin emateko esan zuen Saioak eta baten batek eman zuen eskubiarekin ezkerrekin eman beharrean eta nik esan nuen ‘aizu, ni bakarra ez naiz ba’ eta gero Ainara ikastolara joan zen eta esan zidan ‘haserretu egin zara? Haserretu egin zara?’ eta ‘ni? Zera haserretuko nintzen, keba!’ Zerbait horrela izan zen eta ‘keba, ez, ez, ez’. Igual Ainararekin harreman handiagoa, Gemma da nire ahizparen estilokoa, nire ahizpa lasaiagoa da eta Gemma lasaiagoa da. Ni mugituagoa naiz eta Ainara mugituagoa da. Adibidez, gaur ahizpari esan diot ‘mugitu hadi’. Ni beste norbaitekin ari banaiz eta galtzen baldin badu ez diot esango ezer ere, baina ahizparekin baldin bada bai, ‘aizan, korri egin ezan’. Hori bai, baina, bestela, ez, ez, nik ez dut esango sekula ‘nire bikoteak gaizki egin du’ eta ez. Galdu dugu eta kito. Ez, ez, orain ere afaria egitekotan gara, beraz, beste koadrila bat gehiago afaritarako. Bai, harremana oso ona eta gustura”. Ines

Ezagutza maila oso ezberdina izan liteke, ordea, ia kasu guztietan nabaritu baitut taldekideen arteko gertutasunak eta laguntasunak joera ezberdinak dituela, batzuekiko aurretik ezagutza bat badagoelako eta beste batzuekiko, berriz, laguntasun harreman sendoago bat.

Lagun eta familia kideek eragina izaten dute talde kiroltan, batez ere, kirolarien parte-hartze mailan, izotz hockeyan adierazi duten moduan. Bertan adin tarte ezberdinetako emakumeen hiru multzo aztertu dituzte eta ondorioztatu lagunek gehienbat zaharren kasuan, helduagoak zirelako jarduerara iristean, eragiten dutela. Gazteagoetan, aldiz, familia-kideek, amek besteak beste, neurri handiagoan eragiten dute (Auster, 2008). Gai hau apur bat gehiago sakonduz, jakina da kirol sozializazioan familia dela prozesuan zehar eragile indartsuenetako bat, batez ere nesken kasuan. Horregatik neskengan nabarmena da euren kirol edo jarduera fisikoetako parte-hartze eta atxikimenduan ahizpa zaharragoak edo amak (eredu femeninoak) eginikoak duen pisua (Torre, 2002). Ondoren agertuko ditudan hitz eta egoerak, beraz, etxeko loturek nola eragiten duten azaltzeko balio dute eta elkarrengan nolako eragina izan lezaketen argitzeko ere bai. Aurrez, ordea, nabarmendu beharra daukat autore guztiak ez direla iritzi berekoak. Izan ere, Codina eta Pestanak (2012), emakumeen kirol sozializazioan testuinguru psikosozialaren azterketa burutu ostean, diote eraginik handiena lagun minak duela 30 urtetik gorakoetan eta hortik gora are nabariagoa dela joera hau. Horregatik, batez ere lagunek eta lankideek eragiten dute ikerlan honen arabera, ez hainbeste anai-arreba edo aita-amek, eredutzat lehenen jarduna hartuz eta ez

etxekoena. Craike, Symons eta Zimmermannek (2009), aldiz, diote etxekoek zein lagun taldeek, denek, eragiten dutela jarduera fisikoarekiko atxikimendu eta parte hartzean eta denek maila esanguratsuan. Eskola garaiko heziketa fisikoak aisialdi aktiboan eraginik ba ote duen aztertu dute Flintoff eta Scratonek (2001), zer eragin duten esperientzia horiek, besteak beste, eta jardueraren izaera soziala, lagunekin batera jarduteko aukera nabarmendu dute. Izan ere, jarduera gehienak lagunekin edo familiako beste emakumeren batekin eginikoak izan ohi direla ondorioztatu dute.

Aztertutako testuinguruan bada aurrez familia loturak dituztenen multzo txiki bat ere, ama-alabak, ahizpak edo koinatak talde berean aritu baitira. Kasu horietan harremanaren irmotasun eta estutasuna nabarmendu da kasu bat baino gehiagotan.

Orduan, markagailua kontatzeko sistema konplikatuxeagoari erreferentzia eginez, "matematika lantzeko ona da" gehitu du eta Mirenek, gainera, "hau alzheimerarentzat ona dun, Mari" esan dio ahizpari.

(Kontakizunak eranskina: 133)

Buelta batzuk eman, tartean besoak aurrera eta atzera ere mugitu ditugu eta kontrakantxan korro batean mugikortasun artikularreko ariketak, ohi bezala. Justu orduan heldu da Gemma frontoira eta taldera batu zaigu. Ainarak esan dio, ahizpak, "zer, bazenekien oraintxe bukatu dugula korrikan, ala?" Beste noizbait ere egin izan dute antzeko komentariok eta hala segi du Ainarak "iaz ere, astearteetan, pixkat beranduago etortzen zen, gero hor esaten du erosketak eta abar, baina..." Nik orduan parte hartzeko une egokia zela iritzi eta "etxeko trapu zaharrak hemen" esan dut eta Gemmak erantzun du "nik ez dut ezer esan, ni isilik nago".

(Kontakizunak eranskina: 34)

Hala ere, horrez gain eta gaia erabat bat ez datorren arren, familia harremanak alboratu eta maila bereko kide izateko aukera azpimarratu duenik ere ikusi dut, eta euren arteko tratuan aldea nabari duela esan dit, gainera. Alegia, familia harremana laguntasun harreman batean bilakatu dela pilotako testuinguruan ari diren bitartean bederen.

G. Ez dakit harremanik bazeneukan frontoitik kanpo.

"Batzeekin bai. Aitziberrekin bai, baina igual beste harreman mota bat baita ere eta niretzako hori aberasgarria izan da, zeren bera nire koinata den heinean, azkenean, horrek finkatzen du harreman mota bat eta hor ez ginen. Esan nahi dut, ba, ginela ikastaroko kideak eta oso ondo". Jaione

Badira parte hartzaileen artean elkartrukean kantxatik kanpora askoz lotura handiagorik ez dutenak ere, sozializazioa, batez ere jardun bitartekoa baino ez dela azpimarratuz.

G. Jende berria etortzen denean, taldekideak aldatu zenituenean... Harremanak eta horrela zuri iruditzen zaizu, ez dakit, sozializazio bat-edo badaukazula? Harreman saretxo bat igual lortu duzula, edo ez? Frontoikoa da?

“Bai, frontoikoa asko, ea, gero gelditu ez gara gelditzen, baina, adibidez, nik Ibarrik oso oroitzapen ona daukat eta Arraterekin topatzean beti egiten dugu hitz. Bai, bai, bai”. Itsaso

Hemen ere oso antzeko egoera ikusten da beste herri batean, elkartruketa zuzenean saioak irauten duen tarte horrekin lotuz:

G. Lehen aipatzen hasi zaren giro ona egon dela edo taldean gustura aritu zarela. Ez dakit esan litekeen, baina pentsatzen dut taldekide asko igual berriak izango zenituela. Aurrez ezagutzen zenituen? Harremana frontoitik kanpo bestela bazeneukan?

“Ezagunak bai. Beno, harremana beraiekin ez. Idoiarekin bai, Idoia laguna da, betiko laguna, baina besteak ez. Ezagunak bai, hemen Usurbilen denak gara ezagunak. Orduan, ba, Jaione ere beti kasu egiten duzu. Usurbilen nik uste denak ezagunak eta nik esaten dut ia parkera ez naizela jaisten eta hor asko galduta daukat, baina agurtu beti. Ni, gainera, egia da beti joaten naizela burua altxatuta eta beti kasu egiten jendeari. Horrelakoa naiz, baina ez, ezaguna horrela zuzena Idoiarekin nuen harremana”.

G. Eta harreman bat sortu zaizu edo, ez dakit, justu-justu saiokoa? Behintzat kalean lasaiago hitz egitekoa edo akaso ez dakit esan litekeen harreman sare bat lortu duzunik. Ez dakit iruditzen zaizun ikastaro honek harremanetan ere eduki duela eragina.

“Bai, topatu kalean eta kideekin hitz egiteko, ba bai. Lehenago egiten ez nuena ba, adibidez, orain bai. Bai, bai”. Karmele

Ildo berean, badaude frontoira mugatzen diren loturak ere, tartean kalean asko jota bi hitz egingo dituztenak, bizitzako arlo guztietan bezala hemen ere norberak geure “feeling” eta “fobiak” ditugulako, geure ezaugarriak, geure gaitasun eta gabeziak, eta horiek gurekin batera dabilta batetik bestera, bizkar gainean.

“Yo, la verdad, relación, relación, no tengo con las chicas que voy en el grupo. Te quiero decir que no andamos en la vida cotidiana, en la calle nos vemos, ‘hola, hola’ y ‘adiós, adiós’. Te quiero decir que no tengo mala relación, pero ni buena. Es la relación del curso del frontón y de ahí viene mi relación. (...) Sabes cómo es cada una, a callar y que corra el aire”. Zuriñe

Harremana azalekoa edo ez hain sakona izatea gertatu ohi da beste zenbait esparrutan ere. Izan ere, kirol taldeetan norberarekiko ezberdina den jendea ezagutzea ohikoa da eta harremanean gehiegi ez sakontzea jazo liteke, jendea ezberdina delako eta elkarrekin ez dutelako elkartruketa gehiagora heltzea lortzen denbora igarota ere, lotura ahulagoa lortuz (Walseth, 2008). Nik uste Zuriñek

esandakoek egoera hau deskribatzen dutela, distantzia pittin bat ezarriz norberak bere irudipen, sentimendu, bizipen eta abarretan oinarrituz.

1.1.2. Ezagunak lagun

Kideek aurrez elkar ezagutu lezaketen egoerak ere behin baino gehiagotan bistaratu ditut, besteak beste aurreko ikasturte batzuetan ere ikastaroan elkarrekin aritu eta lehenengo urrats hori emanda dutenen artekoak edo aurrez elkarren berri bazuteneak. Hori izan da Hernaniko eta Zizurkilgo taldeetako kiderik gehienen egoera, eta baita Usurbilgo batzuen ere, nahiz eta ikastaroak lehen edizioa zuen azken kasu honetan. Modu honetan, testuinguru horretatik abiatuz sozializazio prozesua abiatu baino lehendik hasia dutenari jarraipena eta izaera gorpuztuagoa eman diotela nabaritu dut.

Nik aurrean Jone eta Zuriñe dauzkat ilaran eta atzean Malen, Ainara eta Naiara gertuen. Ohi bezala, ariketan zehar ilaran zain gaudela ere ttor-ttor ari gara. Naiarak ez du nahi bezala asmatzen eta hutsen bat edo beste badarama. Halako batean “nik utzi egingo dut, nahikoa da” edo horrelakoren bat bota du ilarara zetorrela eta Zuriñek erantzun dio “aizu, zu ere hona, besteok hiru urte daramatzagu ikasi nahian eta pilotakada pare batengatik...” Gustatu zaigu bere erantzuna ilaran inguruan gaudenoi eta Naiarak ere bertan jarraitu du. Azkenean bakarren batean asmatu du eta Ainarak aurretik esanikoa onartu egin du “zu joaten zara ez duzula joko pentsatzen eta horrela ezin da”. Berak baietz, pasa ohi zaiola hori eta burua joan egiten zaiola kasu horietan.

(Kontakizunak eranskina: 98)

Saioaren une batean jokatzeari utzi eta hizketan ari ginen, ilaran egin beharreko ariketaren batean, eta Haizeak begiratu egin digu. Hala ere, emakumeek esan diote paletan aritzeaz gain sozializatzeraz ere badatozela saioetara.

(Kontakizunak eranskina: 165)

Azken adibideotan agerturiko lotura ere ez da arrotza. Emakumeen jarduera fisikoa eta kirolean parte hartzea sustatzeko ohiko eta aurretiazko laguntasun elkartrukeetatik tiraka abiatzen diren kasu bat baino gehiago agertu dituzte (Frake, 2008; Wellard, 2006).

Aurreko lerro eta paragrafoetan nabarmenduriko harreman mota hauen ezaugarriak, batez ere, konfiantza, adeitasun eta konplizitate mailak gora egin ahala, gertutasuna adierazten duten adar jotze, kexa, animo, aholku eta gaizkiulertuak izan dira, besteak beste, hitz jario luze eta ezberdinak bezalaxe. Jarraian adibide zehatzagoak agertuko ditut sozializazio honen nolakotasunaren inguruan.

Bizi izan ditut solasaldietan murgildu eta paletako jarduna erabat etendako kasu asko eta asko, eta bakarren batean parte hartu ere bai. Ondoren aipaturikoa lagin bat baino ez da.

(...) Lau kide hauek hizketan ere aritu dira, baina, nagusiki jokatu bitartean, pilotakadak denbora luzean eten gabe. Gurutze eta Itsaso, aldiz, geldi eta mingaina dantzatzen gehiagotan aritu dira. Kasu batean ia bost minutuak horrela pasatu dituzte, pilota ahaztu balute lez.

(Kontakizunak eranskina: 234)

With-Nielsen eta Pfisterrek (2011), besteak beste, nesken arteko solasaldiak dituzte aipagai. Modu honetan, joera bat adierazten du elkarrizketatutako neskatxa batek, neskek neskekin osatzen dituzten loturak eta taldetxoak nabarmenduz eta hauen izaeran sakonduz. Azpimarratu du hizketaldi eta barrealdiak burutzen dituztela elkarrekin jardutean, aipatuz seriotasunez ez direla aritzen, mutilekiko sozialki ezberdinak direla esaten amaitzeko.

Adar jotzeak eta bromak ere saio ia denetan eta ia edozein gairen artetik sortu ditugu han eta hemen, kideekiko harremanetan dagoen konfiantza eta konplizitatearen adibide garbi izanik.

Jone dago atzelari aurkarietan eta “zer, ezkerra asko entrenatu al duzu?” bota diot adarra joz atera aurretik. Ezkerreko hormara asko gerturatuta bideratu dut pilota eta ezin izan du erantzun. Laurok irribarre egin dugu eta berak “entrenatu dut, baina, hainbeste ere ez” batekin erantzun dit.

(Kontakizunak eranskina: 169)

Partidako une batean Zuriñe oso eskuinaldean dago eta berak lasai jo zitzakeen pilota batzuetara korrika saio bizi xamarrak egin behar izan ditu Ainarak, kidea ez dela mugitu ikustean. Orduan hari “zer, eskuineko laukiak zaintzen ari ote zara?” galdetu dio, irribarrez.

(Kontakizunak eranskina: 187)

Kideen arteko lotura elkar animatzean ere agertzen da, laguntasuna adierazi eta elkarri patxada transmititzeko adibide bat baino gehiago ezagutu baitituzte.

Aitziberrek ezkerrekin ez dauka konfiantza eta segurtasunik, hutsak tartekatzen ditu kolpe onekin, eta nik galdetu diot eta berak esan dit “askotan errebesez emango nioke ahalko banu”. Esan diot “frustrantea da, baina, ikasten hastean komeni da lehenbailehen ezkerra sartzen hastea, esperientziaz, nik ezkerrekin apenas ematen nion paletan hasi nintzenean” eta “ez du ematen” erantzun dit.

(Kontakizunak eranskina: 126)

Atzetik Jone eta Malen etorri dira eta “orain, errebantxa” bota die Gemmak. (...) Aurrez ederki asko moldatu dira gure aurka eta elkar animatu dute “Aupa, Jone” eta “Aupa, Malen” banarekin.

(Kontakizunak eranskina: 135)

Postuak aldatu dituzte lehendik Mirenek eta Rakelek eta azken honek bera ezkerrean jarrita irabaztea zaila izango dela esan du. Mirenek, hala ere, lasai egoteko esan dio, horrela ikasten dela.

(Kontakizunak eranskina: 280)

Kideen arteko laguntasuna ere izan liteke saioetan elkarri emaniko aholkutxo edo gomendioetan zehar plazaraturikoa, elkar babestearen irudi, eta baita elkarri jarduteko teknikaren zein taktikaren gaineko kezka adieraztearena.

Haizeak saioan behin eta berriz errepikatu du arreta kolpe sekuentzian jartzea nahi duela eta oraingoan ere bai. Ariketa egiten hasi baino lehen Jaionek esan du “Uxuek gurutzatuko du bai, baina besteok ikusiko dugu” eta nik erantzun diot “eskuinetik ezkerreara zuek ere bai, kontua zailduko litzateke ezkerretik eskuinera baldin balitz”. Buruarekin baietz egin dit.

(Kontakizunak eranskina: 46)

Atzean pilotoan Jaionerekin aritu naiz lehendabizi eta berak esan dit beranduegi ematen diola pilotari, atzean. Nik esan diot lasai egoteko, saiatzeko kolpea pilota begien bistan duela egiten eta albokoa erabiltzen dutela zenbait unetan (bi paretak bota edo moztean), beste kontu bat dela kontziente izatea, baina, lortuko dutela hori ere.

(Kontakizunak eranskina: 88)

Barkamena eskatzeko hitzak ere elkartrukatu dituzte kideek kasuren batean edo bestean, kideekiko begirunea eta errespetua kantxaratu jokoan zehar eginikoak kezkatu dituenen.

Kasu honetan Rakeli erraz ari zaio gaina hartzen Ines, baina, Rakelek tanto bat lortu duenean ospatu egin du, gutxitan izaten baita halakorik. Inesek, berriz, horma biko bidez lortu ditu bizpahiru tanto, aurrez Saioak horrelakoak egiten saiatzeko esan diolako. Rakeli halaxe esan dio “Saiok esan dit saiatzeko eta egin beharra neukan”. Kideak irribarrez erantzun dio.

(Kontakizunak eranskina: 297)

Elkarri adieraziriko kexa eta gaizkiulerturen bat ere bizi izan dut kantxan, harremanetan dena ez baita nahi bezain borobil eta perfektua izaten askotan. Hala ere, bakanak izan dira halako egoerak.

Horren ondoren ez dakit Ainarak esan duen “ez dio ezkerrez askotan ematen Inesek” eta honek hori aditzean “hemen badaude ni baino gutxiago jotzen dutenak ezkerrez” erantzun du, berehala. Nik Ainarari “Ines haserretu egin zaizu” esan diot eta honek, bada ez bada ere, kontrakantxara joan, bizkarretik heldu eta zer duen galdetu dio, arrazoia emanez kideari.

(Kontakizunak eranskina: 281)

Elkartruke edo hartu-eman hauek guztiak, gainera, denboran erabateko egituratzerik gabe eman dira. Paleta saioari ekin aurreko edo osteko

hizketaldietan, borobiletan jarrita, saioan zehar ariketa bat burutu bitartean, adibidez, ilaran, partiduak jokatu bitartean edo/eta baita beroketa edo lasaitasunera itzultzeko ataletan ere. Jardueran zehar ia edozein une eta egoeretan agertzen dira aipaturiko kasuak, nahiz eta joera handiagoa izan sozializazioko hitz trukaketa gehienetarako bai saioaren hasieran edo baita amaiera aldera ere, taldea ia gune batean kokatuta dagoenean bere osotasunean.

Federatuen entrenamenduetan ere, eta antzeko eskenatokietan, hiru edo lau hormak eta bertako jardunari erreparatuz, lagunarteak bere pisua duela adierazi dute nabarmen ikerlaneko parte-hartzaile bat baino gehiagok, euren kantxako jarduera baldintzatzeraz ere iritsiz, lehen aisialdikoekin zehatzago azaldu moduan.

“Uiii... Bada, egia esan ez dakit, askotan galdetzen diot nire buruari zergatik segitzen dudan. Nik uste dut badagoelako giro polit bat edo, ez? Nik, azkenean, palan lagunak dauzkat eta lagunak eman dizkit. Niretzako ez da kirol, ba, ez naiz profesionala eta niretzako entrenamenduetara joatea da, bada, lagunekin elkartzea, ez? Halaxe da, batekin egon eta besteekin eta. (...) Eta, gaur egun, bada, gaur egun ez dira nire entrenamenduak oso serioak. Ba, joan eta eman eta eman eta ‘ah, begira zer pasa zaidan’”.
Haizea

Jarduera fisiko edo kirolen eskaintzan, emakumeei zuzendurikoak aipatuz (Rebollo eta Martos, 1998), ikusi da osasunari eta forma fisikoari loturik egoteaz gain, azturak sortu eta erlazio sozialak garatu eta sustatzeko bitarteko oso egoki eta aberasgarriak direla. Lagunarte berria sortzeko bide ematen dute paleta saioek parte-hartzaile gehiagoren esanetan ere, hasiera-hasierako urteetan ere asmo hori agertuz zenbaiten ahotan.

“1990ean izan zen konbokatoria hori eta herrialdeko hainbat neska azaldu ginen han eta, egia esan, oso esperientzia ona izan zen, zeren eta, azken finean, lagun berriak ezagutzen zenituen, beste jarduera berri bat, eta...”
Itxaro

Zuzen-zuzen partidetan ematen diren egoerei egindako aipamenak ere ikusi ditut, kidearekin kantxan nola konpontzen ziren aipatzen dutenak, lehenengo aipuan bere buruarekiko konformagaiztasuna agertzearekin batera.

“Zuk nahi duzun bikotearekin izena ematen duzu eta niretzako hori oso ondo dago eta, nik, hor oso gustura jokatu izan dut beti. (...) nire ustez mota honetako txapelketekin jarraitu egin behar da, zeren eta batzuekin konfiantza handiagoa daukazu beste batzuekin baino eta jokatzeko garaian ere antzeman egiten da, errazago koordinatzen da. Beste batzuk, askotan, bada ez, askoz ere gutxiago koordinatzen da”. Olaia

Harreman hauen muinean, gainera, kidearekin konfiantza, ezagutza eta elkar ulertze izugarria kantxan bertan islatu den egoeraren bat ere azaleratu zait, urteen

poderioz harremanak estutu eta lotura hertsia sortzerainokoa lortuz paleta-kideen artean, kantxatik kanpo bezala jokatzeko orduan berdin-berdin.

“Ya estuvimos jugando Rebeke y Nekane, Rebeke y Nekane, Rebeke y Nekane hasta que llegaron chicas. Una vez de que llegaron chicas a cambiarnos. Pues, ya está. Entonces, el día que me tocaba jugar con Rebeke digo ‘joder, ¡qué bien!’; ja, ja, ja. Ya lo echas como de menos, porque te llegas a entender a la perfección, ¿no? Siempre con una persona que has jugado, o sea, sabes, del gesto que hace ya sabes lo que va a hacer, pero no, todo el mundo tiene que jugar con todas y yo aquí lo hago”. Nekane

Hau elkarrekin eginiko bidaia, emaniko ordu eta lorturiko tratua adibide garbia dela uste dut, kirol esparruko hainbat gaitan antzekotasunak partekatzeak dakarren ondorioa. Taldekideekin lortu ohi den harremanaz Walsethek (2008) azpimarratu du ohikoa dela norberaren antzeko jendearekin halako harremana lortzea eta sendotasunak gora egiten duela erlazioek gora egin ahala.

Kideen arteko harremana joko-maila ezberdintasunaren alorrari erreferentzia eginez ere aipatua izan da, motibatze eta harremanak ardatz hartuta, kideen arteko elkarrekintza sustatzeko tresna gisan erabil daitekeela agertu baita.

“A mí, muchas veces, yo he jugado con alguna que juega muchísimo menos, y yo no le hago todo. Les digo ‘yo, para mí, el esfuerzo mayor lo tienes que hacer tú y si yo veo que tú estás dando tu 100% yo también daré. Ahora, si yo veo que tú estás de pachanga y quieres que lo dé yo, yo me voy a la pachanga también, eh, y aquí respondemos’. Entonces, ellas se motivan y eso me parece bonito”. Nekane

“(…) argi dago beti jokatzeko baduzu pertsona berdinarekin, nik esaten dut konfiantza nazkagarria dela. Bai, zeren nahiz eta oso gustura egon, beste pertsona batekin lortzen duzun konfiantza ondo dago, zeren eta, adibidez, Nekane dauka jokatzeko bere modua eta nik nirea, bakoitzak egiten du berea. Niri denon artean jokatzeko eta, hori eskertzen duzu. Gainera, batekin irten behar zara gehiago bi paretan, bestearekin sartu eta horrek ere laguntzen dizu. Pertsonalki eta denentzat laguntzen du, zuk ere ikasteko. Azkenean, nik baldin badaukat Nekane atzean, dela dena aurrera eramaten duena, ba, geratzen banaiz bi paretetan berdina egingo dut. Azkenean agian partidak irabaziko ditut, baina, ez nau beteko. Agian jolasten baduzu 2. mailako batekin edo maila baxuagoko batekin gehiago ikasiko duzu. Orduan, horrelako aldaketak, bikoteen aldaketak, ondo daude eta horrela gainera balio pixka bat partidu politagoak ateratzeko ere hobeto. Azkenean, horrek balio dizu atzetik datozeinei laguntzeko. Ni, adibidez, Argentinan 22 azpiko mundialean egon nintzenez, ba, Naroa bat edo laguntzeko pausoak ematen, ba, ondo dago. Horrelakoak laguntzeko pausoak ematen. Niretzako inportantea da nahi badugu honek jarraitzea”. Nora

Kasu honetan ere, ordea, kideen artean loturaren intentsitatea asko aldatzen da, harreman guztiak ez direlako mota bakarrekoak eta lotura mailak ezberdinak direlako.

G. Eta, zuk nolako harremanak dituzu beste pilotariekin? Nola moldatzen zarete elkarrekin?

“Ondo. Bai. Azkenean batzuekin ondo kanpoan, beste batzuekin barruan eta besteetan normal. Badaude harreman onak eta hobeak. Nire aldetik behintzat ez dago arazorik, ez dugu rollo txarrik”. Nora

Eta bada atal honetan bereziki aipatzea nahi dudan kasu bat ere, neska bakarra ari baita gurpil aulkian diharduten pilotarien taldean. Berak kideen harremanaz gogoeta hau utzi dit, zer pentsatua ematen duena. Sexuaren arabera tratuan ematen diren aldaketei egiten die erreferentzia bertan.

“Nik argi daukat mutilen talde batean egonda eta ni neska izanda, e, ahalmen aldetik eta ni gutxiago naizela. Hori argi daukat, baina, mutilak direlako horrelakoak fisikoki eta gu horrelakoak garelako, ezberdinak garelako. Baina, gero, tratuan, igartzen da. Besteen aldetik zenbat broma. Ia egunero, ia egunero, baina, beno, beraiek bromak edo komentario sinpleak egiten dituzte, baina, ni nago ya honaino entzuteaz egunero-egunero ‘beno, ba, zu joan behar zara pilota jo eta 8. koadrora. Itziar 7ra eta zu ...’ Ez? Azkenean bakoitzaren ahalmenen arabera. Eta, “beno, eta non dago berdintasuna eta?” dagoeneko halakoekin kokoteraino nago.

Bai, bai, kideengandik, pasada bat. Itxaron. Kideengandik hori eta beti jotzen dute babestera bezala edo esatera zer, nola egin behar dituzun gauzak. Eta, ‘aber, nik badakit nola egin behar ditudan gauzak, fallatu badut da fallatu egin dudalako, ez da ez dakidalako’. Halako gauzak bai ematen direla, beti. Beti daude prest esateko zerbait, edo nola egin behar duzun eta beste mutil bati ez. Hori igarri egiten da”. Itziar

Aurrez ikusi dudan bezala, beraz, kideen arteko harremanak norabide eta noranzko ezberdinetan ematen dira, baina ezin da zalantzan jarri gehienetan modu positiboan eragiten dutela, sakontasunak sakontasun eta gertutasunak gertutasun direla ahaztu ezin bada ere. Frakek (2008) ere azpimarratu du testuingurua eroso, lagunkoia eta sozializazio positiboa lortzeko modukoa izatearen garrantzia ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula.

1.2. Kideen eta entrenatzailearen arteko hartu-emanak

Estatus ezberdina dute paletari eta entrenatzaile eta/edo ordezkariak pilotaren estamentuetan, izan ere, erreferentzia puntu ezberdinetan kokatzen dira jardueraren antolaketa edo ardura mailari dagokionean. Horregatik, funtsezkoa iruditu zait entrenatzaile karguan dagoenaren eta bere “esanetara” aritzen direnen artean gertatzen denaren gaineko azterketa berezitu bat egitea ere, sozializazioa agerikoa baita hauen artean ere.

1.2.1. Entrenatzaileak eta pilotariak: hain urrun eta hain gertu

Entrenatzaile eta kirolarien arteko harremana mantentzea ez da erraza eta bi aldeetatik kontzienteki esfortzua egitea beharrezkoa da. Gainera, harremanari eusteko erabiliriko estrategiek, modu ez-zuzenean bada ere, emaitza baikorrak eragin ohi dituzte (Rhind eta Jowett, 2010). Hala ageri da, eta azpimarratu nahi izan dut, hurrengo lerro eta paragrafoetan deskribaturiko egoerarik gehienetan ere.

Elkartrukeen hasieretan distantzia handiagoa nabaritu dut kideen arteko hartu-emanarekin alderatuz gero, beste estatus bateko norbaitekin aritzeak eragin lezakeen errespetua eta ez-ezagutzak dakarren konfiantza falta nagusitu baita hein handi batean. Hori, hala ere, lehen urratsetan edozein esparru eta egoeretan gertatu ohi da, konfiantza eta elkar ezagutza apalenak orduan izaten baitira gehienetan, bai alde batekoentzat eta baita bestekoentzat ere.

Bada ez bada ere, bere telefono eta e-posta helbideak eman ditu Haizeak, inork ezer balu abisatzeko esan du, berak ere jakin dezan gutxi gorabehera zein agertuko den. Puntualitatea eskertuko lukeela esan du, bai hasteko eta bai bukatzeko garaian.

(Kontakizunak eranskina: 16)

Atleta eta entrenatzailearen arteko harremanak, ikuspegi sozialari erreparatuz, aztertu dituzten hainbat ikerlariren arabera hiru dimentsio ditu: loturak sortzea, elkarren artean kooperazioa garatzea eta botere harremana. Gainera, lehen unetik bere bilakaera izaten du denboran zehar kirolari eta entrenatzaileen arteko harremanak, garatzen joaten da, naturaltasunez. Era honetan, argibideak ematen dituen irakaslea izatetik pertsonan oinarritutako hartu-eman izatera igarotzen da entrenatzailea, sentimendu, laguntasun erlazio eta lotura afektiboak sortuz elkarren artean. Harreman pertsonala sortzen da bien artean denboraren poderioz, elkarlanean aritzeari esker eta jakintza zein elkar ezagutzan sakontzeari esker botere harremana ere leundu egiten da, autoritate maila asko jaitsiz eta babes eta sostenguan oinarrituz elkartrukea. Hau ona da atletaren hazkuntza pertsonal, buruko indar eta kirol garapenerako (Philippe, Sagar, Huguet, Paquet eta Jowett, 2011).

Ikasleen artean badira, ordea, entrenatzailearekin aurrez beste hartu-eman bat daukatenak ere, neroni kasu, saioetako jardunean elkarrekin bat egin aurretik ere elkarren ezagun eta lagunak baikara, pilota ardatz elkarrengana bildutakoak. Kasu hauetan entrenatzaileak neurekiko gertutasuna, zenbait egoeretan konplizitatea eta babesa lortzeko aprobetxatu izan du, eta baita nik alderantziz ere, bata bestearen makulu lanak betez zenbait egoeraren aurrean.

Behaketa lanetan hasi nintzen egunetan, adibidez, aurrez bi entrenatzaileekin gure asmoak zein ziren azaldu eta argitu asmoz bilera bana egina nintzen eta lagungarri izan zitzaidan oso euren babesa nire burua aurkeztu eta taldeetan txertatzeko

urratsa ematerako garaian, atezain lanak egin baitzizkidaten eskenatoki berrian, elkarrizketak lotu behar nituenean ere tartea eskatu orduko erabateko prestutasuna agertuz.

Saioak aurkezpena egin du, borobilean jarrita geundela. Egia esan aurkezpena egin du baina ni bakarrik aurkeztu nau, “Uxue, berak esango dizue zertara etorri den” esan du.

(Kontakizunak eranskina: 7)

Ezker hormaren aurka piloteoan hasi garenean ni ohartu naiz ez diedala emakumeei elkarrizketak egiten hasteko proposamenaz ezer ere aipatu eta Zuriñeri “oraintxe nator, Saioarekin hitz pare bat egin beharra daukat” esanda entrenatzailearengana hurreratu naiz. Hari esan diot “lehen ahaztu egin zait, baina, une batean esan beharko diet denei taldeko zenbait elkarrizketatzea proposatuko dudala. Beraz, gero tartetxo batean ea egiten dudan” esan eta berak “lasai, nik ere lehenago bukatu behar dut 26rako antolaketaz hitz egiteko eta orduan esan” erantzun dit.

(Kontakizunak eranskina: 441)

Kurtsoaren hasiera xamarretan ere izan ditugu talde bat baino gehiagotan elkarri eginiko gertutasun eta laguntza keinuak, elkar lagunduz eta elkarri lasaitasuna transmititzen saiatuz.

Nire lehen kolpean, Saioak “Uxue, ondo eman”. Irribarre egin dut, baita kideek ere (“zer, gaizki egin du, ezta?” entzun da), eta marra ukitu ostean ni ere ilarara itzuli naiz.

(Kontakizunak eranskina: 4)

Saioa eta biok goaz orain kotxera bidean, bakarrik. Saioak nire iritzia jakin nahi du saioaz, “zer moduz?” Nik, “ondo”. Berak, “zer esan nahi du ondo horrek?”, ba, “ondo!” Kezka agertu dit emakumeak ez ote diren konforme geratuko, saioak ez ote diren dinamikoak. Nik lasai egoteko esan diot, esango diotela hala bada.

(Kontakizunak eranskina: 5)

Lehen errotazioan aurrera egitea tokatu zaigu eta frontisean Onintza eta Marianekin egin dugu topo. Heltzen ari garela “Uxue, beldurra ematen du” entzun dut berriro ere eta Saioa gertu zebilela aprobetxatuz nik hari laguntza-edo eskatzea pentsatu eta “nik ez dut inor jaten, ezetz?” esan dut.

(Kontakizunak eranskina: 42)

Haizeak ere aholkuak eman ditu, airez jotzea baliabide oso ona dela esatearekin batera, jokoak azkartu eta aurkariak mugitzeko balio omen du eta. Niri begiratu dit eta nik baietz esan diot, aireko kolpea erabiltzen jakitea baliagarria izaten dela.

(Kontakizunak eranskina: 379)

Nik akaso beste maila bateko konfiantza eta gertutasuna izan nitzakeen arren, aurrez entrenatzaile berarekin aritutakoek ere izan dute “feeling” hori eta zenbait

kasutan lehen egunetik geratu da agerian, gainera, pilotaz kanpoko euren gaineko gaiak plazaratu eta jorratuz une bat baino gehiagotan. Eta lehen egunetan elkarrengandik urrunago bazeuden ere izan dira elkarrengana lotu diren bat baino gehiago ere.

Ikasleekin entrenatzaileek landutako harremanak, beraz, itxura batean, ez dauka berez hainbesteko ezberdintasunik kideen artean aurrez agerturikoekin. Animo, adar jotze, kexa, eskaera eta iritzi trukaketarekin, adibide garbiak izanik kapitulu honetan zehar aurrerago plazaraturikoak.

Entrenatzaile eta kirolarien arteko hartu-emanaren harira, entrenatzaile eta emakume futbolarien arteko harremanen eta elkarrekintzaren gaineko gogoeta egin dute kirolariek garrantzia zeri ematen dioten agertuz (Fasting eta Pfister, 2000):

- Emakumezko entrenatzaileak gogokoago dituzte gizonak baino, “psikologo hobeak” diren ustea, emakumezkoen komunikatzeko estiloari esker.
- Jarrera autoritarioa entrenatzaile gizonaekin lotu dute futbolariak, hainbat joera gaitzestearekin batera.
- Autoritate falta zenbait egoeretan.
- Ulermena eta zaintza eskertu, onak izateaz gain babesak ematen dutenak izatea.
- Entrenatzailea taldeko bat gehiago den sentipena.

Animo eta aholkuei dagokienean, entrenatzaileak sustatzaile rola betetzen du askotan, ikasleei jardueraren gaineko azalpenak emanez. Aholkuak kasuren batean animoekin loturik egon daitezke, gainera, emakumeetaren batek bere buruarekiko konformagaitasuna edo frustrazio kutsu bat agertzean, adibidez. Egoera hauetan konfiantza agertzen saiatzen dira, posible dela sinetsarazten pilotariei, eta euren laguntza eta abegikortasuna azalarazten dituzte.

Ezkerrez jotzeari beldurra/errespetua dio bat baino gehiagok. Naiarak lehenengoan errebes ez jo dio, eta Saiok esan dio hori ez dela ezker. “Ez zaizkio aginduak iristen” lehenak, eta “lasai, hemendik ekainera iritsiko zaizkio”, bigarrenak.

(Kontakizunak eranskina: 4)

Animoek pilotariak motibatu eta xaxatzeko tresna moduan erabilgarritasuna izan dutela ohartu naiz behin baino gehiagotan, babesgarri lez.

Aurrean aritu garen bakarrean, berriz, Naiarak esan du ezkerrean indarra falta zaiola eta Saioak animatu duen batean “ixo” esan dio. Bere arabera hark “aupa Naiara” esanaz animatzen edo begiratzeko duenean huts egiten du. Ondoren Gemmari ere esan dio “aupa Gemma” eta honek ere huts egin du. Nik esan diot orduan “aupa Uxue” esaten probatzeko eta nik ez dut hutsik egin.

(Kontakizunak eranskina: 36)

Ines saiatzen ari da eta guk pilota mugiaraztearen poderioz pare bat korrikaldi eginda lortu du pilota zail batzuk frontisera bideratzea. Hori ikusita “a zer sasoi!” esan dio Saioak aldamenetik. Berak gustura erantzun dio “hori behintzat badaukagu”.

(Kontakizunak eranskina: 472)

Pilotariak eta entrenatzaileak aurrez ezagunak diren kasuetan ere gertutasun handiagoa nabari da lehen aldiz elkarrekin topo eginak direnean baino. Adar jotzeen intentsitatean nabarmen ageri da hori eta baita elkarri esanikoetan eta esateko moduetan ere.

Ainarak ordainketa egin dio Saioari eta “ondo apuntatu” erantsi du, niri begira “zuk gogoan hartu, honi partiden emaitzak ere ahazten zaizkio eta” esan du ondoren. Nik irribarrez erantzun diot.

(Kontakizunak eranskina: 446)

Korrika hasi gara denok eta hiru buelta eman behar omen ditugu. Bakarren batek Saioari esan dio ea zer moduz datorren, ostiralean erdi lo omen zegoela eta. Berak erantzun du umorez datorrela.

(Kontakizunak eranskina: 97)

Ildo beretik, baita saioko zerbaiten gainean agerturiko kexetan ere, askok adar jotze kutsua baitute, edo eginiko eskaeren kasuan ere berdin-berdin.

Guk trasteak harmailetan utzi ditugu eta Gurutzek beste ezer esaten hasterako erdi erreguka “gaur, mesedez, korrika ez dugu egingo, hauek hemen daudela. Bestela egiten dut egin behar delako, baina, gaur...” bota du entrenatzaileari begira.

(Kontakizunak eranskina: 423)

Erdian jokatzen hasi garenean Saioa hurbildu zaigu une batean guregana, aurreko guneko partidako epaile lanak egiten hasi aurretik, eta “hurrengo partidua nik, gaur pixka bat lehenago joan behar dut” eskatu dio Inesek partiden ordenari erreparatuz. Baietz erantzun dio entrenatzaileak (...)

(Kontakizunak eranskina: 387)

Konfiantza maila eta elkarrekiko jasoriko informazio kopuruak gora egin ahala, gainera, neurri berean egiten dute gora bat-bateko hizketaldi eta hitz aspertuek ere, kideekin agertu bezala edozein unetan ematen amaituz.

Ariketak burutu bitartean tarteka hizketalditxoak sortu dira, Saioarekin batera aritu dira. Tartean adin kontuak atera dira eta erabaki dute zaharrena nor den eta gazteena nor: “nik 48, 46, 47. Ni gazteena!”, Saioak.

(Kontakizunak eranskina: 9)

Ni hasi naiz tertulian ari garela pilotak dauden poltsako korapiloa askatzen, eta hala bota dut “Saioa, ni hasi naiz hau askatzen” eta Gurutzek aldamenetik “ondo, gaur ez dakit hau lanerako zer asmorekin etorri den eta”. Taldekideen artean eta begiralearekin berarekin ere konfiantza eta giro atsegina nabariak dira. Horren erakusle aurreko hizketalditxoak eta tarteka ariketen artean sortzen direnak ere badira.

(Kontakizunak eranskina: 69)

Denboran zehar kide eta entrenatzaileen arteko harremanak garatzen joaten dira, naturaltasunez, testuinguru honetan ere bai, aurrez esan bezala (Philippe et al., 2011).

Estatus ezberdina izateak, ordea, autoritate edo garrantzia handiagoa ematen dio kasurik gehienetan entrenatzaile lanean ari denari, erabakiak hartu behar direnean bere esku geratuz. Hala ere, paletarietik eta hauen erreakzioetik ardurara eta kezka behin baino gehiagotan agertu da eta deigarria iruditu zait, adibidez, bikoteak osatzeko garaian sorturiko zalantzak bertatik bertara bizitzea, nahiz eta gehienetan pilotariak ez duten eragozpenik jarri izan arlo horretan, entrenatzaileari lasaitasuna ematen saiatuz behin baino gehiagotan.

“Ba beldurra ematen dit zeren iruditzen zait, ez dakit, jarriko banitu bi ez hain onak eta bi onak gero partidu egoeretan desoreka handia dagoela. Gero ematen dit beldurra beti bikote berdina egiteko, zeren saioaren batean edo, ez txarrera, inork ez dit txarrean esan, baina baten batek esan dit ‘gu beti batera gara’. Inkontziente egiten dut, ez dut kontzienteki egiten eta orduan, ba, beno, joe. Bai batzuetan nik egingo ditut, baina besteetan Txokotan eta ateratzen den bezala horrela osatzen ditut eta listo. Lasaiago sentitzen naiz, ardurara gutxiagorekin. Badakit nik agintzen dudala eta hori dena, baina besteak gustura egotea ere gustatzen zait eta orduan horrela inork ezer ere ezin du esan eta listo. Ez dakit”. Saioa

Gurutzek ederki bota dio “ez zaio gustatzen bikoteak berak egitea, kortia ematen dio. Grazia egiten dit, guri berdina zaigu”. Bikoteak nola geratu diren ikustean Elik zera esan du niri begira, “gu pareja de hecho izango gara”. Egia esan ez dakit bigarren edo hirugarren aldiz egokitu zaigun batera. Orduan gehitu du “ekainerako biok bakarrik jarriko gara bikoteka, txokotan jokatu beharrik gabe”.

(Kontakizunak eranskina: 71)

Entrenatzaile eta pilotarien artean emaniko egoeren azterketaren gaineko xehetasunik nabarmenenak agertu ditut honaino, aurreko puntuen segida mamitsuan.

1.2.2. Entrenatzaile-pilotari loturaren ezaugarriak

Rhind eta Jowettek (2010) entrenatzaile-atleta erlazioari eusteko estrategiak eredu zehatz bat garatuz plazaratu eta azaldu dituzte: “COMPASS”. Harremanen kalitatea da jomuga nagusi eta hori eskuratzeko modua agertzean zazpi arlo bereizi dituzte: gatazken kudeaketa, irekitasuna, motibazioa, positibotasuna, gomendioa, babesa eta sare sozialak.

- Gatazken kudeaketa. Arreta batez ere aukera edo espektatibetan, erdietsi gabeko aukeren ondorioetan eta arazoak konpontzeko beharrezko kooperazio jarreretan jarri dute. Estrategia proaktibo eta errektiboak bereizi eta sustatzeko beharra azpimarratu dute desadostasunei aurre egiteko garaian.
- Irekitasuna. Atleta eta entrenatzaileen arteko hizketaldiei garrantzia eman diete, aipatuz asko hitz egitea onuragarria dela eta kirol testuingurutik kanpoko gaiak jorratzeaz ari dira kasu honetan. Adibidez, lan edo etxeko kontuak, hartu-emanak sendotu eta sakontzeko bidea ematen baitute halako joerak.
- Motibazio estrategiak. Garrantzitsuak dira elkarlanean aritzeko gogoia izan eta aktoreak lanean jarraitzea bultzatzeko. Bertan lau azpi-gai ageri dira: esfortzua, bestea motibatzea, dibertsioa eta abildadea agertzea.
- Positibotasunak ere badu bere garrantzia, onuragarria delako baikortasunezko jarrera bat garatzea. Kasu honetan hiru azpi-atal berezi dituzte: moldagarritasuna, zuzentasuna eta kanpoko presioak.
- Gomendioa. Atletak edo entrenatzaileak jardueran sorturiko arazoren baten gainean norberaren iritzia emateari egin diote erreferentzia eta baita feedbacka eskaintzeari ere, hiru azpi-atal aipatuz: kirol komunikazioa, saritzeko feedbacka eta feedback eraikitzailea.
- Babesa. Kirol arloko zein hortik kanpoko gaien gainean elkarri laguntza eskaintzeaz dihardute, segurtasuna, kirolerako babes espezifikoa eta babes pertsonala arloen bidez.
- Sare sozialak. Entrenatzaile eta kirolariek elkarrekin, eta baita elkarren lagun direnekin, denbora soziala igarotzea da erdigunea, gehienbat zelaitik edo joko esparrutik kanpo. Hau sozializazio eta partekatutako sareen bidez agertu dute.

Aipatu berri dudan ereduak (“COMPASS”), beraz, bere baitan ederki asko biltzen eta gordetzen ditu saioetan zehar bistaturiko aholku zein animoak, adar jotzeak, hizketaldiak, beldurrak, etab. Gainera, testuinguru eta eskenatoki hauetan ere, kirol psikologia aplikatuen emakumeek izandako esperientziak aztertzen dituen artikulu batean agertu bezala, estatus ezberdinekoak lagundu nahia agertu dute behin eta berriro entrenatzaileek pilotariekiko eta pilotariek entrenatzaileekiko. Hau erabat loturik dago nire ustez entrenatzaile eta neska kirolariak gertuko sentitu eta lagundu nahiarekin, Roperrek (2008) aipatu bezala.

1.2.3. Adinak dantzan

Ezberdintasuna ikusten da argi eta garbi adinari erreparatuz gero. Orokorrean, neska gazteek agertzen duten ikuspegian, entrenatzailearen gidaritza eta sustapen lanaz gain badirudi euren gaineko kontrola ere beharrezkoa iruditzen zaiela. Garbi adierazten da ondorengo entrenatzaileen bizipenen kontaketa hauetan, mugak markatu baitituzte euren rolaren eta hortik kanpokoan berri ematearen artean, gehienetan jarrera autoritarioagoa agertuz.

G. Beno, mobidak eduki dituzula idatzi liteke zeren hurrengo galdera hori da, ea arazorik eduki duzun.

“Bai, gazteekin. Uf! Aurten edo lehengo urtean egon nintzen esatekotan ‘hau utzi egingo dut’. Nik uste dut edadea dela, baina momentu batzuetan errespetu falta eta dena dago. Hor ya gogorra. Bai eta ni askotan sentitzen nintzen beraien irakasle bat bezala edo beraien ama bat, horrela hartzen zaituzte, eta ni ez naiz beraien irakasle bat. Daukate kontzeptu hori ‘hau oraindik ikastola da’ eta ‘hau ez da ikastola, zu zatoz hona nahi duzulako’”. (...) zeren gazteekin, egia esanda, esan nion Joxe Luisi ‘hemen zer edo zer egin behar dugu’. Jarrera kontua da, jarrera negatiboa, errespetu falta eta hori dagoenean niri eragiten dit, hori da kontua, eta nik esaten nien ‘ni ez nator hemen zuen atzetik ibiltzera. Ez, egin nahi duzuen egin eta bestela etxean geratu’. Jarrera da, nik uste jarrerak baldintzatzen duela. Jendea jarrera onarekin etortzen bada zuk jarrera onarekin erantzuten duzu. Haizea

Aldi berean, ordea, lehen urratsa emateko gazteak helduagoak baino hurbilagokoak zaizkiola onartu dit bakarren batek, bera ere adinean eurengandik gertuagokoa delako.

“Egia da gazteekin lehenengo kontaktua beti ere errazagoa dela. Niretzat errazagoa da 18 urteko edo 14 urteko jendearekin egotea 40 urteko batekin baino eta hor aitortzen dut kosta zitzaidala lehenengo zera hori. Ostia, niretzako, pixka bat inposatzen zidan berrogei urteko andre bati esatea ‘korrika hasi behar duzu’ nik. Ez nuen nik inor ezagutzen, zeren beraiak beraien artean elkar ezagutzen zuten, baina nik ez eta joan eta esatea ‘epa, epa, orain egingo dugu beroketa’ eta ‘zer da hori? Zertarako?’” Haizea

Neska gazteekin zenbat eta denbora gehiago eman eta eurak ere adinean gora doazen heinean, ordea, sozializazio prozesu bat are eta nabarmenago ematen da eta horren adibiderik garbiena da entrenatzaile batek nerabezaroa atzean uzten ari diren bere pilotarien gainean eginiko hausnarketa hau.

G. Ez dakit zer edo zer gehiago geratzen zaizun esateko. Adibidez, nesken kasuan, zer harreman mota daukazu Zubietako gazte eta ez hain gazteekin? Ezberdina da giroa?

“Nik uste edadeak baldintzatzen duela. Igual gazteekin gehiago saiatzen naiz autoritarioagoa izaten, distanteagoa, zeren bestela entrenamenduak ezin dira egin. Beno, nik esatea autoritarioagoa imajina dezakezu zer den, ez? Baina

igual hasten dira galdetzen zure bizitza pertsonaleko gauzak eta orduan horretan saiatzen naiz ez sartzen, zeren bestela horretan joaten zaigu. Bestela, besteekin, besteekin oso ondo. Besteak dira kasik koadrilakoak bezala, ya parrandan topatzen ditut". Haizea

1.2.4. Azaletik mamira

Goi mailan dabilenen batek harremana ona izateaz gain elkar ezagutzak zenbaterainoko garrantzia duen ere agertu dit, adibidez, nazioarteko txapelketaren bateko deialdian dauden pilotarien eta hautatzailearen arteko lotura eta harremanaren izaeraz jardunez.

"(...) hay que trabajar mucho y el tema de selección que se tiene que conocer al grupo que llevas. No conocer como pelotari, como la pelota, si no, luego, personalmente también les tienes que conocer. Yo pienso que ahí tiene que haber un trabajo que jamás se ha hecho, pero, bueno, de momento está ahí".

"Yo, por ejemplo, yo, con Antonio, yo se lo dije, a ver si de verdad nos conoce, porque yo no hago nada con una chavala que 'no, no, sé que le pega con la derecha y con la izquierda y bla-bla', pero, luego, yo qué sé si está nerviosa, no está, si es más sensible, menos, qué tiene, cómo le hablo, etc. ¿No? Porque igual le digo 'jjoder!' y '¡ah!', se me caga. Pues no, tendrás que conocer a esa persona y saber un poco responder con ella, pero a eso parece que no le dan importancia". Nekane

Goi errendimenduan diharduten emakumezko igerilariekin eginiko ikerlan batean (Hassell, Sabiston eta Bloom, 2010) babes sozialaren garrantzia nabarmendu dute testuinguruko eragileak aztertuz, besteak beste, entrenatzaile eta kirolarien arteko harremanaren nolakotasuna azpimarratzean. Horregatik, garrantzizkoa iruditzen zait nabarmentzea, atleten bizipen eta sentimenduak oinarrian hartuz, errendimenduan eragin zuzena duela entrenatzaileak eskaintzen dien estimuak, babes informazionalak eta emozio-babesak. Horregatik, talde kohesioari arreta eskaintzea eta talde dinamikako jarduerak sustatzea komenigarria izan ohi dela diote. Izan ere, eliteko kirolean, babes soziala albora utzi gabe, nahi eta behar dutena lortzeko bidean, norbanakoaren hazkuntza eta kirolean bikaintasuna aldi berean lortzea ahalbidetu dezake horrek.

Gai beraren beste hari mutur batekin loturik, tenisean ere kide eta entrenatzaileen arteko loturan alderdi emozionalek nola eragiten duten aztertu dute (Huguet eta Philippe, 2011) eta bertan ondorioztatu dute oso garrantzitsua dela kirolari eta entrenatzailearen arteko erlazioaren kalitate eta garapena aztertu eta zaintzea, besteak beste huts egindako harremanak errepika ez daitezen.

Testuinguruak aldakorrek direnez, gainera, beti ere begirune eta errespetua ardatz harturik, entrenatzaileak errealitatera egokitu eta moldatzeko prestutasuna agertzen ditu parte-hartzea sustatu asmoz, besteak beste bere ardurapean ari

direnen proposamenak baloratuz edo hauek zuzeneko inplikazioa izan dezaten saiatuz. Horrek ere ematen du euren arteko elkartrukea indartu eta sendotzeko aukera.

Jaionek zuzenean egin du mozketan nire erantzunetik, Haizeak pilotarik prestatu gabe. Azken honi gustatu egin zaio hori eta "datorren astean hori egingo dugu, nik pilotarik prestatu gabe, zuzenean zuek. Oso ondo, gustatu zait".

(Kontakizunak eranskina: 180)

Entrenatzailearekiko begirune eta esker ona, miresmen apur bat ere badarion esanen bat ere jaso dut, batez ere kantzako harremanean eta sustatzaile rolean eginiko lanari aitorpena egiteko baliatua.

"Nadie se preocupaba de unas chicas. Nosotras en Estella, por ejemplo, porque tuvimos la suerte de tener a Jaime, Jaime y su mujer, que parecíamos sus hijas y nos llevaba a todos los lados. Los verdaderos hijos decían, 'no, no, es que tengo dos hermanas'. Ja, ja, ja. Nos llevaban a todos los sitios".

"(...) que haya una persona llevándolo, porque yo antes yo no lo llevaba, pero le tenía a Jaime y a Jaime yo le doy las gracias por haber aparecido en ese momento (...)." Nekane

Kasu bat baino gehiagotan, gainera, une batetik aurrera mailaketa eta harremanen izaera ezberdina ia ezerezean geratu direla esan nezake, batez ere emakume helduen kasuan, mugak malgu eta aldakorrek diren seinale, harreman hau eta kideena jarraian agertuko dudan multzoko atal bihurtzeraino. Talde izaeraren adierazle dira, hain zuzen ere, talde giroaren ispilu garden askoak. Hau, gainera, gero eta sendotasun, indar eta intentsitate handiagoarekin plazaratu da saioek eta elkarrekin izaniko hartu-emanek aurrera egin ahala.

1.3. Talde izaera

Emakume pilotariek elkarren artean dituzten harremanetan euren korronteak bateratu eta azkenean talde izaera bat lortzen amaitzen dute, oso nabarmen, gainera. Etengabeak dira talde giroari, talde sentimenduari, taldekideen arteko loturari, hartu-emanen aberasgarritasunari eta denak norabide berean aritzeari egiten zaizkion erreferentziak eta alderdi honi ematen zaion garrantzia, norbanakoen batura izatetik haratago joanez. Atal honetan horren gaineko gogoeta eta informazioa agertuko dut.

1.3.1. Talde giroa

Talde kontzeptuari eta honek duen eraginari tiraka, bat baino gehiagoren ustez jarduera erabat baldintzatzen du multzo bat osatzeak, jendearekin gertutasun maila bat lortzeak, askotan jardutea ala ez baldintza dezakeela argi adieraziz.

“Nik uste dut norbait ez badago gustura toki batean alde egiten duela, hemen ez dago inor derrigortua egotera fitxa bat daukatelako eta egon beharra dagoelako. Beno, gustura baldin badago, taldeak esaten du pixka bat, tokatzen zaizun taldearen arabera. Toki guztietan, nik hala pentsatu nahi dut”. Ibone

Giro erakargarri eta lagunkoia desagertzeak edo okerragotzeak beren jardueran zuzenean eragina izango lukeela ere pilotari bat baino gehiagoren ahotik entzun dut, giroa galtzeak sorrarazten dion pena puntua ere nabarmenduz.

“Joaten naiz, ondo pasatzen dut, eta momenturen batean giro txarra sortzen bada, giro hori sortzen den momentuan, ba, giro txarra edo zerbait pasatzen den momentuan, bada, utzi egingo dut, nik uste dut”.

“Niri iruditzen zait komunikazio falta, edo da ni uzten edo urruntzen ari naizela, edo ez dakit nola esan, baina, iruditzen zait lehenago bagenuela kontaktu gehiago. Lehenago, hasi zenean Emakumea Pilotari, izan zela booma, mantentzen ziren jokalarri guztiak batera. Egia da orain hainbeste jokalarri gaudela ez dela posible denak frontoi batean sartzea aste-bukaera batean, baina, hor pasatzen da mailaketa eta azkenean zu zure mailakoekin bakarrik ibiltzen zarela, eta nik nire mailakoekin denboraldi honetan mantendu dut harremana, baina, adibidez, beste mailakoekin ez. Hor bai ikusten dudala falta dela hasieran zegoen harreman hura. Bai”. Haizea

Beraz, aurreko bi ideien gaineko autoreen erreferentzietan sakonduz, elkarrekiko errespetua eta begirunea funtsezkoak dira jardueretan, erlazio sozialak finkatzea ezinbestekoa da. Oinarrizko talde-harremana sortzea komenigarria da saioa garatu ahal izateko, kideekiko tolerantzia ahalmen fisikoen ginetik baitago (Martínez eta García, 2002).

Zenbaitetan jarduera horren aldeko hautua egiteko taldeak, edo lagunak joerek, eragiten dutela ere agertu izan didate, denak batera hartuz erabakiak, artaldean bailebiltzan.

“Eta, gero daude horren lagunak, direla, ‘ez zait gustatzen, baina nola nire lagun ona, jatorra pilotan dabilen, bada, goazen denak pilota egitera’”.
Eider

Talde giroaren adierazlerik garbi eta nabarrienak, ugarienak ere bai kasu honetan, paleta saioetan zehar, ia uneoro, sorturiko solasaldiak eta adar jotzeak izan dira, kideen artean lorturiko konfiantza eta izaera komunaren ispilu. Edozein gai izan zitekeen hitz jarioaren muinean eta hari muturrik txikienari helduta hizketaldi mamitsuak izan ditugu.

Harmailetan norbere poltsa, motxilatxo, paleta eta gainerakoak utzi eta saioari ekin aurretik Haizeak “uste dut eguzkiak eman didala, bizikletan joan naiz Lasartera arraina erostera eta” kontatu digu. Horren ondoren esan du

kosta zaiola arrandegiak aurkitzea, “beti kooperatibara joaten naiz eta gaur itxita zegoen” eta emakumeek azalpenak eman dizkiote zenbait aukera ezberdinen inguruan, “eliza atzean daukazu bat, oso ona, beste bat badago Michelineko zuzengunean, etab.” Hori entzunda Haizeak “andre bati galdetu diot, baina ez dut aurkitu” esan du eta “hau erabat hernaniarra da” esan dit bakarren batek. Nik “bai, bai, Zubietan lo bakarrik egiten du, bizi Hernanin bizi da” erantzun diot aldamenetik. Hizketaldi honen harira “arrandegiak arratsaldeetan irekita izaten al dira hemen? Gure inguruan nik uste normalean itxita egoten direla” esan dut eta Usurbilen asteko bi arratsaldetan irekita egoten direla jakin dut, bestela itxita, Jaionek “hemen astearte eta ostiral arratsaldeetan zabalik egoten dira, ni orduan joaten naiz erostera” azaldu digulako (B.K. Ez nuen bela pentsatuko halako hizketaldirik izango genuenik saioetan, ez horixe!). Hala ere, gaurko hizpide nagusia bera bera izan da. Karmelek esan du lanerako bidean motorrean zihola ia ordu erdian geratuta eduki dutela errepidean arratsaldeko lehen orduan, 30°C zeudela eta ia ito dela eguzkipean hainbeste denboran. Jaionek, adibidez, esan du “dagoeneko nekatuta nago ni” eta Haizeak ere egin du eguraldiaren gaineko aipamenen bat, beste guztiok bezala.

Mingainak dantzazeari utzi gabe, baina, gorputzak martxan jartzen hasi gara halako batean, geurez arratsalde osoa hizketan pasatzeko arazo handirik ez baldin badaukagu ere.

(Kontakizunak eranskina: 431)

Egoera honetan ere lasai aritu naiz ni, aurkariak mugiarazi asmotan. Antzera dabilta Malen eta Ainara ere eta Zuriñe ere saiatzen da ahal duen neurrian. Hala ere, kasu honetan ere guri baino gehixeago kostatu zaie elkarren paletekin talka egitea, besteak beste Zuriñek berea atzeratu eta Malen joan behar izaten delako kolpatzera. Hori ikusita Ainara barrez hasi da eta “zer, Zuriñe, horrela ondo moldatzen al zara?” edo halakoren bat esan dio eta honek “bai, bestea etor dadila nirea kolpatzera” esan du, barreka. Giro onean ari gara orain ere (...)

(Kontakizunak eranskina: 474)

Theberge (1995) solasaldien sokari helduta, generoa, kirola eta elkarrekikotasuna (*community*) eraikitzearen gaineko ikerlan batean, izotz hockeyan, taldearen garrantzia nabarmen azpimarratu du. Ondorioztatu du hizketaldietan gai ezberdinak sortu direla, une batzuetan batez ere kirolari berari buruzkoak, baina ez beti. Egoera beraren ispilu dira aurreko bi adibideak ere, pilotalekuan mingainak dantzan jarrita nola jardun izan garen ikusteko ispilu paregabea.

1.3.2. Talde sentimendua

Taldea osatzeko prozesua ez da ezerezetik sortua izaten eta integrazioa eta talde sentimendua garatzea ez da lehen egunetik gertatzen. Kasu honetan ere prozesu baten ondorio da, kideek elkar gehiago eta sakonago ezagutzearen fruitu. Hori oso nabarmen ikusi dut Usurbilgo ikastaroko talde giroaren osaketan, lehen saioetan askoz ere bakartiago jardunez norbera, ez hainbeste talde edo beste kideen interes edo nahietan erreparatuz eta, aldi berean, gerturatzeko hainbesteko saiakerarik egin gabe. Egun eta orduak aurrera egin ahala, baina, taldean integratu eta talde

sentimendua lortzea ia oharkabeen etorri zaizkigu han-hemenka, amaierarako harreman sarea are gehiago estutuz.

G. Ez dakit ikusi duzun harreman sare bat edo. Nolako harremanak zenezkan pilotariekin? Emakumeekin segituko dugu eta gero neskena pasako gara nahi baduzu, edo aldrebes, nahi duzun bezala.

“Bai, emakumeekin jarraituko dugu. Jo, ba niretzako denak ezezagunak ziren. Nik ez nekien bakoitza zein zen, nongoa zen, baina nik nabaritzen nuen lehenengo egunean eurek pixka bat elkar ezagutzen zutela kaletik eta horrela, baina zeudela denak distante edo eta gero egia esanda kristoren harremana lortu dugu. Kristorena, bai. Izan da nire ustez kristoren talde kohesioa egon da nire taldeetan. Izan da emakumeen momentua. Berriz errepikatzen dut, denak ezkontuta, seme-alabekin, uste dut bakarra dagoela ezkontuta eta seme-alabekin ez dagoena, orduan ... Nabaritu egiten da. Izan da beraietzako espazio bat, beraien ordua, beraien momentua eta bastante errespetatu dutena. Orduan, sozializazioa, ba, bai, kristorena, kristorena. Bai”. Haizea

Talde sentimendu horren garapen eta izaera aipatzen dute meatzaritzarekin loturik dibertsio maskulinoa aztertuz Barrientos, Salinas, Rojas eta Mezak (2009). Bertan, batez ere “schoperi”etako (tabernetako) antolaketa sozialak aztertuz, langileek beste kideekin elkarbanatzearen garrantzia azpimarratzen da, soziabilitatea, aisialdiko jarduera garrantzitsua dela azpimarratuz: taldeko kide bihurtu eta sentitzen dira. Partekatzea, bizipenak zein hizketaldiak, norbere bizitzako poz eta penak, elkar ezagutzeko eta besteen onespina lortzeko bide dira.

Errugbian diharduten emakumeen talde baten azterketa egin du Martínek (2012). Kideen arteko harremanak, talde kutsu edo izaera barne, taldekideen arteko solasaldietan presente daude kasu honetan ere. Hiru kideren arteko harremanetan ematen diren gorabehera eta gaizki ulertuak azaltzen ditu narrazio bidez eta horiek taldeari eragiten diotela adierazi, laguntasunak eta gertutasunak garrantzia dutelako talde barnean. Taldea ez dela homoginoa nabarmendu nahi du autoreak, baina talde izaerak eta sentimenduak pisu espezifiko handia dutela.

Pilotan hainbeste denbora ez daramatenak gerturatzea eta giroan txertatzea ere funtsezkoa da, nahiz eta hori lortzeko edabe magikorik ez dagoen gaur gaurkoz.

“Gero daude hasiberriak, aurten federatu direnak, eta horiek saiatu behar dugu engantxatzen, eta guregana ekartzen, pittin bat denok talde bat izaten. Zubietako neskek nik lehengoan ezagutu nituen, eta ia bigarren urtea dute federatuta. Bada, agian, gazte horiekin ere egin behar dugu zer edo zer pixka bat girotzeko, ez dakit”. Eider

Talde izaera marka edo ezaugarri bezala ere behin baino gehiagotan plazaratu dugu, kantxa barruan baino ez izanik aurkakotasun harremana, partidako 30 tantoek irauten duten bitartean, jendearekin elkartzeari garrantzia emanez.

“Bada, beti esaten dute, ez dakit, eskupilotan eta, binaka, eta ez dela futbolean bezala, azkenean futbola gehiago da taldean-eta, baina, nik uste dut azkenean badela taldeko zera hori. Azkenean, beti parejaz aldatzen joaten zara, klubekoa dela,... Klubekoekin entrenatzen duzu, edo, bestela, teknifikazioa dela-eta beste jendearekin elkartzen zara, nik uste dut badagoela hor, gero, azkenean, aurkariak garela bata bestearekin, baina, badagoela hor talde izaera bat edo markatzen gaituena nolabait ere”.
Haizea

Messnerrek (2011) genero ideologia eta gazteen kirolari buruz eginiko ikerketan, neskek taldeak errazago osatu ohi dituztela nabarmendu du, entrenatzaile baten iritzia azpimarratuz. Gainera, mutilek konpetitibotasun handiagoz eta euren buruen interesen arabera, hauek lehenetsiz, jokatzen omen dute zenbaitetan, nahiz eta hori taldearen kaltetan ere izan litekeen. Beste horrenbeste nabari da ondorengo aipuan ere, talde izaera eta sentimenduak duen eragina eta garrantzia azpimarratzen baita bertan, beste jarduera batzuetan ezagutuarekiko testuingurua ezberdina dela azpimarratuz.

“(...) joe, joatea talde batean. Eta, gainera, ezta aerobica ere, ze esaten duzu ‘talde batean da’, baina ni joaten nintzen, ti-ta-ti-ta berrogei minutu egin eta, beno, ba normalean korrika eta presaka etxera. Eta, hemen, ba, beno, hitz egiten duzu, eta, bai, nik uste giroa beste era batekoa dela eta hori asko eskertzen da. Beste batzuetan, igual esango nuen ‘gaur igual gehiegi hitz egin dugu, nahiago nuen askoz gehiago jo bagenio eta izerdituta joan banintz etxera’, baina, beno”. Jaione

Emakume adinduentzat ere harreman sareek garrantzia handia dute jarduera fisikoko programa batean parte hartzen dutenean (Bidonde, Goodwin eta Drinkwater, 2009). Sare horiek ongizatea dakartela azpimarratu da, kideetako bakoitzari babesa eskainiz. Izan ere, adin tarte horretan sareak gutxituz doaz, loturak murriztuz, batez ere, adinean gora egiteak dakartzan ondorioen poderioz. Horregatik, lagunak programan izatea benetan garrantzitsua da jarduleentzat. Programaren izaera soziala ukazina da, gainera. “Gure ordua” eta “gure taldea” gisako esanak ere indartzen dituzte jarduleek euren talde izaera horren sendotasuna garbi agertuz. Andaluziako emakume adinduekin eginiko ikerketa batean ere harremanen garrantzia azpimarratzen da (Pietilä, 2009), elkarre batean parte hartzeak soziabilitatean onura dakarkielako jarduleei, harremanak izateko aukera eskainiz, euren espazio eta denbora bezalaxe.

Talde izaera hori sendotu eta mantentzeak norbanakoen gaitasunak garatu eta heldutasunerako ere tresna garrantzitsuak eskuratzen laguntzen du, norbanakook bizitzarako oso baliagarri izan ditzakegun abileziak, hala nola elkarren artean laguntasun estua, kooperazioa garatzeko ahalmena eta talde lanean aritzeko abildadea lortzea, adibidez (Brown eta MacDonald, 2008). Era berean, Migliaccio eta Bergek (2007) kideak ezagutzea eta talde izaeraren garrantzia nabarmendu

dituzte, talde bezala jarduteak dakartzan onurak aipagai hartuta futbol amerikarrean. Harley Davidson motorrak gidatzen dituzten emakumeen aisialdiko jardueraren gainean eginiko ikerketa lanean Rosterrek (2007) ere nabarmen azpimarratu du motor gidariekin jende berria ezagutu eta harreman sareak sortzeak duen onura, emakumeak ahalduntzeko ere tresna baliagarria dela adieraziz. Aztergai berarekin segituz, errugbilariarekin eginiko ikerketa batean (Fields eta Comstock, 2008) elkarrekintza hori azpimarratu dute jardun arrazoia bezala, jokoaren alderdi sozialak baloratzen baitituzte emakumeek jokoan zeharreko gozamen eta beste zenbait alderdiz gain:

- Kantxan aurkari, amaieran lagun eta harremanak lantzea garrantzizkoa.
- Kideen artean lotura indartsuak sortzea.
- Familia osatzea, lagunak, kideak maitatzea, testuinguruko babesa.

1.3.3. Talde integrazioa

Pilotako emakumeen taldea jendearekin harremanetan jartzeko tresna lez erabiltzeaz gain, herririk txikieneko kasuan, Zizurkilen, inguruko herrietatik bertara bizitzera etorri eta bertako jardueraren batean jardutea herritarrekin harremanak izateko bide ere izan da. Hori aldi berean deigarria, jakin-min iturri eta interesgarria dela uste dut, sozializazioan beste urrats edo maila batean kokatzen duelako jardura honen beraren erabilgarritasun eta irismena.

G. Lehen esan duzu, une batean esan duzu, palan, azkenean, ez dakit lagun giro hitza erabili duzun edo. Iruditzen zaizu harremanetarako bide ere izan litekeela? Zure kasuan izan da? Ez dakit sarea deitu edo nola deitu, sozializazioa deitu.

“Bai, niretzako bai. Bai. Zizurkilen bizi den hainbat jendekin bestela ez nitzuke harremanak izango. Horrelako herri txiki batera etortzen zara inor ezagutu gabe eta hemen jendearekin harremanak izateko modua izaten da: edo umeak edukitzen dituzu eta parkean ezagutzen duzu jendea edo, bestela, uf, Zizurkilen nik daukadan esperientzia oso oso oso zaila da jendearekin sartzeara”.

G. Aspaldi etorri zineten?

“Hamazazpi urte dira etorri ginela eta aurreneko urteak ni gogoratzen naiz festetan hor kantoian, izkinan, jarrita egon eta igual, ez dakit, igual ez dugu gehiegi parte hartu bileretan eta horrelako gauzetan, baina iruditzen zait alde batetik ideologikoki oso oso jende zentratua dela eta nahiko sare itxia dela eta horra sartzeara asko asko kostatzen dela. Orduan niri honek marjina ematen dit herri-herrikoak ez badira ere, ba, beno, hurbileko jendearekin harreman sare bat sortzeko. Alde horretatik ondo. Ondo etortzen zait. Aerobicean aritu nintzenez ere bai, baina pixka bat zailagoa zen orduan, jende motarengatik edo horrela, eta orain ez”. Gurutze

Pertsona bat herri batetik bestera bertan finkatzeko asmoz joatea da Gurutzek aipaturikoa, migrazioa dei niezaiok, eta hau, beste dimentsio zabalago batean

kokatu baldin baliteke ere, etorkinek zenbait lekutan bertakotu eta txertatzeko eginiko ahaleginekin aldera nezake. Modu honetan, Müllerrek (2011) jatorriz bolibiarrek diren emakumeek Sevillan futboleko jarduteko taldeak nola osatu dituzten aztertu eta ondorioztatu du kirol arloa oso garrantzitsua izan dela bestelako jendea ezagutu eta sareak ehuntzeko. Baita hegoamerikarrek elkarrekiko konpromisoak har ditzaten ere. Gure testuinguruan ere ikusi da paletako saioetan jardun eta talde batean aritzeko abaguneak herri mailan neurri batean parte hartzaile izateko ere balio izan duela, herritarrekiko erlazioak estutu eta finkatzeko.

Talde giro edo izaerari eutsi eta harremana lagun talde bat osatuz garatu da kasu bat baino gehiagotan, nabarmen kantzako murrak malgutu eta tratua handik kanpora ere zabalduz eta aldi berean kantzako jardunari eusteko pilareetako bat bihurtuz.

“(...) kirolaz aparte giro ona egin zen, lagun talde bat egin genuen eta zen astebururo hor geneukan partidua hemen, bestea han eta kirolaz gain zen, hori, geure artean sortu zen giroa eta giro ona zegoela”. Itxaro

G. Hori zen bigarren galdera. Esan zenuen gustatzen zitzaizulako eta giroagatik-eta zenbiltzala palan aurreko hartan. Zuk uste duzu horrek edukiko duela indarrak berriaz bueltatzeko? Edo, bueltatzeko asmorik baduzu?

“Niretzako indar gehiena horrek edukiko du. Nik irailean umea edukitzen dudanean, nik garbi daukat nahiz eta pilotan ez jokatu frontoira partiduak ikustera joatea nahi dudala, bada, giro hori ez galtzeko eta. Gero, berriaz bueltatzeko niretzako hori, giro hori batik bat bueltatzeko. Ez naiz bueltatuko partidu batzuk irabazi nahi ditudalako eta ez dakit zer, zeren eta, gainera, gaizkiago egongo naiz fisikoki. Baina, giroa eta han sortzen den lagunarte hori mantentzeko. Nik hori behintzat nahi dut mantentzea. Bai”. Olaia

“Bai, bai, bai. Azkenean, zure lagunekin planak dituzu eta haiekin astero elkartuko zara eta besteekin ez zara astero egongo. Agian txapelketetan aritzen bazara bai, baina, elkartzen zarenean oso ondo dago, eta ondo. Alde horretatik uste dut dela selekzioko hoberena. Behintzat, elkartzea eta giroa”.

Nora

Kantzatik kanpoko jardun eta elkartrukearen gaineko aipuak autore bat baino gehiagoren lanetan aurkitu ditut (Roura, 1999; Bidonde, Goodwin eta Drinkwater, 2009; Brown eta Macdonald, 2008; Fields eta Comstock, 2008; Martín, 2012; Pietilä, 2009; Rhind eta Jowett, 2010; Walseth, 2008). Kantzako jardunaren bidez laguntasuna lortzea garrantzitsua izan liteke beste hutsune batzuei aurre egiteko ere. Ildo honetan, mutilen “Physical Recreation” aztertuz eginiko ikerlan batean (Brown eta MacDonald, 2008), etxe-girotik urrunago zegoen mutil batek errugbi eta arrauneko kideekin lorturiko laguntasunari esker aurre egin zion etxetik urrun egoteari, kirola bitarteko aparta bihurtuz lagunak lortu eta harremanetan sakontzeko, bere bizitzan ere pilare bihurtuz elkarrekintza horietatik sorturiko

taldetxoa une eta testuinguru zehatz hartan. Emakumeetan aisialdiko jarduerak eta laguntasuna aztertu ditu Greenek (1998), bertan baieztatuz laguntasuna eremu pribilegiatua dela aisialdirako eta horrek emakumeen subjektibotasuna ziurtatzen duela. Hemen ere laguntasunak beste alderdi batzuen garapenerako balio du. Gustafsson-Larsson eta Thurének (2007) diote zenbait egoera zehatzetan emakumeek umorea partekatzeak ahalduntzea indar dezakeela eta genero estereotipoei aurre egiten lagundu. Ildo berean, sareak sortu eta baliatu ohi dituzte zenbait emakumek euren bizi baldintzetan sorturiko arazoei aurre egiteko eta protesta edo keak agertzeko. Sareratzeko estrategiak sortzen dituzte emakumeek eta modu horretara euren erresistentzia handiagoa da generoaren arloko aldaketetarako, funtsean une berean esperientziak trukatu eta elkarrekin une atseginak igaroz. Miller eta Brownek (2005), haur txikiak dituzten amekin eginiko ikerlan batean ere, irteteak (“time out”) eta jarduera fisikoak dakartzan onuren gainean azpimarratu dute besteekin egotea garrantzizkoa dela. Izan ere, amak diren beste zenbaitekin hitz egin eta batzeko aukera ematen dute zenbait programak eta astean zehar nolabaiteko harremana behar dutela diote, bestela ardurekin erotu egingo lirakekeela.

Taldea lotune bihurtzearen adibide esanguratsuak iruditzen zaizkit ikastaroetan behin baino gehiagotan ohiko taldera itzultzeko eginiko hautuak edo baita herriz aldatzeak sor diezazkiekeen kezka eta zalantzen gaineko aipamenak ere, bateko hausturak besteko lotura ekarriko ez duen beldurra eta taldez aldatzeak eragin lezakeen gogoeta.

G. Orduan, ahalko bazenu talde berean mantenduko zinateke edo, beno, ez zaizu hainbeste axola?

“Honbre, ni mantentzen naiz jendearengatik talde honetan, goizekoan. Arratsaldekoan hobea da gutxiago direlako eta gehiago ibiltzen zarelako, baina, beno, goizeko harremanengatik-eta bai, goizekoa aukeratu dut. Egin nitzakeen biak, baina goizekoa aukeratu dut”. Ainara

“Eta kostata, beno, ez kostatzen, baina handik hona aldatzean, ‘jo, Ibarra gustura nengoen’. Ez dakizunean”.

G. Ibarra gustura zeunden jendearekin? Akordatu zinen jendearekin? Ez dakit horrela esan litekeen.

“Justu jende konkretuaz ez, baina han gustura nengoen giro harekin eta hemen ez nekien zer egongo zen. Orduan, duda hori aldatzean, ba, ez dakizu hemen zer aurkituko duzun, zer jende, ondo moldatuko zaren edo ez, ba, bai gogoratu nintzela, baina problemarik ez dut izan, e. Berdin-berdin”. Itsaso

“Bai, joe, azkenean taldea eginda daukazu, zuk beraiek badakizu nolakoak diren eta joaten zara eta ‘zer moduz udara?’ eta ‘zer moduz?’ galdetzen dizute eta beraiek galdetzen dizute ‘zer, ligatu al duzu?’ eta ‘orain ere ez dut ligatu’, ez? Konfiantza bat dago, joango zara Arrasatera eta ‘aupa, Saioa

naiz, zuen palako irakaslea izango naiz, ekainera arte egongo gara' eta 'inoiz jolastu duzue palan'. Azkenean berriaz hasieratik hasten zara eta bi edo hiru astera beste erlazio bat, baina bai". Saioa

Kide berriekiko harrera eta jarrera ere goiko aipuarekin loturik ager daiteke, taldeko partaide bihurtzeko prozesua nola ematen den ikusteko eta neure larruan bizitzeko aukera izan baitut, hasierako “berria” eta “ezezaguna” etiketak ezabatzea lortu eta bat gehiago bihurtuz. Horretarako aurrez taldeko kide direnen laguntza eta eskuzabaltasuna ezinbestekoak dira, neurri batean sarrera baimendu edo debekatzeko aukera izan baitezakete. Ildo honetan, autore batzuen arabera, kirolean parte hartzeak, beste zenbait onura izateaz gain, ezaugarri eta jatorri sozio-etniko ezberdinetako nerabeak integratzeko balio du, talde bereko kide lez batzeko aukera eskainiz. Aldi berean, ordea, kirol hori talde sozialen arteko ezberdintasunak nabarmentzeko ere baliatzen dute gazteek (Elling, Knoppers eta De Knop, 2001). Harreman sareak eta laguntasuna garrantzitsuak dira heziketa fisikoan eta 12-13 urteko nesken artean ere, dinamika soziala tresna izan baitaiteke taldean txertatzeko zein bertatik kanpo uzteko. Kapital sozialak bereizketa ere eragin dezake horregatik, besteengandik ezberdintzeko asmoz (Hills, 2007). Hari mutur berari helduta, emakumezkoen AEBetako izotz hockeya aztertuz (Pelak, 2002), identitate kolektiboa nola sortzen den eta zer nolako eragina duen aztertu dute. Besteak beste, besteekiko bereizteko ere erabiltzen dela diote, hainbat oztopo edo mugari aurre egiteko saiakeran, baliabideak hobetzearen poderioz mailaz hobeak diren jokalarik eta taldeek hastapenean daudenekiko ezberdintasunak eta mugak ezartzen dituztela argudiatuz.

1.3.4. Talde kohesioa

Aurrez aipatu moduan, nire eta beste zenbaiten kasuan erabat taldekide bihurtu bagara ere, testuinguruan faktore ezberdinak ematen dira eta ezagutu dut taldean erabat txertatzerik lortu ez eta bidean geratutakoren bat edo beste, giroak bere baitan atxikita mantendu ez denik. Kasu ezberdinak ikusi arren gehien-gehienetan lortu dugu taldean integratu eta sentimendu hori barneratzea, baina ez denetan, eta hori ere azpimarragarria iruditzen zait.

Adibidez, talde berean ezagutu nituen hiru emakume lehen aldiz ikastaroan hasirikoak, baina batek ez zuen lortu edo asmatu kide sentitzen eta ikasturtea amaitu aurretik utzi zion saioetan parte hartzeari. Sozializazio eza eta talde sentimenduaren garapen gabezia dakusat hemen eta kideren batek ere plazaratu zidan kasu honen gaineko zalantza eta gogoetaren bat.

“Utzi egin zuen. Hori esan zuten, Tilosetako txapelketan jokatzen hasi zela eta egunero pilotan dabilela. Hori zen neska bat nik ikusten nuena, 4 urte eman ditut egunero ikastolan bera ikusten, eta ez zuen sekula aio bat egiten. Hasi ginenean hemen ikusten nuen eta ez zidan begiratzen. Nik uste dut pixka bat etorri zela, niri sentsazio hori eman zidan, ikastaro bat nola zen ba

jendea gutxi dakien jendea izango zela, edo zer jende izango zen, eta nik uste horrekin pixka bat desanimatu egin zela neska hori, e. Geroztik behin galdetu nion ‘ui, ez zara azaltzen’ eta ‘bai katarroa daukat’, baina uste dut katarroa aitzakia erabili zuela. Orain ikusten dut, baina nik ez diot ezer galdetzen eta berak ez dit ezer esan”. Ines

Beste kasuren batean ere kide batzuen galerak pena eragiten duen moduan ez hainbeste beste zenbaitenak, akaso giroan ere hainbesteko eraginik ez duten ustea plazaratu izan didatelako.

“Ba, adibidez, kuriooa izan zen. Etorri zirenean aurreko urtean bi lasartear, ba, hasieran, uf, ba nik uste kosta zitzaigula. Gainera, erdaldunak ziren eta niretzat pala ere, ba, beno, lotzen dut euskararekin eta orduan, ba, beno, pixka bat dinamika puskatu zuten, baina, egia esan, lortu zuten azkenean integratzea oso ondo eta oso ondo bukatu genuen urtea. Ba, beno, nik uste prozesu normala izan genuela. Egia esan, aurten esan zigutenean ez zutela jarraituko, ba, beno, niretzat sentimendua izan zen pixka bat alde bikoia: ba zer pena, baina zer ondo. Zeren nik pala bizi nahi dut euskaraz, lotuta daukat eta niretzat oso inportantea da. Ez dizut esango ez dudala nahi inor etortzea, baina, beno”. Eli

Talde aldaketa, integrazio zailtasunak eta taldeko kide sentitu ala ez gaien inguruan, taldeetan txertatzeko zerk eragin dezakeen ere aztertu da. Ildo horretan, Walsethek (2008) kapital soziala oinarrian harturik, emakume gazteen talde kiroltako kirol esperientziak hain zuzen ere, lagungarri diren eta ez diren joera eta jarrerak aipatu ditu. Bertan, besteak beste, harremanak bi multzotan banatu ditu, berdinekin gertatzen direnak (bai ezaugarri, ohitura, inguru, etab.) eta ezberdinekin edo ezaugarri ezberdinak dituztenen artekoak. Lehen multzokoen gainean dio helburuetan elkarren oso antzekoak direnak aurkitzen direla bertan eta helburu berdinak izateaz gain askotan aurrez ezarririko hartu-emanak dituztela abiapuntu, talde homogeen eta eskusiboak izanik aldi berean: irakurtzeko biltzen direnak, elizakoak, etab. Horregatik, kirolean ere mota honetako loturetan harremana indartu eta sendotzea da helburua eta taldekideak lagun onak zein minak izan ohi dira, askotan eskola garaitik batera dabiltzanak eta hori indartzeko kirol arloan ere klub berean bat egindakoak. Elkarrekotasun orokorra (“generalized reciprocity”) da muina harreman hauetan, taldearen beraren arrakasta muinean eta oroz gaindi dagoena. Elkarrekin ordu asko igarotzen dituzte eta horrek elkarrekintza sustatu eta sostengatzen du, loturak estutuz eta kolektiboki “gu” izatera iritsiz, identitate kolektiboa berenganatuz. Taldeak heterogeenak eta kideak elkarrekiko urrunagokoak direnean, berriz, norberarengandik ezberdinak dira besteak, izan klase soziala edo talde etnikoa arrazoi. Horregatik, zenbait testuingurutan, kasu hauetan harremana ez da sakontzen behar beste eta lagunak izatera ez dira iristen, kideak elkarrekiko elkartrukean ezagunak eskailera mailan geratuz, gorago ezin igarota. Hala ere, hau onuragarri ere izan litekeela dio autoreak, taldea utzi behar denean aurrera jarraitzea errazten duelako erlazioan hainbeste sakondu ez izanak. Kaltegarri ere

bada ezberdintasunei aurre egiten saiatu eta beste talde batera joatean bertakotu eta txertatzea lortu ezean, artikuluan bi parte-hartzailek taldez aldatu eta aurreko egoera berean egotea lortu ez dutela esatean ederki ikusi dudana eran, malenkonia eta tristura baitarie euren esaldiei.

Talde ezberdinetan aritutako kide bat ere izan dut, lanaldiaren arabera talde batean zein bestean ziharduena astearen arabera. Hala ere, bera talde bateko partaide sentitzen zen batez ere, edo hala ulertu nion, neuk behintzat, entzuniko azalpenetan.

(...) Arritxuri ere galdera egin dio bada ez bada ere, “zu talde honetakoan sartu zaitut, datorren astean etorriko zara?” eta honek “bai, bai, ni talde honetako naiz. Bi aste barru ez naiz etorriko arratsalde izango naizelako, baina, bestela bai” erantzun dio.

(Kontakizunak eranskina: 407)

Kasu honetan, gainera, talde bakoitzaren gidaritza pertsona ezberdinen esku zegoen. Talde ezberdinen artean ezberdintasunak bistaratu dira aurrez esanarekin zuzenean lotuta, adibidez, ordutegiaren eta entrenatzaile aldaketaren ezberdintasunak bultzatuta.

“Igual, bestean, ez dakit, igual asteazkenetakoan gehiago izan da talde kohesio handiagoa, ez dakit oso ondo. Talde kohesioa bestean ere bai, zeren esan nahi dizut hiru koadrilakoak ziren. Nik diferente ikusten nituen, baina, aldi berean, ez dakit esaten zertan”.

G. Talde horiei zer ikusi diezu? Adibidez, talde kohesioa aipatu duzu orain. Ikusten zenien talde izaera bat?

“Bai. Adibidez, ikusten dut talde izaera bat gure aldetik bi taldeetan eta besteen taldearekin konparatuta. Beste taldean nik uste dut orain, beno orain edo, orain ezagutu ditut nik, bai egin dutela bukaerarako talde kohesio bat”.

Haizea

Talde kohesioak eta talde izaerak, heziketa fisikoko saioetan, ikasleen motibazioan duen eragina aztertu dute Gu, Solmon, Zhang eta Xiangek (2011). Adierazitakoaren arabera norbanakoen motibazioan eragiten du talde kohesio mailak, besteak beste. Zenbat eta kohesio handiagoa taldean, motibazio patroiak adaptatibo eta sendagoak dira. Heuzé, Sarrazin, Masiero, Raimbault eta Thomasek (2006) eliteko emakumezkoen taldeak ardatz hartuta motibazio mailak gora egiten duela nabarmendu dute talde ezaugarriak gehitu ahala, motibazio giroarekin batera, errendimenduak ere goranzko joera izaten duela.

1.3.5. Taldearen magala

Taldeak ematen duen babesa ere nabarmendu nahi dut, talde sentimenduari heldu eta zenbaitetan elkarrekiko gertutasunaz baliatuz taldea norbere interesen gaintik jarritz, adibidez, txapelketaren bat jokatzeko kideak hautatu eta hauekiko onarpenean edo baita kideek egiten dutenarekiko sentituriko urduritasun eta kezken gaineko erreferentzietan ere.

“(…) nire kide bat joan izan balitz nire ordezt, beno, lasai asko, animatuko nuen eta berdina egin izan balu, ba, beno, saiatu da eta kito”. Gurutze

Orain usurbildarren txanda iritsi da eta donostiarrak izango dituzte aurrez aurre. Haizea ere hurbildu da erreboteko gunera eta bideo kamera eskuan bere ikasleen jardunari begira jarri da. Partida hasi da eta usurbildarrak dira animatzailearik onenak, dudarik gabe, txalo eta txistu hotsez kideak aupatuz ari baitira lehen unetik.

(Kontakizunak eranskina: 501)

“Zu bazoaz ni ere bai” esaldia ere aipatu beharrekoa iruditzen zait, besteak beste kideen joera eta hautuak norberarenean eragina izan duela ohartu bainaiz, adibidez, Emakumeen Topagunera edo Emakumea Pilotari egunera bertaratzeko erabakia hartzerakoan edo jendaurrean aritu bai ala ez erabakitzean, taldeak pisua duela bere baitan.

“Nik uste taldean baldin bada baietz. Taldeak babestu egiten du. Nik uste baietz”. Gurutze

Haizeak hasieran esaniko “zuekin hitz egin behar dut” hori ekarri du gogora eta hiru ohar eman behar dituela esan digu. “Berandu samar abisatu digute, baina, datorren larunbatean emakumeen ikastaroetako Topagunea antolatuta Amasan” jakinarazi digu. Zer den xehetasun gehiago eskatu dituzte eta nik lagundu diot entrenatzaileari “ikastaroetako emakumeak bildu eta ariketa zein partida ezberdinak egiten dituzte. Adibidez, badakit Hernanitik bi badoazela, Tolosatik bederatzi, Zizurkildik beste bat ere bai, ...”. Haizeari erantzuna noizko behar duen galdetu diote eta “berandu jota biharko, berez gaurko zen, baina, gehiegi izango da” eta “zer egingo dugu?” zalantza egin ostean “beno, hala bada hurrengorako utziko dugu” erabaki dute azkenean, etxean bederen hitz egin beharko luketela argudiatuz.

(Kontakizunak eranskina: 381)

Jarduera fisikoa egitean eragiten duten faktore sozialei dagokienez, Eyler eta lankideek (2002), babes sozialari erreferentzia eginez, sareen garrantzia nabarmendu dute, taldean dibertsioa lortzea aipatuz. Jarduera zehar babesa emateak, bide batez, jarduera programetan jarraitzea erraz dezake eta baita atxikimendua lortzea ere, gozamen mailak gora egitea ahalbidetzen baitu jarrera horrek. Talde bateko kide izatea garrantzitsua da parte-hartzeko, umorea eta laguntasuna elkarbanatzeko abagunea sortzen baita. Nesken bizipenetan garrantzia

nabaria duela ondorioztatu du Garrettek (2004) ere. Gainera, gozamen eta atxikimen iturri ere bada.

Besteen joeren arabera, emakumeak elkarrengana bildu eta elkarrekin jardutearekin lotura estua izan dezakeen kontzeptu bat topatu dut literatura zientifikoan. Martínek (2006) “affidamento” kontzeptua darabil, pentsalari feminista italiarrendandik hartua, errugbiko bere eta beste zenbait emakumeren bizipen eta kontuak aipatzeko. Erlazioaren gainean “affidamento” hori bi emakumek munduan parte eta esku-hartzeko loturatik sortzen dela dio. Agertzen du emakumeen arteko elkartrukea funtsezkoa dela jokalariek errugbi zelaian eta bertatik kanpo bizi ohi dituzten esperientziei zentzua eta berezko balioa emateko. Izan ere, autoritate femeninoa ematen zaie gertuko emakumeei eta errespetua agertu ohi zaie eurek errugbian jokatzeko, izateko eta bizitzeko duten erari. Horregatik dio karismadun jokalaria izan ohi direla normalean, joko egoera zailak arrakasta dezenterekin konpontzen dituztenak, partidetan ezberdintasunak ezartzen dituztenak eta talde beharrak beste denaren gaintik jartzen dituztenak, eurenak baino gorago. Horregatik, errugbirako emakumearen desioan harreman handi eta sakonak daude eta errugbian aritzeak sortzen duen plazera bat dator beste emakumeekin harremanetan jartzean zelaian nahiz bertatik kanpo sentiturikoekin.

Gómez eta Martínek (2006) ere, esperientzia abiapuntu hartuta, emakumeen artean sorturiko erlazioak izaeraz eta xedez ezberdinak direla azpimarratu eta nabarmendu dute. Hauek ere Italiako feministen mugimendua hartu dute muinean eta hortik abiatuta diote emakumeen autoritateari esker, zeina ez den boterean eta ezarpenean oinarritzen, partekatzean baizik, orden sinboliko maskulinoari aurre egiten diotela, azken honetan ez baitituzte ontzat ematen emakumeen arteko elkartruke mota hauek. Horregatik, emakumeen arteko harremanak laguntasun, familia lotura edo erlazio pertsonaletatik haratago doazela diote, praktika politikoa diren heinean. Erlazio modu hauek, gainera, feminista tradizionalen “zapalkuntza ahizpatasunetik” alden du eta emakumeen arteko ezberdintasuna onartzen dute. Emakume bakoitza denaren eta egiten duenaren arabera baloratzen ikasteko aukera sortuz, paradigma maskulinoak baztertuz, solidaritatea nahikoa ez dela argudiatzen baitute eta aberastasuna dakarrela ezberdintasunak, interes berdinen defentsatik urrunagoko urratsak emanez.

Taldekako banaketa, berezkoa, beste inork eragin gabea ere nabarmena izan zen Emakumea Pilotari egunean, bai egunean zeharreko multzoaren antolaketa eta sareratzeari erreparatuta eta baita talde argazki handia eta herriz herrikoak, inork antolatu gabeak azken hauek, ateratzean ere.

Jendea bere ikastaroko kideekin batera dago korrotxoetan bilduta, zain, hizketaldietan eta ingurura begiradak tartekatuz. Tarteka herriren batekoak bestekoekin nahasten dira, aurreko urteetan ere leku berean topo egin izan

dutelako, baina multzoek iragazgaitzak dirudite, badirudi herri bakoitzak bere kokagunea zehaztuta duela.

(Kontakizunak eranskina: 499)

Bi mahaitan banatuta daude emakumeak. Harmailetatik hurbilen dagoenean teknikariak, hernaniarrak, hutsune bat, zizurkildarrak, zarauztarrak eta oiartzuarrak daude. Bigarrenean, berriz, beste aldetik hasita, Tolosakoak, Villabonakoak, donostiarrak eta gu.

(Kontakizunak eranskina: 510)

Emakume pilotariek, bakoitzak bere eskenatokian eta beste aktoreekin batera osatzen duen sarean, ordea, talde baten baitan, barruko talde txikiagoak ere sortu ditugu, elkarrekiko lotura estuagoak eraginda ziurrenik, eta zenbaitetan konfiantza edo konplizitate maila gehigarri bat lortuz. Adibidez, saioen amaieran hizketalditxo bat baino gehiago izan ditugun laukotea Zizurkilen edo Usurbilen elkarrekin ia saio guztietan aritu ostean sorturiko hirukotea, hain nabarmena izan ezta ere noiz edo noiz azaleratu duguna, bai barrealdiren batean edo baita aipamenen baten bidez edo adar jotzeetan ere.

Azpikoa eta albokoa banaka landu ostean binaka pilotatzen amaitu dugu, batek alboko kolpea eta besteak azpikoa erabiltzeko baldintza jarrita. Ni berriz ere Jaionerekin jarri naiz eta Izaskun eta Aizpea, gertutasunaren arabera. Jaioneri galdetu diot “zuk zer kolpe egin nahi duzu?” eta berak “zer nahi du berorrek?” esanez erantzun dit. Gure inguruan dabilen Haizeak “aizu, jeloskor jarri naiz, hemen ni naiz irakaslea” esanez erantzun dio, irribarretsu.

(Kontakizunak eranskina: 162)

Gurutze, Saioa, Itsaso eta neu izan gara pilotalekua uzten azkenak (...). Datorren aстера arte elkar agurtu dugunean Gurutzek entrenatzaileari galdetu dio ea erabaki duen nork jokatu duen Emakumea Pilotari egunean zizurkildarren ordezkari moduan eta “oraindik ez” erantzun dio honek. “Nik uste aurten Itsasori tokatuko zaiola” esan du Gurutzek etxerako bidea hartu duen bitartean eta Saioa eta biok orain arteko emaitzen gainean gogoetatxo bat egin ondoren “agian aurten bai, ezta?” bota diot nik irribarrez. Hirurok ia norbere autoetan sartuta geunden, baina, Saioarengana hurbildu naiz ni eta Itsaso ere azkenean kotxeko atea ireki eta entzuten eta hizketan aritu da, berak ez duela jokatu esanez. Beste biok irribarre banarekin erantzun diogu eta bolanteetan jarrita bagoaz Zizurkildik behera.

(Kontakizunak eranskina: 429)

Ikastaroaren ondoren sorturiko beste barne talde bat aipatzea ere funtsezkoa eta adierazgarria iruditzen zait, kasu batean. Adibidez, zenbait usurbildarren artean, ikastaroa amaitu eta bertako txapelketa herrikoian harremanak estutzearen poderioz, baita Emakumea Pilotari egunean eta elkarrekin eginiko pare bat saioetan ere, taldetxo berria sortu da, udan elkartuta elkarrekin asteroko zita jarritakoena, eta hori ez zen ustez, behintzat, saioetako jardun zuzenetik sortuko zenbaiten kasuan, ikastaroan bi taldetan banatuta aritu baitziren bertako kideak.

Azkenean, talde bat osatu dute emakume hauek ere eta ikasturte berrian saiakera bat egin dute ordutegi berean aritzeko, nahiz eta egoerak hala behartuta azkenean berriro ere iazko taldeetan amaitu duten, ordutegiak eta emakumeen antolaketa ahalmenak baldintzatuta.

Talde giroa ez da emakumeen pilota munduan ere beti aberasgarri eta paregabea izan, ordea, neurririk handienez eta nabarmen halakoa nagusitu bada ere urteak joan eta urteak etorri. Leku guztietan bezala denek ez dute denekin jarrera bera izaten eta zenbaitetan talde giro hori hautsi edo lausotu egin dela ohartu naiz, tartean bazterkeria edo batzuekiko lehentasun zantzuak aipatzeraino. Hurrengo adibidea zehazki federatuta dihardutenena da eta, beraz, nagusiki lehiaren baitan biltzen diren emakume pilotariena. Hemen akaso harremanen gaiztotze edo hostasun handiagoan eragina izan zezakeen irabazteak edo irabazteko antolaturiko estrategiarekiko desadostasun edo iritzi zein ikuspegi ezberdintasunen batek.

“Nik, egia esan, txapelketak antolatzeko garaian ez nuen nabaritu, baina, bai egia dela Gaskako orduetan zeintzuk joaten ziren entrenatzera. Ni ez nintzen sekula joaten, zeren eta niri ez zidaten esaten, ni ez nengoen euren ‘kutxipandan’. Niri esaten zidaten norbait falta zenean, eta, orduan, ni joaten nintzen eta ‘kutxipandan’ sartu egiten nintzen, baina, egun horretarako. Orduan, alde horretatik bai zeudela entrenamenduak antolatzeko garaian-eta, batzuk gehiago elkartzen ziren. Besteak hor, pixka bat baztertuta, baina, beno”. Eider

Talde giroak, izaerak eta sentimenduak duten garrantzia ukaezina dela argi utzi nahi dut eta jardueraren beraren muinean aurkitzen direla, gainera, zenbaitentzat kantxako jardunaren erdigune eta euskarri baitira. Izan ere, atxikimendua eragiten du eta horrek eragin zuzena dauka kantxan egiten den ororen gain. Dena ez da kantxan geratzen, ordea, hurrengo puntuan agertuko dudako moduan.

2. Saio edo pilotako ekintzaz kanpoko harremanak

Sozializazio prozesuaren barruan badira kantxa edo zuzenki saio eta entrenamendu zein partiduetako pilota jarduerarekin loturik egon gabe ere gertatzen diren hartu-emanak ere. Hau da, zuzen-zuzenean kantxako jarduerarekin harremanetan egon gabe ere gertatzen dena. Besteak beste, pilota ardatz sorturiko elkar ezagutzak instalazioetako lau hormak gaindi ditzake, edo horma artean eta pilotakadak erdigune direla segi, baina formalki erakundeek antolaturiko jardueretatik at, eguneroko bizitzako testuinguruan txertatu eta norbere ohiko ekintzetara hurbilduz pilotako lagunarte hori.

2.1. Pilotalekuan, pilotako lagunartean

Pilota ardatz duten elkartrukeak dira jarraian azalduko lehenak, hain justu ere pilotak baturiko lagun-taldea pilota munduan kokatzen du, bai elkarren zein besteen partidak ikustera joateko planak egiteko, bai euren kabuz jarduteko aukerak sortuz, izan txapelketa herrikoien baitan ala ez, edo baita kideekin pilota erdigune duten bestelako ekintzak burutuz ere.

Jarduleek eurek eta euren artean aritzeko antolaturiko saioak, euren kabuz batzekoak, sarritan ikusi ditut. Kasu batzuetan asteroko maiztasuna izaten dute elkartze hauek, ordutegia eta eguna finkatuta izaten dituzte, Hernaniko asteazken goizetako saioak, adibidez. Bertan, gainera, bospasei emakume nahiko maiz elkartu ohi dira.

“Lehenago asteazken goizetan ere bai, lehengo urtean bai, baina aurten esan nuen ‘ez, ia 60 urte, astelehenetakoa egingo dut’. (...) Orain esaten dit Ainarak ‘etorri asteazkenean’, baina ez”. Ines

Nik Usurbilen ikastaroa amaitu ondoren sortu zituzten saioetara, adibidez, pare bat bisita egin nituen, hango kideekin batzeko probestuz uda partean. Kasu honetan, gainera, atxikimendu maila mantendu asmoz egun eta orduak ere mantentzearen aldeko hautua egin zuten, asteazken iluntzeetan elkartuz.

Federatuta jokatzeko aritu ostean lehiaketak alboratu eta pilotalekueetatik erabat urrundu gabe jardunean jarraitzen dutenak ere badira eta hauek ere asteroko zitak izan dituzte urteetan zehar.

“(...) oso harreman estua egin genuen eta mantentzen dugu. Batzuekin, gainera, orain gutxira arte behintzat jokatzeko ere bai, bai, bai, frontenisera pasa gara, errazago iristen garela pilotetara eta bizkarrak gutxiago sufritzen duela eta frontenisean, Aiorarekin-eta, astero jokatzeko genuen otsailera arte, astean behin geratzen ginen eta ordu eta erdiko saio bat egiten genuen, behintzat, bai, bai. Orain, momentuz, Loiolan ibiltzen ginen, nola frontoia obretan den eta ni orain lanarekin, bada, aitzakia bada”. Itxaro

Beste batzuetan, adibidez, entrenamendu fisikoak egiteko elkarren laguntzari tira egin eta biltzen dira pilotariak, saioak antolatuz pilotalekuko jardunaren osagarri, lagunartea horretarako eremu atsegina eta erakargarria dela argudiatuz.

“Yo ahora las estoy engancho para hacer el físico, o sea, yo me las llevo. Yo sé que si no, por ellas, no van a hacerlo. Yo he ido siempre sola, y salir a las diez de la noche y vete a correr, no tenía ni rastro de ganas, pero tenía que ir. Entonces yo digo, ‘bueno, pues, a ver cómo les engancho’, y ahora ellas hablan, ‘¿oye, vas a venir al físico?’, ya no es que les tenga que decir yo y me mandan ahí el WhatsAppillo, ‘oye, Nekane, que sí que voy’. Ja, ja, ja. Pero, les voy diciendo, y en mayores lo mismo, me dicen ‘ay, pues igual sí que voy’. Pues, bueno, poco a poco, ir engancho de alguna manera,

que sepan, y cuanto más volumen de gente tengamos más pelearemos. En vez de una solo ya somos más, más fuerza". Nekane

Kasu asko eta askotan, berriz, bat egiteko hitzorduak ez dira zehatz-mehatz aurrezarriak izaten eta sortu ahala burutzen dituzte paleta saio alternatibo horiek, egoerara egokituz.

G. Orain zenbat aldiz ibiltzen zarete paletan edo nola ibiltzen zarete? Badakit ikastaroz gain ibiltzen zaretela.

"Kar, kar, kar. Oraintxe ibili gara, bai, normalean asteazkenetan. Normalean astean bitan, ikastaroa eta beste bat. Batzuetan ostiralen ere bai, norbait aurkitzen badugu, eta orain Tilosetako txapelketa horrekin larunbat goizetan ere batzuetan ibiltzen gara, zeren batzuk ezin dute astegunean, orduan larunbatean, eta ni denetan, kar, kar, kar".

G. Zer ibiltzen zarete ikastaroko jendea, bestelakoa ... denetik?

"Denetatik, bai, bai, zeren batzuetan mutilekin ere ibili izan gara, lagun batzuekin, eta ahal denarekin". Ainara

(...) Bidean hiruk esan digute larunbatean, goizeko zortzietan, aritu zirela bertan jokatzeko eurak, Tilos-7 txapelketarako jar daitezeko, gomazko pilota trinkoarekin jokatzekoak baitira.

(Kontakizunak eranskina: 265)

"Azken finean da zure kabuz, edo lagun pare bat edo hiru elkartzen badituzu, laukote bat egin eta noizbehinka gelditzeko, nahikoa da aisialdiari begira, bestela. Igande euritsuetako plan alternatiboa ere hori izaten da, pala hartu eta ea frontoi bat bilatzen duzun libre, zeren eta denak okupatuak egoten dira egun horretan. Eta, zer, gaur, bada, palaz, bati edo besteari deitu, eta 'zer, nola zarete?'. Bai, bai". Itxaro

Honekin lotura nahiko estuan, berriz, alderantzizko egoerak ere ematen dira, aurrez saioetan aritutakoren bat jaiegun edo laneko betebeharririk ez duen egunen batean saio egituratueta gehitzea, aurrez entrenatzailearekin hitz egin eta honek gonbidapena luzatu ostean, taldekide ohiekin pilotalekuan bat eginez.

Bertara heldu eta ohiko taldekiderik ez da oraindik bertan, baina, hara non orain bi ikasturte nire ikasle izaniko batekin topo egin dudana. Maddi da. Berak esan dit "oraindik ere etortzen al zara? Nik utzita zenuela uste nuen" eta neuk halaxe erantzun diot "astelehenero etortzen naiz tesirako oharrak hartzera, baina, saioa egiten aritzen naiz, parte hartzaile bat gehiago naiz". Orduan argitu dit bera oporretan dela, irakaslea izaki bi aste dituzte Aste Santuaren harira, eta larunbatean kalean Saioarekin topo egin eta "astelehenerako nola zarete?" galdetu ziola eta honek "guk saioa daukagu, etorri lasai" erantzun ziola. Ni arduradun nenbilenean ere izan nituen halako pare bat eta neuk ere gonbidapena luzatu ohi nien galdetuz gero.

(Kontakizunak eranskina: 339)

Kideen artean soilik ez, talde giroaren hariari tiraka eta elkarren artean sorturiko taldeari esker, entrenatzaile eta kideen arteko egonaldiak ere gertatu dira, bai ikasturte honetan zehar eta baita aurretik neroni eta ikasle izan nituenen artean ere, “pike” sanoak aitzakia bihurtuz elkarrekin egoteko.

Garaiak aldatzearen eraginez kantxatik urrunago heldu ez diren elkartrukeak ere badira, ordea, pilotarien artean, paletako jarduna amaitzean amaituak, garai zehatz batean partida osteko afari edo bazkarietan elkar bazitezkeen ere, sozializazioa unean uneko norbere ezaugarri eta egoeretara egokitzea beharrezkoa den adierazgarri.

“Bai, orokorrean ondo. Abadiñon, honbre, ni sartu nintzenean esan behar dut bi ginela oso gazteak, Andrea eta ni, eta beste denak ia nahiko nagusiak ziren. Nahiko, nahiko, bai, eta horiek ia utzi egin zuten, baina, beno, harreman ona geneukan, antolatzen zen San Trokaz eta San Blas txapelketa eta hor afariak egiten genituen. Horiekin ondo. Eta hemen, Mallabian, eskupilotakoekin ere ondo. Beti eduki dut erlazio ona, eta egiten ziren afariak eta horrela, ondo, beti moldatu naiz ondo. Eta, gero, aurrerago, ba, ondo”.

G. Esan duzu hasierako haietako batzuk utzi zutela Abadiñon. Mantentzen duzu harremanik haietakoren batekin?

“Ba, ez. Justu haietako bat zen irakaslea institutuan eta hura ikusten nuen gehiago, eta horrela, baina, ez. Ba, hori, jarraitu nuena, Irene utzita zegoen eta berriro hasi zen jolasten, Irenerekin eta horrela, baina, gero, besteak ... Bat Bedian bizi da eta Igone ez dut ikusi urte askoan, eta, horrela. Ez, ez. Oso nagusiak ziren, gu oso gazteak eta uzten duzu, uzte duzu eta... Beti esaten dugu ‘Tornosolo bueltatuko da eta egingo dugu afari bat eta ez dakit zer, baina’”. Janire

Txapelketa herrikoietako parte hartzean ere adibide garbiak nabaritu ditut, saioetatik eratorrita bikote bat baino gehiago osatu baitira jarduera horretarako, adibidez. Saioetan elkarrekin aritzeak bide eman die bat baino gehiagori ondoren paletako bestelako egoeraren batean ere elkarrekin aritzeko.

“La verdad que la primera vez me apunté porque había una compañera que no tenía pareja y entonces le dije ‘si no te enfada conmigo yo me apunto contigo’”. Zuriñe

(...) inkontzienteki, borobil erdi moduko batean elkartu gara denok, elkarrekin kontu esanaldi bat egiten hasita. Tilos-7 txapelketan azkenean izena eman omen dute zenbaitek, Rakelek esan du “Joana eta Iratik esan didate izena eman dutela”, Malenek “gu, hiru Mak, apuntatu gara, lana dela-eta” eta Gemmak gaineratu du beste bikote bat ere osatu dutela, “gure lagun bat bakarrik geratu da eta azkenean Leire animatu da. Hasieran ezetz esan zuen, tenisekoarekin ziur emango zukeela izena, baina, Ainarak konbentzitu du”. Nik esan diet “nik egutegi bat nahi dut, e, agian astelehenean batean agertuko naiz ikustera”. Esan dute aste honetan izango dela bilera eta esango omen digute.

(Kontakizunak eranskina: 244)

Txapelketa herrikoian jokatzeko elkarren artean bikoteak osatu eta parte hartzeko kideak konbentzitzeko ere gune bihurtu dira saioak, asteroko ohiko jarduna handik kanpora hedatuz.

Beraz, hizketan jarraitu dugu, batez ere Usurbilgo Pala Txapelketaz aritu dira eurak, Jaionek Haizeari galdera bat egin behar omen diola eta. Esan du Idoia eta Aitziberrek izena emango dutela ziurrenik eta bera ere akaso animatuko dela, baina, ez daukala bikoterik, baina, batek aurrekoan animatzeko esan ziola eta bera prest dagoela berekin parte hartzeko. Haizea eta biok ezagutzen dugu emakume hori, aurrez federatuta ere ibilia da, eta "hark ez dut uste arazorik izango duenik zurekin jokatzeko" esan diot nik, bultzadaxoa eman nahian, eta berak "ez, hori badakit, problema nik daukat" erantzun dit. Nabari zaio gogoarekin batera segurtasun apur bat falta zaiola, baina, entrenatzaileak ere animatzeko esan dio, astelehen goizetako bi bikote apuntatu direla, arratsaldeko beste bat ere baietz eta gure taldetik beste bat ere apuntatuko bada ederki moldatuko dela bera ere. Ezagunak ditu gehienak, beraz.

(Kontakizunak eranskina: 406)

Txapelketak ikustera eginiko irteerak edo euren ingurukoren baten partidak ikusteko egindako egonaldiak ere bat baino gehiago izan dira, bai pilotari federatuen artean, bai seme-alaben jardunaren baitan eta baita ikastaroetan elkarrekin taldean aritutakoen artean ere.

Asteburuan Ezker Hormako VI. Emakumea Pilotari txapelketako ligaxkako jardunaldiko partidak jokatu ziren bertan, larunbat arratsaldean, eta zalantzan egon ondoren, azkenean, bertaratzeko hautua egin nuen. Bertan paleta ikastaroko bost ikasle eta irakasleak egin genuen topo besteak beste, honek partida zuela aitzakiatzat harturik.

(Kontakizunak eranskina: 78-79)

Saioak aprobetxatu du esateko "ostiralean Emakumea Pilotariko finalak dira arratsaldeko 7etatik aurrera". Nik ere lagundu diot propaganda egiten "ahal baduzue merezi du I. mailako bi atzelariak behin behintzat ikustea" gaineratuz. Mirenek lana duela esan du eta besteren batek ez dakiela, baina, hiruzpalau agertzekotan geratu dira. Ni, berriz, erabat zehaztuta dagoenean karteldegia posta elektronikoz bidaltzekotan.

(Kontakizunak eranskina: 159)

Honen ostean Gipuzkoako eskolarteko paleta txapelketako finalerdiaz hitz egitera igaro dira, Ainararen alabak-eta irabaztea lortu zutelako, 20-19ko emaitzaz, Ataungo alebinen aurka. Jakin dut larunbatean Hernaniko pilotalekuan jokatu zutela finalerdia eta kide bat baino gehiago izan zirela bertan. Malenek esan du "partidu polita izan zen ikusteko, berdindua" eta Gemmak bera ere izan zen esan du. Saioak "nik etortzeko asmoa banuen, baina, poteatzen geratu nintzen Oiartzunen" bota du.

(Kontakizunak eranskina: 415)

2.2. Kantxako mugetatik haratago

Pilotan osaturiko elkargunearen baitan makina bat otordu eta tartekako egun pasak ere izan ditugu, frontoian jardun bat eginda edo zuzenean egin gabe batutakoak. Horren adibide garbiak dira denboraldi zein ikasturte amaieretan hain ohiko diren bazkari edo afariak. Horiez gain, ordea, Emakumea Pilotari eguna bezalakoek ere balio dute harremanari sendotasuna eman eta festa ofizialki amaitu ostean euren artean egunari amaiera emateko ere, bai elkarrekin trago bat hartuz edo baita elkarrekin parranda egiten amaituz ere.

“Nik uste dut gauza positiboenetako bat hori izan dela. Niretzako, e, larunbateko saio hartatik etorri ginenean, bat-batean han bokadiloa jaten eta esan nuen ‘aiba la letxe, han bokadiloa jaten Idoia, Karmele, Haizea, Estitxu, Argia eta ni’”. Jaione

Beste zenbait lekutan otorduak oporren aitzakian ikasturtean bizpahirutan egiten dituzte eta egin ditugu, ni ere tartean ibili bainaiz, oporraldietako geldialdien aurretik, saioak amaitu eta ondoren kantxako egonaldiari tabernako tertulia giroan jarraipena emanez.

Gaur saio ostean elkarrekin zerbait jan eta apur batean egoteko plana egin genuen aurreko astean, gainera, beraz, saioa pilotalekuan hasi eta ondoren tabernan egingo dugu bigarren atala.

(Kontakizunak eranskina: 322)

Mahaiaren eta jan-edanen inguruan antolaturiko egonaldi hauek, gainera, animatzeko balio dute, sozializazioan sakontzeko eta elkarrekin gauzak partekatzeko gogoia hauspotzeko eta elkarren interesen berri izan eta sustatzeko.

“Guk esan behar dugu, zergatik jarraitu dugun palan, beno, urtean behin sagardotegian biltzen gara, aspaldi ibilitakoak-eta, eta horrek harremanetan jarraitzeko modua ematen du. Nik uste dut giro ona edukitzeak lagunduko lukeela jarraitzen. Guk, adibidez, gure taldean bazkari batek asko animatzen ditu. Urte bukaerako bazkarian, uztailean egiten denean, biltzen dira eta bata bestearekin ere ‘beno, bada, hurrengo urtean jarraituko dugu’ eta batek esaten du ‘ez, ni hurrengo urtean ikasketak egitera noa kanpora’”. Ibone

Kantxatik kanpo biltzeak garrantzia duela eta hau zaintzea emakume pilotarien etorkizunerako onuragarri izango dela dionik ere bada, zerbait egin beharra dagoelako guztia kantxara murriztuta gera ez dadin.

“Azkenean bakoitza agertzen da den moduan. Batzuk joango dira eta gero gelditu egingo dira, adibidez, badaude batzuk: Nekane, Amaia, ... Ez dakit, niri gustatzen zait hara joan, jolastu eta ahal badut besteak ikusi, mutilak edo txikiak. Jolastu eta gero elkarrekin zerbait hartzera joan, pintxo bat edo Coca-Cola bat, eta gero behintzat egotea eta ez joatea zuzenean etxera. Pilotan nik uste dut gehienak horrelakoak direla. Badaude batzuk lanetik

zuzenean jolastera, zortzietan beste leku batera jolastera eta horrela dabilzanak. Padelean, adibidez, adibide bat jartzearen, nik jolastu ditut txapelketak eta badago bikote bat egiten duena iritsi, partidua jolastu, dutxatu eta joan. (...) behintzat kontaktu bat, hori da ‘zer moduz?’ edo ‘ondo jolasten duzu, e’. (...) uste dut horrelako kiroletan, hain gutxi izanda, zerbait egin behar dela. Beti esaten dudana, denekin ezin zara ondo konpondu eta beti ezin duzu, baina, bai behintzat interesa agertu (...)’. Nora

Emakumeak elkarrengana modu ezberdinetan bildu eta hartu-emanak kantxako jardunetik haratago eta sendotasun handiagoarekin ematen dela agertzen duten adibide eta/edo egoera bat baino gehiago plazaratu ditut. Hala ere, zer eta nola egiten duten jakitea garrantzizkoa dela ahaztu eta nolakotasunak gutxietsi gabe, elkarrengana biltzea bera da azpimarratzeko modukoa nagusiki niretzat egoera hauetan, izan otorduetarako, hitz egiteko edo elkarrekin paleta saio bat egiteko, edo dena delakoetarako, azken finean. Bidonde, Goodwin eta Drinkwaterrek (2009) aipatzen dituzte modu honetako elkarrekintzak eta hauen onurak: saioetatik kanpo ere elkartzea, euren etxeetan edo bestelako jardueretarako, emakume adindunetan, elkarrekiko kezka adieraziz; saio edo partiden ondoren tabernarako bueltaren bat egitea, etab.

Pilotaren bidez herri eta elkarte ezberdinetako neska zein emakumeek elkar ezagutzeko ekintzak ere egiten dira, bai federaziotik antolatuta, Emakumea Pilotari eta Emakumeen Topagunea kasu, baina baita elkarteetako arduradun eta sustatzaileak zuzenean euren artean harremanetan jarrita ere.

“Monitore kontu hauekin hasi naiz, nolabait, ba, adibidez, Elenarekin, ‘dauzkagunak neska txikiagoak egin behar dugu elkar-trukaketa bat partidua jokatzeko’. Hitz egin dugu Etxarri Aranatzekoekin ere, Etxarri-Aranatzera joan izan gara, Igantzira ere bai, Igantzin bazegoen emakume bat, Eluska zen, han ibiltzen zen neskekin. Ez dakit, ah, bai, Gorane Igantzikoa zen, herri hartakoa, eta ezagutzen ginen, telefonoak-eta bagenituen eta, ‘aizu, hemen neska batzuk daude, badituzue Hernanin neskak? Zergatik ez dugu egiten txapelketa bat?’ Bada, egin izan dugu, 3-4 urtetan egin izan dugu, hara joan, jolastu, han bazkari bat egin, eta...”

G. Eta, txapelketez aparte mantentzen duzue nolabaiteko lotura bat?

“Aukera edukiz gero jolasteko, beti daukagu. Orain nahi dugu Aste Santuan bildu. Orain, jende gehiago, gainera: Etxarri, Orio-Zarautz, gero Janireri esan nion, neskekin dabil, gure arteko zer edo zer, egun-pasa bat nahi dugu egin, ez dakit egingo dugun”. Ibone

Talde guztietan, txapelketa gehien amaietan, tarteko jardunaldiren baten ondoren ere behin baino gehiagotan, egin ditugu eta egiten dituzte otordu eta hitz-aspertuak pilotariek. Gainera, horren garrantzia behin eta berriz nabaritu dudana zerbait izan da, sozializazio modu honek zenbateko eragina duen ikusarazi eta ulertaraziz.

“Nik uste dut orain, gure adinean arribatuta, ba, hogeita hamar urte pasa, lehiaketak egin ditugu, segitzen dugu, beti plazer dugu entrenatzea eta lehiaketetan parte hartzeko, baina gutxienez, niretzat, eta pentsatzen dut beste batzuk ere, atxikiak gara giro ona sartzen baita eta partiduak bukatu ondoren lagun batzuk hurbiltzen dira eta hor egonen gara momentu goxo baten pasatzera eta pentsatzen dut horrek duela ere pilota atxikitzen jokatzeke. Hori gabe, lehiaketa arrunta edo hutsean egonez, ba, pentsatzen dut jokalaria ere murriztuko zirela. (...) Ez da etorri, jokatu eta etxera sartu bakarrik, baina hor egon hitz egiten eta trago bat edaten, baina giroten. (...) Eta beste guztia. Bai, egia bagarela talde bat non pilotatik kanpo ere lagunak garen eta nik, adibidez, nire elkartean orain hiru neska gara, hiru lagun oso onak eta badakigu bihar pilota geldituz, ba, lagunak geldituko garela eta segituko dugula beste gauza batzuetara jotzen. Baina abiapuntua pilota izan da eta harremanak hor sortuak”. Ekiñe

Windsurfa eta maskulinitasuna aztertuz Wheatonek (2000) nabarmendu du badela bertan azpi-kultura berri bat, sozializazioa eta laguntasuna euren esperientzian garrantzizkoak direla nabarmentzen dutenena. Jardule mota horren arabera ona izan beharrik ez dago kirolean aritzeko, lehia alboratu, lehiakortasunik eza aldarrikatuz, eta bertan jardutea, lagunekin batzea, elkarrekiko gertutasuna eta kezka adieraziz, xede nagusi bihurtu eta nahikoa arrazoi baita mundu horretan txertatzeko. Honekin bat dator aurreko esana, bertan parte hartzaileak hortik kanpo batzeko asmo eta uste osoa argi utzi baitu Ekiñek, partekatzearen balioa nabarmenduz beste guztiaren gainetik.

Paletan aritzeko elkartzen direnen kasua da Zubietako neska paletariena ere, baina jardueraren ardatza pilota izan baliteke ere ez da arrazoi nagusia, hain justu ere kide horiekin sozializatzeko eta hartu-emanetan sakontzeko aukera lez aurkeztu baitaiteke bertako entrenatzailearen esanetan.

“Eta gero hemen justu, hau nik beti esaten dut kasu berezi bat dela, hau ez da Hernani bat. Hemen ez dago ezer hauentzako, hori bakarrik. Orain hasi dira beste lokal horrekin hasi dira zerbait egiten, baina garai batean pala bakarrik zegoen, orduan herriko begira zenbat neska diren eta zenbat dauden apuntatuta. Dauzkat lau seniorretan, orain ia ez dakidala zer pasatuko den, eta beste lau gazteetan. Zubietako pila bat dira. Orduan, plaza izatea, palan jolastea eta edukitzea ordubete denak elkartuko diren momentu bat, ba hori ez da gauza bat lehiatzera goaz edo entrenatzen dugu lehiatzeko, baizik eta entrenatzen dugu denak elkartzeko. Diferentea da. Orduan, filosofia horren barruan, gauza bat daukagu elkartzeko eta elkartu egiten gara eta, gainera, super ondo pasatzen dugu. Nik uste dut horrela ulertu behar dela”. Haizea

Hemen ere lehiak izan dezakeen garrantziari egin nahi diot erreferentzia, parte hartzaileek eurek ere hala uste dutela adierazi baitidate zuzen-zuzenean eta ikusi ere ikusi ahal izan dut egoera bat baino gehiagotan ere, Haizeak argi eta garbi adierazi modura.

Bat egite edo hartu-eman fisikoaz gain, ordea, teknologia berriak geure etxeetan geroz eta barrurago sartzen ari zaizkigun aldi honetan, e-posta bidezko zein telefono deien bidezko hartu-emanak ere izaten ditugu gure artean, adibidez, final baten berri elkarri helarazteko edo baita emakumeen pilotako jardueraren bateko informazioa partekatzeke ere.

Orduan bakarren batek esan du ikusi zutela erraketisten inguruko bideo erreportaiak, nik Saioari helarazi niona hauei helarazteko, eta autentikoa iruditu zitzaiela. Gustura ikusi dute eta nondik ateratakoa ote den galdetu dute. Nik esan diet rtve-ek eginikoa dela eta handik bueltan lortu genuela hori bazela jakitea.

(Kontakizunak eranskina: 69)

Honekin lotura eginez, zenbait saretan, batez ere postmodernoetan, teknologia berrien bidez, batez ere Internet erabiliz, komunikatu ohi direla dio Puigek (2008) kirola eta espazio publikoen erabilera aztergai dituen lan batean. Pilotako albisteen edo gertaeren berri eta abar eman izan diogu batez ere elkarri modu honetan, informazioa eguneratuta mantentzeaz gain beste era batean bada ere, birtualki neurri batean, elkarrekiko hartu-emana elikatzen jarraituz.

Azken egoera bat ere aipatu beharrekoa da, oso esanguratsua iruditzen baitzait. Izan ere, ezustean eta behin ikastaroko jarduna amaitu ondoren, ikasturtean zehar elkarrekin arituriko zenbait emakumeren senarrek euren kabuz paletako saioak egiteko biltzea erabaki baitute. Horri akaso sozializazio baten ondorengo beste sozializazio bat, domino efektuaren bidez gertaturikoa, dei dakioke, aurrez elkar ezagutzen bazuten ere elkarrekin ez zirelako sekula halako jardunerako bildu. Beraz, euren hurrekoak pilotan aritzeko elkarrengana biltzeak senarrek beste gerturatze bat izatea ere eragin lezakeela ikusi ahal izan dut egoera honekin. Badira jarduera fisikoa egiteko arrazoen artean zuzenean gizonak harreman sozialekin lotzen dituzten ikerketak (Moreno, Martínez eta Alonso, 2006), emakumezkoak, aldiz, ez. Kasu honetan, ordea, badirudi alderantzizkoa gertatu dela, euren emazteen artean sorturiko tratua izan dela gizonak ere probatu eta pilota mundura hurbilarazi dituen, aurrez ez zeukaten sare bat sortzera bultzatu eta erakarri dituen.

Puntu honetan bertan emaniko xehetasunetan oinarrituz, berez erakunde batek antolaturiko jardueretatik kanpo, beraz, argi eta garbi ikusten da sozializazioak edo harremanetarako pilotako jarduerak eskainiriko aukerak bere lorratza utzi duela askorengan eta prozesu horren baitan zabaldu egin direla hasiera batean frontoian soilik eman zitezkeen elkartruke eta hizketaldiak, pilota ardatz beste hainbat jarduera egiteko aukera zabala dagoela nabarmenduz.

2.3. Loturak estuagotzen

Lotura eta elkartrukeek funtsean pilotako jarduna badute iturburu ere, eta ezin ukatua izan arren gehienak pilotaren bueltan ematen diren hartu-emanak izan litezkeela eta hala direla, frontoiko jardueratik at ematen direnak ere ikusi eta bizi izan ditut, ahaztu gabe sorburuan pilotako jarduera izan zutela lagunarteak eraikitzeke, izan elkarrekin aritzeagatik kantxa barruan edo testuinguru horretan egin zutelako topo edo tupust. Azken finean, bestelako eskenatokietan elkarrengana biltzeko aukera ematen duen bilgune bat lortu dugu askok, nahiz eta maiztasunak, sendotasuna eta elkarrekin egoteko moduak ezberdinak bezain anitzak diren.

Mota honetako harremanetan daude pilotako loturetatik sorturiko “familia” horren baitako kideekin eginiko bestelako planak, izan asteburu pasak, egun pasak, arratsalde pasak ala beste nonbait elkartu eta eginiko hitz jarioak. Hemen ere zabala da eremua, pertsonok elkarrengana biltzeko arrazoi ugari eta ezberdinak baititugu edozein lekutan eta edonoiz, bakoitzak geureak sarri askotan.

Paletakide ohiekin zein paletakideekin elkartzeko modurik ohikoena eta errazena, zenbaitentzat, kaleko hitzezko jardunari loturikoa izaten da. Hau da, elkarrekin topo egin eta hitz-aspertu bat osatzea tartetxo bat hartuta. Halako adibideak asko dira.

“Ez geratu direnekin bakarrik, zeren garai hartan hasi ziren emakume batzuk gero utzi egin zuten, batzuk besoa zutelako, besteek ezin zutelako eta haiekin harreman ona daukat. Bai Martxelirekin, bai Albisuren amarekin, Sorkunderekin. Ez dut aspaldi ikusi, baina nik horiek kalean ikusten ditut eta harreman ona daukat, hizketan geratzen naiz eta ‘zer moduz?’ eta bai, bai. Jende asko pasa da. Bada beste emakume handi bat ere hasi zena, baina hark ere utzi egin zuen eta galdetzen dit ‘zuk zer, segitzen al duzu pilotan?’”

Ines

Tragoren bat hartzeko aukerak ere ez dira bakanak izaten, nahiz eta maiztasunez lehenaren ondoren eta maila baxuagoan gertatzen diren, askotan zailagoa baita elkarrekin era honetako egoeraren batean topo egitea. Hala ere, izaten dira propio elkarrekin horretarako geratutako uneak ere.

“Gu gure artean? Kointziditzen du justu emakume batzuen senarrak ere elkarrekin aritzen direla. Nire senarra eta Piliren senarra elkarrekin aritzen dira pilotan eta orduan, ba, beno, batzuetan pasatzen baldin bazara edo zerbait hartzera baldin bazoaz eta beraiek han baldin badaude, ba, gelditzen zara eta horrela”. Gurutze

Bestelako zaletasunak partekatzeko aukerak sortzea ere gertatu ohi da, elkarrekin ustekabeen topo egitea nonbait, adibidez ekitaldiren batean, bestelako hartu-emanak zerbaiten gainean aholkuren bat edo informazioa eskatzeko edo elkarrekin

hitzordu bat egin eta batera beste kirolen bat egiteko, antzerkira joateko edo dena delakorako planak osatzea. Oso izaera ezberdineko elkartrukeak sortzen dira kasu honetan: kideren batekin bertso doinuak partekatzea, mendian nahiz beste egoeraren batean kideekin topatzea, elkarrekin errugbia ikustera joatea, etab. Hala ere, nabarmena iruditzen zait ohiko bi lagunen arteko egonaldi edo bisitaldien trazakoak direla hauek ere, ondorengo adibideetan ikus nezakeen lez.

(...) Gurutze niri hasi zait hizketan, astebete lehenago bertso doinu batzuk bidaltzekotan geratu nintzelako eta eskerrak eman dizkit. Besteek jakin-mina agertu dute eta pixka bat azaldu die zergatik esan didan hori, “22.30erako 5 doinu bidalita zeuzkan” eta Itsasok “esan zuen hala egingo zuela” eta Saioak, berriz, “Uxue lanean hasten denean fina da”.

(Kontakizunak eranskina: 269)

Desbideratze txiki horren ondoren kontatu diet aurreko igandean bizikletan irten nintzela eta Saioa ikusi nuela Larraitzen bertan. Honek hitza hartuz kontatu du “Ni goiko Bidegorritik oinez Abaltzisketa aldera nindoan neskak ikusi nituen taldean bizikletan, normalean bikotearekin eta talde handi batean txertatuta ikusten dira, eta pentsatu nuen agian hor ibiliko zela eta hantxe zihoan”. Gai horren gainean hizketan hasi eta jakin dugu maiatzaren 1ean elkarrekin topo egin zutela Larraitzen bertan Itsasok eta Saioak ere, larreen irekieraren harira egiten den egun pasan.

(Kontakizunak eranskina: 422)

(...) Malen eta Saioa ere heldu dira, eta lehenak esan dio, “zer, gaur agujetak?” eta besteak, “ez”. Atzo Donostiako Hiru Hondartzen krosa izan zen eta bertan ikusi omen zuen.

(Kontakizunak eranskina: 21)

Bezperan Hernaniko errugbi taldeak jokaturiko partidaren inguruan ari dira. Bat baino gehiago izan omen ziren Landaren igoerako faseko neurketa ikusten.

(Kontakizunak eranskina: 292)

Egonaldi puntualez gain, beraz, mahaiaren edo jan-edanaren inguruan egonaldi eta aukera luzeagoak ere sortu ohi ditugu elkarrekin batera egon eta ibiltzeko. Hemen txertatu ditut egun pasak, bazkari edo afariak, asteburuetakoa irteerak eta bidaia luzeagoren baten erakusgarri den aipuren bat ere bai.

“(...) pilota munduan dagoen jendea, orokorrean, jatorra da eta beraiekin ondo pasatzen dut, ‘kutxipanda’ ederrak egiten ditugu. Esan nahi dut, txapelketa egiten duzu, baina, gero bazkaria edo juerga batzuk, eta alde horretatik ondo dago”. Eider

“Eta, lagunekin, harreman ona bai palan tarteka ibiltzeko eta bai urtean hiru-lau aldiz geratzen gara, sagardotegiren bat fijo eta gero bazkari-afariren bat. Orain 15 egun bildu gara bederatzi lagun, elkarrekin jokaturakoak, eta, bai. Ilusioa egiten du orain 90ean hasitako batzuekin harremana mantentzeak. Bai, bai, oso gustura. Izan zen kirolaz gain

lagunarteko giroa sortu zela, zeren eta hor ikusi zen neska asko zeudela eta denak, igual, herri txikietatik eta zera, eta gustuko zuten jarduera aurkitu zutela eta lagun giroan, bai, hori da, dudarik gabe". Itxaro

"Eta, gainera, klubean edo lehengo urtean selekzioan, Pauen, mundialeko finala irabazi ondoren, Paula, Nekane eta Amaiarekin gero joan ginen Karibera. Beraz, oso oso gaizki... Ez, oso ondo, oso ondo". Nora

Ohiko jardueraz gain jarduera fisikoa sustatzeko egitarau bateko helburuetan eta jarduera osagarrietan nabarmentzen dute, sentsazio berriak bizitzeko aukeraz gain, nahi, behar edo desio duten emakumeei kalera ateratzeko, parkera, itsasora, mendira, mundu zabalera azken batean, eta lagun edo kideekin norbere aisialdiaz gozatzeko bidea sortzea garrantzitsua dela. Bertan ikasturtean zehar burutzeko zenbait irteera zehazten dituzte, jarduera fisikoko egitarauarekin zuzenki loturik ez daudenak: afaltzera edo dantzalekura joatea, hondartza edo mendira, bizikletan irtetea, eskiatzera, etab. (Roura, 1999).

Pilotako familiako kideak ere sortzen dira tratutik, azkenean, pilota munduan esparru ezberdinetan aritzearen ondorioz elkarren berri izan, elkar ezagutu eta egoera ezberdinetan bat egin dezaketena, pilotaren bidez elkar ezagutuak, baina pilotaren esparru zuzenetik at ere ezagutza horri eusten diotenak. Horren adibide izan daiteke, adibidez, pilota munduan bi hamarkadatik gora daramatzen elkarrizketatu baten, Nekanereren, sozializazio dimentsioaren zabaltasuna eta berak ematen dion garrantzia, jendea ezagutzea ia lortu duen beste ororen gaindik azpimarratuz, eta harreman horiek zaindu eta mantentzeaz egiten duen hausnarketa.

"Es como otra familia. Cuando empiezan, ahora, por ejemplo, va a empezar el Kutxa y ya estás deseando. Es para nosotras el campeonato de élite, ¿no? El mejor, el que tienes que darlo ahí todo, ¿no? Pues, a ver si puedes demostrar todo lo que juegas, pero, a la vez, tienes ese partido y esa reunión, pues, el que te quedas, que las ves, y, ¿yo qué sé? Al final es una familia. Si paso más horas con todas con las que estoy jugando que en mi casa. Ja, ja. Entonces, pues, ¿yo qué sé? O, cuando estás en la selección, pues, con ese grupo que estás haciendo, pues, lo mismo. Y, es que se crean muy buenas amistades. Yo, para mí, es que es, puf, sí. Lo mismo aquí, en toda Euskal Herria, como cuando sales, ¿no? Cuando vas fuera, lo mismo. Vas a Argentina y siempre tienes ese recuerdo, yo, al final, de todos estos años que llevo ahí, en la pelota, y que las he conocido. Te van viendo. Lo mismo chicas que chicos. No sé, entonces, siempre haces, hay un grupo que está muy guay. Está súper bien, que te llena, te da todo. Sí. Es que, pues eso, al final, es donde conoces. Con otras igual no tienes nada, e, simplemente los partidos y te ves y punto. Y también hay esa rivalidad. Buah, pues esta vez voy a ganar, a ver si puedo. Y, con otras, aunque lo tengas, con Amaia, yo digo, 'le tengo que ganar, porque es una cansina', ja, ja, pero, luego, terminas y es una gozada. Lo mejor, sí, sí. Y con quien vas a tener más amistad, con quien vas a seguir, y que te estás llamando, y que mandas mensajes, y que haces de todo, y, con otras que no, simplemente te vas a ver

en los campeonatos y punto. Pero, bueno. En la vida normal, yo, en el trabajo, tengo un grupo también, y también es otra parte. Pues, vas haciendo, no con todo el mundo lo vas a hacer, pero, pues, sí. La verdad que con el que haces, haces muy buena amistad". Nekane

Fields eta Comstockek (2008) bertan sortzen duten batasun lotura azpimarratu dute emakumezkoen errugbian, taldea eta bertako komunitatea lagunez osaturiko "familia" lez aurkeztuz jokalariek euren hitzetan ere.

Azken atal honetan ere, ordea, ez dira pilotan diharduten guztiak iritsi ezagutza eta hartu-eman maila honetara, norbere izaerak, *background*-ak eta beste mila faktorek eragiten baitigute halako pauso edo urratsak emateko ere. Hala ere, pilota dute ardatz eta oinarri hemen azaldu ditudan eguneroko bizitzako beste zenbait esparrutara zabalduko egoerek. Azalduko sozializazio mailetan sakonena berau da, gainera.

3. Gu: hau, hori, hura eta ni.

Aurreko puntuetan aurkezturiko aztergaiak eta ideiak sakonki, eta ahalik eta zertzeladarik ñimiñoenei ere erreparatuz landu ostean, interpretazioari ataka parez pare ireki eta gogoetari gogoeta erantsiz nire uste eta iritzi zakua plazaratzeko txoko bilakatuko dut honako hau. Aurreko lerroetan nabarmendutako arabera aurkeztuko ditut hausnarketak nagusiki, testuinguru honetan ikusi, ezagutu eta bizitako esperientziak abiapuntu hartuta une oro, noski. Gainera, beste egileen ekarpenekin eta ikerketetako arrazoibideekin ere alderatu eta osatu dut neure iritzi, argudio eta hausnarketa bilduma hau, emakume pilotarietako diotena, nik bizitakoarekin eta irakurritakoekin erlazio zuzenean jartzeko saiakera betean.

Emakumeen pilota ez dago mundutik isolatua, munduan bertan, jendartean, ematen den jarduera bat da hain justu ere, eta, beraz, ezin da ulertu beste hainbat aldagaik nola eragiten dioten aztertu gabe, hauek ere eskenatoki eta testuinguruaren baitan eragin zuzena izaten baitute. Beraz, pilotarien arteko elkarrekintzaren atzean edonoren arteko elkartrukea irudika liteke hein batean, ezta? Nik barrurako, muinerako, bidaiaria egingo dut, ordea, fokua pilotako testuinguruan jarrita.

Harremanen edo elkartrukeen munduak itzal luzea du emakumeen pilotan. Oso aberatsa da ematen diren erlazioen nolakotasuna, norabidea eta izaera. Ziurrenik baita intentsitatea eta maiztasuna ere, aniztasuna bezalaxe. Gainera, nabarmena da parte hartzeko sostengurik nagusi eta sendoenetako bat ere badela harremanen sare hau (Bidonde, Goodwin eta Drinkwater, 2009; Migliaccio eta Berg, 2007; Pietilä, 2009; Roster, 2007). Oroz gaindi muinean dagoen auzi bat da, sagarrak bihotza nola emakume pilotarietako hartu-emanak ere barne-barnean daramatzatela dirudi, berezko dutela elkarrekikotasuna.

Lehendabizi, beraz, azpimarratu eta sakondu beharrekoa iruditzen zait gai honek duen pisua, agerpen maila eta garrantzia, parte hartzaile guzti-guztiek aipatu baitute, pilotari zein arduradun orok, eta baita kanpoko beste zenbaitek ere, zuzenean jardueran ez aritu arren. Emakumeen jardun arrazoen artean puntu gorenean agertzen da, gainera, letra larriz eta argi distiratsupean. Frakek (2008) eta Lim eta lankideek (2011) ondorioztatutako arlo sozialaren premia eta garrantzia azpimarragarriak dira euskal pilotan diharduten emakumeetan ere. Hori horrela dela baietsi ostean, ordea, zergatiak eta besteengana batzeko nahi edo behar horien inguruan gogoeta sakonagoak egitea garrantzizkoa dela uste dut, zein den elkartruke horien mamia eta zein joera duten iturburu eta oinarri, ez baitut uste kasualitate hutsez gertatzen direnik, ez kasuen ehuneko oso handi batean behintzat.

Hori dela eta, Italiako ezberdintasun sexualaren feminismo mugimendua (López, 2010) bidelagun hartu eta emakumeen ezberdintasuna onartzearena oso oso interesgarria iruditu zait. Funtsezkoa ere bai lan honetako hainbat alderdi ulertzeko, egia esan. Uste dut “affidamento” harremanak eta elkarrekin partekatu, gozatu eta egoteko gogoia (Gómez eta Martín, 2006; Martín, 2006) mamitsuak direla gure kasuari lotuz gero. Izan ere, pilotarako urratsa emaniko emakume hauek ez dira homogeenok, ez dute pilotan parte hartzen berezitasun edo gaitasun berdina dutelako, baizik eta gustuko dutelako eta bakoitzak bere ezberdintasunetik. Gainera, bizitzako beste arlo batzuetako ezaugarri bereizle horiek ez dira mugatzaile pilotan aritzeko eta horiek alboratuta talde izateko gai dira, batzen dituen zentratu eta elkarbanatze soka horri gogor eta tinko eutsiz. Berezko balioa du besteekin elkartu eta aritzeko aukera horrek berak eta hori benetan mamitsua, esanguratsua eta azpimarragarria iruditzen zait. Izan ere, garaiotan geroz eta ezaugarri bereizleagoak bilatu nahi ditugula dirudi eta norbere ziborrari geroz eta gehiagotan begiratzen diogu askotan gaur egungo jendardean, norberaren interesak beste ororen gainetik jarri ohi ditugu arlo asko eta askotan, zenbaitetan baita ondorioetan erreparatu gabe ere, gehiegitan neure iritzian, baina ez da emakumeek elkarrekin pilotan jarduteko unean halakorik gertatzen, justu alderantzizkoa baizik. Badirudi une horietan ahaztu egiten dela besteak eta nik ez ditugula ahalmen eta ezaugarri berdinak eta errespetuan zein laguntasunean oinarritzen da hartu-eman, elkarrekiko gertutasuna eta elkarrekin gozatzea baino ez hartuz begitartean. Euskal pilotako esparruan, emakumeetan behintzat, bete-bete gauzatzen den kontua da honako hau, beraz, ia pilotari adina errealitate daudelako eta hala ere elkarrengana biltzeko nahia eta gogoia azpimarratzen eta sustatzen delako han eta hemen, gau eta egun, joan-etorrian, kalez kale, frontoiz frontoi eta pilotakadaz pilotakada.

Besteekin partekatu eta saltsan jardutea, beste emakume batzuekin elkartrukean aritzea xede bihurtzea bada talde izaera eta sentimendua garatzeko ezinbestekoa den pauso bat. Emakume pilotarien kasuan partekatze horretatik sortu da talde

ikuspegi, giro eta sentimendu bat kasurik gehienetan. Horregatik, nabarmendu beharreko gogoeta pare bat plazaratuko ditut, taldekideen arteko elkartrukea mantentzea eta “gure taldea” edo “gure ordua” adierak ez direlako behin soilik agertu, ohikotasunez baizik. Adiera honi zukua atera eta jarduerak euren zerbitz bezala sentitze honen gainean beste hainbat autoreren gogoetak ere lagungarri zaizkit, gainera (Bidonde, Goodwin eta Drinkwater, 2009; Pietilä, 2009).

Beste ezer aipatu baino lehen eta gaian sakontasunean murgildu aurretik, ordea, ez da talde kirolen izendapenean txertatzen euskal pilota bere egiturari begiratu bat emango bagenio (Usabiaga, 2005). Ez dira partaide askoko taldeak jokoan, elkarrekintzan, aldi berean aritzen direnak. Ildo horretan, kantxan, bikotetan askotan, oposizio egoeran aritzen gara nor baino nor. Hori hala bada ere, ordea, egiturazko ezaugarri bat ez izan arren, denak elkarrekin amaitu eta elkarrekin egoteko beharra eta nahia behin baino gehiagotan azpimarratu izan didate eta neuk ere hala dela frogatu ahal izan dut neure baitan. Talde ikuspegiarekin lotu nahi dut jarduera hau, beraz, benetan azpimarragarria eta aberatsa iruditzen zaidalako gai honek emakume pilotariengan duen garrantzia eta eragina. Hau da, jokoaren egiturak, barne logikak, askoz ere pisu txikiagoa du beste kirol askotan baino. Izan ere, sistemaren gainetik daude parte hartzaileak, egituraren eragina oso murrizta da eta aurkakotasunak ez du eragiten ez harremanetan eta ezta jokotik haratago emakume pilotariok ditugun helburu, nahi eta ikuspegietan ere. Taldea beste guztiaren gainetik dago, aurka jokatu arren guztiok multzo berean jardun eta horren hobe beharrez lan egiteko konpromisoa hartuz, gainera. Elkarte ezberdinekoak izatea, adibidez, federatuetan, anekdotikoa da. Batez ere, arreta eta indarra norbanakoetan eta gure artean sortzen diren elkartrukeen aberastasunean jarri ohi da, emaitzak ere pasadizo huts bihurtu ohi baitira. Talde bat gara beste ororen gaindik eta funtzionamendua ere halakoa da, harremanak eta ongi pasatzea piramidearen tontorrean kokatuz.

Talde sentimendua eta talde giroa, talde harremanak eta hauen nondik norakoen berri talde kiroltan nabarmenduta ageri da literatura zientifikoan, besteak beste errugbian eta izotz hockeyan (Martín, 2012; Theberge, 1995). Kideen arteko solasaldien gaineko aipuak egiten dituzte eta gure testuinguruan ere betetzen da hizketaldiak burutu eta bizitzako hainbat arlotako gaiak jorrazteko interesa eta nahia. Bizipenak, sentipenak, iritziak eta usteak ere elkar banatzen ditugu, hortaz, pilotakada eta paletakadak elkartrukatu bitartean, paleta saioen aurretik, bitartean eta ondoren. Gainera, askotan pilotan aritzea bera baino pisu handiagoa hartzen du hitzezko jardunak, ia une oro hizketan arituz geure artean, talde handian zein txikiagoetan, borobilean nahiz ilaran jarrita, mingainak tratatzeko beldur handirik gabe. Nik uste dut benetako talde giroa sortu eta sostengatzeko ezinbestekoak direla halako uneak ere, aberasgarri eta gozagarri dela pilotan aritzeko modu ez hain zuzendu hau, jarduera jolas zein jokora soilik, eta itsu-itsuan, bideratuko balitz hartu-emana hotzagoa, urrunagoa, eta saioen egiturak zurrunagoak izango lirakeela uste baitut. Gainera, ikusitakoak ikusi eta entzundakoak entzunda

nabarmen samar ondoriozta nezake askorentzat ez dela funtsezkoa momentu guztietan pilota mugimenduan izatea eta bai, ordea, minutu oro ez bada ere, besteekiko lotura hau bizi eta sustatzea, izan hitzezko zein keinu bidezko erlazio bati esker. Jardutea bera ez da saio zein partiden muina zenbait unetan. Konplizitate handia sortzen da jarduleon artean eta horrek laguntzen du saioak arrakastaz garatu eta gozagarri izan daitezen.

Taldekoen babesa, taldekideen magala, ere funtsezkoa da gustura sentitzeko, erabakiak hartzeko, lasaitasuna irabazi eta lotsa zein beldurak galtzeko eta antzekoetarako. Gainera, zenbat eta estuagoa eta aberatsagoa izan lotura hori, motibazioa ere handiagoa izan ohi da (Garrett, 2004; Gu et al., 2011; Heuzé et al., 2006). Hala ere, alderdi ugari eragiten dute hori eskuratzeko bidean, ez da zerutik datorren zerbait talde izaera eta kohesioaren garapena, berez eta ausaz lor litekeena. Landu egin behar da, tentu eta mimo handiz, gainera. Lanketa hori batez ere elkarrengana biltzean eta elkarren ezberdintasunak errespetatu eta berdintasunen bat edo besteri heltzearen poderioz lortzen da kasu bat baino gehiagotan. Ez da ahaztu behar talde bateko kideek erabaki dezaketela beste norbaiti bertan sartzeko “baimena” ematea ala ez, eurek egokiak irizten dituzten irizpide batzuei jarraituz (Elling, Knoppers eta De Knop, 2001; Eyler et al., 2002; Hills, 2007; Pelak, 2002; Walseth, 2008). Askotan, gainera, ez dira esplizituak izango baldintza horiek, baina inplizituki taldeko guztiek onartu eta errespetatuko dituzte ezaugarri batzuk eta aldi berean eurak batu eta kanpoan geratzen direnekiko mugak ezartzeko balioko dute. Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizten dira, berdinekiko eta ezberdinekiko jokabide ezberdina agertuz, beraz. Horren erakusgarri da ahal dutenean pilotariek betiko taldera itzuli nahi izatea, kide jakin batzueganako gertutasun eta laguntasunari tiraka. Horrez gain, deigarria egin zait hizkuntzaren gainean eginiko gogoetaren bat edo beste ere, gazteleraz aritzea antza denez ez izanik, emakumeren batzuentzat, pilotako talde batean jarduteko egoerarik eroso eta egokiena, muga edo traba lez ikusi eta sentituz. Beraz, pilotan bertan ere esparrua ez da mugagabea eta erabat malgu eta askea. Oso neurri txikian bada ere eskusibotasun kutsu bat ikus niezaioke taldearen barruan zein onartu eta zein ez erabakitzeko zilegitasun horren harira, taldean bai baina taldearen egitura edozein modutakoa izatea ez baitut uste onargarri zaienik askori, eurak ez direlako eroso eta gustura sentitzen baldintzaren bat korapilo sortzaile bazaie. Hori dela eta, pilotan ere talde izaera, sentimendua, giroa eta kohesioa ez dira nolnahi eta noiznahi garatuko.

Talde izaera eta giro horretara bideratzen da entrenatzaile eta kideen arteko harremana ere denbora igaro eta elkartrukeak ugaritu eta barrendu ahala (Fasting eta Pfister, 2000; Huguet eta Philippe, 2011; Philippe et al., 2011; Rhind eta Jowett, 2010), asko parekatu eta berdintzen baita tratua kideekin sorturikoarekin, estatus ezberdintasuna erdi desagertzearaino. Horrez gain, norberari dagozkion mugak ez daude oso garbi zenbait une eta egoeratan, taldeko ikuspegia nagusituz alderdi honetan ere. Hala ere, beste giro batean gertutasun hori onuragarri ala

oztopo iturri ote litzateke? Adibidez, goi-mailako pilotako helburuetan posible al da pilotari eta entrenatzaileen arteko gertutasuna ia laguntasunera iristea? Lehiara bideraturiko jarduna balitz honek ez ote luke eragozpenik sortuko? Entrenatzaile askori entzun izan diet urteotan zehar ezetz, ezin direla euren kirolarien lagunak izan, lan harremanak garatzen dituztela euren kirolariekin eta tarteak uztea ezinbestekoa dela gorabeherarik sor ez dadin, rol ezberdinak direlako eurek betetzen dituztenak. Adiskidetasuna ez omen da lagungarri eta aberasgarri esparru eta une jakin batzuetan. Lehia balitz lehentasun, gainera, erlazioak mantenduko al lirateke taldea erdigune izanik, ala norbere burua eta norbere gogo eta nahiak gailenduko lirateke, taldearena baztertuz edo gutxietsiz? Messnerrek (2011) neskei atxikitzen die taldean aritzeko erraztasun handiagoa, lehiakortasun mailarekin lotura egin eta mutilek euren zilborrari begira gehiago dihardutela baitio, lehiakorragoak direla berretsiz. Beraz, nik nahiko nabarmen ondorioztatuko dut lehia balitz helbururik nagusia, izan neska zein mutil, ez liratekeela hartu-emanak hain aberats, estu eta errazak izango, ez kideen artean eta ezta entrenatzaileekiko ere, jardun arrazoi nagusiak ere eraldaketa handi samarra izango bailuke, entrenamenduak prestaketara (fisiko, tekniko, taktiko eta psikologikoa) gehiago bideratuz eta ez hainbeste gozamen eta partekatzerara. Egia da posible dela biak uztartzea, hala egin ezean ez diot zentzurik aurkitzen pilotan aritzeari nik neuk. Bietako batek pisu handiagoa izan ohi du normalean, balantza alde batera edo bestera desorekatzea eraginez, irabaztea edo erlazioetan sakontzea bihurtuz lehentasunik nabarmenena. Gure testuinguruan, ordea, nabarmena da lehiatzea eta besteari nagusitzea bigarren edo hirugarren mailan kokatzen den asmoa dela, baita federatuta diharduten horiengan ere, lehia kantxa barruko partidara soilik mugatuz eta ez edozein baldintzatan, gainera.

Bestalde, eta aurreko paragrafoaren amaierarekin harremanetan, euren hitzetan oinarrituz ezberdin jokatu ohi dute entrenatzaileek gazte zein helduekin, harremanetan mugatuago eta azalekoago lehenen kasuan gehienetan. Zergatik ote da hori? Jarduerak beste ikuspegi bat ote du eurentzat, zuzenago eta gehiago lehiaketa helburuetara bideratua ote da gazteena? Hala behar ote luke? Norbere adinak eta besteekiko koskak nabarmen eragiten dute lehenengo unean, jakina. Ez da gauza bera entrenatzen dituzunekin bospasei urteko aldea edo hogeitau urtekoa, edo gehiagokoa, izatea. Hala ere, ez dut uste urte kopurua denik horrela jokatzera bultzatzen dituen arrazoi bakarra, eta ezta nagusia ere. Nik uste dut neska gazteen jardura gehiago bideratzen dutela errendimendu helburu edo mugarritxoetara oro har, etorkizunerako gaitasun eta oinarri batzuk ematea dutela begiz jota batez ere eta ohiko kirolaren entrenamenduetatik hurbilago dagoela irakasteko modua ere. Emakumeen kasuan, ordea, iruditzen zait gehiago dela orainera bideratua, saioz saioz gozamen eta aisialdiko helburuetara, ondo pasatzera, emaitzak eta markagailuak ahaztu eta prestaketa ikuspegia ere gehiegi jorratu gabe. Joera honen muinean euskal pilotan bertan neska zein emakumeen kasuan Gipuzkoan egiten den eskaintzaren izaerak du zerikusirik eta loturarik handiena nire ustez. Izan ere, eskola adineko neskei eskaintzen zaien bakarra, 16-

18 urtera artekoei hain zuzen ere, kirol hutsa da, lehiaketara bideratua, emaitzak eta garaipenak ardatz dituena, sailkapen sistemak nagusitzen direna, hobeak eta okerragoak bereizten dituena. Gizonezkoek sorturiko egiturak dira hauek eta, beraz, alderaketak egitean ere mutilekin alderatzeko joera nabaria da, trebezia eta iaioetasuna onarpenarekin lotuz hein handi batean, kirolaren mundu itsuan murgildu eta irabazleak edo jeinuak sortzera mugatzen dena, hain abilak ez direnak alboratu eta pilotaz gozatzeko aukerak murriztuz. Kasu honetan aukera bakarra pilota elkarte edo eskola zein ikastetxeren batean izena eman, entrenatu eta txapelketa batean parte hartzea da ohiko pilotaleku eta kideengandik kanpo jarduteko. Hau da, eskolarteko paleta txapelketetara eta federatuenetara bideratzen da indar guztia. Izan ere, ez daukate adin tarte honetakoek erakunde horretan bertan aisialdian jarduteko eskaintzarik, emakumeen kasuan dagoen lez. Emakumeetan aldiz bai, aisialdiko eskaintza bat ere badagoelako federatuenetik at. Beraz, horregatik uste dut entrenatzaileei zailagoa zaiela neskekin *andereño* izaera eta kontrol zereginetatik aldendu eta baztertzea eta hain erraza, kasurik gehienetan bederen, emakumeen artean gustura eta giroan txertatuta aritzea; loturak sendotu ahala, eroso.

Aurreko hausnarketa horrek beste gogoeta itaun bat dakarkit: hori nahi ote dute neska/emakume guztiek? Egokitzen al da eskaintza parte hartzaileen beharrietara? Bi multzoen arteko nahiak benetan al dira hain ezberdinak, ez ote dute funtsean elkarrekin egon eta partekatze nahi bat izango itzalean? Gogoetaren muinera joateko bidezidor asko eta eskailera maila ezberdinetatik abiatutakoak aurki litezke oso, izaeraz ere ezberdinak, bakoitzak geureak ditugulako. Ni baiezkoan nago, akaso lehia adin batekin lotzea eta ez beste batekin ez dela oso egokia eta lehia helburuak ezin direla aurrez ezarri partaidea automatikoki adinaren arabera multzo bateko kide lez sailkatuz, testuinguruko ezaugarrien arabera eta jardule bakoitzaren erradiografia bat atera ostean beharko lukeelako banaketak. Gainera, helduen artean ere zenbaitetan ikuspegi lehiakorragoa dutenak ere badira talde beraren baitan, beraz, hauei baliteke sozializazio helburua ez iruditzea oinarritzkoena pilotan aritzeko unean. Hori dela eta, horrenbestez, etiketak ezartzea eta multzoak sakon aztertu gabe antolatzea benetako akatsa dela uste dut eta halako egoerak ekidin egin beharko genituzkeela, talde bakoitza bere ezaugarri, gaitasun, gogo eta asmoen arabera jardutera bideratzen saiatuz. Hori da pilotak emakumeetan arrakasta izateko biderik eraginkorrena ere, malgutasunez eta egokitzeko ahalmena lagun hartuta aritzea antolaketan zein kantxetako hitzorduetan, hartu-emanak kalitatezkoak eta benetan asegarriak izan daitezten lortzeko helburua ardatz harturik betiere.

Beste ildo batean, nabarmena da pilotako jardunak erlazio berriak, sare berriak, sortu eta denbora librean elkarrekin bestelako ekintzak burutzeko aukera eskaintzen digula behin baino gehiagotan eta bat baino gehiagori. Hau da, zuzenki saioekin eta kantxako jardunarekin loturik ez dauden egoeretan elkarrekin aritu eta bizipenak partekatze ate bat zabaltzen zaigula jarduera fisiko honi esker

(Roura, 1999; Bidonde Goodwin eta Drinkwater, 2009; Brown eta Macdonald, 2008; Fields eta Comstock, 2008; Martín, 2012; Pietilä, 2009; Rhind eta Jowett, 2010; Walseth, 2008). Elkarbanatzeko grinari leihoak zabaltzeko pilotan egindako harremanak dira sorburu testuinguru eta eskenatoki hauetan. Hainbat emakumezko bestelako ekintza horiek burutzeko pilotan jardun izana garrantzitsua dela baieztatzea ez dakit potoloegia izan daitekeen, baina sozializatorako joera hori nabarmendu dutela eta nabarmendu nahi izaten dugula argi adieraz dezaket, poz eta gozamen iturri ere badelako hartu-emanen sare hori. Honek pilotan parte hartzea emakumezkoek duten behar sozial bati erantzuten dion jarduera dela adieraz dezake agian. Izan ere, lagunarteko erlazio sakona, bi lagun arteko elkartrukean amaituz egun batean, erdi tupustean, pilotalekuko jardunean ekinikoa, ezagutu eta neure larruan bizi izan dut. Elkarrekin orduak igarotzearen ondorio da batez ere ala antzekotasunetik dauka gehiago honek, elkarren osagarri izatetik, beste arrazoi batzuk ere pilotzeari kantzako ezaugarri eta trukeetatik haratago? Ez daukat garbi erantzuna, baina sortu direla eta sortuko direla badakit, neu ere halako erlazio bat baino gehiago bizi eta gozatutakoa bainaiz. Baita gozatzen jarraitu nahi lukeena ere. Noski, badakit ez duela berezkoa pilotak halako batzeko ahalmen miragarri bat, baina bai uste dudala hartu-eman horien bihotzean badagoela pilotako jardun hori. Besteak beste, elkar ezagutu ere ez genukeen egingo zenbait kasutan frontoian tupust egin izan ez bagenu. Beraz, pilotak badu lotzeko ahalmen hori orduan, ala? Badakit arriskutsua izan litekeela halako baieztapen bat plazaratzea, baina ni baietz sinetsita nago, euskal pilotako esparruan, eta emakumeen kasuan, behintzat, egoera hauek ere badirela errealitateko zati.

Dena ez da arrosa kolorekoa, ordea, esparru honetan ere gaizkiulertu, haserrealdi eta desadostasunen bat edo beste ere ezagutu eta bizi izan baitut, pertsona bakoitzaren izaera ezberdina baita. Batzuk ez dira asko sakontzearen aldekoak eta nahikoa dute azaleko ezagutza eta sentipenekin, ezberdintasunari berdintasunari baino gehiago begiratuz (Walseth, 2008). Hala ere, modu berean, ozen esan nezake nik ikusitakoan oinarrituz, gaur gaurkoz onerako izan direla hartu-emanak eta hala izaten jarrai dezaten komeni zaiola emakume pilotarion eremuari, norberaren interesak ahaztu gabe, baina balantza orekan mantentzen saiatuz ingurukoekin pozak zein penak elkar banatuz, girorik ezean orain artean lorturikoa berehala etorriko bailitzateke gainbehera, errautsak soilik geratuz. Azken hoge urtean lorturikoa lortu bada ez da zoriari eskerrak izan, baizik eta mundutxo honetako pilotari guztiek egin dutelako hartu-emanen alde eta badakigulako ezinbestekoa dela giroa mantentzea, mundutxo hau itoko ez bada. Beraz, pilota bada pilotarien arteko elkarrekintzaren ardatz, ala akaso beste jardueraren batean, marraketa edo kultur talde batean, esate baterako, gerta zitezkeen hemen jaso eta jazorikoak? Zenbateraino da pilota erdigune eta arrazoibide? Galderak airean uztea baino ez zait otu, azken finean. Hori bai, pilota badela zalantza izpirik ere ez daukat, pilotalekuetako nire ibilian bizi, sentitu eta ikusitakoekin.

Era berean, akaso lotura erabat zuzena ez badu ere, beste galdera bat ere mahai gaineratu nahiko nuke, behin baino gehiagotan otu zaidana ibilbide honetan zehar: ezberdinak al dira pilotari federatuak eta aisialdikoak hartu-emanen dagokienez? Badirudi pilotari federatuetako asko ez direla leku berekoak, ez dira herri berean bizi, eta, gainera, ez dira pilota elkarte berekoak ere. Hori dela eta, pilotako kideak herritik kanpo egoteak eguneroko elkartrukeak ez dituela errazten pentsatu ohi da, pilotara mugatuago dagoen elkartrukea sortuz batik bat. Hala ere, asteburuetako partida eta txapelketa ezberdinek ia asteroko maiztasunez elkarrekin aritzera daramatzate, kantxan zein harmailetan bizipen eta gertaerak partekatzen. Beraz, akaso hauen lotura, elkarrekin denbora gehiagoan aritu eta denboraren joanean elkar ezagutza horretan gehiago sakondu badute (Walseth, 2008), estuagoa izan liteke, ezta? Aisialdikoaren kasuan, berriz, euren herrian, bizileku duten inguruan bertan, biltzen dira eta, beraz, noizbehinka elkartuko dira bestelako jardueretan ere. Adibidez, ikastolako irteeran hurrei itxaroterakoan, kiroldegian, kaleko joan-etorrietan, tabernan, dendaren batean edo herriko bizitza esaten diogun esparru horretan. Gainera, topo egiten duten okasio horietan pilotaren gaineko hitz asperturen bat edo beste gairen bati buruzkoren bat ere partekatuko dute. Ondoren, ordea, baliteke asteroko paleta saiora arte elkarrekin modu zuzenean gehiago toporik ez egitea. Beraz, esan ote liteke harremanak ezberdinak direnik? Batzuk besteak baino “familia” sentipen nabariagoa dutenik? Batzuk besteak baino pilotari lagunago direnik? Batzuk besteak baino hartu-eman sendo eta indartsuagoak garatuko dituztenik? Nik ezetz uste dut, azken finean, pertsona batekin igarotako ordu kopurua eta horietan lortutako gertutasuna eta laguntasun maila baita mugatzaile nagusia (Walseth, 2008), ez pilotan jarduteko esparrua federatuen edo aisialdikoena izatea. Are gehiago, iruditzen zait egunerokotasunean elkarrekin topo egiten badute, hori berdín dela irakurketa talde batean aritu ala musikaren esparruan, herriko kontaktua delako arrazoietako bat erlazioak sakondu eta hauei eusteko bidea emateko.

Pilota bizi-ardatz bihurtu zaien kasuren bat edo besteren berri ere badut, pilotako familiak garrantzia handia duena euren egunerokoa, erlazioak benetan oso errotu eta sakontasun handikoak dituztenak. Euren bizitzako ordu asko eta askotan egiten dituzten pausok lotura estu eta hertsia dute pilota munduarekin: lagun taldeak, eguneroko bizitzako antolaketak,... Hau oso esanguratsua da eta hartu-emanen auzia muturreraino garatu litekeela pentsa liteke halako kasuetan, euren bizitzan ezinbestekoa baita pilotako jarduna eta bertako giro eta sentimendua. Ez litzateke posible, ezta batere erraza ere, emakume hauen egunerokotasuna ulertzea pilotarekiko eta pilotako jendearekiko duten atxikimendu maila aintzat hartu eta balioetsi gabe. Urte asko daramatzate jardun horretan eta ez dakit pilota kenduz gero euren bizitzan ez ote litzatekeen hutsune nabarmen samarren bat geratuko, pilotako “familia” (Fields eta Comstock, 2008) galduko luketelako. Dena dela, sozializazioa hala ere azpimarragarri eta ezinbestekoa da beste esparru eta lagunarte batzuk dauzkagunon artean ere, pilotako jarduerak partekatzeak aurretik ez geneukan mundutxo bat ekarri

digulako. Gainera, nik behintzat galtzerik nahi ez dudana, nahiz eta bizitzako norberaren aldi eta faseen arabera hartu-emanak estuagoak, lotuagoak edo lasai eta malguagoak izango diren, beti hor daudelako, lehenago edo beranduago kide eta lagun horiengana hurreratuz eta partekatzeke nahiari eutsiz.

Ezinbestean aipatu beharrekoa, deigarria eta hausnartu beharrekoa iruditzen zait, poz iturri zaidan eta bere sorrerak harridura puntu bat eragin zidan beste egoera bat ere. Izan ere, gizonzkoen paletako talde bat sortu da Usurbilen, aisialdian lau lagun elkartu eta asteroko hitzordua lotu dutenak pilotalekuan paletan aritzeko. Berez ez dirudi bereziki deigarria honaino kontaturikoak, baina apur bat sakonago aztertuz gero, aipatu beharrekoa da aisialdiko paleta ikastaroetako hiru emakumeren senarrak direla lautik hiru eta laugarrena baten koadrilako kidea. Beraz, nork esango du gizon hauengan ez dutela eraginik izan euren emazteen ikastaroetako bizipen eta esperientziek? Emakumeak aritu ez balira eurak hasiko ote ziratekeen? Akaso bakarren batek esango lidake bestela ere mendira, tabernara edo beste ekintzaren batera aurrez ere elkarrekin joanak izango direla eta kentzeko ideia txoro hori burutik. Ez da hala, ordea, aurrez laukotea bere horretan zerbait egitera sekula ere joan gabea baitzen, eta paletan gehiegi aritu gabeak dira gehienak, gainera. Hortaz, gizonzkoengan pilotan jarduteko gogoia pizteko arrazoi eta sostengu emakumeak izan dira kasu honetan, euren arteko harremani esker ondorio bihurtuz euren senarren artekoa ere. Hori oinarrian dagoela ikusita eta euskal pilota tradizioz gizonzkoen jarduera lez askotan deskribatu izan dela gogoan harturik, hau ez ote da alderantzizko prozesu bat? Emakumeen paletarekiko atxikimendua eta jarduna izan da senarrak parte hartzera bultzatu eta batzea ahalbidetu duena hein handi batean egoera honetan. Izugarria iruditzen zait, ondorioz, hartu-emanek norainoko garrantzia eta indarra izan dezaketen ohartu, aintzat hartu eta jendarteari ohartaraztea, ez baita kasualitatea aipatu berri dudanaren oinarrian dagoena. Gainera, kasu honetan non geratzen da gizonak erlazio sozialari dagokionean elkarrekin batzeko joera gehiago dutela (Moreno, Martínez eta Alonso, 2006) dioen esana? Aldrebes ere bada. Emakumeek ere garrantzia ematen diote elkarrekiko loturak sendotu eta partekatzeari, ezta? Nik uste, eta benetan sinetsi nahi nuke, alde bikoia dela elkarreragina, pertsona orok ororengan eragiten duelako eragiten dietela kasu honetan emakumeek gertuko gizonzkoek. Hala ere, zalantza eta hausnarketa iturri zait alderantziz zergatik ez ote den gertatzen sarriagotan, hots, gizonak aritzen direlako emakumeak ere batzea euren kabuz. Oinarri erakargarri bezain aberatsa izan liteke bestelako testuinguruen zokomiran ikerketa abentura berri baten abiapuntu lez.

Amaitzeko, laburbilduz, kantzatik kanpo zein kantzako jardunerako gizonak gehiagotan batzen diren, emakumeak gehiagotan elkartzen diren, zenbatekotasunean eta nor den nor baino sozialagoa bezalako ika-miketean sartu gabe, emakumeak badirela nabari da. Benetako hartu-emanak sortzen dira euskal pilotako esparruan emakumeen artean, argi eta garbi. Ozen eta harro esan nezake hori eta, zergatik ez, baita aldarrikatu ere. Emakume pilotariak sozialak gara.

Gizonak ba ote diren? Abiapuntu izan liteke beste norbaitek erronkari heldu nahiko balio ikerketa berriren baterako. Baina ez da lan honetako ardatza, beraz, emakumeengan elkartrukeek duten eragina baieztatu eta azpimarratzea baino ez zait falta sozializazioaren gaineko atal honi azken puntua jartzeko: pertsonen arteko harremanak eta hauen kalitatea jo puntuan daude emakume pilotariengan!

4. Erreferentziak

- Auster, C. J. (2008). The Effect of Cohort on Women's Sport Participation: An Intergenerational Study of Collegiate Women Ice Hockey Players. *Journal of Leisure Research*, 40(2), 312–337.
- Barrientos, J., Salinas, P., Rojas, P. eta Meza, P. (2009). Minería, género y cultura. Una aproximación etnográfica a espacios de sparcimiento y diversión masculina en el norte de Chile. *Revista de Antropología Iberoamericana*, 4(3), 385–408.
- Bidonde, M. J., Goodwin, D. L. eta Drinkwater, D. T. (2009). Older Women's Experiences of a Fitness Program: The Importance of Social Networks. *Journal of Applied Sport Psychology*, 21(1), 86–101.
- Brown, S. eta Macdonald, D. (2008). Masculinities in Physical Recreation: the (re)production of masculinist discourses in vocational education. *Sport, Education and Society*, 13(1), 19–37.
- Codina, N. eta Pestana, J. V. (2012). Estudio de la relación del entorno psicosocial en la práctica deportiva de la mujer. *Revista de Psicología del Deporte*, 21(2), 246–251.
- Craike, M. J., Symons, C. eta Zimmermann, J. A. M. (2009). Why do young women drop out of sport and physical activity? A social ecological approach. *Annals of Leisure Research*, 12(2), 148–172.
- Elling, A., Knoppers, A. eta De Knop, P. (2001). The Social Integrative Meaning of Sport: A Critical and Comparative Analysis of Policy and Practice in the Netherlands. *Sociology of Sport Journal*, 18(4), 414–434.
- Eyler, A. E., Wilcox, S., Matson-Koffman, D., Evenson, K. R., Sanderson, B., Thompson, J. eta Rohm-Young, D. (2002). Correlates of physical activity among women from diverse racial/ethnic groups. *Journal of Women's Health & Gender-Based Medicine*, 11(3), 239–253.
- Fasting, K. eta Pfister, G. (2000). Female and male coaches in the eyes of female elite soccer players. *European Physical Education Review*, 6(1), 91–110.
- Fields, S. K. eta Comstock, R. D. (2008). Why American Women Play Rugby. *Women in Sport and Physical Activity Journal*, 17(2), 8–16.
- Flintoff, A. eta Scraton, S. (2001). Stepping into Active Leisure? Young Women's Perceptions of Active Lifestyles and their Experiences of School Physical Education. *Sport, Education and Society*, 6(1), 5–21.
- Frake, M. (2008). The Development of Relationships in Sport: A Hand-in-Hand Experience. *Women in Sport and Physical Activity Journal*, 17(1), 47–53.

- Garrett, R. (2004). Negotiating a physical identity: girls, bodies and physical education. *Sport, Education and Society*, 9(2), 223–237.
- Gómez, L. eta Martín, A. B. (2006). Experience, Subjectivity and Politics in the Italian Feminist Movement. Redefining the Boundaries between Body and Discourse. *European Journal of Women's Studies*, 13(4), 343–355.
- Green, E. (1998). “Women Doing Friendship”: an analysis of women's leisure as a site of identity construction, empowerment and resistance. *Leisure Studies*, 17(3), 171–185.
- Gu, X., Solmon, M. A., Zhang, T. eta Xiang, P. (2011). Group Cohesion, Achievement Motivation, and Motivational Outcomes among Female College Students. *Journal of Applied Sport Psychology*, 23(2), 175–188.
- Gustafsson-Larsson, S. eta Thurén, B. M. (2007). Bun-baking mums and subverters: the agency of network participants in a rural Swedish county. *Women's Studies International Forum*, 30(1), 48–58.
- Hassell, K., Sabiston, C. M. eta Bloom, G. A. (2010). Exploring the multiple dimensions of social support among elite female adolescent swimmers. *International Journal of Sport Psychology*, 41(4), 340–359.
- Heuzé, J.P., Sarrazin, P., Masiero, M., Raimbault, N. eta Thomas, J.P. (2006). The Relationships of Perceived Motivational Climate to Cohesion and Collective Efficacy in Elite Female Teams. *Journal of Applied Sport Psychology*, 18(3), 201–218.
- Hills, L. (2007). Friendship, physicality, and physical education: an exploration of the social and embodied dynamics of girls' physical education experiences. *Sport, Education and Society*, 12(3), 317–336.
- Huguet, S. eta Antonini-Philippe, R. (2011). A case study of the emotional aspects of the coach-athlete relationship in tennis. *International Journal of Sport Psychology*, 42(1), 24–39.
- Lim, S. Y., Warner, S., Dixon, M. A., Berg, B., Kim, C. eta Newhouse-Bailey, M. (2011). Sport Participation Across National Contexts: A Multilevel Investigation of Individual and Systemic Influences on Adult Sport Participation. *European Sport Management Quarterly*, 11(3), 197–224.
- López, M. (2010). Variaciones feministas en torno a la inmanencia y la trascendencia. Simone de Beauvoir, Luce Irigaray y la “política de lo simbólico”. *Feminismo/s*, 15, 137–164.
- Martín, M. (2006). Contribución del feminismo de la diferencia sexual a los análisis de género en el deporte. *Revista Internacional de Sociología*, 64(44), 111–131.
- Martín, M. (2012). The (im)possible sexual difference: Representations from a rugby union setting. *International Review for the Sociology of Sport*, 47(2), 183–199.
- Martínez, L. eta García, A. (2002). Reflexionar sobre el género desde escenas de práctica escolar. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 69, 118–123.
- Messner, M. A. (2011). Gender Ideologies, Youth Sports, and the Production of Soft Essentialism. *Sociology of Sport Journal*, 28(2), 151–170.

- Migliaccio, T. A. eta Berg, E. C. (2007). Women's Participation in Tackle Football. An Exploration of Benefits and Constraints. *International Review for the Sociology of Sport*, 42(3), 271–287.
- Miller, Y. D. eta Brown, W. J. (2005). Determinants of Active Leisure for Women with Young Children. An "Ethic of Care" Prevails. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 27(5), 405–420.
- Moreno, J. A., Martínez, C. eta Alonso, N. (2006). Actitudes hacia la práctica físico-deportiva según el sexo del practicante. *Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, 2(3), 20–43.
- Müller, J. (2011). La práctica del fútbol entre mujeres bolivianas en Sevilla. Redes sociales, trayectorias migratorias y relaciones de género. *Iconos. Revista de Ciencias Sociales*, 15(3), 153–169.
- Pelak, C. F. (2002). Women's collective identity formation in sports: a case study from women's ice hockey. *Gender & Society*, 16(1), 93–114.
- Philippe, R. A., Sagar, S. S., Huguet, S., Paquet, I. eta Jowett, S. (2011). From teacher to friend: The evolving nature of the coach-athlete relationship. *International Journal of Sport Psychology*, 42(1), 1–23.
- Pietilä, P. (2009). A Space of Our Own. Non-Formal Education for Elder Women in Andalusia. *The European Journal of Women's Studies*, 16(1), 53–66.
- Puig, N. (2008). Espacio público y deporte: de la reflexión a la intervención. Algunas propuestas. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 91, 114–120.
- Rebollo, S. eta Martos, P. (1998). Práctica físico-deportiva y género. Aproximación a una realidad marginal. *Revista Motricidad*, 4, 183–202.
- Rhind, D. J. A. eta Jowett, S. (2010). Relationship Maintenance Strategies in the Coach-Athlete Relationship: The Development of the COMPASS Model. *Journal of Applied Sport Psychology*, 22(1), 106–121.
- Roura, G. (1999). Un programa de actividad física para mujeres adultas. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 57, 100–104.
- Roper, E. A. (2008). Women's Career Experiences in Applied Sport Psychology. *Journal of Applied Sport Psychology*, 20(4), 408–424.
- Roster, C. A. (2007). "Girl Power" and Participation in Macho Recreation: The Case of Female Harley Riders. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 29, 443–461.
- Theberge, N. (1995). Gender, Sport, and the Construction of Community: A Case Study From Women's Ice Hockey. *Sociology of Sport Journal*, 12(4), 389–402.
- Torre, E. (2002). Factores personales y sociales vinculados a la práctica físico-deportiva desde la perspectiva del género. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 70, 83–89.
- Usabiaga, O. (2005). *Euskal pilotako joko-ekintzaren ebaluazioa: aplikazioa frontoi motzeko eskuz binakakoan*. (Doktorego tesia). Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

- Walseth, K. (2008). Bridging and bonding social capital in sport-experiences of young women with an immigrant background. *Sport, Education and Society*, 13(1), 1–17.
- Wellard, I. (2006). Able bodies and sport participation: social constructions of physical ability for gendered and sexually identified bodies. *Sport, Education and Society*, 11(2), 105–119.
- Wheaton, B. (2000). “New Lads”?: Masculinities and the “New Sport” Participant. *Men and Masculinities*, 2(4), 434–456.
- With-Nielsen, N. eta Pfister, G. (2011). Gender constructions and negotiations in physical education: case studies. *Sport, Education and Society*, 16(5), 645–664.

5. kapitulua

Ardurak, aingurak; amak, (p)lanak

Pilotan diharduten emakumeen ardurek esangura handia hartu dute lan honen joanean. Kasu honetan ere genero-sistemaren itzala luzea da eta eragina oso nabaria. Hori dela eta, analisi soziala ardatz begirada morea egingo diot gure errealitateari kapitulu honetan. Hari mutur horri tiraka sorturiko atala da jarraian aurkeztuko dudana, hain zuzen ere. Bertan, hurrenez hurren, ardura eta betebeharren sistema, orokorrean, nola egituratzen den agertuko dut zertzelada eta ideia nagusien bidez eta, ondoren, pilotako kasuan esparru horrekin lotura hertsian zer egoera sortu eta nola jazo eta kudeatu ohi dituzten emakumezko pilotariek. Ala pilotari emakumeek?

1. Ardurak: gazta banatzen

Genero ikuspuntutik ardura eta eginbeharrak nola banatu eta antolaketa zein eratan egiten den aztertzea ezinbestekoa iruditzen zait, horrek zuzenean eragiten duelako pilotarien jardun, jokabide, pentsamendu, sentipen eta hautuetan, besteak beste. Hori hala izanik, puntu honen baitan etxeko ardurak, familiakoak, laneko eginkizunen argi-ilunak eta zaintza lanaren nondik norakoak agertuko ditut, bizi garen sistemaren irudi orokor bat ematen saiatuz ardurak ardatz harturik.

1.1. Etxeko lanak

Duranen arabera (1986:51) ohiko ekonomia azterlanetan ematen den homogeneousitasun irudi estereotipatuaren aurka, etxeko produkzioa ikaragarri heterogeneo eta konplexua da. Homogeneousitasun irudia (“mundu guztiak berdina egiten du eta ez du egiteko inolako zailtasunik”) zuzenean erreproduzioarekin loturiko prozesu biologikoekin harremanetan dago. Hala ere, neurri parekatzaile horren gainean gizarteak profil eta arau oso ezberdinak dituen unibertsoa eraiki du. Hauek berdinak kanpotik behatzen dutenez bakarrik dira, beste sistema ekonomiko batetik begiratuta. Izan ere, gertatzen dena eta lanen banaketa eta espezializazioa, bere konplexutasuna, aztertzeke ezinbestekoa da behaketa zuzena, “barrutik eginiko” begirada bat erabili eta “bestea” barne hartzen duen “bigarren lana”, alegia, bigarren sexuarentzako lan komuna denetik haratago egitea.

Autore berak dio oso zaila dela etxeko lanak zer diren zehaztea eta zer esanik ez zehaztasunez neurtzea, interpretatzeko modu ugari daudelako. Izan ere, merkatuko ekoizpenean dirua da homogeneousitatearen errazteke neurtzeke unitatea, baina ez dago neurri homogeneousitateazailerik etxeko lanei dagokienean. Gainera, lan denbora heterogeneoa da eta ez kopurutan soilik, baita erritmo eta kalitatean ere. Etxeko lanaren definizioa eta antzeke zaizkion kontzeptuetatik bereiztea (betebeharrak, zaintza, arreta pertsonala, etab.) edo osagarrietatik banantzea (aisia, atsedena, oporrak, etxekoa ez den lana, etab.) beharrezkoak dira egunean, astean, urtean edo bizitzan zehar horretan emaniko orduak kontatzeko edo arlo horretan diharduten langile kopurua neurtzeke. Hala ere, aintzat hartu behar da badirela neurtzeke beste zenbait irizpide, zuzenean etxeko lanak pertsonaren bizitzan arreta jarriz aztertzen dituen eta ez hainbeste jarduerak sorturiko produktuan.

Duraneke berak 2005ean eginiko azterlan batean dio aldaketa hautemangarriak gertatu badira ere, oraindik ere alde nabarmenak daude lan ez ordainduari dagokionez gizon eta emakumeen artean. Emakumezkoak lan ordaindura (enplegua) txertatzean, normalean, ez dira euren etxeetako arduradun nagusi eta langile ez ordainduak izatetik aske geratzen.

Familia eta etxe-eremua espazio erabakigarriak dira emakumezko eta gizonezkoek dituzten paper eta ezaugarriak definitzeke Rocha-Sánchez eta Díaz-Lovingentzat ere (2005). Hau da, emakumezkoaren funtsezko zeregina ama, eta beraz, izaki sakrifikatu, meneko eta menpeke gisan, gizonezkoaren oinarriko rola familiaren ardatz eta hornitzailea izatea da. Familian ordena ezartzea aitaren funtzioa da eta amaren zeregina, berriz, maitekorra izan eta hezteke. Gizonezko eta emakumezkoen bilakaera ez da hain nabaria izan etxe-eremuan, nahiz eta emakumezkoak lanera irten eta denbora guztian etxean egon beharrik ez izan arren ez dituelako sekula alboratzen etxeko jarduerak. Beste hitz batzuetan, ordutegiak egokituko ditu, baina ez dira banatzen lanak gizon eta emakumeen artean. Generoen borroka honen eraldaketan emakumezkoak inplikatuago daude gizonezkoak baino.

Ajenjo eta García-Romanentzat ere (2011) familia-buru maskulinoa duen eredua dago indarrean oraindik. Izan ere, nahiz eta emakumezkoen lan merkaturatzeak hauek ikusgai egotea gehitu duen sozialki emazte, ama eta alaba rola esleitzen zaizkie. Generoaren araberrako jardura eta denboraren banaketak adierazten du emakumezkoek gizonezkoek baino askoz ere denbora gehiago eskaintzen dietela etxeko lanei.

1.2. Lanaldi bikoitza

Arlo honetan ere emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasuna nabaria da gizonezko gehienek lanaldia moztearen onurak izan dituztelako eta emakumezko gehienek, etxeko andreak, etxeko lanetan industria-aurreko lanaldiak mantentzen dituztelako (Durán, 1986: 60). Etxeko lanetatik aparteko arloa edo azpi-sistema da nagusi etxeko atalarekiko eta ez baldintza ekonomiko edo elkartruckerako erlazioagatik bakarrik, baizik eta bere *ethosa* ezartzen duelako. Nabarmena da, hala ere, XX. mende amaierako emakume espainiarrek aurre egin nahi ziotela etxeko ohiko betebeharrak mugatzeari, ohiko banaketa baztertuz eta eraldaketa ekonomiko handi bat zuten jomuga, etxetik kanpo euren jarrera ekonomikoa berreskuratuz eta etxeko lanak gizonezkoekin partekatuz. Ikuspegi irekiagoa da. Modu honetan, etxeko lana (pribatua eta femeninoa) eta etxetik kanpoko lanaren (publikoa eta maskulinoa) irudi eta banaketa tradizionalari (Bialeschki eta Michener, 1994) aurre egin nahi zaio, nahiz eta eraldaketa motela den eta askotan nahiak hegan doazen errealitateak nahiak atera bitartean. Ondorioz, emakume gazteei ase gabeko asmoak, moldaketa gogogabe eta gatazkatsuak pilatzen zaizkie egiturazko eskakizunen aurrean, zeinak ezin baitira bakarka baztertu (Durán, 1986: 69-70).

Del Valle eta kideek (1985) diote euskal emakumeak estatusunez agertzen duela lan jardunaldi bikoitza eta etengabeko ardurak, aisiarako eta atsedenerako gutxieneko abaguneak uzten dizkiola. Hala ere, lanaldi bikoitzaren arazoa aztertzeo gogoan izan behar da egoera anitz ematen direla adin, klase sozial, eremu geografiko edo etnia jatorriaren arabera eta zaila dela orokorrean aztertzea (Díez, 2000). Izan ere, azken autore honek dio arazo garrantzitsua sortzen dela “etxeko lana” kontzeptuaren inguruan, bai definitzeko eta bai kuantifikatzeko orduan ere. Etxeko lanaz eta lanaldi bikoitzaz jardutean aintzat hartu beharko lirateke hainbat faktore, honakoak besteak beste: etxeko pertsona kopurua, bikoterik baden ala ez, bikotekideen arteko harreman ekonomiko eta profesionala, hurren adina, ordena eta garbiketaren gaineko ikusmolde ezberdinak, elikagaiak prestatzera denbora gehiago ala gutxiago hartu, etxetresnen erabilgarritasuna eta etxetik kanpoko laguntza. Hala ere, etxeko arduren banaketa aztertzean oso nabarmen ikusten da sistema patriarkal eta androzentrikoaren eragina, emakumeek genero harreman hierarkikoei aurre egin behar dietelako, oraindik ere zenbait kasutan gizonek etxean “laguntzea” ezohikoa delako testuinguru sozialean.

Emakumezko aktiboen tasa azken hamarkadetan gehitu egin da eta bi lanak (soldatapekoa eta familiakoa) egiten dituen emakumearen eredua finkatu da,

gizonezkoek unidimentsionalki lan merkatuko parte hartzearekin jarraitzen duten bitartean. Emakumeen lanaldi bikoitza berezko egoera bezala agertzen da eta ez konpondu beharreko egoera bezala (Imaz, 2007). Egoera horretan, emakumezko askok egunero-egunero lotu behar dituzte etxe eta famili eginkizun eta antolaketa lanak kanpoan burutzen duten laneko eginkizun eta ardurekin (Del Valle, 2001; Johnston eta Swanson, 2007; Tobio, 2012). Horrek, gainera, zailtasun eta tentsioak eragiten dizkie kasu askotan euren langile eta ama identitateen artean (Johnston eta Swanson, 2007; Kamphoff, 2010; Roper, 2008).

Duranek (2005) dio gizartea emakumeei euren rol sozial berrietan irekita mantentzeko asmoa ikusten dela. Joera horrek, ordea, euren funtzio tradizionaletan dituzten zamak kendu gabe zuzenean lanaldi bikoitzera bideratzen ditu, edo okerragoa dena, lanaldi amaigabera. Euren eginkizunak dira bizitza berrien ernaltzea, oinarrizko zerbitzu guztien gutxiagotzea biztanleria multzoari etheen bidez (elikadura, osasun zaintza, arropak, etheen arreta, hastapeneko sozializazioa, etab.) eta espresio eta afektibitate-kohesioa. Autore berak kritikatzeko lanaldi bikoitza esplotazio garbi eta sinplea dela eta ezin dela estali borondatezko hautu bat dela argudiatuz. Emakumezko askok euren gain hartzen dute euren askatasun pertsonalari dagokion prezio lez, baina ezin du luzaroan iraun konponbide egoki lez, ez gizabanakoaren mailan eta ezta gizatalde mailan ere. Emakumeen denbora pertsonala murrizten du etxetik kanpo eta etxean lan egiteak (Artazcoz, Borrell eta Benach, 2001).

1.3. Emakume euskalduna

Zehazki euskal emakumearen gaineko ikerlanetara joz, euskal kulturaren baitan, emakumearen inguruan harturiko premisa orokorra honakoa da: “emakumea besteen arabera definitzen da”. Definizio honek hau dakar (Del Valle et al., 1985: 193):

- emakumeak bere identitatea beregandik kanpoko roletan oinarrituz sortzen du.
- rol horiek familiaren baitan harturiko lekuaren arabekoak dira.
- ezkontzarekin, harturiko postuak berehalako izaera du eta hainbat irizpide eta helburu kohesionatzera jotzen duten mekanismoak jartzen ditu martxan.

Euskal emakumearen izaeraren ezaugarriak honakoak dira (Del Valle et al., 1985: 215-221): ama ona, langilea eta garbia eta neurri txikiagoan, lagunkoia, itxura onekoa eta argia. Hauek zuzenean erlazionatuta daude emakumeak etxeko arloan beteriko rolen ezaugarriekin, aurrez esan bezala, besteen arabera definituz: beren senarra, seme-alabak eta afektibotasunez lantzen dituzten harreman garrantzitsuak. Hortaz, euskal emakumeak arlo ezberdinetan ezarritako lehentasunak aztertuta, kontuan hartzen du etxeko eremuarekin loturiko jarduerak, etxearen antolaketarekin eta familia ongizatearekin, etxetik kanpoko edo familia esparrutik at dauden beste edozein jardueraren gainetik daudela. Adibidez, soldatapekoa bada bere lana ez du etxeko gizonezkoenaren modu berean aintzatesten jardun hori bera, bere ezaugarri eta gaitasunak etxeko eremuan eskuraturikoen arabera neurtzen baitira, gizonezkoarenak

etxetik kanpokoan arabera baloratzen diren modu berean. Sexu bakoitzak bereizitako helburuak eta elkarren osagarriak ditu.

Ikerlan berean azpimarratu da azken hamarkadetan emakumeak lan merkatura txertatzea dela emakume euskaldunaren aldaketarik esanguratsuena, bere kontraesan guztiekin izan arren, emakumearen autonomia maila igoz. Hau batez ere hogeita hamar edo berrogei urtetik beherakoetan ikusi da 70. hamarkadatik aurrera, modernizazio sozial eta pentsaera irekiagoa izanik emakumeek aldi berean, aurrez etxeko eremuko roletara mugatzen baitziren emakumeen eginkizunak. Hala eta guztiz ere, gaur gaurkoz ezkontza eta amatasuna dira emakumeari prestigioa ematen dioten elementuak biltzen dituzten nukleoak, lehenengoaren bidez adin heldutasun soziala lortuz eta ondoren haurren jaiotzarekin identitate sozial hori bere heldutasunera heltzen da.

1.4. Zaintza lana

Comas d'Argemirren arabera (2000: 187-188) generoaren eraikuntza sozialean bestek zaintzea oinarrizko osagaia da eta honek ondorio garrantzitsuak ditu emakumeen identitate eta jardueretan. Gure jendartean emakumeen egoera sozialean aldaketa ugari eman dira: nabarmen aurreratu da heziketa mailan, emakume asko txertatu dira lan merkaturan eta aukera berdintasunaren zein emakumeen laneko zein alor publikoko bitziza sustatzeko ahaleginak egin dira erakundeetatik. Hala ere, bada emakumeen bitziza proiektuak baldintzatzen dituen dimentsio bat. Izan ere, emakumeek laneko eta bitziza sozialeko esparru ezberdinetan parte har dezakete baldin eta eurei egotzen zaizkien lanak euren gain hartzen badituzte. Zaintza lana genero identitatearen sorrerari hertsiki loturik dago eta gaur egun gizonezkoek zaintza lanean jardun arren gutxiengoak dira eta emakumeekiko alde handiz, gainera (Tobio, 2012).

Bitartekoen zaintzan aldaketa gutxi eman dira denboran zehar. Gizonezkoek ia ez dute esku hartzen eta emakumeak dira nagusiki era horretako zereginak egiten dituztenak (Comas d'Argemir, 2000: 188; Maroto-Navarro, Castaño-Lopez eta García-Calvente, 2007; Tobio, 2012). Sozialki ikusezinak diren eginkizunak dira, ohiko alderdiak baino are ikusezinoak, nahiz eta garrantzia sozial handia duten, kontuan hartzeko balio ekonomikoa eta ondorio politiko aipagarriak. Izan ere, zaintza batez ere familia eremuan kanalizatzen da, baina erakunde publikoek horren garapenerako zuzenean parte handiagoa izan ala ez ondorio esanguratsuak ditu emakumeentzat.

Bizitzaren ugalketan duten papera dela eta, inplizituki hartzen da emakumeek badituztela beste pertsonen zaintzaz arduratzeko ezaugarri eta gaitasun jakin batzuk (Comas d'Argemir, 2000: 190). Hori dela eta, jarduera hauek oso naturalizatuak daude. Ezkutatu egiten da ikasketa dela jarduera hauek geureganatzeko oinarrizko osagaia eta ez dagoela "naturala" den ezer emakumeek zaintzeko gaitasun hobeak izateko, hau berresten baitu kulturen arteko alderaketak. Kultur aniztasuna handia da laguntza zein pertsonak eta noiz behar duten hausnartzeko. Maitasuna eta sentimenduak ere, hain berezko eta bat-batekoak diruditenak, ikasi egiten dira eta harreman sozialen

adierazpenak dira. Emakumeek familiarekin duten lotura soziala da euren zaintza rola zehazten duena eta ez euren izaera berezia.

2. Amatasuna: emakumetasunaren berezko ezaugarria?

Emakumezkoek betetzen dituzten eginkizunetan eta dituzten arduetan pisu eta presentzia handia duen gaia da amatasunarena. Pilotarien kasuan ere azaleratu da, beraz, zein oinarri eta ezaugarri dituen aztertzea funtsezkoa iruditzen zait geroago ideia eta joera hauetatik abiatuz pilotarien errealitatea xehatzeko. Horren gaineko markoa da puntu honetan agertuko dudana, beraz.

Ezkontza eta amatasuna aukera orokor bezala hartuz, nahiz eta baden eredu nagusi bat, hots, amatasunaren betebeharrak eskusibo eta bizitza osorakoa agertzen duena, amatasuna leku eta une historiko batean sorturiko konstrukto ideologiko eta soziala da eta ez emakume guztiei berdinean eragiten diela dioten kontzeptu biologizista eta berezkoek agertzen duten zerbait unibertsal eta atxikia (Díez, 2000: 159). Amatasunak esanahi soziala du eta testuinguru kultural eta historiko batean une jakin batean ematen den erlazioa da (Arendell, 2000; Buzzanell eta D'Enbeau, 2009; Solé Puig eta Parella Rubio, 2004). Oraindik ere zenbait kasutan nabaria da bikote egonkorra izanez gero ama izateko jendarteak eragiten duen presio soziala. Horrenbestez, amatasuna baztertu edo atzeratzeko hautua tentsio iturri da, zeinetan zuzenean eragiten duten nagusi den ideologiak eta subjektu bakoitzaren egoera eta desioek (Díez, 2000: 161). Ama izateko aukera arrazoibide nagusiak, balore sistemak eta emakumeek bizi dituzten egoera zehatzak barne hartzen dituen egitura sozialaren baitan kokatu behar da, haurdunaldiak aldaketak eta mugak eragiten baititu emakume horrek garatutako jardueretan (Díez, 2000: 174; Solé Puig eta Parella Rubio, 2004).

Amatasuna eremu publikoan emakumeak egindako jarduera edo jarduera femenino bezala ikusten da oraindik ere (Buzzanell eta D'Enbeau, 2009). Aldaketa sozialak gertatzen ari dira emakumeen eremu publikorako sarreran egituren inguruan azken urteotan. Hala ere, gaur egungo amatasun eredu nagusia amatasun intentsiboa da (Arendell, 2000; Imaz, 2007; Johnston eta Swanson, 2007; Solé Puig eta Parella Rubio, 2004). Gainera, eredu horren arabera ebaluatzen dira amen jarduera eta gaitasunak (Arendell, 2000). Eredu honetan hazkuntza bihurtzen da erabateko erdigune eta ama seme-alaben ongizatearen erantzule nagusi. Ama izateak hainbat alorretan nahasketak eragiten ditu, besteak beste familia harremanetan, lanekoetan, lagunartean edo bikotean eta etxeke eremura itzuli eta iraultzea eragin. Amatasuna eurenganatzean emakumezkoek euren bizitzan eraldaketak izango dituztela planteatzen dute, zenbait gustagarriak, beste zenbait onartu egingo dituzte eta beste zenbait, aldiz, arbuia (Imaz, 2007).

Azken hamarkadetan emakumezkoak alor publikoan sartzeak kontraesanak gogorki agertzea eragin du, orain arte ez zelako hain zorrotza izan amatasunerako egokia denaren eta kanpoko mundurako egokia denaren arteko ezberdintasuna. Horrek

emakumeak bi logika horien artean malabarismoak egitera behartzen ditu (Arendell, 2000; Imaz, 2007). Imazen aburuz (2007)haurraren ongizatearen arduradun nagusia izatearen uste osoa errudun sentimenduarekin elkartzen da, errudun sentimendua amatasunari ez eskaintzearen molde osoa, denborarik ez izatearren, akaso tarte handiegia eskaintzen zaiolako enpleguari edo modu “egoista” batean jokatzeko ari dela uste izatearren. Hala ere, azpimarragarria da emakumeek euren beharrak aldarrikatu eta adi agertzen direla “besterentzako izaki” ez bihurtzeko edo, euren hitzetan elkarrizketa askotan errepikatu lez “ni izateari ez uztea”. Hori dela eta, emakumezkoak etengabe erdibidean aurkitzen dira: aldarri eta errudun sentimenduaren artean; aldaketa eragin eta gustuko ez diren ama ereduak irenstearen artean; gizaki bezala euren autonomia eta ama ona izateko aginduak betetzearen artean. Gainera, emakumezkoek amatasuna lehentasunez euren ardura dela onartzea amatasun intentsiboaren ezaugarri da. Hala ere, horrek ez du esan nahi euren bikoteak zaintzaz ez arduratzea, baizik eta hauen implikazioa beste bide eta erritmo batzuetan emango dela ulertzen dela.

Amatasun moduak eta aukerak ugaritu egin dira azken urteotan, badira besteak beste garai bateko bikote tradizionaletik bereizten diren egoerak, adibidez, bikoterik gabe ama izandakoak, sexu berekoak, bikote bereiziak (Arendell, 2001; Imaz, 2007), baina nire kasuan bikote heterosexualetan eta gizon zein emakumeen errealitateetan sakontzen zentratu naiz, nik aztertutako testuinguruan, eta batez ere, ikergai izan ditudan pertsonen artean, ez dudalako halako egoeran ez zen amarik aurkitu.

2.1. Ama ardurak eta familia ardurak

Etiket kanpoko jarduna duten emakumeek jardura hori posible eta erreal den amatasunarekin uztartzeko aukeraren gainean dihardute, bertan erabiltzen dituzten estrategiak azalduz. Bi azaltzen ditu Díezek (2000): haur kopurua murrizteaz gain ama izateko adina atzeratzea edo amatasunari uko egitea; eta bigarrena: arduraldi osoa eskaintzeaz ari diren ideologiaren aurrean, batez ere lehenengo urteei dagokienez, zeregin horretara bideraturiko “denboraren kalitatea” kontzeptua garatzea.

Inguru sozialak uler dezake emakume batek bere haurrak beste norbaiten zaintzapean uztea lanera joateko, baina jokabide hori ez da ez justifikatu ezta onartzen ere bere entretenimendu edo aisialdirako egiten badu. Beraz, hurrek amarik gabe egiten duten denbora gutxienekoa da eta lan-ordutegiarekin bat egiten du (Díez, 2000: 167).

Amek gehien aipatzen duten arazoetako bat euren seme-alabekin denbora gehiagoz egon ahal izatea da, gurasoen betebeharrak hurrei ahalik eta denbora gehien eskaintzea dela uste baitute, nahiz eta zenbaitetan kanpoko baldintzek galarazten dutela onartu, lan kontuak ez badira arrazoi zainza lana beste norbaitengan uztea “hurrei denbora ukatzea” irizten da, “eurena dena”, eta, ondorioz, zor zaiena (Imaz, 2007).

Diezek (2000: 167) dioenez badira ideologia nagusiaren aurrenamatasunaren ikuspegi berri batek erabateko ardura alboratu eta zerbait positibo eta onuragarri lez agertzen

dutenak beste zenbait jarduerekin uztartzean. Hauek ez dira buru belarri ama izatera bultzatu ohi eta ez duten emakumeen bizitza erabat hesitzen. Hori zuzenean lotuta dago ama idealaren irudiarekin. Gainera, ama idealaren ezaugarriak etengabe berregiten badira ere, momentuz, emakume batek haurrak izan eta ogibide bat baditu, bekoz beko aurkitzen da laneko ardurei aurre egin edo ama arauak betetzearekin. Barne-kontraesan gogorak sortu ohi zaizkio eta borroka desatsegin bati aurre gin behar izaten dio, gehienetan bere bakardadean. Edozein norabidetan harturiko erabakiak leialtasunaren gatazkaren itzala du, bai ama edo bai pertsona autonomo eta aktibo lez.

Comas d'Argemirrek (2000: 190) azpimarratu du familia ardurek baldintzatzen dutela emakumezkoen bizitza, baina ez dela ahaztu behar gizonezkoena ere baldintzatzen dutela. Gizon zein emakumeek dituzte familiarekiko ardurak, nahiz eta modu ezberdinean agertu eta ondorio ezberdinak izan. Gure testuinguru sozial eta kulturean gizonezkoen familia-ardurak ekarpen materialetan (adibidez, soldata) oinarritzen dira gehienbat, horretara bideratuz euren denbora eta arduraldia. Hala ere, ez daude zuzenean besteen zaintza lanetan nahasita eta hala egiten badute borondatez eta gaur gaurkoz gutxiengoan egiten dute. Gizonezkoek egiten dituzten jarduerak nagusiki eremu publikoan kokatzen dira, aitorpen soziala handiagoa da eta botere jarduera bertan ematen da. Emakumeek alor hauetan parte har dezakete, eta geroz eta gehiago egiten dute, baina euren bizitza proiektuak baldintzatzen dituzte euren inguruko pertsonen zaintzak eta horrek euren denbora, esfortzu eta arduren banaketari eragiten dio; beraz, euren bizitzako denborari eragiten dio.

Del Vallek (2001) eginiko hausnarketan ondorioztatu izan du esparru publikoa zabala dela, bere barnean bildu ohi duela, eta uneoro aldaketak jasaten dituela, baina pribatua lotuago dagoela etxe eta familia eremuari, eta beraz, emakumei lotuago gizonezkoen baino. Publikoarekin lotutako jarduerak eta espazioak gehiago baloratzen dira pribatuarekin lotutakoak baino; horrenbestez, etxe eta familia eremuak horren eragina pairatzen du. Ildo berean jarraituz, Comas d'Argemirrek azaldu du testuinguru sozial eta demografiko berrian ugaritu egin direla mendekotasun egoerak eta aldi berean baita emakumeen paper soziala ere, gaur egun aktiboagoa baita bizitza ekonomiko, sozial eta politikoan. Gaur egungo egoeraren paradoxa da, aldi berean, tradizionalki gizonezkoenak izan diren eremuetan txertatu dela emakumea; baina, ez aldrebes. Emakumeak txertatzeko balore maskulinoak legezkatat jo behar izan ditu balore hegemoniko bezala. Horregatik, asimetria azpiratzailea da oraindik ere, emakumeak ebazteko zailak diren aukeraz betetako egoeretan aurkituz. Emakumeetan batzen dira aldaketa sozialek, ekonomikoek eta demografikoek sorturiko kontraesanak. Hori dela eta, ezinbestekoa da besteen zaintza lanak zenbateraino behar duen eskusiboki emakumeena birplanteantzea, "zaintzaren etika" birformulatuz. Familiako ardurak elkarbanatzeak ondorio nagusizat du zaintzeko konpromisoa hautatua izatea eta ez behartua, pertsonen elkarrenganako negoziatio eta inplikazioa sustatuz eta ez patua edo halabeharra. Horretarako ezinbestekoa da familiako lana sozialki beharrezkoa dela aitortzea, denboren egituraketa moldatzea eta baita generoen arteko lanaren banaketa ere.

Amatasunera igarotzean, gainera, badirudi kasurik gehienetan etxera iraultzea dakarrela: emakumeak ez dira gehiago eta intentsitate handiagoan arduratzen hazkuntzan, baizik eta etxekoa indartzen da euren bizitza antolatzeke ardatz bezala, indarra galduz eremu publikoko lez izendaturiko jarduerak, batez ere ordaindutako lanak eta familiarik kanpoko harreman sozialek (Imaz, 2007). Aldaketak aldaketa, kultur mandatuak seme-alabenganako ardura handiagoa eta dedikazio eskusiboagoa atxikitzen die emakumeei gizonezkoei baino (Imaz, 2007; Solé eta Parella, 2004). Gauzak horrela, emakumeek zenbait estrategia garatzen dute, esaterako umeekin ematen duten denborari esangura berezia ematen diote, okupazio horren iraupen hutsa baztertuz intentsitate edo bizitasunaren onerako, bizi duten denbora horren ñabardura guztiez blai egin arte. Kulturak amaren abandonutzat hartzen duenari aurre egin behar diote, hau da, amek umeekin igarotzeko egokitzen jotako denbora erreala murrizteari, eta denbora murriztago horri esangura berri bat atxiki behar diote (Imaz, 2007).

Denboraren birbanaketari dagokionez, denboraren banaketan oinarritzen da oro har bizitza soziala (Del Valle, 2001). Antolaketa horretan seme-alabak izateak gizon eta emakumeen arteko denboraren balantza are gehiago desorekatzen du, ardura eta etxeko lanei nabarmen gehiago eskainiz emakumeek (Ajenjoeta García-Román, 2011). Familia ardurek pisu handiagoa dute emakumeengan (Arendell, 2000; Artazcoz, Borrell eta Benach, 2001; Maroto-Navarro et al., 2007). Gizonezkoek burutzen dituzten lanak gehiago lotzen dira emakumeei emaniko laguntza bezala, hauek baitira etxeko ohiturak berenganatu eta antolatzearen arduradun nagusiak (Imaz, 2007).

Lana eta familiaren arteko kontziliazioan Imazek (2007) amatasunaren inguruan emakumeekin eginiko ikerketan lau elementu komun agertzen ditu eguneroko bizitzaren antolaketan:

- amatasun eredu intentsiboarekin identifikatzeak bere horretan dirau, lehenasuna emanez haurrari beste behar batzuen gaintik eta hazkuntza egokiak amaren etengabeko arreta eta presentzia behar dituela iritzita, nahiz eta emakumeek jakin ezinezkoa dela betekizun hau betetzea.
- ordaindutako lana da emakume batek bere haurrei denbora ukatzeko pisuzko arrazoi onargarri bakarra, euren aisialdi, ikasketak, jarduera fisikoa, harreman pertsonalak, bikotekoak edo bizitza sozialeko beste zenbait alderditakoak zokoratuz ama izan aurretik izan zuten garrantziatik.
- emakumeek malabarismoak egin behar dituztela sentitzen dute nolabaiteko oreka lortzeko haurren behar eta lan eskaeren artean dituzten baliabide urriak medio.
- emakumeek onartzen dute eurak direla egunerokotasunean oreka hori lortzeko erantzule nagusiak.

Enplegu eta hazkuntzaren arteko oreka larritasunez kudeatzen dute emakumeek indibidualki, hori egiteko eskuragarri dituzten baliabideen planifikazio izugarri kalkulatu eginez eta aurpegiz aurpegi negoziatuz, ezkutatzera joz, gertukoenen

laguntza eskaerara, zirrikituekin jolastuz, banakakotzat jotzen diren onurak lortuz. Honekin kontrastea eginez aitak bigarren mailan agertzen dira zaintzari dagokionez eta euren aitatasunari apenas eragiten dio lanarekiko loturak edo bertako baldintzetan aitatasunak duen eraginak (Imaz, 2007). Horren ondorioz, emakumeek zailtasunak dituzte euren ogibidea eta kulturalki nagusi den amatasun eredu bateratzeko (Johnston eta Swanson, 2007).

3. Aisialdiaren antolaketa: kosta ahala kosta, ozta-ozta

Pilotarien jarduerak euren aisialdian kokatzen direla aurrez ere adierazi dut, baina puntu honetan aisialdi hori nola antolatu eta banatzen den sakonago agertzeko asmoa daukat, aintzat hartuz aisialdi horretan eragina izaten dutela bizitzako etapek eta familia-egiturek, eta zenbaitetan zuzenean eragiten duela bikotea edo senarrarekiko harremanak antolaketa eredu horretan. Horiek ere puntu honetan zehar izkiriatu eta agertuko ditut.

Aisialdiko aukerak eta oztopoak generoak mugatuta daude erabat, arraza, klase sozial eta etniak bezalaxe (Auster, 2008). Ezin da zuzenean emakumezkoen eta gizonezkoen kirol jardueren arteko alderaketarik egin, benetan baldintza sozial ezberdinak dituelako euren jardueraren garapenak. Hori dela eta, funtsezkoa da aisia emakumearen ikuspegi espezifikoetik aztertzea, lana eta aisia generoa aintzat hartuz ikerketarako. Emakumezkoen aisiaren zati handi bat etxeko eremura bideratzen da (Griffin, Hobson, MacIntosh eta McCabe, 1985). Gizonezko eta emakumeentzako ezberdin antolatzen da aisialdia, femeninotasun eta maskulinotasunari jarraiki, harreman hau boterearekin lotuz eta egitura patriarkalak duen indarrarekin. Beraz, emakumezkoen aisialdian ere nabarmena da emakumeak zapalduta bizi diren jendarteko zati dela arlo hau ere (Griffin et al., 1985). Besteak beste, anai-arreben arteko harremanak banaketa sexualak oso markatuta daude (Del Valle et al., 1985: 209).

Emakume askoren bizitzetako esparru nagusiak dira lana, harremanak eta etxeko zaintza edo arduren alorra. Beraz, horrek egiten dutenari eragiten dio, baita aisialdiari ere (Dilley eta Scraton, 2010; Thompson, 1990). Gizonezkoetan, berriz, mugatzailerik handiena lanorduek osatzen dute, lanaldi luzeagoak dituztelako, orokorrean, emakumeek baino (Thrane, 2000).

Sánchez-Herrerok (2008) aisia genero ikuspegia jarraituz aztertu du eta adierazi ikerketa feministek diotela denbora libre benetan kontzeptu gatazkatsua dela emakumeentzat, askotan ez daudelako argi ardura ezberdinen eta denbora librearen helburuen arteko mugak. Gainera, aisia familian emateko aukerak sortzeak emakumeen aisia kutsatzen eta nahasten du. Emakumezkoek desabantaila dute dibertsioari loturiko familia-bizitzan, euren erantzukizuna delako eguneroko jardueretako eskenatokiak sortzea (otorduak, etab.), denbora libreko jarduerak barne. Izan ere, emazte eta ama rolek eragina dute emakumeen aisialdian, gizonezkoena baino kalitate eskasagoko eta denboraz mugatuagoa den denbora libre sortuz emakumeentzat, handiago delako ardura tradizionalen baitako familiaren zaintzaren zama. Erlaxatu eta deskonektatzeko denbora

gutxiago izaten dute emakumeek eta beste zenbait jarduerak edo haurren zaintzak kutsatzen du denbora hori. Rolak eragozpen dira aisiarako denbora izateko etxetik kanpo ere lan egiten duten emazte eta amentzat eta, hortaz, aisialdia ezberdina izan liteke bikoterik gabekoak, ama ez direnak edo etxeko andreen kasuan. Honenbestez, emakume askoren lan-ezaugarriak, biologikoak, ekonomikoak eta sozialak dira denbora libre eta aisiaren kantitate, kalitate eta edukia ezberdintzen dutenak eta sarri gizonezkoena baino okerragoa bihurtu.

Henderson eta Hickersonen (2007a eta 2007b), hala ere, azpimarratu dute garai batean baino aukera zabalagoa dutela emakumeek aisialdiko jardueretan parte hartzeko eta hala izaten jarraitu behar duela, aukera ugari eskainiz emakumeen nahiak aintzat hartuz eta gozamina eskaintzeko baliabide izanik jarduera fisikoa. Hala ere, emakumeen aisia aztertzeko garaian faktore sozialak aintzat hartu beharra ere nabarmendu dute (2007b).

3.1. Bizitzako etapak eta familia egiturak

Historia sozialean norbera zein une eta denboratan, zein adinetan, aurkitzen den ere eragile nabaria da aisialdiko jardueren antolaketa eta hautaketan, bizitzako ibilbidean non dagoen (Auster, 2008). Adibidez, seme-alaba txikiak dituztenen kasuan (Griffin et al., 1985), zenbaitetan langabezian dauden emakumeek ez dute sentitzen aisiarako eskubiderik, ordaindutako lanerako, zeinean soldata jasotzen den, eskubidearekin lotzen duten zerbait delako. Etxean lan egiten duten emakumeentzat ez dago bereizketarik ez fisikoki eta ezta emozionalki ere emakumeen etxeko ardura eta seme-alaba zein senarraren ongizatearen artean, etxeko eremu pribatuan emakumearenganako zapalketa egoerak sortuz. Izan ere, zenbaitetan gizonezkoa lanetik bueltan berriro ere hurrengo egunerako berrindartzeko kokatzen da aisia, aisialdiko jarduerak gizonarentzako soilik geratuz etxe horretan, emakumezkoek etxean lanean jarraituz gizonezkoa lanetik itzuli bada ere. Ezberdina da gizonezkoen eta emakumezkoen lan bizitza, gizonezkoek lana atzean utziz produkzio eremutik irtetean, lanordu ofizialak amaitzean. Emakumeentzat, aldiz, ez dago ordutegi ofizialik. Kanpora joateko aukerak ere asko murrizten dira, lagunekiko harremana urrundu kasu askotan emakumeentzat, batez ere gauean kanpora joateko aukeretan. Eurek askatasunez nahi dutena egiteko abaguneak ere oso gutxi izaten dira, edo ia batere ez. Aisialdian askatasunik handiena emakumeek eskola amaitu eta bikotea aurkitu eta batez ere, ezkontzeko urratsa, eman bitartean izanikoa dela diote. Mugak agertu eta onartzen dituzte etapa hori heltzean emakumeek (Griffin et al., 1985).

Imazek (2007) dioenez, zenbaitetan haurdunaldian bertan, parte hartzen den espazio eta interesgune berrietan ama diren emakumeekin partekatutako sozializazioa jartzen da abian, haurrak ardatz dituen eta urteetan zehar irauten duena. Aisialdia eraldatu egiten da, beraz.

Amak eta euren bizitzan zeharreko aisia aztertuz eginiko ikerlanean Bialeschki eta Michenerrek (1994) diote aisia zuzenean eragiten duela emakumeetan urteen joanean emandako rolen aldaketek, bizitzako egoera ezberdinetan aldaketak sortuz familian eta

aisian. Gizonezkoen aitatasuna aztertzen duen ikerlan batean ere (Such, 2006) haurrak izateak bizitzako antolaketan eraldaketak dakartzala adierazi da, besteak beste, aisiaren forma, egitura, esanahi eta esperientzietan. Beste zenbait autorek (Buzzanell eta D'Enbeauk, 2009; Miller eta Brown, 2005; Nomaguchi eta Bianchi, 2004) diote ama ez izatetik izatera igarotzean aldaketa handiak gertatzen direla emakumeen bizitzetan, euren jarduera fisikoari eskainitako denbora nabarmen gutxituz. Dixon eta Brueningek (2005) ildo horretan diote familia egiturek eragina dutela kirolarekiko atxikimendu mailan eta umerik gabeak izateak eragozpen gutxiago sortzen dituela horretarako, batez ere emakume umedunekin alderatuz. 40 urte inguruko emakumeak dira, oro har, aisiarako aukerarik gutxien dutenak, besteak beste lan-kargarik handienak eta haurren zaintzak garai horretan izan daitezkeelako handienak. Kontrako egoeran leudeke bikoterik gabeak eta haurrik gabeko bikoteak (Thrane, 2000).

3.2. Bikotea edo senarra

Bikotea izateak aisiaren antolaketan eragina du emakumeetan batez ere eta ez hainbeste gizonezkoengan, aisialdiko jarduerak batez ere bikotearen ingurura bideratuz, eta zehatzago esanda, gizonezkoaren aisialdira (Griffin et al., 1985). Taiwango emakumeen aisialdiaren gaineko mugen azterketan ere nabarmen ondorioztatu da (Tsai, 2011) bertan gizonezkoak direla erabakimena dutenak eta kasu askotan emazteek euren menara antolatu eta onartu behar izaten dutela jarduera bat egin ala ez, sistema patriarkala sustatuz, bertako kultura nagusiak gizonak nagusitzat eta emakumeak azpiratutzat dituelako gaur egun oraindik ere eta genero harremanak oinarri horren gainean egituratzen dituztelako. Hori ez du horrela adierazten, aldiz, Suchek (2006), Erresuma Batuko bikoteekin eginiko bere ikerlanean elkarrengana egokitzen direla agertzen baitu, aisialdiko jarduerak elkarrekin eginez askotan.

Amek eragozpenak izaten dituzte euren gaitasunetan aisialdiko lehentasunak ezartzean egiturazko indarren konbinaketak (adib. denborarik eza, dirua, energia) eta ideologikoak (besteekiko atxikimendu sentimendua) direla eta. Gainera, babesa sozialak (bikoteak, familia eta lagunak) ere eragina dauka emakumezkoek euren aisialdiko parte-hartzea oztopatzen duten debekuei aurre egiterakoan (Brown, Brown, Miller eta Hansen, 2001).

Ajenjoeta García-Romanek (2011) diru-sarrera bikoitza duten bikoteekin denboraren banaketaren inguruan eginiko ikerlan batean adierazi dute gizonezkoak ez izan arren *breadwinner* (famiariaren ekonomia-sostengu) bakarrak eta ezta emakumezkoak zaintzaile bakarrak ere, oraindik nagusienak direla. Gainera, ezberdinak dira lehenen ordaindu gabeko lanarekiko eta bigarrenen ordainpeko lanarekiko ekarpenak. Ezberdintasun horrek aisiarako denboran ezberdintasun handia dakar, gainera. Ikerlari hauen arabera oso ezaugarri zehatzetako bikoteetan lortu da nolabaiteko ekitate gradua: bikote gazteak, elkarrekin bizi direnak, haurrik gabeak eta emakumearen lanak erosteko ahalmen maila bat ematen duenean. Kategoria hauetakoren bateko aldaketak ezberdintasun maila handia eragiten du eta etxean haurrak izatea da ezaugarririk mugatzaileena. Adinari dagokionez, bikote gazteenek berdintasunezko joera gehiago

dituzte, ez berdintasuna errazago onartzen duen generazio batekoak direlako, adinari loturiko ezaugarriak direla eta baizik, zeina ez den batere ondorio itxaropentsua gizon eta emakumeen arteko ekitate handiagoa lortzeko bidean.

3.3. Emakumeak, ardurak eta aisialdiko jarduera fisikoa

Aisialdiko jardueren artean jarduera fisikoari loturikoak zertan diren aztertzea garrantzitsua da pilotarien errealitatera eginiko hurbilketa hau kokatzen amaitzeko. Izan ere, aisialdian zehazki jarduera fisiko eta kirolen atalean kokatzen da pilotako esparrua ere. Beraz, ataltxo honetan jarduera fisiko eta kirola eta emakumeen arduren gaineko lanak hartu ditut jo-puntuari non nabilen lekutzeko.

Emakumeen rol eta betebeharrak zein diren eta aisialdian nola mugatzen dituzten adierazten du ijito helduekin jarduera fisiko eta kirolaz eginiko ikerlan batek ere. Bertan Piedra de la Cuadrak (2009) dio emakumezko ijitoetan familiaren zaintzari eta etxeari eskainitako arreta balioesten direla, rol garrantzitsua betez emazte eta ama gisan. Gainera, kasu honetan neskak adin goiztiarretan murgiltzen dira mota honetako eginbeharretan, gehienetan helduei esleitzen zaizkienetan. Hori dela eta, neskek eginkizun ezberdinak alboratzen dituzte, horien artean kirola.

Jarduera fisikoa egiteko garaian, emakumei dagokienez, Salguero Pérez eta Martos Fernándezek (2011) diote denbora libre dela kirol gehiago edo gutxiago egitea mugatzen duten faktoreetako bat. Denbora libre izate hori loturik dago etxeko ardurak eta haurren zaintzarekin. Izan ere, familia bat osatzeak, batez ere haurrak izateak, emakume askorengan jarduera fisikoa baztertzea eragiten du, gizonezkoengan gertatzen ez den bezala.

Alemanian turkiar jatorriko emakume etorkinekin egindako ikerketa batean Pfisterrek (2004) kirol jardueri dagokienez ondorioztatu du aintzat hartu behar dela familiak, sexuaren arabera lanaren banaketak, gizonezkoaren nagusitasun sozial eta kulturalak, ohorearen eta sexualitatearen arautzeak edo, zehatzago, emakumeentzat birjintasunak eta ezkontzaz kanpoko sexurako debeku zorrotzak eragiten dutela. Horrek dakarren arazo bat da neska eta emakume turkiarrek etxeko lanen zama handia dutela eta horrek denbora eta energia gutxi uzten duela kirol jardueretarako.

Ardurak emakumei mugak jarri arren, ordea, Taiwanen aisialdian folk dantza egiten dutenekin eginiko ikerketa batean Duk (2008) agertzen duenez, Migliaccio eta Bergek (2007) futbol amerikarrean eta Rosterrek (2007) motorzaleetan, emakumeek euren genero estereotipoak errepikatu ditzakete edo erresistentzia ezarri oztopo horiei aurre egiteko estrategiak garatzearen poderioz (Miller eta Brown, 2005). Hein batean euren esku dago genero ezarpenei aurre egin eta trabak saihestea eta hortaz saiaturaz gero emakumeak ahalduntzea bultzatzen da.

Jarduera fisikoa egiteko denborarik ezean eragiten duten faktoreak hauek dira (Brown, Brown, Miller eta Hansen, 2001): lanbidea eta lanorduak, familia eta etxeko ardurak eta generoa. Gainera, zenbaitetan emakumeek euren aukerak mugatzeak senar zein haurren aisialdiko jarduera fisiko eta kirolak egitea baimentzen du, hauen jardueretan laguntzaile lez murgiltzen dira, etxeko eta familiako arduren karga etxetik kanpoko eremura zabalduz, familiako kirol arropa garbituz, otorduak prestatuz, txofer lanean, haurren zaintzaile senarrak kanpora doazenean... eta sostengu nagusi bihurtzen baitira emakumeak; beraz, hein batean eurek ahalbidetzen diete haur zein bikoteei kirolean aritzea beraien aisian (Thompson, 1990).

15 urtetik beherako haurrak dituzten emakumeetan ohikoagoa da aisialdian jarduera fisiko edo kirolak ez egitea, denbora gabezia, euren autonomia murrizketa eta honek aisialdia izateko eragiten dituen oztopoak tarteko (Artazcoz, Borrell eta Benach, 2001). Emakumeek egindako jarduera fisikoari dagokionez, haur txikien ama direnek jarduera fisiko maila txikiagoak dituzte adin bertsukoak izan baina umerik ez duten emakumeekiko (Brown et al. 2001; Miller eta Brown, 2005; Thomsson, 1999).

Gainera, mendigoizaletasuna eta amatasuna aztertuz Frohlickek (2006) eginiko lanean adierazten da, haur txikiak zituen ama mendigoizale profesional baten heriotzatik abiatuta, ama txartzat hartzen direla neurri bertsuan uztartzen dituztenak euren jarduera fisikoa, zeina ogibide ere baden, eta amatasuna. Kasu honetan zehatz-mehatz miatzen da euren ibilia, aitatasunarekin egiten ez den bezala. Ildo honetan, emakumezko horiek ez datoz bat jendarteko ikuspegi nagusia den “ama sakrifikatu” izaerarekin nahiz eta beste edozein ama langileren pare eon euren aburuz. Mendigoizale hauek onartzen dute bi arrazoibide kontrajartzen zaizkiela, haurrekin egoteko desira eta gailurra zapaltzekoa. Jendarteak, berriz, laster etiketatzen ditu “ama txar” lez, ez direlako kanpoan daudenean amatasun intentsiboan ari.

4. Emakume ardurat(s)u pilotaria: gauza ederra al da?

“Gizon okupatua gauza ederra da” kantatzen zuen Xabier Letek gizon arruntaren kopleto batean. Nik, ordea, emakume eta pilotariei egin nahi diet lekutxo hemen, euren (pre)okupazioei eta hauen ingurumariari, gogoeta sakonean murgilduz, aurreko hiru puntuetan aipaturiko oinarriak pilota mundura ekarrira. Izan ere, aisialdia ia xehatzeraino zatitua dute pilotan diharduten emakumeek, aurreko orrietako hurbilketako egoeraren baitan zerrenda luze batean zirrikituak aurkitzen saiatuz hainbat jarduerari leku egiteko: etxeko ardurak, familiakoak, lanekoak eta, horien tartean edo ondoren, aisialdian eginiko pilotako jarduerak ere bai. Puzzlea pieza solte eta ezberdinak elkarrekin ongi elkartuta osatu beharra izaten dute pilotariak ere, denboraren kudeaketa tentu handiz burutu eta arlo askotako nahi, gogo eta betebeharrak ahal bezala, eta ahal bezain ongi eta gustagarrien, uztartzen saiatuz. Horren inguruko egoeren gaineko adibide eta bizipenak dira ondorengo puntuetan agertuko ditudanak, emakume pilotarien testigantza, ekintza eta buru-bihotzetatik jasoak.

4.1. Pilota, puzzleko pieza bat gehiago

Pilota bizitzako beste arloetako ardurekin uztartzea ez da erraza izaten, denbora antolaketa eta banaketa benetan delako aintzat hartu beharreko auzia aisialdiko edozein jarduerari buruz ari garenean. Izan ere, arlo eta eremu ezberdinetako eragozpen edo gorabeherak kudeatu eta gaingitu beharra izaten dute han-hemenka, aisialdiko jarduerak osaturiko adarren artean kimu bat soilik baita pilotari dagokiona pilotan ari diren emakume gehienentzat.

Aisialdiko jarduera aukera zabalaren baitan lekutxo bat egiten diote emakumezko bat baino gehiagok pilotari, baina beste zenbait jardueretako euren parte-hartzearen maila berean jarri eta nabarmendu gabe, Aitziberrek kasu:

“Nire denbora daukat okupatua zati bat eta bestea librea, ez? Okupatua lana kontsideratzen dut, nahi eta nahiezkoa. Eta, beno, ba, librearen banaketa ere pentsatzen hasita esaten nuen librea daukagu gutxi, baina, gainera, oso banatua. (...) Orduan, ba, beno, azkenean denbora libre hori ere benetan oso murrizta da eta, beno, libre horren zati bat izango litzateke kirola, baina pentsatu zer zati txikia den, ez?” Aitziber

Ez dira bakanak norabide berean eginiko solasaldi eta gogoetak, hemen beste pare bat, euren buruak definitzean pilotari izaera oso aurrean ez luketela jarriko dioten Martxeli eta Haizearenak, hurrenez hurren:

“Azkenean nik buruan daukadana da ama, ama, eta palaria da pixka bat txikiagoa. Ama eta palaria bezala izan daiteke zinemazalea edo, da afizio bat besteen artean, ez? Zuk aipatu duzu lagun artean eta hor daude gauza pila bat, gauza asko denbora librean. Orduan, ba, pala da horietako bat”. Martxeli

“Guk, seguru aski, kirolari bezala ez dugu definitzen gure burua. (...) Nik kirolaria azkenetakoa aipatuko nuke, lehenago aipatuko nituzke igual beste hamar ezaugarri”. Haizea

Puzzleko pieza edo kimu horiek, ordea, tamaina ezberdinetakoak izan daitezke eta batzuk neurri handixeagoa ematen diote euren egunerokotasunean pilotaren esparruari. Aisialdiko jarduera erdigunean jartzen denean eta beste guztia moldatzen denean horri denbora eskaintzeko “aisialdi serio” lez izendatzen dute zenbait autorek (Dilley eta Scraton, 2010). Ildo horri segika, badirudi emakume pilotarietan ere badela jarduera hau erdigunean ipintzen duenik. Hala eta guztiz ere, bakanak eta ezohikoak dira halako kasuak pilotarien artean oraindik ere. Ildo honetan kokaturikoek euren bizitzako antolaketako beste alorrak, lagunak, lana eta halakoak pilotako jarduerarekin uztartzen dituzte eta etxeko ardurak edo zaintza lana ez dira erdi-erdian agertzen hauen lehentasunen artean. Intentsitate handiz bizi dituzte euren aisialdiko ibilbideak (Dilley eta Scraton, 2010). Zer esanik ez ordu asko eta asko eskaintzen dizkiote era honetako kirolariek euren aisialdiko alorrari (Migliaccio eta Berg, 2007), kasu honetan Nekanek, pilotari erabat emana dagoen emakume batek, bere malabarismoak agertuz, adibidez.

“Yo salgo de trabajar a las tres, vengo, como echando leches y para las cuatro ya estoy yendo al Oberena y estoy allí, y luego seguido me tengo que ir a tecnificación y vuelvo a casa a las once, y el día siguiente me tengo que levantar a las siete”.
Nekane

Egoera hauetan pilotak eta aisialdiko espazioek garrantzia handia hartzen dute, nagusi bihurtuz emakume horien identitatea eraikitzerakoan, eta ez tradizioari segituz euren emazte edo ama izaera, feminotasuna modu ezberdinean garatuz. Lana izaten da eragile eta baldintzatzailerik handiena pertsona hauentzat (Dilley eta Scraton, 2010). Hala da Nekaneren ondorengo aipuari erreparatuz gero ere:

“Sí, sí, yo mi trabajo, yo me gano el pan, como se dice, en el hospital, trabajando en el hospital. Pero, yo, o sea, rato que tengo allí en el hospital, o, trabajo allí en Rayos en una mesa para disparar y poner los datos y todo, y lo suelo tener lleno de papeles de pelota, ‘y, no, pues tengo que llamar, tengo que hacer tengo que sacar, tengo que’. O sea, puf”. Nekane

Erdibidean kokatzen diren pilotariak ere badira, aisialdian pilota jarduera nagusi eta bakarra bezala ez dutenek osatua, baina, era berean, pilotako mundutxoak euren aisialdian presentzia eta itzala dituen. Hirugarren multzo honetako emakumeentzat pilotari izateak astean bizpahiru paleta saio egitean datza, baina beste hainbat aisialdiko jarduera burutzen dituzte, esate baterako, musika esparruari edo kulturako beste alorren bati eskainitakoak. Hauen kasuan pilota ez da periferian eta beste ekintza guztien maila berean kokatzen, baina ezta erdigunean eta hizki larriz nabarmendua ere, aisialdiko euren bizpahirugarren koxkan baitago. Horrenbestez, aisialdiko pilotako jardueren espazio eta denboraren garrantziari dagokionez bi muturren artean aurkitzen dira emakume pilotari hauek.

4.1.1. Kulturaren atzaparrak: eginbeharren marrak

Ardura eta eginkizunen inguruan euren bizitzan zehar jaso eta transmititurikoak zer joera eta nondik norako izan dituen ere aztertu dute pilotari emakumeek ikerketa prozesuan zehar eta argi agertu euren iritzi kulturak eta jendarteak pisu handia dutela arduren banaketan eta emakumeengan sortu ohi den desoreka horretan.

Ibone. *“Nire koinatu horren amak esaten zuen hasi zarenean emakumeak lanera etxetik kanpora esan omen zuen horrela ‘emakumeak lanera? La habéis cagado. Gizarteak kaka egingo du’. Hori esaten omen zuen”.*

Martxeli. *“¿La habéis cagado? Ba ez”.*

Ibone. *“Hori esaten zuen berak. Pentsa zer mentalitate zeukaten”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 91)

Arduren banaketan zaintzaren eta etxearen pisurik handiena emakumearena da oraindik ere (Ajenjoeta García-Román, 2011; Comas d’Argemir, 2000: 188; Del Valle et al.,

1985; Durán, 2005; Maroto-Navarro, Castaño-Lopez eta García-Calvente, 2007; Rocha Sánchez eta Díaz-Loving, 2005; Tobio, 2012) eztabaida-taldeko kideek berretsi bezala. Joera hori dela eta, emakumeek tradizionalki beteriko rolek garrantzia dutela azpimarratu dute parte-hartzaile bat baino gehiagok:

Haizea. *“Zuk esaten duzunean ama izan zinenean zure bikoteak baino lehenago zuk hartu zenituela ardurak, ba, ez dela kasualitatea. Ba, tradizionalki horrela izan da gure mundua”.*

Martxeli. *“Hori da”.*

Ibone. *“Bai, hori da”.*

Haizea. *“Eta etxeko ardurak eta familia ardurak emakumearenak izan dira beti”.*
(Eztabaida-taldea eranskina: 90)

Gaizkiesanak eta gustagarriegi ez diren komentarioak ere entzuten dira pilotaleku eta kale bazterretan oraindik ere emakumezkoak pilotan ikustean, eta ez herri edo gune bakar batean, baizik eta nahiko modu orokorrean, herri eta testuinguru ezberdinetako pilotariak adierazi moduan. Ordu jakin batzuetan, afal aurreko tarte horretan, adibidez, emakumeak paletan jolasean ikusteak jendarteko ikuspegi horrekin talka egiten duela dirudi emakumeen ondorengo esanak irakurrita:

Haizea. *“Lehenengo hilabetean entzun ziren hor, ‘hara, hara, ...’ kristorenak entzun ziren”.*

Aitziber. *“Bai, bai, ‘etxean ez daukazue lanik, edo?’”.*

Haizea. *“Zein ibiltzen da kalean ordu horretan?”*

Aitziber. *“Poteatzen dabilzanak”.*

Haizea. *“Ez al daukazue etxerik?”*

Aitziber. *“‘Etxean ez al daukazue lanik?’ Beno, tontakeriak dira nahi baduzu, e, baina, beno. Beno, ez nizuke esango eragina, baina bai iruditzen zait hor dagoen gauza bat dela”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 7)

Horrez gain, pilotari bakoitzaren ingurumari eta kasuetan kulturak era ezberdinetan eragin duela ere nabarmena da, zenbaitek emakumeei atxikitzen zaizkien rol eta eginkizunak eurentzat hartu baitituzte, adibidez, Zuriñek ezkondu osteko joerez hitz egitean hala dio, ardurek gidatu zutela bere egunerokotasuna:

“Me casé con 22 años, siempre he trabajado desde los 18, o sea, te quiero decir que he estado trabajando en comercio, he trabajado mañana y tarde, no he podido hacer muchas cosas, ni cursillos, ni clases de euskera, ni francés, ... Quiero decirte que estás con un horario muy atado y, entonces, siempre la familia, el trabajo y así”.
Zuriñe

Kulturalki emakumeen eginkizunak beste batzuk zirela iritzitako senideak izateak, adibidez, Iboneri eragin zion ama izan ostean paletan aritzeko laguntza eskatzeko orduan, familiako zereginak edo amatasunarekin loturikoak aisialdiarekin uztartu nahia ezinezko egoera bihurtuz, ama beste ikusmolde batekoa zela eta laguntzarik eskatzen ez zela ausartu argituz ondorengo aipuan. Bere amaren ustez ez zegokion alabari ama izan ostean kirola egitera joateko haurren zaintza alboratzea ordubetexo horretarako:

“Gu beste garai batekoak gara, zeren nire etxean, ama ere... Nik ez nion planteatu ere egin nire amari nire umeak, ni entrenatzera joateagatik umeak uztea. Kulturalki nire amak gaizki ikusten zuen nik kirola egitea. Ama nintzelako. (...) Orduan, hori, nola utziko nion nik amari? Orduan, benga, ez, ez, Ibone umeekin, ez?” Ibone

Beste zenbaitek, ordea, rolak rol izanagatik eta gaur egungo transmisioak oraindik ere lehengoarekin antz handia duela nabarmendu arren, euren desadostasun eta ezinegona agertu izan dute, joera horiek berezkitik ez, baizik eta ikasketatik eta kulturatik zein bizi garen sistema patriarkaletik asko daukatela agertuz (Comas d’Argemir, 2000; Díez, 2000). Eztabaida taldean behin baino gehiagotan egin zituzten mota honetako aipamenak, Argia, Ibone eta Martxelik beheko solasaldian egin bezalaxe:

Argia. “(...) Askotan gu gara okerrenak, ematen du dena egin behar dugula. Eta ez”.

Ibone. “Nik hori daukat kulturala. Nik atzo esan nien, etxean planteatu nuen ‘greba egingo dut’”.

Kar, kar, kar.

Ibone. “Ea zer pasatzen den. Ezer ere ez eta gero nik ikusi nuen zikina eta ni nintzen aurrena. ‘Kauen sos, ez dut bete hori’. Ze zaila den. Hori daukagu oso sartuta”.

Martxeli. “Ni jartzen naiz sofan eta hautsa ikusten dut hor eta horrela egiten diot (B.O. Eskuarekin agur keinua eginez), etxeko besteek esaten duten bezala”.

Bada pilotarien artean gizon eta emakumeen arteko bereizketak bere horretan dirauela dioen gehiengoarekin bat ez datorrenik ere, ordea, Argiak bere etxeko kasuan anaiaren eta bere aldean heziketan alderik ez dagoela agertu bezala:

“Nire etxean, nire anaia eta ni, berdin hezi gaituzte etxeko lanak egiteko, ez dakit zer egiteko, eta nik, orduan, hor ez dut ikusten hainbestearainoko. Gauza batzuetan egia da gu garela, baina, ez dakit”. Argia

Jendarteko joera eta ildoek ardura banaketan eragiten dituzten korronteen gaineko gogoetarekin amaitzeko, berriz, badira euren egunerokoan horri erresistentzia egiten saiatzen direnak eta euren ondorengoei balio tradizional horiek transmititu beharrean jokabide parekide eta berdinzaleagoak helarazten saiatzen direnak, zenbaitetan olatuen aurka egitea zaila dela adierazi arren:

“Nire etxean alderantziz, zeren neska eta mutila izanda, suertez, zaharrena da mutila. Nik, askotan, aitzakia horrekin ‘ez, zu zara zaharrena’ eta alabak hartzen du batzuetan arrankea eta ‘ez, zu hor gelditu’ eta mutilari, orduan, tira egiten diot. ‘Zu zara zaharrena, biok zaudete afaltzen bakarrik? Arduratu zu’. (...) Baina beraien jarrera da de panchorrin, e. Berez, kulturatik. Nik ez dut uste etxeko gauza denik. (...) Behintzat nire etxean, e, neskak hartzen du papera ‘goazen’ eta mutilak utzi egiten dio. Segun zer gauza eta nik, ‘txe, gogorarazten dizut zu zarela zaharrena, gogorarazten dizut, e’. Orduan niri etortzen zait primeran horretarako”. Martxeli

Lehentasunak finkatzeko orduan ere testuinguruak eta bertako indar nagusi eta korronteez kate asko finkatu eta hainbaten joera eta garunetan iltzatzen dituzte. Askotan, adibidez, neskei beste zenbait testuingurutan saiatu eta arreta jartzeko gomendioa ematen zaie, jarduera fisikoa beste maila batean edo albora uztera behartuz, besteak beste eskolako lanak eta etxeko lanak medio (Craike, Symons eta Zimmermann, 2009).

“Ni horretara noa, eta gazteak? Nik ikusten dut, e, adina. Adinaz aparte, gurasoek eta dena ondo ikusten dute neska batek kirola egitea. Adin batetik aurrera ‘ez, ez, ez, zuk ikasi behar duzu eta kirola’. Ez da gertatzen hori? Mutiletan ez da gertatzen hori”. Ibone

Nesken kirol jardueretik gurasoen jarrera anibalentea da. Batetik, “zerbait egin behar dutela” uste dute, baina, bestalde, kirolak “beste gauza batzuetarako denbora kentzen diela” pentsatzen dute. Hori dela eta, neska gazteek kirola jarduerak uztean hau ez da arazo bat izan ohi familiaren esparruan. Kirola eskolaz kanpoko beste jarduera batzuekiko beherago dago, hizkuntzen ikasketa edo musikarekiko, adibidez, ez baita bizitzarako trebetasunak (ardurak norbere gain hartzea, arrakasta eta porrota onartzea, talde-lanean aritzen ikastea, helburuak lortzea, etab.) eskuratzeko alorren artean ikusten eta bai ordea osasunari loturik (Díez, 2006).

Ondorengo pasartean ere neskei ezarri edo atxiki ohi zaizkien lehentasunek eta kanpotiko presioek pilota edo jarduera fisikoaren aldeko hautua egiteko garaian nola eragiten duten hausnartzen ari dira emakumeak solasean, uzte edo aldatze horretan, lehentasunen ezarpenean, kulturak eragin nabarmena duela adieraziz, besteak beste, neskek zenbait arlotara bideratzeko daukaten presio gehigarriaz sakon hitz eginez, kirola uztera nola eta zergatik bideratzen diren aztertuta:

Aitziber. *“Dena dela, ni DBHkoekin ibiltzen naizelako, kirola oso azkar uzten da. Kirola egiten dute 14 urtera asko, neskek, e, eta gero kirola uzten dute”.*

Martxeli. *“Baina horretan ere kulturako hor dagoelako, e”.*

Aitziber. *“Bai, bai, bai, baina esan nahi dizut errealitatean jarraitzen dutenak oso gutxi direla. Joaten dira bi edo hiru gimnasia. Nik galdetzen diet ikasleei askotan ez dakit zer eta mutilek, gehienak, jartzen duten bezala futbol ekipoan edo, neskek, gehienek, 12, 13 edo 14 urterekin ez dute kirolik egiten”.*

Martxeli. *“Zer da hori? Kultura”*.

Haizea. *“Zer da alferragoak garela? Ez da hori kontua”*.

Martxeli. *“Ez, ez”*.

Haizea. *“Nire ustez, guk edukitzen dugun presioa handiagoa da beste batzuk eduki dezaketena baino”*.

Argia. *“Nire ustez, hala ere, hor da asuntza talde kirolak gutxiago agertzen direlako. Jende oso gutxi apuntatzen da gaur egun. Lehenago jende pila bat apuntatzen ginen eskubaloira. Orain oso jende gutxi apuntatzen dira. Orduan, taldeak zer egiten dira? Jende gutxi dago eta egiten dira, ba, sei bakarrik gaude”*.

Haizea. *“Eeeez, ez, ez dauka eta horrek zerikusirik!”*

Argia. *“Gu pila bat apuntatzen ginen eta orduan egiten genuen, baina orain zergatik ez ba?”*

Aitziber. *“Eta sekula baino gehiago hitz egiten da kirolaz eta hau”*.

Martxeli. *“Bai, baina”*.

Aitziber. *“Baina gero praktikan beste gauza bat da”*.

Haizea. *“Praktikak berdina izaten jarraitzen du”*.

Martxeli. *“Bai, bai, zeren bideratzen dira, ba, hori, amatasuna eta horretara. Bideratzen dira zu joan erretiratzen ya ze ikasketak nahiko”*.

(Eztabaida-taldea eranskina: 38-39)

Lehentasunei eta praktikari erantsitako oztopo gehiago izaten dituzte emakumeek familia jarduerak eta etxeko lanak medio gizonezkoekiko, eginkizun horietako arduradun nagusi bihurtzen baitira emakumeak (Sorensen eta Gill, 2008). Zaintza lanetako ardurei loturik saioetara kale egiteak, norbere gurasoak adinean gora joan ahala osasuna kaskartzen doakielako besteak beste, pilota saioetako testuinguruan ere ageri izan dira, bat baino gehiago izan direlako pilotako tartetxoa beste zeregin horietara bideratu dutenak.

Ni iritsi eta laster zen gure artean Irati ere eta “aspaldiko” esanez agurtu dute elkar. “Egun hauetan amarekin ibili naiz bueltaka, erdipurdi dabil, aldaka hautsi ostein” jakinarazi digu.

(Kontakizunak eranskina: 383)

Arritxu pasa da, seme-alabek lagunduta, eta ama makalik duela eta harena doazela esan digu.

(Kontakizunak eranskina: 161)

Zaintza lehenestea ere kulturalki emakumeei transmitituriko balorea izan da (Comas d'Argemir, 2000: 188; Díez, 2000; Maroto-Navarro, Castaño-Lopez eta García-Calvente, 2007; Tobio, 2012), bai balantzan parean jarririkoak askoren iritziz garrantzirik gabeko kontuak diren kasuan behintzat, adibidez, aisialdiko hainbat ekintza, kasu zehatz honetan pilotakoak. Izan ere, zenbaiten iritzian badirudi emakume izanda frontoian aritzea ez dela benetan arreta jartzea eta denbora eskaintzea komeni den eginkizun bat, hutsala dela iritzi eta horretan aritzeagatik zenbait ardura tartetxo zehatz horretan ez betetzea ia-ia delitu lez, gaizki ikusita behintzat bai, deskribatuz, uste hori dutenez ez delako garrantzitsua emakumezko baten bizitzarako pilotan aritzea eta gauza inportantei eskaini beharreko energia, denbora eta indarra “alferrik galtzen” ari direlako pilotari horiek paleta eskuan gozatzen ari diren bitartean. Paletariak, ordea, euren denbora librearen baitan kokatzen dute paletako saioa, Argiak agertu moduan:

Argia. “Nik bestela ere hartzen dut niretzako denbora librea, baina da, ez dakit, horrek daukala bere izena bezala, bere, ez dakit nola esplikatu. Entrenamendu bat dela, ez dela hor, ba, entrenamendua bezala, ofizialagoa bezala da. Ez dakit nola esan. Kar, kar”.

Haizea. “Igual ez zoazela alferrik denbora galtzera, ez? Igual paseatzea norbaitentzako izan daiteke”.

(Eztabaida-taldea eranskina: 22)

Kulturarekin eta familiaren inguruko jokabideen eraginarekin lotuta Gurutzek gazte garaiko aitaren plateraz dioena benetan da adierazgarria, euren etxean egin behar batzuk burutu arte berak ez zeukala kirola egitera joateko baimenik berretsiz, lehenengo aitaren zerbitzari izatea zegokiola adieraziz, nahiz eta bera ez zegoen ados anaiak eta berak jardun horretan ezberdin hezi eta bideratu izanarekin, eginkizunak genero rolak mantenduz betetzeak graziarik egin ez arren men eginez amaituz:

Gurutzek une hau aprobetxatu du esateko “larunbatetan arratsaldeko hiruretan jokatzeko genituen guk briletako partidak ikastetxean, urnietarren edo hernaniarren aurka eta nik joan nahi izaten nuen. Hala ere, askotan aita 14:30ean etortzen zen etxera eta amak ‘aitaren platerak jaso arte ez daukazu joaterik’ esaten zidan. Zenbatetan geratu ote nintzen ni partidura joan gabe horregatik! Nik esaten nien anaia joaten zela eta ni zergatik ez, baina, ez neukan beste aukerarik”.

(Kontakizunak eranskina: 424)

Jendarteko joera eta arduren banaketako korrante nagusiak, ordea, aldatzen ari direla dirudi (Durán, 2005), karakolaren pare bada ere, hainbatek aipatu moduan, nahiz eta oraindik berdintasun egoerara heltzeko ibilbide luzea falta dela ere agertzen duten emakumeek:

Galdera (G). Eta, lehenengoa: “nire gizona beste garai batekoa zen. Ni nintzen haurrez arduratzen zena eta garaiak aldatu egin dira”. Aldatu al dira?

Argia. “Bai, nik uste dut”.

Haizea. “*Nire ustez ez*”.

Aitziber. “*Beno, nik, hombre, aldatu dira. Bueno, dudarik gabe, Haizea, aldatu dira. Orain, oraindik aldatu behar dutena asko da, baina orain, nik uste, desde luego, hortik berdintasunean bizi garela esatea, ba, hori da, en fin*”.

(*Eztabaida-taldea* eranskina: 24-25)

Kulturak eta jendarteko korrante eta ildo indartsuenek ere eragiten diete emakume pilotariei, nabarmen eta alde guztietatik, gainera, nahiz eta horri aurre egitea edo eustea erabakitzeko garaian jokabide ezberdinak agertu jarduleen artean errealitatea aurrez aurre agertzean.

4.2. Onura eta zailtasunak nahas-mahasean

Zailtasunak zailtasun eta mugak muga asko dira emakumeen artean antolaketa bainan jarduera fisikoa egiteko tartetxoa hartzen dutenak euren bizitzetan (Brown, Brown, Miller eta Hansen, 2001). Pilotan ere bai eta, gainera, jarduera benetan mesedegarri zaiela aipatzen dute, alderdi eta arrazoi ezberdinak tarteko. Aldi berean, ordea, korapilo batzuk askatzen ere saiatu behar izaten dute eginbeharrekin ekuazioa ongi ebazteko.

4.2.1. Emakumeen momentua

Paletako saioak ama diren bat baino gehiagorentzat, eta baita ez direnen kasuan ere, ohiko arduretatik ihes egiteko aukera izan ohi dira, egunerokotasunean eurentzako tartetxoa hartuz saio edo entrenamenduetan diharduten bitartean. Haizeak berak aisialdiko ikastaroetan entrenatu izan dituen emakumeen jokabideen gaineko hausnarketa eginez behin baino gehiagotan azpimarratu duen gaia da paleta saioetan zeharreko amen askatasun izaerarena, euren lasaitasun egoerarena:

“*Ez ba da igual momentu bakarra beraien familietatik kanpora daudena eta ez daudena beraien seme-alabekin edo senarrarekin edo ez daukatena lotura hori. (...) beraiantzako da liberazio momentu bat eta orduan horrela bizitzen dute*”.

“*Izan da emakumeen momentua. Berriz errepikatzen dut, denak ezkontuta, seme-alabekin, uste dut bakarra dagoela ezkontuta eta seme-alabekin ez dagoena, orduan ... Nabaritu egiten da. Izan da beraiantzako espazio bat, beraien ordua, beraien momentua eta bastante errespetatu dutena*”.

“*Ematen du berrogei urterekin, ezkontzen zarenean eta seme-alabak dauzkazunean, horretara bakarrik dedikatzen zarela eta da justu momentu bat ez daukazuna ez seme-alabak, ez senarra, ez bikotea kasu honetan, baina nola denek senarra zeukaten ... Bai, orduan nik lotura hori egingo nuke*”. Haizea

Aisialdiko jardueretan daudenean emakumeek euren burua lehenesten dute, beste inorekiko ardurarik gabe, betebeharretatik aske, orekan eta euren buruarekin gustura agertuz (Bialeschki eta Michener, 1994; Dilley eta Scraton, 2010; Miller eta Brown, 2005; Roster, 2007; Spowart, Burrows eta Shaw, 2010; Wearing, 1993). Gainera, ama direnen kasuan, adibidez, jarduera fisikoa egiteak estres mailak gutxitzen dituela dio Curriek (2004), eurentzako denbora eta espazioa hartzen dutelako tarte horretan eta

ongizate sentimendua hobetu. Emakumeek eurek saioetan eta elkarrizketetan ere azalarazi izan dute egoera hau, Estitxu, Jaione eta Idoiaren hitzetan irakur litekeen bezala:

Estitxuk hori entzutean “haurrik gabe gaudelako da, hizketan lasai aritu gaitezke hemen” eman du azalpena eta Jaionek “ematen du etxean ez digutela hitz egiten uzten” gaineratu du.

(Kontakizunak eranskina: 495)

Karmele, Jaione, Aitziber eta Idoiak norbere etxeetarako bideak hartu dituzte entzundako proposamenaren gainean hizketan, “guk orduan bisitan agertzeko esango diegu familiakoei” botaz eta Idoiak barru-barrutik “seme eta senarrik gabe alde ederrean” esan du.

(Kontakizunak eranskina: 403)

Aitziberrek ere momentu horien garrantzia nabarmentzen du ondorengo aipuan, umeak hazi ahala denbora hori gehiagotan hartzen duela esanez eta berari on egiten diola azpimarratuz:

“Ni esparru pertsonala errekueratzen jarri dut, ez? Beno, nik ikusten dut umeak handitzen doazen heinean, ba, pixka bat hasten zarela errekueratzen, ez? Hasieran ordu eta erdi hartzea iluntze batean pentsaezina da eta gero, bat-batean, hartzen duzu eta gero afaritara joateko ere hartzen duzu, eta, beno, dira gauza txikiak, baina, beno, egia esan oso gustura hartzen direnak”. Aitziber

Norberarentzat ona bada ingurukoengan ere halako eragina izaten du jarduerak Dixonek (2009) bere ikerketan dioenez, norberarentzat denbora hartzeak norbere ongizatea hobetzen duenez etxekoena ere hobetuz. Bat datoz beste zenbait autore ere uste horrekin (Miller eta Brown, 2005; Spowart, Burrows eta Shaw, 2010). Gainera, norberarentzat ona bada pilotan aritzea hurbilenekoentzat ere eragin positiboa duela dio Aitziberrek:

“Onurak? Ba, bikotearekiko, ba, indirektamente, ez? Hemen jarri dut, ba, ni hobeto, bikotea hobeto; bikotea aktiboagoa, berez, beste ikuspuntutik, ez? Niri gustatzen zait nire bikotea forman egotea eta aktiboago egotea eta nire bikoteari ni egotea ere bai, ez?” Aitziber

Hala ere, beste ikerketaren batean emakume askoren kasuan onura hori epe motzekoa izaten dela adierazi du Curriek (2004). Nabarmentzekoa iruditzen zait, ordea, pilotako kasuan bederen, jarduera fisikoa egiteak amei estereotipatutako amatasunaren arazoibideari iskin egiteko aukera eskaintzen diela, autore berak dioena berretsiz gure errealitatean. Horrez gain, ama langileekin eginiko ikerlan batean taldean eta euren antzeko egoeran dauden emakumeekin jarduera fisikoa egiteko aukera izatea positibotzat agertzen du Dixonek (2009). Sozializatze aukera ematen du pilotan aritzeak eta gozamina ere handiagoa da bakarkako jardueretan baino. Ama diren pilotarien kasuan ere ahoz aho ibili dute arrazoi hau bera, helduekin egoteko aukera ere badela argudiatuz, Jaionek aipatu bezala:

“Egia esan, niretzat ere bada sozializatzeko bide bat, zeren eta umeekin plan batzuk aldatu egiten dira, ezin zara lehen bezala irten agian eta jendearekin egoteko aukera ona da”. Jaione

Emakumeen kasuan, ordea, gizonezkoen kasuan baino sarriago, zenbaitetan euren aisialdiko jarduerak haurrak bertan dituztela burutu behar izaten dituzte, erabateko askatasunik gabe, emakumeei atxikitzen zaien zaintza eta familia ardurak direla eta (Such, 2006). Hori, ordea, ez da hain gustagarri eta erabat askatzailea ama pilotarientzat, baina onartu egiten dute ez daukatela garai batean beste aukerarik, Ibone, Argia eta Martxelik solasean azpimarratu lez:

Ibone. *“Umeekin, umeen aisialdia, parkeetara”.*

Argia. *“Bai, parkera. Usurbilgo jende pila bat ya ez dugu ezagutzen parkera ez bada joaten. Gazte pila eta esaten duzu ‘hau hemen bizi al da?’”*

Martxeli. *“Eta, gero, badago jendea umeekin zaude eta sartzen zara bere gauzetan eta ‘ya, baina hori zuri gustatzen zaizu’, ez? Umeen ikuspegitik egiten dituzulako zenbait gauza edo edozein, pailazoak ikustera joan, ez dakit zer dela. ‘Klaro, umeak txikiak diren bitartean bai. Itxaron gero, ea gustatzen zaizkidan’. Ez dakit nola esan, egiten duzu pixka bat sartu zure denboran”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 66)

Martxelik argi aipatzen du ama diren guztiek eraman izan dituztela noiz edo noiz euren haurrak euren aisialdiko jardueraren batera, beste aukerarik ez zutelako izaten eta euren inguruan ibiltzen zirela haurrak, amek begi bat jardueran eta bestea haurretan jarriz aldi berean:

Martxeli. *“Ba, llaverito, baina edade horretan edozertarako llaverito izan behar duzu. Ni dantzan ibili nintzen eta llaveritos eraman genituen. Biak, hala, etorri”.*

Aitziber. *“Segun zer kirol egiten duzun ezin dituzu eraman, adibidez. Hor, izaera esaten genuenean lehen, hor badagoela zer edo zer berezia. Ba hori izan daiteke gauza bat, ez? Zu ziklista baldin bazara ezin dituzu eraman umeak, edo piszinara bazoaz, edo korrika egitera. Eta hor, beno, frontoi batera sartzen dituzu, zu zabiltza aldamenean”.*

Haizea. *“Baina oso kasu gutxitan eramaten da, e”.*

Martxeli. *“Baina piszinara ere eraman ditzakezu. Beraiekin joan txikira. Nik esaten dizut”.*

Aitziber. *“Utzi daitezkeela bakarrik”.*

Martxeli. *“Gero ti-ta-ti luze batzuk, edo ez? Nik uste denok egin izan dugula, ama guztiek. Ez dakit igerira, baina ama guztiok eraman ditugula haurrak gure horietara”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 18)

Haurrekin euren aisialdiko jarduerak partekatzeak, ordea, ez dauka eurak bakarrik edo beste heldu batzuekin batera ari direnean daukan interpretazio bera pilotarientzat, haurren ezaugarri eta nahietara egokitzen direlako.

“Honbre, ibili zaitezke umeein, frontoira joaten zara eta ibil zaitezke, baina umeein da. Gustura, baina ez da berdina eta gero aukera suertatzen denean bai, baina gutxitan, nik nahi baino gutxiagotan sortzen zait aukera egia esan, e”. Jaione

4.2.2. Lana, familia eta aisia: rolen uztarketa

Denborarik eza aipatzen da sarri emakumeek jarduera fisikoa ez egiteko dituzten arrazoien artean, betetzen dituzten rolen ondorio lez, besteak beste, ama, bikote, langile eta familiako zaintzaile direlako (Dixon, 2009; Im, Chee, lim, Liu eta Kim, 2008; Miller eta Brown, 2005). Hau gehiago dago, batez ere, denbora antolatzeko malgutasunik ezarekin lotuta, euren laneko ordutegiei familia arduretako haurren eskolakoa eta gainerako jardueretakoa erantsi behar baitzaie (Dixon, 2009). Denborarik eza eta euren buruan nagusiki arreta ez jartzea, gainera, estresagarri bihurtu izan da zenbait amaren kasuan (Currie, 2004).

Pilota munduan diharduten emakumeen ehunekorik handiena, nabarmen, gainera, etxetik kanpo ere lan egiten dutenena da. Are gehiago, lanaldi bikoitza dutenen artean daude. Beraz, bi lanaldi dituzte, euren soldatapeko gunekoa eta hortik kanpoko ardurei eskainirikoa. Tartean bada ikasleren bat eta langabezian edo jubilatuta dagoenik ere, baina nagusiki langileen profilean sailkatuko nituzke emakumezko pilotari hauek. Emakume langilearen mugak (Del Valle, 2001; Díez, 2000; Durán, 1986), beraz, bistaratu zaizkit ikerlan honetako parte-hartzaileen ibileretan, ardurak, lana zein familia uztartzeko erritmoa gogorra izaten dela:

“Urte batzuetan pixka bat horrela da, e. Nire kasuan behintzat bai izan da. Beno, txikiak dituzula eta ez duzu ondo lo egiten, ez daukazu gogorik eta gero etxetik kanpora lana egiten baduzu hain erritmo gogorra da, ba, behintzat, nik, jo, gogoa daukazuna da baldin badauzkazu hamabost minutu umek lo hartu dutenean sofán bota eta ez dakit. Hori hala da, e, niri, behintzat, niri pasa zait urte batzuetan ezertarako ez zarela. Eta gogoa ere, ba, hori, nekea, beti zaude deskantsatzeko gogoarekin. Ez?” Aitziber

4.3. Denboraren (ber)antolaketa: “ama naiz”

Ama izatean emakumeek besteekiko ardurak lehenesten dituzte, euren aisialdiko denbora nabarmen murriztuz, euren senarrekiko alde nabarmenez, gainera, jendartean nagusi diren rolak direla eta (Bialeschki eta Michener, 1994; Roper, 2008; Thomsson, 1999). Haizea bat dator ama izatean emakume pilotariek ere haurrak erdigunean jarri eta lehentasunetan eraldaketa bat izaten dutela esatean:

“Nik uste dut azpimarratu behar dena, hor gauza inportanteena dela ez dela pala munduan bakarrik. Emakume batek ama izaten denean edo ama ardura hori hartzen

duenean edo umea edukitzen duenean, ez dakit nola esan behar zaion, orduan, bere bizitza, antolamendua, aldatu egiten dela. Bai bikote harremanean, bai, denean”.
Haizea

Ama izateak, gainera, denboraren banaketan ere eraldaketa dakar, haurren jarduerak kokatzen direlako lehenengo mailan. Horrek, gainera, badirudi zenbaitetan norbere esparru edo jarduerari uko egitea dakarrela, denbora berrantolaketa modua dela eta:

Haizea. *“Sentsazioa da ama izateagatik uko egiten diozuela gauza askori eta horietako bat da bizitza soziala”.*

Martxeli. *“Klaro, gertatzen dena da denbora berdina dela eta, orduan”.*

Argia. *“Beste bizitza sozial bat da, beste era batera da”.*

Martxeli. *“Egunez denbora asko joaten zaizu”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 35)

Aisialdirako gelditzen diren tarteak oso laburrak izaten dira amatasuna iritsi eta lehenengo urteetan (Wearing, 1993), egunerokotasunean haurren inguruan antolaturiko horretan geratzen diren zirrikitutxoak baino ez, aukera eta une gutxi:

“Ama izanda, eta ume txikidun ama izanda, ba, denean fase bat, ba, hori, ba, pixka bat ezin duzuna asko sozializatu, ez daukazulako denborarik, ezta? Lehen esaten genuen, gelditzen zaizu umeak eraman, ekarri, kirola, joan eta orduan hortik aurrera, egia esan, aukera gutxi, ez?” Aitziber

Berrantolaketa horretan, beraz, zenbaitetan paletako jarduerak bigarren edo hirugarren mailan uzten dituzte hainbat ama pilotarik, hitzorduetara kale egiteko hautua eginez haurren ardura eta zereginetan aritzearen poderioz, Izaskunen kasuan lez, haurren lanak medio kale egin baitzuen saioaren batera edo bestera:

Izaskunek hizketan jarraitu du eta esan du “gehienak amak gara eta ez da erraza dena lotzea orduan heltzeko. ‘Encaje de bolillos’ egin behar izaten da. Nik orain ere han utzi ditut hirurak etxean, bakarrik. Aurreko astean etortzekoa nintzen, baina, batek 4 buruketa zituen egiteko eta horiek gaueko 21.15ean egitea baino hobea zela orduan egitea eta etorri gabe geratu nintzen”. (...) Nik erantsi dut “haurrik ez izanda ere puzzlea osatu behar izaten da, ezta, Haizea?” eta bi amek erantzun digute “bada pentsa gero haurrak izandakoan, ikusiko duzue”.

(Kontakizunak eranskina: 125)

Aisialdirako denborarik ia ez da geratzen umea izan ondoren amentzat, aurreko bizitzako etaparekiko alde handiak sortuz alderdi horretan, lehen egin zitzaizkiren hainbat gauza ezin dituztelako egin egoera berrian. Gainera, familian zentratzen da aisialdirik gehiena behin ama izan ostean, haurren eta etxeko arduren inguruan, etxean zein bertatik kanpo. Egoera honetan bizi dutenari, ordea, aisia-lausoia (Wearing, 1993) deitzen diote amek, ez euren aisiako espazioa eta askatasun edo ardurarik gabeko

egoera. Aldi honetan dauden emakume askok euren kirol jarduerak baztertu egiten dituzte zaintza lana intentsitate handikoa den bitartean.

Ni batez ere Izaskun eta Jaionerekin aritu naiz eta hurrekin gauzak egitea zaildu egiten dela esan dit bigarrenak. “Lehen bikotearekin joaten nintzen korrika egitera eta orain hori zer den ere ez dakit. Astean egun bat libratzen badut gustura. Palan aritzen gara orain batzuetan”. Hurrekin jarduera fisikoa egiteko aukeraz, mendi irteerez, bizikletan ibiltzeko zailtasunez eta ohitura horien inguruan ere egin dugu hitz aspertu bat.

(Kontakizunak eranskina: 213-214)

“Zaintzaren etika” nagusitzen da emakumeengan ama bihurtzean eta euren aisialdiari zuzenean eragiten dio egoera horrek, familia ardurak bihurtzen direlako ardura goren. Gizonezkoetan, berriz, ez da orokorrean halako eraldaketarik gertatzen (Bialeschki eta Michener, 1994; Currie, 2004; Miller eta Brown, 2005; Nomaguchi eta Bianchi, 2004; Roper, 2008; Thomsson, 1999). Zaintzaren etika hori barneratzen da sozializazio femeninoan zehar (Tobio, 2012). Sozializazio hori haurretatik hasten dela adierazten du, gainera, Haizearen ondorengo gogoetak, txikitatik hasten dela joera horrekin:

“Baina, zer erakutsi digute txikitatik? Erakutsi diguten bezala amak bere umeak zaindu behar dituela. Ez digute erakusten aitak bere umeak zaindu behar dituela. Beno, ez dakit, e”. Haizea

4.3.1. Bat eta bat, bi? Bikotean al dihardugu?

Bikotearen jarrerak eta laguntza emateko borondateak eta konpromiso mailak berebiziko garrantzia dute emakumeengan ama bihurtzean. Joera hauek, gainera, genero bereizketaren baitan kokatu behar dira, jendarteko gizon zein emakumezkoen aurrezarritako rol tradizionalak harremanetan (Buzzanell eta D’Enbeau, 2009). Bikotearen ildoan aldamenekoak laguntzearen garrantzia funtsezkoa dela irizten diote hainbat emakume pilotarik ere:

“Hor kristoren garrantzia da bikotearen laguntzarena, joe, ez? Bestela ezin da edo izan behar duzu, ba, horrela, umeekin denbora guztian edo”. Argia

Familia bat osatzean norbere guraso denbora eta laneko antolaketaz arduratzeaz gain bikotearekin negoziatu behar da, batez ere biak etxetik kanpoko langileak badira (Dixon eta Bruening, 2005). Negoziazio horretako emaitzaren arabera errazagoa edo zailagoa izaten da emakumeentzat pilotan aritzea ere, Aitziberrek dioen bezala paletarako bultzada edo trabak jartzeak eragiten duelako hautua egiteko garaian:

“Gero, bikotearekiko berriro denbora libre horren bion arteko banaketa. Ni etorri naiz palara umeak utzi ditudalako aitarekin, ez? Beno, orduan, ba, aipamen bat ba aitarik gabe hori ere beste problema bat delako, ez? Eta, gero, bikotearen pilotarekiko jarrera ona edo txarra pentsatzen dut, ba, eragin dezakeela. Baldin badaukazu esaten ‘zer egiten duzu palan, ez dakit zer’, ba, ez dakit, ez, gero zuk

ematen diozu garrantzia, baina izan daiteke puntu bat, ez, ba pixka bat konplikatzeke edo”. Aitziber

Bikotearen garrantziaz dihardu Haizeak ere, askotan horren baitan dagoelako ama paletariak saiora joan ala ez, berak entrenamenduetan entzun, ikusi, eta bizi bezala:

“Bikotea, beraien seme-alaben aita edo gurasoa edo dena delakoa, asko dependitzen dugulako bikoteaz nire ustez ama palariak. Entrenamendura etorri ahal izateko, eta ni entrenamenduarekin ari naiz, umeak, eta zuen kasuan, ume txikiak, norbaitekin utzi behar direlako eta normalean hor bikotearen papera egoten da, bikotea iristen ez den momentuan ama palaria ez doa entrenatzera edo bikoteak afaria daukan momentuan ama palaria ez dator entrenatzera edo bikoteak beste zerbait daukan momentuan, ba, ez dator”. Haizea

Bikotearen jarrerak eta arduren banaketan emakumearen aisiarako honek duen ikuspegiak zuzenean eragiten du emazteen joeran haurrak txikiak direnean. Laguntza emateak eta etxeko zein familia ardurak partekatzeak aisialdiko jardueretan emakumeen parte-hartzea gehitzen du, eta alderantziz (Brown, Brown, Miller eta Hansen, 2001; Miller eta Brown, 2005).

“Egia esan, ez dut uste palara astean ordu eta erdiz joaten garelako, ba, kristoren senarrak dauzkagunik. Zer nahi duzu esatea? ¡qué menos! (...) ‘Kristoren suertea daukagu, nola ordu eta erdi uzten digun, jo, kristoren suertea daukagu’. Ni de coña, barkatu, e, baina, es que, vamos, gainera, horrelako gauzak entzun egiten dira eta iruditzen zait gaizki. O sea, zeren zure gizona joaten baldin bada bizikletan ibiltzera edo korrika egitera inork ez du esango ‘jo, zer suertea daukazun andrearekin!’ Hori da, ez dakit, es que niri iruditzen zait”. Aitziber

Aitziberrek, goian eginiko aipuan, beraien kasuan umeak paleta saiora joatean aitarekin geratzen direla agertu du. Hala eta guztiz ere, gizonezkoak, orokorrean, ez dira hurren lehenengo arduradunak izaten (Dilley eta Scraton, 2010; Dixon, 2009; Maroto-Navarro eta kideak, 2007). Hori dela eta, Ibonek, adibidez, utzi egin behar izan zion paletan aritzeari, bikotearen laguntzarik ez zuelako hurren zaintzarako eta horrek frontoian entrenatu ahal izatea galarazi zion bolada batean:

“Eta, entrenamenduak, ez neukan aukerarik. Badakizu, ama izatea eta gizonak egun guztian lana... Adibidez, gaur egungo senarrak-eta gehiago inplikatzeko dira, umeak gehiago zaintzen dituzte, baina, nirekin ez zen hori pasa. Bestela, hobeto jarraituko nuen”. Ibone

Senar eta emazteen arteko hurrekiko arduraren nondik norakoak aztertzea ezinbestekoa da desoreka eta banaketa ezberdintasunaren arrazoiak zein izan litezkeen agertzeko. Autore asko dira emakumezkoek egiturazko arazo edo oztopoak dituztela diotenak, jendarteko joeren baitakoak (Dilley eta Scraton, 2010; Dixon, 2009; Miller eta Brown, 2005; Wearing, 1993). Pilotarien artean ere ezberdintasunak kulturalak eta testuinguruko korronteen arabera direla dioten ahotsak jaso ditut.

“Nik uste kulturala dela. Guztiz, guztiz, guztiz. En las cavernas. Nik uste aitak joan behar zuela ehizera eta ama geratzen zen barruan eta ya de paso seme-alabak. Edo seme-alabak eta bide batez etxekoa eta. Guztiz kulturala da eta hori ez daukagu, buruan daukagu oso sartua”. Martxeli

Eztabaida-taldeko bileretan ere behin baino gehiagotan izan zen hizpide korrante sozial eta jendarteko ildoen auzia zaintzaren egiturari erreparatuta:

Aitziber. *“Baina nik uste dut egia dela, seguraski, emakume talde bat, ba, pilotan edo imajinatu berdina gizonak, ba, beno, umeen karga guk askoz handiagoa daramagula entrenamenduetara edo palara edo”*.

Argia. *“Baina hor gu gara, e”*.

Martxeli. *“Horixe garela gu”*.

Aitziber. *“Totalmente”*.

Argia. *“Kulpa guk daukagu, e”*.

Amaia. *“Bai, bai, kulpa gurea da”*.

Haizea. *“Ez, baina hori da ama izatearen kultura, ama izaerarekin lotuta. Hori da erakutsi digutena”*.

Martxeli. *“Hori da kultura”*.

Aitziber. *“Kultura ere hor dago, dago berezkoa eta jasotakoa ere bai, e”*.

(Eztabaida-taldea eranskina: 29)

Guztia ez da sistemaren, genero rolen eta egituraren zakuan kokatu behar, ordea. Joera horren zergatiaren bila hasita Solé Puig eta Parella Rubiok (2004) diote emakumea bera badela eragozpen bat bere baitan eta planteamendu feministak berraztertu beharra dagoela. Izan ere, mugak emakumearen barruan ere badaude, bere subkontzientean. Generoaren sozializazio ezberdintasunak eragina du amatasun intentsiboan. Hori dela eta, arrazoibidean aldi berean gizona eta emakumezkoen arteko berdintasuna aldarrikatzen da eremu publiko eta pribatuan, baina, beste alde batetik, errudun sentimendua agertzen da seme-alabei eskatzen ez duten presentzia edo gizonengandik espero ez dutena eskaini ezin bazaie. Izan ere, amatasunak ez dio uzten “norbere espazio” izateari, emakumeei atxikia; botereari loturiko espazio tradizional honi ez diote muzin egin nahi, euren identitate femeninoari datzekiona delako. Martxelik argi adierazten du badirudiela amek konpromisorik hartu gabe zerbait egiteko hautua eginez gero gaizki sentitu behar luketela, muga eta konplexuak euren baitan ere badituztela nabarmenduz:

Martxeli. *“Nik uste dut amok daukagula konplexu hori. Ez dakit aitek nola biziko duten, baina amak daukagu konplexu hori. Esatea edo konpromisoa hartuta daukat eta joan beharra daukat edo bestela non dago hori egiteko arrazoia? Por libre ematen du, ez, amak ezin dugu, horrela, por libre, ez, ematen du edo batzuk hala”*

uste dute, ezin dugula”.

Aitziber. “Ya”.

Martxeli. “Ni, adibidez, bakarrik ibiltzekoa banaiz eta gustatzen zait. Beno, bizikletan ez naiz joango, Holandan ez baldin banago, ba, hemen ez daukat gogorik gora eta behera ibiltzeko, baina oinez ibiltzera, bakarrik, noiznahi eta ahal bada bakarrik edo nirekin moldatzen den batekin, baina ‘aizu, deitu ieza dazu joaten zarenean’ eta puf. Aizu, ez. Eta palan momentuan bakarrik ez, aspergarria izan daiteke. Niretzako, hala ere, konpromisoa hartuta hortik sortzen da gero por libre hori. Zuk ya erabakitzen duzu noiz joan. Ba, seme-alabak ez dakit non daude, ba, benga, ba, goazen palan ibiltzera. Hori du ona, ez? Hartzen duzu konpromiso bat, sartzen zara taldean eta gero hortik ateratzen da. Hau da, egun honetatik aparte banoa, baina konplexu pixka bat badaukagu”.

(Eztabaida-taldea eranskina: 21)

Amek, gizonezkoen laguntza eskatzen dute sutsuki erreprodukzio eremuan, baina aldi berean zaila zaie etxe-familia alorra %50ean partekatzea. Askotan paradoxa hau bistaratzen da emakumeak eurak direnean zenbait lanetarako gizonezkoen gaitasunak gutxien dituztenak, adibidez, haurren zaintzari edo gaixoaldiei dagokienean (Solé Puig eta Parella Rubio, 2004). Hurrengo Aitziberren esana benetan adibide adierazgarria da senarraren gaitasunei erreferentzia eginez, zenbaitetan berak geratzeko hautua egiten duela aitortuz dena azaltzen ez hasteagatik:

“Eta, gero, badakizu zer pasatzen den? Umea gaixotu da eta pediatrarena zuk eraman duzu, eta zuk dakizu zer hartu behar duen, eta zuk dakizu zer ordutan hartu behar duen, eta... Ez dakit, azkenean, kate bat da eta konturatu gabe denaren kargu egiten zara eta errazagoa da nik zainduko dut edo, ‘begira, 7etan emaiozu hau 6,5, gero jarri termometroa eta’ uf, ala, begira ni egongo naiz”. Aitziber

Goiko aipuaren atzean dagoena ondare sentimentu handi bat da, sozialki eurek betetzea espero den eremu bat emateari errezeloa agertuz emakumeek. Horregatik eurenganutzen dute amek zenbaitetan eurak ez daudenean haurren zaintza noren esku utzi kudeatu eta erabakitzeko agintea (Solé Puig eta Parella Rubio, 2004).

4.3.2. Haurrak: buru bat, agenda andana

Amatasunarekin lotzen diren bereizgarri negatibo multzo bat bada, adibidez, hurrek eragiten duten “lotura” eta norberarentzako denborarik ez izatea (Solé Puig eta Parella Rubio, 2004). Horren adibide da Aitziberrek esaten duenean sei-zazpi urtean ia erabat haurren zerbitzura egon dela bera, semeak txikiak direla argudiatuz, eta emateaz gain jasotzea ere gustatzen zaigula edonori, arnasbideak behar direla, itogarri suerta litezkeelako ardura horiek une jakin batzuetan.

G. Baina hori zer da ardurak itogarri izan litezkeelako?

Aitziber. “Dударik gabe, nik uste dut baietz”.

Martxeli. “Ez”.

Aitziber. “Nik bai. Beno, itogarriak? Ba, bai. Nik dauzkat hiru ume txiki eta bai dira urte dezente, ba, dena utzi behar duzunak praktikamente. Orduan, ba, noizean behin zinera joatea lagun batzuekin edo afaltzera ateratzera inork moztu gabe konbertsazioa eta abar izaten da gloria bat. Orduan, beno, nik hori horrela bizi izan dut urte batzuetan. Orain ari naiz pixka bat buelta ematen e, baina sei-zazpi urtean, ba bai. Zentzu horretan, delako gauza berdinetik asko, oso intentsua da, kentzen dizu dena denbora aldetik eta abar; ematen dizu asko, hori beste kapitulu bat izango litzateke, baina, behintzat, dena da zu zaude emateko, emateko, emateko, emateko, emateko. Beno, orduan, zuk ere jaso egin behar duzu nonbaitetik, ez?”.

(Eztabaida-taldea eranskina: 34)

Haurrak txikiak direnean, eta oraindik amaren gonapean dabilzanean, aisialdiko jarduerak bigarren edo hirugarren maila batean uzten dituzte emakumeek (Bialeschki eta Michener, 1994; Brown, Brown, Miller eta Hansen, 2001). Argiak ere uste du seme-alabak txikiak direnean zailagoa dela antolatzea koxkortuxegoak direnean baino, Arritxuren moduan, ondorengo aipuetan agertu bezala:

“Bai. Ni, hasi nintzenez, hasieran etorri zitzaidan burura amak ume txikiak dauzkatena eta ama ume handiak dauzkana. Ume txikiak dauzkagunok, ba, hori, ibili behar dugu puzzlea egiten eta, igual, handiak dauzkazuenak, ba, igual errazagoa da, umea ya ez da horren zera”.

“Nik uste dut lehenengo bi urteak direla. Gero ya, nik uste hasten zara pixka bat koxkortzen ari den bezala ere zu ere denbora gehiago hartzen”. Argia

Arritxuk esan du adin tarte batean gauza asko pilotzen direla, “baina nireak pixka bat koxkortuagoak dira”.

(Kontakizunak eranskina: 125)

Dilley eta Scratonek (2010), Im eta kideek (2008), Miller eta Brownek (2005), Rosterrek (2007) eta Thomssonek (1999) ere gai honi buruz diote haurrak txikiak direnean zailtasun handiagoak dituztela amek aisialdirako eta jarduera fisikoa egiteko denbora ateratzeko.

“Ba ama pilotaria eta niri burura etorri zitzaidana izan zen, e, ama batek, beno, nik dauzkat hiru eta nahiko txikiak. Orduan, ni oraindik banaiz ama maiuskulekin, ez? Praktikamente, nire lana kenduta nire denbora guztia horrek jaten dit, ez?”
Aitziber

Guraso arduetan amek haurrak txikiagoak direnean zama handiagoa dutela ere iradokitzen du Aitziberrek aita palariaren gainean eginko gogoeta honek, hauentzat antolatzeko arazo bakarra denboraren banaketan legokeela dioenean eta ez zalantzan jarritz aitatasuna dela eta jarduera fisikoa egitera joango litzatekeen ala ez, ondorengo bi aipamenak ildo bakarrean bateratuz:

Aitziber. “Senar palaria? Puff”.

Martxeli. “Kar, kar, kar”.

Aitziber. “Ba, orduan, sinplemente, denbora banaketa problema bat egongo litzateke, ez?”

(Eztabaida-taldea eranskina: 14)

Martxeli. “Aita palaria”.

Aitziber. “Zeharo desberdina aterako litzateke. Aterako litzateke ‘entrenamendua zer egingo ditut, bost minutu edo hoge’ e, ‘entrenatu baino lehen piszinara joango naiz edo ez’, e, ‘kotxez joango naiz kiroldegira’. Ez dakit, beno”.

Kar, kar, kar.

(Eztabaida-taldea eranskina: 33)

Izan ere, haurren jardueretako kudeaketa amen esku geratzen dela diote emakumeek, aitek bigarren mailako rola jokatzuz kasurik gehienetan, eta nabarmenago biak etxetik kanpo lanean arituz gero, gainera:

Martxeli. “Niri behin aita batek esan zidan ez zela gogoratzen bere alabak zer gauza zituen eskolaz kanpo. Esan nion ‘zer suerte daukazu, esan nahi du ez zarela arduratzen hortaz’. Ez? Buruan zeukan, ez dakit asteazkenean zeukan edo”.

Ibone. “Ez dakit nora joaten den’, igual. Baita”.

Martxeli. “Ez? Nik uste ardura horiek amak hartzen dituela gehiago. Nire etxeko sukaldeko kalendario horretan, ez? Orain ez dakit zer, gero eskola kirola”.

G. Hor idazten ditu amatxo Lolik bereak gehi seme-alabenak. Aitatzok idazten ditu bereak.

Martxeli. “Nik esaten dut biak lanean egonda, e. Gehiago arduratzen da ama”.

(Eztabaida-taldea eranskina: 61-62)

Nekea ere aipatzen da ama izanda jarduera fisikoa egiteko traben artean, edo aisialdi aktiboa izateko zailtasunen artean (Dixon, 2009; Thomsson, 1999), bere muinean denbora mugak eta arduren eskaera maila dituen. Gainera, usuago ematen da egoera hau etxetik kanpo ere lan egiten duten emakumeen artean (Brown, Brown, Miller eta Hansen, 2001). Pilotarien artean ere ikusi ahal izan ditut nekearen baitako kasu batzuk paletako jardunari lotuta:

Ariketa azaltzeko pronto jarri garenean Gurutzek Onintzari begiratu eta “nekatuta al zaude?” galdetu dio. Besteak “ez naiz geratu egun osoan!” erantzun dio lehendabizi eta gero azaldu digu “Madrilen ezkontza bat izan nuen, atzo semerik zaharrenekin ospitaleko buelta eman genuen, jolasean ari zela erori eta mugitu ezinda geratu zelako, baina, eskerrak, ez dauka ezer”.

(Kontakizunak eranskina: 425)

Haurrekin hara-hona ibiltzeak nekea eragiten die emakumeei eta horrek jarduera fisikoa egitea edo pilotarako astia hartzea alboratu edo beste baterako uzteko aukerak handitu egiten dituela ere bai, denbora mugatua delako aurrez ere:

“edo, beno, ez daukazu gogorik, nekatuta zaude. Orduan, iruditzen zait dela pega bat kirola antolatuta egitea momentu horretan, e”. Aitziber

Kotxea aparkatu eta trasteak hartzen ari nintzela Malenekin topo eginda. Elkar “aspaldiko!” esanez agurtu dugu, badirelako bi astelehen kidea saioretara etorri ez dela. Hala esan dit, ikasturte amaieran are zailagoa zaiola antolatzea eta nekea ere pilatzen dela garai honetarako.

(*Kontakizunak* eranskina: 569)

Nekea pilatu arren, ordea, kasu bat baino gehiagotan izan dira ama pilotariak paletako saioretan, ondorengo adibidean Idoiak haurraren jertse bila abentura bat izan arren beranduago izanagatik paletako saiora agertzea erabaki zuelako, adibidez:

Saioa hasi aurretik Idoiak esan du leher eginda datorrela eta baietz esan dio bakarren batek, nekea sumatzen zaiola aurpegian. Orduan bere eguneko abenturaren berri eman digu. Semeak jertsea galdu omen du egun berean bi aldiz eta Usurbilen barrena ibili omen dira haren jertsearen bila.

(*Kontakizunak* eranskina: 84-85)

4.3.3. Errudun sentimendua

Zenbaitetan amak errudun sentitzen dira eurentzat denbora hartzen dutenean besteentzako, seme-alabak edo bikotea, kasu, lehenetsi ordez (Bialeschki eta Michener, 1994; Dixon, 2009; Miller eta Brown, 2005; Sánchez-Herrero Arbide, 2008; Thomsson, 1999). Uneren batean hurrei jaramon ez egite hutsa bada erru hori sentitzeko nahikoa arrazoi Martxeliren aburuz, adibidez, amak norabaitera joan eta hurrek hala ez egiteko eskatzean:

Martxeli. “(...) Gero, txantajeak ere seme-alabek gurekin, e. Zinera zoaz eta semea barandillan ‘ama, ez joan’ eta hurrengoan ‘horrela jartzen bazara egunero joango naiz”.

Aitziber. “Bai, bai”.

Martxeli. “Txantajea eta gero etortzen zaizu zure konplexua eta esaten duzu ‘zer gaiztoa naizen’, ez?”

(*Eztabaida-taldea* eranskina: 28)

Amatasunaren mito batzuk oso indarrean daude emakumeen artean eta haurra izatean erabateko arreta eman ezean ama txarrak ote diren zalantzan hasten dira eta euren gaitasunak kolokan jartzen. Kontraesankorra eta tentsio iturri bihurtzen da haurrak etxean utzi eta beste norabait joatea ama horientzat. Horregatik, sentimendu

kontrajarriak izaten dituzte hainbat amak, oreka emozionala arriskuan jarritz. Hau, ordea, lotuta dago amatasuna jorrazteko jendartean nagusi den begirada kultural murriztarekin, instintuan eta emakumeen berezkotasunean kokatzen baita sarri ama izaera hori. Beraz, gorabehera honek ere *gendered* izaera du (Buzzanell eta D'Enbeau, 2009). Emakume pilotariak ere onartzen dute zenbait egoeratan bihotza uzkuritu egin zaiela haurren bat gaixo izan edo hauek paleta saiora ez joateko eskatuz gero, pena ematen dielako etxeoak horrela uzteak. Hala ere, ondoren norbere esku geratzen da balantza nora okertu, erruari irabazten utzi eta etxean geratzea erabakiz ala ez.

Haizea. *“Eta ez dago errudun sentimendua umea etxean gaixo utzita?”*

Aitziber. *“Ni, nire kasuan, sinceramente, nire kasuan nik uste joango nintzatekeela, e. Ez baldin bada, ba, hori zuk esan duzuna. Nik utzi ditut umeak gaixorik aitarekin eta lasai asko. Baina, errudun sentimendua? Gertatzen dena da, askotan, baita ere umeak ama eskatzen du”.*

Martxeli. *“Ya, ya, kar, kar”.*

Aitziber. *“Umeak goxotasun momentuetan ama eskatzen du eta hor bai, ba, igual uzten baduzu kalenturarekin eta ‘ai, ez joan’, beno, ba, igual”.*

Martxeli. *“Aitak zer kariñosoak diren batzuetan”.*

Aitziber. *“Bai, bai”.*

Martxeli. *“Xamur-xamurrak”.*

Aitziber. *“Bai, baina, beno, hor sartu litekeela igual, ba, pena ematen dit edo horrelako zerbait”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 27-28)

Arrazoia dena dela ere, ordea, Sánchez-Herrerok (2008) azpimarratu du emakumeak sentimendu hauen ondorioz ez direla aisialdian erabat erlaxatzen zenbaitetan eta presioa sentitzen dutela, eurek euren buruei zein besteek ezarritakoa, azkar amaitu eta beste ardura batzuei heltzeko.

4.3.4. Ama eta haurren arteko zilborrestea

Pilotan aritzeak emakumeengan duen eragin onuragarriaren baitan badira ama izate hori euren haurren esperientziekin zuzenean lotzen duten emakumeak ere. Izan ere, eurek pilotarako hautua egin izanak euren ondorengoei ere aukera bat ekar diezaikeela uste dute eta onura hori jasoko dutela seme-alabek amak paletan ikusita. Argiak eredu ematea deritzo zeregin horietako bati, hurrengo aipuetan agertzen duen bezala:

“Eredua eman, ba, umeek ere ikus dezatela amek ere badakigula jolasten, gustatzen zaigula palan jolastea eta gure denbora hartu behar dugula jolasteko”.

“Ni hasi nintzenezan partiduak eta alde batetik esan nuen, ba, berdin zaio galdu edo irabazi, baina umeak ikustea duela guk ere ba egiten dugula kirola eta gustatzen”.

zaigula egotea, ba hori, lagunartean jolasten eta, ba hori, ohitzen joan daitezela”.

Argia

Eredu emate horretatik abiatuta, gainera, amek euren denbora librea eta lagunartea badituztela erakustea ere garrantzitsua dela nabarmentzen da, ondorengoek amak kirola egin dezakeela barneratzeaz gain. Horren gainean dihardu Elik ere:

“Beno, ea nik kirola ez dut asko egin, gustatzen zait, baina ez dut asko egin. Ni hasi naiz kirola egiten umeak izan eta gero gehienbat eta helburu bat da erakustea, nik bi mutil dauzkat, erakustea emakumeok ere kirola egiten dugula”. Eli

Ama-ilusio horrekin harreman nahiko zuzenean dago, horrez gain, haurren pilotarekin loturiko ekintzak poz iturri bilakatzea euren gurasoentzat. Adibidez, Martxeliren alaba paletaria izatea bada harrotasun iturri amarentzat, Haizeak eginiko galderaren erantzunean bere alabak paletan aritzeko hautua egin izanak dakarzkion asebetetzea eta poza bere hitzetan adierazi moduan:

Haizea. *“Eta diferentzia dago seme-alabak pilotan eduki edo ez?”*

Martxeli. *“Diferentzia baden? Mmmm, beno, begiratu. Nik afiziotik begiratu nuen eta zer suertea, pilotan ibiltzea? Bai eskupilotan eta bai palan. Eta, egia esan, neska izanda eta palan ibilita, ba, orduan nago ia ba encantadísima. Diote batzuetan gure zerak, ez, gure proiektuak eta nahi gabe, ba, begiratu, ba, suertea izan dut eta, orduan, niretzako da gozada bat ikustea. Bai, pala asko gustatzen zait eta orduan, ba, beno”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 5)

Martxelik, gainera, argi azaldu zuen bera paletan hasi zenean alaba nerabezaroan sartzen hasi zela, dozena bat urteren bueltan zituela, eta orduan ez zuela alabaren babes eta laguntza handirik jaso. Hau hazi eta heltzen joan ahala, ordea, orain ama-alaba harremanak pilotaren bidean ere urratsak egiten diharduela dio ondorengo aipuan:

“Palan hasi nintzen eta, klaro, ya alaba da etxean kontrolatzen duena eta bera harrapatu zuen ba, orain dela bost urte. Taldean eta zaharrak eta bera lotsatu egiten zen, ‘ama, zer lotsa, zer egiten duzu palan?’ Eta, orain, bost urte pasa dira, berak 17 urte egingo ditu eta orain ya animatzen nau ‘benga, ama, zuk badakizula’ eta aldatu da bere ikuspegia. Lehengoan esan nion ‘ea, ni naiz hemen txapelketara apuntatu dena, nire mailan edo, nire mailan edo hor’ eta esan nion ‘zuk dakizunarekin ez zara gauza izango, ez zara nirekin etorriko niri erakustera?’ eta azkenean baietz esan zidan. Esan nion ‘nik hainbeste animo eta animo ez dut behar, nik behar dudana da etorri eta nirekin ibili. Nik hori behar dut’. Nik ikasi ez dut asko egingo, baina”. Martxeli

Ainararen alabak ere, amaren urratsak segiz ala ez, paletari bidea hasi berri xamarra du eta horrek poz eta ilusioa eragiten ditu amarengan, semeak eurekin batera pilotan aritzeak bezalaxe:

“Beno, gu ibiltzen gara, semeak ere ibiltzen dira, ondo ematen diote, gurekin ibiltzen dira e, eta alaba hasi da, beno, ba agian guk edo nik piztu nion igual hasierako zera, baina, noski, ikusten du ondo ematen diola eta jarraitu egiten du”.
Ainara

Ibonek ere bere entrenatzaile lana dela eta gurasoekin duen harremanean amek alabekin jolastu nahia agertu zidan:

“Askotan esan didate, ‘umea hasi da eta ni ere hasiko naiz, zeren eta alabarekin jolastu nahi dut’. Hemen daudenak, proiektuan dauden batzuk, esan didate ‘bai, bai, ni nabil zeren eta alaba hasi da eta bestela alabak ikasiko du eta nik berarekin jolastu nahi dut’. Hori oso polita da, adibidez”. Ibone

Haurrek gurasoak animatu edo pilotan jarrai dezaten amei bultzadaxoa ematea ere agertu zait eginiko hitz-aspertuetan zehar, amak paletan aritzen direlako poza kutsatuz eurei arnasa eman zietenei, Iratik agertzen duen moduan:

G. Umeak esaten dizu zerbait?

“Animatu egiten nau, asko animatzen nau. Gero, txapelketa honetan, galdu ditugu hiru partidu eta, beno, esaten dit ‘ama, zu lasai, batzuk irabazten dute eta besteek galtzen dute’. Nik esaten nion hori, ‘ama atletismoan ibili zenean batzuetan irabazi eta besteetan ez’. Gustura, gustura dago”. Irati

Jaionek ere seme-alaben joeren gainean oso antzeko gogoeta plazaratu zidan, ama pilotan ikusita semeak ere gogoeta eta poza agertzen dituela adieraziz:

G. Seme-alabek zer edo zer esaten dute?

“Bai, bai, bai. Galdetzen dute. Nik uste dut, beno, txikia oraindik txikia da, baina sei urtekoari nik nabaritu diot, e, atzo ere iritsi nintzen etxera eta ‘zer egin duzu?’ eta gero, igual, hartzen du pala eta nahi du. Berak ere nahi du. Nik uste dut ikusten baldin badu igual egingo duela etorkizunean eta gustura bere ama palara joaten delako”. Jaione

Ama pilotaria izateak, beraz, ondorengoei utzi nahi zaien ondarean pilotarako grina edo kirolerako gogoeta txertatu eta inguruko guztiek horretaz gozatzen saiatzea eta ilusio hori hauspotzea ere bere baitan duela ikus daiteke puntu honetan, seme-alabei aztura hori izatea erraztu eta ahalbidetuz, eurek horrela izatea nahi luketen kasuetan betiere.

4.3.5. Egitarau antolatua ala gidatu gabeko saioak?

Etiket kanpo ere lan egiten duten amekin eginiko ikerketan Dixonek (2009) egoera honetan dauden emakumeentzako kirol programek zer eskain lezaketen aztertu du. Bertan ondorioztatu du lau faktore direla oinarritzakoak: gastua, haurren zaintzarik eza, haurren giroa eta egitarauen zurruntasuna. Hauek ez dute laguntzen amak kirolera hurbiltzen. Gai berari erreparatuz, aldiz, Huberty eta kideek (2008) aztertu dute

emakumezkoek egituratutako ariketa programetan parte hartzean jarduera fisikoarekiko atxikimendua hobetzen dela, bizitza kalitatea eta norbere buruarekiko konfiantza gehituz eta beste betebeharrak batzuekiko lehentasuna emanez ariketa egiteari, adibidez, errudun sentimendua baztertuz eta familia jarduerako testuingurura hurbilduz. Hala ere, Rosa Rodriguezek (1998) jarduera fisikoarekiko atxikimendua lortzearen inguruan emakumeekin egindako ikerlan batean ondorioztatu zuen interbentziorik ezean epe motzeko lotura lortzen dela, baina epe luzera ez dela eragin baikor hori mantentzen eta jarduera egitean beherakada nabarmena ematen dela.

Gure testuinguruan, ordea, iritzi kontrajarriak daude gai honen inguruan, bakarren batek alde ezkorragoa ikusiz eta besteren batek positiboagoa jarduerak egitura, ordutegi eta egitarau zehatz baten barruan antolatuta egoteari. Aldi berean lagungarri zein muga ezartzaile izan daitekeela diote pilotariek. Horren adierazgarri da Aitziberrek berak kontu honen inguruan eginiko bi gogoetak, aldi berean erraztasuna eta bestetik, betetzeko barne-indarra eta norbere borondatea behar direla azpimarratuz, eginikoak:

“Bai. Niri iruditzen zait, adibidez, nire egoera pertsonalean askoz errazagoa dela libre daukadan momentuan korrika egitera joatea, adibidez. Gustatuko balitzait egitea, klaro. Beno, ni ez naiz sekula joango, baina, errazagoa da. Edo ibiltzera joatea, errazagoa da. Ez duzu inorekin gelditu behar, ez duzu inor zintzilik uzten, e, ez duzu ordaindu behar, ez dakit, ez zara apuntatu behar, ... Beno, txorradak dira, baina errazagoa da. Edo piszinarako zaletasuna edukiko banu, ba, orain daukat ordu erdi, ba, piszinarara noa. Hau da ordu bat, orduan aste batean normalean ondo dago, baina edozein astetan eduki dezakezu arazo bat: edo aita ez da ailegatu, edo umea gaixotu da, edo hotza egiten du eta katarroarekin zaude, edo, beno, ez daukazu gogorik, nekatuta zaude. Orduan, iruditzen zait dela pega bat kirola antolatuta egitea momentu horretan, e. Momentu honetan, adibidez, ba, niretzako, nola daukadan agenda hain estua, ba, beno, ba, hor hartu eta hor egin behar duzu, eta, beno, ba, zen hori, ba, berez, igual errazagoa da beste”.

“Nik esango nuke batzuentzako bai eta beste batzuentzako ez. Horrela, argi. Batzuentzako hori da erraztasun bat eta beste batzuentzako hori da problema bat. Zeren arabera? Izaeraren arabera; egoeraren arabera eta izaeraren arabera. Ni naiz pertsona bat, adibidez, e, kosta egiten zait nik bakarrik zerbait egitea, kosta egiten zait. Segituan uzten dut, edo hotza edo beroa edo nekatuta edo hilerokoa jaitsi zaidala edo ez dakit zer. Eta, bai, eta, berriz, norbaitekin konpromisoa hartuz gero, ba, beno, hor kunplitzen dut. Ordun, niretzako, adibidez, beti izan da errazagoa, ba, zerbaitetan apuntatuta ibiltzea”. Aitziber

Martxelik, adibidez, ikastaro batean izena emateko konpromisoa hartze horrek ondoren kide eta lagun berriak ezagutu eta eurekin norberak ahal duen orduan moldatzeko abaguneak sor litezkeela azpimarratzen du egitarauen alde on bezala.

“Eta palan momentuan bakarrik ez, aspergarria izan daiteke. Niretzako, hala ere, konpromisoa hartuta hortik sortzen da gero por libre hori. Zuk ya erabakitzen duzu noiz joan. Ba, seme-alabak ez dakit non daude, ba, benga, ba, goazen palan ibiltzera. Hori du ona, ez? Hartzen duzu konpromiso bat, sartzen zara taldean eta gero hortik ateratzen da”. Martxeli

Egitarau edo eskaintza eta ordutegi zehaztu bat izateak, gainera, Argiaren hitzetan, betetzen laguntzen du, norbere kabuz zenbait unetan jarduera fisikoa egitera joatea nekosoagoa suertatzen dela aipatuz, azkenean bertan behera uzteko tentazioa nagusituz:

“Bai, baina, igual, ordu bat daukagunean baita da errazagoa esateko ‘hau nire ordua da’”.

“Bestela ez duzu hartzen ordu hori. Egia da, etxean baldin bazaude, beno, igual joango naiz, igual ez. Eta, azkenean, hasten zara eta ez zara joaten. Orduan, badakizu, ordu hau eta nire senarrak badaki astelehenean 19:30ean ni banoala”.

Argia

Egitarauen eta saio gidatuen arloan ere, beraz, norbere izaera, pentsamendua eta uneko egoera izango dira egokitasunaren marra non jarri zehaztuko dutenak eta pilota saio gidatuak edo norbere kabuz antolatuak egingo dituztela erabakitzeke arrazoi nagusi.

4.3.6. Jardueren etenaldia edo eraldaketa

Zenbaitetan ohiko aisialdiko jardueretan etenaldia edo moldaketa gertatzen da haurrak jaiotzean, lehenengo familia-arduradun bihurtzen baitira amak. Egoera horretan, haurrak euren kabuz, independenteki, moldatzeko adina heltzean berriro ere aurretiko jardueri heldu diezaiekete emakumeek hala nahi izanez gero (Bialeschki eta Michener, 1994; Dilley eta Scraton, 2010). Ibonek, adibidez, bera paletan hasi eta ama izan zenean etenaldia izan zuela adierazten du ondorengo aipamenean garbi asko:

“Bai, etenaldi bat eduki dut. Nik hamar urteko hutsune bat eduki dut. Hauek uste dute, jendeak, ‘hau betidanik ibili da’. Ez. Ni hamar urtez... Ni hasi nintzen 25 urterekin, egin nituen lau urte, gero haurdun geratu nintzen eta gero hamar urte, ba, ezta... Beno, ba hori, fitxa baneukan, nik fitxa baneukan, fitxa behin ere ez dut kendu, baina entrenatzera ez, apuntatzen nintzen partiduetara eta bai, goazen partiduetara. Ni nengoan de tapaxulos esaten dena, orain ibiltzen naizen bezala, ez?” Ibone

Jarduera eten ordez egiten den kirola aldatzea ere izan liteke aukera bat, ordea (Dilley eta Scraton, 2010). Modu honetan, hurrekiko arduretara hobeto eta malgutasun handiagoz moldatzeko aukera dute emakumeek. Ibonek berak paleta utzi eta haurrak apur bat hazi zitzaizkionean gutxienez kiroldegiko ikastaroetara joaten hasteko aukera izan zuela dio, nahiz eta ezinezkoa zitzaion oraindik ere frontoira joatea, berari egoki zetozkion orduetan ez zeukalako pilotalekuan entrenatzeko aukerarik:

“Gero, bost urtetik aurrera umeen orduetara egokituz kirola bai, beno, apuntatu nintzen kiroldegian, spinning egiten nuen, baina ez neukalako non entrenatu. Frontoian ordu hori ez neukan ni libre nengoenean, betiko arazoa”. Ibone

Beste egoera bat ere ematen da, ordea, jarduna erabat bertan behera uzten dutenena ardurak eta kirolaren eskaerak eragindako desoreka eta tentsioen bidez, emakume entrenatzaile eta psikologian ziharduen bat baino gehiagok egin bezala. Hauek

desagertu egiten dira, euren ama eta entrenatzaile zein kirol langile identitateak inkongruente eta bateraezinak ere bihurtzen direlako (Kamphoff, 2010; Roper, 2008).

Pilotako testuinguruan asko izan dira ama izan eta itzuli ez direnak, une jakin batean ezinezkoa egin zaielako haurren ardura eta euren pilotari izaera bateratzea. Besteak beste, nahiz eta ama izan ostean itzultzeko asmoa agertu, hori izan zen Olaiaren kasua, adibidez, ez zitzaielako bateragarri haurra izan ostean saioetara bertaratzea. Beraz, ondorengo aipamenean agerturiko ama izan ondorengo bueltatzeko hautua ezin izan zuen burutu. Oraindik ez du gauzatu, behintzat.

“Nik irailean umea edukitzen dudanean, nik garbi daukat nahiz eta pilotan ez jokatu frontoira partiduak ikustera joatea nahi dudala, bada, giro hori ez galtzeko eta. Gero, berriz ere bueltatzeko niretzako hori, giro hori batik bat bueltatzeko. Ez naiz bueltatuko partidu batzuk irabazi nahi ditudalako eta ez dakit zer, zeren eta, gainera, gaizkiago egongo naiz fisikoki. Baina, giroa eta han sortzen den lagunarte hori mantentzeko. Nik hori behintzat nahi dut mantentzea. Bai”.

G. Bueltatzeko asmotan, orduan?

“Bai, bai, bai, bai”. Olaia

Bada beste aukera bat ere, ordea, jarduerari eustearena. Hala ere, Eiderrek berak aitortzen du ama izan ondoren berak pilotan jokatzen jarraitu arren kasu askotan ezagutu dituela ama izatean euren paletari ibilbidea bertan behera utzi duten kideak:

“Uztearen arrazoi bat esaten nuen askok utzi zutela lesioengatik, beste batzuk adinarengatik eta ez dizudana esan da beste batzuk haurrak izan zituztela eta, batzuk, umea eduki eta gero bueltatu direla berriz, baina, beste batzuk ez. Umeak eduki zituzten eta ez ziren bueltatu gero, adibidez, Bakarne, gero lanean hasi zen eta ez zen bueltatu. (...) uste dut beste arrazoi bat amatasuna eta familia direla. Batzuk pentsatzen dute gazteak direnean bale, baina, behin bikote batekin hasten direnean segitzen dute, baina, ezkondu edo umea edukitzean apartatu egiten dira. Nire kasua ez da, beste asko daude gauzak berdin-berdin “konpaginatu” dituztenak, baina, igual, bada arrazoi bat”. Eider

4.4. Pilotari amak ala ama pilotariak?

Kapitulu honetan jaso eta esandakoetatik abiatuta eta eztabaida-taldeko bileretan iradoki zidaten moduan, pilotan diharduten emakumeak, ama diren kasuetan, badirudi bi eredu edo aukera har ditzaketela parte-hartzaileek orokorrean. Zenbait ama pilotariak izango dira eta beste zenbait, berriz, pilotari amak. Ez da erraza bi profil hauen arteko marra zehazki non dagoen zehaztea, baina badituzte nire ustez multzo ezberdinetan sailkatzeko adina bereizgarri. Horretan saiatuko naiz, beraz, puntu honen baitan.

Aisialdiko pilotari gehienak amak dira eta pilotara estatus hori lortuta iritsi dira, ama izan ostean. Federatuetan, aldiz, ama izandako gehienak pilotari zirela iritsi dira egoera horretara. Puntu horrek eragin ditu gogo eta azterketa interesgarri bat baino gehiago,

profil ezberdinak sortuz, ama eta pilotariaren arteko ordena eta lehentasunetan ezberdintasunak ematen baitira hein batean, bederen. Izan ere, ama direnean, ezberdin jokatu izan dute zenbaitetan batzuk zein besteek, euren bizitzako zereginetik duten garrantzia, indar, norabide eta esanguraren arabera, nagusiki.

Dilley eta Scratonen (2010) arabera, ama diren eskalatzailen kasuan lehentasunetan aldaketa gertatzen da amatasuna heltzean. Mendigoizaleen artean, ordea, batzuk jarraitu egin izan dute jarduerarekin, besteek uzteko erabakia hartu bitartean ama izatean (Frohlick, 2006); berdin futbol amerikarrean ere (Migliaccio eta Berg, 2007). Surfean diharduten amen artean, berriz, amatasuna ohiko moldeei erabat estu lotu gabe garatzeko nahia agertzen dute, nahiz eta ama izateak euren joeretan eraldaketa batzuk egitera behartzen dituzten (Spowart, Burrows eta Shaw, 2010).

Pilotarien artean ere joera ezberdinak daude amatasuna iritsi osteko bidegurutzean nora jo erabakitzeke garaia heltzean. Federatuetan, adibidez, hiru errealitate ezberdin azaleratu zaizkit ikerlanean zehar. Batetik, lehenengo egoera lez, bada ama izateko unea heldu eta medikuek gomendaturiko epeak errespetatuta, edo gabe, ahal duten bezain pronto berriro ere paletari eta pilotari emanez aritu denik. Hau da, adibidez, Eider edo Xixiliren kasua.

“‘Kit-kat’ bat izan zen, derrigorrezkoa zelako, baina, are gehiago, nik uste dut azkarregi eta dena bueltatu nintzela, zeren eta desastre bat izan zen lehenengo bi hilabeteetan. Jolasten aritu nintzen, baina, ezin nuen, ez neukan indarririk, ez neukan ezer. Hasi nintzen umea eduki eta bi hilabetera eta hori pixka bat ‘heavy’-a da”.
Eider

Ibonek, berriz, eragozpen gehiago izan zituen eta “bai, baina ez” egoeran geratu zela esan nezake, bere parte-hartzeari nolabait eutsiz, pilotarekin zuen harremana erabat eten gabe, baina oso modu mugatuan, neska gazteen entrenatzaile bezala eutsiz bere jardunari. Ez zuen lehen aukeran bere pilotari sentimendu eta jarduteko gogoari segidarik ematerik izan, haurdunaldietako etenaldien ostean bere pilotako parte-hartzea mugatuagoa eta apur bat zeharkakoagoa izatera behartuz egoera zena zelako:

G. Ez zenuen dudarik egin. Zuk etenaldiak izan zenituen, baina, garbi zeneukan itzuliko zinela.

“Nik entrenatzen ez nuen jarraitu, baina nik entrenatu arazten bai, eta ez dizut esan arrazoia. Ni joan nintzen Oiartzunera bizitzera eta, orduan, 92an hasi nintzen neskak entrenatzen. Handik etortzen nintzen eta larunbatero-larunbatero hemen egiten nuen, urte pila bat egin nituen horrela, eta umeak jaio zirenean utzi egin behar izaten nuen”.

“Semearekin, ordea, ia hemen bizi nintzen eta ez nuen utzi, entrenatzen jarraitu nuen eta mantendu egin zen”. Ibone

Hirugarren multzo bat ere bada ama pilotarietan, nik ikusitakoaren arabera, gainera, jendetsuena. Federatuen artean halako kasu bat baino gehiago tokatu zaizkit eta

aisialdikoan artean are gehiago. Hauen kasuan ama izan ostean pilotarekin zuten zilbor-hestea eten eta pilotari izaera horri muzin egiten diote, kantxetara itzultzeko aukera baztertuz eta ama izatera bideratuz euren ahalegin eta indar guztiak, pilotarako aurrez izan zuten erakarpena ahuldu eta itzaliz, jardueratik distantzia nabarmen batean urrunduz.

Pilotako esparrua eta bertan diharduten emakumeengan amatasunak izan dezakeen eragina zati batean bat dator Dilley eta Scratonek (2010) dioten lehentasunen eraldaketarekin, baina ez beste batzuetan. Honen arrazoiak zein izan litekeen aztertzen hasita, berriz, pilotarien izaera bera gogoetaren erdigunean kokatu behar da emakume pilotarien ustean, ezberdina eta eragile nagusienetakoa baita hauen aburuz zein unetan geratu den haurdun pilotari hori, alegia, amatasuna heldu aurrez pilotan baziharduen ala ez.

Esate baterako, Argiaren aburuz ama izateko unea kirola egin bitartean iritsi ala kirola utzi ostean iritsi ezberdinak izan litezke joerak, lehenengoan erabat eteten duelako zure aurreko jarduna haurdunaldiak eta bigarreanean, berriz, ez duelako ezer ere alboratzea eskatzen, ama izan ostean hasi direlako emakume horiek pilotan:

Argia. “Baina, igual, ama noiz harrapatzen dizu? Kirola egiten ari zarenean harrapatzen bazaitu ama izateak edo gero ya uzten duzunean, ba, gero, utzi duzunean eta handik urte batzuetara ama izan. Oso desberdina da”.

G. Zer zentzutan?

Argia. “Zer zentzutan? Ba, bat delako zuk egiatan jolastu nahi baduzu serio eta haurdun gelditzen baldin bazara haurdun, ba, ya mozten zaizu hori dena, ez dakit zer,... eta bestea da berriz hasten zara. Ez dela, ez duzu uzten. Ez dakit nola esplikatatu. Nik ez dut ezer ere utzi haurdun geratu nintzenean, gero hasi naiz berriro jolasten. Zeharo desberdina da. Hori baietz”.

(Eztabaida-taldea eranskina: 15)

Paletariak diren amen eta ama paletarien artean bereizketa garbi xamarra proposatzen dute Martxeli, Argia eta Aitziberrek ere ondorengo solasaldian, paletarekiko atxikimendu zein gertutasun mailak eta bizitzako etapak eragiten dutela nabarmenduz, euren kasuan pilotarako aukera eta gogoia seme-alabak izan eta urte batzuk geroago heldu zaiela nabarmenduz, ama izaera hori oso barneratua dutela, gainera:

Argia. “Hori edozein kiroletan nik uste dut. Ni eskubaloian ibiltzen nintzen, ze ni baita ibili naiz División de Honor jolasten eta horrela eta jo, hori egiteko esaten nuen, gauza da pala, baina ez da pala bakarrik. Ama kirolaria, nik esaten nuen, ama kirolaria, aber. Profesionalki hor ibiltzeko, adibidez? Gu hemen ibiltzen garelako, baina ama batek zer egin behar du hor ibiltzeko? Ostra, ez dela batere erraza, e. Astebukaeretan joan, etorri, eta umeak”.

Martxeli. “Horiek dira pilotariak diren amak. Horiek dira niretzako. Hartzen dute kirola, ba, hori, pilotan ibili diren emakumeak, gero amak izan direnak, lehenengo

dute pilota. Pilota dute oso-oso lehenengo”.

Argia. *“Baina beraien enplegua da hori, beraien lantokia bezala delako baita beraiantzako, edo ez?”*

Martxeli. *“Edo ez, e, afizioa daukate oso-oso barruan. Ez gu bezala, gu gaude pixka bat de segundas, e”*.

Aitziber. *“Bai, ni behintzat bai”*.

Martxeli. *“Baina haiek dute oso barruan palaren kontua, e. Nik ama, zera ere bai, e, nola zen bestea, ai, utzi duena orain? Jo, izena, beno, berdin du. Ezagutzen ditugunak, ama palariak direnak, kirola izan badute lehenengo, pala izan badute lehenengo, horiek dute pala. Hori da zera bezala, e. Kendu iezaiozu. Ez? Niri iruditzen zait”*.

(Eztabaida-taldea eranskina: 15)

Pilotariak diren ama lez izendatuko genituzkeen ezaugarriak ere plazaratu zituzten eztabaida-taldeko kideek, bereizketarako hainbat argudio emanaz. Euren arabera kirolean oso murgilduta dagoen unean emakume bat haurdun gera liteke eta honek saiakerak egingo ditu, betiere inguruak laguntzen badio, noski, bere pilotari izaera horri eutsi eta kantxako jardunari segida emateko. Horren inguruan adibide garbiak eman nahi ditu Ibonek, berak laguntzarik ez zuela izan eta ama pilotaria izan zela, adibidez, pilotari amak Iparraldean ama izan eta pilotan darraitenak direla argudiatuz, besteak beste:

Ibone. *“Jarriko dizut adibide bat. Iparraldeko pilotariak. Hori bai dira pilotari amak. Ba, begira, beraiak haurdun geldituta ere gobernuek eta laguntzen diete kirola egiten jarraitzeko. Hemen ez dago horrelakorik. Nik erabaki nuenean ama izatea utzi egin nion pilotari izateari. Utzi nuen, utzi egin behar izan nuen”*.

Martxeli. *“Behar izan zenuen”*.

Ibone. *“Bai, ez neukan laguntzarik eta”*.

Martxeli. *“Baina ez zenuen utziko?”*

Ibone. *“Agian ez. Agian ez, ez dakit”*.

Argia. *“Aukera eduki bazenu?”*

Ibone. *“Hori da, ez neukan laguntzarik”*.

Martxeli. *“Baina senarrak laguntzen bazizun zu palan ibiliko zinen?”*

Ibone. *“Ba jarraitu bai. Jarraitu nuen, baina ez nahi nuen eran”*.

Martxeli. *“Baina jarraituko zenuen”*.

Ibone. *“Eta nik ikusita Iparraldeko pilotariak, Maritxu eta hauek, kirolariak dira eta begiratzen duzu eta amak dira, gainera. Horiek dira pilotari amak. Igual-igual*

jarraitu dute. Nik galdu nuen, gainera, umeak bi urte, zuk esan duzuna, bi urte latzak izaten dira eta gorputza aldatzen zaizu, ez baduzu jarduera egiten. Nik orain ikusten ditut ama gazte asko, umeak utzi, daukate laguntza eta segituan hasten dira kirolean et gorputz segituan etortzen zaie bere erara. Nik bi urte tardatu nituen. Gizendu egin nintzen pila bat, nik dedikazioa ama”.

(Eztabaida-taldea eranskina: 73)

Sakonago beste ezaugarri batzuk ere ezartzen dizkiete hainbat emakumek pilotari ama lez izendaturikoei, esanez haurrak izateko garaian ere elitekoak badira edo mundu mailan puntaren puntan badabiltza haurdun noiz geratu ere begiraten dutela, euren helburu edo jarduna ahalik eta gutxien eraldatzen saiatuz. Horiek amak baino lehen kirolariak izan direla eta direla argudiatzen dute Ibone eta Martxelik ondorengo solasaldian.

Ibone. *“Eiderrek eta noiz erabaki zuten umea edukitzea? Noiz? Mundialak eta pasa eta gero. Horrela jokatu dute”.*

Martxeli. *“Hori da, baldintzatu egiten ditu”.*

Ibone. *“Eta horiek dira kirolari amak”.*

Martxeli. *“Hori da. Niretzako hori da”.*

Ibone. *“Niri etorri zitzaidan etorri zitzaidanean. Ez nuen esan, beno, orain haurdun geratuko naiz eta utzi egingo dut. Ez. Haurdun geratu zara, Garbiñe, ahaztu pala. Horrela, e, ahaztu dena”.*

Martxeli. *“Baina, beno”.*

Ibone. *“Eta hauek senarra ez dakit zer eta beste... ez dakit ulertzen zaidan, horiek dira kirolariak”.*

Martxeli. *“Kirolariak izan beharrean imajinatu dela pertsona bat beste gauza batera dedikatzen dena, e. Eta hori daukala oso barruan”.*

Ibone. *“Baina, hor”.*

Martxeli. *“Eta, orduan, nahiz eta ama izan baldin badauka aukera jarraitzeko bere horrekin”.*

(Eztabaida-taldea eranskina: 76-77)

Ama pilotari eta pilotari amen arteko alderik nabarmen eta azpimarragarriena, beraz, erditu osteko pilotarekiko atxikimendu mailan dago, norbere bizitzan hartzen duen lekuan eta ordenan eta jarduerarekin jarraitu ala ez giltzarria da izaera horiek gorputzerakoan. Horrek, gainera, lotura zuzena du emakume bakoitzak pilota nola sentitu lezakeen eta zenbateraino duen barneratuta kontzeptuekin. Gehienbat joera horrek zehazten du nire ustez zein hurrenkeratan jarri “ama” eta “pilotari” hitzak, konbinaketan garrantzia handiagoa zeri eman, hein batean. Hala ere, ezberdintasun eta

ezaugarriak taula batean biltzeak erraztu egiten du bereizketa nire ustez, ondorengo proposamena taularatuz (ikus 5.1. taula):

5.1. taula.


Ama pilotari eta pilotari amen berezitasunak

	Ama pilotaria	Pilotari ama
Noiztik pilotari?	Ama izan ondoren (kasu gehienetan)	Ama izan aurretik
Noiz haurrak?	Datozenean	Helburu edo txapelketen araberako aurreikuspena
Kirol etenaldia- eraldaketa	Bai (kasu gehienetan)	Ez
Ardurak eragozle	Bai	Ez
Pilotarekiko atxikimendua	Txiki-ertaina	Handia
Pilotari sentimendua	Oso azalekoa	Oso barruan
Kirol konpromisoa	Denbora pasa	Serioa-benetakoa
Pilota ikuspegia	Aisialdia	Errendimendua

Taulako berezitasunak abiapuntu eta oinarrian harturik ama pilotari eta pilotari amak, funtsean, euren lehentasunen artean pilotak daukan kokapenak eta hori erdiesteko hartu beharreko neurriek bereizten dituzte. Horiez gain, beste zenbait xehetasun ere bateraezin edo ez-berdintzaileak dira, besteak beste: pilotari izatera heldutako unea, haurrak izateko unearen erabakitze modua eta arrazoiketa, pilotako jardueran ama izateak dakarkien joera, ardurak eta amatasuna uztartzeko aukera eta laguntza, pilotarekiko konpromiso maila eta jardueran dituzten ikuspegi eta errendimendu nahiak. Hala eta guztiz ere, bada denak zaku berean kokatzen dituen berezitasun nabarmen bat, pilota atsegin dutela eta, aldi berean, amak direla. Ondorioz, hurrenkera dena dela ere bi ezaugarriak dituzte emakumezko hauek guztiek, “pilotari” eta “ama” izenak, multzo bakoitzeko emakumezko bakoitzak dagokion ordenan izanagatik.

5. Ardurak eta pilota zurrumbiloan jira-biraka

Arduren eta amatasunaren inguruko kapitulu honetan zehar mahai gaineratutako ideia eta arrazoibideak azaldu ondoren eta hortik eratorritako ondorioz nagusienak plazaratu aurretik, lagungarri eta argigarri izango den esperantzan, goian jorraturikoa erlazio-sare baten bidez laburbiltzen saiatuko naiz. Modu honetan, diagrama bakar batean, oso eskematikoki, bilduko ditut ardura eta eginbeharren gaiarekin loturik pilotariei eragiten dieten punturik garrantzitsu eta esanguratsuenak (ikus 5.1. irudia).



5.1. irudia. Emakume pilotarien arduretan oinarrituriko erlazio sarea

Nire iragazkia martxan jarri eta eginkizunen gainean goiko puntuetan landutako gai eta atalak muinean hartuta, aldi berean, interpretazio eraikitzailea egiteko asmoa dut atal honetan, hausnarketa mamitsuak eta ikuspegi kritikoa bateratuta. Izan ere, jendarteko korrante eta joerek nabarmen eragin eta baldintzatzen dute emakume pilotariek ardurekiko duten gatazka edo barne-borroka hori, beste hainbat jarduera eta ingurumaritan gertatzen den lez pilotan ere itzal luzea eta erro sakonak baititu kultura edo inguru sozialak; nondik gatozen eta nora goazen, askotan horrek norabidetzen du neurri handi(egi) batean ibilbidea guk nahi ala ez. Pilotako esparrua ez da salbuespen edo desertuko oasia oraingo honetan ere.

Arduren mataza mardula eta majo korapilatua da emakume pilotarien kasuan, atzapar luze eta zorrotzekoa zenbait unetan, gainera. Esparru honetan ere genero sistemak badu zeresana. Nabaria da pilotan diharduten emakume guztiei eragiten diela auzi horrek eta euren jarduera zenbaitetan nahi baino gehiago baldintzatu eta mugarazten diela ere bai. Eginbeharrek zipriztindua da emakumezko pilotarien egunerokoa, euren emakume izaera horri jendarteak atxikiriko identitateak eta bete beharreko rolak bitarteko. Izan ere, euren aisialdiko jarduera bat gehiago da pilotako jarduna eta euren bizitzan denbora eta espazio bat, norbere hautuaren arabera handiagoa ala txikiagoa izango dena, eskaintzen diote. Guztien kasuan, ordea, aisialdiko jarduera hori gainerako lan eta eginkizunekin uztartu beharra begi bistakoa iruditzen zait eta oztopoak ere aurkitzen dituzte (Sorensen eta Gill, 2008) pilotariek zeregin horretan. Horrek sarri eragiten die buruhauste, zalantza, galdera eta egonezina hainbati. Gaur gaurkoz, emakume pilotari gehienei dagokienez, kulturalki eta sozialki gizon zein emakumei atxikiriko rol tradizionalen joerak bertatik bertara jarraitzen dituztela azpimarratu nahi dut, lehentasunak lana, familia eta etxeko ardurak bihurtuz eta euren aisialdia baldintzatu (Dilley eta Scraton, 2010; Thompson, 1990). Ildo horren baitan eta horren arabera hartu ohi dute parte emakumeek pilotan, sistema patriarkal eta androzentrikoko hierarkiaren baitan kokatzen baitira (Díez, 2000), ustezko gizonezkoen nagusitasunak markatuta. Ama, bikote, langile eta zaintzaile zereginak uztartu beharra daukate (Dixon, 2009; Im eta kideak, 2008; Miller eta Brown, 2005). Hori dela eta, lehentasunak ezartzeko garaian ere adin eta egoera batzuetatik aurrera pilota ez da gauza garrantzitsuen artean aurkitzen eta askotan neskak etapa batetik aurrera zeregin “inportanteagoetara” bideratzeko joera oso nabaria da (Díez, 2006), pilotan aritzea denbora galtze lez interpretatuz eta ondorengo bizitzarako prestatzeko beharrezko gaitasunak eskuratzeko aukeretatik kanpo kokatuz. Jokabide horiek, ordea, kalte baino ez diete egiten pilotariei, gatazka sortuz denboraren antolaketak berekin dakartzan zailtasunak medio (Currie, 2004).

Edozein ertzetatik heldu eta aztertuz gero nabarmena da oso emakume pilotariek arduren muga oso-oso barruan iltzatua dutela, sistemaren egiturazko ezaugarriak zein bestelako bizipenak direla eta. Ezin da ahaztu jaiotzen garen unetik hezten gaituztela ardurak aintzat har ditzagun neska eta emakumezkoak, bederen. Mutil eta gizonak ere bai, baina zenbaitetan ez intentsitate eta norabide berean. Gainera, berdintasunera bidean aldaketa gauzatzeko benetako zailtasunak daude, ez sistemako pilareetan bertan

soilik, norbanakoen aztura zein pentsamenduetan zer esanik ez, erro mardul-mardulak lurpean finkatuta dituen alorra baita arduren banaketa desorekatuarena. Emakume pilotariak ere arduradun nagusi dira euren etxeoandre, bikote, langile eta gainerako eginbeharretan. Eta hau ez da kasualitatea. Hortaz, nahiz eta aldaketa beharra ezinbestekoa den Duranek (2005) aipatu bezala, eta hitzez diskurtso politikoki zuzenetan askotan entzun izan dudan arren, bada ordua, gaur bihar baino hobeto, benetan korapilo zaharkituak askatu eta eraldaketak sustatzeko, emakume pilotarien jardunbidea oreka dezagun, inongo eragozpen edo aitzakia merkerik erabili gabe, eta arlo honetan ere balantza hain nabarmen beti alde bakarrera makur ez dadin saiakera eta apustu irmoak egiteko. Korapiloak askatzeko emakume pilotariak sareak eraikitzea funtsezkoa da, bereziki inguruko artean, pilotan aritzeko traben ondorioz euren jardunari eta paletari izaerari muzin egin beharrik izan ez dezaten, pilotak daukan eta izatea nahi duten garrantzia nolakoa den norberak erabaki dezala eta ez testuinguruko onarpen edo onespenak. Joera horrek, ordea, indarra izaten jarraitzen du gure inguruan oraindik ere. Beraz, eragile zein pertsona orok hartu behar genuke gure ardura, bakoitzaren hondar aletxoak elkarrekin batuz urrats sendoak eman eta egoerak irauli eta aurrera jauzi garrantzitsua ematea berma dezakegulako. Hori bai, kasu bat baino gehiagotan horretarako itxurakeria eta arrazoibide zurietatik haratagoko konpromisoak hartu behar direla iruditzen zait, sinesmenetik eta hobetzeak mundu guztiarentzat onurak dakartzan ustetik abiatuak.

Kontuak kontu, ehunekorik altuenean pilotariak ardurek ainguratuta eta mugatuta badihardute ere, onurak ere baditu pilotako jardunari heltzeak emakumeentzat. Izan ere, emakumeen beraien momentua da frontoi inguruan osatzen duten hori, askotan lotzen eta itotzen dituzten arduetatik ihes egin eta euren ongizatea lortzera bideratuak, zeharka ingurukoenera ere bai, oreka egoeran eta gustura sentituz, euren burua lehenesten baitute gainerako guztien gainetik (Bialeschki eta Michener, 1994; Currie, 2004; Dilley eta Scraton, 2010; Dixon, 2009; Miller eta Brown, 2005; Roster, 2007; Spowart, Burrows eta Shaw, 2010). Gainera, momentu hori baliatzen dute erdua ematea sustatzeko ere, balore positiboen transmisioa ahalbidetuz ondorengoei, emakume helduek pilotan jokatzeko naturaltasunez eta normaltasunez burutzen dutela erakutsiz lau haizetara. Pilotariak ohiko egituretatik eta betebeharren katetik aske, hegoak ebaki gabe, dabilzan une horietan, eurentzako denbora eta espazioa hartu eta probestuz ahal duten moduan, oxigeno zakua bete dezakete berriro ere egunerokotasuneko eginkizun eta lanetan indartsu aritzeko. Ihesaldi horiek, diren neurrikoak eta tarte txikiak izan arren, arnas berritzaile eta mesedegarri dira emakumeentzat, pilota ezinbesteko tresna bihur baitaiteke berrindartze prozesu horren baitan. Hain onuragarri izanda, beraz, zergatik hartzen dituzte zenbait pilotarik hain arnasaldi gutxi pilotalekuetan? Zergatik izaten dira hainbeste hutsegite, adibidez, aisialdiko amen artean? Ezingo ote liriateke beste moduren batera antolatu errutina ahazteko lagungarri zaizkien paleta saioetara agertzeko? Edo euren arnasaldiak ere hipotekatu behar dira emakume eta arduradun nagusiak direlako beste oroz gaindik? Nik ez dut uste hala behar lukeenik, baina, tamalez, hala izaten da behin baino gehiagotan.

Arduren artean bada eraldaketa eta berrantolaketa handia eskatzen duen bat: amatasuna. Pilotariengan ere eragin nabaria du ama izateak, aisialdiko ia pilotari denak identitate horren jabe direlako eta federatuen artean ere, gutxiago izan arren, bat baino gehiago direlako seme-alabak dituztenak. Amatasunaren indarra eta eragina oso handia da, kasik gainontzeko guztia beste maila batean utziz, haurren ardura bihurtzen baita lehentasun, familia ardurak ardura goren, amatasun inklusiboaren eredia baita testuinguruan nagusitzen dena (Imaz, 2007). Pilotako esparruan ere bai, pilotaria dena dela ere. Aisialdiaren berrantolaketa horren baitan, gainera, irizpide mugatzaile handi bat haurren adina da, jarduera etetea, eraldatzea edo mantentzea eragin baitezake une eta egoeraren arabera. Haur txikiak mugatzaileagoak dira eta koskortzen doazen heinean askatasuna gehitzen doakie amei (Bialeschki eta Michener, 1994; Dilley eta Scraton, 2010; Im eta kideak, 2008; Miller eta Brown, 2005; Roster, 2007; Wearing, 1993). Pilotariak ere euren jarduna batez ere haurren ongizate, jarduera, nahi eta joeretara bideratu ohi dute eta hortik aparte geratzen zaizkien tarteak aprobetxatzen saiatzen dira euren zaletasun honi eskaintzeko. Hori dela eta, haurrek kasurik gehienetan bi guraso izaten dituztela aintzat hartuta, senar edo bikotearen laguntzaren arabera (Brown eta kideak, 2001; Dixon eta Bruening, 2005; Miller eta Brown, 2005) pilotan jarduteko aukera ere baldintzatzen da, ikerlaneko adibideetan agertu bezala funtsezkoa baita haurrek zaintzaile bat izatea amak frontoira joango badira. Batzuk jarduna etetera behartu ditu kidearen inplikaziorik ezak, adibidez. Hala ere, bada indar eta eragin izugarria duen beste faktore bat ere ama pilotarien jokabide eta sentimenduetan: errudun sentimendua. Izan ere, emakumeak besteen arabera antolatzen badu bere egitekoa eta bere bizitza oro har (Del Valle eta kideak, 1985), besteak ez lehenesteak, soldatapeko lanerako ez den gainerako kasuetan, gatazka eta barne-korapiloak azalarazten ditu. Joera hau, gainera, zuzenean dago erabat generoak zipriztindua eta norabidetua (Buzzanell eta D'Enbeau, 2009).

Pilotari eta ama direnen joera eta jokabideak nire iragazkitik pasata aztertu eta xehatzen saiatze aldera, beraz, badirudi ama den norbaitek hori lehenesten duela beste guztiaren gainetik eta seme-alabak uneoro dituela bere garunean kolpeka, ama ez zen garaietan ez bezala zilborresteak tenkor eta oso estu mantenduz. Lehenengo ama dira eta hortik koska pare bat beherago gainerako ezaugarri guztiak jartzen dituztela dirudi. Hala ere, iruditzen zait lehentasunen arabera, eta ama direla ahaztu gabe bada ere, profilak ezberdintzea garrantzitsua dela, pilota munduan badirelako ama pilotariak eta, gutxiengoa izan arren, baita pilotari amak ere. Nire ustez, azken hauek egiten diote aurre, neurri batean, nolabait esatearren, ohiko amatasun ereduak ezarritako arazoibideari, ez dutelako euren pilotari izaera baztertu eta aldarazten ama bihurtuta ere. Izan ere, asko dira gure esparruan ere jarduera uzten edo eraldatzen dutenak, beste hainbat jarduera fisiko motatan bezala (Frohlick, 2006; Migliaccio eta Berg, 2007; Spowart, Burrows eta Shaw, 2010). Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa iruditzen zait emakume pilotari guztiek dutela letra larriz edo ia tamaina irakurtezinean pilota ere euren izatearen baitako txokoren batean jaso, guztiek dutela pilotari izaera hori. Gainera, ez dira batzuenak besteenak baino hobeak ez okerragoak, ezberdin eta aberasgarriak baizik eta guztiak zilegi. Elkarrekin uztargarri eta osagarriak ere badira

zenbaitetan. Beraz, ama pilotaria edo pilotari ama izatea norberak bere kabuz eta askatasunez erabakiriko identitatea bada, denak dira ongi-etorriak niretzat behintzat. Amatasunaren auziarekin amaitzeko, berriz, beste zalantza edo galdera-iturri bat ere badaukat: ama direnentzat eskaintza berezitua behar ote litzateke? Ikastaro eta entrenamenduetako ordutegiak egokienak al dira? Iluntzeetan baino errazago ez ote litzateke entrenamenduak ilundu aurretik eta seme-alabak beste eskolaz kanpoko jardueraren batean dituztenean eskaintzea? Edo bikotekideak hurrez arduratzen direnean, egokiago, akaso? Alderik izango ote litzateke bertaratuko liratekeen pilotari kopuruan, eta seme-alabei edo bikoteen gorabeherak medio gertaturiko kale egiteak zenbaterainokoak izango ote lirateke? Hain garbia ote litzateke ama pilotari eta pilotari amen arteko ezberdintasuna denbora beste era batera antolatzeko aukera eskainiz gero? Uste dut badagoela zertan pentsatu eta non arakaratua, norberak atera ditzala bere kalkuluak eta ebatzi ekuazioak, pilotari adina errealitate aurkitu baititut han-hemenka.

Laburbilduz, beraz, arduren eta hauen banaketaren ildoan ere aldaketa eta hobekuntzetara begira beharrezko neurriak hartzeko premia larria dela deritzot, guztiguztiok eta indar betean egin beharrekoa, gainera. Ildo berean, helburu hori lortzeko denborari ihesi joaten ez uztea komenigarria eta oinarrizkoa dela uste dut, pilotariek emakume eta jendarteko arduren arduradun goren izateagatik pairatzen duten desoreka ez betikotzea komeni delako. Era berean, euren momentuak eta askatasuna bermatu eta euren burua lehenesteari garrantzia ematea ere funtsezkoa iruditzen zait, ororen hobebereharrez, eta bereziki pilotarientzat eurentzat mesedegarri delako. Oreka bultzatu behar dugu gizon eta emakumeen artean ardura banaketan ere eta hori denon eginbeharra da. Ez daukagu aitzakiarik eta aurretik nahikoa urte, hamarkada eta mendek ihesi egin digute berdintasuna hitza ahotan hartuta, baina ezberdintasunean ainguratuta.

6. Erreferentziak

- Ajenjo Cosp, M. eta García Román, J. (2011). El tiempo productivo, reproductivo y de ocio en las parejas de doble ingreso. *Papers*, 96(3), 985–1006.
- Arendell, T. (2000). Conceiving and Investigating Motherhood: The Decade's Scholarship. *Journal of Marriage and Family*, 62(4), 1192–1207.
- Artazcoz, L., Borrell, C. eta Benach, J. (2001). Gender inequalities in health among workers: the relation with family demands. *J Epidemiol Community Health*, 55, 639–647.
- Auster, C. J. (2008). The Effect of Cohort on Women's Sport Participation: An Intergenerational Study of Collegiate Women Ice Hockey Players. *Journal of Leisure Research*, 40(2), 312–337.
- Bialeschki, M. D. eta Michener, S. (1994). Re-Entering Leisure: Transition within the Role of Motherhood. *Journal of Leisure Research*, 26(1), 57–74.
- Brown, P. R., Brown, W. J., Miller, Y. D. eta Hansen, V. (2001). Perceived Constraints and Social Support for Active Leisure Among Mothers With Young Children. *Leisure Sciences*, 23(3), 131–144.

- Buzzanell, P. M. eta D'Enbeau, S. (2009). Stories of Caregiving: Intersections of Academic Research and Women's Everyday Experiences. *Qualitative Inquiry*, 15(7), 1199–1224.
- Comas D'Argemir, D (2000). Mujeres, familia y estado del bienestar. In T. Del Valle (Ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social* (187–204). Barcelona: Ariel
- Craike, M. J., Symons, C. eta Zimmermann, J. A. M. (2009). Why do young women drop out of sport and physical activity? A social ecological approach. *Annals of Leisure Research*, 12(2), 148–172.
- Currie, J. (2004). Motherhood, stress and the exercise experience. Freedom or constraint. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 23(3), 225–242.
- Del Valle, T. (2001). *Famili bizitzaren eta gizarte bizitzaren arteko kontziliazioa*. Gipuzkoa2020 Hausnarketa Estrategikoaren Prozesua. 2001eko abuztua. http://www.gipuzkoa.net/g2020/docum/G2020-Gizartea-delValle_eu.pdf (2013ko irailaren 11n kontsultatua).
- Del Valle, T., Apalategi, J., Aretxaga, B., Arregui, B., Babace, I., Díez, M. C., Larrañaga, C., Oiarzabal A., Pérez, C. eta Zuriarrain, I. (1985). *Mujer vasca. Imagen y realidad*. Barcelona: Ed. Anthropos.
- Díez, C (2000). Maternidad y orden social. Vivencias del cambio. In T. Del Valle (Ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social* (155-185). Barcelona: Ariel
- Díez, C. (2006). Juventud y deporte. Una propuesta de cambio en la organización tradicional de la actividad deportiva. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, 61(2), 129–144.
- Dilley, R. E. eta Scraton, S. J. (2010). Women, climbing and serious leisure. *Leisure Studies*, 29(2), 125–141.
- Dixon, M. A. (2009). From Their Perspective: A Qualitative Examination of Physical Activity and Sport Programming for Working Mothers. *Sport Management Review*, (12), 34–48.
- Dixon, M. A. eta Bruening, J. E. (2005). Perspectives on Work-Family Conflict in Sport: An Integrated Approach. *Sport Management Review*, (8), 227–253.
- Du, J. (2008). Women's Leisure as Reproduction and Resistance. *Affilia*, 23(2), 179–189.
- Durán, M. Á. (1986). *La jornada interminable*. Barcelona: Icaria.
- Durán Heras, M. Á. (2005). Mujeres y hombres en el siglo XXI. *Cuenta y razón*, (138), 45–60.
- Frohlick, S. (2006). “Wanting the Children and Wanting K2”: The incommensurability of motherhood and mountaineering in Britain and North America in the late twentieth century. *Gender, Place and Culture*, 13(5), 477–490.
- Griffin, C., Hobson, D., MacIntosh, S. eta McCabe T. (1985). Women and Leisure. In J. Hargreaves (Ed.), *Sport, culture and ideology* (2. ed.) (88–116). London: Routledge & Kegan Paul.
- Henderson, K. A. eta Hickerson, B. (2007a). Research Update: Women and Recreation Opportunities. *Parks & Recreation*, 42(4), 26–29.

- Henderson, K. A. eta Hickerson, B. (2007b). Women and Leisure: Premises and Performances Uncovered in an Integrative Review. *Journal of Leisure Research*, 39(4), 591–610.
- Huberty, J. L., Ransdell, L. B., Sidman, C., Flohr, J. A., Shultz, B., Grosshans, O. eta Durrant, L. (2008). Explaining Long-Term Exercise Adherence in Women Who Complete a Structured Exercise Program. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 79(3), 374–384.
- Im, E.-O., Chee, W., Lim, H.-J., Liu, Y. eta Kim, H. K. (2008). Midlife Women's Attitudes Toward Physical Activity. *Journal of Obstetric, Gynecologic, and Neonatal Nursing*, 37(2), 203–213.
- Imaz Martinez, M. E. (2008). *Mujeres gestantes, madres en gestación. Representaciones, modelos y experiencias en el tránsito a la maternidad de las mujeres vascas contemporáneas*. Doktorego Tesia. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- Johnston, D. D. eta Swanson, D. H. (2007). Cognitive Acrobatics in the Construction of Worker–mother Identity. *Sex Roles*, 57(5-6), 447–459.
- Kamphoff, C. S. (2010). Bargaining With Patriarchy: Former Female Coaches' Experiences and Their Decision to Leave Collegiate Coaching. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 81(3), 360–372.
- Maroto-Navarro, G., Castaño-López, E. eta García-Calvente, M. del M. (2007). Indifference, Demandingness and Resignation Regarding Support for Childrearing: A Qualitative Study with Mothers from Granada, Spain. *The European Journal of Women's Studies*, 14(1), 51–67.
- Migliaccio, T. A. eta Berg, E. C. (2007). Women's Participation in Tackle Football. An Exploration of Benefits and Constraints. *International Review for the Sociology of Sport*, 42(3), 271–287.
- Miller, Y. D. eta Brown, W. J. (2005). Determinants of Active Leisure for Women with Young Children. An "Ethic of Care" Prevails. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 27(5), 405–420.
- Nomaguchi, K. M. eta Bianchi, S. M. (2004). Exercise Time: Gender Differences in the Effects of Marriage, Parenthood, and Employment. *Journal of Marriage and Family*, 66, 413–430.
- Pfister, G. (2004). Deporte, género y etnicidad. El caso de las mujeres inmigrantes. *Apunts. Educación Física y Deportes*, (78), 117–124.
- Piedra de la Cuadra, J. (2009). Aproximación al estudio de la actividad física y deportiva en la vida de las gitanas mayores de 55 años en exclusión social. *Cultura, Ciencia y Deporte*, 4, 141–148.
- Rocha-Sánchez, T. E. eta Díaz-Loving, R. (2005). Cultura de género: La brecha ideológica entre hombres y mujeres. *Anales de psicología*, 21(1), 42–49.
- Rodríguez Arregi, R. (1998). *Procedimiento de intervención para el incremento de la adherencia a la actividad física*. Doktorego Tesia. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- Roper, E. A. (2008). Women's Career Experiences in Applied Sport Psychology. *Journal of Applied Sport Psychology*, 20(4), 408–424.

- Roster, C. A. (2007). "Girl Power" and Participation in Macho Recreation: The Case of Female Harley Riders. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 29, 443–461.
- Salguero Pérez, A. eta Martos Fernández, P. (2011). Desigualdad de género en competiciones populares de fondo. *Apunts. Educación Física y Deportes*, (103), 91–100.
- Sánchez-Herrero Arbide, S. (2008). La importancia de la perspectiva de género en la psicología del ocio. *Anales de psicología*, 24(1), 64–76.
- Solé Puig, L. C. eta Parella Rubio, S. (2004). Nuevas expresiones de la maternidad: las madres con carreras profesionales ¿exitosas? *RES. Revista Española de Sociología*, 4, 67–92.
- Sorensen, M. eta Gill, D.L. (2008). Perceived barriers to physical activity across Norwegian adult age groups, gender and stages of change. *Scandinavian Journal of Medicine & Science in Sports*, 18(5), 651–663.
- Spowart, L., Burrows, L. eta Shaw, S. (2010). "I just eat, sleep and dream of surfing": When surfing meets motherhood. *Sport in Society*, 13(7-8), 1183–1203.
- Such, E. (2006). Leisure and Fatherhood in Dual-Earner Families. *Leisure Studies*, 25(2), 185–199.
- Swanson, L. (2009). Complicating the "Soccer Mom:" The Cultural Politics of Forming Class-Based Identity, Distinction, and Necessity. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 80(2), 345–354.
- Thompson, S. M. (1990). "Thank the ladies for the plates": the incorporation of women into sport. *Leisure Studies*, 9(2), 135–143.
- Thomsson, H. (1999). Yes, I used to exercise, but ... A feminist study of exercise in the life of Swedish women. *Journal of Leisure Research*, 31(1), 35–56.
- Thrane, C. (2000). Men, women, and leisure time: Scandinavian evidence of gender inequality. *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, 22(2), 109–122.
- Tobío, C. (2012). Cuidado e identidad de género. De las madres que trabajan a los hombres que cuidan. *Revista Internacional de Sociología*, 70(2), 399–422.
- Tsai, C.-T. L. (2011). Dilemma and conflicts in Taiwanese women's leisure participation. *Social Indicators Research*, 103(1), 131–144.
- Wearing, B. (1993). The family that plays together stays together: or does it? Leisure and mothers. *World Leisure & Recreation*, 35(3), 25–29.

6. kapitulua

Ondorioak, mugak eta etorkizunerako proposamenak

Azken kapitulu honetan, ikerlanaren azken hondarrea, bertatik eratorritako ondorioak plazaratuko ditut, proposamenetarako kontuan izan beharreko oinarritzko jardun-lerroak eta sustapen zein hedapenerako giltzarriak gaineratuz. Horrez gain, ikerketa burutzean aurkituriko mugak eta etorkizunerako emakume pilotarien gaiarekin loturik jorra daitezkeenak ere aurkeztuko ditut.

1. Ondorioak

Azterlaneko aurreko hiru kapituluetan atal bakoitzeko gairik esanguratsuenen gogoeta ildoak plazaratu ditut. Kasu honetan, berriz, lanaren emaitzak eta eztabaidak, nahiz berauetatik eratorritako ondorioak, aztertu ostean guztiak elkarrekin erlazionatu eta uztartuta agertuko ditut, elkarrekin oso harreman estu eta etengabea daudelako alor horiek guztiak. Izan ere, errealitate bakarra da ikerlan honetan zehar aztertu dudana, atal ezberdinetan aurkeztu badut ere.

Emakume pilotarien inguruan egindako ikerlan honetan **euskal pilotan diharduten Euskal Herriko emakumeen errealitatea ezagutzea ahalbidetu dut**, egoeraren gaineko hausnarketa sakona egin eta azterketa mardul bezain mamitsua plazaratuz. Hori dela eta, ikerketa honen helburu nagusia beteta dagoela esan nezake, oinarriak finkatu baititut gaur egungo emakume pilotarien nondik norakoak miatu, ezagutarazi eta

erroetarainoko ibilbidea eginda atzean, itzalean eta era ikusezinean, askorentzat, dagoena kanporatuz. Gainera, gai honen inguruan modu honetan aurretiaz sekula egin gabeko azterlana izan da, berritasuna euskal pilotaren munduan emakumeen alorra jorratzen duen gisa honetako azterketa bat. Ez emakumeentzat soilik, ordea, ez da “emakumeen kontua”, komunitatea osatzen eta edozein alorretakoak izanik ere interesa duten guztientzat baliogarria baizik. Beraz, iruditzen zait hondar aletxo bat jarri dudala aurrera bidean, erronka gehiagoren atariko lez ikusten baitut honako lan hau. Abiapuntua izan da, lehen harria. Oraindik bide luzea daukagu aurretik, hemendik aurrera segituko dugu geure etxea geure eran, berdintasunean eta askatasunean oinarrituz, eraikitzeke ahalegin eta ametsetan.

Azterlanari ekitean, hasierako faseetan, sorturiko galderei eta barne-harrak elikaturiko jakin-minari erantzuna eman diet pitinka-pitinka eta puntuz puntu. Batetik, fokua pilotariengan, aktore nagusiengan, jarri eta emakume pilotariak izatearen ezaugarri eta esanahiak agertuz, pilotako eskenatokiek duten zentzua definituz, pilotako jarduera ezberdinak mamituz, pilotarien izaera eta nortasunaren garapenari erreparatuz eta ikuspuntu ezberdinen arteko talka, desoreka eta gatazkak plazaratuz. Bestetik, aldiz, fokua jendarte orokorrean jarri eta bertako ikuspegi eta deskribapenak ere xehatu ditut, ezinbestekoa baita bi aldeetako egoerak aztertu eta uztartzea kirol honen gaineko ikuskera bat plazaratu aurretik, pilotariak jendartean eta jendarteak pilotariengan etengabeko elkarreragina baitute. Ondoren dituzue puntuz puntu ondorio horiek.

- Euskal pilotako eredia androzentrikoa da.

Hausnarketa orokor moduan, eta zuhurtzia osoz, lehenengo eta letra larriz azpimarratu beharrekoa iruditzen zait euskal pilotako eredia androzentrikoa dela eta pilotaria ere, izan gizonezko zein emakumezkoa, jendarteko genero-sistemaren baitan kokatu eta aztertu beharra dagoela. Maskulinitasun hegemonikoak ezarritako arau, balio eta baldintzen sistemak sustrai sendoak ditu gaur gaurkoz. Ildo honetan, pilota ez dago beste hainbat kirol zein arlorekiko dimentsio ezberdin batean; hortaz, egiturazko ezberdintasunak sortu, mantendu eta sustatzen ditu euskal pilotak ere. Hori dela eta, emakumeentzat egoera nekezagoa eta konplexuagoa da askoz ere, desorekatua, sexista, diskriminazio eta oztopo ugariak, muga zein zailtasun iturri dena. Askotan, eta askok, berezko eta naturalizat jotzen dute kirol hau gizonezkoen kirol lez etiketatu eta estereotipatutako kirola izatea edo emakumeek euren lehentasun, eginbehar edo ardurak medio esparru honetan jardun ahal izateko aukera mugatuagoa izatea, emakumei atxikiriko aurreiritzi, uste eta irainen itzal luzean oinarrituta. Hori, ordea, eraikuntza soziala delako gertatzen da, ez zerutik etorri delako hautu hori, esku edo izaki misterioitsu batek hala nahi zuelako eta aldatzeko zer eginik ez dagoelako, egiturazko ezberdintasunetan finkaturiko jendarte baten isla baizik ez da euskal pilotan emakumeek bizi duten errealitatea.

- Emakume pilotariek identitate propioa eraikitzen dute, identitate kolektibo partekatu bat.

Emakume pilotariek euren identitatea eraikitzen dute pilotako testuinguruan aritzearen poderioz. Egia da taldeak homogeneo bezain heterogeneoak izaten direla, errealitate ezberdinak batzen direlako pilotariak elkartzean, baina multzo horrekin identifikatuta sentitzeko ezaugarriak dituzte bateratzaile, funtsean, identitate kolektibo partekatu bat. Izan ere, gutxietsi, estereotipatu eta alboratuak izateko arriskuak multzo sendoak osatzea errazten duelakoan nago, talde sentimendu, izaera eta elkarri eskainiriko babesa areagotuz. Talde giro eta harreman-sare horrek indartu egiten du emakumeek elkarrekin (ere) jardun nahi izateko borondatea. Gainera, joera hau era berean estu lotzen dut arduetatik ihesi eta jendartearen arabera euren rola baztertuz pilotari eskaintzeko denbora hartzearekin. Izan ere, sistemak sorturiko oztupoak gainditu eta ahalduntzeko, gutxiespen eta zailtasunei aurre egiteko ezinbesteko baldintza da halako jokabideak hartu eta mantentzea. Emakume pilotariek euren bizitzari esanahia emateko ataletako bat badute pilotarekin erlazionatutako mundutxo hori, pilotari atxikiriko une orotan euren azpi-kultura osatuz neurri handiagoan ala txikiagoan, noski.

Emakume pilotariek identitarioki antzekotasun ugari dituzte: izaera borrokalaria, diskriminazio eta sexismoaren eragina, kultura eta korrante sozial nagusien atzaparrak, talde sentimendu eta giroaren beharra eta erlazio sare berriak sortzeko nahia. Aldi berean, ordea, ezberdintasun nabarmenak ikusten ditut hainbat arlori erreparatuz gero pilotara nerabezaroa baino lehen eta ondoren iritsi diren emakumeen bizipen eta nortasunen garapenean, aisialdian nahiz federatuta dihardutenen ezaugarrien artean (jardun-ildoak, konpromiso maila, lehiakortasuna), ama pilotari zein pilotari ama direnen nahiz ez direnen zaintza zein rol tradizionalerako ikuspegiaren artean eta eginbeharerako jarrera eta jokabideei heltzeko orduan. Hori horrela dela jakinda, pilotan jarduteko arazoiei bagagozkie, ordea, denak bateratzen dira berriro ere, denek oso antzeko asmoak dituztelako adinak adin, izaerak izaera eta jardun-arloak arlo izanagatik. Multzo heterogeneoa izan arren aniztasun hori errespetatuz inklusioa lehenesten dute pilotariek euren kideengan.

- Pilotako jardura askatasun unea da emakumeentzat, euren momentua, arduren eragozpen eta egunerokotasunarekin loturiko kontuak alboratu eta gozatzeko unea.

Azpimarratu nahi dut pilota onuragarri dela jarduleentzat, emakumeen momentua dela, euren eguneroko agenda hain betean aske sentiarazten dituzten egoerarako bat, emakumeari emakume izate hutsagatik jendarteak ezarritako motxila astuna alboratzeko aukera bat. Pilotaren inguruan sorturiko edozein hartu-emanetan nabarmentzen da hori eta horrek ahaldundu eta beste askorentzat eredu zein erreferente bilaka daitezen ezinbesteko garrantzia du, ondorengoei balio transmisio baikorrean lagunduz, emakume helduek eta amek pilotalekuekin berdinean jardun dezaketela eta jarduten dutela erakutsita. Askatasun eta ihesbide den egoera horrek, gainera, garrantzia handiagoa du

nire ustez aisialdiko jarduera bat dela aintzat hartuta eta aisialdia zein mugatua duten ikusita. Gai honen beste ertz bati helduta, gainera, amatasunak berrantolaketa eta eraldaketa handia eragiten du, haurrak ez gainontzeko beste guztia maila batzuk behe-rago uzterainokoa, zaintzaren etika eta errudun sentimendua nahaspilatzen baitira eginbeharren zerrenda amaigabea. Ondorioz, arlo honetan ezinbestekoa iruditzen zait bikote edo aiten inplikazioa eta parte-hartze aktiboa, haurrak eta ardurak eurenak ere badirelako. Askatasun hori errespetatzen lan egin beharra daukate, gainera, eta euren emazte edo neskalagunen askatasun momentuak bultzatu, denentzat baita onuragarri emakumeak beren buruak lehenestetik abiatzea.

- Emakume pilotariak ikusezinak dira. Ez dira bultzatu, babestu eta nabarmendu (nahi).

Emakume pilotariak burutzen dituzten jardueren eta euren baitako ezaugarriak dagokienez, ez dut uste zalantza eta erreparatu handirik egon behar lukeenik ia batere ez direla bultzatu, babestu eta nabarmendu (nahi) esateko. Izan ere, ez zaie euren jardunei oihartzun eta sustapenik ematen eta, gainera, gutxietsiak, ikusezinak eta ezezagunak (izan) dira. Oso (g)une zehatzetan bakarrik izan dira emakumezko pilotariak aintzatetsiak, ia oharkabea edo ezkutuan pasaz gehiengo nagusi batean. Hori zuzenean dago lotuta emakumezko pilotarien erreferentzia eta eredu faltarekin eta baita egitura sendo eta egonkorren gabeziarekin ere, kilometro gutxiko tartean litekeena delako elkarte handi batean emakumezko pilotariak izatetik, adibidez, Hernanin, badirenik ere ez jakitera igarotzea, adibidez, Andoainen. Bi herri hauek hartu arren ia edozein eskualdetan koka nezakeen aurreko esaldia, zoritxarrez: Mallabia eta Ermua, Bergara eta Oñati, Etxarri-Aranatz eta Lakuntza, Dulantzi eta Agurain edo otu dakizkigukeen gertuko bi herri. Errealitatek abiatuz, beraz, uste dut badela garaia, behingoz, eta benetan, ekintzetarako urrats sendoa emateko, apustu irmoa eginaz euskal pilotan ere emakumeon eskubideen eta parekidetasunaren alde. Tradizioaren izenean besoak gurutzatuta geratzea akats galanta dela deritzot, hori aitzakia merkea baino ez baita, egoera eraldatzeko eta hobetze bidean saiatzeko imintzio eta intentziorik eza; hipokrisia. Jendarteko esparru bakoitzean benetan saiakera serioa eta kontzienteki egingo balitz ez dut uste emaitzak ikusi, erro zaharrak zalantzan eta dantzari jarri eta egoera iraultzen hasteko hainbeste itxaron beharko genukeenik, gainera.

Banan-banan errealitatea xehatzen hasita pilotaren ingurumari eragile guztiak, hedabideak, herri naiz herrialde mailakoak, erakunde publiko eta pribatuak, pilota elkarteak, pilotariak zein ikusleak errealitateaz jabetu daitezzen hezi eta esparru honi bultzada eta babesa ematera bideratu beharko genituzkeela uste dut, emakume pilotariak egiten dutena baloratu eta onetsiz hala baldin badagokigu. Badakit, ez du inork atea parez pare irekiko lehenengoan, akaso hamargarrenean bai, eta ez da bidea arrosa kolorekoa eta lau-laua izango, baina garbi daukat guztiok bat eginda norabide berean eta indarrak batuta bildu ezean jai izango dugula berdintasunera bidean. Orain artekoari begiratu azkar bat ematea nahikoa da horretaz jabetzeko. Politikoki zuzenak guztiok gara gaur egun, itxura batean berdintzaleak ere bai, baina uste dut ekintzaile izatea falta

zaigula eta hortik abiatu beharra dago, zurikeria alboratu eta zuzentasunez, oinarrian bete-betean murgildu eta itzulinguruka aritu gabe, gaiari zentzuz eta tentuz helduz.

Ondorio nagusietatik abiatuz, euskal pilotako emakumeen egoera hobetu eta iraultzeko proposamen berriak gauzatzea beharrezkotzat jotzen dut. Hobekuntza proposamenak planteatuko ditut segidan, gidalerro esanguratsuenak oinarrian jarrita lehenengo, ondoren sustapena eta hedapena helburu hartuta ekintza zehatzagoak agertuz, egoeraren inguruko gogoetatik abiatu eta neurriak ezartzeko aintzat hartzea komeni den aholku edo gomendio multzoa sortuz.

1.1. Proposamenetarako oinarritzko jardun-lerroak

Oinarritzko ezaugarri eta adierazle batzuk izan beharko lituzkete muinean erakunde zein norbanako guztien jarduerak emakume pilotariei babesa eta bultzada ematerakoan, jendartean benetako sentsibilizazioa eta onespina lortzeko. Alderdi hauek oso gomendagarriak izango lirake euskal pilotan diharduten emakumeei zuzenduriko edozein egitasmo abian jarri nahi bada, euren behar eta nahietan oinarrituta baitaude. Maila guztietan, hastapen, errendimendu nahiz aisialdian, gainera, parte hartze eta atxikimendu mailan eragin zuzena baitute:

- Kideen arteko hartu-emanak landu eta sakondu pilota saioetan zein bertatik kanpo.
- Entrenatzaile eta pilotarien arteko elkartrukea garatu, nagusiki, ez autoritate edo estatus ezberdintasunean oinarrituta, babes eta sostengua ardatz harturik baizik.
- Talde izaera, giroa eta sentimendua bultzatu, besteekin partekatu eta harreman sareak osatu.
- Pilotatik kanpoko jarduerak antolatu taldeetan elkarrekiko konfiantza, konplizitate eta errespetu mailak igo eta harremanak indartzeko.
- Aurreiritzi sexista, kulturako korrante nagusien ildo eta estereotipoei aurrea hartu. Emakume pilotarien bazterkeria egoera, diskriminazioa eta gutxiespena alboratu. Horretarako pilotariak ahalduntzeko saio edo jabekuntza ekintzak egin, errealitateko oztopoei erresistentziak jarri eta euren lekua aldarrikatzeke tresnak eskaini, genero rol eta betebeharetatik askatzea bultzatu. Emakume pilotarien identitateak normalizatu.
- Emakume pilotarien erreferentzia eta ereduak gunee guztietan zabaldu, transmisioa bermatu.
- Emakumeak eginbeharren arduradun nagusi direla aintzat hartu. Bikote eta familiakoen sostengu eta babesa sustatzeko ekintzak antolatu, emakumezkoen askatasun uneak bermatu eta bultzatzea xede hartuta. Zaintzaren etika eta errudun sentimendua murrizteko neurriak hartu, diskriminazio positiboa erabili.
- Emakumeen ordutegi eta ezaugarrietara egokitu jarduera, egitarau antolatuak eta edukiz malguagoak osatu aldi berean, egoera aldakorrak landuz entrenamendu zein saio orotan, entrenatzaile edo begirale aditu baten gidaritzapean.

- Ama diren pilotariei eta pilotari diren amei eurek askatasunean zer lehenetsi nahi duten hautatzeko aukera eskaini, ama izateagatik pilotako aukera baztertu edo geroratu beharrik senti ez dezaten.
- Entrenatzaileen formazioa landu, emakumeen beharretara egokituriko jarduerak egiteko tresna eta joerak aurkeztu eta eskuragarri jarri.

1.2. Sustapenerako giltzarriak

Sustapenari zuzenki eta praktika arloari lotuta, emakume pilotarien errealitatea hobetzeko proiektu eta plan zehatzak beharrezkoak dira. Adibidez, Emakumea Pilotari gisako egitasmo sendoak, benetako eta alderdi askotatik jasotako babesak duten apustuak, ezinbestekoak dira orain eta hemen. Zoriontzekoa eta txalogarria iruditzen zait GEPFek egindako hautua eta osaturiko ibilbidea, mugarri ezinbestekoa emakume pilotarien aukerak babestu eta indartzeko, baina uste dut honek ere hauspotzea eta indarberitze irmoa behar duela, krisi egoeran ez baita ahuntzaren gauerdiko ez-tula halako egitasmo baten oinarriari kulunka egin gabe eustea. Laguntzak benetakoa izan behar du, ekonomikoa bai, baina baita beste baliabide batzuk eskuratzeko orduan ere, aurkezpen edo sari banaketetan ateratako argazkietan agertu ostean lausotzen ez diren horietakoa, lana orpoz orpo eta kontzienteki eginez udal, eskualdeko batzorde, Aldundi eta gainerako erakundeen partetik.

Erakundeen esparruan segituz, emakume pilotarien errealitateari erreparatuta, herrialde mailan, pilota federazio bakoitzeko eskaintza eta antolaketaren oinarria aintzat hartuta, desoreka handia dago Euskal Herrian lurraldez lurralde. Gipuzkoa lehen mailan, Iparraldea honen ondoren eta besteak trenaren hurrengo bagoietan sailkatzeko ausardia izango dut, eta iruditzen zait kasu honetan ere elkarlana ardatz eta abiapuntu bihurtuz erakunde eta arlo ekonomikoko babesle eta laguntzaile guztiek zeresana eta zeregina badutela, hasi Jaurlaritzatik eta herririk txikieneko udaleraino, euskal kutsua izan dezaketen enpresetatik hasi eta herrialdean interesa daukaten edozeinetan bukatuz. Ez al da ba gurea euskal pilota? Ez al da ba zaindu behar? Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ez ote zaigu egoera indartzea komeni? Edo adornurako soilik da “euskal” hori? Badakit 2006-2010 epealdirako Eusko Jaurlaritzak bete ez zuen Euskal Pilotaren Plan Estrategikoa osatu zuela eragile ezberdinekin eta bertan plan integralaren adar bat emakumeari eskainia zela. Hementxe abian jartzeko abagune hobezina bertatik bertara! Nik honako gomendioak aintzatetsiko nituzke pilota federazioek ekimen nagusia hartuta eman beharko lirakekeen pausoen gutxiengo modura:

- Emakume pilotari guztientzako eskaintza gorpuztu: aisialdikoa, hastapenekoa eta errendimendura bideratua.
 - Nesken pilota eskolak sortu (10-16 urte).
 - Emakumeentzako pilota ikastaroak antolatu (16 urtetik gorakoentzat).
 - Errendimendukoentzako mota guztietako txapelketak antolatu.
- Emakumeak eta euren ahotsak erabakiguneetan izatea ahalbidetu eta bermatu.
 - Pilota elkartean.
 - Pilota federazioetan.

- Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundi eta udaletako kirol zuzendaritzetan.
- Ikasturte edo denboraldi osoan zehar pilotan aritzeko aukera emango duten egutegi eta plangintzak osatu, betiere gainerako erakunde eta elkarteekin elkarlanean eta elkarren jarduerak osagarri izanik.
- Emakume pilotarien topaketak antolatu, atalez atal eta baita urtean behingo emakume pilotarien festa eguna ere, denak elkartu eta elkar ezagutzeko:
 - Neska Federatuentzako talde entrenamenduak bi astean behin, goimailako entrenatzaile baten gidaritzapean.
 - Aisialdiko pilotarientzako topaketak Gabonetan, udaberriko oporraldian eta uda aurretik.
 - Hastapeneko pilotarientzako sustapen egunak ikastetxeetako oporretako geldialdien aurretik (Gabonak, udaberriko oporraldia eta uda) eta erakustaldi eguna ikasturtearen amaiera aldera.
 - Emakume Pilotarien festa eguna.

Egokitzapenak eta eskaintzak osoa eta integrala behar du: edozein jokamoldetan jardun nahi duenak (eskuz, paletaz, xisteran edo nahi eran) aukera izan dezala, adin tarte guztietarako aukera anitza eskaini, ibilbide aniztasunari erreparatuz eskola kirolean (errendimendua, parte-hartzea edo talentuak), aisialdian nahiz federatuen esparruan (lehiakorrak eta ez lehiakorrak, gomaz nahiz teniseko pilotarekin, etab.) eta arduradun edo/eta entrenatzaile bat izan dezatela emakumeek hala nahi duten kasuetan euren jarduna bideratu, gidatu eta laguntzeko, pilotarien nahi eta helburuetara egokituz beren lan-ildoak. Azken honekin lotuta, gainera, aisialdian pilotan diharduten emakume askoren interesak teknika barneratzen haratago daudela ondorioztatu dut, joko-arau eta estiloetatik urrunago; akaso ez duela hainbeste axola pilota lauki batean sartzeko gai diren edo ez, sakea hirutik bira ateratzen duten, ezkerrez eta airez jotzen badakiten, etab. eta funtsezkoa zaiela saltsan gustura eta irribarrez jarduteko aukera eskaintzea, pilota gozamen iturri zuzena izatea, aisialdiko plazer une bat. Pilota saioetan, beraz, uste dut talde giro, harreman eta gozamen bideraturiko ariketa eta jarduerak izan beharko liratekeela ardatz, partaide guztiek elkarrekin jolasten duten memoriarik gabeko jolasak, irabazi edo galtzeak garrantzirik ez duten jolasak. Errendimenduan dabilzanen kasuan, berriz, teknika lantzea garrantzitsuagoa da eta ariketa espezifikokoak jorratzea funtsezkoa iruditzen zait, jokoan zehar partidetan eman daitezkeen egoera ezberdinen aurrean erantzunak emateko gaitasunera bideratuz pilotariaren abilezia eta formazioa: sakea ateratzeko ahalmena, jokaldi ezberdinak menperatzea, tanto amaierak lantzea, etab. Hastapeneko pilotarientzat, berriz, ikaskuntza eta heziketa prozesuaren baitan pilotako oinarriak barneratzea bideratua beharko luke eskaintzak batez ere: bi besoen erabilera, kolpe unea, eustea, etab.

Ildo berean, funtsezkoa iruditzen zait herri nahiz eskualde mailan boterea dutenek honako pausoak erraztu, ahalbidetu eta betearaztea ere:

- Herri, eskualde eta lurralde mailako ekitaldietan emakume pilotarien presentzia bermatzea. Adibidez, festetako erakustaldi partiduetan.

- Herrietako berdintasun planetan kirol arloan egiten diren jardueretan emakume pilotariak lekua izan dezatela bultzatzea.
- Emakume pilotarientzako ekintzak burutzea eskatzea pilota elkarte guztietan.
 - Entrenamenduak
 - Partidak
 - Erakustaldiak
 - Topaketak
 - Elkartrukeak
- Positiboki baloratzea herri zein eskualdeetan emakume pilotarien alde lanean dihardutenak eta euren babes eta laguntza eskaintzea.
 - Instalazioen eta entrenamendu orduen banaketan emakumeentzat tokia eta denbora jartzea. Izan daitezela “hondar orduak” ez direnak emakumeenak.
 - Pilota elkarteei diru laguntzak banatzean izaera hori aintzat hartu eta saritzea.

1.3. Hedapenerako giltzarriak

Euskal pilotako emakumeen hedapena eta plazaratze zein ikusarazteari dagokionez, euskal pilotan emakumeen jardunari zabalkundea emateko uste dut hedabide, erakunde nahiz aginte edo botere apur bat dutenek egin beharreko apustua dela eta nahitaezkoa euren parte hartzea. Gainera, ez zait iruditzen lan handiegia suposatzen dienik hedabideetako programazio arduradunei eta berri emaleei, gogo eta borondate apur batekin erraz egin bailiteke aurrera gure alorra lau haizetara zabal dadin. Prentsan atera ala ez askotan oso ezberdina izaten da jendarteak kirol baten inguruan duen iritzia eta irudipen-multzoa. Adibidez, gaur egun emakumezkoen futbolaren gaineko berriak nonahi jaso ditzakegu gutxi-asko, baina orain dozena bat urte, gutxi gorabehera, oraindik euskal futbol talde entzutetsuenek nesken taldeak euren egituretan sartu gabe zituztenean, ia ezinezkoa zen bazenik ere jakitea eta alor hori jarraitzeko esfortzu estra bat egin behar genuen hala nahi genuenok. Orain, berriz, zailagoa da norbaiten ahotan “neskak futboleant aritzen al dira ba?” harriduraz aditzea.

Emakume pilotarien berri jendarteratzeko ezinbesteko tresna dira egunkari, aldizkari, irrati, telebista eta sareko atariak, bai tokian tokikoak eta baita lurralde zein herrialde mailakoak ere. Emakume pilotariak badira eta irailatik hasi eta ekainaren amaierara arte ia astebururo daude pilota partidak. Hedabide gutxi batzuetan, ordea, zutabetxo bat edo minutu erdi eskaini ohi zaie asko jota eta oso noizean behin, finalen bat delako edo saiakera berezi bezain iraunkorra egin delako hedabideren batek jaramon egiteko. Honenbestez, iruditzen zait hainbat puntu aldatzen hastea funtsezkoa dela emakume pilotariak ikusgarri egin eta euren berri plazaratzeko:

- Hedabideetan gutxiengo espazio eta denborak bermatu behar lirateke emakumeen kirolarentzat, tartean pilotako berriak, elkarrizketak eta irudiak sartuz besteak beste.

- Telebistaren esku-hartzea ezinbestekoa da. Eskupilota eta noizbehinka gizonen erremintako partidak eskaintzeaz gain emakume pilotarien norgehiagokak eskaini beharko lituzkete, gutxienez goi-mailako partidak eta txapelketak (adibidez, Munduko Txapelketa eta Munduko Kopa).
- Atari propioa behar dute emakume pilotariak, euren albiste, iritzi eta gainerakoak plazaratzeko, beste inoren zain eta menpe egon beharrik gabe. Webgune bat oso lagungarria da sarean presentzia izan eta zabalkundea errazteko.
- Ahoz aho eta bertatik bertara, auzoz auzo, herriz herri eta lurraldez lurralde zabalkundea ematea emakume pilotariak eurek beraien arloari, euren hurbilekoenetatik hasi eta ahal duten neurrian urrutietan ere jakinaraziz euren jardunaren eta egoeraren berri.

Laburbilduz, emakumezko pilotariak merezi adinako entzutea, laguntza, babesa eta begirunea izatea ez zait iruditzen ezinezkoa eta ezta zaila ere. Gogoia, borondate apur bat eta urratsak emateko erabakia baino ez dira behar. Bultzada bat, baina ez gehiago desorekatzeko, emakume pilotarien errealitatea oreka eta arnasberritze bidean jartzeko baizik. Aukerak ugari dira, proposamenak ere bat baino gehiago, beraz, emakume pilotarien ibilbidea arrakastatsua, eta ez hain malkartsua, izateko oinarriak finkatzen hastea dagokigu.

2. Ikerketaren mugak

Ikerketa prozesuan zehar hainbat zailtasun eta oztopo izan ditut, ikerketa orotan gertatu ohi den bezala. Hauek ezagutzeak, ordea, lana bere osotasunean ulertzen laguntzen du.

Lehenik eta behin, ikerlan honetan une jakin bateko testuinguru eta errealitatea aztertu ditut, gaur egungoa, eta ez luzetara edo denbora tarte zabal bat hartuz egindakoa. Beraz, iraganeko egoera eta etorkizuneko zehatz-mehatz deskribatzeko ez du balio azterlan honek. Hala eta guztiz ere, guztiz baliagarria da azterlan horietako informazioarekin alderatzeko.

Lan honetan zehar bildutako datu eta informazioaren bolumena medio, ia mila orri pilatu ditut elkarrizketa, kontakizun eta eztabaida taldeko transkripzioetan, hauek antolatu eta kudeatzeko prozesua eta erabakiak hartzea zaila izan da zenbait unetan. Adibidez, gako-gaiak zehaztu beharrean aurkitu naiz eta nahi besteko sakontasun maila ez diet eman ahal izan guztiei, bestela amaigabea izango zelako azterlana. Aukeraketan batzuk kanpoan utzi arren, esanahi handiko kontzeptuei eta gaiei heltzea hobetsita, ordea, hautaturiko hiru gako-gairik nagusienak sakontasunean aztertu ditut. Gai nabarmenen zerrendatik azpimarragarri eta nabarmenenak emakumeengandik behaketa, elkarrizketa, dokumentu nahiz eztabaida taldean jasorikoez eta eurek azpimarratu eta indarturikoez zehaztu zizkidaten ikerketa prozesuan zehar, euren bizitzetako alderdi garrantzitsutzat jo zituzten, eta bertako ideiak erabat xehatuta aurkeztu ditut.

Emakume pilotarien inguruko datu eta kopuruak jasotzerako unean, lurralde bakoitzeko pilota federazioek emaniko informazioa neureganatu dut. Kasu honetan urteen artean aldeak daude, ez ditut denboraldi guztietakoak jaso ahal izan leku guztietan, baina hori euren erregistro moduak mugatu dit. Datuen eguneratze eta zehaztasun maila, beraz, eurek emaniko informazio horren menpe dago. Dena den, denboraldi guztietako datuak esku artean ez izateak ez dit eragotzi Euskal Herri mailako argazki orokor bat egin ahal izatea, non nabilen kokatzea, eta lorturikoekin une hauetako errealitatea irudikatzea posible izan dut, parte-hartzaile zuzenen ekarpenetatik ere lortu baitut informazio zati bat, eta alderatu eta elkarrekin uztartuta datu baliagarriagoak eskuratu ahal izan ditut.

Parte hartzaileen hautaketari arreta jarritz esan nezake pilotari federatuen kasuan lurraldetasunez Gipuzkoakoak direla gehienak, besteetatik bat edo bi ordezkari soilik elkarriketatu baitituz. Hala ere, pilotarien hautaketa momentuan irizpide ezberdinak aintzat hartuta jardun nuen eta, gainera, informazioa saturazio puntura iritsi zelako ez nuen hautatu pilotari gehiago sakontzeko galdeketetarako. Gainera, Gipuzkoa da pilotari gehien dituen probintzia eta baita eskaintzarik egituratu eta zabalena duen lurraldea ere, beraz, bertako aniztasuna ere aintzat hartu dut kopuruz gehiago hautatu ditudan unetik bertatik.

Amaitzeko, ikertzeko erabilitako teknikekin lotuta, arduren eta amatasunaren gaia jorratzeko, zuzentasunari eta zorrotasunari segika burutu nuen eztabaida taldeko parte hartzaileen aukeraketa. Alabaina, bileretan ezusteko eta azken-azken orduko huts-egiteak izan zirela kontuan izanik, akaso beste partaideren bat deitu izana eskertuko nukeen, taldea apur bat handiagoa izatea erabakitzea, bildu ginenean launa izan zirelako bilera bakoitzean bertaraturikoak. Adierazgarria da amak direnekin talde bilerak antolatzeko guztien agendak bateratzea zein zaila den, bi saiotan denak biltzea ez nuen lortu nik, adibidez. Kasu honetan ere, ordea, bildu ziren horien aniztasuna eta ezaugarriak aintzat hartu nituen eta testuinguruko errealitate eta izaera ezberdinetako parte hartzaileak batu ziren, kopuruz akaso pare bat lagun gehiago izatea aberasgarriagoa izan bazitekeen ere.

3. Etorkizunerako proposamenak

Euskal pilotaren baitan ikerkuntza bat baino gehiago egin da aurrez ere, emakumezkoen alorrari eta etnografia bidez heldu ez badiote ere. Arlo honekin loturik, beraz, emakumezkoak eta genero ikuspegia ardatz harturik, uste dut badagoela zer, nola eta zergatik miatua, zokomiran aritzeko aukera asko dauzkalako oraindik ere emakumeekin loturiko esparruak. Gainera, hausnarketa hauek kirol mundutik haratago jendartearen ezaugarriak zein diren agertzeko ere lagungarri direla irudipen osoa dut. Horregatik, hainbat azterlan bultzatzeko beharra ikusten dut, jarraian agertuko dudan moduan. Batzuk zuzenean daude lotuta ikerketa lan honekin eta beste batzuk, aldiz, gaiarekin lotura estua dute.

Mende batetik gora atzera eginda, adibidez, emakume pilotarien jatorria eta euren eboluzioa aztertzea ezinbestekoa iruditzen zait historia bildu nahi badugu. Ildo horretan, erraketistak erdigunean hartuta gaur egungo joerak kokatzeko, indartzeko eta geure asabek zer egiten zuten ikusteko aukera sortzea garrantzizkoa dela iruditzen zait. Zer izan ginen, nor garen eta nor izan gaitezkeen lot genitzake azterlan horrekin, besteak beste.

Denboran aurrera jo eta gaur egungo testuingurura jauzi egingo banu, berriz, uste dut eskola adineko neska pilotarien azterketa sakon eta zehatz batek geroa bermatzeko lanean oinarria finkatzeko lagun diezagukeela, multzo edo adin tarte horretatik irtengo baitira hein batean hurrengo pilotari belaunaldiak eta honi jarraipena eta sona emateko ardura izango dutenak. Horretarako ikerketa-ekintza motako azterlan bat egin liteke, aplikazio aberatsa izan baitezake testuinguru honetan parte-hartzaileen asmoetatik abiatuta beraien errealitateko zerbait aldatzen laguntzeko. Aurrez, ordea, ezinbestekoa litzateke eskola adineko neska pilotarien bizipenak bertatik bertara deskribatu eta ulertzea. Azterketa hau, gainera, aldi berean lagungarri izan liteke hezkuntzako esparruan euskal pilota genero ikuspegia landuz txertatu eta jorratzeko urratsa ematen laguntzeko, nesken behar eta helburuak aintzat hartuz hezkuntza komunitateak ere esku har dezan euskal pilotaren hedapen parekidean. Euskal pilotan parekidetasuna lantzeak, gainera, balioko lieke ikasle guztiei bizitzako beste esparru batzuetarako oinarri berdinzale eta ez diskriminatzaileak eskura ditzaten.

Kasu-azterketa edo bizitza-historia moduan azterketa sakon bat egitea ere oso interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zait gaur egun gure inguruan gurpil aulkian dabilen emakumezko pilotari bakarraren inguruan. Oso informazio aberasgarri eta baliozkoa jasoko genuke azterlan honen bidez ere eremu zabal honetako kasu zehatzagoen inguruan, denoi hobetzen lagunduko ligukeena, gainera. Izan ere, diskriminazio bikoitza da kasu honetan bideratu beharrekoa, emakumea izateaz gain gurpil aulkian egote hutsagatik. Kasu-azterketaren ildo erabiliko nuke bizitzako ardatz nagusietako bat pilota duen erreferentziazko pilotari emakumeren baten gainean azterlan bat burutzeko ere, pilotari identitate hain sakona izatearen zergatiak eta nolakotasunen berri jaso ahal izateko.

Pilota joko gehiagotan zentratuta, berriz, nazioarte mailako azterketa bat egin beharko litzateke, euskal pilota edo antzeko egituretako kiroleko emakumeen jardueren berdintasun eta ezberdintasunak aztertzeko, emakumeen sentimendu, esanahi eta esparruak ardatz harturik betiere. Besteak beste Holandako Kaatsen, Irlandako Handball, Belgikako Ballpelote, Valentziako Pilota Valenciana eta euskal pilotako errealitateak jaso eta jokoen ezaugarriak eta bertatik eratorriak ezagutu eta ikertzeko aukera bikaina izango genuke era honetako azterlanen bat burututa. Ikerketa molde honek nazio bakoitzeko egoera bertako testuinguruetatik haratago landu eta alderaketak egitea ahalbidetuko luke, besteak beste identitatearen esparruan, sozializazioan eta ardura zein amatasunaren arloan dauden joerak aztertu eta ea pilotak emakumeengan

nola eta zein neurritan eragiten duen hausnartuz, emakume izatetik haratago herrialde bakoitzeko kulturaren eta tradizioaren erroak zenbat hurreratu eta urruntzen diren behatuz.

Fokua pilotatik apur bat gehixeago zabaldu asmoz, baina, aldi berean, bertatik erabat urrundu gabe, benetan interesgarria iruditzen zait “gizonezko” edo “maskulino” izendapena jasotzen duten eta tradizioan erroturik jarraitzen duten euskal kirol ezberdinetako emakumeen jardueraren eta parte-hartzearen azterketa eta alderaketa osatzea: arrauna, herri kirolak eta euskal pilota. Horietan jasoriko informazioa, gainera, ondoren berez “euskal” izaera ematen ez diegun kiroletako ikerketekin uztartzea ederra bezain aberatsa izango litzateke, besteak beste, futbola, eskubaloia edo saskibaloiarekin. Modu honetan kulturaren eta tradizioaren pisua zenbaterainokoa den azter genezake eta herri bateko sustraiek benetan hainbeste mugatu edo askatzen gaituzten ulertzea irits gintezke.

Genero ikuspegia txertatuz, baina arreta-gune nagusi litzatekeenaren izaera aldatuz, berriz, gizonezkoekin modu honetan eginiko azterketa bat ere oso interesgarri, beharrezko eta lagungarria izango litzatekeela iruditzen zait, gizonezko pilotariei genero sistemak zer ahalbidetu, zer mugatu eta zer rol hartzea erraztu eta zaildu dien aztertzeke. Gizontasunaren berri izatea ere komenigarria da emakumetasunarekin bezalaxe, genero sistema guztion artean osatu eta elikatzen dugulako. Gainera, ez nuke ikerlana esku-pilotarietara mugatuko, jokamolde bat baino gehiagotako parte-hartzaileak bilduz. Modu honetan benetan jakin ahal izango genuke ea emakumezko eta gizonezkoek pilotan bizi duten errealitatea zenbateraino den ezberdina eta egiturazko mugak (ez)berdinak ote diren ere bai.

Hemen emango dut amaitutzat bidaia zoragarri eta zirrargarri hau, ilusioz ekin eta bideko gorabeherak gorabehera ia ilusio handiagor “azken” geltokira helduta. Ez naiz gure mugetatik haratago joan, ez naiz jende ezezagunarengana hurbildu, etxe inguruan ibili naiz hara eta hona, baina deskubrimendu handiak egin ditudan irudipena daukat. Hau ez da ondorio itxiak dituen ikerketa bat, ez behintzat gaia alboratu eta dena aztertua dagoelako. Izan ere, hemen aurkeztu dudana proposamen bat, helduleku batzuk, emakume pilotarien mundua gertuagotik ezagutzeko bide bat baino ez da hau azken batean. Asko dira ikerlan honek dituen bidezidorrak, are gehiago bidegurutzeak eta ez da txikia zer suma jarraitzeko grina. Baliteke berandu baino lehen bakarren bati heltzea.

I. ERANSKINA

KONTAKIZUN BILDUMA

1. astea, 2011-10-03. HASI NAIZELA, HASI NAIZELA

Iritsi da urriko lehen astea eta horrekin batera, ia eskutik, emakumeen paleta ikastaroei ekiteko unea. Irailaren erdialdetik ia amaierara arte izena emateko epeak zabalik iraun duen bitartean batek daki zenbat aurrera-atzera ibili dugun guk behaketarako taldeen hautaketa prozesuan. Lehenengo herri bat, hurrena bi, handik pixka batera aurrekoak baztertu eta beste bi, hurrengoan bat bai eta beste berri bat ... Ia azken egunean (edo azkenaurrekoan nahiago bada) erabaki dugu hiru herritan murgilduko naizela, hiru taldetan, hiru jokalekutan. Apustu handi xamarra eta ausarta dela deritzot, baina, beti izan naiz, muga batzuen artean betiere, arriskuak hartu zalea. Beraz, “alea jacta est”!

Hasi, ordea, ez pentsa azken aste pare batean edo azken orduetan hasi denik hau guztia. Udako oporren aurretik, beka eskaera aurkezterako, irakurtzeko liburuak, aipua, artikuluak eta dokumentu asko izan ditut esku artean. Agian kantxako lana, zuzeneko behaketa lana, orain hasiko da, ados, bai gehienen begietara, bederen, baina hilabete dezente, hirutik gora behintzat bai, badaramatzagu behaketaren inguruan jirabiran.

Udako oporrak atzean utzi ostean, abuztuko azken astean, buru-belarri behaketa gora eta behaketa behera hasi ginen, etnografia zer zen ulertzen saiatu eta metodologia pittin bat neureganatu asmoz. Irakurri arren, informazioa bildu eta aztertu arren, onar dezadan, atezuan nago, urduri, ezezaguna denak sortzen duen zalantza eta ilusioaren arteko nahasketa arraro batean murgilduta. Ohartu naiz ez dagoela errezeta libururik eta norberak bere senari jaramon egin behar diola une asko eta askotan mota honetako lanetan. Bai, zalantza handirik gabe arraroa da egunotan zehar gehien errepikatuko nuen hitza, galduta eta noraezean ere oso urruti ibili ez badira ere. Bada ez bada ere ez dut zerrendarekin jarraituko, bestela bakarren batek psikoterapeutarenera bidal nazake zuzenean-eta, autoestimazio eta baikortasun tanta batzuk edan ditzadan. Kontuak kontu, ziurgabetasuna beti ibili izan da orpoz orpo nirekin eta, kasu honetan ere, ez ninduen bada bakarrik utziko, ala?!

Aurreko astearen amaiera aldera, orduak aurrera egin ahala gero eta presenteago, gero eta indartsuago, gero eta nabarmenago ageri zen neure baitan, nire burutazioetan, nire hizketaldietan, nire planifikazioetan, nirekiko loturarik ñimiñoena izan zezakeen edozertan “hasiera” honen oihartzuna. Igande arratsaldetik trantzean sartu nintzela esan nezake, hasperena hemen eta hasperena han, burutazioei ihes egin nahi eta ezinean. Bada ez bada ere liburuetakoei entresaketatik ateratakoiei errepasso sakon xamarra ere eman nien. Iraileko azken astea, beraz, oso berezia izan zen niretzat, bilera hemen eta bilera han ibili bainintzen, bai *porteroekin* eta baita zuzendariarekin ere. Askok zegoen erabakitze eta oso epe laburrean, gainera. Azkenean, baina, beharrezko erabakiak hartu eta abiatzera goaz: 5, 4, 3, 2, 1..... eta 0!

Astelehena, berriz ere Hernanin

Goizeko 7.30ean jaiki, dutxatu, gosalduta eta Hernanira noa. Arrarotasun puntu bat sentitzen dut, ezjakintasanak, berritasunak eta dena neure kontrolpean ez izatetik sortua. Pilotalekua eta ingurua ez zaizkit arrotzak, baina, testuingurua oso ezberdina da nik bertan bizi izan nituenetik.

8:30ean abiatu eta 9:15ean heldu naiz, eta lasai-lasai aparkatu ondoren kiroldegira abiatu naiz. Aurrez, hala espero arren, nire “behatzaile-koaderno” poltsan daramadala

egiaztatu dut, bi edo hirutan. Bidean hara non Saioarekin topo egin dudan. Haren zain egon, egun onak eman eta elkarrekin egin dugu kiroldegirako pusketatxoa, kalean aurrera.

Kiroldegiko sarrera

Sartu eta atezaindegian dagoenari (Pello) “egun on” esan eta Saioa eta biok zain geratu gara, lehenak izan baikara heltzen. Bera saioari errepasso bat ematen hasi da, paperak esku artean dantzatuz, eta ni ikastaroko izenemate orri batekin entretenitu naiz. Burua azeleratuta sumatzen dut eta eskuak hotz, izerditan. Halako batean eskaileretan behera Joxe agertu da, Hernaniko Kirol Patronatuko langileetako bat, eta “baten faltan bi” bota du, irribarretsua. Nirekin gure asmo eta halakoen inguruan bi kontu esan (tesiaz aritu gara), jakin-mina izatea normala da, eta Saioarekin antolaketa eta ordutegi kontuen inguruan hasi da. Ni alboan nago, isilik, nire pentsamenduetan murgilduta.

Ainara heldu da, goiz, lasai-lasai hau ere. Ni ikusi eta harritu egin da, “zer zabilta?” batekin agurtu nau. Eta, nik, “hemen, lanera etorrita, ikastarora”. Ez dit lehenengoan sinetsi, baina hala dela konturatu da, serio ari nintzela, eurekin ikastaroan arituko naizela.

Ines agertu da tornuaren beste aldean, hau igerilekuan saiotxoa eginda etorri da (B.K. Lehen bezala, sasoiko dagoela ikusten da! Ez da makala). Gutxika-gutxika besteak ere ari dira hurbiltzen: Jone eta Zuriñe ama-alabak, Malen, Rakel (“berria” izendatu du hasiera-hasieratik Saioak), Miren ere bai (“zer Uxue?” eta nik, “hemen, ikastarora”). Naiara ere gehitu da korrora. Jonerekin aritu naiz tartetxo batean hitz eta pitz ni.

Halako batean Saioak denak gaudela esan (Teresa falta da baina aita hil berri zaio eta gaur ez omen dator) eta banan-banan kirol txartela tornuan sartuta pilotalekurako bidean jarri gara. Ni ere berdin-berdin, txartela atera eta hala egin dut nire lehen bazkide sarrera (ostiralean propio joan nintzen bazkidetzer), euretako bat gehiago izateko ahalegina lehen unetik egin behar dela sinetsita. Eskailerak jaitsi, pasillo luzean zehar aurrera egin, berriz ere eskuinetara eskailerak igo, ate bat zeharkatu, kantxa gainetik hura inguratuz aurrera segi, gimnasio ondoan berriz ere ezkerretara eskailerak igo eta pilotalekurako atea zeharkatuta azken pasillo luzean frontoira heldu gara (B.K. Labirintoa da bide hau, jakin ezean ez da erraza izango lehenengoan frontoira heltzea!). Gehienak binaka edo hirunaka doaz bidean, hizketan. Niri lehen zalantzak agertu zaizkit jokatu beharreko rola inguruan, eta nahiko bakarrik noa, mingaina gehiegi astindu gabe.

Pilotalekua

Bertan sartzen hasi orduko, sare parean, Saioak: “a ze oroitzapenak!” Nik, “zenbat denbora hemen egon ez naizela!” (B.K. Hernaniko begirale lanaz oroitu naiz une batez) eta Ainarak, kontrapuntua jarriz, “gu azkena ostiralean izan ginen”. Erdi parera heldu eta harmailetan gauzak (poltsak, ur botilak, jertseak,...) utzi ostean borobil batean jarri eta Saioak “ongi etorri ofiziala” eman digu, borobilean jarrita. Gure izenak esan ditu txandan-txandan, bi aldiz jarraian. Nirea egokitu zaionean “Uxue, berak esango dizue zertara etorri den” gehitu du.

Nire burua aurkeztu eta nire presentziaren zergatiak agertzeko unea heldu zait. Zer eta nola esan? Bada, hauxe irten zaidana: “ni Saioaren lekuan egona naiz, baina, lanean aspertu eta orain doktorego-tesia egiten ari naiz emakumeen pilotaren inguruan. Ni ikastarora etorriko naiz astero-astero, baliteke tarteka koaderno bat ateratzea, edo argazki edo bideo kamera, baina ez beldurtu, ni zuetako bat gehiago izango naiz. Ahaztu Uxue irakaslea”. Ainarak, broma giroan, “ordun derechos de imagen eskatuko ditugu”, kar-kar. Justu une horretan heldu da Gemma. Begiraleak galdetu dio ea entzun duen eta baietz, azken esaldiak balio diola ideia bat egiteko. Inork ez du aurpegi arrarorik jarri, ez dirudi gaizki hartu dutenik. Hala hobea!

Aurkezpenak bukatu eta “benetako saioa” hasteko unea heldu da. Giro atsegina eta lagunkoia nabaria da emakumeen artean.

Beroketa

Korrika hasi gara frontoian, hiruzpalau buelta, besoak ere mugituz aurrera-atzera, txandaka, ezker-eskuin. Saioa bera ere taldearekin batera ari da, aurrean jarri eta zer egin behar den adieraziz. Bakarren batek bota du, “beste buelta bat?” Nik albotik “bere Behobiarako prestaketa egiteko baliatzen ariko da... kar-kar!” Korrika saiotxo amaitu eta borobilean jarrita mugikortasun artikularreko ariketak (orkatila, belaunak, gerria, eskumuturrak, besoen luzaketa bat). Bitartean beste komentarioren bat, “nekatu gaituz korrika saioarekin”. (B.K. Ez dirudi palarako fisikoa garrantzitsua dela uste dutenik, ez behintzat helburuen artean dutenik, eurak palara datoz eta hortik kanpokoak hor konpon).

Saioak paletak banatu ditu (Malen eta Mirenek eurenak hartu dituzte) eta “pilota berriak” esan die, gustura. “Beno, bi aste barru berriro iaz bezala egongo dira, baina...” gaineratu du. Aldamenetik Mirenek, “zer, txinuak?”. Talde honetako askok euren 5.ikasturtea hasi dute eta nabari da hori, testuingurua ezagutzen dutela dirudi.

Binaka jarri gaitu (aldamenean genuena kide hartuz), bikoteko pilota banarekin, eta ezker hormaren aurka pilotatzeko esan digu. Ni eta Gemma egokitu gara elkarren alboan. Ezagutzen dut eta ezagutzen nau, beraz, arazorik ez. Konturatu naiz 10 emakume ari garela jo eta ke, kolpez kolpe, eta frontoiak itxura ederra, betea, hartzen duela horrela. Badirudi nire ikerketaren inguruan interesa duela eta galdera batzuk egin dizkit aldamenetik. Esan dit berak psikologian egin zuela praktika/lan bat denda batera joan eta behaketa bidez. Ea gauzak nola gogoratuko ote ditudan galdetu eta esan diot saioa amaitu orduko liburutegira joateko asmotan naizela. Paletakadaz paletakada jarraitu dugu, elkartrukean.

Saioak “bale” oihukatu eta denok beregana batu gara. Saioaren zati nagusia hasteko unea heldu dela dirudi. Pilotak eskatu eta jertseko patriketan jaso eta azalpenak ematen hastera doa. Denak adi-adi eta isil-isilik gaude.

Ariketak


1. Pilota jo, norbere pilota jaso, 7ko marra zapaldu eta ilarara itzuli behar da. “Pilota atzetik aurrera jo, alboz zaudetela, aurrean, zuek pilota ikusi egin behar duzue, ez horrela (besoa uzkuratuz)”.

Nik ilaran aurrean Jone eta Zuriñe dauzkat, eta atzean Gemma. Lerroan isiltasuna dezentekoa da hasieran eta denok txintxo-txintxo gaude, gure txanda heltzeko zain.

Nire lehen kolpean, Saioak “Uxue, ondo eman”. Irribarre egin dut, baita kideek ere (“zer, gaizki egin du, ezta?” entzun da), eta marra ukitu ostean ni ere ilarara itzuli naiz. (B.K. Neure baitan badakit era honetako komentarioren bat edo beste entzun beharko dudala, une batzuetan arreta-gune izango naizela nik hala nahi ezta ere, batez ere hasieran. Espero dut denok egokituko garela, egoera berezia denontzako baita, eta batez ere niretzat. Ez dakit gero gauzak gogoratzeko gai izango ote naizen eta ezta oharrak nola hartzea komeni den ere).

Bakoitzak lauzpabost aldiz egindakoa hurrengo ariketa heldu da.

2. Kantxa erditik bitan banatuta dago, ezker eta eskuin aldeak bereiziz. Pilotak botea ematen duen aldearen arabera, ezkerrean ezkerrez eta eskuinean eskuinez kolpatu behar da pilota. Dinamika lehengo bera da, banakako ilaran jarriz eta pilota jaso eta marra zapalduz.



Ezkerrez jotzeari beldurra/errespetua dio bat baino gehiagok. Naiarak lehenengoan errebezez jo dio, eta Saioak esan dio hori ez dela ezkerre. “Ez zaizkio aginduak iristen” lehenak, eta “lasai, hemendik ekainera iritsiko zaizkio”, bigarrenak. (B.K. Hortik aurrera saioan arreta jarri diot tarteka eta konturatu naiz errebezez ez duela kolpe bakar bat gehiago eman, ezkerrez aritu dela).

Lehen bezala, kolpe batzuk egin ostean aldaketarako unea heldu da. (B.K. Saioa zuzenketatxoak egiten ari da zenbaitetan, baina gutxi nik egingo nituzkeenekin alderatuta. “Zorroztasunaren eskalarekin zerikusia ote du?” pentsatu dut neure baitan).

3. “Partiduak!” halaxe esan du [B.K. bakarren baten aurpegia (gehienena ez esatearren) argitu egin da].

3 txokotan, errotazio sistema bidez.

Aurrean, 2:2. Botearen arabera beso bat edo bestea. Airez libre (botea 4ra arte)

Erdian, 1:1 partida (5-7)

Errebotean, 2:2 (8-10). Bikoteko bat palarekin eta bestea gabe. Pilota jotakoan kideari pasa pala.

Bikoteak Saioak egin ditu, oraingoan “dedokraziaz”:

Aurrean: Gemma-Ni (Komentarioa Ainarak: “Gemma, gaur zuri tokatzen zaizu elkarrizketa, kar-kar”), Ainara-Jone.

Erdian: Malen-Rakel

Atzean: Miren-Zuriñe eta Naiara-Ines

B.K. Niri zalantza etorri zait berriro, “nola jokatu? Lasai, Uxue, jokia emanaz”. Ez dut arreta gehiegi deitu nahi eta ez diet kideei beldurrik sortu nahi, nik ere gozatu eta gozaraztea baino ez dut nahi (bertso saio bateko hasierako agurraren tankera du esaldi honek ...).

Hala hasi eta txandaka leku denetatik pasa gara. Aurreko eta atzeko guneetan bi partida jarraian eta erdikoan bakarra. Guztira 7 jokatu ditugu. Guri ez zaigu tokatu Malen eta Rakelekin. Beste denekin bai. Tantoak kontatzen dira, baina, inor ez da markagailuarekin obsesionatzen. 1:1 egoeran askotan piloteatzen amaitu dira partidak, eta atzean ere askotan ez da markagailua aintzat hartu sakea nori zegokion erabakitzeke ere.

Saioa gune denetan dabil, begiratzuz eta emakumeak animatuz noiz edo noiz.

10.50 erlojuan.

4. Txokotan aurrean eta atzean (erreboteari begira, horma eskuinean dela). Bizitzarik gabe, txarra egiten duena zelaiz aldatuz. 5 eta 5 hasi gara.

Amaiera aldera Saioa sartu da gure zelaian eta “piketxoa” izan dugu elkarrekin. Miren (beranduago Naiara ere bai) tokatu da parean eta gustura egon da, barrez ikusi dugu.

Inesek lagunekin kafetxoa hartzera alde egin du 11.00etan.

11.05. Saioak artzainak ardiei nola txistu jo du eta amaitu da gaurko paleta saioa. Palak poltsan sartu eta luzatzeko garaia heldu da, orain ere borobilean jarrita. Saioak ez du erabat gidatzen, bakoitzak bere kabuz dihardu. Hizketagai hizkuntzak dira, eta ni eta nire ohiturak (korrika eta abarrak). Nik Malenekin hizketan amaitu dut, haren senarra ere korrika dabilela-eta.

Kiroldegiko sarrera

11.10. Bidean aldageletan gelditu dira batzuk (Ainara, Rakel eta Miren) eta pasilloan aurrera goaz besteok, kontu kontari. Ni bakarrik noa, atze xamarrean burua martxan jarri baitzait landa oharren inguruan bueltaka.

Sarrerara heldu eta datorren astera arte agurtu dugu elkar. Eurek asteazken goizerako jarri dute hitzordua. Ni ez naiz auto-gonbidatzera ausartu, oraindik goizegi dela usteta, eta ea egunen batean eurak diren gonbidapena luzatzen didatenak.

Saioa eta biok goaz orain kotxera bidean, bakarrik. Saioak nire iritzia jakin nahi du saioaz, “zer moduz?” Nik, “ondo”. Berak, “zer esan nahi du ondo horrek?”, ba, “ondo!” Kezka agertu dit emakumeak ez ote diren konforme geratuko, saioak ez ote diren dinamikoak. Nik lasai egoteko esan diot, esango diotela hala bada.

Hau ere bihar arte despeditu eta kotxera noa ni, ordenagailua hartu eta handik Biteriko liburutegira. Bidean pentsakor noa, “eta, orain nondik hasiko naiz?”

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Harrera oso goxoa izan da, hasieran pixka bat harritu arren beso zabalik hartu naute. Gehienek ezagutzen naute aurrez eta uste dut hori lagungarri dela kasu honetan.

Tarteka komentario batzuk entzun beharko ditut, hasieran batez ere, baina hauek ere broma girokoak izan dira, inongo asmo txarrik gabe eginak. Adibidez, “kontuz ikertzen ari da”, “Uxue tantoa eginez gero 2 puntu” edo “ez dizugu aprobaturako”.

Lehen egunean ez dut banakakoengana jo, galdera bat edo beste izan arren. Denbora gehiago izango dudanez ez dut hasieratik jendea “presionatua” sentitzerik nahi.

Zalantza uneak izan ditut, bai nire rolari eta bai nire betebeharrei lotuta. Ariketaren batean alde egin dit pistaren batek (“altuago botata denbora gehiago ematen du” esanaz). Asmo onez eginga izan da, laguntzeko, eurak ere lasaiago ibil daitezten. Ba al dagokit, ordea?! Ez da erraza uneoro mingainari hozkaka aritu beharra eta are gutxiago aurrez irakasle eta zuzentzaile sena izan nuela oroituta. Hartuko diot neurria honi ere.

Nola jokatu beharko nuke saioetan? Kezka-iturri nagusietako bat dut. Nire ohiko jokomaila nola eta zertara egokitu? Hernanikoek badakite jokatzen, baina, Zizurkil eta Usurbilen?

Emakumeek irribarrez eta gustura jardun dutela esango nuke. Zalantza eta jakin-min bat daukat, ordea. “Taldea eginga egoteak nola eragingo ote dio *berriari*?” Gaur ez gara parean tokatu eta ea hurrengoan arreta gehiago jartzen dudana, bera ere taldera sartzeko ahaleginean arituko baita. Interesgarria litzateke kasu hau aztertzea.

Aho-zapore ona utzi dit gaurkoak. “Alfonbra gorria jartzea baino ez zitzaien falta!” Ea bihar eta etzi zer moduz moldatzen naizen!

Zalantzak informazioaren esanguragarritasun eta garrantziaren inguruan ere badauzkat. “Zer eta noiz da garrantzitsua? Euren komentarioak, irriak, espresioak, ibilerak????”

Villabonatik aurrera, Asteasura bidean, bidegurutzean eskuinera ... Zizurkil!

Gaur asteartea da oraindik, baina, neka-neka eginda eta burutik beherako handi samarrarekin nabil. Eskerrak astea hasi baino ez dudana egin! Badirudi bakarrik ibiliko/sentituko ote nintzen beldur dela hau ere, nonbait, eta aste osoan konpainia ezin zintzoagoa izango dudala dirudi. Mukizapi, buruko min, doministiku eta enparauek ere ez dute hasierako “fasea” ezagutu gabe gelditu nahi, antza. Hauek bai lagun fidelak!

18.15ean prestatu eta laster izango naiz errepidean. Ea zer ematen duen gaurkoak. Ez dut uste atzokoa bezain erraza izango denik. Ezinezkoa da!

19.08. Goiz(egi) iritsi naiz, ordurako iritsiko ez nintzen beldur 18.30ean martxa egin baitut etxetik. Hurrengoan 18.45ean abiatuta nahikoa izango dut.

Frontoiko argiak itzalita daude eta ez da inor ageri oraindik. Bidaia-lagun izandako irratia entzunez beste unetxo bat egin (albistegi nagusia EIn) eta kanpora noa paseotxo bat ematera (19.12). Frontoitik eskola aldera eta handik probalekura heldu naiz eta petrilean eserita koadernoan ateratu dut berriro, burutazio eta sentipenak izkiriatur. “Lasailasai” eseri naiz, bake-bakean, ez dabil inor bertan, nahiz eta tximeletak sumatzen ditudan sabelean, urduritasuna. Nire burua situatu nahian jarraitzen dut gaur ere eta uste dut aste batzuk beharko ditudala erabat kokatzeko.

Ez dakit frontoi ingurura inor hurreratu ote den, ez baita ikusten eta urduritasuna areagotzen ari zait, nire dudak bezala: “nola aurkeztuko naiz? Nola erreakzionatuko ote dute? Ez dakit, ez dago nire esku eta horrek estutu egiten nau”.

19.25. Uste dut alferrik dela buruari bueltaka eta izerdi hotzez blaitzen jarraitzea. Espero dut Saioa etorriko zela. Noan ba! Une horretantxe gizon-proban entrenatu asmoz mutil koadrila bat heldu da probalekura eta elkarrekin gurutzatu gara.

Frontoi ataria

Saioaren kotxea identifikatu dut frontoi aurrean eta horrek lasaitu egin nau. Orduantxe irten da kotxetik eta elkarri kasu egin diogu. Ondoren tabernara abiatu da frontoiko argia pizteko fitxa bila. Nik kotxea zabaldu eta ur botilatik tragotxo bat egin dut, grabagailua ondorenerako pronto zegoela enegarrenez konprobatzearekin bat.

Hasi dira emakumeak agertzen. Lehena Itsaso izan da, ezagutzen dut, Ibarako taldean aritu zen nire azken urtean eta “aspaldiko!” batekin agurtu dugu elkar. Buru zuri bat ere (ondoren jakin dut Gurutze izena daukala, saioan) une berean heldu da eta nire sustorako identifikatu egin nau, ezaguna natzaio, nonbait. Esan dit “zer, federaziora itzuli al zara?” Eta nik, ezetz, saiora nentorrela beraietako bat bezala, tesia egiten hasi naizela eta ikertzera nentorrela. Itsasok ere galdetu dit eta esan diet saio denetan ibiliko naizela, eta, “ah, bai?” Irribarre egin du. Harritu egin nau, badirudi ni nor naizen ezagutzen nautela, ni eurekin oroitzen ez banaiz ere. Hala esan didate, “errazagoa da gu zurekin gogoratzea”.

Frontoiaren kanpoaldean geundela beste neska txiki bat (Eli omen da) heldu da eta besteak ere gutxika-gutxika bildu dira taldera, Onintza izeneko bat, Marian, Pili, ... Azken hau pararik gabe etorri da eta gero pala bila joan da kotxera (B.K. honekin gogoratzen nintzen bistaz, Irurako hartatik). Guztira, nirekin 7 eta Saioarekin 8 bildu gara. Bezperan ez omen zebilen pilotalekuko argia eta ez dakite gaur funtzionatuko ote duen. Begiraleak arrastorik ere ez duela esan die, berari ez diola inork ezer abisatu.

Oporren inguruan aritu dira hizketan, elkar ez dutela ia ikusi iazko ikastaroko azken egunetik zenbaitek, eta ni tesia amaitzen ari den Itsasorekin aritu naiz; hasieran nagoela eta nondik nora nabilen ere ez dakidala esan diot.

Denak bildutakoan frontoi ataritik kantxara egin dugu. Justu futboleko ateak zeuden hesiaren aurka eta hantxe bildu gara, trasteak harmailetan utzi ondoren.

Pilotalekua

5 mutiko dabilta frontoian futbolean eta 19.40 bueltan Saioak esan die “bueno, hastera goaz” eta haurrek alde egin dute. (B.K. Nik ez diet kexarik entzun eta horrek hein batean harritu egin nau).

Saioak aurkezpena egin du, borobilean jarrita geundela. Egia esan aurkezpena egin du baina ni bakarrik aurkeztu nau, “Uxue, berak esango dizue zertara etorri den” esan du. Nik esan diet Zumarragakoa naizela, zertara etorri naizen, ikerketa bat egiten ari naizela emakumeen eta pilotaren inguruan eta ez didate inongo eragozpenik jarri. Kuriositateak bultzatuta Marianek galdetu dit zer ikasitakoa naizen eta esan diet “heziketa fisikoan

lizentziatua naiz eta ikerketa master bat bukatu berria”. Esan diet balitekeela uneren batean oharrak hartu edo kameraren bat eramatea. Hortik ya zuzenean saiora pasa gara, beroketarekin hasiz.

Beroketa

Beroketa atzoko Hernanikoaren oso antzekoa izan da, korrika frontoian besoak mugituz, alde batera eta bestera, hizketan (B.K. Ni isilik, pentsatzen, beti bezala, behatu nahian). Pilik esan du Villabonatik zetorrela, Pilatesen hasi dela eta ez dago oso gustura. Irakasleak gauzak behin bakarrik azaltzen omen zituen eta bera galdu xamartuta ibili omen da. Ez omen zekien beste klasekideek dena ulertzen zuten ala ez. Saioak esan dio azeleratu xamar etorri dela.

Korroan jarri eta mugikortasun articularra, Saioak egiten duena kopiatuz emakumeek. Hizketan ari dira, oso giro onean, saltsan, batez ere palaz. Aurten Villabonan taldea aterako dela eta iaz eurekin aritutako 3 faltako direla ohartu dira, lasartearrak Villabonan izango baitira. Orduan Itsasok esan du berak ere bazuela zalantza hara bidaliko ote zuten, baina, poztu egin zela Zizurkilgo gutuna jasotzean (B.K. Talde izaera eta talde-giroa ezinbestean aztertu beharreko elementuak dira!).

Aiurri aldizkarian Saioari egindako elkarrizketa ikusi omen dute eta oso ondo omen dago, bertan esandakoak egia direla ere aitortu die eta emakumeak gustura geratu dira. Orduan inguruko beste ikastaroetako aukeren gainean ere aritu dira eta ohartu naiz bazutela Lasartekoaren berri, adibidez. Ni isilik egon naiz, pentsamendu eta hizketaldien artean banatuz nire arreta.

Ondoren, binaka jarri eta pilota batekin ezker horman piloteatzera igaro gara. Orduantxe piztu ditu frontoiko argiak Saioak, tutik ez baita ikusten dagoeneko. Argia fitxa bidez pizten da eta ordubeteko iraupena izaten duenez benetan beharrezkoa izan ez den arte ez pizten saiatu da. Niri Itsasorekin egokitu zait, ezagutzen dut eta alde horretatik lasaiago nago. Hark esan dit hiru hilabete eta erdian pilotan aritu gabe dagoela eta nik lasai egoteko esan diot, nik 10 pasa ditudala. Erantzun dit “bai, baina zurea diferentea da”. Lasai hartzeko esan diot nik eta gustura aritu naiz harekin, paleta kolpeak eta hitzak tartekatuz.

Beroketa egiten ari garen bitartean begiraleak aprobeztatu egin du frontoian saiorako jarri beharreko marra guztiak jartzeko. Egia esan zoru guztia dago marraz beteta eta ez da erraza izango azkena jarritakoak besteen artetik bereizten.

Denok deitu eta saioko zati nagusiari ekiteko unea heldu da.

Ariketak

(B.K. Atzoko Hernaniko saioaren antz handia du gaurkoak momentuz).

1. Pilota jo, norbere pilota jaso, 7ko marra zapaldu eta ilarara itzuli behar da. “Pilota atzetik aurrera jo, alboz zaudetela, aurrean, zuek pilota ikusi egin behar duzue, ez horrela (besoa uzkuratuz)”.

Illaran ariketa egiten hasita garelako Pilik egin du aipamena, “gaur publikoa daukagu”. Lau gizon daude pilotalekuaren gainaldean kristaletik begira (B.K. Ez naiz konturatu noiz joan diren, baina, unetxo batean begira aritu dira, behintzat). Uste dut ariketetan aurrean Gurutze eta Pili neuzkala eta atzean Eli esango nuke.

Ariketa egiten hasi eta atzo bezala, nik nire lehen pilotakada jotzean lehenengo komentarioa, begiralearen ahotik: “Uxue, pilota aurrean jo” (B.K. Normala da, egoera beretzat ere ez da ohikoa). Irribarre egin, pilota jaso eta marra zapaltzera joan naiz, txintik atera gabe.

Ariketa hasi eta berehalaxe moztu du begiraleak, azalpen batzuk emateko. Esan die ez dituztela hankak flexionatzen, askotan puntatan jotzen dutela eta pilotan gorputz guztiarekin egin behar dela mugimendua, hanketatik hasi eta besoraino. Ondoren ariketa berarekin segi dugu. Ikasleen arteko kolpeetan berak pilota prestatzen du, kolpeak tartekatuz, eta hala joan da ariketa.

2. Atzo Hernanin bezala marra erdian jarrita, pilotaren botearen arabera ezkerrez edo eskuinez jo behar da. Ezkerrez jotzeko aukera bat eman du, bi kolpe egitea norberak: prestatzeko kolpe bat (eskuinez egin litekeena) eta ondoren ezkerrez jotzeko kolpea. (B.K. Ez dute asko erabili. Bakarren batek erabili du eta ariketa horrela joan da).

Ikusten da ezkerrez ez daukatela segurtasunik, baina, denak saiatzen dira. Saioak tarteka gogorarazten die bi kolpeen aukera eta probesteko esan, pilota ezkerrez edozein modutan jotzea baino hobea dela azpimarratuz. Iruditzen zait pentsatzen dutela nik erraz ematen diodala, entzun ere entzun dut zerbait, baina, esan diet nik ere ezkerrez emateari beldurra niola. Ez dakit sinetsi ote didaten ...

3. Ariketa bera, aldaera batekin. Piloteo jarraituan, Saioak kolperik tartekatu gabe, baina dinamika berean, botearen arabera beso bat edo bestea erabiliz.

B.K. Inork ere ez dio galdetu Saioari airez jotzeko aukeraz eta nik tentazioa eduki badut ere ez dut egin, erabaki baitut eurei dagokiela. Beraz, mingainari hozka egin diot. Ez dute askotan erabili bi kolpea. Nik uste gauza asko direla kontuan hartu beharrekoak eta denak (jo, pilotarekiko distantzia mantendu,...) ez dituztela gogoratzen, ahaztu egiten zaizkiela.

Borondate onez eta gogotsu ikusi ditut, tartean begiraleari komentarioak eginaz “aurten gogor hasi zara” edo “kañera etorri zara” bezalakoak. Gustura sumatzen dira konplizitate horretan.

Ariketak burutu bitartean tarteka hizketalditxoak sortu dira, Saioarekin batera aritu dira. Tartean adin kontuak atera dira eta erabaki dute zaharrena nor den eta gazteena nor: “nik 48, 46, 47. Ni gazteena!”, Saioak. (B.K. Adinarena eta pilotan noiz hasi ziren bada aztertzeko ildo bat. Gaietara gehitu beharko nuke).

Ariketa batean Saioak, adibide bezala, zuzenean “Marianek hau gaizki egiten du” esan du eta honek “errespetu pixka bat, eh” erantzun dio. Ez dakit erantzuna serioa izan den edo broma giroan kokatu behar den, justu adinarenaren ostean etorri baita. Ez diote garrantzirik eman eta horretantxe geratu da.

4. Txokotan, partiduetarako bikoteak egiteko. Bi bizitzarekin, bizitzak galdutakoan atzera. Lehengo egoera berean, botearen arabera besoaren erabilerarekin, 7ko marra zapalduz eta abar.

Nik zalantzak izan ditut nola jokatu, konturatu baina ez daukatela tantoa egiteko intenzionalitate handirik. Horregatik, bihurrikeri pare bat egin ditut (barkamena eskatu diet ondoren, intuizioari segiz), oso momentu zehatzetan, baina, justukoak, ez nendin oso nabarmen gelditu. Nik uste baino gehiago ezagutzen naute, Iruran EmP egunean izanda zeuden, justu nire azkena/despedita izan zenean, nirekin gogoratzen dira gehienak (harrigarria egin zait) eta nire mailaren berri ba omen zuten. Saioak komentarioren bat egin du, “jokatzen du, eh!” eta Itsasok, “bai, eta hori erdia egiten ari dela”. Besteren batek esan du, “pentsatzen ari da, memorizatzen, informazioa prozesatzen”. Inork ez du errezelarik azaldu eta alde horretatik oso harrera ona izan da. Ni beldurrez sartu naiz, baina, uste baino dezente hobe eta leunagoa izan da gaurko hasiera.

Txokotan azkenean Pili eta biok geratu gara. Egia esan nik tantoa egin baino beraiek galtzen dute eta zalantza daukat uneren batean neuk huts egin beharko ote nukeen propio ala ez, ea kaltegarri ote zaidan beti “onena” izatea, dena eramane beharko ote nukeen ala ez (une batzuetan iruditzen zait harresi bat naizela beraiantzat, hutsik egin ez eta denak eramaten dizkiena). Une batean nik komentarioa egin dut “tarteka gaiztotu egiten naiz eta gaiztakeriak irteten zaizkit” eta erantzun didate normala dela eta horrek saltsa jartzen duela, eta, beno, lasai egoteko alde horretatik (Pilik esana).

Borobilean jarri eta Saioak bikoteak egiteari ekin dio.

5. partidak. Bikoteak egiteko postuak aintzat hartu ordez egiten hasi denean iruditu zaio deskonpentsatu xamarrek zirela eta orduan hala jarri gaitu:

3 txokotan, errotazio sistema bidez.

Aurrean, 2:2. Botearen arabera beso bat edo bestea. Airez libre (botea 4ra arte).

Onintza-Itsaso eta Eli-Ni

Erdian, 1:1 partida (5-7)

Saioa-Marian

Errebotean, 1:1 partida (8-10).

Pili-Gurutze

8 guztira, 7 + Saioa. Partidak 6ra jokatu dira eta egia esan markagailua ez da inportanteena izan, tarteka kontua galduta ere ibili gara.

Nik nire bikoteari esan diot berak erabakitzeko non jarri nahi duen, aldatu nahi badu abisatzeko eta lasaitasuna transmititzen saiatu naiz, konfiantza osoa adierazten. Alegia, nik ez daukadala eragozpenik ezertara moldatzeko eta lasai sar daitekeela. (B.K. Nik uste egokitu naizela bai jokatzeko garaian eta bai bestela ere).

Nire bikotearekin aritu naizenean interesa agertu du nire lanarekiko. Jakin-mina izatea eta ase nahia normala da. Aprobetxatu dut galdetzeko noiz hasitakoa den eta esan dit 2009ko abenduan hasi zirela eta ordutik eduki duen prozesuan oso gustura dagoela, sekula palan ibili gabea zela aurretik eta prozesu horretan gora eta behera egiten dela, baina konforme dagoela. Ikerketaz galdetu dit eta esan diot nire lana dela, beka baten

erantzunaren zain nagoela, eta interesa agertu dit, baina, ez da intrusiboa izan, informazioa eskatu dit, ni une bakar batean larritzea bilatu gabe.

B.K. Animatu naute lana egitera eta eurek inolako eragozpenik ez dutela esan ere bai (nik hala interpretatu dut egoera, behintzat). Nik uste begi onez ikusten dutela emakumeen pilota ikertzea, besteak beste beraiek ere hor dabiltzalako.

Guk bi partida jokatu ditugu aurrean, eta, atzeko eremuetan, bana. Akordatzerako saioa pasa da eta 20.55ean argia itzali da. Fitxa bidez pizten da argia Zizurkilen ere, ordubeteko iraupena dauka eta begiralea konturatu ez denez (ez omen du txirrinak abisatu) itzali egin da. Ordua ikusita luzaketak egin eta ia ordurako etxerako bidea hartzeko unea iritsi da. Korroan luzatu bitartean aritu dira esaten aurten astearte asko jai direla (25a, 1a, abenduaren 6a). Datorren astean ere jai bezpera omen da eta orduan taldekide batek (Elik) esan du boda daukala Madrilen eta datorren astean ez dela etorriko, zubia aprobetxatuz bertan geratuko direla.

Onintzak zizurkildarrei esan die idatzi bat egingo duela udaletxerako, kuota jaisteko edo horrela (edo osorik ordaintzeko) eta erabaki dute, emakumea, kirola eta euskara sustatzen dituztela aldi berean, eta buruko gimnasia eta desahogatzeta ere baietz. Alde on asko atera dizkiote ikastaroari. Hasierako beroketan eskaintzen inguruan aritu dira eta nabarmendu dute Villabonarekin alderatuta alde nabarmena dela, han gauza gehiago daudela aukeran: dantza, saloi-dantzak, bestelako ikastaroak, kiroldegiko ikastaroak, ... Zizurkilen, berriz, ez omen dago aukerarik. Ildo polita da hari hori tira egiteko, eskaria- eskaintza aztertuz. Esan dute asteartetan bizitza ematen diotela pilotalekuari.

Saioa egiten ari ginen bitartean beste emakume bat ere azaldu da frontoian, Oihane izenekoa. Berandu omen zen eta ez du parte hartu, begiralearekin hizketan aritu da pixka batean eta gero martxa egin du. Bittori ere falta omen zen, oporretan omen zen. Pentsatzen dut hurrengo saioetan etorriko direla.

21.00etan martxa egin dute eta Saioa orduan hasi da saio hasieran jarritako marrak kentzen. Nik konturatu eta lagundu egin diot. Besteek etxerako bidea hartu dute.

Beroketan konturatu naiz Zizurkilgoa ere egindako talde bat dela, euren artean oso giro ona daukatela, gustura dabiltzala eta ikusiko dugu informazioa nola atera, nola ez, zer bai eta zer ez. Elkar ezagutzen dute, ondo konpontzen dira eta aurten ez daukat berririk aztertzeko, Hernanin ez bezala. Ni izango naiz “berria”.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Ni gustura geratu naiz, eta harridura puntu batekin hasieran nola identifikatu nauten ikusita. Nik etxetik kanpo ia bazter guztietan anonimoa naizela uste nuen bada! Bistaz ezagutzen naute, esan diet fitxatuta nindukatela, nik eurak ez bezala. Hori ez da txarra izan nire ustez, erabat arrotza ez natzaielako, pilota munduarekin lotura daukadala badakite, gainera. Iruditzen zait laster ohituko direla ni bertan ikustera.

Beti azalduko da komentarioren bat, “kontuz, ikertzen ari da” edo “hainbesterako ematen al du ordu eta erdik?”

Ez dakit, oraindik zalantzak dauzkat, zalantza existentzialak batzuk (grabazioen balioa, saioa gogoratuko ote dudan).

Amaieran Saioarekin aritu naiz hizketan eta hark bere duda eta egoeraren berri ere ematen dit. Gaur esan dit Hernanin eman ere egiten ez dion emakume bat hasi zaiola, eta, beno, gogor xamarra egin zaiola eta ea nola moldatzen den. Ni saiatu naiz lasaitzen eta esan diot lankideei galdetzeko. Esan dit ez dela sekula egon halako egoera batean, traketsak tokatu zaizkiola baina hainbesterainokoak ezetz. Beste taldekoek esaten omen zioten lasai hartzeko eta beraiek ere hasieran egon zirela egoera horretan.

Estimatusa sentitu naiz lehenengo egunean eta inportantea da niri begira ere aho-zapore on horrekin geratzea. Bukaeran begiraleak ere galdetu dit “zer moduz?” eta ezer behar badut eskua luzatu dit.

Ezjakintasunak eta dena nire kontrolpean ezin edukitzeak urduritzen naute oraindik, baina, espero dut moldatuko naizela. Burua biharko saioan jartzen hasi naiz, hauek nik uste ezta ere bazekitelako nor naizen, baina, biharkoek ez. Ea aurkezpenetik asmatzen dudan rapport-a sortzen hasten. Ea zer ematen duen Usurbilgoak! Beste egun bat, beste herri bat, beste talde bat... Ikusiko dugu!

Deigarria egin zait Iruraz aritu direnean, “ustelak gara” esan dute, urduri jartzen direla, eta ez dutela euren mailarik ematen, “iazko erridikulua” aipatu dute. Hori ere aztergai interesgarria da, nire esperientzian oinarrituta emakume gehiagori ere gauza bera gertatzen zaielako, partidetan urduritu eta euren mailarik ez ematea.

Saioak iaz baino gogortasun handiagoa omen dauka, exijentzi maila pixka bat handiagoa. Esan die bera esperientzia hartzen joan den heinean eta jakintza gehitu heinean horiek praktikan jarri nahi dituela.

Ni konturatu naiz “seguroa” xamarra naizela eta arrisku egoeretan “kontuz!” esaten diedala, itsu-itsuan joaten baitira zuzenean pilotara eta ez dutelako inguruan begiratzen. B.K. Segurtasun faltak urduritasuna sortzen die, nik uste ikuspegia askotan oso pilotara bideratua dutela.

Denbora behar dut nire burua kokatzeko, lehen astea pasa, saioak pasa, ea kontakizunekin hasi eta loturak egiten ditudan saioen artean. Lotura egiteko begiralea har nezake edo saioen egitura bera, oso antzekoak baitira astelehen eta asteartetakoak.

Gaurko eguna gogorra izan da, baina, gustura nago, nekatuta egotearekin batera. Sentsazio arraroa da grabadorari hizketan joate hau. Afalostean edo bihar goizean transkribatzeko asmoa daukat eta lagungarri izango zait. Ondo, ondo, uste baino hobeto. Ea honek bide beretik jarraitzen duen!

21.07. Frontoitik kotxerako bidea egiten ari gara. Kotxean sartu naiz, 20 minutu Saioarekin hizketan pasa eta banoa (21.26).

22.00. Kitto! 22.09. Etxean naiz, logelan sartu, arropa aldatu eta afaltzera noa. Neka-neka eginda nago, trote hau gutxi ez eta katarro handi samarrak harrapatu nau, baina, pozik. Sentsazio onak dauzkat, harrera ona izan baita oso. Askok eskertzen da, bat oraindik noraezean dabilenean zer esanik ez?!

Usurbilgo plazan

Lehenengo aldiz antolatu dute halako ikastaro bat bertan, udalak eta pilota elkarreak elkarlanean, eta gaur da lehenengo eguna, bai begiralearentzat, bai niretzat eta bai taldekideentzat. Niretzat, hala ere, hiru egunetan hirugarren paleta saioa da eta giharren bat edo beste kexaka suma nezake. Hala ere, has dadila festa!

Sarrera

19.15ean iritsi naiz, kotxetik irten eta eskaileretan gora joan naiz, “gora ta gora beti...”, parkea eta jendea ezkerretara utzita. Berriz ere ezkerretara jiratu, eliza erreferentzia hartuta eta han, Sutegi aldamentetik, plazara iritsi naiz. Handik frontoira, lasai-lasai buelta bat eman ondoren. Bertara heltzean Haizea ikusi dut tabernako mahaietan eseritako batzuekin hizketan eta besoa jaso diot, agurtuz. Bera bazetorrela ikusi eta zain geratu naiz. Han nengoela emakume rubia bat ikusi dut kiroletako arropa jantzita hizketan ari zela probaleku bukaera aldera beste batzuekin eta pentsatu dut hura paletako saioetara etorriko dela. Haizea etorri eta frontoira joan gara. Ni ohartu gabe nengoen, baina, Lurdes dago han (B.K. Haizearekin hitz egiteko zain, astelehen goizetako saioak bere esku baitaude) eta hura ere agurtu dut. Kontu esanaldi bat egin dugu, ni petrilean eserita eta besteak parean zutik neuzkala, eta lehen ikusitako rubia hura gerturatu da gugana 19.30 inguruan. Bere izena esan du, ez dakit Libe edo zer esan duen, egia esan, ez naiz gogoratzen. Nik Uxue naizela esan diot eta Haizeak bere izena eta “entrenatzailea naiz” gehitu dio. Haizeak galdetu dio ea palan ibiltzen den eta esan dio ezetz, “bizikletan gehiago”. Astean bitan spinning egiten duela esan du, astearte eta ostegunetan, baina, palan oso gutxi, umearekin noizbait baina oso gutxi ibiltzen dela. Handik pixka batera bi etorri dira (geroago jakin dut Idoia eta Aitziber zirela), eta tantaka-tantaka hasi da jendea frontoira gerturatzen.

Bitartean frontoian Usurbilgo pilota-eskolako haur talde txiki bat dabil, eskuz, dozena-erdi edo izango dira. Tartean neska bat dabil, izerditan blai. Moldatzen da eskuz, auskalo zenbat ordu sartuko zituen frontoian bertan! Guraso pare bat daude zain petril inguruan, noiz bukatuko. Haizeak galdetu die ea astelehenetan eurak ibiltzen diren eta orduan beste batzuk ibiltzen direla esan dute.

Hasiera polita izan da, Haizeak ez baitzekien zein ziren bertaratuko zirenak, alderantziz ere egoera bera zen, eta zerrenda eskuan ibili da, besteei galdetuz ea bazekiten norbait gehiagoren berri. Gero beste bat etorri da, Jaione uste dut. Egoera berezia izan da. Nik Haizearen aldamenean eserita jarraitzen nuen (B.K. Petril pusketatxo nire esparru bihurtuta) eta han egon gara pixka batean, beste inor agertzeko zain. Esan dute “Ester etortzekoa da, baina beranduago eta Izaskun ere etortzekoa da”. Beste bi edo hiru ere ageri dira zerrendan, baina, ez dituzte ezagutzen. Beraz, ez dakigu zenbat izango garen, zein izango garen eta nondik nora bilduko garen. Hasiera ezberdina, interesgarria.

Pilotalekua

Egonalditxo bat egin dugu pixka bat jendea bildu arte eta Haizeari iruditu zaionean ia hasteko ordua dela frontoiaren erdialdera joan eta aurkezpen moduko bat egin du: izena eta jatorria. “Ni Haizea naiz eta zubietarra naiz, baina, beno, Hernanin asko ibiltzen naiz”. Konplizitate bila agian, “Uxue, hala esan beharko dut, ala?” esan dit eta nik “zuk ikusiko duzu” elkarri irribarre bat trukatu bitartean. Ni estrategikoki kokatu naiz bere

eskuinean, korroan azkena, bada ez bada ere nire ikertzaile izaeraren berri ez zezaten izan euren buruak aurkeztu aurretik. Euren erreazioak eta jarrera posibleek beldurtzen naute une honetan, eta, ez gutxi! Izenak galdetu dizkie banan-banan eta eurak izena eta nongoak diren esan dute. Nire txanda iritsi denean esan diet ni pixka bat urrutiagokoa naizela, Zumarragakoa, Uxue izena dudala eta ni han egotearen arrazoia emakumeen pilotaren inguruko doktorego-tesi bat dela. Bada ez bada ere gehitu dut pilotari federatu ohia naizela (B.K. Arraroa egin zait hala esan beharra... oraindik txipa aldatzeke ote daukat?!), ikerketako master bat bukatu berria eta beste talde gehiagotan ere banabilela. Garbi esan diet “ni asteazkenero etorriko naiz eta beste bat gehiago izango naiz”.

Aurkezpena horrekin amaitu da eta Haizeak une horretan erabaki du esatea lehenengo eguna dela, poliki-poliki hasiko garela, balitekeela ezberdintasunak egotea taldean, baina, lasai egoteko (B.K. Bere tenple eta patxadak inbidia sano pittin bat ematen didate). Orduan argitu du saioek zer egitura izango duten, gutxi gorabehera, beroketa, zati nagusia eta luzaketak eta bakoitzean zer lantzea nahiko lukeen. Egoeraren irudi orokor bat egin nahi duela (B.K. hitz hauek nireak dira, noski!), pixka bat ikusi nola moldatzen garen, eta horretarako pilota eta paleta bana eman eta ezkerreko hormaren aurka piloteatzeko esan digu.

Bi mutiko dabilta plastikozko baloi batekin frontisean, baina, laster alde egin dute bertatik. Ikastarokoren baten semeak ez badira ezagunen batenak izango dira, “Iker, kendu hortik” esan baitie bakarren batek. Txintik atera gabe alde egin dute, ezta ezpainak mugitzeko imintziorik ere! Beraz, txintxo-txintxo bakoitza gure eremutxo hartu eta hantxe aritu gara, jo eta fuego, kolpez kolpe. Begiralea bitartean begira aritu da, behaketan.

Une batean ohartu da beroketa egitea ahaztu zaiola (“ni bai kalamidadia” bota du) eta beregana biltzeko dei egin digu. Orduan, korrika saiotxo bat egingo genuela esan du, pixka bat gorputza ere martxan hasteko. Orduantxe Izaskun azaldu da frontoira. Aurretik ere unetxo batean etorri da, baina, bere 2.semearen bila zebilen hura etxera eramateko, nonbait, eta horrekin amaitutakoan agertuko zela esanaz agurtu gaitu. Esan du ziatika batetik errekuperatzen ari dela eta berak piszinaan beharko lukeela, baina, proba egingo duela. Haizeak erantzun dio berak ikusteko noraino egin eta zer ez.

Beroketa

Anekdotak honen ostean korrika saiotxo egin dugu, besoak aurrera eta atzera mugituz. Guztira hiruzpalau buelta baino ez ziren izango. Hau bukatu eta eskumutur eta orkatilak mugitu ditugu, borobilean. Orduan, berriz ere ezker hormaren aurka piloteatzera bidali gaitu, baina, kasu honetan bikoteka jarrita. Elkarren aldamenen geunden bezala tokatu gara, ni eta Aitziber, Izaskun eta Idoia eta Jaione eta rubia. Piloteatzen aritu gara ezker-eskuin-eskuin-ezker, eta gu isilik hasieran. Niri egoera deserosoa egin zait eta galdetu diot “zuek aurretik ibilita zaudete, ala?” eta berak esan dit “bai, urtebete daramagu asteazkenero justu ordu honetan 4 elkartzan”. Orduan hitzen batzuk gehiago egin ditugu eta halako batean berriz ere deitu gaitu Haizeak.

Lehenengo eguna dela eta lasai hasiko garela, baina, arreta zertan jartzea komeni den esan du: pala nola hartu eta hankak nola jarri. Pala hartzeko esplikazioa eman du, bostekoa ematearen antzekoa dela eta gutxi gorabehera nola hartu adibidea egin du. Denak adi-adi izan ditu eta ondoren eurak Haizeak egindakoa errepikatzen saiatu eta

honek eusteak begiratu ditu, bakarren bati zuzenketaren bat edo beste egitea aholkatuz. Hanken kasuan esan du jotzen den besoarekiko aurkako hanka aurreratu behar dela eta hau paretari begira norabidetu behar dela. Arreta batez ere saioan zehar horretan jartzea nahi duela adierazi du eta saioan zehar ere behin baino gehiagotan gogorarazi digu helburua zein den gaur, batez ere.

Ariketak

1. Banaka-banaka berak pilota prestatu, guk jo, pilota jaso eta berriz ere ilarara itzuli gara. Arreta eustean eta hanketan jartzeko esan digu.

Orduan bisitan Mikel eta konpainia azaldu dira, nik "arratsalde on" esan eta nirean jarraitu dut, antipatiko xamar. Momentu batean begira aritu dira petrilean eserita, aita-amak, amona eta Ekaitz txikia, besoetan. Gaur egia esan jende asko pasa da eta jende askok ikusi du pala ikastaroa, zeren eta erdigunean, zentro-zentroan dago pilotalekua kokatuta, ondo ikusteko moduan.

Ariketa hori egiten ari ginela Haizeak esan du komeni dela ezkerrekin ere lehenengo egunetik hasia saiatzen, eman ezean ez dela ezer pasatzen, baina ikasteko hori dela bidea, zenbat eta beranduagorako utzi gehiago kostatzen dela hasia. Jo ezean, ez jo eta listo. Deigarria egin zait, zeren eta une horretatik aurrera Izaskunek pilotakada asko, asko eta asko (B.K. Eskuinez garbi jotzekoak zirenak ere), ezkerrez jo ditu. Kuestioa ezkerrez ematea dela dirudi (B.K. Hala sartu zaio buruan eta halatsu aritu da saioan hortik aurrera. Proportzioa zer izango zen 2/3 ezkerrez?), horrekin tematuta dago.

Egia esan oso esanekoak dira emakume hauek ere, nik uste nabari dela gazte eta helduen arteko ezberdintasuna horrelakoetan. Uneoro saiatu dira eta inork ez du ez aurpegi txarrik eta ez purrustadarik egin une bakar batean ere (B.K. Ni ez naiz konturatu, behintzat!), beste patxada bat daukate. Gozatzeko eta nahi dutelako eman dute izena eta hori ederki nabari da.

2. Ariketa bera egin dugu, baina modu jarraian, Haizeak kolperik tartekatu gabe. Buelta batzuk eman ditugu jarraian, 6ko ilara baginen izan zitezkeen 12-18-20 kolpe jarraian emandakoak (B.K. Nik uste taldearen ezaugarrietako bat dela jotzeko arazorik ez daukatela, jotzen badakite). Jardunda daude gehienak, gehiago edo gutxiago, nahiz eta taldean ere ezberdintasunak nabarmendu.

3. 1:1 partidu egoerak lantzera pasa gara. Frontoia hiru zatitan banatuta, hiru txokotan:

- Frontisa 4
- 5-7
- 7-9 (oso altuera gutxiko eremua da, ezker horma beherantz doalako)

Aurreko, frontiseko, partidak 3 tantora jokatu dira eta errotazio sistema erabiliz egin ditugu ondoren gainerako aldaketak: aurretik erdira, handik atzera eta atzetik frontisera.

Beroketako bikote berak izan dira:

- Ni + Aitziber
- Idoia + Izaskun
- Jaione + rubia

Gu hasi gara aurrean. Tantoak luzeak dira, inork ez duelako galdu nahi eta piloteoari eusteko zailtasunik ez daukatelako/daukagulako. Tantoa egitera baino ez galtzera ari garen sentsazioa izan dut unereren batean. Ni oso-oso lasai aritu naiz, jokoa emanaz eta pilota eskura utziz. Tantoren batean “Uxue-bihurria” atera da eta ondoren barkamena eskatu diot Aitziberri (B.K. Ez naiz ondo sentitzen hori egindakoa, baina, tarteka tentazioa izaten dut eta ez zait erraza egiten bulkada denak bertan behera uztea. Erdibide bat aurkitu beharko dut. Ni ere egokitzen ari naizela ezin da ahaztu).

Beste bi guneetan ere jokatzeko ari dira, tarteka hitzak ere elkartrukatzuz paleta eta pilotaren arteko elkarrekintzaz gain.

Gure partida amaitzean atzera joan gara eta galdetzeko aprobetxatu dut, lehen esan baitu urtebete zeramatela ordu horretan bertan lau lagunek biltzen. Orduan aprobetxatu dut galdetzeko ea betidanik aritu izan den pilotan edo ez... Lasai erantzun dit, eta esan dit pittin bat beti aritu dela, etxe ondoan frontoia zutela eta anaiak dituela eta haiekin aritzen zela. Orain urtebetetik astero-astero dabilta eta aurtun Usurbilgo txapelketan parte hartu omen dute zenbaitek. Gero gaineratu du ikastaroaren berri izan zutenean aukera ona iruditu zitzaizela akaso bestela landuko ez lituzketen alderdi teknikoagoak lantzeko, norbait izanda erakusteko. “Guk ez dakigu” bat atera zaio eta niri “edo agian uste baino gehiago dakizue” batek egin dit ihes ezpain artetik.

Lehen partidu erronda pasa denean Haizeak bikoteak aldatzea proposatu du eta aldaketak egin ditugu: Aitziber-Idoia, Jaione-Izaskun eta ni-rubia. Beste erronda bat egin dugu, partidak piloteatuak izan dira eta iraupena izan dute. Azkena jokatzeko egokitu zaigu guri eta bukaera aldera Aitziberrek esan du, “Uxue utzi egiten da” (B.K. Nik uste beraiek ere konturatu direla lasai nabilela).

Haizeak erlojuari begiratu dio eta esan du denbora pittin bat badagoenez txokotan jokatuko dugula.

4. Txokotan, bizitza banarekin. Haizeak galdetu die ea nola deitzen dioten Usurbilen eta ez zeukaten oso garbi: “kaleketan, a kales...” Galdetzekotan geratu dira. Bizitza galdutakoa kanporatua da eta zain gelditu da kanpoan.

Orduantxe hastera gindoazela Ester etorri da, lanetik zuzenean. Haizeak esan dio nahi badu sar litekeela, baina honek esan dio pixka bat begiratzen geratuko dela, txankletak dituela jantzita.

Haizeak ere hartu du parte zati honetan. Ordura arte ez da aritu jokatzeko.

Ni saiatu naiz une batean saltsa jartzen, esan diet geroz eta aurrerago jarri gehiago joko dutela eta gustura ikusi ditut. Ezkerraldean paretaren aurkako eremuari arriskutsu irizten diote eta azkenean aurretik bertarako bidea hartzea erabaki dut.

Hiruzpalau buelta eman ditugu.

Saio praktikoa hala amaitu da. Luzaketa batzuk egin ditugu ezker hormaz baliatuz eta listo. Amaieran datorren astean, hilak 12, jaieguna dela eta jai egitea erabaki du taldeak eta 19an izango da hurrengo saioa. Bada ez bada ere, bere telefono eta e-posta helbideak eman ditu Haizeak, inork ezer balu abisatzeko esan du, berak ere jakin dezan gutxi

gorabehera zein agertuko den. Puntualitatea eskertuko lukeela esan du, bai hasteko eta bai bukatzeko garaian.

20.58. Listo kalisto! Lehen saioa joan da. Gustura hartu dute/dugu etxerako bidea. Nik nekea somatzen dut eta buruko karga dezentea ere bai.

Haizeak giltzak utzi behar dituela eta zain geratu natzaio, maleta zainduz. Hura etorri eta kotxeetara goaz gu ere, etxeratzeko unea helduta. Hizketalditxo bat izan eta 21.16an abiatu naiz motorra martxan jarrita.

21.37. Kotxean noala Mikel deika ari dela ikusi dut, baina grabagailua piztuta nindoalako, eta esku-libreak jarri gabe nituelako, ez hartu eta etxera heldu orduko nik deitzeko erabakia hartu dut. Gaur bidean hizketan bukatutakoan itzali dut grabagailua, esateko besterik ez neukala iritzita, ez dut alperrik piztuta izan.

22.00. Heldu naiz etxe aurreko aparkalekura. Etxera heldu, logelara joan eta telefono deia egin dut. Mikelekin gaurko esperientziaz eta beka dela eta aurkeztu beharreko laburpenaren gainean hitz egin ostean afaltzera noa (22.20).

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Usurbilgo frontoia beste batzuk baino dezente motzagoa da, 9 koadro ditu guztira eta ezkerreko horma ere altueran txikituz doa. Herriaren erdi-erdian dago eta ikusten da berez bizia daukala. Batzuk patinetan zebiltzan inguruan hasieran, beste batzuk bizikletan, tabernako terraza ere jendez beteta egon da,... Mugimendua nabari da edozein angelutatik begiratuta ere.

Kuriosoa eta deigarria egin zait ikustea gu paletak hartu eta piloteatzen hasi eta oso-oso denbora gutxira hiru emakume hurbildu eta petrilean eserita geratu direla, nolabait saioari begira. Egonaldi luze xamarra egin dute bertan, eta ez naiz ohartu noiz martxa egin duten. Geroago jakin dut, saio amaieran, Haizeak komentarioa eginda, horietako batek galdetu diola ea bera izango ote den astelehen goizetako begiralea, berak izena eman duela-eta. Ez omen daki zergatik, baina, semeak esan ziola eta azkenean izena ematera animatu dela, pala asko gustatzen omen zaiola-eta (B.K. Aztertze moduko kasua, ezta?)

Besteak beste norbaiten senarra eta haurrak ere pasa dira, “umeak nirekin doaz” esanaz eta “bale” erantzun du norbaitek frontoitik. Usurbilgo frontoiak (edo bera dagoen inguruak, bederen) bizia dauka eta nabaritzen da. Jendea zebilen pasadizoan, bakarren bat txakurra paseatzen, haurrak nonbaitetik etxera, batek gitarra zeraman bizkarrean,... Ez da, adibidez, Hernaniko frontoia. Hura ezkutuan dago.

Nire ikertzaile-izaeraren inguruan oso komentario gutxi irten dira, eta nik uste hori ona dela (ala, ez?!). Haizeak une batean esan die, “Uxurekin zerbait egin beharko dugu, ezkerrarekin bakarrik joka dezala”, baina, ez, bestela ez da izan hizketagai. Nik ez dakidana da beraien artean komentariarik egin ote duten edo zer izan den kantxatik kanpora.

Haizea bera ere gustura ikusi dut, nik uste berak maila gutxiagoko jendea espero zuela. Konturatu da jotzeko inolako arazorik ez dutela eta ezkerrez ere esan duenetik aurrera

saiatu direla. “Oso ondo” eta “ederki hasi gara” bezalakoak bota ditu saioan zehar, eta emakumeak animatzen ere aritu da (B.K. Balio du halakoetarako, egia esan!).

Informazioa jasotzeko Usurbilgo Emakume Palarien I. Txapelketa daukat. Han jokatu omen dute batzuk, fronteniseko pilotarekin.

Ni oso gustura noa, ez dakidana da zenbat informazio eta nolakoa jaso(ko) dudan, baina hori betikoa da. Iruditzen zait aurreko bi egunetan baino gauza gehiagok ihes egin didatela inpresio eta bizipenei lotuta, ez ote den deskribatzaileagoa. Hala ere, lehen eguna da eta patxadaz hartzea komeni zait. Harrera uste eta irudikatzen nuena baino askoz ere hobea izan da. Pentsa, nik muturren bat ikusteko beldurra nuen eta inork ez du zirkinik ere egin. Pena da astean zeharreko komentarioak ez zaizkidala iritsiko! Zer esango ote dute?!

Frontoiak bizia dauka, jendea ikusten ari zen eta ez zait iruditu hori eragozpena zenik eurentzat. Jende asko pasa da, batzuk propio begira aritu dira, guraso direla ere ikusi dut kasu batzuetan. Beraien semeak palan aritu dira, iruditu zait inguruko onespina bazeukatela. Beraiek palara joan dira. Hau aztergai interesgarria izan liteke.

Usurbilgoak dira denak, ez da egindako talde bat (B.K. beste bietan ez bezala), nahiz eta elkar ezagutzen duten batzuk eta euren artean harremanik izan den zenbaiten kasuan.

Haizearen saioak oso ezberdinak dira, egituraz zer esanik ez, baina pazientzia eta patxada badauzka eta nik uste dut hori dela funtsezkoagoa ez dakit zer nozio edukitzea baino. Talde dinamika sustatzeko badauzka armak.

Izaskun horrek esan du une batean ”gu plaza ondokoak gara eta nabaritzen da ibilita gaudela” (B.K. Bera da rubiaren ondoren nabarmen okerren moldatzen dena, alde pixka batekin, gainera).

Interesgarria izango da jakitea ea zerk bultzatu dituen izena ematera, lehen urtea baita. Bat sekula palan ibili gabekoa da, adibidez, eta ez dirudi palarekin lotura zuzenik duenik. Euren amatasuna ere gai interesgarria da jorratzeko.

Ez zait iruditu nobedade handiegia denik herrirako emakumeak plazan eta frontoian pilotan ikustea, ez haurrentzat eta ez inguruan ibili direnentzat ere, bai paseoan edo bai une batean bertatik igaro direnentzat. Deigarria izan da “Aupa, Aitziber” animatu izana amaiera aldera ikusten ari zen bakarren batek. Amaieran ere bi emakume pasa dira eta ondo erreakzionatu dute. Kuriosoa pareko etxeko balkoi batean emakume batek ia saio osoa eman izana begira.

Gustura noa, nekatuta noa, nire kalentura eta guzti, baina, uste baino hobeto, beldurrak pixka bat alboratuta. Ondo hartu naute (eskerrak!). Gustatu zait, iruditzen zait testuinguruak badaukala zerbait ezberdina eta berezia besteekiko. Zer den nabaritzen saiatu beharko naiz ikasturteak aurrera egin ahala. Lehen eguna izan da, beraz, ez naiz kexatzen hasiko.

Oraindik ere tarteka nire barruko entrenatzaile-irakasle sena pizten da eta gauzak nik nola egingo edo azalduko nituzkeen konparatzen hasten naiz nahi gabe, neure baitan. Adibidez, pala nola hartu edo hankak nola jarri azaltzerakoan. Hala ere, nire buruari ez

diot uzten eta “isilik!” batekin konpontzen dut, mingainari hozka eginda. Ez dut uste nire rolaekin bat etorriko litzatekeenik hori egitea, nahiz eta laguntzeko asmoz soilik izan.

P.D. “Off the record”: Itzulerako bidean Usurbilen galdu egin naiz... Futbol zelai aldera hartu dut beste aldera hartu beharrean. Ezta Bilbo Handia balitz ere!! Kar-kar!

Hala bazan eta ez bazan... hasi naizela saltsan!

Dena lehenengoz probatu eta bizi izan dut aste honetan. Baina, beno, urratsez urrats aurrera egingo dudan itxaropenean datorren astetik aurrera berri izateari utzi eta ahaztuko dut, edo hobeto esanda, lasaitasun handiagoz oroituko dut (hala izango ote da?!), aste honetan zehar jazotakoa. Zambuluka ibiliagatik, haurrek oinez hastean nola, nik ere aurkituko dut oreka, pazientzia eta denbora lagun. Ez etsitzea funtsezkoa omen, beraz, Altza Porru!

Harrerak uste baino hobeak izan dira eta orain hemendik aurrerako asteetan hortik tiraka, pixkanaka-pixkanaka, konfiantza areagotu ahala, informazioa ateratzeko bideak jorratzen hasi beharko dut. Asmatuko ote dut?!

N-lean zehar zenbat kilometro, zenbat ordu, zenbat joan-etorri egin ditudan (eta egingo) etorri zait gogora behin baino gehiagotan bolante aurrean nintzela. Nik uste kotxeak berak bakarrik egingo lukeela bidea dagoeneko, beraz, pentsa saioek eta ikasturteak aurrera egin ahala! GEPFen ikastaroetan teknikari lanetan aritu nintzeneko uneak etorri zaizkit gogora, bai egindako bidaietan eta baita saioetan zehar ere. Astea batetik bestera igarotzen nuen, ia kantxetan adina denbora bolante aurrean eginaz.

10 hilabete badira paleta eta pilota bat eskuan hartu gabe eman ditudanak, baina, hala eta guztiz ere oso gertuko egoera egin zait hein batean, nire eguneroko ogia hala lortu bainuen 3 urtean zehar. Aldi berean gertuko zein urrunekoa, lehenengo aldiz ikaslearen ikuspegitik begira bainabil, egoera beste angelu batetik aztertuz. Eta, egiari zor, ez zait oso erraza Uxue entrenatzaile-begiralearen jantzia erabat erantztea, tartekako bulkadei galga jarri behar izan diet-eta.

Lehen astea igaro da eta ohartzeko ate joka dator hurrena ere. Ea asteburuan indarrak pittin bat errekueratu eta zer ematen duen bigarren asteak. Ikusiko dugu!

2. astea. HERRIZ HERRI, PAUSOZ PAUSO

Lehen asteko lanak amaitu ditudanetik 24 ordu baino gutxiago pasa direnean, eta oraindik ere nondik nora eta zertan hasi naizen garbi ez daukadanean heldu zait mamuak uxatu eta berriz ere aste berri bati ekiteko ordua. Ikastolan, umetan, ikasi nuen asteak zazpi egun zituela, bost lanegun eta bi jaiegun, baina nire kasuan ez dirudi antolaketa eredu hori jarraitzeko moduan izango naizenik. Ez hasiera honetan behintzat.

Gainera, aste mugitua eta lana piltzeko ezin hobearen tankera dauka oraingo honek, paleta saioei eta hauek dakarten ondorengo pantaila aurreko hausnarketa eta egituraketa lanari ikastaro bat eta txosten baten azken ukituak gehitu behar baitzaizkio. Beraz, gauza bat ziurra da, ez dudala aspertzeko betarik izango. Beste gauza bat ere bai, ordea, etxeko(en) epelik usaindu ere ez dudala egingo eta bolante zein erlojuaren morroi pasako ditudala lehen bi egunak, bederen.

Kontuak kontu, baina, zerbait nahi duenak lana egin behar izaten duela sinetsi (eta neure buruari sinestarazi) eta erronkari heldu diot kasu honetan ere. Ohartzerako aurkitu naiz zereginen gurpil zoroan murgilduta.

Astelehena, “jai” ondoko alperra

Ez dakit ametsetan festan ibili naizelako, edo zer dela eta, baina, ume garaiko astegunen kantuari bueltaka nembilela ohartu naiz goizean goizetik, neure baitan kantatuz: “astelehena, jai ondoko alperra, lanik ez egiteko ez goaz lanera, ez goaz lanera” ... Ez ote da nire subkontzientea izango hala egin dezadan konbentzitu nahi nauena?

Dena dela ere, txintxo baino txintxoago jaiki, iratzargailuaren konpainian, eta 8.40rako abiatzeko prest naiz. Hori bai, gaur edonork ikusiko banindu astebeterako kanpora noala pentsa lezake, hiru motxila, bazkaria,... zer ez ote dut hartu etxetik abiatzerako? Espero dut fundamentua eta lanerako ganora ere sartuko nituela poltsaren zirrikituren batean.

9.20an heldu naiz lehen geltokira, astelehen goizetako hitzordura. Bidaia irratia lagun laguntzaz egin dut, bolantean gehienetan halatsu ibiltzen naiz. Kirol tertulierekin (eta tertuliano orojakileekin) abiatu eta helmugara politikoen oihartzunarekin heldu naiz. Ez diet jaramon handiegirik egin, egia esan. Kotxea aurreko astean baino gertuago aparkatu eta 9.24an banoa bertara, poltsan bada ez bada ere ikertzaile-koadernotxo sartu dudala ziurtatu ondoren.

Kiroldegiko sarrera

Sartu aurretik, iristen ari nintzela, konturatu naiz Naiara dagoeneko bertan zela, kanpoan ari baitzen telefonotik hizketan, beraz, bere aldamenetik pasatzerakoan egun onak eman eta atetik barrurako urratsa egin dut. Lehen begiratuan inor ikusi ez badut ere ohartu naiz eskaileretan eserita Ainara dagoela, Hernaniko Kronika magalean hartuta. Nirekin batera Naiara ere barrura sartu da eta hau ere eseri egin da. Orduan atezaindegikoak (Inaxiok) esan die, mesedez, eskailera libre uzteko eta jaiki eta sarrerako erdi parean jarri gara zain.

Harrerakoak esan dit Joxek nirekin hitz egin nahi duela eta ni harritu egin naiz, “nirekin?” eta baietz erantzun dit. Geroago, baina, Saioa iritsi denean galdetu du ea

begiralea zein den eta orduan zuzendu du, esanaz Saioarekin egon nahi duela. “Dirudienez honek ere irakasle rolaekin lotzen nau”, pentsatu dut neure baitan.

Nik pentsatzen nuen heldu naizenerako begiralea bertan izango zela, justu nire aurretik aparkatzen ikusi baitut, baina, ez, pixka bat beranduago heldu da bera. Aurretik Rakel gehitu zaio taldeari eta Ines tornuaren beste aldean dago, igerilekutik heldu berritan.

Hernaniko Kronika hartu eta asteburuko kirol emaitzak begiratzeari ekin diot, aurrez neska federatuenei bistadizoa eman ondoren, eta ikusi dut Hernanin antolatu duten “Tilos 7-Pasa txapelketan” aurreko astean ere irabazi egin zutela Belokitarrek. “Zer, Ainara, egurra partitzen?” galdetu diot nik eta berak ez omen zuen jokatu (Miren eta Gemmak) eta ez omen zekien. Orduan hizketagai hartu dute txapelketa hau, Naiararen senarra antolatzaileen artean dagoela ohartu naizelarik.

Malen eta Saioa ere heldu dira, eta lehenak esan dio, “zer, gaur agujetak?” eta besteak, “ez”. Atzo Donostiako Hiru Hondartzen krosa izan zen eta bertan ikusi omen zuen. Korrikako gaietara pasa gara, nik esan baitut gu bidegorrian ibili ginela eta “nik bai, nik agujetak dauzkat”, baina, datorren igandean 15 km.koan irteteko asmotan gabiltzala.

9.34 dira eta gaudenak gaude. Barrura sartzea erabaki dugu eta hala abiatu gara tornotik pasa ostean: Ines, Rakel, Ainara, Malen, Naiara, Saioa eta ni. Ainara, Saioa eta hirurok pixka bat atzerago, hizketan, labirintoan barrena. Ateari eusten zain daukagu Malen eta nik itxaron diot txanda hartuta, Saioa eta Ainara pixka bat atzeratu baitira.

Pilotalekua

Pasillotxoan aurrera goazela justu bi emakume datoz kontrako noranzkoan, bi garbitzaile. Hauei ere egun onak eman eta ilaran sartu gara barrura, bata bestearen atzetik. Trasteak eserlekuetan utzi eta Saioak esan du ea nola den posible gaur 6 bakarrik izatea bertaratuak, baina, erantzun diote beranduago bada ere besteak agertuko direla. Beraz, beroketarako ordua heldu da.

Beroketa

Korrika hasi garen unean bertan Jone eta Zuriñe sartu dira frontoian, eta esan diete ez direla libratuko, gaizki kalkulatu dutela noiz heldu saiora korrikalditik libratu nahi bazuten. Hiruzpalau buelta eman ditugu gaur ere, besoak mugituz aurrera-atzera, txandaka, ezker-eskuin. Gaur Saioa ez da taldearekin batera ari, petrilaren aurka begira dago eta bigarren itzulia bukatzen ari garela Miren iritsi da. Honek buelta pare bat eman ditu besteokin batera eta azkenean gelditu egin gara 4-5.ean. Bakarren bat kexatu da gaur gehixeago ibili garela eta begiraleak erantzun die “bestela Miren bakarrik geratuko zen”. Umore ona usaintzen da.

Teresa ere sartu da frontoian korrika genbiltzan bitartean, “hau izango da” irten zaio Ainarari. Aurreko astean ere etorri omen zen, baina, esan omen zioten abisatuko ziotela eta azkenean ez zen frontoira heldu. Gaur bai, ordea. Saioak gure izenak esan dizkio korroan geunden ordena berean, aurkezpena eginaz.

Borobilean jarri eta mugikortasun artikularreko ariketak egiteko garaia da orain (orkatila, belaunak, eskumuturrak, besoen luzaketa bat). Bitartean Saioak esan du

ostegunetan taldea ateratzea ez dela bideragarria, oso kopuru justuekin geratuko liratekeela hiru taldeak eta konpentsatzeko egokiagoa dela inork nahi balu astearteetako taldean hastea, han 6 baitira. Bestela, denok moldatuko beharko dugula bertan (B.K. Inori ez diot astearte eguerdiko taldera igarotzeko asmorik ikusi, ez baitute segi gai horrekin). Esan du momentuz 11 garela, baina, abendu-urtarrilean balitekeela dozena bat izatea, “Leire etorriko da, umea izan ondoren”. Jakinaren gainean zeuden bat baino gehiago. Orduan, korroko hizketagaia haurrak bihurtu dira. Saioak Maleni “zer moduz Haritz?” galdetu dio eta Inesen bilobarik txikiena ere irten da uneren batean. Eskolan hasita omen daude eta gustura dabilzala esan dute, nahiz eta Malenek esan kostatzen zaiela pixka bat (B.K. Hauek ere gehienak amak dira eta hori pilotarekin loturik nola bizi duten aztertzea interesgarria litzateke. Talde guztietan asko dira amak, eta badira amonak ere).

Ondoren Saioak paletak banatu ditu eta binaka jarri gara, ezker hormaren aurka pilotatuz. 11 izaki niri hirukotea egokitu zait, Malen eta Inesekin batera. Gemma justu beroketa amaitu dugunean iritsi da, baina, ez dira asko harritu orduan heltzearekin.

Gu errebotearen aldamenean gaude, 8. koadrora arte edo jarrita. Kolpeak elkartrukatu ditugu eta bitartean Saioa bikotez bikote zebilela ikusi dut, karpeta eta orriak hartu eta zerbaitetan. Guregana heltzean ohartu naiz taldekideen datuak eguneratzen ari dela. Nireak ere eman dizkiot, besteek bezalaxe, nahiz eta aurrez ere izan badituen.

Datu eguneratzea tarteko luze xamar jo du pilotatzeak, baina, gu ondo moldatu gara: Ines ezkerrean, Malen erdian eta ni eskuinean. Malenek ezkerrearekin ez dio askotan ematen ohituraz, baina, nik animatu eta asko jo ditu azkenerako. Besteak, frontisetik hasita, Zuriñe eta Miren, Beloki ahizpak, Jone eta Teresa, Naiara eta Rakel, modu honetan aritu dira.

Saioak “bale” esan eta denak beregana batu gara. Ariketa batekin hastera goaz.

Ariketak

1. Bi ilaratan jarrita, 5 eskuinean eta 6 ezkerrean. Eskuinekoek pilota ezkerredera bideratu behar dute eta ezkerrean daudenek ezkerrez jo. Saioak pilota prestatzen digu eskuinean gaudenoi. Pilota jo, norbere pilota jaso, 7ko marra zapaldu eta beste ilarara itzuli behar da. Gaur ere gogorarazi digu pilota gorputza albora jarrita, kontrako hanka aurreratuta eta aurrean jo behar dela, berak adibidea eginaz gorputza mugituz. Ilarakoek baietz erantzuten diote, gehienek hitzik gabeko komunikazioaren bidez, buruarekin baiezkoa eginaz.

Gaur ere agerian geratu da ezkerrez jotzeari beldur-errespetua diotela, baina denek bete dute esana. Aurreko astean ezkerre erabiltzeko arazoak zituztenak ere lehen kolpetik aritu dira ezkerrez, batere hotsik atera gabe, gainera.

2. Aurreko ariketaren berdina, baina, kasu honetan kolaborazioan (“ezin da tantorik egin, pilota elkarri ondo jartzen saiatu”). Saioak ez du kolperik tartekatuko, zuzenean joango da pilota ilara batetik bestera.

Ariketa hau jarraitasun dezente handiarekin egiteko gai gara, baina, oraindik ere pilota jartzea kostatzen zaio bati baino gehiagori eta hori nabarmena izan da, batez ere ezkerrez jotzea tokatzen zenean.

Buelta batzuk egin ostean, ariketa egiten ari garen bitartean Saioak marra bat jarri du kantxaren erdian eta amaitzean ariketaren aldaera bat proposatu digu.

3. Lehengo egoera berean, 2 ilaratan jarrita, baina, kolaborazioan ordeztu oposizioan. Ezkerraldean daudenean, ordeza, bi kolpe egiteko aukera daukate. Beraz, ilara berekoak talde-kide bihurtu gara.

Gu ezkerrean gaude, Naiara, Jone, Miren, Teresa, Rakel eta ni. Eskuinean hasi dira Ainara, Gemma, Ines, Malen eta Zuriñe.

6ra omen da partida eta ondoren ilaraz aldatuko omen gara.

Nik galdera bat egin dut: “edozein eskurekin egin daitezke bi kolpe horiek?” eta Saioak “baietz”. Harritu egin naiz eta batek baino gehiagok tankera eman dit aprobeztatzen saiatuko nintzela.

Ezkerrean gaudenean zailagoa da askoz ere pilota eskuinera bideratzea eta hori ikusi da. Hala ere, azkenerako 5-5 jarri gara eta emozioa eman diogu. Taldeko baten batek huts egitean barkamena eskatzen zigun, baina, nik lasai egoteko esan diot. 6-5 galdu eta aldaketa.

Eskuinean aritu garenean pilotak eskura etorri zaizkit eta nire alde lehiakorra ageri(egi)an geratu da, lehenengo harrapatutako bi pilotakadetan tantoa egin baitut, erraz eta ondo (txost eta bi pareta bidez). Oooh bat ere entzun da bigarrean. (B.K.Egia esan gaizki sentitu naiz, ez baitiet jokatzeko aukerarik ematen horrela eta Maleni barkamena eskatu diot, hitz emanaz hurrengoan lasaiago arituko nintzela, baina, kosta egiten zaidala oraindik ere egokitzea). Handik aurrera pixka bat jaitsi dut pistoia, nahiz eta tantoak egin. 6-2 amaitu da, baina, ez dio emaitzak batere ardura.

B.K. Emaitzak ez dira gogoratzen eta uneko kontua baino ez dira izaten. Inork ez du gero aurrerago saioan zehar edo amaieran gaur galdu egin dut edo gaur irabazi gogoratuko. Saioen parte da eta kantxan bertan geratzen dela esango nuke. Hala hobeto, gainera.

4. “Partiduak!”. 11 gara eta begiralea gehituta 12. Beraz, gaur 2:2ren aurkakoak izango dira egoera guztiak. Saioak bikoteak egin beharra dauka, baina, deseroso sentitzen da eta ez daki nola egin (zenbaki bidez saiatu da, baina, ondoren aldaketa batzuk egin ditu, desorekatuak irten direla iritzita).

3 txokotan, errotazio sistema bidez, honela jokatu dugu:

Aurrean, 2:2 (botea 4ra arte). Bikoteko batek joko ditu eskuinean botea egiten duten pilota denak eta besteak ezkerrean botea egiten dutenak.

Erdian, 2:2 partida (5-7). Atzean jarritako konoari buelta eman behar zaio kolpea egin orduko.

Errebotean, 2:2 (8-10). Partida, baldintzarik gabea.

Erdiko eta atzeko eremuetan pilotak ezin du botea kontrakantxan eman, alboko marratik aurrera eman beharra dauka.

Bikoteak hauek eta lehen errotazioko banaketa honako hau:

Aurrean: Ines-Gemma eta Teresa-Zuriñe

Erdian: Saioa-Miren eta Ainara-Naiara

Atzean: Jone-Malen eta Rakel-ni

Errotazioetan irabazleak gelditu egiten dira aurrean, atzetik aurrera doaz eta erdian 2 partidu jarraian jokatu ostean atzera doa bikote bat. Aurrekoak 6ra heltzean egiten dira aldaketa guztiak, beste markagailuak hainbeste aintzat hartu gabe.

Gu atzean hasi gara eta Malenek esan du azken ariketan tiroia izan duela orpoan eta min pixka bat duela. Berak jokatzen jarraitu nahi du, baina, herrena sumatzen zaio. Nik esan diot lasai hartzeko eta ez behartzeko, baina berak jokatzen segi nahi du eta hala egin du.

Lehena irabazi eta aurrera joatea egokitu zaigu guri. Harako bidean gindoazela Inesi barru-barrutik atera zaio: “Uxue, zu ez!”. Nik barre egin eta “ez dut inor jaten” erantzun diet. Ni kokatu naiz ezkerrean eta Rakel eskuinean, berari aukeratzen utzi badiot ere. Nik zerrikeri batzuk egin dizkiet aurkariei, baina, saltsa jartzearen eta noiz bai eta noiz ez ondo erabakita. Amaitu eta bertan geratu gara gu eta berriro ere Malen eta Jone etorri dira. Orduan, bigarren partidarako lekuz aldatu gara eta ni eskuinean eta Rakel ezkerrean aritu gara. Handik erdira, handik berriro atzera eta horrela aritu gara, errotazioz errotazio eta partidaz partida, paleta eta pilota artean murgilduta.

Azkenean konturatu naiz bi bikoteran aurka baino ez garela aritu gu: Jone eta Malen eta Ines eta Gemma.

Giroa ona izan da egoera guztietan eta barre algara hotsak sumatu dira une batean baino gehiagotan. Hala aritu gara 11:00 jo eta Saioak berriro ere “bale” esan eta saio praktikoa amaitu dela adierazi digun arte.

Korroan bildu eta luzaketak egiteko garaia heldu da. Orduan Saioak esan du talde-argazkia ateratzeko aprobeztatuko duela eta esan diote hori abisatu egiten dela eta argazkia aurretik atera, bestela izerditan eta bakarren batzuk aurpegia gorrituta atera ohi direla eta. Saioak argazki kamera eskuan hartu duenean, ordea, ikusi du ez zebilela eta niregana hurbildu da, baina, ez, ez dabil. Hortaz, argazkirik atera gabe amaitu da gaurko saioa. Malen izan dut aldamenen gaur ere eta hankako minez jarraitzen duela ikusita izotza jartzea gomendatu diot, eta zaintzeko esan. Esan dit gel bat baduela eta jarriko duela etxera heltzen denean (B. K. Min hartu ostean “qué putada” bat baino gehiagotan entzun diot eta kezka zein tristura puntu bat nabari zaizkio. Normala da, ni ere arduratuko nintzen egoera horretan).

Korroan luzatzen ari garela esan du bakarren batek (Ainarak bai behintzat) Yogara joaten dela, Inesek Pilates daukala arratsaldean, ... (B.K. Ohartu naiz badaudela jarduera bat baino gehiago egiten dituztenak eta soilik palara joaten direnak. Hori ere interesgarria litzateke aztertzea, ea zer bizipen izaten dituzten batean eta bestean edo zertan aldatzen diren euren izaerak batean eta bestean).

Gaur ez du kafea hartzera alde egin Inesek, saio osoan zehar han geratu da. Gero, ordea, uste dut horretara joango zela, frontoian bertan arropa aldatu eta joan baita. Ohartzerako denek martxa egin dute, bakoitzak bere betebeharrak.

Kiroldegiko sarrera

11.07. Saioa, Ines eta hirurok bakarrik geratu gara eta azkar egin dugu frontoitik pasilloz pasillo eta eskaileraz eskailera aterako bidea. Alabaz kontu pare bat hitz egin, piszinaz ere bai (gizona bat-batean hil zitzaionean ordutik egunero-egunero joaten omen da) eta halaxe heldu gara sarrerara. Ines datorren astera arte agurtu, Saioa bihar arte (Joxerena omen doa) eta nik kotxerako bidea egin dut, trasteak hartu eta ahalik denbora gutxien galdu asmoz liburutegira bidean, guztiaz oroituko ez naizen beldur.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaur, lehen ariketa egiteko ilaran geundela, Teresari azaldu diot ikerketa egiten ari naizela, bera baita jakinaren gainean ez dagoen bakarra, aurreko asteko aurkezpenean ez baitzen izan. Mirenek lagundu dit eta emakumeen pilota aztertzea hasieran deigarria egin bazaio ere ongi hartu du.

Oraindik ere ez dut banakakoei galderak egiteko biderik hartu, nahiz eta egia esan Rakel nire bikotekide izatea une egokia izan zitekeen zerbait gehiago ateratzeko. Oraindik, ordea, hasieran, elkar-ezagutze fasean sartuta gaudela iritzi eta hurrengo saioetarako utzi dut hori. Pixkanaka-pixkanaka hastea komeni zait eta, gainera, ez dakit asmatuko ote nukeen zer eta nola galdetu ere. Informazioa bildu eta galdera gehiago irteten diren heinean hasiko naiz. Presa ez omen da lagun ona izaten...

Saioan zehar iruditu zait behin baino gehiagotan Uxueren irudi lehiakorregia irten dela eta egia esan damu naiz, gaizki sentitu baina. Hala ere, kosta egiten zait bulkada horiei aurre egitea, baina, ikasi beharra daukat. Emakumeei barkamena eskatu diet behin baino gehiagotan hori egin ondoren, baina, uste dut zuzenena egoera horretara heldu aurretik nik neure burua frenatzea dela. Eurek esan didate lasai egoteko, baina, ez, ez, ez da neurritz kanpo jarduterik komeni. Beraz, ea egokitzen eta moldatzen hasten naizen, bestela... Nire alde daukat ezagutzen nautela hortik aparte ere eta badakitela ez dudala asmo txarrik hori egiten dudanean. Hala uste dut, behintzat.

Bi berriak nola txertatzen diren aztertzen saiatu behar naiz. Teresak bat baino gehiago ezagutzen ditu, baina ez dakidana da Rakel zein neurritan dagoen besteekin harremanetan izana aurrez. Biek jokatzeko dute (Teresa ederki moldatzen da bi besoekin) eta hori lagungarri izango zaiela uste dut.

Deskribapenak egiten ere ez naiz hasi, baina, hasiko naiz gutxi barru, pilotalekua, pertsonak, dinamika eta taldeko rolak identifikatzea garrantzitsua izango baita taldearen beraren funtzionamendua nolakoa den kokatu eta hortik ere informazioa ateratzen saiatzeko.

Astelehen goiz eta eguerdiak hegan ihes egin didate. Hortaz, bazkaldu eta banao Gasteizera, ikastaroa 15.30ean hasiko baita. Bihar gehiago eta ahal bada lasaiago.

Aldiriko tren: hurrengo geltokia ...

Bi egun daramatzat batetik bestera, orduak joan eta orduak etorri, bidaia bidaiari eta zeregina zereginari itsatsita, nekea eta lana pilatuta. Hala ere, egun guztiak ez direla berdinak izaten pentsatu eta hala ekin diot asteko bigarren egunari.

Egun ia osoa Gasteizen ordenagailuaren aurrean eta ATLAS.ti-rekin borrokan pasa ostean, 18:00etan abiatu eta 19.15ean heldu naiz bertara, bolantean 100km.tik gora eta ordu eta laurden igaro ostean. Eskerrak bidaian irratia lagun izan dudan!

Gaur ere ordua baino lehenago etorri naiz.

Frontoi ataria

Kotxea frontoi aurrean aparkatu eta bertan irratia lagun koaderno atera eta saiora joan aurreko azken burutazio eta sentipenak idazten aritu naiz. Aurreko astean baino jende gehiago dabil plazan eta kalean: haurrak, gurasoak, amona bat biloba zaintzen,... Frontoi estaliaren frontisaren horma ere beste aldetik frontisa da eta hiruzpalau mutil dabilta bertan baloiari ostikoka. Barruan, aldiz, argiak itzalita daude eta ez da mugimendurik eta pertsonarik nabari.

19.20. Koadernoan murgilduta nabilela Oihane igaro da, ikastaroan izena emaniko emakume bat, aurreko astean berandu eta bisitan soilik bertaraturikoa, eta ohartu naiz jolasean ari diren haurretako bati esan diola “etxea nijo, pala dauket eta”.

Udaltzainen kotxea ere iritsi da. Banan-banan etxez etxe buzoietan oharren bat sartzen aritu da gizonezko bat, aguazil arropa jantzita, eta ondoren kotxean sartu eta alde egin du.

19.25. Jolasean aritu diren hurrek eta terrazakoek alde egin dute dagoeneko, nahiz eta ni ez naizen ohartu uneaz beraz. Niri ere heldu zait nire “gotorlekua” utzi eta kotxetik frontoira dagoen 20m.ko bidea egiteko garaia. Orduantxe konturatu naiz Pili pasa dela kotxez eta hau ere frontoi aurrean aparkatzen ari dela.

19.29. Oraindik ere beste inoren arrastorik ez da, baina, banoa! Saioa iritsi da eta aparkatzen hasi da hau ere. Ni frontoiko sarreran nago eta Oihane ere etorri da. Pili irten da kotxetik eta parean aparkatuta orduantxe Marian ere gugana gerturatu da. Saioa gehitu zaigu, tabernatik fitxa bila buelta egin ondoren.

Marian eta Pilik ea nire lana zer moduz doan galdetu didate eta hortxe gabiltzala esan diet, oraindik kokatzen ari naizela, hasten ari garela eta denbora eta pazientzia beharko ditugula, baina, ondo, ari garela eta ez dela gutxi. Nik esan diet pittin bat harritu nauela euren jarrerak eta Pilik esan du “bi monitora izatea bezala da”.

Saioak esan du gaur mugimendu gehiago nabari dela herrian eta nik ados nagoela, festa bezpera dela nabaritzen dela. Pilik esan du ostiraletan jendea ibiltzen dela eta orain presoekin loturaren bat duen erakusketa dagoela Iriarteko lehenengo pisuan eta agian hori ere nabarituko dela.

Pilotalekua

19.39 erlojuan. Frontoirako bidean jarri gara, eskailerak jaitsi eta kantxara sartuz, futboleko ateen aldamenara. Saioak berotzen jarri gaitu, korrikalditxoa egitera bidalita eta bera fitxa bidez argia piztera joan da. Orduan frontisera begiratu eta nik, hezetasuna zegoela ohartuta, hala esan dut: “gaur uste dut humedade dezente izango dugula”. Lurrean, hala ere, ez da irristatzen oinetakorik eta gaitz-erdi.

Konturatu naiz frontisaren eskuinaldera ikurrina handi xamar bat dagoela horman itsatsita eta harmailetako aulkien kolorea ere bat datorrela ikurrinakoarekin, zeren eta eserlekuak zuri, gorri eta berdeak dira eta tartekatuta daude.

Saioak esan du uste duela gutxi izango garela, beraz, “gaur izerdia botako duzue”. Oihane esan du Gurutzerekin elkartu dela pilotalekura bidean eta agertzekoa zela esan diola, baina, lehenago alde egin beharko zuela.

Beroketa

Korrika saioan besoak ere mugitu ditugu eta lauzpabost itzuli egingo genituen guztira. Saioak orduan aprobetxatu du taldekideon datuak eguneratzeko, karpeta eta boligrafoa eskuan, banan-banan galdetuz ea ezer aldatu beharrik ba ote zuen edo ongi ote zeuden. Niri izan ezik beste guztiei galdetu die, nireak bezperan eguneratu baitzituen. (B.K. Zentzu horretan besteek baino informazio gehiago daukat, herri ezberdinetako saioak astez aste ia berdinak izaten baitira).

Gurutze heldu da orduan, amarekin arratsalde pasa ibili dela esan digu, eta honek pare bat buelta eman ditu frontoian korrika eta gero erdian osatu dugun korrora gehitu zaigu. 20.45ean martxa egingo duela esan digu, Zarautzera doalako Oinkari dantza taldearen emanaldia ikustera. Oraindik sarrerarik lortu ote dioten konfirmatu gabe dabil eta mugikorra eskuan ibili da, deitu dioten arte. Guk borobilean jarri eta mugikortasun articularreko ariketak egin ditugu: orkatilak, belaunak, gerria, eskumuturrak,... Saioak ez du zuzendu beroketa, baina, badakite emakumeek zer egiten duten eta ez dute eragozpenik euren kabuz moldatzeko.

Ondoren binaka pilota bana eman digu eta ezker hormaren kontra pilotatu dugu. Ni Marianekin tokatu naiz eta gu errebotetik gertuen gaude. Ondoan Saioa eta Gurutze dabilta eta eskuinera, frontisetik hurbilen, Pili eta Oihane. Tartetxo bat egin dugu ezkerrez eta eskuinez kolpeak tartekatuz. Nik aprobetxatu dut Mariani galdetzeko (B.K. Deseroso sentitzen naiz oraindik oso gutxi ezagutzen dudanekin aritu eta ez hitz egitean, baina, ez dut oso ongi jakiten nondik hasi hizketan) ea noiztik dabilen paletan, 2009ko abenduan hasi ote zen, eta berak esan dit iazko ikastaroan hasi zela. Amaiera aldera guztira 12 kide zirela esan dit eta estu xamar sartzen zirela frontoian zenbait unetan, baina, saltsa ere nabariagoa zela. Nik esan diot, “denak dauka bere alde ona eta txarra”.

Deia jaso eta aurrealdera gerturatu gara, saioko atal nagusiari ekiteko.

Ariketak

1. Bi ilaratan jarrita, 2 eskuinean eta 3 ezkerrean. Eskuinekoek pilota ezkeraldera bideratu behar dute eta ezkerrean daudenek ezkerrez jo. Saioak pilota prestatzen digu eskuinean gaudenoi. Pilota jo, norbere pilota jaso eta beste ilarara itzuli behar da. Jende

gutxi garenez ez omen gaitu 7ko marra zapaltzera bidaliko, bestela ez baitu tarterik emango.

Niri eskuinean jotzea tokatu zaidan lehenengoan oso gaizki jarri diot pilota Mariani, ezkerrera ordezkuekin jo baitut, eta berriz ere errepikatzea erabaki dugu, denok aho batez. Nik “Jesus, Maria eta Jose” esan dut eta Saioak “Uxue, berriz, berriz”. Berriz prestatu eta ariketarekin segi dugu (B.K. Nekatuta nago, porru eginda, fisikoki ere nabari dut batera oso-oso azkenetan dudala eta buruz ere ahituta nago. Korrika saioan eta lehenengo kolpetik egiaztatu dut pilak agortzear ditudala eta gaur pittin bat sufrituko dudala. Gaurkoa ez da ziurrenik baldintza onegietan egindako saioa izango, baina...).

Ariketa nahiko ondo joan da, Saioak kolpeak tartekatzeak erritmoa jaitsi eta emakumeei pilota errazagoak tokatzea baitakar berekin. Hauek lasai ari dira, esanekoak dira. Alde bakoitzean hiruzpalau kolpe egin ostean ariketaz aldatu dugu. Bitartean gizon batek “con más fuste” esan du harmailen gainaldetik, badirudi bakarren baten ezaguna dela. Ez dut uste denbora luzean begira egon denik, edo ni ez naiz konturatu, bederen.

Saioak tartetxo batean aprobetxatu du kantxa bi zatitan (ezker/eskuin) banatuko duen marra jartzeko eta amaitu duenean ariketa aldatu dugu.

2. Aurreko ariketaren berdina, baina, kasu honetan kolaborazioan. Saioak ez du kolperik tartekatuko, zuzenean joango da pilota ilara batetik bestera. Helburua piloteto ahalik eta luzeena lortzea da denon artean. “Putadarik ezin da egin” esan du bakarren batek ilaran.

Lehenengo ariketa egiten ari garela iritsi da Onintza eta honek lehenengo kontra-kantxan korrika saiotxo egin du, lasai-lasai, beroketarekin hasiz. Saioak esan dio posible zuela zuzenean ariketak egiten hastea, baina, berak erabaki du pixka bat mugitzea ilarara gehitu aurretik. Ariketa hau hasieratik egin du, beraz. Ilaran 3 eta 3 gaude orain: Marian, Pili eta Onintza eskuinean eta Gurutze, Oihane eta ni ezkerrean. Hala ere, kolpe bakoitzaren ondoren ilaraz aldatzen ari gara.

Ariketa honetan pilotetoa luzea izan da, helburua bete dugu, nahiz eta tarteka-marteka pilotaren bat jartzea zein erantzutea kosta litekeen. Gaur Oihanek ez du bere egunik onena, udatik ibili gabe dagoela esan du, eta horrek eteten du jarraitasuna pixka bat, baina ez da hainbestearainokoa ere. Lasaitasuna da nagusi eta sakea eskuinetik ateratzea gomendatutako batean 2 eskuinean eta 4 ezkerrean geratu gara eta hor ilararen artean desoreka bat sortu da eta azkenean Saioak “desmadratzen ari zarete” esan eta ariketaz aldatzea erabaki du, une batean eskuinean lagun bakarra geratu baita, bakarren bat nahasita (B.K. Erritmo honetan emakumeei segurtasuna dute euren kolpeetan eta hortik sortu da nahasmena).

3. Lehengo egoera berean, 2 ilaratan jarrita, baina, kolaborazioan ordezkuekin oposizioan. Ezkerraldean daudenek, ordea, bi kolpe egiteko aukera daukate, edozein besorekin, lehenengoan prestatu eta bigarrenetan pilota norabidetuz. Erreferentzia erdiko marra da. Beraz, ilara berekoak talde-kide bihurtu gara.

Ariketa hau azaltzen ari dela Saioak esan du gaur kolaborazioan eta oposizioan hitzak erabili dituela Azpeitian eman dituen saioetan eta esan diotela euskaraz esateko eta galdetu digu ea oposizioan “aurkaritza” izan ote daitekeen. Kolaborazioaren ordezkuekin “lankidetzat” erabili duela. Gu ez gara oso ziur agertu, baietz edo ezetz, eta erabaki dut

“nik oposizioan berdin-berdin esango nuke” esatea, ez zaidalako gehiegi gustatu berak esandakoa, zuzena izan arren (B.K. Hizkuntza ere mintzagai bihurtu dugu!).

Honen ondoren, Saioak esan du aldatu egingo garela 6ra iritsitakoan, baina, kasu honetan ilarak egonkor mantendu behar direla. Hortaz, Gurutze, Oihane eta hirurok gaude ezkerrean eta Marian, Pili eta Onintza eskuinean. 6-2 galdu dugula uste dut eta lekuz aldatzeko garaia iritsi zaigu eta uste dut 6-5 bukatu dugula (B.K. Atzo Hernanin baino lasaiago aritu naiz, batetik konfiantza mailagatik eta bestetik, berriz, neu ere gorputzaldi dezente kaxkarragoan aurkitzen naizelako. Oihane ere ez dabil nahi bezain ongi, huts batzuk egiten ari da).

(B.K. Ariketa honetan ahaztu egiten zaie kideei askotan bi kolpe erabiltzeko aukera dutela, ni naiz horri zukua ateratzen dioten bakanetakoa, batzuk saiatu arren, lehen kolpean, prestatzeko kolpea izan behar lukeenean, oso zail jartzen diotelako euren buruari (luzeegi, ezkerreko hormaren aurka,...). Hala ere, ahalegina egiten ari dira eta horrek balio du).

Ariketa honekin amaitu eta partiduak egiteko txanda heldu da.

4. Partiduak. Bikoteak Saioak egin ditu: Oihane eta ni, Pili eta Marian eta Onintza eta Gurutze.

Frontisean, 2:2. Bikoteko bat ezkerrean eta bestea eskuinean, erdiko marra ardatz hartuta. Eskuinean bote egiten duten denak eskuinekoarentzat eta alderantziz.

Errebotean, 3. bikotea Saioaren aurka, 2:1 egoeran.

Aurreko partidak 6ra jokatu dira eta horren arabera egiten dira gero errotazioak: aurreko irabazleak bertan gelditu eta galtzaileak eta atzean ari den bikotea aldatzen dira. Gu atzean hasi gara, Saioaren kontra. Aurrean Pili-Marian eta Gurutze-Onintza ari dira.

Errebotera gerturatzean aprobetxatu dut Oihaneri esateko ni saioetan arituko naizela, baina, ikerketa bat egiten ari naizela: “bistaz igual ezagutuko nauzu, ala?”. Berak baietz, aurrekoan, bisitan azaldu zenean, konturatu zela saioa egiten ari nintzela eta bakarren batek esan ziola zertara joana nintzen. Ez dirudi eragozpenik duenik eta gustura geratu naiz. Hori esan eta jokatzeari ekin diogu.

Atzean Saioak lasai aritzeko esan dit, korrika eginda zegoela, Hernialderako buelta Anoetatik, eta ondoren paletako entrenamendua zuela. Nik lasai egoteko esan diot. Elkarri pilota zailen bat edo beste jartzen diogu tarteka, baina, lasai ari gara, batez ere pilota Oihanek jo dezan (B.K. Nik uste inkontzienteki, elkarrekin adostu gabe, baina biok asmo berarekin ari garela). Saioak tarteka aprobetxatu du Oihaneri esateko pilotarekiko tartea utzi behar duela, gertuegi jartzen dela eta batzuetan horrek eragozten diola pilota erantzutea, atzeegi jotzen duelako. Niri galdetu dit eta nik ados nagoela esan diot, baina, horrek iruditzen zaidala batez ere patxadarekin daukala lotura, askotan pilotaren bila itsu-itsuan joaten garela (neroni ere bai gomazkoarekin ibiltzen nintzenean), buruz jo beharko bagenu bezala, besoa eta pala ditugula ahaztuta eta horrek eragozten digula tartea uztea pilota eta gorputzaren artean kolpea ondo burutu ahal izateko. Lasai hartzeko eta animatu egin dugu biok.

Hala gabiltzala pilotalekuaren kristaletik haur batzuk eta gizon bat igaro dira ilaran eta Oihanek agur egin die eskuarekin. Nik, “zer, familia?” galdetu eta “bai, zati bat”

erantzun dit. Hala jarraitu dugu aurrekoek “bukatu dugu” esan eta Marian-Pili atzera datoz. Oihane eta biok goaz frontis aldera. Besteena iristean Onintzak esan dit “Uxue, beldurra ematen didazu”. Nik, berriz, irribarre egin dut (B.K. Deigarria da, atzoko Inesen komentarioa etorri zait gogora eta ez dakit zerbait egin beharko nukeen ala umorez hartu, bai baitakit berez batere asmo txarrik gabe eginak direla. Ez diet esan, baina, ni ondo pasatzera eta ondo pasaraztera joaten naiz, ez daukat inongo lehia asmorik. Hala ere, uste dut esan gabe ere badakitela hori, nire jarreran nabari dela).

Ni eskuinean eta Oihane ezkerrean kokatu gara, nik esan baitiot nahi bazuen ezkerrean jartzeko, joera handia daukagula-eta ezkerrean jokatzeko gehienetan. Eskuinean Onintza dago eta ezkerrean Gurutze beste bikotean. Onintzak esan du ahuldade puntu bat sumatzen duela, ezer jan gabe dagoela bazkal garaitik eta tentsioa baxu xamar duela. Orduan Saioak esan dio berak baduela barrita bat kotxean eta haren bila joan da. Onintza jaten ari den bitartean Saioa sartu da bere ordean eta ondoren txandakatu egin dira. Kantxara itzuli denean esan diogu horrek ez duela balio, orain bera energiaren lepo egongo zela eta esan dit “itxaron pixka bat digestioa egin arte”. Partiduari ekin diogu eta 2-0 galtzen hasi garela konturatu naiz, baina, inongo garrantzirik eman gabe emaitzari. 2-1 jarri gara nik txosta jota egindako tanto baten bidez, nahita egindakoa, eta orduan esan dute dantzan jartzen ditudala. Girotxoa eduki dugu, ezkerreko txoko alde asko gustatzen zaidala esan didate “aurkariek” eta nik esan diet ondo dagoela hori jakitea hurrengorako eta esan dute, “zer, gero bestera botako diguzu, ala?”. Azkenean 6-5 amaitu dugu eta gu frontiseko eremuan geratu gara, Marian eta Piliren zain.

Marian eta Piliren aurkako partidaren gure postuak mantendu ditugu guk (ezker/eskuin) eta eurak Pili ezkerrean eta Marian eskuinean jarri dira, aurreko partidaren alderantziz jarri direla eta. Ia pilotakada denak ezkerrean joan dira, Pilik botatako bi pareta bat eta beste lauzpabost kolpe kenduta, eta Marianek ere gutxi parte hartu du. Horregatik, ni pilota jotzean saiatu naiz eskuinaldera bideratzen, denok jokatzeko aukera izateko, batez ere Marianengatik.

Guk galdu dugu orainoan eta atzera jotzea tokatu zaigu, berriz ere Saioaren aurka. Aurrean Onintza-Gurutze eta Marian-Pili geratu dira eta partidaren zehar barrez nabari ziren, gustura sumatzen ziren. Pilik garrasi (ahh edo ohh) bat edo beste botatzen du tarteka, batez ere huts egiten duenean. Esan didate Zizurkilgo Sharapova dela.

Atzean gabiltza gu eta halako batean argia itzaliko den abisua heldu zaigu, tinbrea joka hasi baita. Orduan Saioa korrika batean joan da fitxa berria sartzera, argia itzali aurretik eta arnastetuka itzuli da, esprint bat egin ostean.

Aurreko partidua amaitu da eta 20.45 bueltan izango ziren, zeren eta Gurutzek esan du bazihola eta agurtu egin gaitu, datorren asteartera arte. Orduan esan dute ondoren bi astearte jarraian jaiegun tokatzen direla (25a eta 1a).

Emakumeen aurpegiaren nekea nabarmentzen hasia da, gorritasunak eta izerdia nabari dira. Hala ere, Saioak esan du bera jarriko dela Onintzarekin bikotea osatuz (honi aurpegia argitu zaio) eta orain partidua jokatuko ditugula “normal, baldintzatik gabe”. Marian-Pili eta Oihane-ni hasi gara eta orainoan amaitutakoan Saioa eta Onintza etorri zaizkigu aurkari, beste biak atzean errebotean aritu diren bitartean. Giroa izan dugu eta emakumeak ohituta daudena baino abiadura handiagoan jokatu ditugu tanto batzuk, Saioa eta biok erritmo pittin bat jarritik. Ez dakit nola amaitu den, baina, amaitu da eta

Saioak denok bildu gaitu bere inguruan (B.K. Nik uste bizitasun horrek bizitasuna ematen diela eurei ere, saltsa gustuko dutela. Onintzari antzematen zitzaien, saiatu baita dejadak edo bi paretak egiten, guk “kutsatuta” agian. Intentzioa agertu du).

(B.K. Oihanek bere egunik onena ez du izan, baina, deigarria egin zait pilota errazak galdu arren, ondoren, ezkerreko hormatik gertu eta ez hain errazak bezala katalogatu daitezkeenak eramaten dituela).

5. Azken ariketa bezala, txokotan 2na bizitzarekin aritzea proposatu du. Hala sartu gara denok kantxan, “elkarri putadillak egin” esan du Saioak, eta 2 kale egin ahala kanporatuak izan gara. Saioa lehenengo, Oihane ondoren, Onintza, Marian eta aurreko asteen bezala Pili eta biok geratu gara azkenerako. Azkenean Pilik irabazi du.

(B.K. Txokotan elkarri tantoa egiten saiatzen dira tarteka kideak, baina nik uste gehiago kezkatzen dituela ona egin eta eurak hutsik ez egiteak tantoa egiten saiatzeak baino).

Guk amaitu bitartean besteek luzaketak egiteari ekin diote kontrakantxan, harmailetako koxkaz baliatuz eta orduan erlojua janztera joan naiz. 21.02. Nik ere luzaketa batzuk egin eta etxerako bidea hartzeko garaia da guztiontzat. Zizurkilgo udalera aurkeztuko duten paperaz ari dira, NAN eta izen-abizenak jarri dituztela eta Saioak aprobeztatu du Onintzaren datuak eguneratzeko.

Saioari itxaron diot, trasteak jasotzen ari dela ikusita, besteek alde egin duten arren. Nik ere ospa egin eta etxeratzeko gogo badut gaur. Eta premia ere bai! Gaur ohartu naiz ni izan naizela ikastaroko pala erabili duen bakarra, paleta zulodunak eta ohikoak erabiltzen dituzte eurek, bakoitzak berea. Ez dakit zenbateraino ohartzen diren alperrik pisua erabiltzen dutela eta arinagoak hobek direla. Hori ere aztertzeko modukoa da.

21.08. Itzuleran abiatu naiz. Etxean sartu eta lasai jartzeko amorratzen nago. Grabagailua piztu eta banoa bolantea hartuta.

21.42. Kitto! Etxean naiz, irten naizenetik 13 ordu beranduago. Bada nahikoa egur, ala?

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Nahiko pozik geratu naiz gaurkoarekin ere, baina, nekatuta nago eta ez dakit zer gogoratzeko gai izango naizen eta zer ez. Eguna bukatzeko eta arnasa pittin bat hartzeko gogo daukat.

Saioetan erlojua kentzen dut saioa hasi orduko eta tarteka denboraren nozioa (zenbat falta den, zer ordu den...) galtzen dut. Ez dakit beharko nukeen ala ez. Galdetuko dut.

Gu saioan ari ginela, 20.30-20.40 inguruan harmailen azken lerroan bi mutil ikusi ditut eserita, gure begira. Harritu egin naiz, hantxe segitzen baitute geroago ere. Hala ere, halako batean konturatu naiz erraketak eta fronteniseko pilotak dituztela eta orduan ohartu naiz zain zeudela guk noiz bukatuko, eurak jokatzen hasteko. Gu txokotan hasi garenean errebotean hasi dira jokatzen eta guk kantxa libratu orduko pasa direla aurrealdera. Lau dira eta bertakoak omen dira, normalean eskuz aritzen direnak, Oihaneri galdetuta halaxe jakin dut.

Gaur porru eginda nago, nire burua ez fisikoki eta ez psikikoki ez dago baldintzarik egokienetan azken bi egunotako troteak eraginda, baina, halako egunak (eta okerragoak) pasa beharko ditudala onartu eta ez daukat egoerari ahalik eta modurik duinenean aurre egitea besterik. Gaur ez dut beste egun batzuetako grina eta saltsako gogorik agertu, baina, benetan nago nekatuta. Beti ezin da?! Gogorrek egin zaizkit atzoko eta gaurkoak.

Onintzak galdetu dit une batean zenbat saio egiten ditudan astean eta nik 3 esan diot. Esan dit fisikoki nabarituko dudala sasoa eta ez diot erantzun, baina, neurekiko pentsatu dut ezetz, fisikoki ez didatela ezer suposatzen, beno, neke pittin bat gehiago, baina batez ere alertan egon beharretik eratorririko tentsio eta desplazamenduek suposatzen didatenagatik.

Oraindik ez naiz galderak egiten hasi, sentimenduetara hurbiltzen, ea hasten naizen. Gustura ikusten ditut, elkarren artean ongi konpontzen dira eta giro onean dabilta. Saioarekin ere beste hainbeste.

Errepideari lotuta

N-1ari lotuta eman ditut lehen bi egunak eta asteazkenean eskerrak autorik hartu beharrik ez dudana izango. Nik asko eskertuko dut eta 450km. inguruko egurra hartu duen lau gurgpilekoak zer esanik ez! Erritmo frenetikoan joan zaizkit astelehen eta asteartea eta hurrengo egunetan patxada pittin bat eskertuko dut.

2.astea baino ez bada ere dagoeneko ez dut saioetan zehar nire ikertzaile-jokalari ala jokalari-ikertzaile izaerari buruzko esaldirik entzun. Pentsatzen dut ni euren maila berean kokatzeak eta beste bat gehiago naizela ikustarazteak (esateaz gain) ahaztu edo hori hain presente ez izatea errazten duela. Hala eta guztiz ere, nire buruari rol hori mantendu eta saioetan nire betebeharra zein den gogorarazten segi behar dut, jokoaren informazioa lortzeko bidea baino ez dela ahaztu gabe.

Hala ere, beldurra hitza erantsi diote pare batek nire aurka jokatzeari eta hori zergatik sortu den eta horren atzean zer ote dagoen jakiteko gogoz nago.

Bi egun behaketan finkatuta igaro ostean bestelakoei heltzeko ordua heldu zait. Eta, ea hurrengo asteak zer ematen duen, lehen astean bezala berriro ere hiru egunetako behaketak egin beharko baititut bata bestearen ilaran, pilota eta paleta kolpeak eman bitartean.

3. astea. GAUR BAI, BIHAR BAI, ETZI EZ ...

Hasiera “intermitentea” izaten ari den sentipenarekin nabil, lehen astea osoa izan bazen ere bigarrenen bi saio izan genituelako, asteazkena jaieguna izan baitzen. Aste honetan berriro ere “normaltasunera” itzuli naizela esan behar, astelehen, astearte eta asteazkenean, bata bestearen jarraian, saioak izaten ditudalako Gipuzkoako hiru txokotan. Hurrengoan, ordea, jaiegunak eta kanpoko egonaldia (Valentziako kongresua) medio saio bakarrean izango naiz, astelehenekoan eta bi aste barru ere astelehena eta astearte zubi eta jaiegun direnez, azaroaren 2a izango dut hurrengo hitzordua paleta eta pilotarekin kantxan. Beraz, dosifikatu xamar hasi naizela esan behar bertatik bertarako saioei dagokienean, behintzat.

Kantxako zuzeneko behaketaz gain, ordea, saio bakoitzak bere denbora eta arreta eskatzen du, bai landa-oharrak atontzeko eta baita sentipenak (eta nire burua) kokatzeko ere. Horri, gainera, oharrak nahaspilan jarri eta bertatik ateratzen den (edo atera nahi izaten dudana) kontakizuna gehitu behar zaio. Beraz, “kontrakantxan”, pantaila eta koaderno aurrean, gogoetan, memoria ketan, askoz ere egonaldi luze eta aspergarriagoak izaten ditut. Hala ere, ez daukat ukatzerik paleta saioek, pilotakada eta paletakada artean nabilenean bederen, arnasberritu eta pittin bat bizipozten nautela, ondoren ia usaindu ere egiten ez badituz ere, ez bata eta ezta bestea ere, zoritxarrez. Baina hau halakoa omen da eta datorrenari eusten saiatzea baino ez dagokit, hiru aste baitira justu landa lanari ekin nionetik. Hortaz, gora bihotzak!

Aste honetan, hala ere, hiru egunetan desplazatu banaiz ere, ez dut ikastaro gehigarririk egin behar izan, ezta Gasteizerako bidaiarik ere, nahiz eta esku artean beste zeregin batzuk ere izan ditudan, eta alde horretatik pilaturiko neke fisikoa ez da, nire (eta inguruko) zorionerako, aurreko astean bestekoa izan. Gaitzerdi!

Ohitzen, “etxekotzen”

8.37an abiatu 9.17an aparkatzeko maniobrak egiten ari naiz, bolantearen eta ispiluen laguntzaz. Gaurko bidaia neure bakardadean eta neure munduan egin dut asteari hasiera emateko, ez irrati eta ez musikarekin, nire barne burutazioetan murgilduta. Kantuan, asteburuan idatziriko bertsoak gogoratu eta memorizatu nahian aritu naiz. Entretenituta etorri naiz, gai monotematikoa ez dut uneoro kolpeka izan, eta ia ohartzeko irten naiz errepide nagusitik Hernani dion bide seinaleari segiz.

Kotxea kiroldegi atzeko aparkalekuetan aparkatu eta 9.20an banoa bertara, koadernoan bi hitz idatzi eta txukun-txukun poltsan gorde ondoren.

Kiroldegiko sarrera

Goiz nator eta bidean Malen kotxea aparkatzeko leku bila zebilela gurutzatu gara elkarrekin. Lasai-lasai kiroldegiko atera hurbiltzen ari naizela ohartu naiz aurreko bankuan eserita norbait dagoela eta pixka bat gehiago hurreratzean ziurtatu dut Naiara dela. Hari egun onak eman eta biok hartu dugu kiroldegi barrurako bidea, sarreran eskuinaldean kokatuz. Gaur ere bazkide-txartela hartzea ahaztu zaiola esan dit eta nik, bada ez bada ere, ziurtatu dut nirea karteran neukala, zalantza sortarazi dit eta.

Asteburua ea nola joan den eta ondo joan dela kontu kontari ari ginenean heldu dira Malen eta Rakel ere. Aparkatzeko moldatu den galdetu diot nik eta hark baietz, aurreraxeago joanda baina moldatu dela. Laster hasi gara korrikaz hizketan, bezperan Donostian 15 km.ko proba batean irten bainintzen. Hark esan dit sailkapenean begira aritu zela eta ondo eta nik baietz, oso ondo ibili ginela. Orduan Ainara batu zaigu korrora eta Ines ere bistaratu da tornuaren beste aldean. Saioa izan da hurrena eta eskaileretan behera Zuriñe eta Jone ere laster batean genituen gure artean. Korrika hizketagai bihurtu zaigu, zenbaiten senarrak, lagunak eta begiralea eta biok ere Behobiara begira gabiltzalako. Lau aste barru da eta orain bidegorrietan trafiko handia izaten da.

Halako batean Saioak sartu egin beharko dugula esan eta hala egin dugu barrurako bidea. Pasilloetan barrena Ainara, Saioa eta hirurok goaz batera gaur ere, eta azkenak gaur ere, hitz eta pitz. Labirintoan barrena pilotalekura sartzeko atera heldu garenean ikusi dugu besteak zain genituela, oraindik tinbrea jotzeke eta orduan jo dute. Beraz, atea ireki eta azken zuzengunetik kantxarako ibilalditxo egin dugu. Ohi bezala, barrura sartu eta borobilean jarri gara nahi gabe, honetaz eta hartaz dihardugun bitartean, trasteak uzten ari garen une berean.

Pilotalekua

Ohartu naiz gaur garbitzaileak oraindik ere lanean harrapatu ditugula, harmailetan ari baitira, aulki artean ikusten baititugu euren laneko uniforme eta guzti, hara eta hona.

Ainhoa nortzuk gauden kontatzen hasi da eta “gaur ere ez al zaizkit denak etorriko?” atera zaio. Momentuz bederatzi gaude. Esan dute Miren goizez dela lanean eta Teresa falta da, baina, inork ere ez daki bere berri. Beraz, Saioak “atzo zuek ez zenituzten 15 km. egingo” esan eta korrikan hasi gara, beroketari hasiera emanaz. Ni eta Saioa goaz elkarren parean, aurretik Ainara eta Naiara ditugula eta atzetik besteak: Malen eta Rakel, Pili eta Jone eta Ines.

Beroketa

Buelta batzuk eman, tartean besoak aurrera eta atzera ere mugitu ditugu eta kontrakantxan korro batean mugikortasun articularreko ariketak, ohi bezala. Justu orduan heldu da Gemma frontoira eta taldera batu zaigu. Ainarak esan dio, ahizpak, “zer, bazenekien oraintxe bukatu dugula korrikan, ala?” Beste noizbait ere egin izan dute antzeko komentariarik eta hala segi du Ainarak “iaz ere, astearteetan, pixkat beranduago etortzen zen, gero hor esaten du erosketak eta abar, baina...” Nik orduan parte hartzeko une egokia zela iritzi eta “etxeko trapu zaharrak hemen” esan dut eta Gemmak erantzun du “nik ez dut ezer esan, ni isilik nago”. Bitartean beroketako ariketekin jarraitzen dugu, Saioak egiten duena errepikatuz.

Jonek esan du agujetak dauzkala eta Naiarak erantzun dio tristea dela, hori 60 urterekin beno, baina, oraindik... Larunbatean oinez Santa Barbarara joan zela esan du, eguerdi-eguerdian, 12.30 aldean, eta ordukoak direla. Esan diote parrandakoak ez ote ziren izango eta berak ezetz, “tristea da bai, hortik ikusten da zer ohitura daukadan” (B.K. Giro ona sumatzen da taldekideen artean egunez egun).

Amaitu eta paletak hartu ditugu eta bikoteko pilota bana. Bederatzi gaude eta batek hirukotea izan beharko du. Kasualitatez, niri egokitu zait eta aurreko asteko lagun berdinekin eta toki berean ekin diogu piloteari Ines, Malen eta hirurok. Aldamenean ditugu Naiara eta Ainara, Rakel eta Gemma haien eskuinean eta frontisetik gertuen ama alabak, Zuriñe eta Jone. Gaur elkarrengandik oso gertu kokatu gara, gu 8ra arte baldin bagaude aldamenekoak ere gainean ditugulako. Gauzak hala, eta gero pittin bat eremu handiagoa hartu arren bakoitzarentzat, pilotak nahastu zaizkigu elkarren artean uneren batean, norabidea pittin bat okertuago ematean, hain justu ere. Hala aritu gara Saioak “bale” esan eta beroketa amaitzeko/saioa hasteko beste ariketa bat proposatu digun arte.

Ariketak

1. Bikoteak/hitukoteak mantenduz, eta 4. koadrotik hasita (5, 6, 7...), txandaka eta banan-banan azpiko kolpea erabiliz pilota frontisera bideratu behar da. Saioak azaldu du azpiko kolpea egiteko atzetik aurrera eta pilotari jaisten utzi ostean eman behar zaiola kolpea, gorputza alboz jarrita eta Maleni luzatu dio bere begirada. Hark irribarre egin du eta denok ulertu dugu zergatik izan den hala, alboko kolpea erabiltzen baitu ia-ia beti. Animatzeko esan du saiatzeko frontisean pilotari ahalik eta altuerarik handiena ematen, kolpea aurrera egiteko.

Hortaz, bikoteko batek pilota jo, besteak jaso eta hala jardun behar dugu. Orduan, niri zalantza bat sortu zait eta galdetu dut ea zenbat aukera ditugun bakoitzak koadroko. Saioak banan-banan zehaztu digu 1 edo 2 kolpe emateko aukera dugun, mailaren araberako irizpidea erabilita, eta bakarren batek esan dit “hori galdetzeagatik”.

Badirudi inor ez dela ausartzen eta neu hasi naiz 4tik. Aldamenean Naiara daukat eta hark esan du “ni hemendik ez naiz iritsiko”. Besteok erantzun diogu baietz eta animatu egin dugu. Ondoren beste guztiek ere ekin diote eta txandan-txandan, koadroz koadro, gero eta atzerago ari gara.

Tarteka entzuten dira “nik ez daukat indarririk” edo “ez naiz iritsiko” bezalakoak eta 8. koadrorra heltzean denok elkarri begira gabiltza, ea iritsiko ala ez ikusi nahian (B.K. Zer den morbo puntu hori, eh!). 9.etik ia ni eta Ainara bakarrik heldu gara eta 10.aren eta errebotearen arteko tartea ez da batere handia. Ainarak “hemendik ezin da” esan eta nik “bai, ahal da” esan dut eta kolpea egin, frontisera iritsiz, gainera.

Ariketaren amaiera aldean azkenean ni baino ez naiz gelditu pilotak biltzen, eta geroz eta urrutiago geundenez frontisetik, besteenak ere jaso eta bidali dizkiet.

2. Azpiko kolpea landu behar dugula esan du Saioak eta horretarako banakako ilaran jarrarazi gaitu. Berak pilota prestatu digu eta guk azpiko kolpea erabiliz erantzun behar dugu. Esan du bakoitzak bi kolpe egitean, guztira, amaituko dugula ariketa hau. Pilota jo eta 8ko marra zapaldu behar da berriz ere ilaran jarri aurretik.

Lasai aritu gara, nahiz eta bakarren batek alboko ohiturari eutsi. Malen daukat aurrean eta Jone atzean. Berak dio tenisetik datorrela eta hortik sorturiko joera dela. Saioak hala galdetu dit niri “aldatuko al diogu ohitura hori?” eta nik baietz, “kostako da baina bai, sekula ez da berandu”. Ilaran ariketa egiten ari garela somatu dut bakarren bati ahaztu egiten zaiola (Naiara ote den) marra zapaltzearen baldintza betetzea eta broma giroan Ainarak kargu hartu dio. Besteak ahaztu egin zaiola esan dio.

Bakoitzak hiruna kolpe egindakoan aldaera txiki bat egin dio Saioak.

3. Lehengo egoera berean, baina, irakasleak ez du kolperik tartekatuko, guk jo behar dugu elkarren atzetik eta esan du 2 bizitza izango ditugula. Txokotan, ilaran jarrita eta tantorik egiteko aukerarik ez dagoela. Jonek esan dio Maleni hori jakin aurretik, ni besoan ukituz, lekuz aldatzen uzteko. Goiko txapa jotzea lortuz gero bizitza bat gehiago lor liteke.

Banan-banan aritu gara eta luze jo du ariketak. Piloteoa mantentzeko arazorik ez dugu, gehienon ohiko kolpea azpikoa dela nabari da. Hala ere, tarteka goiko koltxoira edo iritsi gabeko zein kanpora joandako pilotakadak izan dira. Gutxika-gutxika Zuriñe izan da aurrena atzera joaten eta justu hura kanporatu denean “lasai, laster noa” esan du Jonek. Eta zer eta hurrengo kolpea egin duenean joan da atzera, bizitzak galduta. Haien atzetik joan dira Naiara eta Rakel ere. Gemma, Ainara, Malen, Ines eta bostok luze ari gara eta Saioak esan du “hasi ezkerrera edo botatzen zeren eta bestela hemen egongo gara bihar arte”. Ainarak goiko txapara asko bidali ditu, Inesek ere bai bakarren bat, eta nik ez dut asmatzen. Orduan, bi pilotakada joan zaizkit jarraian goiko koltxoira eta erreboteko taldetxora bidean jarri naiz.

Errebotean zertan ari diren galdetu eta azpitik pilota jotzen ari direla esan dute. Nire atzetik ez da tarte batean inor gerturatu eta ondoren Malen izan dela uste dut. Aurrekoek lehengo tonikan darraite eta Saioak ariketa bukatutzat ematea erabaki du. Egia esan atzeko eremuan ere jende gehitxo pilatu gara eta pilotakada bat jo aurretik denbora asko igarotzen zen.

Saioak erabaki du partidak egiten hasteko unea dela. 9 gaudenez berak ere parte hartuko du, hala 10 lagunekin 5 bikote osatuz. Bikoteak osatzeko Ainara eta hauei galdetu die ea zenbat bizitzarekin geratu diren eta horren arabera egin ditu, gutxi gorabehera:

4. “Partiduak!”. Aurrean eta errebotean 2:2ren aurkakoak izango dira egoera guztiak. Erdian, berriz, 1:1.

3 txokotan, errotazio sistema bidez:

Aurrean, 2:2 (botea 4ra arte). Aurrean eskuinean laukizuzen bat dago kantxan marraztuta eta pilotak bertan botea egiten badu derrigorrez aurrelariak jo behar du. Goiko txapa joz gero ere tantoa amaitu egingo da, jotzen duenak eskuratuz.

Erdian, 1:1 partida (5-7). Pilota azpitik jo behar da nahi eta nahi ez.

Errebotean, 2:2 (8-10). Partida, baldintzarik gabea.

Saioak ariketak azaldu dituenean, Ainarari subkontzienteak hitz egin dio ahoz gora eta “ze ondo!” irten zaio. Ni eta Malen barrez hasi gara eta bera ere bai.

Bikoteak hauek:

Aurrean: Ainara-Jone eta Malen-Rakel

Erdian: Zuriñe-Saioa

Atzean: Ines-Naiara eta Gemma-ni

Errotazioetan irabazleak gelditu egiten dira aurrean, atzetik aurrera doaz. Aurrekoak 6ra heltzean egiten dira aldaketa guztiak, beste markagailuak hainbeste aintzat hartu gabe.

Gu atzean hasi gara gaur ere, Naiara eta Inesek osaturiko bikotearekin batera eta hantxe aritu gara. Justu aldaketa egitea tokatzen dela esan digu Saioak eta markagailuan 5-5 goazenez amaitzeko esan digu. Orduan, sake erretoan, nik horma bikoia egin eta amaitu da.

Lehena irabazi eta aurrera joatea egokitu zaigu guri. Han Ainara-Jone daude eta atzera etorri dira Zuriñe eta Saioa. Malen eta Rakel, berriz, erdiko eremuan hasiko dira txandakatze honen ostean.

Gemma normalean ezkerrean kokatzen da eta gaur ere hala izan da eta ni jarri naiz aurrean eta eskuinean. Jone dago ezkerrean eta Ainara ere aurrean (B.K. Zenbaitek nahiko finkatuta dauzkate euren joerak, Belokitarrek adibidez, edo Inesek. Aztertzeo interesgarria da ea zertan oinarrituta dauden horiek eta nola erabakitzen den bikoteak bakoitza non kokatuko den ere).

Guk irabazi eta bertan geratu gara. Atzetik Naiara eta Ines etorri zaizkigu ondoren eta hala aritu gara, txandan-txandan eremu guztietatik pasaz eta ia bikote guztien aurka jokatuz. Guri Rakel eta Malenen aurka aritzea falta izan zaigu, ez dugu kointziditu errotazio batean ere. Saioa eta Zuriñek tarte luzeak egin dituzte atzean, baina, bi partidatan bat egin dugu elkarrekin eta beste hainbestetan besteekin ere (aurrez aipaturikoa salbu). Hirugarrenez Ines eta Naiararekin tokatu zaigunean, atzean, erreboteko eremuan, lehenak une batean esan du komunera zihoala eta orduan nik besteei esan diet bitartean biek nire aurka joka zezaketela. Aurrean aritu garen bakarrean, berriz, Naiarak esan du ezkerrean indarra falta zaiola eta Saioak animatu duen batean “ixo” esan dio. Bere arabera hark “aupa Naiara” esanaz animatzen edo begiratzen duenean huts egiten du. Ondoren Gemmari ere esan dio “aupa Gemma” eta honek ere huts egin du. Nik esan diot orduan “aupa Uxue” esaten probatzeko eta nik ez dut hutsik egin. Inesek asko animatzen du, “aupa Naiara” edo “ondo, Naiara” esanaz. Nik, berriz, “zuk”, “aire” edo/eta “pareta eta gero” esaten ditudala ohartu naiz, bikotekideari lagungarri zaizkion ustean. Saioak ere “aupa, Zuriñe” esaten du behin baino gehiagotan (B.K. Bikoteen arteko elkar-uletzea, saioan zeharrekoa, ere polita da aztertzeo, nolako lotura eta sareak dauden jakiteko informazio aberasgarria eman baitezakete).

Hala aritu gara, jolas-jokoan, markagailua galduta askotan, eta kolpeak txandakatzen saiatu naiz, biek parte har dezatela ahal dudan heinean. Lasai eta eroso aritzen naiz erritmo honetan eta eurak ere ohartu dira. Ines itzuli denean esan diote “nahi bezala irabazten digu” eta honek erantzun die “hiruroi ere irabaziko liguke” (B.K. Egia da mailan aldea dagoela, baina, egokitzen dugu joko ahal bezala, beraz, hala beharko du).

11:05ean aurrean Ines eta Naiararen aurka guk bukatu dugula ohartu da Saioa eta saioa amaitutzat eman du. Bai atal nagusia, bederen.

Saioak argazki kamera ekarri du gaur, berria omen bestea “hil” egin dela eta, baina, bi taldekide falta direla eta ez duela taldeko argazkirik aterako jakinarazi digu, Miren eta Teresa falta baitira. Saioak esan du datorren astelehena jai bezpera izan arren saioa egongo dela eta inor ere ez da harritu. Esan dute ikastetxeetan ere laneguna dela, ondoren zubi asko omen datozela eta hurrengo jaiegunak direla eta.

Borobilean jarri eta luzaketak egiten hasi gara. Inesek ia bakar bat egin baino lehen alde egin du, han ari ginela Malenek ere bazihoala esan du, Rakelek ere bai geroxeago, Zuriñe eta Jonak bezalaxe eta Ainara, Gemma eta Naiara luzatzeaz gain ederki ari dira mingaina dantzatzen. Ez dakit motorren inguruan edo ez ote diren aritu. Ni, berriz, Saioarekin (B.K. Saio amaieretan, luzatzean edo kanporako bidean, urduritu egiten naiz eta iruditzen zait ez ditudala memorian gordeta izango jazotakoak).

Hala ere, asteazkenean goizeko 9etan paletaz jokatzeko hitzordua jarri dute gaur ere (B.K. Nik ez dut gonbidapenik jaso, eta ez zait iruditzen jasoko dudanik, besteak beste bai baitakite desplazamendua suposatuko lidakeela). Hala ere, aurrerago parte izateko moduren bat bila nezake bestelako zereginekin bideragarria baldin bada.

Ohartzerako gu biok bakarrik geratu gara eta hala egin dugu, Ainararengandik eta nahiko gertu, baina aparte, kanporako bidea. Aldageletako pasilloan Ainararekin bi hitz egin, Tilos 7 Pasa horretako finalerdiak eta finalak bihar eta ostiralean jokatu dira eta kanpora goaz.

Kiroldegiko sarrera

Kiroldegitik kotxerako bidea ere konpainia on eta noblean egin dut, Saioarekin eta baita ia kultur etxeko atera artekoa ere, Pelotadendara omen zetorrela eta. Hango dendaria agurtu, hura ere palaren munduan ibilia eta ezaguna, bi hitz egin eta buruan gordetakoak paperera pasa asmoz agurtu dugu elkar.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Taldean ia erabat onartua nagoen inpresioa daukat. Azken bi asteetan ez da ikerketaren inguruko ezer ere atera ia-ia, nahiz eta gaur une batean Gemmak esan “behatzailea zara baina zuri ere adarra jo diezazukegu”. Nik “noski baietz, ematen duenari jasotzea ere tokatzen zaio” erantzun diet.

Saioan zehar ahalegin gehigarria eskatzen dit nire burua kontrolatu beharrak. Hau da, parte-hartzaile rolaz gain behatzailearenaz ez ahazteak eta ahalik eta sentipen eta egoera gehienak jasotzen saiatzeak. Une batzuetan oraindik ere taldean gehiegi integratzeko beldurra inguruan darabilt.

Gaur askoz ere lasaiago eta patxada handiagoarekin jokatu dut, “abusatu gabe”. Uneren batean zer edo zer egin dut, baina, aurreko astean baino askoz ere gusturago geratu naiz alde horretatik ere. Partiduetan ere saiatzen naiz gehiegizko parte hartzerik ez izaten eta “diskrezioz” jokatzeko.

Gaur aurreko astean baino sentipen gehiago biltzen saiatu naiz. Egia esan une batzuetan, batez ere partidu egoeretan, algara eta umore ona izaten dira nagusi. Horiek jasotzeko moduren bat aurkitu beharra daukagu, edo bideo kamera bidez edo audio grabagailuz edo nolabait. Aztertu beharrekoa da!

Berriz ere hemen

18.50-19.24. Iritsi naiz!

Kanpoan ilun dago, lainotuta, eta eguna mozten ari dela ere ederki nabari da. Barruan, pilotalekuan, are ilunago, argiak itzalita. Gaur astearte buruzuria da, ez jai bezpera eta ez jaieguna, eta ez da arimarik ere ikusten ez kalean eta ezta plaza inguruan ere. Halako batean, burutazio horrekin nabilela, bi mutiko pasa dira bizikleta bakarrean, kotxetik irteteko prestaketan ari naizela. Baina, bai, gaur baketsu eta isil sumatzen dut ingurua.

Frontoi ataria

Kotxetik irten eta frontoi aurrean hasi naiz ibiltzen, erdi noraezean, paseoan, inor gerturatzeko zain. Hala nabilela Itsaso irten da kotxetik eta harengana hurbildu naiz. Aurreko astean ez zen etorri eta gaixo ibili dela esan du. Pili ere berehalaxe zen gurekin eta Eli ere bai. Honek Piliri esan dio Villabonan ikusi duela, erosketak egiten ari zela, baina bere pentsakizunetan arituko zela, ez baita konturatu, eta hala uztea erabaki duela. Oihane ere heldu da, palarekin batera eskuan ogitartekotxo bat duela. Gero berandu egiten dela eta zerbait jateko aprobeztatu duela esan du. Gurutze ere heldu da beste aldetik eta azkenak taldera gehitzen begiralea bera eta Marian izan direla uste dut.

Kanpoan gaudela mutiko pare bat pasa dira eta elkar agurtu dute bertakoek. Niri lehen bizikletan ikusitako berdinak diren irudipena etorri zait.

19.39 inguruan barrura sartzeko garaia heldu zaigu. Kontu kontari goaz, Itsasok oporretan doala esan du, Tailandiara, hurrengo bi asteetako jaiegunez gain beste bitan ere ez dela etorriko ikastarora, lau aste barrura arte, beraz. Begiraleak esan dio txertoak har ditzala behintzat eta nik harrituta galdetu diot “zu egonda al zaude ba?” eta berak ezetz. Gurutzeri galdera gustatu egin zaio eta hark esan du “gu enteratu gabe egonda ote zeunden ba!” eta besteak erantzun “ni joan izan banintz honezkero ze galtza eraman nituen ere jakingo zenuten”. Bitartean pilotalekuko kantxara garamatzaten eskailerak eta koska jaisten ari gara, saioari ekiteko prestatzen. Elik ere kale egin zuen aurreko astean, aurrez esan zigun Madrilen boda bat zeukala, eta hari ere galdetu diote zer moduz eta ondo ibili zirela esan du.

Pilotalekua

Trasteak utzi eta futboleko ateen ondoan erdi borobilean kokatuta gaudela, hizketan orain ere, begiraleak eztul moduko bat egin du eztarriarekin, “ejem, ejem”, adieraziz berotzen hasteko garaia heldu zaigula. Orduan aurreko astean falta izan ziren biei deitu die, euren datu pertsonalak eguneratuz gu mugimenduan jarri ostean.

Beroketa

Gu frontoian aurrera eta atzera hasi eta begiralea argiak pizteko fitxa botatzera joan da, gero guregana batuz. Orduan Gurutzerengana hurbildu eta “zurekin hitz egin beharra daukat” esan dio. Aurrekoan zineman pelikula bera ikusten izanda daude, “Bertsolari”, eta euren inpresioak trukutzen ari dira. Nik ez dut oraindik ikusi, baina, asmoa badut eta euren aldamenen noa korrika txikian. Batek gustatu zitzaioela dio, besteak erabat ez zuela gogobete eta orduan nik galdetu diet ea “Urte berri on, amona” ikusten izan diren. Kasualitatea izango da, baina, biek ikusita zuten eta nik ere ikusi berria, eta ia ohartu gabe ondoren film horren inguruan hasi gara hizketan hirurok.

Korrikalditxoa amaitu eta korroan jarri gara mugimendu artikularrak egiteko. Onintza ere orduantxe heldu da, beraz, denok gaude. Elkarrengandik gertu gaude hiru “pelikulerak” eta ikusitakoz dihardugu guk hizketan, irudipenez eta abarrez. Beste inork ere ez du ikusi oraindik eta esan digute ez kontatzeko. Azkenean euskal filmen inguruan “Arriya”, “Aupa Etxebeste”, “Eutsi”,... amaitu dugu denok, inpresio trukaketan. Elkarri adarra joz “intelektuala” bihurtzen ari dela esan du bakarren batek, bost urteren ondoren astebetean hiru pelikula ikustera joan dela eta.

Ondoren paletak hartzeko unea heldu zaigu, Saioak banatu dizkigun bitartean hizketan dihardugu Gurutze eta biok. Saioak niri bigarren paleta bat ere eskaini dit, dagoeneko bat esku artean nerabilela ohartu gabe. Orduan nik propio, “zer, bakarra ez al dut nahikoa?” bota eta inguruan barre eta komentariotxoren bat sortu da (B.K. Taldekideen arteko giroa ona da, oso lagunkoia, eta hori urrundik ere nabari da).

Binaka pilota bana banatu digu eta ezker horman sakabanatuta pilotatzeko garaia da. Gaur Gurutzerekin tokatu zait, elkarren ondoan gaudenez, eta filmaz eta zahartzaroz aritu gara kolpeez gain hitzak elkartrukatu. Gure etxean badira lau hilabete adineko batekin elkarbizitzen hasi ginela eta eszena askok lotura zuzena dute errealitatearekin.

Saioak “bale” esan eta beroketa amaitzeko/saioa hasteko ariketa bat proposatu digu, tarte dezente batean piloteoan aritu ostean.

Ariketak

1. Banakako ilaran jarrita, eta 4. koadrotik hasita (5, 6, 7...), txandaka eta banan-banan azpiko kolpea erabiliz pilota frontisera bideratu behar da. Saioak azaldu du azpiko kolpea egiteko atzetik aurrera, behetik gora eta pilotari jaisten utzi ostean eman behar zaiola kolpea, gorputza alboz jarrita. Horretarako esan du komenigarria izan litekeela pilota goiko txapatik gertu botatzea. 4 pilota banatu dizkigu, ilarako lehenengo lauri eman digu eta ondoren esan hurrengoari emateko jaso ostean. Kolpea egin eta 8ko marra zapaldu behar da berriz ilarara itzuli aurretik.

Niri egokitu zait lehenengo ilaran (Gurutze, Itsaso, Eli, Oihane, Onintza, Pili eta Marian) eta ni hasi naiz kolpeka, hortaz. Saioak halako batean esan die “Hernanin 10etik iristen dira” eta Oihane erantzun “hemen ez dago 10ik”. Nik orduan atzean nituenei esan diet “bai, bai, Hernanin 1 iritsi zen 10etik”, behatzarekin neure burua seinalatuz. Orduan, barrez hasi dira eta Saioari esan diote “sekretu denak dakizkigu, enteratu gara, badakigu zein den 10etik heldu zena” eta irribarreak sortu dira. Hala ere, nik esan diet mugimendua ondo egiten badute helduko direla, Gurutzek esan baitit bera 7tik ez dela helduko. Heldu da, ordea, eta gustura dago.

Pilota ilaran hurrengoarekin trukatzekoan gorabeheraren bat edo beste egon da eta Eli pare bat aldiz gabe geratu da. Berez beti pertsona berari ematea dagokigu, nik Onintzari, baina, ez da hala izan eta hortik ere sortu da hizketagaia: “bakarren batek Eliri ez dio ematen”. Azkenean zuzendu da hori ere, bakarren bat nahasi baita oharkabean.

7tik atzera ia gehiago kostatzen da eta begiraleak gogorarazi du albotik joz gero oso zaila dela iristea. 8tik jotzea tokatu denean nik zailtasun handiegirik gabe egin dut eta ilaran “joño, a ze indarra” bota du bakarren batek. Saioa konturatu da ilarakoak niri begira zeudela eta esan die fijatzeke, “konturatu al zarete nola egiten duen Uxuek? Ez

du besoa bakarrik mugitzen”. Orduan nik ere ziurtatu diet pilotari gorputz osoarekin laguntzea oso garrantzitsua dela, hankekin ere aurrera eginaz, kolpe unean ezkerrekoa baldin bada aurrean eduki behar dena ere ondoren eskuinekoa aurrean dela bukatzea garrantzitsua dela, pilotari aurrera lagundu zaion seinale, mugimendua bukatuz.

Beraiek arreta jarri dute une horretatik aurrera gorputzaren kontuan, saiatu dira mugimendua barneratu eta imitatzen. 9tik lortu dudanean, Onintzak ere bai, eta Pilik ere baietz uste dut, gehiagoren gogoarekin geratu dira nonbait eta justu errebotetik 30cm.ra dagoen marratik proba egiteko esan didate. Gurutzek Saioari esan dio “Uxuek egin dezala eta gero esan Hernanikoei Zizurkilen ere lortu dugula”. Ni iritsi naiz lehen kolpean eta Saioak mesedez errepikatzeko eskatu dit, emakumeak fijatu zitezten. Hala egin dut eta ondoren besteren bat ere saiatu da lortzen, mugimendua hasieratik amaierara egiten saiatuz (B.K. Eredu edo adibide bezala hartu nau gaur eta uste dut Saioarentzat zein besteentzat lagungarri izan dela kasu honetan ni taldean izatea).

2. Azpiko kolpea landu behar dugula esan du Saioak eta horretarako banakako ilaran jarrazi gaitu. Berak pilota prestatu digu eta guk azpiko kolpea erabiliz erantzun behar dugu. Esan du bakoitzak bi kolpe egitean, guztira, amaituko dugula ariketa hau. Pilota jo eta 8ko marra zapaldu behar da berriz ere ilaran jarri aurretik.

Azalpena emateko esan die: “ipurdikoa”. Esan dutenez iaz esan zien azpiko kolpea “ipurdikoa” ematea dela eta albokoa “zaplastekoa”. Gero esan die Saioak ez ote diren gogoritzen nola esan zien Brad Pitti zer emango zioteten eta erantzun diote “hari ipurdikoa ez, hari goxo-goxo izango litzateke”. Orduan Itsasok niri zuzenduz esan du “hemen aterako dituzu tesirako modukoak, bai” eta Gurutzek erantzun dio, “beno, anonimoak izango gara”. Behin hauek pasa ondoren ariketa egiten hasi gara.

Gogorazi die hankekin laguntzen saiatzeko eta denek jarri dute arreta bereziki horretan. Esan du bakarren batek arraroa egin zaiola eta nik esan diet baietz, hasieran ortopedikoa dela oso, baina, ohituko direla.

Bina kolpe egin ditugu eta ondoren aldatzeko unea heldu da.

3. Lehengo egoera berean, baina, irakasleak ez du kolperik tartekatuko, guk jo behar dugu elkarren atzetik, ilaran, piloteo jarraituan. Esan du 2 bizitza izango ditugula bakoitzak. Txokotan, baina, tantorik egiteko aukerarik gabe, ez hutsik egiten eta pilota azpitik jotzen saiatzeko esan du. Goiko txapa jotzea lortuz gero bizitza bat gehiago lor liteke, “baina Intxaur joz gero 1 gutxiago” gaineratu du begiraleak ondoren. Atzetik aurrera jotzeko eta ipurdia ezker hormara begira genuela hasteko mugimendua gogorazi digu Saioak ariketa hasi aurretik eta bitartean.

Goiko txapa jotzeko saiakera gutxi daude oso eta nik erabaki dut ona ala txarra hori lortzen saiatzea. Itsaso joan da kanpora lehenengo eta haren atzetik hurrengo kaleratua ni izan naiz, goiko txaparen bila goregi bidalitako bi pilotakadaren ostean (B.K. Gainerakoak kezkatuago daude, nire ustez, bizitzarik ez galtzearekin goiko txapa jotzen saiatzearekin baino. Nik uste goiko txaparena oso 2.mailan geratu dela kasu honetan).

Ni eta Itsaso errebotea ezker horma bezala erabiliz ari gara pilotatzen eta besteek aurrean jarraitzen dute, jo eta jo, Saioa begira eta zenbaitetan azalpenak ematen ari zaiela. Nik Itsasori galdetu diot ea konturatu den bakarren batek txaparik jo ote duen eta

ezetz uste duela esan du, bestela oihuren bat entzungo genuela eta. Hala gabiltzala begiraleak ariketa aldatzea erabaki du. Partidak egiteko unea da.

4. Partiduak. Aurrean 2:2ren aurkakoak eta erdian eta atzean 1:1 egoerakoak izango dira. 8 gaude eta bikoteak Saioak egin ditu, elkarren ondoan gaudenak elkarrekin jarriz: Oihane eta ni, Pili eta Itsaso, Marian eta Onintza eta Eli eta Gurutze.

3 txokotan, errotazio sistema bidez:

Aurrean, 2:2 (botea 4ra arte). Aurrean eskuinean laukizuzen bat dago kantxan marraztuta eta pilotak bertan botea egiten badu derrigorrez aurrelariak jo behar du. Goiko txapa joz gero ere tantoa amaitu egingo da, jotzen duenak eskuratuz.

Erdian, 1:1 partida (5-7). Pilota azpitik jo behar da nahi eta nahi ez.

Errebotean, 1:1 (8-10). Partida, atzean jarririko konoari buelta eman behar zaio kolpe bakoitzaren ondoren.

Errotazioetan irabazleak gelditu egingo dira aurrean, eta besteak erditik atzera eta atzetik aurrera doaz. Aurrekoak 6ra heltzean egiten dira aldaketa guztiak, beste markagailuak hainbeste aintzat hartu gabe.

Gu atzean hasi gara, erdian Gurutze eta Eli eta beste laurak aurrean hasi dira. Begiralea etorri zaigu atzean ari garela eta “zer, Uxuek ez zaitu urduri jartzen, ezta?” galdetu dio nire bikotekideari. Honek ezetz erantzun dio eta bezperako Naiararen kasua etorri zait burura, begiralea begira sumatzean urduritzen den beste batena (B.K. Interesgarria hau ere aztertzeko, ea behatuak sentitzean nola erreakzionatzen ote duten eta euren jokabidean nola eragiten duen horrek).

Lehen errotazioan aurrera egitea tokatu zaigu eta frontisean Onintza eta Marianekin egin dugu topo. Heltzen ari garela “Uxue, beldurra ematen du” entzun dut berriro ere eta Saioa gertu zebilela aprobetxatuz nik hari laguntza-edo eskatzea pentsatu eta “nik ez dut inor jaten, ezetz?” esan dut. Oihanek erabaki du non kokatu eta niri aurrean egokitu zait.

Gaur partida denak galdu ditugu aurrean, lasai-lasai aritu naiz eta errotazioetan bi partida bakarrik jokatu ditugu aurrean. Hori dela eta Gurutze eta Elirekin ez dugu jokatu gaurko honetan. Hala ere, aurrean ari ginen lehen partidaren erdian ari direnen pilota bizpahiru aldiz gertu xamar pasa zait, desbideratuta etorrira, eta “zer, ni jotzeko asmotan, ala?” bota diet irribarrez Itsaso eta Piliri.

Erdiko gunean piloteoan eta atzekoan aritu garenean guk ez dugu markagailua aintzat hartu eta ez ditugu tantoak kontatu. Atzean aritu garenean nik Oihaneri esan diot konoari buelta eman beharrak tanto amaiera erraz dezakeela airez sartuz gero edo baita bi pareta eginez gero. Hala ari garela berak galdetu dit ea ezker horman non jotzea komeni den bi hormakoa frontisera heltzeko eta probatxoren bat edo beste egin dugu. Nik esan diot intentzioa izateak balio duela eta eusteko horri. Hark irribarrez erantzun dit.

Orduak aurrera eta ariketek aurrera egin ahala aurpegi gorri eta izerdituak eta neke adierazpenak nabarmenagoak dira emakumeengan. Bakarren batek aurreko eremura goazela esan du “alah, korrika egitera!”. Aurrean tantoak luzatu eta saltsa jartzen saiatu naiz ni eta nekea sumatu arren saltsa jartzeak halako “txip”, bizipoz, erronka edo ez dakit zer bat eragiten diela esango nuke.

20.58an Saioak “bale” esan du eta luzaketak egiteko unea heldu da. Orduan esan du guretzako zerbait duela eta gu poltsan paletak gordetzen hasi gara. Ikasturteko egutegiak ekarri dituela esan du eta denoi banatu digu. Orduan konturatu gara jaiegun asko tokatu direla aurten astearte.

Luzatzen ari garela Saioari kasu egitera sartu da iaz Villabonan arituriko bat, ea zer moduz dabilen galdetuz eta jaramon egin ostean martxa egin du. Aurten ez omen du inon izenik eman.

Oihanek umeak laguneren baten etxean utzi dituela esan du eta besteek ere hala hartu dute etxerako bidea. Elkar hiru aste barrura arte agurtu dugu, egutegia eskuartean hartuta. Azaroaren 8an dugu hurrengo zita, beraz. Aurten Iruran urdaiazpiko lortzeko plana zeukatela esanaz aritu dira, broma giroan, baina, kostako zaiela hainbeste jaiegunekin.

Itsasok esan du 22an agertuko dela hurrengoan.

Itsaso, Gurutze, Saioa eta laurok geratu gara azkenak eta eskaileretan gora bagoaz pilotalekutik kanpora gu ere.

Pilotaleku ataria

Kontu kontari egonaldi luze xamarra, ordu erditik gorakoa, egin dugu laurok, hartaz eta honetaz hizketan eta azkenean erraketistak ere aipagai izan ditugunez bideo bat bidaltzekotan geratu naiz, ikus dezaten. Azkenean 21.40an agurtu dugu elkar hizlariok eta bagoaz kotxeetara.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Giroa oso ona da taldean. Konplizitatea eta konfiantza nabarmentzen dira beste ezeren gainetik. Gustura ikusten dira eurak, ikusten da gozatzeko asmotan joaten direla eta egiten ari diren horretan gozaten dutela gutxi edo gehiago.

Markagailuak daukan garrantzia polita da aztertzeko, oso maila batean geratzen baita. Lehiakortasunarekin loturik egon litekeen ala ez jakitea interesgarria litzateke.

Nabaria da ikasteko intentzio eta gogoia. Oso saiatsuak dira eta borondatea soberan daukate. Hori asko nabari zaie.

Gaur hasierako ariketan konturatu naiz frontoian harmailetan eserita unetxo batean pertsona bat, txakur eta guzti, begira aritu da. Bakarren batek agurtu du eta ni ohartzeko alde egin du.

Gaur ez dituzte euren paletak ekarri, aurreko astean ez bezala. Kurioso da astetik asterako alde hori ere. Materialaz informazioa lortzea interesgarria litzateke.

Berandu, baina, gustura noa etxera. Iruditzen zait taldean integratuta nagoela eta une honetatik aurrera aprobetxatu behar dudala elkarrizketa informaletarako urratsa ematen hasteko.

Aspaldian nahiko hurbil

Orain hilabete gutxira arte Gipuzkoaren beste muturrean eta gure ingurutik “joan eta bertan” zegoen herri izendatuko nukeena, behin edo bitan bakarrik zapalduko, une honetan ia asteroko bisita-leku (bizitza-leku) bihurtu zait. Ikastaroari ekin aurretik ere azken bospasei hilabetetan behin baino gehiagotan bertaratu naiz, besteak beste, gure “goi-bilera”, proiektu doitze eta tesiaren ernamuina goxatu nahia tarteko. Beraz, lehen N-1ean irteera beti eskuinetara utzi eta aurrera egiten nuen arren, orain, aurrera askoz ere gutxiagotan egiten dut, eta nire autoko eskuineko argi keinukaria ere ohi baino lan gehiago egin beharrean izaten da “Scalextric” ingurura hurbiltzean.

Gaur saioa baino ordubete lehenagorako dagoeneko bertan nintzen, aurrez beste lan batzuk aurreratzeko bildu baikara zuzendaria eta biok (eta haren familia zati bat ere bai). Batez ere datorren asteko kongresurako aurkezpena taxutu nahiak batu gaitu. Beraz, pilotalekura abiatu aurretik pantaila aurrean egonaldia egin nintzen, nahiz eta denak ongi bukatu gabe alde egin behar izan dudana, erlojuaren morrontzari jarraika.

Sarrera

19.33an iritsi naiz pilotalekura, 2 minutu lehenago Mikel eta konpainia agurtuta. Ez dugu nahi beste aurreratu, baina, ideia batzuk hartu ditut gogoan eta etxerako lana ere bai, beraz, badaukat zeregina afalosterako.

Egia esan ordulariari begiratu eta berandutzeak halako kezkatxoa sortu dit zita-lekura heldu aurretik, baina, plaza eta frontoia bistaratzeko lasaitu egin naiz, oraindik bi emakume eta begiralea baino ez baitzeuden bertan: Karmele (rubia), Arritxu, berria, eta Haizea. Agurtu, “arratsalde on” esan eta ni ere taldera gehitu naiz, oraindik ere motxila bizkarrean dudala.

Gaur euria egin du (eta ari du tarteka) eta frontoia erdi-irekia dela aintzat hartuta, horrek nola eragin dezakeen ikusteko ere aukera ona izan litekeela pentsatu dut neure baitan. Kontrakantxaren amaierako petrila bustia dago eta handik barrurago ere nabari dira putzuak eta bustiguneak. Atzean, 8,5era arte bustia dago lurra. Esan dute haizea dabilenean eta euri gehiago egindakoan busti egiten dela pilotalekua.

Kanpoko giroa ere dezente hotzagoa da, grisa eta haizetxoa ere badabil, eta gaur ez dago duela bi astetako niki besomtz eta piratarik. Gehienok jertsea eta haren gainetik beste kapa bat jantzita gaude. Haizeak esan du “hotza pasako dugu hemen, negua luzea da”.

Nire ondoren berehalaxe dira Jaione, kiroldegitik zuzenean etorri omen da, eta Aizpea izeneko bat ere bai, hau ere berria guretzat, lehen saioan izan ez zena, behintzat. Orduan Haizeak ea besteen berririk ba ote duten galdetu die eta Aitziber ez agertu izanak harritzen duela esan du Jaionek, puntuala dela eta. Hala gaudela Ester iritsi da eta esan dutenez Izaskun eta Idoia ere agertzekotan dira. 19:40 inguruan hauek ere heldu eta Haizeak hotz dagoela eta berotzen hasiko garela esan du.

Arritxuk NANaren fotokopia darabil esku artean eta Haizeari esan dio Pepik, udaleko berdintasun teknikariak, esan ziola ekartzeko, Haizeari emateko aseguruia dela eta. Hortik tiraka Haizeak azaldu digu aseguruia egiteko ordainagiria, argazki bat, NANaren fotokopia eta kirola egiteko baldintzatan gaudela dioten medikuaren ziurtagiri bat

beharrezkoak direla, zerbait gertatuz gero aseguruak bere gain har dezan. Medikua baimenak harritu egin ditu.

Pilotalekua

Lau mutiko eskuz ari dira jokatzeko frontisean eta Haizea joan zaie esatera saioa hasteko unea heldu zaigula eta libratzeko, mesedez. Azken tantoa jokatzeko ados jarri dira eta hura amaitzean martxa egin dute. Berotzen hastean ikusi dugu bi jertse zeudela kantxan eta orduantxe itzuli dira bi ume, lehen jokatzeko aritutakoak, bila.

Berotzen hasi aurretik geure izenak esaten hasi gara borobilean eta nik aprobetxatu dut berriei esateko saioetara joateaz gain bertatik informazioa ateratzen saiatuko naizela, doktorego-tesia dela medio.

Beroketa

Hasi aurretik orkatiletako mugimendu artikularrak egin ditugu eta ondoren pilotalekuan hiruzpalau buelta eman ditugu, 2.ean besoak banaka aurrera mugituz, 3.ean biak batera aurrerantz eta 4.ean berriz ere besoak normal daramatzagula. Jaione bakarrik doa aurrean, ondoren ni ere neure munduan eta besteren batzuk hizketan.

Ondoren korroan gaudela eskumuturrak mugitu ditugu eta Haizeak aprobetxatu du berriz ere azaltzeko saioek hiru zati dituztela: beroketa, ariketen zatia eta luzaketak. Horren ondoren orain bi aste landutakoak ekarri ditu gogora: pala nola hartu eta hankak nola jarri. Errepaso bat egin du, pala hartzeko non heltzea komeni den azalduz imitatzeko eta hankei dagokienez pilota jotzean kontrakoa aurreratu behar dela adieraziz: ezkerrez jotzean eskuina eta alderantziz.

Hortik paletak banatu dizkigu, udalak erosi omen ditu eta bakoitzari bana eman digu. Berri-berriak dira eta esan du etxera eramango ditugula gaurtik aurrera eta astero-astero ekartzearekin gogoratzeko. Honen ondoren pilota bana banatu digu eta ezkerreko horman jarri gara pilotatuz banaka-banaka. Kontuan hartu beharrekoak hanken posizioa eta eustea izango dira.

8 lagun gaude pilota eta paleta banarekin eta 8,5 koadro bakarrik ditugu denontzat. Gainera, 5. koadrotik atzera ezker horma ere asko jaisten da, altueran jarduteko aukera murriztuz. Egia esan kabitu kabitzen gara, baina, niri egoera bitxia iruditu zait. Ni frontisetik oso gertu nago, Karmele eta Jaioneren artean eta ondoren daude Arritxu, Ester, Idoia, Aizpea eta Izaskun. Pilota asko dabilta hegan hona eta hara, norabidea apur bat galduta eta tarteka lurretik tarrasean ere heltzen da bakarren bat. Lekuak bakoitzarentzat koadro bana izateko ematen badu ere pilotaren norabidea ez da askotan bakoitzak nahi lukeena izaten eta elkarren gainean aritzen gara askotan. Niri egoera kurioa iruditu zait, ni ia-ia koadro erdi batean saiatu naizen arren ez dagoelako pilotoa oso jarraitua izateko modurik hainbeste pilotaren artean. Haizea bitartean behatzen eta zuzenketak egiten ari da, bai eusteari ala bai hanken posizioari dagokionean (B.K. Pilotak hegan nola dabilzan ikusi eta barrutik egoera berezi eta aztertzeo interesgarria iruditu zait, irribarre txiki batek ihes egiten didan une berean).

Hala ari garela Haizeak esan digu nahikoa dela eta berriz deitu gaitu bere ingurura. Orduan Haizeak esan du gaur eusteari eta hanken posizioari erreparatzeaz gain pala

kolpea egin aurretik prestatu (izterretik gertu mantenduz) eta pilota aurrean jotzeari eta horretan arreta jartzeari ekitea nahi duela. Hala ere, garbi utzi du taldearen baitan erritmo ezberdinak daudela eta norberak ikus dezala arreta zertan jartzea komeni zaion, norbere egoerara egokituz berak proposatzen duena. Esterrek aprobetxatu du galdetzeko ea komeni den hasieratik ezkerrekin saiatzen hastea ere eta baiezko erantzuna jaso du bueltan, ez emanda ere garrantzitsua dela saiatzea eta hala ikasten dela. Haizeak esan dio, horrez gain, errebezez jotzen ikusiz gero ez duela berak bronkarik botako, baina, komenigarria dela hori lantzen ere lehen unetik hastea.

Hortaz, berriz ere ezker hormaren aurka pilotatzera igaro gara zortziok, oraingo honetan eustea, hankak, paletaren prestaketa eta pilota aurrean jotzen saiatuz, kolpe sekuentzia oinarrikoa dela gogorarazi baitigu. Azken unean dena egin nahi izatea baino pilotaren boteari itzaroteko esan du, askotan lehenago aurreratu eta pilota gainera etortzen zaigula gogoraraziz. Ni ohartu naiz berriz ere espazio arazoak izango ditugula eta Haizeari esan diot nahi badu niri berdin zaidala atzean jartzea, 8.koadroan edo, moldatu naizela espazio murrizagoan ere eta alda dezakedala lekua. Berak esan dit besteei proposatzeko eta Izaskunek ezetz esan dit, moldatuko dela, beraz, ni lehenengo ingurura itzuli naiz. Orain ere pilotak elkarrekin txokatzen, hegan eta abar dabilta, lehen bezalatsu.

Ezker hormatik frontis aldera egiteko unea heldu zaigu, ariketak egiten hasteko.

Ariketak

1. Ilara batean jarrita, Haizeak bina pilota jarri dizkigu. Guk Haizeak adierazitako sekuentzia (bere lau pausoetan) kontuan hartuz pilota jo behar dugu. Kolpe bat egin, pilota jaso eta ilaran azkena jarri behar da.

Batzuk errazago eta besteak zailtasun handiagoz, bakarren batek bigarren botean jo du, baina, hor aritu gara. Haizea bitartean ikusten zituen akatsak zuzentzen saiatu da (B.K. Mailan aldeak nabari dira 8 taldekideon artean. Batzuk justu dira jotzeko gai eta beste batzuk norabidetzeko gaitasun handiagoa eta jarraitasun bat mantentzeko gai dira).

2. Ariketa antzekoa, baina oraingoan bi ilaratan: 4 ezkerrean eta beste 4 eskuinean. Haizeak prestatzen ditu pilotak, txandaka, lehenengo eskuinekoei eta gero ezkerrekoei eta helburua lehenengo bera da, pilota jotzea. Kasu honetan ezkerreko ilaran gaudenean kolpea ezkerreko besoarekin egin behar da. Behin hiru kolpe egindakoan bakoitzak ilarak aldatu ditugu: ezkerrekook eskuinera eta alderantziz. Ezkerrean hasi gara Karmele, Ester, Jaione eta laurok. Bestean Izaskun, Idoia, Arritxu eta Aizpea daude.

Ezkerrez jotzea tokatzen denean bat baino gehiagok huts egiten dute, baina, hurrengoan ere berriz saiatzen dira eta umorez hartzen dute (Esterrek, adibidez). Eskuinez hobeto moldatzen dira, nahiz eta oraindik behin baino gehiagotan eta bat baino gehiago diren pilotarekiko distantzia egokia hartzea kostatzen zaienak: Arritxu, Karmele, Ester, Izaskun. Haizeak feedback positiboa ematen du, zer hobetu esanaz eta “ondo, ondo” ere behin baino gehiagotan esaten du.

B.K. Nik jotzean komentarioren bat edo beste entzun dut pare bat aldiz, “ze zartakoa”, baina ez dakit nor den, ez dut identifikatzen noren ahotsa den.

3. Lehengoaren aldaera bat. Haizeak pilota eskuinekoei prestatuko die eta hauek ezkerreko gurutzatzen saiatu behar dute, ezkerrekoak jo dezan (berdin dio eskuinez ala ezkerrez). Sekuentzia: Haizea-eskuinekoa-ezkerrekoa eta beste bat.

Haizeak saioan behin eta berriz errepikatu du arreta kolpe sekuentzian jartzea nahi duela eta oraingoan ere bai. Ariketa egiten hasi baino lehen Jaionek esan du “Uxuek gurutzatuko du bai, baina besteok ikusiko dugu” eta nik erantzun diot “eskuinetik ezkerreko zuek ere bai, kontua zailduko litzateke ezkerretik eskuinera baldin balitz”. Buruarekin baietz egin dit.

Izaskun dago eskuinean eta ni ezkerrean. Honek zer egingo, eta nahi gabe bada ere, horma biko bat. Ni ez naiz eramatera iritsi, ezinezkoa zen 4.koadrotik hara heltzea. Orduan ilaran bakarren batek komentarioa egin du “ez al zinen gogoratzen bi paretak gustatzen zaizkiola?” eta nik irribarre eginez, pilota jaso eta ilaran atzean kokatzeko hautua egin dut, isilik. Izaskunek esan dit aldamenetik “la suerte del principiante”. Hurrengo gure txanda heldu denean zer arrisku egon litekeen ohartuta aurrerago jarri naiz, 3.koadroaren bueltan eta dejada bat atera bazaio ere eraman egin dut, arreta handiz egon bainaiz. Orduan grazia egin die nik hori egin izanak, “orain adi zeunden eh, Uxue” bota dit Haizeak. Ondoren aldez aldatu gara eta berdin jarraitu dugu.

Ariketa hau amaitu egin dugu hiruna saiakera egindakoa ilara bakoitzetik eta Haizeak esan du “orain gehiena gustatzen zaizuen, partiduak”.

4. 1:1 partidu egoerak frontisean. Bestak hiruak jarrita atzean pilotatzen, partida bukatu arte zain.

Partidak 3 tantora jokatu dira eta errotazio sistema erabiliz egin ditugu ondoren gainerako aldaketak.

Bikoteak:

- Ni + Izaskun
- Idoia + Arritxu
- Jaione + Aizpea
- Karnele + Ester

Gu hasi gara aurrean. Tantoak luzeak dira, inork ez duelako galdu nahi. Izaskun saiatu da zerbaitetan baino ezin du eta nik pixka bat korrika eginaraziz botatuko pilota batean “oraindik errekupekatzen ari naiz, nik ezin dut korrika egin” bota du. Ni oso-oso lasai ari naiz, pilota ia eskura botaz. 3-0 amaitu eta atzera egin dugu (B.K. Ez dakit ez ote den bere min hori egia erdia izan, hala delako disko-herniarena, baina galtze txarrekoa ez ote den... Besteengandik ezberdina dela usaintzen hasia nago).

Aurrean partidak egin eta atzean pilotatzen aritzeko espazio murriztua iruditu zait.

Ni, Aizpea eta Izaskun pilotatzen hasi gara baina konturatu naiz Izaskun falta dela eta Haizearengana joan dela zerbait esatera. Gero konturatu naiz Idoiarekin ere ari dela, baina, nik jaramonik ez egitea erabaki eta segi egin dut pilotatzen. Partidek aurrera darraite bien bitartean eta atzean pilotatzen. Halako batean Jaione eta Arritxurekin ari naizela, Haizea entzun dut “galdu du iezaiozu berari esanaz” eta orduan baieztatu dut nire inguruan zerbait esatera joan zaiola aurretik, susmoa piztu bezala, alegia. Esan dit nik ez

dudala paleta ondo jartzen, atzeratu egiten dudala eta indar handiagoa ematen diodala eurak baino. Orduan nik erantzun diot gauza bat dela paleta non egoten den jo aurretik, izterretik gertu, baina, jotzeko unean atzetik aurrerako mugimendua egiten dela eta gorputz osoak parte hartzen duela horretan, hanka atzeratzearekin batera besoa ere atzeratzen dela, gero aurrean bukatzeko. Saiatu naiz mugimendu bidez adibidea egiten pilota besoarekin bakarrik joz edo gorputza erabiliz. Haizea ere hurbildu da taldetxora, aurrean partidan ari direnak utziz unetxo batez. Esan diet pilotari indarra emateko modurik onena sekuentzia bere osotasunean burutzea dela eta hankekin ere mugimendua jarraitzea, teknikak indarrak baino gehiago balio duela (B.K. Ez dakit berari asko balio izan dion, baina, inguruko besteei bai eta horrek lasaitu egin nau. Besteren batek irribarre egin du, bere jarrerari garrantzia kenduz bezala).

Atzean jarraitzen dugu Jaione, Arritxu eta hirurok eta lehena ongi moldatzen denez aprobetxatu dut esateko saiatzeko pilota jo ondoren eskuineko hanka aurrean duela bukatzen, horrekin gorputzarekin gehiago laguntzen diola ohartuko dela eta pilota indar handiagoz aterako dela. Bada ez bada ere “nazkatzen bazaitu lasai esan, eh” gehitu diot eta ezetz esan dit, hobetzeko balio badu ongi etorriko zaiola. Ondo hartu dit.

Txandan-txandan aurreko 2.partiden erronda ere amaitzeaz da (Izaskun-Idoia, Karmele-Aizpea, Arritxu-Ester) eta Jaione eta bioi tokatzen zaigu aurrean jokatzeko. Tantoak luzeak dira eta ongi ari gara, piloteoa mantentzeaz gain norabidea ere ematen ari gara. Haizeak esan dio “eman egurra Uxuri” eta honek erantzun “honek ni leher egingo nau eta kitto”. 3-0 amaitu dugu (B.K. Gustura aritu naiz, moldatzen da eta adeitsua iruditzen zait eta lasaitasun puntu bat ematen dit horrek. Uste dut informatzaile bihurtu litekeela).

Gure partida amaitzean Haizeak 20.55 direla esan eta saio praktikoa amaitzeko unea heldu da. Ezkerreko hormara gerturatu eta luzaketen txanda da. Haizeak esan du aintzat hartzeko palak non uzten ditugun, gero bakoitzak geurea hartzeko. Orduan bakarren batek galdetu du ea izena jar dakioken eta nik esan diet heldulekuaren azpialdea ez dela leku txarra horretarako.

Ezker hormaz baliatuz bikiak eta kuadrizepsak luzatu ditugu. Ondoren aduktoreak, besoak eta lepoa. Horrekin amaitu da. Haizeak une hau aprobetxatu du berriei galdetzeko ea zer moduz sentitu diren saioan zehar eta “ondo” erantzun diote.

B.K. Zenbait unetan saioen dinamika bizituko nuke nik. Batez ere ilaran jarrita zain gaudenean, marra bat zapalduz edo beste baldintzaren bat jarritz, hotza eta haizeak eragiten dutelako batez ere. Hala ere, estilo ezberdinen kontua da eta erabat onargarri eta errespetagarria Haizearena.

Trasteak hartzerantz ingurura goazela (gaur petrila bustia zegoen eta frontisaren eskuinetara utzi ditugu txamarra, poltsa eta abarrak) Arritxuk berriz ere galdetu dio fotokopiena eta Haizeak gogorarazi digu garrantzitsua dela aseguruarena egiteko lehenbailehen eramatea datuak eta beharrezko dokumentuak. Medikuen ziurtagiri hori da kezka pittin bat eragiten diena eta nik esan diet nik dakidala lehen estankotan saltzen zutela inprimakia eta ondoren familiako medikuak bete behar duela onetsiz egoera onean zaudela kirola egiteko. Bakarren batek galdetu du ea astelehenetakoei esan dien, proba egin ote duten jakiteko, eta ezetz. Besteren batek, berriz, berari ez diola emango. Begiralea panorama ikusita lasaitasuna transmititzen saiatu da, presazkoena bestea dela adieraziz.

Nik esan diot Haizeari datorren astean ez naizela joango, kanpoan izango naizela. Arritxuk esan du lanaren arabera txandatu egingo duela astelehen goiz eta asteazken arratsaldean artean eta orduan Esterrek galdetu dio ea posible izango litzatekeen astelehenetan 19.30ean joatea eta honek esan dio inongo arazorik ez dagoela. Gaur Aitziber ez da etorri eta Jaionek galdetu dio begiraleari ea paletaz zerbait esango dioten eta honek ezetz, badaukala bat. Nik, bada ez bada ere, datorren astean joango ez naizenez, nik ibilitakoa Haizeari utzi diot.

21.03. Listo kalisto! Trasteak hartu eta etxera abiatzeko unea heldu da. Bi aste barru gehiago (eta hobeto). Haizeari itxaron diot eta frontoitik bagindoazela bi neskarekin gurutzatu gara. Haizeari esan diote astearte eta ostegunetan euren kabuz aritzen direla eta ea argi gehiago ez ote zuen nahi, aukera badagoela. Honek esan die konturatu gabe dagoela eta besteek nahi badute datorren astean azalduko diotela bertan nola egiten den, 3 giltza hartu behar direla.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaur Izaskunen komentarioak tarteko propio bota dut “hara, azkenean behaketa egitera etorri eta ni naiz behatua”. Haizeak erantzun dit konplizitate keinu batekin, nire mezua oso ongi iritsi zaiola jakinaraziz keinu bidez.

Usurbildarrek badakite itxura batean paleta saioak hasi direla emakumeentzat (arrakastatsuak, 22 emakume guztira 3 taldetan). Gaur hasieran beroketan ezker hormaren aurka ari ginela Karmele aritu da pasa den bakarren batekin hizketan, hasi aurretik beste gizon bati ere esan diote “zuk eraman bi umeak etxera eta emaztea gurekin geratuko da”. Badirudi ikastaro hauen harira girotxoa edo sortu dela. Hala ere, ez da lehen saioan beste jende pasa, ez da hainbesteko “ikusminik” izan, giroa ere ez baitago horretarako oso ederra.

Iruditzen zait Izaskunekin beste denekin baino gehiago kostako zaidala rapport-a sortzea, bere jarrera ikusita. Haizeak saioa amaitu eta kotxera abiatzean esan dit ondo ikusten nauela, baina, bakarren batekin denbora gehiago beharko dudala, justu pertsona horri erreferentzia eginaz. Berak gaur ezkerrez ari zela ikustean galdetu egin omen dio ezkerre ote den eta ezetz erantzun diola esan dit, baina, esan diola “buruan hori sartu zait”. Ez dakit nola izendatu bere jarrera, baina, kontu eske bezala hasi da kolpe sekuentzian mugimendu osoa egiten dudalako. Mailan aldea egoteak errezeloa sortzen ote dion pentsatzen jarri naiz. Harekin gehiago kostako zait baina atzean, adibidez, Jaione eta Arritxurekin gustura aritu naiz.

Partidak aurrean jokatu bitartean atzean genbiltzala frontenisekoarekin ibilita daudela jakitun, Jaioneri esan diot aldea nabarituko dutela teniseko pilotarekiko. Baietz esan dit, baina tenisekoarekin noiz edo noiz ere ibiltzen zirela lehenago ere. Arritxuri galdetu diot ea aurrez asko ibilitakoa den. Hark esan dit ezetz, oso gutxitan aritu dela, baina, gogoia zuela eta ikastaroaren berri jasotzean izena emateko hautua egin zuela.

Gustura nago, lasai, ez naiz gehiegi nekatu, joan-etorriak berez nekagarriak direla ahortzi gabe, noski, eta hurrengo egunetan aztertuko dugu honek zerbaitetarako balio ote duen.

Aste garrantzitsuen atarian, aldaketaren baten esperoan

Historikoa bihurtu da aste hau gure herri zaharreen: bake konferentzia, behin betiko armak uztea,... Berri pozgarriak dira oso. Bake eta elkarbizitzarako aroa hasi dela, negoziatzeko unea dela, gatazka politikoa ez dela amaitu,... Horrelakoak entzuten daramatzagu azken orduak, ETaren behin betiko armak uzteko erabakia kaleratu denetik. Informazio eta erreakzio erauntsia bazter guztietatik dator eta, egia esan, balorazioak ere eite ezberdinetakoak dira. Batzuk ausartagoak, besteak zuhurragoak, zuzenagoak, zeharkakoagoak,... baina oroz gaindik gauza bat nabarmentzen da: aro berri baten hasiera heldu dela eta itxaropentsu izateko arrazoiak lehen baino begi bistakoagoak direla.

Noski, beste dimentsio batean, beste lasaitasun batekin eta testuingurua erabat ezberdina dela jakin badakidan arren, neure buruari begiratu eta hein batean antzeko zerbait gertatzea espero dut datorren astean zehar nire ikertzaile historiatxo labur bezain gorabeheratsu honen baitan. Nora eza, galduta sentitzea, kokatu ezina eta halakoak nagusitu zaizkit barne bazterretan eta nahi ezta ere eragina izaten ari dira egiten dudanean. Horregatik, asteartetik larunbatera artekoa agendan gorritz markaturiko denbora tartea dut. Izan ere, Valentzian orain arte egindakoa (edo egiten saiatutakoa, hobeto esanda) aztertu eta nondik norakoak zehazten saiatuko gara, kongresu batetara goazela probestuz. Hori dela eta, neure baitako arantzak, zalantzak, esperantzak, balantzak nora eta nola makurtuko diren ezagutzen hasteko aste eta egunak izango dira ate joka ditugunak. Hala ote?!

Valentzia aldaketa edo moldaketa unea eta lekua, mugarritxoa, izango den itxaropena daukat, onerako ala txarrerako. Bai, “txarrerako” ere izan liteke, bai baitakit litekeena dela bidegurutzean aurkako norabidean abiatu garela ohartu, orain arte egindakoak alboratu, zakarretara bota, eta berriz ere atzera itzuli eta bidezidor berriren batetik ekin beharraz ohartzea. “Gu ta gutarrak” taldeak kantatzen duen eran “tunel iluna argi truk” uzten hasi nahi nuke nik ere itzuleran. Aukeran nahiago lehenbailehen gertatuko balitz, zertan ukatu?! Prozesu geldo bezain gogorra suerta litekeela ahaztu gabe (ni baino esperientzia askoz ere handiagokoek hala berresten didate aldiro) kilometro askoko bide malkartsu, sigi-sagatsu eta hartxintzar zein oztopoz betean abiatu baino ez naizela egin jakin eta onartu arren, benetan eskertuko (ge)nuke, bai nik eta baita nire hurbilenekoek ere. Gogorra ari zait egiten hasiera, batez ere “kontrakantxan” jarri eta zer, nondik, noiz, nola eta zertarako bezalako galderak bata bestearen atzetik trumilka datozkidanean eta nik erantzunen zerrendara jo eta orriak zuri darraiela baino ikusten ez dudanean. Eta ez, ez da lau begirekin ibili ohi naizelako edo begietako azterketak zaharrituta geratuko zaizkidalako, zertan ari naizen teorian izen eta abizen ezagutu arren (etnografia eta behaketa parte hartzailea), praktikan nola gauzatu beharko litzatekeen asmatu eta antzeman ezinda bizi naizelako, baizik. Beraz, “esperantzari leihoa zabaldu nahi nioke”.

4. astea. URRIKOAK JOAN DIRA

Oraindik urriak 24 baino ez dituela pentsa litekeen arren, datorren asteko jaiegun eta aste honetako kongresua medio amaitu dira lehen lau asteotako behaketa saioak. Beraz, udazkena etorri eta joan da urria. Egutegiko orriak ez dira ez nahi bezain arin ezta nahi bezain alai ere pasa, baina gaur iragana dira eta hori bera ere ez da seinalerik txarrena izango, ala?! Nolakotasunetan eta zergatik zein zertarako bezalakoen erantzunetan ez naiz sartuko, bada ez bada ere.

Lehen lau saioak egin ditut leku berean eta besteetan, aldiz, hiru eta bi, hurrenez hurren. Beraz, ezin nezake esan denetan parte-hartze eta ezagutza maila berera iritsi naizenik, baina, neure burua pixka bat gehiago ezagutzera eta taldekideengana hurbiltzera, gehiago ala gutxiago, noski, heldu naizela sentitu eta sinesten dut. Hala behar luke, ezta?!

Urriko azken astelehena ez bada izan ere urriko azken saioak emanikoa kontatzeko hurrengo lerroak idazteari ekin diot, nire buruan gordetako irudi, esaldi eta burutazioak hartu eta banan-banan orriratuz.

Astelehena, lehena eta azkena

Bidaia denak bezala gaurkoa ere kotxez egin dut (8.38-9.19), irratia lagun, asteburuko kirol ekitaldi batzuen inguruko iritziak entzunaz. Hala ere, ez diot arreta izugarrikerik ere jarri, urruneko musikaren parekoa, gutxi gorabehera.

Gaurko giroa udazkenekoa omen da, hego haize zakarra eta euri tantak nahasian, eta errepidean ere oso atsegina ez dagoenez denboraz irten eta presarik gabe heldu naiz, trafiko dezentea dagoela berretsita beste behin ere.

Sargori puntu bat egiten du, 20°C ikusi ditut termometroari begiratzean, eta litekeena da gaur bero puntu bat ere izatea saioan zehar, frontoia neguan hotza eta berotzean beroa baita, sabaiak negutegi efektua egiten baitu (B.K. Hala izan dela konturatu naiz saioan zehar, bai nire azalean zein besteen aurpegi eta iritziak entzunaz).

Aparkatu eta 9.22an kiroldegira noa atzealdeko aparkalekutik, lasai-lasai, pauso geldoan, baina, iparririk galdu gabe.

Kiroldegiko sarrera

Rakel, Malen eta Asier bertan daude dagoeneko. Azken hau korrika egitera omen doa. Ni heldu eta atzetik, berehalaxe, Ainara eta Gemma datoz eskaileretan behera. Saioa geroago heldu da eta Ines ere bistaratu da beste aldetik, piszinatik dator. Miren ere hemen da.

Hasieran bezperako korrika saioez, Gipuzkoako elkarten arteko txapelketako finalaz, Tilos 7-Pasa txapelketako finalaz (Ainara eta Gemmak galdu egin omen zuten) aritu gara hitz eta pitz, jaiegunez ere bai (bihar estatutua dela-eta jai omen),... Ez dugu gai bakar eta zentral bat jorratu, gehiago izan da handik edo hemendik zerbaiten inguruan jardutea baino.

Saioak 9.33an barrura sartzeko esan digu. Buelta osoa eman eta pilotalekuan gaude.

Pilotalekua

Garbitzaileak frontoian dira gaur ere, lana amaitzen. Jone eta Zuriñe justu gu berotzen hasiera goazela heldu dira.

Hasterako talde-argazkia atera dugu, nahiz eta gaur Naiara falta den. Saioak argazki kamera berria, iaz bakarren bati ikusi eta handik begiratzen hasita eresia. Bizpahiru atera dizkigu Jonek, bertan zegoela aprobeztatu. Emakumea Pilotariko nikirik ez dutela ekarri eta abisatzeko esan diote Saioari, baina honek erabaki du gaur behar duela argazkiak.

Jon dago frontoian, takoak jartzen hasteko prest. Harritu egin gara eta jokatzeko asmoz ote zen galdetuta jakinarazi du 11:00etan geratu omen direla entrenatzeko (B.K. Garaiz etorri da, ez ote zuen beste zereginik?). Harmailetako aurreko aldean eserita dago eta emakume gehienek ezagutzen dutenez, elkar agurtu dute. Handik beranduago Mendizabal II.a sartu da, hura ere takoak jarri eta gero entrenatzeko.

Talde argazkia atera dugu hasi baino lehen. Teresak belaunean zerbait sentitu zuela, min hartuta dagoela eta momentuz ez dela berriro agertuko, geroago erabakiko duela segi ala ez esan digu Saioak eta “geroz eta gutxiago zaretenez argazkia gaur aterako dugu”. Amaitu orduko ekin diogu beroketari, ohiko dinamika berean.

Beroketa

Korrikalditxoak besoak mugituz, mugikortasun articularra eta binaka beroketa ezker hormaren aurka.

Rakel eta Zuriñerekin ni, 9 baikaude. Han gabiltzala, Rakel ezkerrean, ni erdian eta Zuriñe eskuinean, Saioa etorri zait eta deitu egin nau, “Uxue, etorri pixka bat”. Alboko kolpea lantzeko partida egoeran zer egingo lukeen esan dit eta niri galdetu ea zer iruditzen zaidan. Nik esan diot marra jar genezakeela frontisean altuera batetik behera alboko kolpea erabiliz jota tantoa eginez gero saritzeko. Ados, 3. losatik behera marra jarri dugu, zinta itsaskorra, hanka puntetan eta zatitxo batean, baina imajinarioki hedatzeko asmoz.

Bukatu da binakako ezker hormaren aurkako piloteoa. Saioak gaurko atal nagusiari ekingo diogula esan digu.

Ariketak

1. Azpiko kolpea, Saioak prestatu eta guk jo. 8ko marra zapaldu eta ilarara (egoera honetako ariketa guztietan mantentzen da). Jone aurrean, Zuriñe eta Rakel nire ondoren. “Nola egiten den gogoratzen?” galdetu du Saioak eta Mirenek ezetz. Orduan besteek harriduraz begiratu, erdi irribarrez ere bai bakarren batzuk, eta aurreko astean ez zela izan gogorarazi digu, lanean izan baitzen. Beraz, Saioak berriz ere azaldu du nola jo behar den pilota (behetik gora, aurrean, baina besoa erabat goraino eraman gabe, kontrako sorbaldara bideratuz amaieran, ... eta berak egin du mugimendua).

Maleni zehar begirada bat bota dio eta denak hari begira jarri gaitu, alboko kolpea baitu berezkoa. Niri begiratzeko esan du Mirenek ilaran ariketa egiten ari garen bitartean, nik ongi egingo dudala eta. Ohartu egin naiz horrekin eta irribarrez erantzun diot, hitzik esan gabe baina elkar ederki asko ulertuz.

Bakoitzak bina egin ditugu eta aldatu egin dugu ondoren.

2. Berdina, baina alboko kolpea eginaz. Saioak gogorarazi du alboko kolpea egiteko pilota altuago jo behar dela, gerri parean. Adibidea egin du berak. Nik lagundu nahi izan diot esanaz jokaldiak amaitzeko aurrean normalean kolpe hau erabiltzen dugula.

Malenek egiten du ondo oso. Beste batzuk ere bai, baina zenbaitetan pilota baxuegi hartu eta ia ezinezkoa da alboko kolpea egitea. Saioak esan die ez itzaroteko hainbeste pilota jaitsi arte, goraxeago jotzea komeni dela. Ainarak orduan esan du bera arraro sentitzen dela eta ez dakiela hainbeste pentsatzearena edo zerena ote den, baina, ez dakiela jadanik ez hankak nola jartzen dituen, ez besoa,... (B.K. Deseroso nabaritu dut, taldean ondoen moldatzen dena bera izan arren ez baitu nahi bezala asmatzen kasu honetan).

Berriz ere bi-hiru kolpe egin bakoitzak eta aldaketa, hurrengo ariketa.

3. Binaka jarrita, pilota batekin, ezker hormaren aurka batek azpiko kolpea eta besteak beti albokoa. Ondoren aldatu. Ni Rakelekin tokatu naiz, alboan ezkerrean Zuriñe eta Saioa, eskuinean Malen eta Miren. Besteak Ainara eta Ines eta Jone eta Gemma bikoteak dira. Tarteka airean dabilta pilotak, eremuz nahasita (B.K. Badirudi ez garela denok kabitzen leku berean paletan?!).

Rakel hasi da azpitik eta ni albo kolpearekin. Ondoren aldatu egin dugu eta amaitzean berak esan du berari errazagoa zaiola alboz jotzea, joera hori duela. Orduan Saioak esan du berak inpresio bat duela, hau da, aurrez eskuz ibili gabeak diren zenbaitek albokoa gehiago erabiltzea azpikoa baino. Bakoitzak bere joeren inguruan pittin bat hausnartu du, azpitik ala albotik errazago jotzen duen pentsatuz. Denetik dago, bakoitzak bere “maniak” baititu.

Berriz ere ilaran jartzeko esan du Saioak, banaka-banaka.

4. Begiraleak pilota prestatzen du eta 1 esanez gero “azpitik” eta 2 esanez gero “albotik” egin behar da kolpea. Saioari lagundu asmoz “ipurdiko” eta “zaplazteko” adierak ekarri ditut gogora nik, agian keinua identifikatzen errazagoa zaien ustean (B.K. Gustatu zaie emakumeei eta tankera batean jotzeko modua nolakoa den hobeto ulertu dute). Ainara urduri jartzen da eta berak esan du nahasi egiten dela pentsatzen hastean. Nik esan diet egin egingo dutela mugimendua, baina, agian, horretan ari direla pentsatzen jarri gabe eta batek baino gehiagok baietsi du hori.

Saioak txandaka 1 edo 2 esanaz dihardu, pilota jarriz eta gu txintxo-txintxo gabiltza, bere esanetara.

5. Partidak. 3 txokotan, errotazio sistema bidez:

Aurrean, 2:2 (botea 4ra arte). Tantoa lortuz gero alboz eta frontiseko behealdea jota +2 eta goiko txapa joz gero ere berdin. Bestela tanto bakarra.

Erdian, 1:1 partida (5-7). Pilota azpitik ezkerrean eta eskuinaldean albotik.
Errebotean, 2:2 (8-10). Partida, pilota jo orduko atzean alboan jarritako konoari buelta eman behar zaio.

Bikoteak:

Aurrean: Rakel-Ines eta Saioa-Jone

Erdian: Malen-Gemma

Atzean: Ainara-Zuriñe eta Miren-ni

Errotazioetan irabazleak gelditu egiten dira aurrean, atzetik aurrera doaz. Aurrekoak 6ra heltzean egiten dira aldaketa guztiak, beste markagailuak hainbeste aintzat hartu gabe.

Gu atzean hasi gara gaur ere, Ainara eta Zuriñeren aurka. Hasieran ongi, baina, konoa urrutitxo dagoela ohartu gara, justu alboko erpinetik atzerago, batzuetan ezinezkoa dela azkar mugituta ere buelta eman eta hurrengo pilotara heltzea. Nik, apropos, “zer, ez al daukazue tentaziorik konoa pixka bat gerturatzeko?”, baina, ez, bere lekuan utzi eta korrika bertaraino jarraitu dugu. Emakumeak (eta noiz edo noiz neronek ere bai) izerditan eta arnas estu pixka batekin sumatzen dira.

Lehen errotazioan bertan geratu gara eta Ainara-Zuriñe aurrera bidali ditugu.

Hurrengoan irabazi (Malen-Gemmari) eta aurrera jo dugu. Han Ainara eta Zuriñe dauzkagu zain. Aldez aldatuta ari dira eurak aurreko partidarekiko eta guk ere berdin egin dugu, hala komeni dela eta. Irabazi eta bertan jarraitu dugu. Ondoren Gemmari eta ere irabazi egin diegu, baina, erdian ibili ez garenez geure borondatez erdiko eremura joan gara, oraindik handik pasa gabe geundelako eta besteei ere aukera emateko aurrean jende ezberdinarekin aritzeko.

Erdian ez dugu partida egoeran jokatu, baizik eta kolpe mota ezberdinak landu ditugu botaren arabera. Handik atzera egin dugu justu-justu, berriz ere Zuriñe eta Ainararekin elkartuz. Zuriñe gero eta “gaiztoago” ari da eta tanto polit eta eraginkor bat baino gehiago egin ditu. Ainarak ere bai eta Mirenek bakarren bat ere bai. Orduan, nik Zuriñeri esan diot hobetzen eta aztitzen ari dela eta “qué más quisiera yo” batekin erantzun didala esango nuke (B.K. Duela 4 urte 2.botean ere pilota jotzen ez zuena hala jokatzeko ikusteak ilusioa eta poza ematen ditu).

11:00etan atzean ari garela Saioak “bale” esan du. Saioa amaituta, luzaketen ordua da. Korroan jarri orduko Inesek martxan egin du eta besteok luzatzen geratu gara. Maleni ea orkatila zer moduz daukan galdetu diote eta hobeto baietz baina tarteka oraindik nabaritzen duela esan du, plantilekin dabilela eta nabaritzen duela hori.

Saioak gogoratu eta esan du azaroaren 14ko astean Bide Heziketa jardunaldiak daudela goizero pilotalekuan ikastetxeentzat eta ez dela posible izango saio eguna mantentzea. Ostiralean, hilaren 18an, izango da saioa eta ea zer irizten diogun galdetu du. Konforme agertu gara eta berriz ere gogoraraziko digula esan digu, bada ez bada ere jakiteko pasa duela oharra.

Kiroldegiko sarrera

Pilotalekutik abiatu garenean esku-pilotariak utzi ditugu bertan. Gu hizketan goaz eskaileretan behera eta aldageletan Ainara agurtu dugu. Asteazkenerako geratu dira, 9:05 inguruan. Nik aprobetxatu dut Jone eta Maleni galdetzeko ea asko elkartzen diren eta ezetz 3 edo 4 normalean, Miren eta eurak, baina, honen erreleboaren araberakoa dela askotan azken kopurua.

Jone, Zuriñe eta Malenekin batera irten naiz tornua pasata. Gemma eta Saioa gero etorri dira eta pixka bat itxaron diegu Malen eta biok. Azken laurok bi hitz esan eta bi aste barrura arte agurtu dugu elkar. Deigarria egin zait Malenek esatea berari askotan zaila eta deserosoa egiten zaiola zenbait kolpe mota egiten saiatzea, arraro sentitzen dela, gero hortik kanpora (saioetatik at, ziurrenik) ez baititu egiten halakoak (B.K. Nik uste batez ere azpiko kolpeagatik ari dela, kosta egiten zaiolako eta ez duelako gauzatzea lortzen, saiatu arren. Ez da erraza zenbaitetan gure nahiak eta egiten duguna bateratzea eta hein batean ulertzen diot, egia esan. Nola sentitzen diren atalean sar ote nezake hau?! Sakontzeak mereziko luke!).

Bat etxera, bestea erosketetara, etab. Bakoitza paleta saioetatik at dauzkagun betebeharrak goaz eta nik liburutegira noala esan diet. Orduan, Malenek esan dit ahaztuta zeukala dagoeneko “ikerlari” kontu hori eta nolabaiteko poza eman dit horrek (B.K. Rapport-a lortu izanaren seinale izan liteke, ezta?). Autora joan eta ordenagailua hartuta Biterira abiatu naiz, baina argiak itzalita eta ate nagusia itxita daude. Kaka zaharra, hauek ere zubia nonbait! Beraz, autora itzuli, 11:30ean motorra martxan jarri eta zuzenean Zumarragara, ahalik informazio gutxiena galtzeko bidean, urduritasun eta kezka puntu batekin.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Ongi sentitzen naiz talde honekin, ia-ia etxean bezala. Gaur hirukotean tokatu zaidala aprobetxatuz euren hasieraz galdetu diet Rakel eta Zuriñeri. Rakelek oso gutxi ibilia zela aurretik esan dit, asko jota guztira 20 bat aldiz, eta Zuriñek ere urte asko igaro zirela palarik hartu gabe hasi arte, garaiak asko aldatu direla iradokiz (B.K. Beste baterako interesgarria da garaiak zertan eta nola aldatu diren galdetzea, ahal badut bederen pilotarekiko loturaren bat aurkituta, noski!).

Gaur fisikoki geroz eta neke handiagoa pilatzen ari naizela berretsi dut, bezperako 14km.ko korrikaldiaren ondorioak nabarmenak baitira nire ezkerreko izterraren atzealdean. Hortaz, fisikoki behar handirik ez daukadala aintzat hartuz, ohi baino gutxiago desplazatu naiz, nire bestelako baliabideez aprobetxatuz (airea, tantoa amaitzea edo pilota eskura izaten saiatzea,...).

Deskribapenak egiten hasteko ez dira txarrak hurrengo asteko egunak, desplazamendurik ez baitut egin beharko. Hala eta guztiz ere, ez dut argazki kamerarik eraman eta argazkirik atera, beraz, ez dakit nola moldatuko naizen horretarako.

Gogoeta, argitu kopeta

Datorren astean ez daukagu saiorik, jai bezpera eta zubia delako, beraz, azaroaren 8an izango dugu hurrengo hitzordua. Nik neuk eta nire lau gorpildunak, noski, eskertuko dugu datorren astean hainbeste desplazamendu ez egitea. Hirutik bakarra, pentsa, ohiko aste batekoaren herena!

Hala ere, ez da atsedeen hartzeko edo zer asma ibiltzeko tarterik izango. Izan ere, asteartetik larunbatera bitarteko Valentziako egonalditik etxeko lanak (aldu beharrekoak, birsortu beharrekoak, ezabatu beharrekoak, besteak beste) eta eginbehar berriak ekartzea espero dut, itsasontzi hau hondartu aurretik lemari tinko eutsi eta behar beste maniobra egiteko prest nago eta. Beraz, ea berez nahikoa zimurtuta eta belztuta agertu ohi den kopeta gogoetari eskutik heldu eta argitzeko bidean jartzen dudana. Hala bedi!

5. astea. HASI DA AZAROA

Astebete pasatxo, zehatzago esateko 8 egun, eman ditut paleta ikastaroetako saiorik, eta ondorioz, landa lanik eta N-1eko desplazamendurik gabe. Batetik, Valentziako egonaldia eta, bestetik, berriz, jaiegunak eta bezperakoak egokitu zaizkit parez pare. Hala ere, eta kurioa izan baliteke ere, saio bakarra izan da bertaratzerik izan ez dudana, Usurbilgo azkena, kanpoan ginelako.

Gaur ekin diot berriro ere saioz saio eta herriz herriko gurrpil zoroko ibiliari. Bai, hein batean hala da, kotxea hartu eta batetik besterako joan-etorri dezente egiten ditudalako neure buruaren konpainian, eta tarteka, hala dagokidanean, grabagailuarekin ere bai. Beraz, astebete inguruan etxe aurrean lasai eta atsedena hartzen patxada ederrean egondako lau gurrpilduna hartu eta berriz ere paletakadetan, eta behatzaile rolean, murgiltzeko moduan naiz. Onartzen eta aitortzen hasita, mesede egin dit astebete eskasean ohiko errutina eta ingurutik pittin bat aldendu eta arretarik nagusiena bestelako lanetan (bai, lanera joan ginen eta) jartzea. Beraz, ea zenbat irauten didan?!

Asteazkena, astearen azkena

Gaur ere tutoretzatik irtenda egin dut pilotalekurako bidea, bizpahiru minutuko atzerapenarekin helduz. Bi astean bigarrenez egin dut hala, baina, aurrekoan baino kezka gutxiagorekin iritsi naiz gaur, nahiz eta izaeraz gustatzen zaidan hitzorduetara esaniko orduan bertaratzea.

Sarrera

19.34an iritsi naiz pilotalekura, tesiaren inskripzioa bideratu samartuta, gutxi gorabehera.

Aurreko asteko saioan ez nintzen izan eta ezinegon edo urduritasun puntu bat sortzen dit horrek, besteak beste, jakin nahi nukeelako oso modu orokorrean bada ere, zer eta nola landu zuten, zein izan ziren,...

Heldutakoan han ziren Haizea, Jaione eta Karmele, oraindik saioa hasi gabe. Pilota eskolako taldekoak ari dira frontisean, 2:2ren aurkako partidan, hiru haur eta entrenatzailea. Azkena petrilean eserita eta beste biak hizketan petriletik beste aldera, ezagunen batekin, Lurdeseekin Haizea. Arratsalde ona eman eta aurreko astean zer moduz ibili ziren galdetu diot Karmeleri. Orduan esan dit ez zela izan saioan, semearen inguruko bilera izan zuela institutuan eta beranduago joateko aukera izan bazuen ere ez zela bertaratu. Orduantxe azaldu da Ester, lanetik iritsi berri, ia-ia palako saioa zeukala ahaztuta. Erabaki du semeari ordu erdi gehiagorako baimena eman eta saioan geratzea. Esan du Aitziber ikusi duela bidean, agurtu duela, baina bera ez zela gogoratzen pala zegoenik eta ez diola ezer ere esan. Semearena, eta pala bila, joan da eta Arritxu etorri da. Aitziber ere korrika azaldu da aldapan behera.

Haizeari eskatutako ziurtagiri eta fotokopiak eman dizkiot eta atzetik baita Jaionek eta Aitziberrek ere. Medikua frogagiria beranduago eramango diodala esan diot eta orduan esan du mediku azterketarako Usurbilgo udalak edo kirol patronatuak, nonbait, konbenioren bat daukala Zarauzko zentroren batekin eta gero azalduko digula, baina, litekeena dela doan egin ahal izatea.

Gaur Izaskunek ez dela bertan izango abisatu omen dio, baina, besteen berririk ez du. Orduan esan du aurreko astean 4 bat izan zirela.

Gaur hego haize zakar eta epela dabil eta kontrakantxan, zein kantxan, badaude arrastoak: orri hondarrak, pipa azalak, hostoak,...

Pilotalekua

Azken saioan norberari bere pala eman zion Haizeak, geuretzako eta geure ardurapean ibiltzeko. Nik, ordea, hurrengo saioan huts egingo nuela banekienez, bada ez bada ere, berari utzi nion eta haren inguruan galdetu diot. Eskerrak, motxilan ekarri du, zeren nik ordenagailua bertan daukat, baina ez dut paletarik eraman berak izango ez zuen kasurako.

Beraz, paleta eskuratu eta petrilean utzi ostean saioari hasiera eman diogu.

Beroketa

Orkatiletako eta eskumuturreko mugimendu artikularrak eta luzaketa pare bat egin ditugu eta ondoren pilotalekuan bizpahiru buelta korrika txikian. Hala gabiltzala Haizeak esan digu beroketa aldatuko duela eta palak hartzeko, pilota bana ere emanaz.

Ahal dela korrika txikian segiz, baina pala eta pilotarekin segi dugu berotzen. Lehenbizi, ezker zein eskubiz, pilota goraka jaurti eta kolpetxoak emanaz airean mantenduz, lurrera erortzea ekidinez. Hala beste pare bat buelta eman eta ondoren pilota lurraren aurka botatuz, eskuinez zein ezkerrez, egin ditugu beste bi. Haizeak orduan esan du aurreko astean aipatu zutela garrantzitsua dela pilotari botea ematea, ondo punpa eragitea eta ez erortzen utzita jotzea. Horregatik, hartu-bote-hartu-bote eginaz aritu gara.

B.K. Ezkerrez zailagoa da, ez gaude ohituta, eta besoa kargatu egin zait. Hala ere, niri bakarrik ez, besteek ere hala esan dute. Hegan ibili dira pilota batzuk, edo lurrean arrastaka.

Ondoren korroan gaudela Haizeak aprobeztatu du aurreko saioan eginikoa labur-labur azaltzeko, bi ez baikinaren izan. Pilotara jartzen ikasi, horretan sakondu, eta kolpe sekuentzia ondo egitea barneratzeko 2.botean aritu omen ziren ariketa askotan, distantzia hartuz, besoa ateraz eta pilota atzetik aurrera joz (B.K. edo horretan saiatuz, behintzat), pilotari itxaronda. Berriz ere gogorarazi digu eskua, hankak, prestatzea eta kolpea aurrean egitea funtsezkoak direla.

Ezker hormaren aurka, banaka pilota banarekin, 2. botea egin ondoren kolpatu behar da pilota. Gaur 5 gara eta espazio aldetik ondo banatuta jarri gara. Hala ere, tarteka desbideratutako pilota batzuk heltzen eta ikusten dira kantxan zehar (B.K. Pertsonalki zaila iruditu zait, distantzia neurtzea garrantzitsua baita eta askotan ikusi dut zenbaitentzat bote bakarrean jardutea baino zailagoa dela 2.aren kontua).

Ariketa egiten ari garen bitartean, Haizea zuzenketak egiten eta gomendioak banatzen ari da bata eta bestearekin, laguntzaile lanetan. Ni lasai-lasai nabil, patxadan, tarteka

ezker aldera begiratu eta besteak zertan ari diren ikusi nahian (B.K. Bakoitza geurean ari gara).

Hala ari garela Haizeak esan digu nahikoa dela eta berriz deitu gaitu bere ingurura. Orduan errepikakorra den arren kolpea nola egitea komeni den adierazi eta berriz ere ezker hormara bidean jarri gaitu. Oraingoan, ordea, binaka pilota banarekin, kolpeak elkartrukatuz, eta pilota 1.botean joz. Ni Arritxurekin tokatu naiz (Jaione eta Karmele eta Ester eta Aitziber besteak?) eta hala hasi gara, frontisetik hurbilen, ezker eta eskuin kolpeak elkartrukatzen. Egia esan haizea nabari da tarteka, baina gu besteak baino babesagoan gaude eta ez da hainbeste nabarmentzen, nahiz eta desbideratu edo ohiko ibilbidea apur batean aldatu noizbehinka (B.K. Gaur haizearengana ere egokitu beharko da pilotara ohitzeaz gain!).

Ezker hormatik frontis aldera goaz, ariketei ekiteko.

Ariketak

1. Bi ilaratan jarrita, Haizeak pilota prestatu eta eskuinekoak eskuinez jo behar du. Ondoren, beste bat prestatuko dio beste aldekoari, eta honek ezkerrez egin behar du kolpea. Guk kolpe-sekuentziari segiz pilota jo behar dugu. Kolpe bat egin, pilota jaso eta lehengo ilara berean azkena jarri behar da.

Bakoitzak hiruna kolpe egindakoa ilarak lekuz aldatu ditugu, eskuinekoak eskuinera eta ezkerrekoak ezkerredera.

B.K. Ester ez dabil oso fin gaur eta bere buruarekin inkonformismo eta amorru puntutxo bat sumatzen zitzaion. Gainera, bi semeak etorri dira eta kontrakantxan dabilta, bat patinetearekin eta bestea urduritasun puntu batekin amari zer eta nola egin erakutsi nahian. “Ama, eskua poltsikoan sartzen duzu!” esan dio halako batean. Egia da, hurrengoan ni ere konturatu naiz.

2. Ariketa antzekoa, baina ilara bakarrean eta entrenatzaileak prestatzeko kolperik egin gabe. Bakoitzak bi kolpe egingo ditu jarraian, lehena eskuinez eta bigarrena ezkerrez. B.K. Zaila iruditu zait, baina, onartu beharra daukat uste baino hobeto irten dela.

Lau-bost kolpe egin ditugu ilaran bata bestearen atzetik: Ester, Karmele, Arritxu, Aitziber, Jaione eta ni ordenan.

Esterren semeak bueltan-bueltan dabilta eta ama ere urduri sumatzen da, semeak bertan izateak eta berari deika aritzeak eraginda. Haizeak ere esan die une batean petrilerara segitzeko, ama lasai utzita (B.K. Amaren arduraren eta gauzak bateratzeko uneren batean izan ditzaketen zailtasunen inguruko irudi garbia da Ester eta bere semeena, ala?). Ondo egin duen batean Haizeak propio esan die “orain zer?” eta ez du erantzunik jaso, isilik geratu dira bi semeak.

3. 1:1 partidu egoerak frontisean. Tanta ezkerrearekin egitea lortuz gero, 2 puntu balio du, bestela 1. Besteak binaka jarrita atzean pilotatzen, partida bukatu arte zain.

Partidak 5 tantora jokatu dira eta errotazio sistema erabiliz egin ditugu ondoren gainerako aldaketak.

Ester eta Aitziber hasi dira aurrean, lehenak partida jokatu eta bi semeak hartuta etxera joango dela esan baitu, ia ez direla orduak eta. Beste laurok, Karmele eta Arritxu, eta Jaione eta ni, atzean binaka pilotatzen aritu gara, lasai-lasai.

Haizeari esan diote, bada ez bada ere, atzean bi boterekin ez ginela arituko. Itxura denez aurreko astean hala aritu ziren eta ondoren kosta egin zitzairen frontisean hasten zirenean bote bakarrera jartzea. Ados jarri gara denak. Hala ere, gaur pilotaren ibilbidea eta honekiko distantzia zehaztasunez neurtzea eragiten duen hego haizea dabil, tarteka ufada gogorrekin, eta pilota frontis aldera bultzatzen du.

Haizea etorri da eta haize honekin efektuak ongi ikasiko ditugula esan diot nik, broma giroan. Besteek ere barre egin dute eta eguraldia trakesten denean frontoia nola aurkituko ote dugun zalantza puntua azaldu dute, babes izugarririk ez baitu euriarentzat, batez ere alboan. Atzean toldo bat jaisteko aukera dago babesgarri moduan.

Atzean pilotean ari garela, kontuan izan behar da ezker hormaren altuera asko murrizten dela, pilota batek alde egin digu eta justu frontoiko zutabe baten aurka geratu da, barru aldetik. Pazientzia pittin batekin eskua sartu eta atera digu bertatik eta berriz ere kantzara itzuli gara.

Gure txanda heldu da Arritxu eta Karmelek amaitzean, Aitziber ibili da aldamenean pilotean, Ester etxera joan baita bi semeekin, eta buruz buru eta kolpez kolpe hasi gara nor baino nor. Ni lasai aritu naiz, eta Jaione eusten saiatu da. Azkenean oker ez banaiz 5-1 amaitu dugu, 2 puntuko tanto bat ere egin dut tartean. Nik lasai jokatzen dut, baina, saltsa jartzen ahaleginduz, eta berak izerditu du pixka bat, egia esan. Tantoa lortu duenean, “ah, bat!” atera zaio barru-barrutik. Amaieran esan dit aguintea nork daukan nabaritzen dela eta nik esan diot orduak ere nabaritzen direla.

Gure partida amaitu denean Haizeak txokotan, Usurbilen “kaleas” omen, arituko garela esan du.

B.K. Partida bat baino gehiago jokatu ditut dagoeneko Jaionerekin, eta atsegina egiten zait, adeitsua delako, baina ez dakit berak zer pentsatuko ote duen. Agian posible da beste norbaitekin tokatzea nahiago izatea, ala?! Zalantza hori sortu zait.

4. Txokotan. Kolpea egindakoa marra zapaldu behar da eta berriz ere jokora itzuli. Bakoitza 2 bizitzarekin hasita.

Haizeak ariketa aurkeztean esan du izerdia botatzeko izango zela eta 7ko marra zapaltzea proposatu digu. Ni asaldatu egin naiz (nahi eta komeni baino gehiago, ziurrenik) eta urruti zegoela iruditzen zaidala esan dut, gero itzuli egin behar delako. Orduan, 6.koadroaren aurretik dagoen pitzadura zapaltzea erabaki dugu.

Hasieran 2 bizitza izan ditugu bakoitzak, baina, Haizea izan da gabe gelditu den lehena eta orduan “propia” deituriko bizitza bat agertu da “auskalo nondik”. Beraz, bakoitza 3 bizitzarekin aritu gara, azken finean. Guk barre egin digu hori gertatu denean, grazia egin digu.

Ni aritu naiz saltsa jartzen, bi paretaren batekin, dejadaren batekin, eta giro oso onean aritu gara.

Hasieran ez, baina, jendea gutxitzen joan ahala marrarako joan-etorria egitea gehiago kostatzen da eta lau lagunekin ia larri gabiltza, jokoa bizkortuz gero denbora gutxitzen baita. Hirurekin marraren orde ezkerreko horma ukitu behar da 4.koadroaren parean eta sakea nik egin dudala probestuz ezkerreko aldetik atera dut, desplazamendu txikiagoa egiteko. Azkenean Jaione eta biok geratu gara eta horma bikoak bota eta bota aritu naiz, bera nekatu arte.

Amaitu dugu, baina, oraindik tartea daukagu eta berriz ere denok sartu gara kantxan, aldaera batekin (marra zapaldu gabe) berriz ere jokoari ekiteko.

5. Txokotan aldaerarekin. Marrarik zapaldu beharrik ez dago.

Berriz ere bi bizitza (“eta propia”) ditugu. Ni aurre samarrean nago eta kolpe dezente egin ditut, baina, eurei ere sartzeko esan diet, ni gustura arituko banaiz ere. Azken batean, batzuk urrunago eta besteak pilotatik gertuago gabiltza, arrisku gehiago ala gutxiago hartuz.

Bigarrenean amaierara Aitziber eta biok heldu gara. Besteak kaleratzen joan ahala petril inguruan tertulian ari dira, begi bat kantxan gertatzen denari begira dutela. Giro ona nabari da eta jokatzeko grina ere bai. Hala ere, neke aurpegiren bat edo beste ere sumatzen da dagoeneko (B.K. Nik uste marra kontu horrek eragin duela hori).

Aitziberrek esan dit pentsatzeko herren batekin ari naizela eta aldamenetik bakarren batek animatu du bera. Hala ere, giro jatorrean kokatu behar dira esan eta komentariotxo hauek ere.

Kuriosoa izan da jokoa uneren batean edo bestean pilota aldamenara etorrita ere, Aitziber, adibidez, mugitu ere ez dela egin bila joan eta jotzeko, Jaionek agertu behar izan du atzetik korrika, eta hortik barre pixka bat egin dugu, zeren eta bigarren egoera batean ere berdina pasa da. Kantxan eskuinalde samarrean dago jarrita eta orduan ez dakit nork egindako komentario batetik erantzun du “zergatik uste duzu dauzkadala oraindik 2?” Barre dezente egin dugu denok horren harira.

Txokotan amaitzean, 20.50 dira, ezkerreko hormara gerturatu eta luzaketen txanda da, paletak petrilean utzita (izena jarrita dituzte). Gaurkoa 3.saioa da eta emakumeak euren kabuz hasi dira luzaketa ariketak egiten, aurreko asteetan egindakoari segiz, nonbait: bikia, kuadrizepa, besoa, trizepsa, lepoa,...

Haizeak esan du Zarauzko zentrokoa nola egitea komeni den mediku ziurtagiria lortzeko eta telefono zenbakia eman digu. Nik boligrafoak atera ditut poltsatik. Orduan esan du, adarra joz, “eskerrak zu hemen zauden, Uxue!”

Beharrezko zenbakiak eta azalpenak jaso eta 21.00ak jotzearekin batera amaitu da gaurko ikastaroko saioa. Arritxuk esan du datorren astean eta hurrengoan lana dela-eta asteleheneko taldean arituko dela. Datorren astera arte agurtu dugu elkar. Nik ere Haizeari trasteak jaso arte itxaron eta etxerako bidea hartuko dut laster barru.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Valentziakoaren berri galdetu dit Haizeak heldu eta berehalaxe eta orduan esan diot ondo ibili garela, egin beharrekoa egin dugula eta mandarinak deskubritu ditudala.

Beroketako komentarioa egin dio frontoitik pasa den gizon batek Arritxuri eta honek etortzeko erantzun. Besteak hurrengo astean baietz erantzun dio. Horrekin lotuta, saioa hasi berri samarretan etxera bueltan, gimnasia erritmikotik esatera ausartuko nintzateke igarle lanak hartuta (batek zinta lotzeko makilatxoak zuen eskuan, ustez), bi neskatila petrilean eseri eta begira eduki ditugu tarte batean. Egin dute egonaldi bat (B.K. Hauek ikusi dute behintzat eta, hortaz, badagoela jakingo dute berriz ere ikusten bagaituzte. Hori garrantzitsua da, ala?!).

Saioen dinamika, egutegiari dagokionez, ez da erabat jarraitua izan orain arte, jaiegun dezentetako asteak izan direlako urrikoak (justu lehena izan ezik), eta esan dute egunerokotasunean paleta sartzean hobeto gogoratuko direla saioekin. Jaionek eta Esterrek esan dute hori, justu heldu denean, lanetik etorri baita. Bestea kiroldegitik etorri omen da, beroketan Aitziberri horixe esaten entzun baitut, eliptikan eta bizikletan ibili dela eta ez dakit zer gehiago.

Pilota jotzeko ez daukate arazo handirik eta batzuei aldea nabaritzen zaie, batez ere hastapenetik gertuen daudenei. Ezkerrez jotzean beldurra nabarmena da eta ez jotzean pena edo amorrazio hori nabari da euren aurpegietan. Nire mailaz oraindik ere zerbait ateratzen da. Bat norbere buruari pilota jartzeko ariketan, emandako altuera eta kolpearen indarragatik, baina, uste dut ez daukatela aparteko arazorik horrekin. Esan didate aurreko astean aritu zirela frontisean pilotari ematen dioten altueraz hizketan, Aitziber eta Jaionek. Nik esan diet horretaz baliatzen ere ikasten dela denborarekin.

Saioaren ondorengo komentarioak, euren irudipenak, Haizea edo ni ez gaudenekoak, gustura entzungo nituzke, ezer esaten ote duten hortik kanpo, baina hori ez da posible eta bertan bizi eta entzundakoekin konformatu beharko gara. Zer erremedio!

Ondo, giro ona sumatzen dut gure artean. Ni lasai eta gustura sentitzen naiz, nahiz eta uneren batean deseroso ere egoten naizen, zerbait esan edo egin beharko ote nukeen zalantzak sortzen zaizkidalako. Nahiko onartua sentitzen naiz eta egokitzen eta saltsa jartzen saiatzen naiz. Nik uste hori eskertzen dutela.

Gaurkoa joan da, aste honetakoa ere bai, eta datorren astea (eta baita hurrengo tokatzen direnak ere) gogorra(k) izango d(ir)ela jakitun, ea neurtu eta dosifikatzen ikasten dudana, indarrak behar baino lehen ez xahutzeko.

Hauspotu nadin!

Berez aste “lasaia” eta lan zamari dagokionez light-agoa izan badut ere, neke psikologiko puntu batekin amaitu dut, buruari hainbeste buelta eman eta gogoetatik gogoetara, eta zalantzen zaku batetik ezintasunak osatutako hurrengora, egiten ditudan jauzien ondorioz. Hortaz, asteburu honetan neure burua hauspotu eta indarrak bildu behar ditut. Bai ala bai! Izan ere, egutegiak ez dio gezurrik, eta datozen lau asteetan hiruna saio izango ditut bakoitzean, zubi eta jaiegunak amaitu dira, eta elkarrizketei berrekin beharra, eta baita beranduago bada ere zerrenda horretan gehitzen joango

zaizkidan eginbeharrak ere ate joka ditut. Beraz, astelehenetik bertatik hasita begirada zorrotz, belarriak erne eta zentzumenak zoli ibiltzeko modua egingo al dut?! Hala bedi!

6. astea. “BAREAREN OSTEAN DATOR EKAITZA”

Hertzainak musika taldearen Aitormena kantua hartu eta puska batzuk hautatu eta bata bestearen atzetik oihukatuta moldatuko nuke ederki asko aste honen hasieraren eta nire egoeraren berri. Adibidez, “ez dira betiko garai onenak”, “denborak aurrera etengabian”, “rutinaren morroiak bihurtu gara” edo “mundua jausi zaigu gainera” bezalakoekin. Hala ere, eta esperantza eta ilusioari nondik edo handik leihotxo bat irekitzeko nahiri tiraka, bertatik itomena arinduko didan oxigeno kopurua sartzeko itxaropenez, aurrera egin beharrari heldu nahi nioke, kate-begiz kate-begi, eta astiro-astiro, estutzen nauen kate horren amaierara heldu eta eztarri zein lepo inguruan sentitu ohi dudak korapiloa askatzen (edo beste aukerarik ezean, arintzen) saiatuz.

Iragan asteburuan urak eragindako triskantzek flotagailurik eta inolako babesik gabe harrapatu nautela esanez gero ere irudika liteke zer nola nabilen, baina, egiari zor, eta zintzotasun osoz, eurite eta uholdeen aurretik itorik nenbilen eta ez erreka ur harrotu eta indartsuetan, baizik eta nire baitako pentsamendu eta zalantzetan harrapaturik nabil.

Berriro ere “egunerokotasunera” itzuli naiz aste honetan hein batean, asteko hiru saioak burutzeraz hainbeste jaiegun eta zubiren ostean. Hala ere, gainerakoei dagokienez, egunez egun eta astez aste gora egiten ari zait (aurrez ere luze askoa zen) betebeharren eta presazko zereginen zerrenda. Alegia, lana pilatzen ari zaidala eta pentsatzen jartze hutsak urduritu eta larritzen nauela. Ez nintzen han izango pazientzia banatu zutenean, nonbait?! Eta ezta baikortasunarekin gauza bera egin zutenean ere.

Kontuak kontu, baina, datorrenari heldu eta bekoz beko begira jarri eta aurea hartzea baino ez zait geratzen. Gauza batek lagun nazake, gutxienez, ahari talkan lez topeka hasiko bagina buru gogor xamarra daukadala eta kostako zaiola ni bazterrean uztea. Eskerrak!

Astelehen buru handia!

8.20-25ean irten naiz gaur etxetik, irratia entzun eta eguraldi iragarpena zein trafikoa gaineko berriak adi-adi jarraitu eta aztertu ostean (euskalmet, trafikoa.net, ordenagailua goizean goiz lanean jarrita).

9.05an Hernaniko irteeran trafikoa motel eta ilarak ikusi ditut. Ordura arte, ordea, uste baino hobeto egin dut bidaiari. Errepidea bustia bai bazegoen, baina, aparteko arazorik ez dut izan eta garaiz eta presa handirik gabe helduko naizela dirudi. Ez naiz alperrik irten ohi baino 20' lehenago, bada ez bada ere, errepidean aurki nezakeenaz arduratuta.

9.20. Aparkatu, betiko inguruan, trasteak hartu (koaderno txamarrako barruko patrikan gordeta) eta kiroldegira abiatu naiz kezka puntu batekin. Denborale beldurgarria izan da asteburukoa! Bezperan justu oheratu aurretik irudi batzuk ikusi nituen eta harrituta eta urak eragindako sarraskiaz gogoetan geratu nintzen. Gaur goizean ere leku eta bazter guztietan darrai horren oihartzunak: hedabideetan, geure buruetan, ingurukoetan, etab. Ez da harrigarria, egia esan. Sekula halakorik!

Aurreko astean ez zen ikastaroko paleta saiorik izan bertan, urriaren hondar eguna, jaiegunaren bezpera izaki zubia egin baikenuen, egutegian adierazia dagoen bezala. Beraz, badira bi aste bertan izan ez naizela.

Kiroldegiko sarrera

Gemma leihatilan aurkitu dut ni heltzean. Bazkide-txartelen edo semeen argazkien inguruan zerbait aditu diot eta berehalaxe bukatu du. Asteburukoaz hizketan hasi gara. Gaur bera heldu da lehenengo eta esan du bestela erosketetara joanda gero ez diola ordurako etortzeko astirik ematen eta haurrak ikastolan utzi eta zuzenean kiroldegira etorria dela. Ainara heldu da ondoren, aurrekoaren ahizpa, eta ondoren Rakel. Azken hau bizi den auzoan argirik gabe egon omen ziren bart eta gaur goizean ere hala omen daude. Urak egindakoez dihardugu, harridura puntu batekin. Atzetik Malen eta Saioa sartu dira (“flotadorerik behar al da?” botaz bigarrena) eta Zuriñe eta Jone azkenak izan dira taldera batzen.

Asteburuko euri-jasak eta hauek utziriko ondorioak izan ditugu hizpide nagusi eta ia-ia bakarrak. Hernani izan da gehien kaltetutako guneetako bat. Auzo bat baino gehiago uretan igerian egiteko moduan izan zen, Urumea leku asko eta askotan irten zen bere bidetik eta kalte nabariak eragin ditu. Bateko garajeak, besteko dendak, bebarruak, etab. Eurei ea eragin ote dien galdetu eta argia joan izanaren kontua aipatu dute. Beraz, hortik aurrerakorik ez bada gaitz-erdi, bederen.

9.40 jotzean dira eta barrura sartu beharko dugula esan dute. Frontoirako ohiko ibilbidea aldatu dugu. Gaur beheko aldagelen paretik igaro gabe eta eskaileretako gora-beherarik gabe goaz, askoz ere bide zuzenagoan. Pasabidean ura dago pilatuta antza eta garbiketa lanetan omen dabilta. “Hobeto”, esan du bakarren batek, bide zuzenagoa egingo dugula eta.

Kiroldegian ohiko aldageletarako sarbidea zinta batekin itxita dago eta sarreratik, tornea pasa gabe, sartzeko atea zabalik. Behean nonbait ura pilatu da eta garbitze lanak amaitutakoan irekiko omen dute, ordu erdiren bueltan. Hortaz, kiroldegiko erabiltzaileak igerilekuko aldageletan aldatu eta atzera-aurrera dabilta, tornoen inguruan ohi baino mugimendu handiagoa dago eta harreran, leihatilan, dagoen langilea ere ohi baino lanpetuago eta aztoratuago sumatzen da, “ez, hortik ez, igerilekuko aldageletan aldatu eta gero sartu ate horretatik” azalpena behin eta berriz errepikatuz edo “zu nora zoaz?” galdezka. Ia-ia pertsona bakoitzarekin ari da hala.

Hasierako labirintoko bidea laburtu arren atearen aurrera heldu eta zain egon behar izan dugu tinbrea jo ostean azken atea noiz irekiko, pasillo estuenean aurrera jarraitzeko.

Pilotalekua

Frontoira sartu eta ilun dago oso, kanpoan giro goibel eta iluna baitago, tarteka euri zaparrada mardulak sumatzen dira teilatuan, eta ez dago behar beste argi natural saioa eroso burutzeko. Hortaz, Ainara tinbretik argia pizteko eskatzera doa, mesedez, Saioak bera joango dela esan duen arren. Aurtengo ikasturtean 5.saioa arte ez da argirik eskatu.

Orduan trasteak utzi (Rakelek poltsikotik frontala atera du, etxean uztea ahaztuta antza) eta saioari ekiteko prestatzen ari garela Miren heldu da. “Egun on” esanaz agurtu gaitu bertan gaudenok eta Saioak esan du korrika egiten hasi beharko dugula. Zuriñe eta Jone

oinetakoak aldatzen ari dira, botak kendu eta zapatillak jantziz, saiorako oinetako aproposagoak.

Garbitzaileak ere etorri dira frontoira eta han ibili dira. Hauek lanean goizean goizetik hasi dira, nonbait.

Beroketa

Kostata hasi gara, baina, korrika txikian buelta batzuk eman ditugu, ohiko dinamikan. Behobiaz pare bat hitz egin, euriteez beste pare bat eta korroan mugikortasun articularra ondoren: orkatilak, belaunak, aldaka, besoak,...

Paletak hartu eta binaka pilota banarekin ezker hormaren kontra ekin diegu gaurko pilotakadei. Ni eta Jone, Malen eta Miren, bi ahizpak eta Rakel eta Zuriñe tokatu gara elkarrekin.

Ni Jonerekin aritu naiz eta honek esan dit han kolpez kolpe hitz eta pilota elkartrukatzen ari ginela aurreko astelehenean ere elkartu zirela, Maddi (orain bi ikasturte aritu zen) ere baietz, 5 bat izan omen ziren. Ahal badute gustatzen zaie saioetatik kanpo ere biltzea zenbaitzuei (B.K. Aztergai interesgarria pilotarekiko/paletarekiko atxikimendu maila eta motak). Denboraldi bat egin dugu horrela eta Saioak “bale, etorri” esatean batu gara berriz ere denok kantxaren erdi inguruan. Saioa bitartean aulki bat hartu eta altueran marrak jartzen aritu da frontisean eta ezker hormako zatitxo batean, saioan zeharreko ariketetarako prestaketa lanean.

Ariketak

1. Ilara batean jarri eta pilota albotik jota marraz azpitik frontisera bideratzen saiatu, Saioak pilota prestatuta.

Azalpena eman du berriz ere, pilota albotik jo behar dela (“gerri parean”) eta azpiko kolpeetan baino urrunago gorputzetik. Une horretan ea ariketa ondo ulertu den galdetu eta izan da “ez” esan duenik. Beraz, berriz ere azaltzen saiatu da, oraingoan gazteleraz. Alboko kolpea nola itzuliko litzatekeen galdetu du, “de lado, de costado”? eta erantzun gisan jaso du “euskaraz esan, albokoa, eta horrela ikasiko dute”. Besteren batek “ipurdikoa” esan du ilaratik eta “ez, zaplaztekoa” erantzuna ere entzun dut hor zehar (B.K. bakarren bat gogoratzen da oraindik aurreko saioetako azalpenarekin).

3 kolpe egin ditugu bakoitzak. Lehenean marraz gorago, bigarreanean behera eta hirugarrenean asmatu dut nik egin behar zena egin behar zen moduan egiten (B.K. “a la tercera va la vencida” pentsatu dut neurekiko. Uffa, ez dakit gaur zer tankeratako saioa egingo dudan, hasiera ez da oso zoragarria izan, bederen).

2. Egoera berean, baina, horma bikoa, Saioak pilota prestatuta.

Niri egokituriko lehenengoan ez naiz frontisera heldu ere egin, txapapera bidali dut nabarmen eta zurrumurruren bat sumatu dut. Ilarara itzultzean Jonek esan dit ez duela ikusi nire kolpea, hizketan ari zela, “baina, perfekto, ala?” eta nik “bai zera, ez naiz iritsi ere egin” erantzun diot. Momentuz ez da beste ezer pasa eta ilaran segi dut. Bigarreanean ere ez dut asmatu, ordea, eta orduan “gaur Uxuek ez dakit zenbat bi pareta egingo

dituen” entzun dut. Saioak esan du eta irribarre puntu bat badauka. Besteak ere bat datozela dirudi, euren keinu eta jarrerari erreparatuta, behintzat. Ez da ohikoa eta niri ere uste dut nabaritzen zaidala egonezin puntu bat. Lehen biak behera bota ditut eta hirugarrenean bakarrik asmatu dut (B.K. Ederra nago ni! Zer da hau?!).

Besteen artean ere izan da horma biko beharrez txokora moztuta bidali duenik edo indar gutxi xamar emanik pilotari bi hormak jotzera heltzeko aukerarik eman ez dionik. Hala ere, ez da kontua nabarmen geratu azkenerako.

3. Bi ilaratan, bakoitzean launa lagun jarrita. Ezkerrekoak horma biko egin, irakasleak prestatutako pilota joz, eta eskuinekoak txokora moztu, albotik jota. Ondoren eskuinekoak pilota jaso eta ilaraz aldatu.

Rakelek ez du nahi bezala asmatzen tarteka, baina, aurten hasi berria dela aintzat hartuta, eta aurrez oso gutxi aritutakoa, hobetzen eta egokitzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Besteen artean badirudi gutxi gorabehera tankeran doala kontua. Hala ere, une batean ilaran desorekatuta daude (2 ezkerrean eta 6 eskuinean) eta Ainara eta biok ilaraz aldatu gara.

Ni ariketa honetan itxurosoago aritu naiz, baina, izan dut akats nabarmenen bat ere. Iruditzen zait emakumeak ere ohartzen ari direla gaur ez nagoela neure onenean eta lehen erdi bromatan zebiltzan arren, eta tarteka hala nabari arren, pixka bat isildu direla panorama ikusita.

4. Txokotan, partiduetarako bikoteak erabakitzeke, bizitza banarekin.

Ordena: Jone, Malen, Zuriñe, Gemma, Ainara, Miren, Rakel eta ni. Beraz, bikoteak osatuta:

- Jone + ni
- Malen + Rakel
- Zuriñe + Miren
- Gemma+Ainara

B.K. Saioari ez zaio gustatzen bikoteak egitea, errespetua sortarazten dio. Galdera edo aztergai polita hori ere, ea zerk bultzatzen edo eragiten duen hori.

5. Partiduak. 5’ aurrekoek eta horren arabekoak dira besteak eta errotazioak ere. Hona hemen landutako egoerak:

Aurrean 2:2. Marratik behera eta alboko kolpea joz tantoa eginez +2.

Erdian 1:1. Batek uneoro marratik behera bideratu kolpea eta bikoteko besteak gora. Gero rolak elkartrukatu.

Atzean 1:1. 8-8,5eko pasilloan botea eginez gero pilota derrigorrez alboko kolpea erabiliz jo behar da.

Malen eta Rakelen aurka ekin diogu guk, frontiseko eremuan, Jone atzean eta ni aurrean. Malen atzean eta nire postu berean Rakel. Hasiera orekatua izan da, baina, nik ez dut asmatzen eta nire buruarekin amorratu (eta haserretu) naiz, ez dudalako tanto itxurosorik lortzen. Are gehiago, pilota dezente daramatzat galduta gaur. Zer da hau?! Rakelek komentario bat egin du: “eskerrak egun txarra duela!” Egia esan txapapera, txapara eta oso oker jotako asko izan ditut. Eurak ere harridura puntu batekin daude, eta ni hala ikusita nonbaitetik animatzen saiatzen dira, uneren batean desesperazio keinu eta

maldizioen batek ihes egin baitit. Oreatua izan da partidaren hasiera, baina, amaierarako egur handi xamarra jasotzen ari gara eta neroni naiz arrazoi horren “erruduna” hein handi batean. 23-14an aldatzeko unea heldu da. Hasieran esaniko 5’ak 10’ izango ziren gutxienez!

Errotazioan erdiko eremuan lasaitu naiz apur bat, markagailurik ez dugulako ibili eta kolpea lantzen saiatu garelako. Joneri gomendio moduan esan diot ahal badu pilota pixka bat aurrerago kolpatzen saiatzeko, gerria baino aurrerago, oso berandu jotzen duela irudituta. Azalpena ematen saiatu naiz eta ondo hartu dit, horretan saiatuz. Hark ongi hartu du eta horretan saiatu gara. Han ari garela Saioa hurbildu zaigu eta unetxo batean harekin asteburuan hasi berri duten Emakumea Pilotari txapelketaz aritu gara, kontraktantxan geldu gaudela.

Leku aldaketa. Atzeko eremuan ere paletakadak elkartrukatu ditugu, hitzekin batera. Une batean frontiseko eremutik Mirenen irriak eta zalaparta hotsen bat edo beste etorri zaigu eta hara begira jarri gara. Belokitarrak eta Zuriñe eta Miren ari dira partidan elkarren aurka eta gustura dabiltzala nabaria da, euren keinu, espresio eta joerari erreparatuta. Saioa ere hurbildu da ea zertan dabiltzan ikusiz eta hura ere irribarrez ari da.

Mutil gazte batzuk sartu dira frontoiko aldageletan halako batean eta harritu egin gara, ez baitakigu nondik eta zertara datozen. Ondoren konturatu gara bertan dutxatu direla, ziurrenik beheko aldagelak oraindik itxirik daudelako, eta heziketa fisikoko saiotik etorriak zirela.

Niri patxadak iraun dit hein batean atzeko tartean, baina, berriz ere aurrera abiatzea tokatu zaigunean, lehengo lepotik burua, nonbait. Neure buruarekin erretxinduta nagoela sumatzen dut eta horrek ez dit laguntzen jokatzeko garaian.

Telefono bat hasi da joka bertan ari garela eta halako batean Malenek hartu du txamarra poltsikotik. Hizketan aritu da, trasteak jaso eta badoala esan du, joan beharra daukala. Orduan, Ainara, Gemma eta Jone berarekin bildu dira, gure partida eten egin da, ondorioz, eta aste honetan beste egunen batean geratzeko plana egiten ari direla ohartu naiz, aldamenetik begira nagoela. Azkenean zerbait adostu dute eta Saioa etorri da atzetik geuregana. Orain bera ari baita Rakelekin bikote. Jone eta biok galtzen ari gara, baina, esan du ahizpak atzera joango direla, erdiko eremura, eta hala ekin diogu elkarren artekoari.

Jone aurrean jarri da oraingo honetan eta ni atzelari bezala hasi naiz, Saioa bezalaxe, postuak aldatuta. Jokoa ematen ari gara gu biok eta tarteka elkarri ere botatzen diogu pilota zailagoren bat, baina, lasai, behintzat. Beste huts nabarmenen bat egin dut kasu honetan ere eta aldamenetik “animo” bat bota dit Saioak. Nik “beharko dugu” erantzun diot, barru-barrutik.

6. Txokotan 2na bizitzarekin. Jo ostean 7ko marra ukitu behar da.

Lehen hutsa nahi baino lehen egin dut, saioko ildoari eutsiz, eta etsipen edo ezintasun puntuak nahi baino gehiago erasanda, bigarrena ere ez da askoz beranduago iritsi. Nire burua “joanda” sumatzen dut, ez zentratuta. Asteaz zeharreko zenbait betebeharrak eta hortik kanporako kezkek nagusitu zaizkit buruan eta horrek ez dit lagundu.

10.57. Kaleratua izan naiz txokotan, hasi eta nahiko goiz, 2.a, eta pilota bat hartu eta atzera joan naiz, barrua pittin bat lasaituko ote nuen, neure burua “aurkitu” asmotan. Itolarria eta “angustia” moduko zerbait sentitzen ditut, nire buruarekin amorratuta nago, nahi eta ezinean. Zuriñe luzaketak egiten hasia da kontrakantxan eta harena hurbildu naiz ni ere, atzeko saioari agur esanda. Berehala etorri da Miren eta atzetik Jone ere bai. Ondoren Saioa. Gauza garrantzitsu bat esan behar omen digu, “datorren astean ez dago saiorik astelehenean, okupatuta dago frontoia” esan digu eta gogoratu dugu orain bi aste saioa ostiralean egiteko hitz egin genuela, libre orduan omen dagoela eta. Ainara ere kontrakantxan zen ordurako eta, hortaz, oraindik bizitzak dauzkaten Gemma eta Rakeli esan diet aldamenetik, “datorren astean ostiralean da saioa, e!”

Gaur Saioak galdetuta edo Gpuntua2011 izan da gaietako bat korroan, Ainarak ere galdetu baitit Hernanin den finalerdi bat, amak Galarretara joan beharko zutela esan omen ziola aurrekoan. Nik baietz eta han aritu gara saioak nola geratu diren esaten.

Luzaketak geure kabuz egiten amaitu eta irteerarako bidea hartu dugu. Oraingoan ohiko bidetik, behekoa lehortuta dagoela-eta. Miren eta Ainara dutxarako bidean agurtu eta Saioa, Gemma eta ama-alabekin batera noa ni ere. Irteteko tornuan txartela sartu eta ez du funtzionatzen Zuriñerenak. Nonbait LurraldeBus-ekoa sartu du, kar-kar!

11.08. Kotxerako bidean Saioarekin kontu (pena) kontari joan eta liburutegira noa traste guztiak hartuta. Ea gaurko egunaren hasiera hobetzeko bidean jartzen dudana, zaila ez da eta.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur ez da nire eguna! Egia esan, atzo ere ez, ez herenegun, ez bezperan... Aldrebes, nahi ezta ere huts eginez (txapara, txapapera eta bakarren bat frontisera heldu gabe) hasi naiz paletan. Ez nuen nahi eta ez nuen espero hala izango zenik, baina, antza denez barruko ezinegonak kanporako bidea hartu du eta desesperazio maila handietara heldu naiz zenbait unetan. Aurpegian, keinuetan eta nire baitan nabarmena da ez naizela egoera “brillantean” aurkitzen. Agobiatuta nago eta begien bistakoa da!

Taldekidetok ere nabaritu dute. Harritzekoa alderantzizko egoera litzateke, egia esan, hain zein ikusgarria... Zergatik ote den galdetu dit bakarren batek eta animatzen saiatu ere bai (benetan eskertzekoa), baina, erantzuna bat eta bakarra eta sendoa: agobio handi xamarra daukat. Bakarren batek galdetu dit ea Behobiak eraginik ba ote duen, eta nik erantzun diet zuzenean ezetz, beste arrazoi batzuk direla ni horrela naukatena, daukadan lan zamak urduritzen nauela, baina, espero dudala lasterketa pasatakoan “obligazio” bat gutxiago izango dudala. Beraz, kaltegarria ez dela izango niretzat, bederen.

Gaur Uxue gizatiarrago eta irisgarriago bat ikusiko zuten paleta saioan agian bat baino gehiagok. Hau da, huts egiteak eta ezinak azaleratu dira, barruko eta sakoneko beste arazo edo ezin batzuen isla bihurtuta zurrenik. Ezohikoa da hala jardutea, edo orain arte hala izan da, baina, argi dago nik ere egunak eta egunak izaten eta izango ditudala eta izan ditzakedala halakoak tarteka-marteka. Beraz, besteek onartu eta egin bezala, nik ere, azken finean, beste bat gehiago naizelako eta hala izatea komeni zaidalako, gainera, “lepoan hartu ta segi aurrera!”

A zer astelehena eta aste hasiera! Hobetuko ote da orduak eta egunak aurrera egin ahala, zeren eta bestela, ederra nago ni. Pufff!

Saioen herena igaro da eta horrek badu bere garrantzia. Lelokeria bat izan liteke akaso, baina, eginbeharren zerrendatik Hernaniko saioa ezabatzeko moduan naiz.

Bigarren ikasturte hasiera

3 aste igaro dira azken saiotik eta lekutan geratu dira Intxaur pilotalekuan joriko azken pilotakadak. Saiatu arren azken saioan zertan aritu ginen ere ia gogoratu ere ezin dut egin, orduetik hainbat egun eta ordu joan direlako eta zeregin ugari izan ditudalako, besteak beste.

18.52an irten naiz etxetik eta 19.25ean aparkatu dut frontoi aurrean. Bidaia ezohikoa iruditu zait, azkena bertara etorritakoan egunaren argitan egin genuen, hiru aste beranduago, ordutegia antzekoa izan arren, ilunpetan egin dudalako, ordu aldaketa eta eguna moztea tarteko. Egia esan gaueko 22.00 direla dirudi!

Koadernoan gauza pare bat idatzi, hau kotxean utzi eta bertatik kanpora noa, frontoiaren sarrerara. Saioa irten da kotxe barrutik orduan eta Iriartera, tabernara, zihoala esan du, giltza eta fitxen bila.

Frontoi ataria

Hego haizea etorri da euri jasa eta uholdeek eragindako triskantzen ondoren eta hezetasun handia nabari da bazter guztietan. Baita Zizurkilgo frontoiko frontisean ere, zatiren batean baldosak ilunago ikusten baitira beste batzuetan baino.

Inor ageri ez dela eta frontoiaren ezkerrean, justu harmailen aldameneko azken eskaileren gainean, dagoen informazio-taula ikustera hurbildu naiz. Bertan erabilera arauak eta astean zeharreko ordutegiaren berri jasotzen da. Orduan ohartu naiz ostegunetan bertako pilota eskolako nesken paleta saioetarako erreserbatua dagoela pilotalekua. Harritu, eta era berean poztu, egin naiz, gaur arte ez bainekien hala zenik.

Saioa etorri da orduan eta galdetzean esan dit federazioak aholkularitza eskaintzen diela eta Naroa dela entrenatzailea, pilotari zizurkildarra. Sorpresa atsegina hartu dut.

Pilotalekuko sarreran entrenatzailea eta biok gaude momentuz eta eguna zer moduz joan ote zaion galdetuta kezkatuta sumatu dut Hernaniko astearte arratsaldetako taldearen inguruan. Hasieran 5-6 izan baziren ere izena emandakoak 2-3 omen dira agertzen direnak, horietako bat gainera min hartuta dago, eta ez omen dio oso tankera onik hartzen. Konponbide zaileko kontua dirudi, baldin eta astelehenetako hiruzpalau aldatzen ez badira. Aste honetan bilera egitekoak direla esan du eta ikusiko dela.

Gurutze heldu da justu orduan eta “arratsalde on, aspaldikoak!” esanez agurtu gaitu. Zertaz ari ginen aditu eta Saioak segi du esanaz Villabonako taldean bi emakume ere lanean egun bat gutxiagoan ari direla, ostiralak jai omen dituzte, baina astean zeharreko lan-karga handitu egin zaiela eta ostegunetako saioetara ez direla heltzen. Orduan Gurutzek esan du berak gustura izango lukeela lau eguneko lan-astea, gaur ere 7.30ean

etxetik irten eta justu orduan bueltatu berri xamarra dela-eta. Gaineratu du ama ere makal xamarrik duela eta eguerdian egin diola bisita bat baina arratsaldean palara etortzeko dei bat baino ez diola egin, aspaldian saio gutxi izan ditugula eta.

Pili gehitu zaigu taldera eta honek ere “gaur hasten da berriz kurtsoa” bota du. Orduan Saioari galdetu dio ea zein partidu diren larunbatean Zizurkilen jokatuko direnak, zerbait irakurri duela nonbait. Gurutzek esan dio Hitzan irakurri zuela zerbait aurrekoan. Saioak erantzun die bera dela jokatuco dutenetako bat eta Emakumea Pilotari txapelketa dela, Gipuzkoa mailan jokatzeko dena. Esan dute saiatuko direla azaltzen ahal badute. Ordurako Eli gehitu zaigu taldera eta baita Marian ere. Lehenak esan du aspaldi izan zela azken saioa eta urruti geratzen dela. Denok bat etorri gara horretan, tarte luzea dela hiru astekoa.

19.40 jota dira eta barrura sartu beharko dugula erabaki dugu, kontu kontari gustura aritu arren.

Pilotalekua

Eskaileretan behera jaitsi, trasteak harmailetako koskan utzi eta entrenatzailea argia pizteko fitxa sartzera doan bitartean guri berotzen hasteko esan digu.

Beroketa

Ez dakit nondik baina Behobia-Donostia lasterketa atera da hizketagai. Entrenatzailea egitekotan da eta ni ere bai eta agian hor nonbaitetik. Orduan jakin dut Elik eginda daukala, Pilik ere behin egin zuela. Batek esan du ez zitzaiola gehiegi gustatu eta Donibane-Hondarribia egingo lukeela. Besteak, berriz, orain lauzpabost urte izango zela, eguraldi benetan kaxkarra egin zuela, eta utzita dagoela jadanik. Saioa ere gehitu zaigu eta pilotalekuaren alde batetik bestera gabiltza korrika txikian. Orduan Gurutzek zera bota du: “nik ez dut Behobiarik egin behar, eh!” eta erdi parera iristean gelditu egin gara (B.K. Ateraldi ederra iruditu zait, pilotalekuan bospasei itzuli emanak izango gara dagoeneko-eta).

Korroan jarrita mugikortasun articularra: orkatilak, belaunak, aldaka, besoak, eskumuturrak... Orain ere txor-txor hizketan ari gara honetaz eta hartaz. Orduan bakarren batek esan du Onintza etortzeko asmotan omen zela. Itsaso Tailandian izango da oporretan, hala esan zigun azken saioan. Guztira bost gaude (entrenatzailearekin 6), Oihane ere falta baita.

Ni hasi naiz tertulian ari garela pilotak dauden poltsako korapiloa askatzen, eta hala bota dut “Saioa, ni hasi naiz hau askatzen” eta Gurutzek aldamenetik “ondo, gaur ez dakit hau lanerako zer asmorekin etorri den eta”. Taldekideen artean eta begiralearekin berarekin ere konfiantza eta giro atsegina nabariak dira. Horren erakusle aurreko hizketalditxoak eta tarteka ariketen artean sortzen direnak ere badira.

Orduan bakarren batek esan du ikusi zutela erraketisten inguruko bideo erreportaia, nik Saioari helarazi niona hauei helarazteko, eta autentikoa iruditu zitzaiela. Gustura ikusi dute eta nondik ateratakoa ote den galdetu dute. Nik esan diet rtve-ek eginikoa dela eta handik bueltan lortu genuela hori bazela jakitea.

Paletak hartu eta banaka pilota banarekin ezker hormaren kontra ekin diegu gaurko pilotakadei. Ni frontisetik hurbilen eta ondoren Eli, Pili, Gurutze eta Marian. Begirale edo entrenatzailea, berriz, ondorengo ariketetarako espazioak nola atondu begiratzen dabil eta baita uneren batean zuzenketa edo gomendioren bat ematen ere. Beste taldekideren baten pilotaren bat etorri zait bitarte horretan, lurretik arrastaka.

Txistua jo eta saioari ekiteko unea heldu zaigu, motorrak martxan jarrita ditugula-eta.

Ariketak

Alboko kolpea lantzen arituko gara gaur ere. Horretarako mozketak eta bi paretak egiten saiatuko garela jakinarazi digu. Hezetasuna tarteko frontiseko lehen hiru baldosak ilunago daude, ia beltzak, beraz, erreferentzia puntutzat hori erabiliko dugu ariketak burutzeko garaian.

1. Ilara batean jarri eta pilota albotik jota marraz azpitik frontisera bideratzen saiatu, Saioak pilota prestatuta.

Ariketa azaldu eta isiltasun handi xamarra sortu da. Badirudi bakarren batek ez duela ariketa behar bezala ulertu, baina, ez, ez da hori. Marianek esan du ulertu duela, baina, pentsatzen ari zela hezetasun hori nondik sortu ote den, agian frontisaren atzeko jardineko urak eragingo duela. Orduan irribarre egin dugu denok eta ariketari ekin diogu ilaran jarrita gauden bezala: ni, Gurutze, Eli, Pili eta Marian.

Bakarren batek esan du “Uxueri begiratu eta nahikoa” eta nik, bezperako saioa gogoan, erantzun diot “beno, Uxuek ez du beti eredurik onena ematen” eta entrenatzaileak gehitu du “atzo ez zuen bere eguna izan”.

Ariketan zehar esan digu nahi duela mozketak ahal dela txokora bideratzea guk, saiatzeko norabide hori ematen. Guztira lauzpabost kolpe egin ditugu bakoitzak, geure pilota jaso eta entrenatzaileari itzuliz.

2. Egoera berean, baina, horma bikoak, Saioak pilota prestatuta.

Pilota jotzean hanken norabidea aintzat hartu eta zuzenean frontisera begira jarri ordez pittin bat ezker hormara bideratzeko esan digu, gero gorputzarekin mugimendua jarraitzeko eta pilota aurrean jotzeko ere gogorarazi digu.

Bakarren batek zailtasun handiagoa dauka, bai indarragatik eta baita jotzeko moduagatik. Taldean joko mailan aldeak daude, baina, hala ere elkarrekin moldatzen gara eta badaki norberak bere buruari zer eska diezaiokeen eta zer ez eta ahalegina besteek adinakoa edo are handiagoa izaten da.

Lehen bi kolpeak erdira prestatu dizkigu entrenatzaileak eta handik aurrera ezker hormatik nahiko gertu prestatzen hasi zaigu. Nik orduan ezkerrez egin dut horma bikoak eta ilarara itzuli naizenean bakarren batek esan du “hori da rizar el rizo”.

Ariketa honetan ezker hormatik gertuago zetozen pilotakadetan ez zen hain erraza kalkulatzeko ezker horma zein leku eta altueratan jo ondoren horma bikoak balio dezan

eta zailtasun maila nabarmen igo zaio ariketari. Emaizta ere, efektibitatea, jaitsi da eta emakumeek saiakerak egiten segi dute.

3. Bi ilaratan, bakoitzean hiru eta bi jarrita. Ezkerrekoak horma bikoa egin, irakasleak prestatutako pilota joz, eta eskuinekoak txokora moztu, albotik jota. Ondoren eskuinekoak pilota jaso eta ilaraz aldatu.

Ni hasi naiz eta beste ilaran Eli hasi da. Lehenengoan ez da konturatu eta atze xamarrean kokatuta zegoen eta berriz ere errepikatu dugu. Ariketa ondo joan da, beti bezala gorabeherak izan dira, asmatutakoak eta helburua lortu gabe geratutako kolpeak, baina nahiko itxuran irten da.

4. Txokotan, partiduetarako bikoteak erabakitzeko, bizitza banarekin.

Ordena: Eli, Saioa, Marian, Gurutze, Pili eta ni. Beraz, bikoteak osatuta:

- Eli + ni
- Saioa + Pili
- Gurutze + Marian

B.K. Saioari ez zaio gustatzen bikoteak egitea, errespetua sortarazten dio. Galdera edo aztergai polita hori ere, ea zerk bultzatzen edo eragiten duen hori.

Gurutzek ederki bota dio “ez zaio gustatzen bikoteak berak egitea, kortia ematen dio. Grazia egiten dit, guri berdin-berdin zaigu”.

Bikoteak nola geratu diren ikustean Elik zera esan du niri begira, “gu pareja de hecho izango gara”. Egia esan ez dakit bigarren edo hirugarren aldiz egokitu zaigun batera. Orduan gehitu du “ekainerako biok bakarrik jarriko gara bikoteka, txokotan jokatu beharrik gabe”.

5. Partiduak. 6’ aurrekoek eta horren araberakoak dira besteak eta errotazioak ere. Hona hemen landutako egoerak:

Aurrean 2:2. Marratik behera eta alboko kolpea joz tantoa eginez +2.

Atzean 1:1. Pilota marratik behera alboz eta handik gora azpiko kolpez bideratu une oro berdinak. Ondoren rolak aldatu.

Gu eta Gurutze eta Marian hasi gara aurrean. Atzean Saioa eta Pili. Ni atzelari eta Eli aurrelari, berak hala erabakita. Nik beti bezala esan diot lasai sartzeko eta nahi duenean pilota jotzeko. Ni saiatzen naiz konfiantza ematen eta uste dut hori nabari dela.

Gaiztakeriaren bat edo beste egin dut nik, baina, paretsu xamar joan da. Azkenean 10-8 eta guk aurreko eremuan jarraituko dugu. Saioa eta Pili datoz orain eta sakea eurei eman diegu, gure eskuzabaltasuna adieraziz, erdi txantxetan. Galdu egin dugu eta atzeko eremura joateko unea heldu zaigu, alboko eta azpiko kolpeak lantzerantz frontiseko altuerarekin batera konbinatuz.

Txandaka aritu gara, lehenengo ni hasi naiz albokoarekin eta bera azpikoarekin eta gero alderantziz. Berak esan dit errazagoa egiten zaiola azpikoa albokoa baino. Pilotarekiko distantzia egokia hartzea kostatzen zaio oraindik tarteka, urduri jarri eta korrika batean pilotatik gertuegi kokatzen duelako bere gorputza. Hala ere, saiatua da eta hobetzen ari dela iruditzen zait nik lehenengo ikusi nuen saiotik.

Atzean hizketan aritu gara, besteak beste tesiaz galdetu dit, ea zer moduz nabilen. Nik gorabeheratsu eta luzerako kontua dela erantzun diot, apustu bat. Hala ari ginela jakin dut asteartetan saio honen aurretik igeriketa saioetara joaten dela, azkeneko paletako saioaren ostean eskuineko besoan agujetak izan omen zituelako eta igeriketan lasai aritzen denez paleta saiokoa izango zela ondorioztatu zuela.

Berriz ere aurrera joan gara eta aurrean Saioa eta Piliren aurka partidua hasi behar genuenean tinbrea hasi da joka. Saioa korrika batean joan da, baina, fitxa trabatuta geratu da eta ez du hartu behar bezala eta argia itzali zaigu. 20.45 inguruan dira eta ni joan naiz berekin eta orduan giltzekin bultzatuta hartu du makinak berriz ere fitxa. Beraz, argia itzali egin zaigu frontoian eta alboan hizketan eta luzaketak egiten hasi gara berriz ere noiz piztuko zain geratu garen bitartean. Saioa ez dago konforme, baina ez da bere kontua izan, beraz, besteek ere lasai egoteko esan diote. 5' beranduago piztu dira berriro fokuak eta saioari segi diogu lehen utzitako leku eta modu berean. Gu aurrean, Eli aurrelari eta ni atzelari, eta Gurutze eta Marian atzeko eremuan.

Partida horretan zehar Saioa eta biok elkarren berri ondo dakigula bistan geratu da eta gure bikotekideek ongi pasatu dute. Guk ere gaizki ez, nahiz eta batez ere joko ematen aritu garen, besteek parte har dezaten eta gozatu ahal den heinean.

6. Txokotan 2na bizitzarekin.

Elik barre egin du eta orduan 3 bizitza emango dizkiola esan dio entrenatzaileak. Berak ezetz, baina, azkenean hala geratu da eta besteoi ere grazia egin digu.

Entrenatzaileak nabarmen bota du “elkarri gaiztakeriak eginda” aritzea nahi duela eta hala hasi gara. Kanporatzen joan ahala kontrakantxan geratzen joan dira besteak eta azkena ni geratu naiz. Orduan Gurutzek esan du “egun oso onak ez dauzkala eta txapari ematen diola, baina, benetako ordua heltzean...” Nik irribarre egin eta ez dut hitzik esan (B.K. Ez dut uste esan beharrik dagoenik ere).

Gaur ez dakit zein unetan, baina, uneren batean, partiduetan edo, bakarren batek esan dit “zer gaiztoa zaren” eta “ematen du begiak daukazula atzean”. Nik orduan erantzun diet egia aitortuko niela, “lentillak jantzita nabil, baina, atzean betaurrekoak daukat”, irribarrez (B.K. Maila aldea nahikoa nabaria da, baina egokitzen naiz, nahiz eta tarteka saltsa jartzeko asmoz gaiztakeriak ere egin).

21.00 dira eta luzaketa batzuk eginda amaitu da gaurko saioa. Luzaketetan larunbateko partidak atera dira berriro ere, Saioari noren kontra jokatuko duten galdetu diot eta Amaiaren aurka esan du eta, orduan, esan diet ikusiko dudala agertuko naizen ala ez. Eli, Gurutze, Saioa eta laurok goaz eskaileretan gora, besteak abiatu dira etxera dagoeneko eta orduan esan diegu azken biok nola jokatzen duen ikusteko zoragarria dela Amaia eta pilota nola joan behar den ikusteko ere bai.

Pilotaleku ataria

21.05 dira eta Saioarekin hitz pare bat trukatu ditut.

21.35. Grabagailua martxan jarri eta banoa etxera, Saioa agurtzen ari nintzela Naroa agertu delako kotxez etxera bidean eta harekin ere hitz egin dugulako.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Taldean onartuta sentitzen naiz. Ea zer moduz nabilen galdetu didate (eta galdetzen didate) eta nik ere uste dut talde-giro horren barruan nire hondar aletxoak jarri eta jartzen dudala, saltsa jarri eta lasaitasuna transmititzen saiatuz.

Iruditzen zait askotan detaile batzuk alde egiten didatela eta gaur ere, adibidez, saioan ez dudala komentario asko hartu, baina, gero idazten hastean konturatzen naiz uste baino material gehiago biltzen dudala bai batean eta baita hurrengoan ere.

Saioak oso antzekoak izaten dira astelehen eta asteartetan eta saiatzen naiz horri zukua ateratzen, arreta ariketetan jarri ordez testuinguruan jarriz ahal dudana heinean.

Asteko saioen bi herenak pasa ditut eta gaurko eguna bereziki neketsua egin ez bazait ere biharkoa halakoa da, beraz, errekuperatu eta indarberritzeko komeniko zait.

Hegan nator eta hegan noa

Gaur ia-ia Euskal Herriko beste puntatik nator, aurrez ere Gipuzkoan zein Araban kilometro kopuru dezentea eginda: Zumarraga-Bergara-Gasteiz-Usurbil. Izan ere, eguerdian hitzordua jarria genuen bilera baterako eta beranduago izanagatik ere etxetik pasatzeko asmotan bertaratu naiz, baina, azkenean, arratsaldeko seiak pasatxoan nondik eta Gasteiztik bertatik jarri naiz saiora bidean, ez paleta eta ez ezer ez neuzkala. Eskerrak zuzendari nagusiak aholkularitzaz gain beste dena ere nire eskura jartzeko duen prestutasunari! Hurrengoan etxea bizkar gainean dudala joango naiz bada ez bada ere, etxera beranduago itzuli beharko banu ere beharrezko guztia eskura izan dezadan.

Sarrera

19.30ean iritsi naiz pilotalekura, kotxean ia ordu eta erdi emanda eta azeleratu samartuta. Haizea bakarrik bistaratu dut eta elkarrengana bildu gara.

Gaur pilotaleku barruan daude harmailak, aurreko egunetan probalekuan ikusi izan ditugunak. Hori dela eta, kontrakantxa askoz ere estuagoa da, berezkoaren erdia edo asko jota. Beraz, zabalean jardutean hori ere aintzat hartu beharko da.

Astelehen arratsaldean ez zuela saiorik izan esan dit Haizeak, antza denez argirik gabe geratu ziren asteburuko eurite eta uholdeen ondorioz eta arratsaldeko 19.00 inguruan itzuli omen zen. Bakarra agertu omen zen eta etxera itzultzea erabaki omen zuten egoera ikusita.

Han kontu kontari ari garela Aizpea azaldu da, bikotekide eta txakur eta guzti. Aurreko bi asteetan ez da etorri, batean ziatikagatik eta bestean lanetik oso berandu atera omen zela eta. Hizketan aritu gara eta berehala korroan genituen Aitziber eta Karmele ere. Lehenak esan du Jaione ez dela gaur etorriko, senarrak zerbait zuela eta umeekin geratu dela. Idoia etorriko ote den, berriz, ez omen daki, gizonaren urtebetetzea omen du eta ba omen daki afaria egitekoak direla. Hori esan eta oso gutxira Idoia ere etorri da. Baietz

esan du, afaria duela, baina, aurreko astean kale egin zuela eta bi egun askotxo direla eta gaur etortzea erabaki duela, nahiz eta pittin bat lehenago irtengo den.

Idoiak fotokopiak eman dizkio eta mediku azterketarako azalpenak ere eman ditu berriz ere entrenatzaileak, jendea ordua hartzen hasia baita. Karmelek esan du azaroaren amaierarako eman diotela zita eta besteren bati abendurako. Orubete ingurukoa omen da eta praka motzak eraman behar omen dira. Erlojuan 19.38 ikusi dut.

Pilotalekua

Hizketari utzi eta berotzeko unea heldu zaigu. Hala ere, eguraldia epel dago, gaur ere hego haizea lagun, eta Haizeak emakumeei galdetu die ea korrika egiteko gogorik baduten, berak handirik ezetz. Gaurko saioa korrika saiorik gabe hasiko da, beraz.

Beroketa

Mugimendu artikularrak eta luzaketa pare bat egin ditugu eta Haizeak paletak hartzeko esan digu, ondoren bakoitzari pilota bana emanaz. Esan digu gaur piloteoa binaka egiteko asmoa zuela, baina, 5 lagun izaki leku gehiago izango dugula eta banaka jartzeko aprobeztatuko dugula.

Ezker hormaren kontra jarri gara pilota banarekin, kolpea ongi egitea barneratzeko, kolpe sekuentzia bere osotasunean egiteko, pilota bigarren botean kolpatuz. Gogorarazi digu garrantzitsua dela distantzia ongi neurtzea, pilotari itxarotea, hankak ongi kokatzea, paleta ateratzea eta gorputzarekin mugimenduari laguntzea.

Hasi eta ia orduantxe Ester iritsi da. Honi zer egiten ari garen azaldu dio eta hau ere gehitu zaigu taldera. Honela gaude kokatuta: ni ezker ezkerrean (8-9.koadroen artean), ondoan Ester, gero Idoia, Aizpea, Aitziber eta Karmele. 6 lagun gaude eta jokatzeko eremua murriztu zaigu guri ere azken etorrerarekin, baina, moldatu gara.

Haizea zuzenketak egiten eta gomendioak ematen ari da bitartean banan-banan. Bati paleta nondik hartu, besteari azpiko kolpea egiten lagunduz, etab. Ni lasai-lasai ari naiz, ezkerrez eta eskuinez egindako kolpeak tartekatuz, noizbehinka eskuinaldera begiratzu besteak zertan diren ikusteko eta beste noiz edo noiz desbideratuta datozen pilotak hartu eta itzultzen.

Ondoren, egoera berean, gauza bera pilota bote bakarrean kolpatuz egin dugu. Horrela ere jardun bat egin dugu.

Halako batean deitu digu eta ezker hormatik frontis aldera goaz, ariketei ekiteko.

Ariketak

1. Ilara batean jarrita, piloteo jarraitua mantentzen saiatu behar dugu denon artean kolaboratuz. Azpiko kolpea erabiltzen saiatu behar dugu, bote bakarrarekin.

Ariketa aurkeztean esan du askotan bera aritzen dela pilotak prestatzen eta gu baino gehiago nekatzen dela eta komeni zaigula guri ere dagoeneko halakoak egiten saiatzea.

Lasai hartzeko gomendioa eman du, ez dela ezer pasatzen piloteoa eteten bada, berriz ere hasiko garela eta listo.

Azalpena eman ostean, inkontzienteki bezain automatikoki, denek urrats bat egin dute atzera, ilaran lehena jartzeak beldurra emango balie bezala. Orduan, egoera ikusita, “zein hasiko da?” galdetu du Haizeak eta nik hartu dut pilota.

Kolpeen elkartrukea nahiko arrakastatsua izan da, jarraikortasuna handia izan baita, pare bat edo hiru bat kolpe kenduta besteak ilaran bata bestearen atzetik jotakoak izan dira. 6 ginen eta 20-25etik gora joko genituen jarraian, nahiz eta kolpe denak erdi erdira bideratutakoak ere ez diren izan.

Gu ariketa egiten ari gara eta Haizea aldamenean, eskuinetara, begira, zuzenketak eta animatzaile lanak eginez. Gustura sumatzen da, “ondo ari zarete” esan baitu behin baino gehiagotan.

2. Gauza bera, baina, kantxaren eta frontisaren erdia erabilita. Eskuinean zein ezkerrean hiru laguneko ilaran jarri eta piloteoa mantentzen saiatu behar da dagokigun aldeko eremuan. Eskuinean hasi gara Aizpea, Karmele eta ni. Ezkerrean, berriz, Idoia, Aitziber eta Ester. Ondoren aldez aldatu gara.

Ariketa honetan erdira murriztu da espazio erabilgarria eta horrek zailtasuna gehitu du. Hala ere, uste eta aurreikusi baino pilota gutxiago joan dira gurutzatuta albo batetik bestera, kontrako eremura, eta piloteoak ere bere jarraitasuna izan duela iruditu zait.

3. Ezker eta eskuineko ilaretan, pilota gurutzatuz piloteoa mantentzea. Kolpea egin eta ilaraz aldatu behar da.

Aurreko bi ariketek baino zailtasun handiagoa du, baina, horretarako gai gara seiok eta huts askorik gabe piloteoa jarraitzeko modua egin dugu.

4. Altuera aprobetxatzen ikasteko ariketa. Haizeak azaldu du oso gutxitan erabiltzen dugula frontisak duen altuera osoa, ez dugula aprobetxatzen aukera hori eta gure pilotakadarik gehienak erditik behera joaten direla altueran. Hori dela eta, ilara batean jarrita gaudela berak banan-banan pilota prestatuko digu eta guk frontisean goiko txapatik ahalik eta gertuen bideratzen saiatu behar dugu. Horretarako gorputzarekin besoari eragiten diogun mugimenduari laguntzearen garrantzia azpimarratu du, gure kolpe mugimendua besoa mugitzeko hutsera mugatu gabe.

Zenbaiti kosta egiten zaio pilotari altuera ematea. Idoiak berak hala aitortu du. Nik egindako kolpe batean Haizeak esan die arreta jartzeko.

Ariketak aurrera egin ahala, pixkanaka-pixkanaka, geroz eta gorago bideratzen dugu pilota, nahiz eta Haizeak “kostatzen da” bota duen.

5. Binaka jarrita, ilarako ordenatik abiatuta, batek pilota prestatuko dio kideari eta besteak frontisean altuera ematen saiatu behar du. Ni hasi naiz Idoiari prestatzen eta ondoren etorri da Ester eta Aizpearen eta Aitziber eta Karmeleren txanda. Kolpe bakoitza egin ostean ilarara itzuli eta berriz ere tokatzen rola aldatzen dugu, prestatzaileak kolpea eginez eta alderantziz.

Hiruzpalau buelta egin ditugu modu honetan eta Haizeak esan du ez dela erraza besteei pilota prestatzea eta ikusi da hori unetxoren batean.

6. Partidak 5 tantora aurrean, erdian (4-6,5) eta atzean (7-8,5). 1:1 egoeran, baldintza berezirik gabe.

Errotazioa egiteko modua aldatu egingo dugula esan du Haizeak, aurrean galtzailea geratuz eta irabazlea atzeko eremura igaroz, handik beste bat erdira eta erdiko bat aurrera. Haizeak esan du pertsonaren batek hiru partida aurrean jokatuz gero aldatu egingo dela.

Non hasi erabakitzen guri utziko digula esan du eta “ni aurrean” bota du Esterrek, Aitziber ere hara joanez. Ni atzeko eremuan jarri naiz, Aizpearekin, eta erdian ari dira Idoia eta Karmele.

Lehenengo errotazioan Aitziber etorri da atzera, Aizpea erdira eta Karmele aurrera.

Aitziber moldatzen da eta berak esan dit sekula ez duela lortu pilota nahi duen lekura bidaltzea, nik egiten dudala hori. Justu hori esan du nahi gabe txapa gaineko bat bota duelako eta hala aitortu didalako. Nik erantzun diot berdi-berdin balio duela, ez pentsatzeko profesionalek ere nahi duten lekura bidaltzen dutenik jotako pilota bakoitza. Nik esan diot ziur nagoela bere buruarengan konfiantza hartzen joan ahala eta saioek aurrera egin ahala helduko zaiola probatzeko une bat, lasai egoteko, eta lortuko duela tarteka pentsatutakoa gauzatzea. Nik esan diot gomazkoarekin ez ditudala zenbait gauza egiten, tenisekoarekin, ordea, baietz, hobeto moldatzen garelako ia denak, baita munduko txapeldunak ere. Ondoren esan diot, era berean, askotan presaka aritzen garela eta tantoa lantzea ere ahazten zaigula. Orduan esan dit Usurbilgo Santixabeletako txapelketan izena eman zutela Idoia eta biek aurrean, 8 bikote osatzeko, eta horretan nabaritu zuela aldea batez ere, tantoari eustean, besteak gehiago ibilitakoak zirelako.

Hurrengo errotazioan Karmele atzera, Aitziber erdira eta Idoia aurrera mugitu dira. Nik atzean jarraitzen dut eta Karmeleri galdetu diot ea alderik antzematen duen lehen egunetik eta hark baietz, orain zenbaitetan segurtasun gehiago sentitzen duela.

Idoia eta Esterren artekoa amaitzean lehenak alde egin du, aurrez abisatu digun bezala, eta Ester atzera etorri da, Aitziber eta Aizpea frontiseko eremura joanik. Ni eta Karmelek erdiko eremuan jardungo dugu orain.

Haizeak galdetu du ea nor falta den aurrean jokatzeke eta nik esan diot ni falta naizela. Orduan esan du nik jokatzeke ondoren eta ondoren saioa amaituko dugula.

Aitziber eta Aizpeak 5-4 edo horrela bukatu dute, parekatua izan da partidua eta maila bertsuak izaki eurak ere gustura aritu direla nabaritzen zaie.

Ester atzera joan da piloteatzera eta nekatuta dagoela esan dio Haizeari, tartetxo bat hitzak elkartrukatuz egin dutelarik harmailetan. Ondoren Haizea saiatu da azpiko kolpea lantzen (B.K. Berezko bere kolpea albokoa da eta kosta egiten zaio azpitik jotzeko pilotari itzarotea, nahiz eta lortutakoan berak ere esan duen nabaritzen duela aldea).

Aizpea eta biok geratzen gara aurrean jokatzeko eta Aitziber erdira pasa da, Karmelerekin pilotatzera. 5-1 amaitu dugu, baina, tantoak pilotakada dezentekoak izan dira. Nik bota dizkiot korrika eginarazteko batzuk, berak ez hainbeste, moldatzen den arren tantoa amaitzeko joera falta baitzaio. B.K. Ondo moldatzen diren beste biren kasu bera dela esango nuke (Jaione eta Aitziberrena), zenbaitetan tantoa amaitzen saiatu ordez kolpez kolpe mantentzen saiatzen direla.

Partidan zehar arnasa berotu zaio uneren batean Aizpeari eta nik neketsua dela esan diot eta hark baietz erantzun dit, nekatzen dela. Ni lasai aritu naiz, saltsa jartzeko intentzioarekin.

Gure partida amaitu denean 20.55 dira eta Haizeak esan du luzaketak egingo ditugula. Luzaketak egiten aritu gara harmailen buelta horretan, hizketan, medikuarenerako txandez eta fotokopia zein argazkiak datorren astean ahaztu gabe berari eramateaz falta zaienak. Zarauzkoen telefonoa emateko nik koaderno atera eta idatzi dut, Ester eta Aizpeari papertxo banatan emanda.

Azaldu digu datorren astean alboko kolpea lantzen hasiko garela. Horrela ari garela Aizpeak esan du igandetan goizeko zortzietan joaten dela frontoira. Hortik bizilagunen eta hotsen kontua atera da hizketarako gai eta bateko oilarraren kukurrukua, besteko kanpaiak eta hor aritu gara hitz eta pitz.

Horretan bukatu da gaurko saioa, 21.02 direnean. Elkar datorren astera arte agurtu eta Haizea eta biok kotxeetara goaz, etxeratzeko ordua baita.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Hobeto moldatzen diren inpresioa dutela diote emakume bat baino gehiagok lehen saioarekiko eta gustura dabiltzala dirudi.

Ni taldean geroz eta integratuago nagoela sentitzen dut, nahiz eta iruditzen zaidan oraindik ere ez dela talde bat Usurbilgoa, nahiz eta egiten hasita egon litekeen. Ez behintzat Hernaniko eta Zizurkilgoei erantsiko nieken sentimendu eta batasun horren ikuspegitik, bederen. Batzuk elkar gehiago ezagutzen dute eta besteek gutxiago, baina, girotxoa badago eta alde horretatik gustura nago.

Gaur ez neukan saioa egin eta hasteko gogo handirik, ziurrenik dabilkidan lan erritmo eta itomen puntuagatik, baina, onartu beharra daukat ongi etorri zaidala pixka bat airatzeko eta uneren batean kezkak uxatzeko. Horretan zerikusi zuzena dauka emakumeen harrerak, dudarik gabe.

Paletetan aldea dago, gaur gomazkoarekin jarduteko zuloduna erabili dut, nirea etxeko armairuan utzita neukalako, eta uneren batean nabaritu dut eskua zein besaurrea ohi baino kargatuago neukala, 100 gramoko aldeak berez handia ez badirudi ere.

Gaur frontoiaren atzealdean aritu naiz une bat baino gehiagotan eta “*recogepelotas*” rola jokatu dut tarteka. Hori dauka atzea irekia izateak eta ezker horman ere altueran horma gutxitzen joateak. Probalekurako bidea hiruzpalau aldiz egin dut, beste behin beheko kalerakoa eta beste behin ia-ia eliz atariraino joan naiz pilotaren atzetik.

Gaur ez dut aurrekoetan bezala inor begira sumatu, besteak beste harmailek ikuspegia murrizten dutelako, nahiz eta une batean bi ume izan diren. Pentsatu dut Idoiaren semeak izango zirela, ea afalduta ote dauden galdetu die honek eta.

Nekatuta nago, porru eginda eta hurrengo egunerako utzi dut landa oharrak idaztea, etxeratzean justu-justu grabazioa disko gogorrera soilik pasatuz. Lana oparitzeko adina daukat, baina, espero dut grabagailuak funtzionatuko duela eta etxera heltzean afaldu lasai xamar egiteko moduan izango naizela.

Aste honetako hiru saio praktikoak pasa dira, behintzat. Hiru aste gehiago eta berriz ere “atsedenalditxo” etorriko da alde horretatik. Hala izango ote da?!

Bat gutxiago ala bat gehiago?

Behaketei dagokienean aste honek eman du eman beharrekoa (edo bai eman duena, bederen). Edo nik eman diot aste honi eman beharrekoa? Edo aste honek eman dit niri eman beharrekoa? Edo... elkarri eman ote diogu? Zehazki zein galdera den egokiena ez badakit ere, eta ezta erantzunak zein behar lukeen ere, hasi berri dugun lau aste osotako (12 paleta saiotako) zikloko lehen hiru saioak igaro dira. Beraz, zerbaitetan banabilen seinale, behintzat, bada hori.

Hala eta guztiz ere, egunotan eta orriotan idatzi eta gehiturikoa sailkatzeko unean ez daukat batere garbi aste bat gutxiago falta zaidala kontatu beharko nukeen, eta nire poza azaldu, ala alderantziz. Hau da, aztertzeke eta lan zerrenda amaigaberako beste dokumentu bat gehiago osatu dudala, itxaron zerrendan koarentenan edukitzeko beste aletxo bat, eta pixka bat gehiago itotzea litzateke bigarren aukera. Une honetan, ordea, ez dakidanez zer gertatuko den eta nire buruak nondik norako aldaketa eta joerak izan ditzakeen hurrengo minutu zein orduetan zehar, bere horretan uztea izan nezake onena. Eginda dago momentuz eta hortik aurrera zertan hasi buru barruak nahasi eta dantzatzen? Nahi gabe ere egiten dute hori, nik agindurik bidali beharrik gabe.

Kantu batekin hasi dudana bertso amaiera batekin bukatzea egokia izan litekeela sinesten dut, beraz, halaxe egingo dut. 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko belodromoko azken agurren artean izugarri gustatu eta lepo gaineko disko gogorrean ederki grabatuta daukat ordutik Maialen Lujanbio gazte hark amaieran botatakoa: “dena da segun nundik begiratzen dan”. Beraz, hark hala bazion ziur hala izango dela!

Hurrengoan gehiago (ez dakit posible ote den) eta hobeto egingo dudan itxaropenez...

7. astea. “HEGAN DOAZ ETA HEGAN DATOZ”

Ohartzerako ostiraleko arratsaldeko 18.30 heldu zaizkit. Alde batetik pozgarria da, asteko lan-zamari aurre egiteko gai izan naizen seinale baita. Hori bera bada pozteko arrazoi, ala? Bestalde, ordea, oraindik ez ditut amaitu aste honi dagozkionak, ezinbestean astelehena heldu aurretik egin beharrekoen zerrenda mehetu bazait ere ez da zakua erabat hustu. Honenbestez, pantaila eta teklei lotuta jarraitu beharko dut beste ordu batzuetan oraindik ere.

Iragan asteburuan, hala ere, bizkar gainean hara eta hona joan-etorrietan arindu ezinik nerabilen karga bat kendu nuen, Behobia – Donostia lasterketa, eta horrek astea, hein batean, beste angelu batetik eta beste “lasaitasun” batekin (hala dei baniezaiokie) begiratzeko aukera eman dit, betebeharren zerrendatik kendu baitut Bidegorrirako buelten ezinbestekotasuna. Hala ere, ezinbestean eta bezperarako egin beharrekoen zerrendak luze (eta luzatzen) darrai eta bata eta bestearen artean hegan igarotzen zaizkit minutu, ordu eta egunak, ezin entretenitu eta lanpetuago.

Asteartean hasi eta ostiralean amaitu ditut paletarekin (eta paletakadekin) zuzenean loturiko kontuak, Hernanin (ere) pilotalekuaren erabilera aniztasunak eraginda bideheziketa saioak izan baitira ikastetxeetako ikasleentzat goizero-goizero hiru hormen artean. Hortaz, orain arteko asteroko plangintza modu ezberdinean garatu dut herrien ordenari eta eginbeharrei erreparatuz gero. Egin dugu, behintzat. Gaitzerdi.

Kurbak ia memorizatuta

Larunbatetik bi egun baino igaro ez direnean berriro ere egin dut gain honetarako bidea. Asteburuan Ezker Hormako VI. Emakumea Pilotari txapelketako ligaxkako jardunaldiko partidak jokatu ziren bertan, larunbat arratsaldean, eta zalantzan egon ondoren, azkenean, bertaratzeko hautua egin nuen. Bertan paleta ikastaroko bost ikasle eta irakasleak egin genuen topo besteak beste, honek partida zuela aitzakiatzat harturik.

Gaur ere 18:50 inguruan motorra martxan jarri eta abiatu naiz errepidean, Euskadi Irratiko sintoniaren konpainian bidaia eginaz. Hain justu ere arratsaldeko albistegi nagusia entzunaz. 19:25ean aparkatu, poltsa hartu eta pilotaleku atarira hurbildu naiz. Kanpoan 9°C daude eta freskura nabaria da. Gaur arropa gehiago jantzi dut, niki beso luzea eta polarra, bada ez bada ere, hotza izateko beldurrez edo. Izan ere, eguzkia dagoen orduetan giroa goxatzen bada ere, iluntzen duenean nabarmen egiten dute behera tenperaturek udazkenaren bihotzean.

Frontoi ataria

Saioa lehenik eta Gurutze ondoren bildu zaizkit eta Behobia – Donostiaz aritu gara, elkarren denborak begiratzeko hirurok ere. Eskerrak, igaro da dagoeneko ditxosozko lasterketa hori! Ondoren Marian (gaur jakin dut asteasuarra dela), Eli eta Oihane ere laster ziren taldean eta hizketaldian txertatuta. Azken honek esan du Pili eta Onintzarekin elkartu dela eta gaur ez direla etorriko esan diotela. Beraz, elkartu beharrekoak elkartu garela ondorioztatu dugu, Itsasok esan baitzuen Tailandiatik bueltan berriz ere datorren astetik aurrera bertaratuko zela eta Bittori, oraindik etorri ez den eta antza denez etortzekoa dena, gaur etorriko den fede handirik ez dutelako ez

emakumeek eta ezta entrenatzaileak ere. Nik ez dut ezagutzen oraindik nor den, bere inguruan besteei hitz pare bat inoiz entzun arren.

19.40 jota izango dira gaur ere kantxaratzerako.

Pilotalekua

Saioa fitxa sartu eta argia piztera eta gu gorputzak martxan jartzera.

Beroketa

Kanpoan hotz edo fresko egiten duela esan diet nik, “negua luzea izango da hemen” eta erantzun didate, “eta hori orain kristal hori jarrita dagoela”. Obra hori egin aurretik alboko zatia erabat irekita zegoen nonbait, eta haizea gehiago nabaritzen zen. Hala ere, nik eskuak izoztuta dauzkat, zirkulazio ezin hobearen erakusgarri.

Gurutzek Saioari esan dio ez daukala korrika egiteko gogorik, eta honek erantzun, berriz, Behobiakoen omenez egin beharko duela. Azkenean “hiru bat bueltan eman” entzun eta hala hasi gara, frontoiaren alde batetik bestera. 3. itzulia osatzean Gurutze gelditu egin da eta besteei esan die “zuek ez izan peloterak orain”, eta denok gelditu gara. Korroan jarrita mugikortasun articularra: orkatilak, belaunak, aldaka, besoak, eskumuturrak... Orain ere hitz eta pitz ari gara honetaz eta hartaz.

Oharkabean igarotzen zaizkigu minutuak hizketan hastean eta hala gabiltzala nik ekin diot pilota eta paletak banatzeari. Bakoitzak pilota eta paleta bana hartu (Oihane eta Gurutzek euren zulodunak) eta ezker hormaren aurka jarri gara, berotzen amaitzeko, banaka.


Saioaren atal nagusiari ekiteko unea heldu zaigu (19.55 inguruan), Saioak ere marrak jarri baititu dagoeneko ondorengo ariketetarako lurlean eta hormetan, txukun-txukun.

Ariketak

Frontisa edo 1. espazio helburua lantzeko ariketak egin ditugu gaurko saioan, pilotaren norabidea lantzen hasiz. Orain arte kolpe mota ezberdinekin aritu gara, baina, espazioaren erabilerari garrantzirik eman gabe (B.K. Gaur beste atal bat eta beste saio mota batzuk hasiko direla iruditzen zait, helburua aldatuta).

Gaur 5 ikasle garenez ia ariketa denak egin ditu entrenatzaileak ere, kopurua bikoitia izateko bikoteak egitean ere.


1. Ilara batean jarrita, frontisa luzeran hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, eskuinekoa eta erdikoia. Bata bestearen atzetik kolpeak gune horietara bideratu behar dira txandan-txandan. 5 kolpe jarraian bidaltzea lortu ezean ezin da hurrengo gunera pasa. Sekuentzia ezker-erdia-eskuina-erdia-ekerra-... da.



Gurutze jarri da lehenengo eta haren atzetik Oihane, Marian, ni eta Eli gaude.

Lehen bi pilotakadak oso okerrak izan dira, bat kanpora eta bestea alboko txapara joan dira, baina, hortik aurrera ariketaren dinamika hartu dugu eta piloteo jarraitua izan da oso, gunez gune aldatzen egoki joanda. Hala ere, zalantzazko edo oker egindako kolperen bat ere izan da tartean-tartean, baina, kontrakantxatik begira ari den entrenatzaileak ez du aipamenik egin, garrantzirik eman ez dion seinale, eta emakumeek ere ez dute euren burua “salatu”. Ondo joan da ariketa, erritmo honetan piloteatzeko gai diren/garen adierazgarri.

2. Frontiseko hiru guneak mantenduz, baina, kasu honetan bikote bakoitza gune baten parean jarrita. Erdiko bikoteak erdikoa ez beste bi guneetara bidera dezake pilota (ezkerrera edo eskuinera), eta beste bi alboetan daudenek, berriz, erdiko eremura baino ez. Erreferentzia pilotak frontisean non jokatzen duen da, “lurrean berdin du non botea egiten duen pilotak” adierazi du Saioak.



Emakumeak azalpena entzun ondoren nahasi xamar daude, kostea egin zaie ariketa ulertzea: “ea, baina...” eta halakoak esanez eta adieraziz euren keinu eta aurpegierekin. Orduan, entrenatzaileak, adibide modura horma biko bat egin du ezkerreko eremua erabiliz, baina, pilotak botea ez du eman ezkerrean. Esan die pilota horri, adibidez, ezkerreko ilarakoek erantzun beharko lioketela. Niri, ordea, bestelako galdera bat otu zait: “baina, zer da kolaborazioan elkar lagunduz ala tantoa egitera joan behar da?” Orduan Gurutzek esan dio Saioari, “noski, hemen ikasle aurreratu bat daukazu”. Berak erantzun du orain arte ariketa hori egin duen beste saioetan hala esan izan duenean kolaborazioan aritu direla berak esan gabe, tantoa egiteko intentziorik gabe, baina, kasu honetan proba egingo dugula oposizioan. Niri zalantzak sortu zaizkit ariketa nola aterako ote den molde honetan, batez ere bere garaian neuk hala probatu izan nuenetan ez zelako jarraitasunik lortzen, baina, ikusiko dugu.

Eskuinean Gurutze eta Oihane, erdian Marian eta Saioa eta ezkerrean Eli eta biok hasi gara.

Niri jotzea egokitutako lehen pilotakada ezker hormari itsatsitakoa izan da eta saiatu arren ezinezkoa egin zait pilota erdiko gunera bideratzea. Orduan, entrenatzaileak adierazi digu ezkerreko eremukook posible dugula prestatzeko kolpe bat egitea eta bigarrean erdira bideratzea pilota.

Ariketa oposizioan desastre handi xamarra atera da, nahiko kaotikoa, eta entrenatzaileak hori ikusita esan du kolaborazioan probatuko dugula, nahiz eta baldintzak mantendu, elkarri pilota txukun xamar uzten saiatuz, jarraitasunaren aldeko hautua eginda. Orduan askoz ere hobeto irten da.

Illaran kolpe bat egin eta bikotekidearen atzean jarri behar da. Errotazioak, berriz, eskuineko eremutik erdira, erditik ezkerrera eta ezkerretik eskuinekora egin ditugu. Lehen aldaketaren ostean Gurutze eta Oihane tokatu dira erdiko eremuan. Orduan

lehena konturatu da gune horretan pilotakada kopurua bikoitza dela, xeble samar zebilen, kideari parean jarri eta traba egin dio nahi gabe pare bat bider, beste bi eremuetatik bertara bideratzen delako pilota. Baietz esan diogu besteok, hala dela.

Denboratxoa eskaini diogu ariketa honi, gunez gune igaroz eta azkenerako jarraitasun handi xamarra lortuz.

3. Txokotan, frontiseko hiru guneak mantenduz. Baldintza da aurreko kolpean pilotak jo duen eremura ezin dela bideratu pilota frontisean. Bakoitzak 2 bizitza. Kanporatuak izan ahala lehen biak atzeko gunera, ondorengoak erdikora eta lehen biak aurrean geratuko dira.

Hasi eta berehala geratu da bizitzarik gabe Eli, ezker aldean kokatu eta pilota zail xamarrek erantzutea tokatuta. Orduan entrenatzaileak bizitza bat gehiago eman dio. Hala ere, bera izan da lehena kaleratzen. Haren atzetik Gurutze kanporatu da eta ondoren Oihane. Saioa joan zaie azaltzera eremu bakoitzean zein joko egoera landuko den, zein baldintza bete behar den. Ni eta Marian geratu gara aurrean jokatzeko, txokotan, eta hark esan dit “uu, beldurra ematen didazu” eta nik erantzun “lasai, nik ez dut inor jaten”. Lasai ari naiz eta, halako batean, azalpenak ematen amaituta Saioa batu zaigu jokora. Azkenean (errealitatean amaitu gabe) amaitutzat eman du entrenatzaileak ariketa.

4. 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan.

- Frontiseko eremuan. Lehengo hiru guneak mantenduz, ezin da kideak botatuko eremura bidali pilota hurrengo kolpean.
- Erdikoan (5-7). Pareta bi gunetan, ezker eta eskuinaldeak. Batek libre du nora bota eta besteak baldintzatua. Kideak botatzen duen kontrako gunera bidali behar du frontisean.
- Atzean (7-errebotea). Pareta hirutan banatuta (ezk.-erd.-esk.), batek libre nora bidali eta besteak baldintzatua, kideak bota ez duen bi guneetako batera.

Partida motzak 3ra erdiko eta atzeko eremuan, rolak aldatzeko ondoren, eta aurrean 6ra. Errotazioetan galtzailea gune berean mantentzen da eta irabazlea da gunez aldatuko dena: aurretik erdira, erditik atzera eta atzetik aurrera.

Aurrean Saioa eta biok, erdian Oihane eta Marian eta atzean Gurutze eta Eli hasi gara nor baino nor. Guk saltsa izan dugu bion artean, pilota zailak jarriz elkarri eta korrika eginaraziz. Azkenean nik irabazi diot 6-5 eta erdira joan naiz. Han Marian geratu da eta Oihane atzera joan da. Atzetik aurrera dator Gurutze. Aldaketa horretan Saioak esan dio “ni gelditzen naiz hemen” eta Gurutzek erantzun dio “horrek zer esan nahi du arantza atera nahi duzula?” niri begiratuz. Hirurok egin dugu irribarre.

Erdian Marianek berriz ere esan dit lasai aritzeko eta nik lasai egoteko esan diot. Lasai aritu gara, markagailurik kontatu gabe, baina, nik baino huts gehiago egin ditu berak. Beraz, aldaketan berriz ere ni mugitu beharko nintzateke, baina, Marian hasieratik bertan ari dela ikusita nik Saioari esan diot ni gelditzea egokiagoa izan zitekeela eta orduan Marian atzera joan da, Oihanerena. Aurrean Gurutze eta Eli eta erdian berriro ere Saioa eta ni tokatu gara.

Erdiko ariketan zalantzak sortu zaizkit zailagoa norentzat ote den, une batean modu baldintzatuan ari denak harrapatu egin dezakeelako baldintzarik gabe ari dena. Gure kasuan behintzat hala gertatu da behin baino gehiagotan, beste alboan preso harrapatuta, desorekatuta eta nire duda edo jakin-mina azaldu diot Saioari. Berari ere zalantza sortu diot nonbait eta horri buruz gogoetatzen eman dugu ariketaren zati handi bat, aukera ezberdinak landuz eta aztertuz. Ez dakigu oso ziur benetan abantaila ote den baldintzarik ez izatea, nahiz eta hala beharko lukeela ere pentsatzen dugun. Nik esan diot “hurrengo asterako emango diot bueltaren bat eta ea zer den”.

Gurutze eta Elik aurrean bukatu dute eta gu biok hizketan ari garela esan digute, txartel gorria aterako digutela, broma giroan. Esan diegu ariketaren inguruan ari garela, ez dugulako gauza erabat argi ikusten eta barre egin dute. Guk baietz, hala dela. Oihane eta Marian ere begira ditugu eta Gurutzek esan die “guk amaitu dugu aurrean, baina, gure bi irakasleak analizatzen dabiltza”.

Aldaketa egin dugu berriz eta oraingo honetan, bikoteak aldatzearren, Saioa joan da atzera Marianena eta ni geratu naiz erdian Gurutzerekin. Aurrean Eli eta Oihane daude. Hauek amaitu dutenean Eli etorri da atzera eta Saioak esan du nik jarraitzeko Gurutzerekin atzeko eremura eta bera Elirekin geratuko dela erdikoan.

Atzean eremua handi geratzen da eta neketsua egiten da hainbeste desplazatzea uneren batean. Batez ere baldintza betetzea tokatuz gero. Ni nahiko lasai nabil saio osoan, baina, unetxoren batean arnasa berotu zait niri ere eta zer esanik ez taldekideei. Gaurko ariketetan ohi baino desplazamendu eta mugimendu gehiago sortzen da eta musugorri bat baino gehiago eta neke aurpegiak ere lehen baino gehiago nabaritzen dira.

Erdiko eremuan entrenatzailea Eliri nola jo laguntzen saiatzen ari da eta atzean Marianekin aritu denean ere nabaritu dut hori uneren batean, gomendioak eman eta jotzeko modua findu eta hobetzeko laguntza eskainiz, akatsak zuzenduz.

5. Partidak 2:2 libre aurrean, 3 tantora. Atzean zain dagoen bikotea piloteoan ariko da.

- Saioa + Eli
- Oihane + ni
- Gurutze + Marian

Gu atzean hasi gara, piloteatzen. Ohartzerako etorri dira atzera Saioa eta Eli. Saioa buruan txapela jantzita, erdi lotsatuta edo amorratuta bere buruarekin, bi txapa jo dituela-eta tanto erabakigarrietan. Beraz, Gurutze eta Marianen aurka jokatzeko egokitu zaigu aurreko lehenengo errondan. Ni atzean, Gurutzerekin parez pare, eta Oihane aurrean jarri gara, Marianen pare hau. Nik pilotak bidali ditut txandaka ezker eta eskuinera, denek jokatzeko aukera izan dezaten. 3-1 amaitu dugu eta Saioa eta Eli etorri zaizkigu aurrera. Sakea eurei utziko geniela esan eta postuak aldatu ditugu, Oihane atzean eta ni aurrean. Saioa ere aurrean ariko da eta saltsa izango dugula ia ziur esan liteke, batez ere elkarrekin tematzen garenean. Bestela, taldekideekin lasai eta patxadaz jokatzeko dugu, jokia emanaz eta giroa jartzen saiatuz.

Elkarri pilota zailak jarri eta erritmoa bizitu dugu uneren batean partidari zehar eta orduan pilotak beste abiadura bat hartzen du eta eurak askotan guri begira geratzen dira. Halako egoera batean atzelarietako bat erdi despistatuta harrapatu dugu eta Elik esan du “klaro, gu ia pintxoak jaten ari ginen, zuei begira”. Oihanek gaineratu du “edozein

sartzen da tartean” eta nik “ez da nabari elkarrekin pikatzen garenik, eh”. Jokatzen jarraitu dugu eta Oihanek esan du erritmoan alde handia nabaritzen dela. Elik esan du “gu gara Imsersoa erritmoan eta gero etortzen dira hemen neska gazte hauek”. Barre dezenteak egin ditugu horren harira, batez ere Imserso aipatu duela-eta, baina, naturaltasun osoz.

21.02 dira eta saioa amaitutzat eman du Saioak, luzaketetarako tartea hartuz. Luzaketak egin bitartean Saioak ordainketetarako paperak eman dizkie eta galdetu diote ea zer gertatzen den Zizurkilgo udalaren laguntzarekin. Honek esan die ez dakiela, baina, nahi badute bera jarriko dela harremanetan udal teknikariarekin eta esango diela datorren astean zerbait. Oihaneri begiratu dio eta galdetu, “bai, zinegotzi anderea?” eta honek “bai, bai, niri oso ondo iruditzen zait, ea zer esaten dizun”. Marianek orduan esan du “nik normal ordainduko dut” eta orduan jakin dut Asteasukoa dela, Saioak erantzun baitio “bai Zizurkilen enpadronatzen ez bazara behintzat”.

Luzaketak egin bitartean Elik esan du berari gehiago gustatzen zaiola aurreko jokoak, saltsa sortzen delako, beste bizitasun bat duela eta tanto gehienak bertan erabakitzen direla. Atzekoa aspergarriagoa iruditzen zaiola esan du, beti jo eta jo. Gehienok ados agertu gara, nahiz eta Saioak gaineratu tarteka atzean aritzea ikasteko oso ongi etortzen dela, eta nik ere esan denbora gehiago ematen duela jotzeko. Hala ere, biok aurrelariak garelara eta guk kontrakorik ez diegula esango ere argi geratu da.

Pilotaleku ataria

21.05. Saioarekin hitz pare bat trukatu ditut, ohi bezala. 21.21ean motorra martxan jarri eta etxera.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Larunbateko partiden inguruan Amaia inguruko aipamenen bat izan da eta Saioari egindako erreferentzia pare bat ere izan dira, baina, nik pentsatzen nuen aipamen gehixeago sor zitezkeela.

Gaur 5 ikaskide aritu gara eta halakoetan parte hartze maila handiagoa dela nabaritzen da, aktiboagoa bihurtzen da saioa. Nekea ere beste egun batzuetan baino nabarmenago agertu da gaur, arnas estuak bezala.

Ariketa batzuk lantzerakoan zalantzak sortzen zaizkit benetan emakumeek azpian zer helburu edo asmo daukaten ba ote dakiten eta baita jakin nahi ote duten ere. Adibidez, gaurko 2.ariketan (frontiseko gunea zehaztu denean eta kantxako erreferentziak berdin zionean). Nik uste honek lotura zuzena izan dezakeela eurak saio edo ikastaro hauei ematen dieten esanahiarekin. Alegia, arlo tekniko ez dela axola zaiena, fisikoa ere ez zait iruditzen orain arte, eta helburua lehia baino gehiago parte hartzea dela, jardutea. Hala ere, hau ez dut uste kontrajarrita dagoenik partidetan saltsan sartu eta “pike” sana izatearekin. Ez zait iruditzen. Lehiakortasun maila ere aztergai interesgarria da, ia ezinbestekoa, markagailuak duen garrantziarekin loturik azter litekeena.

Taldeko bat gehiago naiz eta oso ondo hartzen naute, benetan goxo. Tarteka ikerketaz zertxobait atera liteke, galdera edo iruzkintxoren bat, baina, oso gutxi. Hala hobe,

bestela ere nahikoa gorabehera izaten ditudalako. Asko eskertzen dut euren prestutasun eta alde zurretiko jarrera hori. Bejondeiela!

Gaur izan dut asteko lehen saioa, asteartea bada ere, Hernanikoa ostiralera aldatu behar izan genuelako pilotalekua okupatuta dagoela-eta. Beraz, ostiralean egingo dugu topo berri ere Saioa eta biok, kasu honetan goizean.

Ezina, ekinez egina?

Tutoretzatik irten eta zuzenean pilotalekura joan naiz gaur ere, 19:30 jo eta orduantxe Arrue-Zubeldiatarrenetik irtenda. Itzuleran etxera iritsi eta afalosterako presa handi xamarrez egin beharreko hiru bat zeregin gehitu ditut agendan, bada ez bada ere, gero akordatu ez naizen beldurrez edo.

Sarrera

19.33an iritsi naiz pilotalekura. Harmailetan eserita Haizea eta Jaione hizketan aurkitu ditut. Arratsalde onak eman eta halakoak eta hizketan murgildu naiz ni ere, Behobiaz, asteburuko Goizuetako parrandaz eta Zizurkilgo pilota partiduez, besteak beste. Halako batean Idoia eta Ester ere elkartu zaizkigu eta hauek falta zitzaizkien argazki eta fotokopiak eman dizkiete Haizeari. Honek “ze txintxoak zareten” esan digu, eta nik erantzun, “zuk zer uste duzu ba, gu esaneok gara”. Irribarre egin dugu denok. Orduan Jaionek esan du Aitziber ez dela etorriko gaur.

Haizeak esan du hemen hitzordua zer izaten da 19:30ean, 19:35ean hasten zarete etortzen eta saioa 19.45ean? Puntualitatea ez da taldekideen/-on ezaugarri nagusia, behintzat.

Saioa hasi aurretik Idoiak esan du leher eginda datorrela eta baietz esan dio bakarren batek, nekea sumatzen zaiola aurpegian. Orduan bere eguneko abenturaren berri eman digu. Semeak jertsea galdu omen du egun berean bi aldiz eta Usurbilen barrena ibili omen dira haren jertsearen bila. Hasieran semea bera bakarrik bidali omen du, 7 urtekoa, aurkitu ezean etxera ez zela itzuliko esanda, baina, ilun zegoela eta gabe azaldu omen zaio eta ondoren biak aritu omen dira batera eta bestera bueltaka. Azkenean halako batean esan omen dio “ah, badakit non dagoen” eta ikastolako jolastokian aurkitu eta itzuli omen dira etxera. Esan du kezkatzen edo aspertzen hasita daudela, aspaldian askotan ahazten zaizkiola gauzak, igerilekura joandakoan betaurrekoak, txanoa,... beti baduela zerbait. Esterrek esan dio lasai egoteko, hori pasa egiten dela eta bezperan bere semearekin pasaturikoa kontatu du. Honek 11 urte omen dauzka. Ikastolatik ohi baino pixka bat beranduago irten (irakasleak zigortu omen zituen) eta ez omen zen etxera agertu bazkaltzera eta bera lanean izaki amonak deitu ziola erabat urdurituta, han eta hemen ibili zela baina ez zuela inondik inora topatzen. Azkenean esan omen zion 14.20an ikastolako atera joateko eta orduan agertzen ez bazen egingo zutela zerbait. Hara normal-normal azaldu omen zen eta horretan geratu omen zen euren kezka. Une batean etxean inor ere ez zegoenez lagun bati esan eta harekin joan omen zen Agiñara, baina, ez omen zien ezer ere abisatu etxekoei. Esan du ondorioztatu zutela hori gertatzearen erruduna irakaslea izan zela eta Idoiak, aldiz, semeak pertxari bota diola errua, berak han uzten omen du jertsea baina gero ez omen da bertan egoten. Jaionek esan du berari ez zaiola oraindik fase hori iritsi eta Esterrek gaineratu arratsaldeko 19.00etan semeak etxera eramatea ez dela batere erraza (B.K. Euren

paletako jarduera eta amatasuna nola uztartzen dituzten eta egiten dituztenetan hurrek nolako eragina duten aztertu beharrekoa da, aurrez esan bezala, bai ala bai).

Pilotalekua

Hitz egiten egin dugun tartetxo aprobetxatuz harmailak utzi eta zutik gelditu gara, saioari ekiteko prest.

Beroketa

Mugimendu artikularrak eta luzaketa pare bat egin ditugu zuzenean korroan gaudela, gaur ere korrika saiorik gabe: besoak, orkatilak, eskumuturrak, etab.

Ezker hormaren kontra jarri gara pilota banarekin, kolpea ongi egitea barneratzeko, azpiko kolpea landuz berotzen. Gaur 4 gaude hasieran eta espazioan ederki kabitzen gara.

Hasi edo hastear gaudela Aizpea iritsi da eta bost gara. Halako batean Izaskun ere hurbildu da, 19:55 izango ziren ordurako, beraz, 6 gara eta estuago jarri behar izan dugu ezker hormaren aurka. Azpiko kolpea erabiliz berotzen jarraitu dugu, kolpeak ezker eta eskuineko besoekin eginez.

Ariketak

Saioko zati nagusia hastera goaz: alboko kolpea lantzea da helburu nagusia.

Azalpena ematen hasi da Haizea eta denok adi-adi gaude berak esan eta egiten duenari begira. Pilotarekiko distantzia gehiago uzteko, kolpearen altuera kontrolatzeko eta pilotara diagonalean gerturatzeko dio, laburtuta. Baita kolpea aurrean egin behar dela ere. Azpitik “ipurdikoa” jotzen bada kasu honetan “zaplaztekoa” dela esan du.

Zalantzak sortu zaizkio distantziarekin bakarren bati eta alderantziz izango zela uste zuela esan du. Haizeak orduan erantzun dio azpitik jotzean pilota gertuago dagoela gorputzetik, bere eta ikaslearen paletak gerturatuz pilota jotzeko keinua eginez. Nik lagundu egin nahi izan diot argibidea ematen eta tartean sartu naiz: “barkatu, Haizea, eh, baina zuk pilotarekiko beharrezko tartea uzten ez baduzu (gorputzarekin mugimendua eginez) edo besoa tolestuta joko duzu, eta hori ez da egokia, edo mugimendu arraroren bat eginda”. Orduan buruarekin baiezkoren bat edo beste ikusi dut taldean, nahiz eta erabat aurpegi komentzituak ere ez dituzten zenbaitek.

Beldur eta errespetuaren arteko zerbait sumatzen zaie aurpegietan, kezka eta zalantza puntutxo bat, beharbada (B.K. Ikasketa prozesu guztietan izaten den zerbait iruditzen zait niri, baina, uler nezake “beldur eszeniko” hori).

1. Banaka jarrita, ezker hormaren aurka, alboko kolpean piloteatzen saiatu.

Beti alboko kolpea egitea lortzea eta aurrez landu edo barneratu gabea denean ez da batere erraza eta emakumeek ez dute nahi bezala asmatzen. Hori ikusita, aldaera bat egin du Haizeak. Azpiko kolpearekin pilota prestatu eta ondoren albokoa egiten saiatu, biak tartekatuz.

Ni ezker-ezkerrean ari naiz, frontoiaren aurreranzko ikuspegi osoarekin, tarteka besteei begiratu zer moduz moldatzen ari ote diren. Aldamenean Izaskun daukat eta besoa zurrun-zurrun jarrita ari da. Esan dit kolpea gogorragoa egiten zaiola, antinaturala eta indar gehiagoz eman behar zaiola azpitik baino. Konturatu naiz, orokorrean, denek atzean jotzen dutela pilota eta, gainera, besoa eta gorputza erabat tentsioan jarrita dituztela. Beraz, ez da hain arraroa kolpe antinaturala eta ortopedikoa iruditzea. Deseroso ari dira eta nabaria da euren keinu eta hitzetan ere. Bakarren batek hala bota du, “baina hau ikasten da, ala?” eta “ezkerrez ere egiten al da hau?” Jardun luze xamarra egin dugu horrela (B.K. Luzeegia neure iritzirako, aspertu/nekatu egin naiz) eta nik behaketan aritzeko aprobetxatu dut, besteak beste. Haizea alde batetik eta ikasle batengandik hurrengoarengana dabil, azalpenak emanaz etengabe eta bere laguntza eskainiz. Emakumeak, berriz, lehen bezalatsu sumatzen ditut nik neure distantziatik.

Haizea bera ere konturatu da ez direla gehiegi gozaten ari emakumeak eta binaka jartzeko esan digu.

2. Binaka jarrita, batek azpiko kolpea aldioro, pilota prestatuz kideari, eta besteak albokoa. Ondoren rolak aldatuko ditugu.

Ni Izaskunekin tokatu naiz eta nik ba omen dakidala eta berak albokoa egingo duela esan dit. Nik ados nagoela. Aldaketa egitean ere berak albokoa eta nik azpikoarekin jarraitu dugu. Nik, ordea, tarteka albotik ere eman diot. Beste bikoak Jaione eta Aizpea eta Idoia eta Ester dira.

Ni konturatu naiz besoa erabat zurrun darabilela, ukondotik tolestu gabe eta kolpearen amaiera behar bezala egin gabe. Hori aipatu diot, pilota gerri eta sorbalda parean jo dezala, eta horrez gain “ya” esanez lagundu diot kolpe-unea zein zen adierazten, pilota aurrean jotzeko eta indarra emateko, ez dela ukitze soila, norabidea emateko. Hori gustatu zaio, ikasteko lagungarria baita kanpoko laguntza modu hau norbera konturatzen ez denean kolpea noiz eman behar duen.

Hasieratik amaierara alde pittin-pittin bat nabaritu zaio. Gutxienez besoa pixka bat soltxeago mugitu du eta aurrean jotzen ere tarteka asmatu du Izaskunek.

Aldamenean Jaione eta Aizpea ere ariketak aurrera egin ahala hobetxeago moldatzen ari dira, Haizeari esan baitiote pilota beste indar batekin ateratzen dela azpiko kolpearekin alderatuta. Honek baietz erantzun die.

3. Aurrean, bi ilaratan jarrita. Eskuineko ilaran 3 eta ezkerrean beste hainbeste. Haizeak pilota prestatuko die eskuinekoei eta hauek albotik jo beharko dute, ondoren ezkerrekoek azpiko kolpea eginda sekuentzia amaituz. Norbere ilaran atzera joan eta ondoren aldaketa, Haizeak esatean (4-5 kolperen ostean).

Ezkerrean Ester, Aizpea eta hirurok eta eskuinean Izaskun, Idoia eta Jaione hasi gara.

Haizeak esan die nabarmen jotzen dutela pilota atzean, zaplaztekoa ere ezin dela atzean jo aurpegia nabarmen harrapatu nahi bada. Adibidez, une batean esan die paleta berandu prestatzen dutela eta orduan ezinezkoa dela kolpea aurrean egitea. Horregatik, paleta aurretik prestatuta eramateko esan die, ortopedikoa irudituko zaiela, baina hori izan

litekeela modua aurrean kolpea egiten asmatzeko. Halako batean hor joan da Izaskun paleta ordu erdi lehenago aterata zeukala kolpea egitera eta beste denok barrez lehertzen hasi gara, bakarren bat malkoak isurtzeraino. Niri egokitu zait justu hurrengo azpiko kolpea egitea eta nahikoa lan itxuran ematen barre egin beharraren barre egin beharraz. Minutu batean irribarreak ikusteko behintzat balio izan du. Egoera dezente xelebrea izan da.

Esanguratsuak izan dira ariketa honetan zehar entzundako esanak ere. Besteren arten “hemen behintzat badakigu hau egiten” ezkerreko aldera mugitzean edo “hau irteten al da?” Askoz ere lasaiago aritu dira ezkerreko aldean tokatzean eskuinekoan baino. Ez dute nahi bezala kolpeak egitea lortzen eta frustrazio puntu bat sumatzen da.

Aizpeak, adibidez, azkarregi egiten du pilotaren bila joateko ibilbidea; Idoiak ere bai eta kolpea goitik egiten bukatzen du; Jaionek gehiegi itxaroten dio boteari, etab. Haizeak bakoitzak kolpea egitean zuzenketak egiten dihardu “ez, itxaron, ez joan hain azkar” eta tankerakoak gehienetan. Nik jotzean nigan arreta jarri du bakarren batek.

Ariketa hau amaitutzat ematean Haizeak argi esan du: “zer, hain zaila egiten al zaizue? Orain baldintzarik gabeko partidak egingo ditugu aurrean eta desfogatu”. Ariketa amaitu aurretik ere bota du uneren batean “gero partiduak egingo ditugu”.

4. Partidak, 1:1 aurrean. 3 tantora.

Bina partidu:

- | | |
|----------------------|--------------------|
| - Ester eta Idoia | - Idoia eta Aizpea |
| - Aizpea eta Izaskun | - Izaskun eta ni |
| - Jaione eta ni | - Jaione eta Ester |

Aurrekoa amaitzean erdikoak aurrera eta aurrekoak erdira joan dira. Haizea atzeko bi eremuetan dabil, alboko kolpeaz hitz egiten eta laguntza eskaintzen emakumeei.

Atzean piloteoan Jaionerekin aritu naiz lehendabizi eta berak esan dit beranduegi ematen diola pilotari, atzean. Nik esan diot lasai egoteko, saiatzeko kolpea pilota begien bistan duela egiten eta albokoa erabiltzen dutela zenbait unetan (bi paretak bota edo moztean), beste kontu bat dela kontziente izatea, baina, lortuko dutela hori ere. Bada ez bada ere besteren batek entzuteko moduan ere esan dut, emakumeak pixka bat animatu nahian.

Lehen partida errondaren ostean astia geratu denez bikoteak nahasi ditugu.

Bigarren errondan Izaskunekin tokatu zait eta honek une batetik aurrera kolpe ia guztiak ezkerrez egin ditu, eskuin besoa nekatuta sumatzen duela eta, bada ez bada ere. Besteren batek ere egin du hurrengo eguneko gihar-minen gaineko aipamenean bat eta nik esan diet “bihar denok gogoratuko zarete Haizearekin”.

Partidetan tantoa egiteko intentziorik ez dute agertzen ia inoiz, eta piloteatzera mugatzen dira. Eurak mantentzeko gai badira eta nirekin egokitzen zaienean fisikoki ere besteetan baino pixka bat gehiago nekatzen dira, tantoak luzeagoak baitira iraupenez. Jaione nekatu da nirekin eta atzera joatean Esterrekin jarri denean esan dio “orain relax pixka bat”.

Ordurako Aizpearen bikotekidea hurbildu da pilotalekura eta Izaskunekin hitzen batzuk elkartrukatu ditu. Baita Haizearekin ere, Aizpeak pilotaren bila joateko duen presa ikusita horren harira.

Aurreko azken partida amaitu denean, Jaione eta Esterren artekoa, ia ordua da eta Haizeak esan du luzaketak egingo ditugula, gaur gainera, besteetan baino garrantzitsuagoa izango den ustean, saioak eman duena eta bertan erabilitako kolpe motak (ia-ia bakoitzak bere ukitu pertsonala emanikoa) ikusita. Besoak luzatzen jarri du indarra batez ere eta hankakoak ere egin ditugu. Alboko kolpea egin nahian kolpe txar bat baino gehiago izan dira eta litekeena da hori biharamunean nabaritzea, gihar-minak sentitzean. Bitartean Zarauzko mediku-azterketarako Jaionek ordua baduela eta hiru bat ordu laurdeneko iraupena duela esan du, elektro bat, bizikletan esfortzu proba, etab.

Saioa amaitu da eta tantaka-tantaka etxeratzen hasi gara. Aizpea akordatzerako joan da eta usurbildarrek ezagutzen dute mutila eta saio amaieran alde egin dutenean hala esan du bakarren batek: “hau honekin al dabil? Nik besteren bat zela uste nuen. Adarra jo behar diogu!” Orduan besteren batek gehitu du “zenbat gauza ikasten diren ikastaro hauetan”. Nik eta Haizeak irribarre egin dugu.

Batzuk eskuinera, besteak gora eta gu kalean behera abiatuta agurtu dugu elkar datorren astera arte. Bidean Haizeak esan dit gaur une batzuetan ez duela oso ongi pasa berak ere saioa ematen, ez zekiela oso garbi zer eta nola azaldu eta ez zaiola batere erraza egin. Pentsatu omen du saioa ez ote den oso egituratua izan eta zalantza edo kezka puntutxo bat nabari zaio alboko kolpearen harira. Horrez gain, esan dit orain bere burua aztertzen hasi dela pilota jotzeko garaian, aurrekoan partidari hala aritu zela une batean, auto-analisan murgilduta, eta konturatu dela zenbaitetan ez duela paleta behar bezain tinko eusten. Saiotik asko behatzen duela eta orain bere joerekin konturatzen ari dela esan dit. Elkar agurtu dugu, larunbatera arte edo asteazkenara arte oso ongi jakin gabe, litekeena delako Zestoan larunbatean berriz ere elkar topatzea, gu agian joango baikara arratsalde pasa.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Interesgarria eta orain arteko saioetan ezberdinena nabarmen gaurkoa izan da. Ikasketa prozesuan alboko kolpea lantzen hasi gara, Haizeak aurreko astean esan bezala. Orain arteko saioetan bizi izan ez dudana egoera batean aurkitu naiz/gara gaur eta “ezina ekinez egina” esaerarekin akordatu naiz uneren batean edo bestean. Frustrazio edo etsipen izpi bat nabari zitzaieen batzuei eta hori ere nonbaitetik hel dakioken gaia izan liteke, ea gauza berriak barneratzen hasten direnean nola jokatzen eta sentitzen duten.

Gaurko saioa arraroa izan da hein batean, emakumeak ere ez ditudalako ohi bezala gozatzen ikusi, baina, nik irri iheskor bat izan dut, beste arlo batean aberasgarria iruditu baitzait niri.

Usurbilgoa ez da oraindik osatutako taldea nire iritziz, baina, nabarmena da barruan batzuk besteekin elkar ezagutza handiagoa dutela. Hala ere, integratuago nago kanpoan baino eta hori ez da txarra.

Gaur une batean Haizea lagundu eta taldekideak lasaitzeko beharra sentitu dut eta azalpen bat eman dut, alboko kolpearekin hastean. Egia esan entrenatzaileak ondo hartu du (gaitz-erdi!) eta taldekideek ere bai. Ez ote nuen hankarik sartuko?! Uxue entrenatzaile-laguntzailea esnatu da hain justu ere une horretan.

Gaur Izaskunek ez du azken saioko errezelarik azaldu eta esan baino gehiago adierazi dit laguntzeko. Alde horretatik nahikoa gustura geratu naiz, kezka edo beldur puntu bat banituen. Ea kontuak bide honetatik jarraitzen duen.

Ea datorren astean zer dioten biharamunaz eta alboko kolpeaz. Ikusiko dugu!

Astea normalean saio honekin amaitzen badut ere kasu honetan bi herenak eginda noa etxera, ostiralean izango baita Hernaniko saioa. Beraz, nire asteko planifikazioan lan hauek ohi baino beranduago bukatuko baditut ere egingo ditut eta hala beharko du.

Asteko azken hitzordua

Gaur, ostirala izan arren, astelehenean izan ohi dugun saioa egiteko zita daukagu Hernaniko pilotalekuan. Ohi baino ordu bete lehenago hartu dut bolantea eskuan, aurrez igeriketa saio bat egiteko erronka jarria baineukan. Beraz, 7etarako jaiki eta 7.50erako errepidean nintzen.

8.30ean hartu dut kiroldegira sartu, aldatu eta putzurako bidea. Igerilekutik irtetear nintzela Inesekin topo egin dut, eguneroko bere hitzordura txintxo asko azaldu da hau, kale berean ibili gara hara eta hona, eta gaur ez dela etorriko esan dit, anaia hil berria dutela eta nahiago duela bertan joan-etorrian geratuta. Hala ere, esan dit hankan traba moduko bat ere sentitzen duela tarteka, begiratzera joatekoa dela, baina espero duela ez dela ezer izango, berak ez lukeela paletako saioa utzi nahi eta. Hura agurtu eta 9.30 puntuan agertu naiz sarrerara, egur dezente hartuta (baina 1 km. eginda) eta neke puntu batekin, tornuaren beste aldean, ezohiko ikuspegitik taldekideei begira eta zain.

Kiroldegiko sarrera

Tornuaren beste aldean nintzela harreraren ezaguna dudala ez naiz ohartu eta berak deitu eta azkenean harekin hitz egiteko aitzakian ni ere pasa naiz sarrerara, hesiz beste aldera. Leire, ondo bidean urtarrilean taldera gehitu nahi lukeenaren, koinatua du eta ama izan berri denez haurraz eta antzerakoez aritu gara.

Gemma, Ainara eta Rakel daude bertan dagoeneko eta berehalaxe heldu dira Zuriñe eta Jone eta Saioa ere. Azken honek esan du astearteetako taldean jende oso gutxi dabilela eta ea kasualitatez norbaitek taldez aldatzerik ba ote leukakeen. Erantzun diote ez dela ordu egokia eurentzat.

Nik ere amaitu dut gure hizketalditxo eta taldera gehitu naiz. Esan diet Inesek esan didala bera eta Miren ez direla etorriko eta esan dute Malen eta Naiara ere ezetz. Beraz, denok gaude.

9.40 jotzear dira eskaileretako bidea hartu dugunerako. Ni, Gemma eta Saioa atzerago goaz, azkena telefonoz hizketan geratu denez ni zain geratu bainatzaio. Atera heltzean

itxita dago, beste laurak sartuta daude dagoeneko, eta tinbrea jo eta irekitzeko zain geratu gara azken pasilloan aurrera egin ahal izateko.

Pilotalekua

Saioa, Gemma eta ni atzetik sartu garenerako Ainara, Rakel, Zuriñe eta Jone saioari ekiteko pronto daude. Azken honek logalea duela dirudi eta amak erantzun du esanez ia-ia ohe eta guzti ekarri behar izan duela, loak hartu duela eta. Orduan, besteek, adarra jotzeko makina martxan jarri eta gauetan berandura arte eta zertan ibiltzen ote den galdetu diote eta honek ezetz, hamaikak bueltan erretiratzen dela.

Ainarak Saioari esan dio ordurako 5 itzuli emanak zituztela pilotalekuan korrika eta honek erantzun diot baietz, sinetsiko diola. Nik erantsi diet ni gaur berotuta natorrela.

Beroketa

Gaur ez dugu korrika saiorik egin, Saioak berak ere nekatuta dirudi, aurrekoetan baino itzaliago, eta zuzenean korroan jarrita mugimendu artikularrak egin ditugu. Ondoren, pilota eta paleta bana banatu dizkigu Saioak eta ezker hormaren aurka piloteatu dugu. Ni frontisetik gertu xamar nabil, Joneren aldamenean. Honek ea lasaiago nabilen eta nik pixka bat baietz erantzun diot.

Ezker hormaren aurka piloteoan ari garela ahots ezagun batzuk entzun ditut pasillotik barrena. Hara non Laida, Ziortza, Haizea eta Idurre sartu diren frontoian, entrenatzeko intentzioarekin. Hernaniko pilotari federatuetako batzuk dira eta harritu egin dira, aurrekoetan eurek ordu horretan pilotalekua libre aurkitu baitzuten. Orduan elkar agurtu eta niri galdetu didate ea ostiraletan egiten dugun saioa eta nik ezetz esan diet, baina, aste honetan pilotalekua ez zegoela libre astelehenean, bide heziketa saioak medio, eta egunez aldatu genuela saioa. Saioa hurbildu da eta berarekin hizketan utzi ditut, nik piloteatzen jarraitzeko bidea hartuta. Azkenean tratua egin dute eta Saioak esan die 11.00etan bukatuko dugula, beraz, nahi badute kafe bat hartzera joan daitezkeela eta ondoren entrena dezaketela.


Tartetxo batean behaketan izan ditugu lau pilotariak eta besteak beste Idurrek galdetu dit ea nik saioetan parte hartzen dudan eta nik baietz, hiru taldetan nabilela tesia dela eta. Aldi berean, Haizeak (Usurbilgo taldearen entrenatzailea da, besteak beste) esan du jendea dezente kontrolatzen ikusten duela, airez eta horrela, bereak ez direla maila horretakoak. Nik erantzun diot baietz, baina, bakarren bat ez zela pilota jotzeko gai bigarren botean ere hasi zenean eta nire taldekide askorentzat 5. ikasturtea dela aurtengo hau. Azkenean, gero arte esan eta elkar agurtu dugu.

Halako batean ezker horma utzi eta saioaren atal nagusiari ekiteko unea heldu zaigu jadanik, 10.05 inguruan, Saioak marrak jarri baititu dagoeneko ondorengo ariketetarako lurrean eta hormetan, gerorako denbora aurreztu asmoz.

Ariketak

Zizurkilen askotan bezperako saioko ariketak egiten ditugu, ia saio berdintsua, eta gaur ere hala izango dela dirudi, hormetan itsatsita ikusi ditudan marrarik gehienak asteartean ere bazeudelako.

1. Ilara batean jarrita, frontisa luzeran hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, eskuinekoa eta erdikoa. Bata bestearen atzetik kolpeak gune horietara bideratu behar dira txandan-txandan. 6 kolpe jarraian bidaltzea lortu ezean ezin da hurrengo gunera pasa. Sekuentzia ezkerre-erdia-eskuina-erdia-ezkerre-... da.



Ni berotu naiz dagoeneko eta jertsea harmailetan uztera noa hasi aurretik. Ariketa hasteko badirudi inork ere ez duela lehenengoan izan nahi, atzeraka baitoaz, ihesean edo. Orduan, Ainarak hartu du pilota eta bera hasi da.

Hasiera ez da oso itxurosoa izan, lehenengo hiruzpalau pilotakadak aldrebesak eta okerrak izan baitira, huts inozodunak. Gero, ordea, lortu dugu dinamika hartu eta ariketa itxuratzea. Hala ere, tarteka pilota motz geratu edo gaizki kalkulatuta akatsak ere izan dira (B.K. Zizurkilen hobeto atera zen ariketa hau nire iritziz, jarraitasun handiagoarekin).

2. Frontiseko hiru guneak mantenduz, baina, kasu honetan bikote bakoitza gune baten parean jarrita. Erdiko bikoteak erdikoa ez beste bi guneetara bidera dezake pilota (ezkerrera edo eskuinera), eta beste bi alboetan daudenek, berriz, erdiko eremura baino ez.

Saioak 2. ariketa azaldu aurretik niri zuzenduz esan du “zuk ez duzu ezagutuko, ezta?” eta nik baietz erantzun diot. Emakumeak harritu egin dira eta bakarren batek esan du “beraiek dute zertaz ari diren”. Orduan nik esan diet asteartean ariketa hau egin genuela negatik ari zaidala niri. Esan du asteartean ez zitzaiola gustatu nola ateratzen eta bat egin asmo diola eta nik esan diot negatik lasai egoteko. Hala ere, erantzun zidutenez Hernanin zaude, hau Hernani da” eta orduan ez aldatzea erabaki du. Orduan bestearen batek esan du “ea orain burutzea lortzen dugun”.

Pare batek azalpena entzun ondoren ez dute erabat garbi zertan datzan eta gazteleraz ere eman du azalpena Saioak, eurei zuzenduta. Oraingoan badirudi baietz, argibideak argiago daudela.

Eskuinean Gemma eta ni, erdian Zuriñe eta Rakel eta ezkerrean Ainara eta Jone jarrita gaudela hasi gara. Hasieran ilaretako aldaketak nola egin ez da oso garbi geratu nonbait, Saioak ez du erabat garbi azaldu, eta Zuriñe nahi gabe ilaraz aldatu da, erdian kolpea egiteko hutsunea utziz. Ilaran kolpe bat egin eta bikotekidearen atzean jarri behar da. Errotazioak, berriz, eskuineko eremutik erdira, erditik ezkerrera eta ezkerretik eskuinekora egingo ditugu. Orduan, Saioak hirugarrenez azaldu eta “orain bai, eh” esanez berriro ekin diogu. Bai, hirugarrenean bai!

Itxuroso atera da ariketa, frontiseko guneak kasurik gehienetan errespetatuz pilotari norabidea emateko orduan. Amaieran Saioak “oso ondo” esan du, ez izugarri indartsu eta Jonek erantzun dio “ez duzu animo handiegiarekin esan”. Berak baietz dio eta “ondo pasa al duzue?” galdera erantsi dio. Nik uste denok ohartu garela ez dagoela bere gorputzaldirik onenean.

3. Txokotan, frontiseko hiru guneak mantenduz. Baldintza da aurreko kolpean pilotak jo duen eremura ezin dela bideratu pilota frontisean. Bakoitzak 2 bizitza. Kanporatuak izan ahala atzeko eremura, besteek amaitu arte itxarotera. Pilota jo eta 6. koadroko marra zapaldu behar da.

Hasi eta berehala zalantzazko jokaldi bat egon da eta Zuriñe eta Jone biak bila joan badira ere azkenean bietako inork ere ez du kolpatu pilota. Orduan, ez dakit alabak zer esan duen, broma giroan noski, baina zerbait esan du, eta guk adarra jo diegu trapu zaharrak ateratzen ez hasteko esanez. Saioak esan die erdi bana jartzeko.

Gaur marra zapaldu beharra ohi baino neketsuago eta exijenteagoa gertatu da eta are nabarmenagoa lehena kaleratzean, bost baino ez garelako geratu eta korrika esprintean egitea beharrezkoa izan da, arnasa berotzeraino.

Ni 3.a kanporatu naiz, txapa bat jo eta pilota ezker hormari itsatsita zetorrenean 2. aldiz jarraian ezkerreko gunera bota baitut. Orduan atzera gehitu natzaie Jone eta Rakeli. Hauek piloteoan ari dira eta justu ni hurbiltzean errebotetik gorago dagoen pasillora joan zaie pilota. Rakel bila abiatu da eta gu zain geratu gara. Errebotearen ezker aldean kontrakantxan zintzilik dagoen erlojuari begira “ya 10.20 dira?” galdetu dit Jonek, saioa azkar pasatzen ari zaion seinale. Rakelek pilota behera bota digu eta Zuriñe etorrita piloteatzen jarraitu digu. Berehala deitu digu Saioak denoi aurrera, ariketa aldatzeko. Gemma eta Ainara geratu dira azkenak.

4. 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan.

- Frontiseko eremuan. Lehengo hiru guneak mantenduz, ezin da kideak botatako eremura bidali pilota hurrengo kolpean. Baldintza bakarrak beteko du.
- Erdikoan (5-7). Pareta bi gunetan, ezker eta eskuinaldeak. Batek libre du nora bota eta besteak baldintzatua. Kideak botatzen duen kontrako gunera bidali behar du frontisean.
- Atzean (7-errebotea). Baldintzarik gabeko partida.

Saioak egin ditu bikoteak eta berak esan digu zein eremutan hasiko garen ere: Beloki ahizpak aurrean, Rakel eta biok erdian eta ama-alabak atzean. Ainarari gaur ere “ze ondo” batek ihes egin dio atzeko eremuan baldintzarik ez dagoela entzutean.

Saioak esan digu 5'ko partidak jokatuko ditugula gutxi gorabehera eta berak abisatuko digula aldaketetarako, berak zehaztuz zein aurrera eta zein atzera joan.

Rakelekin aritu naizenean erdi inguruan trukatu egin ditugu rola eta ezkerrekin huts batzuk egiten baditu ere, berak esan dit paleta ere modu ezberdinean hartzen duela, ari da pilotara hobeto jartzen pixkanaka-pixkanaka. Niri taldean geroz eta integratuago dagoela iruditzen zait.

Bigarren errotazioan, berriz ere erdian, Ainara eta biok jarri gaitu Saioak. Ni hasi naiz baldintzarekin eta bera gabe. Hala ere, aurrekoan Zizurkilen izaniko irudipen bera sortu zaigu bioi, une batean baldintza betetzen ari dena “erosoago” ari dela bestea baino.

3. errotazioan Gemma eta biok atzean aritu gara. Honek galdetu dit ea Leirek noiz hasteko asmoa duen eta nik esan diot ahal balu urtarrilean. Aurreko ostiralean ikusi zuela eta haurdunaldian zaintzen aritu dela eta berak posible izango duela iruditzen zaiola esan dit, ordu eta erdi delako. Ikusiko dugu unea heltzean.

4. errotazioan berriro ere Ainararekin tokatu zait, atzeko eremuan. Saioak aldaketa egitean esan dit “sentitzen dut Uxue, nire komodina zara” eta nik lasai egoteko esan diot, nik ez dudala inolako arazorik eta.

Ainara eta biok beste erritmo eta bizitasun batean aritzeko gaitasuna dugu. Bera da taldekide iaio eta abilena, nabarmen, koskatxoa ateratzen dio hurrengoari ere. Hala aritzen garenean gogortasun eta neke mailak gora egiten du eta ni tarteka arnasestuka aritu naiz (baita bera ere, noski). Hala ere, nekatuta aritu arren biok ari gara gustura saltsan, elkarri tantoa egitea helburu hartuta.

Dagoeneko bueltan etorri dira lau federatuak ere (10.45 erlojuan), eta begira dihardute kontu kontari.

5. eta azken errotazioan Zuriñerekin aritu naiz aurreko eremuan eta ongi etorri zait erritmoa jaistea ere, paletakoa bakarrik balitz igerilekuan egur dezentea hartu dut eta. Zuriñek bete behar du baldintza eta nik ez, Saioak hala esan omen dio eta. Zuriñeri esan diot une batean nekea sumatzen dudanean tantoa lehenago bilatzeko joera dudala eta esan dit berekin lasai aritu naitekeela. Orduan esan diot igerian aritu naizela aurretik eta harritu egin naizela zer mugimendu zegoen ikusita, kale bakoitzean hiruna lagun. Esan dit bera joaten dela ikastarora, 9etatik 10etara. Ez omen zaio oso erakargarria egiten berari ere, baina, bizkarrerako on egiten diola eta hantxe joaten dela.

Ez da denbora asko geratzen, bost-zortzi minutu, eta Saioak esan digu partida azkarrak egingo ditugula binaka jarrita aurrean.

5. Partidak 2:2 libre aurrean, 2 tantora. Atzean zain dagoen bikotea piloteoan ariko da.

- Ainara + Rakel
- Gemma + Jone
- Zuriñe + ni

Saioak ariketa tanto bakarrera egitea proposatu digu hasiera batean, baina, nik, gutxi irudituta erantzun diot ez ote den egokiagoa izango, akaso, bira jokatzea. Orduan, begiratu eta “tesigilearen ekarpenak aintzat hartzen ditut nik” botaz hala erabaki du. Ainarak “hori tesirako horrela komeni zaiolako” esaten du gehitu du. Adarra jotzeko pronto daudela dirudi eta nik irribarrez erantzun diet.

Gu atzean hasi gara, piloteatzen, aurrekoen zain. Nahikoa azkar etorri dira Ainara eta Rakel atzera eta gu joan gara aurrera. Zuriñe atzelari jarri da, nahiago omen duela eta, eta ni aurrean. 2-1 bukatu dugu.

11.02 dira. Gure saioa amaitu eta azken luzaketen garaia heldu da. Saioak orduan aprobetxatu du ordaintzeko agiriak banatzeko. Beste laurak pilotak berotzen hasi dira gu kontrakantxan ari garen bitartean. Asteburuko partidaz Saioari zerbait esan diot eta galdetu dute ea Hernanin ez den jokatu aurtun jardunaldirik. Orduan esan diegu abenduaren 23an bertan izango direla Ezker Hormako VI. Emakumea Pilotari Txapelketako finalak. Saioari iristen saiatzeko esan diote eta guk zaila izango dela eta Saioak berak kamerarekin grabatzera, argazkiak ateratzera eta afaltzera joango dela bertara, horretarako ere norbait beharko dela eta.

Rakelek martxa egin du eta atzetik abiatu gara besteok ere, Saioak trasteak jasotzean. Ez dakit nondik baina pasabideetan aurrera goazela tesia atera da hizketagai. Ah, bai, Gemmak galdetu dit ea liburutegira joaten jarraitzen dudan eta nik baietz, baina, justu gaur itzuli beharrean naizela eta grabagailua ekarri dudala inpresioak bertan jasotzeko etxera bidean noala. Grazia egin die. Orduan esan diet 2014rako edo bukatuko dugula, aurreikusten dugun tenporalizazioaren berri emanez, edo hala nahi genukeela bederen, eta harritu egin zaizkit. Hala ere, erakutsiko diedala eta jakinaren gainean izango direla. Gemmak zer eta nola idazten dudan galdetu dit (“zer jartzen duzu, azaroaren 18a... nola hasten zara?”), baina, ni Jonerekin ari naiz ikerketan jarraitu beharreko prozesuaz eta ederki egin diot iskin galderari.

Aldageletara bidean Ainara agurtu eta astelehenera arte esan eta bagoaz sarrerara.

Kiroldegiko sarrera

11.08. Saioak astearteetako saioa jende gutxirekin dagoela eta kartela jarri behar du kiroldegian eta nik lagundu diot goiko kortxora, bulegoen aldamenekora. Eskailerak jaitsi eta kanpora bidean Maria agurtu eta ea asteburuan zer partida duten galdetu diot eta zorzea opa. Berak esan dit nekatuta dabilela eta nik animoak eman eta atsedena hartzeko esan diot, beharrezkoa dela eta (B.K. Ederra hasi da gomendioak ematen, badakit, bai).

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur nekatuta, porru eginda nago. Batetik, gauean gutxi deskantsatu izana (5 ordu ere ez ziurrenik), eta bestetik, berriz, igerilekuko eta paletako nekea pilatu zaizkit. Hala ere, eguna goizean goiz zukua ateraz hastea bera ere bada zerbait.

Gaur 6 lagun bildu gara, orain arteko gutxien talde honetan, eta horrek saioa dinamiko eta parte hartzaileagoa bihurtu du. Denbora gutxiagoan egon gara zain, besteak beste.

Asteko azken saioa ostiralean izateak eragin dit asteko azken antolaketan ere, arratsaldean ere oharrak eta kontakizuna tarteko lanean serio eta beltz aritzea tokatuko baitzait. Komenigarria litzateke hori, astelehena ere ohartzeko helduko da eta.

Taldeari dagokionez gustura sentitzen naiz, beste bat gehiago naiz eta horrek asko balio du. Hala segi dezala honek!

Hernani eta Zizurkilgo saioak oso antzekoak izaten dira, ezberdintasunen bat edo beste izaten badute ere eta horrek errazten dit oharrak hartzerakoan eta memorizatzerakoan burutu beharreko jarduna ere, ariketen ezaugarrietan baino arreta handiagoa jartzen

saiatuz, adibidez, inguruan gertatzen edo ikusten dudan horretan. Usurbilgoak, aldiz, ezberdinagoak dira. Begirale bakoitzak bere estiloa du eta hori ere interesgarria da aintzat hartzea azterketak egiteko garaian, emakumeengan nola eragiten duen ikusten saiatuz.

Gaur, bihar, etzi, ... Etzidamu!

Asteburuaren atari-atarian amaitu ditut aste honetako kantzako lanak, ohi baino bi egun beranduago, halabeharrak eraginda. Beraz, bestela asteburuak motzak egiten bazaizkit, egoera honen gainean zer esan nezake? Ostiral arratsalde eta iluntzeak ordenagailuaren konpainian joango zaizkit, gutxienez, oharrei eta kontakizun honi bueltaka, zaldiko-maldikoan lez, etorri eta joan, joan eta etorri, biraka. Eta haurtzaroan, ikastolan, “atzo, gaur, bihar, etzi eta etzidamu” hurrenkera ederki asko iltzatu nuenez nire buru barne honetan, ohartu naiz ia-ia bihar dela eta bi egun (eskas) barru berriro ere hara eta hona, erlojuari, agendari, telefonoari eta, besteak beste, e-postari begira hasita izango naizela.

Batez beste 100 kilometrotako desplazamenduak egin ditut, gainera, bost astegunetatik lautan. Gauzak hala, eta pilaturiko neke fisiko zein psikologikoari bidaien eta errepedeko tentsioaren plusa gehituta, lan erritmoaz ahantzi gabe, lehertuta egotea hain arraroa ez dela esan beharko dut. Ni hala nago, behintzat. Atsedena hartzeko garaia heldu zait.

Datorren asteko planifikazio eta lan-zerrendari errepassoa ematerakoan, gainera, ohartu naiz ostegun eta ostiralean Gasteizen izango naizela, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Nazioarteko Biltzarrean. Aurreko hiru egunetan, aldiz, paletako saio bana izango dut bakoitzean, orain arte lez, Gipuzkoan zehar, eta horiez gain asteazkeneko Gasteizko tutoretza ordurako kodifikazioarekin egindako lehen proba prestatuta behar dut. Horri liburu bat irakurtzen amaitzea ere erantsi beharko nioke. Hortaz, aspertzeko eta zer asma ibiltzeko astirik behintzat ez dut izango (beste behin ere). Ia zerrendan jarritakoak egin eta, komeni bezala, amaitu edo erdi amaitzera irits gintezkeen. Ez litzateke txarra izango. Altza porru!

8. astea. HIRU ERPINAK

Ia-ia 20 saio (baten faltan) osatu edo igaro ditut behaketetan murgildu nintzen lehen egunetik. Batzuetan, askotan ez esatearren, alferrrikako ahaleginetan ari garela iruditzen zait, edo bidean ez naizela nahi beste (eta nahi nukeen abiaduran) aurreratzen ari; baina arian-arian bagoaz. Eta, hori bera, bada zerbait. Gora eta behera, behera eta gora, bide malkartsu, estu, trakets eta ilunetan ia gehienetan (gehiegitan?!), baina, onar nezake oso une motz eta iragankorrak izanagatik, inoiz bide zabalago eta lauagoren batean ibili naizen irudipena ere izan dudala. Hala ere, kopuruak eta zenbatekoak baino gehiago mamiak eta funtsak dute garrantzia, ezta? Beraz, zakua (edukiz eta aztergaiz) betetzeko lanean segi beharko dugu, hori baita garai honi dagokiona.

Azaroa ere igaro da ia-ia, azken bost egunak baino ez zaizkio geratzen, eta, astez aste, 2011ko egutegia geroz eta argalago dakusat, egunero orri bat kentzearen poderioz. Saioen zerrendan ere erritmo berean doaz egunak aurrera eta hasierako saioetako edukiak ere, gutxika-gutxika bada ere, egokitu eta pixka bat zailagoetan eraldatzen hasita daude dagoeneko. Besteak beste pilota jotze hutsetik, edo kolpe sekuentzia lantzetik, pilotari norabide zehatz bat ematera bideraturiko jardunari ekin diogu, asmoa ardatz hartuta.

Astelehenetik asteazkenera pilota, paleta eta frontoi artean murgilduta ibili naiz, kotxeko bidaiak ahantzi gabe. Halaxe osatu dut beste behin ere kantxako lanari atxikiriko hirukia, pantaila aurrean jarri eta gogoeta gogoetarekin eta irudipenak sentipenekin kateatuz amaitzeko.

Artaldean

Asteburua igaro berri denean berriro ere bertarako bidean jarri naiz, azken saiotik bi egun baino igaro ez direnean. Hala ere, gaurkoa da gure ohiko eguna, astelehen goiza.

8.40 pasatxoan etxetik irten eta hauteskunde orokorren haritik irratian sorturiko eztabaida eta balorazioak lagun egin dut etxetik saiorako errepide bidaia. Bidean trafiko handia dabil gaur ere eta Andoainen ezin izan dut ohiko bidea hartu, kamioi bat tarteko, Galarretatik bueltan sartuz Hernanira. Hala ere, denboraz antzera heldu naiz, hasieran berandutzeko beldurra sortu arren.

9.25ean kiroldegi aurrera heldu eta kanpoko bankuan eserita hizketan Malen eta Naiara. Ainara ere badator, baina, ezagunen batekin hitz egiten ari da oraingoz gugandik 50m. ingurura. Egun onak opa eta berehala gerturatu dira beste gehienak ere: Saioa, Rakel,... Gainera, Naiarak esan digu ikastolan bakarren batekin elkartu dela eta esan diola gaur bi berri hasiko direla gure taldean. Justu Saioak gauza bera esan du, “gaur bi berri hasiko dira” eta guk erantzun “badakigu, Naiarak esan digu oraintxe bertan”. Berriak ere etorri dira korrora eta Saioak “Joana eta Irati, berriak” esan digu. Orduan tropel handia izango garela esan du Saioak eta kontatzeari ekin diogu: 12 guztira, Teresak utzi ostean. Leire hasten bada 13. Hala ari garela Miren heldu da eta haren zain geundela esan eta barrura sartu gara.

Bitartean, Naiarak esan du hilabete dela saioetan izan ez dela, batean gaixo, bestean haurrak eta astelehena denez goiza libre daukan egun bakarra, besteren batean etxeko txukunketak egiten geratu zela.

Kiroldegiko sarrera

Jone eta Zuriñe batu zaizkigu taldera eta baita piszinatik bueltan datorren Ines ere.

Tornuetatik pasa txartelarekin eta pilotalekura abiatu gara. Ni hizketan Malen eta Saioarekin eta aurretik talde handiagoa. Beti bezala atzerago geratu gara eta ateari heltzen zain dauzkagu berriak. “Eskerrik asko!” esan eta barrura.

Pilotalekua

Gaur tropel handia gara, orain arteko handiena eta Saioak saioa hasi aurretik esan du astearteetan jardun nahi badu bakarren batek ongi etorria izango dela, momentuz 4 direla finkoak, berri bat animatu delako. Emakumeek adi entzuten diote, baina, inork ez du ezer esan gai horri buruz (B.K. Iruditzen zait jende gehiago izanagatik ere talde izaerak asko eragiten duela eta taldez aldatzea ez dela ordutegi kontua bakarrik, nahiz eta kasuren batean hala den).


Beroketa

Korrika hasi gara denok eta hiru buelta eman behar omen ditugu. Bakarren batek Saioari esan dio ea zer moduz datorren, ostiralean erdi lo omen zegoela eta. Berak erantzun du umorez datorrela. Ondoren korroan jarrita mugimendu artikularrak eta luzaketak. Gemma ez dela azaldu oraindik eta Ainarari galdetu dio bakarren batek eta honek erantzun zerbait izango zuela egiteko. Jarraian, paletak banatu ostean, geronek motxilatik hartu eta elkarri emanez, ezker hormaren aurka pilotatzera igaro gara binaka jarrita. Frontisetik gertuen Malen eta ni, ondoan Zuriñe eta Jone, Irati eta Joana,... Denboralditxo bat egin dugu ezker eta eskuin pilotak elkartrukatuz eta tartean aldamenekoen pilota desbideratu batzuk ere heldu zaizkigu, lurretik arrastaka zein goitik bueltan. Saioak marrak jartzen dihardu, ohi bezala.

Saioak deitu gaitu eta kantsaren erdi inguruan bildu gara. Ariketekin hasterako esan du “aurreko ostiralean etorri zirenek asko kontrolatzen dute” eta guk irribarre egin dugu.

Ariketak

1. Ilara luuuuuuuuuuze batean jarrita, frontisa luzeran hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, eskuinekoa eta erdikoa. Bata bestearen atzetik kolpeak gune horietara bideratu behar dira txandan-txandan. Bakoitzak ordena jarraituz dagokion gunera bota behar du. Sekuentzia ezker-erdia-eskuina-erdia-ekerra... da.



Zalantza sortzen du nola egin behar den eta nik Saioari galdera bat luzatu diot: “eta, aurrekoak berez berari dagokion gunera bideratzen ez badu, nora bota behar da?” Erantzun du guk norberaren kolpea hartzeko aintzat eta ez aurrekoak berea ongi egin duen ala ez. Ez zaio gehiegi gustatu nire itauna, antza, eta “Uxue, pelotazo bat emango dizut” bota du, erdi broman baina ez erabat bromatan. Orduan Ainarak gehitu du

“halako galderak egiten badituzu ez dizugu tesia onartuko”. Laster batean ekin diogu ariketari.

Nik aurrean Jone eta Zuriñe dauzkat ilaran eta atzean Malen, Ainara eta Naiara gertuen. Ohi bezala, ariketan zehar ilaran zain gaudela ere ttor-ttor ari gara. Naiarak ez du nahi bezala asmatzen eta hutsen bat edo beste badarama. Halako batean “nik utzi egingo dut, nahikoa da” edo horrelakoren bat bota du ilarara zetorrela eta Zuriñek erantzun dio “aizu, zu ere hona, besteok hiru urte daramatzagu ikasi nahian eta pilotakada pare batengatik...” Gustatu zaigu bere erantzuna ilaran inguruan gaudenoi eta Naiarak ere bertan jarraitu du. Azkenean bakarren batean asmatu du eta Ainarak aurretik esanikoa onartu egin du “zu joaten zara ez duzula joko pentsatzen eta horrela ezin da”. Berak baietz, pasa ohi zaiola hori eta burua joan egiten zaiola kasu horietan.

Ariketa hau amaitu eta Saioak, “uff, ea oraingoan” esan du, hurrengo egin beharrekoa azaltzean.

2. Frontiseko hiru guneak mantenduz, baina, kasu honetan, ilaran gauden ordenari segiz erdira / ezker-eskuin sekuentziari jarraituz. Batek erdira, hurrenak beste bietara, atzetik datorrenak erdira, ezkerredera edo eskuinera,... Saioak bakoitzari esan dio nora hastera dagokigun, baina, aintzat hartzeko hurrengo bueltan kontrako lekura botatzea dagokigula.

Ariketari ekin diogu eta tartean desfaseren bat edo beste egon den arren, gaizki ulertu eta norabidetze okerrak izan baitira tartean-tartean, nahikoa itxuran atera da. Ilarara bidean nintzen batean Inesek esan dit gaur ni ikusiko ote ninduen aritu dela piszina eta erantzun diot datorren astelehenean saiatuko naizela joaten, bi astean behin joatea bera lorpena dela niretzat eta.

B.K. Berriak zein mailatakoak ote diren galdetu diot neure buruari hasi garenean, taldearen joko-mailara egokitzeko gai izango ote diren, eta ariketa honetan konturatu naiz ez direla hasiberriak izango. Dezente kontrolatzen dutela iruditu zait. Norabidea egoki xamar emateko gai direla dirudi eta ezkerrez baino errebezez jo arren indarra ematen diote pilotari. Saioak esan die paletari gogor heltzeko jotzeko unean.

3. Txokotan, frontiseko hiru guneak mantenduz. Baldintza da aurreko kolpean pilotak jo duen eremura ezin dela bideratu pilota frontisean. Bakoitzak 3 bizitza. Jende asko garenez korrika atzera nora joan erabakitzen ari da Saioa. Erreboteko horma ukitu eta itzuliko gara aurrera, 11 lagun baikara. Nik esan dut “zona pixka bat despejatzeko” eta Naiarak gaineratu “bai, niri ongi etorriko zait pixka bat despejatzeko”.


Kolpea jo eta denok txintxo-txintxo gabiltza aurrera-atzera horretan. Tarteka nik horma bikoren bat edo bota dut, giroa jartzeko asmoz eta Mirenek ederki erantzun dio bati. Korrika saioan atzetik bueltan ni eta aurretik atzera doala bera esan diot “forman zaude, eh” eta irribarrez baietz erantzun dit.

Une batean Naiarak tantoa egin du, esan didatenez bi paretakoa eginda, eta Saioak eskuan dituen kono eta pilotak lurrean utzi eta txalo jotzeari ekin dio. Besteok ere bai eta Naiarak barre egin du.

Jendea kaleratzea ez da erraza, nahiz eta Ines dagoeneko hala dagoen. Orduan Saioak zenbat bizitza geratzen zaizkigun galdetu digu banan-banan eta segitzeko esan. 7 lagunekin geratzean ere errebotea ukitu behar da, beraz, korrika saioa biziagoa izan behar da eta nik hala gabiltzala esan diot Saioari “ito egingo gara horrela”. Hori esan eta nahikoa berehala eman du amaitutzat ariketa.

4. 2:2 egoeran partidak, hiru gunetan. Aurrekoak 6ra heltzean egingo da errotazioa.

- Frontiseko eremuan. Lehengo hiru gunek mantenduz, ezin da kideak botatako eremura bidali pilota hurrengo kolpean. Ezin du pilotak 4tik atzera boterik egin.
- Erdikoan (4,5-7,5). Pareta hiru gunetan, aurreko ariketa bera. Alboko gunek zehazteko kono hori eta urdinak jarri ditu.
- Atzean (8-errebotea). Erdian jarrita dagoen laukian ezin du jo pilotak, bestela, tantoa aurkariarentzat izango da.



Ainarak esan du ea gune berera botatzean aurkariak konturatzen ez badira jarraitu ote daitekeen eta Saioak baietz erantzun dio. Orduan irribarre egin dugu ia denok eta bakarren batek esan du “orduan kontuz ibili beharko da”.

Saioak egin ditu bikoteak, bera ere kontatuz, 1etik 6rako zenbakiak banatuta. Zenbaki berekoak elkartzean ohartu gara Ainara eta biok batera egokitu garena eta moldaketaren bat egingo dugula esan diogu. Azkenean era honetan geratu gara: erdian Miren-Irati eta Zuriñe-ni, aurrean Joana-Jone eta Saioa-Rakel eta atzean Ainara-Naiara eta Ines-Malen.

Erdian hasi gara eta ohartzerako 5-0 edo jarri gara. Miren lasaiago ari da, baina, Irati urduri sumatzen da eta huts egitean nabari zaio halako etsipen puntutxo bat. Hala ere, dezente txukun bete dugu eremuen baldintza, oso gutxitan errepikatuz.

Aldaketan aurrera joan gara, Saioak aginduari segiz, Naiara eta Ainararekin elkartuz. Lehenak esan du “aurrera gatoz atzean irabazita; beno, ez, Ainarak irabazita”. Zuriñe eta Ainara atzelari eta Naiara eta biok aurrelari hasi gara.

Hurrengo errotazioan atzean tokatu zaigu, Saioa eta Rakelen aurka. Hemen ere Zuriñe ezkerrean eta ni eskuinaldean jarri gara. Lasai ari gara Saioa eta biok, elkar gehiegi zirikatatu gabe. Halako batean aurreko eremuan Malen lurrean ikusi du Saioak eta korrika batean joan da harengana ea zer egin duen galdetzerara. Lurretik altxa eta “alarma faltsua” esan du Malenek berak, jokatzen jarraituz. Beste saio batean orkatila berean traba izan zuen eta beste kideok ere horrekin kezkatu gara apur bat. Saioa gure eremura itzuli da, ordea, jokatzen jarraituz.

Errotazioan 4. aldaketa egitean berriz ere aurrekoak errepikatzeko esan du Saioak, bestela nahasgarriagoa zaiola aditzera emanda. Beraz, Miren-Iratirekin berriro. “Errebantxa” deitu diote. Zalantzazko pilotakadaren bat izan da, baina, bere horretan utzi dugu eta nabarmen xamar galdu. Irati gustura nabari da Mirenekin, “joe, nola zabiltzan” esaten baitio tarteka. Ni lasai, Zuriñe animatuz eta Mireni tarteka zerbait esanez, saltsan nabil.

Aurrean berriz ere Ainara eta Naiararekin. Bidean datozela mugikor bat entzun eta deiari erantzutera joan da Naiara. Amaitzean esan digu ama zela eta esan diola palan zegoela eta gero hitz egingo zutela. Jokoan zehar berari pilota lasaiago eta erritmo gutxiagoan botatzean “eskertzen dizut, horrela, denbora emateko” esan dit une batean. Halako batean Saioaren ahotsa heldu zaigu, Naiara pilota kolpatzera doala, “Aupa, Naiara!” eta honek huts egin du. Aspaldi batean esan zion bera ez animatzeko jotzera doanean, urduri jarri eta huts egiten duela eta. Kasu honetan ere hala gertatu da, eta baita aurrez txokotan ari garela ere. Nik esan diot zenbat eta gehiagotan hori esan besteak adarra gehiagotan joko diola. Tanto batean, justu Naiarari bi hormakoa lasai-lasai heltzeko moduan botatzean, erdiko eremutik etorritako pilota bat pasa zaio aurpegi aurretik eta bera erdi hipnotizatuta geratu da, ez aurrera eta ez atzera, oinak lurrari itsatsita baleuzka lez. Orduan, esan du horrelakoetan despistatu eta erdi-blokeatuta geratu ohi dela eta behin baino gehiagotan pasatzen zaiola. Egoera ikusita barre dezente egin dugu laurok, abiatu/ez abiatu horretan xeble geratu delako. 7-6 galtzen amaitu eta azken aldaketan atzera goaz. Aldaketan Saioak galdetu digu ea zer aritu garen barrez lehertzen eta Naiara bera utzi dugu azalpena ematen gu errebotera goazen bitartean.

Jone-Joanarekin egin dugu topo atzeko eremuan eta lasai-lasai dihardugu, partida dela uneren batean nabari den arren. Joanari saioan zehar Saioa pilotari indar guztia ez emateko eta paleta nola hartzea komeni den azalduz sumatu dut eta iruditu zait horrek eragin dizkiola huts pare bat. Besteek ere euren eremuetan saltsan dihardute.

11.02 dira. Gaurko saioa amaitu da eta azken luzaketen garaia heldu da. Bakarren batek presa handixeagoa duela eta Ines luzatu gabe abiatzear zenean Saioak itxaroteko esan eta ordainketarako datuak eman dizkio. Aurreko astean etorri ez ziren beste zenbait ere bai. Orduan Jonek esan du berak Internetetik egin zuela eta ez duela ordainagiria gordeta eta ea Word-en pegatuta duen pantailazoak balio dion. Saioak esan dio baietz, hori ekartzeko hurrengoan, bada ez bada ere.

Gutxika-gutxika trasteak bildu eta kanpora bidean jarri dira gehienak. Orduan asteazkenerako hitzordua zehazten saiatu dira Miren, Jone, Ainara eta Malen, besteak beste. Goizean kiroldegian elkartuko ote diren esan eta orduan esan dute eguraldi ona egitean Jexuxi, Tilosetan egunero jokatzeko aritzen omen den gizonezko bati, aurreko batean esan ziotela bertara joango zirela. Orduan nik erantsi dut uste dudala txarra egingo duela.

Saioa bi berrien datuak jasotzen utzi dugu eta besteen atzetik ni ere kanpora bidean jarri naiz, luzaketaren bat gehiago eginda. Aurretik hirukotearena hurbildu eta berriei emakumea eta pilotaren inguruko tesia egiten ari naizela jakinarazi diet, kanpotik enteratu ez zitezten. Ez didate eragozpenik jarri eta Joanak galdetu dit “argazkirik ez duzu aterako, ala?” eta Saioak erantzun dio “horiek nik ateratzen ditut”.

Frontoitik kanpora abiatzean irteerako pasabideko atea itxita dago, ohi ez bezala, eta tinbrea jo eta harrerakoek zabaldu arte zain egon gara. Jonerekin hizketan noa eta hark esan du hainbeste zubi eta jaiegun izan ostean asteak hasieran luze xamarrak egin zaizkiola eta nik gaineratu diot oraindik halako beste bi falta direla abenduaren 6-8ko zubia heldu aurretik. Orduan jakin dut, hizketaldi horretatik tiraka, irakasle dabilela 4-5 urtekoekin Errenteriako Koldo Mitxelena, lanaldi herenean, eta arratsaldetan bertara joaten dela lanera. Horrez gain panderoa eta txalaparta irakasteko saioak ere ematen omen ditu.

Kiroldegiko sarrera

11.08. Gainerakoak datorren astera arte agurtu, ama-alabak, Malen eta Naiara, eta kotxerako bidea hartu dut. Trasteak jaso eta liburutegira joan behar naizenez saioa nola hasi dugun eta zer oroitzen dugun gogoratu nahian noa espaloian aurrera, nire baitako pentsakizunak gogoratu eta antolatu asmoz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurtik aurrerako saioetan bi lagun gehiago izango ditugu taldean, beraz, momentuz, denok bertaratzean dozena bat osatuko dugu. Talde handia da gure tropela, are gehiago zenbait unetan denok ilaran jartzean eta zain egon behar dugun kasuetarako. Parte-hartzea oso ezberdina izan zen aurreko ostiraleko saioan, adibidez, baina, ez zait iruditzen inork astearteetako taldera igarotzeko asmorik duenik, beraz, moldatu eta baldintzak onartuta jardungo gara.

Gaurko saioan lasaiago aritu naiz, egokituz, batez ere txokotan eta partidetan. Saiatu naiz hurrengo pilotakada nori zuzendua izango zen kontuan hartzen jo aurretik, saltsa sortu eta nire jokoa egokituriko baldintzetara moldatuz.

Taldean erabat txertatuta nago, eta badakit euren kabuz beste goizen batean biltzen direla, baina, ez naiz auto-gonbidapenera heltzen. Ez dakit egin beharko ote nukeen, batetik asteazken goizak ez direlako oso aproposak nire agendarako, eta, bestetik, aldiz, ez didatelako emakumeek eurek horretarako gonbidapenik luzatu gaur gaurkoz. Hala ere, zalantzak dauzkat euren kabuz gonbidatuko ote nauten, besteak beste, badakitelako ez naizela bertan bizi eta desplazamendua handia delako handik hona justu paletan ordubeteren bueltan baino ez aritzeko bada.

Gaur une batean Saioari ariketaren gaineko zalantza agertzean (1.ariketan) bera urduri jarri dela sumatu dut eta gero esan diot nigitik lasai egoteko. Izan ere, nik beste era batean zuzenduko nukeen ariketa, errazagoa iruditzen baitzait aurrekoak huts eginez gero atzekoak aurrekoaren hutsa konpondu eta sekuentzia lehen bezala mantentzea: eskuina-erdia-ekerra-erdia... Agian mingainari horzka egitea zegokidan?

Saioetako giroa nabarmena da, ona da eta konfiantza zein gertutasuna begi bistan daude zenbait kasutan. Adibidez, Naiara animatzeko Saioaren hautuan eta honek esaten dion ezezkoan, edo nirekin ere tesia broma giroan aipatzen dutenean Ainara eta enparauek. Harreman maila eta taldean ematen diren rolak aztertzen hasteko unea heldu zait, agian, deskribapenekin lotuz hori bera.

Asteartea ere badoa

Ohi baino azkarrago doakit astea eta konturatzerako astearte iluntzea heldu zait. Gauza asko darabiltzat esku artean eta horrek gogoeta gutxiago eragiten didalako ote?! Dena dela ere hala da eta hala segi dezala!

Korrika saiotxo bat egin, dutxatu eta abiatu naiz gaurko paleta saiora, 18:55 jotzear zirela. 19:26 ingururako heldu naiz, bidaia ilunpetan eginda. Ni aparkatzen amaitzen ari

nintzela heldu da dagoeneko hain ezagun dudan Volkswagen Polo zilar kolorekoa ere, Saioa bolantean dela.

Pilotaleku ataria

Kotxetik irten eta bertan egon naiz/gara besteak heltzeko zain. Lehenik begiralea iritsi da, motxilan paleta eta pilotak harturik. Biok han gaudela Gurutze pasa da kotxean eta gure parean geratu eta berehala azalduko dela esan digu. Laster batean hurbildu dira Itsaso, Pili, Eli eta Marian ere taldera.

Saioa eta biok igeri egiteaz ari gara hizketan, nik astelehenetan bi astez behin paleta saioa baino lehen 1km. egiteko erronka jarri baitiot nire buruari. Zerbait egiteko jarduerarik azkarrena dela esan diot nik korrika eta bizikletarekin alderatuta, ordu erdian saioa amaituta izan baitezakezu. Elik ere hala berretsi du, esanez bere semeak igerilekuan dauden bitartean ordu erdian 1km. egiten duela berak ere. Saioak esan du bera urteak direla igeri egitera joan ez dela eta guk esan diogu pixkanaka-pixkanaka ohitzen joango dela. Hala ari garela ez dakit nondik depilatzearen gaia atera da.

Halako batean, 19:40 inguruan, barrurako bidea egin dugu.

Pilotalekua

Itsaso azkena etorri zen saiotik lau aste igaro dira eta ea zer moduz ibili diren galdetu diogu, ea gustatu zaion. Berak baietz erantzun du, normalean gustura ibiltzen dela. Hizketan ari garela Saioak esan digu “has zaitezke berotzen” eta hori esatearekin batera hasi gara berotzen.

Beroketa

Korrika sei bat buelta eman ditugu frontisetik errebotera bitartean. Saioak bale esatean korroan jarri eta mugimendu artikularreko ariketak. Hasieran Behobia atera da hizketagai, Itsaso eta Pili jakinmina zuten nonbait, aurreko astean ez baitziren saioan izan. Ondoren ez dakit nondik zehar botalarria atera da (ah, bai, Behobiako koadroetatik) eta horri buruz hasi dira hizketan zenbait: ezin dutela jasan, besteak haurrekin ohitu egiten zarela azkenerako, lagun bat ondoezik dagoenean metro batzuk uzten dituela hurrenak,... Gurutzek esan die, mesedez, gaia aldatzeko, bestela bera ondoezik jarriko dela eta.

Hizketa-gaia aldatzen ez dela ikusita ni paleta bila abiatu naiz harmaila ertzera eta besteren bat ere bai, beroketarekin amaitzeko.

Binaka pilota banarekin piloteatzen aritu gara ezker hormaren aurka. Frontisetik hurbilen Pili eta biok, ondoan Eli eta Itsaso eta errebotetik hurbilen Marian eta Gurutze. Saio luze xamarra joan da, 10-15 minututakoa bai, ziurrenik. Ni luze jota zergatik izan ote litekeen begiratzen jarri eta ohartu naiz Onintza heldu dela eta hizketan ari direla entrenatzailea eta biak. Gustura ari dira antza.

Pilirekin ari naizela aprobetxatuz galdetu diot ea Pilateseko saioetara joaten jarraitzen duen, gogoratzen bainaiz lehen saioan esan zuela Villabonan izan zela eta ez zitzaiola batere gustatu lehen saioa. Ezetz erantzun dit, lehen saio haren ondoren erabaki zuela


bera sufritzera ez dela joango horrelako saioetara, gustura ibiltzera baizik, paletan bezala, eta utzi egin ziola joateari. Nahi ezta ere egunero lanera joan behar izaten dela eta horrekin nahikoa duela erantsi du. Nik esan diot entzuna dudala gogorrek direla ariketak ohitu bitartean, gerri ingurua indartzen omen dela, abdominalak, eta modan badagoela. Berak esan dit talde txikiagoetan egokia izan litekeela, Tolosa inguruan badagoela bereziki jendea gustura dabilen irakasle bat, eta pelbis ingurua indartzeko ondo datorrela eta horrek berari ez liokeela kalterik egingo.

Halako batean Saioak deitu digu, “bale, etorri” eta kantxaren erdialdean elkartu gara.

Elkartu, korroan jarri eta ia berehala Pilik esan dit “suelo pélvico, lehen ez zitzaidan irteten” eta beste bostek aurpegi arraro xamarrekin begiratu digute. Orduan bakarren batek esan du, “zertaz aritu zarete hizketan zuek?” eta nik erantzun “Pilatesari buruz, lasai”. Anekdotak honen ondoren Saioak ariketa azaltzeari ekin dio.

Ariketak

1. Ilara batean jarrita, frontisa luzeran hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, eskuinekoa eta erdiko. Bata bestearen atzetik kolpeak gune horietara bideratu behar dira txandan-txandan. Batek eskuinera, hurrengoak erdira, hirugarrenak ezkerreko eta hurrenkera horretan. Bakoitzak ordena jarraituz dagokion gunera bota behar du. Sekuentzia: ezkerre-erdia-eskuina-....



Saioak azalpena eman ondoren galdetu du ea ulertu ote duten zer egin behar den eta erantzun diote ulertzeko ez dela zaila, komeriak egiten hasitakoan sor litezkeela. Azalpenean gaineratu du bakarren batek, gure aurrekoak, adibidez, bere gunera botatzen ez badu guk ez begiratzeko horri, baizik eta nora zegokigun hara bideratzeko kolpea. B.K. Nik uste hau atzo Hernanin egindako galderaren haritik gehitu duela, bada ez bada ere.

Pili jarri da aurrena, ondoren ni,... Ez dakit ordena zehatza zein izan den hain justu ere.

Ariketa ondo joan da, nahiz eta Onintzak, aukeran, pilota indar gehitxorekin jo eta Eliri dezente zaildu dizkion hurrengo kolpeak. Orduan Gurutzek esan dio “Onintza, ez da tantoa egin behar” eta honek badakiela erantzun (B.K. Ez daukate hainbesteko kontrolik zenbait unetan eta jotzearekin nahikoa dutela dirudi, kidearena hain kontutan izan gabe).

2. Frontiseko hiru guneak mantenduz, baina, kasu honetan, ilaran gauden ordenari segiz erdira / ezker-eskuin sekuentziari jarraituz. Batek erdira, hurrenak beste bietara, atzetik datorrenak erdira, ezkerreko edo eskuinera,... Saioak bakoitzari esan dio nora hastea dagokigun, baina, aintzat hartzeko hurrengo bueltan kontrako lekura botatzea dagokigula. Gurutzek gaineratu du bakoitiak gabela kopuruz, zazpi, eta hori dela arrazoa. Entrenatzaileak “oso ondo, azalpena ere eman dizue” esan eta Gurutzek esan dio “barka bieza andereñoak”, erdi broman.

Ilaran Onintza jarri da lehena, hurrengo Eli, ni, Itsaso eta besteak.

Hasieran denok bete dugu baldintza, baina, uneren batean izan da nahasketa txikiren bat bideratu beharreko eremuekin eta nik orduan, bada ez bada ere, nire 3.kolpean esan egin dut “niri erdira tokatzen zait, eh”. Itsasok ere baldintza bete du eta ariketa birbideratu dugu era honetan.

Ariketa amaieran Saioak esan du, “ondo, eh!” eta bakarren batek bota dio “gustatu al zaizu gure ariketa?” eta entrenatzaileak “bai, oso ondo”.

3. Txokotan, frontiseko hiru guneak mantenduz. Baldintza da aurreko kolpean pilotak jo duen eremura ezin dela bideratu pilota frontisean. Bakoitzak 3 bizitza. Pilota jotako bakoitzean 7ko marra zapaldu behar da.

Lehena Eli kanporatu da eta haren atzetik Pili. Hauek atzera joan dira eta Saioak esan du bikote bat osatuta dagoela ondorengo partiduetarako.


Hasiera xamarrean nik tanto bat egin dut pilota ia ezker hormaren aurka zetorrela jo eta eskuineko eremuan dejada bidez eta besteek “oooh” batekin erantzun dute. Entrenatzaileak esan die “atzo ere ariketa bera egin zuen eta entrenatuta egongo ote da?!” eta nik irribarrez erantzun diot.

5 lagun geratu gara (Onintza, Gurutze, Marian, Itsaso eta ni) eta 7ko marrara korrika egiten jarraitu dugu. Erritmoa bizitu beharra dago heltzeko eta arnas hotsen bat edo beste ere sumatzen dut inguruan. Aldamenetik entrenatzaileak “ederki ari zarete, datorren urteko Behobia preparatzeko” esan du eta Gurutzek “alua!” erantzun. Hemendik aurrera 6koa zapalduta nahikoa izango dela erabaki dugu.

Azkenerrako Itsaso eta biok geratu gara eta amaitzean partidak egiteko unea heldu da.

4. 2:2 (frontisean) eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Aurrekoak 6ra heltzean egingo da errotazioa.

- Frontiseko eremuan. Lehengo hiru guneak mantenduz, ezin da kideak botatako eremura bidali pilota hurrengo kolpean. Ezin du pilotak 4tik atzera boterik egin.
- Erdikoan (5-7). Erdian jarrita dagoen laukian ezin du jo pilotak, bestela, tantoa aurkariarentzat izango da.



- Atzean (7-errebotea). Pareta hiru gunetan banatuta, aurreko eremuko egoera bera.

Zortzi lagun gaude Saioa barne hartuta eta bikoteak, gutxi gorabehera, aurreko txokotako egoeratik atera ditu: Gurutze eta Onintza, Eli eta Pili, Marian eta Saioa eta Itsaso eta ni.

Bikoteak egitean Gurutzek edo Onintzak, ez nago ziur nork (biek agian), esan dute Itsaso eta niri begira “bikote hori ona da, eh, horiek gazteak dira”. Saioak esan die ez diogula beldurrik ematen.

Aurrean Eli, Saioa eta euren bikoteak hasi dira, atzean Gurutze eta Onintza eta erdiko eremuan gu. Gurutzek hasterako esan du atzeko eremua zabala geratzen zela, aurreko astean ere hala aritu ginela gogoratuz.

1.errotazioan atzera joan gara eta 2.ean aurrera joatea egokitu zaigu. Han Gurutze eta Onintza zeuden. Iristen ari ginenerako Onintza ya keinuren bat egiten eta zerbait esaten ari dela ohartu naiz niri begira, “honekin kontuz”, eta nik erantzun diet “nik etorri aurretik etxean askaltzen dut, hemen ez dut inor jaten”. Irribarre egin dute eta jokatzeko hasi gara. Itsaso atzelari eta ni aurrelari, Onintzaren aldamenean, jarri gara. Honek esan du, “ea honek zer egiten didan”. 2-0 galtzen hasi eta 2-2 jarri gara nahiko azkar eta Gurutzek “hau hasi da pilak jarrita dagoeneko” bota du. Partidan zehar gune berera pilota botatzean geratu egin dugu joko eta Onintzak nahikoa lan bazerabilen uneren batean zergatik geratu garen ulertzeko. Orduan esan du “nik jotzearekin nahikoa daukat, guneetan ez naiz fijatzen” eta beste hirurok irribarre egin dugu. 6-4 amaitu da eta gu geratu gara aurreko eremuan.

Atzetik Eli eta Pili datoz eta bitartean nik aprobetxatu dut Itsasori esateko “beldurrarena behin baino gehiagotan entzuten dut nik” eta hark erantzun dit “jo, zu ikusita bakarrik, begira Elik berak zer aurpegi dakarren”. Nik erantzun diot lasai jokatzeko saiatzen naizela eta berak erantzun “zure kolperen batekin deskolokatuta uzten gaituzu eta horregatik da”. Hala dela sinetsi beharko diet, ni laguntzen eta joko ematen ahalegintzen banaiz ere.

Partidari ekin diogu, oraingo honetan postuz aldatuta: Itsaso aurrelari eta ni atzelari. Sakean Itsasok pilota ezkeraldera eta indar dezenterekin bideratu du eta pare bat tanto egin ditu modu horretan. Orduan berak esan du “Eli, ez dut nahita egiten, saiatuko naiz hurrengoan horrela ez ematen” eta honek lasai egoteko erantzun dio. Tanto batean esan du bera saiatzen dela partiduetan lasai jokatzeko, baina, gaingitu egiten duela egoerak, baita bere buruari “Eli, lasai, Eli, lasai” esaten dionean ere. Azkenean 2-6 edo amaitu dugu eta nik “propina beste tanto bat jokatu dugu” bota eta 7a arte jokatu dugu.

Aldaketan berriro ere leku berean jokatzeko egokitu bazaigu ere, irabazi egin dugulako, gure 3.a izango zatekeenez jarraian, erabaki dugu gu joango garela erdiko eremura. Beraz, berriro ere 1.errotazioko egoeran gaude: Eli eta Saioa aurrean, gu erdian eta Gurutze eta Onintza atzean. Atezko eremuan lasto altxatzen aritzeko soka batzuk daude zintzilik, erdi bilduta, baina, irudipena daukat astez aste geroz eta beherago ez ote dauden eta Gurutzek ere egin du atzeko aipamenean bat, pilota altu datorrenean nahasi egin dela edo horrelako zerbait. Orduan Itsasok gaineratu du iazkoa okerragoa zela, eurak saioan ari zirenean bitartean entrenatzen zutelako.

Erdiko gunean hasi berritan Itsasok esan dit ez zaiola gehiegi gustatu ariketa hau, lasai xamar ari garela gaineratuz, eta nik esan diot nahi badu erritmo handiagoan jardun gaitzkeela edo laukian sartzera aritu gaitzkeela. Berak ezetz erantzun dit. Aprobetxatu dut hizketaldian ea bere tesia zertan den galdetzeko, amaierak ez du urruti behar, eta esan dit zuzenketak baino ez zaiola falta eta gaur jarri dela horretan, baina, oraindik ez duela erabat gogoratzen non geratu zen eta zer falta zaion, apuntatu arren, eta gaur baino lan gehiago egin beharko duela. Urte amaierarako depositatu nahi omen zuen, baina, ez omen daki lortuko ote duen.

Aurrean baldintzarik gabeko partida jokatzen hasi dira Eli, Saioa eta euren bikotekideak. Halako batean oihu bat entzun dugu, Piliren ohikoaren tankera zuen, baina, ohartu gara bera makurtuta dagoela eta besteak inguruan dituela. Gerturatu egin gara eta esan du orkatila bihurritu duela eta beste noizbait ere eginda zuela antzekoa. Berak ezin duela, baina, guk saioarekin jarraitzeko esan digu. 20:50 bueltan dira. Berekin partidari aritutakoek esan dute eurak ez direla konturatu nola gertatu zaion.

Eli izotz bila joan da tabernara, inflamazioa ez dadin gehiegizkoa izan, eta Pilik izotza hartzarekin batera etxerako bidea hartu du, herrenka.

Aurrean baldintzarik gabeko partida, 4 tantotara, jokatzeko esan digu entrenatzaileak. Itsaso-ni eta Onintza-Gurutze aritu gara. Gurutze saiatzen da saltsan sartu eta tantoa amaitzen. Atzean piloteoan geratu dira Marian eta Eli, aurretik partidari eurak aritu direla argudiatu baitu entrenatzaileak. Aurretik egin du aipamen ez oso zuzen bat “hori nire erruz izango zen” eta besteok erantzun diogu horrelakoak gertatu egiten direla. Itsasok gogora ekarri du nola Ibarren, orain bi ikasturte, ni bertako taldeko entrenatzaile nintzela, saio berean batek sudurrean paletarekin kolpe itzela jaso (odoletan ospitalerako bidean jarri zen) eta handik gutxira bigarren batek bikian zuntz-haustura izan zuen.

21.01 dira. Saioak saioa amaitu dela esan du eta kontrakantxan luzaketak egiten hasi gara. Orduan aprobeixatu du aurreko saioan etorri ez zirenei ordainketarako papera emateko eta zizurkildarrei esateko udalekoek esan diotela oraindik ez dutela diru laguntzaren inguruko erabakirik hartu, beraz, eurak ordainketa egiteko eta gero ikusiko dutela zer gertatzen den. Orduan esaten aritu dira ekintza positiboak egiten direla beste zenbait kasutan, adibidez, adinekoei eta haurrei ematen zaizkiela beste zenbait gauzarako, eta euren ere laguntza eman diezaieketela. Esan dute Oihaneri, paleta ikastaroko lagunari, esango diotela, zinegotzia omen da eta berdintasuna berari dagokion ataletako bat omen da, GKEak bezala.

Luzatzen amaitu eta etxerako bidea hartzeko unean Gurutzek esan du ez daukala gogorik orain afaria prestatzen hasteko eta besteren batek gaineratu dio hotzarekin zerbait beroa eskertzen dela, entsaladak udarako utziz. Hala heldu gara pilotaleku atarira.

Frontoi ataria

Gurutze, Itsaso eta Saioarekin beste hitzen batzuk elkartrukatu eta autoetarako bidean jarri gara, elkar datorren astra arte agurtu ondoren.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur norbait izan dugu pilotaleku inguruan uneren batean. Saioa hasi eta beroketan ari ginela bi ume ari ziren esprintak egin eta egin harmailen atzealdean, pilotalekuko estalpean, kanpoan euria ari zuela eta. Gero, lehen ariketa egiten ari ginela Naroa ere etorri da Saioarenera zerbaitetara. Hala ere, ez da mugimendu handirik sumatzen saioen inguruan.

Saioan zehar behin baino gehiagotan begiratu diot erlojuari, eta beste zenbait egunetan ere hala egiten dut, saioaren gaineko erreferentzia bat izan dezadan. Ea hasieran gauden, erdi bidean edo amaierara heltzen ari garen. Hala ere, askotan nik izaten dudana

entretanimendu edo “asperdura” sentsazioa eta denboran jarduerak duten iraupena ez datoz bat. Ziurrenik hor zerikusi zuzena izango du nik daukadan uneko egoerak/jarrerak eta motibazio zein animoak ere.

Markagailua eta lehiakortasuna zenbaterainokoa den aztertu behar da, egunetik egunera geroz eta garbiago ikusten baitut oso erlatiboa dela garaipenaren garrantzia. Adibidez, txokotan ari ginela zalantzazko pilota bat erantzun ez dutenean Onintzak berak esan du berak kenduko zuela bizitza bat, ez zitzaiola inporta eta.

Saioak egiten dituen saioak ia antzekoak izaten dira eta horrek asko laguntzen dit saioetan sorturiko zalantzaren bat izanez gero hurrengo saioan argitzeko ere. Gainera, bezperan eginikoa errepikatuta, Hernaniko eta Zizurkilgo emakumeen joko-maila eta ezaugarriak alderatzeko aukera ere ematen dit saioen antolaketa modu honek. Usurbilgoekin zailagoa izango nuke, entrenatzailea eta saioetako dinamika ez baitira berdinak. Konparaketa hauek egin beharko al nituzke? Ala denak bat bezala hartzea komeni zaigu, azterketa modu orokorragoan eginda?

Saioan zehar gustura aritu naiz eta taldekideekin ere hala sentitzen naiz. Beste taldekide bat gehiago naizen irudipena dut dagoeneko. Hala ere, nik sortaraziriko beldurra eta nire presentziak zer eta nola eragiten duen edo dien aztertu beharko ote genuke? Gaur ere aipamenen bat egin diote horri, nahiz eta badakidan erdi brometan aritzen direla, baina, behin baino gehiagotan entzuten dut oraindik ere eta kezka edo ardura puntu bat sortzen dit. Zer egin beharko genuke gai honekin? Nik patxadaz eta lasai jarduten dut, nahiz eta tarteka gaiztakeriaren bat egin. Niri, ordea, ez zait nabarmena iruditzen. Hori egiteari ere utzi egin beharko ote nioke pilotatzera mugatuz?

Saioz saio aurreratu nahian

Gasteizen eguerdi-arratsalde parteak fakultatean (eta pantaila aurrean) igaro eta asteko azken paleta-saiorako bidean jarri naiz arratsaldeko seiak ate joka hasi baino apur bat lehentxeago. Bidaiarako beharrezko denborarekin zalantza egin ostean, bada ez bada ere, eta garaiz heltzeko helburuarekin, heldu diot bolanteari eta jarri dut motorra martxan.

Sarrera

19.20 inguruan autoa aparkatu eta paleta eta txamarra hartu ostean plazarako bidean jarri naiz, pausu lasaian, denboraz ongi nabilela ederki asko baitakit. Lurdes, paletari usurbildarra eta astelehen goizetako saioko entrenatzailea, ikusi dut petrilean eserita eta beregana hurbildu naiz, agurtu eta hitz pare bat egin asmoz. Ea emakumeen saioetan zer moduz moldatzen den eta gustura dabilen ala ez galdetu eta hurrek baino askoz ere kasu gehiago egiten dutela adierazi dit, oso esanekoak direla. Aurrekoan jakin omen zuen ikasle batek 67 urte dauzkala eta harritu egin zuela esan dit. Gustura dago, hasieran beldur eta zalantza puntu bat izan zuela bera irakasten moldatuko ote zen, baina, emakumeak gustura edukitzearekin konformatzen dela esan dit, hainbeste teknika erakutsi beharrik gabe.

Kontu kontari ari garela Aitziber etorri da eta hura ere txertatu da elkarrizketan. Usurbilgo festetako txapelketatik ezagutzen dute elkar, oso oker ez banabil. Une horretan txapelketen inguruan ari ginen, Emakumea Pilotari jokatzeko ari direlako

federatuak asteotan, eta interesa agertu du saio-kideak: ea zenbat emakume dauden, nolako txapelketak jokatzen dituzten, Gipuzkoan zehar non dauden emakume paletariak, etab. Lurdes semea hartu, pilota eskolako entrenamendua amaitu berritan, eta etxera bidean jarri da eta gu federatuen txapelketen inguruan hizketan geratu gara. Laster batean Jaione, Arritxu eta Karmele ere inguruan ditugu. Halako batean asteleheneko saioetako emakume bat ere agertu da, Haizeaz galdezka, hari fotokopiak eman behar dizkiola eta. Bitartean gu txor-txor ari gara honetaz eta hartaz eta plazaren beste ertzetik Idoiak, bi semeekin etxera doanak, “oraintxe nator” esanez kasu egin digu.

Pilotalekua

19.35ean iritsi da Haizea, presaka eta barkamena eskatuz, zuzenean klasetik datorrela azalduz. Probalekuko petriletik harmailetara egin dugu orduan, pilotalekura bertara. Korroan jarri eta Haizeak galdetu digu ea aurreko saioan zer landu genuen eta alboko kolpea erantzun diogu. Orduan galdetu du ea bertan geundenotatik zenbatek egin genuen saioa eta konturatu gara une horretan geundenetatik Jaione eta ni baino ez ginela izan. Hortaz, Haizeak esan du “bada, agian gauza batzuk errepikatu beharko ditugu”.

Zainduko mediku azterketa egin zuela esan du Arritxuk eta Karmelek astelehenean eta Jaionek asteartean daukatela eurek azterketa. Bizikletan esfortzu-proba bat egin zuela eta ordu erdi inguru iraun zuela guztira.

Beroketa

Mugimendu artikularrak egin ditugu lehenengo eta ondoren frontoian zehar korrika saio txiki bat, bizpahiru itzuli. Aurrez irten da nonbaitetik Haizea zubietarra dela eta ni nongoa naizen galdetu dit eta neuk erantzun Urretxukoa naizela esaten dudala, baina, dagoeneko, norbaitek zumarragarra esanda ere ez zaidala ezer pasatzen, beti izan naizela “deskafeinatu” xamarra horri dagokionez. Korrika parean Jaionerekin aritu naiz eta esan diot nire ustez bi herriek bat izan beharko luketela zenbait gauzetan eta egoera berezi batzuk kontatu dizkiot, ez oso zentzuzkoak.

Haizeak, ondoren, saioan, bereziki eta nagusiki, alboko kolpea landuko dugula esan eta gogorarazi du zer ezberdintasun dagoen “ipurdiko” (azpiko kolpe) eta “zaplazteko” (alboko kolpe) bat ematearen artean: distantzia handiagoa utzi behar dela gorputza eta pilotaren artean, altueran gorago jotzen dela, hankak nola jartzea komeni den eta oso garrantzitsua dela pilota aurrean jotzea, zaplaztekoa aurpegian jotzen den era berean.

Azalpenen ondoren Haizeak berak kontatu du aurreko astean ikusi zituela aurpegi ez oso alai batzuk eta onartu du ez dela erraza asmatzea eta denbora behar dela mugimendua ikasi eta barneratzeko. Jaionek erantsi du ez zitzaizela erraza egin. Ondoren azaldu dizkigu entrenatzaileak ezker hormaren aurka egingo ditugun lehen bi ariketak, beroketaren hondarrean koka litezkeenak.

Banaka pilota banarekin lehen 5 minutuetan azpiko kolpea landuko dugu, gehien kontrolatzen duguna hori dela argudiatuz, eta ondorengo 5etan albokoa lantzen saiatuko garela. Une horretantxe konturatu da erlojurik ez duela ekarri gaur eta nik neurea utzi diot.

Idoia ia banaka ezker hormaren aurka hastear ginela iritsi da, familia etxeratuta, eta esan du agian puntualtasunaren saria jaso beharko lukeela ikasturtearen amaieran.

Ni ertzean nago, Jaione, Idoia, Aitziber, Karmele eta Arritxu hurrenez hurren kolpeka dabilzala. Haizea hara eta hona aritu da zer moduz galdezka eta zuzenketak egin zein gomendioak emanez eta niregana hurbiltzean esan dit “Uxue, zuri ez dizut sekula galdetzen, hori igual diskriminazioa izango da” eta nik irribarrez erantzun diot. Bakarren bat alboko kolpearekin hasita dagoela ohartu gara eta galdetu dugu ea dagoeneko hasita behar genukeen horretan. Berak ezetz, berak esango digula noiz hasi albokoarekin. Abisua ematean gogorarazi du pilota aurrean jotzeko, hankak ondo norabidetzeko eta albokoa lantzen hasi gara. Denbora dezente generamanean Jaioneri aipatu diot besoa nekatu egiten dela hainbeste kolpe jarraian norberak jotzean eta hark baietz erantzun dit. Handik oso gutxira ezker hormaren aurka eta banaka eginikoak utzi eta kantxaren erdialdean elkartu gara, 4.koadrotik gertu, Haizeak hara deitu ostean.

Ariketak

1. Bi ilaratan jarrita, bakoitza hirukoa, eta kantxa bitan banatuta. Hirukote bat eskuinean eta besteak ezkerrean jarrita. Bi ilarak independenteak dira eta lortu behar da, ilarako ordena mantenduz eta azpiko kolpea erabilita, piloteo ahalik eta jarraituena mantentzea.

Idoia, Jaione eta ni hasi gara ezkerrean eta eskuinean Aitziber, Arritxu eta Karmele. Gu nahiko itxuran moldatu gara, kolpeak ezker-eskuin elkartrukatuz. Aldamenekoak, berriz, ez dira kabitzen euren eremuan eta pilota dezente etorri zaizkigu norabidea erabat zuzen eman ez diotela eta. Esan dute ez direla hain leku txikian kabitzen eta Haizeak alde aldatzeko esan digu halako batean, lekua arazo ote zen galdera airean utzi ostean. Gu eskuinean eta eurak ezkerrean jarrita ere nahiko ondo moldatu gara.

2. Lehengo egoera bera, baina, azpiko kolpea erabili ordez albokoa egiten saiatuta. Kolpe guztiak albotik jotakoak izango dira (B.K. Niri zaila iruditu zait dinamika hau bete ahal izatea alboko kolpearen kontrol mailari erreparatuta). Handik oso gutxira esan du aldatu egingo dugula, batek azpitik prestatu, hurrengoak alboko kolpea, hurrengoak azpitik eta modu honetan, txandaka ilarako ordenaren arabera.

Gure hirukotean nahikoa jarraitasun izan dute kolpeek eta alboko zein azpikoak ere errespetatu ditugu kasurik gehienetan. Hala ere, Idoiak esan du kosta egiten zaiola albokoaren hori eta Haizeak berretsi du ez joateko pilotaren bila hain zuzen eta azkar, bestela jateko joera dagoela argituz, pasata joz.

Haizea saiatu da zerbait ikustean geratu eta azalpenak ematen. Adibidez, une batean hanketan arreta jartzeko adierazi digu, ongi norabidetzeko eta pilota aurrean jotzeko.

3. Ilara batean jarrita, entrenatzaileak bakoitzari pilota prestatuko digu eta guk horma bikoia egiten saiatu behar dugu. Gaineratu du normalean alboko kolpea erabiltzen dela honetarako, baina, inork asmatu ezean azpitik jotzeko aukera ere badagoela.

Haizeak emakumeak motibatuzeko “emozioa jartzen hasiko gara” bota du ariketa honetan hastean.

Arritxu izan da lehena ilaran eta horma bikoak nola egin behar den galdetu du eta erantzun dio Haizeak lehenik ezker horma jo behar duela pilotak eta honen ostean frontisa. Azalpen hau eman ostean ekin diogu ilaran pilota jo, norbere pilota jaso eta ilarara itzultzeari, Arritxu, Karmele, Jaione, ni, Idoia eta Aitziber ordenan.

Batzuk besteek baino abilezia handiagoa dutela nabari da, joko-mailan taldekideen artean dagoen aldearen ispilu da ariketa bera. Nik nahiko ondo egin ditut lehen biak, zehaztasun handiz, eta Haizeak esan du “gaur Uxuerekin tokatzen zaiona ... kontuz!”

4. Bi ilaratan jarrita, ezkerrekoek horma bikoak egingo dute entrenatzaileak prestatutako pilota joz, eta eskuinekoak pilota txokora moztu saiatuko dira, alboko kolpea erabiliz. Pilota jasotakoan norbere ilarara itzuli behar da, ondoren, entrenatzaileak esatean rola aldatuz.

Niri eramatea tokatu zaidanean Arritxu eta biok tokatu gara parez pare eta niri bi paretakoa egitea tokatu zaidanean, aldiz, Aitziber tokatu da eskuinean. Hark hasterako egin du “uff” edo antzeko zerbait ni ikustean. Nik lasai bota dut, berari denbora ematen saiatuz, altueran pixka bat altuago eta kolpe ez hain indartsua erabiliz (B.K. Antzematen dut saioetan zehar behatzen nautela eredu moduan hartzeko, zenbait unetan, eta ez zait erabat eroso egiten, baina, hori positiboa dela iruditzen zait). Modu berean, tarteka saiatzen naiz gomendioren bat ere ematen. Adibidez, Aitziberrek eskumuturra flexionatzen du kolpe guztietan (“badakit, inebitabilia da”), pilotari indarra kenduz, eta horren harira nik esan diot saiatzeko “pala gogor eutsi, eskumuturra finko mantendu” pentsatzen. Haizeak ere egin dio aipamen hori bera. Jaionek esan du tarteka bera ere konturatzen dela eskumuturra mugitzen duela.

Ariketa nahiko ondo joan da. Bakarren batek bitan errepikatu du, baina, jarraitasun pixka bat lortu dugu eta hori bera bada pozteko arrazoi.

5. Partidak, 1:1 aurrean. 5 tantora. Tantoa horma bikoak eginda lortuz gero +2. Irabazlea aurreko eremuan geratuko da eta besteak atzera joango dira, pilotatzen.

Aurrean nor hasiko ote den erabakitzeko Haizeak bolondresak eskatu ditu eta hasieran inork aurreranzko urratsik egin ez badu ere azkenerako Arritxu eta Idoia hasi dira. Karmele eta biok eta Jaione zein Aitziber atzera joan gara, binaka jarri eta pilotatzen.

Lehen partida amaitzean Arritxu etorri da atzera eta Karmele joan da frontiseko eremura. Ni bakarrik geratu naiz une batean, Arritxuri aurrez telefonoak jo baitio saioan zehar eta dei bat egitera joan baita. Aldamenean Jaione eta Aitziber ari dira albotik jotzen saiatzen. Arritxu hurreratu zait halako batean eta pilotatzen aritu gara. Ea alderik sumatzen duen galdetu diot eta baietz erantzun dit, baina, oraindik baduela zer hobetua.

3. partidarako Idoia geratu da aurrean eta ni joan naiz bere aurka partida jokatzen. Ikustean “uuuh” batek ihes egin dio ezpain artetik. Ni saiatu naiz joko ematen eta lasai aritzen. Bera ere ahalegindu da ni mugiarazten horma bikoak eta ezker hormaranzko pilotakadak konbinatuz. Korrika eginarazi dit, pilotatzen izan da gure jarduna oro har, baina, azkenean 5-0 bukatu dugu, nik bi horma bikoak eta berak huts bat eginda.

Ni aurrean geratu naiz, hurrengo kidearen zain, eta Jaione etorri da atzetik. Ea bi tanto eta erdi jokatu ditugun galdetu dit eta nik erantzun diot pilotatzen izan dugula, emaitza

dena izan bada ere. Partida honetan bera hasi da 0-2 irabazten, bi paretaz egindako tanto bati esker. 5-2 amaitu dugu eta nik aurrean segituko dut honenbestez. Jaione arnas estuarekin geratu da, tantoak luzeak izan direlako, jo eta jo, eta nik Haizeari esan diot neroni izan nintekeela atzeko eremura joan zitekeena. Berak “agian bai” esan du eta Jaionek “ez, ez, ni joango naiz errekueratzera, zuk segi hemen” eta orduan erabaki du “beno, Uxue, irabazlea geratzen da eta segi ezazu, hurrengoan egingo dugu galtzailea geratzen dela” (B.K. Orain arteko saioetako partidetan exigenteena izango zen gaurkoa, gehien estutu nautena orain arte).

Azken kidea baino ez da falta denok partidaren zikloa osatzeko: Aitziber. Ni ikustean egin du aipamenen bat. 5-3 amaitu dugu eta gustura aritu gara, bai bera eta bai ni.

Partidak amaitu ostean Haizeak denoi deitu digu eta txokotan jokatuko dugula esan du.

6. Txokotan. Tantoa horma bikoz lortuz gero +1. Bakoitza 3 bizitzarekin hasita (Haizearen bertsiotan “bi eta propia”).

Korrika egin nahi ote duten edo ez erabakitzen emakumeei eurei utzi die eta hauek “bai, korrika eginez” esan dute. Orduan erabaki dugu 6a baino aurreraxeago dagoen pitzatua zapalduko dugula norberak kolpea egiten duen bakoitzean hurrengo egin baino lehen.

Hasi eta Idoiak esan du bera orain arte honetan aritu gabe zegoela. Bakarren bati tarteka ahaztu zaio kolpea egin orduko marra zapaltzea, baina, ohartzean zintzo demonio egin dugu denok atzerantzko korrika saiotxo.

Hasi eta berehalaxe Haizeak bi paretaz tantoa egin du, beraz, 4 ditu.

Arritxu joan da kalera lehenengo eta 6ekin korrika saioa gehiago kosta zaigu, azkarrago ibili beharra dago; 5ekin, Aitziber atzera joatean, are gehiago. Kaleratuei atzean lasai pilotatzeko esan die Haizeak, baina, harmailetan eserita geratu dira, aurrekoen jokoari begira hitz eta pitz. Ondoren Karmele joan da eta laurekin marraren baldintza aldatu eta paletarekin harmaila ukitu behar dugula esan du.

3 geratu gara handik gutxira: Jaione, Haizea eta hirurok. Lehenak galdetu digu “zuek zer daukazue, 3? Nik bakarra, lasai, laster naiz hor” esan die kontrakantxan daudenei. Hauek “Jaione, Jaione” animatu dute. Azkenean bera izan da kaleratzen hurrengo eta Haizea eta biok geratu gara nor baino nor. Elkarri kilimak egiten saiatu gara eta nik txapapera botatuko dejada batekin amaitutzat eman dugu jokoa, tanto bakarra jokatuta. Haizearekin ari nintzela urrunean entzun dut “Uxuek nola jokatzen duen” edo antzekoren bat (B.K. Badakit arreta deitzen diedala uneraren batean, baina, nik onerako dela pentsatzen dut. Hala dela uste dut, gainera).

Erlojuari begiratu eta Haizea 21.05 direla ohartu da, “ordua pasa zaigu” gaineratuz. Harmailetara hurbildu eta bertatik luzaketak egitera joan gara, ezker hormaren ondora. Gainera, saioan zehar Karmelek esan dio une batean aurreko saio baten ondoren nabaritu zuela kargatuta guneren bat eta luzaketak garrantzitsuak direla eta tentuz egingo ditugula gaineratu dio entrenatzaileak. Bikia, kuadrizepsa, abduktoreak, pektoralak, trizepsa eta abar luzatu ditugu. Hizketagai izan dira berriz ere herriak eta bakoitzaren nondartasuna: ez dela gauza bera Zubietan edo Hernanin bizitzea, bakarren baten gurasoak ez direla Usurbilgoak baina bertan bukatu zutela, etab.

Saioa amaitu, trasteak jaso eta datorren astera arte agurtu dugu elkar. Nik Haizeari itxaron diot bere traste guztiak jaso arte eta kotxeak kontrako aldeetan ditugunez laster agurtu dugu elkar.

Kotxera bidean valentziarrak, Juan eta konpainia, topatu ditut justu orduantxe helduta, Arrue-Zubeldiatarrenean ostatu hartzekotan. Kongresu bat dela eta Gasteizera etorri dira eta hurrengo goizean kongresuan elkar ikusiko dugula esanez agurtu eta martxa egin dut, kotxean sartu eta grabagailua pizteko asmo irmo eta ia bakarrarekin.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Saioetan geroz eta integratuago sentitzen naiz. Hala ere, zenbait unetan errazagoa zait bakarren batekin jardutea, baina, hori konfiantza maila, gertutasun sentipena edo halako zerbaiten arabera izango dela uste dut. Adibidez, partidaren garaian, Arritxu telefonoz ari zenean Jaionek albotik esan dit, Aitziberrekin ari zela, “Uxue, aspertzen bazara guregana etor zintezke”. Eskertzen ditut halakoak, egia esan. Beste zenbaitek baino harrera goxoxeagoa egiten didaten irudipena daukat eta zenbait unetan nahi gabe eurengana gehiago gerturatzen naizela ohartzen naiz. Ez da kaltegarria rapport-ari begira, ala?!

Gaur falta ziren aurreko asteko hiru lagun: Izaskun, Aizpea eta Ester. Aspaldiko saioetan beti huts egiten du bakarren batek. Ez dakit inoiz denok elkartu ote garen saio berean.

Beroketan ezkerreko hormaren kontra ari ginela altueraz aritu gara Jaione eta biok, besteak beste nik ertza jo eta pare bat pilotakadatan probalekura joan behar izan dudalako.

Etxera itzuli, afaldu eta Zizurkilgoa amaitu beharra daukat, ostegunean herri bateko landa oharrekin soilik nahiko baitut. Horri kontakizuna gehitu behar diot, gainera.

Betekizunak saltsan

Aste hasierako egunak batez ere kantxa barruko zereginetan eta hortik eratorrietan ematen baditut ere, esku artean ditudan zerrendan betebeharrak dezente gehiago ere baditut. Letra larriz eta gorriz irudikatzen ditut boligrafo urdinez eta modu xehean izkiriatsuak badira ere. “Kontuz!” adierazten duen seinale handi bat aldamenean jartzea baino ez zait falta. Gehienak, gainera, ahal izanez gero, noski, ahalik eta eperik laburrenean bukatzea edo heltzea komeni zaidanak. Alegia, bezperarako. Hori dela eta, tartetxoak aprobetxatzen ditut elkarrizketarako gidoiari begiratu (eta astindu) on bat eman nahian, aldizkariaren azterketari jarraipena emateko edo, beste zenbait gauzaren artean, irakurgaiari heltzeko. Hala ere, agendan egunez egun ez dut ezer ezabatzen eta puntuak gehitzen baino ez ditut ikusten.

Betebeharrak betebeharrak eta eginkizunak eginkizun, ordea, eta desplazamenduek neke gehigarria eragiten didaten arren, saioetan egoten naizen uneetan gustura aurkitzen naiz eta nola edo hala buruko kaosa alboratzen saiatzen naiz tarte laburretan eta une oso zehatzetan izanagatik ere. Halaxe izan da aste honetan ere.

Azaroko azken egunak eta abenduko lehenak bat eginda datorren eta gutxi barru hasiko den astea ere ez da aurrekoetatik oso ezberdina izango lan kontuei dagokienean. N-lean atzera-aurrera, ordenagailuari itsatsita eta paletako saioak izango ditu ardatz, ziurrenik. Dena den, gogoan dut nola aspalditxo lau aste oso zeudela kontatzen aritu nintzen, zubi eta jaiegunik gabeak. Ohartzera azkenaren atarian gaude, ondorengoan Konstituzio eta antzekoek aste erdian bi “jaiegun” (teorian) ekarriko baitzizkigute. Hala ere, datorrenean, astelehen arratsaldean zehatzago adierazteko, federatuei eginiko elkarrizketei berrekingo diet eta gidoiak zein hitzorduak ezinegon pixka bat eragiten didate sabel inguru honetan. Moldatuko ote naiz? Jakingo al dut aukera aprobeztatzen? Galderak bata bestearen atzetik eta jasa etengabeen datozkit. Ea astelehen iluntzean baikortasunez erantzun ditzakedan. Poztuko nintzateke!

Aste honek Gasteizen antolaturiko bi eguneko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Nazioarteko Biltzarra izan du bereizgarri. Astelehenetik asteazkenera Gipuzkoan zehar ibili ostean, ostegun eta ostiralean Gipuzkoan zein Araban egin ditut kilometrarik gehienak eta fakultateko liburutegia bilakatu dut nire gogoeta hauen gotorleku. Izan ere, arratsaldean generoaren gaineko hitzaldi bat entzutea eta geure komunikazioa aurkeztea ditugu xede. Hortaz, egunak luze joko badigu ere ea betebeharrak behar bezala garatu eta asteburuan, neurri batean, tesia (aspaldiko nire hizketagaien erdigune dena) aparkatzen asmatzen dudana. Premia badut zirimola honetatik urruntzeko, metro batzuetatik ikuspegia aldatzen ote den aztertuz.

9. astea. IBILIAN IBILIAN, DANBA!

Ibiliz ikasten omen da oinez eta erori eta altxatzen jakitea da funtsezko ikasgaietako bat. Urrats bat, bi urrats, ipurdiarekin lurra musukatu, altxatzen saiatu, berriro erori,... denok ezagutzen dugu prozesua nolakoa den. Bada, helduaroan ere sarritan errepikatzen da gurutze-bide hori. Bai niri dagokidanean, bederen.

Aste ezberdina bezain gogorra izan da hau niretzat, zoritxarrez. Astelehen eguerdian erabat aldatu zitzaizkidan ikuspegia, animoa eta beste guztia. Banekien laster behar zuela Eusko Jaurlaritzak ikertzaileentzat deituriko beken ebazpenak kalean eta hura izan zen nire susmoak egia bihurtu ziren unea. Bai, gordina izan da, mingarria, berriz ere esperantza giltzaperatuta utzi didatelako, lurreko sakonunerik sakonenean. Zirrikitu batekin zabalik mantendu nahi nuen leioa ere danbatekoz itxi zait, muturren aurrean, eta, betiko. Lurjausia izan da nire ibilbidean eta azpian harrapatuta geratu naiz, ez aurrera eta ez atzera, itolarriak erasan eta neure masailak ur-jauzi bilakatuta.

Asteko hiru saioak eta pilotalekuetarako joan-etorriak osatu ditut nola hala, ordea, arrastaka eta, argi keinukaria irudikatuz, piztu eta itzali, itzali eta piztu, ibilita izan bada ere. Eskerrak ingurukoek goxatu eta mimatu nauten!

Nekearen ajeak

Astelehen goiza baino ez den arren, gorputza fisikoki erreserbaren erreserban eta psikologikoki agortu samartuta hasi dut astea. Asteburuan ez dut tarterik hartu indarberritu eta arnasberritzeko eta hori nabarmentzen zait eta nabari dut. Gauean ere behar besteko atsedenik hartu gabe, jira hona eta bira hara, “off” botoia aurkitu ezinda. Goizean goizetik dut bidaide nekearen zama eta gogo-gabezia dezentekoa. Hala ere, dena dela ere, hau da egokiturikoa eta aurre egin beharko diot. Zer erremedio!

Goizeko freskuran irten naiz etxetik, 2°C eta izotza lagun. Kotxea martxan jarri eta izotza ur botilen laguntzaz kendu ostean, 8.42 inguruan hartu dut saiorako bidea. 9.25ean aparkatu eta kiroldegira abiatzear naizela entrenatzailea heldu da eta nire aldamenean aparkatu du. Beraz, hari itxaron, egun onak eman eta elkarrekin egin dugu kiroldegirako bidea. Bezperako Gpuntuako saioa izan dugu hizpide nagusiki, ni Tolosako saioan bertan eta bera etxetik irrati bidez jarraitzen aritu zela eta.

Kiroldegiko sarrera

Gaur ez dago inor kanpoko bankuan eserita, 6°C nahikoa baitira barruko epelaren bila hasteko. Hala ere, harreraren aldamenean Gemma, Ainara, Naiara eta Irati zain daude. Gu ere batu gara taldera eta Saioak saioa egituratzeko liburuxkari begirada bat ematen dion bitartean ni korroan gehitu naiz. Ainarak Kronika dauka esku artean. Hala gaudela Naiarak NANaren fotokopia atera du eta Saioari eman, ahaztu aurretik. Ines agertu da tornuaren beste aldean eta ni harengana hurbildu naiz hizketarako asmoz eta berehalaxe baita Miren ere, honen ahizpa.

Azkenean, bagoaz ohiko ibilbidetik geure astelehen goizetako eskenatokira.

Pilotalekua

Azken pasabidearen aurreko atea jo eta irekitzeko zain egon ostean, bi taldetan goazela ohartu eta atzekoen zain geratu gara Ainara eta biok, ateari helduz. Halako batean agertu dira eta batera egin dugu barrura. Pilotalekuan sartu eta ez da argitasun handiegirik nabaritzen, fokuak itzalita baitaude oraindik. Ohi bezala, garbitzaileak jo eta fuego dabilta, asteburuko partidetak hondakinak garbitzen.

Gaur Rakel, Joana eta Malen falta direla eta Jonek galdetu du ea zein den arrazoa, ea bakarren batek astearteetako taldera igarotzea erabaki duen. Saioak erantzun die ezetz, baina, astearteetako taldearekin jarraitzea erabaki dutela. Inesek orduan esan du alabarekin hitz egingo duela eta agian bera aldatuko dela taldez, aurrekoan Ruthekin hizketan aritu omen zela eta.

Beroketa

Saioak esan du hiru buelta emateko. Hala hasi gara, aurretik Jone eta Naiara, atzetik Belokitarrak eta neroni, Zuriñe, Saioa eta Irati eta Ines eta Miren. Hiru itzuli osatzean gu geratu egin gara eta aurreko biek hitz eta pitz dihardutenez eurenean jarraitu dute. Gu geratu egin garelako ikustean eurak ere gugana hurbildu dira, itzuli laurden bat gehiago eginda. Saioak hurbiltzean esan die “txokotan bizitza bat gehiago emango nizuen buelta eman izan bazenute” eta irribarre egin dugu denok.


Korroan orkatilak, belaunak, besoak eta abarrak mugitu ditugu. Nik aldamenean Saioa dut eta asteburuko partidaz aritu gara, pena baina galdu egin zutela esan dit, ondo jokatu arren (B.K. Nahiko hizketagai errepikakorrak izaten ditugu gehienetan, asteburuko partidak edo bertsoa edo... Oso errepikakorra ote naiz?!).

Pilotak banatu eta binaka pilotatzera. Ni Iratirekin, alboan Zuriñe eta Miren, etab. Kirolaz aritu gara, bera ere korrikan ibilitakoa dela, asko gustatzen zaiola, pala ikastaroan izena eman ala ez zalantzan ibili zela 3 urtez eta aurten erabaki duela azken aukera zuela eta izena ematea. Ni ere kirolzalea naizela eta hala aritu gara, hitzak eta pilotakadak elkartrukatu.

Ariketak

Saioak jarririko marrei erreparatu eta berriz ere frontisa edo lehen espazio helburua lantzen arituko garelako ohartu naiz.

1. Txokotan, bakoitza 4 bizitzarekin. Frontisaren erdian gune debekatu bat dago eta pilotak bertan joz gero -1 bizitza. Pilota jo ostean 7ko marra zapaldu behar da.



Marra ez da goraino heltzen, baina, Saioak esan du imajinatzeko gutxi gorabehera. Orduan bakarren batek erantzun dio ea nola jakingo dugun zalantzazko pilotakadetan zer izan ote den eta esan du bera atzean jarriko dela eta ez digula bakar bat ere barkatuko. Hori esan eta hasi egin gara.


Naiarak huts pare bat egin ditu eta Saioak ea animatzerik nahi duen galdetu du. Nik, berriz, horma bikoren bat edo bota dut eta Mirenek erantzunean tanto egin. Saltsa

jartzen saiatu naiz eta atzera eginiko korrikaldian Mireni esan diot “saltsa pixka bat jarri beharko dugu, ala?” eta berak baietz, irribarrez.

Ariketa bere horretan normaltasunaren barruan garatu da. Hala ere, “seguroa” koadrila bat garela berretsi dut. Izan ere, erdiko eremuan jotzeko arriskua ekiditearren askok ez dute aldez aldatu pilotakadarik, hau da, beti ezkerrean aritu dira, eta ezkerretik ezkerrera. Aldatzen saiatutakook huts gehiago egin ditugu, orokorrean, bai Ainarak, bai nik pare bat ere. Azkenean 5 geratzean 6ko marra eta 4rekin 5ekoa zapaldu behar da. 3rekin marrarik gabe. Azkenean ni ere kalera joan naiz eta Zuriñe eta Miren geratu dira aurrean nor baino nor. Ni kontrakantxara Saioarena hurbiltzerako ia bukatuta daukate eta denoi dei egin digu kantxaren erdialdera.

2. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. 5'ko partidak eta ondoren gunen aldaketa.

- Frontiseko eremuan. Lehengo erdiko gunen debekatua mantenduz, ezin da pilota bertara bideratu. Bestela, aurkariarentzat izango da tantoa.
- Erdikoan (5-7). Pareta bi gunetan banatuta, ezker eta eskuin. Pilota eskuineko gunera bideratuz gero eskuinez egindako kolpea izan behar du eta ezkerrera bidaltzeko ezkerrekin egin.
- Atzean (8-errebotea). Erdian jarrita dagoen gunean jo behar du pilotak derrigorrez. Albokoetan joz gero tantoa aurkako taldearentzat izango da.



Bikoteak egiteko 1etik 5era eman ditu zenbakiak Saioak. Bera ere arituko da, kopuru bikoitia osatzeko. Bikoteak honela geratu dira: Saioa eta Irati (1), Gemma eta ni (2), Ainara eta Ines (3), Jone eta Zuriñe (4) eta Miren eta Naiara (5). Bikoteak osatzean Nairak aipamen bat egin du, “ahizpa batekin ez bada bestearekin” esanez eta ederki erantzun diote “hainbeste familia izanda ez da harritzekoa” esanda.

Partida egoerekin hasi aurretik baldintzak azaldu ditu eta erdiko guneko egoerak harridura eta ez ulertze pixka bat eragin du. Niri begiratu dit, arraroa egin zaidala sumatuta nonbait (B.K. Egia da, ez diot praktikotasun handiegirik ikusten ariketa honi), eta esan dit “zuek egindako ariketa da, liburutik hartutakoa”. Nik erantzun diot “hori ez da nire ariketa izango, Eiderrena izango da, hemen ez dagoela aprobeztatuz”, irribarrez. Azkenean berak esan du “ariketa egingo dugu eta gaizki ateratzen bada aldatuko dugu”.

Lehen errota Saioa-Irati eta Gemma-ni aurrean, Ainara eta Ines erdian (lehenak esan du “guri tokatzen zaigu esperimenterekin hastea”) eta atzean Jone-Zuriñe eta Miren-Naiara hasi gara. Ondoren, aurrean irabazleak geratu dira eta atzeko aldatuak ere antzeratsu egin dira. Lehen partidari Saioa eta biok aurrelari hasi gara, tarteka elkar xaxatuz. Saioak tartean “zer moduz esperimentera?” galdetu die erdikoei eta hauek “beno, nahiko ongi” erantzun dute.

Lehen erronda amaitu eta bigarrean ere gu geratu gara aurrean, irabazi izanaren ordain. Zuriñe eta Jone etorri dira atzetik eta guk postuak aldatu ditugu, ni atzean eta Gemma erdian jarriz. Oraingoan ere irabazi egin dugu, baina, erdiko gunera pilota asko eta asko bidali ditugu laurok ere eta nik akats nabarmenen bat ere egin dut, jokatzeko daukadan lasaitasun eta patxadaren ispilu.

3. errotazioan erdira joan gara eta aurrera Naiara eta Miren doazela ohartu naiz, atzean Saioa-Irati eta Ainara-Ines daudelarik. Erdiko eremuan hasieran eskuinez eta eskuineko aldera bota ditugu gehienak. Ondoren, ordea, ariketari zentzua aurkitu eta esanikoa lantzen saiatu asmoz, ni izan naiz kasurik gehienetan aldaketak egin ditudana, horman guneetako marratik gertu xamarrean jotzen saiatuz pilota aurkako gunera bideratzen saiatzeko (B.K. eskuinean oso eskuinean gaudenean ezkerrera bideratzeko ezkerrez jotzera behartzeak ez du zentzu handirik, ez da partidetan ematen den egoera bat).

4.ean atzera jotzea tokatu zaigu eta Saioa-Iratirekin elkartu gara ostera ere. Hasi aurretik Saioak erdiko ariketari buelta bat eman diola eta zerbait bota dit, Miren eta Naiarak ere galdera egin diotelako horren harira. Nik esan diet buelta pare bat eman eta saio bukaeran liburuxka hartuta saiatuko garela zentzua aurkitzen (hala baldin bada, behintzat). Erdiko gunean jo behar da eta alboetan ez, bada, lehen bi kolpeetan baldintza ez dut bete nik, justu kontrakoa eginda. Hala ere, ondoren neurria hartu diodala dirudi eta Saioari egoera zailen bat jartzen saiatu naiz, berak niregana pilota bideratzean egin duen antzera. Lasai ari gara, hala ere, gure jokoa besteengana egokituta, hein handi batean (B.K. Gaur nekatuta nago eta egia esan beste zenbait egunetan baino gogo eta indar gutxiago daukat hona eta hara eta jo eta jo aritzeko).

Hurrengo aldaketan Zuriñe eta Jone etorri zaizkigu atzera eta lehengo egoeraren kontrara, ni eskuinaldean eta Gemma ezkerreko hormaren aldean jarri gara. Ezkerreko horma, errebotea hain justu, une batetik aurrera aldageletako atea da eta koska bat ateratzen da horman aurrerantz. Gemmak esan du bi kolpe txar hartu dituela dagoeneko partida honetan horren aurka eginda. Leku hori ez dela batere aproposa eta arriskua duela erantzun diogu beste hirurok ere, eta kontuz ibiltzeko.

3. Txokotan. Baldintzarik gabe, bizitza batekin. Saioak marrak kendu ditu frontisetik eta gune debekatu eta ez debekatuekin ahazteko esan du. Bide batez, elkarri horma bikoak egiteko ere esan du.

Ariketa azaltzean Jonek galdetu du ea oraingoan ere marrarik zapaldu behar den eta Saioak baietz erantzun du, “bestela hor egoten zarete kaka pilan eta ez duzue pilota jotzen”, taldekideren batek ezezkoaren aldeko hautua eskertuko liokeen arren. Esan du huts egindakoa kanporako bidea hartuko duela hala egin duenak. Nik ordulariari begiratu diot eta 10.55 direla ohartu naiz.

Hasi eta berehala pare bat kanporatu dira eta nik neronek hartu dut kontrakantxarako bidea, oraindik ere hutsik egin ez badut ere. Izan ere, erdiko ariketaren inguruan begiralearen entrenamenduetarako sorturiko txostenean zer dion ikusi nahi dut. Hortaz, “autokanporatu” eta Saioarengana zuzendu naiz, liburuxkan zer orritan agertzen den ikustera. 1. espazio lantzeko saioetan ageri da, 1:1 egoerako partidetan eta berak esan bezala. Orduan, neure baitatik sorturiko ideia bat eta interpretazio aukera bat azaldu diot. Hau da, “konturatzea posible dela frontisean gune batean edo bestean jota, marratik gertu joz gero, beste gunera bideratzea kantxan, atentzioa jarriz frontisean non jotzen duen pilotak”. Naiara eta Miren ere bertaratu dira gutxira eta esan dute eurak alderantziz aritu direla, bakoitza gune batean kokatu eta ezkerretik eskuinera pilota ezkerreko besoa erabiliz joz eta eskuinetik ezkerrera, aldiz, alderantziz. Nik erantsi dut “zentzu gehiago ikusten diot alderantziz balitz ariketa, ezkerrera eskuinez bidalita eta

eskuinera ezkerrez, kolpeak eta frontiseko pilotaren norabidea konbinatuz ariketa berean”. Besteren batek ere agertu du iritzi hori.

Azkeneko denak bildu gara korroan eta norbere kasa luzaketak egiteari ekin diogu. Jonek esan du “beno, hurrengoan ez dut galdera hori egingo, ezin al da galdetu?” bera izan delako ariketa “nahasgarri” horri helburua zehatz eta garbi ikusten ez ziola esan duena, Saioari azaltzeko eskatuz. Ezetz, lasai galdetzeko esan diogu. Ama eta biek alde egin dute lehenengo, beste inork baino lehen. Hala ere, “asteazkeneko bai?” galdetu du eta “bai” erantzun diote gainerakoek (B.K. Asteazken bi saio egiten dituztenak fin aritzen dira horretan, antza).

11.05 pasatxo dira. Naiarak ere esan du presaka dabilela eta gutxika-gutxika denok jarri gara berriz ere sarrerako aterako eta etxerako edo gainerako zereginetarako bidean, gaurko saioa amaitutzat emanda. Galdetu du ea zer jaiegun eta opor egun dauzkagun eta haurren berdinak erantzun diote. Azken saioa abenduaren 19an izango da. Orduan esan du bera datorren astean ez dela saiora etorriko.

Hari horri tiraka, jaiegun berezienari hain zuzen, datorren asteko jaiegunen harira Hernaniko Langile Ikastolako haurren egutegia atera da, Ainarak esan baitu astearte jai dutela, Konstituzio eguna, baina, estatutuaren eguna, urtarrilaren 25a, klase egun izan zutela eta ez dutela oso ongi ulertzen hori, ea zein helbururekin egiten diren horrelakoak. Galdetuko omen dutela erantsi du ondoren.

Luzaketak egiten amaitu eta bagoaz. Bidean, eskaileretan “barrikada” bat topatu dugu, ikastetxeren bateko ikasleak irakaslearekin batera euren heziketa fisikoko saioa hasteko zain, pistara sartzeko atearen aurrean. Hauen artetik pasa gara, nola edo hala. Gemma, Irati, Saioa eta ni batera irten gara, Aina eta Miren aldageletarako bidean agurtuta. Emakumea Pilotariko finalak ostiralean diren esan du Ainarak eta guk ezetz 23an direla erantzun diogu.

Kiroldegiko sarrera

11.15 dira eta tornutik kanpora goaz. Iratik bazkide txartela egin du paletan jardun ahal izateko eta Saioak esan dio orain amortizatu egin beharko duela. Honek ezetz erantzun dio, bera patinetean ibiltzen dela haurrekin, baina, ez zaiola iruditzen kiroldegira askotan joango denik. Elkar agurtu eta autora Saioarekin egin dut. Esan dit Haizearen saioak antzekoak izango direla eta nik erabat ezetz esan diot. Ez diot bestelako inongo xehetasunik eman.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Egunez egun eta saioz saio ohartzen ari naiz egunen arabera kideon aldartea ezberdina izaten dela, batzuetan batzuk alaiago eta besteak alferrago dabiltzala iruditzen baitzait. Niri buruz ere aipu bera egin nezake. Ariketa motak eta partidetako aurkari edo kideek ere eragiten dutela iruditzen zait zenbaitetan, motibazio ezberdinak sortuz une eta egoera ezberdinetan.

Ariketak planteatzen direnean helburuak irakasleak garbi izan ditzakeen arren, gaurko erdiko gunekoan bezala, adibidez, ikasleen angelutik begiratuta ezberdin ikusten dira kontuak. Besteak beste, beste saio batzuetan ere entzun izan dut aipamen hau eta gaur

ere bai bakarren bati: “guk nahiko dugu jota, ez diogu hainbeste buelta ematen buruari”. Beraz, agian ez ote litzateke ariketa dibertigarri eta gustagarrien aldeko hautua egin beharko teknikari eta bestelako espazio helburuei erreparatu beharrean? Emakumeak hobetzea ere bada asmoa, noski, baina, gustura aritu eta horri tira egitea ez ote da bai erosoagoa eta baita komenigarriagoa ere? Hala ere, honekin ez dut zalantzan jarri nahi saioak ez direnik dibertigarriak eta ariketak desegokiak direnik, baizik eta ezarririko helburuen preferentzia edo lehentasun maila aztertu beharko litzatekeela, baizik. Batez ere emakumeen jardunean eragiten duela ikusita.

Amaitu, kotxetik trasteak hartu eta Saioa paletak erostera eta ni liburutegira gindoazela Naiararekin topo egin dugu, hau erosketaren bat eginda. Ea kafea hartzera goazen galdetu digu eta ezetz, ni liburutegira noala lanera eta Saioa dendara. Orduan, “ah, egia, ahaztuta neukan tesiarena” bota du. Hori seinale ona da, gero! Gaur luzaketen garaian ere Ainarak-edo egin dio aipamenei bat, esan duenean a zer lana gaurko saioarekin tesirako, ariketarena kontuan hartuta. Nik erantzun diot ez duela hainbeste eragingo, apenas eta Gemmak galdetu dit orduan “aipatu ere ez al duzu egingo?” eta nik baietz erantzun diet, aipatu egingo dudala. Beraz, denok dakigu presente dagoela aipatu ez arren, baina, ez zait iruditzen saioen garapenean eta taldekideen jokamolde eta joeretan eragiten duenik. Hala hobeto, gainera.

Nekea sumatzen dut, bai buruan eta baita hanketan ere, atsedean premia daukat nonbait. Hala ere, arratsaldeko elkarrizketak eragiten didan kezka ere izango du eraginik ziur aski (erabat ziur esan nezakeen) nire aldardean.

Biharamuna

Eguna noraezean, erdi joanda eman dut atzo bazkal aurretik jasoriko berri “onari” esker. Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzetan onartuen zerrendatik at geratu naiz bigarren eta azken aukeran ere. Bejondeiela!

Ordu laurden bat hartu dut guztira egun osoan zehar ordenagailu aurrean lanean saiatzeko, asko jota ere, baina, ez dut nahikoa indar eta animo batu. Beraz, bere horretan utziko dugu nire lanaren egoera. Hala ere, gurpilak aurrera darrai eta azpian zanpatuta geratu aurretik altxatzen saiatu beharra daukat, ostikokada handia eta bihotzeko min are handiagoa baldin badabilzkit ere. Oso luze jo dit egunak.

19.27an heldu naiz gaurko saiora eta, egia esan, egoera honetan, gogoetan egin ditut etxetik bertarainoko kilometroak. Zalantza handiak dauzkat nik saioari eta saioak niri emango didanaz. Animo handirik gabe nabil eta nire aldardean fede handiegirik ere ez daukat, ezta nire pilotakadek har ditzaketen norabide eta joeretan ere. Azaroaren hasieran, astelehen “miresgarri” bat izan nuen eta ordukoa etorri zait gogora. Ez ote da hura errepikatuko?!

Pilotaleku ataria

Kotxetik irten aurretik esaldi pare bat idatzi ditut koadernotxoan eta ondoren egin dut bidea zeharkatu eta frontoirainoko bidea. Justu Itsasok aparkatu du nire atzean eta Saioa dagoeneko motxila harmailetan utzi eta pilotalekuan dabil, argia piztu nahian, fitxa kaxan erdi tratatuta omen dago. Onintza ere ni sartu eta berehala zen.

Saioak ezohiko harrera egin dit, zer moduz naizen galdetu eta bizkarreko bat emanaz. Nik “hainbestean, kolpea hartuta” erantzun diot. Horri buruz aritu gara pixka batean zeren eta Itsasok esan du lankide batzuk ere beken ebazpenaren zain zituela eta nire izena irakurri duela begira ibili ostean. Hala ere, nonbaitetik irten eta aurrera egiteko asmoa agertu diet, astearteetan bertan izango naizela ziurtatuz. Oihane ere gehitu da taldera kantxarako bidea hartu aurretik. Eta azken segunduan, behera abiatzear ginela, Gurutze izan da taldera heldu den azkena.

Pilotalekua

Multzoa osatuta gaudela ikusi eta Saioak esan du Eli ez dela etorriko gaur. Orduan Oihanek esan du Piliren senarrarekin aritu zela hizketan eta ez dirudiela ezer larririk duenik orkatilan, baina, Onintzak gehitu du gaur elkartu dela berarekin eta aurtengo lehen oinazea ez duenez ez dela etorriko, nahiz eta hanturarik ez duen.

Saioak esan die gaur niri tantorik ez sartzeko eta emakumeek erantzun diote gaur barrua lasaitzeko premia baldin badut besteetan baino tanto gehiago egingo dizkiedala agian, eurak nola erantzun ez dakitela utzita. Nik ez dut hitz erdirik ere egin.

Beroketa

Gaur hotz dago kanpoan, 7-8°C, eta beste hainbeste pilotaleku barruan ere. Hortaz, lehen korrika saioari ekiteko ez dugu agian besteetan besteko hizketari emaniko itxaronaldirik egin. Hala ere, hasi aurretik Gurutzek esan du kotxez pasa dela 19.30ean frontoi aurretik eta argia piztuta ikusi duenean pentsatu duela gaur agian libratuko zela korrikaldirik gabe, baina, gero ikusi duela oraindik ere hizketan ari ginela bera heldu denean.


Korrika egin dugu frontisetik errebotera bitartean eta korroan jarrita mugikortasun articularreko ariketak ondoren. Itsaso tesia amaitzen ari dela badakigu eta aurkezpenaz eta protokoloaz aritu gara pixka bat, epaimahaikideei ordaindu beharraz eta abar. Amaitzeko, pilota bana hartu eta ezker hormaren aurka aritu gara pilotakadak ematen. Honetan hasi aurretik Saioari galdetu diote ea zer moduz ari diren moldatzen Villabonako emakumeak, antza denez bizpahiruk iaz Zizurkilen jardun zuten, bi lasartearrek eta villabonar batek. Saioak erantzun die Lasartekoek utzi egin zutela ordutegiz larri zebiltzalako heltzeko eta bestea ongi dabilela. Ondoren esan du Andoainoren bat ere badabilela eta ezagutzen dute batzuk, antza.

Azken ariketa honetan mingainari pilotari baino askoz ere gehiago eman diogu Saioa eta biok, zinta hartu eta marrak jartzera hurbildu denean ni izan bainaiz frontisetik hurbilen zegoena eta neure animo eta lanerako (eta saiorako) daukadan gogo gabezia aritu gara pixka batean. Berak esan dit nahi izanez gero begira egoteko edo saioa neuk emateko, baina, ezetz erantzun diot, egun txarretan ere saioetan parte hartzea dagokidala. Berak erdialdera egin duenean eremuak zehaztera serioxeago hasi naiz eta pixka bat eskuak berotzea lortu dut, izoztuta baintuen hasieran.

Onintzak alde egin du une batean, ni ohartu ere ez naiz egin, eta motxila batekin itzuli da frontoira, nire aldamenen jarri eta berotzen bukatuz.

Ariketak

1. Txokotan, bakoitza 3 bizitzarekin. Frontisaren erdian gune debekatu bat dago eta pilotak bertan joz gero -1 bizitza. Pilota jo ostean 5eko marra zapaldu behar da.



Marra ez dago goraino markatuta, altueran ez delako heltzen, baina, Saioak esan digu birtualki irudikatze gorainokoa dela. Orduan, nik erantsi dut gure interesen arabera erabakiko dugula zalantzazkoetan zer egin eta gustatu zaio bakarren bati hori entzutea.

Hasi eta berehala dudako pilota bat egon da eta Gurutzeri esan diot lasai egoteko, neuk kenduko nuela bizitza hori. Berak ezetz, baina, nik baietz eta azkenean nik kendu dut jokaldi horretan.


Jardueran zehar bezperan izaniko inpresio bera dut, oso gutxi saiatzen garela/direla ezkerreko eremutik eskuinekora aldatzen eta nik egin ditut horma biko pare bat modu horretan, aldez aldatuz.

Azkenerrako Onintza eta biok geratu gara. Azken pilotakadan nik erdiko gune debekatua jo dut eta horrela bukatu dugu.

Saioak denoi deitu digu eta banakako egoeran partidak egingo ditugula jakinarazi digu. Bakarkakoak direla esatean eta ariketak azaldu ostean bakarren batek esan du nekatuta bukatuko dutela eta Saioak erantzun die “binakako partiduetara puntuari iritsiko zarete horrela”. Gurutzek, aldiz, “puntuari ez, neka-neka eginda” erantzun dio.

2. 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Aurrekoak 6ra heltzean gune aldaketa.

- Frontiseko eremuan. Lehengo erdiko gune debekatua mantenduz, ezin da pilota bertarara bideratu. Bestela, aurkariarentzat izango da tantoa.
- Erdikoan (5-7). Pareta bi gunetan banatuta, ezker eta eskuin. Pilota eskuineko gunera bideratuz gero eskuinez egindako kolpea izan behar du eta ezkerrean bidaltzeko ezkerrekin egingo.
- Atzean (8-errebotea). Erdian jarrita dagoen gunean jo behar du pilotak derrigorrez. Albokoetan joz gero tantoa aurkako taldearentzat izango da. Atzean ere mugatu du luzera, 5m.ra marra bat jarriz zeharka.



Partidetako egoerak eta baldintzak azaltzean Saioak bigarrena azaldu duenean, “ariketa xelebrea” deitu dio. Nik ere buruarekin berdina adierazi dut. Orduan esan du atzekoa luzeran mugatzeko jartzen duela liburuxkan eta niri begiratu dit irribarre “gaizto” batekin. Nik besteei esan diet “bere garaian ni aritu nintzen liburu horretako saioak egiten eta horregatik bota du hori” eta irribarre egin dute.

Bikoteak egiteko Saioak esan du “ni Oihanerekin ez naiz jarriko, urduri jartzen omen dut eta” eta honek “bai, hala da” berretsi dio. Beraz, Gurutze eta Oihane, Saioa eta Onintza eta Itsaso eta biok batera hasiko garela esan digu.

Aurrera joan garenean Itsasok esan dit handia iruditzen zaiola kantxa eta hala hasi gara. Nik lasai jokatzeko aukera ematen saiatuz, eta kasu honetan ere berdin egin dut. Askotan pilota bera dagoen lekutik oso hurbil edo bertara bidali dut, tantoak luzatu eta aukera ezberdinak sortzen saiatuz. Tantoa luzatzean nekatu egiten zen eta arnas estu pixka batekin sumatu dut Itsaso. Jokoa lasaitzen saiatzen naiz egora hauek gertatzean. 6-3 amaitu dugu eta aldaketa egitean Saioak esan du irabazlea izango dela eremuz aldatuko dena. Hori horrela izanik, Itsaso konturatu da berriz ere eremu berean jokatzeko dagokiola, eta, “ah, ni naiz berriro aurrean” bota du.

Lehen aldaketan ni erdira joan naiz Saioarekin, atzean Gurutze eta Onintza eta aurrean Oihane eta Itsaso hasi dira jokatzeko. Saioarengana hurbiltzean berak esan dit ariketari zentzua aurkitu nahi diola nirekin eta saiatu gara pilotakadak eta hitzak elkartrukatzeko ditugun artean. Hala ere, erabaki dugu alderantziz egiteak (ezkerrera eskuinez eta eskuinera ezkerrez) jokoan praktikotasun gehiago izango lukeela. Hala ere, nik esan diot “lasai egon, ariketak probatuta jakiten da baliagarriak diren ala ez” eta berak erantzun dit “askotan pentsatzen dut zenbait ariketaren helburua ez dudala ezagutzen eta emakumeek galdetuz gero ez nukeela jakingo zer esan”. Nik esan diot “nik erantzunen bat asmatuko nuke, baina, ez pentsa, agian justu kontrakoa”. Ohartzerako Itsaso eta Oihane amaitu dutela esanez hurbildu zaizkigu eta bikotez zein eremuz aldatzeko unea da.

Atzeko eremuan Onintzarekin elkartu naiz, Gurutze aurrera joan da eta Itsaso erdira. “Hemen astoak bezala, aurrera eta erdira bakarrik begiratu behar da” esan dit. Nik esan diot, “beno, horma bikoa egiten denean askotan erabiltzen da gune hori frontisean pilotak jo dezan” eta orduan gaineratu du “Gurutze saiatu da, baina, kanpora joan zaizkio. Probatuko dugu”. Bera saiatu da eta hasieran lortu ez arren, gero, pare bat sartu ditu eta gustura sumatu dut. Nik ere batzuk sartu ditut tarteka. Erdiko gunetik, berriz, Itsasoren barre hotsa iritsi zaigu eta zer dabilzan galdetzean erantzun digu “nik ez dut eremuz aldatzen, Saioak aldatzen du eta gero nik segitzen dut pilota bertara bideratzen”. (B.K. Ariketa honetan luzeran 5-6 metroko muga izan dugu eta estua geratzen da nire ustez, pilota pixka bat harrotuz gero pasa egiten zelako. Altuera baxuan ibilita ez, baina, ez dut uste emakumeek hainbeste kontrolik dutenik euren jokoarekiko).

Atzeko eremuan geratu naiz hurrengo aldaketan eta Saioa etorri da. Guk zuku gehiago atara diogu ariketari aurreko beste guztiek baino, hara eta hona pilota beste abiadura eta intentzio batekin mugiaraziz. Orduan Saioak esan dit berak saiatu nahi izaten duela erdiko eta atzeko gunetako ariketetan aktibotasunari garrantzia ematen, emakumeak hoztu eta asper ez daitezen. Nik erantzun diot ongi iruditzen zaidala, azken batean teknika edo helburu zehatzak barneratzea baino garrantzitsuagoa izan daitekeela eurak gustura sentitze hori, nahiz eta bestea ere kasu batzuetan ez nukeen guztiz alboratuko. Kasu honetan ere hitzak pilotakadak hainbeste izango ziren.

Egin dugun azken errotazio edo aldaketan ni aurreko eremura joan naiz eta berriz ere Onintzarekin bat egin dut bertan. Erdian Gurutze eta Oihane geratu dira eta atzean Saioa eta Itsaso. Aurreko eremukoa da kantxa handiena eta ariketa neketsuena ere bai, desplazamendurik handienak bertan egin litezke, eta Onintzari galdetu diot ea berotu

diren eta hark baietz erantzun dit. 3-2 edo 3-3 goazela Onintzak nekea sumatzen du, arnas estu pixka bat badauka, eta ni pilota bera dagoen gunera edo mugimendu izugarrikerik eragingo ez dion lekura bideratzen saiatu naiz une bat baino gehiagotan. Tanto luze eta piloteatu xamarra jokatu dugu eta ni ez naiz nekatu gehiegi, askotan pilotak botea egiterako kokatuta egoten naiz. Nik, berriz, 2-3 pilotakadatan asko mugiaraz nitzake eurak. Orduan, hori ikusita “zer, Uxue, zu ez zara nekatzen?” galdetu dit eta nik “ba, gehiegi ez” erantzun diot zintzotasun osoz. Berak atzera begiratu eta “Saioa, hau ez da nekatzen!” bota dio. Hark frontoiko beste puntatik erantzun dio, “nola nekatuko da ba Behobia denbora horretan egiten duena?” eta Gurutzek erdikotik gehitu “Onintza, oinez ari da jokatzeko, bera mugitu behar duzu gehiago, bestela ...”. Nik irribarre egin dut eta bera nekatuta dagoela sumatu dut. Fisikoki ere ni ederki asko nago saioek daukaten eskaera mailarako, soberan daukat, ez baita astean zehar egiten dudan jardueraren fisiko bakarra. Hala jarraitu dugu eta 6-4 bukatu, ni are lasaiago eta “onberago” jardunda, pilota ia beti bera dagoen ingurura bideratuz, nekea erreberatzen lagundu dezan saiatuz, partida egoera batean ahal dudan heinean, noski. “Guk bukatu dugu” egin diogu dei Saioari.

Kantxa erdian elkartu gara eta “zer, berotu al zara?” galdetu dit Saioak. Nik baietz, baina, nekatuta ez nagoela. Orduan Gurutzek esan du, “kanpotik begiratuta, komikoa zen egoera, Onintza batera eta bestera erotu beharrean eta Uxue oinez, lasai-lasai, gu non gauden ikusi eta horren arabera jokatu”. Itsasok esan du, ildo beretik, “ni gaur pixka bat txotxongilo sentitu naiz momentu batean”, ni erdi lekuz kanpo utziz. Egia esan, ez nuen hori entzuterik espero, nahiz eta txarrean ez duela bota ziur nagoen.

Hizketaldia amaitu eta binakako partidak jokatu ditugula esan digu Saioak, baldintzarik gabeak, eta erdiko marrak kentzera joan da.

3. 2:2 egoeran partida baldintzarik gabea, 6 tantora.

Atzean bikote bat zain egongo da aurrekoak amaitu arte eta nik proposatu dut Onintza nekatuta dagoela ikusita gu izatea atzean hasiko garenak, honek gorputzari pixka batean lasaitzen lagundu eta arnasari buelta eman diezaion. Hortaz, Saioa-Itsaso eta Gurutze-Oihane hasi dira.

Atzean piloteatzen eta hizketan aritu gara eta Onintzak esan dit “zuk erraz jokatzeko duzu, nik nahiko dut jo eta lasaitzearekin pala saioetan” eta nik erantzun “Saioarekin ari naizenean bai, nekatzen naiz” eta berak “Saioa ia profesionala da”. Erantsi diot “gu askoz ere abilagoak gara tenisekoarekin, gomazko betearekin gehiago kostatzen zaigu pilota pentsatu bezala eta nahi dugun norabidearekin botatzea, joko azkarragoa da eta egoerak ere behartuagoak”. “Federatuta al zaude?” eta nik “iaz arte bai, bost urtez, aurten dagoeneko ez, denbora kontuagatik eta aurten duatloian federatuko naizelako” erantzun diot. “Joe, makina” batek ihes egin dio berari eta probatzeko garaian nagoela erabaki dugu, aurrez konbentzimendu premia handirik ez banuen ere. Esan dit bera palara etortzean gustatzen zaiola izerditzea eta pizgarri bat dela eurentzat ni han izatea zenbaitetan, zeren eta nik esan diot saiatzen naizela joko ematen, baina, ondo pasatuz (B.K. Txotxongioren aipamenaren oihartzuntzua nabari dut buru barruan).

Aurretik barre algara eta oiher pare bat heldu zaizkigu errebote ingurura eta Saioa eskuak burura botata dabilela eta aldamenekoak barrez ikusi ditut. “5-3” entzun diet orduan eta Gurutze doa sakera. Zehar begiratuarekin partida horri begira jarri gara

pilotakada eta pilotakada artean eta Saioak joriko pilota txapapera ere ez dela heldu ikusi dugu. Horrekin batera, atzeranzko bidea hartu dute Itsasok eta biek.

Aurrera heltzean “zer ibili zarete?” galdetu dugu eta Gurutzek esan digu “hor aritu gara, andereño txit agurgarria eta horrelakoak esaten” irribarrez. Nik esan diet “ez zitzaion bada burura igoko, ala?”. Onintza eta biok eta Oihane-Gurutze hasiko gara partidari eta aurrez Onintzari esan diot berak erabakitzeke non jokatu nahi duen, niri berdina zaidala. Azkenean bera aurrelari (Gurutze ere bai) eta ni atzelari (aurkakoetan Oihane). Ni lasai aritu naiz, saioetan ohiko moduan. Oihanek pare bat kale egin ditu ez hain pilota zailtan, askoz ere zailagoei erantzun bikaina eman die tartean, eta “iritsi eta ez eramateak amorrua ematen dit” atera zaio, “iritsiko ez banintz, baina, iritsita ...”. Onintzak esan du ez naizela nekatzen eta orduan esan diet pilota begiratzea, horren arabera mugitzea, aurre hartzea eta beste eragile batzuk sartzen direla eta Gurutzek esan dio “honek gure postura ikusi eta badaki nora doan pilota eta pilota iristeko han dago zain jarrita” (B.K. Gustatu zait azken aipamen hau).

Azkenean amaitu dugu 6ra partida eta erlojuari begiratu eta 21.01 direla ikusi dugu. Onintzak “beno, nik joan beharra daukat, banoa” esan eta laster alde egin du. Besteok luzapenak egiten geratu gara futboleko ateen inguruan, kontrakantxaren erdialdean, ohi bezala. Ez dakit nondik heziketa fisikoko saioetatik irakaskuntza atera da hizketagai eta lehengo eta oraingo moduez eta egoerez hasi gara, Gurutze irakaslea baita ofizioz. Ikasle garaiak, selektibitatearen presioa eta abar joratu ditugu.

Frontoi ataria

Gurutze, Itsaso eta Saioarekin hizketaldia osatuta gaur ere (B.K. “Lau mariak” ote gara taldean?). Ez da lehen aldia izan, eta atsegina egiten zait. 21.15ean hartu dugu etxerako bidea. Gainera, elkar bi aste barrura arte agurtu dugu, abenduaren 6a jaieguna baita, Konstituzio eguna. Niri Gurutzek esan dit ea ni hiru aste barru agertuko naizen, abenduaren 13a (Sta. Lutzi) jaiegun baita Urretxun eta Zumarragan, baina, nik ezetz erantzun diot, nire egutegia tokatzen zaidan herriaren arabera dela eta azalduko naizela, berezia dela. Saioa astelehenera arte agurtu dut.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur ez neukan saiorako batera gogorik etxetik abiatu naizenean, eta errepidean ere ez dut halakorik bildu, egia esan. Hala ere, etxetik irten eta gai monografikoa unetxo batean alboratzeak mesede egin didan ustearekin itzuli naiz, alde horretatik konforme, ez dit batera kalterik egin. Eurak ere oso gertuko sentitzen ditut saioetan eta gaur agian gertukoago uneren batean. Hori benetan eskertu beharreko zerbait da, daukaten borondate eta eskuzabaltasuna. Bejondeiela!

Saioa ez da beldurgarri txarra izan, gainera, beraz, alde horretatik ere ikuspegi baikorra dakart. Ez zaizkit Hernaniko mamuak agertu bisitan eta lasai eta eroso aritu naiz jokatzeko orduan ere.

Emakumeek ariketa edo jarduera ezberdinen artean zer ezberdintasun nabaritzen dituzten, bai jarduteko moduan eta bai euren sentipen eta usteetan, eta nolako interpretazioak egiten dituzten jakitea aberasgarria eta informazio garrantzitsua izan litekeela deritzot. Besteak beste, saioetako gogobetetze maila ezagutzeko urratsa ematen

lagun dezake horrek, eta baita ariketa moten araberako emozioak biltzen ere. Ba ote dago hori egiteko modu bat orain arteko dinamikan? Hau da, behaketaren bidez?

Aste berezia izango da hau, astelehenekoa irensten amaitu arte, denbora beharko dudala jakitun naiz, baina, era batean badakit aurrera egingo dudala eta egin beharra daukadala, orduak aurrera egin ahala lana pilatzera soilik mugatzea luxu handiegia baita nire kasuan. Dagoena da eta hala onartzea besterik ez dagokit, erraza ez izan arren.

Bihar asteko hirugarren saioa izango da eta jaiegunen astearen aurreko azkena. Beraz, lanerako pronto, belarriak erne eta begia zoli egon beharko dut.

Haizea hezurretaraino sartuta

Tutoretzan hiru ordu laurden edo ordubete eskas egin, beka kontuaz, tesiaren diseinuaz eta etorkizunaz hizketan batez ere, eta heldu naiz gaurko paleta saiora, besapean liburu bat gehiago, buruan aurrez adina zalantza eta kezka eta sorbaldatik zintzilik ordenagailu eramangarria dakarzkidala. Maileguan hartuta paleta bat ere bai, errepidean Ormaiztegi inguruan nintzela ohartu bainaiz paleta ikastarora paletarik hartu gabe abiatu naizela. Eskerrak zuzendaria palista den ... Ederra burua!

Sarrera

19.40 jotzear direla heldu naiz gaurko saiora, korrika eta presaka, atzerapenez noala jakitun eta larritasun puntu batekin. Plazara hurbiltzean, ordea, sorpresa handi xamarra hartu dut. Izan ere, kideak dagoeneko beroketa ariketak egiten irudikatzen nituen, baina, bai zera, Arritxu bakarrik dago eta Lurdes ere bai, azken hau Haizearen zain. Arritxuk esan dit “pentsatzen hasia nintzen etxera itzuli beharko nuela, baina, lehen Izaskunek esan dit laster datorrela, semeengana joan behar zuela, Aitziber ere aldatzera zihoala esanaz pasa da”. Ni iritsi eta harmailetan trasteak uzten ari naizela Haizea kalean goitik behera korrika batean datorrela ohartu naiz, motxila bizkarrean hartuta.

Pilotalekua

Gaur ere saiora klasetik irten eta zuzenean etorri dela esan digu Haizeak, antropologia ikasketak eta paleta saioak uztartzen ditu astean bitan, eta Donostiatik irtetea ez dela batere erraza izaten, trafikoa dela eta. Orduantxe heldu da Izaskun ere eta honek esan du astean zehar herrian lan egiten dutenek ez dutela hori ezagutzen eta desplazamendurik egin behar ez izatea zortea dela berretsi du Arritxuk ere. Nik esan diet “N-1ean aurrera eta atzera ibiltzea baino hobea izango da”.

Izaskunek hizketan jarraitu du eta esan du “gehienak amak gara eta ez da erraza dena lotzea orduan heltzeko. ‘Encaje de bolillos’ egin behar izaten da. Nik orain ere han utzi ditut hirurak etxean, bakarrik. Aurreko astean etortzekoa nintzen, baina, batek 4 buruketa zituen egiteko eta horiek gaueko 21.15ean egitea baino hobea zela orduan egitea eta etorri gabe geratu nintzen. Aita ere ahal duenean etortzen da etxera”. Haizeak “baten faltan hiru” bota dio. Arritxuk esan du adin tarte batean gauza asko pilatzen direla, “baina nireak pixka bat koxkortuagoak dira”. Nik erantsi dut “haurrik ez izanda ere puzzlea osatu behar izaten da, ezta, Haizea?” eta bi amek erantzun digute “bada pentsa gero haurrak izandakoan, ikusiko duzue”.

Beroketa

Hizketan ari garen bitartean orkatilak, eskumuturrak, besoak eta abar mugitzen hasi gara eta orduan heldu dira Aitziber eta Idoia ere. Beraz, 5 ikasle bagara. Jaione beranduago etorriko ote den esan du bakarren batek eta besteen (Karmele, Aizpea eta Ester) berririk ez dutela.

Haize bolada zakar xamarrek dabilta tarteka, udazkeneko hego haizea (freskoa) omen, eta hotza sumatzen dut nik eskuetan batez ere, izoztuta dauzkat. Esan duenez Arritxuk ere bai eta korrika hiruzpalau itzuli egin ditugu pilotalekuan zehar, pixka bat epeldu asmoz. Usurbilen iruditzen zait tenperatura aldaketak nabarituko ditugula ikasturtean zehar, negua ez dela hain beroa izango pilotalekuan, erdi irekia edo “hiru laurdenak irekia” baita.

Ondoren, korroan gaudela, alboko kolpea denok landu ote dugun galdetu digu Haizeak, ea aurreko astean denok izan ginen galdetuta, eta pilota bana banatu digu, ezker hormaren aurka piloteatzen has gaitzen. Gaur, hala ere, esan du piloteoa jarraitua izan ordez pilotakada bakoitza egin ondoren pilota berriz ere eskuarekin hartu eta botea eginez prestatuko dugula: botea – jo – hartu – botea – jo – hartu... Gogorarazi du botea geuk egin behar dugula eta aurrean egiteko, pilota gorputzaren aurrean joz, “bote distantea” bota du eta Izaskunek esan du “izen berriak ikasiko ditugu, distantea, beraz”.

Ni, Izaskun, Idoia, Aitziber eta Arritxu ari gara, ordena horretan, 9. koadrotik hasi eta frontisera hurrenez hurren, eta Haizeak zuzenketak egiten dihardu. Ariketa hasi eta niregana hurbildu da hasieran eta hizketaldi bat izan dugu bekaren harira, goizean beste kontu bat zela eta telefonoz hitz egin baitugu eta orduan esan baitiot. Ondoren, berak zuzenketa lanari ekin dio eta nik pilota albotik jotzeari. Hala ari garela Haizeak emakumeak animatu nahian “batzuk ezkerrez ere ari dira” bota du. Aitziber hala ari dela ohartu naiz zehar begiratua erabiliz.

Halako batean hots dezente dator kaletik eta begiratu eta Sutegitik, pareko aretotik, jendetza ari dela ateratzen ohartu naiz. Izaskunek aldamenetik esan dit “mendi astea da eta emanaldiren bat izango zen”. Beraz, kalean gora eta behera eta pilotalekua zeharkatuz ohi baino jende gehiago izan dugu inguruan une batean. Horietako batean Aitziberrek ezagun bat agurtu du eta pilotak ia ni nagoen eremura alde egin diola aprobetxatuz harekin jardunean geratu da, hizketan.

Banaka denbora apur bat egindakoan Haizeak binaka jartzeko esan digu. Berekin seikotea osatzen dugu eta bera Arritxurekin, Idoia eta Izaskun eta ni Aitziberrekin jarriko gara. Ni bakarrik hasi naiz, Aitziberrek hizketan jarraitzen duelako, baina, honek amaitzean esan diot ihesi ez joateko, berriz ere lehengo bere lekura hurbiltzeko imintzioa egin baitu, frontis aldera, eta batera ekin diogu piloteatzeari. Bikoteko batek azpiko kolpea erabiliko du pilota kolpatzeko eta besteak, aldiz, albokoa. Nola hasi erabakitzeke Aitziberrek esan dit “ni azpitik hasiko naiz eta gero aldatuko dugu”. Halako batean aldatzea erabaki dugu, nik azpiko kolpea eta berak albokoa eginez. Horrela ari garela Haizeak zerbait esan duela ohartu gara, baina, ez diogu oso garbi entzun eta “zer?” galdetzean “aldaketa” erantzun digu. Guk aurretik eginda dugu eta berdin jarraitzea erabaki dugu pilotakadak elkartrukatzen. Haize boladak ederki nabari ditugu, batetik, gorputzeko freskuran eta, bestetik, pilotaren norabidea izugarri desbideratzen baitu tarteka, nabarmen, pilota frenatuz edo barrualdera bultzatuz.

Aitziberrek ezkerrekin ez dauka konfiantza eta segurtasunik, hutsak tartekatzen ditu kolpe onekin, eta nik galdetu diot eta berak esan dit “askotan errebasez emango nioke ahalko banu”. Esan diot “frustrantea da, baina, ikasten hastean komeni da lehenbailehen ezkerre sartzen hastea, esperientziaz, nik ezkerrekin apenas ematen nion paletan hasi nintzenez” eta “ez du ematen” erantzun dit. Modu berean jarraitu dugu ondoren ere, hizketan eta pilotakadaka, Haizeak denoi kantxaren erdi ingurura hurbiltzeko deia egin digun arte.

Ariketak

1. Bi ilaratan jarrita eta kantxa bitan banatuta, ezker eta eskuin. Hirukote bat eskuinean eta besteak ezkerrean. Bi ilarak independenteak dira eta lortu behar da, ilarako ordena mantenduz eta azpiko kolpea erabilia, piloteo ahalik eta jarraituena mantentzea, norbere eremuaren baitan mantenduz pilota, ahal dela.

Arritxu, Aitziber eta hirurok jarri gara ezkerrean eta Izaskun, Idoia eta Haizea eskuineko aldean. Orduan jakin dut taldekide asko irakasleak ditudala, Haizeak esan baitu “ni irakasleekin, gainera? Kontuz ibili beharko naiz!”

Ariketa egiten ari garela halako batean nondik bueltan ez dakit baina Haizeak paletakada handi xamarra jaso du ezkerreko belaunaren inguruan, zangoan, Idoiak emanda, pilota jotzera zihoan uean. Orduan esan du “ni ari nintzen esaten paleta ondo atzeratzeko eta azkenean nik jaso dut kolpea”. Barrez ari dira hirurak, ez dirudi min handiegirik duenik eta gu ere kutsatu gaituzte. Idoiak esan du “oraindik entrenatzailea lesionatu behar dugu”. Haizeak susto honen ostean, pala eskuan hartu eta besoa luzatuta duela “diametro honetan ez jarri inor bada ez bada ere” esan digu, segurtasunaz kezkatuta, nonbait.

Arritxuk kolpe asko goiko txapatik gora bideratzen ditu eta ohartu naiz kolpea gorputzaren aurrean bukatu ordez besoa buruaren gainetik duela bukatzen duela, punturik gorenean. Hori izango da pilotakada hain altuen arrazoirik nagusiena (B.K. Ez diot ezer ere esan momentuan, niri ez dagokidala iritzita. Hala ere, saioa bukaeran Haizeari egin diot horren inguruko aipamena, taldekideen arteko maila ezberdintasunaz ari ginenean).

Amaitzear gaudela Jaione agertu da kaleko arropa jantzita, lanetik bueltan nonbait. Orduan aprobetxatu du guri bisita bat egin eta datorren astean saiorik izango ote dugun galdetzeko. Haizeak “denok gaude eta orain erabakiko dugu” esan du eta seme-alabek asteazkenean klasea eta eurak lana badute ere, “jai bezpera da eta konpromisoa hartuz gero etorri egin beharko da, arriskua dagoelako 2-3 bakarrik azaltzeko” esan du Izaskunek. Azkenean, beraz, datorren aste saioa ez egitea erabaki dugu. Nork nori abisatuko dion ere erabaki dute eta Jaione agurtu ostean ariketa aldatu dugu. Honek esan digu “gaur gauza gehiegi ez ikasi, eh” eta nik erantzun diot “bada justu gaur da eguna”, irribarrez. Berak ere hala erantzun dit, irribarrez.

2. Lehengo egoera bera, baina, azpiko kolpea erabili ordez albokoa egiten saiatuta. Kolpe guztiak albotik jotakoak izan behar dira.

Gure ilarako ordenan Arritxu, ni eta Aitziber tokatu gara. Alboko kolpea egiteko “pilota bote handiagoa duenean kolpatu behar da” esan du Aitziberrek eta Haizeak esan dio “ohartzuz gero altuera baxuegia dela eskuarekin hartu eta berriro ere botea eman eta atera”.

Ariketa hasi eta berehala ohartu naiz gure hirukotean zailtasunik handienak Arritxuk dituela, ez duela asmatzen kolpe une eta altuerarekin zenbaitetan, ezinean ari dela. Aitziberrek prestatzen dio pilota eta honek esan dio “nik ez dut apropos egiten, eh. Niri Uxuek oso ondo prestatzen dizkit”. Orduan, une batean nik proposatu diet nahi baldin bazuten ordena aldatzea eta ni izatea Arritxuren aurretik kolpea egingo zuena. Ados agertu dira biak ala biak eta Arritxuk lehen baino kolpe batzuk gehiago jo ditu, nahiz eta tarteka kaleak ere egiten dituen.

3. Bikoteka jarrita, lehenengoak pilota prestatuko dio kideari (“ez da batere erraza pilota ondo prestatzea” esan du), honek horma bikoia egingo du eta prestatzailea pilota txokora mozten saiatuko da, alboko kolpea erabiliz.

Haizearen asmoa sekuentzia pilota prestatu eta horma bikoarekin amaitzea zen hasieran, bakoitzak kolpe bana eginda, baina, aurreko asteko ariketarekin gogoratuta, antza denez, Arritxuk luzatu du hirugarren kolpe bat sartzeko proposamena. Haizeak “ekarpen ona” esan du eta horrela burutu dugu ariketa (B.K. Aurreko astean prestatzaile Haizea aritu zen, baina, gaur gure esku utzi du).

Idoia eta Izaskun, Arritxu eta biok eta Aitziber eta Haizea hasi gara, ordena horretan. Bikote batek ariketa bukatzean ilaran atzean jarri da eta hurrengoak hartu du lekua ariketa burutzeko.

Pilota prestatzeko garaian ohartu naiz prestatzailea kasurik gehienetan, nire kasuan izan ezik, horma bikoia egiten duenaren eskuinean kokatu dela, ondoren zabalera heltzea asko zailduz, hormatik gertu erdi preso geratuta. Hori ikusita Haizeari aipatu diot “ez ote da errazagoa izango eskuinean jartzea prestatzailea ondoren horma bikoari erantzun behar badio?” Berak erantzun dit “berez hobea da, baina, orduan ezkerreko hormara bideratzeko joera izaten dugu” eta Aitziberrekin proba eginda hala gertatu da. Beraz, lehengo eran jarraitu dugu.

4. Partidak, 1:1 aurrean. 5 tantora. Tantoa horma bikoia eginda lortuz gero +2.

Partidak jokatzeko nor hasiko den erabakitzeko “zein hasiko da?” galdetu du Haizeak, berak pilota eskuan duela, eta inork ez du ezer esan. Orduan, “bada, ni” esan eta beregana gerturatu naiz. “Bestea?” galdetu du eta “zu” erantzun diote emakumeek, “guk ikusi egingo dugu, horrela ere ikasten omen da eta”.

Haizea eta biok hasi gara eta hasterako, bada ez bada ere, “Uxue ni ez naiz entrenatzera etorri” bota dit. “Ni ere ez” esan eta ekin diogu. Atzean beste laurak pilotatu ordez begira ditugula ohartu naiz. Lehen tantoa horma bikoz lortu dut, hirugarrenean berak egin du huts, nik ezkerrez eta airez pilotakada bat jo ostean, eta Haizeak esan du “bi tanto lortuz gero partidak alde egiten du”. Azken tantoa ere horma bikoz lortu dut eta 5-0 amaitu dugu. Ni partidaren zehar ohartu naiz bakarren batek nire kolperen baten gainean aipamenen bat egin duela. Amaitzean Haizeak esan dit ni geratzeko aurrean eta nik esan diot alda genezakeela, aurreko astean irabazlea izan zenez aurrean geratu zena gaur

galtzailea izan litekeela. Azkenean baietz esan eta bera geratu da aurrean eta ni atzean piloteatzera igaro naiz, Idoiarengana.

Aurrean Izaskun eta Haizea ari dira eta gure aldamenean Aitziber eta Arritxu. Idoiarekin piloteatzen ari naizela galdetu diot ea ikastaroan hasiz geroztik joan den paletan aritzera haurrekin eta berak erantzun dit baietz, erraketan eta paletan aritu dela, “nik, gainera, mutilak ditut eta borobila den dena gustatzen zaie”. Alboko kolpera ohitzen ari den ere galdetu diot “dagoeneko ez da hain ortopedikoa izango, ala?” eta “ez, ez, orain hobeto” erantzun dit.

Haizea etorri da aurretik irabazi eta niregana eta Idoia joan da aurrera Izaskunekin partida jokatzera. Honek galdetu dit ea oso saio ezberdinak izaten diren Saioarenak, bai baitaki beste bi taldetan ere banabilela, Hernanin izan zenean ez zela behaketan aritu eta. Ni gogoratzen saiatu naiz alboko kolpea lantzeko zer egin genuen eta esan diot ez dudala gogoratzen oso ezberdina izan zenik ere, baina, begiratu egin beharko nukeela. Berak esan dit askotan zalantza egiten duela ez ote den emakumeren bat aspertuko, ez dela oso erakargarria ere ariketa mota hau, nahiz eta liburuxkako saioak jarraitzen dituen. Nik esan diot liburuxkaz balia daitekeela, baina, dena letraz letra jarraitu ordez, agian, konbinatu ditzakeela ariketa ezberdinak euren artean (B.K. Behin baino gehiagotan agertu dit zalantza hau bera Haizeak, saioen egitura eta emakumeen iritziaz kezkatuta, ziurrenik).

Aurrean Izaskunek galdu du berriz ere eta Arritxu joan da beregana. Aitziberrek oraindik ez du jokatu eta Idoia hurbildu zaio piloteatzera, gure aldamenera. Azkenean Izaskunek irabazi du eta Aitziber joan da aurrera azken partidana.

Haizea eta biok elkarrekin piloteatzen jarraitu dugu, baina, oso lasai eta erritmo baxuan eta bai berari eta bai niri hotzak gaina hartu digu une batean, haize boladen ondorioz.

Aurreko partida amaitu denean Haizeak esan du txokotan arituko garela azken hamar minutuetan.

5. Txokotan. Tanta horma bikoz lortuz gero +1. Bakoitza 3 bizitzarekin hasita (Haizearen bertsioan “bi eta propia”).

Izaskun eta Idoia hizketan aritu dira tarte luze batean eta hala dihardute eta beranduago heldu dira aurreko gunera. Hortaz, txokotan zenbat bizitzarekin galdetu eta “bi eta propia” erantzun diegu. Kopuru horri buruz aritu gara, “gure ikastaroan hemendik aurrera hala izango da” bota du Arritxuk, besteak beste. Barre pixka bat egin dugu horren harira, Haizeari adarra joz. Gaur ez dugula marrak ukitzera korrikarik egingo erantsi du Haizeak hasi aurretik.

Idoia zabal xamarrean jarri da eta bertatik pilota moztu eta ezkerreko hormara itsasten behin baino gehiagotan asmatu du. Izaskun, aldiz, ia 5.koadroan jarri da eta han egon da puska batean, pilota bakar bat ere jo gabe. Haizeak, “zer ari zara hor? Etorri aurrera jotzera, hori tranpa da” bota dio eta besteak erantzun, “Ni hemen, guardian nago, pilota jasotzeko”. Barre dezente egin dugu irteera horren harira ere.

Aitziber izan da lehenengoa kanporatzen, bera oso ziur ez bazegoen ere zenbat bizitza dituen, Haizeak “zuk zenbat bizitza dituzu?” esan ostean. Handik gutxira Arritxu joan

da eta Izaskunek ere ez du denbora asko behar izan. Ni une batean “propia” horrekin bakarrik geratu naiz eta errekupeatzeko horma biko bat egin dut.

Azkeneko Idoia, Haizea eta hirurok geratu gara. Lehena ederki ari da moldatzen alboko kolpea erabiliz eta bakarren batek esan du, beste hirurak harmailetan ikusle jarrita ditugu, “gero galdetuko diogu zer meriendatu duen” edo baita “hurrengoan eskuin alde horretan jarri beharko gara” ere. Txalo jo diote tantoren bat egin duenean ere. Azkenean hirurok “propia” geneukala geratu gara eta Idoia eta ni izan gara azken biak. Idoia bera gustura sumatzen da jokoan eta bukaeran.

Txokotan 21.05 inguruan amaitu eta ezker hormara hurbildu gara luzaketak egitera. Bikiak, kuadrizpesa, trizespa, etab. luzatu eta amaitu dugu gaurko saioa. Horretan gabiltzala mutil bat azaldu da eskupilotako pilota batekin eta ezker hormaren aurka hasi da pilotan. Arritxuren semea dela jakin dugu eta “afaldu al duzue?” galdetu dio honek. Azken luzaketa egin, harmailatik trasteak jaso eta elkar bi aste barrura arte agurtu dugu. Nik ere Haizearekin bi hitz egin eta etxerako bidea hartu dut.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko saioa ia aurreko astekoaren kopia izan dela iruditu zait amaieran, ariketetan oso aldakortasun txikia sumatu baitut aurreko astetik hona. Uste dut bat izan ezik beste denak egin genituela, eta ordena berean, gainera. Ez dakit emakumeak konturatuko ote ziren horrekin, eta hala izan bada, zer iritzi izango duten horren inguruan. Interesgarria iruditzen zait iritzi horietara heltzea, baina, ez dakit nola egin ote litekeen hori.

Nik gaur hotza pasa dut, saioa eskuak hoztuta hasi eta berdin amaitu dut ia ordu eta erdiren ostean, haize finak indarrez jotzen baitzuen. Eskerrak niki beso luze, polar, txamarra lodi eta gainerakoak hartuta joan naizen, saio amaieran azkar asko jantzi, epeltasunaren bila.

Hasieran alboko kolpea landu genuenean baino histerismo eta izu aurpegi gutxiago izan dira pilotalekuan gaur, besteak beste. Hirugarren saioa izan da eduki bera landuz eta emakumeak erabat eroso eta seguru ikusi ez arren egoerak ez du zerikusirik handirik orain hiru saiokoarekin.

Akueduktuaren atarian

Datorren astean ez daukat ikastaroetako saiorik asteartean eta asteazkenean, astearte eta osteguna jaiegun nazionalak direlako (eta asteazkenean jai bezpera delako ikastaroko amentzat). Honenbestez, saio bakarria izango dut guztira, astelehen goizekoa. Egia esan, kotxean hainbeste ordu eta kilometro eta bolantean hainbeste tentsio nabari dudana bolada honetan, N-1eko kurbak eta kamioiak ederki asko identifikatzen ditut dagoeneko, eskertuko dut etxetik gertuxeago ibiltzea, nahiz eta lana eta zereginak oparitzeko adina eduki. Ea bestelakoak aurreratu eta arloren bati astindu on xamar bat emateko gai izaten naizen.

Aste honen joanarekin amaitzeko, ez dut izaten normalean altxatzeko arazo handiegirik, baina, jasoriko kolpearen dimentsio estratosferikoa tarteko, izugarri ari zait kostatzen egoera onartu eta normaltasunera itzultzea, errealitatea bere gordintasunean irenstea. Ikasteko lezio bat badaukat, gutxienez, oraindik ere: ahaztearena. Ahazten ikasi nahi

nuke, gauzei behar baino garrantzia handiagorik ez ematen, atzera bueltarik ez daukan zerbaiten inguruan gogoetan eta damutu zein izan zitekeenean pentsatzen orduak emateak ez baitu aurreranzko bidean jarraitzeko gehiegi balio. Ez une hauetan, behintzat. Beraz, haizea kontra izan arren, eta itsasoa benetan zakartuta sumatzen bada ere, marea oso biziak tarteko, lemari heldu eta korrontearen kontra arraun egiteari ekiteko unea da hau, lehorrera ahalik eta lasterren heldu eta giro gozoagoan igerian amaitzeko. Boga!

10. astea. ZUBIRIK ZUBIRI

Aste honetako saioak ohartzerako igaro dira, astelehen goizean hasi eta eguerdirako ia amaituta baititugu. Izan ere, biharamuneko Konstituzio egunak eta hurrengo eguna jai bezpera izateak baldintzatua da abenduko lehen aste oso hau. Ikastetxe, lantoki eta abarretan ere jaiegunak dituzte ia guztiek, ezberdin banatuta izanagatik ere, aste honetan zehar. Abenduan izango ditugun gainerako (Gabonak, urte amaiera, etab.) aperitiboa dei geniezaieke, adibidez.

Bakandutako artaldea

Gaurkoa aste berezi xamar baten hasiera izaki, badirudi ikastaroan aritu garenon kopuruari ere eragin diola. Izan ere, aurretik norbaitek adierazi arren ez zela etorriko, ohi baino “baja” gehiago izan ditugu. Beraz, aurreko bi asteetako ia dozena hura bakandu da honako honetan.

Eguraldi umel eta goibelarekin hasi dugu astea, beraz, etxetik autoa martxan jarri eta irteterako gurutzatu ditut hatzak, bidean istripurik izan ez zedin eskatzen ari banintz lez. Izan ere, aspaldian euri eta zaparrada gutxi izan da gure inguruan eta errepedea arriskutsu geratzen da (egiten dugu) gaur bezalako egunetan. Beraz, zuhurtzia handiz, eta oztoporik ez izateko deseatzin, egin dut 8.43an abiatu eta saiorako bidea, euri hotsa lagun. Irratia ere piztuta nekarren, baina, haizetakoaren joan-etorriek eta abarrek ez didate behar bezala jarraitzeko aukerarik ematen, eta nik ez dut bolumena igo nahi, beraz, hondoko musika bezala ekarri dut gaurkoan. Azkenean, gorabeherarik gabe eta ohiko denbora tarte antzekoan heldu naiz, beraz, hasiera, behintzat, balekoa izan da.

Kiroldegiko sarrera

Kotxea aparkatu eta astelehen goizeroko hitzordu lekura abiatu eta gutxira, erdi bidean, Ainara, Gemma eta Malen hirukotearekin elkartu naiz. Ainara kaleko arropa jantzita dabil eta gainerako biak kirol arropa. Hizketan ari dira eta egun onak emanez gerturatu natzaie. Halako batean Ainarak esan dit “gaur ez noa, lanera noa”, astelehen eta asteazkenerako ordezkapen bat egiteko deia jaso baitu. Halako batean, beno, “nahiko berandu nabil eta banoa” esanez agurtu gaitu eta beste hirurok etxearen tarteko pasabidetik kiroldegirako bidea egin dugu. Bertan, kanpoan zain jarrita dago dagoeneko Irati. Gemmak esan dio “puntual, eh”, berak “bai” erantzuna eman eta 9:27 direla ikusi dut erlojuan nik. Atea zeharkatu eta gainerako zain jarri gara. Saioa nahiko azkar etorri da eta Ines ere hurreratu da igerilekuko jarduna amaituta. Halako batean (9:36 tornuaren arabera), barrura sartuko garela esan du Saioak. Aurretik Zarauzko bikoteen krosean irten ote zen galdetu dio Iratik eta berak “ez, pala partidua eduki nuen nik” eta nik “gu bai, gu irten ginen” esan diot, bezperako korrikaldiaz gogoratuta. Hala, Gemma eta biekin pilotalekurako bidea egiteko hizketa-gaia hortik atera dugu. Bakarren batek “gaur gutxi gaudela dirudi” bota du bidean goazela, aurreko asteko tropelarekin gogoratuta, ziurrenik.

Pilotalekua

Bertara sartu eta trasteak utzi eta berehala lehenengo Miren eta ondoren Jone eta Zuriñe heldu dira. Beraz, momentuz, zortzikotea osatu dugu saiorako. Ainara eta Naiara ez datozela badakigu eta Rakel eta Joana ere falta dira. Azken honen gainean galdetu dio

Saioak Iratiri eta “kanpoan da” esan dio. Halako batean Saioa korrika hasteko esan eta argiak pizteko eskatzera joan da azken pasabidearen sarrerako tinbrera, ilun baitago pilotalekua.

Beroketa


Ni Inesekin kontu kontari hasi naiz korrika txikian, aurretik ere hala ari baikin, mingaina lanean jarrita. Ondoren, hizketan jarraitu dugu mugimendu artikularreko ariketak egin bitartean ere. Orduan, korroan ginela, Jonen Saioari galdetu dio eskuarekin kuadrizepsa seinatu eta hanka atzeraka hartuta eramanez, “zein da hau luzatzeko egokia?” eta nik erantzun diot, Saioari aurrea hartuta, “horrez gain, lurrean eserita ere luza daiteke”. Ondoren, adduktoreak luzatzeko hiru aukera ezberdin ere agertu dizkiot (zutik, eserita eta hanka petrilean jarrita) eta berak egindako galderari erantzunez “ez, hori iskiotibialak luzatzeko da” esan diot, gauza bera oina gora begira dela eginez. Orduan, esan digu “asteazkenean palan ibili ginen Tilosetan eta gero ez nuen luzatu lotsagatik eta hurrengo egunean agujetak nituen”. Gemmak esan dio berak ez dituela izaten, ez dela luzatzen, beraz, eta Inesek esan du “egia da nik ez dudala egiteko ohiturarik, baina, arratsaldean Pilatesera joaten naiz”. Azkenean, beraz, luzaketa bat nola egiten galdetu hasi denak luzaketen inguruko hizketaldi izaten amaitu du.

Amaitzeko, ohi bezala, Saioak binaka ezker hormaren aurka jarduteko pilota bana banatu digu, aurrez paletak ere bai, noski, eta ni Inesekin txor-txor ari naizenez berriz ere biok elkarrekin aritu gara, errebote aldamenen jarrita. Gure alboan Malen eta ez dakit zein dauden. Malenez oroitzen naiz ia-ia Saioa bete-beteen jo duelako pilotarekin hau paretan marra jartzen ari zela, eta besteak nola dauden ere ez naiz begiratzen jarri. Denboralditxo egin dugu horrela, hitz eta pilotakadak elkartrukatu, Saioak marra guztiak jartzen bukatu eta deitu arte.

Ariketak

Gaur ere 1. espazio helburua landuko dugu, marrak begirata hartzen zaio tankera saioaren nondik norakoari.

1. Banaka, ilara batean jarrita, Saioak pilota prestatuko digu eta guk eskuineko eremuan sartzen saiatu behar dugu. Kolpea egin, pilota jaso eta ilaran atzera itzuliko gara. Ondoren txanda heltzean ezkerrekora bidaltzea tokatzen da.



Malen izan da ariketari ekin diona, ilaran lehenengoa jarri dena, eta berezkoa duen alboko kolpearekin ederki ekin dio, bete-beteen eskuinean sartuz. Ondoren, ilaran txanda heldu zaidanean, nik ere lortu dut gunean sartzea, aurretik beste zenbaitek ere bai, eta Jonen ilarara bueltatzen ari naizela “Uxuek lortzen ez badu nik ez dut ariketa horretan sinesten” bota du irribarrez. Neuk ere irriz erantzun eta ilaran jarri naiz, Inesen atzean.

Ezkerreko gunea txikiagoa da eta askoz ere gehiago kostatzen zaigu denoi bertan sartzea. Nik lehen kolpean justu jo aurretik egon daitezkeen aukera ezberdinen inguruan


pentsetan jardun dut, nola jo, eta kolpea txapapera bota dut. Saioak albotik “Uxue gorago” bota dit. Hurrengo kolpean eskuinekoan sartu dut berriro, baina, ezkerrekora bota aurretik Saioari galdetu diot ea edozein modutara jota bidera daitekeen pilota gunera eta berak baietz erantzun dit, eta nik, bada ez bada ere, “dejadaz ere bai?” galdetu diot. Hark “bai, dejadaz ere bai” erantzun dit. Bigarrenean saiatu banaiz ere justu-justu ez dut lortu eta Saioak atzetik dejadaz sartu du, niri begira.

Ariketan zehar ari garela konturatu naiz ez ditugula pilotakaden erdiak gunetan sartu, agian, eremuak ere ez direlako oso zabalak eta Saioak esan digu “guneak ez dira handiagoak ni altueraz ez naizelako iristen”.


Amaitu dugu eta ondoren hiru gunetan partida egoerak landuko ditugula esan digu.

2. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. 5'ko partidak eta ondoren gune aldaketa.

- Frontiseko eremuan, 2:2. Lehengo bi guneak mantenduz, pilota gunean sartzea lortuz gero +1.
- Erdikoan (5-7), 1:1. Pareta hiru gunetan banatuta, ezker eta eskuinekoak gune debekatuak eta erdikoa erabilgarria. Kantxa bitan banatuta, ezker eta eskuin. Pilota eskuinetik ezkerreko gunera bideratzeko eskuinez egindako kolpea izan behar du eta ezkerretik eskuinera bidaltzeko ezkerrekin egina. Erdiko gunea da frontisean jo daitekeen bakarra.



- Atzean (8-errebotea), 1:1. Erdian jarrita dagoen gunean ez du jo behar pilotak. Bertan joz gero tantoa aurkakoarentzat izango da.



Bikoteak egiteko zenbakiak banatzeko sistema erabili du gaur ere entrenatzaileak, 1etik 4ra artekoak emanez guri. Gemma eta biok elkarrekin tokatu gara (2a geneukan) eta “askotan tokatzen zaigu batera” esan dit berak. Nik hala dela erantzun diot. Miren eta Ines ahizpak ere batera tokatu dira eta Inesek Saioari esan dio “gaizki egiten badu igual ipurdikoren bat emango diot”. Malen eta Jonek osatuko dute 3.bikotea eta Irati eta Zuriñek 4.a.

Ariketan azalpena ematean, lehenaren inguruan entzundakoaren ondoren, nik galdetu dut “gunea jo eta gero tantoa amaitu egingo da ala jarraitu egingo dugu?” eta “jarraitu egingo da” erantzun dit Saioak. Orduan, markagailua kontatzeko sistema konplikatuxegoari erreferentzia eginez, “matematika lantzeko ona da” gehitu du eta Mirenek, gainera, “hau altzeimerrarentzat ona dun, Mari” esan dio ahizpari.

Bigarren guneko egoera azaldu ostean, berriz, Saioak begirada niri zuzendu eta “gaur probatu egingo dut” esan dit, aurreko asteko erdiko ariketaren alternatiba bezala aurkeztu bainion nik ariketa hau bera astearteko saioan. Nik “nigatik lasai, zuk ikusi” erantzun diot. Ez dute oso argi emakumeek eta Jonek “orduan berdin dio paretan non

jotzen duen?” bota eta Zuriñek, mesedez, berriz azaltzeko eskatu diote. Nik lagundu egin nahi izan diot esanez “hormaren eta kantxaren arteko konbinazioa izan behar da kontuan, frontisean erdian bakarrik jo baitezake”. Saioak esan die “kontua da konturatzea pilota eskuinera botatzeko oso eskuinean ez dela jo behar frontisean, bestela kanpora joateko arriskua oso handia baita”. Badirudi pixka bat gehiago kostatuta izan bada ere ulertu dutela zer eta zergatik egin behar den.

Tarteka konturatzen naiz unerren batean Saioari zalantza edo kezka bat sortzen zaiola nik berak egiteko proposaturiko ariketen gainean izan dezakedan iritzi eta ikuspegiak, niri begiratu eta “onarpena” eskatzeko tankera hartzen baitiot. Adibidez, oraingoan ariketa justifikatzen ez ote den ari pentsatu dut. Ni bat gehiago naizela adierazten saiatzen naiz horrelakoetan berari ere, askatasun osoa duela adierazten, baina, ez dakit, une batzuetan lortzen ez dudan sentipena izaten dut bere erreakzioan erreparatuz gero.

Jone, Malen, Gemma eta laurok elkarren inguruan gaude eta Maleni azaltzen hasi gara joan den asteko ariketa xelebrea zela eta hortik sortua dela hau. Bien bitartean Saioak hirugarren eremuko betebeharra zein den azaldu du eta guk azalpena galdu dugu gutxi gorabehera. Mingainari horzka ez egin izanaz damutu naiz ondoren, baina, beranduegi.

Partidekin hasteko 1-2 zenbakidunak aurrean, 3ak erdian eta 4ak atzean hasiko gara esan du Saioak. Guregana hurbildu da “zertaz ari zarete?” galdetuz eta “aurreko astekoa azaltzen ari gara” erantzun dio Gemmak, Malen ez baitzen etorri. Saioa hasi aurreko hizketalditxoan zehar esan digu gaixorik egon zela gastroenteritisak jota eta astean zehar, berriz, semeetako bat izan zuela gaixo, nahiz eta bikiek ez zuten pasa (B.K. Nahi gabe ere beti agertzen da amatasuna, bai haurren aipamenean edo antzerako zerbaitekin). Jonek, aurreko astekoa gogora ekarriz, esan du “nik galdera bat egin eta kontua izorrratu nuen” eta Saioak, aldiz, berak idatzi duela ariketa horrek ez daukala zentzurik dagoeneko liburuxkan. Jonek berak zer zentzu bilatu zion azaltzeko aprobetxatu du eta nik “bere logika izan dezake” esanez erantzun diot.

Halako batean, ekin diogu jokatzeari. Gemma jarri da ezkerrean atzelari, Malenekin batera, eta Jone eta biok aurrelari, eskuinerago eta aurrerago. Markagailua eramatea ez dela erraza konturatu gara, nik tantoan zehar batzen ditut guneetara bideratutakoak, momentuan batuketak eginez, eta tanto batean bizpahiru pilotakada bata bestearen atzetik txandaka eskuin eremura bideratzean ni erdi nahastuta nabil dena batera egin ezinda eta niri etorritako pilota ez dut behar bezala erantzun, kalkulagailua blokeatu baita aurretik. Saioak orduan “19-17” bota du, ordurako gure gune aldamenean baitzegoen, kontrakantxan, behaketan eta matematiketan lagunduz. Partidan Malenek espero ez nituen bi tantotzar sartu dizkit atzetik eskuinean dejada egin eta onerako harrituta. Azkenean 21-14 galdu dugu eta aldaketa egiteko unea da.

Lehen errotazioan galdu eta erdira joatea tokatu zaigu, guneak eta kolpeak konbinatzen dituen ariketara. Hasi eta gutxira Saioa hurbildu da eta Malenek eginiko jokaldi paregabeen berri emateko pilotan aritzeari utzi diogu. Orduan, bere berezko kolpea albokoa duela esanez hasi eta egun federatuta ari diren onenen mailaraino heldu gara hitz eta pitz hasita, loturatik loturak eginez. Azkenean, jokatzeko baino askoz ere gehiago aritu gara mingaina dantzatzen errotazio honetan (B.K. Hau sozializazioaren adibide garbi bat da, saioetatik haratagokoaren adibide, nire ustez).

3. errotazioan atzera joan gara eta Miren eta Inesekin gurutzatu gara. Hauek doaz aurreko gunera eta Inesek “zuek zertan aritu zarete?” galdetu digu erdi irribarrez, lehengo hizketako egonaldiari erreferentzia eginez. Atzera heldu eta pilota jotzen hastean ohartu gara ez genekiela eremuan sartu behar zen ala ez (aurretik behar zen garaian jaramon ez egin izanaren ondorioz) eta Saioari galdetu diogu. Hark esan digu “erdiko gunean ezin da sartu” eta orduan bai, orduan serioxeago ekin diogu ariketari. Elkar mugitzen saiatu gara une batean, baina, nahiko lasaiak izan dira pilotakada asko eta asko. Hizketa-gai federatuen txapelketak izan ditugu, Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketako finalak hiru aste eskas barru, abenduaren 23an, une honetan gu ari garen frontoi honetan bertan jokatu direla aitziak hartuta.

B.K. Erdiko eta atzeko eremuko egoerak ere, teorian, markagailudun partidak izaten badira ere, guk askotan ez ditugu kontatzen tantoak eta baldintzuriko piloto baten tankera hartzen du. Besteen kasuan ere, gehienetan, halatsu izaten da. Beraz, markagailuaren inguruko xehetasunak ere aurki daitezke saio guztietan.

Atzetik berriz ere aurrera egin dugu eta Ines eta Mirenekin egin dugu topo. Hurbiltzen ari garela Ines “uuuuu” esanez begira ari dela konturatu naiz eta “lasai, lehen egurtu egin gaituzte Malenek eta” esan diot, lasaitze aldera. Kasu honetan Gemma eta Miren aurrelari eta Ines eta biok atzelari jarri gara. Hasiera xeble xamarra eman ostean partidari, hiru txapa jo ditut denbora gutxian, azkenean badirudi neurria hartu diodala eta lasai antzean ari naiz, guneetara pilota dezente bideratuz. Lortu ditut puntu batzuk eta kontrakantxatik begira dagoen Saioak “Uxuek neurria hartu dio” esan du. Azkenean nahiko parekatua joan da markagailua eta 20-20 amaitu dugu. Saioak bi ahizpei erdira joateko esan die eta guri bertan geratzeko.

Atzetik Jone eta Malen etorri dira eta “orain, errebantxa” bota die Gemmak. Nik ea lekuz aldatzea nahi duen galdetu eta “berdin dio, horrela jokatu dugu” bota dit, nik atzelari eta berak aurrelari segiz. Lehengo egoera aldatuz, Jone atzean eta Malen aurrean ari dira. Aurrez ederki asko moldatu dira gure aurka eta elkar animatu dute “Aupa, Jone” eta “Aupa, Malen” banarekin. Oraingo honetan gehiago asmatu dut eta azkenean irabazten amaitu dugu.

Partida amaitu dela adierazi digu Saioak eta “zuek laurok atzera joango zarete” esan digu. Erdiko eta atzeko eremuetako beste laurei, aldiz, alderantziz, “etorri laurok aurrera” esan die. Beraz, tankera hartu diodan bezala (B.K. Saioa eta bere saioak pixka bat ezagutzen ditudan seinale), 2:2ren aurkako partidak, baldintzarik gabeak.

Saioa marrak kentzera etorri da, baina, guk lasai egoteko esan diogu, gero kenduko ditugula eta ez garela nahasiko horregatik. Aurrean Irati eta Zuriñe eta Lujanbio ahizpak ari dira elkarren aurka. Une batean aurrera zehar begiratua bota eta ohartu naiz, oso oker ez banabil, hauek baldintzarekin ari direla partidari, kolpe bat baino gehiago ikusi ditudalako bata bestearen atzetik ezkerreko eremura bideratuta (B.K. Duda horrekin geratu naiz eta ez diot Saioari galdetu. Egin beharko ote nuke? Ez dut egin saioan zehar). Gu atzean lasai antzean ari gara, baina, kasu honetan partidari, tantoak kontatuz. Tanto on xamarren bat egin dut eta Gemmari “a zer erraztasuna” esaten sumatu dut Malen.

Halako batean Saioak gu lauroi ere aurrera joateko esan digu, saio hasieran bezala zortzikotea elkartuz berriro ere. “Txokotan egingo duzue bizitza banarekin” azaldu du,

“bizitza galtzen duena kalera”. Jonek “korrika egin behar al da?” galdetu du eta Saioak erantzuteko astirik izan aurretik “ez, ez, Jone, egon isilik” erantzun diote emakumeek. Saioak irribarre egin eta atzeko eremuko marrak kentzeko bidea hartu du. Hasi eta berehala, ohi bezala, emakume guztiak atzean kokatu daude eta ez dute arriskutzen. Nik jo dudan hirugarren pilotakadan txapapera bota dut airez eta “zer, Uxue, nahita egin al duzu?” bota du norbaitek. Nik ezetz, hutsa nahita ez dudala egin erantzun eta kontrakantxarako bidea hartu dut, saio praktikoa amaitutzat emateko luzaketak egitera. Lehena kaleratu naiz eta badirudi harrigarria egin zaiola, besteren batek oroitzen ez dudan aipamenen bat ere egin baitu. Saioa berehala hurbildu zait, atzeko marrak kenduta, eta “ez dute batere arriskutzen esan diot” eta berak “ez, ez, batere ez” erantzun dit. Azkenerako besteek ere amaitu eta luzaketetan ari gara, norbera bere kabuz eta bere eritmoan, gutxi gorabehera.

11.00 pasatxo dira dagoeneko. Inesek nahiko azkar alde egin du, luzaketetan geratu gabe, eta besteok luzaketa batzuk egin ditugu. Ni Saioarekin ari naiz bezperako Galarretako Gpuntua txapelketako saioaz eta hori entzunda Mirenek “zer, atzo Galarretan izan al zinen?” galdetu dit eta nik “bai, Saioa ere bai” erantzun diot. Jonek esan du joatekotan izan zela, baina, azkenean, ez zela joan. Finala bakarrik geratzen da eta Saioa bertara joatekotan da, ni bezalaxe. Ohartu naiz pilotako zaletasunaz gain besteren bat ere partekatzen dugula.

Kiroldegiko sarrera

11.08 dira eta kanporantz goaz. Irati, Saioa, Gemma eta ni inguruan goaz, Miren aldageletan agurtuta eta Malen ere aurreraxeago doa, Jone eta Zuriñerekin batera. Elkar datorren atera arte eta aste ona izateko esanez agurtu dugu. Kanpoan euria ari du eta nire aterki txikiaren pean Saioari kotxera lagundu, nik ordenagailuaren poltsa bizkarreratu eta liburutegirako bidea hartu dut, bada ez bada ere lurrera begiratu, putzuak saihestea erraza ez dagoen arren.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa nahiko azkar pasa zait. Agian, buruan bueltaka darabilzkidan mila eta bat kontuak ahaztea lortu dudalako momentu batean. Horretarako “terapia” ona da emakumeen artean jardutea, bai horixe.

Zortzi lagun aritu gara saioan gaur eta parte-hartzea beste batzuetan baino handiagoa izan da jokoan. Aipamen hori egin dute emakumeek ere, dozenatik zortzira alde baitago, bai espazioaren banaketan eta baita jarduteko aukeretan ere. Hala ere, dozenako hori berriro ere errepikatzea ez zait oso erraza iruditzen, beti edo ia beti huts egiten duelako bakarren batek arrazoi bat edo bestea dela medio.

Oraindik ez naiz argazkiak ateratzen eta eskenatokiaren zein aktoreen deskribapenak egiten hasi, nahiz eta kontakizunetan zehar xehetasun eta zertzelada batzuk ageri diren dagoeneko. Helduko ote diot urtea amaitu aurretik?! Ez dakit, ez dakit.

Aste honetan saio bakarra, eta, beraz, eta, bereziki, bi desplazamendu gutxiago izateak lasaitasun puntu bat ematen dit, nahi beste lan eta gehiago izan arren.

Beste angelu batetik

Saio bakarra eduki dut hirutik lau aste osoren ostean. Hurrengo bietarako gogo berritu eta indarberritzeko astea da hau, beraz. Izan ere, Gabon usaina ere geroz eta gertuago dugu eta abenduaren 19ko astea izango da aurtengo azken klase astea.

Etnografia astebetez pausagunean utzi eta orain arte bazterrean utzi ditudan zenbait lan eta atal aurreratzen saiatzea dagokit, besteak beste, egunotan. Izan ere, hiru saioetako asteetan ordu asko joaten zaizkit bidaia, ikastaroko saio eta ohar zein kontakizunen inguruan, ia hiru egun oso, eta ez dut tarterik hartzen (eta ezta gogorik ere) hain gustuko eta erakargarri ez zaizkidan beste atal batzuei ekiteko, ostegunaren bigarren erdirako nekeak ere erabat gaina hartzen baitit. Horregatik, oraingoan ihesean hasteko aitzakiarik ez daukat. Beraz, has nadin, premia (larria) badaukat eta!

11. astea. TARTEKO HELMUGATIK HURBIL

Abenduaren erdia joan da ihesi eta ia baita aurtengo urtea ere. Azken astindua baino ez zaio falta 2011ri agur esan eta 2012ari lekua uzteko, 365etik 349 egunek esku artetik ospa egin baitigute ohartzera. Oraindik, ordea, hamasei egunetan hamaika lan, aurrera-atzera eta gorabehera izango ditut, beraz, unea heltzen denera arte itxaron dezala aurtengoak joan eta hurrenak etorri arte. Gainera, nahi izanda ere alferrikako saiakerak egingo genituzke egutegiko orrien erritmoa moteldu edo orriak binaka pasatu nahian, denbora menderatzerik ez baitaukagu. Beraz, datorrenari heldu beharko diogu.

Errutinara bueltan

Abendu hasierako zubi edo akueduktuari agur esan eta berriro ere asteroko errutinari heltzeko ordua heldu zait, hiru saio asteko eta, beraz, joan etorriak ere hirukoiztuta. Iragan astean Hernanira bakarrik bidaia egiteak desplazamenduen nekea eta motorra martxan jarri beharrak eragiten didan alferkeria zantzua uxatu dizkit bederen. Hala ere, beste lan batzuk aurreratzen saiatu naiz apur bat, familia-egoerak hala behartuta ospitaleak ere orduak jan arren. Eta, horri bekarena gehituta animoa ere ez dabil parrandan irteteko moduan, egia esan.

Urteko egunik motzenetan gabiltza esaera zaharren arabera eta gaur goizeko bidaia ilunpetan hasi dut, ohi baino goizago ere etorri naizelako, ikasturteko 2. igeriketa saioa egin ostean paletan deskargatzen amaitzeko asmotan. Hortaz, ariketa fisiko dosi bikoitza egingo dut gaurkoan.

Kiroldegiko sarrera

Igerilekutik zuzenean sarrerara egin dut bidea, kanpotik barrura ordez barrutik barrura, Inesekin batera. Uretan egin dugu topo elkarrekin eta aldagelatik tornuetarako paseotxoan hizketan aritu gara, udazkeneko udaberriko eguraldiaz, asteburuaz eta halakoei buruz. Heldu eta 9.27 izanagatik ez dago inoren arrastorik asteleheneroko zitalokuan. Handik pixka batera Irati etorri da. Zuriñe eskaileretan behera beranduago, bakarrik momentuz. Saioa izan da hurrena etortzen eta gu beste aldean ikusita hala bota du, “zer, beratu al zarete?” eta guk “bai” bana bueltan. Antza denez asteburuko parrandatik erabat errekuperatu gabe dator bi egun beranduago bada ere, begiak ohi baino itxiago dakartzala dirudi, berak aitortu digun moduan. Jone heldu da handik pixka batera, amarekin ez dela heldu ikusita agian ez zela etorriko pentsatzen ari nintzela, hain justu ere.

9.32an tornua igarotzen hasi dira eta atezainak bat falta dela esan digu, kiroldegiko patronatuko goiko bulegora joan dela eta itxaroten geratu gara. Joana heldu da istant batera, txartel berria eginda. Izan ere, baldintzetako bat bazkide izatea da Hernaniko kasuan.

Seikotea elkartu gara eta bagoaz kantxara, ohiko pasabide eta eskaileretatik. Egia esan, dozena urrun geratu da eta bertaratuen kopuruak behera egin du nabarmen. Hala ere, ez daukagu besteen berririk.

Pilotalekua

Sartu eta trasteak utzi ostean Saioak “3 buelta” bota du eta Iratik esan du “zer, egunetik egunera gutxiago, ala?”, aurreko astean lau eman omen genituela eta. Hitz eta pitz hasi aurretik beroketari ekin diogu, gehiegi kexatu gabe, zuzen xamar.

Beroketa

Korrika saioan lehenengo, ni Saioarekin batera aritu naiz hizketan, eta ondoren korroan jarrita mugikortasun artikularra eta luzaketak egin ditugu. Luzaketak egiten ari garela bakarren batek esan du jende gutxiago gaudela eta nik galdetu diot Inesi ea ahizpa, Miren, etortzekoa den ala goizez lan egitea tokatzen zaion. Berak “astelehenean egongo gaitun esan zidan aurrekoan” esan dit. Ondoren, masajista kontua atera da, saio batean Saioak broman esan zuelako “hurrengoan masajista etorriko da igual”, Malenek min hartu zuenean uste dut, eta fisioterapeutarena joaten garen ala ez, masajeak min ematen duen ala ez eta horrela aritu gara hizketan. Falta direnen inguruan ere “Naiara falta da eta Rakel, azken hiru asteetan ez da etorri” bota du Saioak, dozena erdiari begira. Inesek esan du Rakelekin elkartu zela aurreko batean eta altzariekin zerbaitetan zebiltzala ulertu ote zion. Naiara eta Ainararen izenak ere agertu dira falta direnetan. “Gaur gehiago izerdituko duzue” bat ere etorri da atzetik, Saioaren ahotik.


Sei gaude eta amaitzeko pilota eta paleta bana hartu eta ezker hormaren aurka jarri gara, banaka, pilotakadak joz. Ni errebotetik gertuen, ondoan Ines, gero Irati eta Joana, Zuriñe eta Jone. Saioa bitartean saiorako marrak jartzen ari da plastikozko aulki baten laguntzaz, frontisean hasi eta pixkanaka ezker hormara ere hurbilduz.

Atzera, piloteatzera, egitean ohartu naiz ate berri bat egin dutela errebote aldamenean, aldageletarako ate bikoitzaren aldamenean, pare bat metrora baino ez. Jarri berria dela nabari da atearen ertzei begira. “Baten faltan bi” pentsatu dut neure baitan, atea gune horretan jokatzeko oztopoa izaten dela oroituta. Honek ez dauka kanporantz ateratzen zaion heldulekurik, baina, hormatik pittin bat kanporago ateratzen da. Inesi esan diot eta zertarako egin ote duten galdetu diogu geure buruari, zer funtzio izango ote duen. Inesek esan dit asteazken goizean Miren izan zela besteekin batera euren kabuz jokatzera joandakoan eta zerbait aitatu ziola horren pilotalekuko obraren baten inguruan eta hori izango dela.

Hala berotzen ari garela Belokitarrak sartu dira halako batean pilotalekuan, Gemma eta Ainara. Erlojuari begirada bota eta 9.45 direla ikusi dut. Saioa hurreratu zaie eta harekin hitz pare bat trukatu ostean paleta bana eta pilota hartu eta ezker hormara hurreratu dira, biak batera berotzeko. Ines hurreratu zaie eta niri “egun on” esan didate. Nik “berdin” erantzun eta ezker-eskuin pilotarekin jarraitu dut. Besteak hizketan ari dira, mingainari atsedetik eman gabe. Eskuinaldera zehar begiratu bat egin eta ohartu naiz Ainara eta Gemmaz gain Joana eta Irati ere elkarrekin ari direla egiten beroketako piloteoa. Bater hasi ziren orain hiruzpalau aste eta elkarren anparoan ari direla otu zait une horretan. Ainarak, orduan, ate berria ikusi eta “zer, hor atea jarri al dute?” bota eta gugana gerturatu da. Nik “bai, baina ez dakit zertarako” esan diot eta berak aldageletako atea irekitzera hurbiltzeko keinua egin du. Nik “itxita egongo da” esan eta berak “bai, zera!” erantzun dit eta ireki egin du, barrura bultza eginda. Ohartu naiz oker nembilela, bultzada bat egite hutsarekin irekitzen dela. Zuzenean aldageletara sartzeko dela ondorioztatu dugu, ingurura begiratuta. Atearenaren ondoren, handik oso denbora gutxira, batu gaitu Saioak kantxan denok saioko atal nagusiari ekiteko, hormetan laukiak eta marrak jartzen amaitu ostean.

Ariketak

1. Txokotan, frontisean, erdian, gune debekatu batekin eta ezker zein eskuinean bizitza gehiago lortzen laguntzeko guneekin, gune sarituekin. Tanta lortuz gero ezker edo eskuinean sartuta +1 eta pilota erdiko gunean sartuz gero -1. Bakoitza 2 bizitzarekin hasita. Pilota jo eta 7ko marra zapaldu behar da.



Hasi eta oso gutxira Ainarak guneetako batean, ezkerrekoan, pilota sartu eta tanta egitea lortu du, Ines bizitza bakarrekin geratuz, ez baita itzultzer heldu. Hurrengo kolpeetako batean, berriz, nik gauza bera egin dut pilota ezkerreko gunera bideratu eta inork erantzun ez duenean. Atzeranzko korrikalditik itzultzean, kontrakantxan guri begira ari den Saioari esan diot, “oso atzean jartzen dira”, emakumeak askotan 3,5etik atzera daudelako eta berak “bai” esanez erantzun dit. Hala aritu gara eta gutxika-gutxika bakar batzuk bizitza gehiago eta besteak gutxiago ditugu. Nik dezente asmatu dut eta ohartzerako hatzak adina bizitza ditut, 5. Ines berehalaxe kanporatu da, ia-ia hasi bezain pronto eta pilota bat hartu eta errebotera joan da.

7 lagunekin 7ko marra zapalduta frontis ingurura lasai heltzea ez da berez hain zaila ere, saio askotan frogatu bezala, baina, Zuriñeri tarteka eta Irati zein Joanari ere bai, ahaztu egiten zaie marra zapaltzera abiatzea kolpea egin orduko eta, hori dela eta, une batean aurrealdea huts xamarrik geratzen da, atzetik aurrera esprint bat egin behar izateraino. Hala ere, atzeranzko korrika saioetako erritmoa ere, bakoitzarena, ezberdina da. Azkenean 5ekin 5eko marra zapaltzen eta 4rekin batere zapaldu gabe jokatzen amaitu dugu.


Ariketaren amaierara Gemma eta biok heldu gara, ni 5 bizitzarekin eta bera 1ekin. Saioak “badakizu Uxuei zer egin behar diozun” bota dio animatzeko eta hirurok egin dugu irribarre, keinu batek hitzek baino gehiago adierazten dutela frogatuz. Aurrez, jokoan zehar ere bakarren batek bota dit “zer, Uxue, zuk 10 al dituzu?”. Egia esan, asko asmatu dut guneak aprobeztatzen. Une batean “abusatzen edo pasatzen ari ote zara, Uxue?” galdera egin diot neure buruari. Azkenean, baina, pistoia jaitsi arren saltsa jartzen jarraitzea erabaki dut, nahiz eta gehitxo izan zitekeen (B.K. Hala ote da?).

Amaitu eta Saioak partidetarako joko baldintzak azaltzeari ekin dio, bere inguruan gaudela.


2. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da.

- Frontiseko eremuan, 2:2. Erdiko gune debekatua eta besteak mantenduz, tanta lortuz gero ezker zein eskuineko guneetan jota 2 balioko du. Erdian joz gero tanta aurkarientzat.

- Erdikoan (5-7), 1:1. Paretan bi lauki daude. Pilota laukietakoren batean sartzea lortuz gero tantoa amaitu egingo da.



- Atzean (8-errebotea), 1:1. Erdian jarrita dagoen gunean pilotak jota tanto eginga 2ko balioa. Ezkerrean joz gero tantoa aurkariarentzat.



Ariketen azalpenetan zalantzaren bat sortu da atzekoarekin, aurrekoaren berdina izan ote zitekeen, baina, justu kontrakoa dela esanez ulertu dute, hein batean behintzat, erdikoan jota tantoa lortzeak saria baitakar (+2) eta ez zigorra (tantoa aurkariarentzat).

Ariketak azaldu ahala Saioak gogorarazi du, modu berean, aurreko astetik aldaketa bat dagoela, aurrekoan gunea jotzea bera nahikoa zelako markagailura puntu bat igotzeko. Gaur, ordea, ez, tantoa lortu ezean ez da sarituko gunean sartu izana. Orduan, Zuriñek esan digu aurreko ariketan berak hanka sartu duela, sartze hutsarekin bizitza bat gehiago kontatuz. Jone eta biok gaude inguruan eta irribarre egin dugu. Nik gaineratu dut “orain kontatu egingo dugu, ordea. Beno, nire bikotea bazara isilik gordeko dugu” eta barre egin dugu inguruan gaudenok (B.K. Zuriñek ez daki euskaraz, baina, dezente ulertzen du eta zenbaitetan Saioak bereziki ematen dio azalpen gehigarriren bat berari edo Jonek, alaba du eta. Hala ere, ez da kasu hau izan gaurkoa).

Bikoteak egiteko zenbakiak banatzeko sistema darabil Saioak, 1etik 4ra artekoak emanez txandan-txandan korroan jarrita gauden ordenan. Berez niri Inesekin tokatu zait. Hala ere, elkarrengana gerturatu eta batera ikusi gaituenean niri besotik heldu eta aldaketa bat egin du entrenatzaileak, bikoteak horrela osatuz: Ines-Gemma, Irati-Zuriñe, Jone-Ainara eta Joana-ni. Inork ere ez dugu ezer esan, aldaketak ulertuz, orekatzea helburu hartuta guk ere, partidetan giroa jarri eta gozatzeko asmotan. 1-2ak aurrean, 3ak erdian eta 4ak atzean hasi gara.

Beroketa eta saioaren hasiera argi gehigarririk piztu gabe egin dugu, pilotalekuko fokuak itzalita eta leihoetatik sartzen den argi naturalaz baliatuta, eta Saioari, mesedez, argia pizteko eskatzeko eskatu diot, nahikoa ilun dagoela, nahiz eta pilota ikusten den. Berak baietz erantzun, “plazer bat izango da” esanez eta argiak pizteko eskatzera alde egin du pasabidetik aurrera.

Irati-Zuriñe eta gu, Joana eta biok, aurrean hasi gara. Aurrera hurbiltzean ohartu naiz pilota falta zaigula eta Saioari oihutxo bat egin eta hark bidali digu bat airetik bueltan. Bitartean, nik Joanari galdetu diot ea non jarri nahi duen jokatzeko eta eskuinean aurrelari kokatzeko hautua egin du, ezkerrean huts asko egiten dituela argudiatuz. Hala, beraz, Zuriñe eta biok atzelari eta Irati eta Joana aurrelari hasi gara. Erdibidera arte orekatua izan da partida, 9-9 tarteko, baina, handik aurrera guk gehixeago asmatu eta aurrea hartuta irabazten amaitu dugu. Partidan hasi eta berehala ohartu naiz Irati urduri eta batetik bestera dabilela, aurrean, atzean, ezkerrean zein eskuinean egon nahian.

Saioak aldamenetik esan dio lasai egoteko, Zuriñek joko dituela bereak eta eskuinerago jartzeko. Kostata, baina, azkenerako, badirudi pixka bat lasaiago ari dela.

Irati aurretik atletismoan aritua da eta taldean beste asko baino lehiakorragoa izatearen itxura hartzen diot, saioz saio hala dela ia konfirmatzeraino, bere ezinegona eta tantoak galtzean esaniko “mierda” edo “joe” horiei tiraka. Aurrez, nahiz eta urteak joan diren, beste kirol batean federatuta edo lehiatzen aritzeak lehiakortasun honekin zerikusirik izan ote dezake? Aztergai bat izan liteke, agian, emakumeen profilekin batera konbinatu eta aintzat hartzekoa.

Irabazleak bertan geratuko direla, gune berean, jakinarazi digu Saioak eta erdira abiatu dira Irati eta Zuriñe. Gu, berriz, aurrean geratu gara eta Gemma eta Ines etorri dira erreboteko gunetik. Nik Joanari esan diot ea lekuz aldatzea nahi duen, ezkerrean normalean gehiago jokatzen dela, baina, berak ezetz. Beraz, Ines eta biok atzelari eta Gemma eta Joana aurrelari postuan jarrita hasi dugu partida. Hasi orduko tankera eman diot Inesi, gunean sartzen ahalegindu ere ez dela egingo, bai gehienetan behintzat, pilota atzera eta frontisean altuera emanda jotzen ari delako, frontiseko guneak ahaztuta. Hori ikusita, “koadroa hor dago, e,” bota diot aldamenetik behin baino gehiagotan, adarra jo asmoz. Berak entzun bai baina berean segi du, tarteka probestu arren. Une askotan biok bakarrik jokatzen ari garela iruditu zait eta eskuinera ere saiatu naiz pilota bideratzen, Joanak ere apenas jo baitu pilotarik. Hala ere, tantoaren bila arriskatzea erabaki dudana kolperik gehienetan txapa jo dut, bete-bete, zalantzarako tarterik utzi gabe. Partida honetan gehiago, baina, aurrekokoekin batuta guztira 8 bai. Saioa kontrakantxatik begira egon da une batean eta barre egin du. Nik esan diot ea hurrengoan txapa jotzeak ez duen balioko. Azkenean, partida erdira arte pare xamarrean aritu bagara ere, 9-5 galdu eta erdira joatea egokitu zaigu. Ines gustura aritu da eta irribarrez geratu da, irabazita.

Joana ikastaroan azkena hasi zirenetako bat da, gure artean berri-berria, eta Saioak zuzentzea komeni zaizkion gauza pare bat moldatu nahian dihardu gaurko saioan: eustean hatz erakuslea ez luzatzea eta paleta behar bezala atzeratzea. Erdian laukiena egiten hasi eta gutxira gerturatu eta hatzarena ohartarazi dio, “barkatu, baina, gaur esan egingo dizut” erantsiz. Joanari galdetu diot ea aurrez ibili izan den paletan eta berak erantzun dit lagun batekin baietz, ibiltzen dela, orain hasi direla astearteetan ere euren kabuz geratzen eta gaineratu “askotan hobea da jakin gabe jotzea, bestela, hainbeste gauza pentsatzen nahasi egiten naiz azkenerako”. Ni animatzen eta lasai egoteko esaten jardun naiz, ikastaroan eta pilotalekuan orduak sartu ahala hobetuko duela eta. “Ea hala den” edo horrelakoren bat bota du. Esan dit 37 urterekin izena eman duela, aurrez ikastolan aritzen zirela, haurretan, baina, orain, bi seme izanda, haiek ikastolan utzi eta ondoren etortzen dela. Nik esan diot entrenatzaile lanak egin nituela saioa askorekin hiru urtean zehar eta “adibidez, Zuriñek, hasi zenean, 2.botean ere ez zion ematen pilotari” (B.K. Egia esan, buruan iltzatuta daukadan irudi bat da hori, batez ere ondoren izan duen garapena izugarria delako, ezkerrez zein eskuinez eta airez kolpeak egitera ausartuz. Hala ere, bere borondatea eta gogoia ere izugarriak dira, ziurrenik, hain saiatuak gutxi izango dira ezagutzen ditudan hiru taldeetako kideen artean). Besterik ez zait bururatu bote prontoan.

Aurreko gunean Gemma-Ines eta Jone-Ainara majo ari dira pasatzen, bertatik irri eta oihuren bat edo beste heldu zaigulako. Nik zeharka begiratu dut tarteka eta laurak, eta

kontrakantxatik begira dagoen Saioa, ederki ari dira pasatzen, gustura sumatzen dira, saltsan.

Erdiko gunean amaitu eta atzekora joatea egokitu zaigu 4.errotazioan. Egia esan, ez gara tantoak kontatzen aritu, gehiago izan da laukietan sartzen saiatzea, baina, lehiakortasunik gabe. Tarteka hizketan eta tarteka isilik aritu gara, nik ere ez nekielako zein hizketagai izan ote zitekeen aproposa. Ni ohartu naiz ez dugula partidarik jokatu, baina, bera ere ez da hasi markagailua kontatzen eta ez dit horren inguruko txintik ere esan. Galdera edo zalantza bat dut nigan: neuk egin beharko ote nuke horren inguruko aipamenik? Oker ala zuzen ezetz erabaki dut (B.K. Ni ere saioetan, eta kideen baitan badago ere, ez lehiakor bihurtzen ari naizela uste dut. Adina ote da? Kar, kar, kar!).

Atzeko gunean ere berez 1:1 egoeran partida baldin bada ere gu jotzen aritu gara batez ere, hizketan aritu garen bitartean. Federaturen inguruan “Mirari ezagutzen al duzu?” esan dit kideak eta nik “bai, harekin bikote eta elkarren aurka jokatu naiz”. Hortik egungo federatuen izen bat baino gehiago joan dira, besteak beste, Ibone eta Lierni aipatu dizkit berak. Halako batean, aldaketa unea iritsi da eta aurrera egin dugu.

Aurrekoak atzera doaz eta Saioa frontisetik lehen txukun-txukun jarririko marrak kentzen ari da. Beraz, badirudi partidak aldatu egingo direla.

3. 2:2 egoeran partidak, 3 tantora eta baldintzarik gabe. Atzean ere berdin.

Gemma eta Inesen aurka hasi gara eta 3-2 irabaziz amaitu. Nik “hau aurrekoaren errebantxa izan da” bota diet amaitzean eta “3ra izan delako, zeren eta bestela...” erantzun dit Inesek. Irribarre bat elkartrukatu dugu. Joana ezkerrean jarri da, nik gomendatuta, gehiago jokatuko duela esanda eta onartu dit proposamena.

Zuriñe eta Irati etorri dira eta hauen aurka ere irabazi egin dugu. Ni lasaiago aritu naiz, baina, tanto pare bat erraz lortu ditut, besteak nahasi eta saltsa jarriz. Iratik gaurko saioan zehar une batean esan dio Joanari, laguna duenari, “gaur makinarekin tokatu zaizu” eta nik hori entzutean erantzun diot “nik ere egiten ditut hutsak, zer uste duzue, ba?”

Azkenak Ainara eta Jone izan dira etortzen eta galdu egin dugu, nahiz eta giroa eta saltsa izan ditugun. Ainara eta biok elkarrekin aritzean erritmoa eta pilotakaden norabidea landuagoak izaten dira, biziagoak eta intentzio gehiagokoak, eta hala izan da kasu honetan ere. Nik partidari zehar une batean pentsatu dut kideei agian kalte egin ziezaiekeela, pilota txarren bat erantzun behar izanagatik, baina biok dakigu erregulatzen eta hori nabarmendu da kasu honetan ere.

Gu aurrean jokatzen ari ginen partida bukatu dela esan diogu Saioari eta honen “bale” batekin saioko zati nagusiarena amaitu dugu. Ordularian 11.02 direla ikusi dut, beraz, kontrakantxara hurbildu eta luzaketak egiteari ekin diogu, paletak eta pilotak Saioaren motxila inguruan utzita.

Inesek ospa egin du gaur ere lagunekin kafea hartzera luzaketarik egin gabe eta besteok geure kabuz luzatzen aritu gara, igeri egiteaz eta bestelako yoga, spinning eta abarretako ikastaroen inguruan. Izan ere, ni neure 40 luzeak eginda joan naizela eta hortik hasi gara, justu-justu etorri naizela. Zuriñe ere joaten da igeriketa ikastarora, Ainara Yogara

eta hortik. Ainarak broma giroan niri “luzaketarik egin gabe? Bada, oso gaizki” bota dit irribarrez. Baietz erantzun diot. Saioa, bitartean, datuak eguneratzen edo ari da Irati eta Joanarekin, posta elektronikoa helbide bat jasotzen. Amaitzean denok jarri gara kanpora bidean.

Kiroldegiko sarrera

11.10 bueltan dira eta kanporantz goaz. Zuriñe, Jone, Irati, Joana, Saioa, Gemma, Ainara eta ni inguruan goaz. Ainarak bekaren ukazioaren berri izan zuela esan dit, ahizpak esan ziola. Hala goazela, eskailerak jaistean gimnasiotik gizon bat atera da izerdiz blai eta ikusi gaituenean ea nondik gatozen galdetu digu, gazteleraz. Ainarak erantzun dio paletako saiotik gatzela, ikastarotik eta besteak esan du Kronikan argazkiren batean ikusi dituela. Egunen batean kick-boxing-a probatu behar dugula esatera heldu da auskalo nondik eta nik barrez kideei esan diet “ni egun horretan igerilekura joango naiz, bada ez bada ere, e!”. Ainara aldagela parean agurtu eta kanporantz segi dugu. Bidean Joanari mugikorrak jo dio eta Iratiri esan dio “zure senarra pelma dela? Nirea ari da berriro hoska”. Kanpoan datorren astekoa oporren aurreko azken saioa dela eta hortik, agian, urtarrilaren 2an saioa egingo dugula esan dute. Datorren astean hitz egitekotan geratu gara.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur igerilekutik buelta eman eta aste ez oso on baten (txar ez esatearren) ostean egindako saioa izateko uste baino gusturago aritu naiz. Egia esan, taldekideekin egotea ez da txarra, ni gustura sentitzen naiz eta une horretan, behintzat, saltsan ondo pasatzen dut. Hala ere, oraindik ere zalantza uneak eta zerbait esan edo ez esan erabaki beharrekoak izaten ditut kezka iturri. Hasieratik urritu dira horiek ere, noski, baina hor diraute.

Talde honetan, eta nabilen besteetan ere bai, alde handia dago joko-mailan partaideen artean, nahiz eta balitekeen hiruzpalau edo lauzpabost emakumeko multzoak egitea mailaren arabera, kasu honetan, adibidez. Hala eta guztiz ere, ez dakit jokoan dagoen besteko alderik ba ote dagoen helburu eta asmoetan. Ezetz iruditzen zait. Aztertzeke beste puntu bat ote da?

Gaurko saioa amaitu da, asteari ekin diot bederen, eta bihar eta etzi beste banatan jardutea dagokit. Beraz, fisikoki nekatuta nagoen arren, uretan eginiko esfortzuak abaildu samartuta uzten nau, anemikoki apur-apur bat hobeto etxeratuko naiz asteko lehendabizikoaren ostean. Gaitz-erdi!

Sta. Lutzi eguna, argitu orduko iluna

Urretxu eta Zumarragan festa eguna izan arren, azoka egun berezia, hain zuzen ere, festatik urrun egin ditut gaurko iluntzeko hiru bat ordu, herrian giroa eta etxean ere festa usaina nabarmendu arren.

Pilotaleku ataria

Ohi baino bost minutu beranduago etxetik irten eta erlojuari begiratu ordurako helduko ote nintzen zalantza egin badut ere, 19.27an aparkatu, saio amaierarako grabagailua pila

berri eta guzti prestatu eta irten naiz pilotalekurako 10m. egitera. Justu ni heldu eta gutxira Saioa ere iritsi da, aparkatu eta karpeta lurrean jarrita orriren baten bila dabil. Orduantxe Eli ere bertaratu da eta “zer ari zara hor lurrean?” galdetu dio. Besteak aurkitu nahi zuen telefono zenbakia esan eta “badu ba etxeratzeko ordua” bota du berekiko. Nik erantzun diot “Saioa ikusi eta ez hartzea erabakiko zuen”. Karpeta kotxeko atzeko aulkian utzi eta maletategitik palen motxila aterata itxi du autoa. Hala gaudela Gurutze eta Pili ere berehala heldu dira. Ea gaur festarik egin dudan eta “festa azkenaldian etxean dabilkigu” esanda erantzun diet, aitonarekin nola gabiltzan kontatuta. Haien ostean Marian ere bai. Entrenatzaileak esan du Itsasok abisatu diola gaur ilobaren urtebetetzea duela eta ez dela etorriko, ezingo dela merendolatik alde egiten hasi, are gutxiago, asteburuan bigarrenez izeba izan ostean.

Ikaskideek Saioari ordainagiriak emateko aprobetxatu dute egonaldia, zintzo-zintzo. Modu berean, Pili ere galdetu diogu ea erabat errekueratu den, azkena etorritako saioan, gaur hiru aste, orkatila bihurritu eta lehenago alde egin zuelako. Berak ondo dagoela uste duela jakinarazi digu, “ez dut ezer nabaritzen, behintzat” botaz. “Hala ere, egun batzuetan eduki nuen minduta”.

Pilotalekua

Ataritik barrura egin dugu, eskaileretan behera, harmailetan trasteak utzi eta saioari ekiteko. Hotzik ez dago berez, 15°C inguru ikusi dut nik kotxean, baina nik eskuak hotz sentitzen ditut eta Gurutzek ere esan du kapa pila batekin etorri dela, agian, katarroaren eraginez edo.

Beroketa


Saioa argia piztera eta gu pilotalekuko ohiko korrika saioa egitera, frontisetik errebotera bitartean eta korroan jarrita mugikortasun articularra eta luzaketa ariketak ondoren. Gurutzek esan du “korrika egin behar al dugu? Nik ez daukat ba gogo handiegirik”. Baina, azkenean, bostok hasi eta ondoren Saioa batu ostean seiok eman ditugu lauzpabost itzuli. Ni Elirekin hizketan aritu naiz, Zarauzko bikote mistoen krosean parte hartu zuten errezeloarekin nembilelako eta hala izan zela esan dit.

Azken zatian, ohi bezala, pilota eta paleta bana hartu, gehienak beraienarekin aritu dira, eta ezker hormaren aurka jarri gara banaka. Bitartean, Saioak eremuak zehaztu ditu marra bidez. Ni jarri naiz frontisetik gertuen eta ondoren Gurutze, Eli, Pili eta Marian. Hala ere, Marian eta ni izan gara pilotatzen hasten lehenak, beste hirurak hizketan aritu direlako denbora luze xamarrean. Mariani bi bider alde egin dio pilotak ni nabilen ingurura eta lehenengoan “ez dakit zerekin eman diodan ere” esan dit, kolpea oker irten zaiola eta. Izan ere, ia 8.koadrotik 2.era etorri da pilota arrastaka. Handik pixka batera Gurutze ere kolpeka ari da eta Eli eta Pili oraindik ere tarteka pilotakada bakoitzeko hitzak elkartrukatuz. Saioa frontiseko eremuak zehazten hasi denean niri esan dit “Uxue etorri pixka bat”, baina, hurbiltzen hasitakoan “beno, ez, ez, lasai” gaineratu du. Beraz, pentsatzen dut zalantzaren bat izango zuela, baina, azkenean, niri ez galdetzea erabaki duela. Nik pilotatzen jarraitu dut, tarteka pilotari ere erreparatuz, azala harrotzen hasita dagoelako eta barruan ere ez duelako beti hots oso ohikoa ateratzen. Orduan, Saioari galdetzeko aprobetxatu dut, “zer, pilota hauek iraungo al dute ikasturtea?” eta hark zalantza handirik agertu gabe erantzun dit “ez, ez dut uste, eta, gainera, desmuntatu egingo dira hautsi aurretik”.

19.52 ikusi dut nire erlojuan eta nahikoa laster deitu digu, zortziak jo aurretik, saioko atal nagusiari ekiteko.

Ariketak

1. Ilaran jarrita, frontisean gune ezberdinak daude markaturik lauki bidez. Entrenatzaileak pilota prestatu eta txanda tokatzean, lehen bi kolpeetan, eskuineko laukian sartzen saiatu behar dugu eta hurrengo bietan ezkerrekoan.




Ariketa azaldu ostean, emakumeek Saiolari marra ez duela oso zuzen jarri esan diote, eskuinaldekoa gorago dagoela eta honek “badakizu, baikorrago bukatuko nuen, gorantz idazten amaitzean hala izaten omen da-eta”.

Ilaran jarri gara, Pili, Marian, Gurutze, Eli eta ni. Hasi eta lehen kolpeetan ez dute gunean pilota sartzerik lortu emakumeek, altuegi edo txapapera joan dira kolpe asko. Orduan, justu nire txanda heltzear zela, “eskerrak Uxue daukagun taldean” esan du Elik. Nik, ordea, erantzun diet “Uxuek ere ez du beti asmatzen, atzo 8 txapa jo nituen eta ez zen txapa jotzea helburu” (B.K. Egia esan, ez zait gustatzen emakumeek nire jokoari edo mailari buruz aipamenik egitea, agian, neure burua huts egiteko arriskuan ikusteko dudalako). Lehen kolpean sartu dut, ordea, kolpea suabexeago eginda eta arnasa lasaiago hartu dut horren ostean.

Ariketan zehar ez dira asko izan laukietara bideraturiko kolpeak, baina, egia esan, altueran estuak dira eta zehaztasun dezentea eskatzen dute. Nik, hala ere, denak sartu ditut, tartean txaparen bat ere joz, eta besteren batek ere bai bakarren bat.

2. Txokotan, frontisean, erdian, gune debekatu batekin eta ezker zein eskuinean bizitza gehiago lortzen laguntzeko guneekin, gune sarituekin. Tantoa lortuz gero ezker edo eskuinean sartuta +1 eta pilota erdiko gunean sartuz gero -1. Bakoitza 2 bizitzarekin hasita. Pilota jo eta 5eko marra zapaldu behar da.



Saioak ere berokia kendu eta paleta eskuan hartuta jokatzeari ekin dio, seikotea osatuz kantxan. Hasi aurretik, gainera, adierazi du ondorengo partidetarako bikoteak kanporatzearen ordenaren arabera zehaztuko ditugula: azkena eta lehena, 2.a eta 5.a, eta erdikoak batera.

Jokatzan hasi eta ia orduantxe, nik jotako lehen kolpean, ezkerreko gunean dejada bat egin eta denak erdi lo harrapatuta bizitza gehigarria eta tantoa lortu ditut. Aurretik bakarren batek esan du “Uxuek zazpi bizitza orduan”.


Eli oso azkar kaleratu da. Ia saio gehienetan bera izaten da lehena kaleratzen, baina, naturaltasunez hartzen duela dirudi kanpotik begiratuta. Gurutze joan da ondoren eta Saioa, Pili eta Marian azkenerako, hurrenkera horretan amaituz. Hala ere, bat baino gehiago saiatu dira, saiatu denak saiatu dira gutxi edo gehiago, baldintza bete eta laukian sartuz bizitza gehigarria lortzen. Adibidez, Gurutze saiatuenetako bat iruditzen zait niri. Esate baterako, Marianek ere bi tanto polit lortu ditu bata bestearen atzetik, finalera bera 4 bizitzarekin eta ni bakarrarekin iritsiz. Azkenean, ordea, bata bestearen atzetik galdu eta amaitu dugu.

20.15 ikusi dut erlojuan atzeko laukotearengana hurbildu garenean, hizketan ari baitira pilotan aritzearekin batera. Amaitu dugula esan diegu, baina, tankera batean entretenituta dabilta. Justu orduan Oihane pasa da frontoi kanpoaldetik, seme-alabekin batera etxera bidean eta “datorren asteartean azalduko naiz” bota du, Saioak txistu jo dionean.

Azkenean, hizketa alboratu eta bikoteak osatuta geratu dira: Gurutze eta Marian, Pili eta Saioa eta Eli eta ni. Azken honek “nik banekien Uxuerekin izango nintzela, gu *pareja de hecho* gara” esan du, irribarrez, eta besteok ere halatsu egin dugu.

3. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, bi gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5'ko txandetan, gutxi gorabehera.

- Frontiseko eremuan, 2:2. Erdiko gune debekatua eta besteak mantenduz, tantoa lortuz gero ezker zein eskuineko guneetan jota 2 balioko du. Erdian joz gero tantoa aurkarientzat.
- Atzean (8-errebotea), 1:1. Erdian jarrita dagoen gunean jo behar du pilotak derrigorrez, albokoak debekatuak bihurtuz. Bestela, txarra izango da.



Partida egoeren gaineko azalpena ematean, niri burutazio edo zalantza bat etorri zait. Izan ere, ez dakit atzeko 1:1 egoera hori ere partida bezala planteatzen duen ala ez. Bezperako saioan guk ez genuen markagailua aintzat hartu eta tantoak kontatu ere ez genituen egin. Gaur ere ez. Markagailua eta bere erabilera ikerketagai nabarmena dira berriro ere.

Aurrean hasi gara gu, Saioa eta Piliren aurka. Nik bikoteari esan diot berak erabakitzeko non jokatu nahi duen eta “ni aurrean eta eskuinean” esan dit. Bada ez bada ere berriz galdetu diot, “ezkerrean gehiago jokatu zenuke” gehituz, baina, bere horretan geratu gara. Beraz, ni atzelari, Piliren aldamenean, eta Eli eta Saioa aurrelari postuetan hasi gara nor baino nor. 8-3 edo horrela bukatu dugu, guk biko dezente lortuta, eta Saioak “gu atzera goaz entrenatzera” esan du aldaketa gitean.

Bigarren errotazioan ere aurrean, baina, postuz aldatuta aritu gara: Eli atzelari eta ni aurrelari. Gurutze ere atzelari eta Marian aurrelari aritu dira beste bikotean. Elik berak esan dit patxada falta izaten zaiola, urduri jartzen dela eta pilota jaten duela, gainera joanez. Nik lasai hartzen saiatzeko esan diot eta ulertzen dudala, niri ere zenbait egoeratan gertatu izan zaidala hori, blokeatuta geratzea. Hala ekin diogu partidari eta saltsa pixka bat jarri dugu. Gurutzek ezkerreko laukiari neurria hartu eta tanto pare bat

lortu ditu bertan eta nik, adarra joz, galdetu diot halako batean “eskuinean ere lauki polit askoa dago, ez al zara saiatuko han sartzen?” eta dotore erantzun dit “lehen huts egin dut eta ez dakit, ba”. Azkenean 13-9 galdu dugu eta atzera joateko txanda heldu zaigu.

Atzean hizketan aritu gara denbora dezentean. Besteak beste esan dit lehengoan familiarekin aritu zirela jokatzeko, ohitura badutela erraketak hartuta aritzeko, eta semeekin aritu ostean erdi amorratuta amaitu zuela. Bera zaharrenarekin eta gizona gazteenarekin aritu zirela bikotea osatuz eta semeak jotzen zituela eurei zegozkien pilotakadarik gehienak. Orduan esan dit “ni ere hemen nago esan nion eta gehiago utzi zizkidan, baina, jotako gehienetan huts egiten nuen eta hark amaaa esaten zidan”. Gero gaineratu dit Pilik esan diola laster gainditu dutela semeek eta ordu asko sartzen dituztela eta hori nabari dela. Hala ere, nik saiatuz eta konfiantza gehituz, orduak sartzean, hobetuko duela esan diot, animoak emanez. Berak esan dit beste zenbait kirolatan ere hala izan dela eta saskibaloiko Larry Birden kasua aipatu dit, bideoen bat ikusten aritu omen zirela-eta. Hark ona izateaz gain aparte bere kasa ere orduak sartzen zituela esan dit eta nik esan diot zenbait gazteri “sagrifizio” gogo edo zentzu hori falta zaiela iruditzen zaidala, “onak izan nahi dute, baina, esfortzurik egin gabe”. Halako batean Gurutze eta Marian atzera datozela konturatu eta berriro ere aurreranzko bidea hartu dugu.

Aurrean aurrekoaren errebantxa jokatu behar omen dugula esan digute eta nik “zer, orain puntu-puntu zaudete, ala?” bota diet, adarra jo asmoz. Hala hasi gara, ni aurrelari eta Saioa ere bai, eta Pili eta Eli atzelari postuetan. Nahiko giro izan dugu, Saioa eta biok elkarri botaz erritmoa bizitu dugu une batzuetan, eta galtzen amaitu dugu. Hala ere, eurak jarraian bi aldiz bertan aritu direla eta guk jarraitu dugu aurreko eremuan. Beraz, atzetik Gurutze eta Marian etorri zaizkigu.

Azken partidari 10-5 galtzen aritu gara eta buelta eman diogu, nik tantoak lortu eta horrela emaitzari buelta emanda, biko tantoak bata bestearen atzetik lortuz. Esan didate nahi dudana egiten dudala eta nik erantzun diet nik giroa jartzen saiatu nahi izaten dudala eta askotan jo ondoren esaten diodala nire buruari “jo, Uxue, ez egin hori”. Eurak barre egin dute eta horrekin lasai egoteko helarazi didate.

4. Binakako partidak aurrean, 4 tantora eta baldintzarik gabe.

Aurrean bi partida jarraian jokatu ditugunez Eli eta bioi egokitu zaigu atzean pilotateatzu itxarrotea gure txanda heldu arte. Marian-Gurutze eta Pili-Saioa hasi dira aurrean. Atzera joatean “ados, guk estrategia prestatuko dugu” bota diegu eta errebote ingurura joan gara pilota hartuta. Atzean paletan baino dezente denbora gehiago eman dugu honetaz eta hartaz hizketan, bai pilotaz, bai tesiaren gainean zer moduz nabilen, etab.

Aurreko gunera joan gara Saioa eta Piliren aurka jokatzera. Kasu honetan Eli eskuinean jarri da eta ni atzean. Lehen sakea atera aurretik Saioak esan digu denbora asko eman dugula estrategia erabakitzen, hizketan aritu izanari erreferentzia eginez. Elik erantzun dio esanez “nik ahal dudana eta Uxuek nahi duena egingo dugu, hori da gure estrategia”. Irribarre egin dugu beste hirurok eta partida jokatzeari ekin diogu. 4-3 irabaziz amaitu dugu.

Saioak saioa amaitu dela esan du eta erlojuan 21.02 ikusi dut. Kontrakantxan jarri eta luzatzeari ekin diogu. Pilik luzatu gabe, presaka, alde egin du, etxean luzatuko dela

esanez. Nik egin ditut luzaketa batzuk, bezperako igeriketa saioak eragindako giharmina ere ederki nabari baitut. Orduan, kirolari neurria hartu behar zaiola esan du Gurutzek, “zuek ez al dakizue neurritasuna zer den?” galdera zuzenduz Eli eta bioi. Guk lasai egoteko esan diogu, ederki neurtzen dugula eta. Orduan, ez dakit nondik bueltan, astebururako eguraldi goibela iragarri dutela esan eta Zizurkilen kirol astea ospatzen ari direla esan dute.

Frontoi ataria

Datorren astera arte agurtu dugu elkar, San Tomas bezpera izango dela gogoratzeaz bat. Batzuk etxera bidean eta besteok kotxeetara, beranduago bada ere etxeratzeko asmotan.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saioetan hasi, eta edozein edo edozer dela arrazoi edo aitzakia ere, hizketan hasten gara une askotan eta denbora akordatzerako joaten zaigu. Egia esan, saio denetan hizketaldiak tartekatzen dira pilotakada eta paletakadekin. Saioen funtzio soziala garrantzitsua eta aztertu beharrekoa da, ezta?

Saioan oso lasai aritu naiz eta emakumeak ohartzen dira horretaz. Hala ere, saiatzen naiz egokitzen eta gehiegi ez pasatzen, nahiz eta emakumeen esanei erreparatuz gero zalantzak sortzen zaizkidan zenbait unetan. Ez ote da kaltegarri izango, behintzat?!

Nekea, atsedean beharra, sumatzen dut gorputzean eta baita buruan ere, azkenaldiko neke-lanak eta kezkek eraginda. Izan ere, lo gutxiegi egiten dut eta egunak zorretan hasten ditut. Beraz, pentsa amaierak nolakoak izan daitezkeen! Gainera asteazkena bete eta luzea izango da, beraz, ea nola hasi eta amaitzen dugun biharkoa.

Asteko saioak badoazkit, nahikoa azkar, eta saio antzekoak egiteak laguntzen dit memoria lana aurreratzen ere, errazagoa baitzait arreta ariketen azalpenean edo helburuetan jarri ordez esan eta egiten ditugunei eskaintzea.

Gurutzerekin eta Elirekin, adibidez, beste zenbaitekin baino errazago hitz egiten dut, ziurrenik bera ere irekiagoa delako. Hala ere, ez zait iruditzen tratuan alderik egiten dudarik, nahiz eta balitekeen bakarren bati zerbait esatera ausartzea eta besteren bati ez. Rapportari espero dut ez diola gehiegi eragingo horrek.

Presaka eta korrika

Goiz-eguerdiak Gasteizen pantaila aurrean lanean edo ikasi asmotan igaro ostean, bazkaldu eta gauza bera egiten aritu naiz ia-ia saiora abiatzeko ordua heldu arte etxean ere, hango eta hemengo kontuak aurreratzeko asmotan. Hala ari nintzela, prestatu eta abiatzeko ordua heldu zait, ustekabeen. Hortaz, arrapaladan trasteak hartu eta ospa egin dut etxeko epeletik kanpoko hotzera.

Sarrera

19.35 pasatxoan heldu naiz saiora, presaren presaz, atzerapen apur batekin eta horrek eragindako kezka puntutxo batekin. Pilotalekua bistaratu eta Sutegi aldamenetik igarotzean, ordea, ohartu naiz Arritxu ere orduantxe heldu dela, ni baino minutu erdi

lehenago. Egia esan, jakin badakit taldekideak ere ez direla askotan ordurako heltzen, baina, ez naiz inor nire zain eduki zalea izan orain arte eta hemendik aurrera ere ez zait iruditzen horretan aldaketarik izango dudarik. Beraz, pilotalekuan pauso bizian sartu eta harmailetan, hara non, Haizea, Jaione eta Arritxu bakarrik topatu ditudan, nire harridurarako. Ikusi nauenean, “beno, hirugarrena ere etorri da” bota du Haizeak.

Pilotalekua

Laukotea osatu dugu, gutxienez, eta minutu batzuetan hizketan aritu gara, ea beste inor agertuko ote zen edo. Izan ere, esan dute beste taldekideekin ez dutela saioez hitz egin aspaldian eta batzuk ikusi ere ez dituztela egiten saiotik kanpo. Hala ari garela Arritxuk esan du “astelehen goizean etorri nintzen aurrekoan eta Lurdesek egurra ematen du”. Azaldu digu korrika asko egin zutela beroketan, ondoren makurtu eta lurra ukituz ere aritu zirela korrika txikian, banaka ezker hormaren aurka pilota airez joz eta zorrotza iruditu zitzaioela. Hurrengo egunean nabaritu omen zuen emandako “paliza”, agujetak izan zituela-eta. Haizea harritu egin da hein batean, esanez “ah, bai? Nik beti galdetzen diot ea zer moduz dabilen eta hark ‘betiko martxan’ erantzuten dit”. Denbora askoan gainean izan zuela esan du, txokoan, beste batekin batera, eta inor hizketan entretenitzen bazen ere kargu hartzen ziela. Asko egiten omen ditu bakarkako egoeran teknika lantzeko ariketak. Haizeak harridura aurpegiarekin jarraitzen du eta “Lurdes eskola zaharrekoa da” bota du, ondoren “agian ni izango naiz bigunegia, baina, niri ez zait irteten emakumeei agintzen hastea. Agian 15 urteko neskekin egingo nuke, baina, zuekin, oraindik behintzat, ez naiz ausartzen. Nik beti galdetzen dut ea korrika egin nahi duzuen eta beti egoten da ezetz esaten duen bakarren bat”. Jaionek, berriz, “eskerrak orduan talde egokia aukeratu genuen”. Ondoren esan du “ez du ba txapelketaren bat antolatu nahiko bi taldeen artean?” eta guk irribarre egin dugu ideia entzutean. Azkenean “astelehen batean ikustera etorri beharko dugu” esanez bukatu dute.

Beste inor ez zetorrela ohartu gara eta hotz egiten duenez, “aurreko astelehenean ere hotz egiten zuen” gaineratu du Haizeak, “hankak eta berotzen hasiko gara” esanez ondoren. Orduan pilotalekuari begira hasi gara, errebotean toldo bat baduelako babesgarri moduan jaits litekeena, “hori ez jaisteko esan zidan teknikariak, bestela, agian, teilatua bera eroriko litzatekeela” eta hortik Jaionek bota du “zuek hainbeste pilotalekutan ibilita herri bakoitzean akatsak aterako dizkiezue, ala? Honek ere izango ditu batzuk”. Haizeak esan du berak gehienbat aldagelei erreparatzen diela, Beotibarreko kasua agertuz, eta nik, berriz, fokuetan jartzen dudala arreta, askotan pilota jotzean itsututa geratu eta ondoren komeriak izaten direlako. Azkoitiko zutabeak egiten duen itzalaz jardun naiz.

Beroketa

Hizketan segi bitartean mugikortasun artikularreko ariketak egiteari utzi eta korrika saiotxoari ekin diogu Arritxu, Jaione eta hirurok. Lauzpabost buelta eman eta oraindik jarraitzeko asmoa dugula dirudienez, Haizeak hori ikusita “Lurdesek korrika asko egiten duela eta ez hasi hemen zuek orain, e” bota digu, aldamenetik pasatzean, irribarrez. Hurrengo itzulian bere parean geratu eta luzaketa batzuk egin ditugu berriz ere borobilean jarrita. Haizeak aprobetxatu du guri galdetzeko ea zer egin genuen azkeneko saioan, orain bi astekoan, aurreko astean ez genuen saiorik izan zubia zela medio, eta ni saiatu naiz memoria egin eta gutxi gorabehera oroitzen dudanarekin eginikoa esaten:

“alboko kolpea landu genuen, horma bikoak eta moztea ere bai eta txokotan bi paretak eginez amaitu genuen”.

Haizeak harrিতa jarraitzen du bertaraturiko jende kopuru txikiarekin eta memoria egin du batzuk zenbat denboran ez diren etorri, “Aizpearen berririk ez daukat, Karmele ere aspaldi ez da etorri, etab.”, euren berririk ere ez duela jaso, eta esan du astelehenean ere bi baino ez zitzaizkiola agertu eta batzuk hilabete ere badaramatela saioetan agertu gabe.


Bitartean, hitz egiteari utzi gabe, harmailetara hurbildu gara eta Haizeak pilota bana eman digu, ezker paretaren aurka pilotatzeko. Lehenengo azpiko kolpea lantzeko esan digu eta ondoren albokoa, hasiera batean pilota hartu eta botea eginez kolpe bakoitzaren ostean eta geroxeago piloteo jarraitua erabiliz. Bera bitartean zuzenketaren bat edo beste egiten aritu da eta frontisean marrak zehaztera ere hurbildu da zinta zuria eskuetan hartuta. Ni ari naiz bertatik gertuen eta bi hitz elkartrukatu ostean “ez dut oso zuzen jarri” esan dit. Nik “lasai, neska, ez gara metroarekin neurtzen hasiko” erantzun diot. Piloteatzen jarraitu dugu.

Beroketarekin amaitzeko binaka piloteatzera igaro gara. Batek azpiko kolpea eta besteak albokoa erabiliz kolpatu behar da pilota. Nik Jaione nuen aldamenen eta biok elkarrekin hasi gara. “Ni hasiko naiz azpitik” esan du eta “ados, gero aldatuko dugu” erantzun diot nik. Hala hasi gara eta bezperako Sta. Lutzi egunaz, Zumarragan izandako aldi apurrez, “ospitalera joan naiz eta beste behin Oierren partida bat ikustera frontoira”. Nik esan diot ni Usurbilera ere gutxitan joana nintzela orain arte eta horrela jardun dugu pilotakada eta pilotakada artean. Ondorioztatu dugu bakoitza geure inguruan mugitzen garela gehienbat. Nik galdetu diot ea ibili diren paletan aspaldi eta erantzun dit jaiegunetako batean, Konstituzio egunean edo, ibili zirela Aitziber eta haren senarra eta bera eta bere senarra frontoian. Arritxuk ere esan du geroxeago igandean goizean semearekin izan zela pilotalekuan eta hark egurra eman ziola, indarrean eta fisikoki alde ateratzen diolako.

Haizeak esatean kantxaren erdialdera hurbildu gara laurok eta saioko atal nagusiari ekin.

Ariketak

1. Ilara batean jarrita, frontisa luzeran hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, eskuinekoa eta erdiko. Bata bestearen atzetik kolpeak erdiko gunera bideratu behar dira txandan-txandan. Kolpea egin ostean 6a baino aurreraxeago dagoen marra zapaldu eta ilarara itzuli behar da.




Haizeak ariketa hau proposatu du apur bat berotzeko eta geldi ahalik eta denbora gutxien egoteko, ez delako giro batere epelik. Ariketa proposatu ostean Arritxuk “eta erdira ez bada botatzen zer gertatzen da?” galdetu du eta Haizeak “segi egingo dugu” erantzun dio. Nik, bada ez bada ere, ondoren sor zitezkeen zalantzak uxatu asmoz, erdi

galdera erdi baieztapen bat bota dut, “Haizea, marrek goraino jarraitzen dute, ezta?” eta berak “bai, imajinarioak dira goraino, baina, ni txikia naiz eta ez naiz heltzen”.

Ariketa hau nahiko ongi atera da, nagusiki kolpe guztiak erdiko gunera joan direlako. Gainera, jarraian kolpe dezente kateatu ditugu. Ilaran Haizea, Arritxu, Jaione eta ni aritu gara, ordena horretan. Amaitu ostean “pixka bat berotu gara eta orain ariketa den bezala egiten hasiko gara” jakinarazi digu.

2. Frontiseko hiru gunek mantenduz, baina, kasu honetan gutako bakoitza gunen baten parean jarrita. Erdikoak erdikoak ez beste bi gunetara bidera dezake pilota (ezkerrera edo eskuinera), eta beste bi alboetan daudenek, berriz, erdiko eremura baino ez.



Ni erdian, Arritxu ezkerrean eta Jaione eskuinean hasi gara. Hasi eta ia berehala, Arritxuk huts egitean, bere gunera jarraian bota du pilota, Haizeak esan du eremu batekoak berriz ere bere eremuan joz gero, bigarren kolpe bat egiteko aukera izango duela, aurreko “akatsa” zuzendu eta pilota dagokion gunera bideratzeko.

Lekuak txandakaturaz joan gara Haizeak aldatzeko esatean, denok eremu denetatik igaroz.

3. Aurreko ariketa bera, baina, bizitzekin eta hauek galtzean kanporaturaz. Bakoitzak bi bizitza eta “propia”.

Haizeak esan digu “ya ulertu duzue jokia nolakoa den eta orain bizitzekin probatuko dugu. Bakoitzak bina bizitza izango dituzue eta huts eginez gero, dagokizuen eremura ez baduzue jotzen pilota, bat gutxiago. Hori bai, norbait kaleratzen denean bere gunea ezabatu egingo da”. “Zenbat bizitza?” galdetu du norbaitek eta “bi” erantzuna entzutean Jaionek, aurrez Lurdesen saioaz jardutean txokotan 10 bizitzarekin aritu zirela esan du Arritxuk, “10 bizitza ez?” galdetu du barrez, adarra jo asmoz.

Lehenengo errotazioan Jaione erdian eta ni ezkerreko eremuan geratu gara. Nik erdiko eremuan frontisean jota botea kantxan nahiko eskuinean egin du eta ez du zuzen erantzutea lortu berak eta “nazkantea” bat bota dit.

Bigarrean ni eskuinean, Arritxu erdian eta Jaione ezkerrean aritu gara. Kasu honetan Arritxu eta biok geratu gara azkenerako.

Hirugarren eta azken errotazioan ni erdian, Jaione eskuinean eta Arritxu ezkerrean geratu gara. Oraingoan ere Jaione eta biok geratu gara amaieran. Ariketa honetan posible da, berez, erdikoak hala nahi izanez gero bi aldiz jarraian eremu berera bideratzea bere kolpea, baina, nire bi kideetako batek ere ez du hala egin. Hori ikusita, niri erdian tokatu zaidanean aprobetxatu dut kolpe batean bi aldiz jarraian ezkerreko eremura bota pilota eta “honek balio du?” galdetuz Haizeari zuzendu natzaio. Atzera buelta eman eta konturatu gara, ordea, hura harmailetan ari zela orriren bat betetzen eta ez duela ikusi. Orduan, berari begira ikusi gaituenean hurbildu eta Jaionek “zalantza bat sortu zaigu” bota dio, baina, jarraitu egin dugu beste ezer esan gabe eta pixka bat beranduago lehengo gauza bera egin dut, baina, kasu honetan eskuinera bi aldiz jarraian

bideratuz kolpea. “Honek balio ote duen galdetu nahi genizun lehen, baina, ez zeunden” bota diot Haizeari eta berak “bai, noski, harrituta nengoen inork ere ez duelako horrelakorik egin” erantzun dit.

Ariketa honetan eta aurrekoan zehar, zenbaitetan, ez da batere erraza pilota zein gunetara bideratua izan den antzematea, batez ere marraren inguruan jotzean. Kasu hauetan, gehienetan, ontzat eman dugu kolpea, baina, Haizea jarri da erdi epaile lanetan eta berak argitu dizkigu zenbait zalantza. Ariketak aurrera egin ahala ere “hori txarra izan da” eta horrelakoak gehiagotan bota ditugu geuk ere.

Alde nabarmena dago joko-mailan taldekideen artean, bakoitza eskailera maila ezberdinean gaudela esango nuke. Beraz, alde horrekin, bat oraindik kolpea lantzen ari bada eta besteak norabidea ere landua eta mendean hartua badu, banakako egoeretan asko nabaritzen dira ezberdintasunak. Hala ere, saiatu egiten da bakoitza ahal duen heinean eta norbere ahalmen eta mugen berri badakitela eta onartuta dutela iruditzen zait gaurko biek, behintzat.

4. Partidak, 1:1 aurrean. 5 tantotara. Frontiseko 3 eremuak mantenduz, ezin da pilota aurreko kolpean joan den gunera bideratu. Hala eginez gero aurkariarentzat izango da tantoa.

Haizeak ariketa aurkeztean esan du “partiduak egingo ditugu, baina ... Bizitzan beti dago baina bat”. Arritxuk esan du Haizeak oso ondo pasatzen duela gure kontura, irribarrez esan duelako aurrekoa, zer zailtasun gehigarri jarriko pentsatzen. Beste hirurok irribarre egin dugu eta elkar ulertu dugu hitzik erabili beharrik gabe, antza.

Partidak zenbatera eta zein puntuaketa sistema erabiliz jokatuko ditugun galdetu du Arritxuk ondoren, “bizitzekin ala tantoekin?” eta “zuek nahi duzuen bezala” erantzun dio Haizeak. Guri ez zaigula axola eta berak erabakitzeke esan diogu, baina, “justu hori da niri gustatzen ez zaidana, erabakiak nik hartzea, taldekideek parte hartzea gustatzen zait” erantzun eta Arritxuk aurrea hartuz “bada, tantotara” esan du.

Jaione eta Arritxu hasi dira aurrean eta ni atzeraxeago joan naiz, pilota bat hartu eta ezker hormaren aurka pilotatzen hasiz, ezker zein eskuin eta botez zein airez. Hotz egiten du eta geldi begira geratu banintz izoztuta bukatuko nukeen. Haizea gerturatu zait hasiera horretan eta “honezkero tenisekoarekin master bat egiteko moduan izango zara” esan dit, bai baitaki astean hiru taldetan aritzen naizela. Ondoren, aurrera segi du, zalantzazko egoeretan zer egin erabakitzen lagundu asmoz.

Aurrekoa bukatzean Arritxu atzera eta ni aurrera joan gara, Jaionerekin jokatzerari eta atzera pilotatzerari bera. 5-4 amaitu dugu eta bera gustura xamar aritu da. 1-1 jartzea lortzean Haizeak kontrakantxatik Jaione animatuz esan du “orain emango diozu buelta partidari”. Nik bizpahiru huts egin ditut eta azkenean emozio pixka bat izan du partidak, 4-4 egon garelako. Amaitzean Haizeak galdetu du ea nork ez dugun jokatu elkarren aurka eta erantzuna ematearekin batera Arritxu etorri da frontiseko gunera.

Arritxu eta biok aritu garenean pilota askoz ere lasaiago, patxadan aritu naiz, berari ere jotzeko eta jokatzeke aukera eskainiz. Atzean, aldiz, Haizea eta Jaione pilotakadak eta hitzak elkartrukutzen ari dira eta entzun diot Haizeari “oraingo partiduak hasierakoak baino bizixeagoak dira, ya ez da jotzea bakarrik” eta Jaionek erantzun dio “agian

Uxuerentzat ez ziren asko aldatuko”. Nik aurrean jokatzen eta atzekoen esanei ahal dudan heinean arreata jartzen jarraitu dut eta hala nabilela Jaionek Haizeari halaxe esan dio: “ariketa hori polita da, niri gustatu zait”.

5-0 amaitu dugu, baina, nik eginiko tantoek baino berak eginiko hutsek erabaki dute azken emaitza hori. Amaitu eta atzeraxeago piloteoan ari diren Haizea eta Jaionerengana hurbildu gara. Haizeak “3 etortzeak saria du” esan du, berekin laukotea osatzen baitugu.

5. 2:2 partida, baldintzarik gabe.

Bikoteak nola osatu erabakitzekeo “ni Eneritzekin” esan du irribarrez. Saioan zehar, hasieran nahi gabe eta beste uneren batean nahita, Jaioneri Eneritz deitu dio eta horregatik deitu dio horrela. Egia esan, izenekin gogoratzea ez zaio hain erraza egiten askotan. Beraz, Haizea-Jaione eta Arritxu-ni arituko gara batera.

Haizeak ondoren esan du “hemen dena azaldu beharra dago bada ez bada ere. Badakizue partidetan ezin dutela pilota bata bestearen atzetik jo bikotea osatzen dutenek” eta “hori adina badakigu” erantzun dio Jaionek. Hala ere, kokapena asmatzen ez dela oso erraza izaten esan du eta aurrelariak gutxi gorabehera 3 inguruan eta kantxaren erdi inguruan eta atzelariak 4. koadroaren bueltan eta ezker aldean kokatzen direla esan die. Ondoren, “bikote bakoitzak erabaki nola jokatuko duzuen” esan du. Arritxu eta biok hitz egin dugu eta nik non jokatu nahi duen galdetu diot. Hark berdin zaiola erantzun dit eta nik niri ere baietz, beraz, “nahi baduzu jarri ezker aldean, han gehiago jokatzen da” batekin erabaki dugu azkenean.

Haizea eta biok aurrelari eta Arritxu eta Jaione atzelari postuetan jarrita hasi gara. Bada ez bada ere, Arritxuri esan diot ni askotan joaten naizela kidearen aldamenera pilota jo asmoz, baina, berak heltzeko aukera ikusten badu lasai esateko eta ni kenduko naizela (B.K. Ez dut nik hartu nahi jokoaren ardura eta pisurik, kideek ondo pasatzea eta ahalik gehien gozatzea nahi dudalako. Azken batean, eurei konfiantza transmititu nahi diet, baina, ez dakit hau ote den biderik egokiena, egia esan).

Partidaren erdi inguruan ari garela, 6-1 edo horrela, lortu dugu 6-7 jartzea, lekuz aldatu ostean. Haizea eta biok atzelari eta Arritxu eta Jaione aurrelari jarri gara “lekuz aldatu, probatzeko” entzun baitugu. Markagailuan estutu eta tanto batzuk lortu ditut nik, batez ere besteak mugiaraziz. Horietako batean Haizeak hala esan du “emango diogu Uxueri, zuk azpitik eta nik albotik?” Jaionerengana zuzenduz. Denok egin dugu irribarre eta saltsan jarraitu. 7-8 gindoazela Haizeak zer ordu den galdetu eta nik erlojuan 20.55 ikusi dudala erantzun diodanean “10era egingo dugu” bota du. Azkenean, 10-8 amaitu dugu partida.

21.02 dira eta paletak eta pilotak harmailetan utzi eta ezker hormara hurbildu gara luzaketa ariketak egitera: bikiak, kuadrizepsa, trizepsa, etab. Haizeak esan du beste talderen batean lehenengo gainkargak hasi direla agertzen, bakarren batek esan diola horren inguruko zerbait. Ondoren, datorren asteazkenerako asmoen berri galdetu digu, abenduaren 21a San Tomas eguna izaten delako. Usurbildarrek erantzun diote bertan ez dela jai eta orduan saioa normal egitekotan geratu gara. Hala ere, bada ez bada ere, emakumeei abisatzeko asmoa agertu du Haizeak, bi edo hiru bakarrik ez agertzeko. Eurak zeini abisatuko dieten hitz egin dute Haizearekin eta ondoren Gabonetan bi

asteko oporrak izango ditugula ziurtatu dugu. “Umeeek ere jai daukate eta ez dira oso data onak” esan du Haizeak eta guk hala berretsi dugu.

Trasteak hartu, berokiak eta gainerakoak jantzi eta elkar datorren astera arte agurtu dugu.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaur ere hotza pasa dut eta eskuak izoztuta neuzkan hasieratik. Kosta zait gorputza martxan jarri eta pixka bat moldatzea. Eskerrak laukotea bakarrik ginen eta ez dugun ia batere denborarik egin ilaran zain geldi. Ea zer gertatzen den jende gehiagorekin eta oraindik giro aldrebesagoa tokatzen zaigunean.

Azkenurreko astea joan zait Gabonetako saioetako geldialdiaren aurretik eta uste baino lehenago ari zaizkit igarotzen egunak, egia esan. Hala ere, nekatuta nabil oso, lanez eta betebeharez gainezka, eta gaur Usurbildik itzultzean ere grabagailuarekin hitz egiten ohi baino motelago ari nintzela ohartu naiz, nekeak gaina hartuta, burua kargatuta eta mingaina ere ohi baino erritmo mantsoagoan.

Emakumeak gustura ikusten ditut saioetan eta saiatzen dira, ahal duten heinean eta euren gaitasun eta mugen baitan, ariketetan zehar. Adibidez, ezkerrez eta eskuinez burutzen dituzte kolpeak, nahiz eta badakiten lehenengo kasuan huts egiteko aukerak askoz ere nabarmenagoak direla kasurik gehienetan.

Gaur hiru bakarrik elkartu gara eta aspaldian bospaseitik ez garela igarotzen esan du Haizeak. Gainerako eginbeharrek eragina izango dutela iruditzen zait huts egite horietan, bai haurrek, bai etxeko lanek eta baita antzekoek ere. Azken batean, ikastaroa aisialdian kokatzen da emakumeen kasuan.

Gaur frontisa edo 1. espazio helburua lantzen hasi gara, kolpe motak utzita. Nik ariketa gehienak ezagutzen ditut, beste saioetan ere asko landuta dauzkat eta abantaila bat badaukat alderdi horretan emakumeekiko. Izan ere, ni ariketak esandakoan zentratu ordez dagoeneko buruan bi buelta emanda egoten naiz eta moldatzen naiz jotzeaz gain bestelako helburuak ere lortzeko. Emakumeetan, ordea, oraindik ere jotzetik haratago joatea ez zaie hain erraza eta ohikoa egiten, baina, egia da saiatu saiatzen direla.

Tesiaz galdera pare bat egin dizkit Jaionek, amaieran grabagailuaren bila aritu bainaiz poltsan. Halako batean aurkitu dut. Esan dit irakurtzeko utziko diedala eta nik baietz eta orokorra izango den galdetu dit. Nik esan diot hiru taldeetatik aterako dugula informazioa. Horrez gain elkarrizketak egiten ere banabilela esan diot. Jakin-mina badute, bai.

Azken txanpan, lau hankan

Astelehenetik asteazkenera saioetan murgilduta aritu naiz asteen, tartean beste zereginen bati zeharka heldu badiot ere. Ostegunaren zatirik handiena ere ohar eta testu honen artean eman dut, idatzi, berrirakurri, aldatu eta berriz eginikoa hitzez hitz analizatuz, nahaspilatik zerbait ateratzeko ahaleginean. Saiatzeak balio omen du, beraz, bideari erreparatu beharko zaio emaitzari bainoago.

Egunak oso azkar, oharkabeen, pasa zaizkit, batetik besterako bidaia eta joan-etorriek eraginda, neurri handi batean, ziurrenik. Saiotik saiorako tarteak ere ohi baino laburragoak izan dira, niri hala iruditu zait, landa oharrak atontzen amaitzerako ia berriro ere hurrengo saiora abiatzeko egoeran aurkitu bainaiz.

Nekeak gogor samar erasan nau azken boladan, jaiegunez beteriko astean atsedena hartu ordez neke pilaketan jarraitu dut arrazoi ezberdinak medio, eta nabarmena da nire errendimendu fisiko zein buru-errendimenduan ere, ohi baino denbora gehiago behar izan dudalako ohiko zenbait langintzetan. Adibidez, oharrekin ordu erdi edo hiru ordu laurden gehiago pasa ditut batez beste, eta luzeran aurreko ekinaldietakoen oso antzerakoak izan dira testuak. Hala ere, azkenean, egiteak balio du hemen eta horri eutsita konformatu beharko naiz.

Gabonetako oporraldiaren harira emakumeen paleta saioek geldialdia izango dute, ikastaroak gutxi gorabehera haurren eskolako egutegia jarraitzen duelako. Hortaz, azken hiru saioak baino ez zaizkit falta lehen etenaldi “ofizial” eta premiazkorako. Hori bai, bi aste horietan beste atalen bati heldu beharko diot, martxa honetan, bestela, ikasturtea amaitu bitartean atal bakarra bideratuta izateko arriskuan nabil eta. Beraz, atzera kontaktetan 3-2-1-0 kontatzeari ekitearekin bat 1-2-3-4... bestelako zereginak gehitzen hasi behar ote nuke? Ejem, ejem! Bada ez bada ere, ez naiz galdera erantzuten hasiko. Datorren asterako uztea onena.

12. astea. 3, 2, 1, 0. STOP!

Urriaren 3tik pasa dira egun eta aste batzuk eta, saioei dagokienean, 2011ko azken “lan astean” aurkitzen naizela esatera ausartzen naiz. Izan ere, asteroko behaketen prozesuan lehen geldialdi “ofiziala” ate joka daukagu. Eguberriek, aste santuak eta udako oporrek zehazten dute haurren (eta ez hain haurren) eskola egutegia. Baita gure ikastaroetako ere. Horregatik, egutegia mehetzen doa eta hiru egun barrutik aurrera ez ditut egunero bolantea eskuan hainbeste kilometro egin beharko.

Ohi bezala, astelehen, astearte eta asteazkeneko plana ez zait aldatu eta saioek osatuko dute erdigunea. Hortik aurrera, antolaketa eta hurrengo egun zein asteetan egin beharrekoak bihurtuko dira protagonista. Hala ere, hasteko, azken hiru saioek erreparatzea komeni zait, bertan gertatzen denari arretarik galdu gabe. Has nadin.

Kanpoan hotz, barruan bero

Opor usainean sartu gara gehienok azken aste pare batean, Gabon kanten oihartzun gero eta ozenagoan eta telebistako opari proposamenen iragarkiak esponentzialki ugaltu diren garaian. Izan ere, asteburuan Gabon egunak helduko dira eta oporraldi ofiziala jarriko da abian paleta saioetako egutegian ere, urtarrilaren 9ra artekoa.

Giro hotz, goibel eta desatsegina dago kanpoan, barrurako hobe. Errepidean ere bustita zeuden bazterrak eta putzuak nonahi. Arretaz eta patxadaz egin dut bidea, arriskurik hartu gabe. Gainera, kalefakzioaren epelean egin dut bidaia, txamarra lodia eta aterkia ere aldamenean nituela.

Kiroldegiko sarrera

9.27. Ainara, Gemma, Irati eta Rakel bertan dira, hizketan borobilean jarrita. Baita Ines ere, beti bezala, tornuaren bestaldean, igerilekutik zuzenean etorrira. Beraz, seigarrena izan naiz heltzen. Bezperako GPuntuako finalaz galdetu didate eta horren inguruan hasi gara, bai baitakite ni bertsozalea naizela eta baita nik euretako batzuk hala direla ere. Nire atzetik etorri da Saioa bera, nahiko azkar. Hau ere bezperan Illunben izanda da eta gure hizketaldira batu da. 9.30 pasata dira erlojuan eta eskaileretan behera abiatu gara, pilotalekurantzko paseotxo hasita.

Aurretik falta zirenek bidean harrapatu gaituzte, azken pasabiderako ateari eustean ohartu naizenez: Zuriñe, Jone eta Miren ere pasa dira.

Joana deika ari da Iratiri badatorrela eta hau joan da azken atea zabaltzera, tinbrea jotzen hasi beharrik izan ez dezan mesedea eskatuz.

Pilotalekua

Nobedadea! Gaur sartzerako argia piztuta aurkitu dugu. Trasteak utzi eta 10 lagun bildu gara gaurko saioan. Frontoia bere luze zabaleran ederki bete geratzen da emakumeen joan-etorri, hizketaldi, pilota eta irrien hotsarekin. Berez hiru horma hotz eta porlanak inguratuak izan arren bizia hartzen du halakoetan txoko honek.

Txori baten txorrotxioa entzun dugu bertan eta badirudi kanpoko giroari ihesi barrura egiteko hautua egingo zuela honek ere. Hala ere, ez dugu begi bistaz non dabilen identifikatzerik lortu.

Beroketa

Korrika txikian Jonerekin aritu naiz, artaldearen buruan jarrita. Gaur Saioa ez da aritu, txamarra jantzita ari da guri begira kontrakantxan. Hiruzpalau buelta eman eta korroan mugimendu artikularrak egin ditugu, ohi bezala. Ni ariketak egin bitartean Saioarekin hizketan ari naiz eta ohartzerako kideek pilota bana eta paletak hartzeari ekin diote, beroketarekin amaitzeko. Nabarmena da euren saioetako errutina ederki asko berenganatu dutela, entrenatzailea beste zerbaitetan ikustean ekimena eurek hartu baitute, zain denborari igarotzen utzi ordez.

Ni ere joan naiz paleta eta pilota hartu eta ezker hormatik gertu kokatzera, frontis aldamenean zulo bat ikusita. Aldamenean Jone eta Zuriñe ditut. Rakel ere han ari da, Zuriñerekin batera jarrita. Hauek binaka ari dira. Une batean Jone falta dela ohartu naiz eta atzera begiratzean Saioarekin hizketan aurkitu dut. Hura ere itzuli da solasaldi labur batean ostean (B.K. Sozializazio edo harremanen nondik norakoaren isla dira sortu ohi diren hizketaldi hauek. Kideen artean zein kide eta entrenatzailearekin ematen dira, gainera).

Saioak denok deitu eta kantxaren erdialdean elkartu gara. Ohi bezala, pilotak ere eman dizkiogu berari eskura. Bide batez, gogorarazi digu Gabonen aurreko azken saioa hau izango dela urtarrilaren 9ra arte, egutegian hasieran jarri bezala. Haurren eskolako egutegia jarraitzen dute ikastaroek. Beste aukera bat izan ote zitekeen esan zigun aurreko astean, baina, jaiegunak izango direla berretsi digu. Onespena jaso du eta “Eguberriak aprobetxatu” edo horrelakoren bat ere bota du kideren batek.

Saioko ariketak proposatzeari ekin aurretik Gabonen aurreko azken saioa izaki gaur txintxoa izan beharko duela esan digu. Irribarre egin dugu hori entzutean.

Ariketak

1. Txokotan, bina bizitzarekin. Pilota jo ostean 7ko marra zapaltzera.

Saioak jakinarazi digu ondorengo partidetarako bikoteak kanporaturiko ordenaren arabera zehaztuko ditugula. Ados agertu gara gu.

Askok gara eta itxuran joan da ariketa. Hasi eta berehala Joanari marra zapaltzea ahaztu zaio behin baino gehiagotan eta bakarren batek gogorarazi dio. Pilotakada jo eta atzera-aurreranzko korrika saioetan ari gara. Miren da arriskua hartzen eta saltsa jartzen saiatzen direnetako ia bakarra, espazio librea aurkitzen edo pilotari norabide “gaiztoa” emanez, Ainara eta nirekin batera. Zuriñek ere egiten du tarteka saiakeraren bat, baina, nagusiki jo eta norberak txarrik ez egitera mugatzen da emakumeen jarduna (B.K. Irudipen hori bera saio askotan eta leku guztietan izaten dut).

Suhiltzaile lanean pare baten hutsak zuzendu ditut tartean eta aurrekusteari esker inor helduko ez zen horma biko pare bat erantzun ere bai. Hala entzun dut horietako baten ostean, “eta hori nola zenekien, ba?” eta irri txiki batekin erantzun diot galdetzaileari.

Gutxika-gutxika bakantzen goaz eta 7ko marrara joan eta itzultzeko tartea ere gehitxo da. Horregatik, 5koa zapaltzera igaro gara lehenengo eta hiru lagunekin marrarik zapaltzeko beharrik gabe jarraitu dugu jokatzeko.

Ainara eta biok geratu gara bukaeran. Rakel izan da gehien iraun duena gurekin batera, nahiz eta katuek adina bizitza batuko zituen ziurrenik. Ni ohartu naizela hiruzpalau huts eginda zen ordurako, baina, inork ez diogu ezer esan eta jarraitzeko gogoaz bazuen ederki baliatu du. Bejondeiola!

Azken txanpan zirti-zarta handi xamarra ibili dugu, erritmo bizian jokatuz eta elkarri lan pixka bat eman diogu. Atzean dabilta besteak pilotatzen, kanporatu ahala bertara joan baitira, baina, begi bat eta erdi gure jokoan jarririk, “uiii” eta “oso ondo” edo horrelakoren batzuk entzun izana iruditu baitzait. Azkenean Ainarak lortu du tantoa, ni “harrapatu” bainau. Horma bikoa botako zidalakoan eskuinera abiatu eta ezkerrean moztu dit. “Ederki” batekin zoriondu dut nik, jokaldi bikaina izan baita. Berotu egin naiz eta polarra kentzeko unea heldu zaidala erabaki dut, izerditzeko ari bainaiz.

Atzekoei deitu die Saioak eta borobilean jarrita kanporatzeko ordena gogoratuz bikoteak osatzeari ekin dio, memoria ere lanean jarritz.

2. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5' inguruan.

- Frontiseko eremuan, 2:2. Baldintzarik gabe
- Erdikoan (5-7), 1:1. Baldintzarik gabe
- Atzean (8-errebotea), 2:2. Kideari paletarekin “bostekoa” eman behar zaio bikoteak egindako kolpe bakoitzeko. Egin ezean tantoa aurkarientzat.

Gaur ez du aldaketarik egin Saioak eta ordena mantendu du binaka jartzeko. Azkenean, honela geratu dira bikoteak: Ainara eta Gemma, Joana eta ni, Miren eta Rakel, Irati eta Jone eta Zuriñe eta Ines.

Gaur ere aurreko asteko bikotea errepikatzea egokitu zaigu Joanari eta bioi. Niri ez zait axola eta ez dirudi bera ere haserre dagoenik.

Zuriñe-Ines eta gu hasi gara aurrean. Erdian Miren eta Rakel eta atzean Jone-Irati eta Ainara-Gemma. Aurrean Joana jarri da ezkerrean eta ni eskuinean, hautua berak eginda. Zuriñe aurrelari eta Ines atzelari ari dira besteak. Lasai aritu naiz, eurei pilota dauden lekutik gertu xamar botaz, joko eman ez eta tantoren batean kilimak eginez. Amaieran irabazi eta bertan geratu gara.

Gemma eta Ainara etorri dira atzetik eta tanto landuago eta luzeagoak jokatu ditugu kasu honetan. Lehiatuagoa izan da partida eta 6-6 amaitu dugu, atzetik joan arren. Guk aurrean jarraian bi partida jokatu ditugu eta erdira joan gara.

Erdian Joanak esan dit ez ote zen beste norbait falta bertan jokatzeko eta banakako partidak direla gogorarazi diot. Orduan elkar pixka bat mugitu dugu, eta aldi berean berari pilota jotzeko aukera eskaini nahian aritu naiz ni, baina, markagailua ahaztu eta kolpeak zein hitzak elkartrukatu ditugu tarte horretan. Aurreko astean baino lasaiago sumatzen dut nik eta “zer, gaur aurrekoan baino lasaiago zabilta, ala?” galdetu diot.

“Bai, asteartean aritu nintzen lagunarekin” erantzun dit, “hau honela egin behar da, pala horrela hartu eta praktikatzen”. “Ondo, ondo, orduan etxeko lanak eginda etorri zara gaur” erantzun diot nik. Egia esan, askoz ere huts gutxiago egin ditu partidetan eta niri ere behar bezala eskatu dit pilota uzteko hala iruditu zaionean, “utzi, Uxue” edo “ba” esanez. Nik ia gehienak utzi dizkiot, bakarren batean hortzak zorrotzu eta tantoa neuk errematatzeko hautua egin badut ere. Kasu hauetan barkamena eskatu diot eta berak lasai egoteko keinua eginez erantzun dit. Bada ez bada ere, hala ere, esan diot “tentaldiari ezin izaten diot eutsi batzuetan pilota hain eskura ikusita”.

Atzera joatean berriro ere Ines eta Zuriñerekin egin dugu topo. Aurrera, berriz, Irati eta Jone joan dira, Joanari “qué paliza” bat bota baitio lehenak bidean elkarrekin gurutzatzerakoan. Palekin talka egin beharrak arrisku maila bat ezartzen dio atzeko binakako partida honi eta Joanari esan diot, erdian ari ginen bitartean, komenigarria dela jotzen ari ez dena kidearengandik gertu kokatzea, azkar amaitu eta ahal izanez gero berriro ere dagozkigun kokapenak berreskuratu ahal izateko. Atzean entrenatuta daude gure aurkariak, bigarren partida dutelako jarraian bertan, eta guk ere ederki lortu dugu koordinatu eta sinkronizatzea. Izan dira ahazturiko pare bat bosteko, baina, aurkariari batzuk barkatzea erabaki dugu, jokatzeko segitzeko.

Hurrengoan atzera Gemma eta Ainara etorri dira. Hauen kasuan Ainara askoz ere gehiago mugitzen da Gemma baino eta guk baino lan pixka bat gehiago izan dute bostekoak emateko. Aurrera joatea tokatu zaigu hurrengo txandan eta hirugarrenez Zuriñe eta Inesekin egin dugu topo. Ikustean Inesek esan dit “berriro zu” edo horrelakoren bat eta nik irribarrez erantzun diot. Azken batean, badaukagu konfiantza elkarrengan eta estimua azaltzeko modua dela badakit. Berriz ere lasai eta nahiko nabarmen hartu dugu aurrea, nahiz eta batez ere Joanari pilota bideratzen saiatzen diren. Tanto dotoreren bat egin du Zuriñek, hala ere, eta goraiatu dizkiot neronek ere.

Aurrean jokaturiko azken partidarako Gemma eta Ainara etorri dira aurrera berriro ere. Saioak esan digu “3 minutu, eh” eta erlojuan 10.51 ikusi dut. Partida hasi eta lehenengo bizpahiru kolpeetan atzetik etorritako aurkariak elkarren paletak ukitzera abiatzeko imintzioak egin dituzte, txipa aldatu gabe oraindik. Konturatu dira, ordea. Nik, aldamenetik, “nahi baduzue egin dezakezue” erantzun diet, adarra jo asmoz. “Ondo pasatzen duzu” bota dit Joanak une batean eta nik baietz, hala dela.

Aurreko partida bukatu eta Saioak bi ahizpak erdira eta gu atzera bidali gaitu. Bertan berriro ere lagun zaharrekin elkartu gara, Zuriñe eta Inesekin. Gaurko saioko laugarren partida dugu elkarren aurka. Beste hirurak, aldiz, Ainara eta Gemmaren aurka jokaturikoak izan dira. Beraz, bost bikote egin arren birekin ez dugu jokatzeko aukerarik izan.

Azken partidari nik lasai eta tarteka tanto onen bat eginez jardun dut eta Joanak esan dit bera ia nekatuta dagoela eta izerditan blai. “A ze beroa egiten duen, hurrengoan niki beso motza ekarriko dut” bota du, ilea ere blai ikusten zaio. Inesek une batean Zuriñeri “Uxuek nola mareatzen gaituen” bota dio eta honek ederki erantzun “Uxuek ez bagaitu mareatzen, zeinek...” Azken tantoa nik txokoan egindako dejada batekin amaitu da, Saioak txistu jo baitu dagoenerako. Hori egitean Inesek “txatxua” bota dit eta nik irribarrez erantzun diot.

Errebotetik kontraktantxarako bidea hartu dugu gu laurok eta halatsu beste sei kideek ere. Bertan paletak motxilan eta pilotak poltsan sartu ostean luzaketa ariketak egiten hasi gara. Inesk alde egin du eta Gabonak ondo pasatzeko eta ongi ibiltzeko esanez agurtu dugu elkar. Besteok borobilean jarrita ari gara. Saioak aprobetxatu du esateko “ostiralean Emakumea Pilotariko finalak dira arratsaldeko 7etatik aurrera”. Nik ere lagundu diot propaganda egiten “ahal baduzue merezi du 1. mailako bi atzelariak behin behintzat ikustea” gaineratuz. Mirenek lana duela esan du eta besteren batek ez dakiela, baina, hiruzpalau agertzekotan geratu dira. Ni, berriz, erabat zehaztuta dagoenean karteldegia posta elektronikoz bidaltzekotan. Aurretik nortasun-agiriaren fotokopia falta zaienei gogorarazi die ekartzeko, aseguruarekin egin beharreko izapideak bukatzeko eta, hauek, Rakel eta Joana, bihar arratsaldean pasatzekotan geratu dira. Izan ere, beste talde bat aritzen da astearteetan 15.00etatik 16.30era ikastaroen baitan. Une batean kolokan egon zen, baina, ikasturte honetan jarraitzea erabaki zuten.

Luzaketak amaitu eta berokiak jantzi, aterkiak hartu eta amaitu ditugu pilotalekuan egin beharrekoak. Jone Ainara eta Gemmari hurbildu zaie ea opor egunetan geratuko diren galdetuz eta ezezkoan geratu direla iruditu zait (B.K. Lehena ez baina beste biak ama dira eta haurrek ere jai dute eskolan egun horietan).

Kiroldegiko sarrera

11.10 dira eta kanporantz goaz tropelean, aldageletan bi lagun utzi ostean. Elkarri opor onak opa, bakarren batzuk ostiralera arte agurtu, Emakumea Pilotariko finaletara azaltzeko asmoa agertu dutenak, eta kotxera noa Saioarekin hizketan, gaur grabagailua piztu eta Donostiara, ospitalera, bainoa zuzenean, liburutegiko lanak etxean egiteko utzita.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Nekatuta nago, baina ez saioagatik bakarrik, azken boladako gorabehera guztien baturagatik baizik. Ostiralean finaletan azaltzen direnekin bi kontu egiteko asmotan, urtarrilera arte kito hemengo. Saioetako giroak indar eta arnasberritze puntu bat ematen didate. Eskerrak. Egia esan, ez nabil umorez gainezka eta hori nire aldardean nabari da, nahiz eta saioetan saiatzen naizen arazoak ahal dudan heinean alboratzen.

Gaurkoa oso saio dinamikoa izan da, txokotan aritu ostean, etengabe eta une oro aritu garelako partiduetan hara eta hona, zain denborarik eman gabe. Horrek berotzeaz gain bakarren batek motorra nahiko erreta edo nekeak gain hartuta amaitzea eragin du, saioaren amaiera aldera geure aurpegietan ederki nabari den moduan.

Iruditzen zait emakumeek eskertzen dutela tarteka hainbeste pentsatu beharreko ariketarik gabeko saioak burutzea, nahiz eta bien arteko oreka aurkitzea eta bakoitzak dakartzagun nahi eta asmoak nahasi eta uztartzea ez den batere lan erraza. Aurtengoak eman du eman beharrekoa. Ea zerekin hasten eta bukatzen dugun datorrena.

Aspaldi honetan Malen eta Naiara ez dira etorri. Azken bi saioetan, behintzat, ez. Gaur ia galdetu diet kideei ea euren berririk ba ote zuten, baina, burutazio hutsean geratu zait. Ea itzuleran tropela zenbatekoa den eta zer gorputzalditan dauden eta nagoen.

Eguraldiaren barrabaskeriak

Saioa buruan lanean ari naizela telefonoa joka hasi zait, arratsaldeko bostak pasatxoan. Begiratu eta Saioa irakurri dudanean harriduraz erantzun diot deiari. Gaurko saioa, eta, beraz, 2011ko azkena, bertan behera utzi behar omen dugu, pilotalekua ez dagoelako baldintzatan. Hezetasun izugarria omen dago, zutik ere ezin omen da ibili kantxan eta haurren entrenamenduak ere bertan behera utzi dituztela esanez deitu omen dio berari Pilik.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Bidaia bat eta oharrak idaztea aurreztu dut, ezustean izan bada ere. Alde horretatik lasaitasun puntu bat edo aspaldi honetan maizegi erasaten nauen alferkeria puntuari eusteko aukera sortu zait berriro ere. Beste alde batetik, ordea, zalantzan nago nola jokatu behar dudan halako kasuetan, nola jaso gertaturikoa eta azalpenak eta argudioak nondik atera.

Neguan (edo neguaren atarian) eta erabat itxiak ez diren pilotalekuetan arrisku hori dagoela badakigu. Gainera, Zizurkilgoak eskuinaldearen zati bat ez du erabat itxia eta hezetasunak oztopoak eragiten ditu. Usurbilgoa da, hala ere, arriskurik handiena duena. Horregatik, gaurkoa bertan behera geratu bada, zer gertatuko ote da biharkoarekin? Ikusiko dugu 24 ordu barru. Bertara joan eta ez ote naiz ezer ere egin gabe itzuliko, behintzat.

San Tomas eguna, frontoiko jarduna

Astea goibel eta iluna, nahasia, izaten ari da kanpo-giroari edo eguraldiari erreparatuz gero eta halatsu barne-munduan ere. Gaur ere euria goian behean eta errepidea busti bezain arriskutsu dagoela egin dut etxetik saiorako bidea, tentuz, baina, patxadaz. Gaur, behintzat, azken saioa dut Gabonetako geldialdiaren aurretik eta horrek animo izpi bat ematen dit.

Sarrera

18.50ean irten eta 19.30ean pilotalekura heldu naiz, aterkia, paleta eta txamarra lagun. Alboa eta atzea irekiak ditu pilotalekuak. Giroa ikusita nola aurkituko ote dudan kezka puntu batekin egin dut autotik bertarako bidea, are gehiago bezperako saioa hezetasunagatik bertan behera geratu ostean. Heldu eta frontisaren ezker aldean bustidura bat badago eta 7tik atzera blai eginda dago kantxa. Zoruan hezetasuna nabari da, ohi baino ilunago dakusat eta irristakor puntutxo bat badu, baina, saioa emateko moduan dagoela iruditu zait. Beraz, gutxienez, ez dirudi alfer bidaiarik egin dudarik. Ez ote ?!

Pilotalekua

Ez dago inor bertan eta Anje Duhalderen irudia duen kartel batek atentzioa deituta ezker hormaren amaierara hurbildu naiz, irakurri asmoz. Berehala iritsi da Haizea, Donostian (txistorra eta jende artean) egun pasa egin eta zintzo demonio, saioa ematera. Biok bakarrik gaude eta bera kezkatzen hasi da jende kopurua ikusita, “beldur hau neukan, inor ere ez agertzea. Astelehenean ere hiru bakarrik etorri ziren” esanez.

19.35ean Izaskun heldu da, aspaldiko partez. Badira hiru aste etorri ez dela. Aitortu du azken eguna delako etorri dela, eta duda egin duela inor agertuko ote ginen, eta etxetik inor ikusten ez bazuen ere, bada ez bada ere, frontoiraino hurbiltzea erabaki duela. Han gaudela Arritxu pasa da, seme-alabek lagunduta, eta ama makalik duela eta harena doazela esan digu. Haizeak hurrengo saioa urtarrilaren 11n izango dela esan dio. Beraz, aurreko astean agertzekotan geratu zen bietako bat ez da gaurko saioan izango. Jaione falta da aurreko saiokoetatik eta ez dugu bere berririk momentuz.

19.45ean hiru lagun baino ez gaude eta zalantzak hasi zaizkigu. Izaskunek esan du ez dela oso ordu ona ilunabarrekoa, haurrak dauzkatela gehienek eta “encaje de bolillos” egin behar izaten dutela, bateko lanak, bestekoak, bikotearen ordutegia,... (B.K. Betebehar sozialak, zereginak edo nahi bezala deitu, baina, aintzat hartu beharrekoak dira, ezinbestean, analisisetan). Gabonetako argien eta kontsumismoaren gainean ere egin ditugu hitz batzuk, Usurbilen ez baitaude jarrita. Ez omen da nabari Eguberriak ate joka ditugunik.

19.50ean, asko espero ez genuenean, nor eta Aizpea etorri da. “Aspaldiko” esanez agurtu du Haizeak eta eskerrak etorri dela esan ere bai. “Beno, orain gutxienez hiru gara”. Egia esan, etxerako bidea hartu ala ez zalantzak hasita zeuden ordurako. Orain, ordea, lau bagara, Haizea barne, beraz, ez dut uste saioa egingo ez dugunik. Horrek lasaitu nau ni, egindako bidaia alferrikakoa ez delako izango. Eskerrak! Aizpeak esan du lana medio ezin izan zela etorri egunen batean, Iruñetik berandu heldu omen zen, bestean gaixorik egon zela, eta hala azaldu digu bere etorri ezinaren berri. Haizeak esan du azken boladan irakasleak izan direla askotan saioetara huts egin dutenak, gurasoekin eginiko bilera eta abarrak medio. Izaskun hala da eta eurentzat bolada hau lan zama handikoa dela berretsi digu.

Jaione izan da handik gutxira etortzen azkena. Lanetik etxera heldu, aldatu, trasteak hartu eta zuzenean etorri omen da. Txamarra eta paleta blaituta dator, euria bizi-bizi ari baitu kanpoan. Presente omen zeukan aurreko astean azalduko zela hitz eman izana.

Beroketa

Lau ikasle elkartu garenean, ia saioetarako ezarritako ordua baino ordu erdi beranduago, hizketan aritu gara oporrez eta abarrez, baina, gutxika gutxika borobilean jarri eta mugimenduei ekin diegu, artikulazioak mugituz. Ondoren lauzpabost itzuli eman ditugu kantzako eremu lehorrean eta Haizeak “frontisean bukatuko dugu” esan du. Bertara hurbildu eta alborako lekualdatzeak egin ditugu joan-etorrian, lehendabizi 7raino eskuinerantz eta itzuleran berriz ere frontisera, ezkererantz. Bi bider errepikatu ditugu.

Beroketan berriro ere Lurdesen saioen egitura atera da, Izaskunek esan du Arritxurekin egon zela eta hark kontatu ziola nola aritu ziren, besteak beste. “Cada maestrillo tiene su librillo” esan duenik ere izan da horren harira.

Haizeak esan du “gaur azkeneko eguna da eta orain arte ikusitakoa errepatatuko dugu”. Gutako inork ez dio eragozpenik jarri eta berari entzuteko prest gaude, adi-adi. Harmailetatik geure paletak hartu eta pilota bana banatu ostean ezker hormaren aurka jarri gara, banaka, pilota banarekin. Azpitik kolpeak egiten hasteko agindu digu, ondoren albokoa ere landuko dugula adieraztearekin bat. “Kolpea non egin behar da?” galdera egin digu, ondoren mugimendu bidez (pilota gorputzaren aurrean eta azpian

jotzea imitatuta), gogoraraziz zer ikasi dugun horren inguruan. Piloteatzen hasi eta, gaur besteetan baino gehiagotan, estua iruditu zait eremua oso, atzeko harmailetako egitura oso gertu dagoelako. Hori ikusita, aldamenen ari den Jaioneri galdera egin diot: “harmaila hauek hemen egoten al dira pilota partidak jokatzen direnean? Oso estu geratzen da hau”. Berak esan dit haurrenetan baietz, baina, nagusien partidetarako probaleku aldamenara, atzerago, mugitzen dituztela, trabarik egin ez dezaten.

Azpikoa eta albokoa banaka landu ostean binaka piloteatzen amaitu dugu, batek alboko kolpea eta besteak azpikoa erabiltzeko baldintza jarrita. Ni berriz ere Jaionerekin jarri naiz eta Izaskun eta Aizpea, gertutasunaren arabera. Jaioneri galdetu diot “zuk zer kolpe egin nahi duzu?” eta berak “zer nahi du berorrek?” esanez erantzun dit. Gure inguruan dabilen Haizeak “aizu, jeloskor jarri naiz, hemen ni naiz irakaslea” esanez erantzun dio, irribarretsu. Azkenean bera albotik eta ni azpiko kolpearekin hasi gara, erdibidean aldatuz, Haizeak esan digunean. Aizpea eta Izaskun ari dira gure aldamenen eta Haizeak azalpenen bat edo beste ematen die tarteka, aholkatu eta zuzenketak eginez.

Ohiko beroketaren ostean 4.koadro inguruan batu gara laurok, Haizearen esanetara, saioko atal nagusiari ekiteko.

Ariketak

1. Entrenatzaileak pilota prestatu eta bakoitzak jarraian bi kolpe egin behar ditu: lehenengoan azpikoa eta ondoren albokoa.

Ni izan naiz hasi dena, ondoren Jaione, Izaskun eta Aizpea kokatuz ilaran. Hiruzpalau buelta egin ditugu ariketa honekin hurrengora igaro arte.

Ni lasai aritu naiz eta tartean entzun dut nik jotzean aipamenen bat. Jaione ere moldatu da, ondo egiten ditu halakoak, eta beste biak ere bai, zailtasunen bat gehiago izan arren uneren batean (B.K. Egindako saio kopuruak zuzenean eragiten du mailan eta norberaren jokatzeiko konfiantzan eta hala dirudi ariketaren nondik norakoak aztertuz gero. Beste biek saio gutxiago egiteaz gain aspaldiko hiru asteetan ez dute pilotan jardun eta hori begi bistakoa da).

Horma bikoak ere landu ditugula gogorazi digu Haizeak hurrengo jarduera aurkeztean. Gainera, esan du “nik ez dut ezer egingo, zuek egingo duzue dena”.

2. Bat ezkerrean, pilotak prestatuz. Erdian bi, horma bikoak egiteko ardurarekin (txandaka, aldiro bakarrak) eta eskuinean laugarren ikaslea, pilota moztu edo errematatzeako funtzioarekin. Ezkerrekoak prestatu, erdikoak horma bikoak eta eskuinekoak moztu sekuentzia osatu behar da pilota bakoitzarekin.

Ariketan zehar kokapenak mantendu egin dira, Haizeak aldaketa egingo dugula esan arte, nahasmenak eta funtzioak aldatzea ekidin asmoz.

Ni eskuinean moztzen, Izaskun prestatzen eta Jaione zein Aizpea erdian hasi dira. Ondorengo aldaketan ni eta Aizpea erdian, Jaione ezkerrean eta Izaskun eskuinean. Hirugarrenean berriz ere erdian ni, kasu honetan Izaskunekin, Jaione eskuinean eta Aizpea ezkerrean. Azken aldaketan prestatzaile rolean aritu naiz ni.

Kideek eskuinean egokitu zaienean kokapenarekin zailtasun batzuk izan dituzte. Batetik, bi paretako asko ez direlako oso eskuinera joan, beraz, ezkerraldera desplazatu beharra izan dute, eta, bestalde, oso aurrean jarri dira eta azken unean atzera desplazatu beharra izan dutelako pilotara heltzeko. Horren harira “bi paretak nahiko txatxuak izaten ari dira” esan du entrenatzaileak eta Jaione “Uxuek botatzen ditu eskuinera, baina, guk ez dugu asmatzen” edo antzekoren bat ere bai. Nik, Haizeari lagundu asmoz, atzerago eta ez hain eskuinean (ia kontrakantxako marraren gainean daude) jartzeko gomendatu nahi izan diet.

Horrez gain, Aizpeak paleta prestatzean eta kolpe unean eskumuturrarekin mugimendu arraro bat egiten du eta askotan ez du asmatzen pilota paletaren erdiarekin kolpatzen eta kolpe dezentetan egin du huts. Bera urduri jartzen ari da eta zergatik izan ote litekeen ere galdetu dio Haizeari. Honek esan dio pilotaren bila ere zuzenean joaten dela, “nora ez dakizu, baina, joan egiten zara”, ez duela behar beste itxaroten eta jan egiten duela askotan, lasaiago joaten saiatzeko.

Behin baino gehiagotan eman die Haizeak, batez ere Izaskun eta Aizpeari, berriz ere errepikatzeko aukera, horma bikoak egitean, tarteka ez baitute ezker horma jo frontisaren aurretik.

Itxuroso xamar atera da ariketa hau, nahiz eta konplikazio maila igotzearekin batera zehaztasun mailak ere behera egin duen aurreko ariketarekin alderatuz gero. Nahiko luze joan da, denbora dezente eman dugu honekin, denok postu guztietatik pasa baikara.

3. Binakako partida, baldintzarik gabea.

Kokapenen berri eta partidetakoa dinamikaren berri azaldu digu entrenatzaileak: atzelariak 4aren inguruan eta ezkerraldean eta aurrelariak 3aren inguruan eta kantxaren erdi inguruan kokatu ohi direla esan du. Jaione-Aizpea eta Izaskun-ni bikoteak egin ditu Haizeak. Nork non jokatu erabakitzeke Izaskuni esan diot eta “ni jarriko naiz atzean” esan du. Beraz, Jaione eta Izaskun atzelari eta Aizpea eta biok aurrelari hasiko gara.

Hasi aurretik, ordea, Izaskunek berriz ere kideak gurutzatuta jartzen ote diren galdetu du eta bera atzean eta eskuinean jarri da. Nik eta Haizeak esan diogu atzelaria ezker hormatik gertu kokatzen dela eta aurrelaria dela eskuinaldean jarri ohi dena. Honen ondoren ekin diogu partiduari.

Partiduan hasi eta nitaz gain beste hirurek tantoa egiteko asmo handirik ez dute. Atzelariak 4aren inguruan dabilta eta pilotak botea aurrerago egiten duenez behin baino gehiagotan oso larri heldu dira lehen botean pilota kolpatzera. Nahi gabeko “aurrera” pare batek ihes egin didate ahotik, kideei lagundu asmoz.

Halako batean Haizeak esanda lekuz aldatu gara. Oso partida lasaiak izan dira niretzat, batetik erritmoagatik eta bestetik eurak ere lan dezente izan dutelako zein zeinek jo beharreko pilota den erabakitzen behin baino gehiagotan (B.K. Emakumeak ez daude partidak jokatzera ohituta eta nabari zaie segurtasun-gabezia eta konfiantza falta hori, adibidez, jokaldiak amaitzeko intentzian eta kolpea nori dagokion erabakitzean). Ni oso lasai aritu naiz.

Aldaketan Izaskun aurrelari jarri da eta gustura ari da. Airez sartu da sake batzuetara, asmatu ala ez, ausardia faltarik ez du. Aizpeak ere hala esan dit une batean aldamenetik, “denetara sartzen da, ausarta da, eh” eta nik baietz erantzun diot. Askotan, bada ez bada ere, bere atzean kokatu naiz, jotzen ez bazion kolpea nik egiteko. Hala ere, ez dut aukera handiegirik izan.

Aizpeak kolpea egitean arraro mugitzen du besoa eta amorratu da bere buruarekin.

Haizeak azken tantoa izango dela esan eta beste bi ere jokatu ditugu, propina, emakumeak gustura eta gozaten ari direla ikusita. Amaitu eta luzaketak egin ditugu harmailetatik gertu, paletak bertan utzita. Aldi berean, Izaskun eta Aizpeari txartela emateko aprobeixatu du Haizeak, guri aurreko astean eman baitzigun. Aizpeak pilotaria jartzen duela irakurri eta irri bat egin du eta nik “hori ondo gorde beharko da” bota diet, adarra jo asmoz. Berehala eman dit erantzuna Izaskunek, “bai, bakarren batek ez ikusteko” esanez.

Hurrengo saioa urtarrilaren 11n izango dela gogorarazi digu Haizeak, taldekideei abisatzeko esan die usurbildarrei, zerrenda hartu eta izenak botaz eurak moldatuko direla erantzun diote, eta elkar agurtu digu, “Urte berri on, ondo bukatu eta hobeto hasi” eta halako ohiko esanekin eta Haizea ostiralera arte agurtu dut, Hernanin elkartuko baikara, Ezker Hormako VI. Emakumea Pilotari Txapelketako finaletan.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Aste honetan negu giroa heldu da gurera, ohi baino beranduago, akaso, eta errepidean jartzeak errespetua eman dit, baita gaur ere, bustiak arriskutsuago bihurtzen baitu. Hala ere, azken desplazamendua izateak arindu dit pixka bat joan-etorria egiteko kezka hori.

Saioaren une batean jokatzeari utzi eta hizketan ari ginen, ilaran egin beharreko ariketaren batean, eta Haizeak begiratu egin digu. Hala ere, emakumeek esan diote paletan aritzeaz gain sozializatzea ere badatozela saioetara. Hori nabari da jarduteko eran.

Gaur ikasturtean zehar eginikoa erreparatu digu eta ikusi egin beharko da urtarrilean zehar zer egingo dugun. Are gehiago kideen joan-etorri eta agerpen oso intermitenteek eragingo dutela aintzat hartuz gero.

Amaitu dira saio ofizialak momentuz. Beste zereginetan murgiltzeko une heldu zait.

Arnasberritu, indarberritu

Azken pare bat asteetan zain jarririko egunak iritsi dira. Ez, lasai, ez naiz Olentzerok ekar ditzakeen opari eta sorpresen gainean ari edo gabon kantak abestuz egindako errondez. Edo, bai, agian bai. Eguberrietako atsedendialdiak ba ote du loturarik Olentzeroren etorrerarekin? Auskalo. Dena dela ere, heldu da neguko etenaldia.

Urriko lehen astea lekutan geratu da. Baita lehen saioetako gehiegizko urduritasuna eta kokatu ezina ere. Astez aste erosotasun eta konfiantza mailak gora egin dit ikastaroetan, dena arrosa kolorekoa izan ez bada ere. Egutegia eskuan hartu eta gutxi gorabeherako kalkulu batzuk egiteko aprobeixatu dut. Izan ere, hamabi aste egin ditut joan-etorrietan,

ia hiru hilabete, 28 saio jaso, 42 ordu kantxan, auskalo zenbat pantaila, grabagailu eta koaderno aurrean eta batek daki zenbat kilometro N-lean barrena.

Nekea eta atsedeen premia esponentzialki igo zaizkit azken asteetan, errutinaren baitan erritmo bizian eta ezer bukatzerako hurrengoari helduta aritu bainaiz egunak joan eta egunak etorri. Horregatik, saiorik ez dudan tarte honetan, aurrez mahaiaren alboan pilatu ditudan liburu, artikulu, paper eta txostenak lasaiago eta sakontasunez aztertzea dagokit, beste zakuetakoko edukiak ere antolatzen hasiz. Beraz, asteburuaren ostean, astelehenetik aurrera, inguruko asko oporrez gozatzen hastean, ea nik oporrik eza behar bezala kudeatu eta lanak aurreratzeko arrastoan sartzen dudan nire burua. Hori bai, egunen batean nire buruari jaieguna oparituko diot, 2012a indartsu eta lanerako bete-betean has dezadan. Lehen hiruhilekoa amaitu da!

13. astea. 2012A, URTE BERRIAN LAN ZAHARRAK

Lehen hiruhilekoa Gabonetako oporren aurretik amaitu ostean bigarren jarduera aldia da orain hasi dudan hau. Egia esan ez da isolatua, ez da oso ezberdina izango, aurrekoaren jarraipena (eta hurrengo etorriko denaren atariko) baita, baina, urtea aldatu izanak eta tartean etenaldi bat izateak etapak bereizteko aukera eman ohi du eta, beraz, hau da bigarren etapa horren hasiera.

Hamabi kontakizun eta hogeita hamar saio eskas izan ditu aurreko aldiak eta honek ere hor nonbait izango ditu, Aste Santua izango baita hurrengo geldialdiaren muga. Beraz, beste hiru hilabete bete eta lanpetuetarako arnasa sakon hartu eta indarrak bilduta hastea komenigarria da, gorpila biraka hastean ez baita erraza izaten nahi den erritmoan eta nahi den norabidean eramatea uneoro.

Hiru asteren bueltan joan dira, hegan joan ere, azken bidaia eta paletakadetatik eta berriro ere bolantean jarri eta pilotaren zein pilotalekuen harira hastera noa, bide luze, malkartsu bezain gorabeheratsua dela ahaztu gabe, hala ere. Goazen!

Astelehena, hau da astelehena hau!

Gabonetako opor osteko aurreneko saioa da gaurkoa. Ia hiru aste joan dira azken saioetatik eta bezperatik joan-etorri honi eta berriro ere hara eta hona hasi beharrari makinatxo bat buelta eman dizkiot. Egia esan, bi astean bidaiak gutxitzeak on egin dit, baina, ez dut nahi eta behar beste aurreratu gainerako ataletan eta horrek pittin bat kezkatzen eta erresumintzen nau. Beraz, aho zapore gazi-gozoarekin ekin diot egunari eta ikasturteko bigarren atalari, mamuren bat edo beste jira-biraka darabilkidala.

Goizean goiz nagiak atera eta prestatu ostean, ilunpetan egin dut bidaia. Izan ere, lau asteren ostean, igeriketa saiotxo bat eginda heldu naiz paletako saiora, kiroldegiko atetik barrena ohi baino ordubete lehenago sartuz, beraz. Gaurkoan, baina, eskaileretan behera beharrean pasabidean aurrera egin eta igerilekuan izan naiz lehendabizi. Hori bai, hangoak amaitu ostean berriz ere paletako jardunari ekiteko asmoz irten naiz aldagelatik, nekearen eta Inesen konpainian. Hau zintzo demonio joan da gaur ere eguneroko luzeak egitera eta bertan egin dugu topo. Gaur, beraz, bi izan gara tornuaren bestaldean.

Kiroldegiko sarrera

9.26. Naiara ikusi dugu tornura gerturatu orduko, atezainarekin hizketan. Hura agurtu eta hitz eta pitz dihardugu Ines eta biok. Halako batean Joana, Malen, Saioa, Ainara eta Gemma, Jone eta Irati ere bertan daudela ohartu naiz, minutu pare batean Inesekin hizketan aritu ostean, begirada eurengana zuzentzean.

Ez diot ordulariari begiratu, baina, denok elkartu eta kontu kontari ari bagara ere Saioak barrurako bidea hartu du eta hala joan gara geu ere, artaldean, binaka zein hirunaka, mingaina dantzatzuz.

Azken atera heltzean, justu pilotalekura garamatzen pasabidetxora, atea itxita dago, baina, garbitzaileak datoz barrutik kanpora eta eurak irteteen sartu gara geu.

Pilotalekua

Ilun xamar dago, fokuak itzalita, ia gehienetan bezala. Ea urte berrian argirik ez ote dagoen galdetu diot Saioari eta eskatzera joan da gu korrika saioa hasita uztearekin bat. Polboroiak botatzeko unea omen da eta hortik turroia, bonboiak, erroskoa eta Gabonen inguruan jandakoen berri izan dugu, besteak beste.

“Ama ez dator, amona lanetan geratu da” eman dio abisu Saioari hasi aurretik. Pneumonia puntu bat izan omen du bilobak eta hura zaintzen geratu omen da. Konturatu naiz Miren ere falta dela. Orduan Inesi galdetu diot ea lanean den ahizpa eta baietz erantzun dit, aste honetan goizeko erreleboan ari dela.

Beroketa


Hiruzpalau buelta egin ditugu korrika txikian kantxan zehar. Irati, Joana eta ni atzeratuta goaz besteekiko. Ia-ia itzuli bat jan digutenean geratzeko agindua jaso dugu. Ohi bezala, korroan jarri eta mugikortasun articularreko ariketak (orkatila, belaun, gerri, beso,...) eta luzaketa pare bat egin ditugu jarraian.

Horren ondoren Saioaren motxilara hurbildu eta paletak hartu eta kideei banatzen hasi naiz neroni. Justu-justu dauzka, ez dugu bakar bat ere utzi bertan. Eskerrak Malenek bere zuloduna ekarri eta erabili duen. Entrenatzaileak, bitartean, bikoteko, elkarren ondoan jarrita gauden bezalaxe, pilota bana banatu eta ezker hormaren aurka jarri gara piloteatzen. Ines eta biok, Jone eta Rakel, Naiara eta Joana, Beloki ahizpak eta Malen eta Irati. Ohi bezala, denok aritu gara pilotakadak eta hitzak tartekatzen, honetaz ez bada hartaz. Saioa, berriz, saioko ariketarako eremuak markatzen aritu da zinta jarritz.

Halako batean deitu digu eta ariketak egiteko bitan banatuko gaituela esan digu.

Ariketak

1. Kantxa hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, erdiko eta eskuinekoa. Alboetako eremuetakoek derrigorrez erdikora bota behar dute pilota eta erdian dagoenak ezkerreko (pilota eskuinetik datorkionean) edo eskuinera (pilota ezkerretik datorkionean). Kolaborazioan, gunetan bi-bat-bi jarrita hasi gara.



Kolaborazioan hori ez zaio oso argi geratu bakarren bati eta Saioak, dudak argitu asmoz, “tantorik ezin da egin, ahalik eta pilotakada gehien jotzera jarraian” esan du. Hamarkotea bitan banatu du, lehen bostak talde batean eta gainerakoak bestean. Taldeok ariketa bera egingo dugu, baina, batzuk frontiseko eremuan eta gainerakoak errebotekoan. Gu atzeko eremuan aritu gara: Ines, Rakel, Joana, Jone eta ni. Aurrean, beraz, Ainara, Gemma, Naiara, Malen eta Irati.

Saioak borobilean gaudela adierazi digu ezkerreko eremuan posible dela bi kolpe egitea, bat prestatzekoa eta ondorengoa pilota erdira bideratzekoa.

Hasieran eskuinean Jone eta Joana, erdian Rakel eta ezkerreko gunean Ines eta biok kokatu gara. Hala ere, aldaketa agintzean lekuz aldatu gara, taldeka, eskuineragoko gunera: ezkerretik erdira, erditik eskuinera eta eskuinetik ezkerrekora. Denok pasa gara hiru eremuetatik.

Atzeko eremua estuagoa da aurrekoa baino, 8tik errebotera bitartekoa, eta hiru guneak ere dezente estuagoak dira, hortaz. Guretzat zenbaitetan estuegiak ere bai, hainbat pilotakada erdira bideratu nahian alboetara joan baitira. Nik, egia esan, kolpe gehienak bideratu ditut eremuetara eta indarrez ere neurtuta, kideei ere egoki samar jartzen saiatuz. Besteei, ordea, gehiago kostatu zaie eta izan dira motzegi geratutako pilotak ere. Hala ere, itxuran joan da ariketa.

Saioak berriro ere kantxaren erdira inguratzeo dei egin digu eta han joan gara bostok, ea hurrengo ariketa zein izango den jakin asmoz.

2. Oposizioan, lehengo baldintza berak mantenduz. Talde bakoitzak 2 bizitza ditu. Txarra egitean bizitza bat galduko da eta batere gabe geratzean eremu hori ezingo da erabili, pilota kideak dauden gunetara soilik bideratuz. Adibidez, erdikoa kaleratuz gero ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerreara soilik bota daiteke pilota.

Joanak erdira inguratzean, azalpena entzutera goazela, adierazi digu aurreko eremura joango ginela agian, itxaropena sumatzen zaio, baina, itzultzean Saioak lehengo lekuetara bidali gaituenez “suerterik ez da izan” bota du. Nik irribarre egin dut eta atzera segi digu bostok, besteak aurreko eremuan utzita.

Oso partida motzak irten dira gureak, ia hasterako bukatzekoak. Ni pixka bat asaldatu naiz, ez dugulako ia batere jarraitasunik izan, hutsa hutsaren ondoren eginez. Tantoak baino kaleak izan dira protagonista gure kasuan. Saioa ere harritu, edo apur bat beldurtu, da. Lehenengoan gu kaleratu gara, bigarrenean Rakel eta halaxe jarraitu digu Saioak amaitu dela eta berriz ere kantxaren erdian elkartzeo esan digun arte.

Ariketan zehar ari garela, Rakeli, barru-barrutik “ezin al da ariketa normalik egin?” batek ihes egin dio. Taldean joko-maila ezberdintasuna nabaria da eta oraindik ere pilota jotzeko urratsean dagoenari, gainera, nora bideratu mugatzeak oztopo bat gehiago jartzen dio kasu honetan, adibidez. Hala ere, esanekoak dira eta saiatzen jarraitu dute, nahiz eta balitekeen ariketa erabat begikoa ez izatea.

3. Txokotan, 2na bizitzarekin, kantxa lehengo egoera berean, hiru eremutan banatuta. Ezin du pilotak jarraian eremu berean boterik eman. Pilota jotzean 7ko marra zapaldu behar da.

Bi pilota ditugu, nik eta Naiarak bana, talde ezberdinetan aritu garelako, eta Saioari eman diot nirea, bakarrarekin nahikoa dugulako. Naiarari esan diot berak ateratzeko eta niri eman dit eskuan zuen pilota, alergia edukiko balu bezala. Berak ez ote duen sakerik egin nahi esan diot, errazena hori dela, eremuena errespetatu beharrik ez dagoelako kasu honetan. Hala ere ezetz esan dit eta irribarre egin digu inguruan gabiltzanok. Aurreko

ariketan huts dezente egin omen ditu sakeetan eta “ni sakatzaile ofiziala” batekin erantzun digu.

Nik jarri dut pilota jokoan eta lasai-lasai hasi gara, pilotakada eta atzeranzko korrika saioak tartekatuz. Aurrez Saioak jakinarazi digu kanporatutako ordenaren arabera osatuko ditugula ondoren landuko ditugun partida egoerarako bikoteak.

Ariketa hasi aurretik eta lehen unean airez jotzeko aukeraz inork ez dut txintik esan, ez dakit aukera horretaz ohartu ote diren ere, baina nik ere isilik geratzea erabaki dut, eurei uztea pentsatuta. Hasi eta pixka batera ere inork ere ez du ezer esan eta orduan ni zuzendu natzaio Saioari aukera horretaz galdezka: “Saioa, airez joz gero zer pasatzen da?” Berak erantzun dit “galdera horren zain nengoen. Zuei ez al zaizue bururatu?” esanez, emakumeei zuzenduz. Airez edozein lekutara bota daitekeela jakinarazi digu. Besteek, erdi irribarrez eta galderari erantzunez “tesia da” edo horrelakoren bat esan eta barre egin dugu denok. Gaur giro atsegina eta ona izan dugu, lagunkoia (B.K. Halakoetan mingainari horzka egiten diot arretarik ez deitzeko, baina, ariketa berak beste aukera batzuk dituela ikustea ere aberasgarria da emakumeentzat eta, ia gehienetan, galdera botaz amaitzen dut).

Aireko kolpearena azaldu orduko Ainara eta biok kolpe asko jo ditugu airez, eremuaren gaineko zalantzak uxatuz, batetik, eta egoera zailen bat edo beste ekidin asmoz ere bai.

“Zer, hasi al zara gaiztakerietan?” entzun dut une batean, dejada bat egin eta inguruko denak begira geratu direla ohartzean, pilotaren bila joateko imintziorik txikiena ere egin gabe. Nik “tarteka bakarren bat egin beharra dago” batekin erantzun diot. Bizitza nork galdu ote duen galdetu diote Saioari eta nik irribarrez egin dut 7ko marra zapaltzera itzulia. Ni nahiko azkar kanporatu naiz, pilota bat ezker horman sartu eta gune berera botata eta atzeko eremura joan naiz, aurrez kaleratutakoena. Han daude Jone, Malen eta Ines. Azken hau Saioarekin hizketan ari da. Zertan ari ote diren galdetu eta jotzen ari omen direla eta ni ere gehitu naiz jotze horretara.

Kanporatzean “Uxu, ni zurekin” esanez hurreratu zaigu Naiara atzera. Zertan ari ote garen galdetu digu eta besteak bukatu zain pilota jotzen ari garela esan diogu. Aurrean azken-azkenak Gemma eta Ainara geratu dira eta zehar begirada batekin saiatu naiz nola ari ote diren antzematen. Horma biko bat egin dio bigarrenak lehenari eta orduan amaituko zela iruditu zait. Ez naiz oker ibili, orduantxe deitu baitigu Saioak bikoteak osatu eta partidetan egingo dugunaren inguruko azalpenak emateko.

4. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5' inguruan.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2.
- Erdikoan (5-7), 1:1.
- Atzean (8-errebotea), 2:2.

Partida guztietako baldintza bera da, saio guztian zehar lantzen aritu garena: ezin da bi aldiz jarraian kantzako gune berera bideratu pilota. Horretarako aukera bakarra kolpea airez egitea izango da.

Jone-Ainara, Gemma-Irati, Rakel-Ines, Joana-Malen eta Naiara-ni bikoteak aritu gara, kanporatze ordenak hala erabakita. Aurrean lehen bi bikoteak hasi dira, azkena kanporatuak izan direlako, erdian Joana-Malen eta gu atzean, Rakel eta Inesen aurka.

Atzean erraz eta lasai aritu naiz eta irabazita aurrera igaro gara, Ainara eta Jonerekin elkartzuz. Naiarari nahi badu ezkerrean jartzeko esan diot, gehiago jokatu ohi dela han normalean eta ni aurrean hasi naiz. Ainarak pilota eman eta hasierako sarea guretzat izan da. Jone dago atzelari aurkarietan eta “zer, ezkerre asko entrenatu al duzu?” bota diot adarra joz atera aurretik. Ezkerreko hormara asko gerturatuta bideratu dut pilota eta ezin izan du erantzun. Lauok irribarre egin dugu eta berak “entrenatu dut, baina, hainbeste ere ez” batekin erantzun dit. Ainara eta biok erritmo lasaian aritu gara, kideei ere jokatzeko aukera emanaz. Amaitzean irabazle suertatu gara eta hurrengo partida ere aurrean jokatu dugu, berriz ere Ines eta Rakelekin elkartzuz.

Aurreko bigarren partidaren postuak trukatu eta Naiara aurrelari eta ni atzelari aritu gara. Berari esan diot pilotara iritsiz gero lasai sartzeko, eskuinean dezente txikiagoa izaten dela parte-hartzea eta. Hark baietz erantzun dit, lasai egoteko adieraziko balit bezala. Atzelari aurkaria Ines da eta aurrean Rakeli pilota erraz samarrak bideratzen saiatu naiz, lauok parte hartzeko aukera izan dezagun saiatuz, ahal izan dudana bezala. Une batean Inesek tantoren bat egitean egin dit ohiko aipamenei bat eta nik irribarrez erantzun diot, bihurri xamar jardun naizela ederki asko baitakit.

Erdiko eremuan daude Jone eta Ainara eta Saioarekin kontu kontari aritu dira tarte luze xamar batean, atzera begiratzean pilota orde euren mingainak sumatu baititut dantzan. Errotazioan erdira joatea egokitu zaigu Naiarari eta bioi, aurrekoa irabazi arren.

Erdian, berez, bat baten aurkako partida jokatzeko dagokigu, lehengo kantxako banaketa mantenduz. Naiarak, ordea, Saioari esan dio “hemen ez dugu partida jokatu, ala?” eta honek “Uxue pilotatzen eta zu tanto egiten saiatzen jokatu”. Nik erantsi dut “nik ez daukat eragozpenik zu tanto egitera joka dezazun”. Mailan alde nabarmena dago bion artean, baina, horrez gain, berak esan dit ez dela oso lehiakorra eta nahiago duela josten saiatzen aritzea, pilotari norabide egokia emanaz. Nik ez dut eragozpenik izan eta hala aritu gara, txandaka pilota eremu ezberdinetara bideratuz. Ezkerrekin jotzeko beldurra uxatu ote zaion iruditu zait eta halaxe galdetu diot, “zer, ezkerrez jotzeko beldurra kenduta?” eta “bai, kontua da nire ezkerre tontoa dela, baina, lehen mina neukan eta horregatik ez nuen erabiltzen” (B.K. Berriz ere lehiakortasuna agertu da).

Azken aldaketan berriz ere Ainara eta Jonerekin egin dugu topo. Naiarari eman diot pilota, sarea egin dezan. Bere sakatzaile rola joko dezente eman digu gaur, aipagai bihurtu dugu zenbait momentutan. Hori bai, giro sanoan eta adar jotzean artean. Berak ere ederki jardun du horren harira. Lasai xamar aritu gara eta markagailua aintzat hartu gabe, egia esan. Hutsen kasuan, une batetik aurrera, pilota eremu berera bitan bideratua izan bada ere, jarraitzea erabaki dugu, jokatzeari garrantzia emanaz eta ez hainbeste tantoa nork lortu duen.

Azken saio bat baino gehiagotan bezala, gaur ere lau bikote posibleetatik biren aurka bakarrik aritu gara: Ainara-Jone eta Rakel-Inesen aurka.

11.03an Saioak amaitu dela adierazi digu. Lurreko zintak kentzen lagundu diogu, bakarren batek ez ote dituen datorren asterako utziko galdetu dio eta honek ezin dela

erantzun, bakarren bat gozoa jarriko litzatekeela. Ondoren luzaketak egiten hasi gara, borobilean. Inesek zuzenean alde egin du lagunengana, astero lez. Agujetak bihurtu dira hizketagai hasiera batean, Naiarak esan baitu ziurrenik bihar gogoratuko dela.

Bidean batzuen haurren irakasleaz aritu dira, iaz Ainarak haren gelan egin omen zituela praktikak eta. Orduan ohartu naiz Naiararen alaba eta Malenen semerik gazteena gela berekoak direla. Beraz, guraso bezala ere bat egingo dute zenbait bileratan edo ikastolako sarrera-irteeretan, ziurrenik.

Kiroldegiko sarrera

11.15. Kideak datorren astera arte agurtu ditut, entrenatzailea biharko hitzordura arte, eta Donostiarako bidea hartu dut autoa (eta grabagailua) martxan jartzearekin batera, orain erizain lanetarako ordua baita, aitonarena azaltzekoa.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Nekatuta nago, batez ere fisikoki, goiz jaiki eta eguneko ordu batzuk hara-hona igaro ostean. Ez saioak izaten duen eskaeragatik, bestelako jarduerengatik nekatu eta urduritzen naiz, saioen erritmoak niri gauzak zehaztasun handiagoz harrapatzen laguntzen baitit.

Gaurko saioan hamar lagun bildu gara eta ederki banaturik egon da saioa egituraz eta antolaketaz. Egia esan iruditu zait zukua atera diola Saioak. Ea hurrengo saioetan ere hala den, jendetza bildu baikaitezke.

Iruditu zait saioa, zati batean, banatuta egiteak nire behaketa gaitasuna lausotu duela, batez ere, saio-kideen erdiak ez zeudelako gurekin eta ezin izan dudalako jaso euren eremuan eta euren artean gertaturikoa. Hala ere, uste dut oso zaila izango dela horrelako egoeretan zerbait ustez probetxugarria lortzea nirea ez den taldetik, ezin bainaiz bitan zatitu. Horrek pena eta jakinmin puntu bat piztu didate neure baitan, baina, hala da eta hala onartzea baino ez dagokit.

Saioa nahiko itxuran irten dela iruditu zait eta kideak gustura aritu direla, besteak beste, aspaldiko partez elkarrekin jokatzeko abagunea izan dugulako. Hiru aste igaro dira azken saiotik. Ohartu naizenez aste honetatik aurrera asteazken goizetako euren hitzorduari ere heldu diote, “asteazkenean bai” batzuk entzun dizkiedalako. Ni oso lasai aritu naiz gaur eta gustura sentitu naiz.

Berriz ere indarrak batzeko garaia dela uste dut, hurrengo geldialdira arteko tartea ez baita nolana hiko: hiru hilabete luze. Bitartean, gainera, ez zaizkit gainerako zereginak gutxituko eta zezenak adarkatzerik ez zait komeni. Aste(ro)ko martxa hartuko ote dut?! Halaxe behar nuke, egia esan.

Kriogenizatuta

Neguan sartuta gabiltza bete-betean eta gaurko iluntzean ederki asko nabaritzen da hori. Saiorako bidean tenperatura behera nola egiten ari den ikusi dut autoan noala eta halaxe baieztatu dut atea ireki eta lehen urratsa eman aurretik ere. 3°C eta giro fresko-freskoa.

Eskerrak txamarra, polarra, niki beso-luzea eta abarrak jantzita irteteko hautua egin dudan. Nahiko izango ote ditut? Ikusiko dugu!

Azken saioa Sta. Lutzi egunean egin genuena izan zen eta lau aste joan dira ordutik. Oporren atarikoa bertan behera geratu zen hezetasun arazoak tarteko eta aspaldiko partez elkartuko gara berriro ere pilotalekura. Ni ez naiz bertan izan azken saiotik eta ez dut emakumeekin beste inon ere topo egin.

Pilotaleku ataria

Gaur Saioa eta biok bata bestearen atzetik iritsi gara errepidean gora, ilaran, 19:30ean. Kotxea aparkatu eta bertatik irteterako hau tabernara joana da argia pizteko fitxa bila. Nik grabagailua ondorenerako prest utzi eta irratia itzali ondoren hartu dut kanporako bidea, txamarra ondo lotu eta eskularruak jantzita, hotzari iskin egiteko asmoz.

Nik bidea gurutzatu eta orduantxe Eli ere bertaratu da, eskuinaldetik, eta fitxak hartuta “bero dago, eh” bat esanez entrenatzailea ere bai, ezkerraldetik. Elkar agurtu dugu eta elkarri urte berri onak eman, zer moduz gabiltzan galdetzearekin batera. “5 fitxa triste bakarrik eman dizkirate” esan digu entrenatzaileak eskuan darabilen gutun-azala erakutsiz, aintzat hartuz saioko bi erabiltzen dituela eta bi aste barru berriro ere eskean hurbildu beharko dela. Zerua oso ilun bezain oskarbi dago eta garbi asko ikusten dira ilargia eta izarrak. Gaur gauean izotza egingo du oker handiegirik ezear. Goizean goiz lanera abiatzerakoan izotza kentzen aritu direla esan dute eta bihar ere bost minutu lehenago irten beharko direla, bestela lanera berandu heltzeko arriskua izaten omen dela eta. Kontu kontari ari garela ohartzerako genituen gurekin Gurutze, Pili, Itsaso eta Marian ere. Hauei ere diosala egin eta mingaina dantzatzen segi dugu.

Frontoiko eskailerak jaisten hasi aurreko hizketaldietan azkena egin genuen saioa eta Gabonak agertu dira eta baita egiten duen hotza ere. Denok dauzkagu arropa lodiak jantzita. Hala esan du Elik “nik gaur txalekoa ere ekarri dut jantzita eta ez dakit kendu ere egingo dudan”. Oihane ere heldu da eta ilun-ilun dagoen arren barrura sartu gara, arreta handiz lurrera begiratu, ezusteko erorketak saihesteko.

Pilotalekua

Ataritik barrura egin dugu, eskaileretan behera, hotzari aurre eginez saioari ekiteko gogoz. Argiak pizten hasi orduko ekin diogu beroketari, geldi geratuz gero izotzezko kubotxo bihurtzeko arriskua galanta baita.

Beroketa

Korrika buelta batzuk eman ditugu, berokiak kendu ere egin gabe eta ni eskularru eta guzti. Ohi baino bizpahiru itzuli gehiago eman ditugu, baina, amaitzean oraindik ere inor ez da ausartu txamarra kentzera. Hotza benetakoa da!

Borobilean jarrita mugimendu artikularrak egiten hasi gara, luzaketa pare batekin amaitzeko. Gerriari bueltak ematen ari garela Gurutzek “hau egiten dugun bakoitzean Perurena etortzen zait gogora” esan du eta Saioak erantzun “nik hau zuekin bakarrik egiten dut, egia esan”. Hortik bromaren bat edo beste entzun du.


Azken zatian, ohi bezala, pilota eta paleta bana hartuta aritu gara ezker hormaren aurka piloteatzen. Hiru, bi eta bi jarri gara: Itsaso, Oihane eta hirurok frontisetik gertuen, Gurutze eta Eli gure ezker aldean eta gugandik urrunen, eta errebotetik hurbilen, Marian eta Pili. Horretan hasi eta berehala Onintza heldu da eskaileretan behera eta kontrakantxan korrika hasi da, “ze hotza” esaten duen bitartean. Pilotak banatzean esan digu “Olentzerok iskin egin eta ez zen pasa, beraz, pilota berririk ez dago”. Besteren batek “eta erregeak ere ez?” bota du eta “horiek gerturatu ere ez. Ni ez naiz txintxo portatu” erantzun digu, trukean “baina gu bai” entzunez.

Ezker hormaren aurka piloteatzen aritu gara Saioak zintekin eremu guztiak markatzen bukatu duen arte, denbora luzean. Guk ez dugu gehiegi hitz egin, ez bada izan azkena aspaldi aritu ginela esateko. Nik, egia esan, nahikoa lan dut gorputza neure onera ekartzen saiatzen, paletan hastearekin bat eskularruak ere txamarra poltsikoan sartu baititut. Hala ere, baliteke berriz ere ateratzea, izoztuta dauzkadalako. Kolpe eta kolpe artean hatzak mugitu arren ere alfer-alferrik dela dirudi. Aldamenera begiratu dudan zenbaitetan Gurutze eta Eli hizketan ikusi ditut, geldirik, eta hotzik ez ote duten pentsatu dut neurekiko. Gu kolpeak elkarren artean tartekatzen saiatu gara, ahal izan dugunetan bakoitzak kolpe bana eginenez, ezkerrez zein eskuinez.

Saioak kantxaren erdialdera gerturatzeko dei egin digu eta gaur ariketetan geldi ez garela egongo esan digu, hotza medio. Zortzikotea prest gaude eta ados agertu gara.

Ariketak

1. Txokotan. Kantxa hiru gunetan banatuta: ezkerrekoa, erdiko eta eskuinekoa. Ezin da pilota bi aldiz jarraian gune berdinerara bideratu. Bakoitza 3 bizitzarekin hasita eta kolpe bakoitzaren ondoren 7ko marra zapalduz.



Ariketaren inguruko azalpena eman ostean Saioak esan digu hotz dagoela eta inor ere ez dela kaleratua izango. Beraz, bizitzak negatiboak ere izan daitezkeela. “Zenbatean dago muga, -10?” esan du Elik eta Gurutzek “infinitura arte ez al da izango?”. Horrez gain, pilota gune berdinerara bideratua baldin bada ere jarraitzeko esan du, bizitza bat kentzeko, baina, jolasean jarraitzeko, mugimenduan egotea komeni dela eta.

Jolasean hasi gara, baina, bizpahiruk izan ezik besteok berokiak soinean ditugu oraindik. Nik halako batean eskularruak ere jantzi ditut, puzka hotza uxatu asmoz bainabil. Atzeranzko korrika saioetan Elik “inoiz hainbesteko hotzik pasa ote dugu hemen?” galdetu du, niregana zuzenduz eta nik neuk ezetz erantzun diot.

Hasi eta berehalaxe airez emandako kolpe baten bidez erantzun diot nik kolpe bati eta orduan aprobetxatu du Saioak jakinarazteko “airez edozein lekutara bota liteke”. Modu honetan, bezperan ez bezala, arreta deitu eta galdera zuzenean egitea ekidin dut.

Bitartean, jokoan lasai-lasai nabil, tarteka tantoren bat eginez, baina, jokoa emateko eta saltsa pixka bat jartzeko intentzioz. Halako batean entrenatzaileak “Uxue mugiarazi, hotzak dago eta” bota du eta Gurutzek erantzun “hau nola mugituko dugu bada? Nahi duen bezala egiten du tantoa, horrela ematen dio eta gero tonto aurpegiarekin geratzen gara gu begira”. Hori entzutean eskanerra martxan jarri eta egindako jokaldiak erreparasatu nahian hasi naiz, ea hainbestekoa ote den kezkatuta. Niri ez zait iruditzen, baina, era honetako iritziek zalantza eragiten didate, egia esan.

Tantoak luze xamarra irteten zaizkigu eta pilotaren norabidea errespetatzea ere nahiko zuzen. Hala ere, batzuk hutsak egin dituzte eta minusean dagoen bakarren bat bada gure artean dagoeneko. Hala ere, hor dihardugu denok atzera eta aurrera, jo eta korrika saioak eginez, nonbaitetik epeltasuna helduko den esperantzan.

Jokoaren une batean Saioak zenbat bizitza geratzen zaizkigun galdetu du, ea zein dauden minusean eta zenbat dituzten. Niri iruditu zait bikoteak osatzeko ariko dela galdezka eta hala esan diot Gurutzeri. Ez nabil oker, bikoteak modu horretan osatu baititu ondoren landu beharreko partida egoeretarako. Onintza-Marian, Gurutze-Eli, Oihane-Pili eta Itsaso eta biok tokatu gara elkarrekin.

2. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Gune aldaketa Ainhoak agindutakoan izan da, 5' inguruan.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2.
- Erdikoan (5-7), 1:1.
- Atzean (8-errebotea), 1:1.

Partida guztietako baldintza bera da, saioan zehar lantzen aritu garena: ezin da bi aldiz jarraian kantzako gune berera bideratu pilota.

Guneak ikustean Saioak esan digu arretaz begiratzeko lurrera, Zizurkilgo frontoia marraz beteta dagoelako aurretik ere. Egia esan ez da erraza izango argi bereiztea atzeko eta erdiko guneetan. Eremuren bateko marraren bat estuagoa dela eta ere entzun du aipamenen bat Saioak “ezkerrekoa estuagoa da, eh” eta honek “beno, hainbeste ere ez” bota du eta irri egin dugu ia beste denok.

Aurrean hasi gara Pili-Oihane eta gu. Hasiera aldrebes xamarra izan da, Itsasok lehen bizpahiru sakeei huts eginez erantzun dielako. Hala, “beno, ni etxera noa” bota du eta “bai zera, egon lasai” batekin erantzun diot. 4-0 edo hasi gara eta erdialdera entrenatzailea jarri da kontrakantxatik guri begira, ea zer moduz gabiltzan. Itsasok “justu unerik onenean etorri zara” bota dio, tantoa egin berri delako bera. Nik, orduan, “ez dadila joan hemendik orain” erantsi dut, giro onean. Azkenean guk ere tanto dezente egin ditugu bata bestearen atzetik, aurkariak ezustean harrapatu eta euren hutsak behartzeari esker, besteak beste. Horietako batean entrenatzaileak Piliri “Uxueri begiratu jotzerakoan” esan dio, begira ez zegoenean tantoa lortu ostean. Honek “bai, aurpegian nabaritu diot gaiztakeriaren bat egitera zihoala” erantzun dio eta nik, harriduraz, “aurpegian nabaritzen al zait? Ondo dago jakitea” bota diot.

Aldaketa unean ez dakigu markagailuan nola goazen eta paretsu gabiltzala erabakita guk hartu dugu erdiko guneranzko bidea, Oihane eta Pilik aurrean jarraituz. Gu aurrean aritu garen artean Gurutze eta Eli izan dira erdian eta beroketan bezala hizketan ere jarduna egin dute, agian, pilota joz egin dutena adinakoa.

Erdiko gunean elkar mugitzen saiatzeko esan digu Saioak eta saiatu gara pilota gune ezberdinetara bideratzen. Tantorik ez dugu kontatu eta atzean Eli eta Gurutze hizketan ari dira orain ere. Aurrean partidari ari direnen artean Piliren oihuren bat entzun dugu. Onintza-Marian eta Oihane-Pili bikoak ari dira bertan, entrenatzailearen begiradapean, nor baino nor. Pilota batek atzeko gunera ihes egin digu guri eta ni bila gerturatzean “zer Uxue, kargu hartzera?” galdetu dit Elik. Nik “ez, ez, ni pilota bila etorri naiz” erantzun eta erdialderako bidea hartu dut. Amaitzean atzeranzko bidea hartu dugu.

Atzeko eremuan egin beharrekoa erdikoan egin beharrekoaren bera da eta Gurutze eta Eli aurrera bidean utzita guk bertarako urratsa eman dugu. Erdian Oihane eta Pili ari dira eta aurrean Eli-Gurutze eta Onintza-Marian. Jokatzen ari garen artean Itsasok une batean esan dit eremu hori estu samarra geratzen zaiola, batez ere eskuinaldean eta nik “bai eta, gainera, hemen ez da erraza marrak zein diren bereiztea” esan diot, zintza beteta dagoelako lurra. Hala ere, gutxi gorabehera erreferentzia hartu eta moldatu gara.

Hurrengo errotazioan berriro ere aurrera joan eta Gurutze eta Elirekin elkartu gara. Kasu honetan ni jarri naiz atzelari, Gurutzeren aldamenean, eta Itsaso eta Eli aurrelari. Nik eritmo lasaian jokatu dut, tarteka tantoren bat eginez, eta huts nabarmenen bat ere bai “hori konfiantza gehiegikeriagatik zen” esan diot kontrakantxan begira daukagun entrenatzaileari, hark “hori pasatzen da” bota dit eta nik, “baina, hurrengoan ez zait halakorik gertatuko”. Sakearen erretoan horma bikoz lortu dut tantoa eta Gurutzek “Uxue eta Saioa elkarren artean pikatu eta gero gu harrapatzen gaituzte erdian”, erdi bromatan. Gustura aritu gara laurok eta hau amaitzean Pili eta Oihane etorri dira atzetik aurrera.

Saioa lurreko marrak kentzen hasi da, partidetak baldintzak aldatuz. Aurrez Itsasok egin du marren inguruko aipamenean bat eta hari “zuri kasu egitea erabaki du” esan diot.

3. Partiduak, 2:2, baldintzarik gabe. Frontisean eta errebotean.

Azalpena eman eta jokoan hastear gaudela Oihane-Pili eta gu, tinbrea hasi da joka, argiaren kaxari beste fitxa bat sartzera korrika abiatuz entrenatzailea. “Ba, gaur gertu dago” esan du bakarren batek “gertu bai, baina, fitxa eskura beharko du” esan Oihanek eta ia eginda zeukala iruditu zaigunean zer eta pilotalekuko argiak itzali egin dira. Saioa gugana itzuli da eta esan digu poltsikoan giltzak zituela eta fitxa sartzeko kosta egin zaiola. Sartu duela, baina, fokuek berriz ere pizteko tarte bat behar izaten dute.

Beraz, behartutako etenaldia egin dugu, denok berriz ere borobilean bildu eta hizketan hasita. Ni justu orduantxe nengoen txamarra kendu berri, azkena izan naiz. Orduan Oihanek esan du, zinegotzia da udalean, ez diola zentzurik aurkitzen Saioari argi kutxako giltzak ez uzteari, badakitelako saiora etortzen dela eta argiak ondoren beste berrogei minutuan piztuta uztea okerragoa iruditzen zaiola. Saioak erantzun dio “nik bere garaian eskaera egin nuen, baina, inork ez zeukala esan zidaten. Aldageletako giltza ere eskatu nuen”. Oihanek erantzun du esanez, “ah, Ziotzakoentzat bakarrik da, orduan”, pilota elkartekoek badutela adieraziz. Beste emakumeek ere esan dute ez diotela zentzurik ikusten giltza ez uzteari, denak bertan egonda gero giltza horrekin zer egingo ote duen ba Saioak eta berria ere ez dela, ikastaroak hirugarren ikasturtea dela. Oihanek esan du berak zer edo zer esango duela gai horren inguruan eta hitz egingo duela kultur teknikariarekin. Udaleko diru laguntzen inguruko berririk ba ote duen

galdetu diote era berean eta esan dutenez udalak zulo handia du eta zail ikusten dute laguntzarik jasotzea, denetatik kentzen hasi omen direlako.

5-8 minutuko behartutako geldialdiaren ostean argiak itzuli dira eta 4ra bi biren aurkako partidak jokatu ditugu, bai aurrean eta bai atzean. Guk 4-3 galdu eta Oihane eta Pili aurrean utziz atzeranzko bidea hartu dugu, han Eli eta Gurutzerekin elkartuz. Beraz, gaur ere bikote batekin ez dugu topo egin partida egoeretan, Onintza eta Marianekin.

Atzean partidari aritu gara eta Gurutze lagundu nahian aritu zaio, lasai egoteko esanez eta partida jokatu dugu erritmo lasaian. Han ari garela Gurutzek egin du tantoren bat egiteko saiakera, baina, ni iritsi eta horma bikoz amaitu dut eta barrez niri zuzendu eta “barkatu, ez dut berriz ere egingo” bota du, beste hirurok ere irribarrez jarri. Ondorengo tantoan horma bikoia egiterako “ba, eh” abisua eman eta ez da iritsi eta horrek ere eman digu zeresana. Amaitzean guk atzean jarraitu dugu eta Oihane eta Pili batu zaizkigu erreboteko gunera.

Atzean jokatu dugun azken partidari Itsasok aipatu du “soka eta kaxa honekin beldurra ematen du” une batean, atea irekitzeko kaxa eta herri kiroletan entrenamenduetarako erabilitako soka bat ere zintzilik dagoelako goitik behera eta oso gertu ikusten delako. Egia esan, atzeko eremuan ohikoak baino oztopo gehiago egiten dute halakoek, baina, moldatzeko moduan izaten gara. Amaitzean Saioak aurrera joateko dei egin digu Itsaso eta bioi eta han berriz ere Gurutze eta Elirekin egin dugu topo.

20.58 dira eta beste laurak etxerako bidea hartu dute atzean jokatu ordez. Guri zer egin nahi dugun galdetu eta guk 4 tantora partida jokatzea erabaki dugu, besteak luzatzen utzi eta datorren astera arte agurtu ostean. Partidari zehar Gurutze Eli lasaitu eta animatzen aritu da eta hau pixka bat lasaiago eta azkenekoan baino hobeto. Tantoak lortzeko asmotan Itsasok ere jokaldiak egin ditu gaur, bere arabera “txurroak dira nireak”, baina, txapatik gertu tokatu dira eta tantoa lortu du. Halakoetan Gurutzek “lasai, Eli, gaur intratable daude” bat bota dio eta hala bukatu dugu, 4-1.

21.03 dira eta ni zuzenean berokia jantera joan naiz, hotza hezurretaraino sartuta jarraitzen baitut. Luzaketa batzuk egin eta gaur zuzenean hartu dugu guk kotxerako eta bertakoek etxerako bidea, elkar datorren astera arte agurtuta.

Frontoi ataria

21.05. Saioa datorren astelehenera arte agurtu eta azkar-azkar sartu naiz kotxean, kalefakzioa pizteko helburu nagusiarekin, ea pixka bat goxatzen hasten naizen.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saioan zehar nik hotzarena izugarri nabaritu dut eta baita taldekideek ere. Hainbeste hotz inoiz pasa ote duten zalantza egin dute eurek ere. Saioa, gainerakoan, ondo joan da eta gustura aritu naiz, baldintza klimatologikoek gehiegi lagundu ez arren. Konfiantzaz eta lasai jardun naiz, arreta testuinguruan ikusi eta entzundakoetan jarri asmoz.

Nire mailak eta taldekideekiko egokitzapenak balio duen ustea izaten dut nigan, baina, euren iritziek zenbaitetan zer pentsa uzten naute eta hausnartu behar ote nukeen zalantzatan hasten naiz. Adarra joz eta asmo onez eginak direla iruditzen zait, baina, ez

dakit, ez dakit. Mailan aldea nabaritzen da gure artean, baina, ez zait iruditzen abusatzen aritzen naizenik, nahiz eta uneren batean apropos tantoren bat edo beste egin. Ez da ikasturte hasieran bezainbestekoa, baina, mamuren bat edo beste berrituko ote zaidan beldur naiz aste honetan orain arte entzunikoei jaramon eginez gero.

Saioko ariketak ondo atera dira eta emakumeak ere hobetzen ari direla iruditzen zait. Hala ere, erritmoak eta gaitasunak oso dira ezberdinak eta horiek elkarrekin konbinatzen asmatzea ere bada nahikoa lorpen, helburuak gozamenara eta ondo pasatzera bideratuz, taldean gustura aritzearekin batera.

Bezperaren biharamuna

Hau da aste honetako 3. eta azken saioa, eta, beraz, baita etenaldiaren ostean Usurbilen egin dudan lehen geldialdia ere. Ia ohartzerako heldu zait, erritmoa hartzea kosta arren, batera eta bestera hasi naizelako berriz ere eta zereginak harripeetatik ere agertu zaizkidalako, aspertzeko tarterik txikiena ere gabe.

Bezperan pasatako hotza medio, oroitze hutsez ia dardarka ari naiz, tipula batek baino kapa gehiagorekin egin dut saioa, pilotalekua erdi-irekia dela jakitun, behin ilundu ostean, ez baitut uste epeltzeko aukera handiegirik izango dugunik.

Sarrera

Zuzendariarekin bertatik bertara eginiko 2012ko lehen bileraren ostean heldu naiz pilotalekura, 19.37 inguruan, ordenagailua esku batean eta paleta bestean hartuta, presaka eta korrika. Bidaia aprobetxatu izanaren sentipena daukat, gutxienez, eta ea bigarren zereginetik ere lehenengotik bezala irteten naizen, probestu dudan ustearekin, ahal dela.

Pilotalekua

Oso berandu iritsi naiz gaur, orain arteko beranduen, estutasun puntu eta guzti. Bertaratu naizenean lau kide daude bertan: Aitziber, Idoia, Jaione eta justu ni baino 15-20m. aurrerago zetorren eta, beraz, minutu bat lehenago heldu den, Karmele. Ni izan naiz bosgarrena eta “Urte Berri On” batekin agurtu ditut aspaldi ikusi gabeko emakumeak. Niri ere berdina opa eta “inor ez zegoela ikusi eta harritu egin gara” gaineratu dute ondoren, ni ere borobilera gehituta. Nik “ni bileratik irten eta zuzenean etorri naiz” erantzun diet. Haizea bera ere ez da heldu oraindik. Oporraldia nola joan ote den hizketan hasi eta onena ordutegirik gabe ibiltzea iruditzen zaiela esan dute, “nahi baduzu etxetik irtenez eta nahi ez baduzu ez”. Aitziberrek gaineratu du “niri astelehena egin zitzaidan gogorrena” eta Jaionek, aldiz, “nik badaramat astebete lanean dagoeneko”. Hurrengo zer jaiegun daukaten galdetu diet nik eta laster erantzun dute Usurbilgo ikastolan jai izaten dutela San Sebastian egunez. Besteren batek, berriz, inauteriak arte itxarongo duela esan du eta laugarren batek “nik ez bat eta ez bestea”. Gauden bost lagunetatik hiru irakasleak dira eta taldean bada laugarren irakasle bat ere: Izaskun.

Arritxu izan da hurrena bertaratzen, eskularru eta guzti, ondo prestatuta dator hau ere, eta harengandik berehalaxe Haizea heldu zaigu, motxila bizkarrean, arnas estu eta guzti, “federaziotik nator” bat esanez. Hau agurtu eta oporrak nola joan diren, janiko gozoen

inguruko aipamenek eta halakoek osatu dute elkarrizketen erdigunea. Korroan jarri eta orkatila, belaun eta abarretako mugimenduak egiten ari garela mutiko bat inguratu zaigu monopatinean eta “Izaskun ez dator gaur” esan digu. Haizeak galdetu egin du eta esan diote Izaskunen semea dela, bizkietako bat. “Hori bai, ez galdetu zein, nik oraindik ez ditut bereizten” adierazi du Jaionek jarraian.

Turroia, jandako erroskoak eta gainerakoak ere irten dira hizketaldietan, nongoa ote den hobe eta bakoitzari nolakoa gustatzen zaion azalduz. Ni nahiko elkarrizketatik kanpo aurkitu naiz, batetik, ez ditudalako ezagutzen lekuak eta bestetik, berriz, ez naizelako halako asko janikoa. Hori bai, esan diet astelehen goizean ere irten zela gai hori bera, okindegi ezberdinetakoak konparatzen aritu zirelako paletako kideak.

Fresko (edo hotz) egiten du, denok gaude txamarra lodi xamarrek eta arropa asko jantzita. Nik bezperako hotzarekin gaizki pasa nuela esan diet. Orduan Haizeak esan du gaur sei lagun elkartu garela eta urtea ondo hasi dela horri dagokionez, abendua aldrebes xamarra izan omen zela eta. Aizpea ere falta da, baina, beste denok gaude. Ni ez naiz gogoratzen noiz bildu ginen azkena hainbeste lagun, egia esan. Korroan gaudela mediku azterketen inguruko gaia ere atera dute, falta zirenek egina dutela adieraziz. Hori bai, baten batek esan du ez duela lortu ordenagailuan bere emaitzak ikusterik, pasahitzarekin ez duelako asmatu. Telefono zenbakia sartu behar dela eta halakoak esaten aritu dira, baina, nik ez daukat gai horren inguruko azalpen eta ideiarik, nik Zumarragan egingo baitut, triatloirako ere beharrezkoa dudalako.

Beroketa

Mugimendu artikularrak egiten amaitzean pilotalekuari bueltaka hasi gara, korrika txikian. Bakarren batek berokia kendu du aurretik, baina, bat baino gehiago gara oraindik ere babesa bere azpian aurkitu nahi dugunak. Ondoren alboranzko hiruzpalau korrikaldi egin ditugu eta Idoiak esan du “ni hau sekula egin gabe nengoen”, guk argituz “azken egunean egin genuen lehenengoz”, Haizeak inoiz eginda gaudela galdetu baitigu.

Harmailen bukaerara hurbildu gara ondoren, bakoitza bere paleta hartzera. Haizeak pilotak dituen poltsa hartu du esku artean eta bana eman digu. Honen ondoren azpiko eta alboko kolpeak nola egiten ote diren galdetu digu eta emakumeek paleta eskuan hartu eta eskuarekin pilotarena eginez erantzun diote, keinu bidez. Haizea gustura agertu da jasotako erantzunekin eta “oso ondo, gogoratzen gara” batekin erantzun du. Beraz, ezker hormaren aurka pilotatzen hasteko moduan gara dagoeneko.

Ezker hormaren aurka jarri gara, banaka, pilota banarekin. Azpiko kolpeak egiten hasi gara. Arritxu, ni, Idoia, Karmele, Aitziber eta Jaione gaude ordenan hurrenez hurren, frontisetik hasita. Tarteka kideen pilotak heldu dira ni nabilen ingurura, bai Arritxurenak ezkeraldetik edo baita Aitziberrenak edo Idoiaren bat edo beste ere, beste aldetik. Haizea kideak behatu eta zuzenketak egin eta gomendioak ematen ari da kantxan zehar. Adibidez, nire ondoan ari den Idoiari pilotari lasai itzaroteko esan dio, bestela pilota jaten duelako, gehiegi gerturatuz kolpea egiteko unean. Harekin amaitu eta Arritxurena zuzendu da ondoren, niri ezer ere esan gabe. Handik pixka batera albokoa lantzeko esan digu, pilotakada bakoitzaren ostean pilota eskuarekin hartu eta botea geuk eraginez. Nik oraindik eskularruak jantzita dauzkat, bezperan hotzak akabatzen ibili nintzelako, eta txamarra ere erantzi gabe. Gehientsuenek berokia kenduta

dihardute dagoeneko, baina, nik ez daukat batere berorik eta hala jarraituko dut pixka batean, epeldu bitartean bai behintzat.

Azpiko eta alboko kolpeak banaka landu ostean binaka pilotatzen amaitu dugu, batek alboko kolpea eta besteak azpikoa erabiliz. Ni Arritxurekin, Idoia eta Karmele eta Aitziber Jaionerekin, hauek gugandik urrunen. Arritxuk esan dit bera azpikoarekin hasiko dela eta ni, beraz, albokoarekin. Bera ezker eta eskuin saiatzen ari da, lehenengo kasuan hutsak ere egiten dituen arren, baina, saiatzeko gogoia dauka eta hori ona dela deritzot. Saiatua da eta poliki-poliki bada ere nabaritzen zaio hobekuntzatxoa. Bien bitartean ea Lurdesen beste saioen batean tokatu den galdetu diot, isil-isilik ari baikara jo eta jo. Ezetz erantzun dit, baina, datorren astean edo bi barru, ez diot nik oso garbi ulertu, goizez joatekoa dela eta kontatuko dizkigula hango kontuak. Izan ere, bera izan zen orain hilabete edo saioen zein entrenatzaileen arteko ezberdintasunaz aipamena egin zuena eta handik hizketagairen bat atera genuen bere garaian. Haizeak abisatzean rolak aldatu ditugu eta albotik hobeto moldatu da bera. Ni lasai-lasai aritu naiz, berriz ere Haizeak deitu eta erdialdera inguratu garen arte.

Une batean konturatu gara Arritxu eta biok garela jokatzeko ari garen bakarrak, beste laurak Haizearena hurbildu eta eskuan zerbait dutela hizketan ari baitira. Zer ote duten hasi gara eta ni ohartu naiz federatu-lizentziak banatu dizkiela oraindik ere jaso gabe zituztenei eta horren inguruan ariko direla pentsatu dut. Arritxuk “ba, ez dago ba geldirik egoteko” esan du, oraindik ere hotzik ez baitugu uxatu. Guk gurean segi dugu eta handik gutxira Haizearen esanetara bildu gara seiok. Honek berotu ote garen galdetu du. Bakarren batek pixka bat baietz erantzun du, ni apenas, baina, txamarrarekin aritzea oso eroso ere ez zaidanez egiten kentzeko hautua egin dut, harmailetan utziz.

Ariketetan zer moduz moldatu ote garen ere jakin nahi izan du entrenatzaileak eta Idoiak erantzun du “niri albotik ezkerrez jotzea kostatzen da”, Jaionek ere horixe bera berretsiz. Arritxuk, ordea, esan du berari azpitik ezkerrez jotzea are zailagoa egiten zaiola, “tuntuna daukat eta. Pala hartzea bera ere arraroa egiten da”. Iritzi elkartrukearen ostean ariketa bat egingo dugula jakinarazi digu eta azalpenari ekin dio Haizeak.

Ariketak

Bada ez bada ere, hasi aurretik, sei lagun gaudela kontatu eta ziurtatu du entrenatzaileak eta “perfekto, sei zaudete. Hiru alde batean eta hiru bestean jarriko zarete” esanez hasi da.

1. Entrenatzaileak pilota prestatuko die eskuineko ilarakoei eta hauek alboko kolpea erabiliz pilota ezkeraldera bideratuko dute. Ezkerrekoek azpiko kolpea erabiliz kidearen pilotakadari erantzungo diote. Ondoren, pilota hartu, entrenatzaileari eman eta ilaran atzera igaroko dira.

Eskuinean Aitziber, Idoia eta hirurok kokatu gara eta ezkerreko hirukotea Jaione, Karmele eta Arritxuk osatzen dute.

Ariketa egiten hastean Aitziberrek “ni nire ilarara itzuliko naiz?” galdera luzatu du eta “bai, gero aldatuko zarete aldez” erantzun dio Haizeak.

Nik egindako lehen kolpean albotik norabide eta abiadura pixka batekin kolpatu dut pilota eta Arritxuk ezin izan du frontisean ipini. Haizeak “ño, Uxuek ere jango zuen erroskoa” bota du eta ni orduan konturatu naiz aurrez ez dudala begiratu nor zen kontrako ilaran jotzea zegokiona eta indartsuegi jotako pilotakada izan dela. Horrenbestez, hurrengo nire txanda tokatzen denerako lasaiago eta motelago kolpatzeko erabakia hartu dut. Haizeak une batean bakoitzak zenbat kolpe egin ditugun galdetu du eta nik hiruna daramatzagula erantzun diot. Orduan, “lau egin eta aldaketa egingo dugu” esan digu.

Ariketan zehar, pilotak prestatzean, Haizeak pare bat aldiz jarraian ez du asmatu Idoiari txanda heltzean pilota ondo jartzen eta berriro ere errepikatu dute, itxurosoago bota arte. “Orain hemen arituko gara hirurok asmatu arte” bota du tartean, irria ezpainetan. Beste batean, aldiz, Jaione hizketan ari zela txanda egokitu zaio eta oso berandu ohartu da horretaz. Hala ere, esprint bat egin eta asmatu du pilota jotzen eta atzera bidean “niri burua joan egiten zait” esan du.

Ezkerreko aldera igaro garenean, Aitziberrek lehen bi kolpeetan ez du lortu pilota txapatik gora bidaltzea eta jo ostean Haizeak hanken inguruko aholkuren bat eman diola iruditu zait. Berak “zer gaizki” edo antzekoren bat esan du marmarrean ilaran atzera datorrela. Hala jarraitu dugu eta nik frontisera jartzeaz gain pilota berriro ere Haizea dagoen ingurura bideratu dut, pilota horrekin berarekin pilota jartzen segi dezan. Horietako batean Jaionek zuzenean egin du mozketa nire erantzunetik, Haizeak pilotarik prestatu gabe. Azken honi gustatu egin zaio hori eta “datorren astean hori egingo dugu, nik pilotarik prestatu gabe, zuzenean zuek. Oso ondo, gustatu zait”.

Ariketa amaitu dugu beste launa kolpe egitean eta partidaren txanda heldu zaigu.

2. Partidak 1:1 frontiseko eremuan, baldintzarik gabe. 5 tantora.

Haizeak zer ordu den galdetu du, nire erlojuan 20.22, eta Aitziberrek “ia zortzi t’erdiak” erantzun du. Beraz, Haizeak pilota honi eman eta Idoia eta biak hasi dira nor baino nor. Beste laurok, aldiz, atzerago kokatu gara eta binaka pilotatzen aritu gara. Ni Jaionerekin eta Karnele eta Arritxu gure aldamenean. Haizeak berriro ere hotzaren gaineko aipamenean bat egin du. Egia esan, negua heldu da eta egunean zehar eguzkia agertu arren iluntzeetan azkar egiten dute termometroek behera eta ez da giro izaten ordu batetik aurrera kalean. Gaurkoa da horren adibide garbia.

Aurrean luze xamar jokatzeko ari dira eta Jaionek esan du “nik ez dut gehiago hitz egingo”, aurrez ere hizketan ari zelako ariketako azalpenen batean. Nik, beraz, hori serio esan ote duen galdetu diot, hasieran isilik aritu baikara pilotatzean. Berak irribarrez erantzun dit.

Aldamenean Arritxu eta Karnele ere pilotakada eta hitzak elkartrukatzeko ari dira. Haizea bitartean kontrakantxatik aurreko partidari begira ari da, emakumeak animatuz tarteka-marteka.

Aurrekoek amaitu dutenean “nik joan beharra daukat” eta alde egin du Aitziberrek. Idoia atzealdera pasa da eta ni eta Jaionek hartu dugu aurrerako bidea. Askotan jotzera mugatzen dira emakumeak, nire irudipenen arabera, eta Jaione da salbuespena, agian. Hura ni mugiarazi eta pilota zail jartzen ahalegintzen da. Horren adibide da gaurko

jarduna, besteak beste. Tantoak luzeak izan dira eta elkar mugitzen saiatu gara, nahiz eta ni lasai ari naizen, berari joko ematen saiatu eta nire burua izugarri behartu gabe. Hala ere, kantxaren alde batetik besterako korrika saioaren bat edo beste egin behar izan dut eta arnasa beroarazi dit momenturen batean. Haizea ere hurbildu zaigu eta batez ere kidea animatu du. 4-0 hasi gara, bere hutsen erruz, baina, lehen tantoa egitean, ni ezin izan bainaiz heldu pilota batetara, “bat behintzat egin dut!” batek ihes egin dio barru-barrutik Jaioneri eta niri ere kutsatu dit ilusio horren apurtxo bat. Haizeak “ondo, ondo” batekin jarraitu du animatzen eta azkenean 5-2 amaitu dugu.

Guk bukatu eta atzerako bidea hartzean, Arritxu eta Karmeleri dagokie orain partida jokatzeari, Haizeak Jaionerengana zuzendu eta honi esan dio “zuk badakizu jokatzeko eh, pilota mugitzen duzu. Nik uste dut hori Uxueren kontra jokatzeko duzulako egiten duzula”. Besteak erantzun du “nire bihotza azeleratuta aritzen da eta zu, berriz, nahiko lasai jo eta jo”.

Atzeko hirukotea, ordea, piloteoan aritu ordez hizketan ari da eta Haizeak dei eginda ere ez dira ohartu. “Hauek serio ari dira, nonbait, eta zuek segi jokatzeko nahi baduzue” esan digu. Guk “lasai, etorriko dira” erantzun eta besteei begira jarri gara Haizearekin batera kantxan 4. koadro inguruan. Ondoren euren ingurua hurbildu eta Arritxuren amaren heriotzaz ari direla ohartu gara, Jaionek esanez aurreko astean izan zela hileta elizkizuna.

Halako batean Haizearen deiari erantzun eta Arritxu eta Karmele hurbildu eta hasi dira aurrean partidan. Idoia, Jaione eta hirurok, aldiz, pilotakada baino hitz gehiago trukatu ditugu azkenerako, Arritxuren amarenetik tiraka zahartzaroaz hizketan hasi baikara.

Aurreko partida amaitu dutenean Haizearen ingurura batu gara berriro ere bostok, kasu honetan Aitziber alde eginda dagoelako, eta Haizea berokia erantzi eta harmailetan uzten ari dela sumatu dut.

3. Txokotan, baldintzarik gabe.

Bi bizitza eta “propia” ditugu denok eta Arritxuk galdetu dio ea marrarik ukitu behar ote den. Haizeak baino lehen Idoiak erantzun du, “marra? Ez, ezta?” eta honek esana entzun ostean Haizeak “marra? Ez neukan asmorik, ez” erantzun du. Arritxuk “zer, urte berriak bigundu egin al zaitu, ala?” bota dio aldamenetik.

Hasi eta jo eta jo ari gara batez ere, tantoa lortzeko intentzio handirik agertu gabe. Nik hala esan dut “gurea segurura jokatzeko da, eh” eta gertuen daukadan Jaionek “bai, guk nahikoa dugu jotzearekin, egia esan” erantzun dit. Nik hala dela berretsi baino ez dut egin, bai gaur eta baita gaur baino lehen ere.

Gutxika-gutxika Arritxu geratu da propiarekin bakarrik lehenengo, gero Haizea,... Haizeari lehen bizitza nik kendu diot, horma biko bati esker. Modu honetan jokatzeko, marrarik zapaldu gabe eta elkar gehiegi mugitu gabe, parte-hartzea beste kasu batzuetan baino pasiboagoa bihurtzen da. Emakume batzuk atze xamarrean jarri eta jo ere beste zenbaitek baino gutxiago egiten dute. Gaur, gainera, hotza medio nabariagoa izan da hori. Horren harira Haizeak “hurrengoan marra zapalduz jokatzeko dugu, hotz egiten du eta” esan du.

Arritxu kaleratu da lehenik, Haizea ondoren eta Idoia, Jaione, Karmele eta ni geratu gara frontisean jokatzeko. Atzean piloteoan hasi dira guk amaitu bitartean. Denboraldi luzean ez da inor kaleratu, hutsik ere ez baita izan. Hala ere, zalantzazko pilota pare batean Karmele eta Jaionek ez dute zehaztu nor kolpatuko zuen pilota eta erdibana galdu dituzte bizitzak. Azkenean, atzerantz bidea hartzen hirugarrena Jaione izan da. Beste hirurok propioekin geratu gara eta oraindik jokatzeko jarraitzen dugu. Atzeko aldetik heldu zaigu “zer, ez al duzue bukatu behar?” bezalako esan bat. Azkenean, jo eta jo eta jo eta Karmele eta biok geratu gara aurrean jokatzeko azkenak. Nik pilota lasai-lasai jotzen jarraitu dut, eskura jarritz, eta azkenean bere txapapera botatuko pilotakada batekin amaitu dugu partida.

20.53 dira nire erlojuan amaitzean eta atzera hurreratu gara, kideengana. Haizeak “gaurkoz hemen utziko dugu. Beste bat egiteko asmoa nuen, baina, ez digu astirik emango” esan du. Hortaz, paletak harmailetan utzi, berokiak jantzi eta luzaketak egitera gerturatu gara ezker hormara. Datorren astean San Sebastian eguna dela esanez, Usurbilen askok jai dutela, Hernani eta Andoainen ere hala omen da, eta hortik jaiegunen inguruko gorabeherak izan ditugu mintzagai. Haizeak, berriz, datorren astean agian bere onetik irtenda egongo dela esan digu, ostegunean azterketa duelako, baina agertuko dela, noski.

Luzaketak egiten amaitu eta harmailetatik gure trasteak hartu ostean elkar datorren astera arte agurtu eta etxera bidea hartu dugu.

21.05 dira eta Haizea eta biok kotxea inguruan dugula konturatuta elkarrekin hizketan egin dugu frontoitik aurrerako bidea. Berak esan dit emakumeek euren konpromiso, kontu eta abarrak izaten dituztela egunero eta gaur nahiago izan duela ariketak egiten jarraitzea baino partida egoerak planteatzea, pixka bat goza dezaten lagundu asmoz. Bere autora heldu garenean beste bizpahiru kontu esan eta datorren astera arte agurtu dugu elkar.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko saioan lasai aritu naiz, oso lasai, eta une batean geldo xamarra ere iruditu zait, batez ere aintzat hartuta tenperatura hotza dela eta geldik egonez gero ez dela denbora asko behar izozten hasteko. Nik ez behintzat!

Taldekiekin gustura jarduten dut eta eurak ere geroz eta erosoago daudela iruditzen zait niri ere. Hala behar du eta hala segi dezagula, lagungarri izango zait/zaigu eta.

Batzuk aspaldi ibili gabe zeuden eta nabari da taldekideen artean ere ezberdintasun hori, lehenaz gain. Hala ere, dauden aldeak hain nabariak direla aintzat hartuz, elkarrengana egokitze gaitasuna daukagula uste dut eta talde hain heterogeneoa izanda ondo moldatzen garela. Egia esan, joko-mailak benetako garrantzia izango balu, ezinezkoa izango litzateke batzen garenak multzo berean elkartzeko.

Aste honetako saioak amaitu ditut. Hurrengoan gehiago, eta hobeto ere bai ahal badut.

Martxan hasita, martxan jarraitzeko prest

Hasierak normalean gogor edo zailxeagoak izaten dira eta hasiera izan ez bada ere hortik eduki du pixka bat nire aste honek ere. Bi astean etxe inguruan eta bestelako lan zein zereginetan aritu ostean, dezente kosta zait saioei neurria hartu eta hitzei beharrezko ukitua ematen. Etenaldia nabaritu dut, bai nire buruak eta baita nire gorputzak ere. Kokatzea kostatu zait une batzuetan, ez kantxan bertan, baina bai ondoren kantxako lanetik eratorritakoetan.

Oporraldi edo Gabonetako etenaldian ez naiz ordura arte egin zein lorturikoetan pentsatzen denbora luzean aritu eta ezta emakumeekin eta saioekin gehiegi gogoratu ere, batere ez esatearren, baina, lehen astean ohartu naiz euren artean gustura nabilela eta eurek ere hala darraitela dirudi. Hortaz, horri heldu beharra daukat denok noranzko berean arraun egin eta kaira nahi bezain egoera onean helduko bagara.

2012ko lehen saio-astea izanagatik igaro dena neke puntu batekin amaitu dut, ziurrenik berriro ere esku artean hainbat gai ditudalako eta denak ere ahalik lasterren martxan jarri beharrekoak eta sakontasunez jorratzekoak direlako. Hala ere, pazientziaz hartu beharko dut eta datorrena datorrela zezenak adarkatu aurretik iskin egin eta aurrea hartzen asmatu. Hala izango ote da?!

14. astea. BIDEAN AURRERA, AURRERABIDEAN

Lehenaren ondoren bigarrena etortzen da, hala nahi ez bada ere bai sarri askotan, eta halaxe izan da nire kasuan ere. Berriro ere martxan hasi, bai saioetako joan-etorri eta behaketei dagokienean, behintzat, eta denbora gutxi igaro bada ere ia oroitu ere ez naiz egiten Gabonez eta Gabon giroko kontuez. Trena geltokira heltzen denean ez du itxaroten tarte luzeetan eta hemen ere halaxe gertatzen da. Aurrera egin behar da, atzekoari tarteka begira dakioke, baina, hura joan da, beraz, datorrela datorrena, eta ahalik ondoen, saioei zukua atera eta uneak aprobeztatzen saiatuz.

Hiru saioko beste aste bati helduko diot berriro ere eta hurrengoak ere, okerrik ezean, halakoak datozkidanez, dinamikan sartu eta gauzak itxuraz egiten hasi edo jarraitzeko garaian nabil. Badator lehen geldialdia. Ez ote dit trenak ihes egingo?!

Lauki jokoan

Aurreko astean martxa hartzen hasi ostean martxari eutsi eta egunez egun energia pilatu eta berau ahal beste aprobeztatzen saiatzeko garaian gaude, iraupen luzea izango duen erritmoan jardutekoa. Gauzak hala, astelehena nahi eta espero baino dezente nekatuago hasiagatik, astea luzea den usteari heldu eta poliki-poliki ekin beharko diot lanari, denbora ez baita bueltan etorriko. Hark ez du itzulerako biderik ezagutzen.

Gaur ere igerilekua zapalduta heldu naiz paleta saiora, kosta arren egunari goizean goizetik zukua ateratzeko asmo eta itxaropenean.

Kiroldegiko sarrera

9.27. Naiara dago gaur bakar-bakarrik, momentuz behintzat, Ines eta biok sarrerara heldu garenean. Informazio panelari begira dago, baina, “egun on” batekin diosala egin eta berehala hurreratu da geure ingurura. Hizketan hasi gara eta bera hesiz bestalde dagoela ikustean “beno, ez naiz ni izango hemen dagoen bakarra” esan eta gure aldamenara igaro da. Handik pare bat minutura Saioa sartu da eta Kutxa Sariko gauza pare bat kontatu dizkit, beste biak ere asteburuko berri kontatuz mingaina dantzatzen ari diren bitartean. Oraindik ez da inor heldu eta erlojuari begiratu esan du “beno, orain dira 9.30”. Ainara izan da heltzen hurrengoa eta ondoren Jone eta Miren.

Saioak erlojuari begiratu eta barrura egingo dugula esan digu, atezainari berari atea irekitzeko eskatu eta eskaileretan behera abiatuz. Asteburuko kontuez hizketan ari garela kantzaren aldamenara garamatzen eskailerak igotzen amaitzean Ainara eta biok Saioak “astelehenetan hauek igotzea izugarri kostatzen zait” jakinarazi digu, aurpegiarekin ere neke keinu bat eginez. Guk irribarre egin dugu eta nik esnatzeko balioko diola esan diot, gainera.

Gaur ere garbitzaileekin gurutzatu gara, eurak garbiketa lanak amaituta datoz eta gu frontoira goaz.

Pilotalekua

Hasieran bidean gutxi abiatu garela iruditu bazait ere, ziurrenik aurrealdean nirekin batera datozenetan baino ez dudalako erreparatu, pilotalekura heldu, trasteak utzi eta

saiorako prestatu naizenean ohartu naiz bederatzi lagun gaudela, Saioaren aginduetara berotzen hasteko prest. Malen, Irati eta Gemma falta dira. Azken honen inguruan egin dio galde Naiarak Ainarari eta semerik txikienak gau txarra pasa duela, botaka eta horrela eta hargatik gaur ez dela etorriko azaldu du.

Igerilekuko gure sartu-irtena dela medio igeriketaz eta duatloi zein triatloiez hitz bi egitera heldu gara. Horren harira Saioak “pilota oso kirol osoa dela frogatzeko, has gaitezen korrika” eta tratuan hasi nahi izan dute, “zer, bi?” eta “bai, bi” esan du Mirenek.

Beroketa

Hiru itzuli egin ditugu korrika txikian kantxan zehar. Ni Miren eta Inesen inguruan hasi naiz korrika, atze xamarrean. Aurretik doaz Zuriñe, Joana, Rakel, Ainara, Jone eta Naiara. Ohi bezala, korroan jarri eta mugikortasun artikularreko ariketak (orkatila, belaur, gerri, beso,...) eta luzaketa pare bat egin ditugu jarraian. Beroketarekin amaitzeko Jonek paletak hartu eta kideei banatu dizkigu. Saioak pilotak hartu eta binaka bat banatzeari ekin dio. Niri hirukotean aritzea egokitu zait, Ines eta Zuriñeren konpainian. Aldamenean Ainara eta Rakel, hauen ondoan Jone eta Naiara eta frontisetik gertuen Miren eta Joana ari dira.

Saioak zintak hartu eta kantxan marrak jartzeari ekin dio bien bitartean. Gu errebotetik hurbilen ari gara eta ni une batean erdi irristatu eta ohartu naiz hezetasuna edo dena dela arrazoi bustita dagoela zati batean. Orduan, besteei ohartarazi eta pixka bat eskuinerago jarri gara. Saioa gure ingurura marrak jartzera hurreratu denean berari jakinarazi eta, azkenean, Zuriñek berak mopa hartzera joateko hautua egin du, lehortuz.


Denboralditxoa egin dugu pilotakadaka, hitzak ere tartekatuz elkartrukean. Eskuinera begiratzean, berriz, askotan gelditu eta isildu ezinik hitz eta pitz ikusi ditut Jone eta Naiara. Elkar aurretik ere ezagutzen dute eta saioetatik kanporako ezagunak izanda gai gehiago izango dituzte konpartitzeko beste zenbaitek baino.

Saioak marra guztiak jarritakoan, gaur gehixeago kostatu zaio, laukiz bete baitu kantxa, 4aren inguruan elkartzeko dei egin digu. Bera dagoeneko berokia kendu eta paleta bat eskuan hartuta duela dago, prest. Hasi aurretik denok eman dizkiogu beroketan erabili ditugun pilotak.

Ariketak

Azalpena ematen hasi aurretik “ikusi dituzue jarri ditudan hiru karratu dotoreak?” bota du Saioak eta Mirenek erantzun dio “hiru ez, gehiago ere jarri dituzu”, kantxan jarritako besteei ere erreferentzia eginez. Entrenatzaileak, ordea, “baina hemen aurrekoen ari naiz ni” esan du. Horren harira, eta ez dakit nondik bueltan, bakarren batek esan dio ea ariketak noiz bururatzen zaizkion eta Saioak erantzun “asteburuan, ni asteburuan ere lanean aritzen naiz”. Laster esan dio Naiarak, ordea, “ez esan gezurrik, hori gaur gosaltzen ari zenez erabaki duzu, liburua esku artean hartuta”. Saioak irribarrez eta haria jarraituz erantzunez amaitu du, “ez bada esan dena!” batekin. Orain bai, orain badirudi saioa atal nagusiari ekingo diogula.

1. Kantxan hiru lauki daude: eskuinaldean aurrean eta atzean eta ezker aldean atzean (2-3 koadroen artean). Entrenatzaileak pilota prestatu eta ikasleok laukietan sartzea lortu behar dugu. Pilota bat jo, jaso eta ilarara itzulik gara, aldiko kolpe bat eginez. Ordena honakoa da: aurreko eskuinekora denek, atzeko eskuinekora denek eta ezkerrekora denek.



Ainarak galdera bat egin du ariketa azaltzen amaitzean: “denok jarraian bota beharra al daukagu?” eta ni apur bat asaldatu naiz, “Zer, eta lortzen ez badugu berriro ere hasieratik hastera? Hala balitz bihar oraindik ere hemen egongo ginateke” erantzun diot, irribarretxo bat ahoan dudala. Saioak ere esan digu aukera bana izango dugula eta ondoren hurrengo kideak joko duela pilota. Horren ondoren erantsi du, “hori bai, bakar batean ere sartzen ez baduzue, lortzen ez duenak 10 flexio egin beharko ditu”. Nik bada ez bada ere, eskumuturretan min hartzen dudala eta flexiorik ezingo nukeela egin esan diot eta berak “bada, badakizue, sartu eta listo”. Mirenek esan du “nik ez dut nire bizitzan flexiorik egin”.

Laukiei begiratu die Saioak berriro ere ariketa egiten hasi aurretik eta “eskuineko atzekoa handi xamarra geratu zait” esan du. Mirenek “utzi, horrela ondo dago” erantzun dio eta lehenak berriz ere “beno, ikusiko dugu hala ote den” batekin amaitu du ariketa hasi aurreko iritzi trukaketa. Beraz, ariketa hasteko ilaran jartzeko ordua heldu denean zer eta denak bat-batean atzerantz hasi dira. Hori ikusita ni hurbildu naiz Saioarena eta honek emakumeei zuzenduz “iniziatiba pixka bat” bota die.

Aurreko laukia oso da txikia eta suabe-suabe botata ere ez dut lortu nik pilota bertan sartzea. Nire atzetik Ainara dago eta honek ere ez. Gainerako gehienek ere ez eta lerroan hurrengo gure txanda noiz helduko zain gaudela “oso suabe eta baxu jo behar da, txapatik gertu” esan digu eta hain justu ere Joana izan da sartzea lortu duen bakarra. Bera dago azkena ilaran. Orduan, pozik, “azalpenak entzuten aritu naiz” esan digu, atzera bidean doala.

Eskuinaldean eta atzean kokaturiko eremura pilota bideratzean, berriz, nik bigarren kalea egin dut, marra oso hurbil eduki arren. Ainarak asmatu du eta besteren batek ere baietz iruditu zait.

Ezkerreko gunera bai ala bai sartu behar dudala erabaki dut eta urduritasun puntu bat sumatzen dut neure baitan. Beraz, Saioak pilota prestatzean kolpea egin eta oraingoan sartu dut. “Justu-justu” bota dit berak, kolpeak ezker horma jo duelako kantxa baino lehen. Atzetik ere ia gehienek lortu dute ezker aldean pilota bideratzea. “Nabarmena da nora jokatzeko ohitura dugun” esan eta hala dela berretsi digu aho batez, ariketa amaitzean. Saioak “oso ondo” bat zuzendu digu denoi amaitu eta hurrengo azaltzen hasi aurretik. Eskuinekoetara oso gutxik sartu dutela ere esan digu eta ezkerrekora gehienok.

2. Txokotan. Hiru laukiak erabiliz, zuzenean pilotak bertan bote egitea lortuz gero +1 eta tantoa amaituta. Bakoitza 3 bizitzarekin hasiko gara eta kolpe bakoitzaren ostean 7ko marra zapaltzeko baldintza ere bete behar da.

Azalpena entzun eta berehala pentsatzen jarri naiz ni, lepo gainekoa martxan dabilen seinale garbia, eta aldamenean dudan Ainarari “orduan, besteak jotzean airez sartu beharko da” esan diot. Hark horretan saiatu beharko dugula esan du orduan eta Naiara eta Inesek, berriz, elkarri esan diote eurak jotzearekin nahikoa dutela. Nik aireko kolpeaz aipamena egin eta Saioari ere heldu zaio oihartzuna, nonbait, “hori ez esan ba” batekin zuzendu didalako begiratua.

Hasi eta inork pilotari laukian botea eginaraziz gero tantoa moztu egiten denez, inork bizitzarik galdu gabe, gainera, motel xamarra izan da ariketa atal handi batean, elkarri tantoa egin eta bizitzak kentzera baino norbere bizitzen zakua betetzera ari garelako hiruzpalau, gutxienez. Hala ere, inork laukietara zuzentzeko intentzioz pilota kolpatu eta iristen banaiz ni airez jotzen nabil, jokoari jarraitasuna eta besteei irabazteko aukerak murriztu asmoz.

Naiara eta Jone izan dira lehenak kanporatzen eta ni atzera joan direla ohartu naizenez eurengana zuzendu eta “lehen hor bustia zegoen eta agian irrist egingo duzue” eman diet abisu, bada ez bada ere. “Lasai, dagoeneko lehortu da” erantzun didate eta nik aurrean jarraitu dut jokatzeko. Korrika saioak lasaiak izan dira hasieran, baina, kanporatuak gehitu ahala zaildu egin zaigu marra zapaldu eta frontis ingurura behar bezala heltzea. Horregatik, une batean geure erabakiz 5eko marra zapaltzea erabaki dugu.

Saioa ere aritu da jokatzeko eta jakinarazi digu azken saioetako dinamikari segita txokotan kanporatzen garen ordenaren arabera osatuko ditugula ondorengo partidetarako bikoteak. Hala ere, bera nahiko goiz kanporatu dugu eta Ainara, Miren, Ines eta laurok izan gara geratzen azkenak. Ordurako ariketan zehar aldaera txiki bat egin zen, tantoa gelditu ordez bizitzak batu bai baina jokoan jarraitzeko adierazi baitugu entrenatzaileak. Nik asko sartu ditut bata bestearen atzetik eta Saioa hurrengo atzetik aurrera hurbildu denean 15 bat bizitza baditut pilotuta. Panorama ikusi eta bukatzeko oraindik asko faltako litzaigukeela ohartuta Saioak “orain ez sartzera” esan digu eta hala hasi gara. Nik lasai dihardut eta handik pixka batera guk jo eta jo darraigula ohartzeko “bakoitzak bizitza bakarrik daukazu” esan digu. Bera kontrakantxatik begira geratu da eta Ines eta Ainara kanporatuta Miren eta biok geratu gara bukaerarako. Azkenean ezkerredera ederki baztertutako pilotakada dotore bat eman eta nik erantzuterik izan ez dudanez Miren geratu da lehenengo eta ni bigarren.

Guk amaitu dugunean Saioak atzean jokatzeko ari direnei dei egin die eta hamarrok borobilean jarrita gaudela bikoteak osatzeari ekin dio: Saioa-Ines, Joana-Rakel, Ainara-Zuriñe, Miren-Jone eta Naiara eta biok. Hau aldamenean daukat entrenatzaileak norekin jokatzeko digun ziurtatzerako eta “ni zurekin” esan diot. “Zer, berriz? Berriz ere nirekin nahi al zenuen?” bota dit. Aurreko astean ere elkarrekin aritzea egokitu zitzaigun eta “noski, baietz!” irribarretsu batekin erantzun diot.

3. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5-8' igarotzean.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2.

- Erdikoan (5-7), 1:1.
- Atzean (8-errebotea), 2:2.

Partida guztietako baldintza bera da, pilota laukietan sartzea lortuz gero +1, baina, tantoak jarraitu egingo du, pilota geratu gabe. Orduan kontatzeko sistema ez dela hain erraza ere esan dut nik eta “lasai, zu moldatuko zara” bota didate, erdi adarra joz. Nik ez diot mingainari horzkarik egin eta “nik nireak ongi kontatuko ditut, baina, zuenak ‘allá cuidados, aizue!’”. Horren harira Inesek esan du berak kontatuko dituela, barrez, “ni oso txarra naiz horretarako”. Azkenean, baina, Saioak adierazitakoan lekuetan kokatu eta ekin diegu norgehiagokei.

Miren-Jone eta gu hasi gara aurreko eremuan. Erdikoan, berriz, Ainara-Zuriñe eta erreboteko gunean Saioa-Ines eta Rakel-Joana. Naiarari esan diot ea ezkerrean jokatu nahi duen eta hark baietz erantzun dit, ondorengoetan aldatuko ditugula aldeak, txandaka arituz. Partidan hasi eta binaka lortu ditugu tantorik gehienak hasieran, ezkerreko eremuan, botea laukian eginarazi eta aurkakoen hutsak behartuta. 2-0, 2-2, 4-2, 4-4,... Handik aurrera pixka bat gehiago zaildu zaigu kontatzea, baina, tantoan zehar laukiren batean sartzea lortuz gero ahoz gora eta unean bertan kontatu dugu bai neuk eta baita Mirenek ere. Jokatzeaz gain markagailu bizidunak bihurtu gara partidan. Gustura aritu gara eta dezentetan lortu dugu laukien aukeraz baliatzea. Nik baita aurkariek laukietan sartzea eragozte ere, airez dezentetan jokatuz. Saioak amaitu dela adieraztean emaitza 16-14 da eta, hortaz, guk jarraitu dugu aurrean eta besteak joan dira erdiko eremura.

Aurreko 2.partidarako Ainara eta Zuriñe hurbildu dira errebote ingurutik eta guk postuak aldatu ditugu, eurak bezalaxe, atzean Ainara eta biok eta aurrean Naiara eta Zuriñe kokatuz. Partidakok une batean Zuriñe oso eskuinaldean dago eta berak lasai jo zitzakeen pilota batzuetara korrika saio bizi xamarrek egin behar izan ditu Ainarak, kidea ez dela mugitu ikustean. Orduan hari “zer, eskuineko laukiak zaintzen ari ote zara?” galdetu dio, irribarrez. Amaieran, honetan ere, eta ez oso alde handiz, nagusitzea lortu dugu, baina, errotazioan hala dagokigunez erdiko eremurako bidea hartu dugu.

Erdian ere hiru gune daude kantxan markatuta, bana ezker eta eskuinean aurrean eta hirugarrena atzean eta erdian, justu kontrakantxako marran bertan bukatzen dena. Naiararekin hizketan eta pilotakadak trukutzen aritu naiz, aurreko eremuetan uzteko pilota oso indar eta altuera gutxirekin jo behar dela konprobatuz, besteak beste. Erabaki dugu askoz ere errazagoa zaigula denoi atzeko laukietan sartzea, joera handiagoa daukagulako pilota atzera jotzekoa eta ez hainbesteko zehaztasuna eskatzen duten kolpeak egitera. Guk ez dugu markagailurik erabili eta ez ditugu sarturiko kolpeak zenbatu. Aurrez gune honetan aritu diren Miren eta Jonek ere ezetz esango nuke.

Atzeko eremuan jokatu dugun lehen partidan berriro ere Miren eta Jonerekin egin dugu topo. Gaur saio osoan bi bikoterekin aritu gara. Beraz, beste birekin ez ditugu neurtu indarrak: Ines-Saioa eta Joana-Rakel bikoekin. Kasu honetan bi gune dira zehaztuta daudenak, ezkerrean eta eskuinean, atze xamarrean biak ala biak ere. Partida hasi eta lehen aurrean aritzean bezala Miren eta biok izan gara markagailuan kontaktetan aritu garenak. Kasu honetan Naiara jarri da eskuinean, Mirenen inguruan, eta ni eta Jone ezkerrean eta atzeraxeago. Partidan zehar pilota dezente bideratu ditut nik laukietara eta airez ere beraien askok helburu bera lortzea ekidin dut. Halako batean asmatu ezinda eta bere buruarekin ez oso gustura dabilen Jonek “laster kasketa bat harrapatuko dut” bota

du eta nik, bada ez bada ere, “kasketa harrapatu, baina, gu ez egurtu” esan diot. Izan ere, justu minutu pare bat lehenago barru-barrutik “zurekin ezin da!” batek ihes egin dio. Saioak abisatzean eurak aurrera joan dira eta gu atzean geratu gara berriro ere.

Ainara eta Zuriñeren aurka jokatu dugu eguneko laugarren eta azken binakako neurketa. Jo eta jo aritu gara eta nik pilotakada bat baino gehiago bota ditut 8ko marratik zabalera, kabitu ezinik edo. Hala ere, oso lasai aritu naiz eta gustura ere bai. Naiararekin ere oso ongi ulertu dugu elkar gaurko partidetan eta hobekuntza nabari zaio hasierako saioetatik.

10.55 dira nire erlojuan eta Saioak denoi aurreko eremura hurbiltzeko dei egin digu. Amaitzeko, azken jardun bat egingo dugu, berriro ere denok batera.

4. Txokotan, 2na bizitzarekin. Pilota jo ondoren 7ko marra zapaldu behar da.

Saioak “orain ahaztu laukiak” esan digu eta berak atzeranzko bidea hartu du, aurrez jarririko marrak kentzen hasiz.

Lehenengo Naiara kaleratu da, hasi eta oso gutxira, eta ondoren Zuriñe, Joana, Rakel, Ines eta Miren, hurrenez hurren. Nik dekadaren bat edo beste egin dut aurrean eta tantoa lortu ere bai. Denak geratu dira elkarri begira eta nik marra zapaltzera abiatu naizenean “ez gara alferrik aritu laukietan sartzen” bota diet, irribarrez. Azkenean, Miren, Ainara eta hirurok geratu eta marrarik ez zapaltzea erabaki dugunean saltsa dezente jarri dugu eta elkarri pilota zailak jartzen eta pilotakaden bidez adarra jotzeko saiakerak egin ditugu. 11.02an amaitu dugu Ainara eta biok, azkenik. Kantxan geratzen diren marrak kendu eta paletak motxilan sartuz besteekin bat egin dugu.

Kontrakantxan luzaketa ariketak egiten aritu gara, bakoitza geure erritmo eta moduan. Saioa orduan ohartu da gaur, bada ez bada ere, argazki kamera eta guzti etorri dela, talde argazkia berriro asmoz, lehen argazkia atera genuenetik bi taldekide gehitu baitzaizkigu: Irati eta Joana. Berandu ohartu da, ordea, ordurako Ines eta Joana alde eginak baitziren. “Nik kamera ekartzean beti falta da norbait” esan du. Naiara eta Rakel ere beste batzuetan baino lehenago jarri dira kanpora bidean. Beste seiok batera irten gara, presa handiegirik gabe, azkenak Saioa eta biok, hizketan. Eskaileretan bat egin dugu Miren, Ainara, Zuriñe eta Jonerekin. Batzuk asteazkenean 9.15erako egin dute paletan aritzeko hitzordua. Jonek horren harira, geroxeago, Saioari esan dio “asteazkenean entrenatuko dut kolpea zuk esan bezala”, besoa mugituz keinua ere imitatuz.

Kiroldegiko sarrera

11.10. Sarreran Jone eta Zuriñerekin hitz pare bat trukatu ditugu eta Saioa eta biok kanpoko atletik irten garen bitartean eurak eskailerak igo eta goiko atletik irteteko bidea hautatu dute. Saioa eta biok kanpoan elkar bihar arte agurtu dugu, autoak ez ditugulako elkarrengandik beste batzuetan bezain gertu aparkatu, eta nik autorako bidea hartu dut, trasteak atzean sartu eta bolantean jarriz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Nekatuta nago, fisikoki batez ere, baina, burua ere ez dut beste batzuetan bezain argi. Hala ere, gaurko saioa ondo joan da eta gustura aritu naiz saltsan. Gaur saioan zehar ur dezente edan dut eta behin baino gehiagotan hurbildu naiz botilatxora, igerilekutik ere egur dezentea hartuta irteten bainaiz.

Rakel berria izanagatik, eta beste batzuk baino isilagoa dirudien arren, taldean ongi integratzen ari dela iruditzen zait, Joana bezalaxe. Iruditzen zait taldeko giroak eta saioetako dinamikak ere asko laguntzen dutela horretan. Hala ere, ekidinezina da zenbait kideren artean konfiantza handiagoa izatea eta broma zein kontu gehiago sortzea.

Saioa nahiko itxuran irten da, kantxako ariketak eginez jarraitzen dugu. Iragan astean hasi ginen 2.espazio helburua lantzen eta iruditzen zait beste zenbait saiotan ere arituko garela, ariketa asko eta anitzak egin baitaitezke. Ikusiko dugu ea hala ote den egunek aurrera egin ahala.

Non gogoa, han pilota

Gaur ohi baino beranduago heldu naiz, orain arteko beranduen. Eguna lanean buru-belarri, eta azken tartetxo batean Bidegorrian korrika, eman ostean asteko bigarren saiorako bidea hartu dut, nekatuta eta erlojuaren mende, presaka eta korrika. Irratian arratsaldeko albistegi nagusia hastera doala iragartzen duten kanpai hotsekin batera abiatu naiz etxetik, zazpi aldiz jotzearekin bat.

Ilunduta dago dagoeneko eta temperaturak ere majo egin du behera eguzkia ezkutatu denetik, iragarpenak erdiz erdi betez. Errepedean ere nabarmen ageri dira ibilgailuetako fokuetako argi dizdizariak hara eta hona.

Pilotaleku ataria

Nik autoa aparkatu eta bertarako bidea egiterako Saioa, heldu naizenean kotxearen barruan ikusi dudana, eta Oihane atarian daude dagoeneko, gainerakoon zain jarrita. Ni heldu eta handik gutxira Marian eta Itsaso ere bertaratu dira, boskote bat osatuz. Hotza sumatzen da gaur ere, ez aurrekoan bestekoa, baina denok ongi jantzita gaude. Nik gaur eskularruak kotxean utzi ditudala esan diet eta Itsasok “laster joango zara bila” bota dit aldamenetik. Nik ez dudala uste esan diot, aurrekoan baino 2°C gehiago daudela eta.

Saioa hasi da hizketan ondoren, “gaur seguru ez garela denok etorriko” botaz. Zergatik ote den galdetu eta argazki kamera ekarri duela jakinarazi digu, Zizurkilgoa omen delako talde-argazkirik atera gabeko talde bakarra, eta halakoetan ez garela denok agertu ohi. Beste pixka batean hantxe aritu ostean “Eli jadanik igual ez da etorriko, puntuala da eta” esan du eta barrurako bidea hartu dugu. Oihanek esan du “19.15ean ikusi dut kotxez iristen nik”.

Pilotalekura sartzeari ekin diogu eta argiak itzalita eta kanpoko iluntasunarekin eskaileretan ere kontuz jaitsi gara, argi oso gutxi baitago bertan.

Pilotalekua

Sartu eta trasteak koskan utzi ostean berotzeari ekin diogu, ez baitago giroa denbora askoan geldirik egoteko. Marianek berokia soinean du eta kendu ala ez kendu zalantza egin ostean jantzita jarraitzea erabaki du. “Beno, gero kenduko dut agian, oraindik ez” esanda.

Beroketa

Korrika buelta dezente eman ditugu kantxan luzeran, berokiak kendu ere egin gabe. Eli batu zaigu laukoteari eta argiak piztetik bueltan kontrakantxan dabil Saioa, azken honek ekarri dion paleta bati heldulekuan grip-a jarriz. Halako batean geratzea erabaki dugu eta Saioak “zer, aspertu al zarete?” galdetu eta Itsasok “pixka bat bai” erantzun dio. Beraz, borobilean jarrita mugimendu artikularrak egiteari ekin diogu, luzaketa pare batekin amaitzeko. Oihanek orduan esan dio Eliri foku bat itzalita duela autoan eta honek “eskerrik asko, jakin badakit, hala daramatzat aste pare bat. Ea noiz aurkitzen dudan tarte bat. Ertzainek gelditzeak sortzen dit ardura pixka bat”. Hortik kontrolak izan dira hizketagai unetxo batean, Saioak esan baitu “Alegian egin berri duten industrialde horretan propio jarri diete lekua eta han dezentetan egoten dira”.


Azken zatian, ohi bezala, pilota eta paleta bana hartuta aritu gara ezker hormaren aurka pilotatzen. Bost lagun gaudenez bakarka hasi gara: Marian, Oihane, Itsaso, Eli eta ni errebotetik gertuen. Saioak, ohitura bihurtu den lez, zintekin eremu guztiak markatzen bukatu duen arte, denbora luzean, aritu gara horrela. Justu bukatu aurretik Onintza heldu da saiora eta seikotea osatzen dugu dagoeneko.

Paletak banatzean ni zalantzan nabil txamarra kendu ala jantzi eta Saioa ez denez ohartu ez daukadala ez dit paletarik eman. Halako batean eman dit eta nik esan diot “dudan nago, poltsikoetako trasteak atera ala txamarra kendu”. Azkenean oraindik ere berotasun premian nagoela erabaki eta beroki eta guzti segi dut. Beste gehienek kendu dute dagoeneko, baina, nik erabat berotzean kentzeko hautua egin dut.

Ariketak

Hotza nabari da, ez aurreko astean bestekoa, baina, horren erakusle Saioak txanoa ere jantzi duela berokiaz gain. Bezperan Bidegoianen hotzak pasa zuela esan du, bertako neskatilek ere esan ziotela “ezpainak more-more dauzkazu” eta larunbatean finala jokatu behar duenez ez zaiola gaixotzerik komeni: “behingoz final batera iritsiko, beno, ez, behingoz final bat jokatu eta zaindu beharra daukat” erantsiz. Emakumeek noiz eta non jokatzekoa den galdetu eta ondoren ariketa azaltzera igaro da.

1. Txokotan. Kantxako hiru laukiak erabiliz, zuzenean pilotak bertan bote egitea lortuz gero +1. Bakoitza 3 bizitzarekin hasiko gara eta kolpe bakoitzaren ostean 6ko marra zapaltzeko baldintza ere bete behar da.



Hiru laukiak zein diren argi adierazi digu, ulertu dugula ziurtatuz, dauden marra guztien artean ez baita hain garbi bereizten. Besteak beste bertan aurrez jarririko marra batzuk erabili ditu, zinta berria leku guztietan jarri beharrik izan ez zezan.

Hasteko prest gaudenean Saioak emakumeei begiratu eta “beno, ez dizuet ezer esango” bota du eta Itsasok “zer, trukuak al ditu?” esan du, niri begira. Beste bakarren batek “beno, Uxueri begiratuko diogu orduan” gehitu du eta nik txintik atera gabe hasiera eman diot jardunari.

Hasi eta lehen pilotakada jo ostean, laukira sartuz hain justu ere, kantxan segi dut eta laugarren pilotakadan berriz ere nik jo dut. Orduan, aldamenean dabilen Itsasok “zer, baina, ez al da marra zapaldu behar?” galdetu du eta orduan esan diet “egia da, seko ahaztuta nengoen”. Saioak ere gustura esan du kontrakantxatik, “Uxue, irabazitako bizitza galdu duzu dagoeneko”, irribarrez niregana zuzenduz. Orduan marra zapaltzera abiatu naiz zuzenean.

Txamarra jantzita nabilen bakanetakoa naiz ni, baina, aurreko asteko hotzak eta giro ez hain goxoak ez didate kentzeko erakargarritasunik eragiten, momentuz behintzat.

Oso lasai hasi gara, ni ere bai, pilotari botea ematen utziz eta laukietan sartu asmoz, baina, erritmo lasaian eta pilotara ondo jartzeko aukerak izanik. Jo, marra zapaldu, itzuli eta gisa horretan aritu gara erdi ingurura arte. Handik aurrera, ordea, saltsa jartzen saiatu asmoz nik laukietan sartzeaz gain eurek bizitza gehiago lortzea saihestu asmoz airez jotzen ere hasi naiz. Orduan Onintzak “zer, gaiztakerietan, e?” bota dit aldamenetik eta nik irribarrez erantzun eta marra zapaltzera hartu dut bidea.

Ariketa egiten ari garela Saioa entzun dut hizketan, “beno, badirudi taldeko argazkia ateratzeko moduan garela!” botaz. Ni ez naiz ohartu zergatik ari zen, baina, apur bat kostatu baldin bazait ere konturatu naiz Gurutze datorrela saiora eta kideek ere ikusi dute. Behera jaitsi eta zuzenean sartu da jokoan, Saioak jokia gelditu eta azkar batean zertan ari garen azaldu dion ostean. Handik pixka batera berriro ere Saioa entzun dut, “ah, baina Pili falta da. Beraz, gaur ezingo dugu argazkirik atera”.

Oihane eta Eli kanporatuak izan dira dagoeneko eta Itsaso, Gurutze, Marian, Onintza eta bostok geratzen gara jokoan. Ni ongi ari naiz pasatzen, eurei kilimak eginez eta laukietan askotan sartuz. Halako batean Gurutzek “Uxue, zenbat daukazu ya? Zeren eta ni etorri naizenetik 3-4 sartu dituzu” galdetu dit eta ni baino lehen Onintzak “20 izango ditu” erantzun dio, nik, azkenik, “ez, dozena bat” erantzunez. Handik gutxira berriro ere laukian sartu dut eta Itsasok zerbait esan duela ohartu naiz. Nik “malezia falta zaizue” esan diet eta hark “bai, eta abilidadea ere bai” erantzun dit. Ni lasai eta gustura nabil, lasai-lasai laukien abantailaz baliatuz. Onintza pixka bat amorratu da une batean eta hala esan die beste kideei “denok Uxueren aurka, eh”. Ordurako 5eko marra zapaltzen hasiak ginen atzeratzean, 6a urrunegi dagoela iritzita.

Azkenean Gurutze kanporatu da bostotatik lehena eta atzera abiatzean “honek %60 sartzen ditu” eta Onintzak “ez, %90” esan dio. Gurutzek esaten hasirikoa amaitzeko aprobetxatu du, “eta beste %40etan guk bizitza lortzea ekiditen du”. Aipamen hori entzunda ere gustura segitu dut nik saltsan. Marian izan da hurrena kaleratzen eta harengandik tarte batera Itsaso. Beraz, Onintza eta biok geratu gara azkenerako. Itsaso, ordea, ez da atzera joan eta kontrakantxan geratu da guri begira, Saioarekin hizketan.

Azkenean, tanto luze eta borrokatu bat jokatu ostean, Onintzak egin du huts eta Saioak denak deitu gaitu erdi ingurura. Itsasok niri begiratu dit eta “zer, oraindik ez zinen berotuko agian?” galdetu dit eta nik txamarra askatzen hasiz “bai, oraintxe noa kentzera” esan diot, atearen ondoko koskan utziz.

Denok bere ingurura biltzean partidak jokatu ditugula esan digu entrenatzaileak eta hiru eremuetako laukiak zein diren azaltzera igaro da, gu ere bere atzetik eremu guztietara joanez, hainbeste marraren artean ez baita erraza izaten askotan zehazki guri dagozkigunak zein diren ohartzen.

2. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5-8' igarotzean.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2.
- Erdikoan (5-7), 1:1.
- Atzean (8-errebotea), 2:2.

Partida guztietako baldintza bera da, pilota laukietan sartzea lortuz gero +1, baina, tantoak jarraitu egingo du, pilota geratu gabe.

Bikoteak osatzeko aurreko jokoko kanporatze ordena hartu du aintzat Saioak eta honela aritu gara: Gurutze-Marian, Eli-Onintza, Itsaso-Saioa eta Oihane eta biok. Bakoitza zein joko eremutan hasiko garen erabakitzekeo “aurrean zein hasiko da? Ah, ba zuek eta gu” esan du entrenatzaileak, aldamenean zuen Eliri keinua eginez. Erdian Oihane eta biok hasi gara eta erreboteko eremuan, aldiz, Gurutze eta Marian.

Erdiko eremuko aurreko guneak oso estuak dira eta pilota altuera pittin batekin botaz gero ezinezkoa da bertan sartzea. Atzeko erdikoan, aldiz, errazago sartu dugu. Oihane hasi da une batean nik erdira bideraturiko pilotei airez erantzuten eta nik tarteka “ondo” batekin aupatzen dut, bai sartzean edo baita kolpe ona egiten duela iruditu zaidanean ere. Aurreko gunetik barre hotsak iristen zaizkigu tarteka eta une batean denak barrez lehertu beharrean ere ikusi ditugu jokaldiren baten harira. “Ondo pasatzen ari dira” esan diot nik Oihaneri eta hark baiezkua erantzun dit.

Atzeko eremura joatea egokitu zaigu lehenengo eremu aldaketan eta hasi aurretik elkarrekin gogoratu dugu zein diren zehazki guri sartzea dagokigun laukiak. Orduantxe erdiko gunera etorririko Eli eta Onintzak guregana zuzendu eta “zer moduz laukietan sartzen?” galdetu eta Oihanek “ahal duguna egin dugu” erantzun die. Nik “aurreko biak oso estuak dira” esan diet eta hori entzutean “zer, guretzat?” esan du Onintzak eta nik “ez, denontzat” erantzun diot. Hark, berriz, *Kolore, kolore* abestiaren zatitxo bat kantatu dit, irribarrez, “denontzat, denontzat ez dira berdinak”, oraindik ere aurreko ariketako jokoa gogoan, nonbait. Hemen jotzen aritu gara, aurrekoan bezala, markagailua aintzat hartu gabe. Aldameneko eremuan pilotakada gehiegi ez dugu ez entzun eta ezta ikusi ere, zati luze batean hizketan aritu baitira Eli eta Onintza. Frontiseko eremutik, berriz, tarteka heldu zaizkigu irri eta oihuren batzuk.

Bigarren txandaketan aurreko eremura joatea egokitu zaigu eta bertan Gurutze eta Marian dauzkagu zain. Saioa eta Itsaso dira bertatik erdiko eremura doazenak eta nik hauei eman diet guk atzean erabilitako pilota. Gu aurrera heltzean Gurutzek hala esan du “zer jokatu behar dugu, laukien erreginarean aurka?”, atzerantz doan Saioari zuzenduz eta nik ez entzunarena egiteko hautua egin dut, irri txikiren bat atera zaidan arren.

Jokatzen hasi gara, Oihane eskuinaldean eta ezker aldean atzelari postuan ni jarrita. Ni lasai aritu naiz, laukietan sartuz, baina, eurei ere jokatzeko aukerak sortuz. 13-9 amaitu dugu eta hurrengo aldaketan berriro ere eremu berean mantentzea dagokigu.

Hurrengo txandan Onintza eta Eli etorri zaizkigu atzetik aurrera eta Onintzak ni ikuste hutsarekin egin du aipamenen bat. Oihane jarri da atzelari eta ni aurrelari, Onintzaren alboan. Lasai ari naiz, oso lasai, pilota asko loratuz eta laukiak ahal beste aprobetxatuz. Hauekin jokatzen hasi eta handik gutxira argiaren tinbrea hasi da joka. Saioa atzeko eremuan dago eta korrika batean joan da, baina, kaxan fitxa sartu duen arren kolperen bat entzun dugu eta jarraian “Kauen dios” bat. Argiak itzali egin dira eta Saioa amorratuta itzuli da gure ingurura, azkazalean min hartu duela esanez, fitxa ez dela zuzenean sartzen azalduz, trabatu egiten dela. Hori ikusita “beno, nonbaitetik giltzak atera beharra daukagu” bota du bakarren batek, aurreko astean ere egoera bera bizi izan baikenuen.

Argiak itzali eta fokuek berriro pizteko denbora beharko dutela jakinda 4.koadro inguruan bildu gara eta kanpoko faroletatik datorren argi apurrarekin piloteoan hasi gara laukotetan. Kasu honetan, ordea, “ba” ozen bana esaten dugu jotzea erabakitzean, ilunpetan zailagoa delako distantzia egoki kalkulatu eta erreferentzia zuzena hartzen. 20.40 dira nire erlojuan eta badirudi denboratxo batean egoera honetan arituko garela.

20.45 inguruan argien erdiak piztuta daude eta gu laurok aurreko eremuko partida berrekiteko erabakia hartu dugu. 7-1 gindoazen eta hortik heldu diogu markagailuari. Hala aritu gara bost minutu inguru igaro ostean Saioak aldaketa egiteko unea heldu dela jakinarazi eta gu erdira bidean jarri garen arte. 12-6 irabazten amaitu dugu eta gu abiatu gara atzeragoko eremura, bigarren partida dugulako jarraian eremu horretan. Onintza harritu egin da hasieran, baina, nik “guk bi partida jokatu ditugu jarraian gune horretan” esatean ulertu duela dirudi. Aurrera Saioa eta Itsaso etorri dira, justu gaur gurekin jokatu ez duen bikotea, eta gu erdiko eremura joan gara.

Erdiko eremuan txandaka pilota jotzen ari garela Oihane ez da heldu hain zaila ez zirudien pilota batetara eta “ordu honetan ia nekatuta egoten naiz” bat bota dit. Ni ere nekea sumatzen hasia naiz eta askoz ere lasaiago jokatu dugu lehenaz gain. Atzeko eremuan dabiltzan Marian eta Gurutzeri ere erreparatzen diet tarteka eta hauek gu baino dezente erritmo altuagoan ari dira, arnas esturen bat edo beste ere iritsiz. Aurreko eremuan, berriz, giro ederrean ari direla dirudi eta Oihane ere irribarrez ikusi dut eurei begira. “Saioak huts egin du oraintxe” esan dit ondoren, azalpena emanez bezala. Aurreko barre hotsa eta giroaren berri frontoi guztian zehar barreiatzen da halakoetan, besteok ere kutsatu nahiko bagintuzte bezala (B.K. Saioaren aurkako partidak jokatzean giro berezia edo besteekiko ezberdina sortzen ote den iruditzen zait, emakumeek bestela hain ohikoa ez duten grina agertzen ote duten).

20.56 ikusi dut ordularian eta Saioak atzeko eremuetan aritutako Oihane, Marian, Gurutze eta lauroi esan digu aurreko eremura hurbiltzeko. Bertara hurbiltzean amaitu berri duten partidako azken tantoaren inguruan Itsaso goraiatzan aurkitu ditugu Onintza eta Eli. Saioak “partida jokatu 6 tantora, koadroak ahaztuta” esan digu guri eta beste hirurekin batera erreboterako bidean jarri da, “atzean errebantxa jokatuko dugu” esanez.

3. Partiduak, 2:2, baldintzarik gabe. Frontisean eta errebotean.

Oihane atzelari, Marianekin batera, eta Gurutze eta biok jarri gara aurrelari postuetan partidari ekiteko prest. Gurutzek hasi aurretik “orain ez da pentsatu behar laukian nola sartu, baina, Uxueren gaiztakeriak berdinak izango dira” esan du. Nik ez dut txintik ere atera eta berari luzatu diot pilota eskura, lehen sakea ateratzeko aukera emanaz.

Partida orekatu eta lehiatua jokatu dugu eta iraupen dezentea izan du. Tantoak luzeak izan dira eta borrokatuak. Nik uneren batean dekadaren bat egin dut, azken energia printzarekin ari naizela ohartuta. Gurutzek “horra ez zegoen iristerik” bota du eta nik “hori nire neke mailaren seinale da” erantzun diot. Saioa atzetik marrak kenduz hurreratu zaigu eta “zenbat zoazte?” galdetu digu. Nik erantzun diot, “bosna”. Eli eta Itsaso luzaketak egiten hasiak dira kontrakantxan eta Onintza, berriz, eskaileretan gora doa, presaka itxura batean bederen, etxera bidean. Guk dagokigun azken tantoa jokatu dugu eta amaitzean lurreko marrak kentzen bukatu eta Gurutzek zein nik kendurikoak pilatu osten zaborrontzira bota eta luzaketei ekin diet.

Kontrakantxako futboleko atera, besteak dauden ingurura, iristen ari naizela Malaga edo halako zerbait entzun diot Saioari eta asteburuan joatekoa ote den galdetu diot. Hark ezetz erantzun dit “aste santuan noa, Santanderren hegaldia hartuta” kontatu digu. Bilbotik ez omen dago hegaldi zuzenik, lehenbizi Madrildik pasatzen direlako. Nik orduan ea noiz den galdetu diet eta “apirileko lehen astean, 5a da Ostegun Santua” esan didate. Orduan barru-barrutik “ea nik ere orduan egunen bat hartzen dudan” batek ihes egin dit. Gurutzek esan du berak bi asteko oporrak dituela eta Elik, berriz, justu aurrekoa hartu ohi duela.

21.05 dira eta luzaketa pare bat egin ostean txamarra janzten hasterako Saioak martxa egin du, denok datorren astera arte agurtuz. Normalean azkenetakoa izaten da alde egiten, nirekin batera. Marian ere berarekin batera irten da pilotalekutik eta beste bostak trasteak jaso eta apur bat lasaiago goaz. Ea tesia zer moduz doan galdetu didate, Elik esan baitit “gaur Lasarten beka eman dioten batekin elkartu naiz, ni lasartearra bainaiz” eta nirekin akordatu omen da. Nik helegitea jarri genuela, baina, erantzunik ez dugula jaso erantzun diet. Lanean bagabiltzala esan diet, orriak pilatzen eta aspertzeko beta handiegirik gabe eta ikastaroa amaitzean hasiko garela emaitzak atera eta dokumentuak aztertzen.

Frontoi ataria

21.07. Saioa, Gurutze, Itsaso eta Oihane datorren astera arte agurtu eta denbora asko pasa gabe sartu naiz kotxean, grabagailua piztu eta etxera heltzeko gogoz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Oihanerekin behin baino gehiagotan bikotea osatu arren kosta egiten zait hizketagaiak ateratzea eta ohiko bi aipamen leloez gain ez dugu aparteko hitz asperturik osatzen. Hala ere, gustura aritzen naiz harekin bikotea osatzea tokatzean ere, agian ohi baino isilago aritu banaiteke ere.

Gaurko laukien lehenengo ariketan ni gustura aritu naiz, baina, emakumeen erreakzioa ikusita zalantza apur batekin geratu naiz gehiegikoa izan ote den. Ba ote neukake euren

iritzia zuzenean ezagutzerik? Posible eta egokia ote litzateke hurrengo saioan eurei zuzenean galdetzea?

Gaurko saioa larri bukatu dut fisikoki, erabat hustuta. Azken tartean ere partiduetan ohi baino gutxiago mugitu naiz eta tantoak lortzen lehenago ahalegindu, erreserbaren erreserbarekin nabilela ohartuta. Saioaren amaieretarako sumatzen zaie nekea emakumeei askotan eta gaur niri egokitu zait. Ez da harrigarria, egia esan, ordubete pasako korrika saioa ere egin baitut saiorako bidean jarri aurretik.

Asteko bigarren saiokoa ere eginda, bi herenak, beraz, biharamunekoa izango da aste honetako azken desplazamendua eta badut gogoan ahal dudan neurrian desplazamendu gutxiago egiteko ere, saioekin eta elkarrizketei berrekinda zaila izango dela dakidan arren. Bolanteko tentsioak berak ere nekea eragiten dit.

Hitzak eta pilotakadak tartekatuz

Oporretatik itzulita ohartzeko heldu naiz bigarren hereneko 6.saiora ere. Joan-etorrietan denborak hegan alde egiten dit eta esku artean ditudan gainerakoek ere ez didate egonean egoteko aukera handirik ematen. Beraz, saio honen ostean lehen bi asteetako saioak amaituak izango ditut. Zer da, ona, ala lan zama gehitzen ari zaidan seinale? Batek daki!

Eguraldia erabat hotza ez bada ere ondo jantzita heldu naiz bertara, hotzaren eta tenperaturaren jaitsieraren beldur, aurreko astean ez bainuen epeltasun handiegirik nabaritu.

Sarrera

Gaur ere epeletik hotzagora egin dut, babesean osaturiko bileratik herriaren erdi-erdiko pilotaleku ia irekira. Etxean egiteko zeregin zerrenda pilatuta nator, gainera, aurrez gutxi edukiko banitu lez.

Pilotalekua

Benetan berandu iritsi naiz gaur saio hasierara, presati, hitzordua baino ordu laurden beranduago. 19:45 jotzear direla ikusi dut erlojuan eta dagoeneko beroketa egiten hasita izango direla pentsatu dut bidean. Hala ere, pilotalekua begien bistan izan dudanean ohartu naiz mugimendu eta hots gutxi dagoela. Izan ere, borobilean jarri eta hizketan ari dira kideak, entrenatzailearekin batera, zer kontatua baduten seinale.

Aitziber, Idoia, Jaione, Karmele, Arritxu eta Haizea tertulian ari dira eta trasteak utzi eta euren aldamenara hurbiltzean ikasketen eta unibertsitatean eurek ikasitakoak zein ezagunen gorabeherak dituzte hizpide. Haizea ari da esaten “nik ezagutzen dut 3 karrera hasi eta hirurak utzi dituen bat”. Nire intuizioari segika (erabat okerra izan litekeela ahaztu gabe), Haizeak biharamunean duen azterketaren haritik sorturiko hizketagaia izan litekeen ustea nagusitu zait. Idoiak berak Magisteritza eta geroago pedagogia ikasi zituela esan du. Hurrenak, Aitziberrek, Zuzenbidea ikasi zuela, baina, ez duela horretan lanik egin, musika ere ikasi zuelako eta musika irakasle ibili izan delako eta dabilelako, gaur egun irakaskuntzan, bere esanetan “batez ere ordutegiagatik”. Honi zuzenbidea ez omen dagokiola esan dio bakarren batek eta berak ere “ez, ezta?” esan du. Jaionek,

berriz, berak zalantza egin zuela Zuzenbidearen eta Enpresaritzaren artean. Orduan, neuk galdetu diot “eta zer ikasi zenuen azkenean?” eta hark “Enpresaritzaren” erantzun dit. Nik ere nirearen inguruan esan diet “bada, nik uste dut gaur egun ere gauza bera ikasiko nukeela” eta oso garbi izango nuela esan didate. Nik ere hala berretsi diet.

Beroketa

Hizketan isildu ere egin gabe eta gustura ari bagara ere saioari ekiteko unea dela erabaki du Haizeak, “berotzen hasiko gara” esatearekin batera orkatila biratzeari ekinez. Mugimendu articular eta luzaketekin amaitzean pilotalekuari bueltaka hasi gara, korrika txikian. Bakarren batek berokia kendu du aurretik, baina, bat baino gehiago gara oraindik ere babesa bere azpian aurkitu nahi dugunak. Hala ere, gaur hainbesteko hotzik ez duela egiten erabaki dugu. Haizeak korrika hastean “ni gainera meriendatuta etorri naiz” bota du, sabela beteta zuela adieraziz eta Karmelek “ni ilobarekin egon naiz eta palomita jaten aritu naiz” jakinarazi digu. Ondoren, frontisaren parean hasiz, alboranzko desplazamendu bidezko bi korrikaldi egin ditugu. Amaitzeko, besoak gora eta behera mugituz, joaneko bidean, eta ireki eta itxiz itzulerakoan, aritu gara. Haizeak itzuliak ematen ari ginenean esan du “gaur ere sei zaudete”, kopuruari erreparatu eta “lehengo asteko seiak” erantzun dio bakarren batek.


Harmailen atzealdean utziriko paletak hartzera abiatu gara amaitzean eta Haizeak pilotak dituen poltsa hartu eta bana eman digu. Orduan, baina, sei gaudela ohartu da eta binaka jartzeko esan digu. Beraz, lehen harturiko pilota batzuk itzuli dizkiogu. Jaione eta biok izan gara azkenak eta bera frontisetik gertuen jarri den Arritxurengana hurbiltzen ari dela ikustean “zu jarriko zara Arritxurekin?” bota diot eta hark baietz erantzun dit buruarekin. Ni, beraz, erdian kokatu den Aitziberrekin hasi naiz pilotakadak eta hitzak nahasian. Ezkerraldean Idoia eta Karmele hasita daude. Haizea, berriz, zinta hartu eta frontisean marrak jartzen hasi da.

Aitziberrekin ari naizela probestuz eta aurrez ikasketen inguruan zer edo zer aipatua dugunez, jakin nahiari tiraka ea zer ikasketa egin zituen galdetu diot eta pianoa ikasi zuela esan dit. Nik orduan galdezka jarraitu dut, etxean badudalako gazte-gaztea ez izanagatik pianoko saioetara joaten den bat. Hala jakinarazi diot berari, “nire amak oso gutxi jotzen du, baina, saioetara joaten da” eta hortik Musika Eskoletako ikasleen aniztasunera eta Kontserbatorioko maila eta dedikazioaz ere aritu gara, besteak beste. Hala ari ginela, adin talde ezberdinetakoez hitz egin dugu eta nerabeetatik helduetara dagoen aldeaz aritzean elkarren esperientzien berri ematen hasi, tartean paletako saioak ere aztertuta, eta izan nituen bertso eskolako ostiral arratsaldeetako taldeetara heldu gara. Ni bertan irakasle bezala aritua naizela jakitean aldamenen Arritxurekin ari den Jaionerengana zuzendu eta Aitziberrek hala esan dio “Jaione, bertso eskolako irakaslea da”. Besteak aldamentik “hori ere bai?” bota eta euren inguruan marrak jartzen ari den Haizeari esan dio sagardotegiren batera irteeraren bat antolatu beharrean gaudela, nik bertotan egin dezadan. Hori entzutean irribarre egin eta “galdetu Haizeari nire zenbat bertso entzun dituen” esan diet, ez dudala besterik gabe kantatzen adierazi nahian.

Binakako jarduna oso atsegina egin zait eta gustura ekin diot saioari, beraz. Haizeak hainbat marra jarri dituen denoi hots egin digu eta bere inguruan bildu gara saioa ariketei ekiteko.

Ariketak

1. Frontisa hiru gunetan banatuta, ezkerre, eskuina eta erdia. Gutako bakoitza gune baten parean jarrita, erdikoak erdikoak ez beste bi guneetara bidera dezake pilota (ezkerrera edo eskuinera), eta beste bi alboetan daudenek, berriz, erdiko eremura baino ez.



Azalpena ematen ari den bitartean entrenatzaileak esan digu uste duela beste behin ere egin genuela ariketa hau bera eta Jaionek baietz erantzun dio. Ni ere oroitzen naiz egin izanaz, baina taldekide asko etorri ez ginen saio bat izan zen. Beraz, erdientzat, bederen, berria da.

Aurreko eremuan Idoia, Karmele eta Arritxu kokatu dira, bakoitza eremu banatan, eta nik Haizeari esan diot “binaka jar gaitezke eremu bakoitzean, ezta?”, sei gaudela aintzat hartuta. Hark erantzun dit “lasai, Uxue, atzean beste eremu bat ere prestatu dut ezker horman”. Ni horrekin ohartu gabe nengoen, egia esan.

Ariketarekin hasi aurretik azken aholku bat eman du Haizeak, “ezkerrera bota behar baduzue hankak ere hara begira jarri, ez erdirantz, bestela mugimendua besoarekin bakarrik egiten baituzue. Helburua norabidea ematea da”, esaten ari den bitartean mugimenduekin azalpena lagunduz. Emakumeek buruarekin zein “bale” esanez adierazi diote ulertu dutela.

Atzeko eremura, ezker hormaren aurka egin omen duenera, joan gara Aitziber, Jaione eta hirurok. Hara heltzean, baina, marra bakarria dagoela ikusi dugu eta Haizeak ere hala esan du: “ui, marra bakarria jarri dut eta”. Barrez hasi da eta bitartean beste hirurok paretak kolore pixka bat argiago eta ilunagoak dituela ikusita horietakoren bat erreferentziazat har dezakegula esan diogu. Nik paletarekin adierazirikoak, baina, ez du konbentzitu eta 2.marra bat markatzeari ekin dio. Lehena jarri eta erreferentzia hartzeko pixka bat atzeratu denean gune bat oso txikia dela iritzi eta lekuz mugitu du. Azkenean, behintzat, zehaztuta daude hiru guneak eta ariketari ekiteko unea dugu.

Jaione jarri da erdiko gunearen parean, ni ezkerrean eta Aitziber eskuinaldean. Guk erdiko gunera bideratu beharra daukagu pilota frontisean, baina, ez kantxan. Horregatik, Aitziberrek askotan ez du kantxaren erdialdera bideratu pilota eta hori ikusita nik ere zenbaitetan hala egitea erabaki dut. Hori dela eta, Jaione une batean batera eta bestera korrika ibili behar izan da, albora dezente mugiarazita eta “zuek zer nahi duzue, ni mareatzea, ala?” esanez erantzun du. Guk irribarrez erantzun diogu. Beste pixka batean jarraitu dugu egoera honetan, entrenatzailearen aldaketarako deia jaso dugun arte.

Bigarren errotazioan Aitziber erdian, Jaione ezkerrean eta ni eskuinean kokatu gara. Aitziberrek aurrekoa ikusita “orain suabe, eh” esan du bada ez bada ere hasi aurretik, bi alboetara begira. Kasu honetan ez gara lehen bezain gaiztoak izan. Hala ere, oso motza izan da 2.txandatze hau, Haizeak hasi eta nahikoa azkar esan baitigu “aldatu”. Hori ikusita Jaionek “hau motza izan da” esan dio honi.

Hirugarrenean niri egokitu zait erdian aritzea, Jaione eskuinean eta Aitziber ezkerrean. Ni ere apur bat mugiarazi naute, baina, ez hasierakoan bezainbeste.

Gure eremuan altuera handirik eman gabe, baina, bizi eta ia beti norabide egokia emanda darabilgu pilota. Haizea, berriz, frontiseko eremuan dago, kontrakantxan jarrita, nola ari diren begiratu eta noiz edo behin azalpenen bat edo animoak emanez.

Haizeak “beno, orain aldaketa” esan digu eta lekuz aldatu gara bi taldeak. Gu frontiseko eremuan eta besteak atzekoan arituko gara eta toki aldatzeen bitartean Haizeak aurrean aritu direnei “atzeko zelaia ez da hain garbia, arraroagoa da” edo halakoren bat esan die. Aurrean ni hasi naiz erdian lehenengo. Jarraikortasun handia eta erritmoa izan ditu gure jardunak une oro eta ariketako helburua oso itxuran bete dugu. Nik tartean bota dut frontisean dagokion gunean jo eta kantxan asko desplazatu beharreko pilotakadaren bat, baina, bestela, ederki moldatu gara. Aurreko egoeran, gainera, Aitziberrek “hori nirea al zen? Ez naiz ba enteratu” esan du eta Jaionek “intentzio txar xamarrekoa zen” erantzun, niri begira. Nik baietz erantzun diot, asmo horretan botatakoa izan dela.

Bigarrean Aitziberrek erabaki du berak ez duela ezkerreko eremutik gertu egon nahi, hormak uxatuta nonbait, eta besteok ohartzeko eskuineko gunearen parean dago. Beraz, Jaione erdian jarri da eta ni ezkerrean. Haizea kontrakantxatik begira dugu.

Hirugarren eta azkenean Aitziber erdian, ni eskuinean eta Jaione ezkerrean aritu gara. Hala ari garela Aitziberrek “zer, bukatu da, ezta?” esan digu eta guk hori zergatik esan ote duen pentsatzen jartzerako ikusi dugu atzean ari zen hirukotea eta Haizea hizketan ari direla, ariketa egiteari utzita. Hori ikustean, beraz, gu ere atzeko inguru horretara hurreratu gara, zertan baino zertaz ari ote diren entzutera.

Adin kontuez ari direla hizketan ohartu gara eta handik abiatuta norbere adinak eta etorri ez diren taldekide batzuenak ere jakin ditugu, batere galdetzeko premiarik gabe. Bik 45 egingo omen dituzte, beste batek 44, besteak 38 omen ditu eta bosgarrenak 42. Nik 27 ditudala eta Haizeak 22 dituela ere jakin dute eurek. Besteren batek 46 omen ditu eta zaharragoren bat ere ba omen da. Haizearenak entzutean “joe, gure erdiak dauzkazu” bota dio baten batek eta berak irribarrez erantzun du “bai, pentsatu dut, baina, ez dut esan”. Barrez hasi gara eta nik esan diet horregatik behintzat lasai egoteko, badaudela adinez helduagoak direnak ikastaroetan: “Arrasaten 70etik gorako batzuk izan ziren ikastaroa martxan izan zenean eta nik 60 inguruko pare bat ere baditut kide”. Hizketan gustura ari garen arren, berriz ere jokatzeko hasteko entrenatzaileak “beno, baina, palan ari gara” bota eta partidak aurkeztera pasa da.

2. Partidak, 1:1 aurrean. 5 tantotara. Frontiseko 3 eremuak mantenduz, ezin da pilota aurreko kolpean joan den gunera bideratu. Hala eginez gero aurkariarentzat izango da tantoa.

Jaione eta biok hasi gara aurrean eta atzean beste laurak binaka jarri eta piloteoan ari dira. Haizea kontrakantxan dagoela probestu asmoz berriz ere sagardotegiko kontuari heldu dio Jaionek eta honi esan dio “zerbait antolatu behar da hemen”. Nik ere jarraitu diet elkarrizketaren ildoan, baina, jokatzeko ari gara eta tantoa galdu du Jaionek. Haizeak orduan esan dio “ikusten? Gainera honek despistatu egiten zaitu hizketan ari zarela. Bidali ezazu haizea hartzera!” eta nik irribarre egin dut, lasai eta patxadan ari naizelako jokatzeko, batetik, eta ez naizelako ni izan hizketan hasi dena oraingo honetan, bestetik.

Jaionek, bada ez bada ere, hasterako “suabe, eh” esan dit eta nik baietz erantzun diot, burua mugituta. Aurreko beste zenbaitetan ere tokatu zaigu elkarren aurka aritzea eta gaur orduan baino huts egite gehiago egin ditu Jaionek. Hori ikusita nik “zer, plana egiten deskontzentratu al zara?” bota diot. Azkenean 5-0 edo 5-1 amaitu dugu eta partida amaituta biok joan gara ezker hormaren kontra pilotatuzera, elkarrekin.

Aurrean jokatu den 2. partidan Idoia eta Karmele aritu dira nor baino nor. Pilotatzen gugandik eskuinera Aitziber eta Arritxu ari dira. Gu ere, ohitura onak ez galtzarren, pilotakadak eta hitzak nahaste-borrastean hartuta gabiltza.

Aurreko azkeneko partida jokatzera Aitziber eta Arritxu deitu ditu Haizeak beste bikoteak amaitu duen bezain pronto.

Aurreko azken partida amaitu denean denok Haizearen ingurura bildu gara berriro ere eta honek “orain ‘a eliminatorias’ jokatu dugu” esan digu, irribarrez. Barre txiki batek ere ihes egin dio eta “zer ondo pasatzen duzun” esan dio Arritxuk.

3. Txokotan. Ezin da bi aldiz jarraian gune berera bideratu pilota.

Azken arauak zehazteko, berriz, zalantzazkoetan zer egin erabaki gabe geratu gara. Laster batean bizitza kopuruaz galdetu eta Aitziberrek berak erantzun du, “bi eta propia”, entrenatzaileari aurreratuz, normalean hala izaten baita. Haizeak hala berretsi digu. Arritxuk, geroxeago esan du “eta marra zapaldu behar al da?”. Aurreko astean ere bera izan zen proposamen hau bera egin zuena eta orduan ez genuen zapaldu. Haizeak ez dauka erabakita antza denez, eta “marra?” batekin erantzun dio. Arritxuk azaldu du “bestela hemen geratzen gara denok atzean eta askoz gutxiago jokatzen da. Marrarekin gehiago mugitzen gara”. Hori esan ondoren marra 6tik atzeraxeago dagoen pitzadura izango dela erabaki dugu, aho batez, parte-hartzea handiagoa delako eta kantxan ere mugimendu gehiago delako.

Erabaki eta azalpen denak eman ostean jokatzen hasi gara. Hasi eta halako batean ohartu gara txarra eginda ere jokoa ez dela eten behin baino gehiagotan eta hori ikusita Haizeak egoera bere onera itzultzeko asmotan “baina txarra egitean jokoa gelditu egingo dugu” esan du, kaos txikia birbideratuz (B.K. Egia esan, une batean kaotiko xamarra bihurtu da egoera).

Aitziberrek nahiko azkar galdu ditu bizitzak, leku berera botata eta gainerakoek ere eremua errepikatzearen galdu dituzte. Kontaketa egin du une batean Haizeak eta Karmelek berak oraindik ere bi bizitza dituela esan du. Bera da bakarra, momentuz. Hori entzutean Idoiak “denok Karmeleren kontra”, beraz, esan du, giroa jarri nahian. Gutxika kontrakantxan kantxan baino gehiago daude: Arritxu, Haizea, Jaione, etab. Azken hirurak Karmele, Idoia eta hirurok izan gara. Une horretan ia ezinezkoa da atzeko marra zapaldu eta kantxara itzultzea eta Haizeak kontrakantxako marra zapaltzeko esan digu. Birekin, berriz, bakarra ere ez. Karmele eta biok amaitu dugu. Azkenean ni izan naiz huts egin ez duena.

Marra zapaltzeak bati baino gehiagori sustotxoren bat eman dio. Besteak beste Idoiari behin baino gehiagotan ahaztu zaio eta aldamenetik Karmele izan da kasu horietan guztietan “Idoia, marra” esanez gogorarazi diona.

Lehena amaitzean egoera berean beste joko bati ekin diogu. Bigarrenean, baina, denok biritza bakarra daukagu, ordua ere geroz eta aurrerago baitoa. Azkenerako Haizea, Aitziber, Karmele eta laurok ari gara jokatzeko eta marra zapaltzetik bueltan ni ohartu naiz Haizeak bi aldiz bota duela gune berera pilota, haren hutsa neuk azpimarratuz: “Haizea, leku berera bota duzu”. Azkenerako Aitziber eta biok geratu gara. Gainera, berak lortu du tantoa, ezkerreko hormari itsatsitako pilota berriz ere ezkerreko gunera bideratu baitut neuk, eta poza ere galanta hartu du, “irabazi diot” bat botaz. Hau amaitzean erlojuari begiratu diot eta 20.54 ikusi dut.

Haizea ere zer ordu den begirata dago eta atzera joan gara, paletak utzi eta ezker hormara hurbilduta luzaketak egiten hasiz. Lehenengo hankekin hasi gara eta bide batez ezker horman itsatsirik dagoen marra kendu dugu. Ondoren besoetakoekin hasi dira, eta oharkabean, ni frontisera bidean noala konturatu naiz, inkontzienteak antza denez bertan dauden marraz kentzera narama. Itzultzean egin ditut beste luzaketa pare bat ere. Luzaketetan hizketagaita San Sebastian, adina eta Haizearen biharamuneko azterketa izan dira. “Goizeko hamaiketan gogoratuko gara zurekin” bota du bakarren batek eta “11etan al daukazue?” galdetu diot. Hark “11etan hasi eta 12etan bukatu” erantsi dit, irribarrez.

Kontu kontari goaz norbere trasteak hartu eta etxerako bidean jartzera. Arritxuk esan digu datorren astean ez dela asteazkenean etorriko, lana dela medio, “Lurdesena joango naiz eta ekarriko dizuet haren berri. “Hau ez duzue egin? Eta hau ere ez? Horrela hasiko zait” eta Idoiak erantzun dio “zerbait badu esan Haizearekin hitz egiteko”. Gaur Haizea, Karmele eta hirurok abiatu gara norabide berean, nahiz eta nahiko azkar hartu dugun norberak zegokion lekurako bidea: guk autoetarakoa eta besteak etxerakoa.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko saioan lasai eta gustura aritu naiz. Kideak ere hala sumatu ditut eta esango nuke beste taldeetan baino zailagoa izan arren (bai saioetako bertaratuen jarraitasun eskasagatik eta baita lehen ikasturtea delako ere), nola edo hala girotxoa edo sortzen ari ote den. Azken bi asteetan kide berdinek errepikatzeak ere izango du zerikusia, ziuurrenik. Aurtengo urtean oraindik ez dira etorri Aizpea, Izaskun eta Ester eta honen berri gehiegi ez dutela esan dute, besteak beste.

Aste hau amaitu dut eta berriro ere pilatu dut zer kontatu eta zer idatzia. Emakumeengandik jasoriko ilusio izpiek, behintzat, ez didate kalterik egiten, saioetan egoteak ondoren ordu batzuetarako lana eta gogoetarako tartea sortzen baitidate. Beraz, badirudi gorpila martxan hasi dela eta ez nauela mazpilduko, momentuz behintzat.

Beste bat, beste bat eta beste bat, eta ...

Halaxe izaten da behin hasiz gero, jarraitzeko arriskua. Hasitakoa epe luzerako dela dakizunean ere bat amaitzerako hurrena ate joka izaten da eta batekoak amaitzerako besteko zereginak hasi beharra. Beraz, bi asteotako lanari segika “beste” asko pilatu eta bizitzeko parada daukat aurrez aurre. Kontatzen hasita lau hilabete eskas igaro dira lehen saiotik eta bost eta piku daukat oraindik egiteke. Hortik atera kontuak!

Astea nekatuta amaitu dut, betebeharrez lepo (itota ez esatearren) eta ahalik azkarren erabat gaian murgildu beharrean. Oraindik bete-betean ez banaiz sartu ere hanka eta erdi

izango dut barruan, laurden bat bidean eta falta den laurdena ere ez oso urrun. Honenbestez, urratsez urrats eta arratsez arrats, pilota eta emakumea ardatz, nire trebezia eta nire akats, bagoaz aurrera, barraskiloa baino motelago bada ere. Gure kasuan ere erbia eta dortokaren artekoa bezala amaituko ote da bidaia? Egunen (eta urteen) joanak baino ez daki hori.

Bigarren astea ere osatuta hirugarrenari ongi etorria egiteko pronto jartzea dagokit, gorputza eta burua, biak, lekutu eta kokatuz. Freskura eta ilusio printzak ere ez daitezela falta errekuerazio eta indarberritze planean. Jarrai dezadan lanean!

15. astea. URTARRILA ERE BADOA!

Urtarrila hasi eta egutegiari begira jartzerako 23. zenbakia ikusi dut begi aurrean, sukaldeko labe gainean. Egia esan, oraindik ez dut 2012ko agendarik neureganatu eta horregatik doazkit, agian, hain oharkabean data eta zenbakiak.

Aste hau ere betea eta entretenitua datorkit oso, hiru saio, bilaketa lanak, elkarrizketaren bat edo beste egin eta pare bat lotzeko asmoa, etab. Luzea da eginbeharren zerrenda, amaigabea. Hortaz, energia hartu, ez dago erraza, eta hiruzpalau arnasaldi egin ostean erronkari heltzeko unea heldu zait. Lastima da aurreko astea nahi eta komeni bezala amaitu ez izana. Baina, beno, hori iragana da eta uneotan oraingoan murgiltzea dagokit, izango denean, ez izaterik lortu ez nuenean.

Kantxan saltsan

Erdipurdi eta erdi-gaixo amaitutako astea atzean utzi eta berriro ere heldu zait astelehena. Lanak behar bezala egin gabe hasi naiz, gainera, beraz, aurrekoak errekuperatzen hasteko ganora gehigarria ere atera beharko dut nonbaitetik. Izan ere, ohar batzuk eta kontakizun bat ditut zintzilik. Ea astearen hasiera xamarrean berdintzen ditudan iraganetik datozkidanak, bestela ere nahiko nahaspila eta betebeharrak badarabiltzat eta.

Azken bi asteetako ildoari jarraituz gaur ere ordu erdi inguruko uretako jardunaren ostean heldu naiz ikastarora, nekatuta, baina, aldi berean, egunari (eta bide batez asteari berari ere) hasiera itxuroso xamarra eman izanaren irudipenarekin.

Kiroldegiko sarrera

9.31. Ines eta biok heltzen ari ginela ahots batzuk identifikatu eta tankera eman diot gaur ez ginela lehenengotakoak izango ohiko hitzordura heltzen. Ustea erabat bete da bertan Saioa, Irati, Ainara, Malen, Rakel eta enparauak korrotxo osatuz hizketan ari direla konprobatzean. Guk besteak agurtu eta zer edo zer kontatzen dihardugu, mingaina erabat alfertzea ez baita komenigarria. Une batean Saioa hurreratu zaigu eta ilea moztu duela esatearekin batera asteburuko partidaz galdetu diot, jakitun bainaiz Kluben arteko Euskal Liga irabazi berri duela. Zorionak eman dizkiot, bide batez.

Halako batean tornua igarotzen hasi eta elkartuta abiatu gara pilotalekura, ohiko bidetik eta ohiko moduan. Besteak aurretik doaz eta Ines eta biok apur bat atzeraxeago, kontu kontari.

Pilotalekua

Azken atea zabalik dago gu heltzerako eta Saioa atezain lanak egiten ari da. “8 eta 9” esan ditu gu parean pasatzean eta zenbat elkartu garen kontatzen ari dela ohartu gara. Hori ikusita Inesek “ahizpa ere etortzekoa da” abisatu dio.

Heldu eta trasteak uzten ari garela nik “Saioak berak ez dizue esango eta txapela irabazi berri du” jakinarazi diet taldekideei, irribarrez. Saioak konplizitate keinu batekin erantzun dit, aipamena gustatu zaiola dirudi. Orduan horren inguruan bi hitz egin eta “hasi korrika” esan digu. Hala ekin diogu gorputzak martxan jartzeari. Aurrez Saioak

Iratiri galdetu dio Joanaren berri eta honek “ez da etorriko, gripearekin dabil” erantzun dio.

Beroketa

Hiru itzuli egin ditugu korrika txikian, ohiko moduan. Ni Malenen parean tokatu naiz eta harekin hasi naiz hizketan, korrika saioez galdetu baitit. Gemmak oinetako berriak ekarri dituela esan du ondoren ez dakit nork eta horren harira “Uxuek ere berriak dauzka” erantsi du Ainarak. Nik ezetz erantzun diet, “ez, ez, hauek Behobia eginda daude”. Bueltan “ondo zaintzen dituzu orduan” esan didate. Tropeltxo gara, bederatzikotea, momentuz. Malen, Ainara, Irati, Gemma, Ines, Jone, Zuriñe, Rakel eta ni neu.

Ondoren, ohi bezala, mugimendu artikularrak, mingaina dantzatzuz aldamenekoekin zein urrunagoekin. Hauek amaitzean pilota eta paletak banatzeko unea heldu da. Justu-justu iritsi dira. Bat geratu da soberan, Malenek bere zuloduna erabiltzen baitu. Elkarren ondoan gaudela argudiatu eta Gemma, Irati eta hirurok elkarrekin hasi gara. Bestek binaka ari dira: ama-alabak, Rakel eta Irati eta Malen eta Ainara.

Gu pilotakadak trukutzen eta Saioa zintak hartu eta kantxan marrak egiten ari da bien bitartean. Asteburuko kontuez hitz bi egin, nik galdetu diet ea sagardo denboraldiaren hasierako txotxean izan ziren eta hala aritu gara. Gemmak gaur oinetako berriak dituela aurrez jakin dugu, frontoirako bereziak, eta galdera bota diot, nire jakin-mina ase nahian. Berak esan dit Olentzerotan oparituak direla, baina, gaur duela lehenengo eguna, gauzak estreinatzea ez zaiola gehiegi gustatzen eta. Halako batean Miren sartu da pilotalekuan, kirol poltsa eskuan dakarrela. “Egun on” energiko batekin agurtu gaitu eta trasteak utzi ostean pilota bat hartu eta gure aldamenean bera bakarrik hasi da jo eta fuego, berotzeko asmotan.

Gure saioan lasai ari gara eta tarteka Saioa egiten ari den marrei erreparatu diegu. Ohartu gara aurrean horizontala, erdian diagonal eta atzean bertikala jarri dituela. Horren inguruan hasi garenean, eremu denak atontzen amaitzean “bale” esan eta kantxan 4aren ingurura hurbildu gara denok. Azalpenak entzuten hasi aurretik pilotak eman dizkiogu. Egia esan, guri beroketarako tokatu zaigunak ilea falta zuen gune batean eta ez du bote zuzena ematen. Pixka bat kentzen probatu dugu, baina, berdin-berdin. Beraz, bigarren pilota bat eskatu eta harekin egin dugu kolpeen elkartrikerik handiena.

Ariketak

Korroan elkartu garenean Mirenek denoi egun onak eman dizkigu berriro ere eta Maleni “Urte Berri On” ere esan dio. Hala galdetu diote, ea oraindik elkarrekin topo egin gabeak ote diren, eta Mirenek erantzun du “bai, elkar ikusi gabe geunden gaur arte”. Beste pare bat hitzen ostean Saioak zer egin behar dugun adierazteari ekin dio.

1. Txokotan, binaka. Bikoteko bat kantxan jokatzen ariko da eta bi pilotakada jotzean kanpora aterako da, bestearekin aldatuz. Bikote bakoitzak bi bizitza izango ditu.

Azalpena eman duenean Rakelek ez dela ezertaz enteratu esan du, euskaraz dezente ulertu bai, baina, ez duelako batere menperatzen. Hori dela eta, Saioak espresuki azaldu

dio eta horren ondoren ekin diogu ariketari. Saioa gazteleraz hasi denean bakarren batek aldamenetik adarra jotzeko aprobetxatu du.

Ines eta Jone, Zuriñe eta Miren, Ainara eta Malen, Irati eta Rakel eta Gemma eta ni gaude binaka, aldamenean geunden ordena mantenduta. Hasteko bostekoan ateratzeko esan diot Gemmari eta ni kontrakantxan geratu naiz, beste laurekin batera.

Hasi eta nahikoa azkar doa kontua. Aldaketak egiteko unean bakarren bati gehixeago kostatu zaigu, baina, bizitasun eta giro onean ari gara osatzen ariketa. Lehenak kaleratzen Malen eta Ainara izan dira. Haien atzetik Irati eta Rakel. Azkenerako Jone-Inesek ere huts egin eta Miren-Zuriñe eta gu geratu gara. Azkenean eurak huts egin eta geu nagusitu gara. Besteak, berriz, kanporatu ahala atzeko eremura joan eta piloteoan aritu dira bitartean.

Jokoa azkar amaitu dela eta emakumeak gustura daudela ikusita Saioak “beste bat egingo dugu” esan eta berriz ere bildu gara hamar kideok. Mirenek ere esan du argi asko, irribarrea uxatu gabe, “hau polita da, eh, jende asko gaudenean”. Hasi eta nahikoa azkar Inesek pilota txapa gainean dotore moztu du eta inork ez du erantzutera abiatzeko imintziorik ere egin. Kontrakantxan gaudenok elkarri begira hasi gara, tantoa ona izan dela esanez, eta Saioak “hori norena izan da?” botaz kantxarako bidea hartu du. Nik Ainara dut aldamenean eta denak ere nahikoa parean zeudela erabaki dugu. Saioa, berriz, batean jartzeko esaten ari zaië hiruri eta ni ohartu naiz Gemma hortik kanpora utzi duela. Hori ikusita, ordea, “zer, Gemma ez al duzu sartuko? Laurak ere lerroan zeudela esango nuke” gaineratu dut. Hortaz, Saioak nire iritzia entzun, kideek ere adostasuna agertu dute, eta, azkenean, Jone-Ines bikotea izan ezik beste denok batean jarrita amaitu dugu. Kantxan Rakel, Miren, Ines, Malen eta Gemma daude. Kontrakantxan dagoen Zuriñek “azkenean hain tanto ona egin eta eurentzat kaltegarri izango da. Ezin da hain tanto onik egin. Lehen ospatzen eta orain ikusiko dugu”. Nik eta Saioak, bitartean, batean egoteak zer esan nahi duen besteei ahalik argien azaltzeari ekin diogu. “Kolpeak tartekatu egingo dira, bat zuek laurotako batek bestea Inesek” Saioak eta nik “guk ezin diogu elkarren atzetik jarraian eman pilotari”. Badirudi erabat argi dagoela kontua eta jarri da pilota martxan berriro ere. Giro paregabea daukagu eta kontrakantxan Ines “aupa, Jone!” esaka ari da nire alboan une batean, animatuz. Bi kolpe egin eta ondoren egin beharreko aldaketak txukun egin ditugu batean gauden lau bikoteetako kideok eta baita gainerako denon aurka ari diren Ines eta Jonek ere. Azkenean, piloteo jarraitu, hein batean lehiatu eta luze xamar baten ondoren, Ainarak egin du huts, horma bikoa txapapera botaz, eta lau bikoteak bizitza bat gutxiagorekin geratu gara. Hortaz, Saioak esan du “orain denok enpate, denok zaudete bizitza banarekin” (B.K. Saioetako giroa ona izaten bada gertatu denaren ostean are alaiagoa dela iruditzen zait, saltsa ederra sortu baita berez ezer berezirik ez zekarren jokaldi on batetik).


Oraindik ere jokoan ari gara eta Ainara eta Malenek beste huts bat egin eta “alah, goazen berriro” esanez atzeranzko bidea hartu du. Hurrenak kaleratzen Zuriñe eta Miren izan dira eta haien atzetik joan gara Gemma eta ni ere. Atzeko eremura hurbildu eta ohartu naiz binaka piloteatzen ari direla. Orduan, “zer, hemen bikoteak errespetatu beharra al dago?” galdetu eta “ez, ez, horrela ari gara, baina, ez dago zertan” erantzun didate. Bien bitartean aurrean Rakel-Irati eta Ines-Jone ari dira azken tantoa jokatzen. Gu atzean piloteatzen hasteko tarterik gabe geratu gara, hasterako aurrekoa amaitu baita. Ez dut zuzenean ikusi jokaldia, baina, erreakzioak eta poz adierazpenen baten

oihartzuna heldu zait atzetik aurreranzko bidean goazela eta heltzean baieztatu dut Rakelek lortu duela tantoa. Gustura dago oso.

Berriz ere Saioaren ingurura bildu gara taldekide guztiok eta Saioak orain arte aritutako bikoteak begiratu eta bikoteak nola osatuko ditugun azaltzeari ekin dio. “Jone eta Inesen bikotea gustatu zait, hauek egun txarra daukate (elkarren ondoan dauden Ainara eta Malenengana zuzenduz), zuek ere lehen bezala, Irati Gemmarekin eta Rakel Uxuerekin”. Bikoteak osatu ondoren aipamenen bat edo beste heldu da Ainara eta Maleni nahita eginiko adar jotzetik, adibidez, “orain denetan asmatuko dute”, eta eremu bakoitzean bete beharreko baldintzak ezagutzera igaro gara.

2. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan (ikus irudiak). Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5' igarotzean.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2. 1,5eko marratik aurrera botea egindako pilota guztiak aurrelariarenak izango dira.
- Erdikoan (5-7), 1:1. Diagonalean dagoen marratik aurrea beti batek eta atzera besteak.
- Atzean (8-errebotea), 2:2. Bikote bat marratik eskuinera eta bestea ezkerrean. Ezkerreko gunetik eskuinekoa eta alderantziz bota behar da pilota. Taldekideek bata bestearen txandan egingo dituzte kolpeak. Talde batek 3 tanto lortzean eremuz aldatuko gara.



Irati-Gemma eta Malen-Ainara hasi dira aurreko eremuan. Rakel eta biok erdikoan egokitu gara eta Jone-Ines eta Zuriñe-Miren atzekoan lehen partidak jokatzeko. Rakeli non hasi nahi duen galdetu eta bera aurrera botatzen hasi da. Ni, berriz, atzeko eremura. Marra diagonalean dago jarrita, aurrealdea ezkerrean oso estua izanik eta, atzean, berriz, eskuina. Hasi eta hasieran pixka bat kosta zaigu neurriak erabat hartzea, baina, zailtasun handiegirik gabe osatu dugu ariketa. Hala ere, aurrean ezkerretik gertu eta atzean eskuinaldean pilota kokatzea zailagoa dela ohartu eta ederki konprobatu dugu eta pilotakadarik gehienak erdi parean, 5,5-6,5 inguruan joak izan dira. Guri iruditu zaigunean aldaketak egitea erabaki dugu, nik aurrera eta berak atzera botaz.

Lehen errotazioan atzeko eremura joan eta Ines-Jone bikoarekin topo egin dugu. Saioak aldaketa egiteko abisua eman digunean atzeko laurak abiatu dira aurreko eremura eta Ines eta Jone gugana beranduago etorri dira. Atzeko eremuko bigarren partida da jarraian eurena eta bertan egin beharrekoak zer diren birgogoratuta ekin diogu partidari. Eskuinean hasi dira eurak eta ezkerrean gu. 3 tantoko partidatxoak berehala amaitzen dira, batez ere, ezkerretik eskuinera pilota bideratzea ez delako alderantzizkoa bezain erraza. Partidatxo guztiak amaitu dira berdin, eskuinean kokatutakoek irabazita (B.K. Esanguratsua da non dauzkagun zailtasun eta hutsunerik handienak, ala? Hemen froga bat).

Bigarren txandatzean atzean jarraitu dugu eta Gemma-Irati etorri dira erdiko eremutik. Hauei dinamika gogoraraztea guri egokitu zaigu eta gu eskuinean eta eurak ezkerrean hasi gara. Markagailuak bi dira eremu honetan, uneko partidatxokoa eta partida orokorrekoa (2-1 eta 1-0, adibidez). Hemen ere aurrekoko egoera bera errepikatu zaigu. Azkenean, 3-2 irabazten amaitu dugu eta aldaketan aurrera joan gara. Hala ez izanda ere geuk hartuko genuen bide hori bera, eremu bakoitzean bi jarraian jokatuta aldatzen baikara binakako partiden kasuan.

Aurreko eremura joatean berriro ere Jone eta Inesekin jardun gara (B.K. Bi bikoterekin neurtu ditugu indarrak; ez gara tokatu Ainara-Malen eta Miren-Zuriñerekin). Hasi aurretik Saioak azaldu digu egokitzapen bat egin diola 1,5eko marrari, ezkerreko gunetxo batean marra bertikala jarrita. Gune horretan bote eginez gero posible omen da aurrelari zein atzelariak jotzea. Guk adostasuna agertu eta jokatzeari ekin diogu, Rakel aurrelari eta ni atzelari. Saioak Joneren sasoiarekin kontuz ibiltzeko esan digu. Lehen bi tantoetan kostatzen zait kokatzea eta horren adibiderik argiena izan da niri zegokidan pilota bat jo gabe utzi dudala, aurreko marratik justu igaro dena. Handik aurrera arreta handiagoz eta zentratuta aritu naiz, lasai eta jokoa emanez. Aurrelariak airez sartzen dira marratik atzera eta Jone dezentetan ausartu da. Halakoetan, ordea, huts egin du zenbaitetan eta nik propio pare bat horrelako bota dizkiot. Honek “nahikoa da” batekin erantzun dit horietako batean eta nik irribarre egin dut. Beste une batean, berriz, pilotakada guztiak niri bideratzen dizkirate eta nik pilota pixka bat zailagoak jarriz erantzun, eurak dantzan jarri eta nik gozatuz. Tantoa luzea izan da eta neu aritu naiz une horretan bien aurka, Rakelek ez baitu pilotakada bakar bat ere jo. Bukatzean irribarretsu zuzendu zaio Saioari, “ikusten duzu nola nekatzen ditudan?” esanez. Besteok ere irribarre egin dugu eta jokatzeko jarraitu. Nik Rakeli esan diot berak lasai jotzeko pilota ahal duenean, tanto horretan parte hartzerik ez duela izan gogoan. Amaitzean berriro ere bertan jarraitzea dagokigu.

Aurreko eremuko 2. neurketan Irati-Gemmarekin jardutea egokitu zaigu. Hauek badakite eremu mistoarena, eurak zeudenean egin baitu aldaketa hori Saioak, partidako egoera asko zailtzen zela erabakita (B.K. Aitortzen hasita, baldintzaren berri jakin orduko otu zait neuri ere ezkerrekoa aurrelariarentzat bakarrik izatea ez ote zen gehitxo izango). Kasu honetan postuak trukatu ditugu, Rakel eta Irati atzelari eta Gemma eta biok aurrelari jarrita. Lehen niri gertatu bezala Gemma ere nahastu da lehen tanto pare batean eta atzetik aurrekorako aldaketa kostatzen zait esan du. Nik gauza bera gertatu zaidala jakinarazi diot eta honek “Uxueri ere gertatu bazaio lasai nago” batekin erantzun du, kontrakantxan begira dugun Saioari zuzenduz. Irabazten amaitu badugu ere erdirako bidea hartu dugu.

Erdian berriro ere gune ezberdinetara pilota botatzen aritu gara, txandaka eta hizketan. Rakel da taldeko “hasiberria” eta aldea nabari zaio hasieratik. Nabarmen. Berak ere nabari duela esan dit eta ezkerrez aritu dela une batean beroketan ere, baina, gero partidetan errebesa erabiltzen du. Pilota mantso eta jartzeko denbora emanez datorrenean beste segurtasun bat ikusten zaio, nahiz eta berak esan didan zenbaitetan azeleratu egiten dela.

10.45 inguru dira nire erlojuan eta Saioak aurreko marrak kendu dituela ikusi dut atzera goazen bitartean. Rakel ere ohartu da eta, beraz, aurreko eremuko partidak baldintzarik gabeak izango dira, oso oker ez bagabiltza bederen, hemendik aurrera. Gu atzeko eremura joan gara, aurrera heltzeko aukera izango dugun esperantzan, eta Jone-Inesekin

topo egin dugu berriro ere. Erdian Miren-Zuriñe ari dira eta aurrean, aldiz, Gemma-Irati eta Ainara-Malen.

Aurrean baldintzarik gabeko partidekin hasi dira, baina, erdiko eta atzeko eremuetako baldintzek lehen bezala jarraitzen dute. Hortaz, berriro ere ezker aldean kokatu eta eskuinaldean besteak direla ekin diogu jokatzeari. Hala ere, nik zehar begiratu egiten dut aurrealdera tarteka, handik oihu eta irriak heltzen baitzaizkigu. Giro onean sumatzen dira bai kantxan dauden laurak eta baita eurei begira saltsan dabilen entrenatzailea ere. Lehen baino denbora tarte dezente laburragoan heldu da gure belarrietara “aldaketa!” oihua. Hortaz, Ines eta Jone baldintzarik gabeko partida jokatzeraz doaz.

Gemma eta Iratiri dagokie erdiko eremutik gugana etortzea, baina, tartetxo bat daramate hizketan erdiko eremuan eta ez dira ia mugitu ere egin. Gu barrez hasi gara eta erdiko gunera bidean diren Malen eta Ainara ere bai. Hauek, ordea, ez dira ohartu eta azkenean Ainarak “zain daudela” esan die. Atzera etortzean “hauek berotuta daude” bota du Iratik eta hainbeste denbora igaro aurretik heldu zaigu aldaketarako eta, beraz, baldintzarik gabeko partida jokatzeke abagunea (B.K. Saio guztia marren arabera jokatzen pasa ostean, egia esan, eskertzen da amaieran halako gozoki bat izatea).

Aurrean Jone eta Inesen aurka jokatzea egokitu zaigu, ni atzelari naizela. Uste baino azkar eta errazago irabazi dugu, neurri batean, ziurrenik, euren huts egiteengatik, eta *baten faltan bi* esaera betetzeko aukera edukiz beste partida bat jokatzeke astia eman digu. Oraingoan Gemma eta Irati etorri dira atzetik guregana, frontiseko eremura. Postuak elkartrukatu ditugu eta partida orekatu, lehiatu eta polita osatu dugu. Azkenean, 4-3 amaitu dugu, gainera. Partidan zehar Irati aritu da atzelari, Rakelekin parekatuta, eta bi hauek errebesa erabiltzen dute. Saioak zerbait esan du horren inguruan, batez ere Iratiri zuzenduta, eta honek esan dio pilota motel badator saiatzen dela ezkerre erabiltzen, baina, bestela, ez. Aurrez erdiko eremuan ari ginela ere gauza bera esan dit Rakelek niri.

11.03an amaitu dugu aurrekoa eta saioko atal nagusia ere bai. Paletak motxilan sartzeko pilotuta utzi eta trago bat egitera joan naiz ni, egarria eta nekea sumatzen baititut.

Kontrakantxan luzaketa ariketak egiten aritu gara, bakoitza geure erritmo eta moduan. Inesek hasterako hanka egin du eta martxa berean zihoan Malen ere. Ainarak aldamenetik “gero asteazkenetan hemengo eta hango minak izaten ditu” esan dit niri. Mirenek helbide berria eman dio Saioari (neuk ere gogoan hartu dut) eta nik lurrean eseri eta gluteoak luzatzeko hautua egin dut. Ainara eta Gemma ere lurrean eserita ari dira luzatzen eta azken honek “orain lurrean esertzea arriskutsu xamarra da” esan du. Azkenean, luzaketa batzuk egin eta kanporako bidea hartu dugu, berokia soinean eta poltsa sorbaldatik zintzilik dakarzikidala.

Aldageletan utzi ditugu Ainara, Miren eta Rakel eta elkar datorren astera arte agurtu dugu. Asteazkenerako hitzordua ere egin dute aurretik betikoek, 9.15 ingururako, haurrak eskolan utzi ondorenerako.

Kiroldegiko sarrera

11.10. Sarreran Gemma agurtu eta Saioa eta biok kanpoko atetik irten garen bitartean hizketan ari gara. Bihar arte batekin elkar agurtu eta liburutegirako bidea hartu behar

dudala esan ostean bereizi gara, norbere autoetarako bidean, ez ditugulako elkarrengandik beste batzuetan bezain gertu aparkatu, nik poltsa bat utzi eta motxila bizkarreratuz. Aspaldiko partez, liburutegira abiatzeko unea dut.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa ondo joan da eta denok ere gustura aritu garela esan nezake. Ni amaierarako nekatu naiz, uretako nekea sumatzen dut, eta zenbait kide ere ohi baino nekatuago sumatu ditut, saioa dinamikoa eta atsedenerako tarte handirik gabea izan baita.

Saioa nahiko itxuran irten da, kantxako ariketak eginez jarraitzen dugu. Iragan astean hasi ginen 2.espazio helburua lantzen eta iruditzen zait beste zenbait saiotan ere arituko garela, ariketa asko eta anitzak egin baitaitezke. Ikusiko dugu ea hala ote den egunek aurrera egin ahala.

Saio ordua ostu digute

Ordenagailu aurrean begiak eta muinak irten beharrean lanean ari naizela telefonoa joka hasi zait, arratsaldeko bostak puntuan. Begiratu eta Saioa irakurri dudanean pentsatu dut saioaren inguruko zerbait esateko izan litekeela, komunikazioko lanari ez badagokio, bederen.

Berak telefonoaren beste aldetik jakinarazi dit Zizurkilgo pilota elkarteko arduradunak deitu berri diola eta esan diola aurreko astean hezetasun arazoak zirela medio bertan behera utzitako partidak gaur eta bihar arratsaldean jokatzekoak direla. Horregatik, gaurko gure saioa bertan behera utzi beharrean aurkituko garela ere esan omen dio eta alferrik agertuko garela bada ez bada ere, pilotalekuan eurak arituko omen dira.

Urduritasuna, haserre puntu bat eta itomen kutsu bat sumatu dizkiot telefonoaren beste aldetik eta lasai egoteko esan diot, erabakia niretzat ere ulergaitza dela jakinaraztearekin bat. Beste emakumeei deitu behar omen die eta Anoetako pilota eskolako saiora abiatu beharrean dela ere esan dizkit. Horren ondoren elkar agurtu dugu eta nik pantaila aurreko lanari heldu diot berriro ere, nire buruari gogoetan aritzeko aukera ukatuz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

“Alferrik joango garela, eurak arituko baitira jokatzeko”. Horiek izan dira Saioak telefonoz bestearen ahotan jarrita esan dizkidanak. Egia esan, zur eta lur geratu naiz arrazoiketa moduarekin. Normala al da hau? Ezta eurak herriko nagusi baldin balira ere!

Astean ordu eta erdiz daukagu pilotalekua eskatuta emakumeen paleta saioetarako, udalarekin hitzarmena egina daukate, gainera, oso oker ez banabil. Elkarrekin, berriz, egunero ordu batzuk izaten ditu bere erabilerarako. Nik uler nezake atzeratutako partidak jokatzeko baldintza batzuk ezarriko zizkiela federazioak, baina, ezin ote ziren beste modu batean antolatu? Derrigorrean kendu behar ote ziguten guri gure ordu eta erdia? Beranduago hastea ere ez ote genuen posible izango? Adibidez, 8etan.

Tripako min dezentea eta ezinegona ekarri dizkit erabakiak, batez ere elkartekoen larderia edo harrokeria kutsuagatik. Horregatik, desiratzen nago datorren astean

taldekideekin elkartu eta euren iritzi eta irudipenen berri jasotzeko, ez baitzait iruditzen elkartekoek hala iruditu eta hala egitea erabaki dutelako erabat konforme egongo direnik. Ikusiko dugu!

Pertsonalki, eta neurekoi jokatuta, bidaia bat kendu eta saioaren inguruan joaten zaizkidan hiru orduak beste zereginak aurreratzeko aprobetxatzeko moduan naiz eta baita, hein batean bada ere, arratsaldea beste modu batean antolatzeke eran ere. Hala ere, askoz ere gehiago dauka gazitik nire sentipenak gozotik baino.

Norbanakotik taldera

Asteko hirugarren saioa behar zuena bigarrena eta azkena bihurtu ondoren, bezperako azken orduko jakinarazpenaren ostean, bidaia bat gutxiago egin izanak eman lezakeen lasaitasun apur hori behintzat badakart nirekin. Hala ere, eguna batera eta bestera eman dut goizean goizetik, erlojuaren aurka, zeregina zereginaren gainean eta minutuak segundo bihurtu zaizkidan irudipena lagun.

Saioa iluntzean dela aintzat hartuta, oskarbi dagoela zerua, eta aurrez eguraldi iragarpenak adi-adi jarraitu ostean, ondo jantzita eta arropa termikoa hartuta abiatu naiz, berriz ere hotzak pasa nazan saihestu nahian.

Sarrera

Azken asteetako ildoari jarraituz, misterrarekin bilera egin eta lanak nola doazen, zer irudipen dauzkagun eta lan-ildoak eta honen nondik norakoak apur bat zehaztu ondoren heldu naiz saiora. Beraz, betebeharren erdia beteta, nolabait, eta bigarren zatia ere betetzeko inongo arazo eta alferkeriarik gabe.

Pilotalekua

Gaur ere berandu iritsi naiz frontoira, presati, azken bi asteetan bezalaxe. Eskerrak puntuala naizen izatez! 19:45 direla ikusi dut erlojuan eta bidean gerturatu ahala ohartu naiz eskupilotako pilota baten hotsa dela plazatik datorrena. Emakumeak, baina, dagoeneko bertaratuak izango direla iruditzen zait. Izkinatik begiratu dudanean harmailetan laukote bat aurkitu dut.

Jaione, Karmele, Izaskun eta Haizea tertulian ari dira. Ni ikustean lauretako batek “hemen dator” esan du. Espero nindutela dirudi, beraz. Izaskun aspaldi etorri gabea zen. Korroan jarri naiz ni ere eta azelerazioa gainetik uxatu ezinda “hemen nabil, inora ezin iritsita” bota diet, arratsalde onak eman ostean. Bileratik natorrela esan diet, lehenik eta behin. Hortik abiatuta euren jakin-mina asetzeko tartetxo bat hartu dugu: tesia zer moduz doan, ea astero biltzen garen, zertan ari ote naizen, amaitzeko eperik ba ote dudana, ... Halakoak galdetu dizkidate. Izaskunek, aurtan oraindik ere etorri gabeak, “zeren inguruan ari zara lanean?” ere bota dit eta nik “emakumea eta pilota” esan diot. Galderei nola erantzun bi segundoan pentsatu ostean, batez ere zenbait informazio ematea ez zaidalako komeni momentuz, nik erantzun diet aste honetan zortzi orduko saioak ari naizela egiten, gutxi gorabehera, artikulua bila eta ingelesez irakurtzen nabilela. Hori entzun eta halako batean Karmelek, borondatetsu, “orduan zuri zer komeni zaizu, guk emakumea eta pilotaren inguruan artikuluren bat ikusten badugu jasotzea?” Haizea aurreratu zait eta “noski, baietz!” erantzun dio. Nik ezer ikusten

badute eta nahi badute ekar diezadaketela esan diet, ziurrenik nik ezagutuko baditut ere. Emakumeek interesa eta laguntzeko asmoa erakutsi dizkidate eta horrek poza eta irri txiki bat eragin dit, euren jarrerak asko lagundu eta lagunduko baitit hemendik aurrera ere, antza. Bejondeiela!

Haizeak hizketaldian gustura ari bagara ere “hasiko gara berotzen?” bota digu eta hizketan ari garen bitartean ekin diogu beroketari.

Beroketa

Orkatilak, belaunak, besoak, eskumuturrak, etab. biratu eta luzaketa pare bat egin ostean “korrika pixka bat egingo dugu?” entzun orduko hasi gara kantxan bueltaka, gorputza martxan jarri asmoz. Izaskun hasi da aurretik eta Karmele, Jaione eta ni atzeraxeago, hizketan. Izaskun lehenago geratu da, harmailetan bigarrenez Haizearen parera iritsi garenean-edo. Beste hirurok, aldiz, beste bizpahiru itzuli eman ditugu, besteak beste erabakitzeko izaten ditudan eta dituzten zailtasunez, eta Izaskun eta biak hizketan ari diren gunean amaitu ditugu itzuliak.

Beroketa amaitzeko ezker hormaren aurka piloteoan aritzea baino ez zaigu falta. Horretarako Haizeak eskuan bi pilota hartu ditu eta bana eman digu bikote bakoitzari. Gertuen jarrita gauden moduan osatu ditugu beroketako taldeak, ohi bezala. Karmele eta Izaskun eta Jaione eta biok (B.K. Askotan bezala) hasi gara. Eurek frontisean ekin diote piloteatzeari eta guk atzean, ezker hormaren aurka, 6a eta 7aren inguruan dihardugu. Haizea, aldiz, batez ere aurrekoen inguruan dabil. Jaionek oraindik ere ni mundu honetan sartu izanaz zerbait jakin nahiko lukeela dirudi eta nik gutxi gorabehera tesia egiteko erabakia hartzera nondik iritsi nintzen esan diot: federazioko 3 urteko jarduna eta bertatik sorturiko kezkak, aldatu beharrarekin batera. Horrekin batera “saiotetan gustura aritzen naiz zuei eskerrak” esan diot, dena gogorra ere ez dela adierazi nahian, eta bere aurpegiko keinuei begira, irribarre zabal bat atera zaiola esango nuke, hitz horiek gustura entzun dituela esango nuke. Egia esan, hala da eta eurei ere jakitea komeni zaiela pentsatzen dut. Horrez gain beste zenbait kontu ere jorratu ditugu, giro ezin hobean eta gustura aritu naiz ni behintzat, ez baikara isildu ere egin hasi garenetik entrenatzaileak amaitu eta beragana biltzeko adierazi digun arte.

Hasi eta berehala Haizea gure inguruan dabilela aprobeztatuz asteburuko partidaren inguruan galdetu diot nik eta Jaionek esan dio “egunen batean joan beharko gara zure partidaren bat ikustera. Esan beharko diguzu” eta honek irribarre egin du. Asteburu honetan Orion jokatzekoa omen da. Nik esan diot “berak ziurrenik ez, baina, nik esango dizuet” irribarrez, adarra jo asmoz, eta hori ez dela bidezkoa erantzunda egin du Haizeak aurreranzko bidea.


Gu berotzen aritu garen bitartean Haizea, tartetxo batean, frontisean saioan erabiliko ditugun marrak jartzen aritu da, aurreko astean bezalatsu. Hori amaitu eta handik pixka batera berriro ere kantxan elkartu gara bostok, lau ikasleak eta artaldeko artzaina, zati nagusiari ekiteko pronto.

Ariketak

Gerturatu bezain pronto ohartu naiz/gara aurreko asteko ariketarekin ekingo diogula jardunari, marrak leku antzekoan daudelako jarrita. Haizeak, ordea, “gaur marrak

zuzenago jarrita daude, eh” esan du eta nik, mingainari ezin horzkarik egin, nonbait, “zer, metroarekin aritu al zara neurtzen?” bota diot. Hark, berriz, “ez, pausuekin neurtu dut” jakinarazi digu. Aurreko astean ariketa itxuran atera zela esan dute emakumeek, gustura dirudite. Elkartruke laboru honen ostean ekin diegu ariketei.

1. Frontisa hiru gunetan banatuta, ezkerrean, eskuinean eta erdian. Gutako bakoitza gunen baten parean jarrita, erdiko gunean bi jarriko dira, erdikoek erdikoa ez beste bi gunetara bidera dezakete pilota (ezkerrera edo eskuinera), eta beste bi alboetan daudenek, berriz, erdiko eremura baino ez.



Aurreko astean eginiko ariketa dela esan du Haizeak eta hasieran pixka bat probatzen hasi ondoren bizitzekin egingo dugula. “Gaur bi bizitza izango dituzue, propiorik gabe, eta ez da negoziatzen” bota digu kopuruaren berri emateko.

Ni ezkerrean, Jaione eta Karmele erdian eta Izaskun eskuinean kokatuta hasi gara jolasean. Erdikoek huts pare bat egin dituzte jotako lehen pilotakadetan eta zailena zein gunen ote den dudatan hasi da Izaskun, Haizeari galdezka. “Erdikoa ote da? Horkoak kolpe gehiago egiten ditu”. Haizeak niri begiratu dit, galdezka ari balitzait bezala, eta nik, berak bakarrik entzuteko moduan, “nik ez dut uste, ezkerrekoa zailagoa da” adierazi diot, berak informazioa unean bertan ederki jasoz. Kolpe batzuk egin eta jarraitasun pixka bat lortu dugunean “orain bizitzekin hasiko gara” jakinarazi digu Haizeak. Probatzeko ariketan zehar ere lehen hutsa egin orduko Jaionek “nik bizitza bat” esan duela ohartu naiz eta “oraindik ez gara bizitzekin hasi” erantzun diot nik. Haizeak ere berdina esan dio.

Bizitzekin hastean adierazi du gunen bateko kideak bizitza guztiak galduta geratzen gunen hori ezabatu egingo dela eta beste gunetara trukatu beharko direla kolpeak. Nik, orduan, “erdikoa kanporatzen bada erdikorik ezingo da erabili?” galdetu diot bada ez bada ere, hala den ustean, baina, zalantza guztiak uxatzeko asmoz. Berak erantzun dit “bai, hala da, erdikoa ezingo da erabili. Astelehenean iritsi ginen egoera horretara eta horrela egin genuen. Eskuinekoak derrigorrez ezkerreara bota beharko du eta ezkerrekoak derrigorrez eskuinera”.

Lehen jokoan lehengo postu beretan hasi gara: Izaskun eskuinean, ni ezkerrean eta beste biak erdian. Hasi eta niri egokitu zaidan bigarren pilotakadan horma bikoa egin dut nik, frontisean erdiko eremua erabiliz eta Jaione eta Karmele erabat ezustean harrapatu ditut. Inork ez zuen halakorik espero eta ni ere ez naiz oso konforme geratu nola irten den ikusita (B.K. Ah! Ez nuen egin behar!), egia esan. Horren harira Izaskunek “horrek ez du balio, hori ez da kontatzen” bota du. Karmelek, berriz, “abisatu gutxienez” esan du eta Jaionek esan du berak bizitza bat gutxiago duela, baina, egoera hotzean aztertuta, neuk esan diot “horregatik ez ezazu kendu, hori ez dugu kontatuko”. Besteren batek “gaiztoa da, eh” gehitu du. Hortik aurrera askoz ere patxadatsuago aritu naiz, nire jarduna jotze hutsera mugatuz, sustoa gorputzetik uxatu ezinik. Barkamena ere eskatu diet, bada ez bada ere, gorputzaldi arraro xamarrarekin geratu bainaiz. Txanda honen amaieran zer pasako eta erdiko gunea izan da inor gabe geratu dena. Beraz, nik derrigorrez eskuinera bota behar dut eta Izaskunek ezkerreara. Erritmo lasaian ari gara

eta baldintza nahikoa txukun bete dugu. Besteak atzean guri begira egon dira eta berehalaxe amaitu dugu.

Bigarren jokoan Izaskun eta biok hasi gara erdian, Jaione ezkerrean eta Karmele eskuinean. Izaskunek erdiko gunea zailena dela esaten dihardu eta nik, aldiz, “zaila da ezkerretik eskuinera botatzea” esan diot eta hura “nik lehen behin lortu dut botatzea” eta gustura geratu da. Azkenean Jaione eta biok geratu gara, Karmelek “hilda nago” esanez atzeranzko bidea hartu baitu eta Izaskunek ere bai geroxeago.

Hirugarrenean ni berriro ere erdian geratu naiz, Jaione eskuinean, Karmele erdian nirekin eta Izaskun ezkerrean. Laugarrenean eta azkenean Izaskun eta Jaione erdian, Karmele ezkerrean eta ni eskuinean aritu gara. Egia esan bi hauetan ni izan naiz amaierara arte geratu garenetako bat, lehenengo egoeran Jaionerekin batera eta bigarrean, aldiz, Karmelerekin.

Hala ere, emaitzak emaitza, motzak izan dira iraupenez bizitzekin egin ditugun jardunak, nire ustez. Adibidez, frontisean eskuineko gunea joz kontrakantxako marratik eskuinera jotako pilotakada bat baino gehiago izan dira, ez baita erraza muga horietan sartzea. Horrekin bat egin dute besteak ere. Ezkerreko gunetik erdiko baliatuz pilota itzultzea ere ez da hain eroso hormara asko itsatsiriko pilota bat baldin bada jo beharrekoa. Horrez gain, eremu errepikapena ekiditea ere ez zaigu hain erraza egin une batean. Hori hala izanik ere, ordea, ariketaren eremu ezberdinak erabiltzen saiatzeko helburua bete dugun irudipena daukat.

Haizeak errotazio eta konbinazio posible denak egin ditugunean “orain partiduak egingo ditugu. Lehenengo banaka eta gero binaka” jakinarazi digu. Hori entzutean Izaskunek “bai, binaka biziak izaten dira” esan du pozik, behin egin genituenean ederki pasa izana gogoratu.

2. Partidak, 1:1, 5 tantotara. Frontiseko 3 eremuak mantenduz, ezin da pilota aurreko kolpean joan den gunera bideratu. Hala eginez gero aurkariarentzat izango da tantoa.

Nor hasi erabakitzeko Haizeak Karmele eta bioi esan digu gu hasiko garela aurrean. Beraz, pilota hartu eta jokatzeari ekin diogu. Oso-osoa lasai aritu naiz ni, pilota bera dagoen lekura botaz, baina, joko mailan dagoen aldea nabaria da eta azkenean 5-0 amaitu dugu.

Gu aurrean ari garen bitartean atzean piloteatzen hasi dira Izaskun eta Jaione. Halako batean, ordea, Haizeak erdian marra bat jarri eta horma, bertikalean, bi gunetan banatu die: ezkerrekoa eta eskuinekoa. Lehengo ariketako dinamika bera segituta jardun behar dute, batek beti ezkerrean eta besteak beti eskuinera botaz. Gustura dabilta eta irri zipritinak heltzen zaizkigu aurreko gunera ere.

Galtzaileak aurreko eremuan jarraituko duela esan digu entrenatzaileak. Horrenbestez, Karmele geratu da aurrean eta ni joan naiz atzeko eremura, Jaionerekin trukatu lekua. Izaskun eta biok hasi gara, hura eskuineko aldean eta ni ezkerrean, eta angelua geroz eta gehiago zabalduz amaitu dugu, ia-ia luzetara elkarren parean, pilota beste eremura bidaltzekotan. Une horretan Haizearengandik gertu xamar igaro da pilota bat, hau kantxa barruan, 4aren inguruan ari da gainbegiratze lanetan, eta “hemen seguru al nago?” galdetu du. Hori esatearekin batera, bada ez bada ere, kontrakantxan jarri da.

Nik atzetik aurrera begiratzen dut tarteka, partidari ari direnei erreparatuz. Jaioneren tanto pare bat ikusi diot eta nahikoa azkar amaitu dute hauek ere norgehiagoka. Amaitzean Karmelek eman du atzeranzko lehen urratsa, baina, Jaionek esan dio “galtzailea geratu behar da” eta berriz ere bertara itzuli da. Haizeari aipamenen bat egin dio horren inguruan, baina, ez naiz entzutera iritsi. Hala ere, honen erantzuna bai heldu zaidala: “ikusiko duzu, orain irabaztea tokatzen zaizu”.

Azken partidari Izaskun eta Karmele aritu dira aurrean eta ni Jaionerekin aritu naiz pilotakadak eta hitzak elkartrukatur. Atzean hasi aurretik ea lehen ezker aldean aritu den galdetu diot berari, hala ez bada izan lekuak trukatzeko proposatzeko, baina, baietz esan dit eta nik, orduan, “lasai, lasai, ni arituko naiz berriro hemen” esanez erantzun diot. Nahi badut lekua aldatuko didala adierazi dit, baina, ezetz esan diot nik.

Aurreko partidarekin amaitu dutenean denok bertatik pasa garela ziurtatu eta binakako partidari ekingo diogula esan du Haizeak. Horrekin batera frontiseko marrak kendu ditu.

3. Binakako partidak, baldintzarik gabe.

Partidak jokatzeari ekin aurretik bikoteak egitea falta da eta Haizeak Karmele eta biok eta Jaione eta Izaskun jarri gaitu elkarrekin (B.K. Uste dut bete-betean asmatu duela, oreka lortze aldera).

Hasi aurretik azken aholku batzuk eman dizkigu, kokapenak gutxi gorabehera nolakoak diren azaldu eta bakoitzaren eremuak zein diren. Nik Karmeleri esan diot nahi badu atzean hasteko, normalean han gehiago jokatzen dela eta, ezker aldean joera izaten dugulako nagusiki. Beraz, bera atzelari, aurkarietan Jaione, eta Izaskun eta biok aurrelari postuan jarrita ekin diogu. Hala ere, Haizeak esan du “berdin dio, gero lekuz aldatuko zarete. 10’ egingo dituzue batean eta beste 10 bestean”. Orduan erlojuari begiratu diot eta 20.30 direla ikusi dut.

Partidari zehar kokapenekin zalantza bat baino gehiago sortu zaizkie emakumeei, batez ere Jaione eta Izaskuni, bakoitzari zein pilota jotzea dagokion erabakitzerako orduan. Nik, berriz, Karmeleri, konfiantza eman asmoz, esan diot “zuk iritsiko zarela ikusten baduzu eskatu lasai pilota eta ni kenduko naiz paretik, batzuetan bada ez bada joaten naiz eta”. Berak baietz erantzun dit eta nahiko ondo moldatu gara. Izaskun, berriz, zenbaitetan non dabilen ere ez dakiela sumatzen da eta Haizeak une batean partida eten du. “Atzelariak dena ikusten du atzetik eta aurrelariak askotan ez daki non dabilen ere. Horregatik, zuk eskatu pilota jo behar baduzu”, zuzendu zaio Jaioneri batez ere. Izan dira jokaldi xeble xamarrek ere. Adibidez, batean Izaskunek horma bikoa egin du eta begira-begira geratu da, mugitu ere egin gabe. Ni, ordea, jasotzera heldu naiz eta ondorengo pilotakada jotzera ez da mugitu ere egin bera. Hori ikusita barrez hasi gara denok. Beste batean, berriz, nik joan behar izan dut Karmelerena zen pilota bat jotzera, hau aurrez berak eginiko kolpe bati begira geratu baita. Hala ere, gu besteak baino dezente hobeto koordinatu gara.

Markagailuarekin ere izan dugu gorabeheratxoren bat. Izan ere, kontatzen hasi gara eta halako batean 3-1 esan du norbaitek. Karmelek, orduan, “kontatzen ari al gara?” galdetu du eta “bai, baina besterik gabe” erantzun diogu. Hala ere, une batetik aurrera nik galdu dut kontua eta amaitzerako inork ez dauka tantoen berri. Sakea tantoa lortutakoak egin

du, baina, hortik aurrera, auskalo (B.K. Lehiakortasun mailaren ispilu da hau ere, ala?). Partidan zehar Izaskunek pilotakada dezente jo ditu airez, Karmele ere pilota lasai datorkionean ondo moldatu da eta nik oso lasai jardun dut, aukera izan dudanean pilota pixka bat biziago eta indartsuago bideratuz Jaioneri, berak ere pilota apur bat zailxeagoak eraman izanaren inpresioa eduki dezan.

Haizeak adieraztean postuak elkartrukatu ditugu (B.K. 20.40 nire erlojuan) eta berriro ere partida jokatzeari berrekin diogu. Aurrean Karmele eta Jaione eta atzean Izaskun eta biok hasi gara. Tanto batzuk nahiko luze, piloteatu eta lehiatuak izan dira eta horiek amaitzean are gusturago sumatu ditut emakumeak, “tanto hau gogorra izan da” bezalakoak entzuteraino. Haizeak une batean, pilotaren bat goiko txapatik gorago joan dela ikusita, “batzuetan goiko txapatik goragoko tarte hori engainagarria izaten da” bota du. Karmelek baiezeko keinua egin dio buruarekin. Hortik pilotaleku ezberdinetako goiko koltxoak aipatzera heldu gara eta hortik Bilboko Miribilla pilotalekuaren dimentsioetara. Kasu honetan Karmele izan da gaia hizpide bihurtu duena, hura ikusten izan zela esan duenean. “Durangoko Azoka garaian Irujo eta Aimarren arteko pilota partidurako aukeraketaren harira joan ginen eta a zer muntaia egin duten”. Beste inork ez dugu bertatik bertara ezagutzen, baina, 3000 ikuslerentzako lekua duela aintzat hartuz “hura beteta jokatea polita izango da, baina, hutsik dagoela erraldoia geratuko dela iruditzen zait” bota dut nik. Hortik marketina eta enpresen irabazi asmoak bihurtu ditugu mintzagai. Izaskunek esan du “ziurrenik ez da final gehiago jokatu Atanon” eta Haizeak berari Atano gustatzen zaiola esan du. Hizketan hasi gara, jokatzeari utzita, tarte horretan eta entrenatzaileak une batean “beno, gero jarraituko dugu hitz egiten eta segi jokatzeko” esan eta jokoari berrekin diogu. Kuriositateari eutsi ezinda, zer ordu ote den begiratu dut eskumuturreko ordularian: 20.47. “Azkeneko tantoak jokatu dituzue” ere gaineratu du. Partida honetan Karmele airez ere sartu da aurreko pilota batzuetara, Izaskun ere ongi moldatu eta Jaione ere bai. Haizeak “azkeneko tantoa” esan duenetik beste pare bat ere jokatu ditugu, pena ematen diola esatearekin batera. Bigarren partida honetan tanto bakar bat ere ez dugu kontatu, egia esan.

Amaitu ditugu gaurko pilotarekikoak. 20.50 dira. Harmailetan paletak eta pilotak utzi eta ezker hormara hurreratu gara, ohi bezala, saioa luzaketekin amaitzeko. Atzera bidean goazela Haizeak bota digu “laurekin gusturago aritzen zarete seirekin baino, eh” eta Izaskunek “bai, noski, gehiago jokatzeko” esan dio. Astelehen iluntzeko saiora ere hiru ikasle bakarrik agertu zitzaizkiola jakinarazi digu ondoren.

Luzatu bitartean umeak eta hauen adina, kirol ohiturak, Hernaniko jendea eta ezagunak eta gai bat baino gehiago izan ditugu ahotan. Ni batez ere Izaskun eta Jaionerekin aritu naiz eta hurrekin gauzak egitea zaildu egiten dela esan dit bigarrenak. “Lehen bikotearekin joaten nintzen korrika egitera eta orain hori zer den ere ez dakit. Astean egun bat libratzen badut gustura. Palan aritzen gara orain batzuetan. Aurreko igandean aritu ginen eta hor goiko toldoan geratu zitzaigun pilota” esan du. Nik ez dela erraza esan diot eta Izaskunek, aldiz, “gutxiena uste duzunean, baina, gertatzen dira horrelakoak”. Hurrekin jarduera fisikoa egiteko aukeraz, mendi irteerez, bizikletan ibiltzeko zailtasunez eta ohitura horien inguruan ere egin dugu hitz aspertu bat.

Zortzi bat luzaketa egin eta norbere trasteak hartzera hurbildu gara harmailetara, etxerako bidea hartzeko. Jende berdina ezagutzen dutela ohartu dira Karmele eta Haizea, besteak beste bere semearen neska laguna, eta jendea ezagutzeaz ere aritu dira azken unean. “Nik asko ez ditut ezagutzen eta Usurbilgoak direla esaten didate” bota du

bakarren batek. “Nik lehengoak ezagutzen ditut, baina, jende berri dezente etorri da azken urteetan eta asko ez ditut ezagutzen” besteak. Azkenean, elkar datorren astera arte agurtu dugu, “aste ona pasa” batekin. Haizearekin beste hitz bi egin eta autoan sartuta grabagailua eta motorra, biak jarri ditut lanean, garunarekin batera.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Saioa lasaia izan da eta boskotean oso gustura sentitu naiz. Gaur ere irten da dena lotzea erraza ez dela, amatasuna berriro ere, gainerako betebeharrak. Emakumeak eurak ere gustura ikusi ditut, bai ariketetan eta zer esanik ez binaka jokaturiko partidetan. Emakumeak ere geroz eta talde izaera handiagoarekin ikusten ditut nik, bai pilotalekuko egonaldian, bederen. Hau ere ari ote da emakume pilotarien talde izaera hartzen? Oso egun gutxitan errepikatzen da jende bera, hala ere, eta zalantzak ditut horrek ez ote duen eragingo. Aztertzen eta nire zein euren irudipenak biltzen jarraituko beharko dut, beraz.

Dagoenean bon-bon

Zizurkilgo gorabeherak astea apur bat narrastu badu ere, bi saio izan ditut eta hirugarrena egiten utzi ez digutelako, itxuran joan zaizkit egun eta orduak. Saioetatik informazio apur bat eta ideia batzuk ateratzen hasi naizen irudipena daukat, oraindik ere hala dela baieztatu eta frogatzea falta arren, eta kontu horri dagokionez gustura nabil. Ea hala jarraitzen dudan!

Gainera, ohartzerako pasa zaidan beste aste bat da bukatzeaz den hau. Esku artean ditudan zeregin guztietara ezin ailegatu nabil. Txoko guztietara trena geltokitik irtetear dela iritsi izanaren sentipenarekin nabil, azken kanpai hotsarekin batera, eta zenbait kasutan dagoeneko ihes egin didanean. Alegia, hurrengorako utzi beharrean. Egia esan, ez zait denbora pasarako tarterik geratzen, behintzat. Zer da hau?!

Aste honetako kontu eta komeriak bukatuta, konforme nago. Hurrengo astekoak etorri arte itxaron beharko da orain, haiek ere uste eta espero baino lehen izango baititut esku artean. Ahal den heinean deskonektatzea ez da txarra izaten, beharrezkoa ere bada arnasberritzeko, baina, igandean ere hitzordua dut elkarrizketa bat egiteko, beraz, larunbatean aprobetxatu beharko dut bestelakoetarako. Zer egingo zaio ba, esaera zaharrak ere hala dio: dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon. Niri, ordea, bertsio hau egokiagoa dela iruditzen zait: dagoenean bon-bon, ez dagoenean hor konpon. Eta orain badago, beraz, eutsi, Uxue!

16. astea. HASTERAKO AMAITUTA

Urtarrilaren ostean otsaila datorrela ikasi nuen orain auskalo zenbat urte, ume moko bat nintzela, eta oraindik ere hilabeteen segidak hala jarraitzen du. Astearen erdialdera emango diogu ongi-etorria urteko hilabeterik motzenari, aurten ohi baino luzeagoa izango den arren. Orduan, hala ere, ez dakit hain azkar igarotzen ote zitzaizkidan egun eta orduak, arrapaladan. Ziurrenik hala izango zen, baina, oso urrun geratzen zaizkit kontu haiek eta ezin neure kabuz frogatu.

Aurreko egunetako lanak konforme antzean amaitu eta astelehena ere patxada puntutxo batekin hasi dut. Logalea eta nagikeriak lehenbailehen alboratzea lortu dut, behinik behin. Zeregin eta betebeharrak belarrietatik irten arren badirudi neure buruarengan konfiantza apur bat badudala eta horrek segurtasun pixka bat ere ematen dit. Beraz, lan-kargari aurrez aurre begiratu eta asteko ibilerari ekiteko unea heldu zait. 3 saio, 3 herri, hogeita piku emakume, bi entrenatzaile, ehunka kilometro, hainbat bidaia ordu, etab. Noan ba!

Kantxan hasi, kontrakantxan amaitu

Asteburuan, astegunetako antzera, firin-farin ibilita, ia geratu ere egin gabe, heldu zait ilbeltzaren azken astelehena. Lanari neurria hartzen hasi asmoz ekin diot asteari ere, bezperako elurrak ahaztu eta gaurko hotza zein izotzari aurre egin nahian. Egia esan, kostatzen zait autoa martxan jartzea, 0°Cekin egiten den izotza ez baita txantxetako izaten.

Gaur ez dut aurrez beste jarduerarik egin, bezperan hala erabakita. Hasiera batean aurreko astetik igerilekukoa mugarrirako lez jarri banuen ere, oineko traba bat sumatuz egunak neramatzan eta igande iluntzeko korrika saioa amaitu ezinda geratu nintzen, minaren minez bertan behera utzita. Hortaz, bada ez bada ere, gaur saiora etorri naiz zuzenean, lo gehiago eginda, baina, oinak nola erantzango didan kezka neurekin dakardala. Eutsiko ote diot?!

Kiroldegiko sarrera

9.25. Kiroldegiko atea gurutzatu eta laukote bat dagoeneko sarreran dago: Gemma, Malen, Rakel eta Irati. Nirekin boskotea osatu dugu eta denei egun onak ematearekin bat zertaz ari ote diren asmatu nahian hasi naiz. Ohartu naiz elurra izan dutela hizpide, bakarren batek “atzo Adarrara joan al zineten?” galdetu baitu. Ezetz erantzun dute guztiek, eguraldia ere ez zegoela oso atsegina, nahiz eta Malenek esan duen senarra autoa eta semerik txikiena hartu eta ea inguruak nola zeuden ikusi asmoz abiatu eta Lekunberriraino heldu zela. Besteren batek esan du ez zegoela eguna kanpora haurrekin irteteko oso atsegina eta hala aritu gara honetaz eta hartaz. Hizketan ari garela nahiko azkar agertu da Ines, igerilekutik bueltan. Nik berehala ikusi dut eta besoa jasoz agurtu dut. Ondoren Miren etorri da eta gure taldekoari “egun on” esan ostean ahizparena abiatu da. Gemmak orduan esan dio ea guri ez digun kasurik egin behar eta honek, irribarrez, gure borobilerara hurbilduz “egun on” esan digu berriro eta gu asko gaudenez ahizparena doala esan digu, umoretsu. Ainara izan da heltzen hurrena. Ainarak *Kronika* ekarri du esku artean. Ea zer albiste dakarren galdetu diote eta honek, oraindik, ez duela begiratu. Ea bere zein seme-alaba agertzen den ere esan diote, adarra joz, askotan ateratzen omen direla eta. Aurrekoan besteren baten semea agertu zela kontatzen jarraitu

dute, giro onean. Denak agertzen omen direla erantzun du Ainarak, hernaniar denak, eta hori entzutean nik “hainbeste izanda ilaran azaldu beharko zarete” erantsi dut.

Saioa bera izan da bertaratzen hurrengoa. Honek asteburuan paletako bi partida zituela jakitun naiz ni eta sartzean “izugarritzko agujetak ditut” bota du. Ainarak, broma giroan, esan dio atezainari eskatzeko zuzenean sartzeko aukera emateko, eskailerak eta beheko pasabidea igaro beharrik gabe pilotalekurako bidea eginez. Izan ere, sarrerako atezaindegiaren eskuinetara badago beste ate bat, baina, ez digute bertatik sartzen uzten guri, ez baitago tornutik pasa beharrik bertatik igarotzeko. Nik, berriz, “asteburua oparoa izan al da?” galdetu diot eta berak irribarrez baietz erantzun dit, bitik bi partida irabazita dagoela, gustura, gainera. Hala ere, beso eta bizkarrak hainbeste ez, baina, ipurdi aldea erabat gogortuta duela esan digu. Jone eta Zuriñe ere heldu dira sarrerara, goiko eskailerak jaitsita, eta hizketan ari garela, halako batean, Saioak guri zuzenduz, “zer, sartu egin beharko dugu, ala?” esan eta barrurako bidean abiatu gara banaka-banaka.

Saioarekin parez pare jarrita egin dut bidearen zatirik handiena, tropelaren amaiera aldera. Atzetik Jone eta Zuriñe datoz eta aurretik doaz beste guztiak. Azken atera heltzean Irati ari da atezain lanak egiten eta gu noiz pasako zain dago. Azkenean heldu gara denok pilotalekura.

Pilotalekua

Sartu eta norbere trasteak harmailetan utzi ondoren, bi hitz egiten hasi eta beroketako lehen zatiari ekiteko unea heldu zaigu. Inork ez du falta diren Naiara eta Joanaren inguruko aipamenik egin eta korrika saiotxoari ekin diogu, luzapenetan hasi gabe.

Beroketa

Ohi bezala, korrika saio bat egin dugu. Ni Inesekin aritu naiz, hizketan, taldea itxiz. Besteetan igerilekutik ere pasa izan naiz aurrez, baina, gaur ez eta hari esan diot “hankako minez nabil eta atzo korrikako entrenamendua amaitu ezinik bukatu nuenez ez etortzea erabaki nuen”. Korrika saioa amaitzerako hasi zait ezkerreko orkatilaren atze eta ezker aldeko traba bere berri ematen, eta erdi herrenka eta kezka areagotuta amaitu dut.

Korrika saioaren ondoren, ohi bezala, mugimendu artikularrak, mingaina dantzatzuz. Lehen Saioak erabat zuzentzen zituen saio hauek ere, baina, gaur, dagoeneko, gutxi gorabehera bada ere, dinamika barneratuta, ez du berak markatu erritmoa. Amaitzeko paletak banatu ditu, batzuk eurenekin ari dira (Jone, Malen eta Miren), eta gertuen gauden moduak aprobetxatuz binaka ezker hormaren aurka pilotatzeari ekin diogu.


Ni eta Ines batera egokitu gara eta jokatzeko pilota jasotzen ere azkenak izan gara, hitza hitzari josiz gustura dihardugu eta. Pilota hartu eta kontrakantxatik kantxaren atzealderako bidean jarri gara, orain ere jardunean. Errebotetik gertuen Ainara eta Jone hasi dira, gu hauen aldamenean, gure eskuinetara Gemma eta Irati, Malen eta Rakel hauen eskuinean eta frontisetik hurbilen, aldiz, Zuriñe eta Miren. Gaur hamar kide gaude saiorako. Saioa bien bitartean eremuak zehazten hasi da zinta esku artean hartuta, aurreko eremutik hasita. Honek zinta jartzen amaitu eta beste tartetxo batean

pilotakadak eta hitzak elkartrukutzen aritu ostean Saioak kantxan 4aren ingurura deitu digu denoi, saioari ekiteko.

Ariketak

Denok elkartu orduko pilotak berari eman, Ines ez da ohartu eta hari zuzenean eskatu dio, eta adi-adi jarri gara, borobil erdian.

1. Kantxan hiru lauki daude (ikus irudia): eskuinean eta ezkerrean aurrean bi eta erdi inguruan atzean hirugarrena. Saioak pilota prestatuko digu eta guk honako hau egin behar dugu: lehenengoan airez eskuineko laukian sartu, bigarrenean airez ezkerrekoan eta hirugarrenean botez erdi-atzekoan.



Saioak esan du bakoitzari hiru pilotak jarraian prestatuko dizkigula eta ilaran bigarren dagoenak besteak jotako pilotak jasoko dituela. Ariketa ulertu ote dugun ere galdetu du eta baiezkoa erantzun diogu. Hasteko unean, ilara osatzeko, zenbaitek atzerako bidea hartu du. Jonek, adibidez, hala esan du: “nik lehenengo ikusi/ikasi eta gero egin”. Mirenek ere antzeko zerbaitek adierazi eta ilaran azken postuetarako bidea hartu du. Zuriñe egokitu zait nire aurrean eta honek ariketa egiten hastean esan du ea airez sartu behar ote den, gainera. “Ondoren pinuarena ere egingo dugu” bota du. Ariketa azaltzean ere bat baino gehiago izan dira “gainera, airez?” esan dutenak (B.K. Niri ez zait batere erraza iruditu). Hala ere, Saioak, emakumeak lasaitze aldera-edo “saiatu sartzen” esan du. Hauek saiatuko direla erantzun diote.

Inesi zalantza bat geratu zaio eta nik azaldu diot berriro ere ariketak zertan datzan besteak egiten hasi diren bitartean. Ainara izan da lehena, eta oso urruti ibili ez bada ere, ez du bakar bat ere sartu. Malenek, berriz, haren ondoren hain zuzen ere, lehen biak bete-betean sartu ditu laukietan. Ondoren etorri dira gainerakoak ere eta nire txanda ere heldu da. Nik lehena sartu dut, baina, hurrengoak ez, urrunegi ere geratu ez arren. Atzera ilarara hurbiltzean “indar gehiegi eman diozu” esan dit bakarren batek eta nik txintik ere ez dut esan. Egia esan, oineko traba nabaritzen hasia naiz eta gehiago pentsatzen dut horretan pilotaren nondik norakoan baino. Azkenetakoa izan da Rakel ariketa honetan eta ilaran atzera etorri denean “bat sartzea, behintzat, lortu dut” esan du, gustura. Nik saiatzeak balio duela esan diet eta berak “niretzat airez jotzea bera bada nahikoa lorpen, horrekin nahikoa dut”. Hamarrok burutu dugunean Saioak berriro ere apur bat gerturatzeko esan digu, hurrengoarekin hasteko.

2. Lehengo laukiak errespetatuz, txokotan binaka. Aurreko laukietan pilota airez sartuz gero +1 eta atzean botez sartzea lortuta ere +1. Bikote bakoitza 2 bizitzarekin hasiko da. Bikoteko bat hasiko da kantxan eta kidea kontrakantxan. Batek bi kolpe egitean aldatuko ditugu rolak.

Saioak bikoteak nola osatu erabakitzeko “lehengo bikoteetan jarri” esan digu eta denok beroketan aritutakoarengana hurbildu gara. Azalpena ematean, horrez gain, esan du guk laukietan sartzeaz gain ekidin dezakegula kideek sartzea, Mirenek ahots gora “ah, bai,

airea erabiliz” esan du. Era berean, entrenatzaileak gaineratu du “atzeko karratuan airez sartzen baduzue ere bizitza bat gehiago emango dizuet”.

Ines eta biok, Zuriñe eta Miren, Ainara eta Jone, Irati eta Gemma eta Rakel eta Malen arituko gara. Hasteko bostekoan ateratzeko esan diot Inesi eta ni kontrakantxan geratu naiz, beste laurekin batera. Besteren artean Malen eta Miren ere inguruan ditut.

Hasi eta dinamika ulertu eta gauzatzen hasteko ez dugu egokitzapenik behar izan, aurreko astean ere binaka jarrita osatu genituelako txokotan joko pare bat. Laukietan sartzeko nahia oso urrundik nabari zaigu eta zenbaitetan besteak ez sartzeari arreta handiagoa jartzen diogu geronek sartzeari baino. Jokoko une batean Gemma, Ainara eta hirurok elkarren ondoan suertatu gara, ni sakea egitera noala. Ainarari Jonek kontrakantxatik esan dio laukien inguruko zerbait eta nik “ni saiatuko naiz sar ez dezan. Nik ez dut sartuko, baina, zuek ere ez” bota diot irribarrez. Gemmak, esan digu “hori entzunda orain askoz gehiago motibatuko da”. Bitartean gutxika-gutxika bizitzak gutxituz doaz eta Malenek-eta bakarren bat sartu dutela iruditu zait, baina, bestela gauza gutxi. Kontrakantxan begira nagoela Saioa daukat aldamenean eta honi “azkenean gehiago ari gara laukietan sartzera benetan jotzera baino” esan diot eta honek baietz erantzun dit. Tartean, ordea, besteek sar ez dezaten saiatu eta airez huts egindako kolpeak izan dira eta egia da jokoan zehar aireko kolpearen erabilera ohikoa baino handiagoa izaten ari dela ere. Azkenean Rakel eta Malen eta Ines eta biok geratu gara, besteak bizitzak galdu eta atzeko eremura joan direlako pilotatzera. Guk oraindik bi bizitzak ditugu, ez dugu hutsik egin, eta eurak ere bai. Rakelek nirekin egokitu denean berekin ari naizela aintzat hartzeko esan dit, erdi erregutzeko aurpegia jarrita, eta nik, “bai, lasai egon” esan eta pilota poliki eta bera dagoen inguru xamarrera botaz erantzun diot. Azkenerako, eurek zituzten bi bizitzak galdu dituzte eta lehenengo txanda modu honetan amaitu dugu.


Saioak atzekoei deitu die eta berriro ere bigarren aldiz errepikatu dugu aurreko joko bera, baldintza beretan. Kasu honetan ere Inesi esan diot sartzeko, nire oina kexatzen hasita dagoelako, eta ez dudalako gehiegi ere behartu nahi. Emakumeei gustatu zaie jokoa eta irriz ekin diote bigarren honi ere. Ainarak laukietan sartu du behin baino gehiagotan, baina, ondoren, Jonek, huts eginez galdu ditu bizitza horiek. Irriz eta umorez hartu dute egoera bera. Bigarren honetan ere azken txanpan geratu gara geu ere. Inesek azkar xamar egin du huts bat eta bizitza bakarrarekin geratu gara, baina, nik laukian sartuz errekueratzea lortu dugu. Amaieran Gemma eta Irati eta gure bikotea geratu gara jokoan eta berriro ere eurak izan dira bizitzarik gabe geratu direnak. Amaitu eta atzekoak aurrera etorri zain gauden bitartean Inesek galdetu dit “zenbat bizitza genituen?” eta nik “hiru” erantzun diot. Berak “denak zuk lortutakoak izango ziren, nik ez dut lortu” gehitu du.

Joko hauetan zehar norberak bizitzak lortzeaz gain aurkariak euren zakua bete ez dezaten bat baino gehiago saiatu gara. Besteak beste, Ainara, Malen eta hirurok laukien inguruan kokatuta behin baino gehiagotan aritu gara, besteen pilotakadak barruan sartzera aireko kolpea erabiliz ekidinez. Horietakoren batean bakarren batek zerbait ere esan dit, umore onean noski, eta nik irribarrez erantzun diet kasu guztietan. Airez oso gutxitan sartzen direnek ere erabili dute aireko kolpea, egia esan.

Denok berriro ere 4aren inguruan elkartu garenean Saioak partida egoerak landuko ditugula jakinarazi digu, bikoteak mantenduz.

3. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, hiru gunetan (ikus irudiak). Gune aldaketa Saioak agindutakoan izan da, 5' igarotzean.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2. Aurreko laukietan airez pilota sartzea lortuz gero +1. Atzekoan sartzea lortuz gero ere bai. Jokoak segi egingo du laukian sartuagatik ere, tantoak amaitu arte.
- Erdikoan (5-7), 1:1. Kide bat marratik eskuinera eta bestea ezkerreara. Ezkerreko gunetik eskuinekora eta alderantziz bota behar da pilota.
- Atzean (8-errebotea), 2:2. Kide bat eskuinean eta bestea ezkerreko eremuan, bikote bakoitzeko. Bakoitzak eremu batean botea eginiko pilota guztiak jotzeko ardura izango du. Airez edozeinek jo dezake bi eremuetan.



Saioak azalpena eman duenean ea ulertu dugun galdetu digu eta ni une horretan Inesi lasai egoteko esaten harrapatu nau. Ea nik ulertu dudan galdetu dit, zuzenean, eta “bai, bai, nik bai” esanez amaitu da hizketaldia. Bakarren batek, adarra jo asmoz, “zuk ulertu ez baduzu...” erantsi nahi izan du. Inesek zalantzak ditu, baina, unea heltzean neuk azaltzea erabaki dut, berak ere “gero azalduko didazu” esan baitit (B.K. Lehen unean gauzak ulertu eta barneratzea gehiago kostatzen zaie zenbaiti, baina, ohituko dira, edo ia ohituta daude, egia esan. Hori da, besteak beste, Inesen kasua).

Irati-Gemma eta Jone-Ainara hasi dira aurreko eremuan. Ines eta biok erdikoan egokitu gara eta Malen-Rakel eta Zuriñe-Miren, berriz, atzekoan lehen partidetarako. Erdiko eremuan Ines ezkerrean eta ni eskuinean kokatuta ekin diogu guk. Ariketa erraza da egokitu zaiguna eta pilota alde batetik bestera bideratzeko arazo handiegirik gabe ari gara, nahiz eta balitekeen pilotaren batzuk 5eko marratik eskuinerago joatea, tarteka. Halako batean, guri une egokia iruditzean, aldez aldatu gara eta hala jarraitu dugu Saioak aldaketa egiteko agindua eman arte.

Lehen errotazioan atzeko eremuan Malen-Rakel bikoarekin elkartu gara. Zuriñe eta Miren doaz aurreko eremura eta Saioa bera hurreratu zaigu hasi aurretik. Niri esan dit “gero nik jokatuko dut zure ordezt”, hankako minari erreferentzia eginez, baina, nik “lasai, lasai, moldatuko naiz” esan diot. Ondoren jakin dugu Rakel eta Malen izan direla berez eremu horretan irabazi dutenak, baina, besteak aurrera joanak dira dagoeneko eta Malenek “berdin du” esan du. Atzeko eremuko bigarren partida da eurena eta zer egin behar den galdetzean esan digute eurek bikoteko biak eremu berean kokatuz jokatu dutela. Nik esan diet nik ulertu dudala bikote bakoitza gune ezberdinetan aritu behar zela, baina, euren zalantza aurpegia ikusi eta lasaitu nahian “lasai, berdin du, ari zineten bezala jokatuko dugu, kontua jokatzeko da eta” esan eta jokatzeari ekin diogu. Gu eskuineko eremuan kokatu gara eta eurak ezkerrekoan. Ni oineko oinazeak geroz eta nabarmenago sentitzen hasi naiz eta kezka neuretzat gordeta ari banaiz ere geroz eta zailagoa zait min aurpegia eta herrena gordetzea. Hala ere, ongi moldatu gara eta itxuran aritu gara jokatzeko. Modu honetan jokatu dugunez, erdi aldean lekuz aldatu gara, gu ezkerreko eremura eta eurak eskuinekora igaroz. Ezkerreko gunean txost

egindako pilotakada bat baino gehiago izan dira eta horiek eramatea oso zaila dela erabaki dugu laurok, aho batez. Azkenean gu nagusitu arren eurak joan dira aurrera eta gu geratu gara atzeko eremuan.

Bigarren txandatzean Gemma-Irati etorri dira erdiko eremutik eta Saioa ere bai. “Nik joko hau ez dut horrela azaldu” esan du eta nik “bai, badakit, baina, eurak horrela aritu direla eta berdin jarraitzea erabaki dugu” erantzun diot. Orduan, berriro ere eremu bakoitzean bikoteko bat kokatu behar dela esan digu eta ondoren, lauroi zuzenduz, “zuek erabaki nola jokatu” bota digu. Saioaren erreakzioa ikusita “zuk azaldu bezala jokatuko dugu” esan eta bakoitza gune banatan kokatu gara. Gure kasuan Ines ezkerrean eta ni eskuinean eta aurkariei dagokienez, berriz, Gemma ezkerrean eta Irati eskuinean. Nik geroz eta nabarmenago egiten dut herren, pilota jotzeko unean ia hanka bakarraren gainean bermatuz, horrela mina txikixeagoa baita, eta Ines bera ere kezkatzen hasi da. Nik lasai egoteko esan diot eta jokatzen jarraitu dugu. Ez ditugu postuak aldatu guk eta aurkariek ere ez, beraz, joko guztian mantendu ditugu gure kokapenak.

Hirugarren errotazioan frontiseko eremura joan gara eta Saioak dagoeneko esan die Malen eta Rakeli oker aritu direla lehen atzeko eremuan. Malenek niri begiratu eta “zuk esan bezala al zen?” galdetu eta nik baietz erantzun diot, baina, lasai egoteko, jokatu dugula eta hori dela helbururik nagusia. Saioak Inesi eta bioi galdetu digu ea zein den politagoa eta “bigarren egoera dinamikoagoa da” erantzun diot nik, Inesek ere bakoitza eremu banatan politagoa iruditu zaiola esan duen era berean. Aurreko eremuan Ines jarri da atzelari, Malenengandik gertu, eta Rakel eta biok aurrelari postuetan gaude. Nik ahalik eta gutxien mugitzeko asmoa dut eta eskuineko laukira doazen batzuk mozteaz gain ohi baino gutxiago mugitu naiz ezkeraldera, egoera honetan hori hobe dela usteta. Hasieran 4-1 aurreratu dira beraiek, pilota pare bat laukietan sartzen asmatu baitute. Hala ere, nik eginiko tanto batzuei eta euren behartutako huts batzuei esker 4-4 berdindu eta hortik aurrera koskatxoa atera eta markagailuan aldetxoarekin amaitu dugu partida. Ni, ordea, geroz eta okerrago nago eta partida amaieran makurtuta eta hankari helduz amaitu dut. Saioa kontraktxatik “Uxue, ni sartuko naiz” esanez aritu da une batean eta Inesek, berriz, “hau eta ondoren atsedena” esan dit. Nik, ordea, neurean jarraitzen dut eta aurreko bigarren partida jokatzen hasi naiz. Partidaren une batean, baina, mina jasangaitza bihurtu zait eta nahi ezta ere Saioari eman diot erreleboa, nire gogoz kontra izan bada ere. Ni kontraktxara hurbildu eta koskan eserita geratu naiz euren jokoari begira, burumakur eta minez. Erlojuari begiratu diot eta 10.50 ikusi dut.

Aurreko euren partida bukatu dutenean Ines hurbildu zait eta “zuk merezi duzu ipurtzulokoa” esan dit. Nik esan diot ez nuela utzi nahi, baina, mina nagusitu zaidala eta ezin nuela jarraitu.

Saioak berriro ere bere ingurura deitu ditu guztiak, Inesek ordua ikusita, eta nik ia ez dudanez jokatzen jarraituko, Saioari esan baitio kafea hartzera abiatuko dela. Entrenatzaileak berak jokatuko duela esan dio, baina, honek ezetz eta orain, beraz, zortzi pilotari ari dira jokatzen. Hori ikusita, Saioak esan die aurrez elkarren aurka aritu gabeko bikoteak elkarren aurka arituko direla.

4. Aurrean 2:2 baldintzarik gabeko partidak.

Atzeko laukotea marra diagonal mantenduz ari da, baina, aurrean binakako partidak jokatzen hasi dira Miren-Zuriñe eta Irati-Gemma. Saioak zinta zati batzuk kentzeko

aprobetxatu du lehenengo eta ondoren niregana hurbildu da, kontrakantxara. Aurreko partida amaitu dutenean atzekoekin aldaketa egin eta aurrean beste laukotea hasi dira: Jone-Ainara eta Malen-Rakel.

Kontrakantxatik kideei begira egoteak ez dit graziarik egiten eta are gutxiago minak eraginda hartu beharreko erabakia izan denean. Hala ere, hala suertatu da eta saiatu naiz, buruak uzten didan heinean, zuzeneko behaketa egiten. Atzean saltsan dabilta, irribarrez eta aurrean ere gustura, nor baino nor, elkarri bihurrikeriak egiten saiatzen.

Saioa eta biok kontrakantxan hizketan ari gara eta honek erlojuari begiratzean aurreko laukoteari zuzendu eta “honezkerok 8 bat tanto egingo zenituzten ba?” galdetu die. Ainarak “ez dakit, egia esan” erantzun dio eta amaitzea erabaki dute.

11.03an amaitu da saioko atal nagusia. Atzekoei Saioak “marra kenduko bazenute eskertuko nizueke” esan die eta hauek zinta kendu dute kontrakantxara hurbiltzerako. Paletak motxilan sartzeko pilatu eta luzaketei ekin diete gehienek. Ines dagoeneko joana da eta Jone ura edanez ari da. Beste inork nahi ote duen ere eskaini digu. Niri zer moduz ote nagoen edo zer dudan galdetu dit bat baino gehiagok, eta ez dakidala, baina, ostiralean fisioterapeutarenean txanda dudala esan eta “ikusiko dugu” triste batekin erantzun diet. Azkenerako Ainara, Malen, Rakel, Irati, Gemma, Saioa eta ni neu geratu gara frontoian. Nik txamarra jantzi eta besteek ere luzatzen amaitzean saioa amaitutzat eman eta kanporantzko bidea hartu dugu.

Hizketan abiatu gara, ohi bezala, eta kanpoko ateari heltzen Rakel aurkitu dugu. Nik eutsiko diodala keinu egin arren han jarraitu du denok bertatik pasa arte. Kasu honetan taldeko hizketagaia urduritasuna da, Saioak partidetan tentsioan eta urduri egoten dela esan baitu lehentxeago. Iratik esan du bera lasterketetan irten aurretik negar egina ere badela, atletismoan aritzen zenean, baina, behin hasiera eman ostean lasaitu ere egiten zela. Hala goazela aldageletan utzi ditugu Ainara, Miren eta Rakel eta lehenarekin hizketan Malen eta Gemma. Irati, Saioa eta hirurok kanporako bidea hartu dugu, azken eskaileretan gora tornuen parera iritsiz. Txartelak sartu eta kanpoan gara.

Kiroldegiko sarrera

11.15. Irati datorren astera arte agurtu dugu eta Saioa eta biok elkarrekin abiatu gara autoetara. Ni triste noa, oinekoa zer ote den kezkatuta, erdi herrenka. Kotxeetara hurbiltzean nik lentilak kendu, betaurrekoak jantzi eta motxila bizkarreratuta liburutegirako bidea hartu dut, saioak emanikoa ahalik eta xehetasun gehienez idatzi asmoz. Bihar elkartuko gara berriro ere, Zizurkilgo pilotalekuan.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa ondo joan da, baina, ilbeltza nik nahi baino askoz ere beltzago amaituko ote den irudipena gailendu zait. Oineko minak triste utzi nau, nahiz eta egia den traba bat nabaritzen gaur baino lehen hasia nintzela. Hala ere, trabatik min jasangaitzerako urratsa ez ote dudan eman, tamalez. Horixe da nire buruan jira eta bira darabildana.

Saioan zehar gustura aritu naiz, “baina” hori kenduta, noski, eta emakumeak ere gustura ikusi ditut. Azken saioetan 10 lagun elkartu izan gara (gaur ere Joana eta Naiara falta ziren) eta kopuru horrekin moldatzen ikasi dugula iruditzen zait. Gainera, talde giroan

ere talde izaera nabari da, joko-mailak direnak izanik ere. Hasiberrietan hobekuntza nabaritzen da eta ez hain hasiberriek ere lehen baino arrisku eta zailtasun gehiagoko saiakera gehiago egiten dituztela iruditzen zait.

Biharko saioari begira oinak nola erantzungo didan kezka eta zalantzak uxatu ezinda amaitu dut eta egunean zehar ea nola amaitzen dudan. Eskerrak astea hasi baino ez dudan egin!

Ez da posible, ezin liteke!

Asteko plangintza eta saioen nondik norakoa goitik behera aldatu zitzaizkidan asteko lehen egunean bertan, asteari hasiera eman eta hiru ordu eskasean, gainera. Ez zen ba patuaren mendekua izango aurreko astea gustura xamar eta “dagoenean bon-bon” esanez amaitzearren? Ez ote?!

Hernaniko saioa amaitu gabe utzi beharrak astearte zein asteazkeneko paletako jardunak eta nire ohiko ibilia kolokan utzi zituen. Biharamunean ohetik altxatze hutsarekin ohartu nintzen, ordea, nik nahi ezta ere, oinari atsedena derrigorrezko zaiola. Bai ostiralean diagnosi zehatzagoa esku artean izan eta zerbait gehiago jakin arte, bederen.

Arraroa izan da, beraz, hortik aurrerakoak definitzeko aurkitu dudak hitzik egokiena. Izan ere, astearte zein asteazken iluntzeak etxeko epelean eman ditut, taldekideekin batera hotzari ihesi eta paleta (eta mingaina) dantzatzen aritu ordez, hatzak martxan jarri eta gainerako arloetako betebeharrei itsatsita, ordenagailua lagun. Egia esan, ordu eta une jakin batzuetan oroitu naiz (eta ez gutxi!) saioekin, orain arte nire ezinak bultzatutako huts egiterik ez baitut izan. Hala ere, nire osasunak etnografia lanak baino garrantzia handiagoa duela esan zidan bakarren batek, bada ez bada ere, nik uste baino gehiago ezagutzen nau antza, eta esaldi hori neure egin beharrean sentitu naiz azkenerako. Amorratuta nago eta oinekoa bezainbestekoa da egoera honek sortarazitako bihotzeko mina, baina, zer erremedio!

Aurreikusitako saioen artetik herenarekin konformatu behar izan naiz aste honetan eta datorren asterako ez dakit nola izango naizen. Astebeteko atsedanak oinazea arintzen lagunduko didala ziur nagoen arren, ordea, baditut neure kezka, zalantza eta beldurrak, oinez ibiltze hutsean ere nabari baitut oina ez daukadala behar bezala. Hortaz, oraindik goizegi denez bost egun barru zer eta nola egingo dudak erabakitzeko, ea ez dizkidan buruak komeni baino askoz ere jira-bira gehiago ematen. Kostako zait!

17. astea. ALBOTIK BEHA EGONIK

Xalbadorrek txistu egin ziotenean kantaturiko bertsoaren hasiera darabilt buruan: “Anai-arrebok ez, otoi, pentsa neure gustura nagonik, (...)”, bertan dotorezia izugarritz dionaren aurka ni albotik begira ibiliko naizelako aste honetan (eta, ziurrenik, hurrengoren batean ere bai) eta ez nik hala desio dudalako. Oineko lesioa gutxikagutxika hobetzen badoakit ere, ez nago oraindik korrika saioak eta jauziak dituzten jarduerak egiten hasteko moduan. Beraz, gauzak hala, eta minak min, berriro ere herriz herri eta saioz saioiko bideari ekin diot, lau asteko etenaldiaren ostean. Hori bai, nire parte hartzea erdipurdikoa izango da, jardule baino behatzaile soil izatera behartu bainau egoerak.

Barne mamu eta kezka ugari hurbildu zaizkit berriro ere neure baitara, edo lozorrotik esnatuko ziren agian, etenaldi honetan zehar, trumilka, tximista eta trumoi ekaitzak sorraraziz. Besteak beste, neure jardunaz zein jasoko dudan (edo jaso dezakedan) informazioaz kezkatu eta zuhur nabil, pentsakor, duda-mudatan. Hala ere, “ezina ekinez egina” dion esaera makulu hartu eta nolabait aurrera egin beharko da, arrastaka eta larri-larri nabilela nabari bazait ere. Gainera, berriz ere emakumeen arteko girora itzultzeak anemikoki pasatzen ari naizen beheraldiari lagun diezaiokeela uste dut, hala nahi nuke, testuingurua aldatzeak askotan burua freskatu eta zurrunbilotik irteten laguntzen baitu. Edo tunela luzea izan arren amaieran argi izpitxo bat irudikatzen. Beraz, bezperako sabeleko tximeletek antzeman bezala berriro ere lau hormak utzi eta nire “habitat naturalera” bidean jartzera noa. On egingo al dit?!

Oroitzapen gazi gozoen habian

Lau aste igaro dira oineko traba medio Hernanin azkena izan nintzenetik. Gainera, bertakoa izan zen nire azken jarduera fisiko saioa. Bitartean 9 saio joan zaizkit kantxetatik kanpo, frontoietakoa ordenagailu aurreko egonaldiarekin ordezkaturuta. Etnografo mozorroa kendu eta elkarrizketatzaile, bilatzaile eta analistarenak jantzi ditut, besteak beste, aspertzeko betarik izan gabe. Gogoz oso urri ibili naiz eta hala nabil oraindik ere. Beraz, ea nola moldatzen naizen “oinazearen eremuan”.

Aurreko astean hartu nuen berriz ere saioetara etortzen hasteko erabakia, kontzientziako harraren eta egutegiaren zamari aurre egin ezinik, nahiz eta parte hartzea ez den nik nahi bezalakoa izango. Oineko tendinitisak hor darrai eta atsedean (derrigortua) hartu eta geldi jarraitzea dagokit aste honetan bederen. Horregatik, saioan izango naiz, baina, kontrakantxan, kideen jardunari begira. Behaketa erdi parte-hartzailea esan geniezaioke honi beraz, ezta?

Hernanira agertu beharrak sentipen kontrajarriak dakarzkiz etxetik irten aurretik (eta zer esanik ez errepidean bertara hurreratu ahala). Lehenik eta behin, han zapaldu nuelako azkenekoz kantxa eta han geratu nintzelako saioa amaitu ezinda. Bigarrenik, badakidalako paletarik ez dudala hartuko eta ez naizela jokoan arituko, horrek tripako (bihotzeko) mina sortzen dit; eta, amaitzeko, ez dakidalako benetan behaketak zer emango duen eta zertarako gai izango naizen. Iruditzen zait askotan irudipen eta informaziorik aberatsenak jokoan zehar gabiltzala jasotzen ditudala, tantoak jokatu bitartean edo ilaran zain egotea tokatzen zaigunean, emakumeek euren bat-batekotasunean dihardutenean. Gaur, ordea, ez naiz parte hartzaile zuzena izango eta ez dakit elkarrizketak jarraitzeko nola moldatuko ote naizen. Kezka horri bueltaka

bezperatik nabil, nire burua zalantzaz josita dagoen seinale. Nobedadea balitz, gaitzerdi. Baina ez, ez da.

Dena bezperatik txukun-txukun prestatu (motxila, pen drive-a, grabagailua bada ez bada ere,...) eta 8.45 jo aurretik irten naiz kotxean, ez oso gogotsu eta ez oso burumakur, apatiko xamar, aspaldiko partez N-1eko trafikoa murgilduz.

Kiroldegiko sarrera

9.25. Autoa aparkatu, txamarra soinean jantzi eta kiroldegira abiatu naiz. Harako bidean Saioa topatu dut bere kotxe barruan, entrenatzailea, aparkatu berritan, liburuxka eskuan saioari azken erreposoa emanaz. Kristalean tok-tok jo eta laster irten da kanpora, espaloitik aurrerako bidea elkarrekin osatuz.

Kiroldegi aurrera hurbiltzean Malen kanpoko banku batean telefonotik hizketan ari dela ikusi dugu eta ohartu naiz Saioak barruko sarreran dagoenen bati jaramon egin diola. Nik ere bertara begiratu eta Zuriñe han dagoela ohartu naiz. Berehala elkartu gara laurok, sarrerako atearen barrualdean. Malenek inauterien inguruko aipamenen bat egin dio Saioari, “oraindik margoa daukazu hemen”, umorez. Tarte batean ez da beste inor gerturatu, Miren gehitu zaigun arte. Zuriñek esan digu Joneren inguruan “motel, baina, etorriko da”. Saioak “zer jende gutxi” esan du, harridura puntu batekin. Ainara lanean ari dela, Naiara bajaran dagoela eta gainerako berririk ez duela esan du Malenek.

Ordua igaro da eta tornutik barrurako bideari ekin diogu. Ordura arte ikusi gabeko Ines han ari da hitz eta pitz, igerilekurako aldageletarako bidearen ertzean. Niri zer moduz naizen ere galdetu didate iritsieran eta nik “hementxe, izorrotuta, tendinitisarekin bueltaka” erantzun diet, “ozpinduta nabil, nazkatuta”. Nik uste hitzez baino askoz errazago tankera ematen zaidala kopeta zimurtuari eta aurpegiera serioari begiratuta. Ez dute azalpen gehiagorik eskatu, ondo ulertu duten seinale, beraz.

Laukotea eta Saioa eta biok eskaileretan behera abiatu gara. 9.38 ikusi dut erlojuan bidean garela. Aldageletako pasabidetik eskaileretan gora eginda kantxa parera heltzerako Saioak “uf, eskailera hauek” bota du, astelehenetan astearteetan baino gogorragoak egiten zaizkiola adieraziz (B.K. Azkena ere aipamen bera egin zuela egingo nuke apustu!). Alboko pistan ikastetxe bateko ikasleak ari dira jolasean (jokatzen esan beharko ote nuke, agian?), gorputz heziketako orduan. Irakaslea harmailen aurrealdean, bankuan eserita daukate, begira. Futbolean ari direla ohartu gara, petodunak eta peto-gabeak. Jokaldi pare bat ikusteko parada izan dugu aurrera goazen heinean. Azken eskailerak igaro eta pilotalekurako atea zabalduta ni geratu naiz azkenen zain honi eutsiz eta bi ahizpak sartu dira berehalaxe. Inesek nire berri izan gabe denbora dezente igaro duela esan dit, “pentsatzen nuen nik deitu beharko diot gure neska horri” gaineratuz. Bagoaz bidean aurrera, bata bestearekin kontu kontari, mingainak korapilatzeke arrisku handiegirik gabe.

Pilotalekua

Sartu eta trasteak utzi dituzte kideek harmailetan, ohi bezala. Nik, berriz, txamarra goraino lotu dut, bero handiegirik ez dudala pasako iruditzen baitzait, eskuak hozten sumatuta. Hori egin bitartean Jone heldu da eta elkar agurtu dugu. Saioari “gaur ez dut ondo entzuten, belarrian tapoia daukat” esan dio berehala eta nik “ez ote da izango nahi

duzuna entzuten duzula?” erantsi. Ezetz erantzun dit, “zurrungak entzuten ditut” gehituz.

Miren ur botilatxoa atera eta ur bila joan da komunera beste ezertan hasterako. Malen eta Saioa Hernanin antolatuko duten Tilos-7 pasa txapelketaren harira gomazko pilotarekin jokatzeari ari dira. Astean behin hala jarduten dutela eta oso gustura daudela bota du aurrenekoak. Ines eta Zuriñe ere hizketan ari dira.

Aurretik Saioak Emakumea Pilotariko elastiko bat atera eta nork ez duen galdetu die. S bat omen da, iaz atera zen azken modelokoa, eta Inesek hartu du, iaz ez zuela hartu eta. Besteei esan die hurrengo egunetan eramango dituela gehiago. Halako batean ekin diote saioari, presa handiegirik gabe.

Beroketa

Hasteko korrika saio bat egin dute. Bikoteka doaz gehienak, parez pare jarrita: Zuriñe eta Jone, Ines eta Miren eta Malen hauen atzetik. Hasi aurretik Saioari esan diote berak korrika egin dezala, saioa nik emango dudala, baina, honek “nik agujetak dauzkat” erantzun die. Nik aurretik ere esan diet begira egongo naizela, baina, nik saiorik ez dudala emango ere garbi asko daukat. Ez dut esan beharrik ere izan.

Hiru itzuli eman eta Saioa eta bion parera heldu direnean geratu egin dira, mugikortasun articularreko ariketekin hasteko. Saioa eta biok bezperako Kutxa Sariko finalerdiez dihardugu, ni hari jaialdia nola joan zen kontatuz. Ez dakit nondik bueltan Saioak, Mireni erantzunez, “aste honetan ezin naiz lesionatu” esan dio eta hortik tiraka “igandean finala jokatu du” esan diet, Kutxa Sariko Promozioko finalerako sailkatuta baitago. Non eta noiz izango den jakin nahia agertu dute batek baino gehiagok eta “igandean, 11etan, Beotibarren, Tolosan” esan diet. Malenek irri bat egin eta “agian plana egingo dugu” bota du eta Zuriñek ere bi ahizpei “Tolosara trenez joan liteke” esan die. Azken hau aurreko edizio bat baino gehiagotan izan da bertan ikusle lez. Jonek, berriz, “ni ezingo naiz joan, Saioa, kanpoan naiz” bota du eta nik nora ote doan galdetzean “Burdeoseko inauterietara goaz, panderoa jotzera” erantsi du. Saioak niri begiratu eta “panderoa jotzen hastea agian txarra ez” esan dit, irribarrez.

Korroan gaudela Tilos-7 pasa txapelketa ere izan dute hizpide. Malen, Miren, Jone eta Zuriñe astean zehar beste egun batean, asteazkenetan normalean, biltzen dira jokatzeko eta orduan gomazko trinkoarekin aritzen dira. Jone eta Malenek esan dute eurek ez dutela izenik emango, lanean aritzen direlako arratsaldeetan, baina, pena puntua badutela. Mirenek, berriz, ahizpa konbentzitzerik ez duela lortu eta honek “nik ez dut parte hartuko”. Zuriñek ere berak ez duela jokatu esan du, jende aurrean. Inesek jende aurrean jokatzeko beharrik ez duela berak esan du, urduri jartzen dela eta besteek esan diote inor ez dela egoten. Han tabernetan jendea begira aritzen dela erantsi du honek, ordea. *Kronikan* atera zen albistea eta aurreko urtean lauzpabost bikote izan zirela esan dute eta aurten ez dakitela askoz gehiago izango ote diren. Nik esan diet albistea irakurri nuela iragan astean eta eurekin oroitu nintzela.


Mugimendu articularrekin amaitu ondoren, mingaina izan da gehien dantzatu eta landu duguna, paleta eta pilota bana banatu dizkio Saioak bakoitzari. Mirenek berea hartu du, petrilean zeukana, eta baita Jonek ere, zorrotik aterata. Banaka jarri dira ezker hormaren kontra piloteatuz, beroketarekin amaitzeko. Malen frontisetik hurbilen, ondoren, ordena

segituz, Zuriñe, Jone, Ines eta Miren, ezkerretik eskuinera. Bi ahizpak 8a eta errebotearen artean jarri dira, elkarrengandik gertu xamar nire iritziz aukeran, eta bakoitzak bere pilotari kolpeak ematen diharduen bitartean albokoarekin tertulian ere badihardu. Jone batera eta bestera ari da, pilota norabide oso zehatzetara bota ezinda antza, eta behin baino gehiagotan nahastu dira bere eta amaren pilotak. Malenek, berriz, isilago dihardu. Saioa ere hasi da lanean, eskuan zinta hartu eta saioan erabiliko dituen eremuak zehatzuz marra bidez. Lehenik frontisean marra bat (2 m. inguruan) egin du, alderik alde, eta ondoren kantxan laukiak markatzen hasi da. Ezkerrekoa nahiko azkar jarri du, baina, eskuinekoari buelta gehiago eman dizkiola iruditu zait, azken onarpenaren aurretik angelu ezberdinetatik erreparatu balio bezala. Saioa marrak jarri eta niregana, kontrakantxako petrilerira hurbildu da. Beste minutu batzuetan zer edo zeri buruz hizketan aritu ostean emakumeei dei egin die eta kantxara hurbildu naiz ni ere. Saioko atal nagusia hastera doa.

Ariketak

Denok elkartu orduko pilotak Saioari eman dizkiote eta honek ariketa azaltzeari ekin dio. Gu adi-adi jarri gara, borobil erdian, bere inguruan. Hasterako “gaur ezkerrean laukia dago, baina, eskuinean ere bai” bota die (B.K. Hortik ondorioztatu dut, ez dakit gero benetan hala izango ote zen, azken saioan laukietako bat erabili zutela, baina, bestea ez).

1. Frontisean altuera mugatzen duen marra bat dago eta kantxan bi lauki daude (ikus irudia). Saioak pilotak prestatuko dizkie, bakoitzari bina bata bestearen atzetik, eta kideek honako hau egin behar dute: lehenengoan eskuineko laukian sartu eta bigarrenean ezkerrekoan. Baldintza da pilotak frontisean marraz azpitik jo behar duela eta punpa laukietan egin behar duela.



Ariketaren azalpenaren ostean ni kontrakantxara hurbildu naiz eta bertatik jarraitu dut jarduna, ia marrari itsatsita (B.K. Zerbait esaten badute ere hobeto entzungo dut, ondoren oharretan jaso ahal izateko. Kezkatzen nau tarteko hitz eta esanak jasotzeko gaitasunak. Asko).

Azalpena entzun eta ariketa zaila iruditu zaie emakumeei. Besteak beste, Inesek esan du “nik ez dut bakar bat ere sartuko”. Saioak, animatu asmoz, esan die aurten notak emango dizkiela eta niri esan dit Inesek “ez utzi, e, zurekin ez genituen jasotzen” eta “alde ederrekoa nintzen ni, txintxoagoa” esan diot, irribarretsu eta adarra jo asmoz. Kosta zaie lehen pilotarekin hastea, Miren aurrerago eta atzerago kokatuz aritu baita, gertuago jarri nahian, pilota bideratzeko errazagoa iruditzen zaiola eta. Azkenean 3aren inguruan kokatu da, kantxa erdian.

Ariketari hasiera Mirenek eman dio eta, indar apur batekin jota, eskuinekoa urrun geratu zaio eta ezkerreko bideraturikoa txapapera joan da. Malen izan da hurrengo eta honek ere ez du lortu. Haren atzetik jo dute Jone, Zuriñe eta Inesek. Lehen aukeran

inork ez du helbururik lortu, baina, berriro ere errepikatu dute ariketa, guztira lau edo bost ekinaldi osatuz. Bigarrenean pixka bat gehiago hurbildu dira eta frontisean asmatu ez arren laukiak erabiltzea lortu dute ia denek. Saiatzeko gogoz darraite eta hirugarrenean ia ezkerrekoan bat baino gehiagok sartu dute altueran ere frontiseko baldintza betez. Mirenek, Malenek eta Jonek, behintzat, bai. Eskuinekoan sartzea, hala ere, askoz ere zailagoa zaie eta boskoteak hirugarren erronda amaitzean Saioak pilota hartu eta horma bikoia eginez sartu du eskuineko laukian. “Nik hori pentsatua neukan” esan diot, beste inork erreakzionatzerako. Orduan bakarren bati aurpegia argitu zaio eta Malenek “ah, nik pentsatu dut lehen, baina, nola ez duzun esan nola jo ez naiz ausartu” esan digu. Horma bikoaren aukera plazaratu ostean beste bi txanda egin ditu bakoitzak, errotazioan lehengo ordena mantenduz. Kasu honetan lehen baino hurbilago ibili dira eskuinetik, nahiz eta askotan frontiseko altueran ez asmatu, eta ezkerreko laukian denek asmatu dute behin gutxienez.

Kideak jolasean ari diren bitartean nik jaso ditut kontrakantxa ingurura etorri diren pilota asko eta azkenean nik Saioari pasatuz eta pilota bilduz amaitu dut, funtziotxo bat behintzat betez. Ariketak aurrera egin ahala emakumeak apur bat baikorrago agertu badira ere, une batean buru bat baino gehiago ikusi ditut ezezko keinua eginez, eta Saioak “ez da horren zaila” esan die behin baino gehiagotan, lagundu asmoz.

Ariketa hau amaitu denean Saioak berak ere parte hartuko duela esan du eta bikoteak osatzeari ekin dio: bi ahizpak, Malen eta Jone eta Zuriñe berarekin. “Gainditu beharreko bikotea (la pareja a batir)” eurak direla esan dio Zuriñeri eta honek irribarrez “bai, bai, noski” erantzun dio. Bikoteak egin ostean Saioak adierazi die binakako partidak egiten hasiko direla.

2. Partiduak, 2:2. Aurreko frontiseko marra eta laukiak mantenduz, tantoan zehar bertan sartzea lortzen duenak puntu bat gehiago lortuko du. Partidak 5 minutukoak izango dira eta amaitzean biko garaileak aurrean jarraituko du eta besteak atzera joango dira.

Azalpenaren ostean niri “puntu bakar bat bakarrik?” batek ihes egin dit mingainetik. Saioak emakumeei begiratu eta “beno, bestela akaso ez zarete saiatuko eta bi” esan die. Bakarren batek niri egin dit konplizitate keinua, begia kliskatuz.

Ariketa hasi aurretik Saioak zehaztu du pilota laukietan sartu arren tantoak jarraitu egingo duela eta kontuan izateko hori markagailua eramateko garaian. Orduan niri begiratu eta “ah, markagailua Uxue izango da” esan du, “gainera, ni bai, baina, bera ez da nahastuko, ondo kontatuko du” segitu du. Nik baietz erantzun diet. Saioak esan du Ines-Miren eta Malen-Jone hasiko direla elkarren aurka frontiseko eremuan. Zuriñe eta bera erreboteko zelaitxora joan dira, piloteatzera, besteek amaitzen duten bitartean.

1. partidari aurrelari lez Malen eta Miren eta atzeko postuetan Jone eta Ines hasi dira nor baino nor. Ohartzerako zuloa ireki dute bi ahizpek, laukietan sartzeaz batera aurkariek pilota frontisera ez bidaltzea lortu baitute kasu batean baino gehiagotan. 3ko balioa duten tanto bat baino gehiago eskuratu dituzte. Mirenek badirudi neurria hartua diola ezkerreko laukiari, pilota asko bideratu baititu bertara, txostetik gertu jo eta tantoa eskuratuz. Besteek, berriz, ahalegin betean dihardute, baina, ez dute asmatu gehiegi, askotan hutsak eginez arriskatu beharraren poderioz. Inesek, berriz, laukiak oso kontuan hartu gabe, baina, pilota askorik galdu gabe jardun du, ohiko antzera. 5’ igarota 17-7 amaitu da eta Saioa eta Zuriñe etorri dira atzetik aurrera.

2. partida hasterako Saioak Zuriñeri, apropos, denok entzuteko moduan esan dio “Inesi ezkertera bota eta honek ez du ezer ere egingo”. Horrek soka apur bat ekarri du, Inesi ez zaiola gustatu dirudi, nahiz eta jakin badakien saltsa jarri asmoz egindako aipamena dela, ez besterik. Saioa hasi da aurrean eta Zuriñe atzelari. Besteek euren lehengo postu beretan jardun dute, aldaketarik egin gabe. Kasu honetan ere ia ohartzerako ihes egin dute markagailuan Miren eta Inesek, aurkarien hutsak eta euren asmatze maila dotorea baliatuz. Saioa saiatu da aurrean une batzuetan, baina, ez du gehiegi ere asmatu, txapara eta txapatik behera joan zaizkio pilotakada batzuk eta azkenean 15-10 galduta berriro ere atzeko eremura joan behar izan dute. “Ez da posible” esan du, irriz, emakumeak animatu eta giroa jarri asmoz, ziurrenik. Nik, aldamenetik, “gaur nahiko huts egin dituzu eta iganderako ez gorde” esan diot, umoretsu xamar. Berak aspaldian huts dezente egiten ari dela esan dit.

3. partiduan Malen eta Jonek postuak aldatu dituzte lehenengo partidarekin alderatuz. Lehena atzelari postuan eta bigarrena aurrelari jarri dira. Hala ere, badirudi Lujanbiotarren eremua dela aurrekoa eta besteak aurre egiten saiatu badira ere lehengo temple berari eutsiz 13-7 amaitu da partida. Berriro ere Ines eta Miren izan dira nagusi.

4. erako Saioak atzetik aurrera datozela “oraingoan guk irabaziko dugu” edo horrelakoren bat bota du. Hala ere, nahia eta errealitatea ez dira bat etorri kasu honetan ere. Inesek huts gutxi eginez eta Mirenek ezkerreko laukiari ahalik eta zukurik gehien ateratzen asmatuz dihardute. Ahizpak izan dira garaile, orain artean baino lan zailagoak izan badituzte ere, eta aldaketa beste bi bikoteen artekoa gertatu da kasu honetan ere. Partidan zehar Saioak askotan animatzen du Zuriñe, laguntzen ere saiutzen da une batzuetan, adibidez, “aupa Zuriñe, airez, orain” bezalakoekin. Mirenek Ines ere aupatzen du “aupa Mari!” esanez. Zuriñek pilota bat justu-justu ukitu du paletaz eta hotsa entzun da. “Orraztu egin dut” esan du, pena azalduz, eta pilotak ia ilerik gehiena galduta daudela probestuz, nik “ez daukate ba asko” esan eta barre apur bat egin dugu. Amaieran berriro ere Saioa eta Zuriñe joan dira atzera.

5. partidutxoa jokatzera berriro ere Jone eta Malen etorri dira atzetik. Han pilotakada baino hitz gehiago elkartrukatu dituzte, besteok ere egin ohi dugun moduan (B.K. Beno, nik, zoritxarrez, aspaldi honetan ez, baina, espero dut iritsiko dela eguna). Beste bi partidak bezalaxe hasieran zuloa ireki dute markagailuan Ines eta Mirenek, 3-0, 7-2 eta amaieran 14-4 bukatu dute. Beraz, bostetik bostetan nagusitu eta ez dute erreboteko eremurik ezagutu oraindik ere.

Partida hau amaitzean nirekin hizketan geratu dira kontrakantxan Jone eta Malen, errebote ingurura jolasera joan ordez. Azken honek esan du “ez da aitzakia, baina, bertigoekin egon naiz eta oraindik ez nago erabat ondo”. Hortaz, markagailuari arreta apur bat galdu eta hitzei gehiago erreparatu diet seigarren partiduan. Gainera, ordura arte kontrakantxako marraren alboan egon banaiz ere besteak esertzera joan direnez ni ere petrilerara gerturatu naiz. Partidan zehar dudako pilotaren batean “gu Uxue despistatzen ari gara” esan du bietakoren batek, nik jokaldia ez dudala ikusi esan diodanean kantxan ari den laukoteari. Partida hau amaitu dutenean, 13-13 egin eta desenpatean ahizpak nagusituta, Saioa eta Zuriñe etorri dira kontrakantxakara. Saioak zalantza agertu dit emaitzaz eta nik tantoren batean galdu arren ahizpak nagusi izan direla nire ustez esan diot, “baina, baliteke gaizki kontatu izana”.

7. eta azken frontiseko partidari Jone eta Malenek lortu dute, azkenean, Ines eta Mireni aurrea hartzea. Oso estu joan da partida, lehiatua, baina, gustura dira, ia ezinezkoa baitzirudien gaur emaitza hori lortzeak. Zuriñe, Saioa eta hirurok kontrakantxan egon gara. Saioa eta biok kideen inguruan hizketan, nola jokatzaren duten eta halako iritziak elkartrukatu ditugu. Zuriñek saltsa dela onena esan du une batean. Gustura eta giro onean sumatzen ditut gaur seiak. Bai, Saioa ere bai (B.K. Zazpigarrena, berriz, kanpotik normal xamar, baina, barrutik ez oso gustura dabil).

10.50 dira nire erlojuan eta partidak amaituta Saioari aldaketarako intentzioa sumatu izana iruditu zait. Orduan, nik seiakin egin ohi nuen dinamika bat azaldu diot.

3. Partidak, 3:3. Kantxan bi bikote egongo dira. Bikoteko batek bi kolpe ematen dituenean kontrakantxan dagoenarekin txandatu da. Partida 8 tantora.

Azalpena ematen hasi aurretik marra guztiak kendu dituzte, gaizki ulertuak saihestu asmoz euren arabera, eta Ainhoak esan dit niri horretan ari dela “Uxue, marrarena tesian sartu beharrekoa da. Nik baditut marrarekin batere asmatzen ez duten emakumeak, gero marra kentzean ondo jokatzaren dutenak”. Marrak kendu eta baldintzaren gaineko xehetasunak emanda zalantzaren bat agertu dute eta argitu ditugu. Azkenerako ulertu dute norberak bi kolpe egitean irtengo direla kantxatik eta kidearekin aldatu. Nik erdi proposatu diot Saioari ariketa hau eta nahastetxoren bat eragin dut hein batean, itxura denez.

Nola hasiko diren galdetu eta Saioak esan du “Malen, Jone eta Miren eta Ines, Zuriñe eta ni”. Kontrakantxan daudenak adi ari dira kideen pilotakadak kontatzen eta dinamika hartua dute. Hala ere, markagailuan, lehenengo hirurok osatzen duten hirukotea ari da nagusitzen, erraz xamar. 8-4 amaitu da eta denak gogoz geratu direla ikusita “10era egingo dugu” esan du Saioak eta “edo 12ra” esan dute eurak. Beraz, 12ra luzatuko da partida. 10-4 doazela jakinarazi diet nik eta “14-4?” galdetu dit Inesek. Nik ezetz esan diot eta berriz errepikatu “10-4”. Azkenean 12-6 edo horrela amaitu dute eta partida amaitzean kantxatik kontrakantxarako bidea hartu du seikoteak. Kaotikoa gertatu da une batean aldaketan kontua, batez ere, bata bestearen jarraian kideek biko kolpe kopurua bete dutenean, eta kokapenak askotan aldatu direnean txandakatzeak medio, kantxan ezohiko hutsuneak ikusiz. Adibidez, une batean eskuinean eta aurrean.

11.05ean amaitu da saioa atal nagusia. Nire erlojuaren arabera, noski. Inesek erlojuari begiratu eta ziztu batean alde egin du, hamaikak jota daudela ohartuta. Malen ere berehala irten da frontoetik. Jone, Zuriñe eta Miren geratu dira bertan, Saioa eta nirekin batera. Hizketan abiatu gara kanpora bidean, ohi bezala, pasabide eta eskaileretan barrena. Miren agurtu dugu aldageletako sarreran, eta beste laurok aurrera jarraitu dugu, sarrera nagusira heldu arte. Txartelak sartu, tornutik igaro, eta kanpoan gara.

Kiroldegiko sarrera

11.10. Ama-alabak agurtu ditugu, aurrez ate zaina ere bai, eta Saioari zorte ona opa dio Jonek iganderako. Datorren astean elkartzekotan geratu gara. Nik esan diet agertuko naizela, “ikustera, ziurrenik”. Kotxeetara joan gara Saioa eta biok, elkarrengandik metro gutxitara utzi baititugu heldzean, eta bera paleta bat erostera omen doanez niri itxaron eta elkarrekin egin dugu aparkalekutik Biteri parera arteko bidea. Motxila bizkarreratuta

liburutegirako bidea hartu dut nik ondoren, errepidea gurutzatuta, saioak emanikoa ahalik eta xehetasun gehienez idatzi asmoz. Bihar elkartuko gara berriro ere, Zizurkilen.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa arraroa izan da niretzat, nahiz eta minutuek aurrera egin ahala informazioa hartzen ari nintzela iruditu eta zentzu horretan lasaitasun apur bat eskuratu dudan. Kontrakantxatik begira egotea ez zait hain gogorra egin hasieran, baina, amaiera alderako ia jokatzeko harra hasi zait kolpeka eta tentazioari eutsi behar izan diot. Egia esan, parte hartu nahi eta ezin ahal izatea ez zait batere gozoa egiten. Are gordinagoa egiten zait, gainera, beste inolako jarduera fisikorik egin gabe ibili beharra. Hala ere, erabat osatu arte hala egotea komeni zaidanez, eta kosta ahala kosta betetzea dagokidanez, ez naiz kantxan sartu eta bada ez bada ere ez dut ez pilota eta paletarik hartu esku artean, suarekin dabilenak erretzeko arriskua baitu, esaera zaharrak dion lez.

Saioan zehar gustura ikusi ditut kideak, gutxi egoteak euren parte hartzea zuzenean gehitzen duela jakitun, denbora guztian hara eta hona. Elkarren arteko harremana eta giroa onak direla nabarmen geratzen da saioz saio.

Biharko saioan ere jarrera bera, behatzailearena, mantentzea tokatuko zait. Egia esan, ez legoke gaizki gaur bezala xehetasun batzuk, elkarriketakoak, adibidez, jarraitzeko ahalmena (eta aukera) izatea. Arriskua ikusten diot jokoa hiru eremutan banatzen den unea kudeatzeari, adibidez, gaur gune batean zentratu baita nagusiki emakumeen jarduna. Beraz, bihar biharkoa, gaurtik ez nadin gehiegi kezkatu. Hori ezinezkoa da nire kasuan, baina, ez daukat ezer egiterik. Astea hasi dut, behintzat, eta hori bera bada nahiko lorpen aspaldion. Altza porru!

Aspaldiko partez

Ez naiz oroitzen azkeneko saioa noiz egin nuen Zizurkilen. Oso aspaldi, urtarilaren erdi aldera izan zela uste dut. Min hartu aurreko azkena bertan behera geratu zen pilotalekua “kendu” zigutelako, emakumeen iritzia gustura asko ezagutuko nukeen bere egunean, baina, patuaren kapritxoak, hori ere hala geratu zen, hurrengo baterako. Orduetik ez naiz bertara hurbildu ere egin eta ez dut inoren berririk izan. Emakumeek beste hiru saio ere egin dituzte, baina, hau da nire otsaileko lehena (eta azkena ere bai, hila bihar amaituko baita).

Zazpiak jo baino hiruzpalau minutu lehenago abiatu naiz etxetik, alferkeria uxatu ezinda, eta ez oso gogotsu. Gaur ere kontrakantxan, behaketa lanetan, emango dut denbora guztia eta, beraz, hotzari aurrea hartu nahian, eta kanpoan oraindik giro atsegin xamarra dagoen arren, neguko txamarra, bi polar, bi niki eta abarrak jantzi ditut soinean.

Zazpiak eta erdiak puntuan heldu naiz pilotaleku aurrera, bertantxe aparkatuz. Saioa justu orduantxe doa argia pizteko fitxa bila Iriartera, baina, ez zait iruditu beste taldekideetako inor bertan dagoenik. Beraz, txamarra (eta sakeletan eskularruak) hartu eta presa handiegirik gabe irten naiz autotik.

Pilotaleku ataria

Saioak maletategia zabaldu eta motxila bizkarreratu du, elkarren jarraian utzi ditugu gure ibilgailuak, eta ni kotxetik irten eta haren zain egon naiz. Berehala egin ditugu frontoi atarira dauden 15-20 metroak eta orduan ikusi dut Itsasoren kotxea heldu dela eta aurreraxeago aparkatzen ari dela. Gu biok zain jarri eta laster zen gurekin batera. Hau tesia amaitzen ari zen azkena elkarrekin izan ginenean eta ea zer moduz dabilen galdetu diot. Berak esan dit Gabonetan amaitu zuela idazten eta martxoaren 16an aurkeztuko duela. Gogorik ba ote duen galdetu eta ez aurkeztarren beste urtebetez jarraituko omen luke. Nik, berriz, esan diot ahalko banu aurkeztu egingo nukeela, baina, azken boladako martxan luze joko didala oraindik. Hitz eta pitz ari garela Oihane pasa da beste aldera eta laster etorriko dela esan digu. Gurutze gehitu da taldera berehala eta tesiaren izenburuaz galdetu diogu Itsasori. Zalantza egin du, ez omen dugu gauza askorik ulertuko, baina, esan eta tankera nahiko ondo eman dio kideak. Saioak gutxiago eta nik zer edo zer irudikatu dut. Hizkuntza eta hitzen esanahia eta sareko hedapenaren ingurukoa omen. Desanbiguotasuna hitza agertu da eta horrek joko dezente eman digu ondoren, saioko zenbait unetan.

Laukotea osatu eta tarte batean ez da beste inor iritsi, baina, Eli ikusi dutela esan dute eta etortzeko asmotan dela. Gurutzek esan du Oihane eta biak elkarren jarraian heldu direla kotxez eta sumatu duela etxeko atea ixten, kanpora bidean. Marian izan da hurrena eta, elkarrengandik tarte oso txikira, azkenik, Oihane iritsi da. 19.40 inguruan, barrurantzko bidea hartu dugu eskaileretan behera.

Ea ni zer moduz nabilen galdetu didate, errekuperatu ote naizen, eta esan diet momentuz beste aste batzuk geldu eman beharko ditudala, tankera hori hartzen diodala, baina, saioetan izango naizela, begira egotea egokituko baldin bazait ere, eta espero dudala Aste Santuaren inguruan berriro ere hasi ahal izatea.

Pilotalekua

Sartu eta trasteak koskan utzi dituzte emakumeek, Saioa argia piztera joan den bitartean. Ni kontrakantxako ateen inguruan geratu naiz, txamarra goraino lotu eta han gertatzen denari so. Motorrak martxan jartzeari ekiteko unea da.

Beroketa

Korrika hasi dira, frontisetik errebotera joan-etorrian, ohi bezala. Entrenatzailea eta biok kontrakantxan ari gara hizketan, besteei begirik kendu gabe. Eli iritsi da besteak korrika ari diren bitartean eta harekin bi hitz egiten amaitzean justu beste bostak gelditu egin dira gure parean, “gu berotu gara” esanez. Elik esan die “justu momentu onean etorri naiz”.

Korrika saioa egin ostean borobilean jarri dira mugimendu artikularrak egiteko. Entrenatzaileak orkatila mugitzen bazuen pare batek mugimendu bera egin dute, baina, besteek euren kabuz dihardute, bakoitza bere ordena jarraituz, besoak zein belauak mugitzen. Borobilean jarri eta inauteriak bihurtu dira hizketagai. Aurreko astean ez zuten saiorik izan, inauteri asteartea izaki, eta ea zer moduz ibili diren kontatzen aritu dira. Batek “ni igandean begi bat itxita eta bestea erdi itxita ibili nintzen”, besteak, “zer, ondo bukatu al genuen astelehenean?”, eta erantzuna baiezkoa, “bai ederki ibili ginen”. Hurrengoari “ez zintudan ikusi ere egin, beste batzuk bai, baina,” eta erantzuna “ba han nonbait behar nuen orduan”. Igandean eguraldi kaxkarra izan zutela eta goizean

beldurtu zirela, baina, arratsaldean giro dezente hobea izan zela. Nik esan diet astelehen iluntzean trenez itzuli nintzela ni Donostiatik eta trena bete-bete egina joan zela Tolosara, eta geltoki batean hustu eta hurrengoan erabat bete zela berriro ere. Eurek esan dute beste zenbait urtetan jende gehiago ibili ote den irudipena dutela, tabernetan nahiko ondo egon zitekeela eta bata eta bestea. Niri Gurutzek galdetu dit “astelehenean ez zinen inauterietara joango Donostiara, ala?” eta ezetz erantzun diot, “ni inauterietara inora ere ez. Ez zait mozorrotzea gustatzen”.


Ildo horretatik San Balendin egunean saioa zeukatela eta Gurutzek ez zela etorriko esan omen zionean Saioari honek esan omen zion ea ospatu egiten zuen egun hori. Bestelako arrazoiak omen zituen, bazkariren bat edo, eta aitortu du egun horretan “egia esan iritsiko nintzen, baina, justu mahaitik jaiki eta zuzenean etorri behar nuen eta ez etortzea erabaki nuen”. Oihane aldamenetik esan du bera ohartu zela heldu zenean, eta besteok barre egin dugu, baten batek “hori da kontrola” esanez. Giroa ona dela nabarmena da eta emakumeek elkar ezagutzen dute eta tratu atsegina dute elkarrekin.

Kontu kontari oharkabean doa denbora, eta entrenatzaileak pilotak dituen poltsa hartu du esku artean eta “zer, hasi egin beharko gara, ezta?” bota die. Kideak orduan hasi dira paleten bila hurbiltzen, “ikusten duzu guk zer presa daukagun” esanez, besteak beste. Behin erremintak esku artean hartu ostean binaka pilota bana banatu die Saioak eta ezker hormaren kontra pilotatzen jarri dira, ohi bezala. Eskuinean Eli eta Itsaso, euren aldamenean Gurutze, bakarrik, eta errebote inguruko zelaitxoan Oihane eta Marian.

Emakumeak piloteoan martxan jarri dituen zinta hartu eta Saioa marrak jartzen hasi da. Ni berehala ohartu naiz bezperako laukizuzenak jarriko dituela, saioak berdinak izaten baitira asterik aste astelehen eta astearteetako taldeetan. Marrak jartzen lan pixka bat izan du, atzo ez bezala gaur errebotean ere lau gune zehaztu ditu, eta aurreko laukiren bat handiegia ote den zalantza geratu zaio, baina, amaitzean niregana hurbildu eta hizketan hasi gara. Pili heldu da orduan eta nik, ahalik eta disimulurik handienarekin, erlojuari erreparatu diot. Zortziak dira. Hura zuzenean jarri da Gurutzerekin pilotatuz, beste biokin bi hitz egin ondoren. Beraz, saioa egiteko seikote bat osatu da. Beste pixka batean hala jarraitu dute, ohi bezala, mingaina eta besoak dantzatzuz aldi berean, eta 20.03 inguruan denak kantxan elkartu gara, ariketaren azalpenak jaso eta zati nagusiari hasiera emateko prest.

Ariketak

1. Frontisean altuera mugatzen duen marra bat dago (kasu honetan hezetasunak jotako lehen hiru baldosek zehaztua) eta kantxan bi lauki daude (ikus irudia). Saioak pilotak prestatuko dizkie, bakoitzari bina bata bestearen atzetik, eta kideek honako hau egin behar dute: laukietan sartu. Baldintza da pilotak frontisean marraz azpitik jo behar duela eta punpa laukietan egin behar duela.




Hezetasuna lagungarri duela eta hor marra horri aldamenen bere izena jarri beharko diotela esan du bakarren batek, adarra jo asmoz. Ondoren, ariketako laukien tamainaren inguruan hasi dira zalantzak agertzen: “eskuinekoa zer da, marraraino?”. Zizurkilgo lurra marraz josita dago eta ez da beste zenbaitetan bezain garbi nabaritzen zein den justu eremu zehatza. Hala ere, baietz esan die Saioak, kontrakantxako marraraino heltzen dela. Hori argituta “mini eta maxi” neurrikoak direla esan du Gurutzek, bat askoz ere txikiagoa baita bestearekiko. Saioa, pilota eta paleta eskuan dituela adibide bat egin eta “ez da hain zaila” esaten aritu da, bere kolpea laukian sartuz. Dena argi dagoela dirudi eta ariketa hasteko momentua da.

Gurutze dago ilaran lehena. Lehen pilotakada eskuinera bideratzen saiatu da, baina, indar gehitxo eman eta ez du sartu. Bigarren saiakeran ere eskuinaldera bideratzen saiatu da kolpea. Hori ikustean Saioak “zer, eta ezkerreko laukia zer?” galdetu dio eta honek “hori ez duzu esan” erantzun dio. Anbigua izan dela bere azalpena, Itsasoren tesiaren izenburua gogora ekarriz, eta hori zehaztea falta zela esan diote. Orduan, bada ez bada ere, “nik uste lehen hori esan dudala” bota eta kolpe bakoitza gune banatara bideratzen saiatu behar direla esan die emakumeei. Lehen etenaldiaren ostean ariketarekin jarraitu dute. Itsaso, Pili, Marian, Oihane eta Eliren txanda iritsi da Gurutzeren atzetik. Lehenengo itzulian inork ere ez du lortu pilotak laukietan botea egiterik, gehienak indarrez pasa egin direlako, bai altueran eta baita kantxako distantzian ere. Saioa emakumeak animatu eta lagundu nahian ari da eta “eskuinera beste modu batean ere bota liteke” bota die amua. “Ah, bi pareta eginda” erantzuna heldu da emakumeen artetik, pixka batean pentsatzen aritu ostean. Bigarrena hasi denean, ordea, Gurutzek bi kolpeak ezkerreara bota ditu eta Saioak, aldamenetik, “hori zer da aurrekoa konpentsatzeko?” bota dio erdi irribarrez. Besteak baietz erantzun dio. Eskuinera botatzerakoan horma bikoarekin bat baino gehiagok egin du saiakera behin azalpena entzun ostean, nahiz eta kasu ia guztietan altueran zehaztutako marratik gora egin duen pilotak frontisean. Handik atzerakoetan, majo saiatu badira ere, ez du bakar batek ere lortu helburua betetzea, lauzpabost errondatan. Hala ere, Saioak galdetu die ea ulertu den eta ulertu baietz esan dute, baina, asmatzea beste gauza bat dela.

Beraz, ariketa hau alde batera utzi eta partida egoerak lantzen hasiko direla esan du Saioak. Nire erlojuan 20.10 dira. Une horretan Itsaso eta Gurutze elkarrekin hizketan ari direla probestuz bikotekide jarri ditu, eta baita Pili-Oihane eta Eli-Marian ere.

2. Partiduak. 2:2 eta 1:1 egoeran partidak, bi gunetan. Gune aldaketa Saioak agindutakoan, 5' inguruan.

- Frontiseko eremuan (4ra arte), 2:2. Frontiseko marra eta laukiak mantenduz, tantoan zehar bertan sartzea lortzen duenak 2 puntu gehiago lortuko ditu. Partida amaitzean biko garaileak aurrean jarraituko du eta besteak atzera joango dira.
- Atzean (8-errebotea), 1:1. Kantxa lau zatitan banatuta, hurrengo pilotakadak ezin du botea eman kideak bota duen gune berean.



Partida egoeren berri ematean “tantoa egin eta gainera parafernalia hori guztia egin behar da” esan du Gurutzek, zailtasuna ikusten diola hitzez eta keinuz adieraziz. Hala ere, ez du haserre esan, iritzia eman du, ohikoa duen moduan.

Azalpenak entzutean eurek, bada ez bada ere, ziurtatu dute laukian sartu arren jokoak aurrera jarraituko duela eta entrenatzaileak baietz erantzun die. Niri esan didate markagailua nik kontatzeko eta baiezkoa erantzun diet, kontrakantxako marraren ondoan prestatuta. Saioak esan die “Uxuek gainera ondo kontatuko du”, bezperako markagailu lanak gogoan-edo.

Aurreko eremuan Eli-Marian eta Itsaso-Gurutze hasi dira partidari eta Oihane eta Pili atzeko eremura bidali ditu Saioak. Aurrelari postuetan Eli eta Gurutze eta atzelari Itsaso eta Marian hasi dira. Ohartzerako zuloa ireki dute markagailuan Eli eta Marianek, azken honek ezkerreko laukian pilotakadak sartzeaz gain tantoa ere lortu duelako behin baino gehiagotan. Saioa eta bioi bezperan Hernanin emaniko kasu bat etorri zaigu gogora eta hala esan du berak “atzo ere, Mirenek ez zuen bakar bat ere sartu ariketan zehar, baina, partidari denak sartu zituen ezkerrean”. Pilota laukietan sartzea lortzen dutenean poza nabari zaie aurpegian eta ahots gora ere zerbait esan dute. Nik tarteka erantzun diet “bai, bai, bikoa izan da, ikusi dut”. Jokatzen jarraitu dute, batzuk gehiago eta besteek gutxiago asmatuz entrenatzailearen eskumuturreko ordularia pi-pi-pi deiadarka hasi eta partida amaitu dela jakinarazi arte. Gurutze eta Itsaso atzera joan dira galdu ostean eta Pili eta Oihane etorri dira atzetik aurrera.

Bigarren partidari atzelari eta aurrelari postuak mantendu egin dituzte Marianek-eta eta besteen kasuan Oihane aurrean eta Pili atzean kokatu dira. Lehengo partidaren ildo beretik joan da hasiera, batzuk asmatuz eta besteak asmatu ezinda, saiatzeko intentzioa eta asmoa nabari zaien arren, eta 15-3 amaitu da partida. Berriz ere lehengo bikotea nagusitu da, beraz. Saioak “sentitzen dut” esan die eta berriz ere erreboteko gunera joan dira Oihane eta Pili, elkarri erraz galdu dutela esanez.

Hirugarren partidari ekiteko berriro ere Gurutze eta Itsaso etorri dira. Kasu honetan postuak aldatu dituzte laurak: aurrelari Itsaso eta Marian eta atzelari Saioa eta Gurutze. Partida honetan ere, hirugarren aldiz jarraian, lehengoek lortu dute irabaztea. Beraz, badirudi ez dutela aurreko eremutik alde egiteko intentzio handirik.

Laugarrenerako Pili eta Oihane etorri dira atzetik aurrera. Kasu honetan lehengo kokapenak mantendu dituzte hauek eta laugarrenean lortu dute besteei irabazi eta aurreko eremuan bigarren partida jarraian jokatzeko aukera. Beraz, saioan lehenengoz Pili-Oihane eta Gurutze-Itsaso arituko dira elkarren aurka hurrengo txandan eta Eli eta Marianek atzeko egoeran ere aurreko aldiz jardungo dute.

Bosgarren txandan aurrez Marianek izandako zorte ona Itsasori pasa zaiola dirudi eta nahi gabe ere laukietan sartu ditu pilotakada bat baino gehiago. Gurutzek ere ederki bideratu ditu pilota batzuk ezkerrez eskuineko laukian eta Saioak berak ere ederki ari dela esan dio. Partida zailtasun handiegirik gabe irabazi diete Oihane eta Pili. Saioa berak proba egin du, hurrengo partida hasi aurretik, ezkerretik eskuinera, Gurutze ura edatera joan da kontrakantxara une horretan, eta “ez da hain zaila ere” esan du. Hori entzutean guk “eskerrak berak ez dizun entzun” esan diogu, broma giroan eta “bai, bai, hala hobe” erantzun du, irribarrez.

Aurreko eremuan bizpahiru partidatan jarraian mantendu dira Gurutze eta Itsaso. Une batean berak ere barreari ezin izan dio eutsi, zortea lagun nahi gabe ere pilotak laukietan sartzen baitihardu, imana balu bezala. Saioak, nire aldamenetik, kontrakantxatik, “zer, gaur bonolotoa egingo zenuen, ezta?” bota dio, adarra joz. Aurrean hurrengo partidari Marian-Eli eta Gurutze-Itsaso aritu dira berriro ere eta horrela jarraitu dute Saioak esan arte, galtzaileak atzera joanez eta garaileak aurrean mantenduz, elkarren aurka, saltsan. Guztira zazpi edo zortzi partida jokatu ziren aurreko eremuan.

Atzeko eremuko jarduna urrundik jarraitzen saiatu naiz tarteka, zehar begiratu mantenduta. Ohartu naiz Eli eta Marian eta Oihane eta Pili aritu direnean ariketa egiten eman dutela denborarik gehien, nahiz eta une batean Pili falta zela ohartu naizen. Saioari galdetu diot eta hau ordura arte konturatu gabea zen. Gero ikusi dugu ura hartuta itzuli dela frontoira. Lau kide hauek hizketan ere aritu dira, baina, nagusiki jokatu bitartean, pilotakadak denbora luzean eten gabe. Gurutze eta Itsaso, aldiz, geldi eta mingaina dantzatzen gehiagotan aritu dira. Kasu batean ia bost minutuak horrela pasatu dituzte, pilota ahaztu balute lez. Azalpena ematean, berez, partida jokatzeko esan ote dien galdetu diot Saioari eta erantzun dit “berez bai, baina, Tolosako emakumeek izan ezik beste inork ere ez du kontatzen markagailua atzean” (B.K. Nire irudipena egunero emakumeekin egoten denak ere berretsi du, beraz).

20.50 inguru dira nire erlojuan eta Saioak aurreko partida amaitzean marrak kendu ditu eta ariketa aldatu du.

3. Binaka partida 4ra, baldintzarik gabe. Atzeko eremutik Gurutze eta Itsaso etorri dira eta aurrean Pili eta Oihane daude. Hasi eta berehala amaitu da partida, Gurutzek jo eta paleta ertzarekin pilota ukituta kale eginda. Ustez erdiarekin jotzen ari dela esan digu, baina, ez da hala. Laugarren tantoa nola galdu duten ere partidaren isla izan daiteke, “Itsaso, barkatu, ni ari naiz denak galtzen” esaten ez zaio ba hasi partidaren erdian! Eta orduan elkarrekin hizketan hasi dira eta pilotak bien aurrean botea egin du, baina, begira geratu dira, jotzeko imintziorik txikiena ere egin gabe. “Goazen atzera, hobe izango da” esan eta barrezka egin dute atzerako bidea Gurutzek-eta.

Binakako bigarren partidarako Marian eta Eli hurbildu dira aurreko eremura. Hauek lortu dute irabaztea, 4-0, eta atzera joan dira besteak. Hauek ere ez dute gehiegi asmatu eta atzetik aurrerako txandatzean 4-3 galdu dutela esan die Pilik Itsasori-eta, irriz, eta nik ere barre egin dut kontrakantxatik, markagailua ezagutzen bainuen.

Azken partidari berriro ere Eli-Marian eta Gurutze-Itsaso aritu dira jokatzeko.

4. Txokotan, bizitza batekin.

Saioak emakumeei gustura ikusten dituela eta ondo ari direla esan die eta saioa amaitzeko denak berriro ere elkarrekin aritu dira. Bizitza galtzen lehena Pili izan da, baina, ez da kanpora atera eta “propia” izaten dela esan dute. Saioak berez bizitza bakarria eman diela esan du, baina, jokatzeko jarraitzeko, bina bizitzarekin, beraz. Kontrakantxan gaude Saioa eta biok eta nola egin ohi duen galdetu diot “nik bizitza kopuruarekin egiten dut, 1 bada 1, 2 badira 2”. Nik ere hala egin ohi nuela esan nion, baina, aurtan “propia” kontua Usurbilen agertu dela aurrez.

Emakumeek jokatzeko dihardute eta gutxika-gutxika hasi dira bizitzak galtzen. Pili izan da lehena kaleratzen eta ondorengoak kaleratzen hasi aurretik ordulariari begiratu dio eta etxeratzeko garaia dela erabaki du. Besteek ere 21.05 direla jakitean beste tanto pare bat jokatu eta jokatzeari utzi diote eta kontrakantxara hurbildu.

Gurutzek bi asteren ostean luzaketak egin beharko dituela esan du eta beste batzuk alde egin dute. Saioak aprobetxatu du esateko igandean izango direla Kutxa Sariko finalak Tolosako Beotibarren eta berak jokatu duela ere jakin dute kideek. Eguraldi iragarpena ez omen da oso ona eta bakarren batek agian azalduko dela esan du. Luzaketak egiten amaitu eta trasteak jaso ostean eskaileretan gora etxerako bidean jarri gara denok. Oihanek esan du “hurrengo bi asteetan ez naiz etorriko, El Salvadorra noa, udaletxeak bidalita”. Azaldu digu anaituta daudela herri batekin eta hango proiektuak ikustera doala, hamar egunerako. Besteok, berriz, datorren astera arte agurtu dugu elkar.

Frontoi ataria

21.10. Saioarekin beste hizketalditxo bat izan dugu, ordu laurden ingurukoa, eta konturatzerako ia bederatzia eta erdi dira erlojuan. Kotxeetan sartu eta itzuleran abiatzeko unea da.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioan atzo baino tentazio gutxiago izan dut jokatzeko eta gogo horri oso ondo eutsi diot. Egia esan, Saioa inguruan izan eta tertulian aritzeko paradak lotura zuzen-zuzena izan du horrekin. Saioa kontrakantxatik jarraitu arren markagailua eramateak, hala ere, saioan mantendu nau eta kide sentiarazi ere bai une batzuetan.

Emakumeak gustura sumatu ditut, saltsan eta jokatzeko gogotsu. Talde giroak asko balio du eta hori nabari da sortzen den giro horretan.

Euskal Herrian barrena

Lau asteko etenaldi derrigortu (eta gogoz kontrakoaren) ondoren hiru saio egingo ditudan lehen astea da hau. Egia esan, baita saioetan izan naizena ere. Aurrez Hernanin eta Zizurkilen egon ostean asteko azken behaketa egiteko eguna iritsi zait, zain egon beharrik gabe, egunak abiada handi xamarrean baitoazkit. Berriz saioetan hasteak mugimendua, bidaiak eta kotxe orduak ekarri dizkit berriro ere nire egunerokora, aspaldi ahaztu xamarrek nituenak.

San Sebastianen osteko azken saiotik ez dut zapaldu bertako plaza eta frontoirik eta Usurbildik bertatik ere ez dut joan-etorririk egin. Beraz, ia hilabetean gauzak zenbat aldatu ote diren jakin-min edo kezka puntu bat sumatzen dut barnean, lau saio (=sei klase ordu) badirelako batzuk.

Sarrera

Eguna Gasteizen eman ostean, bilera, hitzaldi, elkarrizketa eta lanean buru belarri murgilduta, autoa hartu eta N-1ean zehar ordurako heldu naiz, minutu batzuetako

aurrerapenez. 19.20an amaitu dut aparkatzen, ia ordu eta erdiko bidaiaren ostean. Trasteak hartu eta presa handiegirik gabe egin dut kotxetik frontoirako bidea.

Pilotalekua

19.30 puntuan heldu naiz bertara eta berehala ohartu naiz asteotan gauza bat bederen ez dela batere aldatu: puntualtasuna. Pilotalekuan zortzi bat haur dabilta, pilota eskolakoak, punpa egitean “kan-kan” hotsa ateratzen duen pilota batekin jolasean. Neska bat ere bada tartean. Gainera, azken tantoan ohartu naiz denei irabazi diela eta mutilen artean elkarri erdi barreka eta erdi burlan ari dira bat baino gehiago. Haurrek ere bukatu dute gaurko saioa eta harmailtan eseri dira, begiraleari entzunez.

Neu izan naiz pilotalekura heltzen lehena eta nigandik bost minutuko tartera heldu den bigarren entrenatzailea bera izan da, Haizea. Karmele izan da heltzen hurrena, besapean ogi bat hartuta. Horren harira aipamenean bat egin dio Haizeak eta orduan kontatu didate iragan astean afaltzeko oilasko hegoak labean utzi zituela, baina, labea martxan jartzea ahaztu omen zitzaioala oroitu zela saioan zehar eta paleta saiotik etxera joan zela itzultzean afaria prest edukitzeko. Haizea une batean ohartu omen zen Karmele falta zela eta kideei galdetzean esan omen zioten “labea piztera joan da etxera”. Sukalde kontuak bideratu eta berriro ere itzuli omen zen frontoira. Jaione izan da hirugarrena eta ea zer moduz nabilen galdetu dit, aspaldi ez naizela saioetan izan-eta. Haizeak kontatuko zien aurreko asteren batean min hartuta nenbilela, ziurrenik.

Tarte batean ez da beste inor agertu eta Haizea kezkatzen hasi da, saioko parte-hartzeaz arduratzen, momentuz, bi bakarrik baitaude bertan. Jaionek “gaur etxera joan beharko dugu” esan du eta Karmelek erantzun dio “ni ez naiz sekula etxera itzuli oraindik”, saiorako gogoia agertuz. Orduan oroitu da Jaione Aitziberrekin topo egin duela kiroldegian. Hau gripearekin omen dabil eta abisatzera joan omen zaio gaurko saiora ez dela etorriko, baina, Haizeari esateko azaltzeko asmotan badela. Ia hitz egin ezinda eta sukarrarekin aurkitu duela esan du. Ondoren gaineratu du Idoia ere ez dela izango gaurko saioan, “gizona eskiatzera joan zaio eta umeekin geratu beharra dauka”. Panorama ikusita Haizeari barru-barrutik irten zaio “zuen gizonak konponduko ditunik”. Gero esan du errieta egiten hasi beharko dela emakumeei ordutegi eta halako kontuengatik, baina, bi segundo beranduago “ni nola hasiko naiz ba errietan?” esanez amaitu du. Halako batean Izaskun etorri da eta aurreko asteko Karmeleren labearen kontua ekarri du gogora norbaitek eta etxera joan da azken hau, sua piztuta utzi eta itzaltzea ahaztu zaiola oroituta. Gertu bizi da plazatik eta ez du denbora askorik behar izan berriro ere guregana itzultzeko.

Honetaz eta hartaz hizketan ari gara, euren senarren inguruan ezin direla kexatu esan dute besteak beste. Mingaina dantzatzeko abilezia daukagu denok eta modu berean denbora dezente egin dezakegunez Haizeak “beno, orkatilak mugitzen hasi beharko dugu” bota du, saioari hasiera emanez.

Beroketa

Orkatilak, besoak, eskumuturrak, etab. biratu eta luzaketa pare bat egin ostean “korrika pixka bat egingo dugu” esan ostean hasi dira kantxan bueltaka. Haizea ere emakumeekin batera ari da. Korrika saioaren amaiera aldera heldu da laugarren taldekidea pilotalekura: Aizpea. Paleta harmailtan utzi eta korrikaldian hasi da hau ere,

besteekin batera. Ikusi orduko “aspaldiko!” esanez egin dio diosala Haizeak. Orduan besteak esan dio “hotza, elurra eta beste hainbat gauzarekin etorri ezinda ibili naiz”. Hotzarena aitzakia ez ote den esan du emakumeetakoren batek, baina, orduan argitu du elurrarengatik Iruñean gelditu beharrean izan zela egunen batean.

Korrika saioaren ostean pilotalekuaren alde batetik bestera joan-etorrian, lehenengo besoak goraka mugituz, ondoren ireki eta itxiz eta amaitzeko hiru urrats eman eta makurtuta eskuarekin lurra ukituz.

Beroketa amaitzeko ezker hormaren aurka piloteoan aritzea baino ez zaie falta. Haizeak eskuan bi pilota hartu ditu eta binaka jartzeko esan die, bikote bakoitzari pilota bana luzatuz. Izaskun eta Aizpea jarri dira ezkerrean eta Jaione eta Karmele frontisetik gertuen. Piloteatzera bidali aurretik Haizeak ohartarazi ditu “lehen begiratzen zenuten hankak eta besoa nola jartzen zenituzten, baina, azken boladan pilota jotzen duzue eta dagoeneko berdin zaizue mugimendua nola egin, edozein moduz joz. Hanka eta besoa arreta jartzen saiatu” botata.

Emakumeak piloteoan ari diren bitartean ni harmailetan eseri naiz eta Haizea zinta hartu eta saiorako guneak zehaztera abiatu da. “Orain zinta ere berrerabiltzen hasi naiz” esan dit, egunero zakarretara bota ordez jaso eta aurreko saiokoak askatu eta laukiak markatzen hasi da frontis inguruan. Lurrean aurrez pilota eskolakoek erabilitako borobil batzuk ere badaude margotuta igeltsuarekin, baina, horiek ez zaizkio egokiak iruditu, antza, bere ariketarako. Emakumeren batek ere egin dio aipamen hori eta “ni naiz hemengo txukunena, nik jarritakoa beti kentzen dut” esan du Haizeak. Karmele eta Jaione dabilta gune horretan eta “Karmele, pilota gora bota, e, ni jo gabe” esan die. Emakumeek txintxo asko egin diote kasu eta gora bota beharraren bota beharrez ia sabaia jo duen pilotakadaren bat ere izan da. Ni begira nago eta jaiki egin naiz une batean, Haizearena gerturatu eta laukiak markatzeko laguntza eskainiz. “Uxue gehiago ez lesionatu” edo tankerakoren bat esan du kideetako batek. Halako batean zela erabat itsatsi eta zati berria nondik tiraka hasten den nabaritu ezinda geratu da Haizea eta tartetxo baten ostean niri eskaini dit. Nik ere ez diot tankerarik ematen, ez begiz, ez ukituta ere. Jaione ohartu da eta berak hartu du erreleboa. “Ni izango naiz hirugarrena” esan du, honek ere ez duela asmatzen adieraziz. Berriro ere nik hartu dut zinta esku artean eta kaska-gogorkeriari segika, majo kostata, baina, halako batean lortu dut zatia askatzea. Beraz, azken bi puskak eman dizkiot Haizeari eta laukiak markatzen amaitu du.

Zintarenarekin bueltaka ibili garen bitartean, Haizeak, une batean emakumeei esan die saiatzeko pilotakadak koadro baten barruan ematen, ondoren, pilotari norabidea ematen saiatuko direnez, hori pittin bat lantzen saia daitezten. Jaione eta Karmeleri 3-4.koadroen arteko tartea eman die eta beste biei 5 eta 6.aren artekoa.


Laukiak jartzen amaitzerako ederki asko berotu dira emakumeak eta lanak amaitzearekin batera egin die Haizeak dei ariketei ekiteko.

Ariketak

Haizeak bi lauki jarri ditu, 2 eta 3.koadroen inguruan, ezkerrean bat eta eskuinean bestea, pixka bat aurreraxeago. Hauek ikusi eta emakumeek “gaur aurrekoa falta da” esan diote. Hortik ondorioztatu dut aurreko saioan hiru laukirekin aritu zirela. Jaionek

kalkuluak atera ditu eta gaurkoa laukiekin egingo duten bigarren saioa dela esan dit. Aizpea iaztik etorri gabea dela argudiatuta lehenengo frontisean norabidea lantzeko ariketak egiten jardun zutela eta dagoeneko kantxan hasita daudela jakinarazi dio Haizeak.

1. Kantxan bi lauki daude. Batek pilota prestatuko die besteei eta kideek laukietan botea eginarazten saiatu behar dute. Banaka egin da ariketa, ilara egoeran jarrita. Lehenengo ezkerreko laukian egin dute saiakera denek eta ariketaren bigarren zatian eskuinekoan.



Ariketa egiten hasi direnean Haizea jarri da prestatzaile lanetan, baina, denek behin saiakera egindakoa emakumeei esan die txandaka eurak jarriko direla pilota prestatzeko lanean: Jaione, Karmele, Aizpea eta Izaskun. Gogorarazi die ariketan zehar “pilota ondo jartzea ez da erraza”, behin baino gehiagotan, eta “apuntatzen hasi” ere esan du, emakumeek ez zutela pilota laukietan sartzea lortzen ikusita. Izaskun eta Jaionek esan dute laukia aurreko astean baino atzerago ote dagoen, kolperik gehienetan motz geratu direlako, baina, azkenean ezezkoan geratu dira, irudipena baino ez omen da izan, lurreko marraren baten erreferentziaz gogoratuta.


Ezkerreko laukira bideratutako kolpe asko laburregi geratu dira eta Haizeak “altuera eman” aholkatu die, frontisaren altuera aprobetxatzeko esanez. Hala ere, indarraren eta altueraren arteko konbinaketa da beharrezkoa. Izan ere, Karmelek, adibidez, frontisean beste inork baino altuera handiagoa eman dio, goiko txapatik oso gertu ibili da behin baino gehiagotan, baina, paleta mugitu egiten zaio kolpe unean zenbaitetan eta ez dio nahi besteko indarrez ematen. Jaionek asmatu ditu kolpe pare bat eta beste bakarren batek ere bai.

Eskuinaldeko laukirako aldaketa denak prestatzaile paperetik igaro ostean egin dute. Haizeak esan die frontisean saiatzeko ez oso eskuinean jotzen, bestela kontrakantxako marratik kanporanzko noranzkoa hartuko baitu pilotak. Paleta hartu eta gutxi gorabehera zein ingurutan jotzea komeni den iradoki die, era berean. Azalpena eman eta handik gutxira bata bestearen atzetik, ilaran, pilotak laukian botea eginaraztea lortu dute. Karmelek lehen biak sartu ditu, Jaionek ia gehienak, Aizpeak ere lortu du eta baita Izaskunek ere. Laukian sartzea lortutakoan ospatu egin dute, era diskretuan, baina, euren poza adieraziz irri eta garaipenaren keinutxoak eginez, bakarren batek. Eskuineko gunera hainbeste sartzearen arrazoia frontisean neurria eman izana dela esan dio, adibidez, Aizpeak Haizeari, berari behintzat pista hori lagungarri izan zaiola adieraziz.

Denak prestatzaile roletik igaro ostean amaitu da ariketa hau.

2. Binaka jarri dira emakumeak. Aizpea eta Jaione batetik eta, bestetik, Karmele eta Izaskun. Kantxako bi laukiak mantentzen dira eta kantxa erditik bitan banatuta dago, ezkerreko eta eskuineko. Taldeka elkarren aurka jokatzeko saiatu behar dira pilota laukietan sartzen, erditik beste aldera bideratuz. Bikote bakoitza gunean jarrita, ezkerreko eskuineko laukian sartzen saiatuko dira eta eskuineko ezkerrekoan. Pilota eskuinean sartuz gero +2, ezkerrean +1 eta jokoa geratu egingo da. Laukian sartu ez, baina, pilota

beste aldera bidaliz gero jarraitu egingo du jokoak. 3 bizitzarekin hasi da talde bakoitza. Pilota kanpora bidali, norbere gunean sartu edo huts egitean galduko da bizitza. Norbere gunean sartuz gero kideak egingo du hurrengo kolpea, jokoaren eten gabe.



Ariketa hasi aurretik Izaskunek niri begiratu dit, kontrakantxako marraren ondoan nago zutik, eta markagailua kontatzeko esan dit, matematikak nire kontu. Nik baietz esan diet.

Aizpea eta Jaione eskuineko aldean eta ezkerrekoan Izaskun eta Karmele hasi dira. Hasi eta berehala eurak egindako hutsen ondorioz 3 bizitzak galdu dituzte Izaskun eta Karmelek, euren gunera, kontrakantxara eta beheara bota ostean. Nik bizitzak galdu dituztela jakinarazi eta Haizeak esan du jarraitzeko, “minusek ere balio dute hemen”. Jaione eta Aizpea ezkerreko laukian sartzen hasi dira, neurria hartu diote, eta besteek bat baino gehiago bota dituzte kontrakantxako marratik kanpora. Une batean markagailua 5 eta -5 da. Haizeak orduan esan du aldez aldatzeko unea dela, baina, markagailua mantenduz. Jaionek une batean esan du ea posible den besteen pilota laukian sartuko dela ohartuz gero airez jotzea, baina, Haizeak ezetz erantzun dio. Aizpeak aukera hori burutik pasa ere ez zaiola egin esan du. Niri bai, niri aspaldi etorri zait aukera hori lepo gainera.

Aldez aldatzean Karmele eta Izaskunek gerturatzea lortu dute, eskuinera ordez kanpora kolpe bat baino gehiago bidali dituztelako emakumeek. Beste bolada batean jarraitu dute laukiak jomugatzat hartu eta punteria lantzen. Azkenerako askotan lortu dute pilota laukietan sartzea bai eskuinetik eta baita ezkerreko aldetik ere. Ia kolpe bakoitzaren unean jokoak geldituz amaitu dute. Aizpeak, baina, ez du oso ongi ulertzen zergatik geratzen duten jokoak eta galdetzen erantzun diote “jokoak geratzen da asmatutako bakoitzean”. Ordura arte horretaz ohartu gabe zegoela esan du, “bale, bale, ulertzen dut” esatearekin batera. Haizeak egokia iruditu zaion unean amaitutzat eman du ariketa.

Kideak ariketa hau egiten aritu diren bitartean jan usaina iritsi zaigu etxeren batetik eta Haizeak “zer ordu da?” galde egin dit. Nik “20.25” erantzun diot eta berak esan du ordu inguru horretan bakarren baten afalordua izaten dela, gehiagotan ere heldu izan delako. Jateko gogoia ematen digu guri ere, “eta hori meriendatuta etorri naizela” gaineratu du Haizeak.

Nire erlojuan 20.40 jotzear dira. Haizeak laukiak markatzen dituzten zinta pusketak kentzeari ekin dio, nik ere lagundu diot, emakumeak nahasi ez daitezen.

3. Binakako partidak, baldintzarik gabe.

Hasi aurretik berriz ere kokapenen eta mugimenduen inguruko azalpenak eman ditu Haizeak. Aurrelariak txokora sartu eta irten egiten dutela, komeni dela aurkariak jotzean gerturatzea, eta atzelariak aurrera eta atzera. Bikoteak egitean Jaionek eta Karmelek elkarrekin jokatu dute eta Izaskun eta Aizpeak ere bai.

Hasieran Jaione eta Aizpea jarri dira atzelari eta Izaskun eta Karmele aurrelari. Jaionek pilota asko baztertu ditu ezker horman eta horren gainean “jo, honek nola baztertzen duen” aipamena egin du Aizpeak. Karmele oso eskuinean kokatu da askotan eta ni, kontrakantxatik, “sartu orain, segi” esaka aritu naiz unerren batean, lagundu asmoz. Haizeak esan die aurrelariak pilota nondik datorren ikustea oso garrantzitsua dela, atzera begiratzeko jokoan zehar, eta nik ildo eta une berean esan diet, aurrean dabiltzanean begiratu begiratzeko, baina, apartatzeko pilotaren ibilbide zuzenetik eta makurtzeko, inork ez dezan pilotakadarik jaso. Haizeak atzelariei ere esan die txandaka lekua utzi behar diotela elkarri. Une batean Karmele galdu samartuta dabilela ikusi du eta Haizeak “aurrelariak horrela ibiltzen gara, galduta askotan” esan dio, lasaitasuna transmititu nahian-edo. Asmatu ala ez saltsan gustura dabilta emakumeak, nahiz eta une batzuetan pilota batzuk nork jo beharko lituzkeen zalantza nabari zaien.

Denbora bat postu horietan egin ostean Haizeak aldatzeko esan die, Karmele eta Izaskun atzera eta Jaione zein Aizpea aurrera igaroz. Ni, bien bitartean, markagailu lanetan nabil. Ahoz gora esaten dut tarteka, eurak erreferentzia bat izan dezaten. Karmelek pilota asko paleta ertzarekin jo ditu eta ez dira frontisera ere heldu. Hori ikusirik “nirea ikertzeko modukoa da, tesirako. Ez da gogo faltagatik, e” esan du, niri begiratu. Nik “badakit hori, lasai, segi” esan diot eta Haizea eta Jaionek ere ez etsitzeko esan diote, ordura arte ondo aritu dela-eta. Hala ere, besoak zabalik etsipena nabaritu zaio une batean, nahi eta ezinean ari baita. Aizpea aurrean noiz sartu eta noiz ez asmatu ezinda, erdi galduta, ibili da une batean eta ni kontrakantxatik “sartu, segi, orain irten” esanez aritu naiz, lagundu nahian. Aizpeak une batean esan dit, Jaione ere inguruan zebilela, “konturatu naiz bere eskuinean banago ez didala niri botatzen, atzera botatzen duela”. Alabaina, askotan gauza horiek berak ez dituela aintzat hartzen esan du. Nik “jokatu ahala, denborarekin, geroz eta gehiago ohartuko zara, gauza denetan bezala” esan diot, animatu asmoz. Beste une batean aurrean pilotaren ibilbidearen pare-parean makurtu gabe hizketan aritu da et Haizeak “kontuz” esan dio. Berak erantzun du une horietan ez dela arriskuaz kontziente.

Partidaren bigarren zatian kideen arteko ahala eta maila ezberdintasuna gehiago nabaritu da. Besteak beste, Karmeleri sakeak ezkeraldera eta abiadura zein indar pixka bat gehiagorekin etorri zaizkio, Aizpeak jotzean, eta gogoz eta gogor saiatu arren ez du bueltatzerik izan. Aurrean, berriz, beste erritmo batean eta elkarri tantoa egiten saiatuz bizixego aritu dira Jaione eta Aizpea, jokaldiak eginez. Besteak beste horma bikoak, mozketak eta dejadaren bat edo beste ikusteko aukera izan dut.

20.55 dira eta partida amaitu aurretik, ustekabean, pilotalekuko argiak itzali dira. Haizeak “berriz ere bai” esan du eta astelehenean ere gauza bera gertatu zitzailela kontatu digu. “Krisiaren ondorio izango da” esan du ondoren. Beraz, paletak harmailetan utzi eta luzaketak egitera hurbildu dira emakumeak ezker horma ingurura.

Haizea trasteak jasotzen hasi da zuzenean, pilota bat falta omen zaio, eta gu bila hasi gara harmaila inguruan, baina, han ez dago piloten arrastorik. Ondo kontatzeko esan eta “a, bai, zazpi daude hemen” esan digu. Haizeari ia ahaztu zaio luzaketena gaur, baina, Izaskun hanka luzatzen hastean oroitu da egin gabe zeudena. Giharrekin batera mingaina ere dantzatu ohi dugu eta Karmelek esan du aurreko astean seme gazteena igaro zela pilotalekutik etxera bidean, gaur ere pasa da, eta juerga ederra izan zutela etxean, semea beste semeari “ez dakizu, errebes ez ere dotore ematen dio” esaten aritu zela-eta, adarra joz. Berak esan du orduan erantzun ziola “zure lagunak amak egiten al

dute? Ba, zureak bai” eta besteak “ala, hasi da harroputza” esaten omen du (B.K. Paletako saioetara gustura etortzen dira oso eta borondatetsu, ikasteko eta gozatzeko pronto).

Luzaketak egiten amaitzean trasteak jaso eta etxerako bidean jarri gara. Jaionek ea asko aspertu naizen galdetu dit eta nik ezetz erantzun diot. Saioa hasi aurretik ere esan dute gaur Ekozinemaldiaren baitako emanaldia dagoela Sutegin eta aspertzen banintzen joan nintekeela. Nik “frontoiko filma gehiago gustatuko zait” esanez erantzun diet.

Gaurko jarduna amaituta Jaionek bide bat hartu du, Izaskunek beste bat eta Haizea, Karmele eta hirurok lehen metroak elkarrekin egin ditugu, norabide berean. Haizearen auto aurrean agurtu dugu elkar, datorren astera arte.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Saioa ongi joan da. Ni ere ongi moldatu naiz, ez dut inbidia handiegirik pasa, nahiz eta une batean agian laguntza eman nahian Haizearen paperean gehiegi sartu ote naizen zalantza egin dudan. Adibidez, partidari kokapen eta emakumeen mugimenduetan laguntzeko “sartu-irten” esanez aritu naizenean. Amaieran Haizeak aitortu dit “pentsatu dut kantxan sartuko zinela, hor ikusten zintudan, urduri antzean”.

Emakumeak gustura ikusten ditut, nahiz eta, agian, beste taldeetakoekin alderatuta, maiztasunean eta saioetarako asistentzian ezberdintasun handiagoa nabari dudan, orokorrean. Bi izan ezik besteek huts dezente egiten dute eta badaude hilabeteetan agertu gabe egon ondoren itzuli direnak ere. Orain arte horretaz konturatzen hasi gabe nengoen. Deigarria egiten bazait beste herrietan ere aztergaia izan liteke jarrera horren arazoien bilaketa bera. Ea asteek aurrera joan ahala zer ondoriozta nezakeen.

Eguna amaitzeko gogoz nago, nekeak ere gaina hartu baitit jadanik. Hamabi orduetik gora, hamahiru eskas, igaro zaizkit etxetik irten naizenetik berriro ere bertara itzuli bitartean. Eguna bete-betea izan da, nahiko emankorra ere bai, azken asteetako emankorrenetako bat, ziurrenik, baina, gaur eginak ondoren ere lan egin beharra dakar eta gurpil ero honetan sartuta jarraitu beharko dut.

Negua joango al da?!

Egoerak ikasturte hasieran aurreikusitako asteetako “ohiko” plangintza apur bat aldatu badit ere, hainbat saiotan huts egitera derrigortuz, berriro ere ia hilabete lehenago utziriko bidezidorretara itzuli naizen sentipena da nagusi neuregan. Saiotetan izan naiz, autoan atzera eta aurrera nabil eta egunak azkarrago igaro zaizkit. Hala ere, ez da %100eko itzulera izan, paleta eta pilota esku artean izan ordez euren hotsa jaso eta mugimenduak ikusita konformatu behar izan baitut. Jokatzera itzultzeko irrikan nago, baina, beste aste pare bat beharko ditut, gutxienez. Hala ere, lesiotik erabat errekuperatzea da lehentasuna eta aurten hankaz gora joandakoak datorren urtean betetzeko esperantzari eustea baino ez dagokit.

Astearen lehen erdiko egunak oharkabean joan zaizkit eta martxoan gaude jada. Urritik hona bost hilabete pasa dira eta ikasturte erditik gora igaro da, lau hilabete barru amaituko baitzaigu. Hobeto joan zitekeen, begi bistakoa da, baina joatea bera ere ez da

seinalerik txarrena izango. Hala ere, ez dut nire umore ozpindua bazterreratzerik lortu oraindik eta serio darrait. Berandu(egi) izan baino lehen, udaberria loratuko al da?!

18. astea. JAIKI EGIN NAHI NUKE

Umore ozpinduarekin amaitu nuen aurreko astea, lau haizetara udaberriari deiadarka hasteko puntuan, ordu batzuk lehenago ordenagailuan azken puntu lodi bat idatzi ostean, baina, ez dirudi puntu eta aparte izan zenik. Puntu eta jarrai baizik. Tamalez, nagikeriak jota, majo kostata eta petralkeriaz gainezka ekin diot aste berriari ere, patuaren arrastotik aldendu ezinik, zoriak, onak zein txarrak, nire kasuan %90a mota honetakoa dela esango nuke, gutxien espero dugunean jotzen baikaitu. Hala ere, Joseba Sarrionandiaren ipuin bateko hitzak neure eginez, “*erori, denak erortzen gara. (...) Baina batzuk erori egiten dira eta jaiki. Beste batzuek, erori eta zailtasunak izaten dituzte jaikitzeko. Orduan, arazoa ez da erortzea, jaikitzea baizik*”. Erortzeaz, 95.or..

Harmailen aldamenetik bizitzera kondenaturiko beste aste bat izango da ekin berri diodan hau, paleta eta pilota nahi bezain gertutik ukituko ez ditudana. Baina, beno, nahia eta ezina bera ere bizitzaren parte dira, etsipena bezalaxe. Amak aurrekoan esan zidanak merezi du aipamena hemen: “Uxue, gauza bakarra da soluziorik ez daukana”. Ez nuen hitz zehatza izendatzerik behar izan esan nahi zidana ulertzeko. Eskerrik asko, ama!

Beste aste bat

Aurreko asteko lanak amaitu nituenetik ordu batzuk baino igaro ez direnean aste berri bati hasiera eman beharrean naiz. Bezperan goiza eta arratsalde hasiera Tolosan igaro nituen, Emakumeen Kutxa Saria txapelketaren inguruan, lehenik frontoian eta ondoren Fronton tabernan, bazkaritan. Etxeratzean, berriz, atzeratutako kontakizuna eta oharrak idazten murgildu nintzen. Beraz, pilotaren inguruan doazkit aste honen hasiera eta aurrekoaren bukaera.

Goizean jaiki, prestatu, trasteak hartu eta kirol arropa armairuan utzita abiatu naiz etxetik, gaur ere behaketa hutsa egitera, tentazioak uxatzeko zapatila eta txandala soinean jantzi gabe. Beste aste eta erdi halaxe joango zait bederen, beraz, onartu beste erremediorik ez zait geratu. Kotxea martxan jarri eta irratiko kirol zein politika solasaldiak lagun egin dut N-1eko bidaia, presa handiegirik gabe. Asteko joan-etorriak hastera noa. Ea lehen egun hau ez zaidan beruna bezain astuna egiten.

Kiroldegiko sarrera

9.25. Autoa kiroldegi atzeko aparkalekuan utzi eta kiroldegi aurrera hurbiltzean Malen sarreran dago jadanik. Bezperan Tolosan finalak ikusten izan zen, Ainara, Gemma eta Zuriñe ere bai, eta ea eguna ondo bukatu ote zuten galdetuz egin diot diosala. Baietz esan dit, egun pasa egin zutela azkenean, bertan bazkaldu eta derbia ikusiz, eta gu nola ibili ginen galdetu. Nik ere ongi ibili ginela esan diot, nafarrekin eta iparraldekoekin bestela gutxi egoten garela eta horrelakoetan probesten dugula kontu kontari aritzeko. Ondoren partiden inguruan galdetu dit, ea zer txapelketa zen, eta bi hitz egin ditugu. Berehala heldu da Ines ere, igerilekutik, niki besamotza jantzita. Nik hotzik ez ote duen galdetu diot eta honek “ez dago hotzik” erantzun digu. Eguraldi aldaketa eta tenperatura jaitsieraz bi hitz egin ditugu eta Zuriñe ere gehitu zaigu taldera, eskaileretan behera etorrita. Finalak amaitu aurretik alde egin behar izan zuen eta ea emaitza zein izan zen, “gorriek irabaziko zuten, ala?” galdetu digu. Baietz erantzun diogu, nahiz eta azkenean markagailuan pixka bat hurbiltzea lortu zuten. Hurrena heltzen Saioa bera izan da eta

harengandik gertu xamar sartu da atetik Gemma ere. Saioari ongi jokatu zuela esan diote emakumeek, Inesek zer egin zuen galdetu, “zer irabazi egin al zenuten?”, eta honek “ez, galdu”. Bezperakoaz beste kontu pare bat esan eta sartzeko unea heldu zaigu.

Ez gaude gehiegi ere, baina, barrurako bidean jarri gara. Aurretik Malenek esan du Rakel aparkatzen ikusi duela eta Zuriñek, berriz, gaur Jone ez dela etorriko, asteburuan Bordeleko inauterietan ibili direla eta oinak txikituta eta neka-neka eginda ohean geratu dela. Berak esan omen dio bere kontu guri abisatzea. Beraz, gaur ere aurreko astekoaren kopuru antzekoa izango garela dirudi. Barrura abiatu gara eta hizketan egin dugu labirintoko ohiko bidea: eskailerak, pasabidea, eskailerak, atea, beste pasabide bat, eskailerak, tinbredun atea eta azken pasabide estua.

Pilotalekua

Sartu eta trasteak utzi ostean, ia oharkabea, inkontzienteki, borobil erdi moduko batean elkartu gara denok, elkarrekin kontu esanaldi bat egiten hasita. Tilos-7 txapelketan azkenean izena eman omen dute zenbaitek, Rakelek esan du “Joana eta Iratik esan didate izena eman dutela”, Malenek “gu, hiru Mak, apuntatu gara, lana dela-eta” eta Gemmak gaineratu du beste bikote bat ere osatu dutela, “gure lagun bat bakarrik geratu da eta azkenean Leire animatu da. Hasieran ezetz esan zuen, tenisekoarekin ziur emango zukeela izena, baina, Ainarak konbentzitu du”. Nik esan diet “nik egutegi bat nahi dut, e, agian astelehenean batean agertuko naiz ikustera”. Esan dute aste honetan izango dela bilera eta esango omen digute. Inesek esan du berak ez duela parte hartuko, lotsa ematen diola jende aurrean jardute horrek, eta hortik esan dute jendeari kasurik ez egiten ikasi behar dela. Saioak esan du berak finalean tantoan zehar ahizpa bakarrik entzuten zuela, baina, zenbaitetan kosta egiten dela zurrumurruak alboratzea. Beste hizketagaia *Kronikako* finalen albistea izan da. Nik ere irakurri dut eta zer eta nola dagoen idatzita izan dugu hizpide, pilotarien mailaz eta jokoaz zer dagoen. Hala ere, ez diogu aparteko garrantzirik eman, ez dauka zentzurik.

Hizketan jarraituko genuke guk beste tarte batean ere, baina, beroketarekin hasteko garaia dela esan du Saioak. Emakumeak txintxo-txintxo hasi dira, txintik atera gabe.

Beroketa

Ohiko korrika saioa egin dute. Hiru itzuli ematean geratu egin dira eta korroan jarrita mugimendu artikularrak egiten hasi. Bitartean Saioa pilota eta paletak motxilatik atera eta kontrakantxako mahaitxoaren gainean jartzen hasi da eta ni petrilean eserita begira nabil.

Beroketa amaitzeko bakoitzari pilota bana eman die Saioak eta ezker hormaren aurka hasi dira pilotatzen. Errebote ondoan Ines, aldamenean Zuriñe, gero Rakel, Gemma eta eskuinen Malen. Euren kabuz jardun dira, batzuk ezker eta eskuin, besteren bat eskuinez soilik, bakoitza bere erritmo eta moduan. Saioak, berriz, zintak hartu eta laukiak marraztu ditu, bai frontiseko gunean eta baita errebote inguruan ere.

Jardun dezente luzea egin dutela iruditu zait niri eta Saioak hots egin die denei ondoren, kantxan elkartu eta pilotak jasoz. Amaitu da beroketa.

Ariketak

Saioak zuzenean esan du “gaur nirekin jokatu behar duenak korrika egin beharko du, agujetaz beteta nago-eta”. Ondoren, egingo dutena zer izango den azaltzera igaro da. Lehenengo partida egoerak nola jokatuko dituzten agertu du eta ondoren ekin diote jokatzeari.


1. Txokotan binaka, bikote bakoitzeko bat kantxan dagoela. Hark 2 kolpe egindakoan kanpora aterako da eta kidea sartuko. Modu honetan zehaztuko dute zein bikote izango diren aurreko eremuan jokatzeko hasiko direnak eta zein atzekoan. Bikoteak Malen-Zuriñe, Ines-Gemma eta Saioa-Rakel dira.

Hasi aurretik fokuak itzalita daudela konturatu eta Saioari esan diot pizteko eskatzera joango naizela. Beraz, pasabide estuaren amaierara, ate ondora joan eta tinbre joka aritu naiz. Hala ere, lau aldiz dei egin arren, ez dit inork ere jaramonik egin eta argiak pizteko eskatu gabe itzuli naiz berriz ere frontoira, ez oso konforme.


Itzuli naizenerako erabakita dago partidak nola hasiko dituzten. Atzeko eremuan Gemma eta Ines dabilta eta aurrekoan partida hasteko pronto daude beste laurak.

2. Partidak, frontisean eta erreboteko gunean. Iraupena: 5' (Saioak kronometroa jartzen du martxan txanda bakoitzean). Aldaketak egingo dira ondoren, bikote garaileak aurrean jarraituz eta galtzailea atzeko eremura joanez.

a) 2:2. Kantxan bi lauki daude markatuta, okerka. Horiek gune debekatuak dira eta pilotak bertan botea eginez gero tantoa aurkarientzat izango da.



b) 1:1. Kantxa luzeran hiru zatitan banatuta, punpa erdiko gunean egin behar du ezinbestean pilotak botez egindako kolpea bada. Airez nahi den lekura bideratzeko aukera dago.



Aurreko astean bezala ni aurreko eremuan kontrakantxan kokatu naiz, bertan aurreko jokoak jarraitu, markagailua kontatu eta atzeko eremura tarteka begirada bideratuz.

Lehenengoan Rakel eta Malen hasi dira aurrelari eta Saioa eta Zuriñe atzelari. Laukiekin izan dute buruhauste bat baino gehiago jokoan zenbait unetan eta amaieran Saioak-eta lortu dute gune berean jarraitzeko aukera. Partidan zehar joko erritmoa ezberdina izan da pilotakada jotzen zuen kidearen arabera, Malen eta Saioak beste bizitasun batez jarduteko ahala baitute beste biek alderatuz. Hala ere, denak saiatu dira eta gustura dabilta saltsan, giro oso onean. 7-3 amaitu dute.

Bigarrenean Gemma eta Saioa jarri dira aurrean eta Rakel eta Ines atzean. Kasu honetan, baina, markagailua oso parekatu izan bada ere galdu eta atzera joan dira Saioa eta Rakel. Partidan zehar Ines eta Saioaren artean izan dira “alua” esan eta irribarre gurutzatzeak, tarteka. Harremana ona dela begi bistakoa da eta elkarri kilimak egiten saiatzen dira. Rakel ere saiatzen da eta ahal duen heinean pilotak eraman eta tantoari eusten ederki saiatu da.

Partida hau hasi eta gutxira Oier Mendizabal pilotaria sartu da pilotalekuan, eskuan pilota batzuk dituela eta praka motzak jantzita. Entrenatzeko asmotan etorriko zen eta Maleni ea saioa noiz amaitzen dugun galdetu dio. Honek hamaiketan erantzun dio. Erlojuari begiratu, 10.15 ez dira oraindik, eta kanpora bidean jarri da berriro ere, telefonoz norbaitekin hizketan ari dela. Beste egunen batean ere etorri izan dira pilotalekura gure saioan zehar beste batzuk, jokatzeko asmoz. Agian jendeak ez du usteko, eta ezta pentsatuko ere, ordu horretan pilotalekua okupatua egon litekeenik. Hala ere, inork ez du gure aurrean behintzat purrustada eta aipamen aldrebesik egin oraindik.

Hirugarren partidan Malen eta Zuriñe etorri dira atzetik aurrera eta hauek lortu dute nagusitzea. Zuriñe jarri da aurrelari eta Malen atzelari, aurreko partidako postuak aldatuta. Inesek pilotakada asko bideratu ditu laukietara, nahi gabe, eta denak bertara doazkiola esan du une batean. Beraz, amaieran berriro ere atzeko eremura joan behar izan dute aurrekotik.

Laugarren partida jokatzeko berriro ere Saioa eta Rakel etorri dira atzetik eta ordura arteko joerari eutsiz, eta oso estu izan bada ere, eurek lortu dute tanto gehien denbora tartea amaitu denean. Malen saiatu da pilota eskuinera bidali eta Saioa mugiarazten, baina, honek maila dezente handiagoa du eta eragozpen handiegirik gabe moldatu da. Zuriñek, berriz, nahi gabe laukietara kolpe bat baino gehiago bidali ditu. Rakelek ere lortu du aurrean horma biko batzuk itzultzea, nahiz eta Zuriñek tantoren bat egin dion horrela. Berak, berriz, aurrean goxo-goxo utzi nahi zuen pilotakada bat frontisera iritsi ezinda utzi du, baina, jokoan gustura dabil. Laurak oso gustura aritu dira eta emaitzak emaitza batzuk aurrean eta besteak atzera bidean bukatu dute. Malen-Zuriñe eta Gemma-Ines aldatu dira eremuz.

Bosgarren partidan berriro ere bikote “bisitaria” izan da garaipena lortu duena, oso estu izan bada ere. Ines-Gemma Saioa eta Rakeli 6-5 gailenduz amaitu dute. 5’ko denbora tartea amaitu denean (Saioaren erlojua pi-pi-pi hasi da) berdinduta zeudenez tanto estra bat jokatu dute. Erlojuaren hotsa entzun dutenean Malen eta Zuriñek niri begiratu didate eta nik esan diet azken tantoa zela jokoan zegoena, markagailuko berdinketa hausteko. Ines eta Gemmak lekuak aldatu dituzte, lehena aurrean eta bigarrena atzelari postuan jarrita. Partida hau amaitzean Inesek komunerako bidea hartu du eta Saioak, atzera doan bitartean, “zer Ines, beldurtuta alde eginez?” bota dio, adarra jo asmoz, irribarrea ahoan.

Seigarren partida amaieran ere bisitariak lortu dute garaipena, Malen eta Zuriñek lortu baitute Ines eta Gemmari gailentzea. Gemma atzean hasi da eta lehen bost pilotakadetatik hiru laukietan sartu ditu. Besteak, berriz, kanpora edo txapapera botatuko kolpeak izan dira. Zuriñek eta Malenek aprobeztatu egin dituzte besteen hutsak aurrea hartzeko. Amaierara arte heldu diote aldeari eta 9-2 amaitu da partidatxoa.

Zazpigarren partida jokatzeko berriro ere Saioa eta Rakel datoz atzeko eremutik eta bertan daude Malen eta Zuriñe. Saioak “hau posible al da?” bota du, “guk zuei irabazten dizuegu eta zuek besteei”. Nik kontrakantxatik “bai hala da, ez dago bitan baino gehiago errepikatu duenik” erantsi dut. Kuriosoa bada behintzat, bikote batek beste baten aurka irabazi ditu partida guztiak eta alderantziz. Partida honen amaieran berriz ere Saioa eta Rakel izan dira tanto kopururik handiena bildu dutenak.

Partida hau amaitu denean Saioa zintak biltzeko keinua egiten hasi da eta Zuriñe eta biok aurreko marrak kentzen hasi gara. Atezko eremukoei dei egin die eta berriro ere denok elkartu gara kantxan, 3-4.koadroen inguruan. Atekoak kenduko ote dituzten galdetu dute eta Saioak ezetz erantzun die.

Ateko eremuko jokoari ere erreparatu diot aurrean ibili naizen arren. Konturatu naiz ariketa piloteora mugatu dutela eta pilotakadak baino gehiago izan direla elkarri zuzenduriko hitzak. Hala ere, erdiko eremuarena mantendu dutela iruditu zait kasurik gehienetan. Hasierako txandakatzeetan ia tarte guztian pilotetazen sumatu ditut emakumeak, baina, une batean, adibidez, Gemma eta Ines pilota eskuan hartu eta solasaldian ari dira, pilotarik ukitu ere egin gabe. Saioa eta Rakel, aldiz, hobetzeko azalpenak eman eta adibidea egiten ikusi ditut beste tarte batean. Hala ere, han inork ez du tantorik kontatu eta inork ez du partidarik jokatu.

3. Partiduak, 2:2, baldintzarik gabe. 4ra jokatu dituzte partidak eta kanpoan dagoen bikotea sartuko da ondoren, galtzaileak kaleratuz.

Saioa eta Rakel atzera joan dira eta Malen-Zuriñe eta Ines-Gemma hasi dira aurrean. Lehia estu eta parekatuaren ostean 4-3 amaitu dute eta lehenengoek lortu dute bertan jarraitu ahal izatea, tanto bakarreko aldeari esker.

Bigarren partida izan da eremu honetan jokatu den azkena eta Saioa eta Rakelek 4-3 lortu dute irabaztea. Amaieran erlojuari begiratu eta 11.02 ikusi dut. Saioak ere begiratu dio bere ordulariari eta “bale, listo” esan du.

Aurrean jokatu dituzten partidetan elkarri tantoa sartzen saiatzen dira emakumeak eta saltsan gustura ari direla nabari zaie euren aurpegi eta mugimenduetan. Batzuk gehiago damutzen dira huts egiten dutenean eta besteek ez diete hainbesteko garrantzirik ematen. Hala ere, inor ere ez da itsu-itsuan eta denaren gainetik irabaztera joan, orain arte bederen.

Inesek atzeko zinta kendu eta tarrasean dakar kontrakantxara. Nik ea soka saltoan egin behar ote duen bota diot, irribarrez, eta berak “esku batean pala, bestean pilota, ezin nuen beste nolabait ekarri”. Hori bildu eta bota ostean aldagelarako bidea hartu du. Aurrez datorren aстера arte agurtu gaitu eta niri esan dit txandalarekin ikusten ohitua dela, baina, bakeroekin bada ere agertzeko, ondo ematen omen didatela eta.

11.05ean amaitua da saioko atal nagusia. Rakelek ere luzaketa pare bat egin eta motxila bizkarrean kanporanzko bidea hartu du, aldageletarako. Beste bostok, aldiz, lasaiago trasteak hartu, hitza hitzari lotuz jarraitu, eta etxerako bidea patxada apur bat gehiagorekin hartu dugu. Zuriñe, Gemma, Malen, Saioa eta bostok egin dugu batera labirintoko itzulerako bidea.

Kiroldegiko sarrera

11.10. Besteak datorren astera arte agurtu ditugu, Saioak Gemma eta Maleni esan die ostiral goizetan libre izaten dela “mazizarekin jokatzekoa oraindik hor daukagu, zuek abisatu eta ni etorriko naiz” gogoraraziz. Beste biek esan diote aintzat hartuko dutela hori. Nik entzun dut plana, eta pentsatu ere bai neure baitan, ni ere gustura agertuko nintzatekeela, baina, ez diet ezer ere esan. Besteak beste, aste batzuetan orain geldi egon behar dudalako. Hala ere, unea heltzean ikusiko dut autogonbidatu ala ez. Zuriñe ere agurtu dugu eta besteak Malenen bikotearekin sarreran utzita Saioa eta biok aparkalekura bidean jarri gara. Ni trasteak hartu eta Biterira joateko eta bera sator zulora.

Motxila bizkarrean hartu eta goranzko eskaileretara bidean jartzean orduan kiroldegitik irtenda datozen Malen eta Asierrekin elkartu naiz eta “zer, galduta?” galde egin dit lehenak. Ezetz esan diot, “liburutegira noa, nire memoria failatzen hasi aurretik. Hala egiten dut astelehenero, nahiz eta ez jakin hemendik zerbait aterako ote den”. Berak “bai, zerbait aterako da” erantzun dit eta ondoren kidearekin korrikaz hizketan egin ditugu Biteri aurrera arteko metroak, tertulian. Elkar datorren astera arte agurtu eta nik zebrabidea gurutzatu dut eskuinera eta eurak aurrerantz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioan berriz ere boskote bat elkartu dira. Aurreko astean bezala askoz ere parte-hartze handiagoa izan dute emakumeek. Azken bi saioetan dozena erdi aritu dira Saioarekin batera jokoan eta denbora dezente da batzuekin topo egin ez dudala. Ainarak, adibidez, esan zidan lanean ari denez aurrekoan astearte arratsaldean joan zela, nahiz eta beste talde batean aritzeak erreparo eta errezelo apur bat sortarazten duela aipatu. Gainera, iaz astearte arratsaldeetako taldean aritu zen bera.

Gaurko saioan hasiera-hasieratik partida egoerak landu ditu Saioak eta harritu egin nau aurrez laukien inguruan ariketarik ez egin izanak. Orain arte lehenengo ariketa bat eta ondoren egin izan dituzte partidatxoak. Ea hurrengo saioetan, eta bihar bertan Zizurkilen, zer nola jokatzeko duen.

Ni ohitu naiz albotik begira egotera eta tentazioak uxatzeko kiroletarako arropa etxean utziz gero are errazagoa da, gainera. Beraz, datorren astean berriz ere rol bera jokatzeko dagokit. Hala ere, markagailu lanak egiteak eta tantoak gertutik bizitzeak pittin bat arintzen didate parte hartu ezaren nostalgia. Egia esan, ez jokatu arren saltsan sartzen saiatzen naiz eta beste bat gehiago bezala ikusten nautela iruditzen zait. Beraz, egoera apur bat errazten didate taldekideek beraiek. Hala hobe!

Astea hasi da eta gogo izugarririk gabe banabil ere apur bat errekuiperatu dudala esango nuke, beraz, ea bide beretik jarraitzeko modua egiten dudan. Ez litzateke txarra.

Astelehenaren atzetik, astearte

Bezperan hasiriko asteari segida emateko eguna da gaurkoa, saioak, datuak eta bizipenak pilatzen jarraitzekoa. Goizeko orduei tamaina eta puntua nahi bezala hartu ez arren pilotalekurako irteerak zerbait egin izanaren sentipena ekarriko didan esperantzan

noa etxeko atetik kanpora, kontrakantxan nire lekua topatu asmoz. Bai, berriro ere begira baino ez naiz jardungo, egoera honekin kokoteraino nagoen arren.

Zazpiak jo orduko abiatu naiz errepidean behera, ia inertziaz. Nik uste pilotu automatikoa piztu eta ederki helduko litzatekeela autoa bera bakarrik Zizurkileraino, dozenatik gora bidaia baitaramatzat ikasturtea hasi zenetik. Lehen N-1ean igarotzean kartel batean irakurtzen nuen herri izen bat baino ez zen eta orain, berriz, nire ibileren parte.

Zazpiak eta erdiak pasatxoan heldu naiz, ohi bezala pilotaleku aurrean aparkatuz. Bakarren bat kanpoan zain egon zitekeen ustea nekarren nirekin, baina, bertaratu diren biak oraindik ere kotxe barruetan daude. Ia hirurok batera irten gara epeletik giro tenperatura freskora: Itsaso, Saioa eta ni. Txamarra jantzi eta esku artean eskularruak hartuta noa errepidearen beste aldera.

Pilotaleku ataria

Heldu naizen orduko pilotalekutik haur ahotsa datorrela ohartu naiz eta laster ikusi dut bi mutikotxo eskuz ari direla, ilunpean. Itsasori “ezer ikusiko ote dute?” galdetu diot, ez baita apenas argirik sartzen bertara. Segundo gutxira alde egin dute, Saioarekin batera hirukotea osatzerako ia.

Aurreko asteko saioaren amaieran Kutxa Sariko finalen inguruan aritu ginen, Saioak berak emakumeei aipatu baitzien hauen berri eta Tolosara gonbidatu. Beraz, denek zekiten Promozio Sariko finala jokatzekotan zela gure entrenatzailea bera. Hirurok elkartu orduko Itsasok finalen inguruko albistea irakurri duela jakinarazi digu eta hari horri tiraka aritu gara hizketan. Leku ezberdinetan albistea zein ezberdin kaleratu den, jendeak iritzi ezberdinak dauzkala, etab. Hori ikustean Saioari zuzenean galdetu dio Itsasok, “eta zein da zure inpresioa?”. Besteak, berriz, ia ez dakiela, baina, nik ere esan diot garrantzia bereari emateko, ez kanpotik datozkion zurrumurruei.

Hizketan ari garela Onintza heldu da, kotxetik jaitsi eta soinean berokia jantzi du, hotz egiten duela-eta. Hark ere partiduaz galdetu du, Pili, Marian eta Gurutzek bezalatsu. Azken honek esan du igandean goizeko 11k aldera gogoratu zela finalaz, joateko asmotan zela, baina, asteburuko planak okertu egin zitzaizkiola eta ez zuela joaterik izan. Kontu kontari dihardugun bitartean hartu dugu eskaileretan behera jaisteko bidea.

Pilotalekua

Temperatura ez da oso epela, 5-6°C baino ez daude, eta bakarren batek egin du hotzaren gaineko komentarioren bat. Emakumeak kontrakantxara sartu, trasteak utzi eta ia jarraian hasi dira korrikaldian. Ordurako Eli ere bertan da, presaka xamar, baina, iritsi da. Ni kontrakantxako ateen inguruan nago, entrenatzailearekin eta Gurutzerekin batera.

Beroketa

Pilotalekuaren alde batetik bestera ari dira korrikaldian emakume denak, Gurutze izan ezik. Berak Saioari esan dio ez daukala batere gogorik, ez pentsatzeko beranduxeago heldu dela beroketa egitea saihesteko, baizik eta garabia bat tokatu zaiolako etxe parean eta azkenean autoa mugitu behar izan duelako, markatzeko arriskutik kentzeko. Hori

esan ondoren, bigarrenez, “korrika egin behar al da? Beno, komeni, ezta?” bota du eta entrenatzaileak baietz erantzun dio. Azkenean “bale, bi luze egingo ditut” esan eta besteak gure paretik igarotzean taldera gehitu da.

Saioa ez da argia piztera joan oraindik, ohi ez bezala. Korrikaldia egin eta korroan jarrita mugikortasun artikularreko ariketak egin bitartean azaldu du argiaren fitxa bakarra geratzen zaiola, 5 ematen dizkiotela, berak binaka erabili arren, eta beranduago sartuko duela fitxa. Ildo horri segika emakumeek esan diote nahiago dutela lehenago sartu eta lehenago bukatzea, zortziak arte sartzeko zain egotea baino. Hori entzunda entrenatzaileak galdetu die ea nahiago luketen saioa orduz apur bat aurreratzea, berak ez duela eragozpenik, baina, gehienek esan diote ezetz, zail izango luketela heltzeko. Berak lasai egoteko esan die, bururapen bat soilik zela, baina, berdin jarraituko dutela, 19:30-21:00 ordutegiarekin.

Korroko lanak amaitu eta pilotak banatzeari ekin dio Saioak, binaka jarri eta ezker hormaren aurka pilotatzen amai dezaten beroketa kideek. Orduan hartu du argia pizterako bidea, ez baita ia pilotarik bereizi ere egiten pilotalekuko iluntasunean. Nire erlojuan 19.54 dira. Saioak hasterako esan die gaur lauki arraroak jarri dizkiela saiorako eta denek pilota bertan sartzten amaitzen dutela, niri begira (bezperan ere dezente sartu zituzten Hernanin). Emakumeei jakin-mina piztu zaie eta nik esan diet “persona okerrak lauki okerrak jarri beharra dauka, ez da besterik”. Ondoren hartu dute ezker hormarako bidea, euren kabuz binaka jarrita.


Errebotetik gertuen Itsaso eta Marian jarri dira, erdian Pili eta Gurutze eta frontis aldamenean, baina, ezker hormari begira hauek ere, Eli eta Onintza. Saioa ere zintak hartu eta marrak eta laukiak markatzera joan da. Saioa aurreko laukietako bat amaitzen ari dela Pili entzun dut Gurutzeri “zer koadro ari da jartzen?” esaten, bere harridura puntua agertuz kideari.

Piloteoan ari direla frontoiaren sarrera ingurutik gizon bat ikusi dugu gerturatzen, Gurutzeren senarra da, eta berarekin hitz egitera joan da, tartetxo batean han aritu dira. Orduan Pilik bakarrik jarraitu du eta ezker eskuin ari dira beste bi bikoteak. Itsaso eta Marian hizketan ere ari dira tarteka, baina, askoz ere kontu gehiago dituzte elkarri kontatzeko, antza, Onintza eta Elik, uneren batean geldi eta elkarrengana gerturatuta mingaina dantzatzen ere ikusi baitituzte. Gurutze itzuli da halako batean eta beste tartetxo batean jarraitu dute piloteoan, ezkerrez eta eskuinez, airez zein botez, Saioak deitu eta denak kantxaren erdi inguruan elkartu diren arte.

Ariketak

Hasi aurretik Saioak azaldu du laukiak aldrebes xamar atera zaizkiola, okerrak, astelehenetakoak hobeto ateratzen omen zaizkiola. Emakumeek esan diote berdin diola horrek. Adierazi du pilotak lauki barruan boterik ez duela egin behar, “ez, barruan ez”, azpimarratu die behin baino gehiagotan. Hori entzunda emakumeek “hori esatea nahikoa da guk sartzeko”, “sartzeko esango bazenu ez genuke asmatuko” eta antzekoak esanez erreakzionatu dute. Horren ondoren Saioak esan die ariketekin hasiko direla.

1. Txokotan, bizitza batekin. Kantxan bi lauki daude (ikus irudia). Pilotak lauki barruan botea eginez gero txarra izango da.




Ariketa hau ondorengo partida egoeretarako bikoteak osatzeko erabiliko duela jakinarazi die Saioak, kanporatutako ordenaren arabera osatuko dituela bikoteak. Emakumeren batek galdetu dio ea barruan botea eginez gero txarra izango den kasu honetan ere eta berak “noski, bai” erantzun die. Beste batek galdetu du ea laukian sartuz gero jokoak gelditu egin behar den. Kasu honetan ere baiezkoa izan da erantzuna.

Eli izan da eskuan pilota hartu eta jokoari hasiera eman diona. Hala ere, kolpea egin aurretik “ziur satea bertan sartuko dudala” esan du, laukiei begira (B.K. Satea egitea bera kaltegarri egiten zaiola dirudi, arduratuta dago. Besteek ez diote, bada ez bada ere, eurak satea egiteko pronto daudenik esan. Badirudi laukiek izua eragiten diela). Hala ere, hasi eta larri-larri izan bada ere ona izan da bere pilotakada eta jokoak segi egin du. Onintza izan da txapatera bota eta bizitza galdu duena. Honek Saioari begiratuz “zer, bizitza bakarra?” galdetu du eta baiezko erantzuna jasota, kontrakantxara hurbildu, poltsatik beste pilota bat hartu eta erreboteko zelaitxora joan da aurrekoek amaitu bitartean pilotatzera. Bere atzetik bigarrena Eli izan da, hau ere kale eginda. Ondoren Marian eta laugarrena izan da Gurutze. Hau izan da laukian pilotari botea eraginda huts egin duen bakarra. Azkenerako Itsaso eta Pili geratu dira eta azken honek lortu du amaierako tantoa, Itsasoren hutsaren ondorioz.


Amaitu denean berriro ere kantxa erdira deitu ditu emakumeak, bikoteak osatu eta partidei ekiteko. Ordenaren arabera, lehena eta azkena, erdiko biak eta beste biak elkarrekin jarri ditu: Pili eta Onintza, Eli eta Itsaso eta Marian eta Gurutze. Bikoteak osatu eta norekin diren begiratzean Onintzak “ni Piliarekin? Ezin dut sinetsi” bota du irribarrez, “normalean aurkari izaten gara” erantsi du. Gainera, Elirekin izango zela uste zuela esan du, baina, honek erantzun dio “zu eta ni txarrenak gara eta ezin gara elkarrekin jarri. Ulertu al duzu?” eta besteok irribarre egin dugu hori entzutean, kontatu duenak barne. Behin bikoteak zehaztu duen partida egoeretan zer landuko duten azaltzen hasi da entrenatzailea.

2. Partidak, frontisean eta erreboteko gunean. Iraupena: 5' (Saioak kronometroa jartzen du martxan txanda bakoitzean). Aldaketak egingo dira ondoren, bikote garaileak aurrean jarraituz eta galtzailea atzeko eremura joanez.

a) 2:2. Kantxan bi lauki daude okerka. Horiek gunek debekatuak dira eta pilotak bertan botea eginez gero tantoa aurkarientzat izango da.




b) 1:1. Kantxa luzeran hiru zatitan banatuta, punpa erdiko gunean egin behar du ezinbestean pilotak botez egindako kolpea bada. Airez nahi den lekura bideratzeko aukera dago.



Bigarren egoera azaltzeko erreboteko eremura joan gara guztiok, marraz beteta baitago inguru horretako lurra. Ariketa goian azaltzen dena bada ere, hainbeste marraz emakumeei eragin dien aztoramen puntua eta ezinegona ikusita, ez baitute argi ikusten zein den Saioak jarritako marra, “zergatik ez duzu hartu gris hau?” edo “gurea zer da, urdina?” galdetu dute, besteak beste, Saioak “beno, lasai” esan eta “inprobisazioa” esan die. Berez 8a eta 9 eta laurdenaren arteko eremuaz ari zen Saioa. Hala ere, hasierako bere asmoa baztertu eta beste honako egoera hau planteatu die:

b2) 1:1. Kantxa luzeran hiru zatitan banatuta, punpa erdiko gunean egiten badu pilotak txarra izango da.



Debekatutako zatitxoa 9a eta $9\frac{1}{4}$ artekoa da, eta joko-eremua 8.koadrorra artekoa.

Behin argi geratu denean zer den leku bakoitzean egin behar dena Saioak Gurutze eta Pili seinalatuz “zu eta zu atzean” esan die, baina, hauek gogorarazi diote ez direla bikotekide eta “ah, bai, Gurutze eta Marian atzean, beste laurok aurrean” esanez amaitu du (B.K. Gaur Saioa berak ere astelehen handi xamarra du, aurrez ere beste nahaste nabarmenen bat izan baitu). Emakumeek irribarre egin dute gertatukoaren ondoren eta dagokien eremuetara hurbildu dira.

Aurreko eremuan Eli-Itsaso eta Pili-Onintza hasi dira partidari. Halako batean kantxan kokatu dira, Itsaso eta Pili aurrean eta Eli eta Onintza atzelari postuetan. Kontrakantxatik “beno, 1, 2 eta 3” esan die entrenatzaileak, eskua ordularian jarrita, partida hastera doala jakinaraziz. Izan ere, Onintza oraindik Pilirekin bikotea osatzen duela barneratu ezinda dabilela dirudi eta berak esan du kosta egiten zaiola askotan horrelakoak asimilatzea, eta zer esanik ez ariketak aldatzen direnean.

Atzeko eremuan askoz ere lehenago eta eragozpenik gabe hasi dira Marian eta Gurutze jokoa. Nik begiratu didan batean elkarri pilota apur bat zailak jartzen ari dira, ezker hormaren aurka baztertu bat ikusi baitut. Hala ere, markagailua daramatenik ez dirudi, ez baita zenbakirik entzuten (B.K. Saioz saio baieztatzen dena da lehiakortasun mailak ezberdinak direla oso frontisean aritu ala atzeko eremuan, nahiz eta hasiera batean hau ere lehia egoeran lantzeko proposatua izan den).

Aurreko eremura itzuliz Elik, “hau estrategia da, eh, benga Onintza, nahikoa da, hasi” bota du. Itsasori, berriz, barrealdiak eman dio. Onintza tantoak egiten hasi da nahiko

azkar, pilota bien tartera bota eta behin baino gehiagotan erantzunik gabe geratuz, adibidez. Denbora tartea amaitu denean entrenatzaileak “beno, zuek atzera, eta hasi erlaxatzen eta entrenatu, eh” bota die Eli eta Itsasori. Hauek buruarekin baiezkoa egin eta irribarrez joan dira atzera, bidean Gurutze eta Marian agurtuz. Lehenak “arratsalde on” esan die gurutzatu direnean.

Bigarren partidari atzelari eta aurrelari postuak aldatu egin dituzte Pilik-eta eta besteen kasuan Gurutze aurrean eta Marian atzean kokatu dira. Lehengo partidaren ildo beretik joan da hasiera, batzuk asmatuz eta besteak laukietan pilota sartuz behin baino gehiagotan.

Atzeko eremuan, berriz, hasieran Saioa eta biok bertara begira geundela ohartu da Itsaso, frontiseko eremuan kontrakantxan aritu gara markagailu lanetan, eta entrenatzaileak “hor hain fuerte ez jo, eremu hori txikia da” bota dio eta bestea barrez hasi da, biok eurei begira omen geundenez. Halaxe esan dio Eliri, “biak ari ziren hona begira”. Honek ere irribarre egin du eta gu berriro ere aurreko guneko jokoari erreparatzera igaro gara. Bien bitartean emakumeek nola jokatzen duten eta talde barneko txapelketak nola antolatzeke asmoa duen ere esan dit Saioak. Baita Tolosan goizean emakumeek lehertuta amaitu dutela ere, banaka jarri 3 gunetan eta esan baitie “aurrean irabazten duena geratuko da eta bertara heltzeko zuen guneetan irabazi egin beharko duzue”.

Hirugarren partidari ekiteko berriro ere Eli eta Itsaso etorri dira. Entrenatzaileak “zer, nahikoa entrenatu al duzue?” galdetu die. Baietz erantzun diote, giroan erabat gustura. Partida honekin hasi aurretik kasu honetan postuak aldatu dituzte atzetik etorritakoek: aurrelari Eli eta Itsaso atzean. Partida honetan ere, hirugarren aldiz jarraian, lehengoek lortu dute irabaztea. Gainera, bizpahiru kolpe paleta ertzarekin jo ditu Itsasok eta pilota zuzenean kontrakantxara etorri da, ia nire eskuetara eta “jesus!” bat baino gehiago bota du, ulertu ezin balu lez. Beraz, badirudi ez dutela aurreko eremutik alde egiteko intentzio handirik Pili eta Onintzak. Hala ere, partida hau amaitzean entrenatzaileak “ez, ez, orain zuek atzera” esan die, Pilik “hemen geratuko gara?” galdetu baitie aurrez. Erantzuna entzutean “hitz egiteagatik” esan eta irribarre egin du Pilik, atzera bidean.

Laugarren partidarako oraindik elkarren aurka aritu gabeko bi bikote batu dira: Itsaso-Eli eta Gurutze-Marian. Eli atzean jarri da berriro ere eta gaur ezkerrekin asko ari da jotzen eta ohi baino huts gutxiago egin eta gehiago eramaten ari dela iruditu zait. Kolpe hauek egitean “aupa” edo “oso ondo” entzuten du tarteka kontrakantxatik. Beste emakumeek ere bai, markagailu eta solaskide lanaz gain animatzeko ere tartea hartzen baitugu. Partida jokatu eta berriro ere galtzaileak atzera, Itsaso-Eli, eta errebote inguruko eremukoak aurrera etorriz, Pili-Onintza, egin dute aldaketa, saioan zeharreko dinamikari eutsiz. Partida honetan laukian sartzeaz zeuden bi pilotekin gauza ezberdina pasatu dela konturatu naiz. Lehengoan Gurutzek airez eman dio eta berak txarra egin du, kolpea kanpora joan baita. Bigarrenean, aldiz, Eli azken unean konturatu eta barrura zihoan pilota airez jotzea ekidin eta tantoa eurak lortu dute. Hau, gainera, partidako azken tantoa izan da eta Gurutzeri galdetu diot ea bera konturatu den barrura sartzea zihoan pilota bati eman diola aurrez. “Ez, ez naiz konturatu ere egin, nik jotzea soilik pentsatu dut, agian beste egunen batean lehengo pentsatuko nukeen gauza izango litzateke ez jotzea” erantzun dit (B.K. Gogoeta interesgarria jokoan zeharreko euren portaeraren adibide lez hartzeko. Garbi dago askotan jotzera mugatzen dela euren jarduna).

Denera bospasei partida jokatu dituzte gune debekatuekin frontiseko eremuan, eta laukietan behin baino gehiagotan sartu dute pilota. Kasu horietan damu keinu eta hitzen bat esan dute kideek. Hasiera xamarrean ohartarazi ditu Saioak esanez “ezkerreko pareta jotzen baduzue laukian sartuko da kolpea”. Atzeko eremuko jardunari, aurretik eta zehar begiraturaz, erreparatzean, berriz, inork ez duela markagailurik aintzat hartu ohartu naiz behin eta berriz, kolaborazio egoeran ari direla, nahiz eta erdiko eremua errespetatzen saiatu direla iruditu zaidan. Partidetan izan dira huts nabarmenak, adibidez, pilota jotzera joan eta kolpea ez egitea, huts nabarmena eginez. Bizpahiru ikusi ditut nik. Pilota zailak ere eraman dituzte, ordea, ezkerrez hormari itsatsitako batzuk kasu.

Nire erlojuan 20.40 inguru dira eta Saioak aurreko eremuko marrak kentzeari ekin dio. Aurreko eremutik atzera Itsaso eta Eli joan dira eta beste laurak hasiko dira baldintzarik gabeko partidekin.

3. Binaka partida 4ra, baldintzarik gabe.

Gurutze eta Marian etorri dira atzetik eta aurrean Pili eta Onintza daude. Partida parekatua izan da oso, 4-3 amaitu baitute. Azken tantoan Pili izan da mozketan bidez tantoa eskuratu duena eta hori ikusita Gurutzek, atzera abiatu aurretik, “bale, bale, barkatu, eh, bagoaz” esan dio Piliri, adarra joz.

Eli eta Itsaso etorri dira ondoren atzetik aurrera eta hauek ere 4-3 amaitu dute. Berriz ere Pili eta Onintza nagusitu dira. Hala ere, partidako tanto pare bat luzeak izan dira eta 1-2 doazenean Elik “atzelariak neka-neka eginda daude” bota du, sakea egitera zihoala. Bakarren bati masailak apur bat gorritu zaizkiola ikusia nintzen ordurako. Beste une batean, berriz, eurek txarra egin eta sakea egiteko pilota Onintzari eman ordez Saioari eman dio Elik, kontrakantxara, ohartu gabe. Honek eskuak aurpegira eraman ditu eta besteok barre egin dugu ohartzean. Talde-giroa ona dela eta partaideen arteko konfiantza maila nabariak dira, bai jokoan zehar eta baita edozein esaldi eta pasadizori erreparatuta ere (B.K. Oso jarduera soziala da hau, harreman-sarea osatzen da ikastaro hauetan).

Azken partidatan Gurutze-Marian eta Eli-Itsasok jokatu dute elkarren aurka, beste bi partiduetako galtzaileek. Pili eta Onintza kontrakantxan ura edan eta apur bat atsedena hartu ostean joan dira atzeko eremura. Partida hau amaitu denean Saioak erlojuari begiratu eta denei hots egin die kantxaren erdialdera.

4. Txokotan. Argia itzali arte, pare bat minutu bakarrik falta direlako txirrina jotzeko.

Saioak ez die zehaztu zenbat bizitza dituen bakoitzak, badakielako argia laster itzaliko dela, ordubeteko iraupena izaten baitu fitxa bakoitzak. Entrenatzailea atzeko eremura hurbildu da lehen jarririko zinta kentzera bitartean. Hori bai, aurretik Onintza besoak eta paleta atzean jarrita ikusi du eta “Onintza, ez gara paseoan ari, jarri pilota jotzeko prest” esan dio eta honek “lasai, Saioa” erantzun, irribarrez. Emakumeek jokatzen jardun dute txirrinak abisua jo eta iluntasuna nagusitu den arte.

20.55 eskas dira nire erlojuan. Saioak hala esan du “ez ditu 10 segundo gehiago ere iraun”, argiari erreferentzia eginez. Denak kontrakantxan bildu eta luzaketak egiten hasi dira, bakoitza berari iruditzen zaion moduan, gidaririk gabe. Bitarte horretan

aprobetxatu du Saioak Eliri “gaur ondo, ezkerrez ere eramanez” esan dio (B.K. nik ikusi diodan saiorik osoena izan da, zalantzarik gabe) eta honek “bai, gaur bai, baina, hurrengoan agian ez dut bakar bat ere joko”. Entrenatzaileak “hori irakasleagatik da” esan du barrez eta Itsasok erantzun “nik zer egin dizut orduan? Zeren...”, ez duela gehiegi asmatu iradokiz.

Luzaketak egin bitartean ea zer moduz nabilen galdetu didate gaur ere eta esan diet “kokoteraino geldi egoteaz eta oraindik beste aste batzuk joango zaizkit”. Eurak ikustean “zer ari dira kateto hauek” pentsatuko dudala ere esan dute, “Uxuek nahi duena egiten du” ondoren besteren batek eta nik “ez, nik ikusten gozatzen dut, baina, arazoa da ni naizela geldi egon behar duena, ezin naizela ni jardun, ez zuek nola zabilzaten”. Hala ari garela trasteak bildu, txamarrak eta abarrak soinean jantzi eta kanporanzko bidea hartu dugu.

Frontoi ataria

21.10 ingurura arte Saioarekin, Itsasorekin eta Gurutzerekin hizketalditxo bat izan dugu eta ia bagindoazenean Eli agertu da txakurra paseatuz. “Zer, zuek etxerik ez al daukazue?” galdetu digu eta nik “nik ez, baina, gurasoek bai eta edukitzen segi dezatela” esan diot. Honek aurrera jarraitu du eta beste kontu pare bati buruz jardun ostean, besteak beste bertso doinu batzuen inguruan galdetu dit Gurutzek bertsoan nabilela jakitean, eta nik bidaliko dizkiodala esan diot, elkar agurtu dugu datorren astera arte. Hiru kanpotarrak kotxeetan sartu eta itzuleran abiatu gara, bata bestearen atzetik.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saioa ondo joan da eta emakumeak saltsan ederki moldatzen direla berretsi dut gaur ere, bai kideak euren artean eta baita entrenatzailearekin ere. Ni ohitzen ari naiz kontrakantxatik begira egotera eta gaur, gainera, bi izan gara kontu kontari aritu garenak eta errazago eta azkarrago igaro zait ordua. Gainera, nire egoeraz ere galdetzen didate emakumeek eta, hala den ala ez ziur egon gabe, interesa agertzen dutela iruditzen zait. Hori bada botikatxoa nire egoeran, behintzat, eta eskertzen diet prestutasun eta interes azalpen hori.

Gaurko saioa argia pizteko fitxaren iraupenak mugatu duela esan dezakegu hein batean, oraindik ere ez duelako eskura entrenatzaileak argi-kutxako giltzarik. Elkartekoek badute, baina, ez zait iruditzen ikastarokoek jasoko dutenik.

Iruditzen zait saioz saioa zenbait kontu errepikatzen ari direla, herriz herri eta egunez egun, nire uste batzuk indartuz: harreman sarea, markagailua, giroa, etab. Ikastaro hauen inguruko inpresioa sendotzen ari zaidala iruditzen zait, zenbait gako baieztatzeko.

Asteo azkena, asteazkena

Astea nahi baino motel eta erretxinago baldin badoakit ere, erreta baino kiskalita nagoela esango nuke, heldu naiz hirugarren eta azken geltokira: Usurbil. Etxean ez ditut gauzak nahi eta behar bezala egiten, ez animo eta ez ganora nabil, eta kanpoan zerbait egin beharra ihesbide ere bazait egoera honetan. Beraz, buruari ahalik eta buelta gutxien emanda igaro nahi nuke arratsa, joan zirenak joanda baitaude eta datozenak nik deitu gabe ere etorriko direlako. Beraz, eutsi goiari!

Gaur, hala ere, kezka gehigarri bat darabilt neurekin, grabagailuaren bolumenarekin arazoak izaten hasi naizelako. Justu astebete lehenagoko elkarrizketaren grabazioan hitzak ulertu ere ez ditut egiten, mila proba ezberdin egin arren audioarekin, eta bezperako saiotik itzuleran grabatua ere ez da aurrez bezain ondo entzuten. Nik ez dut gailuan ezer ere aldatu eta grabazio prozedura ere orain arteko bera izan da. Horregatik, pila berri-berriak jarri eta ea zer gertatzen den ikusi nahi dut beste erabakiren bat hartu aurretik. Hain justu ere abiatu aurretik pila berriak erosi ditut, ia zazpiak jotzear zirela irtenez lau gurpilen gainean.

Sarrera

N-lean trafiko dezente zebilen, baina, nire martxan etorri ondoren, irratiko hitzak entretenimendu lez hartuta, nahiz eta erdiak haizeak eraman dituen, 19.31 inguruan sartu naiz Usurbilera eta libre ikusitako lehenengo zuloan aparkatu ostean 19.32an abiatu zita lekura. Berezko ordua baino beranduago nabilen arren ez naiz presaka eta korrika ibili, saio-kideen puntualtasunaren berri ikasi baitut saioek aurrera egin ahala.

Pilotalekua

19.34an heldu naiz bertara eta susmatzen nuen bezala neu izan naiz lehenengoa. Pilotalekuan bi haur dabiltza eskupilotan, aurreko eremuan.

Besteak iritsi bitartean badaukat denbora zertan igaro eta grabagailua eskuetan hartu eta pilak aldatzeari ekin diot. Hala ari naizela harmailen atzealdetik ahots ezagunak entzun ditut eta ohartu naiz badatozela kide batzuk, berehala iritsi baitira nire parera Jaione eta Aitziber. Iristean “arratsalde on” esan diogu elkarri eta nik grabagailua hartu eta poltsan jaso dut, pilak aldatu ostean. Ea elkarri zer moduz gabiltzan esanez jardun gara, Aitziberrekin azkena noiz egon nintzen oroitu ere ez naiz egiten, eta ohartzera Karmele eta Haizea ere pilotalekuan ziren. Argia itzali egin zen aurreko astean saioa amaitzeko bost minuturen faltan eta Haizeak esan die astelehen arratsaldean ere bost gutxiagoetan itzali zirela frontoiko argiak. “Nik uste 20.55, 21.00 edo 21.05 antzera izango dela ba!” esanez amaitu du. Jaionek esan du “Oierrekin hitz egin dut eta Txiribogatik giltzak hartzeko esan dit”. Karmelek, berriz, “nik uste Xabik zerbait esango zuela udaletxean, esatekotan geratu zen”. Haizeak esan die gero joango dela giltzen bila.

Nire oina bihurtu da hizketa-gai une batean, ea zer moduz daukadan, hobekuntzarik nabari ote dudan, eta sentitu bezalaxe esan diet “hasteko gogoia ematen dit, baina, oraindik min ematen dit ukitzean, ez oinez ibiltzean, eta erre-erre eginda nabil. Niregatik balitz hasi egingo nintzateke”. Esan didate beste gauza batzuk egiteko aprobetxatu beharko dudala, adibidez, bertsoan. Nik erantzun diet horretan ere bagabiltzala, bertso hilabetea daukagulako martxan Urretxu-Zumarragan. Horren gainean aritu gara beste tartetxo batean, zer eta nola antolatzen dugun jakin nahi izan dute eta Aitziberrek esan du “ni bertso eskolan ibili nintzen, 20 urterekin-edo, baina, irakasleak esan zidan hobea nuela beste zerbaitetan hastea” eta Jaionek, berriz, “ikastolan ni ibiltzen nintzen idatzietan, Mikel Mendizabal etortzen zitzaigun eta eskolartekoetara joaten nintzen”. “Usurbilen lehen bazegoen giroa, baina, orain ez dakit zertan geratu den” esanda amaitu dute.

Lesioaren gaineko erantzunetan, berriz, iritzi ezberdinak entzun ditut, bakarren batek “nola hasiko zara ba?” zioen bitartean besteren batek “ba igual hori izango duzu onena, hastea” bota baitu. Hala ari garela iritsi da bosgarren taldekidea: Idoia. Seme eta guzti dator eta Haizeak ea saioa egiteko asmoz zetorren galdetu dio. Berak baietz esan du “etxera zihoan, baina, hemen pixka bat egon nahi duela eta nirekin etorri da” erantzunez. Semea aurrean eskuz jolasean ari direnengana hurbildu da eta Idoia txamarra kendu eta guregana. Honek ere lehenengo agurraren ostean “zer, bizi al gara?” bota dit, honekin azkena ere auskalo noiz elkartu nintzen, eta nik “bai, bai, bizi naiz”. Ea zer moduz oina, “zer, ba al dihoa?” bota dit eta nik “badago” erantzun diot. Ildo horri tiraka ea zer egiten dudan eta “izotza jarri, krema bat eman eta egon” erantzun diet, eurek ea igeri edo ez dudan egiten eta esan diet “igeri pull boy-arekin egin beharko nuke eta ito egingo nintzateke hankarik mugitu gabe. Bizikletan probatzeko esan zidaten, baina, oraindik ez naiz irten, gogoak alde egin dit”. Haizeak esan du “nik esan nuen martxoaren 8an hasiko nintzela korrika eta hori bihar da” bota du aldamenetik, barrez ari den bitartean. Bakarren batek esan du “nik ez nuke ba arazo handirik izango geldi egoteko” eta nik “gauza bat zuk hala nahi duzulako geldi egotea da eta bestea behartutako geldialdia. 5 aste daramatzat jadanik” eta orduan, “beno, nik astebetetxo bat egingo nuke” bota dit Idoiak berak. Bitartean Haizeak “zer, mugitzen hasi beharko gara ba?” esan du eta beroketari ekin diote emakumeek.

Beroketa

Orkatilak, besoak, eskumuturrak, etab. biratu eta luzaketa pare bat egin ostean “korrika pixka bat egingo dugu” esanda hasi dira kantxan bueltaka. Bost dira guztira, Haizea ere emakumeekin batera ari baita. Korrikaldiari ekin diotenean oraindik ere frontisean jolasean ari dira hiru mutikoak, baina, nahiko azkar utzi diote, harmailetatik euren trasteak jaso eta etxera bidean abiatuz. Hori ikustean Idoia taldetik semearengana hurbildu da, poltsa bat eman dio, bi muxurekin batera, eta “mantso joan” esanda agurtu du. Bitartean beste laurak bueltaka ari dira oraindik. Idoia ere gehitu zaie semea agurtu ostean. Bigarren itzulia osatzen ari zirela Haizeak “zer Uxue, ez al zara animatzen?” esan dit nire aldamenetik pasatzean, adarra jotzeko makina martxan jarritz, eta nik lehor xamar erantzun diot “Haizea, nahikoa dugu”. Aldamenetik begira ari naiz, baina, ez ditut korrika ari diren bitartean euren kontuak zeri buruzkoak diren antzematen, nahiz eta une batean “ni lehen dezentetan joaten nintzen korrika egitera” entzun izana iruditu zaidan, adibidez. Beste batean “bihar da emakumeen afaria” esaten sumatu ditut, “ziur bakarren bat oraindik haserretu egingo dela gainera” ere bai, eta besteren batek “baina, orria oso aspalditik dago jarrita” bota du.

Korrika saioaren ostean pilotalekuaren alde batetik bestera joan-etorrian, lehenengo besoak goraka mugituz, ondoren ireki eta itxiz egin dituzte beste bi itzuli. Haizeak “honezkeroko gogoratuko duzue, ala?” esan die, ariketa hauek egiten dituzten lehen aldia ez dela adierazi nahian. Joan-etorriak amaitzean eskumuturrak biratuz egin dute ezker hormaren ingurutik harmailetarainoko bidea, paleta eta pilotak hartzera. Haizeak binaka pilota bana eman die ezker hormaren aurka jardun daitezen eta aurreko astean lez gogorarazi “lehen begiratzen zenuten hankak eta besoa nola jartzen zenituzten, baina, azken boladan pilota jotzen duzue eta dagoeneko berdin zaizue mugimendua nola egin, pilota iritsi egiten delako edozein moduz joz. Hanka eta besoa arreta jartzen saiatu. Lauki baten barruan botea egiten saiatu”. Ni ohartu naiz Jaionek bi pala dauzkala poltsan eta “zer, gaur bi palarekin, ala?” galdetu diot. Berak erantzun dit “bat Aitziberrentzat da” eta honek, aldamenetik, “nirea ez dut aurkitzen, ez dakit galduta ote

daukadan, baina, ez txibatu irakasleari, e” bota dit. Nik “ez, ez, lasai, ez diot esango” erantzun diot, irribarrez.

Piloteorako ezker aldean Idoia eta Karmele hasi dira, 6-7aren bueltan, eta eskuinerago Aitziber eta Jaione, 4-5 koadroen inguruan. Hasi eta orduan gogoratu da Idoia eta Haizeari esan “ah, esatea ahaztu zait lehen, Izaskunek esan dit gaur ez dela etorriko”. Honek “orain bada ez bada ere abisatu egiten du, tinbrerik ez jotzeko” erantzun dio. Ondoren ariketetarako kantxan zintak jartzen hasi da, aurrez argiak pizteko giltza bila joanda. Giltzak ekarri dituenean argi kutxara joan da eta ez zuen nahi bezala asmatzen giltza non sartu. Halako batean argi guztiak itzali eta “ederra egin dugu” bota du. Justu orduantxe ari ziren atzeko kaletik pasatzen euren kabuz jarduten duten emakume batzuk eta hango bati galdetu eta Jaioneren laguntzari esker pilotalekuko argi guztiak piztuta aritu gara gaurko saioan, ikasturtean lehenengoz. Haizeak “hau bai argia, ni bai Oierrek esaten zidala argiak zergatik ez genituen pizten”.

Zintak jartzen hasi aurretik niri galdetu dit ea aurreko astean zenbat laukirekin aritu ginen eta esan diot “bi lauki jarri zenituen, bat ezkerrean eta bestea eskuinean. Aurreragokoan hiru izan omen ziren”. “Ah, bale, orduan gaur hau egingo dugu” esan du koadernoan itxi bitartean, zinta hartu eta aurre aldera joanez. Ni harmailetan eserita begira ari naiz. Idoia eta Karmele lasai xamar ari dira eta aldamenean, berriz, Aitziber indar dezentearekin joz eta Jaione behin baino gehiagotan ia harmailei itsatsita, “kank” ertza joz paletarekin. Nik ikusi dut, baina, isilik segi dut eta ohartu naiz une batean Jaionek berak esan diola Aitziberri “zu konturatzen al zara ni hemen atzean nabilela eta zu hor aurretik ari zarela jotzen?” eta honek “ez” erantzun dio. Ni ohartu naiz pilotari altuera gehiago ere ematen diola ezker paretan. Horren ondoren jarraitu egin dute pilotean eta une batean Haizea hurbildu zaie, ni ere bai, eta honek “nik bai indartsu ematen zeniola, zer ari zara pala honekin?” esan dio Aitziberri eta honek niri begira “harrapatu egin nau” esan dit, Haizeari bere paleta ez zuela aurkitzen esan ostean. Nik esan diet “zer, ez al zarete frontoian kabitzen?” eta Jaionek esan dit “zu ere konturatu zara non nenbilen, ezta?”. Baietz erantzun diet irribarrez. “Palagatik al da hau?” esan dute eta paleta hori sendoagoa dela esan dio Haizeak eta beraz kolpea lasaiago egiten saiatzeko.


Haizeak lauri esan die lasai jolasteko, besoa ongi luzatzeko eta pilotari behar beste itxaroten saiatzeko, kolpea ahalik ondoen egiteko. Idoia eta Karmele lasaiago dabilta, kolpea kolpearri lotuz, tarteka aldamenekoen barre hotsak arreta eraginda harriduraz begira. Beste puska batean jo eta jo jarraitu dute eta Haizea berriro ere hurbildu zaie Jaioneri eta Aitziberri, “aizu, Aitziber, egin mugimendua ondo, tximeletak harrapatzen ari zarela dirudi” bota dio, paleta goian jarri eta korrika nola egiten duen imitatuz, erdi jauzika, eta beste biak barrez lehertu beharrean hasi dira, negar egiteraino. Kosta zaie buelta ematea, barrealdiak pixka bateko iraupena izan baitu. Gainera, justu une horretan Haizea zinta gorri eta urdin bana hartuta dabil eta neuk “nora zoaz zinta horiek hartuta?” galdetu diot, jakin nahiak erasanda, eta berak “bestela zinta gehiegi erabiltzeagatik haserretu egingo zaizkit elkartekoak eta hemen imajinazioa erabili beharra dago” esan du. Zinta horiek erantsi ditu kantxan eremuak zehazteko jarri dituen bi zinta pusken muturretan eta niregana hurbildu da.

Eremua mugatzen bukatu eta berehala dei egin die emakumeei kantxaren erdialdera, saioko zati nagusiari ekiteko eta ni ere korroan gehitu naiz, azalpenak bertatik bertara jarraitzeko.

Ariketak

Lehenbiziko ariketa egiten hasi aurretik Haizeak emakumeei galdetu die ea gogoratzen ote diren nola aritu ziren aspaldi batean frontisean eremu ezberdinak bereizita kolpeak egiten. Kantxan bi marra egin dituela ere esan die eta “ea deszifratzen duzuen zertan datzan ariketa honek” erantsi du ondoren. Emakumeek ez dute ia ezer ere esan eta entrenatzailea bera izan da azalpenak emateari ekin diona (B.K. 20.10 dira nire erlojuan).

1. Kantxa hiru gunetan banatuta dago: ezkerrekoa, erdiko eta eskuinekoa. Alboetako eremuetakoek derrigorrez erdikora bota behar dute pilota eta erdian dagoenak ezkerrera edo eskuinera. Guneetan bi-bat-bi jarrita hasi dira.



Azalpena eman ostean bi gauza esan dizkie. Lehenengo “berdin du frontisean zein lekutan jotzen duen pilotak, kantxan sartu behar duzue esaniko eremuan” eta amaitzeko “hau proba izango da, ondoren egingo dugu bizitzak kontatuta”. Azalpena garbi ematen bigarren saiakeran asmatu du, lehenengoan erdi nahasita aritu baita. Haizeak berak esan du orduan “joe, a zer eguna daukadan!”.

Lehen txandan Idoia eta Karmele jarri dira erdian, Jaione ezkerrean eta Aitziber eskuinean. Pare bat kolpe egin dituenean bakoitzak aldaketa egiteko esan die Haizeak, kasu honetan Jaionek eta Aitziberrek erdiko gunea, ezkerrekoa Karmelek eta eskuinekoa Idoiak hartuta. Hirugarren txandan “aurrez egon ez zareten leku batetara joan” esan die emakumeei entrenatzaileak eta eurak kokatu dira zegokien guneetan. Laugarren aldaketan justu falta zitzaien gunera joan dira eta hala aritu dira Haizeak esan arte.

Proba hauetan pilota ezkerreko gunetik erdikora bideratzea kosta zaie gehien emakumeei, batez ere hormari itsatsita zihoazen piloten kasuan, eta baita kontrakantxako marratik kanpora bidali gabe pilota eskuineko gunera bidaltzea ere. Gainera, kolpe guztiak modu zuzenean bideratuak izan dira, apropos hormarik erabiltzen saiatu gabe. Nik horma bikoaren aukera hasi eta berehala izan dut buruan, baina, ez naiz jokatzeko ari eta ezin ezer esan.

2. Oposizioan, lehengo baldintza berak mantenduz. Emakume bakoitzak 2 bizitza ditu. Txarra egitean bizitza bat galduko da eta batere gabe geratzen eremu hori ezingo da erabili, pilota kideak dauden guneetara soilik bideratuz.

Bizitza kopurua zehaztean ea zer ordu den galdetu du Haizeak eta bi eta baten artean zalantza egin ostean 2 ematea erabaki du. Horren ondoren aspaldi entzun gabeko galdera etorri da: “*propiarik izango al dugu?*”. Haizeak esan die ezetz, bina izango dituztela.

Lehen txandan Karmele eta Jaione erdian hasi dira, Idoia ezkerrean eta Aitziber eskuinean. Ezkerrera bideratutako kolpeetan Idoiak ez du lortu bati erantzutea, ez da frontisera heldu, eta bigarrenean, berriz, ez du lortu kolpeak botea erdiko gunean egin zezan, pilota ezker hormari itsatsita joan baita. Beraz, ia hasterako ezkerreko gunea kiderik gabe geratu da. Hori ikusita Haizeak “zuetako bat pasa ezkerrera” esan die erdikoei eta Jaionek eman du bertarako urratsa. Jokoan segi dute aurrean eta atzeko eremura joan da Idoia, bertan Haizearekin hasiz. Bitartean nik kontrakantxan darrait, bizitzak kontatuz. Une batean “1, 2 eta 1, ezta?” galdetu diet emakumeei eta “bai, lehen aldia izango da nik 2 ditudana” bota du Karmelek, gustura (B.K. Egia da mailaz baxuena bera dela eta gehienetan lehenengo kanporatutakoa izan dela orain arte). Jaione izan da kanporatzen hurrena, hormara itsatsita zihoan pilota eraman ezinda eta ezkerreko gunea erabili ezinda geratu da, bertan ez baitago jokalaririk.

Atzeko gunean ere ariketa bat proposatu die Haizeak (2b), aurrekoek amaitu bitartean. Batek 6-7an sartu behar du pilota kantxan eta besteak 5-6 bitartean. Hori bai, modu gurutzatuan, ezkerrekoak 5-6an eta eskuinerago dagoenak 6-7an.

Aurreko lehenengo txanda nahiko azkar amaitu da, Karmele eta Aitziberrek eskuinetik erdira eta erditik eskuinera jardun ostean. Karmelek azkena jotako pilota kontrakantxatik kanpora joan da eta hala bukatu da.

Bigarren errotazioan Aitziber eta Idoia erdian, Karmele eskuinean eta ezkerrean Jaione jarri dira. Lehena kaleratzen Aitziber izan da, bigarrena Jaione, ezkerretik, eta Idoia eta Karmele geratu dira azkenerako, bat eskuinean eta bestea erdian. Idoiak lortu du bere bizitza mantentzea.

Hirugarren txandan aurrez egon gabe zeuden lekuetara joan dira: Aitziber eta Karmele erdian, Jaione ezkerrean eta Idoia eskuinean. Kasu honetan Karmele izan da lehena bizitzarik gabe geratzen, hurrena Jaione eta azkenerako Aitziber eta Idoiak amaitu dute.

Hirugarren errotazioko postuetan kokatu direnean Haizeak emakumeei galdetu die “denok pasa al zarete leku guztietatik?” eta baiezko erantzuna jaso du, nahiz eta nik esan diodan uste dudala bakarren bat guneren batetik pasa gabe dagoela. Hala ere, eurek baietz esan dutenez hala amaitu da ariketa hau.

Ariketa honetan zehar ezkerreko gunean egokitu direnak izan dira azkarren kaleratuak, ezker hormak jartzen duen zailtasun gehigarriagatik eta, horrez gain, ezkerreko besoa delako denen kasuan ahulagoa. Hala ere, denek erabiltzen dute ariketetan zehar (B.K. Partida egoeretan ez dira hain esanekoak gero).

3. Txokotan, 3na bizitzarekin, kantxa lehengo egoera berean, hiru eremutan banatuta. Ezin du pilotak jarraian eremu berean boterik eman. Pilota jotzean 7ko marra zapaldu behar da.

Azalpena ematean nahastu egin da une batean entrenatzailea eta berriro esan du “ulertzen zait? Astun samar nago. A zer eguna daukadan”. Irribarrez erantzun diote emakumeek.

Haizeak berak ere soinean daraman txamarra kendu du eta kantxara sartu da, emakumeekin jolasteko asmotan. Lurrean utzi du berokia eta “zikindu egingo zaizu”

esan dio bakarren batek. Nik lurretik jaso eta harmailetan utzi dut, ondoren kontrakantxan zutik besteen jolasari begira geratuz. 7ko marra zapaltzeko esan duenen inork ez du esan urruti dagoela iruditzen zaienik (B.K. Nik berehala pentsatu dut ba! Nik 5ekin 5a, edo asko jota, 6a zapaltzeko esango nieke).

Hasi eta lehen unetik ekin diete korrikaldiei, nahiz eta tarteka bakarren bati ahaztu egiten zaion baldintza hori. Haizeak pare bat aldiz gogorarazi dio aldamenetik Idoiari “korrika egitera!” eta honek buelta erdi eman eta atzera bidean “ahaztu egiten zait” esan dio. Lehen tantorako larri-larri dabilta aurrera iristeko eta halako batean Aitziberri nahi gabe moztutako pilota bat irten eta Haizeari egin dio tantoa. Barrez hasi da egilea bera “berriz ez nuke egingo hori” esaten duen bitartean eta Haizeak ere esan du zerbait.

Jolasak iraupen luzea izan du, tanto batzuetako pilotakada kopurua aintzat hartzeko modukoa izan da, baita emakumeek horren ondorioz egin beharreko korrikaldi biziak ere, berotua hartu dute amaierarako. Une batean, hasiera xamarrean, Haizeak esan die “norbait kanporatu beharra daukagu marra aurrerago jartzeko”. Gainera, bakoitzak “3 bizitza eta *propia*” izan ditu. Aurrez zehaztu gabe zegoen hori, baina, Karmele izan da Orekin geratu den lehena eta “*propiarik* ba al daukagu?” galdetu du. Haizeak baiezkoa erantzun dio. Hala ere, bera izan da hurrengo tantoan bertan kaleratu den lehena. Haren atzetik hurrengoa Jaione izan da kontrakantxara etortzen eta hark “ezkerrera doazen pilotak bueltatzea zaila da” esan dit heldu orduko. Nik esan diet Karmele eta bie “askotan zaila izaten da konturatzea, baina, badago modu bat ezkerrera doazen kolpeak hormari itsastea ekiditeko, aurrez airez sartzea pilota horretara bertara. Hori bai, horrek suposatzen du erabakia garaiz hartu eta aurrera egitea pilotaren bila”. Biak begira geratu zaizkit, aukera hortaz ohartu gabe zeudela adieraziz. Nik esan diet “badakit ez dela erraza hainbeste gauza edukitzea gogoan”. Bien bitartean besteek 6ko marra zapalduz jardun dute lau lagunekin, hirurekin 5a eta azken biekin marra bakar bat ere ez. Aitziber izan da hirugarrena kontrakantxara etortzen, eztulka, aurreko astean gaixoaldia medio ez zen etorri, eta Jaionek eskainita ura edatera joan da. Azkenerako Haizea eta Idoia geratu dira eta azkenean Haizea geratu da bizitza batekin.

Nekatu egin dira emakumeak ariketa honetan zehar, nabarmen. Arnas hotsa handitu egin da, bakarren baten masailen gorritasuna ere beste horrenbeste, eta kanpora etorritakoan ere atsedena hartzeko probestu dute, nahiz eta nik pilota eskaini diedan atzean jardun nahi bazuten. Kideei begira eta erdi hizketan aritu gara, beraz, behatzaile paperean ni eta inguruan, harmailetan eserita, gainerakoak. Erabat amaitu denean, Haizea eta Idoia ere kontrakantxara, guregana, etorri dira. Idoiak hasperen egin du, neke puntua sumatzen zaio, eta bakarren batek “erre, erre” esan dio. Besteren batek “hemen gaude beste batzuk erretzen ez badugu ere” bota du.

Nire erlojuan 20.40 inguru direla dio eta Haizeak esan die berak zintak kenduko dituela eta binakako partidak jokatuko dituztela, eurak erabakitzeko nor hasiko den aurrean eta nor atzean. Bikoteak entrenatzaileak egin ditu: Karmele-Aitziber eta Jaione-Idoia. Zintak jasotzen ari den bitartean Haizeari esan diote “zinta horiek atera behar ditugu *Noauan*” eta honek “ez, zuen argazkiren bat bidali beharko dut” erantzun die. Aurrekoan bakarren bati esan omen zion “elkarrizketaren bat egin beharko diguzue ba?”. Jaionek erantzun du “nik kasik nahiago dut Diarion ateratzea *Noauan* baino”, bere ingurukoek ez dutela irakurtzen aditzera emanez. Idoiak “Usurbilen hori egiten hastea baino ez zitzaien falta esango luke bakarren batek” orduan.

Kontu kontari ari garen arren erabaki dute nola jokatu duten eta partidei ekiteko unea da.

4. Binakako partidak, baldintzarik gabe.

Hasi aurretik berriz ere kokapenen eta mugimenduen inguruko gomendioak eman ditu Haizeak, ohikoa bihurtu den moduan. Aurrean hasi dira Idoia eta Aitziber eta atzelari postuetan, berriz, Jaione eta Karmele.

Hasi eta berehala hanka-sartze eta nahaste dezentea egon da, besteak beste kasu batean Aitziber eta Karmelek kolpatu dute pilota bata bestearen atzetik, bikotea osatzen duten arren, ohartu gabe. Beste batean, berriz, berari jotzea zegokion pilota bati begira geratu eta ez du jo Jaionek. Barre algarak sortu dira egoera horien ondoren gure artean. Hori ikusita, beraz, Haizeak “berriro ere hasi egingo gara” esan du.

Partidari berrekin diotenean Aitziberrek zuen sarea eta pilotakada zuzenean txapapera joan zaio. “Beno, berriz hasiko gara” esan eta hurrena ere bestea bezala, behera. Aurrekoaren errepikapena zirudien. Berriro ere etorri da barrealdia, beraz. Aitziberrek “barre egiten dugu behintzat” esan du eta Idoiak “gaur bazekien Uxuek nora etorri”. Halako batean, hirugarren saiakeran, sarea frontisean jarri eta jokoari ekin diote berriro ere. 1-2koa Idoiak txokoa moztu eta txosta eragindako pilota bat izan da, eramateko ezinezkoa eta Aitziberrek, aldamenetik, “jo, ze ona” esan eta salto txiki xeble bat egin du. Hori ikusi eta Haizea, Jaione eta hirurok barrez lehertzen hasi gara berriro ere, ezin geldituta. Nik atzera egin dut apur bat lasaitzeko. Berriro ere barealdia iritsi da eta jokatzen jarraitu dute emakumeek. Jaionek eta Idoiak elkar ulertzeko eta kokapenak banatzeko modua egin dute, zalantza askorik egin gabe. Aitziber eta Karmele, ordea, bakoitzari zein pilota jotzea dagokion eta non kokatzea komeni zaion antzeman ezinda ari dira. Modu horretan lortu ditu Idoiak horma bikoz hiruzpalau tanto, kokapenetako desorekak probestuz. Karmelek kale batzuk egin ditu, baina, berak garbi asko esan du “aurreko astean baino gehiago ari naiz ematen”. Hori esan eta hurrengo bi pilotakadetan huts egin du, ordea.

Une batean niri zer ordu den galdetu eta “laurden gutxi” erantzuna jaso ostean, handik minutu gutxira, entrenatzaileak emakumeei esan die “orain lekuz aldatu, zuek atzera eta zuek aurrera”. Karmele eta Jaionek aurrelari postuak eta Idoia eta Aitziberrek atzelarienak hartu dituzte. Bikoteen arteko desoreka nabaria izan da hasieratik, jokomaila oso ezberdina baitute guztiek. Hala ere, saiatzen ari dira, nahiz eta Karmele bera aurrean jartzean erabat txokoa kokatu den eta eskuineko aldera joan diren pilotak itzultzerik lortu ez duen. Haizea saiatu da “Karmele, atera paretatik” esaten behin baino gehiagotan, baina, ez du lortu kasu bat baino gehiagotan. Jaionek, berriz, beste patxada batekin dihardu eta Idoia ere lasai ari da jokoan. Tanto batean ia ez du pilotarik jo beharrik izan, aurrelariak jo dituelako eta horren ostean Haizeak “zer, ikusle bezala ondo, Idoia?” galdetu dio eta besteak barrez “bai” erantzun. Jokatzen jarraitu dute eta kanpoko argi batzuk itzaltzen ikustean Haizeak “zer, bost gutxi al dira?” galdetu dit. Nik baietz erantzun diot, baina, barruko argiak ez dira itzali oraindik. Haizeak “azken tantoa” esan die emakumeei eta hala eman du amaitutzat saioa.

Partida hauen kasuan markagailua zehatz-mehatz kontaktzen hasi gara, baina, ondoren kontua galdu dugu. Hala ere, nabarmena zen zein bikote zen nagusitzen ari zena. Kasu

honetan elkarri tantoa egiteko nahia nabaria da, lehiakortasun maila bat nabari da, nahiz eta erlatibizatu egin behar den, ez baita denaren gainetik irabazteko grina plazaratzen.

Harmailen atzealdera joan aurretik argiak itzaltzera joan gara Jaione, Haizea eta hirurok, giltza tabernan uzteko asmotan, atzean bi gizon eskupilotan ari direla ahaztuta. Orduan esan digute “ez itzali, utzi minutu pare batean piztuta”, baina, ez dugu lortu berriz argiak pizterik eta eurak geratu dira argien kutxaren ondoan. Hauek partidak hasi aurretik heldu dira eta ni harritu egin naiz eta neure baitan pentsatu “zer datoz hauek ordu hauetan aritzera?”. Gainera, gazteena ari da gantxoak eta jokaldiak egiten eta bestea aldamenetik aholku emaile lanetan. Pentsatu dut “auskalo hauek zer pentsatzen duten gure inguruan” ere. Saioaren amaieran jakin dut Usurbilgo pilotari bat eta aita direla, eta azken hau orain dela gutxira arte jokatzeko aritu izan dela, gainera.

Emakumeek paletak aulkietan utzi dituzte eta luzatzera joan dira, ezker hormaren aldamenara. Ni ere hurbildu natzaie. Argien kontua izan da hizpide, gizonezkoek jartzen asmatu ez dutelako, “hauek jakin beharko lukete ba” esan du bakarren batek, “ez al dute bertan jokatzeko?”, eta eurak joan direlako giltzak lehen harturiko lekuan uztera. Haizeak esan du “ea bihar ez diren argiak piztuko” eta lasai egoteko esan diogu besteok. Broma giroan “nire izenik ez eman argiekin arazoren bat dagoela badiote, Jaione izan dela esango dugu”. Nekea sumatzen zaie emakumeei eta Haizeak berak esan du “nekatuta nago”. Beste batek baino gehiagok berretsi dute gauza bera, nahiz eta jardun eta zerbait egin izanaz gustura daudela ere nabari zaien.

Luzaketak egiten amaitzean trasteak hartu eta etxerako bidea hartu dugu. Aterki bat geratu da harmailetan, gu bertaratzerako han zegoena (B.K. Saioro egoten da ahaztutako jertseren bat, panderoren bat,... bertan ahaztuta). Bostok txamarrak jantzi eta lehen pausoak elkarrekin eman ditugu. Niri esan didate “ea datorren astean nobedadea daukagun eta palarekin zatozen” eta nik “bai, Aitziberri uzteko ekarriko dut” esan diet. Honek esan du “espero dut datorren asterako aurkituko dudala, nahiz eta azkena non ibili nintzen gogoratuta beldur pixka bat badudan eta bestela erosiko dut lehengoaren berdina bat”. Datorren astean jaiegunik ba al den esan du Haizeak, ez dela festarik tokatzen esan du ondoren eta Aste Santuko oporrak izango direla jaiegunik esan dute besteek, horiek ere hurbiltzen ari direla. Hirutik lau irakasleak dira eta 30ean oporrak hartuko dituztela esan dute. Jaionek berak ezetz esan du, nik “eta zuk?” galdetu ostean. Ondoren Idoia zuzenean etxeko atarian agurtu, Jaione eta Aitziber beste bide batetik eta Haizea, Karmele eta hirurok beste batetik joan gara, gu ere bat etxera eta beste biok autoetara bidean banandu garen arte.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Saioa ongi joan da, emakumeak giroan sartuta eta gustura sumatu ditut. Ni ere moldatu naiz nolabait, besteei begira eta, tarteka, hizketan. Hala ere, egoera honek ozpindu egiten nau, eta ez gutxi, begira egon beharrak. Lesio malapartatu hau!

Asteko saioak joan dira eta orain oharrak atondu eta kontakizuna idaztea dagokit. Ea ez dudan aurreko astean bezain berandu egiten eta nagiak kentzen hasten naizen apurka-apurka.

Lan erdiak osatuta

Saioen erdiak baino gehiago egin ditudala ohartu naiz orain arteko zenbakiak batu eta aste honetan kopuru borobil-borobila atera zaidala ikusita: 45. Hori dela eta, egutegia esku artean hartu eta egunak zenbatzeari ekin diot, gutxi gorabehera. Ohartu naiz saioen erdiak baino gehiago osatu ditudala dagoeneko, beste 40ren bat faltako zaizkidala, hor nonbait. Hasieran oso urrun ikusten nuen kopuru hau, imajinaezin zitzaidan urrian, nahiz eta bidea beste era batekoa izango zela ere espero nuen. Hala ere, kurba, malda, lur-azpi, amildegi eta abarrak ezagutu baditut ere aurrera segi beharra dago arrastaka bada ere. Irauteak balio du hemen, bizi eta gozatzea bera askoz hobea zatekeen arren.

Xabi Payak idatziriko “Etsipenaren aurka jarriak” bertso-sorta deskubritu dut aste honen joanean, kide bati esker, gainera, eta neure oneratzeko terapiaren parte egin dut, tunelaren amaieran argiren bat agertuko dela sinetsarazi nahian helduleku bat behar nuelako. “*Play*” sakatu eta pentsamenduen barrunbeetan murgildu naiz, ezinaren korapiloa nondik aska nezakeen antzemateko ahaleginean. Ea ni ere laster hau esateko moduan aurkitzen naizen: “baina poza etortzen / zaizunean bueltan / konturatuko zara / momentu horretan / soilik egon zarela / iragarkietan”.

Datorren astean gehiago (eta ahal banu hobeto, ez da zaila eta!).

19. astea. “ESPERANTZAREN ATE BERRIA IREKITZEN DUGUNEAN”

Iraupenean amaituriko aste bati irauteari eutsi nahian hasiriko hurrengoak hartu dio lekukoa, asteburuan batean eta bestean entretenituta ibili arren (tartean goiko esaldia azkenaurreko puntu lez hartu eta bertsoan) nahi eta komeni bezalako patxadarik lortu ez dudala-eta, astelehena aurrekoen tankerakoa dela iruditzen baitzait. Bolada luzean nabil kopetilun, lesioa, tesiko beste zenbait atalekin nahi beste ez asmatzea,... Aste honetan ere ez dut kirol arroparik usaindu ere egingo, tentazioari aurrea hartu asmoz. Hala ere, norbera omen norbere buruaz kezkatu eta zaintza lanak egiteaz arduratu behar dena, gertuko laguntza ere beharrezkoa den arren, beraz, ea lelo hori neureganatu eta horretan hasi eta asmatzeko modurik egiten dudana. Ikusiko dugu, egunak 24 ordu, 1440 minutu eta 86400 segundo baititu. Beraz, pentsa zazpi eguneko asteak!

Joan-etorrian goiz pasa

Astelehena nekatuta, baina, animoa berpiztu nahian hasi dut, pixkanaka-pixkanaka neure onera etortzeko gogoan akuilatuta. Hala, asteburuan gorabeherak hein batean albora utzi ostean ekin diot asteko lehen egunari, eta baita lehen saioari ere. Hala ere, aurrekoan bezala, gure aitona esango lukeen lez, “igandetako arropa” jantzi dut soinean, izerditzeko tentazioari indar handiagoz eusteko esperantzan.

Goizean jaiki, prestatu, trasteak hartu eta bederatzietarako ordu laurden pasatxo faltan irten naiz etxetik, irratia eta asteleheneroko tertuliakideak entzunez. Bidaia lasai egin dut, N-1eko ibilgailu ilaran beste bat gehiago izanik, asteari ekiteko gogo izugarririk gabe altxa naizen arren.

Kiroldegiko sarrera

9.25. Autoa ohi bezala kiroldegi atzean utzi eta kiroldegirako bidea hartu dut. Gaur, gainera, ordenagailua bizkarrean hartzea erabaki dut, gero bere bila joateko bakarrik bidaiarik egin ez dezadan, zuzenean Biterira abiatzeko asmoa hartuta. Kiroldegiko atetik sartu eta Saioa bakarrik dagoela ohartu naiz, eskuan zerbait duela. Hau aurrez ere ikusi dut kotxea aparkatzen, justu bere atzetik sartu bainaiz Hernanin. Aurreko batean eskatutako egunkaria zintzo asko ekarri dit, *Tolosaldeko Hitzako* albiste bat artxibatzeke, eta baita eman ere. Biok hizketan hasi eta berehala agertu da igerilekuko lanak amaituta Ines. Sarrera nagusitik, berriz, Irati, Malen eta Ainara sartu dira. Zuriñe goitik behera etorri da eskaileretan eta apur bat beranduago Miren, Rakel eta Gemma ere etorri dira.

Aspaldiko partez ikusi dut Irati, ea zer moduz dabilen galdetu dio Saioak ere, nonbait amarekin ibili dira, baina, sustoa pasa zaiela esan du. Ondoren honetaz eta hartaz aritu dira, tornura hurbildu eta barrura sartzen hasi garen arte. Ate zaindegitik, “zuek nora zoazte?” galdezka hasi zaizkigu, Zuriñe eta Ines ia behera doazela eta denok begiratu diogu elkarri harridura aurpegiz. Esan digute udaltzainak daudela, Bide Heziketa saioak dituztelako. Saioak non sartu ez daki, berari ez diotela abisatu esan digu, kiroldegiko teknikariarekin hitz egin du atezainak eta saioa asteazken goizean jarrita daukatela jakinarazi. Emakumeak ere “ze faena” esanez hasi dira, Saioak “nik ez dut uste esan zidatenik, nik azkena otsailekoa nekien” erantsi du. Nik, berriz, ez dakit ez non sartu eta nora begiratu. “Zer, Hernanira etorri naiz honetarako?” pentsatu dut neure baitan. Beraz, eguraldia eta panorama ikusita Saioak esan du asteazken goizean egingo dugula saioa.

Hala ere, behin etorri garenez gero goiza aprobetxatu beharko da eta bakarren batek “Tilosetara joan beharko gara” bota du. Beraz, kiroldegitik irten, eskailerak kontu kontari igo eta Tilosetara joan gara, elkarrekin hizketan.

Tilos – Pilotalekua

Bertara heltzean, 9.45 pasatxoan, trasteak frontisaren azpian, izkina batean, pilatuta utzi ditugu. Pilotaleku hau irekia da eta herriaren erdi inguruan dago. Inguruan kioskoa eta taberna batzuk baditu. Beraz, jendea ere aurrekoetan baino gehiago ikusten da: hiruzpalau taberna aldamenean, haur karroarekin dabilen emakume bat, erosketak egitera doazenak,... gaurkoa saio publikoa izango da, dudarik gabe. Bidean hiruk esan digute larunbatean, goizeko zortzietan, aritu zirela bertan jokatzeko eurak, Tilos-7 txapelketarako jar daitezten, gomazko pilota trinkoarekin jokatzekoak baitira. Guztira 9 bikotek eman dute izena emakumeen kasuan eta egutegia eskatu diot Ainarari, euren partidak noiz diren ikus dezadan. Ahal badut egunen batean bueltaren bat egin nahi nuke, egia esan.

Bidean Zuriñek esan du alaba ikasleekin joan dela egun pasa eta Iratik esan du Joana erdi gaixo dabilela eta ez dela etorriko. Beraz, hamar lagun bildu gara guztira. Hala ere, saioa egiteko zortzikotea dago.

Beroketa

Saioari esan diote “hemen ez gara korrika hasiko” eta zuzenean bizpahiru mugimendu artikular egin, paletak hartu eta Saioak “gaur pilota berriak dauzkat” esan die emakumeei. Ondoren esan die berak gaurko saioa ez duela zuzenduko, nahiz eta hasieran gidari lan pixka bat egiten aritu den.

Ariketak

1. Txokotan binaka, bikote bakoitzeko bat kantxan dagoela. Hark 2 kolpe egindakoan kanpora aterako da eta kidea sartuko. Bikoteak Ainara-Zuriñe, Ines-Gemma, Miren-Irati eta Malen-Rakel dira. Bikote bakoitza hiruna bizitzarekin hasi da.

Emakumeak aldaketak eta euren kabuz kontrolatu dituzte, nahiz eta bakarren bat despistatu xamar ere ibili den hasieran. Nik hau egiten ari diren bitartean egutegia darabilt esku artean eta Mirenek “Uxue, zuk ulertzen al duzu noiz diren gure partidak?” galdetu dit. Nik baietz esan diot eta hasierakoak, berez, noiz dagozkien esan. Berak hirukotean eman du izena, Malen eta Maddirekin. Beloki ahizpak ere izena emanda daude eta Joana eta Irati ere bai.

Txokotan ari dira eta batzuk ez dakit oso ongi kontaktzen ote dituzten bizitzak. Zuriñe eta Ainara aldamenean ditut eta nik esan diet uste dudala eurak direla bizitzak behar bezala kontaktzen dituzten bakarrak, irribarrez.

Lehenengo txanda nahikoa azkar amaitu da eta Saioak “beste bat jokatu beharko duzue” bota die. Beraz, lehenengo egoera berean, berriz ere jolasteari ekin diote. Bat baino gehiago izan dira horma bikoia bota eta tanto egitea lortu dutenak, eskuineko aldean ez delako inor asko jarri, besteak beste. Jolasean aritu dira eta Saioak ezkerrez gutxi jotzen duela ikusita, batez ere partidetan hastean, “Ines, zuretzat ariketa polit-polit bat neukan

gaurko prestatuta” bota dio. Besteak irribarrez erantzun eta handik aurrera ohi baino gehixeago erabili du ezkerreko besoa.

Halako batean amaitu dute, Mirenek “guri ya bukatu zaizkigu” esan duenean. Beraz, hortik aurrera partidak jolasteari ekin diote. 10.15 inguru dira.

2. Partidak, 3 tantora. Irabazleak jokatzeko jarraitu du eta bikote galtzaileak kanpoan.

Kanpoan geratu dira hasieran Gemma-Ines eta Miren-Irati. Kanpoan geratu direnei Saioak proposatu die pilota bat hartu eta atzean jolasean hastea. Horregatik esan die aurrean partidua hasi dutenei “4tik atzera botea eginez gero pasa da”. Hala ere, “ikusiz ere ikasten da” bota du bakarren batek, eta ez ote zaien oso baxu geratuko ezker horma, amaieran altueran asko jaisten baita pilotalekuko ezker horma. Hala ere, hasieran aldamenean egon arren, Gemma eta Ines atzera bidean jarri dira. Saioa ohartu da atzera pilotarik hartu gabe doazela eta bere aldamenean gaudenoi esan digu “horiek atzera joan dira, baina, pilotarik hartu gabe”. Laster ohartu dira eta Gemmak “Saioa, pilota bat” eskatu dio. Hau motxilara hurreratu eta eman die. Hala ere, apur bat ibili eta laster ziren besteokin batera kontrakantxan, kontu kontari besteak partiduak jolasten ari diren bitartean.

Malen eta Rakel etorri dira kanpora lehenengo partidaren ostean eta Gemma eta lehenarekin txapelketa gomazko pilotarekin jokatzeko inguruan aritu naiz. Nik argi esan diet “niri ez zait egokia iruditzen benetan sustapen lan bat egin nahi badute gomazkoarekin jokatzeko, jendea hasteko zailagoa delako eta ez oso erakargarria moldatu ezean”. Eurek esan didate “antolatzaileari une batean esan genion, baina, esan zigun mutilek ere eskatu ziotela eta tenisekoarekin ezetz horregatik”. Nik esan diet ez haserretzeko, baina, ez zaidala jendea animatzeko, gainera jakinda emakumeei dei berezia egin dietela joka dezaten, sistemarik egokiena iruditzen. Besteak beste Rakel eta Inesi galdetu diet ea tenisekoarekin errazago emango ote luketen izena eta beraiek baietz erantzun didate, argi eta garbi. Taldean bada beste adibideren bat ere.

Horren ostean partidetan aritu dira eta “larunbatean Leire nahiko ondo moldatu zen” esan dit niri, “ez da sekula aritu, baina, partida asko ikusi dituela eta fijatu egiten dela” esan dit ondoren Ainarak. Hala aritu gara, honetaz eta hartaz. Ni eta Saioa emakumeekin kontu kontari aritu gara eta ez diet kasu handiegirik ere egin kantxako jokaldi eta gertaerei, batez ere txipa aldatu dudalako asteazkenean berriro ere saioa izango dugula jakinda. Hala ere, partiduetan, hasieraren ondoren Malen eta Rakelek bata bestearen atzetik askotan jardun dute, batez ere lehenaren tantoei esker, partidak erreskadan irabaztearen truke. Bigarrenak, berriz, mailan aldea egin du lehen egunetik gaur arte. Nik kanpoan tokatu den batean berari ere esan diot “joe, hobekuntza nabari zaizu lehen egunetik” eta “bai, asko, baina, gogoia ere jartzen dut” esan dit ondoren. Kideek ere bere mailaren hobekuntzaz aipamenean bat edo beste egin izan dute aurretik ere. Nik esan diot hori nabarmena dela, horrek asko laguntzen duela ikasi nahi izanez gero. Ondoren esan dit “alabari erosi diogu pala bat orain, eskuz ibiltzen da, eta orain pala bat erosi diogu”. 6 urte omen dituela esan dit ondoren.

Gaur Tilosetan aritzean nor eta justu antolatzailea ere pasa zaie, “zer entrenatzera etorrita?” galdetuz. Ondoren teniseko pilota ikusi eta esan du “teniseko pilotarekin ibiltzen zarete saioetan?” eta emakumeek baietz erantzun diote. Txapelketako gorabeheraren baten inguruan tratuan ere aritu dira. 10.55 inguruan Saioak gomazko

pilotarik ba ote duten galdetu die emakumeei eta Gemmak “nik bai” erantzun die. Hura atera eta berotzen hasi da, emakumeek pixka batean jardun nahi badute. Malenek esan digu “gu gomazkoari gustua hartzen hasita gaude, astean behin aritzen gara honekin”. Ildo horri tiraka jakin dut aurreko astean hiruzpalau saio egindakorik badela, Ainara, adibidez, asteartean saioan, asteazkenean, ostiralean eta larunbatean. Besteren batek ere hiru bat bai. Txapelketaren harira motibazioa eta ilusioa sumatzen zaie emakumeei, bizi egiten dutela.

Saioko azken 10-15 minutuetan bizpahiru partidu jolastu dituzte gomazkoarekin, ni ere aritu naiz hamar bat pilotakada joz atzean une batean, tentazioari muzin egin ezinda eta 11.00-11.05 inguruan hainbatek martxa egitea erabaki dute: Ines, Miren eta Rakel. Hala ere, Zuriñe, adibidez, behin probatu ostean kanpora etorri eta begira ere aritu da une batean. Azkenean Saioa, Malen, Gemma, Ainara, Irati eta ni neu geratu gara. Jokatzen ari ziren bitartean kontrakantxatik atzerago kokatzeko esanez aritu gara Saioa eta biok, pilota jaten ari baitira behin eta berriro. Modu berean, mesedez, babesteko betaurrekoak erabiltzeko ere esan diegu, inork sustorik har ez dezan. Amaieran Saioak berak sartu eta hiruzpalau tanto jokatu ditu eta Ainara eta konpainiari “zuek nahi duzuenean geratuko gara jokatzeko” bota die.

Bukaera

11.15. Elkar asteazkenean arte agurtu dugu, Saioa, Irati eta hirurok berriro ere behera bidean jarriz. Ainara, Gemma eta Malenek eskuinera hartu dute plazako eskailerak jaitsi orduko. “Asteartea ondo pasa” esan diet nik eta “zer da ba asteartea?” galdetu du bakarren batek. Nik “ez, asteazkenean berriro ere elkartu gara” erantzun diet.

Beste hirurok aldapan behera abiatu gara bidea gurutzatuta. Iratik “joe, Uxue, a ze putakeria” bota du eta nik “ba, bai, horregatik etortzen naiz bakeroak jantzita, tentazioari eusteko” esan diot. Hura agurtu eta Saioa eta biok kotxeetara goaz. Ni ez naiz liburutegira joango gaur, saioaren nondik norakoak ohi baino azaleragotik hartu baditut ere etxera abiatu eta bertan idaztea erabaki baitut.

Elkar bihar arte agurtu dugu, Zizurkilen egingo baitugu topo berriro, okerrik ezean.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Hasieran ohi bezala joan naiz, baina, saioa egiteko pilotalekua okupatuta zegoela jakin dudanean sugar batzuk eta kea etorri zaizkit bueltan, nahiz eta egoerari buelta emateko uste osoarekin hasi dudan astea. Beraz, “hauxe bakarrik falta zitzaidan” buruan bueltaka ibili dut une batean. Hala ere, Saioa larri ikusi dut eta “lasai, halakoak pasatzen dira” esanez lasaitu nahi izan dut. Eskerrak eguraldi ona zen eta Tilos erabiltzeko moduan zegoen, gutxienez, bestela, orduan bai haserretuko nintzela benetan! Saioarekin ez, munduarekin enegarrenez, seguruenik.

Saioa ez da Saioak gidatua izan, bera kontrakantxan ikusle bezala aritu da ia tarterik luzeenean. Emakumeei beraiei utzi die eurek nahi zutena egiten, nahiz eta pista eta laguntza eman dien hasieran, antolaketari dagokionean, adibidez. Asteazkeneko saioa egingo dugu asterokoaren filosofiarekin eta gaurko saioa alternatiboa izan dela esan liteke, sorpresazko egoera bideratzeko modua.

Partidetan emakumeak saltsan gustura nabari dira. Batzuk askoz ere serioago hartzen dute lehiatzea eta beste batzuk eredu parte-hartzailegoa dutela esango nuke. Gaur, adibidez, Malen eta Ines Ainara baino askoz lehiakorragoak iruditu zaizkit, nahiz eta, akaso, ahalez eta mailaz azken hau den besteen gainetik dagoena.

Gomazko pilotarekin aritzearen inguruan iritzi ezberdinak ditugu, gozatzeko gutxiago dela uste dut nik, Saioak ere bai, baina, badirudi horrekin aritzeak beste “ego” bat ematen diela emakumei. Ez dakit, irudipena da, agian oso okerra.

Gaurko goiz pasa joan-etorrian egin dut, baina, pasatakoari bueltak ematen nahikoa denbora eta egun eman ditut azken boladan eta alferrik izango da izan zitekeenari edo egin nezakeenari begira jartzea. Gainera, emakumeen artean gustura xamar egoten naiz, kontu kontari eta saltsan aritzeko taldea atsegina eta gertukoa egiten baitzait. Beraz, asteazkenean berriro joango naiz bertara eta ikusiko dugu orduan zer gertatzen den eta nola moldatzen garen.

Asteartea eta hamahiru

Bada esaera bat asteartea eta hamahirua zorte txarrarekin lotzen dituen, baina, ni ez naiz halakoetan gehiegi sinesten dutenetakoa eta eguna bere martxan hasi dut, azkenaldiko tankeran, goizean abiatu nahi eta ezinean, baina, bazkalostean indarrak batu eta transkribagaitza bihurtu zaidan elkarrizketari minutu batzuk lapurtu dizkiot. Gainera, denboraz oso justu ibilita ere bizikletan amorrazioa kanporatzeko ordubetexo bat hartu dut Zizurkilera abiatu aurretik.

Errepidean jarri eta ia lehenengo gauza autoari jaten ematea izan da, astean behingo derrigorrezko ohitura, bestela ez bailuke motorrik abian jarriko. Beraz, Beasainera heldu aurretik depositua bete, eta patrika hustu, ditut, geldialdi gehiagorik gabe saiora zuzenduz nire ibilia.

Zazpiak eta erdiak puntuan heldu naiz, hala adierazi didate irratiko kanpai hotsek, eta ohi bezala pilotaleku aurrean aparkatu dut autoa. Ordurako Itsaso iritsia da eta Saioa ere ni maniobrak egiten ari nintzela iritsi da. Beraz, aurreko astean lez ia aldi berean egin dugu hirurok kotxeetatik kanporako urratsa. Itsaso eta biok frontoi atarira bideratu ditugu gure pausoak eta Saioak “fitxa bila noa, laster nator” jakinarazi digu gure aurretik pasa denean.

Pilotaleku ataria

Itsaso eta biok gaude eta bere tesiaren aurkezpena ostiralean izango denez ea zer moduz daramakien galdetu diot. Nahiko lasai dagoela erantzun dit, entsegu ofizialik ez duela egin oraindik, presiopean askoz ere gehiago errenditzen omen duela, baina, honez gero ostirala igarotzeko gogo duela. Nik animoak eman eta “ziur ondo aterako dela” esan diot. Esan dit ingelesez egin beharreko zatia grabatuta duela eta kotxean ibiltzen duela, zati hori ia buruz ikasi duela eta bolantean jarrita hura entzunez dabilela. Ondoren nik ikusi ditudan bi aurkezpenez bi hitz egin eta euren dinamika apur bat azaldu dit, ordubeteko azalpena omen dute.

Saioa nahikoa azkar itzuli da tabernatik eta autotik motxila bizkarrean hartu ostean honek ere galdetu dio ea zer moduz dabilen. Niri, berriz, “gaur ere bakeroekin etorri

zara” bota dit eta nik “bai, tentazioari eusteko nahiko lan izaten dut bestela ere” erantzun diot, erdi irribarrez. Laster batu zaizkigu Onintza eta Eli ere. Itsasok, berriz, bertsoen kontua atera du eta asteburuko nire bertsoa irakurri eta entzuna duela esan dit, lankide batek bidea emanda. Nik gustura geratu nintzela esan diot, gauzak uste baino hobeto atera zitzaizkidala. Besteren batek ere esan du “nik bideo hori ikusi nahi dut” eta nik “nahi baduzu bertso eskolako webean egongo da” erantzun diot. Marian ere heldu da eta seikoteak frontoirako bidea hartu dugu.

Pilotalekua

Sartu eta trasteak utzi ondoren Saioa argia piztera abiatu da, 19.40 pasatxoan, eta besteak korrika saioari ekitera. Itsaso eta biok beste hitz pare bat egin ditugu eta hau beranduxeago hurbildu da korrikalariena. Bitarte horretan lehenengo Pili eta ondoren Gurutze ere iritsi dira. Saioak Pilotariaren Txartel Herrikoiak banatu dizkie kideei, nik aurrez jaso nuen Usurbilen nirea, eta zenbat Maria dagoen kontatzen hasi da, askok dutelako izenari erantsita halakoren bat.

Beroketa

Pilotalekuaren alde batetik bestera ari dira korrikaldian emakumeak, euren erritmoan, lerro batean elkarren aldamenean jarrita, hitzak ere tartekatuz urratsekin batera. Halako batean, eurak nahikoa dutela erabaki dutenean, gelditu egin dira eta kontrakantxara hurbildu. Bertan ari gara ni eta entrenatzailea hizketan, ohikoa dugun moduan.

Korroan jarri eta mugimendu articularrei ekin diete, Saioak egiten duena imitatuz. Entrenatzaileak Gurutzeri eman dio bere txartela, aurretik eman gabea zelako, eta honek esan dio “urtero akatsen batekin etortzen da, karneteko zenbakia gaizki dago eta nire izena ere bai”. Hori ikusita beste kideei ere ondo begiratzeko esan die Saioak, akatsik balego berak berriro ere aldatzeko eska dezan. Horren ondoren Gurutze niri hasi zait hizketan, astebete lehenago bertso doinu batzuk bidaltzekotan geratu nintzelako eta eskerrak eman dizkit. Besteek jakin-mina agertu dute eta pixka bat azaldu die zergatik esan didan hori, “22.30erako 5 doinu bidalita zeuzkan” eta Itsasok “esan zuen hala egingo zuela” eta Saioak, berriz, “Uxue lanean hasten denean fina da”. Nik lotsa apur bat sentitu dut, baina, beno, ez dute hari horri tiraka segi eta gaitzerdi.


Korroko lanak amaitu eta kontrakantxan dauden ateetara hurbildu eta paleta eta pilotak hartzeari ekin diote emakumeek. Batzuk eurenak eramaten dituzte eta Saioak “denok al daukazue?” galdetu du, bada ez bada ere. Ezetz erantzun diote Eli eta Onintzak. Beraz, hauei bana luzatu eta ondoren elkarren ondoan jarrita dauden bezalaxe pilota bana eman die bikoteko, “new pilot” esanez, xeblebrekerietan. Itsasok “new balls” erantzun dio. Ezker hormaren aurka pilotatuz beroketa atalari amaiera emateko errebotetik gertuen Gurutze eta Marian jarri dira, erdian Pili eta Onintza eta frontis aldamenean Eli eta Itsaso. Bertara bidean jartzean Elik Itsasori lepotik heldu eta “berriz elkarrekin” esan dio eta honek “a, bai. Ea gaur zer egun daukagun” erantzun. Iragan asteko partidetan ere bikotea osatu zuten. Saioa zintak hartu eta marrak markatzera joan da, frontiseko gunean hasi eta errebotekoan amaituz.

Piloteoan hasi direnean frontoiaren sarrera ingurutik haur batzuen ahotsak iritsi zaizkigu eta bertara begiratzean Hernaniko kide baten semeak eta bikotea direla konturatu gara. Ea bertan galduta ote dabiltzan galdetu diet nik eta ezetz erantzun, buelta bat emanez

etorri direla bertara. Guk saioa dugula esan diegu eta bi hitz egin ostean eurek martxa egin eta ni kontrakantxatik emakumeei erreparatuz geratu naiz, adi-adi egiten dutena jarraitu asmoz. Erdiko gunean dabilzan Onintza eta Piliri erreparatu diedanean ohartu naiz Onintza pilotakada guztiak ezkerrez egiten ari dela, baita eskuinera doazkionak ere, errebes xeibre batekin. Halako batean Piliri azalpenak ematen ari dela ohartu naiz, eta baita ondoren aldamenetik igarotzean entrenatzaileari ere. Bezperan eskuineko eskumuturrean traba sumatu omen zuen igerian ari zela eta gaur ezkererarekin arituko dela esan du. Beste tartetxo batean jarraitu dute piloteatzen emakumeek, Saioak deitu arte. 20.01 dira nire erlojuan.

Ariketak

1. Txokotan, 2 bizitzarekin. Kantxan hiru gune daude (ikus irudia): eskuinekoa, erdiko eta ezkerrekoa (ikus irudia). Pilotak botea eskuinean eginez gero eskuinez egin beharko da kolpea, erdian edozein besorekin eta ezkerrean, berriz, ezkerrez. Kolpea airez eginez gero besoak berdindio. Pilota jo ondoren atzeko marra zapaltzera korrika egin behar da.



Atzera joandakoan 8ko marra zapaltzeko esan die Saioak eta urruti dagoela iritzita Gurutzek “zortziraino?” galdetu dio. Azkenean negoziatzen hasi eta entrenatzaileak “bale, ba, 6a” esan die. Negoziatzaile ona daukatela taldean esan dute beste emakumeek eta Elik esan dio “8ra esan baduzu 8ra da, non dago zure autoritatea?” aldamenetik. Besteak irribarrez erantzun eta “nik autoritate gutxi daukat, Hernanin ere arratsaldeetan batek marrak kentzen dizkit nahikoa dela iritzitakoan”. Besteok irribarre egin dugu azalpen honen ostean.


Bina bizitzarekin hasi dira txokotan, korrika saioak eta pilotakadak konbinatuz. Hasieran pare bati erdi ahaztu zaie marra zapaltzearena eta kontrakantxatik guk gogorarazi ostean abiatu dira atzeranzko korrikaldian. Kantxan 6 ari dira 6.koadroa ez dago hain urruti ere, baina, tantoa apur bat luzatzen denean korrikalditik itzultzean arinago ibili beharra dute. Besteak beste Onintzari entzun diot “eskerrak ez garen 8raino joan behar”.

Eli izan da lehen kaleratua eta tantaka-tantaka hasi dira bere atzetik besteak ere atzeko gunera, errebotera, hurbiltzen, besteak aurrekoa amaitu bitartean piloteatzera. Bien bitartean Saioa eta biok kontrakantxan gaude, erdi epaile eta erdi behatzaile lanean. Une batean izan dira pare bat huts, baina, ez dute jokorik eten, tantoarekin aurrera jarraitu dute. Halako batean, pilota kanpora joan eta berriro ere sakearekin hastera doazela “huts egitean, pilota hartu eta berriz atera” bota diet nik Itsaso eta Gurutzeri, erdi irribarrez, bestela nahaspila handi xamarra sortzen baita kantxan bertan, eta kontuak ateratzeko unean ere bai. Onintza izan da bigarrena eta haren atzetik Gurutze eta Marian ere. Pili eta Itsaso izan dira azkenerako geratu diren biak eta lehenak bigarrenaren huts bat behartu ondoren amaitu da ariketa hau.


Ariketa amaitu denean partidetarako bikoteak osatzeko unea heldu da, berriro ere denok kantxaren erdi inguruan elkartuz. Arropari erreferentzia eginez, bi asteasuarak gorritz eta beltzez jantzita daude, Eli ere bai txalekoa kendutakoan, Gurutze eta Onintza antzeratsu, urdin eta morez eta Pili ezberdin, jertse grisa eta prakak beltzekin. Horren ildotik “zuek hirukotean jarri beharko zaituztet eta zu bakarrik Pili” bota du entrenatzaileak, irribarrez. Itsasok, ordea, kontrakantxara hurbildu eta “lasai, nik azpitik beltza daukat” erantzun du. Arroparen kolorearen arabera egin ditu bikoteak, beraz, entrenatzaileak gaur. Hori ikusita “datorren asterako zer ekarri behar duzuen erabaki ezazue gaur” esan diet, irribarrez, eta Gurutzek “nik askoz aukera handiagorik ez daukat, e” erantzun du.

2. Partidak, frontisean eta erreboteko gunean. Iraupena: 5’ (Saioak kronometroa jartzen du martxan txanda bakoitzean). Aldaketak egingo dira ondoren, bikote garaileak aurrean jarraituz eta galtzailea atzeko eremura joanez.

- a) 2:2. Kantxan hiru eremu daude, aurreko ariketan bezala. Eskuinean eskuinez, ezkerrean ezkerrez eta erdiko gunean edozein besorekin egin daiteke kolpea. Airez joz gero berdin dio besoak.



- b) 1:1. Kantxa luzeran bi zatitan banatuta (ezk.-esk.), pilotak punpa egiten duen gunearen arabera ezkerrez, ezkerrean, edo eskuinez, eskuinean, egin liteke kolpea.



Atzeko eremuan Saioak marra ondo ikusten ote duten galdetu die emakumeei eta hauek beste marrekin arazo gehiago izango dituztela esan dute.

Aurreko eremuan Itsaso-Pili eta Gurutze-Onintza hasi dira partidan. Aurrelariak Itsaso eta Gurutze eta atzelariak Pili eta Onintza. Onintza ezkerrean jarri da eta askotan pilota jaten duenez ez du frontisera iristea lortu. Pilik ere gehienak ezkerrean bideratu ditu eta Gurutzek oso parte hartze txikia izan du kasu honetan. Markagailuan alde dezentea lortuta irabazi dute “beltzekoek” “urdin-moreen” aurka. Gainera, ez da oso piloteo jarraiturik izan kasu honetan, hutsak tantoen hasiera xamarrean izan baitira kasurik gehienetan.

Atzeko eremuan txintxo-txintxo hasi dira Marian eta Eli jokoan, tarteka elkarri pilota apur bat zailagoak jarriz, ezkerrean edo abiadura pixka bat gehiago emanez, baina, zehar begiratuak okerrik ez badu batez ere baldintza aintzat hartuz piloteoan dihardute (B.K. Saioz saioko lehiakortasuna datorkit burura).

5 minutuak igaro direnean Gurutze eta Onintza atzera joan dira, bidean lehenak “gero arte, ondo ibili” esanez kideei gurutzatzean. Frontiseko eremuko bigarren partidaren atzelari eta aurrelari postuak aldatu egin dituzte Pilik eta Itsasok eta besteen kasuan Eli aurrean eta Marian atzean kokatu dira. Partida hasi eta laster batean zalantzak sortu zaizkie Eliri eta Marianri kokapenaren gainean eta pilotaren bat nork jotzea komeni ote zen. Hori ikusita Saioa kontrakantxatik kantxara sartu eta “atzelariak hitz egin behar du, eskatu, dena ikusten duzu” esan die. Elik esan dio hori dela bere intentzioa, baina, ez duela lortzen zenbaitetan, “saiatuko naiz”. Itsaso eta Pili elkar hobeto hartuta aritu dira eta gustura sumatzen ziren, ezkerrez ere kolpe batzuk eginez. Amaieran berriro ere tanto gehien lortu dituztenak eurak izan dira, aurreko eremuan mantentzeko aukera lortuz.

Atzeko eremuan, berriz, Gurutze eta Onintza piloteoa eta hizketarako geldialdiak eginez ari dira. Saioak ikusi ditu bertara begiratzean, baina, ez die ezer ere esan une horretan.

Hirugarren partidari ekiteko berriro ere Gurutze eta Onintza etorri dira aurrera. Entrenatzaileak “zer, hidratatu egin beharko zarete hainbeste izerdituta?” bota die, irribarrez. Gurutzek erantzun dio “mingainekoa naturala dugu, berezkoa”. Kasu honetan postuak aldatu dituzte berriro Itsaso eta Pilik, aurrekoetan bezalaxe. Gurutze eta Onintzak ez, hau ezkerrekin bakarrik ari delako. Partida honek lehenengo jokatu dutenaren traza handia izan du, Gurutzek parte-hartze oso txikia izan du, kantxaren eskuinaldean jarrita, eta Onintzak ezkerrez jo eta ona egiteko zailtasunak izan ditu tarteka. Hori ikusita bera ere ohartu da eta bizpahiru kolpe errebezez egin ditu, goitik behera, gainera. Saioak “hori aizkorarako kolpe egokia izango litzateke” bota du kontrakantxatik eta Gurutzek erantzun “bai, zutikako enborra mozteko”. Hirugarren partidua ere nahiko erraz irabazi dute Pilik eta Itsasok. Honen amaieran Pilik, bada ez bada ere, ea eurek aurrean jarraituko duten galdetu dio Saioari eta honek “bai, irabazi egin duzue, ezta?”. Besteak, berriz, “ah, niregatik nahiago, baina...” esan dio.

Atzean, berriz, lehenengo txanda batean bezala txandaka pilotakadak eta hitzak elkartrukatu aritu dira Eli eta Marian, 5 minutuak amaitu eta berriro ere frontiseko gunera heltzeko zain.

Laugarren partida bigarrenaren berdina izan da, baina, postuak aldatuta: Eli atzean jarri da eta Marian aurrelari. Itsaso ere aurrean eta Pili atzean jarri dira beste bikotean. Partidan zehar Elik airez kolpe dezente egin ditu, ezkerrez ere ez du huts gehiegi egin, baina, izan dituzte elkarren arteko komunikazioan zalantza batzuk oraingo honetan ere, pilotaren baten bila biak joanez. Hori ikusita Saioak “Eli, hitz egin, autoritatea” gogorarazi dio, aurrez ere esana baitie, baina, honek “hori da intentzioa, baina, nik autoritate gutxi”. Orduan autoritate gutxi dutela ondorioztatu dute, irribarrez. Gainera, kontrakantxatik begira gaudela nik Saioari esan diot “ikusita al duzu ezkerrez eman behar badiote ere noiz aldatzen duten paleta eskuz? Ia jotzeko unean bertan” eta “bai” erantzun dit, konturatuta zegoela. Hori ikusita, une batean joko geratu eta pilotak botea egiterako paleta eskuz aldatzeko eskatu die entrenatzaileak, bestela azken unean lan gehiegi pilatzen zaiela adieraziz. Elik esan du “saiatuko gara, baina, niri kosta egiten zait zenbait gauza prozesatzea, denbora gehiago behar dut”. Amaieran berriro, larri-larri izan bada ere, Itsaso eta Pilik lortu dute irabaztea, 5-4.

Atzean Onintza eta Gurutze ari dira piloteatzen. Hasi direnean, gainera, Onintza jarri da eskuineko aldean, kolpe denak ezkerrez egiten ari dena eskuineko aldeko mina dela eta, eta hori ikusita Saioak “Onintza, baina, jarri zaitez ezkerrean” gomendatu die, bestela

errebezez eta modu nahiko xelebrea kolpe dezente egiten ari dela ohartuta. “Lehen ere horrela ari ginen” erantzuna eman dio, baina, eurentzat ere erosoagoa dela erabakita lehen bezala jarri dira, Onintza ezkerrean eta Gurutze eskuinean.

Saioa eta biok markagailua eraman bitartean hizketan aritzen gara eta partida amaitu dutenean Itsaso hurbildu eta analisiak egiten aritzen garen bota digu, nonbait mingaina asko dantzatzen dugula iruditu zaio. Nik “ez, ez, egon lasai, tertulian aritzen gara” erantzun diot.

Denera bospasei partida jokatu dituzte guneak zehaztuta frontiseko eremuan gaurko saioan. Gurutze-Onintza eta Pili-Itsaso daude bertan bosgarrena hasteko prest eta hasi aurretik “aupa, aspaldikoak! Zer, ondo bizi al zarete?” galdetu du Gurutzek, irribarrez, saio osoan eremu horretatik ez direlako mugitu kideak, orain arteko partida guztiak irabazita. Partida honetan ere Gurutze aurrelari eta Onintza atzelari jarri dira. Hala ere, Gurutze zenbaitetan atzerantz korrika abiatu da kideari laguntza eskaini asmoz, batez ere eskuinarekin jotzeko erosoagoak diren pilotakadetan, baina, Pilik ederki aprobetxatu du eskuinean geratzen zen zuloa horma bikoiz tanto pare bat egiteko. Kasu honetan ere ederki moldatu dira “beltzezkoak” eta denbora pasa ostean euren izan da tanto kopururik altuena. Gurutzek ez du partaidetza handirik eduki gaurko partidetan.

Aurreko baldintzadun azken partidari Marian-Eli eta Pili-Itsaso elkartu dira azkenekoak. Bi bikote hauen arteko partidutxoak orekatuagoak izan dira eta batez ere ezkerrez kolpe dezente eta ez hainbeste huts egin dituzte. Airez gutxiago jotzen dituztela esanez aritu gara gu. Kontrakantxatik une batean entrenatzaileak “joe, a zer ezkerre daukazuen!” bota die eta Itsasok “bai, bai, Marianek erdikoak ere ezkerrez jotzen ditu” bota du. Partida honen ostean ere orain arteko alde berera makurtu da balantza. Hau jokatzen ari ziren bitartean Saioa fitxen kutxatxora hurbildu da, 20.44an, eta “zer, tinbreak joko al du?” galdetu diot nik. Berak baietz erantzun dit eta fitxa sartzean etorri da berriro ere kontrakantxara. Horren harira, saio hasieran, emakumeei esan die “gaur teknikariaren ordezkorekin hitz egin dut argiaren fitxak eskatuz eta izugarri jatorra iruditu zait. 10 bat fitxa uztekoan geratu da, baina, gero tabernara joan eta ez zegoen bakar bat ere”. Bakarren batek “intentzio ona izango zuen, baina, agian mahai gainean ibiliko ditu, tabernan utzi behar zizkizula ahaztuta”.

Nire erlojuan 20.45 dira eta Saioak aurreko eremuko marrak kentzeari ekin dio. Aurreko eremutik atzera Marian eta Eli joan dira eta beste laurak hasiko dira baldintzarik gabeko partidekin. Nik zinta hondarrak jaso eta zaborrontzira botatzeko hartu dizkiot Saioari.

3. Binaka partida 6ra, baldintzarik gabe.

Bigarreneko Gurutze eta Onintza etorri dira atzetik eta aurrean Pili eta Itsaso daude zain. Hasi eta berehala, lehen tantoa jokatzen ari direla, lurrera begiratu eta “a, ia ez dago marrarik” esan du Gurutzek. Partida parekatua izan da oso, tanto asko luzeak izan dira, eta Gurutzek ere orain arteko parte hartzerik handiena izan du. Itsasok eta Pilik orain arte baino gehiago huts egin dute eta Onintzak “dagoeneko nekatuta egongo zarete, ez zarete hemendik mugitu” esan die. Halako batean Saioak erlojuari begiratu eta tantoa amaitzean, 3-5 doz, 20.55 inguruan, partida amaitu dutela esan die eta atzera bidali ditu Pili eta Itsaso. “Ala, atsedena hartzera” esanez agurtu ditu, saioan lehenengoz, ia amaitzean dela, aldatuko direlako eremuz. Lehenengo ura edatera hurbildu dira kontrakantxara eta atzerako bidean Eli eta Marianekin gurutzatzean, “zer,

galdu egin al duzue?” galdetu diete eta “ez dugu galdu” esan die Pilik, irribarrez, eta aurrera etortzean “baina, galtzen ari ziren, guri tanto bakarra falta zitzaigun” erantsi du bada ez bada ere Gurutzek.

Eli eta Marian atzetik aurrera etorri eta hauek ere oso partida estua jokatu dute. Saio osoan lehenengoz aritu dira elkarren aurka: Gurutze-Onintza eta Eli-Marian. 4-4 doazela atzeko eremura begiratu eta Saioak beste biak begira ari direla ikustean “etorri hona” esan eta kontrakantxan laukotea elkartu gara. Itsaso eta Pili elkarri ari dira esaten “Elik zenbat hobetu duen, airez eta ezkerrez sartzen da” eta beste biok ere bat egin dugu iritzi horrekin. Talde honetan hobekuntza gehien nabari zaiona bera dela ondorioztatu dugu, baina, nik hala esan diet “hasiera izaten da errazena aldeak nabaritzeko, gehiago kostatzen da ondoren”. Ondoren entrenatzaileak jakinarazi die “laster partidak jokatzen hasiko gara” eta nik hori entzutean “zer, nik hanka bakarrarekin joka al dezaket?” galdetu diot. Beste biek “txingoka ere irabazi egingo liguke” esan diote elkarri. Azken bi tantoak Marianek berak huts egin ditu eta 21.02 direla ikustean kantxatik kontrakantxarako bidean jarri gara. “Bai, goazen, hobe izango da” esan du Marianek, “nire errua”, eta Elik lasai egoteko esan dio.

Luzaketak egiten hasi dira eta bitartean nik ere kuadrizepsak luzatu ditut. “Zer, zuk luzaketak egiten al dituzu?” galdetu didate eta esan diet bizikleta buelta bat eman dudala aurretik eta ez naizela luzatu. Luzaketak egiten amaitu, Itsasori zorte ona opa ostiralerako eta etxeetarako bidea hartu dugu. Horren harira Itsasoren omenez bazkaria egingo duela esan du batek, besteak parranda eta datorren astera arte agurtu dugu elkar. Saioak “bihar goizeko 9.30 arte” esan dit.

Frontoi ataria

21.05 inguru dira eta ni eta Gurutze irten gara azkenak, nahiz eta besteen atzean bertantxe garen. Bi hitz egin eta datorren astera arte agurtu dugu elkar. 21.10erako abiatu naiz bueltako bidean.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saioa ondo joan da, ohiko tankeran, emakumeak saltsan gustura ikusten ditut eta pilotan ere gehiago ala gutxiago moldatzen dira. Gainera, mailak maila elkarri dioten begirune eta errespetua nabaria da uneoro, giro atseginak lagunduta.

Ni eta Saioa kontrakantxan hitz eta pitz aritu gara azken saioetan eta modu horretan niri ere erosoagoa eta entretenituagoa zait kontrakantxan begira egotea. Hala ere, berriro ere kirol arropa noiz jantziko desiatzen nago, nahiz eta ez dakidan noiz izango den. Hori bai, egun hori ederra izango da, ziur egon! Hainbesteko geldialdiaren ondoren, beharko!

Saiotik bueltan grabagailuaren kezkarekin itzuli naiz, baina, kotxea gelditu eta etxeratu aurretik grabatzen duela ikusi dut eta horrek lasaitu nau. Eskerrak, badirudi arazoa mikroarena zela, beraz, zerbait hasi da zuzentzen nire egoeran eta animoak ere pixka bat hobeto dauzkat, zaila ez zela jakin arren.

Asteazkenea betea eta neketsua izango dudala badakit, ordu asko, 12tik gora, igaroko direlako etxetik Hernanira abiatu eta Usurbildik bueltatu naizenerako. Hala ere, asteko

azken desplazamendua dela pentsatu eta lana egiten badut ez naiz oso haserre ibiliko. Ikusiko dugu ea asteazkenak zer dakarren!

Saio “ofiziala” edo propina?

Asteleheneko beroketaren, edo lekuz aldatu-rikiko saioaren, ondoren gaurkoa da ikastaroko saio “ofiziala”. Gaur, behintzat, espero dut pilotalekuan ez dela ez Bide Heziketarik eta ez beste era bateko heziketarik izango. Pentsamendu hori neure buruan darabildala abiatu naiz egun osoko espedizioan, nekatuta.

Bezperako saioa amaitu eta etxeratu nintzenetik 11 ordu inguru igaro direnean berriro ere kotxean sartu, etxea bizkar gainean hartu (gaur eguna Buruntzaldean igaroko dut bi saioen arteko tartean lan apur bat eginez, joan-etorri bat gehiago ekiditeko) eta N-lean jarri naiz Ngarrenez. Animoz apur bat hobeto banago, ziurrenik bi gurpilen gaineko saioak animikoki indartzeko balioko zidan, nahiz eta geldi egon beharrak tripak janarazi. Baina, beno, egoera dena da eta alferrik izango da konponbiderik ez dakarten kontuei bueltaka segitzea. Beraz, “c’est la vie” pentsatu eta aurrera.

Gaur, gainera, lo gutxi egin badut ere oso azkar prestatu naiz, ordutegia ustez behintzat ohikoa izan badut ere, eta ohi baino 10’ lehenago egin dut bidea.

Kiroldegiko sarrera

9.20. Autoa ohi bezala kiroldegi atzean utzi, trasteak hartu bitartean irteteko ote nintzen galdeturiko biei ezetz esan (azkena Malen) eta kiroldegirako bidea hartu dut, motxila bizkarrean. Gaur bertatik 50 metrora edo aparkatu dut, gertuago zaila.

Badakit oso goiz nabilela, baina, bertara heldu eta informazio paneleko gauzak irakurriz entretenitzen hasi naiz lehen taldekidea heldu bitartean. Ate zaindegian hiru lagun ari dira hitz egiten, bi udal langile eta atezaina bera. Ines irten da kanporantz barrutik eta esan dit ahizparekin tanatoriora joatekotan zela, bezperan istripuz auzotar bat hil baitzen. Hura “laster arte” esanez agurtu eta nahiko azkar heldu da Malen. Lehenbizi elkar agurtu dugu eta kontatu dit ez zela gogoratzen gaur saioa genuenik, Ainararekin aritu dela telefonoz hizketan eta hark “zer, baina, oraintxe egongo gara elkarrekin?” esan dionean oroitu dela saioa gaurko aldatu genuela. Haren atzetik hurrena Irati izan da heltzen eta elkarrekin hasi dira Tilos-7 Txapelketako partiden inguruan hizketan. Aste honetan elkarren aurka jokatu beharreko partida atzeratu egin dute, lan kontuak eta ondoezak medio, eta orain egunik ezin aurkituta dabiltzala esan dute, ustez jarri zuten egunean arazoak baitituzte Iratik-eta. Antolatzaileak bost bat aldiz deitu omen zion bati, bitan besteari eta mareatzen ari direla esan dute. Hala ari direla Ines eta Miren etorri dira eta Malenek “ala, Miren, konpondu zuen artean” esan dio, Malenekin batera izena eman baitu, hirukote batean. Ondoren Gemma heldu da eta eskaileretatik behera Ainara ere ez zen oso urruti. Txapelketaren inguruan hasi dira, partidak antolatzeko dituzten gorabeheren inguruan eta “hori esatea normala da, Axular gaixoa, erotuko dugu, bestela” esanez aritu dira. Azkena iristen Saioa bera izan da, lo aurpegi pittin batekin, nekatuta dirudi. Halako batean hau ere zer gertatzen ari den konturatu eta hizketan hasi dira. Inesek kontuak luze jo dezakeela ikustean “zer, sartu beharko dugu ba?” bota eta ni abiatu naiz haren atzetik, txartela tornuan sartuta.

Eskaileretan behera jaitsi eta aldageletako pasabidera heltzean atzetik beste inor ez datorrela ohartu gara eta “horiek badute nahiko gauza konpontzeko” esan dit Inesek. Halako batean ikusi dugu tropela atetik igaroz, gugandik 30 metrora edo. Guk hizketan jarraitu dugu pilotalekura bidean eta frontoiko atea zabaldu digutenean ni geratu naiz ateari eutsiz besteen zain. Halako batean iritsi eta “zer, Uxue, atezain?” galdetu dit Rakelek atea gurutzatzean. Nik “hala behintzat funtzio bat badaukat” erantzun diot, erdi irribarrez. Zuriñe eta Jone ere badatozela ohartu naiz, sarreran ez zeuden arren abiatzean eta azkenari, “aspaldiko, bizi direnak azaltzen direla!” esan diot. Berak ere agurtu nau eta Saioari saioetara ez etortzeko nola ibili zen kontatzen aritu dela ohartu naiz.

Pilotalekua

9.40 jo gabe dira, garbutzaileak agurtu eta trasteak harmailetako lehen lerroan utzi ostean emakumeek hizketan badihardute ere saioari ekiteko unea da. Nahikoa hitz jario eta kontu badarabilte, baina, hastera doaz.

Beroketa


Ohiko korrika saioa egin dute, binaka edo hirunaka elkartuta eta hitz eta pitz ari diren bitartean. Ni kontrakantzako murruan eseri naiz eta begira jarri, Saioa aldamenen dudala. Bi itzuli osatu dituztenean, gure parean, geratu egin dira eta Saioak “hirugarrena falta zaizue” esan die. Emakumeek zalantza egin dute, baina, ekin diote eta Ainhoak “1-2, 1-2, 1-2, animo!” esanez animatu ditu justu beste aldean gure parean pasa direnean. Hirugarrena osatutakoan ez dute jarraitzeko imintziorik ere egin, oinez gerturatzu guregana. Korroan jarrita mugimendu artikularrak egiten hasi dira eta ni ere korroan jarri naiz, eurei begira. Saioak egiten dituen mugimenduak errepikatzen dihardute, orkatilak lehenengo, belaunak ondoren, gerria, besoak,... Hori bai, hitzez ez die azaltzen zer egin behar duten, baina berak aldatzean besteak ere, imitazioz, gauza bera egiten dute. Korroan dauden bitartean Saioak Maleni “atzo Zizurkilen zure familiarekin topo egin genuen” esan dio eta “zenbat hitz egiten duen Haritzek”, semeari erreferentzia eginez. Honek baietz erantzun du eta ez diotela ezer esan etxekoek, eta horren harira hizketaldia hitz egitearen inguruan murgildu da. Batek asko hitz egiten duela, bestearen senarrak ere bai, etxetik kanpo eta etxean batzuetan ezberdina izaten dela,... Hortik Saioak “Uxue eta bionak ere isilak dira” esan die eta nik konplizitatez beteriko irribarre bat egin dut. Hortik eztabaidatxoak eta abar bihurtu dira hizketagai. Halako batean Saioak pilota eta paletak banatzeari ekin dio. Aurrez Zuriñek Joneri, alabari, esan dio “nobedadea daukagu, pilota berriak” eta txinatarrak direla eta horren inguruan hasi dira. Besteak, berriz, “joe, behin ez etorri eta zenbat gauza dauden” bota du, irribarrez (B.K. Oso nabarmena da euren arteko harremana eta giroa oso ona dela eta elkarrekin ongi moldatzen direla). Paletak banatu eta Jone ez dakit norekin hizketan ari dela eta neuk hartu dut harena, amaitzean emateko asmotan.

9.50. Aldamenen jarrita dauden moduan eman dizkie pilotak entrenatzaileak eta “gaur ezkerren entrenatu” oharra eman die, berak zintak hartu eta emakumeak kokatu ostean marra eta guneak zehazteari ekin dion bitartean. Nik, berriz, zalantza asko egin ostean, koadernotxoa atera eta ohar pare bat idazteko erabakia hartu dut, behintzat nor norekin hasten den idatziz, gero ahaztuko ote zaidan beldurrak gaina hartuta (B.K. Egia da orain arte ez dudala ezer atera eta horrek euren arreta eta nire rola bereganatzea saihesten duela, hala komeni da, baina, beste alde batetik mamuei gaina hartzeko modua ere bada).

Errebotetik gertuen Irati eta Zuriñe jarri dira, hauen eskuinetara Ainara, Gemma eta Malen, eskuinerago Miren eta Ines eta frontisetik gertuen Jone eta Rakel. Saioa berehala joan da frontiseko gunera eta kantxan marrak jartzeari ekin dio. Hitzak eta pilotakadak elkartrukatzan ari dira emakumeak, batzuk ezker-eskuin eta beste batzuk eskuinez soilik. Tartetxo batean aritu dira beroketako azken atalean, frontoi osoa betez. Saioak marrak jartzen amaitu duenean “bale” esan eta kantxaren erdi ingurura dei egin die. 10.00 dira nire erlojuan.

Ariketak

1. Txokotan binaka, bikote bakoitzeko bat kantxan dagoela. Hark 2 kolpe egindakoan kanpora aterako da eta kidea sartuko. Bikoteko bi bizitza dituzte. Kantxa hiru gunetan banatuta dago: eskuinekoa, erdiko eta ezkerrekoa (ikus irudia). Pilotak botea eskuinean eginez gero eskuinez egin beharko da kolpea, erdian edozein besorekin eta ezkerrean, berriz, ezkerrez. Kolpea airez eginez gero besoak berdindola ere esan die Saioak.



Azalpena ematen ari dela ni eta Jone elkarren aldamenean tokatu gara eta ea oina zer moduz dudan galdetu dit. Nik esan diot nobedade gutxi dagoela eta Inesek ere galdetu dit. Fisioak txanda aldatu didala eta ostegunean noala esan diet. Besteren batzuk ere ari dira hizketan. Beraz, Saioak ea ulertu den galdetu eta bakarren batek oso ondo ez esan badu ere aurrera segi du. Oraindik ez ditu bikoteak egin eta “ezertan hasterako 10ak ditugu” bota du Mirenek, irribarrez. Presa handirik ez dute behintzat ez batzuk eta ez besteek. Saioak “orain bikoteak egin behar ditut” esan eta emakumeei begira honelaxe jarri ditu: Ainara-Irati, Ines-Jone, Rakel-Miren, Malen-Gemma eta Saioa-Zuriñe. Horren ondoren berriro azaldu behar izan du bikote bakoitzeko bat hasiko dela barruan, nahi duen lekuan, Jonek galdera egin ostean. Amaitzeko, azaldu du kanporatutako ordenaren arabera non jokatzan hasiko den partidetan bikote bakoitza: azken biak frontisean, lehen bi kaleratuak erdiko gunean eta erdikoak, hirugarrenak, atzeko eremuan. Bada ez bada ere, errebasez ezin dela jo ere gogorarazi du, beso bakarrarekin, ezkerrekin egin behar dela kolpea.

Ekin diote jolasari, 5 kantxan eta beste bostak (+ ni) kontrakantxatik jokoko gorabeherak jarraitzen adi-adi ari garen bitartean. Hasi eta nahikoa azkar Gemmak ezkerrean botea egindako pilota bat eskuinez jo du eta Saioa eta biok nahiko argi ohartu gara. Berak, baina, ez duela batere argi argudiatu eta tantoa jokatzan jarraitu dute emakumeek. Tantoak nahikoa luzeak dira eta huts egiteak egon badira ere jolasaren hasiera nahikoa luze eta jarraitua izan da. Azkenean lehenengo Ainara eta Irati izan dira kanporatuak, bigarrenak egindako bi kaleren ostean. Halaxe esan dio Ainarari kanpora etortzean, “ederra bikote bezala egin dugun estreinaldia”. Hauen atzetik kanpoan ikusi dudak hurrengo bikotea Jone eta Inesek osatzen dutena izan da. Beste seiak, berriz, oraindik jokoan ari dira. Zuriñek ezkerrez pilota zail xamarrak eraman ditu eta kale gutxi egin, adibidez. Saioa berriz nahi eran ari da jolasean, pilota nahi duen gunera bideratu eta saltsa jartzen saiatuz. Halako batean Gemmak eta Malenek elkarri ea zenbat bizitza dituzten galdetu diote eta biak dituztela ondorioztatu dute. Ni ohartu naiz eta

aldamenetik barrez hasi naiz. Baina, ez naiz ni izan bakarria, Saioa ere ohartu eta “lehenengoa txarra izan da” gogorarazi baitie. Beraz, Zuriñe, Miren, Malen, Saioa, Gemma eta Rakel ari dira kolpea egindakoan lekuz aldatuz jolasean. Halako batean Gemma eta Malenek geratzen zitzaien bizitza galdu egin dute eta Rakel eta Saioa geratu dira barruan. Jokoko une batean kontrakantxan gaudela Ainarak Rakeli esan dio ezkerrera ere hurbiltzeko, ez duela askotan ikusi inguru horretan (B.K. Egia da ezkerrean eta ezkerrez pilota joz oso ohiko emakumeak aritzen direla saioak joan eta saioak etorri eta ezkerrez kolpea egiteari errespetua, kasuren batean beldurra, diotela). Beraz, Saioak esan bezala “derrigortu beharra dago ezkerrez joko badute”.


Azkenean Rakelek egindako huts baten ondoren amaitu da txokotan egin duten jolasa eta horren ondoren Saioak gogorarazi dio bikote bakoitzari orain non hastea dagokion. Zuriñeri “guk irabazi dugu” esan dio irribarrez eta honek, pilota bila doan bitartean, “dena hastea izaten da” esan du. Denok egin dugu irribarre eta barre erantzun horren ostean. Beraz, partida egoerak lantzerantz igarotzeko unea heldu da (10.10).

2. Partida egoerak, hiru gunetan. 5'ko partidak, irabazleak mantenduz aurrean eta besteetan errotazioa eginez, garaileak hurrengo gunera eta galtzaileak bertan (atzean ez).

a) Aurrean, 2:2. 3 guneak mantenduz, kolpea pilotak botea egiten duen gunearan arabera zehaztuko da: ezkerrean ezkerrez, erdian biekina eta eskuinean eskuinez. Airez libre.

b) Erdian, 2:2. Kantxan bitan banatuta, ezker-eskuin. Bikote bat ezkerrean eta bestea eskuinean jarriko da. Ezkerretik eskuinera pilota ezkerrez bideratu behar da eta eskuinetik ezkerrean eskuinez. Bi kolpe egiteko aukera izango dute emakumeek, prestatzekoa eta orain gunera bidaltzekoa. Bikote bat 3ra heltzean lekuz aldatuko dira.

c) Atzean, 1:1. Bertan kantxan, 9 ¹/₄ean, berez dagoen marrantik ezkerrean botea egindako kolpe guztiak ezkerreko besoarekin egin beharko dira.



Aurrekoaren inguruko azalpena eman ostean erdikora bertan jokatu behar duten laurak eta ni neu bakarrik hurbildu gara. Saioak azalpena amaitu duenean gehitu zaigu beste laukotea aurretik eta berriro ere eman du azalpena. “Entzun al duzue?” galdetu die eta Mirenek “ez” erantzun dio. Beraz, berriro ere azaldu du, baina, “zer, gero berriro azaldu beharko dut, ezta?” egin du galdera, eta baietz erantzun dio bakarren batek. Atzean zer egin behar den ere azaldu du eta gaineratu “baina, ezkerrean bota, e, zeren eta botatzen ez baduzue jo beharrik ere ez duzue izango” erantsi die, euren laguntasunari erreferentzia eginez. Saioak orduan esan die “ni batzuetan zuen laguntasuna noraino iristen den harritu egiten naiz” eta Ainarak “nik jokatzeko ez dut erabiltzen” erantzun. Entrenatzaileak esan du “ni Zizurkilan hasi nintzenean jotzera joaten zirela esan zidaten eta ez nien kargurik hartzen eta isilik geratzen nintzen”. Emakumeek irribarre egin eta halako batean euren lekuak hartu eta partida egoerak lantzeko ariketei ekin diete.

10.15. Azkenean lehen errotazioan aurrean Saioa-Zuriñe eta Rakel-Miren, erdian Jone-Ines eta Ainara-Irati eta atzekoan Malen-Gemma bikoak hasi dira. Nik berriro ere poltsara hurbildu, koaderno atera eta nor non hasi den idatzi dut, ahanzturaren mamua

bisitan etorrita. Ni aurreko eremuaren parean jarri naiz kontrakantxan, atzeko guneetara zehar begiratu botatzeko asmotan.

Aurrean aurrelari postuan jarri dira Saioa eta Rakel eta atzelari Miren eta Zuriñe. Partida hasi eta saiatzen dira ezkerrean pilota botatzen, kideen ahulunea aurkitu asmoz. Mirenek eta Zuriñek ezkerrez dezente jo dute eta Saioa lasai ari da. Rakelek, berriz, hobekuntza nabarmena izan du eta askoz ere sarriago egiten ditu kolpeak. Ni markagailu lanetan ari naiz, baina, une batean erdiko eremura ere hurbildu naiz, eta kontrakantxara, koadernoan errotazioa idaztera. Hala nagoela ohartu naiz aurrekoei pilotak atzera alde egin diela eta Zuriñe bi aldiz igaro dela pilota bila besteek diharduten eremutik, paleta ezkerrean jarri eta aurpegia babestuz, Saioak “korri, Zuriñe” ohartarazten duen bitartean. Lehen aldiz pasa denean ez da oso urrun ibili kideen pilotaren igurtzi bat jasotzetik.

Erdian, hasieran, Ainara eta Irati jarri dira eskuinean eta beste biak, Ines eta Jone, ezkerrean. Kolpeak, gainera, txandaka egin behar dituzte, ez da posible pertsona batek pilota beste gunera bideratu eta bueltan datorrenean berriro ere berak jotzea. Atzean, berriz, hizketan eta jolasean ari dira Malen eta Gemma.

Lehenengo txanda amaitu denean, 10.15, irabazleak bertan geratu dira aurrean, erdiko irabazleak atzera eta galtzaileak mantendu egin dira. Saioa eta Zuriñe erdira joan dira, Ainara eta Iratirengana, aurrean Rakel-Miren eta Gemma-Malen elkartu dira eta atzean, berriz, Ines eta Jone. Kasu honetan ere hasieran kontrakantxan jarri naiz, markagailua kontatuz eta emakumeak animatu eta aholkutxoak banatuz. Gemma jarri da aurrelari eta Malen atzelari. Beste biek, berriz, aurreko kokapenak mantendu dituzte. Malenek errebezez jotzen du pilota normalean eta ezkerrez jotzea tokatzen zaionean paleta bi besoekin hartuta darama hasierako unean eta azken unean hartzen du ezkerrekin bakarrik. Hori ikustean “Malen, saiatu paleta zuzenean beso bakarrarekin, ezkerrekin, hartzen” esan diot, lagundu eta animatu asmoz. Berak ez dit oso aurpegi onik jarri, baina, une batean oroitu da aireko kolpea erabiltzeko aukeraz eta aireko kolpeaz baliatzen hasi da, niri begi keinu bat eginda.

Erdian ohartu naiz gorabehera batzuekin dabiltzala eta berriro ere koadernoan idazten ari naizela “harrapatu” naute. Saioak “Uxue notak hartzen ari da” ohartarazi ditu besteak eta Ainarak “apuntatu tranposa batzuk direla, tranpa egiten ari direla” gaineratu du. Ni euren hurbildu naiz eta azaldu didate “Saioak prestatzen dio eskuinez eta Zuriñek ezkerrez beste gunera bideratu, baina, hori ez du lehen esan, hori tranpa da”. Horrela dabiltzala nik ere saltsa jartzeko gogo sentitu eta “a zer erdua, gero esango du ezkerrekin jotzen saiatzeko eta bera eskuinez ari da kolpe denak egiten” bota diet, bihurrikeria egin berri duen hauraren satisfazio aurpegiarekin, Saioari begira. Hala ari direla Saioaren erlojua joka hasi da, 5 minutuak pasa direla iragarritz, ni aurreko gunera noala eta 6-6 doaz. Azkenean 7-6 amaitu dute eta “joe!” esan du Malenek, pena adieraziz, tanto bakarrak erabaki baitu balantza zein aldetara desorekatu.

Atzean Jone eta Ines euren kabuz aritu dira piloteoan, kolpeak eta hitzak elkartrukatu, beste denak baino dezente lasaiago errotazio honetan, hainbeste aztoramenik gabe.

Beraz, hirugarrenerako berriro ere eremu berean jarraituko dute Miren eta Rakelek. Aurrera begiratu eta “oraindik hor daude” esan du Saioak eta nik, albotik, Ines eta Joneri esan diet “beno, bidal itzazue horiek atzera” eta eurek “aaaaaah, orain bai” esan

diete irribarrez partida hasi aurretik. Erdiko gunean Zuriñe-Saioa eta Malen-Gemma elkartu dira eta errebotekoan Ainara eta Irati. Aurreko gunean berehalaxe hasi dira partidari, Rakel atzean lehenengoz eta Miren aurrelari postuan jarrita, Jone ere aurrean eta Ines atzean dela. Beste bi guneetakoek, berriz, hitz aspertu luze xamarrean darraite elkarren artean. Aurreko ariketaren ganean ari dira Saioa, Malen, Gemma, Ainara eta Irati itxuran (B.K. Nik ez dut zuzenean entzun, baina, hurbildu naizenez tankera hori eman diot). Zuriñe, berriz, besteak hizketan ari direla ikusi eta aurrealdeko partidari begira jarri da atzetik, “aupa Ines” esanez tarteka. Ni berarengana hurbildu naiz eta “hauek zenbat hitz egiten duten” esan dit, neuk aurretik apur batean xaxatu ostean. Erdikoak hasi aurretik Ainarak esan die Malen eta Gemmari Saioak nola egiten duen prestatzeko eta jotzeko kolpearen erabilera, oharra pasaz. Ni hori ikusi eta aurreko gunera hurbildu naiz berriro ere. Postuak aldatu dituzte lehendik Mirenek eta Rakelek eta azken honek bera ezkerrean jarrita irabaztea zaila izango dela esan du. Mirenek, hala ere, lasai egoteko esan dio, horrela ikasten dela. Partidak ez du misterio handirik izan markagailuari dagokionean, zenbaitetan besteak ezkerrez jokatzera behartuta eragindako hutsak baliatuz nahiko erraz ari baitira. Erdian, berriz, Zuriñe eta Saioa ongi moldatzen dira batek prestatu eta besteak jotzeko dinamika horretan eta Malen eta Gemmak lan handiagoak dituzte pilota ezkerretik eskuinera bideratzeko. Lanik handienak Malenek ditu eta huts egindako batean berak aitortu du “desmoralizatu egiten naiz”, ez baitu errebasez besterik jotzen, behartuta ez bada ezkerrean ez erabiliz. Atzean, berriz, tarteka elkarri pilota biziago eta zailago jarriz ari dira Irati eta Ainara. Errotazioa amaitu dela adierazi du Saioaren ordulariak eta laugarren errotazioaren txanda heldu da. Denak ohartu dira Miren eta Rakelek atzerako bidea hartu dutela, saioan lehenengoz.

Laugarren errotazioan aurreko gunean Jone-Ines eta Ainara-Irati tokatu dira elkarren aurka. Ainara eta Irati Malenen-eta aldamentetik pasatzean honek esan dio Gemmari “ez diegu erdiko trukoaren berri emango” eta Ainarak esan die “horrek ez du balio, guk zuei esan dizuegu”. Aldaketa egiten amaitu eta kantxan kokatu direnean Irati eta Ines jarri dira atzelari eta beste biak aurreko koadroetan. Une batean bata bestearengandik gertuegi eta, nahi gabe bada ere, elkarri traba eginez ikusi ditut eta nik, kontrakantxatik, “zer, ezin kabituta?” bota diet, irribarrez. Iratik ezkerrez moldatzen dela dirudi, nahiz eta hala behartutako egoeretan ez bada ez duen kolpe bakar bat ere egiten ezkerrez, errebasea erabiltzen baitu. Partida honetako erritmoa aurreko askotakoa baino biziagoa da, jokariak ere agian lehiakor eta abilagoak direlako. Erdiko eremura heldu direnean Miren eta Rakelek, trukoarena albora utzita, zer egin behar den azaltzeko eskatu dute eta Saioa atzeko eremura joan denez Zuriñerekin batera ni hurbildu eta eremu honetan egin beharrekoaren berri eman diet. Halako batean ekin diote jolasteari, Rakel eta Miren ezkerrean eta beste biak eskuinean. Lehen aldaketa nahiko azkar egin dute, lehen 3 tantoak azkar joan dira. Hala jardun dute denborak iraun bitartean. Aitzeko eremuan, aldiz, Zuriñe eta Saioa ari dira eta tarteka lehenari aholkuak ematen dizkio Saioak. Denbora amaitzean Ainara-Irati eta Gemma-Malen izan dira nagusitu direnak. Aurreko partidari une batean pilotari indar handiegia eman eta 4tik atzera joan da eta neronek, besoak gora jasota, “pasa, pasa” esan diet, 4tik atzera bote egindako pilotakada txarra dela adieraziz. Inesek “aurrez esan gabe zegoen hori” bota du, baina, “atzean besteak dabilta” esatean laster konformatu da. Bakarren batek “eskerrak Uxue hor dagoen” bota du hori ikusita. Partidaren amaieran Ines-Jone bikoteak hartu du atzerako bidea, ezkerrekin pilota bat huts egin ondoren. Horren ondoren ez dakit Ainarak esan duen “ez dio ezkerrez askotan ematen Inesek” eta honek hori aditzean “hemen badaude ni baino gutxiago jotzen dutenak ezkerrez” erantzun du, berehala. Nik Ainarari “Ines haserretu egin zaizu” esan diot eta honek, bada ez bada ere, kontrakantxara joan,

bizkarretik heldu eta zer duen galdetu dio, arrazoia emanez kideari. Horren ondoren ekin diote hurrengo txandari.

Bosgarren txandan Ainara-Irati eta Saioa-Zuriñe aurrean, Ines-Jone eta Miren-Rakel erdian eta Malen-Gemma atzean tokatu dira. Aurreko partiduan piketxoa izan dute behin baino gehiagotan elkarren artean Saioa eta Ainarak eta Iratik kolpe asko egin ditu airez, ezkerrez jotzea ekidinez. Zuriñe, berriz, joko erritmo bizixeago honetara ez dago ohituta eta aurretik atzera abiadura handiagoan zetozen pilotakada bat baino gehiago pasa zaizkio paleta prestatu eta kolpea tiratzerako. Nik hala esan diet aldamenetik, “zuek saltsan hasi eta hondar guztiak Zuriñeri doazkio” eta arrazoi eman didate besteek. Saioak pare bat huts egin ditu eta Iratik ez du pilota asko galdu ezkerrez, nahiz eta hain gutxitan egiten duen kolpea. Partida hau amaitzean berriro ere Ainara-Irati bikotea nagusitu da eta erdian Miren-Rakel. Beraz, denbora pasatzean beste leku aldaketa bat egiteko unea heldu da.

Seigarren errotazioan Gemma-Malen eta Ainara-Irati aurrean, Ines-Jone eta Saioa-Zuriñe erdian eta Miren-Rakel atzean hasi dira. Aurrean bizi xamarra da jokoa, batez ere Ainara eta Malenek sartzen dute abiadura, baina, beste biak ere ez dira atzean geratu. Erdian, berriz, lasaiago aritu dira laurak eta atzeko eremuan ere patxadaz dihardute Miren eta Rakelek, pilotakadak eta hitzak txandaturaz (B.K. Gaur atzeko eremua izan da “ez-lehiakorra”, beste bietako emaitzak baldintzatzen zuelako txandakatzeetako aldaketak nola egin). Errotazio honen amaieran Ainara-Iratik irabaztea lortu eta aurreko eremuan jarraitu dute (auskalo zenbatgarrena duten jarraian). Besteek txandatzeak lortutako emaitzaren baitan dituzte, saio osoan zehar bezala.

10.50 dira nire erlojuan eta Saioa frontiseko gunera hurbildu eta aurrez jarri dituen zintak kentzen sumatu dut. Beraz, hurreratu eta ni ere aldamenekoa kentzen hasi naiz, Mirenekin batera. Zintak jaso eta Saioak esan du aurreko eremuan aldatu egingo dela baldintza.

3. Partidak, 4 tantora. Irabazleak jokutzen jarraituko du eta bikote galtzailea atzeko gunera joango da. Erdiko eta atzeko eremuetako partida egoerak ez dira aldatu. Aurrekoa ikustean bakarren bati baino gehiagori aldatu zaio aurpegiko espresioa, irribarre salataria agertuz.

Aurrean Ainara-Irati eta Rakel-Miren hasi dira elkarren aurka eta hasi eta berehala Iratik besteei “Ainara izugarri ondo ari da” esan die, irribarrez. Bera atzean jarri da eta aurrean Beloki ahizpetan zaharrena. Miren ere atzelari jarri da eta Rakel aurrelari. Aurreko partidatik marrak kentzeak zenbaiten jokabidean aldaketa nabarmenak eragin ditu. Besteak beste, Iratik ez du paleta ezkerreko aldera pasa ere egin, errebesa erabiliz, eta Mirenek ere ezkerrez jotzea komeni zen hainbat pilota eskuinez jotzeko saiakera egin du, batzuk ongi itzuliz, gainera. Ni une horretan erdiko eremuan nago, Saioa-Zuriñe eta Gemma-Malen laukotearekin eta “lehen Iratik ezkerrez ematen zion eta orain ukitu ere ez du egiten pilota” bota du. Erdikoek ez dakit lau pilotakada ere jo ote dituzten kasu honetan, aurrekoei begira hitz eta pitz ari baitira. Azeko eremuan, berriz, formalago ari dira Jone eta Ines.

10.55ean amaitu dute 4ra jokaturiko aurreko partida eta irabazleak bertan geratu dira: Ainara eta Irati. Ines eta Jone joan dira aurrera eta Malen eta Gemmak motxilatik gomazko pilota trinkoa hartu eta ondoren jokatzeko asmoa dutela esanez pilota hori

hartu eta erdiko eremuan aritzea erabaki dute. Saioa hurbildu zaie eta “hartu 6a erreferentzia eta horra bideratu pilota guztiak”. Aurreko partida bukatu ostean, beraz, Miren eta Rakelek urari tragoa egin eta bigarrena nahiko azkar joan da errebote ingurura, Saioa eta Zuriñerekin batera. Miren, aldiz, nire aldameneko aulkian eseri da eta “partidua ikustera noa” esan dit. Nik irribarre batekin erantzun diot. Halako batean Saioak “Miren, baina, zer zabilta?” bota eta honek “partidua ikusten” erantzun dio. Ainarak ere ikusi du eta “zer ari da?” galdetu du. Berehala altxa da aulkitik eta “beno, banoa” esan eta erreboteko gunera bidean jarri da hau ere. Saioa bera hurbildu zait niri aurretik eta “hau datorren urtean gomazkoarekin aritzeko ikastaroa eman beharko zaie” esan dit, irribarrez. Nik ere halatsu erantzun diot.

Tarte honetan, hamaikak jotzear daudela, gazte talde bat ikusi dugu frontoian sartzen, irakaslea lagun dutela. Berehala tankera eman diet nik soin hezkuntzako saioa izango dutela, harmailetan eseri baitira guk noiz bukatuko zain begira.

11.02 dira. Saioak “ya!” esan du eta batzuk kontrakantxara, paletak eta pilotak utzi, luzaketa pare bat egin eta etxerako bidean jarriz eta beste lauzpabost frontisera hurreratu dira, gomazko pilotarekin kolpe batzuk egin asmoz. Ainara, Gemma, Irati, Miren eta Malen. Mirenek nahiko azkar utzi, trasteak hartu eta kanporako bidea hartu du. Rakel, Zuriñe, Jone eta Ines ere joan dira inor akordatzerako. Nik, behintzat, datorren astera arte agurtzeko tarte hartu dut.

11.06 dira nire erlojuan eta irakaslea hurbildu zaio Saioari zerbait esan asmoz eta zerbait esaterako honek berak “bai, oraintxe bukatu dugu” esan eta beste laurek pilotan aritzeari utzi eta kontrakantxarako bidea hartu dute. Iratik paleta utzi eta martxa egin du nahiko azkar. Beste hirurak, berriz, penatan geratu dira, saioaren ostean pixka batean aritzeko asmoa baitzuten. Hala ere, hori ikusi eta partiden harira, gaur jokatu dute Gemma eta Ainarak euren lehenengoa, postuen inguruan galdezka hasi zaizkigu Saioa eta niri eta guk esan dieguna “zuek ikusi non zabilzaten gusturago, baina, proba egin eta gaur ez bazarete konforme geratzen hurrengoan aldatu” baino askoz gauza gehiago ez diegu esan. Hizketan ari gara eta ikasleak hasi dira euren pilotako saioarekin. Hiru taldetan banatuta ari dira eta nik ikusi dudan minutu erdian aurrean hamarkote bat elkarren gainean paletan ikusita nire Segurola sena piztu da.

Ondoren, pixkanaka-pixkanaka hartu dugu kanporanzko bidea bostok eta nik oharrak gaur eurek ikusteko moduan idazten jardun dudanez une batzuetan, zer jartzen ote dudan imajinatu eta esaten hasi zaizkit “ziur jarri duela honek azalpenak ematean ez garela isilik egoten”, “ariketa hau okerra dela”, etab. Nik irribarre egin eta “lasai, nik ez dut ezer txarrik jartzen” esan diet eta gaiarekin jarraitzeko gogo sumatu diedanez “begira, egunen batean nik lanerako gogo handirik ez dudanean zuei esango dizuet saioaren osteko idatzia egiteko” esan diet, irribarrez (B.K. Niri deserosoa zait ikerketaren gaineko jakin-mina agertzea zentzu batean, ezer ez diedalako esango eta nolabait elkarrizketa beste gai batetara desbideratzeko lana suposatzen didalako. Hala ere, gaurkoan ere nahikoa ongi moldatu naizela esango nuke).

Hizketan egin dugu eskaileretan behera aldageletako pasabidera arteko ibilbidea ere. Han elkarrekin laurek, Gemma, Ainara, Malen eta entrenatzaileak, Saioak berak, aspalditik jokatzeko daukaten partida eguna jokatzearen inguruan hasi dira eta niri barru-barrutik “itxaron ni errekuperatu arte” irten zait. Hori entzunda Saioak “Uxuek ere jokatu egin nahi du” bota du, niri begira. Ondoren nik “lasai, zuek jokatu eta ni etorriko

naiz besterik ez bada markagailuarenak egitera” esan diet. Eguna zehazten saiatu dira, baina, ez dakit azkenean zertan geratu diren, ez baitago erraza agendak bateratzen. Ainara aldagelen parean agurtu, Idurrerekin, aspaldian ikusi gabeko pilotari hernaniarrarekin, topo eta bi hitz eginda goranzko bidean jarri gara laurok.

Kiroldegiko sarrera

11.15 dira eta elkar datorren astera arte agurtu dugu, nahiz eta agian, nahiz eta ez nagoen erabat konbentziturata, ni arratsaldean txapelketako euren partida ikustera azalduko naizela esan diedan. Kotxera bidean utzi ditut Malen eta Saioa, “astelehenera arte” esanda, eta Gemmak eskuinerantz hartu du kiroldegi sarreratik. Nik, aldiz, motxila bizkarrean hartu eta ezkerreko eskailerak goraka igoz liburutegirako bidea hartu dut.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa ondo joan da. Alde batetik, emakumeak gustura ikusi ditut, saltsan, bestetik, dinamikoa iruditu zait saioa, ez da berez etenaldi handirik egon, eta, amaitzeko, niri dagokidanez, nahikoa entretenituta pasa dut ordu eta erdia. Hala ere, aldamenetik begira egoteak erretxintzen nau, nahiz eta argi xamar dagoen ohitzen ere ari naizela egunek eta asteek aurrera egin ahala.

Azken aste parean gomazko pilotarekin antolatu duten Tilos-7 txapelketaren harira beste mota bateko kezka eta zalantzak ikusten ditut emakume batzuegan, bereziki. Batzuk entrenatzeko gogoz daude, harra nabari zaie, eta beste batzuk, berriz, izena eman izanari buelta batzuk eman dizkiotela dirudi. Badago beste talde bat ere, txapelketa horretan izenik eman ez eta saioetako parte hartetik haratagoko kezkarik ez dutenena. Beraz, profil gehiago ote daude nik hasiera batean uste nituenak baino?

Gaur ahanzturaren mamua agertu zait eta beldurrek erasanda, aspaldi honetan ez nerabilzkienean, koaderno atera eta bi-hiru ohar euren begi aurrean hartu ditut. Ez dakit zuzena ote den jokabide hori, gero ohartu bainaiz eurei jakin-mina eta ardura puntu bat eragin diedala. Nabari zaie egiten dituzten aipamenetan, baina, agian beste egunen batean erabili nahi izanez gero ere beste murru bat apurtzeko balioko zidan koaderno atera izanak. Bada ez bada ere, galdetu egingo dut jarrera horren inguruan, ea zer dioten gaia eta ikerketako prozedurak ni baino askoz ere gehiago kontrolatzen dituztenek.

Hernaniko egonaldi bikoitza amaitu dut aste honi dagokionez, baina, ez oraindik asteko saioen ilara. Hala ere, bi herenak pasa ditut eta gaur arratsaldeko Usurbilgoa bakarrik falta zait. Ea azken hau pasa, edo egin, eta kontakizuna bihar amaituta berriro ere elkarrizketari hel diezaiokedan, astelehenerako transkripzioarekin bale edo kale egin erabakitzea komeni baitzait.

Azken energia izpia xahutzerak

Astea ohartzeko doakit, batez ere azken bi egunak, handik hona eta hemendik hara, zer asma ibiltzeko beta handiegirik gabe. Gaur, gainera, 2.geldialdia da pilotalekukoa, goizean Hernanin izan bainaiz. Beraz, aste honetan lau saio izango ditut hiruren ordez. Hala ere, egun berean bi saio egiteak, eta batez ere eguna etxetik kanpo emateak, nekea areagotu dit eta indarge nabil, neka-neka eginda arratsaldea amaitzerako.

Goiza Hernaniko pilotaleku eta liburutegian igarota mokadu bat egin eta bertan egin ditut ondorengo ordu batzuk ere. Paletan lagunei begira, ume zain, besteak beste, eta baita ondoren berriro ere ordenagailua piztu eta goizeko saioa oroitzuz oharrak amaitzen. Beraz, Hernanitik Usurbilera abiatu naizenerako garuneko azken neurona ia xahututa daukat eta abailduta nabil, baina, azkena izateak badu plus bat eta hortik tiraka egin ditut bai kotxeko bidaia eta baita frontoirako bidea ere.

Sarrera

Gaur ez naiz N-lean barrena etorri eta desplazamendua motzagoa izan da, ordu laurdenekoa. Presa handirik gabe, 19.20 inguruan sartu naiz Usurbilen eta libre ikusitako lehenengo zuloan aparkatu dut 19.22an. Autotik irteten ari naizela entrenatzaileak ere nire parean aparkatu duela konturatu eta elkarrekin topo egin dugu. Berak enkargu bat egitera doala esan dit, “beti berandu azaltzen naiz, baina”, eta nik ere lagundu diot. Hori egin eta elkarrekin abiatu gara plazara, gure egunen nondik norakoak hizketagai hartuta. Bera ere goizeko 10etatik ez omen da etxera itzuli. Ni, berriz, 8.30etik.

19.34an heldu gara eta probaleku aldameneko petrilean ikusi dugu hirukote bat: Aitziber, Jaione eta Ester. Hirugarrena bertan egotea ez nuen inondik inora espero, nik uste ikasturte guztian bizpahiru aldiz topo egin dugula elkarrekin, eta besteen puntualtasuna ere ezohikoa iruditu zait. Aspaldiko partez ez naiz lehena izan heltzen.

Haizea argia pizteko giltza bila joan da eta ni besteengana hurbildu naiz. Elkarri arratsalde onak eman, astea nola joan den galdetu eta hizketan hasi gara. Ni eskuan paleta hartuta etorri naiz, bada ez bada ere, inork beharko balu. Aitziberrek esan dit “gaur bakeroetan zatoz, beraz, saiorik ez oraindik” eta ezetz esan diet. Ondoren Jaionerekin hasi naiz hizketan eta ez dakit nondik paletako saioetan, behintzat, ondo pasatzen dudala esatera iritsi naiz. Berak esan dit, “egia esan, niretzat ere bada sozializatzeko bide bat, zeren eta umeekin plan batzuk aldatu egiten dira, ezin zara lehen bezala irten agian eta jendearekin egoteko aukera ona da. Nik ere ondo pasatzen dut” (B.K. Aspaldidanik neukan nik susmo hau, baina, euren ahotik entzuteak ustea indartu eta oinarri sendoagoa daukala iruditzen zait).

Pilotalekua

Haizea nahikoa azkar hurbildu da guregana tabernatik, argia pizteko giltzak eskuan hartuta, eta “Ester, aspaldiko” agurtu du kidea. Nahiko azkar hartu dugu laurok pilotalekurako bidea. 20 metro baino ez daude gu gauden lekutik bertara. Haizeak esan digu “astelehenean ez ziren argiak itzali, 21.10ean ere piztuta jarraitzen zuten eta ez genuen automatikorik ukitu”, aurreko astean nahikoa gorabehera izan genuelako horren harira.

Pilotalekuan sartu garenean trasteak utzi eta hizketan jarraitu dugu. Jaionek eta Haizeak argia pizteko bidea hartu dute lehenago. Besteak beste familiakoren batek haurra izan duela eta horren gainean aritu dira Jaione eta Haizea. Aitziber eta Jaionek bada ez bada ere “Uxue ezagutzen duzu?” galdetu diote Esterri eta “bai, bai” esan du. Haizeak “honek berearekin jarraitzen du” esan dio niri begira, tesiari erreferentzia eginez. Hizketan egin dugu beste tartetxo bat eta Haizeak halako batean “ni ez naiz saiorako arroparik egokienarekin etorri, baina, berotzen hasi beharko gara” esan die emakumeei.

Beroketa

19.45 inguruan hasita orkatilak, besoak, eskumuturrak, etab. biratu dituzte korroan gaudela eta tarte horretan pilota elkarteko arduraduna igaro da pilotalekutik. Guregana hurbildu da, alaba zaharrena besoetan duela, eta hitz egin dugu apur bat. Haizeak emakumeei “korrika pixka bat egin beharko duzue, ni ez naiz arropa oso egokiarekin etorri gaurko saiora” esan die halako batean eta arduradunak alde egin aurretik niri “zer, tesia egiten ari zara Mikelekin, ala? Jaionek kontatzen dit tarteka” eta nik baietz erantzun diot. Aurrez ere ezagutzen dugu elkar. Bera agurtu dugu eta aurretik “oso gustura etortzen dira hauek” esan dio Haizeari. Jaionek lasterka hasi baino lehen, saioa egiteko hiru daudela ikustean, esan du “Idoia agian oraindik etorriko da” eta Haizeak jakinarazi digu “Karmelek mezu bidez jakinarazi dit ez dela gaur etorriko”. Nik Izaskunez galdetu diet eta “hura ere tarteka etortzen da eta Arritxu erreleboaren arabera” esan du Aitziberrek.

Haizea eta biok kontrakantxan hizketan ari garen bitartean korrika txikian bueltaka ari dira Ester, Aitziber eta Jaione. Haizeak, “beno, nahi duzuenean bukatu” esan die eta hurrengo itzulian gure parera iritsitakoan geratu eta harmailetatik paletak hartu dituzte. Halako batean Aizpea iritsi da, presaka. Ondoren, beroketarekin amaitzeko ezker hormaren aurkako piloteorako pilotak banatu dizkie lau kideei Haizeak. Ezker hormaren aurka jarri dira Aitziber, Ester, Aizpea eta Jaione. Haizea eta biok kontrakantxatik besteei begira jarri gara hasiera batean. Berak zinta hartu eta frontiserako bidea egin du hasiera batean, baina, laster zen berriro ere nire inguruan, “gaur ez diet zintarik jarriko, ariketak aldatu egingo ditut” esanez. Hori esan eta biok jarri gara kideei begira. Nik Haizeari esan diot “Aitziberrek bukaeran eskumuturra mugitzen du eta Aizpeak ere bai zenbaitetan”. Aitziberrengana hurbildu da orduan bera eta halaxe adierazi. Niri begiratu dit Aitziberrek eta “pintoreen toke hori” esan diot eskumuturra mugituz, irribarrez. Berak “ni ez naiz konturatzen” erantzun dit. Aurrez ere edukita gaude antzeko hizketaldiren bat. Ester aspaldi etorri gabe dago, azken hilabete luzeotan ez dugu bere berririk izan, eta harritu egin naiz, nik neukan irudipenean baino gehiago eta hobeto ari delako kolpatzen pilota, hainbeste huts egin gabe. Hasiera-hasieran kosta zaio lekua bilatzea eta 4an hasi eta 7an zen laster, Aitziber eta bere pilotak nahasi dira zenbaitetan, pilota zuzen botatzen asmatu ezinda, baina, nahiko azkar kokatu dira. Nik, orduan, aldamenetik, apropos, “zer, frontoia handitzeko eskatu beharko al dugu?” esan diet eta irribarrez erantzun didate. Haizeak ere eman dizkio aholku pare bat, besteak beste “saiatu pilotari itxaron eta kolpea azpitik egiten”. Beste biak ere pilotatzen ari dira.


Piloteoarekin amaitzeko binaka jartzeko esan die, berriro ere laurak elkartuta. Aizpea eta Jaione eta Ester eta Aitziber jarri dira bikoteka. Ezkerraldean, 5-6 koadroen inguruan, Aitziber eta Ester hasi dira eta Jaione eta Aizpea, aldiz, 2-3aren bueltan. Lehenak nahiko patxadan eta pilota erritmo lasai xamarrean joz ari dira elkarrekin. Haizeak zer moduz ari den galdetu dio Esterri eta honek erantzun dio “konturatu naiz behetik jota gutxiago nekatzen dela”. Bere berezko kolpea albo-goitik eginikoa zen lehen. Beste biak ere ari dira jo eta fuego, baina, askoz ere biziago eta pilotakada indartsuagoak joz. Nik zerbait esatea pentsatu dut, baina, mingainari horzka egin diot eta Haizeak esan die “lasai pilotatu”. Aizpeak esan du “gaur, gainera, historiko etorri naiz. 19.15ean itzuli naiz Iruñeatik”. Jaionek esan du indar izugarritz jotzen duela pilota Aizpeak eta zenbaitetan errespetua ematen diola horrek berak. Bera nekatzen ari dela ere esan dit nik “zer, pilota mozten entrenatzen ari al zarete?” galdetzean.

Halako batean dei egin die Haizeak eta ariketak nolakoak izango diren azaltzeari ekin dio.

Ariketak

Haizeak ezer azaltzen hasi aurretik emakumeei galdetu die, bereziki Aizpeari zuzenduta, “Esterrekin gogoratzen al zara?” eta honek “justu-justu oroitzen naiz” erantzun dio. Haizeak “berriro ere aurkezpenak egin beharko ditugu agian, lehenengo egunean bezala” esan du, irribarrez. Ondoren adierazi die “bi ariketa egingo ditugu hemen eta ondoren banakako eta binakako partiduak. Itxaroten egoteko ezer ere ez gaur”.


1. Kantxa bi gunetan banatuta dago: ezkerrekoa eta eskuinekoa. Gune bakoitzean bikote bat jarriko da eta bertan beraien artean piloteo jarraitua mantentzen saiatu behar dira, pilota beste eremura bideratu gabe.



Azalpena ematen bukatu duenean nor non hasiko den adierazi eta “bigarrena gero esplikaturiko dizuet” esan die Haizeak, kantxan atzerago kokatu eta ikaskideei begira geratuz. Bi aldeetan arituko direla ere esan die, gero aldaketa egingo dutela.

Lehen unean ezkerrean Aitziber eta Ester hasi dira eta eskuinean Jaione eta Aizpea. Lehenengo kolpeak egin dituztenean Jaionek eta Aizpeak ezkerreko gunera bidali dituzte pilota asko eta Haizeak, “zer, nola etorri zarete gaur?” bota die aldamenetik. Aizpeak kolpea dena emanda egiten du eta hari lasaiago jotzeko esan dio, ez dela hainbeste indar behar. Ester eta Aitziberri ea zer moduz ari ote diren moldatzen galdetu eta lehenak “pareta honekin ez da erraza” edo antzekoren bat esan du, ezker hormari buruz. Haizeak berehalaxe esan die lekuz aldatzeko, kanpora eta besteen guneetara pilota batzuk bazihozazela ikusita. Beraz, Jaionek eta Aizpeak ezkerrean egin dute eta Ester eta Aitziberrek eskuinera. Ezkerrean dabiltzala Aizpeak dena ematera joan eta txapa jo du pare bat aldiz, txapapea ere bai eta jo gabe geratu denik ere izan da. Eskuinean, berriz, kontrakantxako marrarekin zailtasun apur bat badute kantxako mugetan sartzeko, baina, nahiko txukun lortu dute piloteo jarraituaren bidez jokoan irautea. Haizeak geratzeko esan eta 2.a riketari heltzeko unea heldu da.

2. Lehengo gune berak mantenduz, ezkerrekoa eta eskuinekoa, ezkerreko gunetik eskuinekora eta eskuinekotik ezkerrekora bideratu behar dute pilota. Txandaka jo behar dute pilota eta gune bakoitzean binaka jarri dira ilaran, aurrez bezala.



Ariketa azaldu duenean zalantzaren bat geratu zaio norbaiti eta “zer, bi pilotarekin?” galdetu du Jaionek. Haizeak “ez, ez, pilota bakarrarekin, pin-pon-pin-pon” erantzun dio.

Ezkerrean Jaionek eta Aizpeak ekin diote eta eskuinean Aitziber eta Ester. Nahiko asmatzen hasi dira, nahiz eta tarteka pilota eskuinetik eskuinera eta ezkerretik ezkerreara ere joan zaien. Kasu horietan beste aldekoak eman dio, alegia, beste ilarakoak etorri eta jotzen zuen pilota. Halako lau zapabost kasu eman dira eta halako batean nahasketa handi xamarra sortu ere bai. Horren harira Haizeak “gauza bat izugarri ari zait gustatzen” esan die eta jokoa geratu du. “Nik ez dizuet esan zuen gunean botea egitean zer egin behar duzuen suposatzen nuelako, logikaz, zuen kideak emango ziola, baina, ikusi dut justu beste puntakoak etorri direla kasu guztietan”. Azalpen honen ondoren, beraz, euren kideak jarraitu du gune berera bideratua beste aldera botatzen, nahiz eta uneren batean zalantzaren bat ere etorri zaien. Bi guneetan aritu dira laurak, ariketa erdian lekuz aldatuta. Beste jardun bat egin dute aldez aldatu ondoren eta ezkerretik eskuinera bideratzea gehiago kostatu zaie Aitziber eta Esterri. Batez ere azken honi. Hala ere, lortu dute hein handi batean dezenteko jarraikortasunarekin piloteo gurutzatuan aritzea.

Haizeak bukatutzat eman du ariketa eta partidekin hasiko direla jakinarazi die.

3. Banakako partidak frontisean, libre. 5 tantora.

Lehenengo partida Aitziber eta Jaionek jokatu dute. Azkenean 5-4 amaitu dute eta elkarri tantoa egiten saiatu dira. Haizeak esan die “pilota bestea ez dagoen lekura” eta lehiatu eta parekatua izan da euren jarduna. Atzean piloteatzen aritu dira Aizpea eta Ester, euren txanda heltzeko zain.

Bigarren partida Ester eta Aizpeak jokatu dute. Aizpeak huts batzuk egin eta 3-2 aurretik ere joan da Ester. Hasieran sakearen gainean zalantza agertuz “sakea nork ateratzen du, tantoa egiten duenak ala besteak?” esan du Esterrek eta Haizeak “tantoa lortzen duenak” erantzun dio. Une batean Aizpeak berak esan du “askotan arriskatu eta neuk galtzen ditut tantoak”. Azkenean, baina, markagailuari buelta eman 5-3 irabazi du Aizpeak.

Hirugarren partida Aitziberrek eta Aizpeak jokatu dute eta beste biak atzean piloteatzen aritu dira, euren txanda iristeko zain. Aizpeak askotan arriskatzeko joera dauka eta berak galtzen ditu pilotak, tantoa egin nahi eta guztiarekin jokatu nahi horretan. Aitziberrek, berriz, ederki dihardu eta pilota zailak ere jarri dizkio. Asko mugitu dira eta arnas estua ere sumatu zaie uneren batean. Azkenean 5-3 amaitu dute, Aitziber nagusituta, eta biak joan dira atzera.

Laugarren partida Ester eta Jaionek jokatu dute eta bat lasai xamar eta bestea ahal bezala aritu dira. Hasi eta nahikoa azkar Jaionek horma bikoiz lortu du tantoa eta Esterri, erdi barkamena eskatuz bezala, “praktikatzeko zen” esanez zuzendu zaio. Honek “senarrarekin praktikatu” erantzun dio, irribarrez, eta besteak “hark irabazi egingo lidake” esanez amaitu eta berriro ere sakea atera du. Azkenean 5-0 amaitu dute. Partida hau amaitu denean atzean piloteoan ari diren Aitziber eta Aizpeari begiratu eta “hauek lehengoan jarraitzen dute” esan du Jaionek, erritmo dezente bizian ari baitira.

Banakako lau partida hauek jokatu ostean Haizeak bikoteka jokatzera igaroko direla esan die.

4. Binakako partidak, baldintzarik gabe.

Bikoteak egiteko arropa koloreari erreparatu eta “txuriak eta beltzak” esanez Aizpea-Jaione eta Aitziber-Ester jarri ditu elkarrekin Haizeak. Esterrek, bikoteak egitean “bai, bai, bikoteak apur bat orekatu beharra dago” bota du.

Bikoteka hasteko beraiei esan die eurak erabakitzeke nork non jokatuko duen eta aurrelari Aizpea eta Ester eta atzelari Jaione eta Aitziber hasi dira. Haizeak, bada ez bada ere, esan die txandaka jo behar dutela pilota bikote batekoak eta ondoren bestekoak eta buruarekin baiezkoa egin dio Esterrek, hori badakiela. Ondoren kokapenen inguruko azalpen pare bat eman ditu eta atzelariei “zuek agindu behar duzue, aurrelariak ez du ikusten dena” eta baietz erantzun diote. Aurrelari, berriz, pilotaren ibilbidea jarraitzea komeni dela esan die, bestela pilota azken unean ikusten dutelako, frontisa jo ondoren, eta zenbaitetan oso zaila delako ondoren iristea.

Partidan hasi eta Aizpeak atera du lehenengo sarea. Indartsu hasi da eta ezker aldera, gainera. Aitziberrek eraman du, baina, tantoak nahiko jarraian lortu dituzte Jaionek eta Aizpeak. Bikoteak ere desorekatuta daude hasieratik eta, horrez gain, Aitziberrek askotan ez dio hitz egiten Esterri eta hiru bat aldiz pilota nork jo elkarri begira geratu dira. Haizeak esan dio hitz egiteko. Ester oso ezkerrean ere kokatu da tarte batean eta horma bikoz sartu dizkiote beste pare bat tanto, bata bestearen jarraian. Berriz ere kokapenak gogoratu ditu Haizeak, une batean Aitziber ia kontrakantxaren aldamenean zegoelako eta pilota ezker hormatik gertu. Une horretan Haizea eta biok barrez hasi gara eta besteak ere bai. Aitziberrek une hori aprobetxatu du Aizpeari esateko ea sarea ezin zuen apur bat eskuinera atera, ezker hormara asko geturaten dela iritzita. Guk barrez segi dugu, buelta ematea kostata, gainera. Halako beste egoeraren bat ere eman da, komunikazio falta izan delako eta Esterrek pilota ez jo eta “e, zer?” galdetu duenean Aitziberri begira geratu eta hau jotzera heldu ez denean. Besteak hobeto moldatu dira eta Jaionek berak eman dio azalpena kideari “nik Aizpea esaten dudanean zuk jo eta ‘ba’ esaten badut nik emango diot”.

Haizeak une batean “nik oso ondo pasatzen dut” esan du eta beste bakarren batek “gutxienez barre egiten dugu”. Beste une batean Aizpeak izugarria eman asmotan ez du pilota jo eta berriz barreak erasan gaitu. Honek erantsi du “beno, behintzat ezingo da esan dena ematen ez dugunik”. “Egunen batean bidez grabatu beharko zenukete, nire burua jokatzen ikusteko” ere bota du pare bat aldiz. Aitziberrek “ez, kasik nahiago ez grabatuta” esan du.

Markagailua kontatzen hasi gara hasieran, baina, amaierarako ez dugu segi, kontua galdu dugu. Hala aritu dira jokatzen Esterrek pilota bat jotzera joan eta oinean mina hartu duen arte. Haizeak hori ikusitakoan, eta erlojuan 20.55 direla ikusita, “beno, utzi egingo dugu, ez dugu beste lesionaturik behar” bota du. Esterrek esan du traba bat darabilela, baina, ekografia bidez proba bat egin eta esan diotela ez dirudiela Akilesen tendoian ezer duenik. Aizpeak “zein dago ba lesionatuta?” galdetu du eta nik kontrakantxatik eskua jaso dut. Orduan berak “nik bai begira ikusi zaitudala saio batzuetan, baina, pentsatzen nuen proiektua bukatu duzulako izango zela” esan dit. Nik ezetz, ni begira egoteko arrazoiren batek egon behar duela esan diot. Hala, paletak utzi eta luzatzeari ekin diote, ezker hormara hurbilduta. Orduan Aizpeak esan du “beste ordu erdi batean ere jarraituko nuen gaur” eta Haizeak “nahi baduzu jarraitu, gero giltzak eraman eta listo”. Justu orduantxe bere bikotea begira zegoen eta hari esan dio “jarraituko nuke jokatzen”. Ondoren jakin dugu fisioa dela eta “hemen inguruan

norbaiten beharra dutela jakiten baduzue abisatu niri”. Haizeak esan dio “hara, taldean behar genuena daukagu” eta Aitziberrek “ez ote zara damutuko gero guri hori esan izanaz?”, irribarrez. Guk aukera aprobetxatzeko esan diogu eta Esterrek bere paleta utzita, tabernan uzteko tratua egin dute, eurak jokatzeko utzi eta beste laurok trasteak jasotzeari ekin diogu.

Esterrek saioaren une batean esan dio Haizeari lana amaitu zaiola eta aukerarik ba ote legokeen astelehen goizetan etortzeko, hurrekin antolatze askoz ere hobeto datorkiolako. Haizeak esan dio baietz, berak hitz egingo duela Lurdesekin eta datorren astean esango diola. Horrekin lotuta Esterrek esan dio “pena ematen dit taldez aldatzeak, baina, haurrak ikastolan daudenean askoz hobeto datorkit”. Aitziberrek esan dio “ez pentsa gurea bezalakoa izango denik beste taldea, e”, brometan.

Aitziberrek Haizeari esan dio une batzuetan ez duela oso garbi edukitzen zein den noren pilota eta Jaionek ere halatsu (B.K. Partiduetan segurtasun eza sumatzen zaie, ez daudela oraindik oso ohituak).

Azkenean, bataren eta bestearen artean abiatu gara etxerantz. Haizea, Aitziber, Jaione eta laurok batera goaz eta nik Haizeari galdetu diot ea Aste Santuko oporretarako zer asmo duen, Pazko astean ez dela saiorik egongo baina aurreko asteazkenean zer, arriskutsu xamarra izan litekeela iritzita. Besteekin komentatzen arituta “hurrengo bi saioetan gaudenak erabakiko dugu” esan du Aitziberrek eta denok etorri gara bat. Aurrez Haizeari esan diote bere asmoen arabera erabakitzeko, baina, honek esan die “niri ez zaizkit inposaketak gustatzen”. Halaxe agurtu dugu elkar datorren astera arte, eurak ezkerretara, etxeetara eta beste biok eskuinetara, kotxe bila goazela, etxera heltzeko gogoz. 21.10 paseak dira.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko eguna bukaezina izan da, porru eginda nago, lehertuta, baina, asteko azken saioa ere joan da eta honenbestez asteko desplazamenduak ere bai. Kotxeak eta biok ederki nabaritu dugu. Eskerrak!

Saioan eroso aurkitu naiz, nahiz eta begira egon. Emakumeak saltsan hasten dira eta ni ere saiatzen naiz giroan kutsatzen. Lortzen dut, gainera. Haizearekin egon naiz tarterik gehienetan kontrakantxan eta hitz egiteari apenas utzi diogu, horrela eramanerrazagoa da egoera. Entretenituta egon naiz eta goizeko ahanzturaren mamurik ez zait etorri. Bada ez bada ere koadernoan poltsan hartuta etorri naiz, baina, ez zait burutik pasa ere egin ateratzerik. Gainera, Usurbilen ez dakit ez ote luketen emakumeek Hernanin baino ezberdinago erreakzionatuko.

Astea hasi baino dezente hobeto amaitu dut orain artekoa animoz ere eta ea honek hala jarraitzen duen. Seinale ona izango litzateke.

Aldarte hobean

Egunek aurrera egin ahala berriro ere neure onera etortzen hasi naizela dirudi, nahiz eta oraindik denbora beharko dudana. Egia esan bolada luze xamarrean burumakur eta tuneleko iluntasunean korapilatuta ibili naiz, aurrera urrats bat ematerako atzera bost eginez. Baina, badirudi larunbatean jendaurrean kantatutako “esperantzaren ate berria

irekitzen dugunean / argi izpi bat aterako da tunelaren ilunean” egia izateko bidean dela. Izan ere, saioetako giroari eta emakumeekin izaniko hartuemanari eta lanean zentratzeko geroz eta ahalegin handiagoa egitearen poderioz, ez daukat hain bekosko handia, zorionez. Gainera, goizean fisioarenera joan eta astebeteko epean probatxoren bat egiteko esan dit, oinarria minbera eduki arren badirudielako blokeoa osatuta dagoela. Gustura entzun diot, nahiz eta beldurra ere ematen didan probak nahi ez dugun emaitza emateak. Hala ere, oraindik ere astebetean geldirik egon beharko naiz, beraz, ez nadin izan litekeenari begira hasi.

Aste hau ez da amaitu oraindik eta lau egunetan batez ere, eta ia eskusiboki, etnografia lanean zentratu ostean ostiralean eta asteburuan, beharrezkoa baldin bada aurrekoak amaitzeke ditudalako, zintzilik utziriko elkarrizketaren transkripzioari heldu beharrean aurkituko naiz. Badakit hori ez dela hain gozoa izango, baina, egin beharra daukat. Zer erremedio! Ea lurpetik kanporantz hasiriko bide honek luze iraun eta urratsez urrats nire egoera egonkortzen zaidan. Nik eskertuko dut eta ingurukoek ere bai, ziur. Hala bedi!

20. astea. EGUNEZ EGUN URRATSEZ URRATS, IRRIBARREAK ARDATZ

Aste bat amaitu eta ate joka etortzen zait hurrengo azkenaldian, deitzen hasteko batere beharrik eduki gabe. Hori ona dela pentsatu beharko ote nuke? Entretenituta nabil batean eta bestean, etxeak azpian harrapatzeko arrisku handirik gabe, egia esan. Lanean ere badirudi ia amaiezina zirudien bolada grisa, beltza esatea egokiagoa litzateke, ziur aski, koloreztatzen hasia dela. Bai umore ozpinduari erreparatuz gero, bederen. Hori bai, zereginen pilaketak bere horretan jarraitzen du. Baditut amaitzea komeni eta amaitu gabeak, bideratzea komeni eta oraindik arrastorik hartu gabeak, ukitu ere egin ez ditudan atalak, eta abar eta abar.

Astelehena, hala ere, bertan da, lehen orduak lapurtu dizkiogu egunari martxan hasi naizenerako, eta indarrak neurtu eta bidean urratsez urrats aurrera hastea izaten denez helmugara heltzeko ezinbesteko baldintza, asteari hasiera emateko unea dut honezkero. Aste betea izango da duda izpirik gabe hasi berri dena, ohiko eta ezohiko joan-etorriak, asteroko saioetako ibiliak eta pantaila aurreko ordu mordoa zain ditudanak. Hau ere “igandetako arropa” jantzita egingo dut, gainera, txandalak eta kirol oinetakoak usaindu ere egin gabe, azken asteotako tenorean, oineko oinazea oinarrian. Has nadin, bada!

Zifra borobila: 20

Asteburuan hona eta hara ibili ostean, bertso hilabeteko ekintzak ardatz, astelehena nekatuta eta atsedena hartzeko gogoarekin iritsi zait. Hala ere, larunbat goizean amaitu nuen hainbeste denboran korapilatuta izan dudana elkarrizketaren transkripzioa eta horrek zama bat gainetik kentzea eragin dit tesiarri dagokionez. Ildo beretik, ordea, aste hau betebeharez eta joan-etorriak betea ere badatorkit, ohiko ibiliei Gasteiz eta Bilbokoak erantsi beharko dizkiet, gutxienez, eta arnasa sakon hartu eta ahalik eta itomenik txikiena sentitzen saiatu beharko naiz, berriro ere trumoi ekaitzak gerturatzeko has ez dakizkidan.

Ohiko errutinari segika heldu zait kotxean sartu eta martxa egiteko ordua. Astelehen buruzuri bat gehiago da gaurkoa, ezta? Aurretik kalkuluak ateratzen jarduna naiz eta Hernaniko 20. saio hau guztira 50.a dela kontatuta daukat. Erraz esaten da, baina, bada zerbait. Gaur errepidean jartzerako, gainera, aspaldiko partez giro goibel eta bustia egiten du eta bidea ez da bromatarako egongo. Beraz, 8.45erako irten naiz, goiza pasatzeko beharrezko denak hartu ditudala konprobatu ostean.

Kiroldegiko sarrera

9.27. Autoa ohiko inguruan utzi, motxila bizkarreratu, txamarra jantzi eta kiroldegirako bidea hartu dut, aterkia irekita eta paleta bat besapean. Pareko etxepean pasa eta ia bi minuturako sartu naiz sarrerako atean barrena. Bertan hizketan ari ziren ordurako Malen eta Rakel. Iruditu zaidanaren arabera herri txikiren bateko elurteaz ari dira, inkomunikatuta geratzen omen direla entzun diet eta. Biei egun onak eman eta aurreko astea nola igaro duten galdetu diet. Baita Maleni ea atzeraturiko partida jokatu ote zuten ere. Baietz erantzun digu eta ez zuela asko gozatu, huts asko izan zirelako eta gainera belaunean kolpea hartu zuelako. 22-6 irabazi omen zieten Joana eta Iratiri. Kontatzen aritu da partida jokatu aurretik gaua pasatzera joandako semearen irakasleak deitu ziola bere bila joateko, bikotea ere okupatuta zegoela eta ez zuela lortzen harekin kontaktuan jartzea eta azkenean nola edo hala moldatu zirela. Horren inguruan ari ginela heldu dira

Jone eta Zuriñe eskaileretan behera, lehena ilea moztuta eta Malenek ezer esaterako, begira geratu zaio pentsakor, “bai, ilea moztu dut” erantzun dio besteak. Ainara ere iritsi da eta Miren ere nahiko azkar etorri da sarrerako atetik. Gemma izan da hurrengo sarrerara heltzen eta Ines, berriz, tornuaren beste aldean agertu da, igerilekutik bueltan. Entrenatzailea bera izan da heltzen azkena. Ainarari eskolarteko bere alabaren paleta partidaz galdetu eta harekin bi hitz egin ostean larunbatean Hernanin bertan ibili omen zela eta sagardotegiko bazkaria nola joan zen kontatu du, besteak beste, “barrikara joaten ginenerako jana mahaian izaten genuen, hori zen azkar ateratzea”. Gutakoren batek esan egin behar zutela esan diogu eta postre garaian esan omen zieten lasaiago ateratzeko.

Halako batean, 9.40 oso urrun ez, barrura sartzeko ordua dela iritzi eta halaxe egin dugu kirol txartelak hartu eta tornuan pasata, labirintoan barrena. Inesekin elkartu naiz eta honek “jesus, a zer buila darabilzuen!” bota du eta Jonek erantzun “bai, oilategi ederra, baina, ez da berria” esan du. Zuriñe eta laurok goaz eskaileretan behera eta aldageletako pasabidera heltzean ohartu gara atzetik besteak oraindik ez direla ageri. “Gaur ere izango dute konpontzeko zerbait” esan du Inesek eta ohiko ibilbidean aurrera segi dugu. Pilotalekuko azken pasillotxora ematen duen atearen parera heldu garenean ireki digute eta gainontzekoen zain geratu beharko garela esan dute. Nik ateari heldu eta “lasai, geratuko naiz ni” esan diet. Beraz, beste hirurek pilotalekura jarraitu dute eta ni hormaren aurka geratu naiz, ateari eutsiz. Halako batean ahotsak sumatu ditut geroz eta gertuago eta hala pasa dira atetik aurrera denak. Azkenak Ainara, Gemma eta Saioa datoz, bezperako ETBko programa batean pasatakoaren inguruan hizketan.

Pilotalekua

9.43 dira, emakumeek trasteak utzi dituzte harmailetan, eta beroketari ekiteko ueña heldu da. Ainara eta Gemma aurreko astean Tilos 7 Pasa txapelketan jokaturiko partidaren inguruan hizketan aritu dira pixka batean Saioa eta nirekin eta besteak hasi dira saioarekin.

Beroketa

Ohiko korrika saioa egin dute, hiru itzuli pilotalekuari, binaka edo hironaka elkarren aldamenean jarri eta mingaina dantzatu bitartean. Bezperan Hernaniko errugbi taldeak jokaturiko partidaren inguruan ari dira. Bat baino gehiago izan omen ziren Landaren igoerako faseko neurketa ikusten. Ez omen zuten helburua lortu puntu bakarrarengatik. Ainara eta Gemma lehen itzulia amaitu dutenean gehitu zaizkie taldeari eta besteak hori ikusita “beste itzuli bat egin beharko duzue” bota diete irribarrez. Azkenean geratu dira beste bion parean eta Inesek “ez ote ditugu bi eman?” galdetu du, itzuli kopuruaren gainean. Saioak aurrez “ondo kontatzen dituzue” esan die. Nik zalantza egin dut hiru ala bi eman ote dituzten, baina, eurek esan didate “ni hemendik bi aldiz pasatu naiz” eta irribarrez erantzun diet “zuek hala badiozue hala izango da”.

Saioa eta biokin batera korroan jarri dira emakumeak mugimendu artikularreko ariketak egin bitartean. Aurrez entrenatzailea eta biok asteburua ea ondo joan den eta halako kontuen inguruan jardun gara hizketan. Errugbia eta atzoko partidako giroa izan dira elkarrizketaren muina denok elkartzean eta Saioak “zuek ulertzen al duzue?” galdetu die. Bakarren batek “ez, baina, atzo azaldu zidaten eta zerbait bai”, besteren batek “nik alboan daukat errugbia gustatzen zaiona” bota du, bikoteari erreferentzia eginez, eta

Saioa eta bioi puntuazioaren gaineko bizpahiru azalpen eman dizkigute, jakin-mina agertu izanaren ordainetan. Ondoren, 2500 lagun ba omen zirela ikusten esan dute eta, beraz, Sagardoaren Kofradiako kideak izendatzeko ekitaldian ez dutela uste inor asko izango zenik. Kofradiakide izendatu omen zituzten Korta, Iantzi, Oiartzabal eta Madina eta herriaren alde hori baino gehiago egin duten kideak bat baino gehiago badirela esan dute, izendapenekin oso ados ez daudela iradokiz. Saria telebista saioari eman diotela iruditzen zaiela adierazi dute. Sagardotegi garaiko jendetza ere izan dute hizpide eta baita nafarren artean izaniko gorabeheraren bat. Hortik esan dute nafar eta bizkaitar ugari dabilzala eta Saioak “larunbatean behintzat bizkaitarrez beteta zegoen” esan die.


Azkenean, kontu kontari ari diren bitartean Saioak motxilara hurbildu eta paletak eta pilotak esku artean hartu eta banatzeari ekin dio. Zortzi emakume daude (aurrez kontatu ditu, korrikaldian aritu diren bitartean) eta lau bikote osatu ditu ezker hormaren aurka pilotatzen aritzeko: Malen eta Gemma, Ines eta Ainara, Rakel eta Jone eta Miren eta Zuriñe. Frontisetik hasi eta errebotera arte kokapen horretan ekin diote. Berak, berriz, zinta hartu eta ondorengo saioko ariketetarako marrak jartzeari ekin dio. Niri besteak korrika ari ziren bitartean esan dit saioan banakako partidak antolatzeke asmoa duela eta banakako txapelketa egiteke azkenean denak multzo berean jartzea erabaki duela ere bai, bestela motz gera litekeelako. Nik konfiantza adieraziz “ondo, hala saltsa jarriko da” esan diot, bere segurtasun eza baretzen saiatu asmoz (B.K. Tarteka zalantzak agertzen dizkit eta ni saiatzen naiz lasaitasuna transmititu eta bere jardueran ahalik eta gutxien eragiten. Berak ere badaki ni aurretik orain bera dagoen lekuan izana naizela eta elkarrekiko dugun konfiantza mailaren adierazle ere izan liteke hori bera).

Ni kontrakantxako murruan eseri naiz eta begira jarri. Saioa kantxaren eskuinaldean marra bat markatzen hasi da Ainara eta Inesen pare samarrean eta nik “urduinez jantzita dagoen horri emanez gero 3 bizitza” esan diet aldamenetik. Inesek entzun eta irribarrez “zer, Saioari emanez gero?” galdetu dit eta Ainarak “ez, marrarengatik ariko zen” erantzun dio. Nik ezetz esan diet, Saioari buruz ari nintzela. Saioak aldameneko lanak amaitu eta apur bat urruntzean “zuekin ez naiz gehiegi fidatzen” esan die. Ezker hormaren aurka aritu dira emakumeak Saioak “bale” esan arte. 9.58 direla ikusi dut nire eskumuturreko ordularian. Frontoian erreboteko paretaren jarraipena den horman ere badago bat, baina, bertan ez da ordu berdina ageri.

Ariketak

Ainhoa azken saioetako dinamika berarekin darrai eta lehen ariketa berdina izango da (B.K. Nabarmena da astez aste funtzionatzen duela honek).

1. Txokotan binaka, bikote bakoitzeko bat kantxan dagoela. Hark 2 kolpe egindakoan kanpora aterako da eta kidea sartuko. Bikoteko bi bizitza dituzte.



Kantxan ondoren egin beharreko partidetarako eskuinean zehazturiko eremuari ez jaramonik egiteko esan die emakumeei. Honela egin ditu Saioak bikoteak: Rakel eta Ainara, Malen eta Gemma, Ines eta Zuriñe eta Miren eta Jone.


Lau kantxa barruan eta beste laurak kontrakantxan jarrita ekin diote jardunari. Ni eta Saioa ere kontrakantxan gaude, batzuei begira eta besteekin solasean tarteka. Ezker hormara bidalitako pilota ezkerrez jo du Zuriñek une batean eta “antzematen da aurreko asteen ezkerre landu zenutela, e” bota du entrenatzaileak irribarrez, saltsa jarri asmoz. Emakumeek baietz erantzun diote, ironia berarekin.

Jolas honen dinamika hartuta daukate emakumeek eta ederki neurtzen dituzte bakoitzaren sartu-irtenak, adibidez. Tanto batzuk nahiko pilotatu eta intentsitate altu samarrekoak izan dira, batez ere aurrean erritmoa bizitzen aritu direnak. Lehenengoak kaleratzen Zuriñe eta Ines izan dira, lehenak ezkerrez huts egindako bi pilotakadaren erruz, eta “ala, goazen atzera” esan elkarri eta Saioari pilota bat eskatu ondoren erreboteko zelaitxora joan dira pilotatzera. Hurrengo tantoan geratu dira bizitzarik gabe Miren eta Jone ere eta hauek aurrekoen bide bera hartu dute. Azkenerako, beraz, bina bizitzak mantentzen dituztela, Malen-Gemma eta Ainara-Rakel geratu dira frontiseko eremuan. Azken tantoan Malenek dezente mugitu du Rakel eta espazio hutsak baliatuz, horma biko bidez, lortu du tantoa egitea. Jokaldia amaitu aurretik entrenatzaileak berak ohartarazi du Rakel “bi paretak doaz” esanez, baina, hau ezin izan da iritsi. Kontrakantxara gerturatu direnean “nabarmena zen zer egingo zenuen” bota dio Ainarak ere Maleni eta nik ere hala berretsi diot. Hala ere, “gauza bat ikustea eta beste bat iristea izaten da” erantsi nahi izan dut.

Atzekoak ere aurrean elkartu eta Saioak saioan hemendik aurrera landuko dituzten egoerak zeintzuk izango diren azaltzeari ekin dio, gune bakoitzeko baldintza eta betebeharrak zein diren azalduz emakumeei. Errotazioak nola egingo dituzten azaltzen ere hasi da, baina, nahiko nahaspilatzen ari dela ohartu da eta “beno, momentuz horrela eta gero gerokoak” esanda amaitu du azalpena ematen.

2. Partida egoerak, hiru gunetan (ikus irudiak). 4-5'ko partidak.

- Aurrean, 1:1 (4ra arte): kantxan zabalean metro pare bat estututa, partida.
- Erdian, 1:1 (5-7 artean). Partida.
- Atzean, 2:2. Kolpea egiten duen pilotariak atzean eta eskuinean markaturiko X zapaldu behar du eta berriro jokora itzuli.



Errotatzeko unea heltzen denean aurrean buruz buru jokaturiko bikotea atzera igaroko da, erdikoa aurrera eta atzean irabazle suertatzen dena erdira. Atzean galtzen duen bikoteak eremu berean jarraituko du. Saioak markagailuak aintzat hartzeko esan die.

Atzeko guneko Xrena azaldu duenean Zuriñek galdetu du ea zapaldu edo itzulia eman egin behar den eta Saioak nahi dutena egiteko esan die: itzulia eman, zapaldu,... Hori entzunda Ainarak esan dio “muxu eman nahi badiozu ere bai” eta besteak “ez, gerriari ez zaio komeni” erantzun dio besoa gerrira eramanez. Jonek egin du azken aipamena, “bai, 4 flexio egin eta gero berriro ere jokatzen itzuli” esanda.

Partidetarako aurrez txokotan aritzeko egindako bikoteak mantendu ditu entrenatzaileak eta berak zehaztu die zein gunetan hasiko den bakoitza lehenengo errotazioan. Miren eta Jone frontiseko gunean, elkarren aurka, Gemma eta Malen erdikoan eta Rakel-Ainara eta Zuriñe-Ines atzeko eremuan, bikoteen arteko partidatxoan. Behin lekuetara joan direnean Jonek “tanto kopuru batera ala zuk esan arte?” galdetu dio bada ez bada ere entrenatzaileari eta honek “denboraren arabera” erantzun dio. Ni kontrakantxan jarri naiz, 3aren parean eta Mirenek “zer, denbora zuk kontrolatuko al duzu?” galdetu dit. Nik “ez, Saioak” erantzun diot. Honek berehala eman dio erlojuko atzera kontaktari, “hasi” esanez. 10ak pasatxo dira.

Emakumeak partidetan hasi eta Saioa eta biok elkarren aldamenean gaudenez “errotazioetan denek beti berdinarekin ez jokatzeko moduren bat bilatu beharra daukat” esan dit niri eta nik aukera bat proposatu diot, “galtzailea gera liteke eremuan irabazlea ordez, baina, hor ere batek jarraian partida asko galduz gero eremu berean jarraituko luke” esanez. Hariari segika “bateko garailea bertan utzi eta galtzailea atzera bidali nezake” esan du berak eta hurrengorako zer egin erabakitzen geratu, pentsakor.

1. errotazioan Miren eta Joneren artean aldea nabari da, batez ere bigarrenak ezkerrez alboz edo erdi goitik behera jotako pilota asko beheko koltxoira joan direlako. Saioak “goitik behera ez, horrela” esanez animatu nahi izan du une batean albotik. Nik erdi inguruan atzerantzko bidea hartu dut eta konturatu naiz erdiko gunean elkarri tantoa egitera ari direla jokatzeko Gemma eta Malen (nik hasi aurretik esan diet “ez barkatu elkarri” irribarre iheskor batez), aurrez Saioak esan dien bezala. Pilota bizi darabilte eta hutsuneak egin eta aprobetxatzen saiatzen ari dira. Hirugarren gunera ere egin dut bisita bat eta han beste patxada batean ari dira, besteak beste joko-mailak hala eraginda. Ainara lasai dabil eta Zuriñe behin baino gehiagotan tokatu zait X zapaltzera etorrira. Hortik itzultzean pilota erantzutea zailagoa da emakumeentzat, aurrekoek ere saiakera egiten baitute pilota zail jartzeko.

Lehenengoaren ondoren 2. txanda iritsi da. Aldaketak amaituta aurrean Gemma eta Malen, erdian Ines eta Zuriñe eta atzean Miren-Jone eta Rakel-Ainarak egin dute topo. Kasu honetan ere aurreko eremuan jarri naiz kontrakantxan, Saioaren aldamenean. Partida hasi aurretik gomazkoarekin jokatzeko ari diren txapelketako bi-hiru kontuz aritu gara Gemma eta biok, aurrekoan emakume batzuk jokatzeko aritu ziren bitartean begira aritu nintzelako. Une hori aprobetxatu du Saioak “hor parte hartzen ari diren emakumeak ez al dira animatzen hona etortzen?” galdetzeko, ikastaroari erreferentzia eginez. Gemmak “nik uste batez ere ordutegi arazoa dela, batek goizez lan egiten du, besteak udaletxean, hurrenak ile-apaindegian,..”. Aurrean jokatuako partidari Malen nabarmen ari da nagusitzen eta Gemma mugiarazten. Erdikoan, aldiz, Ines apur bat lasaiago ari da ohi baino, berak esaten duen bezala “nik gupida izaten dut, baina, nirekin inork ez” leloari segituz, ziur aski, eta atzeko gunean Ainarak beste martxa bat sartzen duenean nabari da ezberdintasuna. Emakume denak ari dira saiatzen eta saltsan gustura ari direla dirudi. Aurreko eremuan, adibidez, nabari zaie tanto batzuetan neke puntu bat. Azkenerako pasa dira minutuak eta Saioaren erlojua joka hasi dela entzutean Malenek berak hartu du atzerako bidea “belarri finekoa naiz” esanez, Saioa ohartu baita pi-pi-pi hotsaz jabetu direla.

Nik errotazio bakoitza amaitu eta txandatzeak egin ondoren koadernora hurbildu eta konbinazioak zein diren idaztea erabaki dut, ez baitzait oso erraza iruditzen handik ordu eta erdi edo bi ordutara denek non eta noiz jokatu duten gogoratzea. Hortik aurrera,

ordea, ez naiz aurreko astean bezainbeste idazten aritu. Gaur bakarren batek aipamenen bat egin du unetxo batean, baina, ez da beste munduko ezer izan.

3. txandan aurrean Zuriñe eta Ines, Erdian Rakel eta Ainara eta atzean Miren-Jone eta Malen-Gemma aritu dira. Saioak kontraktantxako gunean dihardu, aurreko koadroetan, emakumeak animatu eta tarteka aholkuak ematen. Partidu honetan, adibidez, Inesi “bi paretak botatzen saiatu, hemen landu” bota dio une batean, bestela kolpe guztiak atzera bideratzen dituela eta. Esan badio esan dio eta tanto bat baino gehiago egin ditu horma bikoaren bidez, aurrez pilota atzerago eta ezker aldera bideratuta. Nik hori ikusita Zuriñeri zuzenduz “badakizu ideia nork eman dion eta kontuak nori eskatu behar dizkiozun” bota diot irribarrez. Berak, berriz, “hori da egin behar duena, niri ongi iruditzen zait” esan du. Erdian, berriz, Ainara lasai ari da, pilota Rakelek jotzeko moduan botaz, nahiz eta tarteka pixka bat desplazazten duen eskuinerago eta ezkerrerago botaz. Honek, berriz, pilotakadak itzuliz dihardu (B.K. Nabarmena da hasieratik hona izan duen hobekuntza eta gogotsu eta gustura sumatzen da saioetan). Atzean, berriz, atzeranzko desplazamenduak egin behar dituenak egindako kolpearen ondoren aprobetxatzen saiatzen ari dira Miren-Jone eta Gemma-Malen. Hasi aurretik hizketalditxo batean ere aritu direla ikusi dut aurrealdetik begiratzean.

4. txanda egin dutenean denak gune denetatik pasatzea lortu da. Aurrean Rakel eta Ainara hasi dira buruz buru nor baino nor, Erdian Miren eta Jone eta atzean Malen-Gemma eta aurretik atzera joan berri diren Zuriñe eta Ines. Aurrean Ainara oso lasai ari da, kidearen joko-mailara egokitzen saiatu eta denek gozatzea helburu duela dirudi. Halako batean berak jotako pilotakada zabalean jarririko marritik eskuinerago joan da eta Rakelek “hori ezin zaio barkatu” esan dio entrenatzaileari, irriz. Horren ondoren esan du “lehen hor atzean lortu dut tanto bat egitea”, gustura dagoela nabarmenduz (B.K. Saioetan aurrez aurre jartzean bakoitzak bere helburutxoak ditu tokatzen zaion kidearen arabera eta hori garrantzitsua da behera ez etorri eta ondo pasatzeko). Erdian, berriz, piloteatzen gehiago ari dira Miren eta Jone tantoak egin nahian baino, nahiz eta tarteka elkar mugitzen saiatu diren. Atzean, berriz, Malen-Gemma ari dira irabazten Zuriñe eta Inesen aurka. Hala ere, hauek ere ari dira saiatzen eta ez daude kideei ezer barkatzeko.

Txandakatze hau amaitu denean berriro ere hasierako errotazioan zeuden leku berdinetara iritsi dira emakumeak eta Saioak adierazi die hemendik aurrera aldaketak beste modu batera egingo dituela: “aurreko irabazlea bertan geratuko da, galtzailea atzera joango da, Erdiko irabazlea aurrera eta galtzailea atzera eta atzean irabazten duen bikotea erdira”. Horregatik, “tantoak kontatu orain, e” azpimarratu die.

Bosgarren errotazioko kokapena lehenengoko bera izan da. Aurrean Miren eta Jone nor baino nor, Erdian Gemma eta Malen eta erreboteko eremuan, aldiz, Rakel-Ainara eta Ines-Zuriñe bikoteak. Hala ere, aldaketak egiteko modua aldatuko denez partidetak emaitzari gehiago erreparatu diote emakumeek. Aurrean Mirenek arazo handiegirik gabe hartu dio gaina berriro ere Joneri. Honek ezkerrez jotzeko duen modua dela medio huts dezente egin ditu eta pilota txapapera bidali. Saioari esan diot jotzeko moduarena eta ados agertu da nirekin. Erdian, berriz, oraingoan markagailua aintzat hartzen ari dira Malen eta Gemma. Lehenak nagusitasunez dihardu, kolpe askotan pilota begia jarritako leku berean kokatuz. Atzean, berriz, Ainara eta Rakel aurretik dira. Ni bertara agertu naizen batean marran izan da pilotakada, baina, ikusi arren jarraitu egin dute eta Inesek geratu du tantoa handik puska batera, txarra izan dela argudiatuz. Nik baietz berretsi

diet, marran izan dela. Denbora pasa ahala Saioak esan die bakoitzari zein eremu dagokion, aldaketak egiteko sistema ezberdina izan baita orain arte erabilitakoetatik. Aurrez bikotea binaka mugitzen zen, baina, kasu honetan, atzeko bi bikoteak izan ezik beste guztiak banaka mugitzen dira, jokaturiko partidari lorturiko emaitzaren arabera.

Seigarren konbinazioan aurrean Malen eta Miren hasi dira, erdiko eta frontiseko eremuko garaileak. Aurrean hasteko Saioaren abisuaren zain daudela ikustean nik, kontrakantxatik, esan diet “hasi lasai prest bazaude”. Kasu egin eta jolasari ekin diote. Malenek ongi mugitzen du pilota eta eragozpen handiegirik gabe nagusitu da. Gainera, oraindik ez du errebesa erabili, nahiz eta partidetan ohikoena izaten duen. Erdiko eremuan Ainara eta Rakel hasi dira eta lehenak ez du zailtasun handiegirik izan irabazi eta aurreko eremura pasatzeko aukera lortzeko. Hala ere, bere jokatzeko modua egokitzen du tokatzen zaion taldekidearen maila eta ahalmenetara, ahal duen heinean, noski. Saioari esan diot hori bera eta ados agertu da nirekin, bera dela guztien artean egokitze joerarik handiena duena, lehia eta parte hartzearen artean oreka ederki aurkitzen duelako. Atzean, aldiz, Zuriñe-Ines eta galtzaile izandakoek osaturiko Gemma-Jone bikoteak ari dira aurrez aurre.

Zazpigarren itzulian aurrean Malen eta Ainara, erdian Zuriñe eta Ines eta atzean Rakel-Miren eta Jone-Gemma daude. Nork irabazi duen galdetzera hurreratu denean Saioa aurreko errondaren amaieran erdiko eremura Rakelek, irribarrez, “nik” erantzun dio eta atzerako bidea hartu du, nabarmena baitzen bestela ere nola amaitu den euren artekoa. Aurreko partida hau da taldekideen artean mailarik onena duten biera eta erritmoan eta pilota askok hartu duten norabideetan nabaritu da. Malen ezkerrez pilota jo eta huts egiten hasi denean, egoera ikusita, Saioak kontrakantxatik “desesperatzekotan jo ezazu birekin” bota dio eta besteak erantzun “hori entzuteko zain nengoen”. Ondoren, baina, pare bat kolpe egin dituenean errebes ez neuk Saioari esan diot “desahogatuko zen eta orain esan berriz bakarrarekin jotzen saiatzeko”, xaxatuz. Handik gutxira berriro esan dio eta barre egin dugu laurok. Nik aurreko eremukoak utzi eta erdirako bidea hartu dut. Bertan Zuriñe eta Ines ari dira. Lehengo batean bezala, eragozpen handiegirik gabe, Ines ari da irabazten, baina, indarrak apur bat neurtuz, biek joka dezaten (B.K. Gutxiago, baina, honek ere kidearen arabera moldatzen du apur bat bere jarduna). Atzean, berriz, Jone-Gemma eta Miren-Rakel hasi dira, pilota jo eta X zapalduz kolpe bakoitzaren ondoren. Ni eurengana hurbildu naizenean Mirenek justu erreboteko ezker hormaren amaieran goitik behera datorren txapa jo du eta honek hotsa atera du. “Ez zuten askok lortuko hori jotzea” esan diet nik eta irri egin eta jokoan jarraitu dute lau emakumeek. Beste une batean, berriz, Gemma despistatu eta albokoei begira zegoela geratu da, pilota jotzea berari zegokionean. Ederki aritu dira hauek ere Saioak aldaketarako unea heldu dela abisatu arte.

Zortzigarren partidutxoetan Malen, jarraian bigarrena irabazita, eta Ines aurrean, Miren eta Rakel erdian eta Gemma-Jone eta Ainara-Zuriñe atzean hasi dira. Saioa atzekoena hurbildu da, Gemma eta Jonerena bereziki, hirugarrena dutelako jarraian eremu berean, eta “zer?” galdetuta “ahizpa eta amaren aurkako partidarako estrategia prestatzen aritu gara” erantzun diote, Zuriñe baten ama eta Ainara bestearen ahizpa egokitu zaizkielako aurkari oraingo honetan. Saioak barre egin du eta baita besteok ere. Aurrean Malenek irabazten jarraitu du (B.K. Nik uste Ainara dela parekoena, besteekin eskailera maila bateko aldea dago gutxienez), Inesen penarako. Erdian ere Mirenek tanto gehiago egiten dihardu, baina, bere jokia egokituz honek ere. Atzean, aldiz, gustura ari dira laurak ere.

Azkenaurreko errotazioan Saioak aldatzea erabaki du, ikusita zenbaitek bestela irabazle eta galtzaile sistemarekin ez lukeela lekuz aldatuko. Horregatik, Rakel eta Ines elkartu ditu aurrean, aurreko eta erdiko galtzaileak, Gemma eta Joneri erdira joateko esan die eta atzera bidali ditu Miren eta Malen, bikotea osatuz. Han lehendik bertan zeuden Zuriñe eta Ainarak osaturiko bikoarekin egin dute topo. Kasu honetan Rakeli erraz ari zaio gaina hartzen Ines, baina, Rakelek tanto bat lortu duenean ospatu egin du, gutxitan izaten baita halakorik. Inesek, berriz, horma biko bidez lortu ditu bizpahiru tanto, aurrez Saioak horrelakoak egiten saiatzeko esan diolako. Rakeli halaxe esan dio “Saioak esan dit saiatzeko eta egin beharra neukan”. Kideak irribarrez erantzun dio.

Azken txanpan aurrean Gemma eta Zuriñe aritu dira, erdian Miren eta Ainara eta atzeko bikotekako norgehiagokan Rakel-Ines eta Malen-Jone. Dagoeneko nekea sumatzen zaie eta partida hauek hasi aurretik, eta aurrez saioan zehar ere bai zenbaitetan, bat baino gehiago izan dira ekarritako urari tragoa egitera hurbildu direnak. Lau minutuan zehar duten indarrarekin aurrera eta atzera aritu dira zortzi emakumeak, kolpez kolpe eta urratsez urrats, saio osoan bezalaxe.

Azken txandatzeen ondoren, hamar izan dira guztira, amaitutzat eman ditu Saioak partidatxoak. 10.59 dira nire erlojuan eta Saioak frontiseko gune ingurutik dei egin die emakumeei. Hauek gerturatzean ea berotu diren galdetu die eta baietz esan diote. Bakarren batzuen aurpegietan eta masaila gorrituetan eta izerdian nabari da neke puntu hori, bai.

3. Txokotan, bizitza banarekin. “Kale egiten duena luzaketak egitera” esan die Saioak.

Kantxaren eskuineko aldean saio guztian zehar jarrita egon den marrari kasurik ez egiteko esan die Saioak, baina, bada ez bada ere kentzea erabaki dute. Saioak hori ikustean “horrek psikologikoki eragin egiten dizue, ezta?” bota die irribarretsu atzeko X kentzera doan bitartean. Ainarak esan dio “agian eskukoek jarritako X hau zapaltzera ere etorriko gara”, adarra jo asmoz. 4aren aldamenean dago gurutze hau, sakeko marraren atzean.

Lehena kaleratzen Jone izan da, hasi eta nahikoa azkar. Hura kontrakantxara heldu eta berehala Zuriñe ere etorri da eta “zer arraroa, zu ere hemen, ama” esan dio. Biak hasi dira luzaketak egiten. Besteek jokoan dihardute eta tantoak dezente luzatzen ari direla ikusita neuk kontrakantxatik “tantoa egitea da helburua” bota diet, zirikatu asmoz. Irribarrez erantzun dit bat baino gehiagok. Hirugarrena Malen izan da kontrakantxara etortzen eta hurrengoak, berriz, Gemma, Miren eta Ines. Amaierarako Ainara eta Rakel geratu dira. Azkenean Ainarak irabazi du.

11.05 inguru dira amaitu denerako eta batzuk trasteak jaso eta paletak motxilan sartuta daude dagoeneko. Ainarak eta Gemmak esan diete besteei gomazkoarekin geratzeko asmotan direla eta Malenek esan die “ni kanpoan geratuta nago eta palarik ez dut ekarri”, baina, nik uzteko asmotan ekarririkoa eskaini diet, biharamunean Leireri entregatzeko eskatuz. Mirenek ere esan du hasiera batean geratzekoa zela, baina, trasteak hartuta ikusi duenean Ainarak galdetu eta zera erantzun dio “orain dutxa bat eta lasai-lasai kafetxo bat hartzea hobeto”. Azkenean han geratu dira Ainara, Gemma, Jone eta Malen. Lehenengoak nik utziriko babes betaurrekoak ere jantzi ditu, probatzeko. Nik bi hitz egin eta alde egin dut pilotalekutik, dagoeneko kanpora doazen beste guztiak

desagertu zaizkidalako bistatik. Beraz, motxila bizkarreratu eta bakarrik abiatu naiz pasabide estuan barrena.

Kiroldegiko sarrera

11.10ean Saioa, Rakel, Miren eta Inesekin topo egin dut ia aldageletako pasabidean, aurretik nituela ikusi eta nire hanka pausoa arinduta. Adinaren ganean ari direla ohartu naiz. Miren aldageletako sarreran agurtu eta besteok kanpora irten gara. 11.13 dira eta Saioa bihar arte eta Rakel eta Ines datorren astera arte agurtu ostean Biterira bidean jarri naiz zuzenean, eskailerak igoz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa ondo joan da. Emakumeak ia saio guztian partida egoeretan aritu dira eta gustura sumatzen ziren. Gainera, aspaldiko gehiena nekatu direla ere iruditu zait, amaierako zatian sumatzen zitzaienaren arabera. Banakako partidetan gustura aritu dira eta erdian ere nik uste baino serioago hartu dute kontua, kasuren batean izan ezik markagailua kontatu eta kidea mugitzen saiatuz. Hala ere, nabari da erakargarriena aurreko eremuan jardutea zaiela.

Gaur ere gomazko pilotarekin antolatu duten Tilos-7 txapelketaren harira aritu dira zenbait kide. Horrek profilak lehen baino nabarmenago bereiztera narama: saioetakoak, saioak eta bestela tenisekoa, saioak eta txapelketa,... Aztertzeke badago nahikoa, bai horixe.

Gaur ere une batean atera dut koadernoak, baina, apenas aurreko astearekin alderatuta. Uste dut egokiagoa izan dela gaurkoa alde horretatik. Emakumeek ere ez didate ia horren inguruko aipamenik egin.

Hernaniko saioetako behaketa hutsak amaitu ditudala pentsatu nahi dut, asteburuko korrikako probatxoak emaitza ona emanez gero saioetan berriro ere kirol arropa jantzita arituko bainaiz. Hala ere, zortzi astean ez dut paletarik ukitu eta ikusiko dugu eguna heltzean. Oraindik beste bi behaketa geratzen zaizkit, biharko eta etzikoak.

Izerdi patsetan

Ia ohartzerako heldu da asteko bigarren eguneko iluntzea ere, lanari lotuta eta itomenetik urrun mantendu nahian nabilela. Aurretik, berriz, goizaldean udaberria ere heldu da, bai nonbait. Hori bai, giroa hezea, hotza eta umela da, euri tantak eta haizea tartekatuz une batzuetan. Eguzki izpi handirik ez da nabari nire inguruetan oraindik ezta udaberriko lorerik ere.

Gaur orain arteko beranduen jarri naiz errepidean, bost minutu inguru berandutuko nintzen beste egun gehienekiko, eta erlojuaren minutuek aurrera nola egiten duten erreparatuz egin dut saiorako bidaia, banekielako ohi baino bospasei minutu beranduago helduko nintzela. Hala eta guztiz ere, astearte iluntzetako saioak ez dakit inoiz hasi ohi diren zazpiak eta erdietan puntuan eta kezka handiegirik ere ez dakart nirekin. 19.32an igaro naiz pilotaleku aurretik, aparkaleku bila autoan aurrerago joz, gaur ohi baino zulo gutxiago dago eta erdipurdi utzi dut, zebrabide zati bat hartuz, baina, ez daukat isunik jarriko ote didaten zalantzarik. Hau Zizurkil da eta egunak ia ilundu du!

Nire kotxearen atzetik Marianena datorrela ikusi dut eta Itsaso ere iritsia da. Aparkatu eta frontoira noala Saioa ere bertan da jadanik.

Pilotaleku ataria

Saioa, Itsaso eta Marian bertan daude dagoeneko, iritsi berriak hirurak ere. Heldu naizenean Itsasoren tesiaren aurkezpenaren inguruan hitz egiten hasiak direla ohartu naiz, ostiralean zeukalako aurkezpena. Nik ere iritsi eta “zorionak! Zer gustura?” galdetuz egin diot diosala. Baietz esan du, nahiz eta oraindik arraro sentitzen dela eta azken asteetako neke fisikoari bueltarik ez diola eman esan duen. Ildo horretan Saioak, “eta, orain zer, Unibertsitateko irakasle?” bota dio galdera eta “ez, ez, orain lanean segi, lehen bezala” erantzun dio kideak. Horren harira “DBHko irakasle ez behintzat” esan dio entrenatzaileak. Ondoren esan du “3.DBHkoak dira okerrenak, 15 urte ingurukoak, nerabezaro betean”. Esaldia amaitu duenean Mariani begiratu eta “zureak oraindik hor al daude?” eta “ez, ez, nireak unibertsitatean biak, batek 18 eta besteak 20 urte dituzte” erantzun dio, “baina, ez dakit oraindik ez ote dabilzan hor”. Itsasok “zer, orain lehenago hasi eta beranduago amaitzen al da ba?” galdetu eta Marianek “ez dakit, 35 urtekoa gaztea omen da”. Nik ere parte hartu dut “hori bakoitza gerturatzen den adinaren arabera izaten da. Zuk 40 badauzkazu 40koei gazte esango diezu”. Irribarre egin dugu laurok. Oraindik beste inor ez dela agertu ikusita Marianek “gaur mano-mano aritu beharko gara” esan dio Itsasori. Niri ere ea zer moduz galdetu didate eta Saioa aurreratu egin zait “datorren astean uste dut txandalarekin etorriko dela” esanez. Itsasok “ah, bai? Baina esanda ala zuk nahi duzulako?” eta ezetz azaldu diet, fisioterapeutak esan zidala ostegunetik aurrera probatxo bat egiteko oinak nola erantzuten duen ikusteko.

Onintza, Eli eta Gurutze ere etorri dira harmailen gainaldera eta hauek ere Itsasorengana zuzendu dira lehendabizi, ea ostiralekoa nola joan zen galdetuz. Gurutzek bostekoa ere luzatu dio eta “nota ona?” galdetu ere bai eta besteak “eman litekeen altuena” erantzun dio, ohikoa duen diskrezioa galdu gabe. “Oso bikain orduan” erantzun dio kideak. Hortik eskola garaiko notetara igaro gara eta Gurutze gogoratu da asteburu hau azterketak zuzentzen pasatuko duela, “Filoko 35 izango ditut zuzentzeko. Senarrari esan nion ama zaintzeko asteburu hau hartzeko, nik lana izango nuelako”. Halako batean Saioak, “beno, sartuko al gaitun?” esan eta hika hasi zaio. Hala ere, hitanoaren kontrola eta erabileraren inguruan izandako hizketaldia ez dugu sarreran egin, eskailetan behera frontoiko kantzara goazen bitartean baizik. Batek ez dakiela erabiltzen, besteak lankide batekin egiten duela eta izerdia botatzen duela solasaldian, nik ez dudala ohiturarik ...

Pilotalekua

Sartu eta Saioak esan du “Oihanek El Salvadorren geratu dela idatzi dit”, brometan. Ondoren Onintzak esan du aurrekoan egin zutela topo parkean eta oso ongi ibili omen direla. Horren harira nik galdetu diet “zer da parkea, sozializatzeko gunea?” eta baietz erantzun didate Eli eta Onintzak (B.K. Haurrik txikienak hauek dituzte saio-kideen artean, nonbait). Halako batean poltsak koskan utzi eta frontoiaren erdialdera hurbildu dira, beroketari ekiteko.

Beroketa

Ohi bezala, pilotalekuaren alde batetik bestera aritu dira korrikaldian, lerroan jarrita. Gurutze apur bat beranduago gehitu zaie, bi itzuli eman ostean, korrika egitea ez zaiola gustatzen adieraziz enegarrenez. Amaitu ere besteek baino lehen amaitu du, bizpahiru joan-etorri lehenago. Besteak ere geratzean “Gurutze geratu dela eta zuek ere bai?” bota die ordurako fitxa sartu eta frontoiko argia piztetik itzulia zen Saioak. Ni kontrakantxan ibili naiz paseatzen (B.K. Ondo jantzita etorri naiz, baina, ez dago batere berorik aldamenetik begira egoteko).

Korroan jarri eta mugimendu artikularrei ekin diete, ohi bezala. Saioak jakinarazi die “gaur uste dut saioa ordubeteko izango dela, hamar gutxitan ez naiz hasiko beste fitxa bat sartzen. Hala ere, ordubetea intentsitate handikoa izango da”. Inork ez du eragozpenik agertu. Argi fitxa bakoitzak ordubeteko iraupena izaten du eta normalean bi erabiltzen ditugu, guk alde egitean frontoiko argia alfer-alferrik piztuta utziz.

Aurreko astean Onintzak ezkerrez egin zuen saio osoa eta ea biharamunean nabaritu ote zuen esan diote. Berak ezetz, “oso gutxi, baina nik uste hori dela Mattin ezkerrekin hartzen dudalako. Adibidez, Ioritz izan eta ospitaletik itzuli nintzenean eskumuturrak minduta ekarri nituen, ez nengoelako ohituta pisua hartzen”. Ea eskuina osatu zaion ere galdetu diote eta baiezko erantzuna eman du berak (B.K. Gaur jakin dut bina ume dituztela beste bik). Saioak esan dio “ni ibiltzen naiz, baina, mendira joatean ondorengo egunean agujetak izaten ditut” eta horren harira Onintzak erantzun dio “ba ni Erniora joan nintzen aurrekoan, urtean behin joaten naiz, baina, ez nuen trabarik sumatu hurrengo egunean. Nik uste eguneroko troteak balio didala”. Horren harira Gurutzek esan du bera polenarekin nahiko ondo zebilela esanez aritu zela larunbatean, baina, igandean mukiz beteta ibili zela. “Hori pasatzen da umildaderik ez izateagatik. Mundu honetan umila izan behar du pertsonak” erantsi du ondoren, irribarrez.

Korroko lanak amaitutzat eman eta paletak banatzeari ekin dio entrenatzaileak, kontu kontari luze aritu baikaitezke bertan, “kieto parau”. Orduan Gurutze eta Marianek euren paletak hartu dituzte eta besteek irakasleak eramaten dituenak. Denak paleta bana eskuan hartuta daudenean pilotak banatzeari ekin dio Saioak, bote bidez pasatuz. Lehenengoa Onintza eta Eliri luzatu die, bigarrena Gurutzeri eta hirugarrena Itsasori. Modu honetan, ezker hormaren aurkako pilotoari ekin diote, beroketarekin amaitzeko. Errebotetik gertuen Itsaso eta Saioa bera jarri dira, gaur seikotea osatzeko bera ere aritu da saio osoan zehar, Gurutze eta Marian hauen aldamenean eta frontisetik gertuen Eli eta Onintza. Entrenatzaileak aurretik saioan zehar erabiliko duen marra bakarria jarri du aurreko eremuan, kontrakantxako marratik metro pare batera, luzera osoan. Ni kontrakantxako futboleko atearen aldamenean geratu naiz, begira, besoak gurutzatuta eta hanka koskan jarrita (B.K. Gaur gehiago aspertuko naiz ziurrenik, ez baitaukat hizketan aritzeko lagunik aldamenean).

19.58 dira. Piloteoan nahikoa denboran aritu direla iritzi dionean Saioak emakumeei dei egin eta kantxaren erdigunean bat egin dute, ohi bezala. Esan die “gaur bat baten aurkako partidak egingo ditugu”. “A, ez dago marrarik jarrita” esan duenik ere izan da eta entrenatzaileak “bai, gaur dena garbi-garbi dago” erantzun die. Itsasok banakako partiden proposamena entzutean “uf, hori nekagarria izaten da” erantzun du eta Gurutzek, berriz, “bai, nik nahiago dut kasik binaka jokatzea”. Iritziak iritzi hasteko unea da.

Ariketak


Azalpenak ematean emakumeei argitu die “kontatu, gero irabazleak izango baitira mugituko direnak”. Horren ondoren “saria aurrean jokatzen jarraitzea izango da” bota du eta Gurutzek, adarra jotzeko makina martxan, “horri errekonozimendua esaten zaio gaur egun” erantzun dio. Itsasok, berriz, aurpegia zimurtu du apur batean (B.K. Ez dirudi aurreko eremuko partidak erakargarriak soilik iruditzen zaizkienik. Nik uste neke posiblea ere etorri zaiela burura).

1. Partida egoerak, hiru gunetan (ikus irudiak). 4'ko partidak.

a) Aurrean, 1:1 (4ra arte): kantxan zabalean metro pare bat estututa, partida.

b) Erdian, 1:1 (5-7 artean). Partida.

c) Atzean, 1:1 (8-errebotea). Baldintzarik gabeko partida.



Ariketak azaldu ostean beroketan jarririko bikote berak mantendu ditu, hasierako txandan beroketan ezker hormaren aurka aritu direnean aritutako leku berdinetan kokatuz. Gainera, errotazioak egitean aldaketak nola egingo diren ere azaldu du: aurreko irabazlea bertan mantenduko da, galtzailea erdira igaro, erdiko irabazlea atzera eta galtzailea bertan mantendu eta erreboteko guneko garailea frontiseko eremura eta galtzailea bertan mantenduko da. Saioak markagailuak aintzat hartzeko gogorarazi die.

20.02 dira. Lehen txandan aurrean Onintza eta Eli hasi dira eta ni kontrakantxan jarrita hasi naiz euren jokoari begira. Onintzak bada ez bada ere galdetu du “hemen denbora kontatuko dugu ala markagailua?” eta entrenatzaileak “ez, ez, markagailua, denbora nire erlojuak kontatuko du” erantzun dio. Onintzak aise samar egiten ditu tantoak, jokomailan koska dagoelako bien artean, nahiz eta Eli ere saiatu. Handik erdira joan naiz eta bertan Gurutze eta Marian ari dira. Atzean Saioa eta Itsaso. Atzeko gunera begira hasi naiz eta Saioa nahi eran jokatzen ikusi dut eta Itsaso ero moduan korrika batera eta bestera, pilotaren atzetik. Arnas estua ere nabari zaio. Tanto batean horma bikoa egin du Saioak, marratik kanpora, baina, ordurako etsita zegoen Itsaso. “Zer, kanpora joan al da ba?” galdetu du ondoren, ikusi ere ez baitu egin nola amaitu den jokaldia, hormari bizkarra emanez ari zelako une horretan. Ni gunetik gunera joan eta atzetik begira ari naiz. Desbideratuta kantxan zehar ibili diren pilota batzuk ere bildu ditut, berriz ere emakumeei emanez (B.K. Elkarrizketak eta uneko jokoaz aztertzeko egokiagoa dela iruditu zait denbora guztian gune batean kokatuta mantentzea baino). Denbora tarte amaitu denean atzeko gunean harrapatu nau eta Saioak handik “bale” esan die emakumeei. Aurrerago joan naiz eta Elik, erdira doan bitartean, “gaur 2 txapa jo ditut, goikoa eta behekoa” esan dit. Nik erantzun diot “Saioari eskatu beharko diozu horrek 5 puntu balio dituela”, irribarrez.

Emakumeek txaleko, txamarra eta arropa lodia jantzita ekin diote lehen errondari, baina, bat baino gehiago izan dira denbora tarte amaitu aurretik, partidetan zehar, eta amaitu orduko, txalekoak, forro polarrak eta abarrak kentzen joan direnak. Lehen partidetan zehar, adibidez, Eli eta Onintza bai eta amaieran Saioa ere bai.

Bigarren txandan aurrean Itsaso eta Onintza hasi dira. Itsasok galdu egin du atzean, baina, entrenatzaileak aurrera joateko esan dio, bera geratuko dela atzeko eremuan. Hau arnasa berotuta joan da aurrera eta nik Onintzari “Saioari eskerrak eman beharko dizkiozu, nekatuta dator Itsaso atzetik” esan diot. Berak irribarrez hala hobea dela erantzun dit. Elik, berriz, “Onintzari kaña eman, nik bi karrera egin ditut eta dena soberan nuen ya” esan du. Erdian, berriz, Gurutze eta Elik egin dute topo eta atzean Marian eta Saioak. Atzean lehengo antzeko egoera errepikatu da, entrenatzailea eroso eta oso erraz ari baita, nahi bezala. Marian saiatzen ari da, baina, bera da korrika batera eta bestera dabilena eta aurkaria askoz pauso gutxiago emanez, lasai-lasai dabil. Erdian, berriz, Gurutzek ez du eragozpen handiegirik izan. Aurrean ere Itsasok huts dezente egiteaz gain Onintzak pilota mozten asmatu du behin baino gehiagotan. Itsasok lortu duen lehen tantoaren ostean, sakea egitera abiatu aurretik, “tanto bat behintzat” bota du. Nik egoera honetan jolasean ari diren une batean poltsara gerturatu, koaderno atera eta errotazioak apuntatzeko aprobeixatu dut (B.K. Berriz ere ahaztuko ote zaizkidan beldurra, nonbait).

Bigarren txanda amaituta, hirugarrenaren ordua heldu denean, Onintzak oraindik ere aurrean jarraitzen du, saioa hasi denetik bertan mantendu da, eta “zer, Onintza, ondo, e” esan diot nik kantxaren albotik. Berak, berriz, “itxaron, orain Marian dator” erantzun dit, atzetik aurrera nor datorren ikusita. Marianek ez du Saioari irabazterik lortu, baina, hau ere erreboteko eremutik etorri da. Entrenatzailearen aurka ari dira denak atzeko gunean eta nekatuta pasatzen dira aurreko eremura. Erdian Itsaso eta Eli ari dira eta atzean Gurutze eta Saioa, hasieratik bertan mantentzen den bakarra, besteek, Onintzak izan ezik, dagoeneko bi gune probatu baitituzte. Aurrean nahikoa lehia estuan ari dira, elkarri asko barkatzeko asmorik gabe, pilota eta aurkaria mugitzen saiatuz. Erdian ere halatsu dabilta eta atzean, berriz, Saioa berriro ere sudur puntan jarritako denak egiten ari da, emakumeei paletan jokatuz adarra joz. Gurutze batera eta bestera dabil, baina, ez du lortzen Saioa bere lekutik gehiegi mugiarazi eta behartzerik. Ni hara eta hona nabil kontrakantxan eta Eli eta Itsasorena hurreratzean lehenak, lesioei buruz hizketan hasita “zer, zu berdin?” galdetu ostean, eta nik “datorren astean hasteko asmotan” erantzun eta gero, esan du “aurrekoan Arkaitzek, nire senarrak-eta saskibaloi partidua egin zuten laguneren artean eta bat lesionatu zen. Orain derrame bat dauka”. Nik esan diot “halakoetan gogo handiegia jarri eta pasa ohi da” eta berak “ez omen du gehiago jokatuko”. Nik “ba, hori hurrengoan berriro jokatu arte izango da” esan diot eta “ba ziurrenik bai, nafar batzuen aurka jokatzeokotan omen da”. Hitz hauek elkartrukatu ostean eurek jokatzen jarraitu dute eta nik errebote ingurura bideratu ditut nire urratsak.

Saioak aurrera egin ahala niki besamotzetan erdiak behintzat ikusi ditut, batere hotz itxurarik gabe. Kontraste polita tipula baino kapa gehiagorekin nabilen neronen eta saioa ariketetan berotua hartu duten emakumeenaren artekoa.

Laugarren txandan aurrean Onintza eta Gurutze, erdian Itsaso eta Marian eta atzean Saioa eta Eli hasi dira. Aurrekoei begira aritu naiz tartetxo batean eta gero atzerago dauden guneetatik ere pasa naiz. Aurrean eskuinean kantxa zabaleran estutzeak arazo bat baino gehiago eman dizkie emakumeei horma bikoak kantxaren barruan sartzeko kasuan, adibidez. Hala pasa zaio Gurutzeri behin behintzat. Hala nabilela Gurutzek galdera bat egin dit “kantxa hau ez al da atzekoa baino estuagoa?” eta erantzun egokia emateko egokiena neurtzea dela iritzita atzeko aldera joan eta pauso bidez neurtzeari ekin diot “bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi eta bederlatzi”. Saioak ikusi eta “zer

zabiltza?” galdetu dit. Nik erantzun diot “Gurutzek aurrekoa estuagoa ote den galdetu dit eta neurtzen”, aurrekoa neurtu asmoz abiatu naizenean. Bigarrena ere neurtu dut “bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi eta bederatzi”. Hori ikustean Gurutzeri “nire hanka pausoen arabera biek dituzte bederatzi” esan diot eta honek buruarekin baiezko keinua egin. “Hori bai, agian neurri ezberdinetako pausoak eman nitzakeen” esan diot, neurketa modua “zientifikoa” ez dela izan pentsatu ostean. Ondoren, tantoren batean irribarre egingo nuen eta Onintzak “Uxuek barre egiten du” bota dio kideari, honek “guri begira auskalo zer pentsatzen duen” erantzunez, irribarrez. Nik ere hala erantzun diet. Atzean Eliri nola jardun eta besoa luzatzeko esanez sumatu dut une batean entrenatzailea, aholkuak ematen. Jokoan ere oso lasai ari da, lehen bezala, mailan koska nabarmena dagoelako. Erdian ere saiatzen ari dira biak ala biak. Denbora tartea amaitu dela adierazi du entrenatzaileak eta Gurutze atzerantz datorrela ohartu naiz. “4-3 irabazi du Onintzak, azken tantoa berak lortu du” adierazi digu.

Bosgarren errotazioan, denak bertatik behin igaro direla ikustean, Saioa igaro da frontiseko eremura eta Onintzarekin bat egin du. “Saioa, kaña eman” esan dio bakarren batek eta denak berari begira daudela ikusita “orain presioa daukat” bota du irribarrez. Onintzak niki besamotza du soinean, jertsea kontrakantxan utzi berria baita. Itsasok ere Onintzak aurrean jarraitzen duela ikusita “joe, Onintza!” esan dio aldameneko jokoremutik. Erdian Gurutze eta Itsaso hasi dira, lehena apur batean arnasari buelta ematen saiatu da hasieran eta atzean Marian eta Eli. Saioak eta Onintzak lehenengoz egin dute jokatzeko elkarrekin topo saio honetan eta beste kasuetan pasatutakoaren antzekoa pasa da, nahi bezala aritu dela lehenengoa. Hala ere, jokia egokitzen du eta pilota emakumeek iristeko moduan botatzen du bai abiadurari eta bai noranzkoari dagokionean ia beti. Nik paseatzen jarraitu dut, eremu batetik hurrengora. Emakumeak tarteka hizketan ere aritzen dira, baina, gaur partidak banakakoak dira eta ez dago hainbeste solasaldi, nekea ere nabariagoa baita.

Seigarren txandan Marian pasa da atzetik aurrera, irabazita, eta aurrean Saioa ikusi duenean “zurekin al naiz?” bat irten zaio barru-barrutik. Onintza, berriz, saioan lehenengoz eremuz aldatu da, erdikora etorri da, eta Gurutzek, bada ez bada ere “hau diferentea da” gogorarazi dio, erdian ezker hormarik ez dagoela oroitaraziz. Jokatzen hasi direnean mugak estu samar geratzen zaizkie nonbait eta asko izan dira 5etik eta 7tik kanpora joan zaizkien pilotakadak. Hori ikusita eta inguruan nintzela aprobetxatuz, “zer, ezin kabituta, ala?” bota diet. Baietz erantzun didate. Atzeko gunean, berriz, gogotsu ari dira Eli eta Itsaso. Lehenak pilota dezente mugitu du eta Itsasori korrika eginarazi dio nik bertatik bertara ikusitako bi tantoetan. Gainera, batean tantoa egitea ere lortu du eta ukabila tolestuta ospatzen ikusi dut, disimuluan eta txintik atera gabe egin badu ere. Lau minutuko tartea bukatzerako berriro ere aurreko eremuaren parean nintzen eta erlojua joka hasi denean Marianek “hau ere idatzi ezazu ikerketan” esan dit, nik “zer, gaiztoa dela?” galdetu diot eta Saioak “bai, gaiztoa naiz” erantsi du. Marianek arnas estu apur bat badu eta erdi gunera baino lehen harmailen barrenera hurbildu eta ur botilatik trago bat jo du, errekuperatu nahian. Behin baino gehiagotan ikusi ditut gaur, ohi baino maizago ere bai ziurrenik, urari tragoa jotzera kontrakantxara etorrira kiderik gehienak.

Txanda berrian aurrean Saioa eta Eli, erdian Marian eta Onintza eta atzean Gurutze eta Itsaso ariko dira. Itsasok, entrenatzaileak esan bezala Eli aurreko gunera joan dela ikusita Saioari “zer, ez al duzu nirekin jolastu nahi?” bota dio eta nik, saltsan parte hartu asmoz, “zuk gaizki pentsa ezazu eta asmatu egingo duzu” esan diet. Saioak, berriz, hau ere irribarretsu dabil, “jesus, ni naizen on puskarekin” esan eta partidari ekiteko bidea

hartu du. Erdian Marian eta Onintza ari dira eta saiatzen dira elkar mugitzen. Hala ere, tupust egin dute elkarrekin pare bat aldiz, elkarri traba ere bai, eta “lasai, buelta egingo dugu” esan du Onintzak. Atzean ari diren Gurutze eta Itsasori, berriz, pilotakada batek baino gehiagok alde egin diete erdiko gunera eta batean Itsasok ez du paletakadarik jaso Onintzak pilotari eman ez diolako. “Lasai, hartu, hori bakarrik falta da, orain horrela hastea”. Onintzak badirudi erdian aurrean baino dezente lasaiago eta patxada handiagoarekin diharduela, lehiakortasun maila ere nabarmen gutxituta.

Zortzigarren txanda ere heldu da eta aurrean ez dago aldaketarik, Saioa da jaun eta jabe. Itsasori dei egin dio berarekin aritzeko “zer, Itsaso, atrebitzen al zara?” botaz. Erdian Eli eta Marian elkartu dira eta atzera doa Onintza erditik, bertan Gurutzerekin aritzeko. Onintzarengana zuzendu da Saioa partidekin hasi aurretik eta beste taldekideei zuzenduz “Onintza neka ezazue, errekuperatzen ari da” esan die. Gurutzek, berriz, “hori da zuk nahi duzuna, hortaz aprobeztatzea” esan dio, ahoan irribarre zabala duela. Ni irribarrez aritu naiz eurei begira une batean eta “zer, Uxue, ondo pasatzen duzu, e” esanez zuzendu zait Onintza. Nik “paleta eskuan hartuta hobeto pasatuko nuke” erantzun diot eta berak “hori hurrengo astetik aurrera” esanez amaitu du. Errotazioko tarte batean aurrean egon naiz eta “zer, Uxue, inbidia pixka bat bai?” galdetu dit Saioak. Nik “handiagoak pasa izan ditut” erantzun diot.

Dagoeneko badaramate tarte bat jo eta ke partidetan emakumeek, saioa hasi denetik, aurrera eta atzera ere ohi baino korrikaldi luzeagoak eginez, eta nekea faktura pasatzen ari zaiela nabari da. Aurrean, adibidez, Itsaso korrika ari da eta tantoari eusten dio ahal duen heinean, baina, tantoak luzatu ahala “gainera zu zauden lekura botatzen dut” esan dio aurkari duen entrenatzaileari. Tanto bat dezente luzatu da, bat korrika ero moduan eta bestea patxadan dabilzala. Tantoa amaitu denean, Itsaso ez delako iritsi, “eskerrak, bazen bukatzeko garaia” esan du makurtu eta hatsari buelta eman asmotan ari den bitartean.

Bederatzigarren eta azken errotazioan aurrean Gurutze eta Saioa, erdian Itsaso eta Eli eta atzeko eremuan Marian eta Onintza elkartu dira aurrez aurre aritzeko. Itsaso eta Marian ni koaderno hartuta nabilen ingurura hurbildu dira ura edan eta errekuperatu asmoz eta ni koaderno hartuta ikusi nautenean “gaur asko ari zara apuntatzen” esan didate. Nik “lasai, non ari zareten idazten ari naiz, gero ez ahazteko” erantzun diet, lasaitasuna transmititu nahian. Hala ere, “hori dena idazten al duzu?” galdetu dit Itsasok eta “zenbat luzitzen garen ere bai?” Marianek. Nik lasai egoteko esan diet, ez dudala halakorik idazten eta ikusiko dutela 2 urte barru (B.K. Deserosoa egin zait galdezka hasi zaizkidan une hori, saiatu arren ez baitakit ongi erantzun ote diedan. Ez zait gustatzen ikerketaren eta tesiaren inguruko azalpenak ematea, besteak beste ez delako komeni eurek horren ingurukorik jakin dezaten). Eli eta Itsaso jokoan ari direla euren ingurutik pasatzean lehenak esan dit “honek nekatuta dagoela, baina, a zer bi tanto sartu dizkidan!” eta nik eta Itsasok irribarrez erantzun diogu.

Denbora amaitu denean Saioak emakume guztiei dei egin die kantxan 4aren ingurura eta azken ariketa edo joko bat proposatu die. 20.48 dira eta berehalaxe, minutu pare batean, amaituko da argien ordubeteko emana. Saioak esan du pikatu egiten dela eta nik “bai, ez daukazu esan beharrik” esan diot aldamenetik, adarra joz. “Lehiarako zerbait behar da” esan dute Gurutze eta Elik eta nik “dena bezala, tamainan” esan diet. “Uxuerekin ere pikatuko ginatke” bota dute gero eta nik aitortu “gaur ondo pasa dut Saioari begira, nire irudia imajinatu dut bere lekuan”, irribarrez.

2. 3:3ren aurkako partida. Hirukoteko bat kanpoan eta beste biak barruan, bakoitzak bi kolpe egitean aldaketa egin behar da kontrakantxan dagoen taldekidearekin.

Hau inoiz egin gabeak dira talde honetan eta “birekin nahikoa lan ez daukagunez kabitzeko orain hirunaka” irten zaio Gurutzeri entrenatzaileak azalpen osoa ematen amaitu baino lehen. Ondoren kantxan zabaleran muga bezala jarriko marraz ez duela balio esan die. Hirukoteak honela egin ditu: Eli, Saioa eta Marian eta Gurutze, Itsaso eta Onintza.

Hasi aurretik Gurutze bera geratu da kanpoan talde batean eta Saioa bestean. Onintzak taldekideak zein diren gogoratu behar duela lehenengo esan du, taldekideak ikasteko lana izango duela. Hala ekin diote eta une batean kaos handi samarra sortu da kantxan eta kantxatik kanpo. Bakarren batek hiruzpalau kolpe egin ditu jarraian kanpora atera aurretik, besteren bat kanpora atera orduko berriro sartu beharrean zen,... Halako egoerak eman dira, nahaste-borrastea izan da nagusi eta “oilategi itxura” hartu du une batean frontoiak. Hala ere, zoritxarrez argiak itzali dira berehala eta ez dute jolasean jarraitzerik izan. Emakumeei gustatu zaiela dirudi “datorren asterako gogoarekin utzi gaituzu” esan baitu Elik eta “beno, polita da” Onintzak kontrakantxara paletak utzi eta luzaketak egitera doazen bitartean.

Luzaketak egin dituzte kontrakantxan, norberak bere kabuz, eta Gurutzek hala ari dela “desmadre handi samarrarekin nabil azken asteotan, baina, zer iruditzen hurrengo asteartean saioaren ondoren bokata bat jatera gelditzen bagara? Nik hurrengo egunean ikastetxeko batzarrean hitz egin beharra daukat, baina, berdin dio”. Gurutzek proposamena egin du, bestela Aste Santuko oporren aurreko egunean izan daitekeela, baina, Saioak berak egun horretan ezin duela esan du, kanpoan izango dela. Itsaso daukat nire aldamenean eta “honi zer gertatzen zaio” esan dit barreari eutsi ezinik ari dela. Izan ere, aurretik esan du “ea datorren astean denok puntual etortzen garen, niregandik hasita, eta horrela korrika egin gabe libratzen naizen”. Entrenatzaileak ere parte hartu nahi izan du elkarrizketan eta “datorren astean 19.20an geratuko gara, hamar minutuan mingaina berotuko dugu eta gero hasiko gara saioarekin”. Nik baietza eman diet datorren asteke afaltzeko proposamenerako, Saioak ere bai, Marianek ere “ez daukat beste ezer egiteko” erantzun du, Onintzak “koinata etxean izango da ordurako eta nik ez daukat arazorik, arazoa etortzea izaten da” eta azkenean denok esan dugu, hasiera batean bederen, baietz. Entrenatzaileak “txalo bero bat Gurutzerentzat” esan, trasteak jaso eta etxerako bidean jartzeko unea da. Oraindik ez dira bederatziak, hamar minutu lehenago itzali direlako argiak, baina, gaurkoz nahikoa da. Saioak esan du mezua bidaliko duela falta direnei oharra pasatzeko.

Frontoi ataria

21.00 pasatxo dira eta Itsaso, Gurutze, Saioa eta laurok geratu gara azkenak gaur ere hizketan, oporretarako asmoez, bidaiatzeko moduez eta abarrez. Bost minutuan hala aritu eta elkar agurtzen ari garelako Eli pasa da txakurra paseatuz eta lotu egin du Gurutzek aurreko batean berari ez zaizkiola gustatzen esan ziolako. Beraz, 21.03an kotxean sartu eta banao etxera.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa ohi baino motzagoa izan da, baina ikasturte osoan gehien gaur nekatu dira emakumeak, jo eta ke aritu direlako saio osoan zehar banakako partidetan. Normalean ariketak tartekatuz intentsitate maila ere moldatzen da, baina, gaur ez asko. Egia esan nekea nabaria zuten denek saio amaieran eta batzuk partidatik partidara ere bai.

Gaur kontrakantxan paseatzen ibili naiz eta gune ezberdinetako egoerei begira ohi baino apur bat gehiago entretenitu naiz, tarteka emakumeen esanak jaso nahian. Hala ere, kontrakantxako solasaldiekin erosoagoa zait begira egon beharra. Inbidia apur bat pasa dut, baina, izan ditut harra dezente gehiago piztu zaidan egunak ere. Hala ere, nahiko ondo moldatu naiz eta emakumeak ez dira gehiegi harritu, gaur arte ez bezala batera eta bestera bueltaka ari nintzela ikusi dutenean. Hotz ere egin du eta ondo jantzi naizen arren ez pentsa bero handirik pasa dudarik, haize freskoa baitabil.

Taldekieen arteko feeling, giro on eta laguntasuna zalantzan jarri ezinezkoak dira. Adibide ederra da saio osterako datorren asterako egindako plana, adibidez. Partidetan ari direnean ere botatzen dizkiote elkarri zenbait gauzatxo saltsa mantentzeko.

Aste Santuko aurreko azken asteartean saioa badago egutegian, baina, ez zait oso argi geratu egingo ote dugun. Bakarren batek ez dagoela hemen esan du, baina, pentsatzen dut hori datorren asteko saioan zehaztuko dugula.

Asteko azken saioa baino ez zait geratzen eta teoriar, gainera, probak nahi nukeen emaitza ematen badu behintzat, zortzi asteren ondoren pilota eta paleta esku artean eta taldekideen artean nahastuta egingo ditut datorren astetik aurrerako saioak.

Itxura ederra du frontoiak

Eguna Gasteizen, fakultatean sartuta, igaro ondoren arratsalde erdian ia Euskal Herriko beste puntan nintzen, lau gorpilen gainean ehun eta piku kilometro eta ia ordu eta erdiko bidaia egin ostean, N-1ean barrena. Orain hiru aste ere antzeko egoeran nenbilen.

Asteko azken saioa izateak apur bat animatzeko balio dit eta gaitz-erdi. Hala ere, deposituak majo urrituta iritsi naiz asteko hirugarren eguna baino ez denera, arnasa hartzeko beta handirik ez baitaukat azkenaldion. Gaur ere joan-etorriak eta jateko harturiko ordu erdia baino ez ditut izan pantailatik at egoteko.

Sarrera

Gaur saiorako hitzordua baino ordubete pasa lehenago sartu naiz Usurbilgo herrigunean, tutoretza egiteko aprobetxatuz bitarte hori. Izan ere, zenbait erabaki hartzen hastea komeni zaigu prozedurak nola bideratu eta hurrengo eman beharreko urratsak zehazten saiatzeko. Beraz, ordenagailua zintzilik abiatu naiz, paletarik gabe enegarrenez (lau aste badira = 12 saio), kaleko arropa jantzita, jolasean jarduteko tentazioari iskin egin asmoz.

Bilera amaitutzat eman, bestelakoez bi hitz egin eta 19.44an heldu naiz pilotalekura. Puntualtasunaren berri aurretik ere eman izan dut eta gaur iristean pilotakaden hotsa entzungo ote nuen zalantza izan arren ez da hala izan, ez baitut inor jolasean bistaratu plaza ertzera heldutakoan.

Pilotalekua

Harmailen aldamenen elkartuta daude Haizea, Aitziber, Ester, Idoia eta Jaione. Azken hau eserita dago, erdi etzanda eta “zer, sofán jarrita?” bota diot aldamenetik. “Igerilekuan aritu naiz eta nekatuta nago” erantzun dit. Nik arratsalde onak opa eta ordenagailua harmailetako bankuan utzi ostean korrora batzea erabaki dut. Beraiek hizketan ari dira eta ohartu naiz seme-alaben kiroleko jardunaren gainean dihardutela. Bakarren batek “nire semeak astebururo bi partidu izaten ditu, larunbatean eta igandean” esan du eta “astebururo gehiegi da” erantzun dio beste batek. Nik ere iritzi berekoa naizela esan diet, “zer adin dauka zure semeak?” galdetuz. “11-12 urte” izan da jasoriko erantzuna eta apur bat pentsatzen jarri eta halaxe onartu diet, “ba, adin horrekin nik ere bi gauza egingo nituen ziurrenik, eskola kirola larunbatetan eta krosa igandean”. “Urte osoko asteburu denak hipotekatzea gehiegi da” esan du Idoiak berehala eta nik “gurea ez zen astebururo izaten” erantzun diot. Horren harira “gurasoak beti gainean egoten gara” erantsi du besteren batek, “nik ez dut uste gure garaian joaten zirenik, nik ez ditut gogoratzen” eta “batez ere beldurgarria da futbolarekin nola jartzen garen” bezalakoak atera dira. Hortik gaur egungo jendartean kirolak duen indarra eta zenbaiten itsutasun edo gaixotasun mailaz hitz egitera igaro gara. Aitziberrek “ni astean bitan kiroldegiko gimnasia joaten naiz, 14:30ean, eta agian 15 lagun egoten gara. Gainera, gehienak pultsometroa jantzita aritzen dira han. Aurrekoan esan zidaten Zubietako buelta ematera joaten den batek bidea gurutzatu behar duenean erlojua geratu egiten duela 3-4 segundoko tarte horretan”. Idoiak gehitu du “arropa eta halakoetan ere beldurgarria da”. Nik onartu diet “aurrekoan triatloiko neskak elkartu ginen bazkaltzeko eta beldurtu egin nintzen han entzunikoekin. Bakarren batzuk izena emandako jendearen arabera erabakitzen omen dute proba batean ala bestean irten, podiumera igotzeko dituzten aukerak kalkulatu. Baina, hurrengo egunean berdin-berdin joan beharko dute ba lanera? Nik gauza batzuk ez ditut ulertzen, hain itsua izatea, adibidez”. “Gaur egun beste modu batean kirola egiteko gai ote gara?” galdera bota du Idoiak eta nik “ezetz uste dut, parte hartzeaz ari garelako diskurtsoetan baina gero emaitzari begiratzen diogulako haurretatik hasita”. Horrela aritu gara kontu kontari tarte luze xamar batean, Haizeak saioari ekiteko unea dela erabaki duen arte.

Frontisean bospasei mutikotxoko talde bat eskupilotan jokatzen ari da bitartean, euren erara.

Beroketa

19.50 inguruan hasi dira orkatilak, besoak, eskumuturrak, etab. biratzen korroan gaudela, hitz eta pitz ari garen bitartean. Haizeak ere egin ditu mugimendu horiek eta halako batean korrika egitera abiatzeko gonbitea luzatu dio laukoteari. Haizea nirekin batera geratu da kontrakantxan, mingaina dantzatzuz. Emakumeak gure aurretik pasa diren lehen itzulian konturatu naiz “Behobia ere hala bihurtu da, denak denborari begira” esaten ari direla, beraz, hizketagaitzat lehengoa darabilte. Entrenatzailea une batean tabernara abiatu da frontoiko argi guztiak pizteko giltza bila, berehala zen berriro ere pilotalekuan, eta ni kontrakantxatik besteen jardunari begira geratu naiz. Haurren aldamenetik igaro direnean “gu hemendik pasatzean gelditu, e” esan diete eta ohartu naiz ezagunak dituztela.

Besteak korrika ari diren bitartean Arritxu agertu da frontoian eta Haizearekin bi hitz egin ostean desagertu egin da. Haizea niregana hurbildu da berriro eta “oraintxe datorrela esan dit” kontatu dit. Beraz, bost emakume ariko dira gutxienez gaurko saioan,

aspalditxoko gehienak. Emakumeei “nahi duzuenean geratu” esan die gure paretik pasa diren hurrengoan eta azken itzuli bat eman ostean hurrengoan geratu egin dira gure parera iristean.

Korrika saioaren ostean pilota bana banatu die eta bakoitza bere paleta hartuta ezker hormaren aurka jarri dira piloteatzen. “Zer, umeak bidali egin beharko ditugu, ezta?” galde egin du Jaionek eta Haizea hurbildu eta hurrek frontoitik kanporako bidea hartu dute. Ohartu gara bat Idoiaren semea zela, honek “hauek parkera doaz” esan baitio eta amak erantzun “5 minutu eta gero amonarenera joan, e”. Orduan galdetu dit bakarren batek nire oinaren berri eta “datorren astean txandala jantzita etortzea espero dut” erantzun diet, “fisioak bihartik aurrera suabe-suabe proba bat egiteko baimena eman dit” erantsiz. Jaione ezkerrean, Idoia haren eskuinaldean, ondoren Ester eta laugarrena, frontisetik gertuen, Aitziber hasi dira pilota ezker hormara bideratu nahian. Orduantxe Aizpea iritsi da eta Haizeak “ezin dut sinetsi, gaur sei izango gara” esan du. Idoiak Aizpea ikustean “pentsatzen nuen ez genuela topo egingo, ni etortzen naizenean ez delako etortzen eta alderantziz” bota du. Honek irribarre egin, trasteak utzi, Haizeari aurreko astean harturiko pilota ekarri duela esan eta lekutxo bat eginda piloteoari ekin dio ezker hormaren aurka. Berehalaxe heldu da Arritxu ere, paleta esku artean hartuta eta hau ere kokatu da ezker hormaren aurka piloteatzera, entrenatzaileak pilota bat eman ostean. Aspaldi etorri gabe egon dela esan du, gaixoaldia eta lana batu zaizkiolako. Hala ere, aurreko astean Lurdesen saiora, astelehen goizetakora, joan omen zen.

Haizeak “zer da, udaberria delako? Ez dakit inoiz hainbeste egon garen” esan du eta partaideen zerrenda hartuta taldea zenbat kidekoa den begiratzera igaro da. Kontatzen aritu ostean bederatzi garelako ohartu gara eta “bederatzi izanda ez dakit nola ibili garen askotan laukotea osatu ezinda” bota du. Izaskun eta Karmele falta dira gaur, baina, beste guztiok bertan gaude. Hori horrela izanik, kontrakantxatik frontoia betea ikusten da, itxura ederra du eta tarteka pilotak ere nahasten dira elkarrekin. Adibidez, Esterri Idoiaren eta Arritxuren pilotak joan zaizkio une batean. Idoiak semearen bila joateko parkerako bidea ere hartu behar izan du une batean, falta zela ikusi dugu, bere ama agertu delako pilotaleku pareko etxeko balkoi batean haurra non ote zebilen galdezka. Banakako piloteoan jarraitu dute emakumeei entrenatzaileak amaitzeko abisua eman arte. Ni lurrean zehar desbideratutako pilota batzuk biltzen ere aritu naiz unetxo batean, emakumeei itzuliz. Binaka jartzeko esan die ondoren entrenatzaileak, beroketa amaitzeko asmotan, eta saiatzeko koadro baten parean piloteatzen. Hala, elkarrengandik gertuen daudenak batu dira bikoteetan eta Jaione eta Idoia, Aizpea eta Ester eta Arritxu eta Aitziber hasi dira, pilota banarekin, pilotakadak eta hitzak elkartrukatzen. Frontoian kabitzeko frontisetik gertuago kokatu dira Aitziber eta konpainia eta denek egin dituzte urrats batzuk eskuinerago (B.K. Ezker hormak erorketa handia du eta oso altuera txikia geratzen da 7tik atzera ezker hormaren kontra aritzeko, adibidez).

Haizea bitartean saioko ariketen inguruan hizketan aritu da nirekin eta “ez dut gaur ariketarik egingo, gaur partiduak egingo ditugu” esan du. Lurdesekin hizketan aritu omen da telefonoz eta honek esan omen dio ariketarik ez duela egiten berak. “Txokotan paleta batekin egingo dut agian” esan du eta “binaka baina kontrakantxatik aldaketak eginez ez ote da hobea?” galdetu diot nik. Orduan hala egitea erabaki du (B.K. Nik iritzia eman diot eskatu didanean, baina, iritzia baino ez. Gero bera izan da erabakia hartu duena. “Ez ematea zuzenagoa ote zen? Agian bai”. Agertu da berriro ere nire kontzientziako harra). Ondoren aitortu dit “Arritxu etortzen denean korrika eginaraztea bururatzen zait, Lurdesek kaña ematen diela diolako”. Une batean Haizea eta biok bere


ingurura hurbildu eta esan du “aurrekoan agian ordu erdi egingo genuen sakeak ateratzen. Piloteatzen aritzen gara eta ezkerrekin ez esmatuz gero ezkerrekin jartzen gaitu. Emakumeak hizketan hasten bazaizkio kargu hartzen die eta korrika saio ederra egiten dugu saioa hasterako”. Binakako piloteoa amaitu dela erabaki du Haizeak une batean eta emakumeei kantxaren erdialdera hurbiltzeko dei egin die.

Kantxa erdian batzean “joe, gaur sei gaude, emozionatuta nago, ia malko txiki bat daukat begi ertzean” esan du irribarrez eta nik “sei ez, zazpi” erantzun diot. Berak “beno, sei eta erdian utziko dugu” erantzun dit, irribarretsu eta nik ere halatsu erreakzionatu dut.

Ariketak

Haizeak esan die gaur ez dituela ohiko ariketak egingo eta lehenengo jolasa azaltzeari ekin dio.

1. Txokotan banaka, bakoitza 3 bizitzarekin. Pilota jo ondoren 7ko marra zapaldu behar da eta berriro ere kantxara itzuli. Bizitza bat galduko da huts egitean edo norberari tantoa sartzean.



“Eliminatorias” jokatzeko hasiko direla esan duenean Haizeak Aizpea eta Esterrek ez dutela oso ondo ulertu adierazi dute eta besteren batek “hau egin izan dugu gehiagotan” erantzun du. Haizeak, beraz, azaldu die “ez dago ordenarik eta helburua besteei tantoa egitea da, huts egiten duenak bizitza bat galduko duelako”. Aizpeak “ordenarik gabe nahasgarria ez ote da?” galdetu du eta Arritxuk “oso ongi pasatuko duzu” erantzun dio aldamenetik. Entrenatzaileak gaineratu die, gainera, “gero gauzak konplikatzen joango gara”.

Denek arauak ezagutzen dituztela dirudi eta jolasari ekiteko unea da. Arritxuk ahots baxuz “propiarik ba al dago?” galdetu du bizitza kopurua entzutean. Haizeak ez dio entzun, eta nik “ez galdetu, gero galdetu komeni bazaizu” esan diot aldamenetik, irribarrez. Aitziberrek pilota eskuan hartu du eta berak egin du aurreneko sakea. Pilota jo eta txintxo asko hartu du 7rako bidea. Haren hurrengo kolpea Jaionek egin du eta hala egin dute lehenengo tantoa. Haizeak aurrez probakoa izango zela esana zuen eta hutsa aintzat hartu gabe horren ondoren ekin diote jardun “ofizialari”.

Hasi eta emakumeak piloteo nahiko zuzenean eta gaiztakeria handiegirik gabe ari direla ikusita Haizeak “hasi pilota mugitzen, egin horma bikoak, dejadak, etab.” animatu nahi izan ditu kontrakantxatik. Emakumeak atzera eta aurrera dabilta, pilota jotako bakoitzean korrika eginez. Izan dira ahaztutako pare bat kasu ere, hala ere. Batean Aizpeak pilotakada jo eta Haizea aldamenetik tarte luze samarrean “korri egitera joan, korrika egin” aritu zaion arren hau ez da ohartu berekin ari zenik eta berriro jo du pilota, marrarik zapaldu gabe, eta bizitza bat galdu. Kasu hau ikusi ostean barre dezente egin dugu denok ere eta beste batean, berriz, Aitziberrek pilota jotzeko bertatik bertara

zeukanean errekortariak zezenei nola iskin egin dio pilotari, albora jauzitxo bat eginez, eta atzekoei utzi jotzeko. Horren ostean ere ez da barre algararik falta izan.


Pixkanaka-pixkanaka hutsak eta nekea pilatu egin dira kantxan ari direnen artean eta kontaketa batean zenbat dituzten esan dutenean ohartu dira Idoiak oraindik hiru bizitzak mantentzen dituela. “Denok bere aurka” esan dute aho batez, irribarrez. Haizeak, berriz, “zer, ari al zarete berotzen?” galdetu die eta baiezko erantzuna jaso du. Aurpegi batzuk gorritzen hasiak dira eta beste batzuetan izerdia ere hasi da agertzen.

Bizitzarik gabe geratzen lehena Arritxu izan da eta “propiarik ba al dago?” galdetu du, erantzun baikorra jaso. Esterrek “propia hori zer da, propina?” galdetu du. Arritxu bera izan da kaleratzen ere lehena eta pilota bat hartu eta Haizearekin batera pilotatzen joan da atzeko aldera aurrekoak amaitu bitartean. Bigarrena kaleratzen Aizpea izan da eta honek ere atzerantz bidea hartu du. Ordurako 7a urrun geratzen zaie emakumeei eta 6a zapalduz ari dira. Hirugarrena kaleratzen Aitziber izan da eta honek kontrakantxan nire aldamenen jarri eta kideak animatzen jardun du “aupa Ester” esanez, besteak beste. Nik ere, bai aurrez eta bai orain, emakumeak animatu asmoz dihardut, bizitzak kontaketaekin batera. Hiru geratu dira kantxa barruan eta 5eko marra zapaltzea nahikoa badela iritzi diogu, oso larri baitabilza hurrengo pilotak jotzera iristeko. Azkenean Ester geratu da bizitzarik gabe eta azken biak Jaione eta Idoia izan dira. Hauek bakarrik geratu direnean atzeko eremutik aurrera, kontrakantxara, etorri dira Arritxu, Aizpea eta Haizea ere, ikustera. Haizeak “finala jokatu” esan die eta “orain marrarik zapaldu gabe, ezta?” esan du Jaionek. Baiezko erantzun jaso du eta ia lehertuta dagoen keinua egin du eskuekin.

Bizitza guztiak galdu arte, “bat eta propia” eta “bi eta propia” zituzten hasi direnean, aritu dira frontiseko gunean Jaione eta Idoia nor baino nor, besteok behatzaile eta animatzaile rolak betetzen aritu garelarik kontrakantxatik. Iraupen dezentea izan du azken ataltxo honek ere.

Hauek amaitu dutenean Haizeak erlojuari erreparatu dio eta “luze joan da” esan du. 20.30 direla ohartu naiz. Hurrengo egin beharrekoaren gainean azalpenak emateari ekin dio laster batean. Emakumeak neke zantzuren batekin, baina oso alai ikusten dira, gustura, irribarre zabalekin.

2. Txokotan binaka, bikote bakoitzeko bat kantxan dagoela. Hark 2 kolpe egindakoan kanpora aterako da eta kidea sartuko. Bikoteko hiru bizitza dituzte.



Bikoteak nola osatu erabakitzeke nola egin ote zezakeen galdetu dit niri une batean entrenatzaileak aurreko ariketan zehar eta “sistema bat kaleratutako ordenaren arabera elkartzea da” erantzun diot, lagundu asmoz. Gustatu egin zaio eta horrela egingo duela erabaki du. Beraz, bikoak Idoiak eta Arritxuk (1-6), Jaionek eta Aizpeak (2-5) eta Aitziberrek eta Esterrek (3-4) osatu dituzte.

Joko honen azalpenean ere nabari da batzuk sekula egin gabeak direla eta azalpen gehigarri bat behar izan dute. “Bi kolpe egiten dituzuenen kanpora atera beharko duzue” esan die Haizeak. Gainera bota die “derrigorrezkoa da kanpora irtendakoan kideari *txokala* egitea, ez ahaztu, e”, irribarretsu. “Hau behin egin genuen” esan dute gero eta “ni ez nintzen egongo orduan” esan diet, ez baitaukat akorduan. Kasu honetan ere probako tanto batekin ekin diote jokatzeari, ulertzeko modurik errazena hori dela iritzita. Hasi eta sakea kolpe bat bezala kontaktzen ote den edo jotzen saiatu eta huts egindakoak kolpetzat hartu behar ote dituzten galdetu dute emakumeek adibidez. Haizeak baietz erantzun die.

Dinamika nahiko azkar hartu dute kideek eta ez da hainbesteko nahaste-borrasterik sortu. “Aurrekoan askoz ere okerrago atera zen” esan du Jaionek, besteak beste. Ni eta Haizea aldamenetik begira aritu gara eta baten eta bestearen profilak ateratzen saiatu: “honek asko huts egiten du, baina, joko ikuspegi ona du, beste hark a zer poztasunarekin diharduen, hurrenak bla, bla, bla”. Jokoaren erdi parera iristean zenbat bizitzarekin dagoen bikote bakoitza galdetu dute eta nik erantzun “hiru, bat eta propia”. “Eskerrak Uxue daukagun hemen” esan didate albotik irribarrez. Nik “entretentzeko zerbait egin beharko dut behintzat” erantzun diet. Haizeak aurrez ere esana dit eta gaur errepikatu “ni begira aritzen naiz baina ez dut markagailurik kontaktzen gehienetan”. Izan dira emakume batek bi kolpe baino gehiago egindako txandak eta zenbat daramatzaten ahaztutako kasu pare bat, baina, saltsan eta elkarri bostekoa emanez ederki ari dira moldatzen seiak. Gainera, zenbait kasutan jokaldiak egiten ere saiatu dira, horma bikoa botaz, besteak jasoz eta modu horretan (B.K. Besteetan baino joko biziagoa ikusi dela iruditu zait une batean, tantoa lortzeko intentzioa handiagoa dela).

Azkenean Arritxu eta Idoia kaleratu dira lehenengo eta hauen atzetik berehala Ester eta Aitziber ere. Jaionek eta Aizpeak ia hasieran zituzten bizitza guztiak mantentzea lortu dute amaieran ere (bi eta propia). 20.37 dira jadanik.

Haizeak esan die hemendik aurrera bi biren aurkako partidak jokatzeari ekingo diotela.

3. 2:2 partidak aurrean, 6 tantora. Bikote irabazleak aurrean jarraituko du eta galtzailea atzera igaroko da, piloteatzera.

Aurrean nor hasi erabakitzeko “azkena geratu zaretenak” esan du eta Arritxu eta Idoia berriro ere atzeko aldera hurbildu dira pilota hartu eta piloteatzera.

Ester-Aitziber eta Aizpea-Jaionek euren postuak hartu dituzte kantxan eta Haizeak gogorarazi die garrantzitsua dela aurrelariak pilotaren ibilbideari jarraitzea. Partidan hasi eta Esterrek atera du lehenengo sakea. Lehen tantoa aurkariak lortu dute, baina, hurrengoan esku eskura etorririko pilotakada batean huts egin du Aizpeak eta nik aurretik Haizeari esan diot “baietz orain huts egin, askotan egin ohi duen bezala” eta asmatu egin dut. Aizpeak berak ere “hasi gara” esan du. 1-1 eta sakea Esterrentzat. Honek ez du hainbesteko indarrez ateratzen eta atzeratzen pilota, baina, nahiko hobetu du aspaldian jardun gabe dagoela aintzat hartuta. Aitziberrek, berriz, gehiegi mugitu gabe dihardu, atze samarrean. Esterrek, gainera, “honek zuri bidaliko dizkizu pilotarik gehienak, gehienetan atzera botatzen du” ohartarazi dio. Aurreko astean gertatu bezala elkar askoz ere hobeto ulertu dute Jaionek eta Aizpeak. Bikoteak, joko-mailari erreparatuta ere, desorekatuta daudela ezin da ahaztu. Aizpeak sakeak indar dezenterekin baino luzeran motz samarrak egin ditu eta “altuera apur bat gehiago eman”

aholkatu dio Haizeak. Ondo ari dira saltsan denak, nahiz eta pilotakada batzuei nork erantzun zalantza agertu duen berriro ere Aitziberrek, adibidez (B.K. Ez daude hain ohituta partidak jokatzera eta oraindik kostatzen zaie lekutzea zenbait unetan). Azkenean 6-2 amaitu da eta bikote aldaketa egiteko unea heldu da.

Aurrera Arritxu-Idoia bikotea etorri da atzetik eta Aizpeak eta Jaionek aurreko kokapenak mantendu dituzte. Ester eta Aitziber atzera joan dira ezker hormaren aurka jardutera zain dauden bitartean. Arritxu izan da lehenengo sarea atera duena. Esan digu Lurdesek esan ziela sarea egiterakoan pilotari boterik ez emateko, frontisean altuera baietz, baina, botea ezetz eta Haizea eta biok ezustean harrapatu gaitu. “Eta berak nola egiten du ba sarea gomazkoarekin?” galderak ihes egin dit niri. Bestela pilotaren boteak hartuko duen altuera kalkulatzeko askoz zailagoa dela esan diogu eta ez dagoela norbere esku askotan. Berak erantzun digu “zuekin hala ikasi nuen nik, baina, Lurdesek ez digu uzten”. Partida honek ere aurrekoaren antzeko emaitza izan du, bikoteen artean ezberdintasuna dagoelako joko-mailan. Hala ere, Idoiak berak ere asko antzematen dio pilotari zer egingo duen eta horrek zenbait jokaldi nabaritu eta pilota erantzutera darama. Arritxuri ere nabari zaio hobekuntza hasieratik. Berak ere hala esan du une batean. Partida amaitu denean Haizeak “orain ere irabazi egin al duzue?” esan die Aizpea eta Jaioneri eta “ba orain atzera” esan die, beste laurak ere elkarren aurka jardun eta bina partida jokatzeko aukera izan dezaten.

Hirugarren eta azken partidari Arritxu-Idoia eta Ester-Aitziber aritu dira frontiseko gunean. Orain arte ez dute elkarrekin jolastu. Partiduan huts batzuk izan dira, baina, aurreko beste bietan ez bezala oreka izan da nagusi bai kantxan eta baita markagailuan ere. 4-4 egon dira eta azkenean 6-4 amaitu dute, Arritxu eta Idoiak aurretik. 20.53 dira eta Haizeak esku artean hartu du frontiseko eremuko pilota.

Jaionek eta Aizpeak beste seiok aurrealdean hizketan ari ginela ikustean hurbiltzea erabaki dute eta beste hizketaldi bati ekin diogu. Ez dakit nondik bueltan Usurbilgo emakumeentzat iaz antolaturiko txapelketa bihurtu dugu hizpide, bikote bat falta zela eta Aitziber eta Idoiak jardun omen zuten, eta txapelketa herrikoietan erabiltzen diren piloten inguruan aritu gara. Nik Hernaniko Tilosetako txapelketako berri eman diet eta “niri hori zentzugabea iruditzen zait, gomazko trinkoarekin ez direlako aritzen normalean emakumeak. Parte-hartzea bultzatzeko sistemarik onena ez zait iruditzen niri behintzat” ere esan diet. Esan dute iaz gomazkoarekin jolastu zela Usurbilen, frontisekoarekin, baina, aurtun agian gomazko trinkoarekin arituko direla eta Haizeak esan die “ni joango naiz antolakuntzako bileretara eta erabakiko dugu hori orduan”. Bera ere ez da txapelketa herrikoiak normalean federatuek bakarrik erabiltzen duten materialarekin jokatzearen oso zalea. Beste talde batekin konparazioan, han egiten dituztenen gainekoak entzunda, “gure taldea ludikoagoa da orduan” bota dute.

Azkenean hizketaldian egin dugu atzerako bidea eta paletak harmailetan utzi ostean kuadrizepsak luzatzeari ekin diote emakumeek. Mingainak ere dantzan ari dira etengabe. Txapelketa nork irabazi zuten esaten amaitu ostean Haizeak galdera bat bota du, gaia aldatuz: “zer egingo dugu apirilaren 4ko saioarekin?”. Arritxuk bera aste horretan lanean arratsaldez izango dela esan du eta etxerako bidea hartu. Nik eta Jaionek agertzeko pronto gaudela esan dugu eta Aitziberrek, berriz, jai bezpera izanda iruditzen zaiola pilotalekua haurrez beteta egongo dela. Aizpeak, berriz, esan du “osteguna bada jai eguna ni asteazkenean ez naiz egongo”. Azkenean proposamen ezberdinak atera dira eta bat izan da asteleheneko taldearekin bat egitea, arratsaldetan Haizeak ematen die

saioa, eta denok saio bakarra egitea eta asteazkenean ez egitea. Haizeak esan du “beno, datorren astean erabakiko dugu eta abisatuko dizuet, nik astelehenekoekin fijo igual datorren astean hitz egingo dut. Beno, gogoratzen banaiz”. Aitziberrek niri begiratu dit eta “fijo igual hori gustatu zait” esan irribarrez.

Mingainak dantzatzuz abiatu gara etxerantz ere. Haizea, Aitziber, Jaione, Idoia eta bostok batera lehen metroetan, Esterrek beste aldera hartu baitu. Haizea falta zela ohartu naiz une batean eta konturatu argiak pizteko kaxako giltza tabernan uztera joana dela. Laster gehitu zaigu eta datorren astera arte agurtu dugu elkar. Kotxean sartu eta 21.10ean irten naiz Usurbildik, etxeratzeko amorratzen.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko saiora ez naiz oso garaiz agertu, baina, ez zait iruditu aparteko ezer galdu dudarik, eurak oraindik kontu kontari ari zirelako. Hotza sentitu dut saio amaierarako, haize fina ibili delako, emakumeen beroarekin kontrastea eginez gaur ere, atzo bezala. Hala ere, eskerrak arropa dezenterekin ibiltzen naizen. Hau Euskal Herria da eta frontoien arteko eta herrien arteko eguraldi eta tenperatura kontrasteak lehen pertsonan ezagutzen ari naiz.

Emakumeak irribarretsu eta oso gustura ikusi ditut saioan zehar, aktibo ere bai, giro oso onean. Ingurukoak hala ikusita ni ere kutsatu naiz kontraktantxan. Gainera, gaur solaskide eta guzti eman dut denbora ia guztia. Talde giroa eta sentipena handitzen ari dela iruditzen zait ikastaro honetan ere, nahiz eta emakumeen asteroko saioen hainbesteko jarraipen ezak, gehienen kasuan, atxikimendu hori moteldu edo baldintzatu egiten duela iruditzen zaidan. Badirudi gure taldea eta astelehen goizetakoaren profila ezberdinak direla. Gustura ikusiko nuke zirrikituren batetik besteen saio bat.

Gaurko eguna luzea izan da, 14 ordu igaroko dira etxetik irten naizenetik berriro ere atarian barrera sartu arte, eta ahituta nago. Hala ere, aste honetako azken saioa ere joan da, orain idaztea falta zait, eta hegan igaro zaizkit orain arteko egunak. Oraindik bi astegun gehiago daude, ordea.

Ea datorren astetik aurrera saltsan, baina, kantxa barruko saltsan, lehen pertsonan bizitakotik egindakoak diren gogoeta eta iruzkinak itzultzen diren. Iruditzen zait hala bada eta dena ondo badao, oina ez bazait kexatzen, sentipen arraroak izango ditudala. Hala ote?!

Emakumeak saltsan

Aste honetako herriz herriko jarduna eta saioetan ikusirikoa hitz bitan laburtu beharko banitu goiko horixe hautatuko nuke: emakumeak saltsan. Zergatik? Kasualitatea izango da agian, baina, aste honetan taldekide guztiak gustura eta animotsu ikusi ditudalako, saltsan erabat murgilduta, pilota, paleta eta kideekin koktela osatuz. Hor eragina izango du nire begirada angeluak ere ziurrenik, lurpetik ohiko altueretara hurbiltzen hasia delako. Eskerrak!

Ostegun arratsaldea ohartzeko iritsi zait, baina, unibertsitateko ekitaldi batean igaro beharko dut ostiral arratsalde osoa ere, beraz, oraindik martxa honi eustea komeni zait, azken energia izpia agortu arte ekinean ahalegintzeari, alegia. Hala ere, asteburu honen

atarian beste une garrantzitsu bat helduko da niretzat, zeharka (edo zuzen-zuzenean akaso) saioekin zerikusia duena. Aurrez ere behin baino gehiagotan azaldu den bezala oineko arazoa erabat osatu zaidan edo ez konprobatzeko momentua heldu zait, zortzi asteko derrigorrezko etenaldi amaigabearen ostean. Eraitza ona izatea espero dut, Bidegorrian eta handik itzultzean zein biharamunean trabarik ez nabaritzea, baina, zer gerta ote litekeen pentsatzen jartzean urduritasuna eta izua azaleratzen zaizkit. Hori hemezortzi ordu barru izango da gutxi gorabehera, beraz, bitartean beste zeregin batzuei hel diezaiedan. Datorren astekoak eta asteburukoak pasa behar duten bezala pasako dira, patuak ere izango du esku hartzerik, ia ziur, beraz, ondorioak ondorenerako uztea hobea izango dut. Hortaz, puntu eta aparte, datorren astra arte.

21. astea. MARTXOA ETA NEGUA AGURTU DITUGU

Martxoko azken astea ere heldu da gugana, hegan. Sei hilabete beteko dira egun eskas batzuk barru saltsa honetan hasi nintzenetik eta bederatzi hilabeteko epeak hasieran ia amaigabea bazirudien ere bi herenak beteko ditut aste honetako saioak amaitzearekin batera. Beno, hasitakoak jarraipena izan duen seinale izan liteke bederen. Gainera, hiru urtaro ere ezagutu ditut saioetako joan-etorrietan: udazkena, negua eta udaberriaren hasiera. Ni ere halatsu ibili naiz, urtaroen ezaugarriak neure eginda, halako asmorik izan gabe: goibel eta umel zenbaitetan, trumoi eta ekaitzak harrapatuta, erdi izoztuta, behin baino gehiagotan eta eguzki izpiren bati heldu nahian noiz edo noiz.

Beraz, beste aste bati eman beharko zaio ongi etorria, gaizki etortzeko ez baitago deika aritu beharrik. Horretarako daude patua eta Murphyren lege maitagarria. Errutinaren jarraipena izan liteke hau askorentzat akaso, baina, ez, ez da azken asteen berdina izango niretzat. Hala itxaro dut, behintzat! Izan ere, berriro ere kantxan saltsan hastekotan naiz, duda eta kezka zein hainbat mamu ere nirekin batera eskutik etorriko direla dakidan arren. Zortzi aste, 56 egun, igaro dira azkena pilotan aritu nintzenetik. Lekutan dago urtarrilaren 31 malapartatu hura! Kostata, baina, pasa da eta ez dadila oinaze eta lesiorik itzuli beste puska batean, arren. Amen.

Markagailudun partiden aroaren hasiera

Azken boladan darabildan erritmoari eutsi ezinda, erdi arrastaka eta erabat nekatuta hasiko dut martxoko azken aste hau ere, asteburuak atsedean hartu eta errekuaratzeko baliatu ordez nekea pilatzen segitzeko tarte bilakatu baititut gainerako saltsak medio. Egundez dezentetako ahidura lagun nabil eguneko lehen orduetatik. Hala ere, burua ohiko pentsamenduetatik urrundu, jende artean ibili eta ideiak freskatzeko abagune ederrak izan ditut eta horrek benetako balioa du niretzat. Gainera, bart iluntzetik sentipen arraro eta kontrajarriak izaten ari naiz. Batetik, berriro ere saioetan paleta bat eskuan eta pilota kolpatuz hasiko naizelako, larunbat eguerdian korrika egindako probatxoak hala bultzatuta, baina, bestetik, horrek oineko oinazea berritzeko beldurra sorrarazten dit aldi berean, ez daukadalako %100ean erabat osatu naizela baieztatzerik, momentuz. Beraz, kezka gehigarri eta era berean ilusio sentimendu txiki-txiki bat nahaspilatzen zaizkit, sabelean tximeletak sentitzeraino.

Gaur kirol arropak soinean jantzi, motxila bizkarreratu eta ohiko eran egin dut Zumarragatik Hernanira bitarteko bidaiara, patxadaz, baina, bolantean arretarik galdu gabe. Asteleheneroko bide bera, ordua ere bertsua eta goizean lanera abiatzen denaren aldartea ere ohikoak ditut. Hala ere, izerdi apur bat botatzeko astea izatea espero dut hasi berri dudana eta horrek bizipoz apur bat ere eragiten dit. Ea nola moldatzen naizen?!

Kiroldegiko sarrera

9.25. Autotik irten, ordenagailua eta nire “bulego mugikorra” bizkarreratu eta kiroldegira abiatu naiz. Ni espaloian aurrera noa eta ezustean aurkako noranzkoan datozen Rakel eta Malenekin gurutzatu naiz. “Zer, ihesi?” galdetu diet eta “erosketak utzi eta oraintxe goaz” erantzun didate. Batek bi eskuak daramatza poltsaz beteta eta besteak bat. Beraz, elkar agurtu eta aurrera jarraitu dut bidean, kiroldegira berehala helduz. Ni iristen ari naizela ohartu naiz beste aldetik Ainara eta Izaro, haurra karroan

hartuta, ere bertara datozela. Bigarrena orain astebete inguru ezagutu nuen, gomazko paletan antolaturiko txapelketa herrikoiauren aurreko hitzordu batean eta Ainarak “tesia egiten ari da” esan dio. Besteak “zeren inguruan?” galdetu eta nik “emakumeen pilotaren gainean” bota diot. Barruan, berriz, Irati gainerakoon zain dago jadanik.

Elkarri egun onak eman dizkiogu lehenengo eta ondoren mingainak dantzatzeari ekin diogu. Niri ea oina zer moduz dudan galdetu didate, besteak beste, eta “beno, ez dakit, beldur handiarekin nabil” erantzun dut. Tarte horretan Rakel eta Malen ere iritsi dira. Hurrena iristen Miren izan da eta harengandik tarte oso txikian Saioa. Gaur ez da Ines ageri oraindik tornuaren beste aldean. Saioarekin asteburuko bertso saioaz bi hitz egin ditut, berak “zer moduz?” eta nik “izugarri sufritu nuen” erantzunez. Emakume batzuk badute nire afizio horren berri aurretik, baina bakarren batek gaur jakin du eta “bertsotan ere jarduten al zara?” galderari “bai” baten bidez eman diot erantzuna, erdi lotsatuta.

Aspaldiko hitzorduen dinamikari segika, 9.40 oso urrun ez direnean, barruranzko bidean jarri gara, binaka zein hironaka hizketan. Irati, Rakel, Miren eta nik elkarren inguruan egin dugu bidearen zati handi bat besteen aurretik, “asteburuan alabarik gabe” egon direla esan du Rakelek, adibidez, “zorte bat da larunbatean jaiki eta ardurarik ez izatea”. Besteek baietsi egin dute hori bera. “Haurrak aitona-amonekin ibili dira, gustura” erantsi du ondoren bakarren batek haurren iritziaz galdetuta. Iratiri, berriz, Tilos 7ko partidez galdetu diot eta “gaur arratsaldean daukagu bigarrena iazko txapeldunen aurka” erantzun dit. Nik “beno, ahalik eta ondoena jardun eta kito” esan diot eta berak “aurrekoan bitan ibili nintzen eta gusturago ari naiz” gehitu du. Era berean esan dit bere bikoteak, Joanak, gaur ikastarora etorriko al zen galdetu ziola, arratsaldeko partida medio, eta berak “nik baietz esan nion, azkenean kirola egiteko eman dugu izena, ezta profesionalak bagina ere”. Joana aspaldi honetan ez da etorri, nik uste azken lau asteetan ez dudala pilotalekuan ikusi ere egin, eta esan dit “sorbalda ingurua minduta dabil, 6 egunez jarraian joan zelako ibiltzera”. Hala, kontu kontari, iritsi gara azken pasabideraino eta bertan ateari eusten geratzea erabaki dut, aurrekoari erreleboa hartu eta denak pasa arte itxaron bitartean. Azkenak Saioa, Zuriñe eta Jone izan dira heltzen eta hauekin batera egin ditut frontoiraino dauden azken metroak. Jonek “oraindik makarrak kentzeke nator” esanez egin dit diosala, irribarretsu, eta nik “nekeak gaina hartuta nator ni” esan diot.

Pilotalekua

Sartu eta jertseak, poltsak eta abarrak harmailtako aulkietan utzi ditugu beste ezertan hasi aurretik. Hamarrak laurden gutxi jotzear dira eta lehendabizi Saioak karpeta bat hartu du eskuan eta “maiatzaren 26an izango da Emakumea Pilotari eguna” esan. Nahi gabe, inertziaz, korroan jarrita gaude denok. Jonek “egun horretan txalaparta festa da” esan du eta “iaz ere halakoren bat ez al zeneukan?” galdetu diote. “Dena maiatzean izaten da” esanez erantzun du ondoren. Aurrez Ainarari alabaren eskolarteko paleta txapelketako partidaz galdetu dio bakarren batek eta Saioari bizkarretik helduz “honen neskek irabazi zieten” erantzun du, irribarrez. Malenek, aldiz, niri begiratu eta “zer, gaur bai?” galdetu dit eta “bai, ikusiko dugu” erantzun diot nik, ziurgabetasun handiz (B.K. 8 aste igaro dira azkena paletan saioan aritu nintzenetik eta mugimenduekiko oinak izan dezakeen erantzunak kezkatu egiten nau. Asko). Hala ere, gaur bai, gaur saiorako prest etorri naiz. Saioak ere esan dit “gaur txandalarekin etorri zara, e”. Ondoren azaldu du gaur bat baten aurkako partidak egiten hasiko garela Irurako

ikasturte amaierako jaiari begira, han Hernaniren izenean nork jokatu erabakitzen hasteko. Halako batean Saioak berotzera bidali gaitu denok. Berak kantxan zabaleran 2 metro ingurura marra bat jarri du luzera osoan bitartean.

Pilotalekuko garbiketa lanak amaitzen ari dira garbitzaileak, plastikozko poltsa ugari ikusi ditut bazter batean. Behin baino gehiagotan egin dugu topo elkarrekin, eurak asteburuko partidaren osteko garbiketa lanetan aritu izan direla. Beraz, saio hasieran “ikusleak” ere izan ditugu.

Beroketa

Korrika saioa izan da lehenengo jarduera, elkarrekin hizketan. Ni Malen eta Ainararekin batera aritu naiz eta bigarrenak “atzo honen senarrak maratokia egin zuen, Bartzelonan. Ez al zaitu erakartzen?” galdetu dit eta nik “ez, ez, baina, duatloiek izugarri eta apirilaren 22an Soriara goaz taldeko neskak, erlojupeko batetara, eta inbidia galanta pasako dut, ni ezingo bainaiz prestatu ordurako. Niri aurtengo aukera joan zait” erantzun diot. Eurek “datorren urtean beharko du” esan didate eta nik “bai, hala beharko du” esan diet. Gure aurretik doaz beste bostak. Halako batean geratu egin dira aurrekoak eta baita gu ere. Ainarak “ez al ditugu bi itzuli eman?” galdetu dit aldamenetik, ez oso ozen, eta nik “bai” erantzun. Hori ikusita irribarrez “zer, Miren, zenbat buelta eman ditugu?” bota dio eta honek “hiru, ezta, Jone?” erantzun. Hark ere baietz. Guk irribarre egin dugu eta uste dut ez dugula hitz gehiago behar elkar ulertu eta hala ez dela izan berresteko.

Borobil bat osatuz jarri eta mugimendu artikularrak egiteari ekin diogu ondoren, norbere kasa. Ni orkatilak biratzen hasi naiz, ondoren belaunak, gerria eta besoak eta goiko gorputz adarretako luzapenen bat edo besterekin amaituz. Aldamenean ditudan Malen eta Ainarak ere halatsu egin dute. Hori bai, ez diogu hizketari utzi tarte osoan. Saioak orri bat esku artean hartu eta “lehenengo partidua Malen eta Mirenek jokatuko duzue” bota du. Hori esan eta paletak eta pilotak hartzen hasi gara. “Zer, zuzenean, berotu gabe?” egin du galde Malenek eta “a, egia da, piloteatu gabe zaudete” erantzun du Saioak. Orduan, binaka jarri eta ezker hormaren aurka piloteatzeari ekin diogu. Errebotetik gertuen Rakel eta Irati, hauen aldamenean Miren eta Jone, eskuinerago Ainara eta ni neu eta gure eskuinean, frontisetik gertuen, Malen eta Zuriñe. Gu aurrekoan Tilosetan jokaturiko partidua gainean hasi gara, nik hala galdetuta, eta “bi kolpe jaso nituen eta ia joan nintzen betaurrekoak janztera” esan dit Ainarak. “Aurrean ez nuen asko jokatu, dena atzera aritu ginen, aurkako aurrelariak hala eskatuta” esan dit geroxeago. Gustura aritu zirela dirudi bere hitzetan. Alabaren eskolarteko partidaz ere egin dit aipamen bat “oso urduri zegoen eta ez zen pilotaren bila mugitu ere egiten”. Nik, hori entzunda, bera zenbait partidatan nola jartzen den oroitu eta “amaren alaba izango da orduan, ala?” bota diot, irribarrez. “Hala izango da” erantzun dit. Bitartean, beste seiek ere hitzak eta pilotakadak elkartrukatuz dihardute, ohitura onak ez galtzeko, eta etorri zaizkigu Mirenen ingurutik pilota pare bat desbideratuta. Une batean, berriz, nik Malen errebasez, bi besoekin, pilota jotzen ikusi eta “non dago ezker hori?” bota diot, adarra joz. Berak “utzi, ia urduri nago eta partidua dela eta” erantzun dit, umorez, eta baita hori entzun duen entrenatzaileak ere “hori partiduetan erabiltzen du” gaineratuz. Nik irribarrez jarraitu dut, tarteka alboetara ere bideratuz nire begirada.


Halako batean Saioak denoi dei egin digu eta aurreko buruz buruko partidak nola jokatuko diren azaldu du: “sakea 3tik 2ra, eskuineko marratik eskuinera txarra, 4tik ezin

da pasa eta 10 tantora”. Emakumeek euren adostasuna agertu dute eta lehen biek frontiserako bidea hartu eta beste seiok ezker hormaren aurka piloteatzera egin dugu.

Ariketak

Gaurko saioko zatirik nagusiena, edo ia guztia, banakako partidekin beteko da aurreko eremuan eta gainerakook binaka piloteatzen, ikusten edo geure artean partidak egiten jarraitu erabakitzeke askatasuna izango dugu. Partidak Emakumea Pilotari Egunaren baitan antolatzen den txapelketa herrikoiko azken faserako taldekideak hautatzeko prozesuaren zati ere badira. Irabazleek ordezkatzeko dute euren herria emakumeen ikasturte amaierako festan.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak, 10 tantora.



Lehen partidari Malen eta Miren hasi dira aurrean. Saioa, berriz, epaile lanetan dabil kontrakantxan, eskuan orria hartuta. Beste denok atzeko eremuak betetz jarri gara sakabanatuta. Ni Ainararekin geratu naiz ezker hormaren aurka piloteatuz, 6tik ezkerrerago, Jone eta Zuriñe elkarrekin jarri dira gure eskuinean, euren lehengo bikoteek aurrera egin dutelako, eta erreboteko gunean Rakel eta Irati ere elkarrekin ari dira piloteatzen.

Partidako oihi eta inpresio batzuk heltzen dira gure belarrietara, Mirenen barreak batez ere, huts egiten duenean. Emaizta zein den ez dakigu, baina, Malen nagusitasunez ari zaio aurrea hartzen, jokaldi pare bat ikusi baitizkiogu zehar begiratu bidez. Adinean, mugikortasunean, lehiakortasunean eta intentzioan alde dago bien artean, nahiz eta Mirenek ere badakien moldatzen. Nabarmena da ez diotela elkarri tantorik erregalatu nahi eta ahalegin betean dihardute, besteari ahalik eta pilotarik zailena jarri eta eurek sorturiko aukerak aprobetxatu asmoz. Azkenean Malenek lortu du aurrea hartzea, nahiz eta momentuan ez dudan zenbat geratu diren jakiterik lortu.

Bigarren banakako partida Jone eta Ainarak egin dute. “Ondorengoan Zuriñe eta Rakel” esan du Saioak, oharra pasaz. Ni Zuriñerekin jarri naiz piloteatzeko kasu honetan, aurrez gurekin aritu diren biak izan baitira aurreko gunera egin dutenak. Rakelek eta Iratik ere lehen bezala darraite eta Malen eta Miren elkarrekin hasi dira aurrez urarekin eztarria freskatu eta atsedean tarte txikitxo bat hartu ostean. Zuriñe eta biok isil samarrik hasi gara, tarteka aurreko gunera begirada zuzenduz, eta halako batean “zer, Zuriñe, aurrean antolatuko al dute kiroldegiko txapelketa?” galdetu diot. Berak baietz pentsatzen duela erantzun dit eta izena emateko asmoz agertu, “Jonek ez badu bikote hoberen bat aurkitzen, behintzat. Bestela ere aurkituko dut norbait” erantsi du ondoren. Lasai-lasai aritu gara, ni pilota bera dagoen ingurura botatzen saiatuz eta alderantziz. Aldamenekoak ere antzeko jardunean dabiltzala dirudi, hizketan eta jolasean. Aurreko guneko partidari, berriz, Ainara nabarmen ari da nagusitzen, baina, Jonek egindako tanto bat harrapatu dut eta “beno, gutxienez tanto bat!” irten zaio barru-barrutik. Amaieran tanto dezenteko aldearekin amaitu dute eta atzerantzko bidean jarri dira.

Hirugarrenean Rakel eta Zuriñe hasi dira nor baino nor aurreko partidari. “Hau polita izango da ikusteko” esan dit Ainarak aldamenetik, berriro elkarrekin jarri garelako pilotean. Jone, berriz, fisikoki azkar nekatzen dela esanez aritu da eta nik “bai, normalean hala gertatzen da” erantzun diot. Berak, berriz, “eta erretzailea izanez gero gehiago” esan du, nik “hori ezin dizut esan, ez dut probatu” erantzun eta zer pentsa geratu naiz. Ainarari galdetu diot ea Jonek erre egiten duen eta honek “ez dut uste” esan eta zuzenean berari bota dio “zu erretzailea al zara?”. Baietz erantzun digu, baina, astegunetan apenas erretzen duela. Ondoren pilotakadak eta hitzak elkartrukatu bestea beste Zuriñeren hobekuntzaz, borondateaz eta intentzioaz hitz egin dugu, ezker airez pilota bat jotzen ikusi eta gero. Une batzuetan aurrekoei begira ere geratu gara pilotakadak emateari utzita, baina, ez gehiegi. 8-8 doazela entzun dugu halako batean Saioaren ahotsean. Azkenean Zuriñek irabazi du, larri eta estu, baina, gustura nabari da. Rakel ere ez dago haserre. “Lehen urtea izateko gustura egon naiteke” esan du bestea beste.

Laugarrenean Irati eta ni neu elkartu gara aurreko gunean, orain arte partidari jokatu ez dugun bakarrak. Saioak hurreratzeke deitzean denek niri begiratu eta “animo, Irati” eta “Uxue, lasai” bezalakoak esan dituzte. Nik baietz erantzun diet. Atzean, erreboteko gunean, laukote bat partida egiten hasi dela ohartu naiz. Tartean dira Ainara eta Malen eta Miren eta Jone behintzat. Rakel eta Zuriñe guri begira eta elkarrekin hitz egiten aritu dira tarte honetan. Guk kontrakantxan Saioa daukagu markagailu lanetan eta Iratiri lasaitzeko esan dio pare bat aldiz, azeleratu egiten baita, aurreregi jarritz urduritasunak eta tantoa egin nahiak bultzatuta. Nik ere “aupa” esan diot behin baino gehiagotan eta lasai dihardut. 3-0 hasi eta nire huts batekin 3-1 jarri gara, baina, bere hutsen ondorioz, nahiz eta nik pilota askotan nahiko eroso eta erritmo geldoan bota, 5-1 berehala ginen. Saioak “eskerrak hankako minez zabiltzan” esan dit eta nik “oinez nabil, e, eta beldurra ematen dit zapaltzean” esan diot. Haserretu egin ote naizen esan du 6-2ko tantoa errematez lortzean, baina, “ez, ez, egon lasai” erantzun diot nik, nahiz eta zalantzan geratu naizen sinetsi ote didan. Azkenean 10-2 amaitu dugu, baina, tantoak ez dira motz-motzak ere izan. Nik egindakoak ez ziren lautik gora izango, berak huts egin baititu gehienak.

Bosgarren partidarako Ainara eta Malen deitu ditu Saioak aurrera. “Hurrengo partida Irati eta Mirenek” esan du Saioak. “Hau ikusteko modukoa izango da” esan dute bat baino gehiagok, eurak baitira taldeko onenak. Luzea, erritmo bizian jokatu izaten ari da eta nekea sumatzen da bien aurpegiatan. 6-1 doazela, Malen erraz aurretik, Saioak animatuta “ur pixka bat edatera goazen” esan dute eta kontrakantxan tragoxka bana hartu ostean itzuli dira partidarekin jarraitzera.

Rakel, Irati eta Zuriñe elkarrekin hizketan ari dira kontrakantxan, aurrez lehenak gure emaitza galdetu dit niri, atzeko eremura hurbiltzean. Ni erreboteko zelaitxora joan naiz eta hori ikustean Mirenek Jone eta bioi esan digu “biok Uxueren aurka”. Nik nire adostasuna erakutsi dut eta hirurok erreboteko zelaitxoan hasi gara, umore onean eta gustura. Lasai ari naiz ni eta beste biekin kilimak egiten saiatuz. Markagailurik ez dugu kontatu, nahiz eta tantorik gehienak nire aldekoak izan diren. Pilotakada batean Jonek errebote gaineko gunera bota du pilota eta eskailerak gora igota bila abiatu da. Bitartean Miren eta biok aurreko guneko partidari erreparatzeko aprobetxatu dugu. Amaieran “10-9” esan du Saioak, Malenen azken tantoa ikusi dugu guk, eta biak leher eginda kontrakantxako eskaileratxoan eseri dira eta ura edaten hasi. Emaitza entzutean “a zer

nekea” esan duenik izan da eta txalo ere jo diete taldekideek eginiko esfortzuaren ordainetan. Binakako partida jokatzeko aritu gara gu atzean amaiera aldera, Zuriñe eta ni Jone eta Mirenen aurka, Zuriñe guregana hurbildu denean hala erabakita. Aurreko partida amaitu da eta gunez aldatu dute zenbait kidek.

Seigarren partidaren Miren eta Irati hasi dira aurrez aurre. Atzean, berriz, Zuriñe eta ni eta Jone eta Rakel hasi gara partida jokatzeko, Saioak “hurrengo partiduan Jone eta Rakel” esan duelako. Ainara eta Malenek aurrealdean eserita darraite, hizketan eta aurrez hartutako egurrari buelta eman nahian, errehabilitazio tartean. Gu atzean hasi eta berehala Jonek kale pare bat egin ditu eta Rakelek “hori zer da, gerorako ni despistatzeko?” galdetu dio. Besteak “ez, nik haizeak ematen didanaren arabera jokatzeko” erantzun dio eta irribarre egin dugu inguruan gabiltzanok ere. Zuriñeri pilota batek gora alde egin dio eta “hor sarearen bat jarri beharko lukete” bota du Rakelek. Zuriñek pilota bila hartu du bidea eta beste hirurok zain geratu gara, aurreko partidari begira. Saioari “zenbat?” galdetu diot nik atzetik eta “7-4” erantzun dit. Hurrengo tantoa ere Mirenek egin du, baina, hortik aurrerakoari ez diot gehiegi erreparatu, Zuriñek goitik “atzeraino etorri da” esatearekin batera pilota bota digulako eta berriro ere jolasteari ekin diogulako. Aurreko partida amaitu denean, 10.53 pasatxoan, Jone eta Rakelek hartu dute frontiseko gunerako bidea. Ni eta Zuriñe besteengana hurbildu gara kontrakantxara. Bertan daude Miren, Irati, Ainara eta Malen. Saioa ere hurbildu da, Malenek etxerako bidea hartuko duela esan baitu. Datorren astelehenean saioa badela gogorarazi die Saioak emakumeei, ikastetxeetan jai dute haurrek bi astez Aste Santuko oporren harira, eta pare batek “nik ez dakit haurrekin nola moldatuko naizen” erantzun dute. Ainarak, aldiz, “nik nireak lo utziko ditut eta bueltan joango naiz esnatu ote diren begiratzera” esan du. Saioak “ahal baduzue etorri, niri berdin zait umeak hor atzean ibiltzea, guk aurrean partidua egingo ditugu” erantsi du. Hori esan eta Malenek kalerako bidea eta guk atzeko eremuranzkoa hartu dugu.

Zazpigarren partidaren Jone eta Rakel aurrean hasi dira. Atzean partidaren hasi gara, berriz, Miren-Ainara eta Zuriñe eta biok. Irati, berriz, nekatuta indarrak errehabilitatu asmoz geratu da aulkian eserita, partidari begira. Laurok elkartu gara eta adarra joz “ondorengo partidarako estrategia aukeratu” esan diot nik Zuriñeri eta berak irriz erantzun. Ainara eta Mirenek bikotea osatzea eta guk ere baietz erabaki dugu atzean aritzeko. Zuriñeri “orain Uxueri korrika eginarazi eta nekatu egingo dugu” esan diote eta honek “noski, nola arina ere ez den” esanez erantzun die, irriz. Ederki aritu gara, tarteka barre dezente ere eginez. Mirenek dejada pare bat bota ditu eta Ainarak “Uxue, ez diozula nabaritu?” galdetu dit barrez eta nik “ez, ez, inondik inora ez” erantzun diot, ordu erdi lehenago banekielako nora zihoan pilota gutxi gorabehera. Azken tantoan korrika saio pare bat egin ditut eta irriz esan “horrek ez du balio, orain nekatuta joango naiz partidara”. Aurreko partida uste baino paretuago doala dirudi 8-7 doazela entzun baitut une batean. Aurrekoa amaitu dutenean denok hurbildu gara kontrakantxara, bai aurrean aritutakoak eta baita atzean genbiltzanak ere.

Beste denak aurretik pasatakoan berriro ere nire txanda da. Eguneko bigarren eta azken partida izango da hau. Azken partidarako Zuriñe eta biok geratu gara. Astirik emango ote digun zalantza egin dugu eta beste kideak kontrakantxan geratu dira, hamaikak igaro direla ikusi eta paletan jokatzeari utzita. 11.04 ikusi dut eskumuturreko ordularian eta “ba al dago denborarik?” galdetu du Zuriñek. Nik “zuk presarik ez baduzu bai” erantzun diot eta Saioak ere jokatzeko esan digu. Beste guztiak kontrakantxan daude, batzuk luzaketak egiten ari dira eta beste zenbait murruren aurka jarri eta guri begira. Tanto

piloteatuak eta nahiko lasaiak jokatzen aritu gara, nik pilota ahal nuen heinean heltzeko moduan botaz berari. Albotik “aupa, Zuriñe!” animo batzuk entzun dira eta Saioak “lasai, Zuriñe” esan dio pare batetan. Nik ere animatu dut behin baino gehiagotan, bai tantoa martxan jarri aurretik eta baita tantoan zehar ere. Oso lasai aritu naiz, batere behartu gabe eta azkenean 10-2 amaitu dugu. Nire hutsak izan dira bere bi tantoak, bat txapapera eta bestea eskuineko marratik kanpora joandakoak.

11.10 pasa dira partida amaitu dugunerako. Elkarri bostekoa eman diogu eta Saioak kantxako marra kendu du gu kontrakantxara heltzerako. Beste taldekide gehienak trasteak jaso eta paletak motxilan sartuta daude dagoeneko, etxera abiatzeko pronto. Malen, adibidez, joana da. Saioaren motxila hartu eta paletak bertan sartu ditut nik eta Saioak “zein da leku ona plater konbinatua jateko?” galdetu die. Aukera bat baino gehiago eskaini dizkiote eta “zenbat ordaindu nahi duzue?” galdetu dio Jonek. Proposamen bat baino gehiago jaso ditu eta hizketaldi honen ondoren beste kideek ere trasteak hartu eta martxa egin dute. Azkenean nik luzaketa batzuk egin ditut lurrian jarrita eta Ainara eta Saioarekin batera hirurok izan gara azkenak pilotalekutik alde egiten. Hirurok goaz norbere motxila bizkarreratuta. Orain bi aste inguru agerturiko ikasleak gaur eskuetan erraketak hartuta dituztela iritsi dira frontoira, justu guk amaitu eta berehalakoan, eta irakaslea ere hasi zaie azalpenak ematen. Guk kanporako bidea osatzeari ekin diogu. Hizketan egin dugu aldagelen sarrerara arteko bidea, bertan Ainara agurtuz. Saioa eta biok elkarrekin egin dugu eskaileretan gora eta kiroldegitik irteteko bidea ere.

Kiroldegiko sarrera

11.15ean Saioa biharamunera arte agurtu eta liburutegirako bidea hartu dut, alferkeria zantzuak uxatu eta lana egiteko beharraz oroituta. Iratik ikusi gaitu irteeran eta urrundik agurtu gaitu, gero gora joz. Saiotik zer eta nola gogoratzen dudana ikusi eta idazteko unea heldu zait jadanik.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa arraroa izan da niretzat. Oinak ez dirudi kexarik duenik, baina, buruan zalantza eta kezka izan ditut etengabe. Zenbait unetan alboetara mugitu eta gelditzerakoan oina ez dut lehenago bezalako segurtasun eta konfiantzaz bermatu, adibidez. Hala ere, egia da minik ez dudala sentitu ere, baina, trabaren bat ote dudana susmoa badut. Hala ere, poliki-poliki konfiantza hartzen hasi eta beldurrak uxatzea espero dut. Bihar emango diot tankera hobea saioa amaitu eta minutu batzuk igaro ostean baino.

Emakumeak saio guztian zehar partida egoeretan aritu dira aurrealdean eta gustura sumatzen ziren. Zenbait kideren arteko lehietan oreka izan da nagusi eta nekatu direla ere iruditu zait. Hala ere, desorekatuak izan diren partidak ere sortu dira eta kasu horietan hasterako erdi etsita sumatu dut bakarren bat. Nik jokatu ditudan bi partiduetan, adibidez, emaitzak emaitza, oso lasai eta pilota euri ia kasurik gehienetan eskura emanez jardun dut, egoerara egokitzen saiatu eta emakumeak gaizki senti ez zitezten. Hala ere, ez dakit ez ote naizen neu izan zenbait unetan eurak tantoa galtzean penarik handiena hartutakoa. Besteak beste nahitako pare bat huts egin ditut neuk, markagailuan 0an geratuko ote ziren beldurtuta. Niri gehitxo iruditu zait saio dena

partida batzuekin hipotekatzea, baina, ez dakit ez ote naizen iritzi horretako bakarra. Hurrengo saioetan berresten saiatuko naiz.

Gaur ez dut atera ere egin koadernoan, ez zait burutik pasa ere egin, jokatzen aritu naizelako, baina, horrek ere erabat seguru ez nau sentiarazi. Hala ere, saioetan jokatu eta gauzez ohartzea ez da hain erraza, ezberdina da kontrakantxatik buruturiko behaketa, batez ere zeu ere gune batean ari zarenean eta arretarik gehiena bertan jartzean ingurukoaz ezin zarelako hainbeste ohartu, ikuspegia murriztu egite baita.

Zortzi astean geldi egon ostean hasi naiz saioetan parte hartzen eta bihar ere hala egingo dut ziurrenik. Ea saioek eta egunek aurrera egin ahala sentipen arraro eta dudak alboratzeko modua egiten dudan. Ederra eta beharrezkoa litzateke aldi berean.

Atzeko txokotik begira

Astelehenaren atzetik asteartea heltzen da egutegiaren arabera eta halaxe izan da kasu honetan ere. Nola bestela?! Gaur, gainera, ordu dezente eman ditut etikako txostenaren harira pantaila aurrean egunean zehar eta lehen zirriborroa erdi bukatzea, bideratzea egokiagoa da akaso, lortu dut iluntzeko saioa heldu aurretik. Horrez gain, ordubeteko bizikleta irteera bat ere egin dut, udaberriko bete-beteko giroa aprobetxatu nahian, oina minberatuta sentitu eta korrika saio berririk egitera ez bainaiz ausartzen gaurkoz.

Saioa azken asteotan baino minutu batzuk arinago abiatu naiz, dagokigun orduan iristeko asmoz. 18.55 dira nire autoko ordulariaren arabera. Gaur saio ostean elkarrekin zerbait jan eta apur batean egoteko plana egin genuen aurreko astean, gainera, beraz, saioa pilotalekuan hasi eta ondoren tabernan egingo dugu bigarren atala. Horrek kezka bat eragiten dit oharrak jasotzearen inguruan, ez baitut amaitu orduko grabagailua martxan jarri eta informazioa gordetzerik izango. Hala ere, nolabait moldatzea espero dut, besterik ez bada saio ostean zerbait idatziz. Bidaia, beraz, lasai antzean egin dut oro har, ohi bezala kamioi eta kotxe artean murgilduta, trafikoa handia izan ohi delako N-1ean.

Pilotaleku ataria

Irratiko iluntzeetako albistegi nagusia entzunez egin ditut Zumarragatik Zizurkilera bitarteko kilometroak eta justu 19.30ak adierazten dituzten kanpai hotsekin batera heldu naiz pilotaleku parera. Bertan ikusi ditut Saioa eta Itsaso eta Oihane atzeraxeago dago, taberna parean hizketan ari da. Beraz, autoa aparkatu orduko hurbildu naiz kideengana eta ohi bezala hizketaldiari ekin diogu. “Astea motel doa eta oraindik asteartea baino ez da” esanez ari zaio Itsaso Saioari eta nik “hau bakarrik? Niri denak pasatzen zaizkit geldo azkenaldian, ez zaudete hain gaizki” erantzun diet. Oihane eta Marian ere laster batean ziren bertan. Saioari telefonotik norbait hasi zaio hoska berehala eta besteok aritu gara solasaldian. Niri txandalarekin ikusi nauela eta ea zer moduz galdetu dit Marianek, nik beldur dezentearekin erantzun diot, adibidez, eta Oihaneri ea El Salvadorren nola ibili ziren galdetu diogu. Hangoen berri eman digu eta hasi zirela hurrengo irteera noiz egin dezaketen hizketan ere, guztira Euskal Herritik hogeit hamar inguru joan zirela esan baitigu. Dagoeneko korroan jarrita gaude denok, baita Saioa ere, elkarrizketaz eta tarteka mingaina dantzatzeko aprobetxatuz, ohi bezala. Euskal Fondoko diruekin egindakoak ikusten aritu omen ziren han, laguntzen ere bai hauteskundeetako begirale bezala eta gustura ibili zirela eta leku asko ikusi zituztela. Hala hizketan ari ginela Eli ere

iritsi da eta bera iristearekin batera ekin diogu eskaileretan behera kantxara jaisteari. Pili kotxea aparkatzeko lanetan utzi dugu, beraz, laster izango da gurekin bera ere. Orduan Itsasok “gero ere izango dugu hitz egiteko tartea” esan du eta Oihanek “ni batez ere horregatik etorri naiz”. Entrenatzaileak “mezua bidali nien gutxienez bokadiloa jatera azaltzeko esanez” esan du, aurreko astean esan bezala egin zuela azalduz.

Pilotalekua

Behera jaitsi eta trasteak utzi ostean, 19.44 dira dagoeneko, zuzenean beroketari ekiteko unea heldu zaigu hortaz. Ganora izugarririk gabe, baina, ekin diogu korrika saiotxoari.

Beroketa

Ohi bezala, pilotalekuaren alde batetik bestera aritu gara korrikaldian, bi lerrotan jarrita besteak eta ni neure erritmoan, inguruan, oinari nahi ezta ere behar baino gehiago erreparatuz. Aurretik Itsaso eta Marian doaz eta besteok atzeraxeago. Gurutze ez da oraindik iritsi, baina, gainaldean agertu da eta “gaur ere ez dut uste korrika aritzetik libratuko denik” esan dut nik irribarrez. Guregana iritsi denean aurrekoekin batu da eta “bi buelta gehiago eman behar dituzu” bota dio bakarren batek aldamenetik adarra jo asmoz. Berak egindako bigarren itzulian “a zer abiaduratan zoazten” esan die aldamenekoei. Erreboteko eta frontiseko paretak ukituz itzuli batzuk osatu ditugu eta gure aurrekoek geratzea erabaki dutenean geratu gara geu ere.

Borobilean jarri eta mugimendu artikularrak egin ditugu. Entrenatzaileak egindakoa kopiatuz aritu gara gehienok, lehenengo orkatilak, belaunak, gerria, besoak, ... Bitartean Itsasori “ospatuko zenuen honezkerok, ezta?” bota dio bakarren batek eta tesiaren aurkezpena egin zuen egunean bertan oso nekatuta zegoela esan duenez urteen joanean ostiraletako planen aldaketaz jardun dira batzuk. “Ni ostiraletan lehen irteten nintzen, baina, orain askotan ez gara irteten” edo “gu askotan joaten ginen zinera, baina, hainbesteko nekea neukan pilatuta lo hartzen nuela”. Hortik zinemako pelikulen gainean hitz egitera igaro gara, prezioaren gainean eta garai bateko boomaren inguruan. Amaitzeko, jadanik paleta eta pilota bila goazela, Bertsolari filma ikusi gabea naizela esan dut nik eta horren gainean beste bizpahiru iritzi entzun dira.

Paletak hartu ditugu entrenatzailearen motxilatik gutako batzuk eta eurenak beste erdiek. Saioak “berri txar bat eman behar dizuet” esan digu eta kontatu bezperan gertatu zitzaiena. “Atzo Ibarren ume batek pilota bat lapurtu zigun, poltsa ondoan zegoena. Saio amaieran ohartu nintzen” eta Gurutzek “kostako zaizu hemen hori pasatzea, justukoak ateratzen dituzu eta” irribarrez. Bitartean binaka nola jarriko garen esan digu beroketako azken atalerako, ezker hormaren aurka piloteatzeko. Frontisetik gertuen Itsaso eta biok hasi gara, gure ezkerretara Eli, Marian eta Oihane eta errebotetik gertuen Gurutze eta Pili. Entrenatzailea, berriz, zinta hartu eta aurreko gunean marra bat jartzen hasi da.


Itsasok nirekin egokitu zaiola ikustean “zu gogotsu egongo zara” esan dit eta nik “ez, bereziki” erantzun diot. Hizketan aritu gara piloteatzen aritzeaz gain, bost bat minutu egingo genituen modu horretan ziurrenik, eta halatsu beste emakumeek ere, entrenatzailearen deia jaso eta kantxaren erdigunera hurbildu arte. Momentuz zazpi kide gaude.

Zortziak jotzear dira eta korroan jartzean Saioak partiden orria seinalatuz “Irurarako partidak egiten hasiko gara” esan die emakumeei. Niri, berriz, “Uxue, zu birekin ibiliko zara, ezta?” eta “bale, atzo ere ibili nintzen” erantzun diot. Beraz, partidak jokatzen nola hasiko diren jakinarazi die emakumeei eta horren arabera banatu gaitu gainerakoak guneetan. Errotazioetan aurrekoak errebotera, erdikoak aurrera eta atzekoak erdira igaroko dira.

Ariketak

Saioa 3 guntan banatuta burutuko dugu entrenatzaileak esanikoaren arabera. Aurrean Eli eta Itsaso, erdian Gurutze eta Pili eta atzeko eremuan Marian, Oihane eta hirurok kokatu gara, agindu bezala. Ondoren pilota bana hartu dugu eta geure eremuetara abiatu. Saioak “zuek Uxuerekin berotuko duzue” bota die nirekin datozen biei eta atzera abiatzean Gurutzek ea oina zer moduz ote dudana galdetu dit. Esan diot minberatuta sumatzen dudala eta beldurra airean nabilela, sentipen arraroak lagun.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 1:1 pilotetara.

3. Atezko gunean 1:2 pilotetara.

Aurreko guneko buruz buruko partidak aste honetatik aurrera ia astero jokatuko dituzte emakumeek, Emakumea Pilotari eguneko herrien arteko txapelketa herrikoirako ordezkariak erabakitzearen aitzakian (B.K. Nik ere jokatzea espero nuen, baina, ohartu naiz nire izenik ez dela ageri entrenatzailearen egutegian. Esan beharko ote nioke ezer?).

Lehen partida hastea kosta egin zaie Eli eta Itsasori. Denbora dezentean aritu da entrenatzailea azalpenak ematen eta 20.01 igarok dira hasterako. Erdiko gunean Pili eta Gurutze hasi dira eta atzekoan beste hirurok. Atzean, gainera, partidarik ez dugu jokatu, txandaka pilotatzen aritu gara. Hasi eta berehala “beroketa gogorra izango al da?” galdetu dit Marianek eta nik ezetz erantzun diot. Frontiseko partidak ez zirudien oso luzea hasi aurretik, baina, tartean egin dituzten hitz elkartruke eta gainerakoekin guztira ia hamar minutuko iraupena izatera heldu da, 20.09 baitira nire erlojuan Saioak emakumeengana jo eta lekuz aldatzeko txandatzeak nola egin esan duenean.

Bigarren errotazioan buruz buru Gurutze eta Pili nor baino nor hasi dira aurrean. Tarteka oihu batzuk iritsi zaizkigu gure belarrietara, huts egitean edo pilota kantxan mugaturiko zabaleratik eskuinerago bideratzean. Erdian Marian eta Oihane ari dira eta atzeko txokotan berriro ere neronek eta aurreko guntetik etorri diren Itsaso eta Eli aritu gara (B.K. Gaurko saioak hartu duen tankeraren arabera atzeko eremuan pasako dut saio zatirik handiena, ziur aski). Atzean zer egin erabakitzeko “gu pilotatzen aritu gara, baina, Saioak bi baten aurkako partida egitea proposatu du lehen” esan diet. Hori entzutean ia aho batez pilotatzen aritzea hobetsi dugu. Aurrean nola moldatu diren

galdetzean “azkenean 8ra egin dugu, zeren eta orain arteko partidak 6ra izan dira eta 10era luzeegia iruditzen zitzaigun” bota dit Itsasok. Nik esan diot “normalean banakako partidak nekagarriagoak izaten dira”, baina, erantzun dit ez direla gehiegi nekatu aurrean. “Zer, aspertu egin al zarete?” galdetu diot nik orduan eta ez dit irribarre batez baino erantzun. Elik esan du “ni egia esan gaur nekatuta nago eta batez ere bokata jateagatik etorri naiz”. Hala genbiltzala, hitzak eta paletakadak tartekatuz, frontoitik kanpora begiratu eta Onintza datorrela ikusi dut. 20.11 dira. Kideei jakinarazi diet eta bera eskaileretan behera jaitsi da. Kantxara heldu orduko inork ezer esan gabe beroketa egiten hasi da, kontrakantxan batetik bestera korrika txikian, eta lehenengoz guregana hurreratzean “honbre, Uxue, ongi etorri!” esan dit. Nik “eskerrik asko” batekin erantzun diot, irribarrez. Ondoren korrikan jarraitu du eta laster batean bildu da guregana, laukotea osatuz atzeko eremuan. “Zer egin behar da hemen?” galdetu digu eta guk “pilotatzen ari gara” erantzun diogu. Berak arazorik ez du jarri eta laurok elkarrengandik gertu xamar jarrita jardun dugu. Izan ditugu zalantzazko kolpe batzuk, zeinek jo garbi egon ez denez inork jo gabeak. Nik “halakoetan hobe da ez jotzea bakarren bati min egitea baino” esan diet irribarrez eta ados agertu direla iruditu zait.

Bigarren txanda amaituta, hirugarrenaren ordua heldu denean, entrenatzailea atzera hurreratu da ondoren zeinek non jokatu duen argitzeko eta nik “orain 8 gaude” esan diot. Berak “zer diozu, zuk jokatzeko? Ez daukagu denborarik” esan dit eta nik lehengo gune berean, erreboteko atzeko gunean, jarraituko dudala ohartu naiz. Saioak kideen arteko ondorengo partidak nola antolatu erabakia du jadanik eta hirugarren txandatzerako postuak erabakita daude: aurrean Marian eta Oihane, erdian Onintza eta Gurutze eta atzean beste laurok (Eli, Itsaso, Pili eta ni neu).

Marian eta Oihanek entrenatzaileak emaniko azalpenak entzun ostean ekin diote norgehiagokari. Erdian, berriz, Gurutze eta Onintza hizketan ari dira, pilota eta paletak eskuetan dituztela. Atzean, berriz, hizketan eta pilotan ari gara gu. Pili eta Eli nekeaz eta paletako ikastaroetako saioen balioaz aritu dira, besteak beste. “Terapia bezala balio dit niri” bota du bata eta “gaur bezala egun gurutzatuak izandakoan on egiten dit niri” besteak. Nik esan diet azkenaldian ez ibili arren desahogatzeko premiarik ez dudala, niretzat ihesbidea dela kirola, batez ere korrika eta bizikleta, eta Itsasok esan du balitekeela ikastaroko tarte eta paletakadak izatea beretzat deskargatzeko sistema, ez duelako pentsatzen paletan ari denean. “Nik umetan boxeoko zaku bat eskatzen nuen, baina ez zidaten sekula ekarri” bota du. Ondoren “aerobikera ere joaten naiz eta han burua martxan izaten da” esan du eta Elik “ni ere hasi nintzen orain urte batzuk baino buruari bueltaka aritzen nintzen eta uztea erabaki nuen. Hemen ez dizkiet gauzei bueltak ematen” (B.K. Ihesbide edo lasaitzeko terapia garrantzitsua da emakumeen hitzetan saioa, beraz. Susmoa baieztatzeko beste datu interesgarri eta baliagarri bat. Ederki!). Ondoren laurok ilaran jarri gara zabaleran eta nik horma biko pare bat bota dizkiot Itsasori, irribarrez. Berak orduan “zer aritu behar gara jotzen ala gaiztakeriatan?” galdetu dit eta nik “nirea berezkoa da, jaiotzetikoa” esanez erantzun. Berak “orain arte lasai aritu gara” esan du eta hala segi dugu ondoren ere. Bitartean aurreko partidari erreparatu diot eta Marianek sarturiko horma biko bat ikusi ostean “estu-estu, 7na” esaten entzun dut entrenatzailea kontrakantxatik. Hori entzutean besteei esan eta azken tantoari begira geratu gara erreboteko gunetik. Azkenean Oihanek lortu du jokaldia eginez eta tantoa ona izan dela iritzita eurak atzera bidean jarri direnean txalo jo diot, irribarrez. Erdian, berriz, ez dut uste tarte guztian dozena bat pilotakada jotzera iritsiko zirenik Gurutze eta Onintza.

Saioak aurrera egin ahala niki besamotzetan erdiak behintzat ikusi ditut, batere hotz itxurarik gabe. Kontraste polita tipula baino kapa gehiagorekin nabilen neronen eta saioko ariketetan berotua hartu duten emakumeenaren artekoa.

Laugarren txandan aurrean Onintza eta Gurutze, erdian Eli eta Pili eta atzean Itsaso, Marian, Oihane eta ni egokitu gara. Marian eta Oihane aurreko gunetik ura edan eta atsedean apur bat hartzera hurbildu dira kontrakantxara lehendabizi eta Oihaneren seme-alabak eta beste haur batzuk harmailetan eserita daudela ohartu naiz. Amak hurrei zerbait esan die eta nik Itsasori “zer, bisitariak?” galdetu diot. Berak “hala ematen du” erantzun dit. Marian nahiko azkar hurbildu da gugana eta “zer, nekatu al zarete?” galderari “pixka bat bai” erantzun dio. Oihane, berriz, aurpegi gorrituta arnasari buelta eman nahian dago atzerago. Lehen bezala pilotateazeari ekin diogu guk eta Elik erdiranzko bidea hartzean “nik zurekin nahi nuen Itsaso” esan dio irribarretsu, ordura arte saio osoa igaro dutelako elkarrekin batera. Besteak irribarre egin du eta baita gainerakook ere. Erdian eta atzean pilotakadaka aritu gara denbora osoan, gu, gainera, erditik aurrera laurok aritu gara, Oihane ere etorri delako atsedean apur bat hartu ostean. Aurrean, berriz, partidak izan ditu azalpen eta hitz egiteko tarte batzuk nire begiradak okertu ez badira. Une batean entrenatzailea ikusi dut kantxaren erdi inguruan kokatu eta Onintza eta Gurutze adi-adi entzuten zituela. Halako batean amaitu da aurrekoa eta, beraz, gure erremuetakoak ere bai.

Laugarrena amaitu denean entrenatzailearengana hurreratu gara pixka bat eta berak ondoren eremu banaketa nola egin erabaki du. Aurreko guneko partidaren Eli eta Pili hasi dira. Ni eta Itsaso erdiko gunera bidali gaitu elkarrekin pilotateazera, eta atzean Gurutze, Oihane, Onintza eta Marian kokatu dira. Onintza falta da momentu batean eta bakarren batek esan du ur bila joan dela, beraz, hura agertzean atzean eurekin hasiko dela jakinarazi diote erreboteko guneko hirukoteari. Ni erdiko eremuan lehenengo aldiz ari naiz saio osoan zehar eta egoera berean dago Itsaso ere. Bertara iristean “hemen ezin da bi paretarik bota” esan diot Itsasori eta honek “lehen aukera bageneukan, baina, ez dugu bota” erantzun dit. Nik saltsa jartzen segi nahi izan dut “zu mugitzeko zen” botaz eta “bestela ere mugitzen nauzu nahi izanez gero” jaso dut trukean. Ondoren banakako txapelketarik iaz egin ote zuten galdetu diot eta “hasi ginen, baina, beti bakarren batek huts egiten zuen eta azkenean Saioak erabaki zuen zein lauren artean jokatu azken fasea” esan dit. Nik galdetu diot ea gustura aritzen diren Iruran eta “nik ez dakit partida horietan bakarren batek gustura jarduten duen” erantzun dit “guri Ibarraokekin jokatzeari tokatzean hor nonbait, mailaz paretsu gabiltzalako, baina, ez dut uste inori gustatzen zaionik 10-1 joatea”. “Ez, inori ere ez, baina ez irabazleari eta ezta galtzaileari ere” berretsi dut nik berak esan berri duena. Atzeko eremuan agertu da Onintza eta hasi dira laurak pilotatzen. Aurrean, berriz, buruz buru serio demonio ari dira beste bi taldekideak. Aurrekoek euren partida amaitu dutenean Saioak denoi dei egin digu bere ingurura. 20.48 dira.

Denok elkartu aurretik “Elik 8-6 irabazi dio Piliri” esan digu Itsaso eta bioi eta “asko hobetu du” esan dut nik. “Hobetu bakarrik ez, nola jokatu duen orain! Lehen, Itsasorekin, ez du pitorik ere jokatu” erantzun dit entrenatzaileak aldamenetik. Zortzikotea Saioaren inguruan jarri gara eta esan du binakako partidak egingo ditugula hemendik aurrera. Hori esan eta bikoteak osatzeari ekin dio: Itsaso eta Pili, Gurutze eta Marian, Oihane eta Onintza eta Eli eta ni. Ondoren nor non hasiko garen erabaki ezinik eman du tartetxo bat, azkenean “Itsaso hemen daukat abandonatuta, beno, Uxue ere bai” esan eta aurrera bidali ditu Itsaso-Pili eta Gurutze-Marian. Beste laurok erreboteko

gunera joan gara eta guri “zuek kontatu markagailua, hemengo garaileak ondoren aurrean irabazten duenaren aurka jokatuko baitu” erantsi du.

4. 2:2ren aurkako partidak, frontisean eta errebotean.

Aurrean hasi dira lau kideak eta atzean Onintza eta biok ezker aldean eta Eli eta Oihane eskuinaldean aurreraxeago kokatu ostean ekin diogu jokatzeari. Hasi eta 1-1ekoaren ondoren aurkariaren hutsak medio, batzuk guk behartuak eta besteak euren kabuz eginak, zulo handi samarra ireki dugu markagailuan, tanto denak guk lortu ditugulako jarraian. Nekatuta sumatzen dira emakumeak, batez ere Oihane, eta orduaz ere galdetu dit une batean. Nik “20.55” erantzun eta “beno, bost minutu” irten zaio berari. Aurreko eremuko partidari, berriz, hasi aurretik kantxan jarririk zinta puska kentzen ikusi dut Gurutze, nahasteak ekiditeko, ziurrenik. Ondoren entzun dira intziri bat edo beste. Pilirenak dira gehienak. “Zizurkilgo Sharapova” deitu izan dio entrenatzaileak behin baino gehiagotan, adarra joz.

Azken txandatzean, nire erlojuan jadanik 20.57 dira, Eli eta biok joan gara frontiseko gunera (B.K. Nik ordu eta laurdenen ostean lehengoz bisitatu dut eremu hau!) eta bertan Gurutze eta Marianekin egin dugu topo. Entrenatzaileak “4ra” esan digu eta nire bikotekideak “bikote VIPa jarri didazu” esan dio bueltan. Nik, berriz, irribarre egin eta mingainari horzka egitea erabaki dut (B.K. “Ni VIPa? Aspaldian ez dut pilotarik usaindu ere egin” esan nezakeen, baina, egia da joko-mailan eurekiko aldea dagoela eta isiltzeko erabakia zuzena izan dela iruditzen zait). Entrenatzailea eta gainerako lau kideak kontrakantxan korroan jarri eta hizketan ari dira, jadanik paleta eta pilotak utzita. Gure aurreko partida hasi dugunean Marianek pilota eskaini dit sakea egin nezan, baina, “atera zuk lasai” erantzun diot nik. Berak, berriz, “zer da, kortesiazko sakea?” galdetu dit. Nik ezetz erantzun diot eta hala ekin diogu jokatzeari. Alde dezentea lortu dute nahikoa azkar aurkariak, 3-0ekoa, pilota asko baztertu dute ezkerreko horman pare batetan eta beste tantoa ere eurek lortu dute. Hori ikusita nik apur bat gehiago parte hartu dut jokoan eta bizitasun apur bat jarriz korrika eginarazi eta mugitzea lortu dut. Tanto horretan horma biko pare bat eta txokoan dejadaren bat bota ditut eta hasieran pilota itzultzea lortu dute, baina, amaieran 3-1ekoa lortu dugu eta “a zer abiadura eman diozun!” bota dit Gurutzek albotik. Hurrengo tantoa ere pilotatua izan da eta gure aldekoa. 2-3 jarri eta sakea egin bezain laster pilotalekuko argiak itzali dira (gaur 8etan piztuak, eguna ordubete luzatu delako arratsalde ordu aldaketarengatik). Gu ere kideengana hurbildu gara eta luzaketak egiteari ekin.

Luzaketa pare bat egin ditut nik eta ondoren etxerako bidean jarri partez afari pasara egitera joango garela oroituta besteengandik apur bat urrundu, poltsatik koaderno atera eta oharrak nagusienak edo ondoren saioko informazioa ahalik egokien idazteko pistak idazteari ekin diot nik. Besteek, aldiz, mendi martxetako joeraz eta aurreko asteburuko Aizkardikoaren gainean dihardute hizketan. Pilik esan du ez zitzaioela batere gustatu aurkitu zuen giroa, lasterketa tankera hartu ziola eta ildo horretan aritu dira hizketan. Ni, berriz, zenbait unetako kokapenez oroitu nahi eta ezinean. Hori ikusita lehenengo entrenatzaileari galdetu diot eta honek erantzuterik ez zeukanez Itsasori berari, “zuk norekin jokatu duzu binaka?” eta “Pilirekin” erantzuna jaso dut. Halako batean emakumeek trasteak jaso eta goranzko bideari ekin diote eta nik bertan idazten jarraituz “berehala agertuko naiz” erantzun diet. “Asko ari zara idazten” bota dit bakarren batek eta nik ezer erantzun gabe neurean jarraitu dut. Besteren batek “hemen ilunpetan zaude eta zoaz argitara” esan dit, baina, ez naiz mugitu ere egin.

Frontoi ataria

21.13 dira eta gaur ez naiz beste inorekin irten. Beste emakume denak, Onintza izan ezik, tabernara joan dira, aurreko astean esan bezala elkarrekin zerbait jan eta kontu kontari egotera. Entrenatzaileak itxaron dit bere kotxearen parean eta nire trasteak utzi ostean elkarrekin egin dugu tabernarako bidea.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa monotono samarra izan da nire kasuan, ia denbora guztian gauza bera egiten eta leku berean aritu naizelako. Hala ere, kideak batetik bestera gehiago mugitu dira eta aurreko partidetan saiatu dira elkarri ahalik eta tantorik gehien egin eta lana ematen. Susmoa dut ez ote dudan hurrengo beste zenbait saiotan ere gaurko espazio eremu bera izango nire gotorleku. Bertatik, gainera, zenbait hizketaldi eta joko egoera jarraitzea ia ezinezkoa zait, adibidez, partidetak gorabeherak, baina, nola edo hala moldatu naiz eta hala izan beharko du.

Banakako txapelketaren gainean emakumeei ez diet zuzenki galdetu zer iritzi duten, baina, ez dakit benetan erakartzen ote dituen emakumeen ikasturte amaierako festan euren taldearen ordezkari lez parte hartzeak. Iruditzen zait zentzu horretan Hernanikoak nabarmen direla lehiakorrak, bezperako saioko partidak ikusi besterik ez dago. Agian joko-maila ere egon daiteke honekin harremanetan. Beraz, hemendik aurrera buruz buruko partidak astez aste errepikatuko direnez, ea egiten dudan bidea euren iritziak jaso eta nire usteak ustelak diren ala ez baieztatzeko.

Gaur egin dut lehen saioa Zizurkilen zortzi asteko geldialdiaren ostean, bezperakoa izan zen guztien artean lehendabizikoa, eta aurreko egunean baino kezka askoz ere gehiago ez ditut. Hala ere, korrika abiatzean eta alboetara mugitu eta noranzko aldaketak egitean beldurrez joaten naizela nabarmena da, konfiantza eta segurtasun eza begi bistakoak dira eta ni neu konturatu naiz, nahi gabe bada ere, zenbait unetan hanka bakarraren gainean amaitu dudala kolpea. Ea saioz saioko irudipenak txarrera behintzat ez duen egiten!

Paleta ikastaroetako parte hartzaileen arteko giroa azpimarratu izan dut beste zenbait kasutan ere eta konplizitatea nabaria da talde honetan, bai saioan zeharreko bat-bateko hizketaldi eta ekintzetan eta baita saioaren aurretik eta ondorengo solasaldi eta ekintzetan ere. Bestela, nola uler liteke zortzi lagun elkartu izana, bederatzigarrenak etxera joan beharra zuen, ondoren elkarrekin mahai baten bueltan? Ederra izan da ekimena, bai horixe!

Aste Santuko oporrak heldu aurretik azken saio bat geratzen zaigu Zizurkilen, datorren asteartean, eta nabari da opor usainean dabilzala bat baino gehiago. Ni ez, baina, beno, niri ere iritsiko zait txanda aurten ez bada beste urteren batean. Aurten ez daukat inorako asmorik eta atzeraturiko lan batzuk, saioetako ariketen analisisa, adibidez, egiteko probestuko ditut “opor santuak”. Bestela, eguneroko joan-etorriekin zaila zait zenbait gauza egitea eta 10 egun izango ditut saiorik eta desplazamendurik gabe, beraz, ea asmoak egia bihurtu eta benetan zukua ateratzen diedan egun horiei.

Gaur ohi baino bi ordu beranduago heldu naiz etxera, gauerdiko kanpaiak jotzear, eta grabagailuarekin hitz egin gabe, irriaren konpainian. Nekatuta nago eta hurrengo goizean oharrekin nola moldatuko naizen ikusiko dugu, baina, atsegina izan da egonaldia luzatzeko arrazoa. Beraz, asteazkenean asteko azken saioari eta azken joan-etorriari nolabait eutsiko diet. Hala bedi!

Udaberria hasi berritan pilotariak loratzen

Asteko hirugarren laneguna etxe inguruan eman dut, aulkian eseri eta pantailari itsatsita ordu dezentetan, begiak eta burua nekatuz. Egia esan, neke pilaketa beldurgarria daukat, ahituta nabil, eta nekatzen hasteko lan handirik ez dut behar bateriaren argia gorri-gorri jartzeko. Hala ere, iluntzekoa aste honetako azken paleta saioa dudala pentsatu eta horri eutsi nahian ibili naiz beste behin ere, enegarrenez. Horrez gain, datorren astearen ostean laneko joan-etorrietan hamar eguneko etena izango dudala ere ez daukat ahazteko. Eskerrak!

Zortzi asteren ostean kirol arroparekin egingo dudan hirugarren eguna da, gainera. “Igandetako arropa” armairuan geratu da berriro ere. Ez nago oso ohituta oraindik, arraro sentitzen naiz zenbait unetan, eta gorputzean sumatzen ditut hainbeste denbora geldi eman ostean berriro ere mugitzen hasi izanak dakartzan abaildura eta gihar minak. Hala ere, albotik begiratzea baino entretenigarriagoa izan da gaur artekoa eta hala moduzkoa izango al da hemendik aurrerakoa ere!

Sarrera

Etxetik hiru ordu lehenago abiatu naiz autoan, okerrik ezean ordurako pilotalekuan izateko asmotan. Halaxe izan da, berrogei minutuan kotxea aparkatu eta paleta eskuan eta poltsa zintzilik hartuta abiatu naiz saiora. Bidean egin ditudan 500 metroetan besteetan ez bezalako giroa, iskanbila eta jendetza topatu dut. Badirudi udaberriak, eguzkiaren goxotasunak, eguna luzatzeak eta asko eta asko opor usainean ibiltzeak bizia eman diola herriari. “Bada umea Usurbilen!” pentsatu dut inguruko parke, plaza eta pilotalekua bera hurrez gainezka ikustean.

Pilotalekua

19.30erako heldu naiz, presa handirik gabe, eta zuzenean pilotalekuko harmailetan eseri naiz inguruan begiratu eta saio-kiderik oraindik ez dela iritsi konprobatu ostean. Pilota eskolako hurrek dihardute aurreko gunean eta ezker hormaren aurka atzerago beste bi multzo ere badabiltza, batzuk eskupilotan eta beste zenbait futboleko baloiari ostikoka. Hainbeste haur egoteko ostiralean hartuko dituzten bi asteko oporrei biharamunerako deituriko Greba Orokorren harira eskolara ez joatea ere gehitu behar zaiola uste dut.

Burutazioetan murgilduta eta alboetako mugimenduei begira nabilela heldu da bigarren taldekidea: Jaione. Elkarri arratsalde onak eman eta elkarren aldamenen eserita hizketaldiari ekin diogu. Aurrekoan Berria egunkarian Urretxuko agendan bertsoen inguruko zerbait irakurri omen zuen eta ni inguruan izango nintzela pentsatu zuela esan dit. Nik baietz erantzun diot, bertso hilabeteen murgilduta eman dugula martxoan, batez ere asteburuak eta momentuz amaitu dugula, musikal bat egin asmotan ginen arren udazkenean arte atzeratzea erabaki dugulako. Neuk esan diot orduan “bada Usurbilen umea!” eta “bai, neska! Gainera, biharko greba eta etzi eguerdian hartuko dituzten

oporak nabaritzen zaizkie” erantzun dit. Hala ari garela berehalaxe igaro gara hirukotea osatzera, Karmele ere iritsi baita bizkarrean motxilatxo hartuta. Hau ere eseri egin da eta Jaionek txandalarekin ikusi nauenez “zer, zer moduz hanka?” esan eta “aste honetan hasi naiz, baina, nik uste aspaldiko urteetan ez naizela hain gaizki egon fisikoki” erantzun diot, nekatuta eta gorputzari bueltarik eman ezinda nabilela ere adieraziz. Jaionek berak esan du fisikoki orain baino hobeto egon izan dela bera pisu gehiago izan arren eta Karmelek esan du “ni azkeneko 2-3 urtean nahiko txintxo nabil, spinning-ean eta orain palan”. Jaionek esan du bera aerobikean ibili zela bolada batean, baina, irakasle aldaketa izan zutela eta motibazioa falta zitzaiela eta orain jarraitasuna falta zaiola “batzuetan astean bitan joaten naiz zerbait egitera eta hurrengoan agian behin ere ez” (B.K. Nik neurekiko pentsatu dut batez bestekotik gorago egongo dela une honetako nire sasoi maila, ziurrenik taldekideenetik dezentere gorago ere bai, baina, parekatzea neure azken boladakoarekin egin dut. Noski, lehen astean sei entrenamendu egiten nituen eta azken zortzi asteetan ez dut korrikarako oinetakorik jantzi ere egin. Hala ere, ildo horretan azalpenak ematen ez jarraitzearen aldeko hautua egin dut, hobea dela iritzita). Laugarrena iristen entrenatzailea bera izan da, motxila bizkarrean eta irribarre zabala ahoan. Halaxe esan dio Jaionek “zer, Haizea, irribarretsu zabiltza” eta honek “bai, egia esan astelehenean konturatu nintzen herri honek bizitza daukala, umeak, jendea, plaza beteta, ...” erantzun dio. Horren harira gogoratu dute egun batzuetan benetako hotza egin zuela otsailean, korrika egiten hasten zirela ez zegoelako pilotalekuan egoterik, eta nik “bai, hor otsailaren hasieran, ni etorri ez nintzenean, egin zituen egun oso hotzak”. Orain, berriz, udaberri giroan gabiltzala nabaria da. Jaionek esan du “ikastolan Aitziber eta Idoiarekin egon naiz eta azken ordukorik ezan etortzekotan zirela esan didate” eta nik galdetu diot “zer da azken orduko hori, umeren bat, beste zerbait?” eta “bai, umeren bat, edo aldamenekoa ez dela oraindik iritsi edo horrelako zerbait” (B.K. Betebehar soziala, ama rola eta abarrak hasi zaizkit buru barrutik kolpeka). Izaskun agertu da halako batean, Arritxurekin batera ia-ia. Ordua aurrera doala iritzita eta dagoeneko boskotea bagaudela ikusita entrenatzaileak “zer, jaikitzen ere hasi beharko gara, ala?” bota digu eserita gauden hiruroi eta nik “jaikitzen hastetik jaikitzen bukatzera tarte handia egoten da batzuetan” erantzun diot irribarrez, aulkitik altxatzen ari naizela.

Jaiki eta Haizearen aginduei segituz berotzeari ekin diogu, hitz egiteari utzi gabe. Haizeak “nik nola bidali behar ditut hauek guztiak?” galdetu du alboetara begiratu eta pilotalekua hurrez gainezka dagoela ikustean eta “beno, hastean bidaliko ditugu” eta “hori kudeatzea zure lana da” erako erantzunak jaso ditu.

Beroketa

19.45 igaroak dira eta artikulazioak biratzeari ekin diogu borobilean jarri ondoren, entrenatzaileak eginikoa imitatuz hein handi batean: orkatilak, besoak, eskumuturrak, etab. Ondoren luzaketa pare bat egin eta kantxan zeharreko korrikalditxoari ekin diogu, Haizeak “gaur ez dugu hainbeste korrika egingo, dezenteko beroa egiten du eta”. Karmele eta Arritxuk aditzera eman dute jende asko dagoela, gehiegi aukeran inguruan, eta lotsa zantzu bat badute. Nik ingurura ez begiratzeko esan diet eta seiok hasi gara korrikan, binaka elkarren aldamenean jarrita, Jaione eta biok aurrean, atzetik Karmele eta Arritxu eta Haizea eta Izaskun taldea itxiz. Izaskunek frontoira iristean esan du “nik Zubietako buelta eman dut gaur eta atzo ere bai”. Haur pila bat dabiltza han eta hemen eta frontiseko gunetik pasa garen lehendabiziko aldian “saioa daukagu eta bost minutu barru hemendik alde egin beharko duzue” jakinarazi die hurrei Haizeak eta ume moko

batek “ah, se siente” erantzun digu. Hori ikusita ea ezagutzen dituzten galdetu diot Jaioneri eta “bai, bistaz gehienak” erantzun dit berak. Gu korrikari euren parean pasatzean pilotan aritzeari utzi egiten diote hurrek eta ondoren jarraitzen dute jolasean. Hala gabiltzala Ester pasa da harmailen atzealdetik eta “1, 2, 1, 2” esanez animatu eta kasu egin digu. Haizeak esan digu astelehenean goizeko saiora azaltzea ahaztu egin zitzaioala esan ziola. Tratu hori egin zuten aurreko asteko saioan zehar, goizetan hasiko dela, ordutegia egokiagoa delako beretzat. Gaur kaleko arroparekin eta hurrekin dabil eta ez zait iruditu saiorako asmorik duenik. Halako batean seigarren emakumea agertu da, Aitziber. 19.49 dira nire erlojuan, eta Haizeak “zer ordu da hau?” bota dio. Jaionek, aldiz, “berandu datorrenak doble buelta eman behar ditu” esan dio, brometan. Ordurako hiruzpalau ume gure atzetik lasterka hasita daude, irri txikia ezpainetan. Gustura dabilta. Justu Aitziber gugana hurbildu denean utzi diogu korrika egiteari, bospasei itzuli osatu ostean, eta berak, berriz, “zer da hau, hainbeste jende? Udaberria? Ezin dut sinetsi” gehitu du, irribarrez.

Harmailen atzealdera hurbildu gara, han daukagu jarrita gure oinarrizko kanpalekua, eta norbere paleta hartu ostean Haizeak pilota bana banatzeari ekin dio. “Ez dakit denontzako pilotak izango ditudan” esan du eta Arritxuk “nik etxean badaukat eta bila joango naiz nahi baduzu” erantzun dio eta “ez, ez, lasai, badauzkat” erantzun dio Haizeak. Denoi pilota bana eman ostean ezker hormaren aurka pilotatzen hasteko esan digu eta neu izan naiz haur artera hurbiltzen lehena, hastera goazela esan eta uxatu ostean paleta eta pilota astintzeari ekinez.

Idoia igaro da pare bat aldiz plazaren alde batetik bestera, kaleko arroparekin eta eskuan poltsa pare bat dituela, enkarguak egitetik presaka, “oraintxe noa” esanez. Haizeak esan du “astelehenean ere horrela pasa zen, erdi korrika eta ia ez nuen ezagutu ere egin, berak esan zidan ez al didazu kasurik egin behar?” eta “bihar ditu 45 urte” salatu digu Karmelek.

Ezker hormaren aurkako banakako jardunari ekin diogu eta pilotalekua betetzen dugu frontisetik azken muturreraino. Ni jarri naiz eskuineko muturrean, frontisari itsatsita, nire ezkerretara Arritxu, ezkerreago Karmele, Izaskun, Jaione eta Aitziber azkena. Haizea batetik bestera dabil, gu behatu eta zenbait zuzenketa eta gomendio emanez, besteak beste Arritxu eta Karmeleri. Niregana ere hurbildu da, lasai-lasai ari naiz, eta “Uxue hau bai, e, horrela bai” esan dit gaur saioa egiten ari naizelako eta nik “bai, hau beste gauza bat da” erantzun diot. Piloteo honetan tarteka arrastaka etorritako pilota batzuk jaso ditut, Karmelerenak dezente, eta ohartu naiz halako batean postuz aldatuta daudela nire ezkerrean pare bat emakume, Arritxuren ordez Karmele baitaukat alboan. Haizeak adierazi digu saiatzeko koadro bat erreferentzia lez hartu eta gehiegi mugitu gabe bertan jarduten. Batzuk lortu dugu, beste batzuei gehiago kostatu zaie, ohi bezala. Ezker hormaren aurka pilotatzen hasi garenean hurrak oraindik ere pilotalekuaren atzealdean dabilta eta bakarren bati “azpitik pasatzera jolastuko al gara?” entzun diot urrunean. Hala ere, ezezko erantzuna eman diote lagunak eta “eskerrak!” pentsatu dut neure baitan, bestela saioa gehitxo nahastuko ziguten ustean bainaiz.


Banaka nahiko denboran aritu garela iruditu zaionean “orain jarri binaka” esan digu Haizeak, aldamenekoarekin elkartuta bikoteak osatuz. Ni eta Karmele, Arritxu eta Izaskun eta Aitziber eta Jaione jarri gara elkarrekin. Pilota Haizeari eman diot nik, bakarrarekin nahikoa baitugu. Halaxe egin dugu beste denbora tartetxo bat, guk

erreferentzia lez lehen eta bigarren koadroak hartuta, nahikoa isilik. Arritxu eta Izaskun ere antzeratsu dabiltzala iruditu zait eta Aitziber eta Jaione direla mingaina gehiago dantzatzen ari direnak (B.K. Ziurrenik elkar ezagutzeak eta elkarrekiko konfiantzak zuzenean eragiten digu jarrera honetan ere). Haizea ondorengo ariketetarako zinta zatiak jartzen hasi da kantxan, gure inguruan eta gertu samar pasa zaizkio pilota batzuk. “Ez dakit hemen oso gustura nabilen, ni ez jo” esan digu eta “Karmele, nik zugan konfiantza daukat” esan dio ondoren. Nik, berriz, propio bota dizkiot gertu samar pilotakada batzuk eta “iruditu zait zure pilota batzuk oso gertu pasa zaizkidala” esanez egin du atzeranzko bidea. Halaxe aritu gara beste pixka batean entrenatzaileak “etorri” esan eta kantxa erdian batu garen arte.

Ariketak

Seikotea gaudela ikusita Haizeak azaldu digu “hirukoteka jarriko zarete ariketak egiteko, bi gunetan banatuta”. Hori esan eta aurreko eremuko ariketan zer egin behar den azaldu digu jarraian. Nor non hasi erabakitzeke garaian korroan jarrita gauden ordenan banatu gaitu: Jaione, Karmele eta hirurok aurrean eta beste hirurak, Aitziber, Arritxu eta Izaskun, atzeko eremuan.

1.1. Frontiseko eremuan. Kantxa hiru gunetan banatuta dago: ezkerrekoa, erdiko eta eskuinekoa. Alboetako eremuetakoek derrigorrez erdikora bota behar dute pilota eta erdian dagoenak ezkerre edo eskuinera. Gune bakoitzean kide bat jarrita hasi gara.



Ariketa hau azaldu duenean Haizeak atzeranzko gunera egin du beste hirurekin batera, eremu hartan egin beharrekoa azaltzera, eta guri esan digu “bizitzekin egin”. Nik, orduan, “zenbat bizitzarekin?” galdetu eta “birekin” erantzun du, “propiarik ez dago, bestela onegia naizela esaten didate” gaineratu du geroago.

Justu une horretan iritsi da gaurko zazpigarren kidea: Idoia. Zuzenean atzekoekin jartzeko esan dio Haizeak eta guk gureari ekin diogu aurreko gunean.


Lehen txandan Karmele jarri da erdian, Jaione eskuinean eta ni ezkerrean. Hasi eta nahiko azkar egin ditu Karmelek bi kale eta bizitzarik gabe geratu da. Suposatzen da Jaione eta biok geratu garela jokatzeko jarraitzeko, erdiko eremurik erabili gabe, baina, kidea Haizearena joan da orain zer egingo duen galdezka eta “beno, segi, bestela aspertu egingo da” erantzun digu. Beraz, “orain lekuz aldatuko dugu” esatearekin batera lekuz aldatu eta ariketan jarduteari segitu diogu. Bigarrean Jaione erdian, Karmele ezkerrean eta ni eskuineko gunean kokatu gara. Kasu honetan une batetik aurrera bizitzak kontatzeari ere utzi egin diogu, txarra izanez gero ere pilotakadari jarraituz, bestela, jarraitasuna izatea ezinezkoa dirudielako. Nik une batean horma bikoa botatzea erabaki dut eta Jaione ezustean harrapatu dut. Botea nire gunean egin du eta “txarra izan da, ala?” galdetu eta “bai, oraindik ez diot neurririk hartu” erantzun diot irribarrez. Berak, berriz, Karmeleri begira “Uxuek beti esnarazten nau” esan du, irriz. Airez ere kolpe bat baino gehiago egin ditut kideen pilotek ez zezaten kontrako gunean boterik egin. Hirugarren txandan falta zaizkigun guneetan kokatu gara: Karmele eskuinean,

Jaione ezkerrean eta ni erdian. Lasai asko aritu gara berriro ere piloteatuz, ni kideei pilota ahalik eta onenak jartzen saiatuz. Jaioneri, adibidez, ez dizkiot asko baztertu ezker hormara, nabaria baita gune horretatik pilotari norabidea ematea askoz ere gehiago kostatzen zaigula denoi. Hirurok hiru guneetan aritu ostean Haizeari “guk bukatu dugu, zer egingo dugu?” galdetu diogu, egia esan ariketa egiten hasi eta oso tarte txikira izan da hori, eta berak “jarraitu, egin berriro, hauek oraintxe hasi dira eta” agindu digu. Beraz, berriro ere hirurok hiru guneetatik igaroz eta bizitzak anekdota huts bihurtuta, pilotaren norabidea lantzen jarraitu dugu, erditik bi ertzetara eta bi ertzetatik erdira. Atzean, berriz, ez dut oso ongi nabaritu zertan ari diren, nahiz eta tarteka euren irriak entzuten ditudan.

Haizea etorri zaigu pare bat aldiz eta lehenengoan etorri denean ez dugu bi kolpe bata bestearen atzetik taxuz egiterik lortu eta nik, adarra jotzeko makina martxan, “Haizea, zorte txarra ematen diguzu” esan diot eta Karmelek “bai, nik uste hori hala dela” berretsi du. Beraz, entrenatzailea atzeko gunera uxatu dugula esan daiteke. Berriro ere etorri denean ea nola gabiltzan galdetu dio eta esan digu “txanda honekin bukatzean lekuz aldatuko zarete”.

Beraz, txandak amaitu ditugunean entrenatzaileari ohartarazi diogu eta gu atzera bidean jarri gara. Aitzeko laurak etorri dira frontiseko gunera eta guri “itxaron ni joan arte” esan digu. Karmelek pilota hartu eta zer egin behar ote den asmatzeari ekin dio eta nik “nahi badugu itxaroteko esan digu” bota eta zain geratu gara, aurreko gunekoei begira. Azalpenak ematen ari zaie entrenatzailea eta badirudi ulertu diotela. Hauek lau izaki bat-bi-bat jarri dira guneetan, erdikoek pilota txandaka joz.

1. 2. Atzean, ezker hormaren aurka. Kantxa bi guneetan banatuta dago. Pilotari bakoitzak bi kolpe egin behar ditu, prestaketakoa bere gunean eta beste eremura bidaltzekoa. Ezkerretik eskuinera bideratu behar da 2.kolpea, eta alderantziz.




Haizeak eman digu azalpena aurreko guneetik etorri denean, bitartean zain egon gara. Adibidea egiten hasi da ariketa hobeto uler dezagun eta ez du lortu ezkerretik eskuinera bideratzea, marraz beste aldean egin baitu botea pilotak. Orduan “beti gauza bera pasatzen zait, adibidea egiten hasi eta ez dut asmatzen, baina, ulertu da ariketa, ezta?” esan digu. Guk baietz erantzun diogu eta guneetan jarri gara. Lehenengo txandan ezkerrean Jaionek eta biok jardun dugu eta eskuinean Karmele aritu da. “Sakean ere bi kolpe egin behar al dira?” galdetu Haizeari eta Jaionek ekin dio pilotakadak elkartrukatzeari. Karmeleri guri baino gehiago kostatu zaio bigarren kolpea gunez aldatzea, zenbait kasutan ez du lortu, baina, guk jo dugu jarraian eta ederki moldatu gara hiruron artean. Bigarren aldaketa bat ere egin dugu, ni eskuineko gunera eta Karmele ezkerrekora igarota. Orduan ni ederki, lasai, aritu naiz eta beste biak ere nahiko ondo. Hirugarrenarekin amaitu dugu, nik eta Jaionek lekuak aldatu baititugu, bera oraindik eskuineko guneetik pasa gabea baita.

Bitartean, aurrean bizitzak guk baino serioago kontatu ote dituzten iruditu zait, “bukatu dugu” esanez behin baino gehiagotan entzun ditugulako. Saltsan dabiltzala ohartu naiz

zehir begiratu erabilia. Hala ere, ez naiz ohartu inor jardun gabe uneren batean geldi egon izanaz, beraz, ez dakit bizitzak bukatzean zer egin duten.

Haizeari nahikoa iruditu zaionean, 20.15 pasatxoan, berriro ere denoi deitu digu eta zazpiok bere inguruan elkartu gara kantxan. Pilota eman diot nik eta hurrengo ariketa azaldu digu.

2. Txokotan banaka, bakoitza 3 bizitzarekin. Kantxa lehengo egoera berean zatituta, hiru eremutan. Ezingo du pilotak jarraian eremu berean boterik eman. Hala eginez gero txarra egin duenak bizitza bat galduko du. Pilota jotzean 7ko marra zapaldu behar da.



“Eliminatorias” jokatzeko hasiko garela esanez hasi da gaur ere Haizea, aurreko astean bezalaxe, eta asko garenez marrarena azpimarratu du. Kontatzen hasi gara Aizpearekin aurrekoan nola ibili ginen une batean, ahaztu egin zitzaizkion marrara joatea eta hala ari garela “cuando se habla de Roma el Papa asoma” esan du Izaskunek irribarrez. Hara non Aizpea bera heldu den pilotalekura. Haizeak “gaur denok elkartuko gara, zortzi lagun!” bota du eta berekin bederatzi garela adieraziz “beno, hemen tantoa egitera, utzi piloteoak albo batera” esan du. Aizpeari zer egin behar den adierazi dio eta honek buruarekin baietz esatean badirudi hasteko pronto gaudela. Haizeak gogorarazi du “bakarren batek txarra egiten badu jokoa geratu egingo da”.

Aurrez, azalpenaren lehen zatian, “gero beste ariketa bat egingo dugu, baina, hori gero esango dizuet, orain atzera korrika noala asmatuko dut. Zein ona naizen inprobisatzen!” esan digu eta guk irribarrez erantzun eta ez dugu hitzik esan.

Hasi eta bi edo hiru pilotakadatik ez ginen pasatzen, ez genuen joko jarraiturik lortzen. Atzera marra zapaltzera joan eta itzultzerako jokoa etenda tokatu zait neroni behin baino gehiagotan. Orduan Idoiak “hemen gauza asko hartu behar da kontuan, marra, besteak nora bota duen, ...” esan du, lan handiak direla aditzera eman nahian itxura batean. Horren ondoren jokatzeko jarraitu dugu eta “gaur asko gaude hau egiteko” ere entzun da nonbaitetik, baina, entrenatzaileak “ez, ez, segi egingo dugu” esan eta jokatzeko jarraitu dugu. Batzuk oinez joan dira marra zapaltzera, Izaskun, adibidez, eta “marra zapaltzera oinez joanez gero ere bizitza bat gutxiago” ohartarazi du entrenatzaileak. Une batean Aizpeak indar dezenterekin eskuinaldera jotako pilota bat gugana hurbiltzen ikusi eta Jaionek oihuka “Uxue, Uxue, hori zuretzat” esan dit eta ni bere larrialdiak eraginda barrez lehertzen hasi naiz, kantxan makurtuta jarriz. Azkenean aurrerago zegoen Karmele saiatu da itzultzen, baina, pilota ukitu bai baina ez du lortu kolpea erantzuterik. Beste hiruzpalau ere barrez hasi dira eta nik “hori zer zen, SOS deia?” galdetu diot Jaioneri aldamenetik. Bakarren batek ez du oso ongi ikusi jokaldia eta erdi penaz “ni ez naiz konturatu zer gertatu den” esan du.


Gutxika bizitzak galtzen goaz, nik, adibidez, kideek bizitza galtzea ekidin asmoz airez jotako bi bat txapapera eta bestea txapara bidali ditut. Tartean, berriz, batzuk nahiko atzean kokatu dira kantxan eta entrenatzaileak “segi aurrera, hemen jartzeak ez du

balio” esan die, adibidez. Hala ere, korrika egin beharrak lehenago edo beranduago denok behartu gaitu joan-etorriak direla eta pilota jotzera aurrera urratsa ematera.

Lehena Arritxu izan da bizitarik gabe geratzen, bigarrena Aizpea, hurrena Jaione, haren atzetik Karmele eta ni bosgarrena. Atzean ezkerreko eskuan paleta hartu eta ezkerrekin kolpeak ematen ari dira emakumeak, entrenatzailearen esana zintzo asko betez. Atzera joan naizenean harmailako bankuan eseri naiz zuzenean eta bakarren batek harrituta “zer, berriro lesionatuta?” galdetu dit eta nik ezetz erantzun diot, bizitarik gabe geratu naizela. Karmelek, aldiz, “orain indarrak berreskuratzen” esan du, hura ere eseriz. Aurrean lau lagun geratu garenean 5,5eko marra zapaltzeko esan du Haizeak eta hala utzi ditut nik Idoia, Aitziber eta Haizea bera ere kolpeak eta korrikaldiak konbinatuz. Aitziber etorri da nire ostean atzera eta aurreko bien jokoa atzetik adi-adi begiratzen segi dugu, zer suma. Zalantzazko pilotakadaren bat egon da eta nik “ez dakit ezkerreko hori ona izan den” oihu egin diet, broma giroan, eta eurak ez digute jaramonik egin, ez entzunarena eginez.

Aurrekoa amaitu dutenean berriro ere denok elkartu gara kantxaren erdian eta Haizeak esan du “orain binaka jarrita egingo duzue, aurreko astean bezala”. Bikoteak nola osatuko ditugun argitu digu lehendabizi, “itxaron, pentsatuta neukan nola jarri binaka” esanez: Arritxu eta Aizpea, Aitziber eta Idoia, Izaskun eta Jaione eta Karmele eta ni.

3. Txokotan binaka, bikote bakoitzeko bat kantxan dagoela. Hark 2 kolpe egindakoan kanpora aterako da eta kidea sartuko. Bikoteko hiru bizitza ditugu.



Gaur aurreko asteko ariketarekin alderatuta kanpoan dauden kideen kokapena aldatzea erabaki du entrenatzaileak, atzean 6 ½ko marran kokarazi gaitu. Esan du “ez daukazue hemendik irteterik kidea etorri arte”. Nik hori entzutean urrun samar dagoela iruditu zait niri eta hala esan diet aldamenean ditudan Jaioneri, Aitziberri eta Arritxuri. Jaionek “nireak gainera ez duela korrikarik egingo esan dit, beraz, ikusiko dugu”.

Aurreko astean saioan izan ginenok lehen unetik garbi dugu zer den egin beharrekoa, baina, Karmelek bi kolperena aurreko ariketarekin nahasi du eta Haizeak berriro ere azaldu du kolpeak ez dituela norberak bata bestearen atzetik egin behar. Izaskunek ere zalantzaren bat edo beste bazuela zirudien, baina, dena argituta badirudi ariketari ekiteko moduan garela.

Hasi eta laster ginen gu bizitza bakarrarekin eta beste guztiak oraindik hirurekin, Karmele ezker hormatik gertu dagoelako eta ez duelako bi pilotakada itzultzerik lortu. Hori ikusita, aldaketa tokatu zaidanean horma bikoz tantoa sartu dut lehen kolpean, gure iraupena apur bat gehiagokoa bihurtu asmoz besteei bizitzak gutxitzearen poderioz. Bigarren kolpean ere besteren baten huts egitea behartu dut eta Karmelerekin aldaketa egin eta atzera joan naizenean Aitziberrek, irribarrez, “zer gaiztoa zaren” esan dit. Nik “jokoa nolabait orekatu beharko dut, bestela laster gara kalean eta zain aspertuko gara” erantzun diot, saltsari jarraipena emanaz. Gehienak bi bizitzarekin daude eta gu bakar

bat ere gabe geratu gara halako batean. Atzerantz abiatu gara eta hormaren aurka besoak gurutzean jarrita “gu hilda gaude” esan diot Haizeari. Berak pilota bat hartu eta atzeko eremuan ezkerrez emateko esan digu orduan eta halaxe egin dugu.

Atzean ari garela hurrengo Arritxu eta Aizpea etorri dira guregana, nahiko denbora gutxian eta beste bi bikoteak geratu dira jokoan. Jaione sumatu dut Izaskuni “korrika egin” esanez eta ikusi ere bai kantxako aldaketa batean ziztu batean aurrera sartuz. Nahiko parekatua izan da azken bikoteen artekoa eta denbora apur batean aritu direla iruditu zait.

Haizeak berriro ere denoi dei egin digu, 20.46 dira, eta geratzen den denbora tartean zer egin erabakitzeko aukera guri eman digu: “nahi duzuen, orain egin duguna edo binakako partidua, zuek erabaki”. Korroan jarrita gaude eta Karmele izan da lehena hitza hartzen, “oraingo hau polita zen” esanez. Beste bizpahiruk “niri berdina zait” esan edo adierazi dugu, ni tartean, eta izan dira “partidua” esan duten beste bizpahiru ere. Hortaz, geure erabakiz, edo gehiengoak hala nahi zuela adierazi duelako, azken ordu laurdena binakako partidetan eman dugu.

5. 2:2 partidak aurrean, 6 tantora. Zortzi gaudenez bi bikote lehenengo eta beste biak ondoren arituko gara.

Aurrean nor hasi erabakitzeko “lehenengo kanporatu zaretenak” esan du Haizeak eta gu eta Arritxu eta Aizpea hurreratu gara frontiseko eremura. Haizeak aurretik kantxan guneak zehazteko saio hasieran jarririko marraz kendu ditu eta berriro itsatsi zintaren inguruan, hurrengo batean berrerabiltzeko. Aitzeko laurak paletak ezkerrean hartuta ari dira pilotatzen ezker hormaren aurka.

Partidetako kokapenak erabakitzea jokalarion esku utzi du Haizeak eta nik Karmele ezkerredera abiatu dela ikusita “nahi baduzu jarri zu atzean, gehiago jokatzen da” esanez animatu eta bera atzean eta ni aurrean kokatu gara. Aizpea ere aurrean jarri da, ni ikustean “honek egurra emango dit” esanez eta nik “bai zera” erantzun diot. Arritxu izan da Karmeleren inguruan atzean kokatu dena. Partidan hasi eta nahikoa azkar, 1-1ekoaren ostean, Karmelek eraman ezin izan dituen pilotakada pare baten ostean 4-1 jarri dira aurretik besteak. Nik, lasai ari banaiz ere, egin ditut tanto batzuk eta markagailuan hurreratzea lortu dugu. 5-4 jarri gara, atzetik, eta 5-5 azkenean. Azken tantoa egin aurretik “hau benetako tantoa da” esan du Aizpeak, markagailua egon litekeen estuen baitago. Azkenean 6-5 irabazi dugu guk, nik dejada bidez eginiko tanto bati esker. Karmele ospatzen ikusi dut, bi besoekin garaipenaren keinua irten zaio barru-barrutik eta ilusioa egin dit berari irabazteak zer nolako poza eman dion ikusteak. Hala ere, ez da beste munduko eta lekuz kanpoko keinu bat izan, uneko emozioaren azalera baino ez.

Gure partidua amaitu denean, 20.53an, atzera joan gara laurok, “amaitu dugu” esanez eta Jaione-Izaskun eta Aitziber-Idoia bikoteak igaro dira aurreko guneko partida jolastera. Iruditu zait Izaskun eta Aitziber jarri direla aurrean eta Jaionek eta Idoiak hartu dituztela atzeko postuak. Gu, berriz, atzean ezkerrez pilotatzen hasi gara. Haizea ere gurekin egon da tarte batean, Aizpeari “hainbesteko kolpea ematera ez joan, lasai mugitu besoa” aholkatuz. Jotzeko izaten duen grinaren ondorioz izugarri bortitz edo indartsu egiten du kolpea tiratzeko mugimendua zenbaitetan eta pilotari eman gabe behin baino gehiagotan geratu da, besteak beste. Aurrean, berriz, zehar begiratuaren

bidez gustura eta nor baino nor ari direla ohartu naiz. Izan da Izaskunek larri-larri harrapatutako horma biko bat tartean eta bera zein bikotekidea gustura ikusi ditut horren ostean, ezustean heldu dela zirudien beraien erreakzioa ikusita. Atzean ari garela, aldiz, Aizpearen mutil laguna hurbildu da frontoira eta hari kasu egitera joan da kidea. Arritxu, aldiz, Haizearekin hizketan sumatu dut une batean eta beste biok ezkerrez jotzen jarraitu dugu.

Azkenean amaitu dute aurreko guneko partida, markagailuaren arabera estua eta lehiatua joan da hau ere, “6-4” esan baitute, Jaioneren eta Izaskunen alde. Laurak atzeko gunera hurbildu dira eta esan dute “binaka ez da erraza kokapenak eta mugimenduak nola egin jakitea, askotan ez dakizu non jarri” (B.K. Beste inoiz ere esan dut hauek direla partida gutxien jokatu dituztenak eta oraindik non eta noiz kokatzea komeni den ez diote tankera handirik ematen bat baino gehiagok. Hala ere, denborarekin badirudi zenbait zalantzatxo argitu zaizkiela).

Denok atzeko harmailen inguruan elkartu garenean, luzaketak egiten ditugun bitartean, Aste Santuko oporren usainean datorrigun datorren asteko saioarekin zer egin erabakitzeke unea heldu zaigu. Haizeak adierazi digu “astelehenean egitea izango da onena, baina, hori bai, nik ez dakit zer gerta daitekeen. Aurreko astelehenean hiru etorri ziren eta haiek behintzat etorriko dira, ez dakit besteen berri. Agian overbooking-a izango dugu”. “Lasai, moldatuko gara nolabait” esan diote besteek eta, beraz, datorren astelehen iluntzean egingo dugu asteazkeneko saioa, eguna aldatuta. Ni beldurtu naiz nolako astelehena datorridan ikusita eta “uf, ni bizi banaiz etorriko naiz” esan diet. “Goizean Hernanin hasi, podologoarenean izan eguerdian Miarritzen eta iluntzean Usurbilen bukatuko dut. Ederra betekada!” izan da nire burutik pasa dena une berean.

Azkenean harmailetatik norbere paleta, motxila eta poltsak hartu eta etxerako bidean jartzeko unea heldu zaigu. Gaur ere aurreko asteko berak (Haizea, Aitziber, Jaione, Idoia eta bostok), eta Karmele, abiatu gara elkarrekin hizketan, irakaskuntzaz batez ere, hiruk irakasle lez lan egiten dutelako. Tartean eurek izan dituzten gorabehera batzuen berri eman digute eta “gurasoak dira askotan haurrak baino okerragoak” ondorioztatu dugu jarrera batzuen gainean hitz egin ostean. Garaiak aldatu direla erabaki dugu eta ez dela oso esker oneko lana izaten askotan. Aitziberrek esan du berak uste duela oporrak ere ondo merezitakoak direla eta lan gehienek halako oporrak mereziko lituzketela ziurrenik. Elkar agurtzean “bihar ondo manifestatu edo ez dakit zer esan behar den” bota du Haizeak, biharamuneko greba orokorrari erreferentzia eginez, eta datorren astelehenera arte agurtu dugu elkar. Kotxean sartu eta 21.12an irten naiz Usurbildik, porru eginda.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

“Beno, bukatu dira asteko saio guztiak. Eskerrak!” esaldi bakarrean laburtu dut autoan sartu orduko nire pentsamendua. Hala ere, oso larri nago, ahituta, eta etxerako itzuleran ere nabaritu dut gidatzeko unean arreta mantentzea gehiago kostatzen zaidala eta nekeak aurrea hartu didala. Datorren astea eta astebete joan-etorririk gabe ondoren. Hori ere ederra izango da, dudarik gabe.

Gaurko saioan berriro ere jendetza elkartu gara, zortzikotea, aurreko astean baino bat gehiago. Ez dakit udaberriaren eta eguraldiaren eragina ote den, baina, gustua ematen du hainbeste emakume batera ikusteak, askotan laukotea osatzeko entrenatzailea ere

jardun behar izan baita aurreko zenbait saiotan. Gainera, eurek ere gustura ikusten dira eta iruditzen zait zenbat eta gehiagotan agertu taldeko harremanak ere indartu litezkeela modu honetan. Ariketaren batean kopurua handiegia dela iruditu zait.

Emakumeei beste noiz edo noiz jendearen aurrean jarduteak eta inguruan dabilenak norbera paletan ikusteak sortzen dien kezka azaleratu dute bat baino gehiagok, lotsaren gaineko kezka hori. Beste saioen eta herriren batean ere jaso dut horren inguruko iritzirik eta jendaurrean aritzeak eragiten dienaren berri jasotzea garrantzitsua izan liteke kasu hauetan. Izan ere, hemendik aurrera ziurrenik aurrez baino gehiagotan egongo gara “eskaparatean jarrita”, egunak luzatzen hasi direlako eta giroa ere epelagoa delako. Ea hurrengoetan nola erreakzionatzen duten.

Datorrela datorrena

Joan dira beste hiru saio. Joan dira 55! Aste honetan, gainera, saioak partidetan, batez ere banakakoetan lehen bi egunetan, zentratu dira eta badirudi Emakumea Pilotari eguna heldu arte saioen egitura eite horretakoa izango dela nagusiki lehen aipaturiko kasuetan. Ikusiko dugu asteek eta saioek aurrera egin ahala ez ote den monotonia nagusitzen, neure zalantzak ditudalako horrekin. Hala ere, saioetan ez zait iruditzen emakumeek hainbeste erreparatzen diotenik joko denborari, gustura dauden bitartean, hizketan ala pilotakadak elkartrukatzuz izan, beste arlo bat, soziala ziurrenik, garatzen aritzen baitira, harremanen mundua, hain justu ere. Amarauna osatzea da garrantzitsua hemen, antza.

Udaberria hasi dugu, beno, aurreko astean hasi genuen zehatzago esateko, eta badirudi eguzkiaren epeletik argi izpiren batzuk agertu zaizkidala azken egunotan leiho ertzean niri ere. Hala ere, kostata amaitutako egun bat baino gehiago izan ditut, umorea ozpinduta hasitakoren bat ere bai tartean, nekeari bueltarik eman ezinda eta geroz eta ahituago nagoelako, argi gorria piztu eta alarma joka hastear. Eta ez dut uste konponbidea A bitaminan soilik legokeenik, atsedenean eta lasaitasun apur bat errekueratzean baizik. Burua freskatu eta indarberritzean, beraz. Horretarako baliagarritzat ditugu denok opor egunak geurean, baina, ingurukoek izango dituzte oporrak astebete eskas barru eta ez dut uste nik bizpahiru egun baino gehiagotan ezer egin gabe iraungo dudarik, zamatuta baitut oso betebeharren zakua. Bestelako lanak ditut zain, ariketen analisia kasu, beraz, nahi ala ez nahi, berriro ere hara eta hona etengabe hasterako egin beharko ditut, nire egutegian ez baita jai. Hala diost barne harrak: “*izorrai!*”. Hala ere, hori datorren asteari dagokio, beraz, zertan hasi etorkizun hurbilari begira bihar non izango garen ziurtatzerik ez badaukat. Datorrela datorrena.

22. astea. BIGARREN ATSEDENALDITXOAREN ATARIAN

Apirileko lehen astea iritsi da martxoa agurtu ostean eta ikastetxeetako haur eta irakaslerik gehienei jaiegunak edo oporrak iritsi zaizkie. Nabari da herrietako plaza eta parkeetan, bai. Udaberrian loreak bezala ugalduta dira haurren jolas eta egonaldiak. Niri oraindik ez zait egunerokotasunetik ihes egiteko unea heldu, ordea. Hori bai, aste honetan “3, 2, 1, 0!” atzera kontaketa erabiliko dut igarotako saio bakoitzaren ostean, gure saioetako egutegia ere hezkuntzakoarekin bat datorrelako beti edo gehiengan. Eguberrietakoa joan zen eta bigarren tartetxoa bertan dugu, beraz.

Aste honetan ere hiru paleta saioak izango ditut, baina, bi egunetan eta ohiko ordena aldatuta: astelehenean Buruntzaldeko biak eta asteartean Zizurkilgoa. Beraz, egun bat lehenago amaituko dut autoko ohiko joan-etorriekin, bi egun horiek ohi baino bete eta mugituagoak izango badira ere. Beraz, arnasa sakon hartu, gehiegi ez pentsatu eta banao zurrunbiloaren muinera.

Gorritz markaturiko eguna

Iragan asteburua aurrekoak baino apur bat lasaiagoa izan da niretzat, ez dut hainbeste joan-etorri eta hitzordu ezberdin izan, nahiz eta egonean ez naizen denbora luzean egon. Bateko bizikleta, besteko atzeratutako lanak, hurrengo korrika saio bat, ... Etxetik gertu igarotako bi egunen ostean iritsi zait aurreko astetik gorritz markaturik daukadan aste hau, apirileko lehena. Izan ere, aste honetako saioen ostean astebeteko geldialdi edo oporraldia izango dute paleta ikastaroek eta nik behintzat eskertuko dut hainbeste bidaia egin beharrik ez edukitzea. Baita nire eguneroko konpainia den kotxeak ere!

Aste bati igarotzeko, hala ere, hasiera eman behar izaten zaio eta gaurko agenda ohikoa baino are bete eta mugituagoa datorkit. Ohiko goizetako saioari iluntzeko “ezohikoa” gehitu behar diot, asteazkeneko Usurbilgo taldeak gaur iluntzean baitu saioa, Aste Santuko oporren harira azken saioan emakumeek eta entrenatzaileak aho batez hala erabakita. Beraz, etxetik irten naizenetik berriro ere atetik barrura egin arte 13 orduetik gora igaroko ditut han eta hemen gaur ere. Azkenaldian astean behin izan ditut halako betekadak eta nekeari iskin egin ezinda amaitu izan dut gauerako. Gainera, beste bidaia bat ere badu gaurko egunak, podologoarenean urteroko zita daukadalako arratsaldeko ordu bietan Miarritzen. Hortaz, goizeko saioaren ostean izango dudana ordubetearen izerdia isuriz korrika saiotxo bat egiteko asmotan noa Hernanira, Iparraldetik bueltan bertako liburutegian goizeko saioaren nondik norakoak idatzi eta, azkenik, oraindik osorik baldin banago bederen, Usurbilgo paleta saiora joango naiz. Ez da makala izango gaurko ibilia, beraz, noan hastera! Bi motxila, bazkaritarako ogitartekoa, fruta eta abarrak hartu eta abiatzera noa. Alzaporrur!

Kiroldegiko sarrera

9.25ean heldu naiz bertara, bidean aparkatzeko leku bila dabilen entrenatzaileari besoarekin aio egin ostean, justu kiroldegi pareko zebrabidean. Bertara heldu eta ohiko taldekiderik ez da oraindik bertan, baina, hara non orain bi ikasturte nire ikasle izaniko batekin topo egin dudana. Maddi da. Berak esan dit “oraindik ere etortzen al zara? Nik utzita zenuela uste nuen” eta neuk halaxe erantzun diot “astelehenero etortzen naiz tesirako oharrak hartzera, baina, saioa egiten aritzen naiz, parte hartzaile bat gehiago naiz”. Orduan argitu dit bera oporretan dela, irakaslea izaki bi aste dituzte Aste

Santuaren harira, eta larunbatean kalean Saioarekin topo egin eta “astelehenerako nola zarete?” galdetu ziola eta honek “guk saioa daukagu, etorri lasai” erantzun ziola. Ni arduradun nenbilenean ere izan nituen halako pare bat eta neuk ere gonbidapena luzatu ohi nien galdetuz gero.

Maddi eta biok hitz eta pitz ari garela Malen iritsi da eta elkar agurtu dute “elkar ikusi ere ez dugu egiten” esanez. Tilos 7 txapelketan hirukote berean daude eta hurrengo partidaren inguruan aritu dira, egunez aldatzearen inguruan, batek lana duelako eta bat eta beste. Hala ari direla Rakel sartu da atetik eta “zer, haurrak kolokatu al dituzu?” galdetu dio zuzenean Malenek. Baietz esan digu ahizparekin utzi dituela eta hark gustura hartzen dituela tarteka-marteka. Malenek esan du bere bikoteak ere aste honetan jai duela aste osoan eta berekin utzi dituela hiru semeak. Ainara izan da halako batean goiko eskaileretatik behera gerturatu zaiguna eta haren atzetik nahiko azkar heldu dira Saioa bera, Zuriñe eta Jone. Maddik “oporretan nago” esanez egin dio diosala Ainarari, irribarrez, eta Saioaren aurpegierari begiratuta “a zer astelehena duen honek” bota du gero. Guk astelehenetan nabari zaiola esan diogu eta larunbatean jazotako gertaera baten inguruan hasi dira hizketan ondoren. Istripu larria izan omen zen arratsaldean, pertsona bat zubi batetik behera erorita. Pare batek ezer ez zekitela esan dute eta gertatuaren gainean dakitena kontatzen hasi dira. Zur eta lur gaude bat baino gehiago, besteek ezagutzen dituzte inguruan suertaturiko haur batzuk, futbol partida bat ikusten aritu zirela eta hotsa entzun zutela esan du Maddik eta hala ari garela barruranzko bidean jarri gara, tornutik pasata. Eskaileretan behera, pasabidean aurrera eta eskaileretan gora goazela Maddik esan du, inguruan Jone eta neroni goaz besteak beste, “eskailera hauek igotzea kosta egiten da” eta “Saioak ere hala dio, astelehenetan gehiago kostatzen zaiola igotzea astearteetan baino”. Horren harira eskaileren altueraren arabera bere amak erabiltzen duen terminologia ekarri du gogora eta hala egin ditugu pilotalekura bitarteko metroak. Ni azkenean Malen eta Ainararekin batera sartu naiz, ostiralean txapelketa herrikoiko partida bat ikustera etorri eta han gertatuaz bizpahiru hitz egin baititugu. Ni eta Ainaraz gain Jone, Irati eta Gemma ere izan ginen inguruan une batean.

Pilotalekua

Ohi bezala, pilotalekuan sartu eta trasteak utzi ostean elkarrengandik gertu gabiltza eta gaur ez da denbora asko igaro sartu garenetik beroketa egiten hasi garen arte. Ziurrenik beste zenbaitetan baino dezente lehenago hasi gara.

Saioak “ala, korrika egitera!” esan du eta guk purrustada handirik gabe hartu dugu beroketari ekiteko bidea.

Beroketa

9.42an korrikaldian hasi eta berehala “zer, gaur zenbat buelta emango ditugu?” galdetu diet nik kideei irribarrez, denak ikusteko metro batzuk atzeraka korrika eginez, aurreko astean hiruren ordezkari bi egin genituela oroituta. Jonek ezetz esan du, hiru eman genituela eta nik Ainarari galdetu diot eta hark, hura eta biok inguruan ginen aurreko astean, bere ustez ere bi izan zirela esan du. Horregatik, lehen itzulia osatzean Maddik “bi” esan du irribarrez, baina, ez, bakarra dela badakigu. Hizketan jarraitu dugu eta hirugarren itzulia osatu dugun unean geratu gara kontrakantxan, ondorengo mugimendu artikularrei ekiteko. Gu korrikan aritu garen bitartean Saioak kantxa apur bat murriztu du zabaleran, banakako partidetarako eremua prestatzeko aprobeztatuz.


Mugimendu artikularrak entrenatzaileak zuzenean zuzendu gabe egin ditugu berriro ere, nahiz eta batzuk nahiko antzera mugitu orkatila, belaun, gerri, beso eta abarrak. Beste batzuk, berriz, hanketako luzaketa pare bat egin dituzte hasi eta nahikoa azkar artikulazioak biratu orde. Bitarteko hizketagaia Ainarak plazaratu du, Maleni “zer moduz Haritz?” galdetu baitio. Orduan jakin dugu besteok barizelarekin daukala semerik txikiena eta nola dabiltzan kontatu digu, sukarrarekin dabilelako haurra. Gehienak amak direla konturatzeko aukera paregabea izan da hizketaldi honekin hasi izana, batek bere alabak gaizki pasa zuela oroitzen duela esan du, besteak bi alabek bata bestearen atzetik igaro zutela eta gazteenak 2 urte baino ez zituela, lagun bati haurra jai eta zaharragoa barizelarekin zuelako 8 egunetan hurrek ez zutela elkar ezagutu ere jakin dugu. Borobilean jarri eta hizketan jarraitzen dugunez, baina ia mugimenduak egiten ere ari ez garela ikusita, entrenatzailearen motxilara hurreratu eta paletak hartu eta banan-banan emakumeei banatzen hasi naiz, “nik paletak hartu eta banatzeari ekin diot” esan dudanean berean. Ainarak irriz erantzun dit “ondo Uxue, Saioak ez du mugitzeko itxurarik eta”. Denok bana dugula ohartzean Saioak pilotak dauzkan poltsa hartu eta banatu aurretik gaurko partidak egiten nola hasiko diren azaldu du: “lehenengo Malen eta Rakel eta gero Zuriñe eta Jone”. Hori esatean “zer, baina, zuzenean, piloteatu gabe?” galdetu diogu bat baino gehiagok eta ordulariari begiratu ostean, nirearen arabera 9.48 dira, binaka jarri eta ezker hormaren aurka berotzen hasteko esan digu. Zazpi gaudenez niri “Uxue, zu bi hauekin arituko zara, ezta?” galdetu dit eta “nik gero daukat korrika egiteko asmoa, saio ostean” erantzun diot irribarrez. Beraz, Rakel eta Malen frontiseko eremuan, Maddi, Ainara eta hirurok erdi inguruan eta Zuriñe eta Jone gure ezkerretara jarrita daudela, erreboteko zelaia aprobetxatuz, ekin diogu beroketako azken atalari. Piloteoan hasi eta berehala norbait ikusi dut pilotalekura sartzen eta ez naiz ohartu lehen begiratuan. Ainara txaloka ikusi eta bera eta Saioarengana hurreratu dela ikustean jabetu naiz Gemma dela zortzigarrena. Beraz, azkenean Maddi eta ni elkarrekin eta ahizpek pilota berri bat hartu eta elkarrekin jardun dute piloteoan. Piloteoan jardun bat egin ostean Saioak zortzioi dei egin eta 4aren ingurura hurreratu gara.

Ariketak

Aurreko eremuan bat baten aurkako partidak egingo ditugula esan du, erdian piloteoan arituko dela ondoren elkarren aurkako partida jokatu duen bikotea eta atzean, berriz, bi bikote elkarren aurka jolasean.

9.52an ekin diote aurrekoek euren arteko buruz buruko partidari.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 1:1 piloteoa.

3. Atzeko gunean 2:2 partida.

Lehen partidari Malen eta Rakel hasi dira aurrean. Saioa, berriz, epaile postuan kokatu da kontrakantxan, aurreko asteko moduan. Beste seiok atzeko eremuetan kokatu gara, entrenatzaileak esan bezala. Zuriñe eta Joneri elkarrekin erdian pilotatzeko agindua eman die eta beste lauroi, aldiz, pilota bat eta beste azalpenik ez. Beraz, errebotoke eremura bidean jarri gara Ainara, Gemma, Maddi eta laurok. Bertara helduz “pilota bakarria eman digu eta kabituko al gara?” bota dut nik irribarrez eta “moldatu beharko gara” erantzun dit Ainarak. Gemmak, berriz, “hemen zer egin behar da?” galde egin du. Ainarak “lau gaude, beraz, bi biren aurkako partida” erantzun dio. Beraz, Maddi eta biok elkarrekin eta beste biak ere bikotea osatuz jarrita ekin diogu pilotakada eta hitzak elkartrukatzeari. Ainarak arropi begiratu eta Gemma eta bioi zuzenduz “gaur zuriz eta beltzez etorri behar zen” bota digu, beste denak Emakumea Pilotariko nikiak eta praka beltzak soinean dituztela ari baitira. Nik, orduan, Emakumea Pilotariko logodun prakak jantzita etorri naizela erantzun diot, irribarrez, “armairuan edukitzeko bakarrik alferrik dira” erantsiz (B.K. Ez ditut askotan erabiltzen, erreparo apur bat ere ematen didalako, baina, proiektuko teknikari nintzenez lanerako emaniko galtza hauek logodunak dira eta janztekoan saioetarako bakarrik janzten ditut. Kasualitatea gaurkoa!).

Gu atzean hasi eta berehala, lehen hiru tantoak, nik lorturikoak izan dira eta Gemmak “alferrik da Uxeri erdian pilota utziz gero” bota du eta nik erantzun “ez nuen uste gaur hain gaizto jaiki naizenik”, irribarrez. Hala jarraitu digu, erritmo bizi samarrean eta pilota dezente mugituz elkarri tantoak egin eta tarteka tantoak huts eginez, partidari. Une batean markagailuaren gainean galdetu du bakarren batek eta Ainarak “7-5 edo 6-5 agian” erantzun du eta nik “bai, parekatua behar du, 6-5 igual” berretsi dut bere esana (B.K. Tantoak egiten saiatzen gara elkarri, baina, azken emaitza ez da oso esanguratsua izango gaurkoan ere, dirudenez).

Gu atzean aritu garen bitartean aurrean partidari aritu dira Malen eta Rakel eta egia esan ez diet gehiegi erreparatu euren eta alboan izan ditugun Zuriñe eta Joneren pilotakadei. Hala ere, aurrean nagusitasunez eta lasai jokatu gailendu da Malen, joko mailan alde handia baitago bi taldekideen artean. Halako batean aurreko partida amaitu dela ohartu gara eta Saioak bigarren txandan bakoitza non kokatuko garen jakinarazi digu errotazioa egiteko: “Zuriñe eta Jone aurrean, Uxue eta Maddi erdian eta Malen-Rakel eta Ainara-Gemma atzean” (B.K. Ni harritu egin naiz, gaur banakako partidari arituko naizela baitirudi. “Aurreko astean ezetz ulertu nion, baina, beno, ez naiz kexatuko” pentsatu dut neurekiko).

Bigarren banakako partidari Jone eta Zuriñek ekin diote jokatzeari. Lehendabizi, aurreko kasuan bezala, gauza pare bat azaldu dizkie entrenatzaileak eta ondoren ekin diote jokatzeari. Gu erdian gaude eta kasu honetan hitzak eta pilotakadak elkartrukatzeaz gain tarteka aurrekoak zertan ari diren ere erreparatu dut. Ikusi dut Joneren kalere bat eta Zuriñeren pare bat ere bai eta hau bere buruarekin ez oso gustura atzerantz nola zetorren tanto bat amaitu ostean ere bai. Erdian, berriz, tarteka pilota bizi samar darabil Maddik eta nik lasaiago jardun nahi dudanez erritmoa jaisteko kolpe lasaiagoak egiten ditut. Bitartean alaba gazteenaz galdetu diot nik, “zer, oraindik jarraitzen al du pilotan ala futbolean dabil?” galdetu diot eta “ez, utzi zion, futbolean dabil eta ez dakit hori ere ez ote duen aurki utziko, agobiatua dabil selektibitatearekin” erantzun dit. Guk hala jarraitu digu, hizketan eta pilotean aldi berean, aurrekoek amaitu dutela ohartu eta Saioak aurrera gerturatzeko deitu digun arte. Atzean, berriz, binakako partida egiten aritu dira Ainara-Gemma eta Rakel-Malen bikoteak.

Hirugarrenean heldu zaigu guri frontiseko eremuan aritzeko txanda. Saioa zain dugu kontrakantxan jarrita, nik jertsea soinetik kentzeko aprobe txatu dut apur bat berotzen hasi naizelako, eta “hurrengo partidari Ainara eta Gemma” oharra pasa du aurretik. Hauek erdiko eremuan jarri dira eta atzean Rakel-Malen eta Jone-Zuriñe hasi dira. Maddi eta biok aurreko eremura heldu garenean “zer, aurrean ala atzean?” galdetu dit Maddik eta “ez, banakakoa da” erantzun diot nik. “A, bale” erantzun eta Saioak azaldu dio eskuinean kantxa estuagoa dela, marra seinatuz, 4tik atzera ezin duela boterik egin pilotak eta lehen sakea partidako aurreko sakea nork egingo duen zehazteko izango dela. Nik “8ra ala 10era?” galdetu diot eta berak “8ra” erantzun dit, irmo. Hasi eta nahiko azkar 3-0 aurreratu naiz ni, berak egindako hutsen bat eta neuk eginiko pare bat tantori esker. Saioak Maddik nola jokatzeko duen begiratu eta “niri Maddiren ezkerre gustatzen zait” esan dit tanto bat amaitu denean. Beraz, hurrengo tantoa aldi berean jokatuz eta Saioarekin hizketan ari naizen bitartean garatu dugu. Tantoak nahikoa pilotatuak izan dira, nik ez dut %100ean ere jokatu, baina bai beste batzuetan baino serioxeago, mailaz ere aurkari egokitu zaidana kide asko baino abilagoa delako. Azkenean 8-4 amaitu dugu, nik tantoren batean arnas estua lagun amaitu dut, eta amaieran Maddi aurpegia gorrituta eta izerditan zegoen. Kontrakantxan ura edatera hurbiltzea izan da egin duen lehenengo gauza. Guk amaitu dugunean Ainara eta Gemma hurbildu dira aurrera eta Saioak esan bezala jarri gara: Zuriñe-Jone eta gu atzean eta Rakel-Malen erdiko gunean. Aurrean, berriz, banakako laugarren eta azken partidari ekiteko pronto daude bi ahizpak.

Ainara eta Gemma hasi dira nor baino nor aurreko partidari. Saioa ere jarri da bere azken bi saioetako postuan, markagailu eta animatzaile lanak uztartuz, tartekako aholkulariarenarekin batera. Atzean, berriz, Jone eta Zuriñekin elkartzean “zer moduz?” galdetu dit lehenak eta “berotu gara apur bat” erantzun diot nik. Maddik, aldiz, “fisikoki zerbait egiten hasi beharra daukat nik” bota du oraindik ere arnasari buelta ematen ari dela. Nik “ez al duzu igeri edo horrelakorik egiten?” galdetu diot eta “astean zehar ez daukat astirik” erantzun dit berak, pena puntutxo batekin. Erdian Rakel eta Malen pilotatzen ari dira, patxadatsu. Atzeko laurok elkartzean bikoteak aldatzea proposatu diet, oreka bila eta halaxe esan “Jone eta Maddi eta Zuriñe eta biok bikote?” eta inongo eragozpenik gabe baieztapena berehala jaso dut. Ni eta Jone jarri gara aurrean eta Maddi eta Zuriñe atzelari, ezkerreago eta gu baino atzerago. Atzean jokatzeari ekin diogunean zehar begiratu bota diot aurreko eremuari eta ohartu naiz Saioarekin hizketan ari direla Ainara eta Gemma. Nahiko hasiera dela ikusita ez zait iruditzen dagoeneko partida amaituta dutenik, nahiz eta “honezkero amaitu ote dute?” galdera etorri zaidan burura. Atzean jokoan jarraitu dugu, elkarri kilimak egiteko saiakera eta lortutako okasioak tartekatuz. Izan dira nik bi aurkariak mareatuta egindako tanto batzuk eta baita eurek egindako beste batzuk ere. Markagailuaren berririk ez daukat, ezta arrastorik ere. Besteen artean ere inor ez da, ahots gora behintzat, kontatzen ari itxura batean. Hala jarraitu dugu eta une batean ohartu naiz aurreko partidako lehengoa etenaldia baino ez dela izan, elkarren aurka jokatzeko ikusi baititut berriro norgehiagokan, Saioa albotik “kontrolatzaile” lanean jarrita dutela.

Aurreko laugarren partida amaitu denean Saioak “etorri” dei egin digu berriro ere deno eta kantxan batu gara zortziok eta entrenatzailea. “Orain binakako partidak jokatuko dituzue” jakinarazi digu eta “bikoteak ez dakit nola egin, baina, egingo ditut nolabait” bota du berehalaxe. 10.23 ikusi dut eskumuturrera begiratzean. Honela osatu ditu lau bikoteak: Ainara eta Jone, Malen eta Rakel, Maddi eta Gemma eta Zuriñe eta biok.

4. 2:2 partidak, frontiseko gunean eta erreboteko gunean. 5'koak.

Aurrean nor hasi entrenatzaileak esan du: Malen-Rakel eta Zuriñe-ni. Hasieran Zuriñeri aurrera eta niri atzera joateko esan digu, deskuidatuta, eta nik “Zuriñe aurrera badoa nik ere hala joan beharko dut” ohartarazi diot irribarrez. Berak baiezko keinua egin dit jarraian eta bakoitzari tokatu zaigun eremura hurreratzen hasi gara guztiok.

Aurrean aurrelari lez Rakel eta biok eta atzelari postuetan Malen eta Zuriñe kokatu dira. Gure kasuan erabakitzeke orduan “nahi baduzu jarri zu atzean, gehiago jokatzen da, niri berdin zait” esan diot Zuriñeri eta honek atseginez entzun du nire esana. Ondoren “pilota gehiegitara sartzen banaiz oihu egidazu” ere esan diot eta berak “lasai egon” erantzun dit. Lehen tantoa sakea nork egin erabakitzeke ote den galdetu du Rakelek eta “zeuk atera lasai” esan diot nik pilota eskura ematearekin batera. Beraz, ekin diogu partidari. Malen eta biok elkarri pilota botatzean bizixeago egiten dugu, baina, nik bota ditut Rakeli zuzenduta lasai asko bat baino gehiago ere eta Saioak, kontrakantxatik, “ze txintxo” esan dit eta nik “badakit egokitzen” erantzun diot, irria ezpainetan ez baina ezta serioegi ere. Tanto batzuk lehiatuak izan dira eta azkenekoa oso ona izan da. Malenek pilota zail batzuk eraman ditu, korrika ere egin behar izan du aurrera eta atzera, eta azkenean kantxan zabalean botatako pilota batekin harrapatu gaitu bai ni eta baita nire kidea ere. Ordurako pi-pi-pi-pi hotsa entzuna nuen Saioaren eskumuturrean, beraz, eurak garaile eta gu atzera.

Binakako aurreko guneko bigarren partidari Rakel-Malen eta Ainara-Jone elkartu dira eta atzekoan, aldiz, Gemma-Maddi eta aurretik heldu berri garen Zuriñe eta ni neu. Jokoan hasi gara eta “lehen bezala” elkarri esanda saio osoan bezala ni aurrean eta Zuriñe atzelari postuan kokatu gara. Besteen kasuan, berriz, Gemma aurrean eta Maddi atzean. Pilota asko bota dizkio Maddik Zuriñeri, batzuk ohi baino abiadura handiagoan ere iritsi zaizkio, eta huts batzuk egin ditu. Aurrean, berriz, nik tanto batzuk egin ditut, baina, agian ez dut ohi besteko parte hartzerik izan. Gemma behin baino gehiagotan kantxako marra baino eskuinerago kokatuta ikusi dut eta gomendatu diot barrurago sar zedila, bestela bere burua joko kanpo uzten duelako hala nahi gabe kasu bat baino gehiagotan. Berak “ni atzean aritzera ohitua nago eta ondo ikusteko espazioa uztea gustatzen zait”. Aurreko partidako bost minutuak agortu direnean Maddi eta Gemma aurreko gunera joan dira eta guri Ainara eta Jone etorri zaizkigu aurreko eremutik, han galtzearen poderioz. Malen eta Rakelek bitik bi garaipen dituzte, beraz.

Binakakoen ataleko hirugarren txandan Rakel-Malen eta Gemma-Maddi jarri dira aurrean pronto. Atzean, aldiz, Ainara-Jone eta Zuriñe-ni. Aurrean berriro ere Rakel eta Malenek irabazi dute denbora tarte amaitu denean eta atzean, aldiz, Zuriñek eta biok, Jonek egindako hutsei esker batez ere. Hala ere, aldaketa iritsi denean “segi zuek aurrera, gu jadanik aritu gara” esan diet nik eta “ez, baina, guk galdu egin dugu” erantzuna jaso dut hasieran. Ezetz esan diet nik, segitzeko aurrera, berdin diola. Beraz, Gemma eta Maddi etorri zaizkigunean sei lagun geunden oraindik atzean. Nik Zuriñeri begiratu diot bada ez bada ere eta hark “berdin du, segi” esan die eta halako batean jarri dira frontisera bidean Ainara eta Jone. Aurreko gunera heldu direnean Saioari “beraiek irabazi dute” esan diote eta honek niri “Uxue, oso gaizki, tanto denak kontatu behar dira” esan dit erdi brometan. Nik “bai, baina gu hortik pasata gaude” erantzun eta eurak aurreko jokoan eta gu atzekoan zentratu gara. Bi errotazio lehenago bezala Gemma eta Maddi gailendu zaizkigu guri eta aurrean berriro ere Rakel eta Malenek lortu dute tanto

kopururik handiena. Hala ere, Saioak Rakel eta Malen bidali ditu atzera, “lasai, zuek daukazue garaitu gabeen lorpena” esatearekin batera.

Bosgarrenerako “Uxue eta Zuriñe” aurrera dei egin digu Saioak eta aurreko gunean Jone eta Ainararekin topo egitean “orain ere pena eman diogu” bota du azken honek, irribarrez. 10.52 dira nire erlojuan. Atzean, berriz, binakakoak jokatzen hasi garenetik lehenengoz, Rakel-Malen eta Gemma-Maddik elkarren aurka jardungo dute erreboteko zelaitxoan. Bost minutuak igaro direnean Jone eta Ainarak baino tanto dezente gehiago ditugu eginak guk eta aurrean mantenduko gara hurrengo errotazioan, beraz. Atzeko eremukoaren berririk ez dut jaso une batean ere, geurera aritzearekin nahiko izan baitut.

Bikotekako partidekin osaturiko seigarren eta azken txandan Gemma-Maddik eta Zuriñe-nik osaturikoak aritu gara aurreko gunean. Atzean, berriz, beste laurak (B.K. Guk ez dugu Rakel eta Malenekin jardun gaur atzeko gunean, ez hasieran eta ezta saioak iraun duen ondorengo tarteetan ere). Azken partidaren ere elkarri tantoak egiten eta pilota mugitzen saiatu gara eta izan dira tartean galdurikoak ere. Adibidez, Zuriñek goiko koltxoira bota du behin eta “oraindik ere indarra geratzen al zaizu?” bota diot nik aldamenetik, adarra jo asmoz eta berak “bai, hala dirudi” erantzun dit. Saioaren erlojuak abisua ematen hasi denean amaitutzat eman ditu binakako partidak eta denoi dei egin digu 4aren ingurura. Erlojuari begiratu eta “3 minutu geratzen dira, beraz, txokotan amaituko dugu” jakinarazi digu.

5. Txokotan binaka. 2 kolpe egitean kontrakantxatik kidea sartuko da, eta bikote bakoitzak 2 bizitza izango ditu.

Hasi aurretik Ainarak “zer, bikote berdinarik?” galdetu du bada ez bada ere eta nik “zer, dibortziatzea pentsatzen ari al zara?” bota diot adarra joz. Berak ezezkoa erantzun dit eta Jonek “ez luke arrazoi faltarik hala nahi balu” erantsi du. Maddiri zalantzak argitu ostean lau kantxan eta beste laurak kanpoan jarrita ekin diogu azken txanpako jardunari. Zuriñe, Ainara, Malen eta Gemma hasi dira barruan. Lehen tantoa guri sartu digute eta bizitza bakarrarekin geratu gara. Hurrengoan, baina, nik botariko horma bikote batetara ez da iritsi Jone eta eurak izan dira bizitza bakarrarekin geratu direnak. Azkenean gu izan gara bizitzarik gabe geratzen lehenak eta kontrakantxara hurreratu eta paletak entrenatzailearen motxilan sartu ostean besteei begira ari garen bitartean koaderno esku artean hartu dut nik, ideia eta posiziorik gehienak idatziz ondoren praka motzak jantzita abiatu aurretik. Ondoren Maddi eta Gemma etorri dira eta aurrez Saioari, Ainararen aurka ari zenean nonbait, “tantoak moztea ez zait gustatzen” esan diola jakin eta horri buruz hasi dira. Azkenean beste laurak ere hurreratu zaizkigu eta Ainarak “oraindik lehengoarekin ari al zarete?” galdetu die. Esan du “niri gustatzen zait azalpenak entzutea zerbait egindakoan, askotan, gainera, ez ditut jasotzen” eta halaxe geratu da gaia.

Nik koaderno esku artean hartu eta kideek, bakarren batek luzaketaren bat egin du bitartean, oporretarako plan eta eguraldiak izango duen portaeraz hitz egiteari ekin diote. Batzuk Malagara doaz, besteak Saloura, besteren batek “ni Lizarrara joango naiz asteburu honetan, han zer giro egingo du?” bota du eta giroak eta oporrek girotu dute azken hitz aspertua. Nik, bitartean, gauzarik gehienak idatzi ditut eta eurak trasteak jasotzen hasiak direla ikustean neuk ere koaderno poltsan sartu eta trasteak hartu ditut. 11.03 paseak dira dagoeneko.

Kanpora bidean jarri gara denok elkarrekin eta nik korrika egitera joan asmo dudan gunera iristeko nondik joan beharko nukeen galdetzeko probestu dut unea, besteak beste. Gimnasio paretik pasa eta aurrera gindoazela Hernaniko pilota elkarteko nesken alorreko arduradunarekin eta entrenatzera doazen bi gazterekin topo egin eta pare bat hitz trukatu ditugu. “Noiz etortzen zarete?” galdetu digute eta “bihar eguerdian eta kito” erantzun die Saioak. “Gehiegi entrenatzea ez da ona” bota die Ainarak irriz eta “arratsaldean lagunekin geratu nahi dute eta horregatik gatoz” erantzun die elkarteko entrenatzaileak. Eurak agurtu eta aurrera jarraitu dugu, eskaileretan behera.

11.10 dira eta ni izan naiz aldageletan sartuta besteak baino lehen taldetik ihes egin duena. “Zer, arraroa, zu aldageletara” esan duenik izan da eta nik erantzun diet “ordubete daukat eta korrika apur bat egitera noa. Ondo ibili datorren astean eta oporretan eta beranduena jota bi aste barru ikusiko dugu elkar”.

Kiroldegiko sarrera

Gaur praka motzak, pulstometroa eta abarrak soinean irten naiz sarrerara eta hara non orduantxe ari ziren elkar agurtzen bospasei: Saioa, Ainara, Maddi, Malen eta Gemma. Nik ere agurtu ditut eta korrika bueltarako unea heldu zait, burua apur bat airatu eta gorputza nekatzekoa. Saioa “bihar arte” esanez agurtu dut azkenik eta Ainararekin eskaileretan gora abiatu.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur uste baino askoz emakume gehiago etorri dira saiora, gonbidatu berezi bat tartean. Hurrek oporrak dituztela eta familia gehienak nola egituratuta dauden ikusita harritu ere egin naiz, baina, egia da izan dela etorri ez denik ere. Ea hurrengo saioan jakin dezakedan bakarren bat haurren zaintza medio etorri gabe geratu ote den.

Gaur aspaldiko gehien nekatu naiz saioan, eta ohi baino gehiago mugiarazi naute, baina, gustura aritu naiz. Inguruko gainerakoak ere hala aritu direla iruditu zait. Gustura aritzen dira saltsan eta baita neu ere. Gainera, orain astebetetik hona hobekuntza nabari dut oinean ere eta beldurra uxatzen ari naiz, uneren batean bisitan etortzen bazait ere.

Aurreko partidetan markagailua aintzat hartua izan bada ere aurreko astean baino garrantzia askoz ere gutxiago izan duela iruditu zait gaur. Aurreko binakakoetan hartu du bere pisua, baina, atzean gu tokatu garenean ia inoiz ez ditugu tantoak kontatu, beraz, lehiakortasun mailarena aztertzen jarraitu beharko da.

Ea nola heltzen naizen egunaren amaierara, bidaia bat eta ordu eta erdiko beste saio bat ditudalako aurretik oraindik ere. Ea ba, eutsi goiari, Uxue! Eskerrak, asteazkenean ia ez dut inora mugitu beharrik izango ikerketa medio eta horrek hauspo apur bat emateko balio dit niri behintzat.

Ezohiko eguna, ezohiko taldea

Ezohiko eguna izan da gaurkoa eta amaiera ere halakoa behar zuen nonbait. Hasiera ez da asterokotik asko urrundu, baina, astelehenetan bazkalordurako etxean izan ohi naiz gehienetan eta gaur afalordua majo pasa ostean iritsiko naiz, egunaren zatirik handiena Buruntzaldean igarota. Asteazkenean egin ohi dugun saioa astelehen iluntzean egitea

erabaki genuen aurreko astean, arratsaldeetako bi taldeak batuta, asteazkena arriskutsuagoa izaki kideok bertaratzeko, ostegun santua biharamunean baita eta zenbaitek kanporako asmoa dutelako egun horietarako.

Hernaniko goizeko saioa, korrikaldia, Miarritzeko buelta eta erosketa tartetxoak amaitutzat emanda liburutegiko mahai bat neure egin eta bi ordu eta erdi eskasean larri-larri goizeko saioko oharrak idazten amaitu (edo erdi amaitu, akaso) ostean korrika eta presaka abiatu naiz Usurbilera. 19.15ean Biteritik irten eta autora traste denak soinean arin-arin joan eta berandu nabilenean sortzen zaidan kezkatxoa buru barruan, 19.20an kotxeko motorra martxan jartzean ekin diot gaurko azkenaurreko bidaiari. Neke pilaketa, fisiko zein psikologikoa, nabari dut eta oraindik beste bi ordu eta erdian hara eta hona ibili behar. “Uf, zer da hau?!”

Sarrera

Zazpiak eta erdietako kanpaiek Usurbileko sarrerako bidegurutzean harrapatu naute eta bizpahiru minutuan kotxea aparkatu, paleta eta poltsak hartu eta pilotalekura bidean jarri naiz. Hain justu ni baino 20 metro aurrerago Haizea ikusi dut iritsi berri, motxila bizkarrean, eta harekin elkartu ostean batera egin ditugu pilotalekurako dauzkagun 200 metroak. Nik eguna nola pasa dudan bi hitz egin dizkiot eta berak ere bere ibileraz beste gauza pare bat kontatu dizkit.

Pilotalekua

19.33 inguruan heldu gara bertara eta haurrak jolasean ikusteaz gain gaur heldu batzuk ere bazeuden kontu kontari inguruan, oporretan edo opor usainean. Horrez gain, oraindik ere ezagutzen ez dudan emakume bat paleta eskuan hizketan ari da, astelehenetakoa dela pentsatu dut, eta apur bat barrurago Izaskun ikusi dut zutik, bestean zain jarrita. Berarengana hurbildu naiz eta oporren hasieraz galdetu, “ondo hasi al dira oporrak?” eta “bai” erantzun dit. Ondoren, berriz, poltsatik sagar bat atera eta “ez dakit heziketa onekoa den, baina axola ez badizue sagarra jatera noa” esan diet, tripa-zorriak sumatuta. “Gosea dagoenean jan egin behar da” erantzun dit eta jolasean dabiltzan hurrei begira besteak noiz helduko zain geratu gara. Jaione laster heldu da eta jaten ikustean “on dagizula” batekin egin dit diosala. Metro gutxitara bazeuden bospasei pertsona hurrekin eta Jaioneri “orain zuei utzi beharko dizuegu hau, ala?” galdetu diote, irribarretsu. Ondoren guregana hurbildu da eta boskotea osatu dugu dagoeneko: Haizea, Estitxu (astelehenetako ilehoriaren izena), Izaskun, Jaione eta ni neu. Haizeak “enteratu naiz palara engantxatuta zaudela” esan dio Jaioneri eta honek, harriduraz, “ni?” galdetu dio. “Beno, gero kontaktuko dizut” batekin Haizeak gaia amaitutzat eman du, momentuz bederen.

Hizketan aritu gara eta “ume hauek denak nork bidaliko ditu hemendik?” galdetu du bakarren batek. Badira batzuk pilotan, futboleak, monopatinean eta hizketan pilotaleku inguruan dabiltzanak, egia esan. Nik “beno, bidaliko ditugu, ala? Aurreko astean alde egin zuten” erantzun dut eta trukean “bai, baina, aurreko astean ez zeuden oporretan eta gaur dagoeneko bai” esan dute. Hala gaudela Jaionek esan du “Idoia eta Aitziberrekin topo egin dut orain 10 minutu eta esan diet 10 minutuan frontoian ikusi nahi nituela, saiorako aldatuta. Etortzekotan dira, baietz esan didate behintzat”. Halako batean beste emakume bat bertaratu da paleta eskuan, M^a Jesus izena omen du, hau ere astelehenetako taldekoa eta “arratsalde on” esanez agurtu dugu elkar. Honen atzetik

nahiko azkar ikusi dugu nola datozen harmaila atzetik Aitziber eta Idoia. Haizeak ikustean “hauek lasai datoz” esan du. Ester ere ikusi dugu haurren bila etorrita eta Haizearekin hitz bi egin ditu, gaur ere ez omen da goizeko saiora joan, ez zutela egingo ustea omen zuela eta. Azkenean, beraz, zortzi bildu gara entrenatzailea ere kontatuta. Elkar agurtu eta borobilean bildu aurretik “errekor denboran” esan die Jaionek barrez eta “baietz?” erantzun dio Aitziberrek, tankera bertsuan. Orduan Izaskunek “gure taldeko lau etorri gara” esan du eta nik aldamenetik ezetz esan diot, bost gara eta berak erantzun “beno, ikastera etorritakoak lau gara”, irribarrez. Beste biek, aldiz, eurenetik bi baino ez direla etorri esan dute. Jaionek “Eneritz ez al da etorriko? Ze pena, ezagutu gabe geratuko naiz” bota du, askotan Haizeak izena nahasi eta hala deitzen baitio. “Beno, ez dakigu, agian bai, hura askotan bost gutxiagotan etortzen da” esan dute eta nor izan litekeen edo noren ama den hizketan hasi dira elkarren artean, ezagutzeko erreferentzia bila. Hala ari direla Haizeak “bi taldeak elkartuta asmatu dut, banekien nik jendeak huts egingo zuela” bota du. Egia esan, arrazoi duela pentsa liteke panorama ikusita. Hala Haizeak “elkar ezagutzen duzue, ala?” galdetu die emakumeei eta “nik zu ez” esan du M^a Jesusk niri zuzenduz. Jaionek “hau urrutikoa da” esanez egin dit bidea eta nik “bai, ni Urretxukoa naiz” erantzun diot. Hori entzutean urruti iruditu zaiola adierazi keinu bidez eta “Urretxukoa zara baina Usurbilen bizi zara?” galdetu dit eta “ez, Urretxukoa naiz eta astero etortzen naiz, ikerketa lan bat egiten ari naizelako emakumeen pilotaz”. Hori jakitean Haizeari “eskerrik asko abisatzeagatik” esan dio eta nik beldurtuko ote zaizkidan beldurrez “baina, lasai, nik ez dut ezer arrarorik egiten” esan diet. M^a Jesusek jakin-mina ase gabe dagoela dirudi eta “zuk zer egiten duzu, begira egon ala jolastu ere bai?” eta niri aurea hartuz ia aho batez erantzun diote kideek “jolastu, begira egon eta denetik pixka bat”. Nik irribarrez ez dut hitz gehiago egin.

Hizketan ari gara eta beste puska batean ere jarraituko genuke guk, baina, Haizeak “hasi egin beharko gara, ezta?” galdetu digu ironikoki eta borobilean jarrita eta hitzak oso urrun ez ditugula saioko beroketari ekin diogu.

Beroketa

Ohi bezala orkatilak biratzeari ekin diogu, Haizearen mugimenduak errepikatuz. Mutikotxo bat ere inguratu zaigu hasi aurretik eta Aitziberren semerik gazteena dela jakin dugu. Eskuan pilota bat duela paretaren aurka ari da aitarekin eta “zer, pilotaria jai al da?” galdetu diot nik aldamenetik. “Ez dut uste” erantzun dit berak. Haizeak esan du “egunen batean afariren bat egin beharko dugu denok zuen seme-alaba eta senarrekin, elkar ezagutzeko” eta “haurrik gabe egitea hobe izango da, guk geuk” erantzun du Idoiak. “Zer, lana izango al litzateke bestela?” galdetu diot hori entzunda eta baietz adierazi dit aurpegia eta burua mugituz.

Orkatilak biratu ondoren kuadrizepsak luzatzeari ekin diogu eta beste hiruzpalau mugimenduren ostean korrika saiotxoari ekiteko momentua heldu zaigu. Bitartean ikerlanari buruz Haizeak “gaur beste bi ezagutu ditut idatziko du” bota du eta M^a Jesusek aurrez luzaketak egitearen inguruan ez zituela bere garaian egiten esan duenez Aitziberrek “zure garaian ez zenituztela egiten idatziko du” gaineratu du. Nik esan diet bi urte barru ikusiko dutela, izengoiti batekin idatzita eta agian euren burua identifikatuko dutela eurek, baina, kanpoko inork ezetz. “Hainbeste itxaron behar al da?” galdetu du bakarren batek.

Korrika egiteari ekin diogu eta Haizeak hurrei adierazi die saioa daukagula eta laster alde egin beharko dutela. Ez dirudi askori gehiegi gustatu zaienik, baina, aurrez ari ziren tankeran jolasean aritu dira gu inguruan bueltaka ari ginen bitartean. Gaur ere hiru bat gunetan banatuta daude haur multzoak, batzuk pilotan, besteak futboleak eta besteren batzuk harmailan eseri eta ingurura begira. Bospasei itzuli eman ditugu eta oraindik biraka ari garela “hainbeste korrika egin behar al da?” bota du M^a Jesusek, badirudi ohi baino gehixeago aritu dela, eta Haizeak “beno, azkena” esan du. Beraz, azken itzulia eman ostean berriro ere harmailan atzeko aldearen parean geratu eta norbere paletak hartu bitartean Haizeak esan digu “gaur partiduak egingo ditugu. Haurrek ere eskolan azken egunean ez al dituzte marrazkiak edo jolasak egiten? Ba guk partidak” eta irri bat baino gehiago bistaratu dira ezpainetan. Aurrez, ordea, “binaka jarrita berotu paretaren aurka, ezker eta eskuinez” adierazi digu eta pilotak banatzeari ekin dio.


Ezker hormaren aurka, frontisetik gertuen Jaione eta biok, aldamenean M^a Jesus eta Izaskun, ezkererago Haizea eta Estitxu eta gugandik urrunen Idoia eta Aitziber kokatu dira. Pilota hartu eta Jaionek eta biok hartu dugu frontiserako bidea “hauek bidaliko ditugu, ezta?” esaten dudan bitartean hurrei begira. Idoiak, bada ez bada ere, “Iker, bukatu da” esan dio semeari, hura ere aurrealdean baitabil jolasean. Gu hurbildu eta kexa handirik gabe hustu da pilotalekua, haurrek kanporako bidea hartu dutelako. Ezkerrarekin jotzeko esan duenez gu ezkerraren erabileraren gainean hasi gara hizketan, Jaionek “umetan ikastea errazagoa izango da” esan duelako. Nik “noski baietz, gero ohitura batzuk aldatzea askoz ere zailagoa da, baina, ikasten da, nik apenas erabiltzen nuen ezkerrekin hasi nintzenez” erantzun diot. Bide batez “zuk ere nabarituko duzu aldea ezkerrarekin jotzean, ala?” galdetzeko probestu dut eta berak “ez pentsa, agian batez ere gehiagotan saiatzen naizela” erantzun dit. Hortik nik azaldu diot nik saioetan asko erabiltzearen poderioz lortu nuela ezkerrarekin orain dakidan bezala ematen, baina, “igerian adibidez tontoa da oso nire ezkerrekin, ez naiz gai eskuinarekin egindako propulsiio mugimendua egiteko, deskoordinatu egiten naiz”. Horren inguruan hizketan ari ginela Haizea hurbildu zaigu eta “ezkerrarekin ere jo” esan du eta “ari gara” erantzun diogu aho-batez. Bakarren batek egindako kolpea ikusi eta “zeinen onak zareten” bota digu eta “zu bai zarela ona animoak ematen” erantzun dio Jaionek. Hala jarraitu dugu ezker eta eskuin kolpeak eta hitzak elkartrukatu eta tankeratsu dabilta beste emakumeak ere.

Haizeak denoi “etorri” esanez hots egin digula iruditu zaigu, baina, oso ziur ez gaude eta aldamenekoak erdialdera inguratzen ikustean gu ere pilota eskuan hartu eta kantxaren erdi ingurura hurbildu gara, saioa atal nagusiari ekiteko.

Ariketak

Aurrez hitz emandakoa betetzeko asmoa erakutsi du Haizeak eta “banakako partidak egingo ditugu aurrean” jakinarazi digu.


1.1. Frontiseko eremuan. Banakako partidak, libre. 5 tantora.



“Nor hasiko da?” galdera egin du Haizeak eta denok elkarri begira geratu gara. Azkenean “Estitxu eta Idoia” esan die eta hauei pilota emanda besteok atzerago abiatu gara, ea bertan zer egitea proposatzen digun Haizeak.

Aurrean partidari hasi dira berehala eta gu, berriz, zain egon gara une batean. Pilotalekuan pankarta handi bat dago ezker horman jarrita, 4x4 metrokoa agian, eta lehen ezker horma nahiko baxu geratzen bazaigu jokatzeko gaur zer esanik ez. Hala ere, Haizeak proposatu du lehen ariketa.

1.2. Ezker hormaren aurka, atzean. Hirunaka jarrita, bi zelai ezberdinetan, eskuineko zelaikoek kolpe guztiak ezkerrez egin behar dituzte eta ezkerrekoek, aldiz, eskuinez.



Ariketa azaldu duenean “bi zelai independente dira” esanez argitu ditu sorturiko dudak entrenatzaileak eta seikotea bitan banatuta ekin diogu. Eskuinean Jaione, M^a Jesus eta Izaskun eta ezkerreko gunean Aitziber, Haizea eta ni neu. Gu kolpeak txandatzen hasi gara eta halatsu besteak ere, lasai-lasai. Gure kasuan Aitziberrek kasu batzuetan ihes egin pilotari eta guk eman diogu, baina, lasai emateko esan eta kolpeak egin ditu azkenerako. Ezkerreko gunean ere gure tankeran dabilta.

Aurreko partidari, aldiz, ez daude elkarri ezer barkatzeko. Horma bikoak eta moztutako pilota bat baino gehiago ikusi ditut eta amaitu dutenean ere arnas estua sumatzen zaie biei ala biei. Guregana hurbildu dira eta “zeinek irabazi du?” galdetu du Haizeak eta Estitxuk “nik, 5-4” erantzun du. Beraz, “beste bat aurrera” esan eta Estitxu eta Aitziber joan dira aurreko gunera partida jokatzera. Atzekoak, berriz, eremuz aldatzea erabaki dugu. Eskuinera igaro dira Izaskun, Jaione eta M^a Jesus eta ezkerrean Haizea, Idoia eta ni neu.

Buruz buruko bigarren partidari Aitziber eta Estitxu elkar mugitzen ari dira, hara eta hona pilota ere dantzatuz eta atzean, aldiz, Haizeak gure inguruan horman bandera bat dagoela ikusita “banderolari jotzea egingo dugu” bota du. Guk baiezkoa eman eta lehen kolpeetan denetan lortu dut nik helburua. Idoiak ere askotan eta hala ari ginela Haizeak “a zer punteria” esan du eta “agian binaka bidaltzea hobea nuen, azkarrago bukatzeko” esan digu. Guk “agian bai” erantzun diogu, zintzo. Gure eskuinean, aldiz, ezkerrez ari dira kolpeak egiten eta tarteka pankarta handia jotzen dute.

Aurreko partida amaitu dutenean berriro ere atzera hurbildu dira Estitxu eta Aitziber eta “berotu al zarete?” galdetu du Haizeak. Estitxuk “joe, berotu, nik gainera bi jokatu ditut” erantzun du. Ondoren gaineratu du “gainera, besteak nola jokatzen duen ez dakizunean beti saiatzen zara gehiago, ez dakizulako besteak zer egingo dizun”, bere taldekoak ez diren bi kiderekin aritu delako partida horietan.

Aurreko gunera beste bi bidali ditu nor baino nor aritzeko, Izaskun eta M^a Jesus. Beraz, Jaionek, Estitxuk, Idoiak, Aitziberrek, Haizeak eta neuk osatzen dugu kasu honetan atzeko seikotea. Haizeak “hemengo ariketa hau aspergarri samarra da eta nik ez daukat

inspirazio handirik. Zer egin nahi duzue hemen?” galdera zuzendu digu eta “alde batetik bestera, ezkerretik eskuinera eta alderantziz botatzen aritu gaitzke, baina ez da oso entretenigarria” erantzun dut lehendabizi nik. Ondoren, besteren batek pankartari erreferentzia eginez “egingo al dugu Euskal Herriko herriak jotzera? Uxue, ea Tuteran non dagoen” bota du eta nik “plastikoan jotakoan pilota ez da irtengo, bertan geratuko da eta ni, gainera, ez naiz batere ona geografian” erantzun diet. “Zuk esaten duzuna egingo dugu” esan diote ondoren Haizeari eta azkenean Aitziberrek eginiko proposamenari eman diogu baiezkoa “hondartzan bezala aritu gaitzke, binaka jarrita kolpeak emanez” adierazi berri baitu.

2. Binaka jarrita, pilota airean mantenduz, kolpeak egitea jarraian.

Kosta zaigu apur bat Aitziberrek esan nahi zuena zer zen zehaztea, baina, azkenean binaka pilota bana hartu eta kokatu gara kantxan. Idoia eta Estitxu, Jaione eta Aitziber eta Haizea eta ni azkenak, atzeraxeago.

Hasi eta “hau ez da batere erraza” esan du Haizeak, ez baitugu indarra neurtzen asmatu lehenengoan. Estitxu eta Idoia ere hala moduz dabilta eta Aitziberrek eta Jaionek guk baino errazago asmatzen dute nahiz eta botea egin ondoren pilota jotzen ikustean Haizeak “Aitziberrek bote ondoren jotzen du” esan eta besteek, itsasoaren ildoari segituz, “pilota busti egin zaigu” erantzun digute barrez. Nik, berriz, “kontuz, olatua” bota dut irria ezpainenetan.

Aurrean Izaskun eta M^a Jesus euren kabuz ari diren partidaren eta besteok festa dezentea jarri dugu ariketa proposamen honekin. Guri pilota pare bat joan zaizkigu pilotalekutik kanpora, adibidez, eta besteen pilotaren bat ere hurbildu da gugana. Hori bai, talde giroa ederra da.

Aurreko partida amaitu dutenean Izaskun atzerantz hurbildu da, galdu egingo zuen ziurrenik, eta M^a Jesus aurreraxeago geratu da. Haizeak “zein falta da?” galde egin du eta Jaionek eta biok egin dugu frontiseko guneranzko bidea. Pilota eskuan hartu eta partidari ekin aurretik atzeko seikotearen “hondartzako jardunari” begira egin dugu unetxo bat. “Hemen zer egin behar da?” galdetu die M^a Jesusek eta “hondartzan bezala” erantzunez eman diote azalpena besteek.

Buruz buru aurrean Jaionek eta biok topo egin dugunean, nirekin egokitu zaiola ikustean ni mugitzeko esan dio Haizeak. Hasi eta nahiko erritmo politean jokatu dugu, une batzuetan korrika eginaraziz aurkariari. Halako tanto baten amaieran “ni nekatzen ari naiz” esan diot Jaioneri eta “orduan imajinatu ni” erantzun dit. Tantoak nahikoa piloteatuak izan dira eta ongi moldatu gara. Azkenean 5-3 amaitu dugu eta atzekoengana hurreratu gara. Ordurako binaka airean kolpeak emateari utziak dira eta ezker hormaren aurka piloteatzen ari dira. Erabaki hori hartu dutenean “itsasoa falta zaigu” esan du Idoiak irribarrez (B.K. Ariketa ez da agian pilotan ikasteko egokiena izango, baina, a zer giroa lortu dena “hondartzan bezala” eta “olatua datorrela” horien harira). Atzera gerturatzean “zein falta da aurretik pasatzeko?” galdetu du Haizeak eta “zu bakarrik falta zara, denok pasa gara” erantzun diot nik. Hortaz, berriro ere denok batu gara kantxaren erdialdean eta “binakako partidak egingo ditugu” jakinarazi digu entrenatzaileak

3. 2:2 partidak aurrean, 8 tantora. Zortzi gaudenez bi bikote lehenengo eta beste biak ondoren.

“Bikoteak nola egingo ditut?” galdetu du Haizeak eta “ni behintzat honekin jarri” erantzun dio berehala M^a Jesusek, Estitxu seinalatuz. Haizeak ezetz erantzun dio, nahastuta arituko garela jakinaraziz eta “bale, zuk esan orduan” entzun da albotik. Aitziber eta Idoia, M^a Jesus eta Jaione, Izaskun eta Haizea bera eta Estitxu eta ni jarri gaitu elkarrekin. Adierazi digu “ez dakit zeren arabera egin ditudan bikoteak”, baina, inork ez du eragozpenik adierazi.

Aurrean partida jokatzen Aitziberrek eta Idoiak eta guk osatutako bikoteak hasiko garela esan du Haizeak. Pilota hartu eta aurrera joatean “non jarri nahi duzu?” galdetu diot Estitxuri eta “nik aurrean nahiago, zuk non nahi duzu?” erantzun dit eta “ados, ni jarriko naiz atzean, niri berdina zait” batekin hartu dugu gure kokapena. Aurkarietan ere Idoiak aurrean nahiago duela eta hau aurrelari eta Aitziber nire inguruan atzelari kokatu dira.

Beste laurak atzean pilotatzen ari diren bitartean gu nahiko partida lehiatu eta orekatua jokatzen ari gara. Nik ez dut gaur arte kide dudarekin jokatu, baina, “zu sartu lasai eta eman” esan diot behin baino gehiagotan. Elkar ondo hartu dugu eta Aitziber eta Idoiak ere antzera. Aitziberrek, adibidez, errebezez nahiko itxuran ematen dio pilotari eskuinerako noranzkoa eta nik hala jakinarazi diot. Berak erantzun dit postura horretan ikusitakoan zuzenean eskuinera joateko ez dakiela hortik beste inora botatzen berak. Hurrengo tantoan, ordea, errebezez ezkerreara bota du eta adarra jo asmoz “hori al zen eskuina?” galdetu diot. Berak irribarre batez erantzun dit. Ederki ulertu dugu elkar. Gure partida amaitzean atzera joan gara eta beste bi bikoteak hurreratu dira frontiseko gunera.

Atzean pilotatzea dagokigu orain guri beste laurak aurrean partida jokatu bitartean. Hala ari gara lasai ederrean Aitziber, Estitxu, Idoia eta laurok. Halako batean “zer ordu da?” galdetu eta “20.26” erantzun dio Estitxuk. Handik bizpahiru minutura “beno, etxean bi palista gara eta ni banoa” esanez Haizeari abisatzera joan eta ondoren trasteak soinean hartuta etxerako bidea hartu du. “Ondo pasa oporrak” esanez agurtu eta, beraz, hiru geratu gara: Aitziber, Estitxu eta ni neu. Pilotakadak eta hitzak elkartrukatu aritu gara, Estitxuk Aitziberri “zuk ederki ematen diozu zenbaitetan” esanez eta haren eskumuturraren mugimendua ekarri dugu hizpidera. “Okerrena da ni ez naizela konturatzen” esan du berak eta Estitxuk esan du “nik ere eskuineko ukondoa barrurantz sartzen dut, eskubaloian aritua naiz eta agian horregatik izango da. Ezkerrarekin, adibidez, ez dut halako mugimendurik egiten”. Nik “hori denborarekin kontziente bihurtzen da eta orduak sartuta bidera liteke” erantzun diet eta desanimatu ez daitezen “gauza bat teoria izaten da eta beste bat praktika” ere erantsi dut. Kolpeak joz jarraitu dugu eta pilota batek frontoiko atzealdera alde egin digu. Aitziber eta biok joan gara eta hura errekueratzean berriro ere kantzara sartu eta pilotean jarraitu dugu.

Aurreko gunera, frontis ingurura, begiratu dut behin baino gehiagotan atzetik, zeharka zein zuzenean hara begira jarritz, eta Haizea saltsa jarritz eta nahi eran tantoak egiten ari dela ohartu naiz. M^a Jesusek txapara bota du kolpe bat eta “ez da atera” esan du adibidez. Haizeak, berriz, “nahi duzuenean egin tantoren bat” botaz jo die adarra, sakea ateratzera doala.

Aurreko bikotekako partida amaitu dutenean atzeko gunera hurbildu dira denak eta Haizeak “zein gelditu da bikoterik gabe?” galdera bota du. Aitziberrek “ni, baina, niri berdin zait” erantzun du eta “zu jarri Izaskunekin” erantzun dio. Horren ostean nahikoa nahasketa sortu da aurreko gunean bikoteka jokatzera nor joan erabakitzeko. Lehenengo Aitziber-Izaskun eta guri esan digu, baina, aurrez elkarren aurka jokatuak garela ohartu da eta azkenean Jaione-M^a Jesus eta Estitxu-ni bidali gaitu frontiseko gunera binaka jokatzera.

Estitxu berriro ere aurrean jarri da, Jaioneren alboan, eta atzean M^a Jesus eta neroni. Partida jokatzeko hasi gara eta erdi inguruan “honek nahi duen bezala jokatzeko duen nahi duen erritmoa jarritz” esan du M^a Jesusek eta besteok irribarre egin dugu. Estitxuk “niri pareja onegia jarri dit” erantzun dio. Ondoren esan digu askotan tokatzen zaiela elkarrekin bikotea osatuz aritzea astelehenetan. Nik, aldiz, kideari “lasai sartu” esan diot. Jaionek estropezu egin eta lurrean amaitu du tanto batean eta “zer, ondo?” galdetuz hurbildu eta “bai, bai, lasai” esanez erantzun eta lagundu diot lurretik altxatzen. Ni lasai ari nintzen, euren jokora egokituz, tantoak luzatu eta gaiztakeria handirik gabe. Haizeak atzetik “zer, bukatuko al duzue?” galdera egin digu halako batean eta nik “bai, 7” esanez erantzun diot. Hori ikusita “gainera inongo beldurrik gabe erantzun dio honek” esan du M^a Jesusek berriro eta “honi irabazteko gutxienez hiru behar dira” erantsi. Nik irribarrez erantzun diet eta ez dut ezer esan. Azken tantoa guk lortu dugu, tantoa luzatu eta eurek huts bat egin dutelako, eta atzeko hirukotearengana hurreratu gara.

Zazpiok elkartu garenean Aitziberrek edo Izaskunek “Uxueren aurka hirurok” esan du eta niri begiratu dit Haizeak. “Nik arazorik ez daukat” erantzun diet eta hiru baten aurka jokatzeko esan digute.

4. 3:1 egoeran partida, Izaskun, Jaione eta Aitziber hirukotean eta ni bakarrik.

Bitartean Haizeak, Estitxuk eta M^a Jesusek harmailetan eseri eta guri begira geratzea erabaki dute (B.K. Nik neurekiko pentsatu dut “bereiz euren orduan hara non gu jokatzeko eta eurek begira geratu diren, ez dakit oso zuzena ote den”, baina, beste hirurek hala nahi zuten eta mingainari horzka egin diot).

Hirurak nire aurka jokatzeko nola antolatuko diren pentsatzeko esan die Haizeak eta elkartu egin dira. Ni irribarrez geratu naiz zain eta “plakaketak izan ezik beste guztiak balio du” erantzunez ekin diogu partidari. Izaskun jarri da aurrean ezkerrean, Jaione eskuinean eta Aitziber atzelari. Hasi eta ni lasai aritu naiz, pilota nahiko eskura zetorkidan eta euren ere jotzeko moduan pilotakada bat baino gehiago bideratu dizkiet. Hori ikusita harmailetatik “ikusita zeinen gutxi mugitzen den” esan die Haizeak beste biei eta “lasai dabil, gainera” erantsi du besteren batek. Tantoak ez dira oso motzak izan eta nik huts pare bat egin ditut. 1-3koa lortu dutenean aurkariek “aupa, Usurbil” animatu ditu M^a Jesusek eta nik irribarre egin dut. Halako batean euren artean mugiarazita tanto bat egitea lortu dute, ni euren hitzekin barrezka jarri naute eta brometan “barre eginarazteak ez du balio” esan diet. Aitziberrek “hemen estrategia guztiak balio dute” esan dit eta Jaionek sakea ateratzera doala, 6-4 goaz, “beno, guk egindako tanto bat lortu dugu gutxienez” esan du. Azkenean amaitu dugu aurreko guneko partida, bederatziak gain-gainean ditugula, markagailuaren arabera estua eta lehiatua joan dena, 7-5. Hala ere, nik beste martxa pare bat lasai estutu nezakeen neure burua behar izanez gero. Amaitu eta berriro ere talde osoa elkartu garenean entrenatzaileak “ez pentsa astero hiru baten aurka arituko zaretenik” esan die emakumeei. Ondoren, berehala,

“beno, luzaketak egin beharko ditugu” esan du eta ni harmailen atzeko gunera hurbildu eta jertsea hartuta jarri naiz borobilean, hozteko beldurrari aurre eginez. Jaionek ere gauza bera egin du eta bidean “ikusidugu desastre bat garela, hiruroi nahi bezala irabazi diguzu” esan dit eta “horrela ez jarri behintzat, orduak dira eta askotan zenbat eta gehiago jarri kokatzeko ez da erraza” erantzun diot nik, kezka puntutxo batekin. Berak, ordea, “lasai, brometan ari nintzen” esan dit eta halaxe hurreratu gara kontrakantxara, harmailak lagun luzaketak egitera.

Luzaketak egiten hastean “hauek zerbaitetarako balio al dute? Nik egia esan ez daukat sinesmen handirik, gure garaian korrika egiten genuen eta halakorik sekula ez” esan du M^a Jesusek eta nik “susto batzuk ekiditeko balio dute” erantzun diot. Haizeak eta biek ekin diote lehenengo egunean mugimenduak nola egin ere ez zekiela esateari eta barre apur bat egin dugu orain ere. “Nik Haizeak esaten duelako egiten ditut” aitortu du ondoren eta “esanekoak zarete oso” bota diet nik (B.K. Hala da, ez diet kexu eta protestarik entzun igarotako berrogeita hamapiku saioetan eta hori ez da leku askotan gertatuko, ziurrenik). Galdetu egin omen zuen zertarako zen bakoitza, nola egin eta erantsi du “nik behin entzun nuen galdetzen duena une batean dela tontoa eta bestela bizitza osoan eta galdetu egiten dut” eta nik “galdetzea ona izaten da” erantzun diot. Ondoren esan du “hizketan hastean tarteka pedagogikoki oso zuzen esaten digu zerbait, adibidez, jolas garaia bukatu da” eta Haizeak esan du behin hogeita minutu egin zituztela hizketan hasita. Nik esan diet “gu ere dezente hitz egitekoak gara”. Hala aritu gara, nahiko geure kabuz eta norbere erritmoan, luzaketak egiten amaitzea erabaki dugun arte, mingainari atsedean handiegirik eman gabe.

Harmailetara joan eta bertatik norbere trasteak hartu eta etxerako bidean jarri gara 21.01ean. “Hurrengo saioak apirilaren 16ko astean izango dira” gogorarazi digu entrenatzaileak eta nik “asko eskertuko dut 10 egunean batetik bestera ez ibiltzea” aitortu diet. M^a Jesusek “ondo bizi” esan dit eta nik “ikusidugu arte” erantzun diot. Ondoren Haizeak “ikastaroa noiz arte da, maiatzera arte?” galdetu du eta “baietz uste dut” erantzun dio Aitziberrek. “Zer pena” esan du ondoren eta bakarren batek “gero hondartzan elkartzeko gara” bota du irribarrez, saioko pasarteari erreferentzia eginez. Gaur ere aurreko asteetako berak (Haizea, Aitziber, Jaione eta laurok) abiatu gara elkarrekin hizketan eta Jaionek “esan behar didazu zer den engantxatuta nagoen kontu hori” bota dio Haizeari. Honek kontatu dio lehengusuarekin egon zela eta hark esan ziola zerbait. Lasaiago geratu dela dirudi eta opor egunak ondo pasatzeko eta bi aste barru elkar ikusiko dugulakoan agurtu eta gu kotxeetara eta eurak etxeetara bidean jarri gara. 21.09an sartu naiz kotxean, motxilatik grabagailua atera eta piztu eta paleta bertan utzi ostean jarri naiz bolantean, neka-neka eginda.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaueko bederatzia dira eta goizaldeko auskalo zer ordu dela iruditzen zait niri, indarrak xahututa eta ahituta nagoelako. Gogorra izan da eguna, ohi baino joan-etorri askoz ere gehiago tartean, baina, lehena igaro da eta ez da gutxi.

Gaurko saioan une batean bi talde ezberdinetako kideak batu izana nabaritu dela iruditu zait, hasieran batez ere, sarreran eta taldean lehenengoz batu garenean. Ordu eta erdi beranduago, ordea, ez nuke esango alde hainbestekoa zenik, nahiz eta ohikoa den bezala norbere taldekoengana jotzeko joera apur bat izan dugun akaso. Hala ere, bi

taldeak erdipurdi geratzea baino hobea izan da askoz ere egun berean elkartzea. Hor asmatu dugula uste dut, asteazkenean ez baitakit nola izango ote ginen.

Saioko dinamikan une batean banakako partidak egin ditugunean ez dakit ez ote garen atzeko eremuetan eskas samar geratu, baina, gauza asko egin ezta ere izugarri giro ona jarri da “hondartzan bezala” horren harira eta funtzio sozialerako eta gozamina lortzeko garrantzitsuagoa iruditzen zait gaur egindako ez dakit zer helburutako ariketak jartzea baino. Amaieran hiruk baten aurka jokatzeko ere ez dakit zenbateraino izan zitekeen zuzena, pilotalekuan zazpi lagun geundela ikusita, baina, eurek gogoia zutela ikusi eta halaxe egin dut nik ere. Momentuan ondo pasa dut, nahiz eta kontzientziako harraren bisitaren bat izan dudana tantoren batean eta ondorengo iritziren bat entzunda ere.

Biharamuna ere gogorra datorkit, Araban hasi eta Gipuzkoako ekialdean amaitu beharko baitut ia hamabi ordu geroago. Gainera, etxera iritsiko naizenetik ordu gutxi igaroko dira berriro ere autoa hartu eta errepidean abiatzeko unea heltzerako, hamar eskas ziurrenik. Beraz, ea asteartea nola hala pasa eta asteazkena heltzen den, autoan ibiltzeaz nazkatu bainaiz dagoeneko.

Iritsi ezinda

Eguna nahiko aldrebes doakit gaur. Bart ez dut ia begirik bildu pentsamenduetan murgilduta eta goizean Gasteizen izan naiz eta handik itzulita itomena eta lana lanaren gainean ekarri ditudalako nirekin batera. Bazkal garaian etxeoengana hurreratu eta esaniko lehenengo hitza adierazgarria da oso nire aldartea nolakoa den antzemateko: “sokorro”. Hala ere, eta Murphyren adeitasunari esker, beti izaten da aldrebesago bukatzeko zirrikituren bat. Gaurkoa adibide polita izan daiteke, ezta? Kaka zaharra!

N-1a erabat korapilatuta dagoela jakin dut ohiko orduan hasteko eta “opor” aurreko azken saiora abiatu eta bizpahiru minutura: “istripua izan da Irunera bidean Itsasondon, kamioi bat irauli da, eta trafikoa oso motela da” oharra eman dute Euskadi Irratian. Justu-justu lortu dut lehen ilarak ekiditea ere, Gasteiztik datozen kamioi eta auto denak ere korapiloan sartuta daudelako. Eskerrak irratia entzuten ari nintzen eta ez musika, aurrez burutik pasa zaidan moduan. Azkenean bide alternatiboa hartu badut ere, beste ehunka lagunek egin bezala, batoren eta bestearen artean ordubete pasa dut kotxean saiora bidean ilaran jarrita, herriz herri, Beasaindik Legorretara bide zaharretik, barraskiloen pare ere ez Beasain eta Ordizian, hura zen kaosa, eta apur bat arinago handik aurrera, hura pasata berriro ere N-1ean sartuz. Ez naiz nahi ordurako iritsi Zizurkilera! Panorama ikusi eta berehala, Beasaindik, dei egin diot entrenatzaileari bidean nintzela baina berandutu egingo nintzela jakinaraziz, 19.10ean. Alderdi positiborik ia ikusi ez arren lehendabizikoz pasa zait halakorik sei hilabeteen, ia hirurogei saiotan, eta pazientziaz hartzen saiatu beharko, ze erremedio!

Pilotaleku ataria

20.03an iritsi naiz Zizurkilera, hasperenka eta erre-erre eginda. Kotxetik irten eta zuzenean pilotalekura sartu naiz, atarian denborarik pasa gabe, jadanik ordu erdi inguru igaro baita kideak saioan hasiko zirenetik. Kristaletik begiratu eta ohartu naiz lau emakume eta entrenatzailea ari direla bertan.

Pilotalekua

Eskaileretan behera jaitsi bitartean hasi naiz behaketa lanetan eta atzeko eremuan Gurutze eta Itsaso pilotatzen ari dira. Aurrean, berriz, bat baten aurkako partida jokatzen ari dira Marian eta Pili, aldamenetik entrenatzailea epaile lanak egiten daukatela. Aspaldiko jenderik gutxien dago bertan eta Iriarten, taberna kanpoaldean, aldiz, ohi baino mugimendu handiagoa. Nabari da opor giroa hemen ere. Bakarren batek, Elik gutxienez bai, aurreko astean jakinarazi zigun kanpoan izango zela eta ez zela saiora etorriko. 20.05 dira dagoeneko. Gurutzek iristen ikusi nau eta kantxara jaisteko azken koskara heldu naizenean “zer moduzko umorea dakarkizu?” galdetu dit. Nik “umore txarra eta erretxindua, hauxe bakarrik behar nuen eguna borobiltzeko” erantzun diot. Antza denez badakite nire bideko oztopoen berri, Saioak jakinaraziko zien aurrez.

Ni pilotalekura iritsi eta nahiko azkar hurbildu zaizkit bostak, aurrean pare bat tanto baino ez zitzaizkielako falta eta atzekoak ere kontrakantxara etorri direlako. “Uxue, orain deskargatuko zara” esan dit entrenatzaileak nire aurpegiera ikusi ostean eta hasperen pare bat egin ditut nik, sututa nagoelako eta ez batere umore oneko.


Jaitsi eta une horretan ohartu naiz eguraldi aldaketa majo nabari dela frontoian bertan eta “hemen hotz egiten du” esan diot Piliri eta hark baietz erantzun dit, Marianekin batera atzeko eremura abiatu direnean (B.K. Aurreko astean 18°C inguru zeuden eta gaur, berriz, 8°C).

Aurreko eremuan Gurutze eta Itsasori heldu zaie buruz buruko partida jokatzeko uea. Saioa ere euren aldamenen jarri da kontrakantxako marrari itsatsita.

Ariketak

Gaur ez dut saioko eginbeharren eta ariketen gaineko azalpenik jaso, saioa hasi ondoren sartu naizelako bertan. Hala ere, aurreko asteakoaren antza eta aurreko egunekoaren planta badauka: banakako partidak eta atzekoak zain, pilotatzen.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Azeko gunean 1:1 pilotatzea.

Aurreko guneko buruz buruko partidak aurreko astetik aurrera ohiko izango direla banekien eta hala espero nuen gaur ere iritsi naizenean. Ez dut horretan hutsik egin behintzat. Azeko guneko pilotatzea ere ia saiorokoa bihurtu da, beraz, hau ere ez da nobedade.

Beste kideek paletak eta pilotak esku artean dituztela diharduten bitartean nik hotza uxatu asmoz zortzi bat buelta emango nituen kontrakantxan neure kabuz korrika txikian, erritmo lasaian, nahiz eta ez dudan lortu epeltzea. Bitartean aurreko partidari eta atzekoen ikusle rolari ere erreparatu diet, Marian eta Pili denborarik gehienez

aurrekoak jokatzeko ari diren partidari begira aritu direlako erreboteko eremutik. Ni, berriz, entrenatzailearen alboan jarri naiz unetxo batean eta bertan egin ditut mugimendu artikularrak. Hauek amaitutzat ematean motxilatik paleta bat eta poltsatik pilota bat hartu eta erdi inguruan jarri naiz, ezker hormaren aurka pilotatuz, beroketa ariketak amaitu asmoz.

Aurreko guneko partidaren elkarri gauzak estu jarri ari dira Itsaso eta Gurutze. Elkarri sarturiko horma biko pare bat ikusi ditut eta hutsen bat edo beste ere bai. Ez dakit emaitza zein den, baina, ez dute elkarrengandik oso urrun behar tanto kopuruan, ziurrenik. Arnasa ere berotu samartuta daukatela amaitu dute tantoren bat. Aurreko partida amaitu dutenean seiok elkartzeko gara kontraktantxan eta Saioak niri “saioa egingo duzu, ezta?” galdetu dit eta nik baietz erantzun diot. Hori ikusita Pili “zuk ere jokatu egin beharko duzu orduan” gogorarazi dio entrenatzaileari aldamenetik. “Beno, orduan binakako partidak egingo ditugu” jakinarazi digu eta “nola egingo ditut bikoteak?” galdera airean utzi ostean binaka jartzeari ekin dio: Itsaso eta Pili, Marian eta Saioa eta Gurutze eta ni neu.

3. 2:2ren aurkako partidak, frontisean. 5'ko partidak, irabazlea bertan mantenduz.

Frontiseko guneko partidaren nor hasiko den erabakitzeke, berriz, zotz egitea erabaki du Saioak eta eskuarekin zenbatzen hasi ostean “ya esan” bota digu eta Itsasok esatean “12, 13, 14, 15, zuek atzera” esanez amaitu du, Itsaso seinatuz. Orduan ohartu da, ordea, gure bikotea ez duela aintzat hartu nor jokatu duen kontatzean eta berriro ere lehengo prozesu bera errepikatu du. Oraingo honetan ere Itsaso izan da “bale” esan duena eta berriro ere bere parean amaitu da 15era arteko zenbaketa. Beraz, “gafea zu zara” esan Itsasori Gurutzek eta Pili-Itsasok atzerako bidea eta beste laurok frontiseko eremurakoa hartu digu. Itsasok pena aurpegia jarri du eurei atzean aurrekook amaitzeko zain egotea egokitu zaiela ohartzean eta “jokatzeko gogoia zenez orduan?” galdera zuzendu diot nik. Berak irribarrez erantzun dit, hitzik ahoskatu gabe.

Binakako lehenengo partidaren hasteko pronto gaudela 20.18 direla ikusi dut nire erlojuan. Nola kokatu erabaki digu, Gurutzek bera atzean jarriko dela esanda, eta kantxan jarri garenean “pilota falta zaigu” bota dut hala dela ohartzean eta Saioa joan da poltsara baten bila. Aurrelari Saioa eta biok hasi gara eta atzelari, berriz, Gurutze eta Marian. Hastera goazela, berriz, hara non Pili eta Itsaso kontraktantxan guri begira jarri diren, partida ikusteko jarri atzean pilotatzen aritu ordez.

20.19an hasi eta erlojuari eman dio Saioak. Aurrean gu biok elkarri ziria sartu nahian aritu gara eta kideek, Gurutzek eta Marianek, beste erritmo batean jokatu dute. Gurutzek halako batean “zuek deskantsatu pilota alde honetara etortzen denean” esan digu eta “gurea 40koen erritmoa da eta zuena 20koena” esan digu, irriz. Azkenean nik pare bat kale egin ditut, txapapera bidalitako pilotak izan dira, eta eurek lortu dute irabaztea. Beraz, bost minutuko tartea pasata pi-pi-pi-pi alarma hotsa hastean Gurutze eta biok atzerantzko bidea hartu digu eta Itsaso-Pili eta Marian-Saioa utzi ditugu frontiseko eremuan hasteko prest.

Aurreko binakako 2. partidarako postuak aldatu dituzte Saioak eta Marianek, lehena atzelari eta bigarrena aurrelari jarrita. Itsaso atzean eta Pili aurrean kokatu dira beste bikotean. Partidaren hasi dira aurreko laurak eta gu, berriz, erreboteko zelaitxoan pilotakadak eta hitzak elkartrukatzeko. Oporretarako asmoz galdetu diot nik kideari eta

Aste Santuko bost egunetan Andorratik gertu, Frantziara doazela esan dit, parke natural bat omen dago bertan. Oporretan dagoela ere badakit eta ea nola hasi dituen galdetu diot eta berak gaur ingelesezko on-line ikastaro batekin aritu dela, azken ariketa bat soilik falta zaiola, esan dit. Nik Gasteizen izan naizela esan eta ondoren halaxe jarraitu dugu hitz eta pitz honetaz eta hartaz. Aurrekoak jolasean ari dira bitartean eta denbora amaitu dela adierazten duen hotsa entzutean Saioak esan digu guri aurrera joateko eta eurak etorri dira erreboteko gunera, Marian eta Saioa.

Hirugarren partidaren orain arte topo egin gabeko Itsaso eta Pilirekin elkartu gara eta lehen jokaturiko partiduko postuak aldatuta kokatu gara kantxan zehar gu: Gurutze aurrean eta atzelari ni. Atzetik saiatu naiz denei pilotak bidaltzen eta ezkerreko txokoan dejada bidez Itsasori tantoa egiten ere bai, tarteka bata bestearen atzetik pilotakadak bertara bideratuz. Honek bi kasutan larri-larri iritsi eta esku bateko errebesarekin ona eginez erantzun du eta Gurutzek “nola eman dion” esan du. Itsasok “Uxurekin saioetan hasi aurretik hala ematen nion” esan digu ondoren eta jolasean jarraitu dugu Saioak bost minutuko tartea igaro zaigula jakinarazi arte. Ni lasai aritu naiz eta partida guk irabazita aurreko eremuan geratu gara berriro ere. Itsasok eta Pilik atzeranzko bidea hartu dute, beraz.

Hurrengo partidarako Saioa eta Marian etorri dira berriro ere atzetik eta elkarren aurka aurrez arituriko postu berdinetan aritu gara oraingo honetan ere, aurreko partidutik postuak aldatuz berriro ere Gurutzek eta biok. Partida honetan sakea guk atera beharko dugula ebatzi dugu, aurrekoaren errebantxa dela esanez. Beraz, prest gaudela erabakitzearekin bat martxan jarri dira erlojuaren atzera kontaketa eta partiduko lehenengo tantoa. Saioak, aurretik, argiaren fitxa atera eta Itsaso eta Piliri esan die “nik erdi sartuta utziko dut eta tinbreak jotzean etorri zuek”. Biak joan dira begiratzerara eta atzean piloteatzen aritu ordez kontrakantxan geratu dira kasu honetan ere, begira. 20.38 igaroak dira nire ordulariaren arabera. Partida hau hasierakoa baino apur bat orekatuagoa izan da, nahiz eta ez garen tanoz tantoa kontaktzen aritu. Guk aurrean elkarri tanto polit batzuk sartu dizkiogu eta atzean, berriz, Marianek ezker hormara bazterturiko kolpe batzuekin lortu du tanto batzuk egitea. Zirti-zarta handi samarra ibili dugu Saioak eta biok elkarren artean eta saiatu gara besteari kilimak egiten. Atzean, berriz, uneren batean “hauekin beldurra ere ematen du jotzeak” esan du bietako batek. Partidan zehar jo du txirrinak eta Pilik hartu du fitxarenak egiteko ardura. Amaieran galdu egin ote dugun iruditu eta gu izan gara berriro ere atzeko gunera piloteatzerara joan garenak.

Erreboteko gunean egin dugun bigarren jardunean “orain apur bat berotuko zinen, behintzat” esan dit Gurutzek eta nik “asko ez, baina, beno, ke pixka bat botatzeko balio izan dit gutxienez” erantzun diot. Oraingo honetan ere hizketan aritu gara, mingaina herdoiltzeko beldur handirik gabe. Aurrean, berriz, partidaren ari dira Saioa-Marian eta Pili-Itsaso. Denbora tartea amaitzean Saioa eta Marianek atzeranzko bidea hartu dute eta Gurutze eta bioi aurrera joateko esan digu entrenatzaileak.

Binaka jokatu dugun azken partidaren, beraz, Itsaso eta Pilirekin egin dugu topo berriro ere. Kasu honetan ni aurrean eta Gurutze atzelari postuetan jarrita hasi gara, aurrez elkarren kontra aritu garenean justu alderantzizko postuetan geundela aritu baikara. Lasai antzean aritu naiz ni, tarteka pilotakaden bidez besteei ziria sartu nahian eta tantoren bat edo beste lortuz. Lehengoa ikusi ostean ezkerrean txokoan behin baino gehiagotan egin dut proba eta Itsasori “gustatu zaizu kolpe hori” esan diot errebesari

erreferentzia eginez. Berak ere ederki erantzun dit, “zuri ere bai horra botatzea, e”. Han egindako tanto baten ostean “posible al da?” ere galdetu du, irribarrez.

Aurreko partida amaitu da eta atzetik aurrera etorri dira Marian eta Saioa, seiok kantxan borobilean elkartuta. “Bost minutu falta dira eta txokotan egingo dugu” bota du Saioak.

4. Txokotan banaka, bizitza batekin.

Saioak azken ariketa hau proposatu eta Gurutzek “baina zuek bizitzarik gabe edo zerbait egin beharko dugu, ez da posible nahi bezala jokatu eta baldintza beretan aritzea” bota du eta hori entzutean Saioak hasierako sakea egin eta kontrakantxarako bidea hartu du, ez jokatu. Gurutzek, “baina, zer zabilza hor?” galdetu eta “ikaratuta” erantzun dio honek. Beraz, nik eurek baino bizitza bat gutxiago daukat, “benetakoa” bakarrik. Beraiek, berriz, “benetakoa” eta beste bana. Saioak sakea atera eta lasai-lasai hasi gara jokoan, nahiz eta “Uxueri ahalik eta gutxiena bota” entzun dudana atzetik. Nik “hain gaiztoa ere ez naiz” esanez erantzun diet.

Itsasok ezkerrez jo du hormara ederki bazterturiko pilota hasi eta segituan eta iritsiko ez zela ikusita nik airez jarraitu eta frontisera iritsi da. Saioak “segi Itsaso, Uxuek salbatu zaitu” jakinarazi dio. Kolpea egiten bukatzearekin batean “hona ez al da beste inor etorriko?” ere irten zaio barru-barrutik kideari, ezker hormak eragiten dion ezinegona azaleratuz. Beraz, hori ikusita ni inguratu naiz bertara. Jokoan jarraitu dugu eta Pilik botatako horma biko bati nik iritsi eta beste batekin erantzunez tantoa eginda erantzun diot. Ohartu naiz agian ez zela zuzenena eta eskuarekin barkamen keinua egin diot pilota bila joan eta bueltan natorrela. Orduan “Uxueri ezin zaio bi paretarik bota” esan du berak eta nik “barkatu, zirkuitulaburrak izaten ditut” esan diot.

Horren ondoren jokatzen jarraitu dugu eta Itsasok nahi gabe bi hormen ertza jota bi pareta bat egin duela ikusi eta ia ezinezkoa zela ohartu naizen arren korrika abiatu naiz pilota horri kolpea tiratzera, baina, ez naiz iritsi. Beraz, neuk egin dut lehendabizi kaleratu eta kontrakantxara bidea. Pili dezente gertuago zegoen eta “hori nirea zen” esan du, baina, “lasai, lasai, nik egin dut korrika” esan eta entrenatzailearen aldamenean jarri naiz kideen jardunari erreparatuz. 20.58 dira jadanik. Pili izan da nire atzetik kaleratu dena eta bizitzen erreposoa egitean “honek oraindik 2 dauzka” ohartarazi ditu Gurutzek beste kideak. Zalantzazko pilota bat ere izan da eta biak batean jarrita aritu dira Itsasoren aurka. Tantoa eurek lortu eta denek bukatu dute bizitza banarekin, nahiz eta Itsaso kanpora abiatu den. Azken tantoa gogorra izan da eta arnas estuka amaitu du. Gurutzek pilota eskuan hartu eta “hartu pilota, arnasa eta atera sakea” esan dio eta kideak “hau bukatzen ez dena al da?” galdetu die. Nekea sumatzen zaie dagoeneko emakumeei. Azkenean amaitu dute, 21.03 inguruan, eta kontrakantxara abiatu gara denok, luzaketak egin asmoz.

Kontrakantxatik zuzenean kanporanzko bidea hartu du Pilik eta “luzaketak egin al dituzue?” galdetu du Gurutzek eta “nik denak egin ditut” esanez abiatu da etxera. Marian ere berehalaxe abiatu da eta azkenaldiko laurok geratu gara luzatu bitartean mingainari astindu bat emanaz. Aurrekoan ETB Kantxa saioan Zizurkilgo neskak agertu omen ziren, eskupilotaz aritu omen zen bertako elkarteko arduraduna, eta horren harira aurkezleaz hizketan hasi eta bertsoen inguruan amaitu dugu, Itsasok nik haren harira botatakoa entzuna duela esanda.

Frontoi ataria

21.15 dira eta oporretako asmoez bi hitz egin eta eurei ondo ibiltzeko esanez bi aste barrura arte agurtu dugu elkar. Saioan eta bidean denbora tarte bera igarota abiatuko naiz etxera, behingoz atetik barrura sartu eta eguna amaitzeko deseatzen.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko paleta saioa ohi baino laburragoa izan da niretzat errepideko gorabeherak tarteko, baina, ez zait iruditzen gauza askoz ezberdinagorik gertatuko zenik egon ez naizen ordu erdian. Hori ez dut jakingo, ordea. Hala ere, dezente izorratu nau bidaian hainbeste denbora auto ilaretan egin eta halako nazkatua hartu izanak. Gainera, nahikoa egun petrala igaro dut aurretik ere, beraz, errematea ere tamainakoa izan da.

Aspaldiko emakume kopururik txikiena izan da gaurkoa, ziurrenik apirilaren hasierako Aste Santuko oporrek eraginda. Horrek parte hartzea aktiboagoa izaten lagun zezakeen agian eta ez dakit hala izan den, baina, emakumeak nekatuta eta hauspoa berotuta beste egun batzuetan baino gehiago ikusi ditudala esango nuke.

Azken saioa nuen aste honetan, ohi baino egun bat lehenago, gainera, eta baita apirilaren 16ra arte ere. Eskerrak, a zer bakea hamar egunetarako! Ea orain beste atalei heltzeko kemena eta umorea nonbaitetik datozkidan, zerutik, infernutik edo Honolulutik baldin badatoz ere niri bost!

“Oporrak”

Ez zen jasangarria azken egunetako joan-etorrien eta lanegun amaigabeen erritmoa, ez niretzat, eta bolada gorabeheratsu honetan, behintzat. Erretxinduta, nekeak gaina hartuta eta ezinaren atzaparrei iskin egin nahian nabil, amorrazioak ere egiten dizkit bisitatxo batzuk, eta ez da gustagarria ez niretzat eta ezta beste inorentzat ere egoera hau. Beraz, azken hamar egunen aurretik Aste Santuarekin oroitu ere egin ez arren ia erreguka aritu naiz azken orduetan “oporretako atsedenaldea” hel zedin. Eta bai, kostata, baina, heldu da udaberriko etenaldia. Atzean utzi ditut sei hilabete eginako 58 paleta saio, ehunka joan-etorritan eginiko milaka kilometro eta beste hainbeste buru-kantsazio zein gorabehera. Ez zaizkit aste batzuk nahi ordurako pasa eta ez ditut hainbat betebeharrak nahi eta behar bezala taxutu, baina joan dira eta gaitz-erdi. Unean unekoari heltzearekin nahikoa izan arren egutegia eskuetan matematika apur bat eginez kalkuluak atera eta ohartu naiz ikasturtearen 2/3ak beteta dauzkadala eta azken arnasaldi honen ostean hogeita hamar saio eskas baino ez zaizkidalako geratuko.

Saioen inguruko lanak baztertzeko egunak iritsi zaizkit, beraz, baina ez atsedenaldea osoa. Bai zera! Kakotx arteko oporrak dira hauek, nire ekinean aspaldian bazterreratuegi ditudan beste arloei heldu eta berriro ere errutinaren morroi bihurtu aurretik datu baseetako bilaketa, artikuluen irakurketa, orain arteko ariketen azterketa eta abarrei astindu bat eman behar larria baitaukat. Beraz, ingurukoak planak egin eta firin-farin hara eta hona gozaten dabiltzala ikusteak sorraraziko didan inbidia nolabait aurre egin eta nirean buru-belarri saiatzeko egunak heldu zaizkit. Hori bai, hamar egunetatik pare batean indarberritzeko tartetxoren bat hartu nahi nuke, bestela kiskalita iritsita bainaiz geldialdiaren osteko azken txanpara, arrastaka. Ea ba!

23. astea. ERRITMORIK HARTU EZINDA

Apirileko lehen bi asteetan, batere fededuna eta elizkoia izan ez arren, Aste Santuaren itzalean hainbeste desiotako geldialditxoak egin ostean, ia errepidean jarri ere egin gabe eta jarritakoan ez batetik bestera korrika eta presaka erlojuaren maizter bilakatuta (alde ederra!), ikasturtearen azken herenean murgiltzera noa. Kontaketak gaizki eginak izan ez badira behintzat, ez naiz alferrik aritu agenda eta egutegiak zehatz-mehatz arakatzeko, ia hirurogei saio igaro ditut orain arte eta hogeita hamarren azpitik geratzen zaizkit behaketetarako. Beraz, azken txanpan sartu naizela esan nezake, txanpa luze samarra suerta dakidakeela eta patxada zein pazientzia bidelagun hartzea komeni zaidala ahaztu gabe bada ere.

Hori bai, inork ez dezala pentsa tripaz gora jarri eta egonean eman ditudanik azken hamaika egunak, inguruko bat baino gehiagok izan duen opor giroan. Bai zera, pantailari itsatsita eta artikulu artean korapilatuta ibili naiz, bilaketei eta irakurketei aspaldi zor nien arreta eman nahian. Ez ditut jarritako helburu guztiak bete (ez dakit betegarriak ote ziren ere), baina, ez naiz denbora pasa alferkeriaren menpe ibili eta egun hauetan ordu asko sartu izanaz gain zerbait, oso apurtxoak bada ere, probetxuzkoa egin izanaren sentipena gailentzen da nigan. Beraz, ea bidezidor berean jarraitu eta fundamentuzko lana egiteko gai naizen berriro ere saioz saio eta herriz herri, emakumea eta pilotaren arteko binomioaren muineraino heldu nahian.

Bezperatik hasi da aste hau, igande arratsaldetik aurrera berriro ere astean zeharreko eginbeharrak zerrendatu eta buruan irudikatu eta txipa ezarri nahian aritu bainaiz. Beraz, ea nola joaten zaidan “8 eguneko” aste hau. Has bedi!

Egunerokotasunera buelta

Bi asteren ostean berriro ere eguneroko bidaia eta saioetan murgiltzeko eguna da gaurkoa. Astelehenetan astelehenena bat baino gehiagorentzat, ziurrenik. Ez niretzat, ordea, opor usaina besteentzat utzi baitut azken egunetan. Orain hamabost egun izan nintzen azkenekoz Hernanin eta bezperatik nerabilen buruan ikasturteko azken txanpari ekiteko unea heldu zaidala. Ez ditut alferrik atera kontuak egutegia eskuetan hartuta Aste Santuko “oporretan”, 58 saioko kopurua buruan darabilt gaur gaurkoz.

Eguraldi traketsa izan dugu gurean azken egunotan eta gaurkoak ere tankera hori du. Hori dela eta, iratzargailuak jo baino ordu laurden bat lehenago jaiki, bezperatik prestatutakoak jantzi, gosaldia eta aurrez atunduriko motxila lagun ohi baino hamar minutu lehenago jarri naiz errepidean, euriak sarritan trafikoko pilaketa edo istripuren bat eragiten duelako. Hala ere, ez dut arazorik izan eta lasai-lasai ederki egin dut bidaia N-1ean zehar.

Kiroldegiko sarrera

9.20an heldu naiz bertara, pauso lasaian, motxila bizkarrean eta aterkia eskuetan. Autotik nentorrela, kiroldegia baino aurreraxeago, ohartu naiz taldekide baten furgoneta bertan dagoela eta hura sarreran zegoen ni bertaratzerako. Beraz, goiz nator baina ez goizen. Malenekin elkartu eta “egunotz” esanez agurtu dut. Berak ere “a zer giroa” esan eta oporraldiko ibilera eta eguraldiaz hizketan hasi gara. Eurak ez omen dira kanpoan izan, “herria zaintzen ibili gara”. Nik niretzat hain giro kaxkarra ez dela izan esan diot,

leihotik begiratzean inbidia gutxiago ematen duelako euriak kanporako. Hala ari garela Gemma heldu da eta kanpoan izan direla badakigunez hango berri galdetu diogu “zer moduz oporretan?” batekin. Bart etxeratu zirela eta abar kontaktzen hasi zaigu. Ondoren Malenek Tilos-7 Txapelketarako kidea falta dutela esan dio eta ea arratsaldean eurekin jokatzeko prest leudeken, “Ainara edo zu, bietako bat, berdin zaigu”. Berehala heldu da Raketel ere eta gaur iratzargailuak jotzean itzali eta loaldia apur bat luzatu zaiola esan digu, “hainbeste egunetan presarik gabe ibiltzera ohituta” azalduz. Laukoteari beste bosgarren bat ere nahiko azkar batu zaigu, tornuaren beste aldetik Ines agertu baita. Honi besoa jasota kasu egin diot nik, aspaldi ikusi gabea bainaiz. Berak ere gustura egin dit diosala. Hurrengoak iristen ama-alabak izan dira, Jone eta Zuriñe, 9.32an, eta ia hauekin batera heldu da entrenatzailea ere. Atetik sartzen ikustean “ea honek zer aurpegi dakarren” bota dut nik irribarretsu. Malagara joatekoa zen Aste Santuko egunetan. Barrurako bidea hartu aurretik “Ainara ba al dator?” galdetu diote Gemmari eta honek “baietz uste dut” erantzun du. Hori esan eta bestea eskaileretan behera agertzea biak bat izan dira eta “lehenago esanez gero lehenago iritsiko zen” esan dut nik. Une horretantxe hasi gara kanpotik barrurantzko bidean abiatzen, tornua igarota.

Saioa eta biok elkarrekin aritu gara azken egun hauetako jiraz hizketan eta gure atzetik bertantxe datoz Ainara eta Gemma ere. Saioari tornua ireki arte zain egon naiz ni eta beraz besteak aurrerago doaz. Pilotalekuko azken pasabideko atera iristean atea itxita topatu dugu eta tinbrea jo behar izan dugu. Beste emakumeak pasabidean aurrera nola doazen ikusiz zain apur batean egon eta egin ditugu azken metroak laurok. Frontoira sartzeaz gaudela barrutik kanpora datoz bi garbitzaile eta haiek agurtu ostean sartu gara ilun samar dagoen pilotalekura.

Pilotalekua

Kanpoan giro goibel eta bustia dago, lainotua, eta gaur ez da eguzki argirik sumatzen bertan. Saioak “argia pizteko eskatzera joan beharko naiz” esan du sartu orduko. Beste emakumeak txamarra, poltsa eta gainerakoak uzten hasiak dira dagoeneko eta nik ere halaxe egin dut, Inesen ingurura joan eta “irauten dutenak agertzen direla” batekin kasu egin diot. Bera hurbildu eta “hamabost egun egin ditugu baserrian eta atzo etorri ginen bueltan” erantzun dit. Ea lesioa ondo osatu zaidan eta antzekoak galdetu dizkit eta hitza hitzari josiz ari garela hurbildu gara ia erdi korroan jarrita dauden besteengana. Orduantxe heldu da Miren eta “ui, ahizpak goizeko txanda zuela uste nuen nik” esan dit. Honek, berriz, “astelehen eta asteartean jai” erantzun dio. Trasteak utzi eta laster hurbildu da besteengana hau ere. Borobilean jarrita gaude eta Saioak larunbat honetan bertan Amasan ospatzekoa den PG Topagunera joatekoak ote diren galdetu die emakumeei. Antza denez oporren aurretik mezu bat helarazi zien galdetuz eta batzuk “nik erantzun nizun” esan diote. Besteren batek, berriz, “nik irakurri nuen, baina kanpoan ginen eta erantzun ez” bota du. Ainarak eta Gemmak agertzeko asmoa azaldu dute eta Rakelek “ni ere bai agian, konpromiso bat daukat eta ez dakit noiz izango dudan” erantzun du. Beste batzuk, berriz, ezetz esan dute. Nik ere halaxe esan diot Saioari, aurrez ere esana nintzen, “nik oporrak asteburu honetan egingo ditut eta Sorian izango naiz”. Ondoren oporretako eta Andaluziako gauza batzuk kontaktzen hasi da eta ohartzeko 9.45 dira. Jonek “beno, laurden gutxi dira dagoeneko” esan du eta hitz egiteari utzi ez badiogu ere gorputzak martxan jartzeko unea heldu zaigu. Entrenatzaileak esan du “gaur prakak janztean sumatu dut nola ibili naizen” eta besteren batek ildoari segi dio, “ez zara bakarra” esanez. “Ala ba, zu ere hasi korrika” esan dio Saioari Mirenek, beraz.

Beroketa

9.45ean hasi gara eta bederatzikoa korrika txikian egin ohi ditugun hiru itzuliak osatzen ari gara. Nik Ines, Miren eta Malen ditut hurbilen eta Espainiako errege-etxeko gorabeherak ere hizpide bihurtuta ekin diogu jardunari. Aurretik doaz Zuriñe eta Malen eta erritmoa ohi baino bizixeagoa ote den irudipena sortu zait niri. Hiru itzuliak ematen amaitzerako kantxa banakako partidetarako estutzeko marra jarria da entrenatzailea eta gu geratu eta kontrakantxan jartzea eta bera argia piz dezaten eskatzera abiatzea biak bat izan dira. Mugikortasun artikularrari ekin diogu, errugbiaz, Hernanik eta Bera Berak Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa jokatu dutela aitzakia hartuz, oportretan Hernaniko askorekin topo egin dutela besteek eta gisa horretako gaiak hizpide bihurtuta. Orkatiletatik hasi eta giltzaduraz giltzadura mugitu ditugu gainerakoak, besoekin amaitu arte. Nik murruari heldu eta kuadrizepsak luzatzeko ere aprobeztatu dut, bezperako mendian zeharreko korrikaldiaren ondorioak sumatzen baititut giharretan.

Mugikortasun artikularreko ariketekin amaitu dugunean oraindik ere hor dihardugu tertulian eta Ainarak Saioarekin motxilatik paleta eta pilotak atera eta gure artean partitzeari ekin dio, beroketa amaitzeko ezker hormaren aurkako zatiari ekin diezaiogun. Ines, Malen, Zuriñe, Gemma eta niri pilota bana banatu eta “denok ez dugu bana beharko, ala?” bota du. Nik nirea utzi eta beroketako azken atalerako hirukotea osatzea erabaki dut, bederatzi lagun baikara guztira saiorako pronto gaudenak. Ines eta Miren errebotetik gertuen, Rakel, Malen eta ni neu, Jone eta Zuriñe eta Ainara eta Gemma jarri gara sakabanatuta. Saioak pilota uztera joan naizenean “aldatu Maleni pilota” esan dit eta nik esku artean nerabilena hartu eta eurek zeukaten zaharrarekin trukatu, hau poltsan jaso eta hirukotean jarrita ekin diogu pilotakadak elkartrukatzeari.

Bikoteak “odolaren printzipioa” jarraituz sortu direla ohartu naiz orduan, gurea izan ezik beste guztiek familia erlazio bat dutelako euren artean. Oraindik ere fokuak pizten hasi gabeak dira, baina, moldatzen gara piloten norabideak jarraitzeko. Gu hirurok banaka-banaka lasai-lasai pilotakadak elkartrukatzen hasi gara, alde batetik bestera, eta halatsu ari dira beste seiak ere. Batzuk hizketa altuagoan eta besteak isilago, baina, kolpea kolpeari lotuz. Halako batean eskuinaldeko pare bat pilota heldu zaizkigu nahiko jarraian eta Jone bila hurbiltzean “ez dakit zer egin diozun, baina, pilota zugandik ihesi dabil” bota diot nik irribarretsu. Berak ere tankera bertsuan erantzun dit. Handik apur batera, aldiz, paleta bat lurrera erortzen entzun dugu eta eskuinaldera begiratzean Ainara eskua burura eramanez ikusi dugu. “Paletakada bat izan da hori” esan du Rakelek eta beste denok piloteatzeari utzi eta frontisetik hurbilen daudenei begira jarri gara. “Eskerrak berotzen ari ziren” batek ihes egin dit niri hortz artetik eta denok bertara begira gaudela ohartzean Ainarak “bale, nahikoa da” esan eta gurean jarraitzeko adierazi digu modu horretan. Saioa ere euren gurean hurbilduta zen ordurako eta Gemmak azaldu dio nola eman dion nahi gabeko “lantzana” ahizpari. Hizketan jarraitu dute beste tartetxo batean eta bien bitartean argiak pizten hasi direla ohartu eta guk ere kolpez kolpe jarraitu dugu. Handik minutu pare batera heldu zaigu entrenatzailearen “etorri” deia. Emakume guztiok hurreratu gara 4aren inguruan kantxara, Saioa dagoen ingurura.


Ariketak

Aurreko eremuan bat baten aurkako partidak egingo ditugula esan digu, erdian piloteoan arituko dela ondoren elkarren aurkako partida jokatuko duen bikotea eta atzean, berriz,

bi bikote elkarren aurka jolasean. Orduan “Uxue ez dakit non sartuko zaitudan” esanez zuzendu da niregana. Bederatzi gaude eta proposatutako jokoeekin bat soberan legoke. Nik “zuk ikusi” esan diot eta besteren batek “idaztera bidali” bota du irribarrez, atzera doazen bitartean. Aurrean Malen eta Ines, erdian Miren eta Zuriñe eta atzean Rakel-Gemma eta Jone-Ainara kokatu ditu. Lehen buruz buruko partiden ordena hau izango dela esan du, baina, Jonek eta Ainarak elkarren aurka jokatu zutela eta gero moldatuko duela antolaketa eurek ere partidak joka ditzaten.

10.00 jo eta gutxira ekin diote aurrekoek euren arteko buruz buruko partidari. Besteok ere dagozkigun kokapenak hartu ditugu frontoian, Saioaren esanari zintzo asko men eginez. Hona hemen aldi berean ematen ari diren egoeren eta joko guneen berri:

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 1:1 piloteoa.

3. Atzeko gunean 2:2 partidak, 3 tantora. Kidearen paleta kolpatu behar da bikoteko norbaitek pilota jotzen duen bakoitzean. Boskotea arituko da eremu honetan, beraz, bat kanpoan egongo da zain eta bikote galtzaileko batekin txandatuko du rola partida bakoitzean.

1. txanda hasi berria da eta atzeko gunean, kontrakantxa eta harmailak banatzen dituen murruan eserita, parean dauzkadan kideei begira ari naiz ni, partidako tantoak zenbatzeaz gain. Gemma-Rakel eta Ainara-Jone jarri dira bikotea osatuz. Partidatxoa amaitu denean Jonerekin aldatu dut postua eta hala aritu gara sartu-irtenean, elkarren paletak kolpatuz eta une batean baino gehiagotan kabitu ezinik, nahi gabe elkar oztopatuz. Rakelek berak esan du kanpoan egokitu denean “a zer nahastea ikusten den kanpotik”, irribarrez. Tarteka aurreko eremura begiratu dut zeharka eta Ines eta Malen tanto nahiko luzeak jokatzen ari direla iruditu zait, elkarri barkatu gabe.

2. txanda hasi da aurreko banakako lehia amaitu denean. Saioak orduan jakinarazi du bakoitzaren kokapena zein izango den oraingo honetan. Aurreko buruz buruko partidari Zuriñe eta Miren, erdian Gemma eta Rakel eta atzean Ainara, Jone eta aurrean amaitu berri duten Malen eta Ines, nirekin batera boskotea osatuz. Saioa bera epaile lanak egiten ari da frontiseko gunean, kontrakantxako marrari itsatsita. Atzean zer egin behar den agertu diegu bi heldu berriei lehena eta Inesek erabaki du bera izango dela lehenengo unean kanpoan geratuko dena, “nola jokatzen duzuen ikusteko”. Ainarak “partidu luzea jokatu duzue” esan dio iritsi berritan eta kideak erantzun “eta pentsa ezazu tanto bakarra egin dudala nik. Hala ere, nahiko gustura geratu naiz” gehitu dio aurreko esaldiari. Lehenengo partidutxoa amaitzean sartu da barrura Ines eta une batzuetan ahaztu bazaio ere nahiko ondo moldatu da kidearekin paletak kolpatzeko. Txandan-txandan denok aritu gara kanpoan eta barruan, partidatxoak ere ez direlako oso luzeak izan. Jokoan gabiltzala “azkar amaitu dute” bota dit aldamenetik Ainarak halako batean eta begirada aurrera zuzentzean ikusi dugu ohartzerako kontrakantxan direla Miren eta Zuriñe, frontiseko guneko partida amaituta. “Bukatu al dute ba?” galdera bota

eta baietz konturatu gara, entrenatzailea ere orritxoan esku artean hartu eta kokapenak zehazten hasi delako.

3. txandan banaka buruz buru Gemma eta Rakel aritu dira eta “erdian Ainara eta Zuriñe” esan du Saioak. Zuriñek “txarra azkar amaitzea hobea izaten da” esan du irribarrez, aurrez Mirenekin jokaturiko norgehiagoka galduta etorri baita atzerantz. Beraz, pilota bat hartu eta erdian kokatu dira. Oraingo honetan erreboteko gunean Miren, Ines, Jone, Malen eta ni neu elkartu gara. Aurrekoetan bezala oso giro onean eta barre eta algara dezente eginez jardun dugu atzean. Tarteka nahi gabe baina ia lau lagunok metro karratu berean elkartzen ginen, batzuk paletak kolpatzera eta besteak pilota jotzera eta egoera arriskutsu bat baino gehiago izan dugu. Adibidez, azken orduan gurutzatzea edo erdian aurkaria tokatzea. Kasu horietan jokia geratu eta tantoa errepikatu dugu, inork minik hartzea komeni ez dela argudiatuta. Nik unereren batean aurreko buruz buruko partidari erreparatzeko probestu dut, baina, egia esan beste egunetan baino askoz ere arreta gutxiago jarri diet hango mugimenduei, nahikoa lan izan dugulako binaka paletakadak eta pilotakadak trukatu eta koordinatzen.

Aurreko guneko banakako partida amaitzean 4. txanda iritsi da. Partidan Ainara eta Zuriñe hasi dira, erdian Ines eta Jone eta atzean beste bostok (Miren, Malen, Gemma, Rakeleta eta ni neu). Saioa hurbildu da atzekoongana hurrengo partida egoerak nola osatuko dituen azaltzera eta “a zer oilategia daukazuen hor atzean” bota digu aurrera abiatu orduko. 10.30ak dira eta “ba kaosa ez duzu ikusten” erantzun diot nik, irribarre konplize bat ezpainetan (B.K. Egia esan paletak kolpatu beharrak kaosa eta nahaspila asko samar sortzen du, baina, atsegina da eta emakumeek ere ondo pasatzen dutela esango nuke. Hala iruditu zait behintzat).

5. txanda ere iritsi da. Kokapenak honakoak: aurrean Ines eta Jone, erdian Ainara eta Miren eta atzean Malen, Gemma, Rakel, Zuriñe eta neroni. Zuriñe guregana etorri den lehen aldia izan da saio osoan zehar eta bertan zer egin behar den galdetu digu. Azaldu diogunean “nik ikusi egingo dut lehenengo” esan eta kanpoan geratu da. Beste laurok hasi gara jokoan, Malen eta Gemma eta Rakel eta biok bikoteak osatuz. Zuriñe aurreko partidari begira ere ari da atzetik eta halaxe zegoen kantxaratzeko unea heldu zaionean. Noski, han alaba ari da eta ez da harrigarria. Partida jokatzen eta kideei tantoak egin nahian joan zaizkigu hurrengo minutuak ere, beste errotazio edo aldaketa bat heldu zaigun arte.

6. txandan aurreko partidan Ainara eta Miren aritu dira, erdian Gemma eta Jonen osaturiko bikotea eta atzean beste bostok: Rakel, Malen, Zuriñe, Ines eta ni. Nik esan dut ni jarriko naizela zain eta eurek hasteko eta halaxe egin dugu. Partidatxoak motzak dira, 3 tantoak berehala joaten zaizkigu, eta ia denok pasatzen gara zain egotetik ere txandatze bakoitzean. Geuk erabakitzen dugu kanpoan nor geratu eta aldaketa nork egin ere eta une batean iruditu zait boluntario gehiago ez ote geunden kanpoan geratzeko jokoan jarraitzeko baino. Jada denbora dezente da jo eta ke aurrera eta atzera gabiltzala eta emakumeren bati sumatzen zaio neke aztarnaren bat (B.K. Niri ez hainbeste, erritmo nahiko lasaian bainabil, nahiz eta barrutik azken egunetako neke fisiko pilaketa sumatu eta astun samar sentitu mugimendu batzuk egitean).

Saio osoa partidetan igaro dute emakumeek, banaka zein binaka, txandan-txandan eremuz eremu eta pilotakadaz pilotakada eta ni eta Malen atzeko eremuan aritu gara nagusiki. Lehen partida jokatu du berak aurrean eta ni ez naiz eremu beretik mugitu

orain arte. 10.44an “Malen hemen jarraitu beharko duzu, gero jarriko zaitut Uxueren aurka partidari” jakinarazi digu entrenatzaileak hurrengo errotazioen berri emateko unean eta “zuk nahi duzun bezala” bota dut nik, partidari ez jokatzeari ere gehiegi ez zaidala axola adieraziz (B.K. Erlojuari begiratu diot eta iruditu zait agian ez digula astirik emango, oso larri ibiliko garela).

7. errotazioan honakoak dira gune kokapenak: Gemma eta Jone elkarren aurka aurrean, Rakel eta Ines erdian eta Malen, Ainara, Miren, Zuriñe eta ni erreboteko eremuan. Partidari nola hasi erabakitzeke Zuriñe geratu da kanpoan kasu honetan ere, aurreko partidari apur bat ikusteko aprobeztatuz. Egia esan besteok oso jaramon gutxi egin diegu saio osoan zehar besteen partidari, geurean saltsan eta gustura aritu baikara.

Malen behin baino gehiagotan pare-parean tokatu zait partidari ezberdinetan, kidearekin paleta kolpatzera zihoala edo handik bueltan gehienetan, eta “non zaude?” galdezka ere sumatu dut hasiera samarrean Ainararekin bikotea osatzen ari zenean. Nik “zer, GPSa behar al duzu?” bota diot irribarretsu, adarra jo asmoz, eta hark ere hala erantzun dit, irria ezpainetan. Beste norbaiti ere egin diot antzerako aipuren bat eta besteren batek ere esan du “hemen besteari atzetik joan beharra dago, txakurra bezala”, paleta kolpatzeko moduari erreferentzia egin. Barre ere egin dugu pilotari aritu eta hitz egiteaz gain beraz.

Aurreko eremuko partidari bukatu berri dute eta 10.55 direla ikustean Jonek zer egingo dugun galdetu entrenatzaileari eta orduan bera badoala jakinarazi digu. Trasteak jaso eta martxa egin du laster batean frontoetik. Beraz, zortzi geratu gara guztira. Atzeko eremuan ez da orain inor geratu beharko jokatzeko zain, kopuru bikoitia osatzen baitugu.

8. txandan Rakel eta Ines egokitu dira aurrean nor baino nor. Malen eta ni, berriz, erdian, hitzak eta kolpeak trukatu. Lehenengoz tokatu gara gune honetan biok saioan. Atzean gainerako laukotea: Zuriñe, Miren, Ainara eta Gemma. Hizketan hasi gara berehala eta ea paletari aurrez ibilia ote zen galdetu diot. Berak erantzun dit tenisean asko ibilia dela garai batean, ikastaroak ematen ere bai, baina, haurrak izan eta 11 urtean ezer ere ez omen zuen egin gero. Kirol askotan ibili omen zen, baita futboleari ere. Gai hau Rakelek izaniko hobekuntzaren harira bihurtu dugu hizpide, Inesekin nola ari den begira egon baikara unetxo batean. Lehen saiotik hobekuntza nabaria sumatzen zaio eta gustura dabilela dirudi saioetan ere. Malenen telefono mugikorrak jo du aurretik, pilotatzen hasi eta gutxira, eta bera ohartu da baina ez da deiari erantzutera hurbildu lehen unean, eta ea nor den begiratzera joango dela esan dit. Nik baietz esan diot, lasai joateko. Ainararen senarra zen hoska eta hari pasa dio telefonoa.

11.02 dira. Saioak atzeko luzaketak egiteke unea heldu zaiela jakinarazi die. Malen eta nigana hurbildu eta partidari jokatzeko esan digu guri, berriz. Nik ordulariari begiratu berritan “nahi baduzu jokatu dugu, baina ez da derrigorrezkoa” jakinarazi diot eta “4ra jokatu, nik ikusi nahi dut zuen arteko partidari bat” erantzun digu Saioak. Beraz, jokatu hasi gara eta 1-0 galtzen hasi arren 4-1 irabazten amaitu dut, serio eta tantoa luzatuz aritzearen poderioz. Partidari hau jokatzeko unean ohi baino tentsio handiagoa sumatu dut nigan, irabazi behar moduko bat, ez bainaiz alferrik aurrez federatuta aritua. Malenek ere irabazi nahi zuen eta Saioak ere esan dio “badakizu min nora botatzeak egiten dion” eta nik erantzun “bai, bai, nire zuloa ezkerrean dago”. Hala ere, ni

mugitzen saiatu bada ere baliabide dezente ditut kolpeak egiteko eta uste baino errazago moldatu naiz azkenerako (B.K. Eskerrak! Lasaitu naiz irabazita).

Gu kantxan partidari hasterako Zuriñek eta Rakelek martxa egin dute frontoetik. Inesek ere gainerako kideek baino lehentxeago alde egin du, gure partida amaitu eta ni kantxako zinta kentzen ari naizela. Emaitza jakin du eta “Goierriko hauek” bota dit irribarrez eta “emaitza normala da, ala?” bat botaz hark baieztatu erantzuna eman dit. Datorren astera arte agurtu dugu elkar.

Zinta kendu eta kontrakantxara hurbildu naiz, paletak motxilan sartu eta besteek hizketan diharduten bitartean nik luzaketa batzuk egin ditut lurrean eserita. Amaitu eta trasteak jaso ostean, bi paleta eman dizkiot Saioari murrutik hartuta, ekin diogu kanporantzko paseotxoari. Tilos-7 Txapelketako kontuak ditugu hizketagai berriro ere, egutegia eta halakoak, Malenek “nik horrela ibiltzeko datorren urtean ez dut izenik emango” bota baitu. Lan kontuak medio partida pare bat atzeratzen saiatu dira, baina, ez dute lortu eta gaurkoa osatzeko ordeztu bila aritu behar izan da, nahiz eta hirukotea osatzen duten. Txapelketa herrikoien inguruko iritziak elkartrukatu ditugu Gemmak eta biok, Malenek “horrela ibiltzeko datorren urtean ez dut izenik emango” esan ostean. “Hau ere aurka” esan du kidearena entzun eta niri begira. Nik ezetz erantzun diot oso aldekoa naizela, baina, materiala iruditzen zaidala desegokia euren kasuan, ibili diren gutxia tenisekoarekin ibilitakoak direlako bertan diharduten emakume gehienak eta parte hartzea sustatzeko modua hori iruditzen zaidalako. Hala egin dugu aldageletara arteko bidea, solasean. Bertan agurtu ditugu Ainara eta Miren, “aste ona pasa” esanez.

Kiroldegiko sarrera

Saioa eta Gemma oraindik hizketan geratu dira beste biek eta Malen eta biok hartu dugu kanporako bidea, “astea behintzat hasi dugu” erantsiz nik. Honek martxa egin du eta nik Saioa eta Gemma kanpora irten arte itxaron dut. Lehenari mesedez partidetakoa ordenak bidaltzeko esan diot, ez baina oroitzen denak nola joan diren. Honek baietz esan dit eta emaitzak ere helaraziko dizkidala (B.K. Saio osoa leku berean egin dut eta hainbeste errotazio eta txandatze gogoan gordetzea ez da erraza). Era berean partidetatik batzuk kendu egin dituela jakinarazi dit, tartean Naiara, ez delako gehiago etorriko Portugalera omen doazelako senarraren lan kontuak medio. “Aspaldi ez da etorri” esan diot nik eta berak “estresak erasanda osasun arazoak izaten hasi zen eta orain ere hasi omen da berriro modu berean” esan dit. Azkenean “bihar arte” esanez agurtu dugu elkar eta nik Biterirako bidea hartu dut eskaileretan gora, liburutegia zain baitut.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Bi asteren ostean berriro ere hasi naiz saioetako saltsan. Alde batetik gustura nago, ordu eta erdi horretan giro atseginean ibiltzen naiz eta kideei adarra jotzen diet, baina, onartzen dut desplazamenduek eta bolanteko tentsioak ez nautela gehiegi erakartzen. Ondorengo oharra idatzi beharra ere egun batzuetan ez zait samur-samurra egiten, egia esan. Hala ere, ikasturteko azken atala da hau eta orain artekoaren erdia soilik falta dela pentsatu eta “altzaporrú”!

Gaurko saioan azken partidatxoa izan ezik beste denbora guttia atzeko eremuko partidetan eman dut. Beraz, aurreko eta erdiko kideen jardunari ez diot apenas erreparatu. Gainera, egindako aldaketekin ez zen batere erraza aurreko guneetan nor

aritu den jakitea, beraz, kezka bat eragiten dit dena oroitu ahal ez izateak. Hala ere, espero dut jasoko dudala eskaturiko informazioa eta saioak egituratuko ditudala behar bezala berandu baino lehenago. Etxeratu eta bertan neukan jada, beraz, ederki osatu ditut aurrez utzitako hutsuneak. Eskerrak entrenatzailea eta bion arteko halako lankidetzaz jokaerei, egia esan. Nik saio batzuetako ariketen berri ere bidali nion eskatu zidan batean.

Fisikoki hobeto nago formaz orain bi aste baino, egia esan, ez zen batere zaila, eta pilotakada zail batzuetara iritsi ere iritsi naiz. Neke pilaketa sumatu arren animoan ez dit batere kalterik egiten nire bizikleta zein korrikako entrenamendu serioxeago eta jarraituei ekin izanak, umore hain piperturik ez baitaukat bederen. Eskerrak! Ea zenbat irauten didan honek.

Aisialdiko ikastaroetako emakumeentzako antolatutako Topagunea ospatuko da asteburuan, larunbatean, Amasan. Pena ematen dit bertan egon ezinak, batez ere informazioa biltzeko abagune ona izango dela iruditzen zaidalako, baina, kide batzuk badoaz eta saiatuko naiz euren bizipenen berri jasotzen datorren asteko saioan. Ea zer dioten.

Astea hasi da eta ez da gutxi. Ea nola jarraitzen duen. Bihar gehiago (eta hobeto?).

Sustotik sustora

Asteko martxan asteartea izaten da bigarren asteguna eta hala iritsi zait gaurkoa ere. Hala ere, ia badira bi aste saioari saioa eta bidaiari bidaia lotu gabe egindakoa eta oraindik ere kostatzen ari zait lantegi honetara ohitzea, nahiz eta jakin badakidan ohartzeko harrapatuko nauela egunerokotasunak berriro ere bere atzaparretan. Astearte arratsaldea era horretan iritsi zait, lan apur bat, baina behar baino gutxiago eta nahi baino geldoago, egin ostean aurretik, lau hormen artean pantaila aurrean jarrita.

N-lean barna Tolosaldera abiatzeko ordua ia oharkabean iritsi zait, erlojuari begiratutakoan prestatu eta askoz gauza gehiagorako tarterik ez nuela konturatu bainaz. 18.55 jotzear direla irten naiz etxetik, presa handiegirik gabe, eta bidean autoari gasolina sartzeko geldialdi labur bat eginda heldu naiz pilotaleku atarira, ordurako. Hori bai, gaur saioa amaitu ostean presaka alde egin beharrean naiz, Legazpin baitu hitzordua asteburuko irtenaldia prestatzeko. Baina, beno, aurretik saioa daukat, beraz, unean unekoan kontzentra nadin.

Pilotaleku ataria

Aste Santuko oporrak medio bi aste igaro dira azkenekoz bertan izan nintzenetik, baina, oso ohiko jokalekuan kokatu naiz heldu orduko. 19.28an kotxea aparkatu ostean bertatik irten eta heldu berria den entrenatzailearekin topo egin dut. Hari arratsalde onak eman eta elkarrekin egin ditugu babeserako ditugun hamar metroak. Atarian sartu eta orduantxe Oihane ere iritsi berria dela ohartu eta harritu egin naiz laugarren kide bat ere bertan dela ikustean. Gurutze da. Gaur ohi baino garaizago iritsi da, beraz.

Laurok elkar agurtu eta hizketan jarri garenean hiru haur ikusi ditut kantxan larruzko baloi batekin futbolean. Argia itzalirik dago, baina, kanpoko argitasun naturalarekin bada moldatzeko adinako intentsitatea momentuz behintzat. Baloari ostikoka ari dira

eta harmailetatik gora gure ingurura etorri da hiruzpalau bider jaurtiketak desbideratuta. Ateak kontrakantxan zeharka jarrita daude eta ez da harritzekoa gu gauden ingurura iristea kolperen bat. Batean, gainera, kantxari bizkarrez dagoen Saioa ia kolpatu du, baina, “kontuz” esanda lortu du baloikada ekiditea. Beraz, baloia eurei itzuli eta guk mingainak dantzatuz jarraitu dugu. Eli ere laster iritsi da, aterkia irekita. Pili, Marian eta Itsaso izan dira iristen hurrengoak.

Batez ere oporretako joan-etorri eta bidaiak izan dira hizpide, entrenatzailearen Malagako egonaldia izan da ardatz nagusia. Han ongi ibili direla esan du, prozesio ugari izan direla eta negarrez bat baino gehiago ikusi zituela, eta bakarren batek esan dio aurpegian nabari zaiola kolore apur bat hartu duela. Berak “erre egin nintzen, egunean zehar ez ginen konturatu, baina, gauean gorrituta nengoen” onartu digu. Guk adarra jo diogu, Gurutze eta ni elkarren aldamenean gaude, “nonbait egon izanaren seinaleren bat ekarri nahi zuen honek” esanez zirikatuz. Eli ez zen azken saioan etorri eta Ciudad Realen izan direla esan du. Ondo ibili omen dira. Nik esan diet asteburu honetan egingo ditudala oporrak, Sorian.

Beste kontu bat ere ekarri nahi izan du ahotara entrenatzaileak berak, larunbaterako antolatu duten aisialdiko ikastaroetako emakumeen topagunea. Batzuk ez ziren oroitu ere egiten, baina, kontuak aterata Itsasok, adibidez, “larunbat honetan? nik ezin dut” erantzun dio eta Marianek “nik nahiago dut ez joanda, asteburuak familiarekin igarotzeko probesten ditut”. Saioak “nik ez dut inor behartuko joatera” erantzun dio, bada ez bada ere. Oihanek ere “ni ez naiz joango” esan du eta Elik “nik erantzun nizun”. Pili ere ez omen doa. Antza denez azken saiora etorri ez zirenei mezu bidez eman zien asmoaren berri, besteok ez baikenuen era horretako oharririk jaso. Orduan Gurutzeri esan dio “zuk zer asmo daukazu?” eta honek “ni izango nintzateke taldeko bakarra, ezta?” galdetu du. Saioak “Hernanitik bi doaz, Tolosatik bederatzi, Ibaratik beste bat, ... eta ni ere han ibiliko naiz” erantzun dio, animatu nahian. Hori entzutean Gurutzek, erdi ahopeka, irribarre zabala ezpainetan, niri halaxe bota dit: “laguntzat hartuko al dut Saioa bera? Berez irakaslea da”. Nik “beno, nik uste baietz” erantzun diot, tonu berean. Entrenatzaileak, berriz, ea zer esan duen galdetu du, baina, ez diogu ezer esan, nahiz eta nik uste dudana tankera emango zigula. Beraz, luzamenduetan jarraitu aurretik “bederatzieta, saio bukaeran, esango didazu” esan dio Saioak eta eskaileretan beherezko bidea hartu dugu bere atzetik beste emakume guztiok. Abiatzean “korri egin behar al da?” galdetu du Gurutzek eta nik “zer, tratuan hasi behar al duzu?” bota diot. 19.43 dira dagoeneko nire eskumuturrean.

Zazpi kide gaude bertan eta “gaur argazki kamera ekarri dut gainera” jakinarazi digu Saioak. “Onintza falta da” eta “hori abisatu egiten da prestatuta etortzeko” bezalako erantzunen bat edo beste jaso du Saioak, baina, ez die behar baino garrantzia handiagorik eman. Nik ez diot oso ongi ulertu, baina, iruditu zait Elik esan duela Onintza etortzekoa ote den. Hura etorriko balitz zortzikoa osatuko genuke, denok saiora agertuta. Azken saioan kide gutxiago bildu ginen, nirekin bost.

Pilotalekua

Behera jaitsi eta ateen ezker zein eskuin aldetik koskatxotik behera jauzitxoia emanda heldu gara kantxara. Ordurako lehengo hiru mutikotxoak alde eginak dira. Txamarrak erantzi eta poltsen inguruan utzi ditugu batzuk, baina, hotz dago giroa eta baten batek

“hotz egiten du” esan eta oraindik berokia soinean jarrita jarraitzen du. Berehala ekin diogu beroketako atalari.

Beroketa

Korrika saiotxoia egin dugu lehendabizi pilotalekuaren alde batetik bestera, erreboteko eta frontiseko hormen parera heltzean noranzkoa aldatuz. Ni apur bat aurreraxeago hasi naiz, motel-motel, eta besteak pare bat metro atzetik. Zazpi edo zortzi joan-etorri osatuko genituen ziurrenik gelditu aurretik. Ni neure kasa aritu naiz, baina, Eli eta Gurutze hizketan sumatu ditut eta apur bat eskuinerago Itsaso eta Marian ere bai. Gu motorrak berotu asmoz hasi garen tartea aprobetxatu du entrenatzaileak frontiseko eremuan kantxa estutzeko zinta jartzeko.

Itsaso eta Marian geratzean geratu gara beste guztiok ere, Saioaren parean. Korroan jarri gara eta mugikortasun articularreko mugimenduak egiteari ekin diogu. Orkatiletatik hasi eta goiko giltzadurekin, besoekin, amaitu dugu. Gurutzek esan du laranja bat jan duela askaltzeko eta eztarriraino igo zaiola korrikaldiaren ostean. Orduan jan kontuen inguruan hitz egitera igaro gara. Elik esan du gozoa jateko gogoia sartzen zaiola berari, Saioak gaur gozotegi batean izan dela “Anoetan saioa amaitu eta ordubete geratzen zait eta han gozotegi batean izaten naiz. Gaur arratsaldean bazegoen txokolatzeko palmera bat, baina, oporren ostean prakak estu samar sumatzen ditut eta azkenean poleo-menta bat eta palmeratxo integral bat jaten amaitu dut”. Nik esan dut “nik sukaldetik alde egiten dut zenbaitetan, tentazioari ihes eginez” eta “zuri antzematen zaizu” erantzun dit bakarren batek. “Orain berriro ere erretzen hasi naiz, 5-6 egunetan kirola eginez, normaltzen” esan diet eta oina zer moduz ote dudana galdetu didate. Esan diet osatu zaidala eta aurrez Gurutzeri esan diodanez “bai, bai, asteburu honetan korrika egitekoa omen da jada” jakinarazi die. Baietz erantzun diet, duatloiko taldekako erlojupeko bat jokatuko dela Sorian asteburuan eta taldekide batek aurreko astean belaunean min hartu zuenez niri egokitu zaidala laugarrena izatea. “Sufritzea tokatuko zait, baina, gogorra bezain polita izatea espero dut, kideak elkarrekin joatea derrigorrezkoa baita”. “Ziur datorren astean beste zerbait esango digula” bota du Gurutzek eta “beno, kontatuko dizuet” erantzun diot nik.


Giltzadurak mugitzen amaitu dugunean kontrakantxara hurbildu gara eta paletak hartzen hasi dira emakumeak. Hiruzpalauk eurek etxetik ekarritakoak dituzte esku artean eta beste hiruk, Eli, Itsaso eta nik, motxilatik hartu ditugu. “Denok al daukazue pala?” galdetu du entrenatzaileak eta baietz erantzuna jaso ostean ezker hormaren aurka piloteatzeko pilotak banatzen hasi da. Bikoteak eta hirukoteak osatu ditu elkarren aldamenean jarrita gauden ordena aprobetxatuz: Eli eta Itsaso, Gurutze eta Marian eta Oihane, Pili eta hirurok. Orden horretan jarri gara frontisetik hasi eta errebotera arte. Jardun bat egin dugu horrela, gu pilotakadak txandakatuz, nahikoa isilik aritu gara, baina, eskuinerago solasaldian ari ziren. Bitartean entrenatzailea kontrakantxako koskaren aurka jarri eta orri bat esku artean hartuta ari dela konturatu naiz.

Nahikoa denbora pasa dugula iruditu zaionean “etorri” hots egin dugu denoi Saioak eta eskuan orria hartuta saioa antolatzeari ekin dio.

Ariketak

Saioa 3 gunetan banatuta burutuko dugula esan digu. Banakako partidak izango dira saioaren erdigune. Aurreko zenbaitetan ere modu berean aritu izan ginen, txapelketa herrikoia ren harira.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



Partidak nola jokatuko ditugun azaldu aurretik esan du beste zenbait herritan aspertu direla dagoeneko eta beste kasuren batean partida pila bat dituztela jokatzeke, Hernaniko orria erakutsiz. Ondoren “beno, han emakume gehiago dira” zehaztu du. Ildo beretik kontatu digu “Tolosako emakumeek esaten didate badakitela nor joango den Irurara jokatzerara eta ea zertarako jokatuko dituzten, baina, gero jokatu ere jokatu nahi izaten dute eta ez da erraza”. Irribarrez erantzun diogu gehienok. Ondoren esan du “emakumeetako bat alaba bisitatzen izan da kanpoan eta denoi ekarri digu hango oroigarri bat”. Hori entzunda “hori zer da, guretzako zehar-esana?” ondorioztatu dugu guk eta “beno, nik Soriatik ekarriko dizut izotz puska bat oroigarri lez” erantsi dut nik irria ezpainetan.

2. Erdiko gunean 1:1 piloteoa.

3. Atzeko gunean 1:2 partida.

Aurreko gunean Oihane eta Eli kantxan eta Saioa kontrakantxan, epaile eta markagailu bizidunaren rolean, hasi dira. Erdian, berriz, hurrengo partida jokatzea egokitu zaien Itsaso eta Pili. Atzean beste hirurok, ni eta hirugarren partidari aurrez aurre izango diren bi kideak.

Atzeko gunera hurbildu gara gu eta ikusi dugu 8. koadroaren parean mugatuta dagoela kantxa zabaleran eta luzeran ere marra bat jarri duela modu horizontalean. Ondoren ekin diogu ni eta euren arteko norgehiagokari, Gurutze ezkerrean eta Marian eskuinean kokatuta. Hasi aurretik “gaizto aurpegia dauka Uxuek” bota dit Gurutzek eta nik ez diot hitzez erantzun, irribarre batekin baizik. Lasai hasi naiz, baina, lehen tantoan moztutako pilota baten bidez Gurutzek lortu du markagailuan aurretik beraiek jartzea eta “gaiztoarena niri esatea al zen gero zuk hori egiteko estrategia?” bota diot aldamenetik. Modu horretan jarraitu dugu eta tarteka “ze onbera den gure Uxue” esan dit Gurutzek. Marian, berriz, eskuinean dago eta hari ere tarteka pilota bideratzen diot, nahiz eta kantxa zabaleran oso estua den, bikotean ari direnentzat batez ere, eta pare batetan marratik eskuinerago joan zaidan pilota. Markagailua ez dugu ahots gora kontatu, baina, antza denez barrutik bai, Gurutzek “dagoeneko pasatu gaitu” bota baitio Mariani. Nire arabera ere 4-3 goazela ohartu naiz une horretan. Jokoan aritu garen bitartean Gurutzek nire eskuinean jartzeko hautua egin du une batzuetan pilota jo ondoren, traba egitea ekidin nahian ziurrenik, ezkerrean pilota bideratzeko pasabide oso bat utziz. Bera ohartu da nik tarteka bertara bidali dudala pilota eta “ni eskuinean jartzen naiz, baina, gero hemen zuloa uzten dizut zuri. Nola kokatzea komeni da?” galdetu dit eta nik aholkatu diot “hobe da ni baino atzerago ezkerrean jartzea, errazagoa delako gero aurrerago pauso pare bat emanda pilota jotzea atzerantz etorri eta jotzea baino”. Azalpena entzun

eta handik aurrerako kasurik gehienetan ohartu naiz atzerago jarri dela, gomendioari jaramon eginez (B.K. Emakumeek aholkuak eta iritzia eskatzen dizkidate zenbaitetan kokapen eta jokatzeko moduaren inguruan eta atsegin handiz saiatzen naiz laguntzen. Eurek agertzen duten interesa neurtzeko tresna egokia izan daiteke galdera hauena agian, nahiz bakarra ez den, ezta?). Gu atzean saltsan lasai ari garen bitartean erdian ere patxadan ari dira Pili eta Itsaso. Aurrean, berriz, serioago ari dira banakako partidari Oihane eta Eli. Ohartu naiz une batean jokoaren eten eta azalpenak ematen aritu zaiela entrenatzailea azken hauei.

Onintza iritsi da zortziak pasatxoan pilotalekura eta kontrakantxan korrika egiteari ekin dio, pixka bat berotu asmoz. Aurreko partidua bukatu dutenean Saioa atzekoongana gerturatu da eta Gurutzek “berdinduta amaitu dugu” esan dit bitartean niri, erdiko gunera doala. “Beno, gero jokatu dugu errebantxa” esanez erantzun diot nik. Kokapen berriak zeintzuk izango diren azaldu du entrenatzaileak orduan: aurrean Pili eta Itsaso partidari, erdian Gurutze eta Marian eta atzean Eli, Oihane eta ni neu. Paleta bat hartu eta Onintza ere guregana hurbildu da, “zer egin behar da hemen?” galdera luzatuz. Nik entrenatzailea gerturatu zaigula aprobetxatu dut “eremu hau estua geratzen da binaka ari direnentzat” esateko eta hori entzutean marra zehazten duen zinta hartu eta koadro erdi eskuinerago desplazatu du.

Bigarren txandan atzeko eremuan laukotea gaudenez Saioak “binakako partida egingo duzue hemen, baina (...)” azaltzeari ekin dio eta niri egin dit keinu bat. Orduan ulertu diot bezperako ariketa bera proposatzera zihoala eta neuk esan dut “beraz, binaka, bikoteko batek pilota jotako bakoitzean elkarrekin paletak kolpatuz”. Buruarekin baiezkoa egin eta “nola jokatu dugu?” galdetu eta “Eli Oihanerekin eta Onintza Uxurekin” erantzunarekin batera aurreranzko bidea hartu du berak.

4. Atzeko gunean 2:2 partidak. Kidearen paleta kolpatu behar da bikoteko norbaitek pilota jotzen duen bakoitzean.

Hasi aurretik Elik “bat nahikoa ez eta orain bi hauekin” bota du eta “beno, jokoan ez dakit lortuko dugun, baina, hasi aurretik behintzat bai” esan du eta Oihaneren paleta kolpatu du. Lehen sakea eurek egin dute eta ahaztu egin zaie paletak kolpatzearena. Nik berehala ohartarazi ditut “palak, palak” esanez, baina ez dira ohartu eta “beno, berriro hasiko gara” esan eta berriro ere ekin diogu jokoari. Oihane eta Onintza jarri dira aurrelari postuetan eta Eli eta biok atzelari lez. Hasieran nahikoa nahaspila izan dugu paletak kolpatzean elkarri trabarik ez egiteko, gurutzatu eta ia leku berean behin baino gehiagotan egin dugu topo esate baterako eta “inork ez dezala minik hartu, osorik bukatu behar dugu” bota dute. Nik ere ados nagoela esan diet “hobe da tantoa galtzea paletakada bat jasotzea baino”. Ondoren hobeto moldatu gara, nahiz eta oker txiki eta nahasteak izan ditugun tartean. Onintzari behin baino gehiagotan ahaztu zaio paletak kolpatzearena, baina, ni beregana hurbilduz moldatu gara gehienetan. Behin, ordea, bere atzetik itzala banintz lez aritu naiz eta barrez lehertzen amaitu dut, ez baitut lortu hala ere paletak kolpatzerik, zuzenean pilota jotzera joan delako Onintza. Partidari tantorik gehienak geuk lorturikoak izan dira, nahiz eta markagailu zehatzik ez dugun kontatu eta niri nahi gabe ezker hormari itsatsitako pilotakada bat baino gehiago atera zaizkit. Horietako baten ostean barkamena eskatu diot Eliri “barkatu, ez naiz nahita hari. Ziur hurrengo batean hala nahi dudanean ez dudala lortuko pilota hormari hala itsastea” eta hark “lasai egon, nik ere saiatu behar dut moldatzen” esanez erantzun dit. Hala ere, ez naiz lasai geratu, baina, asmoa argi agertu dut, bederen. Gu atzean saltsan aritu garen

bitartean aurreko partida luze samarra irten da eta erdiko piloteoan ari diren Gurutze eta Marian, berriz, lasai dabilta (B.K. Atzo bezala, gaur ere nahiko arreta gutxi eskaini diet beste guneei, gureko *potajearekin* nahikoa nuen!).

Aurreko partida amaitu orduko berriro ere atzerantz hurbildu da entrenatzailea eta “Onintza eta Uxue erdira eta atzera Pili eta Itsaso joango dira arnasa bueltatzen zaienean” jakinarazi digu. Bi hauek kontrakantxan ur trago bana edaten ari dira. Nik hurbildu eta “zer, partida gogorra izan al da?” galdetu diet eta “bai, parekatua” erantzun dit Pilik. Itsasok, berriz, “hasieran bai, baina, gero ez” erantsi du. Bi hitz egin eta erdian hasi naiz Onintzarekin hirugarren txanda honetan. Berak “hemen zer egin behar da?” galdetu dit eta “aurreko partidarako zain gauden bitartean piloteatu” erantzun diot. “Zuk ere jokutzen al dituzu partiduak?” galdetu dit ondoren harridura puntu batekin eta, sentitu bezala, “ni izan naiz lehenengo harritua, baina, gaur baietz dirudi” erantzun diot. Lasai hasi gara, hitzak eta pilotakadak elkartrukatu. Nik “zer moduz oporrak?” galdetu diot eta “beno, erdipurdi, semerik txikiena gaixotu eta etxean igaro ditugu. Hala ere, erlaxatzeko eta lasai egoteko balio izan didate” erantzun dit. Ondoren niri galdetu dit eta ez dudala oporrik egin esan diot, “saioz saio nabilenean pilatzen joan naizen lan batzuk aurreratzen saiatu naiz”. Ildo horri tiraka tesiaz galdetu dit, ea hipotesirik badaukadan, noizko amaitzea espero dudana eta tankera horretakoak. Ondoren “amaitzean informazioa pasa guri” esan dit eta “bai, bai, egon lasai, abisatuko dizuet” erantzun diot nik. Atzean Oihane-Eli eta Pili-Itsaso ari dira, tarteka bertako oihuren bat edo beste iritsi zaigu, eta aurrean Gurutze eta Marian ari dira buruz buru. Ikusi dut Marianek gutxigatik kanpora botariko horma biko bat eta “arazoa marra mugitzen dela da” esan diot nik atzetik. Berak “bai, bai, seguru baietz” erantzun dit. Onintza, berriz, zenbait kolperen bidez ni mugiarazten ari da eta “zer, ni korrikan jarri nahian?” esan diot. Berak “nik uste hori dela hiru urtean ikasi dudana, bestea mugitu behar dela eta ezkerrekin jotzen. Egun batean dena ezkerrekin egin nuen eta horregatik” bota du. Ondoren oinaren berri galdetu dit eta errekueratu naizela esan diot, minik ez daukadala eta hasi naizela berriro ere entrenatzen. Kasualitatea izango da, baina, hizketagai horrekin mingaina dantzatzen ari garela aldameneko eremuan Eli erdi herrenka hasi dela sumatu dugu, Oihane aldamenera joanda, eta “zer?” galdetu diote kideek. “Tiroia eman dit” jakinarazi digu, eskua eskuineko bikira daraman bitartean. Oinez hastean traba sumatzen omen du eta herrena ere nabarmen samarra du. Taldekide guztiok inguratu gara beregana, entrenatzailea barne eta honek “zer sentitu duzu, harrkada antzeko zerbait?” galdetu dio. Berak “beno, agian bai” erantzun du eta nik kezka aurpegia jarriko nuen nonbait. Itsasok “begira Uxueren aurpegia” esan du eta ni pentsatzen ari naizena hitzetan jarri du Saioak “ez ote da zuntz haustura bat izango?”, begirada niri zuzenduz. Nik ez dut dramatikoezia izan nahi eta “izan liteke” erantzun dut. Itsasok “ez al da fuertegoa izaten?” galdetu du eta “hori apurturiko zuntzen kopuruaren arabera izaten da” erantzun diot nik. Saioak etxera joateko eta izotza jartzeko erantzun dio eta egun batzuetan geldi egoteko. Eli bera ere kezkatuta dagoela dirudi eta “beno, ez da hainbestekoa izango” bota du. Atzean geratu da bera, kontrakantxan, txamarra jantzi poliki-poliki oinez dabilela eta besteok lehenengo gunetara itzuli gara. “Aurreko partida amaitu eta berehala nator” esan dio Saioak. Beraz, lesioaren ostean lehenengo lekuetara itzuli gara. Nik Onintzarekin jarraitu dut erdian eta hark esan dit mina zenbaitetan gutxien uste denean eta gutxien uste den egoeretan hartzen dela eta kontatu bere anaia tibia hautsi eta oina igeltsatuta dagoela parkean hurrekin ari zela min hartuta. Nik ere halaxe uste dudala adierazi diot, “askotan halakoetan egiten dira aberiarik handienak”. Elik prestatu eta etxerako bidea hartu behar duenean “a, argazkia!” oroitu da Saioa eta

“lasai, amaitu arte itxarongo dut” adierazi dio kontrakantxan pausu lasaian erdi herrenka dabilen kideak.

Gurutze eta Marianek amaitu berria dute frontiseko guneko buruz buruko norgehiagoka. Erlojuari begiratu diot eta 20.32 ikusi dut. Denok elkartu gara berriro ere kantxa erdian eta talde argazkia ateratzeko antolatzen hasi. “Motz-aren ingurura joan” esan digu berak eta hara bideratu gara. Bi ilaratan jartzea erabaki dugu “gazteak behean” esan du norbaitek eta “bi bakarrik al gara?” esan du Itsasok makurtuta biok bakarrik gaudelako. Pili ere jarri da nire aldamenean eskuinean eta “pala erakutsi behar al da?” galdera bota du besteren batek. Oihanek “nik han utzi dut” erantzun du eta halaxe bi argazki atera ditu Saioak. Hurrengoak argazki kamera era automatikoan jarrita egingo ditugula erabaki dute eta erdirago eta ezkererago jarri gara, paleta eta zaborrontziaren gainean kamera kokatu eta Saioak iristeko behar beste denbora ziurtatuta. Bina argazki atera ditugu modu bakoitzean eta ondoren argazki kameran konprobatzera hurreratu dira emakumeak. Iritziak eman eta Saioari “bidali argazkiak” esan ostean jokatzeko jarraitzeko unea iritsi zaigu. Elik etxerako bidea hartu du erdi herrenka eta “orain ondo zainduko naute eta pasako zait” esanez agurtu gaitu. Gurutzek “zaudena baino apur bat okerrago zaudela eginda ere ez da erraza izango kasu egitea, gizon hauek” bota du eta halaxe egin du etxerako bidea min hartutako kideak.

20.42 dira eta Saioak Onintzari zuzenduz “gaur ez duzu jokatu partidurik” esan dio. “Uxue abandonatuta edukitzen dut” esan du ondoren eta “duzu ala zaitu?” galdetu dit Gurutzek. Nik “ez, ez, nau” esan diot eta entrenatzaileak “konfiantza handia dagoen lekuetan pasa ohi da” esan du eta irribarre egin dugu denok. Saioarekin berarekin zortzikotea osatuko dugu orain eta aurrean zein atzean binakako partidak jokatu ditugula adierazi digu.

5. 2:2ren aurkako partidak, frontisean eta errebotean. Aurrekoak 6ra iristean irabazleak bertan geratuz eta galtzaileak atzeko irabazleekin lekuz aldatuz.

Aurrean hasteko esan digu Itsaso-Pili eta Onintza-ni bikoteei. Beste laurak atzeko zelaira joan dira, hauek ere partida jokatzera. Aurrelari postuan Pili eta biok kokatu gara kantxaren eskuinaldean eta atzelari Itsaso eta Onintza atzerago eta ezkererago. Partidari ekin eta berehala “Pilirekin jokatzea, uf” edo atzeko zerbait esan du Onintzak. Besteok, berriz, gauza bera behin baino gehiagotan esan izan duela gogorarazi diogu eta barre egin du. Tantoa jokoan da eta Pilik horma bikoia egin duenean nik heldu eta alderantzizko horma biko batekin erantzun diot. Hori ikustean Itsasok “hori da Uxueren espezialitatea” esan du eta irribarrez erantzun diot nik. Jokoan jarraitu dugu eta Itsasori aurrean txokoan pilota suabe antzean utzita beste tanto bat lortu dut. Iritsi da berez, baina, ez zeukan paleta oso prestatuta kolperako eta ez du eramaterik izan. Jokoan ari garela errebotetik Saioak “zenbat zoazte?” galdetu digu eta “5-3” erantzun diot nik. Hurrengo tantoa ere guk lortu dugu eta 6-3 amaitu da binakako lehen partida hau.

Bigarren partida jokatzera Saioa-Oihane bikotea hurreratu zaigu errebotetik eta Gurutzek zerbait esan dio Saioari. Honek gero jarraituko dutela esan dio eta nik “lasai, laster joango da bueltan” erantzun diot. Irribarre egin dugu denok. Saioa eta biok aurrean kokatu gara eta Onintza eta Oihane atzelari. Sakea eurei eman diegu eta patxadan hasi bagara ere elkarri pilotak beste abiadura batean botatzen aritu gara jokoko une batzuetan Saioa eta biok. Halako tanto batean Onintza begira, ikusle planean, ari zen eta ez du erantzun. “Joe, bi hauekin” irten zaio barru-barrutik eta aurreko tantoan

Saioak eramandako pilotak ekarri ditu gogora. Euren artean egin dute beste aipamenen bat, baina, hori ez dut ulertzerik lortu nik. Hala jarraitu dugu, kolpe biziak eta erritmo lasaian besteei zuzenduak elkartrukatu. 5-2 jarri gara aurretik, Saioak txapara bota duelako pilota eta 6-2 amaitu da. Berriro ere gu nagusitu gara. Beraz, aurrean jarraitzea dagokigu hurrengo txandan ere. Bitartean atzean Gurutze-Marian eta Pili-Itsaso aritu dira eta euren algarra hots batzuk iritsi zaizkigu aurreko koadroetara.

Hirugarren partidarako atzetik aurrera berriro ere Itsaso eta Pili datozela ikusi dut eta Gurutzeri galdetu ea guregana etortzeko beldurrez dauden. Hark ez dutela aurrean jokatzeko beharrik edo antzekoren bat esan dit irribarrez. Atzean jokatu dute hirugarren txandan ere, Saioa eta Oihaneren aurka berriro ere. Aurrean, aldiz, postuak aldatu ditugu aurreko egoerarekiko, ni eta Pili jarri gara atzelari eta Itsaso eta Onintza aurrelari. Lehen sakea postu aldaketa egiten ari ginen bitartean egin du Itsasok eta gu lekuz kanpo harrapatu gaituela ikustean berriro ere pilota eskuetan hartu eta beste sake bat atera du. Partidan lasai aritu naiz ni, gehiegi mugitu beharrik gabe, eta Onintza apur bat urduriago, aurrean ari delako, ziurrenik. Itsaso eta Pili ere nahiko ongi moldatu dira. Partidako une batean “Uxue ez da ia batere mugitzen” esan du Itsasok eta nik irribarre egin dut, tanto pare batean eurak dantzan jarri ditudalako. Aurrera jarraitu dugu jokoan eta beste istripuxo bat izan dugu. Itsasok jotako pilota batek Onintza jo du eta ni kezkatu naiz, egia esan. Belarri ertzean edo alboan jo ote duen iruditu zait, baina, zorionez kolpea buruaren atzealdean emandakoa izan da. Itsaso berak ere susto itzela hartu du, baina, Onintzak ondo dagoela esan eta jokatzeko jarraitu dugu. “Eskerrak pilota bigunarekin jokatzeko dugun” irten zaio barru-barrutik eta, egia esan, ez du arrazoirik falta. Etenaldiaren ostean partidari ekitean paretik apur bat urrunduta eta tarte handiagoa utzi du Itsasorekiko, bada ez bada ere (B.K. Egia esan hain distantzia motzean eta kidearen aurre-aurrean sarri kokatzen dira eta ez dakit nola ez den halako gehiago gertatu. Ez bedi berriro pasa, hala ere!). Partida jokatzeko jarraitu dugu eta atzeko eremutik berriro ere “zenbat zoazte?” galdera iritsi zaigu gure belarrietara. Saioa da. “5-2” erantzun eta azkenean 6-2 amaitu dugu. Oraingoan ere geuk lortu dugu markagailuan aurrea hartzea. Hala ere, “gu joango gara atzera” esan diet nik, eurek ere aurrean jokatzeko, gure bikoteak binakako partidetan aurreko eremuan bakarrik jardun duelako. Amaieran, baina, Pili eta Itsasok hartu dute erreboterako bidea eta atzetik Marian eta Gurutze hurreratu zaizkigu. Erlojuari begirada bat bota diot eta 20.58 ikusi dut. Entrenatzaileak “azkar, azkar hasi” esan die Marian eta Gurutzeri eta berehala ekin diogu laugarren partidari.

Laugarren partidan berriro ere aurreko kokapenetara itzuli gara Onintza eta biok, bera atzelari eta ni aurrelari jarritz. Pilotakadak ere izango zuen zerikusirik horretan, ziurrenik. Marian ere aurrean dago eta Gurutze atzean. Guregana iristean “galdu egin dugu baina Saioa onbera dago eta hona etortzeko esan digu” jakinarazi digu Gurutzek. Nik Mariani eman diot pilota sakea egin zezan eta “hau zer da, ontasunaren sakea?” galdera lauzatzearekin batera eman dio kolpea pilotari. Lehen tantoan batez ere atzera bidali dute pilota aurkariak, nik ez dut bakar bat ere ukitu, eta eurek lortu dute markagailuan aurrea hartzea. Bigarrean, baina, sakeari airez erantzun diot nik eta hori ikusita “Uxue hasi da sartzen, a zer beldurra” bota dit Gurutzek. Nik “egon, lasai” erantzun eta patxadan jarraitu dut tarteka pilota joz. Tanto hori, ordea, geuk lortu dugu nire tanto baten bidez eta irribarre egin dugu laurok. 3-1 gindoazenean argiaren tinbrea hasi da joka eta nik “zer, orain argiak itzaliko zaizkigu?” botatzearekin batera geratu da pilotalekua ilunpean. Kontrakantxan batu gara kide guztiok saioa amaitu ondoren. Saioak “zer, Gurutze, larunbaterako zer diozu?” galdetu dio eta zalantza apur bat egin

ostean “beno, bostetan agertuko naiz” erantzun dio. Luzaketak egiten hasi dira emakumeak paletak koskan utzi ostean.

Frontoi ataria

21.01 dira eta ni presaka etorri naiz gaur, etxeratu aurretik Legazpin biltzeko geratuta bainago. Beraz, luzapen bat egin, kideak datorren astera arte agurtu eta han utzi ditut giharrak luzatu bitartean mingainak dantzatzuz. “Bidean lasai ibili” esan dit bakarren batek. Nik baietz erantzun diet, hala ibiltzen naizela (B.K. Gaur ez naiz azken hizketaldian geratuko, baina, beti ezin da, beraz, hala beharko du).

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa orokorrean ondo joan da, nahiz eta izandako bi susto edo istripuxoen ostean gorputzaldi oso onik ez zaidan geratu. Kide bati buruan emaniko pilotakada ez da larria izan, baina, bestekak, bikiko gihar haustura izateko tankera zeukan. Ea zer berri ematen didaten datorren astean eta ez den kontrakturatik gorako ezer, neure dudak ditudan arren.

Iruditzen zait banakako txapelketa herrikoiko partidekin hasi ginenetik Emakumea Pilotari eguna igaro arte tankera honetan, buruz buruko partidak ardatz, joango direla paleta saioak. Niri ez zaizkit hain dinamiko eta erakargarriak egiten, egia esan, baina, orain ikaslea naiz eta onar dezaket neuk ere neure garaian hala antolatu nituela egun bat baino gehiago, Irurako partidak baldintzatzaile bihurtzen baitira.

Amasan larunbatean ospatuko den Topagunera Zizurkilgo ordezkari bat ere bertaratzekotan da, beraz, ea zein iritzi eta inpresio jaso ditzakedan bere bitartez.

Lasai aritu naiz ni oso saioan zehar, jokoa egokituz eta tarteka propio kilimaren bat egiten saiatuz, baina, emakumeek dagoeneko ezagutzen naute eta ez dut uste saltsa jartzea gaizki iruditzen zaienik. Ez didate aurrez aurre oraindik hala jakinarazi, bederen.

Asteko azken saioa iritsi eta kantxako jarduna amaitzeko amorratzen nago, beraz, ea zer dakarren asteko azkenak, asteazkenak.

“Aire, Aire!”

Asteko hirugarren saioa ia ohartzeke eta batetik bestera ezin kokatuta nabilela heldu zait, oraindik ere saioetako martxara egokitzeke bidean nabilela. Egia esan, bezperako saioko grabaketako azken lau minutuak amaitzeke utzi ditut, korrikaldi bat egin eta dutxa azkar bat hartuta abiatuz Usurbilera, “nahiago nuke eguna amaituta balego” esaldia buruan kolpeka ari zaidala. Nekatuta nabil, ia abailduta, egunetik egunera erreperatu ezinda eta goizetan ohetik jaikitzea ere kostatzen ari zait. Berriro ere joan-etorrietan hasi izanak hainbeste erasango zidanik pentsatzea ere!

Bi aste eta piku igaro dira azkena bertako pilotalekuan elkartu ginenetik, orduko hartan arratsaldeetako bi taldeetakoek batera jardun genuen, gainera. Beraz, Aste Santuko oporrak pasa osteko lehen saioa eta hitzordua ditugu gaurkoak. 18.50ean irten naiz etxetik eta justu ordurako bertaratu, 19.28an kotxea aparkatzen amaituta.

Sarrera

Aparkalekutik plazara abiatzear nagoela, paleta eta gainerakoak hartzen ari naizen bitartean, 15-20 metro aurrerago Aitziber ikusi dut, paleta eskuan, hura ere nire leku berera doala, saiorako pronto.

Pilotalekua

Zazpiak eta erdietako kanpai hotsak baino segundo gutxi lehenago heldu naiz bertara eta Aitziber harmailetan jesarrira aurkitu dut. Elkar agurtu eta “iritsi berria naiz” esan dit. Nik kotxea aparkatzen ari nintzen bitartean ikusi dudala esan diot eta bere aldamenean eseri naiz, kide gehiago etorri arte zain. Pilota eskolako haur batzuk dabilta eskuz aurreko koadroetan eta beste mutil bat ere bai atzerago ezker hormaren aurka pilotatuz. Hala ere, ez dago azkena bertan izan nintzeneko mugimendu eta jende pilaketarik. Gaur giroa ere barrurako baitago, oso umela, euria eta hezetasuna nagusi.

Aitziberrekin oporretako ibileren inguruan hasi naiz hizketan, “zer moduz oporrak?” galdera luzatuz. Kanpoan ez omen dira izan, nekatuta amaitu zuelako eta ezer ere egin gabe egoteko gogoa zeukalako. Irakaslea da eta nik “gure amak ere neka-neka eginda amaitu zuen” esan diot, langintza horren erreferentziak etxekoak baitzaizkit. Berak “zer, erabat osatuta?” galdetu dit ondoren eta lesioen ingurura bideratu dugu hizketaldia. Baietz erantzun diot, “hiru aste dira korrika hasi nintzela eta ez dut minik sentitzen. Hori behintzat pasa da” bota diot eta “beste zerbait al daukazu ba?” galdetu dit ardura apur batekin. “Beno, nekeak gaina hartu eta buelta eman ezinda nabil” jakinarazi diot eta lasaiago geratu da hori entzun ostean. Hitz eta pitz jarraitu dugu guk, iaz zuntz-haustura batekin bi hilabete pasa zituela errekupeatzeko eta halako kontuak aipatuz besteen zain gauden bitartean. Kirola egiteko moduak, korrika saioen helburuak, nire kroseko federatu garaiak, etab. izan ditugu hizpide.

Haizea iritsi da hirugarrena gu gauden ingurura eta honi ere egin diogu diosala, “arratsalde on” banarekin. Motxila bizkarrean duela etorri da, ohi bezala, saiorako materiala eskura izateko. Ea zer moduz dabilen galdetu diogu eta “orain apur bat kezkatzen hasi naiz, lanak dauzkat egiteko” bota du. Aitziberrek jarraian entrenatzaileari esan dio “Izaskunek eta Idoiak esan didate gaur ez direla etorriko, Nabarraldeko antolaturiko hitzaldi bat dago eta bertara omen zihoazen. Jaionek etorriko dela esan dit”. Beraz, ea gaur zenbat etorriko zain geratu gara solasean ari garen bitartean. Tesiaz hizketan hasteko “Urrutia ezagutzen al duzu?” galdetu dit eta “ez dakit bera nor den, baina, bere tesiaren berri badaukat, aurreko ikasturtearen amaieran aurkeztu zuen” erantzun diot. Berak esan dit “nire gimnasiako irakaslea izan zen hori” eta “irakasle ona zen” erantsi du. Haizeak “soinketakoak normalean onak izaten dira, ala?” galdetu dio eta “orain bai, baina, gure garaian ez” jaso du bueltan. Handik nire egunerokotasunaz galdetu dit eta nik “eguna ikerketaren inguruan ematen dut. Gaur, adibidez, goiza atzoko oharrak idazten eman dut, ondoren datu baseetan bilaketatxo bat egin, korrika apur bat eta hona etorri naiz”. Antolaketa beharko dela esan du eta “bai, komeni da, zuzendariak ere garrantzia handia izaten du horretan” erantsi dut nik. “Zurea hemengoa da, ala?” galdetu didate eta “bai, baina bigarren bat ere badaukat, hau Gasteizen bizi da” erantzun diet.

Laugarrena Jaione izan da iristen, aurreko elkarrizketaren erdialdean ginela, Haizearengandik bost minutura gutxi gorabehera. Haizeak orduan niri zuzenduz

“aurrekoan zutaz hizketan aritu ginen” esan dit eta “zer dela eta?” galdetu diot nik jakin-minez. Astelehen arratsaldeko saioan M^a Jesus azken saioaren berri ematen aritu omen zen, “ikerketa egiten ari da eta hark bai jokatzeko duela, hiruri ere irabazi zien” kontatu zuela esan digu. “Besteak ez ziren hain onak, baina, hura bai” esan omen zuen. Aitziberrek eta Jaionek esan didate saio hartan bertan “gaur serio aritu beharko gara” eta “nola jokatzeko duen” gisako aipamenak ere egin zituela saioan zehar niri erreferentzia eginez. Hitz egiteko abilezia daukala esan dute eta orduan jakin dut hura ere irakaslea dela. “Haur hezkuntzako irakaslea da eta bileretan ederki moldatzen da, normalean bakoitzak zati bat egiten badu ere honena izaten da luzeena. Niri gustatzen zait pedagogikoki” jakinarazi digu Jaionek, bere haurretako baten mailako irakaslea dela esatearekin batera.

Beste inor azalduko den ala ez zalantzan geratu gara, baina, ordua ere aurrera doa eta Haizeak hasi egin beharko dugula adierazi digu. Beraz, Aitziberrek eta biok aulkitik jaikitzekeo tartetxoa hartu eta laurok korroan jarrita ekin diogu saioari.

Beroketa

Asteroko moduan orkatilak biratzeari ekin diogu. Ondoren luzaketa batzuk eta besoen mugimenduak egin eta Haizeak karrera laster amaituko duela esan du, azterketarik ez daukala, lanak, baina ez dakiela okerragoa ez ote den. Hizketan ari garela korrika saiotxoari hasiera eman diogu, kantxan bueltaka, unibertsitateko antolaketa berriaz solasean, Bolognaz eta horren ondorioez eta Aitziberrek “ni Jurasikokoa sentitzen naiz” esan du. Jaionek ere “ba ni ere hor nonbait” gaineratu du. Antolaketa moduz eta atzerriko hizkuntzei ematen dieten garrantziaz jardunean ari garen unean Aitziberrek “gaur egungo gazteen ingelesa ez da dioten bezain ona. Kontua da 2 urterekin ingelesa ematen hasteak saldu egiten duela”. Bere ikasleei irakurtzeko testu errazak, biografiak oinarritzko hiztegiarekin, ematean askok ez dutela ia batere ulertzen azaldu du. Kontu kontari jarraitzen dugu eta “hau da azken itzulia” esan du entrenatzaileak, berriro ere harmailen aldamenen atzealdean geratu aurretik. Korrika saiotxoari ekin aurretik Aitziberrek “agujetak dauzkat” esan du eta zerenak diren galdetuta “bizikleta estatikoan ibili nintzen, baina, ez dut esango zenbat denboran, agian Uxue joandakoan bai” esan du, lotsa zantzu batekin. Nik lasai esateko esan diot eta “ordu erdi” esan du. Hori ez dela gutxi esan diot, kanpoan gutxienez ordubeteko buelta bat ematearen pareko badela.

Beroketa egiten hasi garenean haurren bat edo beste geratzen zen oraindik pilotalekuan, baina, korrika saiotxoa amaitu dugunerako inor ere ez dago pilotalekuan gu laurotaz gain. Antza denez ez dirudi beste emakumerik etorriko denik ere, nahiz eta zenbaiten puntualtasunean oraindik litekeena izan zitekeen.

Aitziberrek, Jaionek eta hirurok paletak hartu ditugu harmailetatik eta Haizeak guri begira “gaur zer egingo dugu? A, bai, airea landuko dugu” jakinarazi digu. Ondoren “gogoratu gero zuekin hitz egin behar dudala” ere esan digu eta Aitziber begira-begira geratu zaio, zertaz ote den antzeman nahiko balio bezala. Barre apur bat egin dugu eta bitartean bakoitzari pilota bana banatu digu Haizeak.

Ezker hormaren aurka jarri gara, frontisetik atzera Aitziber, Jaione eta hirurok, ordena horretan. Lehendabizi bi besoekin pilotatuz aritu gara, ondoren “kolpe bat airez eta hurrengo botez” esan du Haizeak eta beste tartetxo bat eman dugu modu horretan. Jaioneri aspaldi paletan ibili ote den galdetu diot aldamenetik eta “azkena joan den


igandean, Zizurkilen. Gainera, ordutegiari erreparatu nion eta ikusi nuen emakumeen saioa apuntatuta zegoela” esan dit. Nik baietz erantzun diot, astearteetan biltzen garela bertan. Handik apur batera Jaionek “ezin al dira guztiak jarraian airez jo?” galdetu du eta Haizeak “zu zer zara ikasle aurreratua? Hori gero egingo dugu” erantzun dio. Nik irribarre egin dut zehar begiratua botatzearekin batera. Tarteka Jaioneren pilota batzuk etorri zaizkit eta nire jardunari utzi eta itzuli ostean neurean jarraitu dut, lasaitasun osoz pilotatuz. Jaione ere nahiko ongi moldatzen da, jarraitasun dezentea lortu duela irudituz zait niri, eta Aitziber, berriz, entrenatzailearen aholku eta begiradapean ari da. Barre hots dezenteak datozkigu tarteka frontisaren aldamenetik ezkererago gabiltzanoi eta Haizea eta Aitziber, biak, algara batean ikusi ditugu. “Zer gertatzen da?” galdetu dit Jaionek eta nik ere besteei begiratu diet, zer ote dabiltzan jakin asmoz. Haizeak esan digu Aitziberrek ez duela lortzen airez lasai jotzea, “honen pilotakadak misilak dira eta horrela ezinezkoa da jarraian aritzea” esan du irria uxatu ezinda. Guk gurean jarraitu dugu, baina, berriro ere egoera bera errepikatu da eta berriro ere frontiseko gunera begira amaitu dugu, elkarri “hauek zer dabiltza? Haizea, gaur zer jan duzu meriendatzeko?” galdetuz. Halako batean Haizeak “orain kolpe guztiak jarraian airez egiten saiatu, ezker eta eskubi” adierazi digu eta hala hasi gara. Nik pilotari altuera ematen diot, baina, ezker horma nahiko baxua da eta nik sarea jo dut behin baino gehiagotan. Haizeak “gaur kabituko al gara frontoian?” bota du eta Jaionek “ez dakit, Uxue kexatzen ari da” esan du irribarrez (B.K. Aurrez ere aipatu izan dut erorketa handia duela ezker hormak eta oso altuera txikian amaitzen dela). Azkenean kidea apur bat eskuinerago mugitu da eta baita neroni ere. Haizeak Aitziberren inguruan jarraitzen du aholku ematen eta kolpea lasaiago egin dezan saiatzen. Kasu honetan ere heldu zaizkit eskuinaldetik desbideratutako pilota batzuk eta bila ere joan naiz frontoitik kanpo. “Lasai, berdin dio, ni joango naiz” esan dit Jaionek, baina, niri ere ez zait asko kostatzen eta bi-hiru itzuli eman ditut probalekura.

Ezker hormaren aurkakoarekin amaitzeko “orain binaka egingo dugu, batek botez egingo ditu kolpeak eta besteak airez” esan du entrenatzaileak eta Aitziber eta Haizea eta Jaione eta ni jarri gara elkarrekin, elkarrengandik gertuen gauden moduan. Nik pilota poltsan sartu dut kolpeak eta hitzak elkartrukatzeari ekin aurretik. Nola hasi erabakitzeko aukera berari eman diot eta “beno, ba ni airez eta zu botez” esanda ekin diogu. Tarte batean modu horretan aritu ondoren “zer, aldatuko al dugu?” galdetu dit kideak eta nik “bale, bai” esanez agertu diot nire adostasuna. Guk aldatu eta minutu erdi igaro baino lehen Haizeak “orain aldatu” esan digu eta “guk aldatu berri dugu” erantzun diogu. Irribarrez begiratu digu eta “zer, zuek ikasle aurreratuak al zarete?” bota du. Beste bolada batean modu berean jarraitu dugu, pilota ere aldatu dugu kanpoan putzura joan zaigulako pilotakada batek alde eginda, aldamenekoez tarteka barre algara saioak izaten jarraitzen dutela ikusiz eskuinera begiratutako uneetan.

Azkenean Haizeak hiruroi deitu digu eta kantxan elkartu gara. “Airea lantzeko ariketa batzuk egingo ditugu” esan eta azaltzeari ekin dio.

Ariketak

1. Irakasleak pilota prestatu eta ikasleak airez erantzun behar du, banakako ilaran jarrita.



Nor hasi erabakitzea ez da oso zaila izan, ilaran jartzeko unean Aitziberrek eta Jaionek atzera pauso bat eman dutela ohartu bainaiz. Beraz, neu jarri naiz lehenengo eta Haizeak prestatuturiko pilotari lasai asko egin diot kolpea airez. Jaione eta Aitziber jarri dira ni aurreratu naizenean hurrengo kolpeetarako prest.

Ariketa honetan izan dira zalantzazko uneak kideen artean, unerren batean aurrera azkarregi eta besteren batean beranduegi mugitzearen poderioz. Jaionek, adibidez, "ez naiz gustura geratzen ari" esan du eta nik esan diet susmoa dudala ez ote duen kolpea beranduegi egiten. Haizeak ere aholkuak eman ditu, airez jotzea baliabide oso ona dela esatearekin batera, joko azkartu eta aurkariak mugitzeko balio omen du eta. Niri begiratu dit eta nik baietz esan diot, aireko kolpea erabiltzen jakitea baliagarria izaten dela (B.K. Baieztapen beharrek ohartu naiz niri zuzendu zaidan moduan. Inoiz edo behin pasatzen zaie "laguntza eskatze" mota hori begiraleei eta nik arazorik gabe egiten dut, nola ez ba?!).

Ariketan zehar Aitziberrek une batzuetan paleta askatu du justu jotzeko unean eta "saiatu palari fuerte eusten" gomendioa eman diot, lagundu asmoz. Berak "bai, gaur konturatzen naiz askotan askatu egin dudala eta ez dakit zergatik" erantzun dit. Beste zenbaitetan ere izan ditu era honetako gorabeherak, eskumuturra mugitzen baitu azken unean askotan.

Amaiera aldera Haizeak "orain saiatu pilotari altuera ematen frontisean eta atzeratzen, botea 3aren eta 4aren artean edo 4tik atzera eginez". Jaionek ekin dio kasu honetan eta nire aurretik kideek egindako bi kolpeetan ez dute lortu. Nire txanda heldu denean "Uxuek baietz lortu" edo antzekoren bat esan diote elkarri eta erraz samar lortu dut. Modu honetan beste hiruzpalau kolpe egin ditugu bakoitzak eta kideei azken kolpeak nahiko atzera irten zaizkie, aurrez goiko txapatik gora edo oso baxu jotakoren bat izan bada ere.

Aireko kolpea lantzeko ariketa hau egiten hasi garenean Haizeak "zer ordu da?" galdetu du eta "20.30ean partidak egiten hasiko gara" jakinarazi digu. Aireko kolpea lantzen nahikoa denbora eman dugula iruditu zaionean "beno, ia partidua egiten hasiko gara" esan du. 20.25 jotzear dira nire erlojuaren arabera.

2. 2:2 partida, baldintzarik gabe.

Bikoteak osatzeko zer modu erabili ez daki ziur Haizeak eta "ez da oso konplikatua, gutako bat zuetako batekin" erantzun dio aldamenetik Aitziberrek. Jaionek ere ados dagoela adierazi du harmailetara hurbiltzen ari den bitartean. Hori entzunda "beno, ba, zu Uxuerekin eta ni Jaionerekin esan du, bestela saio osoa elkarrekin pasatzea agian gehitxo izango da eta". Nola kokatu erabakitzea bikote bakoitzaren esku utzi du eta Aitziberrek "zu aurrean" esanda azkar erabaki dugu guk. Jaionek eta Haizeak "zuek nola jarriko zarete?" galdetu digute erabakitzeko daudela eta "aaahhhhhh" erantzun dugu aho batez Aitziber eta biok, irribarrez. "Agian zuen erabakiaren arabera aldatuko dugu gurea ere" erantsi dut nik ondoren. "Zu aurrean eta ni atzean" esan du Jaionek eta, beraz, honela hasiko gara: aurrelari Haizea eta ni eta atzelari Jaione eta Aitziber. "Gero aldatu egingo gara" esanda partida erdia eta erdia egingo dugula kokapen bakoitzean adierazi digu entrenatzaileak.

Lehen sakea egiteko pilota nire esku jarri du Haizeak eta lasai egin diot kolpea atzerantz. Jokoan ari garela Jaione eta Aitziber barre algaraka behin baino gehiagotan sumatu ditugu Haizeak eta biok, kabitu ezinda dabiltzalako, lautik bostetan elkarrekin tupust eginez eta elkarri trabaka. Gu, aldiz, aurreko koadroetan elkarri pilota abiadura apur bat handixeagoan bideratzen aritu gara noiz edo noiz, baina, ez gehiegitan. Lekua egin ezinda ibili dira une askotan kideak, kokapenak barneratzea kostatzen ari zaiela adieraziz. Kolpe batzuk airez ere egin dituzte eta Haizea gustura agertu da une horietan, jokoari beste bizitasun bat ematea lortu dutelako. Eurei ere jakinarazi die “oso ondo, hor beste erritmo bat eman diozu tantoari” bezalako bidez.

Hasi eta puska batera markagailua nola ote doan galdetu dut nik, kuriositate hutsez, egia esan, eta ohartu gara inor ere ez dela kontaktzen ari. Orduan, “zer, berriz hasiko gara?” galdetu dut nik eta “bale, orain kontaktzen, baina, nik ez dut kontaktuko” erantzun dit entrenatzaileak. “Bale, ba, nik kontaktuko dut” esan diot nik eta berriro ere ekin diogu partidari. Haizeak “12ra egingo dugu” esan du halako batean. 4-3 edo goazela “zer, lekuz aldatuko gara?” esan du Haizeak eta aurrelari zein atzelari postuak trukatu ditugu bikotekideon artean. Aitziberrek bizitasun dezentea ematen dio tarteka pilotari eta “hau aurrelari peto-petoea dugu” esan dio Haizeak. Kideak harridura apur batekin “bai?” bota dio. Jokatzen jarraitu dugu eta markagailua oso estu doa, 6-6, 8-8, 9-8 gu atzetik eta “ba, lasai, hori aldatuko dugu” esan diet nik zirikatu asmoz. Jaionek eta Aitziberrek aurrean estresatuta dirudite zenbait kasutan, lekuz kanpo eta atzean baino askoz ere urduriago, Aitziber adibidez ezkerrean “preso” jokaldi bat baino gehiagotan geratu da, eta ondoren ezinezkoa egin zaio eskuinaldera iristea. Nik azaldu diot “ezkerrera sartu lasai, baina, gero saia zaitez eskuinera itzultzen, bestela zulo handia geratzen delako”. Berak baietz erantzun dit, nahiz eta une batzuetan ez den ezkerreko txokotik irten. Jaionek partidako une batean esan du “Uxuek ikusi, pentsatu eta gero jotzen du, denerako denbora ematen dio” eta niri irri salatari bat irten zait ezpain artetik. Nabarmena da eurak ez daudela hain ohituta partidak jokatzera, edo ez kokapenetan hainbesteko arreta jarriz bederen, baina, “lasai, orduak sartu ahala joango zarete ohitzen” batekin animatu nahi izan ditut. Atzean aritu garenean pilotakada dezente bideratu ditut ezker hormatik hurbil eta Haizeari kosta zaio zenbaitetan ona eginez itzultzea. Hori ikusita, “aupa, Haizea” esan diot pare bat aldiz nik eta saiatu naiz pilota hormatik apur bat aldenduago botatzen handik aurrerako pilotakada batzuetan. Partidako azken txanpan 9-9 berdindu eta handik aurrera guk lortu ditugu tanto guztiak. 12-9 amaitu dugu eta Haizeak “hemen utziko dugu gaurkoz, orain luzapenak egingo ditugu” esan du. 20.53 adierazten du nire eskumuturreko erlojuak.

Dagoeneko amaitu da Sutegiko hitzaldia ere eta jendea bertatik irteten ikusi dugu, etxera bidean ziurrenik. Pilotalekuan, aldiz, emakume bat dago harmailetan eserita, bost minutu inguru badaramatza, niretzat ezezaguna da, eta “oraintxe bukatuko dugu” esan dio Aitziberrek. Orduan esan digu “orain elkarrekin goaz afaltzera, aspaldiko partez”. Kideak, berriz, gu luzapen ariketak egiten hasi garela ikustean “luzapenak ere egiten al dituzue? Zeinen ondo!” esan dio. Berriro ere agujetak etorri zaizkio burura kideari aurrera makurtzen hastean.

Luzaketak egiten aritu garen bitartean Haizeak hasieran esaniko “zuekin hitz egin behar dut” hori ekarri du gogora eta hiru ohar eman behar dituela esan digu. “Berandu samar abisatu digute, baina, datorren larunbatean emakumeen ikastaroetako Topagunea antolatu dute Amasan” jakinarazi digu. Zer den xehetasun gehiago eskatu dituzte eta nik

lagundu diot entrenatzaileari “ikastaroetako emakumeak bildu eta ariketa zein partida ezberdinak egiten dituzte. Adibidez, badakit Hernanitik bi badoazela, Tolosatik bederatzi, Zizurkildik beste bat ere bai, ...”. Haizeari erantzuna noizko behar duen galdetu diote eta “berandu jota biharko, berez gaurko zen, baina, gehiegi izango da” eta “zer egingo dugu?” zalantza egin ostean “beno, hala bada hurrengorako utziko dugu” erabaki dute azkenean, etxean bederen hitz egin beharko luketela argudiatuz. Bigarren oharra Usurbilgo Pala Txapelketaren gainekoa da. Haizeak esan du “Usurbilgo txapelketa antolatzeke bilerak hasi ditugu eta uste dut osteguneko *Noauan* agertuko dela zerbait”. Nik, interesez, “azkenean zer pilotarekin jokatuko da?” galdetu dut eta “biekin, gomazkoarekin eta tenisekoarekin” erantzun dit. Hirugarren eta azken oharrak Emakumea Pilotari eguna du ardatz. Emakumeei azaldu die “gogoratzen al zarete nola esan nizuen festa bat egiten dutela ikasturte amaieran? Bada hori maiatzaren 26an da eta autobusa ere jartzen dute”. Nik “ahal izanez gero horra joatea gomendatzen dizuet, oso polita izaten da, jendea biltzen da, 60-80 emakume bai”. Hala ere, Haizeak “honen inguruan datorren astean ere hitz egingo dugu” esan du.

Informazio dosia jaso ostean harmailetara hurbildu, paleta eta txamarrak esku artean hartu eta norbere etxeetarako bidea hartu dugu, Aitziberrek “ni afaltzera noa” batekin agurtu gaituen bitartean. Jaionek, Haizeak eta hirurok elkarrekin egin ditugu lehen 20 metroak lehena agurtu arte. Oporretan non izan diren eta halako gauza pare batez hitz egin eta datorren astera arte agurtu dugu elkar. Kotxera, berriz, Haizearekin batera joan naiz, elkarren aldamenen apartatu baitugu.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Asteko hirugarren saioa ere joan da. Eskerrak! Egia esan alferkeri dezentea neukan etorri aurretik, baina, ordu eta erdi bat entretenituta egin dut, bederen, tarteka irribarre iheskor batekin. Hala ere, kostatzen ari zait nekeari aurre egin eta desplazamenduetara ohitzea. Gaur ere korrika eta presaka ibili naiz orduan heltzeko, egin nahi nituzkeen denak egin ezinda.

Gaurko saioan hirukotea elkartu gara, ez dauka zer ikusirik azken bi saioetako zazpi edo zortzi laguneko multzoarekin, baina, nik uste gutxi horiek gustura eta ongi moldatu garela. Ez dugu ia batere denborarik egin geldu ariketetan zehar, adibidez, eta parte-hartzea kide gehiago biltzen garenetan baino handiagoa izan da.

Gaur eguraldiak ere ez du lagundu eta “Usurbil bizi” hura berriro ere ia negu garaiko “Usurbil hila” iruditu zait, kalean oso jende gutxi zebilelako, baina giroa ere barrurako zen egokiena, dudarik gabe.

Beste hiru saio joan dira bata bestearen jarraian kateatuta. 25 baino gutxiago dira jadanik geratzen zaizkidanak, herena ere ez, beraz, orain ezingo naiz etsitzen hasi.

Lekutu ezinda

Lehen astea arraroa izan da niretzat, asko uste ez nuela, gainera. Saioetan azken boladako dinamikan aritu arren ordenagailu aurrean idazten hasitakoan denbora bikoitza behar izan dut zenbait unetan kontzentrazioa mantendu eta saioetako oharrak behar bezala atondu eta antolatzeke. Ez dakit oporrik eza izan ote daitekeen arrazoietako bat,

baina, datorren astean hala ibil ez nadin bakarren batek formula magikoren bat emango balit ez litzaidake batere axolako, egia esan.

Dena dela ere, hiru zatitan banatutako ikasturtearen azken atalari ekin diogu (eta diot) eta erdi-inkontzienteki astez asteko atzera kontua hasi dut, egutegiko orriak animo bereziz erauziz goizero-goizero. Beraz, datorren astearen zain geratzeko unea da oraingo hau, asteburuko kanporako bidaiatxoaz eta lagunarteaz gozatu eta burua apur bat freskatu eta berrindartzekoa. Ea astelehenean beste umore eta ganora batekin nagoen, premia badut eta.

24. astea. IBILI ETA GERO, BERO-BERO

Asteburuan Espainian zehar ibili ostean nekatuta, baina, ustez behintzat, apur bat arnasberrituta hasiko dut mardul-mardul datorkidan aste hau, tesia bizpahiru egunetan nire memoriako atal nagusitik apur bat bazterreratu ostean. Deskonexio premia handia zen, beraz, ea orain konexio bila hastean ere behar den neurrian erantzuterik lortzen dudana, tartean desbideratze eta alboratzerik behartu gabe.

Astelehen, astearte eta asteazkeneko paleta saioetako segidari ekiteko unea dut, gorputzean neke fisiko handi samarra, baina, buruan aspaldiko zama eta astuntasunik txikiena sumatzen dudala, gainera. Beraz, ea asteko lehen ordu hauek eman bezala joaten zaizkidan ondorengo ordu eta egunak ere, lanari neurria hartu eta erretxinaldiak gozotasunarekin ordezkatuta. Nahi bai!

Masailak gorrituta

Asteburu oparo eta indar-berritzaile baten ondorengo astelehena da gaurkoa. Irribarrea itzuli zait ezpainetara eta hilabeteak dira arrastaka eta ipurterretuta egon naizena eta sentipenak berezi samarrak dira, egia esan. Ikerlaneko kontuetatik eta neke pilaketatik beharrezko deskonexioa egiteko ezin hobea izan da larunbat eta igandeko bidaia laburra, atzeratutako oporretako asteburua dei niezaioke iragan berri denari, beraz.

Aurreko lan-astea ez zen urrundik ere nahi eta komeni bezalakoa izan, egin behar eta atzeratutakoen piloa esponentzialki hazi zen, baina, hasi berri dudana honetan gauzak bestelakoak izan daitezen saiatzeko erabaki irmoa hartu dut. Hori bai, neke pilaketa fisikoa izugarria da soinean nabari dudana, beraz, ea nola moldatzen naizen gogoaren indarra eta gorputzaren gainzama uztartu eta baikortasunean aritzeko.

Etiketetik ohi baino hamar minutu lehenago irten naiz, irratiaren arabera kotxe istripu bat izan delako nire ibilbidean. Bidaia ohi baino umoretsuago egin dut, musika lagun, tarteka kantuan edo txistuka. Gainera, zorionez, trafiko arazoak konponduak ziren ni iristerako eta ez dut presaka eta korrika ibili beharrik izan.

Kiroldegiko sarrera

9.24an iritsi naiz aurrealdera eta ohartu naiz Gemma eta Ainara kanpoko banku batean eserita daudela. “Zer, eguzkia hartzen?” galdetu diet nik eta irribarre egin dute bi ahizpek. Beraz, eurengana hurbildu eta besteen zain bertan geratzeko hautua egin dugu. “Zer, goiz zabilta, ala?” bota didate niri eta “betiko antzera” erantzun diet. “Besteetan gu ibiltzen gara beranduago eta horregatik izango da” erantsi du Ainarak. “Gaur haurrak eskolan utzi eta zuzenean etorri naiz” Gemmak. Ni iritsi eta laster zen gure artean Irati ere eta “aspaldiko” esanez agurtu dute elkar. “Egun hauetan amarekin ibili naiz bueltaka, erdipurdi dabil, aldaka hautsi ostean” jakinarazi digu eta nola moldatu den kontatu, igogailurik gabeko etxean, laugarrenean bizi, eta errehabilitaziora joanez. “80 urterekin, orain, bizikleta estatikoan ibiltzen hasi da” ere bota du. Ondorengo iristen Saioa izan da eta ni asteburuko gorabeheren inguruan ari naiz hizketan, “opor asteburua izan da hau niretzat” kontatuz. Kanpoan hizketan ari gara gu eta 9.32an Jonak kiroldegiko atetik agurtu eta “gu hemen gaude” esanez dei egin digu. Beraz, zuzenean kiroldegira sartu gara eta tornutik aurrera pasatzen hasi. Atezainak entrenatzaileari “goiko bulegotik pasatzeko esateko esan didate” oharra eman dio eta bere motxila niri

eman ostean “hiru itzuli eman eta beroketak egiten hasi” esanda hartu du goranzko eskaileretako bidea. Besteok, berriz, frontoira bidean jarri gara. Aurretik Zuriñe, Jone eta Ines doaz eta atzetik, berriz, kanpoan topo egin dugun beste laurok.

Pilotalekura bidean Malenek harrapatu gaitu gimnasioaren parera iristean eta Saioaren motxila nire bizkarrean ikustean “zer, gaur Saioa ez al dator?” galdetu dit. Nik “bai, baina, goiko bulegoetara joan da eta motxila niri eman dit” erantzun diot. Azken pasabideko atera heltzean Jone atzerago goazenon zain geratuta zegoen, berriro tinbrea jo beharrik izan ez genezan, eta “egun on, zer atezain lanetan?” esan eta aurrera egin dugu azken eskailerak igo ondoren.

Pilotalekua

Ez dago argitasun izugarriarik barruan, baina, aurreko astean baino argiago bai, kanpoan ere laino dezenterekin baina ateri dagoelako giroa, momentuz bederen. Hala ere, arratsalderako giroak okerrera egingo duela esan dute eta ez dakit ez ote dugun eguzki izpi gutxi samar izango kantxan argi naturalarekin behar bestean moldatzeko.

Ohi bezala, sartu eta harmailetan trasteak utzi ditugu lehenengo. Gemma eta Ainarari “zer moduz larunbatean?” galdetu diet, Emakumeen Topagunera joatekoak baitziren. “Ondo, mailaz paretsu genbiltzan” erantzun du Gemmak eta “zer, jende asko bildu al zineten?” galdetu dut nik berriro. “Bai, dezente, Oiartzungoak, zarauztarrak,... Nik uste mailaren arabera egingo zituztela taldeak” erantzun dit bi ahizpetan gazteenak. Miren ere iritsi da atzetik, beraz, jadanik bederatzi lagun batu gara. Ondoren Ainarak “hiru itzuli egiteko esan du, ezta?” bota eta Malenek “zer, kasu egin behar al diogu?” galdetu arren beroketarekin hasi gara.

Beroketa

9.40 jo aurretik korrika saiotxoari ekin diogu, motorrak martxan jarri asmoz. Ni Irati, Miren eta Inesen inguruan aritu naiz nagusiki. Korrika lehen itzulia ematen amaitu ondoren Saioa eta Rakel iritsi dira pilotalekura kanpotik. Badirudi kirol patronatukoekin egin beharrekoa ez dela hainbestekoa izan. Bigarren itzulia amaitu dugunean aurrean erritmoa jarriz doazen Ainara eta Gemma geratu egin dira eta lehen unean Irati eta biok aurrera egiteko imintzioa egin badugu ere gu ere taldekideekin batera entrenatzailearen ingurura batu gara beroketarekin jarraitzera.

Korroan jarri orduko “ez al duzue esprintik egingo?” galdetu du Saioak, Ainara eta Gemmari begira, larunbateko Amasako beroketari erreferentzia eginez. “Ez al diezue kideei han eginikoa azalduko?” xaxatu ditu geroxeago, baina, Ainarak “badakizue egun horietako beroketak nolakoak izaten diren, zuek segi beroketarekin” esanez itxi du gai honen gaineko hizketaldia. Giltzaduretako mugikortasuna lantzen hasiak gara, orkatiletatik hasi eta atalez atal gora eginda besoekin amaituz. Bitartean Saioak ohar bat eman digu, “maiatzaren 26ko Irurako eguna kolokan dago, balitekeelako pilotalekua okupatuta egotea. Aste hori da Kultur Astea bertakoentzat eta larunbatean Dantzari Txikia daukate antolatuta. Beraz, eguraldi txarra egingo balu pilotalekua eurek beharko lukete. Ez dakit zer egingo dugun, beste leku bat aurkitu eta data aldatu” jakinarazi digu eta “Gipuzkoan ez al dago beste frontoi handirik?” galdetu du bakarren batek eta “Galarreta edo Bilboko Miribilla” bota du bakarren batek. Umorez hartu dute eta bazkariarena arazo izan litekeela aintzat hartuz “bokadiloak etxetik eramango ditugu,

edo fianbrerak bestela, patata tortilla ere bai, kantinplora ere hartuko dugu” esan dute irribarrez, “kontua ez al da elkartu eta jolasean aritzea?” galdetuz. Ondoren datorren astelehena, maiatzaren 1aren bezpera, nola antolatuko duen galdetu du, ea emakumeak saiora etorriko diren. Batzuk esan dute ezetz, hurrek jai dutela eta kanporako asmotan direla, edo medikuarenean txanda dutela, beraz, luzamenduetan aritu ordeztu “saio amaieran erabakiko dugu” esan du Saioak.

Giltzaduren mugimenduekin amaitu dugunez eta elkarrizketan asko luzatu gaitezkeela pentsatuta ziurrenik, entrenatzailea motxilatik paletak hartu eta banan-banan bana hartu dugu, elkarri pasaz. Paletak hartu orduko pilotak partitzeari ekin dio, aldamenean jarrita gauden moduan ezker hormaren aurkako pilotoari ekin diezaiozun.

Frontisetik gertuen Rakel eta biok, gure ezkerrean Ainara eta Gemma, hauen ezkerrean Malen eta Irati, ezkerreago Zuriñe eta Jone eta erreboten aldamenean Ines eta Miren jarri gara, ordena horretan, binaka pilotatzeko helburuarekin. Aurrez ere banekien Rakel errugbizalea zela, beste egunen batean ere gaiaren inguruan hizketan aritu izan direlako, eta bezperan Hernaniko taldeak mailaz igotzeko kanporaketa bertan jokatu behar zuela banekienez, “zer, atzo izan al zinen errugbi partidari?” galdetu diot. Baietz erantzun dit eta errugbiaren gaineko hizketaldi bat izan dugu, nik gaiaz arrastorik ere ez daukadenez zenbait gauzen gaineko kuriositatea badaukalako, besteak beste. Aurkarietako batzuk benetako armairuak zirela esan dit, hernaniarrek “eskerrak” jasotzen dituztela partidengatik eta etxeko jendearekin ari direla eta horrek benetako lana eskatzen duela. Beste zenbait gauzaren artean neuk esan diot “errugbiaren ideiarik ere ez daukat, baina, kirol gogorra iruditzen zait” eta berak erantzun dit “hasieran ikusten hastean elkar jotzen ari direla iruditzen zaizu, baina, indarrak gain estrategia dezente ere erabiltzen da jokoan”. Ondoren herrian zaletasuna betitik dagoela esan dit eta nik gaineratu dut norberak mugitzen den giro eta inguruaren arabera ezagutza izaten dituela, gure inguruan, adibidez, ez dagoelako kirol horrekiko inongo loturarik.


Gu pilotakadak eta hitzak elkartrukutzen aritu garen modu horretan jardun dute gainerako gehienek ere, baina, Saioa, Gemma eta Ainarak hizketaldi luze samarrak burutu dituzte, pilota eta paletak eskuan zituzten bitartean, lehenak marra jartzeko gure ingurura urrats batzuk eman dituela probestuz. Beste bikoak urrunago geratzen zaizkit, baina, gure antzera, ezker eskuin eta patxadan dabiltzala dirudi. Pilotalekua beteaz ikusten da albo honetatik, hamar baikabiltza.

Saioak dei egin digu denoi halako batean, 10ak oso urrun ez ditugunean eta saiorako guneak eta bertan nola kokatuko garen azaldu digu lehendabizi, partidaren orria eskuan hartu eta orain arte jokatu dituzten banakako norgehiagokak zein falta dituztenak zein diren ikusi eta kalkuluak ateraz.

Ariketak


Aurreko eremuan bat baten aurkako partidak egingo dituzte eta erdian zein atzean bikotekako partidak. Lehen buruz buruko lau partidak nork noren aurka jokatuko dituzten zehaztu eta kideak era horretan bikoteka jarri ostean “Malen eta Uxe elkarrekin” esanez amaitu du Saioak, baina, aurreko astean jokatu genuela ikusita “gero esango diozu norekin” iradoki diot entrenatzaileari eta hark “zuri gero esango dizut, momentuz Uxuearekin jarri atzean” bota dio kideari. Beste emakumeak aurrean elkarren aurka jokatu beharreko partidaren arabera kokatu ditu Saioak agindutako guneetan.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 2:2 partida. Bikote bakoitzak paleta bana du, beraz, kideari eman behar zaio kolpea egindako bakoitzean.

3. Atzeko gunean 2:2 partida. Atzean eta eskuinean jarririko konoari itzulia eman behar zaio jotako bakoitzean.



1. txandako kokapenak hauek izan dira. Aurrean: Rakel-Ainara. Erdian: Ines-Gemma eta Miren-Jone. Atzean: Irati-Malen eta Zuriñe-ni. Gure kasuan geuk erabaki dugu bikoteak modu horretan egitea, oreka bila ziur aski. Hala ere, dezenteko egurra hartu dugu Zuriñek eta biok, une batetik aurrera aldea hainbestekoa izaki markagailuko tantoak kontatzeari uzteraino. Maleni inspiratuta etorri dela esan diogu pare bat aldiz irribarrez eta Iratik ere airez jota tanto bat baino gehiago lortu ditu. Hala ere, korrika saioen ondorengo esprintak eta aurkariak mugitzeko saiakerak denok egin ditugu, askotan pilota airez kolpatu eta denbora tartearak murriztuz. Erdiko eremuan ere mugimendu dezentea izan da, paletak elkarri eman beharrak urduritasun eta desplazamendu gehigarriak eragiten dituelako zenbaitetan. Aurrean, aldiz, denbora dezente eman dute jokoan, tantoak luzeak izan dira. Aurreko partida amaitzean Saioak kokapenak erabaki bitartean partida luzea jokatu dutela esan diote Rakeli eta honek “piloteatzen aritu da, jokatzen utzi dit” esan du, nahiko gustura.

2. txandan honela aritu gara. Aurrean Ines-Gemma, erdian Ainara-Rakel eta Irati-Zuriñe eta erreboteko gunean Miren-Jone eta Malen-ni. Atzeko partida jokatzen hasi eta berehala Jonek “hankan traba bat sumatu dut” esan digu. Ez behartzeko esan diogu eta nik tarteka galdetu diot ea minik sumatzen zuen eta berak “ez, baina, ez dut behartu nahi” erantzun dit. Gu lasai aritu gara, gaiztakeri bat baino gehiago egin ditugu Malen eta bion artean eta beraiek larriago, zenbaitetan konoari buelta emanda berriro ere joko eremura heltzerako ezinezkoa baitzen horma bikoa edo ezker hormaren aurka motzean utziriko pilotak itzultzea. Erdian nahiko ongi aritu direla iruditu zait zeharka begiratu dudan aldietan eta aurrean, aldiz, elkarri ezer ere barkatu gabe dihardute biek ala biek, serio demonio eta pilota kidea ez dagoen lekuetara bideratzen saiatuz.

Aurreko partida amaitu dutenean harmailetara joan dira lehendabizi Ines eta Gemma, ur trago bana jotzera, nekadura apur bat sumatzen baitzaie. Bakarren batek ea partida nola joan den galdetu die eta Inesek “hasieran parekatua izan da, baina, gero nagusitu egin zait” erantzun du, edo halako zerbait. Horren ondoren berriro ere gure kokapenak aldatu ditugu, entrenatzailearen esanetara hartuz leku berriak pilotalekuan zehar.

3. txandako antolaketa modu honetakoa izan da. Aurrean Jone-Miren buruz buru, erdian Irati-Zuriñe eta Gemma-Ines eta erreboteko gunean Ainara-Rakel eta Malen-ni. Gu berriro ere hasierako postura itzuli gara, erdiko gunean sartu-irten bat egin ondoren. Ainara eta Rakelen kasuan, aldiz, atzeko gunean dauden lehenengo aldia da. Kasu honetan ere gaiztakeria batzuk egin arren gehiago egokitu dugu gure jokatzeko era, batez ere, Rakelek ere parte hartzeko aukera izan zezan. Konoari buelta ematea eta berriro ere kantzara itzultzea tarteka gero eta gehiago kostatzen zaigu, nekea ere parte hartu nahian dabilelako, antza.

Partida amaitu dutenean ea zer moduz moldatu den galdetu dio ahizpari Inesek eta Joneri erreferentzia eginez “honek kristoren astelehena zeukan” erantzun dio. Horren ondoren orain arteko dinamika berari segituz bikoteka bakoitzari esleitutako postuetan amaitu dugu.

4. txandan modu honetan kokatu gara: Irati-Zuriñe buruz buru aurrean, Malen-ni eta Miren-Jone erdian eta Ainara-Rakel eta Gemma-Ines atzeko gunean. Gu saltsan aritu gara eta besteak ere tankera bertsuan ibili direla iruditu zait. Aurreko partida luzea eta borrokatua izan da kasu honetan behintzat.

10.28 dira aurreko banakako partida amaitu dutenean eta hamar emakumeok entrenatzailearen ingurura bildu gara une batez. Emakumeek hurrengo banakako partidak nola jokatu dituzten azaltzeari ekin dio Saioak, baina, ez da erabat ongi moldatu eta nik lagunduta azkenean lortu du errepikatu beharrik gabe bederatziek gaur bi partida joka zitzaizten (B.K. Egia esan, etortzen direnen eta ez direnen arabera askotan egutegiko antolaketa nahiko hankaz gora geratzen da eta kostatzen da parekatze guztiekin asmatzea. Ni ere pasea naiz egoera horretatik lan berean niharduenean).

5. txandan aurrean Malen-Irati arituko dira nor baino nor. Hori entzutean barru-barrutik “berriz? Partida jokatu berria naiz eta nekatuta nago” bota du Iratik arnasari buelta ematen dion bitartean. Bestea Malen izango dela ohartzean Jonek, adarra jo asmoz, albotik “orain nekatu zaitez zu, gero baldintza berdinetan jokatzeko biok” esan dio irribarrez. Izan ere, Saioak esan dio elkarren aurka jokatu dutela gaurko bigarren banakako partida. Horren ondoren besteak ere kokatu gara geure guneetan. Erdian Ines-Ainara eta gu biok eta atzean Zuriñe-Gemma eta Miren-Rakel. Erdian jokatzeko hasi garenean Saioa hurbildu zaigu une batean guregana, aurreko guneko partidako epaile lanak egiten hasi aurretik, eta “hurrengo partidua nik, gaur pixka bat lehenago joan behar dut” eskatu dio Inesek partiden ordenari erreparatuz. Baietz erantzun dio entrenatzaileak eta jokatzeko jarraitu dugu, nahiko lasai eta markagailuan tantoak kontatu gabe. Hala ere, saiatu gara elkar mugiarazten.

Aurreko partida beste batzuetan baino motzagoa izan da eta Iratik nekatu aurpegiarekin egin du kontrakantzarako buelta. Urari tragoa egin dio eta ondoren Saioak esan bezala hartu ditugu hurrengo errotazioan ere gure kokapenak. 6. Txandarako aurrean Ines-Ainara, erdian Zuriñe-Gemma eta Malen-Irati eta erreboteko gunean Jone-ni eta Miren-Rakel elkartu gara. Atezko gunean nekea bere eragina nabarmentzen hasia da eta dezente gehiago kostatzen zaigu batzuetan konoari buelta eman eta berriro ere korrika aurkarietako pilota erantzutera iristea. Tarteka aurreko partidari begiratzen saiatzen naiz atzeko gunetik eta hala ari nintzen batean pilota jotzea ahaztu zait, arreta

aurrean nuelako gure jardunean baino. Barre txikiren bat egin du bakarren batek eta eurei ere tarteka hori gertatzen zaiela adierazi.

Aurreko partidari pilotakada dezenteke tantoak jokatu dituztela iruditu zait eta amaitu dutenean besteongana hurreratu dira, aurretik kontrakantxako murreran dituzten ur botilak eskuan hartu eta trago batzuk egin ostean.

7. txandan honela kokatu gara: aurrean Gemma-Zuriñe banakako partidari elkarren aurka, erdian Malen-Irati eta Jone-ni eta atzean beste laukotea: Rakel-Miren eta Ainara-Ines.

Orain arte saioan egin bezala gune bakoitzean dagokigun ariketa burutu dugu eta aurreko partidari baino giro bareagoan, nahiz eta elkarri kilimak egin eta tantoak norberak lortzeko ahaleginak egin kasurik gehienetan. Hala ere, protagonismorik nagusiena banakako aurrealdeko partidari hartzen du eta beste eremuak horrako “geltoki” edo “itxarongune” bihurtzen direla dirudi, bitarteko denbora igarotzeko.

Dagoeneko 10.45ak majo igaroak dira eta Inesek martxa egiteko asmoa agertu du. Saioa atzekoongana hurbildu da eta datorren astelehenean zer egin erabakitzeko dugula esan du. Hala ere, bere ahizpari esango diola adierazi eta lasai joateko esan dio kideari, nahiz eta antolaketa aldaketa eragingo dion hemendik saioaren amaierara. Izan ere, bederatzi lagun geratu gara hiru eremutan jokatzen aritzeko. Hori ikusita Inesek kezka puntutxo bat adierazi du, baina, ia aho batez “lasai joan, moldatuko gara” erantzun diogu Saioak eta neronek.

8.txandarako, beraz, aldaketa txiki bat eman da, nahiz eta nagusiki gune eta eginbeharrek orain arteko berak izaten darraiten. Aurreko buruz buruko norgehiagokan hasiko dira Rakel eta Miren. Erdian laukote bat, lehen bezala, Zuriñe-Gemma eta Malen-Jone. Atzean egin du aldaketa Saioak. Ainara bakarrik eta Irati-ni bikotea osatuz, konoari buelta emanez gure kasuan. Ainarari masailak gorritu zaizkio eta nekea ere nabari zaio. Hala ere, askotan sartu da airez jokoan zehar eta gu biok ari gara korrika, konoraino joan eta berriro ere kantxara itzuliz. Aldamenetik une batean Gemma “a zer pasada hartzen ari den Ainara” esanez entzun dut, guri begira unetxo bat egin ostean. Beste tarte batean, berriz, aurrean jokatzen ari diren banakako partidari begira ikusi ditut laurak, pilota eta paletak eskuetan dituztela. Ainarak “ez dakit zuek ez ote zareten gehiago nekatzen ari, korrika” esan digu eta niri zein Iratiri nekea sumatzen zaigu. Neronek zenbaitetan ez abiatzea ere erabaki dut pilota kolpatzera iristea ia ezinezkoa irudituta eta Iratiri arnas estua nabari zaio.

11.02 dira eta Miren eta Rakelen arteko lehia bukatu da, kontrakantxara hurreratu baitira. Oraindik, hala ere, partida bat geratzen da jokatzeke aurrean. Rakelek luzaketak egiteari ekin dio, erreboteko erlojuari begiratu eta hamaikak jota direla ohartu ostean. Badirudi hau ere laster joango dela kanpora bidean. Hala esan du “banoa, hamaikak jo dute eta”. Saioak esan dio abisatuko diola astelehenean saiorik izango ote den, nahiz eta ezetz iruditzen zaion. Beraz, trasteak jaso eta pasabidetik barrena abiatu da kidea.

9.txandarako banaketa nola egin ere zehaztu digu entrenatzaileak: aurrean Jone-Malen partidari, erdian Miren, Irati eta ni eta erreboteko eremuan Ainara, Zuriñe eta Gemma. Gu hasieran erdian kokatu bagara ere nekea sumatzen zaigu eta ia aho batez erabaki dugu “aurreko partida ikusiko dugu luzaketak egin bitartean”. Beraz, pilotak eta paletak

utzi eta luzaketak egiteari ekin diogu kontrakantxara hurreratu garenean. Beste hirurek, berriz, pilotakadak eta hitzak elkartrukatuz jarraitzen dute erreboteko gunean momentuz. Ni giharrak luzatzen hasi naiz eta imitazio bidez aldamenean jarrita batzuk egin dituzte kideek ere. Bitartean, mingainak dantzatzeko ere aprobetxatu dugu.

11.08 dira eta aurreko guneko azken partidarekin amaitu dute Malen eta Jonek. Jadanik beste kideok luzaketak egiten eta hizketan dihardugu kontrakantxan. Bik aspalditxo hartu dute etxerako bidea, gainera. Paletak sartu ditugu motxilan eta datorren astelehenean zer egin erabakitzeko unea heldu da. Saioak zalantzak ditu, baina, gehienek ez direla etorriko esan dute, pare batek ez dakitela haurrak beste norbaitekin uztea lortzerik izango duten, besteren batek medikuarenean txanda duela eta azkenean “nik berez ez daukat jairik, baina, gutxi etortzeko arriskua dago” esan diogu entrenatzaileari. “Batez ere zuregatik” argudioari tiraka, beraz, “datorren astelehenean ez dugu saiorik egingo” jakinarazi digu Saioak (B.K. Erabaki egokia iruditu zait niri, nahiz eta nik azaltzeko asmoa agertu dudan bizpahiru izan garelako nahiko ziur agertuko ginatekeela esanikoak).

Datorren astekoaren gaineko erabakia hartu ostean Naiara ez dela gehiago etorriko esan die emakumeei, kanpora omen doa bizitzera senarraren lan kontuak medio, ikasturtea amaitu ondoren esan dute emakumeek, eta Joanak ea etortzeko asmorik baduen galdetu Iratiri. Honek esan dio “gomazkoekin gustura aritzen dela dio berak” eta Saioak “esan tenisekoarekin ikasi behar dela gomazkoarekin hobeto ibiltzeko” bota dio kideari. Berak “ni tenisekoarekin gustura ibiltzen naiz eta esaten diot” arrazoitu du ondoren.

Hizketan hasi gara pilotalekutik kanpora irteten eta pasabideko ateari eutsiz azkenen zain egon ondoren neu izan naiz gimnasioko eskaileretan barrena jaisten azkena. Gainera, jende asko dabilela iruditu zait, bete itxura hartu diot, eta “zenbat jende dabilen” bota diot parean doan Mireni. “Bai, eguerdietan, 3ak aldean kenduta, beti beteta egoten da” erantzun dit. “Ni ito egingo nintzateke hor barruan” esan diot eta berak ere esan du nahiago duela haizea hartuz jardutea. Ohartzerako ia azken pasabidea dugu parez pare, aldageletako atean gaude ia, goranzko eskaileretatik haize freskoa hartzera irteteko.

11.17 dira eta aldagelen parean agurtu ditugu besteak, ondo ibiltzeko esanez. Justu Rakel une horretan irten da kanpora bertatik, “honek lanak egin ditu” esan du Mirenek. Saioak jakinarazi dio “datorren astean zubia egitea erabaki dugu, ez dugu saiorik emango”. Berehalaxe Saioa, Jone, Zuriñe, Rakel eta bostok kanporanzko norabidea hartu dugu, eskailerak igo eta tornutik pasa asmoz, besteak solasean utzita. Tilosetako partiden inguruan ari ziren Malen, Ainara, Miren eta Gemma, gaurko partidarako ordezkoa behar dutelako Malenek eta Mirenek (B.K. A zer lanak ematen dizkien ditxosozko txapelketak, nahiz eta poza ere sumatzen zaien horren inguruan hizketan hasten diren zenbait unetan).

Kiroldegiko sarrera

“Maiatzera arte” agurtu dugu elkar batera irtendakook, irribarrea ahoan “hori lekutan dago” esanez, besteak beste. Bi aste barru izango dugu hurrengo saioa. Zuriñek eta Jonek eskaileretatik segi dute, goiko sarreratik eta Rakel gure ate beretik etorri da kanpoaldera. Saioarekin batera irten naiz ni kiroldegitik eta hura eskaileretan gora doala entzutean nik ere liburutegira joan beharko dudala erabaki dut, nahiz eta etxera

abiatzeko gogo bizi samarra eduki hobea baitut ahal dudan heinean gaurko oharrak lehenbailehen idatzi eta ondoren hainbeste erakartzen ez nauten atalei heltzea. Batera egin dugu kultur etxe parerako bidea, geure kirol interes eta ibileraz hizketan, duatloiaz bata eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioak antolatuko duen paletako zirkuitu berri baten berri emanez bestea. “Bihar arte” esanez biharamunean elkarrekin topo egin arte agurtu dugu elkar.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saioan behaketa lanak egitea eta aldaketez zein errotazioetako kokapenez gogoratzea besteetan baino zailagoa egin zait gaur. Izan ere, hamar lagun ibili gara hara eta hona eta une batean bikoteak aldatu egin dira partiden arabera, kokapenak bezalaxe. Beraz, nahiko larri amaitu dut saioa, zalantzas beteta, nire gogoratzeko gaitasunean fede handirik ez baitut. Gaur ere Saioari, bada ez bada ere, ahal duenean mesedez jokaturiko partiden zerrenda bidaltzeko eskatu diot, ahalik eta hanka sartzerik gutxien egitea komeni baitzait. Une batzuetan iruditzen zait ni jokatzeko arituta beste zenbait detaile eta gorabeherak ihes egiten didatela, ez daudelako nire ikusmen eremuaren barruan. Gauza bera emakumeen inpresio eta iritzien gainean ere.

Gaurko saioan zehar emakumeak nekatu egin dira, batez ere aurreko guneko banakako partidetan, baina baita atzeko konoarenean ere, desplazamendu handia eskatzen baitzuen jotako bakoitzean. Askok izan dira arnas-estuka aritu direnak, kolore gorriak ere izan ditu bakarren batek masailetan, eta amaierarako neronek ere ahulezia sumatu dut, ohi baino apur bat gutxiago mugituz, nekearen poderioz. Nire kasuan bezperako esfortzua nabari dut, duatloia berrakidatzea dela, alegia, nahiz eta gihar minik ez izan. Hala ere, oso dinamikoa izan da gaurko saioa eta emakumeak saltsan eta giroan sartuta gustura aritu dira.

Gunez gune jokatzeko modua aldatu egiten dela iruditzen zait azken asteotan, aurreko guneko partidetan, txapelketa herrikoia baita jokatzeko ari direnetan, nahiz eta taldekideen aurka aritu, gehienak elkarri ezer barkatu gabe jarduten dira, kidearen mailari gutxiago ala gehiago erreparatu eta egokitzeko gaitasun ezberdinarekin. Erdiko eta atzeko eremuetan, aldiz, gehienek beste patxada batean jarduten dute, markagailuari hainbesteko garrantzirik eman gabe. Txipa eta gogoia ere aldatzen zaizkiela apustu egingo nuke egoera eta guneak aldatzearekin batera.

Bi aste barru egingo dugu hurrengo saioa, festa egunaren bezperan egokitu baita apirileko azken eguna. Egia esan, nik gustura hartuko dut astearen hasiera lasaigoa izan eta beste zenbait gauzari nahi besteko arreta eskaini ahal izatea.

Neke aurpegiak

Astelehena ondo hasi eta erdipurdi amaitu ostean, eskerrak asteburuan batera kargatu eta freskatu nintzen ustea nuen, astearte ere ez hotz ez bero igaro baitut, erdi alfertuta, saiorako garaia heldu zaidan arte. Egia esan, lana pilatzen ari zait, baina, nik uste horrekin lotura zuzena duela ikasturtearen iraupenak, orain nahi baino gehiago eragiten didalako. Hala ere, azken txanpan (luze samarra egin dakidakeen arren) sartu naiz eta honek ez du atzera bueltarik. Beraz, altza porru!

Saiora azkenaldiko modu eta garai bertsuan abiatu naiz gaur ere, N-lean barrena pilotu automatikoa piztu eta begiak itxirik ere egingo nukkeen ibilbidean: Beasain, Alegia, Irura eta Villabonako 2. irteeratik Asteasurako bidegurutzea baino lehen eskuinetara aldapan gora. Zazpiak jo berritan motorra martxan jarri eta zazpiak eta erdiak jo berritan aparkatu dut frontoitik hamar metrora, ordu erdian bolantean jarrita ibili ostean.

Pilotaleku ataria

Kotxetik trasteak hartu eta Saioa eta Itsasorekin batu naiz berehala. Hauek jadanik hitz eta pitz ari dira. Gurutze ere justu nirekin batera heldu da, eskuetan paleta dakarrela. Laugarren taldekide bat ere inguruan dabil, Oihane, pilotalekuaren kanpoaldeko parkean ari delako hizketan, seme-alabak ere bertan dituelako. Gurutzek iritsi bezain pronto “agujetak dauzkat” esan du eta nik “zerenak?” galdetu diodanean “larunbatekoak” erantzun dit. Esan du igandean sumatzen zuela zer edo zer, baina, astelehenean are gihar min handiagoak zituela, eskailerak jaistean ederki nabaritu zuela. Nik erantzun diot “niri inoiz pasa izan zait zerbait egin eta handik bi egunera biharamunean baino gehiago nabaritzea”, hain arraroa ere ez dela adierazi nahian. Orduan gogoratu naiz Topagunea ospatu zela Amasako frontoian eta bertaratzekoa zela taldekidea. Beraz, han bizi eta egindakoaren berri jasotzeko unea heldu zaigu, batetik, Gurutzeren ahotik eta, bestetik, Saioa ere bertan dagoelako. Kideak irribarre salatari bat ahoan “Partida guztiak irabazi nituen. Ez dakizuela zeinekin izan nintzen bikote?” galdetu digu eta nik ez dut lehen unean argitasun handiegirik izan buru aldean, nahiz eta laugarrenean-edo, halako batean “Eiderrekin?” bota eta “bai, Eiderrekin” erantzuna jaso dudana. Aurretik esan digu “ni iritsi eta Tolosakoak bakarrik zeudela ikustean pentsatu nuen ‘zeinekin jarri nau Saioa honek taldean?’ baina, gero han hasi ziren azaltzen Hernaniko bi ahizpak, Oiartzungoak, Zarauzko gazte batzuk, etab.” Saioak erantsi du “nik onen taldean jarri zintudan” eta irri txiki batek ihes egin dio hortz artetik. Gu hizketan eta entzuten ari garen bitartean beste emakume batzuk ere hurreratu dira, besteak beste, Oihane eta Marian. Egin zituzten artean jakin dugu binakako partidez gain Raspall jokamoldearen antzeko batean jardun zutela, erdi makurtuta pilota lurretik tarrasean mugituz, eta entrenatzaileak erantsi du “bat baino gehiagok esan dit agujeten kontua, gaur berdin zebiltzan Tolosakoak”.

Bataren eta bestearen gainean, aurreko asteko argazkiei oniritzia ere eman diegu, hitzari hitza josiz ari garela ikusita nik Itsasori galdera bat luzatu diot, bai baitakit Informatika Fakultateko Ikerketa talde batean diharduela lanean. Hala esan diot, “zer, bertsotan egiten duen robota sortu al duzue?” eta “nik ez, beste batzuk” erantzun dit, ondoren, “egia esan nik oso ondo pasa nuen proban” gaineratu du. Nik esan diot bi minutuko bideo labur bat ikusi dudala eta besteren batek ere esan du zerbait entzun duela gai horren inguruan. Pili ere iritsi berri da, aparkatze lanak egin ostean. Nik “Eliren berririk ba al duzue?” galdetu diet ondoren, aurreko astean saioa erdian utzi behar izan zuen taldekide nola ote dagoen jakin nahian. “A, nik bai. Aurrekoan telefonoz hitz egin nuen berekin eta mina gutxitu zaiola, baina, traba bat sumatzen duela eta aseguruarekin nora joan eta zer egin behar den galdetzeko dei egin zidan” jakinarazi digu entrenatzaileak.

Pilotalekua

Hizketan daramatzagu hamar minutu inguru, 19.40 joak dira eta eskaileretan beheako bidea hartu dugu, kantxarakoa. Justu harmailetatik behera egin dugunean Gurutzek larunbateko bizipenen bat edo beste kontatu digu trasteak aulkietan uzten ari garela “bat asko pikatzen zen. Nik uste azkoitiarrak zirela” botaz. Saioak esan du beste bakarren

batek ere egin ziola antzeko aipamenen bat. Niri esan dit “donostiarrak ziren, paletan han dabilzanak, nahiz eta jaiotzez azkoitiarrak izan”. Euren partidetako jardunaren gainean, berriz, “nik itxura ona eman nahi nuen, dena Eiderrek egin arren nik kalerik ez eginez” azaldu digu Gurutzek, “Eiderrek esan zidan pare bat aldiz berari errieta egiteko, gehiegi sartu eta tarteka hutsak egiten zituelako. Nik ez nion ezer esan, noski”. Saioak orduan esan du “nik tarteka esaten diet poztu egiten naizela eurek ere txarrak egiten dituztela ikustean” eta bat baino gehiagok berretsi dute hori bera.

Sei kide eta entrenatzailea gaude bertan eta “korrika egiten hasi beharko da” adierazi du entrenatzaileak denok poltsa eta gainerakoak utzi eta beroketarako pronto gaudela ikusita.

Beroketa

Frontisetik errebotera eta alderantzizko noranzkoan ibili gara aurrera eta atzera, denok, baita entrenatzailea ere. Gu biok azkenak joan gara, aurretik bizi-bizi hasi direlako eta kontu-kontari dihardugulako, besteek baino erritmo lasaiagoan. Gurutzek, adibidez, erdibidean esan die aurrekoei “a zer abiaduratan zoazten!” eta Saioak “etorri gurekin, guk ez daukagu hainbesteko presarik” esanez gonbidatu du gure parean etortzera. Itzuli dezente eman ditugu azkenerako, hormako marra hori berriei erreparatu eta “gaur ere arrasto berriak daude” esanez nik. “Horiek Naroaren lanak izango dira” erantzun dit entrenatzaileak. Naroa beste palista bat da, Zizurkilgo Nesken Paleta Eskolan saioak ematen dituena (B.K. Pilotalekua marraz beterik dago, zintak jarri eta askok ez dituztelako kentzen. A zer kuxidadea!)

Korrika saioa amaitu ostean, borobilean jarri eta giltzadurak biratzeari ekin diogu, ohi bezala, beheko gorputz adarretatik gora eginez: orkatilak, belaunak, gerria, besoak, etab. Onintza ere iritsi da pilotalekura eta guregana biltzean “Eliren partez eskumuinak” esan digu agurtu orduko. “Traba bat sumatzen omen du eta begiratzen joatekotan dabil” ere esan du geroago. Entrenatzaileak ere egoera honetan gaudela aprobeixatu du esateko “ez dakit Emakumea Pilotari eguna maiatzaren 26an ospatuko den. Iruran behintzat ez da izango, Dantzari Txiki eguna dutelako. Agian beste nonbait egingo da edo bestela egunez aldatu beharko da. Esango dizuet zerbait gehiago dakidanean”. Sarreran saio hasieran elkarrekin topo egin dugunean ere esan digu lehen, baina, Pili eta Onintza falta ziren orduan eta denok jakinaren gainean egoteko denoi esan digu berriro ere. Oihanek aurrez esan du “nik egun horretan ezin dut, anaikidetza eguna egiten da maiatzeko azken larunbatean eta El Salvadorren egon ondoren joatea tokatzen zait, iaz ere ez nintzen izan eta”. Erretiro adina ere izan dugu hizpide, iaz ikastaroan eurekin ibilitakoren batek hankan min hartu duela abiapuntu hartuta. Besteak beste “zerbaitegatik dago jarrita erretiroa jarrita dagoen garaian” eta “lana osasuna da” esan dituzte emakumeek eta azkena entzutean nik muturra okertu dudala ohartzean Onintzak “Uxue, neurrian eginda bai” esan dit. Ni ez nago erabat ados esan horrekin, baina, gaia bere horretan geratu da, giltzadurak mugitzen amaitu dugunean berriro ere kontrakantxan utziriko motxila eta paleten bila hurreratu baikara. Saioko atal nagusiari ekin aurretik ezker hormaren aurka jarrita pilotatzen jartzeko unea bertan dugu. Saioak “boligraforik ba al daukazue?” galdetu du esku artean partiden orriak dituen karpeta hartu bitartean eta nik bat atera dut poltsatik, “gorria ala urdina?” galdetuz.


Denok paletak esku artean ditugunean Saioak pilotak banatzeari ekin dio eta ezker hormaren aurkako pilotakadei hasiera eman diegu, beroketarekin amaitzeko. Modu

honetan jarri gara frontoiaren zabalera osoa hartuz: frontisetik gertuen Marian eta biok, erdian Gurutze, Pili eta Oihane eta erreboteko eremuan Onintza eta Itsaso. Bien bitartean entrenatzaileak marrak markatzeko zinta eskuan hartu eta kantxaren eskuinaldean zein errebotean marrak jartzeko aprobetxatu du, ondorengo saioan erabil ditzagun. Gu nahiko isilik aritu gara, nahiz eta ezkerrez kolpe batzuk egin ostean ea ezkerra lantzen ari naizen galdetu didan kideak. Nik erantzun diot “eskuak hotzak ditudala pentsatzen ari nintzen”. Erdiko eta erreboteko gunetan beste kideak, aldiz, hitzunago ari dira. Erdian zati handi batean Pili bera bakarrik aritu da pilota joz, Gurutze eta Oihane hizketan aritu direlako. Atzean, aldiz, hitzak eta pilotakadak uztartuz dihardute Onintza eta Itsasok. Denbora dezente eman dugu kolpeari kolpea tiraz eta nik Mariani “erre egingo gara martxa honetan” bota diot, irri bat sortuz bere ezpainetan. Handik apur batera dei egin digu entrenatzaileak kantxaren erdi aldean biltzeko eta zazpi kideok elkartu gara bere inguruan, saioko atal nagusian egingo dugunaren berri izateko gogotsu.


Ariketak

Gaurko saioan bi gunetan arituko gara uneoro kideak jo eta ke, entrenatzaileak adierazitako bi egoera hauetan.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Atzeko gunean, txokotan, errebotea frontis bezala hartu eta eskuineko hormarekin. Pilota jotako bakoitzean atzean kokaturiko kono bati buelta eman behar zaio. 5 bizitzarekin hasiko da bakoitza.



20.10 jo dituzte eta lehenengo errotazioan aurreko gunean Oihane eta Onintza kokatu dira kantxan, nor baino nor hasteko pronto, eta Saioa kontrakantxan epaile eta markagailu lanerako. Beste bostok, beraz, atzeko gunean kokatu gara, ezohiko noranzkoan, erreboteari begira.

Aurreko eremuko partida 8 tantora jokatuko dutela gogorarazi eta arauak ere errepasatu ditu Saioak txanpona bat airera bota eta lehenengo sarea nork egingo duen erabaki aurretik. Hori ikusi ondoren atzeko joko-jolasean murgildu naiz ni. Atzean eskuineko hormarekin aritzea arraroa egiten zaiela esan dute emakumeek, inoiz hala aritu gabeak direla. Niretzat ere ez da oso ohikoa, baina, bere garaian trinketean aritu nintzen jokatzen eta han eskuineko horma badago. Beraz, beste oinarri bat daukat kasu honetan ere. Hasi eta berehala lasai-lasai ari naiz, emakumeak ia gehienetan pilota jotzera mugatzen direla ohartuta, askotan norabidea eman eta tantoa egiten saiatu gabe. Nik,

ordea, tarteka dejadaren bat bota eta modu horretan tantoren bat edo beste egin dut. Gurutzek “gaiztoa” eta gisa horretako loreren bat gehiago bota dit eta nik irribarretsua begiratu diot, bihurrikeria egin duela dakien haurraren aurpegiaren antzekoa jarritz. Itsasok, berriz, “hemen nola egiten da bi pareta?” galdera egin du eta nik “alderantziz, horrela” esatearekin batera tantoa sartu diot horma biko bidez. 5 bizitzarekin hasi gara denok eta une batean guztiek bana galduta omen dutela esan du Gurutzek, nik izan ezik. Lasai antzean nabil, baina, hori bai, joko aurrera doan heinean konorako joan-etorriak egiten ari den bakarra neu naizela iruditzen zait. Besteren bat ere hurbiltzen da tarteka, baina, ez kolpe bakoitzaren ondoren, edo erdi oinez eta horrek nik korrika saio biziagoa egitea eragiten dit, bestela inork ez lukeelako kolpatuko hurrengo pilota. Hala ere, nahiko gustura dihardugu eta bakarren bat animatu da momenturen batean tantoa lortzeko pilota apur bat mugitzera, nahiz eta hutsik ez egiteko asmotan jotakoak izan diren gehienak orain arte.

Aurreko eremuko lehendabiziko partidak luze jo du, lehiatua joan da eta Saioak atzera begiratu duen batean esan diot “hemen nabil ni txoroa bezala korrika”, konoari buelta eman berritan. Buruz buruko partida amaitu dutenean atzeko eremura hurbildu dira bai Onintza eta Oihane eta baita entrenatzailea ere, ondorengo partidarako aurrera norik joan behar duen esatera azken hau.

Frontiseko eremura bidean jarri direnak Itsaso eta Marian izan dira bigarren leku aldatzean. Beraz, bi kide berri eta lehengo hiru elkartu gara erreboteari begira: Onintza, Oihane, Pili, Gurutze eta bostok. Bost bizitzarekin berriro hasi edo dauzkagunekin segitzeko erabakia ikasle on artean hartu dugu, dauzkagunekin jarraitzea erabakiz. Gurutzek “hemen antzinatasuna gradu bat da, beraz, atzera korrika egitera Uxuerekin batera” esan du Onintza eta Oihaneri zuzenduz, eta nik irribarre egin dut. Izan ere, berak bi eta Pilik hiru bizitza mantentzen dituzte aurreko txandatik. Hala ekin diogu bigarren partida honi ere, patxadan eta erritmo ez oso bizian, tarteka emakumeei kilimak egin eta saltsa jarri nahian nik eta besteek tanto asmoren bat edo beste kolpe soilekin tartekatuz. Konoari buelta ematera joatea probesten dut tarteka aurreko eremuko jokoari eta kideen banakako jardunari erreparatzeko, nahiz eta ez dudan aukera handiegirik ondoren korrikaldian pilota jo beharrezkin topo egin dudalako behin baino gehiagotan. Kasu honetan ere parekatua eta luzea irten da banakako partida, emakumeak nekatuta ere sumatu baitituzte.

Atzeko eremuan lehengo ildo berean gabiltza eta tarteka gaiztakeriak eginda tantoak lortu dituzte. Halako batean Gurutzek esan du “niri bizitza guztiak amaitu zaizkit”, baina, kontrakantxara bidean jarri dela ikusita “sartu lasai, jarraitu egingo dugu, bestela hoztuko zara” esan diot nik. Beste inork ere ez du eragozpenik jarri bizitzarik gabe geratzen denak jarrai dezan (B.K. Parte hartzeak dauka garrantzia hemen, jarduteak berak. Nabarmen, gainera). Nik egin dituzte aurrean tanto batzuk beste denak atze inguruan, konoaren bueltan, dabilzala ikustean eta loreren bat edo beste entzun dut, adibidez, “alua” Onintzaren ahotik. Hala ere, nik irribarrez erantzuten diet eta eurek ere tankera berean esaten dizkidate halakoak.

Aurreko banakako hirugarren partidarako Pili eta Onintzari dei egin die entrenatzaileak. 20.23 dira eta Pilik, masailak apur bat gorritzen hasita dagoenak, “ni ya nekatuta nago” esan du, atzeko eremuko desplazamenduek faktura pasa diotela adieraziz. Gurutze inguruan daukat eta “zu falta zara, ezta?” galdetu diot banakako partidei erreferentzia eginez. “Bai” esanez erantzun dit eta berriro ere bost lagun elkartu gara erreboteari

begira: Gurutze, Oihane, Itsaso, Marian eta ni neu. Itsaso eta Marianek lehendabizi kontraktantxan ur trago batzuk hartu eta arnasari buelta ematen saiatzeko aprobetxatu dute, buruz buruko partida amaitu berriak direlako. “Itxaron bi minutu” esan digu Marianek, bada ez bada ere. Hala ere, nahiko azkar batu dira guregana. Kasu honetan, gainera, bizitza kopururik ere ez dugu ez kontatu eta ez gogorarazi hasieratik, tantoa egiten saiatu arren markagailu edo bizitzei inolako garrantzirik eman gabe.

20.30 arte nahiko ongi aritu gara atzeko eremuan ere, gutxi gorabehera hasierako dinamikari eutsi diogu, baina, hortik aurrera atzerantzko bueltak eta lehiakortasun maila nabarmen jaitsi direla nabari da. Tantoa nahi gabe edo intentzio hori gabe lortutako egoera bat baino gehiago eman dira atzeko jokalekuan eta “a zer zortea” bezalakoak irten dira kideen ahoetatik. Nik, ordea, “zuek zer uste duzue, profesionalek ere lortzen dituzte era honetako tantoak” esan diet, zorteak denoi eragiten digula eta tantoa lortu izana goraiatu asmoz (B.K. Iruditzen zait halakoetan zenbaitetan euren burua gutxietsi egiten ote duten, lortutakoari garrantzi nahikoa eman gabe).

4. partidari Gurutze eta Oihanek egin dute topo elkarrekin frontiseko eremuan. Entrenatzaileak epaile eta markagailu lanak egiten dihardu, bere lekutik mugitu gabe. Eguneko era honetako azken partida izango da hau, gainera, kide guztiek gutxienez bana jokatura izango baitute amaitzen denean. Beste bost kideok erdi pilotatzen ari gara dagoeneko atzeko eremuan, nekatuta batzuk eta berdina egiteaz aspertzen hasia bakarren bat (B.K. Ni, adibidez, ia ordu erdi daramat gauza bera eginez). Ni hasieran konora joaten hasi naiz, baina, utzi diot horri ere, beste inork ez duela egiten ikusita. Tarteka aurreko partidari bota diot zehar begirada bat, baina, ez dut ia batere jarraitu bertan gertatzen denaren berri. Atzean 20.35ean Onintza desagertu zaigu eta bueltan etorri denean jakin dugu komunera joan dela, “zer, ihesi, ala?” bota baitiot nik adarra joz. Hura itzultzean modu berean jarraitu dugu, erdi hizketan, erdi jolasean eta erdi jokoa, hasierako esanak erdizka betez azken batean.

20.40 arte atzeko eremuan aritu naiz etengabe ni, kideak aldatuz aurreko banakako partidetakoa konbinaketan arabera. Orduan dei egin digu Saioak denoi berriro ere 4aren ingurura. Aurreko partiduen emaitzen berri ez dakit, baina, lau partida izan dira eta ia ordu erdiko iraupena izan dute, beraz, parekatuak izan direla dirudi. Bertan elkartu garenean nekea eta arnas estuak nabari zaizkie kide bat baino gehiagorik eta niri begiratzean “Uxue etorri denean baino zuriago dagoela uste dut” esan du Gurutzek, freskura antzematen zaidala irudituta. Nik erantzun diot “ni ez naiz gorritzen, baina, horrek ez du esan nahi nekatzen ez naizenik”.

Hizketan segi aurretik, guk ez baitugu mingaina dantzatzeko batere arazorik, entrenatzaileak “binakako partidak egingo ditugu orain” esan du eta bikoteak nola osatu erabaki ostean bakoitzari zenbaki bana eman digu, 1etik 4ra, korroan gauden moduan binaka zenbaki berekoak elkartzuz. Honela tokatu gara: Itsaso eta Saioa, Pili eta Gurutze, Onintza eta Oihane eta Marian eta ni.

3. Aurreko eta erreboteko gunean 2:2 partidak, 6 tantora. Erreboteko noranzkoa lehengo bera da, eskuineko hormarekin eta aurreko paretaren funtzioak erreboteak betez. Modu honetan ez dugu orain arte sekula jokatu atzeko gunean.

Entrenatzaileak esan digu partida irabazten duena bertan geratuko dela aurreko eremuan eta atzean irabazten duena mugituko dela gune horretara. Galtzaileek, berriz, erreboteko eremuan jardungo dute.

Aurrean hasteko esan digu Onintza-Oihane eta Marian-ni bikoteei, “zu aurrera bidali nahi zaitut” esatearekin batera. Beste laurak atzeko zelaira joan dira, beraz. Bakoitzak zein postutan kokatu erabakitzeke “non jarri nahi duzu?” galdetu diot Mariani eta “zuk agintzen didazun lekuan” erantzuna jaso dut. Gogor samarra egin zait “agindu” entzutea eta nik “ez, ez, zuk esan nahiago non duzun” esan diot. Oihanek ere esan dit “bai, gogorra geratzen da entzuteko agintze kontu hori”. Azkenean “atzean gehiago jokatzen da eta jarri han nahi baduzu” esanez erabaki dugu non jarriko garen. Honenbestez, aurrelari postuan Oihane eta biok kokatu gara kantzaren eskuinaldean eta atzelari Onintza eta Marian. Ni oso lasai hasi naiz eta kideak huts pare bat egitean 3-0 goazela esan eta “igual ezkutatu egingo naiz” esan dit. Nik, hala ere, “lasai, lasai egon niregatik” esan diot, emaitzari garrantzia kenduz. Onintzak ere animatu nahi izan du “bakarren bat lortuko duzuela seguru” esanez aldamenetik. Nik ere egin ditut huts pare bat, nahiz eta partidaren erdi aldera tanto pare baten bidez 5-3 jarri garen. Azkena ere nire huts egite bat izan da eta 6-3 galdu dugu. Beraz, atzera begiratu eta “zenbat zoazte?” galdetu diegu Itsaso-Saioa eta Pili-Gurutzeri. “5-4” esan digute eta entrenatzailea izan da hurrengo tantoa egin diena, gaiztakeria lagun, bosnako berdinketa jarriz markagailuan tanto bakarraren faltan. Beste laurok ikusle moduan ari gara euren tantoa jarraitzen, frontiseko eremutik begira-begira jarrita.

Bigarren partiden txandan atzera joan gara aurretik gu eta Gurutze eta Pilibekin topo egin dugu. Aurrean Onintza-Oihane eta Saioa-Itsaso ari dira. Kokapenak berriro ere izan dira erabakitzeke gai guretzat, “non jartzea nahi duzu?” galdetuz Marianek. Nik lehen bezala “nahi duzun lekuan jarri” esan diot eta bera jarri da eskuineko hormatik gertuen, atzelari lez. Lehen tantoa nik lortu dut horma biko baten bidez eta “gaiztoa!” esan dit Gurutzek belarri izkinan. Nik irri eginez erantzun diot. Partidan jarraitu dugu eta beraiek aurretik izan dira 3-1 eta 4-3. Azkenean, baina, 5-5 berdindu dugu eta 6-5 galtzen amaitu. Marianek kezka puntutxo batekin begiratu dit eta lasai egoteko esan diot nik, galtzeak ez didala axola.

Hirugarren eta azken partida ere atzeko gunean jokatu dugu, aurrekoan ere porrot eginda, kasu honetan gure kantzako kokapenak aldatuta, Marian aurrean eta ni atzean. Oraingoan ere Onintza eta Oihanerekin aritu gara eta “orain irabaztea tokatzen zaigu, 6-5 galdu dugu aurrekoa eta” bota dut nik irribarrez. Oihanek berehala erantzun dit, ildoari segituz, “guk ere 6-5 galdu dugu ba”. Saioa eta Itsasorekin ez dugu topo egin partidetan gaur. Gure partidan hasi gara 20.55ean eta azkenean 6-4 irabazten amaitu dugu. Oihaneri nahi gabeko tanto pare bat atera zaizkio, negarrez justu-justu txapa gainean izandako bi pilotakadekin, eta berari barrea atera zaio kasu horietan. Nik aldamenetik “askotan horiek izaten dira okerrenak, ez duzulako espero” esan diot. Gure partida amaitzean aurrekoa amaitu gabeak dira beste lau kideak eta jarraitu egin dugu eurek ere kontrakantxarako bidean jarri diren arte.

21.02 pasatxo direnean frontoiko argiak itzali egin dira eta luzaketak egitera joan gara kontrakantxara. Gaur ez du orain arte inork presarik agertu orduarekin, nahiz eta lanak amaitzean nahiko azkar martxa egin dugun denok ere.

Frontoi ataria

Gurutze, Saioa eta neu izan gara eskaileretan gora igotzen azkenak. Orduan ohartu gara harmailetako aulki batean bakarren bati ahaztutako poltsa bat geratu dela. Saioak eskuetan hartu eta korrika egin du kanpora, ea norena den galdetuz Pili, Marian, Onintza eta Oihaneri. Azken honek berea dela esan du eta entrenatzaileak lasaitua hartu du orduan. Bi aste barru izango dugu hurrengo ikastaroko saioa, maiatzaren 1a Langilearen Eguna delako. Beraz, bitartean ondo izateko esan diogu elkarri eta norbera bere bidean jarri gara. Saioak ere hala agurtu nau ni, “bi astean ez dugu elkar ikusiko” batekin. Kotxean sartu eta 21.09an jarri ditut martxan motorra eta grabagailua, etxera abiatzeko amorratzen.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioaren egiturari erreparatuta atzeko eremuan saioaren erdia iraun duen txokotako ariketa luzeegia izan da nire ustez, monotono samarra amaierarako, kideok ere elkar kutsatu dugula uste dut amaieran ia piloteo huts bihurtzeraino. Dinamikari eusteko beste pizgarriren bat behar ote zuen zalantza daukat. Izan ere, aurrean partidarik jokatu ezean ez da inolako aldaketarik izan atzeko betebeharreran.

Saio honen ezaugarri nagusietako bat nekea izan da, izerdia eta aurpegi gorrituak, atzokoaren tankera bertsuan. Hala ere, emakumeak gustura agertu dira amaieran horrekin. Saioak ere sentipen bera adierazi du “gaurko saio guztietan pasa zait gauza bera, emakumeak izerdi batean amaitzea” esanez.

Ni ere nekatuta nago, baina ez hainbeste saioko gastu fisikoa medio, ikasturteko nekeagatik baizik. Gaur ere behar baino lan gutxiago eginda amaitu dut eguna, kezkatu biharko bilerara begira, zer eta nola eramango ote dudan zalantzaz josita, zerbait lortuko dudala jakin arren. Hala ere, eguna joan da eta horrekin konformatu besterik ez dut.

Laneko oster, batetik bestera

Urrian hasi nintzenetik hiru saiotako zikloak izan ditut gehienetan astero-astero, bai tartean festa egunik tokatu ez bazait bederen. Beraz, astelehenekoak eta asteartekoak eginda asteazkenekoa ere heldu zait. Aste honetako eta, beraz, apirileko azken paletako saio hau, gainera, nahiko gorabehera eta atzera-aurreraren ostean iritsi zait, eguna ia erlojuaren aurka eta azken segundoari ere zukuera atera nahian igaro izan banu bezala, hemendik hara eta handik hona, pantaila aurrean ala orri artean, baina, ia arnasarik hartzeko tarterik atera ezinda. Hala ere, saiora iritsi naizenerako gaurko lanik gehienak eginda nituen, eguneko ordurik gehienak eta nituen indar apurrik gehienak ere joanak zaizkidalako. Hala ere, badakit ordu eta erdi barru isilduko direla paleta eta pilota hotsak astebeterako eta horrek animo pixka-pixka baterako balioko didan esperantzari heldu nahi izan diot.

Sarrera

Saioa hasi baino ordu eta hiru laurden lehenagotik lanean hasia nintzen Usurbilen bertan, bilera izan baitut zuzendariarekin datu baseetako bilaketen gaineko kontuak argitu eta antolatu asmoz. Beraz, lanetik irten eta pilotalekura bidean arnasa pixkatxo bat hartuta berriro ere lanera sartu naiz, minutu pare bateko tartearekin eta pauso bizian. Hori bai, ordutegi ofizialarekiko ia ordu laurdeneko atzerapenarekin heldu naiz plazara,

eta, egia esan, kezka handiegirik gabe, puntualtasuna talde honen ezaugarria ez baita inoiz izan.

Pilotalekua

19.43an iritsi naiz frontoira eta taldekideak bertan daude, pentsatzen nuen moduan. Korroan jarri eta entrenatzailearekin batera hizketan ari dira oraindik ere, mugimendurik edo ariketa fisikorik egiten hasi gabe (B.K. Beranduenaga gaur iritsi naiz, baina, beti saioari ekiterako heltzen naizela dirudi). Aitziber, Jaione, Idoia, Karmele eta Haizeari batu natzala ordenagailua harmailetan uzten dudana bitartean “arratsalde on” batekin agurtuz. Antzera agurtu naute eurek ere. Haizeak “zu agertzen ez zinela eta ia kezkatzen hasita geunden” esan dit eta nik unea probestu dut esateko “frontoira orain etorri naiz, baina, ia badira bi ordu hemen nabilela, bilera batetik nator”. Bi hitz esaterako, Haizeak ordulariari begiratu eta bertan gaudenoi saioari ekin beharko geniokeela adierazi digu. Beraz, gaur ni iritsi eta berehala hasi dugu saioa.

Frontoira iritsi naizenean ohartu naiz mutiko batzuk praka zuriak jantzita ari direla aurrean jokatzeko, toke erdiko pilotarekin ziurrenik, hotsa ateratzen baitu punpa egitean eta “partiduak jokatu al dira aurretik?” galdetu dut. Baietz erantzun didate, Usurbilgo Txapelketaren baitako partida batzuk jokatzeko ari direla haurrak, eskupilotan. Beste batzuk, berriz, aurrealdeko harmailan jarrita ez dakit zeri begira ari diren, esku artean darabilten zerbaitekin dabilta.

Beroketa

Asteroko moduan giltzaduretako mugimenduak eginez ekin diogu gorputza martxan jartzeko lanari, entrenatzaileak egiten dituen mugimenduak imitatuz: orkatilak, besoak, etab. Mingaina ere dantzatzen dugu, kontu kontari ari baikara bien bitartean. Luzaketa pare bat egin ostean korrikaldiari ekiteko unea heldu zaigu. Guk korrika egiteari ekin diogunean umeei frontisean pilotan jolasten dihardute eta, bada ez bada ere, paretik pasatzean “gu ez jo, e!” bat irten zait ahotik kanpora. Haizeak jakinarazi digu “gaur Eider etorriko da, federaziokoa, Emakumea Pilotari Egunaren inguruko informazioa ematera, zortziak aldera, bilera batetik etorriko omen da eta”. Korrika saioan zehar gai bat baino gehiago ibili ditugu bueltara, Haizearen karrera amaitu osteko udako oporraldirako lekuak, maiatzaren 1eko zubia edo Usurbilgo Pala Txapelketarako izenematea beste batzuen artean. Lauzprobost itzuli eman ostean “azkena, e” ohartarazi digu Haizeak, bera neke pitin bat sumatzen hasi omen dela eta. Idoiak gustura asko esan dio “bai”, honi ere berotua nabari baitzaio. Ondoren esan du gauean ere ez duela lo askorik egin, katarroa dela medio. Korrikalditxoan zehar binaka joan gara elkarren aldamenean jarrita, taldearen aurrealdean ibili gara Aitziber eta ni, gure atzean Jaione eta Haizea eta atzerago Idoia eta Karmele, heldu naizenetik elkarrekin hizketan dihardutenak. Itzulika eginiko zatia bukatzean atzealdean geratu da Haizea, 7. koadroaren inguruan. Denoi lerro batean jartzeko esan digu, zabaldua, eta “orain zer egiten dugu?” galdetu du, emakumei beroketarako ariketaren bat proposatu asmoz. Emakumei kosta egin zaie erreakzionatzea (B.K. Ni berehala oroitu naiz egin izan ditugun desplazamendu mota ezberdinekin, baina, isilik geratu naiz), beste inork ahoa zabaldu aurretik “badugu esnatzeko ordua” erantsiz entrenatzaileak. Ni Aitziberren eta Jaioneren aldamenean nago, eskuineko bazterrean. Azkenean “Aitziber proposatu zuk” esan dio Jaionek kideari, “hondartzako hura ere zuk proposatu zenuen” adieraziz. Karmelek eta Idoiak euren kontuen gainean hizketan dihardute. Kostata izan bada ere azkenean heldu da

proposamen bat, Jaionek egina. Besoak mugitu ditu gora eta behera eta “horrela” esan du ondoren. Beraz, frontiserako joan-etorria egin dugu modu horretan, saltotxoak ematen ditugun heinean kontrako besoa altxatuz. Haizeak tarte hau aprobetxatu du “pentsatu beste bat itzultzen garenerako, ez dugu berriro pentsatzen denborarik pasako” esateko. Bigarren proposamena Aitziberrek egina izan da, “igelarena egingo dugu?” galdetuz. Zeri buruz ari ote den ez dugu ulertu batek baino gehiagok eta “hori zer da?” galdetu dut nik. Makurtuta, saltotxoak emanez, frontoia zeharkatzea proposatu du, baina, “hori gogorra izango da, ezta?” irten zaio barrutik ondoren, begirada niri zuzenduz. Nik “baietz esango nuke” esan diot eta aldatu egin du ariketa, alboranzko desplazamenduak egitea proposatuz. Honek laster jaso du baiezkoa eta zeharka egin dugu frontiserako joan-etorria. Modu honetako hirugarren eta azken mugimendua Jaionek proposatua izan da, korrika txikian bizpahiru pausoro makurtu eta lurra ukituz aritzea iradokiz.


Taldekidereen batek esan du berotzen ari dela eta entrenatzaileak ere bera berotzen ari dela esan duenez harmailetara hurreratu gara paleta bila. Norberak geure paletak hartu ditugu eta pilota bana banatu digu Haizeak eskura. Oraindik umeak ari dira eskupilotan frontisean, baina, Aitziber eta biok bertara gerturatzen hasi gara, gu ezker hormaren aurka pilotatzen hasitakoan bidaltzeko asmotan. Hara abiatu garenean entrenatzaileak “zuek nora zoazte?” galdetu digu eta guk “pilotatzen hastera” erantzun diogu. Berak ez digula oraindik ere zer egingo dugun azaldu kargu gu hartu digu eta itzuli egin gara. Hala ere, batez ere Idoia eta Karmeleri “aurreko astean airea lantzen hasi ginen, baina, banaka pilotatzen hasiko zarete, lehenengo botez” esan ostean berriro ere frontis aldera joan gara, banakako pilotoari ekiteko. Frontisetik urrunen Idoia, alboan Jaione, Karmele, Aitziber eta ni neu kokatu gara. Haurrei “saioa daukagu” esan eta kexu handirik atera gabe martxa egin dute bertatik, harmailetatik gora egin eta kanpora salto eginez pilotalekutik hanka eginez.

Pilotakadaka hasi eta orduan Haizeak frontoiko fokuak piztu ditu Jaioneri laguntza eskatuta. Tartetxo batean berdin jarraitu dugu, entrenatzaileak gure jarduna eten eta “orain pilotakada bat airez eta hurrengo botez egingo duzue, hau aurreko astean ere egin genuen” azaldu digun arte, adibide eta guzti, berriro ere banaka kolpeari kolpea lotuz jarraituz. Desbideratutako pilotakaden kopurua handiagoa izan da kasu honetan, kontrola zailagoa delako kolpea airez egitean. Modu honetan aritu garenean frontoiaren atzealdetik pasa dira emakume batzuk eta Usurbilgo Pala Txapelketaren gainean hizketan hasi dira Haizea, Idoia eta Jaionerekin. Lehenak bera ordezkoko apuntatu dela esan die eta beste biek gomazko pilotarekin jokatzearen gainean aritu da. Hori ikusita Aitziberrek gero “zer esan dizu, gomazko trinkoarekin?” galdetu du, erdi beldurtuta. Ezetz erantzun diote, gomazko arinaz ari zela, frontenisekoaz. Aitziberri “zer, apuntatuko al zarete?” galdetzeko aprobetxatu dut unea eta “tenisekoarekin eta partiduak ordutegi diskretu batean baldin badira agian bai” erantzun dit. Gaineratu du “lehenengo urtean igande arratsaldetan jokatu genuen zenbaitetan, hau tope zegoela, eta 25-3 eta horrela galdu genuen eta a zer lotsa” barru-barrutik. Esan dit berak eta Idoiak parte hartu zutela bikote bat falta zelako txapelketa antolatu ahal izateko kopurura iristeko, azken orduan apuntatu zirela. Haizea gu pilotatzen aritu garen bitartean begira eta aholkuak eman zein zuzenketak egiten aritu da batez ere, frontoiaren alde batetik bestera, denon ingurutik pasaz. Aitziber eta Karmeleri zerbait esanez ikusi dut, besteak beste.

Ezker hormaren aurkako jardunarekin amaitzeko “orain binaka jarrita, batek botez egingo ditu kolpeak eta besteak airez” esan du entrenatzaileak eta aldamenen jarrita gauden moduan ekin diogu. Idoia eta Jaione, Karmele eta Haizea eta Aitziber eta ni hasi gara elkarrekin. Nik nire pilota poltsikoan jaso dut eta Aitziberri “nola hasiko gara?” galdetu diot, berak “ni botez eta zu airez” erantzun dit, nik baietz adieraziz, konforme nagoela. Hasi eta hiruzpalau kolpe eman ostean Aitziber pilota eskuin hormaren aurka, ezkerrera, aurrerago edo atzerago mugitzen hasi da, prestatzea zailduz nire hurrengo kolperako eta hori ikusita, irri txiki bat ezpainenetan, “zer ari zara, ni proban jartzen?” galdetu diot. Berak ere irribarretsu “pixka bat entretenitzen” erantzun dit. Nik barre egin eta pilotakadak eta hitzak elkartrukutzen jarraitu dugu, Haizeak rolak aldatzeko adierazi digun arte. Gu nahiko ondo moldatu gara lehenengo egoeran eta Karmele izan da, nire arabera betiere, arazorik gehien izan duena, airea ez baitu ondo kontrolatzen. Idoia eta Jaioneri distantziatik begiratu diedanean ere, kasu bakanen batean izan ezik, orduan pilota baten bila zebiltzan harmaila inguruan, ez diet ikusi ihes egindako kolpe asko, moldatzen ari diren tankera hartuz. Kideari pilota prestatzeko unea heldu zaidanean “zer, entretenitzea nahi al duzu?” galdetu diot albotik Aitziberri, aurrekoari erreferentzia eginez, eta “ez, ez, nire kasuan ez” erantzun dit, irribarrea ahoan. Gustura ari dela dirudi eta, egia esan, ni ere ez nabil haserre. Beste saiotxo bat egin dugu bikoteka airez egindako eta punpa osteko kolpeak uztartuz eta entrenatzaileak dei egin digunean kantxaren erdi inguruan bildu gara seiok, frontiseko eremuko jardunari ekiteko.

Ariketak

1. Irakasleak pilota prestatu eta ikasleak airez erantzun behar du, banakako ilaran jarrita.



Entrenatzaileak azaldu du pilota geratzeko norberak jo ondoren hasiera batean eta azalpen pare baten ostean ekin diogu ariketari, ilaran jarrita. Neu izan naiz lehena, besteek atzera eman dutelako lehen urratsa aurrera beharrean. Nire atzean jarri dira Karmele, Jaione, Idoia eta Aitziber, hurrenkera horretan. Lehen kolpea eman ostean pilota Haizeak jotzeko moduan etorri da eta Karmele geratzera joan denean “beno, pilota ez dugu geldituko, nire kolpeak zuzenean tartekatzen saiatuko naiz, ez joan pilota bila” esan du entrenatzaileak. Bigarren itzuliaren amaiera aldera “zein hasi da?” galdetu du eta “ni, Aitziber da azkena” erantzun diot. Hori entzutean “ba beste buelta bat egingo dugu eta gero aldatu egingo dugu ariketa” jakinarazi digu. Bakoitzak aireko hiru kolpe egin ostean ariketa aldatzeko unea heldu zaigu.

Ariketa berria azaltzen hasi aurretik “nik ere ez dut oso ongi ulertu azalpena, baina, saiatu egingo gara egiten, ea nola ateratzen den” esan digu entrenatzaileak.

2. Hiru kide 2,5etik aurrera eta beste hiru marratik atzera. Aurrean daudenek airez jo dezakete pilota edo botez 2,5etik aurrera punpa egiten dutenak. Atzean daudenek, aldiz, 2,5etik atzerakoak eta airez bakarrik jo ditzakete.

Azalpena ematean segurtasun handiegirik agertu ez badu ere ulertu uste diogu eta aurrean zein atzean nor kokatuko den zehaztu du entrenatzaileak, gertuen gauden

moduan jarritz bakoitza: aurrean Aitziber, Idoia eta Haizea bera eta atzeko eremuan Jaione, Karmele eta hirurok. Hasi eta probatxo bat egin dugu proposatutakoa ulertu ote den ikusteko eta horren ondoren “orain *eliminadoras* egingo dugu bizitza banarekin” argitu digu entrenatzaileak. Hala hasi gara eta laster amaitu da lehen ekinaldia. Besteak beste dudako kasu asko eman dira, non pilotari botea egiten utzi dioten aurrekoek eta oso gutxigatik izan bada ere euren eremuan punpa egin duen. Askotan kolpe bakarra egin eta hura txarra izan denez kaleratu da bat baino gehiago. Oso azkarrak eta ez oso erakargarriak izan dira kolpe elkartrukeak. Adibidez, aurrean bakarra geratzean derrigortuta zegoen beti atzera botatzera, eta alderantziz. Emakumeei ere nabari zaie aurpegietan ez zaiela oso ariketa gustagarria egin. Kaleratutakoan harmailetan eseri eta hizketan geratu dira elkarrekin, besteek amaitu arte itxaronez. Bizpahiru saiakera egin ostean Haizeak kokapenak aldatzeko esan digu, aurrekoak atzera eta atzekoak aurrera igaroz. Hala ere, berdintsu jarraitu du kontuak. Hori ikusita, lehen unetik ariketa oso arraroa iruditu baitzait niri ere, baina, hasieran isilik geratzea erabaki arren, mingainari horzkarik ez egitea erabaki eta “ziur zaude ariketa horrela dela?” galdetu diot Haizeari eta berak koadernora begiratzuz “irakurri eta ea zuk nola ulertzen duzun” esan dit. Beraz, kanporatua izan naizela aprobetxatuz ariketaren azalpena irakurtzeari ekin diot, bizpahiru aldiz eta adi-adi jarraituz. Nik ezberdin ulertu dudala esan diot azalpenei arreta jarri ondoren eta Haizeari nola uste dudana azaldu diot. Emakumeak ere hurreratu dira gugana, “horrela al zen?” galdetuz eta entrenatzaileak “zati bat bai, bestea ezberdin ulertu dugu” erantzun die. Azkenean, beraz, aldaketa batekin eraldaturiko ariketari heldu diogu (B.K. Ez dakit horrelakoetan muturra sartu beharko ote nukeen berez, baina, zentzugabea eta funts handirik gabea iruditzen ari zitzaidan, nahasgarriaz gain, egiten ari ginena).

3. Hiru kide 2,5etik aurrera eta beste hiru maratik atzera. Aurrean daudenek airez jo dezakete pilota edo botez 2,5etik aurrera punpa egiten dutenak. Atzean daudenek, aldiz, 2,5etik atzerakoak bakarrik jo ditzakete, airez zein botez.

Moldaketarekin beste pare bat ekinaldi egin ditugu, baina, ez zaigu batere ariketa erakargarria iruditu ez entrenatzaileari, ez emakumeei eta ezta niri ere. Bizitza bakarrarekin arituta azkar samar joan dira partidatxoak, baina, saltsa handirik piztu gabe. Hori dela eta, aldatzeko erabakia hartu du Haizeak.

4. Txokotan, tantoa airez kolpea eginda lortuz gero +2. Pilota jo ondoren 7ko marra zapalduz. Bakoitzak bi bizitza izango ditu.

Hasi eta nahiko azkar Aitziberrek lortu du airez tantoa egitea, lau bizitzako kopurua lortuz. Besteak ere tarteka saiatu dira, baina, ez beste egunetan baino intentzio askoz handiagoz. Karmele izan da lehena, ondoren Jaione eta hirugarrena Haizea izan da kaleratzen, bizitza guztiak galtzearen poderioz. Nik gaiztakeria batzuk eginez tanto batzuk eskuratu ditut eta besteek bizitzak galdu dituzten ahala nik nireak mantentzea lortu dut. Marrak zapaltzeak nekea eta erritmoa bizitzea eragin ditu jokoan zehar, bostekin 6,5era joanez, lau lagunekin 6a zapalduz, hirurekin 5a eta birekin bat ere ez. Askotan ia ezinezkoa zen marra zapaldu eta garaiz itzultzea kantxako jokora, denborarik ez zuelako ematen. Arnas estu bat baino gehiago entzun dugu hori dela eta.

Haizea kanpora joan denean emakumeak animatzen saiatu da kontrakantxatik “tantoa egin, pilota mugitu, nabaritu dadila apirilean gaudela” eta gisa horretako esaldien bidez, piloteo hutsari beste zerbait gehitu nahian. Azken txanpan Aitziber, Idoia eta hirurok

geratu gara barruan eta nahiko mugimendu badarabilgu atzera-aurrera marra zapaldu nahian. Azken biak Idoia eta biok izan gara eta berak egin dit tanto bat aurrean. Hori ikusitakoan “zuk malezia badaukazu, e” bota diot nik aldamenetik eta “bai, Aitziberri falta zaiona” erantzun dit irribarrez. Azken tantoa egitea nik lortu dut eta amaitu da lehen ekinaldia.

Berriro ere denok elkartu gara aurrealdean eta Haizeak adierazi digu “berriro ere jokatuko dugu, baina, saiatu, mesedez pilota mugitzen. Bestea atzean badago edo beste guztiak korrikan atzera badoaz ez bota 4ra, utzi 1ean” (B.K. hitz egiteko tonua besteetan baino serio eta apur bat ozenagoa iruditu zait, “ostia” edo halakoren bat ere joan da tartean). Emakumeek baietz egin dute burua mugituz eta bigarren partidari ekin diogu. Justu aurretik gizon bat igaro da harmailen atzealdetik eta “gutxiago hitz egin eta gehiago jokatu” esan du. Emakumeek ezaguna dute eta kasu egin diote. Niri, berriz, “hori tesian apuntatu egin behar da, Andonik esandakoa” esan didate eta irriz erantzun diet, “apuntatuko dut” batekin. Beraz, azalpen eta hizketalditxoaren ondoren berriro ere ekin diogu eta azkenak Haizea eta ni neu geratu gara. Korrika saioekin larri samar ibili gara berriro ere kantzara itzultzeko, baina, moldatu gara eta intentzio apur bat gehiago agertu dute kideren batzuk.

20.40 dira eta Haizeak binakako partidak jokatuko ditugula esan du, bikoteak osatzearekin batera: Karmele eta Jaione, Haizea eta Aitziber eta Idoia eta biok.

5. 2:2 partidak frontisean, baldintzarik gabe. 6 tantora.

Zein bi bikote hasi erabakia entrenatzaileak berak hartu du “zuek hasi” batekin, aurreko txokotan egindako ariketatik erabat errekuperatu gabe egonik eurak kanpoan geratuko direla adierazi baitigu. Aitziberrek, aldamenetik, “nire bikoteak atsedena behar du” gehitu du. Norberaren kokapenak erabakitzeke Idoiari “non jarri nahi duzu?” bota diot eta “aurrean nahiago” erantzun dit. Beraz, aurrean Karmele eta Idoia eta atzelari postuetan Jaione eta ni neu jarri ostean ekin diogu partidari.

Lehen partidari ekin eta zati batean markagailuan atzetik joan arren 6-5 irabaziz amaitu dugu. Egia esan nahiko ongi hartu dugu elkar Idoiak eta biok, bakoitzak zer pilota jo irizpideekin erabakiz eta ondo uztartu ditugu geure joko erak. Karmele eta Jaioneren kasuan gehiago kostatu zaie, batez ere, aurrelaria ezker samarrean kokatu delako noiz edo noiz, eskuinean espazio libre nahiko handia utziz, nahiz eta Jaionek hori ikusita bertaraino desplazatu eta pilota pare bati erantzun dien. Tantoren batean lortu dut dantzan jartzea eta Idoiak, adibidez, batzuetan asmatu ez badu ere airez kolpe dezente egin ditu, nik ere animatuz “zu sartu lasai, huts eginda ere berdin dio, hala ikasten da” bezalakoan bidez.

20.45 pasatxo dira nire erlojuan dagoeneko. Bigarren partida jokatzeko Jaionek eta Karmelek atzeranzko bidea hartu dute, ezker hormaren aurka pilotatzen jarritz eta Aitziber eta Haizea etorri dira kantzaren aurrealdera, gure aurka partidutxoa jokatzeko. Bada ez bada ere, kokapenaz galdetu diot Idoiari eta “aurrean nahiago” berretsi didanez ez ditugu postuak aldatu. Aurkarien kasuan, berriz, Aitziber kokatu da atzelari eta Haizea aurrelari. Hasieran 3-0 hasi gara atzetik eta galtzen ari garela han agertu da Eider 20.50ean, esan baino ia hiru ordu laurden beranduago. Nik aurrez ere esan diot Haizeari “beno, zortziak eta erdiak izango dira etortzerako” berak “zortzietan etorriko da” abisua eman digunean. Harmailetan eseri da guk amaitzeko zain eta Haizeak eta biok kantxa

barrutik egin diogu diosala, partidari ari garela. Azkenean nik apur bat estutzearen poderioz 3-3 berdinduta jarri markagailuan eta saltsan aritu ostean 6-4 amaitu da bikotekako bigarren partida. Kasu honetan ere geuk lortu dugu tanto kopururik handienara iristea.

20.55 pasatxoan amaitu da binakako partida eta Haizeak kide guztioi deitu eta ezker hormaren aurka hurbilduz “luzaketak egingo ditugu” adierazi digu. Han hasi gara beso eta hanketako giharrak luzatzen, denok isilik gaudela. Haizeak esan du “hau izaten da denok isilik egoten garen momentua, nik uste ondoren etxera joandakoan egin beharrekoak erreparatzen ditugula” eta han gabiltzala Eider ere hurbildu da gugana harmailetatik altxatuta. Hortaz, luzaketak egiten ditugun bitartean Emakumea Pilotari Egunaren gaineko azalpenak emanez hasi da, lehendabizi bere burua aurkeztuz:

“Ni Eider naiz, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko teknikaria, Emakumea Pilotari proiektuko arduraduna eta Emakumea Pilotari egunaren berri ematera etorri naiz hona. Maiatzaren 26an ospatzen da eta bertan Gipuzkoako herri ezberdinetan paleta ikastaroetan dabilzan emakumeak biltzen saiatzen gara. Guk deialdia egiten dugu eta nahi duena joaten da (...). Autobusa jartzen dugu joan-etorrirako, bazkaria eta trikitilariak ere izaten dira (...). Han Gipuzkoako Txapelketa Herrikoa ere jokutzen da, herriarteko txapelketaren modukoa, herri bakoitzeko bikote batekin (...).” Azalpen dezente eman du bata bestearen atzetik, hamar bat minutuan ia isildu ere egin gabe. Emakumeei pentsatzeko eta izena eman behar badute Haizeari jakinarazteko esan die eta bakarren batek txapelketa herrikoia entzun duenean “Uxuek jokatu du gure izenean” bota du erdi broman. Nik, bada ez bada ere, “nik ez dut jokatu, ni hiru herrietakoa naiz eta ez nago aukeran” erantzun diet, nahiz eta egunera joango naizela adierazi didan.

21.15ean azalpenak ematen amaitu, trasteak hartu eta etxera bidean jarri gara, elkar agurtuta. Haizeari ia ahaztu zaio argiak itzaltzea, baina, oroitu da eta Jaioneren laguntzaz itzali ostean giltzak hartu eta tabernara abiatu da bertan uztera. Karmele, Jaione, Aitziber eta Idoiak norbere etxetarako bideak hartu dituzte entzundako proposamenaren gainean hizketan, “guk orduan bisitan agertzeko esango diegu familiakoei” botaz eta Idoiak barru-barrutik “seme eta senarrik gabe alde ederrean” esan du. Euri dezente ari du eta inork esku artean aterkirik ez dugula ikusita elkar datorren atera arte agurtu dugu eta Haizea eta Eiderrekin bi hitz egin ostean kotxean sartu eta etxera bidean jarri naiz, nekeak gaina hartuta dagoeneko. Gaur ohi baino ordu laurden beranduago bukatu dugu frontoi inguruko jarduna, informazio bileratxo tarteko.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Lehertuta nago, baina, egunari probetxu apur bat atera izanaren irudipena dut aldi berean. Egia esan, betea izan da oso gaurkoa eta ordu batzuk eman ditut tesiaren harira lanean. Hala ere, beste behin ere lehengo betebeharrak pilaketaz gain ahalik azkarren egitea komeni zaidan beste atal bat esku artean irten naiz zuzendariarekin izaniko bileratik, artikuluen irakurketa eta zirriborroaren idazketa. Lehenaz gain aspertzeko beta handirik gabe izango naiz beste behin ere, beraz. Gainera, beranduenera jota bi egun barru beste dokumentu batzuk aurkeztu beharra daukat EHUKo Erregistro Orokorrean. Hortaz, afaldu eta gaurko lanaldia Iñaki eta Mikelen etikaren inguruko mezuak irakurrita helduko zait, gaueko hamaikak aldean.

Saioaren azterketa eginez gero erdi aldean airez eginiko kolpea lantzeko ariketa horrek apur bat moteldu duela iruditzen zait, nahiz eta ondoren entrenatzaileak berak egoera ikusita nire ustez ondo egin duen aldatzen, funtzionatzen ez duenak ez baitauka emakumeentzat ere gozamenerako izateko aukera handirik. Hortik aurrera bete-betean asmatu duela iruditu zait eta kideak ere gustura sumatu ditut.

Gaur beste bi hizketagai gehitu zaizkio asteroko gure gaitegiari, Emakumea Pilotari Eguna eta Usurbilgo Pala Txapelketa. Gainera, ziur nago hurrengo saio eta asteetan ere hizpide izango ditugula.

Asteko hiru paleta saioak pasa ditut eta, gainera, ia oroitu ere ez nintzen egiten, baina, datorren astean saio bakarria izango dut, astelehena zubia eta asteartea jaieguna direlako. Beraz, ea aprobetxatzen dudan beste zerbait egiteko, nahiz eta ezer ere egin gabe egoteko tentazio gero eta handiagoa nabari dudan nire barruan ohi baino gehiagotan. Saturazioaren seinale ote?

Irudikeria hutsa

Astelehena beste aldarte eta gogo batekin hasiagatik, irribarrea laster ezkutatu zait eta kopeta zimurra nagusitu, behar ez zuen bezala eta barren-barrenean nire gogoz kontra izan bada ere, ez baitut lortu lanean erabateko kontzentrazio eta arreta mailarik mantentzea joan diren hiru egunetan, hainbatetan (erdi)kontzienteki eginbarrei iskin eginez. Hala ere, beste hiru saio gehiago igaro dira eta, beraz, arrastaka eta motel samar bada ere, urrunean egonagatik, helmuga marrara hurbiltzen hasi gara. Kostatzen ari zait aurreko hilabeteetan nuen jarraitasun eta erritmoari eustea, bai horixe!

Aste honetako hiru saioetan ariketetan edo partidetan zehar hara eta hona jarduteak eragindako nekea protagonista bihurtu zaigu eta emakumeak zerbait egin izanaren sentipenarekin geratu direla esango nuke, bai beste zenbaitetan baino gusturago, behintzat, zentzu horretan. Egitura eta antolaketari dagokienez, lehen bi saioek antz handia izaten jarraitzen dute eta hirugarrenean, berriz, gauza ezberdinagoak lantzen ditugu, nahiz eta funtsean bertaratzen diren denek gauza bera edo antzekoa bilatzen dutela esango nukeen. Hala ere, oraingoa ez da azterketetan sakontzeko unea, hori ere helduko da bere garaian, beraz, ordura arte datuak eta informazioa pilatzen segitzea baino ez dagokit niri.

Eskerrak datorren astean asteazkenean baino ez dudan izango paleta ikastaroko saioa, jai bezperako zubia eta maiatzaren 1eko Langilearen Nazioarteko Eguna medio, bidaia kopurua herenera jaitsiko baitzait, saio orduak bezalaxe. Hala ere, saiatu beharko nuke beste bi egun horietan jaiegunak hartu ordez artikuluaren irakurketari denbora eskaini eta zain dauzkadan eginbeharren zakua gehiago bete ez dakidan. Nik asko eskertuko nuke, eta zalantza izpirik ez daukat, nire inguruak ere bai. Estutuko ote dut garuna? Ez dut leporik jokatu, bakarria daukat eta ...

25. astea. HILABETE ETA ERDI BAINO EZ

Apirilari ere agur esan eta maiatzari eman diogu hasiera aste honetan. Udaberria ere aurrera doa, nahiz eta giroak iragan hilabetean negukoa zirudien. Ia oharkabean majo mehetu da urritik gaur arte ikasturteko egutegia, saioen zakua mardultzen joan den erritmo berean, alajaina! 65 saiotako oharrak idaztear nago jadanik, 25. kontakizuna da hau, auskalo zenbat buruhauste eta gorabehera gehiago biziko ditudan. Galdera gehiago ere badakarzkit senak zenbaki dantzari tiraka: zenbat ordu, zenbat joan-etorri, zenbat buruko min, zenbat irri, zenbat hitz? Batek daki, baina, asko joan dira! Hala ere, kalkulagailua eta matematikak beste une baterako utziko ditugu, zerekin entretenitua bai baitaukat aurretik ere.

Ezohiko astea izango da hau niretzat, aspaldiko partez aste hasierako zubi eta jaiegunak tarteko ohiko hiruretatik saio bakarra izango baitut, asteazkenekoa, asteko azkena asteko lehenengo bihurtuz. Eta berez hala egin behar ez banuen ere, lehenengo laneguna berau izango dut, “baimendu gabeko” atsedenaldiaren ostean.

Lehiarako harra piztu ote da?

Astelehen eta asteartean lanean kolpe zorririk jo gabe, Aste Santuko oporretan baino gogo gutxiagorekin ibili naiz, batean han eta hurrengoan hemen, pantaila aurrean jartzeko imintziorik txikiena ere egin gabe. Lanerako fundamentu gutxi izan dut oso eta barruan neure buruarekiko sumindura piztuta nabil orain (garai ederrean!), jakin arren neu naizela egoera honetan aurkitzearen errudun nagusi eta bakarra, ziurrenik. Arrazoiren bat edo beste ere bada atzean, noski, orain arteko eguneroko lan-zamak eragiten didan itomenak ere zerikusia izango du akaso, baina, ez dut uste horri aurre egiteko biderik egokiena besoak gurutzatuta geratu eta orduei joaten uztea denik. Hau da hau!

Asteko hirugarren eguna da gaurko hau, asteazkena, baina, ezohiko moduan heldu da, aurreko bi egunetan zubia eta jaieguna izan baitira, Langilearen Nazioarteko eguna izan baitzen maiatzaren 1ean. Beno, nire egutegian ez zuketen berez hala behar, baina, halako bilakatu nituen alferkeriaren laguntzari esker. Horrenbestez, oraindik ere aurreko asteko saioa erdi idatzita abiatu naiz saio berrira, etxeko lanak amaitu gabe, behar ez direnak eginez. Ba ote du(t) erremediorik?

Sarrera

Kontuak kontu, autoan 18.50 pasatxoan abiatu eta justu ordurako iritsi naiz Usurbilera, 19.28an kotxea frontoitik 200 metrora aparkatuta utziz. Paleta besapean eta poltsa soinean hartuta oinez abiatu naiz pilotalekura, pauso lasaian, bidean parkean eta plazan haur mordoxka bat ezkutaketan, futbolean eta beste zenbait jolasetan ikusiz, gurasoak tertulian ari direla. Gaur giroak ere laguntzen du horretarako, epel dago, 20ºtik gora eta eguzkitsu, tarteka haize apur bat harrotu arren.

Pilotalekua

Zazpiak eta erdietan iritsi naiz eta ea ezagunik baden begira aritu ondoren ohartu naiz taldeko lehena izan naizela iristen. Beraz, harmailen atzealdean eseri eta zuriz jantzita eskupilotako partida jokatzeko ari den laukoteari erreparatuz jarri naiz. Batzuk

Usurbilgoak dira, elkarteko nikia daramate soinean, eta besteak kanpotarrak, nongoak ez dakidan arren (beranduago ohartu naiz Astigarragakoak direla, elkarteko arduradunarekin frontoitik irteten ikustean). Aurreko astean bezala Usurbilgo Txapelketako partidak jokatzen ari dira. Markagailua ikusi dut jarraian eta 5nako berdinketa adierazten du. Partida, berriz, 18ra da. “Jesus, bagaude puska baterako!” pentsatu dut neure baitan, nahiz eta espero dudan azken partida izango dela, beste dozena erdi bat haur ere badabiltzalako zuriz jantzita inguruan. Batzuk gurasoren batekin pilotalekuaren kanpoko aldera edo barrura datoz eta beste hainbat harmailen eskuinaldean eserita daude, partidari begira, adi-adi. Guztira hogeit hamar edo hogeit hamar bost ikusle egongo dira bertan, tarteka animo oihuren bat eman eta tanto amaieretan txaloak joz.

Jaione iritsi da hurrengoa eta elkar agurtu ondoren honek ere harmailetan esertzeko hautua egin du. Hizketan hasi gara, igaro berri den zubian eginaz eta lanerako itzuleraz, besteak beste. Nik “alfer lanean nabil” esan diot, azken egunetan apenas jarri naizela fundamentuz ezer egiten eta berak esan dit “niri ere gaur kosta egin zait lanean jartzea, lau egun hauen ondoren eta hori ez dugula ezer berezirik egin, hemen ibili”. Kontu kontari jardun dugu honetaz eta hartaz eta frontoira iristen hirugarrena Haizea izan da, entrenatzailea bera. Honek gorritasun pitin bat dakar masailetan eta korrika egitetik datorrela esan digu, baina, ez diola gero saiorako prestatzeko asti handirik eman, ezagun bat baino gehiagorekin topo egin duelako Zubietako buelta ematen ari zela, ikaskide ohi batekin, familiako norbaitekin, etab. Bi bakarrik gaudela ikustean “beste norbait etorriko da, ezta? Bestela akabatu egingo zaituztet” esan digu eta nik “beno, gu behintzat etorri gara” erantzun diot. Beraz, hizketan jarraitu dugu, batez ere Usurbilgo Pala Txapelketaz aritu dira eurak, Jaionek Haizeari galdera bat egin behar omen diola eta. Esan du Idoia eta Aitziberrek izena emango dutela ziurrenik eta bera ere akaso animatuko dela, baina, ez daukala bikoterik, baina, batek aurrekoan animatzeko esan ziola eta bera prest dagoela berekin parte hartzeko. Haizea eta biok ezagutzen dugu emakume hori, aurrez federatuta ere ibilia da, eta “hark ez dut uste arazorik izango duenik zurekin jokatzeko” esan diot nik, bultzadatxo eman nahian, eta berak “ez, hori badakit, problema nik daukat” erantzun dit. Nabari zaio gogoarekin batera segurtasun apur bat falta zaiola, baina, entrenatzaileak ere animatzeko esan dio, astelehen goizetako bi bikote apuntatu direla, arratsaldeko beste bat ere baietz eta gure taldetik beste bat ere apuntatuko bada ederki moldatuko dela bera ere. Ezagunak ditu gehienak, beraz. Horren harira Haizeak “zuen zer izaten da, denak bai ala denak ez?” esan dio, Jaionek kontatu baitu besteren batek esan ziola ea Emakumea Pilotari Egunera animatuko diren, beraiek joaten badira bera ere joango dela eta. Kideak txapelketaren gorabeheraz hizketan hasi eta nahiko gutxira Karmele iritsi da, elkar agurtu dugu eta berriro ere desagertu egin da, trasteak harmailetan utzita, enkarguren bat egitera, antza.

Txapelketaren eta Emakumea Pilotari egunaren gainean hizketan aritu bitartean frontiseko eremuan jokatzen ari diren partidari ere erreparatu diogu, markagailuari bezalaxe. 11-6 aurretik zihoazen usurbildarrak bigarren begiratuan eta hirugarrenean 14-6. Haizeak onak direla esan du eta nik gehitu diot pentsatzeko zenbat ordu sartu ote dituzten horietako batzuk frontoian. Ondoren mutiko baten oinetakoen koloreak deitu dio atenzioa eta “praka zuriak eta zapatila laranja eta beltzak” irten zaio. Nik esan diot “ez ditu hamar pare izango behar dituenaren arabera aukeratzeko” eta Jaionek gehitu du “aurrekoan semearekin joan nintzen batzuk erostera eta ez dago kolorerik gabekorik, urdinak, horiak, berdeak. Nik azkenean lortu nuen gris batzuk erostea, baina, ia denak kolore bizidunak dira”. Karmele itzuli da guk hitz eta pitz jarraitzen dugun bitartean eta

partida ere aurreratua da, azken tantoa bakarrik falta zaielako usurbildarrei. Hala adierazi digute ikusleen txaloeak. Tanto bakar hori jokatzeari amaitu dute norgehiagoka haurrek. Pixkanaka jendea alde egiten hasi da bertatik, nahiz eta haur pare bat hasi diren frontisean euren kabuz jolasean.

19.47 dira nire erlojuaren arabera. Usurbilgo Eskupilotako Txapelketako partida amaitu eta segundo gutxira iritsi dira beste bi kide gugana, Arritxu eta Aitziber. Unea ikusita “zer, partida noiz bukatuko kontrolatzen aritu al zarete etortzeko?” galdetu diegu erdi brometan guk, baina, ezetz erantzun digute, nahiz eta Aitziberrek irriz “guk badakigu noiz etorri” bota duen. Beraz, gutxienez bost elkartu gara gaurko saiorako. Saioan hasi aurretik Arritxuk heldu berri dela aprobeixatu du galdetzeko ea Usurbilgo Pala Txapelketarena zer den, azalduz bezperan etxekekin proba bat egitera joan zela, baina, gaizki moldatu zela. Haizeak esan dio usurbildarrentzat antolatu dutela, aurten bigarrenez, gomazko trinkoarekin eta teniseko pilotarekin. Ondoren gaineratu du nahi duenak izena ematen duela eta bikoteka jokatzeko dela. Adi entzun ditu bere azalpenak Arritxuk eta gogoia ba omen duela esan du, baina, erridikulurik ez duela egin nahi. Idoia eta Aitziberrek esan diote “atzokoa egun txarra izango zen” eta berak erantzun “ez dakit egun txarra izango zen, baina, sakerik ere ez nuen bueltatu askotan”. “Gogoarekin ez geratu behintzat” esan diogu batek baino gehiagok, berak aitortu baitu inbidia ematen diola. Hizketaldi honen ondoren Haizeak Emakumea Pilotari egunaren berri eman du eta ni hasi naiz bertan zer egin ohi den sakonago agertzen emakumeei “partidak, saioa, finala, musika, etab.”. Haizeak esan du bera ez dela izan behin ere, baina, hainbeste emakume biltzea polita iruditzen zaiola eta joango dela. Nik esan diet polita izaten dela, jende asko eta leku zein mota ezberdinetakoa biltzen dela. Talde izaerarekin jarraituz agendan apuntatu dutela esan dute hiru batek eta “zuek bazoazte ni ere joango naiz” erantsi du Karmelek. “Orduan txandala eta pala eta guzti hartu behar dira?” galdetu dute besteak beste eta nik “bai, bai” erantzun diet. Hizketan jarraituko genuke beste puska batean, baina, entrenatzaileak erlojuari begiratu eta “berotzen hasi beharko dugu” esan du. Zortzietarako bost minutu baino ez dira falta.

Beroketa

Korroan jarrita giltzadurak mugitu eta luzapen batzuk egiteari ekin diogu. Emakumeek bitartean Usurbilgo txapelketako partaideen berri eman diote elkarriz, “honen arrebak” eta “haren emaztea” bezalakoekin. Solasean ari garela, eta nire azalpena erabat amaitu gabe bada ere, Haizeak “korrikan hasi beharko dugu” esan du niri begira eta “ba, hasi, berdin dio” esan eta kantxan zeharreko korrika saiotxoari ekin diogu. Aitziber, Jaione, Haizea, Karmele, Arritxu eta seiok hasi gara, frontisetik pasatzean haurrei pilota geraraziz. Entrenatzaileak ere gogorarazi die “entrenamendua daukagu orain” eta “bai, bai” erantzun diote mutikoei. Horietako bat aurrez partida jokatzeko aritu den mutikoetako bat da eta “zer, lehen ez al zara nahiko nekatu?” bota diot nik pasaera batean. Hark ezetz erantzun dit. Ez dugu elkar ezagutzen, baina, behin baino gehiagotan topo egin dugu pilotalekuan euren entrenamenduaren bukaera eta gurearen hasieraren harira eta ez da gehiegi beldurtu haurra nire galderarekin.

Gu korrikan azken buelta ematen ari garela Idoia iritsi da pilotalekura, “hau arratsaldea” esanez. Justu kantxako itzuliak amaitu ditugunean etorri da eta hori ikusita “orain Idoiak beste hiru buelta” bota du Jaionek irribarrez. Honek ere berdin erantzun du, paleta eskuan hartuta. Besteok ere paletak eskuetan hartu ditugu harmailetako bankuetara hurbilduta. Hau ikusita entrenatzaileak “gaur hasiko gara Usurbilgo bikotea

erabakitzeko banakako partidak jokatzen sailkapena egiteko” bota du eta niri begiratuz “zurekin ez nekien zer egin, baina, azkenean sartu egin zaitut” adierazi dit. Nik “lasai egon, zuk ikusi denboraz nola zabilzan, ohituta nago komodina izatera, batzuetan jokatzen dut eta beste batzuetan ez” jakinarazi diot. Hori entzutean irriz erantzun dit berak “komodina zara, baina, guk maite zaitugu” botaz. Emakumeren batek ere tonu berean egin du baietz buruarekin, “bai, asko” esanez, irria ezpainenetan. Arritxuri ere galdera egin dio bada ez bada ere, “zu talde honetakoan sartu zaitut, datorren astean etorriko zara?” eta honek “bai, bai, ni talde honetako naiz. Bi aste barru ez naiz etorriko arratsalde izango naizelako, baina, bestela bai” erantzun dio.


Hizketaldiaren ostean bakoitzari pilota bana eman eta ezker hormaren aurka hasi gara piloteatzen, frontoia bete emakume frontisetik hasita: Jaione, Arritxu, Karmele, ni, Idoia eta Aitziber. Gaur nahikoa lan badarabilgu denok ere kabitzen, elkarren pilotak zenbaitetan nahasi egiten baitzaizkigu. Hasi eta handik gutxira zazpigarren kide bat ere iritsi da, aspaldiko partez, Aizpea (B.K. Ez naiz gogoratzen noiz etorri zen azkenekoz, egia esan. Aste Santua baino lehen, behintzat). “Zer moduz?” galdetu dio Haizeak eta “nekatuta, baina, ahal duguna egingo dugu” erantzun dio heldu berriak poltsatik pilota bat hartu bitartean. Haizeak orduan aprobetxatu du azaltzeko Emakumea Pilotari egunaren harira banakako partidak jokatzen hasiko garela gaur, gainetik asmoak zertan datzan azalduz. Idoiak Aizpea iritsi dela ikustean “honek parte hartuko du Usurbilgo txapelketan” esan dio Aitziberri eta nik “zer, aliatu bila al zabilzate?” galdetu diot aldamenetik. Berak irri egin du eta nik “beno, zuek iazko esperientzia baduzu gutxienez, ala?” botatzeko aprobetxatu dut, trukean “bai, bai, guk behintzat badakigu zer den, ezagutzen dugu” erantzun dit. Izan ere, aurrez ere behin baino gehiagotan entzun dut Idoiak eta Aitziberrek iaz elkarrekin bikotea osatuz parte hartu zutela. Aizpea Idoia eta nire artean hasi da ezker hormaren aurka piloteatzen.

Piloteatzen ari garen bitartean Haizea eskuan emakumeen partidekin osatu duen egutegia duela ikusi dut eta beregana hurbildu naiz, “nahi baduzu nik lagunduko dizut partidak koadratzen” esanez. Izan ere, denbora gehiegi ere ez dago eta ikusirik Izaskun ez dela etorriko, “gaur ni eta Izaskunen aurkakoak elkarren aurka jarri, horrela ziurtatuko duzu partida hori behintzat jokatuko dela” azaldu diot, ahal dela, nire aurkako partidek azken sailkapenerako ez baitute balioko. Hasieran “ez, berdin du, zuk ere jokatu” erantzun dit, baina, halako batean ulertu dit, argiago emandako azalpen baten bidez zer proposatzen ari natzaion. Gu hizketan ari garen bitartean emakumeek piloteoan dihardute eta “orain binaka jarri” esan die. Zazpi gara berez, baina, “Uxue independentea izango da” bota du, ez naizelako berotzen ere ari une horretan eta modu horretan aldamenekoarekin jarriz kideak: Jaione eta Arritxu, Karmele eta Aizpea eta Aitziber eta Idoia.

Ariketak

Binakako piloteoa amaitutzat eman du entrenatzaileak eta zabaleran kantxa murrizteko marra jarri du frontisetik hasi eta 4ko marrara arte, kontrakantxakoaren paralelo. Hori ikusita “zati handia kendu diozu” esan du baten batek eta “ondo neurtu eskuinera noraino bota dezakezuen, frontisean erdirago jo beharko duzue” esan die entrenatzaileak. “Hor bi paretak ere kanpora joango dira” esan du Jaionek eta hori entzutean “ez pentsa, botea hain eskuinean ez da egiten askotan” erantzun diot nik. Haizeak Aizpeari azaldu dio zein den banakako partida hauen helburua eta lehenengo partidarako bi emakumeak zeintzuk izango diren azaldu du.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



Sakea 2tik 2ra izango dela, 2 sake aukera izango dituztela, 8 tantora jokatuko direla eta epaile lanak berak burutuko dituela azaldu die Haizeak emakumeei. Hauek buruarekin baieztatu egin dituzte, adi-adi bere aginduen zain geratuz. Ondoren esan du “besteak bitartean atzean arituko zarete ariketa ezberdinak egiten”.

Aurreko partidari ekiteko Aizpea eta Aitziberri bertan geratzeko esan die eta beste bostok atzeko eremura joan gara. Haizea ere gurekin etorri da eta zer egin proposatu digu.

2. Binakako partida, bikoteko batek hiru kolpe egitean kanpoan dagoen kidearekin postua txandatu. Kantxan bikote bakoitzeko lagun bakarra egongo da.

Haizeak azalpena ematen amaitu eta “bost gaude” esan diot nik eta “bai, baina, lehenengo ariketan zu kanpoan geratuko zara, koordinatzaile lanetan” esan dit. Nik baietz egin diot buruarekin eta paleta harmailetan utzita iskina batean jarri naiz emakumeei begira, patxada ederrean.


Ariketa honi ekitea kosta zaigu, besteak beste, modu ezberdinean ulertu dutelako emakumeek. Batek hiru tantora aldatuko direla ulertu du, besteak “baina, orduan bakarra dago barruan” esanez atera ditu kontuak eta erabaki ezinda minutu batzuk pasa ondoren “beno, nahi baduzue aldatu egingo dugu” esan diet nik aldamenetik. Azkenean, baina, Haizeak esandako moduan ekin diogu partidari. Bikoteak osatzea baino ez da falta eta Haizeari galdetu diote “bikoteak nola egingo ditugu?” eta honek aurrealdetik “Idoia eta Arritxu eta Karmele eta Jaione” erantzun die. Beraz, hasteko unea heldu zaigu. Ni markagailua eramanez eta kolpe kopurua neurtzen jarri naiz, saltsan nabil, egia esan. Hirugarren eginahalean lortu dugu hastea, “sekula ez omen da berandu” esaera geure eginez, antza. Marrekin edo kantxako mugekin ere sortu da zalantzaren bat, baina, 8,5 eta 6,5 bitartean mugatu dugu kantxa, marra zuri bat eta marra jarri izanaren arrastoak daudela aprobetxatuz.

Aurreko partidari erreparatzen diot atzetik tarteka, ikuspegi ederra daukat nagoen lekutik, eta Aitziber eta Aizpea saiatzen eta elkarri barkatzeko asmo handirik gabe dabilta aurreko koadroetan. Halako batean markagailuan 5-6 doazela entzun dut. Tanto pilotatuak ari dira jokatzen.

Buruz buruko lehenengo partida amaitu denean Haizeak Arritxu eta Karmeleri dei egin die aurreko eremura eta atzera Aizpea eta Aitziber etorri dira. “Zer egin duzue?” galdetu dio Jaionek Aitziberri eta honek “nik irabazi, baina, oso nekatuta dagoelako” erantzun dio. Jokatzen hasi ahal izateko atzeko eremuan zer egin erabakitzeke unea da eta aurreko ariketa aspergarri edo geldo samarra irudituta “hau aldatu eta binakako partida bat jokatu duzue?” proposamena luzatu dut nik. Haizeak entzun du, hala komeni zen, eta “nahi duzue egin” esan du hori entzutean, aurrealdean lehen sakea nork egin

erabakitzeko txanpona botatzera doala. Beraz, beste egoera bat landu dugu atzeko eremuan.

3. Binakako partida, baldintzarik gabe. Kantxa hiru pitzatur mugatzen dute, 6koak, 9 ingurukoak eta kontrakantxako marraren atzean dagoenak.



Kantxa oso zabala eta estua geratu da, baina, nola edo hala moldatu gara. Izan ere, bestela harmailetara iritsiko litzateke pilotaren botea, jotzaileari kolpea egiteko leku egokirik geratu gabe.

Binakako partidari ekiteko bikoteak zehaztu ditugu: Idoia-Aizpea eta Jaione-Aitziber. Ni berriro ere epaile eta markagailu lanetan geratu naiz. Hasi eta partidari 4-0 ziren aurretik ohartzerako Idoia eta Aizpea, kideek huts egindako pilotakaden ondorioz hein batean. Bizpahiru Aitziberrenak izan dira eta hori ikusita “honek axola zitzaion partida irabazi du eta hortik aurrerakoak berdindio” bota dut nik aldamenetik irribarrez. Besteren batek ere modu bertsuan erantzun dit. Tartea atera arren gutxika-gutxika lortu dute markagailuko aldea murriztea eta apur bat orekatu da tanto aldea. Hala ere, halako batean emakume bat hurreratu zaio Aitziberri eta hizketan hasi dira. Beraz, Jaione beste bien aurka aritu da bakarrik tanto horretan. Aizpeak niri begiratu eta “bakarrik ari da” esan dit eta baietz erantzun diot, “ohartu naiz”. Tantoa bikoteak lortu du eta Jaionek ere ezaguna izango zuen bestea, “ez despistatu, partidua jokatzen ari gara” jakinarazi dio bisitariari. Horren ondoren, Aitziberrek hizketaldia amaitu eta berriro ere bi biren aurka jokatzeari ekin diote laurak.

Nik partida honetan zalantzarik jokaldi pare batean “ona” edo “kanpora” adierazi diet eta bitartean aurreko partidari ere begiratu diot tarteka. Hau ere iraupenez nahiko luzea izaten ari dela iruditu zait, piloteo dezentekoa, nahiz eta erritmoz ez duen zerikusirik lehenengo jokatu denarekin. Hala ere, moldatzen ari dira bai Arritxu eta baita Karnele ere.

Atzeko binakako partidari eta eremura egokitu dira bai kokapenez eta bai indarrez Aizpea, Jaione, Idoia eta Aitziber. Hala ere, ezin kabituta elkarri traba egin diote pare batetan Idoiak eta Jaionek eta barre apur bat egin dugu horren kontura, Idoiak esan baitu “ez al dago sistema bat piboteen modura desagerrarazi eta berriro agerrarazten zaituena?”. Dagoeneko eurek ere ohartu dira ziurrenik aurreko eremuko banakako hurrengo partidari elkarren aurka arituko direla.

Aurreko eremuko bigarren partidari amaitu denean Arritxu eta Karnele atzera etorri dira eta Jaionek eta Idoiak hartu dute aurreko eremurako bidea. Entrenatzailea ere hurreratu zaigu atzekooi eta “ariketa aldatuko dugu” jakinarazi digu.

4. Ezkerrarekin pilotea.

“Eskuinarekin joz gero kalera” esan du Haizeak aurrerantz doan bitartean eta elkar kanporatuz jokatze ere esan digu, baina, ezkerrez jotzea bera nahiko lan badela

irudituta nik “aldatu egingo dugu, ala? Inor kanporatu gabe” iradoki dut. Inork ez du ezezkorik esan eta hala ekin diogu Aitziber, Arritxu, Karmele, Aizpea eta bostok piloteoari. Une batean Aizpeak “ez dut gauza bat ongi ulertu, bizitzekin da ala ez?” bota du eta “ez, bizitzarik gabe, bestela kanpoan ezer egin gabe egongo gara” erantzun dio Arritxuk. Nik ere modu honetara egokiagoa iruditzen zaidala adierazi dut (B.K. Aizpeak ez du euskaraz hitz egiten, baina, ulertu bai, nahiz eta tarteka gazteleraz azalpenak ematen dizkiogun noiz edo noiz). Beraz, segi egin dugu, tarteka pilota joz eta beste zenbaitetan intentzioa bai baina kolperik gabe. Halako batean Aitziberrek niri begira “lasai egin barre” esan du eta nik “jesus, zergatik?” esan diot.

Piloteoa dezente mantendu dugu une batzuetan, nahiz eta tarteka zenbait kolpetan ez dugun lortu bostonak bateratzerik, behera joandako edo hormara iritsi gabeko kolpeak medio. Hala ere, nahiko esanean osatu dugu ariketa hau. Arritxurekin Usurbilgo Pala Txapelketako bere gogoaz eta nire lesioaren osaketaz aritu naiz une batean, kolpeez gain hitzak ere elkartrukatu.

Atzeko eremuan ariketa hau egin bitartean aurrean nor baino nor ari dira Jaione eta Idoia. Orain arteko erritmo bizienerako partida iruditu zait eta pilotak aurrerantz alde egin digun batean aprobeixatu dut pilota bila joan izana Haizeari “zenbat doaz?” galdetzeko. Berak “5-3” erantzun dit. Beste une batean, berriz, Haizea entzun dut Idoiari “zuk zuloak ikusten dituzu” esanez eta Jaionek ere berretsi du hori. Idoiak berak “orain hasi naiz jokoa ikusten, pilota nora bota” erantzun dio.

Frontiseko 3.partida amaitu da eta denak partida bana jokatuta daude dagoeneko. Haizea atzera etorri da eta “Uxue, zu ez zaitut sartuko gaur” esan dit niri. Nik “egon lasai” erantzun diot. Laugarren partidarako Aitziber eta Karmeleri dei egin die, bigarren errondari hasiera emanez. Karmeleren seme bat etorri da pilotalekura zerbaiten bila eta amak Haizeari “hau da nire semea” esateko aprobeixatu du. Aurrez ere bistaz ezagutzen zuela uste dut, Hernanin ikusita. Haizea apur bat gorritu da, lotsatuta, eta irribarrez “beno, partida jokatzera joan beharra daukagu aurrera” esan du. Besteok irri apur bat egin dugu gertaera horren kontura, adarra joz.

Frontiseko 4.partidan hasi dira Aizpea eta Karmele eta atzean berriro ere ezkerrez egindako piloteoari ekin diogu Idoia, Jaione, Aitziber, Arritxu eta bostok. Pilota batzuk joan zaizkigu kanpo aldera eta ni joan naiz bila kasurik gehienetan. Batzuetan kalean aurrera eta beste batzuetan probaleku aldera alde egin digute pilotakadek batez ere, nahiz eta bakarren batzuk frontis ingurura ere ihes egin. Hori ikustean Haizeak, saioa aurrean epaile lanetan daramanak, “zein ari da hona pilotak botatzen?” galdetu du eta Jaionek “txandaka ari gara” erantzun dio pilota jasotzearekin batera. Piloteoan jarraitu dugu eta Aitziberrek huts egin duen batean “lasai, ni txarra naiz” esan dit eta Idoiak “honek okerragoak ere ikusiko zituen” esan dio. Nik baietz esan diet, “nik denetik ikusi nuen, baita bigarren botean pilota jo ez eta orain airez ematen diotenak ere. Hala ere, kasu hauetan euren borondatea izugarria da, bakarrik pilotan aritzera joaterainokoa”. Pilotakadak eta hitzak trukutzen jarraitu dugu frontiseko jarduna amaitu dutela ohartu garen arte.

Aurreko banakako partidarik motzena izan da laugarrena eta amaitzean Aitziber eta Idoia aurrera joan dira eta Aizpea eta Karmele etorri dira aurretik atzera. Beraz, beste bostok bata bestearen atzetik pilotakadak jotzen jarraitu dugu, txandaka.

5. Piloteoa airez.

Entrenatzaileak hasieran proposatu digu kolpe guztiak airez jotakoak izaten saiatzeko, baina, hasierako kolpeetan ezinezkoa izango dela ikusita “ondo datorrenean airez eta bestela botez” jardutea adostu dugu, proposamena Aizpeak eta biok ia aldi berean eginez. Jaionek “errealista da erabaki hori” esan dit eta nik “uste dut zentzuzkoagoa dela eta egiteko guretzat egokiagoa” erantzun diot.

Kasu honetan ere joan zaizkigu kanpora pilotakada batzuk eta Jaionek hori ikusita “barkatu” esan dit, nik “lasai egon” erantzunez. Ondoren “beno, gaur ez duzu partidarik jokatu eta horrela pilota bila korrika pixka bat egingo duzu” esan dit irria ezpainenetan. Karmelek, berriz, “horrela Usurbilgo kaleak ezagutuko dituzu” esan dit kalean aurrera pilota bila joan eta bueltan nentorrela. Nik irribarrez erantzun diet guztiei ere, nahiz eta une batean madarikatu dudan ezker horma amaieran hainbeste jaitea altueran, horregatik joan zaizkigulako kanpora pilotakada batzuk. Piloteoan ari garela Arritxu Haizearena joan da 20.55 inguruan eta harekin bi hitz egin ostean badoala esan digu, “datorren astera arte” batekin elkar agurtuz. Aurretik telefonoz hizketan aritua zen bakarren batekin. Beraz, laukote bat geratu gara: Jaione, Aizpea, Karmele eta ni. Hasieran baino kontrol handixeagoa lortu dugu ariketaren amaierarako, bospasei kolpetik gora jarraian egitea ere lortuta une batzuetan pilotak lurrik ukitu gabe. Gainera, nahiko egokituta aritu gara, nahiz eta akaso une batzuetan kolpe batzuk gogorregi eta bizkorregiak izan diren batez ere Karmeleren erritmorako.

Idoia, Aitziber eta Haizea atzera etorri dira 21.02an, aurreko partida amaituta. Ordura arte aireko kolpea lantzen jarraitu dugu beste laurok, txintxo-txintxo esana betez. Atzera heldu orduko “egurra eman dit” esan digu Aitziberrek eta hori entzutean “gaur denok irabazi dugu partida bana orduan?” galdetu du Aizpeak. Karmelek “nik biak galdu ditut” erantzun du eta Jaionek “nik bakarra jokatu dut” erantsi du. Hizketan hasi gara Haizeak proposaturiko luzaketak egiten ari garen bitartean, ohi bezala, mingainak dantzatzeari utzi gabe. Entrenatzaileak orri bat hartu eta “zein joango zarete maiatzaren 26ko festara?” galdetu du, izenak idatziz orri batean. Jaionek, Idoiak eta Aitziberrek baietz esan dute, Karmelek ere bai eta “zu apuntatuko zaitut?” galdetu dit niri. Nik “nahi baduzu idatzi nire izena” esan diot, ondoren irribarrez gehituz “nik agian unearen arabera erabakiko dut zein taldetakoa izatea komeni zaidan, aukera asko ditut” eta irri txikiren bat gehiago ere ikusi diot bakarren bati. Haizeak ere ederki ulertu dit zer eta zer asmotan esan dudana, bromari segituz, bai horixe! Emakumea Pilotariko izenak jaso ostean Aizpeari Usurbilgo Pala Txapelketan izenik eman nahi ote duen galdetu diote, zertan datzan azalduz. Berak “bale, eman nire izena” esan du eta Jaione bera eta beste batekin hirukotea osatzekotan geratu da. Aitziberrek eta Idoiak ere esan dute eurek izena emango dutela. Hori ikustean Jaionek eta Aitziberrek erabaki dute, bada ez bada ere, tabernatik buelta bat eman eta izenak emanda alde egingo dutela etxera. Aizpeak ere etxerako bidea hartu eta Idoia, Karmele, Haizea eta nik ere batera egin ditugu hasierako urratsak, Idoia amaren etxepean agurtuta. Denek adierazi dute datorren astean ere agertzeko asmoa entrenatzaileak galdetu dienean.

21.10 inguruan agurtu ditut Karmele eta Haizea nik, kotxea ezkerreko aparkalekuan nuela esan eta Haizeari “deskuiduan partidaren batekin ez banaiz gogoratzen deituko dizut” jakinarazi diodan unean bertan. “Hori ere apuntatzen al duzu?” galdetu dit berak. Nik ezer ere esan aurretik Karmelek “honek dena idatziko du” esan dio, nik ezer

gehiago esan beharrik eduki gabe. 21.15ean jarri dut autoa martxan eta etxera abiatu, nekatuta eta nire buruarekiko amorrazio puntu batekin.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Usurbilgoa zen orain arte banakako partidarik egiten hasi gabeko talde bakarra, baina, hemen ere ekin diogu dinamika horri Emakumea Pilotari Egunaren harira. Beraz, iruditzen zait hemendik aurrera hiru saioetan nahiko antzeko gauzak bizi ditzakedala, “komodin” lanei atxikitakoak. Hala ere, ulertzen dut hala egitea, bestela ezinezkoa delako jarritako egunerako bikoteak erabakita izatea. Are gutxiago tarteka emakumeren batek saioetara huts egiten badu, partida batzuk zintzilik geratzen direlako. Beraz, egokituko dut nire jarduna egoerak eskatzen duen moldera.

Gaurko saioa hasterako ia ordu erdiak alde egin digu eta nik uste amaieran oroitu dela denbora horrekin entrenatzailea bera, batez ere espero baino bakarkako partida gutxiago jokatzeko aukera eman diolako. Beraz, ea datorren asteko saioa nola joaten den denboraren kudeaketari dagokionez. Hala ere, seinale txarra ez zait iruditzen hizketarako eta elkarri gauzak galdetu edo kontatzeko gogoia edukitzea ere, saioetara pilota jotze hutsera ez datozela baieztatzen baitit horrek.

Banakako partidetan emakumeak gustura ikusi ditut, babak eltzetik norberak atera behar baititu askotan, eta iruditzen zait orain arte lehiakortasunik baxueneko taldea dela iruditu arren Usurbilgo Pala Txapelketak ere piztu diela har hori. Besteak beste Karmelek berak esan du berak ez duela parte hartuko, baina, bertako elastikoa gustura jasoko lukeela. Partidak ziurrenik ikastaroko ordutegian jokatuko dituztela esan dute, astelehen eta asteazkenetan, eta nik esan diet ahal badut egunen batean agertuko naizela ikustera, Hernanin egin izan dudana moduan. Iruditzen zait hor bil nezakeela saiotik kanpoko atxikimendu mailaren zein bizipenen gaineko informazioa.

Udaleko Berdintasun Sailak iaz emakumeen pala txapelketa babestu zuela jakin dut gaur, eta gizonetzkoena ezetz. Ildo horretan iaz kexak izan zirela esan du Haizeak eta ez dakiela aurten nola antolatuko duten txapelketa zentzu horretan. Bakarren batek esan du “sustatzeko halakoak egin behar izaten dira” eta besteren batek “non sortu ziren kexak?” galdetu du. Jendartean ikuspegi ezberdinak daude eta badirudi eremu honi ere eragiten diotela. Ea nonbaitetik jaso nezakeen gai honen gaineko informazio zehatzagoa.

Atzera kontua: 20, 19,...

Maiatzeko lehen astea hasterako amaitu da ikastaroetako saioei dagokienez, ordu eta erdiko paletako jardunarekin kito, nahiz eta gainerako egunetan ere, ostegunetik hasi eta igandera arte bazterrean utzitakoak landu beharra daukadan, gaur neuk egiten ez dudana bihar ere neuretzako geratzen baita langintza honetan. Behin baino gehiagotan pentsatu dut “nork esan ote zidan niri honetan hasteko?”, baina, erantzuna ere nahikoa era automatikoan etortzen zait, arrapaladan: “hainbeste saio pasa baditut eta laurdena bakarrik falta bazait orain ezingo dut dena pikutara bidali”. Beraz, egin gabeengatik eta erabat asebate ez nautenengatik neure buruari harrika segitzea baino hobea dudanez, ez daukadan lekutik bada ere, energia-izpiak atera eta aurrera begiratzea, azken saioen segidari erreparatu nahi diot, nahiz eta ederki asko dakidan paleta saioak amaitzearekin ez dela nire lana amaituko, beste etapa bat hasiko beharko baitut, hau ere oraingoa bezain malkartsu, gorabeheratsu eta itogarria dela jakitun, gainera. Hala ere, bidea

eginez egiten dela esaten da eta nora ez dakit, baina, norabait banoala iruditzen zait. Ez ote da galbidera izango?! Ez, mesedez!

26. astea. LAN ETA LAN, AUZOLAN

Bi asteren ondoren berriro ere hiru saioko astea da hasi berri dudana hau, okerrik ezean hemendik hilabete amaierara artekoak bezalakoa, beraz. Aurreko astean saio bakarra izan nuen eta joan-etorrietan ez nuen hainbesteko nekerik pilatu. Hala ere, nabari dut ikasturteari ekin nionetik hogeita seigarren astea dudala hau eta lehen baino gehiago kostatzen zait bidaiak egitea. Egia esan, eskerrak saioetan emakumeekin emandako ordu eta erdiko tarte horietan poz eta energia apur bat pilatzen ditudan, bestela, ez dakit honi eusteko indarririk izango nukeen. Kontuak kontu, hala ere, beste astebete gehiago da eta orain artekoari eutsi beharko zaio.

Astelehena neke puntu batekin iritsi zait berriro ere, bezperako bizikletako ibilia sumatzen dut hanketan, baina, baita behingoz lanean fundamentuz hasi beharraz kontzientziazatuta ere hein batean, lan erritmo eta animoari eusteko heldulekuak bilatu asmoz, azken txanpan beherakadarik pairatu ez dezadan. Iragan asteburuan aurreko astegunetan ukitu ere egin gabeko zer edo zer ibili dut esku artean. Munduak alderantzizkoa dirudi halakoetan, baina, zer egingo diot ba?!

A zer astelehena!

Aste “light” baten ondoren berriro ere hiru saiotako zikloak eta beste zenbait atali astinduak emateko unea heldu zaizkit. Eta oraingoan ez dago ez zubi, ez aparteko jaiegun eta ezta atsedena hartzeko beste datarik, azken saioak bata bestearen atzetik helduko baitzaizkit. Honenbestez, ea ez zaidan hain astun eta nekagarria egiten azken txanpa ez hain motz hau, nire eta gainerakoen hobe beharrez.

Bi aste igaro dira azkena Hernaniko pilotalekua zapaldu nuenetik, aho batez erabaki baikenuen maiatzaren 1aren bezperan askok ez zirela etorriko esatean apirilaren 30eko saiorik ez egitea. Beraz, eten txiki horren ondoren berriro ere hemen naiz, asteari ohi bezala pilota eta paleta artean ongi etorria egin asmoz, nahiz eta askotan egunek aurrea egin ahala gaizkitik edo ezinetik gehiago izaten amaitu onetik baino! Ea oraingoan alderantziz gertatzen den!

Kiroldegiko sarrera

Gaur ia puntu-puntu iritsi naiz saiora, aurreko batzuetan baino estuago denboraz, bidean trafiko dezente ibiltzeaz gain nire lagunak fidelenetako bati, lau gurgil izan arren, gasolina depositua bete behar izan baitiot. Beraz, 9.30 jotzean direla iritsi naiz kiroldegiko sarrerara.

Dagoeneko taldeko hainbat emakume bertan ziren, aurreko banku batean eseri eta kontu kontari: Ainara, Gemma, Malen, Irati eta iritsi berri den Ines. Hau ni baino lau zapabost segundo lehenago iritsi da, eskailerak jaisten ikusi baitut ni aparkalekutik elkargunera nindoan bitartean. Beraz, nirekin sei gaude, jadanik. Gaur, gainera, Ines ohi ez bezala kanpotik etorri da eta Ainarak hori ikustean “gaur ez al zara igerilekuan izan?” galdetu dio. Berak “bai, baina, gero alabarenean izan naiz, txikia barizelarekin dagoelako. Nire partidua jokatu eta berriro ere harena itzultzekotan etorri naiz”. Honen ondoren amak hasi dira hizketan, batek “gurearen gelan aurten ia denek pasa dute barizela, bat hasi eta besteek atzetik. Askok anai-arreba txikiagoak omen zituzten eta horietako askori ere tokatu omen zaie pasatzea. Pediatrak esaten omen du hori haurrak etxean geldi

edukitzen ez dakigulako dela” bota du. Hurrengoak “berez ez al da astebetean etxean egon behar dutela esaten?” eta beste batek “ba, denek pasa behar badute pasa dezatela eta kito”. Euren seme-alabek noiz eta nola pasa zuten ere agertu dute batek edo bestek, hazkurari aurre egiteko krema bat aipatzearekin batera. Solasaldi honetan ari diren bitartean Miren ere iritsi da. Giroak laguntzen du, eguzkia hasi da temperatura apur bat goxatzen eta zerua argi dago, eta ez dirudi inork barrurako presarik duenik. Ondoren Mireni “aurrekoan zure senarra ezagutu nuen” esan dio Gemmak, elkartean topo egin zutela eta besteak bazekiela esan dio, “zein desberdinak zareten esan zidan” botaz. “Batzuk antza daukagula diote eta beste batzuk ezetz” esan du Ainarak eta horren harira “komeni zaizuenari kasu egitea onena” erantsi dut nik. Malenek ere baiezko keinua egin du buruarekin. Ostiral iluntzean izan zela kontatu du ondoren Mirenek eta senarra etxeko giltzak ahaztuta joan zela, berari hoska aritu omen zelako tinbrea jotzekoa zela esanez. Batzuk aulkian eserita eta besteak inguruan jarrita gaudela, halako batean, Zuriñe etorri da kanpotik barrura, denok bertan gaudela ikusita. Hau beste eskaileretatik sartzen da kiroldegira eta azken bi asteetan ondoren gehitu zaigu guri, ohi ez bezala hitzordua bera izan arren badirudielako giroa lagun denean erakargarriagoa dela kanpoan elkartzea denok barruranzko bidea hartu aurretik.

Zortzikotea elkartu gara eta orduan iritsi da entrenatzailea ere. Erlojuari begiratu diot zeharka eta 9.36 direla ikusi dut. Konturatzera, ordea, elkar agurtu eta berriro ere hitz eta pitz ari gara. Ainarak egin dio lehenengo diosala, “zorionak” esanez. Oiartzungo txapelketako finala irabazi omen zuen larunbatean eta jakinaren gainean zen nonbait. Honen ostean Gipuzkoako eskolarteko paleta txapelketako finalerdiaz hitz egitera igaro dira, Ainararen alabak-eta irabaztea lortu zutelako, 20-19ko emaitzaz, Ataungo alebinen aurka. Jakin dut larunbatean Hernaniko pilotalekuan jokatu zutela finalerdia eta kide bat baino gehiago izan zirela bertan. Malenek esan du “partidu polita izan zen ikusteko, berdindua” eta Gemmak bera ere izan zela esan du. Saioak “nik etortzeko asmoa banuen, baina, poteatzen geratu nintzen Oiartzunen” bota du. Ainarak esan du bera urduri egon zela oso eta besteek esan diote “beste gurasoak ere antzera zeuden”. Hortik apur batera “prestatu zaitezte” esan dio Saioak irribarrez, adarra joz, larunbat honetako finalean aurkari izango dituztenak ere Saioak entrenatzen dituelako, Bidanian.

Hitza hitzari lotuz modu berean beste denbora puska batean ere lasai ederrean jarraituko genuke guk, baina, ordua aurrera doa eta mingaina dantzatzeari utzi gabe bada ere barrurako bidea hartu dugu halako batean. 9.40 gertu ditugu, ate joka. Tornuetan txartelak sartu eta azkenean atzealdean laukote bat geratu gara: Gemma, Ainara, Saioa eta ni neu. Ordena horretan binaka jarri eta hizketan egin dugu eskailerak jaitsi, igo eta pasabideetatik aurrerako bidea ere, nik bezperan bizikletaz nenbilela Saioa agurtu nuelako. Mendi buelta bat ematera joan zen bera eta ni, berriz, bizikletan irten nintzen izerdi apur bat bota asmoz.

Pilotalekura bidean beste kideak galdu ditugu bistatik, behin baino gehiagotan apurtzen da taldea bide honetan, eta azken pasabideko atera heltzean Malen dago gure zain geratuta, atezain. Hari kasu egin eta bostok elkarrekin egin ditugu geratzen diren metroak, tartean pilotalekutik kanpora bidean bertako garbiketa lanak amaituta datozen garbitzaileekin gurutzatu eta elkar agurtuta.

Pilotalekua

Poltsa, jertse eta gainerakoak harmailetan utzi ditugu, aurretik joandako laukoteak lan horiek aurreratuta ditu, eta oraindik elkarrekin topo egin gabeko Zuriñeri “egun on” esan diot. Berak ere modu berean itzuli dit diosala. Trasteak utzi eta ia inertzia korro antzeko batean jarri gara, berriro ere mingainak dantzatzeko pronto. Finalerdietan eskolarteko lizentzia behar bezala zigilatu gabe omen zuten Hernanikoek, baina, ez omen zegoen federazioko ordezkariarik bertan, eta horren gainean hizketan aritu gara, batez ere Saioa, Ainara eta hirurok, besteak adi-adi hizketaldia jarraitu eta tarteka iritzia ematera ausartzen diren bitartean, besteak beste arau-haustek eta entrenatzaileen jarrerak aipatu eta apur bat kritikatu. Hala ari garela, “hor okerrena da errua zuri leporatzen dizutela zuk batere zerikusirik ez duzunean” bota dut nik eta “beno, hobe izango da pasatakoak ez kontatzea, batzuekin alferrik baita” esatearekin batera beroketari ekiteko imintzioa egin eta korrika saioari hasiera eman diogu.

Beroketa

9.45 inguruan beroketari ekin diogu, korrika apur bat eginez motorrak martxan jarritz. Ni Irati, Miren eta Inesen inguruan aritu naiz gaur ere, nahiz eta elkarrengandik gertu goazen denok eta hizketaldiak nahiko modu orokorrean eginak izan diren, iritzia elkartrukatu. Hiru itzuli egiten amaitzean Saioaren inguruan geratu gara kontrakantxan eta borobil batean jarrita giltzaduren mugikortasuneko ariketak eta luzaketa batzuk egin ditugu. Saioak une hau probestu du esateko “Emakumea Pilotari eguna azkenean maiatzaren 26an izango, Tolosan, Uzturpen”. Emakumeek baietz esan dute eta Malenek “nik ez daukat jai, baina, saiatuko naiz lankideren batekin aldatzen” adierazi du. Oraingoan ere ez dugu hitz egiteko aukera desaprobatu, besteak beste lehengo gaiaren inguruan, entrenatzaileak eta zenbaitetan haurren bikoteak osatzeko izaten dituzten irizpideak, eta zenbaiten dena eta edozein unetan zein edozein prezioan irabazi beharra mintzagai bihurtuz. Nik “ni iritzi ezberdinekoa naiz, niretzat garrantzitsuena parte hartzea da, aukera izatea eta haur horrek etorkizunean ere jarraitzeko gogoia izan dezan saiatzea, ez haurretan Gipuzkoako txapeldunak ateratzea”. Gemmak esan du “nire semea pilota eskolan dabil eta bikoteak osatzerakoan beti berdina jartzen dituzte batera, denei aukerarik eman gabe” adierazi du. Beraz, badirudi kasu honetan gure iritzia nahiko bat datozela. Hernaniko elkartekoek zenbaitetan izan dituzten joera eta hainbat pilotarik gazte mailan osaturiko bikote ia beti berdinen inguruan aritu gara Saioa eta biok, adibidez batzuk ahotara ekarriz. Ainara une batean deseroso ote dagoen iruditu zait eta ildo honi tiraka ez jarraitzea erabaki dut, berak paleta hartzera hurbildu bitartean “horixe da ba datorkiguna” esan duelako.


Beraz, lehenengoak paletak hartzeko keinua egin duenez besteok ere hari jarraituz Saioak banaturiko paleta eta pilotak jaso eta beroketako azken atalari hasiera eman diogu. Saioak bikoteak ondoren jokatu beharreko banakako partiden arabera osatzea erabaki du: Irati eta Ainara, Gemma eta Malen, Miren eta Ines eta Zuriñe eta ni. Frontisetik hasi eta errebotera bitartean kokatu gara, Zuriñe eta biok Lujanbiotarren eta Malen eta Gemmaren tartean jarrita. Zuriñeri alabaz galdetu diot, Jone ez delako etorri gaur eta “oinean min hartua dago, zaintiratu batekin. Hernaniko Olinpiadetako proban min hartu zuen eta lasai hartzeko esan diote, nahiz eta lesio handirik ez duen”. Nik “bai, horiek ondo sendatzea komeni izaten da” erantsi diot eta pilotakadak elkartrukatzen jarraitu dugu, ezkerrez zein eskuinez. Gure bi alboetara ere antzera dabilta, nahiz eta akaso hiztunago aritu Miren eta Ines. Zortziok pilotakada trukean dihardugun bitartean Saioa aurrean kantxa estutzeko marra jarritz eta atzean bi gurutzetxo markatzen hasi da, ondorengo saioa ariketetan erabiltzeko, ziur asko.

Boladatxo bat eman dugu ezker hormaren aurka binakako piloteoan (B.K. Luzetxo ere jo dit niri amaierarako) eta 10ak jota direnean denok batu gara kantzaren erdi parean, entrenatzaileak deituta, saioari nola ekingo diogun eta zer egin behar dugun entzuteko.

Ariketak


Azken asteetako saioen ia bera izango da gaurkoa ere. Izan ere, aurreko eremuan bat baten aurkako partidak egingo dituzte, erdian piloteoan arituko dira ondoren aurrean banaka arituko direnak eta atzean bikotekako partidak, baldintza bat gehituta. Lehen buruz buruko partidak nola jokatuko dituzten erabaki eta horren arabera kokapenak hartu ditugu kantxan guk.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 1:1 piloteoa.

3. Atzeko gunean 2:2 partida. Atzean eta aurrean jarririko gurutzeta zapaldu behar da, bietako bat, pilota jotako bakoitzean.



1. txandako kokapenak hauek izan dira: aurrean Miren eta Ines, erdian Malen eta Gemma eta atzean Irati-Ainara eta Zuriñe-ni.

“Nik hauekin jolastu dut” esan dio Iratik Saioari honek banakako partidetarako bikoteak osatzeari ekin dionean txandan hasi aurretik. Hori ikusita “otsoak bagina lez” bota diot nik Ainarari aldamenetik eta irribarre egin du berak (B.K. Egia esan, zenbaitek jokatzen hasi aurretik beldur edo “errespetu” mota hori azaltzen jarraitzen du nirekiko oraindik kasu batzuetan. Niri ez zait gustatzen, baina, dagoeneko ohituta nago eta kontuari garrantzirik ez diot ematen, broma girora txertatzen saiatzeko ez bada).

Atzean jokatzen hasi garenean ohi baino huts apur batzuk gehiago egin ditu Zuriñek eta “a zer astelehena daukadan” bat irten zaion barrutik. Nik horren harira galdetu diot ea ba ote dakien iragan astean inor etorri ote zen eta ez duela uste esan dit, alaba eta bera ezetz eta hura min hartuta dagoenez asteazkenean ere ez ziola inori deitu paletan aritzeko. Partidan zehar Irati eta Ainarak guk baino hobeto hartu dute elkar, beste erritmo bat ematen diote pilotari Zuriñerekin alderatuz gero, gainera, nahiz eta nik asmatu dudan aurreko gurutzeta zapalduz aurkariak desorekatzea kasu bat baino gehiagotan, horma bikoa bota edo atzean ezkerrean utziz pilota. Horietako batean Iratik

“ea zer egiten didan honek” esan du, nik irri txiki bat egin eta aurkariak nola behartu pentsatzen nuen bitartean pilota jo aurretik. Ainarak jokoko une batean “nola nabari den sendatu dela” esan dio Iratiri eta honek “jo, baietz!” erantzun dio. Nik “bazen garaia!” esan diot eta berak “bai, bai” esanez itxitzat eman du gai hori.

Aurreko partida amaitu dutenean lehenengo errotazioaren garaia heldu da eta entrenatzailea hurbildu da atzera hurrengo kokapenak zehazteko.

2. txandan, beraz, Malen eta Gemma hasi dira buruz buru nor baino nor aurrean, erdian Irati eta Ainara eta atzean Miren-Ines eta Zuriñe-ni binaka gurutzeak zapalduz pilota jotako bakoitzeko.

Kasu honetan ere gure joko eremuan jarri dut arretarik gehien, tarteka albora zein aurreko guneetara begiratzen saiatu naizen arren, ea zerbaitek arreta deitzen ote zidan konprobatu nahian. Atzeko partidari hasi aurretik egin beharrekoa zer den agertu diegu Miren eta Inesi eta horren ondoren Ines eta Zuriñe atzelari eta Miren eta biok aurrelari jarrita ekin diogu jardunari. Aurretik jakin dut euren arteko partida nola amaitu den, “irabazi egin zidan” esan baitit Mirenek, estutasun handiegirik gabe.

Ni lasai aritu naiz oso eta tarteka aurkariak mugiarazi ondoren sorturiko hutsuneak probesten ere bai. Tanto batean Miren eta Ines dantzan jarri ondoren bi paretak egin eta tantoa lortu dut, barrez jarriz bai Ines eta baita Miren ere. Gaiztoa naizela esan dit lehenak, eta hortik zehar kontatuz joango dela nolakoa naizen, beroketan izandako elkarrizketa baten harira. Nik “bale, segi eta ikusiko duzu nola famatuko nauten” esan diot irria ezpainetan. Hizketan ari garela ikusita Iratik albotik “zer egin diezu?” galdetu dit eta nik “bi pareta” erantzun diot. Partida osoan zehar izan dut nik antzeko joa eta umorea eta eurek ere ongi pasatu dute, tarteka pilotakaden bidez nik egindako kilimak sentitu dituzten arren.

Aurreko partida ez da gehiegi luzatu eta berriro ere leku aldatzeetarako unea heldu zaigu. Hori egin bitartean Gemma eta Malenek kontrakantxara gerturatu eta ur botilak eskuan trago pare bat jo dituzte amaitu berri duten partidaren ondoren errekuuperatu asmotan.

3. txandan honela aritu gara: aurrean banaka Malen eta Zuriñe, erdian berriro ere Irati eta Ainara piloteoan, lehengo postua errepikatuz, eta atzean, Ines-Miren eta Gemma-ni. Ia ez gara lekuz aldatu, Zuriñe eta Gemma baino ez dira izan kokapen berrian aritu direnak.

Atzeko laurok mingainak dantzatzen aritu gara, paletak eta pilota eskuetan, eta ez dugu pilotakada bakar bat ere jo aurreko partidak iraun duen bitartean. Besteak beste Tilosetako Txapelketa izan dugu hizpide, gomazko trinkoarekin zenbait taldekide jokatzeko ari direna. Batzuk euren kabuz joaten omen dira entrenatzera eta bakarren batek zerbait esan diela esan du Inesek. Hala ere, “niri kanpokoek zer esaten duten ez zait inporta” bota du Mirenek eta Gemmak ere bera iritzi berekoa dela adierazi du. Finalerdiak aste honetan erabakiko direla esan didate hurrena eta Gemma-Ainara, Maddi-Miren-Malen eta Juaristi-Zabala bikoteak sailkatuta daudela dagoeneko. Biharko partidaren ondoren ezagutuko omen da nor den laugarren sailkatua. Saiotako banakako partidaren gainean ere esan dute zer edo zer, Gemmak “niri motza geratzen zait 8ra, berotzen hasten naizenerako amaitu egiten delako” azpimarratuz. Horrekin batera

“badakit ezin ditugula tanto gehiagora jokatu, asko gaudelako eta bestela ez ginatekeelako denok arituko” esan du (B.K. Nik uste lehen aldia dela norbait banakako partida gehiago edo luzeagoak jokatzeko gogoz geratu dela entzuten dudana).

Erdian piloteoa eta solasaldia uztartu dituzte Ainarak eta Iratik eta aurrean Malenek ez du denbora asko behar izan garaipena eskuratzeko. Hala ere, erdi inguruan Saioak “gehiegi ez berotu” esan digu guri, aurrealdetik zertan ari garen ohartu eta kontu eske hasita, baina, guk gurean jarraitu dugu, hitzari hitza lotuz, aurreko partida amaitu den arte, egia esan.

4. txandan Ainara eta Irati aritu dira aurrean, Gemma eta Miren erdian eta Zuriñe-Malen eta Ines-ni atzean. Malen lehenengoz dago gune honetan saioa hasi dugunetik eta gurutzak zapaltzearena azaldu ostean prest gaude hasteko.

Hasi aurretik hizketalditxo bat izan dugu elkarrekin nik eta Inesek. Berak txapelketak jokatzeko gogorik ez duela esan dit, ondo dabilela osasunez, inongo minik ez duela, eta agian ahizparekin kiroldegikoan parte hartuko duela, baina, gainerakoan ezetz, nahikoa duela saioetakoarekin.

Inesek berak joan beharra daukala esan du ondoren, erdi larrituta 10.45 direla ikustean, “alabak lanera joan beharko du” erantsiz, datorren astean jokatu duela aste honetako partida, baina, aldaketa egitean Saioari esan eta ordena aldatu die banakako partidei, Irati eta Ines frontiseko eremura bidali eta lehenengoak berriro ere erdiko gunean mantenduz.

5. txandari era honetan eman diogu hasiera: Irati-Ines aurrean, Gemma eta Miren erdian eta Malen-Zuriñe eta Ainara-ni atzean.

Hasi eta bigarren tantoa lortu dudanean “ai, ahaztu egin zait pentsatzen duen batekin ari naizela jokatzeko” bota du Zuriñek niri begira, umoretsu. Hurrengo tantoa, berriz, Ainarak egin du eta “bat ez bada bestea” irten zaio Maleni. Ainara bata bestearen atzetik tantoak lortzen ari da, nik ere lortu ditut bakan batzuk tartean, eta “aste honetan ez daukazue partidarik, ala?” galdetu diot nik irribarrez aldamentetik, “zeren, bestela, aurkari gaixoa” gehitu dut ondoren. Lasai, nahi bezala gabiltza gu, tarteka besteak dantzan jarritz. “Hemen erabaki egin behar da, penalti bat bezalakoa da, batera edo bestera” bota du Malenek.

Gu atzean hizketan ere aritu gara behin baino gehiagotan Malen, Ainara eta hirurok tantoetan zehar ere, eta erdiko gunean ere lasai ari dira pilota kolpeak eta hitzak trukatzeko Gemma eta Miren. Aurreko gunera begiratu dudanean Ines eta Irati elkarri batere barkatu gabe ari direla iruditu zait, aurkaria mugiarazteko ahalegin betean, eta tantoak dezente orekatu eta pilotatuak direla.

Aurreko bosgarren partida amaitu denean Inesek bere trasteak hartu eta alde egin du frontoetik, gaixo duen bilobaren zaintza lanetara. Beraz, zazpikotea geratu gara saioaren azken minutuetan. Hala ere, dinamika ez da gehiegi aldatu.

6. txandan halaxe hasi gara: Gemma eta Miren aurrean, Ainara eta ni erdian eta Malen bakarrik Zuriñe-Irati bikotearen aurka atzean.

Ainara eta biok piloteo lasaian aritu gara erdian, Emakumea Pilotari egunaz bi hitz eta Tilosetako txapelketako finalerdiez batzuk gehiago eginez. Ekainaren 5ean eta 7an izango omen dira, astearte eta ostegunez. Berak uste omen du Malenen-eta aurka tokatuko zaiela, eurak multzo buru eta besteak bigarren postuan sailkatu direlako euren taldean. Nik esan diot “beno, esango didazue noiz duzuen, ahal badut buelta bat emateko”. Hori entzutean “Malenek 7an jai dauka eta antolatzaileari abisua pasa zion, beraz, pentsatzen dut gurea 7an izango dela” esan dit.

10.58 dira nire erlojuan, amaiera ordu ofiziala ganean dugu, eta Saioak “Ainara eta Uxue aurrera” esanez dei egin digu. Ordulariari begiratu eta “orain konturatu naiz hormako erlojua atzeratuta dagoela” esan digu. Ni ere ohartu gabea nintzen, baina, bai, bospasei minutuko aldea badu.

7. txandan Ainarak eta biok elkarren aurka jokatu behar dugu banakako partida, beraz, nahiz eta nahi badu guri besteek jokatzera ere berdin zaigula adierazi diogun. Beste emakumeak kontrakantxan bildu dira eta batzuk luzaketak egiten hasita eta besteak lurrean eserita ikusle lanetan geratu dira. Saioak umorea lagun du, nonbait, eta aurkezpena eta zozketa egin ditu, ofizial itxura emanez. Zenbat tantora jokatu behar dugun erabakitzeko “4 tantora” bota du eta aldamenetik bakarren batek “6ra bai” esan ondoren hala jakinarazi digu, “6ra”. Adarra jotzeko asmoz eta umorez bat baino gehiago dabilta eta “22ra, ezta?” esan digu Gemmak, adibidez. Ainarak sakea atera aurretik “30 edo 40ra” erantzun dio.

Partidan lasai samar aritu naiz ni, pilota ezker hormara dezente baztertuz, kidearen joko moldea ederki ezagutzen baitut. Horrekin nahiko azkar ohartu da Ainara bera eta “Nik ezkerrez jotzen ikasiko dut” esan dit bigarren tantoaren ondoren. Nik “zure hobe beharrez ari naiz, finalerdian pentsatuz” erantzun diot eskuan pilota eta ahoan irribarrea ditudala. Tarteka korrikaldi bat edo beste egitera behartu nauen arren, aurkaria mugiaraziz aritu naiz batez ere, nahiko serio eta barkatzeko asmo handiegirik gabe. Gainerako kideak alboan adi-adi jarri eta “aupa, Ainara” animatuz aritu dira une batean eta izan da adarra jotzeko asmoz “aupa, Saioa” bota duenik ere. Egia esan, saio osoa darama leku berean entrenatzaileak gauza bera eginez, markagailuko tantoak kontatu eta epaile lanak bete. Markagailuan aldea lortu dut hasieratik nik, ia ohartzeko 4-0 jarriz. Ondoren, 1-4, 2-4 (dudakoa izan da horma bikoa, Saioari ona iruditu zaio, baina, niri txarra eta pilota eman diot Ainarari. Berak ere txarra iruditu zaiola bota du, gainera), 5-2, 5-3 (txalo jo, azken tantoa da) eta 6-3 izan dira markagailuko gorabeherak. Hortxe eman dugu bukatutzat gaurko zati nagusia. Ni Ainararengana hurbildu naiz eta bostekoa luzatu diot, umorez.

Gaurko saioko paleta eta pilota hotsak amaituta 11.05 pasatxo dira eta kontrakantxara joanda luzaketak egiten eta hizketan hasi gara. Beno, aurretik ere halatsu zebiltzan besteak, egia esan. Saioak “bi partida bakarrik falta dira datorren astean, Irati-Jone eta Irati-Gemma” esan du eta “joe, lanpetuta zaude” esan diote kideek irribarrez Iratiri.

Ia ohartzeko Mirenek alde egin du, Zuriñek ere une horretan hartu du kanporanzko bidea eta Iratik ere bai, nahiko azkar. Beste bostok patxada apur bat gehiagorekin geratu gara, nik luzaketa pare bat egiteko aprobetxatu dut bitartean, nahiz eta trasteak bildu eta gu ere kanpora bidean jarri garen minutu gutxiren buruan. Eskolarteko paletako finalaz eta lizentziarako beharrezkoa den zigiluaz apur bat hitz egin dugu, besteak beste, Ainararen alaba delako jokatu dutenetako bat.

Kiroldegiko sarrera

Aldageletan Ainara agurtu ostean Gemma, Malen, Saioa eta laurok kanpora goaz, azken eskailerak igoz. “Datorren astera arte” eta “aste ona pasa” tankerakoekin agurtu ditut kideak, nahiz eta azkenean Saioak kotxerako bidea hartu duenean “bihar arte” esanez Malenekin egin dudan kultur etxeko atarira arteko bidea. Berak esan dit “ba al dakizu faszitis batekin nabilela?” eta “ez, ez nekien” erantzun diot, ezusteko apur batekin. Soluzioa geldi egotea dela esan omen diote, baina, ez omen dio paletan jarduteari utziko, “bajarik ere ez zidala eman esan nion medikuari” erantsiz. Nik zaintzeko esan diot, niri luze jo zidatela bi hilabetek, baina, orain osatua nagoela. Berak laster esan dit “nik nabari dut oina ez daukadala erabat ondo eta agian urtebete inguru izango da”. Ondoren elkar agurtzen hasi gara, berak “erosketa batzuk egin eta txikienaren bila joan behar dut gero” eta “ea nik liburutegian lan apur bat egin eta etxerako bidea hartzen dudan” esanez bata besteari, motxila bizkarrean eta jertsea gerrian dakarzkidala. Elkar datorren astera arte agurtu eta norbere bidea hartu dugu.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioa ere ondo joan da, emakumeak ere gustura ikusi ditut saltsan eta asteleheneroko hitzorduak gorputza hartu duela esango nuke. Ahal izanez gero, eta pisu handiko arrazoirik ezean (bestelako ardurak: haurrak, helduak,...), gehienak bertaratzen dira. Bai astez aste etorri ohi direnak behintzat, tartean gehiago azaldu ez denen bat izan bada ere.

Gaur oker entzun ez badut banakako partidak amaitzeko bi baino ez direla geratzen ulertu dut. Ea hala den. Nik badaukat gogoan bestelako saioak egiteko, horretan igaro ditugulako/dituztelako azken asteak eta errepikakor eta astun samarra bihurtu zait dinamika hori hein batean. Ea partidarik gabeko saioek aurrekoen tankera duten edo ez diren hainbeste bideratzen espazio helburu edo kolpe motetara eta gehiago aisialdi edo ondo pasatzera. Ez daude kontrajarrita bi horiek, baina, uste dut bigarren multzo horretako ariketak, asko pentsatu beharrik gabekoak, nahiago dituztela eta entretenigarriago zaizkiela kideei. Nik bietakoak izaten ditut gustuko, egia esan.

Asteko lehena eta bi astean berriro ere saioa izan dudana eguna izan bada ere gaurkoa, burua nahiko martxan darabilt eta umore piperturik ez daukat, momentuz bederen. Eskerrak, bestela a zer harria! Ea asteak itxura honekin jarraitzen duen, nire esku baitago hein handi batean!

Hego haizea

Bi asteren ondoren, aurreko asteko jaieguna medio, berriro ere Zizurkilera abiatzeko eguna heldu zait, asteartea. Astea lanean nahiko txukun eta arretatsu daramat orain arte, banuen garaia egia esan, eta ea bi egun hauetakoa gainerakoetara hedatzeko gaitasunik badudan, besoak gurutzatuta egoteko garaia ez baitira oraingo hauek. Edo ez lukete behar, behintzat.

Eguraldia udaberri/udakoa da gaur, sargoria, trumoiak eta ekaitza tenperatura altu eta eguzkitsuarekin nahasian dabilta, eta ni nahiko erretxinduta nabil arratsaldean bizikletarako ordubete atera eta ordu laurdenerako txingor jasa baten erruz etxera itzuli

beharra izan ondoren. Azkenean, ez korrika, ez bizikleta eta ez artikulu irakurketa geratu naiz tarte horretan. Hau marka! Beraz, saiora ohi baino sutuago abiatu naiz, deskarga elektrikoak pilotalekuan sortu asmoz. Hala ere, ikusiko dugu ea zer tankera duen gaurko paletako jardunak.

Ohi bezala, N-1ean barrena egin dut bidaiak, zazpiak jotzerako bolantean jarrita abiatu ondoren. Beraz, presa handiegirik gabe iritsi naiz gaurko hitzordura, erlojuko orratzen abiadura eta kokapenaz batere arduratu beharrik gabe.

Pilotaleku ataria

19.25erako iritsi eta kotxea aparkatu ondoren ohartu naiz Saioa dagoeneko iritsia dela, kotxetik irtetear baitago, trasteak soinean hartuta. Gainera, kotxearekin aparkatzeko maniobrak egiten ari nintzela Gurutze pasa zait aldamenetik, hau ere lau gurgipen gainean, etxera joan, aldatu eta saiora agertzeko pronto.

Autotik jertsea eta poltsa eskuetan hartuta irten naiz eta “arratsalde on” batekin elkarri kasu egin ostean entrenatzailearekin pilotaleku atarian elkartu naiz. Frontoiko kristalean maiatzaren 26ko rally bateko kartela dago itsatsita (berez bertan ezer ere ez itsasteko dion orri bat ere bada, baina) eta hari begira aritu naiz Saioak motxila hartu bitartean. Ondoren, harmailetak azken ilaran utzi ditu trasteak eta hitz egiteari ekin diogu. Orduan ohartu naiz bi gizonetako ari direla frontenisean jokatzeko pilotalekuan. Berak “19.30ean saioa daukagula abisatu diet lehen” esan dit, beste bizpahiru gizon ere sartu direlako gure aurretik eskailetan behera frontoira, jokatzeko ari direnei “zenbat zoazte?” galdetzen dieten bitartean. Elkarrekin hizketan hasi gara, nik “gaur eguraldiarekin haserre nator, bizikletako entrenamendua izorratu dit ekaitzak eta bueltan nintzela berriro eguzkia atera zait” botaz eta berak “hemen euria egin du, baina, trumoiak ez du jo” esan dit. Ondoren “bizikletan ibiltzen zaretenak zergatik zarete hain masokistak? Udan asko ikusten ditut arropa luzea jantzita” esan dit eta nik “ni hozbera naiz eta aurten orain arte bizpahiru aldiz soilik jantziko nituen kulot motzak, baina, gaur udan bezala irten naiz, maillota ere besamotza nuen” esan diot. “Gauza bat da goizeko 10etan 11°Cekin irtetean dagoen giroa, haizea ere fina izaten da askotan, eta beste bat 14.20an 87km eginda itzultzean egoten dena zenbaitetan, niri aurrekoan gertatu bezala. Orduan hartutako berotuaren eraginez dena izaten duzu soberan” esan diot irri txiki bat ezpainenetan. Hizketaldian ari garela hirugarren kide bat ere heldu da: Itsaso. Honek ere frontoi aurrean aparkatu du kotxea, beste bion antzera. Gugana hurbildu eta hizketa-gaia zein den entzutean niri begiratu eta “arraroa da zu besamotzetan ikustea” esan dit eta nik “gaur bero dago, sargori” esanez erantzun diot.

Laugarren kide bat ere berehala hurreratu da, hau kaleko arropa jantzita. Eli da, orain hiru asteko saioa min hartuta utzi zuenetik elkar ikusi gabeak ginen, eta “zer moduz?” galderari “gaizki, min hartuta nago, zuntz haustura bat daukadala esan didate” kontatu digu. “Aurreko astean txakurra paseatzen ari nintzela berriro eman zidan, erdi mareatuta ere geratu nintzen, eta orain zintak dauzkat jarrita” esan digu ondoren. Hausturarena entzutean denoi goibeldu zaigu apur bat aurpegia eta nik “ba, orain behintzat hartu behar duzun denbora ondo osatzeko” esan diot, bakarren batek “hara zein ari den hitz egiten” erantsiz ondoren. Aspaldi egon gabeak gara eta esan dit aurrekoan telebistan ikusi zuela Soriako laburpena eta ea zer moduz ibili ginen. Nik “ondo ibili ginen, ez genuen erridikulurik egin” erantzun diot eta “asteburu honetan Bilboko duatloian irtengo naiz” esan diot. Hori entzutean entrenatzailea futbolarekin oroitu da eta “beno,

bihar Athleticek irabazten badu larunbatean dena bere lekuan egongo da” esan dit, irribarrez (B.K. Ni ez nintzen Europako Ligako finalaz gogoratzen, asko axola ez zaidalako, baina, hark gogorarazi digu bihar dutela partida Athleticek eta Athleticok. Egia esan, ematen ari diren latarekin pasa dadin deseatzten nago, ez besterik, bidegabea iruditzen zaidalako hedabideetan honekiko duten jarrera eta egunero horrekin xahutzen dituzten minutu eta orrialde kopurua).

Desbideratze txiki horren ondoren kontatu diet aurreko igandean bizikletan irten nintzela eta Saioa ikusi nuela Larraitzen bertan. Honek hitza hartuz kontatu du “Ni goiko Bidegorritik oinez Abaltzisketa aldera nindoala neskak ikusi nituen taldean bizikletan, normalean bikotearekin eta talde handi batean txertatuta ikusten dira, eta pentsatu nuen agian hor ibiliko zela eta hantxe zihoan”. Gai horren gainean hizketan hasi eta jakin dugu maiatzaren 1ean elkarrekin topo egin zutela Larraitzen bertan Itsasok eta Saioak ere, larreen irekieraren harira egiten den egun pasan. Bizikletako jardunari segituz “bai, ahal dela asteburuan irteten gara” kontatu diet nik berriro ere lehengora itzuliz eta Elik esan du bere gizona aspaldian gutxi dabilela, baina, aurreko batean neskaren batekin batera atera zela eta hankak gogortuta itzuli zela etxera, gustura ibili bazen ere. Horren harira nik esan diet “izugarria da gizon batzuk nola pikatzen diren neskek pasaz gero. Guri hori pasa zitzaigun aurrekoan batekin, Legorreta parean pasatu gintuen, baina, tarterik ezin zigun atera eta Alegian berriro ere pasa genuen guk. Batzuk beldurgarria da neskak pasaz gero nola jartzen diren” esan eta niri gertatutako anekdota pare bat kontatu ditut, nola atzeko gurpilari itsatsi eta azkenean lehertuta geratu izan diren pare bat gizonezko ni tematuta. Bat etorri dira zenbait gizonek emakumeek zerbaitetan aurrea hartuz gero agertzen duten jarreraren gainean emandako iritziarekin.

Hizketan honetaz eta hartaz ari gara, patxada ederrean borobilean jarrita, eta eskumuturrera begiratuta 19.50 direla ikusi dut nire ordularian. Hala ere, ez dirudi inork mugitzeko presarik dugunik. Elik galdetu du ea Emakumea Pilotari Eguna non den, “gertu bada bazkaltzera joango naiz, baina, nik ez dakit palara berriz etorriko naizen, denbora emango didan sendatzeko. Ikusiko dugu” esanez amaitu du. Saioak “maiatzaren 26koa azkenean Tolosan izango da, Uzturpen” jakinarazi digu eta azkenean, ia zortziak ditugu ezertan hasterako, ordu erdi inguru hitz eta pitz eman ondoren, halako batean jarri gara eskaileretan behera kantxarako bidean. Gurutze, Saioa, Itsaso eta laurok gaude momentuz saiorako.

Pilotalekua

Eskailerak jaitsi eta kantxara iristeko azken saltotxo eman ondoren bertan oraindik ere jokutzen ari dira frontenisean. Bost gizonezko dira, bi frontenisean eta besteak aldamenetik begira daudenak. Itsasok “hauek asteasuarrak dira” esan digu aurrez eta ikustera “zenbat zoazte?” galdetuz agertu direnak ikusita “hauek apusturen bat edukiko dute” esan du entrenatzaileak. Kantxara iritsi garela ikusi dutenean kantxatik kontrakantxarako bidea hartu dute bi jokalariek, lagunekin hizketan hasiz.

Beroketa

Guk trasteak harmailetan utzi ditugu eta Gurutzek beste ezer esaten hasterako erdi erreguka “gaur, mesedez, korrika ez dugu egingo, hauek hemen daudela. Bestela egiten dut egin behar delako, baina, gaur...” bota du entrenatzaileari begira. Beste hirurok irribarre zabal bana egin dugu lehendabizi, baina, horrez gain, Saioak “zuk gero ikasleei

gauzak ondo egiteko esango diezu” erantzun dio, “hau da irakaslea” erantsiz. Ezohikoa dela egoera esan du berriz ere kideak eta nik “ea Saioa nola konbentzitzen duzun” bota diot aldamenetik. “Zer, lotsa ematen al dizu?” bota dio Saioak jarraian eta Itsasok, berriz, “hala etortzen dira ondoren lesioak”. Egoera ikusita entrenatzaileak erabaki du korrikarik ez dugula egingo gaurko berotzeko saioan eta “beno, behintzat mugimenduak egin” esan dio ni orkatilak biratzen hasi naizela ikustean. Nik “norbera izaten da bere laneko betebeharrak betetzea berari dagokionean okerreana” esan dut hori ikusita. Gurutzeri “lanean autoritatea izango duzu” esan diot eta “han ere ez, pentsa!” erantzun dit berak irribarrez.

Heziketa Fisikoko saioak eta irakasleak hizpide nagusi hartuta aritu gara beste puska batean hitz eta pitz, “ni erridikulu bat baino gehiago egindakoa naiz” esan baitu ikasleekin egun berezietan euren aurkako futbol partidak jokatu izan dituztela azalduz, edo eskubaloian arituz, “eta nik arrastorik ere ez eta ni txarra, baina, nire lankide batzuk are txarragoak”. Kontu kontari ari garela laugarren kidea ere iritsi da, Onintza. Arratsalde onak eman dizkiogu elkarri eta “Eli min hartuta dago” eta “Pili katarroarekin zebilen” esan du beste inor ez dela etorri ikustean. “Bai, Eli lehen bisitan etorri da” jakinarazi diogu eta hau ere hasi da hizketaldian parte hartzen. “Ni beti ibili naiz eskolan emakumeekin bakarrik eta gu briletean aritzen ginen ia beti jolas orduetan” azaldu du. Gurutzek une hau aprobetxatu du esateko “larunbatetan arratsaldeko hiruretan jokatzeko genituen guk brileteko partidak ikastetxean, urnietarren edo hernaniarren aurka eta nik joan nahi izaten nuen. Hala ere, askotan aita 14.30ean etortzen zen etxera eta amak ‘aitaren platerak jaso arte ez daukazu joaterik’ esaten zidan. Zenbatetan geratu ote nintzen ni partidura joan gabe horregatik! Nik esaten nien anaia joaten zela eta ni zergatik ez, baina, ez neukan beste aukerarik”. Ildo horretan Onintzak “joe, aitaren platerak garrantzitsuak ziren” bota du nostalgia puntu batekin. “Hauek beste garai batekoak dira” erantsi du Gurutzek ondoren. Itsasok eta Saioak, berriz, Tolosara ikastera jaitsitakoan irakasle bera izan omen zuten eta oso gogorra omen zen, “korrika edukitzen gintuen 20 minutuan eta erdi mareatuta bukatu izan nuen nik” edo “kilometro bat korrika lehertuta amaitu eta ondoren etzateko amorratzen geundenean ez zigun uzten, luzaketak egin behar omen genituen, itotzear geundela” esan dute, besteak beste. Gurutzek, berriz, berak OHOTik aurrera oso gutxitan jardun zuela soinketako saioetan, “nik asma neukan eta astakeriak egitetik libratzen nintzen amak idatzitako oharren bidez” bota du. Nik aitortu diet “ni abila nintzen eta zortekoa, mutilen taldean aritzen nintzelako taldeak banatzean, nahiz eta gelakide batzuk gaizki pasatzen ikusia naizen irakasle baten jarrera medio”. Hortik egin ohi genituen ariketa eta jarduera batzuk ekarri ditugu gogora, musikarekin egindako koreografiak edo plintoa pasa beharra, besteak beste. Aho batez ondorioztatu dugu pedagogikoki ez zirela oso onak irakasle batzuk, nahiz eta hori arlo guztietan pasa ohi den.

Laukotea gaude jada eta minutuak aurrera doazenez piloten poltsa eta paleta pare bat eskuetan hartu eta Saioak beroketarekin amaitzeko binaka/binaka ezker hormaren aurka jartzeko esan digu. Hiru pilota banatu ditu, niri izan ezik beste hirurei bana eman die, eta “nola jarri behar dugu, binaka ala binaka?” galdetu diogu pilotena ikusita. Itsaso bere kabuz hasi da piloteatzen erreboten inguruan eta Gurutze eta Onintzaren artean kokatu naiz ni hasiera batean biek botatako pilotak joz. Hori ezinezkoa zela ikusita, ordea, Onintzak bere kabuz jarraitzea erabaki du eta Gurutze eta biok binaka jarri gara piloteatzen. Gurutzerekin jarri naizenean, Saioa ere inguruan dabil, kontrakantxatik begira, eta ikasturtea amaitzeko falta diren saioak kontatzen aritu naizela eta ez direla asko geratzen esan diet nik, “ekainaren 19an, San Joanen aurretik amaitu behar al

dugu?” galdetu baitio aurrez entrenatzaileari kideak. Zehazki astez aste falta direnak zenbat diren kontatzen aritu gara eta “gaurkoa aintzat hartu gabe sei geratuko zaizkigu” ondorioztatu dugu. Entrenatzailea gure inguruan dabil eta “nik ziur batera gutxienez kale egingo dudala” esan dio Gurutzek bide batez. Horren harira azterketa garaia dela oroitu naiz eta selektibitatearen gainean ea berari eragiten ote dion galdetu diot kideari eta “bai, larrituta gabiltza horrekin, ikasle askok medikuntza egin nahi dute eta ez die notak ematen” erantzun dit. Azterketak egiten orain ari direla esan du ondoren, bezperan ere iluntzean azterketa bat prestatzen aritu zela esanez.


Beste laurok piloteatzen aritu garen bitartean Saioak argiak pizteko eta kantxan aurrealdean eta erdi parean luzetara marra bat egiteko aprobetxatu du. Hori amaitu eta nahiko azkar berriro ere laurok elkartu gara kantxaren erdi inguruan, entrenatzaileak esan behar digunari kasu egiteko adi-adi. “Banakako partidak bukatuta al daude hemen?” galdetu dut nik une horretan eta entrenatzaileak “ez, baina, gutxi falta dira eta ez dago presarik” erantzun dit. Ondoren esan digu “Hernanin ia datorren astean amaituko ditut, Tolosan hiru eremutan ari naiz eta oraindik ez ditut bukatu” eta partiden harira nola dabilen adierazi digu entrenatzaileak. Orduan Gurutzeri halaxe atera zaio Tolosakoen berri jakitean “lehiakorrek dira”, eta “ez al zarete denok, gehiago edo gutxiago?” bota dut nik, informazioa atera asmoz. Entrenatzaileak hartu du hitza beste inork baino lehen, “hemen? Hemen ez. Ni etorri nintzen lehen egunean jotzera mugatzen ziren”, baina, nik ziria sartzen jarraitu dut eta partidetan ez al diren serioago aritzen galdetuta “beno, agian pixka bat bai” erantzun dit Gurutzek (B.K. Argi daukat nik ere mailak daudela eta hauek ez daudela lehiakortasunaren puntaren puntan, baina, jarrera ezberdina sumatzen zaie emakumeei oro har partida “ofizialetatik” bestelako ariketa eta jardunera. Niri hala iruditu zait azken asteotan, nahiko nabarmen, gainera).

Ariketak

Gaurko saioa, lau kide bakarrik gaudenez, ez da ohiko egiturakoa izango, ez baitago kantxaren eskuinaldean banakako partidetarako marrarik ezarrita. Marra bakarra da Saioak egina eta kantxaren erdi-erdian dago. Ariketa azaltzeko pronto jarri garenean Gurutzek Onintzari begiratu eta “nekatuta al zaude?” galdetu dio. Besteak “ez naiz geratu egun osoan!” erantzun dio lehendabizi eta gero azaldu digu “Madrilen ezkontza bat izan nuen, atzo semerik zaharrenarekin ospitaleko buelta eman genuen, jolasean ari zela erori eta mugitu ezinda geratu zelako, baina, eskerrak, ez dauka ezer”. Hori entzutean “pentsatzen nuen nik gauza bakarragatik ez zela izango” erantsi du kideak eta mingainari horzka eginda saioko atal nagusiari ekiteko prest gaudela dirudi.

Ariketa aurkezten hasi denean “aspaldi da halako ariketarik egin ez dugula” esan du lehendabizi entrenatzaileak (B.K. Ni ez naiz gogoratzen noiz izango zen azken aldia, baina, hilabetetik gora ziur joan dela, banakako partidek saioak jaten dituztelako neurri batean).

1. 2:2 partida. Pilotak ezin du bi aldiz jarraian eremu berean botea egin, bestela txarra izango da. 12 tantora.



“Nik gaur goizean egin dut eta polita da” esan du Saioak ariketa aurkeztu digunean. Eremuak ongi ikusten eta bereizten ote ditugun ere galdetu digu entrenatzaileak, marraz betea jarraitzen duelako pilotalekuko zoruak (B. K. Astero marra berriak izaten ditugu, gainera, badirudi jartzen dituztenek eta dutela kentzeko beharrik ikusten. Hau da itxura duena lurrak!). Askok gustatu zait Itsasok bat-batean eman dion erantzuna, “hor hamabi ere ikusten dira” esanez. Hala ere, gure ariketarako 1,5 eta 3ko marraz nabari dira luzetara eta erdikoa ere nahikoa garbi bereiz liteke, “bai, bai, badakigu zein diren” esan diogu, beraz. Ondoren azaltzen jarraitu du, “12ra iristean atzekoak aurrera eta aurrekoak atzera pasako zarete” eta hori entzutean niri zalantza sortu zait, “banaka ala binaka jardun behar dugu?” galdetuz. Itsasok ere zalantza bera agertu du eta “ez, ez, binaka” erantzun digu Saioak eta horren ondoren “postuak aldatuko dituzue, atzelari dagoena aurrelari eta alderantziz jarritz” esanez argitu du gure duda.

Azalpen guztiak eman ondoren partidari ekiteko bikoteka nola arituko garen jakitea falta zaigu eta Saioak “orain bikoteak egin beharko ditut” baten ondoren “Gurutze Itsasorekin eta Onintza Uxuerekin” jarri gaitu binaka aritzeko. Beraz, bakoitza non kokatu erabaki eta orain bai, orain ariketari ekiteko unea heldu zaigu.

Lehen partidari atzelari postuetan kokatu dira Itsaso eta Onintza; aurrelari, berriz, Gurutze eta ni neu. Partidaren hasieran oreka izan da nagusi lehen ekinaldian, 5-5 ere egon gara markagailuan, baina, hortik aurrera aurrea hartu dute Itsasok eta Gurutzek eta “7-4” entzutean “ze gaizki, ez dut bat barruan sartzen” esan dit niri Onintzak. Nik “lasai egon, oraindik badago denbora” esan diot kideari irribarrez eta Itsasok eta Gurutzek ere irribarre egin dute nire esana entzutean. Halako batean Saioa norbaitekin hizketan ari dela ikusi dut eta begirada bertara bideratzean ohartu naiz Gurutzeren senarra dela. Hurrengo tantoa eurek galdu dute, baina, 8-5ekoa lortu du pilota txapa gainean moztu eta guk erantzun ez dugunean, oso modu dotorean, eta Saioak “normalean hala jokutzen du, e” esan dio senarrari, barre txiki batekin. Onintzak, berriz, “segi etxera afaria prestatzera” bota dio broma giroan eta berak “beno, ba, joan egingo naiz” esan du. Gurutzek, berriz, “Uxue oso ona da” bota dio eta nik esan diot handik pixka batera, 10-5 irabazten ari direla ikustean, “zer ari zara hori esaten partida irabazteko bi tanto falta zaizkizuenen?”, euren burua ez gutxiesteko adierazi nahian. Hurrengo hiruzpalau tantoak guk lortu ditugu, apur bat gerturatu gara markagailuan, beraz, eta Itsasok huts pare bat egin dituela ikusita “zure kidea nahasi duzu aurrez esandakoarekin” bota diot albotik irribarrez Gurutzeri. 11-8 gerturatu gara, baina, azkenean 12-9 irabazi digute Itsasok eta Gurutzek. Hori ikustean “bat behintzat irabazi dugu” esan diote elkarri eta bostekoa emanez ospatu dute. Gustura daude guri irabaztea lortu dutelako (B.K. Batez ere niri irabazi didatelako ziurrenik, normalean alderantziz gertatzen baita).

Bigarren partidari ekiteko postuak aldatu ditugu, aurrean Onintza eta Itsaso eta atzean Gurutze eta biok jarritz. Saioa markagailu eta epaile lanak egiten ari da kontrakantxako marraren alboan jarrita. Bigarren partidari hasi eta ia hastapeneko tantoetatik alde ateratzen hasi gara Onintza eta biok, nik aurkaria ahal nuen heinean pilota aurrez nik bidalitako eremura bidaltzera sustatuz. Izan ere, ohartu naiz ezkerreko erdiko eremura jotzen ditugula pilotakada asko, hala esanez “nik uste erdira lehenengo botatzen duenak abantaila daukala”. Besteek ni pentsatzen hasi naizela ikusi dute eta bakarren batek egin du horren gaineko aipamenen bat. Gaiztakeria gehiago egin ditut lehen partidari baino, egia esan. 12-4 edo horrela amaitu dugu eta hori ikusita Onintzak “orain errebantxa

orduan, ezta?” esan du, bikote biak garaipen banarekin baikaude. Beraz, aho batez hala egitea erabaki dugu eta hirugarren partidarako pronto jarri gara.

Hirugarren norgehiagoka jokatzeko berriro ere postuak aldatu ditugu, atzean Itsaso eta Onintza eta aurrean Gurutze eta biok jarritz. Hori ikustean “lehen horrela irabazi diegu eta ea oraingoan” esan du Gurutzek. Nik irribarre egin dut eta berari eman diot pilota lehenengo sakea ateratzeko. Keinu horren harira ere esan dute “Uxuek sakea oparitu digu, horrela behintzat bat aterako dugula ziurtatuko dugu” eta nik, ildoari segituz, esan diet “nahi ez baduzue lasai egon, aterako dugu guk lehenengoa, e”. Hitz elkartruke honen ondoren lehen tantoa guk lortu eta sakea egitean propio erdiko eremura bidaltzen hasi naiz, gainera, ezker hormatik ere nahiko gertu jarritz pilota, Itsasoren huts pare bat eraginez. Hori ikusita sakeen gainean “horiek sakeak baino okerragoak dira” entzun dut Gurutzeren ahotik eta nik irribarre bihurri batekin erantzun diet. Jokoan zehar ere, lasai arituagatik, gaiztakeria batzuk eginda tantoak lortu ditut nik eta Onintza ere hasieran baino lasaiago ari da, patxada apur bat gehiagorekin. 11-6ko tantoa lortu ondoren sakea egitera datorrela Gurutzek “erdiak behintzat egin ditugu” bota du eta azkenean 12-6ko emaitzaz amaitu dugu hirugarren neurketa hau. Partidako une batean Itsasok “erdira atera sakea, e” eman dio aholkua kideari eta Gurutzek “bai” esanez erantzun dio pilotari kolpea ematera doala. Alabaina, sakeak 3ko marratik atzera egin du botea eta barre dezente egin dugu gorabehera horren harira. Beste behin ere pasa zaio gauza bera eta algarra egiteko aprobetxatu dugu, nik batean ia negar egiteraino, gainera.

Giro sargoria eta hezea daukagu, 20°tik gorakoa, pilotalekuko ezker horma ere izerdituta ageri da, behealdean orban ilunagoak ikusten dira eta puntu irristakorren bat edo beste aurkitu du kantxaren bazter batean Onintzak, besteoi “kontuz hemen, bustia dago” ohartaraziz. Emakumeei ere nabari zaie hezetasun eta beroaren arteko nahasketak eragin diela, neke puntu bat antzeman baitakieke aurpegietan. Ni, berriz, lasai antzean nabil, gorritasun eta izerdi handiegirik gabe, patxada lagun.

Hirugarren partida amaitu ondoren entrenatzaileak kontrakantxatik kantxaren erdirako bidea hartu du, marra kentzeko keinua eginez. Hori ikusita nik “ez kendu, ez?” bota dut eta Onintzak ere “utzi, saltsa jartzeko” bota du, Itsasok ere antzekoa adieraziz. Beraz, laugarren egoeran ere marrak jarrita jarraitzea erabaki dugu, aho batez kideok hala erabakita. 20.40 ez ditugu oso urrun jadanik. Hirugarren partida honetan zehar hiru haur etorri dira pilotalekura eta harmailen goiko aldean eserita begira aritu dira denbora batean. Neskato bat eta bi mutil dira eta neskek Onintzari jaramon egin dio. Honek ere agurtu du umea, ondoren arreta berriro ere jokoan jarritz. Hala ere, denok izan ditugu nahaste eta distrakzio uneak gaurko saioan, nik batean ez dut ikusi Onintza izan dela huts egin duena eta sakea ateratzeko pilota bila joan naiz zuzenean. Besteek barre egin dute gertaera horren kontura. Alboko marra jo duten pilotakada batzuk ere izan dira nahasmen iturri, Saioari onak iruditu arren besteoi pare bat kasutan nabarmen marra gainean jo eta, beraz, txarrak iruditu zaizkigulako. Gaur era honetako ohi baino lapsus gehiago izan ditugu guztiok ere, baita elkarri pilota eskatu eta bikoteko inork jo ez dituen pilotakadak ere. Horregatik “gaurko saioaren inguruan Uxuek idatzitakoa irakurri nahiko nuke” bota du Gurutzek une batean eta Saioak erantsi “nik uste maiatzaren 9koari tankera emango diogula irakurtzen dugunean zer egun izan zen”, irribarre bana ahoan zutela. Nik ere antzera erantzun diet, hitzik egin gabe ere elkar ederki ulertuz (B.K. Konfiantza edo konplizitate maila nabarmena da zenbaitetan, elkar ondo ezagutzera heldu baikara saioek eta elkarrekin igarotako orduak gora egin ahala. Orain bai naizela taldeko beste bat gehiago, bestelako etiketarik gabea, gainera).

Baldintzak betez jokaturiko laugarren eta azken partidarako berriro ere kantxako postuak aldatu ditugu, bigarren partidakoak errepikatuz: aurrelari Itsaso eta Onintza eta atzelari Gurutze eta ni neu. Kasu honetan ere Itsasori esan diogu pilota emanez lehen sakea berak atera zezala. Honek irribarrez erantzun du. Kasu honetan ere nik erdiko eremura pilotak bidaltzeko asmoari eutsi diot ahal izan dudan heinean, aurkariak sakea bertara bideratuz gero aurretik airez jo eta gunea errepikatzeko arriskua desagerraraziz. Kasu honetan, gainera, tanto bat baino gehiagotan kilimak egiten saiatu eta lortu dut, besteak beste Itsasori propio lau pilotakada jarraian botaz aurrealdera, horma biko zein dejada bidez, azkenean bere hutsa behartuz. Hala ere, tanto hori amaitu denean denon begirunea jaso du bere ahaleginagatik eta tantoan zehar ere animatu dute besteek “aupa, Itsaso” oihukatuz. Partida honetan ere guk lortu dugu tantorik gehien, 12-4 amaituz.

Partida hau amaitzean entrenatzaileak “orain ia bai, marra kenduko dizuet, bestela” esan digu, tartean niri begirada luzatuz, eta binakako partidak jokatzen jarraitu dugu, aparteko baldintzarik bete beharrik gabe kasu honetan. Marrekin aritu garenean bati baino gehiagori entzun diot “ezkerrez jo, nora bota pentsatu, pilotak botea non egin duen ikusi,... gauza gehiegi dira kontuan hartu beharrekoak” eta besteren batek “nik ezin dut begiratu pilotak botea non egiten duen, bestela gero jotzea ahazten zaidalako” (B.K. Une berean arretagune bat baino gehiago izateak urduritu eta hein batean blokeatu egiten dituela iruditzen zait, bai hemengoak eta baita beste herrietakoak ere).

2. 2:2 partidak, baldintzarik gabe.

Emakumeak animatu asmoz “orain ia marrarik eta pentsatu beharrik ez daukazue eta saiatu aurkariak mugitzen” esan du Saioak jokatzeari ekin aurretik.

Kasu honetan ere bikoteak lehengo modu berean osatuz jarraitu dugu, modu honetan kokatuta: atzean Onintza eta Itsaso eta aurrean Gurutze eta neroni. Partida jokatzen hasi eta oker samar jotako kolpe bat baino gehiago izan dira, paletaren ertzarekin jo eta albora irtendakoak, frontisera iritsi gabe geratutakoak edo baita kidearen ilea orraztu duen kolpe bat ere. Atzetik ezkerrez jotako pilota batean Itsasok Onintzari eman dio, buruan, baina, eskerrak pilota indar gutxirekin zetorren eta ez den sustotik gorako ezer izan (B.K. Kideak ez dira makurtzen kasualitateaz ere aurkariak pilota jotzean, ezta gertu baldin badaude ere. Nik ez dakit nola ez dituzten pilotakada gehiago jasotzen). Ez dakit arrazoia zein izan litekeen, errua zeri atxiki ote geniezaiokeen, baina, badirudi bi asteen saiorik ez izanak edo/eta giroak eragin duela gaurko saioko jardunean.

Lehen partidari zehar nahiko lasai aritu naiz ni, baina, aurkariak dantzan jarri eta hutsuneak ireki ditut kantxan, nik edo kideak gure tanto zakua lortzeko baliatuz egoera horiek. Hori dela eta, arazo handirik gabe lortu dugu oraingo honetan ere 12ra iristea.

Beste partida bat jokatzeke ere astia eman digu, nahiz eta seigarrenari ekitean nire erlojuan 20.55 direla ikusi dudana. Kasu honetan berriro ere postuz aldatuta, txandaka saio osoan aritu garen bezala: aurrelari Onintza eta Itsaso eta atzelari Gurutze eta biok. Partidari hasi eta nahiko azkar “gaiztoa zara” esan dit behin baino gehiagotan Gurutzek, marmarka jo ditu pilota bat baino gehiago eta Saioari “Uxueri esan gure mailan jokatu behar duela, honek pilota begia jarritako leku berean kokatzen du eta horrek ez du balio”. Hori entzutean lasaiago aritzea pentsatu eta pilota lasai eta erdira jotzera mugatzen hasi naiz, irribarrea ahoan Gurutzeri apropos “horrela ondo?” adarra joz.

Berak “horrela ere ez, baina, gaiztakeriak beti ere ez egin, tarteka, erruki apur bat izan” erantzun dit. Desesperazio keinuren bat ere egin du Itsasok pilota bat itzultzean eta ahapeka hitzen bat edo beste ere izan da partidan zehar ni jotzera nindoala edo nik pilota jotzeko unean. Beraz, apur bat lasaiago aritu naiz, nahiz eta bestela ere hala ari nintzen, tantoak egiten saiatuz baina jokoa emanez. Partida honen hasiera samarrean “Uxue etorri denean baino zuriago dago” bota du Saioak eta nik irribarrez erantzun diot. Beste hirurei neke puntu nabarmen bat sumatzen zaien aurpegietan. Nik irribarre egin dut eta jokoan jarraitu, patxadaz eta tarteka tantoren bat eginez, baina, gaiztakeriak edo bihurrikeriak ia erabat alboratuta. Partida hau ere arazo handiegirik gabe irabazi dugu.

Norgehiagoka hau jokatu bitartean Oihane agertu da frontoiaren bestaldeko kristaletik, alaba besoetan zuela parketik etxerako bidea hartuta. Besoa jasota agurtu dugu elkar eta berriro ere partidan jarraitu.

Azken partida bat jokatzeari ere ekin diogu ia bederatzietan, berriro ere postuak aldatuta, saio osoan bezala txandaka partida bat aurrean eta hurrengoa atzean kokatuta osatuz, eta alderantziz. Hala ere, markagailuan 6-3ra iristean “bale, nahikoa” esan du entrenatzaileak eta gaurko saioko atal nagusia joan da honenbestez.

21.05ean amaitu dugu. Frontoiko argiak ere handik minutu eskasera itzali dira, gainera. Beraz, luzaketak egiteari ekin diogu kontrakantxan. Kasu honetan mendi martxak eta mendiko lasterketen booma izan ditugu hizpide, Saioak igandean batean irteteko asmoa duela agertu duelako. Nik, halaber, esan diet mendiko lasterketaren batean proba egin nahiko nukeela, baina, distantziak geroz eta luzeagoak direla eta ez dela erraza lasterketa egoki bat aurkitzea. Gai honen harira hemengo eta hango mendi ibilaldiak izan ditugu ahotan eta baita hango zein hemengoan ibilerak ere. Bost bat minutuan jardun ostean trasteak hartu eta eskaileretan gora abiatu gara.

Frontoi ataria

Gurutze, Saioa, Itsaso eta neu izan gara pilotalekua uzten azkenak, Onintzak presati samar alde egin baitu gure aurretik. Mendi martxaz eta kirola egiteaz ari gara oraindik ere, nik esan baitiet asfaltotik mendi alderako jauzia eman nahi dudala, inguru askoz ere baketsu eta politagoa izaten baita ibiltzeko errepide bazterreko Bidegorriak baino.

Datorren astera arte elkar agurtu dugunean Gurutzek entrenatzaileari galdetu dio ea erabaki duen nork jokatu duen Emakumea Pilotari egunean zizurkildarren ordezkari moduan eta “oraindik ez” erantzun dio honek. “Nik uste aurten Itsasori tokatuko zaiola” esan du Gurutzek etxerako bidea hartu duen bitartean eta Saioa eta biok orain arteko emaitzen gainean gogoetatxo bat egin ondoren “agian aurten bai, ezta?” bota diot nik irribarrez. Hirurok ia norbere autoetan sartuta geunden, baina, Saioarengana hurbildu naiz ni eta Itsaso ere azkenean kotxeko atea ireki eta entzuten eta hizketan aritu da, berak ez duela jokatu esanez. Beste biok irribarre banarekin erantzun diogu eta bolanteetan jarrita bagoaz Zizurkildik behera.

21.14an motorra martxan jarri eta bata bestearen atzetik abiatu gara kotxeetan Saioa, Itsaso eta hirurok. Nik grabagailua piztu eta irratia itzali ditut, saioko gorabeherak gogoratzeari ekinez.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurkoa ezohiko saioa izan da nire ustez. Hein batean, kide kopuruak mugatua, ziurrenik. Gainera, gure jarduna ere aldrebes edo xeibre bezala izendatuko nuke, nahiko huts egite leloak izan baitira tarteka jokoan ari ginela. Gure arteko giroa, halaber, barea izan da oso, lagunartekoa eta atsegina. Lasai eta gustura sentitu naiz oso, ondo pasa dut saltsan. Nik uste era honetako saio baten beharra neukala!

Ohi baino dezente kide gutxiago bildu gara gaur. Nik oroitzen dudala beste egun bakar batean bilduko ginen hain gutxi, bildu baldin baginen. Hala ere, horrek saioa dinamikoa eta jarraitasun erabatekoduna izatea ahalbidetu digu. Pena izan da bat lesio bat dela medio ez dela bertaratuko jakitea ere, baina, ea ikasturtea amaitzerako etor litekeen, hasitako denok amaitu dezagun ikasturtea. Egia esan, hasierako kopurua mantentzen den herri bakarra da hau ni nabilenetan, ikasle “fantasma” bat izan genuen arren hasieran, sekula etorri ez zena.

Astez aste egutegia mehetzen noa eta sei saio barru amaituko da abentura honen puska handi bat. Ea bitartekoak gozatu eta ongi amaitzeko modua egiten dudan! Beste saio bat gehiago eta ia maiatzaren erdialdean kokatuko gara. Hegan doakit denbora!

Labean urtuta

Astea lanean batetik besterako ohiko joan-etorrietan doakidala heldu da erdiko asteguna ere, asteazkena. Gaur, gainera, bero sapa izugarria egiten du goizeko lehen orditik eta ezer egin gabe egonda ere izerditan blai eta ahoa irekita geratzen da bat, arnasa hartzeko oxigeno bila. Arratsaldeko seietan 30°Ctik gorako tenperatura markatu dit kotxeko termometroak. Uf, zer da hau?!

Asteko hirugarren eta azken saioa heldu zait eta gaurkoan, gainera, zer asma, alferkerian eta luzapenetan batere ibili gabe, lanari lotuta eta betebeharrari betebeharra atxikita jardun bainaiz azken hiru egunetan. Zer erremedio, azken aste pare batean pilotutakoak hor ditut zain oraindik, bakoitzari semaforoa berde noiz jarriko zain. Egia esan, poztan nau halakoren batean berriro ere lanerako motorra ongi samar daukadala ikusteak, bai horixe!

Athleticek gaur bertan Europako Ligan jokatu duen finaleko partida erabat ahaztuta neukan arren irratia lagun egin dut kotxeko bidaia, ohi baino ia ordu eta laurden lehenago dudalako arratsaldeko lehenengo hitzordua, eta bidaiaren iraupena hiru ordu laurdenera heldu ez bada ere nazkatu naiz futbolari, eta bereziki bizkaitarren finalari eman dioten oihartzuna ikusita. Pasako al da ditxosozko finala eta amaituko futbol denboraldia?! Gehiegi sutzerik ez dut izan, amorrazioa eman arren, irratia itzali eta zuzendariarekin elkartzeko bidea hartu baitut kotxe aparkatu orduko, gauza asko dauzkagulako esku artean eta denbora gehiegi ez soberan. Beraz, pilotan hasi baino lehen ea ez dudan buruarekin horma kolpatzeko arrazoirik pilatzen.

Sarrera

Gaurko paleta saiorako sarrera orain bi astekoaren errepikapena izan da gutxi gorabehera, bileratik irten eta 19.40 pasatxoan heldu naizelako plazara. Iristear nintzela probalekuaren aldameneko petrilean eserita ikusi ditut kide batzuk eta euren inguruan hizketan besteak, oraindik ere saioari ekin gabe. Ester, Aitziber, Jaione, Aizpea,

Karmele eta Haizea daude hain justu ere. Lehena besteok agurtzera etorri dela iruditu zait, Haizeari “eskerrik asko denagatik” esaten entzun izana iruditu zaidalako. Kaleko arropa darama soinean eta orain hilabete inguru jakinarazi zigun ez zuela gure taldean jarraituko, ordutegia semeen ardurarekin bateratzeko arazoak izaten zituelako.

Beraz, zuzenean pilotalekuko harmailetara beharrean kideengana hurbildu eta “arratsalde on, zer, eguzkia hartzen?” batekin egin diet diosala. Ondoren “zer, portatilarekin aritu behar al zara pilotan?” galdetu dit Esterrek irribarrez eta “ez, baina, hala ibiltzen naiz askotan, esku batean paleta eta bestean ordenagailua, batetik bestera” erantzun diot. Esku batean maleta eta bestean paleta ditudala nago gaur ere. Elkarrekin hizketan jarraitu dugu eta “zure zain geunden” esan dit, irribarrez. Nik modu berean eman diot erantzuna, “hori pentsatzen nuen, baina, nik esatea zatarra zatekeela eta isilik geratzea erabaki dut”.

“Zer, frontoira joateko alferrez, ala?” galdetu diet ondoren eta esan dutenez haurrek jokaturiko eskupilotako partida amaitu berria da nonbait, ohartu gabeak zirelako nik galdegin arte. Badira aste pare bat inguruko herrietako haurren arteko txapelketa abian dutela, eta aurrekoetan ere 19.30ean oraindik partida jokatzen tokatu zaizkigu bakarren batzuk. Hala ere, amaitu dute gaurko jarduna eta, beraz, frontoira joateko unea iritsi zaigu guri, trasteak hartu eta plazatik hogeita hamar metro aurrerago berriro ere geratuz.

Pilotalekua

Ohi bezala, harmailen atzealdean utzi ditugu gure trasteak eta nik inguruko egoerari erreparatzeko aprobeztatu dut une hau. Kantxa erabat beteta dago, haurrak dabilta baloiari ostikoka nahiz eskupilotan hiruzpalau lagun talde ezberdinetan. Batzuk futbolari famatuena elastikoak daramatzate soinean izen eta guzti (Messi), besteren batek Athleticetako eta asko dira galtza motzetan dabiltzanak. Jolasean dabiltzan gehienak mutilak dira. Probaleku inguruan eta atzeragoko parkean ere ume festa dezentea zegoela iruditu zait. Taberna kanpoko terraza ere beteta dago, ez dago ez mahai eta ezta aulki bakar bat ere hutsik. Egiten duen giroarekin eta jendea nola dabilen ikusita udan gaudela esanez gero ere sinets liteke. Hala ere, uda giro oso atsegina ere ez da gaurkoa, ezer egin gabe ere izerdi batean eta gorputza erabat makalduta geratzen den horietakoa baizik.

Harmailetan norbere poltsa, motxilatxo, paleta eta gainerakoak utzi eta saioari ekin aurretik Haizeak “uste dut eguzkiak eman didala, bizikletan joan naiz Lasartera arraina erostera eta” kontatu digu. Horren ondoren esan du kosta zaiola arrandegiak aurkitzea, “beti kooperatibara joaten naiz eta gaur itxita zegoen” eta emakumeek azalpenak eman dizkiote zenbait aukera ezberdinen inguruan, “eliza atzean daukazu bat, oso ona, beste bat badago Michelineko zuzengunean, etab.” Hori entzunda Haizeak “andre bati galdetu diot, baina ez dut aurkitu” esan du eta “hau erabat hernaniarra da” esan dit bakarren batek. Nik “bai, bai, Zubietan lo bakarrik egiten du, bizi Hernanin bizi da” erantzun diot aldamenetik. Hizketaldi honen harira “arrandegiak arratsaldeetan irekita izaten al dira hemen? Gure inguruan nik uste normalean itxita egoten direla” esan dut eta Usurbilen asteko bi arratsaldetan irekita egoten direla jakin dut, bestela itxita, Jaionek “hemen astearte eta ostiral arratsaldeetan zabalik egoten dira, ni orduan joaten naiz erostera” azaldu digulako (B.K. Ez nuen bela pentsatuko halako hizketaldirik izango genuenik saioetan, ez horixe!). Hala ere, gaurko hizpide nagusia beroa bera izan da. Karmelek esan du lanerako bidean motorrean zihoala ia ordu erdian geratuta eduki dutela errepidean arratsaldeko lehen orduan, 30°C zeudela eta ia ito dela eguzkipean hainbeste

denboran. Jaionek, adibidez, esan du “dagoeneko nekatuta nago ni” eta Haizeak ere egin du eguraldiaren gaineko aipamenen bat, beste guztiok bezala.

Mingainak dantzatzeari utzi gabe, baina, gorputzak martxan jartzen hasi gara halako batean, geurez arratsalde osoa hizketan pasatzeko arazo handirik ez baldin badaukagu ere.

Beroketa

19.50 inguruan giltzaduretako mugimenduak egiteari ekin diogu, korroan jarrita, besteak beste Usurbilgo txapelketako bikoteen berri galdetzeko aprobetxatu dut nik. Aitziber eta Idoiak eurek izena eman dutela esan dute eta baita Jaionek eta Aizpeak ere, hauen kasuan hirukote batean. Ea zenbat bikote diren ba ote dakiten galdetu diet nik jarraian eta “bost bat pentsatzen dut” erantzuna jaso dut. Luzapen pare bat egin ondoren kantxan zeharreko korrika saiotxoari ekin diogu. Oraindik ere hurrez josita dago frontoia eta zenbaiten aurretik igarotzean tentu apur bat ibili behar izan dugu, ez diotelako jolasteari utzi. Baloiren batek Haizearen eskuetan amaitu du, adibidez. Gaur bi buelta baino ez ditugu eman korrika, sargoriak eraginda nagusiki. Aitziberrek esan du “beroaldia nabaritzen da”. Jaionek ere bera antzera dabilela esan du, aurpegian izerdi eta gorritasun apur bat nabari zaizkio.


Kosta egiten da ezer egitea ere, gorputza astun eta geldoago baitaukagu denok. Ondoren Haizeak nortzuk etorri garen kontatu eta “Arritxu eta Idoia falta dira aurreko astetik” esan du ahots gora. Gaur ere ez da etorri Izaskun, baina, ziatika arazoekin dabilela esan diote Haizeari, “asteburuak ere ohean pasaz” nonbait. Ez naiz gogoratzen azkena saioan noiz izan zen, baina, akaso Aste Santuko oporren aurretik. Banakako partiden orria darabil esku artean entrenatzaileak dagoeneko, besteetan baino ezinegon handiagoa nabari zaio gai hau dela medio, eta pilota bana banatzen hasi zaigu “hamar minutu barru banakako partidekin hasiko gara” esaten ari den bitartean. Ahal dela partida guztiak gaur amaitzea nahi du Haizeak, datorren asterako talde honetako bikotea zehaztuta izan eta beste taldeetakoekin batera jokatu eta, azkenik, Usurbilgo ordezkari izango den bikotea hautatzeko.

Beraz, beroketa amaitzeko pilota bana hartu eta kantxan zehar sakabanatu gara, ezker hormaren aurka banakako piloteoan hasi aurretik bertan dabiltzan haurrak frontoitik alde egitera gonbidatuz. Frontisetik hasi eta kanpo aldera arte ordena honetan kokatu gara: Jaione, ni, Karmele, Aizpea eta Aitziber. Nik eta Jaionek elkarrekin hitz batzuk trukatu ditugu, besteak beste “zer, txapelketarako entrenatzen hasiko zineten, ala?” esan diodalako nik adarra joz. Berak erantzun dit “niri egia esan berdin zitzaidan ez jokatzera ere, beste biek bikotea osatu eta nik ez daukat parte hartzeko beharrik” gaineratuz. Nik “lasai egon, ondo pasako duzue” esanez animatu nahi izan dut. Tarteka Karmeleren pilota ere iritsi da nire ingurura, kolpe okerren bat egin izanaren seinale. Aizpearen bakarren bat ere bai. Beroketako azken zati honetan, gainera, pilotak ohi baino biziago daudela iruditu zait, harmailetatik ohi baino hurbilago ari naizela esango nuke indar gehiago erabili gabe, eta “ez al dute besteetan baino bote handiagoa gaur?” galdetu diet kideei. “Ni ez naiz konturatu, baina, igual bai” erantzun didate pare batek. Nik uste giroak boteari ere eragin diola.

Ezker hormaren kontrako banakako piloteoa amaitu dela esan du entrenatzaileak eta zabalean kantxa murrizteko marra jarri du, “gaur zinta berria tokatzen zaigu” adieraziz.

Horretarako zortzi urrats egin ditu ezker hormatik hasita eta geratu den lekua ikusita “ez al zen eskuinerago?” galdetu dio Jaionek. Azkenean berak kokatu du erreferentzia lez marra jartzen nondik hasi eta Haizea 4ko marrara arte joan da zintari tiraka, “okertzen ari zara, pixka bat ezkerrerago” entzun ostean zinta lurrean itsatsiz. Ondoren ia emakume gehienok zapaldu dugu ondo pega zedin eta Haizeak orria eskuetan hartuta nola hasiko garen jakinarazi digu.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



Lehen partidarako “Karmele eta Jaione” esan du entrenatzaileak eta “ai, ama!” batek ihes egin dio lehenengoari hortz artetik. Ondoren, “gutxienez apur bat nekatuta bazeunde, beno, baina, orain” esan dio kideari. Jaionek irribarre egin du. Nik, berriz, hori entzutean “Karmele badakizu zein den estrategia, zuk pilota ezkerraldera bota, hor dauka zuloa” esanez animatu nahi izan dut.

Lehen banakako partidarako prestatu dira kideak eta Haizea beste hiruroi hurbildu zaigu “zuek nahi duzuen egin, piloteoan aritu edo nahi duzuen. Hemen kabituko zarete?” galdetu digu ondoren, 7tik 9ra bitartean umeak ari direlako eskuz jokatzeko. “Bai, nik uste moldatuko garela” esan diogu eta, beraz, Aitziber, Aizpea eta hirurok atzean hasi gara.

2. Atzean: kideen arteko piloteoa, aparteko betebeharrak edo baldintzatik gabe.

Aurrean partidari ekin berriak direnean Idoia iritsi da frontoira, presaka samar, eta elkar agurtu ondoren gurekin jarri da atzealdean. Haizeak ere ikusi du eta gurekin jartzeko esan dio. Berak ondoren epaile postua hartu du frontiseko eremuan kontrakantxan zutik jarrita. Beraz, laukote bat gaude piloteatzen aritzeko. “Hau da beroa, erosketak egiten izan naiz eta pentsatu dut ia handik irten ere ez nintzela egingo” esan du eta “ez naiz harritzen bero egiten duenean adinekoei zerbait ematearekin, guri hala eragiten digula ikusita” erantsi du ondoren.

Piloteo hau oso lasaia izan da, laurok hizketan aritu gara eta saiatu gara ahal genuen heinean txandaka denok pilota jotzen. Nik egoera hau aprobetxatu dut aurreko partidaren jarraipena egiteko, ahal izan dudana moduan, noski. Haizea “aupa, Karmele” esanez animoak ematen behin baino gehiagotan sumatu dut eta Jaione, berriz, pilota ezker horma aldera bideratuz tanto dezente egiten ere bai. 20.10 inguruan amaitu dute lehenengo partida eta Haizeak “Idoia eta Aizpea” esanez dei egin die bigarren partidari arituko direnei.

3. Ezkerrarekin piloteoa.

Bigarren txandan ere atzeko jarduna aurrekoaren antzekoa izan da, kide erdiak aldatu arren. Aitziber, Karmele, Jaione eta laurok gaude kasu honetan. Jaionek eta Karmelek urari trago bana jo diote, arnasari buelta ematen saiatuz, eta nik ere bai, giroa ikusita gaur kantinplora eta guzti etorri naizelako. Nahiz eta Haizeak ekinaldia hasi aurretik

gugana gerturatzean “a zer aurpegiak ikusten ari naizen hemen, aspertzen ari al zarete?” galdetu digun, kezka apur batekin, Aitziberrek “ez, ez gaude aspertuta, baina, eguraldi honekin makalduta bai” erantzun dio. Haizeak “niregatik nahi baduzue libre zarete zerbeza bana hartzera joateko” esan digu ondoren eta Jaionek “orain ez, hori gero” esanez erantzun dio. Kasu honetan ere lasai aritu gara oso, patxadaz, denbora pasa hein handi batean.

Ezkerrarekin pilota joz hasi eta oso gutxira Karmelek eskumuturrean traba bat sentitu duela esan digu, ea mugimenduren bat egin duenean izan den galdetu eta “karranpa moduko batzuk sentitzen ditut barrutik” esan digu. Arduratuta dirudi eta beste hirurok zer esan ez dakigula gaude hein handi batean. Berak eskua tarteka bertara eramaten du, baina, piloteoan eskuinarekin aritzea erabaki du (B.K. Erabaki zuzena nire ustez). Aitziberrek, berriz, pilota asko ez ditu berak jotzen apur bat mugitu eta jotzeko nahiko ondo datozkion arren eta “zer, begira?” bota diot nik irribarrez. Berak “askotan ez dut jakiten pilota horiek nik jotzekoak diren ala ez” erantzun du. Gisa berean jarraitu dugu banakako partida amaitu den arte.

Kasu honetan ere zehar begiratua botata buruz buruko bigarren partida lehena baino dezente estu eta lehiatuagoa izan dela iruditu zait niri. Besteak beste Idoiak sake erreto bat airez eginda txokoan moztuta lortu duen tanto bat ikusi dut eta “a zer tantoa!” oihu egin diet nik atzetik. Idoiak irribarre egin du eta Aizpeak “a zer tanto puska!” bota du. Haizeak ere esan dio zer edo zer. Aizpeari amorrazio hitzen bat edo beste ere atera zaio berak tantoren bat galdu duenean, baina, amaitzean gustura eta izerdi patsetan hurbildu dira atzealdera. Haizeak berak ere atzera etorri denean Aizpeari esan dio “gaur nabaritzen zaizu aurreko astean baino hobeto zaudela” eta berak hala dela baieztatu du. Idoiak berriz hasperen moduko bat egin du eta “uf, tabakoa!” bota du. Karmelek aldamenetik “erre, erre!” esanez erantzun dio.

Hirugarren partidarako Jaione eta Aitziberri dei egin die Haizeak aurrera eta atzean geratu garen lauroi berriro ere ezkerrarekin aritzea proposatu digu. Aurreko partida hasi eta denbora gutxira barre hotsak iritsi dira gugana, hirurak barreari eutsi ezinda ikusiz. “Zer dabilta hauek?” galdetu dut nik eta Karmelek “hori da poztasuna” batekin erantzun dit. Antza denez Aitziberrek sakea lortu duenean nahi gabe Haizea dagoen lekura bota du, eskuinean kanpora, eta hortik datorkie jarrera hori. Guk hori ikusi eta berriro ere piloteoan jarraitu dugu, baina, antza denez ez dauka etenik aurrekoen barrealdiak, algaraka ari direla ikusi baitugu. Tantoan zehar ere halaxe aritu dira, Haizea kantxan ari zirenekin hizketan eta hirurak ia txizak alde egin beharrean. Nik “gaur zer jan duzu askaltzeko?” galdetu diet besteak beste atzetik.

Atzean ari ginela Idoiaren ama balkoira irten eta alabari deika hasi da, mesede bat egiteko eskatuz. Beraz, une batean hirukotea geratu gara ezkerrarekin kolpeak trukatu eta hala ari ginela amaitu dute frontiseko 3. partida. Haizea, Aitziber eta Jaione hurbildu zaizkigu atzera eta Haizeak “hurrengo partidarako Idoia eta Karmele” esan du, baina, Idoia ez da oraindik pilotalekura itzuli eta “beno, ba, Aizpea eta Aitziber hasiko zarete” esan du. Haizea urduri jarri da zain geundela eta “lasai, enkargu bat egitera joan da, berehala etorriko da” esan diogu, azkenean kidea etorri eta berriro ere hasieran esan bezala aurreko gunera Idoia eta Karmele igaroz. Haizeak berriro ere aurrera joan aurretik “orain airea landuko duzue, bat botez eta bestea airez” esan digu.

4. Aireko eta botez egindako kolpeak eginez binakako piloteoa.

Bikoteak egiteko Aizpeak eta Aitziberrek osatu dute bat eta Jaionek eta biok bestea. Nola hasi erabakitzeke “nola hasi nahi duzu?” galdetu diot kideari eta berak lehenengo airekoa landuko duela esan dit. Beraz, ni pilota prestatuz eta kidea airez joz hasi gara. Gure aldamenean, berriz, ariketa hasi eta pixka batera Aitziberri zalantza sortu zaio eta “zuek nola ari zarete, bakoitzak beti botez edo airez joz?” galdetu diot eta “bai, ondoren aldatuko dugu” erantzun diot nik. Lasai aritu gara oso piloteoan, jarraitasun handia lortuta eta une batean “aldatuko dugu orain?” esan eta rolak aldatu ditugu.

Egoera honetan ginenean Aitziber pilota baten bila harmailetara hurreratu denean hiru emakumezko hizketan hasi zaizkio eta ikastaroaren gainean galdetu diote. Nik besteak beste “zuek gazteak zarete” entzun diet eta Aitziberrek “hemen ni baino gazteagoak hau, hori eta hura dira” esan die. Ondoren ikastaroan Lasartekoren bat ere badabilela esan diote elkarri, lasartearrak dira emakumeak antza, baina, ez dut hitzak oso garbi entzuterik izan, gu ere jardunean ari ginelako. Hala ere, Aitziber itzuli denean “zer, marketina egiten aritu al zara?” galdetu diot irribarrez eta modu bereko erantzuna eman dit berak ere. Hori bai, nik kargu ere hartu diot, “nola esan dezakezu ez zarela gaztea? Zuk ez esan kontrakorik, jendeak esango du hori”, eta berak “ez, ni ez naiz gaztea” erantzun dit, nik berriro ere “baina ez al da esaten izpirituari begiratu behar zaiola?” esanez amaituz solasalditxo.

Aurreko partidari Idoia nahiko erraz ari zaio nagusitzen Karmeleri eta aurrekoak baino lehenago amaitu da, motzagoa izan baita iraupenez. 20.35 dira eta entrenatzaileak jakinarazi du bi partida geratzen direla bukatzeko. Bada ez bada ere elizako kanpandorreko erlojuari begiratu bota dio eta “lasai, astia ematen du” esan diot nik. Lehenengo Aizpea eta Jaioneren artekoa izango da eta bestea Aitziber eta Karmeleren artekoa.

Frontiseko partida jokatzera Aizpea eta Jaione joan dira eta berriro ere aireko kolpea lantzeko ariketa eginez geratu gara atzeko laurak. Kasu honetan Aitziberrek eta Idoiak elkarrekin jardun dute hasiera batean eta baita Karmelek eta nik ere. Ni hasi naiz pilota prestatzen eta kidea airez jotzen. Hasieran apur bat kosta bazaigu ere, eta tartean huts egindako pilotakada bat baino gehiago izan diren arren gustura aritu gara kidea eta biok (B.K. Karmelek nahiko ondo burutu du ariketa nire ustez, mailaz pilotara jartzea kostatzen zaion bati aireko kolpea eskatzea dezenteko jauzia egitea delako). Gure aldamenean ere ongi moldatu dira Aitziber eta Idoia, nahiz eta hauei ere kolperen batek ihes egin dien.

Aurrean jokatzeko ari diren partidari ez diot nahi bezainbesteko arretarik jarri, baina, hasierako tanto pare bat ikusteko aukera izan dut eta erritmo bizi samarrekoak eta pilota asko mugitukoak izan direla iruditu zait. Horietako bat amaitu denean Aizpeak zuen pilota eskuan eta Haizeari “1-2?” galdera luzatu dio. Tankera berean jarraitu dute handik aurrerako tantoetan ere, dena eman eta aurkaria bakoitzaren menpe jarri asmotan pilotakadaz pilotakada.

Erditik aurrera, ordea, ez dakit nondik bueltan, baina, ni Aitziberrekin aritu naiz eta Idoia eta Karmele hizketan aritu dira atzean aulkian eserita. Bestela aspertu egingo nintzela eta jokatzeko hasiko ginela esan dit eta nik aurreko astekoa gogoan “gaur ere entretenitzeko moduan botako al dizkizazu pilotak?” galdetu diot eta berak ez dit ezer erantzun. Beldurtu egin ote den susmotxo piztu zait, hala ez dela pentsatzen dudana.

arren, baina, bada ez bada ere “orain ez izutu hori esan dizudalako” bota diot, konfiantza agertu asmoz. Une batean rolak aldatzea erabaki dugu eta ni izan naiz prestatzaile lanean aritu dena. Aitziberrek esan dit “airez jotzea gehiago kostatzen zait” eta nik “bai, normalean zailagoa izaten da distantziak kalkulatzea” erantzun diot. Ondoren “partidetan eraldatu egiten zarete” esan diot nik aurrera begira ari zela ikusita eta “bai, egia esan, beste gauza bat da” erantzun dit berak irribarrez.

Aurreko bosgarren partida amaitu den arte modu horretan aritu gara eta Aizpeak eta Jaionek atzerako bidea hartu duten modu berean hartu dute Karmelek eta Aitziberrek aurreranzkoa ere. 20.45 inguru dira eta Jaionek “gaurko lanak bukatu ditut” esan du arratsaldeko buruz buruko hirugarren partida amaitu berritan. Aizpea eta biak izerdi batean eta masailak apur bat gorrituta etorri dira eta ur botila hartu dute esku artean harmailetako trasteetara hurreratuta.

Aizpeak telefonotik norbaitek deitu diola eta plazarako bidea hartu du telefonoa eskuan, “haize pixka bat behar dut” esatearekin batera. Petrilean eseri eta hoska hasi da ondoren. Orduan, Jaionek, Idoiak eta hirurok hizketan pasa dugu zatirik handiena, beroa eta hezetasuna biak daudela azpimarratuz. Nik “bai, hezetasun dezentea zegoen atzo Zizurkilgo frontoian behintzat, ezker horma izerditan ikusten zen” gehitu dut eta Jaionek “frontoi hori polita da” esan du. “Bai, hau baino bizpahiru koadro luzeagoa eta erabat estalia da, baina, honek daukana da herriaren erdi-erdian dagoela” erantsi dut nik. Horren harira Idoiak berak esan du “gu frontoikoak gara, hurrekin parkean egon izan gara, baina, nik uste atzeko parkean baino ordu gehiago pasa izan ditugula hemen”. Jaionek ere esan du “nireak ere hemen ibiltzen dira, harmailetan gora eta behera” eta “bai, baina arriskutsua ere bada zulo hauekin. Umeak batetik bestera saltoka parkean baino gusturago ibiltzen dira askotan” batekin amaitu dute. Ondoren esan du bere alabaren bilera izan zutela aurrekoan irakasleekin eta “pozik bizi dela esan ziguten, denera azkena helduz, eta bestea, berriz, edozerekin estutzen da”. “Zenbat urte ditu?” galdetu dut nik eta “hiru, irailean lau” erantzun dit. Haurren gainean hitz egitera igaro dira eta Jaionek esan du “nik begiratu eta zenbaitetan pentsatzen dut zuek bai pozik bizi zaretela”. Nik hori entzutean “utzi, mugak eta gainerakoak eurek nahi gabe ere etorriko zaizkie” esan diot eta “bai, bai, inbidiatatik esaten dut hori” aitortu du.

20.51 pasatxoan aurreko eremuko partida amaitu da eta Aizpea ere dagoeneko gure inguruan dabil, telefonoarekin amaituta. Aitziber harmailetan eseri da eta zinta kentzen hasi da Haizea kantxan. Ez duela lortzen ikusita Jaionek eta biok lagundu diogu azken zatitxo kentzen, aurrera hurreratuta eta ondoren atzean elkartu gara guztiok, harmailetatik gertu. Haizeak “ea orain nola moldatzen naizen” esan du eta nik “Arritxuren aurka jokaturako partidak kendu” esan diodanean adostasuna agertu dute gainerako emakumeek ere. Beraz, kontatzeari ekin dio, gure taldeko bikotea nortzuk osatuko duten kalkulatu nahian. Nik ia esan dut berak ezer esaterako, partida denak irabazi dituelako batek eta euren artekoa bakarrik galdu bestea, baina, mingainari horzka egin eta nire aurreikuspena entrenatzailearen emaitzarekin bat zetorrela ohartu naiz “Idoia eta Jaione” entzutean.

Beste taldeetan partidak nola daramatzen galdetu diot nik eta “astelehen arratsaldeko taldean datorren astean amaituko dut, aste honetan hasi naizelako” esan du, “Lurdes ez dakit nola arituko den, deitu egin beharko diot” erantsiz geroxeago. Partida hauek jokatu ondoren “gero besteen aurka jokatu eta bi partida horien ondoren lehena gelditzen dena izango da Usurbilgo ordezkaria” esan du Haizeak eta “partidak zenbatera izango dira,

15era edo?” bota du bakarren batek. Partida hauek noiz jokatu ere erabaki beharko dela esan du Haizeak eta “nik uste asteazken arratsalde batean elkartuko garela, ordu honetan bertan, astelehena oraindik aste hasiera delako eta goizetan zuek ezin duzuelako”. Ildo beretik jarraitu du hizketaldiak, Jaionek “asteleheneko taldetik zein irtengo dira?” galdera egin du eta “Estitxu bai eta bestea agian M^a Jesus izango da” erantzun dio Haizeak. “Estitxu entrenatzen ariko da, ziur, korrika ere asko ibiltzen da” esan dute eta beste taldekide bati zein den agertzen hasi dira, “ez dakit noren arreba, bestearen emaztearen koinata (...)”. Jaionek eurek partidak galdu egingo dituztela esan du eta “zuen buruetan zeinen gutxi sinesten duzuen” esan dio Haizeak. Arrazoirik ez du falta. Idoiak gai berari tiraka beste alderdi bat ekarri du, “izaerak zer diren, zein ezberdinak. Hau izango zen azterketa egin eta zer moduz galdetzean gaizki esan eta gero 9,5 ateratzen zuten horietakoa”. Jaionek “niri ez zait sekula hori pasa” esan du eta Karmelek beste gauza bat ere gehitu dio elkarrizketari, “izaten da ba batek beti gaizki esan eta 9,5 ateratzea azterketan eta alderantzizkoa ere bai, beti ondo eta gero 3 bat. Horietakoa nire semea da” esanez.

Honetaz eta hartaz mingainak dantzatzen jarraitzen dugu guk eta ordurako Aizpea alde egina zen. Bikotea agertu da saio amaiera aldera eta “bi partidak galdu ditut” esanez egin dio lehenengo agurra. Besteoi grazia apur bat egin digu egoerak, egia esan. Honek bere trasteak hartu eta badoala esan du, datorren astera arte agurtuz. Ondoren Haizeak erlojuari begiratu eta 21.05ean “gaur Athleticen partida dago, ezta?” esan du eta gai horren harira hedabideetako jarraipenaz beste tarte batean aritu gara kontu kontari, bateko argazkiak, besteko irratiko deskonexioak, telebistan eman duten lata eta antzekoak ahotan hartuta. Dagoeneko trasteak eskuetan hartuta gaude eta Karmelek senarra bizikletan pasatzen ikustean “itxaron, zurekin noa esan” eta martxa egin du. Ondoren azkena geratu garen bostok ere hartu dugu etxerako bidea: Idoiak, Jaionek, Aitziberrek, Haizeak eta nik neuk. Idoia eta biok bide bat hartu dugu eta beste hirurek beste bat, Haizeak gaur kotxea ere beste leku batean utzia omen zuelako. Beraz, Idoiarekin egin ditut autorako bidean ehun bat metro. “Orain zer, etxera joan eta lan asko geratzen al da egiteko?” galdera luzatu diot eta “beno, afaria prestatuta edukiko dut, umeak oheratu eta ez askoz gehiago” esan dit. Kotxean sartu da aurretik elkar datorren astera arte agurtu ondoren.

21.10 inguruan, bakar-bakarrik eta ia-ia arratsaldean non utzi dudan ahaztuta banuen ere nire autora arteko bidea lasai egin dut, paleta esku batean eta ordenagailua bestean. Bero egiten du oraindik, nahiz eta eguzkia ezkutatzeaz den.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko saioaren baldintzatzaile nagusiena eguraldia izan da. Sargori egin du oso eta izerdia nahi gabe ere kanporatzen zen. Giroa ez da batere atsegina izan eta denok erasan gaitu ia hasiera samarretik, bai aldarrez eta baita ahalmen fisikoei dagokienean ere. Saio motela izan da zentzu guztietan.

Banakako partidak amaitu dira talde honetan. Bi astean lortu du Haizeak denek amaitzea. Hori bai azkartasuna! Ea datorren astetik aurrerako saioak, baldin eta bikoteen arteko kanporaketa ez bada asteazkenean, nolakoak diren. Badut gogoia denok denekin aritzen ginen egoeretara itzultzeko, dinamika entretenigarri eta parte hartzaileagoetara. Bide batez, nik uste ni ere taldeko partaideagoa sentituko naizela eta sentituko nautela, jokoan elkarren inguruan aritzea oso lagungarria baita horretarako.

Gaur ere nahiko denbora pasa ibili naiz eta ahal izan dudan heinean behaketa sakontzen saiatu naiz, fisikoki gauza asko egin ez dudala probestuz. Hala ere, une berean gauza bat baino gehiago gertatzen ari direnean arreta ondo fokatu eta nahi beste harrapatzea ia ezinezkoa egiten zait, ezin naiz denera iritsi.

Azken asteetan ohartu naiz frontoiaren aldamenetik pasatzen direnek ez dutela aurpegi arrarorik edo antzeko joerarik izaten geure aurrean, bederen. Esango nuke zenbaitek baikortasunez eta inbidia puntutxo batekin begiratzen digutela. Hala ere, hemengo kasuan ia hasieratik izan dudan sentipena da. Ez dakit berdina esan ote nezakeen beste kasu batzuen inguruan, ez dudalako azterketa hori egiteko paradarik izan.

Inurri lanean, karakolaren erritmoan bada ere

Beste hiru saio eta, beraz, aste bat gehiago igaro zait abenturan hasi nintzenetik. Egia esan, atzera errepasotxo bat egiten hastea nahikoa da bizitako kalentura, desbentura, mentura eta abarrez oroitzeko, baina, errimatzeari utzi beharko diot, hau ez delako bertsotarako jarri didaten gai bat, bertso sorta bat baino gehiago sortzeko iturri lez balioko lidakeen arren. Horiek ordea, aisialdiko eta lanaz gaindiko kontuak dira, beraz, segi dezadan orain artekoaren ildotik. Stop.

Urratsez urrats, sarri askotan ertzik ertz eta erpinez erpin izan bada ere, bidea urratzen ari naizela iruditzen zait eta hori bera bada pozteko arrazoi bat. Oraindik ere gogoan dut behaketei ekin nienean halako zerbait egiteko eta informazioa ateratzeko gai izango nintzen zalantzan jartzen nuela eta, ondo ala gaizki, zuzen ala oker, baina, zerbait gorpuzten ari naizen irudipena badaukat bederen. Beraz, puxtarri bat niretzat.

Puxtarriak puxtarri izanagatik ere, zakuan badaukat beste zenbaitentzako lekurik. Beraz, hormako egutegiari egunero ematen diodan begiratuari heldu diot. Hor aritzen naiz matematika ariketetan murgilduta ($3 \times 3 = 9$ saio, eta ondoren 1, 2, 3, ...) banaka-banaka kontatzen. Gaur ere ezin izan diot muzin egin ariketa horri eta nire kontuak oso okerrak ez badira 68 saiotako oharrak bildu ditut eta 15 saio falta zaizkit, Emakumea Pilotari Egunaz gain. Honek ziurrenik astebeteko kontakizunek adinako pisua izango du, baina, hori ikusiko dugu unea heltzen denean. Beraz, zenbatzen amaitzean igarotakoagatik poza eta amaiera hurbiltzen ari delako nostalgia ukitu bat sumatu ditut nire barrenean, denak nahaspilatu zaizkit. Hala ere, oraindik beste sei aste dauzkat aurretik eta etorri beharrekoak etorriko dira, beraz, ea gai naizen asteak arrapaladan etorrita ere behar bezala eta behar besteko patxadarekin lanean jarduteko, inurri lanean, karakolaren erritmoan bada ere, aurrera egin ezean sekula ez baita posible helmuga marrara iristea.

27. astea. MANTSO-MANTSO, BEHETIK GORA

Maiatzeko hirugarren astea da hasi berri den hau, beraz, urteko bosgarren hilabetea ere atsedean hartzeko intentzio handirik gabe, tipi-tapa, pausoari pausoa lotu eta badoakigu aurrera. Bost aste eta 31 egun ditu hilabete honek, baina, erditik gora laster igaroko zaigu, ohartzera, ziurrenik.

Aurreko asteburuan baino neke gehiago pilatuta nabil astelehen goizean, gainera, duatloi bat eta erlaxatzeko behar zukeen, baina horretarako balia ez nuen bizikleta saio bat direla eta. Hala ere, aisialdian murgildu izanak lana eta ikerketako betebeharrak neurri batean, oso txikian bada ere, ahaztea ekarri dit eta hori bada zerbait, bezperan ordubetea ordenagailu aurrean zerbaitetan jardun arren.

Astelehena patxada puntu batekin eta pentsamendua ere aste osoan lanari helduta aritzeko pronto dudala hasi dut, beste barne kezka bat inguruan ibiliagatik ere hura beste une batzuetarako alboratuta. Izan ere, “lana, lana da” dio esaera batek. Gainera, ahal den heinean, eta gorabeherak alde guztietan izaten direla ahaztu gabe bada ere, komeni da betebeharrak horiek ere ahalik eta modurik gustagarri eta atseginenean burutzea, norbere buruarentzat, eta, ondorioz, inguruarentzat, mesedegarri baita. Beraz, lanera!

Emaitza eta sailkapenak saltsan

Ohartzera heldu da beste astelehen bat gehiago, egunak arrapaladan doazkidan seinale. Ia maiatz erdia pasa da, bihar da San Isidro, 15a, eta niri itolarria sortzen zait egin beharrekoen zerrenda ikusi, hau luzatu eta luzatu egiten da orduak aurrera egin ahala, eta egunek lan asko ukitu gabe hegan alde egiten didatela jabetzean. Hala ere, zezanak harrapatu aurretik komeni zait hasi eta jarraitzea, urduritasunari iskin egin. Ea asmoa egia bihurtu eta azken txanpa honetan adarkadarik jaso gabe amaitzen dudana.

Irratia piztuta egin dut gaurko bidaia ere, joanekoetan bolantean jartzen naizen ia gehienetan bezala, lasai bezain adi, kotxe asko baitabil bidean. Ez dut inolako gorabeherarik izan, ordea, eta saioa hasteko ordu ofiziala baino hamar minutu lehenagorako nire kotxea uzteko zulo bila nabilen. Aparkatzeko ohi baino apur bat urrunago joan naiz eta 9.22an abiatu ordenagailua bizkarrean eta poltsa altzoan, jertsea soinean jantzita. Giro eguzkitsua dago, baina, goizean freskoa oraindik. Itzaletan ez dago berorik.

Abiatu eta handik gutxira Rakelekin gurutzatu naiz. Laster harrapatu nau atzetik berak, ia ni ohartzera.

Kiroldegiko sarrera

Ainara, Gemma eta Irati kanpoko bankuan eserita daude. Ni eta Rakel aldi berean heldu gara, berekin kotxera erosketak uztera zetorrela elkartu naizelako eta berak esan dit bankuan eserita zegoela hirukotea ordurako. Goiz dabilta. Antza denez haurrak ikastolan utzi eta zuzenean agertu dira bertara.

9.25ean sarrera pareko aulkian bost lagun elkartu gara, beraz. Orduan elkar agurtu eta “zer, gaur itzaletan?” galdetu diet nik. Aurreko astean atzeko bankuan aurkitu nituen egoera berean. Ainarak erantzun dit eta “Gemma nahiago zuen” azpimarratu. Eguzkia

hartzeaz, igeriketaz eta udan hondartza zein igerilekuan ibiltzeaz aritu gara hizketan besteak beste. Triatloia aipatu du norbaitek eta nik “ez, ez, duatloi denboraldia hasi eta bukatu, biak egin nituen larunbatean” erantzun diet, Bilbon izan nintzela kontatuz. Ondoren, “beno, ekainaren 11n agian itzuliko naiz berriro igerilekura” aitortu diet. “Zer da ba?” galdetu didate harridura puntu batekin eta “10ean mendiko lasterketa bat dago hemen eta agian irten egingo naiz, probatzeko” erantsi diet. Hortik aitortu diet umetan amonarekin joaten ginela, baina, gero ia hamar urtean ez nuela igerilekurik zapaldu eta Gasteizko sarrera-probetarako prestatzeko eta triatloi pare baten aitzakian baino ez naizela joan berriro igerilekura igeri egitera. “Zuk ez duzu egiten joaten zarenean obligazioz joaten zarelako” esan dit Ainarak eta nik “agian bai” erantzuna eman diot. Iratik ere bera lurtarra dela esan du, nahiz eta “haurrak izanez gero joango zinatekeen” baieztapenari arrazoa eman. Gemmak bota du eta Rakelek “bai, udan errekan, hondartzan edo igerilekuan ibiltzen dira” erantsi du, besteak ere ados agertuz. Nik “beno, hori iristen bada ikusiko dugu” erantzun diet irri txiki bat ahoan.

Saioa izan da iristen hurrena, entrenatzailea, eta hau ere agurtu dugu, ea asteburuan zer moduz ibili den galdetuz elkarri. Berak bazekien Bilbon izana nintzela, aurreko astean astebururako planen berri eman genion elkarri, eta ea zer moduz ibili nintzen galdetu dit. “Ondo, baina gogorra egin zitzaidan bizikletako zatia” kontatu diot. Hala jarraitu dugu hizketan, iraupenaz, sasoi fisikoaz eta azkartasunaz besteak beste. Nik “ni diesela naiz” esana nien aurretik eta Saioak Ainararen “zu zer zara, esplosiboa ala iraupenekoa?” galderari erantzun behar izan dio ia heldu eta kaixo esaterako. Kontu kontari gabiltzala Miren ere azaldu da. 9.30ak paseak dira dagoeneko eta Ainarak Mireni iritsi orduko esan dio “aspaldian hemen harrapatzen gaituzu eta nik uste barrura abiatu beharko dugula”, kideak ohikoa duelako hamar bat minutuko atzerapena eta zenbaitetan pilotalekuan beranduxeago agertu izan delako. Beraz, aulkietatik jaiki eta zutik gaudenok ere mugitzen hasiz kiroldegian sartu gara. Han tornuaren beste aldean dago Ines, gure zain jarrita. Txartelak pasa ostean aurrera egin dugu eta “egun on!” batekin egin diot diosala bere parean igarotzean. Zerbait galdetu duela atezaindegian eta erantzuna jaso zain dagoela adierazi dit, besteok aurrera egin dugun bitartean, guk gure bidean segituz bera han utzita.

Iratirekin hizketan noa ni, gustura, hitzari hitza lotuz. Aurrez Ainarari alabaren eskolarteko finalaz ere galde egin dio. Hala goazela atzetik Inesen ahotsa sumatu dut eta aldageletako pasabidean ahizpari zerbait esaten ari dela ikustean harrapatu gaitu gu ere. Saioa gure aurretik doa, Rakelen parean, eta eskaileretan gora hastean gaur ere “astelehenetan gogorrek egiten dira eskailera hauek” esan du, ikastaroan zeharreko beste egun bat baino gehiagotan bezala. Aurrera jarraitu dugu eta azken ateari eutsiz ere bera geratu da, atzetik datozenak, Ainara-eta, bidean metro batzuk atzeratuta baitatoz. Iratirekin kirolaz, atletismoaz eta antzeko gaiez hizketan jarraitu dut nik, pilotalekura iritsi arte. Azken atea igaro eta bertako lanak amaituta kanpora abiatzera doan garbitzailearekin gurutzatu ondoren frontoiko harmailetan trasteak uzten hasi gara: poltsak, motxilak, jertsea, etab. Atzetik datozenak ere iritsi eta gauza bera egiten hasi dira.

Pilotalekua

Saioa iritsi denean elkarrengana bildu eta saioari ekin aurretik hizketan aritu gara, orri bat eskuetan darabil eta banakako zein partida falta zaizkion begiratu du. Iratirenak hiru dira eta bere arabera Miren eta Gemmaren artekoa ere jokatzeko dago. Hauek, ordea,

“guk aurreko astean jokatu genuen” gogorarazi diote eta berak “ba ahaztu egin zitzaidan apuntatzea” erantzun die. Ondoren nortzuk eta zenbat gauden begiratu eta “gaur Malen ez dator?” galdera ere egin du. Inork ez dio erantzun, ez dute jakingo, itxura denez. Egia esan, puntualtasuna zaintzen du, askotan ni baino lehen iristen da sarrerara.

Zuriñe eta Jone ere iritsi dira pilotalekura eta Jonek “zer, jadanik korrika eginda al zaudete?” galdetu du, borobilean hizketan ari garela ikustean. Saioak ezetz erantzun dio. 9.55 bertan direnean zenbat emakume gauden kontatu eta Inesi “gaur lehenago joan behar al duzu?” galdetu dio. Honek “ez dut uste, 11etan irtengo naiz” erantzun dio. Nik Inesi “esan baietz eta gero ez irten” esana nion ordurako, Saioak berotzen hasteko “orain korrika egin” esaldiaren ostean “beno, itxaron” bat bota eta Inesi aurreko galdera luzatzea erabaki duelako. Kideak, hala ere, “ez, ez, ni 11etan joango naiz gaur, txikia sendatu eta ikastolan dago” esan du. Beraz, hizketalditxo horren ondoren beroketari ekiteko ueña heldu zaigu.

Beroketa

Gorputzak martxan jartzeko hiru itzuli osatu behar ditugu kantxan korrika txikian. Hori izaten dugu lehendabiziko egitekoa eta horrela hasi gara binaka zein hirunakako lerroetan jarrita. Miren eta Inesekin noa ni, atzeko muturrean. Joneri aurrez ea oina zer moduz duen ere galdetu diot, gure inguruan delako. Aurreko astean ez zen etorri orkatilako bihurritu bat medio. Gaur probatu egingo duela esan dit, “min edo traba egiten didala ikusiz gero geratuko naiz” erantsiz. Nik zaintzeko esan diot, behintzat, halakoak ondo sendatzea komenigarria dela argudiatuz. Bigarren itzulia amaitzean gaudela erritmo motela are gehiago moteltzen hasi dira taldearen buruan doazenak eta hori ikusita aurrean doan Iratiri, erdi ahapeka, “hau bigarren itzulia zen” esan diot nik. Ainara eta Gemmak ere jarraitu dute, beraz, denok osatu dugu hirugarren itzulia ere, zintzo asko (B.K. Inoiz birekin ere geratu gara; behin edo birritan ez naiz gogoratzen).

Ondoren borobilean jarri eta giltzadurak mugitzeari ekin diogu. Orduan iritsi da Malen, presati samar, eta “hiru buelta eman behar dira korrikan” esan dio Ainarak, irribarrea ezpainetan. Berak “nahikoa buelta eman ditut aurretik herrian zehar” erantzun dio, irribarrez, eta korroan jarri da. Aldi berean bi elkarrizketa izan ditugu, alde batekoek bat eta beste beste, nahiz eta nik batzuetan bietan parte hartu dudana. Saioa, Gemma, Malen, Ainara eta Rakel ezkerrean daude nirekiko eta larunbateko eskolarteko paletako finalen inguruan aritu dira. Beste aldean, berriz, Miren, Ines, Zuriñe, Jone eta ni larunbateko baten parrandaz, bodegara joan izanaren aitzakian, Bilboko duatloiaz eta modu honetako probetako esfortzu mailaz. Hala ere, amaieran denok hizketaldi batean amaitu dugu, Saioak niri larunbateko eskolarteko finaletako pasarte batzuk kontatu baitzit. Berak entrenatzen dituen haur batzuk aurrez nik entrenatuak dira eta gurasoren batek euren alabak partida galdu ostean “hemen lehengaia badago, baina, ez dakit datorren urtean bikote hau mantentzerik izango dugun” esan omen zion. Beste batzuk, berriz, finalera iritsi eta gozatzen saiatu ordez han ibili omen ziren eta nik “horiek duela 4 urte halakoak ziren, beraz, orain ez dira hobeak izango” erantsi diot. Bakarren baten amaren jarrera ere hizketagai izan dute, Ainarak ere fitxatu zuen antza jende artetik, eta Saioak itxi du hizketaldia “nire alabak izan balira... Nik uste bere garaian emandako zaplaztekoren bat falta zaiela hor batzuei”. Emakumeek barre egin dute eta nik esan diet “ni ere hezitzailea naiz, baina, zenbait kasutan bakarren bat menderatzea ezinezkoa izaten zen entrenamenduetan eta azkenean jokoan irabazi eta hala umiltzen nituen pittin bat, ez neukan beste modurik. Beste batzuk, ondoren entrenatzera etortzen ziren

zaharragoek, ere esaten zidaten lana izango nuela haiekin”. Hala ere, hizketaldia amaitzeko azken esaldian “beste batzuk entrenatzea gozamen hutsa zen eta nik ondo pasatzen nuen” esan diet eta Iratik, atletismoan urte askoan entrenatzaile lanak betetakoak, “bai, batzuk errespeturik ere ez dute izaten” erantsi dit, nire iritzia bere esperientziaren bidez erdi baieztatuz.

Azkenean Saioa motxilatik paletak hartu eta banatzen hasi da, 10.05 badirelako jadanik. Binaka aritzeko pilota bana ere banatu du eta partiden arabera antolatu du lehen bikotea, besteak aldamenen jarrita gauden hurrenkeran jarriz, gutxi gorabehera: frontisean Irati eta Rakel, euren ezkerrean Zuriñe eta ni, gure ezkerrean Malen eta Ines, ezkerrerago Miren eta Ainara eta errebotean ezker hormaren aurka Jone eta Gemma.

Ezker hormaren aurka piloteoan hasi garenean ni ohartu naiz ez diedala emakumeei elkarrizketak egiten hasteko proposamenaz ezer ere aipatu eta Zuriñeri “oraintxe nator, Saioarekin hitz pare bat egin beharra daukat” esanda entrenatzailearengana hurreratu naiz. Hari esan diot “lehen ahaztu egin zait, baina, une batean esan beharko diet denei taldeko zenbait elkarrizketatzea proposatuko dudala. Beraz, gero tartetxo batean ea egiten dudan” esan eta berak “lasai, nik ere lehenago bukatu behar dut 26rako antolaketaz hitz egiteko eta orduan esan” erantzun dit. Beraz, horren ondoren ezker hormaren aurkako piloteoari lotu natzaio, Zuriñerekin batera. Honi ea astea ondo joan al den galdetu diot eta “kexatzerik ez daukagu” erantzun dit. Nik “hori ez da seinalerik txarrena izaten” bota eta tarteka hitzen bat edo beste ere elkartrukatu dugu pilotakadekin batera. Nahi gabe desbideratuta irten zaizkio hainbat pilotakada eta urduritasun puntutxo bat sumatu diodanez “lasai, profesionalek ere ez pentsa dena nahi bezala egiten dutenik, beraz, guk hutsak egiteko askatasun osoa dugu” esan diot aldamenetik eta irribarre bat egin du berak ere, “hori egia da” ahoskatzearekin batera.


Gure ezkerreko bi bikoteak, Miren eta Ainarak osaturikoa bat eta Ines eta Malenena bestea, hizketan ari dira, piloteatu gabe. Mundua konpontzen ari ote diren asmatu nahian antena jarritakoan ohartu naiz Kirol Patronatuak antolatu ohi duen paleta txapelketaren gainean ari direla. “Irailean izango dela esan didate goikoek” jakinarazi die aurrez nonbait Inesek eta horren gainean ari dira, “San Joan Txapelketa izenik ezingo zaio eman” edo “Tilosetako txapelketarengatik izango da” bezalakoak heldu direlako nire belarrietara. Azken hiru urteetan herri festen aitzakian antolatu da eta badirudi data hauetan hastera edo gutxienez horren inguruko informazioa jasotzea espero zutela. Hala ere, guk gurean jarraitu dugu eta Zuriñeri esan diot besteek zer esan duten txapelketa horren inguruan. Berak “beno, ba orduan irailean jokatuko dugu” esan du, garrantzia handiagorik eman gabe. Azken bi urteetan berak ere parte hartu du. Beste laurak, hala ere, gai hori ahotan hartuta dihardute eta Saioa ere hurreratu zaie une batean, zintarekin marra bat jartzera etorri dela probestuz. Nik aldamenetik “gehiegi ez berotu!” esanez saltsa jarri nahi izan dut eta “mingaina berotzen ari gara” erantzun dit Malenek paleta eta pilota eskuan dituela. Halako batean, ekin diote binakako piloteoari, nahiz eta handik oso gutxira entrenatzaileak denok erdira deitu gaituen eta beroketarekin amaitzeko unea heldu zaigun.

Beste bi bikoteak, Irati eta Rakelek osaturikoa eta Jone eta Gemmarena, askoz ere gehiago aritu dira piloteatzen, hauek ere elkarrekin kontu kontari aritu badira ere.


Ariketak

Saioan banakako partidekin amaitu beharra dagoenez “Irati gaur hiru partida jokatuko dituzu” esan dio Saioak eta “animo” bezalako hitzen bidez aupatu nahi izan dute kideek, besteak beste. Gainera, hirurak bata bestearen atzetik jokatuko dituela dirudi, aurkariak txandatuta. Beraz, partidarik ez dugunok erdiko eta atzeko eremuetan arituko gara batik bat.


1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 2:2 partida. Kantxa ezker eta eskuin banatuta, kontrako aldera bota behar da pilota, bikotekoek elkarrekin txandan joz pilota. Pilota jo ostean kontrakantxako marra zapaldu behar da.



3. Atezko gunean 2:2 partida. Atzean jarririko konoari buelta eman behar zaio jotako pilotakada bakoitzaren ondoren



Ariketen azalpena ematen hasterako erlojuari begiratu botata dago Saioa eta Jonek eta Gemmak errebotte ingurutik besteen artera etortzeko denbora gehiago behar izan dutenez, hizketan eta pauso oso lasaian datoz, “beno, hauei azalduko diezue zuek, bestela ere berriz esan beharko zaie eta” bota du Saioak besteoi begira. Inesek ere Ainarari esan dio “zure aldameneko honi ere esan beharko diozu gero”. Saioak entzun eta “halako azalpena eman ondoren” erantsi dio, irriz, Irati eta Rakelekin batera aurrerako bidea hartu duen bitartean (B.K. Inesek berak esaten du ariketak ulertzea kostatzen zaiola askotan). Besteok non hasiko garen ere esan digu aurrez: Ines-Malen eta Zuriñe-ni erdian eta Ainara-Miren eta Gemma-Jone atzean. Saioak tantoak kontatzeko ere esan digu, gune aldaketak horren arabera egingo dituela jakinaraziz.

1. txandako kokapenak hauek izan dira, beraz: aurrean Irati eta Rakel partida “ofizialean”, erdian Ines-Malen eta Zuriñe-ni eta atzean Miren-Ainara eta Gemma-Jone.

Aurreko partida pilotatu samarra iruditu zait zeharka begiratu diodan bi aldietan, bi kideak ezkerrez eta eskuinez jotzen ikustearekin batera. Iratik bestela errebesa erabiltzen du ahal duen guztietan, ezkerrez ere gaizki moldatzen ez den arren, baina, nik ikusi dudanaren arabera kasu honetan ezkerrez baino ez da ari (B.K. Saioaren aurrean ari da eta agian entrenatzaileak ere egingo zion aipamenen bat aurretik). Rakelek ere

aurrera urratsa eman du hasi zenetik eta askoz ere jarraitasun handiagoko pilotoei eusten die, bi besoekin, gainera.

Atzekoen markagailua nola doan esaten entzun dut une batean Miren. Aurretik dira beraiek, baina, saltsa da gehien axola zaiena, barre algara eta tartekako oihiak ere ez baitira falta partida horren menuan.

Erdiko eremuan, berriz, lasai ari naiz ni eta nahi baino traketsago ari da Zuriñe. Nik “aupa, Zuriñe” esanez animatzen dut eta txarra eginda ere ez diola axola. Hala ari garela guk bikoteen kokapenak aldatzea erabaki dugu 10-6 galtzen goazela, gu eskuinekotik ezkerreko eremura eta besteak alderantziz. Nik egin diet proposamena, “gauza bat ahaztu zaigu, aldatuko al ditugu eremuak?” eta baiezeko erantzuna jaso dut. Jokoa zehar marren artean sartzea kosta zaigu zenbait jokalditan eta horma bakarrarekin aritzeak gure joa tarteka beste aldera pasatzera mugatzen du, tantoa hainbeste bilatu gabe, nahiz eta ariketak aurrera egin ahala moztutako, erritmoa bizitutako edo aurrean goxo-goxo utziriko pilotakadak ere izan diren.

Aurreko lehen partida amaituta Rakel atzera etorri da eta Irati hurrengoaren zain geratu da frontiseko eremuan. Beraz, Saioaren aginduetara 2. txandarako kokapenak apur bat aldatu ditugu, guneak trukatzuz batzuk eta bikotekide berriarekin arituz beste bat, Iratik orain Gemmaren aurka jokatu baitu aurrean. Erdian, aurreko txandan 15-8 galdu ondoren, Ainara eta Mirenekin hasi gara Zuriñe eta ni berriro eta atzeko gunean falta diren beste lau kideak elkarren aurka, Ines-Malen eta Rakel-Jone (B.K. Ez dut ziurtasun osoz jakin bikoteak modu horretan osatu ote dituzten, egia esan).

“Nik uste goiz osoa hemen pasako dugula” esan diot Zuriñeri irribarrez ekinaldiari hasiera eman aurretik eta berak “larri ibili” edo halakoren bat esan dit bueltan, modu bertsuan. Hala ere, gustura ari gara elkarrekin eta ez dut uste ez batek eta ez besteak kexarik dugunik. Kasu honetan ere eskuinean kokatu dira hasieran Miren eta Ainara eta ezkerreko eremuan, berriz, gu. Saioari “aldaketak noiz egin erabakiko dugu, 6an edo 8an” jakinarazi diot eta askatasuna eman digunez bikote bat 6ra iristean guneak aldatzea erabaki dugu. Elkartrukean lasai hasi gara, tarteka erritmoa bizitu eta pilotakada baxuagoak bata bestearen atzetik ilaran jo arren. Beraz, 6ra iristean lekuz aldatu gara eta berdin segitu dugu. 12ra iristean “aldatuko gara?” esan du Ainarak, baina, lehengoan jarraitzea erabaki dugu. Ez dugu arazo handiegirik izan ariketa osatzeko eta geuk hartu ditugu geure kabuz erabaki pare bat. Bigarrena bi sake egitearena izan da, aurkariak huts egitean Ainarari pilota itzuli eta “bi sake daude” esan baitiot. Berak gustura jaso du pilota. Jokatzan jarraitu dugu eta nik saketik huts bat egitean “utziko diogu errepikatzen?” esan diot Ainarak Mireni, irribarrez. Niri ere utzi didate bigarren sakea egiten eta modu horretan jarraitu dugu aurreko partida amaitu den arte. Azkenean 16-10 galdu dugu. Aurrean partida amaitu da eta bigarren errotazioaren ueña iritsi da jadanik.

(B.K. Ez dut atzeko jokoa gehiegi jarraitu, gurearekin nahikoa lan izan baitut. Aurrean, berriz, piloteatua izan da partida, baina, ez dut xehetasun gehiago jasotzerik izan)

3. txandarako kokapenak zehazteko emaitzak galdetu dizkigu aurrealdetik entrenatzaileak eta “guk berriro ere galdu egin dugu” esan diot Saioari nik. Hala ere, berak “beno, segi atzera” esan digu, irribarrea ahoan, Miren eta Ainara erdiko eremuan utziz. Zuriñek eta biok irriz “errukiz eremuz aldatu gara” bota diogu, baina, beti egiten dugu halako aldaketaren bat denok gune denetatik pasa gaitezen eta inor ez da harritu.

Erreboteko gunetik frontisera doan bitartean “utzi Iratiri arnasa pixka bat hartzen” bota dio Jonek entrenatzaileari, bi partidaren ondoren neke puntua eta aurpegiko gorritasuna pixka bat nabaritzen baitzaizkio kideari. Denbora apur bat eman nahian, beraz, entrenatzaileak buruz buruko eguneko 3. partida jokatzen hasi aurretik, txapelketako azkena da, gainera, “sailkapena nola dagoen jakin nahi al duzue?” galdetu die inguruan dituen Malen, Ainara, Gemma eta enparauei. Iratik ezetz erantzun dio, irmo eta berehala. Nik hori entzutean “gaixoak ezetz esan badizu eta partida bakarra falta bazaio ez iezaiozu putakeria hori egin”. Berak, ordea, esateko gogoia du, aurpegiko irri salatariak nabarmentzen du, eta puntu kopurua esaten hasi da, izenik esan ez arren buruarekin nori buruz ari den keinuka: “aurrenak 16 puntu, bigarrenak 15, hurrengoak 13,...” Bien bitartean Zuriñe, Rakel eta ni neu dagoeneko prest gaude atzean, baina, laugarren kidea falta zaigu, beraz, nola edo hala zain gauden bitartean geure arteko hizketaldia eta besteen esanak uztartzen saiatu naiz ni. Rakelek “Irati berotu bat hartzen ari da, gaixoa” esan du. Ondoren sailkapenaren harira “atzealdean zu eta ni egongo gara Zuriñe” bota du, kezka handiegirik gabe. Horren harira “asko hobetu duzu zuk” esan diot eta berak “sakea ateratzen dut eta jo ere bai” esan dit lehenengo. Ondoren “ezkerrez eta eskuinez ematen diozu” esanez segitu dut nik eta berak “bai, ezkerrekin ikasi behar dudala tematu nintzen” esan duenean “borondateak asko balio du, hori ondo asko dakizu zuk” esan diot Zuriñeri. Hark baietz egin dit buruarekin. Halako batean laukotea elkartu gara eta ekin diogu lanari.

Konoari bueltaka, Gemma-Rakel eta Zuriñe-ni ari gara erreboteko eremuan. Erdian, aldiz, Malen-Ines eta Ainara-Miren ari dira. Ni lasai ari naiz, Rakeli tokatu zaiolako askotan nire ondoren jotzea, nahiz eta tarteka Gemmari tantoren bat sartu eta honek “alua” pare bat aldiz esan didan. Nik irribarrez erantzun diot, berak ere broma giroan esan didalako. Badaukagu hainbesterako elkar ezagutza, egia esan.

Jardun bat egin dugu partidari eta tarteka konoraino joan eta itzultzea kostatzen zaio bat baino gehiagori. Hala ere, ederki moldatu gara. Oraingo honetan gehiago erreparatu diot aurreko partidari, batez ere konora bidean eta handik bueltan, eta oso orekatua izan dela ohartu naiz, 5-6 eta 7-7 joan direla entzun eta ikusi baitut.

Amaitu dira buruz buruko partidak, amaitu da talde honetako sailkapen ligaxka, eta denok bildu gara elkarrengana entrenatzailearen deiarri segituz. 10.40 ez dira oso urrun eta “ordu hori al da?” galdetu du Mirenek. “Egia esan, mingainari ematen diogu” bota du ondoren. Oraingoan Saioa banan-banan sailkapeneko postuak esaten hasi da, baina, hirugarrenetik atzera, Ines aipatu du postu horretan, zalantzak sortu zaizkio. “Miren, Gemma eta Irati zaudete laugarrenerako eta finalerdiak datorren astean jokatuko dituzue” esan du Saioak. Mirenek “ni ez nago datorren astean, lana daukat” esan du eta Saioak “beno, ba, hurrengoan”. Ainarak dataz ohartuta “baina, 26a pasata egongo da orduan” eta urduritasun unea heldu da. Gainera, Gemmak esan du Inesek eta berak partida kopuru bera irabazi eta galdu dutela eta, beraz, berez puntu kopuru bera izatea dagokiela. Saioari emaitza eta sailkapenaren paperik ez duela ekarri entzun diot eta une horretan bertan bonbilla piztuta “nik ordenagailua daukat hor eta zuk bidalitako Excel-a badaukat, aurreko asteko emaitzak sartzea falta bazait ere” esan diot. Beraz, ordenagailua atera eta aulkian jarrita geratu naiz piztu zain, besteei begira. Inesi grazia egin dio egoerak nonbait eta “atera argazki bat” esan die besteei, irriz.

Saioak emakumeei sailkapenarena argitu bitartean pilotan jarraitzeko esan die eta aurrean Ainara-Ines eta Malen-Rakel elkarren aurka eta atzean Irati, Miren eta Jone hasi dira. Saioa kontrakantxara hurbildu da eta falta ziren emaitzak sartu ostean esku artean daukagu sailkapen “ofiziala”. Ordenagailuan kontuak aterata, beraz: Malen, Ainara, Gemma eta Ines finalerdietarako sailkatuta.

10.45 dira eta Saioak gaur ala datorren astean jokatuko diren ezin erabakita egin du tartetxo bat. Gaur jokatzera erabakita, azkenean, ondoren nor hasiko den zalantza sortu zaio. Nik “beno, nahi duzuna, baina, erabaki, bestela ordu erdi joango zaigu honekin” esan diot eta Rakelek ere halako baieztapen bat egin du. Kostata izan bada ere, eta hasierako ordena aldatuta, finalerdiak jokatzen hasiko dira kideak eta guk erreboteko gunerako bidea hartu dugu, jokatzerara.

1. finalerdia Malen eta Inesen artekoa izan da. Bitartean Miren-Rakel eta Ainara-Gemma erdiko gunean pilotatzen ari dira eta gu atzean: Irati-Jone eta Zuriñe-ni.

Iratik ni jotzera noanean “ai, ama!” behin baino gehiagotan esan du eta “lasai, ez dut inor jaten” esanez erantzun diot nik, irri txiki bat ahoan. Urduritasunak erasaten du zenbaitetan ni jotzeko prest ikustean, baina, ederki moldatzen da. Aurrean Jone eta ni ari gara eta atzelari postuetan, berriz, beste biak. Hasieran zalantza egin dugu konoa zapaltzera joan edo ez, baina, gogo izugarririk ez dugunez eta Irati ordura arte korrika batera eta bestera aritu den aitzakian nik hartu eta murrugainean utzi dut, 2:2ren aurka baldintzarik gabe jokatzen amaituz.

10.58an amaitu dute aurreko norgehiagoka eta zer ordu den ikustean Rakel eta Inesek ospa egin dute, elkar datorren astera arte agurtzearekin batera.

2.erako “bi ahizpak” esanez dei egin die entrenatzaileak Gemma eta Ainarari. Malen eta Miren begira geratu dira, kontrakantxan. Lehenak urari trago pare bat ere jo dizkio, partida amaitu berria baita. Atzean, berriz, lehengo moduan jarraitu dugu guk, nik tarteka gaiztakeriaren bat edo beste eginez eta aurkariak dantzan jarriz. Kasu horietako batean Zuriñek “hori da autoritatea” esan du nik sake bueltan pilota aurrean utziz tantoa erraz samar lortu dudala ikustean. Beste hirurok irribarre egin eta jokoan jarraitu dugu. Une batean nik markagailuan nola goazen ere galdu dut, baina, uste dut gutxienekoa dela, Joneri “ez dakit nola goazen” esatean “nik ere ez, baina ez dio asko axola” erantzun baitit.

Miren eta Maleni “zer, partida ona al da?” galdetu diet atzeko eremutik eta “bai, ikusteko polita” erantzun dit lehenengoak. Gu ere 7-4an aurrera begira ari ginen errebotetik eta Gemmak 7-5ekoa lortu duenean, 8ra denez azken txanpan sartu direlako, “beno, goazen ikustera” eta kontrakantxara hurbildu gara. 11.07 dira. Hurrengo tantoa ahizpetan zaharrenak lortu du eta 8-5 irabazita Ainara da sailkatuetako bat.

Saioak sailkatuak erabakita dauzka, Malen eta Ainara, eta paletak jaso eta besteak borobilean dauden bitartean marrak kendu ditugu Ainarak eta biok. Berak aurrekoa eta nik erdiko eremuan 6aren parean jarririk zegoena. Ondoren errefusaren ontzira bota eta kideek osaturiko borobilera bildu naiz neu ere. Saioak azalpenak ematen hasteko unea du.

Emakumea Pilotari egunaz galdetu die ea zer asmo daukaten eta aurten ordainketa aurrez egingo dela jakinarazi, 20€ izango omen dira. Zein badoan eta zein ez galdetu du eta Malenek erdi broman “ni ez” esan du. Gemmak zalantza agertu du eta Jonek “nik ezin dut” esan du. Ainarak ordainketa egin dio Saioari eta “ondo apuntatu” erantsi du, niri begira “zuk gogoan hartu, honi partidaren emaitzak ere ahazten zaizkio eta” esan du ondoren. Nik irribarrez erantzun diot. Festa egunaren inguruko xehetasun horiek eman ostean niri heldu zait hitza hartzeko unea.

Ez nekien nondik eta nola hasi, baina, halaxe azaldu diet: “ez dakit gogoratuko zareten, elkarrizketak egiteko asmoa agertu nuela hasieran behaketen amaiera aldera. Jakin dezazuen batzuei proposatuko dizuet nik egindako galdera batzuei erantzutea, besteek arrarotasunik ez sumatzeko. Hiru herrietako 25eko kopurutik 7-8 hartzeko asmoa dut, hemendik momentuz Ines, Ainara, Irati eta Zuriñe. Nirekin geratu eta galdera batzuk erantzutea izango litzateke”. Arretaz entzun dituzte nire esanak eta “argazkirik eta bideorik ez, ezta?” galdetu dit Iratik. Kidea lasaitzeko “grabagailua hitzentsat bai, baina, nirekin hizketaldi bat izango da. Ez da inongo azterketa. Zuen iritziak jasotzeko asmoa da, ez besterik”. Irati eta Zuriñe prest agertu dira hasiera-hasieratik, beraz, datorren astean hitzorduak zehaztekotan geratu naiz. Bat hamabietan sartzen omen da lanera eta bestea 12.30ean, “goizetan libre daukagu” esan didate, beraz. Zuriñeri irribarrea atera zaio eta Joneri, alabari, ere bai ama hautatu dudala ikustean. Honek ondoren ea zer moduz nabilen galdetu dit eta “beno, hor nabil” erantzun diot. Gemmak “hobeto ni ez banago” esan du zerrendan ez dagoela ikustean eta Ainarak ez du ezer askorik esan, baina, ez zait iruditzen eragozpenik jarriko didanik. Ines joanda dago dagoeneko, beraz, datorren astean kontatuko diot nire asmoaren berri.

Han kontu kontari ari gara eta beste puska batean jarraitzeko ez genuke arazo handiegirik izango. Saioak aprobetxatu du esateko “bihar San Isidro eguna dela eta pilota partidak daude Tilosetan, 11:30ean”. Berak jokatu omen du emakumeen erakustaldi partidaren. Hortik Oiartzungo finalean paletaz jokatu omen du hernaniarrek osaturiko bikote bat aipatzera pasa da eta geroago “ze onak diren” bota du. Bakarren batek atzetik “guapoak ere bai” esan dio eta gai hau ahotan hartuta abiatu gara pilotalekutik kanporako labirintoan aurrera.

Kiroldegiko sarrera

11.20an agurtu ditut elkarrekin irtendako Jone, Zuriñe eta Irati. Elkarrizketetarako datorren astean hitz egitekotan geratu naiz eta ezer behar badut deituko diedala esan diet. “Aste ona pasa eta eskerrik asko” esanda amaitu dugu eta sarreraren geratu naiz besteen zain, entrenatzaileari zerbait eskatzea gogoratuta. Denbora dezente pasa dut zain eta zalantza ere egin dut une batean geratu edo liburutegira alde egitearen artean.

11.40an irten dira kanpora Malen, Gemma eta Saioa. Azken honen zain egonagatik erdi ahaztuta daukat dagoeneko, beraz, kideak agurtu eta ez dut askoz gehiagorako probestu ordu laurdeneko itxaronaldia. “Uxue hemen dago, gaixoa” esan du Malenek ni ikusi nauen orduko eta “erdi eztabaidatzen aritu gara, entrenatzaileaz eta abar, eskolartekoaz” kontatu dit Gemmak. Laurok irten gara atetik eta eurek eskuinera eta beste biok ezkerredera egin ditugu lehen pausoak. Saioarekin bi hitz egin eta liburutegira abiatu naiz, beraz, ohi baino atzerapen handixeagoarekin eta saioan gertatuaz oroitu ote naizen zalantza batzuekin.

11.45 dira eta Ines ikusi dut justu nire aurretik kalean. Pausoa bizitu eta atzetik harrapatu ondoren kasu egin diot eta “zurekin hitz egin behar dut, elkarrizketa batetarako” esan diot aurrena, diosala egitearekin batera. “Datorren astean hitz egingo dugu” esanez agurtu dugu elkar, beste lagun batekin hitz eginez doalako kalean aurrera. Nik ezkerretara hartu dut eta liburutegiko sarrera nagusitik sartu naiz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Emakumeak pozik, gustura, aritu dira gaur ere, nahiz eta egitura ezohikoa izan den. Izan ere, banakako partidekin amaitu beharrak jokatzeko zeudenak jokatzera behartu du entrenatzailea eta besteok nahiko “utzita” izan gaitu, baina, ederki moldatu gara geure saltsan. Gainera, nabari da beste autonomia bat ere hartzen dutela zenbaitek erabakiak hartu behar badira ere, nahiz eta nagusiki ekintza puntualetan baino ez den (Adib. arauren bat aldatzeko, ez bikoteak erabakitzeko).

Gaurko saioak ni ere asebate nau hein handi batean. Jolasean aritzeak baino gehiago lanean aurrera jarraitzeko eman beharreko lehen urratsa eman dudalako. Izan ere, elkarrizketena lotzen hasteko moduan naiz gaurko saioaren ondoren eta horrek lan karga dezente zamatuko didan arren gauzak aurrera doazela ere adierazten dit. Ondo iruditu zaie emakumeei, gainera, beraz ea zer moduz moldatzen naizen denekin geratu eta hitzorduei ahalik eta zukurik gehien ateratzeko. Hori datorren astetik aurrera izango da.

Partidetako emaitzak eta sailkapenak erdigune zirela gorabeheraren bat izan da, baina, eskerrak ordenagailua genuen eta momentuan bideratu dugun. Ez nuen bela usteko horretarako balioko zuenik eta hala arituko nintzenik saio batean, idazkari lanetan!! Gai beraren beste ertz bati helduta, bakarren bat emaitza eta sailkapenetan apur bat pikatzen dela esan dit Saioak, baina, halakoetan buelta eman eta adarra jotzeko probesteko aholkatu diot nik, egoera norbere ezaugarrietara moldatzen saiatzeko. Emakumeek, behintzat, dituzten pikeak sanoak direla adierazten dute eta saltsaren baitan kokatu izan dituzte gaur arte.

Bost saio baino ez zaizkit geratzen Hernaniko saioei dagokienez, eta amaiera gertu ikusteak beldurtu eta ilusionatu egiten nau, biak batean. Ea ez naizen zurrunbilo arraro eta handiren batean sartzen hori dela eta, behintzat!

Momentuz nahikoa. Bihar gehiago, eta hobeto?

“Ateak zabalik”

Gaur San Isidro omen, baserritarren eguna. Hala entzun dut egunean zehar irratian eta baita beste hedabideren batean irakurri ere. Gainera, oker ez banago aurreko asteko paleta saioaren ondoren zizurkildarren batek ere esan zuen “datorren astean San Isidro da eta ez dakit hemen zerbait izango ote den”. Herriko baserritarrek eguna bazkari batekin ospatzeko ohitura zutela jakin nuen gisa horretan. Gure herriko auzo batean ere ospatzen da gaurko eguna eta autoan abiatu naizenezan pasa naiz musika hots eta zaldiko-maldikoren baten aldamenetik.

Hala ere, ez nabil ni festarako ez indartsuegi eta ezta gogotsu ere. Egun aldrebesa daramat oso goiz-goizetik. Gorputzaldi kaxkarrarekin nabil, ahul, buruko minez eta nahiko larri, gauean begirik bildu gabe eta egunean zehar ere atsedetik hartzen asmatu

gabe. Hotzikarak eta zorabiotxoren bat ere izan ditut aurreko orduetan. Uf! Ea nola egiten diedan aurre bidaiari eta gaurko paleta saioari! Inork ez zuen esan dena arrosa kolorekoa izango zenik, ezta?

Beraz, osasunaren gaineko kezka lagun ez naiz bakarrik izango gaurko jardunerako. Hala abiatu naiz etxetik zazpiak jo aurretik, bolantean jarri eta N-1ean barrena, giro freskoa eta tartekako zaparrada eta euri tantak kotxeko kristalean nola pausatzen diren behatuz. Irratia ere piztuta daukat, baina, ez diot jaramon handiegirik egin, uhinetan jazotzen ari denaren ordeaz neure barrunbeetako pentsamendu zein sentipenei arreta jarrita bainabil.

Pilotaleku ataria

Eliza aurrean jende multzo bat hizketan ari dela ikusi dut eta orduan oroitu naiz San Isidro eguneko bazkari eta ospakizunaz. Ohi baino auto, lur orotako ibilgailu eta jende mugimendu handiagoa sumatzen da gaur arratsean Zizurkilen. Hala ere, ez dut aparkatzeko batere arazorik izan.

19.29an iritsi naiz pilotaleku atarira, zama handia zeraman kamioi baten atzetik egin baititut Villabonako irteeratik Zizurkilgo bidegurutzera arteko kilometroak, ilaran eta mantso-mantso. Ni iritsi naizenerako Itsaso eta Saioa bertan daude, bakoitza bere kotxearen barruan, tankera batean beste norbait heltzeko zain bertatik irteteko.

Iritsi, poltsa esku artean hartu eta zuzenean kanpora irten naiz. Orduan etorri dira Itsaso eta Saioa ere. Hormetan kartel pare bat ikusi ditut itsatsita eta zer ote zioten ikustera hurreratu naiz lehenengo. Batean larunbaterako kantu bazkaria iragartzen da eta bestean Herrira mugimenduak deituriko mobilizazioak iragartzen dira. Besteek ere irakurri dute zutabearen itsatsita dagoena, elkar agurtu ondoren, noski.

Saioak praka erabat luzeak ez dauzka soinean jantzita eta “hotzik ez al daukazu?” galdetu diot nik harridura puntu batekin. Berak baietz aitortu dit, gorputz barrua hotz nabari duela, baina azaldu dit goizean ez omen zegoela hainbesteko hotzik bera etxetik irten denean. Orain, ordea, freskura sumatzen da, haize fina dabilelako, besteak beste. Hotzaz eta astebetean emandako tenperatura aldaketaz ari garela iritsi da laugarrena: Gurutze. Laurok elkartu eta berehala kotxe bat pasa da gure aurretik bozina joz. Eli zetorren bi semeak atzean hartuta eta ni hasieran ohartu ez banaiz ere “han Eli” esan du entrenatzaileak. Emakumea Pilotari Egunaz hasi gara hizketan gu, ea joango ote diren galdetu du Saioak eta aurten dirua aurrez jartzea beharrezkoa izango dela, eurek erosketak egin eta eurek dutelako bazkariaren zati bat prestatzeko asmoa. Gurutzek “nik ez dut dirurik ekarri, baina, nahi baduzu etxera joan eta ekarriko dizut” erantzun dio, eta Itsasok kotxera joan eta 20€koa eskura eman dio Saioari. Nik, berriz, “nik Haizeari eman beharko diodala pentsatzen dut, izena ere hari eman niolako. Ezingo naiz hiru aldiz eta hiru leku ezberdinetan apuntatu, ala?” esan eta “aurreko astean Usurbilen esan nien komeni zaidan unean erabakiko dudala egun horretan zein herritakoa izatea komeni zaidan, edo ikertzailea izatea, edo teknikari ohia” erantsi dut irribarrez ondoren. Gurutzek barre egin du eta “agian hiru otordu izango dituzu” esan dit. Gaineratu diet “egun horretan, gainera, lana egitea tokatuko zait eta ez dakit nola antolatuko naizen denarekin gogoratzeko. Beldur apur bat ematen dit, ez dakidalako nola lortu egitura batekin saioak memorizatzea, baina nik uste unereren batean alde egingo dudala idaztera eta gero berriro itzuliko naizela”. Gurutzek “nik uste grabagailua eskuan ibiltzea izango

duzula agian onena” esan dit lagundu asmoz eta Saioak “zer, baina, arratsaldekoa ere sartzen al da ba?” galdetu du. Nik “laneguna etxetik irteten naizenetik sartzen naizenera artekoa da” erantzun diot, irribarrea ahotan. Ondoren asteburuko mendi ibilaldiaren berri galdetu diote Saioari eta “ondo ibili ginen, motel eta erraz” erantzun die lehenbizi. Ondoren ibilbideaz aritu dira, Larraul, Zelatun, Albiztur, Hernialde eta abar pasa omen zituzten, eta bideko aldaparen bat edo beste ere izan dute hizpide.

Mingainak dantzatzuz ari garela Pili iritsi da. Aurrez Oihane ere pasa da kotxean etxera bidean, leihotik agur eginez. Beraz, pentsatzen dut hau ere ez dela oso urrun ibiliko. Pili iritsi denean “26an joateko asmorik ba al duzu?” galdetu dio entrenatzaileak eta kideak “gaur aritu naiz pentsatzen, baina oraindik ez dut erabaki” erantzuna eman dio. Orduan “9ak arte daukazu erabakitzeke astia” erantzun dio. Marian eta Oihane ere nahiko batera iritsi dira eta “zer, Marian, aurten animatuko al zara 26kora?” galdetu dio Saioak, xaxatzen saiatuz. Honek “nik asteburuak beteta izaten ditut eta ez. Gainera, baliteke familia bazkariren bat edukitzea egun horretan”. Beraz, kalabazak eman dizkiola ikustean “sekula ez zara joan” esan dio pena puntu batekin entrenatzaileak. Oihanek, berriz, “nik senidetze eguna daukadalako Asteasun, bestela gustura joango nintzateke” esan du.

Pilotalekura sartu aurretik beste hizpide bat ere izan dugu amaiera aldera. Gurutzek esan du gustura irakurriko zukeela aurreko asteko nire idatzia eta Saioak ere esan du irakurriko lukeela zer idazten dudan. Nik lehenari “ez nuen ezer berezirik idatzi” erantzun diot lehenengo eta bigarrenari “lasai, bi urte barru irakurriko duzu, gustu handiz erakutsiko dizut, gainera. Hala ere, zuen izenak ez dira bertan azalduko” esan diet. “Irakurri eta hau ni naiz esango genuke” ere esan dute, erdi barrezka.

Pilotalekua

Kostata, baina, eskaileretan behera abiatu gara kantxara, saioari ekiteko. Trasteak utzi ondoren korro moduko batean bildu gara eta “hotz egiten du gaur” egin du aipamena kideren batek. Egia esan, ez da bero handirik nabari eta jertseak soinean ditugula gabilta denok momentuz. Orduan Eli agertu da, bi semeekin eta “arratsalde on, Eli” esanez agurtu dugu denok elkar. Gurutzek “Eli eta konpainia” esan dio, semeak ere bertan daudelako. Antza denez Emakumea Pilotari egunerako dirua ekartzera etorri da, “gauean afaria daukat, baina ekartzea erabaki dut, bestela ez naizelako animatuko” esan du. “Lanak ondo egin ditu” erantsi du entrenatzaileak eta adierazi telefonoz deituta eman ziola asmoaren berri. Ildo horretan Gurutzek “nik lehenago etortzeko asmoa daukat, hitz egingo dugu joateko” adierazi dio bi hitz gehiago egin ondoren “etorriko naiz hurrengoren batean” gaineratu du. Oraindik ere hankan min hartuta dabil, lau aste pasa arren zuntz hausturatik errekeratu gabe.

Ohi bezala, kontu esan-aldiaren ondoren beroketa hastear gaudela Itsasok telefono dei bat jaso du eta frontoitik kanpo irten da deiari erantzunez. Beste guztiok, berriz, korrika saiotxoari ekin diogu, geldi egonda hozteko arriskua baitaukagu. Onintza ere iritsia da, beraz, taldekide denak batu gara min harturikoa izan ezik: zazpi.

Beroketa

Korrika hasi aurretik Pilik “ez dut uste ezer daukadanik, baina, oraindik ez dut aitzakiarik prestatu” esan du eta Gurutzek hori entzutean “hori idatzi tesian Uxue, baina

goitzenik gabe, e!” esan dit. Nik irribarre egin dut, kide gehienen moduan. Orduan “beno, joan beharra daukazu, ez daukazu ihesbiderik Pili” bota dio beste bakarren batek.

Denok, entrenatzailea barne, hasi gara joan-etorrian frontisetik errebotera eta errebotetik frontisera. “Gaur nabari da Saioak hotz daukala, bera ere korrikan” esan du Oihane eta taldekideok baino pare bat metro aurreraxeago doala ohartuta “nabari da zeinek meriendatu duen” esan du Saioak barrez. Nik ez dut zehatz-mehatz entzun, baina, Gurutzeren aldamenean noa eta hari galdetuta jakin dut. Izan ere, Oihane ogitarteko txiki bat janez agertu da saioaren hasierara, goseak zegoela argudiatuz. Ondoren Saioa niri zuzendu zait eta “zenbat buelta ematen ditugun idazten al duzu tesian?” galdetu dit eta “ez, ez naiz zenbatzen aritzen hemengoak” erantzun diot. “Hernanin hiru ematen direla bai, eta bakarren batek ahal badu bi, baina, hemengoak ez ditut zenbatzen” gaineratu dut ondoren (B.K. Egia esan gaur arte ohartu gabe nengoen batean zenbaki zehatza ateratzen dudala eta beste bi herrietan gutxi gorabeherakoa, itzuli kopuruari baino gehiago korrika txikian igarotako denborari erreparatuz. Zergatik ote?!).

Korrika saiotxoari amaiera eman diogu kantxaren erdialdean Saioak “beno, berotzen ari naiz” esan duenean. Bost bat joan-etorri egingo genituen. Tartean Itsaso falta zaigu, telefonoz hitz egiten ari delako eta Gurutzek une batean hura ikustean “nik ere berotuko nuke mingainari emanez hark bezala” esan du. Justu guk korrika saioa amaitu orduko etorri da berriro ere kantxara eta “korrika egin dezakezu” esan dio Gurutzek kideari, konfiantza lagun. Itsasok irribarrez erantzun dio, “lasai, ez daukat beharrik”.

Giltzadurak mugitu eta luzaketa batzuk egiteari ekin diogu ondoren, borobilean jarri eta Saioak egiten dituen mugimenduak imitatuz: orkatilak, belaunak, gerria, etab. Gerria biratzen hastean “harria jasotzea” edo halakoren bat esan du Gurutzek eta Saioak “sakroa eta ezkerreko gluteoa kargatuta ditut” esan du. Nik horren harira “fisioarenera joan beharko duzu” esan diot, “ni 6 edo 8 astean behin joaten saiatzen naiz” azalduz ondoren. Saioak “non ematen dizu masajea?” galdetu dit eta esan diot “nik lehenengo esaten diot zintzilik jartzeko moduan joaten naizela eta gero kargatuen daukadan gunean aritzen da. Han egoten naiz ordubetez kamilan. Nik antzematen dut”. Aurrez Onintzari ea maiatzaren 26an joateko asmorik baduen galdetu dio entrenatzaileak eta “bai, festara joango gara” erantzun dio kideak. “Eli ere joatekoa dela” esan du eta “bai, bai, lehen etorri da dirua ematera” jakinarazi diogu. Ondoren “kurtsoaren amaiera dela antzematen da” esan du Pilik, beti dagoela zerbait. Onintzak “igande honetan haurren biatloia dago” esan du eta “beno, Zizurkilen astebururo bada ekitaldiren bat” erantsi du Oihane. Besteak beste ekainaren 3ko Eskola Txikien Festa, Larraulen ospatuko dena, eta ekainaren 10erako antolatu duten beste zerbait ere aipatu ditu.

Zortziak ate joka ditugu jadanik. Hizketaldiak nahi gabe luzatzen zaizkigu guri eta gai batekin hasita ere beste edozein gairekin loturak egin eta luze jarraituko genuke. Solasaldian ari garela, baina, entrenatzaileak motxilarako bidea hartu du eta paleta eta pilotak banatzeari ekin dio. Itsaso, Onintza eta hirurok paleta bana hartu dugu eta beste laurak eurek ekarritakoak, zulodunak, hartu dituzte harmailetatik. Pilotak, berriz, nahiko ausaz banatu ditu, kide batzuei bana eta beste batzuei ez emanez. Saioak aurrez esan digu “argia pizteko fitxa bakarra daukat” eta “beno, beranduago piztu eta nahikoa” esan diote emakumeek.

Beraz, beroketako azken atalari ekiteko moduan gara: ezker hormaren aurkako pilottoa. Errebotetik gertuen Pili, Oihane eta Marian jarri dira, erdian Onintza eta Itsaso eta

amaitzeko, berriz, frontisetik hurbilen Gurutze eta biok. Hizketan aritu gara eta nik “zer, azterketak bukatu al dituzue?” galdetu diot. Berak “batzuk zuzenduta eta amaituta ditut, baina, datorren astean beste batzuk tokatzen zaizkit” erantzun dit. Orduan oroitu naiz batxilergoko lehenengo mailan oso goiz hartzen genituela oporrak eta “nik uste garai honetarako oporretan izango ginela” esan diot memoria apur bat egin ostean. “Bai, baliteke. Ikastetxe batzuetan dagoeneko hala daude, baina gurean apur bat atzeratzen dizkiegu oporrak, gurasoak kezkatzen baitira” erantzun dit. Hori entzutean irribarre egin dut eta pilotakadak elkartrukatzen jarraitu dugu. Horrez gain, une batean entrenatzailea bera inguratu da gure parera, saiorako marrak mugatzeko zinta jartzera, eta “lehengoan Donostiako taldeko bat ikusi nuen Amaran poteatzen eta duda egin ondoren elkar agurtu genuen” azaldu digu. “Hasieran zalantza egin genuen biok, baina palatik ezagutzen nuela esan nion eta orduan elkar ezagutu genuen” kontatu digu. Saioak ondoren errebote ingururako bidea hartu du zinta eskuartean duela, han ere beste marraren bat jarritz.


Piloteoa amaitutzat eman dugu entrenatzaileak kide guztioi deitu digunean. Hala ere, Gurutze eta biok ez gara ohartu lehenengo deialdian eta beste denak elkartuta zeudela ikustean “barkatu, ez gara konturatu” esanez bildu gara taldekideengana.

Ariketak

Gaurko saioa ez da aurreko astekoaren antzekoa izango, baizik eta antz gehiago izango du bezperako Hernaniko saioarekin edo aurrez banakako partidak jokatu direnean egin izan ditugunekin. Izan ere, banakako partidak amaitu beharra dago hemen ere, Emakumea Pilotari eguna bertan izanik, herri bakoitzeko ordezkariak erabakitzea ezinbestekoa baita han jokatu den txapelketa herrikoia azken faserako.

Entrenatzaileak esan digu non eta norekin ekingo diogun jardunari, falta diren norgehiagoken arabera betiere, eta ni atzeko eremuan kokatu nau bikote baten aurka. Hori ikustean Onintzak adarra jo asmoz “a zer lanak!” esan dit eta nik “bai, pentsa ezazu” erantzun diot. Saioak, berriz, “zer, komodin bezala erabiltzen zaitudala ere idatzi behar al duzu tesian?” galdetu dit. Nik irribarre batekin erantzun diot, hitzik esan gabe. Egia esan, tesia azken boladan baino dezente maizago izan dute hizpide kideek gaur eta horrek deseroso samar ere sentiarazi nau, zer esan eta zer ez erabaki beharraz gain, iruditzen zaidalako arreta gune ere bihurtu nautela une jakin horietan egindako aipuen bidez (B.K. Ez zait gustatzen halako egoerak ematea, baina, ez dago nire esku bakarrik!). Hala ere, ez dut uste asmo txarrez edo kezkek medio egindako aipamenak izan direnik, baizik eta giroa eta saltsa jartzeko. Kontuak kontu, gune ezberdinetan pilotakadaka hasteko moduan gara.

1. Frontiseko eremuan, 1:1 partidak.



2. Erdiko gunean 1:1 piloteoa.

3. Aitzeko gunean 2:1 partida.

1. txandako kokapenak zehaztu dira partidaren arabera, beraz. Aurrean Itsaso eta Onintza hasi dira banakako norgehiagokan, erdian Oihane eta Pili hurrengo partidarako zain, pilotean, eta atzean Marian eta Gurutze nire aurka.

Gu hasieran pilotean hasi gara, baina, besterik gabe ari garela huts pare bat egin ostean “zer, hasiko al gara?” esan diogu elkarri eta bi baten aurkako partidaren hasi gara orduan. Zabaleko eremua zehazteko 7,5eko marra fina erabiliko dugula ere zehaztu dugu, hainbeste marraren artean ez baita erraza antzematen. Tartean “marra horiak berriak dira” esanez aritu gara elkarrekin Gurutze eta biok, astero agertzen baita berriren bat. Ni nahiko lasai aritu naiz jokatzeko, kide bati zein besteari pilotakada kopuru antzekoa zuzentzen saiatuz gainera, denok parte hartzeko aukera izan dezagun. Hala ere, ezkerreko hormara bideratu ditut kolpe bat baino gehiago eta halako batean, “sorpresa, sorpresa!” Marian pilotakada itzultzen saiatu da, baina, erdi-erdian ate automatikoaren kaxa tokatu zaio eta hura kolpatu du. Baina, nobedadea ondoren etorri da, inork espero ez genuela atea goraka igotzen hasi delako bere kabuz. “Ai, ama!” edo halakoren bat esan du Marianek eta besteok irribarrez hasi gara. Hau da ezustekoa! Gu ohartzeko goian jasota geratu da atea, edozein garajetako ateak geratzen diren modu berean.

Gurutze, Marian eta hirurok ixteko sistema zein izan litekeen pentsatzen hasi gara eta Oihane hurreratu zaigu erdiko gunetik “nik umeak ikusi ditut kolpeka atea ireki eta ixtera jolasean, beraz, beste kolpe bat eman beharko zaio ixteko”. Pili ere etorri da. Honek “munizipalari deitu beharko diogu” esan du, baina, atea ixteko botoiren baten bila saiakera eginda ere ez dugunez ezer aurkitu jokoan jarraitu dugu. Aurreko eremukoe, berriz, Itsaso, Onintza eta epaile lanetan ari den Saioak, urrundik jarraitu dute guri gertaturikoa, barre apur bat eginez.

Sustoaren ostean jokatzeko jarraitu dugu, baina, kasu honetan aldameneko atea zabalik dela. Aurreko partida amaitu denean lekuz aldatzeko unea heldu zaie kide batzuei, beste batzuk lehengo eremuetan mantenduko baikara. Lehen errotazioaren ondoren, hortaz, 2. txanda heldu zaigu eta kasu honetan aurrean Oihane eta Pili nor baino nor, erdian Marian eta Onintza pilotean eta atzean Gurutze eta Itsaso nire aurka jardun gara.

Itsaso aurreko partida jokatzetik hurbildu bitartean, ura edaten ari da kontrakantxan, pilotean aritu gara lasai-lasai Gurutze eta biok. Hala ere, laster batu gara hirukotea. Nik Itsasori “zer, errekuperatuta?” galdetu diot eta “ez dut ezer ere egin” erantzun dit. “6-0 galtzen joan naiz eta uste dut 2 edo 3 tanto egin ditudala bukaerarako” berri eman digu ondoren. Nik “orain atea ixtera jokatzeko tokatzen zaigu, nik pilota bertara bideratuko dizuet eta zuek ea ematen diozuen” esan diet irribarrez. Gurutzek hori entzutean “hori ideia ona da” esan dit adar jotze giroari eutsi nahian.

Jokatzen hasi gara, Gurutze eskuinean eta Itsaso ezkerrean kokatuta. Tanto batzuetan mugiarazi naute eta pilotari aurreko partidaren baino abiadura dezente handiagoa eman diote une batean baino gehiagotan. Hori ikusita “gaur jertsea kenarazi behar diogu” esan du Itsasok irribarrez eta nik “lasai, mugiarazi nauzue, ari naiz nekatzen, ez daukat jertserik kendu beharrik” erantzun diet. Gustura ari gara, tarteka nik tantoren bat edo beste eginez eta kasu horietako batean “orain bi tanto behar ditut errekuperatzeko” esan eta segituan dejada bidez tantoa amaituta barre apur bat egin dugu hirurok. Gurutzek ere sartu dit bakarren bat zabalean. Gaur, gainera, txapa azpira bat baino gehiago joan zaizkit.

Bien bitartean aurrean Oihane masailak gorritzen hasita dago eta Pili ere jertsea kenduta ari da. Biak daude niki besamotzetan. Saioa, berriz, Piliren jertsea soinean duela dabil, hotzari aurre egin nahian antza denez.

Hirugarren bakarkako partidari Marian eta Onintza aritu dira aurrez aurre frontiseko gunean, erdian Oihane eta Itsaso eta atzean Gurutze-Pili nire kontra.

Lasai eta ondo pasatuz egin dugu atzeko gure jarduna guk. Nik tanto batzuk sartu dizkiet eta eurek ere sartu didate bakarren bat. Tantoren batean mugiarazi naute eta hala ere hurrengo pilotara iritsi naizela ikustean “gomazkoa ematen du, luzatu eta leku guztietara iristen da” esan dio Piliri kideak eta nik irribarre egin dut. Hala ere, arnas estuka jarri naute uneren batean eta Pilik esan du “airez sartuta ez zarela iristen konturatu naiz”, modu horretan tanto pare bat lortu berritan, “bestela iritsi egingo zinateke” ere gehitu dio aurreko esaldiari. Nik lorturiko tantoren baten ondoren Gurutzek “alubita!” ere esan dit, baina, ez nau gehiegi kezkatu, egia esan. Berak egin duen adinako irribarrea jarri zait niri ere masailatik masailera kasu horretan.

Erdian lasai-lasai ari dira piloteoan Oihane eta Itsaso, kontu kontari eta estuago eta serioago dabiltzala iruditu zait Marian eta Onintzaren kasuan, taldekideen arteko txapelketako partida baita jokoan dutena. Hauek amaitu dutenean, laugarren partida hasi aurretik, “azkeneko partida da hau” esan du Saioak atzealdera hurbilduta.

Kasu honetan Oihane eta Itsaso arituko dira elkarren aurka. Erdira, berriz, Gurutze eta biok bidali gaitu eta atzean Pili jarri du Onintza-Marianen aurka bi baten aurka jokatzen. Ni harritu egin naiz gu erdira bidali gaituenean, baina, ez diot garrantzi handirik eman eta Gurutzerekin batera hasi naiz, ia saio osoan bezala hitzak eta pilotakadak trukutzen. Kasu honetan, ordea, lehenengoz ez gara erreboteko gunean ari, 5a eta 7aren artean eta biok bakarrik baizik. Atzean jokatzen hasi aurretik Pili hurreratu zait niri eta “zure maila antzekoa daukadala eta ni jarri nau bakarrik honek” esan dit irribarrez. Nik ildoari segi nahi izan diot, saltsan, eta “agian hobea ere izango duzu” bota diot. Irri egin dugu biok, norbere gunerako bidean jarritz.

Pili eta Marian harmailen pareko koskan eseri dira eta Onintzak komunera martxa egin duenez haren zain eserita eta kontu kontari geratzea erabaki dute. Denboralditxoa eman dute horrela eta Onintzak itzultzean nola dauden ikusita “zer ari zarete zuek?” galdetu die, trukean “zu etortzeko zain” erantzuna jasoz.

Erdian bitartean lasai samar aritu gara, hitzak eta pilotakadak uztartuz. Niri “zuk dakizun bezala jokatuko bazenu pilotarik ikusi ere ez genuke egingo” esan dit Gurutzek, ez dakit zeren harira hasi garen honi buruz hizketan, eta nik “helburua ez da hori, helburua bai nik eta bai zuek ondo pasatzea da, bestela ez leukake graziaz” erantzun diot, zalantzarako tarterik utzi gabe.

Aurreko partida ez da motz-motza izan, hala iruditu zait niri bederen, baina, amaitu dute eta denoi berriro ere taldean batzeko dei egin digu entrenatzaileak. 20.40 dira. Banakako partidetak sailkapen ligaxka amaitu berria dela esan eta borobilean jarrita postuak nola geratu diren azaltzeari ekin dio entrenatzaileak: “lehenengo Pili 9 punturekin, bigarren Onintza puntu kopuru berarekin, hirugarren Itsaso 8 punturekin eta laugarren Gurutze”. Emakumeek txalo jo dute izenak esaten joan den ahala eta Itsasorena esan duenean

barreak ihes egin dio Saioari. Itsasok “barre egiten ari da” esan du irribarrez, arrazoa ezagutu nahiko balu bezala. Besteoi ere kutsatu zaigu barre hori. Oihane eta Marianen postuak ere esan ditu jarraian hurrenak izan baitira 6 eta 5 puntu lortuta nonbait. Hori entzutean Marian harritu egin da eta “bost puntu? Nik ez dut partida bakar bat ere irabazi” esan du eta Saioak “partida irabaziz gero 2 puntu ematen dira eta galduz gero bakarra, inor ere ez geratzeko 0 punturekin” adierazi dio. Ondoren finalerdietako partidak antolatzeko gurutzatzeak nola geratuko diren azaldu du, “Onintza Itsasoren aurka eta Gurutze Pilirekin” esanez. Hala ere, “aurretik izarrek partida jokatu dute” esan du irribarrez, Gurutze eta niri begira, eta nik “ez da beharrezkoa, nik ez daukat inolako kapritxorik” esan diot bada ez bada ere. Gurutzek ere “erridikulua egiteko batere premiarik ez daukat nik” esan dio. Berean jarraitu du eta aurreko gunera joan gara.

Bosgarren txandan, beraz, aurrean Gurutze eta biok buruz buru, erdian Itsaso eta Onintza, lehen finalerdia elkarren aurka jokatu dutelako gero, eta atzean Pili Oihane-Marianen aurka jarri ditu. Horiek kokatzen hasi den bitartean partidari ekin diogu aurreko eremuan Gurutzek eta biok.

Entrenatzailea etorri denean “zenbat zoazte?” galdetu digu eta erabat zehatz kontatzen aritu ez bagara ere “2-2” esan du Gurutzek. “Bai, halakoren bat” esan dut nik ere eta partidari jarraitu digu. Tarteka beste kideek gure eremura begiratua botatzen dute eta horma biko bat harrapatzera korrikan joan ostean kontrako jokaldia eginez lortu dudan tanto batean Onintzak atzetik “abusona!” esan dit. Itsaso ere begira dagoela ohartu naiz eta “korrika eginarazi dit” esanez erantzun diet nik, irribarrea ezpainetan. Azkenean 5-4 irabazten aritzetik 8-4ra joan naiz zuzenean markagailuan, nahiz eta pilota askotan Gurutzeri nahiko eskura bota diodan eta jokia luzatzen saiatu naizen. Elkarri bostekoa eman eta atzeko guneetara abiatu gara, beraz.

20.45 jo dituzte dagoeneko eta denbora asko ez badaukagu ere seigarren eta zazpigarren txandetan banakako txapelketako finalerdiak jokatu dira frontiseko eremuan. Itsaso-Onintza izan dira elkarren aurka jokatzen lehenak. Besteok, berriz, modu honetan kokatu gara: erdian Pili eta Gurutze eta atzean Oihane-Marian nire kontra jokatzeko.

Ni erreboteko gunera abiatu naizela ikustean “hotzez daude, atetik sartzen den korrontearekin eta berotu itzazu” esan dit Saioak, irribarrez. Ondoren, berriz, “apuntatzea nahi duzu?” galdetu dit eta “apuntatzen ari naiz” esan dit horrekin batera. Kosta zait zertaz ari zen ohartzea, baina, unean uneko errotazioez ari dela konturatu naiz, majo kostata izan bada ere. Ondoren atzeko eremuan hasi gara jokatzen, Marian eskuinean, Oihane ezkerrean eta ni, gutxi gorabehera, kantxaren erdi inguruan kokatuta.

Atzean hirukotea nahiko lasai aritu gara eta une batean Oihanek jertsea jantzi du, fresko baitago, egia esan. Nik ez dut jertserik erantzi saio osoan, eta berorik ere ez dut izan tarteka korrika saioaren bat egitera behartuta jardun banaiz ere.

Errotazio honetan ari ginenean Zizurkilgo pilota elkarteko arduraduna eta bere semea agertu dira frontoira, poltsa batean pilotak dituztela eta atzean, kontrakantxako bazter batean, pilota batzuei botea eginarazten hasi dira. Horrekin inguruan gauden emakume denok ohartu gara eta “horri eskuarekin eman behar zaiola pentsatzea ere” bota du aldameneko gunetik Gurutzek. Beste hiruroi ere ez digu inbidiarik eman pilota horiek

eskuz jotzen aritzeak. Halako batean, bost minutu beranduago-edo, alde egin dute aita semeek. Erdiko eremuan egokitu diren biak hizketan eta aurreko partidari begira aritu dira batez ere (B.K. Atzo ere gauza bera pasa zen Hernanin momentu batean, nik uste eurena bezainbeste besteen jardunak ere erakartzen dituela emakumeak tarteka).

Aurreko gunean entrenatzailea jokoa eten eta azalpenen bat ematen ari dela ohartu naiz zehar begiratu bota dudanean eta “zer ote dute?” galdera piztu da neure baitan. Kokapenez edo antzeko zerbaiten ganean ari ote diren susmoa hartu dut, baina, urrunegi nago kontuari jarraitzeko eta gure gunera birbideratu dut arreta berriro ere.

Zazpigarren txandan, eta azkenean, Pili eta Gurutze aritu dira norgehiagokan aurrean, sailkapena dute jokoa, eta atzean beste bostok egoera berri bat landu dugu: 2 vs. 3 partidari.

4. 2:3 partida, erreboteko gunean. Hirukoteko bat kanpoan egongo da eta taldekide batek bi kolpe egitean lekuz aldatuko dira.

Nola kokatu erabakitzeko nik “beno, gu hemen aritu gara eta hirukotea osatuko dugu, ni geratuko naiz kanpoan”. Beraz, Itsaso-Onintza bikotea Oihane-Marian-Uxue hirukotearen aurka.

Hasi eta Onintza apur bat nahasita ibili da lehenengo hiruzpalau tantoetan. Besteak beste Itsasok jotako bi pilota berak erantzun ditu eta lehen bi kolpeak egitean aldaketa egitera kanpora ere abiatu da. Hala ere, jokoa eten eta “zuek normal, beti barruan” esanda berriro ekin diogu jokatzeari. Gainera, une horretan Onintzak “ni eta Itsaso aurkari ez, hobeto bikote” esan du, “gaur ere kolpea eman dit” gaineratuz. Nik “gaur ere bai?” galdetu diot eta “bai, gaur buruan, gainera” esan dit Itsasok berak. Onintzak zenbatuta ditu nonbait ikasturte honetan jaso dituen paletakadak eta “Itsasok aurrean eman didan hirugarrena da” ere esan du. Zenbaketa eta gorabeheren gaineko hizketaldi labur honen ondore jotzen jarraitu dugu.

Marian, Oihane eta hirurok nahiko azkar hartu dugu jokoko dinamika eta “2” edo “sartu” moduko hitzen bidez adierazten diogu kanpoan dagoenari aldaketarako unea heldu dela. Kasu batzuetan, gainera, oso azkar tokatzen zaigu aldatzea, bi kideak kolpe bat gehiago eginda kanporako bidean jartzean, adibidez. Aurkako bikoteak ere hartu dio neurria egoerari eta gustura aritu gara elkarri tantoak egin nahian, asmatutakoak eta hutsak tartekatuz. Kasu honetan inork ez du kontatu zenbat tanto daramatzagun, markagailurik ez dugu izan, beraz. Nik, gutxigatik izan bada ere, txapa azpira bidalitako kolpe batzuk izan dira eta Onintzak horietako baten ostean esan du “niri ona iruditu zait ba” eta Itsasok ere halatsu beste batean. “Ez, ez, txarra izan da” esan diet nik zintzoki eta Oihanek “Uxueren aurpegira begiratu” esan die kideei irribarrez. Orduan “aurpegian nabaritzen al zait ona edo txarra izan den?” galdetu diot nik, “a, ba ez nekien gaur arte” erantzun diot neuk jarraian. Hala aritu gara, sartu-irtenak eta pilotakadak tartekatuz, 21.02 ingurura arte, orduantxe hasi baita fokuak itzaltzera doazela ohartarazten duen txirrina joka.

Aurreko partidari lehian ari dira oraindik Gurutze eta Pili eta txirrinak jotzean pilota bat txapa jotzen ikustea iruditu zait niri. Saioak dudari jarri du zer izan den eta atzera begiratu bota du. Nik “niri txarra iruditu zait, txapan, baina Itsasori ona” erantzun diot eta justu une horretan frontoiko argiak itzali dira. Oihanek esan dit “baina hotsik ez du

atera, ezta?” eta “ez, baina, iruditu zait pilota zuzen irten ordez txapa jo eta gero gorantz atera ote den, baina, beno, nire irudipena zen, ez besterik”. Azkenean Saioak Pilik jotako pilotakada txartzat jotzea erabaki du eta denok batu gara kontrakantxan, futboleko ateen aldamenean. Pilotaleku atzeko atea ere zabalik dago, parez pare daukagu, gainera.

Luzaketak egiten hasi gara, bakoitza geure erara eta Saioak orria esku artean “Gurutze eta Onintza sailkatu dira” esan du. Hori entzutean iaz ere eurek aritu zirela esan dute eta aldatzea ez zaiela axola. Gurutzek “aurten Pilik joan beharko luke, ni joan nintzen iaz” esan du besteak beste. Pilik dirua atera eta Saioari eman dio, festarako apunta dezan. Saioak “koadernoak kotxean daukat” erantzun dio eta nik hori ikusita “hori esan dizun bigarrena da” esan diot aldamenetik irribarrez.

21.07 dira erlojuan eta etxera abiatzeko ordua iritsi zaigu. Onintza, Oihane, Marian eta Pili irten dira lehenengo, gu baino apur bat azkarrago eta ondoren aspaldian batera irteten garen laurak.

Frontoi ataria

Gurutze, Saioa, Itsaso eta neu izan gara pilotalekua uzten azkenak gaur ere. Saioak Itsasori “nik zu joatea nahi nuen aurten” esan dio eta Gurutzek, dagoeneko etxera bidean abiatua zenak, “nire postua libre dago, nahi baduzu utziko dizut” esan dio. Itsasok “ez, ez, ni ondo nago nagoen bezala” erantzuna eman du eta kotxean sartuta etxera abiatu da. Azkenak entrenatzailea eta ni neu izan gara, saioan zeharreko errotazioen ordena kopiatzeko probestuz nik bost minutuan. Ondoren, elkar datorren atera arte agurtu dugu, “aste ona pasa eta astelehenera arte” batekin. Ni ere banoa, grabagailua poltsatik atera eta giltza biratuta etxera, 21.17ak baitira jadanik.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

“Ateak zabalik” egunak izaten dira hainbat arlotan jardueren sustapen eta propagandarako eta halakoa izan da gaurko gurea ere ustekabeen: “atea zabalik”. Bela pentsatuko nuen halako egoera bat biziko nuenik, baina ezberdina bezain arraro eta polita iruditu zait, egia esan. Beste inoiz ere kolperen bat eman diogu erreboteko kaxa horri eta ez da ezer ere pasa. Gaur, ordea, bai. Hala ote zegoen programatuta? Gainera, irekita utzi dugu norbere etxera abiatu garenean ere.

Iritsi naizenean baino hobeto amaitu dut eguna, ez dut hainbesteko lanik izan saioa jarraitzeko, nahiz eta eztarriko mina eta sudurra kargatuta sumatzen ditudan. Ez dakit ez ote dudan katarroa gainean. Hala ere, gaitz-erdi lanik egiteko arazorik sortzen ez badit.

Behatzaile behatu sentipena izan dut gaur, edo aipatuarena bai behintzat. Aspaldiko partez, gainera, eta harridura eta deserosotasun puntu bat eragin dizkit egoera horrek. Zer jartzen ote dudan ohi baino gehiagotan galdetu didate gaur, idatziei erreferentzia eginez. Nabarmen gehiago, gainera. Hala ere, lortu dut arreta gehiegi ez neureganatu eta erantzutea, ziurrenik nire deserosotasun puntu batekin ohartu diren arren.

Saioak orri batean idatzi ditu saioan zeharreko errotazioak gaur, ni oroitzen ez banintzen ere, bada ez bada ere. Hartu egin dizkiot etxera abiatu aurretik, laguntzeko egin duela

eta esker ona adieraziz. Hala ere, eskerrak, ondo egin ditut lanak neuk ere eta hanka sartzerik ez dela izan konprobatu dut grabazioa eta orria eskuetan aritu naizenean.

Banakako partidak amaituta, Zizurkilgo ordezkariak ere ezaguna da: Gurutze eta Onintza. Ea datorren asteko saioan eta hurrengoetan zer nolako jarduerak egiten ditugun eta nolako jarrera hartzen duten emakumeek, bolada luze samar batean aritu garelako saioetan partidak erdigune genituela.

Asteko azken saioa baino ez zait geratzen, elkarriketak antolatzen ere saiatuko naizena, gainera. Ea Usurbildik bueltan zer kontu eta komeria kontatzen ditudan, aste honetan saio oro izan dudalako ezusteko egoeraren bat. Anekdotak politikak dira kontatzeko.

Zuloak egiten

Asteko hirugarren egunak azkenaren traza izaten du niretzat asko eta askotan, edo bai asteko lehen blokearen amaierarena, behintzat. Izan ere, lehen hiru egunak izaten ditut hara eta hona saioz saio egindakoak, egun bakoitzeko herri eta talde batean aritzen bainaiz, ondorengo bi lanegunetan pantaila aurrean eta etxe inguruan egonaldi luzeagoak eginez. Beraz, asteko lehen zatia bukatzeko unea oso gertu dut, asko jota hiru bat ordutara baino ez. Gainera, oso azkar doazkit egunak aste honetan ere, denboraren eta erlojuko orratzen menpe bainabil egin nahi eta behar nituzkeen gauza guztietara heltzeko, izan lanari lotuak edo aisialdiagokoak.

Arratsaldeko albistegi nagusia lagun egin dut Usurbilerako bidaia gaur ere. Besteak beste eguraldi iragarpena, ekonomia gaiak edo kirol saioak titularrak zein izango diren entzun dut, nahiz eta ez diedan berebiziko arretarik ere jarri. Ez dut ukatuko bidaia pixka bat arinagoa egiteko tresna egokiak iruditzen zaizkidanik irratia eta musika, hala ere.

Sarrera

18.50ean abiatu eta 19.30erako asteazkeneko elkargunean naiz. Bidean parkeetako haurren jolasak, taberna aurreko jende multzoa eta kalean gora eta behera dabiltzan bat baino gehiagorekin gurutzatu naiz. Gaur, gainera, oso gertu aurkitu dut kotxea bertan sartzeko zulo bat, pilotalekutik 200-300 metroko distantziara baino ez.

Pilotalekua

Iritsi orduko ea taldekideren baten arrastorik baden aztertu ondoren 19.30erako pilotalekuko harmailen atzealdean eserita nintzen. Gaur ere umeak ari dira eskupilotako partidua jokatzen frontiseko eremuan eta atzean beste laukote bat ere ari da euren kabuz partida jokatzen. 5-7koa zen emaitza ni iritsi naizenean eta erlojuari begiratuta “noizko bukatuko ote dute?” pentsamendua etorri zait. Bi mutilik txikiak Astigarragoak dira eta beste bi mutil puskak, berriz, Lasarteko elkartekoak, Intzakoak. Batzuk besteen bikoitzak dira, baina, momentuz, behintzat, ez dirudi jokoan hainbesteko alderik dagoenik. Jende dezente ari da harmailen aurrealdean partidari begira, tarteka auzatzeko oihuren bat edo beste eta txaloren bat ere nabarmenduz isiltasunaren gaindik. Haurretako bat tanto bakoitza amaitu ondoren gurasoei begira ere sumatu dut.

Niregandik oso tarte txikira pilota elkarteko arduraduna etorri da, alabatxoa atzetik segika datorkiola, eta hizketaldi bati hasiera eman diogu. Elkar lehendik ezagutzen dugu, ni pilota federazioko langile nintzenetik. Beraz, pilotaren gaineko jardunaz aritu gara, ea berak jokatzeko jarraitzen duen, ea nik jarraitzen dudana eta halako kontuen gainean. Nik, bada ez bada ere, “talde honen ezaugarrietako bat ez da puntualtasuna” esan diot, aurrez berak “entrenatzailearekin Usurbilgo txapelketaz hitz egitera nator” esan didala jabetuta. Batzuetan eta besteaz solasean ari garela “hara, badatoz bi koinatak” esan du eta burua biratzean ohartu naiz harmailen atzealdetik Aitziber eta Jaione datozela. Hauek iritsi eta elkarri “arratsalde on” esan ondoren elkarrekin hizketan hasi gara laurok. Emaztea zer moduz dagoen galdetu diote besteak beste Oierri, ea bigarren haurra nola dagoen eta honek “ba, nahiko ondo” erantzuna eman die. Hala ari garela Haizea iritsi da eta Usurbilgo Pala Txapelketaren gainean hasi dira, zer eta nola antolatuko hizketan. “Bost bikote daude eta nik bi aukera ikusten ditut: denak denen aurka jartzea edo hiruko eta biko multzoetan banatzea” esan du besteak beste batek eta “beno, baina, hori nik uste beraiek erabaki behar dutela” esan du ondoren. Hori entzunda Jaionek “zer erabaki behar dugu guk?” galdetu du, interesa agertuz. Haizea nahiko presaka iritsi da, gainera, ohi baino urduritasun handiagoa nabari zaio, eta bertan gaudenoi esan digu gaur nahiko larri etorri dela, “beste entrenatzailearik ez dagoelako eta bakarra naizelako” aitortu digu, egia esan, “bihar azterketa daukat eta oraindik ia ez naiz prestatzen hasi”.

Beste lagun bat ere etorri da, niretzat ezezaguna, Jaione eta Aitziberren ingurura besteen zain gaudela, harmailen aurrealdetik, besoetan alaba bat eta aldamenen beste bat dituela. “Zer, pala?” galdetu die lehenengo eta ondoren festetako zerbaiten gainean aritu dira hizketan, haurren egunerako zerbaiten antolaketan dauden ustea hartuz nik. Koreografia baten inguruan eta mikrofonotik hitz egiteko norbaiten bila ari direla esaten entzun ditut besteak beste. Jaionek Oierri galdetu dio ea azken bileran izan ote zen eta honek ezezko erantzuna ematean “a, bai, irakurri nuen aktan ez zinela joan” erantsi du berehala.

Oraindik ere aurrean eskuzko partida jokatzeko ari dira haurrak, nahiz eta badirudien markagailuari begiratuta aurreratuxeago dagoela kontua heldu naizenean baino, 18rako gero eta gutxiago falta zaielako lasartearrei. Egoera honetan gaudela Karmele eta Idoia ere iritsi dira eta Oierrek etxerako bidea hartu du, alaba erdi protestaka negarrez zuela. Beste emakumea ere haren atzetik abiatu da, “gu ere bagoaz, orain da momentua” esanez.

Jaione, Aitziber eta hirurok harmailetan eserita gaude eta Karmelek eta Idoiak ere gauza bera egin dute. Haizea da une honetan zutik dagoen bakarra. Orduan beste hizketa-gai bat ateratu du: Emakumea Pilotari Eguna. Azaldu digu “nik uste nuen deialde zela, baina, 20€ ordaindu behar dira alde aurretik, beraz, datorren astean niri eman”. Hori entzutean poltsara hurreratu eta diru-zorrotik 20€ ateraz “hartu nireak” esan diot. Besteak bertan ez dutela dirurik, baina datorren astean ematekotan geratu dira. Aitziberrek galdera bat ere egin du, “zer ordutan izango da autobusa?” galdetuz. Haizeak “ez dakit, egia esan, ez dakit zein ibilbide egingo duen ere” gaineratu die. “Ez ote da gu hartu eta herriz herri Arrasatetik zehar joango!” esan dute eta nik irribarre egin dut, neurekiko “ez litzateke lehenengo aldia izango” pentsatuz (B.K. Ez naiz esaten ausartu, beldurtuko ote zaizkidan ustearen erruz). Ondoren Usurbilgo ordezkariak erabakitzeke jokatu beharreko partidez ere aritu gara, Haizeak azaldu baitigu “Lurdesek datorren astelehenean bukatuko du eta, beraz, datorren astean egingo dugu bai ala bai. Nik esan diot beraiek etorri beharko direla gure orduan, zuek goizean ezin duzelako.

Hala ere, ikusi egin beharko da besteek arratsaldean lanik egiten duten ala ez”. Ondoren papera atera eta “Jaionek eta Idoiak jokatu dute hemendik” esan du eta “hori bagenekien aurreko astetik” erantzun dio lehenak, besteak “dena txukun-txukun ekarri dut ordenagailuan sailkapena eginda eta esan egingo dut” bota du irri txiki bat ahoan. Nik “egun horretan lan egin beharko dut eta oraindik ez dut erabaki nola antolatuko naizen, zer azpiegitura beharko dudan” esan dut gai horri tiraka eta Jaionek “grabagailua eraman” esan dit. Nik “bai, bai, hori dudarik gabe, baina, kontua da ordu eta erdi gogoratzeko gai banaizela bukatu orduko, baina egun oso batean, goizeko 10etatik arratsaldeko 19etara gertatzen dena ez”. Hori entzutean Aitziberrek “baina, zer apuntatzen dituzu ariketak, asistentzia eta halakoak, ezta? Guk esandakoa ez, ala? Horrek zer interes dauka, batere ez” esan du eta Jaionek erantzun dio nik baino lehenago “ziur batzuetan hori ere baietz”. Nik irribarre egin eta “hori ere bai” esanda amaitutzat eman nahi izan dut gaia. Azken hitza, ordea, euren izan da, “behar izanez gero esan eta guk lagunduko dizugu apunteak hartzen” batekin bukatuz.

Haizearen biharamuneko azterketa ere izan dugu mintzagai, “zer azterketa daukazu?” galdetu baitiote entrenatzaileari. “Ekonomia” erantzun die lehenengo eta “horrek itxura polita dauka” esan dio Jaionek (B.K. Enpresaritza ikasketak ditu). Ondoren gehiago zehaztu du, ordea, “antropologia ekonomikoa, globalizazioa eta horrelakoak” esanez. “Testu iruzkin bat egin behar da eta apunteekin egin daiteke” azaldu digu ondoren eta “ez pentsa ni joango naizenik zure ordez” esan diot nik saltsa apur bat jarri asmoz. “Hori aukera ona, detaile bat izan liteke” bota dit berehala aldamenetik Jaionek. Hala ere, animatu asmoz “apunteak nola baliatu jakinez gero azterketa politikak egin daitezke” gehitu diot aurrez esanikoari. Jaionek beste zerbait galdetu dio eta “zer ari zara, zure burua aurkezten bere ordez joateko?” esan diot nik albotik, xaxatu asmoz. Irribarrez erantzun dit berak. Besteren batek ere esan du ez diola inbidiarik ematen.

Astebururako eguraldi iragarpenaz ere bai, horren gainean ere galdetu du bakarren batek, Sagardo Eguna omen delako igandean. Nik esan diet “astebururako euria iragarri dute, hala entzun dut irratian hona nentorrela” eta ez zaie gehiegi gustatu hori entzun izana. Nik “zer, frontoian sartuta ez al zarete denok kabitzen?” galdetu diet eta “ez, jende asko etortzen da” erantzuna jaso dut. Ildo horretan aurreko asteko bero sapa ere izan da hizpide, batez ere ostegunean egin zuen bero errea, “gaur hainbesteko berorik ez dago” entzun baitut, adibidez.

(B.K. Nik uste hizketan hasten garenean edozein gairi buruz jarduteko gaitasuna daukagula, baita nahi izanez gero gauzarik absurduenaz ere. Gai asko atera dira goiko lerroetan, adibidez. Nik uste gaiak berak baino askoz garrantzia handiagoa duela jende artean konfiantzaz tertulian jarduteko aukerak)

Mingainak dantzatzeari utzi gabe, baina, denbora ihesi doakigunez, saioari ekiteko uea iritsi zaigu. 19.50 paseak dira eta aurreko partida amaitua da dagoeneko, oraindik zuriz jantziriko batzuk elkarrekin jolasean ari badira ere. Markagailua hormatik kendu dute, ordea, eta harmailen aurrealdea ere hustu da.

Beroketa

Berotzen hasi beharko dugula esan digu entrenatzaileak eta ia batere pentsatu gabe Jaionek, Aitziberrek eta hirurok korrika saioari ekiteko bidea hartu dugu. Hala ere, berehala ohartu naiz ni giltzaduretako mugimendu eta luzaketarik egin gabe gaudela eta

besteengana itzuli gara, Haizeak “ez dituzue orkatilak mugitu” esan digun bitartean. Beraz, borobilean jarri gara eta orkatilak, besoak, eskumuturrak eta abar mugitzeari ekin diogu, modu aske samarrean. Denok antzeko mugimenduak egin ditugu, baina, ordena ezberdinean edo era ez berdinean, bederen.

Mugikortasuna apur batean landu ondoren bai, orain bai, orain iritsi zaigu korrika saiotxo egiteko unea. Gaur sei lagun gaude, entrenatzailea barne. Aizpea eta Arritxu falta dira. Denok hasi gara itzuliak ematen, aurrean eskupilotan ari direnei pilota geraraziz gu aurrean pasatzean. Korrika hasitakoan eta haurren aldamentetik pasatzean “hauek ohituko ziren gu hemen ikustera, ziur hasieran arraroa egingo zitzaiela” esan du lehenengo eta nik, kontzienteki, “ez ote dute pentsatuko gaur ere etorri dira hauek?” bota dut. Haizeak berehala erantzun dit, “antropologikoki interesgarria iruditzen zait niri emakumea plazan aritzea” esanez. Nik irribarre egin dut, “kontuz zer esaten duzun” bat botaz, Jaionek eta Aitziberrek ulertu dute zergatik egin dudan aipamen hori, baina, besteei zalantza aurpegia ikusi diet, eta korrika txikian jarraitu dugu. Aitziber, Jaione eta neroni jarri gara aurrean eta besteak atzetik datoz. Guztira bospasei itzuli osatu ditugu.

Beroketarekin bukatzeko ezker hormaren aurkako piloteoa egiteko unea iritsi zaigu. Horretarako paletak eskuetan hartu ditugunean pilotak banatzen hasi da Haizea. Karmele, Aitziber eta Idoiari eman die bana eta “beno, binaka jarri” esan digu. Beraz, modu honetan kokatu gara errebotera bitartean: Idoia eta Jaione eskuinean, Aitziber bakarrik erdian eta Karmele eta biok frontisetik hurbilen.

“Kantxan zehar zabaldu” esan digu entrenatzaileak norbere lekuetara zuzendu garenean, oraindik ere hiru mutiko dabilzalako frontisaren eta 3. koadroaren artean eskuz. Karmelek, ordea, 3,5ean ekin dio piloteatzeari eta Haizea haurrengana hurbildu eta “entrenamendua daukagu” esaten ikusi ostean bai, orduan jarri gara frontisetik gertu. Gu lasai hasi gara, baina, jarraitasun handiz, egia esan. Oso gustura ari naiz, huts gutxi izan baitugu denera, alde egindako pilota pare bat baino ez. Pilota erritmo honetan botaz gero ederki moldatzen da Karmele (B.K. Aurrerapen handia nabari zaio lehenengo saiotik, bai horixe!). Aitziber gertu samar daukagula aprobetxatuz “zer, inork ez al du jarri nahi izan zurekin?” galdetu diot nik irribarrez eta “ez” erantzun dit, modu antzekoan. Hau ere lasai ari dela dirudi. Urrunen ditudan Jaione eta Idoia, berriz, gu baino erritmo altuagoan ari dira, airez eginiko kolpea ere landuz tarteka.

Haizea bera ere animatu da azkenean Aitziberrekin jartzera, beraz, hiru bikotek amaitu dugu ezker hormaren aurka piloteatzen. Nahikoa aritu gara iruditu zaionean denoi dei egin digu entrenatzaileak, saioko atal nagusiari ekiteko.


Ariketak

Denok batu garenean “zerbait egin nahi al duzue? Zerbait berezia landu nahi al duzue?” galdetu digu entrenatzaileak emakumeoi. Inork ez du proposamenik egin, beraz, “beno, ba inprobisatzen jarraituko dugu orduan” erantsi du. Honen ondoren “ez dakit diskurtso bat botako dizuedan, baina, beno” esanez hasi zaigu, orain arte saioetan landu dugunaren errepassoa eginez: “pilota jotzea landu dugu, bi besoekin eta kolpe mota ezberdinak, baina, gauza bat falta zaigu, pilota mugitzea. Azkenean hori da tantoa lortzeko gauza garrantzitsuenetako bat” ere bota du. “Bai, tanto erdia” erantzun dio emakumeetako batek. Adibide praktiko bat ere jarri du, “pentsa Aitziber dela nire aurkaria eta ni hemen nagoela, ezker hormaren ondoan. Beti hona botatzen badit kostatzen”

egingo zaio tantoa lortzea, zuloak egitea komeni da, funtsezkoa da” argudiatuz. Azalpena amaitzeko “saiatu pilota mugitzen, ez bota beti aurkaria dagoen lekura” esan digu.

Lehen eta bigarren ariketetan aurkaria eta pilota mugitzen saiatzeko eskatu digu, zehazki kasu bakoitzean zer egitea nahi duen agertuz jarraian.

1. Txokotan 2 bizitzarekin. Pilota jo ondoren harmailak ukitu behar dira.




Haizeak “harmailak ukitzen ez dituenak bizitza bat gutxiago, eta ez da abisatuko” ere adierazi digu hasi aurretik, aurpegi serio samarrarekin (B.K. Gaur ez dago ohi bezain umoreko, berak ere adierazi digu hasterako, gainera).

Hasi eta nahiko zintzo ari gara denok esana betetzen, baita pilota ahalik eta jende gutxien dagoen lekura bideratzen saiatuz ere. Tartean izan dira txapa azpira edo eskuineko marratik kanpora joandako kolpeak, baina, itxuran gabiltza. Hala ari garela Aitziberrek “nik Haizea palarekin ukitzen ikusi dut” esan dio Jaionek honek egindako “ez al da eskuarekin ukitu behar?” galderari erantzunez. Nik ere hala dihardut, metro pare bat gutxiago desplazatzea eskatzen baitu. Bera ere hala hasi da besteok nola ari garen ohartu orduko.

Kanporatzen lehena Aitziber izan da, “nik uste ia biak galdu ditudala” esan bitartean errebote ingurura hurbilduz. Harengandik tarte txikira hartu du bide bera Karmelek ere. Honek bada ez bada ere, “propiarik ez al daukagu?” galdetu du (B.K. Ni harrিতта nengoen inork horren gaineko galderarik egin ez duela ikusita, egia esan). Idoia izan da hirugarrena atzeko eremura joaten, besteekin batera piloteo lasaian itxaronez aurrekoa amaitu arte. Hiru geratu garenean kontrakantxako marra zen zapaldu beharrekoa, denboraz larri-larri gabiltzan arren zapaldu eta berriro ere joko-eremura itzultzeko. Azkena geratu garen biak Jaione eta ni neu izan gara, Haizea kaleratu baitut nik aurreko tantoan. Jaionek galdu du tantoa eta ia inertziatz “bale” esan du, baina, laster ohartu da “a, ez, oraindik bizitza bat daukat” eta hala esan die emakumeei. Hauek, beraz, berriro ere lehengo lekura bueltatu dira, nik tantoa lortu ostean berriro ere denok kantxan elkartzeko.

Joko honetan zehar kantxan ohi baino dezente gehiago irristatu gara guztiok eta Haizeak, adibidez, galdetu dit “zer Uxue, zu ez al zara irristatzen?” une batean. Nik “bai, gaur nik uste hautsa dagoela kantxan” erantzun diot eta beste batek baino gehiagok azaldu dute eurak ere oreka mantentzeko ohi baino larriago ibili direla. Zer egingo diogu, egun eguzkitsuak izan dira aurrekoak eta ez da hain harrigarria ere, ezta? Are gutxiago pilotalekua irekia dela ikusita.

2. Lehengo egoera berean, baina kasu honetan 7ko marra zapaldu behar da pilota jotakoan. Bakoitzak 2 bizitza ditu.



Oraingo jokoa dinamika ere aurrekoaren bera da, desplazamendua alboranzkoa beharrean atzeranzkoa izanik. Kasu honetan Karmele, Aitziber, Jaione eta Haizea kaleratu dira, ordena horretan. Lehen biak kaleratu ostean zapaldu beharrekoa 5,5eko marra izan da, baina, Haizea, Idoia eta hirurok geratu garenean nik “ezinezkoa da 5,5a zapaldu eta itzultzeko denbora ematea” adierazi diet. Hala ere, proba egitearen aldeko hautua egin du entrenatzaileak, hurrengo jokaldian nik aurrean utziriko pilota batekin hala dela frogatuz. Hori ikusita “beno, berriz egingo dugu” esan dio Idoiari eta “orain kontrakantxako marra zapaldu behar da” ere bai. Beste biok baiezko keinua egin dugu buruarekin eta bizitzen kontaketa egin ostean, “bat”, “bat” eta “bi” esanez norbere kopurua adierazteko, ekin diogu hurrengo tantoa lehiatzeari. Kasu honetan ere ni izan naiz Haizeari bere azken bizitza kendu diona eta “abusona bat zara” esanez joan da atzealdera, nik irribarre batekin erantzunez.

Idoiak eta biok jokatu dugu azken “finala” eta “orain marrarik zapaldu gabe” esan diot, bada ez bada ere. “Bale” batekin erantzun dit berak eta sakea ateratzeko pilota luzatu diot. Nik lortu dut tantoa, berak txapapera bota duen pilotakada bati esker, eta amaitu dugu bigarren jokoa ere. 20.30 ez dira oso urrun.

3. 2:2 partida, baldintzarik gabe. 8 tantora, irabazlea bertan geratuz eta galtzaileak kanpoan zain, hiru bikote gaudelako.

Bikoteak nola egin erabakitzeke orduan Jaione eta Idoia elkarrekin jarri ditu entrenatzaileak, “gero bikote jokatu duzuenek” argudioa erabiliz, Karmele eta ni ere bai, eta baita Aitziber eta bera ere. Nor hasi erabakitzeke, berriz, “sentitzen dut, baina gu kanpoan geratuko gara” esan dio Aitziberri. Honek, irria ezpainetan (B.K. Hala ibiltzen da ia beti), “lasai, deskantsatzera joango gara” esanez erantzun dio. Horren ondoren harmailetan eseri dira, gure partidari begira jarritz.

Lehen partida hasi aurretik bikote bakoitzeko kokapenak zehaztea dagokigu beste lauroi, berriz, eta honela jarri gara: Karmele eta Idoia aurrelari postuetan eta Jaione eta biok atzelari. Karmele bera izan da aukeratu duena gure kasuan.

Nik oso lasai jokatu dut eta Karmele ere badirudi gaur inspiratuta etorri dela. Ohi baino pilotakada gutxiagotan huts egin du eta partida nahiko pilotatu eta parekatua osatu dugu hasieran, behintzat. 1-1 eta 2-2 berdindu dugu, guk tantoa lortzean Karmelek ospatu ere egin du kasuren batean, gainera. Ondoren, ordea, zuloa ireki eta amaieran 8-3 amaitu dugu tanto kopuruan, batzuk euren hutsetatik eratorriak eta beste batzuk, aldiz, nik egindakoak izan direla. Azken tantoan Idoia pilota airez jotzen saiatu da, baina, huts egin eta ez du ukitu ere egin eta nik “eman!” esanez egin diot oihi Jaioneri aldamenetik. Bera, ordea, oso atzean zegoen eta ez du iristerik izan. Horren ostean, beraz, kanpora joateko unea heldu zaie orain arteko gure aurkariei, Haizea eta Aitziberrekin lekua trukatur.

Partidan zehar nik laguntzeko aprobetxatu dut uneren batean, gomendioak emateko. Ezker hormara nahiko itsatsita joan zaion pilota batean, adibidez, “lasai, itxaron pareta jo arte eta orain” esanez Jaioneri eta azken tanto horren ondoren “teoria da hau, baina, komeni da atzelaria bada ez bada ere beti aurrelariaren atzean egotea halako egoeraren bat emanez gero” esanez. Beste tanto batean Haizeak ere aholkatu ditu, biak joan direlako txokoan luze mozturiko pilota baten bila eta elkarrekin tupust egiten amaitu dutelako. Kasu horretan “atzelariak iristen dela ikusiz gero zuk esan ‘ba’ eta zu apartatu” esan die, atzetik joko-ikuspegia zabalagoa dela adieraziz. Beste aholku bat ere eman dio Idoiari, “atzera begiratu, Uxuek zuk begiratzen ez duzula ikustean botatzen dizu kasu askotan” eta nik hala dela baieztatu diot, baietz. Hori bai “atzera begiratu, baina, makurtuta eta aurretik kenduta, inork ez dezan pilotakadarik hartu”.

Azalpen labur horien ondoren, beraz, bigarren partidari ekiteko unea heldu zaigu. Kasu honetan berriro ere galdetu diot Karmeleri “non jarri nahi duzu?” eta berak “niri berdin zait aurrean edo atzean, baina, abiaduran batzuetan ez dut pilotarik ikusi ere egiten” esan dit. Beraz, momentuz, aurrelari postuan kokatu da, Haizearen aldamenean. Aitziber, berriz, atzelari. Nire aldamenera iristean “zer, pixka bat nekatuko zinen, ezta?” galdetu dit eta irribarrez erantzun diot nik. Lasai nabil oso, gorputza batere behartu gabe, erritmo lasai eta erosoan saio guztian zehar, ni mugitu beharrean gainerakoak mugiaraziz.

Partida honi ekin eta berehala zulo dezentea ireki dute aurkariak markagailuan. Hala ere, hiru tanto jokatu ondoren Karmeleri nahi bazuen kokapena aldatzea proposatu diot, atzean askoz gehiago parte hartzen dela argudiatuz. Izan ere, apenas jo duen pilotakadarik ordura arte. Bera ados agertu da eta ni aurrelari eta bera atzelari jarrita jarraitu dugu jokatzeko. Hala ere, zuloa irekitzen jarraitu dute, 6-2 jarriz, adibidez. Nik egin dut huts gainera tanto honetan, Aitziberrek eskuinera kanpora botatako pilotakada bat ikusi arren airez sartu eta jarraitzeko aukera emanez Karmelek “txarra zihoan” esan didan bitartean. Tantoa amaitzean barkamena eskatu diot kideari eta berak “oraindik garaiz gaude irabazteko” esan dit. Nik irribarre egin dut, eginkizun zail samarra iritzi. Hala ere, nahi hori betetzeko laguntzea erabaki dut, jokoari erritmo eta bizitasun handiagoa eman eta aurkariak gehiago mugiaraziz pilotakada bakoitzean.

Nik ez nuen fede handiegirik, egia esan, baina, azkenean 7-7 berdindu ondoren 8-7 irabaziz amaitu dugu partida. Karmele gustura dago oso eta horren harira “guk eman behar genuen izena txapelketan” esan dio broma giroan Haizeari. Aitziberrek, berriz, jokoko une batean esan du ni jotzeaz ikusitakoan beldurra sartzen zaiola eta nik “lasai egon, nik ez dut inor jaten” erantzun diot. Harmailetan begira egoteaz gain markagailu lanak egiten ari den Jaionek ere berretsi du sentimendu hori, “errespetua ematen du, nora botako duzun ez dakigu” esanez. Nik ulertzen ditut, egia esan, baina ez zait gehiegi gustatzen sentipen hori sortzea, esan izana asko eskertu arren.

Bi partidak irabazi ondoren entrenatzaileak “zuek kanpora!” esanez kontrakantxara bidali aurretik geu jarri gara bide horretan, beste bi bikoteek ez dutelako elkarren aurkako partidarik jokatu oraindik. Beraz, markagailu lanetan eta elkarrekin hizketan jarri gara harmailetan eserita Karmele eta biok. 20.45 pasa dira jadanik.

Binakako hirugarren eta azken partidari Haizea eta Idoia hasi dira aurreko koadroetan eta atzekoetan, berriz, Jaione eta Aitziber. Ni, berriz, hizketan hasi naiz Karmelerekin, “lehen egunetik aldea nabaritzen zaizu” esanez. Bera gustura dago eta esan dit “asko

gustatzen zait kirol hau, baina inoiz ibili gabea nintzen orain bezala. Semeekin joaten nintzen erraketa hartuta frontoira, baina horrela ez naiz inoiz ibili” (B.K. Elkarrizketa egin behar ote niokeen zalantza piztu zait. Momentuz erreserben taldean utziko dut). Gaur, gainera, ohi baino saio hobea egin duela dio berak eta irribarrea ezpainetan duela daramatza azken minutuak, asebeteta itxura batean. Nik hitzak markagailuko tanto kopurua esatearekin tartekatzen ditut. Karmelek esan dit “hala ere, nik inpresioa daukat pala mugitzen zaidala eta ez diodala pilotari indarrrik ematen”.

Jaione eta Idoia 1-6 doaz atzetik eta lehenengoak “beno, 5 egin behar ditugu gutxienez” esan dio kideari. Nik hori entzutean “5 eginez gero 8 ere bai” bota diot harmailetatik, zirikatuz. Irribarrez erantzun didate kantxan dabilzanek ere. Hala ere, 5-6 jarri eta 7-7 berdintzera iritsi dira. Orduan Haizeari “berdin dio emaitzak” esan dio Aitziberrek eta irribarre egin dut nik Karmeleri “entzun al duzu zer esan duen?” botaz. Sakea Idoiak atera du eta goiko txapatik gora joan zaio. Hori ikustean Karmelek “gaur armiarma sare denak garbituko dituzue” esan du, gure partidan nik ere sake batean gora botatzean barrez “armiarma bat ikusi dut” esan baitut. Hala ere, bi sakeren aukerarekin jokatzen dugu.

Harmailetan eserita egin dugun bigarren hizketaldian joko mailaz eta kideen jokoaz aritu gara Karmele eta biok, “Idoiak asko ikusten du eta intentzioa handia dauka” bota diodalako nik. Orduan tantoa lortu berria zen aurreko koadroetan. Horren harira Karmelek “niri Jaionek nola jokatzen duen ere gustatzen zait” esan dit eta “bai, bai, ondo moldatzen da” esan diot nik (B.K. Talde honetako onena bera da eta bigarren onena Idoia. Hala berretsi dute banaka jokaturiko partidek ere).

20.54 pasatxoan aurreko eremuko partida amaitu da, 8-7 nagusitu da Haizea-Aitziber bikoa, eta saioa amaitu ala ez zalantza egin ondoren “beno, azkeneko gauza bat egingo dugu” esan eta kantxara joan gara berriro ere denok entrenatzailearen atzetik.

4. Txokotan binaka. Kideak 3 kolpe egitean kanpoko sartuko da eta alderantziz. Bikote bakoitzak 3 bizitza ditu.

“Ezin da sartu kidea irten arte eta gainera elkarri bostekoa eman beharra dago” esan digu Haizeak. Niri ez zait oso erraza iruditu, baina ea moldatzen garen.

Karmele, Aitziber eta Idoia hasi dira barruan eta beste hirurok kanpoan zain gaude, kideen kolpe kopurua kontatuz. Ni lasai ari naiz, baina gaiztakeria batzuk egin ditut tartean eta “suerte ere badaukazu” esan dit Haizeak horietako batean. Hala ari garela Mikel agertu da, orri bat emateko hitzordua geneukalako egina elkarrekin eta hura ikustean hurbiltzeko urrats pare bat eman arren “segi, segi, bukatu saioa” esan eta zain geratu da, errebotetik saiora begira. Haizeak “azkena, e” esan du eta tanto hori jokatu ondoren amaitu dugu saioko atal nagusia.

20.58 dira. Ni zuzenean orria hartu eta bi hitz egiten ari naiz zuzendariarekin eta bitartean kideak harmailen aldamenen luzaketak egiten hasi dira, kasu honetan ere hitza hitzari josiz. Berehala itzuli naiz ni ere kideengana, luzapenak eta solasaldia tartekatzerara.

Txapelketa herrikoirako ordezkariak zehazteko lehiarako sailkapena izan da hizpide nagusiki. Jaionek eta Idoiak beste taldeetatik zein sailkatu ote den galdetu diote

entrenatzaileari, honek “astelehenetatik Argia eta Estitxu eta Lurdesenak ez dakizkit” erantzun die. Hauen inguruan hizketan jarraitu du “on samarrak izan behar omen dira, bat Lasartekoa da” segi du eta bakarren batek nori buruz ari direla badakienez elkarri Lasartekoa nor den azaltzen hasi dira “bi ahizpa dira, bat Bartzelonan bizi izan zen, baina (...)”. Uste dut gehienek ulertu dutela nori buruz ari diren. Horrez gain “Lurdesek esan dit hiru dituela onak berak eta nola aukeratuko dituen bi eta nik pentsatu dut horretarako egiten dugula sailkapena, baina berak ikusiko du nola moldatzen den”. Aitziber giroa jartzen ari da eta “Argia-eta erraz eta besteei zuloak dauden lekura bota eta listo” bota du. Nik orduan “onena botilero zu jartzea izango da” esan diot barrez albotik. Jarraian “datorren astean zer, kartel handi bat ekarri behar dugu animatzeko?” esan diot Aitziberri. Haizeari ezagun bat agertu zaio eta bera harekin hizketan ari den bitartean besteok hizketan jarraitu dugu bera berriro ere gugana itzuli arte, “lasai jokatu, behintzat, saioan bazeundete bezala” eta “saiatuko gara” esan dit Jaionek. “Ez al duzu diozuna baino lasaiago jokatzen zuk?” galdetu diot jakin nahia ase asmoz eta “ez ezazu pentsa” erantzun dit niri. Haizea etorri denean “horregatik ez zarete urduri egongo, ezta?” esan die eta “ez, ez, lorik ez digu kenduko, lasai” erantzun dute ia aho batez Jaione eta Idoiak.

Trasteak hartu eta frontoitik martxa egin bitartean ikasle garaiak izan dituzte gogoan kideek, “nik ikasle garaira itzuli nahiko nuke, garaia polita zen” esan du bakarren batek eta “suerte azterketan, animo bihar” bezalakoak esan dizkiogu entrenatzaileari elkar datorren astera arte agurtu baino lehen. Esan digu e-postaz abisatuko digula datorren asteko planaren berri emateko.

Idoia, Aitziber eta Jaionek ezkerrera hartu dute lehen etxepea igaro ondoren eta eskuinetik segi dugu Karmele, Haizea eta hirurok. Berehala banatu dira gure bideak ere, bat etxera eta beste biok kotxeetara baikoaz. Nahiko azkar heldu naiz autora eta 21.11tan jarri dut motorra martxan, asteko azken bidaiako itzulerako bideari ekiteko gogoz.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko jardunean emakumeak gustura sumatu ditut eta neure burua ere bai. Seikote bat elkartu gara eta oso giro atseginean aritu gara, bai pilota jotzean eta baita mingainak dantzatzen ere. Saio amaieran “gaur ondo” esan du eurentakoren batek eta “ondo ez, oso ondo” jaso erantzun bezala. Beraz, antzeko ustea daukagu denok antza denez. Halako uneek ilunpeko lana apur bat baloratu eta segitzeko funtzioa dute niretzat.

Emakumea Pilotari Egunaren bueltan gabiltza talde honetan tarteka, hurrengo astean baita ikasturte amaierako festa. Emakumeak gogotsu ikusten ditut eta euren bizipenak bereziki jakin nahi nituzke (ea lortzen dudan!), ez baitira inoiz izan halako egun batean.

Itzulerako bidaian etxera nekatuta abiatu naiz, ez saioko nekeagatik, baizik eta azken egunotako erlojuaren aurkako jardunagatik. Nik ere badakit ez dudala gorputza behar bezala erlaxatzeko eta atsedena hartzeko betarik hartu aspaldi honetan, baina egun hau eta aurreko biak lanerako nahiko ondo aprobeztatu izanaren ustearekin nabil, beraz, horrek balio dit!

Badator, badatorrela!

Asteko lehen egunetan zein astegun zen ere oso garbi ez izan arren, adibidez, asteartean asteazkena zen ustearekin jaiki nintzen, eta antzera hurrengo egunean ere, tarrapataka segitzen dut, hemengoak, horkoak eta hangoak egin beharrean, azken aste pare batetako azelerazioaren igurtziari ihes egin ezinda (edo egin nahi ezta?), itxura denez. Badirudi moteltasunetik zuzenean abiadurara igarotzen baino ez dakidala, egokiena erdibidean eta patxada lagun pausatu eta hala aritzea izango balitz ere. Baina, beno, hala da eta hala bedi!

27. astea izan da igarotzera doan hau. Aste kopurua baino are deigarriagoa eta adierazgarriagoa da orain arte egindako bidea irudikatzeko saio kopurua, ordea: 71. Martxa honetan ohartzerako amaituko zait ikasturtea, seirena baino ez baitzait geratzen: dozena bat saio, bost astetan banatuta. Onar dezadan poza eta pena puntu bat, biak sumatzen ditudala zenbakietan eta amaieran pentsatzen jartzean, zertan ukatu! Bai, harrizkoa dirudit, baina sentibera ere izan ninteke, eta, banaiz, bai.

Elkarrizketak egitea eta saioetako parte hartzea konbinatzeko garaia hasiko zait datorren astelehenetik aurrera. Beraz, bi egun barru. Ai, ama! Ea nola antolatzen naizen eta ez naizen gehiegi estutzen, azken hori lortzea askotan loteria tokatzearen parekoa izaten den arren niretzat. Gainera, Emakumea Pilotari Eguna ere datorren astean da, beraz, larunbatean ere ikertzaile buzoa jantzi eta lanean aritzea egokituko zait. Ea nola moldatzen naizen, ez baita gauza bera ordu eta erdiko saio bat edo ia hamar orduko festa egun bateko behaketa lana: saioa, txapelketa herrikoia, bazkaria, aukerako dantzaldi eta paleta saioak, etab. Hau da bertigoa!

28. astea. FESTA USAINEAN

Ikasturtea aurrera doa, ia maiatza amaitzeko aste eta erdi baino ez da geratzen, lau aste barru emango diot behin betiko agurra atal honi, hortaz, orain arteko dinamikan jarraitu beharra dago, ahal dela indarrak neurtu eta informazioa pilatuz, astez asteko erritmoari eutsiz. Azken boladakoen tankerakoa izango den itxura hartzen diot oraingo honi ere, beste eginbehar bat gehituta, elkarrizketak, izatekotan gogorragoa izan daitekeen arren. Gainera, maiatzeko azken asteburuak badu berezitasun bat: Emakumea Pilotari Eguna. Azken festa hau larunbatean da, beraz, aste honetan bai nik eta baita kide batek baino gehiagok ere, ohi baino paleta saio bat gehiago izango dugu, ikasturte amaierako festarako izena emanda baikaude kide gehienok. Hiru laurdenak bai, gutxi gorabehera.

Astelehena asteburu lasai samarraren ondoren iritsi zait, ez geldi egon naizelako sofan botata, baizik eta lan girotik apur bat deskonektatzen eta pilota eta emakumeen gaitik urrun mantentzen saiatu naizelako, nahiz eta berdintasuna bezalako gaiak noiz edo noiz izaten diren hizpide nire lagunarteko hizketaldietan. Gainera, kontuak ateratzen aritua naiz aurretik eta jakin badakit zazpi laneguneko astea dela ekin berri diodan hau. Beraz, ea ez naizen trabatuta geratzen eta datorkidanari eusteko modua egiten dudan. Altxaporru!

Kanpoan umel, barruan bero

Iragan berri zaigun asteburuan aste honi aurre egiteko beharraz ohartuta lanik egin gabe, lasai samar ibili naiz, aurreko asteko lanak ostiral arratsaldean amaitutzat emanik. Astelehena iritsi da, baina, eta kanpoko giroa goibel eta umela da oso, gainera. Tankera bertsukoa izan zen atzoko eguna ere, euria goian-behean eta tenperatura hotzak. Gaur ere 7°C ikusi ditut leihoko termometroan etxetik irtetean, armairuan erdi ahaztuta neuzkan txamarra lodia eta jertsea jantziz. Ea ez nauen kanpo giroak erasan eta barnekoa ere maila berekoa bihurtzen. Ez zait komeni!

Mikel Markezekin batera egin dut bidaia, ia ordubete lehenago irten eta saioa hasi baino hamar minutu lehenago iritsiz. Hernaniko sarreran ohi baino trafiko motelagoa zegoen eta ohi baino mantsoago egin dut anbulatorio aurrerako tartea, erlojuari begiratu eta presarik ez dudala izan behar konprobatuta, bada ez bada ere. Ohiko inguruan aurkitu dut autoa uzteko leku bat, ari duen euri jasa medio barruan jantzi eta lotuz berokia eta aterkia berehala irekiz.

Kiroldegiko sarrera

Garaiz natorren arren, bost minutu baino gehiago falta dira 9.30erako, iruditzen zait taldekideren bat bertaratuko zela dagoeneko, eta halaxe izan da. Atetik sartu aurretik aterkia astintzen ari naizela ikusi ditut Irati eta Malen bertan, beste inor agertzeko zain. “Egun on” esan diet nik eurengana iristean, diosala ohiko moduan eginez, eta “ederra dago, bai” erantzun didate biek ia aho batez. Nahi gabe mendiko lasterketen inguruan hizketan hasi gara, Iratik “Zegama-Aizkorrin izan zinen?” galdetu didalako. Nik “ez, baina, gauean sailkapenak ikusi nituen” erantzun diot eta hortik “beno, nik nahikoa izango dut Ereñotzuko mendi lasterketarekin” erantzun diet. Malenen senarra ere irtetekotan da bertan. “Atzo eman nuen izena, beraz, ez daukat atzera bueltarik, ea nola moldatzen naizen” gaineratu dut ondoren. Hortik asfaltoko lasterketez eta raidez eta entrenatzeko denborarik ezaren gainean hitz egitera igaro gara. Hala ari garela Rakel

iritsi da, laugarren kidea. Malenek ea gogotsu datorren galdetu dio eta “beno” erantzun du. Iratik “nik uste giro honekin denok gatzela gogotsu” bota du jarraian eta nik “zer, desahogatzeko premian, ala?” galdetu diet. Ez bai eta ez ez, ez didate erantzun, baina tankera batean hala dirudi. Hurrenak, handik oso tarte txikira, Ainara eta Gemma izan dira. Ezertan hasi aurretik Malen zoriondu dute eta orduan jakin dugu bezperan izan zela bere urtebetetze eguna. Berak esan digu orduan “Ainararenak ere izan ziren ostegunean”. Beraz, biek jaso dituzte bertan ginen beste kideon zorionak eta ondoren, berriz, larunbat goizean frontoian gertatu zitzaiena kontatzen hasi dira, Malenen Tilos 7 txapelketako bikotearekin laurak entrenatzen zebiltzala honek zuntz haustura izan omen zuelako bikian. Nola gertatu zitzaion kontatzen hasi dira eta “berotu zuen, 3 buelta eman zituen korrika” esan dute. Malenek hala berretsi du, “zuek etorri aurretik” egin zituztela esanez bi ahizpei. “Bera da gure artetik gehien berotzen duena, gu zuzenean hasten gara” aitortu du Gemmak ia orduantxe. Saioa bera ere iritsia da eta Miren ere nahiko tarte laburrean bertaratu da. Zuntz haustura batek errekueratzeke zer tarte behar ote duen aritu dira ondoren esaten eta nik “lau aste kontatu gutxienez” esan diet. Kideek esan dute hiru egunean atsedenean egoteko esan ziotela, baina, dultzaina joz eta erdi herrenka ibiliz ikusi zutela eguerdian ondoren, “hau bukatu eta gero joango naiz” esaka.

Jadanik ondo igaroak dira 9.30ak eta halako batean hartu dugu kiroldegian aurrerako bidea, saioa ekiteko asmoz. Hizketan goaz artaldean, aldageletako pasabidetik gorako eskaileretan Saioa zain dugula ateari eutsiz, banaka-banaka zenbat goazen kontatuz. Zazpi gara berekin. Kantxa gainera iristean, berriz, Iratik “zer, hori ez al da palakoa?” galdetu dio Ainarari eta “bai, baina horrek ez du jokatu, bere ahizpak” esan dio. Ni eta Saioa, berriz, goitik begiratu eta zertan ari ote diren antzeman nahian geratu gara, “beisbol futbolearen edo antzeko zerbaitetan” azalduz kideak niri. Aurrera jarraitu dugu, gimnasio partetik gora egitean frontoiko garbiketa lanak egitetik datozen garbitzaileak agurtuz elkarrekin gurutzatu garenean. Azkenean 9.40 inguruan heldu gara pilotalekura, bata bestearen atzetik azken pasabide luzean.

Pilotalekua

Bertan sartu garenean iluntasuna da nagusi, kanpoan ere grisa baita giroa, beraz, gaur ez da apenas argi izpirik sartzen leihotatik. Ohi bezala, trasteak harmailetan utzi ditugu eta ni plastikozko zakar bat plastikoen ontzian botatzera hurbildu naiz zuzenean. Bitartean kideek hizketan dihardute eta bakarren batek 20€ak eman dizkio Saioari, Emakumea Pilotari egunerako. “Apuntatu” ere esan dio irribarrez. Irati izan da. Ines ere iritsi da igerilekutik irten berritan. “Kaixo” esanez agurtu nau ni, harmailetako eskailerak jaisten ari naizela, eta berdin egin dut nik ere. Beraz, zortzi kide bagara saioari ekiteko prest gaudenak. Tilos-7 txapelketako azken partidak noiz izango diren, finalerdietara sailkatuta daude Malen-Miren eta Ainara-Gemma, hizketan hasi dira eta baita Miren lanean nola dabilen galdezka ere, Ainarak esan baitu “nik uste aste honetan final laurdenak jokatzekeak direla, astebete aurreratzeko asmotan zirela entzun bainien, Hernaniko Olinpiadekin batera ez bukatzeke”. Gainera, euren hirukoteko kidearen lesioaren harira, eta lan ordutegiaren araberakoa bada ere, “Lujanbio bat ez bada besteak jokatuko du” esan du Mirenek, aldameneko ahizpa ere saltsan sartuz. Honek berehala erantzun dio “ez, ez, ni ez, sar dadila besteren bat, baina ni ez naiz hasiko” irmo batekin. Ondoren San Joanetako txapelketa atzeratu izanaz egin dituzte beste hitz batzuk, arrazoia zein den ez dietela azaldu argudiatuz. Nik solasaldian parte hartzea erabaki dut, “urtean bi txapelketa izan eta biak batera jokatu ordez banatzea ez zait gaizki iruditzen, bestela bi hilabeteen astero bi partidatan aritzea baino hobea iruditzen zait” botaz.

Bakarren batek baiezeko keinua egin du nire argudiaketa entzunda, baina izan da gehiegi gustatu ez zaionik ere “badaude txapelketa honetan bakarrik parte hartzen dutenak” eta nik “beno, horiek irailean ere parte hartuko dute” erantzun diet.

Oraindik ez geunden denok, ordea, beroketari ekin gabe, mingainak dantzatzuz, ari garela Jone eta Zuriñe iritsi baitira. 9.42 direla ohartu naiz, erlojuari begiratu bota diot zeharka, eta Saioak “zuen zain geunden korrikan hasteko” esan dio Joneri irribarrez. Honek, berriz, tonu bereko erantzuna eman dio, “a ze detailea” esanez. Ama-alabak oinetakoak aldatzen hasi dira eta besteok orduantxe ekin diegu beroketa ariketei.

Beroketa

Hiru itzuli eman ditugu kantxan zehar, orratzen aurkako noranzkoan, ez bat gehiago eta ezta bat gutxiago ere, 4aren inguruan kontrakantxan hasi eta leku berean amaituz. Beranduago hasi dira Zuriñe eta Jone, baina ez dira gurekin batera geratu, beste itzuli bat eman baitute kopurura iristeko. Nik “zer formalak” esanez zirikatu ditut albotik, irribarre txiki batekin. Beraz, hauek azken itzulia ematen ari diren bitartean besteok borobilean jarri eta giltzadurak mugitzen hasteko aprobetxatu dugu.

Hamarreko multzoa hasi gara, baina entrenatzailea etorri zait 6 gune jartzeko kantxan 2,5ean jarrita dagoen marra kenduko ote nukeen galdezka. Nik, berarekin batera eremura hurbildu eta “ezin al duzu hori aprobetxatu azkeneko gune bezala?” galdetu diot. Beraz, beste bederlatziak utzi ditut bertan eta gu arkitekto lanak egitera joan gara, azkenean marra ez kendu eta hori aprobetxatuz beste bakar bat jarrita amaituz. Marrena erabakitzen amaitzean (1 ¼ean eta 2 ½an horizontalean jarrita) berriro ere kideen taldera hurreratu naiz ni, besoetako mugimendu pare bat eta beste hainbeste luzaketa egiten amaituz. Handik oso gutxira ekin diogu azken zatiari, aurrez Saioak pilota eta paletak banatuz. Apurtutako bat atera du lehenengo motxilatik, erditik pitzatu omen zitzaion aurrekoan. Hau ere pixka bat beldurtu da, “ez dakit denontzako adina paleta ba ote daukadan” esan baitigu Ainara eta bioi, hurbilen gu gauzkalako. Besteak hizketan ari dira eta nik ekin diot paletak hartu eta partitzeari. Mirenek bere zuloduna hartu duenez denontzako adina dauzka, baina bakar bat ere ez zaio geratu motxilan soberan, beraz, larri-larri ibili da materialarekin osatzeko. Pilotak banatzen hasi denean, berriz, “hauei ere nabari zaie kurtso bukaera” esan du eta irribarre egin dugu guk. Batzuk ilea galtzen hasita daude, beste batzuk tarteka botea okertzen, etab. Binaka jarri gara, bost bikotetan, frontisetik hartu eta errebotera bitartean, honela: Miren eta Jone, Rakel eta Irati, Zuriñe eta Malen, Gemma eta Ines eta Ainara eta ni. Gu oso lasai aritu gara eta aldamenekoak ere antzera dabilta, elkarrizketa eta piloteoa mantenduz aldi berean. Saioak guneak zehazteko marrak jartzeko aprobetxatu du tarte hori, aurretik frontoiko fokuak pizteko eskatzera bidea eginez. Ainara ohartu da horrekin argiak pizten hasi berriak direla ikusi duenean eta baietz konturatu naiz, hala izan dela.


Tarte batean frontoian sakabanatuta pilotakadari pilotakadarekin erantzunez jardun dugunean berriro ere denok elkarrengana bil gaitzen unea heldu da Saioak “bale” esan duenean. Denok bildu eta Ainarak, elkarren aldamenean jarrita gaude, “ez zinen etorri aurrekoan Saioaren partida ikustera” esan dit. Hasieran ez naiz ohartu zeren inguruan ari zen, baina gero bai. San Isidro egunaren harira jokaturiko erakustaldi partidaz aritu dira eta Miren, Malen, Gemma eta bera ikusle izan zirela adierazi du. Ba omen zegoen Saioa etengabe animatzen aritu zen gizon bat ere, Mirenen koadrilako baten senarra omen, eta kontatzen aritu dira “guk uste genuen ezagutuko zintuela, Amezketakoa da bera, baina

ez. Nik uste gu zu animatzen ikusten gintuela eta horregatik arituko zela bera ere”. Saioak irribarre egin du nor zen ohartu denean, eskua ere jarri du aurpegian, eta hitz trukaketa gehiago luzatu aurretik ariketak azaltzeari ekin dio. Emakumeek “ze karratu zuzenak jarri dituen gaur” esana zuten aurretik eta honek “ni bezala” erantzuna ere emanda.

Ariketak

10.00 dira eta zati nagusiko txoko ezberdinetan bete beharreko baldintza eta egin beharrekoak aipatzen hasi zaigu entrenatzailea (B.K. Aspaldiko partez ez dago banakako partidarik gaur jokatzeko, aurreko astean erabaki zelako larunbateko Emakumea Pilotari egunean nortzuk osatuko duten Hernaniko ordezkaritza. Beraz, saioa ez da azken bolada luzekoan antzekoa izango ziurrenik, eremu bat, frontisekoa, erabat horretara bideratua izaten baitzen. Nik eskertuko dut, eta emakumeek ere baietz iruditzen zait).

1. Txokotan binaka, kantxa 6 gunetan banatuta. Pilotak ezin du gune berean punpa egin bi aldiz jarraian. Bakoitza bi kolpe egin eta aldaketa. Bikoteko 3 bizitza.



Ariketari ekiteko bost kantxa barruan eta beste bostak kanpoan kokatu gara. Saioa ere kontrakantxan jarri da, gure aldamenean. Gure bikotetik Ainara sartu da barrura eta nik “besteena bigarrenez leku berera baldin badoa ez jo” esan diot irribarrez. Bitartean, jokoari hasiera eman eta kidearen kolpeak kontatu artean tartekako solasaldiak burutu ditugu kanpoan geundenok, barrura sartzeko unea heltzeko zain.

Lehen tantoan pilotak txost egin eta Ainarak ez du itzultzerik izan, beraz, gu izan gara bizitza bat gutxitzen lehenengoak. Hala ere, saltsa dezentea jarri dugu eta gune berera botatako pilotakadak gutxi izan dira. Hala ere, horietako batean Ainarak “txarra zihoan eta eman egin diozu” hartu dit kargu eta ez naizela ohartu adieraztearekin batera “beno, ez dut berriz egingo” hitz eman diot. Berak irribarrez erantzun eta kantxako eta kontrakantxako postuak aldatu ditugu. Izan da jokoan zehar inor mugitu ez den jokaldiren bat edo beste ere, nik “a zer alfer koadrila!” botaz kontrakantxatik. Hori entzutean Saioak berak ere “bai, bai” esan du eta inguruan ditudan besteek irri egin dute.

Pixkaka-pixkaka bizitza kopurua murrizten doa, bai bikoteko eta baita orokorrean ere, elkarri gehiegi barkatu gabe ari garelako. Azkenean dudako jokaldi batean erdizka geratu dira Rakel eta Gemma eta biak batean jartzea erabaki ostean huts egin eta bikote horiek izan dira kaleratzen lehenak: Rakel-Irati eta Gemma-Ines. Hurrengoak Malen eta Zuriñe izan dira eta azkeneraino iritsi garenak Miren-Jone eta Ainara-ni. Azken jokaldian atzetik dejada egin eta txapapera bota dut nik, biraoari ahoa itxita mantenduz eutsiz.

Lehen erronda honen atzetik bigarren bat ere jokatu dugu, lehenengo modu berean. Kasu honetan, gainera, amaitu berri dugunaren jarraipena izango zen, ia hasterako bizitza


bakarrarekin geratu eta nik egindako bi huts eta Ainararen baten ostean lehen kaleratuak geu izan garelako. Kanpora atera eta kontraktantxan geratu ordez erreboteko gunera joan gara pilota bat hartu ondoren, piloteatzera. Bertara hurreratu garenean atzeko atean itsatsiriko orriei begira geratu da Ainara eta “ea sailkapenak jarri dituzten” esan dit. Ni ere hurreratu naiz bere ingurura eta “zer sailkapen, Hernaniko txapelketakoak?” galdetu diot. Baietz erantzun dit, semea bertan dabilela eta hori entzutean “zer, pilotarien etxea al da zuena?” bota diot. Berak “hala ematen du, baina behartu gabe, bestela aitzak errugbian sartuko zituen” erantzuna eman dit berehala. Jarraitu du esaten “semea bietan zebilen, baina errugbia baino gehiago gustatzen zaizkio pilota eta futbola” (B.K. Alaba ere paletan dabil Hernaniko elkartean).

Gu atzealdean ateko sailkapenak irakurri eta interpretatzen aritu ondoren hurrengo kanporaturiko bikotea ere hurbildu da erreboteko ingurura, Gemma eta Inesena. Hauek ere Ainara han dabilela ikusita lehendabizi orriak irakurtzen aritu dira, ondoren laurok pilotakadak eta hitzak trukutzen hasiz. Nik galdetu diet “aurreko urtean ba al dakizue nortzuk irabazi zuten Txapelketa Herrikoia? Donostiarrek?” eta apur batean pentsatzen aritu ostean “ez dakit, ez naiz gogoratzen” erantzun dit Ainarak. Gemma ere ez dirudi akordatzeko denik. Larunbat honetako Emakumea Pilotari Eguneko Txapelketa Herrikoia jokatzekoa da Ainara (bosgarren urtez jarraian) eta horren harira sortu zait zalantza. Orain bi urtekoan 3. geratu ziren hernaniarrak, ni han nintzela, nire aurreko urtean.


Beste bikote bat ere kanporatua izan da, Malen eta Zuriñek osaturikoa. Hauek beste pilota bat hartu eta gure eskuinetara hasi dira pilotean. Aurrean, aldiz, Rakel-Irati eta Miren-Jone bikoteak geratu dira azken txanparako. Kontraktantxatik begira Saioa daukate, animatzaile, begirale, entrenatzaile eta epaile lanak aldi berean betez. Halako batean amaitu dutela ohartu gara eta berriro ere denok batu gara borobilean, ondorengo egoeren berri jaso asmoz.

2. Partidak, pilotalekua hiru guneez banatuta (5’).

- Frontisean, aurreko egoera berean, 2:2 kantsa 6 gunetan banatuta. Lehen bezala, pilota ezin da bi kolpetan jarraian eremu berera bideratu.
- Erdian. 1:1, kantsa 4 gunetan banatuta. Pilotak ezin du gunee berean punpa egin bi aldiz jarraian.



- Errebotean. 2:2, kidearen paleta kolpatu behar da bikoteko norbaitek pilota jotzen duen bakoitzean.



Azalpenak ematen amaitu duenean Saioak “ulertu al duzue?” galdetu digu eta Inesek “aldameneko honek esplikatu dit” erantzun dio. Hori entzutean irribarre egin dugu denok eta entrenatzaileak Gemmari, Inesen bikotekide gaurkoan, galdetu dio ea

ariketetan zer egin behar den. Honek erantzun diola ikustean bikote bakoitza non hasiko garen erabaki du, 5 minutuko partidak izango direla jakinaraztearekin batera. Gazteleraz ere eman ditu azalpenik garrantzitsuenak, Rakel eta Zuriñek uler dezaten ere komeni delako (B.K. Dezente ulertzen dute euskaraz, baina, bada ez bada ere, azalpen nagusiaren ondoren eurei zuzenduriko azalpena eman ohi du entrenatzaileak).

Lehenengo txandan honela kokatu gara:

Frontisean: Gemma-Ines eta Ainara-ni

Erdian: Malen-Zuriñe

Errebotean: Rakel-Irati eta Miren-Jone

Azalpenaren gainean Inesek esan digu “hemen hainbestean, baina Pilatesen gainean edukitzen dut monitoreak, hanka hau hemen eta besoa horrela esanez, kosta egiten zaidalako ulertzea”. Horren ondoren ekin diogu jardunari, nola kokatuko garen erabakiz lehenengo. Ainara atzean eta ni aurrean jarri gara, “gero aldatuko gara” esanez. Antza denez aurkariak ere gauza bera ebatzi dute.

Partidan hasi eta lehenengo bizpahiru tantoetan Ainara eta biok hanka sartze eta huts egite nabarmenak egiten jarraitu badugu ere, Txokotan hala bukatu dugu azken errondan, badirudi partidak aurrera egin ahala neurriak hartu eta zentratzea lortu dugula. Kasu honetan, ordea, Gemma harrapatu dugu lekuz kanpo behin baino gehiagotan eta izan ditu galdutako pilota erraz bat baino gehiago. Hala ere, Ines saiatzen ari da eta guk pilota mugiaraztearen poderioz pare bat korrikaldi eginda lortu du pilota zail batzuk frontisera bideratzea. Hori ikusita “a zer sasoa!” esan dio Saioak aldamenetik. Berak gustura erantzun dio “hori behintzat badaukagu”. Guk tantoak pilatzen jarraitu dugu jokaldia hemen eta jokaldia han eginez, eurek, gainera, huts dezente egin dituzte. Hala ari ginela “Uxurekin alferrik da” esan du Inesek, Gemmak nahiago bazuen lekuz aldatzea proposatu baitio (B.K. Gemmak ahal badu normalean atzelari kokapena hartzen du eta gaur ere ez da oso eroso aritu nire ustez. Amaierarako gogogabezia puntu batekin dagoela esango nuke).

Azkenean pasa da entrenatzaileak zehazturiko denbora tartea, erlojua pi-pi-pi joka hasi zaio eta azken emaitzaren arabera alde dezentez irabaztea lortu dugunez gu gara hurrengo txandan aurreko guneko partidari aritzeko aukeraren jabe egin garenak. Beraz, Gemma-Ines bikotea agurtu eta hurrengoaren zain geratu gara.

Errotazioetan aurrean bikote bat mantentzen da, normalean irabazlea, bestea erreboteko gunera joaten da, atzeko bat erdira, bestea lekuan mantenduz eta erdian zegoenak aurrera egiten du.

Bigarren txandako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Malen-Zuriñe eta Ainara-ni

Erdian: Rakel-Irati

Errebotean: Gemma-Ines eta Miren-Jone

Kasu honetan postuak aldatu ditugu, aurrez adostu bezala, Ainara aurrelari eta ni atzelari postuetan jarri. Malen jarri da atzeko koadroetan eta Zuriñe, berriz, Ainararen eskuinetara, aurrean.

Saioak hasteko esatearekin batera jarri du martxan atzera kontua eta jokatzeari ekin diogu, lasai-lasai. Hasieratik hartu dugu aldetxoa markagailuan eta kideei “egun txarra pasa zaigu, birusa haiek daukate” esan diegu ia aho batez, Gemma eta Inesi erreferentzia eginez erreboteko gunera begiratu. “Zer nabil ni?” galdetu du Zuriñek, aurrean deserosoago dabilela nabarmen utziz, bere buruarekin adostasunik gabe. Egia esan sartu dizkiogu abiadura handi samarrean horma biko pare bat eta moztutako pare bat pilota eta hortik aurrera Ainara eta biok ere maila apur bat jaitsi dugu, ahal dela denok gustura jarduteko. Halako batean Malenek atzetik moztuta aurrean tantoa lortu du eta “bat!” oihukatu du, irribarrea ahoan. Besteoi grazia egin digu erreakzioak, baina asmatu ezinda ari zen ordura arte eta barrua askatzeko baliatu nahi izan du abagunea antza.

Partida hau amaitzean 9-3 geunden markagailuan, baina irabazleak aurrean jarraitzeko arauari kasurik ez egitea erabaki du entrenatzaileak eta guk ere ez dugu inongo arazorik izan atzerantzko bidea hartzeko.

Hirugarren txandako kokapenak honakoak izan dira beraz:

Frontisean: Malen-Zuriñe eta Irati-Rakel

Erdian: Miren-Jone

Errebotean: Gemma-Ines eta Ainara-ni

Atzeko gunera iristean bi txanda lehenago elkarren aurka arituriko bikotearekin egin dugu topo berriro ere eta gu hurbildu garela ikustean “zer, galdu egin al duzue?” galdetu digu Gemmak harridura aurpegiarekin. “Ez, 3 egin dizkigute” erantzun diot nik, baina honek ere uste dut ez duela arazo handirik izan denok gune guztietatik igarotzeko erabakia izan dela ulertzeko.

Hizketan aritu dira emakumeak partida jokatu bitartean tarte handi batean. Ines eta Ainara lehenaren bilobak eta bestearen semeak ikastolatik gauak kanpoan egitera joan direla edo bihar joatekoak direla kontatzen aritu dira elkarri. Ni ere saiatu naiz arreta jartzen eta jakin dut Ainararen semerik txikiena Arantzara joan dela gau bat igarotzera, “ez dakit nik eguraldi honekin ezer egingo duten” agertuz ondoren zalantza edo kezka lagun. Gainera, esan dute bihar doazela kanpora baten bilobarik zaharrena eta bestearen semerik zaharrena ere, oker entzun ez badut Zuatzara.

Partida lasaia jokatu dugu eta markagailu zehatzik ez dugu kontatu, nahiz eta nabarmen samar lortu dugun tanto gehiago amaitzea Ainarak eta biok. Elkarrekin paletak jotzeko ongi moldatu gara, pilota jotzera doanarena hurbilduz libre dagoena. Zailtasun eta denbora gehiago behar izan dute horretarako gure aurkariek, egia esan.

Aurreko partida amaitu denean hasi gara eremu aldatzeak egiten ere, entrenatzaileak esandakoaren arabera. Hauek izan dira laugarren txandako kokapenak:

Frontisean: Miren-Jone eta Irati-Rakel

Erdian: Gemma-Ines

Errebotean: Malen-Zuriñe eta Ainara-ni

Bigarren aldiz jarraian atzeko gunean gaude gu, oraingoan aurreko azken partida jokatu dugun bikotearen aurka aritzeko berriz, gainera. Malen berriro ere ezker aldean jarri da eta eskuinaldean Zuriñe. Ni ere ezkerrean nago eta Ainara eskuinean, aurreko txandan alderantziz kokatu garelako.

Egoera honetan ere lasai aritu naiz ni, aurkariak mugiarazi asmotan. Antzera dabilta Malen eta Ainara ere eta Zuriñe ere saiatzen da ahal duen neurrian. Hala ere, kasu honetan ere guri baino gehixeago kostatu zaie elkarren paletekin talka egitea, besteak beste Zuriñek berea atzeratu eta Malen joan behar izaten delako kolpatzera. Hori ikusita Ainara barrez hasi da eta “zer, Zuriñe, horrela ondo moldatzen al zara?” edo halakoren bat esan dio eta honek “bai, bestea etor dadila nirea kolpatzera” esan du, barreka. Giro onean ari gara orain ere, markagailua kontatu gabe beste behin ere (B.K. Ez dakidana da beste egoeretan, gu egon ez garenetan, markagailua kontatzeko ohiturarik izan ote duten, baina ikusitakoak ikusita ezezko susmoa daukat).

Kasu honetan ere partidari aritu gara aurreko gunetik aldaketarako unea heldu zaigu jakinarazi arte. Bosgarren txandako kokapenak jarraian:

Frontisean: Gemma-Ines eta Miren-Jone

Erdian: Ainara-ni

Errebotean: Malen-Zuriñe eta Irati-Rakel

Gu lehenengoz gaude erdiko eremuan, orain arte bina txanda pasa ditugulako frontisean eta erreboteko gunean. Beraz, txanda honen amaieran denok eremu denetatik pasata egongo gara, oker ez banaiz, gu falta baikinena erdikitik igarotzeko.

Elkar mugitu dugu eremu ezberdinetara pilota botaz Ainarak eta nik, erritmo bizi samarrean eta jarraitasun handiz, gainera. Aurrez, hala ere, bada ez bada ere, zalantzak argitu asmoz, Saioari galdetu diogu “kontrakantxako marrik atzera ezin du egin botea pilotak, ala?” eta honek “ez” erantzun digu. Espero genuen erantzuna jasota ekin diogu jardunari hortaz. Tarteka aurreko partidari begiratu diot zeharka, hots apur bat ateratzen ari delako laukotea bateko barre eta besteko algarekin. Ederki dabilzala esango nuke, bai horixe!

Ibilian-ibilian aurrera joan da denbora ere eta 10.45 dira. Entrenatzaileak bikoteen osaketan aldaketa txiki pare bat egitea ebatzi du txandatzeak egitean, bi bikote aldatu eta Malen-Ainara eta Zuriñe-ni elkarrekin jarritz (B.K. Larunbatean elkarrekin arituko dira Emakumea Pilotari egunean, Hernani ordezkatzuz eta nik uste horregatik hartu duela erabaki hori). Honen ondoren aurreko eremurako beste egoera bat proposatu du, lurreko zintak kentzen ari den bitartean:

3. Frontisean 2:2 partida, baldintzarik gabe. 4 tantora (B.K. Beste bi gunetako baldintzak mantendu egin dira).

Hona aldaketak egin ondorengo seigarren txandako kokapenak zeintzuk izan diren:

Frontisean: Gemma-Ines eta Malen-Ainara

Erdian: Zuriñe-ni

Errebotean: Miren-Jone eta Irati-Rakel

Erdian hasi aurretik “zer, laukien jokoan hasiko al gara?” esan diot Zuriñeri irribarretsu eta berdina erantzun diot berak. Kasu honetako jardunak ez du ia antzik izan aurrez Ainararekin aritutakoan izan dugunarekin, beste erritmo, patxada eta lasaitasun batekin ari naizelako, Zuriñek ere pilota batetik bestera botatzeko zailtasunik izan ez dezan. Ederki moldatu gara elkarrekin eta kasuren batean edo bestean izan ezik lortu dugu guneak ez errepikatzeke baldintza betetzea. Bitartean hizketalditxoren bat edo beste

izan dugu, “Emakumea Pilotari egunera joateko asmorik ba al duzu?” galderari erantzunez hasia (B.K. Nik egina izan da galdera, deserosoa baitzait hainbesteko isiltasuna sentitzea, batez ere kide batekin ari naizela aintzat hartuta. Hala ere, hizketa-gaiak proposatzeko zailtasunak izaten ditut. Nahi eta ezin antzeko zerbait dirudi honek).

Aurreko partidako bost minutuak igaro bezain pronto iritsi zaigu txanda egiteko unea. Zazpigarren errondako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Malen-Ainara eta Zuriñe-ni

Erdian: Irati-Rakel

Errebotean: Gemma-Ines eta Miren-Jone

Frontiseko eremuko baldintzarik gabeko partidari aritzeko kokapenak zehaztu beharra daukagu berriro ere, bikoteak aldatu eta Zuriñerekin lehenengoz ari naizelako ni. Bera nirekin ere bai, noski. Berari eman diot hautatzeko aukera eta atzean nahiago duela argi adierazi dit. Beraz, partidarako Malen eta Zuriñe atzelari eta Ainara eta biok aurrean jarrita hasi gara. Partida aldapan gora jarri bazaigu ere 3-4 irabazten amaitu dugu, nik parte gehiago hartu eta aurkariak mugitzeaz gain pilota zailen bat edo beste ere itzuliz. Aurrez 2-0 eta 3-1 galtzen joan gara, baina, elkar oso ongi hartu dugu Zuriñe eta biok eta askok uste gabe lortu dugu berriro ere eremu berean jarraitzeko baimena. Oso ongi aritu da kidea, ezker-eskuin eta airez ere pilotak itzuliz. Nik animatzaile rola ere bete dut, “aupa, Zuriñe” eta “oso ondo” esanez ia jotzen zuen kolpe bakoitzeko. Saio osoa aurreko eremuan epaile eta markagailu lanetan daramatzen entrenatzaileak ere animatu du okasioren batean.

Beraz, lortutako emaitzaren ondorioz berriro ere aldatzeko unea heldu zaigu. Horrela kokatu gara 8. txandan:

Frontisean: Irati-Rakel eta Zuriñe-ni

Erdian: Miren-Jone

Errebotean: Malen-Ainara eta Gemma-Ines

Jokatzen hasi aurretik Rakel eta Irati etorri dira, aurretik erdiko gunean zeudela amaieran gure jokoari begira sumatu ditudan azken tantoan. Etorri orduko “zer, gaur izerditan” esan didate eta apur bat baietz onartu diet nik. Hala ere, ez dut jertserik kendu oraindik eta ez dut uste kenduko dudarik, hainbesteko berorik ere ez dudalako gorputzean.

Partida honetarako gure lehengo kokapenak mantendu ditugu Zuriñek eta biok eta Rakel aurrean eta Irati atzean kokatu dira aurkarien kasuan. Jokatzen hasi eta tanto piloteatu, lehiatu eta orekatu samarrak atera zaizkigu, landuak. Ia astero gertatu ohi zaidan bezala ni jotzera hurbildutako lehenengo pilotakadetako batean “ai, ama!” batek ihes egin dio Iratiri eta nik ohartu orduko “lasai, tantoak jarraitu egiten du, animo” esanez erantzun diot (B.K. Iruditzen zait partidek aurrera egin ahala patxada apur bat gehiago lortzen duela, baina saioro egiten du era horretako zerbait nire aurka jokatzea egokituz gero). Aurkariak oso txukun ari dira, nire kidea bezalaxe, nahiz eta jokorik gehiena atzera bideratzen duten, ahal dutela ni sartzea ekidin nahian. Ni sartzen naizenean ere lasai ari naiz, Rakeli jotzeko moduko erritmoan bidaliz pilotak eta Iratiri ere halatsu.

Oso estua izan da partida eta 3-3 berdindu ondoren azken tanto ia amaigabe bat jokatu dugu. Une horretan ikusi ditut guri begira erdiko eremutik Miren eta Jone ere, tarteka Zuriñeri animoren bat edo beste eman ere bai. Elkar animatuz ari gara jokatzen ari

garen laurok, batez ere Zuriñe, Irati eta hirurok, “aupa, Zuriñe” edo “aupa, Rakel” esanez batez ere, “aupa Irati” ere esan arren kasuren batean (B.K. “Aupa Uxue” ez da entzuten, kar-kar!).

Azkenean 11.00an amaitu dugu aurreko norgehiagoka, 3-4 irabazi digute Rakel eta Iratik eta zer ordu den ikustean Rakelek ospa egin du, larunbateko festarako planaz eta autobusaren ordutegiaz galdetuz. Saioak erantzun dio oraindik ez dakiela, baina deituko diola informatzeko. Ni eta Iratik ere murruan utzi ditugu paletak, entrenatzaileak ordua ikusitakoan saioa amaitutzat emango zuela uste baikenuen. Hala ere, Saioak hori ikustean “bazoazte?” galdetu dio Iratiri eta “beste bost minutu” esan ondoren emakumeek bi gunetan jokatzeko amaitu dute, modu honetan:

Frontisean: Irati-Zuriñe eta Miren-Jone

Errebotean: Malen-Ainara eta Gemma-Ines

Ni, bederatzi geundela ikustean, motxilara hurbildu eta boligrafoa eta koadernoak eskuetan hartuta saioko errotazioak nola egin ditugun eta bakoitza non aritu garen memoria eginez hasi naiz, orri zuria letra oker eta tinta urdinez zikintzen, besteen jokoari erreparatzeko ia bururik altxa gabe. Saioak ikusi nau, baina ez dit ezer ere esan.

11.05ean amaitu da saioko zatirik nagusia. Ni oharretako bi lerro soilik idatzita nago, baina kideak etorri dira kontrakantxara eta gero jarraitu beharko dut honekin. Beraz, orain arte zain egon ostean emakumeekin elkarrizketarako hitzorduak zehazteko uea iritsi zait. Gemma eta Malen hurreratu zaizkit aurrena, ordea, euren jakin-mina asetu nahian, “aukeratu dituzunak zergatik aukeratu dituzu?” galdetuz, atzean Ines eta Ainararekin batera gai horren gainean hizketan aritu direla arrazoituz. Inesek esan dit “elkarrizketa noiz egingo dugu?” eta “aste honetan edo hurrengoan noiz datorkizu hobeto?” galderei erantzunez nahiago duela datorren astean geratzea. Beraz, “larunbatean zehaztuko dugu hitzordua lasaiago” esan eta asteburura arte agurtu dugu elkar. Ondoren hasi naiz Malen, Ainara, Gemma eta inguruan ditudan besteekin hizketan, nola edo hala azalpenak ematea dagokidala sentituta (B.K. Hau da deserosotasuna!). Nik “irizpide ezberdinak ditut eta emakume guztien artetik aukeratu ditut hauek, Zizurkilgo beste hiru eta pare bat usurbildar ere elkarrizketatuko ditut” esan diet, ondoren “zehatzago ezin dizuet erantzun, badakit pena dela, baina une honetan ezin dut esan” erantsiz. Hori ikusita “guk pentsatu dugu Ainara ona delako eta urte dezente daramatzalako, Ines beteranoa delako, Zuriñe asko hobetu duelako eta Irati berria delako” esan didate. Nik berriz ere lehengo bera esan diet eta gaiarekin jarraitzeko arriskua ikusi dudanez “hara, metodologia kontua da. Saioak ere ikastaro osoa darama idatziak gustura irakurriko lituzkeela esanez, baina beste bi urtean zain egon beharko du” bota dut eta ni lasaiago geratzeaz gain uste dut eurak ere konformeago geratu direla, gaia erdi itxita utziz (B.K. Eskerrak hori esatea bururatu zaidan!). Horren ondoren Saioak eman dit arnasa pixka bat “bukatzeko duenean denok elkartzeko gara egun batean eta elkarrekin irakurriko dugu, hau ni naiz edo hau nik egin nuen” esanez.

Azkenean hasi naiz aste honetako hitzorduak zehazten, Zuriñe ere hurreratu baita oinetakoak aldatu ondoren. Honek “beno, ba etorri gure etxera, inork ikus ez gaitzan” esan du eta Ainarak esan dio “Ez, bakarrik egin nahi ditu, taldean ez”. Zuriñek, hala ere, erraz jarri dit eta “bihar hobeto” esanda biharamunean geratu gara, goizeko 9etan bere etxean. Non dagoen ez dakidanez taxi geltokian jarri dugu hitzordua, bertatik elkarrekin joateko. Beraz, lehena lotu ondoren ea goiz berean beste bi lotzea lortzen dudana.

Azkenean ostegun goizerako egin dut zita bikoitza, Iratirekin hasi eta Ainararekin bukatu asmoz, 9.05ean Guria tabernan. Ainarak aurrez esan dit “eman pistaren bat, ea zer galdetuko duzun” eta “ea hondartzara joaten zaren” erantzun diot nik. Urduritasun puntu bat, jakin minak sortua ziurrenik, badute kideek, baina nik “egon lasai, hemengo hizketaldien antzekoa da, ezberdintasun bakarra izango da grabagailu bat izango dudala, baina zuek ez begiratu horri”. Ainarak bere kezka gehigarria ere adierazi du “nik Saioari dena oso ongi ulertzen diot, nire antzera hitz egiten duelako, baina zuri ez dakit, zuk hitz ezberdinak erabiltzen dituzu” botaz. “Euskaraz izango da behintzat, ala?” erantsi du. Ni ezustean harrapatu nau eta “zer, trapu zaharrak atera asmoz? A zer loreak!” esan diot, nahiz eta ez dakidan erabat serio ari ote zen ere (B.K. Zalantza horrekin geratu naiz).

Hitzorduak zehazten amaitu ondoren trasteak hartu eta pilotalekutik kanpora irteteko unea heldu da. Tropel handi samarra goaz batera, bi izan ezik beste guztiok. Gemmarekin hizketan ari naiz ni, tesiaz galdezka hasi baitzait, lehen bi urteko epea aipatu dudanean luzea iruditu zaielako. Irati ere inguruan da. Nik “gustatuko litzaidake urte eta erdi barru amaituta izatea, baina aurkezteko 2014 hasiera izango da gutxienez” esan diet. Aurretik goaz laukote bat azkenerako eta aldageletako sarreran elkarrekin hizketan geratu dira Ainara, Saioa, Gemma, Malen eta Miren. Lehenak “Saioari ere egingo diozu elkarriketa, ezta?” galdetu dit eta “bai, bai, baina Saioarena ezberdina da” erantzun diet nik, irribarrez.

Beste bostak hizketan utzi eta aurrera jarraitu dugu pasabidean besteok, eskailerak igo eta kirol-txartelak eskuan hartuta tornuetatik kanpora irtenez.

Kiroldegiko sarrera

Laukotea irten gara elkarrekin gaur ere, aurreko asteko kide berak: Irati, Zuriñe, Jone eta ni. Atzetik etorri dira, apur batean zain egon ondoren, Malen, Gemma eta Saioa ere. Saioa txartelik pasa gabe alboko atetik irteten ari dela ohartzean Iratik “joe, Saioa” halakoren bat esan du eta “sarrera vip-a dauka” erantzun diot nik irribarrez. Bitartean Jonen atezaindegian galdetu du ea pilotalekua libre ote dagoen asteazken goizean eta goizeko 11k arte hartua dagoela jakitean “zuzenean Tilosetan geratuko gara?” esan die kideei. Euren kabuz biltzen jarraitzen dute hainbat kidek asteazken goizetan.

Azkenean martxa egiteko unea iritsi da. Eskailerak igo eta goiko irteeratik irten dira ia kide denak, Irati eta Saioa baino ez nirekin behetik, euri zaparrada handia ari duela eta. Gu hirurok elkarrekin egin dugu ia Atsegindegira arteko bidea, bertan bidegurutzan gure bideak bereizi eta 11.23an liburutegira iritsiz, Saioa eta Irati agurtu ondoren. Lehena bihar arte eta bestea ostegunera arte.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Emakumeak gustura ikusi ditut gaurko saioan, etengabe mugimenduan eta uneoro jokoari zukua atera nahian ere sentitu ditut. Egia esan, azkena modu honetan, bakarkako partidei lotu gabe, alegia, noiz aritu ginen ez naiz oroitu ere egiten, baina hilabete pare bat joan zaizkigu egitura bereko saioetan, aurrean jokatu ezean “alboratuta” geratuta kasuren batean, gainera. Parte-hartze askoz ere handi eta dinamikoagoa izan du gaurko saioak, batere zalantzarik gabe.

Elkarrizketak egiten hastea komeni zait, egutegiak ez duelako barkatzen, baina urduritasun edo kezka zantzu bat ere sortzen dit horrek, emakumeen erreakzio eta jarreran eduki dezakeen eraginagatik. Hala ere, hasi beharra daukat, beraz, ea nola moldatzen naizen aste honetakoekin.

Gaur une batean estu samar ikusi dut neure burua, baina nola edo hala egoerari aurre egiten jakin dut. Kideak elkarrizketatuen hautaketaz galdezka etorri zaizkit, hasiera batean elkarrizketatuko ez ditudanak, gainera, eta ez zait batere eroso egin tartetxo hori. Hala ere, ez nau izugarri ere harritu erreakzio modu honek. Gehiago harritu ninduen iragan astean ezer ere ez galdetzeak, egia esan. Gainera, konfiantza mailaren erakusgarri ere izan liteke galdera egitera hurbildu izana, rapport-a lortu dudana seinale.

Asteko lehen eguna joan da eta bigarrenan berriro ere antzeko inguruetan izango naiz, beraz, ea astearteko lehen hitzordua nola irteten den.

Agortu da iturria

Egun osoan lanari lotuta ibili ondoren iritsi zait astearte iluntzea, goizeko bederatziak aurretxoan hemengo eta hango lanei ekin eta paleta saiora abiatu arte Buruntzaldean ibilita, emakumeen elkarrizketa, liburutegiko egonaldi, airatzeko korrika saio, tutoretza bilera eta denbora pasako paseoan ordu batzuk emanda. Gainera, oraindik ez dakit biharko eguna nola antolatuko dudana, osteguneko elkarrizketak aurreratzea oso litekeena delako, kide baten agenda arazoak dira arrazoi, bihar ere goizean goizetik ia gaurkoaren kalkoa izango diren zereginak burutuz, antzeko testuinguru eta ingurunean, gainera, berriro ere Hernani epizentro dudala. Bertan akanpatzea txarra ez azkenean hala bada?! Ea zer dioten emakumeek, dei baten zain beste dei bat egin beharrean bainabil, telefonoa etengabe eskura dudala.

Zazpitan Zubietan irten eta 19.20 inguruan heldu naiz gaurko azken aurreko geltokira, Zizurkilera. Nire energia depositua oso urri daukadala badakit eta zerbait jan dut saio aurretik, ordu eta erdian ahalik eta ondoen jarduteko, nekeak erasan gabe, ahal dela. Ondoren eguneko joan-etorrien berri idatzi dut koadernoan, irratiko arratsaldeetako albistegi nagusia hondoko musika lez jarrita dudala. Hala aritu naiz harik eta Itsaso heldu dela ikusi eta kotxean oharrak idazten amaitzean, 19.28an, bertatik irten naizen arte.

Pilotaleku ataria

Asteasuko 1. Frontenis Txapelketako kartela ikusi dut frontoiko kanpoaldeko kristalean itsatsita eta zuzenean hori irakurtzera joan naiz. Kideak ere hartu du autotik kanporako bidea eta “arratsalde on” esanez agurtu nau. Nik ere hala erantzun diot eta kartela seinalatuz “izena emango zenuen ba?” galdetu diot irribarrez. Espero nuen moduan ezezko erantzuna jaso dut. Ondoren ohartu naiz txapelketa iragartzeko argazkia tenisakoa dela eta “zer, McEnroe jarri al dute frontenisean ari den norbait jarri beharrean?” bota dut, ahots gora pentsatuz. Lehen hitzen ostean egunaren joanari buruz hizketan hasi gara, ni zutabe baten aurka erdi bermatuta nagoela. Berak esan dit ordenagailu aurrean eman duela eguna, pantaila aurrean erdi tontotuta geratu dela eta lan oso ezberdinak egiten ote dituen galdetu diot nik, batzuk besteak baino gustagarriagoak direla jasoz erantzun lez. Hori denoi gertatu ohi zaigula esan diot, nik ere hain gustuko ez ditudanak azkenerako utzi ohi ditudala. Ondoren, berriz, gaur

nekatuta natorrela esan diot, goizetik nabilela bueltaka. Tesiaz ere hitz pare bat egin ditugu, berak oraindik astero zuzendariekin biltzeko zortea duela esan baitit. Ildo horri tiraka nik esan diot “ba ni gaur arratsaldean izan naiz bileran eta lana ez, hau hobbya dela esan dit. Bai zera!”. Irribarre egin dit eta ea udarako zer asmo ditudan galdetu, “lana izango duzu” botaz aurretik, bada ez bada ere (B.K. Bera orain bi hilabete pasa tesia defendatu berria da eta badaki zertaz ari den, tarteka gustura aritzen naiz gaiaz aukerarik bada, ulertzen nautenetako bat baita).

Entrenatzailea iritsi berria da, 19.30ak jota, eta nekatuta dagoela esan du berak ere atarira sartu eta harmailetan motxila uzten ari dela. Nik “gaur ezin naiz nekatu, ondo pentsatu ariketak” bota diot, gorputza (eta burua) pasada handia hartuta eta broma gutxitarako ditudala sumatzen baitut. Hori entzutean “a zer bi!” irten zaio Itsasori, irri txiki bat ezpainetan. Niri telefonoa hasi zait joka eta “hau dei inportantea da” irten zait barru-barrutik, apur bat urrundu eta deiari erantzunez. Azkenean lortu dut jakitea bihar egingo ditudala Hernaniko beste bi elkarrizketa eta lehenaren deiaren ondoren bigarrenaren etxera deitu dut hitzordua zehazteko. Kudeaketa lanak amaituta berriz kideengana itzuli naiz eta ikusi dut Saioak pilota bat darabilela eskuan, eskupilotakoa, larruzkoa. Guri begiratu eta gora botatzen duen bitartean “gaur honekin aritu behar gara” esan digu. Nik esan diot “esponjazkoa nahiago dut nik” eta erantzun lez “horiek umekeriak dira” jaso. Ume garaian eskuz zertxobait ibili nintzela esan dut ondoren eta Ikaspilotako final bateko ibiliaren berri eman, pilota elkarte batean ez nintzela aritu azpimarratuz. Iristen laugarren kidea Oihane izan da, aurreko jardunaren erdi parean-edo, eta justu entrenatzaileak esan digu “gaur zoriontsu izan naiz une batean, datorren astean amaituko dudalako Anoetako hurrekin. Datorren astean merendola egin eta kito” (B.K. Bertako pilota eskolako entrenatzaile eta arduradun lana tartekatzen du GEPFekoarekin). Nik hori entzunda “bi aste barru are zoriontsuagoa izango zara, ez duzulako ez merendolarik eta ez entrenamendurik izango orduan” bota diot, irribarretsu. Akaso baietz erantzun dit eta oporren gainean hasi da hizketan, iaz noiz hartu zituen, saioak amaitu ondoren lasaiago arituko dela eta halakoak botaz. Nik esan diot “nik abuztuan bi aste hartuko ditut” eta Itsaso eta Oihane isilago aritu dira gure kontuak entzuten, GEPFeko udako antolaketaz aritu baikara besteak beste. Oporren haritik Saioak esan du EEPFk antolaturiko nesken paleta zirkuituko partidak dituela asteburuetan udaran eta zenbat ordainduko dieten ere esan du. Ildo honetan lau katu direla esan du eta horiek elkar ezin dutela ikusi esanez hasi da. Ez dakit zer partidutan ez dakit nork gaizki jokatu zuela esaten omen zuen, errealitatean besteak mailaz hobeak zirela onartu beharrean. “Nik aurpegira begiratu ere egiten ez dutenekin eta ondoren irabaziz gero hitz egiten dizutenekin ezin dut” kontatzen jarraitu du eta garrantzia kendu nahian “badakizu nolakoak diren batzuk, ez eman bestelako garrantzirik, ez du merezi” esan nahi izan diot. Nik zenbaitekin izandako esperientzia baten berri ere eman diet, nazioarteko nire ibili bakarrekoa, hain zuzen, “inguruan antolatzen dabiltzan horiek ez zaizkit batere gustatzen” esanez. Ondoren esan diet “aintzat hartu askoz jende gehiago dabilela ikastaroetan federatuta baino, 80 fitxatik aktiboak 50-60 izango direlako eta aisialdian ehundik gora zaudetelako”. Pili eta Marian bata bestearen jarraian heldu dira jadanik, beraz, batzuk elkartu gara. Hauei heldu orduko “gaur pilota honekin ibiliko gara” esan die eta hauek ere muturra okertu dute, beste guztiok bezala.

Hizketaldian luzatu egin gara eta halako batean, gai beraren gainean bueltaka, pilotarien arteko harreman eta harremanik ezak, hasi gara kantxarako eskailerak jaitsiz, arabar eta bizkaitarrak gipuzkoarrak baino askoz ere gutxiago direla esanez doa Saioa, ia bakarrik partekatuta batean bezala.

Pilotalekua

Kantxara jaitsi gara, trasteak utzi eta ordurako Onintza ere bertan da. Saioak larunbaterako eman dion dirua jaso du eta guregana bildu da. 19.50 dira eta hara non Gurutze hasi zaigun goitik “ze, oraindik ez al duzue korrikarik egin?” galdetuz. Pilik “zure zain geunden” esan dio eta berak “azterketak zuzentzera joango naiz” esan digu, “hori alternatiba hobea al da?” galdetuz bukatuz nik. Berak “ez, baina hala bukatu egingo nituzke” esan dit eta bere horretan utzi dugu gaia.

Beroketa

Orain bai, kostata, baina ekin diogu gorputzak martxan jartzeari, kantxaren alde batetik bestera joan-etorrian, frontisetik errebotera eta alderantziz. Hiru taldetxotan ari gara, lehenengo laukote bat, ondoren Gurutze eta Onintza elkarrekin hizketan eta ni azkena, metro batzuk atzerago, beranduago abiatu bainaiz entrenatzailearekin zerbaiten gainean bi hitz egin ostean. Nik bizi samar egin dut ibilia eta amaierarako ia harrapatzen bukatu dut. Emakumeek beraiek erabaki dutenean geratu gara guztiok eta beroketako hurrengo atalari ekin diogu.

Giltzadurak mugitzeko borobilean jarri gara eta harrigarria bada ere isiltasuna da nagusi. Entrenatzailea saiorako eremuak mugatzeko zinta jartzen ari da eta “zer, gaur ez al daukazue ezer kontatzeko?” bota du aldamenetik. Ezker horman 5etik 7ra marra jartzen ari da, txapa bezala erabiltzeko. Hori esan eta apur batera larunbaterako zer ordutan eta plana zein den galdetu diote emakumeek Saioari eta honek “partidak jokatzeko dituztenak hamarretarako eta besteok nahi baduzue beranduago” erantzun du. Ni harritu egin nau erantzunak eta “partidak ez al dira 10.30ean hasten?” galdetu dut. “Bai, baina batzuk beranduago joaten dira. Partiden lehenengo zatian ez da inor asko egoten, gero bigarrenean bai” eman dit aditzera. Onintzak eta Gurutzek elkarrekin joango direla esan dute eta hitz egingo dutela. Ondoren nikien gainean “gogoratu aurrean *Emakumea Pilotari* jartzen duena eramateaz” esan digu Gurutzek, “nik Amasara ez nuen eramanez, baina uste dut besteek baietz” bota du. Hori entzutean ni oroitu naiz ez daukadala halako nikirik eta “nik horrelakorik ez daukat, atzean daukana bai, federatuta aritzen nintzen garaikoa” gaineratu dut. Hortik besteren batek esan du, Oihanek uste dut, “kamisoiak bezala geratzen direnak”. Besteren batek esan du badaukala iazko berriagoren bat, baina bakana da. Beraz, “orain badaude federazioan gehiago eta nik eramango dizkizuet” esan du Saioak. Neurriak galdetzen hasi da eta batek “nik L” besteak “nik M” diote. Entrenatzaileak mutilen modeloa dela esan eta “nik S bat daukat” bota die eta hala aritu gara arroparen gainean. Azkenean Saioak esan die ostegunean berak utziko dizkiela tabernan, Villabonako saiora egingo duen bidaia aprobetxatuz horretarako. Izan ere, larunbatean emateko esan diogunean berak “ni ez nago” bota du eta harriduraz “nola ez zaudela?” esan diot nik. Oihane eta Mariani “zuei ere ekarriko dizuet hurrengo batean, zuena ez da hain presazkoa” esan die. Nik esan diot “Usurbilgoek ere ez dute izango nikirik”.

Giltzadurak mugitu eta luzapen batzuk egiten hasi garenean aurreko eremuan ari zen marra bat jartzen Saioa eta zenbat emakume diren joatekoak, nondik eta kopuruen inguruan aritu dira. “65 inguru aurten” esan du eta “aurrekoan gehiago ziren, 80 inguru, gutxitu egin da. Hura izan zen zuri omenaldia egin zizutena” esan du beste bakarren batek niri begira. Batzuk ikastaroetan ez dutela jarraitzen ere adierazi du

entrenatzaileak, beste leku batzuetatik, adibidez, Arrasate eta Azkoititik, ez duela uste inor doanik bazkaltzera. Hori entzunda nik “Usurbilgoak tropelean doaz” bota dut. 20 emakume dabiltzala hiru taldetan esan dut eta asko iruditu zaizkie kideei, are gehiago lehenengo urtea dela jakin ondoren. Emakumea Pilotari egunean goizaren hasieran Saioak bera ez dela bertan izango esatearekin batera “Uxue epaile jarriko dugu” bota du eta nik “ez, ez, ez” erantzun diot, ezustean harrapatu eta oraindik sustoa pasatu gabe dagoenaren moduan. Hori entzutean Gurutzek “Uxuek lana egin beharko du, ikusi eta oharrak idatzi” esan du irriz eta Marianek ere, irribarrea ahoan, “aurpegia ere aldatu zaio”. Hala ari gara kontu kontari eta entrenatzailea kontrakantxan utziriko motxilara hurbildu da, paletak eta pilotak banatuz. Gu ere bai bere atzetik, artaldea artzainaren ingurura bezalaxe.

20.00 jota dira eta ezker hormaren aurka piloteatuz egin dugu azken atala, binaka zein hirunaka, gaur zazpi baikaude: Itsaso eta Marian, Oihane, Pili eta Onintza eta Gurutze eta biok frontisetik hurbilen. Entrenatzaileak fokuak pizteko aprobetxatu du tarte horretan, besteak beste. Ni eta Gurutze hizketan aritu gara, Giroaz eta bertako etapak ikusteaz. Bera hasi da gai horren inguruan (B.K. Ziurrenik ederki tankera eman dio nire kirolzaletasunari ikasturtearen joanean), gaurko etapa euskaldun batek irabazi duela esanez. Ea ikusi ote dudana galdetu dit eta “ez, baina irratian entzun dut Jon Izagirrek irabazi duela” erantzun diot. Ondoren itzuli handietan gutxien jarraitzen dudana dela ere esan diot eta berak larunbateko etapa telebistan jarraitzen aritu zirela kontatu, Alpeetan izana delako eta Cervino ikusi nahi izan zutelako, baina behe lainoa omen zegoen eta apenas identifikatu omen zuten ezer (B.K. Kirolzaletasunari mendi horien inguruan nik agertutako ezagutu nahia ere gehitu eta ederki uztartu ditu hizketaldi bakarrean kideak).

Entrenatzaileak dei egin digunean piloteatzeari utzi eta kide denok bildu gara borobilean bere inguruan, saioko zati nagusian egin beharrekoen berri jasotzera.

Ariketak


Banakako txapelketako partidak amaituta ditugu Zizurkilan ere, azken aste luzeetan egin gabeko saioen estilokoa izango da gaurkoa ere, bezperako Hernanikoa bezala. Atzo emakumeek ondo pasa zuten eta ea gaur zer joera duten. Nik alde zurreratik gustura arituko direla pentsatzen dut. Ikus dezagun ba!

Saioko gune bakoitzeko ariketak aurkezten eta azaltzen hasi aurretik Gurutze eta ni elkarrekin nahiko bolumen baxuan ari gara hizketan eta hori ikustean “zu irakaslea al zara?” esan dio Saioak. Hizketaldia, ordea, Onintzak hasi du, Saioak esan dion zerbaiten harira. “Elkarrengandik urrundu ere egin gabe egotea nahi dut hurrengo lau egunetan, larunbaterako komunikazioa lantzeko” esaten hasi zaie xaxatuz, Zizurkilgo bikotea eurek osatuko dutelako txapelketa herrikoiko azken fasean. Hori entzunda Onintzak “beno, orduan mezuak bidaliko dizkizut telefonoz” esan dio eta honek “nik horrelakoak gutxi erabiltzen ditut eta What’sApp eta halakoak batere ez”. Auskalo nondik bueltan aplikazio horren izena nola ahoskatzen ote den ebatzi nahian hasi gara, baina irizpide zehatzik ez daukagu (B.K. Hara hor gure hizketaldiaren arrazoiak, aurreko gertaerak harilkatu ondoren). Kideak, beraz, irribarretsu eman dio erantzuna bere irakasle izaeraren harira, “bai, baina gaiztoetakoa” botaz lasai-lasai. Hori ikusita “orain serio hasiko gara, azken bost minutuetan egingo dugu barre Txokotan hasten garenean” bota du entrenatzaileak. Ondoren bikoteak nola osatuko ditugun agertzeari ekin dio: Onintza-Gurutze, Oihane-Saioa, Pili ez dakit norekin eta ni Itsaso edo Marianekin. Nik zalantza

egin dut norekin esan didan, Itsasorekin edo Marianekin naizen ez zait oso argi geratu, behatzarekin seinalatuta adierazi baitu, ez hitzez. “Ez, zu Itsasorekin eta Marian Pilibrekin” eman dit azalpena entrenatzaileak. Nik zer esan dudan aldamenetik entzun duenez “ni eta Itsaso?” galdera irten zait Marian esan beharrean eta “ni azkena esaten da” argitu dit Gurutzek. Saioa ohartu da horrekin eta irribarrez “ez dakit ez ote duen mingaina jan” esan diot nik. Ondoren kideari erantzun diot esanez “Marian esan nahi nuen, baina ez zitzaidan irteten eta horregatik amaitu dut ‘ni’ esanez”. Hala ere, azkenean azalpenak entzun eta saioari ekiteko moduan gaudela dirudi, ez baitugu hizketan segi eta beste denak bezala adi-adi segi ditugu entrenatzailearen esanak.


1. Partidak, pilotalekua hiru gune ezberdinetan banatuta (5’).

- a) Frontisean, 2:2 kantxa diagonaliki 2 gunetan banatuta. Ezkerrean dagoenak ezkerrean punpa egindako pilotak jo ditzake eta eskuinekoak, eskuinekoak.




“Beste gunean jotzekotan airez” esan du Gurutzek eta Saioak buruarekin baieztatu egin dio, “aurrez ere egin izan dugu ariketa hau” botatzearekin batera.

- b) Erdian. 1:1, kantxa 4 gunetan banatuta. Pilotak ezin du gune berean punpa egin bi aldiz jarraian.



- c) Errebotean. 1:1, baldintzarik gabeko partida, 8ra arte.



Gaur, gainera, azaldu du aldaketak egitean errotatzeko modua ezohikoa izango dela aurreko eguneko eta guztietan kontatu beharko direla tantoak, irabazle eta galtzaile geratzeak baldintzatuko baitu hurrengo txandako kokapena. Aurreko eremuko garaileak bertan mantenduko dira, atzeko irabazleak eta erdikoak bikotea osatu eta aurrera egingo dute, aurreko galtzaileetako bat erdian eta bestea atzean kokatuz. Atezko eta erdiko galtzaileak ez dira lekuz aldatuko. Hau entzutean aurpegiera aldatu zait niri eta entrenatzailea konturatu egin da, “lasai, erraza da, gero azalduko dizut nola egin gogoratzeke” esan dit (B.K. Hau kaka-nahastea, nola kristo oroituko naiz txanda guztietako guztien kokapenekin? Ai, ama!).

Argibide eta gainerakoak jaso ondoren entrenatzaileak esleitutako lekuetan kokatu eta ariketei hasiera ematea dagokigu. Lehen txandan honela kokatu gara:

Frontisean: Onintza-Gurutze eta Itsaso-ni

Erdian: Saioa eta Oihane

Errebotean: Marian eta Pili

Aurreko partida hasteko kantxako gure kokapenak zehaztu ditugu, Itsaso eta Gurutze atzean eta ni aurrelari jarrita, Onintzarekin parez pare. Gure aurkariek larunbateko postu berdina hartu dituzte, pixka bat entrenatu asmoz. Partidari hasiera eman eta nahiko azkar lortu dugu bizpahiru tantoko aldetxo markagailuan, euren hutsei eta propio nik gune baten mugan bota eta ez zegokionak pilota jotzea eraginez. Horietako batean irribarre zabal samarra atera zait eta Itsasok “gainera propio hori pentsatuta egin du” esan die bai Onintza eta baita Gurutzeri ere.

Orokorrean partida mugitua jokatu dugu, elkar estutu eta mugitzen saiatu gara, nahiz eta nik pistoia jaitsita jardun dudana, tarteka gaiztakeriaren bat egin arren. Onintza, adibidez, txokora pilota bat baino gehiago mozten saiatu da eta bizpahiru tanto bikain lortu ditu horrela. Nik aldamenetik adarra joz “zer, larunbaterako entrenatzen?” bota diot eta “hala komeni da, ezta?” bota dit berak irribarrez baina serio aldi berean. Giro oso onean aritu gara denbora tartea amaitu bitartean eta tantoak ere ez dira labur-laburrak izan. Amaieran guk lortu dugu irabaztea eta Gurutze eta Onintza joan dira atzeko bi guneetara, bikote berri bat etorri gure aurka aritzera.

Bigarren txandako kokapenak hauek izan direla uste dut (B.K. Ez dut apusturik egingo, bada ez bada ere):

Frontisean: Marian-Saioa eta Itsaso-ni

Erdian: Pili eta Gurutze

Errebotean: Onintza eta Oihane

Partida honetarako kantxako postuak aldatu ditugu Itsaso eta biok, bera eta Saioa aurrelari eta Marian eta neronek atzelari jarrita. Saioa saiatu da Itsaso zirikatzeko, baina honek ederki dihardu gaur saio hasieratik eta ezkerrez eraman ditu bere gunearen mugan jo duten pilota bat baino gehiago, beste zenbaitetan baino huts gutxiago eginez. Nik, berriz, ezker hormara pilota dezente bideratu dut eta entrenatzaileak ez du jokoa hainbesteko parte hartzerik izan, neurri batean behintzat guk utzi ez diogulako. Hala ere, lehenengo kasuan bezala partida orekatu eta jarraitasun handi samarrekoa izan da, etenaldi handirik gabea. Amaieran, baina, aurreko partidaren bezala gure alde desorekatu da balantza.

Hirugarren txandako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Onintza-Pili eta Itsaso-ni

Erdian: Marian eta Oihane

Errebotean: Gurutze eta Saioa

Hirugarren ekinaldian berriz ere lehenengo egoerako postuetan jarri eta guk galdu egin dugu, tartean nik pilota txapara bitan eta txapapera beste behin botaz. Hala ere, Onintzak eta Pili tanto dotoreak egin dizkigute eta ez dago aitzakiarik, merezimenduz jarraituko dute gune horretan. Lehenengo txapara joan den pilotakada txarra izan ote den zalantza egin dute Pili eta Onintzak, hotsik ez duelako atera, baina ez daukat zalantza izpirik nik. Itsasok ere nire uste bera agertu du. Bigarrena ere nahiko jarraian jo du eta “horrek hotsa atera du” esan didate.

Itsaso eta biok ginen une honetara arte gunez aldatu gabeko bakarrak. Beraz, atzeko eremuetarako bidea hartu dugu bost minutuko partida amaitu denean, lasai. Ni, ordea,

nekea sumatzen hasia naiz eta horri buruko nahas-mahasa gehitu behar zaio, orain arte zein eta non egon den kalkulatu nahian ari naizelako neure baitan, baina ez dudalako lortzen.

Laugarren txandako kokapenak jarraian:

Frontisean: Onintza-Pili eta Oihane-Marian

Erdian: Gurutze eta ni

Errebotean: Saioa eta Itsaso

Oihane lehenengoz dago aurreko gunean, orain arte hortik pasatzeko falta zen kide bakarra. Beraz, oraingo honen ondoren ezagutuko dugu denok frontiseko jokoa nolakoa den. Erdiko eta atzeko guneeetatik ere ez gara denok igaro oraindik, txandatzeen baitakoak baitira kokapen berriak. Egia esan, entrenatzaileak esandako lekura joan gara guztiok, txintik ere esan gabe aldatzea egokitu zaigun aldiro.

Erdian lau guneei erreparatzen eta botea non eman litekeen eta non ez pentsatzen hasi naiz hasieran. Modu honetan aurreko kideei ez diet jaramon handiegirik egin, batere ez esatearren, eta atzekoei ere ez gehiegi. Markagailua kontatzen hasi gara Gurutze eta biok hasieran, baina erditik aurrera hori ere galdu dut. Berak ere “niri ahaztu zait markagailuan nola goazen, baina zu zoaz aurretik” esan dit. Egia esan, gure pilotakada trukaketan ere ez naiz aritu erditik aurrera, inertziaz niharduen, nire munduan aurreko kokapenak zeintzuk izan diren gogoratu eta asmatu nahian baizik. Hala hasi dut laugarren tarte hau eta amaierarako daukadan buruko nahaspila izugarria da. Saioa ere ohartu da eta ea emaitzak gogoratu nahi nituen galdetu didate aho batez berak eta Gurutzek eta ezetz esan diet “non aritu garen jakin nahi dut” eta “hori ezinezkoa da. Nahi baduzu hartu orria eta idatzi, gugatik ez lotsatu” erantzun dit. Nik ezetz esan diet, ez naizela idazten hasiko, baina kezka eta izu aurpegiak salatzen naute nonbait. Hori ikusita Saioak “ni zu baino gehiago kezkatzen naiz halakoetan” bota die eta emakumeek irri txiki bana egin dute, baina geurean jarraitu dugu erlojuaren pi-piak berriro ere gune aldaketa egiteko momentua dela adierazi arte.

Bosgarren txandako kokapenak zehazteko Gurutzek irabazi egin diodala esan dit, baina nik aurrera bera joateko esan diot. Gainera, amaieran egin dituen tanto pilarekin ziurrenik markagailua irauliko zuen honez gero. Hala kokatu gara txanda berrian:

Frontisean: Oihane-Marian eta Gurutze-Itsaso

Erdian: Saioa eta Onintza

Errebotean: Pili eta ni

Frontiseko eremuan hasi dira bi biren aurkako partiduan, baina, beste laurok ez erdian zein atzean. Saioak nirekin eta apuntatzeko kontuarekin tematuta darrai eta Onintzak entzutean “beharrezkoak al dituzu?” galdetu dit, nik “derrigorrezkoak ez” erantzunez. Nik Saioari eskuarekin inor astintzeko keinua egin eta “honi *pan de cantera* esaten dio gure aitona” bota diot erdipurdiko irribarre batekin, ondoren atzeko gunean jarritz Pili eta biok partidutxoari ekiteko prest. Aurreko egoeran baino apur bat gehiago mantendu dut arreta, baina buruak kalkulatu nahian eta memoriari tiraka jarraitzen du. Hau da hau! Saioari ere esan diot “zurekin gogoratuko naiz, lasai” erdi brometan (B.K. Haserre ez nago, baina oso arduratuta bai).

Pili eta biok elkar mugitu dugu atzean, nahiz eta pilotakada bat baino gehiago izan diren 8ko marratik kanpora joan zaizkigunak. Asko horma bikoak izan dira eta hori ikusita

“ezin gara kabitu” esan diot, berak “niri behintzat bi paretetarako estu geratzen zait” erantsiz. Badirudi iritzi berekoak garela.

Erdiko eremuan, aldiz, tartearen hasieran Saioak Onintzari “hemen egon gabea zara oraindik, ezta?” galdetu dio eta honek “bai, erditik ez naiz pasa lehen” erantzun dio. Aurrez Onintzak berorik ez ote dudan ere galdetu dit, polarra soinean dudala nabilelako eta “ez, ez, ni hozbera naiz. Barrutik bi niki daramatzat, gainera” esan diot eta “Uxue ez da berotzen” esan du berak pare bat aldiz saioan zehar.

Erlojua denbora agortu dela abisatzen hasi da berriro ere entrenatzailearen eskumuturrean eta denoi dei egin digu bere inguruan bil gaitzen. Aurrez frontiseko eremuan kantxan jarri duen marra kentzen aritu da, laugarren saiakeran amaituz, aurrez eten egin zaiolako zinta pare bat aldiz. Horietako batean “oskua!” esan du Saioak eta “hori aspaldi entzun gabea nintzen” esan du Itsasok. Gurutzek broma giroari gatz pixka bat jarri nahi izan dio “neska fina da oso” esanez. Entrenatzaileak, berriz, irribarre egin du eta saioetan tarteka biraoren bat edo beste irteten zaiola esan du.

20.45 inguru dira jadanik. Aurreko eremuan Emakumea Pilotari eguneko txapelketaren harira Gurutze eta Onintzak elkarrekin bikotea osatuz bestean aurka jokatu dutela esan digu entrenatzaileak “orain Onintza eta Gurutze entrenatu behar ditugu” botaz. Nik lelokeri bat esan dut, horretarako gogoia sartuta, “zer gu seion aurka jokatu dute aldi berean?”. Saioak irribarre egin du, gainerako kideek ere antzera, eta “beste bikoteak txandaka pasako gara aurretik” esan du.

3. Frontisean eta errebotean 2:2 partidak, baldintzarik gabe. 4 tantora aurrekoa. Atzeko eremuan ez dago markagailuan mugarik jarrita, aurrekoaren arabekoak direlako aldaketak.

Lehenengo partidari Onintza-Gurutze eta Marian-Pili hasi dira aurrean elkarren aurka. Atzean, berriz, Oihane-Saioa eta Itsaso-ni. Atzean elkartzean aurreko astean atea irekita utzi genuela oroitu eta “atearena nola konpondu zenuten, udaletxera deituta?” galdetu diet entrenatzaile zein zinegotzi andereei. Saioak berak ez zuela ezer ere egin esan dit eta Oihane “nik etxera joaterako ahaztuta nuen” esan dit. Beraz, ez dakit nola konpondu zen zabalik utzitako atearen auzia, zabalteko sistemarekin adinako misterioa geratu zait beraz, baina gaur itxita dago, behintzat.

Atzeko eremuko partidari oso lasai aritu gara laurok, markagailua, adibidez, ez dugu kontuan hartu. Egia esan, txoko ezberdinetan txandaka aritu garenean erdiko eta atzeko eremuetan ere ez dugu tantokako zenbaketarik egin ni parean izan naizenean. Besteetan ez dakit nola aritu diren, baina iruditzen zait gure antzera samar jardun ote diren (B.K. Saio asko eta asko joan dira horrela, zenbat gindoazen kontatu gabe).

Aurreko eremuko lehen partida amaitu denean “galdu egin dugu” esan du Gurutzek atzera begira eta aldaketarako garaia iritsi da. Saioa-Oihane bikotea aurrera joan dira eta atzera etorri dira Marian eta Pili. Beraz, Marian-Pili eta Itsaso-ni erreboteko gunean hasi gara. Partida honetan hasi eta zabalean kokaturik nagoenez pilotakada bat baino gehiago bidali ditut atze aldean ezker hormatik gertu samar eta horietako bat ia ate automatikoaren kaxara bertara. Hori ikusita Marian “ai ama, kaxa, ai ama, kaxa!” esanez hasi da eta beste hirurok barreari eman diogu. Ez du pilotakada hori erantzun, aurreko astean bera izan zelako nahi gabe kaxa kolpatu eta ate automatikoa zabaldu

zuena, edonori gerta badakioke ere. Beraz, pilota eskuarekin hartu eta berriro ere niri eman dit sakea egin dezadan. Besteren batean ere joan da inguru horretara pilota, baina ez apropos horra bideratu dudala, egia esan. Bada ez bada ere “ez naiz propio ari” esatea erabaki dut.

Aurreko baldintzarik gabeko bigarren partidari erreparatu diot une pare batetan, Saioa eskuinean luze mozten ikusi eta “abusona” esanez atzetik. Berak barrez erantzun dit, “entrenatu egin behar ditugu eta horregatik”. Azkenean amaitu dute bigarren binakako norgehiagoka eta Saioa eta Oihane atzeko eremura etorri dira. Beraz, Itsaso eta nire txanda heldu da Gurutze-Onintza bikoaren aurka aritzeko. Itsaso jarri da atzelari eta ni aurrelari partida honetan, aurrez bitan egin dugun eran. Onintza arnas estuka sumatu dut aldamenean une batean eta nabari zaio saioan zein egunean zehar pilaturiko nekea. Gurutze ere niki besamotzetan dabil, Itsaso bezala. Ni naiz hasieran bezala jertse lodia soinean jarraitzen duen bakarra, baina eskuetako hatzak ez zaizkit oraindik berotu, beraz, hortik atera kontuak!

Hirugarren ekinaldi honetan ere parekatu eta bizi samarra izan da partida uneren batean, guk 5-2 irabazten amaitu badugu ere. Nik maleziaz sartu ditut tanto pare bat eta eurek ere hutsen bat edo beste egin dute. Itsaso sendo ari dela iruditu zait, hobekuntza nabari zaiola esango nuke bere joko eta intentzioari begira.

“Hirutik hiru partida galdu ditugu, oso ondo!” esan du Gurutzek hirugarrena amaitu denean eta berriro ere elkarrengana bildu gara zortziok. 20.55 dira. Denok biltzean “zer esan behar dugu hirurak galduta larunbaterako?” galdetu du erdi irribarrez Onintzari begira eta besteok irribarrez erantzun diegu.

4. Txokotan binaka. Bikoteko batek bi kolpe egitean aldatuko da kontrakantxan dagoenerakin. Bi bizitza ditu bikote bakoitzak.

Itsaso, Onintza, Marian eta Oihane hasi dira barruan. Beste laurok, berriz, kontrakantxatik begira. Ni neka-neka eginda nago, alarma gorria aspalditxo piztuta nabil, jota, eta Itsasori esan diot “sartu zu”. Jokatzen hasi eta oso gutxira bi pilota beraren bila joan eta sustoren bat izan da, Pili eta Itsasoren artean uste dut. Hori ikusita Gurutzek “nik uste oraindik bakarren batek burua irekiko duela. Ea ni ez natorren egunean izaten den, hala niri tokatzeko probabilitatea txikiagoa da” esan du jarraian, irria ezpainenetan. Gaurko saioan zehar Onintzak eta berak ere izan dituzte elkarri pilota eskatu ez eta biak batera jotzera joan eta elkarrekin tupust egindako une bat baino gehiago (B.K. Behin baino gehiagotan idatzi dut talde honen kasuan ez dakidala nola ez duten handiagorik hartu orain arte. Beraz, gaur ere berdina esango dut).

Jokoan sartu-irtenean gabiltza eta bikote guztiok bizitza bat gutxiagorekin gaude dagoeneko. Nik egin dut horma bikoz tanto bat, Saioak jotako bat itzuliz, eta beste okasioren batean oinez kanpora bidean nentorrela eskuinaldera luze botata ere bai. Barrez hasi dira emakumeak hori ikusita, baina nik “ia ezin dut gehiago” esan diet, oinez ibiltzea ere kostatzen zaidalako neke zamaketaren eraginez.

Gurutze eta Onintza geratu dira lehenengo bizitzarik gabe, ondoren Oihane eta Saioa eta azkenean 21.03an amaitu dugu saioa, argiak itzali baino minuturen bat lehenago agian. Ni jota nago, makurtu egin naiz paletan pisua jarritz eta hori ikustean “besteetan ez zara ba nekatzen” esan dit aldamenetik Oihanek. Onintzak, aldiz, “zer, gaur beste

entrenamenduren bat izan al duzu?” galdetu dit eta nik “ez, baina korrika ibili naiz” erantzun diot. Berak “zenbat kilometro egin dituzu?” galdetu dit eta “hamahiru” erantzun diot nik berriro. Onintzari zuzenduz “pentsa hori egiteaz gain goizetik hor zehar dabilela” bota du Gurutzek ondoren. Ni zutitu eta kontrakantxan beste kideak dauden gunera joan naiz, luzaketak egiten hasiak baitira.

Elkarrizketetarako proposamenak luzatu eta ahal badut datorren asterako hitzorduak zehazteko unea dela erabaki dut, denok inguruan baikabiltza. Gainera, emakumeak ere trasteak jaso eta etxeratzeko bidean jartzera doaz. Hortaz, “ez dakit bere egunean esan ote nizuen elkarrizketak egiteko asmoa ere banuela behaketaz gain, baina horretan hasi naiz eta zuetako batzuei proposatu nahi nizueke: Gurutze, Itsaso eta Eliri. Besteoi agian gero egingo dizuet, baina momentuz horiek”. Horren ondoren “irizpide batzuen arabera egin dut 8-9 lagunen hautaketa guztira zabilzaten 25etatik” bota dut, bada ez bada ere, gaizki ulertuak saihestu nahian. Oihanek “lasai, guk ez daukagu arazorik” esan dit.

Azalpena entzun ondoren lehendabizi emakumeek larunbatean Tolosako Uzturpe pilotalekuan egingo den Emakumea Pilota Egunera nola joan antolatzeari ekin diote, noiz geratu eta kotxeak nork eramane zehaztuz. Bost kide doaz talde honetatik (nirekin sei).

Larunbaterako plana egin ondoren etxera alde egin dute emakumerik gehienek. Ni Itsaso eta Gurutzerekin hasi naiz elkarrizketetako hitzorduak zehazteko asmoz hizketan eta Saioa gure zain geratu da harmailen goiko aldean. Datorren astean edo hurrengoan nola daukaten hizketan aritu gara, saioen aurretik geratzeko aukera izango luketela, zenbateko iraupena duen zehaztu, baina azkenean erabaki dugu larunbatean zehaztuko dugula Tolosan, Hernaniko bat ere han lotzekotan nabilelako. Beraz, proposamenari baiezkoa emanda eta zitak erabat zehazteko utzita etxera abiatzeko unea da.

Aste honetan, gainera, lau egun barru berriro ere elkarrekin topo egingo dugu batek baino gehiagok ikasturte amaierako aisialdiko emakume paletarien festan. Beraz, “larunbatera arte” agurtu dugu elkar gehienok.

Frontoi ataria

Betiko laurok irten gara gaur ere azkenak (B.K. Etxeratzeko presarik gutxien guk izaten dugu. Ba ote arrazoiren bat gordean?). Elkarrekin bi hitz egin eta Saioarekin larunbaterako eskaera/galdera pare baten gainean jardun ostean, eguna handik hona eta hemendik hara igarota, grabagailua atera, martxan jarri eta motorra arrankatuta banao etxera. Bada garaia! 21.15 dira. Ea ez naizen gogoratu ezinaren atzaparretan kateatuta heltzen etxera, beldurrak airean nagoela aitortu beharra badaukat ere.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

“Ezin dut gehiago” esanez amaitu dut saioa, makurtuta eta paletako heldulekuan besoa jarrita neure buruari eutsiz. Hortik hamar minutura kotxean bolante aurrean eseri naizenean bat-batean neke pilaketak gainezka egin dit eta 21.15ean ez naiz pertsona ere, arrastaka nabil, inertziatz. Hitz egiteko ere lanak ditut, bi silabatatik batean nahasten naiz, hainbeste orduren eta mugimenduren ordaina da hau.

Ordu eta erdia atsegina eta dinamikoa izan da, enegarrenez, tanto onak izan baitira eta giroa ere oso ona. Gure arteko harremana estutu da ikasturte hasieratik, bai horixe! Nabari da emakumeak gozatzera datozela eta gozamenaren iturri ez direla pilotakadak bakarrik.

Gaurko saioan buruari ere ohi baino estutu handiagoa eman behar izan diot, errotazioak egiteko sistema aldatu eta bikoteak etengabe aldatzen zirelako, lautik bi, txandatzeko bakoitzean. Hortaz, nor, non eta norekin ari den gogoratzea ezinezkoa egin zait. Kideek ere nabaritu didate eta entrenatzaileak ere esan dit nahi banuen orria hartzeko, ez lotsatzeko, baina ez dut hala egin eta ez dakit denarekin oroituko naizen. Ur handiegiak ez ote?! Beno, gezur txikiren bat baldin badago ez da nahita egindakoa izango, halabeharrak eragindakoa hanka sartzea baizik.

Biharko eguna gaurkoaren anaia bikia izango da, beraz, ea ez nauen ahidurak irensten. Hala ere, neurri bezala furgonetan joatea erabaki dut, bazkalostean kuluxka bat egiteko asmotan egunaren amaierara nola-hala bada ere helduko banaiz. Asteko azkenurrekoa dela pentsatu beharko dut eta altzaporr!

Partidaz partida, jira eta bira

Asteazkena iritsi zait eta asteko neke pilaketak esponentzialki hazten jarraitzen du. Bezperan ia hamalau ordu eman nituen handik hona eta hemendik harako joan-etorri eta egonaldietan eta goizean goiz jaiki naizenean burua astun eta hankak astunago nituen. Bigarrenez jarraian egun akigarri bati amaiera emateko azken geldialdia dut hau, hemendik zuzenean hamapiku ordu lehenago utziriko etxera itzuliko banaiz. Aurrez Hernaniko liburutegiko arratoitxo rola betetzen eman ditut sei ordutik gora, gutxienez, eta bi elkarrizketa ere burutu ditut. Inork ezin esango dit alferkerian nabilenik, bederen. Lanari lotuta igarotzeko bolada da hau eta datorrenari aurre egin beharko diot, beraz, ea zer dakarren hirugarren saioak.

Entrenamendu egun berezia edo ezohikoa izango dela jakitun hurbildu naiz bertara, astearen hasieran entrenatzaileak mezu bidez jakinarazi zigulako, iragan astean ziurrenik hala izango zela ohartarazi ondoren. Izan ere, gaurko gure entrenamendu ordua baliatuko dugu Usurbilgo hiru taldeetako bikote banaren artean partidak jokatu eta sailkapena egiteko, larunbateko ikasturte amaierako festaren baitako Gipuzkoako Txapelketa Herrikoian Usurbil ordezkatzeko dutenak nortzuk izango diren erabakitzeko. Beraz, ikusiko dugu paletan aritzeko astirik geratzen zaigun ala animatzaile lanera mugatuko den gure jarduna.

Sarrera

Lasai-lasai aparkatu ondoren abiatu naiz frontoira, 19.25ean, zonbi samar. Ordu asko pasa ditut gela itxian pantailatik tarte txikira eta horrek neke gehigarria eragin dit. Hala ere, ibilbidea nahiko lasai egin dut, freskura apur bat lortu nahian, udaberri beteko giroa baitago, eguzkitsu, baina bero ere ez. 17°C adierazten ditu termometroak. Nabari da eguraldia lagun dela kale eta parkeetan ere, haurrak jolasean eta guraso taldetxo bat baino gehiago ikusi ditudalako kontu kontari. Gainera, aurreko egunetako hotz eta euri tantek barrurako moduko giroa utzi ziguten.

Pilotalekua

Plazara hurbiltzen ari nintzen ahala ohartu naiz egun atseginetako egoera dela gaurkoa ere: tabernako kanpoko mahai denak daude beteta, probalekuan eta inguruan haurrak dabilta jolasean eta baita frontoian bertan ere. Gaur, ordea, aspaldiko partez, ez dago Usurbilgo txapelketako partidarik.

19.27 dira eta lehena izan naiz iristen gaur ere. Behaketari ekitean lauzpabost taldetxo bereiz nitzake harmailen atzealdetik. Lehena pilota eskolako lau hurrek osatzen dute, zeinak frontisean binakako partidari diren. Bigarreneko bi mutikoak ezker hormaren aurka ari dira jokatzeko, hauek ere pilota gogorra eta takoak lagun, entrenatzailearen tartekako aholku eta guzti. Horietako batek arraro samar begiratzen dit atzera sakea egiteko korrikaldia hastera etortzean, koaderno atera eta ohar pare bat idazteko aprobetxatu baitut itxaronaldia. Beraz, frontoiaren aurrealdean pilota eskolako sei lagun dabilta, zazpi entrenatzailearekin. Atzerago sei bat mutil ari dira eskupilotan, txokotan, kaleratzen dena harmailtan eseriz, oihi eta kexa hotsa heltzen da nireganaino. Laugarren multzo batean, atzerago, baloiari ostikoka dabilta bi mutil daude eta bosgarrenean hizketan diharduten gurasoak, haurrak jolasean ari diren bitartean. Hauek kontraktantxan daude, ni baino ezkererago.

Ingurura begira aritu naiz une batean eta niki hutsean freskura sentitzen hasi naizenez, itzaletan ez dago epeltasun handirik, jertsea eskuetan hartu eta janzteari ekitera nindoala iritsi da bigarren kidea, Karmele. Elkar agurtu orduko haren atzetik Lurdes heldu da, beste hiruzpalau emakumerekin batera. Hauetako batzuk paleta eskuan eta praka motzetan daude, beraz, suposatuta dut eurek jokatu dutela astelehen goizetako bikote bezala. Laster heldu da beste bikote bat ere. Hauek astelehen arratsaldetakoak izango dira ia ziur, bat ezagutzen baitut, Aste Santuko oporren aurretik astelehenez egin genuen saioan elkarrekin aritu baikin bi taldeak bateratu genituen hartan. Nik Lurdesekin hitz pare bat egin ditut, ea zer moduz dabilen eta “betiko martxan” entzunez. “Hori ere ez da seinale txarra” esan diot eta ondoren Haizea iritsi da, Lurdes ordurako ordulariari begira hasia zenean, bukatzeko presaz ezertan hasi aurretik. Semea ere berekin ekarri du eta ahalik lasterren bukatzea nahi du, afaria prestatzera martxa egiteko.

Zer eta nola egin behar duten erabakitzen hasi aurretik, partidak zein ordenatan eta zenbat tantora jarri, Usurbilgo paleta txapelketaren gaia atera da, antolatu beharra daukatelako eta euren esku utzi duelako pilota elkarrekin.

Gure taldekideetan Jaione izan da iristen hurrena, bost-zazpi minutuko atzerapenarekin. Bera azaldu aurretik Karmelek “oraindik guk jokatu beharko dugu” esan dit niri broma giroan. Nik “zuk bakarrik jokatu beharko duzu, nik ez daukat parte hartzerik” erantzun diot irribarrez. Bertaratu diren besteei “puntueltasuna ez da gure taldearen ezaugarri” esan diegu bada ez bada ere. Argiak eta Estitxuk eurek ere, astelehen arratsaldeetan, bost edo hamar minutuko tarte bat izaten dutela esan dute eta ondoren, gainera, hizketan aritzen direla. Nik hori entzutean “gure kasuan denbora hori motz geratzen da” erantzun diet irribarrea ahoan. Jaione agurtu dugu eta honek esan digu Aitziberri tinbrea jo diola elkarrekin etortzeko, baina oraindik senarra iritsi gabea zela eta beranduago etortzekotan geratu dela kidea. Idoia falta dela ikusi eta “lasai, oraindik ez da bere ordua” esan diot nik irribarrez. Lurdesen taldeko hirugarrena, agertuz gero txapelketan jokatzekoa dena, orduan iritsi da, seme eta guzti. Aurrez bakarren batek esan dio parkean ikusi duela eta ordutegiaren berri bazeukala euren entrenatzaileari, urduri ibili baita ordulariari begira.

Usurbilgo txapelketaren gainean galdezka etorri da neska bat, gomazko trinkoarekin euren kabuz ibiltzen omen direnetako bat eta Haizearekin bi hitz egin ditu, teniseko pilotarekin nola antolatuko duten galdetu eta eurek zer egun dituzten azalduz. Gaur gainezka eginda dirudi entrenatzaileak, arratsaldea etxean ordenagailu aurrean pasa izanari atxikiz arrazoia berak. Nik “lasai, ni atzo eta herenegungo leku beretik nator” esan diot, liburutegian elkarrekin topo egin genuelako bi eguerdian. Ondoren, gainera, gogoratu da Emakumea Pilotari egunerako diru zati bat etxean utzi duela, Karmele eta Jaionek beraienak ematean. Zerrenda ere falta zaio, baina moldatu gara guztiekin gogoratzen laguntzeko. Bada ez bada ere niri eman dit diruaren zorroa, “hartu, gorde, bestela hau ere galduko dut agian gaur eta nire ekonomia ez dago dirua galtzen aritzeko” esatearekin batera.

Idoia iritsi da 19.42an, “etxera 19.25ean iritsi naiz” esanez. Azeleratu samartuta dirudi. Laster batean “zer saltsa eduki duzue mezuekin?” ere bota du, Haizeak posta elektronikoz bidalitakoari erantzun geniolako Jaionek eta biok, nahiko tonu adar jolean. Ondoren aitortu du gaur ez dela beste asteetako saioetara bezain lasai etorri, urduritasun puntu bat nabari omen du.

Oraindik ere jendea dago frontoian eta hurrak baloiarekin dabilta frontis inguruan, ostikoa jo eta txapa ukituz ondoren. Hala ere, denbora aurrera doa eta Lurdes Haizeari presa sartzen ari zaionez berotzeko esan diete jokatuko duten hiru bikoteei.

Beroketa

Karmele eta ni harmailetan eserita gaude, elkarren aldamenean. Aitziber iritsi da hala gaudela eta hau ere eseri egin da, ia aldi berean etorri den Arritxu bezala. Gugandik eskuinerago eseri dira beste pare bat emakume, ezagutzen ez ditugunak, baina Lurdesen taldekoak behar dute.

Berotzen hasi aurretik sei emakumeak eta bi entrenatzaileak bildu dira eta elkarren artean 8 tantora jokatuko dutela esan diete. Haizeak “aurkezpena egingo dugu?” galdetu du eta “ez, ez, elkar ezagutzen dugu” erantzun du bakarren batek. Horren ondoren pilota hartu eta binaka ezker horman edo frontisean apur bat pilotatu dute, baina gutxi. Gainera, hasieran umeak ez dira baztertu, baina Haizea joan zaie saioa geneukala esanez eta orduan bidali ditu, kantxa jokatzeko libratuz. Aurrean Lurdesen taldekoak kokatu dira, Sonia eta Manoli, erdian Estitxu eta Argia eta atzean Idoia eta Jaione. Hauek tarteka guregana hurbildu eta “estrategia zein da?” edo halakoren bat galdetu digute. Pilotalekura iritsi berritan Aitziber Manoli agurtzera joan da eta hizketalditxo bat izan dute, ezaguna baitu aurretik.


Laster eman dute amaitutzat beroketa eta partidei ekiteko unea iritsi da. Aurrez hala ere Haizeari Aitziberrek “larunbaterako autobusaren berririk ba al daukagu?” galdetu dio eta honek “Eider gaur da etortzekoa dirua jaso, nikiak ekarri eta hitz egitera” erantzun dio, aurrealdera hurbilduz gu hizketan utzita.

Ariketak

Luzapenetan segi aurretik norgehiagokei ekiteko unea heldu da, sailkapen ligaxkako hiru partidei hasiera emanez. Jokatzeko asmotan diren sei pilotariei deitu eta azalpen

pare bat eman dizkiete entrenatzaileek, besteok harmailetan hizketan dihardugun bitartean.

1. Frontisean 2:2 partidak, 8 tantora.



Lehenak jokatzen Manoli-Sonia eta Estitxu-Argia izan dira, gure kideei apur bat pilotatzen jarraitzeko esanez Haizeak. Hala aritu dira Idoia eta Jaione, ezker hormaren aurka, gure parean, lasai-edo.

Izaskun ere etorri da gaur eta “zer moduz, hortxe-hortxe?” galdetu diot nik eta “bai, hortxe” erantzun dit. Ziatikak jota dabil eta aspaldi ez da agertu. Kaleko arropa jantzita etorri da eta Arritxuren aldamenean jarrita besteen jokoari begira jarri da, aldamenekoarekin hizketan. Nik ezkerrean Aitziber daukat eta eskuinean Karmele eta ez daukagu aspertzeko beldur handirik, hitza hitzari lotuz ari baikara, lehen partidari besteek nola jokatzen duten antzeman nahian batez ere, Aitziberrek “non dago zuloa? Ba, hau erraza da!” bota du besteak beste.

Nik besteak ezagutzen ote dituzten galdetu diet, baina asko ezetz esan dute, nahiz eta bistaz bakarren bat identifikatu duten. Emakumea Pilotari Egunera joateko asmoaz ere aritu dira Arritxu eta Karmele, bigarrenari “ni ez naiz joango, egun osokoa da eta bestela ere etxean badaukagu nahikoa lan” bota du. Nik hori zeharka entzun dut, Aitziberrekin ari nintzelako beste zerbaiten gainean. Ziurrenik pilota ezberdina dela esaten arituko nintzaion, bote handiagoa baitu guk erabili ohi ditugunek baino. Hala ere, “beno hauei ez diegu esango orain, bestela gehiago urdurituko dira-eta” esan diot eta ados agertu da nirekin kidea.

Partidari begira aritu gara atzetik eta estua izan da, tantoak pilotatu samarrak eta askotan hutsen bidez erabakiak izan dira, nahiz eta zabalean eskuinean luze moztutako pilotakada pare bat ikusi ditugun. Soniak botatzen du pilota bertara errebesez jota. Horma biko pare bat ere sartu ditu Estitxuk, nahiz eta beste hainbeste edo gehiagotan huts egiten amaitu duen. Kokapenetan askotan geratu dira aurrelariak ezkerreko aldean, zabalean zulo handiak utziz. Ikusiak ikusita guk erabaki dugu ez direla beste mundukoak ere, nahiz eta iturri pare batetatik entzuna genuen astelehen goizetakoak maila onekoak zirela. Beldurra ematekoak bederen ez zaizkigu iruditu eta hala esan du Aitziberrek, “maila paretsukoak dira, ez beste munduko ezer”.

Partida 8-6 amaitu da eta Sonia eta Manolik eskuratu dute lehen garaipena Estitxu eta Argiaren aurka.

Bigarren partidarako berriro ere Manoli eta Sonia daude kantxan eta gure kideak sartu berri dira, Idoia eta Jaione. Guk lasai jokatzeke aholkua eman diegu, saio batean baleude bezala. Hala ere, aurpegiak ere ohi baino serioago dituzte eta ez daude hain hitzun itxura batean. Aitziberri “zer, zu lasai egongo zara, ala?” galdetu diot eta “oso lasai” erantzun dit irribarrez. Estitxu eta Argia gure ezkerretara etorri eta harmailan eseri egin dira. Txapa pare bat aldiz jo du eta horma bikorik ez zaiola irten esan dit

Estitxuk. Nik “pare bat ikusi dizkizut” esan diot, nahiz eta botatako beste batzuk ez diren frontisera iritsi.

Aurkarien joko-mailari tankera ematen, kideak animatuz eta hitzari hitza lotuz ari gara jardunean, markagailua nola doan jakiteko Haizeari “zenbat doaz?” galdetuz tarteka. Bera dago epaile lanetan, Lurdes ere hurrean duela. Egia esan kantxan seriotasun handia nabari da eta “ez dakit sekula hain serio ikusi ditudan saio batean” esan diet inguruan ditudanei. Irribarre egin dute eurek ere. Egin diet aipamenen bat nik, baina tentsio handia nabari da kantxa barruan eta baita kontrakantxan gu baino eskuinerago daudenen artean ere. Gu, aldiz, lasaiago gaude.

Kideen partidari begira hitz egiten ari garela berriro ere lehengo neska bera etorri da niregana, pilotak jartzearen gainean galdezka. Esan dit ea nola egin ote litekeen hori, elkarteak eurek nahi duten bezala egiteko esan diela eta nik erantzun diot “federazioaren kasuan, adibidez, berak jartzen ditu txapelketarako hiru bat pilota, baina ez dakit zenbaterainoko ofizialtasuna eman nahi diozuen”. Horren ondoren “zer, urduritzen hasita, ala?” galdetu diot eta “bai, aspaldi!” esatearekin batera eskerrak eman eta tabernara joan da lehengo bidetik.

Bikotekako norgehiagokan Idoia eta Jaione lotuta hasi dira, urduri, eta eurek galdu dituzte pilota pare bat, nahiz eta partidak aurrera egin ahala apur bat lasaitu direla iruditu zaidan, pilotatzen eta tantoak non egin argiago dutela dirudiela. Pilotaz kexatu da Jaione une batean, ezberdina dela nabaritu du eta Idoiari zerbait esan dio horren gainean, baina ez da protesta ere izan. Azkenean 8-4 irabaziz amaitu dute, markagailuan atzetik hasi diren arren. Beraz, momentuz bi bikote garaipen banarekin ditugu eta besteak orain irabaziz gero berdinketa hirukoitza emango dela ohartu naiz ni, aldamenekoei jakinaraziz.

Hirugarren eta azken partidaren unea iritsi da beraz. Estitxu-Argia eta Idoia-Jaione arituko dira elkarren aurka. Hasi eta zuloa ireki dute astelehen arratsaldetakoek, 3-1 jarriz. Nik neurekiko pentsatu dut “esnatzen hasi beharko dira, bestela” eta Aitziberrek “ez, lasai, moldatuko dira” bota dit, nahiz eta berehala “beno, baina, zenbat doaz ba?” galdetu didan irribarrez, markagailuan nola doazen ez dakiela aitortuz.

Partida hau jokatu bitartean harmailetan eserita gaudela hiru mutil gazte igaro dira atzetik eta bati “zer, hotzik ez al daukazu?” galdetu dio Karmelek. Honek “ez dago hotzik” erantzun dio eta “hori da nire beste semea, gazteena” esan digu Aitziber eta bioi. Elkar afal ordura arte agurtu dute eta partidetan arreta jarriz jarraitu dugu.

Emozioa da nagusi, izan ere, berdinketa hirukoitza geroz eta gertuago ikusten dut nik, bikote bakoitzak partida bana irabaziko duelako gauzak asko aldatu ezean, beraz, tanto kopuruak kalkulatzeko hasi naiz, kontua nola gera zitekeen kalkulatzeko neure baitarako, nahiz eta kideren bati ere esan zenbat tanto egitea komeni zaien.

Markagailuan aldeak murriztu eta hurbiltzea lortu dute Jaionek eta Idoiak, 7-3tik 7-5eraino. Une horretan atzelariak “orain 7na” esan du eta badirudi tentsio apur bat bota duela jadanik. Azkenean, baina, 8-6 irabazi dute Estitxuk eta Argiak.

Beraz, sailkapen ligaxkan jokatu beharreko hiru neurketak amaituta berdinketa hirukoitza gertatu da. “Azkenean berdinduta geratu zarete, bakoitza partida bana

irabazita” jakinarazi die Haizeak eta “horrelakoetan zer egiten da?” galdetu dit niri, “Uxue federazioko langile ohia da eta bere esku utziko dugu” esanez. Nik “aukera bat tanto kopuruaren arabera plus eta minusak kalkulatzea da, baina ni inuzentea naiz, ez daukat inolako kanpo interesik” esan diot bada ez bada ere, barrurako kontuak atera eta tanto kopururik handiena gure taldekideek daukatela kalkulatu baitaukat.

Hala egiteko esan didate lehenengo eta kideak aldamenean testigu bezala hartuta han hasi naiz “partidu honetan +2 hauek eta -2 besteek, honetan -4 eta +4 eta hirugarrenean +2 eta -2. Ondoren batura egiten da eta +2rekin geratu dira Idoia-Jaione, Orekin Estitxu-Argia eta -2rekin Manoli-Sonia” esan dut ahots gora. Lurdes ez dago oso konforme, sistema hori ez zaiola batere gustatu adieraziz. Nik hala ere susmo bat badut, ez ote den bere taldekoek garaitzea lortu ez dutelako. Sortu den saltsa ikusita berriro jokatzeko proposatu du alternatiba moduan eta Haizeak denei galdetu die banan-banan, Manoli eta Soniak “jokatzea”, Estitxu eta Argiak “guri berdin zaigu” eta orduan Jaionek eta Idoiak “beno, ba berriz jokatuko dugu” esanez. Hortaz, berriro ere jokatzea erabaki dute, kasu honetan 6 tantora.

Honen ondoren Lurdesek etxera alde egin du eta Haizea geratu da antolatzaile zein epaile lanetan, “hori bai, berriz berdintzen baduzue plus eta minusak hartuko ditugu kontuan” jakinarazi die bada ez bada ere.

Beraz, berriro ere lehengo ordena bera mantenduz partidaren errepikapena hasi da, berdinketa nola hautsi erabakitzeko.

Egoera hau ikusita lehiakortasunaz eta galtze txarrez hizketan hasi gara harmailetan eserita gaudenok. Karmelek esan du “halakoak ekiditeko onena irizpideak aurrez zehaztea izaten da” eta arrazoi eman diogu, nahiz eta nik “edozeinek pentsatzen zuen aurrez halakorik gertatuko zenik” ere gaineratu nahi izan dudana. Aitziberrek “ikusitako ondoren erraza da esatea” ere erantsi du. Nik galtze txarrenean gainean izandako pare bat esperientzia kontatu dizkiet, bat, gainera, justu alde egin berri duen entrenatzailearekin pasatakoa. Euren ere iazko Usurbilgo Txapelketako kasketa gogora ekarri dute. Beraz, badirudi iritzi antzeko samarrekoak garela kasu honetan. Talde ezberdinen artean lehiakorrenak astelehen goizetakoak direla erabaki dugu, entrenatzaileak ere oso izaera ezberdinekoak direla argudiatuz.

Aurreko partidaren hasi dira eta momentuz, behintzat, emaitza lehen jokatu duten partidaren alderantzizkoa izaten ari da, Estitxu-Argia ari baitira nagusitzen Manoli-Soniaren aurka. Jaione eta Idoia gurekin hizketan, Haizeak berotzera joateko esan badie ere. Besteak beste gaur ez direla saioetara ohi bezala etorri esan dute, nahiz eta lelokeri bat den azken batean partidaren kontu hau. Idoiak esan du urduri jartzen dela kanpotik begira egotean, semeen partidetan, adibidez, eta nik ere hala esan diot, kanpotik begira okerrago egoten naizela barruan jardunean ari naizenean ere, edozein alorretan: kirolean, dantza ikusten, bertsoetan, etab. Kontu kontari ari garela amaitu da aurreko partida, 6-3 irabazi du Argia-Estitxu bikoak eta berriro ere Jaione-Idoiari jokatzeko unea heldu zaie.

Bigarren buelta honetan pilota aldatu egin dute, ikastaroetan erabili izan duguna jarritz. Bestea astelehen goizetako batena da eta galdu egin ote den galdetzean ni Haizearena hurbildu eta “hau zurea da ala lehengo partidakoa?” galdetu eta “eskatzen ari da, beraz, eman egingo diot” esan eta Lurdesen ikasleari luzatu diot. Horren ondoren partidari

begira jarraitu dugu, Aitziberrek “hor bi pareta botako ziola ikusita zegoen” azalduz une batean. Hori entzutean “kanpotik erraz ikusten da, baina hori ere garrantzitsua da ikasteko” esan diot. Egia esan, eroso nabil eserita bi kideekin mingaina astinduz.

Argia eta Estitxu berriro ere gure ezkerrean jarri dira, harmailetan eserita, eta “gaur zuek saiorik egin gabe geratuko zarete” esan digute. Guk “beno, bagenekien zer zegoen” esan diegu, nahiz eta panorama ikusita Arritxuk martxa egin duen eta Izaskunek ere bai, lehenago, senarra etxera heldu denean. Alde egin aurretik, ordea, ikastaroa datorren astean amaituko ote den esaten aritu gara eta Haizeari galde egin diogu. Berak baietz esan du, datorren asteazkenekoa dela azkeneko saioa. Karmelek “nik ezin dut, eskola kontseilua daukat” esan du eta Arritxuk “saiatuko naiz azaltzen” esanda besteok agurtu eta etxerako bidea hartu du.

Aitziber, Karmele eta hirurok geratu gara berriro ere harmailetan eserita, partidari begira. Hasi eta lehen tantoan pilota motz geratu zaio Jaioneri eta “badakizu motelagoa dela” esan dio Haizeak. Honek irribarrez erantzun dio. Hala ere, lehen baino hobeto hartu dute elkar kideek eta aurkariak ere hutsak egin dituzte, tantoa nonahitik eta nolana bilatzen saiatzearen poderioz kasu batzuetan. Partida honetan 6-3 irabazi diete gure taldekideek Sonia eta Manoliri. Hortaz, bikote hau aukerarik gabe geratu da sailkatzeko, biak galduta. Nahiko burumakur etorri ote diren iruditu zait niri harmailetan eseri direnean, lehen ere eurak izan direlako jokatzearan alde sutuen agertu direnak. Euren taldeko beste bi kide eta Soniaren semea dituzte bertan zain. Hau nekatuta dago eta “ama, noiz joango gara?” galdetu dio. Honek “laster” erantzun dio, harmailetan eseri eta frontiseko eremura begira geldituz.

Beraz, hirugarren eta azken partidari erabakiko da zein bikotek egingo duen aurrera. Irabazlea sailkatuko da, dagoeneko partida bana irabazita direlako. Kasu honetan ere 6-3ko emaitzarekin erdietsi dute garaipena Jaionek eta Idoiak. Izan da tantoan zehar goiko txapatik gora botatuko pilotaren bat edo beste eta “zer, armiarmak hor segitzen al du?” bota diot nik Jaioneri ondoren. Irribarrez erantzun dit berak. Azken tantoan pilota kontrakantxako marraatik eskuinerago joan da eta hortxe eman diogu/diote amaiera paletako jardunari.

Beraz, bukaeran ez dago zalantzarik eta berdinketa ahalik eta modurik justuenean ebatzi dela esan genezake, inork ez baitu tanto kopuruaren aitzakiarik erabili ahal izango azkenean. Aitziberrek Idoia eta Jaione guregana hurbiltzean “orain urdaiazpikoa nahi dugu denon artean jateko” esan die irribarrez, esan baitziguten garaileak sarien artean bat jasoko duela. Irribarre egin dugu kide denok.

20.45ean amaitu dira partidak eta argi geratu da zein izango den Usurbil ordezkatu duen bikotea: Idoia-Jaione. Beraz, ni nabilen hiru taldeetatik bikote bana arituko da txapelketa herrikoian. Haizeak erlojuari begiratu eta “Eider zen etortzekoa, baina emakume hau” esan du eta “nik azalduko dizuet larunbatekoaz dakidana” esateari ekin dio. Azalpenak eman ditu autobuseko ordutegiaz eta EmP egunerako antolaketaz. “Bi aukera ditugu autobusa hartzeko, 8.15ean hemen, lehenengoak ginateke, edo 9.15ean Errekalden, Hernanitik datorrenean” esan die. Harritu egin dira bat baino gehiago eta baita beldurtu ere, oso goiz iruditu zaielako 10etan Tolosan izateko. Errekaldeko aukera ere ez zaie asko gustatu, nola joan daitezkeen ez dakitelako oso argi, han kotxea uzteak zentzurik ez duela argituz. Bueltan Usurbilen utziko ote lituzkeen ere galdetu dute. Azkenean Haizeak “Usurbilgoak asko zarete eta nik uste borrokatu egin behar dela”

esan eta telefono zenbakiak hartuz abisua pasatzekotan geratu da. Nola pasa erabakitzeke “taldeko bati abisatuta nahikoa da, gu konponduko gara gero elkarrekin egoteko” esan diote, kontua errazten saiatze aldera. Azkenean, beraz, larunbaterakoak telefonoz zehazteketan geratu eta martxa egin dute Lurdesen taldekoek.

20.48 dira eta Estitxu, Argia, Idoia, Jaione, Aitziber, Karmele, Haizea eta ni geratu gara. Idoiak “gehiago ez gara ibiliko, ala? Laboralera joan behar dut dirua ateratzera Haizeari emateko” esan du eta ezezko erantzuna jaso. Nik une hau aprobetxatu dut elkarrizketak egiteko asmoa agertu eta kideei hautatuak zein diren proposatzeko. Beste egunetan moduan egin dut “ez dakit esan nizuen, baina orain taldeetako emakumeak elkarrizketatzen hasi naiz eta Karmele eta Jaionerekin elkartu nahi nuke talde honetan, baina besteek jakitea ere nahi nuen” jakinarazi diet. Hori entzutean Aitziberrek “niregatik lasai” esan du eta Jaionek “horrelako loteria tokatzen zaigu guri”, irribarrez. Karmelek, berriz, “zer da, ni txarrena izateagatik eta hau onena?” galdetu dit eta “ez, ez, irizpide ezberdinak dauzkat eta 25etik 8-9 hartuko ditut hasiera batean” azaldu diet. Kideek ez didate eragozpenik jarri eta prestutasun osoa azaldu didate elkarrizketak egiteko. Haizeak Estitxu eta Argiari “Uxue ezagutzen duzue? Hau da emakumeen pilotaz tesia egiten ari dena” esan die irribarrez. Idoia dirua ateratzetik itzuli berria da eta Aitziberrek “onena galdu duzu” esan dio, niri begiratu eta “zuk azaldu” esanez. Beraz, berari ere azaldu diot elkarrizketetarako asmoa eta “niri oso ondo iruditzen zait, gu ez gara haserretuko” erantzun dit.

Jaione eta Karmele nire eskuinaldean daude eserita eta elkarrizketetarako hitzorduak noiz jar ote ditzakegun hizketan hasi gara. Besteak ere zerbaiten gainean hasi dira eta Haizeak panorama ikusita “ea, inork ez dit kasurik egiten!” bota digu. Saioak datorren astean amaituko direla agertu digu, maiatzaren 30ean. Horren ondoren hitz egiteko gure gaitasunaz “okerrenak irakasleak dira, ez daukat batere autoritaterik” erantsi du. Estitxuk hori entzutean “haurrik gabe gaudelako da, hizketan lasai aritu gaitezke hemen” eman du azalpena eta Jaionek “ematen du etxean ez digutela hitz egiten uzten” gaineratu du.

Kontuak kontu bederatziak bertan dira eta Estitxu eta Argiak etxerako bidea hartu dute. Gure kasuan, berriz, Karmelek datorren astean ez daukala azaltzerik esan du, Jaionek aurrez zerbait daukala, baina, azaltzeko asmoa agertu du. Azkenean tabernara joan gara trago bat hartzera tropelean.

Hirugarren denbora

Datorren astekoa azken saioa den aitzakian eta Eiderren zain geratuz, Donostiatik abiatzear dela deitu baitio Haizeari saioko ordua pasa bada ere, tabernara joan gara trago bat hartzera taldekideok. Erronda Jaionek egin du nik egingo nuela esan arren eta han eskatu ditu alkoholik gabeko bi zurito, bi zurito, lejia bat eta nire limoizko Kasa.

Irabazteaz eta galtze txarraz hizketan hasi gara, beste emakumeen, zehatzago astelehen goizetako taldekoen, erreakzioaren gaineko gure iritzia emanaz. Lehiakorrak iruditu zaizkigula ondorioztatu dugu, euren entrenatzailearen tankerakoak. Beraiek alde ederrean ibiltzen direla esan dute, saioa lasaitzeko eta terapia moduan ondo datorkiela esan baitio Jaionek Haizeari. Horren harira “pronostiko guztiak hautsi ditugu” esan du Haizeak. Guk ez genekien, baina antza denez aurreikuspena Lurdesen taldekoek irabaztea zen, baita federaziokoentzat ere. Huts asko egin dituztela eta gehiegi

arriskatzen zutela erabaki dugu guk eta mailaz ez zirela izugarriak ere. Idoiak “hori hala zela jakitea ondo dago” bota du erdi brometan, erdi pentsakor.

Giro hotza dago kanpoan eta barrura sartzea proposatu du Jaionek, atetik aurrera segiz. Une horretan Eider iritsi da, poltsa batean nikiak hartuta eta kanpoan gaudela Jaionek barrutik irten eta “bakarrik utzi nauzue” esan digu. Nik ere barrura joatea hobe dugula esan diot eta bere atzetik segi, atzetik kideak nituela. Tabernako goxotasuna eskertzen da, eskuak izozten hasia nintzelako.

Tabernako atzeko txokoa borobilean jarri eta nikiak probatu dituzte, bakoitzarentzako neurriak erabakiz, baita ez daudenentzat ere. Txapelketakoak handi geratuko zaizkiela jakinarazi die kideei Eiderrek, aurreikuspena bete ez delako. Nik “han bi Jaione kabituko dira” esan diot berari begira eta “beno, zerbait egingo dugu, besterik ez bada korapilo bat” erantzun dit berak irribarrez.

Larunbaterako autobusa hartzeko plana ere bertan zehaztu dute, Lurraldebusen Errekaldera joan eta bueltan Usurbilen jaisteko aukera izango dutela ziurtatuz. Karmelek begiratu du ordutegia eta 9.05ean Errekaldera doan bat badagoela ziurtatu dute.

21.45 dira eta etxeratzeko ordua dela esan dute Aitziberrek eta Jaionek (B.K. Hala da, bai). Kanpora irteten ari garen bitartean Eiderrek larunbateko menuaren berri eman die eta “hemen berriz beste saio bat?” galdetu du aurrez norbaitekin hizketan atzean geratua zen Jaionek. Kafeaz, edariez eta janariaz hitz egiten amaitzean “palak eraman eta izenak jarri” esan die Eiderrek. Jaionek nire heldulekuko zintari erreparatu eta “hori hobea al da?” esan dit. Nik azaldu diot niri erosoagoa zaidala, beti jarri izan diodala eta gutxiago irristatzen zaidala eskua. Beraz, “datorren asteazkenerako nahi baduzu zuri ere jarriko dizut” erantzun diot, larunbat honetarako astirik ez dudala hartuko argudiatuz. Beraz, larunbatean hitz egitekotan geratu gara horren inguruan ere.

21.50 dira eta abiatu gara bidean aurrera geldialditxoaren ondoren. “Zer, dagoeneko semeak lo izango al dituzue?” galdetu diot nik aldamenean doan Idoiari eta “hortxe, hortxe” erantzun dit. Jaionek eta Aitziberrek parkean aurrera ohiko bidea hartu dute eta nik “larunbatera arte, ondo lo egin!” esanez agurtu ditut, irribarrea trukatzuz biekin. Eider eta Haizearekin egin ditut hurrengo hamar metroak eta hauek ere larunbatera arte agurtuta furgoneta aparkatuta utziriko lekura abiatu. 21.55 pasatxo dira.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Berunezko hankak eta trabatutako mingaina lagun abiatuko naiz itzulera, abailduta, hamalau ordutik gora lanaren jiran igaro ostean berriro ere etxeratuz. Eguna lanpetuta eman dut, arnasa hartzeko aukera handirik ez diot eman neure buruari, eguerdiko bazkalosteko lo kuluxkatxoa egin dudana arren. Hala ere, hala dagokit eta zer erremedio!

Gaur saio praktikorik ez dugu egin gure taldeko gehienok, hiru kide harmailetan eserita eta bi partidetan aritu garelako, baina, niri fisikoki behintzat ongi etorri zait, nekatuta nabilelako oso lehenago ere. Hala ere, beste bi ere agertu dira, hanka egin duten arren panorama ikusita.

Partidetan ikusitakoak, eta bereziki berdinketa hausteko sortu diren gorabeherak, aintzat hartu eta azpimarratzeko modukoak iruditzen zaizkit. Nahiko argi geratu zait niri geurean ere lehiakortasuna agertzen dela batzuetan, baina galtzeko arazo handirik ez diet ikusten nire taldekideei, entrenatzaileari bezalaxe. Hala ere, astelehen goizetakoei min handiagoa eman die emaitzak, akaso uste handiagoarekin eta asmo ezberdinekin bertaratu direlako. Ez dakit hala den, baina ez da txikia daukadan susmoa, ez horixe!

Datorren astean da azken saioa, baina afari baten gaineko zerbait ere entzun diet. Jakin nahi dut zer asmotan dabilzan, nire esker ona agertzeko bertso bat badudalako prestatuta. Pena ematen dit, egia esan, une atsegin asko pasa ditudalako, baina badut gogoia ibili lasaia goa izan eta beste fase bati ekiteko, bide luzea dudalako oraindik urratzeko.

Astelehen hiru egun, hiru saio eta hiru betealdiak joan arren, ez zaizkit aste honetako joan-etorri eta paleta saioak amaitu. Larunbatean da ikastaroetako emakumeekin antolatzen den egun oso festa, Emakumea Pilotari Eguna. Niri ardura sentimendua ari zait nagusitzen, zer informazio eta nola jasoko dudan erabaki ezinda eta pentsa hutsez urduritzen hasia bainaiz. Ea osteguna eta ostiralean lanak erdi bideratu, astelehen ohar eta kontakizunaz ari naiz, eta larunbaterako eskema bat eginda joaten naizen, nire gaitasun eta antolatzeko moduak beldur eragile zaizkidalako. Ikusiko dugu!

Egun berezia bertan

Aste hau gogorra izan da niretzat, hamar orduetik gora eman ditut lanean hasierako egunetan eta uste dut 40 orduak oso motz geratuko zaizkidala oraingoan. Larunbatekoa ere egun bete izango da oso. Hala ere, atsedeneri muzin egin eta osasunez uste baino larriago amaitu dudan okasioren bat edo beste bizitzea egokitu bazait ere, eutsi diot jasari eta hori bada zerbait. Nire hobe beharrez ari naizela pentsatu (eta sinetsi) behar dut, hemendik hiruzpalau astera lasaixeago ibiltzea ekarriko didala orain egiten ari naizen ahalegin eskerga honek, ikasturtea amaitu aurretik egin beharrekoak direlako elkarrizketak eta azken lau asteak baino ez direlako falta horretarako. Beno, kasu batean, gainera, datorren astean emango diogu agurra paleta jardun antolatuari, beraz, neure burua estutzeko bada nahikoa arrazoi hori ere.

Saioei dagokienez geroz eta zenbaki mardulagoak ateratzen zaizkit batuketak egitean egindakoen balantzan: 74. Beraz, oker ez banabil hamar baino gutxiago geratzen zaizkit, bederatzi. Eta bai, hegan joango zaizkit, beraz, ea nahi bezala aprobetxatzen dudan azken esprint hau, informazio bilketa eta saioetako magia uztartuz.

Larunbata dut jomugan orain nik, biharko eguna. Emakumea Pilotari Eguna ospatuko da Tolosako Uzturpe pilotalekuan. Oso egun berezia izaten da, aurrez hiru aldiz ere izana bainaiz. Ezagutzen dut bertako dinamika eta egunerokoan ohikoa ez denez saltsa polita sortzen da herri ezberdinetako emakumeak pilotaren inguruko jai batean batzean. Gainera, orain bi urtekoan, nire azkenekoan, lana uztera nindoala eta benetan hunkituta amaitu nuen Hernanikoen prestatutako sorpresari esker. Iruditzen zait bihar sentimendu horietakoren bat loratuko dela berriro ere festara biltzean, baina sentiberatasunari iskin eginez lana eta gozamina uztartzeko aukerari heldu beharko nioke, lan kontu horrek estutu eta izu-mamu batzuk ingurura ekarri badizkit ere. Nire galdera ikurrik handiena oharrak jasotzeko nik neuk izan dezakedan ahalmenak sortzen dit, ordu asko izango direlako eta gauza asko bizi eta pasako zaizkigula iruditzen zaidalako. Ordu eta erdiko

saioekin oroitzen naiz amaitu berritan, baina biharkoak denbora hori ia zazpi aldiz gaudituko du! Hala ere, lortu dut egitaraua eta taldeen antolaketaren gaineko aurretiazko informazioa, beraz, ea gutxi gorabeherako eskema bat sortu eta bihar goizean bertaratzen naizenean nire burua kokatu eta informazioa lortzeko bideak errazteko modua egiten asmatzen dudan.

Hemen dira egun, leku eta ordu seinalatuak: Tolosako Uzturpe, maiatzak 26, 10:00.

“FESTARIK FESTA HOR NABIL NI EGUN-ERO”

Iritsi da ikastaroetako emakumeentzako egunik bereziena: Emakumea Pilotari Eguna. Tolosan da hitzordua, goizeko 10etatik aurrera. Beraz, ni ere banoa bertara, lanera, baina ahal dudan heinean ondo pasa eta jendearekin gozatzera ere bai.

Tapia eta Leturiaren “festarik festa lan egin behar (...)” abestia etorri zitzaidan gogora bart gaurko informazioa biltzeko txantiloiak prestatzen ari nintzela eta ikasturte amaierako hitzordu berezi bateko gorabeherak aurkezteko izen egokia iruditzen zait, moldaketatxo batekin, egun-ero izena jarriz letra originalean gauerok behar lukeen lekuan. Zeren bai, nire senak hala diost, ero samarra izango dela eguna, berez halakoa izateaz gain, nik neuk konprobatu dut aurreko urteetako hiru aldietan, gaur burua eta radarra ere ahalik eta finduen izatea dagokidalako informazioa biltzeko ahalegin betean.

Larunbata asteburuaren baitan eta jaiegun lez kokatzen dugu normalean gure lan egutegietan, baina, gaurkoa aspalditik neukan azpimarratuta, gorriz, gainera, astegun bat gehiago bezala aurreko jardunaren segida izango baita. Beraz, kezka eta ardura kilo dezente bizkarreratuta abiatu naiz goizeko bederatziak pasatxoan etxetik, furgonetan sartu eta ordenagailu, argazki kamera, grabagailu, koaderno, boligrafo, paleta eta gainerakoak hartu ditudala hiruzpalau aldiz ziurtatu ostean.

Iritsiera

Nahiko lasai, edo ahalik lasaien, egin ditut Zumarraga eta Tolosa bitarteko kilometroak N-1ean barrena, baina bidegurutzean pilotalekurako bidea hartu dudanean sabelean tximeletak dantzan hasi zaizkit. Bai, gaurkoa ez da ohiko lanegun bat!

9.40an irten naiz furgonetatik eta justu orduantxe iritsi dira nire zuzendaria eta familia ere. Banekien buelta bat ematekoak zirela, telefonoz esan baitzidan bezperan. Beraz, elkarrekin egin dugu laurok pilotalekurako bidea. Oraindik ez da beste inor ageri, teknikarien autoak daude kanpoan, eta aparkalekuan ere bada non aparkatua.

Pilotalekua

Marrak jartzen Eider, Lide eta Alazne ari dira, guneak atontzen saiorako eta partidetarako. Lehena beti bezalatsu, urduri, “orain ezin zaio inori kasu egin” esanez ni ikusi nauenean, baina ezkerrerago umea ikustean berehala egin du eskaileretan gorako bidea aspaldi nire aldamenekoekin egon gabea baitzen.

Elkar agurtu eta lanpetuta daudela argudiatuta behera jaitsi eta marrak zein pegatinak jartzen jarraitu dute. Mikelek ere bere laguntza eskaini die eta nik ere pegatina bat jartzen lagundu diet. Hala ere, erlojuari etengabe begiratzuz nabil, badakidalako

autobusekoek ere nahiko gertu behar dutela eta egunaren nondik norakoak lehen unetik azkenera jaso nahi ditudalako.

Tantaka-tantaka euren autoetan etorritako zenbait hasi dira eskaileretan behera frontoira sartzen, ni errebote inguruan orriren bat begiratu eta buruak daraman abiadura kontrolatu ezinda nabilela. Eskuak izerdi hotzez blaituta ere badauzkat, baina, zer egingo diot ba?! Donostiako batekin dezenteko jarduna egin dut, harritu egin baita ni bertan ikustean eta ea zertan edo nola gabiltzan aritu gara. Ondoren Tolosako ikastarokoak agurtu eta beste pare batekin ere bai, “zer, aldapan gora berotu al zarete?” galdetu baitiet. Ezetz esan didate, kotxez egin dutela herri-gunetik honako bidea. Justu orduan furgoneta aldera nindoan zerbaiten bila, baina bertan geratu naiz eta zarauztar bat sartu da frontoian “txoferrak arduradun batekin hitz egin nahi du” esanez. Teknikariak urrun samar daude, baina ni joan naiz abisatzera eta Eider joan da kanpora. Besteak mahairen bat jartzen eta trasteak kokatzen amaitzen ari dira.

10etan hasi dira bata bestearen atzetik herri ezberdinetakoak iristen: Donostia, Hernani, Oiartzun, Zarautz,... Hauek bai, hauek dira autobusez ia Gipuzkoa erdia zeharkatuta datozenak. Oraindik bakarren batzuk falta dira, ordea, eta eskaileretan gora hasi naiz ni, usurbildarren bila. Aurrez hernaniarrekin hitz pare bat egin ditut eta donostiarren batekin ere aritu naiz hizketan. Orduan sartu dira atetik nire kideak eta elkar agurtu dugu, ea bidaia egiteko ondo moldatu diren galdetuz.

Usurbildar batzuei nikiak falta zaizkie, gaurkoak Emakumea Pilotari logodunak dira, beraz, Eiderri eskatu dizkiote eta honek eman. Txapelketako nikiak ere banatu dituzte, herri bakoitzeko bikoteari herriaren izena bizkarrean jarrita daukatela.

Aurpegi dezente ezagunak zaizkit, baina badira tartean nik sekula ikusi gabeak ere. Jendea bere ikastaroko kideekin batera dago korrotxoetan bilduta, zain, hizketaldietan eta ingurura begiradak tartekatuz. Tarteka herriren batekoak bestekoekin nahasten dira, aurreko urteetan ere leku berean topo egin izan dutelako, baina multzoek iragazgaitzak dirudite, badirudi herri bakoitzak bere kokagunea zehaztuta duela.

Aurkezpena

Denak bildu eta Eiderrek hartu du hitza, eguneko egitaraua azaltzen hasiz, batez ere laster batean martxan jarriko den Gipuzkoako Txapelketa Herrikoian zentratu bada ere. Hala hasi berritan, 10.05ean, sartu dira zizurkildarrak eta mugitzeko esan die, berandu datozela esanez. Hori ikustean “benga, berandu zatozte” esan die Eiderrek eta erdi lotsatuta jaitsi dira kantzara nire kideak, Gurutze lehenengo datorrela. Agurtu egin ditut nik, azkar-azkar emakumeengana bildu diren bitartean.

Lehenengo txapelketa, ondoren saioa, partiduen azken fasearen aurreko hamaiketako eta, azkenik, bazkaria izan ditu aipagai Eiderrek, emakume guztiak inguruan adi-adi entzuten ari zaizkiola. Ondoren eguneko lehenengo atalari hasiera ematera doaz: Emakumezkoen Gipuzkoako V. Txapelketa Herrikoia.

Partidak nonahi

9 herri arituko dira, bi multzotan, Emakumezkoen Gipuzkoako V. Txapelketa Herrikoia azken fasean. Denek denen aurkako ligaxkaren ondoren multzo bakoitzeko

lehen biak finalerdietara igaroko dira. 10'ko partidak jokatuko dira, frontisean eta errebotean markatutako guneetan.

Beroketa

Alaznek gidatuta, borobil batean jarri dira hemezortzi paletariak, bakoitzak soinean ordezkaten duen herriaren izena daraman nikia duela: Usurbil, Hernani, Zizurkil, Azkoitia, Tolosa, Villabona, Donostia, Oiartzun eta Zarautz.

Gainerako emakumeak hizketan eta lasai ederrean dabilta kontrakantxan, besteei begiratu eta euren arteko hizketaldietan murgilduta. Batzuk eserita daude, beste zenbait zutik eta ezker hormari bizkarra ematen ari denik ere ikusi dut. Hori bai, herrikako taldetxoak sortu dira, ikastaro bakoitza borobil txiki batean bilduta, gutxi gorabehera. Ni argazki kamera eskuan, tarteka kideekin hitzen bat trukatzuz ari naiz, hara eta hona, urduritasuna lagun. Goitik begira nabilela ikusi dut zarautzarrak hiru alabarekin etorri direla (B.K. Egun pasara etxeko txikienak ere badatoz antza, harrobia gaztetatik landu behar omen dela eta). Besteren baten senarra dirudiena ere ikusi dut harmailen gainaldean, baina bestela gehienak ikastaroetakoak dira, niki zuria jantzita dabilzan paletariak.

Berotzeko lehenengo giltzadurak mugitu dituzte, paletak lurlean euren aldamenean utzita gehienek, eta ondoren herri bakoitzeko bikoteei pilota bana eman eta ezker hormaren aurka piloteoan hasi dira kantxaren zabalera ia osoa hartuz.

Emakumeak berotzen ari direla iritsi da gaurko pilotalekuko ia gizonetzko bakarra, eguna emakumeekin igaroko duena. Musikaz arduratuko dena da eta trasteak ekartzen hasi da, megafonia eta mahaia prestatuz. Nik bi hitz egin ditut berekin agurtu ondoren eta beste emakumeren bat ere ikusi dut bera agurtzen, aurreko urteetan ere eurak etorri izan baitira.

Norgehiagokak

10.30-12.00 bitartean jokatuko dira, iragarri bezala, 16 partida, 10'ko iraupenarekin. Frontisean zein errebotean aldi berean hasi dituzte eta txistu hotsez adierazi amaiera. Nik orri batean daukat partiden zerrenda, ordena eta kokapena zehaztuta, eta nire kideenak azpimarratuta daukat, ahal badut euren partidei arreta apur bat jar diezaiedan.

Kideen partiden zatirik nagusienak ikusi eta hurbilekoak animatzen saiatu naiz, batetik besterako joan-etorrietan. Tarteka argazkiak atera ditut, oharren bat idaztera kontrakantxara hurbildu ere bai eta norbaitekin solasalditxoren bat izan ere bai. Zizurkilgo Elirekin dezenteko jarduna egin dut lehen txanda jokatu bitartean, kideak Zarautzen aurka ari direla. “Inbidiarik ematen al dizu?” galdetu diot lehendabizi eta “zer moduz zabilta? Nola dago lesioa?” ondoren. Berak “inbidia pixka bat bai, baina ez etortzeak pena ematen zidan” esanez erantzun dio lehen galderari eta bigarrenari, aldiz, “fisioarenera joan aurretik proba bat egiteko asmoa dut aste honetan, oraindik ez dut ezer egin, denbora da min hartu nuela” azalduz. Azken saioetan ez da izan, orain bospasei asteko saioan zuntz haustura egin eta min hartuta dabilelako.

Zarautzarrek eta zizurkildarrek jokatu dute erreboteko guneko lehen partida eta erraz nagusitu dira kostaldekoak. Amaitzean Gurutzek urik ba ote dagoen galdetu dit eta

teknikariengana hurbildu naiz galde egitera. Baietz erantzun didate, badaudela botila batzuk frontoian zehar sakabanatuta, eta hala jakinarazi diot kideari.

Erdiko gunean piloteatuz aritu dira lehen txandan Usurbil eta hernaniarrak, ez baitzaie jokatzeko egokitu. Lehenak Haizearekin eta Liderekin hizketan ere ikusi ditut une batean. Bigarren errondan usurbildarrak oraindik erdiko inguru horretan ari dira eta “zer, oraindik ez al duzue jokatu?” galdetu diet. Hirugarren txandatik aurrera ia bata bestearen atzetik jokatuko dituzte partida guztiak, atsedean hartzeko tarte handiegirik gabe. Bigarrenean tolosarren eta hernaniarren artekoa jokatu da atzean eta kideak animatu ditut tartetxo batean, frontiseko Villabona-Azkoitia partida orekatua ikustera joan aurretik eta handik itzulia egin ondoren.

Partidak jokatu dituzten batzuk besteen partidei begira eseri dira kontrakantxan eta beste batzuk, aldiz, zizurkildarrak eta zarautzarrak, adibidez, euren kideengana hurbildu eta solasaldietan murgilduta dabilta.

Jokatzeko eman dizkieten nikien etiketak ikusten direla eta kendu egin dituzte Idoia eta Jaionek herritarrengana hurbilduz (B.K. Mikelek pasa dit oharra), nik paretik pasatzean “lasai, ez dut ezer ere ikusi” esanez.

Hamar minutuko tarteak pasatzen hasi dira eta partida pare bat jokatu dira eremu bakoitzean. Orain usurbildarren txanda iritsi da eta donostiarrak izango dituzte aurrez aurre. Haizea ere hurbildu da erreboteko gunera eta bideo kamera eskuan bere ikasleen jardunari begira jarri da. Partida hasi da eta usurbildarrak dira animatzailerik onenak, dudarik gabe, txalo eta txistu hotsez kideak aupatuz ari baitira lehen unetik. Ni errebote eta frontis artean nabil, aurrean zizurkildarrak ari baitira jokatzeko oiartzuarren aurka. Hernaniarrek atsedena dute hirugarrenean eta hizketan ari dira kontrakantxako herritarrekin batera, laugarrenean aurrean Azkoitiaren aurka jokatzeko egokituko baitzaie.

Zarauzko hiru neskatilak paleta bana hartu eta heldu batekin batera jolasean hastera doaz, hauek ere handiagoak egiten ari direnari segida eman nahi diote nonbait. Nik argazkia atera diet aurrean pasatzean eta irri zabal bana dute aurpegietan marraztuta. Beste ume bat ere badabil frontoian, ama edo/eta aita inguruan dituela, askotan lau hankan ziztu bizian eta beste zenbaitetan oinez desorekatu eta lurrera erori edo esertzen amaitu arte. Denak saiorako sarea jarri duten zelaiaren inguruan dabilta, batzuk pilotan eta bestea inguruan saltsan.

Erdiko gunean zati handi samar bat libre geratzen da, asko jota partida jokatzeko zain dagoen bikoteren bat aritu da uneren batean, eta tarteka txapelketan parte hartzen ari ez den emakumeren bat edo beste animatu da paleta eta pilotak hartu eta jardutera. Usurbilgo goizeko taldekoak eta beste bakarren bat ikusi dut jo eta ke. Beraz, programa ofizialean aurreikusitako gabeko paleta saio alternatiboren bat ere sortu da.

Hernaniarrekin hitz egiteko parada izan dut azkoitiarrekin amaitu dutenean eta “asko arriskatu gabe ari naiz bada ez bada ere” esan dit Malenek. Azkoitikoaren aurka atzelaria ezkerria zela ikusi eta denak eskuinera bota dizkio, intentzio osoz. Gu, Mikel eta konpainia, hasita gaude herrietako ordezkariak aztertu eta irabazteko hautagaiak nortzuk izan daitezkeen aztertzen, mailan bi koska nahiko nabarmenak baitira: Oiartzun, Hernani eta Zarautz dira gehien errepikatu ditugunak momentuz.

11.00etan Itsaso, Zizurkilgo kidea iritsi da eta besteengana bildu da. Usurbildarren aurkako partidari ari dira Zizurkilgoak eta “zer, Asteasun orain al dira 10ak, Kanarietako ordutegian bizi al zarete?” egin diot diosala, irribarrez, adarra jo asmoz. Berak “etortzeko alferrez nintzen” esanez erantzun dit, broma giroari muzin egin gabe. Usurbil, Donostia, Zizurkil, Villabona eta Azkoitikoak daude aulkietan eserita partida honi begira. Ni ere hala jarri naiz eta lauren izenak esanez animatu ditut kideak. Haizea kontrakantxan aurrean jarrita ari da bideo kamerarekin irudiak hartzen. Norgehiagoka amaitzear dela nire bigarren entrenatzailea, Saioa, iritsi da, Donostian trinketeko partida bat jokatu berritan. Ea zer moduz galdetu diot eta “ondo” erantzunez egin diot diosala berak.

Zizurkil-Usurbil partida amaituta Jaioneri eta Idoiari bisitatxoa egin diet eta, “zer, lasaiago?” galdetu. “Beno, pixka bat lasaiago bai, baina posible al da?” esan dit Idoiak irribarrez. Jaionek “aurreko asteazkenean baino lasaiago bai” erantzuna eman dit, urduritasun apur bat baduela iradokitzearekin batera. Hala ere, gustura nabari ditut. 7-6 bukatu dute partida, azken unean Gurutze eta Onintzak markagailuari buelta emanda. Gustura daude azken hauek ere, elkarri besarkada emanez.

Partidak amaitzen direnean elkar zoriondu eta bostekoa ematen diote elkarri lau jokalariek, gizalegez. Horren ondoren euren gertukoekin, taldeetakoekin edo entrenatzailearekin, elkartu eta analisi tertuliatxoak egiten dituzte amaitu berri duten neurketaren gainean.

Seigarren txandako partidei hasiera eman zaie eta oraingoan nire arreta batez ere atzeko gunean dago, Hernani eta Villabonakoak baitira aurrez aurre ari direnak. Partida hasi aurretik argazkia atera diot laukoteari eta ondoren harmailletara hurbildu naiz, hernaniarren artera. Aurretik ere egin dut buelta bat eta hemen jende gehiago ari da begira Tolosa-Azkoitia partidari, hogeiren bat bai guztira. Ohartu naiz azkoitiarrek kokapenak aldatu dituztela eta lehen atzean ari zen ezkerre aurrelari postuan ari dela partida honetan.

Hautzaindegi zerbitzua ere badago gaurkoan antza, lau haurrak lurtean jarrita jolasean ari baitira, helduagoen begiradapean.

Zazpigarren txandan bi guneetan ari dira jokatzeko nire kideak, aurrean Usurbi-Zarautz partida eta atzean Donostia-Zizurkil jarri baitituzte martxan. Beraz, kasu honetan ere gune baten eta bestearen artean ibili naiz, joan-etorri laburrak eginez. Aurrean epailea aldatu dute, lehengo teknikariak Saioari utzi baitio lekua. Frontiseko eremuko partida ez da oso orekatua, joko mailan alde dago, baina errebotekoan oso estu dago kontua eta emozio pitin bat badauka norgehiagokak.

Amaitu da azkenurreko erronda ere eta zizurkildarrek amaitu dituzte gaurko txapelketako lanak. Amaitu berritan kontrakantxan dabilen Gurutzerekin jardun naiz unetxo batean. Gustura dago, irria ahoan, ohi bezala, eta “gaurkoak orekatuagoak izan dira, iaz baino hobeto” esan dit zer sentipen dituen galdetuta.

11.50 dira eta azken partidak baino ez dira falta sailkapen neurketekin amaitzeko. Ni ohar batzuk idaztera eseri naiz harmailletan eta aldamenean hernaniarrak dauzkat. Kontzentratuta ari dira, serio gairen baten inguruan eta antena jarrita “oso gauza itsusia

da egin digutena, txakurrak bezala utzi gaituzte, azalpenik eman gabe. Gutxienez orri batean jar zezaketen txapelketa atzeratu dutela” entzun dut. Badakit zertaz ari diren, azken bi saioetan ere mintzagai izan dutelako Kirol Patronatuak antolatzen zuen pala txapelketa. Aurten ez dute ohiko datetan ipini, San Joanetan amaitzeko, eta bada gehiegi gustatu ez zaionik (B.K. Hala ere, oker ez banaiz irailean antolatzeakoak ez al dira ba?).

Usurbil-Oiartzun partidari hasiera doaz atzean, azken txandan, nahiz eta ohi baino gehiago kosta zaien, paperean gaizki jarrita zutelako teknikariek, Zizurkil-Oiartzun. Nik esan diet usurbildarrei dagokiela jokatzeko, egitaraua erakutsiz, oiartuarrek ere esan diete Zizurkilgoekin aurrez jokatuak direla, baina bakarren bat haserre antzean dabil eta Zizurkilgoei “ni banaia hemendik bada ez bada ere” esanda usurbildarrena hurbildu naiz. Erdi parean daude, aurreko partida amaitu berritan, kideekin eta entrenatzailearekin hizketan. Azkenean ohartu dira Usurbili dagokiela azken partida jokatzeko eta euren deitutakoan hasi dute euren laugarren norgehiagoka, A multzoko azkena. Partidari ekin eta Idoiak huts batzuk egin ditu tantoa amaitzen saiatuta eta hori ikusita epaile lanetan dagoen Eiderrek “intenzioa bai, latza!” bota dio. Haizea ere inguruan dabil eta “Idoiari txapa jaitsi behar zaio” esan du irribarrez. Beste herritarrak ere hurrean dituzte, begira eta animoren bat edo beste emanez.

11.55ean zizurkildarren taldetxoan fruitu lehorren batzuk jaten ari dira, tripa-zorriak agertu aurretik baretu asmoz. Niri ere eskaini didate, baina ezetz erantzun diet, akaso geroxeago baietz.

11.59 dira eta nire ikerketa taldeko nagusia eta konpainiak hanka egiteko unea dute, semea ere nekatzen hasia baita. Datorren asteko hitzordua astelehen goizean telefonoz zehaztekoan geratu naiz. Zarauztarrik gazteena hurbildu zaie eta euren semea agurtu nahi duela esan, musu bat eman eta hurrengoan berriro ere elkartzekoan geratuz.

Nekea sumatzen zaie partidetan aritu diren zenbait emakumeri, masailak gorrituta eta izerdi printzak aurpegietan nabari zaizkie. Hala ere, gustura daudela esango nuke.

Epaile lanetan federazioko teknikariak ibili dira. Kolaboratzaile fina fitxatu dute bideo kamerarekin ibiltzeko, Haizea. Ni eta beste pare bat argazki kamerak eskuan aritu gara eta beste gehienak guneak txandatu, euren gertukoenen partiden kokapenaren arabera, eserita aritu dira orain arte. Partidak amaitu dira, ordea, beraz, bigarren atalari hasiera emateko unea da: paleta saioa.


Saioa

12.00 dira eta partidak amaituta mikrofonora hurbildu eta Eiderrek emakumeei mikrofonoa dagoen ingurura batzeko deia egin die (B.K. Ni urduritasun maila gorenak irentsi nau une horretan, zer eta nola gogoratzeko gai izango naizen zalantza handiak ditut eta ia hirurogei emakume aldi berean arituko direla jakiteak ziurgabetasuna areagotu baino ez dit egiten. Eskuak izerdi hotzez blai eta dardarka ditut ezertan hasterako. Hau marka!).

Talde bakoitzean zein dauden izenak banan-banan bota ditu mikrofonotik eta esandako tokietan kokatu gara esan ahala. Ni argazki kamera eskuan ibili naiz argazkiak ateraz, baina aurrez ere badakit norekin dagokidan. 3. taldea da gurea: Ainara, Ines, Malen, Onintza, Gurutze, Manoli, Susana, Nahia, Eunatze eta ni. Bost lehenak kideak ditut

Hernani eta Zizurkilen, hurrengo biak aurrekoan ezagutu nituen Usurbilen eta azken biak donostiarrak dira, aurrez ere ezagutzen ditudanak. Beraz, nahiko etxeko giroan jarduteko moduan izango naizela pentsatu dut, kirio dantza asko baretu ez bazait ere.

Hona hemen saioko antolaketa nolakoa izan den, sei gunetan sei talde arituz uneoro:



Guneen azalpena:

1. gunea: Txokotan bikoteka paletarekin. Bi pilotakada ematean kanpora irten eta bikoteari paleta pasa.

2. gunea: Bi taldetan banatu eta ilaran jarrita (bat eskuinean eta bestea ezkerrean) partidak norabide gurutzatuan. Ilarako lehenengoa, pilota jo ondoren, atzean dagoen konoari buelta eman eta berriz bere ilarara itzuliko da.

3. gunea: gunea bitan banatu eta taldekideak banatu bi zonatan. Eskuineko zonan txokotan paletarekin eta ezkerrekoan txokotan eskuz (goma-aparezko pilotarekin). Pilota jotzean atzean dagoen konoa inguratu eta jokora itzuli. 5' pasa eta gero ilaraz aldatuko dira denak.

4. gunea: zenbakien jolasa. Bikote bakoitzak zenbaki bat izango du. Bikoteak atzeko marran egongo dira. Beste bikote bat begirale lanak egiten hasiko da, hauetako batek bi zenbaki esango ditu eta besteak pilota jokoan jarriko du. Esandako bi zenbakidun bikoteak kantzara sartuko dira eta tanto bat jokatuko dute. Aurrena esandako bikoteak egingo du lehenengo kolpea. Tantoa irabazten duen bikotea begirale lanetara pasatuko da eta besteak marra atzera.

5. gunea: 2:2 kiniela eskuz, tanto batera. Amaitzean bikote berri bat sartu. Bikote batek hiru irabaziz gero kanpora joango da.

6. gunea: Boleibola goma-aparezko baloiarekin

Errotazioa: 1etik 2ra, 2tik 3ra, 3tik 4ra, 4tik 5era, 5etik 6ra eta 6tik 1era.

6 taldeak honela izendatuko nituzke nik osaketari erreparatuta:

1. Zaharrenak eta Zuriñe, Larraitz eta Rakel hernaniarrak.
2. Villabona, Azkoitia, Oiartzun, Zarautz, txapelketako bikoteak. Gazteak
3. Gu
4. Jaione, Idoia, Tolosako ordezkariak eta azkoitiarrak
5. Beste usurbildarrak, zarautzarrak eta tolosarrak.
6. Hernaniar bat, donostiarrak eta azkoitiar batzuk.

Taldeak aurrez zehazten dituzte teknikariek, ahal duten heinean joko mailari erreparatuta batez ere. Horregatik daude bi taldetan banatuta nagusiki txapelketan aritu direnak.

Hala ere, saioa beroketarekin hasi da. Emakumeei paletak utzi eta Alazneren azalpenei kasu egiteko esan die Eiderrek. Borobil handi-handi bat egin dute eta biraka aritu dira, frontoiko kantxa osoa betez. Nik kamera eskuan hartu eta bideo labur-labur bat grabatu dut (B.K. Berotzea baino garrantzitsuagoa iruditu zait une horretako irudiak jasotzea). Musika jarri dute eta erritmo horri jarraituz besoak mugitu dituzte, makurtuta apur bat ibili eta antzeko mugimenduak egin korrika txikian. Bost-zortzi bat minuturen ondoren eman dute amaitutzat eta emakume bakoitzari bere gunera hurbiltzeko unea iritsi zaio, sei talde banatuz sei gunetan. Berrogeita hamar edo hirurogei lagun bagara guztira.

Ariketen atalarekin hastean arreta batez ere gure jardunean jarrita ibiliko naiz ni jokoan, tarteka aldamenetara edo atzeko guneetara begiratu arren. Gainera, taldekideei azalpenak zuzenean eman eta ariketa pare bat zuzenean hasi ditugu guk, teknikarien azalpenaren zain egon gabe, nik ezagutzen dudalako aurrez zein den gune bakoitzeko proposamena.

1. errotazioaren ondoren Eider berriro ere mikrofonotik hizketan hasi da, gune aldaketak nola egin azalduz. Gainera, “zer zintzo zabilzaten” ere esan du. Guk hirugarren gunetik laugarrenerako bidea hartu dugu zintzo asko.

4. gunean zer egin behar den azaldu diet nire taldekoei eta zuzenean jokatzen hasi gara, binaka jarrita: Nahia-Eunate, Ainara-Malen, Onintza-Gurutze, Manoli-Susana eta Ines-ni. Errepikapen batzuk egin ditugu tartean, zenbakia esan eta bakarren bat ohartu ez delako edo lehen pilotakadan amaitu delako tantoa kasuren batean. “3 eta 1” esan eta sakean asmatu ez dutenez laugarrenean lortu dugu kasu horretan joko martxan jartzea. “2 eta 4” ere antzera esan dut, pare bat aldiz, eta Onintzak “eskerrik asko” bota dit, irribarrez. Gustura aritu gara, nahiz eta partida erdian ohartu garen barruan geundela kanpoan zain geundenak eta urrunago joan garen, kantzako joko eremua zabalduz. Zailtasun bakarra izan dugu, askotan zenbaki bera pare bat aldiz jarraian aipatzea, baina ondorioztatu dugu zaila dela bakoitzak zer zenbaki duen eta aurrez nola aritu diren gogoratzea.

Denbora amaitu denean kontrakantzako gunera mugitzea egokitu zaigu. Kasu honetan ere binakako partidak direla aprobetxatuz 5. gunean kontrakantxan eseri naiz eta ohar batzuk idazten hasi, gero bertatik altxa eta zuzenean jokatuz kasuren batean eta itomen apur bat sentitu dut. Ea ama-alabak diren galdetu diete Ines eta Ainarari pare batek jadanik entzun dudanez, eurek ezetz erantzun dute. Hiru partida irabaziz gero txandatu egin behar da eta bikote donostiarrek eta guk eduki dugu aukera hori. Txandaka igaro gara partidetatik eta kanpoan zain zeudenean emakumeak hizketan aritu dira nagusiki.

Errotazio honen hasieran Lide gure taldeari azalpena ematen ari zela 4. gunekoak galdezka hasi zaizkit niri bertan egin beharrekoaren inguruan (B.K. Askok teknikari lez ikusten naute, batez ere nire taldekoak ez direnek, normala izango da). Ni hurbildu eta “binaka jarrita bikote bakoitzak zenbaki bana izango duzue” azaltzen hasi naiz. Teknikaria iritsi da orduan, ordea, eta azalpena erdibidean utzi dut ni lehengo lekura itzuliz.

Bero egiten du, sargori dago, giroa kargatzen ari da, eta izerdi tantaren bat edo beste nabari da emakume gehienon aurpegietan. Ziurrenik bezperako bero sapak ere zerikusia izango zuela esan du bakarren batek, teilatuko uralita erraz epeltzen baita 25°C-tik gorako egunetan. Hala izaten dira frontoiak neguan hotzak eta udan beroak.

Eskuz binaka aritzetik boleibolera jauzi egin dugu, baina 6. gunean jarraitasunik ez dugu lortu, baloia airean mantentzen ezin asmatuta aritu gara askotan. Saio erdian jokotik alde egin dut nik, oharrak idazteko beharrari aurre egin ezinda, eta argazki pare bat atera eta idazteari ekin diot berriro, kideei begira. Orduan gehiago asmatu dute, azkenerako apur bat kontrol handiagoa lortuz.

13.00 dira eta behaketan murgilduta nabilela saioa egiten ari ez direnak eta Eider eta Alazne pintxoak prestatzen ari dira saio ondorengo mokadutxorako: Kizkitza, Haizea, Eli, Nahikari eta hiru haurrak. Mahaiak jarrita zeuden hasterako eta ogia mozten eta janaria plateretan jartzen ari dira.

Seigarren guneko denbora pasata lehenengora egin dugu, frontiseko eremura. Bertan txokotan hasi gara binaka eta 1.ean “ze gaiztoa” eta halakoak bota dizkirate taldekideek zuloan tantoak egitean. “Begira zer irribarre irteten zaion gainera” ere bota du norbaitek, giro sanoan betiere, eta nik “bestela ez al da zozoa jokoa?” erantzuteko probestu dut, tonu berean. Horma bikoren bat sartu dit Gurutzek eta “halakoek poz doblea ematen dute” bota dio aldamenean duen Ainarari. Nik ildoari segi eta “ziur asteartean han kontatuko duela bi tanto egin dizkidala” esan dut, irria ezpainetan. Giro onean, gustura gabiltza denok ere elkarren inguruan.

Errotazioa egin eta 2. gunea da azkena guretzat. Boleiboleko zelaitik barre arraro edo oihu moduko bat iritsi zaigu eta esan dute iaiztik ezagutzen dutela hots hori eta gogoratzen zirela horrekin, aurtan izango ote zen hizketagai ere izan zutelako bakarren batzuk. Nik esan dut hainbestekoak ezetz, baina Zizurkilen tarteka bakarren bati irteten zaiola oihuren bat.

Ariketa erdian lekuz aldatzea proposatu dut nik, inork ez digulako esan egin behar genuen ala ez. Guk (Ines, Ainara, Nahia, Malen eta ni) ezkerreko gunera eta besteek eskuinera egin dugu, ilarak aldatuz.

13.26 dira. Kito, amaitu da gaurko paleta saio gidatua. Berriro ere mikrofonoan ari da Eider.

(B.K. Ondorioak: ordenatua, ondo antolatua, tarteka estu samar espazioz, baina moldatu gara. Adin ezberdinetako emakumeak daude, erritmo ezberdinetan dihardutenak, denak nahas-mahasean)

13.30ean paletak utzi eta mahaira hurbildu dira guztiak, sabela apur bat bete asmoz. Nik argazki kamera eskuan argazki pare bat atera ditut eta ohar pare bat idatzi ondoren hurbildu naiz taldera, beranduxeago.

Ainara, Gurutze eta hauekin egin ditut bi hitz, urdaiazpiko apur bat jaten saiatu bitartean, eta apur bat lasaitzen ahalegindu naiz, baina tentsioa nabari dut eta nekatzen hasia ere banaiz.

Mikrofonotik pintxo garaia amaitu dela eta azken faseari ekitera doazela esan du Eiderrek eta bankuetara hurbildu dira emakumeak. Ni beranduago, Gurutzerekin batera, Jaione eta Aitziberren atzean zutik partidei begira jarritz.

Txapelketa Herrikoiazen Azken Fasea

Hemen dago goizean zehar jokaturiko partiden emaitza taula:

	FRONTISEAN	Emaitza				ERREBOTEAN
1	Donostia - Oiartzun	0	14	6	15	ZIZURKIL - Zarautz
2	Azkoitia - Villabona	6	5	2	11	Tolosa - HERNANI
3	Oiartzun - ZIZURKIL	15	3	8	10	USURBIL - Donostia
4	Azkoitia - HERNANI	5	13	7	6	Villabona - Tolosa
5	ZIZURKIL - USURBIL	7	6	10	2	Zarautz - Oiartzun
6	Tolosa - Azkoitia	4	12	10	4	HERNANI - Villabona
7	USURBIL - Zarautz	5	10	10	8	Donostia - ZIZURKIL
8	Zarautz - Donostia	14	5	15	2	Oiartzun - USURBIL

*Letra larriz nire taldeetako kideen partidak

Finalerdiak

Sailkatuak: Azkoitia, Zarautz, Hernani eta Oiartzun.

1. partida: Azkoitia-Zarautz

Isiltasuna, urduritasuna, ia erabatekoa da kantxa barruan zein kanpoan. Faboritoen artean indartsu ageri dira, baina 2-0 atzetik hasi dira itsas bazterrekoak. Hala ere, buelta eman diote partidari, tanto oso luzeak jokatuz eta arrisku gutxi hartuz.

Jaioneren eta Aitziberren atzean jarri gara Gurutze eta biok eta hizketan hasi. Porra egin behar omen dugu, nork irabaziko duen asmatuz. Zurito bat jokatu dugu eta honela geratu da, Jaionek Oiartzun, Aitziberrek Zarautz eta nik Hernani (B.K. Egia esan, poztuko nintzateke asmatuta, nahiz eta dudak egin zarautzarren bikotea ikusita).

Azkenean zarautzarrak nagusitu dira 5-2. Beraz, badaukagu finalerako lehenengo bikotea.

2. partida: Hernani-Oiartzun

2. finalerdia hasi behar denean urduri nago, kideak daudelako barruan. Ainara eta Malen animatzen saiatu naiz eta hasi aurretik lasai jokatzeke ere gomendatu diet. Argazki pare bat atera hasi aurretik eta ondoren Jaionek eta Aitziberrek egindako tartetxoan eseri naiz bankuan, Haizea atzean daukagula.

Atzelari oiartzuarra ezkerrean da eta honi ere eskuina bilatu diote zenbaitetan hernaniarrek, pilota eskuinera propio bideratuz. Aldetxo hartu dute hasieran markagailuan, baina oiartzuarrak 6-7 hurreratu dira eta aurpegiak zurbildu zaizkie kideei. Harmailetan, aldiz, giroa piztu du horrek eta aurreko partidaren baino animo dezente gehiago entzun dira, "aupa, Hernani!" eta "aupa, Oiartzun!" tartekatuz. Amaieran 13-6 irabazi dute hernaniarrek, tanto oso onak lortuz txokoan zein zabalean

luze moztuta. Txalo zaparrada izan da amaieran laurentzat eta nire kinielak balio du momentuz. Gurutze Jaioneri hurbildu zaio eta jadanik zurito bat ordaintzea dagokiola gogorarazi dio. Nola egin pentsatzen hasi gara ondoren, bat baino gehiago irabaziko dituelako asmatzaileak, Haizeak ere Hernanik irabaziko duela esan omen du eta.

Markagailu lanetan etorkizuneko pilotariak aritu dira, zarauztar txikiak, Saioa eta Lideren laguntzarekin.

Saioa eta Eider kantxako marrak kentzen jardun dira unetxo batean, ondorenerako lanak aurreratu nahian.

14.05. Finala: Hernani-Zarautz

Iritsi da urdaiazpikoa eta txapelak nork etxeratuko dituen jakiteko garaia. Paseotxoa egin eta publikoa agurtu ondoren hasi da lehia, Alazne epaile lanetan dela. Sakea hernaniarrek egingo dute, eurak direlako gerriko gorria jantzita dutenak.

Urduri nago, kirioak dantzan, kideak animatuz dihardut, baina zarauztarrei tantoa sartzea oso da zaila eta aurrelaria pilota guztietara iristen da. Nik beste egoera batetik ezagutzen dut, urte askoan baikara krosean eta lasterketetan elkarren inguruan ibiliak. Beno, ni bere atzetik izaten nintzen beti, oso maila oneko korrikalaria baita. Iruditzen zait hernaniarrek irabazteko arriskatu beharra dagoela eta ez dela batere erraza izango zarauztarrak ezustean harrapatzea.

Arriskua hartzea erabaki dute hernaniarrek partida erditik aurrera eta estutu dituzte apur bat zarauztarrak, jarraian pare bat tanto eskuratuz. 5-6 ere egon dira. Atzelari zarauztarrak keinuren batekin bere haserrea adierazi du eta ez zaie oso galtzaile ona iruditu nire kide usurbildarrei, “jokatu horrekin” edo “zeinekin jarriko genuke hori bikote?” galdetuz ironikoki asteazkeneko saioan gertatua gogora ekarriz. Hizketan aritu gara partidaz gozatzen dugun bitartean eta Jaionek kontatu digu saioan aritu direnean Idoia dezente despistatu dela joko batean eta “Txapape” izengoitia jarri behar diogula, partidetakako huts egiteengatik, irribarrez.

10' igarota amaitu da finala eta zarauztarrek lortu dute garaipena, erritmo biziko partida lehiatu baten ondoren, 8-5. Jaionek orduan “eta finala falta da, ala?” esan du eta Aitziberrek “hori tesian idazteko modukoa da” bota du, hirurok barrez hasi baikara kidea finala amaitu berria dela ohartu denean. Hernaniarrena joan eta eskua emanez zoriondu ditut nik aulkitik jaikita eta zarauztarrak ere bai geroxeago. Gainera, ezagun zaharrarekin bi hitz egiteko ere aprobeztatu dut.

Berriro ere taldetxoetako hizketaldietan hasiak dira emakumeak, baina andre bat mikrofonora hurbildu eta denen izenean eurak ere jokatzen ikusi nahi dituztela esan die teknikariei: Eider, Alazne, Lide eta Saioa. Horrek irribarrea sortu du askoren aurpegietan eta urduritasuna bakarren batenean. Alazne etorri zait niri eta “Uxue, joka ezazu zeuk nire partez” esan dit. Nik gustura asko esango nioke baietz, baina ez dagokit eta “ni ez naiz teknikaria eta ez zait tokatzen. Ni epaile jarriko naiz” esan diot (B.K. Barruko harrak desio bizia dauka, baina hau iragandako fase bat da niretzat. Teknikari ohia naiz gaur gaurkoz). Azkenean baiezkoan da lankide ohia, nahiz eta “Uxue emakumeei esan Alazne futbolaria dela, ez pilotaria” bota, eta laurak irten dira kantxara

apur bat berotzera. Nik txanpon bat hartu dut eskuan eta epaile lanetarako prestatu naiz. Markagailuan, berriz, Tolosako taldeko kide bat jarri da.

Partidu berezia: teknikarien erakustaldia

10'ko partida jokatzea erabaki dute eta ikuskizuna izan da nagusi. Lide-Saioa eta Alazne-Eider jarri dira binaka eta kontrakantxan festan dauden emakume guztiak adi-adi, txalo eta txistu jotzeko pronto, animatzeko gogotsu. Nik dei egin diet laurei eta erdian jarrita paseotxo eta guzti irten gara kantxara. Sakea bai ala bai gorriek aterako zutela tratua eginda nintzen Alaznerekin, beraz, antzerki apur bat egin txanpona gora botata eta ekiteko prest daudenez partida bereziari hasiera eman diote.

Eider lurrera botaz ikusi dugu, Saioak paleta hautsi du hormaren aurka jota eta korrikaldi biziren bat edo beste ere izan da partidari. Ni inbidiaz akabatzen ari naiz, gustura jardungo nukeelako, baina zer egingo zaio ba?! Erraz nagusitu dira gazteak, 13-6, eta tantoren batean Eider bere onetik irten da, hiruzpalau pilotakada galdu dituelako txapara edo txapapera botata.

Amaitu dela adierazi diet nik denbora bete denean eta elkarri bostekoa eman diote, emakume asko ikusitakoaren ondoren zorutzen eta jokaldiak komentatzen ari diren bitartean. Hala ere, goiza amaitzeaz da eta goizeko azken atalerako trasteak hartu eta jartzen hasi dira lau teknikariak, urdaiazpiko, poltsa eta kaxak kantxaren erdi inguruan jarritz.

Sari banaketa eta talde argazkia

14.40 dira eta txapelketako parte hartzaile zein egunera etorri direnei euren oroigarriak banatzeko unea heldu da. Eider mikrofonotik aritu da hori azaltzen eta ondoren bideoan grabatuz. Opari banatzen, berriz, Alazne, Lide eta Saioa.

Halakoetan pasa ohi da eta argazki-kamera bateriarik gabe geratu zait niri hasi eta berehala, baina bat baino gehiago dabilta paparazzi lanetan eta lortuko ditut nonbaitetik.

Lehendabizi txapelketako bikoteak izendatu dituzte banan-banan, ligaxka jokatu dutenetatik hasi eta txapeldunorde zein txapeldunekin amaituz. Poltsak eta sariak jaso eta argazkiak atera ondoren saioan aritutako gainerako emakumeoi ere eman digute toalla bana.

Denok oparia jaso ondoren talde argazkia atera dugu, nola kokatu erabakitzen denbora apur bat pasata. Azkenean bankuak atzean jarrita, batzuk eserita, besteak belauniko, zutik eta nola edo hala moldatu gara.

Eider berriro ere mikrofonora hurbildu da eta “dutxatu nahi duzuenok hor daukazue aldagelak eta besteak bazkaltzeko mahaia eta trasteak prestatzen hasiko gara, bazkaria hamar minutu barru iritsiko da, 15.00etan” esan. Nik trasteak hartu eta lehen geldialdia egiteko unea dut, furgonetara joan eta goizeko oharrak antolatu eta laburpena egitekoa. Hala ere, usurbildarrekin batera joan naiz frontoi amaieraraino eta “ordu erdi barru ez banago hemen jo atea furgoneta morean, bale?” esan diet. Jaionek baietz erantzun dit buruarekin eta “gero arte” esanez agurtu ditut.

(B.K. Urduri eta batetik bestera ibili arren goizean uste baino hobeto moldatu naizen irudipena dut barrenean, beraz, ea lehen etapakoak antolatu eta arratsaldean pittin bat lasaiago izateko modua egiten dudan)

Bazkaria eta bazkalostea

15.20 pasatxoan itzuli naiz bulego mugikorretik, grabagailuan zenbait gauza jaso ondoren, eta jadanik bazkaltzen hasiak dira. Usurbildarrek leku bat gorde didate niri, Idoiaren eta Jaioneren artean. Parean, berriz, Aitziber, Julene eta Manoli ditut.

Bi mahaitan banatuta daude emakumeak. Harmailetatik hurbilen dagoenean teknikariak, hernaniarrak, hutsune bat, zizurkildarrak, zarauztarrak eta oiartzuarrak daude. Bigarrenean, berriz, beste aldetik hasita, Tolosakoak, Villabonakoak, donostiarrak eta gu. Berrogei bat izango gara, saioan aritutako zenbaitek ospa egin baitute kotxeak hartuta bestelako konpromisoren bat zutela eta (B.K. Beste urteetan baino gutxiago gaudela iruditu zait, nabarmen samar, gainera).

Menua: esparragoak, pateak, paella, oilaskoa, gazta tarta eta kafea. Sagardoa, ardoa, Coca-Cola eta ur botilak ere badira mahai gainetan. Xanpaina ere atera dute postrearen ondoren.

Besteak ia jaten hasiak baziren ere badut zer jana eta gustura aritu naiz hitzak eta mokaduak tartekatuz, nahiz eta besteak baino motelago ari naizen, mingaina dantzarako izaten baitut jende artean gustura nabilenean. Hitza hitzari josiz ari gara gure mahaiari eta baita beste emakume guztiak ere, hizketa lasaian. Bakarren batek esan dit “gutxiago hitz egin eta jan” eta “lan ederra jarri didazu” erantzun diot nik irribarrez.

Hizketa-gai ugari eta itxura ezberdinekoak jorratu ditugu gurean, txandaka iritzi ezberdinak trukatur eta adostasunak bilatur kasuren batean. Jendardean puri-purian daudenak dira horietatik batzuk eta gaurko egunarekin edo ikastaroan zeharreko gorabeherekin lotura zuzenagoa dutenak beste zenbait. Hona hemen zerrendatuta:

- “gaur bertso eguna da” esan du Haizeak adarra jo asmoz eta “ez, ez, gaur ez da tokatzen” bota diet nik. Ikasturtean behin baino gehiagotan egin dute bertso-eskaeraren bat, zuzenean baino zeharka gehienetan. “Asteazkenean agian sorpresaren bat emango digu” bota du Haizeak (B.K. Ni estutu egin naiz, ez dudalako ezer sumatzerik nahi, baina prest daukat bat azken saiorako).

- ama izateko prest egoten al da bat? Bakoitzaren bizipenak kontatu dituzte, ez dutela uste inoiz prest egoten denik bat, bizitza aldatzen dizula, baina sekula ez duzula pentsatzen zuri hainbeste aldatuko zaizunik. Bizitza proiektuaren arabera dela ondorioztatu dugu, bakoitzak noiz ezkondu eta seme-alabak noiz izan zituen kontaturik, adinak aipatuta. Batek 26 eta 28rekin, besteak 34rekin lehena, ... 40 urte ez omen da adinik onena, baina egoera horretan legokeenari animoak emango lizkioketela diote. Azkenean erabaki dugu bizitzak berak markatzen duela norbere bidea, une jakin batzuetan hartzen diren erabakiek.

- adinaren inguruko kezka edo hizketaldia sortu da eta ikastaroetako adinaren batez bestekoa kalkulatzeko saiatu gara.

- pilota federazioko teknikari baten lana zein den galdetu didate eta funtzio hori neukaneko gorabehera eta betebeharren gainean aritu gara, euren jakin-mina ase asmoz.

- saioetako ariketak, antolaketa eta entrenatzailearen bizipen batzuk ere ezagutu ditugu. Bi begirale izan dira Usurbilen eta oso era ezberdinetako saioak. Lurdesenek ez dutela binaka jokatu esan dute eta Haizea ohitu egin dela emakumeena azkenerako.
- ea datorren urtean ikastarorik izango den esaten aritu dira, eurek nahi dutela, bi egun eskertuko lituzketela, bat motz geratzen zaiela.
- tesia ere bai, onartuz aspaldi honetako nire hizketaldi gehienetan agertzen dela. Zer nahi nukeen eta zer ez esan diet eta “hori garbi edukitzea ez da gutxi” esan didate.
- pilota federatuaz, dauden mailak eta jokatzeko moduak. Non ikusi litezkeen, ni ba ote nabilen eta abar. “Orain gutxi, asteko kupoa saioekin betetzen dut, baina korrikan eta bizikletan apur bat bai”. Beste zerbaitetan ere banabilela aritu dira esaten, bertsoetan, etab., entzute hutsez nekatzen omen dira, irribarrez Jaionek.
- eguneko nekea eta urduritasunak gosea kentzea ere hizpide izan ditugu. Jaioneri janik ez zaio sartzen eta Idoia nekatuta dabil, “gorputzak ez dit erantzuten ya” esanez. Nekatuta omen dabil, gauza asko buruan.
- etxeko eginkizunetako euren parte-hartzea eta senarrarekin lan horietan nola moldatzen diren aritu dira esaten, errua askotan euren dela botaz, gauza gehiegi egiten dituztelako.
- oporretan noiz eta nora joan, geroz eta jende gehiago ekainean joaten dela, prezioetan aldeak daudelako. Enpresa eta egoera ezberdinak izan dituzte hizpide, bakoitzak izan ditzakeen aukerak.
- atez ateko zabor bilketa, telebistan emaniko erreportaje baten harira.

(B.K. Beste mahaietan gai hauetakoren bat aterako zen eta beste batzuk ez ziurrenik, baina ezin naiz denetara iritsi eta uste dut sor litezkeen hizketaldien lagin bezala oso balekoa dela goiko zerrenda hori)

16.30ean taldez taldeko bisitak hasi ditut, hernaniarregana hurbilduz. Ondo bazkaldu ote duten eta zer moduz dabilzan aritu gara eta “zuek mahai horretan ez al duzue ezer jaten?” galdetu didate niri, jana soberan geratu dela ikusita. Inesekin astelehenerako elkarrizketa lotzen saiatu naiz eta “niregatik ez zara arratsaldean Hernanin geratuko” hamar bat aldiz errepikatu ondoren astelehenean saio ostean hitz egiteko tratua egin dugu, bilobak jasotzeko euren aita moldatuko dela esanda. Hori ikustean beste zenbait kide galdezka hasi zaizkit, ea zer galdetu dudan jakin nahi dutela eta Ainarari galdezka ari zaizkionez honek baimena eskatu dit. Nik “beno” esan diot eta hori ikustean “nahi baduzue amaitzen ditudanean esango dizuet, astebete barru” adierazi. “Astebete itxarongo dugu orduan” esan dit Rakelek, barrez. Malenek “a zer petardak, e” esan dit, honek ere irribarrez.

Hernaniarregandik metro pare batera daude zizurkildarrak eta ea elkarrekin haserretuta dauden esan diet, tarte huts bat dagoelako erdian. Zer moduz dabilzan galdetu eta “zer moduz dituzue agendak?” galdetu diet Gurutze eta Itsasori. Asteartean elkarrizketak egitekotan geratu naiz, batekin 18.15ean eta bestearekin 19.00etan. Berandu izango ote den iradoki eta “beno, galtzekotan beroketa galduko dugu” esan dit Itsasok irribarrez eta “beno, baina orduan nahiago izango du Gurutzek bigarrena izatea” gehitu du, ingurukook ere irribarrez jarriz. Eliri proposatu diot ondoren eta ea ordutegiz zer moduz dabilen galdetu. Asteartean saioaren ondoren izan litekeela esan dit edo bestela zazpiak inguruan beharko lukeela. Hala ere, azkenean ekainaren 4ko asterako geratu garenez mezu bidez komunikatzekotan geratu gara, egokiena hori izango dela erabakita.

Alaznek alde egin du une horretan, paleten gurdia hartuta, futbol partidura, ez dakit zer final jokatzekoak omen zirela eta. Hurrengora arte agurtu dut, ez baitakit noiz egingo dugun berriro topo elkarrekin, azkena noiz egon ginen ere ez naiz gogoratzen jadanik.

Une berean lau mutil agertu dira bizikletaz, frontoiko sarreratik sartuta goiko aldean ikusi ditut nik, eta ondoren errebotean jarri dira jokatzeko. Han egin dute ordubete pasako jarduna (B.K. Zer pentsatu ote dute gu ikustean? Gustura jakingo nukeen!).

17.00. Jokin hasi da giroa jartzen eta korroan eskutik helduta hasi dira elkarrekin. Lehen dantza egiten ari zirela ni ohar batzuk idaztera joan naiz eta ondoren itzultzean berriro ere aulkietan eserita zeuden gehienak.

Dantzan korro handietan, denetik egin dute: Macarena, trikitia, Aserejé, etab. Tolosakoak dira gehien mugitzen ari direnak eta “horien adinean gu ere joango gara, lotsarik ez dugu izango” esan dute eta barre egin. Ni ez ote naizen animatuko esan dute eta ezetz erantzun diet, enbor puska bat naizela eta barregarri geratzeko sentimendua oso azalean daukadala, lotsarekin batera. Kuriosoa da, usurbildarrak batez ere trikitia hastean altxatu eta ondoren eseri egiten dira. Besteren batek berari ez zaiola dantzarik gustatzen esan dit eta nik ni enbor bat naizela esan diot. Beste kide batek gerri inguruan mina jartzen zaiola eta oinera zabaldu esan dit eta badela hilabete inguru hala dabilela.

Eiderren etxeakoak etorri dira handik gutxira, bere ama, senarra eta semea. Hura besoetan hartuta dantzan ibili da eta ondoren harekin pilota bat hartuta ere bai.

17.30 inguruan lau zizurkildarrek alde egin dute eta asteartean elkarrekin biltzekotan geratu gara, aurrez mezu bidez gogoraraziz hitzorduak. Usurbildarrekin ari nintzen hizketan eta eskua jasota agurtu ditut lau kideak. Bosgarrena Villabonako eta Tolosakoena hurbildu eta han geratu da.

Jaioneren paletari heldulekuko zinta jartzera joan naiz Saioarengana, goizean hautsitako paletari zinta kendu eta probetxua ateratzeko, eta tarteka taldetxo aldututa batez ere hernaniar eta usurbildarren inguruan ibili naiz. Besteekin asteazkenerako zintak jartzeko tratua egin dut, egunaren amaieran euren paletak nik hartuz eta asteartean-edo jarritz.

Hizketan eman dut arratsaldea, tarteka koaderno heldu eta oharren bat idatzi dut, eta ahaztu aurretik hasieran elkarrizketak lotu ditut, beste hiru hurrengo asterako: Ines, Gurutze eta Itsaso. Usurbildarrak noiz hartu zehaztuko dut hurrengo astean, nahiz eta nola dabilzan gutxi gorabehera kalkulatu dugun.

Zerbezak edateko aukera dagoela esan du Eiderrek mikrofonotik eta bakarren batzuk ibili dute botilaren bat eskuan. Patxaran botilaren bat ere izan da mahaietan, xanpaina ere bai, nahiz eta ateratakoa amaitu dela iruditu zaidan niri.

Paleta saioak hasi dira seietatik aurrera. Zuriñe korrikan joan da jendea animatu dela ikustean, zain egon balitz bezala. Oiartzun, Villabona eta Hernaniko dozena bat bildu dira amaierarako. Binaka partida bat jokatzeko dute erreboteko gunean eta ondoren bikoteak aldatu eskuinerago daudenekin, txandaka bi guneetatik pasaz. Usurbilgo batzuk ere aritu dira, astelehen goizetakoak, besteen aldamenean jarrita. Gure taldekoak mahai inguruan gabiltza batez ere.

Umeak euren artean jolasean ari dira, lehengo hiru zarauztarrak, tarteka mikrofonotik zerbait esanez eta Aitor ere bai, baloiarekin.

18.30ean Usurbilgo taldeetako kideen argazkia ateratzea erabaki dugu, ez daukagulako bakar bat ere. Ondoren afari bat ere antolatu beharko dugula aritu gara hizketan mahaiaren bueltan eta “afari asko egiten ditugula eta datorren urtean ez digute apuntatzen ere utziko” esan du Estitxuk brometan. Txapelketaren amaieran Usurbilgo Txapelketakoa egitekotan geratu dira eta ekainaren hasieran ikastaroetan aritutako emakumeena. Elkartean edo tabernan egin eta noiz eurek erabakiko dutela esan dugu, autobusean. Mahaian ibili dute txapelketako egutegia bazkarian zehar, ekainaren 6tik aurrera hasiko dutena, astelehen eta asteazkenetan partidak jokatuz. 5 bikote arituko dira teniseko pilotarekin eta denak dira ikastaroetakoak (B.K. Ahal badut egingo diet bisitatxoren bat inguruan naizela aprobetxatuz).

18.40an trasteak jasotzen hasi dira pare bat eta besteok ere jarraitu dugu, elkarlanean zitzu batean txukunduz ingurua: mahaiko paper eta botilak, bankuak, mahaiak, etab., erratza ere pasatuz. Saioa, Nahia eta Larraitz musikaren erritmoan dabilta garbitu eta hondakinak jasoz.

18.50ean korroan azken dantza pare bat egin ditugu ia denok, autobusaren zain jarrita jadanik. “Uxue dantzan ari da” esan dit Jaionek aldamenetik adarra joz eta Ainarak ere antzekoa adierazi dit paretik keinu bidez. Nik baietz esan diet, baina isilik egoteko, urduri jartzen naizela berehala halakoetan.

Agurra

18.55 dira eta Eiderrek berriro ere mikrofonotik eskerrak eman dizkie emakumeei, gogoraraziz maiatzeko azkeneko larunbatean izango dela ziurrenik datorren urtean ere. Ondoren inork espero ez zuena, bi oroigarri ematea ahaztu omen zaiola esanez. Jaionek “bat igual zuretzat izango da” esan dit albotik adarra joz eta nik “ez, ez, niretzat ez” esan diot. Hara non, batere espero ez nuenean, lehena nire izena aipatu duten mikrofonotik “lehen gurekin lana egiten zuen” esanez. Hartu eta lotsari aurrerik egin ezinda jaso dut, azkar batean baztertuz. Hurrena Haizea izan da, “Usurbilgo emakumeekin aritzeaz gain gaur lanean ere jarri duguna” esan du Eiderrek. Hura ni baino patxadatsuago joan da. Azken oroigarritxoa egun osoa emakume artean eman duen gizon bakanetakoari eman dio, DJ lanak egin dituen Jokini.

Usurbilgo afaria nola antolatu beste hitz pare bat eginda 19.05ean kideen paletak jaso eta eurekin batera irten naiz frontoitik kanpora. Aurrez esan dute Usurbilen gertatu zaiela alabak aitaren elkarteko bazkidetza ezin hartzea eta bazkide euren senarra bihurtzea, gizonetakoek bakarrik dutelako posible eta, beraz, tabernaren batean antolatzea errazagoa izan litekeela ondorioztatu dugu. Autobusean sartzen ari direla “asteazkenera arte, azaldu, pastak nire kontu” esanez agurtu ditut Idoia eta Jaione eta Ainarari ere “ondo bukatu eta astelehenera arte” esan diot. Beste teknikari batzuk ere joan dira euren kideak agurtzera. Emakume gehienak autobusean dira, egun pasa amaitu eta etxerako itzulerarako prest. Nik furgonetan utzi ditut nire trasteak eta berriro ere frontoira itzuli naiz, bertan geratutakoei laguntza eskaini eta Eiderrekin hitz pare bat egitera.

Autobusa abiatzear utzi dut eta egun osoan ikusiriko eguzki izpi gutxi horiek sumatzeko aukera handirik gabe berriro ere frontoian naiz.

Azken txukunketak

Eider, Saioa eta Lide soberan geratutako edariarekin zer egin eta nola banatu erabakitzen ari dira, kafeterak jasotzen dituzten bitartean. Janaria nola banatu erabakia dute jada, asko dagoen arren hurrengo eguneko lagunarteko bazkari batean aprobetxatuko dutela erabakita. Edariak euren artean banatzea adostu dute eta hozkailuak hustu eta soberan zenbat geratu den kontatu ondoren egin dute kaxak hartuta partiketa. Bitartean Eiderren semea entretenitzen aritu da amona eta aita ere bai kasuren batean.

20.00etan hartu ditut ligaxkan jokaturiko partiden emaitzak eta Saioa eta Lide agurtuta furgonetara abiatzeko prest jarri. Eiderrek etxeokak agurtu eta Jokinekin kontuak argitzen amaitu duenean hirurok hizketan hasi gara, Eiderrek “jakin al liteke zer egiten ari zaren?” galdetu baitit. Nik ez nekien, baina tesia egiten ari da musika ekipoaren jabea ere, beraz, gaiaz apur batean jardun dugu, mingainak dantzatzuz.

20.40an jarri naiz etxera bidean, furgonetan esertzean nire gorputza zulaturiko gurpil baten antzera husten sentituz. Jota nago, hamaika ordu dira bertara iritsi naizenetik, eta nekeak hartu dit gaina. Hala ere, eguna igaro dugu eta bihar hau dena idatzi eta antolatzeko modua dut kezka iturri itzulerako bidaian.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Jendeak taldetxoak eginda pasa du eguna batez ere, euren gertukoenekin tratuan. Deigarria egin zait, egunaren amaierarako agian bakarren bat animatu bada ere apur bat gehiago sozializatzerara. Ni taldetxo taldetxo txandak eginez aritu naiz bai goizean eta baita arratsaldean ere, baina ni neu ere nire kideekin aritu naiz batez ere.

Ondo antolaturiko eguna izan da, gustura daude emakumeak halako egun batean parte hartzeaz eta nik ere nahiko ongi igaro dut, lanerako txiparekin eta buruan informazioa gainezka dudala egin arren tarterik handienak, arduratuta. Hala ere, uste baino hobeto moldatu ote naizen iruditzen zait. Pena izan da argazki kamerari bateria amaitu izana, baina jende gehiago ere aritu da horretan, beraz, ez zait iruditzen dokumentu horiek lortzeko arazo handirik izango dudarik.

Sentipen kontrajarriak izan ditut eguneko uneren batean, orain bi urtekoaren oihartzuna iritsiz nire barrura, teknikari lana egiteari utzi nion egun hura. Hala ere, oroitzapen goxoak dira denak ere, beraz, horri heldu beharko diot eta bizi-legea dela onartu, neuk erabaki bainuen bidegurutzean beste norabide batean abiatzea.

Lehertuta nago, fisikoki zein mentalki, baina merezi izan du. Ea nola moldatzen naizen hainbeste orduan jasorikoak antolatu eta atontzeko, biharko egunak beldur dezentea ematen didan arren, igandea lanegun bihurtuko baitzait. Osorik amaituko ote dut?!

29. astea. BATA BESTEAREN ATZETIK, DOZENARA ARTE

Zazpi egunez lanean aritutako aste bati jarraian beste bost batu beharrean nago, atsedetik gabeko asteburua lanegun buruzuriek zubi eginda helduko baitzait astelehena, buruan pilota eta emakumeak gurgil eroan nahaspilan dabilzkidala eta deskonexio txikienerako ere inongo aukerarik gabe. Beraz, $7+5=12$ egun jarraian. Hala ere, azken txanpan bizpahiru asteko kontua izango dela pentsatu beharko dut, erritmoa jasangaitza den arren.

Aste hau izango da hiru saio bata bestearen atzetik kateatuko ditudan azkena, asteazketik aurrera saio bat gutxiago izango dudalako ekainean zehar, talde bateko ikasturtea maiatzaren 30ean bukatuko baita, Usurbilgoa hain zuzen. Hala ere, asteko lehenengo eguna astelehena izaten da, beraz, ez dezadan arreta gehiegi urrundu, hasi ezean ezinezkoa baita hirugarrenera iristea. Goazen ba!

“Astelehena biharamun”

Gozategi taldearen Kalanbreak izenburuko abestiaren hasiera izan liteke egokiena nire aste honen hasiera deskribatzeko. Izan ere, ez dakit larunbateko (lan) egun pasaren biharamuna den, buruak daraman zukutuaren ondorio den edo jarraian egindako zortzigarren lanegunaren ordaina den, edo denen pilaketa, baina jota hasi dut astea, aurrekoa amaitu gabe iritsi zaidan hau. Hala ere, noizbait pasako den esperantzarik ezingo da galdu eta neure burua animatzen saiatu behar “aupa, aupa eta eutsi, eutsi” bidez.

Astelehen hau ere amaigabearen tankerakoa da, goizean goiz irten eta gauean etxeratuko naizen beste bat, eta lanez gainezka datorkidan enegarrena. Izan ere, saioaren ondoren elkarrizketa bat eta bilera bat, gutxienez, badauzkat hitzartuta. Beraz, bazkaria ere hartu dut gaur ohiko tramankulu eta azpiegiturez gain, Hernani eta Usurbilgo hitzorduen artean tartetxo bat atera eta energia guztia xahutu aurretik izpiren batzuk berreskuratzen saia nadin. Lortuko ote dut?!

Kiroldegiko sarrera

8.40an irten eta N-1ean kotxe artean bidaia egin ondoren 9.20 inguruan iritsi naiz Hernanira, presa handiegirik gabe ibiltzeko moduan. Ohiko inguruan aparkatu eta oinez abiatu naiz kiroldegira, inertzia, bizkarrean motxila eta soinean jertsea jantzita. Hotz handiegirik ez dago, baina udaberri giro atsegina egin arren bero izugarrikerik ere ez dut nabari eguzki izpiek jo arren.

Eguraldi ona egin izan duen azken asteetan bezala kanpoan da gaurko hitzordua, bankuan eserita daudelako jadanik Irati eta Gemma. Ni, berriz, telefonoz arratsaldeko bilerarako ordua eta lekua zehaztuz nator, azkenean 15.30 inguruan geratu eta gero arte agurtuz elkar zuzendariak eta biok. Egia esan, asteburu honetako trotearen berri ere eman diot, baina, lasaiago jardungo gara aurrez aurre bazkalostean. Nirekin batera iritsi da Malen ere eta telefonotik hizketan ari nintzela Ainara ere heldu da. Beraz, laukote bat bagaude bertan 9.30 jotzerako.

Hizketan ari dira, batetik gaurko Tilos-7 Txapelketarako behar dituzten galtza zuriak lortzeko moduz, eta bestetik, berriz, iragan asteburuan egindako parranda edo plan

ezberdinen inguruan. Bi izan ziren Tolosako Emakumea Pilotari egunean, nirekin hiru, eta beste biak ez. “Parranda asko luzatu al zitzaizuen?” galdetu du gutakoren batek eta Malenek erantzun du “nik jarraitu nahi nuenean ospa egin zidaten hauek”, Ainarak “martxa hartzea kosta zitzaizun ba” gogorarazi dion bitartean, guri “hamarretan etxera joan behar zuela esaten ari zen”. Jakin dugu festa egunari jarraipena eman ziotela Hernaniko tabernetan egindako ibilian Rakel, Malen eta Ainarak, goizaldeko ordu bata eta erdiak arte. Larunbatean ondo pasa zutela esaten ari dira eta momentuz ez zaigu beste inor hurbildu. Nik aitortu diet nekatuta natorrela, “neurria gaituta nago, atzo ere lanean aritu nintzen arratsaldeko seiak eta erdian dena uztea erabaki nuen arte” kontatuz. Zer idazten ote dudan jakingo luketela esan didate eta nik esan diet “pentsa aurrekoan zenbat ordu eta zenbat gauza ezberdin egin genituen: partiduak, saioa, txapelketa,... Hori kontatzen hasi eta ez da bukatzen”. Ainarak esan dio Iratiri “jolastu eta ondoren apunteak hartzen aritu zen, bazkal garaian ere Saioari non zegoen galdetu eta grabagailuan goizekoa grabatzera joana zen”. Nik esan diet “gaueko bederatzia eta laurdenean iritsi nintzen etxera, jota, eta atzo goizeko bederatzietan lanean hasia nintzen bertan gertatua idazten”.

9.35ean iritsi da Saioa, entrenatzailea, erlojuari begira eta “sekula baino lehenago prestatzen hasi eta sekula baino beranduago irten naiz gaur, baina bost minutu bakarrik pasa zaizkit” esanez. Korrika agertu da azken metroetan eta Ainarak “aupa, Saioa!” batekin animatu du, irribarrez. Elkar agurtu dugu emakumeok eta pauso geldoan eta mingainak dantzatzeari utzi gabe bada ere barrura sartu gara, kiroldegiko beheko atetik.

Kiroldegian sartu eta bertan daude dagoeneko Zuriñe, Ines eta Rakel ere. Azken honek Gemma ikusi du eta “non dago zure ahizpa?” galdetu dio, honek “hemen” erantzunez. “A, oraindik ez dut ikusi” erantzun dio. Banaka aurrera egin dugu sarrerako tornuetatik aurrera eta orduan Ines hurreratu zait “Uxue, gaur goizean ezin dut, 11.30ean amaitu beharko nuke, umeen bila joateko” esanez. Arratsaldean nola datorkion eta geratu ote gaitzkeen kalkulatu hasi naiz “nik Usurbilen bilera bat daukat 15.30ean, baina handik bueltan gera gaitzke, 17.30 inguruan. Posible al duzu?” galdetuz. Berak “bai, arratsaldean posible dut, nahi duzun orduan, 18.45ean ere bai” erantzun dit. Beraz, hitzordua zehaztu nahian egin dugu ia pilotalekurako bide osoa, atzetik Ainara datorkigula. Aurretik doaz beste guztiak hizketan. Azkenean “seietan geratuko gara” erabaki eta lekua zehazteko “orain zeundeten bankuan geratu eta gero erabakiko dugu nora joan” esan diot nik. Hortaz, goiz-goizetik hasi naiz plan eta lan ordenak aldatuz, gaurko egunari arratsaldean ere etxetik kanporako orduak gehituz (B.K. Hau da marka! Eskerrak egunak luze joko didan txiparekin nabilen).

Pilotalekura iristeko azken atea zeharkatzera iritsi garenean Irati ari da atezain lanetan, denok igaro ondoren bera ere gurekin sartuz azken metroak osatzeko.

Pilotalekua

Bertan sartu eta jertsea kentzearekin batera harmailetan utzi ditugu norbere poltsa, motxila eta gainerakoak eta ia ohartzeko borobilean jarrita gaude. Garbitzailea kantxan moparekin azken ekinalditxoaren gitean ari da une horretan bertan.

Borobilean jarri eta larunbateko festa eguneko hainbat une eta pasadizo gogoratzeari ekin diote emakumeek. Lehenik eta behin, eta ia aho batez, oso ondo pasa zutela esan dute, egun polita izan zela. Rakelek lehen aldian zuen era honetako festa batean, aurten

aritu da lehenengoz ikastaroan, eta Gemmari gustatu zitzaiola esaten entzun dut lehenago bidean ginela.

“Zer zegoen poltsan? Pisua zeukan” esan die Saioak Ainara eta Maleni. Txapelketa Herrikoian txapeldunorde geratu ziren eta jan poltsa bana jaso zuten opari. “Solomoa, txorizoa, gazta, gauza dezente” erantzun dute. Malenek “gazta oso ona, guk ia bukatu dugu” esan digu. Hori entzunda Rakelek eta besteren batek “nik hori urdaiazpikoa baino nahiago dut” esan dute eta “agian urdaiazpikoa baino bai, baina txapela beti da txapela” esanez erantzun diote Zuriñe, Saioa eta Malenek berak ere. “Koparik ez jasotzea ez litzaidake axolako, hautsa hartzeko bakarrik balio dute” erantsi du ondoren.

Lau teknikariek euren artean jokatu zuten partida ere izan dute hizpide. Nik aitortu diet “nik inbidia handia pasa nuen”, beste ezer esan aurretik. Batetik mailagatik eta baita sortu zuten saltsarengatik ere oroitzen dute, irribarrea ahoan. Alaznek sakea euren zenean ateratzeko ibilitako presa ekarri du gogora bakarren batek eta Lide nola mugitzen den azaldu du besteren batek. Eiderrri gauzak nahi bezala ez zitzaizkiola atera eta horren inguruko aipamenen bat ere izan da. Nik esan diet denak saiatu zirela euren urguilua ateratzen.

Janaria ere izan dute hizpide. Finalen aurretik pintxoak jarri izana goraiatu dute, hamabietarako zuloa egina hasten dela aipatuz. Bakarren batek esan du berak postrea bi aldiz jan zuela eta ez zela gehiago jatera ausartu lotsa puntu batengatik. Ainarak, berriz, kontatu du “Inesi pastel puska bat eskatu zion musika jartzaileak, baina honek EZ! erantzun zion”, barrez. Besteak gustura ari zela jaten eta horregatik esan ziola hori adierazi du. Urduri jarri ote zen eta eskaerak bigarren zentzuren bat eduki ote zezakeen esanez jo nahi izan dio adarra Gemmak. Bazkaria ona zegoela ere esan dute eta nondik hartua zen galdetu. “Tolosako Mujikan uste dut” esan diet nik eta Malenek “nik uste badakidala zein zen, han bizi nintzenean bertara joaten nintzen batzuetan” esan dit aldamenetik.

Autobusean bueltan noiz heldu ziren galdetu diet nik eta “zortziak inguruan” esan didate. Zarauzkoek eman beharreko buelta eta haien pazientzia azpimarratu dituzte besteak beste, autobusean joaneko bidaiarako lehenengoak sartu eta itzulerakoan azkenak izango zirelako etxeratzen. Nik “ba pentsa autobusa Arrasatetik irteten zenean nola ibiltzen ziren” ekarri diet gogora eta baietz esan dute.

Bazkalostean Zuriñek abestia eskatzeko aukera eman zutenean zer eta nola ibili ziren ere kontatu digu, besteok barrez jarriz. Musika jartzaileari kantatu omen zion, baina honek ez zuela ezagutzen eta azkenean alabari deitu omen zion telefonoz norena zen galdetzeko eta izenbururik ere galdetu gabe eskegi. Berak esan du alabak agian pentsatuko omen zuela edanda ote zegoen eta telefonoz hitz egin duela ordutik, baina aurrez aurre ez oraindik. Larunbatean ondo ibili ote ziren galdetu omen zion, baina abestiaren gaineko deia ez omen dute mintzagai izan gaur arte. Gaur eguerdian egongo omen dira elkarrekin, bazkal garaian. Gainerakook nahikoa barre egin dugu, baita berak ere, kontu honen harira, egia esan.

Dantza egiteko moduak eta han emandako beste zenbait gorabehera ere irten dira hitzeko jardunean. Saioak dantza batean urduri jarri eta erdian utzi zuela denok ikusi genuen eta adarra jo diote horren harira. Nik beste batean koreografia segi ezinda nola ibili zen ere ekarri dut gogora eta baita “Paquito Chocolatero” abestian Tolosako

emakumerik adinduenak, 75 urte bai, lurrean eseri eta arraun egiteko keinua nola egin zuen. Ainarak argitu du hernaniar batek esan ziola horrela egiten dutela dantza hori bertan eta eurek esan zutela lurrean esertzearen kontu hori. Ainarak “Uxuek ere egin zituen azkeneko bi dantzak” esan du ondoren eta nik baietz esan diet, denok zutik geundelako egin nituela, ez bestela. Dantzarako jarririko abestien luzapena ere aipatu du Zuriñek, oso luzeak zirela argudiatuz, mozten amaitu bazuen ere azkenean DJak. Inesek esan du dantzarako garaian azken aldera bera paletan aritu zela. Jarritako abestien gainean ere denetik entzun zela eta nahaste-borrastea izan zela esan dute emakumeek, kexatzeko asmo handiegirik atera gabe.

Ainarak probestu du okasioa Saioari parrandan ondo ibili ote zen galdetzeko eta honek “bai zera, azkenean etxean geratu nintzen! Lagun batek ezin zuela, besteak ez zeukala gogo handirik, ... Azkenean etxean geratu nintzen luze etzanda. Egia esan nekatuta nengoen” aitortu du. Hori entzutean “gurekin etorri behar zenuen” esan dio Ainarak, erdi brometan. Jakin dugu autobusetik jaitsi eta zuzenean Hernanin antolaturiko Txalaparta Festaren amaierako ekitaldira joan zirela denak batera. Han zegoen beste taldekide bat, Jone, txalapartaria baita, eta agur eginez aritu omen zitzaizkion denak, azkenean berak ere erdi disimuluan kasu eginez. Lotsatuta zirudiela esan dute, nahiz eta saioa amaitu zutenean agurtzera joan zitzaien. Nik “gainera, unformatuta egongo zineten denok nikia jantzita” esan diet eta “asko ziren kolore berdinetako nikiekin zebiltzanak, Hernaniko Olinpiadetako jokoak izan baitziren arratsaldean” argitu dit Ainarak.

Adin kontua ere izan da mintzagai, Inesek “besteetan baino jende gazteagoa zegoen” esan baitu. Horren harira “Zarauzko atzelaria jadanik amona omen da, 52 urte izango ditu” esan du Saioak eta kalkuluak atera ditu eta bera ere 2008an jokatu zutenean amona zela esan du, bi biloba bazituela 56 urterekin. Zuriñek ere esan du falta zirela zenbait adinduago, baina hori ondo iruditzen zaiola, jende gaztea ere behar dela, nahiz eta eurek jarraitzeko borondate argia erakutsi.

Txapelketa Herrikoiko finala izan da beste solasgai bat, Hernani eta Zarautzek jokaturikoa. Ainarak berak ondo pasa zuela esan du eta nik “bai, bai, ondo jokatu zenuten, arriskatu beharra zegoen eta besteek ere jokatzen zuten” esan diot. Zarautzarren aurrelariaren korrika egiteko ahalmena azpimarratu dute eta nik “hori atleta oso ona da, nik krosetatik ezagutzen dut, aparta da korrikan” esan diet. Iratiri nor zen esan diot eta ezagutzen duenez, atletismoko entrenatzaile lanetan aritu zen urte askoan, “hori pilota guztietara iritsiko zen” bota du. Nik hala izan zela baieztatu diot eta euren partiduei begira asko urduritu nintzela aitortu kideei, ia histeriko jartzeraino. Urduritasunarena ateratzean Saioak ere bera urduritu zela esan du, eurek irabaztea nahi zuelako. Une batean zarautzarrak estutu zituztela ekarri dugu gogora, 5-6 jarri eta bi huts jarraian egitean atzelariak. Ainarak “Ines, Rakel eta Miren” ez zirela pintxoan mahaiaren aldamenetik mugitu ere egin esan du finaleko kokapenei erreparatuta. “Handik oso ondo ikusten zen” esan du Rakelek, irribarrez.

Ariketen gainean zer edo zer ere atera da, Saioak “agujetarik ba al duzue?” galdetu duelako. Malenek baietz erantzun du eta giroa jarri asmoz nik “gainera bi aldiz jarri gintuzten eskuz jokatzen” esan diot. Boleboleko guneko jarraitasun eza ekarri dut nik gogora eta besteren batek euren taldeko baten oihua, Villabonako emakume hark egin ohi zuena, jo ala ez jo berdin ateratzen omen baitzitzaion ezer egin gabe ere.

Ondoren atzo Aimar Olaizola eta Julen Retegik euren artean jokatu zuten partida aipatu dute Zuriñek eta Inesek, urduritasuna medio uneren batean ikusteari utzi ziotela aitortuz, nahiz eta partida amaitzen ikusi zuten, goizuetarra izan zelako irabazle. Gemma eta Ainarak esan dute euren aita triste jartzen dela Aimar Olaizolak galduz gero. Batzuk Retegizaleak izan zirela esan dute eta beste batzuk ezetz, pilotari bezala ona izan arren pertsona bezala ez zaielako oso erakargarria iruditzen.

Gaurkoa kontatuta ikasturtea amaitzeko lau saio falta direla gogorarazi du Saioak eta afariren bat egin beharko dugula esan du bakarren batek. Ikasturtea amaitzeak pena ematen diola esan du Inesek, lehen gutxienez txapelketa jokatzen zutela, baina aurten ezetz. San Joanetako kontuarekin tematuta dabil emakumea eta Ainarak hori entzutean “gure artean antolatuta beharko dugu zerbait, Uxue jarriko dugu epaile” esan dio. Nik antolatuz gero azalduko naizela esan diet.

Gaur mingaina gosalduta gatzela dirudi den-denok, larunbatekoaren oihartzuna eta hango bizipenak gogora ekarriz gustura asko ari garelako tertulian, ez du inork paletarik hartu eta ezta korrika hasteko imintziorik txikiena egin ere.

Beroketa

“Korrikarik ez dugu egingo eta luzaketa batzuk egin gutxienez” esan digu Saioak, hankari heldu eta atzera luzatzen hasi den bitartean. Solasaldian denbora daramagu eta badirudi luze jarraituko genukeela. Beraz, giltzaduretako mugimenduak egin ditugu eta luzaketa pare bat, oraindik ere hitza hitzari josiz dihardugula.

Ondoren motxilara hurbildu eta bertatik paletak ateratzen hasi da Saioa, nik kideei banatuz jaso ahala.

Ariketak

10.20 dira eta Saioak zerbait egiten hasi beharko dugula erabaki du. Beraz, saio erdia baino gehiago joan zaigu hitz eta pitz, kontu kontari borobilean.

1. Txokotan binaka, bikoteko bat barruan eta bestea kanpoan dela, bi kolpe egitean lekuz aldatuz. Bi bizitzarekin.

Bikoteak egiteko nola jarri Saioak erabaki du eta Rakele-Irati, Zuriñe-Ainara, Malen-Ines eta Gemma-ni jarri gaitu elkarrekin, gehiegi, edo besteetan bezainbeste, pentsatu gabe. Malenek “zer pena, orain ezin dizut zuri tantorik egin” esan dio irribarrez Inesi. Nik Gemmari bera sartzeko esan diot, nekatuta nabilela eta.

Jokatzen hasi eta bi huts egin izanaren poderioz Zuriñe eta Ainara nahiko azkar kanporatu dira bi bizitzarekin hasi garela konprobatzean. Hasieran kontrakantxan geratu badira ere azkenean pilota bat hartu eta atzera joan dira piloteoan aritzera besteok amaitu bitartean. Bigarren Ines eta Malen kanporatu dira eta amaierarako Irati-Rakele eta Gemma-ni geratu gara. Beraiek bizitzarik galdu gabe daude momentuz eta huts bat egin ondoren banarekin geratu gara. Azkenean nik erdietsi dut tantoa eta “orain urdaiazpikoak eta solomoak jasotzea falta zaigu” esan dio Rakelek irribarrez entrenatzaileari.

Denoi dei egin digu berriro ere eta binakako partidak jokatu ditugula jakinarazi digu.

2. 2:2 partidak, frontisean eta errebotean. Errebotean horma eskuinean dela, erreboteko pareta frontis bihurtuta. Frontiseko irabazleak 4 tantora iristean amaituko da.

Saioak esan digu errotazioa aurreko irabazlea bertan mantenduz, galtzailea atzeratuz eta atzeko irabazlea aurreratuz egingo dela eta bi partidak aldi berean amaituko direla.

1.txandan modu honetan aritu gara:

Frontisean: Ainara-Zuriñe eta Malen-Ines

Errebotean: Irati-Rakel eta Gemma- ni

Atzean hasi garen orduko ezohiko norabidean ari garenez “arraroa egiten zait oso, ohitu gabe gaude horma eskuinean izaten, ez dakit non nabilen ere” esan du Rakelek. Gehienok eman diogu arrazoia, gaur arte sekula aritu gabeak baikin talde honetan horma eskuinean genuela. Hala ere, elkarri ziria sartzen eta gaiztakerietan irribarretsu aritu gara.

Aurreko partida amaitzean 2-2 goaz markagailuan eta azken tanto batekin erabaki dugu nortzuk jarraitu bertan eta nor doan aurrera. 3-2 galdu dugu guk, beraz, atzeko eremuan jarraitzea dagokigu.

2.txandako egoera hau izan da:

Frontisean: Irati-Rakel eta Malen-Ines

Errebotean: Ainara-Zuriñe eta Gemma- ni

Nekatuta nagoela jakinarazi diet beste hiru kideei, aurrez Saioari ere esan diot gauza bera, eta nabari zait, ohi baino gutxiago ari naiz mugitzen eta aurpegian ere ohiko bekozkoaz gain neke-zimurak ere bistaratu zaizkit.

Jokatzen nahiko lasai aritu gara, baina, pilota bat gaizki jo, paleta ertzarekin, eta ia Ainara jo dut. Horma bikoa egin nahi nuen. Ondorengo jokaldi batean irtendakoan “hau egin nahi nuen lehen” esan diot eta “ba orain irten zaizu” erantzun dit berak, irribarrez.

Aurreko partida luze doala iruditu zaigu eta gurean jarraitu dugu, Ainara eta ni ezkerrean eta Zuriñe eta Gemma eskuinerago kokatuta. Halako batean aurrekoa amaitu dela jakin dugu eta hurrengo txandatzea eginda prest gaude beste ekinaldi baterako.

3.txandako kantxako banaketa hau izan da:

Frontisean: Malen-Ines eta Gemma- ni

Errebotean: Ainara-Zuriñe eta Irati-Rakel

Ni nekatuta nagoela esan diet Malen eta Inesi ere, bertara iristen ari nintzela ikustean partida zaila izango zela esaten entzutean. Malen aurrean eta Ines atzean kokatu dira, Gemma eta neroni ere horrela jarritz.

Partida lehiatua izan da eta nekeak gaina hartuta ez dut ederki pasa momenturen batean nik. Hala ere, saiatu naiz disimulatzen, nahiz eta hasperenen bat egin tanto bat lortu eta sakea atera aurretik. Pasa bat egin dut partidaren erdi aldera eta lurrean belauniko geratu

naiz, erdi desesperatuta, eta Gemmak hurbildu eta “min hartu al duzu?” galdetu dit. Ezetz erantzun diot nekea dela. 4-2 galdu dugu, 2-2 joan bagara ere. Beraz, amaitu da gure aurreko lehen egonaldia, joan-etorri bakarrean.

4.txandan berriz ere hasierako kokapenak errepikatzea egokitu zaigu:

Frontisean: Malen-Ines eta Ainara-Zuriñe

Errebotean: Irati-Rakel eta Gemma- ni

Irati eta Rakelek bigarren partida dute jarraian erreboteko gunean eta gu iristean, sakea egin aurretik, “zer jokaldi egingo dugu? 7-2a” bota dio Rakelek brometan eta “bai” erantzun Iratik. Eurek egin dute lehen tantoa, txapa gainean nahi gabe moztutako pilotakada batekin eta berriro ere jokaldi bera errepikatzen saiatuko direla esan dute, barrez. Gemma eta biok ere hasi gara “guk 3-2a ala 2-3a egingo dugu?” botaz eta hala segi dugu, irribarreak elkartrukatzen pilotakadekin batera. Azkenean ez dakit zenbat, baina guk lortu dugu tanto gehien eta berriro ere aurreko eremura joateko aukera.

5.txandan honela aritu gara:

Frontisean: Ainara-Zuriñe eta Gemma- ni

Errebotean: Irati-Rakel eta Malen-Ines

Saioak, “zer oraindik hor al zaudete?” galdetu die kideei Gemma eta biok atzetik aurrera gatzela ikustean. Irati eta Rakelek “ez da guk nahi dugulako, baina” erantzun diote irribarrez eta Malen eta Ines atzera doazela ohartu naiz. “Zer, galdu egin al duzue?” galdetu diot Maleni eta baietz erantzun dit buruarekin. Aurrean berriro ere lehengo kokapena mantendu dugu, atzean Zuriñe eta Gemma eta aurrean Ainara eta biok.

Lasai samar aritu gara, baina tarteka erritmoa apur bat bizitu dugun unerik ere izan da eta kasu horietan Gemma eta Zuriñe izan dira zailtasunik handienak izan dituztenak. Azkenean 4-1 irabazi dugula uste dut eta honenbestez aurreko gunean jarraituko dugu beste behin bederen.

6.txanda:

Frontisean: Malen-Ines eta Gemma- ni

Errebotean: Irati-Rakel eta Ainara-Zuriñe

Kasu honetan ere, hirugarrenez jarraian, Irati eta Rakelek atzean jarraitzen dute eta Saioa, orain arte aurreko gunean kontrakantxan jarri eta begira izan duguna, atzeko gunera joan da, beste lauren aldamenean jarri eta tarteka aholkuak ematen jardunez. Aurrean, berriz, berriro ere partida luze samarra jokatu dugu, tanto luzeak, piloteatuak, izan dituen. 2-2 egin dugu kasu honetan ere, baina balantza beste aldera desorekatu da oraingo honetan, Gemmak eta biok jarraian bigarren partida lortuz.

7.txandan honela jarri gara:

Frontisean: Irati-Rakel eta Gemma- ni

Errebotean: Saioa-Malen eta Ainara-Zuriñe

Aspaldiko partez daude aurreko gunean Irati eta Rakel, lau aldiz jarraian erreboteko gunean aritzea egokitu baitzaie. Partida hau niretzat lasaia izan da, pilota nahiko erritmo lasaian joz jardun dut eta eurek ere ez naute gehiegi mugiarazi. Hala esan du Iratik

berak une batean, “Uxue ez da mugitu ere egiten, bera dagoen lekura botatzen diogu pilota”.

Gu aurrean ari garen bitartean ohartu naiz atzeko laukotean aldaketa bat eman dela, Ines falta delako eta haren partez Saioa dabilelako saltsan beste emakumeekin batera paleta eskuan. Falta dena, ordea, ez dakit non dabilen, ez baitut inora ateratzen ikusi.

Partida honen amaieran ere gure aldera desorekatu da balantza eta, beraz, guri dagokigu leku berean jarraitzea (B.K. Nik lotsa puntu bat ere sentitzen dut, ez litzaidake axolako atzera joatea, egia esan).

8.txandaren unea heldu da. 10.48 dira eta honela gaude:

Frontisean: Ainara-Zuriñe eta Gemma- ni

Errebotean: Saioa-Malen eta Irati-Rakel

“Azkena izango da” bota digu Ainarak gure aldamenera iristean eta nik erlojuari begiratu diot, orduगतिक ari ote den, baina oraindik hamar minutu baditugu. Ondoren ulertu dut galdu egingo dugula esan nahi zigula horrekin, baina nire neuronak ere makalduta daude gaur eta denbora apur bat behar izan dut informazioa prozesatzeko.

Atzera begiratzean ikusi dut Ines komunera joan dela, eskaileak jaisten ari da, eta handik bueltan Saioak darraiela jokatzeko gunean. Bestea nikia aldatu eta nirekin hizketan hasi da frontoetik kanpora irten aurretik “gero seietan sarreran” esanez. Une horretan tantoa Ainara eta Zuriñek lortu dute, ni hizketan ari nintzelako eta ez dudalako pilotakada itzuli. Ainarak “Gemma eman ziezaiokeen, beraz, tantoa gurea” esan du irribarrez eta ni ados agertu naiz.

Ainara lasai ari da, kidea animatuz eta nahi bestetan sartzen utziz, gainera (B.K. Ederki egokitzen du bere joko-maila egoera ezberdinetara. Baloratu beharreko alderdia iruditzen zait niri hori, moldagarritasuna). Ni ere bai eta azkenean berriro ere irabazi eta atzera handik etorri direnak bidali ditugu. Badirudi aurrekoa gure eremu bihurtu dugula.

Ainara eta Saioa atzera joan direnean Irati eta Rakelekin egin dute topo berriz ere han eta gaur atzeko gunean trebatuko direla edo antzeko aipamenean bat egiten ari zirela iruditu zait. Hala ere, irribarrea dute ahoan eta jokoan gustura dabilzala dirudi.

9.txanda da eta honela kokatuta hastera goaz:

Frontisean: Saioa-Malen eta Gemma- ni

Errebotean: Ainara-Zuriñe eta Irati-Rakel

Saioa aurrean kokatu da, Malenek galdetu eta berak lekua hautatuta, eta ni ere bai. Guk ez dugu gaur kokapenik aldatu. Nekatuta nabil ni, larri oso, saio guztian bezalatsu, eta hankak berunezkoak baino astunago sentitzen ditut. Hala ere, erlojuari begiratu eta gutxi falta dela ohartzean nola edo hala eustea erabaki dut.

Azken partida hau parekatu samarra izan da, atzean zein aurrean pilota mugitzen saiatu gara, baina ez da aurrean entrenatzailea eta bion artean beste batzuetan besteko kolpe trukaketa eta lehiarik sortu, ziurrenik biok dakigulako zein den nire egoera eta abailduraren marrarik igaro ez dezadan. Azkenean nik galdu dut azken tantoa, txokora mozten saiaturiko pilota bat txapapera botata.

11.02 dira eta amaitu da saio praktikoa. Saioak denoi deitu digu eta lurrean eserita luzaketak egiten hasi naiz ni eta azkenean denok kontrakantxan eserita amaitu dugu, tertulian orain ere. Arratsaldeko finalerdia dute hizpide eta “zer ordutan da?” galdetu diot nik Ainarari. Zazpietan omen, beraz, “Hernanin izango naizenez lehenengoa bada buelta bat egingo dut” esan diet. Beste batzuek ere agertu dute azaltzeko asmoa eta nor noren alde ote dagoen hasi dira Malenekin erdi brometan, bera ez dela hernaniarra esanez. Zuriñek “nik bihotza erdibitua dut” esan du eta Malenek “oso ongi geratu zaizu” esan dio irribarrez. Praka zuriak ere izan dituzte hizpide, hala joateko oharra pasa omen zieten antolatzaileek, eta Gemmak ez omen dauzka. Zuriñek berak armairuan badituela batzuk eta nahi badu, bada ez bada ere, utziko dizkiola esan dio. Baiezkoan geratu dira eta, gainera, saiotik irten eta zuzenean jasotzekotan, 15.30ean bera lanean izango dela esan baitio aurrez Zuriñek non uztea nahi zuen galdetu dionean Gemmak.

11.10 dira eta kanporako bidea hartu dugu. Saioak esan du atzo XIV Orduko Martxan irtendakoak ikusten aritu zela arratsaldean eta inbidia puntu bat pasa zuela. Ikusi omen zituen hiruzpalau irteera bakarrik egindakoak tartean, baina 70 kilometro direla eta apur bat ibilita egotea komeni dela esan diot nik. Irati ere iritzi berekoa omen. Ainarak Goizuetako krosera agertu behar zela esan dio Saioari, 9 kilometro zirela eta.

Bagoaz pasilloetan aurrera eta eskaileretan behera, astea hasi dugula esanez. Niri “Inesekin beste egunen batean geratu behar zinen bestela” esan dit Ainarak eta “ez, ez, baina bihar geratuta berdin-berdin egongo nintzateke, lanez gainezka, beraz, gaur egin eta listo” esan diot. Iratik esan dit “niri semeak gaur astelehena dela esan diodanean berak ostirala izatea nahi zuela esan dit” eta nik erantzun diot “nik oporrak nahi nituzke ba, baina ezin da eta aupa”. Aldageletara iritsi gara eta Ainara bertan agurtu dugu, nik arratsaldera arte.

Malen, Zuriñe eta Gemma apur bat aurrerago doaz eta Rakel lehenago sartu da aldageletara. Beraz, ni eta Saioa ere kanpora bidean gara, azkenak gatoz.

Kiroldegiko sarrera

Malenek bikotea du zain sarrerako egonlekuan eta harekin elkartu gara. Beraz, Saioa, Malen, Asier, Irati eta bostok batera irten gara kanpora. Nik Saioa “bihar arte” esanez agurtu dut eta esan diot “agian beranduago iritsiko gara saiora Itsaso eta biok, zazpietan gaude geratuta elkarrizketarako”, bada ez bada ere, jakinaren gainean jarritz.

Irati, Malen, Asier eta laurok eskailerak igo ditugu eta gora batera joan, nekea hizpide hartuta. “Animo!” esan dit bakarren batek eta “beharko dugu” erantzunez agurtu ditut autobus geltoki parean. Nik liburutegirako bidea hartu dut 11.20an.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saioaren lehen zatia larunbateko kontuak gogoratu eta kontatzen joan zaigu. Irribarre zabalak ikusi ditut emakumeen aurpegietan eta nabari da gustura ibili zirela Emakumea Pilotari egunean. Egia esan, ni ere bai, baina lanerako txiparekin joan nintzen eta ezberdina da ikuspegia eta patxada egoera bera bizi izanagatik.

Aurreko eremuan pasa dugu bigarren zatia ia erabat eta beste kideren batzuk errebotean beraz. Une batean pentsatu dut lekuz aldatzea, baina ez naiz ausartu. Bidezkoa izan ote da guk eremu berean hainbeste denbora egitea? Zalantza horrekin geratu naiz ni eta jakin nahiko nuke emakumeek zer iritzi duten egoera zehatz horren inguruan, adibidez.

Ni nekeak lehertuta nabil, gihar batzuk gogortuta eta kexaka ere ari zaizkit tiraka, trapezioak, adibidez, baina uste dut gaur batek baino gehiagok zuela biharamuna. Batek asteburua kanpoan eman duelako eta besteren batek oraindik larunbatekoa errekuperatu ez duelako. Ikasturtea aurrera doala ere nabari liteke akaso? Aztertzen saiatu beharko nuke falta diren hiruzpalau saioetan.

Saioetan gustura dabilta emakumeak eta hizketan aritzeak ere indartzen du uste hori. Oharkabean igaro da ia hiru ordu laurdeneko tartea paletan hasterako. Giroa atsegina da eta taldekideen artean, denekin berdina ez izan arren, konfiantza eta adiskidetasun apur bat daudela nahiko ziur esan nezake.

Asteko lehen saioa joan da, baina egunari ordu asko geratzen zaizkio oraindik hara eta hona ibiltzeko. Izan ere, goiza liburutegian eman eta Usurbilera egingo dut eta handik berriro ere Hernanira. Agian inguru honetan kanpatu beharko dut beste pare bat astean, ez bainaiz inguru honetatik ia irten ere egiten. Eroaldi hau igaroko al da behintzat?!

Festaren oihartzunak

Astehenean lehertuta amaitu ondoren apur bat deskantsatuta hasi dut astearte, lo nahiko itxuran eginda behintzat, atsedenerako tarreak premiazkoak ditudala ederki asko nabaritzen dudan arren, bai gorputzean eta baita buru aldean ere. Hala ere, asteari ekin baino ez diogu egin, beraz, ea bigarren eguna zer tankeratan egiten dudan.

Ohi baino kasik ordu eta erdi lehenagotik bertan ibili ondoren egin dut gaur paleta saiorako bidea, aurrez bi kiderekin elkarrizketak egiteko hitzorduak lotuta nituelako. Gainera, etxetik korrika eta presaka irten naiz, lana bere horretan utzita, abiada hartu eta arratsaldean larunbateko egunaren erdia idazten amaitu aurretik. Erlojuari lotuta nabil aspaldion eta ez da nobedade beraz.

Saiora ere erlojuan 19.30 ikusi ondoren abiatu gara, ehun metro harago Itsasorekin elkarrizketa amaitu eta tabernaren kanpoaldean hizketan jardun ostean, mingainei eraginez.

Pilotaleku ataria

Oihane ia gurekin batera iritsi da frontoi sarrerara, beste aldetik, eta bertaratzean kantxan Saioa eta Gurutze gomazko pilota trinkoarekin ari direla ikusi dugu. Saioa bertan izatea espero genuen, zazpitan taberna aurretik pasatzean agurtu eta pilotan aritzera zihoala esan baitigu, baina gaur bost gaude puntu-puntuan bertan.

Itsasok eta biok erdibidean daukagun elkarrizketari eutsi diogu, tesia egiteari eta horrek suposatzen duenari buruz, diru-laguntza eta abarren gainean arituz, esperientziak partekatuz. Berak “ni pribilegiatua sentitzen naiz, soldata bat jasotzen nuen beste edozein enpresatan lanean aritu banintz bezala” esan dit eta “bai, hori eskertuko nuke nik ere” erantzun diot. Esperotakoaz aritu gara, antolaketa eta lan motaz eta esan dit

berari ia bi hilabete kostatu zaiola buelta eman eta lanean normal hastea berriz (B.K. Lasaigarri zait berekin gai honetaz hitz egitea). Ondoren Oihanerekin hasi gara hitz egiten, larunbateko Emakumea Pilotari Eguna zer moduz joan zen galdetu baitigu. Ondo joan zela esan diogu eta berak esan dit bakarren batekin elkartu zela eta zerbait entzuna dela festa egunaren inguruan aurretik ere.

Guk pilotaleku atarian jarraitzen dugu eta 19.35 inguruan Marian etorri da. Ohi bezala agurtu dugu elkar eta berriro ere larunbatekoaz bi hitz egin ditugu. Une batean Gurutzeki galdetu diot “zer, orain federatuen elkarrizketa egitea nahi al duzu?”, justu arratsaldeko lehen elkarrizketan berarekin arituko naizelako solasaldian eta irribarrez erantzun dit.

Pilotalekua

19.45 inguruan kantxara jaitsi eta Gurutze eta Saioarengana hurbildu gara kanpoko laurok. Bertan ari ziren bi kideek utzi diote gomazko pilotarekin eginiko jardunari dagoeneko eta borobilean jarri eta berriro ere hitz egiteari ekin diogu. Entrenatzailea izan da hizketaldiari ekin diona “berri on bat daukat, hiru urteren ondoren larunbatean partidua irabazi genuen”, irribarrea ahoan. Ildo horri heldu eta partiduen gainean hasi dira hizketan emakumeak, nik aldamenetik Itsaso xaxatuz “ez al zenuen inbidiarik pasa?” galdetuz. Irmo erantzun dit ezetz, lasai asko ibili zela kideei begira. Gurutzek esan du “donostiarren aurka guk galdu genuen, 6-2 irabazten joan eta bi huts tontoren ondoren tanto bakarreko aldeaz-edo galduz”. Nik orduan esan diet “usurbildarrei ere batengatik irabazi zenieten atzetik joan ondoren” eta baietz adierazi didate. Finaleko bikote zarautzarraren aipamena ere irten da, “nola korrika egiten zuen aurrelari hark, hezurra eta azala da” esan du bakarren batek eta “hori oso korrikalari ona da” esan diet nik (B.K. Beste bi taldeetakoei esan nien, baina hauei oraindik ez akaso. Ez naiz oroitzen). Zarauzko atzelariaren sasoia eta galtze txarra ere izan dituzte hizpide (B.K. Beste zenbaiten ahotan ere entzun dut iritzi hori) eta Saioak esan du “hernaniarrek agian beraiek galdu zuten partida une batean, arriskatu eta irten ez zitzairenean” eta “beno, baina zarautzarrei tantoa egitea oso zaila zen, han ez zegoen zulorik” ekarri diet gogora nik. Baietz onartu dit eta gaineratu du “5-6 gerturatu eta 6-6 jartzea lortu izan balute zarautzarren atzelaria urduritu eta agian pilotakada pare batean huts egingo zuen. Nik ez nuen zarautzarrek irabazterik nahi” esan du eta nik “nik apustua galdu nuen, Hernaniren alde jokatuta. Esan nien buruarekin Zarautz hautatuko nukeela, baina bihotzarekin Hernani”.

Partiduak aztertu ondoren larunbateko bazkalosteko dantza kontua atera da eta Saioak zizurkildarrei galdetu die “zuek ba al zeundeten *Paquito Chokolateron*?” eta ezetz esan dute, ordurako alde eginda zeudela. Orduan kontatu du Tolosako adinekoena, 75 urte ingurukoa, aritu zela gidaritza lanean abesti horretan eta eserita ibili zela besteak bezala arraunean lurrian jarrita. Nik erantsi dut “bai, gu begira aritu ginen eta esan genuen ea altxatuko ote zen hura lurretik”. Hori entzunda “zer arraroa, Uxue begira” esan du bakarren batek eta Itsasok “bai, baina azkeneko bietan Uxue ere aritu zen dantzan” bota du irribarretsua. Nik baietz onartu diet, denok korro handi batean jarrita hizketan jardun genuenean izan zela hori. Itsasok ondoren Saioak emakume berarekin eginiko dantzaldia ekarri du gogora eta Itsaso eta biok ezin izan diogu barreari eutsi. Hori ere ez omen zuten ikusi zizurkildarrek. Orduan Itsasok azaldu die gutxi gorabeherako egoera eta Saioak “hor lotsa pasa nuen, ezin erritmoa eramane eta denak niri begira” aitortu digu. Gure barrea apur bat lasaitu da, baina aurrez Gurutzek “a zer pare, gaiztoak dira hauek!” esan du Itsaso eta biok algaraka ikusi gaituenean. “Uxueri sari bat ere eman

zioten” kontatzen hasi da Itsaso gero, saltsa jarri nahian, eta nik “bai, zuk kontatu” esan diot. Halako gauzak ez zaizkidala asko gustatzen esan diet, “disimuluan pasatzea askoz nahiago dut nik” aitortuz.

19.50 pasatxoan Onintza iritsi da eta Gurutzek “txutxumutxuak Onintza” esan dio zertaz ari ginen jakin zezan. Honek irribarre egin du eta korroan jarri da besteokin batera. Orduan Saioa hasi da kontatzen gustura joan zela festatik etxera, lagunekin parranda apur bat egiteko asmoan, baina lagunei deika hasi zela eta bata ez dakit zer eta besteak badakit zer zuela eta azkenean dutxatu eta etxean geratu zela parrandara irten gabe, “azkenean Eurovisión ikusten aritu nintzen” esan du. “Hori askoz okerragoa da” esan du Gurutzek eta “gaueko hamaiketan ez nintzen ohera joango larunbat batean” esan dio Saioak eta “azkenean igandean Txindokira joan nintzen” esanez amaitu du. Hori entzunda Itsasok “zer esan zenidan niri, zahartzen ari garela? Ba, zu ere bidean zoaz” bota dio irribarrez. “Elkarrekin irten behar zenuten parrandan” esan die bakarren batek ondoren, besteak ere etxean geratu zela esan baitu.

Jan kontua ere atera da, “pena janari asko sobratu zela” esaten hasi baita Gurutze. Ondorioztatu dute bi aukera zeudela, pintxoaren aukera kentzea edo bestela pintxoarena utzi eta bazkaritan paella eta oilaskoa jarri ordez oilaskorik ez jartzea. “Guk geneukan erreferentzia Irurakoa zen eta hangoarekiko aldaketa bakarra pasta entsalada kendu eta arroza jartzea izan zen” azaldu digu Saioak. Janaria bakarren batek eraman zuela esan dute eta aprobeztatu zela. “Halakoetan ez da erraza asmatzen” esan dut nik eta iritzi bera agertu dute beste zenbaitek ere. Hala ere, jana oso goxoa zegoela esan dute, postrea ere oso ona eta “aukeran edaria epel samarra” esan du Gurutzek.

Oihane ez zen larunbateko festan izan, senidetze eguna zuten eurek El Salvadorrekoekin eta ea zer moduz ibili ziren galdetu diogu “ondo, bazkaltzen 40 bat elkartu ginen eta goizean jende pixka bat bildu zen” esan du. Asteartera arte omen daude hemen eta eguraldi ona tokatu zaiela esanez gustura dirudi.

Beroketa


Emakumea Pilotari Egunari errepassoa ematen ari garenez, 20.00 jotzear dira, Saioak “korrikarik ez dugu egingo eta pixka bat luzatu behintzat” esan digu. Giltzadurak mugitzen hasi garenean oroitu naiz autoan ditudala hiru paleta heldulekuan zinta jartzeko eta “orain ekarriko al dizkizut?” galdetu diot Saioari, honek “bai, kasik nahiago” erantzunez. Beraz, giltza hartu eta paletak ekarri ondoren gehitu naiz berriro ere taldekideengana, luzaketa pare bat eginez.

Lau teknikariek elkarren artean jokaturiko partida ere izan dute hizpide eta Saioak paleta erditik hautsi zuela ekarri dugu gogora. Onintzak une horrekin ez zela konturatu esan du eta Gurutzek paleta osoak alde egin ziola pentsatu zuela hasieran, baina ondoren erdia eskuan zuela ikusi zuela. Gustura aritu zirela esan du Saioak eta nik onartu diet inbidia pasa nuela, baina teknikariarena pasatako fase bat dela eta ez zegokidala han parte hartzea. Alazneren saltsero izaera eta sakea ateratzera korrikan joaten zela ere aipatu dituzte. Eiderrek asko huts egin zuela ere esan dute eta baita Lide nola mugitzen zen ere. Saioari “guk esan genizun irabazi egingo zenuela” esaten amaitu dute. Gustura ari dira festa egunean bizitakoak gogoratzen denen artean, irribarreak partekatuz hitzekin batera.

Frontoian beste apopilo batzuk ere baditugu gaur, errebotetik gertu, kontrakantxako marraren aldamenean, lasto altxatzeko entrenamendua egiten ari direlako hiru gizonezko. Hauek ikustean Itsasok “hori bada gizonezkoen kirola izanagatik probatuko nukeena” esan dit hasieran ikusi dituenen eta nik “sokarekin eskuak erretzeak emango lidake beldurra niri” erantzun diot.

Ariketak

1. Txokotan, 3 bizitzarekin. Tantoa bi paretaz eginez gero 3 bizitza irabaziko dira. Pilota jo ondoren 5eko marra zapaldu behar da.



Azalpena entzun orduko Gurutzek esan du “horrek esan nahi du bai ala bai bi paretak botatzen saiatu behar dugula, ala?” eta nik irribarre egin dut aldamenetik. Entrenatzaileak nik ekarririko paletak hartu eta heldulekuetan zintak jartzeari ekin dio orduan, niri mesede handi bat eginez (B.K. Ez naiz oso ongi moldatzen zinta hori jartzeko eta nahiago izan dut usurbildarrenak bermez jarrita eramatea biharko saiora).

20.10ean, saltsan elkarri tantoak egin nahian gabiltzala, ea argirik behar ote genuen esan du Saioak eta momentuz ezetz esan arren ordubeteko iraupena izaten duenez piztea erabaki du, bederatzia aldera ilunxeago egongo dela ondorioztatuta.

Txokotan hasi gara sei kideok, erritmo lasaian eta tarteka pilotakada bizixegoren bat ere joz (B.K. Gaur Pilik huts egin digu, eta Elik, baina honena bagenekien, oraindik zuntz hausturatik sendatu gabe dagoelako). Nik horma bikoren bat sartu dut eta Gurutzeri egin diot tantoa horietako batean eta honek “ni gabe geratu naiz eta Uxuek bizitza bat emango dit” esan du, nik “bale, tori” erantzunez. Tarteka gaiztakeriaren bat edo beste egin dut nik, baina eurek ere saiatzen dira tantoak lortzen. Bizitzak galdu arren inor ez da kanporatu eta azkenerako kontua galduta gabiltza, kopuruak alde batera utzita.

Saioak kontrakantxan jarraitu du 20.20 ingurura arte lanean fin-fin eta zintak jartzen amaitu duenean kontrakantxako marrara hurbildu da, gure jardunari begira jarritz. Gurutzek huts egin du jokoan genbiltzala eta kanporatzeko esan dio entrenatzaileak, ondoren huts egindako denak ere kaleratu eta modu horretan bikoteak osatzen joan baita. Gurutze, Itsaso, Onintza eta Oihane kaleratzean joko amaitutzat eman du, bikoteak osatuz, bata bestearen atzetik kanporatuak elkartuta: Gurutze eta Itsaso, Onintza eta Oihane eta Marian eta ni. Partidei ekingo diegula jakinarazi digu eta jarduera aldatzera goaz beraz.

2. Frontisean 2:2 partidak. Tantoa horma bikoz lortuz gero +3. 5'ko iraupena izango dute eta bikote irabazlea bertan geratuko da eta galtzaileak atzeko gunera joango dira.

3. Erreboteko gunean 1:1 piloteoa.

Lehenengo partidari Itsaso-Gurutze eta Onintza-Oihane hasi dira aurrean elkarren aurka. Atzean, berriz, Marian eta biok. Zelaia 8ra artekoa dela esan digu Saioak guregana hurbilduta eta atzean kontrakantxako marrara artekoa punpa eremua, baina, mutilak lasto altxatzen dabilta oraindik ere eta beldur apur bat ematen du pilota atzeratzen saiatzeak.

Aurreko partida hasi eta berehala gure ingururaino hotsen bat zetorrela ohartu naiz, zehar begiratuz zertan ote dabilta asmatzeari ekinez. Ohartu naiz Saioari horma bikoia zeri deitzen zaion galdezka ari direla, honek erantzunez lehenengo ezker horma jo behar duela eta gero frontisa. Iruditu zait Onintzak alderantziz, lehenengo frontisa eta ondoren ezker horma, lortu duela tanto bat eta hortik sortu zaiela zalantza. Honen ondoren geure eremuan eta pilotero lasaian zentratuta aritu naiz, erdi isilik, tarteka atzera begiratuz, lasto altxatzaileen erreferentzia hartuz, eta Mariani “libre” esanez. Unetxo batean hizketaldi labur bat izan dugu nik “pilota ederki moztu duzu” esan baitiot ezkeraldera txapatik gertu nola jotzen duen ikusita. Berak, berriz, “zuk uzten didazulako” erantzun dit eta irribarrez erantzun diot nik horregatik bakarrik ez dela.

Erreboteko gunean ez dakit ez ote duen entrenatzaileak partida egiteko esan, baina gu pilotakadak elkartrukatu jardun gara eta gainerakoak ere antzera arituko ote diren errezeloa daukat saioen joanean nola ibili garen ikusita (B.K. Hori gero ziurtatuko dut, ordea).

Aurretik atzera Gurutze eta Itsaso etorri zaizkigu eta “bukatu al duzue?” galderari baiezkoarekin erantzun diotenez gu aurreko eremura mugitu gara, binakako partidari ekiteko pronto.

Bigarren partidarako Oihane eta Marian jarri dira atzean eta Onintza eta biok aurrelari postuetan eta hasi egin gara, aurkariak lehenengo postuak aldatu ondoren. Onintzak pilota moztu du txokoa batez ere eta lehen bi tantoak eurek lortu dituzte. Hortik aurrera nik egin ditut beste tanto batzuk, gaizakeriaz baliatuz, Oihanek galdu ditu beste pare bat eta guk amaitu dugu markagailuan aurretik. Beraz, Onintza eta Oihaneri dagokie atzeko gunera joatea.

Aurreko eremuko hirugarren partidari Gurutze eta Itsasoren aurka jardungo gara. Kasu honetan ere lehenengo postu berak mantentzea erabaki dugu guk eta aurkarietan Itsaso atzelari eta Gurutze aurrelari jarri dira. Gurutzek “ea zer egiten digun honek” esan du irribarrez hasi aurretik eta ondoren ekin diogu partidutxoari. 1-1 hasi bagara ere Itsasok horma biko bat egin du, 4-1 jarri dira aurretik gure aurkariak eta bi besoak gora jasota ospatzen aritu da. “Gaur pozik joango zara etxera” esan diogu eta baietz erantzun du berak. Denok hasi gara irribarrez. Tanto horren ondoren Gurutzek “kontuz orain, ea zer egiten duen honek” bota du niri erreferentzia eginez eta irribarretsu erantzun diot nik. Tanto horretan bertan horma bikoia egin dut eta Gurutzek pare-parean eskura etorritako pilota ez du bueltatu. Beraz, 4-4 jarri gara. Hori ikusita “nik zu banintz errieta egingo nioke” esan dio entrenatzaileak Itsasori eta barre txikia irten zaio honi ere. Partidari aurrera jarraitu dugu eta estu joan da tantoen dantza. 5-5 berdindu dugu eta azken tantoa guk lortu dugu, Marian ere ederki ari delako (B.K. Ez du asko arriskatzen eta ez da airez sartzen, baina bere mailan jarraitasuna mantentzeko gai bada).

Laugarren partidarako atzera joan dira berriro ere Gurutze eta Itsaso eta gu “aio” batekin agurtu gaituenean “ia bederatziak al dira?” galdetu du atzeko gunetik iritsi berri

den Oihanek. Ezetz erantzun dio Gurutzek, atzera zihoazelako ari dela agurtzen. Onintza eta Oihanerekin aritzeko postuak aldatu ditugu guk eta Marian aurrean eta ni atzean jarri. Hasi eta nahiko azkar Onintzak pilota txapatik gora moztuta tantoak lortu nahian dihardu eta “moldatzen da mozten” esan diot aldamenetik adi-adi begiratu daukagun entrenatzaileari. Honek baietz esan dit eta gaur, gainera, ohi baino gehiago ari zaizkiola irteten. Oihanek kale batzuk egin ditu, Onintzak ere bai bakarren bat eta Marianek lortu ditu tanto ederrak horma bikoak itzuliz txokoan luze moztuta. Horren ondoren “Marian hemen ari da isil-isilik” esan du entrenatzaileak eta “isilik eta lotsatuta” erantzun dio nire bikotekideak bere tantoa nabarmendu duela ohartuta. Azkenean guk irabazi dugu berriro ere partida, hirugarrena jarraian eta atzeko eremura jotzeko keinua egin badugu ere “morekoak atzera” esan die Saioak.

Ohartu gabe nengoen ni ordura arte, baina bikoteak antzeko koloreekin daude gaur osatuta, niki berdea soinean daude Gurutze eta Itsaso, morea soinean Oihane eta Onintza eta ezberdina daukagun bakarrak gu gara, Marian eta ni neu. “Ikusi nahi gabe nola egin ditudan bikoteak” esan du entrenatzaileak. Hori ikusita aipamenen bat egin du broma giroan Gurutzek, aurreko gunera etorriak baitira binaka gure aurka aritzeko.

Atzeko eremua orain guztiz libre dago ia, lasto altxatzaileek euren lanak amaitu eta hanka egin dutelako jadanik, traste guztiak jasotzen amaitu berritan.

Binakako bosgarren partidarako Gurutze eta Itsasorekin gaude berriro ere aurreko eremuan. Atzelari daude Itsaso eta Marian eta aurrelari postuetan, aldiz, Gurutze eta biok. Partidan hasi eta partidako une batean Itsasok pilota bat jotzerako metro asko egiten dituela pentsatzen ari nintzen bere mugimenduei erreparatuta, aurkariaren atzetik pasa eta berriro ere bere lehengo lekua hartuz, pilotakada jasotzeko arriskuari iskin egin asmoz. Bada entrenatzailea ere horretan ariko zen nonbait eta “Itsaso, zenbat metro egiten dituzun korrika, errotondari bueltarik ez eman!” esan dio. Nik “hori bera pentsatzen ari nintzen” esan diet eta nola mugitzen den kontatu diogu, barrez jarriz kantxa barruko laurok eta entrenatzailea bera. Horren ondoren jokatzeko jarraitu dugu erlojuaren pi-pi-piak denbora igaro dela adierazi arte.

Marian gure partidu amaiera aldera bakarren bati kasu egiten ari zela ohartu gara eta nor diren galdetuta bila semea eta alaba etorri zaizkiola esan digu, kotxerik gabe dagoela eta. “Orain etorriko dira broma eta adar jotzeak” bota du eta seme-alabak ezkutatu egin dira. Saioak “guk ezagutu nahi genituzke ba” bota dio erdi broman eta atzetik aurrera etorri dira Oihane eta Onintza. Berriro ere seiok entrenatzailearen jiran gaude, zer entzun eta esango.

21.01 dira, baina “beste partidu bat jokatu nahi al duzue?” galdetu die entrenatzaileak kideei, gogotsu ikusita. “Onintza makina bat da eta pentsatzen dut berak baietz” erantzun du Oihanek eta orduan 6ra jokatu dute azken partida beste bi bikoteek, “zuen arteko partida ikusi nahi dut” argudiatu baitu entrenatzaileak. Marian eta ni kontrakantxatik begira geratu gara, entrenatzailearen aldamenean.

Hasiera parekatua izan du norgehiagokak, baina erdi parean desorekatu eta azkenean 6-3 edo antzeko emaitzaren batekin amaitu dute, 21.05 inguruan

Gorrituta daude kideak, Oihane batez ere eta ni ez naizela gorritzen esan didate, saioetan behintzat ezetz. Nik “ez, ni gorritzen naiz egur izugarria hartuz gero, baina ez

pentsa korrikan askotan gorritzen naizenik” eta Itsasok “eskerrak ordubete bakarrik egin dugun” esan du orduan, “aspaldiko partez izerdituta noa” erantsiz ondoren. Onintzak ere gaur gustura dagoela esan du. Luzaketak egiten ari gara bitartean kontrakantxan, geure kabuz, hitz egiten ari garen bitartean.

Marianek berehala martxa egin du pilotalekutik eta beste bostok bi minutu geroago bide bera hartu dugu. Teknikarien partidari begira larunbatean kokapenak aintzat hartzen saiatu zirela esan du Gurutzek eta kantxan jarrita agertu du eurek nola jartzen diren eta besteak nola mugitu ziren, “guk hemen jarri eta sustraiak botatzen ditugu, Uxuek zer alukeria egingo digun pentsatuz” erantsiz kantxan aurrean zabalean jarrita.

Horren ondoren denok trasteak jaso eta etxerako bideak hartu ditugu, beste saio bat ere joan baitzaigu. Oihane eta Itsaso ere berehala desagertu dira eta baita Gurutze ere.

Frontoi ataria

Saioa eta biok irten gara azkenak gaur, “ea saioetan lehenago hasten garen” botaz honek aldamenetik, gaur eta atzo hizketaldiak luzatu egin direlako. Hala ere, “normala da larunbatekoaz hitz egitea” esan diot nik eta “bai, aste honetan emakumeak ere ezberdin sumatzen ditut nik” esan du berak. Horren ondoren “aste honetan gauza ezberdinak arituko zara idazten” ere esan dit niri eta “beno, bai” lehor samar batekin erantzun diot nik, ezer esateko beldurrez.

Elkar datorren astera arte agurtu ostean kotxera joan eta grabagailua eta motorra ia aldi berean martxan jarri orduko abiatu naiz etxera, neke pittin batekin, baina bezperan baino dezente osoago.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Nahiko lasai aritu naiz saioaren joanean ni eta emakumeak ere beste zenbaitetan baino patxadatsuago ikusi ote ditudan esango nuke. Baliteke ikasturte amaierako festaren ondorena izateak eragin izana irudipen hori, hala ere.

Larunbateko egun pasak itzal handia izan du gaurko saioan ere, agian denok elkarrekin horren gainean aurrez hitz egin gabeak garelako. Emakumeak gustura aritu dira bertako gorabeherak kontatuz, irribarrea ahoan, atzo bezalaxe, eta nabarmena da oroitzapen goxoa geratu zaiela.

Bihar asteko azken saioa dut, Usurbilen, bertako ikastaroko azkena ere bai, eta pena puntu bat nabari dut gaurtik, baina seinale txarrena ere ez da izango, beraz, moldatuko naiz azken minutura arte saltsan aritu eta gozatzeko. Hala bedi!

“Amaiera da tristea”

Halako zerbait dioen trikiti pieza bat dakarkit burura gaur iluntzeko egoerak. Izan ere, hainbeste joan-etorri eta pilotakadaren ondoren geltoki honetan nire azken geldialdi ofiziala gaurkoa izango dut. *2012ko maiatzak 30* betiko geratuko da nire oroimenean, *Usurbilgo paleta ikastaroko azken eguna* izenaren pean. Bai, kito! Baina ez, azken egunak pozak partekatzekoa behar du, barruan pena izugarria sentitu arren. Gainera,

badut sorpresa bat emakumeei nire esker ona agertzeko, beraz, ea ongi amaitzen den ongi hasi zena. Merezi dut eta merezi dugu, bai horixe!

Azken saiorako bidea sentipen kontrajarriekin egin dut, bai kotxeko etorrerako bidaia eta baita aparkalekutik frontoirakoa ere, bertso bat auskalo zenbat aldiz kantatuz. Berezia da gaurkoa eta niri ez zaizkit amaitzen direlako bereziak diren uneak gustatzen, edo ez gehiegi, bederen. Ez naiz agur zalea, ederki dakidan arren hau “gero arte” bat izan dadin saiatuko naizela.

Sarrera

18.45ean irten naiz etxetik, larri samar eta erlojuari lotuta pastak erosi ondoren, eta motxilan nireaz gain beste hiru paleta dauzkadala, larunbatean heldulekuan zinta jartzeko kideei hartu nizkienak. Karpeta batean amaieran banatzeko bertsoak ere baditut, beraz, nahikoa traste ekarri dut nirekin batera.

19.30ean iritsi naiz plazara eta haur pila bat jolasean eta ia beste hainbeste guraso hizketan ikusi ditut. Tartean urrunean motxila txiki bat bizkarrean kaleko arropa jantzita beste aldera doan kide bat ere bai, Aitziber. Pentsatu dut etxera joan eta laster agertuko dela frontoira. Gaur, gainera, ez dago harmailarik kontrakantxan eta askoz ere handiagoa dirudi pilotalekuak. Beraz, harmailetan beharrean petrilean eseri naiz besteak agertzeko zain.

Pilotalekua

Aurrean dozena bat haur dabilta eskupilotan, denak soinean alkandora edo niki zuria eta praka ilun edo bakeroak dituztela. Atzerago gazteago batzuk dabilta futboleko baloiari ostikoka eta beteta dago erabat. Atzeko kalean ere haurrak eta gurasoak dabilta eta Izaskun ikusi dut tartean guraso batekin hitz egiten.

Petrilean eserita motxila bizkarretik kendu dut eta hantxe geratu naiz taldeko beste norbait agertzeko zain, umeen jolasei begira, nire pentsamenduetan murgilduta. Hala nengoela atzetik bakarren batek kasu egin dit eta Jaione dela ikusi dut. “Ez zaitut ikusi, hor geunden” esan dit lehenengo, gizon eta haur batzuk seinalatuz eta ondoren nire atzean eseri da, kaleko petrilean. Haurrek ikastolako kantaldia izan dutela esan dit, bukatu berria dela, eta horregatik daudela denak berdín jantzita. Hizketan hasi garenean pilota elkarteko arduraduna ere hurbildu da alaba eta guzti eta nola jantzita dagoen ikusita “zu ere kontzertuan izan al zara?” galdetu diot adarra jo asmoz, niki txuri bat eta praka urdin ilunak dituelako soinean jantzita. Jaioneri alaba etorri zaio eta amaren magalean eserita jarri da. Nik “bai ederki amarekin horrela jarrita” esan diot irribarrez eta bere izen abizenak, biak, esan dizkit haurrak. Aitziber arropaz aldatzera joan dela esan dit ondoren eta partiduez galdetu diot nik berak “Haizea atzo hemen aritu zen partidua jokatzén” esan didala probestuz. Datorren asteazkenean hasiko dituztela esan dit eta Aizpea azaltzea espero duela gaur nola jokatu erabakitzeko, eurak hirukotean daudelako izena emanda. Hala ari ginela Aitziber azaldu da, Emakumea Pilotariko nikia jantzita, bi CD eskuetan dakartzala. Larunbateko Emakumea Pilotari Eguneako argazkiak dakartza eskuetan eta eskerrak eman dizkiogu Jaionek eta biok bana jasotzean. Orduan gogoratu naiz bere paleta nire motxilan dagoela eta bertatik ateraz “nik paletak ekarri ditut” esan diot, berea emanez. Haizea ere iritsi da ordurako eta Aitziberrek “ez al ginen geratu aurrekoan denok nikiarekin etortzeko argazkia ateratzeko?” galdetu dio eta “nik

ez nekien ezer, ez nintzen autobusean itzuli, aizue” esan diet. Jaionek esan du berari ahaztu egin zaiola. Haizeak esan digu “buruko minez nator, egun osoa ordenagailu aurrean pasa ondoren, bihar entregatu behar dugu azken lana” eta “laster oporrak, eta, noiz arte?” galdetu diot nik aldamenetik irribarrez eta “mugagabeak” erantzun dit. Aurretik Jaioneri galdetu diot ea ondo bukatu zuten larunbatean eta baietz erantzun dit, azkenean trenez itzuli zirela Errekaldetik, lineako autobusa alde egina zelako. Idoia ere berehala iritsi da eta honek ere etxeoak agurtu ondoren guregana jo du.

Euren haur, senar edo/eta bikote, denak inguruan dabilta gaur eta horren inguruan Jaionek esan dit “bai, plana egin dute zerbait hartuz guk zenbat ikasi dugun begira aritzeko albotik”, irribarrez. Izaskun ere hurreratu zaigu taldera, semeak frontoian jolasean ari direla haien zain dagoela probestuz, eta baita Ester ere. Hau zerbait galdetzera etorri da Haizearena eta afarira etortzeko prest ote dauden galdetu die. Biek baieztoko erantzuna eman dute eta ea datarik zehaztu zuten galdetu diet nik. Esan didate larunbatean saiatu zirela, baina asteburuetan ezinezkoa dela eta, beraz, astean zehar egitea izango dela onena. Partida egunetan berandu egingo zaiela esan dute eta agian osteguna egun ona izan daitekeela esan dute. Emakumeen familia-kide asko inguruan ditugula esan dudanez Haizeak “aste honetan denen familiak ari naiz ezagutzen, larunbatean, astelehenean, atzo, gaur, ...” esan dit irribarrez eta emakumeek “hau da nire zaharrena”, “hori nirea da” eta halako batzuk esan dizkirate urrundik bada ere aurkezpenak eginez. Aitziberren hiru semeak, Izaskunen seme bikiak, Jaioneren seme-alabak eta Idoiaren bi semeak behintzat bertan dabilta, euren bikote edo senarrekin batera, frontoiaren aldameneko petrilaren inguruan. Aizpea ere iritsi da, beraz, bat gehiago gara. Aspaldi etorri gabea da eta “aspaldiko!” esanez egin diote ongi-etorria pare batek. Karmele ez dela etorriko badakigu, lan-bilera bat zeukala jakinarazi baitzigun aurreko astean.

Atzo Haizearen paletako partida ikusten aritu zirela esan dute Idoia eta Jaionek eta erraz irabazi omen zuten. “25-10” esan du Haizeak eta “ez nuen uste hainbesteko alde atera zenutenik” esan du Idoiak, aurkarietako bat moldatzen dela argudiatuz. Gainera, barre txikiarekin “atzo Haizeak bota zituen txapapera pilota batzuk” esan du. Entrenatzailea Zubietan berak entrenatzen dituen neska gazteekin ari da Usurbilgo Pala Txapelketan parte hartzen, gomazko pilota trinkoarekin ari direnen artean.

Idoiak esan digu astelehenean Kirol Patronatuko gerentearekin topo egin zuela kiroldegian eta honek ikastaroaz ea ez ote zaien luzea egin galdetu ziola, ez ote diren aspertu, eta kideak ezetz erantzun ziola argitu digu, oso ondo pasatu dutela eta gustura aritu direla esan omen zion. Entrenatzaileak “nitaz behintzat ondo hitz egingo zenion” esan du eta noski baietz erantzun dio kideak.

Haizearekin sei gaude saiorako prest: Idoia, Aitziber, Aizpea, Jaione eta ni. Hori ikusita Haizeak “zerbaitetan hasi beharko gara, ala?” esan du eta Izaskunek “bai, bai, horrela umeak ere etxera bidaliko dituzue” esan du, frontoiak lehen bezain beteta jarraitzen duelako.

Beroketa

Korroan jarri gara eta zerbaitetan hasi gara, orkatiletatik hasi eta giltzadurak mugituz. Jaioneren alaba erdi negarrez hasi da eta aitarengana joan, amak saioari ekiteko. Mugimenduak egin bitartean “zer moduz larunbatean?” galdetu diet kideei eta “trago

bat, beste trago bat eta azkenean bokadiloa jenez bukatu genuen” erantzun dit Jaionek. Aitziberrek alde egin omen zuen eta Estitxu, Argia, Karmele, Idoia, Haizea eta seiak geratu omen ziren azkenerako elkarrekin afaltzeko. Irribarretsu ari dira kontatzen eta egunaz pozik oroitzen direla nabari da.

Besoak ere mugitu ditugu eta luzaketa pare bat egin ondoren “korrika pixka bat egin beharko dugu” esan du Haizeak. Oraindik eskupilotan ari dira mutilak aurrean eta Aizpea eta biok ekin diogu taldearen buruan, haien aldamenetik pasatzean “gu ez jo” esanez nik. Atzera begiratu eta ohartu gara ez datorrela inor eta “honek zer esan du, gu hasteko?” esan diot irribarrez Aizpeari. Gugandik metro dezentera datoz Aitziber eta Haizea, hizketan, eta Idoia semearekin hizketan ari da oraindik. Jaione, berriz, komunetik buelta emanda gehitu zaigu taldera. Korrikan hiruzpalau buelta eman ditugu eta bigarrenean aurrean eskuz ari direnei “zuek ez al daukazue etxerik bertara joateko?” esan diet eta “bai, baina gogorik ez” edo antzeko zerbait erantzun didate.

Korrika saioa amaitu dugunean haur gutxiago dabil frontoian eta inguruko petrila ere libreago dago, nahiz eta bertan dabiltzan kideen etxeko gehienak, bai lehen aipatutakoak behintzat. Haizeak azken eguna dela eta “zer egingo ditugu, partiduak?” galdetu die emakumeei. Hauek baietz erantzun dute eta Aitziberrek egin ditu bikoteak, “txapelketan zuek elkarrekin zarete, gu ere bai eta zuek bestea” esanez. Beraz, gaur hala arituko gara: Aizpea eta Jaione, Aitziber eta Idoia eta Haizea eta ni neu.


Poltsatik pilotak banatzen hasi da entrenatzailea binaka jarri eta ezker hormaren aurka pilotea dezagun. Aitziber eta Idoiak bi dituzte eta bat niri eman dit lehenak. Jaionek eta Aizpeak hartu dute frontisetik urrunen lekua, erdian Idoia eta Aitziber hasi dira eta frontisetik hurbilen Haizea eta ni neu. Oraindik eskuz ari dira mutilen batzuk eta “zer, guri tokatzen al zaigu umeak bidaltzea?” galdetu diot hurbilean dudan Aitziberri. Bakarra gelditzen da ia eta “hau nik pixka bat ezagutzen dut” esan du, bere bigarren semea baita. Hasi orduko aurrealdean hiru goxoki poltsa huts ikusi ditut eta kantxa garbitzen aritu naiz, oinarekin kontrakantxara eramanez, arriskua urrunduz. Flash hondarren bat ere bazegoen lurrean eta euren eremuko garbitzen hasi da Jaione “hau nazka!” esan bitartean.

Ezker hormaren aurka piloteatuz tartetxo bat egin dugu eta ni Haizearekin hizketan aritu naiz, lasai-lasai, airez jotako eta punpa ondorengo kolpeak elkartrukatuz. “Astelheanean gomazkoarekin hasi nintzenean kosta zitzaidan pilotara jartzea” esanez hasi zait eta “ez al duzu Zubietakoekin jarduten?” galdetu diot. “Ez, askotan ez” esan dit eta hizketan jarraitu dugu nahikoa denboran aritu garela erabaki dugun arte.

Txapelketatxoa

Haizeak emakumeei dei egin die eta 5. koadroaren inguruan bildu gara kontrakantxan. “Zer, bi biren aurkako partidak egingo al ditugu?” galdetu du entrenatzaileak eta “bale” erantzun diote kideek. Nik “zer, nik Haizearekin osatuko al dut bikotea? Zer ondo!” galdetu diet adarra jo eta saltsa jarri asmoz eta “bai, baina zuek ezkerrez-edo aritu beharko duzue” erantzun dute pare batek. Tratua egin ondoren zenbatera jokatu erabakitzeko unea da eta 12, 6 eta 8 aipatu ondoren azken kopurua hautatu dugu.

1. Frontisean 2:2 partidak, 8 tantora.



Denok denon aurka jokatu dugu, ligaxka sisteman, “galtzen duenak tragoa ordainduko du” adostuz. Orduan oroitu naiz Aitziberri tragoa zor diogula bizpahiruk, Txapelketa Herrikoiko txapeldunak nor izango ziren asmatu zuen bakarria izan zelako.

Lehenak jokatzen Idoia-Aitziber eta Aizpea-Jaione izan dira, entrenatzailea eta biok kontrakantxan zutik geratuz besteei begira. Markagailu eta epaile lanak egingo ditugu lehen txandan guk, beraz.

Partidari ekin eta alaba hurbildu zaio Jaioneri kontrakantxara eta honek senarrari esan dio alabaren kargu bera egiteko. Honek hartu du alaba berekin eta kantxara begira geratu dira ikusleak, haurrek zenbaitetan “aupa, Aitziber!” edo “aupa, ama!” esanez. Erabat hasi aurretik, ordea, Aizpeak kokapenen inguruan galdetu du eta Haizea eta bion artean saiatu gara zabala eta erdiko gunea dagozkiela beraiei azaltzen, baina txandaka ibili behar direla sartu-irtenean aurkako atzelaria jotzen ari denean sartuz eta kidea ari denean zabalean eskuinera kokatuz.

Azalpenen ostean neurketa martxan jarri eta serio demonio hasi dira jo eta ke lau emakumeak, elkarri ezer barkatu eta oparitzeko asmorik gabe. Oso tanto piloteatu eta luzeak izan dira lehen biak, 1-1 doaz, eta partidak 6ra izatea erabaki dugu Haizea eta bion artean, lehenengo “hemen inork ez du galdu nahi” ondorioztatu eta kideei ere jakinaraziz markagailuko aldaketak. Tarteka “tantoa egin behar da” botaz jardun naiz ni aldamenetik irribarrez, arriskatzeko asmo handirik gabe ari direla iritzita. 2-1, 3-3 eta 5-3 joan ostean 6-4 irabazi dute Jaionek eta Aizpeak. Kanpora etorri dira Aitziber eta Idoia eta petrilean eseri dira, senarren eta haurren inguruan.

Bigarren partida Aizpea-Jaione eta Haizea-ni bikoteon artean jokatu da, azken biok ezkerrez bakarrik jo dezakegula. Hori ikusita eta inguruan dudanez Jaioneri “pentsatu pixka bat nola jokatzea komeni zaizuen, guk eskuinez ezin dugu jo, saiatu aprobeztatzen” esan diot hasi aurretik eta jokatzeari ekin diogu. Lehen bi tantoetan behartu gaitu pilota eskuinera botata eta ortopediko samar jotako kolperen bat izan dugu guk, huts egiteren bat bezala. Ederki ari gara pasatzen, barreak eta irribarreak partekatuz gu ezkerrez bakarrik ari garela baliatuz. Haizeak ez du lortu sake bat ateratzea bigarren saiakeran ere eta “bi sake bakarrik daude” esanez pilota Aizpeari eman dio Jaionek barrez ari den bitartean. Handik aurrerako sakerik gehienak nik atera ditut. Nik ere egin dut barre pixka bat gu nola gabiltzan ikusita, egia esan. Markagailuan atzetik joan arren pixka bat gehiago estutu eta 5-5 jartzea lortu dugu entrenatzailea eta biok, 6-5 irabaziz.

Hirugarren eta azken partidarako Jaionek eta Aizpeak hartu dute kontrakantxarako bidea eta Idoia-Aitziber eta Haizea-ni geratu gara kantxan. Berdinketa arriskua dagoela esan dut nik, aurreko asteko partidekin gogoratuta, eta irribarre egin dute kideek. 4-1 galtzen hasi gara ia ohartzerako eta Aitziberrek “bi zulo ikusi ditut eta pilota hara bota” esan dit poz-pez aldamenetik. Bat horma bikoiz lortu du eta bestea aurrean pilota moztuta. Nik “halakoetan beldurrik gabe bota, bale edo kale” esanez animatu nahi izan dut kidea.

Hala ere, urguilua atera dugu entrenatzailea eta biok eta markagailua apur bat txukuntzea lortu dugu gutxienez, 6-4 galduz amaitu badugu ere.

Taldekideten etxeko gehienek etxerako bidea hartu dute lehen txanda amaitzean, baina Idoiarenak geratu dira partidu bat gehiago ikusten, semerik gazteenak hala eskatuta. Berdinketa nola hautsi erabakitzeke 3 tantora partida motzak jokatzea erabaki dugu, berriro ere denok denon aurka, ondoren tabernara zerbait hartzera eta apur bat hitz egitera joateko.

20.30 dira nire erlojuan eta partida motzak lehengo ordena berean hasi ditugu. Lehenengoan Aizpea-Jaione eta Idoia-Aitziber hasi dira eta parekatua izan da. Haizea eta biok bitartean petrilean eserita lasai asko aritu gara begira eta Jaionek “ederki zaudete hor jarrita!” bota digu kantxatik ikusi gaituenean. 3-1 irabazi dute Aizpea-Jaionek.

Bigarren partiduan 2-2 joan ondoren 3-2 irabaztea lortu dugu Haizea eta biok eta azkenekoan, Aitziberren eta Idoiaren aurka 3-0 amaitu dugu. Azkarrak izan dira, tantoak huts bidez lortuz eta hutsak ere nahiko azkar eraginez.

Partidak amaituta elkarri bostekoa eman diogu entrenatzaileak eta biok eta kontrakantxan poltsak utzi ditugun ingurura hurbildu gara. Niri tximeletak hasi zaizkit sabelean bueltaka eta inor tabernara abiatu aurretik “hor jende artean ez naiz atrebitzen eta hemen emango dizuet” esanez motxilatik karpeta atera eta “urte osoa pasa duzue bertso baten zain eta badakit zozoa dela orri txuri batean horrela ematea, baina ez neukan denborarik eta hartu” botaz banaka orri bana eman diet, bertso bat idatzia duena.

Orriak hartu eta irakurtzen hasi dira, kantatu egin behar nuela esanez. Nik esan diet “nik bakarrik ez dut kantatuko, nahi baduzue batera bai” eta doinua galdetu eta nik intonatuta hasi gara kantuan. Bakarren batek “oraindik negarrez hasiko gara doinu horrekin” esan dit aldamenetik, baina ez, ez da unea. Niri kosta zait une batean emozioei eustea, baina osorik kantatu ondoren “plazer bat izan da niretzat zuekin aritzea” esan diet. Eskerrak eman dizkidate eta sakona dela esan, ez zutela espero adieraztearekin batera (B.K. Ilusiotxoa egin dit kideei gustatu izanak). Baietz esan diet, orri zuri baten aurrean aurrez aurre baino trebeagoa naizela sentipenak azaltzeko. Ezustekoarena igarota orain bai, orain trasteak jaso eta tabernara hurbiltzeko momentua heldu zaigu. Jaionek esan du ez al dugun talde argazkirik aterako, gaur ekarri duela argazki-kamera, baina frontoian behintzat ez, dagoeneko abiatu baitira plazan behera beste kideak.

Jaionek elkarrizketarako hitzordua lotu behar dugula esan dit eta koadernoan aterata egunik egokiena beretzat ostirala dela esan dit. Niri ongi datorkidala esan diot eta berak jar dezala gutxi gorabeherako ordu bat. Karmele falta da, ordea, eta berarekin hitz egin ondoren erabat ixteko hautua egin dugu.

Pasta-tertulia

Tabernara hurbildu gara eta kideak ordurako kanpoko mahai baten bueltan eserita daude. Nik pasta kaxa atera dut motxilatik eta ireki ezinda nabilenez Haizeari eman diot “ireki zuk, nik ez dut asmatzen zeloa kentzen” esanez. Besteek eskatuta dute tragoa eta nik ez dakit zer eskatu. Azkenean ura eskatu dut, apur batean besteak zer erabakiko zain eduki ostean.

Jaionek jardun bat egin du argazki-kamera eskuan automatikoan jarri eta atera nahian, baina azkenean zerbitzariari esan dio kanpora atera eta ea argazkia aterako digun mesedez eta honek kostata izan bada ere atera digu. Horren inguruan ere barre pixka bat egin dugu, despistatuta omen dabilela eta.

Afaria noiz egin zehaztu dugu lehenengo eta erabaki dugu hurrengo osteguna izan daitekeela egokiena, non eta noiz zehazten saiatuz. Haizeak zerrenda egin du eta nork abisatuko dion nori erabaki dute, enkargua Jaionek eta Aitziberrek egingo dutela adostuz. Osteguna, hilak 7, 19:30ean da hitzordua.

20.50 inguruan Karmele etorri da frontoitik bueltan, “joanda zinetela pentsatu dut inor ikusi ez dudanean” esanez. Aulki bat hartu eta gurekin batera jarri da borobilean. Nik karpetatik bertsoa duen orria eman diot eta irakurtzen hasi da, “zer polita!” esanez amaituz. Idoiak zinta jarritako paleta ere eman dio eta “hau beste gauza bat da” esan du hartu orduko. Nik esan diet “niri bururatu ere ez zitzaidan egin aurrekora arte, jakin banu lehenago ekarriko nizkizuen zintak jarrita”. Idoiak bertsoaren orria ere atera du poltsatik eta Karmeleri beste bat ematean Izaskunentzat gordetzeko esan diot.

Ikastaroaren balorazioa egingo dugula esan digu entrenatzaileak, baina ez, beste orri batzuk banatu dizkie emakumeei lehendabizi, datorren ikasturterako herrian zer ikastaro antolatzea nahiko luketen jartzeko dela azalduz, udaleko berdintasun teknikariak hala eskatuta. Banan-banan irakurtzen aritu dira eta beste aukerak laukian denek gehitu dute “pala ikastaroa”, beste Xren bat jarri eta berriro ere entrenatzaileari itzuliz.

Ikasturte amaierako festa eta ekitaldi pilaketa ere hizpide izan dugu, batez ere Idoiak esan duelako baduela gogoia normaltasunera itzultzeko, kurtso bukaeran denak batzen direlako. Nik hala izaten dela esan diot, dena bukatzen dela ospatu beharra dagoela dirudiela.

21.15ean Aizpeak ospa egin du, bikotea etorri da bost minutu lehenago, eta asteazkenean partidari taldeko bi bikoteak elkarren aurka arituko direla esan dute. Zeinek zer koloretako nikia jantzi erabaki dute eta Idoiak berea utziko diola esan dio.

Ondoren iritsi da ikasturteko gure paletako ikastaroaren balorazioaren ordua. Idoiak hitz egin du lehenengo, “nik uste oso giro berezia eduki dugula” botaz. Nik “onerako ala txarrerako?” galdetu diot harridura apur batekin eta “onerako, onerako” erantzun du zalantzarik egin gabe. Ondoren Aitziberrek hartu du hitza eta “oso ondo pasatu dugu eta nik uste gure egoeran asistentzia ere ona izan dela, ez da erraza haurrekin moldatzea”. Karmelek ere “ondo pasa eta ikasi egin dugu, nik hobekuntza nabaritzen dut lehen egunetik” esan du eta nik onartu diet “niretzat oso atsegina izan da saioetara etorri eta ordu eta erdian zuekin aritzea, ondo pasa dut. Pena ematen dit bukatzeak, baina fase bat pasa izanaren seinale izango da” onartu dut. Ikastaroaren hasieran taldean onartua izateko pasatakoak ere kontatu dizkiet, teknikariarekin nola ibili ginen azken unera arte, eta Haizeak ere kontatu du zer erreakzio izan zuen nire izena zerrendan ikustean.

Adin kontuak atera dira, nik esan dudalako zenbaitetan zahar sentitzen naizela tabernetara sartu eta 15ekoak ikustean. Aitziberrek beraiek sentimendu hori oso aspalditik duela esan du eta Haizeari “25ekoak baino gertuago ikusten ditut 30ekoak, beraz, pentsa zu” esan diot irribarrez. Honen ondoren, eta ez dakit nondik, larunbatean

solasaldi sakonen bat izan zutela ere esan didate, entrenatzailearekin aritu omen ziren maitasunaren inguruan eta haurrak ekartzeaz. Ez dakit zer esango zioten elkarri, baina Karmelek “garaiak aldatu egiten dira” esan dio entrenatzaileari eta besteren batek “gero hor ikusiko dugu Hernanin hiru hurrekin” esanez adarra jo nahi izan dio.

Eiderren formak ere izan dituzte une batean hizpide, Karmelek onartuz lehen unean inpresioa egin ziola bere hitz egiteko moduak. Aitziberrek, berriz, grazia egin ziola esan du eta larunbatean festan esaniko esaldi bat ekarri du gogora Jaionek, “itxura honekin, baina ni ere banaiz pitiminia eta mahai zikinean ez dut jango”. Aitziberrek ere horrekin oroitzen dela esan du.

Azken unean tesirako zeini zein izen jarri proposatzen hasi zaizkit eta Idoia barrez lehertzen hasi da, Karmelerentzat berak bat baduela eta etxera oilaskoa afaltzeko labea piztera joan zenekoa gogora ekarriz. Jaionek lagundu dio kontaktetan, “non da Karmele, non da Karmele?” galdezka aritu zirela eta itzultzean labearena kontatu zuela gogoratu du, irribarrez. Karmelek berak ere barre egin du eta nik egun horretan ez nintzela egon esan diet, hurrengo astean itzuli nintzela lesioak eragindako geldialdiaren ondoren.

21.35ean Haizeak ez duela oso gorputzaldi ona esan du, buruko minez dagoela, eta etxeratzeke asmoa agertu du. Bihar omen du karrerako azken lana entregatzeko data eta ondoren bazkaria eta afaria egingo omen dituzte. Probesteko esan diote kideek eta mahaitik altxatzen hasi gara, norbere etxeetara erretiratu asmoz.

Karmelerekin eta Jaionerekin ostiralean neukan pentsatuta elkarrizketak egitea, baina asteazkenean partida ikustera eta ostegunean afaltzera agertuko naizenez ostegunean egiteko molda ote litezkeen pentsatzen hasi dira, batekin 18.30ean eta bestearekin 19.00etan geratuz. Nik ezin badute beste egun batean etorriko naizela esan diet, zalantzati sumatu baitut Jaione, baina Aitziberrek “behar badu umeak zainduko dizkiot nik” esan du eta Karmelek “zuri lana erraztearren ari gara”. Beraz, ostegunerako beste bi elkarrizketa lotu ondoren elkar asteazkenean arte agurtu eta etxera bidea hartu dut, kotxe bila abiatuz lehenengo. Aurrez “galderarik ezin al duzu aurreratu?” galdetu dit Jaionek eta “izen-abizenak, jaioterria, adina eta bizilekua galdetuko dizkizut”. 21.45 jotzear dira.

Nire sentipen eta inpresioen txokoa

Gaurko saioa ezberdina izan da orain artekoetatik, baina, polita. Ezkerrez aritu gara entrenatzailea eta biok eta horrek ere saltsa areagotzen lagundu du. Partidak egin ditugu, giro oso atseginean eta ikastaroa goxo bukatu izanaren sentsazioa daukat nigan. Akaso bertsoa kantatzeak ere lagunduko du sentipen hori izaten. Gustatu zaiela zirudien eta gaitz-erdi!

Penaz baina irribarretsu noa kalean behera neure baitan murgilduta, esperientzia aberasgarri bat amaitzeak sarri ekarri ohi dizkidan sentipenak zurrumbiloz bueltaka dabilzkidala. Oso gustura jardun naiz Usurbilen egindako 25 saioetan eta hori batez ere kideen jarrera eta abegikortasunari zor diot, ez daukat zalantzarik. Ondo gogoratzen dut lehen eguna, nire parte-hartzearen azalpena eta bakarren baten harridura aurpegia. Hori ordea, saioz saio bertakotuz eta beste bat gehiago sentiaraziz gainditu dugu. Bejondeiela!

Gaurko saioarekin amaitu da Usurbilgo jardun ofiziala. Hala ere, bertako paleta txapelketaren aitzakian pare bat bisita egitea pentsatzen dut eta ahal dudan heinean hartu-emanari, hotzagoa eta urrunagokoa izango bada ere, eustea. Merezi du, zalantzarik gabe. Gainera, datorren astean bitan egingo dugu topo, beraz, beste astebetetz, bederen, mantenduko dut asteroko elkartrukearen maiztasuna.

Asteko saioak joan zaizkit eta geroz eta gutxiago geratzen dira, hiru herritatik birako jauzia emango baitut, gainera. Hau bai, hau azken txanpa da, bene-benetakoa!

Azken saioak

Nekeak gaina hartuta hasitako astea apur bat, oso gutxi bada ere, lan karga txikiagoarekin eta indarberritu nahian amaitu dut eta hori ez da gutxi hamabi egunetan jarraian lanari lotuta ibili behar denean. Basoa erdi beteta ez dut askotan ikusi, baina uste dut hala egiten hastea komeni zaidala, neure buruari harrika aritzeak ez baitu zentzurik, beti izan zitekeenari eta egin nezakeenari begira, aieneka.

Saioei dagokienez, aste hau berezia izan da, desberdina, lanaren zatirik handiena egiten ari naizen sentsazioa nagusitu baitzait. Horretarako ezinbesteko izan dira Emakumea Pilotari eguna, urte amaierako ikastaroetako festa egun handia, igaro izana eta Usurbilgo saioak amaitu berri ditugula. Beraz, matematikak egin eta 77 saio igaro ditudala ohartu naiz. Egutegiari orriak kendu eta datozeinei erreparatuz gero bi eskuetako hatzak soberan dauzkat kontaktetarako, sei saio izango ditudalako hurrengo hiru asteetan, astero bi. Pena edo tristura puntu bat ematen dit fase hau amaitzen ari dela ikusteak, nola ukatu, oso une polit eta atseginak bizi izan ditut datu biltze prozesuan zeharreko hartu-emanetan, baina bidean aurrera noan seinale ere izango da, beraz, hori ere bada zerbait. Zerbait ez, asko, ez bainuen hurrik ere emango inork orain ia bederatzi hilabete puntu honetara iritsiko nintzela esan izan balit. Are gehiago, eromen ukitu bat zuela diagnostikatuko nion. Baina, ez, antza ez zen hain oker ibiliko.

Ni bakarrik ez, denok gaude ikasturte amaierari begira, edo oporren zain jarrita, uda giroa eta atsedeen premia bazter guztietan nabari dira, edozein aurpegi, kale, etxe zein lanetan. Beraz, datorrela etorri beharrekoa eta ni moldatuko naiz kameleoiak lez jantzirik edo larrurik egokiena hautatzeko. Hori bai, asteburu honetan saiatuko naiz ikerlanaren gaineko ezer ere ez egiten, arnasberritzeko beste erarik ez baitut ezagutzen. Atzera kontua hasi da: 6, 5, ...

30. astea. DOZENA ERDIREN FALTAN

Astez aste, saioz saio, herriz herri eta frontoiz frontoi egiten ari naizen jardunaren soka geroz eta laburragoa dela jakitun naiz, ez dira alferrik igaro hogeita hamapiku astetik gora urrian hasi nintzenetik! Aste honetan jadanik ohiko hiru paleta saioetatik bira igaroko naiz, aurreko astean Usurbilgo jarduna amaitu baitzen (snif, snif). Beraz, horrek amaia geroz eta hurreago daukadala adierazten dit.

Hala ere, buruan eta gorputzean ikasturte bateko jardunak, are gehiago hainbeste kilometro eta kotxeko bidaia egin ondoren, utziriko neke eta saturazioak nabari ditut eta nabari zaizkit, aspaldiko partez bi egunean, asteburu oso batean, lan kontuak alboratuta izatea lortu dudan arren, kezka horiek uxatuta. Banuen beharra!

Astelehena iritsi eta berriro ere gurpilean sartu eta martxa hartzeko unea dut orain, saioetan kideei esker gozatu (eta goxatu) eta pantaila aurrean kontzentratuta mantendu eta orain arte esku artean izan ez ditudan beste zaku batzuetako lanei ere segida ematekoa: elkarrizketak eta urriko kongresuetarako idatziak. Goazen ba!

Txokoz txoko, jokoz joko

Asteburuan ikerketaren inguruko lanik egin gabe, garuna apur bat arnasberritu eta gogoan pittin bat indarberrituta ekin diot asteari, azken saioetara ahalik lasaien agertzeko asmoz. Gaur astea nahiko lasai hasi dut, zirimolan ez nabil, beraz, ea horrela eusten diodan!

Goizean prestatu eta lasai ederrean bidaia egin ondoren, irratia itzali eta nire burutazioetan eta txistua jotzen jardun naiz tarterik nagusienean, patxada apur batekin iritsi naiz Hernanira. 9.15ean aparkatu, motxila bizkarrean hartu eta lasai joan naiz kiroldegira, gerrian daukadan jertsea hartu eta soinean jantzita, freskura apur bat nabari baitut aurrez pantailan 16°C daudela irakurri arren.

Kiroldegiko sarrera

9.20an iritsi naiz eta giro nahiko atsegina dagoenez kanpoan, argia, eguzkia lainoen atzean ezkutaketan ari bada ere, bertan geratu naiz kideen zain, kiroldegiko udako ikastaroen eskaintzari begiratu bat eman bitartean. Ainara ikusi dut urrunean hizketan, kontu kontari, eta sarrerako kortxoko karteletan pixka batean erreparatu ondoren erdi paseatzen geratu naiz beste kideren bat agertzeko zain.

Irati etorri da 9.25ean eta paseoan harrapatu nauenez, “zer, ezin al zara geldirik egon?” galdetu dit. Nik esan diot denbora pasa nabilela, besteak noiz etorriko zain, pauso gutxi batzuk emanez. Asteburuan ea zer moduz ibili garen galdetu diogu elkarri eta hitz egiten ari ginela telefonoak jo dio. Deia erantzun eta ni inguruan geratu naiz zain. Rakel iritsi da erosketak egin eta poltsak autoan utzi ondoren eta “zer gutxi, ezta?” bota du eta “baina, onenak” erantzun dio Iratik irribarrez. Nik “bai, bai, guk esaten ez badugu nork esango du ba hori?” jarraitu dut irribarretsuz. Asteburuan ea ondo ibili diren galdetu diote kideek elkarri eta baietz esan dute, bazkariren bat eta afariren izan dela tartean kontatu digu Rakelek. Entrenatzailea 9.30 jo berritan iritsi da guregana, begiak zabaldu ezinda etorri dela dirudi eta “zer, astelehena?” galdetu diot nik. Berak ez duela parranda handirik egin esan dit, eguzkiaren argitasunarena izango dela. Ildo horri tiraka eguraldi

aldaketaz nik esan diot “hemen askoz argiago dago, bai, Tolosaraino lainotua zegoen zerua erabat” eta “niri hainbeste begiratzeko astirik ez dit eman” esanez erantzun dit berak. Horren ondoren Ainara iritsi da, hizketaldi luze samarra eginda itxura batean, eta “Gemma harago ari zen hizketan” esan digu. Eskaileretan behera Miren datorrela ere ikusi dugu eta Ines hizketan sumatu dugu kiroldegi barruan. Beraz, azkenean badirudi taldetxo dezentea osatuko dugula. Saioa eta beste pare bat ETB2ko *El Conquistador del Fin del Mundo* ditxosozko saioaren finalaren gainean ari dira, bart amaitu delako. Nik “horregatik daukazu gaur halako logura” esan diot Saioari aldamenetik (B.K. Behin baino gehiagotan atera da telebista saio horren gaineko iritzi elkartrukea astelehenetako saioetan, bezperan batek baino gehiagok ikusi ohi zuten seinale).

9.35ean barrura sartu gara eta tornutik pasatzeko txartelak ateratzen hasi gara. Zuriñe ere iritsi berria da eta bakarrik datorrenez bakarren bati “Jonek astelehena zeukan” erantzun dio. Txartelak atera eta pasatzen hastean kideak treneko txartela atera du eta ohartu denean barrez hasi gara bai bera eta baita inguruko denak ere. Besteren batek esan du inoiz tokatu izan zaiola autobusean Osakidetzakoa ateratzea edo kiroldegian autobusekoa eta hala ari garela abiatu gara asteleheneroko moduan eskaileretan behera, frontoirako bidean.

Pilotalekua

Iritsi garenean lana amaitzen ari zen garbitzailea kantxan mopa pasaz eta guk trasteak harmailetan utzi ditugu. Nik jertsea ere kendu dut, giro beroa nabari delako frontoian. Aurreko egunetako 30°Ctik gorako tenperaturen ondorioa izango da bertako epeltasuna ziurrenik.

9.40 inguruan borobilean jarrita hizketan ari gara denok, baita Gemma ere. Bakarren bat orkatilak mugitzen hasi da eta besoak errotatzen ere bai, baina Saioak aldamenetik “ez pentsa korrika egitetik libratuko zaretenik” bota du. Ondoren “gauza bat daukat esateko” esan du eta “zer moduz telebistakoekin?” galdetu du. Tele5 kateko pertsonaia bat atez atekoaren gainean galdezka aritu zen iragan astean Usurbil, Hernani eta Oiartzunen eta hortik egin du galdera. Elkarriketatuak, telebistan agertu ziren herritarrak, “Hernaniko onenak” izan zirela esan du bakarren batek ironiaz beteta eta jende askok martxa egin zuela kamerak aurrean jarritakoan. Halako gertaerei zentzu handirik ez diela ematen esan du bakarren batek eta “hala ere, ongi hitz egin omen zuen Hernaniz” esanez amaitu dute gai honen inguruko hizketalditxoak.

9.45 dira eta Jone iritsi berria da. Beraz, gaur bederatzi gaude. Saioak korrikan hasteko agindu digu, beraz, kostata, baina saioari ekitera goaz.

Beroketa

Korrika hasi gara ohiko hiru itzuliak emateko, lasai-lasai, eta Ainara, Gemma, Ines eta ni elkarren inguruan goaz. Gaur astebete jokatu zuten Tilos-7 Txapelketako finalerdia elkarren aurka Ainara-Gemma eta Miren-Malenek eta ni ikusten izan nintzen horren gainean hasi gara hizketan. “Nik ez nuen uste estrategia hain argi izan eta moldatuko zirenik besteak” esan diet Ainara eta Gemmari eta “beno, guk ere ez genuen agian hain ongi jokatu” esan dit Gemmak. Nik ez nagoela hain ados esan diot, “zuek arriskua hartzera behartuta zeundeten eta ez zineten hain eroso aritu, oso garbi zeukaten partida atzean zeukatela”. Gemmak esan dit berak bigarren zatian hobeto jokatu zuela eta

“pilota asko jan zenituen, %95a bai eta Ainarak ez zeuzkan eskura pilota asko aurrean botatzeko” esan diot nik. Hor iritzi ezberdina daukagu. Motel baina ia oharkabean osatu ditugu hiru itzuliak eta geratu egin gara aurrekoak ere geratu direnean. Bakarren batek “ez al ditugu lau eman?” esan du eta “bakarren bat kexatuko zen bestela” esan du beste kideren batek. Jonek, berriz, “nik bi eman ditut” aitortu du, Gemmak trukean “ba eman beste bi” botaz paretik irribarrez.

Korrika saioaren ondoren berriz ere korro batean jarri gara guztiok eta asteleheneko finalerdiaz aritu gara, bat baino gehiago izan baikinik ikusten. Jakin dugu ostegunean jokatu dutela 3-4.posturako partida eta ostiral iluntzean finala. Finalerdiaren gainean esan dute “bagekien guk atzean zegoela zuloa, zuk aurrean gaina hartuko zenigula, esan dezagun garbi” esan du Mirenek eta Ainara eta Gemmak hori bazekitela esan dute. Ondoren esan dute zalantza egin zutela partidaren zehar kokapenak aldatu ala ez eta horren gainean hasi gara. Nik esan diet “niri ez zait gehiegi gustatzen erdian aldatzen hastea, ez dago jakiterik” eta norbere usteak agertu ditugu modu horretako aldatzen gainean. Gaur Malen falta dela eta lehiakorra dela esaten ere aritu dira une batean.

Korroan jarri eta mingainak dantzatzen ari gara, azken astean Hernanin haur bat eta gizon bat hil direla eta alabaren adinekoak jota daudela esan du Ainarak besteak beste. Ikastolako kidea omen zen haurra eta alaba omen zeukan gizonetakoak, motor istripuan zendu zen, maila berean. Oartzun eta Lezon ere 11-12 urte inguruko pare bat haur bat-batean hil direla esaten hasi dira eta halako batean Saioak saioari ekin beharko diogula esan eta motxilatik paletak atera eta banatzeari ekin dio, jadanik giltzaduretako mugimenduak eta luzaketak egiteari utziak baikara. Ondoren pilotak ere hartu ditu eta eskura ematen hasi zaigu ezker hormaren aurka pilotatzen hasteko.

Frontisetik hurbilen pilotatzen Miren, Irati eta Rakel jarri dira, haien ezkerretara Zuriñe eta Jone eta Gemma-Ines eta Ainara eta ni neu hizketan hasi gara pilota bana eskuan hartuta. Asteleheneko partidaren gainean dihardugu oraindik eta zenbait iritzi edo aipamen entzun beharra ez zaiela gustatzen esan du Ainarak, bera bestela partidarengatik lasai dagoela esan digun modu berean. Aipatu du partida amaitu eta bakarren bat joan zitzaizela “irailean ikusiko dugu” esanez eta horrek harritu zuela. Horren harira Inesek kontatu du Emakumea Pilotari Eguneko Txapelketa Herrikoian berak jokatzeko adinaren gainean entzun dituela zenbait iritzi, “besteak gazteagoak ziren”, adibidez, hirugarren urtean. Ondoren esan du zenbaiten aurka jokatzeko duenean bi aldeetako dela irabazi nahia eta horiekin galduz gero pena handiagoa ematen duela. Nik esan diet “iritzi batzuk entzun beharra ez da gustagarria zenbaitetan, hori hala da” eta Ainarak erantsi du “nik ez diet garrantzia handiegirik ematen, ez du merezi”.

Saioa kontraktatzen zinta hartuta marrak jartzen hasia da saiorako kantxan eta gu hizketan ari garela ikusi badu ere ez digu txintik ere esan.

Halako batean ekin diogu bikoteka jarri eta ezker hormaren aurka pilotatzeari, errebotetik gertuen Gemma eta Ines jarriz eta gu euren eskuinetara, Jone eta Zuriñe baino ezkererago.

Pilotatzen hasi eta berehala deitu digu entrenatzaileak berriro ere talde handian bil gaitzen, saiorako eremuak zehazten amaitu baitu.

Ariketak

10.15ean berriz ere denok elkarrengana bildu eta azalpenak ematen hasi da entrenatzailea. Hala ere, aurretik pilota eskuan hartu eta dagoeneko azkenetan daudela esanez aritu gara, asko ilea galdu samartuta eta goma dezente bistan daudela agertuz. Mirenek irribarrez erakutsi du eurek berotzeko erabili dutena. “Txinatarrak izango dira” esan du Inesek eta “ez, hauek Taiwangoak dira” erantzun diot nik irribarrez, hala jartzen baitu izenaren azpian. “Uxuek ekartzen zituenak motelagoak ziren” esan du ondoren eta nik esan diet berdinak zirela, leku berean eta izen berarekin erosiak. Hala ere, gaur adarra jotzeko makina puntuan jarrita etorri da eta “Uxueri federazioan diru bat emango zioten eta pilota merkeak erosi eta bestea beretzat gordeko zuen” bota du irribarrez eta “zerekin uste duzu ba erosi behar dudala orain bizikleta berria?” esanez erantzun diot nik, haria segituz. Berak “ai, barkatu, ez ditut elkarrizketan esandakoak hemen aterako” esanez jarraitu du eta “gehiago hitz egiteko gogoz geratu zen” esan du ondoren Ainarak bere aldamenetik. Gemmak “hau top secret da, ez du ezer kontatzen” esanez jarraitu du niri ziria sartu asmoz eta Saioak esan du “Uxuek lana bukatzean kafe bat hartzeko geratuko gara, irakurri eta ea geure burua identifikatzen dugun ikusteko”.

Ondoren, halako batean, azaldu du lehenengo ariketan zer eta zertarako egingo dugun.

1. Txokotan bizitza banarekin. Kanporatutako ordenaren arabera osatuko dira bikoteak ondorengo partidetarako. Pilota jo ondoren 6ko marra zapaldu behar da. Lehena azkenarekin eta modu horretan, ordenaren arabera, zehaztuko da nola aritu saioan zehar.

“Malen falta da gaur” esan du kideren batek eta “bai, aspaldiko partez Saioa ere jokatzen arituko da gure artean, kopuru bakoitia baikara, bederatzi” etorri zait niri gogora.


Marra diagonal bat dago jarrita kantxan 4tik frontiseraino, baina horri momentuz jaramonik ez egiteko esan du Saioak. Hasi eta horma biko bat egin dut nik lehen pilotakadan, Iratik erantzun duena korrika apur bat eginda. Ondorengo pilotakada bat jotzera joandakoan pilota oker jo eta Saioa izan da lehen kanporatua, ez baita frontisera ere iritsi. Bakarren batek adarra jo dio eta nik brometan “kanpora, segi!” esan diot besoarekin bidaltzeko keinua egin bitartean. Ondoren berriro ere pilota jokoan jarri eta horma biko bidez tantoa lortu dut, Zuriñek ez baitu eramaterik izan. Kontrakantxan kaleratutako ordenan jartzen hasi dira, atzetik Jone joan baita. Ainara, Gemma, Ines eta laurok bezperan Irujo eta Idoatek buruz buru elkarren aurka jokaturiko partidaren gainean hitz pare bat egin ditugu atzera-aurrera pilota jo eta marrara joanez gabiltzala, “kosta zitzaion” eta “ondo jokatu zuen Idoatek” bezalakoak botaz. Tantoak oso piloteatuak dira, inork ez du arriskatu nahi eta nik moztea erabaki dut, bestela luze joko duela iritzia. Txapa gainean moztuta utzi nahi nuen pilota, baina txapa jo du, beraz, ni izan naiz laugarren kaleratua. Ines etorri da nire atzetik eta “orain kanporatzen dena Inesekin” esanez abisua pasa nahi izan die entrenatzaileak kantxa barrukoei. Irati izan da kale egin eta kontrakantxara hurbiltzen hurrena, beraz, bikote bat badakigu: Irati-Ines. Hurrengo Ainara kanporatu da eta nirekin dela ohartzean Ainhoa “zu eta Ainara” esan dit erdi irribarrez, erdi kezkatu. Haren atzetik Rakel, Gemma eta Mirenek amaitu dute. Beraz, hona hemen bikoteen osaketa nola geratu den: Saioa-Miren, Zuriñe-Gemma, Rakel-Jone, Irati-Ines eta Ainara-ni.

Behin bikoteak egin ondoren kantxan banaturiko hiru eremuetan zer eta nola egin behar den azaldu digu entrenatzaileak, Inesi begira “aditu ondo” esanez. Honek “nik aditu

dena aditzen dut, baina ententitu ez” bota du eta barrez hasi gara bai bera eta baita inguruko besteak ere. Saioa azalpenak ematen hastearekin bat hasi naiz ni ere Ainararekin ariketen gainean albotik eta pare bat aldiz eten ditu bere argibideak eta niri begiratu dit. “Lasai, nik eginda daukadalako hasi naiz” esan diot eta “hemen ez, ordea” erantzun didanez isilik geratu eta jaramon egitea erabaki dut.

2. 2:2 eta 1:1 egoeran, hiru eremutan.

- Frontisa. 2:2 marra diagonalak kantxa bereizita.
- Erdian. 1:1 horman hiru gunee zehaztuta, jarraian ezin du berdinean jo pilotak
- Errebotean. 2:2, kantxan 3 gunee, jarraian ezin du berdinean jo pilotak. Jo ondoren konoari buelta eman behar zaio.



1. txandako kokapenak entrenatzaileak zehaztu ditu eta honela aritu gara:

Frontisean: Zuriñe-Gemma eta Irati-Ines

Erdian: Ainara eta ni

Atzean: Saioa-Miren eta Rakel-Jone

Erdian tarteka pilota abiadura handi samarrean gunetik gunera bidali dugu eta gutxien korrika egiteko norberak nora botatzea komeni den pentsatzen ere aritu gara Ainara eta biok. Atzeko gunean, berriz, Rakelek Saioari tantoa egin dio eta ospatzen ari da, gustura asko. Ainarari Zizurkilen iragan asteartean berdina egin zutela esan diot, nolako poza ematen dien entrenatzaileari edo niri tantoa egiteak. Berak irribarrez erantzun dit. Aurreko eremuan, aldiz, tanto piloteatu samarrak jokatu dituzte lau kideek.

5 minutuko tartea amaitu ondoren lekuz aldatzeko unea iritsi zaigu. Errotazioak modu honetan egingo dira: aurreko galtzailea atzera, atzeko irabazlea erdira eta erdiko bikotea aurrera.

2. txandako kokapenak:

Frontisean: Irati-Ines eta Ainara-ni

Erdian: Rakel-Jone

Atzean: Saioa-Miren eta Zuriñe-Gemma

Aurreko eremuan kantxan nola kokatu nahiko erraz erabaki dugu guk, gero aldatuko garela esanez elkarri. Ainara ezkerrean, atzean jarri da, Inesen inguruan, eta Iratirekin batera, ni aurrean. Frontiseko gunera iristen ari garela “zuek segi atzera” esan digu Inesek, adarra jo nahian.

Partida jokatzen hasi eta nik dantzan jarri ditut unerren batean bi aurkariak, Inesi marmarren bat eraginez. Horma bikoren bat edo beste bota du eta ni iritsi naizela ikusita asmatu ez duen irudipenarekin dabil, baina nik “bota, probatu, badakizu ni zerri bat naizela” esan diot albotik irribarrez eta barrez hasi dira beste hirurak ere. Azkenean nahiko erraz irabazten amaitu dugu, berriro gunee berean jarraitzeko aukera geureganatuz.

3. txandako egoera hau izan da:

Frontisean: Rakel-Jone eta Ainara-ni
Erdian: Saioa-Miren
Atzean: Irati-Ines eta Zuriñe-Gemma

Partida honetan ni jarri naiz atzean eta Ainara aurrean. Hasi eta 1-1 jarri gara markagailuan, Jonek horma bikoiz tantoa eginda. “Egia esan, ez genuen espero” esan diot nik eta Ainarak ere halatsu. “Gaur inspiratuta nabil, nabaritu beharko da ikasturtea” esanez irribarretsu dihardu Rakelek (B.K. Aurrerapen nabaria izan du lehen egunetik, bi besoekin eta airez ere jotzen duelako pilota batzuetan). Azkenean markagailua tantoz tanto kontatu ez badugu ere eta guk irabazi arren, lekuz aldatzea egokitu zaigu, aurrean bi partida jokatu ditugulako jarraian. Beraz, irabazi arren atzera joan gara, erreboteko gunera.

4. txanda honela egin dugu:

Frontisean: Rakel-Jone eta Saioa-Miren
Erdian: Zuriñe-Gemma
Atzean: Irati-Ines eta Ainara-ni

Atzera joatean berriro ere lehengo bikote berarekin bat egin dugu (B.K. Denbora guztian bi bikoterekin topo egingo dugu gaurko saioan antza denez). Gu atzean gustura samar aritu gara, tarteka esprinten bat joz konoari buelta eman eta kantxara ahalik lasterren itzuli asmoz eta baita elkar zirikatu nahian pilotakadaz pilotakada ere. Aurreko gunetik tarteka iritsi zaizkigu hango laukotearen hots batzuk. Saltsan dabilta han ere.

Ainhoaren erlojuaren pi-pi-pi deia entzun orduko txandatzeko unea iritsi zaigu, kokapenak aldatuz eta errotazio berrian kokatuz. Honela joan da 5. txanda:

Frontisean: Zuriñe-Gemma eta Saioa-Miren
Erdian: Irati-Ines
Atzean: Rakel-Jone eta Ainara-ni

Rakel eta Jonerekin topo egin dugu oraingoan eta jokoan zehar konora joatea nabari da, eritimoa bizituz gero oso larri ematen baitu denbora. Hala ere, partida honetan lasaiago aritu gara gu, kideen joko-mailari erreparatu eta denok gustura jardun asmoz (B.K. Nik uste taldekideen artean nabarmen gehien egokitzen garenak gu garela egoera bakoitzera, saioz saio nabarmena izan da).

10.50ean Ines-Irati eta Gemma-Zuriñe aurrean daudenean Saioa joan eta aldaketa egin du, lehenak berriro ere aurreko eremura iritsi direla ohartzean.

3. Aurrean 2:2 partidak, 4 tantora.

“Irabazlea geratu egingo da, orain arte 2 jokaturakoan aldatzen ari ginen” ohartarazi digu Saioak eta kokapenak zehaztu ditu. Beste guneetako egoerak mantendu egingo dira, bai erdikoa eta baita atzekoa ere.

Bero egiten du, masailak gorritzen hasiak dira eta izerdia ikusten da zenbaiten aurpegietan. Ni ere berotzen ari naiz eta ez izugarri mugitu naizelako, baizik sargori dagoelako pilotalekuan, kanpoan ez bezala.

6. txandako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Zuriñe-Gemma eta Irati-Ines

Erdian: Ainara-ni

Atzean: Rakel-Jone eta Saioa-Miren

Berriz ere lehenengo errotazioko egoera berean hasi gara.

Aurreneko partida irabazi egin dute Irati-Inesek eta amaitu dutela jakinarazi digute gainerakoei. Beraz, guri iritsi zaigu aurreko eremura mugitzeko unea.

7. txanda honela egin dugu:

Frontisean: Irati-Ines eta Ainara-ni

Erdian: Rakel-Jone

Atzean: Zuriñe-Gemma eta Saioa-Miren

4-0 irabazita aurrean ederki pasatu dugu, tarteka atzetik begira genituela besteak. Rakel eta Jonerekin behintzat ohartu naiz horretaz. Partida amaitu berritan kontrakantxara joan eta “nekatuta gaudelako utzi diegu” bota du Iratik irribarrez. “Uxuek erabat nahasten zaitu” bota du Inesek, beste kideak entzuten eta begira daudela probestuz. Ainara eta biok “partida polita izan da, parekatua” esan dugu eta Gemmari “bai, 4-0koa” esan dio Inesek irribarrez.

Kontrakantxan daude oraindik aurreko gure aurkariak, baina berehala hartuko dute atzeko koadroetarako bidea.

8. txandako kokapenak hauek:

Frontisean: Rakel-Jone eta Ainara-ni

Erdian: Saioa-Miren

Atzean: Zuriñe-Gemma eta Irati-Ines

Berriro ere elkarrekin topo egin dugunez “gaur elkarren atzetik gabiltza” esan du Ainarak eta halaxe da, ordena berean baikoaz gune batetik bestera, errotazio bateko aldearekin.

Aurrean lasai eta ongi aritu gara, tanto luzeak izan dira asko, nahiz eta eurek huts egin eta bakarren bat azkar samar amaitu. Rakel hobetzen ari da, gustura dabil eta sakez tanto bat sartzea ere lortu du. 4-1 irabazi dugu guk eta, beraz, aurreko gure hegemoniak indarrean darrai.

9. txandako kokapenak berez hauek izan beharko zuketuen:

Frontisean: Saioa-Miren eta Ainara-ni

Erdian: Zuriñe-Gemma

Atzean: Rakel-Jone eta Irati-Ines

Txanda hala egitea tokatu arren kideak atzetik aurreko eremura, gure partidari begira ari ziren, 11.00 dira eta kontrakantxan amaitu dute beste seiek. Atzean Miren eta Ainara jarri dira, nire kideak “hauei utziko diegu euren artean borrokatzen” bota ondoren. Aurrean, beraz, Saioa eta ni.

Partida lehiatua eta bizia izan da, elkar mugiarazi dugu eta 4-1 irabazi dugu azkenik. “Nik ere badaukat nire urguilua” esanez eman diot bostekoa aldamenetik Saioari, irribarrez eta “horixe baietz, eta ez txikia!” jarraitu du Mirenek. “Neurrikoa” esanez eman dut amaitutzat solasaldi labur hau.

11.05 dira, saio praktikoa amaitzeko unea dugu.

Kontrakantxan hasi gara luzaketak egiten eta Tilos-7 Txapelketako finalen ondoren ostiralean jokatu dutenek afaria daukatela esan dutenez “guk ere egin beharko dugu afariren bat” esan du entrenatzaileak berak. Noiz izan ote daitekeen esaten hasi dira, data asko atera dira, baina batzuk batean ezin dutela, osteguna ala ostirala behar lukeela eta azkenean ekainaren 15a, 21a, 22a, 29a eta 24a ahotan ibili arren erabaki gabe irten gara pilotalekutik. 11.15 igaroak dira eta Irati eta Saioaren inguruan noa ni. Zuriñek buelta eman eta “azkenean egunik jarri al dugu?” galdetu duenez “ez, etorri bezalaxe goaz” erantzuna eman diot nik pasabide estuan aurrera oraindik ere atea zeharkatu gabe gaudela. Saioa daukagu bertan atezain lanetan.

Handik metro eskas eta segundo gutxi batzuetara, gimnasilekura iristen ari garenean, “ekainaren 24an, orduan izango dugu posible gehienok eta ez da festetan konpromiso askoko eguna izaten, bazkaria izango dugu, baina gero afaltzeko gera gaitezke” esan du Mirenek eta hala adostu dugu afaria San Joan egunez egitea. Besteei ere abisatzekotan geratu gara eta non izan litekeen aurrerago hitz egitekotan. Kostata, baina badaukat talde hau agurtzeko eguna ere, beraz.

11.20 igaro dira eta “nik 11.30ean lanean egon behar dut eta ez dakit datorren astelehenean etortzerik izango dudan, agian lanera joango naiz” esan du Ainarak aldageletara sartzeaz dela. Bera eta Miren “aste ona pasa eta ondo jokatu” esanez agurtu ditut datorren astelehenera arte eta Saioa eta Iratiri itxaron ondoren irten gara aldageletako pasabidetik eskaileretan gora sarrerara.

Kiroldegiko sarrera

Gemma, Zuriñe eta Jone hizketan utzita hanka egin dut nik, Irati eta Saioarekin lehendabizi, azken hau “bihar arte!” batekin agurtu eta beste kidearekin eginez ia liburutegira arteko bidea, oporretarako asmoen gainean zer edo zer esanez, “lana tamainan egin” bota eta datorren astera arte agurtuz hau ere, autobus geltokian lanerako autobusa noiz helduko zain utzita. Nik liburutegirako bidea hartu dut, motxila bizkarrean eta buruan saioko hainbat pasadizo bueltaka dabilzkidala, ondoren orrietan noiz idatziko zain.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saioa ongi joan da eta emakumeak gustura ikusi ditut, lasai eta irribarretsu. Ikasturte amaierara heltzen ari garela nabari dela esango nuke nik, saioetan agian orain arte nabaritu gabeko distentsioa ote dagoen susmoa baitaukat eta oporretako asmoak eta jaiak eta gainerakoak ere geroz eta presenteago daude gure elkarriketetan.

Bikoteak ausaz egin baditugu ere, Txokotan jokatuta, Ainara eta biok elkarrekin tokatu gara eta bakarren bat izutu da uneren batean. Hala ere, egokitu gara eta uste dut gurekin topo egin dutenean gustura aritu direla kideak ere.

Bero egiten zuen pilotalekuan, uda giroa bertan ere nabari den seinale. Eskerrak kanpoan eguzki printza gehiegi ez zeuden goizeko lehenengo orduetan!

Afaria egingo dugu ikasturteari amaiera emateko hemen ere. Herri eta talde gehienetan egiten da, harreman onaren eta sorturiko giroa neurtzeko termometro egokia izan daiteke, ezta?

Datorren astean azkenurreko saioa egingo dut, beraz, orain benetan ari da abentura puska hau azken txanpara hurbiltzen.

“Aurrerapen egokia”

Astehenean martxa hartzen hasiko ote nintzen ustea nagusitzea komeni bazitzaidan ere, goiz partea eta arratsaldeko lehen orduak onak izan ziren lanari dagokionez, egun erdiz ia laneko ezer gutxi eginda iritsi zait astearte arratsaldea, nahiz eta ordenagailu aurrean hasi eta handik oso gutxira jasoriko telefono dei batek ere izan duen zerikusirik. Hortik aurrera erlojuaren aurka eta berandutzeko arriskua bizkar gainean hartuta ibili naiz.

Paleta saioko hitzordu ofiziala (19.30) baino bi minutu beranduago iritsi naiz Zizurkilera, azken aldapa igotzen ari nintzela irratian kanpaiak entzun ondoren. Iritsi orduko aparkatu eta irten naiz autotik, inguruan taldekide batzuen autoak ikusita. Gaur udatiar jantzi naiz, niki eta praka motzak soinean, 26°C eta eguzki izpiak direlako nagusi.

Pilotaleku ataria

Pilotaleku atarira iristean Gurutze iritsi berria da, ikusi dut iristen paleta eskuan hartuta, eta Itsaso ere irten berria da pilotaleku parean aparkaturiko bere kotxetik. Kideei “arratsalde on!” batekin diosala egin eta gaur fresko natorrela esan didate, ez dela oso ohikoa ni horrela ibiltzea (B.K. Gaur arte praka motzetan azaldu gabea nintzen saioetara, egia esan). “Bero dago eta dutxatik irten berria banaiz ere izerdi batean ari naiz” esanez erantzun diet. Eurak jertsea soinean dutela daude.

Lehen hizketa-gaia nik atera dut, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatu berria baitzen Andoainen bost egun lehenago eta Gurutzek esana zidan akaso entzutera joango zela, bere ikasle batek parte hartu behar zuelako. Horren gainean hasi gara eta nire esperientzia, bere ostiraleko bizipenak eta usteak eta gainerakoak ibili ditugu nahaspilan, denak elkarren inguruan. Orduan iritsi da entrenatzailea eta honek “ni eskolarteko final batera joan nintzen, Zumarragara, eta han Uxuek saria jaso zuen bertso paperetan, nik ez nuen ezagutzen, baina nire lagun batek bai”. Nik hori entzunda txapela ezetz esan diot, aipamena izan zela, nire izen berekoa zela irabazlea, baina abizena ezberdina zuela: Alberdi.

Une horretan bertan konturatu gara aurreko astean lasto altxatzen aritu zirenak ere iritsi berriak direla, bat gu han geundela iritsi delako eta besteak fardoa prestatzen ari direlako. Muturra okertu dugu laurok eta azken saioan atzean aritzean traba egiten zutela oroitu dugu. “Asko etorritz gero eta traba egiten badigute esan egingo diegu,

zeren, gainera, ordu berean etortzen dira” bota du entrenatzaileak, une batzuetan oso gertu geratzen baitziren gu jokatzeko ari ginen bitartean.

Laukotea boskote bihurtu da Marian iritsi denean eta harekin ere bi hitz egin ostean pilotalekuko kantxarako bidea hartu dugu eskaileretan beheara 19.45ean, entrenatzaileak “sartu egin beharko dugu” esan ondoren. Une horretan bertan ohartu naiz Pili kotxean iristen ari dela eta “Pili ere badator, gainera” esan diet kideei.

Pilotalekua

Barrura sartu eta trasteak utzi ondoren, nahiko azkar, berotzen hasi gara.

Beroketa

Korrikako joan-etorriei eman diegu hasiera Gurutze, Itsaso, Marian, Saioa eta nik neuk. Pili azken pare bat itzulien faltan gehitu zaigu taldera. Erritmo bizi samarrean aritu gara eta Gurutzeren alboan noanez “hauek erritmo honetan hizketan ere joaten dira” esan dit. Nik “bai, bizi samar doaz” esan diot. Gurutzek “beno, nahikoa dugu” esan du eta entrenatzaileak “azkena, beste buelta bat” esan du. Azkeneko hori eman ondoren geratu gara.

Ondoren korroan jarrita giltzadurak mugitzen hasi gara: orkatilak, belaunak, gerria, besoak, etab. Marianek taldetik bereizi eta alde egin du kanpo aldera, eztulka ari da eta eskuan ur botila hartu du. Badirudi eztulaldi gogor samar batek erasan duela. Kezkati begiratu diogu eta “segi lasai” esan digu berak harmailen goiko aldetik. “Beste egunen batean ere eman zion” esan du kideren batek eta hautsaren ondorioa izan zitekeela esaten aritu dira, alergia ote dion. Nik “egia esan, kantxan badago hautsa” esan diet, gaur beste batzuetan baino nabarmenagoa delako zoruan.

Korroan jarrita hizketan aritu gara gai ezberdinen inguruan, ohiko moduan, Saioak “zesta puntan ibili nahi al duzue? Gaur Hernaniko arratsaldeko saioan ibili naiz” esan digu, gustura kontatu digu emakumeren bat ondo samar moldatu dela, eta hori esatearekin batera kotxera joan eta lau saski hartuta itzuli da. Gomazko pilota trinko pare bat ere hartu ditu, inork probatu nahi izanez gero.

Saskiak hartu eta eskuan lotu dituzte beste lau kideek eta nik “zaila zela oroitzen naiz, guk lizentziaturako lehen mailan probatu genuen eta eskuinez ia ez genuela asmatzen gogoratzen naiz” esan diet. Itsasok ere eskolan probatu zituztela esan du eta antzeko gogorapena duela. Hiru saski Ikaspilotakoak dira, berdeak eta belkro bidez lotzen direnak, eta laugarrena, berriz, soka bidez eskua larruzko eskularru antzeko baten barruan sartuta. Hau Gurutzek hartu du eta sokarik gabe dago, besotik alde egiten diola esan du eta Saioak “bai, hartzerakoan berandu ibili naiz, Lidek eraman ditu besteak” kontatu digu. Entrenatzailea eta neroni kontrakantxan geratu gara begira.

Saioak pilota indartsu samar bat ere atera du eta Itsasori luzatu dio hau probatzen has dadin. Aurretik, ordea, “nola egin behar da?” galdetu digute eta gorputz mugimenduen bidez “besoa ez eraman ondoren mugimendu osoa eginez ezker hormara, utzi aurrera begira, gorputza harmailetara norabidetu” esan diegu biok hankak eskuin aldera begira jartzearekin batera.

Itsasok pilota hartu du eta eskuarekin saskian sartu ondoren kantxan 3.koadroaren inguruan kokatu da eta besteok bera baino atzerago eta dezente eskuinerago jarri gara, segurtasun irizpideak aintzat hartuta. Lehen saiakeran Itsasok buelta osoa egin du eta pilota lurretik barrena tarrasean atzerantz irten da. Haren ondoren Gurutzek goitik beheranzko mugimendua egin du albokoa beharrean eta honi zuzenean lurrera joan zaio. Pilik egin du hirugarren saiakera eta honek ere ez du pilota frontisera bideratzen asmatu, Marianek bezala. Bigarren itzulian Itsasok asmatu du frontisera iristen goranzko mugimendua eginez eta guk txalo jo diogun bitartean berak bi besoak gora jasota ospatu du, irribarretsu. Kideak zesta puntako araudiaren gainean galdera batzuk egiten hasi dira, ea pauso kopurua edo hartu eta botatzeko mugimendua mugatuak dauden eta antzekoak. Hirugarren buelta bat egin dute eta Itsasok asmatu du oraingo honetan ere. Entrenatzaileak hori ikusi eta adarra jotzeko makina martxan jarrita “Bartzelonan badago nesken talde bat, hara joan zaitezke nahi izanez gero” esan dio eta Gurutzek “hori gu gero hara bisitan joateko aitzakia da” erantsi du aldamenetik irribarrez. Guk ere antzera erreakzionatu dugu.

Beste bizpahiru saiakera egin dituzte, Saioak eta nik ere bai, guk justu bada ere lortu dugu frontisera heltzea, eta nik baita saskian zuzenean sartzea ere. Orduantxe iritsi da Onintza eta zesta puntan probatu nahi al duen galdetu diote beste kideek, “guk oraintxe probatu dugu” esanez. Onintzak beldur aurpegia jarri du eta Saioak azaldu dio nola egin mugimendua. Pare bat saiakera egin eta asmatu ez duenean saskia utzi eta probaketa saiotxoa amaitutzat eman dugu.

20.10 dira jadanik eta “gurea pala da eta palan egin beharko dugu” esan du entrenatzaileak, motxilara hurbildu eta paletak ateratzen hastearekin batera. Itsasok, Onintzak eta hirurok izan ezik beste guztiek euren etxetik ekarritakoak hartu dituzte esku artean, zulodunak.

Paletak hartu ondoren pilotak banatzeari ekin dio entrenatzaileak eta binaka bana eman ondoren ezker hormaren aurka jarri gara piloteoaren bidez berotzeko lanak amaitzeko. Pilotek ikasturte amaierara arte iraungo ote duten galdetu du bakarren batek, batzuk ilerik gabe daude, goma ia bistan eta hauei ere nabari zaie ikasturte osoko jarduna. Bai, horixe!

Onintza eta Pili jarri dira ezkerrean (B.K. Lasto altxatzekoak libratuz), Gurutze eta Marian erdian eta Itsaso eta biok frontisetik gertuen. Hasi garenean Itsasok “orain zer arraroa den pala hartzea eskuinarekin” esan dit eta egia da hasieran eskuinarekin eustea arraro samarra egin zaidala niri ere, “ezkerrarekin aritu beharko gara” bota irriz aldamenetik.

Gu piloteatzen hasi garenean entrenatzailea zinta eskuan hartu eta lurrean kantxa gune ezberdinetan banatzen duten marrak egiten hasi da, urratsak kontatuz neurtuz. Jardun bat egin ondoren, 20.20 inguruan, “beno, etorri” esanez dei egin digu bil gaitezen. Onintza eta Pili ez dira ohartu, Gurutzeren senarra etorri da bisitan eta harekin hizketan ari dira, eta Saioak “ez esan, ez esan, ea konturatzen diren” esan digu eta halako batean Pili ohartu denean bildu dira guregana. Orain bai, ariketekin hasteko pronto gaude.

Ariketak

Hasi aurretik “orain konprobatuko dugu ikasturte honetan zehar zenbat aurreratu duzuen” esanez animatu nahi izan gaitu entrenatzaileak, aurreko zenbait saiotan landuriko egoerak errepikatuko ditugula adieraziz. Ondoren zehazturiko bi guneetako eginbeharrak zein diren azaldu digu jokatzeko hasi aurretik.

1. Txokotan binaka, bikoteko bizitza batekin. Kide batek bi kolpe egindakoan kanpora irtengo da eta kontrakantxan dagoena sartuko da barrura.

Ariketa hau azaldu ondoren esan digu “horrela erabakiko dugu zein bi bikote hasiko diren partidua jokatzeko frontisean eta zein erdian” (B.K. gaur ez du erreboteko eremuan marrarik jarri, lasto altxatzaileak dabilzalako bertan).


Egoera honekin hasi aurretik nahasmen handi samarra sortu da, bakarren batek nola jokatuko dugun ez du oso argi ulertu lehenengo azalpenean, baina bigarrenetan baietz dirudi, beraz, hasteko moduan gara. Bikoteak egiteko elkarrekin jarri gaitu aurrez beroketan pilotatzen batera aritu garen moduan, Pili-Onintza, Gurutze-Marian eta Itsaso-ni. Nik kideari esan diot sartzeko eta Gurutze, Onintza eta Itsaso hasi dira kantxan.

Jokatzeko hasi eta berehala zalantzako pilotakada bat izan da, Onintzak jo eta besteek ez dute erantzun eta hori ikusita entrenatzaileak “etorri Onintza, zuek ia aurreko eremuan hasiko zarete” esanez dei egin dio. Besteek elkarren aurka jokatuko dute eta galtzaileak izango da saioan erdiko eremuan hasiko den bikoa. Gurutze eta Itsaso zeuden barruan eta kolpe kopuruak eta leku berera botatzeak nahaspilaren bat eragin badu ere azkenean Itsasok huts egin duenez gu hasi gara atzean.

2. 2:2 eta 1:1 egoeran, bi eremutan.

a) Frontisa. 2:2, kantxan 3 gune, jarraian ezin du berdinean jo pilotak.

b) Erdian. 1:1 horman hiru gune zehaztuta, jarraian ezin du berdinean jo pilotak



Aurrean elkarren aurka jokatzen hasi dira Marian-Gurutze eta Onintza-Pili eta atzeko eremuan, berriz, Itsaso eta biok.

Aurrean pilotakada edo paletakada bat izan dela ohartu naiz atzetik begira, ez dakit ez ote dion Onintzak Mariani eman, jokoaren etenda Saioa kantxa barruan ikusi baitut. Hala ere, ez dirudi ezer larririk izan denik, berriro ere ekin diotelako jardunari.

Lasto altxatzaileek ere lehenengo moduan jarraitzen dute, altxaldiak kontatu eta elkar animatuz. Lau lagun daude jadanik, txandaka dihardutenak.

Erdian jokoaren ez dela oso erraza esan diot Itsasori nik eta “onena marratik gora eta ziur nora joan den ez dakizun pilotakada horiek dira, ondoren nahi duzun lekura bota dezakezulako”. Niri grazia egin dit azalpenak, ni sekula aukera horretan pentsatzen jarri gabea bainintzen une honetara arte (B.K. Aberasgarria iruditzen zait interpretazio ezberdinak ematea eta aukera ezberdinak ikustea bi kidek ariketa berari). Ondoren

nahiko lasai jarraitu dugu hitzak eta paletakadak elkartrukatuz, tarteka alboetako marrak igaro eta zabaleran neurririk hartu ezinda.

Bost minutuko tartea igaro denean entrenatzaileak aurrekoei partida amaitu dutela esan die eta Gurutze eta Marian etorri dira atzera, galtzaileak izan baitira. Hauek aurrez partida jokatzeko aritu direnean txalo hotsen bat etorri zaigu euren eremutik erdi ingurura eta entrenatzailea Onintzaren horma bikoren bat goraiatzeko ikustea iruditu zait. Gustura sumatu ditut kideak zehar begiratu jarraitu ahal izan dudana apur horretan, saltsan murgilduta.

2. txandako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Onintza-Pili eta Itsaso-ni

Erdian: Gurutze eta Marian

Partidari ekin aurretik kokapenak zehaztea dagokigu eta Itsaso eta Pili atzelari eta Onintza eta biok aurrelari postuetan jarrita hasi gara jokatzeko. Partidari ekin eta markagailuan 4-2 hartu dugu aurrea guk, baina nik konfiantza gehiegirekin huts nabarmen bat egin dut oso, politegia izango zen antza, eta “bronka bota” esan diot Itsasori. Honek irribarrez erantzun dit eta azkenean markagailuan amaierara arte berdinduta jardun dugu, azken tantoan nik txapa jo eta tanto bakarragatik 7-6 galdu ondoren berriro ere erdiko gunera itzuliz.

3.txandan berriro ere hasierako egoera errepikatu da. Aurrean Onintza-Pili eta Gurutze-Marian eta erdian Itsaso eta biok.

Errotazio honetan askoz ere lasaiago aritu gara lehen baino erdiko gunean, baldintzak betetzen saiatu arren erritmo dezente lasaiagoan (B.K. Trantsizio gunea iruditzen zait askotan erdiko hau, aurreko eremurako itzaroteko lekua hein batean). Gu bertan jardun garen bitartean lasto altxatzaileak geldi eta mutil baten inguruan haren eskuari begira ikusi ditugu, min hartu duen tankera osoa zuen. Halako batean trasteak jaso eta frontoetik kanporako bidea hartu du mutil laukoteak.

4.txanda iritsi da bost minutuko aurreko laukotearen jardunaren amaieran eta “berriz ere zuek?” galdetu diet Gurutze eta Mariani erdira beraiek zetoze ikustean. Beraz, Onintza eta Pili partidari galdu gabe jarraitzen dute frontiseko eremuan bikotekako partidekin hasi garenetik.

Frontiseko gunera iristean Itsaso aurrean eta ni atzean jarri gara, aurreko partidako postuak aldatuz, eta Pili aldamenetik “orain lan pixka bat egin beharko duzu, Uxue” esan dit irribarrez. Nik “guk ez, ni lana zuei ematen saiatuko naiz” erantzun diot modu berean eta hitz pare hori elkarrekin trukatu ondoren hasi gara ekinean nor baino nor bi bikoteak.

Onintza moztu saiatzen da, aurrean jokaldiak egiteko intentzioz aritzen da askotan, eta dezente ikasi duela esan diot nik aldamenetik. Berak zerbait antzeman beharra dagoela esanez erantzun dit eta Saioak ere “beno, hiru urteren ondoren” esanez parte hartu nahi izan du. Giro dezentea daukagu eta konfiantza maila bat ere nabari da kideon artean. Partida honetan nik lortu ditut tanto batzuk eta Itsasok, berriz, ez dut uste sake bat baino gehiago zuzen ateratzerik lortu duenik, asko izan baititu paletaren ertzarekin jo eta larritasun dezentearekin kantxan sartutakoak. Hortik aurrera sakea ateratzera zihoan

bakoitzean barrez hasi da bera eta Saioak botea nola ematea komeni den esanez lagundu nahi izan dio. Azkenean guk lortu dugu partida irabaztea eta arratsean lehenengoz Onintza eta Pili hartu dute erdiko gunerako bidea, “bada garaia” esanez Onintzak.

Guneak oso ongi errespetatu ditugu saioan zehar eta entrenatzaileak ere “aurrerapen egokia jarriko nizueke notetan” esanez jardun die emakumeei. Piloteoak nahiko luzeak izan dira eta intentzio maila ere igo da lehenengo egunetatik, argi samar, gainera.

5.txandan hasteko Gurutze eta Marian etorri dira erdiko eremutik aurrera eta Itsasok “oraindik ere marrekin jokatu behar al dugu?” galde egin dio kontrakantxan epaile lanak eginez ari den entrenatzaileari. Honek “bai, zuek elkarren aurka ez duzue jokatu oraindik” esan dio eta aurkariei pilota eman eta gure kokapenak aldatu ondoren, Itsaso atzera eta ni aurrera pasaz, hasi gara partidari. Marian ere atzean jarri da eta aurrean nire alboan Gurutze. Pili eta Saioa elkarrekin hizketan aritu dira kontrakantxako marraren aldamenen eta Onintzak frontoetik kanpora alde egin du norabait. Hala ari ginela Oihane igaro da goitik plaza aldera eta kasu egin digu. Bakarren batek esan dio “gaur kale” eta irribarrez baiezkoa egin du buruarekin.

Aurreko eremuko partidari giro onean aritu gara gu eta entrenatzailea hizketan aritu denez ez du markagailua oso zehatz kontatu. Tanto bat amaitzean, ordea, “4-2” esan du entrenatzaileak eta Gurutzek eta biok elkarri begiratu eta “beno, onartu egingo diogu” esanez barre egin dugu. Marianek nik beldurra ematen diodala esan du eta nik lasai egoteko esan diot, ez dudala inor jaten eta. Azkenean 6-3 irabazi dugu guk partida.

Partida hau amaitu ondoren entrenatzaileak lehen zergatik barre egin dugun galdetu digu eta “zuk 4-2 esan duzunean 5-2 edo 6-2 joango ginen, baina Uxue ama Kandida da eta ez da kexatu” erantzun dio Gurutzek barrez (B.K. Zer axolako dio ba markagailuan tanto bat gora edo behera izateak?).

Saioa marrak kentzen hasi da, nik lagundu egin diot, 20.52an eta aurrean beste egoera bat burutzea proposatu digu saioa amaitzeko entrenatzaileak.

3. Frontisean 2:2 partida baldintzarik gabe, 6 tantora. Erdiko eremuko egoera mantendu egingo da aurrekoa amaitu bitartean han diharduen bikoarentzat.

Aurreko partidua guk irabazi dugunez Gurutze eta Marian bidali ditu erdiko eremura entrenatzaileak eta aurrera Onintza-Pili bikoia etorri zaigu. Itsaso eta Onintza kokatu dira atzeko eremuan eta Pili eta biok aurrelari postuetan. Partida jokatzen hasi eta erritmo bizi samarrean tanto piloteatu eta lehiatuak osatu ditugu oso lauron artean, nik uneren batean aurkariak dantzan jarri arren. 6-3 amaitu dugu eta beraz beste bikotearen zain jarri gara aurreko eremuan.

Bikotekako azken partidari Gurutze eta Marianen aurka aritu gara berriro ere eta kasu honetan kokapenak aldatuta Itsaso eta Marian aurrelari postuan eta Gurutze eta biok atzelari hasi gara. Partidari zehar kilimak egin dizkiet jokaldiren batean edo bestean eta bat erantzun ezinda geratu denean “alu hau, erantzun egin behar nuen, iritsi, jo egingo dut” esan dit albotik irribarrez, brometan keinua eginez, eta nik berdin erantzun diot, irri zabal bat ezipainetan.

21.04 dira eta gaurko saioa gure azken partidarekin batera eman du amaitutzat entrenatzaileak. 6-3 edo antzeko emaitzarekin amaitu dugu oraingoa ere eta kontrakantxara hurbildu gara paletak utzi eta luzaketa ariketak egitera.

Kontrakantxan alergien inguruan aritu dira hizketan emakumeak, Marianek saio hasieran izan duenaren hariari tiraka, eta batek katuari diola, besteak hautsari, akaroai eta halakoak esan dituzte, kideen artean asma duenik ere badela adieraziz. Nik “nik ez diot ezeri dakidanez behintzat” erantzun diet.

Hizketaldia eta luzaketa ariketak ez dira oso luzeak izan. Gurutzek “ni datorren astean ez naiz etorriko” esan digu, bere urtebetetzea omen, eta bi aste barru azken egunean berriro ere elkarrekin ogitartekoa janez ikasturtea amaitzerakoan postrea berak ekarriko duela esan du.

Elkar “datorren astera arte, aste ona pasa” esanez agurtu dugu eta beti bezala Gurutze, Itsaso, Saioa eta ni neu irten gara azkenak eskaileretan gora.

Frontoi ataria

Laukotean ere ez dugu hitz gehiegi egin gaur etxera abiatu aurretik, iragan asteburuan bi kiderik gazteenak parrandan inguru berean ibili zirela jakiteaz gain. Saioak Itsasori urrutira ikusi zuela esan dio, Anoetako festetan, baina plaza ez zeharkatzearen ez ziola kasurik egin. Horren harira plazaren dimentsioen inguruan adar jotzeren bat egin dugu Gurutze eta bion artean.

Guk ere elkar agurtu eta etxerako bidea hartu dugu. 21.10 dira eta grabagailua, kotxeko motorra eta lepo gaineko prozesadorea abiarazi orduko jarri naiz Zumarragara bidean.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaurko saiora nire buruarekin nahiko lasai joan naiz, bakean-edo, lanak egiteke, baina amorrazio handirik gabe, urduritasun neurtu samarrarekin. Gainera, lortu dut ordu eta erdi horretan buru-kantsazioak uxatzea, beraz, terapia moduan balio izan dit niri gaurkoak ere. Beste askotan ere izan du erlaxatze dosi bat emakume arteko jardunak niretzat.

Gaur jokamolde berri batean, zesta puntan, probatu dugu eta emakumeek lotsa edo asmatu ezinari aurre nola egin nahi zioten ikustea tokatu zait, asmatzen ez zutenean barre egin arren ez baitira gehiegi ere saiatu, bai baitzekiten zenbaitetan ez zutela helbururik lortuko. Entrenatzailea eta ni neu ere saiatu gara eta ikusi dute ez garela eurak baino askoz ere iaioagoak. Eurentzat aberasgarria da nire ustez beste kide batek zenbaitetan abildade handiagoa izan dezakeela ikustea eta gustura sumatu ditut hori ikusita.

Ikasturtearen hasieratik honainoko aldea nabaritzen zaie ia kide gehienei, batez ere tantoen iraupena, erritmoa eta intentzioa asko ugaritu direla nabarmena baita. Eurek ere gustura sumatzen ditut horren harira.

Nekea sumatzen dut gorputzean eta buruan, ikasturte amaierak dakarrena. Azken bi saioak falta dira, ez gehiago eta ez gutxiago, eta beraz, ea beldurrak eta mamuak uxatu

eta azken hiru ordu praktikoetan gozatzea lortzen dudan, ez baitakit berriz ere hauekin eta egoera honetan jarduteko aukerarik izango dudan. Barruan zerbaitek ezetz esaten dit, sekula jakiten ez den arren.

Asteko saioak amaitu ditut, hurrengo bietan ere bina egingo ditut, baina ez joan-
etorriak, bihar eta etzi Usurbilera joatekotan naizelako, bilera bat, kideen arteko partida,
elkarrizketak eta ikasturte amaierako afaria direla eta. Ez dut oraindik erabateko agurrik
izango, beraz. Horrek pozten nau, oso bizipen atsegin eta politak izan ditudalako zortzi
hilabete hauetan zehar emakumeekin elkartrukean. Horregatik bakarrik merezi du
askotan (b)erotuta eta itota ibiltzeak, bai horixe!

“Lau, lau, lau, sardina bakalau”

Paleta saioetako jardunean hurrengo bi astean egingo ditudan laurak baino ez zaizkio
geratzen nire behatzaile lanari. Beraz, horrek hirurogeita hemeretzi burutu ditudala esan
nahi du. Bada zerbait, ala? Ez da nire lana saioekin batera amaitu, ordea, hor beste fase
bati ekin beharko diot, ikasturte bateko epea bezain zehatza izango ez dena, eta lehen
bidean edo pilotalekuetan pasatako ordu kopuru bera edo dezente handiagoa joango zait
ziurrenik ordenagailuarekin borrokan.

Aste honetan eta hurrengoetan saio bat gutxiago izateak berez bidaiak murriztea ere
eragin beharko zidakeen, baina, bilera eta bestelakoak tarteko ez da halakorik izango
egunotan. Hala ere, ohitua nago eta emakumeekin elkartzeko izango dela jakiteak poza
ematen dit, bidaiatzeko alferra baino esponentzialki handiagoa, gainera.

Aisialdiko ikastaroetako kideen elkarrizketekin jarraitu eta begiz joriko pare bat
kongresutara zer eta nola bidaltzea komeni den aztertzea ere badagokigu hurrengo
bizpahiru egunetan, txosten bati zuzenketak egin eta berriro ere erantzun zain uzteko
bidea egitearekin batera. Beraz, datorrena arrapaladan etorriko dela badakidanez ea ez
nauen lan zamak azpian mazpiltzen. Lortuko ote dut?!

31. astea. UDA ATE JOKA, GELDITZEAR DA PILOTA

Ekaineko bigarren aste osoa ere iritsi da, egunak ziztu bizian doaz bata bestearen segidan, eta udazkenaren hasieran ekindako bidea bere azken geltokitik geroz eta hurbilago dago, udaren ateetan egingo baitut kantxako azken ekinaldia. Bai, hau azkenaurreko astea da eta lau saio baino ez zaizkit geratzen emakumeen artean paleta eskuan hartu eta saltsan, giro paregabea, aritzeko.

Hogeita hamaikagarren kontakizuna da hau, auskalo zenbat hitz, koma, puntu eta galdera ikur joan diren aurreko idatzietan, baina oraindik azkenak jartzeko ditut, beraz, hastera noa!

Bezperaren biharamuna

Astelehena iritsi da berriro ere, aste berri bat ere bai, beraz, eta neke fisiko handi samarra daukat pilatuta. Buruan ere ez daukat freskura izugarririk, baina, ikasturtearen azken txanpan gabiltza eta ez dut uste harritzekoa denik. Are gehiago bezperan nire lehen mendi lasterketan, Ereñotzuko II. Mendi Lasterketan, barruan nituenak eman eta bikietako arazo batekin borrokan aritu ondoren. Beraz, gihar uzkurdura bat izango dut lagun aste honetan zehar, gutxienez.

Goizean goiz esnatu, prestatu eta trasteak bizkarrean hartuta abiatu naiz etxe atarira, kotxean sartu eta lasai-lasai eginez saiorako bidaia. Azken boladan garaiz abiatu ohi naiz, baina zertan itxarongo dut bost-hamar minutuan etxean ondoren ibilbide bera egiteko? Ez diot zentzu handirik aurkitzen! Gaur burutazioetan igerian etorri naiz, giro goibela eta euria lagun, irratia eta musika itzalita. Astea ahalik baretuen hasi nahi dut, inguruan burrundara handirik izan gabe antza.

Kiroldegiko sarrera

9.20an iritsi naiz, kotxea apropos ohi baino urrunago utzita, kiroldegi gaineko zuzengunearen amaieran, eskailera ahalik gutxien igo eta jaitsi ditzadan. Izan ere, eskuineko zango sagarrean sumatzen dut traba nabarmen samar bat eta pausuak ez ditut erabat zuzen ematen, oina erabat indartsu bermatzean sumatzen dudana mina ekidin nahian.

Rakel eta biok ia aldi berean iritsi gara gaur sarrerara eta honek “goiz zabilta” esanez egin dit lehen agurra. Nik “etxean bost edo hamar minutuan zain egoteak ez dauka zentzurik eta presarik gabe etorri ohi naiz” erantzun diot. Ondoren gaurko giroa atzokoa baino atseginagoa dela esan diot eta honek bezperan goiza nahiko ona joan zela erantzun dit. Nik esan diot mendi lasterketan irten nintzela, Hernaniko lurretan ibili ginen, gainera, eta horren inguruan jardun dugu apur batean nik esperientziaren berri kontatu eta hura adi-adi nik esanikoak jarraituz. Hala ari ginela Ainararen senarra pasa da eta “gaur ez da etorriko, lanean da” esan digu kiroldegi barrura kirol pixka bat egitera zihoala esatearekin batera. Harekin hitz pare bat trukatu eta kide gehiagoren zain jarraitu dugu guk, atearen kanpoko aldetik. Irati izan da iristen hurrengoa, nahiko azkar, eta honekin ere hizketan hasi gara. Saioa bera ere nahiko goiz iritsi da, 9.30erako bai, eta “zein gutxi gauden!” esan du Iratik. Rakelek “askotan hogeit gutxiagoetan hasten dira azaltzen” erantzun du eta ia une berean laugarren kidea iritsi da: Gemma. Hau Iratiarekin hasi da hizketan, ostiralean Tilos-7 Txapelketako finalak jokatu zirelako eta

ondoren parte hartzaileen afaria egin zutelako. Bertan ederki ibili zirela esan dute, ondoren parranda ere egin zutela, goizaldeko ordu txikiak arte, eta horrela ari direla barrura abiatzea erabaki dugu. Saioari aurrez “gaur ez dakit saio osoa egingo dudan, giharretako arazoekin nabil” esan diot bezperako lasterketako xehetasun nagusienak ematearekin batera.

Tornutik aurrera sartzen hasi gara txandan-txandan gu eta Gemma galdu dugu atezaindegian, eskailerak jaitsi ondoren Iratik “Gemma non dago?” galdetu baitu. Gure martxan egin dugu azken pasabide aurreko tinbrera iritsi arteko bidea. Orduan jo eta jo aritu eta hirugarrenean ireki dute atea. Atzetik kideren bat etorriko dela badakidanez nik ateari eusten geratuko naizela esan diet eta beste hirurak pilotalekura bidean jarri dira. Une dezentean jarraitu dut han zain, baina ohartu naiz behetik ahots batzuk entzuten ditudala eta kide bat baino gehiago direla datozenak. Han azaldu dira Ines, Miren, Gemma eta Zuriñe. Azken honi ea beste inor ba ote datorren galdetu diot eta “ez, ez, itxi dezakezu” erantzun dit. Alaba ez ote datorren galdetu diot eta lanera joana dela esan dit, datorren ikasturterako musika sustatzera Oiartzunera.

Azken metroak beste hiru kideen atzetik egin eta azken atearen parean garbitzaileekin gurutzatu ondoren iritsi gara frontoira.

Pilotalekua

9.40 inguru dira eta gu iristerako trasteak utzi eta zain jarrita daude Rakel, Irati eta entrenatzailea bera. Guk motxila eta trasteak harmailetako lehen aulkietan utzi ditugu eta ohi bezala ia inkontzienteki korro batean bildu gara, hizketan hasiz (edo jarraituz). Tilos-7 Txapelketako finalaz galdetu diogu Mireni, berak jokatu baitzuen eta besteak ere ikusten aritu zirenez horren gainean hasi gara. Kideak “jendeak ez dudala korrikarik egiten esan zidan, baita semeak ere” aitortu digu eta ondoren “hori hemengoa ere bada” erantsi du. Baietz erantzun diogu guk, korrika gutxi egiten duela, gutxiegi mugitzen dela askotan. Partidaren gaineko xehetasunak eman dizkigute Saioa eta bioi ondoren, nolakoa izan zen eta bakoitza nola aritu zen eta Gemmak esan du “batzuk harrিতa zeuden Mirenen adinarekin nola moldatzen den ikusita”. 25-18 galdu omen zuten gaztetxo batzuen aurka, zeinak Hernaniko pilota eskolan arituak, edo bakarren bat oraindik dabilena, ziren. Hala ere, apur bat gehiago asmatu izan balute irabazteko modukoa zutela esanez amaitu dute emakumeek.

9.45 pasatxo dira nire erlojuaren arabera eta “ez zarete korrika egin gabe libratuko” esan digu entrenatzaileak. “Zuk doble egin beharko zenuke” esan dio ahizpari Inesek, aldamenetik adarra joz. Saioak “nik ere korrika egingo dut gaur” esan eta zortziok ekin diogu hiru itzuliko ibiliari, saioari kostata bada ere hasiera emanez. Bai alderdi fisikoaren lanketari bederen.

Beroketa

Korrika hasi garenean ni atze samarrean joan naiz eta Miren eta Inesekin bezperako lasterketaz hasi naiz. Lehenak bertan izan zela ikusten esan dit, baina elkartera joan zirela ondoren zerbait hartzera eta jakin izan balu geratuko zela ni helmugaratzen ikusi arte. Gustura ibili nintzela kontatu diet, giharretako arazoekin amaitu nuela, baina emaitza uste baino hobea izan zela eta penatxoa izan arren, ohorezko postuetatik 20”

eskasera amaitu nuelako bidean geldituta ibili banintzen ere, esperientzia atsegina izan zela eta badaukadala erronka berri bat datorren denboraldirako.

Ohi bezala korrika saioaren ondoren giltzaduretako mugimenduak egiteari ekin diogu, kasu honetan ere borobilean eta mingainak dantzatzuz. Rakelek Hernaniko errugbi elkarteak asteburuan antolaturiko garagardo festaren arrakasta azpimarratu du, arropa asko eta jatekoa berehala amaitu zitzaizkiela esan du, eta jende asko ibili zela esan dute emakume batek baino gehiagok. Pare batek eurek ez zirela ibili esan dute, baina izandako arrakastaz jakinaren gainean daudela.

Hitz eta pitz jarraitu dugu beste puska batean, besteak beste Gemmak bere semeari pilota eskolan gertaturiko gauza bat kontatu digu, arduradunarekin ez dagoela batere gustura adierazi du aldi berean, datorren ikasturteari begira lekuz aldatzea ere ari direla pentsatzen aitortuz. Nik elkarteko arduradunak ez ditudala oso begiko onartu diet eta Inesek “nik hori behin entzun nuen irratian hitz egiten eta lotsagabe bat iruditu zitzaidan” esan du. Haurrekin bazterketa egiten omen du, mailaren arabera onak sustatu eta gainerakoei jaramonik egin gabe askotan, eta halako kontuak kontatzen aritu dira.

Saioa gugandik apur bat urundu da eta begira geratu zaigu, 9.55ean “zer nahi duzue, aerobikeko klasea ematea, hizketan jarraitzea ala zer?” galdetuz. Orduan paletak motxilatik ateratzen hasia dela ikusi dut eta banaka-banaka banatzen hasi zaigu. Guk hartu eta ondoren “ea saioa osorik egin dezakedan ala ez” esan dut nik eta “ez egin, geratu koadernoan idazten” erantzun dit bakarren batek. Nik “hasi egingo naiz eta gero ikusiko dugu” erantzun diet eta horren ondoren berak ere paleta bat hartu du eskuan. Rakelek “begira, berak ere jokatu beharra dauka zure erruz” esan dit irribarrez, Saioarekin zortzikotea osatzen dugulako paletako jardunerako, kopuru bikoitia. Bestela ni hirukotean jar nazaketela esaten ere aritu dira.

Kontuak kontu, paletak banatu ondoren ezker hormaren aurka pilotatzeko esan digu entrenatzaileak, modu honetan: Irati eta Gemma, Rakel eta Miren, eta Zuriñe, Ines eta neroni erreboteko gunean.

Tartetxo batean aritu gara pilotakadak eta hitzak elkartrukatzuz hiru guneean. Guk ezkerrez jotzeko ohitura izan dugu tarte batean hizpide, Zuriñek Inesi “horrela jota ederki ematen diozu, hori konfiantza hartu artekoa da” erantzun baitio. Nik ere animatu nahi izan dut kidea eta berak “adin honekin ia ez dut segurtasunik lortuko” esanez erantzun digu, nahiz eta ezkerrean joandakoetan ezkerrez jo eta ez duen huts asko egiten (B.K. Badaude ezkerrez jotzeko segurtasunik ez dutenak, baina ez ez dakitelako; buruko kontua izango ote da batez ere?!).

10.10 inguruan denoi deitu digu kantzaren erdira entrenatzaileak “bale, etorri” esanez eta lehen ariketa azaldu digu jarraian, saioko hurrengo atalari hasiera emanez.

Ariketak

1. Txokotan bizitza banarekin. Kanporatutako ordenaren arabera osatuko dira bikoteak ondorengo partidetarako. Lehena azkenarekin eta modu horretan, ordenaren arabera, zehaztuko da nola aritu saioan zehar.

Hasi eta lehena huts egiten entrenatzailea bera izan da. Orduan kaleratua izan da eta kontrakantxan geratu da besteok nola gabiltzan begira. Nik esana dut “gaur ez dut korrikarik egingo” eta ezker aldean jarri naiz, hormatik gertu samar, airez sartu eta hanka ahalik gutxien behartu asmoz. Kaleratzen bigarrena Gemma izan da, zalantzazko pilota bat izan da bera eta biontzat, dejada bat txokoan, baina bera joango dela kanpora esan dit nik batean jartzea proposatu arren. Hurrengoa Zuriñe izan da eta haren atzetik Ines eta Miren, biak ere ezkerrez jo beharreko pilotakada batean huts egin ondoren. Azkeneko Rakel eta biok geratu gara eta “orain zer, korrika eginarazi behar dizut?” galdetu dit berak eta “bai, bai, ni ez naiz mugituko” erantzun diot nik aldamenetik. Lasai aritu naiz eta nahi gabe izan bada ere huts handi samarra egin eta pilota kontrakantxara bota dut azken tantoa jokatzen hasi eta nahiko azkar. Beraz, lehen jokoa amaitu ondoren modu honetan geratu dira saiorako bikoteak: Rakel-Saioa, Zuriñe-Irati, Miren-Ines eta Gemma-ni.

Bikoteak nola egin osatu ondoren berriro ere kantxan korrika egitearen inguruan hasi gara hizketan eta “zuek oso antzekoak zarete, alferrak” esan die Saioak Gemma eta Mireni. Azken honek “nik badakit kideak korrika egingo duela, beraz, zertarako mugituko naiz ni?!” esanez erantzun dio, irribarretsu. Ondoren “hala ere, honekin korrika gehiago egingo dut” esan du, alboan duen ahizpa seinalatuta eta honek “bai, nik korrika egiteko esaten diodalako” gaineratu du. Gemmak ere esan du berak badakiela kideak korrika egingo duela piloten bila eta horregatik ez dela mugitzen bera askotan, makala izaten dela halakoetan askotan. Nik “hori da kidearengan erabateko konfiantza izatea” erantsi dut erdi broman eta Saioak “kideak 100 metro egin behar baditu ere zuek ez egin 2 bada ez bada ere” esan die. Hizketaldia amaitutzat eman eta partida egoeretan hasteko moduan gara.

2. 2:2 partidak, baldintzarik gabe, frontisean eta errebotean. 5'ko iraupena izango dute.

Entrenatzaileak esan digu aurreko bikote garaileak bertan jarraituko duela galdu arte, ez dela gunez aldatuko, eta atzeko eremuko garailea izango dela hurrengo partidaren aurrera joateko aukera lortuko duena txandatzeetan.

1. txandako kokapenak entrenatzaileak zehaztu ditu eta honela aritu gara:

Frontisean: Saioa-Rakel eta Gemma-ni

Atzean: Ines-Miren eta Zuriñe-Irati

Gure kokapenak zehazteko “zu gutxiago mugituko zara eta jarri atzean” esan dit Gemmak eta ni ados nagoenez aurrelari kidea eta Rakel eta atzean Saioa eta biok kokatuta hasi gara bikotekako partidatxoan. Saioak badaki ez nagoela bete-betean fisikoki eta pilotakada asko bideratu dizkio Gemmari, hori ikusita “niri lasai bota” esateko beharra sentiaraziz nik. Berak baiezkua egin dit buruarekin, baina onbera izaten jarraitu du eta ez dit pilotakada gaizto ia bakar bat ere bota.

Tanto luze eta piloteatuak jokatu ditugu eta azkenean 5 minutuko tartea amaituta 4-2 irabazten amaitu dugu guk. Azken txanpan tartean aurkariak hutsak egin dituzte, Saioak batez ere, eta guk ez dugu pilota askorik galdu, beraz, berriro ere gune berean jarraituko dugu.

2. txandako kokapenak:

Frontisean: Ines-Miren eta Gemma-ni

Atzean: Saioa-Rakel eta Zuriñe-Irati

Gure kokapena mantendu egin dugu, nik atzean gutxiago behartuko baitut hanka. Hala ere, korrikaldiren bat edo beste egin dut eta izan da hanka bakarraren gainean jotako kolperen bat edo beste ere, bikietako tirakadak ekiditeko asmoz eta hanka erabat bermatzeak eragiten didan beldurra medio.

Nahi bezala hiruzpalau dejada egin ditut txokoan, Ines apur bat ernegarazi eta Mirenen irri eta algarak azaleratuz. 6-1 amaitu dugu, 5-0 gindoazela “Gemmari botako diot, honek denak eramaten dizkit, bat egin beharra geneukan” esanez Inesek. Tarteka “gaiztoa da hau” esan du eta nik irribarrez erantzun diot, “hori maitasun apur batekin esango zenidan, ezta?”. Badaukagu horrenbestearainoko konfiantza. Berak “urte osoan gordean izan eta orain azken egunetan ateratzen duzu barruko gaiztakeria hori” esanez erantzun dit ondoren eta irribarre egin dugu denok.

Nahiko erraz irabazi dugu partida honetan ere eta hurrengorako zein bikote etorriko zain geratu gara, atzeko eremukoei begira bi ahizpak atzera doazen bitartean.

3. txandako kokapenak:

Frontisean: Saioa-Rakel eta Gemma-ni

Atzean: Ines-Miren eta Zuriñe-Irati

Berriro ere hasierako laukotea elkartu gara, Zuriñe eta Iratik oraindik atzeko eremuan jarraitzen dute, beraz.

Partida orekatua izan da, tanto luze eta lehiatuak jokatu ditugu eta 5-4 galdu dugu guk berdinketa hausteko denbora tartea luzatuta. Kasu honetan lehenengo partidako kokapenak aldatuta aritu gara: atzean Rakel eta Gemma eta Saioa eta biok aurrean. Ni ez naiz ohi bezainbat mugitu, ordea, eta ez naute beste batzuetan bezainbeste behartu ere.

4. txandako kokapenak modu honetan geratu dira:

Frontisean: Saioa-Rakel eta Zuriñe-Irati

Atzean: Ines-Miren eta Gemma-ni

Saioan lehenengo aldiz atzetik aurrera egin dute Zuriñek eta Iratik eta aurretik atzera, aldiz, Gemmak eta biok. Atzera heldu garenean “zer, galdu egin al duzue? Ezin dut sinetsi!” esan digu Mirenek eta “bai, berdinketa hausteko tanto eta guzti” erantzun diot nik aldamenetik.

Jokatzen hasi eta ezker hormatik hurbil pilota batzuk jo ondoren “Zuriñek oso ondo baztertzen ditu” esan du Inesek eta hala berretsi du ahizpak ere. Asmatu duela horretan. Lehen ikasturtetik daude talde berean eta hobekuntza nabari zaiola ere esan dute, duen borondatea aipatuz.

Partidan zehar horma bikoak botatzeko, bestela gero jokaldiak ateratzea ezinezkoa dela esan diot gaur ere Inesi eta “galdu egiten dut, ordea” erantzun didanez “huts batengatik ez duzu ba etxea galduko?” esan diot nik albotik, tantoa amaitzeko jokaldiak egitera sarriagotan animatu nahian. Ohi baino gehiago bota ditu, hiruzpalau (B.K. Nik sekula ikusi diodan kopururik altuena izango da, ziurrenik). Bada zerbait.

Denbora tarte amaitu denean aurretik atzera Saioa eta Rakel datozela ikusi dugu eta “zer, galdu egin al duzue?” galdetu diet nik. Baietz erantzun eta kezka puntutxo batekin eskua aurpegira eraman du entrenatzaileak, ez duelako asmatzen erdi lotsatuta balego lez. Rakelek esan du “a zer eredia! Ez du bakar bat ere asmatzen”, irribarrea ezkutatu ezinda.

5. txandako egoera hau izan da:

Frontisean: Zuriñe-Irati eta Gemma-ni

Atzean: Ines-Miren eta Saioa-Rakel

“Aurrekoa irabazi egin dugu, nekatuta gaude eta orain agian irabazi egingo diguzue” esan dit Iratik aurreko eremura iritsi garenean. Bera eta Gemma jarri dira aurrelari postuetan eta Zuriñe eta ni neu atzerago, ezker hormatik hurbilen.

Hasi eta lehen tantoan ezker hormara itsatsitako pilotakada batekin lortu dute markagailuan aurrea hartzea gure aurkariek. Hori ikusita “orain presta zaituz!” bota dio Zuriñek bere kideari, nire erantzunaz beldur balitz bezala.

Saltsan gustura aritu gara, baina, une batean Iratik nik errespetua ematen diodala esan du. Aurrez ere gauza bera entzuna naiz bere ahotik eta nik lasai egoteko esan izan diot, baina urduri jartzen da tarteka “zer egingo duzu?” galdetuz ni pilota jotzera noanean (B.K. Nik uste talde guztietan esan didatela uneren batean urduritasun edo ezjakintasun horren gainean zerbait).

Partida amaitu dugunean beste errotazio bat egin dugu eta honela osatu dugu 6. txanda:

Frontisean: Saioa-Rakel eta Gemma-ni

Atzean: Ines-Miren eta Zuriñe-Irati

Kideak atzean elkartu direnean “Uxuek dantzan jartzen gaitu” esanez aritu da laukotea eta horren gainean hizketan hasi dira. Aurrean, berriz, Gemmak bakarren batek finalaren aurretik eginiko mentalizatze eta kontzentrazioen berri eman digu eta “hori gehitxokoa izango da” eta “irabazi egingo zuen, ala?” bota dizkiogu hurrenez hurren bai nik eta bai Saioak ere.

Aurrean hizketan aritu gara partida jokatzeari ekin aurretik eta Mirenek atzeko eremutik, saltsan murgilduta, “benga, Saioa!” esan dio irribarrez, erlojuko atzera kontaketa martxan jar zezan partidei ekiteko. Izan ere, saioan zehar aldaketaren batean edo bestean entrenatzaileak kargu hartu eta aipamenean bat egin digu has gintezen laukoteetan hizketan korapilatu aurretik.

Aurrelari Saioa eta Gemma hasi dira eta atzelari Rakel eta biok. Saioak ez du bere egunik onena, huts batzuk egin ditu pilota kontrakantxara edo txapatik behera bideratuz, eta ohartuta nagoenez “animo, egun guztiak ez dira berdinak izaten” esanez animatu nahi izan dut aldamenetik. Huts dezente egin ditu gaur saioan zehar eta Rakelek “hau da eredia, ni ari natzaio erakusten” esan du pare bat aldiz, irribarretsu. Berak ikasturte hasieratik hona egin duen hobekuntza nabarmendu beharrekoa da, borondate handia eta jardun saiatua izatearen poderioz. Bera ere gustura sumatzen da saioetan zehar eta beste segurtasun puntutxo bat ere badu pilota jotzerakoan.

10.53 dira aurreko partida amaitu dugunean eta entrenatzaileak emakume guztioi dei egin digu berriro ere kantxan 4aren inguruan bil gintezen. “Uxueri atsedena emango diogu eta nik ere ez dut jokatu” esanez hasi da eta Gemmak hori entzutean “onak deskantsatzera, beraz” esan du irribarrez. Azken ariketa bat egingo dute nire sei kideek. Ni, bitartean, kontrakantxan luzaketak egiten hasi naiz, uzkurdua gehiagora joan ez dakidan eta giharrak lasaitzen saiatuz (B.K. Ez nau gehiegi penatu azken egoeran parte ez hartzeak, egia esan).

3. 3:3 partida, 6 tantora. Kantxan bikoteka egongo dira eta kide bakoitzak bi kolpe egitean aldaketa egingo dute kantxako eta kontrakantxakoen artean.

Taldeak osatzeko batean Ines, Irati eta Rakel jarri ditu elkarrekin entrenatzaileak eta bestean Zuriñe, Miren eta Gemma. Hasieran kostatzen zaio bakarren bati dinamika ulertzea, baina ekin diote jokatzeari.

Saioa eta biok elkarren aldamenean gaude kontrakantxan eta “asteburuko garagardoak orain botatzeko dauzkat” esan dit entrenatzaileak, nik ea parranda handia egin zuten galdetuz. Baietz erantzun dit, ongi ibili zirela. Inesek ere entzun du eta “nik atzoko sagardoa bota dut gaurko saioan” esan dio Saioari irribarrez.

Partida berdindu samarra izan da hirukotekakoa eta aldaketak egitean zalantzaren bat izan badute ere, batzuetan oso zaila da kantxara sartu eta aurkariak kolpea intentzios eginez gero pilota erantzutera iristea, ederki moldatu dira eta gustura aritu dira emakumeak. Azkenean 6 tantora iritsi dira. Hortaz, amaitu dute gaurko paletako jarduna.

11.01 dira eta kontrakantxan paletak utzi eta luzaketaren bat egin bitartean hitz egiteari ekin diote. Ez dakit nondik bueltan, baina erretzeaz hasi dira. Pare batek lehen erretzaileak zirela esan dute, asko erretakoak ere bai, beste zenbaitek ezin dutela eurek kerik irentsi eta horren gainean aritu dira. Nik hanketako eta besoetako hainbat luzaketa egiteko aprobetxatu dut tartea eta trasteak jasotzera joan naiz besteekin batera, motxila bizkarrean hartu eta poltsa ere soinean jantzita lanari jarraipena eman asmoz kanporako bidea hartuz.

Kiroldegiko sarrera

11.05ean irten gara aldageletako pasabidera bidean pilotalekutik, gaur inork ere ez du aurretik alde egin, eta gimnasioan jende asko dabilela esanda bertan korrika aritzeak aspergarria behar duela esan dit Inesek aldamenetik. Nik “ni korrikan daramatzadan urte guztietan behin joan naiz, ez zait gustatzen zintan ibiltzea, nahiago dut ondo jantzi eta kanpora ateratzea” esan diot eta Saioak “ni neguan dezentetan ibiltzen naiz” jakinarazi digu. Hizketan eta taldean egin dugu kanporako bidea ere, datorren astekoa azken saioa dela oroitzuz (B.K. Niri tristura puntutxo bat pizten dit horrek barrenean) eta afaria 24an non eta nola egin datorren astean antolatzekotan geratuta.

Miren agurtu dugu aldageletan eta beste zazpiok elkarrekin egin dugu kiroldegitik kanporako bidea, tornuaren inguruan “aste ona pasa eta astelehenera arte” esanez elkarri. Saioa eta Gemmarekin beste hitz pare bat egin eta lehenarekin saioen amaieraz iritziak trukatu ondoren, nik pena ematen didala esan diot eta berak “nik ez dut uste penarik hartuko dudarik, atsedena behar dut” bota du. Ondoren “noski, zu ez zara

egongo datorren urtean gehiago” esan dit eta “ez, eta horrek pena ematen dit, saioetan ongi pasa eta giro oso onean aritu naizelako bai emakumeekin eta baita zuekin ere”. Hizketaldia gehiago luzatu aurretik berak kotxerako bidea hartu du eta nik lasai-lasai eskaileretan gorakoa, liburutegira abiatuz.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Gaur kopuru polita bildu gara saio dinamikoa osatzeko, zortzi lagun, une oro jokoan aritu baikara, tarteka hitzak ere elkartrukatuz pilotakadekin batera.

Fisikoki mugatuta egon arren saio osoa osatu dut eta ez dut uste gehiegi eragin duenik gure dinamikan, kideek kezka puntu bat agertu arren eta laguntzeko borondatea ere bai. Adibidez, Gemmak nirekin aritu denean ohikoa duena baino pilotakada gehiagori erantzun die berak eta Saioaren aurka jokatzeari tokatu zaigunean honek ere ez dizkit pilotakada gehiegi bota, ezta hain erritmo bizian ere.

Bero egiten zuen pilotalekuan gaur ere, sabaia berotuta dago eta bat bat baino gehiago, ia denok, aritu gara ur botilara hurbildu eta tragoak joz, sargori egiten baitu azkenerako mugimenduan aurrera eta atzera ibiliz gero.

Azken saioa baino ez zait falta Hernanin, afariarekin batera, snif, snif. Ea datorren asteko despedida nolakoa izaten den eta zer aho zapore uzten didan!

Emakumea borrokalari

Asteko bigarren eguna eta azken saioa egokitu zaizkit San Antonio bezperan, aurreko asteko ildoari jarraituz, maiatzean amaitu nituelako Usurbilekikoak. Beraz, ia hasterako amaituko dut kantxako lanarekin, saioetako oharrekin beste egun pare bat emango ditudala badakidan arren. Gaur, gainera, eguna ia bere osotasunean pantaila aurrean eta ditudan zeregin andana horietako batzuei helduta igaro dut, arratsaldean haize pixka bat hartzeko atera dudan ordubetea izan ezik.

Presaka eta korrika egin dut Zizurkilerako joaneko bidaia, arratsaldeko zazpietako kanpai hotsak etxeko sukaldean entzunda, oraindik ere trasteak hartu eta eskaileretan behera abiatzeke. Izan ere, gaur saioa amaitu ondoren aisialdiko ikastaroetako 9. elkarrizketa egiteko hitzordua zehaztua dut eta gidoia ere hartu behar izan dut. Sei bat minutu beranduago jarri dut martxan autoko motorra eta erlojuari zeharka begiratuaz egin dut handik aurrerako errepideko tartea, saiora zenbateko atzerapenarekin iritsiko naizen kalkulatu asmoz, ahalik eta minuturik gutxien izan zitezen saiatuz. Azkenean 19.35ean heldu naiz astearteroko hitzordu ingurura, baina gaur ohi baino leku gutxiago topatu dut autoa aparkatzeko eta ohi baino urrunago joan behar izan dut. Hala ere, pare bat minutuan pilotalekuan nintzen, herria ez baita oso handia.

Pilotaleku ataria

Autoan paretik lehen aldiz igaro naizenean ikusi dut Itsaso eta entrenatzailea dagoeneko hizketan ari zirela ate ondoan. Ohi bezala, nahiko antzekoa izan da iritsiera ordena azkenaurreko saioan ere. Eurengana hurbildu naizenean “Uxue gaur berandu zatoz eta hori dezentekoa da zuretzat” esan dit entrenatzaileak erdi irribarrez eta “bai, eta gainera neka-neka eginda nator” erantzun diot. Ondoren datorren astelehen goizeko saiorako

niki bat eramateko eskatu dit, Emakumea Pilotarikoa, mezua bidali diela beste emakumeei, baina ni ez omen nauka euren zerrendan sartuta eta “gogoratzen banaiz eramango dut” esanez erantzun diot. Irribarre egin eta besteren batek ere gauza bera erantzun diola esan dit. Ondoren “zer da hau?” edo horrelakoren bat ateratzen zait niri eta saturatuta nagoela esaten hasi naiz, saioen amaieraren ondoren denboraldi baterako paletan aritzeko gogo handiegirik ez zaidala geratuko adieraziz.

Oihane iritsi da 19.40an, zerbait jaten ari da, eta “arratsalde on eta on egin” batekin agurtu dut kidea. Berak “eskerrik asko” esanez erantzun dit eta hizketan jarraitu dugu laukotean. Gurutze ikusi duela esan du, tarta batekin, eta datorren asteko afarian postrea bere kontu izango dela ere esan omen dio. Gaur urtebetetzea zuela esan zigan aurreko astean eta ez zela saiora etorriko jakinaren gainean jarri gintuen. Hitz eta pitz mingainak dantzatzen aritu garen bitartean Saioak esan du datorren astetik aurrera lana eta hondartzako egonaldiak uztartzen saiatuko dela Donostiara doala aprobetxatuz, besteak beste. Nik aprobetxatzeko esan diot, nik ahal dudala abuztuan hartuko dudala atsedenerako tartea. Datorren astekoa azken saioa dela ere ibili dugu ahotan, ogitartekoak jateko plana egina baitugu.

Oihane hasi da ondoren hizketan, udal zinegotzia da, eta “datorren kurtsorako hasi dira berriro ere ostiarenak jotzen” bota du lehenbizi, “aurreko astean kirol zinegotziak esan zidan Real Sociadadekoek eskatu zutela astearte eta ostegunetan frontoia arratsaldeko zortzietatik hamarretara” esanez jarraituz. “Hitz egingo dugu erantzun nion nik, baina berak egintzat ematen ote zuen iruditu zitzaidan” ere erantsi du. Bertan gaudenok muturrak okertu ditugu eta “aurten ere hala al gara? Hiru urte daramatzagu ordutegi berean eta iruditzen zait errespetatu egin beharko gintuzketela”. Orduan jakin dut urtero gauza bera gertatzen zaiela, iaz ere bazutela gorabeheraren bat pilota elkartearekin eta ordutegiarekin, azkenean udalak babestu omen zituen. Ez dakite oso garbi zein den proposamena, baina Zizurkilgo futbol zelaia ez ote den denentzat aski eta Zubietara joango ote diren esan dute ondoren eta elkartrukean besteek frontoiko erabilera orduak eskatu ote dituzten. Saioak “nik beste egunetan ezin dut, saioak ditut beste herrietan. Izatekotan osteguna behar luke, baina hor ere eskatuko badute ...” adierazi du. Hala ari garela Pili ere iritsi da, hau ere zerbait entzuna da gaiaren inguruan, senarrari galdetuta. Honek ere bere desadostasuna agertu du “guk gure taldea daukagu eta beste ordu edo lekuren bat aurki dezatela” esanez. Saioak “nik uste horrelakoetan lehenengo baztertzen gaituztenak gu garela” erantsi du eta ordutegia entzunda “harritzen naiz ni ordutegi horretan umeak Zizurkilera entrenatzera etortzeaz. Errazago ulertuko nuke helduak badira, baina ez dakit, e” bota dut. Desadostasuna oso argia da, batetik, entrenatzailearen ordutegiagatik eta bestetik beraiei ordua kanpotarrei emateko kentzea ez zaielako bidezkoa iruditzen. Gai honen inguruan ari garela Marian ere iritsi da eta “berriz ere orduarekin bueltaka gailtza” jakinarazi diote honi.

19.50 dira eta frontoian eskuz jolasean dabilzan hurrek bertatik ospa egin dute gu eskaileretan behera kantxara abiatu garenean. Hurretako bat Oihaneren semea da antza, gaur arte ez nuen ezagutzen, “etxeko giltzak ba al daukazu?” galdetuz agurtu baitu. Beherako bidean ikusi dugu harmailetan kasko bat, jertse pare bat eta erloju arrosa bat utzi dituztela ahaztuta bakarren batzuek eta aulki bakarrean pilotuta utzi ditu Oihanek.

Pilotalekua

Kantxara jaitsi garenean oraindik ere mintzagai bera darabilgu gure aho eta buruetan. Izan ere, Onintza iritsi berria da eta hari esan diotenean “ni ez nago batere ados, ez sinbolikoki eta ez praktikoki. Emakumearen espazioak gutxi badira eta dauzkagunak kentzen badizkigute” esan du. Oihanek esan du “aukera asko ez daukagu, mantenu gimnasia bakarrik”. Ordua euren dela ondorioztatu dute, joan behar bada joan behar den lekura joango direla protesta egitera eta ez litzaiekeela bidezkoa irudituko euren ordua kentzea argudio horiekin. Oihaneri “marroia zuretzat” esanez amaitu dute, beraien argudiaketa eta arrazoiak zein diren agertuz. Gaurko gaiak soka luzea du, baina ordua ere aurrera doa eta saioa hasi beharra daukagu.

Beroketa

Korrika hasi gara poliki-poliki guztiok, entrenatzaileak “hiru buelta” esatearekin bat. Nik giharretako minarekin jarraitzen dut, baina saioa egiteko moldatuko naiz, aurrez oso-oso motel korrikaldi labur bat ere egin dudalako ideiak freskatu asmoz. Saioa bera ere hasi da, nahiz eta aurrez korrika saio bat egin berria dela esan duen, ni bezalaxe. Erritmo bizi samarrean doaz gure aurretik beste bost kideak eta “doblaturik egongo gaituzue” esan diet nik elkarrekin gurutzatu garenean. Azkenean euren lau itzuli eta guk hiru emanda osatu dugu korrika saioa.

Lasterkaldiaren ondoren borobilean jarrita giltzadurak mugitzeari ekin diogu, orkatiletatik hasi eta besoekin amaituz. Nik bikiak eta kuadrizepsak luzatzeko ere aprobetxatu dut, gogortuta dauzkadalako oso. Berriro ere frontoiko ordutegia eta saioen antolaketa izan dira hizpide nagusi, entrenatzaileak “Villabonan nahi dudanean daukat frontoia eta jenderik bildu ezinda ibiltzen naiz eta hemen, berriz, jendea eduki eta frontoia kendu nahi digute” esan baitu. Ondoren “gainera, datorren ikasturterako akaso Villabonakoei hona etortzeko proposatzea pentsatzen ari nintzen” erantsi du eta iaz euren taldean izandako baten gainean hasi dira hizketan, “zahartu egin zait” esan baitu entrenatzaileak. Adina kalkulatu nahian ere aritu dira eta “agian 65 urte izango ditu” esan dute.

Kontrakantxara hurbildu gara hitz egin bitartean, entrenatzaileak paletak banatu dizkigu batzuei eta besteek eurenak hartu dituzte, eta pilota banatzen hasi da motxilatik poltsa aterata. Onintzak marmarka jarraitzen du bere desadostasuna agertuz eta pilota hari emateko esan diot nik entrenatzaileari, besoa gora jasota denbora daramalako inori eman gabe. Hirugarren pilota Mariani eman dio, beraz, ezker hormaren aurka pilotatzen hasteko binaka jarri gara: Itsaso eta Pili, Oihane eta Onintza eta Marian eta neroni.

Ezker hormaren aurkako pilotoan Marian eta biok frontisetik gertu samar hasi garenean Saioa gure atzetik igaro eta fitxa sartuta frontoiko fokuak piztera joan da, bueltan nire paletari eutsi eta jo ote dudan beldurraraziz, baina “ez, ez, nik eutsi dizut” erantzun dit. Gaur ohi baino gehiago hitz egin dugu kideak eta biok pilotakadekin batera hitzak elkartrukaturik, “zer moduz doa ikerketa?” galdetuz hasi baitzait bera, jakin mina agertuz. Nik “hor gabiltza, nekatuta, baina zerbaitetan” erantzun diot.

Ariketak

Hasi aurretik Saioa eskua besaurrera eramanez ikusi dut eta “mina al daukazu oraindik?” galdetu diot, bezperan ere zerbait aipatu zidalako. Hori ikusita besaurrea

luzatzeko esan diot, futboleko atera hurbildu eta besoa nola jar lezakeen erakutsiz, baina ez omen dio berari tirarik egiten horrek. Ordurako ariketa azaldua zuen eta emakumeei pilota emana ere bai.

1. Txokotan bi bizitzarekin.

Ariketa hau erabiliko du entrenatzaileak gaur ere ondorengo partidetarako bikoteak osatzeko. Sei lagun gaude bera kontatu gabe, beraz, hiru bikote arituko gara gaurko saioan zehar.

Ni apur bat beranduago sartu naiz jokoan, entrenatzaileari “badakizu onena norenagana joatea duzun, fisioren batena” esan ondoren. Ni sartu naizen unean zalantzazko pilota bat izan dute eta azkenean ez dakit Pilik ala Marianek, nork duen bizitza bat gutxiago. Hori izan da lehenengo tantoa. Ondoren lasai, baina tarteka jokaldi saiakerak eginez aritu gara, askotan ona egitera mugatu badira kideak. Hori ikusita nik halako batean horma bikoia bota eta tantoa lortu dut, Onintza aldamenetik “hasi da Uxue gaiztakerietan” esaka jarriz. Irribarre egin dut nik ere eta “beno, beno, banoa atzera” esanez ezker hormaren ingurura eta atzerago joan naiz, saltsan segi asmoz, aurreko koadroetatik urrunduz. Hori ikusita “ez, ez, baina hori gustatzen zaigu” esan dit berak bada ez bada ere, baina nik atzean geratzea erabaki dut eta pilota erraz samarrak uztea kideei, jotakoan zenbaitetan “horrela balio al du?” galdetuz irri gaizto samar bat ahoan.


Haur bat agertu da pilotalekuan eta harmailetatik bere erlojua eta trasteak jasotzen ikusita Itsasok “bakarren bat gogoratu da” esan dit aldamenetik une batean.

Jokoan jarraitu dugu eta gutxika-gutxika bizitzak gutxitzen ari zaizkie kideei. Nik ere galdu dut bizitza bat ezker hormara itsatsitako pilota bat erantzun ezinda. Hori ikusita Saioak “horra bota, hor dago zuloa” bota die emakumeei animatu nahian. Azkenean Oihane izan da lehen kanporatua, Itsaso hurrengoak, Marian eta Pili hurrengoak eta azkenerako Onintza eta biok geratu gara. Nik tantoa hasi eta nahikoa azkar egin diot eta “zer, Uxue, gustura geratuko zinen” esan dit irribarrez. Nik bostekoa luzatu diot entrenatzailearen ingurura hurbildu bitartean. Beste laurak atzean pilotatzen aritu dira aurrekoa amaitu arte. Honela osatu ditugu hemendik aurrerako saioko partidetarako bikoak, kanporatze ordena errespetatuz: Pili-Marian, Onintza-Itsaso eta Oihane-ni.

2. 2:2 eta 1:1 egoeran, bi eremutan (5'ko txandak).

a) Frontisa. 2:2, baldintzarik gabeko partida

b) Errebotean. 1:1 piloteoa



Entrenatzaileak hasi aurretik “aurrekoa ez da mugituko irabazten badu, ni zuek banintz irabazten saiaturiko nintzateke” esan digu eta irribarre egin dugu besteok.

Aurrean elkarren aurka jokatzen hasi gara Pili-Marian eta Oihane eta biok, entrenatzaileak hala agindu baitigu. Kokapenak erabakitzeke “nahi duzun bezala, gero aldatu egingo gara nahi baduzu” esan elkarri eta aurrean Marian eta Oihane eta atzean

Pili eta biok jarri gara. Jokatzen hasi eta Pilik izan ditu nahasmendu pare bat hasi eta berehala, berak jo beharreko pilota pare bat niri utziz, despistatuta. Niki beltza dauka soinean eta jertse beltza nik eta aldamenetik, irriz, “itxaron, jertsea kenduko dut, orain ia ez naiz beltza izango” esanez kontrakantxan utzi dut jertsea, niki besa motzetan itzuliz jokatzera.

Atzean bien bitartean Itsaso eta Onintza piloteatzen ari dira, lasai samar, elkar gehiegi behartu gabe antza denez.

Aurreko lehenengo partida guk irabazi dugu, oso huts gutxi egitearen poderioz batez ere, tanto luze eta lehiatuak jokatu baititugu oro har lau kideok. Pili saiatu da tarteka Oihaneri bota eta honen hutsen bat eragiten, baina sendo aritu da aurreko koadroetan nire bikotekidea. Beraz, hurrengo txandan ere bertan jarraitzeko moduan izango gara.

2. txandan honela aritu gara:

Frontisean: Onintza-Itsaso eta Oihane-ni

Atzean: Pili eta Marian

Errotazioa aprobetxatuz gure postuak ere aldatu ditugu eta atzean Oihane eta Onintza eta aurrean Itsaso eta ni jarri gara partidari ekiteko prest. Hori ikusita “Oihane, kontuz hor aurrean Onintzaren mozketekin” esan diot nik irribarrez saltsa jarri nahian eta Onintzak buruarekin baietz eginez “bai, egia da, hori ikasi dut” erantzun du gustura asko. Irribarrez hasi gara gainerako laurok, kontrakantxan dagoen entrenatzailea ere bai, eta ondoren ekin diogu partidari.

Hasi eta berehala kasu honetan ere gaizki ulerturen bat izan dute aurkariek, Onintzari kosta egiten zaio Itsasorekin ari dela gogoratzea, eta trakets samarra irten da partida (B.K. Urtean zehar oso gutxitan aritu omen dira elkarrekin bikotea osatuz). 6-1 amaitu dugu azkenean. Nik “eskerrak biok niki zuria ekarri duzuen, kolore berekoa” esan diet saltsa jarri asmoz.

Denbora tarte pasan denean entrenatzaileak “segi atzera berriro eta bueltan entrenatuta etorri” esanez bidali ditu atzeko eremura Onintza eta Itsaso eta atzetik aurrera Pili eta Marian etorri dira.

3.txandan berriro ere hasierako egoera errepikatu da. Aurrean Marian-Pili eta Oihane eta biok eta atzean banaka pilota txandaka joz Itsaso eta Onintza berriro ere.

Partida hasteko kokapena aldatu nahi ote duen galdetu diot Oihaneri eta “hemen hobeto, hor galduago ibiltzen naiz” esan didanez nik nire adostasuna agertu eta “bai, normalean hor gehiago jokatzeko da” esan eta azken partidako egoera berean hasi gara gu. Marian eta Pilik, berriz, lehenengo partidarekiko postuak aldatu dituzte. Atzean Marian eta Oihane eta aurrean Pili eta biok kokatu gara, beraz.

Partida hau nabarmen galdu dugu, Oihanek orain arte ez bezala huts gehiago egin ditu, batez ere ezkerrez, baina ez dago arazorik. Lastima ez dela oso partida piloteatua izan, Pilik pilota gaizto samarrak jo dituelako ezker aldera eta nik ez dudalako parte hartzeko aukera handiegirik izan. Marianek ere pilota gutxi galtzen du, arrisku izugarriarik ez baitu hartu ohi tantoa bilatu asmoz. Azken bi tantoak lortu ditut nik, bi jokaldiren bidez. 7-2 galduta lekuz aldatzeko unea da guretzat.

4. txandan saioan lehenengo aldiz atzeko eremuan aritu gara Oihane eta biok, eta lehenengo aldiz baita ere, aurrean elkarren aurka Onintza-Itsaso eta Marian-Pili.

Atzean Oihanerekin piloteatzen aritzean udaleko lanez tertulian eta herriko biztanle kopuruaz eta horrelakoen gainean jardun dugu. Bien bitartean aurrean saltsan aritu dira eta bost minutuak igarotakoan txandatzeko unea iritsi zaigu. Berrero ere Onintza eta Itsaso etorri dira atzeko eremura, beraz, Pili eta Marianek tinko darraite aurreko eremuko euren nagusitasunarekin.

5. txandako aurreko partidarako Oihanek lekuz aldatzea proposatu dit “bestela nik denak galduko ditut” botaz eta horrenbestez aurrelari postuan Pili eta Oihane eta atzelari Marian eta biok jarrita hasi gara.

Partida berdindua izan da oso eta denbora tartea igaro denean markagailuan 4-4 berdinduta gaude. Hori dela eta Saioak Onintza eta Itsasori aurrera hurbiltzeko esan die eta beste lauroi berdinketa hausteko partida bat jokatzeko. Oso tanto luzea izan da, badirudi inork ez duela galdu nahi, eta nik atzetik arriskua hartuz dejada bat egin nahi izan dut txokoan. Emaidza ez da nahi nuena izan, ordea, eta txapa azpira joan da pilota, kideen aurpegietan irribarrea eta nirean pena puntutxo bat agertuz. Onintzak “gaur ez da gure eguna Uxue” esan dit irribarrez eta Saioak “nik halakoak askotan egiten ditut”. Beraz, 5-4 galduta berrero ere atzeko gunera joateko unea iritsi zaigu.

Partidako une batzuetan Marianek “gaiztoa” esan dit, baina batzuk harrapatu ditu eta “orain batzuetan tankera ematen dizut” esan dit irribarrez, nik “horrek hala behar luke, ikasturte osoaren ondoren” erantzun diot.

20.55 dira. Aurreko binakako azken partidari Onintza-Itsaso eta Pili-Marian arituko dira aurrez aurre eta atzeko piloteoan, berriz, Oihane eta ni neu.

Laukotea gustura hasi da saltsan eta atzera iristen zaizkigu euren oihu edo barre hotsen batzuk. Gu, berriz, lasai ari gara oso, eguneko nekea nabaritzen dela esanez elkarri eta nekatzeko intentzio handirik gabe.

Joko-jolasetan ari garela Eli agertu da frontoiaren goiko aldean eta berarekin hitz egitera hurbildu da entrenatzailea. Aste dezente dira etorri ez dela zuntz haustura bat izan zuelako bikian eta erabat sendatu gabe dagoelako. Hala ere, gaur nirekin du hitzordua bederatziatan elkarrizketa egiteko eta txintxo asko etorri da. Guk behetik kasu egin diogu eta piloteoan jarraitu dugu entrenatzailea behera jaitsi eta erlojua joka hasi zaion arte.

Denoi elkarrenagana biltzeko esan digu eta jakin dugu aurreko partidako markagailua 6-6 dagoela. Oihanek haurren bila joan behar duela esan du eta 21.00 direla ikusita nik elkarrizketa egitera joan behar dudala esan dut. Beraz, lau daude oraindik saioarekin jarraitzeko prest. Horrenbestez, 8ra arte partida amaitzen hasi dira lehengo bi bikoteak aurrean: Onintza-Itsaso eta Pili-Marian.

Oihane eta biok kontrakantxan luzaketa batzuk egin ditugu eta berak eskaileretan gorako bidea hartu du. Nik ere trasteak jaso eta goranzko bidea hartu dut. Justu

orduantxe iritsi dira kontrakantxara aurreko partidutik eta “zer egin duzue?” galdetuta “uste dut denak nik galdu ditudala” erantzun dit Itsasok.

Eliri ordutegi aldaketarena esaten aritu dira kideak eta honek “gure ordutegiarekin plaka bat jarri beharko dugu, inork ken ez dezan” esan du. Ondoren “emakumea pilotari ez dakit, baina borrokalari behintzat bai” erantsi du. Besteak agurtzeko puntuan nagoela Saioak “Uxue, frontoi kontuak ere sartuko dira tesian, ezta? Idatziko dituzu” esan dit eta “bai, bai, horiek ere bai” erantzun diot nik.

Frontoi ataria

Kideak luzaketetan utzi eta datorren astera arte agurtuta elkarrizketa egiteko leku aproposagoren baterako bidea hartu dugu Eli eta biok. Gaur ez naiz irteten azkena izan, beste zeregin batzuk ditudalako oraindik Zizurkilen egiteko. 21.00 dira.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Saio lasaia eta dinamiko samarra izan dut gaurkoa, nahiz eta hein batean nire giharretako minak eta nekeak pistoia ohi baino baxuago edukitzea eragin. Hala ere, egun guztiak ez dira berdinak eta hala beharko du, ezta?

Emakumeak gustura ikusi ditut saioan zehar, ikasturte hasieran baino askoz ere gehiagotan saiatzen dira jokaldiren bat egiten eta aurrerapena beraiek ere nabari dutela esatera ausartuko nintzateke.

Emakumea eta bere espazioa borrokatu beharra agerian geratu da gaurko saioan, taldeak datorren ikasturterako ordua mantentzeko arazoren bat izan dezakeela dirudielako. Esan dutenez, gainera, urtero igaro dira egoera honetatik. Gauza bera egingo ote liokete gizonezko talde bati? Ez dut gaizki pentsatu nahi, baina zerbaitek ezetz diost barruan.

Beste saio-despedida bat, azken-azken agurra, bakarrik geratzen zait datorren asterako. 27 saio osatuko ditut bederatzi hilabeteen Zizurkilen. Asteartekoa izango dut fase honetako azken paleta saioa, gainera. Ea zer emozio eta sentimendu kontrajarri izaten ditudan eta nola agertzen diedan nire esker ona kideei, ondo merezia dute eta!

Azken bi bidaiak

Badira aste batzuk azken astei eta behaketa parte-hartzaileko azken saioei begira jarri nintzela, baina bazetorrela esan eta pentsatu arren ez nintzen erabat kontziente horrek suposa ziezadakeenaz. Bai, halaxe da, atzera kontuan aritu arren benetan azkena iristean zer ekar diezadakeen pentsatzen ez naiz egun hauetara arte jarri, eta, uf! Begiak gorritu eta oilo larrua agertzen zaizkit, malkoren bat ere bai begi ertzean, niretzat izugarria izan delako emakumeekin tratuan aritzeko aukera, ohore bat. Hasieratik hartu ninduten beso zabalik eta goxatu ere egin naute denen artean eta hori ez dago hitzez adierazi eta eskertzerik.

Hiru ordu baino ez zaizkit geratzen bertatik bertara emakumeekin zuzeneko hartu-emanen jarduteko, baina hori bai, badakit asko izango direla neure baitan biziberrituko ditudan saioetako une eta sekuentziak, luzemetraia bat bailiran gogoan iltzatuta geratuko zaizkidanak. Gainera, inork ez zidan esan hau betiko izango zenik eta badakit

neuk ere azken portura heltzen ari naizela, hala dagokidala eta kosta arren onartzea beste aukerarik ez zaidala geratzen. Beraz, astelehen eta asteartean gozaten saiatu, sentipen kontrajarriak ahalik eta ondoen kudeatu eta bizi-esperientzia hau tatuatuta geratuko zait nire bularraren ezker aldeko txoko batean. Hala bedi!

32. astea, 2012-06-18. “HALA BAZAN ALA EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN”

Azken astea eta azken bi saioak. Ekainaren 18ko aste hau beti geratuko da nire gogoan (eta bihotzean) iltzatuta, ziur nago, ikertzaile ibilbidean, hitz potoloogia ez ote den nik egiten dudanari izena emateko, beste mugarri bat ezarriko baitut. Astearte iluntzean amaituko da astelehen goiz batean orain hilabete batzuk atzera hasiera eman nion landa lanaren zatirik potoloenetako bat. Bai, bai, begiak bost aldiz itxi zein ireki edo belarriak hamar aldiz garbituta ere irenstea (eta sineste) erraza ez bazait ere hala da: akabo!

Hasten den denak bukaera bat izaten omen du, bat baino gehiagori entzun izan diet hori, eta leku bat baino gehiagotan irakurri ere bai. Beraz, hala izango da ni baino jantziagoek hala badiote, ala?! Ez dakit oinarri zientifikorik ba ote duen esaldi horrek, zein den bere jatorria eta zer hondo duen, baina hau, behintzat, hasi eta amaituko den zerbait da: ikasturte bat. Ikasturte berezia, oso berezia, bizitza osoan gogoratzeko horietakoa, baina ikasturte bat baino ez azken finean, bi datoren arteko lan bat. Hala ere, azken bi saioak falta ditut egutegiko azken orria erauzteko, beraz, hastera noa.

Bukatu da, bukatu da, bukatu da, akabo!

Azken astelehena, azken saioa Hernanin, azken bizipenak kantxan. Lasai, baina pena puntu batekin nabil bezperatik, nahi ditudanak prestatu eta azken ordu eta erdiak zer emango ote duen (eta ote didan) zalantzan, korapiloak nonahi. Gainera, asteburuan ere ez dut erabat deskonektatu, lanak aurreratu nahian transkribatzaile buzoa jantzita aritu bainaiz pantaila aurrean.

Musika lagun egin dut Hernanirako azken bidaia, Mikel Markezen azken diskoa jarri eta tarteka kantatuz, aurrez okindegitik igaro eta pasta batzuk erosita, taldekideei hala hitz eman bainien aurretik. Hainbeste mereziko ote dute, ezta?!

Kiroldegiko sarrera

9.25ean iritsi naiz, kotxea aparkatu eta trasteak hartzen ari nintzela Malenekin topo eginda. Elkar “aspaldiko!” esanez agurtu dugu, badiarelako bi astelehen kidea saioetara etorri ez dela. Hala esan dit, ikasturte amaieran are zailagoa zaiola antolatzea eta nekea ere pilatzen dela garai honetarako. Ondoren iragan asteko mendiko lasterketaren inguruan galdetu dit, zerbait entzuna omen zen, eta nik euren paletako Tilos-7 Txapelketako finalaz. Urduri aritu zela esan dit, oso urduri, eta ez zuela inondik inora nahi beste asmatu, baina “denetik ateratzen da zerbait positiboa” esanez amaitu dugu hizketaldia.

Kiroldegi aurrean Irati eta Gemma hizketan ari dira elkarrekin eta gu biokin laukotea osatu dugu ordua baino lehen. Ondoren Rakel ere berehala etorri da. Azeri Bila lasterketa jokatu zen larunbat arratsaldean Hernanin, festen aurreko asteburuan, eta euren umeetako batzuk atera zirela kontatzen aritu dira, Malenen bikotea ere bai, baina honi lotsa ematen omen zion azken metroak semerik gazteenari eskua emanda egiteak eta azkenean beste semearekin sartu zela esan du. Ondoren zenbat haur izan nahi zituzten ere esan dute, batek akaso hiru baietz esaten omen zuen, baina bigarrena oso mugitua omen eta hor planto egin omen zuen. Beste batek, berriz, lehenak onak izan zituela, baina azkena ez eta alderantziz izan balitz pentsatu egingo zukeela haur gehiago

izan ala ez. Besteren batek senarrarekin hiru haur dituela esan du (B.K. amatasuna eta ardura horiek atera dira berriro ere hizketarako gai. Askotan agertu da ikasturtean zehar).

Hizketan aritu dira kideak eta ni batez ere entzuten, behaketa eta hausnarketan murgilduta. Hala ari zirela iritsi dira Miren eta Zuriñe ere, azken hau kiroldegi barrutik kanpora, eskailerak jaitsita. Saioa ere nahiko azkar iritsi da, motxila bizkarrean, neke aurpegiarekin. Azkenean Ines bera ere igerilekutik bueltan tornutik kanpora irten da besteongana. Iristen azkena Ainara izan da eta han hizketan ari garela “goazen barrura, euria hasi du” esanez artaldea barrurako bidean jarri du. Denak daude Emakumea Pilotariko nikia soinean eta entrenatzaileak aurrekoan hala joateko eskatu zielako omen da. Niri ere jakinarazi zidan, argazki bat ateratzeko zela esanez, emakume kirolarien gaineko zerbaiten harira.

Tornuetatik aurrera egin dugu banaka bata besteren atzetik, den-denok txartelak pasa ondoren, eta Saioarekin egin dut nik frontoirako bidea, taldearen atzealdean jarrita, asteburuko gorabeheretz solasean. Bezperan Leitzan erakustaldi-partida bat jokatu zen, larunbatean deitu omen zioten galdetuz eta baiezkoa eman omen zien. Horren gainean hizketan joan gara ia frontoira arte, orain jokatzen ari diren txapelketen berri ere galdetu baitiot nik.

Pilotalekua

Azken pasabide estuan aurrera pilotalekuan sartu orduko trasteak harmailetan utzi eta ohartzerako elkarren inguruan bilduta hizketan ari ginen berriro ere, ohiko moduan. Bezperan jokatu omen zituzten haurren Hernaniko txapelketako finalak pilotaleku honetan bertan eta kide batzuen seme-alabak aritu omen ziren finaletan. Ainararen alabak irabazi egin omen zuen teniseko pilotarekin paletaz eta semeak, berriz, galdu. Hiruzpalau kide izan omen ziren goiz pasa jaialdia ikusten.

Obretako mailu hotsak entzuten dira pilotalekuaren gainaldetik eta soldatzeko trasteak botatzen duen erre usain desatsegina ere iritsi da gure sudurretaraino, bekozkoa jarriz batek baino gehiagok. Nik “gaur musika izango dugu” bota dut eta baiezkoa erantzun didate pare batek. Ez da oso atsegina, baina hala beharko du.

Ondoren entrenatzaileak hartu du hitza eta gauza pare bat esan behar dituela jakinarazi digu. Igandean ikasturtea amaitzeko afaria egitekotan gara, Hernaniko San Joanetan bete-betean, eta “nik larunbatean partida daukat eta irabaziz gero igande arratsaldean finala, Zigoitian” esanez hasi da. Berehala erantzun diote emakumeek “orduan badakizu zer egin behar duzun, galdu!” erdi broman eta irribarrez hasi gara ia guztiok. Moldatuko dela eta akaso beranduago agertuko dela esan du, baina bertaratuko dela. Beste egonaldi bat egin dugu korroan jarrita mingainak astinduz.

Beroketa

9.50 inguruan “azkeneko hiru bueltak” esanez beroketan hasteko agindua jaso dugu eta kexa handirik gabe ekin diogu gorputzak mugitzeari, nagiak uxatuta. Bakarren batek “momentuz azkenak” erantzun dio entrenatzaileari eta “zer pena” esan duenik ere izan da. Nik eztarrian korapilo bat sentitu dut eta listua irentsi ondoren taldearen atze aldean hasi naiz korrikan, kideekin batera. Ines eta biok taldearekiko metro batzuk galduta

hizketan egin ditugu agindutako hiru itzuliak, aurrekoak geratu direnean gu ere geratuz. Hiru izan dira itzuliak, ez metro bat gehiago eta ez bat gutxiago, ondo neurtuak, gaur artekoan moduan.

Korroan jarri eta giltzaduretako mugimenduak egiten hasi gara ondoren entrenatzaileak egindakoa imitatuz (orkatilak, belauak, besoak) eta kide bat falta dela ohartu naiz: Jone. Gaur ez dela etorriko jakin dugu, egun pasa joana delako. Bestela beste kide guztiak etorri dira, bai behintzat azken boladan astez aste maiztasun batekin etorririkoak (B.K. Uneren batean hiru kide gehiago ere aritu ziren, baina ez zen taldea 11koa baino handiagoa izan ia sekula). Larunbat goizean partida jokatu omen zuten elkarren aurka gomazko pilotarekin Malen-Ainara eta Gemmak eta gizon batek eta horren gainean hasi dira hiru kideak. Gizonak non eta nola kokatu eta zer hobetu behar duten adierazten omen zien eta gustura dagoela esan du Ainarak, berari gustatzen zaiola halakoak entzutea hobetzeko. Ahizpak, berriz, dena gaizki egiten zuela esan omen zion, korrika gutxi, pilota gertuegi jo, etab. Ondoren eurek erabiltzen duten gomazko pilotaren gainean hizketan ere aritu omen zen, oso arina dela eta ez omen zitzaion gustatu. Entrenatzaileak eta biok elkarrekin gurutzatu dugu begirada bat eta “10-15 gramo astunagoak badaude, baina horiek ongi enpalatu ezean min ematen du benetan ia ile puntan ere eta niri zuentzat nahikoa iruditzen zait hori” esan diet nik.

Giltzaduretako mugimenduak egiten amaitu dugunean Saioa motxilara hurreratu da eta paletak atera eta banatzen hasi da, hitz eta pitz jardungo baikenuke beste puska batean arazo handiegirik gabe. Ondoren hamaiketakoa egiteko geratuak gaudela gogorarazi du bakarren batek, zerbaitetan hasi beharko dugula, eta Rakelek berak gaur ezin duela esan du, medikuarenean txanda duela. Orduan besaurrearen hasiera eta eskua erakutsi dizkigu eta hazita dauka eskuinekoa. Saioak minik ez ote dion ematen galdetu dio, baina honek ezezko erantzuna eman eta paleta hartu du eskuan. Alergiaren bat edo hozkadaren bat izan litekeela esan diote batek baino gehiagok eta berak gehiagotan ere pasa izan zaiola jakinarazi digu eta zer den jakin asmoz hartu duela txanda medikuarenean.

Gaur bederatzi gaudela ikusita paleten ondoren pilotak banatzen ere hasi da entrenatzailea, ezker hormaren aurkako piloteoarekin gorputza martxan jartzen amai dezagun. Frontisetik hurbilen Rakel eta Irati jarri dira, hauen ezkerretara Malen eta Ainara, ezkerreago Gemma eta Zuriñe eta errebotetik gertuen, hirukotea osatuz, Miren, Ines eta ni neu. Tarte batean aritu gara lasai-lasai, Malen eta Ainara Saioarekin tertulian ikusi ditut denborarik gehienez, eta entrenatzaileak ohartaraztean denok bere inguruan elkartu gara, esango diguna entzuteko adi-adi.

Ariketak

1. Txokotan bizitza banarekin. Kanporatutako ordenaren arabera osatuko dira bikoteak ondorengo partidetarako. Lehena azkenarekin eta modu horretan, ordenaren arabera, zehaztuko da nola aritu saioan zehar.

Jokatzen hasi eta lehena huts egiten Saioa bera izan da, kale nabarmen samarra egin du pilota txapa azpira botaz eta kontrakantxara zihoan bitartean “Uxuek ez dit bat barkatzen” bota du. Nik, ordea, saltsan jarraituz “et, et, ni isilik eta geldi nago hemen” erantzun diot. Haren atzetik huts egiten hurrengo kidea Irati izan da. Hirugarrena Ainara, laugarrena Miren eta honen atzetik berehala geratu da bizitzarik gabe Ines ere.

Entrenatzaileak kantxan geratzen garenoi “orain kanporatzen dena Inesekin” esan digu, bikote osaketari erreferentzia zuzena eginez. Miren besteei “ala, polit hori, jarri hemen” esan eta bere ondoan kanporatutako ordenan kokarazten ari da, ondorengo bikote osaketetan oroitzeko, irribarre zabala ahoan. Kontrakantxara mugitzen hurrengo Gemma izan da eta haren atzetik joan dira Zuriñe eta Malen ere. Azken honen kasuan ni ezin izan naiz paretik kendu, korrika atzera egin dut, eta pilota behartu samartuta jota ez du frontisera iristea lortu. Beraz, azkenerako Rakel eta ni neu geratu gara, aurreko asteko berdinak. Berak “zer, nahi duzun arte?” esan dit, kontrakantxatik animatu dute kideek, eta azkenean dejada batekin amaitu dut tantoa. Beraz, behin jokoa amaituta bikoteak osatzeko moduan gaude kanporatze ordena gogora ekarrita.

Bikoteak osatzean Ainara-Malen eta Saioa-ni elkarrekin egokitu gara, ikasturtean lehenengoz nik uste. Politia iruditu zait entrenatzailea eta biok bikotea osatzea neuri pertsonalki eta inork ez du eragozpenik jarri. Azken egunerako opari atsegina da, hainbeste saiotan elkarrekin orpoz orpo ibili ondoren. Beraz, partidaren atalari ekiteko unea iritsi zaigu.

2. 2:2 partidak, baldintzarik gabe, frontisean eta errebotean. 5'ko iraupena izango dute. Erdian 1:1 piloteoa (B.K. Trantsizio gunea izango da gaur ere).

Entrenatzaileak esan digu aurreko eremuko bikote garaileak bertan jarraituko duela galdu arte, ez dela gunez aldatuko, erdikoak aurrera joango direla eta atzeko eremuko garailea izango dela hurrengo partidaren erdira joateko aukera lortuko duena txandatzetan.

Beharrezko azalpenak eman ondoren 1. txandako kokapenak entrenatzaileak zehaztu ditu eta honela aritu gara:

Frontisean: Zuriñe-Miren eta Irati-Rakel

Erdian: Ines eta Gemma

Atzean: Ainara-Malen eta Saioa-ni

Aurrean propio zer bi bikote jarri erabaki du Saioak, nik ere esan diot aldamenetik batzuen gainean ahapeka “hauek aurrean jarri eta gu atzean”, behintzat aurreko eremuko partidatik behin denok pasa gaitzen.

Atzeko eremura iritsi garenean Ainarak “hau leku txikiegia da zuei irabazteko” esan digu, baina aurrean saiatuko direla. Erraz aritu gara, pilota mugituz, euren hutsak behartu eta guk huts oso gutxi eginda. Beraz, aldaketan erdiko gunera joango gara denbora pasatakoan.

Aurrean lehia oso parekatua izan dela iruditu zait, zehar begiratu bidez jarraitua izan bada ere, tantoren bat ospatzen ikusi ditut Rakel eta Irati, gustura. 5-4 galduta atzera joan dira, entrenatzaileak galdetu egin baitie nola bukatu duten lekuz aldatzeko unean.

2. txandako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Zuriñe-Miren eta Ines-Gemma

Erdian: Saioa eta ni

Atzean: Ainara-Malen eta Irati-Rakel

Gu hizketan aritu gara Erdian, Leitzako frontoiaz hasieran Saioa eta patxada ederrean pilotakadak ere elkartrukatu ditugu. Une batean atzeko laurak Rakelen inguruan daudela ohartu gara eta hau burua igurzten ari dela ikusi dugu. Saioa berehala hurbildu zaie eta jakin dugu Malenek nahi gabe paleta ertzarekin jo duela kidea. Hala ere, ez dirudi ezer larria denik eta nahiko azkar ekin diote berriro ere euren arteko partidari, sustoa pasata.

Bost minutuko tartea igarota lekuz aldatu eta aurrera goazenean “zer egin duzue?” galdetu dio Mireni Saioak gurutzatzean eta honek “3-7 galdu, aio” esanez kasu egin digu leku aldaketa egitearekin batera.

3. txandako kokapenak, beraz, hauexek izan dira:

Frontisean: Ines-Gemma eta Saioa-ni

Erdian: Ainara eta Malen

Atzean: Zuriñe-Miren eta Irati-Rakel

Gemmak hartu du pilota ateratzeko gure partidari eta galdu egingo dutela esan dit eta nik hori ikusteko dagoela erantzun diot. Berak “ez, baina Inesekin aritu naiz lehen horren inguruan hizketan” erantzun dit irribarrez eta partidari ekin dio. Atzean Ines eta Saioa kokatu dira eta aurrean, aldiz, Gemma eta biok, nor baino nor. “Hau ume alua!” esan dit Inesek aurrean jokaldi bidez lortutako tanto baten ondoren eta “aita eta amari esango nieke ikusiz gero” ere bai eta nik “lasai esan, nik ez daukat arazorik” entzun diot irri gaizto bat ezpainenetik aldamenetik. “Bat!” tantoa lortu dutenean.

Erdira begiratu eta “zertan ari zarete?” galdetu diet kideei eta Ainarak erantzun dit “ez dakit, baina nekatzen bai behintzat”, elkarri pilota bizi eta gaiztoak botatzen ari direla esanez.

4. txandako kokapenak modu honetan geratu dira bost minutuko jardunaren ondoren:

Frontisean: Ainara-Malen eta Saioa-ni

Erdian: Zuriñe-Miren

Atzean: Ines-Gemma eta Irati-Rakel

Partida oso lehiatua jokatu dugu aurrean, gu hasieran akats dezente eginez hasi gara, eta larri ibili arren azkenean 5-4 nagusitu gara Saioa eta biok, 1-4 galtzen ere joan bagara ere markagailua iraultzea lortuta. Saioa eta biok txandatu egiten ditugu postuak partiduz partidu, bi eremuetan arituz, aurrelari zein atzelari postuetan.

Erdiko eremutik askotan aritu dira gure partidari begira Zuriñe eta Miren, batez ere kideak animatuz eta tantoren bat edo beste komentatuz. Atzekoei, berriz, ez diet jaramonik txikiena ere egin, gure gunean jarri baititut nire zentzu guztiak.

5. txandako egoera hau izan da:

Frontisean: Zuriñe-Miren eta Saioa-ni

Erdian: Irati eta Rakel

Atzean: Ines-Gemma eta Ainara-Malen

Aurkariak huts asko egin dituzte eta guk adarra jotzeko pilotaren bat edo beste apur bat biziago edo maltzurrago jo badugu ere ez da inondik inora ere aurreko erritmoan jokaturiko partida izan frontiseko eremukoa. Egia esan, joko mailan ere koska

nabarmena dago gure artean, eta baita kideen beraien artean ere, eta harrigarria ere ez zait iruditu.

Partida hau amaitu dugunean beste errotazio bat egin dugu eta honela osatu dugu 6. txanda:

Frontisean: Irati-Rakel eta Saioa-ni

Erdian: Ainara eta Malen

Atzean: Ines-Gemma eta Zuriñe-Miren

Hasi aurretik Rakelek irriz “irabazi egingo dizuegu” esan du frontiseko eremura iritsi berritan eta “ez daukagu inolako zalantzarik” batekin erantzun diot nik. Irati barrez eta azelerazio puntu batekin sumatu dut, nahi eta ezinean pilotakaden norabideari dagokionez. Gure bikoteari dagokionez “begira zer esfortzu suposatzen dien” esanez aritu da une batean, gu biok oso lasai ari garelako jokatzeko, presa eta beldur handirik gabe, egoera kontrolpean dugun irudipenarekin.

Ainarak, berriz, erdiko eremutik Gemmak “beno, hemen ez gaude hain gaizki” esan diola kontatu du, denboraldia baitaramate atzeko eremutik mugitu gabe bere ahizpak eta Inesek. Hiru txanda jarraian behintzat bai!

10.50ean Haizea jaitsi da eskaileretan behera, goitik sartu da nonbait, eta “zenbat denbora hemen egon gabe” esan du. Argazkia ateratzera dator, baina segitzeko eta berak itxarongo digula esan du. Bera da gaur Emakumea Pilotariko nikiekin etortzeko mesedea eskatu ziona entrenatzaileari.

Azken errotazioan honela aritu gara:

Frontisean: Ainara-Malen eta Saioa-ni

Erdian: Ines-Gemma

Atzean: Irati-Rakel eta Zuriñe-Miren

Haizea kontrakantxatik begira aritu zaigu eta besteak ere hor nonbait, euren pilotakadei baino arreta handiagoa jarriz guk aurrean jokatu dugun partidari.

Malen eta Saioa jarri dira aurreko koadroetan eta Ainara eta biok atzekoetan, beraz, lehengo partidarekiko postuetan aldaketa bat egin dugu. Lasai hasi gara, berriro ere galtzen. Hori ikusita “lehen ere horrela hasi gara” esan dit Ainarak aldamenetik eta “bai, gu saiatuko gara lehengo bukaera errepikatzen” bota diot nik erdi broman. 3-0 galtzen joan gara eta azkenean 4-4 berdintzea lortu dugu erlojua pi-pi-pi joz denbora batean aritu ondoren. Azken tantoa azkar amaitu da, Inesi zerbait esaten ari nintzen ni sakea ateratzean eta ez naiz gai izan hurrengo pilotakada ona eginez itzultzeko, beraz, azkenean Ainarak eta Malenek 5-4 irabazi digute. Poza hartu dute eta elkar besarkatu. Guk elkarri eskua eman diogu, aurkariei ere bai, eta kontrakantxarako bidea hartu.

10.55 dira. Blai eginda eta pitin bat nekatuta amaitu dugu partida, nik izerdia daukat beso, aurpegi zein hanketan ikasturtean lehenengoz. Beste emakume gehienak ere gorritu dira, frontoian bero egiten duelako jadanik. Egun sargoriak egina da udaberriaren amaieran eta barrua asko berotu da, beraz, ez dirudi konponbide errazik duenik kontuak.

Haizearen inguruan jarri gara emakume guztiok eta talde argazkia zertarako atera nahi duten esan digu. Emakumeen Euskal Herriko futbol selekzioak larunbatean jokatu behar duen lehenengo nazioarteko partidaren inguruan herriko taldeetakoak bildu eta argazkiak ateratzen hasi omen ziren emakumeak kirolean jasotzen duen tratua salatu eta gu ere bagarela aldarrikatzeko. Hasieran poster bat egiteko asmoa omen zuten, baina gehiegi direnez, azkenean, pankarta batean argazki ezberdinak txertatu eta lelo batekin herriko hiruzpalau lekutan jarriko omen dituzte, jendeari jakinarazi asmoz. Emakumeek euren baietza eman dute eta argazkia ateratzeko prestatu gara. Nik ere jantzi dut soinean Emakumea Pilotariko nikia, motxilatik atera eta soinean blai eginda nuena kenduta.

Argazkirako ezker hormara gerturatu gara denok eta entrenatzaileak berak nikirik ez duela eta bera ez dela jarriko esan arren pare batean atera da. Ondoren, ordea, apartatu eta taldeko kideak atera gara herrian jarriko dutenean. Hori bai, kostatzen zaie argazkiak ateratzea, batean lauso ikusten zela, bestean flasha ez dela martxan jarri, hurrengoan ez dakit zer, ... Bi ilaratan jarri gara argazkirako, baina behean makurtuta geundenak nekatu ere egin gara une batean, nik tolestuta nuen belauna aldatzeraino.

Argazkia ateratzen amaitzean emakume guztiak hurbildu dira kameretara zer moduz atera diren begiratzera ni izan ezik. Ni trantzean sartu eta motxilatik karpeta aterata eskerrak adierazteko bertsoak nola eman pentsatzen hasia bainaiz. Haizeak “beno, ikusiko duzue zuen burua nonbait” esanez agurtu gaitu eta frontoiko eskailetan gora irten da. Gaur goiko atea zabalik egon da goiz osoan, konponketa lanak egiten aritu baitira sarrera inguruan.

Nik eskuan orriak hartu eta eurengana gerturatuta banaka atzean argazkia duen bertsoa eman diet, Ainarak aldageletara dutxa azkar bat hartzera joan behar dutela esan eta “kantatu, zu hasi eta guk lagunduko dizugu” esanez. Saioari ere eman diot eta aurreko ostiralean e-posta helbideekin mareatu nuenez ia “hemen nik helbideak eskatzearen arrazoa” esan diot. Bertsoa abestu dugu, eskerrak eman dizkiet, eskerrak eta musuak elkartrukatu ditugu elkarrekin, eta trasteak jasota alde egiteko moduan gaude.

Rakelek ziztu batean alde egin du, medikuarenera, ea zer ote duen jakin nahian, eta Inesek “ea ez den konponbidea gaixotasuna baino okerragoa” esan dio, erdi irribarrez. Ainara eta Miren aldageletara joan dira, Ines komunera, eta besteok kanpora atera gara, hamaiketako non egingo dugun erabaki ezinda. Nik Zuriñe eta Mirenekin egin dut bide zati bat, baina Irati eta Saioa ere inguruan nituen. Datorren urterako abisatuko ote duten galdetu du kiderik berrienak eta entrenatzaileak baietz erantzun dio. Gehienek agertu dute ahal badute jarraitzeko asmoa (B.K. Erdiak baino gehiago dira lehen urtetik dabilzanak).

Kiroldegiko sarrera

Azken eguna izanik hamaiketako egitera goaz, Emakumea Pilotari egunean jasotako saritik puska bat ekarri dute txapelketa herrikoiko parte hartzaileek eta nik postrerako pastak ere bai. Beraz, azkenean kiroldegi pareko tabernako arkupean egitea erabaki dugu, mahaiak elkartu eta aulkiak jarrita. Malenek bikotea zuen zain kanpoan, baina hau beste zerbaitetara bidali eta gurekin geratu da. Iratik, berriz, alde egin du, hamabietarako lanera joan beharra daukala esanez. Nik agurtu eta elkarren berri izango dugula esan diot, akaso baimen kontu batekin berriro ere elkartu beharko garela jakinarazteko aprobetxatuz. Kanpoan zer egin eta nora jo erabaki ezinda gabiltza oraindik eta Ines ere

irten da tornutik kanpora, kiroldegiko sarrerara. Saioa jadanik ogia erostera joana denez eta besteren batek ere eguerdian haurren bila joan beharra daukala esan duenez lehenbailehen erabaki dugu eta lekua atondu, tabernan jarri eta txorizo, saltxitxoi, gazta, ogi, pasta eta edariekin mahaia mukuru betez. Ez dirudi gosez geratuko garenik!

11.15ean jarri gara kanpoan eserita, dutxatik pasatakoak ere hurbildu dira jadanik, eta hala amaitu da Hernaniko aurtengo ikastaroa. Batzuentzat udazkenara arte eta niretzat, beti arte?! Hala ere, azken-azken agurra igandeko afarian egingo dugu, San Joan iluntze/gauean elkarrekin zerbait jateko geratuak baikara ikasturtea behar bezala amaitzeko.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Kito! Joan da hau ere. Pena sentitzen dut barruan, oroitzapen asko pilatu ditut, bizipen oso onak ere bai paleta eskuan zein kontrakantxan, ariketetan lerroan zain zein pilota joka aritu garenean. Baita saioak hasi aurreko eta ondorengo hizketaldietan ere. Hala ere, badakite non nagoen eta nik ere badakit eurak non topa ditzakedan, beraz, nola edo hala saiatuko naiz hartu-emana erabat ez eteten. Hori gogorregia litzateke!

31 saio egin ditut astelehen goizetako taldean, 31 joan-etorriko bidaia, kantxan berrogei ordutik dezente gehiago, etab. Erraz esaten da.

Biharamunean bai, biharkoa, ordea, benetan izango da azkena, berriz kantxara sartzerako denbora asko igaroko dela sentitzen baitut eta, egia esan, ez dakit inoiz berriro ikastaroetara itzuliko naizen eta hainbeste jaso dudan leku bati agur esateak beldur eta tristura sentimenduak nahaspilatzen dizkit. 83 ez da zenbaki makala eta baikorra ez naizen arren onekin gogoratzea baino ez zait geratzen. Halakoa da bizi legea, ezta?!

Azken-azken-azkena

Iritsi da azken eguna, iritsi da azken joan-etorria, iritsi da kantxako azken ordu eta erdia. Bai, gezurra dirudi oraindik, sinesgaitza zait, baina urriaren 3an Hernanin ekindako abentura hau lehen geldialdira iritsiko da ekainaren 19an, Zizurkilen. Aurrez 83 saio joan dira, ordu asko eta are bizipen gehiago.

Irratia piztuta egin dut etxetik bertarako joaneko bidaia, baina ez diot ia batere jaramonik egin uhinetan zehar barreiatzen ari direnari, nire burutazioetan, bizipenetan eta sentipenetan kateatuta ibili bainaiz gaur egunaren bigarren erditik aurrera, tristura, hunkidura eta oroitzapenak nahaspilan nituela. Egun asko eman ditut gurpil zoro honetan bueltaka, jende asko ezagutu, irribarre bat baino gehiago lapurtu didate, etab. Beraz, beste zenbaitetako egoera bera izan da errepidekoa ere, hondoko musika lez esatariak eta ni nire barne-munduan zeharreko bidaian autoan aurrera nindoan heinean.

19.30 puntuan heldu naiz astearteroko zita lekura, gaur ere ibilgailuz lepo dago ingurua, beraz, buelta erdi eman eta maniobra batzuk egin ondoren libre zegoen leku bakarrean utzi dut autoa, frontoiko sarreraren pare-parean.

Pilotaleku ataria

Gaur ez dago kideen arrastorik oraindik, beraz, poltsatik argazki kamera atera eta frontoia eta inguruko txokoak argazkietan biltzen hasi naiz, ikasturtean zehar ez dudalako horretarako unerik hartu. Kanpotik atera ditut argazki gehienak, barruan frontenisean ari baita jokatzeko gazte koadrila bat. Zazpi-zortzi lagun badira, tartean neska bakarra. Lau ari dira kantxan eta besteak kontrakantxatik begira ari dira, tarteka kideak animatuz.

Jendea dabil frontoi inguruan atzera eta aurrera, asko haurrak eta gurasoak dira eta parketik edo ikasturte amaierako ekitaldiren batetik ote datozen zalantza egin dut, zuriz eta urdinez jantzita bat baino gehiago ikustea iruditu zaidalako (B.K. Ez dut galdetu, beraz, auskalo nire pelikula zuzena izan ote den!).

Zain denbora gehiegi eman baino lehen bi kotxe ezagun iritsi dira frontoi ingurura, ordurako pare batek alde ere egin dute, eta nahiko hurbil aparkatu dute, niretik hamar/hamabost metrora baino ez. Saioa izan da iristen lehena, entrenatzailea, eta haren ondoren laster batean Itsaso ere heldu da. Ni argazki kamerarekin amaitzen ari nintzen iritsi direnean eta eurengana hurbildu naiz. Ohi bezala sarreran bildu, elkarri arratsalde onak eman eta hizketan hasi gara beste kideak iristeko zain jarrita. Berehala osatu dugu laukotea, Oihane iritsi baita paleta eskuan, 19.38an nire ordulariaren arabera. Tarte horretan, gainera, Eli ere pasa da autoan, nonbaitetik bueltan etorriko zen, eta geure parean geratuta ondoren ogitartekoak tabernan eskatzeko ardura hartuko duela esan digu, berak osatuko duela zerrenda, saioa amaitzean hainbeste itxaron beharrik izan ez dezagun. Hala esan dit Itsasok harekin hitz egitetik bueltan, “zerbitzaria daukagu”. Bi semeak atzeko eserlekuetan geldi-geldi eta txintxo asko zeudela esan diot Oihaneri nik aurrez eta “hor bai geldi, lotuta doazelako, baina, bestela” erantzun dit irribarrez.

Azken saioan datorren ikasturterako ordutegi aldaketa izango ote duten edo ez hizketan aritu ziren, udalak ez dakit zer akordio lortu ote zuen Real Sociedadekin, Oihane bilera bat egitekoak zirela jakinarazi zigun eta Saioak horren gainean “zer kontatzen didazu? Zer nobedade?” galdetu dio Oihaneri eta honek “zaharrak berri” erantzun dio. Frontoiko erabiltzaile guztiekin bilera bat egiteko asmoa omen dute ekainaren amaieran, baina berari iruditzen omen zaio asteartean bila joango direla, alkateak ere egin omen ziolako aipamenen bat horren inguruan. Jakin omen du bi egunetan frontoia uztea zehaztuta daukatela, baina bi egun horiek zein izango diren jakitea falta omen da. Entrenatzaileak esan dio kultur teknikariarekin hizketan aritu dela eta honek esan diola borrokatzeko eta esateko eurek ia hiru urte daramatzatela eta hortik indarra egiten saiatzeko. Oihane esan dio orain haren ordezkoa ari dela lanean eta ez zaiola iruditzen teknikariak udalekoen iritziei aurre egingo dienik.

Marian eta Pili izan dira iristen hurrengoak, ordena horretan. Marian iritsi eta nahiko azkar jaitsi gara eskaileretan behera kantxara, aurrez entrenatzaileak bertan jokatzeko ari zirenei “frontoia okupatuta dago, entrenamendua daukagu” esan eta hauek kanporako bidea hartuta. Aurrez guri aitortu digu ez zaiola gustatzen lekua uzteko eskatzea, deserosoa zaiola. Beste mutil bat ere iritsi da bizikleta eskuan hartuta eta ia gurekin batera jaitsi da kantxara. Nik ez dakit nor den, baina lasto altxatzaile horietakoren bat ziur asko.

Pilotalekua

Harmailetan trasteak utzi, inor ez da ohartu antza, baina nik karpeta beltz bat ere badakart gaur, ohi ez bezala, barruan saio amaierarako sorpresa bat gordea duena. Argazki kamera hartu dut eskuan nik eta kantxatik hiruzpalau argazki ateratzeko aprobetxatu dut, saioetako hainbat aipamen irudi bidez ere jasotzeko, gero behar izanez gero. Bien bitartean bi hitz egin dituzte kideek eta gorputzak martxan jartzeko pronto dira.

Beroketa

Korrika hasi dira kideak, Pili ere bai, kantxara jaisten amaitu ondoren iritsi baita bera. Gaur entrenatzailea ere hasi da eta ni buelta pare bat emanda zituztenean batu natzaie, argazki kamerarekin, ustez, egin beharrekoak amaitutakoan. Entrenatzaileak esan du gaur korrika saio bat egitera joan dela eta hauspoan nabari duela eta nik, berriz, esan diot ni ez naizela gaur joan, atsedeen hartu dudala.

Korrika saioa amaitzeko entrenatzaileak “nahikoa izango dugu, ala?” bota du eta justu une horretan iritsi da frontoira Gurutze. Itsasok kidea iristen ikustean “segi, segi, bi buelta gutxienez eman ditzala” esan du aldamenetik irribarrez geratzen ari ginen bitartean. Kideak entzun egin du eta “nik nahikoa dut, izugarritzko katarroarekin nabil, gainera” jakinarazi digu.

Korroan jarri gara giltzadurak mugituz, orkatiletatik hasi eta entrenatzaileak egindakoa kopiatuz, eta ohartu naiz Onintza falta dela. Eli ere bai, baina zuntz haustura bat izan zuen eta oraindik erabat errekuperatu ez denez aste dezente dira saioetan parte hartzera etorri ez dela, noiz edo noiz sartu-irtenen bat egin badu ere besteoi kasu egitera. Beraz, entrenatzailea barne zazpikote bat gaude momentuz saio praktikorako pronto.

Berotzen ari ginela beste lasto altxatzailearen bat ere hurbildu da eta beroketarekin amaitzeko 19.50 inguruan ezker hormaren aurkako pilotoari eman diogu hasiera. Errebotetik hurbilen Itsaso eta Gurutze hasi dira hitzak eta pilotakadak elkartrukatuz, erdian Oihane eta Pili eta frontisaren aldamenean Marian eta ni neu. Bitartean entrenatzailea lurrean kono batzuk jartzen ikusi dugu eta harrিতuta “zertan ari da?” galdetu dit Marianek. Nik “azkeneko eguna dela eta akaso marraren ordezkari konoak erabiltzea erabakiko zuen” erantzun diot, eremu bat mugatzen ari dela iruditu baitzait kokatu dituen modua ikusita. Ondoren fitxa sartu eta pilotalekuko fokuak ere piztu ditu entrenatzaileak. Gaur ere Marianekin egokitu naiz beroketako azken atalean eta ondo sentitu naiz, atsegina egin zait, nik uste oso amaieran izan bada ere azkenean lotsa edo beldurra galdu eta biok lortu dugula konfiantzatxoa elkarrekiko. Besteak beste eguraldiaz, ekaitzez eta halakoez jardun dugu. Tartetxo batean pilotatzen aritu ondoren denoi bere ingurura dei egin digu entrenatzaileak.

Ariketak

4aren inguruan, kontrakantxan bildu gara eta entrenatzailea bera jertsea kendu eta eskuan paleta bat hartuta dago. Onintza etorriko den ustea duenez berak ere parte hartuko duela esan du.

1. Txokotan bizitza banarekin. Kanporatutako ordenaren arabera osatuko dira bikoteak ondorengo partidetarako, ordenaren arabera zehaztuko da nola aritu saioan zehar.

Azkena geratzen dena bakarrik hasiko dela jakinarazi du entrenatzaileak, Onintza etorri arte, eta ados agertu gara kide guztiok.

Ariketarekin hasi aurretik Gurutzek herri kiroletako mutil gehiago etorri direla ikusi du eta “goazen azkar hastera, hartu azkar pilota bat eta atzekoa mantenduko dugu, bestela hor jarriko zaizkigu” esanez atzeko eremura joateko keinua egin du. Guk, ordea, lasai egoteko esan diogu eta aurrean jokatzeari ekin diogu, kantxan zehar barreiatuta.

Hasi eta nahiko lasai hasi bagara ere ni atze samarrean kokatu naiz, ezker hormatik gertu samar. Lehenengoa kanporatzen Pili izan da eta Gurutzek pilota emanez “segi, segi azkar atzera!” esan dio aldamenetik. Kanporatu berri den kideak beste pilota bat hartu du poltsatik eta erreboteko gunerako bidea hartu du, han piloteoan arituz besteok aurrekoa amaitu arte. Entrenatzailea bera, Saioa, izan da kanporatzen hurrena, kale handi samarra egin eta pilota jo ere ez baitu egin. Beraz, bera ere atzeko gunera bidean jarri da eta haren atzetik kanporatu dira Marian eta Itsaso. Azken honek atzeko eremurako bidea hartu duenean “ui, Oihane!” bota dio bakarka aritzeko kontua gogora etorrita eta Oihanek “honekin ez daukat arriskurik” esan dio niri erreferentzia eginez. Azken tantoan lasai samar aritu gara piloteoan eta une batean dejada batekin amaitu dut tantoa nik neuk.

Aurreko jokoa amaitu dugunean atzekoei oharra pasa bi eskuekin bukatu dugula adieraziz eta berriro ere 4aren inguruan elkartu gara, bikoteak nola osatuta geratuko diren zehaztu eta nola hasi erabakitzeko. Atzetik aurrera etorri direnean “zein da bakarrik?” galdetu dute ia aho batez denek eta nik ni neu nintzela erantzun diet. Entrenatzaileak orduan “denok Uxueren aurka gaur” esan du irribarrez eta denoi ihes egin digu ezpain artetik irri txiki batek.

Bikoteak modu honetara geratu dira osatuta: Pili-Oihane, Gurutze-Itsaso, Saioa-Marian eta ni bakarrik. Hala ere, Onintza etorri arteko egoera izango da, ustez, behintzat.

2. 2:2 partidak, baldintzarik gabe, frontisean eta errebotean. 5'ko iraupena izango dute.

Entrenatzaileak esan digu aurreko bikote garaileak bertan jarraituko duela galdu arte, ez dela gunez aldatuko eta atzeko eremuko garailea izango dela hurrengo partidaren aurreko gunera joateko aukera lortuko duena. Azalpen honen ondoren entrenatzaileak 1. txandako kokapenak zehaztu ditu. Modu honetan aritu gara:

Frontisean: Pili-Oihane eta Gurutze-Itsaso

Atzean: Saioa-Marian eta ni

Partidak jokatzeari ekin diogu entrenatzaileak erlojuari eman eta “1, 2 eta 3” esanez abisua eman ondoren.

Lehen egoera honetan aurreko eremuko oihu eta saltsaren berri jaso dugu atzeko eremuan une batzuetan, gustura dirudite emakumeek, baina batez ere gure partidaren jarri dut arreta nik, irabazten saiatzeko asmo erabatekoa baitaukat (B.K. Lehiakorra naiz ni, nahiz egokitze gaitasuna ere badudan, eta gaur azken saioa dut, gainera).

Atzeko gure partida erritmo dezentekoa izan da, parekatua, eta azkenean 6-4 irabaztea lortu dudanez aurreko gunera joateko baimena lortu dut. Entrenatzailearen erlojuaren pi-pi-pia entzutean nik aurrerako bidea hartu dut eta kontrakantxan zain egon naiz, tanto

benetan luzea amaitu ezinda ari zen aurreko laukotea, amaitu duten arte. Kideak animatzen aritu naiz eta “hemen ez du inork galdu nahi, e!” bota diet aldamenetik irribarrez. Itsasok entzun egin dit eta “aspaldi galduta daukagu” erantzun dit kantxa barrutik. Azkenean azken tantoa ere Pili eta Oihane lortu dute. Orduan atzera joan dira Gurutze eta Itsaso eta “irabazi egin al duzu, Uxue?” galdetu didate aurrean geratu naizela ikustean.

20.10 paseak dira eta 2. txandako kokapenak honako hauek izan dira:

Frontisean: Pili-Oihane eta ni

Atzean: Saioa-Marian eta Gurutze-Itsaso

Aurrean lasai antzean aritu naiz jokatzeko ni, bi kideei pilota nahiko modu parekatuan jotzeko aukerak ematen saiatuz, nahiz eta une batzuetan jokaldi bidez tantoak ere amaitu ditudan. Kasu horietako batean barkamena edo antzeko zerbait eskatu diet “sentitzen dut, baina nekatzen ari naizela nabaritzean bota egingo dut” esan diet eta lasai egoteko adierazi didate (B.K. Badakite nolakoa naizen, nire berri jaso dute ikasturteko saioetan zehar, eta gaitz erdi!).

Partidaren erdi aldera ikusi dut Onintzaren kotxea iritsi dela pilotalekuaren kanpoaldera eta “beno, salbu naiz, badator nire kidea” esan diet Pili eta Oihaneri. Onintza etorri egin da, baina gaur ez dela saioan arituko jakinarazi digu, kaleko arropa jantzita eta beste lagun batekin batera etorri da, eta “hau da hau” edo “Uxue gaixoa” bezalakoak entzun ditut kideen ahotik.

Partidan zehar huts batzuk egin ditut nik, bizpahiru bai, eta markagailua itxuratzea lortu dute neurri batean nire aurkariek, baina ez dut eragozpen handiegirik izan partida honetan nagusitzeko, nahiz eta unerren batean mugiarazi nauten.

Denbora tarte pasan denean ohartu naiz atzetik aurrera ez datorrela nik espero nuen bikotea, Gurutze-Itsaso datozelako handik nigana, Pili eta Oihane bidali ditut atzera nik, eta entrenatzaileari adarra jotzeko probestu nahi izan dut okasioa “zer, orain ere galdu egin al duzue?” botaz irribarrea ahoan. Baiezko erantzuna jaso dut errebote ingurutik.

Leku aldaketak amaituta 3. txandako kokapenak hauek izan dira:

Frontisean: Gurutze-Itsaso eta ni

Atzean: Oihane-Pili eta Saioa-Marian

Gurutze eta Itsaso aurrera etorri direnean “ea zer egiten digun honek” esan du Gurutzek nire ingurura iritsi orduko eta euretako bakoitza non kokatu erabaki ondoren ekin diogu partidari. Itsaso jarri da atzean eta Gurutze aurrean azkenean.

Hasterako markagailuan tarte zabala lortu dut, batez ere euren huts egiteak medio, eta “zuek galtzen duzue, ez nik irabazi” esan diet aldamenetik xaxatu nahian. Gurutzek berak esan du “zu ikusi eta psikologikoki nahasi egiten gara, eragin egiten diguzu” eta nik, albotik, irribarrez, “hemen gerra psikologikoak ere balio du” erantzun diot. Partida desorekatua izan bada ere markagailuan oraingo honetan saiatu naiz kideei pilotakadak emateko aukera eskaini eta gehiegi ez nabarmentzen, nahiz eta propio jokaldiren bat edo beste egin eta trukean “ze alua den!” bezalako loreak jaso ditudan (B.K. Hori ere bada gure arteko konfiantzaren isla). Gurutzek “gainera gurekin jolasean ari da” ere esan du une batean, irribarrez, pilota bi kideei zuzentzen niela ohartzean. Niri tanto bat egitea

lortu dutenean ospatu egin dute, benetan poztu dira kideak, eta ni ere poztu naiz eurek gustura ikusita, egia esan.

Denbora mugaren amaieran kideei lekuz aldatzeko unea iritsi zaie eta nik leku berean jarraituko dut, aurreko eremua ia nire erresuma bihurtuta. Saio osoan zehar hala izan dadin saiatuko naiz, gainera. Aldaketen ondoren modu honetan aritu gara 4. txandan:

Frontisean: Saioa-Marian eta ni

Atzean: Oihane-Pili eta Gurutze-Itsaso

Partida oso lehiatua jokatu dugu aurrean, erritmo bizian, korrika egin behar izan dut, eginarazi ere bai, sufritu ere bai markagailuari eusteko, eta larri ibili arren azkenean 5-4 nagusitu naiz. Urguilua edo ohorea, ez dakit zer den, ateratzen dut halakoetan.

Partidako une batean, hala ere, entrenatzaileari esan diot “ni airez sartzen baldin banaiz ez daukazue zereginik” eta hala izan dela konprobatu ahal izan du partidaren zehar, era horretan gutxiago desplazatu behar izan naizelako. Hala ere, hanketan nekea eta arnasa berotuta une batean baino gehiagotan sumatu ditut, baina “gustuko lekuan aldaparik ez” dio esaerak eta horri heldu diot nik ere.

Erlojuaren pi-pi-piarekin batera amaitu da aurreko nire laugarren partida eta bosgarrenarako bikotearen zain geratu naiz. 5. txandako egoera hau izan da:

Frontisean: Oihane-Pili eta ni

Atzean: Gurutze-Itsaso eta Saioa-Marian

Frontiseko eremuko partida honetan berriro ere bihotz taupadak eta erritmoa baretu dira, aurrekoko bizitasunik ez dugu izan, nahiz eta kideek intentzio oso ona eta niri tantoak egiteko saiakera ugari egin. Eurek huts batzuk egin dituzte eta nik ez asko. Nik, gainera, neke puntua sumatzean jokaldiren bat egiteko probestu dut okasioa eta ez dute markagailuan ni estutzeko aukera handiegirik izan kideek (B.K. Egia esan, ez diet utzi).

Partida honetan gu jokoan ari ginen bitartean Eli sartu da frontoian eta atzeko eremutik gertu eseri da harmailetan, ondorengo ogitartekoak eskatzeko zerrenda eskuan zekarrela. Hala ere, beste txanda batean ere jokatu dugu denok bildu aurretik, 6.a osatuz:

Frontisean: Saioa-Marian eta ni

Atzean: Gurutze-Itsaso eta Oihane-Pili

Aurreko eremuko partida hau ere lehen elkarren aurka aritu garenean jokaturikoaren tankera bertsukoa izan da, bizia, lehiatua eta nekagarria. 4-5 nintzen atzetik markagailuan erlojuaren pi-pi-pia entzundakoan, baina tantoa amaierara arte jokatu behar denez nik 5-5 berdintzea lortu dut eta berdinketa hausteko azken tantoa, urduria eta luze antzekoa, neuk eskuratu dut. Beraz, majo kostata, baina 6-5 nagusitu naiz.

Partida hau amaitu denean oraindik gorritu gabe nengoela esan didate, baina nik izerditan blai nengoela erantzun diet, ni ez naizela aurpegia gorritzen zaien horietakoa.

Gaur ez dira lasto altxatzaileak entrenatzen aritu gure jardunarekin batera, han genbiltzala ikusita amore eman dute antza. Beraz, gaur lasaiago aritu gara denok.

Egoera berean zazpigarren partida bat ere jokatzeko modua egin dugu. Hasi aurretik Gurutzek, atzeko eremura hurbildu naizelako, “atzera al zatoz?” galdetu dit eta nik “ez, ez, ez dut galdu” esan eta “zer pena!” bota du berak (B.K. Egia esan, euren aurka behin baino ez naiz aritu orain artean).

Azken txanda honetan honela aritu gara:

Frontisean: Oihane-Pili eta ni

Atzean: Gurutze-Itsaso eta Saioa-Marian

Kasu honetan ere garaipena neuk eskuratu dut aurreko eremuan eta bost minutuak amaitzean atzera joan gara, kontrakantxan bilduta dauden beste kideen ingurura, afaltzeko zer nahi dugun eskatzera, saioaren ondoren tabernara hurbiltzean zain denbora gutxiago pasa dezagun. Elik hartu ditu oharrak eta orria eskuan hartuta tabernara joan da, nahiko azkar itzuliz berriro ere pilotalekura.

Kidea berriro ere itzuli denean entrenatzaileak denok kantxan bilduko garela esan du. Bakarren batek niri irabaztea ezinezkoa dela esateko ere aprobetxatu du, irribarrez, eta modu berdinean erantzun diet nik ere. 20.50 inguru dira eta saioari, eta ikasturteari (B.K. eta nire abenturari!), azken minutuak baino ez zaizkio geratzen. Entrenatzaileak azken joko bat proposatu digu.

3. 3:3 partida. Bi arituko dira jokatzeko bikote bakoitzetik eta hirugarrena kontrakantxan zain. Kide batek bi kolpe egitean kanpokoarekin lekuz aldatuko da.

Ariketa aurkeztu ondoren “Eli, zu nirekin epaile” esan dio entrenatzaileak min hartuta dagoen kideari eta honek “ni laguntzaile, e, zuk agintzen duzu hemen” esan dio irribarrez. Izan ere, ariketa aurkeztu duenean nik “ni kanpoan jarriko naiz” esan diot eta ez dit lehenengoan ulertu kontrakantxan zain hasiko naizela esaten ari nintzenik. Ulertu duenean baietz egin dit buruarekin eta hirukoteak nola osatu erabakitzeari ekin dio. Zalantzaren bat egin ondoren, laguntzearen nik esan diot nikien koloreak erabil zitzakeela, hiruk beltza geneukan, “ez, ez ditut koloreak erabiliko” erantzun dit eta jakinarazi digu nola arituko garen: Gurutze-Itsaso-Pili eta Oihane-Marian-ni.

Jokatzeko hasi eta hasieran markagailuan 2-2 berdinduta aritu bagara ere gure aurkariak huts batzuk egin eta nik pare batetan asmatzearen poderioz tarte ireki dugu ezustean. Gurutzek “alua”, “gaiztoa” eta halako lore batzuk bota dizkit eta “maitasun apur batekin esandakoak direla pentsatu nahi dut” esan diot eta “noski, baietz” erantzun dit. Jokatzeko ari garen bitartean norbera da bere kolpe kopurua kontatzearen arduraduna eta “bi” eta “sartu” bezalako oharrak elkartrukatu ditugu hirukoteko kideon artean kantxa eta kontrakantxako sartu-irtenak koordinatzen saiatuz.

20.56an entrenatzaileak amaitutzat eman du saioa, 7-3 irabazi dugu guk, eta kontrakantxara hurbildu gara denok, harmailtan lehen utziriko trasteen ingurura.

Luzaketa ariketak egiten hasi gara eta entrenatzailea konplize dudanez emakumeei esker ona emateko bertsoa banatzeko kide bat falta denez disimuluan tabernara joan eta berekin ekarriko duela esan dit, beraz, luzatzen eta elkarrekin hizketan jarraitu dugu bien bitartean. Nik gaur bezalako okasioetan urguilua ateratzen zaidala esan diet eta “eskerrak daukazu” erantzun dit, adibidez, Gurutzek. Behar dela esan duen beste bakarren bat ere izan da.

Gaurko saioan agian ohi baino buila gehiago egin dugula iruditu zait niri, tartean nik ere bai tantoren bat galdutakoan, baina ez modu txarrean, barruko pena edo amorrazioa ateratzeko baino ez. Beste bizpahiru kidek gehiagotan egin izan dute eta gaur ere bai.

21.00 inguruan etorri dira Saioa eta Onintza tabernatik bueltan eta urduri nagoenez gehiago luzatzen hasi aurretik “urguilua badaukat, baina bihotz bat ere bai” esan eta karpeta eskuan hartuta taldeko kide guztiok agertzen garen argazkiaren gaineko bertsoa ematen hasi naiz banan-banan. Harridura aurpegi bat baino gehiago izan da eta sorpresa hartu dutela dirudi. Hala ere, Itsasok umore puntua jarri du eta “bertsoa ere Uxueren estilokoa, luzea” bota dit aldamenetik. Ondoren doinua zein den azaldu, bi aukera eman dizkiet, eta kantatzeari ekin diogu.

Bertsoa kantatzen amaitzean plazer bat izan dela esan diet, nire 83. eta azken saioa izan dela hau, beste era batekoak izango direla hemendik aurrerako lanak, eta eurek “egoa elikatzeko beharra daukazunean etorri hona” eta “bakarrik jardun nahi duzunean hartuko zaitugu Zizurkilen” bezalakoak esan dizkidate irribarrez. Hori bai, ni beldurtu naiz, hunkiduraz malkotan ikusi ditudalako kideen erdiak. Ai, ama! (B.K. Ni ez, harrizkoa izango ote naiz?!). Ondoren onartu diet ez naizela oso musu-emaile ona, baina halakoetan ematen ditudala eta halaxe amaitu dugu despedidatxoarekin. Ni ere hunkitu naiz, saioetako bizipen asko etorri zaizkit burura, baina ez naiz malkoak erraz isurtzen dituzten horietakoa.

Frontoi ataria

Bertsoarena igaro ondoren eskaileretan gora frontoi atarira irten eta trasteak utzi ditugu norbere autoetan, nikiak aldatu ere bai gehienok, eta kide guztiok elkarrekin hartu dugu ikasturtea agurtzeko bidea, tabernan afari pasara egitera.

Nire inpresio eta sentipenen txokoa

Amaitu da Zizurkil eta amaitu da kantxako landa lana! Horrek sentipen kontrajarriak eragiten dizkit, baina bizilegea da eta onartu beste erremediorik ez daukat. Gainera, onar dezadan urrian gaur hala egongo nintzela esan izan balidate ez nuela sinetsiko eta erotzat hartuko nuela hori ziona, beraz, ez daukat kexatzeko aukerarik. Ez horixe!

Kideei esan diet saiatuko naizela bisitaren bat egiten eta elkar ikusiko dugulakoan agurtu dugu elkar, ondo izateko opaz. Gainera, beste ordu pare batean luzatu dugu gaurko saioa afaria medio eta izugarri gustura aritu naiz honetaz eta hartaz hizketan.

Bukatu da saioen atala, ia bederatzi hilabete beranduago, bostehun orri inguru idatzita, milaka kilometro errepidean pasata eta ordu askoren ondoren. Jende zoragarria ezagutu dut, benetan gustura eta atseginez jarduteko plazera eman didate lanera joanagatik, eta hori ez da diruz ordaintzen. Ezta bertso batekin ere! Hurrengo fasea hastea tokatzen zait eta ea ahal den heinean hau bezain aberasgarri eta gustagarria den. Gogorra dela jakin arren beste bizi-esperientzia bat izango da, beraz, datorrela datorrena!

Ederra izan da!

Ibilian-ibilian, norabide jakinik gabe zenbaitetan, aurkako noranzkoan unerren batean, estu eta larri, lasaixeago, etab. baina edozein modutan ere nire behaketa parte hartzaileko faserik nagusiena amaitu dut. Kito! Guztira 38 asteko tartea izan da urriaren 3tik ekainaren 19ra artekoa, tartean jaiegun, zubi eta saioetako atsedenaldirxoak izan baditut ere, bai Gabonetan eta bai Aste Santuaren harira. Tarte horretan, ordea, buru, belarri eta bihotz aritu naiz kantxako lana ondoren bertan bizi eta ikusitakoarekin bateratzeko saiakeretan pantaila aurrean zein grabagailua lagun, nola edo hala aurrera irtenez eta horrek poz pixka bat ematen dit, zergatik ukatu.

Ez naiz bereziki zenbaki eta kopuru zalea, kantitatea baino gehiago gustatzen zait gauzen nolakotasunari eta esentziari erreparatzea, izanari izenari baino gehiago, baina 83 saiotako oharrak batu ditut, kantxan eginak 81 izan badira ere, bi azken unean bertan behera geratu zirelako. 30 bat emakume ezagutu ditut, fenomeno izugarriak, eurekin gozatu eta goxatu, 3 herri (eta bertako hainbat aparkaleku) “fitxatu”, 3 pilotaleku etxekotu, 3 errealitate aztertu, euren arteko berdintasun eta ezberdintasunekin, etab. Kilometro kopuruak ez dauka inolako interesik, baina ziur naiz kotxeak berak ere izango duela kontatzeko moduko pasadizoren bat hainbeste joan-etorriren ondoren. Eskerrak ez duen hitz egingo!

Pena nabari dut barruan, eztarran korapilo bat ere bai, baina zerbait lortu izanak dakarkidan poza ere bai aldi berean, lanaren zatitxo bat egiteko gai izan naizela erakutsiz, batez ere, neure buruari. Ingurukoek nik baino sinesmen eta konfiantza handiagoa dute nigan eta nire lanean, egia esan. Nire akorduan, azken urteotan, ia beti izan da hala, gainera.

Orain artekoa neureganatzeko denbora apur bat beharko badut ere fase berri bat da une honetatik aurrera ekingo diodana, jendearekin elkartrukean jasoriko informazio pila hori mamitu, antolatu eta interpretatzen saiatzekoa, datuei zentzua ematen saiatzekoa, orri artean igeri egin eta ito gabe amaitzea nahiko nukeena. Ea ez nauen zezenak adarkatzen! Edo, gutxienez, esaerak dioen eran, “eroriz ikasten da oinez”, beraz, ez nadila lurrean zutitu ezinik geratu. Zalantza, kezka, ilusio eta beldur berriak datozkit ate joka. Beraz, aurrekoa erabat itxi gabe, zirrikitu bat utziko dut sartu nahi duenarentzat, ate berri bat ireki eta aurrera bidean jarraitzen saiatzeko unea da hau, ibilbidea luzea bezain neketsu eta gogorra izango dela jakitun naizen arren. Alea Iacta Est!

II. ERANSKINA

**AISIALDIKO ELKARRIZKETA
BILDUMA**

Elkarrizketa data: 2012-05-22
Lekua eta ordua: Bere etxea, 9:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Zuriñe
Adina: 57 urte
Jaioterria: Hernani
Bizilekua: Hernani

Empezaremos un poco más a hablar sobre pelota. Primero, a ver cuándo empezaste o por qué empezaste a jugar a pelota, exactamente en los cursillos.

Pues, sí, pues simplemente yo la verdad que deporte poco, nadar y pues por el trabajo, los padres mayores,... nada y una mañana, estando en casa, cuidaba a mi madre, vi en el periódico una foto de los cursillos que había de pala y le comenté a mi madre “pues me voy a apuntar a pala” y mi madre casi se desmaya de la risa. Pero como era los lunes a la mañana, un horario que me venía perfecto porque yo trabajo laboralmente por las tardes, pues me apunté y así empecé, y, bueno, a disfrutar como una loca.

Y, ahora sueles ir solo a los cursillos o luego juegas.

Hombre, a veces. Ahora, por ejemplo, en este momento soy amona y este año se me ha interrumpido la, este año he fallado bastante. A los cursillos no fallo, eso es sagrado, y luego los miércoles solíamos quedar las del grupo o con la hija, con Jone, también suelo ir los sábados a jugar, pero ahora de momento estoy un poco ahí. Pero, bueno, con ganas sí y si tengo tiempo me apunto.

Has dicho que los cursillos son sagrados. ¿Por qué crees que son sagrados?

Porque disfruto un montón. Disfruto un montón. Hay veces que pasas un mal momento porque te enfadas o porque ves cosas que no te gustan, pero, bueno, como eso no es la pelota, si no es la gente que está alrededor de la pelota, eso quiero decirte que no, muy bien. Yo, desde luego, es mi mejor terapia.

Y has dicho que también vas a nadar.

Sí, voy a nadar por problemas de espalda y por problemas también que tuve una fascitis plantar y, bueno, porque tengo que hacer algo. Voy dos días a la semana, estoy también apuntada en un cursillo porque, si no, no voy. Soy también un poco fuerte, entonces me busco cosas para no hacer lo mío y entonces es un poquito como una obligación y a gusto también. Hombre, me gusta más la pala que el nadar porque nadar es un poquito soso, pero, bueno.

¿Y, por qué dices que te gusta más la pelota? ¿Qué les distingue?

Pues, por ejemplo, porque me gusta, me muevo, pego unos golpes que dices “pues qué bien, pues qué mal” y nadando, pues, me ahogo, y no, no. Me río, en la pala disfruto, no sé cómo explicarte, no sé. Es distinto, me gusta, me gusta. La verdad que el frontón lo conozco desde pequeña, porque yo me acuerdo que mi amona vivía en los Tilos y daba el balcón al frontón y ahí los domingos como íbamos a casa de la amona, pues me he

tragado desde que llegaba a la barandilla los partidos de pelota. Y, entonces, tenía un tío que falleció que también era pelotari y no sé, pues en mi casa, mis tías, mi padre, siempre han andado ahí y, claro, nosotras hemos sido cuatro chicas, no ha habido ningún varón, y a mí, pues, con la cuadrilla también solíamos jugar a pala también en los Tilos, pero parecías una “marichico”, no sé, como en aquella época era como salirte de, como un deporte así, sí, yo femenino ahí, le dabas cuatro palazos y ya está, pero, ejem. Quiero decirte que no era, parecía como que te salías de, pero bueno, siempre me ha gustado y es lo mejor que he hecho en mi madurez.

Tuviste un parón. Has dicho que de pequeña jugabas en los Tilos, pero luego no.

Sí, sí, luego ya nada. No, entonces, también, yo, por ejemplo, me casé con 22 años, siempre he trabajado desde los 18, o sea, te quiero decir que he estado trabajando en comercio, he trabajado mañana y tarde, no he podido hacer muchas cosas, ni cursillos, ni clases de euskera, ni francés, ... Quiero decirte que estás con un horario muy atado y, entonces, siempre la familia, el trabajo y así. Y ahora que es cuando estás más libre es cuando dices “pues ahora voy a hacer lo que me gusta” y ahí voy.

Ondo, ondo. Has dicho que antes te decían que era un juego de chicos. ¿Ahora te parece que estás jugando tú en un deporte de chicos o no?

No, pienso que no tiene nada que ver. No sé cómo decirte, eso es como con la bicicleta o no sé, ése es un deporte mixto, ahí no hace falta ser... hay que ser habilidoso y nada más, o sea, no pienso que demuestres que seas más hombre o más mujer.

No sientes tú.

No, nunca, incluso antes tampoco, no, no, ni antes tampoco, lo que pasa que era que era como no sé, no sé, “y ésta”. La verdad es que a mí siempre me ha gustado el deporte, también hice atletismo de chavala, iba a Anoeta a correr, pero nunca he hecho nada en grupo ni nada de esas cosas. Siempre ha sido un poquito a tu aire, a tu aire.

Ahora has dicho que... yo tengo aquí otra pregunta. Si fueras sola, no fuera igual en grupo, ¿lo harías igual o te costaría más, o de otra forma? Ahora os juntáis casi una docena.

Sí, un grupo, bastantes. Hombre si haría sola, ¿pero con un monitor dices o sola, sola, yo sola ir a jugar a pala?

Por tu cuenta

No iría, no, no. En grupo es más fácil porque quedas y “pues vamos” y sola creo que no iría, no se me ocurriría, aunque reconozco, je, je, que fui. Reconozco que cuando empecé, que no pegaba un palo al agua, y se me metió a mí la pala en la cabeza, esto, me cogía la pala en una mochila, me iba a andar y en el frontón de la Florida, que está ahí abajo, que ahí no pasaba ni Kiski, je, je, pues me pegaba cuatro palazos. Reconozco, pero era porque, pues, por decir “¿por qué no lo voy a poder hacer?”, o sea como diciendo “no, tengo que hacer”, era algo como de superación de mí misma, no, pero lo demás yo creo que fue un toque que se te pone en la cabeza. Luego ya posterior no lo he hecho. Bueno, luego es cuando empezó a acompañarme mi hija “jo, ama, pues ya

iremos, ya iremos” y empezamos a ir, pero reconozco que algunas mañanas me iba y como allí no había nadie, pero vamos, pienso que fue un momento, cuando empecé el cursillo. Luego ya quedamos con Juanita, con aquella que me pegaba todas a la pared, que por eso le doy ahora con la izquierda, pero, bueno, con aquella venía, entonces, con otra persona sí. Sí, tienes razón, he llegado a ir sola, je, je.

No es malo, e.

No, no, pero te quiero decir que sí lo he hecho. Sí.

Y ¿en grupo, sólo porque es más fácil, porque como ya has quedado vas o porque al final también en esos cuatro o cinco años que lleváis en el cursillo hay alguna relación más?

Yo, la verdad, relación, relación, no tengo con las chicas que voy en el grupo. Te quiero decir que no andamos en la vida cotidiana, en la calle nos vemos, “hola, hola” y “adiós, adiós”. Te quiero decir que no tengo mala relación, pero ni buena. Es la relación del curso del frontón y de ahí viene mi relación.

Ondo, ondo. Ya has empezado a decir tú que cogías, ibas andando, a medio escondidas, ... ¿Tú crees que si el cursillo fuera al aire libre, por ejemplo, en los Tilos, y se haría todo el curso digamos en público, irías?

Hombre, no sé. Hombre, si no tendría otra opción iría, si no tendría otra opción iría. Ahora, me gusta más en un sitio que, pues eso, cerrado, no sé, que los que estamos estamos a lo que estamos. Estamos haciendo deporte y en un sitio que no... no sé, tampoco es una pega, pero me gusta más como estamos. Sí.

No sé si es la vergüenza o.

Hombre, pues sí, la vergüenza o el ridículo. Es como sentir un ridículo que total no tienes por qué sentir el ridículo porque tampoco vives de ello.

Tú date cuenta que hay gente que no anda.

Sí, sí, y entonces el que está mirando que mire, pues tú no menos que yo, pero es como, no sé, no me atrae. Hombre, ya he estado, cuando hemos ido a los Tilos ya he estado, pero parece que andas mirando como a ver quién pasa por aquí. No, no estás a gusto, yo no estoy a gusto.

Y has dicho que vas a nadar por hacer deporte. ¿Tú crees que al final vas a jugar a pelota, o a pala, por hacer algo también o es más por el disfrute?

La pala es por disfrutar y el nadar es porque creo que me viene muy bien para mi trabajo, para la espalda, estoy todo el día de pie. Ya te digo, es un aburrimiento pero reconozco que salgo muy bien. Ahora, lo de la pala es otra cosa, es como si me iría de marcha, en vez deirme de parranda, pues, voy a hacer deporte, voy a jugar a pala.

Ondo, ondo. Creo que un poco la respuesta me la sé, pero, ¿tú has participado en algún campeonato fuera de los cursillos? Ya sé que en el campeonato que organiza el polideportivo algún año sí. Y, ¿por qué o por qué no? ¿Te atrae?

Bueno, lo del polideportivo. Sí, se hace como “bueno, pues vamos a jugar, a ver qué pasa”. La verdad que la primera vez me apunté porque había una compañera que no tenía pareja y entonces le dije “si no te enfadas conmigo yo me apunto contigo”.

¿Eso cuándo era, hace tres o cuatro años?

Sí, pues creo que dos. Sí tú estabas pero yo creo que fue el último año sería.

Igual

Me acuerdo que aquella estaba suelta y yo le dije “tú yo si quieres me apunto, pero a mí no me chilles”, porque aquella tenía muy mala gaita. Bueno, mala gaita no, tenía un pronto. Yo la verdad creo que no soy competitiva, tengo ahí un esto. Yo voy a disfrutar. Hombre, a veces te picas, joe, es normal, dices “si le podía haber dado a ésta” y voy a disfrutar. Me acuerdo que me apunté y la verdad que lo pasé bien. Ya sabía que no íbamos a hacer nada, pero yo disfruté. Además, me encanta, me encanta no, pero me llama la atención lo competitiva que es la gente, o sea, yo que siempre he sido un poco pasota, no sé, y ves y yo allí alucino. Conoces a la gente, las formas de ser distintas de todas y la verdad que...

Has visto diferencias en la competitividad.

Sí sí, totalmente. Unas van a todo, pero van a todo viviendo la pelota, es que agarran todo, agarran todo. Otras se mosquean, parece que el fallo siempre es el del otro y dices, pues, no sé. La verdad que yo me apunté a ese campeonato y disfruté.

Y sigues disfrutando porque sigues todavía.

Sí, sí, y luego cuando se apuntó Jone, pues...

¿Jone se apuntó porque tú andabas a gusto?

No, me dijo “ama, si quieres me apunto contigo” y le digo “ya sabes que nosotras cómo vamos, vamos a jugar y ya está”.

Ondo, ondo. Has dicho que al final la hija también se apuntó. Has dicho que tu madre la primera vez que le dijiste se rió, no se enfadó.

No, no, me dijo “ui, si viviría tu padre”, porque mi padre también... Teníamos en casa palas de esas gordas, de ésas de frontón y me dice “mira, tengo ahí las palas de tu padre” y digo “no, deja, deja, esas palas de momento las vamos a dejar”. No, le hizo gracia.

¿Cómo reaccionaron tu marido, las hijas, ...?

Se meaban de la risa. Mi madre la primera, y luego, “¿a pala?” y “sí, por qué no, yo de chavala también jugaba a pala”. Pero, ningún problema, en casa las hijas encantadas. En casa ningún problema y mi marido igual, igual.

Y los conocidos, los amigos,...

En la cuadrilla un cachondeo de miedo, sí, sí, a buenas, pero cachondeo, e. O sea, unas risas...

¿Te tomaban el pelo? Y, ¿te siguen tomando todavía?

No, ya no, fue el momento cuando esto y cuando vieron la primera foto en el *Kronika* de Emakumea Pilotari que sacaron de Irura, bueno, bueno, qué risas. Y mis cuñados y, bueno. Sí, sí, pero a buenas, sí, sí, a malas no.

Y, la gente un poco más lejana, de la calle y así, ¿te ha solido decir algo?

No, no, no, nada, no. No he tenido, es algo que hago porque quiero y no, no, no he tenido ningún comentario.

Ahora vamos a ponernos en una situación un poco distinta. Vamos a imaginar que eres un hombre. ¿Tú crees que irías a un cursillo de pala como éste? ¿Te parece que se suelen juntar ellos en ese plan?

No, porque yo creo que ellos juegan desde chavales. Yo, por ejemplo, en la cuadrilla, todos los chicos que tengo, bueno, porque siempre hemos sido una cuadrilla de chicos y chicas, los chicos siempre han estado jugando en el frontón, si no era a pala a mano o lo que sea. Te quiero decir que lo hacen desde abajo, ya han quedado para jugar a pala, lo mismo que nosotras, pues, nunca quedas para jugar a pala. Entonces, quiero decirte que, hombre.

¿Te parece que es más fácil apuntarte siendo mujer si te dan la opción de juntarte con más gente?

Yo pienso que sí, porque los chicos ya de por sí ya hacen grupo. Por ejemplo, yo en la cuadrilla siempre he tenido a amigos que iban a jugar a pala los jueves y yo nunca he tenido un grupo para ir a jugar a pala los jueves.

Y, ¿con los chicos no te animabas?

Bueno, tampoco me he metido porque igual me sacaban cantares. No sé cómo decirte, ya era como meterme en camisa de once varas, pero, es que tampoco se me ocurría porque era gente que va, que además juegan y se machacan. Y dices “pues mira qué suerte, pues ya podía haber tenido yo a alguien para poder ir”, pero tampoco hubiera tenido opción en aquel tiempo de tiempo. Ahora, por ejemplo, como tengo tiempo, si me apetece lo hago, si no me apetece, pues, no lo hago y ya está. Ahora por ejemplo ya juego con los chicos, e. A, sí, sí, sí, ahora no me corto ni un pelo. Si van a jugar voy. Ahora sí. Ahora sí, pero antes no.

Y, ¿qué ha cambiado ahí?

Pues que ahora ya puedo jugar un poco más. Ahora puedo jugar un poco más.

Ondo, ondo. A mí ya se me han terminado las preguntas. No sé si tienes algo que decir, te gustaría decir algo acerca de este tema, ...

La verdad que igual en otro deporte no sé, pero a mí, en este momento, en este cursillo disfruto, como terapia me viene muy bien, y que, bueno, que ha sido lo mejor que he hecho desde hacía mucho tiempo, lo mejor que me ha venido para el momento y nada más.

No sé si me quieres tirar de las orejas por algo. No creo que te hayas asustado tanto.

No, no, está bien, está bien. No hay ningún problema. Lo único que no he conseguido ha sido aprender un poco más de euskera, pero lo demás, bueno. Al ir así en grupo, pero es mi batalla perdida. Pero bueno, es igual, en la pala puedes hablar en cualquier idioma.

Bai, bai. Ondo, ba, eskerrik asko!

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Zuriñe

Elkarrizketa bezperan lotu genuen, aurreko astean baiezkoa jaso ondoren. Bere prestutasuna erabatekoa izan da, goizeko 9etarako hitzordfua egindako lekuan egonik eta gosaria ere emanaz. Elkartu eta errepidean arazoak izan direla entzutean nirekin oroitu omen da, iritsiko ote nintzen.

1. elkarrizketan (2012-05-22, 9:00)

- Hasi aurretik urduritasun puntu bat sumatzen zitzaion eta bukaeran berak ere onartu du kezka puntu bat bazuela. Gustura eta lasaiago sumatu dut lehen bizpahiru minutuak eta zerbait berriak dakarren hasierako beldurra gainditu ostean.
- Zenbait bizipen kontatzean irribarretsu agertu da, begiek ere diz-diz berezia eginez. Gozatu egiten du pilotan, berak ere argi azaldu du.
- Elkarrizketaren ondorena izan da politena, egia esan. Gosaria atera didate (lazo egin berriak barne, hau da hau!) eta alaba ere etorri da egongelara (aurrez bada ez bada ere ez omen da agertzera ausartu), hirurok gaiaren gainean hizketan arituz. Pena, baina grabagailua itzalita neukan (horrek ere erraz zezakeen solasaldi barea eta emankorra izatea).
- Honako gai hauek atera dira:
 - Ikastaroen hasiera eta bere parte-hartzearen hasiera
 - Aurten 5.ikasturtea. Denak batera, ia bi bakarrik, batera eta azken 2ak ni gabe.
 - *Kronikan* argazkia ikustean animatua.
 - Emakumea Pilotariko karpeta bat dauka, jasotako bertso, artikulua zati eta abarrekin.
 - Taldeko kideen ezaugarriak nahiko azkar nabaritzen dituela esan du Korok, akaso bere lanean ere merkataritzan bezeroak identifikatzea dagokiola

argudiatuz, eta “sabes cómo es cada una, a callar y que corra el aire” esan du tratuaeren gainean.

- “Nola izena eman genuen txapelketan?” galdetu dio alabari. Izena eman zuten, bikote aukera handirik ere ez zegoelako bestela ere. Askotan bikoteak nahikoa ezarriak daudela argudiatu du eta aldatzea kosta egiten dela.

- Lehiakortasuna. Bera ez omen da batere, pasota samarra omen, alaba ere bai.

- Jende oso ezberdina ezagutu du ikastaroan bertan, galtze txarrekoak ere bai. Lehiakortasun kirolaria (competitividad deportiva) behar dela adierazi dute, baina, apisonadora bat izatea ez.

- Txapelketetan izena emateko beharrik ez dute, ondo pasatzen dute oso bestela ere.

- Deigarria egin zait harreman sareak beretzat ez duela garrantzirik entzutea. Besteek gauza bera esango ote didate?! Nire uste OKERRA ote da harremanena? Hala ere, denak berdinak ez direla argudiatzeko pisuzko arazoia da hau, taldea jarduteko aukera bezala aurkeztuz, bakarrik aritzea baino errazago bilakatuz jarduera.

- Elkar larunbatera arte agurtu dugu, Emakumea Pilotari Eguna ospatuko delako Tolosan. Joateko asmoa du.

Elkarrizketa data: 2012-05-23

Lekua eta ordua: Kide taberna (Hernani), 9:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Irati

Adina: 39

Jaioterria: Donostia

Bizilekua: Hernani

Palarekin lotuta hasiko gara orain. Ea noiz hasi zinen eta zergatik hasi zinen palan. Ez dakit ikastaroaren aurretik ibiltzen zinen, ez zinen, aurrez ibili zaren pilotan...

Ez, batere ez. Ni beti izan naiz kirolzalea eta auzoan, atletismoko jendearekin, palan edo erraketan ibilia, eta aspaldi neukan gogoia apuntatzeko, baina ordutegiz ezin nuen eta azkenean aurten kointziditu dit eta, beno.

Gainera, zu hasi zinen kurtsoa hasi eta gero. Urrian edo hasi zen eta zu ez dakit azaroan edo azaroaren erdialdean.

Bai, uste dut azaroan edo abenduan, bai, bai, bai, bai, baina gustura, gustura.

Eta, nola hasi zinen? Bazenekien bazegoela ikastaroa?

Bai. Nik adituta neukan ikastaroa zegoela, emakumeena eta hori eta nahi nuen kirola egitea eta azkenean ba hori.

Eta, normalean, zer egiten duzu astean behin ikastaroa eta aparte elkartzeko zara beste norbaitekin ala ez?

Ez, ezer ere ez. Orain hasi naiz, nola apuntatu garen txapelketa horretara, Tilosetakoa, ba tarteka ba igual egun batean edo horrela geratzen gara eta aste bukaeran saiatzen gara. Baina bestela keba, ez dut egiten ezer.

Eta esan duzu, adibidez, lehen atletismoan uste dut dezente ibilitakoa zarela eta gainera urte dezentetan ibilitakoa.

Haurdun geratu arte atletismoan, hasieran atleta bezala eta gero entrenatzaile bezala.

Esan duzu pilota aukeratu zenuela. Zergatik ez, adibidez, orain modan dauden spinning, aerobic, pilates?

Ez, horrek ez nau erakartzen. Pilota betidanik gustatu izan zait eta ni ondo ikusten naiz pilotan, desahogatzeko-eta, behar nuen, ez dakit, ohitura puskatzea, zeren eta beti betikoa egiten dut eta aldatzeko edo lasaitzeko, behar nuen aldatzea.

Zerbait ezberdina ikusten diozu besteekiko?

Nik beti egiten dut, hori, umearekin egon eta behar nuen nire ihesbidea. Ez dakit.

Eta, ezin zen ihesbide izan aerobiciceko saio bat?

Ez, ez, ez nau erakartzen horrek, ez dator bat nirekin. Nahi nuen korrika egitea, baina perezaz ematen dit eta igual hemendik bi urtera edo agian bai.

Adibidez, osasunagatik, forman egoteko, sasoiagatik egiten duzu pilota, edo beste zerbait da?

Bai, beste zerbait da. Ba hori, ihesbidea behar nuen, ez dakit, hobby bat bezala, jendea nola joaten den bizikletan edo musera, ba, nik behar nuen zerbait.

Eta ihesbide horrek esan dezakegu engantxatu zaituela?

Ni bai. Niretzat, egiten zait gutxi egun bat, ahalko banu egingo nuke gehiago, bi gutxienez aste barruan. Nik nabaritu dut entrenatzen baldin bazara egun gehiagotan hobeto zaudela. Niretzat, behintzat. Jende asko dago agian iraupenik ez daukana, agian gehiago nekatzen da, baina ni naiz zu bezala, “de piñón”, gehiago egiten baldin badut hobeto. Agian, hasten baldin bazara partidu batean ordubete pasa ondoren jendea porru eginda egoten da, baina nik nahiago dut jarraitzea.

Hori agian izango da aurretik egin duzulako oinarri bat.

Bai, baina ni abiadurakoa nintzen, e.

Bai, baina astean egun askotan entrenatuko zenuen eta oinarri bat landu.

Bai, bai, bai, guk atletismoan egunero, astelehenetik ostiralera eta gero aste bukaeran lehiaketak, beraz, bai.

Nik uste hori nabari dela, zerbait egiteko ohitura-edo.

Bai, nik uste dut baietz, zeren eta jende asko dago ez duena inoiz kirola egin eta orain hasten direnean, ostra, nabaritzen da hori.

Esan duzu, adibidez, zuk bi egunetan jarriko zenukeela ikastaroa, baina zure kabuz ibil zintezke, bakarrik, egin horretan. Zure kabuz joango zinateke ala zailagoa da?

Ni, bai. Hala ere, orain askotan joaten naiz mutilarekin, nola aste bat goizez eta beste bat arratsaldean daukan, ba arratsaldean daukanean ba hartzen dut egun bat eta benga! Bai, bai.

Talderik gabe ere egingo zenuke zailagoa izanagatik ere.

Bai, bai.

Lehen nola hasi zaren Tilosekin, txapelketan izena eman zenuen, gainera, gomazko pilotarekin. Zergatik eman zenuen izena?

Ba uste nuen errazagoa zela. Ez, baina uste nuen pilota horrekin errazagoa zela eta, beno. Ni betidanik ondo ibili naiz pilotan eta hor konturatu naiz entrenatu egin behar dela asko. Baina, beno, polita da, e.

Gustura, txapelketan gustura ibili zarete.

Bai, bai, baina gertatzen dena da ya kalean gaudela. Orain hasi naiz pixka bat kontrolatzen eta ya ez dago denborarik gehiago jolasteko, baina, hurrengoan.

Aukera tokatzen bada berriz izena emango zenuke txapelketa batean, berdin dio izan teniseko pilotarekin edo gomazkoarekin, kiroldegikoa...

Bai, bai, San Joanetakorako gogoia daukat eta uste dut apuntatuko naizela. Dauxkat bi lagun apuntatzeko nirekin, beraz, nago ia... Bai, esan dit batek eta jarraian beste batek esan zidan “ba nik apuntatu nahi dut” eta esan nion beste batekin nengoela, baina apuntatuko naiz, ea zer ateratzen den.

Eta, zergatik?

Kirola egiteagatik.

Esan duzu, azkenean, zu hasiberria zara, esan dezagun, ikastaro hauetan, zer esan zizuten, adibidez, bikoteak zer esan zizun esan zenionean “pala apuntatuko naiz”. Nola erreakzionatu zuten?

Ondo, animatu egin ninduen, bai, bai. Berak badaki nolakoa naizen ni eta animatu egin ninduen eta esan dit hurrengo urtean apuntatzeko berriz eta gustura baldin banago jarraitzeko “sin falta”.

Esan duzu umea era badaukazula. Umeak esaten dizu zerbait?

Animatu egiten nau, asko animatzen nau. Gero, txapelketa honetan, galdu ditugu hiru partidu eta, beno, esaten dit “ama, zu lasai, batzuk irabazten dute eta besteek galtzen dute”. Nik esaten nion hori, “ama atletismoan ibili zenean batzuetan irabazi eta besteetan ez”. Gustura, gustura dago.

Eta, lagunek eta horrela?

Ezer ere ez, ez dute ezer esaten.

Eta, gurasoak?

Gurasoak bai, pozik daude, ikusten dute ondo nagoela eta, beno, gustura eta animatzen naute, bai, bai, zeren eta urte asko eman ditut ezer ere egin gabe eta nola beti ibili naizen kirolarekin erlaxionatuta orain ikusi dute hasi naizela eta gustura nagoela eta, beno, animatzen naute, bai.

Gertuko zirkulu horretatik pixka bat urruntzen hasita, kalean zerbait entzun duzu edo beste ezer esan dizu besteren bat? Inork ez dizu ezer esan, zer moduz, ondo, galdetu.

Beno, ikastolako gurasoek galdetzen didate ea zer moduz eta animatzen naute, bai, bai, “lasai, lasai, hurrengo urtean izango da”, baina bai, askotan animatzen naute bai. Hori bai.

Animoak behintzat jaso dituzu hasi zarenetik.

Bai, bai, asko, zeren eta lehen partiduan desesperatuta amaitu nuen, zeren eta atera eta tanto, atera eta tanto, eta jende askok hortaz animatu nau pila bat. Esan didate “lasai, hurrengoan izan da, hurrengo partiduan edo hurrengo urtean”.

Eta, txapelketatik aparte, aipamenen bat ikastaroaren inguruan ala besterik gabe?

Ez.

Ondo, ondo. Adibidez, zure kasuan, nola zu berria zinen, barkatuko didazu “berria” esatea, zuk jende berria ere ezagutuko zenuen. Zuk ikastaroko jendearekin harremanik bazeneukan lehen?

Bistaz batzuk bai, baina ez, batere ez, bistaz ezagutu eta batekin bai, “aupa, aupa”, baina besteak ez.

Jende berria ezagutzeko balio izan dizu beraz?

Bai, asko balio izan dit. Ikusi dut jende jatorra dagoela, edade guztietakoak, eta hori alde batetik niretzat, ez dakit, ba, ez dakit nola esan, pozgarria da, bai, bai, edade guztietakoak elkartu, emakumeak, eta denbora pasa.

Jende horrekin gustura?

Bai, oso gustura. Nik, hurrengo urtean, ahal baldin badut, jarraituko dut.

Ahal bada talde horretan, jende horrekin?

Beno, beste talde batean tokatzen bazait beste batean, baina bai, talde horretan ni gustura, gustura.

Bestea da, beno, esan duzu lehen atletismoan ibilitakoa zarela, han suposatzen da gizonak eta emakumeak nahiko parekatuta daudela, edo ez agian. Zuk sentitzen duzu pilotan zabiltzanean, kasu honetan palan zabiltzanean, gizonen kirol bat egiten ari zarela, ala ez?

Bai.

Iruditzen zaizu baietz, baina zerbait entzun duzulako, zerbait daukazulako entzunda aurretik, umetan adibidez, edo?

Ez, ez. Ez dut ezer entzun.

Desberdintasunak ikusten dituzulako edo zergatik iruditzen zaizu hori gizonen espazioa dela?

Kar, kar, kar (*barre urduria*).

Lasai esan.

Igual gaizki ulertu dut galdera. Mutilen espazioa ez da, baina nik, adibidez, atletismoan entrenamenduak ezberdinak ziren, mutilei beti eskatzen diete gehiago. Ez dakit, nire ikuspuntutik eta hemen, beno, ba, ez dakit. Ez dakit zer esan.

Askotan esaten da, agian, pilota mutilen kirola dela. Horregatik galdetzen nizun ea zuri iruditzen zaizun zu egiten ari zaren horretan sentitzen duzun gizonen espazioan zabiltzala.

Ez, ez.

Ondo, oso ondo. Nire galderak bukatu dira.

Uf, azkeneko galdera zaila da, e.

Hori ez zaizu gustatu.

Ez, oso ondo dago elkarrizketa, baina zaila da.

Ez da galdera tranpa, e.

Ez, zerbait egon behar da hor maleziarekin, entrenamenduan bezala, kar, kar.

Ez, ez da malezia. Ez dakit badagoen beste zerbait esan nahiko zenukeena gai honekin lotuta, zerbait ez dizudana galdetu eta kontatu nahiko zenukeena edo, lasai bota.

Oso gustura pasa dut eta gero, ba, ikasi dudala. Ikasi dudala bai, nik neukan kristoren ohitura pala horrela hartzera eta erakutsi didate nola hartu eta nabaritzen da, eskertzen da.

Ezkerra ere meioratzeko badago.

Bai, kar, kar, kar. Gero asko ikasi dut lagunak ikusten, bai, ongi ibiltzen direnak geratu naiz fijatzen eta besteei begira ikasten da eta asko lasaitu naiz. Eduki ditut egun txarrak eta txarrak, eta beno. Lasaitu naiz.

Badauzka beste funtzio batzuk orduan.

Bai, bai, niretzat bai.

Ba, ondo. Eskerrak eman eta horixe, jostailua itzaliko dugu.

Zuri.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Irati

Elkarrizketa bezperan lotu genuen azkenean, ostegunetik asteazkenera aurreratuz bi elkarrizketa egun berean burutzeko. Bere planak aldatu zituen nirekin hitzordua lotzeko eta prestutasun erabatekoa izan, goizeko 9etan hitzordua egindako lekuan agertuz, haurra eskolan utzi eta zuzenean.

1. elkarrizketan (2012-05-23, 9:00)

- Urduri zegoen, bezperan elkarrizketari bueltaka aritu omen zen, sekula halakorik egin gabea omen da.
- Eskerrak eman dizkit hautatu izanagatik, ingurukoei esan omen die. Gustura dago.
- Azken galderan deskolokatu egin da, gizonen kirolaren kontuan, ez dakit ondo ulertu duen eta nik ondo azaltzeko modurik egin dudana. Horri buruzko beste aipamenen bat egin du geroago.
- Amaieran zailagoa izatea espero zuela esan dit, lasaiago zegoen ordurako. Tilo setara elkarrekin joan gara eta bertan dabiltzanei azterketa gainditu duela esan die.
- Sozializazioaren gainean erdi zalantzati utzi nau, “bai, baina ez” batean. Jende jatorra ezagutu omen du, baina honek ere ez du kanpoan harremanik mantendu.

Elkarrizketa data: 2012-05-23

Lekua eta ordua: Tilos pilotalekuko bankua (Hernani), 10:30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Ainara

Adina: 43

Jaioterria: Hernani

Bizilekua: Hernani

Ia berotu gara, ia elkarrizketa hasteko moduan. Lehenengo galdera da ea pilotan noiz hasi zinen eta gero hortik ikastarora nola iritsi zinen.

Hasi, hasi ikastolan hasi nintzen, hemen, Tilosetan, gainera. Ez dakit zenbat urterekin, hamarrekin edo horrela hasiko nintzen, pentsatzen dut. Egiten zen ikastola mailan txapelketa, oraindik egiten dutela, Urumeakoek, eta San Joanetako txapelketa bezala hor egiten genuen.

Zer jolasten zenuten, tenisekoarekin ala beste pilotaren batekin?

Uste dut baietz, tenisekoarekin izango zen, uste dut baietz. Tenisekoarekin, horrela ibiltzen ginen, entrenatu gabe e, ibiltzen ginen partiduetara bakarrik etortzen ginen eta hor hasi ginen. Hor zortzigarren mailara arte edo horrela eta gero ya utzi nuen.

Gero, utzi zenuenean, erabat utzi zenuen edo zuen kabuz joaten zineten jolastera?

Bai, hemen ez, baina Nafarroan bai, Nafarroan beti ibili izan gara. Udaran-eta joaten garenean han beti, beno, beti, igual egongo ziren garai batzuk jolastu gabe, baina normalean bai. Hemen ez, e, Hernanin ez, baina han, Nafarroan bai.

Gero bat-batean, beno, ez dakit bat-batean iritsi zinen edo prozesuaren jarraipena zen, iritsi zinen ikastarora.

Ez, ez, ez, badakit batzuk jarraitu zutela, baina nik ez nekien jarraitu behar zutenik, bestela jarraituko nuen seguruenik, baina ez nekien jarraipena bazegoenik eta orduan nire gisa ibiltzen nintzen eta gero hori enteratu nintzen, *Kronikan*-edo irakurri nuen eta hasi nintzen, bai, pixka bat ea zer egongo zen ikustera eta hor segitzen dut, bai.

Orain zenbat aldiz ibiltzen zarete paletan edo nola ibiltzen zarete? Badakit ikastaroz gain ibiltzen zaretela.

Kar, kar, kar. Oraintxe ibili gara, bai, normalean asteazkenetan. Normalean astean bitan, ikastaroa eta beste bat. Batzuetan ostiralean ere bai, norbait aurkitzen badugu, eta orain Tilosetako txapelketa horrekin larunbat goizetan ere batzuetan ibiltzen gara, zeren batzuk ezin dute astegunean, orduan larunbatean, eta ni denetan, kar, kar, kar.

Zer ibiltzen zarete ikastaroko jendea, bestelakoa ... denetik?

Denetatik, bai, bai, zeren batzuetan mutilekin ere ibili izan gara, lagun batzuekin, eta ahal denarekin.

Pasatzen dituzu asteko hiruzpalau egun palaren bueltan, gero alabak entrenamendua daukala eta abar.

Ez, ez, hiru edo horrela. Bai, bai, ikustea eta horrela bai.

Orduan, zer dauka palak? Adibidez, esan duzu ikastarora apuntatu zinela ikusteko zer zegoen. Esan nahi dut ez zinela apuntatu spinning, aerobic edo orain modan dauden horietan guztietan.

Ba gustatzen zaidalako pala. Ez, horiek ez zaizkit gustatzen. Apuntatu nintzen gustatu egiten zaidalako pala.

Eta, zergatik gustatzen zaizun badakizu?

Zergatik? Gustura ibiltzen naizelako eta gozatu egiten dudalako jolasten, besterik gabe, kar, kar.

Erdi engantxatuta zaudela esan dezaket, edo?

Beno, igual bai, kar, kar. Pasatzen naiz gabe, baina bai, bai, baina ibiltzen naizenean gustura ibiltzen naiz.

Ondo, ondo. Esan duzu, adibidez, ondo pasatzen duzulako. Badauka ikastaroan ibiltzeak edo gero zure kabuz ibiltzeak loturarik kirola egitearekin edo sasoi lortzearekin? Edo beste asmo bat daukazu?

Bai, noski, hori ere ondo etortzen da. Ez da kirol egokiena, baina bai.

Ikuspegi hori ere badago horren atzean zure kasuan.

Bai, bai, horrela izerdi pixka bat atera eta gustura, bai. Askotan ez dugu egiten, baina.

Korrika baino errazago.

Bai, bai, korrika ez zait gustatzen, zerbaiten atzetik baloia edo pilota edo, ez dakit.

Esan duzu taldean ibiltzen zaretela, beno, azkenean beti norbaitekin. Bakarrik izango balitz, adibidez, ikastarorik ez balego eta bakarrik izango balitz joan zinateke? Egingo zenuke berdin-berdin?

Ni bakar-bakarrik?

Bai.

Bakar-bakarrik ez, bakarrik aspertu egiten naiz, kar, kar, kar. Bakarrik ez zait gustatzen pilotari ematea. Hori ibiltzen da bakarrik, baina.

(Bere ama etorri da elkarrizketa egiten ari ginela)

Amaren bisita eta gero segi egingo dugu. Bakarrik ez zinateke joango.

Ez, aspertu egiten naiz ni bakarrik pilotari ematen.

Beraz, gustatzen zaizu, baina jendearekin hobeto?

Bai, bai.

Hernaniko kasuan, adibidez, ikastaroa ematen da kiroldegiko frontoian, ezkutuan ez, baina, beno, ez du inork ikusten eta leku pribatua deituko diogu. Tilosetan emango balitz egingo zenuke?

Bai, ikusten duzu ari naizela hemen ere. Bai, bai.

Lotsak ez lizuke eragingo kasu horretan?

Ez, izatekotan nerbioek igual batzuetan, baina entrenatzea bakarrik ez.

Hurrengoa da ea txapelketetan parte hartzen al duzun.

Ba bai, batzuetan bai.

Zergatik, non, nolakoetan?

Ba, hemen, Tilosetan orain atera da 7 Pasako hori, gomazkoarekin, orain hasi garela, eta bai, gustua hartu diogu eta, ba, ondo. Gero, San Joanetakoa-edo zena, txapelketan kiroldegian teniseko pilotarekin ere bai, baina gehiagotan ez, herrikoetan.

Herrikoetan bai eta besteetan ez. Zergatik? Parte hartuko zenuke herrian, baina kanpoan ez?

Ez dut pentsatu.

Adibidez, Emakumea Pilotari egunean parte hartzen duzu. Hor urtero?

Bai, bai, hor ere bai. Bai, uste dut hasi naizenetik baietz, kar, kar.

Hernaniko ordezkari ofiziala zara orduan, kar, kar.

Bai, ez dut ondo ordezkutzen, kar, kar, baina hala naiz. Gero eta okerrago. Ondo hasi ginen, lehenengo, bigarren, hirugarren eta...

Zergatik? Gustatzen zaizu lehia?

Bai, gustatzen zait. Batzuetan urduri ere jartzen naiz, baina bai, ondo pasatzen dut. Ondo pasatzen dugu azkenean eta bai, gustatzen zait lehia puntu hori.

Ondo, ondo. Bestea da, badakit gizona daukazula, hiru seme-alaba daukazula... Gogoratzen zara zer esan zizuten zuk esan zenienean "pala hasiko naiz ikastaroan"? Edo nahiko ohituta zeuden aurretik?

Ezer ere ez. Bai, askotan ez, baina Nafarroan, joaten ginenean, ibiltzen ginen umeekin eta ibiltzen gara, senarra ere bai. Ez ziren batere harritu.

Eta lagunek-eta?

Ezta hori. Bazekiten ibilia nintzela eta ibili izan naizela batzuetan, baina.

Gertukoentzat nahiko ohikoa izan zen orduan.

Bai, bai.

Harrituko ziren izenik eman izan ez bazenu?

Ez, ez, ez dut uste. Ez, ez, ez, ez ziren harrituko.

Pixka bat urrutiagoko jendea, kalean bakarren batek zerbait, zabiltzalako edo zenbiltzalako zerbait entzun duzu edo esan dizute edo iritziren bat?

Beno, esaten dute beti, bai, bai. Beti esaten dute zerbait. Beno, ikusten gaituzte eta ezer ere ez, “animo, ondo ari zarete” eta ezer berezirik ez. “Pilotari” deitzen digute hor kaletik pasatzen garenean, baina besterik ez.

Ondo, orduan jendeak badaki bazabiltzala.

Bai, hemen, bistan ibiltzen naiz, ez naiz gordetzen. Gero, txapelketetan, irabazi izan ditugu batzuk eta irabazten duzunean *Kronikan* jartzen dute eta orduan ya Hernani guztiak ikusten zaitu.

Eta, ez dutenean jartzen jendeak esaten dizu “ui, ez zara azaldu?”

Ez, ez. Ya, gainera, pentsatzen dute irabazi egin behar dugula, lehengo urteko txapelketan ere *Kronikan* ikusi eta “ba, horiek dira txapeldunak” eta ya kristoren presioa sartu ziguten eta gero guk kaka egin genuen, baina.

Gero, adibidez, alaba hasi da palan. Alaba zer hasi da ama dabilelako edo ume-umetatik? Ahizpa ere badabil. Zuen familian jende asko dabil palan.

Bai, bai, palaren inguruan bai. Beno, gu ibiltzen gara, semeak ere ibiltzen dira, ondo ematen diote, gurekin ibiltzen dira e, eta alaba hasi da, beno, ba agian guk edo nik piztu nion igual hasierako zera, baina, noski, ikusten du ondo ematen diola eta jarraitu egiten du. Orain, gainera, irabazi du Alebinetako Gipuzkoako Txapelketa, eta hori irabazita gustura, jarraitzeko gogoarekin. Noski, hurrengo aukeratuko duena pala izango da. Orain zeuzkan bi aukera, saskibaloia eta pala aukeratu zituen, eta hurrengoan bakarra pala aukeratuko duela ia garbi dauka. Bai, nik ezer esan gabe, e, berak bakarrik.

Ahizpa ere badabil. Ahizpa ere bide beretik dator?

Bai, ikastolan hasi zen bera ere eta gero hori ibiltzen ginen Nafarroan, bera ere ibiltzen da, eta elkarrekin hasi ginen ikastaroan, igual bat bestearen animoan, igual bakarrik ez ginen hasiko. Bai, igual bata bestearengatik hasiko ginela, igual bakarrik, uf.

Beno, lagunen bat ere hasi zen, ezta?

Lagunen bat?

Zure lagunen bat hasi zen, ez dakit haiek aurrez palan bazebiltzan.

Hasi ziren geroztik. Hasi ziren geroztik. Ni hasi nintzen eta gero nik animatu nituen haiek.

Egin duzu hor lan hori ere.

Bai, batzuk animatu izan ditut eta engantxatu txapelketarako ere bat baino gehiago. Gero bronka jasotzen dut, baina, kar, kar.

Egin duzu hor sustatze lan bat ere inguruan, ez?

Bai, nik engantxatzen ditut denak segituan. Bai, kar, kar.

Orain harremanez-edo ari ginen. Zuk uste duzu, esan duzu bakarrik aspertu egingo zinatekeela eta suposatzen dut taldean ez zarela aspertzen.

Ez, eta beste batekin ere ez, baina ni bakarrik pilotari ematen bai, zeren azkenean da eman eta eman eta azkenean ez duzu ezer egiten, ez korri eta...

Adibidez, hemen elkartzen zareten batzuk ez dakit ikastaroan ezagutu zenituen, aurretik ezagutzen zenituen ... Harremana bazeneukaten?

Batzuk lehenagotik. Malen, adibidez, lehenagotik ezagutzen nuen, ume bidez eta hori, ikastolatik. Miren eta besteak ezagutu kaletik bai, baina hitz egin eta horrela ez.

Orain bai.

Orain bai, bai, bai. Orain ondo, gainera moldatzen gara. Ondo.

Ez dakit esan litekeen, baina iruditzen zaizu harreman batzuk sortu zaizkizula palatik? Ez dakit lagun talde bat den, ezagun talde bat den edo ez dakit nola dei dakioken.

Bai, bai, bai, baina palatik ezagututakoak eta, beno, ondo moldatzen garenak, adibidez, ikastarotik eta gero jarraitu dugunak gure kontura.

Esan nahi dut, adibidez, ikastaroan badakit hasieratik zabiltzala, baina iaz beste talde batean ibili zinela lan kontuengatik.

Bai, arratsaldeetan, bai.

Orduan, ahalko bazenu talde berean mantenduko zinateke edo, beno, ez zaizu hainbeste axola?

Honbre, ni mantentzen naiz jendearengatik talde honetan, goizekoan. Arratsaldekoan hobe da gutxiago direlako eta gehiago ibiltzen zarelako, baina, beno, goizeko harremanengatik-eta bai, goizekoa aukeratu dut. Egin nitzakeen biak, baina goizekoa aukeratu dut.

Adibidez, taldekide berriak ere badaude. Haiekin ere ondo?

Bai, bai, ondo. Bai, ondo. Egoten gara kalean eta, beno, ibili izan gara batzuetan txapelketa honen harira-edo ibili izan gara jolasten elkarrekin berriekin ere.

Esan dezakegu sozializazio bat badagoela zure kasuan, behintzat.

Bai, bai. Bai, bai.

Hau omen da galdera zaila, baina ez da galdera zaila. Iruditzen zaizu gizonen kirol bat egiten ari zarela zu pilotan zabiltzanean?

Ez dut behin ere pentsatu. Ez dut behin ere pentsatu, baina ez zait iruditzen, ez? Gizonak gehiago daude eskupilotarekin lotuta, niri iruditzen zait, e, eta neskak palarekin gehiago. Nik horrela ikusi izan dut beti. Gizonak ere ibiltzen dira palan, baina nik gehiago ikusi izan dut beti neskak palan eta mutilak eskuz. Honbre, gero ibili denekin egiten naiz, mutilekin, gizonekin edo.

Gehiago zen sentsazio edo irudipen hori zuk ba ote daukazu.

Ez dut eduki inoiz.

Umetan ere ez?

Ez, ez. Izango da umetan neskak bakarrik ibiltzen zirela palan hemen. Ni ibiltzen nintzenez neskak, eta mutilak ibiltzen ziren eskuz, orduan, ez dut eduki inoiz sentsazio hori. Igual aldrebes, txapelketa horretan mutilek eskuz eta neskak palaz. Orduan, ba, lotu igual horrengatik neskak gehiago palarekin, baina, beno.

Pilota igual orokorrean bai, baina zure jarduna ez zaizu iruditzen gizonen esparrukoa.

Ondo. Nik bukatu ditut galderak. Ikusi zer erraza zen. Ez dakit zer edo zer esan nahiko zenukeen, niri belarritik tira egin nahi ote didazun zerbaitengatik, zerbait gehiago galdetzea espero zenuen, ez zenuen ... Zerbait esan nahi baduzu.

Ez, ez. Ez nekien zer galdetuko zenuen ere. Pentsatzen nuen gauza batzuk, adibidez, nola hasi eta hori bai eta gero nola sartu nintzen, baina.

Ez zaizu hain beldurgarria iruditu orduan.

Ez, ez, beldurgarriena tramankulu hau (*grabagailua seinalatuz*), kar, kar.

Ba, ondo. Eskerrak eman. Urte eta erdi barru edo, bukatzen badut egunen batean, abisatuko dizut.

Ba, horixe, bai zera!

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Ainara

Elkarrizketa bezperan lotu genuen azkenean, ostegunetik asteazkenera aurreratuz bi elkarrizketa egun berean burutzeko eta berak ostegunean ezin zuela abisatu zidalako bezperan. Hitzordua eurek paletan aritzeko gunean jarri genuen, aurreko elkarrizketa amaitu ondoren.

10etan agertu naizenean ikusi nau eta berehala hasteko prest agertu da, baina jarraitzeko esan diot nik, lagunekin partida pare bat gehiago jokatuz berak. Azkenean bera hurbildu zait bigarrenaren amaieran, aurpegi masailak apur bat gorrituta eta izerditan. Tilosetako banku batean aritu gara solasean, itzalean.

1. elkarrizketan (2012-05-23, 10:30)

- Lasai, baina grabagailuak errespetua ematen diola aitortuz ekin dio. Urduritasun puntutxo bat, ardura azken batean, sumatzen zaio. Hala ere, tenple onean dagoela dirudi.
- Artifizial samarra izan da hasiera niretzat ere, grabagailurik gabe lasai-lasai jarduten dugulako bestela ere hizketan.
- Elkarrizketan ari ginen bitartean propio ahizpak galdera bat egin dio frontoitik, adarra jo asmoz, baina ez dio jaramonik egin eta gurean jarraitu dugu.
- Grabagailua itzaltzean esatea ahaztutako gai pare bat atera dira, elkarrizketak segiz:
 - Yogara ere joaten da eta lasaitzeko oso ondo omen datorkio hori. Biak ditu gustuko.
 - Faltan botatzen du euren mailako jende gehiagorekin aritzeko aukera, hobetzeko norbera baino hobeak direnekin jardutea komenigarria baita. Hala ere, hori ez dela bere kasuan esan diot eta berak “horregatik ibiltzen gara mutilekin batzutan. Ez dut esan nahi hauek txarrak direnik, baina ez da berdina” aitortu dit.
- Pilota bizi du eta pilotak bizi du. Mutilen paletako partidak ikusten izan zen bezperan ere, besteak beste.
- Bere ama agertu zaigu erosketetako poltsak eskuetan une batean, baina zerbaitetan ari ginela ikusita ez da hurbildu, nik grabagailua itzali arren. Bisita espres horren ondoren jarraitu egin dugu; minutu erdiko tartetxo izango zen asko jota.
- Biok elkarrekin alde egin dugu frontoitik, berak etxera eta nik liburutegira. Tesiaz eta aurreikuspenez aritu naiz, berak galdetu eta nik faseak azaltzeko ahalegina eginez: datu bilketa, datuen azterketa eta azken dokumentua idaztea.

Elkarrizketa data: 2012-05-28
Lekua eta ordua: Elcano taberna, 18:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Ines
Adina: 60
Jaioterria: Hernani
Bizilekua: Astigarraga

Oso ondo. Orain hasiko gara palaz hitz egiten. Lehenengoa nik uste nabarmena dela. Zu nola hasi zinen? Ikastarora nondik iritsi zinen?

Kronikan jarri zutelako Emakumea Pilotari. Ni ez nintzena gogoratu zen nire ahizpaz, baina nire ahizpa nitaz bai.

Ahizpak esan zizun zuri ikastaroa zegoela?

Ez, Kronikan albistea atera zen eta esan egin nion apuntatu egin behar nuela eta berak ere baietz. Semeei esan zien “nik izebarekin apuntatu egin behar dut”, horrelaxe.

Aurretik pilotan ibilita zeunden umetan edo?

Bai, umetan bai, asko! Umetan? Igual bost edo sei edo zazpi urterekin hasi eta hogeiterra arte, e. Eta gero ere bai, ezkondu eta gero ere bai, seme-alabekin pila bat, asko.

Zer ibiltzen zineten, eskuz, palaz edo nola?

Umetan eskuz, palaz eta seme-alabekin ia palaz.

Gero utzi egin zenion jokatzeari edo segitzen zenuen zure kabuz?

Ez, seme-alabak hazi zirenean ia utzi egin nion. Utzi egin nion. Orduan urte pila bat pasa ditut pala hartu gabe. 56 urterekin bueltatuko nintzen berriz.

Eta, zergatik apuntatu zinen?

Gustatu egiten zaidalako palan ibiltzea. Esan nuen, “hau da nirea!” Gainera, deitu nuen federaziora, ahizparekin hitz egin aurretik deitu nuen federaziora. Hogeitertetik gora uste dut jartzen zuela Kronikan eta esan nien “badago mugarik? Zenbat urtera arte?” eta federaziokoak esan zidan “ah, ba ez dakit”. Nik pentsatzen nuen “igual egongo da 50 edo 40” eta esan zidaten “ez, ez, ez dago problemarik” eta horrelaxe. Bai, federaziora deitu nuen.

Orain ibiltzen zara astelehen goizetako taldean.

Bai, astelehen goizetan. Lehenago asteazken goizetan ere bai, lehengo urtean bai, baina aurten esan nuen “ez, ia 60 urte, astelehenetakoa egingo dut”. Hanketako minik ez daukat, asteazkenetan ikusi nuen, gainera, pilota txikiarekin hasi zirela, Tilosetan ere ibiltzen ziren eta niri igerilekuak tira gehiago egiten zidan eta gero umeak. Esan nuen

“Tilosetara joan behar dut eta pilota txikiarekin?” Ez, ez. Orain esaten dit Ainarak “etorri asteazkenean”, baina ez.

Astelehenarekin osatzen duzu palako dosia orduan. Konforme geratzen zara astelehenetakoarekin.

Bai, orain nik pentsatzen dut baietz. Igual datorren urtean asteazkenetan berriz etorri egingo naiz, baina hanketako arazoren bat duzula edo...

Baina hori igerilekuan ere bai, edo Pilatesen, edo kalean paseatzen zoazela.

Bai, hala da. Ez balira agian Tilosetan ibiliko eta pilota txikiarekin, igual bai. Bai, baina ez dut hainbeste gozatzen, gainera. Teniseko pilotarekin ibili izan balira igual joan egingo nintzen, e, baina ez.

Pixka bat engantxatuta bazaude palara? Orain esango banizu nik “datorren urtean ez dago ikastarorik”. Pena emango lizuke edo ez bereziki?

Bai, bai, noski.

Astelehenetako hori bada orduan “sakratua”.

Bai, bai, bai, bai. Bai, bai, uf! Txikia gaixotzen baldin bada esaten dut “astelehena pasatzen baldin bada asteartean geratuko naiz”, baina astelehena bai. Azkeneko astelehenetan, egon dela barizelarekin ez edo ez dakit zer zuen, astelehena ez zuen ona eta esan nion alabari “nik partiduak dauzkat eta ez baldin badaukazu zera handirik niri 9.30etik 11.00 arte utz iezadazu”. Jaitsi egin nintzen, partiduak neuzkan eta bi partidu egin nituen. Ez, astelehena da ez gelditzea hor txikiren bat gaixo astelehenean. Hori bai.

Esan duzu igeri egiten duzula eta Pilates ere bai.

Igeri egunero eta Pilates astelehena eta asteazkenean.

Pilota ere bai. Hiru gauza egiten dituzu. Zer daukate diferentea beraien artean? Adibidez, esan duzu pilota behar duzula, igeri egitea ere behar duzula suposatzen dut.

Bai. Igeri egitea igual da erlaxazio bat. Ni alargun geratu nintzenean nik ez nuen hartu ez aspirina bat, ez lo egitekorik, ez. Nik esaten nuen, tanatoriora lagunak etorri ziren Astigarragoak eta “ni bihar igeri egitera, ni bihartik aurrera igerilekura”.

Aurretik ez zinen joaten?

Bai. Nik igerian daramatzat hogeit hamar urte baino gehiago. Aspaldikoa da, baina esaten nuen “ni gertatu zaidanarekin bihar ez naiz geratuko etxean, ni bihar igeri egitera joango naiz”. Nire senarrak bazekien hilko zela, baina burua ondo zeukan eta nik esaten nion “zu lasai, e, zu lasai, ni ibiliko naiz igerian, joango naiz pilotara eta etxean hizki-zopak egiten nituen eta horiek egingo ditut”. Hark zer pentsatzen ote zuen nik esaten nionean “zu lasai, ni moldatuko naiz, e, zu lasai”.

Gero ibiltzen nintzen altzari zaharrak zaharberitzen, baina hor izan genuen emakume “quisquilloso” bat eta ez bazen halakoa izan oraindik hor egongo nintzen, baina haserretu zen eta utzi egin genuen eta orain ez da ikastarorik ateratzen. Batek esan zidan “beno, Pilatesen hasiko gara” eta “Pilatesen? Baina hori oso garestia da” eta hasi ginen biok Pilatesen, baina berak jangelan lan egiten zuen eta esaten zuen “ni gero Pilates eginda ez naiz pertsona”. Genuen maisu bat, gogorra, eta Pilates da maisuaren arabera, zer begirale edo zer duzun denek oso ezberdin egiten dute eta nahiko Pilates gogorra egiten zigun, baina ni ondo moldatzen nintzen. Berak esan zidan “ni Yogara noa eta Pilates utzi egingo dut”. Hasi nintzen Hernanin bera Hernanikoa, baina “nik jendea ez dut ezagutzen, baina nik segitu egingo dut” esan nuen eta ez dakit hirugarren edo laugarren denboraldia den.

Pilotarekin nik lantzen ditut korrika, besoak, ... Hemen ere besoak bai, baina Pilates da oso ezberdina, abdominal asko da, besoarekin ere egiten dugu, baina.

Sasioan jartzeko ere erabiltzen duzu orduan pilotako saioa? Osasunaren ikuspegia edo hori ematen diozu pilotari

Bai, bai, bai. Lehengoan, ez dakit noiz egin nuen, karneta berritzeko azterketa, lehengo abenduan izango zen eta niri gaztetan soploa bilatu zidaten, 17 urterekin-edo, eta esaten zidaten “nola ibil zintezke pilotan? Pilotan infartua emanda jende pila bat hiltzen da” eta joan nintzen behin odol analisiak egitera eta esan zidaten ez zela oso ona. Beno, ba joan nintzen karnetaren errebisioa egitera, begiratu zidaten han eta esan zidan “ah, oso ondo zaude, e” eta esan nion “ondo nago? Nik soploa neukan” eta begiratu zidan eta esan zidan “ez daukazu soplirik, e”. Esan nion “nik pilota egiten dut” eta medikua ni baino gazteagoa zen, baina begiratu zuen horrela eta esan zidan “lasai, pilota egiten duzun bitartean osasuntsu zaude, beraz, segi pilota egiten”.

Hark animatu zintuen.

Bai, bai, bai, bai, bai. Berak esan zidan “zuk segi pilota egiten, lasai, gainera, hori da seinale osasuntsu zaudela”. Bai, bai, besoko minik eta ez daukat, ez belauneko minik, ... Ez daukat, ez, ez, ez hankak handitu eta korri ere pilotak harrapatzen ditut. Ez, ez, pilotan oso gustura nabil, bai, bai eta ikusten dut ibiltzeko ere ... Atzo ere mendira joan nintzen, San Markosera, dena da gora, ordubete da gora-gora eta nik gaur goizean ez neukan agujetarik, ez neukan ezer eta hori uste dut pilotarena dela. Ez neukan agujetarik eta ez ezer ere.

Sasoiko zaude. Igeri egitearena ere izango da. Denarena izango da.

Bai. Pilatesen abdominal asko egiten dugu.

Eta, talderik egongo ez balitz astelehenetan, zu bakarrik joango zinateke pilotan ibiltzera? Zu bakarrik?

Ez, ez. Gainera, ni naiz, gure ahizpa ez den bezala, naiz pixka bat lehiakorra eta, orduan, baten bat behar dut. Ni zaharrena naiz, atzetik bost ginen, anai gazteena orain dela sei hilabete hil zen, baina beste anaia ... Ni txikia naiz, baina besteak dira handiak, oso handiak eta orain bazkari bat egin genuen eta esan nion anaiari “anaiak lehengo urtean esan zidan jokatuko zidala partida bat eta irabazi egingo dizu” eta “niri? Harritzen

naun!” Orduan ahizpari jokatu zion eta ahizpak esan zion “niri bai” eta ahizpari irabazi egin zion. Niri ez, 6-9 galtzen nindoan, gero 11na eta gero 12-11 nik irabazi nion. Anai zaharrenak, berandu ezkondu zen, alabak 10-11 urte ditu, eta lehengoan esan nion “aizak, jokatu egin behar diagu beste partidu bat!” eta esan zidan “irabazi egingo dut zeren nik pala txarrarekin jokatu nuen orduan. Pala txarra zelako, baina nik pala ona hartzen baldin badut” eta orain auzoko festak dira, Ereñotzukoa, eta besteak txikiekin joaten direnean oporretan jokatu egin behar diot eta irabazi egingo diot.

Orduan, jendea behar duzu saltsa jartzeko ere.

Nik bai, nik bai. Honbre, bakarrik zaila iruditzen zait. Bakarrik lehenago joango nintzateke mendira ibiltzera palan jokatzera baino. Beste batekin bai. da pixka bat igual naizelako saltsa horren zalea.

Lehen esan duzu asteazkenetan Tilosetan elkartzen direla jokatzeko. Zuri, emango balitz ikastaro bera, baina kiroldegi barruko frontoian eman beharrean, adibidez, Tilosetan, denen bistan, joango zinateke?

Bai, dudarik gabe.

Lotsa edo beldurrik ez zenuke izango alde horretatik?

Ez, ez. Ez, ez. Orain igual pixka bat da pilota txikiarekin ibili orde z tenisekoaren, ba igual bai. Gomazkoarekin ez. Aurten ibili gara. Ibili naiz, hau itxita zegoelako gora joan ginen, aurrena tenisekoarekin eta gero gomazkoarekin, Saioarekin ibili ginen, gainera, eta azken zatian txikiarekin, baina ez dit, ez zait iruditzen nik edadea daukadanik horrelakoarekin ibiltzeko.

Edadea ez da problema gogoa edukiz gero.

Ez, ez, nik ez dut behar matxakatzeko txiki hori. Ni, lehenago, gaztetan, ibiltzen nintzen, beltzak izaten dira ba puntu horiarekin, ba horrelakoekin ibiltzen ginen. Orain, Tilosetan izango balitz joan egingo nintzateke, dudarik gabe, ikastarora joan egingo nintzateke. Bai, bai.

Hurrengo da ea txapelketaren batean parte hartzen duzun. Esan duzu lehiakorra zarela. Badakit parte hartu izan duzula kiroldegiko txapelketan, baina, adibidez, Tilos 7-Pasan ez duzu parte hartu.

Ez, ez, hor ez, ez.

Zergatik batzuetan bai eta zergatik besteetan ez?

Beno, kiroldegikoan berriz parte hartuko nuke, nahiz esaten ari nintzen aurten ezetz, baina bai, kiroldegikoan bai, baina han goian eta pilota txikiarekin ez, ez. Gero, txikia zaintzen dut arratsaldeetan ere, bi urte eta erdi dauzka, eta nik pentsatzen dut ezetz, han ez.

Baina bestean bai. Zergatik hartuko zenuke parte kiroldegikoan, adibidez? Gustatzen zaizulako?

Bai, gustatzen zaidalako eta bai, bai. Gustatzen zait hori. Kiroldetikoa gustatzen zait, bai, bai. Gero segun zeinekin haserre bukatzen dut, ze ni konpetitiboa naiz baina bera konpetitiboagoa eta...

Haserre bukatzen al duzu?

Beno, haserre edo a ze gogoak dauzkadan, baina ez, ez da...

Markagailuarekin jokatzera ere gustatzen zaizu orduan, ez ariketak bakarrik?

Bai, ariketak bakarrik ez, partiduak ere bai. Nola egin ditugun partidu horiek, hori gustatzen zait, bai, bai, partiduak ere bai.

Nik uste dut lehen urtean hasi zinela, 2008an. Alabari esan zenionean, edo ahizpari, edo anaiari, "ni palan hastera noa"... Ingurukoei, gertukoei esan zenionean, lagunei-eta, zer esan zizuten?

Ni bai, aurrenekoan. A, ondo. Ahizpak esaten zidan "zu gaztetan oso ondo ibiltzen zinen palan", ni ondo ibiltzen nintzen palan, bai. Ez, inork ez dit, eta gaur da eguna igual nire anaia batek bestearengatik esaten duena "bai, min hartuko duzue", baina nirengatik ez dute esaten hori. Gainera, anaia gazteagoak esaten dio beste anaiari "honek irabazi egingo dizu, e, ez konparatu horrek egiten duena eta zu".

Adibidez, alaba hasi zen zurekin batera gero. Hori zer izan zen elkarren animoan?

Bai, berari ere gustatzen zaiolako, baina bai, lanarekin eta txikiekin-eta ezin duelako. Alaba Irurara ere joan zen, bi urtean edo joan zen, joan zen.

Lagunak-eta ere ondo?

Bai, gustura. Honbre, barre egiten dute, ez? "Egunen batean zerbaitek emango dizu" edo "ze gorrituta etorri zaren" eta horrela aritzen zaizkit, baina ez, gustura. Bai, bai, bai.

Kalean bakarren batek zerbait esan dizu? Urrutiagoko jendeak zerbait esan dizu? Palan ibiltzen zarela entzuten dutenean.

Bai, gizon bat baino gehiago badira esaten didatenak jokatu egin behar didatela. Bai, bai, erronkan hasten zaizkit. Hemen kalean bat hankan min hartuta egon zen eta esan zidan "hanka ondo jartzean zuri partidu bat egin behar dizut" eta bai. Astigarragan ere bada beste bat esaten didana "jokatu egin behar dizut" eta "nahi duzunean".

Erreakzio ona orduan?

Bai, bai, bai, ona. Kaleko jendea ere ondo, bai. Beste batzuk harrিতuta geratzen dira, zeren eta lehengo larunbatean autobusean etorri nintzen Astigarragatik hona eta bi emakume bazeuden eta ni kirolerako poltsarekin eta begiratu egiten zidaten eta halako batean esan zidan batek "kirola egitera zoaz?" eta "bai, palan ibiltzen naiz eta gaur egun pasa dugu, festa dugu" eta "pala ibiltzen zara?" eta "bai, palan ibiltzen naiz" eta "jokatzen?" eta "bai, bai, nik badaramatzat igual bost urte pala". Bai, harrিতuta geratzen

dira eta ondo, ondo. Kiroldegian ikusten nautenek ere askotan esaten didate “Ines, bazoaz!” eta bai, bai, ondo, ondo, bai, ondo, ondo.

Askotan esaten da jendearekiko tratu hori eskertzen dela. Azkenean astelehen guztietan taldetxo bat elkartzen zarete palan ibiltzeko. Badakit zu iaz, adibidez, ostegunetako taldean ibili zinela. Aurten berriz bueltatu zara astelehenetara.

Bai, Liderekin ibili nintzen. Bai, aurten duda eduki nuen, ostegunetako jendea ere gustatzen zait, emakume zerak ziren, baina etorri zenean astelehena eta libre neukala esan nuen “ez, ni astelehenetan joango naiz”.

Hori zer da zure taldea astelehenetakoa delako edo jende hori errazagoa zaizulako tratatzeko, zergatik?

Esan nuen “beno nik pilota astelehenean betetzen dut, bestela zaude ostegunera arte eta astelehenean nik ezagutzen dudan jendea dago eta astelehenean”. Berriz ere astelehenak tira egin zidan, astelehenekoak. Gero ostegunetakoa ez zen atera, ostegunetakoak bakarrik ibiltzen omen dira, euren kabuz.

Esan liteke, ez dakit esan litekeen, zuk esango didazu bai ala ez, esan liteke jendearekin harreman bat landu duzula hor? Ala astelehenetan elkartzen zaren jendea da eta listo, hortik kanpora ez daukazu ezer?

Ez, ez, ez, hortik kanpora ere harreman ona daukat nik astelehenetako jendearekin. Bai, bai, bai. Adibidez, Rakel. Rakel aurten hasi da eta Rakelekin oso ondo konpontzen naiz. Rakelekin oso ondo konpontzen naiz eta Zuriñerekin zer esanik ez. Iratirekin ere bai. E, Joana.

Hori galdu egin da bidean.

Galdu egin da? Utzi egin zuen. Hori esan zuten, Tilosetako txapelketan jokatzeko hasi zela eta egunero pilotan dabilela. Hori zen neska bat nik ikusten nuena, 4 urte eman ditut egunero ikastolan bera ikusten, eta ez zuen sekula aio bat egiten. Hasi ginenean hemen ikusten nuen eta ez zidan begiratzen. Nik uste dut pixka bat etorri zela, niri sentsazio hori eman zidan, ikastaro bat nola zen ba jendea gutxi dakien jendea izango zela, edo zer jende izango zen, eta nik uste horrekin pixka bat desanimatu egin zela neska hori, e. Geroztik behin galdetu nion “ui, ez zara azaltzen” eta “bai katarroa daukat”, baina uste dut katarroa aitzakia erabili zuela. Orain ikusten dut, baina nik ez diot ezer galdetzen eta berak ez dit ezer esan. Rakelekin hasi zen eta Rakel eta Iratirekin ondo.

Ainararekin-eta ere ondo. Aurretik ezagutzen zenituen?

Bai, ezagutzen nituen, baina ezta asko ere. Ainararekin? Ainararekin edozein gauza, Ainararekin edozein gauza!

Jendearekin tratutxo bat lortu duzu orduan ikastaroari eskerrak. Ez dakit hori esan litekeen.

Bai, bai, bai. Nik lehen ez nituen asko ezagutzen, kalean agian, baina orain daukadan harremana ez, keba, keba. Orain daukadan harremana ez. Orain kalean ikusten badituz hizketan gelditzen naiz eta bromak eta denak. Behin Ainarak esan zidan ezkerrekin emateko esan zuen Saioak eta baten batek eman zuen eskubiarekin ezkerrekin eman beharrean eta nik esan nuen “aizu, ni bakarria ez naiz ba” eta gero Ainara ikastolara joan zen eta esan zidan “haserretu egin zara? Haserretu egin zara?” eta “ni? Zera haserretuko nintzen, keba!” Zerbait horrela izan zen eta “keba, ez, ez, ez”. Igual Ainararekin harreman handiagoa, Gemma da nire ahizparen estilokoa, nire ahizpa lasaiagoa da eta Gemma lasaiagoa da. Ni mugituagoa naiz eta Ainara mugituagoa da. Adibidez, gaur ahizpari esan diot “mugitu hadi”. Ni beste norbaitekin ari banaiz eta galtzen baldin badu ez diot esango ezer ere, baina ahizparekin baldin bada bai, “aizan, korri egin ezan”. Hori bai, baina, bestela, ez, ez, nik ez dut esango sekula “nire bikoteak gaizki egin du” eta ez. Galdu dugu eta kito. Ez, ez, orain ere afaria egitekotan gara, beraz, beste koadrila bat gehiago afaritarako. Bai, harremana oso ona eta gustura.

Ez geratu direnekin bakarrik, zeren garai hartan hasi ziren emakume batzuk gero utzi egin zuten, batzuk besoa zutelako, besteek ezin zutelako eta haiekin harreman ona daukat. Bai Martxelirekin, bai Albisuren amarekin, Sorkunderekin. Ez dut aspaldi ikusi, baina nik horiek kalean ikusten ditut eta harreman ona daukat, hizketan geratzen naiz eta “zer moduz?” eta bai, bai. Jende asko pasa da. Bada beste emakume handi bat ere hasi zena, baina hark ere utzi egin zuen eta galdetzen dit “zuk zer, segitzen al duzu pilotan?”

Beste galdera bat egingo dizut, diferentea. Azkenean askotan esaten da pilota gizonen kirola dela. Zu jokatzera joaten zarenean, pilotara joaten zarenean edo palan zabiltzanean, bai ahizparekin edo bai anaiarekin, zuk sentitzen duzu gizonen kirol bat egiten ari zarela?

Ez, ez.

Orain ez, eta lehen adibidez, umetan ibiltzen zinetenean? Halako aipamenik entzuten zenituen?

Ez, ez, ezta orduan ere. Sekula ez. Nik? Nik beti esaten dut “esaten dute gure garaiko mutilak zirela matxistak? Gu askoz hobeto tratatzen gintuzten oraingo askok baino gurekin ibiltzen ziren mutilek”. Egia esan, korrika egin behar bazen nik korrika egiten nuen, bizikletan ibiltzen nintzen txikitan, aitaren bizikletarekin baina koadroaren azpitik. Gu ibiltzen ginen pilotan, edo igerian erriotan, baina mutil eta neska, denak elkarrekin. Neskak garelako, zergatik? Sekula ez. Garai hartan inork ez zigun esan “hau mutilena da”. Sekula ez, keba, keba, keba, keba. Ez gara ba batere ibili “guardias y ladrones” mutil eta neska! Ez gara ba behin ere jokatu! Nik eskolatik etxera apustua mutilekin? Askotan!

Ez, ez nuen behin ere hori entzun. Orain esaten dut hogeita hamar urte gutxiago banituedo, berrogei, korrika eta ibiliko nintzela, baina niretzako ez zegoen ezer ere. Ez zegoen ezer. Nire ahizpa hasi zen pixka bat korrika gaztea zela, 16 urterekin, hori hasi zen korrika, baina ez zuen gogorik eta ni, gogoia neukana gauzak egiteko ... Ni izan naiz horrelakoa. Niri jarraitzen didan ahizpak hamasei hilabete gutxiago ditu, baina hura ere ez. Baina, ni? Astigarragakoek esaten didate “nik uste zu mutila zentozela, baina neska

atera zinen”. Ni joan mendira eta tontorra ikusi han eta “ez, ni ez naiz igoko?” Ez, ni gutxienez ez.

Egoskorra ere pixka bat izango zara.

Hori bai, jartzen baldin badut korri egin behar dudala edo etorri egin behar naizela ni etorri egingo naiz eta jartzen baldin banaiz kafea ez dudala hartu behar kaferik ez dut hartuko. Bai, bai, agoatea. Niri kirola bai. Niri inbidia ematen dit orain gazte hauek palan ibiltzeko aukerak eta askotan esaten dut “niri ia urteak pasatzen ari zaizkit”. Gogoz nabil eta esaten nuen “beno, lehengo urtean Malen eta Ainarak irabazi” eta aurten Malen geldiezin ibili da, larunbatean ez dakit zer egin zuen.

Oso ondo jokatu zuten, aurkariak onak ziren, e.

Ez zuen ezer galtzen atzelari hark, e, baina Malenek hemen askoz ere gauza hobeak egiten ditu, ez zuen moztu eta halako tantorik egin.

Baina agian hain onekin ez dute jokatu, hemen esan nahi dut.

Bai, hori ere bai. Bai, maila hura altuagoa. Bai, izan liteke, bai. Ez, ez, urruti ez ziren ibili.

Lehengo urtean bi horiek ziren irabazi zidatenak, hemen, baina aurten Gemmak, baina beno.

Pentsa zenbat irabazi zenituen zuk, galdutakoak baino gehiago.

Bai. Lehengo urtekoak ziren bi eta aurten Gemma. Nik esaten nuen “zer egin nuen nik Gemmarekin?” zeren eta Gemma ez da txarra, baina nire antzekoa da, biak antzera ibiltzen gara eta 8ra eta horrelako leku txikian ni galduta bilatzen naiz. Gaur ere pasa egin dut, 4ra genuen, eta Pasa egin dut. Niri horrelako leku txikian geratzen zait igual pixka bat motza, leku txikia. Ni ez naiz dejadak egitekoa eta igual dejadak egiten dituenarentzako...

Niri galderak bukatu zaizkit. Gustura egon naizela esango dizut eta beste galdera bat egingo dizut: badago zer edo zer galdetzea nahi zenuena eta ez dizudana galdetu? Edo zer edo zer esan nahi duzuna emakumeen eta pilotaren inguruan? Niri belarritik tira egin nahi badidazu orain da momentua.

Ez, ez, ez, ez. Keba, ez, ez. Ni bakarrik ez nintzatekeela apuntatuko txapelketa batean eta Tilosetakoan ez. Mutilak ere asko dira eta ez. Gazteagoa banintz igual bai, gazteagoa banintz, baina ez.

Edadeak berdin dio ematen badiozu. Sasoi ederrean zaude edade horretan! Nik hartuko nuke horrela ibiltzea edade horretan! Batek baino gehiagok esango zizun hori.

Bai, askok esaten didate “nik handitan zuk bezala nahi dut” eta beste batek esan zidan “60 urte daukazula? Nik zahartzean zu bezala nahi dut” eta esaten dut “beno, jokatzeko dugunean eta besoko edo hankako minik ez daukadala” ... Minez egongo banintzateke seguru esango luketela “ez zera, adin horrekin”, seguru esango luketela.

Oso ondo. Gustura egon naiz. Itzali egingo dut tramankulu hau.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Ines

Larunbatean egin genuen gaurko hitzordua, EmP egunean, berak posible zuela eta goizeko saioaren ondoren geratzekotan, nahiz eta hasiera batean biloben zaintza lanak medio arratsaldean egitea ere proposatu nion nik. Azkenean, baina, 11etan geratu ginen.

Saiora iritsi eta elkarrekin topatzean goizean ezin duela esan dit, suhiak ez duela lana berak uste zuen erreleboan, baina moldatu eta arratsaldeko seietan geratu naiz azkenerako Hernanin, Usurbilgo joan-etorria egin ondoren. Beraz, kondenatua nago beste egun batez etxetik kanpo egun osoa ematera.

1. elkarrizketan (2012-05-28, 18:00)

- Ordua baino lehen elkartu gara biok, hamar minutuko aurrerapenarekin. Niretzat hobeto, egia esan, alfer denbora apur bat aurreratu dudalako. Berak erabaki du non egin, ohikoa duen tabernan, eta nik balekoa eman diot. Beraz, nahikoa etxean sentitzea espero dut.
- Elkarrizketaren hasieran urduritasun puntu bat sumatu badiot ere gustura dago, bakarren bati bidean esan baitio nik elkarrizketa egin behar niola. Gaitz-erdi!
- Galderekin ez da beldurtu eta gustura erantzun ditu. Nik uste asmatu dudala zer eta nola galdetu ere, aurrez hiru urtean elkarrekin harremana egin izanak lagunduta, egia esan. Gainera, aberatsa iruditu zait elkarrizketa, ordu erditik gora joan zaigu.
- Grabagailua itzali eta elkarrekin egin dugu Tilosetarako bidea. Han jarraitu du zerbait esaten, “hainbeste jenderekin eta adin honekin ez nuke hemen parte hartuko nik”, adibidez. Bakarren batek galdetu dio ea ez den animatzen eta ezetz esan du.
- Taldeko kide bat baino gehiago daude Tilosetan eta ea elkarrizketa zer moduz joan den galdetu diote. Berak erantzun die “nik beste ordu erdi edo ordubeteen jarraituko nukeen”. (B.K. Hamabost puxtarri!)

Elkarrizketa data: 2012-05-29
Lekua eta ordua: Zizurkil, parkeko bankua, 18:30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Gurutze
Adina: 46
Jaioterria: Andoain
Bizilekua: Zizurkil

Oso ondo. Ia palaz, emakumeez eta horrelako gauzez hizketan hasiko gara. Zu nola iritsi zinen palako ikastarora? Nondik iritsi zinen? Zergatik hasi zinen palan?

Ba, Zizurkilera etorri nintzenean aurreneko urteetan antolatu zituzten hemen, kultur etxean, emakumeentzako aerobic ikastaroa eta, beno, ba hona hurbildu ginen emakume dezente juntatu ginen tarte horretan. Gero haiek desagertu egin ziren denak.

Hori zer da, aspaldiko kontua?

Ba igual sei bat urte bai, erraz. Erraz izango dira sei urte. Batez ere gehienak ginen kanpotik etorritako emakumeak, herrira etorritakoak. Baten bat herrikoa bazegoen, baina gero ba badakizu, ba, umeak direla, ez direla, zailtasunak joateko eta hasten ginen hamabi eta hilabete hiru gelditzen ginen eta ez zen fundamentua. Desagertu egin zen ekintza hori eta gero ez dakit zeren gisa justu hor aerobicean ibiltzen ginenak eta ezagunak ginenak, ba, enteratu ziren ekimen hau ere bazegoela eta animatzeko, talde bat sortu behar zela eta bilera batera joateko eta merezi zuela eta, beno. Ba egia esan gogoia ere baneukan zerbait egiteko, zeren eta hemendik kanpora ere ez naiz ezertan apuntatzen eta etxetik bertara edukitzeak bentaja ematen du eta esan nuen “beno, ba joan egingo naiz ea zer den eta zertaz doan” eta hortxe hasi nintzen.

Eta orain zabilta ikastaroan, badakit, astearteetan. Hortik kanpo jarduten duzu palaz?

Batzuk, oso gutxitan. Oso-oso tarteka, bai, gizonarekin pikatzen garenean, baina, pike txoroak izaten dira zeren eta galtzeko guztiak dauzkat, kar, kar, kar. Baina, beno, korriarazi egiten diot eta izugarritzko satisfazioa ematen dit, Uxueri korriarazi egitea bezala, kar, kar.

Bai, baina Uxuek ere egiten du korrika, e.

Bai, baina grazia egiten dit, ti-ta jartzen nau nire tokian, kar, kar.

Ez, ez. Eta, zenbat urte dira hasi zinetela?

Bi eta erdi. Ez genuen egin ikasturte osoa aurrenekoan, bilerak-eta egiten aritu ginenean, frontoia obretan zegoelako eta urrirako prestatu zuten, baina ireki urtarrilerako eta orduan hasi ginen.

Beraz, hasi zineten 2009ko urtarrilean.

Hori da.

Eta oraindik segitzen duzu. Zergatik segitzen duzu?

Bai, segitzen dut palan aritzea gustatzen zaidalako, iruditzen zaidalako gure “xarpoxokerian”, ze oso-oso saiatuak ere ez gara, gure ordu eta erdi hori ez dugu topera aprobetxatzen, baina, beno, ba hobekuntzak badauzkagula eta gauza batzuk hobetzen ari garela, gauza batzuk hobetzen ari garela. Eta, gero, batez ere oso ondo pasatzen dudalako eta, beno, ba, lagun giroa sortzen da eta, beno, denak laguntzen du, ezta? Beno, ondo, eta ondo etortzen zaidalako fisikoki. Hori ere garbi esango dizut.

Osasun ikuspegi hori ere ematen diozu saioari?

Bai, bai, ematen diot. Bai, bai, ematen diot. Hor korrika saioa egiten dut, mugitu egiten naiz eta bai, bai.

Kostatzen zaizu pixka bat korrika saioa, e, kar, kar.

Bai, asko kostatzen zait, baina lehengoan, adibidez, ideia ona izan zen musikarena. Tolosan musikarekin korrika egin eta besoak mugitu. Ondo gelditzen da. Esan diot nik Saioari musikarekin etorri behar zuela, kar, kar, kar. Tramankulu bat gehiago.

Ondo. Esan duzu, adibidez, aerobicean eta beste ikastaro batzuetan ibili zinetela. Zerbait diferentea ikusten diozu pilotari edo, beno, beste bat gehiago da?

Honbre, aerobicean musika oso altu egoten zen eta nahiz eta taldeko lana ere baden, batzuetan irudiak-eta egin behar izaten direlako, igual bakoitza bere airera gehiago joaten da. Pilotan ba binaka ari zara, edo bikoteak aldatzen ari dira, edo ariketak aldatzen ari dira, etab. Desberdina da. Ez dakit, badu bere ... Gero, igual, kointziditzen du baita ere denok euskaldunak garela, horrek ere pixka bat egiten du, zeren batzuetan beste jende mota bat etortzen da eta ez da disgustura egoten zarela, baina, igual ez zaude hain lasai edo beste modu batera. Ni, egia esan, ikaragarri gustura nago eta, gainera, etortzen dira kide berriak ere. Esan nahi dut Asteasutik-eta etorri direla hasiera-hasieratik ez zeudenak. Gustura, ondo. Nik ondo pasatzen dut.

Esan duzu azkenean giroa-edo pilotan pixka bat aldekoagoa iruditzen zaizula. Zu bakarrik joango zinateke?

Ni bakarrik palan ibiltzera? Nik uste, begira, lehenago gauza gehiago egiten nituen bakarrik. Niri mendira joatea asko gustatzen zait eta lehenago, garai batean, mendira bakarrik abiatzen nintzen, “beno, ez du inporta, eguraldia ona dago, ba, buelta bat emango dut”, eta gaur egun ia ez dut egiten. Ez dakit den beldurra, den nagikeria edo zer, baina gero eta gauza gutxiago egiten ditut bakarrik. Beno, zinera joaten naiz eta hitzaldietara joaten naiz bakarrik, baina mendian eta horrela gero eta gutxiago. Ez dakit zergatik. Igual alde batetik txakurrek ematen didaten beldurra, baina frontoira joateko ez daukat. Igual gehiago da bakarrik ikusita ere, ez dakit, oso nabarmen dago frontoia herrian, eta beti erdian.

Bai? Erdibidean dago.

Erdibidean dago, baina jendea paseoan pasa egiten da eta nahi gabe begiratu egiten du. Oso kuriosoak gara denok ea zer dagoen eta ez dakit, erreparo pixka bat ematen dit bakarrik aritzeak.

Eta erreparoa ematen dizu, esan duzu jendeak paso-pasoan daukala frontoia ... Izango balitz, erabat zentroan egongo balitz, oraindik zentroagoan, eta, gainera, irekia izango balitz, ikastarora joango zinateke?

Ikastarora ez dakit joango nintzatekeen. Nik uste taldean baldin bada baietz. Taldeak babestu egiten du. Nik uste baietz. Ez naiz ...

Lotsari loturiko galdera bat da, e.

Bai, honbre. Irakasleak, beno, irakasle titulua horrela hain erraz hartzea ere, ohituta gaude ikasleekin erridikuluak egiten. Esan nahi dut futboleko jolasten ideiarik eduki gabe, eskubaloira sekula aritu gabe eskubaloira jolasten, etab. eta esaten duzu “beno, herrian, agian herriko jendearen aurrean” ... Segun zer harreman daukazu herriko jendearekin. Nik ez daukat handiak, oso azalekoak, eta, orduan, batzuetan ematen dizu erreparo handiagoa, esaten duzu. Nik ez daukat herriko jendearekin konfiantzarik, orduan horrek erreparo handiagoa ematen dit. Bestela bost inportako litzaidake. “Allá kuidaus!” Lehengo urtean, lehengo urtean edo aurreko urtean zen, ez naiz gogoratzen, Oihanek komentatu zuen “aizu, esaten ari direla herriko festetan, abuztuan, ba igual emakumeok egingo dugula partida bat eta ez dakit zer” eta ni “e? Herriaren erdian? Hori bai ezetz, besterik ez zaigu falta!” Hori, espektakulu hori, jendea zuri begira egotea ez zait gustatzen. Beste bat da ari gara, norbait pasatzen da eta begiratu egiten du. Ba begira dezala, “allá kuidaus!” Baina gu hor eta guri begira, hori ez, ez.

Hurrengo da ea txapelketetan parte hartzen duzun edo parte hartu izan duzun. Badakit Emakumea Pilotariko sasi-txapelketa horretan baietz. Hortik kanpo?

Ez. Ez dut aukerarik izan eta gainera.

Aukerarik izango bazenu hartuko zenuke parte? Imajinatu Zizurkilen antolatuko balitz.

Honbre, maila eman beharko nuke eta nik ez dut uste maila daukadanik horretarako eta gero.

Segun maila zeri deitzen diozun.

Bai, baina, beno, pilotan nik ez dut nire burua ikusten lehiatzen aritzeko. Orduan, ez dakit, iruditzen zait dela ariketa egin, ondo pasa eta nik lehiatik kanpo ikusten dut. Lehengo eguneko emakumeena ere lehia zen, noski, inori ez zaio gustatzen galtzea, tantoak egin nahi genituen, baina, beno, esaten duzu “saiatzen zara ahal duzuna egiten”. Nik ez nuen kristoren disgustua hartu eliminatu nindutelako, beno, eta nire kide bat joan izan balitz nire orde, beno, lasai asko, animatuko nuen eta berdina egin izan balu, ba, beno, saiatu da eta kito. Ez niok, ez dakit, ez diot lehia horri garrantzirik ematen momentu honetan. Ulertzen dut beste garai batean balitz, agian beste adin batekin, igual maila hobe hartzeko garaian harrapatu izan banindu, ba, igual beste modu batera jokatuko nukeen, baina, orain, ia urte hauekin ez daukat inolako zerarik beste modu batera hartzeko gauzak. Esan nahi dut mendian 14 orduetan ni atera nintzen orain dela

urte asko-asko-asko eta mendiko ibilaldi luzeak ere egin ditut, baina nik ez neukan orain dagoen mentalitatea, azkar joan, iritsi,... Nik beste gauza batzuk gehiago baloratzen ditut, ba, lagunekin banoa eta hirukote bat baldin bagoaz, ba, hirukotea elkarrekin joatea, elkarri laguntzea, bazterrak ikustea,... ze imajinatzen ari naiz igandean egin zuen eguraldiarekin, 14 orduetan, ni Aratzen egon nintzen, zeuden parajeak ikusgarri, eta zenbat jende joango zen bere ordulariari eta pultsometroari begira nondik pasatzen zen begiratu gabe. Esaten duzu “ba bakoitzak nahi duen bezala hartzen du”, ezta? Baina nik horrela ez dut hartu behin ere.

Orain testuinguruaz. Zuk etxean esan zenuenean edo familiakoei esan zenienean “pala hastera noa”, lagunei edo gertukoenei esan zenienean nola erreakzionatu zuten? Zerbait esan zizuten?

Ondo, ondo, etxekoek-eta ondo. Bai, geroztik barre egiten didate. Gaur bertan amak esan ez dit “hara, sariaren zain nengoen, nondik kabituko al zinen”, erdi brometan, erabat ironiko, baina ez, ondo hartu zuten, ondo hartu zuten. Bromak egin zizkidaten. Lehengo urtean zen? Oparitu zidaten pala gordetzeko funda bat eta funda horretan egin zidaten broma bat eta jarri zuten pilotari profesional baten, palista baten, gorputza eta nire aurpegia, kar, kar, kar. Orain ez naiz gogoratzen nola jarri zidaten izena, Laso ez dakit zenbatgarrena edo. Ez, baina ondo hartu zuten eta, gainera, ondo iruditzen zaie kirola egitea eta aritzea. Brometarako aitzakia ematen du, horrelakoetarako ere, ez, baina ondo, ondo. Eta babesa ere bai neurri batean. “Lehiaketa bat daukat” edo “Amasara joan behar dut”, lehengo urtean edo aurreko urtean. Amasara ez nintzen joan, bestela, lehiaketarengatik izango zen eta “kezkatuta nago” eta “beno, ba, goazen partidu batean aritzera” eta “benga, ba”, berotzeko eta pixka bat zeratzeko ba asteburuan partidu bat edo beste jokatu eta ondo. Ondo, ondo.

Eta, pixka bat urrutiagokoek?

Urrutiagokoek? Beno, lankideei esan nien zeren badaukat lankide bat alubita bat dena. Gogoratzen naiz behin bere emazteak parte hartu zuelako Lilatoian eta berak lagundu ziolako Donostiaraino eta “hori ero koadrila, denak korrikan” eta horrelako astakeriak esaten jardun zen eta badaki nola haserretzen naizen eta esaten dit “pilotari ona daukagu emakumeena” eta horrela begiratzen diot, esanez bezala “benga, bota, bota astakeria, bota behar duzuna” eta ia ez du botatzen, isildu egiten da. Egia da gero nire lankide horiekin joaten naizela urtean behin Funesera, urte bukaeran, bat Funesekoa da, eta egiten dugu igerilekuko frontoian aritzen gara eta bainatu eta, badakizu, gero bertako esparragoak eta alkatxofak eta txuletillak probatu eta gero buelta kafeak hartu eta gero. Han ere denak gizonezkoak dira, ni emakumezko bakarra, eta, noski, berak badaki ni aritzen naizela palan. Baina, beno, hau baino lehenago ere hara joaten ginenean “Gurutze, zuk ere jolastu” eta “ez, inork ez duzue nirekin jolastu nahi izango, zuek astero jokatzen duzue eta”.

Ez zinen ibiltzen. Ikastaroan hasi aurretik ez zinen ibiltzen?

Ez, ni aritzen nintzen nire kabuz aldian behin, urtean lau aldiz, baina gehiago ez eta hark esaten zidan “benga, Gurutze, ni zurekin beste bi gizonezkoren kontra” eta beste gizonezkoek ez zuten tope jokatzen, baina saiatzen ziren gaiztakeriak egiten eta, beno, ba, aritzen nintzen. Orduan, ba, esan nahi dut emakumeak beti bigarren mailakoak garen broma edo ironia kutsu hori, baina gero benetako ordua heltzean “benga Gurutze, zu

nirekin bikote eta elkarrekin jokatu dugu” eta beti babesa ematen. Alde horretatik ondo, erreakzio ona, onarpena, bai, bai, bai. Gainera, ondo iruditzen zaie gauzak egitea nire ustez.

Hala hobe. Lehen esan duzu, une batean esan duzu, palan, azkenean, ez dakit lagun giro hitza erabili duzun edo. Iruditzen zaizu harremanetarako bide ere izan litekeela? Zure kasuan izan da? Ez dakit sarea deitu edo nola deitu, sozializazioa deitu.

Bai, niretzako bai. Bai. Zizurkilen bizi den hainbat jenderekin bestela ez nituzke harremanak izango. Horrelako herri txiki batera etortzen zara inor ezagutu gabe eta hemen jendearekin harremanak izateko modua izaten da: edo umeak edukitzen dituzu eta parkean ezagutzen duzu jendea edo, bestela, uf, Zizurkilen nik daukadan esperientzia oso oso oso zaila da jendearekin sartzea.

Aspaldi etorri zineten?

Hamazazpi urte dira etorri ginela eta aurreneko urteak ni gogoratzen naiz festetan hor kantoian, izkinan, jarrita egon eta igual, ez dakit, igual ez dugu gehiegi parte hartu bileretan eta horrelako gauzetan, baina iruditzen zait alde batetik ideologikoki oso oso jende zentratua dela eta nahiko sare itxia dela eta horra sartzea asko asko kostatzen dela. Orduan niri honek marjina ematen dit herri-herrikoak ez badira ere, ba, beno, hurbileko jendearekin harreman sare bat sortzeko. Alde horretatik ondo. Ondo etortzen zait. Aerobicean aritu nintzenez ere bai, baina pixka bat zailagoa zen orduan, jende motarengatik edo horrela, eta orain ez.

Adibidez, frontoitik kanpo tarteka biltzen zarete?

Gu gure artean? Kointziditzen du justu emakume batzuen senarrak ere elkarrekin aritzen direla. Nire senarra eta Piliren senarra elkarrekin aritzen dira pilotan eta orduan, ba, beno, batzuetan pasatzen baldin bazara edo zerbait hartzera baldin bazoaz eta beraiek han baldin badaude, ba, gelditzen zara eta horrela.

Beno, orduan esango dugu balio dizula zuri behintzat.

Bai, pixka bat bai.

Beste galdera bat da ea iruditzen zaizun gizonezkoen eremua dela. Hau da, zuk sentitzen duzun jarduten ari zarenean, palan ari zarenean, gizonezkoen eremuan zabiltzala edo ez.

Ez. Niri iruditzen zait ni aritzeko moduko eremu batean nagoela. Nire mailan, noski. Garbi daukat segun ze gizonezkoren kontra igual irabaziko niokeela, baina garbi daukat ni nire eremu propioan nabilela eta nik ez dut ikusten hori gizonezkoen eremua denik, nahiz eta gero egia den gizartean daukan zabalkundea eta, ba, daukan itxura, ez dakit, gizonezkoarena den, zeren eta emakumeak desagertuta gaude kirolean, oro har, baina, beno, ez zait iruditzen niri.

Ez dakit. Umetan aritzen zinen pilotan?

Ez.

Ezta? Bestela galdetu behar nizun garai hartako irudipena bera zen.

Ez. Umetan kirola ez. Kiroletan, orokorrean, beti mendian ibili izan naiz eta mendia ez da izan hain gizon-emakume kontu horretakoa, eta gero ikastolatik aldian behin edo horrela azkeneko momentuan “zu, zu eta zu” aukeratu eta gogoratzen naiz behin pisua botatzera sekula aritu gabe, arratsalde batean jardun bola bat botatzen hiru aldiz marra baten ondotik eta hurrengo egunean Anoetara, han, belodromoan zen, pista itxian, halako zera borobil batean, marra ezin zela zapaldu eta gogoratzen naiz aurrenekoan huts egin nuela, metro erdira bota nuen, nire aurrera, bola, lotsagarri. Baina horrela, bestela, kirolean ez dut nik lehiaketa askorik egin. Bai, txapelketak orduan oso gutxi zeuden. Urte asko dauzkat, Uxue.

Ba, ezagutzen ditut nik gehiagokoak, lasai egon zaitez.

Bai, baina horrelako lehiaketetan ibili ziren eskola garaian? Ez dut uste. Gu ikastolan ere askotan soinketako irakaslearekin zera “Katolin” jolasten eta. A, beno, begira, brilet lehiaketak egiten genituen. Hori egia da. Brilet lehiaketak egiten genituen nesken artean eta herri artekoa zen lehiaketa. Andoainen egiten zen eta herritik gogoratzen naiz, e, bi talde oso onak zeudela. Bat zen Tolosakoa eta bestea Hernanikoa. Nik dauzkat bi aurpegi eta ikusten ditudanean esaten dut “ostra, hori briletakoa zen”, zeren jotzen zuten oso fuerte eta oso onak ziren.

Zer aritzen zineten, briletan entrenatzen zenuten?

Errekreoetan jolasten ginen eta gero txapelketara apuntatzen ginen. Txapelketara joateko lanak izaten nituen, ze larunbatean arratsaldeko hiruretan baldin bageneukan partidua etxetik ezin ginen atera ontziak garbitu arte eta orduan aitak lan egiten zuen larunbat goizean. Eta gero eguerdiko poteoaren ondoren etortzen zen bazkaltzera. Bai, bai, baina gogoratzen naiz ni briletako lehiaketekin, hori bai, eta zer gogorekin joaten nintzen irabaztera, lehiatzera.

Orduan bai.

Orduan bai. Orduan bai, eta batez ere talde onak etortzen ziren, Tolosa eta Hernani etortzen zirenean. Kristoren gogoia haien kontra aritzeko.

Ondo. Niri bukatu zaizkit galderak.

Ondo, begira ze ondo!

Beste bat, azken bat egingo dizut. Ea zer edo zer esan nahiko zenukeen edo zerbait geratu zaizun esateko. Belarritik tira egin nahi baldin badidazu galderaren batengatik edo horrela.

Ez, ez, ez, ez, ez. Ez daukat ezer berezirik esateko, gustura etortzen naizela eta, beno, ez dela hainbesterako izan azkenean galderak erantzutea, kar, kar, kar.

Esaten nuen nik hori. Eskerrak eman eta hau itzali egingo dugu.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Gurutze

Larunbatean egin genuen gaurko hitzordua, EmP egunean, paletako saioaren aurretik harrapatzeko bi kide.

1. elkarrizketan (2012-05-29, 18:15)

- Ordurako zain neukan, zintzo asko. Ni puntuan iritsi naiz eta elkarrizketa leku lasaiagoan egin asmoz banku batean jarri gara, plazatik apur bat urrunago. Hasieran bestelako gaiez hizketan aritu gara, bertsoak eta halakoak, eta ondoren apur bat lasaitzean ekin diogu solasaldi grabatuari.
- Nahiko lasai ikusi dut hasi aurretik “pasa dezagun azkar trantze hau” edo antzekoren bat esan badit ere.
- Amaieran onartu dit uste baino errazagoa egin zaiola elkarrizketa.
- Tabernan trago bat hartu dugu beste elkarrizketatua iritsi bitartean eta harekin ere solasaldi bat izanda saiora arte agurtu dut lehen elkarrizketatua.

Elkarrizketa data: 2012-05-29
Lekua eta ordua: Iriarte taberna, 19:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Itsaso
Adina: 30 urte
Jaioterria: Asteasu
Bizilekua: Asteasu

Ondo. Ia hasiko naiz galdetzen palara nondik iritsi zinen zu, ikastaroetara-edo.

Ikastaroetara? Ya ahaztuta, kar, kar. Hiru urte dira, ezta? Bai. Ba, gustatu, gustatu betidanik, baina ibili batere ez ia.

Aurretik ibili gabea zinen?

Urtean hiru partidu gehienez, hiru baldin badira. Koadrilakoekin hasten ginen “ba palan ibiltzera joan behar dugu”. “Palan ibiltzera joan behar dugu”, baina ez genuen frontoirik bilatzen.

Bai, e? Zer pasatzen zineten herri denetatik eta ez zegoen?

Bai, Tolosaldea Tour egiten genuen, lau-bostetara joaten ginen, hemen inguruko gehienak pasatzen genituen eta batzuetan mendira joaten bukatzen genuen. Eta ia palarako gogoarekin eta, ez dakit, azkenean, pentsatzen dut periodikoan edo Interneten edo nonbait irakurrita enteratu nintzela bazeudela saioak. Bakarrik aurreneko urtean kanpora joan behar nuen eta ez nintzen apuntatu eta hurrengoan ya berriz kanpora joan behar nuen, baina, igual zion, esan nuen “apuntatu egingo naiz”.

Urtebete egon zinen jakinaren gainean, baina ezin zenuelako izenik eman gabe?

Bai, zeren eta abenduan ez nekien ezta kanpora noiz joango nintzen ere, orduan irailean enteratu nintzen, baina jakin gabe noiz joango nintzen, ba, igual urrian joan behar nuen eta ez zuen merezi hastea. Orduan urte horretan ez nintzen apuntatu eta hurrengoan bai. Orduan ere martxoan kanpora joan nintzen, baina ordura arte kurtsoa egin nuen.

Gainera, Ibarra hasi zinen zu. Esan nahi dut Asteasukoa izan arren Ibarra hasi zinela, beraz, gogo bazeneukala.

Gogo baneukan, bai. Bai, gainera, ez nekien ondo, baina, uste dut zuk erantzuten dizkidazula e-mailak eta nik uste dut e-mailak idatzi nituela ea non zeuden kurtsoak jakiteko eta ez dakit zer. Nik uste dut e-mail bidez izan zela eta aukera onena Ibarra zen. Zizurkil ez zegoen.

Orain Zizurkilen zabilta. Gero aldatu egin zinen.

Bai, baina uste dut egunagatik izan zela. Bai, egunagatik. Han astelehenetan izaten zen, beste zerbait ere egiten dut beti gero, kointziditzen zidan astelehenetan eta asteartetan ondo zetorkidan, gainera, Zizurkil gertuago dago eta horrela.

Ondo, ondo. Palan zer ibiltzen zara ikastaroetan ala ikastaroetatik aparte ibiltzen zara?

Ez, berriz ere saiatzen gara udaran hartzen pala, baina ez.

Neguan saiatu beharko zarete, kar, kar. Beno, neguan hotz egiten du.

Neguan denbora ere ya gutxiago izaten da, baina, neguan ere frontoiak ez daude libre astean zehar, e. Behintzat Asteasukoak eta horrela. Arratsaldetan.

Nik esango nuke asteburuetan zailagoa dela gure inguruan astean zehar baino.

Astean zehar, adibidez, Asteasukoa okupatuta dago, hartzen ditu jendeak aparte erreserbak. Ez naiz saiatu egia esan astean zehar, e. Eta udaran hasten garenean berriz berdina pasatzen zaigu eta hori. Udaran bi-hiru aldiz ibiltzen gara, gehiago ez.

Hartara berriz bueltatzen zara gogoz urrian.

Bai, gogoarekin berriz hasteko.

Ez dakit horrela esatea ondo dagoen, baina behar bat, engantxe moduko bat, txikia izanagatik, badaukazu palarako?

Bai, asko gustatzen zait.

Ahal baduzu saiatzen zara astearteetan etortzen. Hori esan nahi dut. Tesiarekin topera ibili zarenean ere etorri zara.

Palarekin bakarrik segitu dut. Beste gauzak utzi ditut.

Eta, zergatik?

Ba, egiten dudan kirola astean zehar aerobic eta pala da eta aerobicean asko pentsatu behar da edo kontzentratuta egon behar da eta tesiarekin ia nahikoa agobio izaten nuen, deskonektatzeko errazagoa delako pala. Bai, hori.

Eta, zer dauka ezberdina?

Ez dago pentsatu behar duzun ezer handirik, ez dizu buruan zera handia eskatzen. Beno, bai, zuek esaten duzuen guztia pentsatu behar baduzu bai, kar, kar, kar! “Besoa luzatu, han ez dakit zer” eta hori dena pentsatu behar baduzu bai, baina, beno, hori dena pentsatu gabe ere ibil liteke.

Hori egin behar da bolada batean pentsatu eta gero automatizatu.

Bai, baina oraindik ez gara iritsi fase horretara eta orduan oraindik pentsatu egin behar dugu, kar, kar.

Zer dauka ezberdina? Ikusten al diozu ezer diferentea aerobicarekiko? Biak egiten dituzu gustura, ez?

Bai, baina, gainera, astean behin da eta, orduan, huts egiten baldin baduzu motz geratzen da. Bai, egia da.

Aerobica ere behin egiten duzu edo bitan?

Bitan, baina, adibidez, aerobicarekin ya kurtso bukaeran nekatuago, aspertuago, ailegatzen naiz, ya errazago utzi edo, uf, pereza. Hau ez, baina ez dakit zergatik den. Gehiago gustatuko zait, ez dakit.

Adibidez, esan duzu aerobica ere egiten duzula astean bitan. Erabiltzen duzu pala sasoi puntua lortzeko bide bezala, osasun ikuspegitik, edo horretarako gehiago da igual aerobica zuretzat? Biak, ala?

Ez, horregatik ez, besterik gabe. Beno, horrekin gauza bat gehiago egiten dudala badakit, orduan, hobeto. Bai, baina ez.

Eta, taldean izango ez balitz, ikastarorik ez balego, demagun frontoiak denak daudela libre, nahi duzuna aukeratzeko, ordua eta dena, joango zinateke bakarrik?

Joango nintzateke. Bakarrik, bakarrik, pala pixka bat aspergarria da, beno. Beste norbaitekin bai. Bai. Komentatu izan dugu koadrilakoek, baina bai.

Pentsatzen dut ikastaroa Asteasun izango balitz ere gustura joango zinatekeela, desplazamendu gutxiago suposatuko lizuke.

Bai, noski, baina ez da hainbeste, bidean geratzen zaidan zerbait da, baina Asteasun baldin bada bai.

Beno, niri iruditzen zait hemen frontoia erdi ezkutuan dagoela, ez da erabat irekia, ez dago herri erdian. Izango balitz herriko plazan, jendeak ikusten duela, horrela, eskaparatean, egingo zenuke?

Gehiago kostatuko zitzaidan, gehiago kostatuko zitzaidan, kar, kar, kar.

Zergatik?

Ba, egia esan, ez dakit. Lotsa izango da, gehiago kostatzen bazaizu lotsa izango da, baina egingo nuke. Bai, zeren eta gogoratzen naiz aurreko batean etorri nintzanean justu mutil batzuk zeudela gure aurretik jolasten eta denak klasekideak, Asteasukoak, eta ez dakit zer eta "beno, hauen aurrean jolastu behar dugu?"

Hori pentsatu zenuen?

Bai, hori pentsatu nuen, bai. Bai. Baina, beno, hala ere, ez zait iruditzen izango zenik ez jolasteko zera bat, e, ikastaroa hor baldin bazen dudarik gabe joango nintzateke.

Irabazi egingo luke sokatiran?

Bai, bai, bai, dudarik gabe. Bai. Ohituko nintzateke ikasturte amaierarako jendeak begiratzera.

Igual hizketan hasiko zinateke, “aurreko astean ez dakit zer egin nuen” eta badakit zer.

Kar, kar, kar!

Ondo, ondo. Eta, hartzen al duzu parte txapelketetan aparte?

Ez, eta badakizu ez zaidala gustatzen, gainera. Kar, kar, kar!

Zergatik ez?

Jende aurreko gauzak ez zaizkit gustatzen. Batik bat bakarrik hor, ez, ez.

Beno, binaka izango litzateke, ez?

Bai, baina hor jende guztia begira. Baina, ez da palan bakarrik, e. Beste gauzetan ere ez zait gustatzen, ez nuke esango nabarmentzea, baina, hor, horrela, ni jende artean eta disimuluan. Bai eta pala justu asko begiratzekoa da. Baldin balitz mendi martxa bat igual zait jendea begira egotea, azkenean denak zoazte horrela, baina justu pala izaten da bi pertsona jolasten eta ez, hori ez.

Ia bukatzen ari gara. Testuingurura salto egingo dugu. Zuk etxean esan zenuenean eta gertukoenei esan zenienean “pala hastea noa”, nola erreakzionatu zuten? Zer iritzi entzun zenituen?

Ez naiz gogoratzen.

Ez dauka izan beharrik justu momentu hartakoa, e, izan liteke oraingoa ere.

Beno, txarra ez behintzat eta, beno, igual askok, ez dakit, “baina, nolatan eta zer?”. Igual batzuk geratzen dira “e? zer? Emakumeak eta pala?”, horrela pixka bat deskonektatuta.

Gertukoak, etxeakoak, lagunak, ... esan duzu ez zarela gogoratzen. Eta, urrutiagoak esan duzu batzuk harrituta?

Bai, zeren eta ez dakite “nola? Zer da? Zer dela eta?”, ez dakit zer eta aurrekoan festa eta “zer egiten duzue ba?”. Oraindik ez dut uste ezta asko-asko zabaldu denik. Ez nuke esango. Orduan, eta etxeakoak, ez dakit, pixka bat harrituko ziren seguru asko, baina. Ez dakit igual izango zelako sekula palan ibili gabe eta imajinatu hor pala bat edukitzetik etxean puskatuta bat-batean ikastaro batean hasi behar nuela, ba.

Baina, beno, oroitzapen txarrik ez daukazu behintzat.

Keba, keba, bai zera! Ez, ez. Gehienekoz anaiak “zu palan?” esango zidan, baina, “noski” esango nion.

Zu, gainera, taldez aldatu zinen. Esan duzu Ibarren hasi zinela eta orain Zizurkilen zabilta. Bigarren urtea da Zizurkilen?

Bai.

Jende berria etortzen denean, taldekideak aldatu zenituenean, ... Harremanak eta horrela zuri iruditzen zaizu, ez dakit, sozializazio bat-edo badaukazula? Harreman saretxo bat igual lortu duzula, edo ez? Frontoikoa da?

Bai, frontoikoa asko, ea, gero gelditu ez gara gelditzen, baina, adibidez, nik Ibarrik oso oroitzapen ona daukat eta Arraterekin topatzean beti egiten dugu hitz. Bai, bai, bai. Eta kostata, beno, ez kostatzen, baina handik hona aldatzean, “jo, Ibarran gustura nengoen”. Ez dakizunean ...

Ibarran gustura zeunden jendearekin? Akordatu zinen jendearekin? Ez dakit horrela esan litekeen.

Justu jende konkretuaz ez, baina han gustura nengoen giro harekin eta hemen ez nekien zer egongo zen. Orduan, duda hori aldatzean, ba, ez dakizu hemen zer aurkituko duzun, zer jende, ondo moldatuko zaren edo ez, ba, bai gogoratu nintzela, baina problemarik ez dut izan, e. Berdin-berdin.

Ondo, ondo. Eta azkena da ea zuri iruditzen zaizun zu palan zabiltzanean, ikastaroan edo bestela, zu palan zabiltzala sentitzen al duzun.

Ez.

Zuretzat ez.

Ez.

Deskuiduan, txikitan ibili bazinen, ea irudipena bera den.

Ez.

Ez zinen ibili.

Ez, ez, keba, oso gutxitan ibiltzen nintzen. Beno, baina gizonen kirola ez dakit, baina, maila ... Adibidez, fronteniseko txapelketa dagoela eta ez dakit zer eta badakizu mutil pila bat joango direla eta neskek ez dakizula joango diren. Orduan, horrelako batean apuntatuz gero igual esaten duzu “jo, bakarra naiz”. Ez daukat asmorik eta ez da horregatik, bestela ere ez dakit apuntatuko nintzen, baina bai antzematen dela hori. Eta betikoa, mailan aldea dago ikaragarria. Orduan, beno.

Baina, zu ari zarenean?

Keba, keba. Ez, ez dut sentitu hori.

Niri bukatu zaizkit galderak. Ia lasaitu zaitetzke.

Lasai nengoen, e.

Ea galdetzea espero zenuen zer edo zer eta ez dizudan galdetu edo zer edo zer esan nahiko zenukeen gai honen inguruan. Bestela ba, niri belarritik tira egin nahi baduzu galderengatik.

Ez, ez. Kotxean etorri naiz pentsatzen “zer galdetuko ote dit?” eta ez nuen ideiarik ere nola, zer, ...

Ez zara beldurtu galderekin, ala?

Bai, zera! Kar, kar, kar.

Beno, itzali egingo dugu.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Itsaso

Larunbatean egin genuen gaurko hitzordua, EmP egunean, paletako saioaren aurretik harrapatzeko bi kide. Asteasutik etorri da, ordurako zintzo asko.

1. elkarrizketan (2012-05-29, 19:00)

- Lasai dagoela esan du eta Gurutzek ere esan dio ez diola merezi urduritzeak. Beraz, elkarrizketa aurreko egoera ona da lanerako.
- Tabernan egin dugu, jende gutxiago dabil orain, itzaletan jarrita toldo azpian.
- Laburra izan da eta ongi erantzun ditu galderak. Amaieran tesiaren eta, orokorrean, tesien gainean jardun gara, berak bi hilabete pasatxo direla aurkeztu zuelako berea.

Elkarrizketa data: 2012-06-07

Lekua eta ordua: Kaffa kafetegiko terraza (Usurbil), 18:30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Karmele

Adina: 45 urte

Jaioterria: Usurbil

Bizilekua: Usurbil

Lehenengoa oso erraza izango da.

(Jaione azaldu da elkarrizketa egitera mezua jaso eta gaizki ulertu baten ondoren, baina bukatutakoan deitzekotan geratu naiz eta hanka egin du geroxeago arte)

Beno, hasi egingo gara. Orain hasiko naiz galderekin. Nik uste dut lehenengoa nahiko nabarmena dela: zergatik edo nolatan hasi zinen zu pala ikastaroan? Nondik barrena iritsi zinen?

Ba, ez dakit ziur zergatik. Betidanik gustatu izan zait niri pala mundua eta hori. Ez dakit. Izan da kirol bat ez praktikatu dudana, ez dut praktikatu inoiz, beno, umeekin bai, umeekin beti frontoian edo horrela, baina behin ere ez naiz hasi horrela afizio moduan eta jolasten eta ez. Beti gehiago jo dut txirringaren mundura. Familiartean bai, osaba bat eduki dut profesional mailan egona urte askoan, pala motzean jokatzeko zuen, Bilbon bere momentuan, ya urte asko dira utzi zituela, e, baina hori. Orain dela bi urte edo, uste dut, ere deialdia izan zen Usurbilen eta egon nintzen apuntatzekotan eta aurten gogoratzen naiz *Noauan* irakurri nuela palako ikastaroa zegoela eta nire senarrak berak esan zidan “Karmele, ba, orain daukazu aukera” eta “ah, beno, igual” eta hurrengo egunean, berak udaletxean lan egiten du, udaltzaina da, eta esan zidan “zure izena eman dut”. Berak eman zuen izena eta harremanetan jarriko zirela nirekin eta horrelaxe, baina izena berak eman zuen.

Beno, bazekien behintzat gustuko zenuela. Erakargarria bazitzaizun.

Bai, bai, bai, bai, betidanik gustatu izan zait.

Eta jardun zara umeekin bakarrik. Aurretik ez zeunden inoiz palan jardunda.

Ez. Bai ibili izan naizela tenisean eta horrela, ikastaroren bat egin izan dut, baina palarekin frontoian ez, inoiz ere ez.

Orain jarduten zara ikastaroan, beno oraintxe arte, ikastaroa orain bukatu da, eta hortik kanpora?

Ez, ez.

Asetzen zaitu asteazkenetako jardunak?

Bai, bai. Beno, akaso ez didatelako proposatu ere egin, e, noizbait igual esaten badidate “beno, palan jolastera joango gara?”, ba, agian joango nintzateke, e, ez dut ezetzik

esaten, baina ez da kasua eman. Pala hor poltsan txukun-txukun jasotzen dut eta astebete barrura arte.

Eta esan duzu lehenago beti jo izan duzula txirrinduaren bidetik.

Txirringan, baina mendiko bizikletan.

Baina, beno ibili izan zara bizikletan eta beste kirol batzuk egin izan dituzu.

Gaztetan eskubaloian ibili izan nintzen. Txarra nintzen han ere, bai, eta gero txirrintan, mendi bizikletan, asko. Umeein ere bai, betidanik egin izan ditugu ibilaldiak, Leitzaran eta Azkoitia aldera ere joan izan gara, Lasakora, eta asko. Orain dela bi urte Santiago bidea egin genuen senarra eta biok. Iaz bukatu genuen. Orain dela bi urte egin genuen Orreagatik Santiagora eta iaz egin genuen Santiagotik Finisterrera Costa da Mortetik.

Ez naiz iritsi ni oraindik Santiagora, baina iritsiko naiz noizbait, e.

Bai, oso esperientzia polita da. Oso gogorra da, baina. Eta, gero, orain dela hiru urte ia hasi nintzen spinning egiten.

Orain orduan joaten zara spinning-era astean bitan eta palara.

Astean bitan, astearte eta ostegunetan, spinning egiten dut.

Gaur kale egin duzu orduan? Mekauen la mar! Beste egun bat jarriko genuen!

Ez, ez, ez. Ez. Benetan asko disfrutatzen dut spinning-ean. Bai.

Adibidez, bi kirol oso ezberdinak daukazazu. Zer ikusten diozu bakoitzari? Pilotari kasu honetan, adibidez.

Oso desberdinak. Ez dakit, ez dakit zer erantzun.

Adibidez, zuk sasoiarekin, osasuna mantentzeko, lotzen duzu saiora joatea edo gehiago lotzen duzu horrekin igual spinning-a?

Ez, biak. Nik uste, gainera, behin berrogei urtetik aurrera guri komeni zaigula kirola egitea, bestela ni ikusten naiz, beno, askoz ere kilo gehiagorekin, egia da, kirola ez banu egingo eta saiatzen naiz beti kirola egiten eta kirola ez baldin bada behintzat ibiltzera joan eta gustatzen zait.

Osasun ikuspegiarekin ere lotzen duzu. Esan nahi dut izerdi pixka bat bota eta zerbait egin edo aktibo sentsazio horrekin.

Nik uste spinning-ean ere hainbeste izerdi botatzen dugunez horregatik gustatzen zaidala.

Ondo, ondo. Esan duzu taldean joaten zarela ikastarora. Eta, ikastarorik ez balego joango zinateke palara? Esan duzu, adibidez, ez zarela joaten hortik kanpo.

Ez, ez. Esan dizut igual okasioa edukiko banu, norbaitek esango balit “joango gara”, ba, partidua jolastera, beno, ba joango nintzateke, ez nuke ezetzik esango, baina oraindik ez. Beno, lehenengo urtea dut hala ere.

Bai, bai, bai. Sekula ez da berandu izaten, gainera.

Ez, ez, ez eta ikusten dut, gainera, zer edo zer aurreratu dudala urte honetan. Bai.

Eta orain beste galdera bat egingo dizut. Ez dakit lotsarekin-edo dagoen lotuta. Usurbilen plazan egiten da ikastaroa, mundu guztiaren eskaparatean zaude, leku publikoan esango dugu. Frontoi itxian izango balitz, edo aukera izango bazenute ikastaroa egiteko pixka bat leku lasaiago batean, nahiago izango zenuke?

Bai, igual bai, zeren, adibidez, aurten ere txapelketan ez naiz apuntatu batez ere horregatik. Eta, noski, azken finean ikastaroa ere neguan tokatzen da, zazpiak eta erdiak, ia ilunduta eta ia ez dabil hainbeste jende nahiz eta eskaparatean egon esan duzun bezala. Jendea atzera eta aurrera ibiltzen da, adibidez, baina ez da hainbeste, baina orain arratsaldeko zazpiak eta erdietan mundu guztia begira, atzo partiduan ibili ziren bezala, ba ez. Nik ez, uf!

Lasaiago ibiliko zinatekeela iruditzen zaizu?

Ba, igual bai. Bai, bai.

Baina, lotsarena bai, baina hala ere eman duzu izena. Zerbaitengatik izango da hori ere.

Bai, bai, bai. Bai, bai. Beno, nire senarrak eman zuen, ni ez nintzen izan, eta oso gustura joan naiz, gainera. Benetan esaten dut, egon den giroa eta hori dena ere oso gustura. Bai, bai, baina nik batzuetan, ez dakit, igual jende aurrean lan egiten dudalako, askotan aurpegia eman behar izan dudalako, askotan esaten dut “jendeak esaten duenak bost axola”, ez? Zentzu horretan, baina, gero, horrelako gauzetan erridikulu sentsazioa bat. Gero ikusiko banu ondo jolasten dudala edo segurtasuna daukadala ezberdina izango litzateke.

Hala ere, nik uste askotan ondo jokatu ala ez norbere begietara eta kanpokoena ezberdina izaten dela ere, ez?

Uf, ez dakit. Nik ez daukat segurtasun hori. Adibidez, pala askotan mugitzen zait eta ez daukat segurtasun hori. Datorren urtean igual.

Esan duzu aurten ez zarela apuntatu txapelketan. Zergatik, gainera, esan didazu. Hurrengo galdera justu hori zen, baina ez diozu aterik ixten.

Ez, ez, ez.

Probatuko zenuke igual. Erakartzen zaitu zerbaitek txapelketatik, edo?

Ez, jarduteak bakarrik. Bai, bai. Bai, bai.

Hurrengoa da, esan duzu senarrak eman zuela zure izena, etxekoek-edo zer esan zuten zuk esan zenienean, beno ez dakit zuk esan zenien edo kasu honetan beraiek esan zizuten zuri edo nola izan zen elkartruke hori. Zer esan dizute edo zer entzun duzu?

Beno, ba saioetan egon garen bakoitzean atzera eta aurrera ibili dira semeak edo senarra eta etxera joan naizenean beti “beste aldera eman behar diozu”. Entrenatzaile lana beraiek egiten dute edo adarra jotzen besterik ez, e. Semeek “jo, a ze estiloa, e?”

Baina hori da inbidiagatik, ez?

Adarra jotzeagatik. Orduan esaten nien “zuen lagunak gurusoak joaten dira jolastera? Zuen lagunak amak joaten dira jolastera? Ba ni joaten naiz”.

Eragina hala ere ez dute txarra izan. Esan nahi dut adar jotze horiek onarpenaren barruan.

Ez, ez, ez, onartzen dute. Bai, bai, bai, onartzen dute eta, gainera, konturatzen naiz gustatzen zaiela nik, gu ikustea eta ni ikustea konkretuki kirola egiten eta mugitzen. Bai, zentzu horretan, gainera, animatu egiten naute.

Eta, gertuko jende gehiagok? Lagunek eta?

Ez, ez. Animatu egiten naute.

Eta, pixka bat urrutiagokoak? Ez dakit kalean ezer entzun duzun, bakarren batek, ezagunen batek zerbait esan dizun edo, ez daki jende askok Karmele palan dabilela oraindik.

Bai, entzun zerbait entzuten da. Senarraren koadrilakoek eta, horiek badakit komentatu izan dutela eta batean norbaitek esan diola nolatan ez naizen txapelketan apuntatu ere, baina, ez. Ondo, ondo ikusi dute.

Lehen aipatzen hasi zara giro ona egon dela edo taldean gustura aritu zarela. Ez dakit esan litekeen, baina pentsatzen dut taldekide asko igual berriak izango zenituela. Aurrez ezagutzen zenituen? Harremana frontoitik kanpo bestela bazeneukan?

Ezagunak bai. Beno, harremana beraiekin ez. Idoiarekin bai, Idoia laguna da, betiko laguna, baina besteak ez. Ezagunak bai, hemen Usurbilen denak gara ezagunak. Orduan, ba, Jaione ere beti kasu egiten duzu. Usurbilen nik uste denak ezagunak eta nik esaten dut ia parkera ez naizela jaisten eta hor asko galduta daukat, baina agurtu beti. Ni, gainera, egia da beti joaten naizela burua altxatuta eta beti kasu egiten jendeari. Horrelakoa naiz, baina ez, ezaguna horrela zuzena Idoiarekin nuen harremana.

Eta harreman bat sortu zaizu edo, ez dakit, justu-justu saiokoa? Behintzat kalean lasaigo hitz egitekoa edo akaso ez dakit esan litekeen harreman sare bat lortu duzunik. Ez dakit iruditzen zaizun ikastaro honek harremanetan ere eduki duela eragina.

Bai, topatu kalean eta kideekin hitz egiteko, ba bai. Lehenago egiten ez nuena ba, adibidez, orain bai. Bai, bai.

Ondo, ondo. Azkeneko galderara iritsi naiz ni. Ez dakit oraindik beldurtuta jarraitzen duzun edo lasaitu zaren.

Ez, lasai nago.

Ea sentitzen duzun zuk palan zabiltzan momentu horretan, pilota jotzen ari zarenean edo saioan zabiltzanean, gizonen eremuan zabiltzala.

Ez. Ez, gainera, ez zait burutik pasa ere egin. Ez, ez.

Umetan ere horrelako oroitzapenik ez daukazu, pilota gizona zkoentzat katalogatutakoa.

Keba. Ez, ez, gainera, ezta burutik pasa ere.

Hori izango da batzuk ia oso kutsatuta gaudela, horrelako gauzekin egunero eta ...

Egia esan, hemen, beti ibili izan dira taldeak eta horrela. Emakumeak ikusi izan dira frontoian palan jolasten.

Agian ez da arraroa izan jendearentzat astero ikustea.

Niretzako ez.

Galderak bukatu zaizkit. Azkeneko bat egingo dizut. Beti egin behar izaten da. Ea zerbait galdetzea espero zenuen eta ez dizudan galdetu edo zerbait esan nahi duzun edo esateko gogoarekin gelditu zaren.

Ez, beno, agian hasieran nik galdetu dizut ea zertan oinarritu zaren ni aukeratzeko garaian, baina, beno, erantzun duzu. Ez, ez.

Eskerrak emango dizkizut berriz eta itzali egingo dugu tramankulu polit hau.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Karmele

Aurreko astean, azken saioaren ondoren, egin genuen hitzordua ostegunerako, nahiz eta hasieran ostirala izatekotan geratu. Hala ere, nire erosotasunari begira eta osteguneko afaria medio bertaratzekoa nintzela eta moldatuko zirela esan zidaten. Mezu bidez arazorik ez zutela konfirmatu zidaten ondoren.

1. elkarrizketan (2012-06-07, 18:30)

- Hitzordura minutu batzuk beranduago, hamar bat, iritsi da, ardura puntutxo batekin, baina lasai egoteko esan diot eta berak aukeraturiko taberna baten terrazara joan gara, lasai samar omen dagoela eta.
- Elkarrizketaren hasieran urduritasun puntu bat sumatu diot eta berak hasi aurretik zergatik hautatu ote dudan galdetu dit. Nik amaieran erantzungo diodala esan diot, beraz, grabagailua itzalitakoan hitz emandakoa betetzea dagokit.

- Hasi eta handik gutxira Jaione iritsi da, gaizki ulertu bat medio behar baino lehen, baina gero deitzekotan geratu naiz eta elkarrizketarekin jarraitzeko ez dugu arazorik izan, gaiari heldu eta hizketan jarraituz.
- Galderekin ez da beldurtu eta gustura erantzun ditu.
- Grabagailua itzali eta elkarrekin beste apur batean hitz egin dugu, batez ere tesiaren gainean eta hau amaitzeak zer ekar diezadakeen galdetu baitit.
- Beste ezer behar izanez gero lasai esateko esan dit, eurek laguntzeko prest daudela. Estimatzen diot, doble gainera, gero aitortu baitit nirekin hitzordua egin izanaren ondorioz gaur ez dela spinning ikastaroko saiora joan. Ez zait gehiegi gustatu hori, egia esan. Jakin balu bezperan egin genezakeela ere esan dit, baina hala beharko du.

Elkarrizketa data: 2012-06-07

Lekua eta ordua: Kaffa kafetegiko terraza (Usurbil), 19:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Jaione

Adina: 38

Jaioterria: Usurbil

Bizilekua: Usurbil

Ondo. Ia hasi egingo gara. Begira zein galdera zaila lehenengoa: nola iritsi zinen ikastarora? Palan aurretik bazenbiltzan edo ez, nola hasi zinen, zergatik eta noiz.

Bai, bai. Aurreko urtean izango zen nik uste dut. Beno, bazeuden lehenago frontoian ibiltzen ziren beste talde batzuk eta Aitziber eta hauek beti esaten zuten “guk ere hasi behar dugu, guk ere hasi behar dugu”, baina, beno. Hiru zeuden eta esan zidaten “laugarren bat behar dugu” eta “beno, ba, ni gustura”. Bi aldiz pentsatu gabe hasi nintzen eta elkartzen ginen astero asteazkenetan zazpiak eta erdietan. Eta gero ia urrian esan zigutenean ikastaroa hasiko zela, ba ondo iruditzen bazitzaigun ordu horretan, ba orduan gurekin kontsultatu zuten eta “ba frontoia behar dugu, beraz, zuen baimenarekin” eta esan genuen “ah, ba bai, ba oso ondo, ondo etorriko zaigu eta gu ere apuntatu egingo gara”. Eta horrelaxe.

Jarduten duzu ikastaroan bakarrik edo gero, aparte, asteburuetan edo bakarren batekin aukera suertatzen zaizunean jarduten duzu?

Ba, ikastaroan bakarrik. Beno, aukera suertatzen baldin bada bai, baina, noski, askotan ez da erraza aukera hori edukitzea. Ez. Honbre, ibili zaitezke umeekin, frontoira joaten zara eta ibil zaitezke, baina umeekin da. Gustura, baina ez da berdina eta gero aukera suertatzen denean bai, baina gutxitan, nik nahi baino gutxiagotan sortzen zait aukera egia esan, e.

Hori zer da, pixka bat engantxatu zarela?

Beno, niri beti gustatu izan zait. Egia esan, beti. Beti eta ikastaroan oso gustura ibili naiz. Ez dakit engantxatu egin naizen edo ez.

Ez dakit esan litekeen, horregatik galdetu dizut, baina atxikimendu maila bat badaukazu orain palarekiko igual, ez?

Bai, bai, dudarik ez.

Esan duzu “nahi baino gutxiagotan”.

Bai, bai, ni egia da oso gustura aritzen naizela, baina, beno, badaude beste faktore batzuk baita ere engantxatu nautenak eta, orduan ...

Esan ditzakezu, e. Beno, nahi ez baduzu ez, e. Bale.

Ez, ez, gero esango ditut. Grabagailua itzalitakoan igual bai.

Eta, beste kirolik egiten duzu? Tarteka gimnasia joaten zinen edo korrika edo.

Ba, bai. Beste urte batzuetan egin izan dut, ba, beno, aerobicera joan izan naiz. Beno, ari naiz hitz egiten pixka bat ama izan eta gero, e, ze lehenagotik igual ba bai.

Aurrez palan ibilita zeunden?

Ikastaroetan eta horrela ez.

Baina zure kabuz palan bai.

Palaz? Bai, bai! Nik daukadan lehenbiziko oroitzapena da gurasoekin joaten ginela palan ibiltzera, edo Zubietako frontoira edo edonora eta gero nik daukat baita ere oso oroitzapen ona udaran joaten ginen familia handi bat, e, Baztanera, Arizkungo etxe batera eta orduan egunero-egunero joaten ginen edo Arizkungo frontoira edo Erratzuko frontoira. Gero lehengusu guztiak eta guraso guztiak han ibiltzen ginen, palan egun guztian. Orduan, bai, badaukat ibili izan gara, gainera, nire amari asko gustatzen zaio eta ez da lehenbiziko aldia. Nik beti eduki izan dut. Gainontzean, kirola, orain, aerobicera joaten nintzen astean bitan, baina, beno, ama zarenean ezin da nahi duzun guztia egin eta orain honek eman dit aukera esateko “beno, ba astean behin hartuko dut pala eta gero, moldatzen baldin banaiz, joango naiz igerilekura astean beste egun bat”. Ahal dena, nahi dena ez. Ahal dena. Bai.

Eta, zerbait diferentea ikusten diozu, adibidez, igeri egitera joatetik?

Bai, noski! Igerilekura joaten zara eta han bakarrik egiten duzu igeri. Eta niri gustatzen zait, e, ba, beno, hogeit hamar minutu asko jota irauin ditzakezu igerian eta ateratzen zara erlaxatuta eta pixka bat deskonektatzen duzu ur azpian, baina, joe, joatea talde batean. Eta, gainera, ezta aerobica ere, ze esaten duzu “talde batean da”, baina ni joaten nintzen, ti-ta-ti-ta berrogei minutu egin eta, beno, ba normalean korrika eta presaka etxera. Eta, hemen, ba, beno, hitz egiten duzu, eta, bai, nik uste giroa beste era batekoa dela eta hori asko eskertzen da. Beste batzuetan, igual esango nuen “gaur igual gehiegi hitz egin dugu, nahiago nuen askoz gehiago jo bagenio eta izerdituta joan banintz etxera”, baina, beno. Batzuetan igual bai.

Sentsazio hori ere eduki duzu?

Sentsazio hori zenbait egunetan, beno, zenbait egunetan ez, baina egunen batean edo beste eduki dut, ba igual zuk ere behar hori daukazulako egun horretan, baina, orokorrean, ez zitzaizun batere inporta, ondo pasatzen nuen eta listo, hurrengo asteazkena etortzeko deseatzten.

Eta, adibidez, kirolaren ikuspegi horretatik, edo osasuna edo sasoa mantentzeko ikuspegi horretatik, hartzen duzu palako ikastaroa. Horretarako ere balio dizu?

Bai, bai. Bai, niretzako garrantzitsua da kirola egitea eta, gainera, disfrutatzen dut. Beno, gerriko min batzuk ere eduki ditugu, e.

Hori edadearena da, e, hori ez da palarena, kar, kar, kar.

Dudarik ez, dudarik ez, kar, kar, kar.

Eta, taldean ez balitz, bakarrik ibiliko zinateke? Esan duzu, azkenean, talde bat zeneukala.

Bakar-bakarrik ez. Bakar-bakarrik ez. Nik uste dut pala dela kirol bat gutxienez bi eta bi ere, uf.

Birekin ere ez zara konformatzen?

Beno, segun zein den bestea. Ez, birekin ere bai, e, baina, beno, birekin ba igual esaten badut “beno, gaur izerditan bukatu nahi dut”. Horretarako izango litzateke ona, baina, bestela lau. Bai.

Ikastaroa, adibidez, Usurbilgo kasuan eman da herriaren erdi-erdian. Esan nahi dut, eskaparatean. E, frontoi itxian egin izan balitz edo leku pixka bat diskretuagoan, hain publikoa ez denean, behintzat, lasaiago joango zinen edo berdin izango zitzazun?

Beno, egia da hasieran, baina, beno, esan dizut, ni nola aurreko urtetik joaten ginen pixka bat ia eginda geunden, baina, beno, ez da oso diskretua eta jendea geratzen da, baina hori hasieran. Gero ia ez zaizu inporta. Hasieran igual bai, baina niri bereziki ez dit eragin, ez dut uste. Berdin zitzaidan.

Ondo. Hurrengoa da ea txapelketetan parte hartzen al duzun. Hasi berri-berria zara txapelketetan, ala?

Aurten lehenbiziko aldiz nire bizitza guztian txapelketa batean hartuko dut parte.

Edozein gauzatan txapelketa batean lehenengoz?

Bai. Beno, agian noizbait atera izan naiz, ba, igual korrikako probatxoren batean edo eskiko probatxoren batean, baina beti izan da talde masiboarekin batera eta ez zaituztela ikusi ere egiten inork eta. Baina, horrela, beste bikote batekin partidua jokatzera aurreneko aldia da.

Eta, zergatik?

Zergatik lehenbiziko aldia den edo zergatik apuntatu naizen? Ba, lehengo urtean gogoarekin geratu nintzelako. Aurten mila duda eduki ditut, mila duda eduki ditut.

Gogoarekin gelditu bazinen ...

Beno, baina hor badago puntu bat esaten duzuna “nik nahi dut” eta beste bat, %50 bat, esaten duzuna “ez, ez, nik ezin dut, ezin dut zeren ez dut ondo egingo”. Ez ondo jokatu, baizik eta ez naiz lasai egongo eta disfrutatu baino sufritu egingo dut. Ba, orduan nahiago ikusten egon eta listo, ez? Baina, ez dakit. Aurten esan nuen “ba, bale”. Laguntza pixka bat ere eduki dut konbentzitzeko eta animatu naiz. Ikusiko dugu zer ateratzen den.

Esan duzu aurten hartu duzula lehenengoz parte. Lehenengo sentsazioak onak izan dira edo txarrak izan dira?

Ez, onak, oso onak. Bai. Emakumea Pilotari egunean egon ginenean ere nik uste baino askoz ere hobeto. Esan nuen “beno, marabilarik ez dugu egingo, baina ondo”. Azkenean ni nire buruarekin, behintzat, gustura gelditu nintzen eta horrek balio du, ez? Bai, bai. Eta, beno, atzoko partidua ere ondo. Beste erronka bat zen, zeren herrian zen eta ematen zuen jende guztiak bazekiela, baina ez, ondo.

Hurrengoa da, ez dakit, igual nahikoa erraza egingo zitzaien beraiei, baina etxeok, gertuenekok, zuk esan zenuenean “ikastaroan izena emango dut”, zer erreakzio izan zuten? Zer garrantzia eduki zuten? Bai erabakia hartzerakoan eraginik izan ote zuten.

Beno, ez ziren harritu, zeren lehenago ere hasiak ginen ba, nire bikotea ez zen harritu eta esan zidan “ba, oso ondo” eta nire gurasoak ere ez.

Seme-alabek zer edo zer esaten dute?

Bai, bai, bai. Galdetzen dute. Nik uste dut, beno, txikia oraindik txikia da, baina sei urtekoari nik nabaritu diot, e, atzo ere iritsi nintzen etxera eta “zer egin duzu?” eta gero, igual, hartzen du pala eta nahi du. Berak ere nahi du. Nik uste dut ikusten baldin badu igual egingo duela etorkizunean eta gustura bere ama palara joaten delako.

Lagunak eta? Koadrilakoak edo.

Lagunak eta? Beno, ba ez dakit zer esan, zeren nik ez dut gehiegi esaten “hau egiten dut edo bestea egiten dut”. Aizu, ba ni apuntatu naiz eta listo. Ba bai, badakite eta ez didate gehiegi. Beno, bakarren batzuk badaude, adibidez, Oier, badirudi orain bilatu duela pilotaz hitz egiteko norbait, kar, kar. Noski, mundu horretan oso sartuta dagoenak badauka zertaz jarduna eta jardun horretan beste norbaitek ez badio jarraitzen, ba, “isildu zaitez eta kito” eta orain, ba, beno, beste gai bat gehiago daukagu hizketarako. Bai, orokorrean ondo. Batzuk inbidi pixka batekin eta esaten diet “ba datorren urtean animatu, bai” eta beste batzuk esaten dute “nik horretarako ez dut balio eta ez dakit zer”. Nik uste baten bat animatuko dela. Bai.

Pixka bat urrutiagokok? Kolean aipamenen bat egin dizute? Bestelako jendeak.

Beno, beti dago baten bat “pala, ez dakit zer”, baina, beno, batzuk ilea hartzeko, beste batzuk “oso ondo” eta beste batzuk esateko “ni apuntatuko nintzateke”. Lantokian ere, nik Zarautzen egiten dut lana ...

Ah, han esan duzu? Han bai, baina Usurbilen ez?

Ez, ez. Ea, nik gertukoei esan diet eta, gainera, ezin da ezkutatu ikusten da. Bai, badakite. Ez dut horrela, esan bai, baina, beno. Eta, lankideekin, nik beste lankide batekin egiten dut zuzenean lana eta orduan harreman nahiko sakona, sakona ez dakit, baina harremana behintzat badaukagu eta hari komentatzen diot. Eta, beno, kristoren inbidia pasatzen du. Beraz, beno, esan diot Zarautzen badagoela taldea, gainera, esan nion irabazi zutela zarautzarrek zeran eta igual animatuko dela datorren urtean. Beraz, begira.

Ondo, ondo, horrela, sustapen lana egin zuk.

Bai, bai, bai, nik propaganda egingo dizuet.

Lehen hasi zara esaten giroaz. Ez dakit espazio sozial bat edo dei diezaiokedan talde horri, ikastaro horri edo jardun horri. Sozializazioan, azkenean, ez dakit taldekideak ezagutzen zenituen aurretik. Beno, batzuk bai.

Bai. Bai, bistaz gehienak ezagutzen nituen.

Ez dakit harremanik bazeneukan frontoitik kanpo.

Batzuekin bai. Aitziberrekin bai, baina igual beste harreman mota bat baita ere eta niretzako hori aberasgarria izan da, zeren bera nire koinata den heinean, azkenean, horrek finkatzen du harreman mota bat eta hor ez ginen. Esan nahi dut, ba, ginela ikastaroko kideak eta oso ondo. Besteak, ba, beno Idoia ere ezagutzen dut, ba, Aitziberrekin harreman zuzenagoa daukalako, baina, frontoitik. Askoz gehiago ere ez. Bai, ikastolako andereñoa da eta orduan ba ondo. Adibidez, Karmelerekin kristoren sorpresa hartu dut zeren nik ezagutzen nuen, baina, horrela, beno, ez dakit. Egia esan sorpresa ona hartu dut eta oso ondo. Bai, bai. Eta, denekin, ez dakit. Aizpearekin, hori bai ezagutzen nuela ikusita. Ez da igual asko-askotan etorri, baina, beno. Denekin orokorrean. Bai. Nik uste dut gauza positiboenetako bat hori izan dela. Niretzako, e, larunbateko saio hartatik etorri ginenean, bat-batean han bokadiloa jaten eta esan nuen “aiba la letxe, han bokadiloa jaten Idoia, Karmele, Haizea, Estitxu, Argia eta ni”. Estitxu eta Argia ba igual pixka bat gehiago ezagutzen ditut adin bertsukoak garelako eta umeak adin berdintsukoak dauzkagulako, baina ez askoz gehiago. Estitxurekin, eta hori talde berdinean ez dela egon, sorpresa handia hartu dut. Neska hori zen “zer egin diot nik?”, agian zakar itxura edo hartzen diot eta, beno, esaten dizut, gero bokadiloa jaten berarekin eta bi aldiz horrela elkarrizketa bat eduki dut kalean eta esan dut “ba, zer ona”. Beraiek ez dakit zer pentsatuko duten nitaz, baina, beno. Ez, orokorrean oso ondo.

Orduan sozializazio kutsu hori zure kasuan eduki du.

Bai, bai. Niretzako asko. Eta, beno, zer esanik ez Haizea eta zu ezagutzea. Hori ia puntu eta aparte.

Beno, nik uste alde bikoia dela, hala ere.

Ez dakit, baina niretzako behintzat bai.

Azkeneko galdera egingo dizut. Bukatu zait, ikusi, ez zen beste munduko ezer. Sentitzen al duzu zuk, palan zabiltzan momentu horretan, gizonen eremuan zabiltzala? Edo eduki duzun burutazio hori.

Oso galdera zaila da hori.

Zaila al da?

Bai. Bai, zeren niri burutik pasa zait, ba esaten dut “jo, batez ere beti ari naiz pentsatzen ea kanpokoek zer pentsatuko duten” eta gero esaten dut “zergatik pentsatuko dut besteek zer pentsatuko duten ni gustura baldin banago, ezta?” Baina, bai, ez dakit nola esplikatatu.

Lasai, nahi duzun bezala, keinuekin, marrazkiekin, ...

Ez, ez, ez daukat marrazki beharrik. Nik uste dut palan gehienbat gizonezkoek jokatu zutela. Nik ikusitakoa behintzat, baina badakit emakumeek ere jokatu zutela. Gainera, nik, nire bikoteak justu esaten du “beno, beno, hemen Gereñu bat aterako zaigu laster” eta nik esan nion “hori emakumea izango zen, ezta?” eta “bai” eta “ikusten?” Ba, pentsa, berak igual nik baino erreferentzia gehiago dauka.

Baina, zuk jardunean ari zaren momentuan pentsatu duzu?

Ez.

Gero pentsatu duzu?

Gero, gero. Burutazioak ez dakit. Ez dakit. Ez horrela mutilen kirola egiten ari naizenik, zeren gaur egunean zer da mutil baten kirola? Nik uste gaur egun ia ezetz. Ez dut ikuspegi horretatik pentsatu, e. Beste ...

Ez dakit zer daukazun, baina zer edo zer eduki duzu.

Hori itzali eta gero.

Bale, itzali eta gero. Hori zen azkeneko galdera. Beste bat egingo dizut: ea galdetzea espero zenuen zerbait badagoen eta galdetu ez dizudana edo zerbait erantsi nahi duzun gai honen inguruan.

Ez, ez. Ez neukan ideiarik ere zer galdetuko zenuen. Beno, gutxi gorabehera egiten duzu ideia bat, ezta? Baina ez nuen espero horrela ezer apartekorik ere.

Eskerrak emango dizkizut berriz eta itzali egingo dugu ia. Lasai egon.

Ez horregatik.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Jaione

Aurreko astean, azken saioaren ondoren, egin genuen hitzordua ostegunerako, nahiz eta hasieran ostirala izatekotan geratu. Hala ere, nire erosotasunari begira eta osteguneko afaria medio bertaratzekoa nintzela eta moldatuko zirela esan zidaten. Mezu bidez arazorik ez zutela konfirmatu zidaten ondoren, nahiz eta haurrekin moldatzeko zailtasunen bat izan zezakeela uste dudana.

Bezperan elkar ikusi genuen, Usurbilgo II. Pala Txapelketako partidak ikusten izan nintzen, eta lasai ez zela egongo esanez agurtu ninduen, urduritzeak ez ziola merezi behin baino gehiagotan esan nion arren.

1. elkarrizketan (2012-06-07, 19:00)

- Aurrez izandako gaizki ulertuaren ondoren telefonoz dei egin diot aurrekoa amaitu dugunean eta lasai etortzeko esan, kirio dantzan agertu den arren.
- Elkarrizketaren hasieran urduritasun handia sumatu diot eta hasteko presa ere bai. Saiatu naiz lasaitzen, baina “hau edozein saio baino zailagoa da” batekin erantzun dit.
- Zergatik hautatu ote dudan galdetu dit, aurreko batean hautaketa zuzena ez zitzaiola iruditzen ere esan zidan, nik kontrakoa pentsatzen dudala erantzun banion ere.
- Urduri egon da solasaldi guztian, nahiz eta erantzuteko unean zenbaitetan gustura samar zegoela ere iruditu zaidan. Hala ere, behin baino gehiagotan esan dit gauza batzuk grabagailua itzalitakoan esango zituela.
- Elkarrizketa amaieran esan dit gutxi gorabehera galderak zer nolakoak izango ziren espero zuela, baina bere lehen elkarrizketa izan dela hau.
- Grabagailua itzali eta elkarrekin denbora luzean aritu gara hizketan gai ezberdinen inguruan. Justu orduan igaro dira zuzendaria eta familia ere gure aldamenetik eta haiekin ere hitz pare bat elkartrukatu ditugu.

Elkarrizketa data: 2012-06-12
Lekua eta ordua: Zizurkil, parkeko bankua, 21:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Eli
Adina: 40 urte
Jaioterria: Lasarte-Oria
Bizilekua: Zizurkil

Oso ondo. Lehenengo galdera egingo dizut ea nola iritsi zinen zu palara, nola hasi zinen zu ikastaroan, nondik edo zergatik.

Oso kurioa da. Bai, zeren eta ni kanpotarra naiz eta, gainera, daramakit bizitzen Zizurkilen hamabi urte, baina bizi gutxi egiten dut hemen. Orduan, e, ba, beno, ezagutzen nuen jendea eta horietako bat Onintza zen eta egun batean komentatu zidan nola sortuko zen talde bat. Ni ez naiz inoiz jolastu palan, baina niri kirola gustatzen zait eta ikusi nuen aukera desberdina bai kirola egiteko bai jendea ezagutzeko eta bai talde batean, ba, beno, ba parte hartzeko eta hori izan zen. Pala ez zen izan arrazoi bakarra.

Arrazoi ezberdinak egon litezke.

Hori da, hori da eta esan nuen “probatu egingo dut”. Beno, hori da, horrela hasi nintzen. Bai.

Ikastaroan zenbat urte daramatzazue zuek?

Bi eta piku, zeren eta abenduan bukatu zuten frontoia, orduan, urtarriletik aurrera bi eta erdi, bai.

Eta palan zer ibiltzen zara, ikastaroan bakarrik edo bestela semeekin eta horrela ere aprobetxatzen duzu?

Bestela semeekin, hori da. Semeekin eta, ba, beno, gainera, seme txikiak, baina oso lehiakorak dauzkat eta ia zazpi urtekoak egurra ematen dit, beraz, pentsa. Hori ere beste helburu bat da, nik bi mutil dauzkat eta nola kirola denetatik egin behar dudan beraiekin, ba, horrela ere pixka bat aukera daukat beraiekin jolasteko. Egia esan helburu ezberdinak betetzen ditu palak. Bai, bai, egia da.

Eta astearteetan nahiko zintzo etorri zara, zoritxarrez, lesio bat eduki arte. Esan liteke nolabaiteko lotura bat badaukazula palarekin orain? Lotura bat edo, beno, behintzat astearteko saio hori ez dakit “sakratua” den.

Bai, bai, eta oso garbi gainera. Oso garbi daukat. Bai, bai, zeren hasieran nire zaharrak zeuzkan bost urte egin gabe eta txikiak hiru. Esfortzua egin zen eta apustu bat izan zen eta hasi nintzen palarekin nire zatitxoak lortzen. Orduan, niretzat alde horretatik ere inportantea izan da. Gainera, konturatzen zara, beno, nik negarrez uzten nituen umeak, negarrez, e, zaharrena negarrez “ama ez joan palara, zergatik joan behar duzu?” eta, beno, oso garbi neukan. Gero nire bikoteak ere lagundu dit, hori garbi dago, baina, azkenean, niretzat sakratua bai eta, gainera, giroa oso ona da, irakaslearekin ere oso gustura, dinamika oso polita da, bai.

Esan duzu beste kirol batzuk, edo, azkenean, kirol asko egin izan duzula eta badakit tarteka korrika egitera joan izan zarela, igeri eta kirol dezente egiten dituzula. Zerbait ezberdina ikusten diozu palari edo, beno, orain komentatu duzunez inguruko giro hori da?

Bai, azkenean kirola, bi kirol mota daude: indibiduala eta taldekoa. Taldekideenak ematen du beste gauza asko. Azkenean, helburua da jendearekin harremana, e, ba, beno, hitz egin, e ...

Ez dakit. Espazio sozial bat edo esan liteke? Harreman sare bat igual eman dizu palak?

Bai, bai. Niri bai. Azkenean, ezagutzen dut jende gehiago, gainera, lotura daukagu eta hori oso garbi daukagu, zein den gure harremana, baina, beno, beste aukerak ere, ba, denborarekin igual sortzen dira eta batzuetan igual sortu izan dira. Gainera, nik hasieran oso gaizki pasa nuen, zeren eta oso txarra naiz.

Baina borondateak balio du!

Bai eta jendeak lagundu dit, eta, beno, gauza asko daude hor. Ikusten duzu, azkenean berdin du, azkenean elkartzen gara eta da aitzakia, niretzat inportantea da hor jarraitzea. Nik uste dut talde bat garela, lortu dugu taldea izatea, kopuru polita daukagu, gainera, zortzi bat eta, bai, talde bat daukagu.

Eta, adibidez, ikastarora etortzen zara osasun ikuspegiagatik, sasoi lortzeko edo horretarako beste kirol batzuk dauzkazu?

Bai, zeren eta oso ezberdina da eta lantzen dituzu beste atal batzuk. Korrika lantzen duzu gehienbat hankak eta hemen lantzen ditut besoak eta nik besoak, bestela, ez ditut erabiltzen. Nik uste desberdina dela, eta, noski, nik eskertzen dut, adibidez, saioak “kañeroak” izatea. Niri gustatzen zaizkit gehiago, bai, izerdituta bukatzea, zeren niri kirola gustatzen zait. Oso ondo dago hitz egitea, harremanak, etab. baina niri ere gustatzen zait esatea “jo, zerbait egin dut”. Bai, bai, zeren azkenean ordu eta erdi da.

(telefonoa hasi zaio joka, baina moztu egin du, nik lasai har dezakeela esan arren)

Zer ari nintzen esaten, barkatu?

Ea sasoi helbururik bazeneukan zen, zuk saioak “kañeroak” nahi dituzula.

Bai, bai, niri gustatzen zait izerditzea, zeren helburu ezberdinak betetzen ditu, baina bat da kirola egitea. Tokatu izan zaigu egun batean hezetasuna, beste egun batean euria, beste egun batean argiaren arazoa, beste egun batean mingainari ematen diogula eta saioa mozten dugula, etab. eta, beno, ez zara berdin joaten. Esaten duzu “oso gustura egon naiz, baina, kontxo, ni palan jolastera etortzen naiz”. Gero bokadiloa jango dugu, beste hamar minutu egingo ditugu hizketan, baina bederatzietatik aurrera. Pena. Niri hori gustatzen zait eta hurrengo egunean agujetak baldin baditut ya, hobeto, kar, kar, kar. Bai, ez dakit, e, da igual sentsazioa kirola egin dudala.

Ondo, ondo. Esan duzu normalean taldean aritzen zarela. Bakarrik ibiliko zinateke? Talde edo ikastaro hori sortu ez balitz?

Ez dut uste. Ez dut uste. Niretzat oso lotuta dago, ez. Niretzat oso zaila da.

Semeekin igual.

Bai, semeekin igual, baina bestela oso zaila iruditzen zait. Egia esan, gustatzen zait pala, e, ez naiz jolastu inoiz eta gustura joaten naiz eta gustatzen zait, baina nik daukat amorru handia ez jolastea hobeto eta ez dut aurreratzen.

Aurreratzen duzu! Ni aurten etorri naiz eta ...

Beno, bai, asko aurreratu dut, asko aurreratu dut. Bai, hori egia da, aurreratzen dut, baina beti nago hor, kolokan, ez? Orduan, ba, pena ematen dit, ba, beno, pixka bat, pauso bat ez emateak pixka bat beste maila bat edukitzeko, ez? Baina, bestela zaila iruditzen zait zeren nik ia daukat zuk esaten duzun lotura hori.

Oso ondo. Eta ikastaroa hemen ez dakit frontoia erdi irekia edo erdi itxia den, ez dakit nola deitu. Kanpotik jendea pasatzen da, baina ez da ematen herri erdi-erdian eta mundu guztia pasatzen da. Adibidez, izango balitz erabat frontoi itxi batean, ez daukana kanpotik jenderik, lasaiago joango zinateke edo berdin zaizu zuri jendea pasatzea?

Bai, berdin zait. Berdin zait.

Lotsa puntu horrek ez dizu eragiten?

Ez, ez. Baina, ez dit ematen zeren badakit hemen jende gutxi pasatzen dela. Adibidez, nire herrian, ba, ez dakit, agian bai, lotsa puntu hori izango nuke eta, zorionez, nola topaketan ni ez naizen joaten bikote bezala, nik ulertzen dut ez dela erraza, ba, beno, zu ikustea palan jolastean. Azkenean, puntu hori nik uste badaukala. Bai.

Ondo. Eta hurrengo da ea txapelketetan parte hartzen al duzun.

Ez.

Eta, zergatik edo?

Ba, nire mugengatik. Nik badakit, ba, beno, aurreratzen ari naizela, noizbehinka ematen diot, baina nik ez daukat mailarik txapelketara joateko. Orduan, ba, beno, garbi daukat.

Eta maila edukiko bazenu igual probatuko zenuke?

Bai, igual bai, zeren ni lehiakorra naiz, baina horretarako ere ikusi behar duzu lehiatzeko gaitasuna daukazula. Joateko eguna pasatzera ez naiz joango. Nahiago dut norbait animatzea. Nik uste gehiago laguntzen dudala nire animoekin edo. Bai, nik uste baietz. Momentuz bai, baina, egia esan, nire helburua palan ez da lehiatzea. Txapelketa, azkenean, ia gure adinarekin, ba, ondo dago gure artean pike hori, baina pike pertsonala, hori gustatzen zait, beste edozeinekin, ba, beno. Igual gertatzen zaigu topaketan jendea ezagutzen duzula eta, beno, hor pikea sortzen baldin bada bai, baina bestela ez.

Ondo, ondo Hurrengoia testuinguruaren ingurukoa da. Esan duzu bikoteak lagundu zizula erabakia hartu zenuenean. Zuk gertukoei esan zenienean, ba, bikoteari edo etxekoei, esan zenienean palan hasiko zinela nola erreakzionatu zuten? Zer esan zizuten?

Nire anaiak eta horrela harrituta zeren badakite ni ez naizela jolastu inoiz, baina badakite kirola gustatzen zaidala. Niri jendearekin egotea ere gustatzen zait, harremana eta hori, eta, orduan, ba, beno, ulertu zuten, baina jendea harrituta geratzen da esaten dudanean palan jolasten dudala.

Eta, lagunek eta? Erreakzioa edo onarpena izango zenuen.

Bai, bai, bai, baina harridura garbi. Harridura garbi. Gainera, nik uste dut dela kirol bat oso ezezaguna. Pilota bai, gizonak bai, baina betikoa, ez? Bale, ba aerobic, korrika beno, igeri beno, baina pala? Ez, eta, gainera, fundamentuarekin. Esaten diet “ez, ez, ez, ez noa hara partidu bat jolastera, irakasle bat daukagu” eta “ah!” harrituta geratzen dira.

Eta, adibidez, semeek zer esaten dute? Badakite palara joaten zarela, ezta?

Bai, bai, bai, nire semeak daude oso pozik. Eta, gainera, lortu dugu nire zatitxoa beren zatitxoa izatea ere. Astearte arratsaldea da astearte ezberdina beraientzat ere, zeren beraien aitaxorekin zerbait ezberdina egiten dute. Eta, orduan, adibidez, nola lesionatuta egon naizen kristoren disgustua ea zergatik ez naizen joaten palara.

Badakite amarentzat garrantzitsua dela palara joatea ere beraiek.

Bai. Bai, eta, gainera, niretzat. Beno, ea nik kirola ez dut asko egin, gustatzen zait, baina ez dut asko egin. Ni hasi naiz kirola egiten umeak izan eta gero gehienbat eta helburu bat da erakustea, nik bi mutil dauzkat, erakustea emakumeok ere kirola egiten dugula. Hori da helburu bat eta oso garbi daukat, gainera, zeren bestela kirola beti bihurtzen da gizonen mundua eta ez dut nahi. Nahi dut berdintasun kontu horrekin beraien aitak kirola egiten du, baina amak ere bai. Oso garbi daukat hori.

Salto egingo dut galdera bat eta gero bueltatuko naiz zeren beste galdera bat da ea zuk palan zabiltzan momentu horretan, orain ari zinen berdintasuna gora eta berdintasuna behera, zuk sentitzen duzun gizonen esparru batean zabiltzala edo pentsatu izan duzun inoiz zu zabiltzala “hau gizonen kirola da”. Ez zaizu burutik pasa “gizonen leku batean nabil”.

Ez. Hain daukat garbi! Guk uste dut Zizurkilen lortu dugula, edo lortzen ari garela borrokatzen, lotura handia pala eta emakumea. Nik uste Zizurkilen esaten duzula pala eta gizona eta, beno, ez, pilota, eskupilota bai, gizonen arloa izango da, baina palarena nik uste dut automatikoki izango zela emakumea. Eta sentitu ez eta garbi daukat, ez, ez, zeren nik ere ez dut ikusi nire inguruan palan asko jolasten, zeren nire herrian frontoia hor zegoen, baina, beno, ez zen, e, beste leku batzuk zeuden kirola egiteko. Frontoia ez da izan, ba, hori, oso garrantzitsua. Ez da leku oso garrantzitsua eta Zizurkilen bai. Frontoia da dena. Ez dago besterik, ez dago besterik. Orduan ni ere horretan saiatu naiz egokitzen, Zizurkilen bizi naiz, ez dago besterik, ba horri helduko diogu, ez? Bai, hori.

Lasai segi hizketan, e.

Eta gero ere umeein eta hori, ba, betikoa, futbola, ez dakit zer, badakit zer, eta, ba, beno, erakusteko beste kirol batzuk daudela eta ez bakarrik futbola.

Hurrengo da, gertukoak esan duzu azken batean harritu zirela, eta pixka bat urrutiagokoak? Ez dakit entzun diozun beste norbaiti komentarioren bat. Ez dakit, eskolako gurasoak, lankideak edo ez hain gertuko bakarren bat. Ez dakit.

A, beno, adibidez, lankideak bai. Beno, azkenean, oraindik egia esan emakumea eta kirolaren arteko lotura hori ez dago eta ni naiz segun ze lekutan “emakume kirolaria” eta ni ez naiz emakume kirolaria. Benetan, Uxue, ez naiz! Nik egiten dut pixka bat. Ba, beno, saiatzen naiz.

Igual egingo duzu batez besteakoak baino gehiago

Bai, baina, egia esan, ez naiz sentitzen. Bai izan dela kirola aitzakia bat nire zatia bilatzeko eta nahiago dut kirola egitea kafe bat hartu baino, zeren gero hobeto nago, ez? Orduan, jendeak ya “pala ere bai?”, ba, “beno, bale”. Ez dakit, esango dute, ba, beno beste gauza bat. Gainera, Zizurkildik ateratzen zara eta ez dakite zer den Zizurkil eta ikusten dute frontoia eta esaten dute “ba bai, zer egingo du ba? Zizurkilen? Ba palan jolastu”.

Ondo. Espazio sozialaz lehen hitz egin dugu. Esan duzu bilgune bat edo talde bat eduki duela zure zeran. Adibidez, taldekide berriak etorri direnean eta?

Ba, adibidez, kurioa izan zen. Etorri zirenean aurreko urtean bi lasartear, ba, hasieran, uf, ba nik uste kostatzen zitzaigula. Gainera, erdaldunak ziren eta niretzat pala ere, ba, beno, lotzen dut euskararekin eta orduan, ba, beno, pixka bat dinamika puskatu zuten, baina, egia esan, lortu zuten azkenean integratzea oso ondo eta oso ondo bukatu genuen urtea. Ba, beno, nik uste prozesu normala izan genuela. Egia esan, aurten esan zigutenean ez zutela jarraituko, ba, beno, niretzat sentimendua izan zen pixka bat alde biko: ba zer pena, baina zer ondo. Zeren nik pala bizi nahi dut euskaraz, lotuta daukat eta niretzat oso inportantea da. Ez dizut esango ez dudala nahi inor etortzea, baina, beno.

Eta gero tarteka azaltzen da halako eroren bat eta esaten du “ni etorri naiz ikerketa bat egitera”. Kar, kar, kar. Zeren zuentzat ere nire sarrera izango zen ...

Ni zutaz gogoratzen nintzen. Gogoratzen nintzen nola egon zinen topaketan eta nik uste nola ezagutzen zenuen ez genuela, zuk ezagutzen duzu dinamika eta ez nuen uste zuk puskatuko zenuenik dinamika hori. Niretzat oso aberasgarria da zu gure taldean ere egotea. Ez dakit da, ez dakit nola esan, beste ikuspegi bat. Eta, beno, azkenean esaten duzu “etortzen naiz hona jolastera”, eta zuk esaten duzuna, azkenean, betetzen dituzu helburu ezberdinak. Azkenean balbula bat da, batzuetan oso gaizki etortzen zara, etortzen zara hona eta joaten zaizkizu arazo guztiak eta segun zer egun daukazun helburu ezberdinak betetzen dituzu eta zuk, ez dakit, azkenean, ez dakit zer aztertuko duzun, baina gauza asko eta norbait bere denboratik, azkenean ez dakit zenbat pasako duzun, bi edo hiru urte horretan niretzat da “chapeau”. Esfortzu bat egiten dut, baina norbaitek horrela sentitzea pala eta, beno, pala, kirola, emakumea, ez dakit, hainbeste gauza daude, ba, polita iruditzen zait.

Estimatzen da. Niri bukatu zaizkit galderak. Egingo dizut azken galdera bat, ea zerbait galdetzea espero zenuen eta ez dizudan galdetu edo zerbait gelditu zaizun esateko.

Ez, zeren azkenean nire helburuak, nire harremana, nire gozamina palarekin, nire arazoak eta nire ibilbidea pixka bat komentatu dizut. Eta, beno, zer konturatzen zara? Ba, adinarekin, ba, zer gaitasuna daukazu gauza batzuk egiteko. Nik hogeitertekin ez nukeen hau egingo zeren nik hasieran gaizki pasa nuen, baina ia daukazu berrogei urte eta esaten duzu “ba zergatik ez?”, ba, lotsa edo erridikulu hori etxera eramaten duzu, baina buelta ematen diozu, zeren badaude beste gauza batzuk konpentsatzen dizutenak. Ba, beno, gaizki ari naiz pasatzen, baina zer talde, zer, etab. eta hogeitertekin esaten duzu “hemen uzten dut eta listo”. Gainera, ni hasi nintzen, aukera polita izan nuen, zeren urtarrilean hasi ginen zeren nik gauza bat hasten badut saiatzen naiz bukatzen eta igual urte osoa, ikasturte osoa, ikusita igual oso luzea izango zen. Gainera, esan nuen “bost-sei hilabete dira eta, beno, aguantatuko dut”. Gauza denek laguntzen dute, topaketak, etab. Gauza denek laguntzen dute, baina igual falta esatea, ba, hori, egun batzuetan gaizki pasatzen duzu eta denborarekin ikusten duzu zuk esaten duzuna “oraindik asko falta zait, baina ikasten duzu”. Nola ikasten duzun eta saio bat da bakarrik, ez? Eta, beno, hori ere adinarekin eskertzen da zeren oraindik gaitasuna daukazu, eta ez bakarrik buruan, gorputzean ere bai. Burua ere gero eta gutxiago, gehiago kostatzen zaigu gauzak ikastea, baina gorputza oraindik bizi dago eta ikasten duzu zeren batzuetan esaten duzu “beno, zuk ya adin horrekin egiten duzuna eta listo”. Beste zera bat, ez dakit nola esan, erronka bat. Niretzat erronka puntua izan du.

Ondo. Ba eskerrak eman. Gustura egon naiz, estimatuta dago eta tramankulua itzali egingo dut.

Berdin, oso ondo.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Eli

EmP egunean deitezekotan geratu banintzen ere ahaztuxea neukan nik hitzordu hau eta eskerrak berak idatzi zidan asmorik ba ote nuen galdetuz. Prestutasun erabatekoa agertu eta saio ondoren egiteko aukera eman dit, beste egun batean Zizurkilera agertu beharrik izan ez nezan.

1. elkarrizketan (2012-06-12, 21:00)

- Puntual asko agertu da pilotalekura eta saioa amaitu arte zain egon ere bai.
- Nahiko lasai ikusi dut hasi aurretik eta bitartean ere bai, konfiantza ematen saiatu naiz eta lasai-lasai aritu gara solasean parkeko banku batean, berak leku hura hobetsita.
- Elkarrizketan zehar barruan zerbait mugitu ote zaion iruditu zait uneren batean ikastaroak beretzat duen funtzioa eta nolako bizipen eta sentipenak eragiten dizkion azaltzean, begietan diz-diz berezia ote zuen.
- Amaitu dugunean hizketan jarraitu dugu beste ordu laurdenean-edo. Berak zenbait gauza interesgarri esan dizkit tartean:

- asko eskertzen duela jendea zertan dabilen, nongoa den, zertan lan egiten duen eta halakoak aintzat hartu gabe talde batean elkartu ahal izatea, elkartzeko gune bilakatuz paleta eta gainerakoei begiratu ere egin gabe
- pertsona batek bere denbora lan honi eskaintzea eskertzen duela adierazi dit, nik estimatuz

Elkarrizketa data: 2012-06-27
Lekua eta ordua: Kirol Etxea (Donostia), 16:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Saioa
Adina: 24 urte
Jaioterria: Baliarrain
Bizilekua: Alegia

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: Gorputz Heziketako Magisteritzan Diplomatua
Lanbidea: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko teknikaria, Emakumea Pilotari egitasmoko teknikaria

Orain kirolera pasako gara. Zu akordatzen zara noiztik daukazun interesa kirola egiteko edo jarduera fisikoa egiteko?

Gogoratzen naizen egunetik. 5 urtetik.

5 urte baino lehenago ez zara ezertaz gogoratzen?

Asko gehiago ere ez. Beti egin izan dut, beti pilotan eta futbolean beti, eta bizikleta. Nik uste hiru kirol horiek izan direla. Bai.

Eta, zer kirol egin izan dituzu, hiru horiek? Esan duzu batzuk federatuta, besteak ez, besteak eskolartekoan, ... nola egin izan dituzu?

Futbolean eskolartekoan egon naiz eta pilota eskolartekoan eta federatuan eta bizikleta nire kabuz.

Eta, zein adinetan-edo? Futbolean noiz arte?

Futbolean zortzi urtetik hamalau urtera arte eta pilotan zortzi urtetik hamabi-hamahiru bat urtera arte, 2.DBHra arte, azkeneko infantil bigarren mailara arte eskuz eta gero ya utzi egin nuen eta 21ekin federatuetan.

Eta, nola bueltatu zinen? Nondik iritsi zinen berriz?

Nola? Kar, kar! Nik nahi nuelako ez, e.

Ez zenuen nahi eta iritsi egin zinen?

Ez nuen nahi eta iritsi egin nintzen, bai. Ez, ez, egiatan, e. Ni beti ibili naiz udaran eta frontenisean. Frontoiarekin beti eduki dut lotura, baina nire lagun bat, beti ibiltzen garena, haren lehengusu bat hasi behar zela palan, Eiderrekin, eta nire lagun hau ere “ba, ni ere bai” eta “joe, ba zu apuntatzen bazara nik egin beharko dut, ez?” eta, azkenean, ni ere bai eta nik segitzen dut eta beste biek ez dute segitzen.

Esan duzu, adibidez, hamahirutik hogeita baterako tarte, zortzi urtekoa. Hor tarte horretan zuk zure kabuz segitzen zenuen, ezta?

Bai, bai. Nik bai negu partean askoz zailagoa zela, baina udara guztia frontoian pasatzen genuen, frontenisean jolasten. Pala bai izan zela orduan. Nik uste psikologikoa zela, salto hori, ni ia pala hartu ere egin gabe, orduan beti erraketarekin 21 urtera arte.

Eta, ordutik erraketa utzi eta beti palarekin?

Ba bai. Lehengoan jolastu genuen txapelketatxo bat koadrilan eta esan nien “igual lau urte erraketa hartu gabe”, bai.

Ondo, ondo. Esan duzu pixka bat nola iritsi zinen nesken pilota mundura. Zuk nolako osasuna ikusten diozu nesken pilota munduari?

Uf, osasuna?

Bai, zure iritzia. Nola ikusten duzu?

Ona. Beno, ona. Niri beldur handiena ematen dit daudela oso onak eta oso on horiek direla ia nahiko helduak eta gazteak badatozela, bagaudela, baina ez dakit. Ona eta ez hain ona, erdi pareko zera bat.

Hori federatuetan?

Bai, ni federatuetan ari naiz.

Eta, adibidez, besteetan?

Besteetan? Emakumeetan, beno, bai, emakumeetan dagoen bitartean nik uste dut beti egongo direla emakumeak eta gustatzen bazaie eta zera inongo arazorik ez da egongo. Beti egongo dira herri batzuk, ba, gorabeherak edukiko dituztenak, baina beste batzuk beti egongo direnak. Eta neska pilotariekin NPEen inguruan ere bai, edo zer?

Nahi duzun bezala, orokorrean ere bai, e. Igual joan zara herri batera eta ikusi dituzu lau neska euren kabuz jokatzeko. Horiek ere neska pilotariak kontsideratzen ditut nik.

Bai. Nik uste dut jendea bere kabuz ere dezente ibiltzen dela eta ez dakigula. Hori ere nik uste dut baietz, beti ibiltzen dela jendea. Gero egia da palan igual ezetz, ba, frontenisean, baina frontoian, bai, eta herriko txapelketak egiten dira eta neskak apuntatzen dira eta badabiltza. Orain, lehen beti fronteniseko txapelketak mutilenak ziren, baina orain ya neskenak ere badaude. Ikusten da.

Nik osasun txarra ez. Federatuetan, ba, horixe, galdera ikur bat jarriko nuke, ba, ez dakit, baina, beno, osasunez ondo dago. Badago jendea eta egoteko guk lana egiteko.

Hori behar da, e! Ondo. Esan duzu lehen fronteniseko txapelketetan mutilak bakarrik zirela eta orain neskak ere baietz. Zuk sentitu al duzu pilotan zabilzanean gizonen eremuan zabilzala?

Niri esan didate aurpegira “hau mutila izan bazen ona aterako zen”. Honbre, zeren beti mutilen tartean ibili naiz eskuz. Gero ya palan ia sartu nintzen proiektu batean eta nesken artean, baina eskuz nenbirela beti sentitu izan dut ez dela nire kirola, niretzat egindako kirol bat.

Asko aditu duzu hori?

Bai. Ni ona izango naiz, “neska zara, ondo moldatuko zara, baina, uf, alferrik zabilta, alferrik zabilta! Bai, bai, ona zara eta denek egingo dizute oooh”, baina iritsiko da egun bat ez dudana jolastuko ez neskekin eta ez mutilen eta ez inorekin ere.

Hori ari zara eskuz zenbiltzan garaiaz.

Bai.

Eta orain, adibidez?

Palan? Uf! Orain ez dut sentitu mutilen mundu batean nagoela. Sentitu? Nik neskak dauzkat, neskak dauzkat jolasten. Bai igual orain sentitzen dena dela “neskek ez duzue hain ondo jolasten. Bazaudete, baina, beno, motelagoak zarete, zeragoak zarete, ... Zuen txapelketak daukazue bai, baina beste maila batean”. Beti daude mutil gehiago, baina edozein kirolean daude mutil gehiago.

Gimnastika erritmikoan ez.

A, hor ez! Hori denei esan diezu?

Ez, oraintxe akordatu zait, kar, kar!

Arraroa egiten da mutil bat gimnastika erritmikoa egiten ikustea, hori ere horrela da.

Ondo, ondo, oso ondo. Orain nola entrenatzaileena den bereziki galdeketa hau, zu noiz hasi zinen bereziki entrenatzaile lanetan? Akordatzen zara? Pilotan entrenatzaile lanetan.

Balio du nire lehenengo soldatak entrenatzaile moduan?

Bai, eta soldatarik gabea bazen ere bai. Adibidez, aurrez eskola kirolean bakarren bat entrenatzen aritu baldin bazinen igual-igual balio dit.

Bai, hamalau-hamabost urterekin, 3.DBHn, hasi nintzen Alegiako pilota eskolan eskolarteko monitore bezala. Bai eta hor egongo nintzen bi urte edo horrela. Bi urte edo horrela egongo nintzen pilota ematen.

Zer entrenatzen zenituen astean behin?

Astean behin ordubete. Bai.

Gero utzi egin zenion eta berriaz bueltatu zinen. Akordatzen zara zergatik hasi zinen? Jende behar zen, ez zen, ...

Ba, ez. Gu beti pilotan eta 3.DBHn ikusten denez edade horretatik aurrera hartzen zituzten monitoreak eta esan egin zigun gimnasiako irakasleak “nahi duzue zera?” eta “bale”.

Zer asmorekin hasi zinen garai hartan?

A, beno, ekonomikoa dudarik gabe. Azkenean zen “ni joango naiz, nik dakidana erakutsiko diet, baina”. 14 urterekin hilaren bukaeran ez dakit 20€ ziren, baina oso ondo etortzen ziren.

Eta, gaur egun? Noiz hasi zinen ofizialki?

Ofizialki hasi nintzen orain dela urtebete, urte eta erdi, bi urte egitera. E, 2010-2011n, bai.

Hori federazioan, baina aurretik, adibidez, Anoetan bazenbiltzan umeekin.

A, bai, umeekin bai. Umeekin orain dela, uf, hiru urte. Hemen hasi baino urtebete lehenago, 2009-2010 denboraldian, Anoetan. Gure klubak pilota eskolaren ardura hartu zuen eta ni monitorea bezala hasi nintzen, eskuz eta mutilekin. Alegian bereziak egin genituen neskak apuntatzeko, e, eman genien aukeran palan edo ez, baina, “ni para Dios” eta okerrena da jendea dagoela, neskak eta ondo jokatuko luketenak, gainera, baina, ezin, ezin.

Eta, zer asmo daukazu? Zer asmo eta intentziorekin joaten zara entrenamenduetara?

Nesketan eta gazteetan nahi dut ikastea, bai? Beraiek ikastea teknikoki eta gehiago fijasen naiz hankak, eskuak, ... eta emakumeekin nahi dut ondo pasatzea. Nik bai emango dizkiet aholkuak “ba, horrela jarriko bazina hobeto joko zenuke, mugitu”, gauzak esan bai, baina, begira jolastu eta ondo pasa. Ez aspertu. Etorri hona ordubete edo ordu eta erdi, izerdia bota eta zu ondo sentitzea. Ez dakit. Igual ez nuke horrela egin beharko, baina. Iruditzen zait etortzen direnean ikastarora, bai, batzuei igual gehiago gustatuko litzaieke esatea “horrela edo ez dakit zer”, baina iruditzen zait hain talde heterogeneoak eta denak ezberdinak dira, uf. Batzuk badakit, badakit ondo jolasten duten batzuei ez diedala igual gehiago esaten, zerbait gehiago esan beharko niekeela, baina ahal dudan ondoen egiten saiatzen naiz.

Horren dudarik ez daukat nik. Eta, non ari zara entrenatzaile lanetan momentu honetan? Emakumeekin, adibidez.

Emakumeekin Hernanin bi saio egiten ditut, Ibarra, Tolosan, Villabonan, Zizurkilen eta horiek uste dut. Horiek emakumeekin eta gero neskekin Bidanian, Ataunen eta Lasarten eta aparte, ba, Anoetako Pilota Eskolan.

Horiekin denekin daukazu astean saio bat?

Bai, baina, beno, Anoetako Pilota Eskolan azkenean, uf, talde bakarra daukagu ia, benjaminena eta aurre-benjaminena, bederatzi ume eta hortxe. Baina ez, nik uste dut Anoetako Pilota Eskolaren goraldia pasa zela. Bai, ez dago.

Gustura al zabilta entrenatzaile lanetan? Zu nola sentitzen zara?

Gustura, ederra, ederki. Ondo emakumeekin. Niri errazagoa egiten zait eta uste dut, ez dakit, askoz hobeto. Neskekin gehiago kostatzen da, euren adina eta, uf! Gogo askotan denbora pasatzera etortzen dira eta zuk egun txarrak daukazu eta “aizu”, ez dira, ordubete askotan bi ordu baino luzeagoa egiten da. Baina, beno, gustura, egia esan. Gustura joaten naiz eta ondo pasatzen dut. Ikasten dut. Urtetik urtera ikasten noala badakit, konturatzen naiz eta urtero beti izaten da “aurten hau horrela, lehengo urtean hau gaizki, ba, orain hau horrela eta horrela egin behar dugu”. Gero, askotan, erdian ahaztu ere egiten da, baina beno, konturatzen naiz, behintzat, zerbait ikasten banoala.

Ikasten duzun sentazioa behintzat baduzu eta pozik zabiltzanarena ere ematen bai.

Bai, bai, bai, dudarik gabe. Bai, bai, bai.

Beste sentaziorik badaukazu? Adibidez, zer egiten zaizu errazena eta zerk arduratzen zaitu gehiago?

Ez, ondo. Ba, arduratzen nauena da nire klaseetan jendea aspertzea eta hori da min handiena emango lidakeena, esatea “zer aspergarriak, ez dugu ezer egiten”. Neskekin sentazioa ez dutela aurreratzen, nahi duzu eta ez dute aurreratzen, ezetz! Nahi duzu aurreratu, pilotak aldatu eta ezin dut, ezina, inpotentzia hori. Gainera etorri eta “guk hau nahi dugu” eta “bai, baina egingo al duzue aurretik hau?”. Finalera iritsi eta “zer nahi duzue finalera iritsita? Errebotez iritsi zarete eta orain zer nahi duzue, finalean izugarri ondo jolastea? Ez, imposiblea da!”

Etxeko lanak aurretik egin behar dira, ezta?

Noski!

Hori askotan pasa zaizu?

E, bai, beno. Uf, batzuetan kristoren gogoia, besteetan ez, segun partiduak badira, ba, beno, ikusten badute “irabazi egin dugu, gaur zera” eta hurrena, berriz, “gaur nekatuta gaude”. Beraiek ere nik uste askotan daudela nekatuta. Niretzat, ez dakit, bokazio falta, dabilzala ibiltzeagatik, zerbait egiteagatik.

Hori gazteen kasuan, baina gazte denen kasuan?

Ez, ez, gazte denen kasuan ez. Batzuen kasuan bakarrik. Beste batzuk oso gustura etortzen dira, ondo pasatzen dute eta ondo.

Eta, arazorik izan al duzu?

Ez, zer, nabarmentzeko? Ez.

Hor entrenamendu sare horietan.

Builaren bat edo beste hor neskekin, emakumeekin ez, oso gutxi, igual gehiago atera beharko nituzke, ez dakit, baina beldurra eta dena ematen dit ateratzeak. Ez, ez zait ateratzen buila egitea, e. Sentsazio hori ez zait ateratzen, “nik nola egingo dizut buila?” Neskekin bai, builaren bat edo beste horrela bai eta gorabeherak beti, kasu ez dizutelako egiten eta lekuren batean, gainera, igual hiru bat saio kasik ezer ere egin gabe pasa dira beraiengatik.

Ezagutzen dut leku hori.

Bai, ezta? Nahi duzula eta zigortu eta, gainera, “haizea hortik doala, badoala bai”, baina ez. Arazo gehienak frontoi edo instalazioekin.

Bai, hor eduki dituzu? Kontatu, interesantea da.

Bai, herriren batean. Kontatu egingo al dut? Zizurkilen frontoiko orduak eta kendu egin nahi dizkigute.

Badakizue zertan den?

Gaur e-mail bat iritsi da, uztailaren 4an, zortzietan, bilera eta ea. Hitz egin dugu Eiderrekin-eta eta aurrena kultur teknikariarekin hitz egingo dugula eta ikusiko dugu. Arazoa da frontoi ordua zintzilik dagoela eta lehenengoak garela edozein arazoren aurrean frontoi orduak kentzeko. “Frontoia behar da? A, beno, emakumeak kenduko ditugu” eta hori horrela da. Pena bat da, zeren udaletxeak babeska eman digu, bertako klubaren aurrean irabazi egin dugu, esan digute “hauek hor daude eta ez dituzue kenduko” eta orain udaletxea bera dator esanez “beno, Realak badator eta joan egin beharko duzue”. Joe, nola?! Gauza batzuk zentzurik gabekoak.

Zizurkilgo arazoa kontatu duzu. Ez dakizue nola geratuko den. Besteren bat?

Ez dakigu, ea zer esaten duten bileran. Ideiarik ere ez.

Zizurkilen pare bat klase suspenditu zirela aurrean badakit.

Bai, hori ere bai. Bat hezetasuna zela-eta eta bestean elkartekoak deitu zuen, arratsaldeko seietan edo zazpitan “ez etorri, alferrik zatozte zeren partiduak daude” eta “a, bale”. Nik orduan igual gaizki egin nuen, egin behar nuen “beno, bale, ba joan egingo gara”. Uf. Momentu horretan zer egin nuen? “A, bale, zer nahi duzu esatea? Bale”. Uf, ez dakit.

Beno, gorabehera batzuk behintzat bai entrenatzaile zabilzanetik.

Bai, bai, bai.

Oso ondo. Orain botako gara biok igerilekura elkarrekin. Ez dakit urik egongo den ala ez. Gaizki ateratzen bada galderak egingo dizkizut zuzenago. Nik planteatuko dizut egoera bat: zu zabilza emakumea, pilota eta formazio edo entrenamenduaren inguruan. Zer kontatuko zenidake? Bada, adibidez, saioen inguruan, nahi duzuna eta nahi duzun lekutik hasita.

Hau zer da, gaia bertsoarako? Nahi duzun neurri eta doinuetan. Uf!

Entrenamendu motaz, saio motaz, antolaketaz, ... nahi duzunaz. Eta proba egingo dugu eta gaizki irteten bada, lasai, ez dago problemarik, galderak ekarri ditut bada ez bada ere, baina atzo zuzendariarekin gogoeta bat eduki eta gero onartuko dizut erabaki genuela konfiantza bazegoela eta horrelako proba bat egiteko elkarrizketa hauek balio zezaketela. Barkatuko didazu arratoitxo bezala erabiltzea.

Nik galdetuko banizu emakumea, pilota eta formazio edo entrenamenduaren inguruan, zure entrenatzaile ikuspegi horretatik, zer kontatuko zenidake?

(Isilune luze samarra). Beno, ez dakit. Nik hor beti jarriko nituzke bi zati. Ni federatuez ez naiz arduratzen, ni federatu bat naiz, baina nahiko urruti geratzen zaidan, urruti ez, baina, beno, ez dut gehiegi kontrolatzen. Orduan, emakumeak eta neskak. Azkenean inportanteenak neskak dira zeren hori da geroa. Guri komeni zaigu proiektua eta aurrerapena eta jendea dator eta askotan sentsazioa da “bai, bai, alebinak daude hamabost, infantilak bost, kadeteak bi eta federatuta igual bat edo bat ere ez”. Igual Ataunen kasuan, ez dakit zenbat denboran dagoen proiektua, denetatik egon da eta orain ez dago federaturik. Egon ziren, e.

Bai, urte batzuk egin zituzten, bi edo hiru egingo zituzten. Ni tokatu nintzen parean.

Bai, ezta? Ni ez naiz egon Ataungo federatuekin. Igual Agurtzane ibili zen, ba, bat. Egoten zara ez dakit zenbat urte eta azkenean federatu bat.

Gero, emakumeekin, ez dakit, hobetzen dute emakumeek, ikusten da, eta behin baino gehiagotan esan dugu, txarra zenaren hobekuntza askoz gehiago ikusten da ona zenarena baino. Hori. Bai, denei begiratu nahi diezu, baina. Niri askotan igual Hernanin Ainara eta badakit zortzi klasetatik igual bitan bakarrik esan diodala eta badakit Zuriñeri, Rakeli edo besteren bati esango diodala zortzitatik zazpitan. Hor, ez dakit, gure papera, uf, ez da erraza. Aurten, adibidez, hasi da bat proba egiteko ez zekiena, ez zekien, zero, eta berak bakarrik ez zuen nahi, baina taldean jartzen bazenuen ezinezkoa zen jolastea, ez zuen berak jolasten eta ezta taldeak ere jolasten, eta hori lau bakarrik ginela. Berak bere aldetik ere “bai, bai”, baina ez zuen nahi erraztasunik ematea, ez zuen nahi kasik umeez bezala zerotik hastea, eta ez du jarraitu. Hori nik hartu behar nuen eta nik esan behar nion etorri eta hori nire lana ere bada. Askotan zer erraz “zuk palan jolasten badakizu, ba, etorri, ezkerreko hanka aurreratu eta hori horrela egiten baduzu”, baina jotzen dio eta listo, erraz. Horrelako kasuetan bai planteatzen duzula, “ostia, honek ikasi egin beharko luke ba”, ezta? Eta zu, uf, larri.

Gehiago ez dakit zer esan.

Bale, lasai, galderak egingo ditugu, Ez dago problemarik. Nolako saioak egiten dituzue? Beroketarekin hasten zarete?

Bai, emakumeekin beti beroketa batekin hasten gara, normalean, ni saiatzen naiz denek egiten beroketa. Igual ez da oso zera, behar den bezalakoa, baina, beno. Beroketa bat, gero segun, urte hasieran beti ilarako ariketak-eta gehiago egiten dira eta ia bukaera alderako zonaka. Nire saioak nahiko, ez dakit askotan, nahiko antzekoak, beti antzekoak dira. Guneak eta beti joko-egoera ezberdinak. Askotan jartzen dituzu guneak eta zera eta nik nahi dut horrela egin, helburu batekin, ez? Eta beraiek askotan da “ba, jolastea” eta

“benga, jarri horrela”, baina. Beraientzat askotan igual da “hemen lasai, gune txikia da, ezin dugu ezer handirik egin”. Batzuk bai, e, batzuk izerdituko dute, baina beste batzuk ez.

Ondo, eta zer irizpiderekin erabakitzen duzu zuk? Adibidez, ia saio denetan Txokotan egiten da. Ez naiz ari esaten ez ondo eta ez gaizki, egoera bat planteatzen ari naiz. Zein irizpiderekin erabakitzen duzu “gaur partiduak egingo ditut binaka edo gaur partiduak egingo ditut banaka edo gaur hiru etorri zaizkit eta ni jarriko naiz”. Egoera horiek denak saioetan bizi dituzu.

Txokotakoa askotan bukaeran egiten da, baina iruditzen zait erdian, gainera, binaka-eta, dela jolas bat polita, berotzeko balio duena eta niri ikaragarri gustatzen zait. Nabaritzen da asko gustatzen zaidala, ezta? Komodin ona dela iruditzen zait. Gero, ba, partiduetarako edo ia marrak jarrita Txokotan, ba, “begira zer dagoen hor” eta gero partidu egoeretarako balio izateko.

Beldur pixka bat ematen dizu zuri bikoteak osatzeak. Zergatik?

Niri kristorena. Ba beldurra ematen dit zeren iruditzen zait, ez dakit, jarriko banitu bi ez hain onak eta bi onak gero partidu egoeretan desoreka handia dagoela. Gero ematen dit beldurra beti bikote berdina egiteko, zeren saioen batean edo, ez txarrera, inork ez dit txarrean esan, baina baten batek esan dit “gu beti batera gara”. Inkontziente egiten dut, ez dut kontzienteki egiten eta orduan, ba, beno, joe. Bai batzuetan nik egingo ditut, baina besteetan Txokotan eta ateratzen den bezala horrela osatzen ditut eta listo. Lasaiago sentitzen naiz, ardura gutxiagorekin. Badakit nik agintzen dudala eta hori dena, baina besteak gustura egotea ere gustatzen zait eta orduan horrela inork ezer ere ezin du esan eta listo. Ez dakit.

Ondo. Esan duzu saioen helburuetan kurtso hasieran gehiago egiten duzula ilaran, ariketa analitikoagoak. Hori antolatzen duzue? Zooma urrundua eta ikasturte osoa ikusten duzu lehenengo?

Bai, bai, hori bai. Nik bai. Bai eta hasieran ilarak, kolpe ezberdinak, gero espazio helburuak hasten naiz, hirugarrenera ez dakit iritsi naizen, ez dakit noraino iritsi naizen, eta gero saiatzen naiz beste saioetan ba nahasten. Beste batzuetan saio normalak egiten ditut zeren askotan iruditzen zait emakumeek beraiek hainbeste marra eta ez dakit zer estresatu egiten direla eta “beno, begira, lasai jolastu eta kito”.

Adibidez, neskekin, antzekoak dira saioak?

Nahiko antzekoak dira saioak, baina igual ariketetan esplikazio gehiago. Nik diferentzia gehiena hori, neskekin hitz egiten denbora gehiago neskekin. Beno, emakumeekin hitz egiten denbora pasatzen dugu, kar, kar, baina igual ez dugu hitz egiten pilotaz. Baina neskekin bai denbora gehiago esplikatzeko ariketak eta “hau zergatik egiten duzu gaizki, horregatik, horregatik” eta zuzenketak-eta askoz gehiago.

Adibidez, saio batzuk egoten dira kurtso bukaera aldera banaka partiduak jolasten dituztenak. Pasatzen dute saio guztia aurrean partidu bat jokatzeko atzean kabitu ezinda.

Bai.

Hori egiten duzue Emakumea Pilotari egunerako bikotea osatzeko?

Bai, gainera denbora asko behar izan genuen. Ni hasi nintzen martxoaren bukaeran eta maiatzaren erdiraino segi genuen, bat etortzen zela eta bestea ez zela etortzen.

Adibidez, orain esan duzu “bat etortzen zela eta bestea ez zela etortzen”. Zuk badakizu saiora joaterako “gaur etorriko zaizkit bost” eta “gaur zortzi” edo ahal den bezala?

Nik daukat alderdi ona aurreneko klasea Hernanin dudala eta normalean sei beti etortzen dira. Orduan, beti prestatzen ditut hiru gune eta gune bat kentzen dut edo ez. Gehienetan. Batzuetan astelehenak ere ikaragarriak edukitzen ditut eta joan izan naiz inprobisatzera, ez dut gezurrik esango. Normalean nik argi daukat hiru gune horiek egongo direla, beraz, nik hiru gune horiekin aste guztia pasatzen dut. Badakit astearte arratsaldeetan hiru etorriko direla, orduan, aurreko gunean igual nahasten ditut edo segun zer marra diren bi gune egin ditzaket aurrean. Aurrekoa eta atzeko gunea nahastu, ez dakit, baina beti saio berdinak dira.

Eta, neskenetan ere guneak egiten dituzu? Egitura antzekoa da saio denena?

Bai, bai, egitura kasik bai, berdina. Bai, beroketa, zati nagusi bat eta gero luzaketak. Bai.

Esan duzu, adibidez, askotan emakumeak estresatu egiten direla “marra bat dago hor, eman behar diot ezkerrez eta hankapetik” eta mundua etortzen zaie gainera bat-batean. Saiatzen zara beraien beharretara edo nahietara edo gogora egokitzen?

Bai, bai.

Herri ezberdinetan talde ezberdinak daukazazu. Antzekoak dira, baina igual edukiko du bakoitzak bere ezaugarria. Nola egiten duzu?

Bai, eta bere zera. Ba, ez dakit. Adibidez, Tolosan beti bukaeran Txokotan. Nik badakit zeren beraiek nahi dute. Orduan, hogeita hamar klasetatik hogeita bost Txokotan bukatu ditugu eta beste herrietan, ba, hogeita hamar klasetatik hamabost, gutxi gorabehera, ez? Beraiek ba, beno, erdi parean ere bai, berotzeko ez zaie gaizki etortzen, baina bukaeran azkenean beti “Saioa eta hogeia dira” eta esanez bezala “Txokotan jolastu behar dugu, ezta?” Uf, ez dakit, baina bestela nahiko antzekoak dira, e.

Iruditzen zaizu behar antzekoak dauzkatela talde guztietako emakumeek.

Bai. Beno, ez dakit, ez dut ikusten inor kexatu zaidanik. Batzuei ariketa batzuk gehiago gustatzen zaizkie beste batzuei baino, leku batean ariketa hau ondo ateratzen da eta bestean ez. Hori pasa zait “hau gaur Hernanin oso ondo egin dute” eta hasi Ibarran egiten eta “uf! Joe, nola? Ba egin bi kolperekin” eta “ez, niri jarri behar didazu txapa ukitu eta puntu bat ematen duzula” eta “beno, hori hurrengo batean egingo dugu”.

Eskatzen dizute tarteka, orduan.

Bai, bai eta partiduak eta “egingo dugu hiru hiruren aurka?” eta “bale, gero egingo dugu edo bale, nik ez daukat inongo arazorik”.

Ekarpenak egiten dizkizute orduan.

Eta ondo. Azkenean beraiek ere, ni konturatzen naiz beraiek nahikoa denbora badaramatela eta beraiek badakitela zer egiten duten gaizki edo “atzerago egon behar nuen edo hemen jo dut” eta “bai, bai”. Ari dira mejoratzen.

Ondo, orain bueltatu egingo naiz. Lehen esan didazu mutilak entrenatu zenituela bere garaian Alegian.

Alegian neskekin, e. Alegiako Pilota Eskolan neskak.

A, neskak ziren. Barkatu. Mutilak entrenatzen dituzu, adibidez, Anoetan. Entrenatuko zenituzke mutilak neskak entrenatzen dituzun bezala?

Honbre, ez dut inoiz planteatu mutilak entrenatzea.

Aukera emango balizute?

Palan? Eskuz?

Berdin zait erraketan bada ere.

Uf, ez dakit, ez dakit hartuko nukeen. Akojonatu egiten nau, akojonatu egiten nau. Badakizu zergatik akojonatzen nauen? Ni egon naizelako hamabost urteko neskekin eta beraiek etortzen dira klasera eta bai, ondo, baina nik ikusi ditut hamabost urtekoak ia federatuta daudenak eta horiek ia oso serioak dira eta nik ez dakit nola, ez dakit.

Eta hamabostekoen partez izango balira hamarrekoak?

Hamarrekoak dudarik gabe, badauzkat.

Eta, hogeikoak?

E, uf!

Edadeak beldurtzen zaitu?

Bai, eta igual ez luke behar, e, baina ni 1,80ko mutil bati esaten, ba, ez dakit, beldurtzen nau, mutilek beldurtzen naute.

Eta aisialdiko gizonak egongo balira emakumeen taldeak bezala? Horra bai?

Ba, ez dakit, akojonatu egiten naute. Ez dakit, nik 50 urteko emakumeekin pilotaz aparte tratatu bat edukitzea askoz errazagoa daukat gizonetzko batekin baino. Hitz egitea, berdin zait denda batean bagaude ere, denda batean zure ondoan emakume bat badago lehenago esango diozu zerbait gizon bat baldin badago baino.

Gertuagokoa zaizu.

Bai, askoz, eta ez dakit, e, baina ez dut uste bizitzan edukiko dudarik aukerarik aisialdiko klase bat gizon bati emateko. Gertatu liteke, e, eta gertatzen bada beste esperientzia bat izango da eta nik ahal dudan ondoen egingo dut, e, baina ez zait iruditzen. Gehienbat mutilen kirola delako, ez?

Izan liteke. Ondo, ondo. Lehen hitz egin dugu zuk neska eta emakumeei zer ezberdintasun ikusten dizkiezun talde, helburu, jarrera, maila, motibazio eta abarretan. Emakumeen artean ere esan duzu taldeen artean badagoela aldea, esan nahi dut herri batzuetan igual maila altuxeagoa dela beste batzuetan baino. Ondo, moldatzen zara.

Bai, ni bai, ni gustura joaten naiz.

Adibidez, beste entrenatzaileek eta zuk berdin entrenatzen duzue? Esan nahi dut zuk Tolosan eta hauetako batek, e, Donostian, ez dakit.

Egia esanda ez dakit. Nik dakizkit nire saioak eta nik badakit nik eta Lidek antzeko saioak edo behintzat ariketak egingo ditugula, zeren liburu bat daukagu eta nik ariketen %80 hortik hartzen ditut eta beste %20a ilarako ariketak dira.

Entrenatzaileen gida edo hortik ari zara?

Nik, uf, bai, egindako ariketa guztiak dauzkat kasik. Baten bat igual asmatu dut edo zerbait egin dut, baina oinarria beti hor.

Entrenamenduak antolatzeke oinarria da gida hori?

Bai, nik beti erabiltzen dut. Alaznek ez dakit, eta pentsatzen dut baietz, baina Lidek eta nik bai. Gero saioak ziur direla bionak zeharo ezberdinak, seguru nago.

Zergatik iruditzen zaizu?

Ez dakit. Diferenteak garelako, ez dakit. Ez dakit, e, ez dut uste, igual Lide ez dut imajinatzen ni bezainbeste egongo denik umeekin ilarako ariketak egiten eta bai joko pila bat. Nik, adibidez, jokoak oso gutxi egiten ditut, berotzeko bat eta besteren bat igual, baina normalean ba hori, ilarako ariketak, gero guneak eta joko egoerak. Baina, beno, ez dakit gero berak zer egingo duen. Ezin dut ezer ere esan.

Ez duzue antolaketa bateratzen? Bakoitzak egiten duzu zuena. Horretarako askatasuna daukazue, adibidez.

Gainera, askotan, klaseak ematen ari garenean, e, oso gutxi kointziditzen dugu, ordutegiagatik eta horrela.

Ondo, oso ondo. Esan duzu, eta horri heldu nahi nioke, niretzako inportantea da, ez dakit zuentzako hala den, orain jakingo dugu. Zuk tratu errazagoa izango omen zenuke 50 urteko emakume batekin 50eko gizon batekin baino. Zuri iruditzen zaizu, lehenengo emakumeeekin hasiko gara besteak beste ni hor ibili naizelako, emakumeen taldeetan

azkenean nolako harremanak dauzkazula beraiekin? Esan duzu hitz egiten duzula igual pilota ez den beste gai batzuen inguruan. Nola moldatzen zarete?

Bai. Ederki! Oso ondo! Niretzat oso ondo, eduki litekeen erlaziorik onena, bai, bai. Ez daukat ezer txarririk esateko. Ondo, da, uf, pasada bat.

Zer da berezia?

Bai, ez dakit. Sentsazioa da beraiek ezagutzen zaituztela, ez dakit. Uf! Aldarean ez, baina iruditzen zaiela pila bat dakizula eta “nik badakit, e, baina horrenbeste ez”.

Lotsatu egiten zara?

Lotsatu? Ez dakit. Batzuentzat, e. Beste batzuentzat naiz monitora bat eta erlazioa oso ondo eta bale.

Harreman ezberdinak daukazu. Batzuekin igual frontoitik kanpo nolabait manten dezakezu harreman bat.

Bai, bai. Bai, bai.

Beste batzuekin ez.

Ni denekin egongo nintzateke kanpoan eta ez daukat inongo arazorik, baina bai batzuk direla “beno, ni saio honetara etortzen naiz, zurekin oso ondo, dena ondo, baina beno, listo” eta beste batzuk ba gehiago. Ez dakit, beraien izateko era ere bada.

Adibidez, talde denetan izan dituzu kurtso bukaerako afariak.

Bai, denekin eduki dut afaria.

Ez dakit espazio sozial bat edo harreman sare bat ikusten duzun saioetan, zuri iruditzen zaizun beraien artean ere giroa badagoela. Ez dakit, adibidez, nesken saioetan harreman mota hori ikusten duzu? Igual batzuetan bai eta besteetan ez.

Bai, batzuetan bai, batzuetan bai. Batzuetan ondo eta besteetan zu zara beraien monitora eta aio, jaja egingo dizute eta segi eta listo. Batzuetan bai, baina umeekin gehienbat bai gehiago zarela irakaslea. Bai, merendola egingo dugu, baina, ez dakit. Tratu diferentea da.

Eta, nolakoa da? Hori jakin nahi dut nik. Niretzako oso berezi da, nik onartuko dizut niretzako oso berezia dela, onerako.

Bai, bai, berezia. Ez dakit, ez dakit. Bai, berezia izango da, bai. Batzuetan ama bezala, e.

Nik ahizparen bat edo beste badaukat, kar, kar.

Bai, ez dakit, igual Tolosakoak, gainera, dira edadean gora bezala eta uf! Emozionatu eta dena egingo naiz.

Ba emozionatu, ez da txarra!

Ez, ez, ez. Ez, ez. Berezia bai, e, baina ez dakit esplikatzen, ez dakit. Egon dira, ba, aurten Hernanin Irati eta Joana etorri dira, Rakel izugarri ondo integratu da, lehengoan afarian kristoren barreak eta euskaraz ez daki, baina ondo. Joana ez da integratu.

Hori ere ikusiko duzu, beraiek jende berria datorrenean zer jarrera daukaten.

Bai, bai, bai, bai, ikusten dut eta batzuk ba oso ondo.

Nik uste, ez dakit horrela esan litekeen. Adibidez, zu lehenengo saiora zoazenean bat-batean, zu han azaldu zinen Zizurkilgo frontoian.

Bilera egiten, ya. Jo, ba ez naiz gogoratzen egia esatea nahi baduzu.

Berdin zait, kurtsoa hasiko da eta hemendik hiru-lau hilabetera berriz ere Saioa han Hernaniko frontoian. Tratua nolako izango litzateke? Esango balizute zuri “datorren urtean Hernanin eta Zizurkilen ez duzu emango. Horien partez emango duzu Arrasaten eta Azpeitian”. Graziarik egingo lizuke?

Kristoren putada iruditzen zait.

Eta, zergatik? Hor badago zer edo zer lotzen zaituena neurri batean.

Bai, joe, azkenean taldea eginda daukazu, zuk beraiek badakizu nolakoak diren eta joaten zara eta “zer moduz udara?” eta “zer moduz?” galdetzen dizute eta beraiek galdetzen dizute “zer, ligatu al duzu?” eta “orain ere ez dut ligatu”, ez? Konfiantza bat dago, joango zara Arrasatera eta “aupa, Saioa naiz, zuen palako irakaslea izango naiz, ekainera arte egongo gara” eta “inoiz jolastu duzue palan”. Azkenean berriz hasieratik hasten zara eta bi edo hiru astera beste erlazio bat, baina bai.

Tratuan badago zerbait orduan.

Bai, nik uste dut dela konfiantza hori, errespetuan oinarritzen den konfiantza hori. Ez dakit, bai ba erlazioa berezia da. Gero ba Ibarrakoekin ere oso erlazio ona eta batzuekin besteekin baino askoz hobea eta nik ere badakit lagunak-edo, beno, lagunak, baina diferentea.

Ondo, orduan utziko dugu talde giroa badela ezberdina nesketan eta emakumeetan.

Bai, bai, uf! Bai, bai, oso.

Nesketan da “andereño Saioa” eta emakumeekin da “Saioa”, edo zer da?

Bai, gure pilotako irakaslea, baina Saioa da.

Ondo. Niri bukatu zaizkit galderak. Azkeneko bat egingo dizut. Aukera emango dizut nahi baduzu belarritik tira egiteko edo antzarak ferratzera bidali nahi banauzu ere antzarak ferratzera bidaltzeko. Ez dakit zer edo zer galdetzea espero zenuen edo gai

honekin lotuta zer edo zer esan nahi duzun eta ez duzun aukerarik eduki. Ez dakit, nahi duzuna.

Ez nekien zer galdetuko zenuen ere. Zer esatea nahi duzu? Proiektua ederra dela eta lana ere ederra dela nahiz eta kurtso bukaerarako neuronarik gabe geratzen zaren eta nekatuta zauden. Hori egia da eta maiatzaren erditik aurrera asko nabaritzen da, nik asko nabaritu dut, egin zait ia sei hilabete baino luzeagoa hilabete, bukaera, uf! Askoko asko nabaritu dut hori. Gustura eta pena neskenean nahi duzula lortzea gauzak eta beti zaude berdinean eta berdinean eta pena ematen dizu eta kristoren pena ematen dizu 12 urteko neska batek “ez dut segituko” esatea. “Atletismoa eta ez dakit zer daukadan eta esan didate bat uzteko eta pala utziko dut” eta pena ematen dizu, pena ematen dizu, baina onartu egin behar duzu. Nik ere utzi nuen eta ez dela kirol bakarra. Nahi dugu jendea egotea, baina ez da kirol bakarra.

Ez dakit, kristoren nahasteak igual egin ditut, zuk esan. Zuk gauza politak jarri, bale?

Nik dena transkribatuko dut. Beno, itzali egingo dut. Gustura egon naiz.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Saioa

Elkarrizketa lotzeko erraztasuna erabatekoa izan da, urte osoa elkarren bueltan emanda konfiantza handia daukagulako elkarrekin. Goizean bilera bat izan ostean arratsaldean bertan geratu zen niregatik bakarrik, beraz, eskertzekoa da.

1. elkarrizketan (2012-06-27, 16:00)

- Elkarrizketaren hasieran urduritasun dezentea sumatu diot eta berak ere onartu dit urduri zegoela.
- Urduritasunak behera egin du galderak aurrera egin ahala. Amaieran askoz ere lasaiago ari zen hizketan, eroso samar.
- Galdera irekiaren esperimntua ez da ongi atera eta estualdia igaro du berak (nik ere bai), beraz, galderak zuzenago eginez amaitu dugu elkarrizketa azkenean.
- Tratuaren gainean hizketan hastean, emakumeekiko, erdi emozionaturik agertu da, zerbait mugitu zaio barruan. Pena hitzez adierazten ez asmatu izana.
- Grabagailua itzali eta elkarrekin denbora tarte batean hizketan jarraitu dugu. Hasi aurretik ere apur batean bai, baina amaieran askoz ere giro lasaiagoan, “trantzeta” pasata zegoelako-edo.

Elkarrizketa data: 2012-06-29

Lekua eta ordua: Zubietako errebote plaza, 12:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Haizea

Adina: 22 urte

Jaioterria: Hernani

Bizilekua: Zubieta

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: Gizarte Hezkuntza diplomatua eta Antropologian ikasle

Lanbidea: ikaslea

Entrenatzaileen mundura sartuta, zuk ba al dakizu noiz hasi zinen entrenatzaile lanetan pilotan? Zergatik eta nola eta galdera horiek.

Ez dakit noiz hasi nintzen. Uste dut hasi nintzela karrerako lehenengo urtean edo bigarrenengoan. Hemen, Zubietan.

Zubietako neskekin hasi zinen?

Bai. Eta zergatik? Igual bigarrenengo urtean zen. Ba Hernaniko jendea etortzen zen hona entrenatzera, gogoratzen naiz, Idurre eta Elaia-eta etortzen ziren eta gero horiek utzi zuten ez dakit zergatik eta ni nola bertakoa naizen, bertan bizi nintzen, niri esan zidaten hartzeko.

Haietako etortzen ziren entrenatzaile?

Gu etortzen ginen hona entrenatzera, guk klubean ez geneuzkan orduak eta orduan Hernanikoak hona etortzen ginen entrenatzera, eta hor urteren batean Ibonek eraman zituen, gero pasa zien erreleboa Elaia eta Idurreri eta gero niri pasa zidaten. Orduan ni sartzen naiz.

Eta baietza eman zenuen.

Bai, klaro.

Eta zergatik "bai, klaro"?

Ba, ez dakit, marroi bat da. Ez dakit zergatik eman nuen, ba dirua beharko nuelako nik uste ere bai. Dirua eta gainera bertakoa izanda bertatik bertara errazagoa zelako, zeren garai haietan ez geneukan nola etorri, ez? Orduan haietazako problema bat zen Hernanitik etortzea entrenatzera. Egia esan askorik ez nuen pentsatu.

Eta, zer asmorekin hasi zinen? Esan duzu ekonomikoa. Intentzioren bat edo bazeneukan hasi zinenean?

Ez, nahiko galduta hasi nintzen nik uste dut. Beno, eta nahiko galduta jarraitzen dut, kar, kar. Ez, asmorik gabe, esaten dizut, horrela izan zen, Ibonek hartu zuen taldea, gero

Ibonek hauei pasa zien eta “Haizea zuk hartuko duzu ez dagoela inor?” eta “hartuko dut” eta horrelaxe.

Eta gaur egun non zabilta entrenatzen?

Gaur egun Zubietan daukat bi talde eta Usurbilen beste bi eduki ditut.

Zubietan neskak.

Bai, bai, bai eta Usurbilen emakumeak.

Eta, astean behin bakoitzarekin edo nola?

Bai. Zaharrekin egiten nuen astelehenetan. Beti astelehenetan izaten dira Zubietan entrenamenduak. Astelehena da Zubietan nesken eguna, orduan zaharrenekin ordu eta erdi eta gazteekin ordubete. Gazteak dira DBHkoak eta zaharrak ia ez.

Gazteak tenisekoarekin dabilta eta besteak gomazkoarekin edo nola?

Ez, ez, aurten ia denak gomazkoarekin.

Oso ondo. Eta gustura al zabilta? Zer sentazio daukazu?

Bai, kar, kar, kar. Oso diferentea da segun zein talderekin.

Ba esan. Lau talde esan duzu eduki dituzula.

Bai. Beno, aurrena gazteekin. Gazteetan Zubietan daukat bi talde. Orduan, zaharrekin ondo ze ya pubertaroa pasa zaie, baina gazteak orain daude sexualitatea, parranda eta gauza hauek. Ez dizut esango insoportablea zeren gero jarri egingo duzu. Ez, ez, gero jarri egingo duzu.

Igual dio.

Konplikatu da esango nuke. Hemen ari naiz botatzen eta gero dena tesian jarriko duzu, kabrona! Kar, kar, kar

Ez, kenduko dut.

Kendu horrelako hitzak eta gero transformatu.

Ez, ba diferentea da, e! Hauekin, uf, korrika egin eta “ uf, korri zertarako? Nik ez dut korri egin nahi. Ni ez naiz etorri korri egitera, ni palan jolastera etorri naiz” eta ... Diferentea da adina. Adibidez, hau zaharrekin pasa zuten Idurrek eta Elaiak. “Rebelde Way” eta horrelako mobidekin eta iguala. Nik uste dut edadea dela. Orain zaharrekin super ondo, ondo. Harremana daukat.

Urte asko daramatzazu beraiekin ya?

Bai, klaro. Ba lau urte izango dira. Lau edo bost, e? Nik karreran bost daramatzat, ba, bost bat. Klaro, ba orain hemezortzi baldin badauzkate orain dela bost urte hamahiru zeuzkaten eta diferentzia badago. Bai.

Gero aurtan hasi naiz emakumeekin eta da justu kontrakoa dena bai, bai, bai. Inork ere ez dauka kexarik.

Ondo. Eta zer egiten zaizu errazena entrenatzaile lanetan ari zarenean eta zerk eragiten dizkizu buru-kantsazio edo zalantzarik handienak? Esan duzu, adibidez, batzuekin zaila egiten zaizula, ba, ez dakit taldea dominatzea edo nola esan. Emakumeekin, adibidez, esan duzu erraza egiten zaizula dena bai, bai, bai esaten dutelako.

Eta emakumeak beste jarrera batekin joaten dira. Emakumeak joaten dira palara eta da justu, hau antropologikoki oso esanguratsua izan liteke.

Esan ba!

Horregatik egiten didazu elkarrizketa nik uste, kar, kar.

Ez ba da igual momentu bakarra beraien familietatik kanpora daudena eta ez daudena beraien seme-alabekin edo senarrarekin edo ez daukatena lotura hori. Orduan beste predisposizio batekin datoz. Egia da kotorra batzuk direla, pila bat hitz egiten dutela, ez dakit zer, badakit zer, baina beraienezako da liberazio momentu bat eta orduan horrela bizitzen dute. Zuk proposatzen duzun gauza oro ondo hartzen dute, ondo atera nahiz gaizki, zeren egon dira ariketak gaizki ateratzen direnak eta oso ondo pasa dugunak barre egiten horren kontura. Orduan hori super positiboa eta, jo, txarra hauekin ez dakit txarrik badagoen. Ez, horiekin orokorrean ondo. Ba bai, inprobisatzen ikasi dudala eta horrelakoak, orokorrean. Alde horretatik bai nabaritzen nuela. Ba igual gazteekin inprobisatuta edo gaizki aterata ere, ba, edo ez edukita pentsatuta ere, ba, ez ziotela hainbesteko zerarik ematen, baina igual hauekin bai eduki behar nuela gehiago landuta zer egingo genuen edo.

Sentsazio hori eduki duzu zuk saioetan?

Nik beharra neukan. Ez, sentsazioa nik beraien aldetik ez, nik nire aldetik. Jakinda jendea gogoarekin datorrela, ikasi egin nahi duela eta zuk beste maila bat eman behar duzula, ez? Zuk eskaini behar duzula.

Hutsunea ikusi duzu hor, igual, formazioan. Ez dakit esan litekeen.

Ez, hutsunea ez. Askotan kristoren astelehenarekin zaudela, ez dizu eman denbora klasetik etorri zarelako, baina ondo. Ondo.

Eta gazteekin konplikatuen da aurre egitea. Nik gogo gutxi baldin badaukat eta beraiek gutxiago, beraien atzetik ibili behar izatea. Bai, baina beno. Kosta hori. Gazteekin eduki ditut mobida batzuk. Hau ere ez sartu, e.

Beno, mobidak eduki dituzula idatzi liteke zeren hurrengo galdera hori da, ea arazorik eduki duzun.

Bai, gazteekin. Uf! Aurten edo lehengo urtean egon nintzen esatekotan “hau utzi egingo dut”. Nik uste dut edadea dela, baina momentu batzuetan errespetu falta eta dena dago. Hor ya gogorra. Bai eta ni askotan sentitzen nintzen beraien irakasle bat bezala edo beraien ama bat, horrela hartzen zaituzte, eta ni ez naiz beraien irakasle bat. Daukate kontzeptu hori “hau oraindik ikastola da” eta “hau ez da ikastola, zu zatoz hona nahi duzulako”. Etxean derrigortzen bazaituzte beste kontu bat da, baina.

Badago kasuren bat? Tokatu zaitzu palara datozen batzuk datozela kaltzadorearekin?

Nik uste baietz. Beno, etxean asko bultzatuta. Bai, bai. Eta gero hemen justu, hau nik beti esaten dut kasu berezi bat dela, hau ez da Hernani bat. Hemen ez dago ezer hauentzako, hori bakarrik. Orain hasi dira beste lokal horrekin hasi dira zerbait egiten, baina garai batean pala bakarrik zegoen, orduan herriko begira zenbat neska diren eta zenbat dauden apuntatuta. Dazkat lau seniorretan, orain ia ez dakidala zer pasatuko den, eta beste lau gazteetan. Zubieta batentzako pila bat dira. Orduan, plaza izatea, palan jolastea eta edukitzea ordubete denak elkartuko diren momentu bat, ba hori ez da gauza bat lehiatzera goaz edo entrenatzen dugu lehiatzeko, baizik eta entrenatzen dugu denak elkartzeko. Diferentea da. Orduan, filosofia horren barruan, gauza bat daukagu elkartzeko eta elkartu egiten gara eta, gainera, super ondo pasatzen dugu. Nik uste dut horrela ulertu behar dela, orduan, hor kostatzen da esaten “e, benga, egingo dugu korri?” edo “preparatuko gara ez dakit zertarako?”, ez? Ez dutenean txapelketa jokatu nahi edo “zertarako? Nik ez dut jokatu partidua”, baina “a, ya, baina egin egin behar da”. Hor kostatzen da.

Ondo, ondo. Orain igerilekura goaz biok. Flotagailuekin, e. Egingo dizut galdera bat, oso irekia da, e, eta gaizki irteten bada galdera gehiago badauzkat. Emakumea, pilota eta entrenamenduaren inguruan ari gara hizketan. Zer kontatuko zenidake nik beste ezer galdetu gabe? Hasi zara, ari zara kontatzen. Bide horretatik segitzea izango litzateke.

Emakumeez edo neskez?

Berdin dio, gai honen inguruan.

Oso galdera ona da! Zer esango nuke emakumea eta zein dira?

Emakumea, pilota eta entrenamenduaren inguruan zure entrenatzaile bizipenekin lotuta.

Nik esango nuke, justu aurten Usurbilen emakumeekin ibili eta gero, oso diferenteak direla bakoitzaren bizitzaren arabera. Berriz noa berdiner. Diferentea dela hamalau urterekin etortzea, hemezortzirekin edo berrogeirekin. Egia. Hamalau urterekin daukazun txori-haizeak, o sea, azkenean zure adina eta zure munduko bizipenek baldintzatzen dutela zure entrenamendua esango nuke. Hamalau urterekin oraindik zaude DBHn, lehenengo mutila, lehenengo maitasuna, lehenengo parranda, ... horretan daukazu “honek mezu bat idatzi dit”, “honek ez dakit zer”, “gaur begiratu egin dit”, “ez dakit zer” eta, beno, horrela joaten dira. Gero hemezortzirekin ia zentratuagoa zaude, “ba goazen partidu bat botatzera” eta “ez dakit”. Bai, diferente bizitzen da eta gero ya esaten dizut ba berrogei urtekoekin flipatu egin dut.

Pozik hala ere? Flipatu onera.

Bai, bai. Bai, zeren beste zera bat da. Ematen du berrogei urterekin, ezkontzen zarenean eta seme-alabak dauzkazunean, horretara bakarrik dedikatzen zarela eta da justu momentu bat ez daukazuna ez seme-alabak, ez senarra, ez bikotea kasu honetan, baina nola denek senarra zeukaten ... Bai, orduan nik lotura hori egingo nuke.

Ez dakit zein zen. Zein ziren hirurak?

Bai, emakumea, pilota eta entrenamendua.

Eta pilotarekin, pilotarekin ez dakit zer lotura egin. Iruditzen zait igual kirol guztietan horrela izango litzatekeela. Ez dakit pilotak hor diferentziaren bat baldin badaukan.

Eta orain pixka bat saioak nola antolatzen dituzun. Nahi duzuna eta lasai esan. Esan nahi dut: nolako saioak egin izan dituzue? Beroketarekin hasita bai.

Beno, beroketarekin hasita segun non. Ni saiatzen naiz.

Neskekin eta emakumeekin diferenteak dira? Nolakoak dira?

Diferenteak. Beno, hemen, bastante desastre ibiltzen gara, hemen lehenengo bost minutuak tertulian. Ez, broma zen. Saiatzen naiz lehenengo ezker hormarekin denekin ibiltzen eta gero ya sartzen gara kantzara. Egia da emakumeekin beroketak-eta gehiago egiten ditudala, adin kontuagatik, bai.

Beraien adinak kezkatzen zaitu? Edo beraiei tiroia emateak?

Bai, tiroiak emateak.

Eta neskei emateak ez?

Ez, hain erraz ez die ematen. Neskekin esaten dizut, gehiago da “benga beroketa, uf” eta hauekin lehenengo egunetik oso markatuta utzi nien eta orduan ia automatikoki ateratzen zen. Hori beroketa, gero ezker horman, banaka edo binaka segun, hor ere borroka “banaka? Banaka ez, binaka”.

Borroka etengabea da orduan.

Bai, sartzen zaren momentutik. Bai.

Eta nola antolatzen dituzu saioak? Beroketa, gero ariketak edo partiduak edo ...

Bai, gero ariketak aurrean. Segun bakoitzarekin zer mailatan nagoen.

Eta segun hori nola erabakitzen duzu? “Nik hauekin egingo ditut ariketak” edo “nik hauekin egingo ditut partiduak” edo “nik hauekin egingo dut paretaren kontra jotzen eduki”.

Ez, beti ariketak eta bukaeran partiduak. Jo, ba, gazteekin ahal duzu eraman zerbait pentsatuta eta gero ez egin ezer ere, zeren ez dizute erantzuten eta hamar aldiz borrokan egoteko nahiago dut ez ezer ere egin. Baina diferente planteatzen duzu, ba, gazteekin, ez dakit, ariketak lasaiagoak bezala planteatzen ditut. Zaharrei bai ematen diezu kaña gehiago eta zaharrak gehiago preparatzen dituzu partiduetarako eta horrela. Ba batzuk aurten seniorretara igo dira, orduan, klaro. Igual joko-egoera gehiago, jokoia nola ikusi, igual gazteekin da gehiago kolpea, “jarri ondo, besoa luzatu” eta hori dena, pixka bat kolpea lantzea eta besteekin ya ba kolpea ba badaukanak badauka eta ez daukanak ez. orduan, gehiago jokoia ikustea eta “mozten baduzu gero atzera”.

Egia da kurtso hasieran beti egiten dudala kolpea. Hasieran beti, beti, beti, eta gero maila diferenteetan garatzen joaten naiz. Eta emakumeena, ba fitxa batzuk neuzkan eta horixe jarraitu dut, baina emakumeekin berdina, kolpearekin hasten zara.

Eta, adibidez, esan duzu emakumeekin hasieran bukaeran baino ariketa gehiago egin dituzula. Ez naiz ari ezer leporatzen, ez positibo eta ez negatibo. Saio motak erabakitzen dituzu fitxen bidez?

Bai, eta gogoaren arabera. Iruditzen zait hasieran igual, berriz ere esatera noa, kolpea lantzeko ariketak oso ondo egon daitezke, ahal dituzu pasa hiru hilabete ariketak egiten edo kolpea lantzen, baina iristen da momentu bat esaten duzuna “ni nazkatu naiz ariketa hauekin”. Iruditzen zait mailaz igotzen doazen heinean ariketak indarra galtzen duela, ez? Hasieran izan daitekeen bezala ilara batean jarri eta kolpea ematea izan daiteke katastrofiko, eta pertsona batentzat izan daiteke kristoren erronka, baina hori ya hirulau saiotan eginda indarra galtzen du, edo garrantzia, zeren ia ateratzen zaizu. Orduan, ez dauka zentzurik ariketa horrekin jarraitzea eta egia da bukaerarako nazkatu egiten zarela, ni eta guzti nazkatzen naiz ariketekin. Egia da gero bukaeran askotan partiduetara joaten ginela zuzenean. Azkenean, saltsa ematen du eta horretarako ere, ez?

Adibidez, nik neskekin ez dakit, baina emakumeekin askotan erabili duzu Txokotan. Igual beraien beharretara egokitzeko saiakera horretan? Kontuan hartuta beraiek zer esan edo eskatu dizuten, edo intuizioa segituz igual?

Jo, ba nik uste dut, eta hau ez dago ondo esatea igual, nik uste inprobisazioa izan dela. Aldi berean, orain pentsatzen jartzen naizela zuk galdetuta, da modu bakarra, igual momentu bakarra, frontoi barruan edo kantxa barruan egon garena elkarrekin. Orain ari naiz pentsatzen hori, e, orain arte ez dut pentsatu. Egia da, zeren azkenean ariketak egiten denak gaude, baina denak gaude ilaran edo horrela eta partiduak bi biren kontra, lau pertsona daude eta beste guztiak atzean zain. Ez dut pentsatu hori inoiz, baina egia da talde izaera bat bai ematen diola Txokotan ibiltzeak. Denak elkarrekin eta saio guztia pasa baldin baduzu pertsona batekin bikote beste taldekoekin elkartzen zara.

Eta, adibidez, esan duzu azkenean, urrian ikastaroa hastean, emakumez ari naiz orain, baina nesketan berdin-berdin balio du, urrian ikastaroa edo ikasturtea hasi eta maiatzaren bukaerara zuk aldearekin antzemango zenien beraiei. Hobekuntza, edo ez dakit.

Bai, oso pozik nago, kar, kar, kar.

Hori sentsazio ona da orduan.

Bai, sentrazio ona! Joe, etorri zen jendea ez zekiena ezta pala nola hartu ere. Bai. Nik emakumeei pila bat nabaritzen diet.

Beraien gogoia ere aintzat hartu duzu agian azkeneko.

Beraien gogoia?

Partiduak, azkenean, hor zebiltzan Usurbilgo Txapelketa gora eta Usurbilgo Txapelketa behera, bukaeran behintzat. Igual inkontzienteki. Adibidez, eskatu dizkizute ariketak? Esan dizute “gaur hau egingo dugu”. Jo, batekin gogoratzen naiz, oso ona izan zena: “hondartzan bezala ibiliko gara”. Kar, kar, kar, kar!

Kar, kar, kar! A, eta hori egin genuen! Egia da, kar, kar, kar!

Ez zen oso ondo irten, baina nik oso ondo pasa nuen.

Bai, ondo pasa genuen bai. Ez dakit. Ez dator galderarekin bat, baina gero erantzungo dizut. Nik askotan sentrazioa daukat ni etortzen naizela eta nik esan behar dudala. Nik uste dut ni entrenatzailea naizela, eta nik figura hori bete behar dudala, eta nik entrenamenduak prestatuta eramaten ditut, baina askotan taldeak ez du erantzuten. Askotan taldea ez dago dagoenera.

Adibidez, zuk entrenamenduetan bazenekien zenbat jende joango zen?

Ez.

Noski, hori zuretzat ere bada muga bat edo erronka bat.

Bai, bai. Horretan ikasi dut inprobisatzen. Ariketa bat daukazu hamar pertsonarekin egin behar dena, edo bost pertsonarekin, baina zuk daukazu bi eta, ba, oso ondo. Eta zuen taldean bastante ondo, baina beste taldean igual bi azaltzen zitzaizkidan.

Aldea zegoen?

Bai. Zuen bastante orekatua zen, baina bestean birekin egin izan dut entrenamendua. Bai.

Zein zen galdera?

Egokitzapenarena.

Egokitzapena beti, bai. Ez dakit, a hori, ez zaidala gustatzen niri esatea “gaur hau egingo dugu”. Gazteekin bai naizela gehiago “gaur hau egingo dugu” zeren esaten badut “gaur korri egingo dugu”, ba, “a, ez” eta “nahi baduzue” ez. Baina emakumeei esaten badiet “gaur korri egingo dugu” ba bai, “gaur korri egingo dugu”. Hori nabari da. Egokitzapena bai, egokitzapena beti. Gazteek ere esaten didate “Haizea, gaur egingo dugu ez dakit zer” edo “gaur ezkerria” edo “gaur aire” eta iruditzen zait legitimoa dela. Eta momentu horretan, hondartzako momentu hartan, kar, kar, inprobisazioa izan zen. Nik ez nekien oso ondo zer egin, batek proposatu zuen hori eta “ba, zergatik ez?”

Ona izan zen. Nik ondo pasa nuen.

Bai. Bai, niri, gainera, gustatzen zait jendeak proposatzea bere gauzak, nik askotan esaten nuen “zer iruditzen zaizue?” eta “ah, zuk esango duzu” eta “ez, norbaitek esatea zer edo zer”. Gazteekin, gainera, egin izan dut bakoitzak ariketa bat pentsatu eta gero egin. Iruditzen zait askotan entrenatzaile baten zera hori daukatela, lotura. Gogoratzen naiz, nik hemezortzi urterekin uste dut ez neukala entrenatzailerik eta jarraitzen genuen entrenatzen. Hauena da “ez baldin badator entrenatzailea ...”

Zer ari zara federatuen kasuan edo denen kasuan?

Federatuek ia urte asko daramatzatelako beraien kasuan, baina emakumeen kasuan nik ulertzen dut lehenengo urtea dela eta igual ez dakitela. Orain kapazak izango lirateke asteazken batean, astelehen batean, joan eta entrenatzeko ni gabe. Eta Zubietako gazteak ere bai, baina beti behar hori, norbaitek esan beharra zer egin behar den, ez? Klaro, pixka bat amorrua ematen dit.

Ondo, ondo. galderatxo bat egingo dizut, diferentea: lehen hasi zara esaten emakumeak eta neskak entrenatzen dituzula eta ezberdinak direla jarreran, motibazioan, joko mailan, etab. Zure bizipenak ere diferenteak dira beraiekin?

Bai, noski! Bizipenak zein zentzutan?

Eta, nolakoak dira? Zure sentrazioak, zure bizipenak, hor zabiltzanean entrenatzaile bezala.

Egia da gazteekin lehenengo kontaktua beti ere errazagoa dela. Niretzat errazagoa da 18 urteko edo 14 urteko jendearekin egotea 40 urteko batekin baino eta hor aitortzen dut kosta zitzaidala lehenengo zera hori. Ostia, niretzako, pixka bat inposatzen zidan berrogei urteko andre bati esatea “korrika hasi behar duzu” nik. Ez nuen nik inor ezagutzen, zeren beraiek beraien artean elkar ezagutzen zuten, baina nik ez eta joan eta esatea “epa, epa, orain egingo dugu beroketa” eta “zer da hori? Zertarako?”

Zein zen galdera, Uxue?

Ea bizipenak diferenteak diren.

Bai, guztiz.

Eta nolakoak dira behin galdetzen hasita?

Bizipenak nolakoak diren? Nik orokorrean ondo pasatzen dut, baina egia da batzuetan letxe txarrean bukatzen dudala gazteekin, desesperatu egiten naiz.

Emakumeekin barre pixka bat egiten duzu.

Bai, emakumeekin oso ondo pasatzen nuen. Ba, nik uste bakoitzaren jarrerak ya dena baldintzatzen duela, ezta? Eta emakumeekin egia da gero asko hitz egiten genuela eta barreak botatzen genituela. Oso ondo, nik uste bizipenak orokorrean onak direla,

momentu horretan kenduta, zeren gazteekin, egia esanda, esan nion Joxe Luisi “hemen zer edo zer egin behar dugu”. Jarrera kontua da, jarrera negatiboa, errespetu falta eta hori dagoenean niri eragiten dit, hori da kontua, eta nik esaten nien “ni ez nator hemen zuen atzetik ibiltzera. Ez, egin nahi duzue egin eta bestela etxean geratu”. Jarrera da, nik uste jarrerak baldintzatzen duela. Jendea jarrera onarekin etortzen bada zuk jarrera onarekin erantzuten duzu.

Ondo. Eta, emakumeetan, adibidez, bi taldeetan antzeko zerak eduki dituzu?

Nik uste diferenteak izan direla bi taldeak, e. Jende kopuruaren aldetik hasita, asteazkenetako taldean zazpi baldin bazineten, sei-bost bat etortzen zineten beti, baina bestean baldin baziren sei etortzen ziren hiru-lau bat. Orduan, hor diferentea zen. Bai, baina beno, bai, ondo. Barre esan dizut.

Baina kopurua bakarrik aldatzen da?

Beno, eta gero norberaren izateko modua ere aldatzen da, ez? Esaten dizut, ondo. Bi taldeetan egon dira fitxaketak. Egia da igual astelehenetako taldean M^a Jesusekin nahikoa lan bagenuen. Harekin barreak botatzen genituen. Ez, diferenteak izan dira nik uste, baina ondo.

Zertan diferenteak? Zergatik esaten duzu hori?

Igual, bestean, ez dakit, igual asteazkenetakoan gehiago izan da talde kohesio handiagoa, ez dakit oso ondo. Talde kohesioa bestean ere bai, zeren esan nahi dizut hiru koadrilakoak ziren. Nik diferente ikusten nituen, baina, aldi berean, ez dakit esaten zertan.

Talde horiei zer ikusi diezu? Adibidez, talde kohesioa aipatu duzu orain. Ikusten zenien talde izaera bat?

Bai. Adibidez, ikusten dut talde izaera bat gure aldetik bi taldeetan eta bestean taldearekin konparatuta. Beste taldean nik uste dut orain, beno orain edo, orain ezagutu ditut nik, bai egin dutela bukaerarako talde kohesio bat.

Beste taldea da Lurdeseke entrenatzen zuen taldea. Lurdeseke eta zuk oso ezberdin entrenatzen zenuten, sistema oso ezberdina zen.

Bai. Bai, zoritxarrez bai.

Zertan zen ezberdina?

Uf, ba ez dakit oso ondo nik, zeren ez dut ikusi bere entrenamendu bat, baina entzun dudana gatik, ba, ez dakit, ez dakit dedikatzen ziren pilotari eman eta eman. Ez dakit nik ere esaten, entzun dudana gatik bakarrik. Banaka, bai, ariketarik egin gabe, partidurik egin gabe, orduan, pilotari eman eta eman.

Zuk egingo zenuke horrelako entrenamendu bat, kar, kar.

Ez, ez. Jo, niri amorrua ematen dit eta Oierri esan nion aurrekoan eta nik uste bilera bat egin behar dugula ya. Esan nion “Oier igual pixka bat pasa egin gara”, zeren Oierri ere iritsi zaio.

Bilera egingo zenuke beste begiralearekin eta elkarteko arduradunarekin?

Bai, eta udalekoekin, Kirol Patronatukoekin.

Zer aztertzeko edo?

Ba, bi begiralek ezin dutela hain ezberdin eman. Nire ustez ikastaro bat ematen duzun momentuan.

Ikastaroa jaso zenuten biok. Begirale ikastaroan biok ibili zineten?

Bai. Beno, ez dakit bera egon zen. Bai, egon zela esango nuke. Baina esan nahi dudana da zuk ikastaro bat eskaintzen duzun momentuan ordutegiak ezin duela baldintzatu ikastaro mota nire ustez.

Hor izan da goizeko taldean batek eman du eta arratsaldeko bietan besteak, kasu honetan.

Noski. Ezin du hainbeste baldintzatu eta nik ulertzen dut norberak bere entrenatzeko era daukala, e. Irizpideak hasieran berdina jarri genituen, irizpideak ziren, guk nola ez geneukan ideia askorik eta urduri ginen eta horrela, esan genuen fitxak jarraituko genituela. Nik fitxak jarraitu ditut eta, beno, berak ez zuen efektibo ikusten fitxak jarraitzea. Bere ustez ez zeukan zentzurik fitxak jarraitzeak pilotari ere ez ziotenean ematen. Orduan, hor egon zen.

Ikasturtean zehar ez zarete gehiago bildu? Ez duzue hitz egin?

Hitz egin gure artean bai, baina, beno, gero ni ez naiz inor sentitzen beste bati esateko nola egin behar duen lana. Hori igual, ez dakit, goitik etorri beharko litzateke. Hor koordinazioak failatu digu pila bat eta pena bat da.

Beno, hobetuko da hori ere.

Joe, baina, ostra! Nik ezberdinak ginela bai, baina, ostra! Gauza batzuk, ez? Nik uste nuen partiduak egingo zituztela, nahiz eta ariketak berari iruditu oso kutreak zirela, ba, igual moldatuko zuela-edo, edo partiduak egingo zirela, ez? Zerbait.

Bai, inpresioa eragiten du lehenengo aldiz entzuten duzunean, edo niri eragin zidan: “partiduak? Guk ez ditugu partiduak egin” eta “zer egin duzue?” eta “sakea 3tik 3ra eta horrela”.

Eta gero, nik, hau ere ez nuke horrela esango tesirako, baina esango nuke bere planteamendua baldin bazen ariketak ez zirela efektiboak, nik ez dakit bere jokalariaz zein mailarekin iritsi diren beregana, baina esango nuke ez daukatela guk baino askoz ere maila altuagoa. Bere metodologia ez dela maila aldetik hobea ikusi da, erakutsi da. Ez dakit zer eraginkortasun daukan sakea 3tik 3ra ateratzeak gero zure postura ez baldin

bada aproposena, zeren zuk postura bat behartu dezakezu 3tik 3ra ateratzeko, baina postura ez izatea aproposena.

Bai, edo sakea ateratzen jakin eta errestatzen ez.

Adibidez.

Nik uste dut guk posturari garrantzia handia eman diogula, pilotari nola eman, eta horretan igual ez dut asko insistitu pertsona bakoitzarengan, baina bai taldean beti egon dela momenturen bat, batez ere hasieran. Gero iristen da momentu bat ez duzuna lortzen, baina nik uste dut gure jokalariek, orokorrean, nahiko postura garbi bat atera dutela. Bai eta ez zionak ematen ematen diola eta kontzienteki dela, badakiela hankak nola jarri behar dituen eta hori dena. Orduan, ez dakit. Bai, bi mundu, baina esaten dizut pena dela. Nik sentrazioa daukat beraiei zerbait gehiago falta izan zaiela eta askotan esan dute “zuek arratsaldekoek beste giro bat daukazue, gu gaude hor marjinatuta bezala” eta hori, marjinatezarena, askotan esan dute. Igual beraiek sentitu dira bakarrik edo, ez? Zeren, beno, nik bi taldeekin kontaktua, bata edo bestearengatik jakin izan duzue “ba lehengo astean ez genuen entrenatu zeren ez dira etorri”, baina hauek egon dira beraiek, ez zeukaten kontakturik gurekin eta nik uste dut pixka bat beraiek sentrazio hori eduki dutela.

Giroa nola esan duzun salto egingo dut galdera honetara: azkenean, harreman sare bat edo sozializazio mota bat ikusi duzun edo egon den.

Kar, kar, kar, horretaz tesi bat egingo dut: amatasuna. Bai, pasada bat da.

Ez dakit ikusi duzun harreman sare bat edo. Nolako harremanak zenezkan pilotariekin? Emakumeekin segituko dugu eta gero neskena pasako gara nahi baduzu, edo aldrebes, nahi duzun bezala.

Bai, emakumeekin jarraituko dugu. Jo, ba niretzako denak ezezagunak ziren. Nik ez nekien bakoitza zein zen, nongoa zen, baina nik nabaritzen nuen lehengo egunean eurek pixka bat elkar ezagutzen zutela kaletik eta horrela, baina zeudela denak distante edo eta gero egia esanda kristoren harremana lortu dugu. Kristorena, bai. Izan da nire ustez kristoren talde kohesioa egon da nire taldeetan. Izan da emakumeen momentua. Berriz errepikatzen dut, denak ezkondata, seme-alabekin, uste dut bakararra dagoela ezkondata eta seme-alabekin ez dagoena, orduan ... Nabaritu egiten da. Izan da beraientzako espazio bat, beraien ordua, beraien momentua eta bastante errespetatu dutena. Orduan, sozializazioa, ba, bai, kristorena, kristorena. Bai.

Zuk beraiekin ere bai. Beraiek beraien artean eta zuk beraiekin ere bai

Bai. Nik uste gero jakin dudala eramaten gaia. Ez? Bada beraien seme-alabak eta, kar, kar, eramaten duzu, bai. Honbre, hasieran ez geneukan horrelako harremanik, ni ez naiz gogoratzen oso ondo hasieraz, baina hasieran gehiago zen distanteagoa eta horrela, baina egunak joan eta egunak etorri ...

Bai, bai, nik sentrazio oso ona daukat zentzu horretan, adibidez, kide izan naizen aldetik.

Nik uste hasierak beti izan direla oso “igual ez diot botako bi pareta zeren igual gaizki sentituko da” eta gero jakin dugu horrekin hausten eta igual taldean, nik zer dakit, ba igual gazteekin pasa liteke bat oso txarra izanda igual boikoteatu egiten dela.

Hori pasa zaizu? Kar, kar.

Ez, baina “bua, zer txarra” eta hemen ez, hemen guztiz kontrakoa, txarra edo ona, azkenean, denek denen aurka jokatzera eta azkenean denekin ondo pasatzen zen.

Ez dakit frontoitik kanpo harreman hori mantendu duzun. Zaila izango da, baina beno.

Orain beno, orain ez, baina lehenago egun pasa joan ginen eta bai.

Pozik, gustura.

Bai, oso gustura. Gero sozializazio horretan dago, horretan-edo, nabaritzen da pila bat bakoitzak zer harreman mota daukan bere bikotearekin edo bere familiarekin, ez? Hori da tesian atera behar duzun beste puntu bat, amatasunarena. Pasada bat da, pasada bat, zeren eta amak ziren denak, zu eta Aizpea izan ezik esango nuke, denak, nahiz eta edade diferentetakoak izan, eta denak ezkontuta eta bikotearekin, eta pasada bat da bakoitzak nola bizitzen zuen. Egon da jendea entrenamendu guztietara etorri dena eta ez garena enteratu beraien etxean zer pasatzen zen, seme-alabak, senarra, bai? Egon da jendea kontatzen zuena, baina besterik gabe eta egon da jendea entrenatzera ez dena etorri, ba, senarrak afaria zeukalako edo umea gaixotu zelako eta “nola ez naiz geratuko nire umearekin?” Orduan, horrek erakusten du amatasun ardura, zer lotura daukaten beraien familiarekiko. Bai, bai, eta hori pasada bat nabaritu da. Pasada bat.

Hori nabaritu duzu zuk.

Pila bat, pila bat.

Eta harremana, ba orain Usurbilgo Txapelketa zela eta tarteka ikusiko zenituen.

Bai, bai, eta afaria egin genuen, eta egun pasa, eta, beno, mantentzen da. Nik uste beraiek orain hori mantenduko dutela. Beraiek bai ikusten dira plazan eta horrela. Ni ez naizelako joaten, baina beraien artean bai mantentzen dela kasu egitera hori eta. Bai, bai. Nik uste beraien artean mantentzen dutela.

Alde horretatik, behintzat, sozializazio mailatxo bat igual bai. Atxikimendu bat talde horrekiko bai.

Altua, oso altua. Nik uste baietz, denen aldetik. Niretzako ez du hainbeste suposatzen jende honek, ba nik beste lotura batzuk dauzkadalako, ulertzen duzu?

Beno, baina esango banizu datorren urtean Usurbilen beharrean Zubietan emango duzuela edo beste batek emango duela Usurbilen, eragingo lizuke?

Bai, eragingo lidake berriz zerotik hasi beharko nukeelako eta hauekin ya beste giro bat da. Noski harremana baietz, baina nik uste diferentea suposatzen digula beraiei eta niri. Oso desberdina, zeren beraientzako da beraien toki bat. Hau ez dut kontsideratzen nirea,

igual badauzkadalako beste joera batzuk bilatzeko nire espazioa. Igual ez dut sentitzen oso nire espazioa gehiago delako entrenatzaile bezala noalako edo, ez? Igual gehiago lanarekin lotuta, baina, beraien kasuan, aisiarekin lotuta doala, iruditzen zait baietz.

Orain arte emakumeekin aritu gara. Ez dakit zer edo zer gehiago geratzen zaizun esateko. Adibidez, nesken kasuan, zer harreman mota daukazu Zubietako gazte eta ez hain gazteekin? Ezberdina da giroa?

Nik uste edadeak baldintzatzen duela. Igual gazteekin gehiago saiatzen naiz autoritarioagoa izaten, distanteagoa, zeren bestela entrenamenduak ezin dira egin. Beno, nik esatea autoritarioagoa imajina dezakezu zer den, ez? Baina igual hasten dira galdetzen zure bizitza pertsonaleko gauzak eta orduan horretan saiatzen naiz ez sartzen, zeren bestela horretan joaten zaigu. Bestela, besteekin, besteekin oso ondo. Besteak dira kasik koadrilakoak bezala, ya parrandan topatzen ditut.

Hori da zaharren taldea-edo, seniorrena.

Bai, desberdina da, edadea da nire ustez.

Ondo, ondo. Esan duzu besteak koadrilan bezala, besteekin autoritarioagoa, ... Zuk mutilik entrenatu duzu inoiz? Edo, entrenatuko zenituzke?

Palaz? Bai. Ez dakit, inoiz ere ez naiz jarri pentsatzen, baina bai, ez nuke problemarik edukiko. Orain, ba eskuz entrenatu behar baditut ba ea zer egingo nukeen horiekin, kar, kar, kar!

Beno, pilotak eman eta listo.

Bai, bai. Zer, diferentea izango litzatekeelakoan genero ikuspegitik edo horrela? Nik uste dut desberdina izango litzatekeela, segun zer mutil. Beti nik uste mutilen taldeak konpetitiboagoak bezala ikusten ditugula eta gehiago preparatu behar ditugula fisikoki eta horrela, baina ez dakit, segun zer talde tokatzen zaizun. Beti mutilekiko irudi hori daukagu, baina ez dakit nik horrela izango litzatekeen talde bat izanez gero.

Ez zaizkizu konpetitiboak iruditu emakumeak?

Bai, baina beste era batera. Ez dakit, igual emakumeak bai gehiago, baina neskak ez. Gazteek ez dute lehiatu ere egin nahi. Hauek txapelketan parte hartzen dute nik esaten diedalako. Dena da segun zertarako. Esan dizut, Zubieta batean palan jolastea ez da txapelketarako entrenatzea, da elkartzeko puntu bat.

Adibidez, emakumeen artean ere ezberdintasunak ikusten ziren, baina denek zeukaten beraien urguilu edo ego puntua, ez dakit.

Bai, baina ez ditugu preparatu txapelketetarako, ulertzen didazu? Nire ustez filosofia ere ezberdina da hor ere. Klaro, partidu bat jokatzean normala da norbaitek irabazi nahi izatea, baina ez ditugu preparatu fisikoki, e, estrategikoki, txapelketa bat irabazteko. Niri planteatzen badidazu mutilen talde bat hartu gazteena eta planteatzen duzun gazteen talde bat den heinean txapelketetarako preparatzea. Horretan esan nahi dut eta neska talde bat, esaten badidate Hernanin neska talde bat hartu behar dut, bai

preparatuko nituzkeela, segun taldea nolakoa den, baina bai zoaz mentalitate horrekin "txapelketarako preparatzera noa". Hemen tokatu zait etorri txapelketarako preparatzera eta ez ateratzea ez dutelako nahi. Ulertzen didazu?

Bai, bai, oso ondo ulertzen dizut. Ikusten dituzu helburu ezberdinak dauzkaten talde, herri edo multzoak, izan neskak ala emakume.

Bai, hori da eta horretara egokitzen.

Ba, oso ondo. Eta sentitu duzu zuk entrenatzaile lanean ari zinela gizonen eremuan zenbiltzanik, ala ez? Nola beti esaten den pilota gizonen kirola dela ...

Ez, ez. Beno, uf, ez zait iruditzen gizonen eremua denik, baina bai iruditzen zait, adibidez, Zubietan dagoeneko nahiko ohituta daude neskak frontoian ikusten, baina Usurbilen ez. Usurbilen bai iruditzen zait espazio bat izan dela bastante gizonena frontoia. Ez dakit non entrenatzen duten Usurbilgo kirolariek, baina frontoian jolasean ibiltzen diren umeak ere mutilak dira ikusi dugunez. Gutxi ibili naiz, baina ikusi dudanagatik. Orduan, bai iruditzen zaidala super inportantea, eta ni super pozik nago, espazio hori emakumeak okupatzea. Gainera, ordu horretan, 19:30etik 21:00etara, dela jendea poteatzen ibiltzen denean. Jendeak ikusten du eta bai dela aldaketa bat espazioaren ikuspuntutik. Espazioa berreskuratu du emakumeak kasu horretan. Historikoki, beno, niri iruditzen zait eta ez daukat ikerketarik eginda, baina historikoki ez dakit zein mailara arte ibili den emakumea frontoian profesionalki edo ez, baliteke igual profesionalki ez da emakume pilotaririk existitu, ez dakidala kasua den, baina emakumeak ibili dira frontoian. Gaur egun baino gehiago ibili direla emakumeak pilotan iruditzen zait bere garaian.

Iruditzen zaizu Usurbilgoa izan dela plazaratzeko aukera bat.

Bai. Gainera, aurreko elkarrizketan ere kontatu nizun gure etxean badagoela bideo bat nire amaren-eta izebak doluz jantzita, beltzez, ba uste dut beraien ama-edo hil zelako, eta ikusten dira frontoian eta frontoian daude nire amaren izeba eta denak. Frontoia barruan eta emakumeak pilotan jolasten ari ziren gona beltzarekin eta nik flipatu egin nuen. Hor ikusten da emakumea ibili izan dela pilotan, eta hori nire familian. Gero ikusten duzu jendea herrikoa dena eta frontoian ibili izan da beti. Igual ez dute eduki orain bezainbesteko aukera.

Bai, hemengo batzuk esango dizute ibili direla aurretik. Ikastaroetan ibili diren batzuk beraien kabuz edo beno.

Noski baietz. Bai, bai, bai. Txikitako zera horrekin daude. M^a Jesusek bere 60 urteekin esaten zuen bera txikitari frontoitik ez zela ateratzen. Antzeman egiten da. Nire ustez emakumea beti egon da frontoian, igual oraingo neskak gutxiago egoten dira, beste aukera batzuk daudelako egiteko, baina momentu honetan Usurbilen frontoira hogeita bi emakume ateratzea izan da, nire ustez, iraultza. Espazioa okupatu dugu berriz eta ikusi egiten da. Gauza bat da zu elkartzea beste pertsona batekin frontoian jokatzeko eta etortzea Zubietara edo hurrengoan Lasartera eta horrela, eta bestea da astero-astero zuk zure ordua edukitzea frontoi horretan eta jendea bisibilizatzen joatea, ez? Ez zaharrak bakarrik, atzean poteatzen ari direnak, baizik eta umei esan guk daukagula ordua eta orain gure ordua dela eta guri utzi behar digutela lekua. Niretzako hor badago aldaketa

eta umeengan ere nabaritzen zen hasieran, “zuek?” eta orain ya iritsi eta bazekiten gure ordua dela. Badirudi txorakeria bat dela, baina espazioa berreskuratu dugu eta non eta Usurbilen, dagoela plaza erdian. Bai. Usurbilen baldin badago puntu edo espazio inportante bat herrian da dema-plaza eta frontoia. Orduan, horregatik, iraultza egin dugu.

Pozik horrekin orduan.

Bai, oso pozik.

Oso ondo. Niri prestatutako galderak bukatu zaizkit. Ondo, oso pozik nago. Azkeneko bat egingo dizut, ea badagoen galdetzea espero zenuen zerbait edo zerbait esan nahi zenuen eta segi lasai hizketan.

Kar, kar, kar. Nik uste dut dena esan dizudala. Hau dena pilotarekin lotzea, ez dakit beste kiroletan nola den edo ez. Honbre, egia da pilotak gure kulturaren erreferente izan den heinean bere garrantzia eduki duela, beti eduki dugula erraztasuna frontoira joatekoa eta hori nabaritzen dela gaur egun. Ez da korrika egitea bezala. Korrika egitera joan zaitezke berrogei urterekin, baina ez da iguala, ez?

Beste sentsazioaren edo beste zer edo zer? Esan dituzu?

Bai, bai, nik uste baietz.

Oso ondo. Zure baimenarekin eskerrak emango dizkizut berriz eta itzali egingo dut grabagailua.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Haizea

Elkarrizketa lotzeko astea proposaturikoan Hernaniko festak zirela aipatu arren erraz lotu genuen hamar bat egun lehenago.

1. elkarrizketan (2012-06-29, 12:00)

- Lasai agertu da elkarrizketara, ohikoa duen patxada lagun, nahiz eta festen ondorena izaki zalantzaren bat ba omen duela esan, “zer elkarrizketa emango dizut nik zuri!” botaz.
- Une batzuetan galdera zein den galdetu dit, gaitik kanpo ote doan errezeloa agertuz, baina ederki aritu da, bere iritziak azaltzeko nik gehiegitan esku hartu beharrik izan gabe.
- Grabagailua itzali ondoren gaiaz hizketan jarraitu dugu, besteak beste hasieran emakumeena hurbiltzean izandako beldurrez, bai bera eta baita ni ere.
- Ikerketaren norabideaz eta asmoez ere aritu gara, nik zertzelada batzuk eman eta hark bere iritzia trukean.
- Oso atsegina egin zait eta zorionez (ez ote da zoritxarrez izango!) nire irudipen batzuk errepikatu ditu aisialdiko taldeez aritzean: giroa, talde izaera, lehiakortasuna (zeharka) eta amatasuna.

III. ERANSKINA

FEDERATUEN ELKARRIZKETA BILDUMA

Elkarrizketa data: 2011-03-11

Lekua eta ordua: Donostiako Kirol Etxea, 11:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Eneko

Adina: 47 urte

Jaioterria: Donostia

Bizilekua: Hernani

Erakundea: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: Gorputz Hezkuntzan lizentziatua (Madrilgo INEFean)

Lanbidea: GEPFeko gerentea eta zuzendari teknikoa

Nondik sortu zitzaizun kirolarekiko/jarduera fisikoarekiko interesa?

Nik uste ume-umetatik. Pentsatzen dut familiak eragingo zuela, aitak. Aita oso kirolzalea izan da eta batez ere ikusle bezala joaten ginen, praktikatzera askorik ez, baina ikusle bezala makina bat kirol ikusi izan ditut berarekin eta, gero, ya, ume garaietan jolastu ere gauza askotan eta gero, beno, atletismoan hasi nintzen eta han ezagutu nuen karrera edo lizentziatura hori existitzen zela eta berehala erabaki nuen hori zela nire etorkizuna, edo, behintzat, hura nahi nuela, han murgildu nahi nuela. Oso-oso garaiz gainera, gogoratzen naiz garai hartan jendeak ez zekiela, arrastorik ere ez zeukan zer egin nahi zuen eta nik oso garbi neukan hori egin nahi nuela. 15-16 urterekin garbi neukan ya. Eta, zorionez, aita, bai, aita, erabakiak aitak hartzen zituen gure familian behintzat horrelakoak, aitak lagundu egin ninduen, baiezkoa eman zidan, zeren eta gastu bat suposatzen zuen, baina, beno, “enrollatzen” zen eta...

Egindako kiroletan besteren bat ere egin duzu? Zein mailataraino iritsi zinen atletismoan?

Atletismoan bastante serio jardun nintzen, baina hemen nengoen bitartean, Espainiako txapelketak lehiatzeko adinako maila. Gero Madrilera joan nintzenean hasi nintzen entrenatzen, baina, beno, dinamika oso ezberdina zen, entrenamenduak askoz ere gogorragoak ziren... Beno, horrek ere hasiera batean pixka bat motibatu ninduen, pentsatuz gogorrago entrenatuz agian markak-eta ere hobetuko nituela, baina, ez zegoen... Hemen lagun arteko giroa zen eta han oso gauza ezberdina zen, oso talde txikia, bakoitza bere zilberrari begira, entrenatu eta norbera bere etxera eta hemen beti joaten ginen entrenamendua bukatuta pote bat hartzera. Eta, azkenean, lesio bat izan nuen eta lesioaren ondoren ez nintzen itzuli.

Horrez gain, kirolak egin, serio, egin ez, baina, han, unibertsitateko lehiaketetan errugbian parte hartu nuen, futboleant, ... batez ere horietan.

Eta, orain, aisialdian-edo egiten duzu zerbait?

Bada, bolada luze bat eman dut ezer egin gabe, beno, palan jolasten nuen lagunekin, astein behin joaten ginen ordua alokatuta paletan jokatzen, gomaz, eta gero, beno, ba, mendira eta horrelakoak bai, eta noizbehinka “patxangaren” bat, baina, gutxi, futboleant-

eta gutxi. Gero, beno, lesioekin-eta beti nahiko larri ibili naiz, ez dakit, giharrak nahiko hauskorrak izan ditut, belaunak ere nahiko izorratuak geratu zitzaizkidan, atletismoan hesiak egiten nituen eta nik uste horren ondorioz nahiko izorratuak eduki ditudala, eta gero jada umeak eduki nituen eta utzi nion kirola egiteari. Orain, berriz hasi naiz, urtarriletik, harra edo beharra somatzen nuen zer edo zer behar nuela, oso gainbehera nentorren nire ustez, fisikoki erabat, eta orduan, ba... Beno igeri egitera joaten nintzen, baina ez nuen sistematizatzen, dinamika sistematikorik ez neukan. Joaten nintzen bi astez, gero uzten nion, gero berriz hasi... sistematikoki ez eta orain hasi naiz astean 2-3 aldiz, baina, beno, 3. adinekoen kirola da: umeak ikastolan utzi eta Sta. Barbarara joaten naiz buelta bat ematera, hori bai, “kañeroa”, izerditan bukatzen dut, arnasestuka. Gero, hori egiten ez dudanean bizikleta estatikoa etxean, irratia entzuten. Saiatzen naiz astean hiru bider, gutxienez, egiten zer edo zer, bata edo bestea. Asmoa da hori eginez gero berriz ere pisinarekin hastea. Ukalondoarekin ere egon naiz, tendinitisa eduki dut bi ukalondoetan eta ezin nuen igeririk egin, eta, beno, desastre bat.

Beno, orain zentratzen joateko, pilota mundura egingo dugu salto handi horietako bat. Noiz hasi zinen zu pilota munduan?

Pilota federatuarekiko lotura lanetik datorkit bai, baina, aisialdikoa, bada, betidanik. Txikitan edo futboleant egiten genuen edo bestela frontoian ibiltzen ginen. Frontoi asko zegoen gu joaten ginen ikastetxean eta beti jolas garaian asko ibiltzen ginen, eskuz. Gero, ba, lagunartean eta horrela, gaztetan palan jolastera asko joaten ginen, asko-asko, baina, beno, aisialdi bezala.

Lanarekin lotuta, ni irakasle nintzen, utzi egin nuen, eta lana utzita beste zerbaiten bila hasi nintzen eta edozeri heltzeko prest nengoen, ez du asko esaten nirekiko, baina, beno... Oposaketak eta udal kirol teknika ritza begiratzen hasi nintzen, beste ikastetxe batzuetara ere aurkeztu nuen curriculuma, eta, beno, agortzen ari zitzaidan neskak emandako epea, pixka bat bere kontura bizi izan nintzen, eta, orduan, lagun batek esan zidan Lizentziatuen Kolegioan azaldu zela Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko lanpostu bat, beno, beka bat zen, eta denetara jarria nengoenez aurkeztu egin nintzen, ez dakit nola, agian pixka bat behartuta, eta beka atera nuen, hori 1999an izan zen, eta uztailean hasi nintzen federazioan.

Beraz, orduan, beharrak eragindako, erdi kasualitatezko bide bat izan zen?

Bai, bai, hala kontsideratu behar da, bai.

Eta, esan duzu pilotarekiko harremana izan zenuela umetan. Hor ere aitak eragin al zuen?

Ez, bestela, ume artean pilota edo futboleant beti, frontoi asko zeuden ikastolan, eta beti norbaitek eramaten zuen pilota bat. Beno, nire aitak ere “bazar” bat zeukan, hala esaten dut nik, kiroleko denda ez zen, baina, besteak beste pilotak ere saltzen zituen. Orduan, handik pilotak hartu eta ikastolara eramaten nituen eta han jolasten ginen. Ez, aitak bereziki ez. Behin edo behin joan izan ginen, gogoratzen naiz GRAVNa ikustera, gogoratzen naiz trinketean ikusi ditudala partidak, baina, aitarekin beste gauza batzuk: futbola, eskubaloia asko, atletismoa, saskibaloia, hemen Gaska zena hasi zenean..

Eta, lehen esan duzunez, zure ogibide da 99tik?

Bai, hala da.

Emakumeen pilotaren bilakaeraren berri emango zenidake, zu hemen zaudenetik?

Ni gogoratzen naiz sartu nintzenean ba omen zegoela zerbait. Gure Eider orduan ezagutu nuen, bilera batean, harritura geratu nintzen, noski, hura ezagututa. Hura ezagutu nuen, Carmen andrea ere ezagutu nuen. Zer edo zer bazeukaten, baina, ni, iritsi berri nintzen, kokatzen, eta nire lehentasunak beste batzuk ziren, beno, beste batzuk ezarri zizkidaten; batez ere, txapelketak antolatzea, eta, beno. Baina hura han zegoenez, bileraren bat egin behar zela eta Julian gogoratzen naiz han zegoela, Amagoia, Altzako Aiora esango nuke han zegoela... Bilera bat antolatu zen, eta zer edo zer bazegoen han, baina, beno, ni ez nintzen gehiegi enteratu, zerbait egin zegoela edo egin zutela, zerbait banekien, baina, hasieran, ez nion arreta gehiegirik jarri, zeren eta beste lehentasun batzuk genituen.

Gero, beno, ni hemen lan-talde bat osatu nahian hasi nintzen, teknikarien beharra ikusten nuen, proiektuak handitzen joan ziren, eta Gorputz Hezkuntzako lizentziatuen bila joan nintzen, batez ere pilotarekin harremana zeukatenak, eta perfil horretan Eider zegoen. Orduan, pixka bat gehiago ezagutzen hasi nintzen, zer egiten zuten, Eider pilotaria zen, eta beste lehentasun horiek pixka bat bideratuta, edo, beno, martxan zeudela, ikuspegia zabaltzen ari zitzaidan, gehixeago, eta konturatu nintzen atal hori hor genuela eta konturatu nintzen, behintzat lizentzia aldetik, Gipuzkoako txapelketetako parte-hartzeari zegokionez eta horrela, gainbehera zetorrela, zerbait egin zela, baina, gainbehera zetorrela. Orduan, buelta batzuk eman eta zerbait egin behar genuela, eta pentsatzen dut, ez naiz oso ondo gogoratzen, Eiderri esango niola zer edo zer egin behar genuela eta hor hasi zen gure gaur egungo proiektu hori, enbrionarioa-edo, hor sortzen hasi zen.

Zein aldi bereiziko zenituzke bilakaera horretan?

Gainbeheraren aldia, 99an. Nik uste dut garai horretan, igual, jendeak pentsatuko zuela goian zegoela eta agian aurretik zegoenaren gorenean zegoen, baina, nik berehala ikusi nuen behera zetorrela. Ez dakit, lehen bi urteetan ez genion arreta handiegirik eskaini, baina, 2001-2002an ikusten zen ya behera zetorrela. Gipuzkoako txapelketan 2-3 taldek parte hartzen zuten, beti berdinek, dinamika pixka bat Anoetan zegoen, Kukun, Eiderren elkartean, baina, gainontzean ez zegoen ia ezer ere, gazterik ez zegoen, Hernanin zer edo zer hasten ari zen, baina, keba, gauza txiki...

Aldiak? Bada, gainbeherarena, proiektu berriaren sorrera aldia eta, oraingoa, proiektua nik uste dut gorantz doala, beraz, oraingo, ez nuke beste aldirik markatuko. Espero dut goia ez jo izana oraindik, zeren eta batzuetan baietz pentsatzen dut. Hori eskaintzen zaien baliabideen arabera dago, eta, orduan, guk eskaini dezakegun baliabideetan uste dut goia jo genuela eta ez dut uste berriz itzuliko garenik hiru teknikari izatera. Alde horretatik beldur naiz ez ote dugun goia jo, baina, ikusten dut klub batzuk sortzen ari direla, edo, behintzat, zabaltzen ari da, eta hortik igual, pilotarien edo nesken parte hartzeari dagokionez egingo dugu gorago, baina...

Beno, pesimista jarri zara eta garai gozoak gogorarazi nahiko nizkizuke... Emakumea Pilotari proiektua aipatu duzu aurretik. Zertan datzan azalduko zeniguke?

Labur-labur, emakumeen artean pilota sustatzeko proiektu bat da. ~~Parte hartzea kirolari bezala bai, baina, baita federazioaren gobernu organoetan emakumearen presentzia areagotuz, edo behintzat egotea, zeren eta hemen, egia esan, ez da egon. Ezagutu nuen 1. juntan, ez dakit, teoriar behintzat, 10-12-14 lagun ziren eta emakume bakar bat ere ez zegoen. Bigarren goan ere ez zegoen emakumerik eta hirugarren go honetan ia lortu dugu bat. Alegia, hori ere izan da helburuetako bat. Parte hartzailea kirolari bezala, hor hiru esparrutan saiatu gara lan egiten. Eskola kirolean, noski, harrobi bezala, neskatilak izatea, baina, gero, ez gara zentratu bakarrik kirol federatuan, baizik eta parte hartzeko edo aisialdiko kirolean ere nolabait eragina izaten saiatu gara. Hori ere sustatzen saiatu gara. Nik uste, azken finean, proiektua hori dela, emakumeen parte hartzea sustatzea, bai kirolari bezala, baina baita bere iritzia ezagutzea gobernu organoetan ere, edo halako batzorde edo zerbait sortzea.~~

[Hiru helburu garbi zeuden. Bat, zuzendaritza batzordeetan emakumeen presentzia bermatzea, neurriak hartzea, ez dakigu zer nolako neurriak, hori bermatuko duten neurriak hartzea. Gero, batzorde bat sortzea, sortuta dago, emakumeen gaiak jorratuko dituen batzorde bat sortzea, bada, beno hor gero elikatuko da, berez elikatuko da edo garrantzia behar badu joango da garrantzia hartzen, baina, beno, helburua hori zen, Emakumearen Batzorde bat sortzea, non neska pilotariak, nesken lizentziak dituzten elkarteak, zuzendaritza kideak eta federazioko teknikariak ordezkaturik egongo diren. Horrez gain, neska federatuaren topagunea, batzarra, deitu nahi duzun bezala, sortzea. Hori ere hasierako helburu garbi-garbia da, garbia, idatzita daudenak, proiektuan idatzita daudenak. Gero, parte-hartzen duten kirolari bezala, emakumearen parte-hartzea hiru esparrutan: eskola kirolean, kirol federatuaren eta partaidetza kirolean edo aisialdian. Eskola kirolean, eskola adinekoen helburu garrantzitsuena da Nesken Paleta Eskolak sustatzea, sortzea, daudenei laguntza eskaintzea, zeuden apurrei laguntza eskaintzea indartzeko, baliabideak eman, eta gero nesken eskola berriak sortzea. Behin hori lortuta orain helburua da horiek saretzea nolabait, horiekin elkarren arteko inertzia bat sortzea. Kirol federatuaren helburua lehiaketa indartu eta neska pilotarien maila hobetzea zen, hasi maila baxuena daukatenetatik eta maila altuenetarako, hobetze modua teknifikazioaren bitartez. Aisialdirako, berriz, helburua emakumeen taldeak sortzea da, entrenamendu taldeak, aisialdiko taldeak, astean behin paleta saio bat egingo dutenak. Hori da helburua. Nik hau zehaztu nahiko nuke.]

Nola garatzen dituzue zuen ekintzak sustapen horretan? Zein antolamendu era daukazue?

Hor bereizi behar da neskabilen sustapena eta emakumeen sustapena.

Beno, hasiera batean proiektua hamar udaletxeren eskutik sortu zen. Alegia, zenbait udaletxetara jo genuen proiektua aurkeztera, esanaz zein zen asmoa eta ea parte hartu nahi zuten, inplikatu nahi zuten, alegia, ea dirua eman nahi zuten edo ez, beste gauza batzuek gain. Orduan, saiatu ginen proiektura bildu ziren 10 herri horietan sustatzen. Sustapena izan zen ikastetxeetara jo eta, han, jarduerak eskaini, neskei zuzendutako jarduerak, kaptazio bezala, edo jendea lortzeko. Formula ezberdinak izan dira, tokian tokikoak, batzuetan soinketako orduetan, neskak hartuta eta soinketako irakasleak mutilak hartuta, beste batzuetan izan da denak hartuta, beste batzuetan izan da, ez dakit, eguerditan, jangelako orduetan, eskola orduz kanpo,... Hor ia malgutasunez jokatu dugu eta tokian tokiko egoerara moldatu gara, saiatu gara euren esanetara edo nahietara moldatu gara.

Emakumeen kasuan, bada, beno, hasieran hedabideen bitartez jo genuen, kartelak,... eta azkenaldi honetan, eraginkorragoa izaten ari da ziurrenik, beste formula bat asmatu genuen, frontoietan, kiroldegietan stand bat jartzen da eta han gure teknikariak jartzen dira egun batzuetan, kartel handi batekin, edo telebista batekin, eskuorri batzuekin, jendea tentatuz, eta hurbiltzen den jendeari ezagutarazi zer den, zein den asmoa, jendea bildu eta, beno, gutxieneko izenemate kopuru bat lortzen bada aisialdiko talde bat antolatzen da.

Eta, talde horiek, astean behin jarduten dute denek? Neskak zein emakumeek?

Neskak eta emakumeek astean behin bai. Behin edo behin neskatilaren bat igual astean bitan jardun dira, baina, orokorrean, bai, astean behin, batzuk ordubete, beste batzuk ordu eta erdi, baina, bai.

Esan duzu hasieran 10 herri eman zutela baiezkua, edo laguntza. Nola aukeratu zenituzten? Zein da herriak aukeratzeko irizpidea, adibidez?

Irizpide handi bat izan zen geostrategikoa, alegia, saiatu ginen Gipuzkoako eskualde guztietatik, alegia, bost baldin baziren, pare bat herri-edo aukeratzeko. Gero, hasiera batean jo genuen gehienetan herri handietara, edo baita lehendik zegoenera, bazegoen elkarteren bat hemen parte hartzen zuena eta hura ere pixka bat kontuan hartuz, eta, gero, bakarren batean izan zen, pentsatuz ezingo zutela ezezkorik esan, “honi planteatuz gero ezin du ezetzik esan”. Hori ezin da esan, baina, halako bat izan zen, adibidez, Hondarribia. Hondarribiak, bada, beste gauza batzuk justifikatzeko besterik ez bada, ezin du ezetzik esan. Horrelako kasuetan, hala ere, hango emakumeen taldeekin hitz egin genuen alde aurretik esanaz: “hau egin nahi genuke. Zer iruditzen zaizue? Ondo, gaizki?”. Eta, beno, baiezkua eman ziguten eta aurrera jo genuen. Donostia batentzat dirua, eskatzen genuena, ez zen gehiegi, orduan, bada, ezin zion ezetzik eman. Horrelako batzuekin hala egin genuen, baina, batez ere, nik uste dut Gipuzkoa osoa hartzea izan zela pixka bat.

Eta, gaur egun segitzen duzue irizpide berarekin, ala herri bat nola aukeratzeko duzue?

Ez, gaur egun, beste irizpide batzuk erabiltzen ditugu. Azken aldi honetan, beno, ia urteak dira, badira 5 urte, 2005ean hasi genuen, aurkezpena 2004ko abenduan egin zen, baina, martxan 2005ean hasi ginen, beraz, 5 urte pasa dira, eta urte horietan azkenean 10 herri horien plana izan zen 3 urtetarako. Orduan, 3 urte horietan 10 herri horiek nolabait tanteatu genituen, edo jorratu genituen, eta gero beste bi urteetan beste ate batzuk jo ditugu eta gaur egun ere, ba, egia esan, ez zaizkigu gehiegi gelditzen. Orain, ia pixka bat ari gara gelditzen zaizkigun lekuetan.

Zer ari zarete, Gipuzkoa Bizkaira zabaltzeko eskatzen?

Ez, zabaltzekotan Nafarroara egingo genuke. Uste dut han lankidetzaz hobe lortuko genukeela, baina, ez, ez.

Azkenaldi honetan, batez ere, batzuk izan dira jendea enteratu eta guregana etorri dena. Beste batzuk, bada, bai, ba, beno, aspalditik genituenak zerrendatxo bat eginda, estrategikoki, edo pentsatzen delako, edo frontoia dagoelako, edo kluba dagoelako

inplikatu daitekeena... Azken aldi honetan, igual, konturatu gara herri txikietan errazagoa dela, edo zaletasun handiagoa egon daitekeela, edo eskola kirolean non hartu duten parte neskek hara jo dugu. Beste irizpide horiekin ari gara batez ere.

Eta, nolako erantzuna jasotzen duzue proposamen berriekin zoaztenean?

Normalean, sustapen jarduerak-eta antolatzeko beti ona. Nik uste dut ia inon ere ez digutela ezezkorik eman, beno, bakarren bat orain buruan daukat, aurten jorratu duguna, baina, beno, instalazioa oso betea dagoelako eta horrelako argudioak erabilia, bertako elkarteak. Gero, udalari gustatu zitzaion, baina, pentsatuko zutela esan ziguten eta ez dakit zenbateraino behartuko duten elkarteak, edo ez. Guri iruditzen zaigu, niri behintzat, hori ezin dela arrazoiak izan: “instalazioa betea daukagu, orduan, neskek ez daukate kabidarik. Ez, neskei lekua egin eta bestea moldatu nahi duzun bezala”.

Baina, beno, nire ustez erantzuna beti ona izaten da joan eta sustapen jarduerak antolatzeko. Eta, sustapen jardueretan, neskatilak-eta ondo, jarrera ona eta nik uste ondo pasatzen dutela. Kontua da erein ereiten dela, baina, gero, hori loratzea ia zailagoa da, zeren eta zenbait lekutara agian berandu iristen ari gara, zeren eta beste kirol batzuk daude oso errotuta eta haien lekua hartzea, edo haien artean lekua egitea, ez da erraza, ez da erraza. Eta, gaur egungo neskatilek, umeez, orokorrean, gauza asko dauzkate, ekintza asko, eta kirolaz gain, badauzkate betikoak, badakigunak, bertsoa dela, musika eskola dela, dantza dela,... eta, orduan, hori, ez da erraza guri lekua egitea.

Eta, orokorrean hartuta, gustura al zaude proiektuak eduki duen oihartzunarekin, erantzunarekin, bilakaerarekin?

Bai, ni gustura sentitzen naiz. Nik uste, gaur egun, hedabideetan behintzat, arreta jartzen zaiola, eta nik uste dut ezaguna dela. Kirol teknikari berri batengana hurbiltzen garenean, normalean, zer edo zer entzun izan du, Foru Aldundian ere harrera ona izan duela uste dut, pilota elkarteetan artean, bada, beno, esango nuke, nolakoak diren ezagututa eta zeintzuk dabilzan hor, ezin naiz kexatu. Ni pozik nago, nik uste dut egin dugun gauzarik onenetakoa dela, urte hauetan, beraz, pozik nago. Pena ematen dit, beno, ez dakit, ez dakit, betiko zalantzak, zenbateraino ari ote garen ondo, edo ez, edo... Batzuetan hasten zara pentsatzen, balantzan jarriz erabiltzen ditugun baliabideak eta dauzkagun emaitzak, eta esaten duzu: “ba, joe!”. Emaitzak hotzean hartuta, bada, hori, lehengoan batek esaten zidan, “egon dira 60 ikusle eta guretzako asko da, baina horrela entzunda oso gutxi da, agian erridikulua da”. Bada, hemen gauza bera da, izugarriko baliabideak dauzkagu eta 80 neska, beno, ez dakit badauzkagun, 80 neskatila asko dira ala gutxi? Gero, ikusten hasi eta traineruak, ez zegoen ezer eta bat-batean daude ez dakit zenbat neskatila eta ez dakit zenbat traineru... Eta, orduan, esaten duzu: “ondo ari gara, ez gara ari ondo?”. Baina, beno, ezin kexatu. Federatuen aldetik, berriz ere azpimarratuz ez dela izan gure helburua federatuak lortzea, federatuen kopurua %50a igo dugu 5 urte hauetan eta, alde horretatik, ondo ikusten da parte-hartzea. Elkarteetan parte hartzea eta pilotarien parte hartzea txapelketa ofizialetan izugarri igo da. Galdetzen diegunean, itxuraz, gustura daude egiten ari garen planteamenduarekin, ondo erantzuten dute, beno, motiboak badauzkagu pozik egoteko, baina, badakizu, igual pixka bat exigenteak gara, eta...

Orokorrean, nolako osasuna ikusten diozu nesken pilota munduari? Lehen baino hobea?

Lehen baino hobea gehiago direlako, bai, baina, beno, baina, beno, nik uste dut ikusi egin behar dugula, oraindik, guretzako 5 urte eta denbora asko da, baina, agian, proiektu batentzako ez da ezer ere. Batez ere, 5 urte hauetan hasieratik dagoena ez dakit zer izango den... Hernani bat daukagu, igual ez gure laguntzagaririk, berez beraiek egin duten lanagaririk. Gaur egun erreferente bat izan daiteke, baina, han ere gainbehera dator itxuraz. Ez dakit, nik ez dakit, batzuetan iruditzen zait, nahiz eta lan asko egin eta lana ondo egin, gauzak koiunturalak direla azken finean, koiunturak agintzen du. Ez dakit zergatik, edo modak, edo kasualitateak... Orduan, etorkizuna ikusten diot, beno, nik uste dut gauza errotu behar direla, sortu direla, baina... Hor daukagu Altzoko adibidea. Altzon ez zegoen ezer ere eta gaur egun neska dezente dauzkate, ez dakit 12 edo ez dakit, neskatila txikiak. Hori poztekoa da, ondo, baina, beste aldean, ez dakit nik Hernaniko aurtengo datuak onak diren, zeren eta neskatila txikiak, kaptazioaren hasiera horretan, ez dakit onak diren, eta, beno, ba, Anoetako harrobia ere ez dakit nola dagoen, ez dakit hain ondo dagoen. Eta, gero, zenbait pilota eskoletan mantentzen dira, baina oso kopuru prekarioekin, 3-4-5 neskatila, horrek esan nahi du 1 edo 2k failatzen badute eskola pikutara doala. Dena dago oso "pintzekin hartuta", ez dago egonkor, ez dago sendo, nik ez nuke esango ezer egin dagoenik, lanean jarraitu behar dela eta ikusiko dugu, eta lana egiteko aukera, ba, horiek ere ikusiko ditugu. ~~Gu, azken finean, elkarleen artean kuestionatuta egon daiteke, nahiz eta lehen esan dugun elkarte batzuk ondo ikusi dutela, baina, beste zenbait elkareren artean nik uste kuestionatuta egon daitekeela proiektua, bada, eskaintzen zaizkion baliabideengatik, askok pentsatuko dute: "joe, baliabide horiek beste gauza batzutarako eskaini beharko lirateke". [Elkarleen artean neurri batean kuestionatuta egon daiteke, nahiz eta, aurretik komentatu dudana bezala, elkarte batzuk iritzi ona izan proiektuarekiko. Beste batzuk ez dute lehentasunezkoztat jotzen, eskaintzen zaizkion baliabideak gehiegizkoak direla pentsa dezakete, beste proiekturen batean erabil zitezkeela, baina ezin dute gauza handirik esan, ez delako politikoki zuzena eta botatzen dutenek mahai gainean jartzen dutena da baliabide gehiegi eskaintzen ote zaion. Oraingo zuzenaren oraindik ez dira iritsi, ni orokorrean nahiko gustura nago elkarrekin. Bestetik, proiektua, gu, erakunde publikoen diru laguntzetatik bizi gara. Orain diru-laguntza bat daukagu, Kutxarena, ez da erakunde publikoa, baina, batez ere Foru Aldunditik bizi ginen lehen, bakarrik, eta orain ia beste baliabide batzuk daukagu. Hor dibertsifikazio horrek edo bi iturri edukitzeak, horrek nolabait bermatu dezake etorkizuna gehiago]. Hori batetik. Gero, bestetik, gure diru-laguntzetatik bizi gara hein handi batean, nahiz eta orain bultzada handi bat eduki dugun, zeren eta Kutxa proiektuan inplikatu da, diru-laguntza handi xamarra izan da eman duena, eta horrek, beno, ziurta dezake pixka bat etorkizuna, baina, ez dakit. Foru Aldundiak ez dira egonkorrak, ez dizute jarraitasun bat ematen, gainera, orain maiatzean hauteskundeak datoz, gauzak aldatu litezke eta sartzen den berriak, sartzen bada, esan dezake, "zertarako hainbeste diru pilotari? Emango diogu padelari" eta, orduan, bada, hori gertatzen bada, proiektua pikutara joango litzateke. Hortaz, nik uste dut ez dagoela batere sendo, ez dagoela batere egonkor kontua.~~

Eta, nola iruditzen zaizu ikusten dela emakumeen pilota jendartean? Zer jasotzen duzu jende artetik emakumeen pilotaren inguruan?

Nik uste dut jendartean, ondo, harrera ona eduki duela, eta, beno, emakumeek eta neskek kirola egitea gero eta hobeto ikusten da, nire ustez, batzuk agian egingo dute itxurakeriagaririk, esan behar delako, baina, beno, esaten dute eta hori ez da gutxi. Nik uste dut jende artean ondo ikusita dagoela eta harrera ona dela. Are gehiago, ia zenbait

lekutan esaten ari gara, noski, gure proiektua palara mugatzen da, nahiz eta eskola adinean lehiaketa batzuk eskuz egiten diren, proiektua palara mugatzen da eta leku askotan, edo batzuetan, behintzat, esaten da, “zergatik ez eskua?” Azkena izan zen zesta punta, “zergatik ez zesta punta? Guk zesta puntan hasi nahi dugu neskekin”. “Eta, beno, bada, bale”. Hori esanguratsua da nire ustez. Orokorrean nik uste dut ondo ikusten dela neskek pilota praktikatzea.

Beste ataltxo batetara pasatuko gara. Uztea, edo kirol hau hartzea. Uztea edo horren inguruko gogoetarekin hasteko edo, zergatik iruditzen zaizu aukeratzen dutela pilota neskek? Edo, ez dutela hautatzen?

Ez dakit, arrastorik ere ez. Pentsatzen dut erakargarri egiten zaielako, ez dakit zergatik. Erakargarri egingo zaie, dibertigarria izango da eta ez dakit... Teknikari onak dauzkagu eta asko motibatzen dituzte, eta orduan, halako zer edo zer izango da, zeren eta, egia esan, beti esaten da, kirolak, asko aukeratzen dira ikusten diren kirolak, baina, noski, nesken paleta ez da inon ikusten, ez telebistan ezta hedabideetan ere, nahiz eta lehen esan dudan hasi garela ikusten. Baina, beno, hasi bai, baina egunkarietan-eta nekez ateratzen da neska bat paletan jokatzen, argazki bat behintzat. Pentsatu nahi dut izango dela gure teknikariak ondo ari direla eta, gero, ez dakit, ahoz ahokoak ere asko egingo du. Tradizioak, ohiturak sortzea ere, tradizioak ohiturak baino gehiago, izango da, adibidez, Hernaniko kasua. Hernanin gaur egungo kirol eskaintzan errotuta dago pala, neskatila guztiek badakite palan jokatzen dela, eta, orduan, beno, bada beti ere errazagoa da. Ez dakit, Eibarren neskek ez dute palan jokatuko, zergatik? Ez dagoelako, baina, beno, kirolean asko gertatu da hori nire ustez. Herrian baldin badago ero bat, kirol bat gustatzen zaion ero bat, eta horrek lan egiten badu eta, sortzen badu, harra pizten badu, eta lan egiten badu, bada, errazagoa da, errazagoa da. Eta, gero, behin probatuta nik uste dut polita dela, polita dela palan jolastea. Ez da zaila, ez da hain zaila nire ustez, eta dinamikoa da, polita da.

Zuk esango zenuke, beste kirolekin alderatuta, arrazoi berezirik badagoela pilota aukeratzeko? Adibidez, futbolarik eta saskibaloiak azken urte hauetan gorakada izugarria eduki dute.

Futbola, futbola delako, ez dakit zergatik, ez da oso arrazonamendu zientifikoa, baina, futbola futbola delako, hori argi dago. Eta, nire ustez, futbola polita da, hori ez dut ukatuko, eta futboleko jolastea polita da. Baloi bat hartu eta ez duzu gehiago behar, eta polita da. Saskibaloiak nik uste lan ona egin duela; oso mediatikoa ere bada, asko lagundu diote, baina, ez nesken saskibaloiarik konkretuki, mediatikoki, baina, nik uste dut lan ona egin dela, lan ona egin da. Ez dakit federazioak, klubak, baina, lan ona egin dela. Eta, gero, nik uste dut, beti esaten da, ez dakit egia borobila den, baina, nire ustez egia asko dauka, bada, lagun arteak ere asko egiten du. Ez dakit, nik nire alabarengan ikusten dut. Nire alaba judoan hasi zen, bera bakarrik eta lehenengo urtean hortxe, gutxi gorabehera, gero lagun batzuk hasi zitzaizkion, eta gaur egun gusturago joaten da. Zergatik? Lagun artea daukalako, nire ustez. Lagun arteak asko egiten du eta lagun arteetan, bada, beno, lagun arteak zergatik jotzen du batera edo bestera? Bada, pentsatzen dut lagun artean liderrak egongo direla, orduan, liderrak markatuko duela, eta, beno, horrek ere asko egingo duela. Ez dakit, oso gauza konplikatuak dira, eh, galdera hauek ia ez dira hain errazak, hasierakoak errazagoak ziren.

Eta, iruditzen zaizu, hautaketa arrazoiak, oso garbi ez edukiagatik ere, ezberdinak izan litezkeela mutilen eta nesken artean? Mutil batek pilota aukeratzeko izan ditzake ez dakit zenbat arrazoi, edo/eta neskek arrazoi berak dauzkatela iruditzen zaizu?

Nik uste dut ez dagoela alde handiegirik. Batetik, eskaintza hori egotea, lehenengo lana, gauzarik garrantzitsuena, eskaintza edukitzea zure herrian, zure ikastolan, zure ikastetxean, eskaintza hori eskura edukitzea; gero, errotuta izatea edo, hori, arrakastatsua izatea herri horretan. Ez dakit, pentsatzen dut Azpeitian jende guztiak saskibaloia egingo duela, Azpeitian ez du softball egingo jendeak, ez, hori argi dago. Gero, hori, lagun artearena, nire ustez, hori ere oso garrantzitsua da, eta, gero, behin probatuz gero dibertigarria izatea, ondo pasatzea ere bai, baina, mutiletan eta nesketan. Nik ez dut uste gauza... Beno, mutiletan egon daitezke, horrez gain, ez dakit, erabaki horiek indartuko dituzten gauzak egon daitezke. Bada, hori, mutiletan, bai, egon daiteke profesionala izatea, Irujo bat izatea nahi izatea, eta horrelako gauzak egon daitezke, hori, laguntzen dutenak mantentzen, edo zure hautaketa mantentzen, edo igual hasierako hautaketa egiten, baina, nik esango nuke ez dagoela alde handiegirik.

Eta, arrazoiekin segiz, iruditzen zaizu proiektuaren aurretik, Emakumea Pilotari martxan jarri aurretik, eta ondoren, arrazoiak berdinak izan litezkeela aukeratzeko? Alegia, lehen, 2001ean gustatzen zitzaizolako aukeratzeko bazuen, bada, 2007an aukeratu duenak joera berdina daukala, edo aldatu egin dira?

Bai, nire ustez berdinak izan daitezke. Pixka bat ezagunagoa baldin bada, eta uste dut hori badela, orduan, arrazoietako bat jotzen dut egotea, edo taldetxo bat egotea. Lehen esan dudana, Alizon, bada, Alzoko neskatilek orain errazago hautatuko dute pala lehen baino. Zergatik? Bada, badagoelako ya, talde bat dago, martxan dagoelako, ikusten dituelako, ikusten duelako ondo pasatzen dutela, haren lehengusua da eta lehengusuak kontatzen dio, "izugarri ondo pasatzen dut palan" eta, orduan, bada, eragingo du. Baina, aukeratzeko arrazoiak berdinak izango dira, ez dakit nola esan, izango da talde bat dagoelako, ondo pasatzen dutelako,... Orain, hedatuagoa dago, ezagunagoa da, beraz, pixka bat gehiago badago, aukera handixeagoa badago.

Eta, nola iruditzen zaizu bultzatu beharko liratekeela neskek-emakumeak pilota mundura? Beraien hautaketa horretan imajinatu, "futbola, saskibaloia,... ez, nik euskal pilota nahi dut". Estrategiaren bat bururatzen zaizu?

Hori da gure lana, ezta? Ez daukagu errezetarik, bestela aplikatuko genuen. Ez, ez, uff, hori da pixka bat gure lana, estrategiarekin asmatzea eta frogak egitea, eta, hori...

Baina, oraingo ildotik behintzat segiko zenuke, edo...

Bai, beno, pixka bat igual sustapena egiteko modua aldatzen ari gara edo saiatu gara, edo nik uste dut, igual, hor pixka bat esperimentatu egin behar dugula. Baina, nire ustez, estrategia da, edo beharko luke nire ustez, herrietan ikuskizun egitea, alegia, sortzea, ez baldin badago sortu, eta sortzearekin batera, jendeak ikustea hor dagoela eta horrek erakarriko dituela. Baina, hori nola lortuko den? Zein den estrategia ez dagoen lekuan sortzeko? Bada, beno, hori, nolabait sustapena, ez dakit, pentsatzen dut ikastetxeetan, neskatila guztiak ikastetxeetara joaten dira, orduan, pentsatzen dut hortik jo behar dugula. Ikastetxeetan nola? Hori ez dakit. Nik uste dut, baina ez honetan bakarrik, pilotan, nik aspaldi, unibertsitatean daukagun lagun bati, askotan esan diot, nire ustez,

loritu beharko genukeela pilota curriculumean txertatzea, soin hezkuntzako curriculumean txertatzea. Nik uste dut hori aurrerapauso handia litzatekeela, zeren eta orduan ezagunagoa egingo genuke, jendeak ia praktikatuko luke, probatuko luke gehiago edo gutxiago gustatzen zaion, balio duen edo ez duen balio,... Hori lortuko bagenu nik uste dut aurrerapauso handia egingo genukeela. Orduan, helburuetako bat hori da azken urteetan, unitate didaktiko bat sortzea eta gero hori saltzea, baina, beno, oraindik sortu egin behar dugu, hasi egin behar dugu prozesu horretan. Orain, nik uste dut hori oso garrantzitsua izango litzatekeela. Gero, dagoen lekuetan gauzak ondo egitea, eta gauzak ondo egiteko teknikari onak egon behar dira eta erremintak eman behar zaizkio, eta horretan ere ari gara pixka bat, erreminta sortu dugu, metodologia bat sortu dugu gauzak ondo erakusteko, teorian, dauden teknikariei formakuntza eskaintzen hasi gara, baina, ez da erraza. Denok dakigu zein adinetako jendea dabilen, zenbateraino daukaten denbora honetarako, zenbateraino borondatez ari diren, edo oso gutxi kobratu eta zenbateraino behartu dezakezun, zenbateraino dauzkagun guk baliabideak horien gainean egoteko eta horien jarraipena egiteko,... Baina, hori, azken batean dagoen lekuetan gauzak ondo egitea eta ez dagoen lekuetan sortzea. Eta, sortzeko, bada, lehen esandakoa.

Eta, uzteko eta hartzeko prozesu horretan eragile gehiago ere badaude. Besteak beste, lehen aipatu dituzun hedabideak. Zer iruditzen zaizu hedabideen jarrera? Zer uste duzu, laguntzen dutela, ez dutela?

Hedabideek ez, beno, aipamen bat egiten duten aldiro laguntzen ari dira, baina, aipamen horiek egitea oso nekez lortzen da, lan handia egin behar da, oso “plasta” jarri behar da beraiekin, batzuetan baita borde xamar ere, zer edo zer lortzeko. Nik uste dut zenbaitetan pertsonarekin topatzea dagoela, kazetari/pertsona hori inplikatzeko bada, edo emakumea delako, edo informatzeko besterik ez daukalako, edo dena delakoagatik, bada, hartu dezake, baina, orokorrean ez dut uste hedabideen informazio estrategian, orokorrean, emakumeen kirolaz informatzea dagoenik, ez dut uste asko dagoenik, ez baldin bada oso-oso mediatikoa zarela. Edurna Pasabanek ez dauka inongo arazorik hedabideetan ateratzeko, Josune Bereziartuk gehiago baina ez hainbeste, eta azken aldi honetan futbolekoak, baina, klaro, Real eta Athletic dira.

Hedabideak, orokorrean, oso goi-mailara, elitera begira daude, goi-goi mailaz informatzen dute eta, zoritxarrez, pilotan goi-maila profesionala da, goi-maila gaur egun dira eskupilota, Asegarce eta Aspe, punto, horiek dira. Eta horiek bai, badauzkate kontaktuak, horiek mugitzen dute, baina, gainontzekoan, ez dut uste hedabideak, nik uste oraindik oso urruti daudela.

Eta, erakundeen jardueraz? Diputazioak, udalak, pilota federazioak,...

Beno, hor nik uste dut gauzak errazagoak direla, hor nik uste kontzienteagoak direla. Zergatik? Lehen esan dizudana, uste dut lehen aipatu dudala, batzuk behartuta, edo tokatzen delako, edo politikoki zuzena delako, baina, ez zait interesatzen hori, berdin zait. Beno, berdin zait, nahiago dut horregatik ez izatea, baina, nahiz eta horregatik izan, guk Diputaziora jo genuenean emakumeen proiektu batekin, bada, noski, atea zabalik eta 10 udaletxeetara jo genuenean bakar batean esan ziguten ezetz, eta ez emakumeena zelako, baizik eta hango pilotarekiko esperientzia ez zelako ona, hango pilota elkartarekin esperientzia oso txarra zeukaten, orduan, “pilota ahaztu hemen, alde hemendik”. Orain joaten garen udaletxe horietan neskak, emakumeak, pilota,

emakumeen kirola entzuten dutenean errezeptiboak dira, harrera ona izaten da. Zergatik? Kontzientziatuta, edo tokatzen delako? Beno, nik uste dut horretarako badela momentu egokia. Kutzarena jo genuenean ere, emakumeena zela eta bai, noski. Joan izan bagina ez dakit beste zer proiektuekin, bada, atea itxiko ziguten. Nik uste dut horretarako momentu egokian gaudela. Une honetan ez, krisi famatu hori dela eta ez dela, baina, gainerakoan, nik uste dut momentu ona dela emakumeen kirola saltzeko.

Lehen batzuk aipatu dituzu, behintzat, eta pilota elkarteen jarreraz ere galdetu nahi nizuke. Esan duzu nahiko gustura zaudela.

Bai, nik uste dut, beno, hor denetatik dago, batzuk, nire ustez, ikusi dute irtenbide bat edo jorrazteko eremu bat ikusi dutela eta gustura hartu dutela, eta ari dira, inplikatzan ari dira. Beste batzuk guk eskatuta edo guk pixka bat xaxatuta, heldu diote, ondo, baina, beno, nik uste beste batzuk ikusten dutela baliabide gehiegi eskaintzen ari direla proiektu bati, baina, horiek ere, hala ere, botatzen dute, esaten dute, komentarioren bat uzten dute, baina, ezin dute gogorregi egin, zergatik? Lehen esan dudanagatik, zorionez, gaur egun, lortzen ari da borroka hori, etekinak ematen ari da, emakumearen presentzia gizartean behar duen lekua lortzeko bidean da, eta hori jendeak asumituta dauka, horri ezin zaiola ezetz eman, oso gaizki gelditzen zarelako. Nahiz eta ez sinetsi ezin duzu publikoa, erdi-publikoa, baldin bazara ezin diozu ezetz esan, beraz, bueno. Gutxienez ez digute trabarik egiten eta, batzuk, kolaboratzen dute, ni pozik nago.

Pilotarien kasuan, adibidez? Bai parte hartzen dutenak edo parte hartzen ez dutenen jarrera nolakoa iruditzen zaizu?

Nik uste dut, beno, normalean, nik uste dut gazte jende asko dabilela eta gazte jendea, normalean, isila da. Nik ez daukat harreman handiegirik ere beraiekin, batzuetan ikusi ditut, noizbehinka, baina, beno, teknikariei ere entzuten diedana, guk pilotarien batzar bat urtean bitan edo elkartzan dugu, baina, ez da oso handia. Emakumeen Batzorde bat daukagu, non elkarteak ordezkaturik dauden eta pilotarien ordezkariak ere badaude, eta, beno, beti eduki ditugu hor pilotarien ordezkariak, baina, nik uste dut kosta egin zaigula jendea erakartzea, edo jendea etortzen denean, hor ia pertsonak dira, batzuk parte hartzen dute, baina, beste batzuk iritzia emateko garaian ez dute parte hartzen, baina, beno, nik uste dut, orokorrean pozik daudela. Ez dakit, ni beldur naiz, baina, hor ia sartuko nintzateke “abuelo Cebolleta”, gaur egungo gizartean oso gure zilborrari begira bizi gara gehientsuenak eta hori ere hala da. Orduan, beno, bada, beraiantzako ona den heinean oso ondo, baina, pixka bat gehiago inplikatu edo parte hartu behar bada, esango nuke horretarako ez daudela gehiegi.

Azken eragile bezala, besteren bat okurritzen ez bazaizu, ikusleak aipatuko nituzke. Bai ikustera joaten direnak, edo joaten ez direnak.

Ikusleena nik uste dut oso borroka zaila dela. Nik uste dut jendea ikustera joaten denean jarrera ona daukala, zorionez, pilotan, eskupilotan-eta ikusten da hooliganismoa, gero eta gehiago, baina, gurean ez. Gurean horrelakorik ez dago eta joaten den jendeak nik uste jarrera ona daukala. Ez dut uste gehiegi ulertzen duenik, ez dago jende gehiegi asko ulertzen duena, tanto politik txalotzen ditu, baina, beno, ez dakit zenbateraino jabetzen den jokoan non dauden hutsuneak, zergatik orain hobeto, pilota aldatzeak zergatik, baina, hori normala da igual, ez dago “zera” handiegirik oraindik.

Kopuruaz hitz egiten badugu, lehen esan dut, nik uste dut hori ere oso orokorra dela gaur egun. Nik entzuten dudanez, futboleant ere oso jende gutxi joaten da, kasu konkretu batzuetan bai, bada, hori, besterik ez dagoela eta... Azkoitian, bada, igotzeko dagoela taldea eta joaten dira, baina, normalean, ikusleen kontua... Orain, Ordizian, Ordizian beti egon da errugbi zelaia, baina, duela bi urte ez zen inor joaten, edo 50 lagun joaten ziren partidua ikustera, eta nik uste dut hor arazo handi bat dagoela, telebista. Telebistak gero eta eskaintza zabalagoa du, futbol eskaintza zabalagoa du, baina, beno, beste kirol batzuk ere bai, eta bat-batean hasi, beno, bat-batean ez, baina, joan den astean uste dut egunero bota zutela futbola. Lehen jendea ateratzen zen kirola ikustera, ni nire aitarekin joaten nintzen eta Sallekoren eskubaloi partiduan beti zeuden 200 lagun-edo, baina, orain joan Egiako partidu bat ikustera eta hiru egongo dira: novia batzuk, nobio batzuk, amaren bat osasunez ondo baldin badago, eta... Orduan, hor? Borroka horretan nik uste dut batezbestekoan gabiltzala, ez dugu ez gora eta ez behera egiten, gauza normala dela. Orain, gaur egun ikusleak erakartzea zaila da, instalazioetara-eta ez da erraza, zeren eta jendeak gauza asko dauzka egiteko, gauza asko dauzka egiteko edo bakarra du egiteko, telebistaren aurrean egon, baina, aisialdia beste modu batean bizi da. Ikusle izate hori uste dut, beno, joaten direnak direla pilotariekin harreman zuzena daukatenak eta gauza gutxi gehiago.

Lehen esan duzu, adibidez, Hernani batean oso errotuta dagoela eskola kiroleko egitarauetan bertan ia neskak paleta aritzeko aukera hori. Zuk uste duzu herri batean edo beste batean jaiotzeak, edo hiri batean jaiotzeak, eragiten duela hautaketa horretan? Alegia, ni Hernanin jaio naiz eta badakit 8-9 urterekin eskaintza bat izango dudala, ni Legazpin jaio naiz... Eragiten du? Nola iruditzen zaizu eragiten duela?

Bai, dudarik gabe. Batetik, eskaintza baldin badago eta ez baldin badago. Eskaintza baldin badago aukera badaukazu hartzeko; eskaintzarik ez baldin badago ez daukazu. Donostian jaio baldin bazara, 8 urteko neskatila baldin badaukazu, aseguratzen dizut nik palan ez duela egingo, 5000tik 1ek egingo du igual gaur egun. Baina, Hernanin bai. Eskaintza egon edo ez egon, hori da lehenengo eragiteko modua. Eta, gero, bestea, bada, nik uste dut, gauzak ondo egin edo ez. Gauzak ondo egiten direnean aukera gehiago daukazu hartzeko edo ez. Gauzak ondo egin esan nahi dizut, bada, bai marketin aldetik, jendeak ezagutzea egoteaz gain, ezaguna izatea herrian, eta, gero, gauzak ondo egitea da eskaintzen duzuna dibertigarria izatea, baina, gurasoak ere zaintzea. Gurasoak nik uste garrantzitsuak direla. Gurasoak pozik baldin badaude errazago lortuko dituzu, ez dakit, izena hobetzea eta. Gurasoak gustura egoteagatik ez duzu lortuko neskatila mantentzea, edo kirol horretan mantentzea, ez, neskatila aspertzen bada aspertuko da eta ez dut uste inongo gurasorik, beno, bakarren bat bai, egoskortuko denik palan jarraitu behar duzu, tenisean jarraitu... Futboleant bai, igual egoskortuko da, baina, palan jarraitzeko ez dut uste egoskortuko denik inor. Baina, gurasoak gustura baldin badaude, neskatilak gustura baldin badaude, bada, beno, etxean ere gustura egongo dira eta jarraitzeko motibo gehiago izango da, gurasoak inplikatu dira, zabalduko dute, beste gurasoei esango diete “gauzak ondo egiten dira”, eta, orduan, nik uste horiek direla.

Eta, iruditzen zaizu kulturak eragin dezakeela? Alegia, kirol tradizionaletan sartzen da pilota, eta gurea izate horrek ematen dio halako plusik hautatzeko?

Nire ustez ez. Gaur egun ez. Kirolarien eta neskatilen eta gurasoen hautaketa horretan ez. Horrek ematen digu guri, igual, guri esan nahi dut federazioei, abantaila bat

instituzioen aurrean, erakundeen aurrean, hori saltzeko garaian, gurea dela-eta, baina, jendearen hautaketa egiteko garaian ez.

Eta, ikasketa mailak? Bai gurasoenak, bai emakume batek aisialdiko ikastaro batean parte hartzeko eragin dezakeela iruditzen zaizu?

~~Uff... beno, askorik ez dut uste eragingo duenik, baina, gurasoen ikasketa mailak agian bai, baina, ez pala aukeratzeko.~~ Kirola egiteko, kirola praktikatzeko, bai. Ez dakit, zer nahi duzun zuk zure seme-alabentzat, edo zuri bost axola bazaizu eta ez badiozu jaramonik egiten zuri semeari edo zure alabari, bada, kalean ibiliko da, ez du ezer ere egingo eta horrela, eta horrek nik uste horrek badaukala zerikusia ikasketa maila edo ezagutzarekin, edo horrekin bai. Zuk bultzatuko duzu nolabait pianoa egitera, edo musika, edo panderoa, edo zuk bultzatuko duzu horrelako ekintzak egitera, eta ez egotera kalean, ez dakit, hooliganarena egiten. Maila horretan bai, baina, hortik aurrera, nik uste pala aukeratzea, edo saskibaloia aukeratzean ez; baina, kirolerako hautua egitea edo eskolaz kanpoko jarduera arautuak aukeratzeko garaian bai.

Eta, beno, ni iritsi naiz azkenera. Azken galdera egingo dizut, eta, gero, lasai luzatu iruditzen bazaizu zerbait gelditu zaizula esateko eta ez dizugula aukerarik eman. Galdetzea nahi eta galdetu ez dizugunik ba al zen? Gaineratzeko zerbait badaukazu?

Ez, nik uste nuen galdetuko zenuela ea zergatik uzten duten, ez dakit zergatik, baina, ez dakit, ez zait bururatzen egia esan.

Zergatik uzten dute? Orduan, galdetuko egingo dizut.

Hori ere oso zaila da, hori seguru tesiak-eta egongo direla horri buruz, doktoradutza tesiak egingo ziren horri buruz, emakumeez eta pilotaz ez, baina, emakumeez eta kirolaz eta gizonezkoak eta kirolaz ziur baietz.

Nik ez dizut ezer berririk esango, “obviedades” esaten dena gazteleraz. Bada, betikoa, beste gauza batzuetan pentsatzen hasten direlako, edo ikasketa-mailak pentsatzen duelako ez diola tarterik utziko, oso gaizki pentsatuta dago hori, hori da nik sekula ulertu ez dudana, edo zigortzea umeak kirolera joan gabe gaizki portatuz gero, horrelako gauzak sekula ez ditut ulertu, espero dut nik horrelakorik ez egitea. Nik beti irakurri dudana horrelako argudioak dira, eta nesken-emakumeen kasuan, lehiaketa ereduakin konforme ez egotea. Esaten dute lehiatzea ez zaiela hainbeste gustatzen, ez dakit, hori ez daukat hain garbi. Ez daukat nik hor, hori zuek esan behar diguzue, guri esan zer egin behar dugun hori gerta ez dadin.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-04-01

Lekua eta ordua: Donostia, Kirol-Etxea, 10:45

Izen-abizenak: Eneko

Zer iruditu zaizu elkarrizketa?

Nik uste erantzunetan 2-3 ideiei heldu eta bueltak eman eta eman eta eman eta gauza antzekoak erantzuten ote ditudan. Bestela, galderak eta nahiko konpletoa, iruditzen zait

gauza dezente jorratzen direla, eta, beno, aukera ematen zuela ondo azaltzeko proiektua, ideiak, zer pentsatzen duzun, zer pentsatzen dudan.

Ados al zaude elkarrizketa honetan esandakoekin? Zatiz zati ala orokorrean aztertzea duzu nahiago? Baieztatzen al duzu bertan esanikoa?

Esandakoekin bai, beno, bakarren batean pentsatzen dut agian ez nuela, ez nuela horrelakorik esan behar, baina, beno. Hondarribiko kontuak, zer irizpide erabili ziren hautatzeko garaian, hor nik uste pixka bat “patinatzen” dudala. Hondarribiko hor soberan dago.

Aldatu liteke nahi baduzu

Eta, gero, hau azken finean zer da zuretzako bakarrik, edo ez?

Nik hemendik ondorioak aterako ditut, 6 elkarrizketatuen iritziak jaso eta kategorizazio baten barruan nolabaiteko sailkapen moduko bat egin eta nik hortik ondorioak ateratzeko da. Zerbait kendu beharra dagoela iruditzen bazaizu kendu egingo dugu, eh.

Ez, ez, ez, ez.

Zure izenik ez da azalduko.

Ez, niri izena igual zait, baina, federazioko norbait azaltzea esanez, hori nonbait agertzen bada, “federazioak zergatik aukeratu zituen herri batzuk edo zer irizpide izan zuen herri batzuk aukeratzeko garaian?”. Hor bat da “ezin zutelako ezetzik esan” eta hori pixka bat, horrela, ez dakit oso salgarria den. Estrategia bat izan zen, hori hala da, baina... Eta, gero, Hondarribikoa behatza zauri batean sartzea bezala da, ez dakit nik esan daitekeen ere ez. Ez dut aldatuko. Gero, zenbait gauza, bada, hau osorik aldatuko nuke.

Alda dezakezu, eh.

Ez dakit zenbateraino, aldatuko nukeen.

Nik jasoko dut “hau esan dit lehenengoan eta hau esan dit bigarreanean”. Informazioa da niretzat

Nik gauza pare bat aldatuko nituzke, gauza batzuk, “koletilla edo muletilla” asko hor soberan daude, baina, beno.

Nik bat-batekotasunaren kontuak ez nituzke aldatuko, baina, idatziz hobeto erantzungo nuke. Nik niretzako ikasgai bezala hartuko nuke, ez hasi erantzuten “rra-rra-rra”, ez, ez, ez, egituratu papertxo batean, zer esan nahi dudan, “pun-pun-pun-pun” minutu bat hartu eta erantzun, ez dakit, ahal dela horrelako zerbait egin.

Bertan esandakoa baieztatuko zenuke?

Hein handi batean bai. Batzuetan iruditzen zait kontraesana egon dela, ez oso handiak, baina, beno, badago bakarren bat nahiko nabarmena.

Zerbait gehiago esan nahiko al zenuke? Zerbait bururatu al zaizu elkarrizketa egin genuenetik tarte honetara bitartean? Esan gabekorik ba al da?

Ez, lehen esan dizudan hori bakarrik, proiektuaren ingurukoa. Nik uste dut hor gauza pare bat gelditu zirela benetan azaldu gabe.

LANDA-EGUNEROKOA

1.elkarrizketan

- Eroso eta lasai zegoen, beti bezala prestutasunez jokatu zuen.

Berrikustean

- Oso atsekabetuta zegoen bere hitz egiteko moduarekin, ez omen ditu esaldiak bukatzen, lotsa ematen omen zion irakurtze hutsak. Batetik hizkuntza maila aipatzen zuen eta bestetik esaldiak osatzeko moduarekin.

- Lotsatuta zegoen, euskara maila, dena nahasita zegoela argudiatzen zuen.

Elkarrizketa data: 2011-03-17

Lekua eta ordua: Gune taberna (Hernani), 18:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Ibone

Adina: 45 urte

Jaioterria: Donostia

Bizilekua: Hernani. 1992-96 artean Oiartzunen

Pilota elkarte: Hernani K. E.

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: informatikan lizentziatua

Lanbidea: irakaslea. Enpresan ere aritu izan naiz, programatzaile bezala egon nintzen 4 urtez.

Gogoratzen zara noiztik daukazu kirola egiteko interes hori?

Nik betidanik, txikitatik. Gertatzen dena da gure garaian ez zegoela ez talderik, ez zegoela ezer, baina, gu, lagunak, frontoiaren inguruan biltzen ginen, teniseko pilota hartu eta askotan herri guztia pasatzen genuen. Gertatzen dena da Hernaniko frontoian beti mutilak tope, eskuz ere ibiltzen ginen, eta bizikleta hartu eta joaten ginen Ugaldetxoko frontoira, Astigarragan arkupean ere ibili izan gara, udaran ibiltzen ginen bizikleta hartu eta, “ea, non dago libre?”. Denbora pasa, gure artean, 14-15 urterekin edo horrela.

Eta, pilotaz gain beste kirolen bat egin izan al duzu?

Bai, ni 12 urterekin hasi nintzen eskubaloia egiten. Hemen ere ez zegoen talderik, beno, zegoen taldea nagusia zen, eta bi sartu ginen nagusien taldean entrenatzen, bakarrik entrenatzen, eta ez zegoen ekiporik eta ni Lasartera joan nintzen jokatzera. Hori, ba, 13-14 urterekin, kadete mailan Lasarten ibili nintzen. Gero berriz ere Hernanira eta beti ibiltzen nintzen ni baino urtebete zaharragoa zen jendearekin. Nik egin nuen Lasarte, Hernani, Aieten urte bat, gero Bidebieta, Bidebietatik berriz Aietera eta, azkenean, 18 urterekin, Hernanin sortu zen taldea eta Hernanira etorri nintzen. Federatuta 10 urtez egin nuen eta monitore titulua atera nuen bitarte horretan. Ikusirik niri zer gertatu zitzaidan, esan nuen “hemen norbaitek erakutsi egin behar du”, eta monitore titulua atera nuen. 6 urtez ibili nintzen ikastolan erakusten, eskolarretan, hasi zenean. Benjaminak, alebinak eta infantilak eta entrenatzaile bezala egon nintzen Urnietan ere, kadete mailan, lanak utzi zidan arte. Laneko ordutegiarekin, orduan enpresan nengoen, lanarengatik utzi behar izan nuen.

Kirola, eskubaloia, egin nuen karrera egiten hasi nintzen arte. Informatika oso zaila, ez nuen utzi nik ez entrenamendurik ez ezer ere, eta ailegatu zen 4. maila eta orduan “hau bukatu behar dut” esan eta utzi egin nuen. Eskubaloia utzi nuen, federatu mailan “primera nazionalen” nengoen eta ezin nuen. Bi urtean aukeratua egon nintzen gora joateko, baina, horrek suposatzen zuen igandero kanpoan egotea eta nire karrerak eskatzen zidan denbora asko ikasteko eta esan nuen, “ya utzi egingo dut”. Bi urtean aukeratu ninduten, baina, esan nuen “ez, ez”. Urtebetean utzi egin nuen, hasi nintzen nire kabuz, kiroldegia zegoen, baina, gaizki, eskolan gaizki, jendearekin gaizki,... Urte

hori pasa eta gero suertatu zen, esango dizut gainera, 1990eko maiatzaren 18ean, datu zehatza, egin ziguten bilkura bat Intxaurrondon, neska pilotariena. Hori nondik dator? Bada, esango dizut. Hori Itxarok esango dizu zehazki gehiago. Gipuzkoako pilota federazioak neskentzat txapelketa bat antolatu zuen, urte horretan uste dut zela, baina, 18 urtetik beherakoentzat eta Itxarok osabak-eta pilotariak zituen eta bera ere ibiltzen zen. Ah, beno, ahaztu zait esatea ikastolan, Urumea ikastolan genbiltzan, urtero antolatzen zuela pilota txapelketa bat ikastolak berak. Orduan, nik uste 12 urterekin, 13-14 urtera arte, bai, 6. mailatik 8.era txapelketa jokatzen genuen ikastolan. Hortik atera gara gehienak, hortik ezagutzen genuen elkar. Eta oraindik ere jarraitzen du hori egiten ikastolak, orduan, urte asko daramatza, pentsa, nik 12 urte neuzkanean, bada, orain dela 33 urte edo ez dakit zenbat, egiten dela. Hernanin hori egiten duen ikastola bakarra da.

Lehen esan duzu 1990ean hasi zinela pilotan, federatua? Aurretik ibiltzen zinen zure kasa?

Bai, federatuta bai. Lagun artean ibiltzen ginen, eta ikastolak antolatzen zuen txapelketan. Pentsa, deitu ziguten, Itxaro joan zen federaziora, Manuel Andueza zegoen orduan, eta esan zion, “ea, nik ezagutzen dut neska pilotari pila bat, baina, 18 urte baino zaharragoak gara”. Orduan, hortik gorakoentzat konbokatu zuten txapelketa, idatzita zegoen, gainera egunkarian atera zen, eta, orduan, kontu horrekin, Eba ere sartu zen orduan, uste dut, ez dakit, selekzio espainolarekin, azaldu zen esanaz neskek ez zutela pala egiten, horrelako zer edo zer adituta daukat nik, uste dut, eta idatzi bat egin zuen berak eta, beno, testuinguru horretan bildu ginen Intxaurrondon. Bildu ginen Bakarne, Amagoia, Mikele, Maier, Aiora ere bai, ni, Itxaro, gero beste asko bidean geratu zirenak, baina, jarraitu dugunetatik horiek bildu ginen. Orduan, bildu ginen, nik azterketa neukan eta esan nuen “fuera azterketa”, pentsa nola neukan burua, joan nintzen, larunbata zen, eta gogoratzen naiz gainera zer azterketa neukan. Han bildu ginen, noski, gu hara joan Hernaniko beste batzuekin batera eta hara ailegatu eta mazizarekin eta “joe, gu bizitza osoan beti teniseko pilotarekin ibili gara”. Eba eta Olaizolatarrak mazizarekin aritzen ziren, baina, proba bat egin genuen eta, beno, hurrengo astean txapelketa hasi zen eta, orduan, lehenengo txapelketa hala izan zen. Ez dakit zenbat bikote ginen, 4-5 bai, 4-5 bai.

[Blog-ean ipini nuen hasierako aipamen bat: http://blogak.dobera.com/paletariak/2007/05/18/gaurko-egunez-orain-dala-17-urte/](http://blogak.dobera.com/paletariak/2007/05/18/gaurko-egunez-orain-dala-17-urte/)

Edukia hauxe da:

[Gaurko egun batez 1990. Maiatzaren 18 an INTXAURRONDOKo frontoian bildu ziran hainbat neska pelotan jokatu nahian. Bildutakoak Aia \(Eba, Oskia\), Aizarna \(Mikele\), Altzo \(Monika, Maier\), Donostia \(Aiora, Marina,..\), Hernani \(Itxaro, Ixabel, Marta, Ibone\), Goizueta \(B. eta A. Olaizola, D. Barriola\) herrietatik etorritakoak izan ziran.](#)

[Gipuzkoako federazioan Manuel Andueza lendakaria zalarik martxan jarri zan 1. Emakumeen arteko paleta txapelketa. Ordu ezkeotik urtero antolatu dute Gipuzkoako txapelketa.](#)

[Finala ekainean jokatu zan ATANO III frontoian eta Goizuetarra eta Aiatarren arteko lehia izan zan. Txapeldunak uste det Aiatarrak izan zirala.](#)

Eta, zuk zergatik uste duzu hasi zinela pilotan? Bakarren batek izan zuen eraginik zu pilotan hasteko? Ez dakit, aitak, edo etxeko norbaitek, edo lagunuen batek,...

Ez, etxean inork ere ez. Ikastola Tilos parean genuen, inguruan, orduan jolas garaian frontoia genuen eta gu han hasi ginen palarekin. Inork ere ez nau bultzatu pala egitera, niri gustatzen zitzaidan. Beno, ni beti oso mugitua izan naiz eta bat edo bestea, bada, esan nuen, “bada, pala”.

Eta, bilera hori, esan duzu hortik hasi zinela... Nondik iritsi zitzaizun informazioa? Zuregana jo al zuten?

Uste dut Itxarok deitu zidala edo, Martak bestela. Hura eskubaloian ere ibiltzen zen eta hura ere palan zebilen. Biltzen ginen herriko batzu-batzuk, eta Itxaro ere hor zebilen. Ikastolatik ezagutzen genuen elkar, eta beste bat joan zena Ixabel, ikastolako neska bat zen. Bildu ginen, pixka bat, ikastolan ibilitakoak. Han azaldu ginen eta urte horretan hasi zen eta Gipuzkoako pilota federazioak ez du hutsik egin orduz geroztik neskekin.

Aurretik ez zegoen ezer?

Ezer ere ez. Ezertxo ere ez. Eta, hori, nagusientzat.

Eta, esan duzu orain 20 urte hasi zinela. Zergatik jarraitzen duzu?

Bada, gustuko dudalako, ez dakit.

Eta, etenaldiren bat izan al duzu?

Bai, noski. Hasi nintzen, oso gustura nenbilen, baina, ezkondu eta ama izatea tokatzen zaizu. Gehiago esango dizut, zergatik nagoen mundu honetan. Ni Oiartzunera joan nintzen bizitzera, eta esaten nuen “joe, Hernanin, zerbait egin behar dut Hernanin”, eta, gero, nola ni ibilia nintzen eskubaloian, eta monitore ibili nintzen, esan nuen “ea, gu gabiltza palan, gu ia zaharrak gara eta hasi beharko dugu txikiekin”. Hartara hasi nintzen, Izar ez, Izar baino lehenago, igual, Tilosetan neskak ikusten nituen, bakarrik, eta niri okurritu zitzaidan, “beno, hartuko ditut neska hauek eta hasiko gara neskekin”. Hartu nituen eta kiroldegian baimena eskatu nuen larunbat goizetarako, banekien libre zegoela, eta urte pila bat egin genituen larunbat goizetan, hasi 9etan eta ordu bata arte, neskak bildu eta entrenatzen, horrela, urte asko. Esaten dizut, larunbatetakoia izan zen Emakumea Pilotari proiektua sartu arte. Taldetxo bat sortu nuen eta tokatu zen urte haietan Hondarribian, emakumeentzako egitasmo moduan, Emeki zen erakundea, paleta txapelketa bat antolatzen zuten eta ni Oiartzunen bizi nintzela, ez dakit nola, ni haurdun nengoen orduan, ezagutzen nuen Lopez epailea eta haren bidez, “jo, aizu, ea neska batzuk”... Bazekien ni ibiltzen nintzela neskekin, zeren eta nik beti esaten nuen “nik badauzkat neska batzuk, ea jolasteko” beste herriren batean ikusten nituenean neskak, “zergatik ez dugu egiten hartu-eman bat?”. Horrela ibiltzen ginen, eta orduan, Emeki emakume taldea hasi zen 1995ean han txapelketa hori antolatzen, uste dut 5 urtez iraun zuela.

Neska gazteentzat ari zara esaten?

Neska guztientzat, gazteak, zaharragoak, denentzat, zeren eta nik nituen jubenilak, orduan zeuden Araitz eta Nerea, eta Eiderren ahizpa ere bai, Ilargi ibili izan zen, eta Doltza ere orduan ya bazegoen hor. Izan ziren 5 urte oso politak. Gero, nik, umea izan eta gero parte hartu nuen. Eta, zergatik moztu zen hori? Alardeko kontuagatik. Giro oso txarra sortu zen hangoen artean, beraiek ez zeuden gustura foiloiak zeudelako eta azkeneko afarian, azken urtean, 5 urte eta gero, oparitu ziguten afari batean txirula. Nik gordeta daukat txirula hori eta gonbidatu gintuzten alardean ateratzera, baina, niri ez zitzaidan egokia iruditzen, gu ez gara hangoak, ez dakit, nahiko foiloi zeuden. Eta hori pena izan zen, zeren eta jarraipen polita zeukan, 5 urte egin zituen txapelketa horrek.

Zuk bi etenaldi izan dituzu? Seme-alabenak? Bestela beti aritu izan zara?

Bai, bai, bai. Alaba jaio zen 95ean eta berak bi urte zituela ibiltzen nintzen pixka bat, baina, entrenatu gabe, partiduetara joaten nintzen. Ba, hori, Oiartzungo txapelketan ibili nintzen. Gogoratzen naiz bularra eman, mina eta dena eman eta gogoratzen naiz nola pasa nuen, baina, Oiartzunen ibiltzen nintzen. Hango batzuk ezagutu nituen eta jolasten pixka bat. Eta, gero, semea etorri zen, hiru urte eta erdiko aldea dute. Semearekin haurdun nengoela ni trinketeko txapelketa jokatzeko Irunen izan nintzen, azkenengoetan ia apuratuta, ekainean izan zen, eta, beno, txapelketa hori, lehen esan dizut, Gipuzkoakoa sortu zen, baina, urte horretan herrietan ere antolatzen zituzten txapelketak eta bat zen Errenteriako, Oiartzunen ere bai, Lesakan ere egiten zuten,... Arrakasta handia zeukaten. Orduan hasitakoa da hori ere. Hala ibiltzen ginen.

Ez zenuen dudarik egin. Zuk etenaldiak izan zenituen, baina, garbi zeneukan itzuliko zinela.

Nik entrenatzen ez nuen jarraitu, baina nik entrenatu arazten bai, eta ez dizut esan arrazoia. Ni joan nintzen Oiartzunera bizitzera eta, orduan, 92an hasi nintzen neskak entrenatzen. Handik etortzen nintzen eta larunbatero-larunbatero hemen egiten nuen, urte pila bat egin nituen horrela, eta umeak jaio zirenean utzi egin behar izaten nuen. Gogoratzen naiz urte batez utzi nuen neskekin, eta talde hori galdu egin nuen. Eta, esan nuen “jarraitu zuek”, baina, ez neukan zeinekin utzi, gazte xamarrek ziren. Semearekin, ordea, ia hemen bizi nintzen eta ez nuen utzi, entrenatzen jarraitu nuen eta mantendu egin zen. Haiek, hasi ziren haiek izan ziren pixka bat, ez dakit, oztopo guztiak gaintitu zituztenak orain daudenentzat. Orain daudenek ez dute halakorik bizi izan, euren ordutegia daukate eta ez dute hori dena bizi, baina, horien aurrekoak, jende askok. Zerrenda bat edukiko nuke: Irazutarrak, Lizaso, Arrieta, Jauregi, Zabaleta... Askoko asko pasa ziren, baina, etenaldia izan zen neska jaio zenean, eta Oiartzunen bizi nintzelako. Ezin nuelako, eta gainerakoan, nire umeekin hartu eta partiduetara, utzi hemen, jolastu eta horrela. Eta, entrenamenduak, ez neukan aukerarik. Badakizu, ama izatea eta gizonak egun guztian lana... Adibidez, gaur egungo senarrak-eta gehiago inplikatzeko dira, umeak gehiago zaintzen dituzte, baina, nirekin ez zen hori pasa. Bestela, hobeto jarraituko nuen, orain horrela nago ia.

Eta, esan duzu lehen 20 bat urte daramatzazula, zuk harremanik mantentzen al duzu bidean galdu direla esan duzunekin?

Bai, eta askotan esaten diet, ea noiz itzultzen diren, orain Emakumea Pilotari proiektua dagoela. Batzuk esaten dute, “jo, bada, ez dakit zer, ibiltzen gara gure kontu”. Batzuk badakit ibiltzen direla, baina, txapelketan ez dute parte hartu nahi, baina, ibiltzen dira.

Orain dagoena Emakumea Pilotari proiektuan, Ainara, nik hori ikastolatik ezagutzen dut, horrek ere eskubaloia egiten zuen, horren entrenatzaile izan naiz eta ona zen ikastolan. Nik ikusia daukat jendea, zein ibiltzen den, eta, orduan, txikitari ibili direnek, batzuk, gero jarraitu dute. Ixabel beste bat, hori ere Emakumea Pilotarin dago eta oso gustura joaten da, hori da nirekin Intxaurrendora joan zena, bikote moduan berekin joan nintzen, argazkiren bat badaukatu garai hartakoa.

Testuingurua aztertzeko, zer iritzi zuten ingurukoek (gurasoek, senitartekoek, lagunak,...) hasiera hartan zuk pilotari jokatzearen inguruan?

Nire etxean, amaren partetik, amak ez zuen nahi nik kirola egitea. Ni Lasartera, Aietera,... eta, noski, eta, “zu, zer?”; aitak bai, aitak, “zuk segi, zuk egin kirola”. Oso mugitua nintzen. Ni hirukia naiz, nire ahizpak oso lasaiak ziren, baina, nik behar nuen, ito egiten nintzen etxean, hirurekin. Ama oso nerbiosa, hirurekin, orduan, nik pixka bat behar nuen, atera egin behar nuen, bestela, ez dakit zer izango nintzen. Bai, bai.

Aitak eduki zuen, nolabait, bultzatzeko joera hori?

Bai, aita ere kirolaria izan zen, ehiztaria da, mendian ibiltzen da, eskubaloian ibiltzen zen,... Baina, gero, ama hasi zen, berandu, eta konturatu zen baietz, eta, berak, ez du utzi amak. Hemen kiroldegia egin zenetik, ama lehenengo bazkideetako izango da.

Orduan, bere iritzia, aitarena suposatzen dut mantentzen dela, amarena aldatu egin da denboraren poderioz?

Bai, bai, beti esaten zidan, “nola moldatuko zara? Umeak zer?”, eta nik esaten nion, “ama utzi umeak nire kontu, ni moldatuko naiz”. Bere preokupazioa ama izate hori, bada, lehenengo ikuspuntua, ezta? Ama batek egon behar du etxean eta umeak zaintzen. Hori da lehenengo kultura. Hala ere, aldatu zaio, nik uste baietz, gainera, ikusi du umeak nola dabilzan, eta ondo dabilza, umeak ere orain kirolean daude, biak.

Eta, nabaritu izan duzu gizartearen, edo kaleko jendearen, presiorik adibidez?

Kirola egiteagatik? Presiorik ez, baina, neska izateagatik bai. Tilosetan, mutilek, beti, “fuera neskak, fuera!”, beti horrela zen. Futbolearen ere ibiltzen ginen eta “ez, ez, fuera neskak!” Hori bai, horregatik ibiltzen ginen bizikleta hartu eta martxa beste toki batetara. Bai, mutil asko ziren, gure adinean asko zegoen, eta, bai, bai, bai, bidali egiten gintuzten.

Eta, nolako tratua jasotzen zenuten? Esan duzu mutilek erdi-bidali egiten zintuztetela...

Ez daukat oroitzapen txarra, onartu egiten genuen, “bada, bale”. Baten bat bai, nirekin ibilitako bakarren bat mutur joka ere ibiltzen zen, “eh, guk hartu dugu frontoia aurrena”, bai, igual bai, taldekoren bat bai.

Eta, hori denborarekin aldatu da. Zuk antzeman duzu aldaketa hori?

Bai, nik uste baietz. Bai, bai, orain uste dut errespetu handiagoa dagoela. Adibidez, orain, ibiltzen direnean neska gazteak, ez dituzte bidaltzen. Lehenago zen, “neskak

daude, benga, fuera!” Horrela zen, eh! Orain ez, orain, esaten dute, “ea, bada” eta neskekin jolasten dira orain.

Eta nola uste duzu ikusten duela emakumeen pilota jendarteak? Edo kaleko jendeak?

Beno, oraindik ere, zuk jakingo duzu, jendeak ez du ikusi, jendeak partidu onak ez ditu ikusi. Orduan, txarrak ikusten dituenak esaten du, “ba, neskak...”. Ikusi egin beharra dago, orain Kutxa Sarian, adibidez, zer esaten du jendeak? “Joe, neska hauek jokutzen dute”. Zuk badakizu hori, ezta? Orduan, jendea harritu egiten da neskak ere jolasten dutela.

Eta, zer iritzi daukaten emakumeen pilotaz eta emakume pilotariez?

Nik uste dut ona, nik uste dut ona, ona, bai. Gu, taldean, elkartean, neska-mutilak gabilta eta mutilek iritzi oso ona daukate, eta, gainera, askotan, igual norbait falta zaigunean, mutilak sartu izan zaizkigu entrenatzera, “ni zuekin”. Esanaz bezala, “nik ere jolastu dezaket”, eta okerrago ibili, zeren eta eskuz ibilita oso desberdina da. Bai, bai.

Eta, kalean, elkartetik kanpora?

Bai, bai, oso ondo. Gainera, orain, ikusten da *Kronika* dagoela, eta argazkiak ateratzen dira, eta zoriontzen dituzte neskak. “Ondo zabiltzate”, eta bai, bai, animatu egiten ditu jendeak.

Lehen galdetu dizut ea harremanik mantentzen duzun garai bateko pilotariekin.

Bai, bai, gainera, ikusitakoan esaten didate, “jo, zeinen ondo ibiltzen ginen, eh”, eta haiek esaten didate, “guk pasa genuen ederra, eh, ibiltzen ginen ordurik gabe, eta...”.

Bada, lehen esan dizudana, hasi nintzen larunbatetan entrenatzen, beno, larunbatetan libre zegoenean, ez ziguten ezer ere esaten, eta ailegatu larunbata eta “gaur pailazoak, fuera entrenamendua, gaur bazkari bat,...” eta azkeneko talde honek esan zuen, “joe, Ibone, zerbait egin beharko dugu!” *Kronikara* idatzi bat beraien sinadurekin, eta orduz geroztik, “aizu, larunbatean okupatua dagoela”, abisua. Nik esaten nien, bada, abisatu. Eta, orduan, ez zegoela libre? Bada, nora joaten ginen, Floridako frontoira jaisten ginen neskekin, “bada, goazen zerbait egitera”, eta Floridara, pilotak galtzera, edo Tilosetara. Tilosetara lehenengo, baina, beti okupatua. Hernanin Tilos hor zentroan dago eta beti okupatua dago.

Esan duzu garai batekoekin mantentzen duzula harremana.

Bai, bai, eta esango banie “goazen jolastera, goazen egitera bazkari bat-edo”, etorriko lirateke.

Eta, gaur egungoekin ere harremana mantentzen duzu?

Bai, bai, urtearen bukaeran egiten dugu denok bazkari bat, neska-mutilak egiten dugu elkarteko bazkaria.

Eta, bestela, beste elkartekoekin-eta zer moduz moldatzen zara?

Beno, bada, hasi naiz. Monitore kontu hauekin hasi naiz, nolabait, ba, adibidez, Elenarekin, “dauzkagunak neska txikiagoak egin behar dugu elkar-trukaketa bat partiduak jokatzeko”. Hitz egin dugu Etxarri Aranatzekoekin ere, Etxarri-Aranatzera joan izan gara, Igantzira ere bai, Igantzin bazegoen emakume bat, Eluska zen, han ibiltzen zen neskekin. Ez dakit, ah, bai, Gorane Igantzikoa zen, herri hartakoa, eta ezagutzen ginen, telefonoak-eta bagenituen eta, “aizu, hemen neska batzuk daude, badituzue Hernanin neskak? Zergatik ez dugu egiten txapelketa bat?” Bada, egin izan dugu, 3-4 urtetan egin izan dugu, hara joan, jolastu, han bazkari bat egin, eta...

Eta, txapelketez aparte mantentzen duzue nolabaiteko lotura bat?

Aukera edukiz gero jolasteko, beti daukagu. Orain nahi dugu Aste Santuan bildu. Orain, jende gehiago, gainera: Etxarri, Orio-Zarautz, gero Janireri esan nion, neskekin dabil, gure arteko zer edo zer, egun-pasa bat nahi dugu egin, ez dakit egingo dugun.

Eta, zuk hasi zinenean, hasiera hartan, bazeneukan espektatibarik, zertara iritsi nahi zenuen? Zein helburu zenuezkan?

Nire helburua zen, beno, nola urtero antolatzen zen pilota txapelketa, ez zegoen ez azpiegiturarik, ez zegoen ezer ere eta prestatzea neska batzuk. Gainera, ikusi egiten nituen neskak. Ez banuen ikusi frontoian inor ere, bada, esango nuen, “bada ezer ere ez”, baina, ikusi egiten nituen eta esaten nuen, “ea, norbaitek...” Eskubaloian hori pasa baitzen, taldea desagertu egin zen, eta nik historia ikusi egin bainuen. Zergatik desagertzen dira taldeak? Ez dagoelako inor hori eramateko. Sakrifikatua da? Bai, baina, gero, esker on asko jaso ditut, orduan, ni konpentsatzen nau horrek.

Hori diozu zu entrenatzaile bezala. Eta, zu pilotari bezala hasi zinenean? Nora iritsi nahi zenuen?

Nik jolastu egin nahi nuen, 25 urterekin hasi nintzen eta ezer ere ez, nik nahi nuen disfrutatu, gozatu, ordura arte Hernanitik ez ginen ateratzen eta aukera zegoen beste herrietara mugitzeko. Orduan, aukera polita zen eta nola gustatzen zitzaigun eta ibiltzen ginen, bada, zergatik ez? Aurreneko urteak halakoak izan ziren, batere entrenatu gabe, eta, gainera, pilota mazizarekin, zer egiten dugu? Beno, 30-3 eta “ikasiko dugu”. Hirugarren urterako ia... Intxaurrondon bildu ginen eta orduan sortu zen Intxaurrondo taldea, ikusirik han biltzen ginela. Hori Carmenek esango dizu, 1990ean sortu zen eta han bildu ginen neska guztiak federatu ginen Intxaurrondon, lehen urtean bai. Bigarren urtean, nola asko ginen, ia esan ziguten, “beno, bakoitzak bere herrian bilatu dezala taldea”, eta, gu, bakoitza bere herrian federatu ginen, Hernanin, baina, entrenatu Intxaurrondon, denok Intxaurrondon, urte dezente egin genuen han entrenatuz. Ni Hernanira ez naiz etorri entrenatzera orain arte, orain dela 3-4 urte. Nik ez dut niretzat nire entrenamendua Hernanin ez dut egin sekula. Entrenatzaile bezala gazteagoekin bai. Ni joaten nintzen Intxaurrondora eta Altzara entrenatzera. Taldeak egiten genituen eta Mikele-eta horiek, eta Eba, Aiorarekin-eta bai, Intxaurrondo eta Altzan, gaueko 10etan Altzan, gogoratzen naiz. Oiartzunen bizi eta handik.

Gero, nik eskertu behar diot asko Emakumea Pilotari proiektuari txikientzat eginikoa, zeren eta ni ibiltzen nintzen, Eiderrek bazekien ibiltzen nintzela, baina, fundamentu gabe. Guk entrenatzen genuen, eta, San Joanetan? “Ba goazen egitera partidu batzuk”,

erosten nituen pasta batzuk eta globo batzuk eta horrela egiten genuen umeak pixka bat motibatuzko. Orduan, Eider eta sartu ziren kiroldegian eta sartu zuten eskola kirolean. 2004an izan zen aurkezpena eta, harrez geroztik, hitz egin zuten hemengoekin, eta “beno, ea sartu egin behar da eskola kirolean eta orduak behar ditugu”. Orduan, ia larunbatetik kendu zen eta eskola kirolaren ordutegian jarri zen, tokatzen zenean.

Hau da, eskolarteko aukera hori etorri zen Emakumea Pilotarirekin batera?

Bai, proiektuarekin batera. Bai.

Baina, aurretik egiten zenuten nolabaiteko kaptazioa?

Bai, larunbatetan. Larunbatetan. Nik ikusten nuena frontoian, gero ikastolan ibiltzen zirenak, eta, orduan, bada “etorri” eta horrela. Nik banekien Izar-eta ibiltzen zirela ikastolan eta, “Izar, animatzen zara larunbatean etortzera? Bai, bale” Izar, Uxo, eta horiek denak. Doltza ere bai, Doltza. Bakarra zen bere kurtsokoa eta larunbatetan entrenatzen zuen Hernanin. Gero, bera Intxaurrendora joan zen. Ona zetorren eta nola Intxaurrendora bagenuen ya taldea osatuta, esan nion “Joan zaitez hara, han gehiago ikasiko duzu, jende helduagoa da, hemen, jende berri asko dago” eta horrela joan zen Intxaurrendora. Doltzak ere beti herritik kanpo entrenatu du.

Ari gara emakumeen pilota gora eta behera. Zuk nolako osasuna ikusten diozu emakumeen pilotari orain? Nola dagoela esango zenuke?

Niri babestua dagoela iruditzen zait. Hasieran, beno, ez gaude hasieran, erdibidean gaude, hala ere, gehiago behar da. Baina, zer suposatzen du horrek? Inplikazio gehiago, ardura gehiago talde, klubetan. Pilota elkarte gehienak mutilek eramaten dituzte, orduan, neskek sartu behar dute neskei pixka bat kasu egiteko, iruditzen zait, edo, bestela mutilen bat, berdin du. Nik ikusten dut hori falta dela, norbaitek neskak eramatea. Beno, hasi dira, Altzon, Ataunen ere hasi da, Xanti-eta dabilta neskekin, eta, beno, hemen taldetxo bat badaukat, baina, boladaka, ezta? Zailena beti hasiera izaten da. 2-3 dituzu, baina, gero denborarekin joaten zara gehiago, gehiago, eta, azkenean, gero gelditzen dira gelditu nahi dutenak. Ni hasi nintzen, gogoratzen naiz orain dauden 8 jubenil on horiekin, 24 hasi ziren euren adinekoak, gutxi gelditu dira. Alebinetan, urte batean, 24rekin egon nintzen frontoian, ikastola hasi zenean-edo, 24, asko.

Orduan, nahiko osasuntsu ikusten duzu?

Hernanin, behintzat, bai. Nik nahi nuke jakin ea beste herrietan eskola kirolean sartuta dagoen.

Iruditzen zaizu hobetzeko aukera bat izan litekeela eskola kiroleko eskaintzan sartzea?

Bai, futbola bezala. Hemen, urte hasieran, umei ematen zaie aukera, “daukazu futbola, daukazu pala...” eta eskola kirolean sartuta nik uste aukera gehiago dagoela. Gainera, Diputazioak antolatzen du, igual, Diputazioari esan behar zaio beste herrietara ere zabaltzeko. Hala ere, asko dago. Aurten ere harritu naiz, talde asko daude nesketan eskola kirolean, infantiletan eta alebinetan talde asko atera dira. Aurten bai.

Eta, eskola kirolaz gain, adibidez, federatua, nola dagoela iruditzen zaizu?

Beno, orain hasi behar dugu ikusten ea eskolartekotik zenbat ateratzen diren. Hernanin daudenak ateratzen dira. Orain beste tokietatik, bada, hasi dira, Zarautzen hasi dira, hasi dira animatzen. Aiakoak ere pentsatzen dut hemendik bi edo hiru urtera sartuko direla, ia zabaltzen ari dela pixka bat, ez dago Hernanin bakarrik, baina, hori da, bada, lana egiten ari zaretelako atzean.

Zergatik uste duzu aukeratzen duela pilota neska batek? Eta, ez duela egin nahi saskibaloia, eskubaloia edo futbola?

Beno, nik esango dizut, Hernanitik, Hernanin erreferentziak badaude. Kronikan ateratzen dira, “neskak txapelketa hau irabazi dute”, orduan, beti, ume batek zer ikusten du? “Joe, hori bezalakoa izan nahi dut” edo “honek hau egiten du, nik ere bai”. Orduan, aukera hori badaukate Hernanin. Noski, beste herrietakoek zergatik ez? Agian ez daukatelako oraindik ere erreferentzia hori, norbait atera arte, iruditzen zait. Prentsa.

Erreferentzia kontua bakarrik iruditzen zaizu? Prentsa kontua bakarrik iruditzen zaizu?

Beno, hemen Hernanin bai, zeren eta Hernanin jende asko joaten da futbolera.

Eta, beste herri batzuetan?

Beste herri batzuetan ere egongo da aukeran futbola eta futboleko erreferentzia badakite Real Sociedad emakumeena badagoela, eta, orduan, denek nahi dute. Bai, ez dakit. Eta, bestela, beste herrietan badaude neska pilotari asko eskuz aritzen direnak mutilekin eta nahiko luketenak gehiagora joatea, baina, ia 12-13 urterekin badakite hartu beharko dutela pala. Hemen gertatu zaigu neska batekin, Enara da, mutilekin ibiltzen zen eta jendeak niri, “neska hori ez duzue hartuko?”. “Itxaron, utz iezaiozue, etorriko da nahi baldin badu”, eta berak esaten zidan, “ez, ez, ni oso gustura nago pilotan” eta nik esaten nion, “segi, oso ondo ari zara eta”. Ailegatu zen 14 urtera, mutilak koxkortuta, ya mina eta ez dakit zer eta bera etorri zen, aukera zeukalako, bazeukalako nora joan. Orduan, ibiltzen denak pilotan, eta baldin badaki beste herrietan-edo badagoela, etorriko da. Gustatzen zaiona, noski, aukeratzen duena eskupilota, adibidez, adibide konkretu horretan. Eider bera eskutik dator, hura Intxaurrendora azaldu zen, ez zekien bazegoenik ere, hura hala azaldu zen, 16 urte zituela, eta fenomeno bat zen.

Eta, zergatik uste duzu uzten dutela? Arrazoiren bat badaukazu?

Bada, etxetik dator, eta, gainera, ez bakarrik pilotan, kirolean. Zergatik uzten duen neskak kirola? Etxean ez zaie laguntzen neskei, “zu ikastera, kirolek ez zara biziko”, kultura hori dagoelako oraindik ere, nik ikusten dut oraindik. Eta, bestalde, larunbatetako umeena, guraso asko ikusi dut oso eroso, “nora joan behar dugula? Eta, larunbatero joan behar da? Joe!” Ez diete laguntzen, eta nik uste dut gizarteak daukan akatsik handiena hori da. “Umea, bai, tori”, batzuk haurtzaindegi moduan bidaltzen dituzte kirola egitera. Hori ez da, eta umeak konturatzen dira, “honek bidaltzen nau, ni ez naiz joango”.

Eta, uzteaz aparte, ez dutela aukeratzen?

Beno, nik eduki dut norbait, “ez, pala ez dut egin nahi”, “zer egingo duzu?”, “futbolera noa”, “bada, oso ondo”, nik lagundu egiten diot. Nik ez dut inor derrigortzen, “zuk aukera badaukazu, segi, baina, kirola egin, hori bai”. Gero ikusten ditut, eta, “egiten al duzu kirola?” Orain, batzuk, badakit, futbola utzita eta aerobik egitera joaten dira, beno, gutxienez, badaude hor. Esaten diet hauei, orain kadeteak dira, “hemendik urte batzutara berriz bueltatuko zarete”, zeren eta txikitatik ibili dira. Gainera, iristen da adin bat, neskei iruditzen zaiena bizkarra handituko zaiela, bola aterako zaiela, bai, badago, eta, orduan, mentalitatea ere bada. Mutilen ikuspuntua da, “ez, ez, neska fina nahi dut izan”. Hori ere badago, batzuk bai, aditu ditut nik.

Eta, adibidez, iruditzen zaizu mutil batek aukeratzeko daukan arrazoia ezberdina dela neska batek daukanetik?

Bai, bai, bai. Mutili gehiago bultzatzen zaie kirola egitera, gainera, hemen ematen du mutilak derrigorrez egin behar duela kirola, neskak ez. Eta, nik, seme bat daukat eta ikusita semea eta alaba, semeak aukera gehiago izan ditu beti, txikiagotatik. Ya 4-5 urterekin futbolera joan zitekeen, errugbira joan zitekeen,... eta, neska ez, beranduago hasten da eta aukera gutxiago ditu, gainera. Esaten dute baietz, aukera dagoela, baina, ez dut uste, ez zait iruditzen.

Eta, nola uste duzu bultzatu beharko liratekela neskak-emakumeak pilota mundura txertatzera? Estrategiaren bat okurritzen zaizu hori lortzeko?

Bada, hasi ziren festetan partiduak jartzen, eta hori, gurasoek ikusteko, eta neskek eurek, erreferentzia bezala... Lehenago esan dudana, erreferentziak behar dira, orduan, neskek ikusten dute, bai gazteak, bai zaharragoak, ari direla eta zahar-zaharragoak ere bai, beraien amentzat, ikusteko. Askotan esan didate, “umea hasi da eta ni ere hasiko naiz, zeren eta alabarekin jolastu nahi dut”. Hemen daudenak, proiektuan dauden batzuk, esan didate “bai, bai, ni nabil zeren eta alaba hasi da eta bestela alabak ikasiko du eta nik berarekin jolastu nahi dut”. Hori oso polita da, adibidez. Nik uste dut jarri behar direla partidu gehiago, zabaldu behar da herri gehiagotara. Noski, jakin baita ere nora joan daitekeen eta pixka bat informazioa eman “Tolosako neskak joan daitezke Irurara edo ez dakit nora”, pixka bat hori zabaldu, propaganda egin, ez egotea neska bat, Agurtzaneri gertatu zaiona, Zaldibiakoa bera bakarrik, eta, “orain nora joango naiz? Ezin dut ezer ere egin”. Bada, pixka bat lagundu, herri txikietan dagoen jendea nonbait bildu, nik uste dut Atanera joaten zela Agurtzane, ezta?

Hori federatu nahi dutenei begira, eta nahi ez dutenei begira, okurritzen zaizu zerbait?

Horrelako ekimenak egin daitezke. Jarri daiteke federatuko ez direnentzat txapelketatxo bat, edo ikastaroa, edo esaten dena pala ikastaroa, eta kitto. Eta, gero, animatuak baldin badaude, “orain, animatu zaretela, animatuko zinatekete...”, zeren eta jende askok ez du lehiatu nahi, hori ikusi dut nesketan. “Ez, ez, nik entrenatu bakarrik, partidurik ez dut nahi”, eta, “zergatik?”. Nik, adibidez, entrenatu entrenatzeagatik, helbururik gabe, helburua da partiduan ondo ibiltzea, ez irabaztea, ondo ibiltzea, galduta ez ibili eta gozatzea partiduan, galdu edo irabazi berdin du. Baina, esaten dutenak “nik ez dut nahi partidua”, bada, ez diet ikusten motibaziorik. “Zertarako etortzen zara, bada?”, eta, “ibiltzeko pixka bat”. Ez dakit, partiduari begira entrenatzen duen jendeak, igual, gogo gehiago jartzen du gauzak ikasteko eta ez badaukate partidurik joateagatik joaten dira, zerbait egiteagatik. Ez dakit ulertzen didazun.

Bai, bai, bai, bai. Oso ondo ulertzen dizut. Eta, behin osasunaz hitz eginda, pilotarekin lotura daukaten eragileen iritziaz galdetu nahi nizuke. Lehenengoa hedabideena. Zer iritzi duzu hedabideen jarreraz? Laguntzen al dute? Nola?

Gutxi, ezta? Adibidez, enteratu al gara Paueko mundialekoaz? Ez dugu ikusi. Hori bai dela erreferentzia, neskak mundialetan eta trinketeen. Hori oso tristea iruditu zitzaidan niri. Oraindik ere alde handia dago, oso gutxi ematen da, ez dago parekatuta mutilekin. Nik uste dut horrelakoak, Kutxakoa ere bai, bai, egin da, baina, nahiago genuke gehiago izatea. Egin da, baina, oso puntual.

Eta, erakundeenez? Diputazioa, udalak, pilota federazioak,...

Nik uste dut hasi behar duela udaletxeak. Nik uste, federazio aldetik, aldarre oso ona dago, proiektu bat dago, baina, nik uste dut laguntza behar dutela, eta hasi Foru Aldunditik ez, hasi udaletxeetatik. Herri bakoitzean udaletxea pixka bat inplikatu dadila, bere eskaintzan beste aukera bat ematea, kirola egiteko beste aukera bat, ez bakarrik futbola. Bai, bai, futbola dago bakarrik gaur egun, zeren eta saskibaloia ere ez dago, boleibola ere ez, hori hemen. Segun eta zer herritan zauden, bada, Eibarren, adibidez, eskubaloia egiten dute neskek, besterik ez, eta futbola.

Eta, pilota elkarteez zer iritzi daukazu?

Beno, gurean, gure bilerak egiten ditugu, neskak batzuk esaten dute oraindik ere neskak diskriminatuak gaudela hemen, gazte batzuk esaten dute hori, mutilek daukatela, baina, ea, nik aspalditik ezagutzen dut eta neskekin konparatuta mutilak askoz ere gehiago dira, ordu gehiago behar dituzte,... Nik uste dut orain hobetzen ari garela, guk lehenago ez genituen hainbeste ordu, orain ari gara pixkanaka, txapelketei esker eta ondo dabilzanari esker, pixka bat elkarteak ere esan du, “neskei eman behar diegu ordubete”. Lehenago, igual, sartzen ginen ordubeteen zortzi edo hamar, orain gaude 4-6, ondo. Ni ez naiz kezkatzen horrekin.

Eta, adibidez beste elkarteez?

Beste elkarteez, bada, ez dakit. Adibidez, bada, Urnietan, Urnietako elkarteak uste dut kasu gutxi egiten diela neskei. Bai, fitxa daukatela bai, baina, “hor zaudete”, ez dietela kasu gehiegi egiten, fitxa bete bakarrik, ardurak-eta hartu ez. Gero, Zubietan, uste dut ya ondo, nesken talde bat dagoelako txikitatik, badaramatzate urte batzuk eta ari dira sartzen, eta, nik uste dut hobeto ikusita daudela neskak Zubietan. Beste herriren bat? Ez dakit. Beno, Anoetan, baina, nesken elkarte bat dago, sortu da. Zergatik sortu zen nesken elkarte? Arrazoi berdinarengatik, mutilekin ez zutelako ezer askorik egingo, pentsatu nahi dut. Hemen ere batzuk esaten zuten “nesken talde bat egin beharko dugu, elkarte bat”, “beno, bale, baina zer aldatuko da horrela? Frontoi bat bakarrik daukagu hemen eta banatzen diren orduak, ordu gehiago izango genuke? Ez dakit, fitxen arabera izango litzateke, agian gutxiago izango genuke”.

Eta, pilotarien jarreraz?

Boladak dira, boladaren arabera. Badaude oso-oso kirolariak, kirolzaleak, lehiatu nahi dutenak eta, beste batzuk, denbora pasa. Bai, orain dauzkagun infantilek, adibidez, oso

ondo pasatzen dute, bai. Bai, ona, bestela nik uste ez genukeela jendea edukiko. Nik uste dut norbait ez badago gustura toki batean alde egiten duela, hemen ez dago inor derrigortua egotera fitxa bat daukatelako eta egon beharra dagoelako. Beno, gustura baldin badago, taldeak esaten du pixka bat, tokatzen zaizun taldearen arabera. Toki guztietan, nik hala pentsatu nahi dut.

Eta, ikusleen jarreraz?

Oiii, ikusle oso gutxi, familiakoak eta lagunak, eta kitto. Jarrera ona, oso ona, eta berriren bat sartzen denean harrিতuta. Guk hemen, gogoratzen naiz, orain dela bi urte kointziditu genuen, umeen finala San Joanetan, frontoi betea, nesken partidua aurrena eta gero mutilena, eta jende askok esan zuen, infantilak ziren neskak, “joe, ez genekien neskak horrela jolasten zutenik”, eta harrিতuta. Joaten direnak ondo, problema dago joaten ez direnak ekarri behar ditugula eta horretarako dago propaganda, ez dakit. Nik ez dakit ia zer egin.

Ia ari gara pixkanaka bukaerara ailegatzen. Lehen esan duzu Hernanin jaiotzea edo... Galdetu egingo dizut. Zuk uste duzu leku batean edo beste batean jaiotzeak eragiten duela hautaketan?

Bai, noski. Nik pala aukeratu nuen, seguruena, hemen frontoiaren ondoan bizi nintzen gainera, ikastolan ere pala eskaintzen ziguten eta horregatik. Adibidez, Donostian, zer gertatzen da Donostian? Hiri handi bat da eta han frontoiak pila bat daude, zergatik gertatzen da neskak ez direla joaten? Bada, beste kirol batzuetara joaten direla. Hori aztertu beharko litzateke, horrelako hiri handi batean neskak egongo dira eta egon badaude, bakarrik horiek erakarri egin behar dira, eta, horiek enteratzen al dira eskolartekoa badagoenik? Hiri handian ematen du, ez dakit, dena egiten dela... futbola bakarrik eta hori entzungo dugu, baina, beste kirol guztiak uste dut ahaztuta daudela.

Eta, esaten da euskal pilota dela, gurea dela, tradizionala dela,... Uste duzu horrek eragiten duela aukeratzean?

Ez dut uste. Orain dela urte batzuk agian bai, baina, orain dago, gizartea oso nahastua dago, gurasoak dira toki guztietakoak, ez dut uste hori. Gabiltzanok agian bai, bada, nire kirola da eta bai, euskaldun-euskaldunak garenok nik uste dut pentsatzen dugula horretan, baina, besteek ez zait iruditzen, ez zait iruditzen.

Eta, azkena kulturaren inguruan. Ikasketa mailak iruditzen zaizu hautaketan eragin dezakeela, ala ez?

Ez dut uste, ez dut uste. Esaten dizut nik beste zer edo zer egin banu jarraituko nuke igual-igual, nire kasuan, gustatzen zaidalako. Bai, bai, ni inork ere ez nau behartu.

Ia azkeneko blokea. Entrenamendu eta lehiaketaren inguruko iritzia galdetzeko da. Zer iruditzen zaizkizu zuri erabiltzen diren lehiaketa sistemak? Bikoteen osaketa, elkartearen izenean jokatzera, txapelketetako egutegiak,... Bai lehen eta bai orain

Beno, hasiko naiz lehendik. Lehen, federazio aldetik, Gipuzkoako txapelketa, punto, hori bakarrik eta gero genituen herrietako txapelketak, festetan. Gogoratzen naiz Errenterian, lehengo frontoi zaharrean, hor nahiko ondo, gero Oiartzun eta Lesaka ziren

erreferentzia moduan. Gu ibiltzen ginen, ez ginen egoten denbora askoan ezer ere egin gabe, bat bukatu, bestea hasi.

Eta, bikoteak nola osatzen zenituzten? Zuen artean?

Bai, ahal genuen moduan, gure artean.

Lehen nahiz herri desberdinekoak izan, klub ezberdinetakoak, Intxaurren eta Altzan biltzen ginen entrenatzeko eta hasierako Gipuzkoako txapelketako bikoteak guk osatzen genituen txapelketan oreka bat bilatu nahian. Horrela urte batzutan gertatu zen, baina, elkarteak (mutilen lehiakortasun ikuspuntutik) sartzen hasi ziren, 1997 inguruan, eta bikote oso oso onak eta ez hain onak egotea lortu zuten. Horren ondorioz urte batzuk horrela pasata neska askok pala uztea erabaki zuten, kopurua gutxitzen hasi zen, lehiakortasun gehiegi sortuta eta sartuta zegoen. Nire ustez elkarteetako arduradunak gizonetzkoak zirelako eta dena irabazteko mentalitatea daukatelako, Gipuzkoako elkarerik onena zein izango, Euskal Herriko onena zein... Horrela hasierako giro on hori galtzen joan zen Emakumea Pilotari proiektua sortu arte, ez zen inor animatzen eeta ikusten zen modu horretan segita ez zegoela ezer egiterik. Proiektu honek hasierako filosofia hartara bueltatzea eragin zuen, hobetuta, noski. Hau da, Gipuzkoako neskek bildu eta nahastuta jokatu ahal izatea. Nik huts egin nuen urte haietan gertatutakoaz hobeto esango dizute beste batzuk. Gaur egun parte hartzen duten gazteenak (18 urte ingurukoak) gusturago daude EmP proiektuak eskaintzen dien aukerarekin, elkarte desberdineko jokalaria nahastuta jokatzeari alegia.

Orduan bai, eta orain, nik uste dut oraingo moduan ondo dagoela. Batzorde bat dago. Alde batetik dago elkarteentzat, eta, beno, elkarteari begira, elkarteak nahi du elkartearen izenean parte hartzea, eta egiten da, hor daukagu Gipuzkoakoa eta “Liga Vasca”, badago. Neskei, baina, gehiago gustatzen zaie Emakumea Pilotari. Zergatik? Nahastuago gaudelako. Elkarteetan lehen pasatzen zen eta orain ere pasatzen da, “joe, Aia, zer paliza emango digun”, itzarotea. Edo, orain bezala, edo, “Su-Berri, joe, Su-Berri” edo gazteetan, “Hernani, joe, Hernani”. Ez daukagu ezer ere egiterik, hori pasatzen da kirol guztietan. Orduan, beste txapelketa horrek, Emakumea Pilotari txapelketak, ematen du aukera nahastuta eta ea nola moldatzen zireten eta ez duzu elkarte baten aurka jokatzeko, baina, elkartei ez zaie gustatzen hori, ez duzulako jokatzeko beraie izenean. Ez dakit, niri biak egon behar dutela iruditzen zait, aukera horrela denentzat dago. Eta, batean ez bazaude gustura, seguruena bestean edukiko duzula gustura, eta, gainera, orain, Emakumea Pilotari maila ezberdinak daude, lehenengo maila eta bigarrena, eta zu apuntatzen zara nahi duzun mailan, bakoitzak aukeratzen du non nahi duen jolastu. Elkarte batean zaudenean, esaten dizute “zuk jolastu behar duzu hau, hau eta hemen”. Hori guri elkartean, hasieran egiten da bilera bat eta esaten digute “zuek derrigortuta zaudete jokatzera Gipuzkoakoa, bai Euskadi eta ez dakit zer. Nahi baduzue fitxa egingo dugu edo bestela ez”.

Eta, bikoteak elkarteak berak egiten ditu?

Beno, entrenatzaileak. Ni nago entrenatzaile lanetan eta saiatzen naiz beti oreka bilatzen, baina, beti daukagu arazoren bat. Lehengo urtean, bat operatua, bestea, Izar, zegoen kanpoan eta ia-ia hasi arte ez ditugu egiten bikoteak. Orain gertatu zaigu. Trinketeko txapelketa hasi da, lehengo astean hasten ziren partiduak, lau bikote jarri ditugu, nik gutxi gorabehera neuzkan hiru talde eginak, Eiderrekin hitz egin nahi nuen pixka bat orekatu nahi nuelako, baina, hiru, jubenilak, eskiatzera joan ziren, eta “ostra,

eta orain zer?” Ez genuen beste aukerarik, eta egin dira zegoen jendearekin, jarri ditugu, ba, nola erabaki dudan? Bada, zeinek zeinekin entrenatzen duten, lehen mailakoak lehen mailakoekin, ez dira orekatuak. Ez zait gustatzen nola dagoen, baina, beno.

Gutxi gorabehera beti niri gustatzen zait beraien artean ere, beraiei esaten zaie, adibidez, Gipuzkoakoan Hernanik 5 talde genituen, talde bat txarra edo berriagoa, beraiekin hitz eginda, “zer iruditzen zaizue? Gero joan behar dute Euskadikora, egingo dugu denon artean, hau horrela jarriko dugu, orekatua?” Orduan, talde horrek orain Udaberri txapelketan parte hartuko du. Hori da beste berrikuntza bat, aurten egin dutena. Lehen ezker hormakoa bukatzen zen urtarrilean edo horrela eta gero trinketa hasten zen. Eta, trinketik egiten ez zuenak ez zeukan ja txapelketarik. Orduan, orain, Gipuzkoakoan ia eskaini digute Udaberri txapelketa trinketa egiten ez duten jubenilentzat.

Eta, garai hartan, hasi zinetenean, elkarteak erabakitzen zuen bikoteak nola egin?

Ez, neskek, gure artean. Elkarteak esan zigun, “zenbat zaudete, hamar? Beno, bada, atera 5 bikote”. Ez, ez ginen hainbeste. 3 edo 4 izango ginen. Bai, bai, bai, gainera, ni elkartean inork ez nau derrigortu hau honekin eta bestea harekin jartzen, ez, ez.

Eta, gero, hasieratik Hernanira pasa zinetenean?

Bai, orduan, entrenatzen jarraitzen genuen Intxaurrondon.

Baina, hor, hasiera hartatik eta Emakumea Pilotarira arte, beti egin da zuek erabakita, baina, erdibidean ere, hor beti jokatu izan da elkartearen izenean?

Bai, elkartearekin, elkartearen izenean, baina, zesioak egiten genituen. Guk, denok, entrenatzen genuen asteazkenetan bi orduz, hor 8 sartzen ginen: Mikele, Olaizolatarrak,... Orduan, gure artean entrenatzen genuen, nahiz eta bakoitza bere elkartekoa izan, bikoteak egiteko askotan zesioak egiten genituen, zeren eta bakarrik zegoen igual bat.

Eta, entrenamenduak? Nola antolatzen zenituzten?

Denak han, bai, bai. Han, eta orduak banatzen genituen.

Orain, hemen, guk arazoa daukagu, bazkideei eskaintzen dizkiete orduak, orduan, guri geratzen zaizkigu ordurik txarrenak. Infantilak 15.30-15.45, guk, gaur, 20.45, azkeneko orduak, bazkideek hartzen ez dituzten orduak guretzat dira. Gero, umeetan ez, benjaminetan errespetatzen da ikastolako ordutegia, 16.45-17.45.

Eta, jokorako materiala-eta, egokiak iruditzen zaizkizu?

Beno, material aldetik, ni hasi nintzenean, ez zegoen ezer ere txikiekin hasteko. Eta, hori ere, federazioan aritu dira ikertzen eta, beno, egokitu zituzten. Benjaminentzat pilota urdinak eta beltzak eta pala beste arin batzuk. Gero, infantilentzat, teniseko pilota eta pala, berdintsua, baina, handiagoa. Eta, gero, ia kadeteetan maziza edo gomazkoarekin.

Ni hasi nintzenean, ni beti ibili izan naiz tenisekoarekin, hori esan dut lehenago, baina, txikiekin hasteko, topatu nuen eta, gainera, fenomenoak dira eta oso onak dira. Makinetan, 1€-ko koloretako pilotak, horiekin hasi nintzen. Orain dauden jubenilak haiekin ibili ziren, ez zegoelako besterik. Pala txiki batekin, baina, pilota haiekin. Bote oso motzekoak ziren. Nik uste dut lagundu duela materiala egokitzen, denak berdintsu ibiltzeko.

Eta, noiz uste duzu hasi beharko liratekeela neskak pilotan?

Bada, 8-9 urterekin eta motiboa da, psikomotrizitate aldetik, gazteago hasita ez direla enteratzen, esperientzia badaukagu, ez dakite botea non emango duen, hori pixka bat kontrolatu behar dute. 8-9 adin polita da.

Eta, zein bide izan liteke egokiena 8-9rekin hasten den batek 20rekin segi dezan? Prozesu hori ez dadin eten, ez uzteko?

Guk esan behar dugu, zergatik jarraitu dugun palan, beno, urtean behin sagardotegian biltzen gara, aspaldi ibilitakoak-eta, eta horrek harremanetan jarraitzeko modua ematen du. Nik uste dut giro ona edukitzeak lagunduko lukeela jarraitzen. Guk, adibidez, gure taldean bazkari batek asko animatzen ditu. Urte bukaerako bazkarian, uztailan egiten denean, biltzen dira eta bata bestearekin ere “beno, bada, hurrengo urtean jarraituko dugu” eta batek esaten du “ez, ni hurrengo urtean ikasketak egitera noa kanpora”. Hori da uzteko duten beste arrazoi bat, kanpora joaten direnean. Badauzkagu batzuk kanpoan, entrenamenduak bakarka egiten ari dira, Laiene, adibidez, jarraitzen du, federatua dago, nahi duelako, asko gustatzen zaiolako ere bai. Baina, beste askok ez. Beste askok utzi egiten dute, erabat, karrerarekin hasten direnean.

Niri txapa bukatu zait. Galdera bat, azkena. Galdetzea nahi eta galdetu ez dizugunik ba al zen? Esan nahiko zenukeen zerbait? Zerbait gaineratu nahiko al zenuke?

Ez dakit, nik esaten ditut gauzak, uste dut tartekatu dudala.

Iritzi bat, bada igual, badago jende asko uste duena, eta hori nonbait idatzi behar da, “nik ez dut balio, zer txarra naizen”. Nik badauzkat horrelako jokalaria batzuk, eta nik esaten diet, “zuk jarraitu, ikasi eta gero erakutsi. Zu agian ez zara ona izango, baina, erakusteko beti norbait behar da eta jende faltan gabiltza, ez?”. Toki guztietan beti behar da norbait. Batzuk diote, “niri txapelketak ez zaizkit gustatzen, eta ez dakit zer”. Nik ez nuen uste hainbeste urtean egongo nintzenik hemen horrela, eta orain, ia umeak hazita ditudala ez daukat beste zereginik eta umeek ere animatu egiten zaituzte pixka bat. Askotan iruditzen zait zaharregia naizela txikiekin aritzeko, eta, orduan, gure gizartean jarraitzeko modua, ni konturatu nintzen, lehen esatea ahaztu zait, norbait egonda, ni ez nintzen iristen denera, gure jubenilek eta kadeteek badakite, esan egiten diet, “norbait behar dut txikiekin hasteko, honek soka luzea da, nitaz gain norbait behar da eta niri ordua iritsiko zait esateko, aio, banoa”. Orduan, hasi naiz.

Nik ez dut sekula entrenatzailerik izan, guk batak bestea entrenatzen genuen, eta hori faltan bota izan dut.

Kontatuko dizut Zarauzkoak nola hasi ziren. Duela lau urte, Euskadiko Jokoetan parte hartu zuten, infantiletan, eskuz, eta nik galdetu nien ea hurrengo urtean paletan hasiko

ote ziren, beraiei, gurasoei eta entrenatzaileari. Eta, ondoren hasi egin ziren, eta poza eman zidan. Nik norbait ikusten badut, beti galdetu eta komentarioa egiten diet, ea nongoak diren eta animatzeko esaten diet.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-04-07

Lekua eta ordua: Hernani, tabernako terraza, 17:45

Izen-abizenak: Ibone

Zer inpresio egin dizu elkarrizketak? Zer iruditu zaizu?

Nire burua hemen ikusteak txarra, bat-batean esandako gauzak ez dituzu kontuan hartzen eta irakurrita ikusita esaten duzu, “uuuuuhhh, horrela?”. Ez dakit, lotsa bezala eman zidan, eta oraindik ere... Nik esandakoa ahaztu egiten dut, esan eta pasa da eta “kitto”.

Esandakoekin ados zaude?

Bai. Hasierako data zegoen oker, baina, bestela, bai.

Zerbait bereziki begiratzea nahi duzu?

Ez, blogekoa gehitzea ahaztu zitzaidala eta beste puska hori.

Eta, zerbait gehiago okurritu zaizu ordutik?

Ez, ez, oso ondo dago.

LANDA EGUNEROKOA

1. elkarrizketan

- Elkarrizketa hasi aurretik urduritasun puntu bat somatzen zitzaion, aurrez galderak irakur ote zitzaken galdetu zidan, baina, lasaitasuna transmitituz laster baretu zen eta gustura zegoen.
- Aspaldiko bizipenak berritzeak aspaldiko garaietara eraman zuela esango nuke.
- Elkarrizketatua izateak poztu zuela esango nuke.

Berrikustean

- Besteek esanikoekiko kezka puntu bat agertu zuen, zer erantzun ote zuten.
- Gustura dago oro har, nahi zituen erantzunak eman zituen sentipena transmititzen du.

Elkarrizketa data: 2011-03-18

Lekua eta ordua: Anoeta, bere etxea, 11:30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Eider

Adina: 33 urte

Jaioterria: Zizurkil

Bizilekua: Anoeta

Pilota elkarte: Su-Berri. 2008ra arte Kuku elkarte

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: Gorputz hezkuntza lizentziatua

Lanbidea: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko teknikaria

Kirolarekin edo jarduera fisikoarekin zentratzen joateko. Zuk gogoratzen al duzu noiz hasi zinen kirolarekiko/jarduera fisikoarekiko interesa sentitzen? Noiztik datorkizu kirola egiteko gogo hori?

Nik uste txiki-txikitatik. Nik beti egin dut kirola, orain baino askoz ere gehiago.

Eta, zer kirol egin dituzu?

Denetik egin dut: futbola, iraupen eskia, tenisa, piraguismoa. Horietan gainera lehiatu egin naiz, federatuta egon naiz eskian eta tenisean, piraguismoan ez. Piraguismoan ikastaro batzuk egin nituen bost urtetan jarraian eta ikasle izatetik irakasle izatera pasa nintzen. Urte askoan aritu naiz piraguismoko ikastaroak ematen udan. Hortaz aparte, hemen, Tolosaldean, olinpiadak-eta egoten ziren eta ni denetara apuntatzen nintzen, denetan parte hartzen nuen: mahai tenisa, atletismoa, pisu-jaurtiketa,... Askok, kirol pila bat egin ditut.

Eta orain kirolek jada pilotara pasatuko gara. Zu gogoratzen al zara noiz hasi zinen pilotan?

Nik uste dut 7 urterekin hasi nintzela, bai, nik esango nuke 7 urterekin. Anoetan pilota eskola bat martxan jarri zuten eta eskuz hasi nintzen orduan.

Eta, zeinekin hasi zinen?

Bai, Julian zen, orduan, pilota eramaten zuena Anoetan eta Kuku elkarte ere bai, horren ardura ere berak eduki zuen orain arte, orduan, berekin.

Eta, zergatik hasi zinen?

Ez dakit, niri pilota gustatzen zitzaidan. Guk batez ere, Anoeta da herri bat kirola gustatu zaion jende gehienak kirol ezberdinak praktikatu dituenak, eta guk denboraldika geneuzkan. Urtean zehar jolasten genuen futbolekin eta pilotan, batez ere, gero udara iristen zen eta kaniketaren jolasten genuen, edo monopatinarekin, edo txirrindularitza,... Ez dakit. Orduan hasiko nintzen gustatzen zitzaidalako, pilota eskola batetarako deialdia egin zuten eta ni apuntatu egin nintzen. Ni denetara apuntatzen nintzen orduan.

Zuk uste duzu bakarren batek eragin zuela zuk erabaki hori hartzerakoan? Ingurukoek, lagunak, ahizpak, amak...

Ez, familiak ez, eta, lagunak eta horrela, ez. Esan dizut, “pilota eskola bat sortu dugu, monitore bat dago”, eta, orduan, “bada, goazen apuntatzera eta kitto”. Gure kasa ibiltzen ginen eta Julianek pilota eskola sortu zuen eta, orduan, eduki genuen aukera bat norbaitek erakusteko, eta astean bitan-edo uste dut joaten ginela. Beno, pilotan egunero ibiltzen ginen. Gero, bera pixka bat desastrea zen, ez dakit non lana egiten zuen orduan, ez naiz gogoratzen, baina gogoratzen naiz, beti berandu etortzen zen, askotan bere etxera joan behar izaten genuen, andreari pilotak eskatu eta gu hasten ginen. Baina, beno, azkenean, hori, gu berez ibiltzen ginen, baina, hor bageneukan tipo bat eta hark zer edo zer erakusten zigun eta txapelketak antolatzen zituen herrian eta horrela eta, beno, saltsa.

Eta, pilotako hasiera horretatik emakumeen pilotara salto eginaz, zu gogoratzen zara nola iritsi zitzaizun nesken pilotaren inguruko informazioa? Nondik?

Bai, Julianek utzi zuenean, zeren eta ia ez zen iristen lanagatik, utzi egin zion pilota eskola berak eramateari, eta Ander hasi zen pilota ematen, ez dakit, 90ean edo horrela pentsatzen dut, zeren eta nik orduan 13 urte izango nituen, gutxi gorabehera. Anderrek bereizi zuen, beno, Julianek lehenago ere bai, talde bat eskuzkoa eta beste bat paleta larruzkoa, eta, orduan, ni gogoratzen naiz biak egiten nituela, eskuz eta paleta larruz. Hor, paleta larruz ibiltzen nintzen, mutilekin lehiatuz eta horrela, beno, lehiaketa batean parte hartu nuen, eta, bai, nik uste 14 urte neuzkala, 15 egiteko eta ni ia ari nintzen uztea pentsatzen, konturatzen ari nintzelako mutilek mutilak izatearren bakarrik indar gehiago zeukatela, ni, gainera, atzelaria nintzen, beti izan naiz atzelaria, eta nik ez neukan indar asko. Bai, teknikoki ona, dezente maila ona neukan, eta ezkerre-eta ona, baina, ni 4tik ez nintzen pasatzen, eta, besteek, txarragoak izanagatik 5era botatzen zuten. Orduan, ari nintzen pixka bat “amargatzen” eta ikusten nuen ezin nuela aurrera begira gehiago segi, zeren eta ni ordura arte Gipuzkoako txapelketan eta horrela, federatuetan, parte hartuta nengoen, baina, Kukurekin ez, Tolosako San Esteban elkartearekin. Orduan Gipuzkoako txapelketa zen herriartekoa egiten den bezala, klubaren artekoa baina taldekoa. Orduan, elkarte bakoitzak behar zituen infantil, kadete eta jubenilak, uste dut, eta San Estebanek infantilak ez zeuzkan eta guri eskatu zigun, eta, guk, nola handirik ez geneukan, bada, joan ginen ni eta Josu. Ni ia lehiatzen ibilita nengoen eta ikusten nuen ezin nuela gehiago. Aurrean ibili izan banintz, bada, beno, aurrean ez da hainbeste indar behar, baina, atzetik ikusten nuen ez nuela kentzen, eta, orduan nazkatu egin nintzen. Uztekotan nintzen, beno, Anoetan segiko nuen, baina, uztekotan, eta Ander orduan profesionala zen eta berekin zebilen Gorka, Altxoko bat. Behin eurak aldageletan hizketan, esan omen zion, “neska bat daukat, ondo jolasten duena, baina, utzi egin nahi du, eta ez al dago ezer ere neskena, palan edo?”, eta esan zion “nire arrebak palan jolasten du”. Gorka horren arreba, Monika, orduan palan zebilen ia eta harekin harremanetan jarri ninduen eta horrela hasi nintzen. Hasi batean neskek Intxaurrondon elkartzen ziren, han entrenatzen zuten, eta Monikarekin joan nintzen pare bat entrenamendutara hara, eta ikusi nuen zer “perkala” zegoen, ni oso gaztea nintzen, eta orduan zegoen talde bat, “zaharrak” zirenak eta ni “kaka-ume” bat nintzen. Nire adineko 2-3 bazeuden, baina, haiek ez zuten ezer ere jokatzen nire kontra, orduan, ni bi aldiz joan nintzen haiekin, baina, esan nuen “ni ez naiz joango astean bi aldiz, ez, astean behin, haraino, Intxaurrondoraino, trena hartuta, horiekin ibiltzeko”. Orduan, ni hemen

ibiltzen nintzen, baina, orduan ezagutu ninduten, mundu horretan sartu nintzen eta nik esan nien, “aizue, txapelketetarako niri abisatu, telefonoa hau da”, eta kitto.

Beno, etenaldiren bat eduki duzu ordutik, hasi zinenetik, bat bai.

Bai, haurdunaldikoa, eta, beno, aurretik, errotulako lesio bat eduki nuen eta 6 hilabeteetan egon nintzen jokatu gabe. Baina, hori jokalaria bezala, bai, harremana beti mantendu dut. Haurdun egon nintzenean ere hor egon nintzen, are gehiago, nire lanaren zati bat hori zen, ni triparekin edo tripa gabe han joaten nintzen, ezin nuen jolastu, baina... Ez, oraingoz etenaldi seriorik ez dut eduki.

Eta, zergatik jarraitzen duzu?

Zergatik? Uff... Ez dakit, niri pilota gustatzen zait eta gustura ibiltzen naiz. Gero, pilota munduan dagoen jendea, orokorrean, jatorra da eta beraiekin ondo pasatzen dut, “kutxipanda” ederrak egiten ditugu. Esan nahi dut, txapelketa egiten duzu, baina, gero bazkaria edo juerga batzuk, eta alde horretatik ondo dago. Eta, beste alde batetik, bada, bai egia dela, beno, gero hitz egingo dugu, Emakumea Pilotari proiektua sortu aurretik niretzako ere esfortzu handia zen, nik pilotan jolastu nahi nuen, baina, nik nahi nuen mundial bat jolastu, iparraldekoen kontra jolastu, nik nahi nuen nafarren kontra jolastu,... eta ez hemen desmotibatuta jolastu. Baina, era berean, ulertzen nuen egin beharra geneukala, bestela hemengoa bertan behera geldituko zen, galdu egingo zen eta, orduan, nik beti sentitu dut gu hor gabiltzala, urte gehiago daramatzagunak, eta tira ere egin behar dugula jende berria etorri arte. Beno, gaur egun badaude pixka batzuk, eta, beno, beti zubi lan hori egiten. Ez dakit, ni gustura ibiltzen naiz.

Orduan, bueltatzeko arrazoi nagusiak eman dizkidazu ia. Ez?

Beno, bueltatu, bueltatu, “kit-kat” bat izan zen, derrigorrezkoa zelako, baina, are gehiago, nik uste dut azkarregi eta dena bueltatu nintzela, zeren eta desastre bat izan zen lehenengo bi hilabeteetan. Jolasten aritu nintzen, baina, ezin nuen, ez neukan indarrik, ez neukan ezer. Hasi nintzen umea eduki eta bi hilabetera eta hori pixka bat “heavy”-a da.

Zuk segitzen duzula esan dugu, baina, suposatzen dut urte horietako ibilbidean jendea uzten joango zela. Mantentzen duzu harremanik edo nolabaiteko kontakturik haiekin?

Batzuekin bai. Nik hasi nintzenean 15 urte neuzkan eta nik jokatzeko nuen 30 urteko jendearen kontra. Orduan, ni 30era iritsi naizenean horiek 45 urte dauzkate eta batzuk jarraitzen dute eta beste batzuk utzi egin zuten. Arrazoi ezberdinengatik, batzuk lesioagatik, jende gehienak lesioagatik utzi du hala ere, konturatzen naiz Eba bat, Aiora, Itxaro,... horiek dira zaharretakoak eta horiek gehienak lesioagatik, bada, herniaren bat atera zaielako, Ebak kaltzifikazio bat, “tendinitis kaltzifikante” bat zeukalako sorbaldan,... Orokorrean, jendeak, garai haietakoak horregatik utzi du. Beste batzuk bat-batean utzi egin zuten eta ez dakigu ezer ere eurretaz. Batzuk eduki dute lotura handiagoa, saiatu dira, baina, beste batzuk, ez. Nik txapelketa bat jokatu nuen Marta batekin, Hernanikoa uste dut zela, eta ez dut gehiago ikusi neska hori, orain dela 15-16 urte. Astigarragako beste neska batekin ere jokatu nuen eta hori ere ibili zen urte batzuetan, eta gero utzi egin zuen, ez dakit zergatik, ez naiz gogoratzen, edo

ikasketengatik edo, eta batzuk ia desagertuta daude. Beste batzuekin harremana mantentzen dugu, bai.

Emakumeen pilotaz eta inguruko en eraginaz galdetuz, zer iritzi zeukaten ingurukoek (senitarteko, lagun, ...) zu pilotan hasi zinenen? Eragin zuten?

Nire ingurukoek? Ez dakit, ni beti izan naiz “marimutil” bat eta orduan beste kirol bat gehiago zen, pilota bada pilota eta punto. Inork ez zidan esaten “pilotan jokatzen al duzu?”, bada, “bai”. Ni Anoetan ezaguna nintzen, guk Anoetan herriko taberna geneukan, eta horregatik bakarrik ezaguna nintzen. Gainera, gero, “marimutil” bat nintzen eta beti mutilekin jolasten nuen. Nola egun guztia jolasten aritzen ginen, bada, orduan, ni kontsideratzen naiz pertsona bat bastanteko abilezia daukana, eta nola bastante ona nintzen, bada, segun zeinekin konparatuta. Pilotan jokatzen nuen, baina, lagunek-eta horiek inork ere ez zidan ezer esaten, egia esan, baina, ezta neskek ere. Neskak euren “rolloetan” bizi ziren.

Ez onik eta ez txarrik, ez zenuen iritzirik jaso?

Ez, ez. Gero, nire ama eta familiaren aldetik nik uste normala iruditzen zitzaizela, beti hain “marimutila” izan nintzen, beti ibili nintzen nire baloia beso azpian nuela, 4-5 urtetatik. Ez zitzaien arraroa egiten, eta, ez dakit, ni aritu naiz urte askoan areto futboleko eta pilotan lehiatzen eta, adibidez, bai nire amak pila bat lagundu didala, zeren eta nire amaren laguntzarik gabe ezinezkoa egingo zitzaidan, ez nintzen inora ere iritsiko. Hara eta hona ibili nintzen ni, eroa bezala, beno, nire ama ibiltzen zen eroa bezala. Ni, partidu bat jokatu eta bidean aldatzen nintzen arropaz eta beste partidura joaten nintzen, hori, nire amak lagundu zidalako.

Iritzia? Nik uste nire aitaren familiakoek-eta, orain, urte batzuk pasata, orain dakit pilota gustatzen zaiela eta nik uste ilusioa egiten diela nik pilotan jokatzeak, baina, beno, hori txikitan sekula ere ez zidaten esan. Nire amak eta bere familiakoek, bada, “pilotan, bada, bale, pilotan”. Nik kontsideratzen dut laguntza eduki dudala eta ez dudala trabarik eduki alde horretatik.

Eta, iritzi hori aldatu al da denboraren poderioz? Hasierako iritzi hori?

Beno, nik uste dut baietz. Hasieran hasten zara herri mailan, gero ateratzen zara Tolosaldean, gero Gipuzkoa mailan jokatzen duzu eta, gero, nik eduki nuen suertea, bada, mundial batera joatekoa, eta mundial batetara joaten zarenean, ez da mundial batetara joatea bakarrik, mundua ezagutzen duzu. Ni egon naiz Kuban, Mexikon bi aldiz, Argentinan, Uruguayn,... Alde horretatik seguru, esango dute, “zuri pilotak asko eman dizu, eh!”. Bada, horixe baietz, bidaiatu egin dut eta mundua ezagutzeko aukera eman dit. Bai, gero, gainera, tartean egon da Espainiako selekzioa eta Euskadiko selekzioa eta familian, bada, beno, egia esan, nik ez dut inoiz inor eduki kontra, baina, badaukat izeba pixka bat abertzalea, eta harekin diskusio batzuk izan nituen, baina, momentukoak. Azkenean, beti errespetatu naute eta, beno, lehenengo munduko txapelketa irabazi genuenean, lehenengo-lehenengoa, herriak omenaldi bat egin zidan, baina, familiak ere bai, eta hori nik uste dut dela positiboa, asko baloratzen dutela, asko edo, beno, baloratzen dutela.

Eta, zuk gizartearen presiorik nabaritu duzu emakumea eta pilotaria izatearren? Zer tratu mota jaso izan duzu pilotan ari zinen bitartean?

Nik beti egin ditut gauzak normal eta nirekin zeudenak, nire bikoteak eta nire ingurukoek, ni beti tratatu naute bat gehiago bezala, neska edo mutila izan gabe, hori kontuan hartu gabe. Zeren eta, egia esan, 14-15 urtera arte ibili nintzen beraiekin, ondoren ia neskekin jokatzera pasa nintzen. Nik uste dut “barrera” hor dagoela, beno, gaur egun, agian, lehenago dago “barrera” hori, baina, lehen, 14 urtera arte ni mutilekin ibiltzen nintzen, batez ere, eta alde horretatik ez zegoen arazorik. Gauza zen joaten ginenean beste herriren bateko jendearen kontra jokatzera, beti begiratzen zuten horrela, beti harropuzten ziren aurkariak, “neska baten kontra jolastu behar dugu! Seguru ez duela batere jokatzeko eta ez dakit zer eta badakit zer”. Horrelako kontuak asko, baina, beno, betikoa, ni haserretzen nintzen, baina, pentsatzen nuen “jokatuko dugu eta gero ikusiko dugu jokatzeko dudan edo ez dudan”. Eta, beno, bat baino gehiago etxera nigarrez joandakoak ziren, galdu zutelako neska baten kontra. Alde horretatik, egia da lekuren batetara azaltzen ginenean, Gipuzkoako txapelketa hori jokatu genuena klub artekoa, taldekakoa, agian, Zumarragara joan edo Loiolara, eta, denak mutilak eta infantiletan neska bat. Hasieran, beno, baina, gero, berotzen ikusi eta, “neska bat, baina, honek badaki jolasten”. Nik uste dut iritzi guztia aldatzen zela. Eta, gero, problema bezala, aldageletan izaten zen, ni gogoratzen naiz “sartu zu lehenengoa, eta...”. Gu, adibidez, takoak-eta gehienetan etxean jarrita joaten ginen eta dutxatu ere ez dakit zenbateraino dutxatzen ginen, hain txikitari, agian aldatu edo takoak kendu. Ni, nola nirekin zegoen jendeak errespetatzen ninduen, azkenean, bada, inguruak ere, zentzu horretan, errespetatu egiten zaitu, eta bat gehiago bezala tratatzen zaitu, nahiz eta aldagelen arazotxo hori egon.

Eta, tratu hori aldatu da denboran zehar?

Bai, aldatu egin da, batez ere, hasieran ezezaguna zara eta, orduan, jendeak, aurrean barre egiten du. Gero, ikusten dute jolasten duzula eta aldatu egiten da beraien iritzia, eta, gero, jendeak hitz egiten du, “aizu, hemen badago neska bat eta jokatu egiten du”. Nik ez dakit, nik beste kasu batzuk ezagutzen ditut, beste neska batzuenak, eta, azkenean, “famatuak” egiten dira, zeren eta ia badakite “Lizartzan badago neska bat eta ondo jokatzeko du” edo “Zumarragan badago neska bat eta neska da, baina, jokatu egiten du eta 8tik ezkerrekin bueltatu egiten du”. Jendea ia hitz egiten hasten da, eta, alde horretatik, nik uste baino jende gehiagok ezagutzen ninduen eskuz jokatzeko nuenean. Nik uste nuen beste bat gehiago nintzela, anonimoa, baina, neska nintzen, eta nola pixka bat jokatzeko nuen, nik uste dut jendeak pixka bat ezagutzen ninduela, baina, horregatik, edo hitz eginda edo entzunda. Alde horretatik.

Gero, eskua utzi nuen eta nola pasa nintzen palan jokatzera eta palan denak neskak diren, hor ia pilotariekin harreman normala, denak neskak dira eta beste neska bat naiz, eta nik uste dut garai haietan jokatzeko genituen txapelketarik gehienak pribatuak zirela, Altzako txapelketa, Oiartzungo txapelketa, Intxaurrendokoa,... Orduan, errespetatzen gintuzten eta ez ginen betegarri, nik ez nuen sinesten betegarri bat ginenik. Nik uste dut normal, dezente normalizatuta zegoela, bada, orain bezala. Ez dakit.

Eta, orain nola uste duzu ikusten direla pilotan aritzen diren emakumeak? Jendeak nolako iritzia daukala?

Ea, bada, oraindik jende asko dago ez gaituena ezagutzen, ez dakiena neskak gaudenik pilotan jokatzeko dugunak, eta, orduan, alde horretatik, bada, nik uste dut batzuentzako oraindik sorpresa dela. Bat, jakitea neskak pilotan dabilzala, eta, bi, ikusten dutenean nola jokatzeko dugunak, nik uste dut sorpresak hartuko dituztela, ez dakit. Ez dakit, ez dakit zeinek jokatzeko duenean, “ez dute ezer ere jokatzeko”, eta, “bai, noski, mutilek ere ez, segun zein mailatakoak”. Beno, ez dakit, nik uste dut, beti bezala, nola falta zaigun pixka bat plazaratzeko hori, bada, orduan jendeak, bada. Nik uste dut ezagutzen gaituenak badakiela zer maila dagoen, eta ez gaituenak ezagutzen, bada, esango du “hauek zer egiten dute pilotan jokatzeko?” Ez dakit.

Esan duzu beste pilotariekin harremana badaukazula. Nola moldatzen zarete? Ondo moldatzen zarete?

Bai, nik uste dut, orokorrean, ondo.

Harremanez galdetu dizut. Zein helburu-espektatiba zenituen pilotan hasi zinenean? Gogoratzen zara zer espektatiba zeneukan?

Beno, eskuz hasi nintzenean espektatibak zero, ikasi pilotan jokatzeko eta txapelketak jolastu eta ahal banituen irabazi eta bestela, bada, segi eta ondo pasa. Palan hasi nintzenean, bada, berdina. Poztu egin nintzen, egia esan, ni ia pilota uzteko nongoen, ez nekien, ni ordura arte sentitzen nintzen irla bateko neska bakarra eta ez zegoela inor neskarik pilotan jolasten zuenik eta niri arraroa egiten zitzaidan, esaten nuen, hain arraroa ere ez naiz ni. Niri gustatzen zitzaidan bezala, pentsatzen nuen herrietan, hirietan agian ez, egongo zela jendea niri bezala gustatzen zitzaiona. Orduan, nik haiek ezagutu nituenean, gustura, eta espektatibak? Bada, hasiera batean, orduan bazeuden Eba eta Aiora eta hauek, ondo jokatzeko zuten, batez ere Ebak, eta nik ikusi nituenean zer jende zegoen, bada, orduan, nire helburua zen hor goian zeuden horiei irabaztea. Hasieran ez neukan indarririk, teknikoki moldatzen nintzen, baina, indarra zero, eta, beno, Aiora eta hauen kontra jokatzeko nituenean zen “nik zuk baino bat gehiago bueltatuko dut”, eta haiei kontra egitea. Gero, ia, nafarrak sartu ziren eta beti mugak izan dira hor onenak ziren horiei irabaztea, hori eduki dut muga. Ia mundialetan, mundu horretan sartu naizenean, bada, lehenengo mundialera joan eta gero ahal bada irabazi, nik uste dut maila bageneukala. Hasieran ez, bada, trinketean gutxi ibilita geundelako, baina, beno, horixe.

Nere espektatibak? Bada, txapelketetan parte hartu eta ahal badut irabazi. Eta, ez badut irabazten bada, horixe.

Gaur egun espektatiba horiek mantentzen dituzu? Edo, zein dira oraingoak?

Bai, nik uste dut, beno, orain proiektuarekin txapelketa ezberdin asko daude, eta, orduan, Emakumea Pilotari bat irabaztea ez da nire helburua. Ea, saiatuko naiz irabazten, baina, Emakumea Pilotari batean nire helburua da ea zeinekin tokatzen zaidan eta saiatu hari ahal dudana gehiena erakusten neska horrek ere bere maila hobetzeko eta, denon artean, egun dagoen maila igotzen laguntzeko. Txapelketa horietan nire helburua da, batez ere, nire aportazio txikia, edo handia, edo erdibidekoa, egitea Gipuzkoako pilotarien maila igotzeko.

Gero, ia beste gauza bat da Kutxa Sari batean, horiek ia goi-mailako txapelketak dira. Bada, bai, hor nahi dut, bat, partida gogorak jokatzeko oso aukera ona da, gustura ibiltzen naiz, partidu zailak dira, ez da erraza, eta lehenengo, bada, horiek irabaziz gero, bada, zeinen ondo, “momentuko pilotaririk onena naiz, qué guay!” Horrek bizia ez du aldatzen, baina, beno, azkenean maximoa da.

Lehen ambulatorioan egon zara eta orain osasunaz hitz egingo dugu. Baina semearen osasunaz ez, eh. Nolako osasuna ikusten diozu gaur egun nesken pilota munduari?

Ni hasi nintzanean baino jende gehiago dabil pilotan, hori bai, eta adin ezberdinetakoak. Osasuna nahiko ona dauka, ez dakit, positiboa izan nahi dut, ni negatibo samarra naiz batzuetan, zeren eta iruditzen zait esfortzu bat egiten ari garela eta ez direla ateratzen nahi genituzkeen neska guztiak. Baina, gero, hotzean pentsatzen hasten baldin bazara, edo buru pixka batekin pentsatzen hasten bazara, begira, kirol pila bat daude, gaur egun emakumeen kirolak indar gehiago dauka lehen baino, publizitate gehiago jasotzen du, futbolak beti eduki du indarra, baina, gaur egun nesketan askoz ere indar gehiago dauka. Nik areto futbolean jokatzeko nuen, ez genuen zelai handian jokatzeko, eta gaur egun areto futbolean ez du inork ere jokatzeko, denak zelai handian dabilta, onak, telebistan ateratzen direnak, horiek dira. Gero, arrauna-eta daude, daude kirol batzuk, bada, beno, “absorbitzen” ari direnak beraien neskak, eta neska kirolariak dira direnak. Normalean, neska kirolariak kirol bat baino gehiago egiten ditu, nik uste dut, pilotan orain edade batetik aurrera jendeak ia pala hartzen du, baina, gaztetan azkenean, nik uste dut kaptazioa hor egin behar dela, kirol bat baino gehiago egiten dituzu eta, bada, “niri bestea ere gustatzen zait”. Hortaz, asko-asko gustatzen bazaizkizu bi kirol, bada, egiten duzu esfortzua, nahiz eta gaur egun ematen duen ezin direla bi kirol batera egin, “zeren eta ikasi egin behar dut, ez dakit zer”, eta besteok ere ikasi dugu eta gauza horiek egin ditugu, gehi beste batzuk. Baina, beno, gaur egun ez dakit zer pasatzen den.

Nik uste dut alde horretatik osasun ona daukala, begiratzen baldin badugu adin guztietako jendea daukagu, gehiago edo gutxiago adin guztietako jendea daukagu eta hori da kontua. Nik uste dut hori dagoen bitartean “piramide” hori, komatxo artean, mantentzen dela.

Eta, egoera hobetzeko ideiarekin bat bururatzen zaizu?

Niretzako klabea da iritsi behar dugula telebistara. Nik egunetik egunera argiago daukat, zeren eta prentsan sekulako esfortzua egiten ari gara, beno, jende ezberdina egiten ari da, eta nik uste dut jendearentzat orain dela 5 urte baino ezagunagoa dela emakumeen pilota, baina, oraindik ere... Nik uste dut orain badaudela medio gehiago telebistan irteteko, hor daude etb3, etbsat,... Nik uste dut egin behar dela apustu bat nesken pilota ateratzeko, eta egin behar da apustu fuerte bat. Gipuzkoako Pilota Federazioak “kristoren” proiektua dauka, diru asko gastatzen ari da eta gastu bat eta indar bat egiten ari da, baina, azkenean, azpitik zerbait lortzeko, baina, hortaz aparte beste zerbait egin behar da. Hala ere, daukagu zuzendaritza bat “estupendoa”, bada, ez digute laguntzen. Nik uste, adibidez, aurten Euskal Herriko Irekia telebistaz eman dute, eta, egia esan, beno, beraien aldetik “lorpen” bat da, komatxo artean, edo, beno, oso ondo gelditu dira, neskak bota ditugu, baina, ez da maila oneneko jendea atera eta, nik uste, hori, adibidez, ez, hor jarri behar direla ahalik eta onenak. Zergatik? Jendeak futbola ikusten du Real Madrilek Barçaen kontra jokatzeko duenean, baina, Real Madrilek jokatzeko badu Almeriaren kontra, bada, barkatu esatea, baina, partida hori ez dago kolorerik eta

itsusia. Orduan, nik uste dut hasiera batean behintzat, gero igual gustatzen zaizunean denak ikusten dituzu, baina, niretzako hasiera batean saiatu behar da ahal den onena jartzen, nik uste dut gaitasuna badagoela, maila badago, txapelketak badaude, baina, ez dagoena da gogoia, intentzioa eta hor beste gerra batzuk daude, Euskadi-Gipuzkoa, Gipuzkoa-Euskadi.

Nik uste dut telebistan gehiago aterako bagina jende gehiago animatuko litzatekeela, zeren eta oraindik nik segitzen dut esaten ezezagunak garela, eta, betikoa. 10 urteko neska batek ikusten badu 25eko neska bat, 30ekoa, 20koa, berdin zait, telebistan ateratzen dela eta abar, eta, bale, ez gara profesionalak eta ez gara hortik biziko, bale, igual zait, baina, hor aterata eta ikusita zer maila dagoen eta ez dakit zer, nik uste dut gustatzen bazaizu, nahiz eta beste kirol bat gustatu, horretan ere saiaturiko zarela. Bestela, jendeak ez daki eta mundial batetara joaten garela. Orduan, nola xaxatuko dituzu? Niretzako hori da zaila, beste kirolak ere badaude, ederrak. Ez dakit, ez dakit klabea den, baina, nik uste dut oso inportantea dela.

Zergatik uste duzu aukeratzen duela pilota neska batek? Zein arrazoi eduki ditzake? Edo, ez duela aukeratzen?

Bada, begira, nik esango nuke dagoela bi klasetako jendea, edo, hiru. Beno, praktikatzen dutenen artean, igual, bi jende tipo daude. Bat da egiten duena gustatzen zaiolako, kirol bezala gustatzen zaio, minik ez du egiten, pala batekin jolasten du eta gustatu egiten zaio, bada, beno, zergatik ez, beste neska batzuekin egiteko aukera badauka? Bada, egin egiten du. Eta, gero daude horren lagunak, direla, “ez zait gustatzen, baina nola nire lagun ona, jatorra pilotan dabilen, bada, goazen denak pilota egitera”. Bigarren klase horretako neska batzuk segi egingo dute, igual hobetu egingo dute eta engantxatu egingo dira eta, beste batzuk, nola hasieratik intentzio handirik ere ez zeukaten ikasteko, bada, ez dute ikasiko eta utzi egingo dute. Ez dakit, nik uste dut pilota kirol polita dela, baina, ohitura falta da. Oraindik pilota mutilen kirol bezala ikusten da, eta, orduan... Nik esaten dizut sustapen jarduerak egin ditugula, eta, adibidez, askotan eta askotan, nik sorpresa asko hartu ditut. Nik Irunen sustapen jarduerak egin nituenean sorpresak hartu nituen, Irunen zegoen jende asko gustatzen zitzaiona, eta, gainera, oso ondo jokatzen zutenak, baina, Irunen ez dagoenez azpiegitura bat hori bultzatuko duena, eta, betikoa, beste kirol batzuk dauden, bada, jendeak aukerak egiten ditu. Irunen kasua oso argia zen. Nik hitz egin nuen bere garaian han. Zuk entrenamendua larunbat goizetan jartzen baduzu, noski, jendea ez zaizu etorriko, ez zaizkizu etorriko, zeren eta larunbat goizetan eskola kirola egiten dute eta neska horiek nahi dute beren lagunekin eskola kirola egitea ere. Jarri igandean edo jarri larunbat arratsaldean, berdín zait, baina, lagundu jende horri bi gauzak batera egiten, gero aukeratu dezan. Hori ez da egiten, orduan, ez dakit.

Eta, zergatik uste duzu uzten dutela?

Bada, ez direlako motibatzen. Nik uste dut uzten duen jendea dela maila baxuena daukan jendea, eta ez duena hobetzen, ez duena hobetzen arrazoi ezberdinengatik: ez daukatelako erakutsiko dien begirale bat, edo abileziarik ez daukalako, edo benetan apuntatu zelako bere laguna apuntatu zela-eta eta ikusten duelako bere laguna gora doala baina berak ia ezin duela berekin jolastu, edo, ez dakit. Pentsatzen ari naiz zer jende hasten den eta zer jendek uzten duen, eta, nik uste dut askok uzten dutela, bada, hori, maila baxua daukatelako eta, beste batzuk, bada, beno, igual maila pixka bat badaukate baina ez dute sinesten, eta ez zaie iruditzen neskentzako kirol bat denik, eta

benetan azpiegiturarik daukanik, eta benetan atzetik txapelketa pila bat daudenik. “Zuk jokatu dezakezu eta federatu mailan zerbait egin dezakezu”, baina, ez dute hori hain argi ikusten eta, orduan, beste kirol batetara jotzen dute, edo beste jarduera batetara: musika edo akordeoia edo dena delakoa. Hor badakite zer dagoen, baina, hemen ez dakite zer dagoen. Niri iruditzen zait batzuk, Azpeitian, adibidez, hasi zirenak eta utzi zutenak, oso ondo jokatzen zuten, baina, beste kirol bat hartu dute edo utzi eta beste gauza batzuk egin dituzte. Aizu, eta, gero “la edad del pavo es la edad del pavo”, ez dakit nola esan. 14-15 urterekin nire koadrilako neskak baldin badira super-fashion, bada, agian esango dizute “zer egiten duzu pilotan jolasten? Hori mutilen jokoa da. Txandalarekin? Nola ibiliko zara txandalarekin?”. Bada, hori ere, ez baldin badaukazu zuk zure nortasuna, bada, azkenean hori ere puntu negatiboak daukazu uzteko, beste “rollo” batetara sartzeko. Baina, ez dakit, ni ziur nago, niri iruditzen zait baldin badaukazu neska talde bat, 10 urterekin hasi dena eta benetan zaintzen dituzu eta benetan mimatzen badituzu, eta jartzen dituzu txapelketetan beraiek nahi baldin badute eta ez badute nahi ordezeko bezala, baina, mimatzen badituzu eta benetan baloratzen baldin badituzu, nik uste dut jendeak ondo pasatzen duela eta ez daukala zertan utzi beharrik. Horiek ez badituzu egiten, bada, hori gehi kanpoko guztia, bada...

Uztearen arrazoi bat esaten nuen askok utzi zutela lesioengatik, beste batzuk adinarengatik eta ez dizudana esan da beste batzuk haurrak izan zituztela eta, batzuk, umea eduki eta gero bueltatu direla berriz, baina, beste batzuk ez. Umeak eduki zituzten eta ez ziren bueltatu gero, adibidez, Bakarne, gero lanean hasi zen eta ez zen bueltatu. Horrela soilik ematen du jendeak utzi duela lesioengatik. Hala ere, ez dut uste pilota denik asko ibiliz gero izugarritzko lesioekin buka dezakezun kirol bat. Bai, kirol bat da eta kirol denak bezala gaizki egiten baduzu eta asko “matxakatzen” baduzu eta ni bezala ez baduzu luzapenik egiten, bada, adin batekin ba nabaritzen da, baina, uste dut beste arrazoi bat amatasuna eta familia direla. Batzuk pentsatzen dute gazteak direnean bale, baina, behin bikote batekin hasten direnean segitzen dute, baina, ezkondu edo umea edukitzean apartatu egiten dira. Nire kasua ez da, beste asko daude gauzak berdin-berdin “konpaginatu” dituztenak, baina, igual, bada arrazoi bat.

Orduan, nola iruditzen zaizu bultzatu beharko liratekeela neska edo emakume horiek pilotara?

Nola? Oraintxe esan dizut. Nik uste dut jendea mimatu egin behar dela, jende hori ondo tratatzen saiatu behar duzula, kirol horrekin ondo pasa arazten. Eta, beno, ea, nik ez dut esan nahi algodoi artean eduki behar direnik. Ez. Nik uste dut joan behar duzula gauzak argi esanda, esplikatuz, “orain eskolartekoan zaude, gero hau dago, gero mila aukera daukazu segitzen baldin baduzu. Entrenatu egin beharko duzu, esfortzu bat egin beharko duzu, zure esku dago maila hori igotzea edo ez igotzea, maila igotzen baldin baduzu, bada, begira, edukiko dituzu aukera pila bat eta, ia, igotzen ez baduzu, horrek ez du esan nahi dena denik goi errendimendua eta onena izan behar duzunik, baina, maila hobetzeak ez du esan nahi onena izan behar duzunik, esan nahi du zure maila pixka bat hobetu behar duzula, listo, denok hobetu behar dugun bezala. Zure maila pixka bat hobetzen zoazen heinean zu ere hobeto sentitzen zara. Beno, bai, galduko dituzu partidak, baina, ez 5ean, galduko dituzu 15ean eta hurrengo helburua izango da 25ean galtzea eta gero bakarren bat irabaztea”. Orduan, zu “rollo” horretan sartu eta lortzen badugu gazte jendeak ere, sedetan jokatuz eta horrela, harreman pixka bat edukitzea eta gero juergan irteten dira eta hitz egiten dute. Pixka bat lortzen baduzu gustura egotea jarduera hori egiten, jendeak ez daukate zertan utzi beharrik, niri hala

iruditzen zait. Ni igual oso konfundituta nago, baina, nik uste dut Hernanin, adibidez, jendeak utzi duela gaizki tratatu dituztelako, eta “punto final”. Hernanin gaur egun utzi duen jendea da tratatu txarra jaso duelako. Bere garaian bazeuden beste batzuk, baina, haiek ere maila baxuxeagoa zeukaten eta, orduan, Hernanik klub bezala ere barrutik ez zeukan nesken atalak hainbesteko indarrrik eta ez zeukaten instalaziorik, eta... Baina, gaur egun, uzten dutenak dira ez dituztelako ondo tratatu, erabili dituztelako komeni zitzaientean, beno, ez dakit. Oraintxe Udaberri sari bat antolatu nahi dugu jubeniletan, zeren eta Hernanik badauzka 2-3 gazte maila baxua daukatenak, baina, horiek erabiltzen ari da trinketeko ordezeko bezala, eta ez dira trinketean sekula santa sartu. Orduan, trinketean jokatzeko baduzu ezin duzu bestean jokatu eta, bada, gaizki, zeren eta neska horrek, azkenean, ez du jokatu, beti da “la eterna suplente” eta azkenean utzi egingo du. Adibide bat da, azken batean.

Eta orain ia pilotako mundu honetan eragina daukaten beste instituzio edo eragileen inguruan galdetuko dizut. Zer iritzi daukazu hedabideen jarreraz? Zenbateraino laguntzen duten, edo nola laguntzen duten, edo ez duten...

Gure kasuan oso gutxi, eta hori, zuk ere ederki dakizu, zeren eta emandako lata eman eta gero, azkenean borde jarri behar duzu pixka bat erantzun minimo bat jasotzeko... Bada, joe! Igorrek esan zidan atzo edo herenegun, “ze, GRAVNa zer jokatzeko dute, mutilek bakarrik eta eskuz, edo zer? Zeren eta Diarion aritu naiz irakurtzen eta bakarrik jartzen ditu emaitzak mutilenak eta eskuzkoak”. Ez da mutilena, bakarrik, pilotan ez da mutilak eta neskak, pilotan da eskua eta beste jokamolde guztiak, eta kitto. Eta, beste jokamolde guztietan, gutxi gorabehera, beste denok berdintsu gaude. Paletan jokatzeko duen mutil bat edo gu berdina-berdina gara ezezagunak, ez dugu ezer balio. Eta, bera haserre zegoen, “joe, zuek denok ere jokatzeko duzue, eta zergatik ez dituzte emaitza denak jartzen?” Bada, ez dakit, gogoia ematen dit hartu eta idazteko, “Eh, GRAVNa ez da eskua bakarrik, beste guztiak ere jokatzeko ari gara, jokamolde guzti hauek daude eta ez dakit zenbat pertsona gaude astero mugitzen garenak, gutxienez emaitzak jartzeko denonak, edo bestela ez jarri inorenak”.

Alde horretatik, bultzatzen dena eskua da. Hortaz, eskuaren ingurukoa pixka bat gehiago jartzen dute eta, bestela, ezer ere ez. Zenbat aldiz pasa zaigu irratira joan, eta, “txapelketan jende asko? 500 pertsona joan ziren finalera? Eta, munduko txapeladuna zara? Egia esan, ez dizuegu kasu handiegirik egiten”. Zu gelditzen zara txoro aurpegi batekin, eta, nik azkenekoan esan nuena, “bada, badakizue zer egin behar duzuen, gehiagotan deitu, zeren eta informazioa jasotzen duzue”. Niri esatea, zure aurpegia garbitzea, ni hemendik haraino joan zuk esaten didazun orduan, ni, kasu honetan ya, ume eta guzti, gainera. Azkenean, denok gure esfortzua egiten dugu, zeren eta besteak utzi du bere lana, besteak... Zuk egiten duzu esfortzu bat hara joateko, 15 minutu hitz egiteko, eta esaten dizuten lehenengo gauza da, “ez dizuegu kasu handiegirik egiten”, bada, “egin gehiago! Zerk eragozten dizu gehiago egitea?” Eta, ez dizute erantzuten. Bada, interes falta, bada, barkatu, aizkolaritzan lehen Euskadi Irratian 5 minutuz hitz egiten zuten eta, begira, gaur egun gehiago ikusten da telebistan, eta arraunari nesketan bonbo izugarria eman diote eta ematen du arraunean dabilzala 500000 emakume, eta, zenbat daude bada? 50? Gu baino askoz ere gutxiago dira, baina, nola bonboa eman dioten eta dirua eman duen, bada, listo, prentsan ateratzen da, eta, arrauna. Bada, ez, bada, ez. Niri iruditzen zait ez digutela kasurik egiten.

Eta, erakundeenaz? Diputazioa, udalak, pilota federazioak,...

Bada, beno.

Federazioetan argi dago Gipuzkoakoak bere aurrekontuaren zati handi-handi-handi bat horretarako daukala, beraz, esfortzua egiten ari direla dudarik gabe. Beste federazioetan? Bada, Arabakoan, adibidez, esfortzua egiten ari dira gehiago elkarte batzuk, azkenean, denak, ez dakit, Gasteizen denak daude elkarte batean, eta beraien kontu, ez dakit federazioak zenbateraino egiten duen, nik uste dut asko ezetz. Federazioak egiten du mutilekin egiten duen gauza bera neskekin, baina, ez dago proiektu bat. Eta, Nafarroan eta Bizkaian gutxiago. Nafarroan, hor dago Nekane, esfortzua egiten ari dena, baina, Nekane, Nekane da, ez da inor, da pilotari bat, ez da Nafarroako federazioa. Hasi dira “Ni ere pilotari” egiten, gure Emakumea Pilotariren antzekoa, baina, federazioak egiten duen gauza bakarra da sariak jarri bukaeran. Patetikoa! Zeren eta dena Nekane egiten du. Orduan, federazioak laguntzen du? Ez! Eta, beno, Euskadiko Federazioarenak ia hitzik ez dauka, federazioa desastre bat da, baina, ez nesketan, denetan. Niretzako egiten dituzte gauzak egin behar direlako, kunplitzen dituzte euren gauzak eta listo, baina, nik uste dut ez dutela esfortzu handiagorik egiten.

Udaletxeek-eta, bada, beno, udaletxeetan kirol teknikariek mila eskaintza daukate, milaka jarduera daukate eta joaten baldin bazara, bada, ikusi dugu Kutxa Sariarekin, joaten baldin bazara batzuk dirua eta guzti ematen dute. Beno, baina joan egin behar da, zure burua saldu, pixka bat laguntza eskatu,... Segun zer udaletxe den eta baldin badaukate berdintasuneko departamendu bat eta horrela, bada, hor pixka bat gehixeago laguntzen dizute, baina, bestela, bada, beno, interesatzen baldin bazaie bai eta bestela ez. Nik uste dut ez bakarrik neskak garelako, baizik eta orokorrean.

Diputazioak, bada, beno, nik uste dut proiektu honetan Diputazioak ezin dugu ukatu diru-laguntza potente bat ematen duela, eta, beno.

Erakundeena zailagoa da. Nik uste dut erakundeetara joan behar dela proiektu on batekin eta joan behar da komertzial batekin eta saldu behar da proiektua behar den bezala, eta, gu, saltzaileak ez gara, txarrak gara. Proiektuak egiten ez dakit txarrak edo onak garen, baina, saiutzen gara, baina, saltzen txarrak gara! Nik uste dut erakunde horiei saltzen ikasi behar dela.

Eta, pilota elkarteen emakumeen pilotarekiko jarreraz?

Bada, beno, gaur egun nesken jarduera daukaten elkarteak izango dira 10 bat edo horrela, gutxi gorabehera, eta denetik dago. Gure elkartetik hasita, denak neskak gabela, baina, beno, kasualitatez, ez du esan nahi neskak bakarrik nahi ditugunik, baina, gaur egun, hala gaude. Guregandik hasita, bada, ez dakit, Ramuntxo batetara, bada, dauzkana hiru neska, edo Zumaiak batetara, bada, gaur egun Zumaiako pilotaria Zarautzera etorri da, baina, Zumaiak pilotari pila bat dauzka zestakoak eta eskuzko bateren bat eta zeukan neska bat. Neska hori ondo kasu eginda ez zegoen, ez ziren kezkatzen entrenamendu ordu bat jartzeaz, hasieran saiatu ziren, beste neskaren bat ere bazegoen, baina, gero ya, bakarra zen eta ez ziren ezertaz kezkatzen. Bada, bakarra baldin badaukazu saiatu ondoko klubekoarekin hitz egiten, eta neska kolokatzen. Alde horretatik, esfortzu handiegirik ez dute egiten, egia esan. Eta, gero, neska gehiago dauden elkarteetan, bada,

beno, beno, egiten da, baina ez zait iruditzen izugarrizko esfortzua egiten ari direnik neskak ateratzeko. Ez.

Pozgarria da, adibidez, Altzo bezalako herri batean, hor bai ari direla eskolartekotik esfortzu bat egiten, eta inguruko herrietatik eta horrela, eta, aurtan, lehenengo aldiz federatu dituzte eta dezente daude eta hor bai egiten ari direla ahalegin berezi bat. Baina, beno, egiten ari dira mutilekin neskekin bezala. Bai, horiek, adibidez, nik uste dut ari direla.

Eta, pilotariak beraiek daukaten jarreraz?

Nesken aldetik inplikazioa? Nik uste dut jendea gehiegi-gehiegi ez dela inplikatzeko. Nik uste dut azken urteetan ohitu direla dena mastekatuta jasotzera, eta, orduan, beraiek ia esfortzu berezi bat egin behar baldin badute, ez dute egiten. Esfortzu berezi bat egiten ari dira orain GRAVNERako daudenak, maila altuagoa daukatenak, ikusten dutenak egunen batean zerbaitetara iritsi litezkeenak, eta, engantxatuago daude, maila hobea daukate, selekzioan daude, entrenamendu gehiago egiten ari gara, eta horiek nik uste dut esfortzu dezente handia egiten ari direla. Ez dakit proiektuarekiko, baina, beraiek entrenatzera etortzeko eta hori dena. Nik uste dut baloratzen dutela. Teknifikazioa baloratzen dute, nahiz eta niri batzuetan iruditu ezetz, eta, beno, baloratzen dituzte gauza horiek.

Ez dakit, ez dakit, proiektua laguntzeko, bada, ez dakit gauza asko egiten ari diren. Orain, agian, lehenengo lortu behar dugu pilotara engantxatzea behar den bezala eta gero pixka bat esango diegu, “lagundu guri ere”. Nik uste dut jendea engantxatzea lortzen badugu, horrek, nahi gabe, lagundu egingo digula. Zeren eta hori joango da kontatzen pilotan jolasten duela, eta, “animatu”, eta, azkenean, hori da lortu behar duguna, jendea animatzea eta apuntatzea. Horretarako zer egin behar da? Daukagun jendea engantxatzen saiatu, eta hor ere maila daukana bai eta ez daukatenak etortzen dira. Beno, ez dakit, nik Anoetan ikusten dut, guk Su-Berrin dauzkagu lau kadete-jubenil eta gustura etortzen dira, hori esaten dute beraiek. Ni aspertu egingo nintzateke, ezta? Zeren eta etortzen dira, baina pilotaren bila joan, etorri eta ez dakit zer eta, baina, beno, beraiek esaten dute gustura daudela, eta, orduan, sinestea tokatzen zaigu. Nik galdetzen diet gustura dabilzan eta baietz esaten didate, baina, gertatzen dena da jarrera erdi-pasiboa daukatela eta, uff, niri zaila egiten zait ulertzea nola benetan gustatzen bazaizun jarrera hori eduki dezakezun. Baina, nik uste dut gaur egungo gazteak halakoak direla eta guk hori ere ulertu egin behar dugu, horrelakoak direla, zeren eta ez badugu ulertzen horrelakoak direla ez goaz eurekin batera, eta ez bagoaz eurekin batera, ez daukagu zer eginik. Orduan, bada, beno.

Gero daude hasiberriak, aurtan federatu direnak, eta horiek saiatu behar dugu engantxatzen, eta guregana ekartzen, pittin bat denok talde bat izaten. Zubietako neskak nik lehengoan ezagutu nituen, eta ia bigarren urtea dute federatuta. Bada, agian, gazte horiekin ere egin behar dugu zer edo zer pixka bat girotzeko, ez dakit.

Eta, ikusleen jarreraz?

Beno, bada, ikusle horiek baldin badira gurekin zer ikusirik ez daukatenak, esan nahi dut, ez baldin badira familiakoak edo lagunak, bada, beno, nik uste dut hasiera batean jarrera dela, “ea hauek, zenbat jokatzeko duten?” Eta, beno, ikusten duten partiduaren

arabera, “jokatzen dute” edo “ez dute batere jokatzeko”. Baina, beno, niri komentario horiek, bada, ez dakit, lehengoan ikusi nuen Irujo, eta profesionala da, eta ez zuen batere jokatu. Hori ikusteko 40€ ordaindu behar izan banitu dirua bueltatzeko eskatuko nien. Alde horretatik ez dago zerarik, baina, beno.

Niri, askotan, Igorrek-eta esaten didate, “jendea joango balitz, ikusiko luke jokatzeko duzuela, badagoela maila bat”. Jendea gero harritu egiten da. Tolosan, adibidez, Beotibar da frontoi bat jendea pasa egiten dena eta begiratzen duena eta jendea gelditu egiten da. Beno, gero agian ez zaizu asko gustatuko eta ez zara geldituko partidu osoa ikusten, baina, kuriositateagatik bakarrik bada ere jendeak begiratu egiten du. Eta, gero, bada, balorazioak, bada, denetik. Segun zerekin konparatzen duten hobeto edo okerrago, baina, beno, ez dakit.

Lehen aipatu duzu Anoetan futbola eta pilota-eta zeudela. Dimentsio kulturalera joz, zuk uste duzu hiri batean edo herri baten jaiotzeak eragiten duela pilota aukeratzeko garaian?

Dudarik gabe. Begira, ni Zizurkilen jaio nintzen eta Zizurkilen bizi izan nintzen nire aita hil zen arte. Gero, eskerrak Anoetara etorri ginen, zeren eta Zizurkilen bizi ginen lekuan, bizi ginen Asteasura bidean, auzo batean, gaur egun pixka bat lotuago gelditzen da, baina, lehen pixka bat aparteago geratzen zen eta Zizurkil Behean frontoirik ez zegoen, hasteko. Gero, eskolan egin zuten frontoi bat, baina, gero, beraz, Zizurkil Gora joan beharko nuen. Nik, beraz, hasteko Zizurkilen bizi izan banintz seguru nago ez nuela pilotan jolastuko, jolastuko nuen futboleant.

Orduan, niretzako eragina izugarria dauka, izugarria. Eta, Hernanikoa izan banintz ere ez nintzen pilotaria izango, ez nintzen izango, garai horretan ez zegoen indar bat, eta, Ibonek, bere txarrean, lortu du Hernanin Hernaniko paletariak, berak esaten duen bezala, berak jartzen duen bezala, ezagunak dira. Hernanin mundu guztiak badaki neskek pilotan jokatzeko dutela klubean eta aukera hori daukatela. Lehen ez zegoen hori, beraz, han bizi izan banintz ere nik ez nukeen aukera hori edukiko, zeren eta frontoi gutxi, frontoi hori bakarrik dago, Tilosetakoa, baina, hau Euskal Herria da eta hemen euria egiten du, eta gero beste bat dago Florida auzoan, baina, hori ere irekia da. Orduan, ez dut uste jokatzeko nukeenik.

Orain, herri batean bizitzea eta dena frontoiaren inguruan egiten duzula, zeren eta txarra egiten badu ere frontoira zoaz, eta beti frontoian zaude, errazagoa da pilota egitea, nire iritziz errazagoa da, agian konfundituta nago. Nik esaten dut nik txikia nintzenez zer egingo nuen. Ni, orain jaio izan banintz, ez dakit zer egingo nuen, zeren eta nik uste dut aldatu dena gizartearen dela: neskak, mutilak, ez dituztela lehen egiten genituen gauzak egiten,... beraz, hortik ere zailagoa daukagu, baina, bai, niretzako eragina dauka eta izugarria. Beti esaten dute Nafarroan pilotariak daudela, baina, noski, Nafarroan herri txiki horietan zer dago ba? Munduaren bukaeran egoteaz gain frontoi bat bakarrik dago, eta, nola ez dute pilotan jokatzeko? Zer egingo duzu bada? Mendira joan ehizara? Bai, ehizara joango zara, baina, adina daukazunean, zeren eta ordura arte frontoira. Beraz, niretzat eragina duzarik gabe dauka.

Eta, kulturak? Eta, gure kirola dela esate horrek, tradizioak? Zuk uste duzu zure kasuan eragin zuela?

Ez, ez dut uste nik pilotan jolasten dudarik gure kirola delako. Eta, ez dut uste gaur egun eragin dezakeenik. Gaur egun, gainera? Nik uste “gure” horiek lehen indar gehixeago zeukatela, baina, orain... Orain indarra dauka paperean, baina, berez, jendearengan? Gure kirola? Ez zait iruditzen, baina, berriz esaten dizut, baina, herri txikietan beti gure kirolak gehiago landuko dira. Hori ere horrela da, oraindik ere herri txikietan mantentzen da “gure kirolak” hori, eta, bai. Nik ez dut uste ume batek pilota egiten duenik “gure kirola” delako, ez. Ume batek pilota egiten du pilota delako kirol dibertigarri bat, eta kitto. Eta, delako pilota batekin eta ez dakit zenbat umek jokatzen dutelako, eta listo. Esan nahi dut, kirol polita delako. Bada, bai, batzuk hipika egin nahiko lukete, baina, hipika egiteko zaldi bat behar duzu eta zaldiak garestiak dira, hasteko, beraz...

Eta ikuspegi horretan azkena, ikasketa mailak eragin dezakeela iruditzen zaizu? Ezagutza mailak. Ez dauka izan beharrik zarela lizentziatu bat edo FPdun bat.

Niri ezetz iruditzen zait, baina, ez dakit, pentsatu egin behar da. Ni eskutik nator eta nik eskuz dezente lan egin dut.

Beno, gure guraso gehienak ez dira lizentziatuak, gehienak dira eskola justu bukatu zutenak eta listo, lanera. Nik uste dut hor eragina ez daukala, gehiago jarreratan. Nik uste dut guraso horien umeez futbola egingo balute jarrera berdina ikusiko zirela. Orduan, ez zait iruditzen. Beno, kasu batzuk badaude, guraso batzuk bultzatzen dutenak beren semea, semea batez ere, pilota egitera. Horrelako kasu asko ezagutu ditut nik, ikusten duzunak aitari gehiago gustatzen zaiola semeari baino. Semeari ere gustatzen zaio, baina, hainbeste-hainbeste ez. Orduan, hor, esaten duzu, bada, “hau zer kromagnonikoa den”. Nik uste dut beste jarrera bat edukiko balu. Baina, ez zait iruditzen, ez dakit. Agian gauza puntualetan bai, baina, kirol hori aukeratzeko, behintzat, ez. Niri iruditzen zait ezetz, baina, agian konfundituta nago.

Azken atalera gerturatzen ari gara. Animo! Entrenamendu eta lehiaketaz daukazu iritzia eskatuko dizut. Lehengoa, oraingoa eta bitartekoa, ezberdina izan bada, ere bai. Zer iruditzen zai(zki)zu (zitzai(zki)zun) lehiaketa sistemak? Bikoteen osaketa moduak, elkartearen izenean jokatzea ala ez, txapelketetako egutegiak, partidak antolatze modua,... Askok aldatu da hasi zinenetik?

Nik hitz egingo dut palan hasi nintzenetik, zeren eta eskuz ez naiz gogoratzen eta gauza horiek, gainera, ez dituzu kontrolatzen 10-12 urterekin. Zu joaten zara esaten dizuten lekura eta kitto.

Sistemak beti, gutxi gorabehera, igualtsuak izan dira. Ni lanean ari naizenetik sistemak igualtsuak izan dira, eta pilotan jolasten ari naizenetik ere, neskekin, adibidez, palan, sistemak beti igualtsuak izan dira. Beti tendentzia da ahal den ligaxkarik luzeena egitea eta gero finalerdiak eta finala jartzea. Hasiera batean joera hori da. Gero, bada, dagoen izenematearen arabera koadratzen hasi behar duzu eta koadratzen hasten zaren momentutik beti ez duzu egokiena eta onena egiten, baina, noski, koadratu beharra daukazu. Alde horretatik, nik diferentzia handirik ez dut ikusten lehendik orainera.

Lehendik orainera lehiaketa egutegietan ikusten dudana da, lehen federazioaren parte-hartzea txikiagoa zela eta, orain, hemen, Gipuzkoan, behintzat izugarria da. Lehen ere saiatzen ziren, nesken pala funtzionatzen hasi zen pilotari batek deitu zuelako

federaziora eta galdetu zuelako ea ez zeuden neskak pilotan jokatzen zutenak, zeren eta berak jokatzen zuela eta nahi zuela lehiatzea. Eta, beno, dei horri esker, bada, prentsa ohar bat jarri zuten eta horrela hasi ziren jokatzen zuten pertsona ezberdinak federaziora jotzen, eta horrela egin zuten taldetxo bat. Egia da, Gipuzkoako txapelketa jokatuko zen, bai, baina, lehen esan dizudan bezala, gero txapelketa pribatuak zeuden, elkarrekin antolatzen zituztenak, gaur egun ere badaudenak, baina, gutxiago. Nesken kasuan gutxiago, zeren eta ia federazioak, alde horretatik, bai eskaintzen dituela denboraldi osorako lehiaketak. Orduan, ia pribatuak bigarren maila batean geratu dira, baina, horretatik. Ez da ez hobea eta ez okerragoa.

Eta, bikoteak osatzeko orduan, nik gogoratzen dut, ni hasi nintzen eta nik esan nien nirekin kontatzeko, eta, orduan, nesken talde hori sortu zenean bat edo bi ibili ziren arduradun bezala eta beraiek arduratzen ziren denei abisatzeaz, denen izenematea jasotzeaz; izenemateak ez ziren gaur egun bezala inprimakietan eta hain formal egiten, ez ziren horrela egiten. “Ah, apuntatu egin nahi duzu?”, “ba, bale, apuntatuko zaitut”, baina, paper batean apuntatzen zen, ez zigilurik eta ez ezer, ez zegoen ezer ofizialik. Bai, fitxa zeneukan, fitxa aurkeztu behar zenuen partiduan, hori dena bai, baina, antolatzerako garaian ez. Nik uste dut hor zeudela pertsona bat edo bi eta beraien artean antolatzen ziren. Ez dakidana da nola demontre, edo zeren arabera, egiten zituzten bikoteak. Nik pentsatu nahi dut saiatzen zirela orekatzen eta horrela, zeren nik lehenengo txapelketa Ebarekin jokatu nuen, baina, lehenengoa eta azkenekoa. Handik aurrera ya maila baxuagoko jendearekin jolastu nuen. Eta, txapelketa hori Oiartzungoa izan zen, pribatu bat zen, bai ofizialetarako eta bai pribatuetarako, bada, talde horrek, batzordea ez zen, baina, arduradun bat zegoen eta horrek “antolatzen” zuen, komatxo artean. Badakit, egon dira pilotari batzuk asko kexatu direnak, beti. Bada, Bea batek beti esan izan du “hori mafia bat zen, beti beraiek nahi zutenekin jokatzen zuten...” Adibidez, Beak beti Maialenekin jokatu izan du, Beak inoiz ere ez du bikotez aldatu. Ez dakit, agian beraiek ere esaten zutelako “ni Maialenekin apuntatuko naiz”, edo ez zirelako horiekin apuntatzen, federazioan apuntatuko ziren, Oiartzungo txapelketan edo Alzako txapelketan, baina, eurak beti, bada, beno, Gorane, beste neska bat ere bazegoen jokatzen zuena lehen, eta Mirari. Orduan, Realaren inguruan bazeuden Bea eta nafarrak, eta, orduan, bada, beraien artean, beti bikoteak beraien artean egiten zituzten eta, beno, horiek independenteagoak ziren. Besteak, bada, nik ez dakit, Itxaro, eta... Nik badakit Itxaro egon zela arduradun bezala, eta behin edo behin kontatu izan dit bera saiatzen zela dena ahal zen koordinatuen eramaten, baina, hasi zirela pikeak, pikeak hasi zirela, eta pike horietan ia Ibone sartzen zuen. Noski, nik Ibone orain ezagutzen dut gehiago, nik, orduan, ikusten nuen, jokatzen zuen eta kito. Ni ere ez nengoen hain sartuta, nik jokatzen nuen esaten zidatenarekin eta nik ez neukan inongo kexarik, bada, zetorrena hartzen nuen eta zegoena zegoen.

Gero, ia federazioan lanean hasi nintzen eta ezberdina da. Ni naiz antolatzen duena, ni eta dagoen Batzordea, eta orain gauden jendea, behintzat, nik uste dut saiatzen garela, orain ia ez dago halako adiskidekeriarik, lehen hori egozten zen. Nik, egia esan, txapelketak antolatzeko garaian ez nuen nabaritu, baina, bai egia dela Gaskako orduetan zeintzuk joaten ziren entrenatzera. Ni ez nintzen sekula joaten, zeren eta niri ez zitzaten esaten, ni ez nengoen euren “kutxipandan”. Niri esaten zidaten norbait falta zenean, eta, orduan, ni joaten nintzen eta “kutxipandan” sartu egiten nintzen, baina, egun horretarako. Orduan, alde horretatik bai zeudela entrenamenduak antolatzeko garaian-eta, batzuk gehiago elkartzen ziren. Besteak hor, pixka bat baztertuta, baina, beno. Alde horretatik bai, hor dena sartu dut, entrenamenduak, partiduak eta dena.

Nik uste dut gaur egun aldatu dena dela txapelketa pribatu gutxiago daudela, baina, gutxiago daude federatu mailakoekin ia lehiaketa egutegia osatzen delako eta ez dagoelako behar hori. Nik uste dut gaur egun lortu dena dela mailaketa bat egitea, Emakumea Pilotari txapelketarekin lortu dena da oreka bat lortzea bikoteen artean eta saiatzen gara, gertatzen dena da ez dela erraza, baina, ez dugu adiskidekeria hori aintzat hartzen. Ni, behintzat, saiatzen naiz bakoitzaren joko-maila zein den profil minimo bat egiten. Beno, subjektiboa da, baina, nik ikusten dudanetik orekatuena, zeren eta nire proposamena Batzordera doa eta nik uste dut, besteek ere hitz egingo dutela euren subjektibotasunetik, baina, beno, beti nik uste dut argi daukagula lortu behar dugula hori.

Adibidez, lehen, Emakumea Pilotari txapelketa ezker horman egiten zen eta ondoren Gipuzkoako txapelketa egiten zen. Ikusi dugu agian askoz ere hobea dela lehenengo klubekoa egitea, zeren eta, azken batean, zuk zure klubeko jendearekin harreman handiagoa daukazu eta partidu txarragoak badira ere hasierakoak dira, eta, beno, Gipuzkoako txapelketan badakigu emaitzak zein diren hasi baino lehenagotik, orduan, beroketa modukoa da. Gero, Emakumea Pilotarirako, iruditzen zaigu jendea pixka bat entrenatuagoa dagoela eta, beno, bada, emaitza hobek lortzen direla alde horretatik.

Gaur egun, beste ezberdintasun bat da lehen trinketeko lehiaketa gutxiago zegoela, eta zegoena soltea zen, federazioak antolatzen zuen, ez dakit, baina, solteagoa zen. Gu sartu garenetik, eta proiektu hau sartu denetik indarrean, nik uste dut argi eta garbi ezberdintzen dela hau da ezker hormako lehiaketa egutegia eta hau da trinketeko lehiaketa egutegia. Nik uste dut denok saiatu behar dugula hau eta hau egiten. Problema zein da? Betikoa. Nola trinket gutxi dauden eta klub bakoitzak ez daukan bere trinketa, eta trinketean gutxi entrenatzen denez, ez baldin bazaude teknifikazioan, bada, noski, ez duzu trinketean ikasten eta ez baduzu trinketean ikasten, bada, gero, txapelketara joateko ez zara sentitzen ez seguru eta ez mailarekin. Alde horretatik, nik uste dut gabezia daukagula eta saiatu beharko genukeela gehiago egiten, baina, begira, oraintxe gelditu behar dugu, bi trinket erabiltzen ditugu eta biak konpontzen hasi behar dute. Orduan, ez dakit, ezin dugu erantzun hobea eman. Nik uste dut hori dela hobetu behar duguna, zeren eta nik uste dut lehiaketa egutegia ondo dagoela, gaur egun dezente ondo dago, konpleto dagoela, baina, ikusten dut trinketera pasatzen garenean herren egiten duela. Beno, ondo, are gehiago, gehiegi daude, txapelketa asko daude denetan parte hartzen baduzu. Nik uste dut hor egon dela aldaketa bat, ez dakit onerako ala okerrago, baina, nik uste dut gaur egun ordenatuago daudela gauzak eta denetik dago. Orain jendeak ikasi behar duena da diskriminatzen pixka bat, txapelketa hau ez edo hau bai. Noski, hemengo txapelketa guztiak jokatzen badituzu eta gero kanpoko guztiak, bada, gero 15 urterekin asfixiatuta zaude. Eta, 15 urterekin ez dute gehiago pilotan aritu nahi, normala! Nik uste Gipuzkoa mailan baldin badaukazu lehiaketa egutegi bat denboraldi osoa ia-ia betetzen dizuna, bada, ez daukazu kanpora joan beharrik, baina, beno.

Esan duzu Emakumea Pilotarin bikoteak orekatzen direla eta hasiera hartan ere hala egiten zela. Eta, Emakumea Pilotari baino lehen? Dena zen elkarteen izenean, edo, nola zen?

Bai, elkarteen izenean zen. Gipuzkoako txapelketa elkarteen izenean egiten zen, baina, gertatzen zena zen elkarte gutxi zeudela pilotari bat baino gehiago zeuzkatenak. Esan nahi dut zeuden Real Sociedad bere aldetik, gero zeuden Intxaurrondo, ia gehienak

Intxaurrondon zeudela, bada, beno, Intxaurrondok talde bat baino gehiago aterako zituen, eta Hernanik ekipo bat ateratzen zuen. Eta, Hernanik, ekipo itxuroso bat eduki zuen arte, dela Erika hasi eta Doltzarekin jokatzeko hasi zen arte, bada, Eba aparte zegoen, bestea bakarrik zegoen, ni bakarrik nengoen, Monika bakarrik zegoen,... Bakarrik geunden asko, eta, orduan, egiten zen elkarteen arteko txapelketa, baina, nik uste dut zesioak egingo genituela. Nik zer dakit? Ez naiz gogoratzen. Zeren eta nik Kukuren izenean ez dakit inoiz jokatu dudan. Bai, bai, Sandra hasi zenean, nire koadrilakoa, orduan esaten nuen “nik Sandrarekin jokatuko dut, nola nire elkartean ya bi bagauden”, baina, bestela, nik beti jokatzeko nuen beste batzuekin. Orduan, bai, nik uste dut elkarte barruan egingo zirela bikote hobeak, Intxaurrondok beti egingo zuen bikote bat hobe eta, bestela, inongo zerarik gabe. Beno, ez daukat oso garbi, ez naiz gogoratzen ondo, baina, ez dakit, asko egiten zen nola solte geunden, bada, elkarte egiten ginen. Hala ere, hori ere besteek egiten ziguten, ez ginen gu mugitzen, ez dakit. Gipuzkoako txapelketa ere oso luzea ez zen izango, zeren eta nik ez daukat oroitzapena Gipuzkoako txapelketaz. Hori igual Ferminnek jakingo du. Nik, egia esan, ez daukat, nik Gipuzkoako txapelketa bat ez dakit irabazi dudan frontoikoa, ya kluba indarra hasi zenean bai, baina, aurretik, ez naiz gogoratzen, eta seguru baten bat irabaziko nuela, edo agian, ez; beno, trinketekoren bat bai, baina... Eta, gero, hor aldaketa izan zen klub pare batek bere bikote itxurosoa lortu zuenean, orduan ia elkarteen artekoa egin nahi zuten, baina elkarteen artekoa, mutiletan bezala. Orduan hasi ginen egiten eta, orduan, bakarrik geundenak bakarrik geunden, nik uste dut orduan ya norbait baneukala, Amaia eta uste dut hasi zirela, eta esan nuen, “bada, horrela egitea nahi baduzue horrela egingo dugu”. Nik, egia esan, maila ez neukan ikaragarria, esan nahi dut gure klubean ez zegoela maila ikaragarria, baina, beno, zeudenak. Baina, beno, berdin zitzaidan. Nik, azkenean, garbi neukan nik ez dudala parte hartzen irabazteko, denaren gainetik irabaztea ez dago, ez. Denaren gainetik da jolastea eta ondo pasatzea eta partidu itxurosoak jokatzea. Nik, gero, ya, nire kasuan, bada, nire klubera jende gaztea etortzen hasi zen eta nire helburua zen jende gazte horri erakutsi, lagundu, eta nik klubaren barruan ere lan hori egin dut. Beste batzuk egin izan balute gaur egun ez genuke daukagun egoera edukiko, beno, bada, nik hori egin nuen. Eta, horrekin, klub bakoitza bere bikoteak ateratzen hasi ginen eta bi urtetan gu hasi ginen irabazten eta kito. Urteren batean, agian, guk ez genuen irabazi eta Hernanik irabazi zuen, eta orduan ez dakit zer, eta hor hasi zen gainbehera, hasi zirenean “kluba, kluba, kluba eta kluba”, bada, bi onenek jokatzeko zuten, besteek ez zuten lekurik eta hor lortu zena izan zen pike pila bat egotea, jendeak uztea, jende berria ez zen sartzen inondik inora ere eta nik uste dut, nik bilera guztietan esaten nuen, gaizki ari ginela, horrela ez zela lortuko jende berria hastea. Gero, halako batean, Urrietako neskak apuntatu ziren eta galtzen zituzten partidu guztiak 30-5, 30-8,... Horrela zein hasiko da? Hasi bai, baina, lehenengo urtean, zeren eta gero utzi egiten dute. Ni astinduak jasotzeko ez noa. Horretarako, geldituko gara, palan jokatuko dugu asteen behin eta listo. Orduan, nik hor bai ikusten nuela hanka sartzen ari ginela eta gero etorri zen proiektua. Baina, proiektua etorri baino lehen nik ia esaten nuen lehengora bueltatu behar genuela. “Benoa, bada, egingo dugu elkarte guztien artean batzorde bat eta hor erabakiko dugu, baina, elkarteen artekoa bai ala bai egiten badugu hau pasako da”. Niri denborak arrazoia eman dit, beraiek ezetz esango dute, baina, nik baietz uste dut, argi dago. Emakumea Pilotari proiektuarekin lehenengo egin genuen gauza izan zen sortu lehiaketa bikoteak orekatuko zirena, eta nik uste dut bizia mantendu duena eta jende asko jokatzeko mantendu duena Emakumea Pilotari izan dela, ez Gipuzkoako Txapelketa.

Eta, entrenamenduak, nola antolatzen zenituzten, edo dituzue gaur egun?

Lehen, hasiera hartan, nesken lehenengo taldea sortu zenean, federazioa saiatu zen teknikari bat jartzen, Eduardo izeneko bat zen, ez naiz gogoratzen abizenarekin, eta bera arduratzen zen. Teknikarioaren antzeko zerbait zen, denak Intxaurrendora eta han zeuzkan bi ordu, astean bi egun, edo ez dakit zenbat, eta berak antolatzen zituen, adinaren arabera edo ez dakit nola antolatzen zituen, mailaka,... Niri behintzat adinaren arabera antolatu zidan lehenengo, bi aldiz joan nintzen, gero, beste behin egin nuen handiekin eta listo. Esan nuen “bada, total, ni beti bakarrik ibili naiz. Ni haraino joan 5 edo 6 egoteko partiduak egiten?” Ez dakit zer egiten genuen, egingo genituen ariketa batzuk ilara egoeran edo horrela eta gero partidu batzuk. Ez naiz gogoratzen askoz ere gehiago. Eta, orduan, bada, berak berez zuzenketak egiten zizkigun, baina, ez naiz gogoratzen horrela askoz gehiago.

Beste klubetan, gero ia aurrerago, bakoitza pixka bat bere klubean entrenatzen hasi zenean, bada, entrenamenduak izan dira direnak. Gure klubean ere... Ni, adibidez, hasieran, gazteak neuzkanean, bai saiatu nintzen entrenatzen, bai saiatu nintzen erakusten, ariketak egiten, gauza asko. Ni Amaia eta hauekin, eta, Marijo, beste bat, Marijo uste dut zela, Ikaztegiatako beste bat, eta horiek hasi ziren lehenengo nirekin eta nik horiekin bai egiten nituela ariketak eta saiatzen nintzen esplikatzen eta gero partidu egoerak egiten genituen. Gaur egun, guk, nagusiok, partidu egoerak egiten ditugu, baina, guk, gure klubean, orain gazte batzuk dauzkagu eta horiekin saioak egiten dira, ariketak egiten dira, esplikatzen zaizkie eta. Nik uste Hernanin ere egiten direla, Ibone hasi zenean pixka bat, egiten ditu ariketak, bere modura egiten ditu, baina, egiten ditu ariketa batzuk eta gero partidu egoerak egiten ditu. Nik uste dut ez direla joaten eta zuzenean partidua egiten dute. Nik uste dut ezetz. Igual egunen batean bai, edo, segun, astean bitan egiten badute, bada, igual egun batean ariketa gehiago egiten dituzte eta bestean partidua egiten dute, baina, beno, nik uste dut gaur egun entrenatzaile figura gehiago daudela, edo arduradunak, eta horiek saiatzen ari dira pixka bat guk sortu genuen palako irakaskuntza prozesu horrekin, horren inguruan eman dugu ikastaro bat, eta nik uste horra etorri zirela dezente, eta hori da orain nik egin behar dudana, segitzen ari diren ala ez ikusi, baliagarria den edo ez den baliagarria,... Nik uste dut pixkanaka ari direla.

Gero, badaude elkarte batzuk, bada, Urnietan bezala, bada, horiek gaur egun ia ez dute jokatzeko eta horiek joaten dira eta partidua egiten dute zuzenean. Ez daukate inor ere ezer esango diena. Horiek norbait edukiko balute gustura hartuko lukete. Altxakoek ere, norbait edukiko balute, gustura hartuko lukete. Intxaurrendoren kasuan, ia, bada, hainbeste urte daramatzatenez, hor, Carmenen gizona saiatzen omen da, baina, berak esaten du ez diotela kasurik egiten, eurak dena omen dakitenez... Hor igual pixka bat zailagoa da, zeren eta, egia esan, urte asko daramatzate, ez dute inoiz ere inor eduki eta orain, bada. Nik uste dut denek ondo hartzen dutela norbait edukitzea zuzentzeko. Nik uste dut orokorrean denek ondo hartzen dutela. Nik uste Ikasberrin, Olaia, gazteekin saiatuko dela zerbait egiten eta esplikatzen, eta, beno, igual partidu egoerak egingo dituzte, baina, nik uste dut saiatuko dela. Eta, zuek, bada, joango zarete eta partidua egingo duzue, edo ez dakit zer egingo duzuen. Baina, beno, Zarautzen ere ia teknikari bat dago.

Ea, lehen baino askoz ere hobeto gaude, baina, oraindik gaizki gaude. Ez daukagu egitura bat, ez daukagu, jendea falta da erakusteko ere, baina, beno, nik uste dut pixkanaka. Adibidez, lehengoan Altxon egon nintzen eta Jabierrek, bere estilora, baina,

erakutsi egiten die eta saiatzen da ariketa batzuk egiten, eta, beno, beste estiloa beti da berak egin eta jendeak imitatzea, bada, beno, nirea ere zati batean horrelakoa da. Hori da “la vieja usanza”. Nik uste dut ona dela, zeren eta, azkenean, ikusi egiten zaituzte, zeren eta, bestela, ez dakit ia nola esplikatu bat baino gehiagori. Orduan, bada, beno, ondo, pixkanaka

Eta, jokorako materiala? Palak, pilotak... Zer iruditzen zaizkizu?

Nik uste dut hori proiektua hasi denetik izugarri aldatu dela. Hor esfortzu handi bat egin dugu kategoria bakoitzak bere palak edukitzeko. Nik, hasi nintzenean, jokatzen nuen etxean neukan pala zulodunarekin eta kitto. Altxatzea kosta egiten bazitzaidan kosta egiten zitzaidan, eta, ni, bezala, bada, nire aurreko guztiak. Ez dira egon pala ezberdinak. Nik baneukan hala ere, tabernara, ez dakit zeinek egunen batean erosiko zidan edo auskalo, baina nik baneukan pala txiki bat, hondartzakoek tipokoak, edo ez, edo Arambilletek ere beti eduki ditu bere pala txikiagoak, baina, helduleku desegoki batekin, estu-estuak ziren, beno, baina, txikiak ziren, behintzat maneiagarriak ziren. Txarrean ere bazeuden lehen ere, baina, gertatzen dena ohituraz ia segituan jartzen zela 500 eta piko gramotako pala eta. Nik uste dut gu hasi garenetik, eta pixka bat exijentzia maila bat jarri dugunetik, eta saiatu garenetik kategoria bakoitzari bere pisua jartzen eta ez dakit zer, bada, hor ere palak egiten dituztenak hasi dira. Ziurrenik beti egongo ziren 515 gramoko palak, baina, Julian joaten zenean beti ekartzen zituen 550etik gorakoak eta 600ekoak. Nik esaten nion, “Julian, ez daude pisu gutxiagoko palak?” eta “bai, bai, egon badaude, baina nik...” Agian beti egon dira, baina, guri ez zizkiguten ematen. Bada, orain, ia behintzat nik uste dut egileak berak ere badaki neskenzat direla eta 500 eta gutxikoak. Bada, beno, nik uste dut horretan bastante hobetu dugula.

Pilota trinkoa ere, ia Kutxa Sarirako erabili diren hauek, behintzat, nahiko egokiak dira eta, are gehiago, gazteak ere hauekin hasi dira. Lehen pilota egokiak zeuden eta ez ziren hain pisutsuak. Pisatzen zuten pixka bat, baina, egokiak ziren, maneiagarriak. Gero pasa ginen pilota oso txarretara, urte batzuk eman genituen ez zegoela pilota itxurosorik, baina, inorentzako ere ez. Hor sartu genuen iparraldekoa gazteagoentzat eta 2. mailakoentzat, baina, iparraldekoa ere ikusten da berotzen denean bote handia egiten duela eta gero ez dutela dominatzen. Orduan, hori ere ez da guztiz egokia, baina, dagoenaren artean hain gaizki ere ez dago. Eta, orain, Goñirekin lortu genituen azkeneko horiek dira, bada, pixka bat “a la carta” egindakoak. Noski, orain Goñi ez dago, orain, berriz, hasi da hau eta saiatu behar dugu Itxarok norbait lortzen pilotak pixka bat “a la carta” egingo dizkiona. Baina, noski, 5000 pilota exijitzen dizkizute eta hor dago arazoa, gauzak ezin dira hobetu, zeren eta fabrikatzaileak berak kopuru handiak eskatzen ditu, eta kopuru handiak ez dira saltzen. Hori da, bada, mollepelle pilotak egokiak izango lirakeke txuriak, txuriak, eta ez urdinak edo beltzak, baina, txuriak egiteko eskatzen dizkizute 2000 minimo, ni Goñirekin aritu nintzen, eta, zeinek egin behar du halako diru gastu bat? Ez dakit. Orduan, bada, nik uste dut, hala ere, “buah!”, asko lortu dela.

Eta, zuk nolakoak nahi zenituzke lehiaketak, entrenamenduak eta jokorako elementu idealak?

Hasiko naiz lehiaketetatik. Lehiaketekin konforme nago, are gehiago, gehiegi daude, baina, ez dugu lortzen beste modu bat. Nik uste dut daudenak egokiak direla, baina,

denboraldia motza egiten zaigu. Nik uste dut hor arazoa daukagula guk, neskok, GRAVNarekin. GRAVNak okupatzen du martxotik maiatzera eta dena izorratzen du. Guk, hala ere, GRAVNa dagoen bitartean eskerrak ostiraletan egiten dugula gure lehiaketa eta hor lortu dugu GRAVNa jokatzen ez duenak ere jokatzeke aukera izatea. Nik uste dut Gipuzkoan dagoen lehiaketa egutegia oso konpletoa dela. Pixka bat herren geratzen da trinketean jokatzen ez duenarentzat, baina, beno, haientzako Oiartzungo txapelketa dago eta, agian, pribaturen bat egin behar da. Edo, aurten, jubenilen kasuan Udaberri Saria antolatuko dugu, eta, igual aurten Udaberri antolatuta, jubenilentzako izan da, baina, igual, datorren urtean seniorrentzako ere ireki egin beharko dugu. Adibidez, Aintzane eta hauek gustura jokatzen dute trinketean, baina, ez badute entrenatzen, azkenean, esango dute, “horretarako nik nahiago dut frontoian segitzea trinketean baino”. Niretzako hor gertatzen dena da ez dakidala dena federazioak egin behar duen. Nik uste dut elkarteek ere euren aldetik jarri behar dutela, edo eskatu, elkarteek eskatuko balute, “lagunduko diguzue? Nik nahi nuke nire neskek trinketean entrenatzeko aukeraren bat izatea. Lagunduko diguzue?” Bada, agian, eskatuko balute sortuko genuke beste zer edo zer, ez teknifikazioa, baina, beste gauza bat izena duena X eta guk jarriko genuke teknikaria edo ni joango nintzatekeen, edo Lide, edo norbait joango zatekeen horiekin asteen behin entrenatzera. Bada, bi ordu lortu elkarteekin eta gu joan teknikari bezala, edo dena delakoa. Agian hori da falta dena, baina, hori gehiago da entrenamenduari dagokionean, trinketean.

Orduan, lehiaketa konpleto esan dugu, entrenamenduetan trinketa geratzen da oso hankamotz, baina, beno, hor guk gehiago ere ezin dugu egin zeren eta instalazioak ez daude. Hor beste gauza bat da teknikarien formakuntza. Hori pixkanaka ari gara, ari gara, eta jendea behar dugu. Elkarte batzuetan arduradunak lortzeko arazoekin gabiltza, arduraduna pilotari bat da, beraz... Elkarte guztietan ezin da egon ni bezalako bat, zeren eta ni horretan bakarra naiz eta ez da egongo ni bezalako bat, ez onerako eta ez txarrerako. Esan nahi dut, iruditzen zait, ni izan naiz pilotaria, ordezkaria, entrenatzailea,... denetik, eta hori ere ezin da. Ni konturatu naiz ordezkari eta pilotari, bale, baina, ya entrenatzaile ezin da, zeren eta nik ere entrenatu behar dut. Beno, nik landu dut gaitasun bat ni aritu naitekeela entrenatzen partidu egoeran eta zuri esan diezazuket “pala atera”, nik azalpen horiek eman ditzaket. Niri, ordeza, Amaia batek esaten dit hori oso zaila egiten zaiola, bera jokatzen ari baldin bada ezin duela hori egin, eta, Amaiak esan dit. Maila badauka. Esaten ari zait pilotari bat maila badaukana eta beste batzuekin lasai jokatzen ari dena ezin duela hori egin. Noski, nik hori ikasi egin dut denboraren poderioz. Orduan, ni bezalako bat ez da lortu behar, lortu behar duguna da beste bat egongo dena jende horrekin eta hori da zaila, hori da zaila. Igual, senior bat gazteagoekin igual lor genezake, baina, seniorrekin zein? Eta, seniorrek nik uste dut ikasteko asko daukagula, eta norbait behar dugu gure maila hobetu nahi badugu, eta hori ez daukagu.

Jokorako elementuak nik uste dut dezente hobetu direla, eta, gaur egun, azken urteetan egon den krisi horrekin, behintzat pilota itxuroso bat nik uste dut lortu dugula, eta nik uste dut dezente lortu dugula. Hor problema badakizu zein den? Goñiren pilotak ezin ditugula inon ere lortu, guk asko erosi genituelako eta badauzkagulako federazioan, baina, hori, bada, Itxarorekin eta hitz egin behar dut eta Itxaro zirikatatu behar dut, lortu behar duguna baita ea Itxarok fabrikatzailearen batekin pilota hori egitea lortzen duen.

Eta, entrenamenduetarekin segituz, zuk noiz uste duzu, zein adinetan, hasi beharko liratekeela neskak pilotan? Nola?

Nik uste dut neskek pilotan hasi beharko luketela mutilek bezala, 8 urterekin, eskuz. Nik uste dut benjaminetan neska eta mutilek batera jokatu beharko luketela. Orain, ikusten baldin baduzu daukazula neska talde bat, handia, hamarrekoa, edo zortzikoa, eta ia taldea egin dezakezula, bada, hasieratik ezberdindu ditzakezu, baina, hori oso zaila da. Normalean edukiko dituzu 2 edo 3, edo 1, eta horiek nik uste dut mutilekin hasi behar dutela, eta, gero, pixkanaka, saiatu behar dela horiek sartzen alebinetatik aurrera beste nesken taldeekin. Mutilekin ere ibili litezke, herriaren arabera da. Ni Altzora joan nintzen eta Altzon lehengoan zeuden denak neskak eta bi mutil. Beno, bada, begira, berak gaitasun hori dauka. Nik Anoetan egin beharko banu, bada, denak batera jarriko nituzke eta gero mailaka desberdinduko nituzke, joko mailaren arabera edo kategoriara edo dena delakoa. Nik uste dut hasiera batean hasi beharko luketela neskek eskuz, 8-9 urterekin, niretzako benjaminetan denek eskuz jokatu beharko lukete, pilota goxoagoa jarri eta eskuz. Nik bai nabaritzen dudala ezberdintasuna. Eskutik datozenek askoz ere hobeto jokatzen dute eta hobeto jartzen dira palan zuzenean hasi direnak baino. Beste kontrol bat daukate eskutik datozenek. Horrek ez du esan nahi palan zuzenean hasi direnek ezin dutenik mailarik eduki, zeren eta bai badauzkagu maila daukaten pilotariak gaur egun, eta, horiek, ez dira eskuz inoiz ere ibili, baina, kontzeptu batzuk ez daukate barneratuta. Eskuz ibiliko balira nahi eta nahi ez barneratuko lituzkete. Eskuz ibili den batek pilota jo ondoren badaki aurrera egin behar duela, bestela, eskuz pilota ez da mugitzen. Palan, nola edozein modutara jota ere beti iritsi egiten den, hor daude gauza batzuk zailak direnak. Niretzako egokiena hori da, benjaminetan hasi eskuz eta alebinetan ya palan, eta listo, hortik aurrera...

Eta, zein bide izan liteke egokiena 8-9 urterekin hasten den horrek segi dezan eta amaieraraino iristeko? Ez dezan bidean esan “nik ez dut honetan segi nahi”

Egokiena esan dizut, nik uste dut. 2-3 baldin badauzkazu mutilekin jarri eta igual-igual tratatu behar dira benjaminetan. Alebinetan ahalegin berezi bat egin behar da astean bitan etortzen badira, normalean astean bitan egiten dute, edo egun batean etortzen badira, egun horretan nik jarriko nituzke zati batean eskuz mutilekin, normal, bere taldearekin, eta gero hasiko nintzateke pala sartzen edo eskuarekin jarraitu nahi ez duten mutilei ere talde bat egin eta palan sartu. Horrelako zer edo zer egingo nuke eta talde handiagoa baldin badaukazu, bada, esan dudana, lehenengo pixka bat eskuz eta gero pala sartu.

Klabea dena da mimatu egin behar dituzula, baina, mimatu ez algodoietan jarrita, “a ostia limpia”. Nire estiloa hori da, nire estiloa hori da. Nik uste dut jendea mimatzen dudala, zeren eta, bestela, aizue, nirekin egon direnek ez dute utzi. Nik garbi daukat, nik nire estilo gogorra edukiko dut eta nahi duzuna izango naiz, baina, nik uste dut lortzen dudala jendearengana iristea eta jendearekin konfiantza puntu bat izatea. Ni saiitzen naiz transmititzen, “ni nago zuri erakusteko, nire helburua da zuk hobetzea, ez da besterik”. Orduan, nire estiloa hau da, sentitzen dut, ez bazaizu gustatzen zuk ikusi. Nirekin jendeak ez du utzi. Oso jende gutxik utzi du, eta utzi baldin badute, uste dut ni ez naizela arrazoia izan, beste arrazoi batzuk izan direla, ikasketak, edo, maila, edo, dena delakoa. Orduan, ez dakit. Nik uste dut beraien espazioa eman behar zaiela, beraien egon egin behar da. Ezin duzuna da talde batean daukazula, eta, agian, neskak orain palan hasi dira, eta, “ala, neskak han” eta kasurik egin gabe eduki. Ez, ez. Mimatu egin behar dira, beraien ordua eduki behar dute entrenatzeko, beraien arreta behar dute, zure arretaren zati bat eurengan jarri behar duzu, nahiz eta klase horretan

denetik eduki. Nik uste dut arreta denek merezi dutela, bai mistoa baldin bada, bai mutilen taldea baldin bada bai nesken taldea baldin bada. Hor berdin zait, hor bai ez dagoela sexu ezberdintasunik. Nik uste dut denak berdin tratatu behar direla eta maila hobe daukatenei exijentzia maila bat eskatuko diezu eta maila baxuagoa daukatenei beste bat, baina, denei joan behar duzu zerbait eskatzen, eta denak lortzen. Bakoitzari dagokion lehiaketa eskaini, eta gero lehiaketetan-eta bikoteak egiterakoan ere bista pixka bat eduki. Bada, agian, lehenengo urtean mistoak egin, bigarren urtean, irabaz dezakeen bikote bat baldin badaukazu, inportantea da irabaztea ere, bada, hitz egin beraiekin, “begira, aurtun jarriko dugu bikote bat fuerteagoa eta zuek, berriz, nahastuta arituko zarete”. Nik Asteasun zortzi urte eman nituen eta denetik egin nuen. Nik uste batzuetan denak igual jartzen nituen, mistoak, onak eta txarrak denak nahastuta jartzen nituen, baina, egon da urteren bat onenak jarri ditudana, baina, nik denekin hitz egiten nuen eta esplikatzen nien. Nik uste dut jendeari hitz egiten badiozu eta esplikatzen badiozu, eta erakusten bazaio zergatik ari zaren gauzak horrela egiten, jendeak ulertzen du eta jendea ez da haserretzen. Azkenean, hori da lortu behar dena. Gauzak atzetik eta modu txarrean egiten badituzu jendea haserretu egiten da eta utzi egiten da, gauza batengatik ez bada besteagatik, baina, utzi egiten du. Nik uste dut bakoitzak bere lekua behar duela, eta, hori da zaila. Horretan saiatu behar dugu.

Esan duzu beste kirol batzuetan ere aritu izan zinela, zerrenda bat bota duzu hasieran. Zer ezberdintasun ikusi izan dituzu pilota eta beste kiroleko lehiaketen egituretan, antolaketan, entrenamenduetan, materialaren egokitzapenean? Ezberdintasunik ikusi izan duzu?

Iraupen eskia, bada, pentsatu, beste mundu bat da. Astebururo joan behar duzu entrenatzera, beno, lehenengo entrenamendu fisiko asko egiten duzu, zeren eta elurraren zain egon behar duzun bitartean fisikoki prestatu behar zara. Hor, talde bat elkartzan ginen, entrenatzaile bat geneukan eta, bai, fisikoa gogorra zen. Eta, gero, bada, elurra egiten duenean asteburuan joaten zara, entrenatzen duzu, eta entrenamendua da ibili-ibili-ibili, teknika hobetu,... Ez dakit, bakarkako kirola da eta hor ezberdintasuna dago. Eta, antolaketan, bai, taldean joaten ginen, baina, gero, banakakoa da. Orduan, beno, eskia oso egituratuta dago eta “pin-pan-pun”.

Areto futbolean ere urte pila batean ibili nintzen. Guk astean behin entrenatzen genuen, nola jendeak ikasketak edo dena delakoa zeukan, bada, ez geneukan zelairik eta astean behin entrenatzen genuen. Egiten genuen bi orduko entrenamendua, entrenatzaile bat geneukan, saiatzen ginen “pa-pa-pa-pa-pa”. Nik uste dut futbolean badagoela entrenamenduaren kultura hori dezente sartuago, pilotan baino. Entrenamendu bukaeran gelditzen ginen, gure kasuan jokalarien zerrenda osatzeko ere zegoen, zeren eta ez ginen izugarri pila eta denak joaten ginen partiduetara eta gero entrenatzaileak esaten du “zuk jokatuko duzu, zuk ez, zu aldatu,...”

Ez zegoen arazorik, behintzat, entrenatzaile bat zeneukan. Nik ezberdintasunik handiena horretan nabaritu dut. Beste kirolak egin ditudanean, tenisa egin nuenean ere entrenatzaile bat neukan, eta pilota egin dudanean ez neukan entrenatzailearik. Ni ibili naiz Romanekin, eta, nire “entrenatzailea”, komatxo artean, palan hasi nintzenean, Roman zen. Beno, Roman zen nire esparrina, ez zen entrenatzailea. Zerbaitetan laguntzen zidan eta berak esaten zidan ikusten zuena, baina, egiten genuen gauza bakarra zen jokatu, jokatu, jokatu, jokatu, jokatu, jokatu eta jokatu. Akatsen bat egiten banuen berak esaten zidan, hori horrela ez, bale, baina, horrela izan da dena. Ez dut

eduki norbait gaur egun dagoen bezala, gure kasuan teknifikazioan, teknikari bat daukazu joaten zaizuna, zuzentzen dizu, denbora guztian zure gainean dago, hobeto edo okerrago ni saiatzen naiz, eta nik hutsune hori nabaritzen dut. Adibidez, mundial bat egon denean teknikari bat eduki dugu, baina, horiek esaten digutena edo batere ez igualtsu, zeren eta, azken batean, egin genuena zen, gehienbat, joan eta partiduak egin. Orduan, hor ez duzu ezer ere entrenatzen.

Eta, beno, piraguismoan ez naiz ibili federatuta. Orduan, federatuta ibili naizenetan horrela. Nik hori nabaritu dut, beste diziplina bat zegoen. Pilota izan da “beno, beno”, ez dakit, pilotak, niretzako, beste kirolekin bat egiteko oraindik bide luzea dauka. Ez dakit, garrantzia handiagoa eduki behar du, entrenatzaile bat edukitzea bakarrik eta zure entrenamendu ordua edukitzea eta entrenatzaile bat edukitzea, eta entrenatzaile horrek zuri esatea zer egin behar duzun, hori, izugarria da. Hori ez dauka inork pilotan, ezta eskuzko mutilek ere. Baten batek badauka, baina, besteak, zein dira? Lau aitona joango dira pilotekin eta lau buila egingo dizkiete, baina, horiek zer zuzenketa egingo dizute? Horiek, agian, ordenan mantenduko zaituzte eta errespetu baten barruan, hori bai, baina, ia pilotari bezala hobetzeko, zuzenketak egin,... hori ez, ez dakite eta. Orduan, nik batez ere hori nabaritzen dut, bai, bai, ez dakit. Nik hori. Beste batzuk, igual, beste gauza batzuk ikusiko dituzte, baina, nik nire esperientziaren barruan hori.

Azken galderara iritsi gara. Orain egin diezadakezu belarritik tira. Jo ez, eh. Biolentziarik gabe, baina... Galdetzea nahi eta galdetu ez dizugun zerbait badago? Edo, esan nahiko zenukeen zerbait? Edo, gaineratu nahiko zenukeen zerbait?

Ez, nik uste dut dezente esan dudala. Nik banekien ordubeteen ez genuela egingo, nik asko hitz egiten dut. Nik uste dut denetik esan dudala pixka bat, ez zait bururatzen zer edo zer. Gero agian okurrituko zait pentsatzen hasten banaiz. Nik uste dut gutxi gorabehera denetik hitz egin dugula, ez dakit.

Nik garbi ikusten dudana da Gipuzkoan Emakumea Pilotari proiektua hasi zenetik esfortzu ikaragarria egiten ari garela, teknikari pila bat ari garela, aritu garela eta ari garela horretan lanean gauzak ondo egiteko eta saiatzen garela. Gero, ya, nik argi daukadana da, eta kontzientzia oso lasai daukat, nik maximoa ematen dudala eta nik ezin dudala gehiago eman. Gauzak hobeto egin litezke? Beno, bai. Lan gehiago egitea posible dut? Beno, bai, baina, orain ari naiz teknifikazio saioetan-eta horrela ari naiz jartzen, 1. mailakoekin hasi naiz, eta egin dut fitxa bat eta kanpoan daudenak ez daude begira edo atzean jokatzen, ez du ezertarako balio, zeren eta jendeak ez du intentziorik jartzen. Balio du, baina, jendeak ez badu intentziorik jartzen ez du ezertarako ere balio. Orduan, badakizu zer egin dudana? Fitxa batzuk sortu ditut, guk egin dugun liburu horretan bukaeran ebaluazio-fitxa bat jarri nuen, eta, orduan, fitxa hori hartu dut pixka bat eta horren arabera, bada, kolpe sekuentziaren inguruko zuzenketa batzuk eta daude. Ni egiten ari naizena da, bi bikote baldin badaude kanpoan, bikote batek bi pilotari hartzen ditu eta haiei analisisa egiten diete, hankak ondo jartzen ditu beti, besoak ondo gerturatzen dute,... eta, hala, fijatzen dira eta horrela ikasten da. Zeren, eta nik uste dut iritsi garela puntu batetara, non hobetzeko eurek ere hasi egin behar duten besteak ikusten eta jendea analizatzen, bestela, ez dira konturatzen. Orduan, hasi naiz hori egiten eta beste bikote batek apuntatzen ditu zenbat kolpe dituen tantoak, tantoa nola bukatu den,... eta arreta minimo bat jarriz ikusi egiten dute besteek nola jokatzen duten. Nik uste dut hori izan litekeela laguntza bat beraiek ere hobetzeko, eta, ia ez dakit, horretan ari gara. Orduan, nik egin behar ditut analisi guztiak bildu eta atera eta saiatu pilotari

bakoitzari analisi bat ematen. Begira, nik eta zure lagunek zu honela ikusi zaituzte. Baina, nik gehiago ezin dut. Ni aurten bai ari naizela gehiago ematen teknifikazioan eta kirol federatuan eta bai egin dudala esfortzu bat. Posible dela gehiago egitea? Bai, baina, nire egunak oraintxe ez dauzkat, baina, egiten ari naiz pixka bat gehiago, ea horrekin lortzen dugun.

Formazioa ere eman dugu aurten eta orain grabatzen ari gara. Orain formazioko 2. saioa egin behar dugu, beraien saioak grabatu egin ditugu, horiek ere analizatu egin behar ditugu orain eta ikusi zein diren gehien errepikatzen diren akatsak. Gehienetan berdinak dira, baina, ikusi egin behar da, denak ikusi, ikusi saioak nola antolatzen dituzten, lagundu pixka bat horretan. Bada, hori igual orain arte ezin izan dut egin, eta orain murrizketa eskatu dut eta gehiago ari naiz horretan, baina, beno, nire orduak bete beharra daukat. Hori, agian, izan da orain arte proiektuan faltan bota dudan zer edo zer, bai, ez naiz iritsi, ez naiz iritsi horretara. Beno, agian iritsi nintekeen, baina, ez naiz iritsi. Beti buruan eduki dut, zeren eta nik uste dut lagundu egin behar diegula elkarteei formatzen, elkarte horiei, intentzioa daukatenei behintzat lagundu, eta aztertu eta guk egindako saioek ikusi ea balio duten ala ez, pixka bat hortik, formakuntza daukagu hobetzeko. Eta, teknifikazioa, bada, beno, niri min handia eman zidan iaz Martinek esandakoak, “ea zertan ari ginen, bere pilotariak, behintzat, ez zutela hobetu”. Asko izorratu ninduen, ni saiatzan nintzelako, nik uste dut Lide berean ere saiaturiko zela, baina, nik aurten erabaki dut bai ala bai hobetuko dutela, bai ala bai. Nik nire esku dagoen guztia egingo dut, baina, meioratu behar dute. 15 egunez behin gutxi da, baina, ezin dugu gehiago egin.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-04-06

Lekua eta ordua: Anoeta, bere etxea, 12:00

Izen-abizenak: Eider

Zer inpresio egin dizu elkarrizketak? Zer iruditu zaizu?

Nik uste dut orokorrean dena esan dizudala, edo nire buruan dagoen dena, agian gauza batzuk nahiko “heavy”, nahiko zakar, “hau gaizki egin dugu”, baina, beno, nire ikuspuntua da eta espero dut hau ez dela aterako ez dakit non. Eta, beno, bada, betikoa, ni liante xamarra naiz eta galdera baten erantzunean gauza pila bat doaz. Nik uste beti saiatzan naizela galdera erantzuten, baina, gertatzen dena da gero joan egiten naizela eta... Nik uste dut, orokorrean, ez dakit, bai ados nago.

Ados al zaude elkarrizketa honetan esandakoekin? Nahi duzu bereziki punturen bat aztertzea edo zerbait aldatzea? Aukera daukazu aldatzeko.

Bai, ados. Ez dakit, irakurri nuen eta ados nengoen esandakoekin, oraintxe ez zait ezer ere okurrizten. Ez dakit, horrela esateko ez nuke ezer aldatuko.

Eta, zer edo zer okurritu zaizu elkarrizketa egin genuenetik hona? Hau esan behar nion edo hau ez nion esan.

Ez, irakurri dudanean ere ez daukat ezer, luzea dela kenduta, ez daukat zerbait ez jarri izanaren sentsazio hori.

Baina, luzea zer da, zure sentsazioa edo orain orri kopurua neurtu duzulako?

Egia esan, ireki eta 27 orri ikustean, bada, “bua”, eta erantzunak ere luzeak direla. Pentsa ezazu, orri bateko erantzunak, hor dena jarri dizut. Gauza puntualik ez daukat.

Ez da beharrezkoa aldatzea, kontua da aldatu nahi izanez gero horretarako aukera ematea.

LANDA EGUNEROKOA

1.elkarrizketan

- Elkarrizketan nolabaiteko ziurgabetasun puntu bat ageri zuen, askotan esaten zuen ez zekiela erantzun ote zion galderari eta luzea zela ere iritzi zion, baina, ez unean bertan, amaieran erlojuari begiratu zionean baizik.
- Nik uste gustura egon zela eta bera elkarrizketatzeak ilusiotxo egin diola.

Berrikustean

- Luze hitz egiten omen duela zioen “txapas” bat dela konturatu zela.
- Gustura dago bere erantzunekin, erantzunak eman zituen sentipena transmititzen du.

Elkarrizketa data: 2011-03-31

Lekua eta ordua: Zubieta, errebote plaza, 16:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Haizea

Adina: 21

Jaioterria: Hernani

Bizilekua: Zubieta

Pilota elkarteak: Hernani K.E.

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: Gizarte Hezkuntza eginda eta Antropologia ikasten

Lanbidea: ikaslea

Zu gogoratzen zara noiz sortu zitzaizun kirola edo jarduera fisikoa egiteko interesa? Ez pilotan bakarrik, orokorrean.

Gu eskolarretatik hasi ginen, gu apuntatzen ginen eskolarretan eta hasieran genituen futbola eta saskibaloia eta kirol pila bat. Eta, gero, DBH 2. mailan ginenean, aukera bat zen pala, eta, orduan, ba nola gehienak hara joan ginen, ba, “segi, hara”, ardiak bezala. Eta, orduan hasi ginen palan.

Eta, kirola egiten, betitik?

Bai, beti, ohitura zegoen.

Eta, eskolarretan ere txiki-txikitatik?

Bai, bai, bai. Beti. Nik uste 6. mailan edo hasten dela, eta nola orduan denak joaten ginen, bada, klasean denak.

Eta, pilotaren aurretik eskolarretatik kirolak egin dituzu? Zer kirol egin dituzu?

Bada, ez naiz gogoratzen orain. Bada, betikoak, futbola eta saskibaloia eta errugbia. Hernanin ez duzu kirol bat aukeratzeko, errotatzen joaten zara. Orduan, daukazu bost kirol eta bostak pasa behar dituzu.

Eta, 2. DBHra arte palarik ez zenuten eduki?

Ez. Uste dut ezetz. Galdetu egin nion atzo Iboneri, “Ibone, noiz hasi nintzen?”, ze ni ez nintzen gogoratzen, eta esan zidan “2. DBHn uste dut”. Bai, horrela hasi ginen.

Eta, zeinekin hasi zinen?

Ibonerekin.

Hernanin hasi zinen?

Bai, bai, bai.

Eta, zergatik hasi zinen?

Bada, oso nire interes pertsonalagatik ez dut uste. Bada, hori, koadrilan izaten da ba bat hasten dela eta denak atzetik joaten direla, ba, horrelaxe. Zeren eta egia da diferentea zela kirola, ordura arte ez genuen aukera hori eta zen justu listan diferentea zen aukera, ez? Orduan, nik uste pixka bat...

Zuk esan duzu lagunek eragin zutela zure erabakian, beno, koadrilan hasi zinetela. Besteren batek, aitak, amak, familiako besteren batek eragin al zuen?

Ez, ez. Beno, lagunak, beti, jolas garaian eta asko ibilitakoa naiz ni pilotan, ikastolan eta, frontoi txikian, mutilekin eta. Bai, baina, etxean ez.

Zer ibiltzen zineten eskuz?

Bai, eskuz, eskuz.

Eta, hasi, eskuz hasi zineten? Edo, palaz?

Palaz, palaz, zuzenean. Tenisekoarekin pentsatzen dut hasiko ginela.

Eta, zu gogoratzen zara nola iritsi zitzaizun informazioa bazegoela nesketan pilotan ibiltzeko aukera?

Eskolarretatik. Adibidez, gure garai haietan ez zegoen, ez zegoen, ni gogoratzen naiz bazeudela beste hiru edo horrela, gero bik utzi zuten, gero bat geratzen zen, baina, ez zegoen mugimendu askorik. Jartzen zuen listan futbola ez dakit zer, badakit zer eta “pala. Ah, begira, ui, hau diferentea da, lehengo urtean ez genuen. Goazen ba!”.

Eta, zergatik segitzen duzu palan?

Uiii... Bada, egia esan ez dakit, askotan galdetzen diot nire buruari zergatik segitzen dudan. Nik uste dut badagoelako giro polit bat edo, ez? Nik, azkenean, palan lagunak dauzkat eta lagunak eman dizkit. Niretzako ez da kirol, ba, ez naiz profesionala eta niretzako entrenamenduetara joatea da, bada, lagunekin elkartzea, ez? Halaxe da, batekin egon eta besteekin eta. Eta, gero, ez dut aurkitzen motibo bat esateko utzi, hau da, badaude agian motibo batzuk igual esaten duzunak, ba, “ya nazkatu naiz”, baina, gero, egiatan konturatzen zara faltan botatzen duzula, ez? Azkenean, jendearekin egoteko modu bat da.

Eta, zuk hasi zinenetik, inoiz utzi duzu? Etenaldirik izan duzu? Ala beti aritu zara palan?

Ez, konstanteki jarraitzen dut ideia horiekin eta horrelaxe da.

Eta, zer iritzi daukate zure ingurukoek zu palan edo pilotan aritzearen inguruan? Bada, etxekeok edo lagunek...

Etxekoek behin ere ez didate ezer esan. Beno, garai haietan gogoratzen naiz, klaro, akordeoiarekin nengoen ere bai, eta oraindik jarraitzen dut, klaro, akordeoia da bestea. Gogoratzen naiz batxilergora pasa behar nuenean, batxilergora uste dut, bada etxean esaten zidatela ez nintzela iritsiko denarekin eta nik esaten nien baietz. Esan zidaten aukeratzeko akordeoia eta palaren artean eta, nik, egia esan, inoiz ez diet kasu askorik egin, ez nuen aukeratu, biekin jarraitu nuen. Ba, etxean ez zidaten esan “pala ez egin”, ez, esan zidaten “bata edo bestea”, eta, nik “keba, keba, hasi eta probatuko dugu” eta bigarren karreran nago, beraz...

Eta lagunek eta horrela, bada, nola koadrilan joan ginen, ba gero koadrilakoak erortzen joan ziren pixkanaka, baina, beti erlazionatu izan gaituzte gu palarekin, ez dakit. Inguruan eta oso ondo, jendea batzuetan poztu egiten da “ah, bai? Neskak palan? Ah, bada begira”. Gu hasi ginenean ez zen hain komuna hori.

Eta, nolako jarrera edo nolako eragina izan dute zure palako bide horretan? Bai gurasoek, bai lagunek... Eraginik eduki dute? Zuk nabari duzu eragin dutela?

Eragina? Zer esan behar dut, positiboa edo horrela? Ez dakit, nik uste nire erabakia izan zela eta errespetatu zutela ez? Ez dakit, erabakian noski eragingo zutela, niri ez zidaten esan “zuk ez duzu hori egingo edo bai”, edo, horretan askatasuna izan dut. Eta, koadrilan, ba, hasi baldin baginen bost eta gero bik, guk, jarraitzen baldin badugu, ba, gaizki ez.

Eta, zuk uste duzu hasi zinen garai hartatik, badira hamar bat urte, iritzi hori aldatu dela? Denboraren poderioz aldatu da iritzi hori? Bai gurasoena, bai lagunena...

Igual, orain, gehiago aditzen da inguruan, edo inguruan jendeak badaki gu palan ibiltzen garela. Esan nahi dizut, garai batean gauza berria zen eta, orduan, jendeari esaten zenionean pala, ba, begiratzten zizun, esanaz bezala, “ah, pala? Neskak pala? Hernanin?”. Baina, gero, hor joan gara pixka bat ezagunak egiten herrian, ezagunak-edo, jendeak, behintzat, bazekien Hernanin pala talde bat zegoela neskena. Orduan, inork ez dit, ez dakit, alde horretatik ez dugu eduki... Gero, igual, kondizioak entrenatzeko eta horrela, igual hori bai izan zela atzerapauso bat guretzako, baina, inguruan ez. Ni gogoratzen naiz guk mobida eduki genuela. Larunbatetan genuen entrenamendua eta jartzen ziguten tablatua eta guk ez genekien ezer eta, “buah”, *Kronikan* idatzi genuenetik mundu guztiak, “ah, pala talde bat? Ahhh”. Izan zen *Kronika* “la revelión”.

Eta, gizartearen presiorik edo jendearen presiorik nabaritu duzu zuk pilotan aritzeagatik?

Keba, jendea egiten zen harritu, ez? Zeren eta Hernanin, behintzat, gauza berria zen, eta, “ah!nora zoazte Nafarroara? Eta Nafarroan ere ibiltzen dira?”, eta, momentu hartan ez zen entzuten zeren eta neskak beti bigarren plano batean bezala, baina, ez zait iruditzen niri... Orain, beno, herrian, adibidez, inork ere ez du zalantzan jartzen “ah, neska batzuk palan”. Gure garaian, agian bai, gehiago. Ez dakit zein zen galdera, baina...

Nolako tratua jaso duzun.

Bai, nolako tratua, beno, jendea harritu egingo da agian, baina, hasieran bai kostatzen zirela, kondizioak ez zirela orain dauzkagunak, hor nik uste dut zer edo zer lortu dela.

Eta, nola uste duzu ikusten dela gaur egun jendartean emakumeen pilota?

Gaur egun, etikoki hain edukatuak gara, ba, ez? Niri iruditzen zait, ba, jendeak esango du, “ah, bai, bai, emakumeak ere gai dira”, edo, baina, iruditzen zait hori pixka bat irreal dela. Nik uste dut jendeak nahiko ondo hartzen duela, baina, ikuspuntu horretatik, pixka bat bai nabaritzen dudala, “ah, emakumea, baina, orain bai”. Orain badago joera hori, “ah, emakumeek ere egin dezakete”. Ez dakit, etikoki mutilek hainbeste ordu, bada, neskek hainbeste, baina, etikoa delako, ez? Ez igual sinesten dutelako guk ahal dugula. Ez dakit oso ondo nola den, nik ere zalantzak dauzkat nire buruarekin.

Eta, etikoki zuzena izateaz aparte? Etikoki ez-zuzenak izanda zer iritzi daukatela uste duzu? Denak dira etikoki zuzenak emakumeen pilotaren inguruan?

Nik uste dut etikoki zuzenak, ez, jendeak ondo hartzen duela. Beno, ni ez naiz jendea aztertzen gehiegi jarri, baina, jendeari grazia egiten dio askotan. “Ah, palan?”, eta, nik, “bai”, eta, “zer grazioso”. Ez dakit zergatik den grazioso, baina, oraindik ere badago hori, jendeak ez du entzun edo ez dago zabaldua oraindik. Bai, nik uste dut oraindik falta dela zabaltzea. Adibidez, Hernani mailan, ume batek esan badizu “ni palan hasiko naiz”, bada, segituan esaten duzu pilota eskola eta ez dakit zer, baina, ni, adibidez, joaten banaiz Donostiara eta esaten badut palan nabilela, bada, jendea geratzen da, “ah, palan? Ah, baina, federatua? Ah, bai?”. Baina, ondo, ondo. Nik uste dut, orokorrean, ez dakit zergatik den, etikoki edo ez etikoki, edo ohitzen ari garelako, baina, jendeak ondo erreakzionatzen duela emakumea kiroletan ikustean. Ez zait iruditzen... Beno, beti dago, hori apuntatu, eh, parrandan ateratzen zarenean beti esaten dizute “benga, zu palan ibiltzen zara? Apustua egingo dizut, ni mutila naizela eta irabazi egingo dizudala”. Ematen dit nazka bat! Ez? “Zu palista? Nik irabaziko dizut ezkerrekin”, eta, “hi, txikito!”. Nazka ematen dit! Inoiz ez naiz sartzen apustuetan, ematen dit halako nazka bat, “ni mutila naiz eta, neska palista? Irabazi egingo dizut”. Aizu, gero igual bai, baina.

Eta, lehen aipatu duzu jendea edo lagunak aurkitu dituzula pilota munduan. Zuk nolako harremana daukazu beste pilotariekin? Zer moduz moldatzen zarete?

Bada, beti esaten dute, ez dakit, eskupilotan eta, binaka, eta ez dela futbolekin bezala, azkenean futbola gehiago da taldean-eta, baina, nik uste dut azkenean badela taldeko zera hori. Azkenean, beti parejaz aldatzen joaten zara, klubekoa dela,... Klubekoekin entrenatzen duzu, edo, bestela, teknifikazioa dela-eta beste jendearekin elkartzeko zara, nik uste dut badagoela hor, gero, azkenean, aurkariak garela bata bestearekin, baina, badagoela hor talde izaera bat edo markatzen gaituena nolabait ere.

Eta, harremanak, bada, horixe. Beno, egia da azkenaldian galtzen ari naizela, zeren eta ia ez naizenez teknifikaziora joaten, egia da, galdu egiten da. Zeren eta joaten baldin bazara teknifikaziora, bada, zure taldekoak, gero hurrengoak sartzen direnak eta harremana mantentzen da, bai.

Eta, zer eratako harremana daukazu? Galtzen ari zaren harreman hori zer eratakoa da?

Harremana da, bada, entrenamenduetakoa eta partiduetakoa, nik uste. Badago harremana, baina, pixka bat zentratzen dena pala giroan edo, ez? Nolabait ere frontoiaren inguru horretan, eta, gero, egia da afariak egiten direla eta geratzen garela, edo joera badagoela, baina, normalean da frontoiaren inguruan edo pilota edo. Gainera, zuk horrekin erlazionatzen duzu, pilota.

Eta, zuk zein helburu-espektatiba zenituen pilotan hasi zinen garaian? Gogoratzen zara zer helbururekin hasi zinen?

Nik ez neuzkan helburuak, eh, Uxue. 2. DBHn nik zer edukiko nuen? Oraindik ere ez dauzkat helburuak, eta?! Keba, keba.

Eta, orain? Edo, bidean? Ez duzu eduki?

Ez. Ez naiz pertsona bat esaten dudana “aurten hau edo bestea”. Ez, ni joan eta, hori bai, helburu bat meioratzea igual, txukunxeago ematea, baina, ez ez dakit zer txapelketa irabaztea, keba, keba. Ni egunerokoan azkenean, joan jokatu eta, “hara? Bada, benga, goazen”.

Eta noraino iristea gustatuko litzazuke? Zertara?

Ni kontziente naiz zein mailataraino ematen dudan, nik badakit palak zer aportatzen didan eta uzten baldin badut zer utziko dudan.

Eta, zer utziko duzu uzten baduzu?

Bada, hori, lagun giro hori. Baina, ni ez nago hemen joateko ez dakit zer mundialetara, edo nire helburua ez da izatea, ez dakit, edo iristea Kutxara edo. Ez, ez daukat horrelako konpetitibitaterik, lehiakortasun helbururik. Joaten naiz, ondo pasatzen dut, eta momenturen batean giro txarra sortzen bada, giro hori sortzen den momentuan, ba, giro txarra edo zerbait pasatzen den momentuan, bada, utzi egingo dut, nik uste dut. Espektatibak, nik uste dut, ez naiz pertsona bat, horrela, ez ditut espektatiba asko jartzen. Ez, ba, antropologian ere sartzen zara eta ea zer topatzen duzun. Bada, palan ere horrela apuntatu nintzen eta, begira, horrela segitzen dut.

Lehen aipatu duzu pixka-pixka bat. Zuk nolako osasuna ikusten diozu nesken pilota munduari?

Gaur egun? Gaur egun oso osasuntsua. Nik uste dut, ez dakit, “ni noiz hasi nintzen? 2. DBHn. Hori da orain dela 10 urte” eta, 10 urte horietan izugarritzko aldaketa eman duela. Ni gogoratzen naiz, beno, ez dakit, gero galdetuko duzun, baina, gu jubenilak edo ez dakit zer ginen eta guk ez geneukan kontrariorik. Ni gogoratzen naiz Gipuzkoako Txapelketa hiru Hernaniren artean jokatzeko genduela, eta gero joaten ginen Etxarrira eta horrela, baina, ez zen, ez zegoen jenderik eta maila bera ere ez zegoen. Eta, orain, ikusten da beste lanketa bat egin dela, jende gaztea badator, batez ere gure klubean ikusten da federatuetan zer maila dagoen, baina, gero ikusten da eskolartekoetan badatorrela hor beste zera bat.

Eta, esan duzu oso sasoiko dagoela. Baina, oraindik sasoi hobea eduki dezan? Zer edo zer bururatzten zaizu? Nola egingo zenuke? Nola lor liteke hori?

Nik uste dut aurrerapauso batzuk eman direla, baina, iruditzen zait klub batek jokalaria ateratzeko infrastruktura bat edo zer edo zer eduki behar duela atzetik. Eta, nolabait ere, goiz hasi, edo, ez dakit. Mutilak eskupilotan segituan hasten dira, guk badaukagu ume mukizu batzuk bueltaka aritzen direnak frontoian, eta neskak, adibidez, ez dira hasten garai horretan. Lehengoan Ibonek hori esaten zidan, “hori 6 urterekin hasi zen”, eta, “bai, baina, bakarra izango da 6 urterekin hasi zena palan”. Niri iruditzen zait ez daukagula oraindik aukera hori umetatik edo gaztetatik hastekoa. Hori igual falta da, bai. Zeren eta, gero, hasten zara orain nik dauzkadanekin, infantilekin eta horrela, eta berandu edo ez dakit zer den. Zubietan hasten dira eskolarretatik, hauek lehenago, ez dakit noiz hasten diren, alebinetan, baina, esaten dizut antzeman egiten dela zein hasten den lehenago eskupilotan. Baldin badaukazu bat taldean, Usurbildik etortzen dena, hark egun guztia frontoian pasa baldin badu bere bizitza guztian, bada, antzeman egiten da, emateko eran, posturan,... Ikusten da zein den txikitatik ibilitakoa eta zein ez, eta, nik uste dut hori falta dugula guk. Bada, ondo dago gero jendea sartzen joatea, baina, iruditzen zait hasieran zera falta dugula pixka bat, ez dela oraindik oso normal ikusten 6 urteko neska bat pala batekin. Gainera, ezin du gaixoak.

Eta, zergatik uste duzu aukeratzten dutela neskek pala? Zein arrazoi egon litekeela horren atzean? Edo zuk eduki dituzun pilotarien artean, edo zuk zerorrek, edo zure inguruan ikusi duzunaren arabera?

Nik uste dut palak badaukala zerbait pixka bat diferentea. Azkenean, bada, ez dakit, ematen du korrika gutxiago egiten duzula, edo beste era batetara,... Frontoiak guk asko ezagutzen ditugu hemen ere, eta, ez dakit, gure bezala sentitzen dugula. Ez dakit oso ondo nik ere zergatik hartu nuen, edo zergatik apuntatzen garen palan. Niri ez zait okurritzen futboleko jolasten hastea nire koadrilarekin. Adibidez, frontoi batera agian joango ginateteke, agian, pilotan ibiltzen naizelako, baina, beti ere joera gehiago dago. Bada, Eiderrek esaten duena, “ez dakigu, baina, segi, palan ibiltzera”, edo ez? Ez dakit zergatik hasten den jendea, egia esan, ez dakit. Nik ez dakit neroni zergatik hasi nintzen.

Eta, zergatik uzten dutela uste duzu?

Ez pala delako. Nik uste norberak uzten duela segun zer momentu iristen zaion bere bizitzan. Bada, igual ikasketak izan daitezke, edo nazkatu dela, edo ez dakit zer sortu zaiola, lana dela, edo ya ez duela gehiago horrelako lehiakortasun batean ibili nahi. Ez dut uste horrela palaren kontua denik, norberarena baizik.

Eta, norberak zein arrazoi izan ditzakeen bururatzten zaizu?

Nik uste dut edade batetara iristean, igual, begira, palarekin pasatzen da. Hainbeste larunbat dira, bada, azkenean asko lotzen du eta asteburuetan ezin den hori egin, edo larunbatetako bazkariak kendu, edo, egia da, eta ez da, hain zuzen ere, guk partidu asko daukagula, baina bai lotzen zaituela. “Joango gara asteburuan?”, eta, “ai, nik ezin dut, partidua daukadala”, eta, azkenean, iristen da momentu bat bada uzteko unea dena.

Adin batean ere badirudi gizarteak aterrizatzeko esaten diola emakumeari, haurrak eta lanari heltzeko garaia dela, denborak markatzen ditu, denbora zeri eskaini behar zaion erabakia muga dezake.

Kontuan eduki behar da, faktore inportantea da oso ari zarela ikertzen emakumea. Emakumeak daukan zera soziala, bizitza soziala, oso markatuta dauka. Esan nahi dizut iristen dela edade bat bere inguruak edo gizarteak edo komunitateak, berdin zait zer izen ipini, eskatu egiten diola beste gauza bat. Eta igual eskatzen dio asteburuetan bere bikotearekin egoteko, edo eskatzen dio... Gero ez duela emakumeak paper hori zertan bete.

Gizon batekin ez da gauza bera pasatzen?

Ez, ez zait iruditzen niri.

Iruditzen zait, bada, jada amatasuna iristen denean dela ez dut esango “el colmo” zeren eta gero jarri egingo duzu, baina, bai, bai, amatasunak ere asko mugatzen du. Bikotea, amatasuna, gero familia, badauzkala zera sozial batzuk atxiki egiten zaizkionak. Gero, egia da ez duela zertan bere egin behar hori. Hau da, badaudela emakumeak hori alde batetara utzi eta jarraitzen dutenak. Baina hori faktore inportante bat dela, emakumearen inguru sozial hori. Gizonak, beno, eskatuko zaie, baina, nik uste beste era batean. Nik uste emakumeak oraindik ere markatuagoak gaudela zentzu horretan.

Emakumearen kontua iruditzen zaizu zuri klabea.

Bai, eta uzteko “mobida” horretan. Hastekoa, ez dakit zergatik hasten zaren, nik uste dut kuriositateagatik dela, baina, uztearena, beno, hori eta larunbatak, asteburuko konpromisoa. Azkenean, beste era bateko konpromisoak daukazunean ezin zara denetara iritsi. Iruditzen zait gizonek beste nolabait eramaten dutela. Adibidez, aitatasuna. Ez dut esango aita guztiak igualak direnik, baina, iruditzen zait gehiago kostako zaiola emakume bati berriro bueltatzea ama izanda aita bati bere kirolean baino. Iruditzen zait. Ez duela zertan hori izan behar, baina, hor emakumeak hartzen dituen paperak iruditzen zait klabeak direla.

Eta, adibidez, eskolarteko garaian? Ia federatua alde batetara utzita?

Eskolarretan pasatzen da asko aterrizatzen duzula jakin gabe oso ondo nora zoazen, edade horretan probatzen duzu eta esaten duzu, “bai edo ez”.

Zuk ez duzu izan kasurik, hasi direnak eta utzi dutenak?

Bai, lehengo astean utzi zuen neska batek, eta esan zidan bere amak etxez, lekuz aldatzen zirela, herriz aldatzen zirela, baina, ez dut uste hori denik arrazoaia. Ez dakit. Beno, niri iruditzen zait gero zuri ere gustatu behar zaizula palaz ibiltzea eta ikusten baldin baduzu ez diozula ematen eta ikusten baduzu zure parejak aldea ateratzen dizula, ba, norberak ere gustura sentitu behar duela eta norbera hasten denean esaten “nik, igual, nahiago dut beste hori” edo “nahiago dut lagunekin egon” edo “nahiago dut futbolekin ibili”, ba, esaten duzu igual “utzi egingo dut”. Hala ere, hori norberaren zera da, ez nuke esango daudenik “a, b, c, hauek dira arrazoiak”, ez.

Iruditzen zaizu futbolean arrazoiak igualak izan litezkeela? Edo, saskibaloian? Edo badmintonean?

Nik, adibidez, inor ere ez dut entzun esaten, beno, ez dut hainbeste jende ere ezagutzen, baina, “saskibaloia utziko dut larunbatero partiduak dauzkatelako”. Entzun dut jendea esaten “joe, astebururo partidua”, baina, azkenean da eskatzen dizun konpromiso hori, ez? Nik uste dut hori dela, ni bai nazkatzen nauela preseski larunbateroko horrek. Nik bukatu nuenean azken txapelketa, ez dakit noiz bukatu nuen, azkena jokatu nuenean, esan nuen “ah, ya está”, eta esan zidaten orain trinketa, eta nik esan nien “utzi ni bakean trinketarekin” eta egia da eskertzen dela, nik eskertzen dut bizitza sozial pixka bat.

Eta, nola uste duzu bultzatu beharko liratekeela neskak-emakumeak pilotan ibiltzera? Estrategiaren bat bururatzen zaizu?

Beno, nik uste dut momentu honetan ez dela oraindik naturala palan ibiltze hori gaztetatik eta pixka bat bai sortu edo eragin behar dela. Eta hor ikusten da diferentzia, orain datozen hauek izan dutela aukera lehenago hasteko, aukera lehenago eduki dute norbait egon delako prest aukera hori emateko. Ez da naturala esatea guraso batek bere alabari pala eman eta “ala, joan!” Pixka bat behartu egiten dela egoera, nolabait ere eragin egiten da. Baina, nik uste dut, azkenean, norberak bere inguruan sortzen duela. Federazioak egingo ditu bere proiektuak, baina, beno, azkenean, klubak berak, bere herrian dauzkan interesen arabera, egiten dituela. Kasu horretan, igual, Hernanik bai egin duela infrastruktura handia neskak hartzeko, baina, gero, igual, ez da kapaza denak hartzeko eta ez dakit zer pasa zaion gainezka egiten diola. Baina, nik uste dut aukera emate hori dela.

Lehenago hastea?

Futbolean, adibidez, aukera ematen dizute hasteko eta saskibaloian, beno, saskibaloia neskena ez dago, baina, atletismoan, edo... Gaztetatik hasten zara, baina, palan? Berez badago aukera, baina, ez da gauza bera baldin bazara herri txiki batekoa eta ibiltzen baldin bazara, zure haurtzaroa zentratu baldin bada frontoi batean, bada, noski, egia da. Lehengoan etorri zitzaidan ume bat bere aita pilotaria zena eta txikitatik pala batekin, bada, oso ondo, bada, zure egoera, baina, beste askorena...

Orain, pixka bat zentratu nahiko nuke, esan duzu zeinek eragin beharko lukeen edo ez. Eragile ezberdinak daude, azken batean, emakumeen pilotan eragiten dutenak, orduan galdetu nahi nizuke zer iritzi daukazun eragile horien jarreraren inguruan. Ados? Hasiko naiz hedabideetatik. Zure ustez hedabideek laguntzen dute? Edo, nola laguntzen dute?

Beno, betikoarekin ari gara, ezta? Hedabideak. Hedabideek, beno, isladatzen dute nahi dutena eta interesatzen zaiena. Egia da, egia da, pilota asko garatu dela mutilen pilotarekin, esan nahi dizut, mutilen pilota garai batean ez zen hainbeste ikusten telebistan. Igual ez zeudelako apustuak edo ez zelako hain txapelketa joerakoa, nolabait ere bai hartu duela futbolaren tankera hori, ez? Txapelketak, orain frontoiak margotzen hasi dira ez dakit zerekin, beti dago partiduren bat ikusteko,... eta nik uste horrek eragin digula. Eragin diola pilotari. Baina, beno, neskei ematen dioten trataera da, denean bezala, lotsagarria, lotsagarria. Ez du laguntzen, zeren eta ez dira ateratzen imajinak,... Gero, ikusten da kirolean bertan ere zer sailkapen egiten den, ezta? Aurrena, Teleberrin

eta horrela, futbola, gero saskibaloia, gero ez dakit zein eta gero, halakoren batean, “ah, neskak titulu hau irabazi du”. Oso ondo. Hori hedabideak orokorrean. Gero, herriko hedabideetan, *Kronikan*, adibidez, nola zuk pasatzen duzun abisua, bai presenteago izan zaitezkeela. Hala ere, mutilek presentzia handiagoa daukate guk baino, baina, beno, nik uste dut beste era bateko hedabidea dela. Herri mailan, nolabait ere zer edo zer alda daitekeela, baina, puff, orokorrek! Periodikoez eurek ere... Ez dakit, periodikoena ez dut hainbeste kontrolatzen, baina, telebistan, adibidez, nabarmena da. Periodikoetan gure partiduak, ba, nik ulertzen dut ez dela, baina, da, zutabe batean, eta...

Eta, erakundeenak, adibidez? Diputaziotik hasita? Udalak, pilota federazioak.

Diputazioagatik ez dakit zer esango nukeen. Iruditzen zait bultzatu dituztela proiektuak, baina, pixka bat, etiko ikuspegi hortatik, “politikoki zuzenak” izateagatik. Egiatan, ez dut uste beraien atzean egiatan sinesten dutenik egiten dutena, edo egiatan. Nik ez dakit zer laguntza ematen dizkieten federazioei eta horrela, ez dakit, ez dut kontrolatzen, baina iruditzen zait pixka bat bai zentratzen dela horretan.

Eta, udaletxeetan, ba, ez nuke esango berdin, baina, ia-ia bai. Azkenean, ez dut ezberdintzen nik zer puntutaraino ari diren egiten egiatan sinesten dutelako emakumeengan eta egiatan kirol hori egitean, edo egiatan delako, ba, “denak gara berdinak” eta pixka bat diskurtso irreal horren barruan.

Eta, federazioa iruditzen zait, ba, noski, federazioak ez baldin badu lanik egiten, ba, “agur!”, ez? Bai, federazioa (Gipuzkoakoa) azkenaldian espabilatua dabil. Eta, beno, Euskadikoa edo hori, ba... Nik uste dut baietz, Gipuzkoakoak aldaketa handiak eman dituela.

Eta, besteek?

Besteak ez ditut hainbeste kontrolatzen, baina, iruditzen zait ez dutela horrela garatu guk bezala. Iruditzen zait bultzatu diren proiektuak izan direla oso jakinda zer lortu behar den eta besteak oraindik ere geratu direla estankatuta bezala. Ba, joko-sistema zaharrean edo. Ez dakit eskolarrek ere nola funtzionatzen duten, baina, nik uste dut hemen Emakumea Pilotarirekin badagoela nolabaiteko arrakasta eta Gipuzkoako herri gehiago ari direla sartzen. Alde horretatik, federazioaren lana ondo.

Eta, pilota elkartearen inguruan zer esango zenuke? Zuretik hasi, horrela errazagoa izango da, eta gero zabaldu.

Nik uste dut, Ibonek, gure inguruan, lana egiten duela. Zer nahi duzu esatea? Ea bada, pixka bat dela zu zoaz eta “bai, bai, sartu elkartearen”, baina, hortik aurrera ez espero askoz ere gehiago laguntzea. Hori uste dut pasatzen dela, Hernanin hasi ginenean, “bai, bai, tori eta zuek nahi duzuen egin ezazue”. Horrelaxe da. Real Sociedaden uste dut, entzun dudanarengatik, iguala dela, Su-Berrikoak aldatu dira eta azkenean beraien elkartearen sortu dute, ... Nolabait ere nik uste dut ez dugula espero “un camino de rosas”. Zuk nahi baldin baduzu, azkenean, borrokatu egin behar duzu.

Iruditzen zaizu elkarteek gutxi laguntzen dutela?

Iruditzen zait elkarteetan jokaera aldatu egin dela hasi ginenetik orain arte, niri baietz iruditzen zait.

Zertan?

Iruditzen zait orain, nolabait, inplikazio gehiago edo daukatela guregan. Lehenago zen “zuek erabaki”, eta, orain, nolabait ere, gure iritziak kontuan hartzen dituzte. Adibidez, “larunbatean? Bada, zuek ikusi zer ordutan zatozten”, eta, orain ez, ordutegi zehaztu bat dago. Elkarrekin iruditzen zait egin dutela lana, baina, orain, jakin behar da elkarte horren barruan mugitzen eta gauzak lortzen. Guri, elkarrekin, noski, ez duzu pentsatuko, nolabait ere guk egin behar dugula gure bidea, “ah, tori, hau nahi duzu?”, ez, inork ez dizu emango. Ez, guk joan behar dugu eta “eh!”, baina, insistituta, ba, lortzen dela. Ez dakit hori beraien jarrera den edo guk lortutako zerbait. Nire zalantzak dauzkat.

Eta, pilotarien jarrera? Pilotarien beraien jarrera?

Bada, pilotarien jarrera gabe ez zen existituko gaur egun pala. Bai, bai, hor badaude pertsona batzuk, klabeak, esango nituzkeenak. Orain ez dakit, ba, lehenago aipatu duguna, Itxaro edo, gero Eider, bada pertsona bat inplikatu dena eta, gure klubean, onerako edo txarrerako Ibone izan da hor aurrera atera duena. Eta, bere umearekin etortzen zen, eta bere umeari palarekin batzuetan jo egiten genion, eta pilotarekin, eta... pasatzen ez zitzaiguna guri. Ulertzen didazu? Baina izan da “por amor al arte”, ez esan digulako gure klubeko arduradunak, “ah, goazen neskak gonbidatzera”. Ez, ez, ez, “gu neskak gara eta jolastu egingo dugu eta ordu bat emango diguzu merezi dugulako”. Baina, borrokatuta, inork ere ez digu ezer oparitu. Nik uste dut, egia da orain errazago daukatela, askoz ere errazago daukate, baina, gero, aldi berean, fitxak edo txapelketak, edo, nolabait ere, ez dakit, bai baino ez esango nuke.

Hori pilotarien kasuan edo elkarrekin kasuan?

Hori elkarteetan kasuan. Eta, pilotarien kasuan, argi eta garbi, hau aurrera atera baldin bada pilotariengatik izan da.

Eta, pilotarien artean, denak multzo berean sartuko zenituzke?

Ez, ez, ez, ez. Nik uste dut badaudela pilotari batzuk, adibidez, Eider, erdiko generaziokoa da. Eider eta Ibone, ezagutu dute aurreko pilota, beraien sartzen dira eta gero hurrengo pilota. Pertsona horiek nolabait ere beste ardura bat edo beste zerbait espero da beraiengandik. Baina, gero, badaude beste batzuk, bada, beno, dedikatzen direnak, ez dakit, ez dutela presente edukitzen, ez dira denak igualak. Alde guztietan ez gara denak igualak, batzuk ardura batzuk hartzen dituzte, besteek ez dakit zer, batzuk dedikatzen dira larunbatetan joatera, besteek nahiago dute beste gauza bat lortu eta horretarako martxan jartzen dute ez dakit zer proiektu,... Iruditzen zait denetik dagoela eta egon behar duela denetik

Eta, ikusleen jarreraz?

Jo, ikusleak, horrenbeste dauzkagu! Ikusleak, joaten direnak, dira gertukoak, orduan, ba, ez dugu aditu inor esaten duena, “bua, ez dakit zer” edo “besteak”. Joaten denak badaki zer dagoen eta zertara doan, eta alde horretatik, nik uste, oso giro polita sortzen dela.

Eta, joaten ez den hori? Zer uste duzu, zer jarrera edukiko du joaten ez den horrek?

Eta, joaten ez dena ez duelako nahi da. Inor ere ez da derrigortu behar. Nik nahiago dut ez joatea eta joaten dena joatea ba giro polit batean eta ez bati aditzea “uff...”, “hi, txikito!” Nik uste dut lehenago Emakumea Pilotarirekin bai lortzen zela hori, nolabait ere giro polita, eta, azkenean, giro polit horrek jendea erakartzen zuen, ba, ingurukoa-edo. Eta, ez dugu espero ez dakit zein joatea gu ikustera. Joaten dira gurasoak, familiakoak, lagunak, ezaguna esan diozula partidua zeneukala eta azaldu egin da, baina, giro horretan. Ez zait iruditzen.

Lehen uste dut pixka-pixka bat aipatu duzula, baina, zuk uste duzu pilotarako aukera hori egiteko garaian hirian edo herrian jaiotzeak eragiten duela?

Bai, bai, bai. Eta, herrian edo hirian bakarrik ez, herri txikian edo herri handian ere bai. Nik beti esaten diot Amaiari, ez? Amaia da, herrian zer zeukan? Frontoia eta parkea eta besterik ez. Eta, zer egin behar du, ba, ume batek? Baina, guk, adibidez, gogoratzen naiz Hernani mailan aukera gehiago genituela, bada, futbola, beste kirol batzuk, edo musika bera, edo ez dakit zer edo badakit zer. Hori horrela da.

Iruditzen zaizu herri txikian errazagoa dela?

Herri txikian joera handiagoa izaten da ibiltzeko. Ez dakit horregatik den edo ez, ez dakit. Niri iruditzen zait herri handietan beste aukera batzuk daudela eta, azkenean, zailagoa dela horretara iristen. Ni eskupilotan ibiltzen nintzen jolas garaian bakarrik. Niretzako zen jolas garaiko zerbait, baina, ikastolatik kanpora ez nintzen ibiltzen, eta joaten ginen plazara edo ez dakit nora, bai. Eta, hirian, hirian iruditzen zait oraindik ere zailagoa daukatela.

Eta, kulturak nolako eragina izan dezakeela iruditzen? Alegia, esaten da “pilota da gure kirola, tradizioaren parte”. Zuk uste duzu kultura kutsu horrek eragiten duela hautatzeko orduan?

Bai.

Zuk uste duzu neska batek pilota hautatzen duenean pentsatzen duela “hau gure kirola da”.

Momentuan ez, igual momentuan ez du esango “hau gure kirola da”, baina, gero, aurrera eginda, nik pentsatu izan dut baietz.

Iruditzen zaizu neska batek futbola ez duela aukeratzen “gure kirola” ez delako?

Ez, ez, ez, urte horiekin ez. Ez, baina, bai badela nolabait ere gure inguruan, orain igual ez hainbeste, baina, nik uste dut badagoela joera bat gehiago gurea dena bereizteko. Desberdindu egiten da, frontoia gurea da eta herri guztietan dago frontoi bat, herri guztietan ez dago futbol zelaia. Joaten zaren herri guztietan dago frontoi bat, hori da gurea, eta nik uste dut lehenago bazutela joera handiagoa eskupilotan-eta ibiltzeko Hernani mailan. Nik dauzkat hor familiako pelikula batzuk, bai, izugarriak dira. Denak lutuz, beltzez, eta nire amaren eta izebak denak eskupilotan, eta nire osabak eta. Hori

orain ez da ikusten, ez da ikusten gure gurasoen kinta eskupilotan, baina, garai haietan bai. Iruditzen zait badela gurea.

Uste duzu badaukala eragina aukeratzeko garaian, baina, ondoren?

Ondoren nik uste baietz, kontziente zarenean. Nik pilota bai sentitzen dut nirea eta futbola ez, adibidez.

Eta ikasketa mailak? Edo pertsonaren ezagutza mailak?

Ez. Zer ari gara nesketaz, ezta? Nik uste dut mutilen kasuan bai izaten dela gehiago gurea dela eskupilota, zeren eta gehiago erlazionatu da eskua. Gero, pala sartzen den momentuan, ez dakit zenbat sentitzen dugun, eta hori jokamolde bat dela, baina, nik uste frontoia badela gurea. Ez? Bada gauza bat beste norabait joanda ez dena egiten eta niri horrek ematen dit batzuetan sentimendua, “hau gure kulturaren parte da”. Gero, ez dakit erabakitzeke arrazoi bat den. Mutiletan, igual bada erabakitzeke arrazoi bat, txikitatik gehiago ikusten dute eskupilota, edo gurasoek ere “tori pilota eta ibili paretari ematen”. Guri igual ez digutena egin. Nik uste baietz, gerora behintzat bai.

Azkenatalera ere iritsi gara. Entrenamenduaz edo lehiaketaz galdetu nahi nizuke. Lehenengo galdera egingo dizut: zuri zer iruditzen zaizkizu lehiaketa sistemak? Bikoteak osatzeko modua, elkartearen izenean jokatzea, txapelketetako egutegia, asteburuetako partidak antolatzeke modua, etab. Nahi duzunetik hasi.

Beno, bada, banan-banan hasiko gara. Hasiko gara bikoteen osaketak. Hor dena lotuta doa. Nik uste dut klubaren izenean jokutzen den heinean bikoteak klubaren arabera egiten direla eta zuk gero bikotez aldatzen duzu zure elkartearen barruan, baina, aldi berean, itxia bezala geratzen da, “eta gu, eta beraiek hor”. Baina, gero, nahasten zarenean beste jendearekin... Nik uste dut momentuko helburuaren arabera dela, nik beti hori esaten dut. Helburua baldin bada izatea super-lehiakorrak eta super-txapelketa, eta, ateratzea maila bat denak edukitzeke maila mundialetakoa, bada, jendea nahastea eta klubak nahastea ez dakit oso efektiboa izango litzakeen, baina, nik uste dut pala egoera honetan, orain une honetan ez dagoela. Orain, agian, azpitik datorren generazioarekin, akaso, asko maila pixka bat altuxeagoa daukatelako eta beste gauza bat exijitu behar delako, akaso bai. Orain, momentu honetan, nik uste dut ezagutzera eman behar baldin baduzu, bada, goazen zerbait ateratzera, egitura bat osatzera eta ezin duzuna horretara mugatu. Nik uste dut ikusi dela Gipuzkoako Txapelketa zer frakasoia izan den azkeneko 20 urteotan eta, gainera, desagertzeko egon zen. Zergatik? Bada, azkenean, beti berdinak irabazten baldin badu, ba, oso ondo. Zer aportatzen dizu horrek?

Eta, bikoteak nahastuta egitea, adibidez, Emakumea Pilotarin egiten den bezala, zer iruditzen zaizu?

Niri oso ondo iruditzen zait, ez daukat inongo problemarik eta beti gustatu zait txapelketa hori. Beti, zeren eta, azkenean, nola nire helburua ez den kristoren maila ematea eta horrela, eta nola garrantzia ematen diedan harremani eta horrela eta zer giro dagoen, iruditzen zait giro askoz ere politagoa dagoela. Zeren eta, azkenean, Gipuzkoakoan, norbera bere kantxan, gero joan gero bueltatu, ez duzu jendea ikusten,

galdu egiten da eta gero jendeak ez du asko baloratzen Gipuzkoakoa. Baloratzen da, baina, ez dakit, ez?

Eta, txapelketetako egutegiak, adibidez? Zer iruditzen zaizu denboraldia?

Denboraldiarekin ez daukat ezer, ondo iruditzen zait irailean hasi eta maiatzean bukatzea, eta udara jai, hori da mundiala. Beste batzuk udaran hasten dira, arrauna, adibidez, ez? Eta, gero, bada, larunbat arratsaldetako nik ulertzen dut larunbatetan izatea, zeren eta ostiraletan azkenean jendeak lan egiten du eta, azkenean, nolabait ere, zerbait bitartekoa behar duzu, eta igandea baino hobea da larunbata, beraz,... Gero, izorratzen zaitu, ez dizut gezurrik esango, baina, egia da.

Eta, entrenamenduak, adibidez, nola antolatzen zenituzten hasiera hartan?

Joe, hasieran. Larunbatetan joaten ginen hasieran eta barregarria zen.

Nolakoa zen ba?

Larunbatetan joaten ginen eta, igual, joaten zinen frontoira eta frontoian tablatua hor. Eta, “aiba”, eta deitu eta “ah, ez dakit zer dago”. Gero, esan dizut, idatzi genuen *Kronikan* karta bat eta joe, orduan, bai, orduan abisatzen zuten. Nik uste dut orduan hasi zela jendea Hernanin enteratzen, “ah, ui, baina, neskak palan?” *Kronikan* idatzi genuenean, orduan. Egia da.

Eta, nola antolatzen zenituzten? Talde bat elkartzen zineten ordutegi batekin, entrenatzaile batekin, entrenatzailerik gabe...

Ez ginen asko. Gu, orduan, nik uste denok batera ibiltzen ginela. Ni gogoratzen naiz gu denok batera ibiltzen ginela, baina, gero, nola jendea despuntatzen hasi zen, bada, bukatu genuen hiru-lauk eta gero zaharretan gure erreferentzia bakarra izan zen, bat edo bi. Ez zeuden, zaharrak ere utzi egiten zuten eta iritsi zen momentu bat bakarrik gelditu ginena? Bada, igual bai, erreferentziarik gabe, eta, orduan, ez daukazu erreferenterik, ez dakizu zaharrek nola jokatzen duten eta hori zaila da. Eta, hor, azkenean, Ibonek atera zuen hori.

Eta, entrenamenduetan, zer egiten zenuten? Gogoratzen zara?

Ez, ez dakit zer entrenamendu klase ziren.

Eta, orain, zer egiten duzue entrenamenduetan?

Orain, momentu honetan, pixka bat desastre. Nik uste dut entrenamenduetan fase bat eduki dudala. Bai, hasieran zen pixka bat joan eta eman eta ahal zena egin. Gero, aldatu zen eta hasi ginen gehiago ariketak eta, nik uste dut joera bat egon zela ariketa gehiago, eta teknika, eta hau eta bestea, eta hobetu. Eta, gaur egun, bada, gaur egun ez dira nire entrenamenduak oso serioak. Ba, joan eta eman eta eman eta “ah, begira zer pasa zaidan”.

Eta, zer egiten dituzue, partiduak?

Bai, bai, partiduak.

Eta, zer iritzi daukazu jokorako materialaz? Bai palak, bai pilotak. Adibidez, hasten diren nesken kasuan, edo zu hasi zinenean.

Ematen du pisatu bezala egiten digula guri palak, ez gaude ohituta pisu hori hartzera, ez dakit. Nik, adibidez, nabaritzen dut heltzean, gu esku txikikoak gara eta pala horiek ez daude gure neurrira, ez daude. Edo, emakumeak esku handiak baldin badauzka, suertea, baina, askotan lijatzen aritu behar izaten dugu moldatzeko.

Eta, noiz uste duzu hasi beharko lirakeela neskak? Zer adinetan?

Txikitatik. Nik uste dut aukera ez dela oraindik natural hartzen, neska palarekin, eta... Nik uste dut mutil bati edo pertsona bati pilota eman eta "tori, paretarekin", baina, palak ez dira ematen horrela. Eta, zer adinetan? Bada, gure klubeko mutilak hasten dira 8 urterekin eta neskek ez, ez dakit. Ez dut esan nahi mutilen berdina egin behar dugunik ere, baina, nolabait ere, bai. Beraientzat egokia baldin bada guretzako zergatik ez? Zergatik egin behar dugu ezberdintasun bat, ezta?

Eta, zein bide iruditzen zaizu izan litekeela egokia 6-8-10 urterekin hasten den horrek bidean ez dezan pala utzi eta bide osoa egin dezan, zu bezala? Zerbait okurritzen zaizu?

Bai. Niri iruditzen zait denak ez garela erritmo berean aritzen, nik badauzkat batzuk kostara egiten zaienak pilotari ematen hastea, eta hori argi eta garbi ikusten dut jubenetan. Edo motelagoak direlako, edo ez dakit zergatik den, baina, batzuk azkarrago moldatzen dira besteak baino, eta, denborak erakutsi digu urte batean, bat-batean izugarrizko jauzia eman dezakeela pertsona batek, igual horretan zentratzen delako edo atera egiten zaiolako, nik ez dakit zergatik, baina, hori pasa izan da. Askotan joera dago, mutiletan adibidez, probak egin "ah, hau ez zait gustatu eta segi hemendik", eta, nesketan, nik ikusi dut esaten dela "ea, goazen itxarotera eta ea zer pasatzen den". Hernanin, orain arte, horrela izan da eta orain jendea botatzen hasi behar baldin badira...

Ez uzteko garrantzitsua iruditzen zaizu aukera ematea segitzeko eta iraupen hori edukitzea?

Bai, dudarik ez egin, eta, iritsiko da momentu bat pertsona horrek errendituko duena. Hori argi eta garbi ikusi da gure klubean, argi eta garbi. Utziz gero pertsonak gero aldaketa ematen dute, askotan beraiek bakarrik, guk eman genuen bezala.

Azkeneko galderara iritsi naiz. Zerbait galdetzea nahi zenuena eta galdetu ez duguna badago? Edo, zer edo zer gehiago esan nahiko zenuke?

Ez dakit, ez, ez. Nik uste nuen gehiago galdetuko zenuela hasierataz edo horrela. Ni gogoratzen naiz gu hasi ginenean ez zegoela inor asko, horren inguruan galdetuko zenuela. Ni gogoratzen naiz ez genuela ia inorekin kointziditu, Amaiarekin eta ere ez, nik baino 3 urte gehiago dauzka. Eta, gero, gu aldatu ginenean kategoriaz, justu gu pasa ginenean seniorretara, hasi zen Emakumea Pilotari eta guretzako erraztasuna izan zen. Orain, berriz, jubenilak pasatzen dira eta jasotzen dute izugarrizko egurra, egurra. Gu iritsi ginen eta jokatu genuen justu 1. Emakumea Pilotari. Gurea izan zen ia-ia "camino de rosas". Zeren eta beste giro bat zegoen eta nik uste horrek lagundu zigula. Ez dakit

zenbat urte diren, 18 urterekin pasatzen da seniorretara, ezta? Bai. Eta, bat-batean giro polita zegoen hasi zenean hori dena, denak elkartu, larunbata. Nik uste dut diferentea zela. Orain, berriz, nik uste egurra jasotzen dutela pasatzen direnek. Bai, eta, egia da ez dagoela horrelako giroa momentu honetan, niri iruditzen zait nahiko tentsu dagoela giroa eta ez garela elkartzen, eta, horrek, pena ematen dit. Alde batetik ona da bi maila egotea, zeren eta horrek esan nahi du nahiko jokalaria badaoela bi maila desberdintzeko, baina, bestetik, nahiko banatuta daude bi mailak. Iruditzen zait garai batean denak elkartzen ginen bezala orain jada ez garela denak elkartzen eta zu egoten zara zure kategoriakoekin eta besteak besteekin eta harremana galdu egiten da.

Giroa iruditzen zaizu garrantzitsua?

Bai, oso. Teknikazioan eta GRAVNeko entrenamenduetan egon egiten ginen eta egote horretatik sortzen da giroa.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-05-05

Lekua eta ordua: Zubieta, errebote plaza, 16:00

Izen-abizenak: Haizea

Zer iruditu zaizu elkarrizketa? Zer inpresio egin dizu?

Inpresioa? Ona. Ez dakit zer esan behar dudan, ondo. Egia da badaukala lotura elkarrizketak zuk ikertu behar duzunarekin, baina, iruditzen zait galdera batzuk bai direla erantzuteko oso zailak. Adibidez, kontuan eduki behar da, faktore inportantea da oso ari zarela ikertzen emakumea. Emakumeak daukan zera soziala, bizitza soziala, oso markatuta dauka. Esan nahi dizut iristen dela edade bat bere inguruak edo gizarteak edo komunitateak, berdin zait zer izen ipini, eskatu egiten diola beste gauza bat. Eta igual eskatzen dio asteburuetan bere bikotearekin egoteko, edo eskatzen dio... Gero ez duela emakumeak paper hori zertan bete.

Gizon batekin ez da gauza bera pasatzen?

Ez, ez zait iruditzen niri.

Iruditzen zait, bada, jada amatasuna iristen denean dela ez dut esango “el colmo” zeren eta gero jarri egingo duzu, baina, bai, bai, amatasunak ere asko mugatzen du. Bikotea, amatasuna, gero familia, badauzkala zera sozial batzuk atxikitu egiten zaizkionak. Gero, egia da ez duela zertan bere egin behar hori. Hau da, badaudela emakumeak hori alde batetara utzi eta jarraitzen dutenak. Baina hori faktore inportante bat dela, emakumearen inguru sozial hori. Gizonak, beno, eskatuko zaie, baina, nik uste beste era batean. Nik uste emakumeak oraindik ere markatuagoak gaudela zentzu horretan.

Interesantea iruditzen zait. Interesantea. Bigarrena ados al zauden elkarrizketa honetan esandakoekin? Baieztazen al duzu bertan esanikoa? Zerbaitekin pasa al zaizu “hau nik esan nuen” pentsatzea?

Bada, bai. Zerbaitekin pasa zitzaidan, ez gaizki, eh, baina, “hau nik esan nuen?” Pare bat gauzarekin esan dut “ui, hau nolatan?”, baina, bai, ez daukat horrekin inongo arazorik. Fidatzen naiz zutaz.

Bestea ea zerbait gehiago esan nahi duzun edo ea zerbait gehiago bururatu zaizun. Esan nahi zenuen zer edo zer badagoen.

Ez, ez da esan nahi nuena edo ez nuena. Igual ez zirela oso ondo matizatuta geratu gauzak. Irakurtzen ari nintzela, edo ez dakit galderak ez zeuden horri begiratuta edo nik beste gauza batzuk azpimarratu nahi izan ditudan, edo.

Hori inportantea da. Kasu honetan ez da gure helburua nik galdera bat egin eta zuk zehatz-mehatz erantzutea galdera hori. Ez. “Sota, caballo, rey” bila ere ez gabiltza. Erantzun posible bakarra da “a” eta “a” ez baduzu erantzuten, bada, ez, ez.

Ez, badakit ez dela horrela. Orain igual ez naiz gogoratzen, baina, hasieran zertaz hitz egiten zen?

Non hasi zinen, zergatik hasi zinen, zergatik segitzen duzun, giroagatik nik ulertu dudanez.

Non eta hori, hori da. Hori inportantea da. Eta, zergatik hasi zinen? Hori ere zure ikerketaren parte da, baina, hori “zergatik jaten duzu ogi hori?”, horren parekoa da. Ez dakit zer esan, ez.

Inportantea da jakitea, ez?

Baina, zu igual beranduago hasi zinelako, baina, ez dakit bada nik.

Zergatik hasi zen pertsona bat? Zu zergatik hasten zaren? Ez zaizu inportantea iruditzen?

Jakitea? Bai, baina, bizitzan egiten dituzu gauza batzuk, “ah, bada horra noa” Niri galdetzen badidazu zergatik hasi nintzen akordeoia jotzen...

Bale, arrazoi ezberdinak egon litezke, baina, jakitea inportantea iruditzen zait niri.

Klaro, bai, baina, ea hori orain, ea ondorioren batetara iristen zaren.

Hori ikusiko dugu. Hori jada nire problema da, lasai.

Klaro, hori da, iruditzen zait oso zaila dela orokortzeko.

Orokortzea ez da helburua. Honen helburua garbi dago ez dela esatea, ezin dela errezeta bat sortu. Orokortu, hasteko, nik egiten dudanarekin ezin da orokortu, nik Gipuzkoan 6 elkarrizketa eginda ezin dut esan “Euskal Herriko emakumeek pilota uzten dute honengatik, hala!” Ez, ezin dut esan. Justu hauek, egoera honetan, testuinguru honetan, momentu honetan, hau.

Hori, hasi, pixka bat zure proiektuari begira inporta zaizu zergatik hasi den. Hasi, ez dakit zergatik hasten den. Nire kasuan izan zen inguruak bultzatuta, lagunak, eta inguru familiarrak ez dut uste edade horretan inongo problemarik jartzen dizunik. Eskolarretan? Nik, nire kasuan, eta ikusi dudanetan, behintzat, ez da inongo problemarik egon alde horretatik. Gero, jarraitu, nik uste giroa oso inportantea dela eta badagoela giro, ez dakit berezi bat, zeren eta azkenean leku guztietan dago giro bat, futboleak ere beraien giroa daukate, ez dakit non ere bai, bakoitzaren kirolak azken batean giro bat dauka, baina, egia da palak badaukala giro berezi bat. Eta hori azpimarratzen nuen, askotan esaten digutela binaka jokatzen dugula eta igual gutxi dela eta horrela, baina, beste talde joera bat badagoela. Nahiz eta ez jokatu denek batera, bada, igual kontrarioekin ezaguna zara eta gero kluba ere badagoela, eta hori. Orduan zergatik jarraitu, hori. Giro inportante hori. Eta, zergatik utzi, argi eta garbi emakumea delako eta inguru sozialak, emakumea izatea. Bai. Tristeia iruditzen zait, baina, iruditzen zait hori horrela dela.

Hori gaztetan bakarrik, edo geroago ere bai? Adibidez, orain, ikastaroan hasten den 40ko emakume bat?

Hor aldatu egingo litzateke. Klaro, nik ulertzen dut palan hasi gaztetan eta erretiratu bezala, baina, 40 urterekin hasten den andre batek, bada, “olé”. Ez dakit zergatik utziko duen, baina, seguru bere inguruak zerikusia daukala erabaki horretan. Seguru nago.

Edo zergatik hartzen duen. Izan liteke “arraroa” ere.

Seguraski hartuko du ez delako futbola bezalako kirol bat. Ez du eskatzen igual, fisikoki, ez du ematen partidu batetara joateko edo entrenamendu batetara hain garatuta egon behar duzunik. Ez duzu aguantatu behar 40 minutuko korrika saio bat. Nik uste dut bentaja bat badela hori. Ez dakit zein zen hurrengoa.

Hurrengo atala da tratua, presioa, zer jarrera-eta ikusten zenituen eta hor esaten zenuen nahiko ona zerla tratua.

Bai, bai, bai, jendearena eta horrela bai.

Gero ea nola ikusten zen eta ondo esaten zenuen, etikoki zuzenak garela.

Bai, hor zalantza handiak dauzkat. Gainera, aipatzen dut, irakurri dut. Orain dela 10 urte ez zen ezaguna, eta orain ari da izaten ezaguna, baina, ez dakit, lanketa handi bat egin da hor, baina... Udaletxeen aldetik eta horrelako erakundeen aldetik, instituzioetatik, ez dakit zergatik daukaten jarrera hori gurekiko. Hor, gainera, esan egiten dut. Ez dakit den egiatan sinesten dutelako, gure klubean ere guk ahal dugula edo, “ah, bai, emakumeak dira eta utzi egin behar diegu”. Nik zalantzak dauzkat. Gero egia da, adibidez, Usurbilgo pilota eskolan neskak hartzen dituzte mutilekin batera, hasi egiten dira neskak, baina, iristen da momentu bat gurasoak, nik daukadan palista batek gurasoek kexatuta utzi zuen, mutilei irabazten zien, eta ez dakit nola izan den, klubak hori onartu duela. Ez dakit, ez dut hitz egin klubarekin. Orain pasatzen da, badago beste neska bat, jokatzen du mutilekin. Txapelketa ereduak ere ez dakit oso ondo dauden, zeren eta neska bakarra baldin badago edo bi neska baldin badaude, nola egin behar da horiekin? Klaro, oraindik txikiak dira eta denek “ah, bai”, baina, handitzen direnean, zer soluzio eman behar dio horri federazioak? Mobida bat da nesken asuntua.

Hori esaten duzu eskuzko txapelketetan?

Kasu honetan eskuz. Orain, denak gazteak direnean, super-ondo denak, eta Gipuzkoako txapeldun geratu da aurten, eta? Edadeak aurrera egitean, zer pasako da kadeteetan? Pertsona horrek ezingo du aurrera egin eta orduan palara dedikatu beharko du.

Zer da hori, txarra?

Ez, txarra ez, baina, berea eskupilota baldin bada ez dakit zergatik aldatu behar duen. Besterik gabe, hori ez dakit zertara zetorren. Eta, hori, ez dut ulertzen nik zergatik. Ulertzen dut garaiak aldatzen ari direla eta jada emakumea pixka bat publiko egiten ari dela, baina, kosta egiten zait, kosta egiten zait zer asmorekin den. Iruditzen zait badagoela alderdi hipokrita bat hor. Orain, zuk esaten baduzu zure ikerketan ez dagoela hipokresiarik mundu honetan edo horrela, niri ideala iruditzen zait.

Hurrengo atala da osasunaren ingurukoa, ea zer osasun ikusten diozun pilotari, eta hor diozu osasuntsu dagoela.

Hori esango nuke orokorrean, bai, ari gara maila-eta igotzen. Niri iruditzen zait komunikazio falta, edo da ni uzten edo urruntzen ari naizela, edo ez dakit nola esan, baina, iruditzen zait lehenago bagenuela kontaktu gehiago. Lehenago, hasi zenean Emakumea Pilotari, izan zela booma, mantentzen ziren jokalaria guztiak batera. Egia da orain hainbeste jokalaria gaudela ez dela posible denak frontoi batean sartzea aste-bukaera batean, baina, hor pasatzen da mailaketa eta azkenean zu zure mailakoekin bakarrik ibiltzen zarela, eta nik nire mailakoekin denboraldi honetan mantendu dut harremana, baina, adibidez, beste mailakoekin ez. Hor bai ikusten dudala falta dela hasieran zegoen harreman hura. Bai. Hala ere, oso osasuntsu. Nik uste osasuntsuena orain egongo dela, momentu honetan.

Gero, hobeto ikusteko zuk esaten duzu lehenago hasi beharko luketela, edo, beno, aukera eduki beharko luketela.

Oraintxe aipatu dut, iguala da. Ez dakit zenbat urte dauzkan beste neska honek, eta hura txikitatik hasi da. Ez dakit gero nik palarekin zenbat urterekin hasten diren. Eskolarretan. Niri frontoian askotan galdetu izan didate, “txikiak zergatik ez dira hasten?” Oso galdera ona, zeren eta hemen Zubietan neska txiki pila bat daude eta ez dakit noiz hasten diren, zenbat urterekin-edo.

Neska txikiak, zenbat urtekoak? 8, 9, 10? 5. mailan has liteke eskolartekoetan.

Ez, txikiagoak.

Bai, klaro, zer, 5 urteko ume bati zer pala eman behar diozu? Egin egin beharko diozu, zeren eta bestela...

Klaro, hori da beste problema. Gero bestea da esaten dugula txikitatik eta horrela eta nik ez dakidala prest gauden, edo dauden klubak halako antolaketa batetarako. Baina, bai iruditzen zaidala inportantea txikitako kontua. Gainera, esaten dut antzematen dela, ez? Nabaritzen da zein hasten den txikitan.

Hurrengo da eragileen ingurukoa: hedabideak, udalak, elkarteak, pilotariak,...

Hor bastante txukun, ez? Bastante argi esaten dela uste dut.

Gero esaten duzu hautaketan hiria/herria eta gurea izatea antzematen dela

Bai, hor besterik gabe.

Eta azken atala da entrenamendu eta lehiaketaren ingurukoa: bikoteen osaketa, egutegiak,...

Ez daukat problemarik hor ere.

Gero, eman dudan ikuspegia, jada, ni orain, ez dut esango uzten, baina, bai, pixka bat distantzia bat badaukat. Egia da niri esaten badidazu bi hilabete jai dauzkadala nik gustura hartuko ditudala. Ez daukat problemarik jai hartzeko, baina, beste gauza bat izango litzateke galdetzea gazte bati egiatan hor dagoena, ez? Hark beste era batetara biziko du. Hark esango du kristoren giroa dagoela. Nik ezin dut esan orain kristoren giroa dagoenik, zeren eta ez naiz egoten, oso noizbehinka eta horrela. Egia da nire ustez giroa jaitsi egin dela.

Normala da, zure ahotik ari zara azken batean. Zuk ezagutzen duzunetik jardun beharko duzu. Nik ere ezingo dut esan Hernanin nola konpontzen zareten. Auskalo, ez dakit. Emango dut ematekotan nire inpresio bat. Baina, beno, azkenean, nik zurea nahi dut. Ez dakit konbentzitu zaitudan.

Nik ez dakit, eh, baina, ni jarri naiz pentsatzen ikerketa honetan. Pilota historikoki ez da izan emakumezkoen joko bat. Lehenago herrian joera handiagoa zegoen denek pilotan jokatzekoa. Orain ez dakit zer egin den, profesionalizatu-edo, ez dakit nola egin den, baina, neurri batean bai izan da pixka bat gizonena eta oraindik ere irudi hori ematen da. Gizona da telebistan ateratzen da. Bastante arraroa da, ez dakit arraroa den hitza, edo zer esana ematen du mundu horretan ibiltzen hasteak.

Emakumearen kontua iruditzen zaizu zuri klabea.

Bai, eta uzteko “mobida” horretan. Hastekoa, ez dakit zergatik hasten zaren, nik uste dut kuriositateagatik dela, baina, uztearena, beno, hori eta larunbatak, asteburuko konpromisoa. Azkenean, beste era bateko konpromisoak daukazunean ezin zara denetara iritsi. Iruditzen zait gizonek beste nolabait eramaten dutela. Adibidez, aitatasuna. Ez dut esango aita guztiak igualak direnik, baina, iruditzen zait gehiago kostako zaiola emakume bati berriro bueltatzea ama izanda aita bati bere kirolean baino. Iruditzen zait. Ez duela zertan hori izan behar, baina, hor emakumeak hartzen dituen paperak iruditzen zait klabeak direla.

Oso ondo. Nik bukatu dut. Zerbait gehiago?

Ez.

Eskerrik asko!

LANDA EGUNEROKOA

1.elkarrizketan

- Urduri zegoen. Beretzat ezohiko egoera zela zioen, bera ez dagoela elkarrizketa bat egitera ohituta.
- Ibonerekin bezperan zer edo zeri buruz hitz eginda zegoen, detaileak ez ahazteko.
- Gustura egon zela esango nuke, batez ere pre- eta post-elkarrizketetan.

Berrikustean

- Erridikulu sentrazioa omen zuen, lotsa, berari eginikoa irakurri ondoren. Esaldiak ez omen ditu bukatzen,...
- 1. elkarrizketan baino lasaiago zegoen, baina, hasieran urduritasun puntu bat nabari zitzaion. Hala ere, hasierako hizketaldiaren ondoren lasaiago zegoen.

Elkarrizketa data: 2011-04-13
Lekua eta ordua: Hernani, 15:00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Itxaro

Adina: 42

Jaioterria: Hernani

Bizilekua: Hernani

Eta, pilotan ibili zinenean zein elkartetan ibili zinen? Hemen, Hernanin ibili zinen?

Bai, ni lehendabizi ibili nintzen hemen Urumea ikastolan, antolatzen zituzten urtero kurtso bukaeran txapelketak eta mutiko eta neska mailan, eta mutikoak eskuz aritzen ziren eta neskak, berriz, ~~pala engantxatzen ziguten~~, palaz ibiltzen ginen eta palan hasi ginen. Hasten ginen 6. mailaz geroztik, 6., 7. eta 8. mailan, eta hor pixka bat afizioa sortu zen eta gero horrek ez zuen jarraipenik, zeren eta behin bukatuta ez zenekien nora joan palan jolastera. Eta, orduan, nola horretan segitu nahi nuen, ikastaroren bat edo beste egin nuen tenisekoa Donostiara eta joanez eta horrela ibili nintzen. Eta, gero, hasi zen arte, egunkarian atera zen arte egun batean konbokatoria bat, Gipuzkoako Federazioak antolatuko zuela, ba, neskek pilotan jokatzeko aukera izan zezaten txapelketaren bat edo horrela antolatzeko asmoan zirela eta “para menores de 18” jartzen zuen, gogoratzen naiz, “Diario Vascon”. 18 eginak nituen nik, baina, deitu nuen federaziora eta, “aizu, urte horiek pasata baldin baditugu?”, eta, “bai, bai, bai”, eta, beno, han izena eman eta zera eta gero han izena eman genuenean eskatu ziguten pixka bat federatzeko eta elkarte batzuetara joateko eta, orduan, bada, beno, Hernaniko elkartearekin kontaktuan jarri ginen eta fitxa han egin genuen aurrenekoz eta ibili ginen arte hantxe ibili ginen.

Ikasketaz zer zara?

Administrari lanak edo egin ditut. “Secretariado de dirección” ikasi nuen Martutenen.

Eta, lanbidez?

Denetik pixka bat. Ez, ba, urte asko egin ditut eraikuntza enpresa batean, 15 urte egin ditut, eta orain proiektu berri honetan nire kabuz kirol denda bat martxan jarri eta ea hori aurrera eramaten dugun.

Urte asko eman ditut eraikuntza enpresa batean, baina, beno, enpresa horretan egon aurretik, eta hori aipatu nahi nuen, zeren eta ez nizun esan, baina, administrazioan lanean aritu nintzen Eusko Jaurlaritzan 2 urte eta erdian eta urte eta erdi pasa nituen Gasteizen, bizitzen-eta. Eta kurioa izan zen, zeren eta han pilotan ia egunero ibiltzen nintzen. Jaurlaritzako langileekin, enteratu ziren “badagoela hor palaz dabilen bat eta zera”, eta aurrenekoa izan zen kristorena. Deitu eta nire pisukide baten Departamentukoak, gainera, Barne Sailekoak. Deitzen didate eta “aizu, begira, Andres naiz, Amandarekin lan egiten dut eta hiru gaude orain jokatzeko eta bat falta zaigu”, eguerdi batean jolasteko. Eta, “bai, bai, baina, ni hemen lanean nago eta nik ez daukat ezer hemen” eta “ez, ez, itxarongo zaitugu, etxera eraman, zuk hartu beharrezko gauzak eta joango gara”. Baina, “nola?”, eta, “bai, bai”. Tipo batekin ez nuela ezertaz ezagutzen, montatu, gainera, Barne Saileko patrolean, txuria eta normala zen, baina,

idatziz jarrita... Etxera eraman ninduten, poltsa hartu nuen, prrrrrrrrr, montatu eta, "hauek nora doaz?" Zer da, eta Arkautera, eta, nik, "ama, hiru tiporekin banoa hemen, ez dakit nora". Horrela erakusten dio tipoak (*plaka erakusteko keinua eginez*) eta, bale, barrura. "Zuk aldagela hori, hauek neskenak dira, guk edificzio honetan". Ah, eta gero frontoira. Hara iritsi, eta, Jesus, Maria eta Jose. Aurrenekoan deitutakoan nik baiezkoa esan, klaro, nik 21 urte nituen, buff, "viva la vida", ez duzula jada pentsatu ere egiten, gustura orduan palaz buru-belarri eta horixe izan zen nire lehenengoa. Hori bai, Arkautera lehendabizikoa eta azkena joan nintzen. Deitu zidaten berriro, bai, bai, baina, Ogetara joaten ginen. Kar, kar, kar. Konturatu ziren, "ah, baina...?" eta, gero, ahoz aho han zabaldu zen eta "ah, bada, bat behar dugula" eta astean hiru bat aldiz eguerditan-eta joaten nintzen. Gainera, joaten nintzen eta gero galdetzen zidaten "zeinekin ibili zara?" eta, "ez dakit, halako eta halako", eta "ése es el jefe de seguridad del parlamento, ése...", eta, nik, "nik zer dakit? Ibili naiz eta listo". Bai, bai, bai, eta han kuriositatea bazen eta beste gizon bat gehiago bezala eta gustura hartzen ninduten, eta, behintzat, falta zuten supleterearen hutsunea betetzen nien ondo edo gaizki eta esaten nuen, beno, pasarte hori ere izan zela bestearen aurretik. Pasarte hura oso polita izan zen eta han askok jakin zuten, gainera, emakumeak bazirela palan. Garai hartan, hizketan ari gara, han izango nintzen 90. urtean. Atera kontuak orain dela zenbat urteko kontuekin ari naizen. Bada, 20 pasatxo. Hori da, horixe nuen hemen pixka bat ordena segituz. Gainontzekoarekin konforme.

Eta, zu gogoratzen zara kirola egiteko zaletasuna edo interes hori noiz sortu zitzaizun?

Txiki-txikitatik. Ni gogoratzen naiz ikastolan beti, eta futbolearen ere, neska bakarra izaten nintzen han beste mutil guztiekin batera ibiltzen nintzen. Gogoratzen naiz, anekdota bat ikastolan, Gabon batzuetan, Gabonen ondoren, bada, andereñoak, "zer, eta zer oparitu dizute?", eta, "bada, niri larruzko baloi bat" eta denak barrezka hasi ziren. Eta nik, "barre egingo duzue baina ez dakizue niri zer ilusio egin zidan barruan baloi hark". Eta, zer izango nituen, bada, 10-11 bat urte edo horrela? Eta, bai, beti izan nuen hori eta gainera inongo, besteak bezala onartzen ninduten, ez neska delako ez duzu jokatu eta, ez, ez, hantxe ibiltzen nintzen ni ere besteekin baloiaren atzetik.

Zer, on xamarra zinelako, ala? Hori esaten da eta.

Ez, ez, baina. Egoskor xamarra nintzen eta orain baita ere.

Eta, pilotaz gain zer kirol egin dituzun? Aurretik egin zenuen beste kirolen bat edo zuzenean hasi zinen?

Ez, pilota egin nuen, gero tenisean ere zerbait probatu genuen eta gero bizikletaz eta mendiz. Mendian federatuta, orain ere federatuta nago, baina, bizikleta ez, nire kabuz. Mountain bike-a hartu, beti mountain bike-ean eh, ni eta beste, bada, Ibonerekin eta hasi horrela bueltak egiten, Landetan hasi eta, gero, beno, buelta batzuk egin izan ditugu. Hasi eta ezin bukatu horietakoak ere bai, eta, beno, bai, ondo neurtu gabekoak, alegia.

Ondo, ondo. Badakizu, mapak eta paperak dena aguantatzen omen dutela eta hori ere igual mapan ez zen hainbestekoa izango.

Ez, baina, orduan ere erlojuaren aurka ibiltzen ginen, “hara joango gara eta hau egingo dugu”, eta, gero taxistari deitu behar igual bueltakoan, “oraindik ere hemen gaudela”, eta, horrela.

Pittin bat pilota munduan sartuta, akordatzen zara zein urtetan hasi zinen? Noiz hasi zinen?

Horrela, federazioarekin? 90ean, 1990ean izan zen konbokatoria hori eta herrialdeko hainbat neska azaldu ginen han eta, egia esan, oso esperientzia ona izan zen, zeren eta, azken finean, lagun berriak ezagutzen zenituen, beste jarduera berri bat, eta...

Zu gogoratzen zara zergatik hasi zinen?

Hori, bada, gustuko zerbait nuelako eta ikusi nuen hemen Hernanin jokatu eta gero aurrerabiderik ez zeukala emakumeak kirol horretan zehazki. Eta, esaten nuen, “jo, eta orain zer egin behar dut?”, eta, horregatik esan dizut, Anoetan gogoratzen naiz, udara guztian teniseko ikastaro bat, tenisean beste bat eta horrela, baina, nik gustukoa badut, zergatik ez palan, ezta? Ikusi nuenean, inongo zalantzarik gabe, segituan deitu nuen, bai, bai.

Eta, erabakian norbaitek eragin zuen zu pilotan hasterakoan? Bada, ez dakit, inguruko bakarren batek, aitak, amak...

Ez, nire kabuz. Egia esan, ez. Osaba bat nuen pilotan, erremontean, ibiltzen zena eta zera eta Galarretara ere asko joaten ginen partiduak ikustera eta horrela, baina, nire kabuz, bai, bai. Bestela, etxean eta famili artean ez zen zera handirik. Beno, gogoratzen naiz, bai, bai, ahaztu egin zait. Eskubaloian ere ibili nintzen txikitan, gaztetan, beno, txikitan, bai, eta nola ikasle nahiko kaxkarra nintzen aitak aukeran esan zidan “edo pilota edo eskubaloia, denak ezin dira” eta pilota erabaki nuen eta hartutako erabakiarekin, egia esan, gustura. Jarraipenik ez zuen izan anuntzioa azaldu zen arte eta behin hori azaldu zenean, bada, aprobetxatu egin nuen.

Eta, etenaldi hori noiztik nora izan zen gogoratzen zara? Eskuz ibili zinen aurretik ala beti ibili zara palaz, umetan ere bai?

Bai, bai, beti palaz. Hernanik daukana da Urumea ikastolan neskak hasten zirela palaz, eta, orduan, bai, eskuz zertxobait bai, baina, txapelketak eta denak palaz, bai. Bada, hor hutsunea egongo zen ikastola bukatu eta hasi bitarte, bada, 6 urte. Orduan, hori irakurtzen duzunean eta harra oraindik hor daukazunean, bada, esaten duzu, “beno”.

Eta, 6 urte horietan zure kabuz edo ibili zinen? Segitzen zenuten?

Bai, segitzen genuen, bai, bai, bai, bai. Bai, bai, lagunekin ibiltzen ginen, Hernanikoa naiz ni, baina, auzo batekoa, Oialumekoa, orduan, 2 kilometrotara dago eta Astigarragatik ia gertuago geratzen zaigu Hernani baino eta, orduan, Astigarragara joaten ginen asteburuetan bizikletak eta palak hartu eta hantxe saioak egitera.

Esan duzu iragarki baten bidez iritsi zitzaizula informazioa.

Bai, bai, nik egunkaria beti irakurtzen nuen, Diario, beti kiroletan eta pilota sailean, eta ikusi nuenean iragarkia gogoratzen naiz oraindik ere non zegoen eta guzti, eta hori irakurri nuenean esan nuen, “jo, deitu behar dut”.

Eta, nola egin zenuen gero lotura hori? Zuzenean federazioan?

Bai, erraztasun guztiak eman zituen, zeren eta nik esan nien ea deialdia nola zen eta, beno, jarri nahi zutela nesken proiektu bat martxan eta orduan horretarako egin zutena zen arduradun bat jarri, Eduardo izena zuena, eta frontoi bat, zela Intxaurrendoko frontoia. Orduan, nahi genuen guztiak hara joan gintezkeen jolastera, entrenatzera eta, bai, bai, astean bitan entrenatzen genuen eta, gero, ia pixka bat txukundu genuenean guk maila, edo ikusi zutenean txapelketaren bat jokatzeko moduan ginela, bada, orduan txapelketa antolatu zuten. Konbokatoria zabaldu zutenean, bada, hasi ziren beste herrietatik ere bikoteak azaltzen eta, beno, eta beti lehendabiziko txapelketa egin zen Gipuzkoa mailan frontoiz frontoi, pilotaleku ezberdinetan.

Oker ez banago pilota utzi zenuen, federatuta egoteari utzi zenion. Noiz utzi zenuen eta zergatik?

Bada, utzi nuen 98an eta bizkarreko lesio batengatik. Hernia diskal batek ez ninduen bakean uzten, saiaturen nintzen kontra egiten, baina, zenbait partidutan eta entrenamendutan arrastaka eta esan nuen “horrela ez dago segitzerik”. Eta, medikutara joan eta, beno, ea nola egingo nuen hori, ez zegoela segitzerik eta, beno, orduan pixka bat horregatik. Gero ni joaten nintzen entrenamenduetara, baina, kristoren monoa sartzen zitzaidan han begira.

Eta, asko kostatzen zitzaidan uzteko erabakia hartzea?

Bai, izugarri, izugarri. Bai, kirolaz aparte giro ona egin zen, lagun talde bat egin genuen eta zen astebururo hor geneukan partidua hemen, bestea han eta kirolaz gain zen, hori, geure artean sortu zen giroa eta giro ona zegoela. Orduan, bada, beno, gustura eta, badakizu, horrelako zer edo zer gertatzen denean zoazela ikusle bezala eta pala kentzen duzunean tentatuta partidua jokatzen zutenean. Bada, hori, pena handia.

Eta, 98an utzi zenuenetik, nolako lotura izan duzu ordutik pilotarekin? Eduki duzu nolabaiteko loturarik? Bai ikusle bezala, entrenatzaile bezala...

Ikusle bezala. Entrenatzaile bezala eta horrela ez, pazientziarik ez dut-eta. Gainera, esaten nuen, “ni nintzen kaxkarrarekin, zer erakutsiko dut bada?” Ni txarretakoa nintzen, eta, irabazi ditudan txapelak onekin irabazi nituen-eta.

Eta, ikusle bezala, segi duzu.

Bai, bai, ikusle bezala eta gero pixka bat egunkari mailan eduki dezakegun informazioarekin eta horrela.

Beno, eta orain ia material saltzaile bezala, edo, nola deitzen zaio ofizialki?

Gauza izan zen, esan dizudan bezala, 15 urteren ondoren pentsatu nuen urte asko zirela eta aldaketa bat behar zela eta pixka bat buruari bueltak emanez erabaki nuen zergatik

ez pilota munduko zerbait martxan jartzea, ez? Nolabait ere, garai hartan ibili nintzenean, badakit gabezia batzuk bazirela material aldetik eta orduan, bada, beno, esan nuen, “zergatik ez? Bada, horrelako zerbait martxan jarriko dugu”. Eta, denda online jarri zen lehengo urriaz geroztik martxan, orain euskarri fisikoa eman zaio eta, beno, ea, behintzat jendeak eduki dezala materiala ezagutzeko eta emakumeak eta emakumeentzako, zeren eta ematen du gizonetzako kirola bakarrik dela. Deitzaerakoan, “Pelotadenda” eta, “emakumea da” eta iruditzen zaie arraro xamarra bezala, baina, zergatik ez? Gero ohitzen dira, baina, beno.

Eduki dituzu horrelako erreakzioak.

Bai, esanaz bezala, “honek zer jakingo du? Emakumea da” eta, gero, “ah, baina zuk jokatu al duzu?” eta orduan konturatzen dira emakumeek jokatu izan dutela eta eurak ez dakitela.

Eta, zuk gogoratzen duzu zer iritzi zuten ingurukoek (aitak, amak, lagunek...) zu pilotan aritzearen inguruan hasi zinenean?

Gustura ikusten ninduten, eta ondo, bai, bai, positibo bezala. Ondo, eta, gainera, ikusten duzunean pertsona bat gustura eta disfrutatzen ari dela, bai, bai.

Eta, eragiten zuten? Beraiek esaten zizuten “ez joan edo joan”.

Ez, ez, niri behintzat, pertsonalki inongo momentutan ere ez. Bai, bai, eta, gainera, kontuan izan behar duzu, gu horretan hasi ginenean, zuk zure lana daukazula, ekonomikoki ez daukazu inongo zerarik, zure kotxea daukazu hara eta hona partiduetara joateko asteburuetan, orduan, ez daukazula. 14-15 urterekin izanez gero orduan igual diferentea litzateke, ez, baina, ni ia ordurako emantzipatuta nengoenez, bada, gurasoek ere garai hartan, bada, ez zuten oztoporik jartzen.

Eta, nabaritzen zenuen gizartearen presioa edo bestelako jendearen presiorik zuk pilotan aritzeagatik eta emakumea izateagatik?

Ez, ez. Igual sentsazioa momenturen batean edo horrela, txapelketaren batean, zeren eta Gipuzkoakoa lehendabizi eta gero hasi ginen torneo pribatuetan parte hartzen eta, batzuetan, Oiartzungo frontoian jokatzen genuen, Madalensoron, lehendabizikoetako eta hor jokatzen zuten paleta larruz, paleta gomaz gizonak eta gero emakumeok paletaz. Joe, han, igual momenturen batean sentsazioa bai “como atracción femenina”, igual batik bat, niregatik ez, eh, baina, igual beste batzuegatik horrela, ez dakit. “Ay, mira éstas qué monas y jugando aquí”, baina, beno, egunen batean bai sentsazio hori, baina, bestela, orokorrean, ez. Gero, herri txikietan eta harrera ona izan da.

Eta, jokatzeko momentuaz aparte, jendeak jakiten zuenean bazenbiltzala, nolako tratua jasotzen zenuen?

Bai, normal, ez zen izaten inolako preferentziarik eta ezta kontrakorik ere. Normal.

Eta, zuk, nola uste duzu ikusten dela emakumeen pilota, gaur egun, jendearen artean?

Joe, gaur egun orain 15 urte baino askoz ere hobeto, dudarik gabe. Orain daudenek izugarrizko suertea daukate. Bai, bai, zeren eta nik uste dut gure panoramatik hona, behintzat, erraztasun guztiak dauzkatela, ya proiektuak martxan, teknikariak zaudete horretarako, gurean pertsona bat jarri zuten arduradun bezala eta hark ahal zuena egiten zuen, guk erdietan kasu handirik ez genion egiten eta horrelaxe ibiltzen ginen. Nik uste dut gaurko egunean aukera pila bat dauzkatela eta hor lana aurreratuta dagoela, eta aurrera egin duela. Igual aurrera gehixeago egin zezakeela denbora horretan, bada, igual bai, baliteke, baina, beno, beti ere faktore askok hartzen dute parte hor, ez? Nola zabaltzen den, presupuestoak, gauza asko, gauza asko. Baina, beno, nik uste gaur egunean nahi duenak aukera guztiak dauzkala.

Eta, aparte jendearen erreakzio hori jakinda emakumeak pilotan dabiltzala? Hor nolakoa ikusten duzu?

Nik uste ya zerbait normalizatua bezala ikusten dela, ez dela orain 15 urte bezala, “joe, zein ote dira hauek?”. Ez, ya zerbait normalizatua bezala, bada, futboleko ikus ditzaketen bezala palaz ere ikusten dituzte eta atletismoan edo eskubaloian edo beste jardueretan bezala. Bai, bai, erabat normalizatua bezala.

Harremanekin sartzeko, zuk mantentzen duzu harremanik pilotan ibili zinen garai hartako beste pilotariekin? Ondo moldatzen zarete?

Bai, bai, bai. Oso ondo. Bai, zeren eta oso harreman estua egin genuen eta mantentzen dugu. Batzuekin, gainera, orain gutxira arte behintzat jokatzeko ere bai, bai, bai, frontenisera pasa gara, errazago iristen garela pilotetara eta bizkarrak gutxiago sufritzen duela eta frontenisean, Aiorarekin-eta, astero jokatzeko genuen otsailera arte, astean behin geratzen ginen eta ordu eta erdiko saio bat egiten genuen, behintzat, bai, bai. Orain, momentuz, Loiolan ibiltzen ginen, nola frontoia obretan den eta ni orain lanarekin, bada, aitzakia bada.

Eta, lagunekin, harreman ona bai palan tarteka ibiltzeko eta bai urtean hiru-lau aldiz geratzen gara, sagardotegiren bat fijo eta gero bazkari-afariren bat. Orain 15 egun bildu gara bederatzi lagun, elkarrekin jokatuakoak, eta, bai. Ilusioa egiten du orain 90ean hasitako batzuekin harremana mantentzeak. Bai, bai, oso gustura. Izan zen kirolaz gain lagunarteko giroa sortu zela, zeren eta hor ikusi zen neska asko zeudela eta denak, igual, herri txikietatik eta zera, eta gustuko zuten jarduerara aurkitu zutela eta lagun giroan, bai, hori da, dudarik gabe.

Eta, zu gogoratzen zara hasi zinetenean, 90ean, ia urruti xamar dagoela ematen du, zer helbururekin hasi zineten, edo, zuk zer espektatiba zenezkan palan hasi zinetenean? Nora iritsi nahi zenuen?

Horretan ez nintzen, helbururik-eta ez nuen, helburua zen jokatu ahalik eta ondoen eta ahal bazen irabazi. Baina, ez ez dakit zertara iristea, ez, ez, jokatu eta irabaztea ahal bazen. Partiduak irabaztea.

Goragoko helbururik gabe?

Ez, besterik gabe. Lehendabiziko helburua gozatzea eta disfrutatzea, dudarik gabe, eta posible bazen irabaztea, bada, dudarik gabe, onena, ez? Baina, ez nuen izan horrelako

helbururik, gazte batek izan dezakeenik gazte hasiz gero, bada, 22-azpiko batean Uruguayra edo Mexikora joatea, ez dakit. Ez, orduan ez genuen horrelakorik eta nahiko genuen jokatu eta disfrutatzearekin. Baina, beno, ez nintzen kabreatzen nintzen horietakoa. Igual, partiduan zehar, nire buruarekin asko haserretzen nintzen, bai, lagunekin oso ondo moldatzen nintzen, baina, nire buruarekin asko haserretzen nintzen, baina, behin aldageletan dutxa on baten ondoren ahaztu egiten zitzaizkidan, bai.

Eta, esan duzu emakumeen pilotari osasun hobea ikusten diozula duela 15 urte baino eta esan duzu hobetzea, igual, posible zela. Okurritzen zaizu hobetzeko moduren bat edo? Esan duzu igual denbora epe horretan hobetu zitekeela.

Bai, bada, igual, pixka bat sustatzearen pilota lantzea eskola kirolean haurrek gaurko egunean. Beti lantzen dira beste kirol batzuk, eskubaloia, errugbia, futbola hemen behintzat, baina, eskola kirola nesketan ez dakit badaukaten aukerarik. Hernanin badago, baina, beste zentroetan pixka bat zabaltzearen, bada, zuk, behintzat, eskaintzen baldin baduzu ikusi ea nolabaiteko erantzuna dagoen eta, behintzat, eskaintza egiten baldin baduzu gero ikusi. Noski, egia da hemen eta han eskaini dugu eta ez da inor azaldu, bada, a zer zera, ez? Baina, beno, ikusten duzuen lekuetan eta sustatzen joanez gero bada, ea, ea. Hasiko nintzateke eskola mailan, txikien mailan, zeren eta nik uste txikitatik hasi beharreko lana dela. Bai, zeren eta gauza bat da gero urteetan pasata eta zera eta beste era batera ikusten dituzu gauzak, baina, nik uste hor lana egin beharra dagoela txikitatik, gaztetatik, bai. Hor sartu, probatu ditzatela jarduera guztiak eta gero beraiek aukera dezatela zein kirol joeratara joan nahiko luketen.

Eta, zergatik uste duzu hor hasten den batek aukeratzen duela pilotan hastea eta ez, nik zer dakit, futboleant edo.

Izugarritzko meritua du gaur egunean, eh, futbola aukeratu beharrean. Nik uste afizioa dela, hemengo kirol bat, eta gero, hemen, azken urteotan ere telebistaren eragina handia da. Orduan, horrek haurrei batik bat eragin handia sortzen die. Bai, bai, bai, mutiletan esan nahi dut. Eta, nesken kasuan, bada, pilota gustatzen zaielako, eta nola beraien erreminta pala den, bada, palan hasi behar dutelako. Zeren eta eskuz hasten direnek ere, lehengoan etorri zitzaizkidan hemen batzuk Zizurkildik eta esan zidaten “jo, bada badago neska bat Zizurkilen mutilek baino hobeto jokatzen duena, maila oso onarekin”, eta, hango elkartekoak etorri zitzaizkidan eta esan nien, eta, “lau badauzkagu, baina, laster mailaz pasako dira eta hor erabaki behar dute pala edo uztea”. Orduan, bada, beno, pilotarako afizioa baldin baduzu eta neska baldin bazara erreminta badakizu zein den.

Eta, zergatik uste duzu ez dutela aukeratzen? Zergatik aukeratzen dute futbola pilota baino errazago? Okurritzen zaizu arrazoiren bat?

Lehendabizi, nik uste dut pilota deporte indibidualagoa dela, beno, hemen kasu honetan banaka ez, neskek bikoteka jokatu behar dute eta futboleant ya kolektiboan sartzen zara. Orduan, jende gehiagoren artean, saltsa, bada, partidua duzula eta autobusa hartu eta elkarrekin hara eramaten zaituela eta beste zera bat. Eta, gero, bada, berdin, telebista bezala eta gero medio guztietan ere futbola, futbola, futbola, besterik ez daukagu.

Eta, zergatik uste duzu utzi litekeela pilota? Behin hasi ondoren. Bai neskek, bai helduagoek.

Beno, hor pentsatzen dut bakoitzak bere arrazoiak izango dituela. Nire kasuan lesio bat izan zen bezala, beste batzuen kasuan “nik hau probatu dut, beste helburu batzuk nituen, ea profesional mailara pasatzen naizen”, neskek horretan jai daukagu gaur egun eta nik uste oraindik urte askotarako lana egin beharra dagoela eta, orduan, “nola ikusten dudan ez dagoela aurrerabiderik eta ez didanez konpentsatzen, bada, utzi egingo dut”. Uste dut arrazoi pertsonalak, bakoitzak berea izango duela, baina, pixka bat hortik doazela.

Eta, nola uste duzu bultzatu beharko liratekeela neskak-emakumeak, berdin zait, jardun nahi duen hori, pilota mundura? Aukera izan dezan jarduteko. Emakume baten kasuan eskolartekotik hastea zailagoa izango da ia.

Bai, kasu horretan bai. Gero, daudenak, bada, hemen eta beste herri askotan, Emakumea Pilotari proiektua dagoen bezala, ez? Bada, igual, emakume askok kiroldegi batean aukera daukan bezala aerobikera joateko, edo pilatesera, edo spinning-era, bada, zergatik ez ~~diote jartzen pilota?~~ pilotan aritzeko ikastaroak eskaini? Aukera bat eman dezatela eta lehen esaten nuena bezala, probatu, beste jarduerak jartzen diren bezala, eta gero ikusiko dugu. Orain dela eta urte batzuk izango zen igual aerobika, orain pilatesa egongo da modagoan eta spinning-a eta ez dakizu. Baina, martxan jarri arte gauzak, orain urte asko ez zenuen entzuten emakumeek spinning egiten zutenik askok eta orain lagun asko ditut spinning egiten dutenak. Eta, beste horrelako alternatiba bat martxan jartzen baduzu, bada, kiroldegiak ere ikastaro bezala eman ditzakeela era horretako zerak eta ikastaro horrek berak ere igual ekar dezala gero txapelketa moduan edo zerbait antolatzeko. Baina, ya, kiroldegi mailan edo patronatu mailan edo dena delakoa. Eta, pixka bat ya eskolartekotik pasa diren horiei nolabaiteko aukera emateko. Zeren eta hor ya nik ez dut uste denik gazte bati bezala erakusteko, progresatzeko, eta igual pixka bat lehiaketa mailan ibiltzeko bezala, baizik eta bestea da afizio edo hobby bezala egiteko. Orduan, bada, aerobikean asteen bitan ibili beharrean palaz aritzea asteen bitan, ni nire kiroldegian.

Eragile askok, agente askok, eragiten dute hautaketa prozesu horretan. Orduan, lehen pixka bat aipatu duzu, baina, zer iritzi daukazu zuk hedabideek nesken pilotarekiko daukaten jarreraz edo predisposizioaz? Laguntzen duten edo nola edo zer iruditzen zaizun.

Egia esan, hedabideak ez dira gehiegi molestatzen. Uste dut normalean atea jo behar izaten zaiela zerbaiten berri eman ahal izateko eta, beno, gero badaude pertsona batzuk, bada, lanean ari direnak. Hor dago Carmen bat, bere lana, bere kronikak, gero Blog Manista horretan, bada, beno, pixka bat behintzat neskei buruz hitz egiten da. Ibonek ere badauka bere bloga eta neskei buruz zerbait jartzen da, baina, ez baldin bazara mundu horretakoa, gainontzekoei, eman behar diezu notizia mastekatuta eta ea zer esaten duten. “Oye, una, a ver, una nota de última hora, hemen lekua daukagula eta horixe sartuko dugu”. Eta hori tartea baldin badago eta ez baldin badago tarterik gabe geratzen zara, hurrengorako.

Orduan, eskasa iruditzen zaizu, ala?

Bai, bai.

Gero, aparte, beno, lehen patronatua edo aipatu duzu. Udalek edo daukaten jarreraz, erakundeez, Diputazioak eduki dezakeenaz, pilota federazioek. Zuk zer iritzi daukazu beraiez kanpotik ikusita?

Zaila da jakitea, zeren eta udal bakoitzak bere politika du eta, orduan, ezin dizut esan. Zeren eta hemen, gehienbat, udalak baino gehiago, kirol patronatuak funtzionatzen du, eta nik uste hemen Hernani mailan lan polita eta txukuna egiten ari direla. Eta argi dago zenbat fitxa egon daitezkeen Hernanin, zenbat ume ikastaroetan, mutiko mailan ere badakit, zeren eta ilobak hor tartean dabilta, eta ya kupoak erabat beteta eta gainezka dabilzala, ezin haurrak sartu. Orduan, bada, beno, horrek esan nahi du afizioa badagoela, lana egiten ari dela eta oraindik jendearen predisposizioa ere horretarako dagoela. Baina, igual, infraestruturaz handitu edo zeratu, ez? Hori ia konplikatu da.

Eta, pilota elkarteez, adibidez? Zer jarrera daukaten?

Nik uste ona daukatela eta lanean oso ondo ari direla, baina, esaten dizudana, beteta, gainezka.

Eta, pilotariak beraiek izan dezaketan jarrera? Ezagutzen duzu edo aditu duzuna edo iruditzen zaizuna?

Nik uste jarrera ona daukala jendeak, orokorrean, zeren eta gustuko kirol batean ari zarenean eta zera, zer gutxiago? Jarrera kaxkarrarekin, bestela, leku gutxitan.

Eta bestea da ikusleen jarrera ea zer iruditzen zaizun, ikusle gutxi horiena.

Bakanak gara, eta... Nik uste, ona. Pixkanaka ikusten da igual gehixeago, baina, beti, azken finean, frontoian dabilta lagunartekoak, familiarak edo horrela, edo noizbehinka despistaturen bat, “ui, emakumeak daudela hemen” eta nobedade bezala eta zera. Baina, beno, azkenean, futbola bezalako kirol batean ere ikusten da igual. Askotan, joaten zara hemen Zubipera eta daude familia artekoak, lagunak eta, orduan. Eta, han 22 ari dira futboleak eta frontoian 4 ari dira. Orduan, bada, beno, normala da proportzioan joatea.

Kulturak zer eragin izan ote dezakeen aztertzer pasaz, zuri iruditzen zaizu, pilotaren kasuan, herri batean jaio, adibidez, Hernanin jaio edo Urnietan jaio edo Azpeitian jaio, horrek eragin dezakeela zuk pilota jokatzeko?

Dudarik gabe. Izugarri. Bai, bai. Zeren eta zu Hernanin jaio, Hernanin baldin bazabiltza ikastetxean eta Hernanin bizi zarela aukera daukazu entrenamenduak, zure monitorea izatea, dena, dena. Eta, Gipuzkoako edozein herrixkatan suertatzen bazara, bada, seguraski, han mutilekin eskuz ibiliko zara eta koxkortzen zarenean ea zein etortzen zaizun edo zeinek esaten dizun nora joan edo zer. Oraindik ere, pentsatzen dut zuek ikusiko duzuela, baina, herri batzuetan zailagoa egiten zaie, bakarrik daude, igual klub batean sartu eta federatzeko zailagoa egiten zaie. Nik uste suertea dela horrelako herri batean, ia infraestruturaz edo ya montatua izatea eta hor bertan sartzea. Dudarik gabe.

Lehen esan duzu momentu batean “gure kirola” dela. Iruditzen zaizu “gure kirola” izate horrek, edo tradizionala izate horrek, pilota Euskal Herriko kirol bezala kontsideratua, horrek eragin dezakeela pilota aukeratzeko kasuan? Hau da, nik ez dut

aukeratuko futbola, edo ez dut aukeratuko cricketa, berdin zait zein kirol, zeren eta badauka halako kutsu bat. Iruditzen zaizu izan dezakeela eragina?

Beno, pittin bat beharbada bai, baina, nik uste dut denborarekin orduan eta gutxiago. Zeren eta jada, medioekin eta telebista tarteko eta zera, baina, bai, kutsu hori beti izango du. Ez dakit. Seguraski pilotaleku batean dauden zaleen portzentaia handiena euskalduna da, bai izatez eta ahoz eta dena, euskalduna dela, eta, futbol zelai batean dagoena, bada, ikusi egin beharko litzateke igual portzentaia. Horrekin ez dut esan nahi hobea denik bat edo okerragoa denik bestea, baizik eta euskal kutsu hori nabarmena dela pilotaleku batean. Seguraski pilotaleku batean zerbait euskaraz esan eta denek ulertuko dizute, eta, futbol zelai batean batek baino gehiagok ziurrenik ezetz. Hori testatzeko onena proba egitea.

Eta, ikasketa mailak edo ezagutza mailak uste duzu eragin dezakeela?

Ez dut uste, nik ez dut uste hori ikasketekin bat doan zerbait denik. Igual beste kirol batzuk izan daitezkeen bezala, igual, asoziatzen direnak, bada automobilismoa ez dakit zertara edo tenisa edo golfa edo horrelakoak, baina, behin halako zeretari sartuta, futbolekin edo horrela, begira Messi bat nondik atera zen eta zer den. Ez dut uste horrek eraginik izan dezakeenik. Beno, gero, pixka bat pilotari mutikoa hartuaz, esate baterako, bada, ona baldin bazara, baliabideak baldin badituzu eta hor zure prestatzaile bat izatera iristen bazara, pertsonala, eta hau, bada, orduan agian zerbait lagunduko dizu, baina, ez dut uste orain horrelako kasu asko egongo direnik.

Entrenamendu edo txapelketa mundura pasaz, lehenengo, nola antolatzen zenituzten zuek hasiera hartan txapelketak? Bikoteak nola egiten zenituzten?

Jesus! Bada, lehendabizikoa egin zenak, nolabait federazioan aurkeztu ginen han eta beraiek harremanetan jarri ziren elkarteko arduradunekin, eta egin zutena zen beraiek antolatu bikoteak. Orduan ziren Aiatik, gogoratzen naiz, Eba eta Oskia, Goizuetatik bi Olaizola ahizpak, orduan herriz herri horrela ginen. Hernanitik ginen Marta eta ni, Altzotik ere Monika eta Murua. Orduan, horrela. Orduan, bada, partidua ziren, bada, “zeinen kontra? Eta, bada, Alzokoekin kontra”. Hori lehenengo-lehenengo txapelketan. Ni gogoratzen naiz, lehenengo txapelketa, gainera, jokatu genuen Martak eta nik Intxaurren Alzokoekin kontra, Monikaren eta horien kontra. Horrela egin zuten lehendabizikoa eta gero izan zen horren ardatz edo, Manuel Andueza zen orduan Gipuzkoako Federazioko arduraduna eta lehendakari eta hark jarri zuen proiektu hori martxan. Dena jarri zuen Eduardoren eskuetan eta hau arduratu zen pixka bat, bada, gu pixka bat moldatzeaz, ez zuen lan erraza, eta gero ia denak ezagutu zituenean eta hori, bera hasi zen bikoteak orekatzeko eta hau honekin osatuz eta horrela antolatuz, orekatzeko asmo horretan edo horrela. Bai. Hala ere, lehenengo urtean, seguraski, txapelketa gehientsuenetan bikote horiek mantendu ziren. Urtebeterako horrela egin zen eta gero pixka bat oreka bat lortzarren.

Gipuzkoako Federazio mailan emakumeen atalaz arduratuko zen norbaiten bila zebiltzala etorri zitzaizkidan eta ardura hori hartu nuen bi urte eta erdiz. Lehenengo zuzendaritzako emakume bezala. Orduan, txapelketa ofizialetako bikoteen antolakuntza eta ardura horiek, bada, beno, gure esku egon ziren denbora horretan. Pixka bat saiatu ginen oreka bilatzen bikoteen artean. Batzorde moduko bat egiten zen eta entrenatzailea eta biok biltzen ginen. Gero planteatzen genituen pilotarien artean. Gehienbat azken

finean zen bileretara joan eta pixka bat antolatzea, ea oreka lortzen dugun eta helburu horrekin. Gero, hortik kanpo planteatzen genituen, begira, txapelketa hau horrela egingo da eta bikoteak hauek izango dira eta beti izaten ziren ika-mikak, hau zergatik, bestea ez dakit zer, eta badakigu ez zela erraza. Azkenean, horrek pixka bat erretzen du, ikusiz Gasteiztik propio arratsaldeetan hona etorri bilera izateko eta gero ikusten zen nola zuk zure aldetik eginahal guztiak egiten zenituela eta ez zegoela zera handirik. Baina, beno, gogoarekin eta horrela, baina, gogorra zen, zeren eta azkenean ez dituzu gauzak egiten eskertzeagatik, baizik eta gauzak egiten dituzu ondo funtziona dezaten, zeren eta ikusten duzu hutsune bat badagoela eta ea zein dagoen prest gauzak utzi eta horretara dedikatzeke”. Ez da hemen aipamena egiteagatik ni izan nintzela lehenengoa, ez, ez, baizik eta niri planteatu zidaten, nik baietz esan nuen eta esan nuen, Jesus, Maria eta Jose. Ferminnek ere esan zidan, “zuk ba al dakizu non sartu zaren?” Bai, otsoaren ahoan zuzen-zuzenean, baina, beno. Kar, kar, kar. Gerora jakiten dira horiek, baina, behintzat, zerbait egin genuen eta saiatu ginen, eta, beno. Eta, gero, gogoratzen naiz, askok esaten didate, orain direktiba eta ezer ere gabe, eh, “joe”. Ea materiala eta zera nola atera eta txandal batzuk lortu genituen, lortu diren txandal bakarrak, osabak dantzalekua dauka eta esan nion “horrela eta horrela gabiltza eta txandal batzuk atera behar ditugu. Zer, egingo al dugu?” eta, “beno, bale bada”, eta, oraindik bakarren batzuk, orain gutxi esan didate, bazkaria eduki genuen, Begoñak, zarauztarrak, oraindik ere badarabilkiela sudadera, mantentzen duela. Ahal zena pixka bat mugitu eta zerbait lortzeko aukera baldin bazegoen, bada, alde horretatik, ez? Ikusten zenean gauzak egin beharra zegoela, bada, saiatur. Gero jada ikusi nuen eta esan nuen “hau gehitxo da niretzako, erreleboa har dezala beste norbaitek” eta orain Anparo joan den arte beste 18 urtean ez da sartu inor direktiban. Orduan, animatu, behintzat, emakume kutsua izan dezan. Gainera, ikusita mundu hau nola den hain itxia... Bai, bai.

Gasteiztik hona ere etorri egin behar da, eh.

Bai, bai, bai eta orduan ez zen oraingo bidea. Etxegarate zahar hura, bai, bai. Gero jada Diputazioan aritu nintzen eta gero jada hemen eta zera, baina, hasierakoa ni han nintzenean.

Interesgarria. Nik uste jende askok ez dakiela hori.

Bai, Anparoderekin juntatu nintzen, kasualitatez, elkar ezagutu genuen Berria txapelketako aurkezpenean, eta orain, berriro, berak esan zidan Ferminnek deitu ziola enteratu zela esanez “begira, bigarren emakumea zara eta epe berdinean utzi duzue”. Nik uste dut gauza berdinarengatik, esanaz bezala “hemen emakumearentzat mundu gogorra da hau, pilota mundua direktiba eta horrelako saltsetan sartzeko”. Eta, orduan, honek esan zidan “ez nekien, uste nuen nik ni nintzela lehendabizikoa”. Orduan, bada, beno, nahiko desaperzibitua pasa nintzen.

Eta, txapelketak? Zer txapelketa jokatzen zenituzten?

Gipuzkoakoa beti, paleta gomaz frontoian. Bigarren urtean jada trinketeen ere antolatu zuten. Hortaz aparte jokatzen nuen, beti, fijo, izaten zen pribatua Madalensoron, Oiartzunen. Hori jokatzen genuen, normalean, luzea izaten zen, irailen hasi eta martxora arte edo horrela. Larunbat arratsalde gehientsuetan izaten zen han lehia, bikote asko ginelako eta buelta asko ematen genituelako, denetik izaten zen han. Baina, gero, giro polita izaten zen frontoi hartan eta gustura ibiltzen ginen. Izaten zen hura,

Oiartzungoa, federaziokoaz aparte eta gero Altzan ere bai, San Martzialetan finalak jokatzen genituen, eta Hernanin ere egin genituen. Orduan arduraduna beste bat zen, ez zen Martin. Lesakan ere bai, Lesakan ere ibiltzen ginen, oso giro politarekin, gainera, han ere. Finalak herriko festetarako, San Ferminetarako jokatzeo asmotan eta batik-bat horiek ziren, garrantzitsuenak. Oiartzun, Altza, Hernani eta Lesaka.

Hor bat ahaztu zait eta oso inportantea zen: Intxaurrendokoa. Hor hasi ginen, azken finean, entrenamenduak-eta denak Intxaurrendoko frontoian egiten genituen, trenbide ondoko horretan, uste dut orain obretan edo desagertzeaz dagoela Carmenek esan zidanez, eta oso txapelketa txukuna eta serioa izaten zen.

Eta, denboraldi oso bat osatzen zenuten?

Bai, urtea botatzen genuen, bai, bai. Irailean hasten ginen Oiartzun eta Gipuzkoako Txapelketarekin eta uztailan bukatzen, udarako, Lesakakoarekin, bai.

Eta, esan duzu bikoteak orekatzen zenituztela bigarren urtetik aurrera.

Bai, orain, gainera, gogoratzen naiz urte batzuetan, deitzen ziguten eta ibili ginen Nafarroako herrixka batzuetara joanda erakustaldi partiduak jokatzen eta horrela. Bai, baditugu anekdotak, bai, Ebarekin-eta. Jesus, Legaria ez dakit non zela eta erdi galduta bidean eta iritsi, eta... Bai, oso pozik. Han, Altzon ere jokatu izan dugu festetan eta horrela deitzen ziguten eta txapela pasa eta txapelean jasotakoa ematen ziguten eta gu gustura eta haiek ere bai. Gainera, orduan, festetan jende asko eta arrakasta eta sorpresa sortzen genuen joaten ginen lekuetan egia esan.

Eta, orduan partiduak jokatzen zenituzten normal, betiko sisteman? 30era, galduz gero etxera, ligaxka.

Bai, bai.

Eta, zer jokatzen zenuten elkartearen izenean edo zuen izenean?

Segun nola izaten zen, baina, normalean, noizbehinka egunkarian azaltzen baldin bazen abizenekin azaltzen ginen. Bai, bai.

Eta, ez ziren elkarteak kexatzen ez zinetelako beraien izenean ari?

Ez, ez, ez, zeren eta, agian, ari zinen Oiartzunen eta ez zinen Hernaniren izenean ari. Igual ari nintzen ni Ebarekin, Aiako batekin, eta, zeinen izenean ari ginen? Bada, Ebak edukiko zuen orduan fitxa Oriorekin eta nik Hernanirekin eta gure izenean eta listo. Erreterian ere jokatu izan ditugu txapelketak eta oso giro onarekin han ere. Bai, bai. Nire txapelik gogokoena hangoa baitut, eta... Bai, oroitzapen polita daukat. Bai, Elenarekin, oraindik ere zuen tartean dabil, Elenarekin 30 eta 29, bai, larri ginen, baina, ederki kostata.

Eta, gogoratzen duzu entrenamenduak nola antolatzen zenituzten? Esan duzu hasieran Intxaurrendon elkartzen zinetela.

Bai. Eduardo honekin egoten ginen eta, izaten zen, ariketa fisiko bakan batzuk egiten genituen, zeren eta segituan aspertzen ginen, jartzen gintuen, baina, segituan aspertzen ginen gu eta guk pala eta pilota nahi genituen. Pilota astintzeko gogoarekin joaten ginen. Orduan, egunen batean, haserretzen zenean, edukitzen gintuen ordu guztian lan fisikoa eginarazten, baina, oso gutxitan. Gehienetan jokatzera izaten zen, astean bitan eta bi ordu izaten genituen eta zortzi lagun edo biltzen ginen, astelehen eta asteazkenetan, bai. Eta, gero, bada, ahal zuenak bere erara eta bere frontoian edo bere etxe inguruan.

Eta, zuri zer iruditzen zaizkizu txapelketak antolatzeko modu hori eta entrenamenduak antolatzeko modu hori?

Beno, nahiko ondo. Hark lan egiten zuen ahalik eta ondoen. Nik uste hobetu litekeela, eta, orain, jada teknikariek eta gaitasun gehiago dutenez eta horretarako prestatuta daudenez, bada, lana hobeto egingo dutela. Oso garrantzitsua da, oso.

Eta, lehen esan duzu gabezia batzuk bazeudela. Jokorako materiala gogoratzen zara nolakoa zen? Zer iruditzen zitzaizun erabiltzen zenuten materiala?

Besterik ez genuen eta gustura geneukanarekin, ez orain bezala, 500 eta 10 gramoren bueltan hor ibiltzen gara palarekin bueltaka. Ez, orduan, geneukana zen, pala bakarria izaten genuen eta aitak edo familiako bakarren batek kirtena zure gustura egokitzen baldin bazuen eta horrelako konponketaren bat eginda, gustura. Baina, beno, ez zen gaur egungo aukerarik. Eta, beno, zorionez orain aukera badago. Orain, behintzat, etortzen zaizu norbait eta, “ea, honentzako pala bat?”, eta, ikusten duzu eta gomendatzen diozu eta, behintzat, aukera izan dezala. Benetan, ikusten da guraso asko etortzen zaizkizula interesarekin, “ea, alabarentzako nahi dut. Zer gomendatzen didazu?”, eta aholkuak, gainera, gustura jasotzen dituztela. Horrek pozten nau. Gainera, igual haurrak, “ez”, baina, “horrek esan du eta horrek jakingo du”, eta, beno, behintzat, ondo edo gaizki, ustez behintzat laguntzeko asmotan eta gustura hartzen dutela.

Eta, zure lehiaketa ideala, entrenamendu ideala eta material ideala nolakoa izango litzateke? Ideala, edo, beno.

Hori oso erlatiboa da. Ideala eta gauzak ondo egiteko bere parte fisikoa, bada, bere estiramenduekin, bere prozesu guztiekin, teknifikazioarekin, eta, gero, bada, entrenamendu bukaeran “partidilloa”. Hori da iruditzen zaidana niri beharko litzatekeena. Ni ez naiz aditua horretan eta, baina, ni joaten nintzenean nik nahi nuena zen aurreneko tantotik jada ematen hastea.

Eta, noiz uste duzu hasi beharko liratekeela neskak pilotan? Hasi nahi duenak zein adinetan hasi beharko lukeela, edo, nola hasi beharko lukeela, eskuz, palaz?

Hori, nahi duena. Niri pena ematen didana da neska askok, eskuz gustura ibili direnak, bada, erremintara pasa behar izana, ez dagoelako horrekin aurrerapenak eta, gero, bada, neskaren eskuak, fisionomia-eta kontuan harturik, bada, mugatuago gaudelako alde horretatik, ezta? Baina, beno, adina, beraiek nahi dutenean, beraiek ikusten dutenean gogoko dutela. Nik ez dudana behartuko da ume bat 3 urterekin, pala arrastaka eta ezin duela kalean barrena.

Eta, 10ekin bai?

Bai, dudarik gabe, eta gutxiagorekin ere bai. Bai, bai, hor koxkorragoak ere etortzen dira gustura asko.

Eta, eskuz edo palaz?

Haurrak egin behar duena da jolastu, eta nahi baldin badu pala eta pilota batekin, bada, horrela. Haur bat, oso kurioa izan da, lehendabizi etorri zitzaidan pala erostera eta pala eta pilota “mollepelle” horietako batekin joan zen. Zer izango ditu hark, 9 bat urte edo horrela? Handik 15 egunera eskuz probatu behar zuela eta eskuko pilota baten bila etorri zen. Beno, kuriositatea eta zaletasuna badu neskak eta, zergatik ez aukera hori eman? Biak probatuko ditu hartara, begira.

Zein bide izan liteke egokia, hori ere nahiko utopikoa izango da, ideala, 8-9 urterekin hasten den neska batek nahi duenera arte eta nahi duen bitartean jarraitzeko aukera izan dezan. Alegia, 8rekin hasten den horrek 27rekin ere segi dezan nahi baldin badu. Bururatzen zaizu ez uzteko bide bat?

Nik uste gaur egun hori posible dela. Gure garaian ez, zeren eta gu berandu hasi ginen, baina, gaur egun edozein gaztek, herri honetan, eh, ni herri honetan zentratuta nago, hemen aukera daukala. Beste herri txikietan eta, seguraski konplikatuxeagoa daukala. Beranduxeago igual hasiko litzateke, baina, gogo baldin badauka, federazioak segitzen baldin badu proiektu honekin aurrera eta zabalkuntza somatzen baldin bada, 27 edo 37. Bai, bai, bai. Gu Lesakan ibiltzen ginenean baziren hor Bearen ama eta, Kontxi eta horiek, eta 50 urteko emakumeak ziren. Guk genituen orduan 24-25 bat eta zituzten 50 bat, gure amak izango balira bezala, haien kontra. Gainera, garai hartan, ez ezazu pentsa orain bezala zenik, guk jokatzeko genuen udaran gona motzarekin, gerrikoa eta kamiseta, tenistena bezala. Lehendabiziko txapelketa jokatzeko esan zigutenean ere horrela, nik ez neukan horrelako ez gonarik eta hor ibili nintzen Donostian ezin bilaturik, teniseko gona bilatzeko. Eta, halakoarekin jokatzeko. Gero aukera eman zuten. Eta, hauek ibiltzen ziren gonak belauneraino, ematen zuten garai bateko Madrileko erraketistak. Bai, bai, eta, esaten genuen “emakume hauek 50 urterekin?” Ikusi behar zenuen zer afizio eta nola. Gaur egunean, orain gutxi, Iruran finalak izan zirenean, han Kontxirekin topatu nintzen, Bearen amarekin, eta hark esaten zidan oraindik ere jokatzeko dutela. 67 urte ditu eta astero, asteazkenero edo, biltzen direla han palaz saio bat egiteko. Beraz, txikitatik hasi eta benetako afizioa baldin badaukazu, gorputzak aguantatzen baldin badizu, bai, bai. Azken finean da zure kabuz, edo lagun pare bat edo hiru elkartzen badituzu, laukote bat egin eta noizbehinka gelditzeko, nahikoa da aisialdiari begira, bestela. Igande euritsuetako plan alternatiboa ere hori izaten da, pala hartu eta ea frontoi bat bilatzen duzun libre, zeren eta denak okupatuak egoten dira egun horretan. Eta, zer, gaur, bada, palaz, bati edo besteari deitu, eta “zer, nola zarete?”. Bai, bai.

Esan duzu hasiera hartan beste kirol batzuetan ibili zinela, eskubaloian, adibidez. Ezberdintasunen bat antzematen zenuen bai lehiaketetan, bai entrenatzeko garaian, bai materiala egokitzeko garaian pilotarekin konparatuta? Entrenatzaile bat edukitzea, ez edukitzea.

Eskubaloian urte pare bat egin nituen. Momentu hartan konparazio horrek ez luke balioko zeren eta eskubaloian entrenatzaile bat bagenuen, materiala bagenuen, baina, palaz ibiltzen ginen gure kabuz eta jokatzeko genuen ikastolako txapelketa, baina, ez

genuen arduradun bat eta ezer ere. Egiten ginen apuntatu, zu zure gelako batekin eta jokatzera. Ez genuen orduan ezer, pala nonbaitetik atera, pilota gustukoak bilatu eta horrela. Orduan, hor, konparatzeko... Baina, seguraski bai, beste kirolen aldean hor hutsune bat egon da. Bai.

Ni iritsi naiz bukaerara. Nik bukatu ditut nire galderak. Orain emango dizut aukera belarritik tira egiteko, egin nahi baldin badidazu. Galdetzea nahi zenuen zerbait eta galdetu ez dizuguna edo gaineratu nahi zenukeena, edo esan nahi zenuen zerbait eta esateko aukerarik eduki ez duzunik bada? Bururatzen zaizu?

Ez, horrela ez. Nik esango nukeen bakarra da, eta ez diot inori belarritik tiratu behar, edozein neska animatu. Pilota gustuko baldin badu, behintzat, has dadila eskuz, palaz edo nahi duen bezala, baina, animatu dadila eta bere herriko elkartera jo dezala edo norabaitera eta disfrutatu dezala frontoian. Polita da giroa eta nik uste pilota, orokorrean, oso kirol polita dela.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-05-09

Lekua eta ordua: Hernani, Plaza Berri, 15:00

Izen-abizenak: [Itxaro](#)

Zer iruditu zaizu elkarrizketa? Zer inpresio egin dizu?

Ondo, bai, bai, ondo. Transkripzioa “tal cual” izango da?

Bai. Zergatik?

Orduan, ni ere oso zera naiz eta zuzenketa batzuk edo, ez dakit, iruditzen bazaizu esateko modukoak. Seguraski nik erabili nuen hemengo hitza, seguru nago transkripzioa dela, baina, irakurtzen hasita ez zait oso txukuna iruditu. Esate baterako, hemen, lehendabiziko parrafo honetan jada “pala engantxatu ziguten eta”.

Hala ere, nik uste horrek naturalitatea ematen diola, eh.

Bai? Hori zuk nahi duzun bezala. “Palaz ibiltzen ginen” jarriko nuke bi hitzetan.

Diferentea da, guk hitz egin egiten dugu eta gero irakurrita ezberdin ikusten da, baina, nik uste dut ematen diola naturaltasun bat. Horrelakoak dauzkate denek, nik ere bai, según zer esaten dudan. Nahi baduzu aldatuko dugu, ez daukat nik inongo problemarik. Aldatzea nahiago baduzu aldatuko ditugu.

Nik ziren guztiak irakurri ditut eta igual txorakeriak direla pentsatuko duzu, baina, “qué quisquilla es ésta”. Nik esan egingo dizkizut eta hortik aurrera zuk erabaki zer egin.

Ez, ez, ez. Nahiago baduzu aldatzea aldatuko dugu. Azkenean horretarako da, ikusteko. Klaro, momentuan gauza asko esaten dituzu, zuk esaten duzuna, baina, gero igual benetan jartzen zarenean konturatzen zara, “ui, hau ez dut esan edo pixka bat txukunago emateko”.

Oso ondo iruditzen zait. Horixe zen aurreneko orri horretan.

Gero, lanbideaz galdetzen duzunean “denetik pixka bat”. Urte asko eman ditut eraikuntza enpresa batean, baina, beno, enpresa horretan egon aurretik, eta hori aipatu nahi nuen, zeren eta ez nizun esan, baina, administrazioan lanean aritu nintzen Eusko Jaurlaritzan 2 urte eta erdian eta urte eta erdi pasa nituen Gasteizen, bizitzen eta. Eta kurioa izan zen, zeren eta han pilotan ia egunero ibiltzen nintzen. Jaurlaritzako langileekin, enteratu ziren “badagoela hor palaz dabilen bat eta zera”, eta aurrenekoa izan zen kristorena. Deitu eta nire pisukide baten Departamentukoak, gainera, Barne Sailekoak. Deitzen didate eta “aizu, begira, Andres naiz, Amandarekin lan egiten dut eta hiru gaude orain jokatzeko eta bat falta zaigu”, eguerdi batean jolasteko. Eta, “bai, bai, baina, ni hemen lanean nago eta nik ez daukat ezer hemen” eta “ez, ez, itxarongo zaitugu, etxera eraman, zuk hartu beharrezko gauzak eta joango gara”. Baina, “nola?”, eta, “bai, bai”. Tipo batekin ez nuela ezertaz ezagutzen, montatu, gainera, Barne Saileko patrolean, txuria eta normala zen, baina, idatziz jarrita... Etxera eraman ninduten, poltsa hartu nuen, prrrrrrrrr, montatu eta, “hauek nora doaz?” Zer da, eta Arkautera, eta, nik, “ama, hiru tiporekin banoa hemen, ez dakit nora”. Horrela erakusten dio tipoak (*plaka erakusteko keinua eginenez*) eta, bale, barrura. “Zuk aldagela hori, hauek neskenak dira, duk edifizio honetan”. Ah, eta gero frontoira. Hara iritsi, eta, Jesus, Maria eta Jose. Aurrenekoan deitutakoan nik baiezkoa esan, klaro, nik 21 urte nituen, buff, “viva la vida”, ez duzula jada pentsatu ere egiten, gustura orduan palaz buru-belarri eta horixe izan zen nire lehenengoa. Hori bai, Arkautera lehendabizikoa eta azkena joan nintzen. Deitu zidaten berriro, bai, bai, baina, Ogetara joaten ginen. Kar, kar, kar. Konturatu ziren, “ah, baina...?” eta, gero, ahoz aho han zabaldu zen eta “ah, bada, bat behar dugula” eta astean hiru bat aldiz eguerditan-eta joaten nintzen. Gainera, joaten nintzen eta gero galdetzen zidaten “zeinekin ibili zara?” eta, “ez dakit, halako eta halako”, eta “ése es el jefe de seguridad del parlamento, ése...”, eta, nik, “nik zer dakit? Ibili naiz eta listo”. Bai, bai, bai, eta han kuriositatea bazen eta beste gizon bat gehiago bezala eta gustura hartzen ninduten, eta, behintzat, falta zuten suplentearen hutsunea betetzen nien ondo edo gaizki eta esaten nuen, beno, pasarte hori ere izan zela bestearen aurretik. Pasarte hura oso polita izan zen eta han askok jakin zuten, gainera, emakumeak bazirela palan. Garai hartan, hizketan ari gara, han izango nintzen 90. urtean. Atera kontuak orain dela zenbat urteko kontuekin ari naizen. Bada, 20 pasatxo. Hori da, horixe nuen hemen pixka bat ordena segituz. Gainontzekoarekin konforme.

Ah, gero, hemen, galdetzen zenuenean ea gurasoek eraginik ba ote zuten, “ez joan edo joan”, problemarik gabe eta, gero, hemen, bukaeran, txorakeri bat jarri dut, baina, “gurasoek garai hartan, bada, ez zuten oztoporik jartzen”. Hori horrela erantzunda, bada, koletilla hori jartzearren, erantzuna osatzeko, ez dakit.

Bale.

Ah, gero, hemen, txorakeri bat da, baina, hemen aipamen bat egiten da nola neskak eskuz badabiltzan (*7.or. bukaerara joz*) Zizurkil aldean-eta zera eta hiru esan nizun, baina, lau ziren. Bai.

Hurrengoan, berriz, erdi parean, nola pilateseko aukera, spinning-ekoa, bata eta bestea aipatzen ditu eta hemen, “bada, zergatik ez diote jartzen pilota?”, hor nahiko korapilotasu ikusten nuen eta “pilotan aritzeko ikastaroak eskaini”. Andereñoa ematen dut nik hemen, eh.

Lasai horregatik. Askotan hori da, inpresioa oso diferentea da.

Hobea da pixka bat erreparatzeko aukera izan eta. Ah, bai, bale.

Eta, gero, jada, ia bukaeran, “hori non genuen?” Handik beste hiru orri aurrerago, “entrenamendu edo txapelketa mundura pasaz...”, hemen badago momentu batean “dena jarri zuen Eduardoren eskuetan”. Ematen du dena jarri zuen “honen eskuetan”, “como diciendo esta cosa”, hori ez zait egokia iruditu.

Eta, ah, bai. Gero, hemen, parrafo honen bukaeran jarri nahi nuen, gero, Gipuzkoako Federazio mailan emakumeen atalaz arduratzeko norbaiten bila zebiltzala eta, gainera, ni orduan Gasteizen ibiltzen nintzen eta gazte harrapatu ninduten eta nik baiezkoa eman nien.

Eta, zer izan zinen, juntakide?

Bai, bi urte eta erdiz. Nahi baldin baduzu hemengoa irakurriko dut. Bale. “Gipuzkoako Federazio mailan emakumeen atalaz arduratuko zen norbaiten bila zebiltzala etorri zitzaizkidan eta ardura hori hartu nuen bi urte eta erdiz. Lehenengo zuzendaritzako emakume bezala. Orduan, txapelketa ofizialetako bikoteen antolakuntza eta ardura horiek, bada, beno, gure esku egon ziren denbora horretan. Pixka bat saiatu ginen oreka bilatzen bikoteen artean. Batzorde moduko bat egiten zen eta entrenatzailea eta biok biltzen ginen. Gero planteatzen genituen pilotarien artean. Gehienbat azken finean zen bileretara joan eta pixka bat antolatzea, ea oreka lortzen dugun eta helburu horrekin. Gero, hortik kanpo planteatzen genituen, begira, txapelketa hau horrela egingo da eta bikoteak hauek izango dira eta beti izaten izan ziren ika-mikak, hau zergatik, bestea ez dakit zer, eta badakigu ez zela erraza. Azkenean, horrek pixka bat erretzen du, ikusiz Gasteiztik propio arratsaldeetan hona etorri bilera izateko eta gero ikusten zen nola zuk zure aldetik eginahal guztiak egiten zenituela eta ez zegoela zera handirik. Baina, beno, gogoarekin eta horrela, baina, gogorra zen, zeren eta azkenean ez dituzu gauzak egiten eskertzeagatik, baizik eta gauzak egiten dituzu ondo funtziona dezaten, zeren eta ikusten duzu hutsune bat badagoela eta ea zein dagoen prest gauzak utzi eta horretara dedikatzeke”. Ez da hemen aipamena egiteagatik ni izan nintzela lehenengoa, ez, ez, baizik eta niri planteatu zidaten, nik baietz esan nuen eta esan nuen, Jesus, Maria eta Jose. Ferminek ere esan zidan, “zuk ba al dakizu non sartu zaren?” Bai, otsoaren ahoan zuzen-zuzenean, baina, beno. Kar, kar, kar. Gerora jakiten dira horiek, baina, behintzat, zerbait egin genuen eta saiatu ginen, eta, beno. Eta, gero, gogoratzen naiz, askok esaten didate, orain direktiba eta ezer ere gabe, eh, “joe”. Ea materiala eta zera nola atera eta txandal batzuk lortu genituen, lortu diren txandal bakarrak, osabak dantzalekua dauka eta esan nion “horrela eta horrela gabilta eta txandal batzuk atera behar ditugu. Zer, egingo al dugu?” eta, “beno, bale bada”, eta, oraindik bakarren batzuk, orain gutxi esan didate, bazkaria eduki genuen, Begoñak, zarauztarrak, oraindik ere badarabilkiela sudadera, mantentzen duela. Ahal zena pixka bat mugitu eta zerbait lortzeko aukera baldin bazegoen, bada, alde horretatik, ez? Ikusten zenean gauzak egin beharra zegoela, bada, saiaturaz. Gero jada ikusi nuen eta esan nuen “hau gehitxo da niretzako, erreleboa har dezala beste norbaitek” eta orain Anparo joan den arte beste 18 urtean ez da sartu inor direktiban. Orduan, animatu, behintzat, emakume kutsua izan dezan. Gainera, ikusita mundu hau nola den hain itxia... Bai, bai.

Gasteiztik hona ere etorri egin behar da, eh.

Bai, bai, bai eta orduan ez zen oraingo bidea. Etxegarate zahar hura, bai, bai. Gero jada Diputazioan aritu nintzen eta gero jada hemen eta zera, baina, hasierakoa ni han nintzenean.

Interesgarria. Nik uste jende askok ez dakiela hori.

Bai, Anparorekin juntatu nintzen, kasualitatez, elkar ezagutu genuen Berria txapelketako aurkezpenean, eta orain, berriro, berak esan zidan Ferminnek deitu ziola enteratu zela esanez “begira, bigarren emakumea zara eta epe berdinean utzi duzue”. Nik uste dut gauza berdinarengatik, esanaz bezala “hemen emakumearentzat mundu gogorra da hau, pilota mundua direktiba eta horrelako saltsetan sartzeko”. Eta, orduan, honek esan zidan “ez nekien, uste nuen nik ni nintzela lehendabizikoa”. Orduan, bada, beno, nahiko desaperzibitua pasa nintzen.

Besteren bat badaukazu?

Ez, horiexek ziren igual nabarmenenak, nabarmentzekoak horiexek nituen. Bai.

Ah, eta, gero, horren ondoren, hitz egiten dugu txapelketen inguruan eta hor bat ahaztu zait eta oso inportantea zen: Intxaurrendokoa. Hor hasi ginen, azken finean, entrenamenduak-eta denak Intxaurrendoko frontoian egiten genituen, trenbide ondoko horretan, uste dut orain obretan edo desagertzeaz dagoela Carmenek esan zidanez, eta oso txapelketa txukuna eta serioa izaten zen.

Hura ere pribatua zen?

Bai, pribatua zen. Hantxe ibiltzen ziren, bere aita, Alfonso, ibiltzen zen juez lanetan, zeren eta hura ibiltzen zen mutikoetan eta horrela eta nesken inguruan ere hura ibiltzen zen gure txapelketako juez lanak egiten.

Carmen hasiera-hasieratik dabil?

Bai. Bai. Orduan ere azaltzen zen bera, bere aita eta bera. Carmen ez dakit hor sartzen den, baina, Carmenek ere kristoren informazioa eduki behar du, eh. Informazioa eta, gainera, kristoren memoria du emakume horrek.

Hurrengorako igual.

Ez, ez, jakiteko.

Bale, eta horiexek ziren igual aipatu nahi nituenak, zeren eta igual norbaitek esango du, “joe, bada, ez du esan horrela ibili zenik, edo”. Bai, Jaurlaritzan erreboluzionatu nituen departamendu bat baino gehiago. Kar, kar, kar. Eta, pisukideak esaten zidan, “baina, nola joan zara horrekin?” eta gero pentsatzen nuen “egia esan, arrazoi pixka bat baduzu, edozeinekin geratu eta raptatu banindute ere”, kar, kar. Baina, nik ezer esan gabe ulertu zuten, eh, “eta, non duzue?” eta “Ogetan” eta, “ah, bale, beno”.

Hori zen atalez atal aztertzea nahi ote zenuen eta zerbait gehiago geratu ote zaizun. Ea ados zauden esandakoekin, ea fidatzen zaren.

Bai, fidatuko ez naiz bada.

Eta, azkena, zerbait gehiago okurritu ote zaizun elkarrizketa egin genuenetik hona, edo beste zerbait.

Ez, horiexek izango lirateke. Ez dut uste. Deskuiduan zerbait okurritzen baldin bazait eta denboraz baldin bagara esango nizuke. Bai, baina, ez. Horixe izan zen, gehienbat direktibakoa eta Eusko Jaurlaritzakoa, zeinen ondo pasatzen nuen nik. Kar, kar, kar.

Nik nire partetik, behintzat, bukatu dut. Espero dut utziko dizuetela jada lanean lasai eta ez dizuetela “erregalo” gehiago bidaliko. Eta, eskerrak ematea.

LANDA EGUNEROKOA

1.elkarrizketan

- Nirekin harremanik gutxiena zuen elkarrizketatua izan arren oso irekia iruditu zait.
- Agenda betea izan arren prestatutasunez erantzun die galderei.
- Gustura egon zela esan zidan, eta hurrengo hitzordurako ere ez zeukala eragozpenik.

Berrikustean

- Lasai eta eroso egon da.
- 2. aukera hau hona dela argudiatu du, esan gabekoak esan eta gauzatxo batzuk zuzentzeko eta gustura irakurri omen du.
- Adeitasun osoa izan du, are gehiago agenda ezin beteagoa duela aintzat hartuta.

Elkarrizketa data: 2011-01-07
Lekua eta ordua: Azkoitia, bere etxea.

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Olaia
Adina: 30 urte
Jaioterria: Azpeitia
Bizilekua: Azkoitia
Pilota elkarte: Ikasberri K. E. (Azpeitia)

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: informatika
Lanbidea: informatikaria

Jarduera fisiko/kirolerako interesa nondik edo noiztik sortua:

Txiki-txikitatik. Beti eskolarteko txapelketak hastean 9-10 urterekin han behintzat kirol denetan apuntatzen nintzen: futbola, saskibaloia edo korrika... 9-10 urterekin ya kirola denetatik egiten nuen.

Suposatzen da klaseak ematen zenituenean, gimnasia, hura ere gustatuko zitzaizula:

Bai, bai, gimnasia gustura. Bai, bai, bai.

Egindako kirolak, maila eta lehiaketak:

Pilotan 9 urterekin ez ginen hasi, beranduago hasi ginen erraketarekin eta pilotarekin ibiltzen. Ez dakit ba, zer izango zen, 13 urterekin edo, 7. mailan edo horrela, hor, 13-12 izango ziren eta hori, eta orain ya pilotarekin bakarrik segitzen dugu, besteak ez.

Besteak zer egin zenituen eskolarretan, edo?

Eskolarretan eta, gero, saskibaloia baita federatuta ere, han ibili ginen, Iraurgin, Azpeitiko saskibaloitaldean.

Noiz hasi zinen pilotan?

12-13 bat urterekin, baina, orduan gu frontenisean ibiltzen ginen, erraketa eta teniseko pilotarekin. Horrekin hasi ginen. Gero, urte batzuk pasatu eta hori ez dakit ba zer iruditu zitzaigun, teniseko pilota kendu eta fronteniseko beste pilota hori horiekin hasi ginen. Eta, palarekin ere, beno, ibiltzen ginen tarteka, baina igual ohitura gutxiago zegoen pala eta teniseko pilotarekin ibiltzeko. Orduan, ibili ibiltzen ginen, baina pala benetan eusten hasi ginen federatzea pentsatu genuenean.

Eta, zer hasi zineten, zuen kabuz edo Ilunpen hasi zineten edo Ikastolan hasi zineten?

Ez, gu gure kabuz, guri gustatzen zitzaigun, etxe alboan ere frontoia geneukan, han juntatzen ginen jendea eta gure kabuz, ibiliaz, gure kabuz ibiltzen ginen gu.

Eta, zeinek bultzatuta izan liteken badakizu? Bakarren batek bereziki...

Gure familian pilotarengatik ez da zerarik izan, ez da inor pilotan ibili izan. Bultzatu baino gehiago nik uste, orduan, gure kuadrilako batzuri pilota asko gustatzen zitzaigula eta nik ez dakit nondik, ba, kirola asko gustatzen zitzaigula eta ez dakit nondik heldu genion horri, baina ez baten batek bultzatuta. Geu ginelako mugituak, eta askotan bi edo hiru juntatzen ginen eta birekin futbolera joatea baino errazagoa delako frontoira joan eta pilotan ibiltzea. Alderdi horretatik.

Eta, zergatik jarraitzen duzun?

Beno, azkenerako garaiak ere aldatzen joan dira eta gero, ba, beno, pilotan hasi ginen beste jende batekin, federatuta eta orain gustuko dugulako eta baita diferentea da, beste lagunarte bat dago eta hori ere ederra da eta denetik pixka bat, ezta?

Nola iritsi zitzaizun nesken pilotaren inguruko informazioa? Nondik?

Bai, gu ez dakit zenbat urte hasi ginela... ni ya unibertsitatean ibiliko nintzen... 19-20 urte nituela Ikasberri hasi zen pilotako txapelketa batzuk antolatzen mutil eta neskentzako eta guk hor neskentzakoenean parte hartzen genuen eta irabazi egiten genituen denak. Gero, ba, bazegoen Ikasberrin teknikari bat, neska, Alaiia, pilota erakusten jarduten dena, eta hark bazekiela baten batzuk federatuta zeudela eta ez dakit zer eta hortik hasi ginen. Gero, Ikasberrikoek ere bai, mutil gutxi batzuk hasita zeuden federatuta pilotan, eta, haiek ere zer edo zer bazekitela adituta eta ez dakit zer eta beno, ba, Alaiak zerbait esan zigun eta Ikasberritik esan ziguten nahi izanez gero federatzeko aukera hor zegoela eta aukera hori hartu genuen eta aurrera, baina ez genuen inor ezagutu hor sartu arte, mundu horretan sartuta zegoen neskarik.

Eta, noiz hasi zineten zuek?

Orduan izango zen... Ba, e bada... Emakumea Pilotari antolatzen dela zenbat urte dira? Bost urte, gero, aurreragotik behin egin zen beste bat klubek bakarrik, beraz, 6 bat urte izango dira, pentsatzen dut. Bai, 6 bat urte hasi ginela.

Eta hasi zinetenetik Azpeitian segitzen duzue.

Bai, bai, klub berdinean.

Eta, ingurukoek zer pentsatzen dute zu pilotan ikusita?

Beno, ez dakit. Ba, ez dakit, igual ohitu edo, beno, ez dakit... Nik koadrilan ere ez dut esaten bihar pilotara noa edo bihar... Sin más, ni pilotara joaten naiz zapatu arratsaldetan eta haiek ez dakite larunbat arratsaldean ni zer egiten ari naizen ere. Baina, finalera iristen banaiz joaten dira ikustera, baina ez interes handia jartzen dutelako, baina, nik ere beraien gauzetan ez dudalako interes handirik jartzen. Baina, horrela, arraro bezala ez didate begiratzen. Hurrena, aldizkariren batean azaltzen banaiz, ba, kalean gizonen batek geratuko nau... “zer, pilotan eta ez dakit zer?” eta hari entzun egin behar, baina ez zait iruditzen alderdi txarretik denik. Orain, emakumeen kirola aurrera eramaten ari denez gero eta, ba, toki horietan azaltzen zara eta jendeari alderdi horretatik jakin-nahia sortzen zaio.

Zuk esan duzu lagunek askotan ez dakitela.

Ez!

Baina, badakite zu palan zabiltzala.

Bai, badakite ni palaz nabilela baina ni ez naiz joaten eta ostegunean lagunekin elkartzean esan zapatu honetan partidua daukat arratsaldeko lauretan Tolosan eta ez dakit zer eta badakit zer... Nik ere deskantsua daukatenean ez daukat ohitura handirik besteen pilota partiduak ikustera joateko, ba, haiek ikustera joatea ere iruditzen zait, ba... Hurrena, igual, finalera ailegatzen garenean abisatu eta joaten dira ikustera, baina, horregatik, azken finean frontoi batera ez delako emakumeak asko ikustera joaten eta zapatu arratsalde batean beste gauza asko ere egoten dira egiteko eta azkenerako zera... Baina, bai, badakite pilotan ibiltzen naizela eta hurrena pilotakoekin ez dakit nora joan naizela eta hori dena bai, baina ez horrela... Beraiek ere ez didate galdetzen: “zer, zapatu honetan zer duzue, eta hurrena non?” Ez, interes horrekin ez, sin más.

Eta, etxeoak?

Etxekoak ere, nire etxeoak ere, beno, bai, ba, informatzen joaten gara eta...

Eta, zer jarrera daukate? Orain agian aldatuta egongo da, baina zu pilotan hasi eta esan zenuenean “pilotan federatzea noa”? Zer erreakzio eduki zuen jendeak?

Ba, normal. Etxean normal: “a, bai, hori probatzeko gogoia al daukazue?”. Ez dakit, nola igual etxean kirol aldetik beti asko gustatu izan zaigun eta ikusten zuten berriz ere kirola egitea gindoazela, ba, alderdi horretatik gustura. Beraiek mundu hori ez zuten asko ezagutzen, orain ere ez dute asko ezagutzen, baina, bai, beraiek ondo, normal hartu zuten.

Eta, gizonak?

Gizonak? Kar, kar... Gizona hasi zen pilotan federatuta neu hasi nintzelako, beraz, pentsa. Hura ere pilotan ibiltzen zen eta gu federatu ginen eta berari oso ondo iruditu zitzaion. Ez dakit, orduan, berari harra edo inbidia, zerbait sortu zitzaion eta atzetik beraiek federatu ziren. Baina, nik uste ni ez banintzen federatu bera ere ez zela federatu ere egingo, beraz... bai, bai

Nolako harremanak dituzu beste emakume pilotariekin? Zer moduz moldatzen zarete? Biltzen zareten...

Bai, harreman ona dago, baina, hori, denetan pasatzen den bezala... zu gela batean baldin bazaude denekin ez zara juntatzen, hortik agian bostekin juntatuko zara eta horiekin koadrilatxo egingo duzu eta pilotan ere gauza bera pasatzen da. Denak ez gara era berdinekoak eta nik neuk badaukat talde bat eginda, ba, elkarrekin hitz egin eta... Bada, bai, harremana bai, ona, eta horregatik joaten zara igual pilotara gusturago jokatzea. Hortik, jokatzetik, aparte jendea daukazulako gero hitz egiteko eta harreman bat daukazulako, eta gustura egoten zara. Egunerokotasunetik irten beharrean, bada, beti

lagunekin eta lanekoekin egon beharrea hor ere, ba, nire ustez giro ona dago, harreman ona, bai.

Elkartzen zarete?

Bai, elkartu elkartzen gara. Bai, askotan... kar, kar, kar

Frontoian eta frontoitik kanpo?

Frontoian bai, frontoian partiduetan eta gero frontoitik kanpo ere egiten ditugu zenbait juntadizo, bazkariak eta afariak...

Zein helburu-espektatiba dituzu pilota munduan? Noraino iristea gustatuko litzaizuke? Zer espero duzu? Edo ez daukazu helburu zehatzik...

Nire burua nik, eh,... Nire helburua izan liteke, beno, ba, ezkerrez ez dut ezer ere jokatzen eta igual egunen batean ezkerria hobetzea, baina, helburu finkorik... Nik badakit ez naizela ez dakit nora ailegatuko eta ez naizela inora helduko. Orain, bada, nire helburua izan liteke zerbait meioratzea gauza batzuetan, baina, bestela, horrela, urrutira begira ez daukat helbururik ezarrita. Nik badakit hau niretzako afizio bat dela, baina ez dela lanerako tresna bat. Nik dirurik ez dut irabazten hortik, beraz, niretzako izan behar du afizio bat, ba bai, saiatuko naiz tarteka gauza batzuk meioratzen, baina... Hor beste batzuk dauden bezala, goi mailan, eta haiek beste helburu batzuk dauzkaten bezala, bada, ni ez naiz horietan sartzen.

Eta, zergatik?

Zergatik? Ba, haiek baino maila dezente baxuagoa daukagu eta nik ez dudalako ikusten 30 urterekin haien mailara iristeko aukerarik. Nik uste dut pertsona bat haien mailara iritsi litekeela, baina zuk barruan ere maila hori eduki egin behar duzula. Batzuetan izaten da nibela eduki eta horra ailegatzeko gaitasuna eduki, baina, gaitasun horretarako aukera ere eduki egin behar duzu zeuk barruan eta batzuk kirolean hobeak eta besteak txarragoak izaten dira eta alde hori ere antzeman egiten da.

Nola ikusten da gizartean emakumeen pilota?

Gizartean emakumeen pilota, beno, nik ez dakit jende askok ba ote dakien honek existitzen duela. Adibidez, atzo baserrian bazkaria eduki nuen eta esan zidaten: “joe, lehengoan finalera...”. Beno, Tolosakoak ditut batzuk eta esan zidaten “hori bonboa eman diotena”. Eta nik esan nien, “bai, bonbo pixka bat eman diote”. Jendea horrelaxe enteratzen da. Bai, badakitelako lehengusuek-eta ni pilotan ibiltzen naizela, baina, orain, egun hartan nahiz eta Tolosan izan inork ere ez zekien nik finala jokatzen nuenik. Inork ez omen zekien, baina lehengusu bat frontoira sartu omen zen eta “ai, emakumeak pilotan”. Kartelean begiratu eta... “nire lehengusuak jokatzen omen du”, baina ez enteratuta zegoelako. Gero, adibidez, nire ama-eta kalean ikusi zituzten nire beste izeba-osaba batzuk eta... “zuek zer egiten duzue hemen?”. Eta amak: “Olaiak jokatzen zuen finala, eta...”. Gero bai, karteletan fijatzean..., baina, askotan, nahiz eta propaganda egin eta zuk kalean kartel bat jarri, zuk interesa baldin badaukazu irakurriko duzu, bestela ez. Orduan, kartel horiekin ere batzuk enteratuko dira, baina, beste batzuk ez.

Nik ez dakit jendeak zenbateraino dakien emakumeak pilotan aritzen direla. Nik ez dakit zenbateraino dagoen barneratuta gizartean emakume pilotariak daudela. Niri askotan galdetzen didate lanean eta: “zenbateko nibela dago?”. Beno, nik ez diet esango nik maila ona daukat, baina, batzuk mundialetara joaten dira eta orduan... “hori nibela bada!”. Harrituta geratzen zaizkit, baina ez dakite benetan zer nibel dagoen, zenbat jokatzeko dugun. Gizarteak oraindik ez dauka hartuta kontzeptu hori, emakumeak nola bagabiltzan. Agian telebistaz ez delako ematen, baina, ez dago barneratuta. Gero, gainera, ez daukate arrastorik ere zer maila dagoen. Hor zer edo zer badagoela bai, baina, hortik aurrera...

Eta, badagoela dakiten horiek zer iritzi daukaten? Zer iritzi mota bilatu dituzu?

Ez dakit! Nik ez dakit zer egongo den iritzi horietan. Igual baten batzuk egongo dira, ba, “horiek emakumeak eta ez dakit zer”. Egongo dira, baina nik neuk nire aldetik oraindik horrelakorik ez dut entzun. Besteek zer iritzi? Ba, ondo, emakumeak pilotan, baina gero nik uste ikustera joan arte eurak ere ez dakitela zer dagoen eta ikusteko zera hori, zaletasun hori, oraindik ere sortu gabe dago, nire ustez, emakumeen kasuan. Bai, aurten finalera jende asko joan da, dezente jende uste dut joan dela Tolosara, baina, bestela, txapelketa osoan zehar frontoia betetzen dugunak geu gara eta familiarrak. Beraz, pertsona batek ez badu partidarik ikusten, ba, hark zer iritzi izan dezake... bai, emakumeak pilotan eta oso ondo, baina nik ez dakit haiek gero zer pentsamendu daukaten. Nik pentsatzen dut denetatik egongo dela, baina, horrela, zer irudi daukaten “ni idea!”.

Gizarte horrek, edo ezagutzen duen horrek, presiorik sortu dizu? Zuk zer tratatu jaso izan duzu pilotan aritu zaren bitartean? Adibidez, partidu batean zehar antzeman duzu zerbait? Edo entrenamendu batean... Edo eman litezken egoera ezberdinetan.

Nik neuk ez dakit. Guri pasatzen zitzaigun lehen entrenatzera joan eta agian aurretik mutilak ibiltzen ziren pilotan eta ordutegia ez zuten kontuan hartzen. Orain, nik ez dakidana da hori nola izango litzatekeen mutilak izanez gero palan entrenatzera doazenak. Nik uste geu neska garelako agian pittin bat maila baxuagokoak hartzen gaituztela, baina, mutilak izanez gero agian esango zieten: “hi, egon zaitezte 15 minutu gehiago zain”. Ez dakit zer pasatuko litzatekeen. Alde horretatik, batzuetan errespetu falta iruditzen zait ordutegi bat zehaztuta badago... Hor zer pasatzen da? Bada, Euskal Herrian oraindik emakumeen pilota gutxi ezagutzen bada, eskuzkoa dago beste nibel batean eta ematen du denek eskuz atera behar dutela, palan inor ere ez dela irtengo. Beno, Azpeitia mailan behintzat bai, agian beste herri batzuetan eskuzkoa ez da hainbeste egongo. Eskuzko hori dago lehenengo mailan eta pala da ba bigarren mailan, ez, bigarrenean ez, ez dakit zenbatgarren mailan dagoena. Gaur egun, Azpeitian pilotaz hitz egiten denean eskuzkoaz bakarrik hitz egiten da, ez da pala aipatzen. Alderdi horretatik agian... Orain, esaten dizut, kalean bakarren batek ikusi eta komentatuta normal, alderdi horretatik bai agian emakumea delako zera bat badagoela.

Gero, partiduetan, bada, beno, momentuz ez. Emakumeak garelako mespretxurik ez zait tokatu izan. Beno, lehenengoan adibidez, jubenilei pasa zitzaiena ere ez zait normala iruditzen.

Zer gertatu zen bada?

Bada, partidu batetara joan eta elurra tokatu Urrakin eta buelta hartu behar izan eta beraiek abisatu berandu iritsiko zirela buelta hartu zutelako eta gero bat-batean ailegatu zirenean jueza joanda zegoela hura ez zihoalako zain egotera. Nik ez dakit emakumeak zirelako edo gizonezkoak izanda zer egingo zuen, zergatik zen... Nik badakit gizonezkoekin ere juez horrek horrelaxe jokatzeko duela, orain, ni gero federaziotik emandako erantzunarekin ez nago oso konforme. Han idatzi zen... beno, gero partidua jokatu egin zen eta juezik gabe ere baliogarri eman zen, baina, niri ez zaidana logikoa iruditzen da han komentatu zena: gurea ondo zegoela elurrarengatik eta hori onartzen zela, baina juezak 20.40an Ordizian partidua zuela eta horregatik joan behar izan zuela. Niri ez zait iruditzen norbaiti 20.00etan Anoetan partidu bat jarriko zaionik gero 20.40an Ordiziarara ailegatzeko. Nik uste hor bera defendatzen ari direla. Orain, igual mutiletan ere gauza bera pasako da. Nik badakit mutiletan ere, nik gizona dabilkidalako han, jaleo asko ibiltzen dituztela. Nire gizona-eta ere 5 minutu beranduago iristearren bi partidu jokatu gabe geratuta daude, eta gauza horiek denak. Hala ere, gauza horietan iruditzen zait afizionatuak garela denak eta gu ere pixka bat kontuan hartu behar gaituztela, ezta? Profesionalei agian gauzak errazago barkatzen zaizkiela.

Nolako osasuna ikusten diozu nesken pilota munduari momentu honetan? Nola ikusten duzu zuk? Gaizki, hobetzen, okertzen...

Ez dakit, ea... Hasieran hasi ginenetik, bakoitza bere aldetik genbiltzan, bakoitzak bere klubarekin jokatzeko zuen, hor nahiko galduta genbiltzan, ez genituen erdiak ere ezagutzen, partiduak ere 30-1, 30-2, galtzen ziren... Beno... Gero Emakumea Pilotari hori egin zen eta, beno, ondo. Nire ustez ondo hasi zen eta ondo doa, baina, niri iruditzen zait 1. mailako jendea, beno, zeren batzuk ere pixkanaka-pixkanaka uzten ari dira... Iruditzen zait 1. maila horretan ari dela geratzen igual erdibideko maila bat ez, baina, hor batzuk daude mailakoak eta beste batzuk 2. mailatik gora igotzen ari direnak eta hor... ez dakit. 2. mailan jende berri gehiago ari da sartzen, orduan, hainbeste jende berri sartzean 1. mailara jendea pasa behar da, zeren eta batzuk pilota uzten ari dira, eta hor nik uste lehenengoa maila galtzen ari dela, baina hori nire iritzia da.

Eta, txapelketatik aparte, adibidez, iruditzen zaizu neskak ibiltzen direla? Emakumeak,...

Nik badakit aparte jendeak badaukala ohitura Federazioak antolatutako ikastaroetara joateko, baina, hortik aparte ez dakit. Niri iruditzen zait oso ohitura gutxi dagoela, edo neska bat frontoian bakarrik ikustea gaur oso arraroa dela. Nik, behintzat, Azpeitian jendea pilotan-eta ikusten dudanean, teniseko pilotarekin berdin-berdin zait, baina, pala edo erraketarekin ikusten ditudan denak mutilak dira, neskak oso gutxitan. Agian beste herri txikiago batzuetan gehiago egongo dira, baina, nik uste afizio hori, agian Federazioa lan bat egiten ari delako eta jendea joaten da, baina aparteko orduetan uste dut ez duzula jendea ikusten pilota hartuta pilotan.

Eta, moduren bat ikusten duzu hori mejoratzeko?

Ez dakit. Hori, gero, norberak jarri behar izaten duena ere bada eta bakoitzak berak jarri behar horretan guk ezin dugu ezer ere egin. Orain, nik uste Federazioa lan ona ari dela egiten, bere aldetik ari da lan hori egiten emakumeen ikastaroak antolatzen, baina hortik aparte zer egin beharko litzatekeen ez dakit egia esan. Azkenerako, bakoitzak bere gogoan jartzea da, ezta? Gogorik ez badago, azken finean, gauza asko egiten da eta

gurasoek ere lagundu egin behar dute, hasieran umeak hasten direnean behar dute alde batetara joatea pilotan jokatzera eta gurasoek ez badiete laguntzen, edo are eta gutxiago... Beharrezkoa da eurak gogoia jartzea gehi gurasoek laguntzea. Baina, bestela, nik uste Federazio aldetik nahikoa lan egiten dela.

Esan duzu gogoia behar dela, bakoitzak daukala berea. Zergatik uste duzu aukeratzen duela jendeak pilota? Zein arrazoi egon liteke aukeratzeko? Edo ez aukeratzeko?

Gaur egun zaila da pilota aukeratzea, niri iruditzen zaidalako futbola, saskibaloia... Beno, nik neuk Azpeitia eta Azkoitia mailan ikusita, e, nik hemendik kanpo ez dakit, baina, uste dut futbola, saskibaloia, eskupilota... Eskuzkoa Azpeitian mutilen kirola da, beraz, neska bat eskuz ikustea oso arraroa da. Adibidez, eskolartekoa antolatzen denean hor askotan normala da zu zure ikastetxekoetan apuntatzea eta hor egoten da bi hilabetean futbola, hurrengo bietan saskibaloia... baina hor tartean pilotarik ez dago eta hor ya bereziki zeuk joan behar duzu bila eta horra ailegatzea zaila da. Beste gauza bat da asko gustatzen baldin bazaie joango direla horren bila, baina, zenbat joango dira ba? Hamarretik bat? Oso zaila da horrela ateratzea, baina nik uste dut eskola mailan hori ez dagoela sortuta eta orduan oso zaila da, oso zaila.

Nola uste duzu egin litekeela aukeratzeko bidea errazagoa? Berdin zait neska gaztea den, heldua den, bere kabuz, jolastea joan nahi duena den...

Nik neska gaztea baldin bada, uste dut, hasieran, umei gaur egun eskolartekotik bultza egin behar zaiela, pilota antolatuta, futbolak bi hilabete irauten duen bezala, saskibaloiak beste bi hilabete, bada pilotak ere beste hilabete, nahi baduzu, eta asteburuetan ere pilota jarri eta talde batzuk egin eta ea jendea animatzen den. Hori umeetan izango litzateke... Hortik aurrera ez dakit. Gaur egun ari da bonboa ematen Emakumea Pilotari egitasmoa, eta jendea ari da enteratzen, baina, bai baina ez, uste dut jendea oraindik ez dagoela enteratuta emakumeen jokamoldea badenik. Horregatik, bakarren bati agian gustatuko zaio pilota, baina, ez baldin bada enteratzen ez da joango. Agian bera frontoira joango da egunen batean, baina, ez dakit. Gustatu egin behar da eta gustatuz gero agian bide hori bilatuko duzu, baina igual gaur egun oraindik bide hori bilatzeko...

Lehen zu hasi zara eta nik tira egingo dizut mingainetik. Esan duzu bonboa ematen ari zaiola/ez zaiola... Zer iritzi daukazu, adibidez, emakumeen pilotarekiko hedabideen jarreraz?

Gaur egun zenbat ikusten da? Nik uste oraindik prentsan ez dagoela erabat sartuta. Nik ez dut esaten ETB1 batean pilota partidua bota behar dutenik, baina, badaude ETBSat, ETB3... Nik uste dut egunen batean pilota partida bat grabatu eta hori botatzea... Ez dakit beraiei zenbat kostatzen zaien, baina, hedabide aldetik ere hori bultzatu liteke. Egia esan, beno, emakumeen kirol asko ere ez dira botatzen telebistan, oso gutxi. Nik uste dut irrati aldetik bonbo gehixeago ematen zaiola eta gehiago aditzen dela, baina, irrati aldetik ere jendeak aditu egiten duen arren gaur egun irratia baino telebistak bonbo gehiago dauka. Orduan, bada, ez dakit... Egunkarietan-eta azaltzen da, albiste txikiak azaltzen dira; Kutxa Sariko finalak-eta direnean orri oso bat azaltzen da, baina, noski, urtean behin hori irakurtzen baldin baduzu horrekin ez zoaz inora nire ustez, jendeari ahaztu egiten zaiola berriz ere hurrengo urtera arte hori hor dagoela. Nik ez dakit, baina,

hedabideetan oraindik ere asko falta da, ari zaio bonboa ematen, baina, momentuko bonboa izaten da eta gero kitto egiten du. Oraindik ere indarra falta du niretzako.

Eta, erakundeenaz? Diputazioak, udaletxeak, Federazioak,...

Federazioa lana egiten ari dela iruditzen zait emakumeen pilota aurrera ateratzeko.

Gipuzkoakoaz ari zara ala Euskadikoaz?

Bai, bai, ni Gipuzkoakoaz ari naiz. Euskadi mailan ez dakit erabat zenbat funtzionatzen duen. Nik entzundako gauzak dakizkit. Lehenago Gipuzkoakoa beste proiektu batzuetan sartu zen gauza batzuk antolatzeko eta orain hori Euskadikoak hartu du, baina, uste dut Gipuzkoako mugitu zelako egin dituela txapelketa horiek Euskal Herri mailan, Irekiak eta horiek. Nik Gipuzkoakoagatik hitz egingo dut, nik hemengo gaiaren berri dakit. Niretzat behintzat lan handia egiten da. Bizkaikoak-eta ez dakit zertan diren, ez dut entzun horrela funtzionatzen duenik eta, nik uste, horrela funtzionatuko balu han ere “pilotari” gehiago ateratzeko aukera egongo litzatekeela, pilotan ibiltzen den jendea errazago animatzen da hortara, ezta? Esatea baino guk biok jokatu dugu, eta guk ez daukagu arrastorik ere. Behintzat pareja hobea jartzen badizute zu eskasa izanda, ba, hori motibazio pixkat bat izan liteke lehenengo urtean alderdi horretatik, ezta?

Diputazioak eta horiek “ni idea” zenbateko laguntza ematen duten.

Udaletxeak, gure alderditik, guri elkarte bezala ematen digu laguntza baina ez emakumeak garelako ez gizonezkoak garelako. Elkarte bezala ematen digute laguntza eta listo. Ezberdintasunik egin gabe, batzuetan ez dugu ezberdintasunik egin nahi izaten gizonezko eta emakumezkoen artean eta hor ez gaituzte bereizten.

Eta, aparte, diru laguntzez aparte? Hortik kanpo zerbait egiten du udalak? Egin lezake?

Agian, bai, ezta? Ikusten baldin badute herrian jende bat dagoela pilotarako interes horrekin, igual alderdi horretatik emakumeen aldeko ez dakit zer egoten diren bezala antola dezakete astebetean emakumeen arteko pilota ikastaro batzuk edo, ez dakit. Horrelako gauza batzuk antola ditzakete, baina... Azpeitian bere garaian hasi ziren, atzera bota da, eta uste dut ez dela berriz ere bueltatuko. Azpeitian jarriko balute nik uste dut jendea animatuko litzatekeela. Afizioa badago, adibidez, Ikasberritik txapelketa antolatzen zenean dezente neska apuntatzen ziren eta hortaz aparte ere Eliz-Kaleko festetan ere nesken pilota txapelketa egiten da eta han ere jendea apuntatzen da. Hortaz, nik uste jendea egongo litzatekeela, baina, beno, igual batzuetan mutilenari interes gehiago jartzen zaio edo momentu horretan lanpetuago dabilzalako eta horri ez zaio hainbesteko garrantzirik ematen, baina, ekintza batzuk egin beharko liratekeela bai.

Eta, klubek zer jarrera daukaten?

Gure klubak ona. Besteetan, bada, nik uste klub oso diferenteak daudela. Batzuetan neskak bakarrik daude, haiena perfektu. Bestetan, gu, adibidez, neska eta mutilak gaude eta ez dut uste diferentzia handirik egiten dutenik, neskak hor daude eta mutilak hor daude. Denak hor gaude eta kito. Eta, gero, bada, beste klub handiago batzuk daude, Hernani-eta, eta hor ya emakumeekin oso lan handia egiten da. Hori oso garrantzitsua

da, azken finean, gaur egun irteten ari diren pilotariak Hernanikoak dira, edo behintzat, sartzen ari diren berriak. Gero ez dakit nora irtengo diren, baina Hernanikoak dira. Nik uste dut elkarte horren gauza onena dela lan izugarria egiten ari dela emakume pilotariekin. Gure klubean egiten ez den bezala, beno, bai badaude jubencil batzuk, baina gurekin batera entrenatzen dute. Ez dakit Hernanikoek beraien sena dakarten pilotarako edo txiki-txikitatik sartzen dieten lan hori egiteko harra. Agian, Hernanin, lehen esandakoa, eskolartekoena, han igual normalagoa izango da 8 urterekin pilotara joatea Azpeitian baino eta klubak alderdi horretatik ere lan gehiago egiten du. Bestela, ba, desberdintasun handirik ez dut sumatzen (gizon-emakumeen artean) gure klubean eta beste batzuei entzunda.

Eta, pilotariak beraiek pilotarekiko daukaten jarrera? Pilotariak beraiek zer iritzia daukatela uste duzu nesken pilotaren inguruan? Denetik dago...

Nik uste pilotan gabiltzan emakumeetan jendea gustura dabilela eta aurrera ateratzeko denek bat egin behar dugula. Askotan zaila da, ez gara profesionalak, eta bakoitzak hortik kanpo bere bizia daukagu eta askotan Federazioari uzten diogu lan hori egiten, ezta? Baina, nik uste denen iritzia dela jendea gustura dagoela Emakumea Pilotari proiektu honekin eta nik garbi ikusten dudana gauza bat da Emakumea Pilotari hori joango balitz orain, gauden ez dakit zenbat pilotarieratik agian erdira murriztuko litzatekeela niretzako dena. Orduan, bada orain proiektu horrekin gustura gaude eta nire ustez jendearen iritzia hori da, hor gabiltzala eta gustura. Ez dakit hortik aurrera zer.

Lehen esan duzu ikusle gutxi joaten direla, beste kasuren batean asko samar joan direla,... Zer iritzia daukatela uste duzu ikustera joaten diren horiek?

Nik esango dudana lehenengo gauza da, askotan, emakumeak garelako izaten dela pentsatzen dudala, baina, ni nire gizona ikustera joaten naiz eta niri askok esaten didate haiena ikustera joatea ere aspergarria dela. Orduan, nire ustez, gomazko paleta ikustea aspergarria da. Egia da geurea ikustea dibertigarriagoa dela, gutxi ematen diogulako eta joko-aukera gehiago daukagu, mutilek errebotera pilota bidaltzen jardunda baino, ezta? Azken finean, nik uste ikustera joaten direnak ez direla aspertzen eta ikusten dutela han jokatzeko ari garela, batzuk nibel hobea, beste batzuk txarragoa, baina, beno, saiatzeko garela eta ikusten duen jendeak azkenean gustura ikusten duela, ezta? Nire ustez ez da oso ikusgarria, segun, pilotak ere asko egiten du, gauza askok eragiten du, baina, ikusten joaten denak nik uste, orokorrean, pentsamendu onarekin irteten dela: “begira, emakumeak pilotan eta begira, honek nibel ona dauka” edo estilo horretako komentarioak egiten dituela.

Lehen aipatu duzu Hernanin jaio edo Azpeitian jaio ezberdina izan litekeela. Zuk uste duzu alde dagoela hiri batean edo herri batean edo inguru batean jaiotzearen artean?

Bai, kristoren alde dago. Adibidez, pentsa, Azpeitia mailan, ni hasi arte, ni federatu arte, inork ere ez zekien Emakumea Pilotari hori existitzen zenik. Orain ya jendeak badaki, beraz, interesatzen zaienak hor doaz pixkanaka-pixkanaka, baina nik uste haiek bidea guk baino irekiago daukatela. Bai, guk ez geneukan arrastorik non sartu ginen han itu-itsuan, nora gindoazen... Bagenekien praka txuriak behar genituela, baina ez genekien ezer ere. Orain, behintzat, bide hori irekita daukate eta egia da ingurunearen arabera, Azpeitian futbola eta saskibaloira garrantzia izugarria ematen zaie, alde dagoela eta inguruaren arabera kirol bat gehiago egiten da. Zumaian bezala, agian

saskibaloitari ez diote hainbesteko garrantzia emango eta arraunlariei emango diete. Nire ustez, Hernanin, nondik bueltan, baina nesken zera horri ongi heldu diote niretzako.

Eta, uste duzu ikasketa mailak eragin dezakeela?

Ez, niretzako ez. Ez, bakoitzak nahi duena egiten du, baina ikasketa mailaren arabera ez.

Eta, kulturak? Zuk pilota aukeratzekoan eragina eduki dezake pilota herri kirol tradizionala izateak?

Ez zait iruditzen. Nik uste joaten dela gustatzen zaiolako baina ez zer kulturatakoa den... Kirol hori gustatzen zaiolako eta hori egitea gustatuko litzaiokeelako, baina ez tradizio hori dela-eta. Ez zait iruditzen, ez zait iruditzen, ez zait iruditzen.

Eta, zuk, zer iritzi zeneukan emakumeen pilotaz praka txuriak jantzi eta hasi baino lehen?

Gu geu ibiltzen ginen eta ez genekien existitzen zuenik ere praktikamente, eta nik behin ere ikusi gabe neuzkan emakumeak pilotan frontoi batean. Orduan, iritzi handirik ere ez neukan, baina nik beti esaten nuen: “nik hemendik kanpoko jendea ezagutuko nuke, ba, pilotan jokatzeko duena”. Iritzi finko bat ez neukan, bote prontoan ailegatu zitzaigun eta hortik sartu ginen. Orduan, iritzi finko bat ere ezin genuen eduki, ez.

Eta, oraingoa zein da? Ezberdina da, aldatu da?

Lehen iritzirik ez neukan eta orain iritzi ona daukat. Bai, hor lan bat egin da eta gustura. Nik uste dut pertsona bat mundu horretan sartzen denean, Emakumea Pilotari proiektuan sartzen denean, disgustura sentitzen denik ez dagoela hasiera batean behintzat. Gero eduki ditzakezu jendearekin harreman ezberdinak, baina inguru bat badago eta jendea gustura sentitzen da. Hori garrantzitsua da azkenerako, ezta? Azken finean, ederra da, Emakumea Pilotarin sartzean denok elkarrekin egoten gara eta horrek ere lagundu egiten zaitu, ezta? Zure gustukoa izateaz gain, aldamenekoa ere gustuko baldin baduzu... frontoian laguntzen dizu eta gauza horiek denak, eta, alderdi horretatik, nire ustez, proiektu horrek asko laguntzen du gauzak aurrera eramaterakoan.

Eta, proiektutik aparte?

Ez dakit, nik uste dut orain ere emakume batzuk egongo direla hor sartu gabe egon eta pilotan gustura ibiltzen direnak, baina, zer iritzi daukadan? Nik ez dakit eurak ba ote dakiten gu existitzen garela. Guk badakigu zer mundutan sartuta gauden eta mundu honek buelta asko eman ditu eta gauza asko pasa ditu eta nik uste haiek arrastorik ere ez daukatela zein mundutan gauden sartuta eta zer aukera dauden. Gauza asko daude, orduan, ez dakit.

Lehen esan duzu praka txuriak erostera joan zinetela eta ez zinetela... Zuk uste duzu estetikak eragiten duela? Zuek praka txuriekin jokatzek, edo gonarekin jokatzek, edo...

Azkenerako hori dena, ba, ofizialtasun bat eman behar zaio Federazio aldetik eskatzen duelako, baina eraginik uste dut ez daukala. Nik uste pertsona bati pilota gustatzen

bazaio, hari esaten bazaio “praka txuriak jantzi” praka txuriak jantziko dituela. Nik gonarekin behin ere ez dut jokatu. Nik uste pertsona bati benetan gustatzen bazaio iritsi egingo litzatekeela sakrifizio hori egitera.

Sakrifizioa iruditzen zaizu gonarekin jokatzeko?

Ni neu ez naiz gonazalea, eta beste batzuentzat iruditzen zait oraindik eta handiagoa dela... Sakrifizioa esan dut jendeari ez zaiolako gonarekin ibiltzea gustatzen eta izterrek bistan eta hori dena, baina, ez dakit. Sakrifizioa baino gehiago nik uste prakekin errazagoa dela jokatzeko. Askoz ere erosoagoa, beno, esaten dute bestearekin askoz ere erosoagoa dela, baina hori ni ezagutu gabe nago. Prakekin errazago jokatzen dugu. Gonarekin? Ni neu ez naiz gonazalea, baina, beno, nik kirol hori gustatzen bazait horri heldu beharko nioke egiteko eta nik uste jendeak helduko liokela. Azkenerako, hasieran inpaktua izango litzateke, baina gero helduko liokeela iruditzen zait.

Frontoian ere uste dut bere seriotasuna ematen diola. Adibidez, guk orain partiduak jokatzen ditugula, nik ikusten baldin badut bat txandalaren praka beltzekin dagoela, bestea praka motzekin dagoela eta bestea ez dakit zer, bada igual seriotasun hori ez da hainbestekoa jendearentzat. Orain, jendeak ikusten baldin badu batzuk partidua jokatzen eta txuriz ari direla, ba, igual oraindik eta inportantzia handiagoa ematen diote partiduari. Behintzat alde horretatik pentsatzen dute: “beno, hauek aurrera zihoaztek”. Bestela, ikusiko balute diferente jantzita daudela nik uste orduan eta seriotasun txikiagoa emango lioketela.

Eta, zuk zer uste duzu jendeak pentsatzen duela zu praka txuriak jantzita ikusten zaituenean? Edo agian egunen batean gona jantzita ikusten zaituenean...

Ez dakit, ez dakit zer pentsatuko duten. Nik, nire ustez, hori da, txuriz jantzita ikusten gaituztenean behintzat beste seriotasun bat hartzen dugula behintzat seguru nago. Bestela, zer izango litzateke? Orain txuriz jantzita gaudelako? Gaur egunean nola ohituta gauden pilotariak txuriz ikustera, ez zait iruditzen... Gonaz jantzita ikusiz gero iruditzen zait oraindik ere inpaktu handiagoa egingo liokeela jendeari, zeren eta gaur egunean gona tenisean bakarrik ikusten da praktikoki nesketan, ezta? Ez dago gonarekin jarduten den kirol asko eta, igual, hor jendeari gehiago eragingo lioke. Esango luke: “ah, begira, gonarekin, ez dakit zer eta badakit zer”, baina, beno.

Eta, zer izango litzateke, ona ala txarra?

Beno, ez dakit. Batzuk besteak baino lotsatiagoak gara, batzuei agian berdekeriren bat entzutea tokatuko litzaioke publiko artetik: “ba, hori ez dakit zer, izter horiek,...”. Batzuk ondo hartuko lukete, beste batzuk ez, segun nolakoak garen. Gero, jendeak erakutsiko lukeen errespetuaren araberakoa izango litzateke, ezta? Nik uste dut oraindik frontoian ez dugula errespetu falta hori ikusi, baina, egunen batean, imajinatu, gonarekin jokatzen dugula eta errespetu faltaren bat izango balitz: “ah, horiek izter motzak”... Errespetu falta irudituko litzaidake. Orduan, jendeak ere errazago utziko lioke pilotan ibiltzeari, jendea hala hasiko balitz. Baina, ez dakit.

Eta, pilotan aritze horrek osasunean, kirolean eta, azken batean, gorputzean bertan zer eragin eduki lezake? Eta, ez aritzeak?

Osasun aldetik behintzat hobea dela suposatzen da, kirol bat egiten ari zara, ez baldin bazaude oso gaizki eta ezingo bazenu kirola egin... baina, kirol bat egiten ari zara eta osasunerako ona da. Hala ere, beti pasatzen dena, kirolaren arabera gauza batzuk gehiago lantzen dituzu beste gauza batzuk baino. Beti ere, bizkarra, gerri aldera gehiago jo lezake, baina, horrek ere beti soluzioa edukitzen du. Osasun aldetik, kirola ondo egiten duzun bitartean, bada, aurrera.

Zuk uste duzu pilotari izateak zure emakume izate horretan eragin duela? Edo, eragiten duela? Zure izaeran, nola eragiten du pilotari izateak ere. Hau da, informatikari, emazte izatez aparte, eragiten du, ez du?

Ez zait iruditzen. Izateko era batekoa naiz eta nik uste, azken finean, egoskorra baldin banaiz pilotan ere egoskorra izango naizela, tanto bat galduta ez dudala ematen azkeneko momentura arte, baina, hori norbere izaeraren arabera da. Niri ez zait iruditzen txip hori aldatzen zaidanik batetik bestera. Nire izateko era horixe da eta pilotan ere izaera bera daukat, dena berdina da.

Gustatzen zaizu txapelketen antolaketa orokorra nolakoa den? Lehiaketa sistemak nolakoak diren? Zuk esan duzu lehen: bikoteak orekatzea edo ez orekatzea, edo...

Nire ustez, lehen esan dudan bezala, sistema hau ez balitz egongo, gauden pilotarietatik ez dakit zenbat egongo liratekeen, baina, igual jende gutxiago egongo litzateke pilotan aritzen dena. Behintzat txapelketetan apuntatuta. Bada, pareja egite hau, betikoa. Niretzako ondo dago, batzuetan ez da asmatzen, beste batzuetan gehiago asmatzen da, objektibitate ezberdinarekin egiten dira... Beno, bada, parejak egiten dituen jende hori errespetatu egin behar da, baina, gero batzuk kritikak ere onartu egin behar dira. Bada, bai, bikoteak intentziorik onenarekin eginda daude, baina, ez daude ondo eginda. Baina, nire ustez, txapelketa hau aurrera eramateko horrelaxe egin behar da. Nik momento honetan pentsatzen dut tarteka beste biderik egingo ote litzatekeen, bada, niretzako ez. Nola antolatu behar duzu txapelketa hau? Ez zait otzen beste sistema bat.

Zuk nahiago zenuke, Emakumea Pilotari txapelketan bezala, jokaturako txapelketa denak hala antolatuko balira? Rankinaren arabera, bikoteak orekan...

Bada, beno, ez. Niretzako beste batzuk ere ondo daude. Aparte antolatzen direnak, Irekia, adibidez. Zuk nahi duzun bikotearekin izena ematen duzu eta niretzako hori oso ondo dago eta, nik, hor oso gustura jokatu izan dut beti. Gertatzen dena da hor ya badakigula maila bateko parejak ez daudela. Orduan, geure artean ere parekotasun handia dago, nola mailarik altuenekoak ya ez dauden... Alderdi horretatik, bai, gustura jokatuko nuke. Baina, zer pasatzen da? Onenak ez daude. Hala ere, nire ustez mota honetako txapelketekin jarraitu egin behar da, zeren eta batzuekin konfiantza handiagoa daukazu beste batzuekin baino eta jokatzeko garaian ere antzeman egiten da, errazago koordinatzen da. Beste batzuk, askotan, bada ez, askoz ere gutxiago koordinatzen da.

Entrenamenduak-eta nola egiten dira? Nola egiten dituzue?

Gu pixkanaka-pixkanaka unitateak galtzen joan gara eta, azkeneko, bada, beno, lehen esan bezala jubencil batzuk hasi dira Azpeitian eta nagusietako bi gaude, entrenatzera joan gaitezkeenak... Azken batean denok nahastu egiten gara, zeren eta niri penagarria iruditzen zaidana da beste nagusi bat joan eta biok pilota jotzen jardutea, ezta? Orduan,

bada, beno, nik egiten dudana da, 20.15ean hasten gara entrenatzen, hogeit hamar minutu lehenago joan eta neu ibiltzen naiz pilotan, neu saiatzen. Ondoren, eurak etortzen direnean, kaleketan batzuk egiten ditugu, hurrena ezkerre lantzen dugu eta hurrena partidak egiten ditugu, baina, behintzat denen artean nahastuta. Badakit horrela agian nik lor dezakedan nibela baino handiagoa lortzea zaila dela, askotan maila baxuagoan gabiltzalako, eta zaila da zeure buruari hainbeste exijitzea agian, baina, nik, nola badakidan 30 urterekin gaur egunean ez naizela ez mundialetara eta ez inora helduko, bada, ni gustura sentitzen naiz haiekin ibilita. Azkenerako, niretzako inportantea gutxienez lau elkartzeko da, partidu batzuk jokatzeko. Bestela, bi elkartzeko askotan pobrea geratzen da.

Eta, palak, pilotak,... esan duzu lehen oso ezberdinak direla. Zer iritzi daukazu erabiltzen diren palez, pilotez?

Beno, ibiltzen diren palak, nik uste hasieran informatu gabe egoten garela, bakoitzak bere pala erosten du hasten denean eta besterik gabe. Nik garrantzitsuena nuen pala bat erosten joandakoan 6 errefortzu izatea, hortik aurrera ez nion beste ezeri begiratzen. Gerora enteratzen joan gara, ez gara enteratuta egoten eta ni denda batetara joaten naizenean ez naute horretaz informatzen: pala batek pisu diferenteak dauzkala, pisuaren arabera ere, norbere gorputzaren arabera, agian, pisu gutxiagoko palarekin gehiago joko zenukeela, edo pisu gehiagokoarekin ondo enpalatuko zenukeela, edo hori pisu gutxiagokoa duzula eta pisu gehiagoko bat hartuz gero pilota urrutiago bidaliko zenukeela,... Nire ustez, hor desinformatuta gaude eta gero joaten gara informatzen. Dendara joatean ere, nik uste, dendakoek eurek ere ez dakitela asko mundu horretaz eta ez digutela ezer esaten. Palari dagokionean hor dago ezberdintasuna, markaz aparte, batik bat neskak ez garela palak pitzatzen oso ohikoak, pilotarekin pala puskatzea ez da erraza.

Pilotan ere izugarrizko aldea dago. Nahiz eta beti puntu horiarekin jokatu, puntu horitik horira ere, material ezberdinarekin egiten dituztelako edo nik ez dakit etxe ezberdinetakoak direlako, baina, batzuk askoz ere bote handiagokoak eta beste batzuk askoz ere motelagoak dira, eta hori ere antzeman egiten da. Hori, azken finean, profesionalek eskuz jokatzen dutenean ere, pilotak aukeratzera joaten direnean, guretzako pilota denak berdin-berdinak dira, baina, adibidez, batzuk 105 gramokoak izaten dira, besteak 103koak... eta gauza bera pasatzen da.

Eta, zuk, aukeratuko zenuke nolabaitekoa? Ideal bat badaukazu? Nolakoak izango lirateke zure jokatzeko pala eta pilota idealak?

Nik neuk, aurrean jokatzen dudanez, niri gustatzen ez zaidana da oso pilota bizi izatea, bestela askotan galduta sentitzen da, beti pilota buruz gain pasatzen zaigu. Noski, bizia baldin bada atzelarientzat ere errazagoa da pilota 7an jo eta 6-7ra jotzea, orduan, gu hor ezin gara pilota jotzera sartu, baina, noski, motelegia ere ez da komeni, 5aren barruan ibiliko baikin bateke. Hor erdibide bat beharko litzateke eta, askotan, erdibideko pilota hori aurkitzea oso zaila izaten da.

Pala, bada, beno, azken finean, nik uste pala baino inportanteagoa dela geuk ondo jotzea, eta askotan hor failatzen dugula, pilota hori ondo gozatzean. Agian, kristorena ematera joaten gara eta 4an uzten dugu pilota, baina, hori geure akatsa da. Palan ez zait

iruditzen, baina, pilotan bai ezberdintasunak daudela eta hor atzelaria edo aurrelaria izan interes ezberdinak daudela, bai.

Entrenamenduei buruz hasi garenez, zuk noiz uste duzu hasi beharko lukeela neska batek pilotan? Adin ideala zein izango litzatekeela uste duzu?

Nire ustez, gaur egun, ya behin jubenilen etapara sartzerako, oinarrizkoa baino zerbait gehiago eduki beharko lukete. Oinarrizko hori baino gehiago edukitzeko lehenago hasi behar da eta, nire ustez, eskolarteko adinean, 10 urte ez agian, baina, 11-12rekin, ya pala ondo hartu litekeenean, hor hastea garrantzitsua da, zuk oinarria hartuz gero, esker-eskubi jotzen ikasten baduzu,... nahiz eta gero pilota aldatu, bai, kostako zaizu, baina ez hainbeste ere. Behin pala ondo eusteko gai zarenean, 12 bat urterekin, 9rekin oraindik ere ezin da, ya ondo hasten baldin bazara, nire ustez, gero antzeman liteke. Batzuk eskasagoak izan litezke, beste batzuk hobeak kirolean, baina, hor.

12rekin eta palaz hasiko zinateke. Eskuz aurretik hasiko zinateke? Ez dauka zertan?

Batzuk baietz esaten dute, eskuzko hori garrantzitsua dela, baina, nik ez dut ikusten zertan. Nik uste, azken finean, zuk palarekin ere hartu behar dituzun posturak ondo ikasi ditzakezula palaz, ez daukazula derrigor eskuz hartu beharrik. Askotan zer pasatzen da? Postura batzuk hartzen ditugula eta gero horiek aldatzea zailagoa izaten dela, ezta? Baina, palarekin, nire ustez berdin-berdin ikasi liteke.

Eta, zein bide izan liteke egokiena 12 urterekin hasten den batek 30ekin, zure kasuan, adibidez, segi dezan? Hau da, ez dezan pala utzi.

Lehen esan dudan bezala, behintzat gustatu dakiola, gustatzen ez bazaio ez du eta segituko, hori seguru, ez baldin badute derrigortzen, baina, beno, azkenerako edade batetara ailegatuko da non utzi egin behar duen. Eta, gero, nik uste zu 12 urterekin hasten bazara pilotan eta egunero entrenatzera joan, eta... Baina, hasten baldin bazara, eta begira, hemen txapelketa bat antolatu dute Gipuzkoa mailan, imajinatu Azpeitia mailan ez dagoela jende asko, gaur egunean ez da pilotara jende asko joaten eta 8 bat pertsona daudela izena emanda, bada, 8ren artean ez duzu txapelketa bat antolatuko. Aldiz, Urola bailaran antolatzen bada horrek jendeari ere saltsa gehiago ematen dio beti ere aurrera segitzeko.

Orduan, eskolarteko txapelketen bidetik joango zinateke?

Bai, ni bide horretatik joango nintzateke. Zu entrenatzen ibiltzen bazara astelehenean eta asteartean, edo asteartean eta ostegunean, berdin zait, entrenatzera joan eta gustatuko zaizu, baina, nik uste dut jendeak gero lehiatzeko gogo hori edukitzen duela. Hau da, nik iloba bat daukat, hura gimnastika erritmikoan ibiltzen da, urte osoan ez da lehiatzen, beti urte bukaera ailegatzen ari denean esaten du “nik gimnastika erritmikoa utzi egin behar dut”, baina, gero, txapelketak iristen zaizkie, hilabetez ez dakit zenbat lehiaketa izaten dituzte ondoren esaten du: “nik hurrengo urtean apuntatu egin behar dut”. Fruitu azken batean hor ikusten duzu eta fruitu hori ikusi arte nazkatu egiten zara, orduan, pixka bat komenigarria da. Gainera, beti zeu pertsona berdinekin ibili beharrean, beste batzuen kontra jokatzeko baldin baduzu ezagutu egiten dituzu, han zer maila dagoen ikusi, haiek nola jokatzeko duten... eta gauza ezberdinak ikasi litezke, ezta? Baina, nire ustez, eskolarteko txapelketa hori bai, pixka bat txiki-txikitatik antolatu.

Eta, gero, eskolartekotik federatuetaarako saltoa, edo pausoa?

Gero, betikoa izango litzateke. Eskolarteko hori bukatzen duzu eta, beno, jubenilen etapa bat dator, non zuk herrian elkarte bat baldin badaukazu eta federatzen uzten baldin badizuten, bada, beno, federatuko zara eta... Nik uste, hasieran, jubenilei ez zaiela hori zeratzen. Nire ustez jubenilentzat zailagoa da jubeniletatik nagusietara pasatze hori, ikusten dutelako 18 urte izan, baina, 16-18 urte bitartean beti zure adinekoekin aritu zara, eta ya 18 urterekin beste batek 40 dauzka, beste batek 30, beste batek 25, eta sentitzen dira galduta, edo lotsatuta, edo nik ez dakit zer. Orduan, bada, nire ustez hor dago salto handia, gainera, unibertsitatea ere hasten da, eta hor gauza asko daude. Nire iritzia da gustatuz gero jarraitzea. Ni ere unibertsitatea bukatu arte ez nintzen hasi pilota egia esanda, orduan, ez naiz inor esateko, baina, iruditzen zait benetan gustatuz gero jarraituko dutela, baina, hori, azken finean, beraiek ikusi behar dute.

Hor salto bat dagoela nik ez dut dudarik egiten. Gu hasi ginenean, igual, ez genuen hainbesteko saltoa ikusten, baina, orain ya geuk ikusten dugu hor badaudela batzuk 18 urtekoak eta beste batzuk ez dakit zenbatekoak, oso adin tarte handia dagoela, eta lotsa agertzen da. Hala ere, nik uste gustatuz gero aurrera segiko dutela, bai.

Galdetzea nahi zenuen zerbait eta galdetu gabe gelditu denik bada? Edo, esan nahiko zenukeen zerbait? Ikusi duzun hutsuneren bat? Zerbait esan nahi zenuen eta ez dizugu biderik eman?

Ez, ez. Esan beharreko dena, azkenean, iruditzen zait beti gauza beraren inguruan ibili garela nahiz eta galderak ezberdinak izan, baina, nik uste adierazi dugula benetan emakumeen pilota nola dagoen eta egoera zein den, eta, gero, bada neuk bizi izan dudana. Ez zait iruditzen zehazki egiteko galderarik falta denik.

2. ELKARRIZKETA

Elkarrizketa data: 2011-04-26

Lekua eta ordua: 15:30, Azkoitia, bere etxea

Aurreko elkarrizketan galdetu ez genizkizun galderatxo batzuk dira. Badakizu, nola guk espiak izaten ditugun alde guztietan, eta jakin dugu bolada baterako pilota edo pala utzi beharrean zaudela. Orduan, galdetu nahi dizugu zergatik utziko duzun.

Beno, bada, ama izan behar dudalako. Bada, horixe, horrek lagatzea eskatuko dit. Gainera, irailean edukita, pixka batean behintzat ezingo dut jokatu eta gero ikusiko dugu berriz ere martxa nola hartu edo zer egin.

Hori zen bigarren galdera. Esan zenuen gustatzen zitzaizulako eta giroagatik-eta zenbiltzala palan aurreko hartan. Zuk uste duzu horrek edukiko duela indarririk berriz bueltatzeko? Edo, bueltatzeko asmorik baduzu?

Niretzako indar gehiena horrek edukiko du. Nik irailean umea edukitzen dudanean, nik garbi daukat nahiz eta pilotan ez jokatu frontoira partiduak ikustera joatea nahi dudala, bada, giro hori ez galtzeko eta. Gero, berriz ere bueltatzeko niretzako hori, giro hori batik bat bueltatzeko. Ez naiz bueltatuko partidu batzuk irabazi nahi ditudalako eta ez

dakit zer, zeren eta, gainera, gaizkiago egongo naiz fisikoki. Baina, giroa eta han sortzen den lagunarte hori mantentzeko. Nik hori behintzat nahi dut mantentzea. Bai.

Bueltatzeko asmotan, orduan?

Bai, bai, bai, bai.

Eta, pentsatzen jarri zara, uzten duzunean esan duzu ikustera behintzat joango zarela, zer lotura gehiago edukiko duzun pilotarekin? Segituko duzu, adibidez, elkarteko ardurarekin.

Hori ikusi egin beharko dugu. Elkartekoa, ez dakit. Orain, gainera, beno, hor aldaketa dezente etorriko dira, beno, aldaketa dezente, jubenilak jada ez dira jubenil izango, unibertsitatean hasiko dira, hor beste etapa bat hasten da, unibertsitatean hasten direnean ere gehienak kanpora doaz ikastera, ez dakit entrenatzeko asmorik edukiko duten, horrekin lotuta ez dakit segitzeko asmorik edukiko duten eta gauza asko izango dira. Nik elkarte laguntzeko eta zera horretan ez daukat, gauzak eramateko, orain eramaten ditudan bezala, ezta? Beno, bada, nik uste jubenilak ez dakit. Oraindik beraiekin ez dut hitz egin, baina, ez dakit hurrengo urtean jarraitzeko asmo hori izango duten.

Oso ondo. Esan duzu ez dakizula utziko duten edo ez duten. Hurrengo galdera da zergatik uste duzun hasten dela pilotan neska bat.

Nik uste dut pilotan hasten dela neska bat, bada, beno, horiek behintzat hasi ziren eskolarretatik, gustuko dutelako, probatzen dute eta gustura ibiltzen direlako. Nik hauek uste dut gustura dabiltzala. Hala ere, nik uste dut beldur bat daukatela jubeniletatik beste salto bat dago hor, jada dela parejak federazioak egiten ditu, zeinekin pareja, askoz ere nibel txikiagoa daukatela ikusten dute nahiz eta hori ez den askotan zera izaten, baina, nibel txikiagoa daukatela ikusten dute. Gero, askotan oztopoa izaten, ez dakit oztopoa den, batzuetan aitzakia jartzen dute, baina, noski, zu Donostiara joaten bazara eta etxera bueltan etortzen bazara astean behin edo bi aldiz entrenatzea ez zaizu batere kostatzen, baina, Gasteizera joaten baldin bazara jada dezente urruntzen zara, beste gauza asko daukazu buruan, eta, orduan, niri alde horretatik, bada... Zu Gasteizera joaten bazara, bada, bai, erraz esaten da “bakarrik joan frontoira”, baina, bakarrik joate hori uste dut geuri ere ez zaigula irteten eta jende askori ez zaiola irteten. Orduan, zu baldin bazaude astelehenero Azpeitian geratuta eta Azpeitian baldin bazaude errazagoa da joatea Gasteizen baino. Baina, nik, bestela, uste dut hasten direla gustatzen zaielako eta, beno, batzuetan, bada, eskolan erakutsi dietela eta aukera hori ematen dietelako hasteko, baina, bai. Bestela, nik uste, partidu gehienak galdu dituzte, beraiek lehengoan esaten zidaten “zu lasai, gu ohituta gaude galtzen”, baina, beraiek gustura dabilta eta gustura dabiltzan bitartean igual zaiela.

Eta, uste duzu, azkenean, hiru hauen kasuaz aparte, besteek ere gustatzen zaielako hasten direla?

Bai, niretzako bai. Bai, bai. Gaur egunean... Ea, igual Hernanin eta oraindik eta ohitura gehiago dago neskak pilotan ikusten dira, eta, orduan, bada, joe, baina, nik, behintzat, Azpeitian eta ikusten da gustatzen zaielako ibiltzen direla. Bai, gero etapa ezberdinak dira igual, ezta? Askotan eskolarretan jokatu edo federatu bezala jokatu ez da berdina, zeren eta eskolarretan jokatzen duzunean ez daukazu hainbeste erantzukizun, baina, jada

federatuta hasten zarenean, partiduak kanpoan, etxean, kanpoan, etxean,... horrek ere pixka bat nazkatu egiten ditu. Gauza asko daude, baina, beno, nik uste dut benetan gustatzen zaionak segitu egiten duela trabarik ez daukan bitartean. Orain, gero ia urtebete jardun baduzu eta ez baduzu gogoarekin jokatu, bada, hurrengo urtean laga egiten dutela, baina, antzematen zaie hiru hauei behintzat gogoarekin ibili direla, bai.

Esan duzu uzten dutela. Zergatik iruditzen zaizu uzten duela jendeak pala? Edo, ez duela aukeratzen? Arrazoiak diferenteak izan litezke?

Beno, nire ustez oso diferenteak. Ez aukeratzea, gaur egunean, nire ustez, beno, bada, palako aukera hor dago, baina, garai bat ailegatzen da. Azkenean, eskolarretan zabiltzanean, pala, futbola, nik nire iloba ikusten dut, ez dakit zer. Egunero gauza bat daukate, eta, beno, batera egiten dituzu, baina, garai bat ailegatzen da jada ikasketak eta gauza batzuk moldatu behar dituzuna. Orduan, gauza batzuk lagatzen joan behar duzu eta beste batzuk hartzen joan behar duzu. Hortaz, zer pasatzen da palan nire ustez? Azpeiti inguruan ari naiz, eh, Hernanin igual errazagoa izango da segitzea palaz. Bale, nik palaz nahi dut segitzea, baina, nire aldamenekoak nahi baldin badu futboleak eta saskibaloian segi eta ni palaz bakarrik neu baldin banago, niri ez dit horrek jarraitzeko aukerarik ematen. Nik bakarrik entrenatu behar dut, nik bakarrik ez dakit zer egin behar dudana... Gero, ezin dut nire elkarteak ordezkatu. Horrek gauza asko zeratzen dizkit, ezta? Hortaz, zer da? Azkenerako beste kirolak sartuta daudela, gehiago bideratuta, edo ezagunagoak dira, eta alderdi horretatik doala. Eta, horixe, horregatik ikusten dut. Bestela, bada, gustatuz gero hor segitzen duzula. Orain, laga? Bada, horixe, laga gauza askorengatik. Behin hasi eta gero batzuk egia esanda nazkatu egiten direlako, hori ere pasa liteke, eta gero, beno, edadeak ere izaten dira batzuetan, segun zein edadetan, lagatzeko ere izaten dira edadeak. Joe, ez dakit, bada, nik hauen kasuan ikusten dut laga dezaketela kanpora doazelako ikastera, eta errazago da lagatzea zeren eta kanpora zoaz, eta, beno. Igual gero ikasketak bukatutakoan berriz ere bueltatu egingo dira, zeren eta geu ere berandu hasitakoak gara. Beraz, horrek ez du batak bestea kentzen, baina, laga ez dakit. Ez disgustura daudelako edo horrela. Bai, lehenago lagako duzu, baina, behin iristen zarenean federatuta egon eta zera horietara, bada, ez dakit. Ez zait iruditzen, behintzat, etxean esan dietelako edo, ez dakit, jada futbolera doazelako, zeren eta ez zait iruditzen 18 urterekin beste kirol bat aukeratzen hasiko direnik. Edo izango dira ikasketak edo beste zer edo zerk eraginda.

Oso ondo. Nik bukatu ditut galderak.

Ah, joño! Gaurkoa motza izan da. Gaurkoa motza izan da.

Betikoa, zer edo zer esan nahi baduzu edo belarritik tira egin hau da momentua.

Ez, ez, lasai, ondo dago, ondo dago.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-05-04

Lekua eta ordua: Azkoitia, bere etxea, 18:30

Izen-abizenak: Olaia

Honi ofizialki erreplikarako aukera edo horrelako zer edo zer esaten zaio.

Replika? Nik replikarik ez daukat, eh. Kar, kar, kar.

Motz-motz. Egindako elkarrizketen etxeko lana egin eta ondorio batzuk edo ateratzeko galdera gutxi batzuk.

Etxeko lana egin dut, eh. Bale.

Lehenengo, ea zer iruditu zaizun elkarrizketa, zer inpresio egin dizun

Ondo, ondo dago. Askotan iruditu zait, beno, ez dakit askotan hitz egiten hasten gara eta galdera askori erantzun berdina ematen diegula, baina, bestela... Azkenean, gero baita ere gauza berdinari bueltaka ari zara, ezta? Orduan, bada, beno, baina, bestela, ondo dagoela iruditzen zait.

Oso ondo. Bigarrena da ea ados zauden, elkarrizketan hor jartzen duena ea zuk esandakoa den, ados zauden eta ea baieztatzen duzun esandakoa edo zer edo zer aldatu nahiko zenukeen. Zerbait aldatzea nahi baduzu, edo zer edo zer bereziki aztertzea nahi duzun. Orain da momentua, badakizu.

Ez, ez, ondo dago, ondo dago. Ez, ez, ondo dago, ondo dago.

Eta hirugarrena da ea elkarrizketak egin genituen garaitik okurritu zaizun beste zerbait esateko edo gehitu nahiko zenukeen zer edo zer ba al dagoen. Esan gabe gelditu zena eta esan nahiko zenukeenik.

Nik uste hor, azken finean, beno, emakumeen pilota arloa galdera horiekin ondo aztertuta geratu zela eta niri horrela beste erantzunik ez zait okurritzen esateko. Erantzunik edo komentariorik, zeren eta nik uste dut, behintzat, mundu hori ondo komentatuta geratu zela. Ez zait iruditzen beste ezer dagoenik, nire partetik behintzat.

Oso ondo, horixe zen dena. Eskerrik asko.

LANDA EGUNEROKOA

1.elkarrizketan

- Elkarrizketan nolabaiteko ziurgabetasun puntu bat ageri zuen hasieran. Elkarrizketak aurrera egin ahala lasaitzen joan zen ustea daukat.
- Oso adeitsua eta prestua izan zen.

2.elkarrizketan

- Gustura egon zen eta motza egin zitzaion. Galdera gehiago espero zituen.

Berrikustean

- Konforme zegoen esanikoekin eta gustura antzematen zen. Elkarrizketa gustura irakurri zuela zioen. Eroso egon zen, patxadan sofán jarrita.

Elkarrizketa data: 2011-11-28

Lekua eta ordua: Urretxuko kultur etxea, 17:30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Itziar

Adina: 33 urte

Jaioterria: Soraluze

Bizilekua: Soraluze

Pilota elkarte: Usurbilgo P. E.

Galdera orokorrak (hurbilketa)

Ikasketak: Heziketa Bereziko Magisteritza

Lanbidea: irakaslea

Kirolari begira, pixka bat gerturatzen hasteko, zu gogoratzen zara noiztik datorkizun kirola egiteko gogo edo interesa?

Nik uste dut kirola beti egin dudala. Txiki-txikitatik izan naiz oso, bai, aktiba mundu horretan. Nik beti esaten dut kirola, igual, “kirolzalea edo zara?” Niri ez zait gustatzen esatea kirolaria naizenik, ez? Ni beti ibiltzen naiz probatzen denetik eta gero ez naiz zentratzen ezertan, horrela, kirolaria esateko. Baina, bai, kirola edo, behintzat, aktibitatearen bat betidanik egin izan dut. Bai istripu aurretik, eta, bai, gero ere bai.

Eta, zer kirol egiten zenituen?

Lehen edo orain, edo nola? Kirola esateko ... Lehen esan dizut kirolaria ez nintzela, baina.

Jarduera fisikoa deituko diogu, orduan.

Bai, hori da, bale, ez zait gustatzen larregi, egia esan. Ba, gustatzen zitzaidan mendian ibiltzea, asko. Hori bai. Orduan, pixka bat hasita horrela, e, inguruko mendietan eta gero ba Pirinioetara eta tipiko hor, horrela. Eta, bestela, horrela, kirola, ba hori, igerian pixka bat, korrika beste pixka bat, bada, beno, horrela denetik pixkatxo bat, ez dakit.

Eta, lehiaketan edo probatu zenuen? Lehen esan didazu “ez nintzen inon zentratu”. Probatu zenuen, nik zer dakit, mendira lehiatzen, adibidez?

Lehenago, ez. Lehiaketetan eta ez nintzen ibiltzen. Gainera, ez zait gustatzen. Nahiago dut nire bolara ibiltzea kirola egiten. Eta, gero, bada, nola denetik pixka bat probatu nuen, ba, istripua eduki nuen eskalatzen. Eskalatzen gehiago ibiltzen ziren lagunak eta, igual gehiago zentratzen ziren, eta, orduan ni joaten nintzen, bada, “benga, bazatzo eskalatzeraz?” eta bai, horrela, egun pasa eta horrela tokatu zitzaidan istripua izatea.

Istripuz gelditu zinen aulkian?

Bai, eskalatzen nengoela harriak etorri zitzaizkidan gainera, “desprendimiento” bat edo.

Eta, aspaldi?

Bai, bada, 19 urterekin, dela 14 urte. Eta, orduan, esan dizudan bezala, egiten nuen kirola, baina, nire bolara, denetik pixka bat, baina, lehiaketetan eta ez. Eta, gero, bada, istripua eta gero, ba, klaro, orduan bai gelditu nintzela pixka bat “eta orain zer, ez?”. Eta, beno, orduan, hasieran probatu nuen eskia. Nik lehen sekula ez neukan eskiatuta, baina, beno, bada, mutil lagunarekin eta horrela eta, beno, elkarte bat ezagutu nuen Donostian, Kemen, dela elbarrituen kirol elkarte bat eta hori, ba, han eskaintzen dizkizute aukerak, “probatu hemendik, probatu handik”, eta esan nuen, “beno, bada, goazen probatzera eskiatzea, ea zer den”. Laguna eta biok sekula eskiatzeke eta han, bada, han uzten zizkizuten bai aulkia, kurtsiloak ere ematen zizkizuten eta, orduan, aukera zeneukan. Eta horrela hasi nintzen pixka bat eskiatzen, ikasi nuen eskiatzen eta hor bai ibili nintzela lehiatzen edo, beno, hasi nintzen, bai. Aukera ematen zizuten, urtero egiten ziren Espainiako Txapelketak eta, ba, hori, aukera ematen zuten, ez balde zenez eta aukera zegoenez, ba, hori, pare bat urtetan edo joan nintzen. Eta, justu, ikasi nuen eskiatzen orduan, apuntatu txapelketan eta txapelduna atera nuen. Baina, hori, zen pixka bat kasualitatez ere bai, zeren eta hiru neska ginen bakarrik, esaten dizut.

Baina, bazineten.

Bai, zer edo zer bai. Horrela berez aukera bat egon zen egiteko mutilak eta neskak. Orduan, mutilak igual ziren hogeiko talde bat.

Bereizita, behintzat.

Bai, uste dut lehenengo aldiz egiten zela, gainera. Ginen hiru emakume.

Eta, zer egiten zenuten? Slaloma, edo? Ez naiz ni oso eski aditua, e.

Bai, slaloma, “gigantea”, bai, ez naiz gogoratzen orain. Ez, ni ere ez pentsa. Ni sekula egiteke nengo eta hori, orduan pixka bat hori. Gero, bizikleta ere probatu dut, “hand-bike-a” eta ... Eskia, hand-bike-a, eta gero saskibaloia ere probatu nuen aulkian, Bartzelonan egon nintzen ospitale batean, han egiten zuten kirola ere eta han ere probatzen genuen denetik, baina, oso frustratuta bukatu nuen, zeren eta ez nintzen iristen saskira. Orduan, ez dut gehiago egin.

Zer zegoen, oso goian?

Ez, berdin, zuen berdin, altuera berdina da, ez dakit zenbat den. Baina, noski, istripuaren ondoren abdominalak ere galtzen dituzu eta, beno, nik uste dut praktika kontua izango dela, baina, ni frustratu egin nintzen eta esan nuen “hau ez da niretzako”. Tenisa ere gustatu zitzaidan.

Kirol asko probatu zenituen?

Bai, probatu bai, bai. Eta, gero, behin agertu zen, zerean, *Garan* uste dut izan zela, palako erreportaje bat eta esan nuen “ostra, palan ere jolasten da gorpildun aulkian? Eta, bada, probatu egin behar dut”. Eta, horrela, ikusi hauek, Iñigo eta jende hau agertu zen elkarrizketan, Usurbilen, Zubietan, esan nuen, “buff, oso urruti”. Gainera, joan nintzen, zuk pentsa, e, Zubieta Nafarroara lehenengo aldian. Handik bueltan, han ikusi nuen ez zela, Zubietara heldu eta barre ederrak egin zituzten lehenengo egunean nirearekin.

Orduan bai joan zinela urruti, ostra!

Bai.

Eta ikusi zenuenean Zubietan Nafarroan ez zela, “Gipuzkoakora joan egingo naiz hala ere” esan zenuen eta buelta hori dena emanda ere konbentzimendua bazeneukan.

Bai. Ni, gainera, palan, beti. Beno, palan frontoian sekula ez dut jolastu, baina, txikitan, gurasoekin hondartzan eta asko ibilitakoa nintzen palan eta gustatzen zitzaidan.

Frontoian ibilitakoa zinen aurretik?

Ez, frontoian ez. Hondartzan eta horrela bai, palan, ez dakit, gustatzen zitzaidan. Eta, hori, probatu nuen hauekin eta esan nuen, “ba, zergatik ez?”

Eta, noiz hasi zinen palan?

Aurten hirugarren denboraldia uste dut dela. Hiru urte uste dut, ez dakit seguru, e, baina, bai, gutxi gorabehera.

Eta, zuk erabaki zenuenean, bada, esan duzu, ikusi zenuenean erreportajea eta esan zenuenean “palan hasi behar dut”, zergatik hasi zinen? Badaukazu arrazoi bat esateko “hasi egingo naiz?” Akordatzen zara arrazoiren batekin?

Bada, nik uste dut gehienbat kuriositatea izan zela, ez? Ostra, ez nuen sekula pentsatuko palan ere aukera zegoenik egiteko. Igual telebistan-eta gehiago ikusten da saskibaloia edo eskiatu edo, eta, zen, “ui!” Pixka bat kuriositatea eta gero, ba, pala gustatzen zaidalako lehenagotik. Gutxienez probatzearen ere bai, kuriositate puntu hori eta gero esan nuen “beno, ba, gustatzen bazait jarraituko dut eta ez bazait gustatzen, ba, utziko dut”.

Eta, jarraitu egiten duzu.

Bai, orain, momentuz, bai, bai. Eta, gero, nik uste izaten dela, halakoetan, beste arrazoi bat, pixka bat, jendea ezagutzearren ere bai. Nire kasuan, behintzat, zure moduko egoeran dagoen jendearekin egon pixka bat eta hori.

Eta arrazoi nagusiak jarraitzeko ere, orduan? Suposatzen dut jende horrek izango duela zerikusia.

Bai, bai, beno. Aukera bat dela, ez, zeren eta hemen inguruan ere ez dago besterik eta, bai, aukera bat da pixka bat kirola egiteko eta mantentzeko zure gorputza ere. Bai.

Esan duzu, lehen, adibidez, bikoteak eduki zuela eragina eskiatzerakoan. Beste norbaitek izan zuen eraginik zu palara bultzatzeko kasu honetan, adibidez? Hautaketarako orduan.

Ez. Igual, bada, artikulua ez dakit ez ote zidan lagunen batek edo pasatu. Nik, nik erabaki nuen.

Erraz hartu zenuen erabakia esateko “probatu egingo dut?”

Bai, bai.

Eta, zure ingurukoek zer iritzi daukate orain zu palan ibiltzearen inguruan? Lagunek edo senitartekoek edo.

Nik uste dut ondo hartzen dutela, gainera, animatzen naute jarraitzera, ez dakit, partiduak dauzkadanean ere noizean behin etortzen dira horrela ikustera eta horrek azkenean ere poza ematen dizu, edo, beno, jarraitzeko gogo.

Esan duzu lehen, adibidez, umetan ibiltzen zinela pilotan edo, iritzi ezberdinik nabaritzen zenuen? Esan duzu asko ez zinela ibiltzen, baina, beno, kiroletan ibiltzen zinenean ume garaian antzematen zenuen neska izateagatik ezberdintasunik, adibidez, kasu batzuetan, jendearen jarreran edo erreakzioetan? Gizartearen presioa edo esaten zaion hori.

Hombre, nik uste dut baietz, ez? Aukerak, hasteko, ez dira berdinak, ez? Nik uste dut gu hasi ginela pixka bat, ah, futbolean ere ibiltzen ginen, futbitoan, neska koadrilatxo bat. Gelako ikasleak-eta ibili ginen urte dezente. Nik uste dut aukerak txikitatik ez direla berdinak mutilentzako edo neskentzako, ez? Mutila bazara segituan daukazu, “daukazu futbola, daukazu pilota, ...” eta zu neska izanda, bada, pixka bat nahi baduzu kirola egitea zu mugitu behar zara. Azkenean, ez daukazu hainbeste aukera, edo ez dira aurkezten, behintzat. Adibidez, guk, futbitoan ibiltzen ginen eta, gero, pixka bat nahi izan genuen, lagun baten aita zen entrenatzailea eta horrela futbolean, eta pixka bat harekin eta saiatu ginen herriko taldea ateratzen, herriko futbol zelaian entrenatu ahal izateko, eta, beno, ba, ezetza jaso genuen. Orduan, aukerak sekula ez dira berdinak, ez, neska izanda edo mutila izanda.

Eta, arrazoia zen neskak zinetela?

Bai, ez dut oso ondo gogoratzen, baina, ezetza jaso genuen eta, gaur egun, gogoratzen dut aurreko urteren batean lortu zutela ekipoa egitea, baina, gero, kristoren jaleoak izan zituzten zuzendaritzarekin. Azkenean, beti mutilei lehentasuna ematen zitzaien eta orduan nazkatuta laga egin zuten. Aurten uste dut berriro neska talderen bat edo sartu dela, baina, gurasoen presioarekin eta, orduan, beti, ez dakit, pixkatxo bat hori, horrela.

Eta, zuk, adibidez, kasu honetan, zu zara neska bakarra, momentuz, palan zabiltzatenetan. Nabaritzen duzu diferentziarik? Bai kanpotik, bai jardueran zehar, bai ikustera joaten den jendearen aldetik, ...

Buff, bai, bai, bai. Bai, gainera hori neukan esateko gogo. Tratu ezberdintasunik igarri ez dudan bakarra Mikel izan da. Beno, ez dakit izena esan edo ez. Bai, ez? Nik beragandik ez dut igarri. Nik argi daukat mutilen talde batean egonda eta ni neska izanda, e, ahalmen aldetik eta ni gutxiago naizela. Hori argi daukat, baina, mutilak direlako horrelakoak fisikoki eta gu horrelakoak garelako, ezberdinak garelako. Baina, gero, tratuan, igartzen da. Besteen aldetik zenbat broma. Ia egunero, ia egunero, baina, beno, beraiek bromak edo komentario sinpleak egiten dituzte, baina, ni nago ya honaino entzuteaz egunero-egunero “beno, ba, zu joan behar zara pilota jo eta 8. koadrora. Itziar

7ra eta zu ...” Ez? Azkenean bakoitzaren ahalmenen arabera. Eta, “beno, eta non dago berdintasuna eta?” dagoeneko halakoekin kokoteraino nago.

Hori antzematen duzu kideengandik. Eta, kanpotik, ikustera joaten den jendea edo nabaritzen duzu edo komentariarik iritsi zaizu?

Bai, bai, kideengandik, pasada bat. Itxaron. Kideengandik hori eta beti jotzen dute babestera bezala edo esatera zer, nola egin behar dituzun gauzak. Eta, “aber, nik badakit nola egin behar ditudan gauzak, fallatu badut da fallatu egin dudalako, ez da ez dakidalako”. Halako gauzak bai ematen direla, beti. Beti daude prest esateko zerbait, edo nola egin behar duzun eta beste mutil bati ez. Hori igarri egiten da. Kanpotik, jendearen arabera, e, bai, nik uste dut igarri egiten dela, “aupa, neska!” edo beti dira animo gehiago zuretzako. Desberdin bai jokutzen dela. Edo, ya, neska eta gainera gurpildun aulkian egonda, oraindik daukazu diskriminaziorako puntu gehiago. Ba, bai, igual, aulkitik aulkira pasatu behar banaiz, beti, zeinengana etortzen dira lehenago laguntzera? Niregana. Ez dira joango mutil batengana laguntzera, eta nik berdin-berdin egin dezaket bakarrik edo igual mutilak behar du nik baino laguntza gehiago, baina, beti laguntza ematera niregana etortzen dira. Bai, halako gauzak ematen dira, ez dakit. Bai, igartzen da diferentzia, alde horretatik pila bat.

Eta, diferentzia hori nola bizi duzu zuk?

Ba, gaizki, gaizki bizi dut. Azkenean ohitu egiten zara, baina, jo, komentario horiek eta, uff, zaila da, eh. Gainera, hori, mutilen talde batean egonda eta zu neska bakarra izanda.

Eta, iruditzen zaizu neska gehiago egongo balira ezberdina izango litzatekeela, adibidez, egoera?

Nik uste dut baietz, eh, edo behintzat *apoyo* bat daukazu erantzuteko orduan. Batzuetan kokoteraino bukatzen duzu, benetan, eta beraiek ez dira konturatzen, gainera. Bota eta bota eta bota eta zu, uff!

Ez duzu probatu kontrakoa, zu azalpenak ematen hastea baten batek huts egiten duenean? Ba, hau horrela egingo bazenu, hau edo bestea.

Bai, igual ere bai, baina, igual ni nire jarreraz ez naiz horrelakoa. Ez dakit, bakoitzak egiten du ahal duena eta irteten zaion bezala, eta, orduan, bai, bai, baina nik uste dut neska talde batean egongo banintz desberdina izango litzatekeela. Ez zen izango hain nabarmena.

Hurrengo galderan, beno, nik uste dut biak egingo dizkizudala azkenean, ez neukan oso garbi nola jarri. Nola ikusten da emakumeen pilota jendartean? Zuk ezagutzen duzun horretan, behintzat.

Gizartean? Ba, uff, beno, nik asko ez dut ezagutzen, egia esan, zeren eta nire inguruan ere ez daukat emakume talderik palan edo pilotan egiten duena, baina, nik uste dut, orokorrean, beti ikusten delako 2. mailako zerbait bezala, ezta? “Ah, begira, neskek ere badakite egiten pilotan”. Pixka bat hortik, ezta? Nik uste dut jendeak eskertzen duela zerbait ezberdina ikustea ere, baina, bai, beti 2. mailako bezala edo, ez, ikusten dela.

Eta, berdina, pilota egokitua nola ikusten den jende artean.

Bai, bada oraindik ere 3. mailan igual edo 4.a, ez? Bai, ba, hori, kirola egiteko beste modu bat da, baina, bai, azkenean lehenengo maila edo maila zerean jarriko genituzke mutilak igual, gero igual neskak atzetik eta, gu, oraindik ere, ba, beste 3.maila batean. Eta, adibidez, Iñigok edo uste dut, gainera, komentatzen zuela elkarrizketa batean, “beno, zer, zuek kirol egokitan eta zer moduz?”, justu galdera berdina, eta “gu gara emakumeak bezala” esaten zuen, eta esan nuen nik “bai, eta, ni, emakumea eta, gainera, elbarritua, ez?”. Azkenean, beste diskriminazio puntu bat bezala da.

Pixka bat harremanen mundura joanda, beno, lehen hasi zara, nolako harremana daukazu beste pilotariekin? Zer moduz moldatzen zarete?

Beno, harremana, berez, ona da. Askotan “vacile” puntu hori ere bai, baina, nik gehienbat sumatzen dudana da diferentzia hori, mutila izan edo neska izan, asko markatzen dela. Berez, ba, azkenean, denok izan beharko genituzke aukera berdina edo trataera berdina, azkenean, neska edo mutil izan ez luke eduki beharko hainbesteko garrantzirik, baina, ez, sumatu egiten da.

Galdera potolo bat orain. Ea zein helburu, espektatiba edo nora iristeko asmotan hasi zinen zu pilotan. Zein ziren eta zein diren momentu honetan.

Bada, nik uste dut, gehienbat, hori, kirola egitea. Lehiaketa eta hori niri ez zaidanez gustatzen, hori ez da nire helburuetako bat. Orain hasi dira txapelketak eta pixka bat antolatzen, baina, nik uste dut modu bat gehiago dela ezagutaraztera emateko. Guk egin dezakegula kirola eta, ba, orduan, pixka bat hortik. Ez da txapelketa txapelketa bezala, pixka bat jendeak ikusteko.

Helburu ez izanda ere txapelketan bazabiltza, hala ere.

Bai, bai, orain antolatu dute txapelketatxo bat, beno, pixka bat partiduak edo, bai, eta jendeak ikusteko ere bai, azkenean. Hori, nire egoeran dagoen beste jende batekin egon ahal izateko eta gauzak konpartitzeko modu bat izatea eta, hori, palan ikastea jolasten ere bai. Ez daukat horrela helburu handirik edo, ez dakit.

Esan behar nizun olinpikoa izatea edo horrela, baina, hori pixka bat zaila izango da, ezta?

Ez zait gustatzen. Behin proposatu zidaten, eskiatzen proposatu zidaten, eta ezetz esan nuen. Gainera, palan ez dakit izango litzatekeen hainbeste, baina, eskiatzen, adibidez, oso, uff, lau urte prestatu behar nintzen hurrengo Olinpiadetarako, zirela Italian uste dut, gainera, hori da, nire kabuz, ez, baneukan talde tekniko bat, baina, dirua, denbora eta hori dena. Eta zen bada hori, hurrengo lau urteetarako zen, urtebete lehenago uste dut abisatu zidatela, Italiako Olinpiada batzuetarako, eta, uuh, ni beldurtu egin nintzen eta esan nuen, “keba, keba, hau ez da”. Nik, gainera, esan dizut, txapelketak eta zero, nik nahiago dut nire kabuz egin kirola eta, buff, hor beldurtu egin nintzen. Esan nuen, “ba, nik zer nahiago dut, ea, Itziar, pentsatu”. Azkenean, horrek eskatzen zidan lau urte horretara jartzea, azkenean, horrek suposatuko zuen lagunartea utzi, gainera, momentu horretan gazteagoa nintzen eta juergak ere gustatzen zitzaizkidan. Hala ere, ez zen juerga lagatzearren bakarrik, baina, zen lau urte hipotekatzea horretara edo esaten nuen

“nahiago duzu zure bizitza egin eta eskiatzera joan asteburuetan noizean behin?” eta bigarrena hautatu nuen. Orduan, horregatik esaten dizut nire helburua ez dela lehia. Orain, ez dut gaizki ikusten jendeak bide hori hartzea, baina, ni ez naiz.

Lehen hasi zara esaten emakumeen pilota 2.maila batean eta zuena 3. edo 4.maila batean ikusten duzula. Moduren bat bururutzen zaizu hori hobetzeko edo egoera ikusezin hori hobetzeko?

Azkenean, bada, egitea, ez? Gu hasi ginen txapelketak, adibidez, frontoietan eta, horrela, Atanon eta jolasten eta, azkenean, propaganda handirik ere ez genuen egiten, beno, dauzkazu daukazun bitartekoak, baina, bai, ez zen etortzen inor ere ikustera eta esaten duzu “zertarako jokatu nahi dugu hemen partidu bat ez badator inor ere ikustera, ez?” Orduan, azkenean, pixka bat izan ahal da kanpoko frontoietan egitea edo, bai, azkenean, jendeak ere txipa aldatzea. Beti gaude ohituta mutilen edo telebistako profesionalen kirolera eta, azkenean, bada, hori, jende guztiak egin ahal duela eta bultzada bat eman behar zaiola beste kirol mota horri ere. Ez dakit, nola, ba, eginez eta hori, bada, igual, kaleratuz eta gizarteratuz edo. Ez dakit.

Ondo. Eta, gero, zergatik iruditzen zaizu, adibidez, neska batek aukera dezakeela pilotan hastea, edo, ez duela aukeratzen? Esan nahi dut, zergatik erabakitzen du neska batek “ni joango naiz Urretxuko pilota eskolara eta emango dut izena Urretxuko pilota eskolan eta ez naiz joango futbolera, edo, ez naiz joango beste edozein kiroletara”. Zerk bultzada dezake kasu honetan neska bat erabaki hori hartzera? Ez dauka zertan pilota izan beharrik ere, kirola bera ere izan daiteke, goragoko mailara joanda. Gaur egungo ingelesa, solfeoa, dotrinak ez dakit jarraitzen duen, baina, hainbeste gauzaren artean eta, gero, hainbeste kirolen artean.

Ya, hainbeste gauzaren artean. Beno, nik uste dut, azkenean, zure preferentzia eta gustuen arabera, ez? Eeeh, bai, eduki egin behar duzula horretarako zer bat, predisposizio bat eta, ba, ez dakit, pala zergatik eta, ez dakit, gustuen arabera ere izango da, edo. Eee, ez dakit, bai, gero hori, ba, kirola egitea, igual, neskengan ez dago oso bultzatuta. Guk normalean beti, ba, hobeto musika edo hobeto egiten baduzu ez dakit zer eta bai, pixka bat hori bultzatzeko edo zer horrekin apurtzeko modu on bat da “kirola egitera noa, ba, zergatik ez, ez?” Gustatzen bazaizu, bai, beti topatuko zara oztopo gehiagorekin, hori seguru, baina, aukeratxoak irteten dira. Eta, gero, ba, bata edo bestea suposatzen dut zure gustuen arabera. Beno, ez dakit erantzun dudana.

Bai, bai, lasai, lasai. Azkenean iritziak ezagutzeko da, azken batean. Guk errazena egiten dugu, galdetu eta gero pilota zuen teilatuan.

Gero, esaten da eragileek zera guztietan eragiten dutela, arlo guztietan. Orduan, hasi nahi nuke galdetzen, nahi duzun bezala egingo dugu, emakumeekin eta egokituekin batera edo biak bereizita, irteten den bezala. Adibidez, hedabideek daukaten jarrera bultzatzeko edo hautaketa prozesu horretan eduki dezaketen eraginaz zer iritzi daukazun hedabide edo komunikabideez: irritiak, etab. Laguntzen al duten edo.

Beno, ba, askorik ez. Lehen esan dugun bezala, nik uste dut hedabideek beti jotzen dutela profesionalena, mutilena eta hori bultzatzera. Azkenean, igual, beraiek, eh, beno, bai, nik uste dut kontzienteki egiten dela, gero esango dizute “ah, ba, igual ez”, baina, bai, kontzienteki bultzatzen dela hori. Azkenean, hor dirua ere atzetik egongo da eta,

bai, ba, emakumeen kirola beti geratzen dela 2. maila batean eta ez zaiola ematen balore hori, profesionaltasunarena ere ez. Igual ezkutuan geratzen dela hor, errazago pasatzen da. Bai, nik uste dut hor hedabideek inportantzia handia daukatela bultzatzeko garaian.

Eta, adibidez, zuen kasuan ere bai, ala? Esan duzu orain txapelketatxo batzuk egiten ari direla eta hor ere hedabideak, azkenean, zer jarrera ari diren edukitzen.

Noski, azkenean nik uste dut gizarteratzeko modu bat izan ahal dela eta hedabideek bultzada handia eman ahal dizutela horretan, baina, ba, bai, beti geratzen da hor txokotxo batean. Egunkarietan ere lehenengo orria beti badakigu zeinentzat dagoen erreserbatuta. Gero, besteak hor txokotxo batean edo txikitxo edo “ba, azaltzen zarete, baina”. Bai, azkenean, anekdota bezala, nik uste dut geratzen dela eta ez zaiola ematen benetan daukan garrantzia, ez? Edo eduki beharko lukeena, daukana, azkenean.

Hortik segituz, erakundeekin, udalek eduki dezaketen jarrera, edo Diputazioak, edo hor Pilota Federazioa ere sartuko litzateke, adibidez.

Ba, erakundeen aldetik ere nik uste dut pixka bat berdin. Erakunde eta hedabide eta horiek nik uste dut instituzio denek pixka bat antzera jolasten dutela, ez? Ez dutela bultzatzen nahikoa edo.

Gero, hor, adibidez, Pilota Federazioak, zuen kasuan, eragina edukiko zuen txapelketa antolatzeke garaian.

Bai, ba, hombre, nik uste dut gure kasuan pilota federaziotik ari direla bultzatzen eta hor ahaleginak egiten pixka bat ezagutzera emateko eta guri ere aukerak ematen. Ba, hori, gure kasuan, adibidez, sillak eta, diru-laguntzak eta jasotzen dituzte eta hortik, aulkiak ere erosi dira federaziotik. Nik uste dut hor lan polita ari direla egiten. Orain, gero, nik pilotako federazioa eta horrela nik ez dut asko ezagutzen e, baina ...

Eta, gero, adibidez, udalek ematen dizuete laguntzarik? Adibidez, esan duzu orain txapelketa jokatu duzuela herri ezberdinetan. Hor eduki duzue laguntzarik?

Diru laguntzarik, ala, bestelakoa?

Bestelakoa, eta, beno, diru-laguntza ere zaku berean sartuta.

Beno, eskatu ere ez dugu egin udaletxera diru-laguntzarik, baina, ez, hor edukitzekotan federaziotik gure aulkiak eta. Eta, gero, beno, hor udalek, adibidez, laguntza frontoiak uzterako orduan eta hor, igual, bai eman dutela. Ni saiatu nintzen, beno, txapelketa honen helburua zen bakoitza garen herrietako frontoietan jolastea partidu bana. Eta, adibidez, neu joan nintzen eta, klaro, ni akordatu ere ez, “bai, Soraluzen, bai, jolastuko dugu”. Egon nintzen zinegotziarekin eta, “ya, baina, kiroldegirako eskailerak daude Itziar”, eta “ostra, ez naiz konturatu”. Ba, egon badago igogailua, baina, orain obretan ari dira, diru gabe gelditu dira, eta orduan ez zen plana sei-zazpi *kojo* juntatzen gara jolasteko eta ez dago egokituta frontoia, ba, esan nuen, “ez da plana”. Azkenean, hor bai lagundu zidatela, esan nuen “ba, orduan ea bailaran”, eta bai eman zidatela laguntza Antzuolan antolatzeke eta, beno, hor pixka bat portatu ziren. Udaletxearen bidez bideratu zuten eta, ba, posible izan zen Antzuolan jokatzea. Baina, beno, nik uste dut udalekin eta ere ezin dela eduki horrela konfiantza handirik, larregi bultzatuko dutenik

eta, kasu horretan bai, baina, beno. Hombre, eta nik uste dut gero, igual udaletxeak zerbait berria den heinean bai interesatzen direla pixka bat, baina, pixka bat gehixeago alde horretatik, ez, igual, beraiek daukatelako interes berezirik. Baina, beno, ez dakit.

Hirugarren eragile bezala pilota elkarteak dauzkagu jarrita. Zuen kasuan, adibidez, Usurbilgoa da elkartea. Beste elkarteetan ez dago pilotari elbarriturik.

Egia esan ez dakit, es que, nik dakidanez uste dut gu bakarrik garelako egiten dugunak pala gurpildun aulkian. Igual badago hor zehar. Gero, honek, Mikelek, bai komentatu zuela igual beste mutilen batek, Bergaran zegoenak, igual, nahi zuela han inguruan sortu, Debako bailaran, eta gero Gasteizen ere ari zirela zerbait sortzekotan, baina, uste dut gu garelako bakarrik.

Elkartearen aldetik jarrera ona da zuen kasuan?

Bai. Beno, guk eduki dugun harremana Mikelen bitartez da eta, orduan, baina, bai, ondo portatzen dira. Ez dakit. Beno, zer, kamisetak, gero zer, egia esan ez daukat ideia handirik, baina, bai, antolatzen dituztenean Usurbilen pala txapelketak eta horrela guri ere deitzen digute jolasteko eta eduki dugun harremana, nik uste dut, ona. Azkenean, bai direla modu bat, ba, laguntzeko bultzatzen eta pixka bat errazagoa da elkarte batean baldin bazaude bakoitza geure kontura baldin bagabiltza baino. Nik uste dut hor paper ona daukatela.

Eta, adibidez, pilotarion pilotarekiko jarreraz? Zuen suposatzen dut oso ona izango dela. Azkenean, zuek zarete hor jarduten duzuenak eta zuen jarrera.

Gure jarrera zerekiko? Ez dizut ulertzen.

Egoerarekiko edo, azkenean, pilotan jarduteko, gurpildun aulkian, zuen jarreraren gaineko iritzia ari nintzen eskatzen. Zer jarrera daukazuen jardueraren horrekiko.

Ah, palarekiko, pilotarekiko. Nik uste dut positiboa, bai. Horrela, gogoia behintzat jartzen diogula. Bai.

Eta, azkena izango litzateke ea zer iruditzen zaizun ikusleen jarrera. Lehen pixka bat galdetu dizut. Eragiten ote duten jardueraren horretan edo.

Bai, beno, ba, nik uste dut ikusleen jarrera ere inportantea dela. Azkenean, beraiek ere, etortzen diren gutxiak, nik uste dut jarrera ona daukatela. Ba, hori, geratzen dira pixka bat flipatuta, “ostra, hauek ze makinak, hor, gurpildun aulkian jolasten”. Gero, ni emakume bezala “gurpildun aukian neska ere bai”, baina, bai, azkenean, horrelako zerbait bultzatzeko, ikusleak ez badaude pixka bat geratzen da hutsik bezala edo, ez dakit. Guk gure artean jolastu ahal dugu, baina, nahi badugu pixka bat kanpora atera eta jendeak ezagutzea ere beraien jarrera ere inportantea dela. Ez dakit.

Ondo, ondo. Dimentsio soziala zen orain artekoa, ikuspegi soziala. Orain, kulturarekin gehiago lotuta, iruditzen zaizu, pilota aukeratzeko garaian, esan duzu, Sorraluze inguruan ez dago asko edo, ba, herrian jaiotzeak edo hirian jaiotzeak eragin dezakeela? Ez dakit, Urretxun, Donostian edo Usurbilen jaiotzeak.

Bai, nik uste dut baietz. Inguruan zer bizi duzun eta zer bultzatzen den gehiago, azkenean, ba, zuk txikitatik, edo gerora ere, aukeratuko duzun kirolean edo bai, eduki dezake zerikusia. Adibidez, nik, Usurbil gehiago ikusten dut horrela, ba, herri kirol horretatik gehiago, ez, eta igual, ba, hiriburu batean edo futbola edo tenisa igual aukeratzeko aukera gehiago edo daukazula. Ikusten duzunaren arabera ere bai, ez?

Tradizioa, edo esaten da, herri kirol kutsua edo, esaten da pilota bera “gure” kirola dela. Ea iruditzen zaizun horrek eragina daukala aukeratzeko garaian. Ez dut hartuko futbola, zeren eta ni euskalduna naiz, kasta gogorrekoa, eta ... Eragin dezakeela edo eragin zezakeela iruditzen zaizu?

Bai, nik uste dut baietz.

Zuk aukera edukiko bazenu, igual hanka sartze bat egitera noa, baina, imajinatu aukeran daukazula, esan duzu saskibaloia ez zitzaizula gustatu, ba, tenisa, pilota eta beste zenbait kirol “gure” izeneko zakuan izango ez genituzkeenak. Iruditzen zaizu kulturak edo tradizioak eragingo lukeela aukeratzeko garaian?

Ez dakit. Nik uste dut, ba, igual bai, e. Segun zer bizi duzun inguru horretan, eragin diezazukeela bata edo bestea hartu, baina, ez dakit. Gero, adibidez, nik eskia eta tenisa eta, bai, igual ondo daude probatzeko eta horrela, baina, gero horiek, azkenean, e, eragiten dizu, beste nibel bat daukate tenisak eta eskiak, azkenean, dirua behar duzu kirol hori praktikatzeko eta bestea errazagoa da. Pala bat eta pilota batekin ere errazago egiten duzu, baina, bai, tradizioak, beno, ez dakit nire kasuan horrek eduki duen eraginik, ez dakit. Zonaldeka da, zonaldeka pisu gehiago eduki dezake tradizioak, edo ez.

Eta, hirugarrena da ea ikasketa mailak, ezagutza mailak, eraginik eduki dezakeen hautaketa prozesu horretan pilotako aukeraketa egiteko.

Ikasketa mailak?

Ikasketa edo ezagutza mailak, gurasoen ikasketa mailak edo ezagutzak. Ez dut esan nahi den diplomatua edo ...

Ya. Hombre, ikasketa mailak, igual, maila ekonomikoak eragin diezazuke. Segun zer maila ekonomikotakoa zaren, ez daukala zertan, baina, batzuetan, egon ahal da zerikusia ikasketa mailarekin eta horrela. Bai bultza dezaketela kirol bat egitera edo bestea egitera, baina, ez dakit zer esan.

Azken batean hortik zihoan galdera, gurasoek eduki dezaketan eragina hautatzeko orduan. Ezagutza esan nahi dut, kasu honetan, adibidez, gurasoak baldin badaki bere alabak pilotan egin dezan, edo ez baldin badaki, edo gurasoak baldin badauka ohitura, herri kirol horietarako joera, edo baldin badauka, nik zer dakit, kriketa edo zaldi karreretakoa.

Bai, hori da. Ya, baina, hori, azken batean, joaten da maila ekonomikoarekin ere lotuta, ezagutza edo. Bai, bai, edukiko du, e, zerikusia, nik uste. Segun zer aspirazio daukaten gurasoek ere edo zer, ez?

Profesionalak izatea nahi badute alabak eta hortik bizitzea, mmm, generazio batzuk pasa beharko dira. Ez dakit iritsiko ote diren egoera horretara.

Bai? Ya, bai, uff, neskak profesionalak izatetik bizitzera nik uste dut gutxi helduko direla. Nik uste dut gurasoek, igual, kirol aldetik, mutila bazara gehiago bideratzen dituztela neskak baino, eta aspirazio gehiago dituzte, “ea nire semea ateratzen den futbolari”. Baina, bai, neskekin normalean ez dute edukitzen horrelakorik eta palan gutxiago, nik uste, “ea palatik bideratzen dudana nire etorkizuna”.

Lehiaketaz edo galdetzeko, esan duzu ez zarela lehiaketa zalea, baina, zer iruditzen zaizu jokatzeko ari zareten txapelketa honetan bikoteak osatzeko modua eta egutegia eta horrela? Azken batean, zuek sistema berri bat erabili duzue, astero-astero bikotez aldatzen aritu zarete.

Bai, beno, nik ez dut asko ulertzen nola egiten diren bikoteak ere, baina, nik daukadan inpresioa, gure txapelketarena, ona da. Nik uste dut ondo. Gero, gainera, gure taldean pasatzen dena da aurrelari eta atzelari jokatzeko dugun artean maila desberdina dagoela. Diferentzia asko dago, orduan, gure artean, bai. Orduan, nik uste dut ez balira horrela egin taldeak asko desberdindu zela. Egin dugu aurrelari bat eta atzelari bat eta aldatzen, astero-astero. Finkoak diren taldeak aurrelari eta atzelarienak dira eta, orduan, besteak goaz errotatzen. Orduan, nik uste dut hartu duten erabakia onena zela, zeren eta bestela egongo zen diferentzia izango zela oraindik eta handiagoa.

Eta, antzeman dituzue zuek diferentziak segun zeinekin jokatu?

Bai, igartzen da. Gure artean pasatzen da segun zer lesio daukazu igarri egiten dela dena, ba, aulkiari emateko orduan, mugitzeko orduan, asko igartzen da segun zer lesio daukazu, bai. Badaude lesio ezberdinak eta orduan igarri egiten da. Segun eta zer altueratan daukazu lesioa, ba, daukazu erraztasun gehiago. Gauza gehiago ere sartzen dira jokoan, ea kirola egin duzun zure bizitzan eta, baina, bai, lesioak ere kontatuko du.

Nolako entrenamenduak egiten duzue zuek? Badakit partiduak 25era jokatzeko dituzuela eta hortik aurrera ez dakit askoz gehiago, e.

Ba, egiten ditugu hasieran beroketak, batzuetan saltatu egiten ditugu, baina, ez, berez, Ibonek, gainera, ekartzen dizkigu prestatuta. Beroketak, kasu honetan Ibonek, Mikelek ere bai, baina. Beroketak, gorputz atalak berotu eta horrela, gero sillako ibilbideekin ere berotu eta gero luzaketak ere bai. Pixka bat berotu eta luzatu eta gero ya hasten gara palarekin, pilotarekin pixka bat berotzen. Hor joko ezberdinak egiten ditugu, edo kaleketan edo frontisean jo eta gero atzeko paretan bi baldin badaude. Hori pixka bat berotze aldera eta gero ya ariketak-eta ipintzen dizkigute: ba, txokoan dejadak, edo zabalera, edo sakea eta erretoa, ... Bai, hori da, gaiztakeria pila bat: koadro honetan sartu eta, benga, orain atzera korrika. Ez dugu egiten bakarrik pala, pixka bat aulkiarekin mugimenduak landu ere bai, zig-zag-ak ipintzen dizkigute edo dena delakoa edo, beno, pixka bat hori, dela palarekin pilota jotzeko ariketa ezberdinak eta aulkia mugitzeko ariketa ezberdinak ere bai. Ariketa ezberdinak eta gero ya bukaeran izaten da, ba, partiduak binaka edo. Eta, gero, partiduak ere jartzen dizkigute normal edo kontsignaren batekin edo, ba, segun.

Eta, zenbat denborako entrenamenduak egiten dituzue? Astean behin?

Ba, bi ordu, astean behin.

Eta, erabiltzen duzuen materiala da, egokitutako aulkiak, noski, eta, gero erabiltzen dituzuen palak-eta nolakoak dira?

Bai, hori bai. Palak arinagoak dira, finagoak. Orain bi pala mota dauzkagu, baina, beno, biak dira arinagoak normalak baino eta gero gomazko pilota, baina ez dut uste denik ...

Frontenisekoa baino motelagoa da, ala?

Bai, ni ez naiz asko akklaritzen zer pilota mota dauden, baina, bai.

Mollepelle esaten zaion hori, uste dut Frantziatik datorrela. Gainera, kolorea ere ikaragarri ona ikusteko, ezta?

Bai, bai, bai, kar-kar. Eta, gero hor ibili ziren, beste pilota mota bat ekarri zuten, baina, horrek asko botatzen zuen eta ia jokoa ere aldatu egiten da segun zer pilota ipintzen duzun. Momentuz horrekin gabiltza.

Antzeman zenuten, adibidez, pilotaren aldaketa hori?

Bai, bai, bai, es que hor ekarri zuten beste bat eta izugarritzko botea zeukan eta orduan jolastu behar zinen ez dakit zenbat koadro atzerago, askotan pilota gainetik pasatzen zitzaizun eta ipintzen bazara bote batera ere, bai, aldatzen da. Aldatzen baduzu pilota aldatzen da jokoa eta.

Eta, gustatzen zaizkizu eduki dituzuen lehiaketa, entrenamenduak eta materiala? Egokituta dagoela iruditzen zaizu? Zuk nolakoak nahiko zenituzke?

Entrenamenduak? Niri gustatzen zaizkit. Hasieran, adibidez, beroketarik eta ez genuen egiten eta nik eskertzen dut pixkatxo bat, bestela hasten zara hotzean eta, azkenean, lesioak edo zer edo zer egiteko ere errazagoa da. Beroketa eta gero jolasekin eta, es que, gainera, hori, pilotan ikasteaz aparte ondo pasatzen dugu, barre batzuk botatzen ditugu, ba, harrapatzera edo jolasak egiten ditugu. Niri gustatzen zaizkit egiten ditugunak.

Eta materiala ere iruditzen zaizu egokituta dagoela? Joko arautegia ere bai?

Bai, ondo. Nik uste dut palak-eta arinagoak izatea ere ondo datorrela, bai, ezta? Niretzat, behintzat, pisu larregi daukate gero erabiltzeko ere, eta nik uste dut materiala ondo dagoela. Eta, gero, arauetan, araua aldatzen den bakarra da bi botera jolasten dugula, baina, bestela ez gara iristen. Ni behintzat ez, Iñigo igual bai, baina, bai, nik uste ondo dagoela.

Ni, ia pixka bat bukatze aldera, nesketara bueltatuta, elkarrizketa kaotiko honetan, noiz uste duzu hasi beharko litzatekeela neska bat pilotan? Adin idealik badagoela iruditzen zaizu? Hasi nahi badu 8rekin 8rekin eta 30ekin nahi badu 30ekin, edo nola.

Nik uste dut, igual, segun zer helburu daukazu. Nahi baduzu zure bizitza profesionala hortik bideratu edo horretan jardun, bada, bai hasi behar zarela txikitatik, baina, normalean oso zaila izaten da hortik bideratzea. Ez, ez.

Orain, gero, gustuz egin behar baduzu nik uste dut ez dagoela adinik hasteko.

Eta, gero, zein bide iruditzen zaizu izan daitekeela egokia hasten denak, 6rekin hasi nahi badu, edo 30ekin, edo nahi duenean, aukera eduki dezan 40rekin edo 50ekin edo 99rekin pilotan segitzeko, ez uzteko, azken batean, bide hori ez eteteko?

Nik uste dut, azkenean, falta izaten dena dela zeinekin jolastu gero, ez? Ni bezala mutilekin jolasten duzu edo, normalean, hor geratzen dela gero, moztuta. Edo ez badaukazu inguruan talde bat edo, bai. Aukerak behar dituzula, azkenean, jarraitzeko. Mutil batek beti daukala errazago, inguru gehiago izango du zeinekin jolastu eta horrela, edo, bai. Nik ez dut ikusten gaizki mistoak edo horrela, baina, beno, gero pasatzen dira, azkenean, diferentziak ere igarri egiten dira fisikoki. Orduan, horregatik, nik uste dut hobeto zaudela zure berdinekin edo, ez dudala ikusten gaizki mistoan jolastea, baina, bai. Nik uste dut banatuta orduan hor zaila egiten dela 80 urterekin oraindik palan jolastea zeren eta ez daukazu zeinekin jolastu, ez? Kar-kar.

82ko gizonarekin edo bizilagunarekin.

Bai, kar-kar.

Bukatze aldera edo, lehen esan duzu, adibidez, eskiatzen ibili zinela lehiatzen. Ezberdintasuna nabaria zen pilota eta palan orain egiten duzuenetik bai lehiaketetan, edo entrenamenduak-eta ezberdinak ziren? Aldea nabaritu duzu pilota egitetik beste kirolelara?

Es que eskian ez genuen egiten entrenamendurik. Nik hartu nituen kurtsilo batzuk eskiatzen ikasteko, ez neukan ideiak ere, eta hori eskertzen da, beti. Teknika bat hartzen duzu, ez dakit. Eta, gero, lehiatzen hasi izan banintz bai edukiko nuela ya entrenamendu bat eta horrela, baina, ez nintzenez hasi nire bolara ibiltzen nintzen. Baina, bai, nik, palan, entrenamenduak eta eskertzen dira. Azkenean balio dizute ikasteko, teknika hartzeko, nik ez dut hartu asko, baina, behintzat ideia bat daukazu, edo kirola bera ondo ezagutzeko. Nik, palan, bai, jotzen zela eta ez nituen ezagutzen arauak, ez nuen ezagutzen bi pareta, eta gauzak ikasten zoaz, azkenean, kirol hori nola egiten den. Eta, hor, bai, entrenamenduak eta eskertzen dira, bai.

Niri bukatu zait nire super materiala. Galdera bat tokatzen zait egitea, noski. Ba aldagoen zerbait galdetzea edo kontatzea nahi zenuenik eta nik ez dizudanik aukerarik eman esateko. Ea zerbait gelditu zaizu esateko.

Ez dakit.

Espero zenuena, ez zenuena ... Orain daukazu aukera belarritik tira egiteko.

Ez, pixka bat espero nuen. Ez dakit nik. Igual, gero, nola esan zenuen transkribatuko zenuela eta igual gero hor argiago ikusiko dut zerbait ahaztu zaidala esatea. Ez, ez dakit zer gehiago erantzun.

Nire aldetik, behintzat, eskerrak eman eta transkribatzearena horrela da, bai.

Gero aldatzeko aukerarik egongo da, ezta? Hau ez dut horrela nahi edo ez, ezta? Nik uste dut horrek aukera ematen dizula esateko “puntu honetan nahi dut hau gehiago nabarmentzea”, edo.

Bai, bai, asmoa hori da. Transkribatu eta egingo nukeena da gero zuri bidali, denbora eman irakurtzeko, lasai, eta gero berriz ere elkartu.

Ea balekoa izaten den zuretzat.

Ni saiatuko naiz datorren aste arraro horretan, zubiz beteriko horretan, transkribatzen.

Nik ez daukat presarik.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2011-12-29

Lekua eta ordua: Soraluze, bere etxea, 16:00

Izen-abizenak: Itziar

Esan nizun bere garaian. Hau erreplikarako aukera da, azken batean. Nola etxeko lanak bidali nizkizun, ya suposatzen dut egingo zenituela. Lasai egon, azterketarik eta ez dugu egingo bada ez bada ere. Aurreko elkarrizketa egin eta gero zer irudipen daukazun jakin nahiko nuke, irakurri duzunean zer irudipen eragin dizkizun edo zer iruditu zaizun, edo...

Beno, elkarrizketa bera nik uste dut ondo zegoela, ez? Horrela, aspektu desberdinak ukitzen zituen, eragile ezberdinak eta, nik uste dut ondo.

Nik bi galdera dauzkat, elkarrizketa irakurri ondoren, galderen erantzunak irakurrita, etorri zitzaizkidanak. Bat da, esan zenuen palan bazabiltzala, oraindik segitzen duzula, eta uzteko arrazoiren bat bururatzen zaizu? Edo, egongo litzateke arrazoiren bat palara joateari uzteko? Bururatzen zaizun zerbait, arrazoiren bat uztekoa. Ez naiz ari esaten bihar utzi behar duzunik.

Ba, ez dakit. Uzteko? Hombre, ni ez naiz ikusten, bestean komentatu genuena, 90 urterekin palan. Ez dakit, ez dakit. Horrela, aspertzea? Baina, aspertzea ere ez dakit. Beste zerbaitetan hastea igual, bai, beste zerbaitetan, beste gustu batzuekin beste zerbaitetan hasi, murgildu eta igual denbora eza palara joateko edo.

Ondo, ondo. Eta beste galdera zen. Hor esaten zenuen emakume bakarra zarela taldean eta “neska talde batean ezberdina izango litzateke”. Zertan iruditzen zaizu izan litekeela ezberdina? Zertan nabarituko zenuke zuk ezberdintasun hori?

Ba nik uste dut nesken artean, ba, maila ere berdina izango zela, antzerakoagoa. Hor ere egongo ziren gero batzuk hobeak eta beste batzuk txarragoak, baina, behintzat, ya fisikoki igartzen den indarra eta zer batzuk ezberdinduko ziren, ezberdina izango zela. Bai, zeren eta, azkenean, hor mutilekin jolastean igarri egiten da. Nahi eta nahi ez. Eta

gero, igual, ba, tratuan ere bai, ez? Hori, komentatzen genuena, azkenean, hauek askotan ez dira konturatzen, baina, bota eta bota eta... Baina nik uste dut gehienbat hori, fisikoan. Bai. Teknika azkenean eduki ahal duzu iguala edo hobea, baina, indarrean gehienbat nik uste dut ezberdinduko zela.

Niri ez zait galdera gehiago okurritu. Orduan, hurrengo da ados al zauden elkarrizketan esandakoekin. Nahi duzun aztertzea zatiz zati edo orokorrean, zerbait aldatzea edo.

Nik pixka bat, hemen. Gero, irakurtzen, esaten nuen, jo, zeinen gaizki egiten dudan berba. Aber (*bitartean orrietan bila dabil*).

Igual duda gehien gelditu zaidana izan zen hemen, kultura eta hor pixka bat liatuta ikusten dut, nire eran. Ikasketa mailak eta kulturak ea zeukaten eragina eta gero nik uste dut nahastu nuela maila ekonomikoarekin, askotan igual ez daukala zerikusirik ere, ez? Segun zer ezagutza daukazun, ez daukala zertan izan maila ekonomiko handiduna izatea. Ez?

Ez dauka zertan, baina, izan dezake.

Bai, izan dezake, ez? Maila ekonomikoak eta. Nik uste dut hor, garrantzia zeukan herrian edo hirian bizi zaren ere bai, ezta? Igual hirian gehiago jotzen duzu halako kiroltara, tenisa eta beste ez dakit ba, eta herrietan, ba hori, pisu gehiago tradizioak daukala. Dela pilota edo harri jasotzea edo.

Zer, harri jasotzaile asko dago Soraluzen?

Kar, kar. Ez, ez dut uste. Hemen e, nik uste dut zuen zonaldea askoz ere tradizio pisutsuagokoa dela.

Urretxu-Zumarraga bera bai?

Ah, beno, klaro, ez. Usurbil eta alde hori esaten nuen. Edo Nafarroa aldea eta hor badaude zonalde batzuk tradizioak eta pisu gehiago edo, ez dakit ba. Beste zonalde batzuk igual kutsatuagoak gehiago. Igual bai.

Hori ikusi nuen nik pixka bat liooen edo ez nuela nik oso ondo azaldu edo, baina, ez dakit.

Beste zerbaitetan esan nahi baduzu hau zuk asmatu duzu edo hau ez nuen nik esan. Beno, garaiz zaude oraindik, nik jarriko dut boligrafoarekin.

Ez, ez zait iruditu ezer asmatu duzunik. Nik, igual bai, okurritu zaidana da igual egitea pixkatxo bat kendu “e, igual, ba” zeren eta konturatu naiz daudela pila bat eta igual errazagoa izango zela horiek gabe.

Bai, hau literalki transkribatuta dago. Horiek goiko aginduak dira.

Hor konturatu nintzen. Eh? Zer edo zer interesantea esaten dut nik halakoetatik aparte?

Bestea da zerbait gehituko al zenukeen. Jorratutako gaien inguruan zerbait bururatu al zaizun elkarriketatik edo irakurri zenuenetik. Hemen hau esan banu, edo. Ez dauka zertan.

Esan dizut, pixka bat hau iruditu zaidala ez nuela oso ondo azaldu, baina, bestela...

Bestela, orain zer edo zer gehitu nahi baduzu lasai esan.

Eta, gero, hemen ere, itxaron eh, (*orrietan dabil*), galdetzen duzu ea jarraitzeko zer egingo zenukeen edo zer bide iruditzen zaizun. Hor igual ez nuela azaldu. Hor igual bai izan beharko litzateke instituzioetatik pixka bat bultzada gehiago edo horrela, ez? Edo federazioetatik edo herri mailan udaletxeetatik edo. Azkenean, ez bazaio inportantziarik ematen emakumeen kirolari beti izango delako errazagoa gelditzea zeinekin jokatu ez edo ekiporik ez edo. Eta, igual, pixka bat hori.

Esan gabeko zerbait edo gelditu bazitzaizun, ba.

Ez. Gero iruditu zait pixkat liatu egin dudala nik, baina, esan genuena, bakoitza bere errealitatetik azkenean. Ez dakit asko balioko dizun, baina, bai. Hori eta gero, ba, nik ez dudala ezagutzen pala mundua edo horrela. Orduan, ez dakit.

Beno, baina partaide bazara.

Bai, partaide bai, zer edo zer bai, nire errealitatetik bai, baina, gero ya federazio, lehiaketa eta egitura horretatik askorik ez, egia esan.

Ba, oso ondo. Nik bukatu dut. Gaurkoa ez zen hainbesteko txapa. Hau da elkarriketatuak aukera eduki dezan.

Ez, nik esan dizudana, duda gehien edo zer erantzun jakin ezinda gelditu nintzela hor, kulturak edo ikasketa mailak edo hor, baina, nik uste dut, azkenean, gurasoek ez badute ezagutzen pala egin ahal denik edo beste kirolen bat egin ahal denik, ba, bideratuko dituztela beti beste kirol batzuetara.

Bai, ikasketa maila ere titulaziora baino gehiago gurasoen ezagutzara, joeretara edo influentziara zihoan.

Bai, nik uste dut askotan larregi ere bai, ezta? Gurasoek eragiten dutela umeen erabakietan, baina, beno, hori saihestezina da, nik uste dut. Bai, hori, pixkatxo bat. Bestela ez dakit.

Perfekto, niregatik behintzat. Eskerrak ematea berri.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Itziar

1.elkarrizketan

- Itziar urduri sumatu dut hasieran eta berak onartu dit kezka edo ezinegon puntu bat izan duela goizean oroitu denean nirekin geratuta zegoela gaurko.

- Ni lasai egon naiz eta bera ere elkarrizketak hala egin ahala lasaitzen joan dela esango nuke. Hala ere, galdera zenbaitetan “ez dakit” batekin edo “ez dakit galdera erantzun dizudan” bezalakoak esan dituen irudipena dut.
- Elkarrizketako une batzuetan oso garbi ez da geratu (eta/edo ez diot utzi) zehazki emakumeen pilotaz edo pilota egokituaz ari ote nintzen. Azkenean nesken pilota utzi eta egokituan zentratzea erabaki dut, batez ere berak horretara bideratu nauelako, besteak beste.
- Amaieran gustura egon dela esan dit, segitzeko lanarekin eta ea zortea dudan. Berrikuspenerako dokumentua abenduaren 11ko astea amaitzerako bidaltzen saiatuko naizela esan diot.

Transkribatzean

- Gaiak eta zenbait erantzun nahasi xamar eta zenbait puntu zehaztasun handiegirik gabe geratu direla begitandu zait. Hala ere, zaila iruditzen zait berari ezagutzen ez duen testuinguru batez galdetzea ere, emakumeen pilotarena baino gurpildun aulkikoena baita berak ezagutu eta egiten duena.

2.elkarrizketan

- Zein gaizki hitz egiten duen esan dit irakurri ondoren.
- Gauza pare baten inguruko iritzia eman dit eta nahasi xamar erantzun zituela erantzun.
- Nire galderak erantzutean, bere iritziaren amaieran, “nik uste izan beharko litzatekeela, ez?” esan du behin baino gehiagotan. Iruditzen zait gaizki erantzuteko beldurra edo erantzun egoki bakarra dagoen irudipena adieraz lezakeela modu horrek.
- Ni gustura egon naiz, bere etxean hartu nau eta amaitzean tesiaren eraginaz galdetu dit. Hortik “eta orain ni zuri elkarrizketa egiten” bat ere gehitu du.
- Motza izan da eta ezertan lagundu ote didan zalantza agertu du. Nik baietz erantzun diot, lasai egoteko, horrelakoak izan direla orain artekoak ere.

Elkarrizketa data: 2012-02-07

Lekua eta ordua: Sarriguren (bere etxea), 16.30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Nekane

Adina: 38 urte

Jaioterria: Beasain

Beasain, e?

Sí, Todos. Nacer nacimos allí. Somos seis. Los cuatro primeros nacimos allí y los dos pequeños en Estella. Yo era la última y luego con 3 años ya fuimos a vivir a Eulate, que es de donde es mi padre. La ama es de Beasain y el aita de Eulate. Pero, los padres de mi padre, la abuela, era de Beasain. O sea que están navarrico y giputxi, todo mezclado.

Bizilekua: Sarriguren

En Sarriguren desde hace 5 años. Lo demás, pues, bueno, ahí he estado. Al final, el trabajo al tenerlo aquí, pues, no puedo andar... a Eulate hay 80 kilómetros, yo por mí me iría, pero todos los días no puedes y trabajando como trabajo, pues, no. Puf.

Pilota elkarte: Oberena

¿Siempre has estado en el Oberena?

No, al principio en San Miguel. Bueno, yo, al principio, cuando empecé a mano, del San Miguel. Luego lo dejé y volví otra vez con 18 años. En el San Miguel estuvimos hasta el 2000. 2000 o 2001 creo que era. 2000. Y, pues bueno, de cara que si el Mundial de Pamplona y que no sé qué, pues venga. Siempre hemos estado pagándonos el trinquete nosotras, porque no había, y dije, “pues vamos a tener un club con un trinquete, vamos al Oberena de Pamplona”. Y, yo, como estaba aquí, vinimos al Oberena de Pamplona y dejamos de entrenar. Entonces Rebeke ya no venía aquí, cuando nos hemos hecho kilometrajes a punta pala, porque nos íbamos a Arnedo. Íbamos a todos los lados y yo decía, “¿y ahora que lo tenemos aquí, Rebeke?” Pues, bueno, a entrenar menos, pero, también teníamos suerte, porque aquí hemos jugado con los chicos con la maciza, y, bueno. Igual no tanto, pero ya estábamos dentro de un club con trinquete.

Antes de meternos otra vez con la pelota, ¿de estudios qué tienes?

FP1 y FP2. El FP2 Técnico Especialista en Radiodiagnóstico, TER.

¿Y trabajas como...?

Trabajo como TER, como Técnico Especialista en Radiodiagnóstico. Eso es en el scanner, los rayos y todo eso.

Ondo, ondo. Ya, para meternos más con el tema del deporte, ¿tú te acuerdas de cuándo viene esa afición de hacer deporte?

Desde pequeñaja. O sea, sí, de siempre. En casa ya me dice mi madre que casi antes de aprender a andar que ya estaba con mi pelota a rastras, y siempre pim-pam-pim-pam, venga a darle. Y, luego, con el abuelo, es que yo me acuerdo desde pequeñita. En cuanto pudiese andar ya estaba con el abuelo jugando, él ya me llevaba siempre al frontón y en casa también lo han vivido. El aita, pues, el abuelo, también jugaba un poco, y mis hermanos. Somos seis, yo soy la cuarta, y mis hermanos siempre habían jugado. Entonces, pues, bueno. Luego, en un pueblo, lo que digo yo, allí no teníamos Play, ni juegos ni puñetas. O sea, si querías hacer algo tenías que ir al frontón. Y, yo, para mí era, un, puf. “¿Dónde estaba Nekane?” En el frontón, pues, a todas horas allá metida. Y con 8 años, como jugaba bien, ya me sacaron la ficha en Estella.

¿Con 8 años empezaste a mano?

Sí, con 8 empecé a mano. Sí, y entonces hacíamos los entrenamientos en Eulate, allá, en el pueblo. Había uno que nos entrenaba y jugábamos. Y, yo, de los quintos que tengo, hay más chicos que chicas. Entonces, yo, pues, con ellos. Y, siempre allí jugando y con mayores también, e, con todos. Y, pues sí, arranqué allí a jugar y estuve hasta los catorce años. Y allí estuvimos. Pues eso, de Estella, a veces jugaba con los de mi pueblo y otras veces no, con el chaval que me tocaba de allí, del club. Y, entonces, iba a los partidos y yo estaba a lo mío. Yo me ponía a calentar y el chaval que le tocaba conmigo decía, “¿pero, con una tía? ¡Que yo no juego con una chica!” Y todos medio rebotados. Y yo decía, “pero, ¿este tonto, cómo que no quiere jugar?” y yo no le hacía ni caso, yo a lo mío. Es que yo no me daba cuenta tampoco. Digo, “pero, ¿por qué no quiere? Chico, chica, es que da lo mismo”. Pues no, no le miraba yo a eso. Luego, igual, te das más cuenta, no, cuando eres mayor, pero, pues eso, con 10 años, con 8, yo, para rato. Y yo le miraba como diciendo, “éste es tonto”. Y nada, y luego, pues claro, me veían jugar y sí querían. Decían “ah, si ya le pega, si sabe pegarle”. Parece que no tenemos que saber, pues, mira, sí que sabíamos. Y allí. Entonces, pues, por el pueblo, y porque en todos los pueblos, y más aquí en Navarra, en todos hay un frontón. Entonces, al final... Y siempre jugaba a todo. Jugaba a balonmano. Del colegio me llevaban a todo, a balonmano, a baloncesto por ser la más alta, a todos les venía bien y todo me gustaba. Y, pues, a tenis. A mí también me encantaba y había uno que me quería llevar. A tenis, había uno de Barcelona que cada vez que venía yo le veía y me solía esconder. Yo decía “ya está, este hombre que ha venido a por mí”. Ja, ja, ja. Y siempre hablando con mis padres, pues de, pues que sí, que podía tener ahí posibilidades, y que él me llevaba a Barcelona, y yo decía “no, por favor, no por favor”.

Y, eso, ¿con cuántos años?

Pues, con 8 y con 10. O sea, pero emperrado. Cada vez que llegaba a casa yo me escondía, porque yo me veía como que me iban a vender al hombre ese y digo, “ya me llevan”. Ja, ja, ja. A veces mis padres suelen decir, “¿ves? Pues, igual, si le hubiéramos hecho caso”. Pues, para nada. O sea, yo estoy feliz aquí y no he jugado a tenis pero he jugado a pelota, que es lo que más me gusta y no lo cambio por nada. Si hubiera tenido esa facilidad aquí, pues, bueno. Pero, no, no me pena.

Has dicho que hacías más deportes, pero, ¿competir competías sólo a pelota?

En lo que haces de deporte, pues, deporte escolar, ¿no? Competir competías todos los sábados, porque con esos años... Y, yo, todos los sábados, pues era, la temporada igual

primero era de baloncesto, luego entraba la de balonmano y luego el siguiente fútbol, y yo jugaba a todo. Todos los sábados teníamos partido y a la vez le tenía que sumar los que tenía de pelota. Entonces, pues ahí, íbamos jugando, con el colegio, que eran a primera hora de la mañana, y luego, pues, los partidos que tenía de... jugábamos en Tafalla,... Bueno, por Navarra tenía que recorrer todo. Allí me llevaba mi padre. Y quedé subcampeona de Navarra, que ahí es cuando le gané a Rubén Beloki y así, en la semifinal.

Eso hay que contarlo bien, e.

Pero, bueno, jugábamos a parejas, e, porque alguno dice que individual. No, ahí jugábamos a parejas. Él jugaba con un portero, López Vallejo, que también estuvo en Osasuna y luego por no sé qué. Y, bueno, ese chaval también estuvo jugando a pelota hasta los 15 o no sé qué años y lo dejó, igual que yo. Pero ése lo dejó porque quiso. A mí me obligaron. “No, tú como eres chica, fuera. Tú a tocar el acordeón”. ¡Pues, míralos qué majos! Entonces, pues, bueno, en ese campeonato quedamos subcampeones, que íbamos ganando 17-9 en la final, y entonces se rezaba el Ángelus, a las 12, y como nos pilló en la mitad, pues, a parar, a rezar el Ángelus y luego no hubo manera de hacer un tanto, y sólo teníamos que hacer uno. Y, no lo hicimos, ja, ja. Mi compañero yo creo que estaba pensando más en el bocadillo, encima, y, en vez de pegarle con la mano le pegaba con el pie,... Hacía de todo, y nos ganaron. Y ahí estaban una pareja que eran...

Y, ¿eso, con cuántos años, más o menos?

Eso con 11-12. Éste era, ¿cómo eran? Almandoz con no sé quién. Los Olaizola también jugaban y no sé si no era Olaizola-Almandoz la pareja que jugaba. Y, eso, nos ganaron 18-17 y yo con un disgusto que tú no veas, pero, bueno. Y, luego, a raíz de ahí me seleccionaron en Navarra para el Federaciones, para el GRAVN. Y entonces estuve jugando con Rubén, Rubén Beloki. Primero había jugado en contra y ahí jugué de pareja. Llegamos a jugar hasta en Eulate, en mi pueblo. Y, no ganamos, y en Eulate jugamos contra Koka y Haritz, me parece que era. Uno que era de Amezketa o. Sí, ése, aquél de la perilla. Y, yo en los recortes también, e, de cómo lo tengo ahí todo guardadico. Y, eso. Y, luego, después de ese campeonato, con otro de Eulate quedé campeona de Euskadi, en el Atano. Sí. Y eso con 12 años, también. Y ahí seguí jugando. Pues, bueno, jugaba en las fiestas de los pueblos, jugaba en todo, en un montón.

Y, ¿jugabas siempre con chicos? ¿Desde que empezaste?

Siempre, desde que empecé con 8 años, y entrenando, en Eulate, lo mismo. Con chicas, si quería jugar, tenía que ser, pues a raqueta, con mi hermana. que venía con la pala. A mano yo era la única. Siempre con chicos, hasta los 14, que ahí lo dejé. Además, cualquier esto que tenía que arreglar, cualquier cuenta que había pendiente se arreglaba allí, en el frontón. Ja, ja. “Pues, te echo un partido”. Cualquier apuesta, como si era una canica, e, pues, “te hecho un partido”. Ahí estaba, es que no salía. En Urbasa, en el frontón de Urbasa, de terminar con los pies escocidos, e. Y me daba igual que fuese de mi edad como de 50 años. Yo, mientras era jugar a pelota, allí estaba yo. Impresionante es. Pues, agarraba la pala, en Urbasa es que era de todo. “A no, a mano, no quieres a mano, pues, a pala”. Y terminar sin poder andar, e. Luego, llegar a casa y... ¡qué broncas!

¿Te acuerdas con quién empezaste a jugar? Has dicho que en Eulate teníais a uno que os entrenaba.

Sí, pues, era el padre de Adolfo García, de un compañero que estaba allí, que también metía horas. Mi padre, mi abuelo,... Bueno, mi padre, con el trabajo, no podía estar todos los días allá, él me llevaba a los partidos, pero igual para entrenar no. Pedro Marín, que era también, tiene otros hijos que también han jugado a pelota, y, bueno, siempre había allí algunos en el pueblo que nos hacía allí, pues, los entrenamientos. Y, luego, ya, pues, bajábamos a Estella y es que en Estella ahí estaban de todos los que había. El padre de Patxi Ruiz, los Balerdi, Pascual,... Pues, bueno, allí había un montón, puf. Y, yo, bueno, yo bajaba allí igual una vez. Y, lo demás, siempre lo intentábamos hacer en Eulate, como ya estábamos chicos suficientes. Bueno, chicos y chica. Ja, ja, ja. Como ya hacíamos un grupo suficiente no bajábamos. Ahora no les queda más remedio que bajar. Los dos días que tienen de entrenamiento tienen que bajar a Estella, porque no hay chavales suficientes que juegan a pelota. Pues, juegan todos a fútbol o a lo que sea. Yo no. Íbamos todos a pelota y feliz. Sí.

Has dicho que luego dejaste. A los 14 años dejaste.

Sí, a los 14, para 15. Sí, ya le empezaron a mi padre, “bueno, es que Nekane, ahora, que ya se está desarrollando, o ya se ha desarrollado o, que es una mujer y no va a poder darle a la pelota, que se va a lesionar la mano,...”. O sea, excusas chorras. Y, claro, al final, a mi padre también, pues tanto que le decían “joder, pues esta chiquita igual es mejor que deje de jugar”. Y, yo, decía, “pero, ¿por qué lo voy a dejar? Pues, yo no quiero”. Y mi madre decía “no va a dejar de jugar. Dejarle a ella, y que cuando tenga ganas, pues, que lo deje. Que no venga aquí nadie diciendo si se le va a estropear”. Jamás. O sea, no se me ponía a mí un mal de manos... No he tenido en mi vida. Y ya le pegas con ésa a una pelota más o menos dura. No me ponía tacos. Me ponía tacos que me hacían mis hermanos, pues, igual para entrenar, para que no se me estropease, y no le sabía dar. Si no acertaba. Y, una vez, justo tuve un pizco aquí, pero no tuve nada más. Me ponía como una colchoneta y ahí le pegaba. Entonces, pues, bueno, ahí le animaron un poco y, pues empezaron a decir y terminé. Como a mi padre le encantaba el acordeón, y le iban achuchando un poco, “pues, tú ponle y que toque el acordeón esa chiquilla”. Y, nada, el aita, pues, me cogió y me dijo, “ala bonita. Mira, tocas la flauta súper bien, te doy no sé qué otro y también la tocas, pues, te voy a comprar un acordeón, ¿vale?” y me compró un acordeón y ahí me lo quitaron. Y, lo pasé fatal, e. Porque, eso creo que era en octavo, penqué en ese trimestre o eso, no pegaba pie con bola. Y yo creo que era todo de eso. Yo quería jugar a pelota, no entendía por qué me tenía que quitar de allá. Y, nada. Pues, luego, poco a poco ya se me pasó y entonces seguía jugando en el pueblo, pues, eso, con mi hermana mayor, que es 3 años mayor que yo. Pues, iba con ella con la pala, con sus amigas también. Siempre, ese contacto con el frontón jamás lo he dejado. Y seguía con mi hermano pequeño, Xuban, pues, como él también jugaba a mano, pues, seguía jugando. Yo jugaba a mano con la goxua o con lo que hiciera falta. Y, con todos. Con todo el que quería, pero, vamos, ya, la competición, ya no competía. De campeonatos y eso, pum, se cortó ya todo.

Entonces, pues, nada, a los 15 lo dejo y a los 18 es cuando volvieron a llamar a casa, que yo estaba estudiando en Pamplona, y le llamaron a mi madre. Entonces, Jaime, que estaba en Estella, y él me conocía de cuando yo jugaba a mano. Y, ése, le tenía a

Rebeka. Y Rebeka, de toda la vida, pues, sales de su casa en Legaria y tiene un frontón allí. Entonces, ella siempre ha jugado a pala. Y Jaime le veía y decía, “pero esta cría, ¿cómo va a estar aquí sola?”, pues, una mujer mayor, su mujer también, pero decía, “¿cómo va a estar jugando con Olga? No, pues hay que buscarle una chavala”, y se acordó de mí. Dice, “jo, pues si en Eulate había una chica que jugaba a mano, pues, vamos a llamar a ver si está”. Y, entonces, llamaron a casa, y, vamos, mi madre no se lo preguntó a nadie y les dijo, “¿cuándo venís, el sábado? Aquí va a estar como un clavo”, y me llamó a mí a Pamplona y me dijo, “Nekane, que me han llamado de Estella que van a venir para hacerte una prueba para ver si puedes jugar a pala”. Bueno, yo, ¡unos nervios! Ja, ja Y allí que estaba el sábado, vamos, deseando que llegaran y a jugar. Y me hicieron la prueba y perfecto. Y, me dijeron, “ala, pues ya vas a empezar a entrenar con Rebeka”. Rebeka jugaba una pasada, e, porque yo, a Rebeka con 13 o 14 años coincidí de las escuelas, de cómo se hacía el intercambio ése, coincidí con ella. Entonces, yo había jugado a mano y, bueno, pues, a pala me defendía. Del valle no tenía nada que hacer, o sea, les ganaba fácil, pero resulta que llegó Rebeka y yo digo, “¿pero esta mujer de dónde ha salido?” Y me dio para el pelo. Me ganó muy bien, además, y es que le pegaba perfecto. Porque tú al final siempre haces kales, no empalas o lo que sea, pero, Rebeka, le metía unos viajetones... y, muy bien. Entonces, ya empecé con ésta. Yo, todavía, ahí no tenía el carné y, Rebeka a veces subía a Eulate y me buscaba. Otras veces me bajaba mi hermana. Bueno, sí, andaba unos cristos, pero, ahí empecé y sin parar. Ha sido desde entonces hasta hoy, 18, 28, 38,.. Ja, ja.

20 años

Sí, sí, feliz. Lo mejor, sí, sí. Y mi madre súper contenta. La ama estaba, puf.

¿No hacía fuerza para que tú siguieras con 14 años, la ama?

Sí, pero no le hacía caso nadie. Es la única que se enfadó con todos. Lo mismo que me mosqueaba yo, que yo no entendía por qué lo tenía que dejar, mi madre era la que les decía “pero, es que, ¿por qué? O sea, a un chico ya le dejáis. Pues si se va a romper las manos ya verá ella, pero es que todavía no es el caso. Pues, dejarle y cuando ella se dé cuenta de que no puede, pues, porque es mujer, o por lo sea, pues, ya lo dejará”. Pero, no, entonces, como me quitaron no tuvo más remedio que aguantar, como yo.

Has dicho que ya han pasado 20 años. ¿Por qué sigues jugando a pelota?

Porque me encanta. Es que es, puf, es que me llena. Es que, puf, lo es todo. A veces yo digo “es que la pelota me ha dado todo”. Ummm, no sé. Yo lo he dado todo por la pelota, pues, es que me compensa porque es un deporte que me gusta. Me hubiera encantado jugar a balonmano, pero, pues, bueno, arranqué en la pelota porque había empezado desde pequeña y es que me llena. Me encanta. No sé, disfruto muchísimo, y, al final, es, no, es porque el disfrute de ese deporte de lo estoy haciendo y lo que conlleva también alrededor. Al final, pues, son esas amistades, esa gente que conoces, el grupo que se hace, pues, al final, es casi otra familia. Yo, para mí, digo “joder, es que tengo la familia de la pelota”. Es una pasada y hacer muy buena amistad. Pues, otros son más enemigos o, pero en la cancha. Luego, o sea, perfecto. A mí me gusta muchísimo.

¿Y, se te ocurre alguna razón para que dejes de jugar a la pelota? ¿Tendrías alguna razón?

Puf, no. Pues, tendría una razón, pues, una enfermedad. No. Ja, ja. Eso ya sería obligación. Si no, yo creo que se puede hacer todo. O sea, pues, porque muchas veces, pues, bueno, sé que me quita muchísimo tiempo, porque le dedico la mayoría, y vas dejando, igual, otras cosas de lado, ¿no? Y, también hay que dedicarles tiempo, pero, yo pienso que se puede hacer todo. Pero, es que a una niña, yo ya le digo “no tienes que hacer solo pelota. Tienes que estudiar”. Entonces, yo, sé que tengo que jugar a pelota, tengo que trabajar, tengo si quiero a mi familia,... Tengo que repartirme en mil cosas. Entonces, pues, bueno, creo que hay que buscar el hueco y esto. ¿Dejarlo? No, no entra en mi cabeza, creo. De momento no.

Ondo, ondo. Más o menos, bueno, ya hemos comentado algo sobre el entorno antes, pero, ¿qué pensaban los de tu alrededor, pues, la familia, los amigos, las amigas,... cuando tú jugabas a pelota? ¿Cuando esa Nekane era más pequeña?

Cuando empecé, yo creo que siempre me han apoyado, hasta ese momento que empieza la gente a decirle “no, que Nekane es chica, lo tiene que dejar”. Jamás me habían dicho nada. No, todo lo contrario. Mis hermanos son los primeros que iban conmigo, mi padre feliz, ¿no? Porque si a mi padre le hubiera dado vergüenza y dice “una chica jugando” no me lleva él. Mi padre me llevaba a todos los partidos súper satisfecho y orgulloso. Mi madre igual. O sea, todos. Yo ahí no tenía pegas. Lo único que he recibido ahí son ánimos y que no me han puesto obstáculos para no hacerlo. El obstáculo fue luego, pues eso, en esos 14-15 años, ¿no? “Pues, no, ésta ya es una mujer, vamos a dejarla como mujer”. Eso es lo triste, mientras era como más niña parece que lo puedes hacer, luego no. “Ya tú a la cazuela y a la escoba”. No, pues eso no es así. Entonces, lo que también me jode de todo eso... A mí, en esa edad, que me lo hicieran. Lo que me parece tristísimo es que hoy en día se haga. Porque yo tengo niñas ahora con 12 años que con 8 o con 10, más con 10, le han invitado a que se vaya, y eso es lo que no, a mí no me entra en la cabeza. “Joder, pues déjale y que juegue hasta lo que quiera”. Mira este portero, él jugaba a pelota y cuando quiso dijo “oye, pues no me gusta la pelota porque me hago daño. Voy a pegarle al balón, que se me da mejor”. Pues, ya está, él ha decidido. Y, nosotras, ¿por qué, porque somos chicas? Pues, no, lo que decidamos nosotras. Y, entonces, eso, lo que te digo, la gente de alrededor, pues bien, de los que me conocen. Otros, igual, habrán dicho “¿esta loca a dónde va?”, y, cuando empecé luego con... Pues, hasta los 15 eso, y luego, a los 18, cuando empecé, pues, es una edad también un poco más complicada. Empiezas a salir, ya tienes la cuadrilla, y te dicen “pero, Nekane, ¿cómo te vas a quedar sin salir?”, y, yo, “pues sí, no sé, porque quiero ir mañana a jugar ese partido”. Es que “mañana juego la final en el Labrit, mañana juego en Hernani, mañana juego...” y me decían, “tú es que estás chalada, o sea, pero, Nekane, ¿te vas a quedar en serio sin salir?”, y, “no, que voy a ir con vosotros”. Y yo entonces bajaba con el coche. Seguía con ellos y yo decía “yo me llevo mi coche”. Y yo iba con el coche detrás de ellos y cuando llegaba al pueblo de al lado, a Zudaire, me daba la vuelta. Entonces, ellos, ya estaban encarrilados, me dejaban en paz, ja, ja, ya no me decían nada y yo me volvía a casa. Y, feliz. O sea, yo me he quedado en fiestas de mi pueblo lo mismo, encantada, oyendo la música en mi cuarto, pero estaba pensando en ese partido que iba a jugar al día siguiente. Y estaba feliz. Si me hubieran obligado, pues, igual no lo hago tan a gusto. Pero es que me nacía a mí. Entonces, no tenía yo ninguna pega.

Y, las amigas y los amigos, tampoco...

No. Pues, a veces, eso, pues, a la hora de ir a salir o lo que sea, y más con esa edad, pues sí, pero es que a mí no me gustaba, porque yo les veía que, igual, salían al bar a las tres de la tarde, igual, estaban allí hasta las once de la noche y luego se iban de pedo. Yo es que me muero. Yo estuve un día con ellos así, que salí a tomarme el café, con 18-19 años sales y digo “¿tantas horas aquí perdidas? Pues, no, es imposible”. Y, yo, en mi casa, no he vivido eso tampoco, porque en mi casa ha habido trabajo, tienen las ovejas, y yo jamás he estado en la cama hasta las doce, o me han llevado un zumo “y ahora levántate y, tranquila aquí”. Pues, no. Yo, si salía o no salía, porque también he salido, e, que no era una monja, ni me quedaba todos los días ahí, cuando he podido he salido, pero responsable, no sé. Salía y sabía que me tenía que levantar. Yo, a las nueve de la mañana, o sea, estaba ordeñando ovejas, hubiera salido o no, y hacía mis trabajos y me iba encantada a jugar a pelota, o si me tenía que quedar allí, o hacer cosas. Lo otro me parecía una pérdida de tiempo. Entonces, todos estos amigos, pues, entonces, igual, me decían, “joe, pues, es que... pero, Nekane, sal, venga ven”. Sin embargo, ahora, hacen al revés. Ahora es cuando ellos quieren hacer ese deporte. Y, digo, “¿ahora? Pues, a buenas horas, con 38 años. Nunca es tarde si quieres, pero, bueno, mejor si hubieras hecho un poco más antes también, ¿no?” Ja, ja, pero, bueno. Y, a veces, me han seguido y otras no, porque es difícil también.

Nosotras, al final, es eso, que en Navarra, por ejemplo, estábamos solas Rebeka y yo. Yo empecé cuando me llamó Rebeka y estábamos las dos como pareja y nos decían que no había nadie más en toda Navarra. Yo no lo entendía tampoco, porque creo que la pelota gusta, y a las chicas también, un montón, y, luego, ibas a los pueblos y veías a mujeres, mayores que nosotras, que las veías con las palas. Yo decía “si esta chica juega a pelota. ¿Cómo dicen que en Navarra no hay? Lo que pasa que no se ha hecho un trabajo que hay que hacer”. Y, el poder decirles. Luego, ya, pues, el miedo. También esa cosa de “no, no, no, ¿nosotras cómo vamos a competir? ¿De blanco? ¡Bueno!”, y ya estaban flipando. Dicen, “eso es imposible, eso solamente los chicos” y “que no, que nosotras jugamos, y, jugamos de blanco”. Y, luego, pues, bueno, pues, fíjate, veinte años que llevo y lo mío me está costando. Ahora ya se ve más, pero cuesta, cuesta muchísimo.

Y, ¿contra quién jugabais entonces?

Contra los chicos. Aquí, lo que era en Navarra, Rebeka y yo, para entrenar y para todo, primero íbamos con Jaime y con Olga, que eran el entrenador y la mujer, pero, claro, al principio bien, pero, luego, es lo que dicen ellos, “es que en dos meses ya estábamos que nos dabais para el pelo. Entonces, no podíamos haceros más fuertes”. Entonces, nos salvaba un poquito el movernos, pero necesitábamos gente con más caña. Entonces, Jaime y Olga nos buscaban a hombres. No había chicas. Pues, con todos los chavales, y es que nos hemos llevado unas palizas que te mueres, e, porque claro, ya no querían. Si queríamos jugar con ellos ya no podíamos jugar con la pelota de punto, teníamos que ser la de cuadro, y yo decía, “sí hombre, voy a morir allá”, pero, bueno, con 19-20 años, la verdad que, puf, o sea, y ganas, todas las del mundo, me daba igual que me hubieran puesto allí una bomba para darle, y, Rebeka lo mismo. Entrenábamos con los hombres y, luego, a la hora de competir, aquí, en el 92 se hizo un Campeonato Navarro. Allí estaban Amagoia, su hermana, la madre de Bea, y todas ésas, y una vez se hizo. Quedamos campeonas Rebeka y yo, que era la primera vez que yo jugaba, y lo dejaron

de hacer. Ya no se hizo más el Campeonato Navarro. Se hizo una edición, ya ves tú qué esfuerzo. Entonces, si queríamos jugar teníamos que salir a Gipuzkoa, que era donde estaban jugando las chicas. Y, ahí, estaba Eider, que es entonces cuando ya empezamos a conocerles.

Habrían empezado entonces en Gipuzkoa.

Sí, a trinquete y a todo. En el 92 es cuando, en junio, no, en julio, quedamos campeonas de Navarra y allí iban a ser en agosto las Olimpiadas. Es cuando nos dicen para entrenar en el trinquete. Y, yo, “¿trinquete? ¿Eso es una herramienta?”. No sabía lo que era, no sabía lo que era, ja, ja. Y, eso, pues, que sí, que teníamos que empezar allí, que en las Olimpiadas iba a estar la pelota y se iba a jugar a trinquete. Claro, a nosotras no nos daba tiempo de ir. Si era julio, por mucho que quisiéramos, ya nada. Y, yo, decía, “es que estos gilipollas del trinquete, ya ves tú, y ellos a las Olimpiadas y nosotras no”, ja, ja, ja, y mira donde estoy yo, en el trinquete de gilipichis. Ja, ja, ja. Y, nada, entonces, pues eso, ya nos empezaron a decir que en Gipuzkoa ya jugaban y que iba a venir un seleccionador a hacernos una prueba. Entonces, en agosto llegó Etxabe, al Club de Tenis de aquí, de Pamplona, a hacernos una prueba. Yo estaba allí alucinando. Yo decía “¿a ver, quién es éste?” Nos hizo una prueba, yo, jugando, es que no había reboteado en mi vida, pues, reboteando como podíamos, porque, bueno, tienes la idea ésa de seguirle a la pelota y le dábamos, y te sale. Y, Rebeka, lo mismo. Nos dijo que sí, que entrábamos en la preselección. Yo decía, “joder” y “es que igual el año que viene hay un mundial sub22” y, las antenas así se me ponían. Y llegué a casa y lo primero a mi madre, “que sí, que han venido, que nos han hecho con la selección una prueba y que vamos a ir a Argentina”. Y mi madre, me decía, “ay, Nekane, bonita, que no, por favor, no pienses eso”, como, “a ver, antes te llevaste un palo que no veas, no sigas pensando, que te vas a dar otro, deja de pensar y si vas a Pamplona o a no sé dónde, a Hernani, ya te vale”. Y yo, “que sí ama, que sí”. Y, al final, pues, bueno, les conocimos ahí, vinieron un día Zihara y Eider, con éstas, eh, Amagoia, Bakarne, su hermana, y así, y empezamos en el trinquete. Y, lo que te digo, pues, bueno, Rebeka y yo, al final, hemos mamado la pelota desde pequeñas. Éstas igual también, Eider le pegaba muchísimo, pero, bueno, nosotras, para no haber jugado nunca, estábamos de cine allá. Y, eso, y lo hicimos se ve que bien, y ya nos siguieron llamando y, al final, quedamos en la selección Eider, Zihara, Rebeka y yo. Y empezamos allí a jugar y “oye, que vais a Argentina” y mi madre ya flipaba. Y ésa es un poco la manera cómo empezamos.

Tú has dicho que sí. Bueno, igual ya está respondida esta pregunta, pero, has dicho que a los 14 años la gente, la sociedad, empezaba a presionar. ¿Tú has notado, has vivido esa presión?

¿Qué me lo dijeran a mí? Hombre, pues, bueno, igual, a veces, sí, “pero, ¿qué hace esta chica? O ¿qué no sé qué?”, algún comentario sí, pero es que yo, lo que digo, “más vale que tengo la cabeza que tengo y no le doy ni importancia, me la sopla lo que vaya a decir ése”. Y tampoco así, tan descarado, como, puf. No, no recuerdo yo. Solamente, es que, me lo cortaron ti-ta. No me dieron opción a mucha cosa más. Se acabó. No es que me hayan venido con un comentario a mí, me lo quitaron y punto, y ahí me dejaron fuera. Entonces...

Y, luego, después ya, ahora igual no tanto, pero, igual sí, no sé. ¿Has notado esa presión de ser mujer y pelotari? Al final, el trato que has recibido.

Sí, hombre, desde que empezamos, sí. Y cuando ibas a los frontones, o sea, yo he ido con 18 y Rebeka con 19. Hemos tenido gente maravillosa y estupenda que para nada han estado mirando si chico o chica, si no el jugar a pelota, que es lo que tenía que ser, y otros, que, vamos, o sea, “¿con una chavala? Bien, hombre” como diciendo, “sí, además si no van a jugar nada”. Vamos, ya menospreciándote porque eres chica y, luego, poniendo excusas porque les has ganado. O te ponían allí, ibas al partido y decía, “o sea, a éstos con más rabia. Pues, te voy a dar porque aunque me muera en el frontón voy a dar todo lo que tengo”. Igual, empezabas a calentar o lo que sea, que ya te ponían cara como de “tú mucho más inferior” y nos echaba la pelotica en el uno, plas, plas. Y, yo, paciencia tengo toda, yo creo, y yo hacía como ellos. Pero Rebeka no, ya se le inflaban las narices y pa, pa, le pegaba de primero un ostión y ya estaba, la pelota al 8. Y, “ostia, le pegan” y, entonces, ya empezaban a calentar como tiene que calentar todo el mundo. Y, bueno, eran, pues, comentarios. Entonces, primero te hacían como “pero, ¿cómo os han traído aquí, no?”, como un poco “¿a quién se le ocurre poner aquí a dos chavalas a jugar con nosotros, hombrachones?”, y, luego, “ay, es que me operaron del hombro, es que tengo no sé lo qué, es que he comido tarde y se me ha parado la digestión, etc.”. Y, yo, decía, “o sea, ¡si tendréis morro!”. Olga, que es la mujer del entrenador, ésa, nos venía y muchas veces nos decía “Nekane, Rebeka, darles, pero, de verdad”. Entonces, muchas veces, igual, llegar a un frontón que era mucho más de hombres, aquí, en Pamplona, en el López, y, pues eso, según vas llegando se va haciendo el partido. Entonces, nosotras llegábamos y se ve que no se nos veía, y, pues, Olga tenía eso, una leche que le salía divina, también, y, entonces, aguantaba dos. A la tercera ya decía, “a ver, ¿pero, aquí cómo se juega?”, y, “no, no, aquí conforme llegan con la pala se va haciendo el partido”, y le dice, “pues, mira, éstas llevan más de media hora y tienen una pala en la mano. Cuando queráis, los que tengáis huevos, jugáis contra ellas”, y, Rebeka y yo allí, avergonzadas, con 18 años, yo decía, “ay, madre de Dios, ¿qué haremos?”. Y, salir y jugar, y a darlo todo. Luego, pues, se iban callando, pero, lo primero, pues, “no te veo. Tú, transparente, invisible, ahí te quedas”. Y, en otros sitios, no, en otros sitios, o sea, es que era una gozada, y llamándonos ellos. O le llamaban a Jaime, al entrenador, “Jaime, que va a salir tal campeonato, apúntales a Rebeka y Nekane y que vengan”.

Hemos jugado muchísimo, y, nos ha servido mucho, porque es lo que nos ha ayudado a nosotras, si no, no podríamos entrenar. Y, jugar con los hombres, la velocidad, la fuerza que esto, etc., luego, para jugar con las chicas, también nos venía mejor. Entonces, pues, bueno, esos comentarios, pues, sí. Hay una gran diferencia en todo, yo, cuando empecé a jugar, había diferencia hasta en los premios. En Ezcaroz, nosotras fuimos y los chavales tenían, no sé si eran 100.000 ptas. entonces, y a nosotras no sé si nos daban un queso. ¡De churro! Pues, bueno, el año siguiente ya cambiaron. No sé, me parece que ya no había dinero para nadie, pero nos daban pacharán, queso, la txapela, la copa,... Y, a nivel de con la española, lo mismo. El primer Open de España que jugamos, a los chicos les daban 100.000 y a nosotras 50.000. Y, yo decía “pues, ¿sudaremos distinto? ¿No damos la talla? Pues, para nuestro nivel lo estaremos dando, ¿no? Y tendría que ser todos igual, y el premio, pues lo que tengas, porque es aficionados”. No es que tú cobres 100.000 y el otro cobre 50.000, no. Eso, pues, bueno, el primer año pasó así, pero, luego ya lo igualaron para todos. Entonces, ahora, chico o chica, todo el mundo cobra lo mismo. Y, la diferencia, pues, bueno, eso también. Puf. En entrenamientos, todo, es que no tenías. Nadie se preocupaba de unas chicas. Nosotras en Estella, por ejemplo, porque tuvimos la suerte de tener a Jaime, Jaime y su mujer, que parecíamos sus hijas y nos llevaba a todos los lados. Los verdaderos hijos decían, “no, no, es que tengo dos

hermanas”. Ja, ja, ja. Nos llevaban a todos los sitios. Él preocupado para ir a Arnedo, para ir a Arnedo como íbamos a entrenar a trinquete, que íbamos a las 9 de noche, hasta las 11. Cuando salía Rebeka de trabajar, y yo de estudiar, me bajaba allí y cogíamos el coche y vuelta. Cenar, cuando llegabas a casa, un vaso de leche con azúcar, y a dormir, más contenta que nada. Puf, yo qué sé. A Lekunberri, las veces que teníamos que ir a Irun, o sea, hemos dado vueltas que jamás hemos puesto ni una pega ni media. Todo lo contrario, encantadas de la vida. Y, yo, esa diferencia la veo ahora con todas las chavalas que tenemos ahora. O, chavales, porque yo, les ponía casi el frontón, reservándoles la hora, “pues, venga, la tenéis aquí”, y, “no, es que tengo no sé qué”, y, yo, decía, “ay, ¿es que cómo puede ser eso?”. “No, es que he dormido poco” y, “si yo he venido de currar, de estar metiendo fardos de hierba como una capulla, esquilando, y luego ir a jugar a pelota y, entonces, era lo que quería”. Entonces, se me olvidaba todo lo que había hecho. O, sin dormir ir a jugar los partidos, porque de verdad te nace y te gusta. Entonces, pues, ¿no hay diferencia! El que de verdad le gusta va a sacrificar todo eso, que no es sacrificar, pero lo hace porque le sale, y, otros, pues, no.

¿Y, cómo crees que la gente ve la pelota de las mujeres?

¿Cómo las ve? Pues, bueno, yo creo que ahora, poco a poco, va mejorando. Pero, antes, puf, ha habido ahí unos años que no, esa diferencia de haber sido las raquetistas profesionales entonces, de ser las mejor vistas a ignorarlas, no, y a dejarlas ahí como tapadas, y, que no levanten la cabeza, ¿no? Yo creo que, bueno, pues, ahora, que nos va a costar muchísimo, pero yo espero que algún día saquemos ya toda la cabeza a flote, que ya es hora. A mí me choca mucho, pues eso, yo fíjate los años que llevo aquí en Navarra jugando. Hemos sido las primeras campeonas internacionales, campeonas del mundo, o sea, que lo das todo, en Navarra, que se vive la pelota, y vas todavía a algún sitio y te dicen, “ah, pero, ¿las chicas jugáis a pelota? ¿En Navarra hay chicas que jueguen?”. Digo, “o sea, si nos conocen mucho más fuera que aquí, donde de verdad se vive la pelota”. Pues, eso está fatal. Y, ¿por qué? Pues, los medios de comunicación tampoco hay un seguimiento que hagan, para nada, lo justo, porque yo, muchas veces los escritos los mando yo y tal como los mando salen. Pues eso, todo el esfuerzo lo tienes que sacar tú, cuando tú ves la diferencia con los chicos. O sea, un niño con 8 años, es que ya tiene todo el camino hecho. Ala, venga, es seguir, etapa tras etapa, ta-ta-ta. Y, nosotras, no. Pelear aquí, venga, siempre escarbando y a ver lo que saco. En la federación, aquí, a mí me llamaban la guerrera, y siempre peleando y al final de cansas y te aburres. Yo muchas veces digo “lo tiro todo a la mierda y ya me vale, porque pelear”. Pero, veo resultados, veo niñas, esas chavalitas que en 20 años no ha habido y ahora tengo niñas con 8 años que están jugando ahí. Tengo a las de 12 que juegan un montón y sé que para los 18 van a jugar un huevo. Entonces, eso me empuja a seguir haciéndolo, pero es un sacrificio mío. Porque yo, al final, eso, me tengo que repartir a mil cosas, y yo digo “madre mía, ¿hasta cuándo podré, no podré?”. Pues, bueno, de momento lo hago y ahí sigo.

Has dicho que al final tienes una familia de la pelota. ¿Qué relación tienes con las otras pelotaris, con la gente que anda jugando? ¿Os lleváis bien?

Sí, o sea, con todas, e. Siempre va a haber alguien más especial, pero, de normal, sí. Es como otra familia. Cuando empiezan, ahora, por ejemplo, va a empezar el Kutxa y ya estás deseando. Es para nosotras el campeonato de élite, ¿no? El mejor, el que tienes que darlo ahí todo, ¿no? Pues, a ver si puedes demostrar todo lo que juegas, pero, a la

vez, tienes ese partido y esa reunión, pues, el que te quedas, que las ves, y, ¿yo qué sé? Al final es una familia. Si paso más horas con todas con las que estoy jugando que en mi casa. Ja, ja. Entonces, pues, ¿yo qué sé? O, cuando estás en la selección, pues, con ese grupo que estás haciendo, pues, lo mismo. Y, es que se crean muy buenas amistades. Yo, para mí, es que es, puf, sí. Lo mismo aquí, en toda Euskal Herria, como cuando sales, ¿no? Cuando vas fuera, lo mismo. Vas a Argentina y siempre tienes ese recuerdo, yo, al final, de todos estos años que llevo ahí, en la pelota, y que las he conocido. Te van viendo. Lo mismo chicas que chicos. No sé, entonces, siempre haces, hay un grupo que está muy guay. Está súper bien, que te llena, te da todo. Sí.

¿Intentas mantener esas relaciones de amistad?

Sí. Es que, pues eso, al final, es donde conoces. Con otras igual no tienes nada, e, simplemente los partidos y te ves y punto. Y también hay esa rivalidad. Buah, pues esta vez voy a ganar, a ver si puedo. Y, con otras, aunque lo tengas, con Amaia, yo digo, “le tengo que ganar, porque es una cansina”, ja, ja, pero, luego, terminas y es una gozada. Lo mejor, sí, sí. Y con quien vas a tener más amistad, con quien vas a seguir, y que te estás llamando, y que mandas mensajes, y que haces de todo, y, con otras que no, simplemente te vas a ver en los campeonatos y punto. Pero, bueno. En la vida normal, yo, en el trabajo, tengo un grupo también, y también es otra parte. Pues, vas haciendo, no con todo el mundo lo vas a hacer, pero, pues, sí. La verdad que con el que haces, haces muy buena amistad.

Ondo, ondo. Ahora vamos a encauzarnos más hacia los objetivos o las expectativas que tenías tú cuando empezaste a jugar a pelota.

Puf. Hombre, pues, cuando empecé a jugar a mano yo no quería más que jugar a mano. Yo, para mí, era una diversión que iba a los partidos y me encantaba eso. No lo veía “a, yo quiero ser profesional”. Me encantaban, e, me encantaba Retegi, me encantaba Galarza, y las entrevistas y así eran los dos que, bua, los veía ahí en la tele y flipando con ellos. Arretxe también un poco, pero Galarza y Retegi eran lo más. Entonces, pues, bueno, luego, ya, cuando empecé, cuando me llamaron ya con la pala, yo decía, “joe, pues eso, pues, el Mundial”. Para mí, el sub-22 que fui a jugar a Argentina, vamos, eso fue el no va más. Ja, ja. Y, luego, pues, poco a poco, pues, todo, el seguir ahí, el hacer ese deporte, a mí me hubiera encantado poder vivir de ese deporte, como son profesionales los chicos haber podido ser yo, no tener que estar currando y luego ir a eso. Jo, y, a veces, yo digo “pues, fijate qué suerte”. Que no aproveche ese momento que tiene para poder vivir de la pelota o del deporte que haga, eso es un lujo. Yo, vamos, yo me levantaría todos los días a las 6 si hace falta. Ja, ja, ja. Ya te digo, una gozada, pero, eso es lo que se me queda de no haber conseguido.

He jugado y me he tenido que sacrificar más, pero, bueno, me ha compensado también, e. Porque, pues, bueno, por lo que he ganado, la gente que he conocido y lo que he vivido. Eso me llena y ya está. No he sido profesional, pero, he sido yo, y está muy bien.

Y, claro, ya no sé. Ya hay un top, pero, bueno, ¿hasta dónde te gustaría llegar?

¿Hasta dónde? Pues, me encantaría ganar un Kutxa, que es lo que se me queda por ahí, ja, ja, pero cada vez estoy más abueleta. No sé, puf. ¿Qué me encantaría? Pues, a mí, yo

creo que tengo todo. ¿No? Pues, ¿una Olimpiada? Claro que me encantaría, pero eso lo veo lejos no, lejísimos. Entonces, yo ya me conformo con ver un amago de que vayan alguna vez, y, sobre todo, las chicas de pelota. Y, puf, pues, luego, ¿yo qué sé? El seguir, el ver que las chicas no tengan que tener esas pegas y el tener que estar peleando. “No, no, tú, por chica, quédate aquí o quédate allá”. No, no. Las niñas, desde que quieran y les dan la pelota, pues, que tengan el camino muchísimo más llano que lo que hemos tenido nosotras. Que vayan y que haya unos campeonatos para poder jugar, como los chicos, y sean bien vistas, y nadie tenga que comentar si eres una marichico o dejas de serlo. No, porque eres una chica, y tan femenina o más que cualquier otra. ¿No? Pues, unas seremos de una manera y otras de otra, que no tiene por qué. Yo, hay algunos que opinan, en vez de dejar opinar a las chicas opinan ellos de su parte, “no, no, pero cómo van a jugar a pala, si es que se les van a desarrollar mucho los hombros”. Pero, ¿qué tonterías habla la gente, no? O sea, ¿las de balonmano qué hacen, no desarrollan los hombros? ¿Las nadadoras qué hacen? ¿Quieres hacer deporte o no quieres hacer? Entonces, lo que tendrían que dejar es elegir a las chicas, que hagan el deporte que quieran, y que esté bien visto. Yo, el objetivo principal, pues, ver que las mujeres podamos hacer lo que nos dé la gana también, que no nos elijan ellos, o, que no nos pongan barreras para no hacerlo.

Ondo, ondo. Ahora, vamos a ir a ver en qué estado de salud está la pelota de las mujeres. ¿Cómo lo ves? ¿Qué salud le ves ahora a la pelota?

Hombre, yo, si te hablo de Navarra, para mí ha salido de una enfermedad, ja, ja, y va mejorando. Está en rehabilitación total. O sea, porque es que, lo que te digo, de haber estado siempre jugando dos chicas en Navarra, umm, yo, con dos torneos que he hecho de promoción del “Ni ere pilotari”, he conseguido que el año pasado estábamos 75 entre 8 y la mayor, que tiene, 53. Entonces, o sea, de lujo total. Para este año, ya me lo han metido como Juegos Deportivos de Navarra y están jugando un montón de chavalitas y se empieza a mover un poquillo más, ya se está conociendo. Entonces, pues, bueno, para el caso de Navarra, estado de salud fenomenal. Ahora va hacia arriba. Tiene que mejorar más, porque, al final, es todo con mi esfuerzo, también, y yo no me puedo partir en mil pedazos. Ahora me gustaría que haya más gente que se involucre y que lo mismo que sale para los chicos a por las chicas, porque, a mí, no porque seamos chicas solamente podemos estar chicas llevando esta historia. No, que se muevan todos, yo también he entrenado a chicos. Entonces, pues, que todo el mundo haga por ese deporte y que vaya hacia adelante. ¿En el resto? Pues, bueno, en Gipuzkoa lo trabajáis un montón y yo creo que está bien y no se tiene que atascar. Yo creo que eso tiene que seguir, a mí lo que me da pena también que digo, “a ver si las viejas glorias nos vamos a ir y esto se va a parar un poco”, que no creo que sea el caso, porque ya también hay jóvenes. Entonces, pues, bueno, o, de otros países, a mí, puf. Aquí pienso que lo vamos a mantener y va a poder salir algo. Me da más problema, igual, saliendo más internacionalmente, que es donde haya más problema, pues, porque si aquí se es machista en esos países ni te cuento. Entonces, pues, bueno, voluntad sí que tienen las chavalas y quieren jugar, pero si los presidentes de las federaciones o de los clubs las ignoran, pues, no van a jugar nunca. Seguirán jugando en su barrio, pero no van a salir adelante y ese trabajo para que la pelota sea olímpica, vamos, puf, un sueño cerrado. Es que no saldrá. Entonces, hay que trabajarlo muchísimo y, no sé, tiene que haber muchos como menda, menda y menda, que estamos varias mendas. Ja, ja, ja, todas aquí.

Has dicho que ahora está en rehabilitación. Ha estado mucho peor en Navarra. Al final, tú dices que gracias a tu trabajo, pero ese trabajo es aparte de tu trabajo diario.

Sí, sí, yo mi trabajo, yo me gano el pan, como se dice, en el hospital, trabajando en el hospital. Pero, yo, o sea, rato que tengo allí en el hospital, o, trabajo allí en Rayos en una mesa para disparar y poner los datos y todo, y lo suelo tener lleno de papeles de pelota, “ay, no, pues tengo que llamar, tengo que hacer tengo que sacar, tengo que”. O sea, puf.

Al final estás trabajando para la Federación de Navarra.

Eso. No. Trabajo haciéndoles un trabajo que tenían que haber hecho ellos, porque yo no recibo ni un duro de nada. Yo lo hago por amor al arte, por amor a esa pelota y a que veo que esas niñas no quiero que, pues, lo tengan como lo hemos tenido nosotras, miles de trabas. Yo quiero que vayan disfrutando de ese deporte. Entonces, pues, no, ya me he quejado mil veces, y les digo mil cosas, pero, eso cuesta. No había mujeres dentro de la federación. Había la mujer de un federativo, pero que no hacía más que estar y llevarse los dos duros que van a dar y poca historia más. Entonces, no, eso no es trabajar por la pelota. Y, yo, que lo hago desde mi casa, poniéndoles todo, yo no recibo nada y, encima, aún me dicen guerrera. Y, yo, “pero, ¿esto cómo puede ser?” Entonces, pues, bueno, el año pasado o hace dos, hace dos años o el año pasado, le metí a otra chavala también que, bueno, por lo menos me ayuda un poquito y, porque si no yo, si me vuelvo a meter es que es más de lo más. No, yo quiero seguir jugando un poco y pelearme cuando me tenga que pelear. Entonces ésta se metió, y, por lo menos, a reuniones o cosas que vaya metiendo ella caña. Yo le achucho por un lado y ella hace por el otro, y, bueno, y vamos sacando. Pero, tendría que haber más y no dejarlo ahí, “no, ya lo hemos metido”, porque muchas veces lo que se hace ahora en las federaciones es, aquí, por ejemplo, en Gipuzkoa no porque ya está más constituida desde hace más tiempo y estáis dando más caña, pero aquí no. Aquí la metían y “ah, ya lo tengo dentro, ya figura y ya estoy salvado y ya voy a recibir yo por lo que sea”. No. O la tienes o déjale que haga lo que tiene que hacer. Entonces, yo tengo que pelear ahí también. Pero, bueno, a ver si, puf, tenemos que mejorar muchísimo. Yo lo que veo que, pues, bueno, que yo me he involucrado, yo me he metido en esa movida, he conseguido que entren otros clubs y, para mí, éstos de estos clubs trabajan por chicas también. Son hombres que están trabajando con chicas y éstos también van a meter caña. Entonces, ya no estoy sola, y es lo que me va a ayudar, porque es que si no, o sea, ¿de qué? Yo no podría hacer más. Ya he hecho ya bastante. Entonces, por aquí o por allá, pues, bueno.

¿Hay más clubs ya?

Sí. Bueno, lo que es la paleta en trinquete es que me la llevo toda aquí, en el Oberena. Y trinquetes no hay muchos, pero, bueno, pues, en otros clubs podrían hacer, y decir “venga, que tengo chavalitas, van a jugar a frontón”. Yo no he jugado a trinquete siempre, yo he empezado más tarde, pero, por lo menos, tú dale opción a esa chavala que va a jugar que juegue, a mano, a cesta, lo que le da la gana. Y, si luego quiere trinquete, ya irá a un trinquete, y se buscará la vida lo mismo que nos la buscábamos nosotras. Entonces, pues, bueno, van, ahora van saliendo. En Etxarri, en Espinal, en Leitza, aquí en lo que es Pamplona también ya han salido el López, el Amaya, ... Van saliendo como más clubs, ¿no? Pues, que igual tienen cinco chavalitas, el otro tiene tres, el otro dos, pero, ya son dos, antes no había ninguno. Entonces, pues, bueno, poco a

poco. De Logroño también ya se están moviendo, pues, que sí que quieren sacar eso adelante, se han puesto en contacto conmigo, pues, para poder hacer intercambios. Yo, todo lo que sea como promoción o que vean que las mujeres sí que estamos ahí, pues, adelante. Y digo “pues, otro esfuerzo, pues, sí que lo hacemos”. Ja, ja, ja.

Aunque esté en rehabilitación, de manera más general, ¿cómo mejorarías o te gustaría que mejorara la situación? ¿Se te ocurre alguna...?

Pues, ¿cómo mejoraría? Habiendo gente que de verdad quiere trabajar por la pelota femenina y eso, pues, desde los colegios hay un campo abierto que está sin explotar total, o sea, porque no se ha hecho nada. O sea, y empezando por todos los colegios, lo mismo que la pelota les dan un folleto a los niños cuando van a empezar de lo que tienen que hacer, pelota a mano y pelota a mano. Fútbol y pelota a mano, no hay otra cosa, lo demás ya no existe. Pues, no, yo quiero que haya “fútbol, pelota a mano, pelota femenina. Aiba!” Tienen ya en setiembre en todos los colegios para apuntarse. ¿Qué no sale ninguna? Pues, no sale ninguna. Igual hay un año en el que se apuntan de repente 50, ¿no? Pero que lo vayan metiendo. Entonces, que se trabaje. No sé si tiene que ser la federación, que yo pienso que sí, o el Gobierno de Navarra, o no sé quién. Alguien, pero tiene que haber más gente por la labor, porque yo, al final, me veo también sola, ahora no porque veo a éstos que les voy picando por un lado y por otro y ya me siguen, pero, no todo el mundo quiere ese trabajo, porque se está más a gusto aquí, en el sofá, caliente y jugamos a verlas venir. No, yo salgo de trabajar a las tres, vengo, como echando leches y para las cuatro ya estoy yendo al Oberena y estoy allí, y luego seguido me tengo que ir a tecnificación y vuelvo a casa a las once, y el día siguiente me tengo que levantar a las siete. Y, claro, eso no gusta. Y dicen, “¿qué día paras?” y “pues, bueno, alguno pararemos, a ver cómo me organizo”. Entonces, yo sé que si hubiese más gente lo podríamos hacer de otra manera, también, y, pues eso, a mí en el fondo me da igual que seamos chicas o chicos los que vayan a llevar esta historia, pero que tendría que haber más gente trabajándolo, porque si no, no hacemos nada.

¿Y, por qué te parece que esas chicas que están surgiendo, has dicho que hay más, eligen jugar a pelota?

¿Por qué? Pues, bueno, puf, yo, yo sé que les engancho, porque yo les intento transmitir todo lo bueno. Yo jamás les digo, “no, es que son unos capullos los de la federación, en el otro lado te dan por culo,...” Yo no les digo ninguna cosa mala.

¿Ésas te las guardas para ti?

Exacto. Entonces, yo les hago todo lo bonito y, que en el fondo es también lo que me sale, e. Yo no voy a poner todo el rato todo críticas. Puf, es que si no, vamos, abandono ya. Entonces, intento para que no me pueda y ver lo bonito. Entonces, yo les digo y ellas están deseando, “pero, ¿cuándo vamos a jugar con la selección? ¿Cuándo vamos a ir a fuera a jugar un partido? ¿A mí me harán la ficha? ¿Yo voy a ir a Argentina? ¿Yo voy a ir a no sé dónde?”. Entonces, yo les voy picando y yo qué sé, o diciéndoles “pues no, hay que insistir, hay que seguir aquí para que luego hagamos un intercambio con Logroño, vamos a ir a Lekunberri”, que es que yo tampoco no les mando a las Bahamas, e, yo les pongo con los pies también en la tierra y que tienen que jugar aquí bien para que salgamos a Leiza, para que salgamos a Espinal, para que vayamos a Etxarri. Ahora están jugando de esa manera y están alucinando. Ellas se ven que cada día mejoran y va

y resulta que han visto un recorte en el periódico y “Nekane, que te vi en el periódico”, y están como locas. Pues, no sé quién ve que llega un hombre al frontón y “ése quién era, era el seleccionador?”, ja, ja, ja. Encima, yo les pico y les digo, “pues sí” y “ay, ¿qué han dicho?” y yo les digo “que no os puedo decir ahora, tenéis que seguir jugando y a fin de año ya os diré lo que”, ja, ja, ja. Bueno, pues, ¡yo qué sé! Entonces, el ambiente que hago yo con ellas y yo qué sé. Disfrutan. Ellas van, y, yo, para mí, el resultado es que me da igual. Y sé que vamos a ir a jugar contra Gipuzkoa y nos va a dar para el pelo. Pues sí, pero llevan mucho menos tiempo. Yo, las chavalas que tienen ahora 16 años o 17, que llevo solamente año y medio con ellas, o dos años, que son unas pajareras, sé que ésas no van a jugar. Ahora, estas chavalitas que las tengo yo desde los 8 años sé que cuando lleguen a esos 18 años van a jugar un huevo. Pues, ya vendrán los resultados entonces.

Entonces, pues, bueno yo lo principal es que disfruten y que jueguen a gusto. Y vamos allá y les hago una merendola, y nos juntamos, y están el sábado felices de la vida porque van a ir a un sitio, a otro. Yo qué sé, yo les voy enganchando con lo que más puedo.

Supongo que en esos 20 años también habrás tenido casos de éstos. ¿Por qué te parece hay chicas que hayan empezado y luego lo han dejado? ¿Por qué puede ser?

Sí. Pues, algunas porque la verdad que para nada lo viven. Bueno, yo empecé en Oberena y empecé con tres chavalitas. Y, bueno, de esas tres, luego me enteré de una chica que jugaba en Burlada, que es a la que le invitaron con 10 años a que dejase de jugar a pelota, y le dije “pues, tú tranquila. Yo te voy a dejar que juegues a mano cuando juegues conmigo, pero cuando te pongan a pala sigues jugando a pala, o, si quieres seguir ahora o hacer otra cosa, en el momento que tú quieras tú ven”. Y, eso, entonces, ¿cómo era la pregunta que me has hecho, que se me ha ido?

Eso, por qué lo dejan.

Entonces, pues, eso, ésas, yo sé que les animan, igual, a otras o, luego, lo hablan en el colegio, porque, al final, hablan. Dicen, “yo hago pelota”, y, “¿pelota? Pues, igual, voy yo algún día”, porque ésas no hacen nada. Otras ya hacen balonmano, ya lo tienen claro y saben a lo que van a ir. Han venido amigas de esas amigas que, puf, han venido a ocupar un hueco, sin más. Y yo digo, “bonita, ¿tú por qué vienes?”, y dice, “ay, porque venía Xare”. Ja, ja, ja. Y, digo, pues, “porque venía Andrea, puf, venga, paciencia, vamos a enseñarle”. Y el objetivo de ésa pues que termine el año dándole a la pelota. Y, al final, le pegan y ellas también se pican, pero sé que no van a seguir, o que igual van a cumplir los 17 y se van a pirar. Pero, de todas las demás sé que sacan un hueco y van a seguirlo matemático, porque yo lo primero que les digo “estudiar y hacer pelota. Avisarme cuando no vais a poder venir”, pues, porque si no, si yo les achucho “no, tenéis que venir, tenéis que venir”, sé que va a llegar un momento que depende si les exijo mucho no van a venir, porque no puede ser. Entonces, como una libertad que les vas dejando, y, jamás, ésas sé que no lo van a dejar. Luego, no sé si empezarán con sus novios, novias o lo que tengan, y, pues, puede que abandonen, pero han de volver. Y la que de verdad no lo siente o, puf, van un poco ahí, es que se nota a kilómetros quién tiene afición, quién no tiene, y otros casos hay que, igual, no han vivido, ni en su casa ha vivido la pelota, ni tienen nada, pero les gusta, que ahora también las tengo. Yo digo,

“pues, bueno, mientras estén yo les voy a hacer para que lo disfruten todo lo que puedan”.

Y, ¿por qué puede ser que una chica vaya al fútbol, o a balonmano, y no vaya a jugar a pelota?

Pero, porque no lo han visto, porque yo pienso que no lo han visto. O sea, porque hoy día a mí me preguntan, “pero, ¿jugáis? ¿Tú juegas a pelota? Pues, bueno, llevo 38 años jugando, pero he empezado ayer”. Ja, ja. Yo pienso que lo hacen porque lo otro sí que lo han visto. Entonces, a mano, pues, no se les ocurre a ningún padre, “a mi hija no, cómo voy a poner yo una pelota que se me rompe la mano a la niña”. Con una cesta punta, “¿pero, cómo?”. Pues, yo sé que si dejaran jugar a cesta punta a mocetas iban a jugar, igual que un chico. Si, al final, es entrenar, ¿no? Pues, igual no lo lanzará a 300 km/h, pero, igual, lo lanza a 200, ¿no? Entonces, pues, no sé.

Y, ¿cómo crees que hay que conseguir que esas chicas, o las mujeres, vengan a jugar a pelota, se acerquen al mundo de la pelota?

Dándoles la opción ésa de que pueden jugar a pelota, que sepan que se pueden apuntar, porque aquí es que muchas no sabían que se pueden apuntar en un club, o en una federación. No saben ni lo que tienen que hacer, “no, no, es que no sabemos ni que hay competición”. Y, que no solamente la competición, se puede hacer también por ocio, jugar y estar allá. Yo, o sea, a la vez que les hago a las niñas el campeonato, yo les digo a todas las madres que les voy a montar un campeonato, y no he llegado, pero ya estoy y ahora ya me lo piden ellas, no, “Nekane, ¿vamos a hacer eso? Porque yo estoy deseando”. Y, me da igual si juegan o no juegan, si no que estén en el frontón y que vean que tienen un hueco en el frontón, pero es lo que digo, los chicos lo tienen todo. Tienen su hora de entrenamiento y lo tienen todo. Tú vas y dices “no, es que quiero jugar a pelota” y dicen “no, no, no, es que no hay horas”. “¿Cómo que no hay horas? Si soy socia, yo quiero tener una hora aquí” y “sí, hombre, ¡cómo vais a jugar!”. Entonces, ah, pues nada, fuera. ¿Dónde jugamos? Aquí, en una placica que hay una pared y allí tienen que jugar las mujeres. Pues, no, tenían que tener todas las mujeres que sepan. Y dicen, oye pues hay aquí una escuela, o no sé cómo llamarle, y que puedo ir a jugar, y no tiene que ser para que vaya a competir. Para eso ya está el Centro de Tecnificación, que ya me preparará y hará la competición, pero otros sitios donde puedan jugar y sepan dónde dirigirse. Y, como esa información, aquí, ya te digo yo que no la tienen. O, si no la hacen de voz... Porque a mí, muchas veces, “oye, Nekane, tú jugabas a pelota o juegas, no, ¿qué tengo que hacer, a dónde tengo que ir?”, y, “pues, ven conmigo”, y yo me las llevaba. Yo no estaba diciendo “pues, juega mucho o juega poco”. No. “No juegas nada, vamos, tú tampoco, tira, ¿juegas más? Bien. Todos conmigo”. O sea, yo me los he ido llevando. Yo les aviso, les digo, “si tú tienes ganas, o sea, igual vas a perder ahora dinero, porque nos va a tocar pagar la luz o vas a tener que hacer kilómetros para venir a, si eres de un pueblo vas a tener que venir aquí, a Oberena, pero yo te ofrezco que puedas entrenar aquí conmigo”. Eso es, y que vas a venir. Yo ahora las estoy engancho para hacer el físico, o sea, yo me las llevo. Yo sé que si no, por ellas, no van a hacerlo. Yo he ido siempre sola, y salir a las diez de la noche y vete a correr, no tenía ni rastro de ganas, pero tenía que ir. Entonces yo digo, “bueno, pues, a ver cómo les engancho”, y ahora ellas hablan, “¿oye, vas a venir al físico?”, ya no es que les tenga que decir yo y me mandan ahí el WhatsAppillo, “oye, Nekane, que sí que voy”. Ja, ja, ja. Pero, les voy diciendo, y en mayores lo mismo, me dicen “ay, pues igual

sí que voy”. Pues, bueno, poco a poco, ir enganchándolas de alguna manera, que sepan, y cuanto más volumen de gente tengamos más peharemos. En vez de una solo ya somos más, más fuerza.

Ondo, oso ondo. Tú sigue, eh, muy bien.

¿Sí? Igual te meto una chapa que te mato.

Ez, ez, oso ondo, ni oso gustura nago. Has empezado antes, no hemos seguido, y quisiera volver a preguntarte la opinión que tienes sobre cómo funciona lo de, por ejemplo, los medios de comunicación. Si ayudan, si no ayudan, cómo ayudan, cómo no ayudan, ... ¿Qué te parece?

Pues, fatal. Ja, ja, ja. Que ayudar, nada. Nos ha costado... Para cuando sacan un resultado... Nada. Yo pienso que es malísimo. Y, aquí, el Diario de Noticias, que es lo que digo, si mandas tú el escrito sale. Yo si llamo a la radio y mando “oye, me vas anunciando esto que voy a hacer este torneo”, pues, lo del “Ni ere”, que era de promoción para seguir por toda Navarra, pues, yo les mandaba y yo les tenía que decir “va a salir esta jornada, que va a ser de esto, es el 2º año...”, yo les daba los datos, perfecto, y salía. Como nadie te dice “oye, Nekane, pero, ¿ya vais a hacer?” No, no, no, eres tú la que tienes que sacarlo todo. Y, a veces, yo decía “pero ¿cómo voy a hacer yo el escrito, no? Bueno, pues, voy a hacerlo”. Me ponía y “oye, mira a ver si sale. Aiba, que ha salido, a ver qué pone”. O sea, hasta las comas, los acentos, todo como lo había puesto yo. Corta y pega perfecto, lo que has dicho. Entonces, pues, puf, ¡yo que sé! Eso a nivel de los campeonatillos o lo que hagamos aquí. Tú vas a mirar un Mundial y, bueno, sale lo que sale, más o menos. Igual, como nos ha solido pasar aquí. Rebeka y yo quedar campeonas y los chicos, los del Club de Tenis, por ejemplo, se habían quedado los últimos, los cuartos, no había más. Sólo hay cuatro. Entonces, la diferencia del titular, el nuestro, si asomamos por allí, siendo campeonas, ni se veía y en negrita, igual, “los chicos de cuero consiguen la cuarta posición”. Yo decía, “¡manda pelotas! Tienen a las campeonas que no se les ve, porque está escrito en el color normal del periódico y en negrita la cuarta posición, que es el último. ¡El último!” Claro, entonces, el trato, pues, es diferente, que es que es, puf, una pasada.

Vamos a seguir por esa senda, creo yo.

Ja, ja, ja. Ya irá mejorando. Y, ahora, ni tan mal que, con el de manista.com, que ahí, bueno, puedes hacer algún comentario, o éste, Denis, igual escribe algo más, tienes alguna cosa más donde aparece. Vosotras en lo de Emakumea Pilotari, tienes información de las chicas. Es que, el resto, si no, no sale nada. Estamos desaparecidas en combate. Puf. Hay que insistir y venga y venga y venga. Lo que pasa que yo a todo no puedo llegar. Si alguien me echara una mano, o sea, porque encárgate de todas las chavalas, más las mayores, que yo les organizo absolutamente todo, y decirles “venga, hoy jugáis el Navarro, el de Iparralde, el Kutxa, el Irekia, el no sé cuál y tal”. Luego, llama al Oberena y reserva porque tienes Juegos Deportivos de Navarra, que vas a montar seis partidos, las otras tienen que ir a Leitza o al Espinal,... Pero, pero, ¡por favor! Encima, pon el escrito, y a la vez vete tú, y entrena, y trabaja,... Puf.

Ondo. Yo creo que será algo parecido sobre las instituciones: el Gobierno, los ayuntamientos, las federaciones, las Diputaciones, ...

Yo, de lo que te puedo hablar de aquí, de Navarra, yo pienso que ahí hay un dinero, con el tema de la mujer, que eso sale adelante, que hay ayudas y que hay de todo. Lo que pasa que no nos ha llegado. Sí, pero no nos llega a nosotras, se queda en el camino o en el bolsillo de quién, no sé de quién. Yo, si he conseguido sacar el torneo éste “Ni ere pilotari”, que fue de promoción, yo es la manera en que yo lo hice, pero fue porque fui a una reunión con el presidente de la Navarra, que desde la española me mandaron un escrito diciendo que en Navarra decían que estaban hartos de tirar de las mujeres porque no queremos hacer nada. Bueno, y me puso la sangre a 200, o sea, porque si alguien tira de la pelota soy yo, no la Federación Navarra. Entonces, le cogí, le llamé al presidente, le dije “quiero estar contigo, pero no mañana, hoy” y “ah, pues no, pues, mira, igual esta tarde” y ahí me fui con él. Entonces, me llevé el escrito en fosforito, se lo giré y se lo puse así. Y digo “¿qué me dices de eso?” y “uy, uy, uy, no, yo no sé nada”, y el otro, el secretario, “uy, es que eso no sé de dónde ha salido”. Y le digo “pues no”, y me dice “si eso es todo lo contrario” y “ya, pero resulta que lo decís en Navarra. Entonces, ¿de dónde os lo estáis inventando? Porque si alguien tira ya sabéis que estoy aquí al pie de cañón” y “sí, Nekane, esto y lo otro”, como echándose para atrás. Entonces, en seguida ya vino a enseñarme y “no, mira”. Eso era noviembre, e, hace dos años, y que tenían un dinero que les había dado el Gobierno de Navarra, dos mil y pico euros, para promocionar a la mujer... Digo “ah, en noviembre, ¿qué vais a hacer con eso?” y “no, ahí se quedará, como no se ha hecho nada” y “¡cómo! Mira, ¿qué hay que hacer?” y “no, es que, claro para eso se necesita un proyecto” y “mira, en mi jodida vida he hecho un proyecto, porque para sanitarias no he necesitado, pero para mañana lo tienes, o sea, que ideas me vienen”. Y, para mañana lo tuvo. Nos inventamos con Rebeka y Natalia el nombre “Ni ere pilotari” y arranqué a hacerles todo, “pues, esto, quiero que haya sedes por toda Navarra, si va a durar 5 jornadas siempre con la final en el Labrit y los otros cuatro que nos repartamos por toda Navarra y darlo a conocer. Quiero que jueguen todas las chicas, me da igual que vengan con una sartén, con algo que le peguen y con una pelota, que la lleven y que cada una que juegue a lo que quiera”. Fliparon en colores. Decían, “aiba, ahora vamos a tener que emplear el dinero, ya no nos lo vamos a quedar”. Entonces, si yo he visto ese dinero de esa manera, así, ¡cuánto no habrá por ahí! Eso me reconcome.

Entonces, sé que hay, que hay ayudas y se puede hacer un montonazo, pero que no lo hacen y se lo aprovechan para otra cosa mariposa. Entonces, yo, lo poquico que voy viendo y haciendo lo seguiré, y ojalá algún día se hagan las cosas mejor, pero, que hay, ya te digo yo que desde el Gobierno de Navarra y ayuntamientos y todo. Hoy en día hay para la mujer muchísimo, pero no nos llega, se queda para el hombre.

Y, ¿sobre los clubes de pelota? Has dicho que hay algunos, que ahora hay más.

Sí, que han empezado porque ven ellos también que tienen ahí. Yo, siempre, con Urtzi, en Etxarri, él siempre ha tenido chavalitas y es un hombre que tiene y que quiere que salgan. Él tiene a sus hijas, y eso le ha llevado a tener a todas las demás, y trabaja por eso y tiene sus horas y ése es otro pringadillo como nosotras, ahí, que quiere que salga esto hacia adelante. En Espinal, pues, han visto y nos han visto y yo he llevado allá una jornada del “Ni ere” y ellos se han motivado y entonces les van engancho a padres. Luego, vengo aquí a Mendillorri y también quieren. Lo que hago todo del Oberena, van saliendo, y cada vez pues van saliendo más. Entonces, pues, bueno, que lleguemos a ser muchos más clubs.

Yo, lo mismo que mandaba escritos a todos los periódicos, federaciones, radios y de todo, lo he mandado a todos los clubs. Otros habrán dicho “¿esta panoli de qué? Aquí, si sólo tenemos a chicos de mano”. Pues, bueno, pues, igual puede haber alguna chica. Mi sobrina juega en Estella. Ésa está haciendo como yo. Con 9 añicos tiene y ya lleva dos años, también, jugando en Estella a mano. Le podría apuntar yo a pala y me la he tenido que traer y tiene que jugar a mano y a pala. Ya ha empezado como yo, y yo no quiero que deje la mano, para nada, que siga jugando, porque es que le va a venir fenomenal. Es que, ¿cómo no van a poder jugar los niños? Pues, esos clubs que dejen y que lo vendan. Hay de todo.

Sobre las pelotaris, ¿también habrá de todo, no? Habrá pelotaris que se impliquen más, menos.

Pues, sí, Puf. Otras que nada, otras menos que menos que nada,...., Ja, ja, ja. Pero eso yo creo que va a haber siempre. Lo que digo, es que es muy cómodo, y es una gozada, “tengo entrenamiento”, “¿a qué hora?”, “de ocho a nueve, perfecto, me ducho, me tomo mi cacharrito y a casa”. Pero, lo jodido está ahí: vete, entrena con esas chavalitas de 8 a 17 años, que cada una es de un padre y una madre, que le va a pegar de una manera, que tienes que tener una paciencia, y eso es jodido. Luego tiene su satisfacción, pero, eso, puf, un esfuerzo que hay que hacer, y, por supuesto que no todo el mundo está por la labor. Yo, aquí, ya te digo, cuando te dicen “que no, que yo ya te voy a echar una mano”. El año pasado Nora y Edit me ayudaron, y Nora porque está en Vitoria, pero sé que si estuviese aquí me ayudaría también. Edit anda con el tema de trabajo. Sin embargo, pues, lo que yo veo, en la zona de Estella. Yo vengo de aquella zona, de Urbasa, que está a 30 kilómetros de Estella, y no trabajan absolutamente nada la pelota por las chicas. Y, a mí, Rebeka, con todo lo que sabe, le digo “venga, puñetera” y me dice “tú estás enferma”. “¿Qué yo estoy enferma? Lo que tú tienes es unos huevos de kilo”. Porque no, “sí, bastante hago con trabajar”, sé que tiene un trabajo, pero yo también trabajo y, mira ayer, todo el día sin dormir, terminar y venga, a trabajar de noche, y hoy, otra vez aquí estoy, pero hay que hacerlo. Todo el mundo no quiere y tampoco le puedes exigir. Yo a Rebeka no le puedo exigir, pero me da pena. Digo “con un poquito de esfuerzo tuyo, que luego hay otras chavalas también allá, podrías sacar y podríais tener chavalitas. Otra vez, empezar”. Porque, aquellas, o sea, la más joven creo que es Rebeka, bueno, no, Iraia, pero ya tienen sus treinta y muchos años todas. Entonces, eso se va a terminar. Pues, tendrían que preocuparse. Yo no quiero que se me termine aquí conmigo, en el Oberena. Yo quiero que sigan todas las demás y, al final, pues cubrir y tener de todas las edades. Pero, puf, hay quien se involucra y quien no pega ni chapa.

Y, ¿sobre los que van a ver o los que no van a ver? ¿Sobre los espectadores?

Puf. Pues, es que, yo, aquí, yo pienso en lo que es Navarra que se lo lleva todo la mano. O sea, en trinquete siempre hemos sido los hermanos pobres y no va a venir ni Blas. Al frontón, a la maciza, cuando ven un partido alucinan, “¡ostras! Pues mira si la ha mandado a rebote y ha hecho una dejada, un dos paredes”. “Hombre, pues, jugamos a pelota, entonces, algo sabemos hacer. No lo haremos tan bonito como vosotros, pero, algo hacemos”. Entonces, ¿por qué no se llena? Porque es otra mentalidad o es lo que te digo, porque al frontón ahí pagando un montón de dinero y van, “pero, profesionales”, y, “¿qué pasa? Que los profesionales no fallan y no se pegan cagadas?” Hacen partidos

muy buenos, deben de hacerlo, pero, otras veces te salen una mierda de partidos y en aficionados vas a ver muchos mejores. Entonces, la gente parece que tiene que tirar allí. Tú pones un espectáculo ahí en el trinquete que van a venir fulanita, menganita y no sé quién y siempre van nuestros familiares, amigos, rogándoles, “venga, venir, que jugamos contra quién, contra cuál, contra la otra”. Puf, yo qué sé, ahí cuesta, y es cambiarlo, pues, todo. Pues, porque al frontón, pues, bueno, cuando hemos jugado a maciza hemos casi llenado el Labrit, la parte de arriba no, pero haber un ambientazo, pero bien bonito, que todos luego alucinan. Cuando eso dicen, “¡ostras!” y digo “pues, claro que sí, pero hay que darle esa promoción”. Y, nosotras vamos a jugar y, ¿en cuántos carteles sale? Claro, si ese campeonato lo está haciendo la federación, él es el que se supone que tiene que dar esa promoción, ¿no? Y no la hace o pone el cartel el día anterior. ¿Quién leches se ha enterado? No se ha enterado nadie. Yo, en el “Ni ere” empiezo a poner carteles y pongo por todos los lados, y, entonces, al final, van saliendo y se engancha de un lado y de otro, pero hay que trabajarlo de otra manera. Éstos saben que los profesionales todos los sábados en el Labrit tienen partido, y se llena, a patadas, pero se queda escaso en esa promoción.

Y, ¿ésos pocos que van a ver, qué opinan?

Sí, pues, yo pienso que muchas veces flipan y se quedan “¡Ah! Pues, si yo pensaba que...”, “¿que no le dábamos, no?”. Pues, eso. Lo mismo en frontón que en trinquete. Yo gente, que al final, “venga, ámate, ven”, en el último internacional que jugamos en Mendillorri alucinaron y la gente vino a la mañana a ver el partido, que por ejemplo habíamos jugado el sábado contra Francia, y nos clasificamos para jugar a la tarde la final, y era gente de fuera, y se fue y volvió otra vez a ver la final, pero, porque les encantó, porque no se lo imaginaban así. No lo han visto, no lo conocen. Lo mismo que yo cuando me dijeron el trinquete y yo “¿qué es eso, es una herramienta nueva, o, qué se yo?” y “que no, joder, que es el tipo de” y “ah, es el frontón, mira tú”. Pues, la gente no sabe, y conocen un frontón, pero no conocen el trinquete. Entonces, luego, cuando lo ven, y están alucinando, de que es muy bonito. Y otros dirán “bua, qué pachanga, qué muerto”, pero, porque no les va a gustar, no les gusta. Yo, la mayoría, siempre han sacado de bueno y han alucinado, “otras, pero, ¿cómo le pegáis a esa pelota?”, siempre es de que le gusta, de “bien”.

Ondo, ondo, oso ondo. Ahora hemos hablado más o menos de la situación social, vamos a pasar a la cultural. Tú has dicho que naciste en Beasain pero creciste en Eulate. ¿Tú crees que nacer en Pamplona o en Eulate o en Estella, ... Influye el nacer en un pueblo o en una ciudad en esa elección?

Yo creo que sí. Yo creo que en muchos casos sí. Siempre habrá alguno que, pues, bueno. Yo, ahora, de las que tengo, que son de la ciudad, llevan algún vínculo con la pelota, ¿no? Al final, de las chavalicas, a la madre le gustaba, o el padre era del pueblo y siempre habían visto el frontón, o tienen ese pueblo al que luego van el fin de semana. Siempre están ahí, un poco relacionados. Entonces, la que nace en el pueblo, bueno, es lo que te digo yo, pues, bueno, ahora tienen más juegos y tienen más historias, pero el frontón sigue estando. Si no van cuando hace bueno, el día que hace malo fijo que terminan en el frontón. Con los patines o con lo que sea, pero, está el frontón. O ya cogerán la raqueta. Al final, es como más fácil, es donde vas a tener esa diversión, ahí, en ese frontón. Y, los de la ciudad, pues, bueno, un poco más lejos, tienes más cosas para distraerte y no ir al frontón en la ciudad. Entonces, pues, bueno, las amigas,

empiezas ahí, depende en qué edades, igual han jugado más de pequeñas, pero luego es más fácil que se vayan, “no, que me voy a, que esto, lo otro”. Depende por qué camino vayan aquí está más complicado que elijan solamente la pelota.

Oso ondo. ¿Te parece que la cultura también puede influir? Es decir, que sea un deporte nuestro. Le solemos llamar así, tradicional.

Sí, pues porque es lo que se ha vivido. La pelota, aquí, en Navarra y el País Vasco, o sea, es la pelota. Tú vas a otros sitios y les dices y en otro país les hablas y “¿cómo, que le pegáis con la mano? Pero, ¿vosotros estáis locos o qué os pasa?”. “Ah, ¿pero aquí no se conoce la pelota? Imposible”. No, allí conocen el pádel. Ja, ja, ja. “Con una pala, eso sí, pero con una mano, eso es de los Picapiedra”.

¿Te parece que en esa elección puede influir esa cultura? No sé si hoy día puede influir, antes influía que sea nuestro, de aquí.

Sí, que sea como cultura sí. Porque es que al final es que “el abuelo jugaba”, y, al final, ya tenía la pelota y parece que tenía que jugar. Y si no juegas a pelota parece que no eres nada. Pero a pelota, a pelota a mano, pero, a pala, medio maricón, así hacen todos, siempre como despectivo. “Chico, pues no, le puedes pegar a la pelota y puede ser lo que sea”. Entonces, yo qué sé, umm, sí que es cultural, yo pienso que sí. Total. Es lo que han visto y lo que ahí se relaciona. Navarra yo pienso que se relaciona todo con la pelota, también. Los toros, los de San Fermín, pero es más de pelota. Ja, ja, ja.

En tú caso sí, está bastante claro que tuvo esa influencia la cultura.

Sí, la cultura y el pueblo, las dos cosas. Sí. Yo allí iba, y todo el mundo, siempre terminabas en el frontón. Sí, balones ya había, pero más fácil pelotas, ja, ja. Yo es que metía, puf, tantas horas allá, y era lo que tenía a mano, era mi juguete preferido. Sí, se vivía de otra manera. La tele, no había tanta tele, o no te dejaban ver tanto, tampoco. Sí que la tele estaba, pero justo veías el Barrio Sésamo ése y poco más. Las películas el sábado y se acabó. Y a jugar o a ayudar en casa o lo que sea, había como otros juegos. Ahora, puf, están enchufados todo el jodido día en la tele y con su Play y el fútbol. Les lleva también más el fútbol.

¿Te parece que los estudios influyen o pueden influir? No me refiero a la titulitis, no digo que seas ingeniero o yo que sé, me refiero más al conocimiento, por ejemplo, de que sepas que hay. Sabes que hay, entonces tú al hijo o a la hija le puedes decir “mira, hay gente ahí que juega”

Hombre, puf, pues, sí, pero tampoco, porque aquí hay muchos gitanos que no tienen ahí cultura y juegan a pelota un montón. Para ellos también es muy fácil. Ellos igual no tienen, pues eso, para un balón, pero tienen para una pelota y están jugando. Entonces, los estudios, puf, te van a llevar a depende qué club o a jugar o poder entrenar más, pero, no sé. Tampoco mucho, e, no sé.

Hemos llegado a otra dimensión ya, qué rápido, e, más encaminado al entrenamiento, al mundo de la competición, más a la organización de la pelota femenina, más o menos. ¿Cómo jugáis o cómo soléis jugar aquí?

¿De cara con la selección? O, ¿a nivel de entrenamiento sin más, no?

A nivel de Navarra, por ejemplo. Jugáis siempre en nombre del club, cambiáis las parejas, o...

Ah, sí, sí. Las parejas, yo, más o menos ahora, es que, bueno, de chavalas en mayores, ¿dónde está? Es que no hay chicas más que en Oberena. Yo, por ejemplo, el Campeonato Navarro de Trinquete solamente hay 5 parejas de chicas de Oberena. Todas de Oberena, ni una del San Miguel, y hay chicas en San Miguel. Podría jugar Rebeka, pero no se han apuntado. Al final es un poco eso. Y, a mí eso me da pena, pues, porque se va a perder, que para mí también muchas veces es “que ya he jugado yo de todo” y sé que no lo voy a dejar porque me puede esa afición. Esa afición me puede y voy a seguir aunque no quiera, porque aunque diga que no estoy firmando con la izquierda “sí, voy a jugar”. Pero, me da pena que eso, solamente sea este club. Entonces, pues, no sé. A frontón ya sale alguno más, y las de Estella también se han apuntado, pero yo digo que al final la gente se vuelve cómoda y lo tienen todo y más cómoda todavía, “ah, esto jugamos, lo otro no”, como muy selectivo. Pues, no, no puede ser.

¿Jugáis el interclubes de frontón y de trinquete?

Sí, de frontón y de trinquete. Entonces, en trinquete, yo, por ejemplo, si esas cinco parejas que se han apuntado, yo y Nora nos apuntamos también con ellas, ¿qué hacemos? Ni disfrutamos nosotras ni disfrutan ellas. Yo con ellas entreno, para que ellas vayan hacia arriba, yo les intento hacer el entrenamiento lo más duro que puedo, para que vayan cogiendo ese nivel, pero ese campeonato, pues, no, sé que ellas no van a jugar a gusto. Entonces, yo y Nora, este año, por ejemplo, bueno, este año no, que lo he seguido jugando siempre con los chicos, y, pues, bueno, sé que unos vamos a ganar y otros vamos a perder, pero nos vamos a esforzar. Para nosotras va a ser bueno, y, éstas, jugando ellas también se van a dar caña y van a estar jugando bien. Las parejas, para nada, pues yo lo tengo que llevar yo, pero yo les digo “¿cómo queréis jugar?”, “ah, no, pues, Uxue y Nekane”, siempre, pero siempre no puede ser. Ya estuvimos jugando Rebeka y Nekane, Rebeka y Nekane, Rebeka y Nekane hasta que llegaron chicas. Una vez de que llegaron chicas a cambiarnos. Pues, ya está. Entonces, el día que me tocaba jugar con Rebeka digo “joder, ¡qué bien!”, ja, ja, ja. Ya lo echas como de menos, porque te llegas a entender a la perfección, ¿no? Siempre con una persona que has jugado, o sea, sabes, del gesto que hace ya sabes lo que va a hacer, pero no, todo el mundo tiene que jugar con todas y yo aquí lo hago. Se cambian, les guste más o les guste menos.

Eso en el club. Y, luego, por ejemplo, en el “Ni ere pilotari”, jugáis también en nombre del club o hacéis las parejas de otra manera?

Ese podría ser libre. Ése lo dejamos, si yo quiero apuntarme con una de Estella y así nos apuntamos. Al final, Rebeka tiene que ir con una que juega un poquito menos y yo también. Pero, luego, otras veces, depende para qué campeonato, yo lo que digo “joe, parece como que siempre esa peor va a estar resguardada por una de nosotras”. No, pues, que se esfuerce también, y que le dé caña, y, ¿por qué una que juega un poquito más no va a jugar conmigo, o yo con ella, no? Ostras, porque a mí también me apetece, y ella, pues, también le va a dar más tirón. Digo, “pues, venga”. Entonces hemos hecho un poco cambios de todo. Yo intento hacer todos los cambios de todo y si me tengo que

poner de delantera me pongo y apañarnos ahí lo mejor. Sí, pero que sepan jugar todas con todas.

Los entrenamientos, pues, bueno, yo, este año, llevo aquí la tecnificación porque lo llevé muchos años, desde el 2002 hasta el 2009 me parece, o no sé cuál, o 2010, 2009. Entonces, por tema de oposiciones lo dejé. Yo llevaba chicos y chicas juveniles, sub22 y sénior. Ahí íbamos con Rebeka, también. Entonces, Rebeka intentaba hacer con las chicas y yo con los chicos. Entrénales a los chicos, que dicen, “¿ésta que me va a enseñar a mí?” Pues, “tú, aquí”. Vosotras ya sabéis más también, porque igual ya lo habéis hecho. Eider, por ejemplo, sí que habrá entrenado a chicos. Pues, bueno, te cuesta, te tienes que plantar, pero “bonito, aquí a hacerme caso”. Rebeka no se atrevía a ir con los chicos, me decía “yo con las chavalas”, y digo, “bueno, pues, ya está”. Luego, por el tema de las oposiciones lo dejé y yo había hecho un grupo. Yo, lo que digo, el centro de selección. Se supone que es para quien tiene ya un nivel, ¿no? ¿Quién tenía un nivel? Rebeka y yo, que éramos las que llevábamos siempre en Navarra. Entonces, las demás no conocían ni el trinquete, cómo van a tener un nivel. “Ah, no, no, no, pero ésas no pueden entrar”, y yo decía, “pues, bueno, van a entrar. O sea, porque yo no voy a entrenar, pero esa hora o esas dos horas que vamos a tener son para ellas”. Entonces, nosotras les dábamos las horas a éstas y entraban, y aún, “pero, ¿cómo van a entrar ésas?” y “pues, van a jugar ésas, es que a mí me la sopla que perdamos”. A ellos les interesa el resultado, pero a mí lo que me interesa es que haya chavalillas, que haya gente joven y que arranquen a jugar, y que se motiven y se enganchen aquí, que ya hemos estado tiempo solas. Yo quiero que haya grupo. Entonces, de esa manera lo hemos ido haciendo y ha salido y punto. Entonces, esos entrenamientos, como yo veía que en esos dos años o tres que yo he dejado las chavalas se estaban mosqueando “es que no nos enseñan, no nos hacen así, no nos dan hora” y, “¿que no os dan horas?”, yo decía “pero, ¿cómo?” Igual, empezaban en setiembre y no les llamaban hasta cerca de marzo. Y, yo, “¿que no os han llamado, pero, cómo no me habéis dicho antes?” Y, entonces, a quejarme, otra vez a la federación. Y, claro, al final me dan la razón. Le digo “¿a ti te parece normal? Y, ¿tú quieres que nosotras, las chicas, representemos a Navarra? No. Van a representar a Navarra en frontón, que es a lo que yo les estoy entrenando, pero a trinquete no va a ir ninguna”. Y, bueno, “es que”, es normal, e igual se enteraba el director técnico de esa movida que había hecho ese seleccionador. Ostras, es que no es lógico. Yo decía “todo el trabajo que he hecho yo, que han sido incapaces en tres años de buscar una chica nueva, me lo estás tirando todo por la borda”. Entonces, yo este año dije “entro yo”. Y ya tengo un montón de chavalas. En las pequeñitas, en las juveniles, hay unas que para sacar andamos como andamos, pero, bueno, ya hay y ya les voy metiendo, y, poco a poco. De calidad, pues, bueno, no tienen calidad, pero ya tendrán un día. Las mayores y todas felices de la vida, ya está otra vez el grupo. ¿Entiendes? Pero, es la manera de hacerlo uno y otro. Luego está el Oberena, que también ahí se supone que tenemos que hacer entrenamientos. Y, ahí, pues, bueno, cuando llego yo bien y si no siempre van a estar cuatro que van a ir a jugar. Los martes y jueves ya tienen sus entrenamientos y ya está.

¿Hacen partidos normalmente?

Los martes y jueves sí, porque es que si no yo tampoco no llego. Y, bueno, luego, las escuelas que llevo los lunes y jueves, y la tecnificación lunes de trinquete y miércoles de frontón. Entonces, pues, bueno, congeniando ahí con todo. Y los fines de semana partidos, entonces, pues, ahí vamos.

Luego jugáis, por ejemplo, el Kutxa. Bueno, y tú también has jugado todo lo que se puede de aquí para fuera, Campeonatos del Mundo, Copas del Mundo,... En el Kutxa las parejas se hacen diferentes, se hace como un ránking.

Sí, hay como un comité y ahí deciden. Digo, pues, sí.

Y en la selección supongo que será el seleccionador quien decida.

Yo, para mí, cada uno hace lo que tiene que hacer. Yo pienso que para una selección lo primero hay que ver lo que hay y entonces seleccionar o hacer una preselección. ¿Quién tiene derecho a esa preselección? Pues, yo pienso que más que cuatro. Si las hay, si no las hay, pues no, pero no decir “no, es que hace tres años no jugaba, eh”. “Hace tres años me estás hablando, pero, es que, igual, hace tres años ésa que piensas que sigue jugando un montón ya no juega tanto como entonces. Habrá cambiado todo”. Entonces, hay que verlo y para mí tampoco hacen ahí un trabajo bien del todo. Puf, pues, bueno, eso ya es un tema cada uno de su manera.

A nosotras, pues, bueno, ahora, todavía, no nos han llamado nada. Está la Copa del Mundo, que no sé cuándo se empezará a entrenar, ni si estaremos, ni si no. Este año es la Copa del Mundo en setiembre. A finales de agosto primeros de setiembre. Y, bueno, yo, para mí, sería uno de los últimos cartuchos, que quiero ir, a ver si me puedo poner, o intentar estar. ¿Que no estoy? Pues, tan ricamente, pero si no estoy que sea porque las que siguen ahí son las que de verdad están jugando y lo están dando. Para mí tiene que ser así, o sea, es que no porque le voy a dar una proyección. Puf, no. Las proyecciones hay que darlas en su momento y con sus cosas. O sea, yo también tengo chavalitas que les daría su promoción y les haría todo, pero cuando les llegue su momento. No puedes empezar ahora, porque, igual, yo pienso y apuesto todo por ésta, por ésta, por ésta y ésta resulta que mañana me dice “oye, que me voy a jugar al mus” y “¿quéééééé, al mus?”. Yo qué sé lo que tiene ella en la cabeza. Entonces, es que es todo, yo pienso, que no sé, eh, hay que trabajar mucho y el tema de selección que se tiene que conocer al grupo que llevas. No conocer como pelotari, como la pelota, si no, luego, personalmente también les tienes que conocer. Yo pienso que ahí tiene que haber un trabajo que jamás se ha hecho, pero, bueno, de momento está ahí.

Hasta que llegues tú y empieces a hacerlo, ya verás.

Yo, por ejemplo, yo, con Antonio, yo se lo dije, a ver si de verdad nos conoce, porque yo no hago nada con una chavala que “no, no, sé que le pega con la derecha y con la izquierda y bla-bla”, pero, luego, yo qué sé si está nerviosa, no está, si es más sensible, menos, qué tiene, cómo le hablo, etc. ¿No? Porque igual le digo “¡joder!” y “¡ah!”, se me caga. Pues no, tendrás que conocer a esa persona y saber un poco responder con ella, pero a eso parece que no le dan importancia.

Hemos hablado de diferentes sistemas de competición: la selección, jugar a nombre del club, jugar como te diga la organización, ... ¿Te gustan, o, qué te parecen?

¿Todos esos torneos? A mí me encanta. Cuando es con el club me encanta porque al final vas cambiando, todos los años cambias una pareja, otra, la motivación que en ese momento tiene la otra chavala, pues, también te... A mí, muchas veces, yo he jugado

con alguna que juega muchísimo menos, y yo no le hago todo. Les digo “yo, para mí, el esfuerzo mayor lo tienes que hacer tú y si yo veo que tú estás dando tu 100% yo también daré. Ahora, si yo veo que tú estás de pachanga y quieres que lo dé yo, yo me voy a la pachanga también, eh, y aquí respondemos”. Entonces, ellas se motivan y eso me parece bonito. Como la organización que ha decidido que yo tengo que jugar contigo, “¡cojonudo! Adelante, pues, a jugar eso”. En la selección, si lo hacen justo, también. Ahí me puedo rebotar un poco más, pero mientras sea justo, yo lo acepto todo. Yo estoy en la selección, y lo que me ha solido pasar a veces, y tú ya sabes el tema también, yo es que me da igual. Yo, si vamos cuatro, para mí una selección tiene que ser de las cuatro personas las mejores que están en ese momento, pero las cuatro. No ser dos bien y otras dos mal, porque si falla una que está mejor entra una que está mal. No. Un Mundial lo tendrían que jugar entre las cuatro, y ser capaces de jugar hoy un partido y no porque yo estoy cansada no juego al día siguiente. No. Hoy tú has jugado y al día siguiente juega la otra pareja que es igual de buena que ésta y juega ese otro partido. Se tendría que jugar de seguido, sin perder ni tiempo ni nada y decir “éstas son las titulares y éstas suplentes”. Son cuatro, las cuatro a tope. Que al final del campeonato se decide que unas han sido titulares, bien, pero que tengan la opción todas porque las cuatro van al 100%.

¿Te gustan los sistemas de competición aunque sean diferentes?

Sí, sí, sí, hombre, y que nos cambien. Ojalá hubiese internacionales que nos dicen “tú vas a jugar con una chilena y la otra va a jugar con una rusa”, “pues, venga, vamos a jugarlo”. Yo qué sé, y también tiene su cosa, porque yo, a veces, cuando me ha pasado eso y he jugado con una francesa o he jugado con una argentina, siempre la ves de contraria, siempre es tu rival, y, a veces dices “juega súper bien o juega súper mal” y van y te ponen con ella. Pues, tienes que jugar, no, y también tendrá su cosa. Yo qué sé, son oportunidades, y también me encantaría poder hacer campeonatos cambiados. Muy bien.

En los entrenamientos hemos hablado de que hacéis partidos, como se pueda, cuando llegas.

Sí, eso es de Oberena. Yo, lo demás, en el Centro de Tecnificación, lo que me han hecho a mí y lo que yo he pedido consejo. Por ejemplo, con Eider y así, el libro que hicisteis, un poco, pues, eso, más el tener una idea. Eso más de cara a la escuela. Poder hacerles juegos. Yo, lo que te digo, yo vengo de la rama sanitaria y de juegos de calentamiento no he tenido ninguno. Ja, ja, ja. Entonces, pues, bueno, haces un poquito, pues, lo que puedes. Yo en la escuela les hago una primera parte de calentamiento, luego otra activarles a todas y luego ya más específico, pues, como jugaditas, puesm de repetición, lo que sea, y terminar más relajadas otra vez. Intentar hacer, pues, un poco sobre la marcha y lo que puedo, lo que se me va ocurriendo y lo que me enseñáis. Y, entonces, luego, con las mayores, pues, también. Yo con las mayores yo hago un poco lo que he vivido yo y lo mejor de lo que me han enseñado a mí. Yo, en el trinquete, no sabía ni sacar. No sabía para qué servían las rayas y me han ido enseñando. El argentino, Peru, que a mí es el que más me enseñó, y luego con Garate, pero, bueno, tampoco el hombre acertaba ahí a explicar y a decirnos, pero sabía muchísimo de pelota. Entonces, pues, bueno, es coger un poco de todo e intentar enseñarles lo que yo sé. Digo, no sé si lo haré bien, mal o peor, pero intento hacerlo, pues, esos ejercicios y que cojan esa facilidad. Les pregunto a ellas también a ver si se notan, si ven que mejoran y

me dicen que sí y ya estoy súper contenta. Yo también ya les veo, ¿no? Verles ahí, que van mejorando. Por lo menos no empeorando y lo que no quisiera es que se desanimen y digan “esto es un tostón, yo no vengo más”. Si veo eso me hundo, pero como no lo veo y están todos los días allá casi sin llamarles, digo “eso es bien”.

Te quería preguntar sobre el material de juego que se utiliza, tanto en frontón como en trinquete. Tú cuando empezaste, con 8 años, no habría palas para chicas.

No, era la Arambillet normal, con una que tenía mi hermano. Pues, eso, una que pesaría casi 600 gramos, pero sí, le pegabas con lo que había. Daba igual con un listón, algo de madera y a darle. Ja, ja, ja. Ahora ha cambiado. Ahora, por ejemplo, ya tienes tú la pala de mayores, pero ya hay también otra pala para juveniles, o la que es un poco más así, que pesa un poquito menos y más amoldada a cada edad. Y las pelotas también. Hay más diferencia y yo pienso que sí que está muy bien, y que hay para todo. Yo lo que les hago en estos Juegos Deportivos, las pequeñitas van a jugar con una que es como de goma y va subiendo los gramos y va subiendo de goma pasa a ser la maciza, más pesada, las de Iparralde, hasta las sénior. En las sénior mismo ni punto ni el cuadro, que había unas piedras allá que te querías morir. Pues, esa pelota que sacaron para el Kutxa me parece muy bonita y que está muy bien. Mejor que aquella que hubo en el primer Kutxa, aquéllas que eran como amarillas, “¡qué rompe hombros, qué era aquello!” Sí.

En paleta argentina también ha cambiado, un montón. La paleta no, la paleta sigue siendo la misma, pero la pelota, de la que empezamos nosotras que era mucho más muerta y que había que darle también. Ahora son mucho más bailarinas, puedes hacer muchas más cosas. Ahora, encima, los argentinos, como están siempre diseñando, “si le pego y fileteo hace no sé qué efecto”. Nosotras bastante tenemos con darle. Yo, al menos, ja, ja, ja. A mí no me da tiempo de estar ahí pensando “si pongo la paleta así me va a salir un efecto por aquí o por allá. Oye, si sale el efecto mejor. Voy a intentar no tirarla abajo”.

*¿A ti cómo te gustaría que fueran las competiciones, los entrenamientos, el material?
¿Estás a gusto?*

¿Cómo? Puf. Pues, bueno, eso, a mí me gustaría que hubiera gente y que hubiera un programa para todos igual. Por ejemplo, en Gipuzkoa, que ya lleváis más tiempo, sabéis cómo hacer esos entrenamientos y todo. Yo voy investigando sobre la marcha, pero es que...

Tienes una experiencia de 20 años, ¿eh!

Sí, ya, la mía, por eso. Al final es eso. En la pelota a mano siempre se ha enseñado así, ¿no? Tú les dices a unos para hacer unos ejercicios y te dicen “pero, ¿tú qué estás, mal de la cabeza, o qué? ¿Cómo te vas a poner ahí a jugar?” Pues, yo pienso que hay maneras diferentes y que son bien buenas, que no es solamente coger y “venga, partido, partido, partido”. No, les puedes enseñar de otra manera y en eso también, a veces, son un poco cazurros y cuesta meterles. Innovar en la pelota, parece que eso está vetado, prohibido, eso no puede ser. Pues, sí que puede ser, y se puede cambiar y hacer cosas. Eso de hacer juegos con los niños, a otros tú les preguntas y “sí, hombre, ahí voy a estar yo jugando al corro de la patata. ¿Para qué me sirve?” y “pues, te servirá para la

agilidad de lo que sea, el otro de equilibrio”. Yo pienso que hay que enseñarles un poco a todo y hacerles que sean compensados en todo.

Ya estamos terminando, eh. Ni gustura nago, eh.

Yo también. Si te saco alguna cosa...

Bai, oso ondo. ¿Cuándo te parece que deberían empezar las chicas? ¿Cuándo te parece que pueden empezar a pelota? A mano, a pala o me da igual.

¿A pelota? Pues, con 8 años, si ellas quieren, yo pienso que está muy bien. Que empiecen, pues, como empiezan a otro deporte, ¿no? Que empiecen ahí y que al empezar bien pequeñas que no por eso se van a desarrollar peor. No. Que empiecen a hacer el deporte que sea y luego ya irán ellas decidiendo qué es lo que les gusta y lo que no. Ahora, tampoco porque empiecen con 8 con la pala solamente pala. No, y que jueguen a fútbol, que jueguen a tenis, a pin-pon y a nadar. Que hagan todo, porque les va a venir muy bien. Y luego, pues, elegirán lo que mejor les parezca. A pala yo pienso que con 8 añitos pueden jugar. Ahora, de las chavalitas, luego ya te enseñaré un vídeo, hay unas que es que son preciosas y es que me encanta. Yo les veo a ésas y digo “pero, ¿cómo no vamos a seguir aquí, peleando? Pues claro que hay que hacer”. Con la derecha, con la izquierda, y a mí casi luego hasta me da vergüenza salir a jugar. Digo “¿has visto todo lo que ha hecho? ¿Qué recital nos ha dado de dos paredes, dejadas, paraditas? Pero, si son la bomba”. Sí.

Has dicho que empiecen a hacer deporte con 8 años. ¿Te parece que hay una edad para que decidan, “pues, ahora me paso de la mano a la pala”?

Es que yo que ahora, hoy día, mi sobrina, por ejemplo, que le encanta la mano, y ella estuvo calladita hasta que un día mi cuñada le dijo “pero, Olatz, pero qué bien juegas. ¿Quieres que te apunte a la escuela de pelota?” y ella se puso medio histérica, decía “bua, pensaba que no me lo ibas a preguntar en la vida”. Y ella, la pobre cría, estaba esperando a que su madre le dijera. Si no ella se hubiera quedado callando como diciendo “no, tendrán que jugar los chicos”. Eso ya con 7 años o 6. Y, digo “no me fastidies”. Se le abrió el mundo, porque le dijeron que sí. Entonces, ¿cuándo va a decidir? Que decida un poco ella. Igual, llega el año que viene y dice “es que ahora no puedo, ahora sí que me duele la mano, esa pelota no puedo y yo prefiero jugar a pala”. Ya está, pero que tengan ellas esa libertad, no es que lo fijemos nosotros. Porque, luego, habrá, eso, al final cada uno somos de una constitución. Yo no sé si hubiera seguido hasta los 18, igual en esos mismos 15 yo les digo “oye, esta pelota para vosotros, majos, yo paso, porque yo a esto no le pego”, pero que lo decidamos nosotras. Más que marcar de 8 a esto a mano, a mí, que empiecen a mano me parece perfecto, porque más fácil y para ir a la pelota y a todo van a ir mucho más fácil que con una pala, que solamente el hecho de llevarla ya les está descoordinando, y, yo qué sé, pues, luego van a dirigirla mucho mejor y van a saber colocarse y van a aprender a todo. Entonces, pues, bueno, que vayan ahí y luego ya se cambiarán a pala. Yo siempre les digo “aquí tenéis la puerta abierta cuando queráis. Es que me da igual, como si lo volvéis a dejar porque crees que lo tienes que dejar, que no te da la vida y tienes que hacer otra cosa. Cuando quieras tú llámame, éste es mi número y aquí hemos de estar”.

¿Qué camino te parece que se tendría que seguir, o se puede seguir, para que una que empiece con 8, o 20, o me da exactamente igual la cifra, pueda seguir con 40 o 50 o? Si le gusta.

¿Qué camino? Pues, constancia y trabajo. Lo que tendría que haber es ese seguimiento, bien del club y la federación, su territorial. Lo primero en su club que tenga sus entrenamientos, y luego a nivel de federaciones que haya esos torneos. No hace falta que haya 100.000, pero, bueno, por lo menos, que tengan 2 o 3, el número que vaya a haber, pero que sigan siendo siempre, y con unas fechas marcadas. A veces, ahora mismo sí que hay y a veces nos solapamos unos con otros. No llegas, tienes que jugar 5 partidos, 6, pero, “¿cómo? Si parecemos profesionales aquí”. Un poco coordinar eso. Mientras tengan sus entrenamientos y sepan a dónde dirigirse yo pienso que la gente sí que seguiría jugando. Ahora, en el momento que tú cortes algún hilo de éstos, se acabó. Que haya una persona llevándolo, porque yo antes yo no lo llevaba, pero le tenía a Jaime y a Jaime yo le doy las gracias por haber aparecido en ese momento y a mi madre por haberle dicho que sí y que siempre le hemos tenido ahí. Pero Jaime llegó un momento en el que dijo “pero, a ver, si es que yo no os puedo enseñar más. Vosotras os defendéis y lo hacéis”. Entonces lo asumí yo y Rebeke ha seguido siempre a las órdenes de dos pirados, ¿no? Yo porque estoy enferma y el Jaime porque lo hacía, y ella ha seguido ahí, pero ha tenido a alguien. Entonces, yo sé que si no hay un alguien de éstos, puf, ¿a dónde vas? Tú sola. Yo misma yo creo que yo lo hubiera dejado. Yo diría, “pero, ¿qué hago?” Yo no me atrevería. Digo “¿a dónde voy?” No conocería a nadie, ni iría a Gipuzkoa, ni os conocería a ninguna de vosotras. Sin embargo, así, pues, hombre, estoy deseando, digo “¿a ver qué fecha? Venga, que ya estamos aquí, ahora para el otro lado”, y haces kilómetros a patadas, pero, yo feliz. Mientras hago esos kilómetros no estoy en otro lado sin hacer nada, que no sé hacer.

Ya hemos hablado y es, más o menos, a lo que he venido, pero hemos hablado de la vía más o menos federada. Yo qué sé, si ahora yo me he aburrido de los partidos y ahora quiero seguir jugando, pero.

¿En vez de como competición, hacerlo como aficionada?

Como ocio.

Pues, sí. Hombre, es lo que te digo yo. Tampoco no tiene por qué ser todo competición. Pues, bueno, si tú eres de un club, con ésas que hacen competición tú vas a poder entrenar y si son de tu nivel o más o menos es que siempre va a haber. Si tú tienes un club forjado desde la base va a haber de todas las edades. Entonces, si no tienes el nivel de competición, o lo tengas, o no, va a haber gente con la que tú vas a entrenar. Por lo menos entrenar, ir y jugar con ellas. Tú entrenas, tienes tu horita, y les harás un favor a ésas y ellas te lo están haciendo a ti. Entonces, yo sé que para el campeonato no voy a poder contar contigo, pero has venido a entrenar con éstas y que tienes ese nivel. Y, si no, pues, yo qué sé, de otra manera, y, si hubiese muchas que no quieren te montas un grupo de ellas. Yo es que las haría. Yo, teniendo un club, las haría. También he tenido suerte en mi club, en el Oberena, tampoco me han puesto pegas. No sé, yo, con Agustín, al final es llamarle y “venga, Nekane, ya vamos a intentarlo”. Sé que no me van a dar las mejores horas, de 7 a 8 no me van a poner, me van a poner a las 9, pero, ¿por qué? Porque aquí al final son clubs, que nosotras estamos en una sección de pelota, no somos de las socias ésas que pusieron ese dinero y que ellos también se merecen un

horario. Entonces, eso tienes que respetar. Yo les quito horas para la escuela, que nadie me dice absolutamente nada. Entonces, yo no puedo pedir que seguido a esas horas me dejen a mí como la Marquesa de Chorrapelada. No, pues iré a la otra, de 9 a 10, tan ricamente. Ahí tenemos las horas. De normal de 9 a 10, ya que de 7 a 9 es la hora que les tienes que dejar a los socios, claro, porque todo el resto de la tarde ya lo estamos utilizando con las escuelas, tanto los frontones como el trinquete, siempre lo tenemos pillado. A la vez, en esas horas de 8 a 9, nosotras jugamos un ranking social, que se juega de setiembre hasta mayo, y estamos Edit y yo con todos los hombres. Y felices de la vida, más a gusto que chupitas. Siempre, o sea, yo desde que llegué, en el Oberena todos nos han arropado un montón. Allí se jugaba en el trinquete a maciza, con cuadro. O sea, yo atrás es que se me quería romper el brazo, pero yo decía “tenemos que aguantar” y ahí jugábamos. Cuando llegamos nosotras decían “pero, ¿cómo que jugáis a la argentina? Pero si eso es una mariconada, a eso no hay quien juegue”, y yo “que no, que tenéis que probar, que es súper divertida”. Bueno, y, otro día “pero, ¿habéis probado? Vosotros probad que nosotras vamos a jugar a la maciza, que sí”. Era la manera de estar en un trinquete. Jugando a otra cosa, pero las horas que metías en el trinquete allí te colocas. Y yo decía “pues, bueno, aquí aguantamos Rebeka”. Y poco a poco, “a ver, trae esa pala, ¡ostia, pues hay que darle también!” Es que, encima, desde fuera, yo creo que las cosas se ven que parece que eso va solo, con un mando a distancia, o no sé. Ostras, que tú le tienes que dar, que no es que sea eso una plumilla. Entonces, claro, empezaban “joder, pero si tal, pero si cual, ostras” y poco a poco “oye, no tendrás otra”, “sí, toma”. Y, ahora, nadie juega con la maciza y llevamos ya no sé cuántos años todo el mundo con la argentina y se pegan unas sudadas del diez, eh. Hay algunos de los que se quedaron ahí más reboteados de quitar la maciza y meter la argentina y dicen “ves, esa mariconada”, y en seguida venga a renegar y decir “pero, a ver, que no es tan mariconada, que si tú la pruebas” y decir “si yo sé, si yo sé que se juega a gusto” y yo, “pues hay que jugar a todo, que no una cosa le quita a lo otro, pero jugar y ver que es bonito. Todas las cosas tienen lo suyo”.

Ondo, oso ondo. Yo ya he llegado a la última pregunta.

Ooooooh, ja, ja, ja.

No sé si hay algo que querías que te preguntara y no te he preguntado, o algo que quieres añadir, algo que quieres decir, alguna anécdota, algo que contar,... nahi duzuna.

No sé, es que no se me ocurre. No, pues, yo decir un poco eso, pues, que, al final, nosotras, las chicas, tampoco no lo hemos tenido nada fácil. Hemos conseguido un montón de cosas y tampoco está tan reconocido como los chicos. Yo por eso te digo. Yo, personalmente, yo creo que lo he conseguido todo, hasta más de lo que me esperaba, ¿no? Yo, por ejemplo, este año, que me dieron, en diciembre, aquí en Navarra me han elegido como mejor deportista femenina de Navarra, o sea, flipé, porque yo me pensaba que ese galardón jamás me llegaría a mí. Pues, ¿por qué? Porque la pelota no tiene ni esa repercusión mediática ni está vista. Si hoy día todavía me preguntan si yo juego a pelota y me dan el galardón a la mejor deportista navarra, digo, ¿cómo es esto? Algo no funciona, ¿no? ¿Quién no se ha enterado o cómo va? Entonces, cuando me llamó a mí la consejera es que me dejó helada en la silla. Digo, “pero, ¿en serio, no te has confundido?” y me decía “que sí, que me apetecía”. Hombre, yo creo que sí, todo lo que hemos ganado, los resultados ahí están, pero pensaba que no lo valorarían jamás.

Me duele al final por mi tierra. Yo digo que soy de doble nacionalidad, guipuzcoana y navarra, pero, aquí, siempre jugando y dándolo todo en la pelota y que no te digan nada... Pues, mira, ya ha llegado. Luego, en Estella también me dieron la estrella del deporte, lo mismo, o sea, que van llegando al final esas cosas que te piensas que nunca vas a estar. El año pasado se lo dieron a Javi Martínez, joe, pues dices “ahora a mí en la pelota”. Hemos conseguido Eider y yo que nos dieran la medalla de bronce al mérito nacional allí. Dices “ostras, pues, ¿una pachanga? Pero, no va todo el mundo, ¿no?” Ahí tienes unas cosas que puf, yo qué sé. Y todo el mundo no las conoce tampoco y se piensan que estarán ahí. Pues, mira, dos de la pelota, y chicas”. Pues que lo valoren y que apoyen y que nos echen una mano ahí. A mí es lo que me gustaría. Y de decir, pues eso, poco más.

Oso ondo. Eskerrak eman, bider hamar. Eskerrik asko! Oso ondo, oso gustura egon naiz.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2012-07-24

Lekua eta ordua: Urbasako txabola, 20:30

Izen-abizenak: Nekane

Como te dije en su día al final es como una réplica, para que tú tengas opción a “quiero cambiar esto” o “me parece que dije esto pero quiero que lo quites”. Darle un repaso.

En el fondo es eso. Si tú lo vas a revisar un poquico sí.

La primera pregunta es qué te pareció o qué te parece.

¿Qué me pareció la entrevista? Pues, muy bien. Una gozada, que está muy bien y que esto se necesita también, que alguien se preocupe por la pelota y las chicas que está muy bien. Y cada una, pues, bueno, contar nuestra historia, porque yo la veo de una manera, no sé, si vas a Iparralde la verá de otra, la de Bizkaia de otra y cada una tenemos nuestra vivencia, ¿no? Y de cómo lo hemos vivido.

Al final la cuestión es conocer vuestras vivencias y luego pasarlo de mi filtro, al final yo también tengo mi opinión, y, bueno, intentar sacar algo. No sé, ya veremos.

Claro, porque al final tú también nos vas a oír a todas. Para mí la preocupación es ésa, a ver si sacas de todo esto, a ver si te damos algo para sacar, porque quieres contar todo, y, joe, no.

Bai, bai, más de lo que piensas. Saldrá menos de lo que crees o de lo que quieras seguramente, porque no me entra todo, tengo 900 páginas en este momento sin empezar a analizar nada, entonces, voy a tener que hacer una selección de lo más importante o de lo más clave.

Pues fíjate, si no, es una burrada.

Baina, bueno, al final se trata de eso. No sé si querías repasarlo parte por parte o en general. Te repaso un poco lo que hicimos. La entrevista consta de tres dimensiones, la primera era la social que trata sobre cómo empezaste, cómo sigues, por qué se puede elegir, cómo te ha ayudado o no el entorno, los amigos, la familia, etc. Las relaciones entre las pelotaris, los objetivos, la situación actual de las mujeres y la pelota y cómo ayudan o no los agentes (las instituciones, los medios de comunicación, etc.). La primera parte era eso más o menos.

Yo creo que no ha cambiado nada, eh. Si no vamos a peor... ja, ja.

Eso era lo más gordo. Luego había un dimensión cultural que era según dónde naces, decías que si nacías en Eulate era más fácil que en Iruñea, que allí tienes más opciones y entonces, igual, es más difícil elegir jugar a pelota.

Es que en el pueblo, pues, bueno, pero ahora en los pueblos también... En Eulate, por ejemplo, sigue siendo un pueblo, pero ¿cuántas chicas hay jugando a pelota? Pues, ninguna. Mi sobrina está jugando a mano, pero el resto yo creo que ahora es lo mismo en ciudad o en pueblo. Lo que tienen que ver es qué salida puede tener ese deporte. Entonces, si no hay información, sobre todo, de lo que hacemos las chicas no les llega nada a esas chavalitas, a las pequeñas. Entonces, ¿de dónde les llega? Les llega del balonmano, aunque ahora, bueno, el balonmano también está de capa caída. Fíjate el Itxako, siendo un equipazo de la pera y hasta abajo. Entonces, bueno, en la pelota cómo se van a meter si no ven que hay ahí una salida. Te preguntan ¿jugáis, pero en dónde? ¿salís? ¿no salís? Pues, bueno, si llegara esa información dirían “pues fíjate si están jugando la Copa del Mundo”, “han jugado el mundial”, “han hecho no sé cuántas cosas”, pero no llega nada de eso. Entonces, al final es todo lo que están de familia a familia. Lo conoce mi sobrina porque me ve a mí y yo siempre le sigo diciendo que sí, que yo me la voy a llevar, que va a jugar, que va a estar y ella sigue ahí, emocionada, pero otros padres tampoco no sé.

La última era la dimensión organizativa, que era sobre el entrenamiento, sobre los campeonatos, cómo os organizabais, cómo os organizáis. No sé, si quieres mirarlo lo miras, eh.

Es que sobre los campeonatos también, pues eso, de cara a si llega algo internacional, que va a ser con la selección, ahí se mojan un poquito, antes un poquito más, ahora ya casi nada, porque lo más claro está ahora. Vamos a jugar la Copa del Mundo a finales de agosto y resulta que empezamos a entrenar serio, con la selección y así, en julio horas de entrenamiento. Hemos empezado nosotras en mayo, entre las cinco que estábamos preseleccionadas, porque decidimos ir a Lekunberri a entrenar.

Por vuestra cuenta.

Claro. Entonces les dijimos a los seleccionadores a ver si ellos querían pasarse por ahí o vernos por lo menos y, bueno, parece que pensaron un poquillo y dijeron que sí y que iban a venir. Entonces, los jueves quedábamos para ir a Lekunberri, pero era voluntad nuestra, no porque nos dijeran “oye, se empieza a entrenar porque es la Copa del Mundo y vamos a echar el resto”. No, quieren que encima de tu trabajo y todas tus movidas eches el resto pero a lo gratis, no, para luego darles la medalla también a ellos. Yo, la medalla, desde luego, es para mí lo primero. Ellos, pues, bueno, si salen beneficiados

ahí estoy en la selección. Pero vamos, eso no me parece ni normal. Ahí, por ejemplo, hemos ido a peor de los veinte años que llevo. Cuando hemos ido a jugar un Mundial se empezaba a entrenar con tiempo de sobra, es que mínimo seis meses, yo creo que es lo mínimo para poder empezar a entrenar ¿no? Físico y técnico, todo. Luego quieren en dos meses que hagas virguerías y que estés aquí como una lima ¿no? Mira oye, yo tengo un montón de cosas que hacer. Si me dedicara a esto pues sí, estaríamos como limas no, mejor, pero nosotras hacemos lo que podemos.

No sé si te vale ese repaso. Aparte si estás de acuerdo con lo que dijiste.

Pues mira que hablé eh, si tengo aquí un montón de cosas. No veas tú, como lo leas, menuda chapa, ja, ja, ja.

Lo he leído y lo leeré y además a gusto, así que tranquila. Bai, bai, me parece una bonita entrevista.

Yo creo que está todo y estará todo dicho. Al final es un poco eso, el orden, que quieres decir todo e igual en algunas te habré alborotado.

Tú dices que el orden pero yo tampoco he localizado muchas preguntas, eh. Por eso tranquila, al final lo que yo voy a hacer va a ser elegir cachitos y ponerlo. Igual en un apartado pongo el tuyo y en otro pondré el de yo qué sé quién. Por eso tranquila. Eso sí si me dices que quieres cambiar algo, pues, eso sí.

Pues está ahí todo. No, pues eso, mi historia ya te la sabes más que de sobra, que en casa siempre se ha vivido la pelota y pues ahí empecé yo jugando con los hermanos, el aita y el abuelo y sin más, pero igual todo eso te lo digo pero más alborotado.

Está muy bien dicho.

Vale, pues entonces nada. Eres una máquina.

Luego, no sé si quieres añadir algo o si se te ha ocurrido algo en estos meses, que ya se te habría olvidado la entrevista, normal.

No, olvidar no, la verdad es que estuvimos a gusto, la verdad que yo estuve súper bien. Creo que bastante rato, pero se me hizo corto, ja, ja, ja.

No sé si fueron dos horas.

Sí, y el repaso yo creo que te di a todo, de lo que ha sido mi historia, de lo que yo he podido hacer por la pelota, por las chicas que tengo ahí en el Oberena y aquí es un poco de todo.

Ya está si no. Eskerrak eman! Ya tendrás noticias mías.

Sí, yo creo que está ahí. Lo único que te podría hablar si quieres lo de la pelota olímpica, porque aquí no sé si te expliqué.

No.

En marzo fuimos a hacer, al estar dentro de la Federación Internacional, la idea es que si la pelota tenía que ser olímpica había que elegir una instalación. Se decidió que sea el frontón de 30 metros con rebote móvil a 36, pero entonces ahí ya tienen cuatro modalidades de chicos y en chicas hay solamente una, que sería el frontenis. Entonces, por una mesa que hay en la Internacional se decide que la otra modalidad tiene que ser la paleta goma argentina en frontón. Entonces, yo les digo que para vender a otros países la paleta goma argentina es súper técnica y tú tienes que dominar la pelota. Cómo vas a ir a China y decirles a todas las chinitas que se pongan a jugar con esa paleta cuando no la han visto en la vida. Pues, es que no le van a pegar nunca. Entonces veo eso.

(Anaia gaztea etorri da arrebarekin hitz egitera eta solasalditxo baten ondoren heldu diogu berriro elkarrizketari)

Eso fue cuando fueron éstas.

Sí Ainitze y Laura.

Y también fueron Ekiñe y Xixili, ¿no?

Sí y al final eso, deciden que la paleta argentina y yo les propongo a ver por qué no la maciza que aquí se juega y hay chavalitas con ocho años que están jugando y lo mueven. Entonces, la pelota es mucho más noble y te da tiempo de pegarle, de ir y por lo menos hacer la postura y todo. Entonces, “a, pues, bueno, pues a ver lo que pasa” y se hizo otra vez votación y que sí y salió para adelante. Se comprometieron al final ocho países y es que hay modalidades que van a jugar un mundial absoluto y no hay ocho países ni por el forro, están cuatro como es el xare, o cinco como mucho, ¿no? Ostras, ocho países que respondan y se quedaron dos fuera porque estaban Perú y Estados Unidos que querían haber ido y al final no entraron, o sea que hubiéramos estado nueve y en los mundiales se juega con once que casi es el 100%. Entonces la gente quiere responder a eso o hay interés por lo menos por parte de las chicas. Entonces, creo que los federativos estarían dispuestos, o igual achucharon más las chavalas, no sé.

Fuimos allí, también se hizo una pequeña preselección, Antonio estaba de seleccionador, que estaban Saioa y, a Amaia y a nosotras ya nos llevaron pero nos dijeron que fuera, que era para éstas. Sin embargo Francia llevó a las mejores, llevó a Xixili y a Ekiñe y, bueno, y México lo mismo y el resto también. Nadie iba ahí cojeando, que no quiero decir que con Ainitze y con Laura se cojeaba, eh, pero ellas también estaban y para ellas era nuevo y respondieron a la perfección. Ser el primer campeonato que juegan así, el primer partido, el de inauguración, les tocó contra México, que les podían haber ganado, pero al final se quedaron ahí, a las puertas. Para ellas, ostras, una experiencia nueva y que era mucha responsabilidad también y sacaron la de bronce. Yo así empecé, el primer campeonato que jugamos, un sub-22, el bronce ganamos. Luego hay que ir ganando todos los demás.

Entonces, salió súper bien y se hizo como una valoración, y estuvimos haciendo todo el estudio de todo, tomando notas de pelotazos y así, pero, bueno, se ve a kilómetros que no van a querer. No por las chicas, yo creo que era más el miedo que hay. Al final tienen la paleta argentina, que siempre allí lo es todo, se juegan todos los campeonatos,

y de repente han quitado que en hombres de jugar a parejas lo han quitado a individual y cada vez les estamos quitando más. Si ahora nosotras en vez de incluir la paleta argentina incluimos la maciza, bueno, toda Sudamérica que está metida ahí en la pelota iba a haber un problema ¿no? Bueno, al final, no se ha decidido porque tiene que ser en la asamblea que hay en Tarbes en octubre, pero sé matemáticamente que ha se salir que van a votar a la paleta argentina a pesar de salir que eran partidos súper reñidos. México, que es una potencia, votó a la pelota maciza y decía que es divertida, fácil de aprender, que se puede jugar con muchísimos efectos, le daban con muchísimos más efectos que nosotras con diferencia, y súper bonito. Entonces, ¿que salga eso? A mí me hubiera gustado que salga la paleta argentina y la paleta maciza, porque hay cuatro modalidades de chicos y ahora se van a quedar dos de chicas. ¿Para qué tenemos que esperar otra vez otros dos años para que salga una más de chicas? Siempre vamos renqueando con las chicas. ¡Qué miedo tienen, no! Que salgan de una vez cuatro y cuatro, que se lo están pidiendo. Quieres ir, quieres venderlo, quieres que la pelota sea olímpica,... Arranca, ¿no? Empieza cuatro y cuatro y véndete a todos los países ya, porque tenemos que llegar a 70 y hay sólo 29, ja, ja, ja.

Y, bueno, pues, no sé, voluntad hay pero no sé si lo veremos. Ojalá lo veamos. Con 90 años o por ahí, ja, ja. Eso y no habría más. Yo creo que todo lo demás ya esto.

Oso ondo. Eskerrak eman eta hau itzaliko dugu.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Nekane

- Elkarrizketa lotzeko proposamena egin nionean berak zer ekarpen egin ote lezakeen duda agertu arren, prest agertu zen eta laguntzeko gogoz. Aurrez beka eskaerarako ere hari batzuk mugitzen lagundu zidan sinadura batzuen harira.

1.elkarrizketan

- Eman litezkeen erraztasun guztiak eman dizkit heldu naizen lehen unetik, zer hartu nahi dudanez ere galdetuz.

- Elkarrizketarekin hasi aurretik ia ordubeteko solasaldia egin dugu, azkenaldiko pilotako jardunetik abiatu, honetaz eta hartaz aritu eta ikerketa lanaren nondik norakoak azalduz amaituz.

- Bera lasai eta eroso sumatu dut, kontatzeko gogoz. Ni ere gustura, galdetu behar handirik gabe erantzun baititu hainbat galdera, hariari segituz, ezin hobeto.

- Kontatzeko bizipen asko ditu, ez ditu alferrik 20 urte egin bata bestearen atzetik han eta hemen lagunduz, interes pertsonaletatik haratagoko hainbat kontu ere bere gain hartuz.

- Denboran elkarrizketa luzea izan da (1h53' grabagailuan), baina, oharkabean igaro zait arratsaldea, atsegina izan da, eta nago bera ere ez dela asko ohartu zer ordutan genbiltzan.

- Amaieran eskerrak eman dizkiot, eta zer eta berak niri esan dit "plazer bat izan da". Beste hainbeste!

Transkribatzean

- Berak pilotarekiko lotura nola bizi duen sentitu eta ikuste hutsa gozamina da. Izugarria da kontatzeko modua ere. Aurrez aurrekoko une asko etorri zaizkit gogora, eta irribarreraren bat ere eragin dit. Bejondeiola!

2.elkarrizketan

- Atzerapenak atzerapen eta berak egindako ahaleginari esker, lanean bi errelebo bata bestearen atzetik lotu, fisioterapeutarenean izan eta Iruñetik Urbasarako bidea eginda etorri zen, atsegina izan zen berarekin elkartu eta solasean aritzea.

- Elkarrizketaren aurretik nekea eta amorrazioa sumatu nizkion eta berak ere agertu zituen Nafarroako Federazioak nesken inguruan egiten ez duenaren gainean, datorren urtean berak ardura guztiak ez dituela hartuko esanez, pilotari izaten jarraituko duela, baina orain arte egin duenik ez duela egingo, badelako garaia, bere arabera, eurak busti eta zerbaitetan has daitezten. Federazioarekin izandako hainbat gorabeheraren berri eman zidan: “Ni ere pilotari” ez zuten antolatu hitz eman arren, San Ferminetan ere ia faktura bat berari ordainarazi omen zioten federazioaren izenean jaialdia saldu ondoren, etab.

- Hurrengo baterako eta behar izanez gero beregana jotzeko ateak zabalik utzi zizkidan. Ederra, benetan!

Elkarrizketa data: 2012-02-12

Lekua eta ordua: Mallabia (pilotalekuko bulegoa), 16.00

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Janire

Adina: 25 urte

Jaioterria: Mallabia

Bizilekua: Mallabia

Pilota elkarte: Tornosolo

Inoiz, txikitatik, egon naiz Mallabiko pilota taldean, baina, gero, segun zelan, ba, atera dut handik edo hemendik. Aurten handik atera dut.

Bietan ibili zara? Hemen ere egon izan zara?

Bai, bai, hemen egon naiz. Baina, beno, gero ia sortu zenean Abadiñoako taldea eta handik horrela, eta gero desagertu zen apur bat Tornosolo eta orduan berriro hemen atera nuen, baina, orain han atera dut. Aurten han atera dut, bai.

Ikasketak

Gorputz Hezkuntzako goi mailako modulua eta orain Haur Hezkuntzako goi mailako modulua egiten.

Lanbidea

Mallabiko pilotalekuko entrenatzailea eta mantenu gimnasia.

Kirolarekin hasiko gara ia pixka bat. Laster hasiko gara pilotarekin. Zu gogoratzen al zara noiztik izan duzun zaletasuna kirola egiteko?

Nik uste txiki-txikitatik. Etxean bi neba nagusiagoak ditut eta zaharrena, ba, txirrindularia izan zen. Hortik ere bizikletan beti ibili naiz asko herrian, herrira jaisteko, igo, ez dakit zer, beti bizikletarekin. Gero, nire aita ere pilota entrenatzailea izan zen eta beste neba ere pilotaria. Orduan ordu asko edo frontoian edo karrerak ikusten, edo frontoian eta karrerak ikusten. Nik uste dut horrek ia zaletu ninduela horretara, ez?

Zer kirol egin izan dituzu? Adibidez, esan duzu txirrindularitza. Txirrindularitzan ibili zinen federatuta?

Federatuta ez. Bakarrik egin dut eskupilota eta gero sortu zen hemen, egon zen bi urtetan edo, nesken futbito talde bat eta hor aritu nintzen jolasten. Futbola ere gustuko dut, baina, beno, esan zidaten Eibarrera eta horrela joateko, baina, ia gauza asko ziren eta azkenean ez.

Ibili zara orduan eskupilotan hasi, gero futbitoan eta orain palan.

Bai, eta orain palan, bai.

Ia pilotarekin lotuta hasiko gara. Zu gogoratzen zara noiz hasi zinen pilotan?

Zenbat urterekin? Ez.

Zeinekin, non, nola, ...

Zeinekin? Nik ez daukat akorduan, baina, nik pentsatzen dut izango zela ba aita etorri behar zela hona entrenatzera eta ni berarekin, ba, utziko ninduen hor eta benga. Gero aitak ere utzi zuen eta ni nire aitak ez nau entrenatu apenas. Gero beste entrenatzaile bat etorri zen nire aitak utzi zuenean eta harekin daukat oroitzapena hasi nintzela jolasten.

Zenbat urterekin edo?

Ba, zortzi edo bederatzi, zeren benjaminetan badakit jolasten nuela.

Eta, zergatik hasi zinen akordatzen zara? Zergatik izan litekeen?

Ez, ba, suposatzen dut etxean ikusi nuela eta horrek. Bai.

Esan duzu ez zarela oso ondo gogoratzen, baina, oroitzen duzu bakarren batek izan zuen bereziki eraginik zu pilotan hasteko? Aitak insistitzen zizun edo esan duzu anai zaharrago bat daukazula.

Ez, guztiz kontrakoa, zeren aitak, neska bat eta hori ... Bultzatu nik uste dut inork ez ninduela bultzatu, igual horrek, inork ez, esateak "ezin duzu jolastu, ezin duzu jolastu", ba nik igual "ba bai, jolastuko dut". Igual horrek bultzatuta izan ahal zen. Ez dakit.

Esan duzu eskupilotan hasi zinela. Eta, eskupilotan mutilekin ibili zinen?

Bai, klubean ez zegoen neskarik. Beno, egon zen zatika, horrela urte batean neska bat, gero atletismoan hasi zen, gero beste bat eta horrela, baina, urte askoan jarraian beste neskarik ez zen egon, ez.

Eta halako batean iritsi zitzaizun informazioa neskak palan zebiltzala, edo, nola iritsi zinen nesken palara?

Bai, nire entrenatzailea Jakes Irizar zen eta hasi zen bera jokatzen Abadiñoko trinketean eskuz, zeren pilotaria zen. Eta hark esan zidan nola sortu zuten nesken talde bat eta, honbre, niri ere ikusten zidan ia infantiletan-eta ezin nuela askorik egin eta proposatu zidan probatzea, joatea hara entrenatzera. Momentu hartan uste dut Pablo Iriondo zegoela han entrenatzaile eta harekin hasi nintzen. Gainera, aitarekin joan nintzen proba batzuk, beno, entrenamendu batzuk, egitera eta ez zitzaidan ezer ere gustatzen, baina, beno. Gero nik uste dut giroak-eta bultzatuta jarraitu nuen eta gaur egun gustatzen zait, baina, ordura arte ez neukan pala bat ez erraketa bat ez ezer hartuta. Orduan, zen erreminta apur bat, uf, baina, beno, segituan egin nintzen edo, ez dakit.

Zenbat urterekin edo akordatzen?

14 urterekin, eta pala eduki, trinketean bakarrik hasi nintzen, e.

Pasa zinen frontoian eskuz egitetik trinketean palaz egitera.

Bai, eta hasi nintzenean frontoian palan ez zitzaidan gustatzen batere, zeren eta enpalatu egin behar zen, pilotak pisu gehiago, eta uf, txarto, txarto, ez zitzaidan gustatzen. Orain aldrebes, orain ia trinketa abandonatu dut apur bat.

Ondo, ondo. Eta, beti ibili izan zara? Hasi zinenetik ez duzu sekula utzi?

Ez.

Eta, zergatik jarraitzen duzu?

Ba, ez dakit, asko gustatzen zaidalako nik uste dut, zeren ernegatu naiz askotan, haserretu naiz, jaleoak, ez dakit zer, e, inoiz egon da ez dudala eduki bikoterik jolasteko, baina, azkenean, beti beti beti topatu dut norbait, edo beti egon da zer edo zer, eta beti jarraitu dut jolasten. Bai.

Iruditzen zaizu edukiko zenukeela arrazoi bat esateko bada ia ez dut segituko, utzi egingo dut.

Ez dakit. Ez, zeren eta orain ere nago super lanpetuta eta askotan esaten dut “ia gogaituta nago eta”, baina, honbre, lana ere justu frontoi batean egiten dut eta inoiz pentsatu dut “ba, beno, ordu bat hartu asteen lagun batzuekin eta horrekin egitea eta ya está”. Pentsatu dut, baina, ez dakit. Ez.

Eta, jarraitzeko erabaki horretan esan duzu, adibidez, giroak eduki zuela eragina, edo, beno, hasteko. Iruditzen zaizu beste zerbaitek-edo eduki zuela eragina? Jarraitzeko esan duzu asko gustatzen zaizula. Hori da arrazoi nagusia.

Bai. Ez dakit, nik uste dut izan zela fasea. Hasieran eskupilotan ondo, gustura, baina, gero ia azkeneko urteetan, ba, ez, zeren niri asko kostatzen zitzaidan, mutilei gutxiago, ni baino askoz txarragoak ziren mutilak ia ni beste edo gehiago ziren eta ya hor desilusionatzen hasi nintzenean apur bat, ba, aukera bat moduan ikusi nuen bestea. Gainera, hori, ba, joan nintzen hara, eta neska gehiago, eta, ez dakizu? Esaten duzu, ba, beno, maila berdinerara heldu ahal gara, ez? Gero ia hobe edo txarragoa izan, baina ya hori norberarena da. Bai.

Inguruko en iritzira-edo pasako gara pixka bat. Esan duzu aitak, behintzat hasieran, ez zeukala oso begiko zu pilotan ikustea. Orain galdetuko dizut zuzenean. Zer iritzi zeukaten hasiera hartan zure ingurukoek, ba, familiakoek, lagunak, ...

Ez. Aitak oraindik ez du onartzen hori esaten zuela, baina, beno, nik argi daukat, e, ba esaten zuela “ba, beno, ba hor dago denbora pasatzen, dagoen moduan parkean edo dagoen moduan ez dakit zerekin jolasten”, baina, beno, baina ez “hartuko dut, lagunduko diot eta entrenatuko dut”. Ez. Esaten zuen “hori neska batek ezin du sekula, ba, eskuengatik eta ez dakit zer”. Eta, ez, sekula. Honbre, gero, igual, eraman behar baninduen ... Ez, eskupilotako partidu askotarako ez nau eraman, amak eramaten ninduen gehiago, beti amak eraman nau. Amak, ez bai, ez ez. Gustuko banuen jarraitu eta puntu. Eta, orain, aitak, bai, ba gero eraman nau eta trinketeen hasi nintzenean Abadiñora berarekin hasi nintzen joaten entrenatzera. Nik uste dut neska gehiago

ikusten zituela eta normalagoa zen, ez, “ez da hain mutilen kirola, ez?” Baina, bestea, eskupilotakoa, ez ninduen asko lagundu.

Eta, lagunek eta horrela?

Ba, ez dakit. Uf. Txiki-txikitan, batzuetan adar jotzeak eta horrela bai, baina nahiko normal hartzen ninduten. Eta, animatu eta horrela ez, zeren eta ez ziren etortzen partiduak eta horrela ikustera ere, baina, beno. Urteekin nik uste dut orain ya gehiago errekonozitu dutela eta etortzen dira ikustera partiduak eta.

Eta esan duzu zer iritzi zeukaten. Iritzi hori denbora pasa ahala aldatu da kasu batzuetan.

Bai, bai, orain aitak animatzen nau, eta, bai. Orain bronkak botatzen dizkit zelan jolastu eta hori, eta, bai, bai. Gero, ya, nik uste dut aldatu zela, palan hasi nintzenean, neskekin eta horrela, aldatu zitzaioala iritzia.

Orain iritzi hobea daukala esango dugu?

Bai, bai, bai.

Eta, nabaritu duzu presio hori? Gizartearen presio hori? Inguruko jendearen presio hori, zinelako neska eta zenbiltzalako pilotan. Nola nabaritu duzu hori?

Bai. Ez da igual matxakatu zaituztela, baina, igual ez dizute aintzat hartzen edo, como “ez da hain serioa edo zer egingo du honek”, edo, ez dakizu? Ez dizute horrela esaten, baina, adierazten dizute beste era batera, ez? Eta orain ere, askotan, ikusten da hori. Beno, esan beharrik ere ez dago, oraingo mutil afizionatu batek kobratzen du, edo ez dakit zer, edo garrantzia handiagoa ematen zaie eta neskenari oraindik ez zaio hainbesteko garrantzia ematen, ez? Ez dizute txarrera esango, baina, errealitatea ikusten da ez dela berdina.

Eta, horrek zer bizipen edo zer eragin dizkizu zuri? Esan duzu, haserreak, edo besterik gabe, “ni banoa eta paso”. Presio horrek nola eragin dizu zuri?

Honbre, momentu batzuetan, ba, bai, ez? Igual, txapelketa batera, edo guk partida bat, mutilen partidu bat, eta eurei eman lehentasuna eta guri kendu, ... Horrelako gauzak, ba, horrek ernegatzen zaituzte eta, ba, beno, esaten duzu “ba, azkenean beti egiten dut aurrera, gustatzen zait eta jarraituko dut, eta gustatzen zait eta”. Berrito heltzen da ernegu momentu bat eta esaten duzu “es que, zer?”, baina, berrito jarraitzen duzu.

Ziklikoa da?

Bai, eta, orain, azkenaldian, beti positiboago, e, ez dut eduki horrelakorik.

Eta, nolako tratua jaso izan duzu pilotan ibili izan zarenetan? Bai entrenatzailearen aldetik, bai ... Horrela, orokorrean hartuta, tratua.

Entrenatzailearen aldetik beti oso ondo. Bai, nik inoiz entzun dut beste neska pilotariren bat, eskuz ibili dena, tratua “bua, con una chica y no sé qué”, baina, nik horrelakorik ez.

Beti ondo tratatu naute. Ingurukoek, igual, gutxien aintzat hartu naute, edo seriotasun gutxiagorekin, baina, kalean-eta beti errespetuz eta partiduetan-eta beti ondo tratatu izan naute.

Eta, orain galdera pixka bat potoloagoa. Nola uste duzu ikusten direla emakume pilotariak gizartean? Emakumeak eta pilotaz zer iritzi daukala jendeak?

Nik uste dut ez dela oso ezaguna oraindik, zoritxarrez, jende asko ez dela enteratzen, eta esaten baduzu pilotaria eta palista zarela uste dutela, ba, hori, ba joaten zarela frontoira eta jotzen duzula laugarren botean oraindik, ez dakizu? Modu batera esateko, ez, ba, hori, joaten dena jolastera bere neska lagunarekin, e, aspertuta daudela domeka batean eta pin-pan edozelan jolastera, eta ez dute ikusten zer seriotasun edo zelako gaitasuna daukagun jolasteko. Nik uste dut jende askok oraindik ere uste duela horrela eta oraindik ez dela hartzen seriotasun batekin.

Ez dela ikusten esango dugu orduan?

Bai, ez dakit, ez dakit. Ez da ikusten, ez. Aukerarik ere ez dute ematen ikusteko eta orduan gaitza da.

Giroarekin hasiera batean esan duzu, Abadiñora joan zinenean. Nolako harremanak daukazu beste pilotariek? Nola moldatzen zarete? Mantentzen dituzu partiduez gain?

Bai, orokorrean ondo. Abadiñon, honbre, ni sartu nintzenezan esan behar dut bi ginela oso gazteak, Andrea eta ni, eta beste denak ia nahiko nagusiak ziren. Nahiko, nahiko, bai, eta horiek ia utzi egin zuten, baina, beno, harreman ona geneukan, antolatzen zen San Trokaz eta San Blas txapelketa eta hor afariak egiten genituen. Horiekin ondo. Eta hemen, Mallabian, eskupilotakoekin ere ondo. Beti eduki dut erlazio ona, eta egiten ziren afariak eta horrela, ondo, beti moldatu naiz ondo. Eta, gero, aurrerago, ba, ondo. Ez daukat horrela oroitzapenik pilotari batekin txarto konpontzeaz. Batzuk gustukoago, beste batzuekin gutxiago. Bai, harreman gehiago eta gutxiago, baina, denekin ondo moldatu naiz.

Esan duzu hasierako haietako batzuk utzi zutela Abadiñon. Mantentzen duzu harremanik haietakoren batekin?

Ba, ez. Justu haietako bat zen irakaslea institutuan eta hura ikusten nuen gehiago, eta horrela, baina, ez. Ba, hori, jarraitu nuena, Irene utzita zegoen eta berriro hasi zen jolasten, Irenerekin eta horrela, baina, gero, besteak ... Bat Bedian bizi da eta Igone ez dut ikusi urte askoan, eta, horrela. Ez, ez. Oso nagusiak ziren, gu oso gazteak eta uzten duzu, uzte duzu eta... Beti esaten dugu "Tornosolo bueltatuko da eta egingo dugu afari bat eta ez dakit zer, baina".

Zure burura bueltatuz orain. Zu gogoratzen zara pilotan hasi zinenean zer helburu zenezkan, zer espektatiba, edo zer asmo?

Ez dakit, nik uste dut ez nuela asko pentsatzen. Etortzen nintzen jolastera, ba, hori, entrenatzaileak, nik uste dut, nire adinean ez zegoen mutil bat bera ere eskupilotan zebilena, mutil bat zebilen, baina oso txarra zen eta hura zetorren nahi zuenean eta nahi zuenean ez. Orduan, jolasten nuen urte bat gutxiagokoekin, zirela zortzi edo bederatz.

Horiekin beti. Zeuden bi zirenak bastante hobeak eta besteak bastante eskasagoak. Horiekin ibiltzen ginen hor, nahastean, eta ondo.

Eta, gaur egun, ia pixka bat nagusitu zineneko helburuak, espektatibak, gogoak, ez dakit. Noraino iristea gustatuko litzaizuke? Nazioartean ibili izan zara, adibidez.

Ez, ba, orduan zen, nik uste dut, hori, jolastea txikitan. Gero, ba, Abadiñora heldu nintzenean izan zen apur bat hori, egin arte apur bat trinketera eta erremintara eta hori, ba, gogorra. Eta helburua, ba, zentratzea trinketeen, trinketeen leku bat topatzea eta eroso jolastea. Hori zen helburua. Eta, gero, ba, txapelketak jolastu eta ahal zirenak irabazi eta horrela. Eta, gero sortu zen Munduko Pilota Batzarra eta horrekin nazioarteko txapelketak sortu ziren, eta aukera bat. Eta, honbre, nire helburua orain, momentuan, hori izaten da normalean. Ez dut ikusten helburu moduan, ba, beno, nik entrenatzen dut eta nik jolasten dut, eta hori heltzen den momentuan, ba, gogo gehiago edo gutxiago ipintzen dut eta hartzen banaute ondo eta bestela, ba, bueno, listo. Badakit ez dagoela aukera handirik emakumeetan, hori izan ahal dela lortu ahal dugun gehiena, nazioarteko txapelketaren bat jolastea. Orduan, ba, beno.

Ondo, ondo. Orain medikuz edo horrela jantziko gara eta osasunaz jardungo gara. Nolako osasuna ikusten diozu zuk nesken pilotari? Nola dagoela esango zenuke nesken pilota mundua?

Baina, zer, orokorrean, denean?

Orokorrean, edo Bizkaian, edo nahi duzun bezala. Orokorrean, nahi baduzu gero Bizkaiarekin ere sartu, edo. Nola ikusten duzu zuk egoera, azkenean, bizi duzunarekin, ibiltzen zarenarekin?

Ondo, txarto, uf. Zentzu batzuetan ondo, besteetan txarto. E, gaitza da, zeren eta nik uste dut jende asko, adibidez, Gipuzkoan, beno, ez dakit, baina entzun dudanagatik, lantzen dela asko eta hori. Gero, beste leku batzuetan ikusten dut, adibidez, Bizkaia mailan, ba, subentzioak direla eta ez direla txupatzen duela norbaitek, baina, ez dela egiten ezer. Horrela. Ba, adibidez, orain bagaude, eskolarteko txapelketak jolasten ditugu umeekin eta gustura. Mallabian 14 ume daude eta, 14 neska bai, 14-16 uste dut, ez dakit, daude eta ondo. Horrek poztasuna ematen dit, zeren ni urte batzuetan izan nintzen Mallabian klubeko bakarra eta orain neskak daude, eta, gainera, ikusten da gustura datozela eta egiten dela. Herri asko sortu dira berriak, pala taldeenak, baina, osasun-osasuna, ba, gero txapelketetan-eta ere, askotan, osasuna galtzen da. Ez da hainbeste aintzat hartzen mutilen moduan, ez zaio hainbeste garrantzirik ematen. Beno, nik hemen Bizkaian ikusten dudana, behintzat, e. Bai.

Eta, neskak esan duzu Mallabian 16 bat badaudela. Bizkaiko beste leku batzuetan ere badaude?

Bai, Larrabetzun ere bai, Arteagan, Basaurin, Sopelan, Munitibar, beno, Lea-Ibarra, Bakio, Armintza,...

Badaude.

Bai.

Esan duzu osasuna ona edo txarra ez dakizula. Hala ere, aukera edukiko bazenu, hobetzeko zer egingo zenuke? "Hau hobetu egin behar da". Nola egingo zenuke?

Uf. Nik uste dut berdintasun batekin jokatu beharko zela eta seriotasun gehiago eman federazio mailetan. Nik hemen, Bizkaian, ikusitakoarekin. Nik uste dut egiten dela dena afizionatu mailara bideratu, gero eskolartekoan ere, ya uste dut mutilenean ere, edo eskupilotan, asko galdu dela. Eta, ia neskak, ba, atzerago oraindik. Uste dut hori, seriotasun maila berdinean hartu beharko litzatekeela dena, dena, eta hortik abiatuz, ba, ia asko soluzionatuko zirela arazoak, ez?

Esan duzu eskolartekoan ... Eskolartekoan nesken txapelketa ari dira jokatzeko? Eskuz ala palaz?

Jolasten dute miniteniseko horrelako pilotekin benjamin eta alebinek, beno, Gabonak arte. Gero hor egiten da beste sailkapen bat, edo ranking bat moduan esango dugu, eta hasten dira ya gomazko pilotarekin batzuk eta beste batzuk jarraitzen dute oraindik minitenisekoarekin. Gero, infantil eta kadete mailan ere elkartzen dira eta horiek ere egiten dute gomazko pilotarekin.

Zenbat dabilta?

Uf, ez dakit, baina, igual egoten dira 12 partidu, 14. Egiten dira topaketak igandeetan eta goiz guztian jokatzeko dira partiduak herri ezberdinetan. Bai.

Esan duzu 14-16 badaudela, adibidez, Mallabian. Zergatik uste duzu aukeratzen duela neska batek pilotan egitea?

Ba, ez dakit. Ez dakit. Gero dago beste neska bat Mallabian, eskupilotan ibili dena nire ostean, orain 14 urte ditu, eta hori ere hasi behar zen ni bezala Abadiñora mugitzen edo ez dakit zer. Nik, hasi nintzenean hemen lanean, frontoian, erabaki nuen nire jefarekin batera hemen talde bat sortzea neskena. Hori apuntatu zen eta nik uste dut horrekin batera bere gelako mordo bat. Eta gero joan ginen eskolara kaptazio bat egitera eta apuntatu ziren zeuden neska guztiak, 1.etik 6. mailara zeuden neska guztiak. Eta horrela. Nik uste dut taldean datozela, eta gustura etortzen dira, eta pixka bat horregatik.

Zuk urte asko daramatzazu. Pentsatzen dut ibilbide horretan ere kasuak izango zenituela utzi dutenak edo jarraitzen ez dutenak. Zergatik uste duzu, edo zer arrazoigatik izan da hori?

Ba ez da zaila, ez? Nik ez dakit zergatik guk ere ez dugun uzten. Ba, azkenean, aspertu egiten zarela edo ez dizulako inork laguntzen, zuk eduki behar duzulako gogo handia aurrera egiteko eta, honbre, ba, ez duzu, ez da errentagarria irteten, ya nagusitzen zoazen heinean beste gauza batzuk daukazu eta, azkenean, horretan jartzeko hainbeste denbora ez daukazu eta orduan, ba, erabakitzen duzu beste gauza batzuk hartzea.

Eta, horrekin bueltaka segituz. Zergatik uste duzu ez dutela aukeratzen? Pilotara ordeztu joaten dira, ba, ez dakit, hemengo futbol taldera.

Hori lehen ez dut esan, baina, aparte, neskontzako hemen aukera handirik ez zegoen eta sortu zenean aukera hori, ba, nik uste dut horregatik ume asko apuntatu zirela Mallabian eskupilotara. O sea, palara. Eta orain sortu da gimnasia erritmiko taldea eta hortik ere ia joan dira batzuk hara. Eta, ez dakit zein zen galdera.

Ea zergatik ez duten aukeratzen pala.

Ba, ez dakit. Neskontzako ez dakit, saskibaloia uste dut badagoela orain, baina, ez dakit sortu den aurten taldea.

Eta, nola uste duzu bultzatu beharko liratekeela nahi duten neskek edo emakumeak pilota mundura? Nola uste duzu bultzatu litekeela jende hori? Zein modu izan liteke hori lortzeko egokia? Bururatzen zaizuna, strategiaren bat edo. Lasai esan, e.

Nik uste dut, hasiera batean, etorri behar zarela ondo pasatzera eta gustura, zeren horrela egingo duzu aurrera, ez? Gero, ba, hori, gustura etortze horretan uste dut seriotasun bat ere egon behar dela, zeren, askotan, gero galtzen du maila eta datoz etortzearren, denbora pasatzearren, tontoarena egitera, ... Gero ya palan egin barik zatoz denbora pasatzera eta, orduan, nik uste dut seriotasun batean ondo pasatu behar dutela, dibertitu egin behar direla, eta horrela. Gustura badatoz eta gustuko badaukate eurak gainera eskatzen dute nahi dutela jolastu. Gustura etortzen badira.

Eta, gustura etortzeko edabe magikorik bai?

Ba, hori ia ez dakit. Ez dakit zelan sortzen den gustuko izate hori. Ez dakit, kar, kar.

Ondo, ondo. Lehen hasi zara esaten ez dela ikusten gizartean. Eragile asko daude. Komunikabideak direla, instituzioak direla, ... Hasiko naiz horrelako batzuen inguruko iritzia galdetzen. Zer iritzi daukazu, adibidez, hedabideen jarreraz? Prentsa idatzia dela, irratiak, telebista ... Ea laguntzen duten, edo ez, nola, zenbat?

Nik uste dut ezetz, baina, ez bakarrik pilota munduan. Noski, pilota munduan ere bai, zeren jartzen gara, zabaltzen duzu egunkari bat eta ya futbola, futbola, futbola eta futbola. Eta beste zati bat igual txirrindularitzari, eta, hemen, ba, eskupilotari, eta listo. Eta hortik ya, ba, zer esango nuke? Ba, ez dela indibidualizatu behar gauza batean eta zabaldu beharko litzatekeela beste hainbat kirolak, eta horretan sartzea neskena. Baina, beno, horrek ekartzen du telebistak sartzen duela hori, eta, telebistak zer sartzen du? Ba, futbola bakarrik eta, ba hori, zabaldu beharko litzatekeela gehiago eta aukera gehiago eman beste kirolak ezagutzeko eta ikusteko. Ikusi ahal izateko, ez?

Ez, laguntza batere ez, batere ez.

Eta, instituzioak? Erakundeen jarrera? Adibidez, udalak, Diputazioak, pilota federazioak, etab.

Ez dakit. Ez daukat jakintza handirik zer mugitzen duten, zer egin duten eta horrela.

Daukazuna. Daukazunarekin nahikoa zait.

Nik, kanpotik, hemen ikusten dudanagatik, batzuk badaude egiteko eta laguntzeko prest, eta aurrera eroateko prest. Eta beste asko daude, ba, egotearren, badakigu zertarako, ez? Ba, hori, egin beharko litzateke horiek kanporatu eta gogoia daukatenak eta nahi bat daukatenak benetan aurrera egiteko, ba, horien bitartez txapelketa dezenteak antolatu, edo topaketak, edo ez dakit.

Hemen, adibidez, Bizkaian, federazioaz gain, udalek badute esku-hartzerik? Udalek jarduten dute zerbaitetan? Adibidez, Aldundiak, suposatzen dut eskolartekoa Aldundiarena izango dela, ala federazioarena?

Ez, Diputazioak antolatzen du bai. Beno, baina, gero Bizkaiko federaziotik ere baietz uste dut, elkarlanean. Bai.

Pilota elkarteak ere pentsatzen dut denetik egongo dela. Bizkaian suposatzen dut Tornosolo eta Mallabiaz gain klub asko egongo direla.

Bai, klub asko daude eta nik uste dut gaur egun hori asko kutsatu dela. Ez dakit zeren eraginez, edo ondo, edo txarto, edo subentzioa txupatzearen edo ez, zeren eta denetik entzun dut, eta, ba, batzuk topatu dituzte neskak egon ez diren lekutik ere, eta apuntatu dituzte diru laguntza jasotzeko. Horrekin batera, ba, kutsatu ahal badira batzuk eta benetan gustatzen bazaie eta hori, ba, hobeto. Ba hori pentsatu nahi dut. Eta beste askok, ba, benetan diru laguntza hori kentzen dute eta aukera topatu horiek egiteko edo elkartzeko neskak, edo ez dakit, edo diru hori formakuntzarako, edo ikertzeko edo denerako, zeren nik uste dut ikerketa bat ere egin beharko litzatekeela lantzeko hori, zelan hobetu ahal den. Ez dakit, ez dakit.

Klubak, instituzioak eta hedabideak gainetik aztertuta pilotariak tokatzen dira orain. Suposatzen dut pilotarietan ere, igual, jarrera ezberdinak ikusiko zenituela. Zer jarrera ikusten duzu zuk pilotarietan beraietan emakumeen pilotarekiko?

Denetik. Batzuei berdin zaie, beste batzuk ernegatzen dira, beste batzuk bilatzen dute berdintasun bat, beste batzuk doaz ondo pasatzen dute eta etxera doaz, ... Denetik nik uste dut eta nik horiek errespetatzen ditut. Bakoitzak jakiten du zergatik egiten duen kirola, ba, seriotasun batekin nahi duen egitea edo ondo pasatzearen nahi duen egin. Bai.

Eta, azkena, hemen bosgarrena jarrita daukadana, ikusleak dira. Ikusleak, edo joaten ez diren horiek.

Beno, nik, egia esan, hemen ikusten ditut mutilen eta nesken partiduak, denetik, eta, gaur egun, geroz eta ikusle gutxiago dago pilota mailan. Baina, neskenen ba, gutxi, gutxi, gutxi. Mallabian, pilotarako afizio handia egonda, eta, kartelak ipiniz gero eta horrela pilotara etortzen dira, baina, palara, uf, ba, ez. Mallabian, adibidez, iaz jolastu genuen guk, abuztuan, jaietan, profesionalen aurretik partidu bat eta jendeak esaten du "ostra, ba bai". Horrelako gauzeekin ezagutzera ematen zara eta ez da entzuten dutena ere, ba, "zer jolastuko dute!", ez, ba beste errealitate bat ikusten dute. Halako gauzeekin, igual, aldatu ahal da jendearen iritzia. Ez dakit.

Ondo, ondo. Orain pasako gara jaiotze lekura edo. Zuri iruditzen zaizu herri batean jaiotzeak, adibidez, Mallabian bertan jaiotzeak, ala Bilbon jaiotzeak eragiten duela pilota aukeratzeko horretan? Edo, eragin dezakeela?

Bai, zeren eta ez dut aipatu, eta pasatu zait, baina, igual, ni joan nintzen justu pilotara, igual, beste kirolik ere ez zegoelako herrian, askoz gehiago. Bazegoen, uste dut, txirrindularitza eta ez dakit, ba, ez nuen edukiko nire bizikleta, zeren nire nebekin ibiltzen nintzen, ba, orduan pilota bat hartu, horma bat, eta jolastea errazagoa izango zen eta horretara, ba, bai. Eta, Bilbon, ba, edukiko banituen beste 20.000 aukera, ba, igual beste bat aukeratzeko duzu, ez? Nik uste dut herri txiki batean azkenean bi edo hiru kirol egoten direla nagusiak eta horietara bideratzen direla denak.

Eta, uste duzu kulturak eragina badaukala aukeratzeko horretan? Euskal pilota deitzen zaio. Esaten da "hau gure kirola da". Gure kirola izate horrek eragina eduki dezakeela iruditzen zaizu? Edo eduki zuela bere garaian?

Bai, batzuegan nik uste dut baietz, ba, ikusten zelako euskalduna eta herriko kirol bat eta horregatik, ba, jendea bai bultzatzen zela horretara, baina, gaur egun, uf, futbola, uf, kalte handia, kalte handia dabil egiten. Mallabian ere eskupilotan ia daude 10-12 ume, ia neskak baino gutxiago daude mutilak, ya doazelako denak futbolera, eta Mallabian ez dago futbolic, doaz Zaldibarrera, baina, berdin zaie ya beste leku batera mugitzea.

Eta, zure kasuan, zuk uste duzu pilota gure kirol izateak edo tradizio horretan sartuta egoteak eduki zuela eragina zu pilotan hasteko?

Niregan, momentuan, ez dut uste. Ez, nik horretan ez nuen pentsatuko eta nire gurasoek bultzatuta ez nintzen etorri. Ba ez, ez.

Eta, ikasketa mailak, iruditzen zaizu eragina eduki dezakeela? Eduki dezakeela edo ez, e. Ikasketak-edo, ez dut esan nahi "ni ingeniaria naiz eta egingo dut golfa". Eduki dezake edo ez. Galdera bat da.

Ez dakit, nik ikusten dut gustuko gauza bat moduan aukeratzeko duzula eta gero izango zara izango zarena, baina, ez. Eta, zer diozu, igual gurasoek bultzatuta beste kirol batera? Ez dakit, nik hori Mallabian ez dut ikusi horrela. Igual, ba, Bilboko batek eroango du bere semea golfera, ba, bai, baina, Mallabian ez dut hori ikusi.

Ondo, ondo, lasai esan esan beharrekoak hemen. Ez dakit nola deitzen zaion honi, familia giroan edo.

Antolaketa mundura salto eginez, Bizkaian, adibidez, nola daukazue txapelketak antolatuta? Zer jokatzen duzue? Ez dut ezagutzen, nik Bizkaikoa oso gutxi ezagutzen dut.

Zer, eskolartekoa ala nagusiena, edo...?

Biak.

Ba, eskolartekoa hasten da urria edo azaroan eta jolasten dute bi mailatan, benjamin eta alebinek elkartuta, eta gero infantil eta kadeteek. Egoten da Gabonak arteko lehenengo fase bat, denek elkartuta jolasten dutena, denen kontra, eta hor erabakitzen da

rankingaren arabera, edo, beno, preferentzien arabera, edo segun zelan, ba, lehenengoak, lehen aipatu dudan moduan, beste pilotarekin hastea eta beste batzuk bigarren maila batean geratzea. Eta, infantil eta kadeteetan ere, hobetxuenak, edo gehiago jokatzen dakitenak, gorago eta besteak beheko maila batean jolastea. Horrela, ekainera arte. Gero egoten dira Emakume Pilotariaren Eguna eta horrelako txapelketa batzuk kurtsoari bukaera emateko eta listo. Nik antolatzen diet hemen igual Gabonetan, edo inauterietan, oraingo ostiralean jolastuko dituzte partidu batzuk. Eta horrelako gauzak.

Nagusietan, ba, federatuetan, Bizkaiko txapelketa jolasten da frontoian. Trinketean ez dugu jolastu oraindik eta uste dugu, azkeneko urteetan mistoa egin da, izan da ez-ofiziala moduan, baina, beno, jolasten dugu mutilekin nahastuta, zeren eta hiru edo lau neska bakarrik gaude trinketean jolasten dugunak. Eta horrela.

Frontoian daukazue zera, jokatzen duzue...

Frontoian Bizkaiko txapelketa jolasten da. Lehenengo eta bigarren maila egoten da.

Hor zenbat jende egoten da, gutxi gorabehera? Beno, lasai, e.

Ez dakit. Itxaron (*hormako orria kendu eta zenbatzen*). 1, 2, 3, 4, 5. 5 talde. Beno, 6, gurekin 6 uste dut. Gurekin 6, ez? Ah, ez, 1, 2, 3, 5. 5 talde, 5 bikote. Bai, hau izan da aurtengoa, e, 1.mailakoa. Eta, gero, 2.mailan ez dakit zenbat egon ziren edo zelan izan zen.

Beno, jende pixka bat badago.

Bai, bai, bai, azkenean badagoela jendea, baina, beno, maila ezberdinetako jende asko eta, hori, segun zein elkartzen den zeinekin eta horrela, ba, uf.

Aldea antzematen da? Gero, Irekia da hurrengoa zuena?

Gero izaten da, e, Liga Vasca ez? Frontoikoa uste dut, eta gero ya jarraian Irekia eta gero jarraian GRAVNa eta trinketa. Ba, beno, uf, trinketa abandonatuta, nik orain momentuan ez dakit oso ondo zelan doan.

Eta, hor, txapelketa horietan, adibidez, Bizkaikoan jokatzen duzue klubekoek beti elkarrekin. Adibidez, Irekian jokatzen duzue bikoteak norberak erabakita zeinekin jokatu, nazioarte mailan ere da zu honekin eta zu harekin. Zer iruditzen zaizkizu sistema ezberdin horiek: klubaren izenean jokatzea, zuk erabakitzea zeinekin, jartzen zaituzten bezala, ... Lehiaketa sistema horiek nola dauden antolatuta. Irekiko partiduak jokatzen dituzue asteburuan, txapelketakoak larunbatetan gehienak?

Irekia beti larunbatetan eta honek, ba, bariku, zapatu, domeka, segun. Ez dakit zelan esan. Nik ikusten dut, adibidez, hemen, Bizkaia mailan, gu klubean ginen Irene, Andrea eta ni. Eta, hori, ba, Irene eta nik jolasten bagenuen, ba, hori, 30-9, 30-14, 30-10, ba, horrela, partidu denak horrela. Eta, beste sistema horretan, Irekia, ba, igual, tartekatuz, zeren eta izan ahal zen nesken klubean batean igual bat ona izatea eta bestea oso hori eta oso deskonpentsazio handia, ez? Irekia izatean nik uste dut gehiago eta denok gustura jokatzeke aukera. Gero, polita da zuk entrenatzen duzunarekin partidua jokatzea ere, eta

hori izango litzateke egokiena igual. Ez dakit. Ondo ikusten dut, ba, igual zentzu horretan, zuk jolasten duzu entrenatzen duzunarekin txapelketa hau eta bestea aukeratzen duzunarekin, maila apur bat parekatzeko, ez dakit.

Eta, entrenamenduak, nola antolatzen zenituzten bere garaian eta nola antolatzen dituzue orain? Nola moldatzen zarete entrenamenduetarako?

E, uf. Ba, nik ez daukat denbora askorik. Astearteetan joaten dira entrenatzera trinketera, baina, nik hemen lana daukat eta ezin naiz joan. Euskal Selektzioarekin entrenatzen dugu astelehenetan hemen, 7etatik 9etara, eta gero, nik, klubekoekin entrenatzen dut ostegunetan 6etatik 7etara. Horrela, ba, norbait mugitzen bada hona, ba, ni beti frontoian prest jolasteko. Baina, bestela, ez daukat, lana dela eta, eta pena ematen dit trinketa utzi izanak, baina, ezin da, denera ezin da.

Eta, normalean zer egiten dituzue, partiduak, ala nola?

Entrenamenduetan? Bai, normalean partiduak, bai.

Hurrengo galdera da jokorako erabiltzen den materialaz, palaz, pilotaz. Pentsatzen dut hor ere aldea ikusiko zenuela zu hasi zinenetik hona. Orain, adibidez, neskentzat badaude pala pixka bat gutxiago pisatzen dutenak.

Bai, nik beti erosi izan dut, gainera, gutxien pisatzen duena. Niretzako arazo bat izan da hori. Trinketeen hasita, gainera, trinketeko pala eta pilota askoz ere arinagoak direla eta dena, eta frontoira pasatzeko orduan, ba, gaitza izan zen eta enpalatzeko... Pala beti saiatu naiz ahalik eta pisu gutxien daukana eta pilota ere ahalik eta pisu gutxien daukana, horrekin erosoan moldatzen naiz. Nik uste dut, ba, denen moduan, ez. Profesionalean ere Olaizolak beti ateratzen du bere pilota eta besteak beti ateratzen du bestearen pilota. Ba, azkenean, bakoitzak gustukoan daukan hori, nik aukerak ematea eta bakoitzari aukeratzeko, behintzat, aukera apur bat zabaltzea ondo ikusten dut.

Adibidez, eskolartekoan, hemen daukazun neskek zer pala erabiltzen dituzte?

Perforatuak, bai, betikoak. Bai, bai, nik erosten dizkiet ahalik eta arinenak, gutxien pisatzen dutenak. Beno, txiki-txikitxuenak erabiltzen dituzte txiki-txikiak. Hauek. Hauek erabiltzen dituzte 6-7 urtekoek eta gero ya besteek apur bat handixeagoak (armairutik atera eta erakutsi dizkit).

Baina, behintzat, txikiagoak, lehen egunetik ez dute hartzen 600 gramoko bat.

Ez, lehen egunetik ez dute hartzen horrelako bat. Horrelakoa ia hartzen dute hasten direnean jolasten mazizarekin, zeren eta hasi nintzen jolasten besteekin mazizara eta apurtu egiten dira. Beraz, aldatu egin behar izan nituen.

Zu 14 urterekin hasi zinenean esan duzu zu trinketeen hasi zinela. Kuriositatez, zu noiz hasi zinen frontoian? Urte asko pasa ziren tartean?

Ez dut oroitzen, e, baina, oroitzen dut, e, ba hori, nagusienek bai jolasten zutela frontoian eta trinketeen eta, ba, urteren batean bultzatu gintuztela bertara joatera, ba, "guk jolastu behar dugu eta entrenatuko duzue gurekin", eta hori. Abadiñon egiten

genuen ordu bat trinketeen eta beste ordu bat joaten ginen frontoira, edo horrelako zer edo zer zen. Uf, oso oroitzapen txarra daukat horrena, baina, bai, horrelako zer edo zer.

Hitz egin dugu nola jokatzeko duzuen, nola entrenatzen duzuen, materialaz, pixka bat egoera zein den. Orain, ahalko bazenu, zuri nolakoak gustatuko litzaizuke izatea bai txapelketak, bai entrenamenduak eta bai pilota eta palak. Ahalko bazenu esan “nik nahi dut horrelakoa. Nire neurrira egindakoa izango litzateke horrelakoa”. Igual orain dagoena da, e, ez daukazu zertan aldatzen ibili beharrik.

Honbre, uf, ez dakit ideala zer izango den, baina, niri, adibidez, Irekia, lehen aipatu dut, niri asko gustatzen zaidan txapelketa bat da, ikusten dudalako nahiko maila orekatua eta, beno, nik gustura jolasten dudan txapelketa bat da. E, hori urte guztian ez dakit erraza izango zen, zeren eta bakoitza da punta batekoa, e, tokatuko zitzaigun ez dakit nora joatea, edo beste batzuei tokatuko zitzaien hona arte etortzea, eta hori. Azkenean, perfektu-perfektua ez dakit zein izango zen, baina, beno, uf, nik uste dut denak batu, edo neska denak batu eta maila ezberdinak egitea eta ahalik eta parekatuen jolastea izango zela idealena, ba, denok disfrutatzeko, ez? Zeren, azkenean, ez da atsegina zu 2an uztea eta zuk 2an uztea beste bat ere ez.

Ondo, ondo. Entrenamenduak, adibidez, gustura egiten dituzunekin.

Bai, astelehenetan oso serio entrenatzen dugu eta ni oso gustura. Eta, ostegunetan, ba, beno, ba, bateko bat falta dela, ez dakit zer, ba, apur bat horrela ibiltzen gara, baina, beno, bai, gustura, gustura.

Materialaz esan duzu, beno, saiatzen zarela arinak hartzen.

Bai, nik nireak bai, baina, besteenaz ere moldatzen zara eta aldatzen saiatzen gara, denetik entrenatzen apur bat. Bai.

Antolaketa horretan sartuta, zuri noiz iruditzen zaizu hasi beharko lukeela neska batek pilotan? Eta, nola?

Zer adinekin? Ba, ez dakit. Nik uste dut askatasun batean hasi behar dela, lehenengo jolasten, eta hor ere badaukat sortu zaidan duda bat, hori, zenbat urterekin hasi behar den lehiatzen, ba, hori ere ez dakit. Nik uste dut, ni konturatu naiz, adibidez, hasieran, nire umeek, palakoek, e, guraso batzuek ez zuten nahi beraien umeek jolastea eta nik errespetatzen nuen eta ez ziren apuntatzen, etortzen ziren entrenatzera, nik egiten nien hemen noizbehinka hemen partidu bat eta horrela, gustura. Baina bai ohartu naizela txapelketa jolasterako orduan seriotasun gehiago ipintzen diotela eta gehiago aurreratu direla. Horrek eraginda, zergatik ez duten beste seriotasun hori ipintzen ez badute jokatzeko txapelketarik? Ba, inoiz planteatu dut nire buruan “nik egiten diet zer edo zer edo ez ditut animatzen behar beste”. Ba, ez dakit, horregatik daukat duda noiz hasi beharko litzatekeen, hasi beharko litzatekeen, zelan hasi beharko litzatekeen. Ez dakit, behin baino gehiagotan planteatu dut, baina...

Eta, nola iruditzen zaizu? Irudipen bat badaukazu?

Ez. Ba hori, bai gaztetatik igual. Ez ikusten den moduan guraso batzuk 8 urteko umea matxakatzen hor eta horrela, baina, beno, non ipini behar den, kokapena zein den eta

hori, ba, partiduetan apur bat adiago daude eta kasu gehiago egiten dizute, igual, ez? Ez dakit.

Eta, eskuz edo palaz hasi? Hori?

Ba, ez dakit.

Lehen, adibidez, esan duzu zu eskuz hasi zinela.

Nik uste dut eskuz igual errazagoa izango dela hasiera batean hastea. Ez dakit.

Zureak palan hasten dira zuzenean, edo eskuz hasten dira, neskak?

E, bai, palan. Bai, palan. Nik uste dut, gainera, justu badago bat pilotan ibili dena eta besteak palan hasi direnak eta kolokazioa eta guzti hori, igual urte gehiago daramatzalako jolasten ere bai, baina, igual, gauza horiek hobeto kaptatzen dira txikitatik, eta, urteak pasa ahala, moldatzea palara horrentzako ez da izan zaila, adibidez.

Eta, zein bide iruditzen zaizu izan litekeela egokia, ba, hori, esan duzu, nik zer dakit, 10ekin hastea erabakitzen duen neska horrek 26rekin, edo 40rekin nahi badu, edo 60rekin, berdin zait, segitzeko aukera eduki dezan? Ez uzteko tarte horretan, behintzat, nahi ez badu?

Zer aukera emango niokeen?

Nola iruditzen zaizu egin litekeela hori posible?

Ba hori, esaten dudana, bakoitzak bere mailan egoki jolastea. Ez daukazu zertan, edo bai, edo bai, igual, 60 urterekin 16ko batekin jolastu. Edo ez, ba, segun, mailaren arabera, ez? Nik uste dut, hori, zeren azkenean 60 urteko andre bat ez da ikusiko, ez dakit zer, joan partidu batera eta ezer egin ez, disfrutatu ez. 60 urteko andre horrek jarraitzen badu da gustuko duelako eta gustura joaten delako eta galtzen badu 30-10 eta ez badu disfrutatu, gainera, eta ez baditu bi pilota jarraian jo, ba, ez du disfrutatzen. Orduan, hori izango da pauso bat uzteko. Orduan, ba, hori, mailak ipiniz eta moldatuz, ba, idealena hori izango zen, baina, ez dakit.

Ondo, ondo. Ia bukaerara ailegatzen ari gara. Ni gustura nago. Zu ez dakit, baina ...

Ah, bai, bai, ni bai.

Esan duzu lehen futbitoan ibili zinela. Federatuta ibili zineten?

Ez, ez dut uste.

Baina, hala ere, e, praktikatu izan dituzun beste kirolekin zer ezberdintasun daude, adibidez, lehiaketan egituretan edo entrenamenduetan?

Gurea izan zen, e, Mallabian futbito talde bat zegoen, mutilena, eta sortu zen neskena egiten zelako txapelketa bat hemen, neskena, maratoi moduko bat, ba, beno, aste-

bukaera batzuetan jolasten zena. Hori egiteko apuntatu ginen, zeren ordura arte etortzen ziren Eibarko taldeak eta Elorrio eta Berrizko taldeak, uste dut. Eta, Mallabian egitera, zergatik ez zen egongo Mallabiako talde bat. Eta horrela apuntatu ginen. Gero ya bideratu gintuzten Eibarrera joatera, baina, Eibarren, ba, ya exigentzia handia zen eta ordu asko suposatzen zituen, bazkide egin behar zinen, ez dakit zer, eta gauza horiek.

Eta, entrenamenduak hemen? Ba, seriotasuna zegoen, baina, beno, uf, ez dakit. Gauza arraroa zen, zeren adin tarte asko geunden, batzuk serio hartzen zuten, beste batzuk ez. Entrenatzailearen partetik nik bai ikusten nuen seriotasuna eta ariketa ezberdinak. Ez gintuen beti partiduan ipintzen, ariketak egiten zizkiguten. Bai.

Ondo, ondo. Ba, beno, ni iritsi naiz bukaerara. Pentsatzen dut ez zenuela asko sufrituko. Azkeneko galdera bat egingo dizut. Ea badagoen zer edo zer galdetzea espero zenuena eta nik ez dizudana galdetu eta ez dizudana esateko aukerarik eman, edo zer edo zer badaukazu gaineratzeko, edo esan nahiko zenukeena. Libre zara, belarritik tira egin nahi badidazu ere bai.

Ez. Ez zait bururatzen ezer ere. Suposatzen nuen gutxi gorabehera horrela. Ez.

Oso ondo. Ba, eskerrak eman berriz.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2012-07-19

Lekua eta ordua: Mallabiako pilotalekua, 10:45

Izen-abizenak: Janire

Esan dizut lehen “bost hilabete eta gero etorri da berriro Uxue”. Lekutan dago otsaileko elkarrizketa. Honen asmoa ez da hain sakona, asmoa da bere garaian egindako elkarrizketa hari errepasso bat eman eta zuri aukera ematea “hau esan nuen eta ez nintzen gustura gelditu” edo “hau aldatu nahiko nuke” edo “hau pasatu zait” esateko. Erreplikarako aukera ematea da berez helburua.

Lehenengo galdera egingo dizut. Ia ez dakit akordatu ere egingo zaren. Ea zer iruditu zitzazizun elkarrizketa bere garaian.

Hori erantzun behar dut? Ba ...

Nahi baduzu egingo dizut errepasso txiki bat zertaz hitz egin genuen. Emakumeen pilota aztertzekeo elkarrizketa bat zen, hiru zati zeuzkana: bat zen soziala (nola hasi zinen, jarraipena, inguruko eragina, pilotarien arteko giroa eta harremana, zer osasun daukan emakumeen pilotak eta zergatik hautatu zezaketen neskek edo zer faktorek eragin dezaketenen), bestea kulturala (jaiotzeko lekuaren eragina eta abar) eta hirugarrena entrenamendua edo lehiaketaren inguruan nola zeuden antolatuta gauzak (lehiaketaren antolaketa, entrenamenduak eta txapelketak). Horrela, azkar-azkar esanda, hori zen, hori hamabost orritan uste dut. Ez dakit inpresio bat edo iritzi bat badaukazun.

Ez, ba, elkarrizketa ondo joan zen. Nik uste dut puntu denak ukitu zenituela eta ez dakit.

Bestea da niri sakonean irakurri ondoren galdera batzuk etorri zaizkit. Bat da hasiera xamarrean hitz egiten duzu neskak ari direla eskolarteko txapelketa jokatzeko eta eskuz edo palaz galdetu nahiko nizuke zeren eta esaten duzu palaz dabilzala benjaminak eta alebinak.

Palaz.

Eskuz ez dago aukerarik nesketan edo ez da egiten?

Neskena bakarrik ez da egiten. Jolasten dute, neskaren batek jolasten badu eskupilotan, jolasten dute mutilekin, bai, txapelketa berdinean eta bestea palan.

Adibidez, nik Bizkaia ez dut ezagutzen, baina Gipuzkoan benjaminetan bai jokatzeko dutela talde berean mutilek eta neskek batera, baina alebinetan, adibidez, aukera badaukate oso gutxi izanagatik nesken txapelketa mutilenetik aparte egiteko.

A, egiten da? Ez, ba, hemen ez dago.

Bestea zen lehiaketaren inguruan. Esaten zenuen Bizkaiko Txapelketa, GRAVNa eta badakit orain Euskadiko Federazioak antolatu duela Udako Zirkuitua, neskena. Pixka bat zer den edo zertan datzan esplikatuko bazenit, jakiteko behintzat.

Bale, ba hasi zen maiatzaren 12-13an eta amaitzen da abenduan. O sea, ba, Udako Zirkuitua, ba, beno. Gaude hamaika neska, uste dut, eta denok denon kontra jokatzeko dugu. Txapelketa izaten da asteburuetan, normalean larunbata eta igandea. Adibidez, lehenengoa izan zen Sopelan 12an eta egiten da finalerdia eta hortik 12an sailkatzen direnak 13an finala. Ba horixe, dira torneo txikien moduan eta herri ezberdinetan jokatzeko. Adibidez, Sopelan bi bider errepikatu zen, baina bestela Zigoitia, Zornotza, Areta, Getxo, Mallabia, Bilbo, Oiartzun, Gasteiz, Iruñea eta azkena abenduan izango dena Bilbon. Abendukoa da Master moduko bat, zeren egiten da ranking bat eta puntuazioaren arabera Bilbon jokatu da azkeneko hori, baina guri ez digute oraindik ondo azaldu zelan den eta hori, baina beno, abendua oraindik urrun dago eta saiatu.

Hamaika neska zaudete aukeratuta eta gero bikoteak eta federazioak berak antolatzen ditu?

Bai, joaten da aldatzen eta saiatu ziren, gutxi gorabehera, behintzat behin jokatzeko desberdinekin, aurrelari bakoitzak atzelari guztiekin behin behintzat jokatzeko. Beste batzuk errepikatu egin dira, zeren, klaro, gero arazoa da udan jende askok ezin zuela, egin zen beste taula bat, baina jendeak ezin zuen eta orduan berriro aldatu egin behar izan zuten eta "honek ez du jokatu honekin eta zelan egin ahal dugu?" eta, azkenean, gutxi gorabeherako bat eta hala ere failoak egoten dira, baina beno.

Ondo, ondo. Beraz, orduan Udako Zirkuituak esango dugu zazpi hilabete irauten duela.

Bai, justu amaitzen denetik GRAVNa, gutxi gorabehera, hortik.

Eta, gustura hor? Esan nahi dut, polita ez? Txapelketa berria da zuentzat. Lehenengo edizioa izango da.

Bai eta maila polita eta, beno, giroa egoten da. Herri batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago. Adibidez, Mallabian jokatu dugu profesionalen aurretik, orduan hor giroa egiten da eta esan zuten Zigoitian, niri justu hor ez zitzaidan tokatu jokatzeari, ba ondo egon zela, jende asko egon zela.

Ondo. Beno, gero bestea da, suposatuz gutxi gorabehera zertzuk esan zenituen, pixka bat erreparatu nahi baduzu aurretik lasai hartu, e. Ea ados zauden orduan esan zenituenekin. Aztertu dugu gutxi gorabehera, edo nahi duzu pixka bat sakonago aztertzea zerbait?

Ez, nik uste dut ados nagoela. Ez dakit. Askotan esan ditudan gauzak direla uste dut. Bai. Ez dakit zer esan nuen federaziokoa eta hori zeren orain justu sartu naiz federazioan.

A, bai? Bizkaikoan?

Bai. Bizkaikoan egon da aldaketa. Orain izan dira hauteskundeak eta beste presidente bat aukeratu da. Nik eramango dut nesken pala arloa, beste batek eskuzkoa, beste batek palakoa, beste batek zesta, etab. Presidente honek nahi zuen delegatu bat egotea arlo bakoitzean eta hori.

Beno, hori nobedadea da orduan, hor ez da azaltzen. Zer da aspaldiko kontua?

Hori atzo bertan izan zen, beraz, pentsa. Ni nire buruan ikusten ditudan ideiekin saiatuko naiz zer dagoen txarto, zer hobetu ahal den eta gauza horiei buelta batzuk ematen. Ez dakit.

Adibidez, Bizkaiko federazioan orain arte ez da egon, bereziki esan nahi dut, pala eta emakumeen arloa jorratzeko atalik.

Ez eta berak hori ikusten zuen ba beti egiten zela eskuzko txapelketa hau eta hau eta hau eta ez dakit zer. Ba, klaro, neskena ba berdina edo erreminta berdina eta askotan, ba, bolumena eta dena ez dela berdina. Eta, orduan, bereizketa bat behar zela ikusten zuela berak eta beno.

Ondo, ondo, pozten naiz orduan.

Bai, ea orain lana egin behar da ondo irteteko gauza horiek denak, baina.

Ondo, asmoa behar izaten da.

Ba, horixe. Bai eta beno ba, adibidez, eskolartekoan gauza batzuk aldatu behar badira eta aritu ginen eztabaidatzen bereizketa egin behar den mutilak eta neskak edo ez edo bai. Beno, nik alde positiboa, negatiboa, dena ikusten dut apur bat eta ea, beno. Buruari eman beharko zaizkio buelta batzuk irailera arte.

Hau lau urteko kontua izango da.

Baietz suposatzen dut, beraz, aurtengoan, lehenengo urtean gutxi gorabehera eginda daude gauzak, eta aurrera eroan eta datorren urterako, hurrengo denboraldirako, aldatu ahal badira, ba.

Eta teknikari bezala edo zuzendaritza batzordeko kide bezala sartuko zara?

Ez, zuzendaritzan. Bai, teknikari, trinketeko eroaten du Pablo Fustok. Beno, baina ia nagusietan, e, eskolartekoan ez dago, klubek hartzen dute ardura hori. Gero nagusiagoetan trinketeen eta frontoian Pablo Fusto, baina bestela.

Ondo, ondo. Ba hori zen bestea, ea onartu edo baiesten zenuen esandakoa. Ez dakit, ea zerbait gehiago esango zenukeen gaiari lotuta edo zerbait bururatu zaizun esateko “ba, hau pasa zait” edo anekdotaren bat edo esan beharreko zerbait. Bestela, egia esan, oso ondo.

Ez, ba, ez dakit.

Niri galderak bukatu zaizkit. Lasai, elkarrizketa hauek estilo honetakoak izaten dira. Ba, eskerrak eman. Begiratu bat eman nahi badiozu lehen elkarrizketari lasai asko.

Ez. Bai, denak jarraitzen du berdin. Bai, dena berdin, ez da asko aldatu.

Mundua ez da asko aldatu bost hilabetetan. Beno, erabat aldatzea ere ez da komeni, e.

Ez, ez, ez gara txarto ere bizi.

Ondo. Eskerrak eman berriz eta itzali egingo dut tramankulu hau.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Janire

Elkarrizketa lotzeko eguna zehaztean igandean geratu ginen. Hala ere, lehen hitzordua bertan behera utzi genuen, urtarrilaren 29koa, bi egun lehenago, berak ezin zuela eta. Orduan zehaztu genuen 2. elkarrizketa data, otsailaren 12koa. Aste horretan ziurtatu eta erabaki genituen ordua eta lekuak

1.elkarrizketan

- Janire urduri sumatu dut hasieran eta mahaitik pilota bat hartuta harekin aritu da jolasean elkarrizketa burutu bitartean.
- Ni lasai egon naiz, baina, ez beste batzuetan bezain eroso. Bera elkarrizketak aurrera egin ahala lasaitzen joan dela esango nuke, baina, ez dut oso eroso ikusi. Hala ere, “ez dakit” behin baino gehiagotan esan dit.
- Elkarrizketako une batzuetan oso garbi ez da geratu zenbait gairen trataera. Iruditu zait sakonagoan gairen bat bazegoela, baina, ahalegindu naizen arren ez dut uste ahal beste zuku atera diodanik elkartrukari.
- Elkarrizketaren transkripzioa bidaltzekotan geratu naiz eta elkar ikusiko dugula esanez agurtu dugu elkar. Elkarrizketa amaitu eta berehala eten da gure soka ere, nik eskaini arren etxera itzultzeko hautua egin baitu.

Transkribatzean

- Galdera batzuetan ez da asko ere luzatu, baina uste dut bere ikuspegia azaldu duela.

2.elkarrizketan

- Elkarrizketa laburra eta atsegina izan da, bera eroso agertu da, nahiz eta bost hilabetetik gora igaroak diren elkarrizketa egin genuenetik.

- Denbora falta medio ez genuen hizketaldi izugarrikerik ere izan, baina pilotaz aritu ginen batez ere “off the record”, euren ibiliaz eta denboraldiaz.

Elkarrizketa data: 2012-02-29
Lekua eta ordua: JFKZF, 15.30

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Nora
Adina: 22 urte
Jaioterria: Iruñea
Bizilekua: Iruñea (aste barruan Gasteizen)
Pilota elkarte: Oberena

Oberenan egon zara beti?

Ez. Hasi nintzen Tenisean, klubean nengoen. Han hasi nintzen lehenengo bi-hiru urteak, baina, hori, beti gertatzen dena, azkenean mutilei garrantzia gehiago ematen zieten eta ikusita mundial batera joateko aukera nuela, ba, erabaki nuen Oberenara joatea, han zegoela Nekane, eta behintzat errazagoa izango nuen.

Ondo-ondo. Eta, ikasketaz?

Ba, beno, San Fermin Ikastolan ikasi nuen, Iruñean, eta gero goi mailako Gorputz Hezkuntzako modulua egin nuen Donostian eta orain IVEFen nago. Padeleko monitore titulua ere badaukat.

Padelekoa bai, eta tenisekoa ez daukazu?

Tenisekoa ez, ez dut atera. Apuntatu nintzen, baina, azterketa egunean ezin izan nintzen presentatu.

Ondo. Eta, lanbidea, momentuz, ikasle?

Bai.

Lantxoren bat ere egiten duzu.

Bai, klaseak ematen ditut. Hemen astelehenetik ostegunera teniseko klaseak ematen ditut, 3-4 urtekoei, Estadion, eta gero ostiraletan, Iruñean, badago Teknifikazio Zentroa eta han padela ematen dut. Hori Iruñean.

Eta, ya pixka bat kirolarekin hasteko, zu gogoratzen zara noiztik datorkizun gogoia kirola egiteko? Edo, noiztik egiten duzun kirola?

Txikitatik. Nik Zarautzen pasatzen ditut udak, aitona-amonen etxean, eta ni bi urterekin ia hondartzan nenbilen palarekin jolasten. Hori gurasoek esaten didate, txiki-txikia palarekin eta jolasten”. Eta gurasoek ba esan zuten “ba, beno, tenisean apuntatuko dugu” eta 3-4 urterekin tenisean hasi nintzen. Eta gurasoekin eskiatzera Candanchura joan gara betidanik, ni behintzat 3 urte nituenetik-edo. Leku guztietara joaten nintzen, baina nik ez nuen eskiatu nahi, ez zitzaidan gustatzen batere. Eta gero hasi nintzen Ikastolan futbola egiten. 6. mailara arte egon nintzen. Eta gero ya aukeratu beharra neukan tenisa edo futbola, eta futbolekin nesken artean ez zegoen deus ere eta tenisa aukeratu nuen. Gero 15 urterekin hasi nintzen padel eta palarekin.

Batera hasi zinen padelean eta pilotan?

Bai padela, pala eta tenisa egiten nituen. Tenisa utzita daukat. Gero ya 18 urterekin utzi nuen tenisa eta 18tik orain arte behintzat beti padela eta pala egiten ditut.

Eta futbolean eskolarteko mailan ibiltzen zinen?

Bai, hori da.

Eta eskian lehiatzen zinen?

Bai, nik egiten nuen free style, batxeak eta saltoak, baina, egia esan ibili nintzen txapelketan eta neska gutxi ginen eta orduan domina ateratzeko errazago, baina, ez. Txarra, txarra. Anaia bai zela ona, baina, ni txarra naiz. Baina, beno, behintzat probatu nuen.

Eta, gero, orain, padelean-eta, eta tenisean ibili zara 18 urtera arte lehiatzen?

Bai, bai, txapelketetan. Bai. Emaitza onena da Nafarroako txapelduna, azken urtean lortu nuena, ia entrenatu gabe, okerrena prestatuta, baina, gero, Espainia mailan, jendeak ya entrenatzen du egunean bi ordu eta lehenengoan edo bigarrean ya kanpora.

Eta padelean jokatzeko Espainia mailan?

Bai, Nafarroako liga edo txapelketak jokatzeko ditugu eta gero dauzkagu Espainiako txapelketak absolutuen artekoak edo klubuen artekoak. Eta gero horietaz gain ProTour Liga ere jokatzeko da, hori dela profesionalen artekoa, baina, azkenean ez du inork atera nahi. Adibidez, Nafarroan, jendeak ia badauka bere lana eta bere bizitza eta ez zaio interesatzen Espainian urtebete egitea hor. Zaila da. Eta orduan nik beti esaten dut probatuko dudala noizbait.

Ondo, ondo. Eta, palan ere 15-16 urtetik?

Bai. Trinketean hasi nintzen *Chorizo* Txapelketan, dela *Jamón Txapelketa* baina, antolatzen dutena txikientzako. Ikusi nuen jendea zebilela trinketean eta esan nuen “apuntatuko naiz” eta larruz zen eta nik “baietz, baietz” eta lagun batekin apuntatu nintzen eta gero hortik hasi nintzen entrenatzen nesken paleta argentinan. Bai, horrela.

Eta, frontoian zabilta. Ah, frontoian ez. Pilotan zabilta trinketean bakarrik?

Bai. Nik partidu bat bakarrik jolastu dut frontoian eta esan nuen gehiago ez nuela jolastuko.

Jesus!

Ez, ez, gaizki. Ni nago ohituta goiko kolpea erabiltzera eta hori frontoian ez da erabiltzen.

Hainbeste, eh?

Bai, bai, bai. Gainera, Nekane, “Nora probatu, jolastu frontoian” eta nik “ezetz, ez dudala jolastuko”. Egin nuen debuta, Mallabiako frontoian, probatu dut eta bukatu dut. Jolastu behar badut da ez dagoelako suplenterik eta bestela taldea zigortuko dutelako. Bestela... ez dut uste.

*Ondo, ondo. Orain pixka bat ia pilotaren inguruan. Esan duzu hasi zinela 15 urterekin-
edo. Galdera da ea gogoratzen zaren noiz hasi zinen, non, norekin, zergatik,...*

Hori, ni nengoen Tenisean, nik beti egin ditudan kirolak, futbola ezik, izan dira erremintakoak, eta behin *Chorizo* jolastu eta gero esan zidaten Sanz anaiek “ba, hori, badago paleta neskentzako eta probatu”. Azkenean elkartu ginen zortzi neska eta zeuden bere arreba, lagunak eta abar eta elkartu ginen ibiltzeko trinketean, Teniseko trinketean. Egiten genuen bakarra da, pilotari jo, sakea egin eta kito. Lehenengo urtean zegoen pilota denbora guztian atzean eta horrela hasi ginen. Hasieran nahiko talde polita egin genuen, nahiz eta gazteenak izan. Baginen Nafarroako Txapelketan lau bikote-edo, baina, gero batak ez dakit zer, ezin zuela, bestea ezkondu zela, besteak lesioa eta azkenean deus ez. Eta gero egin nuen ere Iruñeko mundialerako anuntzioa.

Ah, bai? Hori ez nekien nik.

Bai, Eiderren malaostia ... kar, kar. Ni ibiltzen nintzen Tenisean eta txapelketan esan zidaten Iruñeko mundialeko iragarkirako behar zutela neska bat iragarkia grabatzeko. Eta, “ah, bale, eta zer egin behar da?” eta “zu atera gona txuriarekin eta erraketarekin eta grabatu”. Hori egiteko milaka buelta, azkenean egin nituen eta “benga, ba, lau aldiz pilotari eman erraketarekin, palarekin eta ya”. Nik, gainera, 12 urte nituen eta 2002an, ba, nik ez nekien ezta existitzen zela nesken modalitatea, ez nintzen ezta ikustera ere joan. Eta, beno, ondo. Gero, Eiderrek-eta jakin zutenean nik egin nuela bideoa esan didate, e, ea non nenbilen.

Eta, bakarren batek izan zuen eragina zuk esateko “ba ni pilotan hasiko naiz”. Aitak, amak, anaiak, lagunak, zure bikoteak, zuk zeuk... Ez dakit.

Guk pilota beti jarraitu dugu etxean nahiz eta txapelketan ez parte hartu 15 urtera arte. Beti gustatu zaigu. Nahiz eta ez aritu jolasten beti gustatu zaigu pilota, ikastolan ere jolasten genuen, palan hondartzan, lagunekin, baina, telebistaz eta, ez dakit, entrenatzeko ere kirol bezala polita da eta gero ya, ba, hasten zara enteratzen txapelketa, azkenean, mundiala eta pentsatzen duzu “nik tenisarekin ez dut ezer egingo eta behintzat pilotan ez dakit joango naizen mundialera, baina, behintzat aukera badaukat eta badakit aurrekoak ibili direla mundialetan”. Orduan, nola gustatzen zitzaidan, ba, aurrera, ba, benga!

Ondo, ondo. Eta, zergatik jarraitzen duzu? Arrazoiren bat egongo da.

Zergatik? Bai, ba polita da. Niri asko gustatzen zait goma argentina. Orokorrean, pilota modalitate guztiak politikak dira eta jolasterakoan ere dibertigarria da, iristen zara, jolasten duzu eta egiten duzu kirola eta gero, mundialetan parte hartzeko aukera hori ere, ba, ez dakit, iruditzen zait pizgarria. Ez dakit, ni motibatzen nau. Behintzat, ez dakit, gustatzen zait txapelketetan parte hartzea eta nik uste horregatik dela. Ez dakit.

Eta, hasi zinenetik ez duzu utzi. Ez duzu izan etenaldirik?

Ez, momentuz ez, oraindik urte sabatikorik ez da iritsi. Azkenaldi honetan esaten dut agian 25 urterekin iritsiko dela, beraz, 3 urte gelditzen zaizkit.

Eta, zer iritzi daukate zure ingurukoek, familiakoek, lagunek, etab. zu pilotan ibiltzearen inguruan?

Ah, ondo. Egia esan, beti kirola egitean eta ... Lagunek bai esaten zidaten juergan ateratzen ginenean “joe, Nora, txapelketak, ez dakit zer” eta agian ni ez nintzen irteten partidua neukalako, baina, egiten nituen gustatzen zitzaidalako, ze bestela, esaten duzu “juerga eta fuera”. Gero ere izan dut oparia edo, egon nintzela Nafarroako selekzioarekin Kuban, egon nintzela Argentinan eta orain buelta eman du tortillak eta lagunek esaten didate “joe, jakin izan banu, pala, ez dakit zer”, baina, behintzat, beti animatu izan naute egitera eta denak ondo. Beti animatu izan naute kirola egitera, orokorrean, bai tenisean, bai pilotan... dena.

Eta nolako eragina dute zure jarduera horretan? Nolako jarrera eduki dute?

Ona edo txarra? Ona, beti ondo. Momentu txarrena, igual, etxean, agian, ez nintzen oso ona ikasketetan eta notak iristen zirenean esaten zidaten “kirolarentzako dena eta ikasketetarako gutxi”. Orduan zen momentu bakarra agian zerbait esaten zidatena, “zigortuta zaude entrenatzera joan gabe” azkenean. Baina, bestela, beti ondo. Orain IVEFen nago kirola gustatzen zaidalako eta hori nahi dudalako. Beti ondo.

Eta, zuk gizartearen presiorik sumatzen duzu emakumea eta pilotaria izateagatik? Jendearen presioa edo?

Nik uste dut gure adinekoak-eta ia horrelako gauzetan ez direla sartzen, baina bai egia dela aurten Nafarroako Txapelketan mutilekin jolastu dugu Nekane eta biok Munduko Kopa prestatzeko eta bai egia dela kostatzen zaiela mutilei, beno, batzuei ez, e, nesken kontra galtzea, baina, batzuk begirada eta suertea daukagula beti, tanto egiten dugun bakoitzean, eta... Aitzakiak. Ez dakit, betikoa. Azkenean edade bat daukate eta neskek irabaztea kostatzen zaie, baina, bestela ez. Nik, adibidez, padelean parte hartzen dut txapelketetan eta sariak eta dena mutilentzat eta neskentzat berdinak dira. Hor ez dago ezberdintasunik. Zentzu horretan, pilotan, bada, betikoa. Behar bazaituzte, ba, nik uste presioa sartu eta nahi badute zure domina, ba, orduan bai, baina, bestela nik uste lasai asko joan zaitezkeela buelta bat ematera trinketetik.

Eta, gero, ikusleen aldetik?

Uf, ikusleen aldetik jende asko ez da joaten partiduak ikustera. Azken aldi honetan joaten dira, adibidez, familia, lagunak,... nesken finalak daude eta ondo. Beste batzuk, adibidez, esaten dute nesken goma dela interesgarriagoa mutiletan baino, baina, arazoa neska izateagatik ez. Agian beste batek 40 urterekin bai, baina, nik behintzat ez.

Hurrengo galdera da ea nola ikusten den emakumeen pilota jendartean. Nola ikusten dira emakume pilotariak? Horrekin lotuta, nahi baduzu, ea nolako tratua jaso duzun zuk jardueran zehar.

Nik hitz egiten dudanean lagunekin-eta pilotan eta palan eta beti ikusten dute pilota bakarrik dela eskupilota eta, orduan, klaro, neska hor sartzea eskupilotan, ba, ez dute..., ba hori, ez dakitela zer modalitate dauden, baina, bestela, ondo. Ni ibiltzen naizenean trinketean edo lagunekin palan eta, nik uste dut, azkenean, probatu arte ez dutela jakiten. Ikusi eta probatu arte. Hartzen dute pala eta bi aldiz jarraian ez diote ematen, baina, behintzat ikusi.

Eta, bestela, orokorrean, gizartea maila zabalagoan hartuta, nola ikusten da emakumeen pilota? Ikusten da? Badakite badagoela?

Ikusi? Egia esaten badizut ezagutzen duten bakarra eta ezagutzen badute da eskupilota. Eta bestela frontenisean ibiltzen direlako edo palan, baina, klaro, azkenean ezagutzen den bakarra da telebistan botatzen dutena, eskupilota eta orain bertan erremontea, gutxi, baina, beno, eta gu ya gaude... Jendeak uste du, gainera, bakarrik dagoela Euskal Herrian, ez dakite Amerikan jolasten dela edo frontoi bat dagoela Txinan. Orduan, bai, ba, azkenean esan dezakegu ezagutzen duela Euskal Herriko jendeak zeren eta kanpokoak ez.

Euskal Herriko jende guztiak daki? Bestela, harritu egingo nindukezu.

Keba, agian ezagunen batek, baina, keba. Dena bezala, zerk saltzen du? Futbolak, saskibaloiak eta azkenean saltzen duenak eta azaltzen denak telebistan eta egunkarietan da azkenean jendeak dakiena. Edo horrelako albisteren bat agertzen denean txikian, bestela...

Eta, zuk nolako harremanak dituzu beste pilotariekin? Nola moldatzen zarete elkarrekin?

Ondo. Bai. Azkenean batzuekin ondo kanpoan, beste batzuekin barruan eta besteetan normal. Badaude harreman onak eta hobeak. Nire aldetik behintzat ez dago arazorik, ez dugu rollo txarrik. Eta, gainera, klubean edo lehengo urtean selekzioan, Pauen, mundialeko finala irabazi ondoren, Paula, Nekane eta Amaiarekin gero joan ginen Karibera. Beraz, oso oso gaizki... Ez, oso ondo, oso ondo. Orokorrean, ondo.

Eta, harremana mantentzen duzue?

Bai, bai, bai. Azkenean, zure lagunekin planak dituzu eta haiekin astero elkartuko zara eta besteekin ez zara astero egongo. Agian txapelketetan aritzen bazara bai, baina, elkartzen zarenean oso ondo dago, eta ondo. Alde horretatik uste dut dela selekzioko hoberena. Behintzat, elkartzea eta giroa.

Orain, espektatiba edo helburuetan sartuz, zu hasi zinenean zenituenak eta oraingoak agian aldatu egingo ziren. Beno, zuk esango didazu: zein helburu-espektatiba dituzu pilota munduan?

Ni, hasi nintzenean, 15 urterekin, hasieran zen jolastu eta ondo pasa, azkenean. Ez neukan beste helbururik. Gero, trinketean hasi nintzen txapelketan parte hartzen eta hor pentsatzen nuen ba, lehenengo irabaztea eta, klaro, nire helburua zen Nafarroako Txapelketa irabaztea eta *Jamón*. Nik banekien mundialak zeudela, baina, keba, keba, ez nuen buruan eta pentsatzen nuen “nola jokatuko dut mundial bat? Keba, keba”. Justu

izan zen orain zortzi edo bederatzi urte, justu ni hasi nintzen urtean. Esan zidaten “entrenatzen baduzu eta egon nahi baduzu selekzioan, saiatu behintzat entrenatzen” eta “keba, keba”. Hasi nintzen entrenatzen eta... Orain bai, ya behin sartuta, ba, helburua, ba bai, Iruñean denez Munduko Kopa behintzat gustatuko litzaidake selekzioan egotea. Hor egon eta joaten banaiz ondo, baina, lehenengo selekzioan egon. Hori da pauso bat gehiago. Eta behin egonda, ba, orduan, irabaztea, baina... Eta ni egon gabe ere haiek irabaztea. Ahal bada egon eta irabazi eta ez banago ba haiek irabaz dezatela. Bi gauzak.

Momentu honetan zer asmo daukazu?

Momentu honetan Munduko Kopa. Azkenean urtea luzea da eta lesioak urrun geratzea. Ez lesionatzea. Eta, gero, ba hori, Munduko Kopa, Mundiala eta hor egotea ona da. Gaztea naiz eta mundialak lau urtetik behin dira, baina, beti aldatzen dute. Beraz, ahal dudan heinean aprobeztatzea.

Hurrengo galdera erantzuteko medikuen bata zuria jantziko dugu, diagnostikoa egiteko. Zuk nolako osasuna ikusten diozu emakumeen pilotari?

Zer, momentuko egoera?

Bai, momentukoa, aurrekoa, etab. Zuk ezagutzen duzuna.

Nik ez dakit zenbat esan dezakedan, esango dizut nik ezagutzen dudana, baina, bai, nik uste dut igo egin dela. Gipuzkoan badaikit Emakumea Pilotari dagoela eta horrekin badaudela neska pila bat. Eta, gu ere, Nafarroan, gutxinaka, han ere ateratzen goaz neskak. Ni hasi nintzen oso gutxi ginen, ni trinketean nengoen, eta orain, aldiz, badago eskola, badago jendea, badaude klubak. Nik uste orain, horrela segiz gero, alde horretatik, azkenean Gipuzkoan ondo ari zaretela lanean, behintzat niri esaten didatenaren arabera, eta ondo dagoela. Nafarroan, Nekane egiten duen papera ere, “papelón”, eta ateratzen direla neskak. Momentu honetan egiten du guztia. Ni iaz ibili nintzen Oberenako eskolan, Edit eta Nekanekin, frontoian eta trinketean. Eta orain ere segitzen dute eta gutxinaka neska gehiago gaude. Neskek uste dute pilota mutilen kirola dela, hori da bizi dutena, baina, azkenean da ikusten duzuna. Ez da ikusten palan. Larruzkoan bakarrik ibiltzen dira mutilak, telebistan bakarrik mutilak daude, leku guztietan agertzen dira. Eta Gipuzkoan egiten ari diren lanarekin eta, ba, neska gehiago agertzen dira, pixka bat ikusten da. Nik uste dut hori dela modua.

Eta, hobetzeko bidea ikusten diozu? Nola hobetuko zenuke?

Bai, bai, bai. Nik uste dut horrela segi dezan azkenean behar dena dela laguntza, asko ere dirua da. Eskola eramatea, materiala, jendea edukitzea,... Gainera, nahiz eta pertsona bat egon hor, azkenean lortzen badugu diru gehiago egotea eta behintzat prestatzaile bat egotea, ba, kirol normal batean dagoen bezala, ba, fisioa,... horra iristea. Izatea, azkenean, kirol kirola. Azkenean hemen nik uste diru laguntzak inportanteak direla, zeren eta nahiz eta dirua egon beste batek hartzen badu... Nik uste material aldetik ere, gauzak eta elkartrukeak egiteko eta horrelako gauzak egiteko behar dela. Beno, hori da nire asmoa.

Ondo, hasteko asmoa behar da. Orain galdera filosofikoago bat. Lasa, erantzun. Orain arte denek erantzun dute. Zergatik uste duzu aukeratzen duela neska batek pilota, edo uzten duela, edo ez duela aukeratzen?

Uf.

Nora hark ere 15 urterekin esan zuen “ni pilotan hasiko naiz”.

Nik uste azkenean mentalitate kontu bat dela. Ea ba, nik esango dut gaur egun ikusten dudana, e. Nik uste dut herrietan eta ere pilota izan dela lehenengo kirola, futbola eta pilota. Orain neska eta mutilen artean elkartzea eta jolastea ez da arraroa, lehen ez dakit nola izango zen, baina, orain denak nahastuta daude. Orduan, daude asko dabiltzanak eskupilotan eta gero, agian, pilotan jarraitu nahi badute ba orduan palarekin jarraitu behar dute, eskuz ezin dute jarraitu. Benetan gustatzen bazaizu pilota, edo pala, edo mundu guzti hau, nik uste dut segitzen duzula. Pilotan, gainera, giroa ona da, sana da frontoiaren barruan, oso sana da eta ondo pasatzen dute. Gero, gainera, ondo pasatzea txapelketan parte hartzeko oinarria da. Agian beste kirol batzuek eskatzen dute askoz gehiago, edo parte hartzeko behintzat topera ibili behar zara entrenatzen, baina, hemen, nahi baduzu honaino iritsi ahalegindu beharko zara, baina, behintzat, ondo pasatzeko aukera daukazu.

Eta, zergatik uste duzu uzten duela, adibidez? Pentsatzen dut zuri tokatuko zitzaizula jendeak uztea, zurekin hasiko ziren batzuk esango zutela, kitto.

Bai. Bai, nire kasuan urte batzuetan ni gazteena nintzen eta besteak ziren 30 urtekoak, 37, besteak 24... Bazeukaten beren lana, orduan, familia, lesioak, mila gauza. Baina, gaztetan hasten direnean, nesken arazoa, pilotan eta kirol askotan da “la edad del pavo” esaten dena, dela “juerga, mutilak, neskak eta kirola zertarako?”. Eta hori ikusten da kirol guztietan, padelean eta pilotan ikusten da eta, agian orain gutxiago, baina, oraindik jendeak uzten du. Eta uste dut horregatik izango dela. Agian batzuk izango dira ez zaienak gustatzen eta izango dutenak beste arrazoiren bat, baina, nik normalean ikusten badut gurasoek behartzen dituztela zerbaitetara, ba, beno, bai, bale, egin behar dut zerbait kirola egin behar dudalako, baina nik uste dut pilotan sartzen dena dela gustatzen zaiolako eta ez dela “behartuta zaude pilotara joatera”. Nik uste dut mutilen kasuan txikitan agian bai, baina, nesken kasuan ez dela horrela, nesken kasuan, behintzat, ez dela horregatik.

Zergatik uste duzu ez dutela aukeratzen beste batzuk?

Batzuk ikusten dute pilota, ba hori, mutilen kirola bezala eta pixka bat “bestia” izan behar dela, “marimutila” edo horrelako zerbait. Zergatik? Nik uste dut askotan ez badute aukeratzen dela ez dutelako ezagutzen edo ez dutelako probatu. Nik beti esaten dut “animatu eta jolastu” eta klasekoekin beraiekin aurten egon gara jolasten eta “oh, qué guay”. Ba orain arte ez zeukaten probatuta eta gustatu zaie. Behin probatuz gero jende gutxi dago esaten duena “uf, ez, hau ez da niretzat”. Behintzat gomarekin, behintzat, dela pixka bat arinagoa. Denetarik dago. Badago jendea erremintaz paso egiten duena, futbola edo gimnasia edo... ez dakit.

Oso ondo. Eta nola uste duzu bultzatu beharko liratekeela neska edo emakume horiek, pilota mundura?

Nik pentsatzen dut adin horretan uzten dutenak ez dela pilotagatik, dela psikologikoki.

Adin hori aparte utzita, orokorrean.

Ah, orokorrean? Nik uste dut gustatzen bazaie bueltatuko direla. Gero, emakumeak, adibidez, ba, hori, bai bultzatuko nukeela eskolarteko adinean eskoletan. Azkenean, Iruñean, adibidez, Nafarroan, klubak pribatuak dira, beno, publikoak ere badaude, baina, hemen dauden nesken denak dira zentro pribatuak eta han badituzte beren eskolak. Azkenean, Iruñean, hasten direnean, eskolarteko adinean, eskolaz kanpokoetan eta, eskolek badituzte futbola, pilota, eta abar, eta hor hasten dira eta gero ematen dute saltoa klubera. Horregatik, eskoletan, ikastola barruan, egin beharko litzateke nesken artean pala landu eta gero ya saltoa eman dezatela. Hori, behintzat, eskolartekoetan.

30, 40, 50 edo 25 urteko bati zer esango diozu eskolaz? Nahi du edo ez du nahi. Nik uste dut adin horretan, txikitan, behintzat, ezagutu dezatela.

Lehen aipatu duzu zerbait, baina, azkenean emakumea eta pilotaren inguruan eragile pila batek eragiten dutela. Galdetu nahi dizut ea zer iritzi duzun hainbat arloz. Adibidez, hedabideek daukaten jarreraz. Bai prentsa idatzia dela, telebista, irratiak, etab. Ea laguntzen duten, nola, zer iritzi daukazun.

Zer edo zer agertzen bada aldizkarietan edo egunkarietan da gutako norbaitek bidalita eta “aizu, hau jokatuko da” eta “ah, bale, bale, nik jarriko dizut”. Egia da batzuk beste batzuk baino gehiago egiten dutela. Adibidez, “manista” uste dut dela eta bai apur bat gehiago agertzen dela. Nik ez dut asko ezagutzen, baina. Gero, egunkarian, bai, azkenean agertzen da mundiala dagoenean edo Munduko Kopan, baina, bitartean ezer gutxi, jartzen dute kartelera, emaitzak eta gero... Baina, beno, hori azkenean da, ez dakit noren errua den edo zer den. Azkenean, federazioek beraiek antolatzen dituzte txapelketak eta beraiek ikusten dute zer jartzen duten.

Baina, beno, ni, egia esan, pertsonalki, ez naiz kexatzen. Nire izenean, Nora bezala. Nik ezagutzen dut Noticias-ekoa, bestea, eta batzuetan egin didate elkarrizketa, pixka bat sustatzeko edo ea hortik zerbait ateratzen dugun. Irratian, etab. Gutxi, e, niri gainera ez zait gustatzen, horretarako Nekane dago. Sariak jasotzeko ere bai. Adibidez, iaz eman zioten Nafarroako kirolari onenaren saria eta esaten duzu “ba, behintzat”. Azkenean, zer ikusten da? Zerk saltzen du? Eskupilotak. Zerk saltzen du Irujo eta Titinen arteko partidak ala Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko partidak? Gero, txapelketaren arabera agertzen da gehiago edo gutxiago. Munduko Kopa Iruñean izatean suposatzen dut gehiago agertuko dela, komeni zaielako.

Eta, erakundeenaz? Nafarroako Gobernua, udalak, pilota federazioak,...

Nik hortaz gutxi dakit, baina, dakidan bakarra da Nafarroako Pilota Federazioa uste dut dela federazioen artean Nafarroan diru laguntza gehien jasotzen dituen, hori esaten delako padelean. Eta, “beno, beno, bale, ez dakit, ez dakit”, baina, izango da fitxen arabera. Gero ya diru laguntzak ez dakit nola ematen diren, klubak edo emaitzen arabera. Nik, adibidez, pasa den mundialean, hor adibidez, Indurain Fundazioak, dela Nafarroan kiroleko bekak banatzen dituen, ematen du “hainbeste diru hauentzako” eta hor suposatzen da emaitzen arabera ematen duela dirua. Nik esango dizut Paueko

Mundialetik etorri eta gero laguntza izan zela, ez dakit iritsi zen, 400€ uste dut izan zirela eta gainera ez dakit Indurain Fundaziokoa izan zen. Nire anaia, berriz, Espainiako bigarrena eta 3000€. Orduan, badaude laguntzak, bai, badaude, baina, nola ematen den bakoitzak jakingo du nola egiten duen. Ez dakidanik ez dizut esango, baina, beno, Nekane behin edo esan dit bere anaia Nafarroako txapeldun izanda pilotan eta bera mundialean eta laguntza gehiago jaso duela anaiak.

Diru laguntzez aparte laguntzen dute udalek, adibidez, instalazioekin? Edo Federazioak.

Batzuk bai. Mendillorriko trinketa, adibidez, publikoa da eta hor Nafarroako selekzioak entrenatzen du pilotan. Ez dakit nola den, hori ez dakit. Gero, adibidez, Dominguez anaiek haur pila bat eramaten dituzte eta Lopez frontoia eta horrelakoak, publikoak direnak. Han badaude, baina, ez dakidana da udalekoek laguntzen duten edo ez duten laguntzen, hori ya ez dakit.

Eragileetan beste bat daukat jarrita pilotako klubak beraiek. Laguntzarik ematen dute?

Haiek laguntzak ez dakit nola jasotzen dituzten, ez dakit emaitzen arabera edo nola jasotzen dituzten.

Diru laguntzak baino gehiago esan nahi dut, ba, zuk partidu bat daukazunean edo entrenamendu ordu bat behar duzunean. Motxila bat behar duzunean palak gordetzeko hori ere bai, igual, ez dakit.

Hori bai. Bai, bai, kar, kar. Ni Tenisean egon nintzenean, adibidez, bai genituela entrenamenduak dohainik, ordutegia neskontzat entrenatzeko, hor atzean zer laguntza dagoen zalantzan jartzen dut. Trinketa bai bageneukan. Aparte, klub pribatuak dira eta orduan behin zu sozia izanda doan trinketean ibiltzeko aukera duzu. Gero, eskolarako badaukazu ordua, baina, normalean ordu onena ez digute uzten guri. Adibidez, orain Oberenan bai, zazpietan badago eta horrelako ordu bat behintzat badago. Astearteetan uste dut neskek entrenatzen dutela. Alde horretatik ere laguntzen dute, materiala ematen, batzuetan ordaindu behar da eta besteetan ez, txandalagatik agian zerbait ordaindu behar da edo fitxagatik zerbait. Askotan gertatzen da neskak daude, “bai, bai, entrenatu, baina, ordutegia da hiruretan”. Orduan, arratsaldeko zazpietan oso zaila da. Orduan, ez dakit laguntza zenbaterainokoa den, benetako laguntza den.

Laugarrena da pilotariak. Suposatzen dut pilotarien artean ere ezagutuko zenuela jarrera ezberdineko jendea.

Azkenean bakoitza agertzen da den moduan. Batzuk joango dira eta gero gelditu egingo dira, adibidez, badaude batzuk: Nekane, Amaia... Ez dakit, niri gustatzen zait hara joan, jolastu eta ahal badut besteak ikusi, mutilak edo txikiak. Jolastu eta gero elkarrekin zerbait hartzera joan, pintxo bat edo Coca-Cola bat, eta gero behintzat egotea eta ez joatea zuzenean etxera. Pilotan nik uste dut gehienak horrelakoak direla. Badaude batzuk lanetik zuzenean jolastera, zortzietan beste leku batera jolastera eta horrela dabiltzanak.

Padelean, adibidez, adibide bat jartzearen, nik jolastu ditut txapelketak eta badago bikote bat egiten duena iritsi, partidua jolastu, dutxatu eta joan. Orduan, zer pasatzen

da? Iristen denean finala, gehienetan elkarren aurka jolasten dugu, ez dakit gure alde den edo besteen aurka, baina, behintzat kontaktu bat, hori da “zer moduz?” edo “ondo jolasten duzu, e?”. Hauek, ba, da iritsi, jolastu eta joan. Orduan, badago momentu bat, ba, adibidez, azken finalean, ba, lotsagarria jendearen aldetik. Gu animatzen eta hauei txistuka. Azkenean, horrek ere esaten du. Bakoitzak ikusiko du nolakoa den, baina, uste dut horrelako kirolean, hain gutxi izanda, zerbait egin behar dela. Beti esaten dudana, denekin ezin zara ondo konpondu eta beti ezin duzu, baina, bai behintzat interesa agertu, nik ez dut egingo zerbait interesatzen ez bazait, batzuentzat izaten da behartuta zaudelako.

Eta, bosgarrena, lehen hasi zara pixka bat, ikusleen inguruko jarrera. Joaten diren horiena, joaten ez diren horiena...

Bai, ondo. Adibidez, ni nenbilenean Tenisean Jamón Txapelketan, izaten zen neskek beti lehenengoa, gero 2. mailakoa eta gero 1. mailakoa, han egoten dela jende guztia. Eta batzuk esan zuten nahiago zutela nesken pala mutilena baino, edo 2.a bai behintzat, uste dut dela 2. mailakoa. Egia da gurea dela lehenengoa, baina gehienak ez dira joaten. Orduan, alde horretatik, esaten duzu “joe, nesken partiduetan beti ordu txarrena, ba joaten baldin badira gero ia geratuko dira besteak ikusten”. Horrela problemak ez dituz izan, nik problema handiena izan nuen mundialean Argentinan eta hori da daudelako eroak. Han direlako ezberdinak. Han guztia ezberdina da eta gainera Argentinaren aurka ari ginen.

Eta, ikusle horiek, familiakoek, ezagunek, lagunek, daukaten iritzia?

Familiakoak oso ondo. Beno, beti ondo. Pasatu gabe mozteko garaian, baina, ondo, esatea gustatu zaien edo. Kritikak aurpegira behintzat ez dizkidate esan. Ez kritikak esanez “gaizki jolastu duzu”, e, hori askotan. Bai, bai edo “a zer ezkerra daukazun”, nire ezkerrarekin sartzea eta horrelakoak bai, baina, neska izan eta pala egiteagatik ez. “Gaur partidu ona” edo “partidu txarra”, hori bai, baina, hori normala da. Horrela kritikatzeari ez.

Esan duzu Nafarroako Txapelketan ibili zaretela. Asko joaten dira ikustera?

Asko, asko ez. Beno, familia handia badaukazu, bai, kar, kar. Baina, beno, bagoaz. Aurrekoan nesken arteko Nafarroako 2. mailako finala ikusten izan nintzen eta bazegoen jendea. Pixka bat begiratu behar da kartelera eta baldin badaukazu larruzko finala eta pixka bat antolatzen baduzu, edo edozein partidu jendea joango dena, orduan ba bai joaten da eta nesken txapelketak ba, hor daude. Baina, bai, ondo, gutxika-gutxika egin behar den lana da.

Lehen hasi zara esaten kulturak eragina duela, herrietan, adibidez, askotan futbola eta pilota bakarrik daudela, eta galdera zuzenean egingo dizut. Hiri batean edo herrian jaiotzeak eragin al dezake pilota aukeratzeko garaian?

Nik uste dut dudarik gabe baietz, zeren eta hemen eskola guztietan frontoia daukate. Azkenean, pilota ez dizut esango hemen Nafarroako kirola denik, baina, bai, eragin handia duela. Esan dizut eskola guztietan frontoia dago, orduan, handik edo hemendik beti han ibiltzen gara. Orduan, eragina badu.

Adibidez, hartu Iruñea edo Donostia eta hartu Lizartza. Bi muturrak jarri dizkizut.

Bai, bai. Azkenean, Lizartzan mundu guztia pilotan ibili da, denak. Hirian, lehenengo, ba, esan dudan bezala eskoletan badaukate aukera jolasteko, baina, gero arratsaldeetan frontoiak gutxi dira publikoak direnak eta libre daudenak eta, beno. Orduan, eskolan bai, baina, libre egiteko zaila da. Futbolean ibiltzeko belarretan jarri bi porteria eta badaukazu aukera ibiltzeko, baina, behintzat pilotan aritzeko pareta bat behar duzu, bai, pareta bat behar duzu eta pareta aurkitzeko ezin zara kalean ibili. Orduan, herrietan pilotariak ateratzea nik uste dut errazagoa dela. Gainera, ikusita gaurko profesionalak gehienak herrietakoak dira, edo behintzat, nahiz eta hirian bizi herri bat behintzat badute. Nik uste zentzu horretan ia denak herrikoak direla, ez dela nire kasua, nitaz aparte, errazagoa dela.

Iruditzen zaizu jaioterriak eragin dezakeela. Horrez gain, kulturak ere eragin al dezake? Zuk esan duzu Nafarroako kirola, agian, ez da, baina, askotan entzuten da Euskal Herriko kirola dela, gure kirola.

Bai, bai, eta, gainera, Euskal Herritik kanpora ateratzen bagara... Hemen, gehiago edo gutxiago, eta nibel handiagoarekin edo ez, baina Euskal Herrian pilotan ibiltzen da. Kultura da. Joaten bazara Aragoira, Errioxan oraindik ibiltzen da, baina, Aragoian, dagoela ondoan, pila bat jaisten da. Bai, ibiliko dira frontenisean eta horrela, baina, pila bat jaisten da eta hegoalderago joaten bazara are eta gutxiago. Orduan, azkenean, kulturala da, zeren eta denak, familian, edo ezagunak, norbait beti ibili da pilotan. Gero bakoitzak izango ditu bere gustukoak, frontenisa, adibidez, baina, orokorrean, horrela hartuta, eta nesken artean, behintzat, nik uste dut asko dela kulturarena.

Eta, zuk uste duzu zure kasuan eraginik izan duela? Ez dauka zertan, e.

Agian nirean justu ez, agian arraroa naiz, e, esan nahi dut gainontzekoekin konparatuz. Nik esaten dut, bai, ikastolan bai, baina, familian eta inguruan horrela, behintzat txapelketetan parte hartzen eta ez dut inor izan. Orduan, ez dakit, ni, adibidez, tenisetik etorrira, ba, nire kasuan erremintan jolastea eta hori bai, horregatik hasi nintzen. Agian telebistaz ikusita bai, baina, beno.

Eta hirugarrena da ea ikasketa mailak eragin izan dezakeen.

Orokorrean hartuta?

Adibidez, guraso batek, imajinatu, zu ama zara eta zure seme-alabei eragiteko moduan.

Nire seme-alabak lehen urteetan tenisean ibiliko dira, kar, kar. Ez, bai, ba, azken finean, zer gertatzen da? Zure seme-alabek egiten dutela zuri gustatzen zaizun kirola. Hala da. Nik ez ditut eramango pinua egitera edo gimnastika egitera niri ez bazait gustatzen, haiekin pasako dudalako denbora. Haiek eskatzen badidate noski, bai, baina, hasiera batean beraiekin zaudenean, ume mokoak direnean, azkenean zer egiten duzu? Gustatzen zaizuna, ni eskiatzera joaten nintzen gurasoekin zen, azkenean, haiei gustatzen zitzaielako. Gero nik ya aukeratzen dut “ez naiz joango”, baina, noski azkenean baloreak transmititzen direla. Gero, azkenean esango diezu ez zaizula gustatzen, baina, ume mukiak direnean bai.

Azken zatira iritsi gara, entrenamendu eta lehiaketara. Ea zer iruditzen zaizkizun lehiaketa sistemak. Batzuk jokatzen dituzue, adibidez, zuk esan duzu mutilen kontra. Beste batzuk suposatzen dut jokatuko dituzuela elkartearen izenean, beste batean, adibidez, Kutxa Sarian jokatuko duzue antolakuntzak egindako bikoteen arabera,...

Ondo dago. Azkenean, horrelako gauzak ondo daude, zeren, azkenean, argi dago beti jokatzen baduzu pertsona berdinarekin, nik esaten dut konfiantza nazkagarria dela. Bai, zeren nahiz eta oso gustura egon, beste pertsona batekin lortzen duzun konfiantza ondo dago, zeren eta, adibidez, Nekane dauka jokatzeke bere modua eta nik nirea, bakoitzak egiten du berea. Niri denen artean jokatzea eta, hori eskertzen duzu. Gainera, batekin irten behar zara gehiago bi paretan, bestearekin sartu eta horrek ere laguntzen dizu. Pertsonalki eta denentzat laguntzen du, zuk ere ikasteko. Azkenean, nik baldin badaukat Nekane atzean, dela dena aurrera eramaten duena, ba, geratzen banaiz bi paretetan berdina egingo dut. Azkenean agian partidak irabaziko ditut, baina, ez nau beteko. Agian jolasten baduzu 2. mailako batekin edo maila baxuagoko batekin gehiago ikasiko duzu. Orduan, horrelako aldaketak, bikoteen aldaketak, ondo daude eta horrela gainera balio pixka bat partidu politagoak ateratzeko ere hobeto. Azkenean, horrek balio dizu atzetik datozenei laguntzeko. Ni, adibidez, Argentinan 22 azpiko mundialean egon nintzenean, ba, Naroa bat edo laguntzeko pausoak ematen, ba, ondo dago. Horrelakoak laguntzeko pausoak ematen. Niretzako inportantea da nahi badugu honek jarraitzea. Egiten badugu edo egiten badute bakarrik birekin, azkenean, atzekoak etorriko dira bai, baina, ez dute lekurik izango. Azkenean, adibidez, Nekane lan handia egiten du.

Horrez gain suposatzen dut klubarekin ere jokatuko duzuela.

Bai. Azkenean nesken gomazkoan jokatzen da klubaren arabera, baldin bada Nafarroako Txapelketa edo Espainiakoa, edo Euskal Liga. Gero, federazioen artekoan GRAVN, gero Espainiarekin Munduko Kopa edo Munduko Txapelketa eta gero Kutxan banaka, dela berria. Eta uste dut horrela dela.

Denak gustatzen zaizkizu? Aldatzeko sistema hori?

Bai, bai, bai. Ondo dago, zeren agian goizean ari zara batekin jolasten bikotean eta arratsaldean kontra. Ez da futbola bezala, dela talde kirola, azken finean behar duzula ez dakit zein pasea egiteko. Horrela ondo dago.

Gustatzen zaizu lehiaketa sistemak aldatzea?

Bai, bai, bai, bai, horrelakoak baldin badira bai. Horrela, arlo horretan behintzat ondo.

Eta, bestela, larunbatetan jokatzea eta?

Hori ondo dago. Bai, nik nahiago dut larunbatetan jolastu eta igandeetan libre izan, eta horrela Osasuna edo egiteko nahi duzuna, baina, azkenean, hor sartzen bazara badakizu zer daukazun. Hau da, txapelketak jolastu eta lotura bat. Batzuetan gogoia daukazu zerbait egiteko eta ezin duzu, baina, ia helduak gara erabakitzeke zer nahi dugun. “Ba, txapelketa honetan ez dut parte hartuko zeren eta oportetara noa”.

Hori zen lehiaketari zegokiona. Adibidez, entrenamenduen inguruan? Nola antolatzen dituzue, edo zenituzten?

Nik entrenamenduak gogoratzen dut ni Tenisean hasi nintzenean ba, egiten genuen denok elkarrekin. Gero ya hasi nintzen Nafarroako selekzioarekin eta han bai talde murriztua zen, azkenean Nekane esaten zuen zirela Nafarroako hoberenak eta ezberdina zen. Azkenean daukazu klubeko entrenatzailea eta gero selekziokoa. Nekane zen, Nekane eta Rebeka, eta ondo zegoen, aldatzen zenuen orain hauekin eta gero haiekin, eta orain, ba, ez dakit nola dagoen egia esan, zeren hemen nago azken bolada honetan. Baina, ondo, berdintsu jarraitzen du. Oberena da gure kluba eta entrenatzen dutenek 24-27 urte dituzte, 25, eta orduan Nekane ahal badu azaltzen da, baina, bestela, ez bada iristen, euren artean ere moldatzen dira. Haurrekin bai behar duzula jendea taldean, baina gure adinarekin ez dut uste.

Eta, entrenamenduak zer izaten dira? Partiduak, ariketak? Edo, zer izan dira orain arte?

Denetarik egon da. Normalean, selekzioan eta, beroketa da kristalaren kontra piloteoan, banaka, eta gero, ba, segun, egiten genuen batzuetan teknika. Teknika egiten genuen, leku batzuetan gehiago beste batzuetan gutxiago eta gero partiduak. Azkenean partiduak jolastea ondo dago taktika edo lantzeko.

Lehiaketak eta entrenamenduak aipatu ditugu eta hirugarrena da ea zer iruditzen zaizun jokorako materiala. Zer iruditzen zaizu materiala?

Gipuzkoakoa oso txarra, kar, kar. Ez, ez, broma da.

Pilota materiala da, e, esan lasai.

Ez, ez, keba. Egia da, azkenean, bakoitzak gure materiala daukagula. Nik palarekin, adibidez, paleta argentinarrean, bi daude, edo Vasquito edo Brama edo bestea, hirugarren bat atera zuten, arinagoa dena, baina, hori 15 urterekin orduan bai, baina, orain ez.

Adibidez, 8 urteko ume batek ez du erabiliko zure paleta bera.

Ez, ez, hori da. Horiek daukate pala berezia, erosi genuela gainera Irunen, txiki-txikiak dira, eta haiek jolasteko nahikoa da. Eta, gero, pilotak ere bereziak dira, beti egokitu behar dira haien arabera. Gero, ya, gure mailan ere bakoitzak gustuko pilotak ditu. Lehen esan dut, adibidez, Gipuzkoako kasuan, egia da, Gipuzkoako pilotak hilak dira. GRAVNe jolasten dugunean gureek kristoren botea dute eta ya gure artean aldaketa dago. Orduan, neska txikien artean egokitu egin behar da. Denetarik dago, nik ezagutzen ditut kasuak pala horrekin. Hori baldin badaukazu aukera beste palekin ibiltzeko. Beno, adibidez, trinketeko ez da hain astuna, baina, 8-9 urterekin ez diezu gure berdina jarriko, baina, azkenean, ahal den bezala.

Behin nola antolatzen den galdetuta, zuk aukera edukiko bazenu aukeratzeko, zuk nolakoak nahiko zenituzke lehiaketak? Gauza bera entrenamenduekin eta ondoren gauza bera materialarekin.

Niri gustatuko litzaidake, adibidez, mundialetara begira urtean zehar entrenamendu gehiago egotea. Gero, txapelketak, azkenean trinketa urtarrilean hasi eta ekainean bukatzen da eta orduan hor pilotzen da dena.

Klaro, aurretik ezker pareta egoten da.

Noski, hori esaten didate, baina, nik horietan ez dut parte hartzen eta gero iristen da urtarrila eta hasten naiz padel eta palako txapelketekin. Oso ondo, Nafarroa, GRAVN, dena elkartu eta asteburuan ostiral, larunbat eta igande partidua.

Egingo nituzke nazioarteko gehiago, edo behintzat urtean zehar goi-mailako gehiago. Hori da, Kutxakoa egiten da, begira, hori oso ondo, zeren eta bestela egiten dituzu bi urtetik behin.

Bestea zen lehen esan duzu materiala egokitzen hasita dagoela.

Adibidez, horretarako dirua behar da. Ez baduzu dirurik ez duzu egokituko. Hori ondo iruditzen zait.

Ondo, ondo, bukaerara iristen ari gara. Noiz uste duzu hasi beharko liratekeela neskak pilotan? Zergatik? Eta, nola?

Hasi? Nahi dutenean eta palarekin zuzenean edo eskuz edo nahi duten bezala. Nola? Adinaren arabera edo bakoitzak egin nahi duenaren arabera nire ustez. Nik uste dut hasteko ez dela beharrezkoa zu eskupilotan ibiltzea palarako, azkenean nik uste dut norbait zerbait egitera behartzea dela okerrera. Adibidez, eskupilotan badabil helduko da momentu bat ezingo duena jarraitu, pilotagatik, adinagatik eta dena delakoagatik, baina, palan ibiliko den ez dakit. Palan hasi nahi duela? Ba, azkenean, nola hasi behar den eta hori ezin da esan. Nik uste dut ondo pasatzeko, entrenatzen ditugunean, behintzat nik entrenatzen ditudanak, da ondo pasatzeko eta ikasteko. Nik ez ditut entrenatzen munduko txapeldunak izateko. Horretarako bakoitzak egin behar du nahi duena, ondo pasa, ikasi eta aurrera jarraitu. Nik horrela egingo nuke.

Eta, zein bide izan liteke egokia hasten den bat, nahi duenean hasten dena, amaieraraino iristeko? Esan nahi dut ni 10 urterekin hasten banaiz eta 40rekin segi nahi badut, bide horretan, 30 urte horietan, uzteko beharrik ez dezadan eduki. Zer estrategia bururatzen zaizu?

Nik esango nukeena da, lehenengo gauza da beti izan behar duela buruan ondo pasatzea. Ondo pasatzea, zeren eta azkenean, ez baduzu ondo pasatzen ez duzu jarraituko. Niretzat inportantea da ondo pasatzea eta hortik aurrera bakoitzak ipini dezala bere helburua. Nik entrenatu bakarrik egiten badut eta ez bazaizkit interesatzen txapelketak hortik badaukat bide bat: entrenatu eta lehiatu kideekin, baina, txapelketetan parte hartu gabe. Beste batek nahi baditu txapelketak, baina, besterik gabe, ba, txapelketetara apuntatu, nahi duen bezala. “Aizu, zein nahi duzu?” eta “ba, hau, hau eta hau”. Eta gero nahi duenak edo helburu duenak gorago iristea, ba bai, entrenatzea, baina, buruarekin. Ez dezala pentsa munduko txapelduna izango denik, zuk entrenatu behar duzu hori lortzeko, baina, horrek ez du esan nahi gero lortuko duzunik. Bide hori hartzen badu entrena dezala, baina, pasa gabe, buruarekin, zeren, agian, nahi badut munduko txapelduna izatea agian egongo naiz selekzioan edo ez, baina, jarraituko dut. Hori da

bakoitza bere buruaren arabera nolakoa den. Nik hiru bide ikusten ditut. Azkenean, ikusten da zeinek nahi duen gehiago eta zeinek ez. Nik uste horren arabera bidera daitekeela.

Azkenaurreko galderara iritsi naiz. Esan duzu beste kirol batzuk egin dituzula. Padela eta tenisa aipatu dituzu. Jakin nahi nuke ea zer ezberdintasun dauden lehiaketan egituretan, entrenamenduetan eta materialaren egokitzapenean.

Bale. Nik uste, azkenean, tenisa bakarkako kirola dela. Nik parte hartu dut txapelketetan eta irabazi edo galdu ardura zurea da. Irabazi, oso ondo. Galdu, igual du, bakarkakoa da eta hori psikologikoki ere gogorra da. Zaila da egunero entrenatzea, bi ordu entrenatzea eta abar. Jendeak Espainiako Txapelketan 4 ordu entrenatzen ditu egunero, minimo, eta orduan “pin-pan-pin-pan, fuera” eta hori psikologikoki ere zaila da. Hasten zara eta oso polita da, baina, badaude momentu batzuk, adibidez, lesio bat edo nik izan nuen bolada bat entrenatzen nuena eta ezin nuena sarea pasa, blokeatuta. Niri entrenatzaileak esaten zidan pilotatu eta blokeotik irteteko esaten zidan, baina, azkenean, negarrez ez nuelako aguantatzen. Polita da, baina, gogorra, gogorra.

Nik aurkitu nuen alderik handiena pilotan izan zen bikotea. Orduan, horrek baditu bere alde onak eta txarrak. Nik, adibidez, partidu oso txarra egin eta orduan bikotea izorratzen dut. Hala da, batzuetan gertatzen da. Ni gogoratzen naiz, ni hasi nintzen Virginiarekin jolasten eta ni atzelari, huts egin eta ta-ta-ta denbora guztian bakarrik eta berak esaten zidan “bi garela, e” eta egia da. Hori da nik ikusi dudana alderik handiena, bikotea. Azkenean edo aurrera edo atzera baina biek egin behar duzue. Tenisean zu bakarrik, partidua bota eta zu bakarrik zaude, baina, pilotan ez.

Materialari dagokionez, adibidez, tenisean erraketa pila bat daude, pilota pila bat eta gero instalakuntzak ere badaude. Nik Tenisean jolasten nuen tierra batidan eta oso ondo, baina, gero joaten nintzen beste pistetara eta... Orduan, hori ere ikusten da. Erraketak, pilotak-eta ere aldatu behar dira. Ez dira apurtzen pilota argentinarrek bezala, baina komeni da aldatzea. Azkenean, tenisean, nik erraketa bat apurtzen nuen eta ordaindu egin behar nuen, baina, padelean babeslea daukat eta dena ematen dit, materiala eta dena. Ez dut pala batengatik ordaindu behar eta hori azkenean alde handia da. Pala batek ehun eta piku euro balio du eta materiala urtero aldatzen da. Pilotan, adibidez, badaude laguntzak, baina, paleta batek 60€ balio du, badira beste batzuk gutxiagokoak, baina horiek txikientzako bai baina guretzako jokatzeko ez. Gero, badira pala marka ezberdinak eta hemen asko jota bi edo hiru. Dagoen ezberdintasun handiena hori da, pilota eta gero instalakuntzak.

Lehen esan duzu tenisean entrenatzailea zeneukala, padelean ere entrenatzailea daukazu. Entrenatzaile kontuetan, pilotan entrenatzailea daukazu? Beti eduki duzu?

Ea ba, tenisean bai, beti. Txikitatik jartzen dizute monitore bat eta gero kapitaina daukazu. Bakarkakoa zen. Tenisean txapelketaz txapelketa kapitaina daukazu. Padelean entrenatzailea daukazu, baina, ez dut horrela izan. Tenisean bai, kapitaina da zure entrenatzailea. eta pilotan bai, Tenisean entrenatzaile izan nuen Egiguren-eta eta, gero, Oberenan Nekane izan nuen, baina, Nekane pasa zen entrenatzaile izatetik bikote izatera, kide izatera, baina esaten zidan “kontuz, begira” eta beti dago hor eta oso ondo. Eta gero selekzioan Antonio eta Jorge. Bakoitzak gauza ezberdina esaten du, denak batera, baina, ondo.

Ondo. Ni azkeneko galderara ailegatu naiz. Ez dakit zerbait gehiago esan nahi zenuen, edo esatea nahi zenuen zerbait egon den eta ez dizudan galdetu edo zerbait gehiago esan nahiko zenukeen.

Ez, eman dut nire iritzia. Nik uste dena gainetik esan dugula, ez?

Zerbait gehiago erantsi nahi baduzu esan lasai.

Ez.

Ba, oso ondo mila esker.

BERRIKUSTEA

Elkarrizketa data: 2012-07-18

Lekua eta ordua: Zarautz, 13:30

Izen-abizenak: Nora

Beno, kontua da, esan nizun bere garaian, elkarrizketa egin genuen eta zuri erreplikarako aukera ematea. Beraz, hasi egingo gara.

Lehenengo galdera da ea zer iruditu zitzaizun elkarrizketa.

Ba, irakurri nuen bere garaian eta, ba oso ondo zegoen, zeren arlo asko ukitu genituen, hitz egin genuen eta oso interesgarria izan zen. Nire aldetik, adibidez, eroso, ondo erantzuteko eta errazak erantzuteko galderak.

Hobeto, hori seinale ona izaten da.

Hobeto, ez? Bai, bai, errazak eta azkenean ba, irakurri nuen elkarrizketa eta oso ondo zegoen. Gainetik irakurri eta dena agertzeko aukera edo ematen dizu.

Ondo, oso ondo. Horren ondoren zalantza bat bakarrik daukat. Zurea izan zen, ez dakit grabagailua oporretan zegoen garaia hartan edo zer, baina pila kosta zitzaidan transkribatzea arazoak ematen zizkidalako. Eduki nituen zati batzuk horiz jarrita eta ezin identifikatu zer esaten zenuen. Gogoratzen naiz, hemen, hirugarren orrian, nola hasi zinen diozun horretan, Tenisean zeundela eta nola hasi zinen palan galdetzen nizunean hor idatzi nuen “anai txikiak” edo eta esan zenidan bere garaian, uste dut, Sanz anaiak izan zirela. Horrelakoren bat zen, ez?

Kontatuko dizut nahi baduzu.

Ni hasi nintzen bi urterekin Zarautzen, hemen, palarekin jolasten gurasoekin eta izebekin eta orduan esan zuten “beno, ba, agian Tenisean apuntatu behar dugu” eta hirulau urterekin hasi nintzen tenisean jolasten. Egon nintzen urte askoan jolasten, txapelketak jolasten, eta ia hamalau urterekin, gutxi gorabehera, esan zidaten jolasteko palan, probatzeko. Ni, egia esan, beti pala ikusi dut, *Jamón* txapelketa-eta, mutilen artean, baina ez nekien nesken artean existitzen zela, ba hori, modalitatea edo aukera.

Gainera, nik grabatu nuen Iruñeko mundialerako spot-a eta, gainera, grabatu nuen, baina ez nekien existitzen zenik. Grabatu nuen, baina ez nuen ikusi partidurik.

Ez zinen enteratu momentuan bertan.

Ez, ez. Egin nuen frontenisekoa eta goma argentinarrekoa, “pilotari eman frontoian” eta “ba, bale”, baina listo, ez nuen ikusi.

Zu zinen modeloa?

Bai zera! Ez zuten edo ez dakit zer pasa zen eta ... Bai zera, jo, mesedez! Uste dut izan zela azken momentuko gauza eta orduan hamalau urterekin hasi nintzen jolasten. Probatu nuen argentinarrarekin eta, joe, ondo. Erosoa zen, zeren jolastu nuen txapelketa bat eta ondo. Nik uste hori probatu nuela irailean eta probatu nuen justu astebate lehenago larruz jolasten eta, klaro, ba larruz jokatzetik argentinarrera pasatzea, ba, badago salto handia. Oso ondo, hasi nintzen, beno, hasi nintzen Sanzekin eta ordutik esan zuten “beno, goazen egitera Tenisean nesken arteko eskola, ez dakit zer” eta animatu ginen zortzi jolasten palan. Ya hasi ginen hor entrenatzen eta hasieran bakarrik ematen genion, ba, sakerako zeren gero pilotak botea egiten zuen eta atzera joaten zen eta, beno, hor hasi ginen palarekin. Gutxinaka hasi ginen entrenatzen, txapelketak jolasten, eta, beno, pena gaur egun kasik nesken artekoa, Tenisean behintzat, desagertu dela.

Ez dago inor?

Ez, badira lau neska, direla Sanzen seme-alabak eta, azkenean, baina uste dut joaten direla pixka bat gurasoengatik. Txapelketetan-eta ez dabilta eta daude, gainera, adin arriskutsu batean, “la edad del pavo”, eta azkenean zaharragoek lesioak edo familia eta, azkenean, ni joan nintzen Oberenara.

Eta, Oberenara aspaldi joan zinen?

Ba bai, duela ia lau bat urte. Bai, zeren ni joan nintzen Virginiarekin. Aspaldi esan zidaten “etorri Oberenara”, baina ni Tenisean ibili naiz teniseko txapelketetan, padelean eta palan ere beti Tenisa ordezkatzeko. Nire kluba da azkenean eta pena ematen zidan handik joatea. Azkenean bai, Tenisean gauzak gaizki zeuden eta esan nuen “beno, banoa hemendik” eta ez dakit zenbat, hiru-lau urte gutxi gorabehera.

Argentinako 22 azpikoa baino lehenago behintzat.

Bai, uste dut izan zela aurreneko urtea. Bai, zeren azkenean Tenisekoek apuntatzen gintuzten txapelketa batzuetan, beste batzuetan ez, ez ziguten ezer ere esaten eta nahi genuen pixka bat formalitatea. Azkenean, mundialera joateko ere behartzen zaituzte txapelketa minimo batzuk jolastera, Espainiako Txapelketa eta abar, eta niri behin gertatu zitzaidan, ez dakit Mexikoko mundialaren garaian zen, Tenisean geunden eta ez gintuzten apuntatu Espainiako Txapelketan eta horregatik ya selekziotik kanpo geratu ginen, aukerarik gabe. Orduan esan genuen “beno, listo, goazen zeren bestela beste gauzaren bat gertatuz gero geratuko gara kanpoan”.

Ondo, ondo. Beste dudarik ez daukat nik handirik. Bestea zen ea ados zauden elkarrizketan esandakoekin edo zerbait aldatu nahiko zenukeen.

Ez.

Nahi baduzu aztertuko dugu zatiz zati edo orokorrean. Azkenean hiru atal zeuzkan elkarrizketak. Bat zen soziala-edo, nola ikusten zen, nola hasi zinen, jendeak nola laguntzen duen, eragileen laguntza, ikusle kontua eta. Hori zen zatirik potoloena. Gero zeuzkan beste zati bat kulturaren ingurukoa, motzagoa, herrian edo hirian jaio esaten genuena, eta bestea zen txapelketak nola dauden antolatuta, entrenamenduak nola antolatzen dituzuen eta pixka bat horrelako gauzak kontatzea. Ez dakit zer edo zer badaukazun.

Nik bidali zenidanean mezua esan nizun.

Bai, errepasatu dut eta ikusi dut otsailaren 29an izan zela. Esan dut “lekutan dago!”

Bai, ikusi dut eta nahi baduzu ia jarri 23 urte. Nahi baduzu ikusteko bigarren elkarrizketa egin duzula, kar, kar.

Irakurri nuen eta ni esandakoarekin ados nago, beraz ...

Beste galdera bat geratzen zait, azken bat. Nola hainbeste hilabete pasa diren ia ahaztu ere egingo zinen elkarrizketarekin normala den bezala, baina ea zerbait okurritu zaizun gaiaren inguruan edo zer edo zer gehiago esateko edo ez esateko gogoia. Beno, adibidez, gauza bat badakit.

A, bai?

Hemen esaten zenuen helburuetako bat zela Munduko Koparako selekzioan egotea eta bazaude.

Bai, banago, banago. Bai, bai. Hori bai, begira. Orain ia hurrengo da Eiderri kentzea aurrelari postua, baina hori ia zailagoa dago. Orain bai, orain entrenatzen eta orain behin sartuta ea urrea lortzen dugun izango da. Berdin dio nork jokatu, baina urrea lortzea.

Noiz da, abuztuaren amaieran?

Abuztuaren azkeneko astean, 26tik irailaren 2ra. Uste dut 2an bukatuko dugula. Bai, hasieran gogoarekin ia kasik iristeko eta bukatzeko, zeren entrenatzen gabiltza azkenean. Ni nahiko ondo oporretan nagoelako, baina beste batzuk lanean txandak aldatuz eta, beno. Ni orain oporretan nago, uztailean da San Ferminak eta Zarautz, baina gero abuztuan nik ere lana egin behar dut, klaseak eman, eta orduan alde batetik badugu gogoia pasatzeko. Azkenean, entrenatu behar dugu, entrenatzen dugu asteazken eta larunbatetan, baina gero aparte egin behar dugu korrika eta.

Zer jarri dizuete taula bat?

Bai, badaukagu taula bat. Egin ditugu proba fisikoak, hamar aldiz edo ez dakit zenbat aldiz egin diguten gantzaren proba, eta badaukagu taula bat.

Alfer-alferrik, gero gehiago edo gutxiago pilotari eman behar zaio.

Bai, baina, beno, azkenean egin genituen probak eta egin dizkigute taula batzuk laktatoa hartu eta bihotz maiztasunekin eta joan behar gara hogeita hamar-berrogei minutuan korrika egitera.

Egunero?

Berez bi edo hiru egun astean. San Ferminetan ez nintzen joan, baina atzo egin nuen, gaur entrenamendua, bihar joango naiz ...

Txintxo-txintxo orduan.

Bai, nahiko formal. Baina, beno, kontuz, zeren bero handia egiten badu goiz esnatu eta horrela. Azkenean esfortzua da, zeren geratzen bazara eta entrenamendua egiten baduzu, ba hori, korrika entrenamenduan egingo bagenu, ba, baina azkenean zeure kontura egin behar duzu. Adibidez, Nekane askotan egin behar du entrenamendura joan lanetik, seietan atera, joan, bata eta bestea, gero, gainera, gantza jaitsi behar du eta esaten diot “azkenean afizionatuak gara”. Guk gure bizitza daukagu. Noski, guk lortu nahi dugu urrea, edo ahalik eta posturik onena, baina zenbaitetan ez gara iristen. Eta ni nahiko ondo nago, e, ba, denbora aldaketak.

Asko matxakatzen zaituztete gai horrekin?

Bai. Azkenean, uste dut kasik obsesioa dela, ez dakit zenbat kilo, ez dakit zenbat gantz eta azkenean zu ere obsesionatzen zara. Beno, niri kroketak eta patatak ezin dizkidate kendu, baina bai izozki bat hartzerakoan bueltak ematen dizkiozula. Pentsatzen duzu eta azkenean lagunek ere esaten zidaten “bale, nahikoa da”. Azkenean pentsatzen duzu eta badakizu zure onerako dela, baina beno niri esan zidaten.

Beno, baldin bazeneuzka ez dakit zenbat kilo soberan, baina ...

Hori da. San Ferminetan ni aritu nintzen juergan, baina urarekin, txintxo eta azkenean amargatua zeren nekatzen zara eta azkenean gaizki. Azkenean esaten zidaten 14an “hartu kristoren mozkorra eta lasai etorri entrenatzera”. Azkenean, ba, bakoitzak jartzen ditu bere mugak eta nik ba bai nahi dut joan, irabazi, etab. Iruñean da azkenean, joango dira familia eta lagunak, eta presio gehiago daukagu. Nik, behintzat, presio gehiago daukat. Nik nahi dudalako, e, berez ez digute esan, baina nik uste ez digutela ezer ere esan behar guk ere exijitzeko eta zaintzeko.

Igual ezagutzen zaituztetelako ere bai, ziurrenik. Ikusiko balute ezetz esango lukete.

Klaro, bai, bai. Niri ya esan didate “erre hondartzan, baina ez erre trinketean”. Bai, azkenean presioa. Batzuek nahi dute urrea eta ez dakit zer, baina uste dut lehen ere esan nuela, azkenean, neskak beti gara azkeneko platera. Behar badute zure domina etorriko dira eta ta-ta-ta, baina behin lortuta bakoitzak bere emaitzak “que os den”. Hori pasa zaigu eta askotan. Ni behintzat bi mundialetan egon naiz eta Argentinan dena izan zen desastrea, gu izan ginen bakarrak finalera iristen, eta kasik aurpegi txarrarekin. Ez hautatzaileak, baina bai zuzendaritzakoak aurpegi txarrarekin ez genuelako urrea

irabazi. Azkenean gu ginen gaizki geundenak, ez haiek, nik hartu nuen kristoren presioa, ardura neukan Naroarekin-eta.

Zu zinen beterana zenbat urterekin, 19 edo 20?

Bai, nik hartu nuen presio hori eta presio hori azkenean bota egin behar duzu. Bota nuen eta behin galduta negarrez lasaitu eta bi kilo galdu nituen. Beno, Pauen ere berdin. Orduan ia aurpegi txarrarekin eta gu gara azkenean okerren pasatzen dugunak. Eta Pauen berdina, baina, beno, betikoa. Entrenatzeko ere kasik azkenak, aurten esan digute “noiz nahi duzue entrenatu?”, baina “gantza ez dakit zenbat aldiz, pisua, proba fisikoak eta trinketea noiz?” Adibidez, orain hasi behar ginen Larrabiden entrenatzen, trinkete berria egin dutelako, baina azken mezuan datorren astean zioten, beraz, berriro ere Oberenan. Betikoa, bai, betikoa.

Nik ez daukat beste ezer. Nahi baduzu itzali eta tertulian segituko dugu eta presa badaukazu bestela bazkaltzera segi lasai. Eskerrik asko eta zerbait ateratzen bada esango dizuet.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Nora

- Elkarrizketa lotzeko proposamena egin nionean, bezperan, zuzenean eman zidan baiezkoa 24 ordu baino lehenago elkartzeko, ni Gasteizera joateko asmotan nintzela eta.

1.elkarrizketan

- Eman litezkeen erraztasun guztiak eman dizkit elkartu garen lehen unetik eta fakultatera ere itzuli da bazkalostean nirekin elkartzeko.
- Elkarrizketarekin hasi aurretik hizketaldi labur bat egin dugu, tesiaren inguruan galdetu dit.
- Bera urduritasun puntu batekin sumatu dut, askotan begiratu dio grabagailuari, baina, kontatzeko gogoz ere bai, aldi berean. Ni ere nahiko gustura, beldur handiegirik gabe diharduela ikusita.
- Amaieran eskerrak eman dizkiot, eta bera prest agertu da hurrengo baterako ere. Abegitsu eta eskuzabal agertu da. Egia esan, horrela errazagoa da lana egitea. Bejondeiola!

Transkribatzean

- Oso gaizki entzuten da audioa eta zenbait esaldi eta hitz nik ematen diedan tankeraren arabera transkribatu ditut. Zenbat buelta eman ote dizkiot esaldi bakoitzari??
- Halako batean amaitu dut, pazientzia eta energia asko bertan utzita. Auskalo zenbat ordu pasa ditudan! Hala ere, elkarrizketa interesgarria iruditu zait eta berak ere gauzak argi eta uste duen moduan ederki azaltzen dituela.

2.elkarrizketan

- Gustura egon zen, eta baita ni ere, nahiz elkarrizketa egin nionetik ia bost hilabete beranduago elkartu eta horrek niri kezka eragin.
- Pilotaren inguruko beste gai batzuk jorratu genituen berrikustearen aurretik eta ondoren eginiko solasaldietan.

Elkarrizketa data: 2012-07-27
Lekua eta ordua: Kirol Etxea (Donostia)

Elkarrizketatuaren datu pertsonalak

Izen-abizenak: Ekiñe
Adina: 31 urte
Jaioterria: Donibane Lohitzune
Bizilekua: Donibane Lohitzune
Pilota elkarte: Luzaz Gazte

Ikasketak: irakaskuntza
Lanbidea: irakaslea

Kirolarekin sartzan hasteko, zu gogoratzen zara noiztik egin izan duzun kirola? Pilota edo jarduera fisikoa.

Egin kasik betidanik. Bai, bai. Gero, pilota berez hamaika urterekin, hamabi urterekin, baina bestenaz beti. Nire aitak entrenatzen zituen mutikoak, beraz, asteazken arratsaldeetan berekin egoten nintzen.

Ondo, ondo. Eta zer beste kirol egin izan dituzu pilotaz gain?

Nik luzaz eskubaloia eta eskia.

Eta zenbat denboran?

Eskubaloia duela gutxi gelditu dut, beraz, hogeita hamaika, hamarrekin hasita, hogeitaz eskubaloia.

Orain arte eskubaloian ere ibili zara, e?

Bai, bai.

Eta zer mailatan? Errendimenduko talde batean, asteburu partidak eta horrela, edo nola?

Bai, bai. Entrenamendu bat astean gehi partiduak asteburuetan eta ... Lurraldeko mailan, Pirinioetako elkartearen artean jokatzeko den ligan.

Eta eskian, zer eski mota? Ala zure kabuz?

Bai, pistan, hori bai. Baina bai, urtero.

Surfa ez zenuen egiten?

Bai, pixka bat ere bai. Gero denetarik saiatzen naiz. Mendian eta korrika ere bai.

Ondo, ondo. Orain ia zehazki pilota mundura. Esan duzu hasi zinela hamaika edo hamabi urterekin.

Bai, elkartean sartzean.

Non hasi zinen, bertan?

Donibaneko elkartean, baina neska bakarra nintzen nire garaian, beraz, Urruñako neska batekin jokatzeko nuen. Orduan, Urruñara joaten nintzen entrenatzera eta Urruñaren izenean egiten nuen txapelketa.

Eta, eskuz hasi zineten edo zuzenean paletaz?

Ez. Ni hamabi urtera arte hasi nintzen xixteran, Joko Garbian, nire aitarekin. Gero utzi behar izan nuen, beraz, epe motz batez tenisean ibili nintzen eta nola ez nuen gustukoa gero ia palan hasi nintzen. Horrela.

Eta oroitzen zara zergatik hasi zinen pilotan?

Zergatik ez. Hori, etxean aita, anaia horretan zen eta etxeko kirola zen. Eta ikastolarik ez genuenez asteazkenetan ni joaten nintzen aitarekin, han zaintzen gintuen, beraz, berez.

Esan duzu aita ... Hurrengoa da ea zeinek eragin zuen zure erabaki horretan.

Bai, pentsatzen dut aitak, esan gabe sekula. Ingurumena pentsatzen dut hori zela eta gero hautua ukan dut nik zer kirol nahi nuen egin, baina, bai.

Esan duzu zu hasi zinen neska bakarra zinela. Nola iritsi zinen gero nesken mundura?

Nire elkartean, Donibanen, neska bakarra nintzen, inguruko elkarrekin baziren gehiago.

Ezagutzen zenuen?

Bai.

Han nesken pilota ezagunagoa da agian hemen baino? Ez dakit. Hemen, adibidez, nik 21 urtera arte-edo ez nekien proiektu bat zegoenik. Arrastorik ere ez.

Iparraldean bai, aspalditik badira Liga mailan, federazio mailan, gauzak lotuak dira, txapelketak badira, ba, luze, hamar urtetik heldu mailaraino eta elkarrekin neskak ibiltzen dira.

Eta hogeitaz urteren ondoren segitzen duzu pilotan jokatzeko. Eduki duzu tartean momenturen bat utzitakoa edo?

Utzia ez, ez, betidanik. Gero, gutxiago ala gehiago jokatu, baina urtero gutxienez txapelketa bat bai.

Eta zergatik jarraitzen duzu hainbeste urte eta gero?

Ba, pentsatzen dut sinpleki plazer dugulako jokatzea eta orain, e, ba, heldu mailan giroa ere horretan dugulako. Lagunak pilota munduan direlako ere eta, uf, noiz arte ez dakit, baina, kar, kar.

Ahal den bitartean.

Bai.

Eta izango litzateke arrazoiren bat esateko “hau bukatu da. Nik pilota utziko dut”. Igual ez dago, e.

Utzi nik uste dut, ez dut ikusten nik utziko dudarik. Gero, bada, pilota jokalaria bezala, eta orain horretan dut nik gehiena ematen, baina ere nire elkartean asteazkenetan ibiltzen naiz neskekin entrenatzaile lanetan, federazio mailan ere maila gehiago duten neskekin, beraz, pilota utzi ez dut uste. Nik jokatzea gutxiago edo egun batez utzi bai, zeren eta ez dugu ere, bizitzan beste gauza batzuk badira ere eta, baina plazerarentzat ez. Momentuko ez dakit.

Ondo, ondo. Eta zer iritzi daukate zure senitartekoek, etxekoek, gertuenekoek, zuk pilotan jokatzearen inguruan? Zerbait esaten dizute?

Etxean eta ingurumenean gauza aski naturala da pilota. Familian, azken finean, ba jokutzen dugu eta denak, bakoitzak bere mailan, edo nire aitak orain 68 urte ditu eta segitzen du lagunekin astean behin, anaiak txapelketetan, gero badira torneoak. Beraz, gauza naturala da. Ez dugu hainbeste pentsatzen pilota gauza berezi bat bezala, ez?

Eta beraiek eragiten dute oraindik zure jardueran? Edo ikustera doaz? Nolako jarrera daukate?

E, ni, hala ere, aita arduratzen zen, baina mutikoetaz, beraz, pentsatzen dut pertsonalitateak ere egiten duela. Nik nire gauza bizi izan dut. Ba hor ziren partiduetan ikusteko-edo, baina bultzatu gabe eta orain ere, ba, heldu dira horrela puntualki gauza baten ikustera, edo giroa hor baldin bada, baina ez, ez dira horrela segitzaile. Ba badakite, nire plazera da eta ere nire, ez dakit, biziko gauza bat, eta ez dira hainbeste horretan sartzen ere. Ez.

Galdera agian topikoa da, baina zuk nabaritu duzu neska izateagatik eta pilotan aritzeagatik halako presio berezi bat edo?

Ez, ez. Ni, gainera, hastapen batean mutilekin hasi naiz eta luzaz eta, uf. Ba, garaian, mutiko bat eskas zelarrik, txapelketan ere xuriz jantzi eta hirugarrena egiten nuen eta. Ba nire inguruan gauza ere sinplea zen eta ez zuen inork apuntatzen “jo, neska bat mutikoekin” edo zerbait. Eta gero neskekin hasi nintzen eta orain ere, ba ez. Ez, ez, eta torneo pribatuak egiten ditugu txapelketatik kanpo eta batzuetan, ba, bi neska ateratzen gara mutilen aurka, edo batzuetan nahasita neska-mutil, eta ... Iparraldean, gutxienez, orain aukera dugu jokatzea bai mutilekin torneo pribatuetan eta ez du nehork bizi.

Ez dute gizonek esaten “hauek” ...

Nesken aurka galtzea ez dute gustukoa, baina ia badakite neskek ere maila dutela. Beraz, ez, ez gara apuntatuak. Ez, ez.

Eta nolako tratua jasotzen duzu? Jendearen aldetik tratua esan nahi dut zer jarrera daukan beste jendeak ere. Nola ikusten da emakumeen pilota, adibidez, Iparraldean kasu honetan?

Iparraldean, pilota hainbatean ia nahiko edo indar anitz galdu du eta pentsatzen dut ez dela hain kinka onean eta motibatzea eta joko horretan sartzea ez dela erraz. Beraz, neskek edo nesken pilotak ere jarrera hori segitzen du. Da gure arteko gauza bat, kanpotik jendea ekarraraztea, ba, ez da batere erraza. Beraz, beti inguruko jendeekin, familiarekin, lagunekin. Bai, hori da, komite ttipietan. Orduan, jendeak plazer du hor izatea, baina egia da ez dela jenderik biltzen edo ez dela kirol ezaguna ere.

Ez dakit, e, baina esan liteke ez dela ikusten edo ez da agian bistaratzen?

Ez, ez da kirol ezaguna. Pilota, beraz, eta neskena oraino gutxiago erran nezake, baina gutxiago garelako-eta, baina, gero, neska batek pilotan jokatzeko ez da gaizki ikusia. Pentsatzen dut jendeak pentsatzen duenik.

Ez da hainbeste pentsatzen?

Ez, ez.

Lehen esan duzu jarraitzeko arrazoietako bat giroa edo harremanak direla. Hurrengo galdera hori da, zer moduz moldatzen zareten edo nolako harremanak dituzuen pilotarion artean.

Nik uste dut orain, gure adinean arribatuta, ba, hogeita hamar urte pasa, lehiaketak egin ditugu, segitzen dugu, beti plazer dugu entrenatzea eta lehiaketetan parte hartzeko, baina gutxienez, niretzat, eta pentsatzen dut beste batzuk ere, atxikiak gara giro ona sartzen baita eta partidua bukatu ondoren lagun batzuk hurbiltzen dira eta hor egonen gara momentu goxo baten pasatzera eta pentsatzen dut horrek duela ere pilota atxikitzen jokatzen. Hori gabe, lehiaketa arrunta edo hutsean egonez, ba, pentsatzen dut jokalaria ere murriztuko zirela.

Saiatzen zarete kantxatik kanpo, edo partidutik kanpo, ere nolabait giroa mantentzen edo harreman hori, ahal den heinean.

Hori da. Ez da etorri, jokatu eta etxera sartu bakarrik, baina hor egon hitz egiten eta trago bat edaten, baina girotzen.

Noizbehinka bazkari bat eta ...

Eta beste guztia. Bai, egia bagarela talde bat non pilotatik kanpo ere lagunak garen eta nik, adibidez, nire elkarte orain hiru neska gara, hiru lagun oso onak eta badakigu bihar pilota geldituz, ba, lagunak geldituko garela eta segituko dugula beste gauza batzuetara jotzen. Baina abiapuntua pilota izan da eta harremanak hor sortuak.

Ondo, ondo. Hurrengo galdera ezberdina da oso, baina zuk zein helburu edo nahi dauzkazu pilota munduan? Sartu zinen hartan pentsatzen zenuen “nik iritsi nahi dut Munduko Txapelketa batetara” edo. Ez dakit hasieran batzuk zenezkan eta orain beste batzuk.

Ez. Ba ni sartu naiz jakin gabe, horrela, etxeko gauza bat zelako, beraz, helburu nagusirik edo helbururik gabe. Bakarrik kirola egitea eta nik hori behar dudalako, ba, mugitu zerbaitetan eta. Beraz, pilota hor sartu zen helbururik gabe azken finean, nire plazerarentzat eta denbora pasa. Gero, urteak pasatu dira, txapelketa etorri eta, bon, bai, entrenamenduetara joaten gara helburu batzuekin, eta lehiaketetan emaitza ahal bezain onak ateratzeko. Eta orain pentsatzen dut nire burua hor dabil, ia lehiaketetan eta pasatu dela gehiengo eta batez ere orain dela transmititzea eta gazteekin ahal bezain jarrera ona ukaitea eta motibatzea eta ia neskak.

Gaztea zara. Oraindik badaukazu urte batzuk hor, sasoiari behintzat.

Bai, bai, bai, bai. Jokatzeko moduan bai, baina, ba hori.

Adibidez, Munduko Kopa jokatzeko gustatuko litzaizuke edo ez duzu pentsatzen “iritsi nahi dut Kutxa Sariko finalera edo Iparraldeko Ligako finalera”.

Bai, bai. Hori bai, puntualki hor apuntatzen garenean txapelketa batean, ba, bistan dena, bistan da, bai, motibazioa hor da, ahal bezain onena eta emaitza onena atera, baina pentsatzen dut ere hori dela bakoitzak bere buruan gauza pertsonala, baina pentsatzen dut emakumeen pilota bultzatzeko lan gehiena hor kantxatik kanpo ateratzen dela guretzat eta guri dela ere, gure adineko neskei, gauzak, e, eskuetan hartzea eta gauzak bultzatzea. Zeren eta orain ia emaitzak, txapelketa bat gehiago irabazi edo galdu, gure bizian, gure adinean, ulertzen dugu ere ez duela eragin handirik, salbu hor momentuko amorrazioa eta ematea gehiena. Bai.

Ondo, ni gustura nago. Zerbait iruditzen bazaizu esan, baina oraintxe bertan esan duzu helburua transmisioa dela. Galdera da ea nolako osasun ikusten diozun emakumeen pilota munduari.

Ba hori, erraten nuena. Osasuna txarra, ez dakit txarra hitza aipatu behar denik, edo gutxienez ni hasi naizenetik ez dut ikusten. Bai, izan dira aurrerapenak, neskenzat beharbada gehienbat, baina pilota orokorrean, ba, apaldu egin da eta neskena beharbada ez hainbeste. Orain Iparraldean gero eta neska gehiago ari dira, baina, hala ere, kirol bezala, ba, aski gutxi beste kirolei begira eta ez da Euskal Herritik ateratzen. Beraz, nekez ibiltzen da, badira hor gauza anitz bultzatzeko. Ni irakaskuntzan ibiltzen naiz eta eskoletan ere saiatzen gara pilota ematera, baina oso gutxi, lankide askok ez dutela pilota ematen azken finean, baina bai beste kirol mota guztiak eta, beharbada, hor bada zinez barne lan bat egiteko, ba hori, gazte gehiago bultzatzeko eta interesa emateko gure kirolari bai.

Eta, nola egingo zenuke hori?

Nola, nola. Ni nire mailan saiatzen naiz pilotari hartu dudana guzti, ba, pixka bat ematea. Pentsatzen dut lehen urratsa dela elkarte mailan. Guk izan ditugu entrenatzaileak eta trinketak edo ezker parteak ordaindu behar dira, beraz, elkarteak badu dirua atera,

animazioak egin eta pentsatzen dut lehen urratsa horretan dela. Ni bulegoan sartu naiz, diruzain-orde izanez, asteazkenetan neska gazteetaz arduratuz eta pentsatzen dut gero bakoitzak bere aldetik indar ttipi bat egiten badu, ba, denen artean zerbait lortzen ahal dela. Momentuko ikusten dut emakumeen artean ere, gure artean, neska guztiek ez dutela urrats hori eman edo agian egun batez emanen dute, baina gutxi gara hor heldu mailan ari garenak eta ere elkarte mailan, ba, ari garenak gazteekin. Lehen urratsa hori da.

Gero, lan mailan ere, bada aukera eskoletan eta ikastola denboran pilota bultzatzeko. Hori da, baina hori ez da egun bateko lana eta uf, luzea da eta talde lan bat da ere eta gero federazio edo liga baten politika baita eta, voilà. Baina, gutxienez, nire heinean egiten ahal dudana hori da.

Ondo, ondo. Eta zergatik uste duzu aukeratzen dutela pilota, aukeratzen duten neska horiek? “Ni ez noa futbolera, edo ni ez noa errugbira, edo ni ez noa saskibaloia, edo eskubaloira. Ni pilotari izango naiz, ni Ekiñe bezala pilotari”.

Bai. Horiek izenik ez dute, izenik ez dute gazteek. Ez dut pentsatzen amets bat bezala, pilotak ez du ametsik eskaintzen, horrela, pilotari izateak. Beraz, egon daiteke familiako kirol bat, aita bat edo ama edo familian norbait edo osaba bat, nire kasuan bezala, familiako kirola. Edo gero guk ikusten ditugunak Iparraldean da gehiago ikastoletan pasatzen diren haurrak, ba, aukera izan baitute egun batez pilota ezagutzeko ikastola mailan eta gero elkartera hurbiltzen dira, baina gero eskola publikoetan, frantses eskoletan, ia gutxiago praktikatua da. Beraz, haur bat hortik ateratzeko eta pilotara eramateko, ba, ez dakit, bere bidean gurutzatu du zerbait eta horrela heldu da, baina segur hortik haur gutxi biltzen direla.

Ondo, ondo. Zergatik uste duzu dabilen batek utz dezakeela?

Ba, nesken mailan, ba, pasatzen dena usu da, gero 15-16 urtera arte neskak horretan sartuak dira, gero ikasketak eta ia beste interes batzuk ere eta, beraz, behar den seriosasuna txapelketa batean sartzeko hori eta uzten dute. Gero, pentsatzen dut ere, ba hori, federazio baten politika horretan, ba, pilota talde kirola da edo indibiduala eta, beraz, maila baldin baduzu sartzen zara zirkuituan eta aukerak badira, baina maila ez duten neska guzi horiek, ba, Iparraldean ez dute aukera asko segitzeko eta, beraz, poliki-poliki uzten da. Ikuste da, ba, gero, helduen mailan, plazerarentzat, elkartzen direla 35-40 urteko emazte batzuk euren kabuz eta trinket ordu bat hartu eta horrela, baina ia zirkuitutik atera dira eta ez dira gehiago ez federatuak ez lizentziatuak eta, beraz, hor galtzen dira eta nik pentsatzen dut hori dela, ba, hastapen batean neska batzuk hasten badute gero galtzen dute, ba, batez ere maila edo ez dutelako aukera aski jokatzeko.

Hor, adibidez, kasu horretan mailan alde handia dago? Gero galdetuko dizut, baina orain galde diezazuket bestela Iparraldeko antolaketa nola dagoen.

Bada federazio bat, frantses federazioa, eta gero lurraldeko liga. Gure eskualdean bada Euskal Herrikoa, Bearnokoa, Landesetakoa eta gero badira hainbat eta hainbat. Indartsuena edo jende gehien biltzen duena da Euskal Herrikoa, eta nesketan batez ere. Gero, elkarte bakoitzak montatzen du bere ordutegia, bere entrenamenduak, parte hartzeko Euskal Herriko Ligak eskaintzen duen txapelketan.

Hor, gero, Frantziako Txapelketa-eta jokatzen dituzue eskualdeak bilduta-edo?

Bai, hori da. Gero liga bakoitzak sailkatzen ditu talde batzuk, bere txapelketako talde batzuk, Frantziakoa jokatzeke. Adibidez, hor helduen mailan Euskal Herriko txapelketan hamalau talde ginen, Hegoaldeko hiru ya. Horiek ateratzen dira, Frantziakoan ezin dute parte hartu, eta sartu dira Tolosako edo Tolulouse eskualdeko talde bat, Oloroneko bat eta Paueko bat. Hor ya neska guztiak hor dira.

Hori helduen mailan.

Bai, lehen mailan.

A, lehen mailan. Maila bat baino gehiago daude.

Bai. Bigarren mailan kasik hogeita hamar edo hogeita hamabost bikote ateratzen dira eta hor kanpoko ligetan, Landesetako eta Bearnokoak, Parisen ere, maila apalagoa duten neskek parte hartzen dute, eta gero gazte maila, ba, guztietan: junior, kadete, bejamin, minim eta horietan.

Bai, hemen baino jende dezente gehiago mugitzen da. Hemen nik ez dakit kopurua, baina Gipuzkoan bertan, zer? 70 izango dira lizentziadunak eta horietatik jokatzen dutenak, ez dakit, 50 edo 60.

A, bai? Ez ditut kopuruak, baina askoz gehiago, bai.

Hor, adibidez, jokatzen dituzue horiek eta trinketean jokatzen duzue zuek.

Bi modalitate. Badugu trinketean deitzen duguna pilota betea edo “espagnol” eta pilota hutsa edo “balín”. Beraz, e, irailetik otsailera pilota betean eta otsailetik udara pilota hutsean jostatzen dugu, baina gehienbat neskek pilota betean. Ez dira hainbeste talde atzematen gero pilota hutsarekin. Ez, gutxiago, neska gutxiago.

Eta ezker pareta utzi egin zen duela, orain zer? Hamar bat urte?

Zu jokatuta zaude ezker paretan han.

Bai. Nik lehenengo txapelketak ezker paretan eta gero federakuntzak utzi zuen erranez ez zela modalitate internazionala eta, beraz, hori baztertu zuten trinketean bakarrik emateko eta sartu zuten frontenisa, baina frontenisa ya, uf, uste dut azken txapelketan, ba, hiru bikote atera direla-edo. Ez du batere hartu edo galdu egin du ere.

Eta, horrez gain, ezker horman jendea bere kabuz ibiltzen da? Edo ohituraz ere trinketean? Azkenean hemen trinket gutxi dauden bezala han trinket gehiago daude, ez?

Bai, trinketean.

Ondo, ondo. Gero, beti elkartearen izenean jokatzen duzue edo bikoteak osatzeko-eta?

Behartuak gara lizentzia elkarte berdinean ukaitera, eta, beraz, elkartearen izenean ateratzen da bikotea. Gero badugu posibilitatea, nik hastapenean ukan nuen bezala,

bakarrik egotea nire elkartean eta lehiaketa batentzat eskatzea beste norbaitekin jokatzeko.

Gero, beno, hor daude selekzio mailako txapelketak ere, ez?

Hori da beste bat. Beraz, bada, baditugu urtean lau txapelketa elkartearen izenean eta gero, ba, selekzioak ia hori da frantses federakuntzak kudeatzen duen gauza eta hor entrenatzaileak deitzen ditu jokalaria.

Eta gero, baditugu, ba, baita ere trinket pribatuek antolatzen dituzten barne txapelketak eta hor norberak bere burua ematen du eta nahi duenarekin.

Bikotea beraiek erabakitzen dute gero hor ala zuek?

Ez, ez, guk bai. Izena ematean bikotearen izena eta hor izan daiteke neska edo mutil, edo bi neska. Eta, gero, ba, mailaren arabera lehen mailan edo bigarrena edo hirugarrena. Bi neska mutilekin, ba, igual, hirugarren mailan edo horrela. Hor ematen du aukera urtean zehar gelditu gabe jokatzeko irailetik udara arte. Nahi bada bai.

Gero, beno, ezberdintasuna da badaukazuela txapelketa bat, edo bi behintzat, hemen Hegoaldean Gipuzkoan antolatutakoak, hor ia bikoteak antolakuntzak berak zehazten dituenak. Kutxa Saria.

Bai, hori Kutxakoa. Hori ere gauza oso interesgarria guretzat hor Gipuzkoak antolatzen duena. Hor ia, hor ere, antolatzaileek deitzen dituzte jokalaria eta izpiritu horretan, bikoteak parekatzea eta pentsatzen dut momentuko dela lehiaketarik interesgarriena pilota edo kirol mailan. Bikote guziak parekatuak baitira eta joko-mailan interesgarriena hau ateratzen dela.

Esandako aukera guzti horietatik zuri denak gustatzen zaizkizu ala bada bakarren bat, adibidez, elkartean astero harremana daukazu horrekin jardutea, bai ...

Pentsatzen dut badela dena, dena lotzen baita. Elkartekoa oso garrantzitsua da lagunekin-eta jokatzeko, baina nire kasuan, adibidez, elkartetik atera eta beste mailan batean jokatzeko aukera ukaitea, ba Kutxarekin edo beste horrela, ba, federazio edo selekzio batekin, ba, horrek ematen du aukera ere, ba, maila batean jokatzeko bikote batekin eta beste goi mailago batean beste jokalaria batzuekin. Pentsatzen dut hori dela, ba, interesgarria, baina gero ez dugu hautatzekorik. Denetan jokatzen dugu.

Baina, beno, denetan gustura edo denak gustuko.

Bai, bai, bai. Bakoitzak ekartzen du bere gauza, baina bai, bai.

Ondo, ondo. Hortik segituko dugu. Entrenamenduak nola antolatzen dituzue zuek elkartean?

Alors, guk baditugu, guk elkarteka egiten ditugu. Elkartekak ordaintzen du trinketa, guk xantza badugu, ez da neska guztiena, baina gizon bat heldu da gurekin astero, ba, astean behin entrenatzen gara elkartearen izenean, beraz, hor da astero gurekin, ba, gutaz

arduratzeko. Gero partiduetan, ba, bakarrik ateratzen gara, ya hor aski handiak gara, kar, kar, kar, eta hor gure burua kudeatzeko.

Gero, ba, besteak dira federazioko entrenamenduak, baina horiek ya bakarrik Munduko Kopa bat edo txapelketa bat jokatzen delarik. Ba, azken bizpahiru hilabeteetan hor ya entrenamenduak eta hor astean bi-hiru aldiz, dependitzen du entrenatzaileak.

Esan duzu neska gazteen arduradun ere bazabiltzala. Hor entrenamendua zer da teknifikazio edo selekzio moduko bat?

Ez, ez, ez. Alors, elkarte mailan dira, Donibanen nik baditut sei gazte, Donibane Lohitzunekoak, eta heldu direnak asteazkenero elkartearen izenean. Ez dute oraindik maila txapelketan ateratzeko, baina egun batez.

Zenbat urte dauzkate?

Badituzte 9-10 eta zaharrenak, ba, 16-17. Eta, gero, duela gutxi federakuntza hasi da gazteentzat antolatzen oporretan ikastaldi egun bat pilota, ba, trinketeko egun bat, oporraldi guzietan horrela egun bat. Beraz, Xixilirekin gu arduratzen gara entrenamendu egun bat emateaz.

Ondo, ondo. Eta hurrengo galdera entrenamendu eta lehiaketekin lotuta jokatzeo materiala. Esan nahi dut paletak eta pilotak zer iruditzen zaizkizun. Oso ezberdinak dira. Hiru behintzat erabiliko dituzue.

Bai. Ba, orain arte bi, eta orain ezker horman sartu garenez, ba, hirugarrena. Materiala, ba, berdin, e, nik elkarte nahiko ona dut, beraz, baina ez dugu ... Nire lehen pala eskaini zidaten, baina, gero gure kontu e, materiala erostea eta lortzea. Beraz, bai, hiru palekin.

Esan nahi dut pisua eta pilota ezberdinak eta horiek ondo.

Bai, bai. Bai, pilota da.

Bai, pilota da, baina ...

Bai, ezberdina da, baina gero praktikarekin ... Bai, bai, bai, ezberdina, baina funtsezko gestua eta ukaldiak ez dira, ez da joko hain ezberdina. Gero bai, moldatzea eta batez ere maila ematea beste modalitate batean hori zailena, baina beti bezala entrenatuz gauzak lortzen dira.

Bai, bai, eta pixka bat gehiago ibiliko bazinatekete ezker horman, beno!

Gero hori, behar da entrenatzea, seriosasuna ematea eta denbora atzematea. Ezker horman egia da Kutxatik aterata ez dugula partidurik.

Eskerrak!

Eskerrak ez!

Ez, ez naiz ari txarrera, baizik maila ona ematen duzula.

Bai, bai, baina azken finean ezker hormarena da ukaldia ukaitea. Ongi kolokatzea, gestu ona ematea, baina trinketea baino joko gutxiago ematen da. Beraz, pentsatzen dut, nire iduriko, nahiko errazki pasatzen dela trinketetik ezker paretara, ez eta ezker paretan jokatu luzaz eta trinket batean sartu. Pentsatzen dut denbora gehiago eskatzen duela paretetik eta denekin moldatzeko eta pilota hutsean edo balin horretan jokatzen oraino denbora gehiago. Baina, gero, ezker paretara, ba bai, gero guk ez dugu entrenamendurik egiten denbora eskasaz eta hori, baina gero jokatzean ba bai.

Eta esan duzu lehiaketak ... Beno, galdetu egingo dizut hala ere: nolakoak nahiko zenituzke zuk lehiaketak? Esan duzu jokatzen dituzun horiekin nahiko konforme edo ... Esango banizu lehiaketa eredu bat, edo bat edo gehiago e, nolakoak nahiko zenituzke?

Nik pentsatzen dut aski. Lehiaketa mailan gauzak ongi antolatuak eta ongi finkatuak direla. Ba hori, zure elkarteko lehiaketa maila, gero hor pentsatzen dut, ba, guri dela izpiritua ematea, adibidez. Batzuk egiten dutena da elkartetik atera eta maila duen beste neska batekin, ondoko elkarteko batekin, jokatzea. Nik hori pena atzematen dut. Nik atzematen dut, ba, justuki behar dugula atxiki hori, ba egin elkarteko txapelketa eta egin elkartean den bikotearekin, ya zerbait lortu edo ez lortu, eta gero ya hortik atera eta aukera badugu beste maila bateko lehiaketa horietan parte hartzeko. Nik hori pena atzematen dut, ba, neska batzuk ez jokatzea izpiritu horretan. Orain ia gure adinean arribatuta, erran dugun bezala, txapelketa bat irabazi edo galdu, gure adinean horrek ez du aldatuko, baina interesgarriagoa atzematen dut zure elkartean egon, gazte batekin jokatu eta egitea jakinez, ba, elkarteko lehiaketatik kanpo badugula aukera egiteko mailako txapelketa bat. Beraz, ez, nik hori gustura eta behar dugula horrela gauzak lotuak atxiki behar direla. Aldiz, ba, gehiago, ba, neskek izpiritua aldatzea eta ez bakarrik beren interes garbia ikustea horretan, ba, lehiaketa eta elkartzea bi maila oneko neska lehiaketa irabazteko. Egon bakoitza bere etxean eta parte harrarazi ondo neskei.

Eta, adibidez, entrenamendu mailan? Gustura entrenamenduekin ere?

Ba nik hori erraten nuen, zeren eta gure elkartean badugu aukera ukaiteko trinketa eta hor astero ordu bat. Badakit ez dela neska guzien aukera, batzuk egoten dira edo entrenatzailerik gabe edo trinketeko ordutegiak atzematen, edo atzemateteko zailago dela, eta gero mundu txikia da ere, beraz, gero gure artean ere ondoko elkartean falta dela norbait eta joanen gara laugarrena egitera puntualki edo beste bat deituko dugu eta, ba, horrela ibiltzen gara urtean zehar.

Ondo. Eta honekin jarraituz zuri noiz iruditzen zaizu hasi beharko lukeela, edo has litekeela, neska bat pilotan?

Ez da adinik.

Nola eta zergatik? Tori, hiru!

Kar, kar. Nola, ba, gogoia duelako. Nik ikusten dut, nire kasu garbian, Donibanen, eta nire anaia ikastolan irakaslea da eta, ba, berak asteazkenetan bere ikastolan dituen umeetatik hamabost bat heldu zaizkio pilota eskolara eta xixteran jostatzeke-eta. Beraz, horiek heldu dira, irakaslea hor dute eta proposatzen du asteazkenetan denbora pasa eta heldu dira eta hamabost horietatik bizpahiruk, ba, gehiago emango dute eta segituko

dute eta horrela. Gero, beste gazteak lotzea, ba, horretan ditugu zailtasunak. Ba, gurek nahiago dute surfera joan edo futbolera edo errugbira orain, neskak baita ere. Beraz, gero aukera badute elkartera etortzeko. Gurea ongi antolatua da, beraz, gazte guztiei materiala emateko, ordutegia emateko, entrenatzailea, beraz, gauzak lotuak dira. Gazteak ez dira hain motibatuak, baina ...

Ondo, ondo. Eta zein iruditzen zaizu bide egokia, bederatzi urterekin edo hamarrekin edo, berdin zait hamaseirekin erabakitzen badu ere, hastea erabakitzen duen pertsona horrek jarraitzeko bidea izan dezan edo ez dezan izan utzi beharrik?

Zailtasuna da, ba hori, gazteentzat edo haurrentzat gauzak aski lotuak dira. Elkartean izena eman, entrenamendua asteazkenetan edo larunbatetan, eta txapelketa eta puntu. Gustukoa badu segituko du eta ez badu uzten du, baina gero pertsona, ba, heldu bat, 16-17 edo 20 urterekin pasa, zeren eta baditugu horrelako eskaerak ere, “nahi nuke pilotan hasi”, baina pertsona horrek ez du mailarik eta batzuk nola joaten diren korrika egitera, ba, nahi dute pilotan hasi, baina elkarrekin ez da ordutegirik eta ez da ahalik pertsona horiek laguntzeko. Beraz, hor galtzen da jendea, zeren eta trinket bat atzematea ez da erraza, gero ordaindu behar da, hori. Beti antolatzen ahal da, baina, batez ere, erraztasunik ez da horretarako. Beraz, jendea ez baldin bada sartua, ba, elkartean eta txapelketetan hasia gaztedanik, ba, inprobisatzea horrela heldu mailan eta pilota gustukoa izan eta jokatu, ba, ez da aukerarik. Eta galdea bada. Pentsatzen dut galdea badela, baina momentuko ez da antolakuntzarik ba jende horrek aukera ukan dezan.

Ondo, ondo, oso ondo. Hemen bada, beno, adibidez, proiektuarekin. Niretzat harrigarria da, edo zen, orain ya ez, baina emakumeen ikastaroetan 140-150 emakume badabilta eta federatuetan, ba hori, hasi 15 urtetik eta, ez dakit, igual kopurua ia erdia da.

Bai, zeren eta emazte horiek maite dute, ba, jokatzera, biltzea eta joatea korri egin ordez edo gimnasia joan edo beste zerbait, ba plazera dute etortzea ezker paretara eta bakoitza bere mailarekin, baina ez helburuarekin txapelketa egitea. Bakarrik kirola egitea, transpirazioa pixka bat eta lagunekin, baina Iparraldean ez da estrukturarik momentuko eta, uf, ez dakit egun batean lortuko den hori. Segur da horrelako jendea hurbiltzen bada pilotara, ba, atek zabaltzen dira gazteentzat, zeren ama bat sartzen bada, ba, igual bere umea berantago-edo pilotatik hasiko da, baina kontzientzia hori ez da Iparraldean. Ba egun batez agian.

Ondo, ondo. Berriz ere itzuliko gara lehengora. Osasunaz, pilotaren osasunaz galdetu dizudanean, hor azkenean eragile ezberdinak daude. Ba, elkarrekin hitz egin duzu. Hor, adibidez, hedabideak, irratia, egunkariak eta abar eta abar bat daude. Zer iritzi daukazu beraiek daukaten joeraz edo jarreraz edo ematen duten laguntzaz edo ematen ez duten laguntzaz-edo?

Ba, dependitzen du, kar, kar, kar. Nik autoan *Gure Irratia* dut frekuentzia bezala, beraz, segur da, ba, hor pilota aipatzen dutela asteburuetako emaitza guztiak, bai gazte, heldu, neska, mutil, torneo desberdinak ... Gero, hortik kanpo ez, frantses irratia ez dute sekula aipatzen pilota. Hor uda garaia da, beraz, pilota a tope aipatzen da gure kostaldeetan, baina kanpoko jende horientzat eta pilota folklorikoa.

Eta hor badauka lekurik emakumeak? Zuen partidak aipatzen dira udan, adibidez?

Hasten dira, baina nahi baduzu partidu horiek dira ezagutarazteko pilota, baina azken finean zer eragin duen pilotaren osasunari buruz, uf, nik ez dut uste gauza handirik ekartzen duenik, baizik eta, ba hori, gehiago espektakulua eta horrek ez du, uf. Beraz, bai, gizon ala mutil, haur edo neska, ikustea ...

Hurrengo eragilea da erakundeak. Adibidez, ba, udalak edo federazioak. Hor, goragoko horien jarrera edo zer iruditzen zaizu. Laguntzen duten edo ez, edo beno.

Bai. Ba, e, udalak ematen dio pilota elkarteari beste elkarteei ematen dien diru-laguntza, baina gero ez da sartzen bultzatzeko politika batean, pilota gure Euskal Herriko jokoa eta hori, ba, gure frantses Iparralde horretan ez da batere. Erraten nuena, udan bai, folklore gisa, hor bai, pilota alde guzietan, baina ez du ezer indartzen eta gero urtean zehar ez. Arrunt ahaztuak gara eta federazioak ere, ba, ez dakit. Aurten baditugu hauteskundeak eta igual aldaketa zerbait edo ekarriko da eta beharbada ere horretan beste politika bat behar litzateke pilota bere osotasunean bultzatzeko.

Ondo, ondo. Hirugarrena da pilota elkartek. Lehen esan duzu laguntzen dutela. Zer iritzi daukazu? Zuen kasuan esan duzu zuen elkartean gustura. Hor beste egoera batzuk ere badaude beste elkarte batzuetan?

Bai. Elkarte guziak bezala, ba hor, denak “benevole” edo giro horretan ari dira eta hor bakarrik jende motibatua eta buru-belarri ari dena, ba, pilota biziarazteko eta transmititzeko, gazteak lotzeko pilotari. Beraz, elkarteetan zinez bada hor motibazio bat pilotari zuzendua. Beste udaletxeetan eta departamenduko empresa horiek ez dutena batere.

Gure elkarte aspaldidanik hor da, pertsonak aspaldidanik hor dira ere, eta serio lanetan eta gazteei ematen diete laguntza asko eta gazte batek nahi badu pilotan jokatu, Donibane Lohitzunen, gutxienez, etorri eta ...

Adibidez, beste elkarte batzuk badaude zailagoak, edo ez dakit?

Zailagoak edo herri ttipietan, beharbada, diru aldetik, eta azken finean diruak gauzak errazten edo zailago ematen ditu dirurik ez delarik, beraz, pentsatzen dut elkarte batzuetan dirua ez dagoelarik eta trinketa behar delarik ordaindu eta, ba, ez dutela beharbada aukera proposatzeko, ba, bai pala, bai eskuz, modalitate guziak gazteei. Beraz ...

Hor ere denetik egongo da.

Bai, eta gero pentsatzen dut ere zenbat jendek parte hartzen duen elkartean eta elkartearen bizian eta baldin badira bakarrik bizpahiru lanean hor astero elkarte biziarazteko, ba, horrek baditu mugak. Gure elkartean, ba, ya antolatua da, handiagoa, eta, beraz, lana banatzen da gu denen artean, bai gazteak entrenatzeko, bai dirua lortzeko eta emaitzak sartzeko asteburuetan, federakuntzarekin harremanak, bilkurak, lan guzti horiek egiteko.

Ondo. Hor beste eragile bat daukat jarrita pilotaria bera. Esan duzu pilotarien artean ere batzuk zu bezala elkarteko gazteekin lan egin eta beste batzuk, ba, nik asteburuan partida jokatu eta puntu.

Beste batzuk nire ustez ez, beste askok, beste gehienak eta hori da nire momentuko penarik handiena. Ezagutzen ditugu eta nire elkarte barnean badira pilotari biziki onak eta famatuak eta internazional mailan goi-mailako jokalaria, bai, modalitate askotan, eta ez direnak agertzen. Ez direnak agertzen ez bilkuretan baina ez eta ere gazteak entrenatzeko eta hori pena handia da. Haiek ez ematea euren denboratik pixka bat, zeren eta niri bezala, ba, elkarrekin dituzte ordaintzen haien entrenamenduak, haien ordutegiak, materiala, eta, beraz, atzematen dut hori dela kontzientzia pertsonala, edukazio pixka bat ere, ez dakit horretan sartzen den. Hartu, hartu, hartu, hartzen dute asko eta momentu batean, ba, gutxiengo bat eman behar da eta hori da falta handiena.

Ondo. Bosgarren eragile bezala dauzkat jarrita ikusleak. Ikusleen jarrera edo iritzia.

Ba, kar, kar. Iritzia ez dakit, ikusleak ezagutzen ditugu. Ikusleak gu gara ez garelarik jokatzeko, kar, kar, eta bestenaz, e, hurbileko jendea, baina egoten da beti jende ezaguna eta pilota familiako jendea azken finean. Beraz, denak hor, pilota gustukoa dugu, ikusle gehienak ere pilotariak gara edo izan gara, edo arduradunak dira. Ez da hor kanpoko jende anitz izaten.

Jendetza handirik ez da biltzen.

Ez, ez.

Oso ondo. Bukatzen joateko, esan duzu lehen folklore bezala erabiltzen dela, adibidez, pilota udan. Beste dimentsio bat daukat kulturarekin lotuta jarrita. Iruditzen zaizu hiri batean edo herri batean jaiotzeak, jaiotzen zaren lekuak, eragin dezakeela zuk esateko “nik pilotari izan nahi dut” edo “nik...”

Pentsatzen dut baietz eta, beharbada, hor da Iparraldea eta Hegoaldearen arteko desberdintasun handia. Hizkuntza. Ni pilotaria naiz eta euskaraz mintzatzen, baina inguruan pilotari asko dira ere, ba, euskaraz hitz bat ere ez dakitenak erraten. Beraz, ia hori gehiago da kulturalki eta nola bizi izan dituzun gauzak eta nondik sartu zaren pilotara ere eta zer gogo duzun pilotarentzat. Egia nire motibazioa ez dela seguraski berdina, ba, ez kanpotar, ez baitira kanpotarrak, baina ez duena batez ere euskara mundu horretan ba ezer ikustekorik eta pilota ikusten kirol bezala, puntu, eta ez eta ere, ba, guk defendatzen ditugun gure baloreak.

Hori da bigarren galdera. Ia erantzun didazu. Oso ondo. Kulturak norainoko eragina dezakeen. Adibidez, zure kasuan esan duzu badaukala.

Bai, niretzat, ba, pilota, pilotan jokatzeko da kirola, baina baita ere gure herriko kirola. Beraz, euskaraz egitea eta trinket batean ba lagunari “ut”, “bai” eta banatu behar ditugun hiru-lau hitzak euskaraz ematea, ba, ni pozten naiz. Hor ba Kopako munduan besteek ez dakite euskaraz eta gauza berak frantsesez egin beharko da. Niri dolu zait, baina besteek ez dakite eta horrela da. Beraz, kulturak ere badu eta Iparraldean ez da batere ... Hegoaldean herri txiki batean ezker pareta ukaitea eta ia, ba, ekartzen du bestentzat, besta guztietan baduzue pilota partiduren bat. Guk ya herriko bestetan ez,

pilota ateratzea herriko bestetan kasik ez da ikusten edo barnealdeko bestetan. Guretzat ya ez. Mundu oso ttipia da eta mundu ttipi horren barnean mundu guziak ez du kontziente berdina, ba, pilotarekiko, ez?

Eta hirugarrena daukat jarrita ikasketa maila, baina ez naiz ari esaten ikasketa maila ba “ni irakaslea naiz eta zu informatikaria”. Gehiago agian, ba, ez dakit, ezagutza edo guraso batek bere seme-alabei, alabei kasu honetan, transmititzeko eragin ote dezakeen bere ezagutzak edo bere bizipenak.

Ez dakit, e, pilotan ez dakit.

Esan nahi dut nik nire alabari pilotarako bultzadatxo bat eman ote diezaiokedan, ba, beno, nik ezagutzen dudalako. Azkenean, zure kasuan izan zitekeen ezagutza aldetik: aita zebilen, anaia zebilen, ...

Pentsatzen dut hori ba ez bada etxean norbait edo hurbiletik edo momentu batean eskolan gurutzatu zerbait edo lagun bat, baina ez da, pilota ez da ezaguna, beraz, ez da batere hedatua. Ez daiteke horrela erori pilotara ez bada nonbait helduleku bat. Bai, eta hori, bai.

Azken-azken-azkena. Ni oso gustura nago, e. Azkena da esan duzu eskubaloia egin izan duzula, eskia zure kabuz, lasterketaren bat edo beste mendian, ... Zer ezberdintasun ikusten dituzu zuk pilota eta beste kirolen artean, ba, adibidez, lehiaketan, entrenamenduetan edo bai materialean ere? Egokitzapen horretan.

Nik, déjà, biak luzaz segitu ditut, eskubaloia eta pilota. Eskubaloia joko kolektiboa delako eta pilota, nahiz eta bi izan, gauza aski indibiduala izaten da eta, beraz, niretzat luzaz inportantea da, beti inportantea izan da ba hori, ba, bietan parte hartzea, ba, bietan bi giro desberdin direlako eta talde kirol batean ere gustura ibiltzen garelako.

Gero, lehiaketa mailan, ba, biak ezin dira eraman seriositasun berdinarekin, beraz, nik beti lehentasuna eman diot pilotari, zeren eta pilotan ezin duzu joan eskubaloira eta pilotako laguna utzi. Aldiz, eskubaloian, ez bazara ateratzen beste lagunak hor dira jokatzeko.

Eta entrenamendu mailan ere. Pilotan, ba, ateratzen gara eta ordubetez jokatu trinketea eta kito. Aldiz, eskubaloian ya entrenamendu fisikoak eta bada beste seriositasun bat pilotan momentuko ez dena edo gabe egiten ahal dena. Ahal duzu pala hartu ordubete astean eta txapelketara atera. Ez dut erraten ongi dela, baina momentuko egin liteke. Edo bostetan partidua, bost gutxietan arribatu, sartu eta jokatu. Beste kiroletan ez da posible, ya behar duzu lehenagotik etorri, berotu eta gero hasi. Beraz, pilotak ere baditu horrela bere akatsak eta bere horretan eta nik eskubaloiak ekarri dituen.

Oso ondo. Ba, iritsi naiz azkeneko galderara eta da ea espero zenuen beste gairen bat ateratzea eta ez dizudan aukerarik eman edo zerbait gaineratu nahiko zenukeen gai honen inguruan edo ...

Ez.

Bestela, egia esan, eskerrak eman berriz, gainera, Donostiara gerturatuta eta kexatu egingo gara eta itzali egingo dut grabagailua.

LANDA EGUNEROKOA

Izena: Ekiñe

- Elkarrizketa lotzeko lehenengo proposamena luzatu nionetik hilabete batzuetara, baina lotu genuen hitzordua. Gainera, Donostian bildu ginen, erdibidean.

1.elkarrizketan

- Elkarrizketarekin hasi aurretik burutzen ari naizen lana kokatu diot eta azalpenak eman.
- Bera lasai xamar sumatu dut, nahiz eta biok patxada handiagoarekin aritu elkarrizketak aurrera egin ahala. Nik ere ez daukat hainbesteko konfiantzarik, ez beste batzuekin adinakoa, behintzat, berekin.
- Oso gustura amaitu dut eta elkarrizketa polita irten dela iruditu zait.
- Kontatzeko bizipen asko ditu eta goi-mailan dabilen arren etengabe hitz egin du oinarriaz eta horko sustapen lanaz. Bereak baino gehiago kezkatzen du pilotaren etorkizunak antza denez. Sorpresa atsegina hartu dut horrekin ere.
- Hurrengo hitzordu baterako ere eragozpenik ez dit agertu. Elkar ikustekotan geratu gara.

Transkribatzean

- Erantzunetan ematen duen irmotasunak eta ideiak nola bizi dituen sentitzea atsegina egin zait.
- Elkarrizketaren ostean aho zapore ona geratu bazitzaidan orain are hobea. Bai horixe!

2.elkarrizketan

- Elkartruketa aurrez aurrekoa beharrean posta elektroniko bidezkoa izan da.
- Ez dit desadostasunik agertu bere elkarrizketan jasorikoarekiko. Adostasuna agertu dit eta informazio balekatzat jo.

IV. ERANSKINA

EZTABAIDA TALDEKO TRANSKRIPZIOA

EZTABAIDA-TALDEA: 1. BILERA

Partaideak: Argia, Aitziber, Haizea, ~~Hone~~ (bezperan abisua) eta Martxeli.
Eguna eta ordua: irailak 17, asteartea, 18:00, Potxoenea, Usurbil.

Nire asmoa da gaiari buelta batzuk ematea, bakoitzak heldu nahi dion lekutik eta heltzen dion lekutik. Esan nahi dut, ez da azterketa bat eta bakoitzarena da ongi etorria eta, gainera, zilegi. Alde horretatik, behintzat, lasai egon. Ni ere lasaitzen joango naizela espero dut eta hortik aurrera, ba, zuek ikusi. Nik ordenarik ez dut jarriko, honbre, ba, saiatuko gara beti bezala ba inori hitzik ez jaten, esan nahi dut, e, ba, beno, txandak errespetatzen. Besteak beste, gero transkribatzerakoan ez edukitzeko halako zailtasunik. Beno, zuek ikusi, ez da derrigorra ere zera denetan iritzia ematea edo ez, ba, beno, segun nola sentitzen zareten ba nik uste dut nahiko helduak izango garela ia erabakitzeke zeri bai, zeri ez edo dena denari bai, edo... Hor askatasuna totala da. Ia nire speecha bukatuko dut. Orduan, bukatu aurretik, nire asmoa da etxeko lana edo jarri nizuena, lehenengo hasiko gara horiekin eta, beno, gero beste bide batetik segitzea, baina asmoa da, azkenean, gaiari buelta batzuk ematea zuenetik.

Hasi aurretik, nire aurkezpena, badakizue, ni Uxue naiz eta hori dena. Orduan egingo dugu errondatxo bat esango dituzuena zuen izenak, nongoak zareten eta gero kirolarekin eta pilotarekin zer lotura eduki duzuen; bai beste kirolik egin duzuen, nola, eta pilotarekin berdin. Ea, nondik hasiko gara? (begirada bat botaz denei).

Aitziber. Ni Aitziber naiz, ez dakit oso ondo nongoa naizen.

Haizea. Horixe esan behar nuen nik ere.

Kar, kar, kar.

Aitziber. Bai, ez? Zuk ere problema berdina. Ez dakit, Lasarte, Usurbil, beno, Usurbilera orain dela gutxi etorrita, lasartearra igual gehiago. Nik kirola egin dut gagnetatik eta konkretuki Lasarten saskibaloia egiten genuen, asko, bai, hogeita ez dakit zenbat urtera arte. Eta niri pala beti gustatu izan zait asko, baita ere, frontoi baten ondoan bizi izan naiz txikitan eta orduan ez dakit horregatik, eta bestela ba lehenengo kontaktu formala, ba, hemen, Haizearekin orain dela hiru urte edo lehenengo ikastaro hartan.

Haizea. Hau da hirugarren urtea, bi urte ez?

Aitziber. Palarekin, e? Eta bestela lagunekin palan ibiltzen eta, ba, egia esan, askotan. Bai, beti, ba, beno, gustatu izan zaidalako, e. Ondo?

Oso ondo.

Aitziber. Nahikoa?

Haizea. Beno, oso erridikulua da bakoitzak bere burua aurkeztea, e.

Kar, kar, kar.

Aitziber. Ez dakit nongoa zaren, Haizea!

Haizea. Beno ba. Ba ni Haizea naiz, jaiotzez Hernanikoa nahiz eta orain, gaur egun, Zubietan bizi naizen eta Usurbilen etortzen naiz noizbehinka. Kar, kar. Ez, broma zen. Palarekin, badira ia urte batzuk palan, ez dakit zenbat urterekin hasiko nintzen egia esanda, ba, DBHn edo horrela. Eta gaur egun, ba, naiz federatua kirolari bezala, entrenatzailea gazteekin, paleta ikastaroko emakumeen partaidetzan entrenatzaile eta hori. Bai, ezta? Uste dut denak esan ditudala. Eta klubeko arduradunetako bat, enmanorratzen direnetako bat, kar, kar.

Argia. Zer, Usurbilgoa?

Haizea. Ez, Hernanikoa.

Kar, kar, kar.

Argia. Beno, ni Argia naiz eta nik ere kirola egin izan dut, eskubaloia, eta palarekin, ba, hori, berdina. Jolastu izan dut eta lagunekin eta horrela eta Haizearekin hasi nintzen lehenengo gauza serioa.

Haizea. Serioa? Kar, kar.

Argia. Beno, hor lotura hori edukitzen palarekin bai. Kar, kar. Eta, bestela, ba, horixe.

Oso ondo.

Martxeli. Kaixo, ni Martxeli naiz. Palarekin eduki dudana lotura betikoa izan da. Etxe ondoan bagenuen frontoia eta etxean beti palak eta pilotak. Beti izan dira, aita oso pilotazalea zen. E, suertea izan dut, Uxue eduki nuen.

Ui, hori aspalditxo, aspalditxo zen, e, bost bat urte.

Martxeli. Lehenengo Emakumea Pilotari fundamentuzko talde horietan. Espero dut aurtan ere ateratzea, ez dakigu aterako den, momentuz inork ez digu ezer ere esan.

Haizea. Aterako da, aterako da.

Martxeli. Ondo. Beno, ia, ba ateraz gero ea niri ordutegia ondo zeratzen zaidan, asteazken arratsaldeetan. Eta suertea izan dut baita ere, ba, alaba palista atera zaidalako. Orduan, beno, denetik, nik jokatzeko dut afizioz eta gero tokatzen zait ikusle ere eta oso gustura. Eta Hernanikoa naiz eta Hernanikoa bakarrik. Ni Hernanin jaio eta Hernanin bizi. Hemen...

Kar, kar, kar.

Eta zu Usurbilgoa bakarrik, ezta, Argia? Deskafeinatuak beste batzuk bagaude.

Kar, kar, kar.

Oso ondo. Ondo, ia hasi zarete berotzen. Hasiko garena da, nire asmoa da hastea etxeko lanak aztertzen (B.O. Aldi berean orriak banatzen hasi nintzen, diagramak ematen beraiei).

Aitziber. Ez zenuten problemik izan ordenagailuan hau egiteko?

Haizea. Bai.

Martxeli. Problema ni naiz, ez ordenagailua.

Aitziber. Hori da, baina, jo, niri esan zidaten horretarako programa bat dagoela eta ni hor, beno, fletxak hartu, borobilak jarri...

Nahiko ondo bidali zenidan. Nik ez nuen asko egin, e!

Martxeli. Nik testua jarri nuen eta Uxuek forma.

Haizea. Joe, ze txapa! Kar, kar, kar. Joe, tía (B.O. Aitziberri begira)

Kar, kar, kar.

Aitziber. ¡Qué chapa! Eske, klaro, orria horrela utzi eta non idatzi behar dugu?

Martxeli. Joe, uuu.

Oso ondo. Hauek dira zuen...

Aitziber. Eta ez nuen dena idatzi, e, hor baneuzkan fletxa gehiago.

Martxeli. Ze ideia onak, e!

Hauek dira zuen etxeko lanak, nik gustu handiz jaso nituenak.

Haizea. Ui, kar, kar, zer diferenteak denak.

Martxeli. Joe, jo baietz.

Argia. Ari nintzen begira ea potoloenak zein ziren eta dudan egon nintzen batzuetan eta hemen ikusi dut gehiago daudela.

Ba, lasai, ez da notarako, horrekin lasai egon. Orduan, nire asmoa da, nik jaso ditut eta pixka bat begiratu diet, baina kasik ni hastea baino esplikatzen bakoitzaren eskeman zer azaltzen den nik uste errazagoa dela norberak norberarena azaltzen badu, edo pixka bat nondik jo nahi zuen eta gero iritziak ematea. Eskema bat hartu, pixka bat aztertu eta gero tertulian, ba, iritziak edo zerak ematen baditugu. Eta eduki garbi denak daudela ikaragarri ondo, kontziente naiz denbora gehiago eman banizue, eta patxada gehiagorekin, igual, gauza diferenteak aterako zirela, ez hobeak, ez okerragoak. Beno, momentuaren arabera ere bada. Orduan, ez dakit, zeinek hasi nahi du?

Martxeli. Ni, egin lehenengo eta punto. Beno, nik ama pilotaria ikusi nuenean, hor ikusi nintzen ni eta orduan pentsatu nuen, beno, ni horretatik abiatzeko, ba, hor kokatu behar nuen nonbait. Jarri nahi nuen nire burua nonbait eta hasi nintzen, beno, federatua eta federatu gabea. Hor gogoratu nintzen, adibidez, Ibonerekin edo Eiderrekin, adibidez. Ama pilotariak dira biak eta federatuak. Federatuetan ere bi aukerak ikusten nituen. Orduan, egin nuen bote prontoan eta ti-ta batean.

Oso ondo iruditzen zait.

Martxeli. Orduan, federatuen artean egin nuen pilota munduan aritzen dena eta bestelakoetan ere aritzen dena. Horretan jarri nituen, klaro, nik beti jendea jartzen dut adibideetarako eta orduan gogoratzen naiz jendearekin eta haiekin. Badaude batzuk buru-belarri horretan aritzen direnak eta lanean ere bai eta beste batzuk, ba, lana bestelakoa dutenak baina horretan ere aritzen dira.

Orduan, nik galdera bat daukat, e. Bestelakoetan hori zer da, lana bakarrik edo izan liteke musikan?

Martxeli. Bestelakoetan sartu dut lana edukitzea beste zerbaitetan eta horretara gero afizioz dedikatzea. Horretaz gogoratu nintzen, baina, beno, litekeena da.

Ez, ez.

Martxeli. Eta, gero, federatu gabeetan, por supuesto, ni. Maiztasunez jokatzen duena, badago jendea denboraz nahiko ondo dabilena eta maiz jokatzen duena. Aukera badu, ba, astean bitan edo hirutan, eta gero nago ni, ba, naiz noizbehinka jokatzen duena, ba, astean behin ahal bada. Gero, segun, apuntatzen banaiz txapelketaren batera edo saltsaren batera, ba, hor egoten naiz gehiago jokatzen. Eta, gero, ama pilotari bezala bi aukera ikusten nituen baita ere. Gehiago egon litezke, baina, beno, nik momentuan bi. Seme-alabak pilotan dituena edo seme-alabak beste kirolean dituena. Nire kasuan ere, pues, badaukat alaba pilotan eta semea eduki nuen beste kirol batean. Orduan, pilotan izanez gero izan liteke eskupilotan edo palan, izan litezke, beno, hor jarri nituen biak. Gero, beste kirolean ibiliz gero, hor jarri nuen ekipoko kirol batean, binakakoan edo banakako kirolean. Gero, egia esan, adar gehiago atera litezke hemen eta, baina, beno, momentuan nola ulertu nuen astelehenerako nahi zuela eta nik momentuan hor nengoen ordenagailuan, ba, beno, ti-ta. Hori da pixka bat nirea, nik nire burua jartzen nuelako hor, ez? Nigandik abiatuta, ba, horiek atera nituen.

Zer edo zer badaukazue esateko? Gaineratzeko? Ba nik galdera bat daukat. Ni izango naiz pixka bat zirikatzen hasiko dena. Noizbehinka jokatzen duena eta maiztasunez jokatzen duena bereizi dituzu. Zeren baitan dago noizbehinkakotasuna eta?

Martxeli. Beno, tiraka ari zara. Beno, beti ere denbora librearen arabera, klaro. Ama pilotaria izanda, ba, ni gaur egun ez naiz ama letra maiuskulaz. Banaiz, banaiz, baina, beno, umeak txikiagoak direnean, ba, beti dedikazio gehiago ezta? Nik ia ez daukat hainbesteko dedikazioa ama bezala eta orduan, ba, badaude batzuk edo lana dela edo lanik ez dutenak, ba, maiztasun gehiagorekin jokatzen dute. Denbora libre, nik hor jarriko nuke denbora librearen arabera. Gogoia beti bada eta, gainera, bizio bezala ere hartzen da. Ni, behintzat, batzuetan joaten naiz, eta klaro, noizean behin joanda igual egiten ditut bi ordu eta erdi eta, klaro, ba gorputzak, hurrengo egunean ba... eta gero da,

ba, adina ere bai, ba, denbora gehiago daukazunean, ba, adinak eta gero halako txulak gara, ba, ni behintzat halako txula, ba, ez dudala berotzen eta sartzen naiz horrela, sana, sana eta gero ondorioak izaten dira. Rotura de fibras eta horrelakoak.

Beno, baina hori paseora joanda ere pasa liteke, e.

Martxeli. Bai, baina, beno, hor joaten zara antsia batekin, gaur daukat arratsaldea librea, benga. Orduan, ba, maiztasuna denbora librearen arabera, segun zer, ia kanpoan lana egiten duzun, seme-alaba txikiak daukazun,... zeren gogoa.

Haizea. Eta diferentzia dago seme-alabak pilotan eduki edo ez?

Martxeli. Diferentzia baden? Mmmm, beno, begiratu. Nik afiziotik begiratu nuen eta zer suertea, pilotan ibiltzea? Bai eskupilotan eta bai palan. Eta, egia esan, neska izanda eta palan ibilita, ba, orduan nago ia ba encantadísima. Diote batzuetan gure zerak, ez, gure proiektuak eta nahi gabe, ba, begiratu, ba, suertea izan dut eta, orduan, niretzako da gozada bat ikustea. Bai, pala asko gustatzen zait eta orduan, ba, beno.

Ondo, oso ondo. Hurrengora egingo dugu salto? Ondo iruditzen bazaizue. Ibonerena azkenerako utziko dugu. Bidali zidan eskema, ikusiko dugu, baina ni ez naiz ausartzen berea interpretatzera, beraz, kasik azkenerako uzten badugu, ba, hobeto. Zein da hurrengoa? Aitziber, zurea daukat esku artean.

Aitziber. Bale. Kar, kar, kar. Beno, nik... Zuk esan duzu lehen abiatu zinela zure burutik, ez?

Martxeli. Bai, nire burua jarri nuen.

Aitziber. Beno, ba ni abiatu naiz nire burutik eta bukaera ere nire burua izan da. Ez dakit, pixka bat egoista edo, ez naiz neure burutik atera.

Kar, kar, kar.

Aitziber. Bai, egia esan, ba, hori, beno. Nik hori baita ere, ba ama pilotaria eta niri burura etorri zitzaidana izan zen, e, ama batek, beno, nik dauzkat hiru eta nahiko txikiak. Orduan, ni oraindik banaiz ama maiuskulekin, ez? Praktikamente, nire lana kenduta nire denbora guztia horrek jaten dit, ez? Orduan, beno, ba, ikastaro horretara joatea astean behin, e, ba zer suposatzen didan eta zer onura dituen niretzako eta zer desabantaila. Pixka bat, baina esaten dizuet, ikuspegi erabat, ba, ama baten burutik.

Hori ere behar da pixkat. Ama Aitzibertik.

Aitziber. Hori da, ni. Gehiago dira onurak, dudarik gabe, baina, beno, nahi baldin baduzue desabantailetatik hasiko gara, ez? Orduan, ba, beno, desabantailak, ba, okurritu zitzaidan momentuan, egoera ekonomikoa... Esaten dizuet, neuzkan hauek desglosatuta gehiago, baina, ez zitzaizkidan sartzen orrian eta orduan “que le den por saco”. O sea, ez zitzaizkidan sartzen!

Beno, egoera ekonomikoa esan nahi dut, ba, ez da nire kasua, baina, ba, ez dakit, baina imajinatzen dut ama pilotaria, umeekin lepo dagoena gehi langabezian dagoena, ba, beno, ba pentsatzen dut izan daitekeela oztopo bat, ez? Matrikula 50€ dira, ez da gauza

handia, baina, beno, behar da. Okurritu zitzaidan desabantaila bat hori, ez? Beste desabantaila bat, e, klaro, ikastaroan apuntatzen zaren momentuan konpromiso bat hartzen duzu, ez da ni joango naiz asteen bitan korrika egitera eta joaten ez baldin banaiz ez dago talderik edo ez dut zintzilikatuta uzten monitorea eta abar, ez? Beno, hori ere desabantaila bat da, ez, zeren agian asteazken, beno, guk asteazkenean egiten genuen, ba seme bat daukazu gaixorik edo ez dakit zer edo badakizu joaten ez bazara hiru edo lau taldea gelditzen dela, ba, beno, ez? Ardura alde horretatik baita ere badauka desabantaila bat. Askoz errazagoa da nahi dudanean joango naiz piszinara edo ez dut inor konprometitzen, ondo datorkidanean joango naiz eta bestela ez, ez? Beno, orduan desabantaila bezala. Eta desabantaila nagusia, ba hori, ba, dela berriro denbora kentzea, ez? Beno, ba nik hemen, ama bezala, nire denbora daukat okupatua zati bat eta bestea librea, ez? Okupatua lana kontsideratzen dut, nahi eta nahiezekoa. Eta, beno, ba, librearen banaketa ere pentsatzen hasita esaten nuen librea daukagu gutxi, baina, gainera, oso banatua. Ikasi behar baldin badugu, ez? Ni orain ingelesa ikasten ari naiz, lagunekin kafe bat hartu nahi baldin baduzu, bikotea, ba, ez dakit, zer edo zer, ... Familia ere bai, nik guraso batzuk ditut eta ama beti ni joateko zain dago, ez? Beno, enfin... Orduan, ba, beno, azkenean denbora libre hori ere benetan oso murrizta da eta, beno, libre horren zati bat izango litzateke kirola, baina pentsatu zer zati txikia den, ez? Eta horregatik gero, ba, kirola desabantaila bezala pentsatuta edo modu librean egin, zure kasa, lehen esan dizuedana, edo ardurekin, ez? Ba, taldearekiko eta abar. Beno, orduan denboraren desglose hori, ez? Eta, gero, onarpen soziala, joe, niri interesatea iruditzen zait.

Niri ere bai, nik esplikatzea nahi dut.

Aitziber. Beno, bai, ez dakit nik ere oso ondo, baina, beno, ez da igual nire kasua, ez, baina bai ikusten dut pala askorentzako oso kirol maskulinoa dela, ez? Nik entzun ditudalako komentarioak, e. Orduan, ba, beno, ez dakit zer punturaino e, pixka bat rizando el rizo, e, baina, beno, izan liteke komilla tartean gaizki ikusia izan daitekeela depende zer lekutan edo ze jende tartean? Pues, igual, baina da, ya...

Baina zerbait aditu duzulako?

Aitziber. Beno, bai, bai. Zentzu horretan, ez? Ez dakit, ez dakit gaur egun ez ote dagoen hobeto ikusia ba korrika egitea, beno, hobeto ikusia, ezta ere horrela, e. Egia esan, esaten dizuet, hau dena esaten dut oso, beno, con puntillas. Beno, gaur egun zer kirol praktikatzen da gehiena? Gimnasiokoa, ez? Edo fitness, pilates, aerobik... ez? Beti hor badago forman egotea tal, baina, beti eredu estetiko baten inguruan eta nik bai uste dut pala pixkat horren kontra dagoela, ez? Orduan, ba, beno, hor ikusten diot handicap bat edo kontrakoa, e, edo gustatzeko arrazoi bat, baina beno, zentzu horretan. Beno, hemen plazan ibili izan garenean entzun izan ditugu gauzak, ez? “Zer egiten duzue hor?” edo, beno, enfin... Ez, beno, horrela, e. Esaten dizuet, e, ez dut ere uste gaizki ikusia dagoenik palan ibiltzea, para nada, e, ez zait hori iruditzen, baina, beno, ba hori, ba igual gauza batzuk entzuten direla ba igual aerobik egingo bazenu entzungo ez zenituzkeenak.

Haizea. Igual gaur egun jendea ohitu da gu hor ikusten, baina lehenengo aldiz frontoian jarri ginenean...

Aitziber. Bai.

Argia. Baina, niretzako gehiago izan dira kontrakoak igual, ba, frontoia okupatzen dugulako, ez emakumeak ari garelako jolasten, baizik frontoia okupatzen dugulako igual.

Haizea. Ez, ez. Hemengo txikiteroek egiten dituzten komentarioak...

Aitziber. Bai, nik uste horrela dela, nik uste baietz. Bai.

Argia. Beno.

Haizea. Lehenengo hilabetean entzun ziren hor, “hara, hara,…” kristorenak entzun ziren.

Aitziber. Bai, bai, “etxean ez daukazue lanik, edo?”.

Haizea. Zein ibiltzen da kalean ordu horretan?

Aitziber. Poteatzen dabiltzanak.

Haizea. “Ez al daukazue etxerik?”

Aitziber. “Etxean ez al daukazue lanik?” Beno, tontakeriak dira nahi baduzu, e, baina, beno. Beno, ez nizuke esango eragina, baina bai iruditzen zait hor dagoen gauza bat dela.

Argia. Ez, baina orain etorri zait komentario bat.

Bota dezakezu nahi baduzu, e.

Argia. Ez, baina atzo egin nuenean hau, beno, jaso nuenean eta hori ba ama zegoen eta “jo, ama, ez dakit zer idatzi eta ez dakit zer” eta nola galdetu nion? “Zuri gaizki iruditzen zaizu, adibidez, gu palan aritzea eta?” Eta, klaro, nire aurreneko zera zen banatzea umea txikiak dauzkana edo ume handiak dauzkana eta orduan hasieran horrela ari nintzen, baina, kontzeptu batzuk ateratzen zitzaizkidan denak elkarrekin lotzea zeudenak. Orduan, azkenean, beste era batera egin nuen eta esan nion “adibidez, ni palara joaten banaiz zuri gaizki iruditzen zaizu?” eta “bikoteari uzten badizkiozu umeak...”.

Aitziber. Klaro, bai, bai, hori da.

Argia. Edo ya, o sea...

Aitziber. Bai, hortik aurrera libre. Bai, bai. Beno, ez dakit, igual da gauza bat buelta batzuk eman daitezkeena, baina, beno. Aurrera egingo dugu?

Bai, bai, zuk jarri erritmoa.

Aitziber. Gero, beno, onurak. Nire kasu pertsonalean onurak askoz ere gehiago dira, beno, klaro, bestela ez ginatke joango. Beno, onurak, okurritu zitzaidan hori ez, ba, sozializazioa. Beno, ni, adibidez, Usurbilera bizitzera etorri berri naiz, ez? Eta, beno,

nik palaren kontura ezagutu dut hemen jendea, ez? Beno, adibidez, Argia, eta beste batzuk ere bai. Beno, ba ondo dago, batez ere, ba, bizitzako, igual, ama izanda, eta ume txikidun ama izanda, ba, denean fase bat, ba, hori, ba, pixka bat ezin duzuna asko sozializatu, ez daukazulako denborarik, ezta? Lehen esaten genuen, gelditzen zaizu umeak eraman, ekarri, kirola, joan eta orduan hortik aurrera, egia esan, aukera gutxi, ez? Gero, onurak, ba ni esparru pertsonala errekueratzen jarri dut, ez? Beno, nik ikusten dut umeak handitzen doazen heinean, ba, pixka bat hasten zarela errekueratzen, ez? Hasieran ordu eta erdi hartzea iluntze batean pentsaezina da eta gero, bat-batean, hartzen duzu eta gero afaritara joateko ere hartzen duzu, eta, beno, dira gauza txikiak, baina, beno, egia esan oso gustura hartzen direnak.

Martxeli. Eta gero arratsalde osoak eta dena!

Aitziber. Gero arratsalde osoa, ez? Kar, kar, kar.

Hori noiz hasten da?

Martxeli. Hori ya nahi duzunean, e, beno, bikotea hor baldin badago nahi duzuna.

Aitziber. Kar, kar, kar. Bai, ez? Eta, gero, beno, konpentsazioa zuzena ere bai, ba, talde giroa ere bai. Gu, adibidez, oso gustura ibiltzen ginen eta pasatzen genuen bonba. Beno, Haizea zoratu egiten genuen, e, oilaskoa labean utzi eta hau eta beste, baina, beno, guk pasatzen genuen bonba. Orduan, klaro, esan nahi dizut aparte ya kirola egitea eta pala gustatzen zaizula esfortzu handia da neguan umeak utzi, etorri, esfortzua handia da eta orduan konpentsatu behar zaitu. Baldin bada ez daukazula giro ona, leku desagradable batean zaudela, ez dakit zer, ba, beno, igual erraza da uztea, ez? Nahiko, enfin... Leku atsegina jartzen nuen niri pertsonalki frontoi hori pila bat gustatzen zaidalako. Neguan, horrela, fokuekin, eta inor ez dagoenean.

Haizea. Kristoren hotza egiten duenean eta kristoren haizea eta “ea ez den etortzen inor frontoira”.

Kar, kar, kar.

Aitziber. Etxera joateko bueltan, kar, kar! Beno, niri, adibidez, leku txikiak, kiroldegiak eta beti, ba, ez, niri iruditzen zait gozada bat lekua. Adrenalina askatzea, por supuesto, ez? Zaude egun guztian zatoz lanetik, hau da gozada bat, kristoren terapia, talde-terapia eta terapia totala. Onurak? Ba, bikotearekiko, ba, indirektamente, ez? Hemen jarri dut, ba, ni hobeto, bikotea hobeto; bikotea aktiboagoa, berez, beste ikuspuntutik, ez? Niri gustatzen zait nire bikotea forman egotea eta aktiboago egotea eta nire bikoteari ni egotea ere bai, ez? Gero, bikotearekiko berriro denbora libre horren bion arteko banaketa. Ni etorri naiz palara umeak utzi ditudalako aitarekin, ez? Beno, orduan, ba, aipamen bat ba aitarik gabe hori ere beste problema bat delako, ez? Eta, gero, bikotearen pilotarekiko jarrera ona edo txarra pentsatzen dut, ba, eragin dezakeela. Baldin badaukazu esaten “zer egiten duzu palan, ez dakit zer”, ba, ez dakit, ez, gero zuk ematen diozu garrantzia, baina izan daiteke puntu bat, ez, ba pixka bat konplikatzeko edo. Eta, gero, onurak, ba, osasuna, ya kirola egitearena hori hartuta, onura fisiko eta psikologikoak. Beno, psikologikoa adrenalinarekin eta hori eta onura fisikoa, ba, beti. Eta nik eduki nuen rotura de fibras, baina ni ere zu bezala, ez berotu eta ez ezer ere eta beno, ba hori, berez dela aktibitate osasuntsu bat. Ba kirola egiteaz ari gara, ez?

Martxeli. Niri esaten didate “kirol biolentoa da” eta biolentoa palarekin jotzen badizut, baina... Bai, mugimendu indartsuak.

Aitziber. Bai. beno, ba, pixka bat horrela. Buelta asko eman nizkion, batez ere, ideiak sortu zitzaizkidan.

Eta, gainera, formatoa.

Aitziber. Bai, falta zitzaidan forma, enfin... Ez, baina, hori, ideiak, baina horregatik antolatu nituen onura/desabantaila, bi bloke horietan. Baina, beno, Argiak esan duen bezala, nik ere lehenengo ez dakit nola jarri nuen post- eta pre-, ibili nituen hor ez dakit zer eta, beno, azkenean, ba, horrela. Ordenatzeko modu bat, baina, beno, beste bat izan zitekeen bezala, ba, horrelaxe. Ez dakit.

Bale. Zuek badaukazue zer edo zer?

Martxeli. Nik desabantailak ikusi ditudanean pentsatu dut. Non desabantailak, non ikusten ditu? Eta gero hasi denean, ba, hasi naiz eta, beno, ba desabantailak ez, dira pixka bat alde iluna, alde iluna, baina, beno.

Aitziber. Bai, bai. Bai, es que desabantailak hitza bera ere igual ez dela, ez? Bai.

Beno, izan liteke.

Aitziber. Bai, zailtasunak edo.

Argia. Nik horixe jarri dut.

Aitziber. Azkenean, hori denbora gehiago kendu, ardurak hartu.

Haizea. Zuk ere horrela jarri duzu?

Argia. Bai, bai. Gainera, h-rekin jarri nuen.

Baina ez dago h-rekin, ez?

Haizea. A, baina zuzentzen ibili zara, e?

Ez, nik forma eman diot. Nik formatu lan txiki-txiki batzuk egin ditut, baina, beno, formatoa bakarrik.

Nik galdera bat daukat, Aitziber. Zuk jartzen duzunean kirola modu librean eta ardurekin.

Aitziber. Bai. Niri iruditzen zait, adibidez, nire egoera pertsonalean askoz errazagoa dela libre daukadan momentuan korrika egitera joatea, adibidez. Gustatuko balitzait egitea, klaro. Beno, ni ez naiz sekula joango, baina, errazagoa da. Edo ibiltzera joatea, errazagoa da. Ez duzu inorekin gelditu behar, ez duzu inor zintzilik uzten, e, ez duzu ordaindu behar, ez dakit, ez zara apuntatu behar,... Beno, txorradak dira, baina errazagoa da. Edo piszinarako zaletasuna edukiko banu, ba, orain daukat ordu erdi, ba,

piszinara noa. Hau da ordu bat, orduan aste batean normalean ondo dago, baina edozein astetan eduki dezakezu arazo bat: edo aita ez da ailegatu, edo umea gaixotu da, edo hotza egiten du eta katarroarekin zaude, edo, beno, ez daukazu gogorik, nekatuta zaude. Orduan, iruditzen zait dela pega bat kirola antolatuta egitea momentu horretan, e. Momentu honetan, adibidez, ba, niretzako, nola daukadan agenda hain estua, ba, beno, ba, hor hartu eta hor egin behar duzu, eta, beno, ba, zen hori, ba, berez, igual errazagoa da beste. Ba, niretzako ez, baina teorian. Orduan, ez naiz inora joaten eta ez dut ezer ere egiten ez baldin banaiz gelditzen, baina, beno.

Bale. Aurrera egingo dugu, edo? Ea zein da hurrengoa? Hurrengoa da Haizea.

Haizea. Hurrengoa naiz ni. Beno, nik Uxueren e-maila jaso nuenean, ama palaria, esan nuen.

Berriz ni? Kar, kar.

Haizea. Ez, berriz ni ez. Joe, iraila nola doan eta zen gutxien espero nuena ama palarien inguruan aritzea.

Kar, kar, kar.

Haizea. Ni hemen nire lana bilatzen eta ez dakit zer eta, bai, egia esanda ez nuen espero inondik inora eta pixka bat harrapatu nau horrela, pixkat arraro egia esanda. Eta, esan nuen, beno, ba, egingo dut aurrerago eta ya uste dut bigarren e-mail bat egon zela, azkeneko, etxeko lanekin eta abar eta orduan esan nuen, nola etxeko lanak egin egin behar diren, ba, pentsatzen hasiko naiz gai honetan. Orduan, ez dakit oso ondo zer egin dudak nik ere, baina, ikusten dut nire eskema dela guztiz diferentea atera dela. Egia da pixka bat zaila egiten zitzaidala, zeren zuek ama palari bezala hitz egiten duzue, baina ni oraingoz ez naiz ama eta, orduan...

Baina palaria bai.

Haizea. Bai. Baina, orduan, ba, nolabait ere beste pertsona batzuen irudi horretatik ari naiz hitz egiten, ez nire irudi horretaz, orduan, bizipenak baino gehiago da nik zer ikusten dudan edo zer perzibitzen dudan. Orduan, pentsatzen hasi nintzen ama palarien inguruan, lehenengo bost minutuak kri-kri, bai ez? Eta lehenengo etortzen zitzaizkidan bi hitzak, lehenengoa, eta nire buruarekin zer pentsatua ematen zidana zen, lehenengo seme-alabak etortzen zitzaizkidan burura. Bai, o sea, niri ama palaria etortzean, ba, entrenamendura baldin badator, ba, zeinekin utzi ditu umeak, nola antolatu da, zer egin du etorri ahala izateko? Ez, eta batez ere partaidetza ikastaroei begira. Baina, aldi berean, esaten nuen, seme-alabak etortzen zaizkidan moduan burura, ba, etortzen zait kirolaria dela eta horregatik jarri nituen bi hitz hauek goian, zeren ziren lehenengo bi hitzak burura etortzen zitzaizkidanak. Eta, orduan, hortik tiraka osatu nituen bi bloke hauek. Seme-alabekin lotuta, ba, hemen jarri ditudanak: zaintza, amatasun intentsiboa eta etxeko ardurak. Zaintza, nolabait ere, gaur egun, oraindik ulertzen dudalako seme-alaben zaintzaren ehuneko handi bat amen esku dagoela. Amatasun intentsiboa, ba, jarri dut ere bai, ba, horrekin oso lotuta, ez? Gaur egun oraindik guraso harreman horretan ama delako umeen zaintzan, heziketan, ardura bere gain hartzen duena, eta umea gaixotzen den momentuan ama delako etxean geratzen dena umearekin zaintzen. Hori ikastaroan pasa den gauza bat da. Etxeko ardurak jarri dut, ba, otorduak, garbiketa,

bestelako lanak ere ama palarien esku geratzen direlako. Gero igual matiz txiki bat egingo dut. Eta, beste alde batetik kirolariak. Esaten nuen, bale, ama palaria ama da, baina beste alde batetik kirolaria da. Orduan, zer ezaugarri edo ikusten nizkion, ezta? Ba, alde batetik, uste dut zuk aipatu duzula (*B.O. Aitziberri begirada zuzenduz*), taldeko partaide bat dela, beste alde batetik aktiboa, kirola egiten duelako, beste alde batetik dauzkala entrenamenduak eta partiduak eta, azkena, nolabait ere, daukala palari izaera. Nik esaten nuen, bale, gauza bat da pala, eta horregatik jarri dut ez da ziklista, baina ez dakit oso ondo definitzen. Zeren esaten dudana da, ama palaria izan daiteke, ez da ama ziklista. Ulertzen duzu? Igual da gehiago zurekin lotuta, zuk esan duzunarekin, zeren ziklista hartu eta badoa. Beno, ez dakit oso ondo zergatik jarri dudan hori horrela. Nolabait ere badaukagu beste izaera bat, pixka bat.

Zein?

Haizea. Hori da definitzen oso ondo ez dakidana, baina badaukagula iruditzen zait, beste izaera kolektibo bat edo.

Aitziber. Ziklista oso indibiduala da, baina imajinatu saskibaloia jokalaria bat.

Argia. Edo eskubaloia.

Aitziber. Hori da, efectivamente, efectivamente, bai.

Nire ama ziklista alabarekin ibiltzen da.

Martxeli. Kar, kar, kar.

Aitziber. Ya, baina ziklista batek karrera berak irabazten du, baina saskibaloiko jokalaria batek edo eskubaloikoak taldeak irabazten du. Nik uste dut badaukala. Ez dakit hortik zoazen edo.

Haizea. Nik ez dakit nondik noan, e. Okurritu zitzaidan zeren esaten nuen zer diferentzi dago, ze nire ustez badago diferentzi bat ama palari edo ama ziklista baten artean, edo ama saskibaloilaria, baina diferentzia zein den ez dakit. Horregatik jarri dut palari izaera zeren ez da ziklista. Baina, beno, ziklista esan nuen jartzeagatik, e. Baina da puntu bat ez dakidana oso ondo.

Ya, baina ama ziklista bat zuk pentsatzen duzu lehiatzen ari dena, edo ez, ama?

Martxeli. Edo por libre doana.

Argia. Edo segun kirola bakarrik egin nahi duen edo zerbait gehiago egin nahi duen.

Haizea. Es que gero pentsatzen jartzen nintzen eta esaten nuen, ziklista guztiak beraien artean badaukate izaera kolektibo bat, ez, ezaugarri batzuk betetzen dituzte, baina...

Argia. Bai, es que hori da. Normalean ez duela beste kirolik egiten, bakarrik ziklistak.

Kar, kar, kar.

Txirrindularia baldin bada...

Argia. Normalean bai. Txirrindulari bat futbolean ez duzu inoiz ikusiko, nik izan ditut kuadrillan. Bai, hala da. Egia da, nik koadrilan izan ditut ziklistak eta.

Haizea. Beno, ziklistekin sartzen naiz, ba, ez dakit ze ba, momentu horretan etorri zitzaidan ziklista. Kar, kar. Hauek dira bi bloke niri burura etortzen zitzaizkidanak, baina, ezin dut ukatu badaudela beste faktore batzuk ama palari horretan eragina daukatenak, direla enplegua, daukan heinean, ba ordutegiak eta abar; bikotea, beraien seme-alaben aita edo gurasoa edo dena delakoa, asko dependitzen dugulako bikoteaz nire ustez ama palariak. Entrenamendura etorri ahal izateko, eta ni entrenamenduarekin ari naiz, umeak, eta zuen kasuan, ume txikiak, norbaitekin utzi behar direlako eta normalean hor bikotearen papera egoten da, bikotea iristen ez den momentuan ama palaria ez doa entrenatzera edo bikoteak afaria daukan momentuan ama palaria ez dator entrenatzera edo bikoteak beste zerbait daukan momentuan, ba, ez dator. Orduan, eragina dauka. Eta, gero, ba jarri ditut hor beste hobbie eta ardura batzuk, ba, eragina daukatenak. Baina, aquí viene el meollo del asunto, nik esaten nuen, “Uxuek zergatik galdetu digu ama palaria?”

Martxeli. Joe, kar, kar, kar.

Haizea. Eta ez palaria den ama, zeren oso gauza diferenteak dira.

Bai?

Haizea. Bai. Ama palaria.

Esplikatu, mesedez. Nik ez dut hainbeste pentsatu. Ez dut denborarik eduki.

Haizea. Nik ere ez. Baina, pentsatzen jartzen nintzen eta esaten nuen, aber, e, ama palaria edo palaria den ama.

Nik jarri izan banizu palaria den ama?

Haizea. Nik eskema seguru aski desberdina egingo nuke.

Aizu, ba, egidazu.

Martxeli. Beno, aizua, horrek atzean badauka, baina hor daukazu atzean lekua.

Haizea. Beno, ez dakit zerbait esaten dudana.

Ez, ez, niri interesatu egiten zait.

Aitziber. Eta, zein da desberdintasuna?

Hori da, Aitziber.

Haizea. Ama palaria, ama priorizatzen ari garela.

Martxeli. Hori da. Eta kirolaria da, adibidez, Ibone. Palaria den ama.

Beno, baina Ibone... Beno, gero sartuko gara, ez gara aurreratuko, esan nahi dut, gero ikusiko dugu bere diagrama.

Martxeli. Aurretik igual palan ibili direnak eta gero ama izan direnak.

Haizea. Ez, ez, ez dut hori ikusten. Ikusten dudana da ama palaria, es que, orduan ni zer naiz, alaba palaria? Ni palaria naiz, gu palariak gara eta gero igual gara ama edo gara aita edo garena.

Nik jarri dut ama ni amatasunaz eta betebeharrak aztertzen ari naizelako. Eta, gero, pilotari ama euskaraz ez nuke jarriko.

Martxeli. Ez, baina palaria den ama, Haizeak esan duena.

Ni hori ari naiz galdetzen. Ez dut ikusten, eskema zertan izango litzateke diferente?

Haizea. Ez dakit.

Zein da diferentzia hemen ama palaria edo palaria den ama jarri?

Haizea. Ba, seguru aski, lehenengo hitza ez litzaidake seme-alabak etorriko.

Beste eskema bat egingo zenuke.

Argia. Orduan hemen kirolaria jarriko zenuke.

Martxeli. Beno, baina biak paretsu.

Baina ama edukiko zenuke esaldi bukaeran, e.

Martxeli. Bai, hori da. Niretzako bi horiek jarriko zenituzke ezker-eskuin.

Zer aldatuko zenuke, gezi bat eta bestea? Pixka bat deabrutxoaren lana tokatzen zait.

Haizea. Ez dakit.

Beno, segi egingo dugu.

Haizea. Hau da nire eskema.

Bai eta oso ondo iruditzen zait.

Martxeli. Eta gero, Haizea, hor jarri dituzu garrantzi gehiago eman diezu ezker eskubiko hauei eta gero jarri dituzu besteak.

Haizea. Ezker-eskubiko hauek dira lehenengo etorri zitzaizkidan ideiak. Lehenengo hitza izan zen seme-alabak, muy a mi pesar.

Martxeli. Muy a mi pesar zer ba? Zergatik muy a mi pesar?

Aitziber. Nik uste ama erlazionatu dituzula seme-alabak eta palaria kirolaria. Sinplemente, ez? Lehenengoa hona eta bigarrena hona.

Haizea. Nire ustez amak bi hitz hauetan pisu gehiago hartzen zuelako palariak baino. Nire kasuan.

Martxeli. Hala da, nik ere hala hartzen dut, bestea da adjektiboa.

Haizea. Hori da, hori da. Hori da.

Martxeli. Bestea da ama palaria, ama ez dakit,... Adjektiboa da, adjektiboa da.

Haizea. Eta, es que bestela beno, seguru aski oso hankamotz geratzen da eta gehiago pentsatuz gero gauza gehiago sartuko nituzke, baina, hauek izanda lehenengo bi gauzak burura etortzen zaizkidanak, ezin dut ikusi gabe utzi enplegua dagoela, gaur egungo errealitatea, bikote bat dagoela eta badaudela beste gauza batzuk ama edo pilotari horrengan eragina daukatenak.

Martxeli. Baina hor, muy a mi pesar horrek, me ha llegado. Seme-alabak lehenengo burura, ba, klaro, ama baldin bada lehenengoa da seme-alabak. Ez? Mmmm, senarra baldin bada lehenengoa izango da, ba, ez dakit. Ez?

Senarra izango baldin balitz?

Aitziber. Senar palaria? Puff.

Martxeli. Kar, kar, kar.

Aitziber. Ba, orduan, sinplemente, denbora banaketa problema bat egongo litzateke, ez?

Martxeli. Kar, kar, kar, da ziklista bezala.

Kar, kar, kar

Aitziber. Bai, bai, hori izango litzateke, baina, beno.

Martxeli. Gizon palariak dira beste modukoak, e. Ez?

Aitziber. Niri oso interesantea iruditzen zait palari izaeraren kontu hori.

Haizea. Niri ere bai, baina, ez dakit. Zer pentsatua eman zidan atzo, esan nuen, ez dakit azaltzen, galdetu egingo didate, kar, kar, kar.

Martxeli. Ni ari naiz saiatzen kanpotik ikusita zer harrapatzen diedan palariei esateko “palariak daukate halako ezaugarri berezi bat”, ez dakit, nik ikusten ditut.

Badaukate talde nortasun bat, ez?

Martxeli. Bai, bai, bai, bai.

Talde giroa zuk jarri duzu.

Argia. Hori edozein kiroletan nik uste dut. Ni eskubaloian ibiltzen nintzen, ze ni baita ibili naiz División de Honor jolasten eta horrela eta jo, hori egiteko esaten nuen, gauza da pala, baina ez da pala bakarrik. Ama kirolaria, nik esaten nuen, ama kirolaria, aber. Profesionalki hor ibiltzeko, adibidez? Gu hemen ibiltzen garelako, baina ama batek zer egin behar du hor ibiltzeko? Ostra, ez dela batere erraza, e. Astebukaeretan joan, etorri, eta umeak.

Martxeli. Horiek dira pilotariak diren amak. Horiek dira niretzako. Hartzen dute kirola, ba, hori, pilotan ibili diren emakumeak, gero amak izan direnak, lehenengo dute pilota. Pilota dute oso-oso lehenengo.

Argia. Baina beraien enplegua da hori, beraien lantokia bezala delako baita beraiantzako, edo ez?

Martxeli. Edo ez, e, afizioa daukate oso-oso barruan. Ez gu bezala, gu gaude pixka bat de segundas, e.

Aitziber. Bai, ni behintzat bai.

Martxeli. Baina haiek dute oso barruan palaren kontua, e. Nik ama, zera ere bai, e, nola zen bestea, ai, utzi duena orain? Jo, izena, beno, berdin du. Ezagutzen ditugunak, ama palariak direnak, kirola izan badute lehenengo, pala izan badute lehenengo, horiek dute pala. Hori da zera bezala, e. Kendu iezaiozu. Ez? Niri iruditzen zait. Hauek, orain, Haizea ama baldin bada edo Uxue, ama baldin badira izango dira palariak diren amak.

Uxue ez, e.

Aitziber. Bada ez bada ere isilik egon, bada ez bada ere isilik egon.

Ez, ez, ni ari naiz esaten ez dela izango palaria ama baino lehenago.

Martxeli. Ez?

Argia. Baina, igual, ama noiz harrapatzen dizu? Kirola egiten ari zarenean harrapatzen bazaitu ama izateak edo gero ya uzten duzunean, ba, gero, utzi duzunean eta handik urte batzuetara ama izan. Oso desberdina da.

Zer zentzutan?

Argia. Zer zentzutan? Ba, bat delako zuk egiatan jolastu nahi baduzu serio eta haurdun gelditzen baldin bazara haurdun, ba, ya mozten zaizu hori dena, ez dakit zer,... eta bestea da berriz hasten zara. Ez dela, ez duzu uzten. Ez dakit nola esplikatu. Nik ez dut ezer ere utzi haurdun geratu nintzenean, gero hasi naiz berrito jolasten. Zeharo desberdina da. Hori baietz.

Aitziber. Eta, gero, adina ere badago, ez? Ze, adibidez, gu, begira, hemen gaudenok, guk ezin dugu izan ziklista talde batekoak.

Edo bai.

Aitziber. Beno, bai, bai. Izan gaitzke eta egongo da talderen bat, baina oso zaila da.

Badago.

Aitziber. Bai? Horrela gure adineko jendez osatutako talde bat?

Bai, Urretxu-Zumarragan.

Kar, kar, kar.

Nik ezagutzen dut aisialdiko talde bat, amak eta zikloturista talde bat. Orain dela sei bat urte sortuko zena? Egia da igual umeak zuenak baino haziagoak edukiko dituztela gehienek, baina zer sortu zen orain sei-zazpi urte igandetan aukera irteerak egiteko ba berrogeita hamar, hirurogei, laurogei, ehun egun batean, kilometro. Joaten zara nahi baduzu edo ez zara joaten. Esan nahi dut, konpromisoa badago, baina kalendario bat banatzen da, hor jartzen du astebururo nora den irteera eta kito.

Martxeli. Ya.

Aitziber. Eta emakumeak bakarrik joaten dira?

Emakumeen aitzakian gero gizonezkoak joaten dira, baina hasi emakumeak hasi ziren.

Martxeli. Emakumeen aitzakian gizonezkoak? Gizonezkoen talderik ez dago?

Bai, baina emakumezkoenean ere joaten dira gizonak.

Argia. Ambiente ona edukiko dute eta esango dute “hala, goazen hauekin”.

Martxeli. Ba, bai, izan daitezke, bai. Kar, kar, kar.

Besteekin ibiltzeko zerarik ez daukatenak ere bai batzuk. Lasaiago ibiltzen dira. Ni joan izan naiz horiekin batzuetan, nik esaten dudan bezala gregario amarekin.

Aitziber. Erritmoa jartzera joango zinen zu beste ezer baino gehiago.

Ez, ez, beno, eta gizonezkoren bati edo besteri, ia tximataraino eginda, e, nik eman diot. Ez zentzu txarrean, baina esan nahi dut Otzaurte igotzen ama-eta horrela eta ia tipo bat berrogeita hamabost urtekoa, zera egin nahian zihola han, ez dakit ba, Indurain zelakoan edo, eta amak eta horrelakoren batean “Uxue, segi, segi”. Han joan nintzen. Baina, beno, ez dakit, gizonezkoek emakumezko txirrindulariak ikustea pasatzen, tela. Beno, segi egingo dugu.

Haizea. Ziklistek zenbateraino ematen duten.

Martxeli. Horiek daude hor esateko, beno, erritmoa guk markatuko dugu eta benga, gaixo hauei.

Orduan Argia orain.

Argia. Bai. Ni, hasi nintzanean, hasieran etorri zitzaidan burura amak ume txikiak dauzkatena eta ama ume handiak dauzkana. Ume txikiak dauzkagunok, ba, hori, ibili behar dugu puzzlea egiten eta, igual, handiak dauzkazuenak, ba, igual errazagoa da, umea ya ez da horren zera. Baina gero hasi nintzen hitzak zera egiten eta esan nuen nik ez dakit nola jarri eta azkenean onurak eta zailtasunak jarri ditut. Onuren artean kirola egitea, lagun artea, ondo pasatzea, barre pixka bat egitea, barruak arintzea, hori, desahogatzeta ez nekien nola idatzi, eta gero igual baita eredu eman, ba, umeek ere ikus dezatela amek ere badakigula jolasten, gustatzen zaigula palan jolastea eta gure denbora hartu behar dugula jolasteko. Eta zailtasunak, ba, beti norbait eduki behar dugula etxean umeak edukitzeko edo, ba hori, ezin dugula horrela eta horrela joan. Gero, denbora falta ibiltzen garela, nekatuta egoten garela eta gero bularra ematea jarri nuen. Ez da nire kasua, baina umeak txiki-txikiak direnean askotan, igual, bularra eman behar diozu eta askotan igual jolastera joango zinateke, baina igual ari zara bularra ematen eta ez da egokia edo ezin duzu horrela eta horrela joan. Eta horrelaxe. Horixe egin nuen. Baina hasieran etortzen zitzaidan pilotaria bezala kirolaria. Ama kirolari batek azkenean zer egin behar duen edo nola. Zailena izaten da askotan bikotearekin adostea egun honetan, ordu honetan, ba hori, umeak zuk dauzkazu. Hori. Gaueko hamarretan egin nuen atzo.

Haizea. Ba oso sakona atera zaizu.

Zer edo zer erantsi nahi duzue zuek?

Haizea. Niri gustatu zait eredu ematea.

Argia. Bai, ni hasi nintzanean partiduak eta alde batetik esan nuen, ba, berdin zaio galdu edo irabazi, baina umeak ikustea duela guk ere ba egiten dugula kirola eta gustatzen zaigula egotea, ba hori, lagunartean jolasten eta, ba hori, ohitzen joan daitezela.

Bale. Beste ezer ez badaukazue emango diogu begiratu bat orduan Ibonerenari. Etxeko lanak eginda zegoen, e. Ez da bilerara etorri, baina berea bidali zuen. Ni ez naiz ausartuko interpretatzen, e, zeren ez dut uste horretarako lizentzia hartu dezakedanik. Badakizkit hor azpiko gauza batzuk, baina, beno, ez naiz ateratzen hasiko.

Berak jartzen du ama pilotaria eta seme-alaben kopurua. Nik uste dut seme-alaba kopuruarekin batera adina ere hartzen duela kontuan, ze banaketa egiten du adinaren arabera. Umeak jaio zirenetik 5 urtera arteko bere esperientzia kontatzen du lehenengo eta hor esaten du, ba, bikotearen laguntza eza zeukala, ez zela entrenatzen joan eta orduan partiduetara bakarrik joaten zela eta orduan kirola egiteko zailtasunak zituela. Hor jartzen du kirola utzi. 5etik 11ra umeen ordutegietara egokituz kirola egiteko aukera bueltatzen zaio berari, baina ordutegi horretan, ba, frontoiko ordutegia ez da egokia eta, gero, entrenatzaile lanak ere egin izan ditu eta berak dioenez “frontoira joaten umeak beti nirekin” eta orduan entrenatu ez zuen egiten, baina entrenatu arazi bai. Horietako batzuk nik uste Haizea eta direla, ezta? Egoera horretan entrenatu zintuzten.

Haizea. Bai.

Gero ya 10-11tik gora dauzkatenean seme-alabek, ba, askatasuna handitzen eta oraindik ere ordutegiekin erne jartzen du berak.

Haizea. Nire ustez, ez dakit, Ibone ez da ama palaria. Palaria den ama da eta Ibone da eredu-tako bat, zeren entrenamendu guztietara bere umeekin etortzen zen.

Martxeli. Baina Eider ere bai.

Haizea. Bai.

Martxeli. Aurretik palariak direnak.

Eider semea hartuta entrenatzen?

Martxeli. Beno, nik partiduan ikusten dut.

Haizea. Partiduetara zen baina Ibonerena zen..

Martxeli. Ibonerena bai. Gero, nire alaba hasi zenean txiki-txikitan, behin Erikarena joan nintzen, pentsatuz bera zebilela horretan eta “aizu, Erika, alaba daukat txikia, 5-6 urte, eta noiz apuntatu liteke edo nola egin liteke?” Eta esan zidan “esaiozu Iboneri” eta Ibonerena joan nintzen eta esan zidan “ekarri, ekarri, ekarri alaba, nirea ere horretan ekartzen dut eta”. Horrela hasi zen, nire alaba oso txikia eta berea urtebete zaharragoa dela. Orduan, klaro, berea eramaten zuen eta gurea ere han ibiltzen zen.

Haizea. Eta Aiert ere bai, e, Aiertek hartu ditu ostia batzuk frontoian. Eman palari atzera eta umea atzean, bai, beti.

Martxeli. Aiertek ere sufritu du, adibidez. Hori da.

Argia. Jo, baina hor kristoren garrantzia da bikotearen laguntzarena, joe, ez? Bestela ezin da edo izan behar duzu, ba, horrela, umeekin denbora guztian edo.

Martxeli. Ba, llaverito, baina edade horretan edozertarako llaverito izan behar duzu. Ni dantzan ibili nintzen eta llaveritos eraman genituen. Biak, hala, etorri.

Aitziber. Segun zer kirol egiten duzun ezin dituzu eraman, adibidez. Hor, izaera esaten genuenean lehen, hor badagoela zer edo zer berezia. Ba hori izan daiteke gauza bat, ez? Zu ziklista baldin bazara ezin dituzu eraman umeak, edo piszinara bazoaz, edo korrika egitera. Eta hor, beno, frontoi batera sartzen dituzu, zu zabilta aldamenean.

Haizea. Baina oso kasu gutxitan eramaten da, e.

Martxeli. Baina piszinara ere eraman ditzakezu. Beraiekin joan txikira. Nik esaten dizut.

Aitziber. Utzi daitezkeela bakarrik.

Martxeli. Gero ti-ta-ti luze batzuk, edo ez? Nik uste denok egin izan dugula, ama guztiek. Ez dakit igerira, baina ama guztiok eraman ditugula haurrak gure horietara.

Haizea. Pena da ez dagoela bera hemen esplikatzeko. Izango zuen zer kontatua.

Beno, baina guk egingo dugu igual-igual eta berdin balioko du bilerak.

Argia. Nik ikusi dudanean adinarena, adibidez, nik, azkenean, pentsatzen dut adinak garrantzia handia daukala.

Martxeli. Klaro, bere adinean denbora libre gehiago daukazu, baina zu ere zaharrago zaude, ez zaude kontuetarako ere.

Beno, hori ez du jarri berak, e. Berak jarri du askatasuna handitzen, baina ordutegiekin erne.

Martxeli. Eta, ordutegiekin erne horrekin? Zer ordutegirekin erne? Zer esan nahi du, zer esan nahiko luke berak? Zer ordutegi?

Haizea. Beno, ba nik uste direla, afaltzeko orduetatik gora izango da.

Martxeli. Ya, ya.

Haizea. Nik horrela ulertzen dut, e, gaueko bederatzietatik hamarretara entrenatzen badugu ezin duela gaueko hamarrak eta erdietan iritsi etxera entrenamendu bat eta gero edade horretan. Nolabait ere nahiz eta seme-alabak ez zaindu, ba, igual beste ardura batzuk dauzkala familia giro horretan. Ez dakit, e.

Martxeli. Klaro, zaindu egin behar direla halako kontuak.

Beno, ba hau zen, ikusten duzue, giroan sartzen hasi gara, pixka bat erlaxatzeko. Nik ekarri dudana bigarren proposamena da, lehenengoa zen hauek aztertzea denon artean eta ea zer iritzi.

Argia. Eta zer iruditu zaizkizu zuri?

Niri oso aberatsak iruditu zaizkit.

Martxeli. Zer utzi dugu kanpoan? Zer iruditu zaizu?

Ez, ez dago zuzena ez okerra denik.

Argia. Ba igual ba nik pentsatzen nuen beste zerbait jarriko zenutela edo.

Ez, ez. Niri denak iruditu zaizkit aberatsak, benetan e, diferenteak eta ikuspegi.

Martxeli. Baina espero zenuen zerbait jartzea eta ez dugu jarri? Ba, adibidez, ez duzue aipatu.

Argia. Nik ardura sozialak jarri zenuenean ez nekien oso ondo.

Bai, nik ardura sozialak deitzen diet, e, etxeko lanei, umeak zaintzeari.

Argia. Nik pentsatzen nuen igual pixkat sozialki nola ikusten gaituzten, zentzu horretan, baina niri ez zitzaizkidan irteten hitzak horrela eta orduan horrela utzi nuen.

Haizea. Ba, total, zertarako, ezta? Hau esplikatuko diguzu, kar, kar, kar.

Nire asmoa da, orain, bigarrena, ea orain tertulia pixka bat sortzen duzuen eta ni pixka bat isiltzen naizen, zeren sentsazioa daukat asko ari naizela hitz egiten. Ez dakit horrela den hori. Beno, ekarri ditut adibide moduan, beno, egia da gauza batzuk atera direla zuen eskemetan zertzelada batzuk ikusten direla, baina ekarri ditut esaldi batzuk adibide moduan, testuinguruan jaso ditudanak, aurretik egin ditudan elkarrizketetan eta aurretik egin ditudan laurogeita hiru saio horietan. Orduan, daukate abiapuntu erreala, gero nik sartu dut eskua pixka bat bakarren batean, baina oso gutxitan, egia esan. Nik nahiko nukeena da pixka bat sakonago aztertzea nik botako dizkizuedan esaldi batzuk eta zuek esatea zer iritzi daukazuen, zer sentsazio. Nik zuen iritzia jakin nahi dut eta denak izango dira ongi-etorriak. Nik ikerketa honetan oso argi daukadana da nik ez dudala ezer ere asmatuko, nik dagoenetik jaso nahi dudala. Orduan, bilera honen zentzua ere hori da.

Beraz, orain ni benetan izango naiz gai-jartzailea, eta moderatzaile lana egingo dudana ikusten badugu itzaltzen ari zaigula, baina, horixe.

Lehenengoa da: “Paleta ikastaroan ordu eta talde bat daukazu. Horrela errazagoa da zerbait egitea zu bakarrik zure kabuz irtetea baino”.

Martxeli. Ba, bai.

Errazagoa da?

Argia. Bere gauza onak eta txarrak dauzka.

Aitziber. Nik esango nuke batzuentzako bai eta beste batzuentzako ez. Horrela, argi. Batzuentzako hori da erraztasun bat eta beste batzuentzako hori da problema bat. Zeren arabera? Izaeraren arabera; egoeraren arabera eta izaeraren arabera. Ni naiz pertsona bat, adibidez, e, kosta egiten zait nik bakarrik zerbait egitea, kosta egiten zait. Segituan uzten dut, edo hotza edo beroa edo nekatuta edo hilerokoa jaitsi zaidala edo ez dakit zer. Eta, bai, eta, berriz, norbaitekin konpromisoa hartuz gero, ba, beno, hor kunplitzen dut. Ordun, niretzako, adibidez, beti izan da errazagoa, ba, zerbaitetan apuntatuta ibiltzea.

Baina, ama zarelako ala ama izan ala ez?

Aitziber. Nik uste dut izan ala ez. Nik uste dut hor badagoela izaeraren, ez dakit, puntu bat izaerarekin lotuta dagoena zuzenean, ez? Eta beste batzuk, ba, beno, benetan erraz egiten dutenak inongo konpromisorik gabe. Igual, objektiboki, huts-hutsean hartuta, beno, nire ustez, igual errazagoa da. Objektiboki, e. Ba, hori, oraintxe daukat ordu erdi, ba, banoa, baina, orain, ea zein joaten den. Edo bizikletan ibiltzea edo piszinara.

Argia. Bai, baina, igual, ordu bat daukagunean baita da errazagoa esateko “hau nire ordua da”.

Aitziber. Antolatzeko?

Argia. Bestela ez duzu hartzen ordu hori. Egia da, etxean baldin bazaude, beno, igual joango naiz, igual ez. Eta, azkenean, hasten zara eta ez zara joaten. Orduan, badakizu, ordu hau eta nire senarrak badaki astelehenean 19:30ean ni banoala.

Martxeli. Nik uste dut amok daukagula konplexu hori. Ez dakit aitek nola biziko duten, baina amak daukagu konplexu hori. Esatea edo konpromisoa hartuta daukat eta joan beharra daukat edo bestela non dago hori egiteko arrazoa? Por libre ematen du, ez, amak ezin dugu, horrela, por libre, ez, ematen du edo batzuk hala uste dute, ezin dugula.

Aitziber. Ya.

Martxeli. Ni, adibidez, bakarrik ibiltzekoa banaiz eta gustatzen zait. Beno, bizikletan ez naiz joango, Holandan ez baldin banago, ba, hemen ez daukat gogorik gora eta behera ibiltzeko, baina oinez ibiltzera, bakarrik, noiznahi eta ahal bada bakarrik edo nirekin moldatzen den batekin, baina “aizu, deitu iezadazu joaten zarenean” eta puf. Aizu, ez. Eta palan momentuan bakarrik ez, aspergarria izan daiteke. Niretzako, hala ere, konpromisoa hartuta hortik sortzen da gero por libre hori. Zuk ya erabakitzen duzu noiz joan. Ba, seme-alabak ez dakit non daude, ba, benga, ba, goazen palan ibiltzera. Hori du ona, ez? Hartzen duzu konpromiso bat, sartzen zara taldean eta gero hortik ateratzen da. Hau da, egun honetatik aparte banoa, baina konplexu pixka bat badaukagu.

Aitziber. Bai.

Martxeli. Eta, hala ere, begiratzen dizute como “ésta, ésta...”, goitik behera eta. Eta zuk esan duzuna, kalean irekian frontoian eta geratzen da edo da edo “beno, beno, beno, hauek zer uste dute?” edo “ze ondo, e, ze animatuak zaudeten”. Hori ez zaizue inoiz gertatu?

Aitziber. Bai, baita ere, baita ere, “joe, zuek bai, e, ze animatuak” eta. Bai, bai.

Martxeli. Como que, “ala, guapas”

Aitziber. Bai, bai, bai.

Haizea. Eta hori zuek Hernanin kiroldegian egiten duzuela.

Martxeli. Baina Tilosetan? Tilosetan tela, e. Txapelketa egin zutenean, txapelketa egin zuten kalean eta jendea “nola joango gara kalean?” Beno, ba, “neska, ezagutzen gaituenak badaki”.

Argia. Usurbilen erdi-erdian dago, kale-kalean.

Aitziber. Hemen erdi-erdian.

Martxeli. Eta han ere, ba, batzuk, ba, lotsa hori.

Haizea. Baina hori ez txapelketan bakarrik hori da ikastaroan ere bai.

Martxeli. Ikastaroan zabiltzate kalean?

Ikastaroa plazako frontoian egiten da.

Aitziber. Hortxe egiten da, bai.

Haizea. Orduan, hori esaten genuen, mundua guztia pasatzen dena, comentario que va y que viene.

Martxeli. Beno, baina horretan ere badaukazue kalloa orduan, baina, gu txapelketara zuzenean, e, eta, gainera, mazizarekin, adibidez, gu, hala. Mazizarekin eta hortxe joan ginen batzuk, a subir la media. Baina, beno, niretzako, pixka bat, badakizu zaudela bigarren mailan, edo hirugarren edo laugarren, eta konplexu hori, ez? Ez baduzu jartzen, ba, igual zaude etxean. Beno, batzuk egiten dute, e, senarra ateratzen bada gau bat besteak zor dio. Ez dakit, hori ya bakoitzaren etxean.

Aitziber. Bai, hori ya...

Martxeli. Edo senarrak kirola egiten du eta besteak badu eskubide hori. Niretzako, beno, konpromisoa eta horrek ematen dizu gero aukera por libre joateko ere.

Nik galdera bat daukat. Hasi naiz berriz hizketan. Zuk esan duzu (B.O. Argiai zuzenduz) "errazagoa da, bestela ez duzu egiten edo bestela beste gauza batzuk egiten hasten zara".

Argia. Bai, baina horrela badakizu astelehenero dela, bestela da igual gaur ibiltzera joango naiz. Gu, adibidez, gelditzen ginen lagunak astelehena eta asteazkenetan ibiltzera joateko, ya egun horiek geneuzkan. Orduan, ba, astelehenekoa, ba, ikusita txapelketa animatu ginen palara eta orduan ya palara joaten ginen. Ibiltzera joateko ere ya ordua hartuta geneukan eta bazekiten, baina ya asteazkenekoa utzi dugu eta astelehena bakarrik geratzen zaigu. Orduan, ba, bai, beraiek gure planingaren barranean nire asteleheneko pala dago. Orduan, da, umEEK ere ulertzen dute palara noala eta banoa. Bestela da sin más, arratsaldeko 19:30ean, afaltzeko ordua dela eta, ibiltzera joan? Ez duzu egiten. Geratzen zara, badaukazu egitea, baina zailagoa da.

Aitziber. Zailagoa da, bai.

Argia. Joaten zara, baina, beti, azkenean, bukatzen duzu uzten. Eta, horrela, palarekin, ba, bai.

Zer egiten duzu, pixka bat justifikatu zure denbora librea hartzen ari zarela?

Argia. Ez, keba. Nik bestela ere hartzen dut niretzako denbora librea, baina da, ez dakit, horrek daukala bere izena bezala, bere, ez dakit nola esplikat. Entrenamendu bat dela, ez dela hor, ba, entrenamendua bezala, ofizialagoa bezala da. Ez dakit nola esan. Kar, kar.

Haizea. Igual ez zoazela alferrik denbora galtzera, ez? Igual paseatzea norbaitentzako izan daiteke.

Argia. Ez, nire etxean, Anttonen aldetik, oinez ibiltzera joaten banaiz ondo iruditzen zaio baita. Bai, bai, ez da, ez dakit nola esplikatu.

Martxeli. Azkenean nik buruan daukadana da ama, ama, eta palaria da pixka bat txikiagoa. Ama eta palaria bezala izan daiteke zinemazalea edo, da afizio bat besteen artean, ez? Zuk aipatu duzu lagun artean eta hor daude gauza pila bat, gauza asko denbora librean. Orduan, ba, pala da horietako bat.

Bale, bigarrenera egingo dugu saltoa? Bigarrena da: “nire gizona beste garai batekoa zen. Ni nintzen haurrez arduratzen zena eta garaiak aldatu egin dira” eta gai beraren inguruan “guk ez daukagu gure senarrez kexatzerik”. Alegia, bikotearen papera edo.

Aitziber. Ez dut ondo ulertu. Aber, esan berriz.

Komentario bat da: “nire gizona beste garai batekoa zen”.

Aitziber. Zen, edo da?

Zen. “Ni nintzen haurrez arduratzen zena; garaiak aldatu egin dira”.

Aitziber. Hori zeinek esango lukete, gure gurasoek adibidez?

Hori esan du palan dabilen emakume batek.

Aitziber. A, bale. Hori norbaitek esan du, bale, bale.

Eta beste batek esan du: “guk ez daukagu gure senarrez kexatzerik”.

Aitziber. A, ya, bale.

Haizea. A, beraz, konbertsazio bat da.

Dira gai beraren bi ikuspegi edo bi adibide.

Argia. Lehenago, garai batean, gaizki ikusia egongo zen zuk umea utzi etxean eta palan jolastera joatea, baina, gaur egun, kirol bezala, ez dakit. Ez dakit, e.

Bikotea azaldu dela lautan (B.O. Aurrez aztertutako diagramak eskuan hartu eta erakutsiz).

Aitziber. Bai, honbre, es que hor daude, klaro.

Argia. Bestela ezin ditugu umeak utzi.

Ea horri buruz zer daukazuen esateko.

Aitziber. Nik, egia esan, ez dut uste palara astean ordu eta erdiz joaten garelako, ba, kristoren senarrak dauzkagunik. Zer nahi duzu esatea? ¡qué menos!

Kar, kar, kar.

Aitziber. “Kristoren suertea daukagu, nola ordu eta erdi uzten digun, jo, kristoren suertea daukagu”. Ni de coña, barkatu, e, baina, es que, vamos, gainera, horrelako gauzak entzun egiten dira eta iruditzen zait gaizki. O sea, zeren zure gizona joaten baldin bada bizikletan ibiltzera edo korrika egitera inork ez du esango “jo, zer suertea daukazun andrearekin!” Hori da, ez dakit, es que nire iruditzen zait.

Martxeli. Bai, ematen du bigarrena modernoagoa dela, ez daukala kexatzerik, baina, eta berak nirekin bai, ala?

Aitziber. Klaro, ea, zergatik? Oso postura karka.

Martxeli. Bai.

Haizea. Totala.

Aitziber. Abiapuntua da baimena ematen dit eta zeinen kontentu nagoen eta, zorionez, oraindik ere lan handia daukagu, baina, beno.

Martxeli. Hori da. Eskerrak laguntzen didan etxean, ez? Niretzako senarraz ez dauka kexatzerik, baina berak nirekin ere ez. Niri behin esan zidaten “ze suerte daukazun senarrarekin” eta “berak nirekin ez?”

Aitziber. Bai, bai, bai, horrelako gauzak entzuten dira oraindik eta, egia esan...

Martxeli. Entzuten dira eta nik uste dut okerragoa da barruan daukagula, ez? Mesede edo, ez dakit. Seme-alabarik ez dagoenean, beno, egin dezakezu, bakoitzak bere denbora edo segun, baina, gero, bat-batean seme-alabak etortzen dira eta etortzen zaizkigu eta derrepente ni naiz amatxo eta hemen dago aita, el de apoyo, laguntza. Orduan, beno, nik bigarren hori espero nuen modernoagoa izango zela, baina ez. Lehenengoa bezain...

Aitziber. Bai, bai, bai. Igual.

Argia. Honbre, baina, igual, emakume hori ezagututa eta ez badio ezer ere egiten utzi gizonak, ba, normala da horrelako komentario bat egitea, ez? Esan nahi dut, ez dakit nola esplikatu. Zer esaten zuen zehazki?

“Guk ez daukagu gure senarrez kexatzerik”.

Martxeli. Beno, aizu, ba ze suertea.

Eta, lehenengoa: “nire gizona beste garai batekoa zen. Ni nintzen haurrez arduratzen zena eta garaiak aldatu egin dira”. Aldatu al dira?

Argia. Bai, nik uste dut.

Haizea. Nire ustez ez.

Aitziber. Beno, nik, honbre, aldatu dira. Bueno, dudarik gabe, Haizea, aldatu dira. Orain, oraindik aldatu behar dutena asko da, baina orain, nik uste, desde luego, hortik berdintasunean bizi garela esatea, ba, hori da, en fin.

Haizea. Baina, gaur egun, umeen zaintzan eta heziketan zeinek dauka ba ardura handiena?

Aitziber. Normalean amak. Nik uste dut normalean amak.

Martxeli. Nik nire burua ikusten dut oiloa bezala, e.

Aitziber. Nik ere bai.

Martxeli. Nik aitortzen dut, e. Nik esaten dut, nik umea jaio arte ez nuen esango ni izango nintzela hain oiloa, baina, gero, esaten duzu, baina horrek ez du esan nahi aitatzok daukala erdibanako zaintza berez, nahiz eta gero ni zenbait momentutan...

Eta praktikan?

Martxeli. Praktikan?

Aitziber. Nik esan dezaket nirea eta ez.

Martxeli. Ez, ehuneko erdibana ez dago.

Aitziber. Erdia, horrela, 50 eta 50? Ez.

Martxeli. Ez dakit kultura den oso barruan dagoena.

Aitziber. Eta ezberdin bizitzen dugu. Eta, ez.

Martxeli. Hori da, sentimenduak eta ere hor daude eta nire etxean konfesatzera niregana etortzen dira. Bai bat eta bai beste. Konfesatzera, aber, ez? Igual nik disponibilidade gehiago jartzen dut.

Haizea. Oso barneratuta daukagula ama izan behar duela umeak zaintzen dituen eta gaixotzen denean.

Argia. Niretzako, askotan, baita ere.

Haizea. Itxaron pixka bat.

Martxeli. Ez gara kontziente, ez gara kontziente.

Haizea. Baina, oso esanguratsua da ume bat gaixo eta ama etxean egotea, urte guztian aitarekin geratzen direnean ordu horretan, vamos a ver... Umea gaixotu da, baina dauka aita bat edo amona bat edo.

Aitziber. Bai, bai, bai.

Haizea. Edo dauka tutore bat.

Aitziber. Hasteko, dauka aita bat, baldin badauka.

Haizea. Edo berdin dit ama daukan o sea, a ver, bi ama dauzkan edo zer daukan.

Martxeli. Bai, erdibanako asuntua da.

Aitziber. Bai, baina.

Haizea. Ez?

Martxeli. Berez hala behar du.

Haizea. Hor, egoera horretan, zer pasatzen da? Egoera horretan zerbait pasatzen da. Seguru.

Argia. Niretzako, ez da ama bakarrik, nire kasuan. Nik ez dakit, ume bat gaixo dagoenean ba igual bat dago ume batekin eta bestea bestearekin. Ez da, ez dakit nola esplikatatu.

Martxeli. Baina, gaixo dagoena zeinekin dago?

Argia. Nire kasuan, adibidez, ba, igual guk.

Haizea. Barkatu esatea. Nik ez dakit zer den ama izatea, baina bat gaixo baldin badago bati egiten diozu kontu eta bestea dago marrazten.

Martxeli. Bai horixe.

Argia. Bai, hor lurrean.

Haizea. Y si te la lía...

Aitziber. Telebista jartzen diozu, kar, kar.

Argia. Bai, baina justu gure ordua da afaltzeko ordua, arratsaldeko ordua da gauza asko egin behar den ordua. Izan baten arratsaldeko bostetan...

Haizea. Bale, baina goazen buelta ematera tortillari. Umea gaixotzen da eta senarrak atera behar du, edo bikoteak.

Argia. Ba igual geratuko da, e.

Haizea. Bai?

Argia. Honbre.

Aitziber. Eee.

Argia. Bai, nire ikuspegitik, e.

Martxeli. Nik, benetan, hori gertatzea me jodería; geratzea. Uf, ez dakit geratuko nintzatekeen lehenengoan, e. Ni horretarako oso egoista naiz. Kar, kar. Geratzea gaixotu delako? Aber, ba, ez baldin bada larrialdietako zer edo zer, e. Baina, gaixotu dela, ba, bale, ba aitaxo dago. Titia ez badu behar. Titia behar badu...

Haizea. Egia da, igual, garai batean, edo aurreko belaunaldiak edo ez dakit zein pertsonak hitz egin duten honetaz, egia da baita esajeratuagoa zela ama izatea. Ez dakit, asuntua da kulturala dela.

Ez dira laurogei urtekoak, e.

Martxeli. Ez, ez, bigarrena da ni baino gazteagoa. Instintoa etortzen zaigu, baina asuntua da kulturala dela.

Haizea. Hori etortzen da kanpotik, e.

Aitziber. Beno, ikuspuntu bat da.

Argia. Nik, nire zeran baita, jornada murriztua, ez dakit zer, azkenean umeekin ordu gehiena gu gaude. Guk hartu dugu murriztua baita ere, e.

Martxeli. Bai, bai, eta nahi dugulako, e.

Argia. Egia da.

Aitziber. Eta, gero, badakizu zer pasatzen den? Umea gaixotu da eta pediatrarena zuk eraman duzu, eta zuk dakizu zer hartu behar duen, eta zuk dakizu zer ordutan hartu behar duen, eta... Ez dakit, azkenean, kate bat da eta konturatu gabe denaren kargu egiten zara eta errazagoa da nik zainduko dut edo, “begira, 7etan emaiizu hau 6,5, gero jarri termometroa eta” uf, ala, begira ni egongo naiz.

Haizea. Eta ez dago errudun sentimendua umea etxean gaixo utzita?

Aitziber. Ni, nire kasuan, sinceramente, nire kasuan nik uste joango nintzatekeela, e. Ez baldin bada, ba, hori zuk esan duzuna. Nik utzi ditut umeak gaixorik aitarekin eta lasai asko. Baina, errudun sentimendua? Gertatzen dena da, askotan, baita ere umeak ama eskatzen du.

Martxeli. Ya, ya, kar, kar.

Aitziber. Umeak goxotasun momentuetan ama eskatzen du eta hor bai, ba, igual uzten baduzu kalenturarekin eta “ai, ez joan”, beno, ba, igual.

Martxeli. Aitak zer kariñosoak diren batzuetan.

Aitziber. Bai, bai.

Martxeli. Xamur-xamurrak.

Aitziber. Bai, baina, beno, hor sartu litekeela igual, ba, pena ematen dit edo horrelako zerbait.

Argia. Ba nirea gaixo dago eta aitarekin geratu da eta ez da ezer pasatzen, baina, niretzako gure entrenamendu orduak dira momentu kritikoak: dutxa, afaria,...

Martxeli. Baina gertatu izan da baita ere, niri etxean gertatuko zait, e. Biak, klaro, bi urteko diferentzia dute seme-alabek, eta dutxa garaia eta biak eta te la lán 5 eta 7 urterekin. Eta zu bazoaz eta etortzen zarenean dago senarra horrela (*B.O. Buruari tximetatik helduz*), “jo, ez dakizu, ibili naiz hemen” eta “no me digas, hori egiten dut egunero”.

Aitziber. Hori da entrenamendu falta.

Martxeli. Etortzen da eta begiak horrela, erdi aterata, eta, zer pasa ote da? “Jo, ba nago leher eginda” eta “beno, gizona, halaxe nago ni normalean”. Gero, txantajeak ere seme-alabek gurekin, e. Zinera zoaz eta semea barandillan “ama, ez joan” eta hurrengoan “horrela jartzen bazara egunero joango naiz”.

Aitziber. Bai, bai.

Martxeli. Txantajea eta gero etortzen zaizu zure konplexua eta esaten duzu “zer gaiztoa naizen”, ez?

Aitziber. Ikastolan ere, irakasleek eta, esaten dute aitarekin etortzen direnean umeak, txikitan, normalean, askoz errazago gelditzen direla. Ama etortzen denean hasten da txantaje emozionala, negar egin... Nik haur hezkuntzako irakasle batzuei entzun diet hori “ume batzuk daude, asko, aitarekin etortzen badira lasai asko gelditzen direnak; amarekin etortzen badira, berriz, tela marinera: ez tira, ez joan”.

Martxeli. Niri iruditzen zait behar dutela, pertsonak ia txikitatik identifikatu behar dutela gizonezkoekin eta emakumezkoekin. Ba, bikote heterosexuala baldin bada bi aukera daukate hortxe etxean, ba, goazen ba, goazen ba. Nik izan ditut semea eta alaba eta iruditzen zait bientzako oso ona dela edukitzea bai emakumezkoa eta bai gizonezkoa. Ba, tira, Txikitan bai, e, baten edipoa eta bestearen edipoa, bale, baina ia pasa da denbora eta “identifikatu orain aitaxorekin. Biak, baten nobioa eta bestearen parekoa”. Nik hori garbi daukat, zeren txikitan tokatzen zaie, bale, amak eta niri igual tokatu zait edo nik aukeratu dut, baina hortik aurrera esan listo. “Guapo, semea, orain, ala, segi aitaxorekin, identifikatu ondo ondo”.

Hori egiten zer edaderekin hasten da?

Martxeli. Ui, ni hasi nintzen, ni saiatu nintzen oso goiz. Bai, bai, bai. Zer edaderekin? Niretzako beti behar dute. Gero, kontuan hartu, eskoletan, ni ere irakaslea naiz, Haur Hezkuntzako. Eta, eskoletan, beti eredu eta beti andereño eta beti amatxo eta beti emakumezkoak. Non dago gizona hor? Ba, etxean, horretarako daude. Hori niretzako. Bikotea heterosexuala baldin bada, e, baina behar dute identifikatzeko, neska izan edo mutila izan.

Aitziber. Figura hori, ez?

Martxeli. Bai, niretzako aberasgarria da.

Aitziber. Bai, bai.

Martxeli. Gero da nire ustea eta hemen, ba, gure konplexuak dauzkagu. Ba bai.

Aitziber. Baina nik uste dut egia dela, seguraski, emakume talde bat, ba, pilotan edo imajinatu berdina gizonak, ba, beno, umeen karga guk askoz handiagoa daramagula entrenamenduetara edo palara edo.

Argia. Baina hor gu gara, e.

Martxeli. Horixe garela gu.

Aitziber. Totalmente.

Argia. Kulpa guk daukagu, e.

Aitziber. Bai, bai, kulpa gurea da.

Haizea. Ez, baina hori da ama izatearen kultura, ama izaerarekin lotuta. Hori da erakutsi digutena.

Martxeli. Hori da kultura.

Aitziber. Kultura ere hor dago, dago berezkoa eta jasotakoa ere bai, e.

Martxeli. Nik ez dut bereizten berezkoa zer den, niri iruditzen zait kultura asko dagoela. Ez gara kontziente, baina da kultura, ba.

Haizea. Ez da posible, denak, taldean hamar ama edukiz gero denek ezaugarri hori konpartitzea, zeren bati gustatzen zaio txokolatea eta besteari marrubia, ez?

Martxeli. Hori da.

Haizea. Hori da soziala nire ustez.

Martxeli. Soziala a tope, bai.

Haizea. Gero egia da guk indartzen dugula jarrera hori edo ez, eta askotan indartzen dugula eta zuek aitortzen duzuela ama bezala, baina.

Martxeli. Niri, hala ere, esan didate, orain, ama naizenez geroztik nik filtro horretatik begiratzen dudala mundua, seme-alaben bitartez edo, ez. Ba, bai.

Aitziber. Bai, egia.

Martxeli. Begi berriak. Nik esaten dut, begi berriak. Orain iruditzen zait pentsaezina seme-alaben, beti dauzkazu hor. Beti dauzkazu hor, nahiz eta beste gauzak eduki, ama.

Aitziber. Bai. Hala ere, neskak, emakumeak, eta gizonaekoa baita ere, ya ama izatetik aparte, baita ere, oso ezberdin bizi ditugu gauza hauek, adibidez, gurasoekiko. Normalean, e. Salbuespenak egongo dira, baina, beno, nire kasuan. Gu gara lau anai-arreba, gara bi neska eta bi mutil, eta gurasoekin zer edo zer baldin badago, edo joan behar dute medikuarenera edo, niri bi anaiak ez dira enteratu ere egiten. Hori gure kulpa da esango duzu orain (*B.O. Haizeari begira*), baina, beno, da lehen esan duguna. Zuk badakizu zer edo zer, nora joaten den, gero zuri deitzen dizu, ba, badaukagu hor zerbait zaintzearen edo nik ez dakit. Badaukagu, nik uste dut badaukagula berezko, e, beno, ezberdinak gara. Goxoagoak gara baita ere, orokorrean, e.

Martxeli. Beno, hori.

Argia. Badaude mutil goxoak.

Aitziber. Bai, bai, bai, baina, beno. Ez, bai, bai, baina ez dakit nola esan. Puf, zaintzen eta zaharrak zaintzen zergatik daude gehiago emakumeak? Beno, ez daukatelako lanik hasteko igual, ez.

Martxeli. Hori kultura, e, kultura.

Argia. Edo igual zaintzeko emakumeak ikasketa gutxiago dauzka edo, eta, orduan, zertan bukatzen du, ba, etxe garbitzen eta umeekin.

Aitziber. Baina, etxe batean, nik ikusten dut adibidez zaharrekiko harremanetan. Ya ez behera baizik eta gora. Normalean, zein izaten da, normalean, aiton-amonekin eta, zein izaten da gertuagokoa, alaba edo semea? Nik uste dut normalean alaba. Alaba.

Martxeli. Nik espero dut nire seme-alabetan ez hainbesteko diferentzia egotea. Espero dut, baina, klaro, oso gertu daude.

Argia. Nire etxean, nire anaia eta ni, berdin hezi gaituzte etxeko lanak egiteko, ez dakit zer egiteko, eta nik, orduan, hor ez dut ikusten hainbesterainoko. Gauza batzuetan egia da gu garela, baina, ez dakit.

Aitziber. Niri, hori, iruditzen zait ez gaituztela berdin hezi, e. Teorian berdin hezi gaituzte etxean, baina.

Martxeli. Keba.

Haizea. Bai, baina nahiz eta berdin hezitzen saiatu, Argia, oso diferenteak gara.

Argia. Bai, baina.

Haizea. Eta zaintza rola gaur egun emakumearena da oraindik.

Martxeli. Bai.

Aitziber. Bai, dudarik gabe.

Haizea. Eta ez da niri nire familiako zaharrak edo adinekoak gehiago gustatzen zaizkidala, e.

Aitziber. Ez, ez.

Haizea. Inondik inora ez.

Aitziber. Ez, ez.

Haizea. Baina, zer erakutsi digute txikitatik? Erakutsi diguten bezala amak bere umeak zaindu behar dituela. Ez digute erakusten aitzak bere umeak zaindu behar dituela. Beno, ez dakit, e.

Aitziber. Oso orokorra da, txiki-txikitatik. Ez dakit, eta amona, ez dakit, eta neska txikia, ez dakit, neska txikiak jartzen diren bezala muñeka orrazten, ba, mutilak hasten dira pilotari ostikoak ematen.

Martxeli. Nire etxean alderantziz, zeren neska eta mutila izanda, suertez, zaharrena da mutila. Nik, askotan, aitzakia horrekin “ez, zu zara zaharrena” eta alabak hartzen du batzuetan arrankea eta “ez, zu hor gelditu” eta mutilari, orduan, tira egiten diot. “Zu zara zaharrena, biok zaudete afaltzen bakarrik? Arduratu zu”. Neska izan bazen zaharrena ya la cagamos, zeren, uf.

Aitziber. Ba bai.

Argia. Ba nik nire etxean ez. Ni naiz zaharrena eta nire anaia mutila da, baina berdin egin ditugu gauzak.

Martxeli. Baina beraien jarrera da de panchorin, e. Berez, kulturatik. Nik ez dut uste etxeko gauza denik.

Argia. Nire anaia, adibidez, sukaldean ni baino gehiago da.

Martxeli. Behintzat nire etxean, e, neskak hartzen du papera “goazen” eta mutilak utzi egiten dio. Segun zer gauza eta nik, “txe, gogorarazten dizut zu zarela zaharrena, gogorarazten dizut, e”. Orduan niri etortzen zait primeran horretarako.

Aitziber. Ya, ez izatea neska zaharra.

Martxeli. Geratu zu pixka bat atzean. Beharbada ez beste etxe batzuetan, e, zuk esan duzuna.

Haizea. Hori zer da, senarren asuntoa?

Argia. Ni, behintzat, aitona gurekin bizi zen eta aitona “hori nesken lana da” esaten zuen, baina nik ez nuen egiten eta bera esan eta esan aritzen zen.

Martxeli. Baina, batzuetan esanda transmititu egiten da super potente, esan gabe. Badira transmisio batzuk hor, puf.

Aitziber. Nik uste dut gaur egun gutxiago esaten dela.

Martxeli. Transmititu berdin.

Aitziber. Ni ere andereñoa naiz, baina DBHn. Nik ikusten ditut eta dakarkite, e, berdintasuna, ba, en fin, ez dakit non, e. Emakumearen eredia eta “la mujer objeto” esaten den hori, nik uste, gure garaian baino potenteagoa dakarkitela.

Martxeli. Bai, badatorrela.

Aitziber. Nik uste gure garaian ez zegoela figura hori hain, beno, orain, Youtuben ikusten dituzun musikako bideo guztietan, marrazki bizidunetan, e, telebistan, aurkezle bat,... Neska beti ari da zer edo zer erakusten eta horrek azkenean eragina dauka. Ni konbentzitura nago. Nik hiru mutil dauzkat etxean, ezin dut konparatu, baina.

Martxeli. Eta mutiletan ere ezberdintasuna somatuko duzu, eta izaera ere ezberdina.

Aitziber. Bai, bai. Noski, bai, bai, bai, bai. Desberdintasunak daude.

Martxeli. Nik, hala ere, ama izatekotan beti esaten nuen nahiko nukeela neska eta mutila izatea. Ez dakit zenbat, baina bi figurak, bi figurak, eta, beno, badu berea, ezberdina da. Hazteko garaian ere eskema beretsua jarraitu nahi duzu, zure eskema teorikoa hor dago, baina gero, praktikan, izaera bakoitzak markatzen dizu. Nik ez dut berdin jokatzeko batekin eta bestearekin, ba, izaera ezberdina dutelako.

Aitziber. Horregatik, ba, beno, esan dituzun esaldi horiek izan zitezkeen XIX. mendekoak, baina nik uste direla XXIekoak.

Martxeli. Zoritxarrez bai.

Haizea. Gainera, esatea “gaur egungo senarrez ezin gara kexatu”, lana kenduko baliote bezala edo ez da kendu, lana konpartitu egin behar da, ez? Ez dakit zer adostasunetara iristen zareten, baina.

Martxeli. Bai, bai. Nik gizonezkoekin egingo nuke horrelako bat.

Haizea. Bai, ea beraiek nola bizi duten emaztea joatea.

Martxeli. Nik jakingo nuke oso gustura.

Ez al dakizue?

Martxeli. Baina, beno, horrela pastak jarri eta, ez?

Haizea. Eta galdetu zer den egiatan pentsatzen dutena.

Aitziber. Kar, kar, kar.

Beno, hori beste bati proposatu, nik honekin nahikoa daukat.

Martxeli. Ez, baina, gainera, gizonezkoak bakarrik, e. Zuk jarri horrelako bat eta.

Nik lehen galdetu dizuet hemen senar palaria jarriko banu zer.

Martxeli. Aita palaria

Aitziber. Zeharo desberdina aterako litzateke. Aterako litzateke “entrenamendua zer egingo ditut, bost minutu edo hogeï” e, “entrenatu baino lehen piszinara joango naiz edo ez”, e, “kotxez joango naiz kiroldegira”. Ez dakit, beno.

Kar, kar, kar.

Seme-alabak ez lirateke irtengo?

Aitziber. Beno, pentsatzen dut baietz, seguraski baietz.

Martxeli. Aita denez nik jarriko nuke.

Aitziber. Eta bikotea ere nik uste dut baietz, azalduko ginатеke.

Martxeli. Nik bikotea ez dut jarri.

Aitziber. Zuk handiak dauzkazulako igual eta orduan, ba, ez duzu beharrik igual. Ez, edo.

Martxeli. Kar, kar, kar. Niri ez didate esan emazte pilotaria, kar, kar.

Kar, kar, kar.

Martxeli. Ama lotean da seme-alabekin.

Beno, hurrengo jarrita neukan baina salto egingo dugu. Hurrengoa da: otordu bat egin beharko dugu zuen familietakoak ezagutzeko eta besteak “ez, ez, gu bakarrik hobeto, lasaiago”

Martxeli. Ai, ai.

Aitziber. Klaro, horren falta daukagulako.

Haizea. Hori da sozializazio momentua.

Aitziber. Klaro, hainbeste daukagu familia. Beno, nik nire izenean hitz egiten dut, e. Familia, umeak eta gustura, e, hori gustura eta gutxi gorabehera ondo joan da gauza, baina, klaro, niri nire lagunek esaten didatenean igual “beno, amak-eta eta orduan igual bazkaria egingo dugu” eta “ez, ez, ez, ez, ez, afaria egingo dugu eta umeak etxean”.

Martxeli. Kar, kar.

Aitziber. Hori ez zaizue sekula pasa? “Ez, zuengatik, amak eta” eta guk horren gogoia daukagu hain justu, noizean behin umeak etxean utzi eta afaltzera ateratzekoa eta ez berriro bazkaltzera umeekin joateko, e.

Martxeli. Eta lotzen duzu bazkaria umeekin izan behar duela?

Aitziber. Ez, beno, ez dakit. Esan dut horrela sin más, baina, askotan bilatzen ditugula momentu horiek oso gutxi direlako eta direlako oso gustura hartzen diren momentuak, ez? Niri pasa izan zait hori, ez.

Martxeli. Nik ez dakit bazkarira zergatik familiarekin joan behar den.

Aitziber. Niri pasa izan zait hori. “Bazkaritara joango gara eta horrela umeekin”.

Haizea. Baina gehiago da zuk zure denbora berreskuratze horrekin.

Aitziber. Hori da. Bai.

Martxeli. Gero, nik ez dut ikusten zergatik etorri behar duen familiak. Hau da beste gauza bat. Ni Martxeli naiz, naiz ama eta beste ez dakit zer eta hau da, ba, nik familiarekin ez dut lotzen. Ez? Familiarekin nagoenean nik ez ditut lagunak ekartzen. Lagunak dira hor, batzuetan bazkariak eta otorduak eta horrelako gauzak, ba.

Baina hori zer da ardurak itogarri izan litezkeelako?

Aitziber. Dударik gabe, nik uste dut baietz.

Martxeli. Ez.

Aitziber. Nik bai. Beno, itogarriak? Ba, bai. Nik dauzkat hiru ume txiki eta bai dira urte dezente, ba, dena utzi behar duzunak praktikamente. Orduan, ba, noizean behin zinera joatea lagun batzuekin edo afaltzera ateratzera inork moztu gabe konbertsazioa eta abar izaten da gloria bat. Orduan, beno, nik hori horrela bizi izan dut urte batzuetan. Orain ari naiz pixka bat buelta ematen e, baina sei-zazpi urtean, ba bai. Zentzu horretan, delako gauza berdinetik asko, oso intentsua da, kentzen dizu dena denbora aldetik eta abar; ematen dizu asko, hori beste kapitulu bat izango litzateke, baina, behintzat, dena da zu zaude emateko, emateko, emateko, emateko, emateko. Beno, orduan, zuk ere jaso egin behar duzu nonbaitetik, ez? Orduan, ba, bai sortzen da hor gogoia.

Martxeli. Daukazu helduekin egoteko gogoia.

Aitziber. Bai, ba, hori da eta helduen konbertsazio bat eta moztu gabe.

Argia. Hori da inportantea, moztu gabe.

Aitziber. Bai, moztu gabe eta nik zer dakit.

Argia. Askotan ezin duzu hitz egin lagunekin, ez diozu esango umeari itxaron.

Aitziber. Bai, hori da. Nik zer dakit, parrandaren bat edo noizean behin zigarroren bat edo pekatu txikiren bat edo.

Martxeli. Zer esan duzu?

Aitziber. Zigarroren bat edo. Ez, ez, broma da, baina esan nahi dizut, ba, hori, egin ezin diren gauzak egiteko gogoia ba bai sortzen dela. Bai, niri behintzat bai.

Martxeli. Bai.

Aitziber. Bai, nahiz eta gustura egin, e.

Haizea. Itxaron, baina ez dut ulertzen. Nola ez da ba sortuko ba? Ea ba, ama eta pilotariaren aurretik pertsona garela.

Martxeli. Hori da.

Haizea. Hori da, zure bizitza ez delako ama eta pilota bakarrik. Ematen du ama izanda ya bizitza sozialari uko egin behar diozula eta.

Aitziber. Urte batzuetan pixka bat horrela da, e. Nire kasuan behintzat bai izan da. Beno, txikiak dituzula eta ez duzu ondo lo egiten, ez daukazu gogorik eta gero etxetik kanpora lana egiten baduzu hain erritmo gogorra da, ba, behintzat, nik, jo, gogoia daukazuna da baldin badauzkazu hamabost minutu umeek lo hartu dutenean sofan bota eta ez dakit. Hori hala da, e, niri, behintzat, niri pasa zait urte batzuetan ezertarako ez zarela. Eta gogoia ere, ba, hori, nekea, beti zaude deskantsatzeko gogoarekin. Ez?

Martxeli. Nik uste dut aitzakiak ere bilatzen dituzula. Badago jendea irakurtzen asko eta orduan gauetan, ba, kendu ez, kendu seme-alabak eta zure tartea. Lehenago bilatuko ditugu, ez.

Aitziber. Bai.

Martxeli. Aitzakiak. Ez dira aitzakiak. Ni lehenago zinera joaten banintzen, ba, orain ere bai. Ni gogoratzen naiz gauza asko hartzen nituela haizea bezala.

Aitziber. Bai, nik ere badaukat zera hori.

Haizea. Sentsazioa da ama izateagatik uko egiten diozuela gauza askori eta horietako bat da bizitza soziala.

Martxeli. Klaro, gertatzen dena da denbora berdina dela eta, orduan.

Argia. Beste bizitza sozial bat da, beste era batera da.

Martxeli. Egunez denbora asko joaten zaizu.

Aitziber. Klaro, zu zaude 25 urterekin, bikotea edo ez igual zait, ez dakit zer kontzertu dagoen ez dakit non edo bertsolariak eta geldituko gara, bokadilo bat jan eta joan.

Argia. Eta eguerdiko hamabiak arte lo egiten duzu.

Aitziber. Hurrengo goizean nahi duzunera arte lo.

Argia. Gero pentsatu egiten duzu.

Martxeli. Gure kasuan, parrandan ateratzen zena hurrengo goiza libre.

Aitziber. Klaro, bestela.

Argia. Edo bestela erdi eta erdi.

Aitziber. Niri inoiz tokatu zait parranda ondoren eta da horrible.

Martxeli. Ez, ez, nik egiten nuen.

Argia. Bai, baina hori askotan kostatzen da, igual zazpietan esnatzen zara.

Martxeli. Beno, nik ez nuen lo asko egiten, esnatzen nintzen, baina goiz hori hartzen nuen niretzat eta nire ondorioentzat.

Argia. Orduan, hurrengo egunean zaude deskantsatuta.

Martxeli. Klaro. Eta biok ateraz gero ya un horror hurrengo goiza. Biok ateraz gero un horror. Txandaka, nik 7etatik 9etara, zuk 9etatik 11etara,... baina, ez, encaje de bolillos.

Argia. Guk aitona eta amonari uzten dizkiegu eta gero bazkaltzera joaten gara mahai jarrita.

Kar, kar, kar.

Martxeli. Guk ez, hurrengo goiza guretzat eta bazkaria eta nahikoa lan bagenuen geure buruekin.

Bale, hurrengo salto egingo dugu ondo iruditzen bazaizue.

Martxeli. Ari zara saltoka zu. Kar, kar.

Haizea. Bai, kentzen ari da denak. Esaten ari da "hau ez".

Aitziber. Aipatuko ditugulako igual, ez?

Hemen: "pilota uzteko edadeak iristen dira. Gizarteak zenbait garaitan ikasketei heltzea, bikotea izatea, lanean hastea, ama izatea e.a. eskatzen dizkizu. Gero emakumeak ez dauka hori zertan eginik, baina..."

Martxeli. Esan berriz, Uxue.

“Pilota uzteko edadeak iristen dira. Gizarteak zenbait garaitan ikasketei heltzea, bikotea izatea, lanean hastea, ama izatea e.a. eskatzen dizkizu. Gero emakumeak ez dauka hori zertan eginik, baina...”

Martxeli. Baina hor daude.

Aitziber. Gertatzen dena da, ni, adibidez, ez naiz identifikatuta sentitzen delako aurrekoa. Hori izan daiteke Haizearen kasua, adibidez, adinarengatik esaten dut, ez?

Haizea. Hori nik esan dut, e.

Haizearena da.

Aitziber. A, bai? Ez dakit zenbat urtetan ibili da eta bat-batean utzi egin behar du eta ez dakit zer. Gu gero reengantxatu gara.

Haizea. Nik ez dakit hori guztiz horrela den, e. Bai, baina, esan berriz.

“Pilota uzteko edadeak iristen dira”.

Haizea. Pilota uzteko edadeak iristea?

Gizarteak zenbait garaitan ikasketei heltzea, bikotea izatea, lanean hastea, ama izatea e.a. eskatzen dizkizu. Alegia, ari naiz esaten emakumeei.

Aitziber. Emakumea bultzatzen da pixka bat uztera ez badauka oso argi, ez?

Haizea. Gizarteak bideratzen du gauza batzuk hartzera, dudarik gabe.

Argia. Nik, adibidez, eskubaloian ibiltzen nintzenean, nik utzi nuen lana aurkitu nuenean. Nik bikotea eta hori ez zidan eragiten.

Haizea. Zenbat aldiz ikasketak?

Argia. Lana daukazunean ya ezin duzu hainbeste ordu sartu.

Zuk, adibidez, eskubaloian goi-mailan jokatu zenuen.

Argia. Bai, bai, nik egunero-egunero-egunero entrenatzen nuen, astebukaeretan kanpora joan behar izaten nuen,...

Martxeli. Zu zinen eskubaloilaria den ama.

Argia. Jarraituko banu.

Martxeli. Jarraitu bazenu.

Argia. Ya ez, eta ya aparte nekatuta nengoen, baina nik hor bikotea neukan, baina jarraitzen nuen. Ama izan banintza momentu hartan ez dakit zer egingo nukeen, segun

zer mailatan zauden baita. Oso-oso ona baldin bazara ya, ba, profesionala, seguraski jarraitu egingo duzula.

Haizea. Nik hori esan nuenean ez nintzen ari pentsatzen oso oso ona den jendea, ni ari nintzen pentsatzen nire esperientzian. Iristen dela momentu bat, alegia, iristen zarena unibertsitatera edo ez dakit zein mailalara eta nolabait ere zure inguruak entenditu arazten dizu.

Argia. Entenditu arazten zaitu, bai?

Haizea. Bai. Igual ikasteko gauza batzuk utzi behar dituzula.

Argia. Bai?

Haizea. Bai eta horietako bat da kirola.

Martxeli. Kirola. Gizonezkoei esaten ez zaien bezala.

Haizea. Lehenengotakoa igual emakume edo neska bati esaten zaiona uzteko da kirola.

Argia. Nik, adibidez, ez nioke hori esango, kirola berak asko balio du niretzako.

Aitziber. Dena dela, ni DBHkoekin ibiltzen naizelako, kirola oso azkar uzten da. Kirola egiten dute 14 urtera asko, neskek, e, eta gero kirola uzten dute.

Martxeli. Baina horretan ere kulturako hor dagoelako, e.

Aitziber. Bai, bai, bai, baina esan nahi dizut errealitatean jarraitzen dutenak oso gutxi direla. Joaten dira bi edo hiru gimnasiora. Nik galdetzen diet ikasleei askotan ez dakit zer eta mutilek, gehienak, jartzen duten bezala futbol ekipoan edo, neskek, gehienek, 12, 13 edo 14 urterekin ez dute kirolik egiten.

Martxeli. Zer da hori? Kultura.

Haizea. Zer da alferragoak garela? Ez da hori kontua.

Martxeli. Ez, ez.

Haizea. Nire ustez, guk edukitzen dugun presioa handiagoa da beste batzuk eduki dezaketena baino.

Argia. Nire ustez, hala ere, hor da asuntia talde kirolak gutxiago agertzen direlako. Jende oso gutxi apuntatzen da gaur egun. Lehenago jende pila bat apuntatzen ginen eskubaloira. Orain oso jende gutxi apuntatzen dira. Orduan, taldeak zer egiten dira? Jende gutxi dago eta egiten dira, ba, sei bakarrik gaude.

Haizea. Eeeez, ez, ez dauka eta horrek zerikusirik!

Argia. Gu pila bat apuntatzen ginen eta orduan egiten genuen, baina orain zergatik ez ba?

Aitziber. Eta sekula baino gehiago hitz egiten da kirolaz eta hau.

Martxeli. Bai, baina.

Aitziber. Baina gero praktikan beste gauza bat da.

Haizea. Praktikak berdina izaten jarraitzen du.

Bai, baina ni ari naiz galdetzen, baina hor zerikusia daukate neskei edo emakumeei atxikitzen zaizkien betebeharrak edo rolak edo horiek?

Martxeli. Bi, bai, zeren bideratzen dira, ba, hori, amatasuna eta horretara. Bideratzen dira zu joan erretiratzen ya ze ikasketak nahiko.

Haizea. Bikotea.

Martxeli. Eta batzuetan ezta ikasketak ere, ez dira bultzatzen ikasketetara. Beno, ba, honek igual pelukeria egingo du. Ea, zer ba? Eta niri orientatzailea etortzea orain eta gure alabarekin eta esatea zu andereño. Aizu, zenbat mutilei esaten zaie zu maisu? Eta neskei, ni, adibidez, nire alabari esan zioten eta nik inondik inora ez dut ikusten. Orientatzaileak ikusten duela. Ze, ikusten duzun zera hori?

Haizea. Argi eta garbi, ikasketekin eta gure klubean ikusten da. Ikasketekin kirola utzi, bikotea bota eta utzi. Amatasuna ez da askorik iritsi, baina ama izan eta kirola utzi. Bai. Beste ardura batzuk atxikitzen zaizkigu gure edadeko mutilei atxikitzen ez zaizkienak.

Martxeli. Bai, bai, hori da.

Haizea. Pentsatu nahi dugu berdintasunean bizi garela edo hezi gaituztela.

Aitziber. Keba, keba.

Haizea. Baina, errealitatea da hori.

Aitziber. Hori gezurra.

Martxeli. Hori dena oso garbi. Ni lehengoan ausartu nintzen, baina neska izanda pentsatu nuen “ez nuke esan behar”, baina nola badakidan nire alaba palan jarraitzeko irrikitan dagoela, momentuz behintzat, esaten dut ausartu neska delako. Esan nion “ba igual pala utzi behar duzu”, baina esan nion jakinda inolaz ere ez zuela. Bestela ibiliko nintzen con pies de plomo, zeren justu neskari hori esatea, ba. Etorri zen “ui ze pereza”, baina badakizu hori esaten duela baina ez duela pentsatzen, ibili nahi duela.

Aitziber. Bai, bai.

Martxeli. Baina, pentsatu nuen, neska izanda eta hori esatea dela, baina esan nion nahita.

Martxeli. Nik uste etxean gutxitan bultzatzen dela neskak kirola egitea.

Martxeli. Honbre.

Aitziber. Beno, emakumeen kirolak, prestigioak ez dauka zerikusirik. Mutil bat futbolista ona bada bihurtzen da San Dios.

Haizea. Baina ez da prestigio kontua, e.

Aitziber. Baina esistitzen da, e. Ez?

Martxeli. Bai, niretzako ere bai.

Aitziber. LHko 5. edo 6. mailan futboleko ondo ibiltzen den mutila da San Dios. Etorrin bat etortzen baldin bada eta futboleko ondo ibiltzen bada erdia egin du, e. La letxe da, e.

Martxeli. Bai, bai. Ni gogoratzen telebistan, ea, zer kate dago Teledeporte edo. Ari ziren ematen alebiren futbola, baina mutilak, klaro. Aber, ya ematen ari dira halako ume txikiak, beno, neskak ez dira inolaz ere ikusten kate horretan.

Aitziber. Ez, ez, Bera Bera ere ez dugu ikusiko.

Martxeli. Esaten duzu, aber, mutilentzat inportantea da kirola haientzat baita lau urterekin ere, a, hau hasiko da kirolarekin.

Argia. Bakarrik enteratzen gara zerbait lortzen badute, bestela ez.

Martxeli. Bai eta oso matizatuta. Baina oso gauza arina, e.

Baina ez gara enteratzen, ni gehiago nindoan.

Martxeli. Zuk eraman berriz, e.

Aitziber. Dena dela, ez dago mutilengan berezko ez dakit, fisikoki ez dira aktiboagoak? Ez dute adrenalina gehiago?

Haizea. Ez, ez.

Argia. Ez du zertan.

Martxeli. Ez du zertan.

Ni ez naiz medikua, baina ez.

Martxeli. Niretzako ez du zertan.

Aitziber. Ez dakit, nik hiru seme dauzkat eta nik beti esaten dut nik hiru alaba banitu nire etxeko salan ez legoke.

Haizea. Bai, baina neskei panpinekin jolasten erakusten zaielako. Zuk zure semeei erakutsi al diezu panpinetan jolasten? Ea, ba al daukate panpinik? Ba al daukate Barbieren bat?

Aitziber. Ez zaie interesatzen, gustatzen zaie baloia hartu eta zer edo zer puskatzea eta horrela.

Martxeli. Nire kasuan aldrebes izan dira seme-alabak, baina ez panpinekin jolasteagatik etxeko salan. Ez, ez, ez, ez.

Aitziber. Hori bai dela horrela.

Martxeli. Eta gauza borobilak gure etxean izan da neska

Baina hori gure etxean ere bai.

Martxeli. Gurpilak, baloiak, ... Semeari baloi bat ematen zenion eta eseri egiten zen bere gainean. Nire etxean kontrakoak izan dira biak. Zergatik? Ez dakit.

Aitziber. Hori sekula ez dakizu.

Martxeli. Aber zenbat mutil dauden baloia edo zerbait borobila gustatzen ez zaienak, bizikleta sikira. Nire etxean nik beti esaten dut, nireak, diskoak borobilak, baina ez bizikleta. Batera ikasi zuten bizikletan.

Aitziber. Eta, gainera, gustatzen ez bazaio.

Argia. Gaizki ikusia dago ikastolan eta.

Aitziber. Eta gustatzen bazaizu dantza...

Martxeli. Hori gertatu zaigu guri, e, zeren “zer ekarriko dizu Olentzerok?” bost urterekin eta nire semeak orduan nahi zuen, ez naiz gogoratzen. Orduan zer zegoen modan? Borrokan ibiltzeko panpin horietakoak, Action Man, eta “zer ekarriko dizu Olentzerok?” eta nire semeak begiratu zidan niri esanez “ama, isildu”. Zer nahiko zuen? Ba, txotxongiloak nahiko zituen. Berak esan zuen “nik Action Man” eta nire semeak “ama, isildu”. Nik banekien Action Man ez zuela nahi nahi, baina berak esan zuen eta begiratu esanez bezala “isildu, e?” Orduan egin zidan begirada, e, “nik honi esango diot berak entzun nahi duena, baina hori ni de coña”. Orduan, nire etxean panpinak sartu dira? Bai, baina ez alabarengatik.

Argia. Nireak, ba, gustatzen zaizkie panpinak eta ibiltzen dira, baina baloiarekin ere ibiltzen dira, palan ere ibiltzen dira, kotxetxoak ere badauzkagu. Ez dakit.

Haizea. Goazen uztea zuen seme-alabak. Zuek. Zuek eta zuen edadeko mutilak edo gizonak aukera berdina izan dute kirolerako? Uste duzue bikotea eduki dutenean jarrera berdina eduki dutela, aita eta ama.

Martxeli. Ezta inondik ere.

Haizea. Inondik inora ere ez. Hor genero bereizketa bat dago. Argi eta garbi. Uxue horrerata doa, gure izaerak oso diferenteak direla. Ez?

Martxeli. Bai, oso.

Igual ez nihoa horretara.

Haizea. Ba, ni bai.

Aitziber. Dударik gabe. Bai, baina nik hor ez ote dagoen konponente genetiko bat ere badaukat.

Ur handietan sartzen ari zara, e.

Aitziber. Esaten dizut, e, ba bakarrik badaukatelako beste indar bat.

Martxeli. Niretzako permeableak gara eta, orduan, gizartean oso barruan daukagu eta geneetaraino igual iritsi ote den, baina niretzako ez da berezkoa. Nik uste dut berezkoa ez daukagula. Ni berez, ni saiatzen naiz eta ni jartzen banaute ez dakit non eta ez dakit, ez, beste leku batean eta beste garai batean, ba.

Argia. Garbi dagoena da, nahiz eta neskak izan ere, zeharo desberdinak izaten direla jaiotzaz. Baina.

Aitziber. Beraien artean esan nahi duzu?

Argia. Bat izango da astakiloagoa, bestea da ñoña eta bestea da. Niretzako, gero ya, egia da sozialki igual, ba, bakoitzaren gustuak ere bai, aizu. Ez dauka zertan gustatu beharrik.

Haizea. Baina esaten ari naiz esaldi hori esan nuenean ni jarri nintzen begira gu kirolean hasi ginenean. Gure belaunaldia, gazte bezala. Gu baino bi urte zaharragoak egia da kirolean ibiltzen zirela, baina ez ziren asko. Gu kirolean hasi ginenean gure herrian ez zeuden eskaintzak guretzako. Ez zegoen. Beno, ez dakit hau gaira datorren.

Beno, segi.

Argia. Zer, horretaz da ikerketa?

Kar, kar.

Haizea. Ez zegoen, orduan egia da kirola aukeratzeko aukera gutxiago eduki ditugula. Azkenean, bai, kirola egiteko aukera gutxiago eta.

Argia. Usurbilen, adibidez, pilotan neskak, nik neskaren bat edo beste bai horrela, baina, egia esan, guk neskak ez ditugu behin ere zera egin, konpetitu bezala. Baina eskubaloian ibiltzen ginen. Niretzako, gure garaian jende gehiagok egiten zuen kirola, talde kirola eta gauza horiek. Orain joaten zara eta lau katu dira.

Martxeli. Lehenago igual zaharragoa arte. Nire adinekoak badira, saskibaloian ibili dira, eskubaloian.

Argia. Gu Usurbilen eskubaloian ibiltzen ginen eta utzi genuen zeren ya 19 urte bageneuzkan eta igo egin ginen eta ya ibili behar ginen, desplazatu egin behar genuen eta jendea ya lanean eta ezin zen, baina.

Aitziber. Gero, nik uste hor dagoela beste gauza bat eta da lehen, beno, nik Usurbilen ez dakit, imajinatzen dut, Lasarten zegoen futbola edo saskibaloia.

Argia. Hori da, ez zegoela besterik.

Aitziber. Gaur daukazu judo, daukazu kiroldegiko eskaintza guztia, musika ere gehiago egiten dute, inglesera ere asko joaten dira. Hor ya, ez dakit.

Argia. Igual taldearena ya askotan ez dira, igual orduan da bakoitza solte.

Aitziber. Bai. Lehen egiten zen eskola eta gero, igual, aukera gutxiago zegoen eta igual horregatik baita ere jende gehiago joaten zela. Nik bai ikusten dudana da ez dela jarraitzen, eta, batez ere, neskak.

Haizea. Ez da jarraitzen kirola egiten.

Aitziber. Ez da jarraitzen kirola egiten.

Haizea. Orduan vamos al meollo del asunto. Zergatik ez da jarraitzen?

Argia. Eta mutilek zer egiten dute? Pilota batzuk igual.

Aitziber. Beno, eta korrika.

Zergatik esan duzu?

Martxeli. Lehentasunak. Lehentasunik ez zaiolako ematen kirolari neskei begira. Ez, zeren ez da inportantea.

Haizea. Baina, seguraski gimnasioak beteta dauzkagu neska gazteez.

Aitziber. Bai.

Martxeli. Nik uste dut batzuk begiratzen dutela berdintasuna baina alde horretatik. Mutilei begiratzen diete eta ez dakit, ez.

Haizea. Zoritxarrez, gaur egun, kirola ez da nesken lehentasun bat.

Martxeli. Ez da.

Haizea. Edo ez dugu ulertzen. Den kasuetan ez dugu ulertzen.

Martxeli. Ez, eta nahi duguna pixka bat forman egon, baina forman egon por libre eta horrela, zuk esan duzun bezala, ordutegirik gabe, gimnasia noa tarteka eta.

Haizea. Eta zenbat aldiz entzuten da kirolean ondo pasa? Ez esan “ez, nik hor gora iritsi nahi dut”. Neska bat gutxitan entzungo da hori esaten eta hori ez da kasualitatea.

Martxeli. Bai, bai eta “hor dabilela behintzat eta hor dabilela, ba, bale”.

Beno, pixka bat aurreratzen joango gara zeren bestela denborak ihes egingo digu. Amak gora eta amak behera ibili gara eta nik oraindik ez dut inoren urgulurik ikusi seme-alabengatik. Ez dut txarrean esan, onean esan dut. Orduan, hurrengo esaldia irakurriko dizuet: “nire umea paleta eta pilota hartu eta saiatzen da. Gaur ere galdetu dit zer egin dudan partiduan. Ama palan ikusi eta pozik jartzen da, berak ere nahi du”. Horrek zer esaten dizue?

Aitziber. Bai, ba, igual Argiak esan duena lehen, ereduarena. Egia da. Niri pasa zait antzeko zer edo zer eta galdetzea partiduetan “zer egin duzu?” eta esatea “berriz ez galdu, e” eta “hau lotsa”.

Kar, kar, kar.

Aitziber. Hori ere entzun dut. Edo “berriz galdu?”. Kar, kar, kar.

Haizea. Etxera joan galduta eta gainera hori.

Aitziber. Klaro, gero nola den, ez.

Ama izaeraz ari naiz galdetzen edo ama senaz. Ez al daukazue ezer esateko? Esan nahi dut, ama ilusio hori, pilotari izanda, badago, ez dago? Edo bestela ere bai. Badaukazue edo ez daukazue? Lehen esan duzu zuk “gauza on asko irabazi ere bai” edo ez dakit nola esan duzun.

Martxeli. Seme-alabekin?

Bai.

Aitziber. Baina, palarekin erlazionatuta ari zara edo bestela?

Bestela ere bai.

Aitziber. Por supuesto, bestela nik ez nituzke hiru edukiko, edukiko nuen bat.

Ari naiz esaten ilusio hori.

Martxeli. Zerekiko? Palarekiko?

Umeekiko ere bai.

Argia. Ilusioa umeekin?

Bai, baina zerarekin lotuta, honek partiduekin esan du (B.O. Aitziberri erreferentzia).

Argia. Umeek horrelako zerbait esaten digutenean noski pozten garela, gustatzen zaigu umeek horrelako gauzak esatea. Ba hori ikustea gu ere saiatzen garela, gure lana egiten dugula eta ikasi dugula.

Martxeli. Ni, egia esan, kirola... Igeriketan ibili naiz beti, baina ez konpetitibitate horretan, e, piszinara joan talde batean eta horrela. Eta palan hasi nintzen eta, klaro, ya alaba da etxean kontrolatzen duena eta bera harrapatu zuen ba, orain dela bost urte. Taldean eta zaharrak eta bera lotsatu egiten zen, “ama, zer lotsa, zer egiten duzu palan?” Eta, orain, bost urte pasa dira, berak 17 urte egingo ditu eta orain ya animatzen nau “benga, ama, zuk badakizula” eta aldatu da bere ikuspegia. Lehengoan esan nion “ea, ni naiz hemen txapelketara apuntatu dena, nire mailan edo, nire mailan edo hor” eta esan nion “zuk dakizunarekin ez zara gauza izango, ez zara nirekin etorriko niri erakustera?” eta azkenean baietz esan zidan baietz. Esan nion “nik hainbeste animo eta animo ez dut behar, nik behar dudana da etorri eta nirekin ibili. Nik hori behar dut”. Nik ikasi ez dut asko egingo, baina.

Aitziber. Eta bikote bezala jokatzen duzue orduan? Edo bestela?

Martxeli. Ez, ez, bestela, bestela. Hori da hurrengoa.

Aitziber. Hori da hurrengoa.

Martxeli. Momentuz da onartzea bere ama zaharra izanda berak lagundu dezakeela eta, gainera, esan nion “zu zara aproposena” eta lehengoan bi paretak botatzen zizkidan eta nik korri. Zeren, dakienak erakutsi behar du, ez? Beno, orduan, ba, fase hori pasa du.

Aitziber. Hamabitik hamazazpira, tarte hori, hor badago.

Martxeli. Orain dago pixka bat bueltan, animatu eta esan “benga, ama, aurrera”. Pixka bat hori, ez, baina horrekin ere konbibitu egin behar horrekin zeren segun nolakoa zaren esaten duzu “ni nora noa eta zertara?”. Alde horretatik, klaro, nik animo handia ez nuen espero bere aldetik, eta ez nuen espero, banekien adin horretan.

Aitziber. Nik ez dizut oso ondo ulertzen zer nahi duzun galdera horrekin, e.

Nik ez dut lortzen adieraztea ondo, ez.

Haizea. Zertaz zihoan asuntoa?

Ama senaz ari nintzen.

Haizea. Ama sena hitza bera, Uxue.

Ez, baina Martxelik esan duen zentzu horretan, ba, alaba poztea edo partiduz galdetzea edo zuri ilusiotxoak egiten dizu, azkenean, semeak jakiteak zu partidura joan zarela eta ibili zarela eta zu palan ikusteak, ez? Hor badago.

Aitziber. Bai, bai eta beraiek ikusten dute.

Martxeli. Zenbat urte dituzte zureek, Aitziber?

Aitziber. Nireek dauzkate bost, bederatzi eta hamaika.

Martxeli. Klaro, oraindik daude amazulo. Oraindik amatxo da amatxo.

Aitziber. Bai, hamaikakoa hasi da pixka bat, baina bai.

Martxeli. Pixka bat desengantxatzen da eta zu hasten zara eta esaten du “honek zer pintatzen du, zer pintatzen du?” Gainera, bera denean mundu horretan dabilena, “ama es que, ez”. Gainera, bera dabilen kirolean, da lotsa doblea. Igual esaten nion “halako pilota behar dut”, zeren dauzka kristoren pilota pila, denetik, eta “beno, ama, ez hasi, es que apuntatzen zara”.

Aitziber. Bai, lagundu beharrean animo gutxi. Adina da, nik uste dut, e.

Martxeli. Hori da adina eta justu kirol horretan zeren bera ibili bazen txirrindularitzan, beno. Baina justu horretan eta ama hor, ba.

Bale. Lehen eredua ematea esan du Argiak. Azkeneko galderatxo bat daukat, nik uste. Etorkizunari begira zer aurrerabide ikusten diozuen arlo honi?

Aitziber. Arlo honi?

Bai, pilota eta emakumea, tartean ama sartu nahi baduzue sartu lasai. Zer ikusi nahiko zenioketen eta nola erraztuko zenioketen pilotan aritu nahi duen bati, zuen egoera berean balego edo antzekoan, jarduteko aukera hori edukitzea.

Martxeli. Nola bultzatu pixka bat hori?

Bai.

Aitziber. Kantera landu behar da, ez?

Argia. Horixe, txikitatik.

Aitziber. Nik, lehengoan, Hernanin, nire lagun baten alabak esan zidan, ez dakit dituen zazpi edo zortzi urte, eta palan apuntatu dela. Kristoren grazia egin zidan.

Martxeli. Hor dabilta.

Aitziber. Bai, bai, amak esan zidan “ibiltzen dira” eta niretzat aluzinantea da zazpi urterekin palan ibiltzea. Hemen ez dago aukerarik eta lehenengo gauza aukera edukitzea da. Zure herrian, lan bat da denentzat eta abar, eta ez gara hasiko Hernanira eramaten. Ez dakit, futboleko mundu guztian ibil zaitezkeen bezala, zaila da ez ibiltzea, esfortzu bat egin behar duzu futbola ez ikusteko eta ez ibiltzeko, ba, hori, ez. Hori izango litzateke lehenengoa.

Martxeli. Niretzat frontoia eskura eduki, frontoi irekia.

Aitziber. Helduak zergatik ibiliko dira palan? Txikitan ibili direlako seguraski, ez? Beno, nik esaten dizuet, beti frontoia eduki dudalako ondoan eta aitarekin edo.

Martxeli. Hori da.

Argia. Edo aukera eduki dugulako, zeren auzo bakoitzean dago frontoi bat. Eduki behar duzu eskura.

Martxeli. Niretzako hori da, eduki behar duzu eskura. Irekia esan nahi dut, ordutegi eta ezer gabe.

Aitziber. Bai, hori da, joan eta ibiltzeko aukera erraza.

Martxeli. Eta gero etxean materiala eduki.

Aitziber. Bai.

Martxeli. Beste gauzak daukazun bezala. Burruntzalia eta edukitzen dugu ba? En el lote. Nire etxean, eskuzko pilota, pilotak beti, palak beti, eta nire etxean ez zen neska edo mutila, gu asko gara. Denak joaten ginen frontoira, berdin du, bakoitza bere mailan. Gero hartuko dute edo ez dute hartuko.

Aitziber. Hori da, bai, baina ibili baldin bazara zazpi, zortzi, bederatzi edo hamar urterekin, nik uste dut probabilitatea gehiago daukazu. Igual hamabitik hamabostera utziko duzu, baina igual hamaseirekin hasiko zara berriz, ez? Ez dakit. Gero, ba, ya, ama izanda, ba, berdin. Amen etorkizuna ez dakit, nik nirea, orain gerriko minarekin hasi naiz eta, beno.

Haizea. Zer, berriz?

Aitziber. Bai, beno, ez zait pasa urte guztian, e, beno. Esan nahi dizut gure etorkizuna, ba, ondo pasatzea eta.

Martxeli. Eta gustuko kirola egitea, e. Niri gustatzen zait.

Aitziber. Ez kirol erronka moduan.

Martxeli. Nik behintzat ez.

Aitziber. Ondo pasatzea, taldean gustura egotea eta.

Argia. Gogoarekin joan eta.

Aitziber. Adrenalina pixka bat bota, desahogatu.

Argia. Hitz egin pixka bat.

Haizea. Pixka bat?

Aitziber. Barre pixka bat egin.

Argia. Kar, kar, kar.

Haizea. Hitz egin ikaragarri.

Martxeli. Egitea kirola, baina kirol hori, kirol hori gustatzen zait. Ez da kirol pixka bat, ez, hori.

Argia. Niretzako deskubrimendu bat da.

Aitziber. Niretzako korrika egitera joatea, ba, baina hau.

Martxeli. Niretzako ere bai.

Aitziber. Nik palan gozatu egiten dut.

Martxeli. Eta, beno, ya amak edo ez amak, ya edadetuak, gu bezalakoak, helduak bultzatzeko, ba, halako taldeak bultzatu behar dira. Federaziotik saiatu eta jendea jartzen eta taldeak antArgiaen. Niretzako horrela jende asko animatzen da. Hernanin atera dira, jendea atera da.

Aitziber. Baina, Hernanin dago aspaldiko tradizioa, ez?

Martxeli. Bai, baina esan nahi dut gero taldetan, ba, atera direla. Hiru talde daude eta txapelketak antArgiaen dira.

Hernanin pasako ziren...

Aitziber. Eta, gizon talderik ez dago?

Martxeli. Ez, palakoa zen. Aurten batek bat apuntatuko ote zen, baina.

Haizea. Ez dira ausartu.

Martxeli. Adibidez, nik Axularren kasua, baina gaizki dabil, ez dago ondo. Belaunean zerbait duela eta esan ziotela pala uzteko eta ez du utzi nahi, baina ezin du igual horrelako konpromisoa hartu. Berak esanda. Mutilak beti eskupilota eta neskak ya suabeago.

Aitziber. Bai, eta antolatuagoa edo.

Martxeli. Hernanin, egia esan, bada aspaldi.

Argia. Hemen badago talde bat emakumeena mazizarekin ibiltzen direnak.

Haizea. Hernanin eskola dago txikitatik, hori da aldea. Orduan, atzo esan zidan Ibonek eskola kirolek hirurogei bat apuntatu direla.

Aitziber. Palan?

Haizea. Eskola kirolek.

Argia. Usurbilen hori falta da.

Aitziber. Neskak bakarrik?

Haizea. Neskak bakarrik.

Aitziber. Hirurogei, e? Asko da hirurogei!

Haizea. Hirurogeitik hamarrek jarraituta ere.

Martxeli. Ba, bai.

Argia. Niri, adibidez, Usurbilen gustatuko litzaidake nire alabek jolastea eta aukera edukitzea. Ez badute nahi ez ditut derrigortuko, baina.

Haizea. Ikustea da, e, Zubietan ere pasatzen ari zaigu. Ez Hernanin bezain pila, baina atzetik datozenek esaten dutela palan hasiko direla, LHren bukaerakoak. Hori kostatu egiten da.

Martxeli. Nik uste, aukera hori emanez gero, jendea jarritz gero, aterako litzatekeela. Bai.

Argia. Palak daukana ona da, ba, adibidez, eskubaloian jende asko behar duzu, tokia behar duzu berezia, baina frontoiak toki guztietan daude eta pala eta pilota bakarrik behar dira.

Aitziber. Bai, ez duela gehiegi eskatzen.

Martxeli. Gero, begira, palan hondartzan ere ibil zaitezke gustura asko.

Haizea. Hor, etorkizunari begira, segun zer helburu markatzen dituzun. Ez? Zer etorkizun ikusten diogun? Etorkizuna badauka kirolak, baina igual, ez dakit, modu berriak bilatu beharko dira antolaketa aldetik. Ez dakit, orain arte federazioak bultzatu baldin badu dena, ba, klaro, igual.

Martxeli. Igual ez du federazio kontua izan behar. Klaro, nik ez dakit.

Haizea. Etorkizuna badauka, baina tokia egin behar zaio kirolari herri mailan.

Martxeli. Baina, nik uste hor klubak, ez? Klubak berak antolatu behar dituela horrelako gauzak. Saskibaloian zer antArgiaen ditu federazioak? Ez, klubak berak. Ba, hartu neskak, adibidez, zuen adinekoak edo 20 urtetik aurrera badira palariak, horiek jarri eta klubak berak antola dezake. Beti gaude federazioari begira. Nik, ez dakit, federazioak abiatu egin zuen, ez, Emakumea Pilotari programa horrekin. Hortik aurrera ez du zertan ibili behar.

Aitziber. Beste kirolean sortzen diren bezala, ez?

Martxeli. Norberak jartzen du jendea eta martxan jarria dago. Gu zain gaude. Kantatuko dugu zain dago ama?

Ez dakit, beste zer edo zer esan nahi baduzue, ba. Edo tira egin nahi badiazue belarritik, etxeko lanak bidalita presaka edo horrelako gauzak, ba, egin tira lasai. Hortik aurrera, berriz eskerrak eman. Nire asmoa da gaur hemen esandakoak transkribatzea, dokumentu bat osatzea hemen esandakoekin eta berriz zuei kolaborazioa eskatzea, nahi dut zuei bidali eta zuk irakurtzeko eskatzea. Nik uste bilera bat antArgiaea akaso zaila izango dela, ez? Aukera bat da biltzea, beste aukera bat telefonoz egitea nirekin eta bestea e-postaz egitea.

EZTABAIDA-TALDEA: 2. BILERA

Partaideak: Argia, ~~Aitziber~~ (ondoezaren abisua), Haizea, Ibone eta Martxeli.
Eguna eta ordua: urriak 8, asteartea, 18:30, Potxoenea, Usurbil.

Arratsalde on berriz. Berriz ere Usurbilen, berriz ere ama-bilera. Ia ama-bilera deitzen diot nik. Zu eta ni gara eszepzioak, Haizea, baina gehiengoa...

Beno, egingo dugu sarrera azkar-azkar bat. Lehenengo eskerrak etorri izanagatik. Egin genuen lehenengo bilera bat orain dela hiru aste edo uste dut. Ibone ere bazetorren, baina, beno, azken orduko zera bat zela eta, baina, gaur etorri da. Beraz, ongi etorria zuri ere.

Ibone. Eskerrik asko zuei ere.

Hortik aurrera badakizue. Pilota eta emakumea, emakumea eta pilota, gelditzen zaizkit oraindik beste hilabete batzuk. Ia hiru urte joan dira, beraz, ez zait hainbeste gelditzen. Ardurak, betebeharrak eta amatasuna eta gai horren inguruan ari naiz orain idazten eta hori jorrazteko bigarren bilera da hau. Bileraren dinamika oso sinplea da. Izango da elkarri hitza jan gabe, e, iritzia ematea. Ordena zehatzik gabe eta iritzia lasai eman, nahi duzuen, nahi ez duzuen, tarteka zerbait jan nahi baduzue. Hortik aurrera norberaren aurkezpen txiki-txiki batekin hasiko gara.

(B.O. Nire mugikorra jotzen hasi eta esamesa heldu zitzaidan). Aitziber da.

Haizea. Zerbait duela.

Ohean dagoela gaixo.

Argia. Nik lehenago ikusi dut ba. Lehenago ikusi dut nik, arratsaldean.

Oraintxe botaka aritu dela eta.

Haizea. Ooo, beti norbaitek failatzen du.

Martxeli. Ezin osatu neska! Hau da taldea!

Ibone. Zer da, falta den bakarra?

Haizea. Beti nire ezkerrekoak falta dira, e.

Kar, kar, kar.

Haizea. Nik ez dakit honek...

Orduan emango didazue baimena eta egingo diot Mikelri dei bat zain ez egoteko. Hauek dira momentuko gauzak.

Martxeli. Ezustekoak.

Beno, aurkezpenekin nahi baduzue hasi.

Ibone. Ni Ibone naiz, lehengoan falta zena. Ez dakit zer esan behar dudan nik.

Ea pilotarekin zer lotura zeneukaten, kirolarekin ere bai eta nongoa zaren (B.O. Aretotik plazara jaitsi naiz kultur etxea ixteko giltza bila, Mikelrena).

Ibone. Hernanikoa nahiz eta lau urtez Oiartzunen bizi izan nintzen.

Martxeli. A, bai? Ez zintudan faltan bota, kar, kar.

Ibone. Lo egitera joaten nintzen hara. Horregatik hasi nintzen ni palan entrenatzen, e. Ni joan nintzen, ez nuen Hernanirekin lotura hautsi nahi eta esan nuen “hemen zerbait egin behar dut”. Lotzen ninduen umeak entrenatzeak. Beno, etenaldia eduki dut, e.

Haizea. Nola etenaldia eduki duzula?

Ibone. Bai, etenaldi bat eduki dut. Nik hamar urteko hutsune bat eduki dut. Hauek uste dute, jendeak, “hau betidanik ibili da”. Ez. Ni hamar urtez... Ni hasi nintzen 25 urterekin, egin nituen lau urte, gero haurdun geratu nintzen eta gero hamar urte, ba, ezta... Beno, ba hori, fitxa baneukan, nik fitxa baneukan, fitxa behin ere ez dut kendu, baina entrenatzera ez, apuntatzen nintzen partiduetara eta bai, goazen partiduetara. Ni nengoen de tapatxulos esaten dena, orain ibiltzen naizen bezala, ez?

Martxeli. Hamar urte jolasten, baina hamar urte entrenatzen ez?

Ibone. Entrenatu gabe. Jolastu bai, egiten nuen. Honbre, hori gelditzen da, baina horrela, fundamentu gabe esateko. Bai, partiduetara joaten nintzen, baina ordezko bezala eta.

Martxeli. Eta entrenatzaile moduan?

Ibone. Entrenatzaile bai joaten nintzen. Jokalari bezala esaten ari naiz. Nik, jokalaria bezala, hamar urte, horrela, ezer ere ez. Entrenatzaile bai, baina irakurri zenuten, umeekin. Umeak zintzilik, titia eta dena eman diet nik umei entrenamenduetan. E, titia tokatzen zaiola eta. Ez dakit zuek hori bizi izan duzuen.

Haizea. Nik titiarena ez dakit, baina

Ibone. Zuen aurrekoek bai.

Zer, ia bileran hasi zarete? Ondo. (B.O. Ni zuzendariarekin egon eta gelara bueltan)

Ibone. Bai, aurkezpena egiten ari naiz. Galdetu didate ea noiz hasi nintzen eta esaten ari nintzen ni 25 urtetik nago, 48 urte dauzkat, eta kirolari bezala hamar urte, uf, ama. Ama, dedikazio osoa ama izatera nahiz eta entrenatzaile bezala jarraitu nuen. Baina umeekin. Nik ez neukan orain ikusten dudanean bezala. Orain ikusten dudanean zer inbidia, etorri da aita eta benga, ya. Nire senarra autonomoa zen, ordurik gabe. Ez zeukan ordurik eta.

Kar, kar, kar.

Zer?

Argia. Martxelik esaten du esaldi bat inbidiarena. Nola zen?

Garaiak aldatzearena.

Ibone. Gu beste garai batekoak gara, zeren nire etxean, ama ere... Nik ez nion planteatu ere egin nire amari nire umeak, ni entrenatzera joateagatik umeak uztea. Kulturalki nire amak gaizki ikusten zuen nik kirola egitea. Ama nintzelako.

Argia. Ya.

Ibone. Orduan, hori, nola utziko nion nik amari? Orduan, benga, ez, ez, Ibone umeekin, ez? Hauek ezagutu dute txiki-txikitatik (*B.O. Haizeari zuzenduz*). Aiert behintzat bai.

Haizea. Aiert bai.

Ibone. Bai. Hori.

Ondo, oso ondo.

Haizea. Beno, ba guk aurkeztu genuen gure burua, ez?

Esan izen-abizenak eta nongoak zareten, mesedez.

Haizea. Beno, ba Haizea naiz eta Zubietan bizi naiz. Horrela, laburbilduz.

Kar, kar, kar.

Haizea. Zerbait gehiago?

Kar, kar, kar.

Nahikoa da.

Argia. Ni Argia eta Usurbilen bizi naiz. Ni palan orain dela gutxi hasi naiz, Haizearekin.

Ibone. Baina beste kirolen bat egiten zenuen?

Argia. Nik, eskubaloia

Ibone. Bai. Ni ere eskubaloitik nator.

Argia. A, bai? Niri zure aurpegia ezaguna egiten zait, baina ez dakit.

Martxeli. Txistua ere jotzen du eta.

Haizea. Ofizio asko dauzka.

Ibone. Nire oinarria, kirol oinarria, izan da eskubaloia.

Argia. A, bai? Eskubaloian jolasten zenuen? Hernanin entrenatzen zenuen?

Ibone. Nik jolastu nuen Aieten, Bidebietan, e, Lasarten ere bai. Jolastu nuen, infantiletan.

Argia. A bai, e?

Ibone. Ez neukan ekiporik Hernanin.

Argia. Nik Usurbilen jolasten nuen, baina Hernanira eta joaten nintzen entrenatzera batzuetan.

Ibone. Usurbilen? Entrenatzailea Gerriko?

Argia. Bai, Pedro. Joe, nire entrenatzailea izan zen.

Ibone. Hemen jarraitzen du, edo? Ba, eskumuinak eman.

Argia. Ez.

Ibone. Joe, ni... Bidebietan ibili zen hura. Txiki bat, bizarduna.

Argia. Ba egin genuen 50.urteurrena eta etorri zen. Bai. Aspaldi ikusi gabe eta, bai.

Ibone. Ba, begira.

Argia. Niri ezaguna egiten zitzaidan, baina esaten nuen, ba, palakoa.

Ibone. Eta eskubaloian ere entrenatzailea izan nintzen, umeen entrenatzailea.

Argia, A, bai?

Ibone. Bai. Sei urtez ibili nintzen.

Argia. Eta, neskak edo mutilak?

Ibone. Neskak, nik beti neskak. Mutilek bazeuzkaten nahikoa. Ni sartu nintzen nesketan ikusten nuelako ez zegoela.

Argia. A, bai, e?

Ibone. Ni, nire garaian, mutilak atera ziren pila bat, baina neskak norbaitek hasi beharko du ateratzen eta horrela hasi nintzen. Monitore izan nintzen, atera nuen titulua eta hori dena, eta, benga. Kanpaina egiten nuen, umeak ikusi jolasten eta “etorri nirekin”. Palan ere horrela egiten nuen. Tilosetan ikusten nituen neskak eta “nahi al duzue nirekin etorri?” eta larunbatetan hasi ginen Hernanin. Ordurik gabe eta ezer gabe, ahal genuenean. Horrela. Izar-eta horrela hartu nituen nik, kalean hartu nituen. Bederatzietatik ordu batera egiten genuen. Adin desberdinetakoak. Han ibiltzen ginen eta noizean behin Pirritx eta Porrotx dagoela eta ailegatzen ginen eta beti pasatzen zitzaigun berdina, gaur ez dago entrenamendurik. “Nola ezetz?” eta “ez, bazkaria dago

edo pailazoak daude”. Egin genuen idatzi bat, gogoratzen zarete? (*B.O. Haizeari galdera luzatuz*). Ez dakit zenbat urte zenituzten zuek eta “Ibone, zerbait egin behar dugu” eta horrela bero-beroan jarri, aurkeztu genuen kiroldegian, Kronikan jarri eta ya hurrengo astetik aurrera ya “aizu, ez daukazue entrenamendurik e, hau dago” eta “bale, hori nahi genuen, ez genuen besterik nahi”. Oso gauza inportantea. Gordeta daukat karta hura, e.

Martxeli, zu falta zara.

Martxeli. Martxeli naiz, Hernanikoa eta palan hasteko gogoarekin nago ia. Esan ziguten urriaren 23an hasiko garela.

A, bai? Ba, jarri agendan edo nahi duzun lekuan gorriz.

Martxeli. Emakumea Pilotariko ikastaroa. Hori Haizea bezala, buruan. Hori buruan gordeko dut.

Haizea. Datorren astean, ez?

Martxeli. 23an.

Ibone. Ez, lehenago.

Martxeli. Laidak esan zigun guri.

Ibone. Bai?

Haizea. Ba sar zaitez berriz zeren uste dut lehenago dela.

Martxeli. A, begira.

Ibone. 18an. 18an ez, beno, datorren astean. Bai.

Martxeli. Ez nuen espero lehenago. Ba, hobeto.

Beno, bale. Gutxi gorabehera elkar ezagutzen duzue ya, lagun zaharrak bezala, ezta? Orduan, nire asmoa zen bilera hasteko, nola aurrekoan egin genuen bakoitzak bere diagrama azaltzea eta Ibone falta zen, ba, egingo dugu Ibonerena azaltzea.

Argia. Nik ez dut ekarri nirea, e.

Baina nik bai (B.O. Bitartean kopiak banatuz emakumeen artean).

Haizea. Konpartituko dugu.

Martxeli. Tabernan utzi nituen nik, edo hor nonbait.

Ibone. Ikuspuntua dator ya ama izatetik. Esan dizuedana? Nire pilotako 10 urteko hutsunea hemen dago.

Martxeli. Aber, non? Kar, kar, kar.

Ibone. Hemen dago. Nik, haurdun geratu eta jarraitu nuen jokatzeko ahal nuen arte, tenporada bukatu arte.

Martxeli. Ibone, trauma geratuko zaizu, beraz, bota. Kar, kar. 10 urteko...

Ibone. Trauma ez. Ni, nire haurdunaldian gogoratzen naiz Irunen trinketean jolastu nuela. Nik bakarrik nekien haurdun nengoela. "Aizu, eta zer pasatzen zaizu?" eta "ez, ezer ere ez".

Haizea. Nola liteke hori?

Ibone. Haurdun jolastu nuen eta txapelketa bukaera zen, Irunen. Irabazi genuen eta bukatutakoan esan nien "haurdun nago" eta "esaten genuen ba guk ez zarela lurrera bota eta ez zinela asko mugitzen" eta. Pixka bat nengoen. Es que, zer gauza diren, haurdun zaudenean ematen du ezin duzula ezer ere egin. Amak eta hori sartzen dizute buruan. Ni ondo nengoen, oso ondo nengoen.

Martxeli. Trinketean ibiltzeko, Ibone.

Kar, kar, kar.

Ibone. Beno, ni oso ondo nengoen, baina psikologikoki ukituta nengoen.

Argia. Honbre.

Ibone. Esaten nuen "Ibone, haurdun zaudela, ezin duzula hau egin" eta nik, gero, jaio eta gero esaten nuen "zer txorakeriak". Eta, gero, orain ikusten dituzu Eider geroztik ikusita eta normal-normal, jolasten igual-igual, bizikletan ibiltzen eta. Baina, garai hartan, beno, semeak 14 urte ditu, 15 egingo ditu eta ni gogoratzen naiz orain dela 15 urte, ba, beldurra bezala. Ni hor con un subidón de la leche, hobeto nengoen. Kirolariek esaten dute, gainera, aurrAiert hilabeteak. Orduan, umeak jaiotzetik bost urtera arte, bai, kirola utzi? Nik kirola utzi egin nuen erabat, ezin nuen entrenatzera joan, ez neukan zeinekin utzi umeak. Nik fitxa mantendu nuen eta joaten nintzen partiduetara. Orduan jende gutxi zegoen, ez zegoen orain dagoen mobida, hainbeste jende apuntatzen dela eta gutxi ginen eta mantendu behar zela taldea eta joaten nintzen, baina esaten dizuet, entrenatu gabe. Ez neukan, bikotearen laguntza eza, hura autonomoa zen eta ezin zuen. Orduan, bost urtera arte, zaharrenak bost bat urte, beno, gehiago esango nuke, zaharrena zazpi-zortzi urterekin hasi zen.

Hortaz aparte, nik kirolari bezala, e, baina lehen esan dizuet, nik jarraitzen nuen umeak entrenatzen. Ez neukan inongo arazorik haurdun egonda ere umeak entrenatzeko, ume txikiak, zortzi-bederatzi urteko neskek. Gero, frontoira joatean umeak beti nirekin. Orduan hasi nintzen Zubietan entrenatzen eta Aiert eramaten nuen han, txiki-txikia zen baita. Entrenatu ez, baina entrenatu arazi bai. Orduan ya neska hasi zen, hiru urteko aldea dute. Orduan, ba, umeak daukate ba umeen gauzak hona eramane behar duzula, hara eramane behar duzula, ez dakit zer eta kristoren estresa, uf! Ama bezala, agenda bat... zurea eta umeen agenda bete behar zen. Gero, bost urtetik aurrera umeen orduetara egokituz kirola bai, beno, apuntatu nintzen kiroldegian, spinning egiten nuen, baina ez neukalako non entrenatu. Frontoian ordu hori ez neukan ni libre nengonean,

betiko arazoa. Gero, 10-11 urtetik gora ya beraiek bakarrik joaten dira bertso eskolara, ez dakit zer dela, eta orduan ya baneukan aukera entrenatzeko, baina, guk daramatzagu Hernanin 2 urte entrenatzen, entrenamendu saioak edukitzen? Bestela ez, e, ni beti entrenatu arazten, ni beti joaten nintzen partiduetara ia entrenatu gabe, frontoian orduak sartu gabe esaten dena. Orduan, lehengo urtean egin genuen eta aurten ere lortu dugu, ez genuelako ordurik. Gure herrian, ba, hainbeste jenderentzako ez dago, ez du ematen. Horrela.

Bale. Zuek zer edo zer erantsi nahi duzue edo?

Martxeli. Ez.

Bale, oso ondo iruditzen zait.

Ibone. A, eta seme-alaben kopurua ere bai. Nik, batekin erraza da, birekin ere bai, baina nik hirurekin esango nuke inposiblea dela.

Beno, hor Aitziber, gaixo dago.

Martxeli. Ezin daiteke?

Ibone. Bikotearen laguntzarik gabe, klaro. Bikotearen laguntza baduzu.

Argia. Gauza bat da zu joan ordu eta erdi jolastera eta bestea...

Ibone. Bai, baina geratu talde batekin bostetan joateko, uf, hirurekin ya. Birekin ya esaten duzu uf.

Argia. Ya.

Ibone. Irakurri nuen baita bat gaixotzen denean bestearekin zer egiten duzu, ez? Ba aitak horretarako daude, ez, ba horixe baietz, horretarako daude aitak. Zer, beti amarekin? Ba, bai.

Martxeli. Aitak ere hor daude.

Bale, oso ondo iruditzen zait. Bai segi.

Ibone. Bai, lehen esan dut, ez dakit zu hemen zinen (*B.O. Hasierako aurkezpenetan esanikoari erreferentzia eginez*), bai. Esan dut nire amaren kulturari ez zela sartzen, ezta erotuta ere. Nola esango nion, gainera, beno, beno, ezta erotuta ere, gainera. Ezta planteatu ere. Ni Oiartzunen bizi nintzenean esaten zidan “a, etorri zara herrira ama daukazulako hemen” eta ni “bai, ez dakigu ze ondo” eta “bai, bai, bai, bai” esaten duzu, baina ez zen horregatik.

Martxeli. Kar, kar, kar.

Ibone. Baina jendeak horrela uste du, ez?

Bale, oso ondo. Nire asmoa da, bigarren asmoa zen, bidali nizuen etxeko lan polit-polit bat, irakurtzeko aurreko bileran esanikoak eta, beno, ba ote daukazuen horren inguruan ezer edo iritzi berezirik, zerbait gehiago etorri zaizuen burura hori irakurrita esan duzuen “nik gai honetan bai edo ez”. Bestela aurrera segituko dugu zeren ekarri ditut beste pare bat hiru bat gai jorratu nahi nituzkeenak.

Bat da, aurrekoan aritu ginen gehienbat amaz eta ama gora eta ama behera. Nire galdera da, ardurei dagokienez, ardura deitzen diegun horiek.

Ibone. Etxeko martxa?

Bai. Ama izan aurretik eta ama izan ondoren zer diferentzia dagoen edo badagoen ezberdintasunik.

Argia. Gehiago dela. Kar, kar, kar.

Ibone. Nire kasuan ere bai, gehiago, lehenagokoak gehi gaineratik umeak.

Argia. Lana gehitu egiten da, umeek dena zikintzen dute, dena, arropa gehiago, dena da gehiago.

Ibone. Eta, gainera, ordua, ezin duzu bizi ordu zehatz batzuetan. Umeen arabera beti.

Martxeli. Bai.

Ibone. Ezin duzu esan “ez, ez, zortzietan hor”. Ez, ez, imposible. Ez?

Gehiago bakarrik? Esan nahi dut, ez da ezer gehiago aldatzen?

Martxeli. Bai, nik uste dut amaren sentimendu horrek eragiten dizula.

Bakarrik egotetik bikotea edukitzera eta bikotetik familia.

Ibone. Bikote gaixoa uzten duzu hor erdi abandonatuta igual. Nahikoa lana badaukazu umeekin ez dakit zer eta. Nik uste dut baita sentitzen direla “nik zer pintatzen dut hemen?” Bai, nik ere hori iruditzen zait baietz.

Martxeli. Nik esan nahi nuen etxearekiko kezka ere desberdin hartzen duzula. Umerik gabe lehenago pixka bat horrela, ez? Eta ya umeak dituzula nik etxeko lan gehiago ez dut egiten, egia esan, ez dut gehiago egiten, baina bai hartzen duzula beste modu batean. Ez dakit zer dagoen hor. Kulturala uste dut dela, e.

Ibone. Nik kontzeptua daukat nire amarekiko. Ni gogoratzen naiz, nire ama zegoen obsesionatuta garbitasunarekin. Zen... Klaro, etxean bizi zen eta benga eta. Ni, horretan, ba, ez, zikina baldin badago zikina dago, ez naiz iristen.

Argia. Ohea egin gabe uztea eta.

Ibone. Hori da eta “ohea ez duzula egiten?” Pixka bat kontzeptu hori, ez? “Eta etxea nola edukiko duzu?” Edo “nola moldatzen zara bazkariarekin hainbeste” eta nire amak beti, “hainbeste gauza eginda zerbaitek gaizki joan behar du”. Zer uzten duzu, ba etxea

uzten duzu, ba, ez? Beno, ez dakit, nik bera ikusten nuen oso esklabizatua etxearekiko, “es que hau egin behar dut” eta “ama, joan zaitetz horra eta gero etxea hor edukiko duzu”. Zeukan ardura, ematen zuen, obligazio bezala. Senarra joaten zen lanera, bera etxean zegoen eta orduan bere obligazioa zen etxea.

Martxeli. Gero, igual etxean gelditze hori justifikatu beharra zeukaten, ez? Eta guk ez daukagu justifikatu beharrik, ez? Kar, kar.

Argia. Igual zure amak etxetik kanpora ez duelako lanik egin.

Ibone. Ez ba, hori da. Etxean zegoen.

Argia. Nire amak, adibidez, bai, orduan.

Ibone. Orduan beste...

Argia. Beno, aitona eta amona bizi gurekin, e, desberdina da baita ere, baina nik uste beste era batera lana egin duenak etxetik kanpora nik uste beste... badakiela zer erritmo dagoen eta.

Martxeli. Baina hor, adibidez, nabari egiten da batetik bestera, e.

Ibone. Baina, gero, amona eta ikusita. Amonak baserriko zerakoak ziren eta ez zioten hainbeste garrantzia ematen garbitasunari.

Argia. Ya.

Nola emango zioten ba baldin bazeuzkaten ganadu jatenak eta behien azpiak gehi hiru ume zintzilik?!

Ibone. Hori ba. Hori ba. Hori ba.

Martxeli. Guk ere badaukagu, behiak ez, baina...

Ibone. Beste dena.

Martxeli. Kanpoko lana daukagu. Eta etxeak ez du deitzen.

Ibone. Nik hori ikusten dut, amonari eta ez zien hainbeste axola. Amari bai.

Martxeli. Etxeak ez du deitzen.

Ibone. Uf, bera etxean zegoen eta...

Bale. Ez dago aldaketa gehiago? Ez baldin badago ez dago, e. Zu ere sar zaitetzke, e (B.O. Haizeari zuzenduz), ama izan aurretik ardurak izaten dira, badago, e.

Martxeli. Edo iruditzen zaizuna. Igual ikusten duzu. Egia da, ba, nola ikusten duzun zure koadrilan edo nire ez dakit zeinek.

Esan nahi dut, e, aldatzen da bikotetik familiara aldatzen da.

Ibone. Bai, bai.

Martxeli. Bai.

Esan duzue umeein beste ardura bat gehiago dela.

Martxeli. Gehiago betetzen duzu zure bizitza, zure gazta hori gehiago betetzen da, ez? Nik esaten dut bizitza dela gazta bat bezala, orduan, dago espazio librea, ordenagailuan jartzen du ba, halako banaketa egiten duzu eta gero eta gauza gehiago.

Argia. Bai.

Ibone. Joaten da aldatzen.

Martxeli. Proporzioak aldatzen dira.

Adibidez, arduretan aldatzen da?

Ibone. Arduretan?

Martxeli. Niretzako bai, sentimendua.

Baina ez naiz sentimenduez ari, e. Bikotean bizi zarenean denok egiten dugu berdin, nik zer dakit, sukaldean.

Argia. Eta gero banatu egiten zara. Bat dago sukaldean egitean eta bestea dago beste zer baitetan.

Ibone. Bai, bai, bai.

Martxeli. Baina, hala ere, seme-alabak izanda.

Argia. Ez dakit zeren bila zabilzan.

Ez, ez nabil ezeren bila, galdetzen ari naiz.

Martxeli. Nik ikusten dut, orokorrean, ez da agian denen kasua, baina nik uste seme-alabez gehiago arduratzen da ama. Niri iruditzen zaidana, e.

Eta beste ardura batzuk hartzen ditu gizonak lehen hartzen ez zituenak?

Ibone. Aitak hartzen duena da jolasteko gehiago. Etxeko kontuak ez.

Martxeli. Ez dakit hartzen dituen.

Ibone. Ba, benga, nik jolastuko dut umeein.

Jolasteko?

Ibone. Bai, aita jolasteko.

Aisialdi zati horretan?

Ibone. Bai, nik uste dut. Nik horrela ikusten dut.

Martxeli. Eta, gero, negarrak eta hori beti amarengana, ez? Negarrak edo kezkak edo gehiago jotzen dute.

Ibone. Eta gaixoaldiak eta dena, horiek amak.

Argia. Baina, nik hor.

Martxeli. Ez?

Argia. Niretzako baita ordu gehiago egoten garelako, ez? Nik daukat koadrilan baita bat aitarekin daudela gehiago eta ama ya zegoen “ze ostra!”

Martxeli. A, baina, begiratu ama nola dagoen, e. Eta aitak ez dira egoten horrela.

Ibone. Ba, izan daiteke.

Argia. Eta aita batzuk ere bai esaten dute “jo, beti amarekin nahi dute” edo hori ere entzuten da. Baina, bai, adibidez, nire koadrilako horrek gaizki pasatzen zuen eta “joe, dena aita, aita” eta bera geratzen zen pixka bat baztertua. Klaro, bera lanera joaten zen, gizona zegoen etxean eta. Nik uste dut dela umeak segun zeinekin dauden ordu gehiena. Zeren aparte.

Martxeli. Eta ordu bertsuak egonda?

Argia. Orduan ya ez dakit.

Martxeli. Biak lanean kanpoan egonda, nik uste, hala ere, ordu gehiago sartzen dituela amak eta ez dut uste instintua denik, e.

Argia. Ni, adibidez, murrizketarekin nago.

Ibone. Eta antolaketa. Lanean zaudela edo ez zaudela, zein arduratzen da zer egin behar duen, zer eraman behar duen ikastolan joan behar duenean eskursio batera. Zein arduratzen da? Ama.

Martxeli. Niri behin aita batek esan zidan ez zela gogoratzen bere alabak zer gauza zituen eskolaz kanpo. Esan nion “zer suerte daukazun, esan nahi du ez zarela arduratzen hortaz”. Ez? Buruan zeukan, ez dakit asteazkenean zeukan edo.

Ibone. “Ez dakit nora joaten den”, igual. Baita.

Martxeli. Ez? Nik uste ardura horiek amak hartzen dituela gehiago. Nire etxeko sukaldeko kalendario horretan, ez? Orain ez dakit zer, gero eskola kirola.

Hor idazten ditu amatxo Martxelik bereak gehi seme-alabenak. Aitatxok idazten ditu bereak.

Martxeli. Nik esaten dut biak lanean egonda, e. Gehiago arduratzen da ama.

Ibone. Eta eskolako lanak aitari ez zaio inporta.

Kar, kar, kar.

Haizea. Ibone, ari zara jartzen zure senarra edo bikotea edo, kar, kar.

Kar, kar, kar.

Ibone. Eta bere amak esaten dit nirekin hasiz geroztik kristoren pila aldatu duela, klaro. Bi anaia ziren eta dena amak egiten zuen eta nirekin “joe, hori egiten du? Eta fregatu egiten du, eta bazkaria egiten du? Jo, nola lortu duzu?” amak esaten zidan. Bere amak. O sea, egiten du, nirekin egonda, honbre, lanak banatu behar dira.

Argia. Bestela ezin da.

Ibone. Egiten da, bestela da imposiblea. Bai, bai, ni igandeetan libre egoten naiz. Aste guztian ez baina igandeetan libre egoten naiz. Berak egiten sukaldatu, dena. Horrela daukagu.

Argia. Familia bakoitzak bere erara.

Ibone. Bakoitzak daukagu bere arauak. Bera ere berandu etortzen zen lanetik. Zer egingo zuen? Umeak lotan daude ya edo. Eta bilera guztiak? Zein joaten da? Ama. Orain hasi dira gizonak ere, orain hasi dira. Gizon asko hasi dira. Ikusten ditut, orain bai.

Argia. Niretzako, orain, adibidez, paroa dela eta ikusten da jende, gizonezko gehiago arratsaldeetan umeen bila.

Martxeli. Eta, gero, eskolako bileretan, nik ikusitakoa behintzat, umeak txikiak direnean ama eta koxkortzen direnean hasten da aita. Kar, kar. DBHko bilerak.

Amatxorekin batera?

Martxeli. Edo aita bakarrik, DBHko bilerak baldin badira hor ya aita gehiago ikusten dira. Bai.

Ibone. Bai, gaur egon naiz DBHko bilera batean eta, ba, erdia eta erdia egongo ginen, e.

Martxeli. Txikiak zirenean erdia eta erdia ere bai?

Ibone. Ez, ama gehiago. Bai, bai, ama gehiago.

Martxeli. Ah.

Ibone. Nik aitak ez nituen ezagutzen.

Argia, orain? Txikiak direnean oraindik?

Argia. Aitak ere joaten dira, e.

Martxeli. Aita gehiago joaten da?

Argia. Bai, egoten dira aitak, e. Bai.

Guk oraindik ez dakigu (B.O. Haizeari zuzenduz)

Haizea. Ez.

Ibone. Ez, gizonen eredu hori aldatzen ari da onerako, e.

Martxeli. Beno, zuek, neskak palan dabiltzala. Bileretara edo ez dakit zer, harreman gehiago daukazue aitekin edo amekin?

Haizea. Amekin.

Martxeli. Neskak direlako. Mutilak balira, igual, aitak.

Haizea. Edo kirola segun.

Martxeli. Segun kirola.

Haizea. Futbola igual gizonak gehiago.

Ibone. Ez, ez, nire semea errugbira joaten da eta ama joaten da bileretara, e. Es que da segun izaerak, segun.

Argia. Eta niretzako denbora da.

Ibone. Baita ere.

Argia. Segun lanean badago.

Ibone. Atera, etorri eta bilera batera joan esaten du.

Martxeli. Ibone, zu joango zinateke.

Ibone. Bai, bai, baina gustatuko litzaidake... Esaten diot berari ere eta "es que nekatuta etorri naiz eta hor lo hartuko dut igual eta". Batzuen batzuk.

Haizea. Zuk hori ere lortuko duzu, Ibone.

Ibone. Bai, bai. Beno, ya.

Bale. Martxelik esan du lehen eta nire bigarren abiapuntua hori zen. Lanaldi bikoitza deitzen diot nik. Lanaldi bikoitza deitzen diot nik etxetik kanpora lan egiteari, soldata baten truke edo dena dela, eta gero lanetik kanpoko lan horiei. Orduan, lehen, adibidez, esan du Martxelik biek etxetik kanpora lan egiten duten kasuan, bere ustez, ama dela pisu gehiago.

Ibone. Bai. Antolaketa behintzat.

Martxeli. Burua amak darama. Burua, e. Gero eskuak eta.

Ibone. Erosketak egin behar dira? Bai, egiten dute, baina zeinek aginduta? Zeinek daki zer falta den? Noizik eta behin esaten dute “hau ere”.

Martxeli. Antolatu, bai.

Ibone. Antolaketan, bai. Etxeko gerenteak gara, bai, bai.

Denbora kudeatzaileak?

Ibone. Dena, eta baliabideak eta dena. Ez dakit zuek, igual gazteak igual igual-igual.

Haizea. Argiak beste ikuspegi bat dauka.

Ibone. Bai, gazteagoa delako. Eta aldatu da. Bai, asko.

Argia. Bai, aldatu da.

Martxeli. Seguru aldatu dela?

Ibone. Gurek 50 urtetik gora dauzkate ya.

Argia. Aber, zer erosi eta hori lista bat jartzen dugu. Lista bat daukagu sukaldeko paretan eta, bai, gero ya, ba, eroatera joan beharko da eta ba joaten gara edo. Ez dago hain. Beno, egia da gauza batzuk gehiago egiten ditugula duk, baina, nik jartzen dudana bezala labadora berak jartzen du.

Martxeli. Bai, gure etxean ere bai. Eta arropa zabaldu ere bai. Hori da terapeutikoa eta dena, labadora jarri eta zabaldu. Eta plantxan?

Ibone. Plantxa ez dute egiten, gaizki moldatzen dira.

Argia. Ez dut egiten plantxarik nik.

Ibone. Nik ez dut lortu plantxa egitea. Komuna eta garbitzea lortu dut, baina plantxa.

Martxeli. Lortu duzu?

Ibone. Bai, lortu dut. Bai.

Martxeli. Nik lortu dudana? Horretan ari gara, negoziazioetan. Kar, kar.

Kar, kar, kar.

Ibone. Nire aita, jubilatuta arte, lehen esan dut ba ama etxean zegoela, ba, ez zuen. Klaro, hiru alaba gara, hiru neska eta bera zen El Marajá. Ez zuen ezer ere egiten.

Martxeli. Hori zeinek?

Ibone. Aitak. Orain, jubilatuta dela, ama pixka bat izorratu, dena egiten du. Harrituta gaude: aspiradora pasa, enkarguetara joan. “Gure aita da hau?”

Kar, kar.

Ibone. Zen tipiko matxista, ez txarrean, e, baina ez zuen kolperik jotzen. Lau emakume etxean izanda nola egingo du berak? Gainera, horrela zen, nola egingo du berak? Orain, dena eramaten du, berak egiten du nire amak agintzen diodana ez dakit zer, baina dena egiten du.

Martxeli. Bai, niri gizon batek esan zidan behin “que era muy ordenado, que todo lo que le ordenaban hacía”. Ordenado!

Kar, kar, kar.

Argia. Nik uste hor askotan dela guk geronek ez diegula uzten beraiei egiten.

Martxeli. Nik bai, nik uzten diot.

Ibone. Nik ere bai.

Argia. Adibide bat da, e, baina umeak ikastolara joaten direnean ni lanean nago goizeko 7etan eta umei arropa jarri. Hasieran ni hasi nintzen jartzen, baina esan nuen “zertarako jarri behar dut nik? Berak badaki non dauden arropak”. Orain nik ya ez dut jartzen. Ez diot gauean jartzen hurrengo egunean umeek zer eraman behar duten, berak nahi duena jartzen die.

Ibone. Ba nik berdina egiten nuen.

Argia. Eta horrela dago neska pila bat “jo, ez da enteratzen non dauden galtzerdiak ere” eta klaro, behin ere ez baditu ateratzen, ez?

Martxeli. Guk egin behar dugu pixka bat burua jiratu bezala beste aldera.

Argia. Bai, hori da.

Ibone. Bai, hori pasatzen da. Nik ez nituen nire umeak janzen eta gaixoak joaten ziren esaten duzu... ni gogoratzen naiz, bai, ni lehenago sartzen nintzen lanera eta, bai, gogoratzen naiz.

Argia. Niri igual eguerdietan pasatzen zait, igual joaten naiz umeen bila eta zer arropa eta.

Ibone. Bila joan, ume bila eta “baina nola etorri da ume hau?”

Argia. Baina aitak jantzi dio eta listo.

Ibone. Baina, hor konpon. Bai, bai, bai. Preparatu eta zera?

Argia. Adibide bat da.

Ibone. Eta alaba 5 urtetatik “utzi, nik egingo dut dena, e”.

Kar, kar, kar.

Ibone. Nire alabak bost urterekin ya bazekien zer jantzi behar zuen. Nik uste dut barre egingo ote zioten edo, ez dakit. Esaten nuen, neska honi nondik atera zaio bost urterekin ya badakiela zer jantzi nahi duen.

Kar, kar, kar.

Ibone. “Aita, hau ez, hau ez” eta esango zion “porkulo hartzea, jantzi dena nahi duzuna”. Kar, kar.

Bale, baina gehiago nindoan konparatu partez gizonak eta emakumeak zuen bizipenetan. Azkenean, ardurak dira, ez dakit ordutegiak nola dauzkazuen, baina, beno, demagun goizetan lana eta, ez dakit, bazkalostetik aurrera edo arratsaldeetan familia-lanak edo familia ardurak. Ez dakit nola deitu. Hor, adibidez, lana eta familia hori uztartzea aisialdiarekin?

Argia. Zaila da.

Ibone. Umeekin, umeen aisialdia, parkeetara.

Argia. Bai, parkera. Usurbilgo jende pila bat ya ez dugu ezagutzen parkera ez bada joaten. Gazte pila eta esaten duzu “hau hemen bizi al da?”

Martxeli. Eta, gero, badago jendea umeekin zaude eta sartzen zara bere gauzetan eta “ya, baina hori zuri gustatzen zaizu”, ez? Umeen ikuspegitik egiten dituzulako zenbait gauza edo edozein, pailazoak ikustera joan, ez dakit zer dela. “Klaro, umeak txikiak diren bitartean bai. Itxaron gero, ea gustatzen zaizkidan”. Ez dakit nola esan, egiten duzu pixka bat sartu zure denboran.

Zure aisialdian sartzen da umeen aisialdia gehi zure aisialdia?

Argia. Bai, ba, hori da.

Ibone. Bai.

Martxeli. Ez da zurea bihurtzen, baina hala hartu behar. Ez daukazu besterik. Ez duzu hartzen aparte, momentuz ez duzu kontenplatu ere egiten, ez? Txikiak direla.

Argia. Auzoko festak eta umeen egunean joaten gara auzoko festa horietara.

Martxeli. Bai, ez dakit, nik uste igual aitek ez dutela hainbeste begiratzen. Niri behintzat esan zidan nire bikoteak dena begiratzen nuela umeenetik.

Ibone. Bai, niri ere bai.

Martxeli. Nik hala ikusten dut.

Ibone. Esaten zidan “denetara joan behar al da?” eta “beno, umeen garaia da, orain da garaia”. Bai.

Martxeli. Bai. Beno, orain handitu direla ere ni moldatzen naiz. Igual plaiara joaten naiz, baina gero egoten naiz begira honek joan behar badu norabait ba itxarongo dut pixka bat berarekin egoteagatik. Lehenago egon behar zenuelako eta orain ez baldin bazaude zain ez direlako egongo. Ba egon egin behar pixka bat. Orain ni Maierrekin egon naiz pixka bat, egon, zeren bera ez zaizu etorriko.

Ibone. Ez, ez dira etortzen.

Martxeli. Beraiek ez dira etortzen. Zuk egon behar duzu. Egon. Orduan pixka bat hori, ez? Zer egiten duzu? Ni, behintzat, saiatzen naiz egoten beraiek daudenean. Beno, bai, nire aisialdia mugitzen dut pixka bat. Honbre, zinera joan behar baduzu joan egi behar duzu eta bazoaz, baina beti. Nik uste dut geratzen zaizula hori. Niri behintzat bai. Nik esan nuen oilo bihurtu nintzela ama izanda, nahiz eta gero, hori.

Haizea. Beno, eta denbora gutxiago hartuko duzula zure aisialdirako, ez?

Ibone. Ez daukazu zure aisialdia.

Haizea. Ikusten da zuen bizitza mugatzen edo baldintzatzen ari zaretela.

Ibone. Ez duzu gaizki hartzen. Adibidez, lehenagoko parranda horiek, ez daukazu ezta gogorik.

Martxeli. Beno, nik gogoa bai, e.

Argia. Nekatuta zaude.

Ibone. Ni gogoratzen naiz, nekatuta bukatzen nuen. Bai bai, orain, itxaron, itxaron

Martxeli. Nik gogoa bai, e. Gogoa bai.

Ibone. Baina nekatuta.

Martxeli. Ohera joaten zinen. Baina, nik, behintzat, behar nuen, e.

Argia. Baina igual bi urte dauzkatenean ez, ba, igual, hiru edo. Lehenengo bi urteak zaude gehiago. Eta gero hasten zara ba.

Ibone. Bai.

Martxeli. Ba, nik, behar gehiago orduan neukan. Oso absorbenteak dira eta orduan behar nuen gehiago. Igual ahal nuen gehiago orain baino. Baina orduan behar nuen gehiago. Nik utziko nituen umeak hor, pa, eta joan. Behar nuen, behar gehiago nuen.

Ibone. Ba nik ez.

Martxeli. Behar nuen. Behar gehiago nuen.

Ibone. Ba nik ez nuen pentsatzen nitaz. Dena zen umea, umea. Egitarauak ikusi eta “zer dago umeentzat?” Ez nuen pentsatzen nitaz. Ni zinera edo.

Ibone zer egin zen, desagertu? Zenbat urtetan desagertzen dira Ibone, Argia eta Martxeli?

Ibone. Ez, oso gutxi, oso gutxi.

Martxeli. Ez, ez, baina nik mantendu nituen nire gauzak e, nire zinea eta nire gauzak. Bai.

Ibone. Nik ere ez nituen utzi nik nire gauzak, nire txistuko entsaioa. Hori. Baina, beno.

Argia. Nik uste dut lehenengo bi urteak direla. Gero ya, nik uste hasten zara pixka bat kokortzen ari den bezala ere zu ere denbora gehiago hartzen.

Ibone. Eta ez dut esaten fastidio bezala, e, ez.

Argia. Ez.

Ibone. Moldatu egiten zara horretara eta.

Martxeli. Nik pentsa nolako beharra neukan neure gauzetara, eta ez naizela plaia zalea, e. beno, orain joaten naiz baina denbora gutxirako, eta semea txikia zela, toma eta toma artean, berak hartzen zuen titia hiru orduz behin edo horrela, orduan nahiko zera zen eta tomen artean joaten nintzen hondartzara: ematen nion, hondartzara joan eta etorri eta ematen nion.

Hori Hernanitik Donostiara eta Hernanira?

Martxeli. Hori egiten nuen. Pentsa nolako beharra neukan.

Ibone. Nik ez, ni egun guztia umeekin. Ni egun guztia bi ume zintzilik. Nik ez nuen planteatu ere egiten.

Argia. Nik lehenengoarekin gaizki pasatzen nuen, gainera, umea bakarrik uzten banuen. Horrela, txiki-txikitan.

Zer, kulpa sentitzen zenuen?

Argia. Ez, bere beharra. Berarekin egon nahi nuen.

Martxeli. Nik ez.

Argia. Nik bai, nik berarekin egon nahi nuen.

Ibone. Nik ere bai, nik ere bai hori.

Martxeli. A, nik ez.

Ibone. Ez nuen ikusten behar hori.

Argia. Horrela, txiki-txikitan, titia ematen diozula eta.

Martxeli. Nik, pentsa ezazu, eman nion bost-sei hilabetera arte eta uzten nuen aitarekin eta.

Ibone. Nik gaizki pasatzen nuen, irakaskuntzan nago, ikastaroak neuzkanean arratsalde. Umea utzi beharra norbaitekin. Ua, nik horrekin gaizki pasatzen nuen.

Argia. Nik lehenengoarekin batez ere. Bigarrenarekin hobetoxeago, baina, lehenengoarekin batez ere hori, ez nuen nahi.

Ibone. Nik lehenengoarekin ez, bigarrenarekin gehiago. Lehenengoarekin paroan egon nintzen urtebete. Urte osoa berarekin egon nintzen eta ezberdin bizi izan dut. Bigarrenarekin, uf.

Martxeli. Nik nabaritu nuen helduekin egoteko behar hori. Eta behar nuen.

Haizea. Baina orduan asuntua da beharra edukita ere denbora hartzea, ez?

Martxeli. Bai, hartzen duzu, e.

Haizea. Zure kasuan bai, e, baina Ibone esaten ari da.

Ibone. Baina nik behar izan dudanean joaten nintzen entrenatzera eta hartzen nituen nire denborak, e.

Martxeli. Hori da, hori da.

Ibone. Umeak lotan utzi, dena prest, horrela eta joaten nintzen korrika, e. Joaten nintzen. Orain, gaueko bederatzieta, gaueko hamarretan, ordu horietan.

Martxeli. Nik batzuetan uzten nuen horrela eta.

Ibone. Kontua da ni hamarretan joaten nintzela entrenatzera, hamarretan, joder. Ni joaten nintzen. Ateratzen nuen denbora, baina ya umeak jakinda lotan zeudela, aita etxean zegoela eta uf.

Martxeli. Nik aitarekin baina horrela, e, bere horretan. Kar, kar. Ez, ez dena antolatuta. Ez, ez, hartu eta banoa.

Ibone. Nik antolatuta.

Martxeli. Hartu eta banoa.

Ibone. Dena antolatu eta gero orduan alde egiten nuen. Baina joaten nintzen, bai, bai. Beharra bai sentitzen da, uf.

Hori zer da, oxigenoa? Aurrekoan pixka bat hasi ginen.

Ibone. Bai, bai.

Aitziberk esaten du “behar duzu momentu hori” edo. Ez dakit non dagoen.

Martxeli. Asko betetzen du. Hori da, hori da. Orduan, behar hori.

Argia. Gero bi urterekin edo urte eta erdirekin ya oinez hasten direnean eta ezin duzu konbertsazio bat edo lagunekin hitz egin. Zaude hitz egiten eta umea begiratzen

Ibone. Dena ama, ama, ama begiratu, ama ez dakit zer. Ama, ama, ama, bost urterekin ere bai, e, “begiratu” eta “begiratu” eta. Eta, gainera, kasurik ez badiozu egiten edo baldin bazaude hitz egiten errudun sentimendua daukazu. Aizu, “ez didazu kasurik egiten”, hasten dira jotzen eta “itxaron pixka bat, hitz egiten ari naizela”. Eta gero esaten duzu “ume gaixoari ez diodala kasurik egin” eta “bai zera, ez diodala kasurik egin”. Ez didate uzten eta bakean, ez?

Argia. Bai.

Martxeli. Bai.

Ibone. Bost urtera arte edo. Hor, ez dakit muga. Ez dakit, adinak ya ahaztuta dauzkat nik.

Argia. Guk egiten ditugu afariak eta horrela, igual neskek bakarrik egiten ditugu eta hori izaten da inork molestatu gabe hitz egitea daukagu, konbertsazio bat eduki.

Martxeli. Baina umeetaz hitz egiten da, e.

Ibone. Bai, hori ere bai.

Ez daude baina badaude orduan.

Martxeli. Hor daude, tin-tin-tin daukazu. Nik batzuetan esaten duzu “ui, zer gogo daukadan beste norbaitekin afaltzera joateko”. Ez? Koadrilakoekin batzuetan hitz egiten duzu umeetaz ala ez, baina aspaldiko lagunak edo.

Ibone. Bai, bai, bai.

Igual hainbeste ez dituzunak lotzen seme-alabekin?

Martxeli. Bai. Nik beste loturak bilatzen ditut. Gustatzen zaizu zure seme-alabetaz hitz egitea eta te chuleas, ez dakit nola esan, poz hori badaukazu, ez? Eta harro zaude eta hori dena dela, baina, ama, hori da gaztaren puska bat. Zeren klaro.

Beno, gazta banatzen hasten bagara da ehuneko...

Martxeli. Bai, baina pixka bat horrela da, e.

Nola da?

Martxeli. Esango dizut (*B.O. Papera hartu eta irudia eginez orrian*). Begira, igual da hau dena, igual da erdia baino gehiago, baina dago nahastuta beste gauza batzuekin. Ez da ama, ama, ama. Ez da ni naiz ama gauza guztien gaineratik.

Haizea. Ez? Ba, orain arte esan duzuenarengatik nik hori deduzituko nuke.

Martxeli. Ama? Bai, hor daukazu, baina ni ez naiz ama purua. Ea ba. Ez dakit nola esan.

Zu ez zara ama letra maiuskulaz, kar, kar (B.O. Aurreko bileran berak esaniko hitzak).

Martxeli. Bai, izango naiz, aizu, ni ama maiuskulaz. Amaren zera hori badaukazu. Beti. Ez dakit nola esan. Zu baldin bazara edo zure gurasoak badaukazu bizirik zuk daukazu gurasoak beti hor. Izango dituzu. Klaro, alaba izanda edo desberdina da. Ez da berdina hartzen. E, ez dakit nola esan.

Beno, zuk badaukazu tesi bat eta tesia bukatu behar duzula, ba, tesia beti dago buruan.

Martxeli. Ez dakit nola esan. Zer izan liteke gauza bat betirako daukazuna buruan? Emakumea, ez dakit. Emakumea zara denaren gaineratik. Niri behin gizona batek esan zidan bera izan zitekeela emakumezko bat baino feministagoa. Hori gogoratzen naiz aspaldi, e. Beno, aber, gizon bat izan daiteke emakume bat baino feministagoa segun zein gizon eta zein emakume. Baina emakume feminista bat baldin bada inongo gizonik ez da izango bera baino feministagoa. Ez dakit nola esan. Ni emakumea naiz gauza guztien aurretik.

Haizea. Baina, ama zara gauza guztien aurretik?

Martxeli. Ez. Mmmm, itxaron.

Haizea. Edo Martxeli zara gauza guztien gaineratik? Ni ez naiz alaba gauza guztien gaineratik.

Zara ama Martxeli.

Martxeli. Ama Martxeli.

Nik, bilera hauetan entzun eta gero uste dut dela ama Martxeli, ez dela Martxeli ama.

Martxeli. Bai, bai.

Kar, kar, kar, kar, kar, kar, kar.

Martxeli. Emakume bezala, zu emakume sentitzen zara gauza guztien aurretik. Hor daukazu, ezin duzu aldatu hori. Ikuspegi hori ezin duzu aldatu. Ba, behin ama izanda ezin duzu ikuspegi ere aldatu, nahiz eta batzuetan, uf, ez dakit nola esan.

Haizea. Nire ustez alderantziz izan beharko luke, e, izan beharko luke Martxeli ama. Teorian.

Martxeli. Eta Martxeli emakume edo emakume Martxeli?

Martxeli emakume. Zu Martxeli zara lehenengo eta gero zara emakumea.

Martxeli. Ez dakit. Hori zaila da, e.

Kar, kar, kar, kar, kar, kar.

Ze ondo. Ze ona! Atera da gaia eta ni horretara nentorren orain. Ikaragarri interesantea iruditzen zait.

Martxeli. Hor daukazu beti.

Ibone. Ya, zer da lehenago, ez?

Martxeli. Niri batzuetan ateratzen didate feminista kontua eta zenbait gauza ez dira feministak, dira gauza arruntak, pertsona bezala dira gauza batzuk. Ez dira feminista kontuak. Orduan, emakume naizen aldetik zenbait gauza niretzako dira hain garbiak ez dela feminista edo. Zer lehenago, emakume edo ama? Gauza horiek ezin dituzu banandu beste gauza batzuetatik. Bai? Bai, Haizea?

Beno, ondo. Eta orain nik aterako dut beste gai bat.

Martxeli. Jo, asko ari naiz hitz egiten ni.

Kar, kar, kar.

Gainera, jarri didazue horrela, plast, ateratzeko bandejan. Aurrekoan hasi egin ginen eta ez dakit zuku guztia atera genion, baina hasi egin ginen eta egingo dugu probatxo bat. Aritu ginen badaudela ama pilotariak eta badaudela pilotari amak esaten.

Bai. Kar, kar, kar.

Niri ikaragarri interesantea iruditzen zait, baina nik jakin nahi dut zer ezberdintasun edo zer berdintasun edo zer ezaugarri dituzten. Alegia, pixka bat sakonago jorratzea hori. Zuek esan zenuten “bat da izatea ama pilotaria eta ama pilotaria baldin bazara zara ama eta gero zara pilotaria. Eta baldin bazara pilotari ama, daukazu pilota lehentasunetan oso presente edo”. Eta esan zuten “Ibone da pilotari ama”.

Ibone. Gezurra.

Eta besteak dira ama pilotariak. Orduan nik nahi nuen jakin zergatik da Ibone diferentea?

Ibone. Gezurra.

Martxeli. Orain esan duzunean “Ibone da”, baina klaro, nik definitu nuen horrela eta ez, zaila da esatea hori. Nik esan nuen, baina gauza batzuk, zaila da. Esan dugunean ama, beharbada rebobinatu egin beharko nuke nik, e. Ama jartzea beste gauza baten atzetik zaila da. Ama zaren momentutik ama zara, orduan, zaila da. Eta esan duzunean zuk “Ibone pilotari ama da” eta orain ez dut horrela ikusten. Ez da horrela ere.

Nik esan dut Ibone hemen dagoelako, baina berdin zait beste izen bat izan balitz ere, e. Nik jakin nahi dut ama hori zertan ezberdintzen den.

Ibone. Jarriko dizut adibide bat. Iparraldeko pilotariak. Horiek bai dira pilotari amak.

Eta, zergatik?

Ibone. Ba, begira, beraiek haurdun geldituta ere gobernuek eta laguntzen diete kirola egiten jarraitzeko. Hemen ez dago horrelakorik. Nik erabaki nuenean ama izatea utzi egin nion pilotari izateari. Utzi nuen, utzi egin behar izan nuen.

Martxeli. Behar izan zenuen.

Ibone. Bai, ez neukan laguntzarik eta.

Martxeli. Baina ez zenuen utziko?

Ibone. Agian ez. Agian ez, ez dakit.

Argia. Aukera eduki bazenu?

Ibone. Hori da, ez neukan laguntzarik.

Martxeli. Baina senarrak laguntzen bazizun zu palan ibiliko zinen?

Ibone. Ba jarraitu bai. Jarraitu nuen, baina ez nahi nuen eran.

Martxeli. Baina jarraituko zenuen.

Ibone. Eta nik ikusita Iparraldeko pilotariak, Xixili eta hauek, kirolariak dira eta begiratzen duzu eta amak dira, gainera. Horiek dira pilotari amak. Igual-igual jarraitu dute. Nik galdu nuen, gainera, umeak bi urte, zuk esan duzuna, bi urte latzak izaten dira eta gorputza aldatzen zaizu, ez baduzu jarduera egiten. Nik orain ikusten ditut ama gazte asko, umeak utzi, daukate laguntza eta segituan hasten dira kirolean et gorputz segituan etortzen zaie bere erara. Nik bi urte tardatu nituen. Gizendu egin nintzen pila bat, nik dedikazioa ama.

Haizea. Definizio kontua da. Nik nire burua definitzen dudanean esaten dut “ni Haizea naiz, dauzkat 24 urte, ez dakit non bizi naiz, palan jolasten, e, akordeoia jotzen dut, alaba naiz, e, iloba ere bai izan nintzen bere garaian”. Definizio kontua da. Zuk zure burua definitzen duzunean “ni Martxeli naiz” ez duzu esaten “ni ama naiz”. “Martxeli naiz”. Pertsona bat eta “gustatzen zait zinera joatea eta ama naiz”. Ez da horrela?

Esaten du “ama naiz eta gustatzen zait zinera joatea”.

Haizea. Klaro, baina definizio kontua da. Orduan, ama palariarekin berdina pasatzen da. Zergatik izan behar da ama palaria eta ez palaria den ama.

Ni hori ari naiz galdetzen.

Ibone. Bai, bai.

Pilotari ama eta ama pilotaria zertan desberdintzen diren.

Ibone. Baina Martxelik esan duena, ama hor daukazu beti. Hor daukazu. Zigilu hori hor daukazu.

Ez naiz ari esaten ama hobeak direla edo ama txarragoak.

Ibone. Ez, ez, ez gara ari hori esaten.

Martxeli. Igual dedikazioa edo nahi hori. Igual nik, e.

Ni ari naiz galdetzen ezaugarri horietan zertan aldatzen den. Lehentasunak aldatzen dira?

Ibone. Bai.

Martxeli. Bai.

Ardurak aldatzen dira? Berdin zait izan pilotaria edo berdin zait izan eskubaloi jokalaria edo.

Ibone. Bai, bai, edo eskubaloian amatasuna bukatu lau hilabete eta ya daukate laguntza kirolean jarraitzeko. Nik esaten dizut.

Argia. Ez, ez. Hori ez da horrela eta horrela pasatzen, e.

Ibone. Eta ni Oiartzunen bizi nintzen.

Argia. Hori ez da beti gertatzen. Igual batzuei gertatzen zaie, emakume batzuei. Nik emakume batzuk ezagutzen ditut, baina oso gutxi.

Ibone. Ni gogoratzen naiz ni Oiartzunen bizi nintzenean Nuria txikia zela eta nik jolastu nahi nuen, baina ez neukan non entrenatu, zeinekin utzi, zer egin eta apuntatu nintzen hango teniseko pilotan. Gogoratzen naiz, mastitis bat eduki nuen, gainera. Ez neukan eta

ikusten ditut oraino, orain beste hauek eta horiek dauzkate erraztasun guztiak: umea utzi, ez dakit zer eta.

Umea utzi bikotearekin esaten duzu?

Martxeli. Beno, aukera ez, uzteko.

Ibone. Ez dakit. Ez, ez, umea baztertu ez. Umeak ondo egongo dira, baina nik ez nuen planteatu ere egiten.

Martxeli. Baina izan bazenu aukera horiek denak, Ibone?

Ibone. Ez dakit.

Argia. Bai, nik uste baietz zeren da lana bezala.

Ibone. Igual bai, igual jarraituko nuen. Orduan izango nintzen pilotari ama, orduan izango nintzen pilotari ama. Ez dut pilota utzi.

Martxeli. Nik ez dut esaten zuk izan duzun aukera, baizik sentimendua zuk daukazu paletariaren zera daukazu oso barruan. Nik ez daukat hain barruan.

Ibone. Bai.

Martxeli. Nire bizitzan ez du okupatzen hainbeste.

Ibone. Bai, bai, hori da.

Martxeli. Zurean bai. Nik esaten dut sentimenduen barruan.

Ibone. Bai.

Haizea. Bai, ni ere hortik joango nintzateke.

Martxeli. Nik esaten dut sentimenduen barruan. Nik ez dut esaten gero ze aukerak, zeren nik aukerak izan banitu egingo nuen ez dakit zer eta ya está.

Ibone. Bai, bai.

Martxeli. Nire gazta honetan ez du okupatzen hainbeste. Zurean bai.

Ibone. Bai, nirean bai.

Martxeli. Zurean bai, adibidez. Eta zuk daukazu esaten duzu mmmm.

Ibone. Bai, pasioa esaten dena.

Martxeli. Ez dakit zenbat urte beranduago jaio banintza aukera izango nuen eta egingo nuen.

Ibone. Bai eta seguruen jarraituko nuen eta.

Martxeli. Zeren bikotea izan bazen goizez bakarrik lan egiten zuena.

Ibone. Eta errazago sartuko nintzen eta.

Martxeli. Zer egingo zenuen, Ibone? Bua!

Ibone. Bai, lau hilabete dauzkatenean tori, banoa entrenatzera edo dena dela. Bai. Bai, jauna.

Martxeli. Horregatik esaten dut, e. Deditzioa.

Ibone. Orduan bai izango nintzatekeela kirolari ama.

Martxeli. Hori da.

Ibone. Orduan bai izango nintzatekeen zuk esan duzuna kirolaria eta, gainera, ama. Ez, ni, ama eta.

Haizea. Eta non dago muga hori?

Argia. Aukera da, aukera.

Martxeli. Aukera.

Haizea. Aukera. Gaur egun kirola ez dela lehentasun bat eta amatasuna bizitzan zuri iristen zaizun momentuan ama izango zarela edo ama zaren momentuan.

Ibone. Bai, baina segun zer kirolari mota zaren baita. Eskubaloian eta horrela, segun zer kirolari mota.

Haizea. Baina, hemen?

Ibone. Eliteko kirolaria denak hor jarraituko du izaten kirolaria eta gero izango da ama.

Baina pilota ez da eliteko kirola, momentuz.

Ibone. Ez, baina Eiderrek eta noiz erabaki zuten umea edukitzea? Noiz? Mundialak eta pasa eta gero. Horrela jokatu dute.

Martxeli. Hori da, baldintzatu egiten ditu.

Ibone. Eta horiek dira kirolari amak.

Martxeli. Hori da. Niretzako hori da.

Ibone. Niri etorri zitzaidan etorri zitzaidanean. Ez nuen esan, beno, orain haurdun geratuko naiz eta utzi egingo dut. Ez. Haurdun geratu zara, Ibone, ahaztu pala. Horrela, e, ahaztu dena.

Martxeli. Baina, beno.

Ibone. Eta hauek senarra ez dakit zer eta beste... ez dakit ulertzen zaidan, horiek dira kirolariak.

Martxeli. Kirolariak izan beharrean imajinatu dela pertsona bat beste gauza batera dedikatzen dena, e. Eta hori daukala oso barruan.

Ibone. Baina, hor.

Martxeli. Eta, orduan, nahiz eta ama izan baldin badauka aukera jarraitzeko bere horrekin.

Eta aukera hori edukitzeko aukera, zer da aukera hori edukitzea?

Martxeli. Zer den? Ba, adibidez, hori, bikotea edukitzea hor.

Argia. Klaro.

Ibone. Laguntza, klaro, laguntza.

Martxeli. Zure bikotea edukitzea hor.

Ibone. Zaintza partekatzea.

Haizea. Gauza da kanpoko laguntza behar dela hori egiteko, baina nik uste dut auto-definizioa dela hori, e, norberak nola definitzen duen bere burua.

Martxeli. Nik ez dut ulertzen horrela.

Haizea. Guk, seguru aski, kirolari bezala ez dugu definitzen gure burua.

Segun, segun nolakoa zaren.

Haizea. Nik kirolaria azkenetakoa aipatuko nuke, lehenago aipatuko nituzke igual beste hamar ezaugarri.

Ibone. Bai, bai, ya. Bai, nik uste baita.

Ez dakit, nik Uxue kirolaria...

Martxeli. Hori da.

Ibone. Nik lehenago esango nuke Ibone txistularia kirolaria baino.

Nik Uxue kirolaria jarriko nuke... jarduera fisikoan lizentziatua, kirolaria, bertsozalea eta bla-bla-bla.

Haizea. A, bai? Zuk hasieran.

Ibone. Eta nik esango dizut diferentzia. Ni txistularia naiz, uf, zenbat urte? Hamar urtez geroztik. Ez dut utzi ama izateagatik, adibidez.

Martxeli. Baina ez duzulako baldintza hori behar.

Ibone. Fisikoki beste gauza bat da.

Martxeli. Hori da, moldatu zaitzkeelako.

Ibone. Nik ama izateagatik ez diot utzi txistularia izateari.

Martxeli. Ez duzu beharrik izan.

Ibone. Eta, adibidez, kirola bai.

Haizea. Baina zara txistularia edo ama txistularia?

Ibone. Kar, kar.

Haizea. Txistulari ama, zu txistularia zara ama izan dena.

Ibone. Bai.

Haizea. Oraintxe esan duzu.

Ibone. Bai, horretan, ez dudalako nire.

Adibidez, nik galdera bat egingo dizut, e. Zein da diferentzia, txistulari izateko ez duzu behar izan laguntza hori eta kirola egiteko falta zitzaizun?

Martxeli. Klaro.

Ibone. Bai. Bai, ordu gutxiago ziren, beste ordu batzuk, beranduago eta baneukan laguntza. Justu txistulari izateko laguntza, nik entsaiatzen dut astearteetan 19.30ean, begira, gaur ez daukat, hemen nago. Beti ahal izan dut. Hor bai, senarra egon da eta esaten zidan “ez, segi, ni arduratuko naiz”. Eta nire gorputza. O sea, kirolari bat gorputzak baldintzatzen du ere bai, baina ama zarenean txistulari izateko ez zaitu baldintzatzen, ez duzu behar gorputza. Beste gauza batzuk behar dituzu, ba, korista izango banintz bezala, kantaria edo, berdin. Kirolerako ya beste gauza bat da.

Martxeli. Baina zu txistua jotzen hasi bazinen ama izan eta gero.

Ibone. Ya, agian errazago utziko nuen eta.

Martxeli. Hori da. Baina nola aurretik zinen, ba, daukazu oso barruan.

Ibone. Baina pilotan utzi behar izan nuen.

Martxeli. Baina horregatik, baina egoera ez zelako. Klaro, baldintza horiek.

Argia. Baina azkenean kulturaren gauza da baita, e.

Martxeli. Kulturala, niretzako hala da, kulturaren gauza.

Argia. Zuk igual beste zerbaite egitea ondo ikusten duzu baina kirola egitea, ba.

Ibone. Hori baita. Eta ama utziko nuen umeekin entsaioren batean. Hori da, kulturala. Bai, bai.

Martxeli. Bai, bai.

Ibone. Gaizki ikusten zuten ama izanda kirola egitea. Txistua izan edo.

Martxeli. Eta, gainera, zer kirol eta pala. Zeini bururatzen zaio?

Ibone. Abesbatza edo. Beno, nire amak ere abesbatzan egiten zuen eta gu jaio eta gero, gu hirukiak gara, utzi zuen dena ere bai.

Argia. Hiru?

Martxeli. Bizkiak eta bera.

Ibone. Mentalitate hori ere badauka. Utzi zuen dena. Berak ere abesten zuen Eskola Cantorum eta berak ere senarra lanean zegoen ordu asko eta nire aitak ere kirola utzi zuen gu jaio ginenean.

Martxeli. Aitak utzi zuen?

Ibone. Bai, gu jaio ginenean. Hiru ginen eta ya, kar, kar, kar.

Argia. Hiru? Jode.

Martxeli. Hiru de golpe.

Bale, orduan asuntoa dago.

Haizea. Nik definizio kontuan jarriko nuke, nola definitzen dugun edo zer priorizatzen dugun edo, ez dakit.

Martxeli. Nola sentitzen dugun gure burua. Ez?

Haizea. Ya, gure burua, baina beste norbait definitzen dugunean ya.

Ibone. Baina beste gauza bat ere guk nola ikusten dugun kirola, e, zeren bada kontzeptu. Aber, neurri bat dago kirolaria izateko, Zuek kirolaria izatea edo palaria izatea, zeri esaten diozu? O sea, ez dakit ulertzen zaidan.

Beno, palariak dira Argia eta Martxeli, astean behin joaten direla aisialdiko ikastarora.

Martxeli. Klaro, gu bagara.

Ibone. Bai.

Eta palaria zara zu, palaria izan nintzen ni, e, garai batean jokatzeko nituela astean bi-hiru partidua.

Martxeli. Baina, klaro, mailak ezberdinak dira.

Hori ba, hori ba.

Martxeli. Eta Haizeak esan duena, ba, nire kasuan da ba ez dakit zenbatgarrena izango litzatekeen paletari izatea, baina, zurea, zenbatgarrena da zure kasuan paletari hori? Zure definizio edo zure sentimenduetan (*B.O. Galdera Iboneri zuzenduz*).

Ibone. Bai, ez dakit. Ez dakit.

Martxeli. Zure buruan?

Ibone. Ez dakit.

Haizea. Imaginatu denak ezezagunak garela.

Martxeli. Hori da.

Haizea. Eta bakoitzak bere burua aurkeztu behar duela. Hori da asuntoa.

Ibone. Nik ez nuke aurkeztuko nire burua “eta palaria naiz”. Ez zait okurritzen. “Kirola asko gustatzen zait” esango nuke, “kirola egiten dut”.

Argia. Bai?

Ibone. Honbre.

Haizea. Ez genuke esango “ama naiz” ere, seguru aski.

Martxeli. Ez.

Ibone. Ez. beno, igual bai, “bi seme-alaba ditut” eta ya está esan duzu.

Martxeli. Segun eta egoera zein den.

Ibone. “Bi seme-alaba ditut”, ya esaten ari zara bazarela, ez?

Argia. Bai, bai.

Ibone. Azkenean.

Martxeli. Segun non den badauka zerikusia edo ez. Segun non den igual ez du pintatzen ezer seme-alabak dituzun edo. Segun non den ez duzu esaten.

Ibone. Klaro. Askotan ez dugu esaten. Egia.

Martxeli. Ez duzu esaten.

Ibone. Iraleko ikastaro bat. Berri bat zara eta hor esaten duzu izena, nongoa zaren eta ikastetxea zein den.

Martxeli. Eta zertan lan egiten duzu.

Ibone. Gehiago ez duzu esaten ezer ere.

Martxeli. Hori da.

Haizea. Zein da konklusioa, Uxue?

Kar, kar, kar.

Zergatik? Ez zaizu iruditzen inportantea amatasuna aztertzea emakume izanda?

Haizea. Noski baietz, baina.

Martxeli. Zergatik ama?

Haizea. Beno, honbre, zergatik ama bai. Baina modua esan nuen. Nola ama palaria? Oraindik ere txokatu egiten dit ama palariak.

Orduan zer jarri behar nuen, pilotari ama? Hurrengo ikerketa egiten duenari gomendioa emango diot, kar, kar.

Haizea. Ez dakit, ez dakit. Ni harritu egin ninduen eta horregatik jarri nuen oharrean. Ez nekiena zen hainbesterako emango zuenik, baina.

Ibone. Eta palaria, e. Komentatu zenuten hemen herrian gaizki ikusia edo “emakume horiek etxean egon behar zutela”.

Argia. Hori baten batek igual egingo du, baina, normalean ya ez.

Haizea. Hasieran aditzen zen, e, Argia. Aditzen ziren.

Argia. Baina orain ohitu egin dira.

Martxeli. Orain ohitu egin dira horrekin, baina ez dakit asunituta esaten duten edo onartu duten. Ohitu bai, baina, beno, “mira, qué majas”.

Kar, kar, kar.

Argia. Hori beraiei galdetu beharko genieke zer pentsatzen duten, zeren askotan.

Martxeli. Nik nahiago ez galdetzea.

Bale. Nik horrela ez dut ezer gehiago ekarri gaur etxeko lanetan. Beste zer edo zer okurritzen zaizuen ardurak, pilota, ama, bizitzako antolaketa horretan?

Haizea. Nik uste dut azpimarratu behar dena, hor gauza inportanteena dela ez dela pala munduan bakarrik. Emakume batek ama izaten denean edo ama ardura hori hartzen duenean edo umea edukitzen duenean, ez dakit nola esan behar zaion, orduan, bere bizitza, antolamendua, aldatu egiten dela. Bai bikote harremanean, bai, denean.

Eta ama ez denean?

Ibone. Ni horretara noa, eta gazteak? Nik ikusten dut, e, adina. Adinaz aparte, gurasoek eta dena ondo ikusten dute neska batek kirola egitea. Adin batetik aurrera “ez, ez, ez, zuk ikasi behar duzu eta kirola”. Ez da gertatzen hori? Mutiletan ez da gertatzen hori.

Argia. Niri behin ere ez didate horrelako.

Ibone. Nik ikusi izan dut, e, zenbat talde.

Hori da lehentasunena, aurrekoan aritu ginena komentatzen nesketan.

Haizea. Normalean, suposatzen da zu bikote batekin bizi baldin bazara edo bikotea baldin badaukazu edo, nolabait ere bizimodu independenteago eduki dezakezula. Alegia, ez? Beno, ba nik dauzkat nire hobbyak eta bazoaz eta ez dakit zer eta badakit zer. Eta umea edukitzean bai inplikazioa handiagoa dela.

Ibone. Baina bientzat, e.

Haizea. Eta, orduan, hor zerbait esan behar nuen baina joan egin zait.

Argia. Aldatu egiten garela umeak edukiz gero. Umea edukitzen dugunetik hor ya badago zerbait, ttak, kablea.

Haizea. Ba ahaztu egin zait, e.

Gezurren bat izango zen.

Ibone. Gero, esan duzu lehenago, bat eduki edo bi eduki. Lehenengoa, joder, zaude ezjakintasun batean eta ya behar duzu ikasteko. Ama izaten ikasi egiten da baita. Ez dakizu ezer ere eta kezka horiek ere, kezka horrekin ezin duzu pentsatu “orain korri egitera noa”.

Argia. Bai, hori egia da.

Ibone. Hori da ama berria zarenean. Ya bigarrenarekin esaten duzu “ba edozeini utziko diot”. Ez? Ez da errazago bigarrena utzita joatea?

Martxeli. Ba, begiratu, nik behar gehiago neukan igual lehenengoarekin berria zelako eta etorri zitzaidan hor bat-batean eta esaten nuen “mekauen la letxe, honek kenduko dit niri denbora guztia?” Eta behar gehiago nuen. Bigarrena edukita ya biekin gehiago

disfrutatzen nuen ama bezala, baina hasieran izan zen “uf, nondik etorri zait hau eta denbora pila bat kentzen dit”. Eta, orduan, behar nuen pixka bat, errebelatu behar nuen.

Haizea. Eta zer pasako litzateke ama ez den kirolari batekin edo palari batekin?

Martxeli. Aber.

Haizea. Badauka apartado bat hemen, tesi honetan?

Asko.

Martxeli. Nola, aber.

Haizea. Alegia, imajinatu 50 urteko emakume bat erabaki duena ez dela ama izango.

Martxeli. Klaro baietz.

Haizea. Bere burua nola definituko luke? Palaria da, ama ez den emakumea bezala?

Palaria.

Ibone. Palaria eta punto, emakume palaria.

Martxeli. Klaro, ni ez banaiz akordeoilaria ez dut jarriko ez naiz akordeoilaria.

Zu zer zara? Pilotaria, ba hau ere izango litzateke pilotaria.

Ibone. Korrikalaria edo saskibaloilaria edo.

Martxeli. Ez zarena ez duzu jarriko. Segun zertan zabiltzan.

Ibone. Eta horregatik ba esan duena lehenago Haizeak. “Zu zer zara?” “Pilotaria eta ama ere”, ez? Hortaz, hori nahi nuen, kontzeptua hori zen, “pilotaria naiz edo korrikalaria edo, baina ama ere”. Ez da ama pilotaria edo pilotari ama, naiz kirolaria eta ama. Ez dute zergatik joan behar, ez dakit.

Baina ez al doaz ama hemen eta pilotaria hemen? (B.O. Zutitu eta arbelean idatziz)

Martxeli. Ez, ama dago hor, goian.

Ama eta kirolaria parean daude?

Haizea. Ez, inondik inora ere ez.

Martxeli. Batzuen kasuan ez, nire kasuan ez, adibidez. Ez dakit, kasu ezberdinak daude

Ibone. Umeen adinaren arabera ere bai. Umeen arabera.

Martxeli. Nire kasuan ez, zeren ni kirolaria ez naiz sentitzen, Ibone. Ni beti saltsan, baina ez naiz ibili kirol batean.

Ibone. Ya, ya.

Martxeli. Ez da nire kasua, baina zu bai, zu izan zara kirolaria, Argia.

Argia. Klaro baietz.

Martxeli. Eta zu zara kirolaria eta zu ere bai. Ezberdinak dira kasuak, ez dakit. Ni kirolaria ez naiz sentitzen.

Ibone. Ya, ya.

Martxeli. A, hori da. Orduan, nik ez dakit.

Ibone. Eta zuk palan egiten duzunean zer sentitzen zara? Emakume bat.

Martxeli. Palaria, baina da oso hobby, ez dakit nola esan.

Ibone. Bai, baina kirolaria zara hori egiten duzunean.

Martxeli. Beno, kirolaria edo. Saltseroa.

Ibone. Edo pizsinara ere joaten zara.

Martxeli. Bai, baina.

Ibone. Kirolaria zara.

Martxeli. Hori da, igual nik kirolari esaten diot dedikazio, ez dakit, gehiago eduki duenari.

Ibone. Hori da, nola definitzen dugu kirolaria izatea zer den?

Martxeli. Igual izan da ofiziala gehiago, baina igual horregatik da, ez. Ni beti ibili naiz igerian baina nire burua ez daukat kirolari bezala. Ez dakit.

Ibone. Eta kirolaria izatea zer da, federatua izatea zure ikuspuntuan?

Martxeli. Ya, ya.

Ibone. Hori da, kontzeptuak dira.

Martxeli. Ya.

Berdin zait zein. Ama eta aisialdiko jarduerak maila iguanean daude?

Martxeli. Ez, adibidez, nire kasuan ez. Nire kasuan ez.

Zer dago hau (B.O. Ama hitza seinalatuz) eta beste guztia?

Martxeli. Bai.

Eta hau izan aurretik? Zeren hemen badago Martxeli edo Argia edo Haizea edo Ibone.

Martxeli. Ba, gauza bera, lehenengo Martxeli eta gero besteak. Hori da.

Eta ardurak?

Haizea. Ama kontzeptua hain inportantea da, hainbeste absorbitzen dizue horregatik doala aurretik.

Eta ez zarenean? Bikotea zarenean? Edukiko dituzu etxeko ardura batzuk. Noski, familia-ardurak ere edukiko dituzu, edukiko dituzu guraso batzuk, anai-arreba batzuk edukiko dituzu. E, etxeko erosketak egin beharko dituzu. Ez dakit.

Martxeli. Baina hori ez da ardura, ez. Zure gurasoek edo anai-arreba horiek ez badaukate zure behar hori ez da ardura bat. Hor zaude, zu zara anai-arreba eta hala da ya está. Ez da. Niretzako ama da emakumea bezala.

Ardurak sortzen dira ama zarenean? Aurretik ez dago ardurarik?

Martxeli. Ya.

Argia. Berdin. Arduratzen zara, baina beste era batera.

Etxeko lanak eta egongo dira ba?

Martxeli. Etxeko lanak orain ere hor daude. Jarri behean.

Ibone. Bai, behean.

Ez, ez, barkatu. Otorduak egunero egongo dira ba?

Martxeli. Nik oraintxe ezin dudalako eskakeatu, bestela. Kar, kar, kar.

Ez naiz ari esaten, e, jarroiari hautsa kentzea. Etxeko ardura da komuna garbitzea, erosketak egitea.

Martxeli. Bai, bai. Ya, mantenimendurakoak, behar-beharrezkoak diren horiek, gutxienekoak. Gutxieneko horiek.

Alegia, ni ama ez naiz eta ez naiz nire etxean bizi, baina nik ardura batzuk betetzen ditut etxean.

Martxeli. Ya.

Ibone. Bai, eta ama zarenean gehiago. Hori gehi ama.

Haizea. Ya. O sea, ematen du aurretik ez daukazula ardurarik, ez?

Hori ari naiz galdetzen.

Haizea. Klaro badaudela, baina alaba izatea ez da ama izatea bezain relebantea, Uxue.

Ni ez naiz garrantziaz ari. Nik badauzkat nire betebeharrak, nire laneko betebeharrak eta nire etxeakoak eta.

Argia. Bai, noski.

Martxeli. Baina, zuk, adibidez, etxeako ardura horiek, ez baldin bazara ama, zu etxetik desagertzen zara bi edo hiru egun eta ya está. Baina ama izanda zuk ez badaukazu erreleboa hor, bikotea edo norbait, etxeako ardurak.

Horretan ados nago, ama ardura iristen denean ados nago, baina aurretik?

Martxeli. Nik aurretik, egia esan, etxeako ardurarik ez neukan. Egiten genituen horrela sobre la marcha, egingo dugu biok eta ikusiko dugu. Ez dakit. Igual ez genuen hainbeste. Egiten genuen ba hori, erdibana, beno, nik ez dakit erdibana edo.

Ibone. Nik pasa dut astebete etxetik kanpo, oporretara joan naiz. Eta zuk esaten duzun ardura horiek ez zaie inporta. Joan nintzAiert arropa zikina hor zegoen bueltan ere. Egingo dituzte otorduak edo, lehentasun batzuk daude, baina etxea ez. Eta ni, “joe, ni egon ez banintz, noiz arte?” Astebete egon nintzen, e. Hori egin dut, ama izateagatik ez diot utzi kanpora joateari eta ona da, gainera. Umeak txikiak zirenean ere hiru egun hartzen nituen edo mendira joateko edo, pixka bat zuk esaten duzuna, deskonektatzeko eta.

Martxeli. Bai, behar da, zeren bestela utziko nion ama izateari. Me borro. Kar, kar, kar.

Ibone. Bai, bai, bai. Eta ona da, e.

Haizea. Me borro.

Kar, kar, kar.

Haizea. Argia ari da apuntatzen estrategia guztiak aber zer egin ez pasatzeko berari.

Martxeli. Pentsatuko du, baina zer ama klase diren hauek.

Ibone. Umeak ez ziren oso txikiak, e.

Martxeli. Me borro, bai.

Ibone. Orduan, nik egin izan ditut horrelako irteera batzuk eta, egia esan, oso ondo etortzen dela, e.

Haizea. Azkenean konklusioa badakigu zein den, Uxue. Hori zure esku uzten dugu.

Martxeli. Etxeko andreak, etxeako andreak, ama izan aurretik edo ama eta gero.

Ibone. Nik uste moztu behar dela pixka bat.

Martxeli. Ez, nik, ama izan eta gero ezberdin hartzen dut.

Haizea. Igual egia da aurretik malgutasun gehiago daukazula, ez? Ni arduratzen banaiz nire etxean labadora jartzeaz, baina, beno, asko jota biharko ez ditut galtzak edukiko.

Martxeli. Ba, horixe, baina bestela etorriko zaizu alaba edo semea “aizu, hau dago ez dakit noiztik garbitu gabe” eta “garbitu, ba, urgentzia baldin badaukazu garbitu”.

Argia. Bai, hori orain esango duzu, baina nik ezin dut hori egin.

Ibone. Bai, bai. Orain bai, orain bai.

Ume txiki batekin?

Martxeli. Txikitan zu moldatzen zara, baina orain daude urgentziak. Etorriko zaizkizu “joe, ama, es que ez dakit zer”.

Ibone. Eta plantxatu gabe eta. Beno, hori.

Martxeli. Plantxatzeak bai ez nauela kezkatzen. Beno, ez nau kezkatzen ezerk, egia esan. Nik, adibidez, labadora ere etxean edozeinek jartzen du. Ez da kasu hori. Garbiketean, nik egun batean erabaki nuen horrela egitea (*B.O. Burua beste aldera biratuz*) eta ya está.

Baina zuk erabaki zenuen. Lehen ez zen horrela.

Martxeli. Bai, kontzienteki.

Argia. Hori esan nahi dut. Askotan gu gara okerrenak, ematen du dena egin behar dugula. Eta ez.

Ibone. Nik hori daukat kulturala. Nik atzo esan nien, etxean planteatu nuen “greba egingo dut”.

Kar, kar, kar.

Ibone. Ea zer pasatzen den. Ezer ere ez eta gero nik ikusi nuen zikina eta ni nintzen aurrena. “Kauen sos, ez dut bete hori”. Ze zaila den. Hori daukagu oso sartuta.

Martxeli. Ni jartzen naiz sofán eta hautsa ikusten dut hor eta horrela egiten diot (*B.O. Eskuarekin agur keinua eginez*), etxeko besteek esaten duten bezala.

Argia. Nik beste gauza bat. Nik neska bat hartzen dut, hiru ordu etortzen da.

Kar, kar, kar, kar.

Ibone. Nik ere umeak txikiak zirenean egiten nuen, bai.

Argia. Eta da egin nezakeen onena.

Ibone. Baina, ya, esaten duzu, umeak ya handituak daude eta guk hitz egin genuen eta “aber, ya daukazun edadearekin” eta, gainera, alabak esaten zigun “jode, horri pagatzen diozunarekin egiteko nik egingo dut” eta “bale, utziko dugu”. Baina, ez, baina, ez. Hor gabiltza jokoan. Batzuetan egiten du, e.

Martxeli. Niri lehengoan, adibidez, batek esan zuen semeari edo alabari edo ordaintzen ziotela planttxa edo egiten bazuen.

Bere etxean?

Martxeli. Bai, bere etxean. Honbre, ya falta zena.

Haizea. Jende askok egiten du hori, e.

Martxeli. Nik ezta pentsatu ere hori. Ni ya joan nintzen etxera bueltaka. O sea.

Argia. Hori da sari bat bezala.

Martxeli. Ez.

Ibone. Guk esaten diegu paga ematen diegula ezeren truke “paga hartu eta kobratuko duzu behar den bezala”. Nik batzuetan ematen diogu eta bazkaria egiten du eta garbiketa ere bai. Hori bai, bakarrik edo gutxi egiten du eta. Bai, batzuetan ematen diogu. Ez beti, ez beti.

Martxeli. Ez, ez. Gure etxean horiek dira eginbeharrak.

Ibone. Guk esaten dugu leku komunak denen artean eta bakoitzaren gela hor konpon.

Martxeli. Beno.

Ibone. Ikusiko duzu hamalau-hamabost urterekin. Ikusten duzu horrela eta esaten duzu hau ez da nire gela.

Bale.

Ibone. Bai, bai, bai, bai. Baina hori aitari, adibidez, ez zaio okurritzen. Zikina dagoela eta ez zaie.

Martxeli. Ez, ni gogoratzen naiz ardura gehiago hasi nintzela hartzen igual ama izanda. Pentsatu nuen “ya umeak hemen dira, lurretik dabilta arrastaka”. Eta orduan pentsatu nuen.

Ibone. Hori da, bai.

Martxeli zer pentsatu behar dugu, lokatzez betetako metro beteko etxe batean bizi zinela? Ez dut uste.

Martxeli. Ez, lokatza ez, baina nik hautsa agurtzen dut.

Haizea. Kar, kar, kar.

Ibone. Nik ere bai. Nik hautsa kentzen dut, baina dagoenean.

Aber, nik hautsari ez diot alergiarik eta oso pozik nago.

Martxeli. Nik ezta ere.

Nire ama joaten zelako bizikletan ibiltzera.

Martxeli. Hori da. Hori da.

Ibone. Bai.

Martxeli. Eta, orduan, txikitan esaten duzu “jo, igual kontu gehiago egin beharko diogu”, ez? Ba lehendik igual hainbesteko ardura ez zenuen hartzen, baina ume txikiekin igual hartu egin beharko duzu ardura gehiago. Klaro, zein hasten den aldaketa horretan? Ama. Joera. Ez dakit, kulturala. Hasten da ama eta halako batean esaten duzu “nola?” Lanean zaude eta ni, gainera, lanean nekatu egiten naiz. Ume txikiekin nago eta nekatu egiten naiz. Lanetik etorri etxera, ume txikiak hor dauzkazu, horri egin behar diozu kasu eta niri etxea, ba. Eta halako batean erabaki nuen buruari jira egitea. Etxeari ez diot kasu egingo eta etxea dago, ba, begiratu.

Ibone. Ahal den bezala, bai, bai.

Martxeli. Ahal den bezala ez, egon liteke askoz hobeto. Ez dago garbia.

Eta okerrago.

Martxeli. Honbre, okerrago.

Haizea. Honbre, ez da kasualitatea.

Ibone. Ni gogoratzen naiz, orain alaba aldetik ari naiz hitz egiten, ikuspuntua, ez. Ama zegoen etxean, egiten zuen, baina larunbatak ziren etxeko garbiketak egiteko egunak. Eta nik beti baneukan zer edo zer egiteko, kirola egiteko. Ailegatzen nintzen etxera ordu batean, hamabietan, hor eta “Ibone, komunak zuretzat”. Zigorra bezala jartzen zidaten. Nik ez nuen horrela hartzen eta nire ahizpek barre egiten zidaten “ja, ja, zuk komunak”. Orain garbitzen ditut komunak oso ondo, hori ikasi nuen bakarrik. Eta gogoratzen naiz behin hautsak edo aspiradora eta nire ama amorratzen zen “es que ez dugu estilorik garbitzeko” eta “ama, garbitu dut, ezta? Pues, bale”. Egoten omen nintzen musikarekin eta, ni ez naiz gogoratzen. Bere zera beti zen “ez dugu batere estilorik”, askotan esaten zidan “horrela egiteko utzi nik egingo dut” eta “ama, egingo dut”. Askotan egiten nuen horrela eta ez zuen agoantatzen hori, estilo kontua edo ez dakit. Asko sufritzen zuen nire amak garbiketarekin. Asko.

Martxeli. Ez dakit zer hasi behar zinen.

Argia. Asko aldatu dela. Nire amak ere badauka bere garbiketa, ohea egin eta ez dakit zer, baina.

Ibone. Bai, baina lanera joaten da kalera.

Argia. Bai, bai.

Haizea. Zuk esaten duzunean ama izan zinenean zure bikoteak baino lehenago zuk hartu zenituela ardurak, ba, ez dela kasualitatea. Ba, tradizionalki horrela izan da gure mundua.

Martxeli. Hori da.

Ibone. Bai, hori da.

Haizea. Eta etxeko ardurak eta familia ardurak emakumearenak izan dira beti.

Martxeli. Hori da, hori da, hori da. Eta orduan esaten duzu ni emakumea banaiz, ama banaiz, baina pertsona naiz gauza guztien aurretik. Begiratu, pertsona, emakumea ere bai.

Haizea. Eta emakumeak bere burua definitzean, askotan amatasunaren inguruan definitu izan da emakumea bera.

Martxeli. Ez duela zertan, ez duela zertan, baina, beno.

Haizea. Baina hala izan da.

Martxeli. Da aukera bat eta, gainera, galdu egiten duzuna ez baldin bada epe batean. Bestela asko eta asko ez ama eta ez San Pedro. Esaten baldin baduzu “beno, nik aukera daukat hirurogei urtera arte ama izateko”. Ba ni igual lehenengoa ez nuena aukera hori hartuko oraindik. Esaten duzu, uf, “adina aurrera doa eta hemen, nahi baldin baduzu izan behintzat”. Baina, nik uste dut ez dela pertsonarena. Emakumea naiz? Bai, baina ama izanda zergatik nik hartu behar dut orain? Joe! Ba, berez, ama izanda ya ardura gehiago badaukazu zuk. E, ama edo aitaren artean amak badauka zama hori hor ama delako. Eta niri horretan.

Haizea. Baina ez biologikoki beste.

Martxeli. Kulturalki.

Haizea. Ez beste organo bat garatzen zaigulako.

Martxeli. Nik uste kulturala dela. Guztiz, guztiz, guztiz. En las cavernas. Nik uste aitak joan behar zuela ehizera eta ama geratzen zen barruan eta ya de paso seme-alabak. Edo seme-alabak eta bide batez etxekoa eta. Guztiz kulturala da eta hori ez daukagu, buruan daukagu oso sartua.

Ibone. Bai.

Martxeli. Oso. Baina, nik, beno, burua.

Haizea. Hori da konklusioa, e, Uxue.

Martxeli. Ez, ez, hori da nire pentsamendua. Niretzako hori da.

Ibone. Hori ez da igual Argiaren kasua. Gaztea zarela, orain mutilak ere ari dira aldatzen txipa ere bai. Askok esaten dute “geratuko nintzateke etxean etxeko lanak egiten eta umeak zaintzapean”. Askok esaten dute.

Esan? Eta, egin?

Ibone. Nire koinatua da, esaten du “ni gustura geratuko nintzateke etxean etxeko lanak egiten eta ez dakit zer”. Esan egiten du, ez dugu, oraindik lanean jarraitzen du.

Argia. Nireak ere esan izan du.

Martxeli. Baina, aukera badu. Zergatik ez du uzten?

Argia. Nire soldata oso txikia da.

Martxeli. Ba uzteko lana. Ba, benga. Etxean egoteko denok daukagu aukera, e. Kar, kar.

Haizea. Ya, baina, kasualitatez, gizonaren soldata edo senarrarena edo bikotearena normalean altuagoa izaten da.

Martxeli. Eta ez baldin bada ere.

Ibone. Nire kasuan ez, e.

Martxeli. Ez baldin bada ere gizonezkoak badaezpada ere lanean ari dira, bestela gizarteak, uf.

Argia. Keba, gaur egun ez. Nik uste dut aldatzen ari direla.

Haizea. Argia da optimista.

Martxeli. Bai, bai. Keba.

Ibone. Nire koinatu horren amak esaten zuen hasi zarenean emakumeak lanera etxetik kanpora esan omen zuen horrela “emakumeak lanera? La habéis cagado. Gizarteak kaka egingo du”. Hori esaten omen zuen.

Martxeli. ¿La habéis cagado? Ba ez.

Ibone. Hori esaten zuen berak. Pentsa zer mentalitate zeukaten.

Martxeli. Bikote bat baldin badago. Beno, edozein bikote, berdin du. Hoberena zer den? Bat etxean baldin badago, aber, etxerako eta denerako eta freskurarako bat etxean. Ez du esan nahi etxeko lanak egin behar dituela bakarrik, e, etxean eta beti izango du,

etxekoa egongo da prest. Txandatu liteke, urte batean izango da bat eta hurrengoan bestea, e. Txandatu eta egongo da freskura, denetarako denbora, denetarako denbora.

Ibone. Bai, bai.

Martxeli. Nik egingo nuke txandaka. Zuk ez dakizu, telebista ikusteko ere egongo lirateke fresko.

Ibone. Bai, bai, egokia izan liteke. Bai.

Martxeli. Txandaka, txandaka. Eta hor freskura denentzako. Baina, klaro, zeinek geratu nahi du etxean? Inork ere ez. Baina denok daukagu aukera. Niri esaten didatenean.

Argia. Ba nik gauza bat esango dizut. Ni lanean ari nintzenean eta nik esaten nuen “niri gustatuko litzaidake lanean jarraitzea eta hori” eta gero umeak eduki nituenean ez zitzaidan inporta lanik gabe geratzea eta etxean geratzea.

Martxeli. Eta lanik gabe zaude?

Argia. Ez, nik lanean jarraitzen dut.

Martxeli. Utzi lana.

Argia. Ez, ez. Aber, ez litzaidake. Aldatu egiten da gauza. Nik nire lana eduki nahi dut, nire independentzia, nire dirua, nire gauzak.

Martxeli. Orduan etxean ez dugu geratu nahi.

Ibone. Klaro, klaro.

Martxeli. Nik etxean ez dut geratu nahi. Klaro.

Argia. Bai, bai, baina aldatu egiten da pentsatzeko era.

Martxeli. Nik, adibidez, eszedentzia eskatzeko aukera izan nuen seme-alabak izanda, eta hartu eta soldatarik gabe eta etxean geratu, baina ez nuen eskatu eszedentzia. Eskatu nuen murrizketa. Nik nahi nuen lanera joan.

Argia. Nik ere murrizketa daukat.

Martxeli. Lanera joan nahi nuen. Es que ni etxean ito egingo naiz.

Baina, lanera joan nahi zenuen zure espazio bezala?

Ibone. Bai, nik ere, e, nik ere.

Martxeli. Bai, horregatik ere. Igual egingo nuen lan gutxiago, egin beharrean bi heren egingo nuen bat. Lan gutxiago.

Ibone. Baina lanera joan bai, joan beharra dago.

Martxeli. Etxetik atera nahi nuen. Honbre.

Ibone. Nik ere bai, e, nik ere bai.

Haizea. Ostra, hau zuen seme-alabek irakurtzen dutenean. Kar, kar, kar.

Martxeli. Badakite, beno, badakite. Nik esan diet adoptatuak direla eta dena. Kar, kar, kar. Nik lana, aber, lana ez dakit behar dudan, soldata.

Ibone. Etxetik atera, etxetik atera.

Martxeli. Baina ni aterako nintzen.

Ibone. Beste harreman batzuk egin eta.

Martxeli. Baina etxean egonda ere ni aterako nintzen. Ni aterako nintzen.

Soldata eman balizute.

Martxeli. Eta soldata eman gabe ere atera beharko nuke etxetik. Nik uste, es que daukagu kultura hain sartua. Eta ez dut ikusten, nahiago nuke ikustea Argiak ikusten duen bezala. Baina, ondorengoetan nik ez dut ikusten. Kanpotik ikusten dut, e. Nire ilobak, uf, ez dut ikusten zuk esaten duzun gauza hain optimista.

Argia. Egia da gauza asko ari dela aldatzen eta beraiek ere.

Martxeli. Nik ikusten dut gure generazioa ez direla oso tradizionalak eta oso zera, e.

Ibone. Gureak, e.

Gerokoak datoz. Niretzako, e. okerragoak alde horretatik.

Ibone. Jolin, aber, gure garaian ikustea gizon bat ume bat paseatzen ez zen normala. Orain ikusten dira asko.

Argia. Hori normala da, hori normala da orain.

Beno, nire aitak hirurogei egingo ditu eta gu zaintzen ibiltzen zen.

Ibone. Baina ez zen normala.

Martxeli. Nik ez dut esaten gauza konkretu bat, e, esaten dut burua, e. Burua. Ez dut esaten aitatasun gaian edo. Ez, ez, esaten dut gizon bezala. Niretzako gure garaiko gizonak, orain dela, aber, gure generaziokoak, batzuk dira modernoagoak orain datozen batzuk baino.

Ibone. Gazteak baino esaten duzu? Bai, baita esaten da oso matxistak datozela.

Martxeli. Nik ez dut esaten bakarrik aitatasunean, nik esaten dut orokorrean.

Ibone. Bai, gazteekin harremanak eta.

Martxeli. Malgutasun gehiago izango dituzten gauzak eta. Eta egongo dela denetik, e, baina, orain batzuk... ni harrিতuta geratzen naiz batzuekin. Bai, bai.

Haizea. Nik uste dut joan egin garela gehiegi.

Ez. Bale, ba nik ez daukat askoz gehiago. Segi nahi baduzue segi eta, bestela, horixe, eskerrak eman berri. Oso ondo. Ez dugu hirugarren bilerarik egingo.

Martxeli. Nik Haizea gehiago entzun nahi nuke gaur eta jan diogu hitza, pastez aparte.

Kar, kar, kar.

Martxeli. Nik jan diot Haizeari hitza eta Argiari ere bai igual. Barkatu, jan behar nuen pasta bat gehiago eta hitza ez. Ez dakit, niri Haizea interesatzen zait. Adibidez, ama ez den ikuspuntutik aber zer ikusten duen. Aber ikusten duzun zuk Argiak ikusten duena. E, ba ardurak edo. Ama ez zaren horretatik zuk ikusten duzu emakumeek hartzen dutela ama izanda ardura gehiago?

Haizea. Honbre, dudarik gabe.

Martxeli. Zuk ikusten duzu? Ez dago gauza hain modernoa. Ez?

Argia. Honbre, ardura gehiago bai, baina ez du esan nahi hauek oso gutxi hartu dutenik. Nik uste batzuk mutilak ere gero eta gehiago hartzen dituztela eta zenbat eta gauza gehiago egin, ba, orduan beraiek ere konturatzen dira “hau ere egin behar da” edo ez dakit nola esplikatu. Gehiago inplikatzaren direla igual, garai batean baino gehiago inplikatzaren direla niri iruditzen zait.

Ibone. Banaketa egin behar dela.

Martxeli. Bai, bai, gehiago bai. Ya, baina gehiago gutxi.

Haizea. Ba, nire ustez oso argi dago asuntoa.

Martxeli. Aber, ondorioa, Haizea. Honek aterako du ondorioa eta bota egingo gaitu.

Haizea. Kar, kar, kar.

Ibone. Zure edadeko gazteek zer esaten dute norbait.

Haizea. Dena erreproduzitzen da.

Martxeli. Dena.

Haizea. Dena, baina argi eta garbi. Baina, zergatik erreproduzitzen da? Sistema bera horrela antolatuta dagoelako. Ez dakit, niri, bai, gure adineko edo nire koadrilako

mutilek sukaldatzen dute eta koadrilako bazkaria badago beraiek ere sukaldatuko dute eta etxetik joanda ere sukaldatuko dute, klaro, porque no te queda otra.

Martxeli. Hori da, baina.

Haizea. Baina, ez dakit, iruditzen zait erreproduzitzen direla bikote harreman normalak, e, jarraitzen dugula pentsatzen ezkontzan, etxean eta seme-alabetan.

Martxeli. Bai, bai, eta jarraitzen dugu esaten dut bikote senar-emazteak badira, e, gizonak egiten baldin badu afaria paraleloki, seme-alabak koxkorrak badira, amatxoek ere egiten dute beraien afaria. O sea, eta ya aluzinatzen?

Ibone. Nola?

Martxeli. Esaten dizut, koadrila bat eta hor daude aitatxoak eta amatxoak. Txikitan igual gizonezkoak elkartzen ziren ostegunetan, osteguna delako. Amak ez. Baina, gero, ya, seme-alabak koxkortzen direnean hasten dira aítak bai eta paraleloki horien bikoteak ere elkartzen dira. Zer? Zergatik elkartu behar dute emakume horiek elkarrekin eta ez beste batzuekin? Edo lehendik ez daukate lagunik? Non daude lagun horiek?

Ibone. Ya, ya.

Beno, baina igual behar hori daukate.

Ibone. Zuk esaten duzu lagunak galdu egiten direla?

Martxeli. Nik esaten dut gero egiten dela zirkulu bat.

Ibone. Galdu ez. Niri pasa zait umeak txikiak zirenean, klaro, nire koadrilakoek umeak txikiagoak zeuzkaten eta erritmo ezberdinetan ginen.

Argia. Hori da.

Ibone. Orduan, bildu behar izaten nuen nik adin bereko gurasoekin zeren haiek ezin zuten.

Martxeli. Hori da.

Argia. Bai.

Martxeli. Eta, gero, jendea bueltatzen al da lehengo koadrilara edo ez?

Ibone. Bai, bai.

Argia. Bai.

Ibone. Nik ya umeak koxkorrak ditut eta jarraitu dut eta bueltatu naiz umeak eduki aurretiko bizimodu berberera. Bai.

Haizea. Hau da, ama izaten zarenean lagunak aldatzen dituzula. Hau da hau! Ni igual ez naiz izango ama, e. Con todo lo que me estáis contando, qué horror.

Kar, kar, kar.

Ibone. Ez, ez, nik berreskuratu ditut.

Martxeli. Proba egin eta gero dibortziatu, kar, kar. Eliminar, kar, kar. Bueltatu berriz ere. Baina, batzuetan lagunak bai aldatzen dituzu zeren, klaro.

Ibone. Bai, bai.

Argia. Bai, inguruko jendea aldatu egiten da.


Martxeli. Hori da.

Bale, oso ondo. Nik hemen esandakoak transkribatu eta bidaliko dizuet dokumentua eta iritzi edo onespina eskatuko dizuet. Eskerrik asko.


V. ERANSKINA

**ARMIARMA DIAGRAMA
BILDUMA**


ARGIA




HAIZEA




*AMA PALARIA EDO PALARIA DEN AMA?



IBONE





VI. ERANSKINA

**GALDEKETA
SOZIODEMOGRAFIKOA**



GALDEKETA SOZIODEMOGRAFIKOA

ARGIBIDEAK

Galdetegi honen xedea emakumeen eta euskal pilotaren gaineko ikerketa honetan parte hartu duten pertsonen oinarrizko datuak jasotzea da, taldeen deskribapenean erabiltzeko. Galdetegia anonimoa da.

Adi irakurri galderak eta erantzun laukian X bidez edo dagokiona idatziz.

Hona hemen atal bakoitzeko erantzunak ematen laguntzeko zenbait xehetasun:

1. Erreferentzia:

- 1.1. Parte hartzailearen profila: hautatu zein taldetan aritu zaren

2. Oinarrizko datuak:

- 2.1. Adina: urte kopurua zehaztu
- 2.2. Egoera zibila: egun bikoterik baduzun edo ez zehaztu.
- 2.3. Jaioterria: non jaio zinen
- 2.4. Bizilekua: gaur egun non bizi zaren
- 2.5. Ikasketak – formazioa: zer ikasketa dituzun adierazi.
- 2.6. Lanbidea: gaur egun zertan ari zaren lanean.
Adib.: Langabea edo ikaslea aukera ere izan liteke.

3. Galdekatuaren testuingurua:

- 3.1. Seme-alaben kopurua, adina eta sexua.
Adib.: 2; Neska, 10 urte eta mutila, 3 urte
- 3.2. Euskal pilotarekin izandako erlazioa: hautatu zer rol ezberdin bete dituzun. Bat baino gehiago hautatzea posible da.
Adib. Pilotaria – entrenatzailea – gurasoa
- 3.3. Beste jarduera fisiko/kirolik egin al duzu? Adierazi dagokion gunean
 - 3.3.1. “Ama ez bazara” atalean denak jarraian
 - 3.3.2. “Ama bazara” atalean bereizi haurra(k) izan aurrekoa eta ondorengoa.
Adib1. Atletismoa, federatua, 10 urte
Adib2. Bizikleta, neure kabuz, 2 urte

Zalantza bat izanez gero galdetu ikerlariari:

E-posta: uxueper@hotmail.com

Telefonoa: 628904156

Mila esker zure parte hartzeagatik.

GALDEKETA SOZIODEMOGRAFIKOA

1. ERREFERENTZIA		
1.1. Parte-hartzailearen profila		
Federatua <input type="checkbox"/>	Aisialdiko ikastaroa	
	Hernani <input type="checkbox"/> urkil	U <input type="checkbox"/> il <input type="checkbox"/>
2. OINARRIZKO DATUAK		
2.1. Adina Urte	2.2. Egoera zibila	
2.3. Jaioterria	Bikoteduna	<input type="checkbox"/>
2.4. Bizilekua	Bikote gabea	<input type="checkbox"/>
2.5. Ikasketak – Formazioa		
2.6. Lanbidea		
3. GALDEKATUAREN TESTUINGURUA		
3.1. Seme-alaba kopurua, adina eta sexua		
1.	4.	
2.	5.	
3.	6.	
3.2. Euskal Pilotarekin izandako erlazioa (lauki bat baino gehiago hautatu daitezke)		
Pilotaria <input type="checkbox"/>	Entrenatzailea <input type="checkbox"/>	Delegatua <input type="checkbox"/> Gurasoa <input type="checkbox"/>
Zuzendaritzako kidea <input type="checkbox"/>	Besterik <input type="checkbox"/>	
<i>Zehaztu noiz hasi zinen, zenbat urtean zehar eta zein mailatan</i>		
<ul style="list-style-type: none"> • • • 		
3.3. Beste jarduera fisiko edo kirolik egin al duzu? Zein, maila eta zenbat urtez zehaztu.		
<i>3.3.1. Ama ez bazara</i>	<i>3.3.2. Ama bazara</i>	
	<i>Ama izan aurretik</i>	<i>Ama izan ondoren</i>
<ul style="list-style-type: none"> • • • • • • 	<ul style="list-style-type: none"> • • • • • 	<ul style="list-style-type: none"> • • • • •
Besterik (gaiarekin loturiko beste zerbait idatzi nahi bazenu)		

Informe certificado de la CEID	C-6
Nº: CEISH/124/2012/FERNANDEZ LASA	

D. Miguel Ángel Gutiérrez Ortiz, presidente de la Comisión de Ética de la Investigación y la Docencia (CEID) de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

CERTIFICA que:

El proyecto de investigación con título "**Emakumeen pilota jokoak: azaletik mamira**" presentado por la investigadora principal D^a. **Uxue Fernández Lasa** para su evaluación por el Comité de evaluación ética CEISH, se adecua a las exigencias metodológicas, éticas y jurídicas vigentes.

Lo que queda recogido en el acta N^o 30 de la reunión ordinaria del Comité evaluador CEISH celebrada en el Rectorado de la UPV/EHU con fecha 21 de junio de 2012.

Y para que así conste donde proceda extiende el presente

Informe certificado favorable

En Leioa a 20 de julio de 2012

Periodo de validez: de 21 de junio de 2012 al 21 de junio de 2015

 Presidente/a de la CEID	 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea	 Presidente/a del CEISH
Fdo.: Miguel A. Gutiérrez Ortiz		Fdo.: Nekane Balluerka Lasa

Eva Ferreira García andreak. UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen du dokumentu hau inbex miz datorrela bat jatorrizkoarekin. Erregistro eta Arazo Orokorretako II. Bulegoko burua izenpetua, 2009ko urtarrilaren 7ko erabaki eskuordetzan emandako eskumena dela eta. Leioa, 2012. (e)ko... (a)ren... de... de 2012.

Ferreira García. Secretaria General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literariamente con el original. Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de enero de 2009, la jefe de Negociado de Registro y Asuntos Generales II. Leioa, 2012. (e)ko... (a)ren... de... de 2012.

VIII. ERANSKINA

**PARTE HARTZAILEEN BAIMEN
INFORMATUA**



Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la
Actividad Física y del Deporte



Departamento de
Educación Física y Deportiva
Gorputz eta Kirol
Hezkuntzako Saila



Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ikerketako parte-hartzaileen baimen informatua

Baimen agiri honen xedea ikerketa honetan parte hartuko duten pertsonen lanaren izaeraren inguruko azalpen argiak jasotzea da, beteko duten rolaren inguruko argibideak ere emanaz. Mila esker zure parte hartzeagatik aldeztu aurretik.

Ikerketa honen arduradun nagusiak Oidui Usabiaga eta Julen Castellano dira, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko ikerlariak.

Nik, _____-k, baimena ematen dut ikertzaileek burutzen ari diren “Emakumeen pilota jokoak: azaletik mamira” doktore-tesia garatzeko ikerketako datuak jasotzeko beharrezko elkarrizketak eta behaketak egin ditzaten. Ikerlan hau Uxue Fernandez Lasa doktoregaiak saioetan zehar buruturiko jardueren gain egindako behaketetatik ateratako informazioan eta elkarrizketetan oinarrituko da.

Aurrekoa betetze aldera honako hau jakinarazi zait:

- Parte hartzeko gonbidapena jaso nuela eta nire onospena (baimena) erabat borondatezkoa dela.
- Baimen Informatu orri honen kopia jasoko dudala.
- Ikerlan honen helburu nagusia eta azpi-helburuak hauek dira: emakumeen pilota-jokoaren egoera aztertzea.
 - Emakumeen pilota-jokoak dituzten esanahiak identifikatu hastapen, aisialdi eta errendimenduan.
 - Pilotaren testuinguruan burutzen diren kirol joko ezberdinek emakumearen bizipenetan duten eragina antzeman, emozioek zer joera sortzen dituzten aztertuz.
- Ikerketa honetan zehar Datuen Babeserako Legeak zehazturiko SZEA eskubideak bermatuko direla:
 - o Sarbide-eskubidea
 - o Zuzentzeko eskubidea
 - o Baliogabetzeko edo ezeztatzeko eskubidea
 - o Aurka egiteko eskubidea
- Jasoriko informazioa eta ikerketako erantzunak konfidentzialak (sekretuak) dira.



Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la
Actividad Física y del Deporte



Departamento de
Educación Física y Deportiva
Gorputz eta Kirol
Hezkuntzako Saila



Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

- Anonimotasuna mantenduko da. Nire datu pertsonalak ez dira une batean ere erabiliko.

- Datuak ikerketa helburuetarako bakarrik erabiliko dira eta ez dira inongo foro eta espaziotan partekatuko. Datu hauek doktoregaiak bere doktore-tesian erabiliko ditu.

- Ez dut diru saririk jasoko ikerketa lan honetan parte hartzeagatik. Ez dut parte hartzeko ordainketarik egin beharrik ere.

- Galdera edo zalantza bat badaukat harremanetan jar naiteke doktoregaiarekin:

Uxue Fernandez Lasa
Urtubi 8-A, 20700 Zumarraga (Gipuzkoa)
Tel. 628904156
E-posta: uxueper@hotmail.com

Parte hartzailearen izena eta sinadura

Informatzailearen izena eta sinadura

Lekua eta data: _____